DEUSTUKO UNIBERTSITATEA
HIRUGARREN ZIKLOA

EGITARAUA: Hizkuntza eta Hizkuntzalaritza

KOLDO MITXELENAREN EUSKARA NORANAHIKOTZEA:

AITZINDARIAK. HIZTEGIA ETA HIZKUNTZALARITZAKO HITZ BEREZITUEN AZTERKETA

Elixabete Perez Gaztelu andereak aurkezturiko doktore-tesia
Patxi Altuna Bengoetxea jaun doktoreak zuzendua

Zuzendaria

Patxi Altuna Bg.

Doktoregaia

Donostia, 1993-1994

"Nor da euscal-herrian, aldez edo maldez, gordun eta obligatu etxaitzunic? Bekatu eta emplegatu etxaituenic? Eta valiatu etxaitzanic?"

1. Kapitulua: TESIAREN AURKEZPENA

1.1. TESI HONEN ZIOA

> Eta euskara biziko baldin bada --eta gure aurrekoena ez baina geure izaera benetan azalduko baldin badugu-, gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahita ez: gaurko ezinegona, bizi beharra eta ezin-bizia, handinahia, diru gosea, maitasun-gorrotoak, gaurko gizonen ametsak, zuhur edo zoro; ezerezaren gau beltzean --hiltzeko sortua-, nondik datorren eta zertarako den ez dakienak daraman huskerlazko ibilera galdua eta bera baino goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera behartzen duen indar ezkutua. Eta goazen lehenbailehen Lizardik bere maitearekin amets-bideetan bariena egin zuen bidaldi luzea berritzera. (1951c:26)[1].

1.1.1. Honelaxekoa da Mitxelenak euskal letretan estreinatzean egiten duen gomitea, eta hauxe izango du, gure ustez, hain zuzen ere, iparrorratz bere moldezko bizitzan zehar; Lizardik poesi jazkiez gorpuzturiko bidaia berritzea.

Hemen kokatzen dugu guk Mitxelena lanera akuilatzen duen zioa, tesi honen abialekutzat hartu duguna. Lizardik egin bidaia berritu gogo du Mitxelenak; berrikuntzak berrikuntza, halaz ere, bidaiaren jomuga ez da funtsean aldatzen. Olerkariak esan zuen bezala, "hizkuntza larrekoa noranahiko" bihurtu beste irtenbiderik ez du euskarak bizirik iraungo badu.

Ikurritz hauen oinatzetan dator euskal moldezko plazara Mitxelena. Poeta ikurritz-mamitzailea eta Mitxelena baino lehen, haatik, aurkituko du errenteriarrak amets-egitasmo bera gidari izan duenik eta arrasto bera landatuz aritu denik; baita ibilbide, aldez neke aldez arin, horretan oztopo gertatuko zaionik ere.

Ibilbidearen nondik-norakoak argitzen saiatuko gara hemen, beti ere, Mitxelenak desio duen "euskara noranahiko-hiritar" horren atzean, inguruan, saihetsetan aurki dezakeguna argitu nahirik: hau da, zer dela eta eginbehar hori ezarri bere buruari; non, zeri begiratzen dion egitasmoa gauzatu eta aurrera eramateko; nondik abiatzen den mamilanean; nola egiten duen; ea eredurik begiz jotzen duen[2]; arbuiatzekorik topatu al duen bide horretan... hitz gutitan esanez, Mitxelenaren asmoetan arakatzeari helduko diogu.

Esana dago, beraz, Mitxelenagan azter daitekeen makina bat puntuetarik hauxe hautetsi dugula tesi-gai. Aurrera baino lehen, halere, uste dugu komeni dela Mitxelenarekin uztartu ohi den gai bat, bidenabar baizik ez ukitzera makurtu gaituen arrazoia argitzea.

---

[1] Tesi osoan zehar erabiliko dugun notazio-modua honelakoxea izango da: Mitxelenaren (nahiz Michelenaren) hitzak badira paperera aldatuak, ez da izenik alboratuko ezinbesteko gertatzean izan ezik.

[2] Beste gogalderik ere izan daiteke, noski (Lakarrak (1985a:17), adibidez, Sarako Etxeberri aipatzen du) eta katea guk hona ekarriko dugun ez bezain koa ere bai (esate baterako: Jautarkol --> Altzol --> Orixe, Lizardi, Lauaxeta). Guk, Mitxelenaren aipuetan hartu dugu oina eta jomuga; errenteriarrak lotuak hartuko ditugu, beraz, uztarkide.

Esan beharrik ez dago Mitxelenak euskararen batasunaren sortze-bilakaeretan izan duen eragina eta egin duen lana[3]. Gu ez gara horren jorran ariko.

Batetik, gal bakar horrek seguraski tesi oso bat eskatuko luke bere luze-sakonean, merezi duen heinean aztertu ahal izateko. Hemen haria beste - ez guztiz bestelako - batean bilatu eta aurkitu eta, erdizka landu baino nahiago izan dugu beharrezkotzat jo ditugun puntuetan bakarrik ukitzea.

Bestetik, berriz, gure uste apala da (uste dugu teslan zehar arrazoitu-indartuko dugula) Mitxelenaren bultzagarria, lehen bultzagarria bederen[4], batasuna bera baino areago euskararen hiritartzea, noranahikotzea dela (azken hitz hau zilegi bazaigu). Aldeztera goazena da, euskararen etorkizunak kezkatzen duen Mitxelenak, nolabait esan, funtsezko xedea, aldiek eskatzen duten aldarteari erantzuteko moduko euskara moldatzea duela eta hizkuntzaren berdintzea, batasuna[5], beste xede horren baitako bitarteko (ezinbestekoa) dela.

Berriz esan, azken xedeari begiratzea egokiago ikusi dugu bitartekoaren azalpen-argibideen barren izkutuak arakatzea baino. Zeinahi gisaz, ikusiko den bezala, maizkara alderdi biok kateaturik hartu beharko dira kontutan.

Hona beraz, tesi honen abiabidea eta ikerlanera bultkatu gaituena.

1.1.2. Mitxelenak zergatik egin duen argitu beharra bezain premiazkoa begitandu zaigu egokitu zaionean berak zer egin duen erakustea.

Hementxe datza tesi honek azalera eraman nahi lukeen bigarren alderdia. Uste duguna da, alderdi biok elkarren beharra dutela; hau da, Mitxelenak egina nekez uler daitekeela zergatik egin duen argitzeke eta, kontrako aldetik, hankamotz geldituko litzatekeela, asmo, arrazoi, kritika hutsetan amaia lukeen tesia.

Honako galdeari erantzuten saiatuko gara, beraz. Mitxelenak, aitzindari hautetsi eta altorturiko aurreko beste zenbaitek bezala, euskara noranahiko bihurtu gogo du. Gogo, asmo, bide-erakuste, aldezte hutsean (behiala hizkuntz aldeztatzaileak bezteko dantzaturiko argudioa erabiliz) planto egin al du ala bera ere, garai-giroetako kinkari erantzuten saiatu da?

---

[3] *Euskera* aldizkariko aleak ikusi besterik ez dago. Halaber, Koldo Zuazoren tesia (Zuazo 1987a) eta Zuazo (1987b) lana.

[4] "Euskararen batasunaz edo batasunik ezaz mintzatu beharko dut azkenik, gogo gaiztoz bada ere. Behin eta berriz esana dut ez nintzela neure gogoz sartu saltsa horretan, besteren eskez eta bestek bortxaturik baizik. Ongi baino hobekiago bainekien, batere atsegin ez zitzaidan erantzunbeharra bizkarreratzeaz gainera, nolako lokatzetan sartzen nuen neure burua.

Besterik ere gehitu behar dut, ordea. Azken buruan, ez ninduten bultkatu, nerau sartu nintzen neure baitarik. Nahi ez nuelarik ere, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen". (1972a:161).

[5] "Bizkortu nahi den hizkuntzak, eredu berdindua izan beharko du nahitaez, eta, **ahal delarik, batua**: ñabarduren muganiak, deskragarri bezain halabeharrezkoak, arau batzuen barnean hesitu beharko dira. Berdintze lan honek hitzen egokitzea (hitz erakarpena eta konposaketa, ez deklinabidea eta aditza bakarrik) eta sortzea, inoiz ez *ex nihilo* sortuak, bideratu beharko du, eta azkenean hizkuntza maila guztietara zabaldu, idazkeratik (beti ebakitzeari atxikia) sintasis [Jat. *sintaxis*] eta perpaus barruko hitzen joskeraraino". (1978a:41). (Beltz. gurea).

Erakutsiko dugun bezala, Mitxelenak hitzez ez ezik, eginez ere, euskara noranahiko-hiritarra mamitu du.

Bestelakorik aukera bazitekeen ere, begiak eremu zehatz batez hautatu zaizkigu: hizkuntzalaritza-filologietako (ez bakarrik euskalaritzako) hitz-altxorraz. Barruti horretan Mitxelenak euskaraz mamituak[6] hartuko ditugu iker eta azterkizun, euskara noranahiko eta hiritar hori, bere-berea duen arloan nola moldatzen duen argitu nahirik. Edo, aldrebes esanda, sail berezitu horietakoek euskal mintzabidea izan dezaten egiten duen saioa azaltzen saiatuko gara, euskara noranahiko-hiritarraren bilakatzailea dela erakutsi asmoz.

1.2. AZTERGAIA. ARGITARALDIAK

1.2.1. Aztergaia hiru motatakoa da. Hirutasun honek ikuskizun zuzena du tesiaren osagai diren hiru atal nagusien izaerarekin.

Lehen atal nagusia Mitxelenak on eta gaitz iritziez esanen bilduma eta ikerketa denez gero, Mitxelenaren lanak oro har, baina euskal lanek nagusiki, osatuko dute azterresparrua, halakoaz zein harako hartaz dioenaren berri izateko. Atalaren izaerak berak (egitasmo-irizpide-kritika eta abarren elkarlekua izateak, alegia) baldintzatua dakar zabalgoa.

Berriz esan, euskal lanak dira batez ere ardatz hautatuak, baina ez zaie muzin egingo erdaraz idatziei[7]; areago, zenbait kasutan, erdal lanak ezinbestekoak direla egiaztatu ahal izango da[8].

Bigarren aztergai-mota, hiztegi-gaia da. Hiztegiaren sarreran emango diren arrazoiak direla medio, Mitxelenaren euskal lanen barruan, (euskal nahiz orotariko) hizkuntzalaritza-filologiak mintzagai berariazkoa dituztenak (guztiak ez, haatik) hartuko dira hustu eta hiztegi-itxuraren arabera atontzeko.

Beheraxeago adieraziko den bezala, aztergai honen mugarritzea ez da gure esku egon, bestek egina ontzat eman badugu ere.

Hirugarren aztergaia, geurok zedarritua da. Aipatu berri ditugun gai beraren gaineko lanetan erabilirikoetarik, erabileraz berezitutzat hartu ditugunei soilik egokituko diegu azterlana. Hirugarren atal nagusia osatuko duen azterlanaren sarreran argituko ditugu iparrorratz harturiko irizpideak eta hauen ingurukoak.

---

[6] Guztiak ez, gure hiztegiaren sarreran arrazoituko ditugunak direla medio.

[7] Ik. Bibliografia.

[8] Urrutirago gabe, Larramendizko "La obra del P. Manuel de Larramendi. 1690-1766" (1959d) edo Azkuezko "Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue" (1984a), esate baterako.

1.2.2. Argitaraldiak

Argitaraldien aukerak ondore latzak dakartzala esan beharrik ez dago. Guk bitara jokatu dugu.

Batetik berezi ditugu hiztegi-gaia osatu behar zutenak (*MEIG*[9] *VI Hizkuntzalaritzaz I*, *MEIG VII Hizkuntzalaritzaz II* eta *Zenbait hitzaldi* (bilduma bereko 36. zenbakiduna), eta bestetik, lehen atala jorratu eta osatzeko erabiliak.

Hiztegi-gaia behar zutenak, exhaustiboki alderatuko ditugu lehen (batzuetan baita bigarren ere) aldaerekin. Berdintze honen ondoreak, beherago diogun bezala, hiztegiari alboraturiko itsaskinean emango ditugu.

Alpamenetan erabiltzekoak, berriz, azken argitaralditik aterako ditugu eta ez diegu argitaraldiz argitaraldiko zertzeladarik alboratuko, arestian zehazturiko hiru bildumetakoei izan ezik. Azken hauetan testurako duguna azken argitaraldikoa izanik ere, oin-oharren bitartez zehaztuko ditugu, ortografia hutsa ez diren bestelakoak.

Egia esan, zuzenagoa zatekeen eta da lan guztietan aipatu berri dugun modura jokatzea, baina, Mitxelenaren hitzak testura eramateko arrazoia hizkuntzazkoa justu ez baina mamizkoa denez gero, iruditu zaigu ez geniekeela halako kalterik edo iruzur handirik egingo. Hau da, bilduma batek eskaintzen duen abantailaz baliatu gara kasu honetan[10].

1.3. AZTERBIDEA

Tesietan ohiko izaten da atariko-abiapuntuko kapituluan tesigileak baliaturiko azterbideen berri ematea. Halarik ere, guk ez dugu horrela jokatuko, tesi honi eman nahi izan diogun taxuak, erabili dugun jokamoldea zilegiztatzen duelakoan gaude eta.

Beraz, ez dugu hemen azterbide-metodologiazko azalpenik egingo, atal bakoitzaren lehen buruan horren gainekoak xeheki emango baititugu.

Salbuespena da, apika, lehen atala, ez baikatzaizkio azterbide jakin bati lotuko, Mitxelenak zenbait euskaldunez barreiu esanak bildu eta sistemara biltzea izan baitugu asmo. Mitxelenaren aldi desberdinetako aipuak lehengai hartuz, bada, saiatuko gara nolazpaiteko antolamendua eta argibidea eskaintzen.

---

[9] Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak, "Klasikoen Saila", 1988an argitara eman zirenak. Ik. Bibliografia.

[10] Eta honen ondorioz, gure testuko artikuluen izenburuak ere ortografia bateratuan emango ditugu, lanaren argitaradatak bereziki garrantzia duenean salbu.

Gure teilatuari harrika ari garela dakigun arren, altortu behar genuela uste dugu. Zeinzhi gisaz, asti handiagoa hartuz, ez diogu geure buruari lan hau egitea ukatzen.

1.4. TESIAREN ATALAK

1. Atalean

Tesiaren ablapuntua, adierazi den bezala, "Euskara norahiko-hiritarra" oratzean Mitxelenak asmokide eta erdeinatu dituenengan arakatzea izango da, hobeto esan, Mitxelenak berariaz halakotzat joez adierazten dituenetan.

Zoko-miratze honek, ezinbestean, atzera begiratzea ekarriko du, Mitxelenak ere atzera begiratzen baitu berea bezalako eragingarririk beste inork aurretik izan ote duen egiaztatu asmoz.

Historiak Mitxelenagan alde bat baino gehiagotatik berebiziko garrantzia duela eta, halaxe azal daitekeelakoan gaude. Uste dugu, tesian zehar argi eta garbi ikusiko dela hau.

Atzokoak ez ezik, garaikideak ere ahotan hartzen ditu Mitxelenak, onak eta gaiztoak, mesede eta kaltegarriak alboratzeko. Hauei ere erreparatuko diegu.

Saiatuko gara, ahalen neurrian, Mitxelenak esanari leialki eusten eta aldian aldiko aztergaia geure begietatik ez juzgatzen; Mitxelenaren lanek mugarrituko dute gure zereginaren esparrua.

Alabaina, behin baino gehiagotan, gaiazko kritika adituaren laguntzaz baliatuko gara, Mitxelenarenak iruzkintzeko, argitzeko, inoiz Mitxelenarenak geroko euskal ikertzaileek bere egin dituzten ala gertakariek kontrakoak azalean utzi ote dituzten ikusteko. Hitz batean esanez, gure tesi-gaiarenak osatzeko; beti ere, gure iturburuen berri zehatza emanez.

Geure begien araberako Mitxelenaren autu hartuekiko jokamoldea, kapituluen ondorioetan eta ondore orotarikoetan azalduko dugu.

Mitxelenaren hitzetan oinarritzeak badakar lanik bizkarrera. Izan ere, Errenteriako maisuak oso gogokoa zuen aieruz, zeharka, izenik berariaz ahotan hartu gabe, ezker-eskuin aritzea.

> Alpamenen ehiztaritza ere ez da egiteko afferra, inork ez baitu deus ezerezetik ateratzen, beti behar izan baitira gidariak eta sostenguak. (1981b:81).

Garaikideentzat, Mitxelenak bezalako ezaupide erraldoia dutenentzat, apike, ez da gaitzegi izango horiek guztiak garden ikustea. Guri, berriz, honako edo beste halakoren atzean zer edo zein ote dagoen asmatzea, behin baino gehiagotan, bilaketa bilakatu zaigu, alpu-ehiza. Litekeena da, beraz, leherrenak egin baditugu ere, bateren batek itzuri egin izana[11].

---

[11] Edonola ere, larriek ez, guk uste.

> Alpamenak (eta alpamenen bidez seinalatzen diren iturburuak) giro baten fruitu dira, inondik ere. Giro horren barruan bizi denak adi ditzake; ez, ordea, arrotzak. Zehazkiago, giro horren barrenean, horrela uste du idazleak, badira franko uler ditzaketenak; hortik kanpora, berriz, ustekabean baizik ez da aurkituko jakinaren gainean dagoenik. Zenbaitek badakite, Chaucer irakurri ez badute ere, nor zen Bath-eko andrea; beste zenbaitek badute Camachoren ezteien aditzea. Baten batek, azkenik, igerriko dio adierazi nahi duzunari Maisu Juanek ostatuan kontu tarregia kitatzeko erabili zuen burubideaz. (1981b:83).

Erabat agortzailea ez izateko arriskua aurrean izanik beraz, ekingo diogu lehen atal nagusia osatuko duten hauezazko Mitxelenaren ikuspegia hona aldatzeari: Larramendiz, Azkue eta Arana Goiriz, Garbizaleez, Orixez, Lizardiz eta, beste izen hoberik ezean, "narraszaleak" bataiatu ditugunez[12].

Kapitulu bakoitzari, atarikoa eta ondore gisakoak alboratu dizkiogu.

2. Atala

Bigarren eta hirugarren atal nagusien zioa, lehen adierazi bezala, Mitxelenak hizkuntzalaritza-filologietan euskaraz erabiliriko hitz-altxorraren berria ematea da; hau da, berak bestez esana aldatu eta azterkatu ondoan, berak egina begiestea. Horretarako, egoki ikusi dugu honako bi osagaiak atontzea: bigarren atal nagusia hiztegiak beteko du -bere sarrera, argitaraldiezko itsaskina eta gehigarri edo emendakinekin-; hirugarrenean, hiztegi berezituaren azterketa morfologikoari ekingo zaio.

Hortaz, bigarren atal honen sarreran argituko ditugu gure hiztegigintza-lanean irizpide eta oinarri hautetsiak: azterbideak, bibliografiak eta abarrak, arazoez atzentzeke.

Argitaraldiezko itsaskina eranstea ezinbesteko gertatu zaigu, han azalduko diren arrazoiak direla medio, informatika-lanean lehengai hautetsiriko argitaraldiak bai baitu ondorerik.

Informatika-lanaren eta lexikografi euskarrien ondorio den hiztegia bera, emendakinez osatuko da, hiztegiaren sarreran adieraziko diren arrazoiengatik.

Uste dugu hiztegiari dagokion atal honek, bere murritzean, Mitxelenaren hitz-altxor aberatsaren erakusgarria izateaz gain, egungo euskalaritzarentzat jakingarri ederrik eta bizi diren kezkabide bizirik erakutsiko duela.

---

[12] "Morrontzazale" edo "mendekozale" ere bataia zitezkeen, apika.

3. Atala

Hirugarren atalean, guk begiz jotako aztergaian Mitxelenak darabiltzan hitz-sorbideen ondoriozkoak aztertuko ditugu, batipat, Morfologia Sortzailearen teorietan eta *LSP* (*Language for Special Purposes*) –guk *EBH* (*Eginkizun Berezietarako Hizkuntza*) deituko duguna– aztertu beharra aldarrikatzen duten ikusmoldean oin hartuz[13].

Hagitz garrantzizkoa iruditzen zaigu Mitxelenak usatzen duen hiztegi berezituari erreparatzea arrazoi desberdinengatik.

Ezer baino lehen, halaz are, argitu nahi dugu abiapuntutzat hartu dugula honakoa: ez gara hitzen[14] sortzaileazko auzian sartuko (Mitxelenak eratuak ote diren ala beste norbaitengandik hartu ote dituen), eta Mitxelenak erabiliak izatea, bere pleguetan irakurri ahal izatea, guretzat, aski den adinako baldintza izango da.

Hortaz, errenteriarrak darabiltzan hitz berezitu horien aztertzeari ekingo diogu, honako helburu bikoitza erdietsi asmoz:

-deskriptiboa, batetik: nolakoa da Mitxelenak darabilen hizkuntzalaritza-filologietako hiztegi berezitu hori, nola moldatzen da adigai horiek euskaraz adierazteko? Hau da, zein da aztergai honek islatzen duen Mitxelenaren "eredua"? (honela esaterik badago).

-erkatzaile-egiaztatzailea bestetik: noraino gordetzen du berak mamituetan eredugarritzat daukana? zenbatetaraino saihesten da besterengan bezteko antzemanetatik? Bestela esan, non datza Mitxelenaren koherentzia?

Bitariko helburu horren kariaz, beraz, eratuko ditugu atalez atal izaera morfologikoaren araberakoak, honako multzo nagusiak bereziz: hitz bakunak, eratorriak eta elkartuak.

Sintaxi-baliabideei ere bere tokia eskainiko diegu, garrantzizkoa iruditzen baitzaigu Mitxelenak behin eta birritan ahotan duen zerbait erakusteko; euskal egiturak ez duela zer izan erdal egituraren ispilu eta morroi, alegia.

Sailkapen honetatik lerratuxe dagoela irudi dezakeen arren –baliabide bat ez baina bat baino gehiago baita usatua–, egoki ikusi dugu erdal aurrizkidun zenbaiten (ohikoenen, emankorrenen) euskal ordainak Mitxelenak nola gatzatu dituen erakustea, Mitxelenaren beraren eta besteren[15] hitzetan oin hartuz.

Espero dugu gure azterlanak agerian utziko dituela batzuk eta besteak; hots, deskripziozkoak eta egiaztatzekoak.

Halaber, ez dabil gure gogotik txit urruti, Mitxelenak erakusten duen jokamoldea egungo euskara hiritar eta noranahikotzear dugunarentzat erakusgarria izan daitekeela.

---

[13]Berriz ere, ez dugu azterbideen berri zehatzagorik hemen emango, atal honen sarrera edo atarikoan xeheki eskainiko ditugu eta.

[14]Labur-beharrez honela erabiliko dugu hemen. Azterlanean ariko gara unitateen kontu honezaz.

[15]Horretantxe ari da, hain zuzen ere LEF batzordea, esate baterako.

Honenbestez bukatutzat emango dugu Mitxelenaren hitz-sorbideen azterketa.

Kapitulu bakoitzaren azken buruan, ondorioztatuak papererako ditugu.

4. Ondore orotarikoak

Tesiaren azkenean, ondore orotarikoak landatuko ditugu. Kapituluz kapitulu ondorioak alboratuko ditugun arren, aurkezpen gisako honetan zehar idarokitzen eta erantzuteke uzten ari garen auzi orotarikoak ase ditzagun eta tesiaren bizkarrezurra berriz ere osa dezagun.

1.5. BIBLIOGRAFIAZ

Bibliografi zerrenda, tesiaren atal nagusien arabera antolatuko dugu. Honek esan nahi du, ataleko idazlan-zerrenda berariazkoa banatuko dugula.

Atalez atikako beste bibliografi zerrenda, laugarrena, honenbestez, bestek Mitxelenaz esanari dagokio, hobeto esan, guk irakurri ez ezik[16] testura, aldez edo moldez, ekarriari.

Mitxelenaren lanei dagokienez, zehaztu gogo dugu idazlan-zerrenda bat baino gehiagotan agertzeak hain zuzen ere horixe adieraziko duela, atal horri berariaz atxikitzen zaiola, alegia.

1.6. HORTAZ, ZEIN DA GURE TESIA?

Erakutsi asmo eta gogo dugu, Mitxelenak amets eta desio duen "euskara noranahiko-hiritarra", esanez bakarrik ez baina eginez ere gatzatu duela.

Erakutsiko dugun bezala, eginbehar horri ekitean ez da hutsetik hasiko, atzera begiratuko baitu heldu zaion lokarrian hautatzekoak eta bazterrean utzi beharrak bereiztearen kariaz.

Hizkuntzalaritza-filologiezko lanetan darabilen hitz-altxorra jo dugu begiz, diogunaren erakusgarri izan dadin.

---

[16] Besterik ere irakurri dugu, baina ez zuten toki erosorik tesi honen harian.

I. ATALA

2. Kapitulua: MANUEL LARRAMENDI (1690-1766)

2.1. ATARIKOA

> Labur eta zehazkiago altor dezadan: Larramendi izan da, lehenbiziko[1] aldiz eta erabat, hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtu nahi izan duena[2] (...) Gure egunotaraino begira egon gabe, horrexek erakusten digu Larramendi izan zela, lehengo eta behin, "aldiritarren" hizkuntza hiritartu nahi izan zuen lehen euskaltzalea. (1984b:33).

Hona Mitxelenaren hitzez landaturik tesiaren bizkarrezurra.

Sarreran esana doan bezala, Lizardik poesi jantziaz gatzaturiko xede-helburuen katean kokatu dugu Mitxelena. Gibelera begiratu ondoko gogaide aspaldikoenarengandik hasiko dugu ikerlan hau, Mitxelenak asmokidetzat begiz jotzearen atzean leudekeen arrazoiak argitu nahirik.

Mitxelenaren aipamen barrelatuetan sustraiturikoa da ondokoa, lehentasuna, euskal lanetan jalkiei bereziki emanez, errenteriarrak erdal lanetan adieraziez atzentzeke, halarik ere.

Atalaren antolakuntzarako, kontutan izanik Larramendiren inguruko hamaika auzik oraindik ere azterkizun eta argikizun diharduela eta Mitxelenaren izena sarritan ahotan hartu dela, Mitxelenaren lanen argitaradatari arretaz erreparatuko zaio, batipat, denboraren joanak andoaindarrazko iritzi-aldakuntza nolabaitekorik ekarri ote dion egiaztatu asmoz.

Larramendiren inguruko punturik istilutsuenak jorratuko dira nagusiki[3], Manuel Garagorri Larramendiren hirugarren sorturrenaren akuiluaz, batez ere[4], plazara ikerlanen ekarri probetxuzkoari etekina ere atera nahirik, beti ere, Mitxelenaren Larramendizko ikuspegiaren argibidean lagungarri izan daitekeen neurrian.

Iparrorratz honen baitan, beraz, honako azterpuntuak begietsiko dira:

2.2. Mitxelena Larramendiren berreskuratzailea
2.3. Larramendiren xede-helburuak
2.4. Larramendiren apologi lana
2.5. Larramendiren euskara idatziaren eredua
2.6. Larramendik jendarteratutako lanabesak
2.7. Larramendi idazlea
2.8. Larramendiren eragina
2.9. Larramendiren zoria

---

[1] Orexarrari eskainiko zaion atalean jasoko den legez, "euskara noranahikotzearen" aitzinatasuna 1961ean Orixeri eman zion Mitxelenak.

[2] Jat. *bihurtu izan nahi duena*.

[3] Kanpoan geldituko dira, beraz, hizkuntz egitamuarekin salhetseko zerikusia baino ez dutenak.

[4] Ez bere bakarrean, aspaldikoago zenbait lan ere txit ballotsu egin baitzaizkigu, bibliografian egiazta daitekeen bezala.

2.2. MITXELENA, LARRAMENDIREN BERRESKURATZAILEA

El primer[5] "aireador" moderno de Larramendi fue Koldo Mitxelena, *La obra del P. Manuel de Larramendi*, precioso trabajo entonces perdido en los "Cuadernos de la Cátedra Feijóo", nº6 (Oviedo 1959), que ocasionalmente descubrí. (Tellechea Idígoras 1992:28).

Larramendiren berreskuratzaileen artean aitzindari[6] diskutiezina den Tellechearen hitzetan, Mitxelenari aitortzen zaio jesulagunaren herritartzaile berrien aitzinatasuna eta, estreinakotasunaren lekuko, erdal lan hori alboratzen.

Erdal lan hori osoena eta beteena izanagatik, badu Mitxelenak, euskaraz zein erdarez, hori baino lehenagokorik, Larramendi, aldez edo moldez mintzagai duenik[7].

Egia bada ere lanotarik gehienetan, Larramendi, aieruz besterik ageri ez dela (gehienetan goraipatzeko, gutxiagotan beztek_) eta "La obra del P. Manuel de Larramendi. 1690-1766"-k[8] askoz ere irudi oso-beteagoa eskaintzen duela, egia ere da, beste lanotan, gaurko begien aurrean pisuzko irizten diegun zenbait aipamen han eta hemen jaurtikitzen dituenak, Mitxelenaren ikuspegia osatzeko txirbil, batzuetan, txit garrantzizkoak direla.

---

[5] *moderno*-rena gora behera, gogoan hartu beharko lirateke, apika, Orixek, giroa oso Larramendiren aldekoa ez zenean, luze zein labur, zenbait tokitan adierazlak: "Larramendi" (1924), "Euskal literatura'ren atze edo edesti laburra" (1927), "«El Imposible vencido», su significación y trascendencia" (1930), "Lafamendiren iztegia" (1930), "Los jesuitas y el euskera" (1932).
Ez ditu, haatik, lanok aipatzen Tellechea Idígorasek 1966ko laneko "Bibliografía sobre Larramendi" atalean.

[6] Prestaturikc andoaindarraren argitaraldiez gain, beharbada, berezki azpimarratu beharko lirateke, 1966 eta 1968ko lanak.

[7] Hona erakusgarria:
1954a, "Orixe gure artean",
1954b,"Las escrituras apócrifas de Andramendi"
1955d, "Juan Gorostiaga, *La poesía popular en el País Vasco*"
1956a, "Pío Baroja"
1956d, "Algunos nombres vascos de animales"
1957a, "À propos de l'accent basque"
1957b, "Basque et Roman"
1958a, "Literatura en lengua vasca"
1958b, "Unas observaciones al último número de *Euskera*. 1. Ronc. *arnari* 'fruto'; 2. A. Nav. *euntze* 'belardi' ['prado']"
1958f, "Introducción", N. Landuchio, *Dictionarium linguae Cantabricae (1562)*
Hauen ondoan, Tellechearen aipameneko urte berean, 1959an alegia, beste honakoak ere argitara zituela erants daiteke:
1959a, "Euskal itzak zein diren"
1959b, "*Itun zar eta berria*, Olabide'tar Erraimun, S.I. (1869-1942). Bilbo'n, Yesu'ren Biotzaren Deya, 1958"
1959c, "La correspondencia del P. Larramendi".
Larramendizko orotariko bibliografiaren berri zehatza, gure (1992) lanean emana dugu.

[8] (1959d).

Honela, esate baterako, erdal lanen artean bat azpimarratzekotan, 1960ko *Historia de la literatura vasca*[9] sonatuan papererraturiko juzku ugari –laburrago adieraziak[10], haatik–, 1958ko *Historia general de las literaturas hispánicas*, G. Diaz Plaja-ren zuzendaritzapean bilduriko lanetako Mitxelenaren bihian[11] irakur daitezkeenak aipatu behar dira, ezinbestean.

Euskal lanei dagokienez, berriz, "Euskal hitzak zein diren"[12] 1959ko lanean esanei ardurako iriztea ez bide da auzia desitxuratzea. Izan ere, Larramendi, beti egoki bereizten bide ez den garbizaleen samaldatik bakantzen du Mitxelenak batetik, eta, hitzak, euskal hitzat hartzeko irizpidean gogalde aurkezten, bestetik. Gertari biok, mende-sasoi eta mende-giro hartan. Muzin egitekoa ez da, urte berean Olabidek eginiko *Itun zar eta berria*ren iraulpenari Mitxelenak eginiko iruzkina[13] ere, ikusiko den legez.

Honenbestez, agerian dagoela dirudi, Mitxelena, Tellechea Idigorasek ahotan duen lanean nabarmen, baina aurretiaz ere, Larramendiren berreskuratzaile bakanetarikoa dela, baita giroa –euskal giroa, zehatzago esan–, oso Larramendiren aldekoa ez denean ere:

> Aspaldi ez duela, kontuak hartu dizkidate – eta, jakina, ez diot horretarako eskubiderik ukatzen hartu dizkidanari – euskal idazle bakoitzari liburu batean opa nizkion edo ez nizkion lerroak direla eta. Dirudienez, ez baititut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri "cuya obra principal es un diccionario vasco-español (atzekoz-aurrera irakur beza irakurleak) plagado de aberraciones...". (1962a:83)[14].

Euskaraz ari denean ez eze, erdaraz ari denean ere, ez dabil Mitxelena zurreriatan begirunea eta goresmena agertzeko andoaindar jesulagunaz ari denean: "gloria de la Compañía de Jesús y de su país natal", "uno de los talentos más preclaros que han nacido entre nosotros"[15], irakur daitezke, besteak beste.

Honek ez du, haatik, esan nahi, Larramendiganako miresmenak Mitxelena itsutzen duenik, Larramendigan kausitzen duen orori goragarri eta laudagarri irizteraino.

---

[9](1960b).

[10]Honetaxe adierazten du Mitxelenak bere historiaren atarian irakurleari zuzentzen dion atalxoan ere: "Una versión abreviada de este estudio se ha publicado ya, en fecha reciente, en el tomo V de la *Historia general de las literaturas hispánicas* (Barcelona, 1958)".

[11](1958a).

[12]Teslaren sarreran arrazoitu bezala, gure testuan, arrazoi berezirik ezean, Mitxelenaren lan berrargitaratuen grafia gaurkotuaz baliatuko gara. Ikus, halaz ere, bibliografian jatorrizkoaz.

[13](1959b).

[14]Garbizaleez edo, beharbada, hobeki esan, garbikeriaren aldekoez mintzatzean itzuli beharko dugu aipu honetara. Bego, momentuz, Mitxelenaren larramendizaletasunaren testigutza gisa.

[15](1959c).

Mitxelenarentzat, berreskuratzeko modurik zentzuzkoena eta benetako miresmena erakusteko modu bakarra, ekinez, munduan utziak aztertzea izaki:

> Aurrekoei eraso behar diegu, haien lanak aztertu behar ditugu, ahalik ongien bahatzeko, garbitzeko, murrizteko nahiz ugaritzeko. Begiramena zor diegunekin bakarrik egiten dugu lan hori, eta zor diegun begiramenaren arabera. (1964a:19)[16].

> Deus gutxi uzten dugu hemen gehienok, mundutik aldegitean: oroitzapen laburra eta, onenik onenean, kromosoma pilo bat. Zerbait gehiago utzi dutenak bizi garenon[17] ongi naiz [sic] gaizki esanek dauzkate bizirik hil ondoan. Eztabaidak eta kritikak bukatu orduko, egin du haien izenak ere. (1966a:67).

hurrengo kapituluan jorratuko diren Azkueren lanei egin bezala, Larramendirenak miatzeari ere ekingo dio, jesulagun euskalariarengan eta honek gatzatuetan ikusten dituen alderdi on eta gaiztoak adierazi asmoz:

> Maiz asko aztertua izan den arren, merezi luke andoaindar handi honek berriz ere arakatua eta miratua izatea. Nolanahi ere den eta euskaraz usuegi idatzi ez zuelarik, maisu agertu zen bere garaikoen eta gerokoen aurrean harik eta azken mendearen hondarreraino[18], hurbilago ere altormen onik, gero eta bakankiago, bildu duela. (1983b:114).

Bi aldeok jaso nahi izanaren errainutzat har daitezke denboran zehar elkarren ondoan azalduz doazen Larramendiren laudatzekoak eta okerrak, goresten duen Larramendik ere egin baititu, egin ere, Mitxelenari desegokikeriak begitantzen zaizkionak. Alabaina, sarritan saiatuko da errenteriarra desegokikeria horien akuilua non zetzan ikusten eta horren argitan aditzen.

Honenbestez, atalean zehar erakusten joango gara, Mitxelena, Larramendiren berreskuratzaile soila baino areago dela; larramendizale ere badela. Imintzioz eginiko aipamenak nahiz lerro ugariagoko plamak[19] –mintzagaia Larramendi izaki– berreskuralanaren eta zor dion miresmenaren adigarri dira oro.

---

[16] "Eskaintza" 1965ekoan, zehazkiago esan.

[17] Jat. *geranon*.

[18] Bitxi deritzagu *harik* honi. Ez da bakarra, haatik, Lizardiri eskainiko diogun kapituluan aldatuko dugun bezala, (1977c:44) lanean pare-pareko egitura darabil.

[19] Gure miasaioak Mitxelenak 68 lanetan, aldez edo moldez, lehen genioen bezala, Larramendi aipatzen duela erakutsi digu. Perez Gaztelu (1992:173-175).

2.3. LARRAMENDIREN XEDE-HELBURUAK

Larramendiren xede-helburuak egitasmo orotarikoan kokatu beharrak bide dira. Andoaindarrak idatzietan, berandu arte argitaratzerik izan ez dutenetan batez ere[20], adierazia baitu, lan honetan berariaz erreparatuko zaien hizkuntzazkoek biziki kezkatuagatik, besterik ere badela hauen azpian edo atzean, ez duela Larramendi euskararen egoerak soilik arduratzen, alegia, ez, hizkuntzaren bizibidean eragina duen bestelako ingurumariirik kontutan hartu gabe, behintzat, guztia bortizki uztarturik datorrenez gero[21].

Larramendi, Gipuzkoak eta Euskal Herriak kezkatzen du, herri honek bizi duen egoera arriskutsuak. Probintziaren alde ageri da argi eta garbi andoaindarra; *Corografia* aipatu besterik ez dago honen erakusgarri.

Alde honetatik, Larramendi, segizioko leial izan zuen Iztuetaren ondoan aipa daiteke. Gipuzkoa txit maite izanagatik, Mitxelenaren ustez, zaldibiarraren gipuztasuna ez bezalakoa da Larramendirena; zehazkiago esan, Gipuzkoaren aldeko sutsutzat dauzkan Larramendi eta Iztueta ez datoz osotoro bat jomuga paratzean:

> ... Iztueta fue un fuerista deliberada y exclusivamene guipuzcoano, el más exclusivo que conozco. Las *cosas cantábricas y guipuzcoanas* de Zaldibia quedaron en él en *guipuzcoanas* a secas (...) En esto el pensamiento de Iztueta tan tributario en muchas materias del de Larramendi, se opone diametralmente a él: éste en un pasaje no demasiado comentado de su *Corografía*, exigía la unión (*elcarte*) de todos los vascos como condición previa para la defensa de lo propio, primero, y para mayores empresas, después. (1978d, *PT*:356).

> Bi eratako jendea aurki daiteke gure artean, auzi honi bagagozkio. Iztueta, esaterako, "gipuzkoarra" dugu: kondaira Gipuzkoakoa da, Gipuzkoakoak dantzak ere. Bazekien pausoro darabiltzan euskara eta euskaldunak ez zirela gipuzkoar soilak. Baina ez du berez datorren ondoriorik ateratzen. (1987a:152).

---

[20] Jesuiten orduko "kinka larriak" eragin zion, Mitxelenaren ustez, Larramendiren idatzizko ekoizpenari:

"Zuzperraldi honetan, Larramendi aipa genezake besteak beste (jesuiten kinka larria izanik, ez zuen honek bere barrengo guztia argitara eman)". (1978a:37).

"Así también, cuando se lamenta [Sarmiento] con toda razón el empobrecimiento que supuso para España la expulsión en 1767 de los jesuitas, que aquí constituían un grupo claramente "ilustrado", queda en el aire una pregunta: las obras merecidamente reputadas que vieron la luz en Italia, ¿se habrían publicado con la misma libertad en España? ¿No habría pesado sobre ellos, como sobre tantos otros la presión asfixiante del ambiente? No hay que olvidar que, en los años anteriores a la expulsión, la crítica situación en que se encontraba impuso a la Compañía, por razones no exactamente inquisitoriales, una política de rígida censura interna para evitar que cualquier escrito de uno de sus miembros le acarreara graves inconvenientes por delación de alguno de sus muy diversos enemigos". (1975a, *LH*:116).

Aurrerago itzuliko gara puntu beronetara.

[21] Alde honetatik, esango genuke, ikuskizunik baduela Mitxelenarentzat euskara idatziaren molde bateratuak Euskal Herri sakabanatu baina batu-gogoarekin (beste arrazoiak beste, noski):

"Batasunaren beharra nabari genuen eta batasunaren aldeko gogo bizia arras hedatua sumatzen genuen jendartean: nahia eta ez nahikunde epela. Herriaren batasunik ezak ekarri bazuen hizkuntzarentzat, baita hizkuntza idatziarentzat ere, desberdintzea, puskatzea eta, azken-azkenean, baita apurtzea, birrintzea eta xehakatzea ere, hizkuntzaren batasuna izango zen euskaldunon batasunaren seinale eta ondorio". (1978c:169).

Hau da, Larramendiri, Iztuetak hautesten dituen probintziaren mugarriak motz gelditzen zaizkio, harantzago doa euskaldun guztien batasuna aldarrikatuz[22]:

> Bereztalleen artean izan dira halere zenbait batasun-zale. Oihenart[23], adibidez, eta Peñaflorida. Eta buruen buruenik Larramendi, betiko "gipuzkoar[24] eta gainerako euskaldunak" ahotan dituena. "Non da ordea - dio - elcarte hori?" "Guerras tendremos que sustentar. Sea así. Pero serán guerras cantábricas cuyo nombre debe infundirnos aliento." Halabiz, eta odol ixurtzerik gabeak izan bitez. (1987a:152).

Larramendi, gogaide dituen mauletarrarekin eta azkoitiarrarekin batean eta errenteriarra ez dabilkiela oso urruti esatea ere (*Halabiz*) zilegi dirudi- Euskal Herria batasun-bidean abiarazteko asmoari dagokionez, *avant le mot* moduko abertzaleen[25] oztekoa da.

---

[22] Larramendiren ideia politikoak, probintziaz duen ikuspegia, foru-errejimenazkoa eta beste aztertu berri dituzte jaiotturrerena zela eta, X. Arzalluzek, P. Fernández Albaladejo-k eta G. Monrealek.

[23] "Dena den, Oihenarti esker, historiagrafia [sic] nabarristak jauzi kualitatiboa ezagutu zuen. Ordurarte, ez Iparraldean, ezta Hegoaldean ere, inork ez zuen Euskal Herri osoaren historia idatzi. Historiaren ikuspegiari, beraz, esparru berriak eman zizkion: ekonomia, etnologia, geografia, bizimoldeak idazgai gisa sartuz. Ordurarteko historiografiaren [sic] eremua ahaide nagusien eta erregeen kronikетara mugatzen zen. Bestalde, Garibairen edo Pozaren mitoekin -tubalismo eta kantabrismoarekin- apurtzen du Oihenartek, histori gaia baskoien lurraldearen inguruan kokatuz eta lekutuz [sic]. Alde horretatik Oihenart izan zen Euskal Herriari historiaren hasiera eta lurraldetasuna eman zizkion lehen historialaria". (Gorhenetxe 1993:56)

Halarik ere, ingurumarratik at ikusi nahi izatearen arriskua eta desegokia aurrean izan beharrekoak dira.

"Ez zaizkio eslatu behar, ezta aitzin gibelatu behar ere, XX. mendeko euskaltzale edo abertzaleen irizpideak. XVII. mendeko lanen Historia eraberritu zuela ez da dudarik. Euskal Herriko historiari lurraldetasuna eman zion. Alde horretatik bere lanaz eta ekarpena nazionala izan zen. Baina ez gaitezen anakronismoan eror. Erregearen aurka ematen delarik Oihenart, «Zuberoako libertateen» defendatzaile izan zen, kontuz ibili gaitezen. Oihenart ez zen inoiz aitxatu Erregearen aurka". (Gorhenetxe 1993:59).

[24] Probintziakoen izena dela eta, ez dirudi kontuak oso garbi daudenik izen-edukietan eta aipuan Larramendiren hitzak aldatzeko Mitxelenak *gipuzkoar* erabili badu ere, honakoa irakur daiteke lan berean:

"Larramendi bera ere ez dago bateratu beharrik. *Gipuzkoan icusi ditugu o Guipuzcoan hizcunde horiec?* dioenean, euskara mota bat egiten den eskualdea du gogoan, dirudienez, besterik baino aurreago. *Gipuzkoar* hitza, nolanahi ere, ez bide zen ohizkoa beretzat, ezta Iztuetarentzat ere. Haren *gipuztar* eta honen *gipuzkoatarrak* hoberik ezean sortuak baitirudite". (1987a:150).

*Gipuzkoa*ri dagokionez, berriz:

"[*vizcaíno*] 1. Su aplicación no agrada a los guipuzcoanos, por ejemplo, ya antes de Larramendi. Era una denominación de extraños, no de propios, por el estilo de lo que ocurre con *giputz*, empleado para los guipuzcoanos por quienes no son guipuzcoanos o acaso mejor por quienes no son de habla guipuzcoana. Este es a *fortiori* el caso de *provinciano/probintziano*, usado por navarros y vizcaínos". (1984c, *SHLV*:546).

Bidenabar erantsi behar da, Mitxelenak lan horretan bertan, Larramendik *Corografian* darabilen *bascongado*-ren adierazia zehazteko debekuak aitortzen dituela, batzuetan hizkuntzaren aldetikako deizioa dirudien bitartean bestetan ez omen duelako horrelakorik ikusten:

"Salta a la vista que Larramendi necesitaba un nombre como *vascos* y no lo había entonces con esa referencia. Y al no querer hablar de *vizcaínos*, de cuya extensión a otros vascos abominaba como es bien sabido, tenía que ampliar la esfera de aplicación de *bascongados*, ya de suyo desdibujada". (1984c, *SHLV*:545).

[25] "La hora de la definición [abertzaletasunarena] aún no había sonado cuando escribe Larramendi", dio puntu hau berariaz jorratu duen A. Elorzak "El protonacionalismo de Larramendi" lanean (1992:137). Baina aurreraxeago zehazten du:

"Eso no excluye que el planteamiento político larramendiano no encierre un alto potencial de ruptura respecto del marco estatal español. Resulta innegable su carácter de pieza clave en esa trayectoria ideológica que puede considerarse precursora del nacionalismo vasco".

Mitxelenak aipagarri deritzo, politikoki probintziaz harantzago jotzen ez duen Iztueta erraietariko *gipuzkoatarra*, gogoan euskaldun guztiak dituen egitaraugile Larramendiri hizkuntz egitamuan noraino lotzen zaion, puntu hau jorratzean polikixeago ikusiko den bezala:

> «Quien ama los Fueros, debe amar el vacuence», añade [Iztuetak] como consecuencia obligada y aceptada. Ya no lo es tanto lo que sigue: «Y quien ama el vascuence tiene que explicar en vascuence a los vascongados todas, absolutamente todas, las cosas que a ellos atañen»[26]. Hay aquí, en primer lugar, una viva premonición de los peligros que amenazaban a la lengua, peligros de los que sólo algunas mentes claras y realmente preocupadas por su pervivencia podían o querían percatarse hacia 1840; más todavía que Iztueta, por su dedicación profesional a la enseñanza, su coetáneo y amigo Pascual Iturriaga[27]. O la lengua del país se convertía en un medio de cultura, al menos en una escala modesta, o estaba condenada a desaparecer, con ayuda de la incuria propia y de la prevención ajena. (1978d, *PT*:357).

Bada hemen beste auzi baten aipurik. Larramendiren xede-helburuak ukitzen ditu eta aldi berean, Iztueta, Iturriaga eta Sarako Etxeberri, besteak beste, alderdi batean eta Larramendi bestean kokatzen. Auzia, **irakaskuntzari** eta **prediku-lanari** dihoakie, zehazki esan; zabalago esan, nahi luketen euskararen erabilesparruari:

> No obstante Larramendi, que a todas luces se lamenta de este estado de cosas, nunca propugnó, que yo sepa, ninguna reforma en las escuelas para que los maestros tuvieran en cuenta, al menos en los primeros años, la lengua materna de los niños. (1959d, *SHLV*:908).

> En ningún sitio alude Larramendi, para bien o para mal, a los planes de reforma de Joanes de Etcheberri, a quien tuvo que conocer personalmente. Se lamenta, sin embargo, sin proponer remedios, de la situación de entonces. (1960b:121).

---

[26]Beste honekin erka daiteke:

"Bestalde guztiz interesgarria da Larramendik diona garai hartako ideia sozialak ezagutzeko. Larramendi, apologisten txapeldun zenak, salbuespen bat egiten du euskara sermoietan ez erabiltzeko /LARRAMENDI, Manuel de S. J. *Corografia...*, 289 or./: «*Ocasiones hay en que no debe predicarse en vascuence o en la lengua común de todos los oyentes, y es que en aquellos sermones cuyos asuntos miran a los que mandan, dirigen y gobiernan, y no son para el común de los oyentes, ni éstos es razón que sepan cuán mal gobernados están y que pecados cometen en su gobierno los que mandan, a menos que haya otro camino para su enmienda que en sonrojarlos en público y con todo el común*». (Sagarna 1982:45).

Larramendiren zuhurtasuna, izkutuko armaren mehatxua ote da lerro artean aditu behar dena?

[27]Ildo honetan, interesgarri deritzogu, Azurmendiren miatze zorrotzak agerian uzten duen Iturriagaren (eta beste gutxi batzuen) salaren olhartzuna hona ekartzeari:

"Bilinguismoa praktikatu duen irakasle sonatu bat, baina oso modernoa dugu kasu hau, Agustin Paskual Iturriaga zen, euskal literaturan ezaguna, *Diálogos vasco-castellanos para las escuelas de primeras letras en Guipúzcoa* obraren egilea: alde batean erdaraz eta bestean euskaraz ematen da testua. Iturriaga, ordea, pedagogo argiz baste, euskaltzale fina genuen. Metodo pedagogiko okerren kulpa dela, uste zuen, euskara galduz bazihoan, eta jendeak behar bezala ikasten ez bazuen: hasiera-hasieratik erdaraz irakasten hastea umeekin. Euskaraz hasiz, ezagunetik ezezagunera, haurrek hobeto ikasten zutela eta euskararik ez zutela galtzen, pentsatzen zuen. Era honetan, bai euskara eta bai erdara ikasten zituen umeak". (Azurmendi 1992:548).

Ez genuen behinere lortu, behar bada, irakaskuntzan euskara sartzea eta[28], egia esan, ez ginen gehiegi saiatu ere. Utz dezadan alde bat kristau dotrina, hau azkenean bedere euskaraz ematen baitzitzaien euskaldunei, mugaldeetan izan ezik agian. Batzuen eta besteen ahaleginek, eta ez genuke hemen Larramendiren izena bazterrean utzi behar, zabaldu zuten euskara elizan eta elizakoetan[29], iparraldean aspaldi eskura zutenaren antzeratsu, eta zabaldu ez eze, baita jaso eta apaindu ere, gaiari zegokion duintasunaren mailakoa izan zedin. (1983a:54).

Aipamenoi antzeman dakieke, Mitxelenaren aburuz, Larramendik, arestiko Iztueta-Iturriagek eta Etxeberri Sarakoak ez bezalako kezkabideak zituela, ez irakaskuntzaz ez irakaskuntzaren igorbide behar lukeen hizkuntzaz arduratu zela.

Beste lan batean genioen legez[30], ez da oso garbi aditzen nolatan, halako begi zorrotzak zituen Larramendi ez zen ohartu - hizkuntza baten garabiderako alderdi bakarra ez bada ere-, irakastizkuntzak duen pisuaz.

Larramendik bestetan erakusten duenagatik, honen begi- eta endelegu-zorroztasuna auzitik at utzi daiteke. Orduan, ondorioztatu behar bide dena, nabarituta, jakinaren gainean atzendu zela irakaskuntzaz.

Mitxelenaren adimodua, politika-aldartearen ildotik doa, zehazkiago, Lagundiak bizi zuen egoera berezitik[31]:

podemos pensar que fueron consideraciones de prudencia política las que frenaron su vehemencia en este punto. (1959d, *SHLV*:908).

---

[28]Behe mailako irakaskuntzan euskarak nolabaiteko sarbide xumea bazuen ere.

"Erraz igertzen da euskarak bazuela sarrera, noiaezean, irakaskuntzan, beheko mailan batipat, eta hizkuntz-mugatik urrutiago, gehiago eta zabalago. Ezin zitekeen, ordea, bitarteko bazik izan, eskuetatik bakoitzeko erdara batera eta bestera ikasi artekoa, erdara hori zela bide ikasten batziren gainerakoak, hizkuntzak barne". (1983a:55).

Eta honetan saiatu ziren euskal idazleen artean aipatzen ditu Harriet, Hiriarte eta nagusiki, Iturriaga.

Azurmendik ere (1992:550hh), euskarak maila bateko irakaskuntzan nolabaiteko sarbidea bazuela, aspaldiko sarbidea ere, uste du:

"Iturriaga, Mogel eta besteak aparte, XVI. mendean jarrera ikusten dugu eskoletan euskara".

Alabaina, sarbide honen nondik-norakoei erreparatzea ezinbestekoa da:

"Dirudienez, ba, hauxe daukagu:

- Euskara erabili izan dela eskoletan, erabili; baina hori ez zela korrientea, ohizkoa. Propio euskaltzaleak, edo pedagogiaz kezkatuenak, edo elizgizonak, izango dira, euskara darabiltenak. Minoria bat. Ez eskola "ofizialak".

- Haurrek eskoletan gaztelania ikasi behar dutela, guztiek uste dute. Euskara irakatsi nahi dutenek ere, ez dute dudarik egiten, gaztelania irakatsi beharra dagoela. Azkoitiko Zalduntxoek ere asmo honiek zituzten. Eztabaida ez da, gaztelaniarik bai ala ez; baina euskararik ere bai ala ez. Batzuek euskara ere irakatsi behar dela, esango dute; gehien-gehienek euskarari ez diote batere jaramonik egingo.

- Eskola gehienetan gaztelania hutsa [hirietan areago gertatzen zela hau aldrietan baino eransten du aurrerago] erabili da eta ikasi da". (Azurmendi 1992:552).

[29]Txit adigarri egokia dela uste dugu Kardaberazen *Euskeraren berri onak*.

[30]Perez Gaztelu (1992:157).

[31]Ezin ahantz Larramendi zendu eta hurrengo urtean jesulagunak Espainiatik erauzi zituztela.

Eta hurrengo urteko *Historian* juzku hau laino artean uzten badu ere:

> No podemos saber, a falta de testimonios expresos, si fueron sólo consideraciones de prudencia política las que frenaron su vehemencia en este punto. (1960b:104).

azken orduko lanean, lehengoari eusten bide dio:

> Las audacias públicas de Larramendi tuvieron que verse muy limitadas, al menos en sus últimos años, a causa de la apurada situación de la Compañía[32]. En todo caso, nada hizo y acaso nada se propuso hacer por el camino que escogió Etcheberri de Sara, doctor en medicina, excepto en el campo limitado de la formación religiosa, si no se considera que la proliferación de «términos facultativos» en su Diccionario tuviera alguna finalidad. (1987b:98).

Azken lerroen mamia aurreraxeagoko utziz, Mitxelenak, Larramendiren euskara goitarra batipat eliz giroan kokatzen du[33]:

> nunca calló en lo referente a la catequesis y a la predicación en vascuence. (1959d, *SHLV*:908).

> Eliz-gaiak ziren batez ere gogoan zeuzkanak eta horietan aurkitu zuen, besteetan baino areago, bere asmoak mamituko zituen jende mordoa. (1984b:30).

Baina ezin ahantz daiteke, Larramendi gizon ikasia dela eta Akademiek horrenbesteko indarra duten garaian bizi ziren joeren berri ere baduela. Euskarak, beste hizkuntza landuak bezalako maila iritsiko badu, ezinbestekoa du hornitzea:

---

[32] Jesulagunen eta boteretsuen garai bateko lekukotasuna ematen du Azurmendik (1992:241):

"Arandako Kunte Jaun horrek *declaró que no convenía que se imprimiera nada que no fuese castellano, y que en adelante no se permitiese imprimir cosa en vascuence sin informarle a él, y que, en consecuencia, el dicho libro* (alegia, Kardaberazen *Azpeitiko erri chitez noblearen gloria paregabeac edo Alta San Ignacioren bicitza laburra*). (Villasante, *Historia de Literatura* Vasca, 1961, 144). Jesuitek burruka txarrak izango dituzte Arandarekin, indioei irakasteko aginduak obeditu nahi ez zituztelako. Jesuitak espulsatzeko arrazoi bat hori izango da".

Altunak aldatzen duena ere adierazgarria da. Probiantzalak Loiolako erretoreari honako agindua eman omen zion, Larramendi zendu bezain laster:

> "... precepto de santa obediencia de que no se saque del aposento del difunto ningún papel..." "Tengo causas gravísimas y en que se interesa mucho el bien de la Compañía..." "Véome forzado a proceder así, y sé que sobre los papeles del difunto se ha hablado ya en la Corte, en la Secretaría de Estado". (Altuna 1992a:26).

[33] Alde honetatik, Lapurdin XVII. mendean biztu zen mugimenduko partaideen burubide berak bultzaturik ekin ziola Larramendik ere pentsa al daiteke?:

"[Iapurtarrek sortua] Se trata de un movimiento de eclesiásticos que cuentan entre sus lectores y animadores a un cierto número de seglares instruidos. La finalidad que persiguen es ante todo de formación religiosa y de edificación, conforme a la idea ya corriente de que tanto al pueblo como a la burguesía se le debe dar alimento espiritual en su lengua natural". (1960b:68).

Larramendik ongi ikasia zuen, iparraldetik hegoaldera zetozen Akademien garaian bizi zelarik, euskal'ak ere, hizkuntza landuen saiean sartzeko, neurri, lege eta erregela jakinak behar zituela, idazle eta hiztarien artean (predikarien artean, gurean) onarturik zabalduko zirenak. (1963c:98).

Hau ere aurrean duela, Larramendi, nonbait, arrunt aztoratzen dute euskal herrietako elizetan euskaldunek entzun behar dituztenak[34]: edo erdaraz hitzegiten zaie edo, lotsagarrizko euskal gaiztoz.

Predikarien zabarkerian, salbuespenak urri baino urriago dira: misiolariak eta Zarauzko Frantziskotarrak, bereziki[35]. Honela, nekez erdiets dezake euskarak gradu goitarrik.

Mitxelenaren ustez, oso gogoan izan beharrekoa da, XVI. mende-muga arte, ez zela euskaraz predikatzeko saiorik egin[36] eta, jesuitak izan zirela, hain justu, bidea urratzen hasi

---

[34]Herri xehearengan eragina duen jendearen jarrera-jokabideen garrantzia berriz kalerako du Eleizaldek 1918an Oñatin:

"Koldo Eleizalde, Gasteizko Institutuko katedraduna eta hainbat jakingaitan (zientzia zehatzetan, musikan, literaturan, linguistikan) ikasia, euskararen berreskurapenerako metodologiaz mintzatu zen. Eta hemen, nahiz eta elkar-osagarriak izan, bi alderdi bereizi zituen: soziala eta literarioa. Euskararen arazoa alderdi sozialetik gogoemanda, uste du hondamendia etorri zaion leku beretik datorkiokeela berreskurapena ere. Nondik? Goi-klaseetatik eta klerotik. Klase zuzendariek eta *profesio liberalakoek* [sic], hots, gizartean eragin gehien dutenek izan behar dute eredu euskararen berreskurapenean. Eta zeregin honetan kleroak erantzunkizun larria du, zeren bera bait da herriaren baitan eragin zuzen-zuzena duen gizarte-klasea..." (Iztueta 1991a:289).

[35]"Así por lo común los misioneros en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz que, a su mucha virtud y observancia, y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vacongados holgazanes". (*Corografía* 1969:291).

[36]Trentoko bilzarraren eragina eta protestantismoak, zeharbidez, biziua, besteak beste, txulaezinak dira:

"Si un hecho en la historia moderna ha tenido profunda repercusión en Vasconia, éste es el concilio de Trento (...)

Se toman entonces medidas sistemáticas para que los sacerdotes se ocupen de una manera regular y efectiva de la instrucción religiosa de los fieles, actividad que hasta esas fechas parecen haber tenido muy abandonada en muchos lugares. Los obispos de Calahorra y Pamplona se preocuparon además de que tanto la enseñanza del catecismo como la predicación se hicieran en lengua vernácula: constituciones sinodales y mandatos de visita establecen que todos los cristianos deben llegar a saber "en su propia lengua" la doctrina cristiana o al menos los principales artículos de ella. Hoy nos resulta muy extraño que esto no se hiciera así regularmente hasta esas fechas, pero eso es lo que prueban textos tan explícitos como el siguiente de Echave: "... quiero os explicar, el Aue María, según que el Obispo de Pamplona, con diuino acuerdo tiene ordenado que se enseñe en estas Prouincias, junto con toda la doctrina Christiana, que siempre hasta estos tiempos se aula enseñado en latín y romance". Desde finales del siglo XVI, por el contrario, queda abundante constancia, siempre que se hayan conservado los libros parroquiales, del constante celo con que las autoridades eclesiásticas velaron porque la numerosa población del país que no conocía prácticamente otra lengua que la vasca fuera instruida en ésta y no en otra.

No dejarían de tener influencia en esto, además del nuevo espíritu nacido en Trento, los esfuerzos de Juana de Albret para extender la Reforma en sus dominios y aun fuera de éstos por medio de textos en vascuence, que tanto preocuparon a Felipe II y le ayudaron a conseguir que el Papa extendiera en 1566 los límites de la diócesis de Pamplona hasta el Bidasoa y los Pirineos. No hay que olvidar tampoco la actividad de los jesuitas, sobre todo en la predicación, cada vez más intensa en la patria de su fundador". (1960b:59,60).

"Hala ere, kalbinismoaren hedadura, eginahal huts bihurtua, hizkuntzaren aldekoa izan zen, erantzun katolikoa bultzatu zuelako besterik ez baitz ere. Orduantxe hasi ziren gure elizgizonak hemi hizkuntzazko katekesiaz arduratzen; edota hobeki esan, haien interesa eta kezka, 1600 etik aurrera, anartean ametsetakoak ziren gaiburretaraino heldu zen". (1978a:32).

zirenak[37].

Larramendi erlijiogizonak ezin muzin egin diezaioke dotrinaren zabalkundeari, Larramendi euskaldun euskaltzaleak ihardun hori euskara egokian egin beharrari muzin egin ez diezaiokeen bezala.

Halarik ere, esana doan bezala, ez du Larramendik, Mitxelenaren ustez, hezkuntza-auzietan kemenik xahutuko. Bestetan bezala, geroagoko segizioko zenbait murgilduko dira horretan buru-belarri, aipatu Iztueta eta Iturriaga, buruen-buruenik:

> Este empeño en adecuar la lengua a nuevas necesidades, cuya urgencia es sentida sobre todo por una minoría guipuzcoana e ilustrada[38] / Entre ellos está Luis de Astigarraga, maestro de Segura (...) Ulibarri, el herrador vascófilo de Abando, que por sus ideas políticas generales no andaba lejos de fray Bartolomé (si se descuenta lo que hay de pintoresco, por ser caritativos, en la personalidad de aquél), iba más lejos que los guipuzcoanos: proponía, entre otras cosas, establecer escuelas clandestinas para conservar el vascuence y ahuyentar el romance (...) / es totalmente distinto del impulso que, nacido ante todo de consideraciones inmediatas que miran a la formación religiosa del pueblo, mueven, por ejemplo, a un fray Bartolomé: esto nada tiene que ver con la admiración que muchos sentimos por éste, como escritor y como orador. Este empeño trae consigo, además, ciertas consecuencias de orden lingüístico[39]. (1978d, *PT*:359).

Larramendik amesten duen euskararen erabilesparrua elizaren inguruan kokatua egoki, erlijio-jantziz erantziko dutenen esku geldituko da euskara, irakaskuntza-hezkuntzazkoetara hedatzeko ahalegina eta egokitze-lana, literatur prosak erlijio-kutsua galdu eta euskara idatzi laikoaren bilakaerarekin batean gertatuko dena.

Mitxelenak azpimarratu duenaren arabera, Larramendik ezagut zezakeen bere asmoen gauzatzea –hots, nahi lukeen euskara goitarra mamitua–, erlijioaren langa-barnekoa da.

Larramendik badu gidaritzan aritzeko egokiera eta bere ereintzaren uzta bere begiz ikusteko modua, alboan baitauzka elizgizon segiziokoak[40] lanean. Honek eskuera uzten dio, gainera, gidari ez ezen, zuzentzaile ere izan ahal izatea, Mendibururi edo Kardaberazi eginiko oharrak, adibide.

Halarik ere, arestikoak arrazoi aski ematen ai du, Larramendik bere euskararerriko asmoa gatzatzean erlijio-dotrinak besterik ez zituela gogoan ondorioztatzeko? Ala, egitamu

---

[37]"Los jesuitas empezaron ya a preocuparse de la predicación en vascuence a fines del siglo XVI. En el XVIII fue famoso el P. Bernardo Recio, natural de Alaejos (Valladolid), de quien se dice que en tres meses aprendió a hablar vascuence con el arte [sic] de Larramendi. Debía ser hombre muy bien dotado para aprender idiomas, porque más adelante predicó también en quechua en América" (1959d, *SHLV*:908).

[38]Sagarnak (1982), handikiak, goi mailakoak, euskaraz ez aritzeko (edo euskal gaiztoz aritzeko), gizarte aldetikako arrazoiak ikusten ditu.

[39]Hizkuntzaren mailako ondorioak, Larramendiren egitasmo zehatza eta bultzaturiko euskara idatziaren eredua jorratzean ikusiko ditugu.

[40]Beste puntu batean zehaztuko ditugu Larramendiren segiziokoak eta andoaindarraren eragina.

osoa gogoan izaki, urratsez urrats joan eta, eskuerakoenari eta gertuen (beharbada, premiazkoen edo errazen) ikusten duenari lehentasuna emanez, horri heldu aurrenik eta geroko, giro berriak lagun, lanabesak eskaintzera mugatzen du bere lana, jakinaren gainean?

Ondokoan oin hartuz, gogoeman daiteke Mitxelenaren hitzek bide ematen dutela, Larramendik indar-kemenak mailakatzeko atakan ikusten duela bere burua.

. Larramendik euskaraz mamituak[41] prediku-sermoiak dira, hau da, bere egitasmoan lehentasuna dutenak; ez du beste gairik jorratzen euskaraz.

. Hizkuntza-kontuetan aholkatzen dituen jarraileak ere erlijiogizonak dira eta ez die erlijio-gaiez kanpokoetan sartzeko burubiderik ematen, teologiaren edo euskararen inguruko oharrak dira andoaindarrak egiten dizkienak.

. Alabaina, euskaraz mamituei ez baina lanabesei (gramatika-hiztegiei) erreparatu orduko, erlijioa baino eremu zabalagoan erabiltzeko pentsatuak daudela hauteman daiteke: hitz berezituak (ez bakarrik baina bai nagusiki) horren erakusgarri.

Honenbestez, Larramendik bere egitamua gatzatzean, euskaldun adinkideak ditu gogoan bai, baina baita gerora sortuko diren euskaldunak ere, egoerak lagunduko badu.

Ildo honi jarraiki, Mitxelenak ondokua dioenean:

> Larramendik izkribuz eta predikuetan erabiltzen zen euskara garbitu nahi izan zuen, jaso eta aberastu; eredu bat sortu eredurik ez zuen hizkeran. (1983a:60).

"Izkribuz eta predikuetan" esatean, oharteman daiteke, predikuen barruti estutik at ikusten duela Mitxelenak Larramendik nahi zuen euskara, eredua, *hizkerari* baitagokio ez erlijio-hizkerari soilik.

Baina, batez ere, hurrengo Mitxelenaren hitzok, esanahi osoa hartzen dute arestian paraturiko arrazoi-katean kokatuz:

> Larramendik berak maila jasoagoa ipini zion bere buruari: sermoiak sermoi, Mendibururen lehen liburuan ageri den gutunak gerorako utzi zuen eredua. Bazekien, noski, goregi zegoela orduko entzule-irakurleentzat; bazekien, eta horrexegatik behar bada hain guttitan eman zion euskarari amore. Hor geldittu zen, beraz, marka ahal zezanak, ahal zitekeen momentuan, berdin eta gaindi zezan. (1983c:97).

> Eliz-gaiak ziren batez ere gogoan zeuzkanak eta horietan aurkitu zuen, bestetan baino areago, bere asmoak mamituko zituen jende mordoa. Berak mami zitzakeen baino egokiago, agian. (1984b:30).

> aldiak eskatzen zuen baino gehiago opa zigun. (1984b:33).

---

[41] Altunak eta Lakarrak (1990) prestaturiko bilduma begiratu besterik ez dago horretaz nabaritzeko.

eta arestian eskegita utzi diren lerrook erantsiz, aldeztatzen ari garen ideia borobiltzen da:

> si no se considera que la proliferación de «términos facultativos» en su Diccionario tuviera alguna finalidad. (1987b:98).

Hau da, Larramendik berak erlijio-gaiez idazten du euskaraz. Gai hauezaz aritzean hizkuntza txukun-egokia erabiltzea, haatik, aiseago gerta dakioke beste egoera batzuetan baino, ez baitu ordura arte euskaraz (horren) jorratuak ez dauden gaiek eskatzen duten heineko saio bereziren premiarik.

Bestetik, kontuan hartu behar da, Larramendi ez dela –izkribagaiari dagokionez behintzat– huts-hutsetik hasten. Aitzindariak izan dira idatziaren gradua erdiestean, beste euskalkietan egin badute ere: bertatik ezagutzen duen Axularrek eta gatzatua, urrutirago gabe.

Besterik da, ordea, hizkuntza, bide berrietan barrena sarrarazi nahi denean agitzen dena, orduan bai beharko baita aurretiaz erabili gabekorik.

Testuinguru honetan, Larramendiren eginkizuna mamitzaile izatera ez baina, bide-erakusle eta bitarteko-hornitzaile eginbeharretan aritzera mugatzen da. Hiztegiaren sarreran berariaz aitortzen –baina zein diren zehazten ez– dituen hitz berezituak, burubide honen erakusgarririk argiena –ez bakarra, haatik– dira[42].

Hau ikusirik, Mitxelenaren gaztelaniazko baldintzaren erantzuna baiezkoa litzatekeelakoan gaude, hau da, bazutela hitz berezituek "helburu praktikorik", ez, beharbada, Larramendiren "aldian", urrutiago ikusteko trebetasuna erakutsiz, "aldi horrek eskatzen zuena baino" areagoko eskaintzari etekina ateratzeko egokiera sortuko zenean, sortuko bazen, baizik.

Alabaina, nola uztar daitezke arestikook Mitxelenaren aspaldiagoko beste pasarte honekin?:

> Olabidek bazekien bazuela besterik horien [hitz asmaberriak, zahar ahaztuak, esanahi desegokiz erabiliak...[43]] ordez: maiz euskaldun guztiek, beti euskaldunik gehienok nekerik gabe adi ditzakegun hitzak. Ez zeuzkan, ordea, gogoan diren euskaldun kaxkar ezjakinak, behar liratekeen euskaldun jantziak baizik, bihar edo etzi ugariago sor litezkeen euskaldunak. Ez zion jaramonik egin Larramendik Mendibururi eman zion burubideari: "Beste batzuek ditugu gure Euskeran nai ez

---

[42]Ez gara erabat lasai geldituzen (1984b:30) aipuko "berak mami zitzakeen baino egokiago, agian", jasoarekin. Mitxelena, hainbatetan goraipatzen duen Larramendi euskal idazlearen maila kolokan uzten ari ote da?

Hala balitz, aurrerago aztergai hartuko diren hitz asmaberriak "ikuragaizki" eratzearen arrazoia, hein batean, argi litekeen. Aldi berean, ordea, Larramendiri aitortuko euskararen ezagutza sakona eta abarrak berrikusi beharko lirateke eta latzegi dirudi azken honek.

[43]Laugarren kapituluan itzuliko gara puntu honetara.

> kukeenak beste hizkundeetatik[44] hiztxo batere... Bederako ergelkeria! Etzaitezela zu maimeti. Euskerari eratxi zaizka Gaztelaniatik, Latiñetik edo beste hizkundeetatik hitz asko[45], baña adituaz ta oituaz Euskerakoak bezain ongi aditzen diranak: eta oyek utzi behar eztitugu. Ta beharbada noiz edo berriz obeko da onelakoak usatzea Euskerakoak baño, batez ere Eliz-gauzetan ta gure arimen salbazioari dagozten egikarietan[46]». Larramendik, izan ere, bere asmakari ugariak erdaldunentzat sortu zituen[47] eta hoberik opa zien euskaldunei. Olabidek, aldiz, ez ditu beharbada *arima*, *barkatu*, *batalo*, *bekatu* eta antzekoak erabat baztertu, baina ez dira liburu honetan erraz aurkitzen.
>
> Ez dut adierazi nahi, inolaz ere, bere eginkizun nagusiaz den gutxiena ere ahaztu zenik. Bestetara noa. Euskaldun berria izanik, eta bere aldiko euskaldun berria, ezin gauzak ikus Larramendiren begiz. Ez ziezalokeen orduan euskaldun berri batek begiramen handirik ekarri euskaldun jator bati, hots, euskaraz debekurik gabe mintzatzen denari. (1959b:116).

Aipamenaren luzea, edukiaren mamitsuan eta han-hemen jaulkien islatzaile izatean sustraituz alda daiteke paperera. Izan ere, beste atal batean berariaz jorratuko den auzi bat baino gehiago plazara da bertan.

Olabideren hizkuntz jarrera Larramendirenarekin erkatzearen helburua, lehena beztuz bigarrena eredugarri paratzean oinarri daiteke.

Funtsean, auzia, idazlana gatzatu eta erditzean batak eta besteak nor duen gogoan argitzean datza, hartzaile-motaren ondorio izango baitira hizkuntz hautaerak. Balizko hartzaile horiek izenez izendatuz, "diren euskaldun kaxkar ezjakinak" (hezur-haragiko euskaldunak) vs. "bihar-etzietako euskaldun jantziak" (ametsetako euskaldunak) dira.

---

[44] *hizkunde* honi eta aurreragoko *egikari*ri Larramendiren eskua suma dakiekeela esatea, gehiegikeria ote?

Larramendik, bere *DT*-n, *Idioma* hiztegi-sarreran, *hizcuntza*, *hizcunde*, *mintzoera* dakariza eta, *Hecho, accion bien, ò mal executada-n eguindea, eguicaria*.

Altunak (1967) atonduriko euskal-erdal hiztegiñoan ez dago, ordea, hauen arrastorik.

Bestalde, ez P. Urtek ez Axularrek dakarte halakorik. Urkizuren eta Villasanteren hiztegien arabera, hurrenez hurren.

Azkuek, berriz, *izkunderen* iturburua, "(G, AÑ)" dakar eta *egikari*rena: "(G?, *Conf.* [Mogel] 32-12) eta "(Izt. 24-22)".

HLEH-ren arabera, *hizkunderen* lehen testigutza, Larramendiren hiztegikoa (1745) da, eta *egikari*rena, Mendibururen *Jesusen Bihotzaren devocioari* dagokion 1747koa.

Badirudi, beraz, Larramendigandikakoak ote diren susmoa egiaztatzen dela, euskal testu hustuen mugen barne, bederen.

Lakarrak (1985b:265), *hizkunde* "ASan [Azkoitiko Sermoian] ematen diren zenbait hitz Larramendik asmatuak edota soilik berak lehen iturri bezala erabilien" artean kokatzen du, justu.

Hala delarik, zenbateraino sostenga daiteke, azterpuntuan izango dugun Larramendiren euskal lanen jatortasunaren oinarria, bere sorkariak ez erabiltzean funtsatzea?

[45] Aurrerago autu izango ditugun Larramendiren etimologien azalmoduaren iturburuaren indargarri?

[46] Larramendik garbikeria neurrigabea bereziki erlijio-dotrinetan uxatzea, lehen paperera dugun ustearen sendogarritzat har dezakegu.

Herri xeheari, batipat entzunez ikasten duen hernari mintzatzen zaionean, ezin latin-jatorrizko hitz ugariz osaturik dagoen eliza-hiztegian, goizetik gauera halako irautza bortitzik aurrera eraman, herri entzule horrek ulertuko badu.

Hemen ere, bestetan bezala, mailak finkatu beharko liratekeelakoan gaude, hizkuntz erabilerak eta mailak eta entzule-irakurleen motak zerikusi larria (beharko) baitute. Alde honetatik, Sarasolak (1986) adierazia gure egiten dugu.

[47] Hau ere, aurrerago aztertuko dugu.

Binako moduan aurkezturiko osagai bakoitzari Mitxelenak honako ezaugarriak alboratzen dizkio:

Olabidek, "biharko euskaldunak", ez garaikideak, gogoan izatearen ondorioz, Mitxelenari gogobetegarri egiten ez zaion hitz-hautaera mamitzen du, orain bazterrean utziko diren beste arrazoiak beste, euskarak aspaldiskotik etxerakotuak dituen erdaratikakoak uxatu eta hauen ordez asmalanari ekiten diolako.

Larramendik, haatik, Mendibururi ematen dion burubidean bereziki argi irakur daitekeenez, direlako hitzok, euskal hitz-altxorraren osagai irentsi eta bereganatutzat dauzka:

> Al contrario de lo que pudiera creerse, no era melindroso en lo referente al uso de voces no castizas. (1959d, *SHLV*:909).

Honenbestez, Larramendik –gero arrazoituko den legez, Mitxelenak garbizaletzat daukan Larramendik– ez darama bere garbinahia neurrigabeetaraino eta, honetan, Mitxelena gogaide du.

Hartzaile-motaren baitakoa da[48], hitzen esparrutik irten gabe, asmakarien edo hitz asmaberrien arazoa ere.

Puntu honetan eta aipu honetan - zehaztea premiazkoa baita –, Mitxelenak Olabide eta Larramendi elkarren kontra paratzen ditu[49]. Lehenak, bere burutikako asmakariak euskal irakurleari igortzen dion lanean erabiltzen dituen bitartean, bigarrenak, euskal irakurleari ez dio halakorik opa eta honenbestez, bere euskal lanak irakur dezanak ez du halakorik topatuko, erdaldunentzat sortuak baitira.

Hau honela, Olabideri gertatzen bide zaio, bi balizko hartzaile-mota nahasten dituela. nahi lituzkeen euskaldunak ez dira bizi, gerokoak baitira, baina lana kaiera denean hezur-haragikoak dira irakurtzeko egokieran daudenak, hauek ezin uler badezakete paperera eramana... *ergo*, Olabidek ez du irakurle benetakorik.

Larramendi, berriz, euskaraz ari denean "zuzen eta jator" aritzen da, mordoilokerian jausteko arriskurik gabe. Halere, bere lanak benetako euskaldunek adi dezaten helburu izaki, ez du behaztoparri premiagabekorik papererako. Honenbestez, Larramendiren lanak, benetako euskaldunari ulertzeko modukoak egiten zaizkio.

Olabideren makurraren sustraia euskaldun berria izatean paratzen bide du Mitxelenak, euskara ikaslanaren ikaslanez bereganatua izateak, euskararekiko jarreran zerikusi gaitza bailuken. Larramendik, aldiz, umetandikakoa duenez gero, guztiz ohiko ditu ttikitandik entzunak, hitzaren jatorria jatorri[50].

Mitxelenaren gogoeten adimodu-azalpen honek bestetara darama aurreko puntuan[51]

---

[48]Auzi honezaz bereziki mintzatuko gara Orixeri eskainiriko kapituluan.

[49]Badirudi, biok aurretik ere nolabaiteko ukipuntua izan zutela, Orixek (1930a:192) jasotzen duenaren arabera:

"... el P. Olabide en su reciente discurso acerca de *El imposible vencido*...".

[50]Altunak, ordea, kausitu du Larramendiren zenbait euskal pasarte harrigarri. Hauek eta andoaindarraren bizibideak sustraituz, euskaldun berritutzat edukitzera daramate. (Altuna 1992b).

[51]Ikus Larramendiren egitamu mailakatuaz dioguna.

zainak dituen auzia.

Noraino euts dakioke "hezur-haragiko" / "ametsetako" euskaldunen arteko osinari, egilearı zuzen nahiz oker irizteko?

Gure ustez, kasu honetan, idazlan gauzatuei erreparatzen die Mitxelenak bere juzkuak egiteko eta, argia ikusi dutenek –batean zein bestean erlijio-gaien ingurukoak–, oso bide desberdinetatik jo dute.

Gaitzesten duen lanean, euskararen atzoaz atzendu da, euskal ondarean aspalditik erroturiko hitzen ordez –euskaldunak kopeta zimurtu gabe erabiltzen dituenen ordez–, premiarik gabeko saio-bidetik abiatu eta gisa horretako liburuak irakurriko dituen euskaldunari burua nekatu besterik ekarriko ez dioten asmakariak sortzeari ekin zaio, irakurlea bereganatu ordez, irakurreratik uxatuz.

Larramendi, berriz, mamitu dituenetan ez da garaiko euskaldunaren hizkuntz ezaupidetik baztertu[52], hizkuntza gorabidean abiarazi nahi izan badu ere.

Guztiagatik hausnar daiteke, Larramendik mamituetan, hezur-haragiko euskalduna dabilela Mitxelenaren gogoan eta hartzaile-mota horri dagokion mailan –gorabiderantz abiaraziz halarik ere–, egoki erantzuten diola. Iido honetan kokatuko litzateke, garaiko predikariei astinduz, lanabesak, teorikoak ez eze baita gauzatuak ere eskaintzea[53].

Baina Larramendik "ametsetako euskalduna" ere gogoan duela ezin bazter daiteke. Euskara idatziak gora egingo bazuen, bestelako gaiak euskaraz jorratzeari ere noizpait ekin beharko zitzaion. Horretarako eskaini bide ditu hiztegi-gramatikak –lehena batez ere–, egokiera suertatzean, euskal idazle landuak etekina atera diezaien, euskal izkribuak "habitogabetzen" dituzten Larramendiren jarraile lehen ahotan hartuek erakutsi bezala[54].

Uste honen indargarritzat har daiteke, apika, hiztegiak argia ikusi zuen urtea, 1745, landatzea Mitxelenak anarteko euskal hiztegien katean, "aro berriaren" mugarria:

> Gero Larramendi dugu aro berria zaharretik bereziko duena eta urtemuga, horrelakorik behar bada, 1745 litzateke (...) Euskara altxatu nahi izan zuen, eta egin ere egin zuen, ez baitzen bakarrik geldiru: berehala aurkitu zituen lankide eta ondorengoak, luzaroan ahituko ez zen andanan. (1984b:30).

Guztiarekin ere, bizten den galdea da, Larramendik mamituetan ez baina, Larramendik eskainiriko lanabesetan bilduetariko zenbait erabili izan balitu zer iritziko liekeen Mitxelenak, hau da, erlijio-gaiez kanpokoetan sartu izan balitz eta hiztegi berriaren premian aurkitu, nola

---

[52] Hau guztia aurrerago zehaztuko da.

[53] Ikus eraginen puntuan, jarraileek nekez onartuko zuketela Larramendiren gidaritza, honek agindu ez eze mamitu ere izan ez balitu adierazten duen Mitxelenaren iritzia.

[54] Sarasola (1986)

auzipetuko lukeen Mitxelenak[55] horren estimu handian dituen Larramendiren euskal hitz lainoak[56].

Iido honetan, adierazgarriak dirudite Mitxelenaren garai desberdinetako bi antzeko lan berdintzetik atera daitezkeen ondorioek.

1958koa da *Historia General de las Literaturas Hispánicas* lanerako egin zuen euskal literaturari buruzko ikuspegi orotarikoa[57], *Tierras de España* sailean, *Pais Vasco* ataleko "Literatura en Lengua vasca" berriz, 1987an argitara emana da[58].

Lehenean honela dio Larramendiren xedeez:

> su finalidad principal fué la de defender y justificar la lengua ante los extraños, no la de afinarla para uso de los propios. (1958a:363).

Zendu ondokoan, aldiz, eta lanaren ahalezko irakurlegoa antzekoxea izan daitekeela gogoan izanik, hots, Mitxelenaren "esportaziorako" lantzat har daitekeela hau ere, beste honakoa dio:

> Lo que él trató de conseguir fue que el euskera, lengua en cuyo cultivo fue más experto que copioso, tenía que alcanzar antes que nada un grado suficiente de dignidad y pureza. Y esto lo logró plenamente, por su propio esfuerzo y por la ayuda de continuadores directos o indirectos. (1987b:98).

Azkena hartu behar al da errenteriarrak utzi nahi izandako hilburutzat? Urteen poderioz, Larramendi euskalari eta euskararen zuzpertzailea aipatuago den Larramendi apologistari –laudorio-emaileari, Altunaren (1988c) hitzez baliatuz– nagusitu al zitzaion Mitxelenari gogoetetan?

---

[55] Ikus (1978d, *PT*:359)-ko azken lerroak.
Filia-fobiek eraginik?

[56] "Gure literatura, hitz laino eta hitz neurtu...". (1981k:120).

[57] (1958a). Ber gauza berresaten du *Historian* (1960b).

[58] (1987b), Mitxelena zendu ondoren, oker ez bagaude, 1/XI/1987 baitu irteera-data.

2.4. LARRAMENDIREN APOLOGI LANA

> Orduan, zinez malte zituelako adiskideak, sorterria eta sorterriaren lege zaharrak, hizkuntza eta ohiturak (baita dantzak ere) eta, horrezaz gainera, istiluak arras gogoko zituelako. (1966a:67).
>
> Esan daitekeela uste dut Larramendi erdaldunen desafioari[59] erantzutera iten zela plazara. Hauen "enbido" eta are "hordago"ari (Orixe eta muslariak bezala ari naiz[60]) "eduki" ozena botea zion. (1982a:104).

Larramendiri nabarmendu zaion alderdirik ezagunenetarikoa eta aipatuenetarikoa apologista izatea izan da seguruenik, eta honetan Mitxelena ez da salbuespen[61].

Alabaina, Lakarrak[62] adierazi bezala, estreinakoz, komeni da zehaztea zein ñabarduraz hornitzen den hitz honen mamia, maiz askotan, halako gaitzespen-usaina hartzen bide baitu, 'apologista' edukiak[63].

---

[59]Larramendiren lanek izan dezaketen "irain-erasoaldien" erantzun-kutsuak, berariazko apologi lanekin lotzera eraman du.

Nabarmengarri deritzogu, 1934eko Azkuek, *Corografía* sonatuari ere kutsu bera harrapatzeari:

"Berau [*Corografía*] egitera zerk eraman zuen ere badakigu. Murillo Velarde zeritzaion beste jesuita batek lau urte lenago emandako *Geografía histórica del país vasco-navarro* izan zan Lafamendi beronen lan eder au egitera zirikatu zuena. Murillo lan onezaz Fitak berak <zeaztasun guñiz eta naas-maas egina> dala dio. Nasterik andiena, Lafamendiren ustezo [sic] Euskalerri osoari Bizkaya izentzat emateaz izan zen (...) Murillo Velarderen *Geografía histórica*, nasia ta elena izanaren, ordu onean ta zori oneko yalo zan; bera sortu ezpalitz, ezkenuen noski Lafamendiren *Corografía* edeta ezagutzeko atsegina izango-ta". (Azkue 1934:3,4).

Halaber Azurmendik (1992:317):

"Berrehun urte eta piko garoago, Larramendik burla horietxetatik defendatuko ditu oraindik euskaldunak (ikus bedi *Corografian* "*De la nobleza...*" kapitulua)"

[60]"Sortu zen Arana ta esnatu da euskera ta inafosi du burua bizkor. Politikaz txintik eztizut aterako, ezpaitagokit: euskeraren esnatzeari nagozu. Mintzatu zen Bizkaia, ta itzetik oñzera <inbido> otsegin zigun beste euskaldunei. Gogonduri ta buru-ernari geldítu zen aldiroz Gipuzkoa, ta aizenik <oñdago> iañdetsi. Yokua <euskera> izaki, alegia, ta Laphurdi'k <iduki>, eskua zedukalakoan". (Orixe 1927:246).

"Baiñan, orain ogeita amairu urte, 1927'garren urtean; "EUSKAL ESNALEA"-ren 246'garren ornaldean idazten nuanaz erantzungo diot, soilik, zure galdera zorrotzari: "Sortu zen –esaten nuan– abandotarra, eta esnatu EUSKERA; eta iñarrosi du burua. Politikan txintik ez dizut aterako, ezpaidagokit; euskeraren esnatzeari nagozu bakarrik. Mintzatu zen Bizkaya, ta itzetik-ortzera "inbido" jo zigun beste euskaldunoi.

Gogonduri, buru-ernai geldítu zen, ori aditzean, Gipuzkoa, ta ondoren "ordago" jardetsi. Jokua: EUSKERA izaki, alegia, ta Laphurdi'k eskutik "iduki". (Garmendia 1965:57).

[61]"apologista más fervoroso" (1959d, 1964a, 1980b, 1987b).

[62]Lakarra (1985a:14).

[63]Azurmendik (1992) auzi honen atzeko eta ingurukoak oso ohiko iruditu ez zaigun ikuspegi berri batetik miratu ditu. "Apologistak versus euskal idazleak" izenburu adierazgarriko atalean han eta hemen papereraturiko zenbait ideia ekar ditezke hona, gisa honetako gertakizunaren argigarri izan ditezkeelakoan:

"Lehen apologismo hark, ordea [XVI. mendeko Garibay, Poza, Zaldibia, Etxabe eta abarrek eginaz ari da bereziki], Gaztelako jauntxoekin harremanak lotu eta estutu nahi dituen euskal jauntxoenaren ideologia errepresentatzen du funtsean. Barrura baino, kanpora begira dago eginda.

Orohar, lehen aro honetan, euskaldunek, franko burlatuak badira ere, Gortearen fabore eta protekzio

Eta alde honetatik begiratuz, Mitxelenaren zenbait pasarteri gaitzespen-kutsua badarie ere:

> En todo caso Larramendi con su talento y su cultura está en esto mucho más cerca de apologistas crédulos como Poza y Baltasar de Echave y de historiadores ingenuos como Zaldibia y Garibay[64] que del espíritu crítico de Oihenart y del P. Moret, su compañero de orden, en el siglo anterior. (1959d, *SHLV*:901).

> Como los juicios de valor forman siempre el fondo de las consideraciones de Larramendi y de otros apologistas, como también de las de la mayoría de sus contradictores... (1964a, *SHLV*:5).

---

ofiziala gozatzen dute (Habsburgo garaia). Hurrengo aroan, burlatuak izango dira, eta Gorteren faborе segururik ez dute ukanen (Borbondarren garaia). Ari garen urteotan euskaldunak biziki lehiatu dira Erregearen onginahia irabazten. Morroi eta zerbitzari manukorrak dira. Beti nagusiaren gustoa egiten dutenak... handik ateratzen dituztenez gero bere ontzeko urreak! Hau da ontza bategatik arima saldu zuen klasea. Eta lehen apologistek mamitu dute klase haren ideologia". (Azurmendi 1992:325,326).

Honenbestez, kanpoko goi-mailako handikien ideologia bere eginik, Euskal Herriaz eta euskaraz, erdaraz haatik, kanporako idatzi dutenak bide dira. Ezaugarriok, justu, *euskal idazleen* eginbideari kontrajartzera daramatzate:

"Idazleek beste euskal kontzientzia bati erantzun diote, hots, beste kontzientzia bat ageri dute (eta, esan dezagun bide nabar, euskal idazle den-denak, bat ez salbu, Frantzia aldekoak ditugula, eta ez Ameriketak deskubritu dituen eta ia mundu osoan barreiatu den Espainia aldekoak) (...) Euskal idazleengan ere, agerian dago, klase nagusia zaldun jauntxoak eta ideologia nagusia jauntxo ideologia den garaian bizi direla (...) Beti ere ideologia honen barruan posible den mugetan ikusi beharko ditugu euskal Autoreok (...) Alabaina, herri baztertu eta erdeinatu *baten* literatura sortu dute. Ez herri honen *aldekoa* bakarrik. Haiena herri kontzientzia argirik ez bada ere, lehenengo argi printzak dira.

Autoreok ez dute Euskal Herriaz apenas hitz egiten, baina euskal herriari mintzo zaizkio, euskaraz. Apologistak, aldiz, Euskal Herriaz mintzo dira beti, baina gaztelauei, erdaraz (...)

Betiko bi Euskal Herriak aurkitzen ditugu jadanik:

1. kanpora itzuli dena (Espainiara)
2. bertan dagoena, Euskal Herriari bere izana indartu nahi diona". (Azurmendi 1992:326,327,328).

Halarik ere, aurrerago:

"Hori dena ez dakari hona, euskal apologismoa garai hartarako *normala* dela erakustearren. Hori ere esan beharra dago apika. Azterketa zehatzagoak egin beharra dago, batez ere (E. Lembergen *Nationalismus* liburua txit argigarri da), hemen ez bat dugu puntuok ukitu besterik ahal. Baina inportanteago da, apologismoan orduko ideologia arrunta daukagula, ohartzea. Aroaren propioa. Apologisten ipuin eta mitoetan ez zaigu agertzen garaiko *ideologia* besterik. Hots, garaiko klase nagusien ideologia. Historigileok hain zuzen garaiko ideologoak dira. Funtzio hori zuen, apologistek egin diguten historiaren mitifikazioak, Dretxoaren teoria bat da. Boterearen teoria bat.

Apenas dagoen esan beharrik ere, lehen apologistak, beste herrietako beren kideak bezala, funtsean, klase baten, edo kasta baten, zerbitzari direla: nagusienak. Jauntxoenak". (Azurmendi 1992:377).

Eta azkenik, honela laburbiltzen du:

"Bukatzeko: apologistak eta euskal idazleak funtsean giro berdinetan eta ideologia ber-batez zebiltzala, esan liteke. Baina ideologia funtsaz berdin eta jokabide arras desberdinetako gizarte sail bi, joera eta jokaera bi, planteamentu bi, ageri zaizkigu idazle taide biotan: hots, apologisten baitan eta euskal idazleen baitan. Idazleek opzio kulturala egin dute; apologistek politikoa. Idazleek etxe barrurakoa; kanporakoa apologistek. Ideologia *berak* balio sozial eta praktiko arras diferente *bi* ageri ditu. Geroago Azkoitiko Zalduntxoen eta Larramendi eta besteen artean aurkituko dugun kontraste berbera aurkitzen dugu jadanik XVI/XVII. mendeetan. (Jauntxoek jauntxoen tradizioari jarraitu diote. Bi Euskal Herriak. Bi Euskal Herri horiek ez dira batetik Eliza –euskaldunale, etc.– eta bestetik burgesia –Madrilera edo Parisera begira. Gauzak ez dira hain sinpleak. Baina gauzak ia-ia horrelaxe direla emateraino ailegatu dira... sinpleak izatera. Humanikitak, euskal idazleak izan dira; apologistak, ipuin-jario aprobetxategi batzuk, botersari arrimatu nahita". (Azurmendi 1992:453).

[64] Zubiaurrek (1969:187) ez du uste, Garibayren kasuan bereziki, "sinesberatasun itsuaz" hitzegin daitekeenik.

egia ere da, Mitxelenak, Larramendiren apologi lana azal dezaketen arrazoiak ematen dituela lan bat baino gehiagotan. Larramendirenak bere testuinguruan kokatuz, egungo begietan har dezaketen desegokikeri itxuraren zimendarriak ahuldurik uzten ditu[65]:

> Si se hiciera un balance de las obras reseñadas en este libro [*Mitología e ideología sobre la lengua vasca*], cosa que no tiene demasiado objeto, resultaría que los apologistas, descarriados por lo común en el campo de la historia, defienden, en materia lingüística histórica, opiniones que hoy en día nos parecen en buena parte razonables o, al menos, nos lo parecerían traducidas a lenguaje actual. Descontados los insensatos de siempre y de todas partes (que, por otra parte, muy bien pueden ser ciudadanos de pro y útiles a la República[66] cuando no se les toca su manía), los vascos más asesados se encuentran en graves aprietos porque, arrastrados por su furor guerrero, ocupan posiciones que ninguna fuerza humana podía sostener. Y hablo de sostener porque se trata en esencia de una guerra defensiva en la que los atacantes, numerosos y bien pertrechados, podían elegir a su placer los puntos más descubiertos. (1980b, *SHLV*:923).

Ezin egotz dakioke Larramendiri, beraz, hizkuntza baten aldeko apologien estreinua eta sorkuntza[67], ezta, erasoaren begira, aurrea hartu eta bada ez badako izugarrikeriak kanporatzea ere.

Urrutirago gabe, Larramendiren zenbait adierazpidek ez dituzte txikienean uzten euskaltzale erdaldun izen handikoen lumetatik jaulkiak:

> Así, los vascófilos se creen obligados a mantener que, en contra de lo que indican las apariencias más obvias al igual que el estudio en profundidad, el vascuence había cedido al romance más de lo que había tomado de éste. La prueba de esta proposición le salió fallida hasta a Oihenart, por no hablar de Larramendi que, en materia etimológica, procedía de acuerdo a su formación e inclinaciones: como un disputador escolástico (o, lo que vendría a ser lo mismo en cuanto a los resultados, como un leguleyo) con más que ribetes de humorista. (1980b, *SHLV*:923).

Horien artekotzat, Hervás y Panduro[68] eta Henao dauzka Mitxelenak:

---

[65]Sarasolak ere (1986:210), lido horretan kokatzen du Larramendiren apologigintza:

"Larramendiren lanaren azken xedea (...) euskaldunen hizkuntz kontzientzia biztea, eta euskaldunen kultur hizkuntza bihurtzeko «azpiegitura» –gramatika eta hiztegia– azartzea izan zen. Haren ihardukiaren alderdi apologetikoa ere azken helburu hori iristeko bitarteko bat –erabat beharrezkoa, kontuak nola zeuden jabetzen bagara– besterik ez zen".

[66]Oroi bedi Port-Royaldarren adibide sonatuaz.

[67]Alde honetatik, euskararen erasotzaile gertatu zirenen hizkuntzaren aldekoen adibide soil bat eman daiteke, Zubiaurren (1989:60) lanean jasoa. Irakasle algortarraren ustez, Nebrijaren beraren gramatika (1492), gaztelaniaren aldeko lehen apologia da. Honi erantzunez sortuko dira, hain zuzen ere, XVI. mendean euskararen aldekoak, hebreoaren mitoaren beherakadaz eta estatuen osabideak zekartzanen eraginez atzentzeke.

[68]Breva-k (1992:362), Larramendiren Hervás-enganako eragina puntuotan laburbiltzen du: euskara, Espainiako lehen hizkuntza; latinak euskaratik mailegu ugari; Erdal Akademiak plazara hiztegiak ez dizkio euskarari zor dizkionak altortzen; "dominación española en Italia-n" sinestean. Azken gertakizun honek argituko luke, Italian jasoriko euskal toponimia asko eta honen bitartez frogatuko latina ez zela *lengua matriz*, etrusko, greko, zeltiko eta

> Ahí están, en todo caso, el vallisoletano padre Henao y el conquense Hervás y Panduro, cuya dependencia de autores vascos (y muy en especial de su conmilitón Larramendi) está muy bien indicada por Tovar, que no son menos vasquistas, en el sentido que aquí se considera, que nuestros paisanos más recalcitrantes. (1980b, *SHLV*:921).

> Euskararen alde, nolazpait esan eta hauek ez dute bestelakorik ukitzeko goçorik, J. A. Mogel eta Astarloa apaiza plazaratzen dira. Bestalde, orduan bertan, azaltzen da Espainian Lorenzo Hervás-en *Catálogo de las lenguas de las naciones conocidas... y clases de estas según la diversidad de sus idiomas y dialectos*, 1800-1805. Euskaltzale azaltzen da, aurreko mendean alta Henao bezala, baina, «alde» agertzeaz kanpo, ez dakar argi berririk gure gauzetara: etxekoen laguntzaz baliatzen da. (1983a:65).

Halarik ere, egile erdaldunagandik jasoriko aipuan oinarrituz, Mitxelenak zuhurrago ikusten du Hervás y Panduro, Larramendi baino:

> Manuel Larramendi... trata difusamente del carácter y perfección de esta lengua para ensalzarla y responder a algunas objecciones hechas sin conocimiento alguno del vario y admirable artificio de todos idiomas y de la diversidad intrínseca de las lenguas llamadas matrices. La invención del lenguaje más bárbaro hasta ahora conocido excede ciertamente los límites del ingenio humano. *Catálogo*,V,239 or.[69] (1959d, *SHLV*:903).

Muinean datzana, kanpotik datorren euskararen eta Euskal Herriaren (zentzu zabalean) kontrako mehatxuari eta oldarrari aurre egin beharra da. Jokabide hau ez da, haatik, Larramendiren garaian eta Larramendirekin sortzen; zain aspaldiagokoak ditu.

Mitxelenak, zehazki, XVI. mendetik honantz ikusten du balizko mehatxuek sorrarazten duten apologien premia, "necesidad de apologías (...) como respuestas a posibles amenazas"[70] dio zehazki.

Hemen kokatu beharko litzateke, arestiko "apologistas crédulos" eta "historiadores ingenuos"[71] direlakoen andana, hots, apologi lanean Larramendiren aitzindari[72] diren

---

kantabriko (hots, euskara) hizkuntzen nahasmenduaren sorkaria baizik.

Espainiako lehen hizkuntza dela eta ez dela, bidenabar esan dateke, Azurmendik (1992:169) aztertuaren ildotik, espainolak liratekeela, hain justu, mito hau barreiatzearen erantzuleak:

"Italiarrak berriro buruan jarri ziren karrera honetan, Noeri berari pertsonalki Italiara etorri eta hiri mordo bat fundatu eraziz. Frantsesek, alemanek, espainolek (espainolak hasiko dira, hain zuzen, euskara beren antzinatearen bandera gisa erabiltzen!), bakoitzak bere konbinazioak erabili dituzte denek, zeinek baino zeinek iragan loriatsuago izateko, historia nahasi bezain aspergarria gertatzen bait da finean norgehiagoka hori".

[69]Erdaldunak, 195. orrialdean, "y por regla general las lenguas de las naciones llamadas bárbaras suelen tener artificio más bien arreglado que la griega y latina, que están llenas de excepciones que hacen enfadoso e intolerable su estudio", esan duela ahanztеke.

[70](1980b, *SHLV*:921).

[71]"Desde una perspectiva no enteramente positiva, el peso de las "ideas lingüísticas externas", o vascología tradicional es tal vez superior en los tres autores estudiados [Zaldibia, Garibay, Poza] al de las "ideas lingüísticas internas". Ello, unido a la apología filosófica de la lengua vasca, ha "marcado", creemos, la reflexión

Zaldibia, Garibay[73], Isasti, Echave, Poza[74].

Areago, 1987ko lan batean[75], Mitxelenak, euskararen aldeko apologilarien, oro har, eginbidea nolabait zuritu[76] ere egiten duela esan daiteke:

---

lingüística vasca hasta tiempos bastante recientes y perdura quizás en bastante medida en la conciencia lingüística popular de nuestro pueblo. Su influencia en Larramendi, Astarloa, vascólogos del s. XIX, y Sabino Arana nos parece notable.

Si se nos permite una reflexión, más que una conclusión, pensamos que esta continuación e importancia de lo apologético y externo en la lingüística vasca -varios siglos después de su período propio, el Renacimiento- creemos es consecuencia del carácter de lengua no oficial, no mayoritario, y necesitada al parecer de defensas y apologías frente a las lenguas nacionales dominantes -francés y español- como lo estuvo en el s. XVI, ante la elevación a lengua nacional del dialecto castellano" (Zubiaur 1989:337).

Lakarrak (1985a:17; 1985b:238) berriz, ez dentza egoki apologista guztiak zaku berean sartzeari:

"Bestalde eta apologistengana bihurtuaz, hauen artean bereizkuntzak egin beharra dugu, ezin dira talde beretan sartu Garibai eta Poza, Erro eta Etxeberri, Larramendi eta Astarloa. Beren ezberdintasunak handiegiak dira, ez soilik «taktikan» -erabiltzen dituzten mito eta topoietan- baina baita «estrategian» -lortu nahi dituzten helburuetan ere. Guztiak «teorikotzat» eta alferlanen egile nagitzat badutugu ere, ez da hori egia osoa, ez eta gutxiagorik". (Lakarra 1985a:17).

Hari berean, edo oso gertukoan bederen, bereizkuntza-premia aldarrikatzen du hainbat pleguetan Azurmendik ere (1992), honako laburbiltze bat proposatuz:

"1. Apologistak: euskara goratzen, baina erdara erabiltzen dutenak (erdarazko euskal kontzientzia) (...) [Hemen kokatuko lirateke erdaraz idatzi duten XVI. mendeko apologigileak, besteak beste]

2. ... euskaraz an direnak baina propio kontzientzia euskaltzalerik gabe: euskararen bidez, baina erlijioa kultibatzen dute, ez euskara. (...) katixumagileak eta, esate baterako, Leizarraga eta lankideak. Euskaltzale kontzientziarik ez diegu ukatuko. Baina artortzeko arrazoi askorik ere ez dute ageri, zenarbidez besterik (...)

3. Aipatu dugun mugimendu literario eta euskaltzale horretako Autoreak, hirugarren talde batean bereziko gentuzke apurte. Horiek *euskara bera* kultibatzen dute, ez erlijioa bakarrik euskararen bidez. [Axular, Materre, Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, Argaignarats, Aranbillaga, Gasteluzar, Silvain Pouvreau, Oihenart, Tartas, Detxebern edo Dorre [???], Mongongo Dassanza... aipatzen ditu, *Sarako edo Donibane Lohitzuneko mugimendua* deitzopean bilduz]". (Azurmendi 1992:465).

[72]Zubiarren (1989:332) ustez Zaldibia, Garibay eta Poza dira lehen euskararen aldeko apologistak, Garibay lehen euskal filologoa eta Poza, berriz, lehen euskal hizkuntzalaria.

Baina hauen ondoan:

"Hemos mencionado en diversos pasajes de nuestro trabajo que ya Etxepare, y posteriormente Axular y Etcheberri de Sara contienen en sus obras anotaciones de índole apologético". (Zubiaur 1989:333)

Lakarra, berriz, kexu da gerora horko egile zenbait eta Larramendi aurkeztu ohi diren moduarekin:

"Hari [Larramendiri] buruz idatzi duten gehienek Axular eta Etxebemren zuhurtzia eta praktikotasuna goraipatu ondoren «apologistatzat», hitz honek gure artean duen adiera gaiztoarekin, jo izan dute". (Lakarra 1985a:14).

Jasorik doa Azurmendiren (1992) auzi honezazko ikuspegia.

[73]Larramendi Garibayrekin batzen duen axaleko besterik ere bada: berez Zamalloa Garibay zenak, Garibay Zamalloa irauli zituen deiturak, amaldekoari lehentasuna emanik (Zubiaur 1989:185).

Deitura-dantzaren beste Larramendiren gertuko adibiderik ere bada, geroagokoa hau: Agustín Inazio María Pascual Ugalde Iturriaga Amitesarobe, Agustín (Paskual) Iturriagz bilakatua (Altuna 1987a:21).

[74]Zubiaurrek (1989:258) Larramendiren aitzindari garbitzat dauka Poza, ideietan, etimologietan, apologi lanean eta abarretan. Gainera, Larramendik Pozaren berri aitortua bazuen. Lan berean (Zubiaur 1989:266), katez honela osatzen du: Poza apologista, Garibayren jarraitzaile eta Larramendiren aitzindaria litzateke.

[75]"Literatura en lengua vasca" (1987b).

[76]Bada euskal apologilarien lanaan alderdi onak ikusi ez ezik, paradoxikoki, Larramendi horren gogor hartu zuen Arana Goiri ere samalda berean kokatzen duenik:

"Hemen badugu gaia euskal apologisten artean, bereziki hamaseigarren mendetsutik aurrera, korritu izan

No todo papel fue desperdiciado ya que, además de los datos que aportan sobre la lengua misma, fomentaron sin duda un movimiento que tuvo que influir en el cultivo literario. (1987b:94).

XVIII. mende-bukaerarer: auzoan, Euskal Herriko erakundeak eta euskara, erasogunean hartzen dituzte, era honetan, "se prepara desde Madrid una ofensiva concertada"[77], hizkuntza eta hizkuntzarekin batean Euskal Herriaren berezkotasuna indargabetu nahiz:

[Hiztegiaren] Hitzaurrea irakurri dionak, eta Larramendi hor, egia eta inbusteria nahaste, adierazten dituen arrazoiak, purrustadaz eta parrastadaz gatzozpinduak, erraz antzemango dio hiztegia argitara baino lehenagoko giro gordinari, baita ere argitara ondoan sor zitekeen garratzagoari (...)

Errieta eta sesio hauek gerra bizi bihurtuko dira 1800en auzoan, eta beharbada Larramendirenak har dezake zetorren ekaitzari gogor egiteko prestamen antzera. Harrokeria genuen lagun orduan eta espa, aglan, besteek, juzku okerretan hastea ez bada. Hizkuntza, eta historia eta beste zernahiren azpian datzana politika denez gero eta erasoa alde honetatik Madrildik datorrenez, obra pare ezaguna ez dut aipatu besterik egingo. (1933a:64,65).

Garaiko ingurumariari zorko ere zaio, beharbada, Larramendik agerturiko historiazko ikuspegia: kantabrismoa, Espainiako lehen biztanleezkoa[78]... Mitxelenaren iritzia, puntu

---

duten mitoen historiari eransteko. Eta ez da uste izan behar mito linguistikoak gure hizkuntzaren mesedetan sortu ez direnik, ezertarako sortu baldin baziren hain zuzen ere horretarakoxe sortu baitziren, odonon gertatu izan den bezala. Inola ere dudatan ezin ezar daitekeena da apologisten gure herriaganako amodioa eta batez ere Euskal Herriarentzat denbora txarretan bizi izan zen Arana Goiri-rena, ezta gutxiagorik ere" (Irigoien 1977:519).

Sarasolak ere (1971:26) ariketa honetan, bizkaitarra gipuztarraren harikotzat dauka.

Erka daiteke, bestalde, Urkixok (1918:16) agerturiko beste iritzi honekin:

"Hasta finales del siglo XVIII o principios del XIX, las publicaciones de nuestros vascófilos se reducen, fuera de algunas poesías y de los libros de carácter religioso, a unos cuantos alegatos en favor de la lengua, impresos, estos últimos, casi sin más valor que el bibliográfico, tales como los de Andrés de Poza y Baltasar de Echave; o a simples gramáticas, generalmente calcadas en las latinas, francesas o españolas de la época, en las que se da cuenta de un número muy reducido de hechos lingüísticos. Merecen entre éstas, por su relativa extensión, la conocidísima del P. Larramendi, impresa en 1729, y las de Pedro de Urte y Joannes d'Etcheberri, que no han obtenido hasta nuestros días, los honores de la impresión".

Ez dakigu noraino neurtu den, bere garaian kokatuz batipat, euskal gauzez hainbatetan horren zuhur mintzatzen den Urkixoren iritziak zenbaterainoko eragina izan duen hastapeneiako euskalarien lanezko juzkuetan.

[77](1980b, *SHLV*:921).

[78]Espainiako lehen biztanleak, euskaldunak eta haien mintzoa lehena defenditzen zuen teoriaren atzean honakoa ikusten du Azurmendik (1992:393hh):

"Funtsean, ikusten ari garen puntu guztiok -noblezia, euskararen antzinatasuna, eta abar- teoria orokor batean etzaten dira: teoria basko-iberistan. Hau, bere orara *Hispanided* teoria bat dugu. Teoria basko-iberistak ez du hauxe besterik esan nahi: Iberiako lehen hizkuntzetako bat euskara zela; eta are gehienetan horixe adierazi nahi bait da, jatorrizko hizkuntza bakarra euskara zela Iberian (...) Teoria basko-iberistak badu bere alderdi zientifikoa. Zientifiko bezala, norbait izan liteke -izan zitekeen noizbait- Iberia guztiko jatorrizko mintzaira euskara izan den ustekoa (Humboldt). Baina hori geroago azaldu da. Geroago. Basko-iberismoa berez teoria zientifikorik ez, baino ideologia hutsa zen. Jauntxo ideologia. Eta nabar-nabarmen dago zein posturatatik sortua (...)

Bereiz dezagun, hortakoz, bi alderdi ideologia honen sorreran. Lehenengoa, ageriena eta nabarmenena, iotsagarriena, Gorteari kosta ahala kosta egokitu eta gustatu nahi zaion jauntxerlarena dugu. Euskaldunon aldetik. Hori da bat. Euskal jauntxook Espainiako ideologia nagusiari egokitu zaizkio halere. Hau da, Gorte ideologiari. Hori bait da bigarren alderdia. Ideologia guzti honek ez du besterik egiten, Gorte ideologia arrunta euskal jauntxoen alde bihurtu baino. Jauntxoeri kiase interesak Gorte ideologiaz espresatu.

honetan anitzek, apika, maiteago luketen iragan loriatsuaren deuseztatzaile, mito-urratzaile bilakatzen da:

> los vascos y nuestros antepasados hemos tenido por lo general, hasta el siglo pasado, el acierto[79] de inclinarnos en los conflictos del lado de los batallones más nutridos. (1959d, *SHLV*:901).

Larramendiren kasuan, gainera, aldi hartako iritzien alboan, bere izakerazkoez atzendu behar ez da:

> Alta Manuel ez dugu inoiz jakitun hutsa izan. Lanaren lanez hurbiltzen gatzaizkion egia iheskorra[80] baino nahiago zuen, lege-gizon eta eskolastikoen antzera, eztabaidan garaitzaile irtetea[81], jakinaren gainean okerbidez jo behar bazuen ere. Horrexegatik ez dute orain gehiegi balio euskaldunon antzinatasun, eskubide, uste edo ametsen alde egin zituen "histori"-lan batzuek. Etsi-etsian onartu baitugu azkenean ez zirela gure leinukoak antzinako kantauriar sonatuak. (1966a:68).

Arrazoi berari ere zor zaizkio Larramendik agertzen dituen hizkuntz ideiak.

Zein da gorte ideologia hori? "espainaren" batasun "naturalarena" besterik ez. Hots, koroa menpeko lurralde guztien jatorrizko "batasun naturalaren" teoria (...) Filipe II.ak bukatuko zuen [Nafarroa "koroa batasunean" sarrarazi] -Garibay bere kronista zuena-"

[79] Ez dakigu zenbateraino emango lituzkeen ontzat hitzok Azurmendik (1992).

[80] Jat. *igeskorra*.

[81] Gogoan du honetan Mitxelenak Villasante (1966:171).
Villasantek, hurrengo ornaldean, "eskolastikotasuna" dela eta, honako testigutza eskaintzen du.
"Juan Antonio de Moguel, el autor de *Peru Abarca*, a pesar de su ilimitada admiración hacia Larramendi, hace constar su desaprobación por las chacotas que éste suele emplear al impugnar al adversario. Dice así en una de sus cartas a Vargas Ponce. *Era grande su ingenio, hizo mucho en un idioma nada cultivado; pero jamas me han gustado sus inventivas y chacotas impugnando a hombres sabios. La moderación es media razón, y para convencer es preciso captar la voluntad del adversario. El desprecio y censuras mordaces quitan el gusto de la lectura al impugnado. Se nota también demasiado escolástico en sus estilo, lo que es ajeno del prólogo*".
Mogelek ez ditu, nonbait, errementarrak mate dituen gatzozpin-zipriztinak oso gogoko.
Honezaz gain, paperera darteke, Larramendiri gaitz iritziak ez dituela Mogelek, itxura guztiz, aipatuetara soilik mugatuzen:
"Una gramática, algunas poesías y algún código de leyes no arguye mucho trabajo de cultura. Nuestros misioneros americanos han formado gramáticas y diccionarios; trabajado poesías y catecismos en varias de las lenguas de aquellos paises. Y con todo, no sabian el idioma en que escribian con aquella perfeccion original que tenía entre los rústicos ó salvajes. El padre Larramendi ha dado su arte y su diccionario; y ningún rústico bascongado ha aumentado su ciencia en el bascuence, ni todas las fatigas de este ingenioso bascongado, han llegado á descubrir toda la perfección y fecundidad de nuestra lengua. Con todo, es verdad, que desde la época en que trabajaron y publicaron algunas obras los diestros bascongados Mendiburu, Cardaveras y Larramendi, se nota mas cultura en los sermones, y hay en Guipúzcoa no pocos eclesiásticos que han hecho un estudio serio del bascuence y que hablan con gallardia. Pero en Vizcaya nada se ha cultivado, y son rarísimos los que se han dedicado á estudiarlo en los libros vivos, que son las bocas de los rústicos". (Mogel *PA*, "Prólogo" 1990:40,41).
Bidenabar, errepara dakioke, misiolariak eta Larramendi elkarren segidan paratzearl

Oker dabil Larramendi, Mitxelenaren aburuz, hizkuntzen jatorriaz duen ikuspegian[82], mende luzetan gaiazko lanetan zehar irakur daitekeen Liburu Santuko Etorkian oinarritzen denean[83] alegia.

Hizkuntzen bilakaeraz eta hizkuntzarteko harremanez dituen juzkuetan ere, ez omen du ziurtasun handirik Larremendik puntu batean ezik: euskarak ez duela aldien joan-etorrian aldakuntza bortitzik nozitu[84].

Larramendi beltz zezaketen okerreko iritzi hauek, ordea, lerro batzuk beherago emaniko azalpenak zuritzen ditu:

> Es difícil que podamos acusar a Larramendi de tener ideas generales poco claras y hasta completamente erróneas si las de sus contemporáneos no eran por lo común menos fabulosas y equivocadas que las suyas. (1959d, *SHLV*:902).

---

[82]Azurmendik (1992:421) Escaligero semea ikusten du Larramendiren zenbait ideiaren atzean.

"Ernazimentuan bertan, Europa moderno osoak begiak antzinatera bihurtu dituenean, Petrarcak latinoak nahiko ditu aitxatu eredu. Erasmo ebakorra da: non ikasi, Grezian dago, ez beste inon (..) Egia da holandes barbaro bat zela Erasmo hori. Baina italiarrak laster ohartu dira, zimentu oso ahulen gainean zimentatzen zela beren harrokeria kultural "abertzalea". Escaligero semeak, orduan, soluzioa asmatu dio latinaren biluzgorritasunari: hizkuntzak familietan sailkatuz, latina zuzen-zuzen grekoaren dialekto deklaratu du. Hizkuntza denak hebreoaren ume zirela, suposatzen bait zuen (dogma arrunta zen), latinaren ohorea salbatuta zegoen, grekoarekin bateginda. Bide batez latinkumeak ohoratzen eta kontziliatzen ziren beren artean: hizkuntza "greko-latino" denak ahaideak ziren. (Honen "matrices linguae" honetatik abiatu zaigu Larramendi, euskararen ohorea errebindikatu nahirik)".

[83]Ez dugu erdal gogaideen lekukotasun zehatzik ekarriko; hizkuntzalarrzaren historiako zeinahi eskuliburutan abondo irakur daitezke.

Bestelako lekukotasuna ekarri gogo dugu, euskarari buruz bai, baina beste testu-mota batetik jasoa: lehen ere paperera genekarren Mogelen nolabaiteko "primer conato de novela en vascuence" (1960b:108) delakotik, alegia; egileak atarian paratzen duen apologi usaineko "Prólogo al lector vizcaino" delakotik, hain zuzen ere:

"Se oirá de la boca del rústico otra curiosidad filosófica: y son las etimologías de los vocablos con que son denominados los animales y las aves. El idioma bascongado es muy fecundo en este artificio, y de él se puede decir: *Convenient rebus nomina sæpe suis*. En esto imita al lenguaje del primer hombre, ciertamente inspirado por Dios. Habiendo el Señor puesto todos los animales de la tierra y las aves del cielo frente a Adán, para que les pusiera a cada uno el propio y conveniente nombre, les impuso Adán aquel que describía sus propiedades.

Sin duda esta aplicación arguye no sólo la perfecta inteligencia, sino también un conocimiento penetrante de las propiedades. Esto pasó antes de su caída y poco después de la creación de Adán. Id a pedir este curioso artificio a los idiomas latino, francés, inglés y otros innumerables. Por lo común, los nombres que nos presentan son antojadizos, de mero capricho, nada descriptivos. Uno de los argumentos con que se intenta probar que la lengua hebrea es la del primer hombre (aunque después alterada en la Caldea), es, que son descriptivos de las propiedades de las bestias, aves, etc... los nombres con que son llamados. Yo aunque lo he deseado, no he hallado en expositor alguno las etimologías de los nombres hebreos en este punto. Hubiera sido curiosa esta interpretación, confrontándola con la que se da de los nombres bascongados". (Mogel *PA*, "Prólogo" 1990:22).

Urkixok (1918:18) gogor egin zien gisa honetako ideiei. Adan eta Eba paradisuan euskaraz ari zirela pentsatzen zuenik bazela (D. Julián de Churruca y Elorza, *Jesus'en Biotzaren Deyan* agurturiko lan bat aipatzen ditu, besteak beste) esan ondoan, honakoa eransten du oin-oharrean:

"De todos modos, no son pocos los que, como Perochegui, Larramendi y Astarloa, han tomado en serio estas y otras parecidas hipótesis, de las que pienso hablar algun dia, largo y tendido, en un libro que espero sea de regocijante lectura".

[84]Zaldibiaren ustez ere, euskara ez nahasi ez aldatu da (Zubiaur 1989:87).

Honenbestez, ezin egotz dakioke Larramendiri gisa honetako irudimen-ametsetako ideien aitatasuna, garaiaren ume izaki, Larramendik –berezkotasun apartekorik gabe, hori bai–, giroan girokoak islatzen baititu.

Honela, bada, Larramendiren apologi ihardunean esanek, "hauspeko sua berbiztuz"[85], luzaro iraun duen "iskanbila eta zalaparta" ekarriko dute inguruan, aldekoak eta kontrakoak sortuko zaizkiola.

Kanpoan –orobat esanik–, ez zituzten, nonbait, oso gogo onez entzun-irakurri Larramendik ikusten zuen erasoari erantzuteko euskararen eta Euskal Herriaren alde isuriak:

> Orduan ere, ez zuten bere liburuek harrera onik izan atzerrietan. Eta ez dira geroztik kontrakoak gutxitu ez baretu, orain-oraintsu izendatu baitute "vascómano"[86] ahobetean. (1966a:67).

Euskaldunak, aldiz, alde jarri bide zitzaizkion, etxean bertan, desegite-lanean hasiko zaizkion arte, erakutsiko denez[87].

> ez zioten euskaldunek (euskaldun "euskaltzaleek", behintzat) ez maitasunik ez goramenik ukatu, etxe-inguruko giroa azken mende-mugan aldatu arte. (1966a:68)

---

[85] Azurmendik (1992:325) ere, aurrerago berrerakutsiko den legez, ez du Larramendiren ekarria ohiko apologia hutsean mugatzen:

"Handik [XVII. mendetik] urte askotara, Hegoaldeko apologista handi bat, bide honi [arestian adierazi duen honako egitasmoari lotzen zaiona: "Egin behar dena, hortakoz, euskara lantzea da. Eta ez, nolabaiteko apologiak erdaraz idaztea. Apologiez baino hobeto konbentzituko dira euskararen burlatzaileak, liburuak euskaraz ikusirik"] abiki ez arren bera, bidearen zuzentasunaz ongi ohartuko da: Larramendi. Hau, apologista argiz beste, euskal literaturaren eragile bizkorra izango dugu. Baina Larramendik beste aro [oroi Mitxelenaren *aro berriaz*] bat inkarnatzen du. Bere baitara bihurtzen hasi den Euskal Herri bat, orain –XVI eta XVII. mendeetan– erraka betean kanpora isurtzen ari dena".

[86] Se suele hablar de la "vascomanía" de Larramendi, pero sería interesante precisar la proporción de guasa que se mezcla con la seriedad en sus etimologías; este estudio, evidentemente, no podría emprenderlo un lingüista. Incidentalmente, no parece tener razón J. Gárate, BAP 5 (1949) 361, que atribuye a Larramendi la paternidad de *margo*, "color". (1958c, *SHLV*:436).

[87] Larramendiren zoriaz mintzatzean eta hurrengo kapituluan erreparatuko diogu honi.

2.5. LARRAMENDIREN EUSKARA IDATZIAREN EREDUA

2.5.1. Larramendi eredu bila

Larramendik noranahiko nahi duen euskara idatzia hornitu beharra dauka, hizkuntza-lehengaletarik oinarrizkoena litzatekeen hiztegitik hasiz, eredu osobetea erdietsi bitarte.

Estreinatik galde daitekeena da, ea ez ote zuen euskal testuetan eredugarri gerta zekiokeenik kausitu, horren lidoan harantzago jotzeko.

Hegoaldean, nekez aurki zezakeen horrelakorik, ordurarteko euskara idatziaren urria zela medio[88], kopuruz eta nolakotasunez. Iparraldean, ordea, bazen bertatik ezagutzen zuen idatzizko eredurik[89]:

> Hizkuntzaren historiarako balio handiko agiriez gainera, hitz neurtu askoren artean, hitz lauezko eredua zor diegu [herri hizkuntzaz arduratu ziren elizgizonei] literaturan, gaur bertan ere argi emaile bortitza. Eredu honen egoslekua XVII.eko Lapurdi goratsuan bilatu behar da, Axular gorengoa dugula mugimenduaren iturburuari oso hurbil.
>
> Jakina denez, eredu honek bere eragina izan zuen, handia gainera, mugaz honako idazleen artean, giputz eta bizkaitarren artean eskierki, XVIII. eta XIX.eko lehen partean, Larramendiren eskolatik hasita. (1978a:32).

Larramendi eta segiziokoak, beraz, ez dira bidea urratzen hasien lanez atzentzen, gisa honetan, Larramendik erdietsiko duena da Iparraldekoekiko lokarriak sendotzearekin batean[90], "euskal tradizioaren sendotze eta iraupena", Lakarraren[91] hitzez esateko. Aldi berean, Ipar-hego anarteko harreman-mota aldatuko du, Bidasoaz harantzagoen zordun

---

[88]Euskal literaturaren historiak ikuskatu besterik ez dago hori egiaztatzeko: Michelena (1960b), Villasante (1961 (1979$_2$)), Sarasola (1971, 1976) edo, beste lanetara joz, Mitxelenaren beraren (1964b:29,30).

Larramendik berak ematen du adigarririk eredu-ez honezaz (*Corografía* 1969:300). Altuna-Lakarrak honela ruzkintzen dute pasarte horixe, hain justu:

"Gipuzkerara iristean, ordea, inoren liburutikakoa eman beharrean -ez zuen, egia esan, aukera handirik- bere baitarikako zati bat eskaintzen digu, euskaraz inoiz idatzi den puskarik ederrenetako bat gure ustez, azalez eta mamiz". (Altuna-Lakarra 1990:25).

[89]Larramendik, Etxepareren lanik ezagutu bide ez bazuen ere (1960b:48), (1978b:27), Iparraldeko literaturaren berri bazuen.

Iido honetan, aipagarria da, sarriegi ahotan hartzen ez den Larramendiren beste ezaugarri bat, Villasantek (1979$_2$:142) nabarmendurikoa ("Larramendi como bibliógrafo vasco"), eta Arana Martijak (1991) berrazpimarratu eta goraipatua: anarteko euskal bibliografiaren berri-emaile izatea, hain justu.

[90]Honela ikusten dute, Ibar-en iritzien kontra, nonbait, Lakarrak (1985c:442) eta Urgellek (1992).

[91]Lakarra (1985c:449).

hegoaldekoak, emaile bihurtuko baititu[92]:

> Hemen biziu zen sua ez zen Gipuzkoako lurretan geldiiu: bizkaieraren loraldia luzaro gabe dator, Nafarroa (bakarti gehienetan) ez zen erabat lozorroan geldiiu eta beste aldekoek hartu zuten ordutik aurrera lehen guk halengandik bildu genuenaren truk. Harremanak, ongi uler bedi diodana, bitara izan ziren XVIII. mendearen erditik hona, batetik bestera eta bestetik batera, eta hala behar ere. Baina artean zordun huts ginenok hartzekodun ere gertatu ginen orduan hasi eta gaurdaino. (1986a:127).

Onarturiko eredua eskueran izaki, non datza, orduan, Larramendiren berritasuna eta aitzindaritza? Zenbatetaraino sostenga daiteke, orduan, "eredurik ez zuen hizkuntzari eredua" finkatu asmoz ibili zela?

> Los comienzos de una literatura culta de cierta calidad están unidos a este lado del Bidasoa a la brillante personalidad del padre Manuel de Larramendi. (1960b:93)[93].

Larramendik begiz joriko ereduaren zehapena aurreraxeagoko utziaz, gogoeman daiteke izan litekeela arrazoirik arestian jasoetan argi eman lezakeenik.

Ikura guztiz, Mitxelenak, Bidasoaz honanzko hizkera du batipat gogoan "hastapenak" ahotan dituenean, Lapurdi "loratsuan" literatur hizkera molde berri bat mamitua baitzuten:

> Escriben en una lengua de aspecto mucho más moderno, más aburguesada, que la de Dechepare y sobre todo que la de Leizarraga: se trata de lengua cotidiana (el labortano de Sara y de San Juan de Luz), elevada sin esfuerzo a lengua literaria. (1960b:69).

---

[92]Maizkara, euskal literaturaren gorabeherok ekonomiaren argitan azaldu ohi dira. Bestela ikusten ditu gauzak Azurmendik:

"Hegoaldean euskal idazlerik ez baldin badago, eta Iparraldean bai, arrazoiak apenas dirudien ekonomikoa. Ezin esan, XV, XVI eta XVII.etan Hegoaldea pobreago zenik Iparraldea baino. Hegoaldea txiroa zen, baina ez dago txirotasun hori zergatik esajeratu. Iparraldea, eta Gaztela bera (Amerikatak aurkitu aurretik), askoz aberatsagorik ez ziratekeen, ez baziren pobreago. Arte lanetarako, adibidez, bazen dirurik Hegoaldean, San Martinek ohartarazi duenez. Euskal literaturarik sortu ez bada, beste zerbaitegatik zen. Idatzi ere egin da Hegoaldean: bakarrik, erdaraz idatzi dela.

Datuok sinpleak bezain argigarriak ditugu: mendeotan euskal idazle denak Iparraldekoak dira, bat bakarrik ez hegoaldekoa. Apologista denak hegoaldekoak dira. Hegoaldeak ere badu idazlerik, baina apologistak (eta erdaraz, hortakoz). Bestalde, dirua baldin bada kontua, Hegoaldeko literatura apologista dirudun arteanago sortu da, Iparraldeko euskal literatura baino. Eta beste datu bat hau da: mendeotako apologista bakar bat da apezik: Isasti; beste denak jauntxo sailetko edo ingurukoak. Euskal idazle bat bakarra, ordea, jauntxo sailekoa (Olhenart, herri kontzientzia bat berezikoa bera), beste denak elizgizonak. Elizgizonak bertako herriari atxekiagoak ziren, bidezko denez. Sektore ekonomiko ahalsuek, berriz, kanpora begira zituzten begiak, Hegoaldean bai eta Iparraldean balta ere (...) Iparraldeko euskal literatura ez da jauntxo girotan sortu. Jauntxo halek ere euskal jendearen eta euskal gauzen ardura gutxi bait zuten. Laborariei eta arrantzaleei zuzendu zaizkie idazleok". (Azurmendi 1992:328,329).

Beriz ere, apologista/euskal idazle bikotearen itzala da tarteko.

[93]"Los comienzos de una literatura culta de cierta calidad están unidos en España a la brillante personalidad del padre Manuel de Larramendi, Garagorri de apellido paterno, nacido en Andoain en 1690", esana zuen 1958ko lanburpenean.

Halarik ere, Larramendik bere aukera egitera bultzatzen duen besterik ere badelakoan gaude, Larramendi eta gertuko jarraileen artean, hizkuntza aldetikako liskarrak ere sorraraziko dituena, gainera[94]. Auzia, euskara idatziaren erabilesparruari Larramendik eta bestek landaturiko xede-helburuei dagokie:

> Dena den, ez da beharbada gehiegizko ausarkeria izango nik esatea ez dela eginbide zailegia [Larramendi eta jarraileen arteko hizka-mizketan] zenbait arrazoi ikustea edo erdi-ikustea. Larramendik, adibidez, besteek baino gorago zeuzkala jarriak begiak: euskararen beraren ongia eta hobekuntza nahi zituen, jakinaren gainean nahi ere, euskararen bidez egin behar zen erlijio irakaskuntzaz kanpo, zein ere ardura handikoa zen irakaskuntza hau. (1982a:104).

Hau da, arestiko puntuan arrazoitu legez, Larramendik ez du aski, barruti jakin soil batera[95], zein ere ardurazko iruditzen zaion barrutia, euskara idatziaren erabilesparrua mugatzearekin: harantzago begiratzen du.

Hau dela eta, Iapurtarren saioa egoki irudituagatik, behexko gelditzen zaio, asmoen aldetik, batetik:

> Iparraldekoek lehengo bideari segitzen diote: mendi-hegietan barrena bezala dabiltza, gaiurrak bazterrean utziaz (...) Berrikuntzak Gipuzkoan aurki daitezke eta Gipuzkoatik Bizkaira eta, indarra galduz, baita Nafarroara ere zabaltzen dira. Iturburua, hemen, Larramendi jesuita dugu (1690-1766), andoaindarra jaiotzez. (1983a:59).

mendi-hegaletako euskara ez baina, mendi-tontorrerainokoa nahi baitu eta, hortik, "berrikuntzen" premia, artean euskaraz idatzi gabeek ere molde-izaera izan dezaten, ondoko aipuan biltzen den bezala[96]:

---

[94] Sarasolaren ustez (1971:28), jarraileek "ez dute maisuaren irakaskintza jasotzen, euskara herrikoi eta natural batez idatziak baitaude". (Ber ideia, 1976:60). Halarik ere, intzi hau ñabartzen du (1986) lanean.

[95] Azurmendiren argudioa ere, ildo honetan koka daitekeela dirudi:

"Axularrek, bera teologo izanik, euskararen gaitasunak teologia maitan erakutsi nahi baditu, hori ere ez da problema orokorraren zati txikia besterik. Justu teologoari zegokion zati konkretua. Baina orokorra dugu problema. Orain arte latinez ematen zen kultura nola euskaraz eman. Villasantek ongi seinalatu du. Horren partetxo bat da: kristau fedeko jakinduria nola euskaraz eman. Problema orokor honetan Axularrek bere eremua landu digu. Zorigaitzez euskarak ez du beste eremuetan Axular gehiago izan: beste eremuok tokatzen zitzaizkienak, bestetan zebiltzan eta. Hori izan da gure problema: gure humanistak elizakoak izan dira". (Azurmendi 1992:452).

[96] Lasak (1991:118) berriz, bestela ikusten ditu gauzak:

"XVII. mendeko Iapurtar idatziak kultura jasoko jendeari zuzenduak izan ziren. Larramendiren inguruan piztu zen eskola antzekoaren begiak, altzitik, herri xehean jarrita zeuden, nahiz eta partaideak jende ikasia izan –Larramendi bera kasurako–".

Beharbada, honetan ere mailak finkatu beharko lirateke: hartzaile-mota, Larramendiren beraren benetako eta balizko hartzailea, Larramendi bera eta Larramendiren "inguruko eskola antzeko" zein partaide...

Nekerik gabe ager daiteke zer nahi zuen Larramendik euskarari, euskara idatziari, buruz. Euskarak burua jasoko bazuen, bere lagunak idatzi zuen bezala, premiazko iruditzen zitzaion, gure alde honetan betez ere, artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa. Hizkuntzaz kanpoko xedeei --Elizaren eginkizunei, batipat-- begira zegoen jendeari, ez zitzaion gehiegi kostatzen, erraztasuna lagun, euskararen izaeraz eta egoeraz atzentzea. Berak eskatzen zuena, hizkuntzarekiko arreta gaiarekikoaz gainera, lortu zuen, besterengandik lortu, idazle onenengandik. (1983c:97).

Baina honezaz gain, gogoan izan behar da, ondoren erakutsiko den bezala, Mitxelenaren ustez, Larramendiren asmoa ezin murritz daitekeela euskalki bakar bat literatur hizkerarako euskara bilakatzera, "euskara osoa"[97] baitu begiz joa.

2.5.2. Euskara idatziaren eredua

Esana doan bezala, Larramendiren xede-helburuek –euskarak beharrezkoa duen goren gradoa iritsiko badu–, prosa-mota finkatzea nahitaezko baldintza daukate. Halaber da premiazkoa egitamua gatza dadin, eginbidearen iparrorratza norabidetzea.

Nolakoa da, bada, andoaindarrak nahi lukeen euskara idatzi landu hori, Mitxelenaren ustez?

Lehenik eta behin, euskal ondasunak, bestela esan, euskalkiak, bazter ezineko altxorra dira, hor du euskaldunak, euskaraz idazteko erna eta balia dezakeen lehen mintegia. Areago, ez dago euskara barnetik ezagutzerik euskalkiez atzenduz:

... idea acertada de que no puede haber conocimiento cabal del vascuence, mientras éste quede confinado a una sola de sus variantes. (1964a, *SHLV*:5).

Larramendiren asmoak badu, haatik, beste alderdi bat ere, inoiz gogoki azaldu zuena. Euskara bat zen beretzat, eta hain euskara hangoa zein hemengoa. Euskal hitzak ziren, beraz, euskaldun batek zenbait hizkuntza mailatan bederen erabil zitzakeenak, Euskal herriko zeinahi eskualde eta euskalkitan ezagun zirenak. Eta eskubide horrek besteren eginbidea zekarren ondoren: edozein euskaldunek euskaldun izena mereziko badu, ezagunak behar ditu izan euskal hitzak, etxeko eta etxeondokoak ez ezik, balta baztertik baztertuenetakoak ere. Ez da aski, norbere errua garbitzeko, orain ere egiten den bezala, *ez dakit, ez dut ezagutzen, ez dut sekula horrelakorik entzun* esatea. (1982a:105).

Euskarak bide honetatik gainera, ez luke begiramena eta lilura sorrarazten duen aspaldiko grekoak[98] bezala baizik jokatuko, dialektoak, makurra ez baina aberastasuna

---

[97](1983a:61).

[98]"Pues como no solo se llamaba Griego, el que hablaba algún dialecto particular suyo, sino mucho más el que no estando atado a ninguno, usaba de todos los dialectos en la ocasión: assi también se ha de llamar Bascongado, no solo el que habla el dialecto guipuzcoano, ò el Bizcaíno, ò el Navarro, y el Labortano, sino también y con más razón el que haze familiares suyos à todos los dialectos". (*Arte*:13).

baltira hizkuntza batentzat.

Larramendik, beraz, euskalkiak eta dialekto grekoak helburu horrekin erkatzen ditu[99], hau da, argi gera dadin, euskararen euskalki-ugaritasuna, aldi bateko grekoaren dialekto-ugaritasunaren pare-parean dagoela eta honenbestez, egokiera aukerakoa duela beste hizkuntza ospetsu[100] hark erdietsi zuen maila iristeko.

Euskararen eta grekoaren arteko nolabaiteko antza. Mitxelenak ere, beste ildo batean, haatik, azpimarratu du:

"Más que al del italiano, nuestro caso es según toda evidencia análogo al del griego anterior a la época helenística, y no son ganas de buscarnos parentela de buen tono: hay dorio o dialectos dorios, con *Doris mitior* y *severior*, hay arcado-chipriota, hay jónico-ático, hay lo que se quiera, pero no existe un griego por antonomasia que asuma y elimine, englobándolos en una síntesis superior estos particularismos. Y no es que faltaran normas de uso, de uso escrito por ejemplo y hasta propiamente literario, antes de Alejandro: habla un dialecto épico, homérico por su modelo, que ya era en sí mismo una *conflation* de elementos de muy diversa procedencia (...) Y, según es bien sabido, tales variedades asociadas a géneros literarios siguieron vivos al lado de la *koiné*. Este 'dialecto común' tiene como no podía ser menos su propia base dialectal, pues no iba a nacer de la cabeza de nadie, como Atenea, con armas y todo. Junto a ella subsistieron, cada vez más borrosos y apartados de la luz de la escritura, los dialectos tradicionales, hasta que la *koiné* los suplantara casi por entero (...)

Tampoco en nuestro caso, por más que menos ilustre que el griego, han faltado normas, como vengo repitiendo, sino que más bien han sobrado. Ninguna de ellas consiguió imponerse a la totalidad o a la mayoría del país, aunque todas y cada una se extendieran fuera de los límites que se les podrían considerar naturales: también en la Grecia clásica se hallan más que restos aislados de una *koiné* occidental, que no tuvo la fortuna de la *koiné*". (1981g, *PT*:38].

Orixeri buruzko kapituluan, itzuliko gara Greziazko puntu honetara.

Bidenabar, onargarria da, Mitxelenak Atenea-Minerva jainkoan irudia zein duen gogoko, Larramendiz nahiz bestez ari denean. Hona batzuk:

"On se méfie, en général, de la fantaisie du P. Larramendi. Mais ce serait à notre avis, pousser trop loin le scepticisme que de croire que tout ceci est né, à l'instar de Minerve, de la tête du célèbre jésuite, sans aucun fondement dans les faits". (1957a, *SHLV*:224).

"Badabil hemen irtzi harrigarririk, eta zuek hontaz erne egotea nahi nuke. Mouninek esaten duena irakurriz gero Saussure bapatean sortu zela uste izan baitaiteke, Minerva bere aitaren burutik bezala, lantza, buruko eta guzti, baina Saussure Durkheim-en soziologiazko ideiek kutsatua da, eta berak soziologiazko lege hauek linguistikara aldatzen ditu". (1972b3:52).

"Presento algunas de las razones por las cuales el interés por la obra del Brocense, y en especial por su *Minerva*, ha renacido de repente estos últimos años. Quisiera, de paso, favorecer la difusión de una importante contribución española, ya no tan reciente, a la historia de una obra que, en contra de lo que generalmente parece creerse, no nació enteramente adulta y armada, como nació su epónimo *ex louis cerebro*, en 1587". (1975a, *LH*:114).

[99]Honela ikusten ditu gauzak Azurmendik:

"Larramendik esaten zuen orobat, euskara landu egin behar dela, eta *desta suerte hará mil excesos el Bascuence al Griego y otras lenguas en su riqueza y variedad admirable*.

Grekoen eta euskaldunen artean paralerro bat ateratzen da, kidetasun bat. Funtsean, grekoak, latinoak ala hebreoak berdintsu da. Europa guztian nabari duguna da hori. Erlijiosoenek hebreo [sic] aipatuko dizute; gutxiago debotoek latina eta grekoa. Konparazio horien helburua bere hizkuntzaren bikaintasuna erakustea da beti. Europako nazio guztiak zebiltzan orduan bakoitzak bere hizkuntzaren dohainak eta loriak azaldu nahita. Beren hizkuntzaren eskasi konplexu bat denek sofritzen zuten, inondik ere, ez euskaldunek bakarrik, latinaren aldean. Eta ez da harritzekoa, luzaroan latina erabateko nagusi izandu zenez gero, nola zeruan hala lurrean. Euskaldunon berezitasuna, sekula ez zaigula konplexua bukatzen, [sic] da bakarrik, besteei noizbait pasa zaien bezala". (Azurmendi 1992:446,447).

[100]Azkueren hitzetatik adi daitekeenez, Larramendiren Greziarekiko miresmena ez zen hizkuntza-kontu soiletara mugatzen, gobernu-bideak ere, erakargarri gertatzen zitzaizkion, antza. Pasartea goraxeagotik aldatuko dugu, herri heleno ikura- eta imitagarri etsiaren eta Euskal Herriaren arteko antzak, Larramendiz bestek ere ikusi bide zituelako, geroago, haatik.

Hona Azkuerena:

Horretan datza, Mitxelenaren ustez bi hizkuntzon arteko berdintzearen funtsa:

> destinada a mostrar que la diversidad dialectal, lejos de constituir una tacha, es un signo de riqueza, una especie de lujo sobreañadido. (1964a, *SHLV*:5).

> ...ez zegoen, ordea, euskalkirik gabeko euskararik eta dialektuak, bestalde, ez dira noraezean (ikus Grezia) hizkuntzarentzat kaltegarri. (1983a:61).

Aburu honi jarraikitzearen ondorioz, euskalaritzak bestelako irabazirik ere eskuetarako du, Larramendiren lanik arrakastatsuenetan, euskalkietako gaiak eskainiko baititu:

> [Bonapartek eta Azkuek] No obstante, no carecieron de precursores. Entre ellos ocupa un señalado lugar el jesuita padre Manuel de Larramendi (1690-1766), quien se ocupó con bastante extensión de los dialectos vascos en su *Diccionario Trilingüe* (1745), en *El imposible vencido* (1729) y, por último, en la *Corografía de Guipúzcoa* que permaneció inédita hasta 1882. (1964a, *SHLV*:5).

Gisa honetan, gainera, Oihenartekin batean[101], euskal dialektologiaren ez ezen, dialektologia berriaren aitzindari ere bilakatzen da:

> Fue, como después Jovellanos, un precursor de la dialectología moderna. (1959d, *SHLV*:910)[102].

"Euskalefia biotz-biotzetik maite zuen-aleman [sic] jakintsu Humboldt, orain eun ta ogeitazortzi urte, Gazteiztik irietta Urkiolan bêra Durango-aldera yetxi zan bitartean, Grezia zafa bururatu zitzaion, gure Efi maite onen ikuskizuna ta Periklesen efi omentsuarena berdintsuak zirala ikusiz. Zauzkada onetxen antzekoa izan zuen Lafamendik Greziaren efi-batzafak ikasita gero, beraren Efi maite onen bilerak ikusi ta aztertu ta azaldu zizkigunean. Greziako Amphiktyones eta bere yaiotefiko batzafak alkafien antzekoak baino ere geiago, berdintsuak zirala esan zigun". (Azkue 1934:6).

Humboldt-ek, nonbait, hemen aurkitu zuen, Villasantek (1979$_2$:118,158) adierazia zuen bezala, Azurmendiren (1992:277) hitzetatik adi daitekeen Rousseau-ren basagizon aratzaren hizkuntz arrasto antsiatua.

"Rousseau izan zen, deskuidatu zena; *Emile*-n euskaldunek guztiz "naturalki" eta zibilizazio handiz ileak saretxo batez biltzen dituztela, kontatzen duena, eta *Kontratu Sozialean* beharbada pasarte hau eskaini diguna: *Cuando se ve cómo el pueblo más dichoso del mundo, un montón de campesinos arreglaba bajo un roble los negocios del Estado, conduciéndose siempre sabiamente, ¿puede uno dejar de despreciar los refinamientso de otras naciones que se vuelven ilustres y miserables con tanto arte y tanto misterio?*".

Bidenabar diogu, merezitko lukeela, aplika, Larramendiren eta prusiar euskaltzalearen ukipuntuak astiro miatzeak, jaso den horrek eta ondoko beste honek, abiapuntutik aski eman dezakeelakoan baikaude:

"Urteak joan, urteak etorri. Alta Larramendi, San Inazioren seme hark, oraindik keja bera aterako du: euskara besterik ez dakien jendeari berari erdaraz predikatzen zaiola. Gauza bera Kardaberazek. Larramendik zioenez, elizgizonak, jauntxo, jaunkoto eta jaunkizunak, ikasiak, printzipaltxoak, ziren okerrenak (Humboldtek salaketa bera errepikatzen du)". (Azurmendi 1992:306).

[101](1964a, 1981e).

[102]Hitz beretsuak eskaintzen dizkie Añibarrori eta Bonaparteri:

"Con todo, a causa de su preocupación por la extensión de los términos, por lo que habla de diferencial en el léxico, Añibarro resulta un claro precedente de Azkue, de la dialectología y de la geografía lingüística modernas". (1963b, *SHLV*:412).

Eta, printzeaz, berriz:

"precursor de la dialectología moderna, es casi una culminación de la dialectología vasca". (1964a,

Larramendiren euskalkiekiko atxikimenduaren zantzuak, euskara idatziarentzat lanabes nahi lituzkeen lanetan nabarmen ageri dira.

Honela, gramatikan:

> con todo ello, quien lea el libro sin prevención podrá advertir que, con una hábil disposición que da de su buen sentido, el autor ha podido reunir en un espacio no muy grande, además de la gramática del dialecto guipuzcoano, bastantes indicaciones sobre la pronunciación[103] y sobre otros dialectos vascos. (1959d, *SHLV*:903).

> Sería injusto, sin embargo, que las deficiencias de su obra [Hiztegia du bereziki hizpidean] nos hicieran olvidar sus altos valores. *El Imposible vencido* es en su brevedad una descripción clara y suficiente de lo esencial de la estructura de la lengua vasca en la que se tienen en cuenta tres dialectos. (1960b:97).

SHLV:6).

"Nuestro Linneo fue Luis Luciano Bonaparte que sólo era, para desgracia nuestra, uno de los precursores, si bien uno de los grandes, de la dialectología moderna. No consiguió librarse, como dice Menéndez Pidal, del «concepto unitario del dialecto», ni tampoco del prestigio de las variedades literarias de la lengua escrita, necesariamente normalizadas, que siempre mezció más o menos con las formas locales de la lengua hablada" (1977b:48).

Honen ondorio litzateke, hain justu, eskainiriko euskalkien sailkamodua:

"Buena o mala, la clasificación de Bonaparte es la única de que disponemos y la que, con algún retoque, hemos venido siguiendo Azkue y los demás. Con todos sus defectos, no debe de ser mala de raíz, ya que ofrece un marco de referencia válido que nadie ha podido sustituir por otro. Y es que el Príncipe, que no fue un pensador original y profundo –y no pudo por ello anticiparse a la ciencia de su tiempo–, era, sin embargo, un observador sagaz y meticuloso, que registraba todo, lo grande y lo pequeño. Su hermoso mapa conserva todo su valor, a condición de que no olvidemos que la realidad es mucho más compleja que la imagen coloreada que nos mete por los ojos". (1977b:50).

Beharbada, komeniko litzateke, printzearen hautaera –hots, zein hizkera-modu jotzen duen begiz euskalki baten erakusgarri baliatzan aurkezteko– eta irudiatzeko modua bereiztea.

Lehenari dagokionez, Mitxelenak ez duela oso begi gaiztoz ikusten esan daitekeela dirudi:

"A propósito de la clasificación dialectal de Bonaparte, quisiera volver a insistir en un punto, tomando pie en unas palabras que me fueron publicadas en 1960: «A pesar de su atención primordial a la lengua hablada, por una inconsecuencia que desde el punto de vista literario no puede menos de ser llamada feliz, la mayoría de las versiones que hizo preparar están en variedades fijadas y normalizadas por la tradición escrita, es decir, en lo que su seguidor Campión llamó en 1884 *los cuatro dialectos literarios de la lengua éuskara*: vizcaíno, guipuzcoano, labortano y suletino». Bonaparte, precursor de la dialectología moderna, se muestra en esto, dicho sea de paso, precursor de la lingüística soviética que, fiel espejo de la legislación distingue siempre entre variedades escritas y no escritas, condenadas al parecer a no pasar nunca del primer estado, de las lenguas". (1977b:78).

Bigarrenari dagokionez, berriz, sailkapenaren irudita-moduan Mitxelenak zehazten dituenak gogoan ez hartzearen ondorioz edo, zenbait euskalari uste desegokietara makurtu du:

"Esan gabe doa euskalari guzti hauen atzean [Azkue, Campion, besteak beste] Bonaparte printzearen itzala dabilela, eta berarekin batera dialektuen erizpide orokor bat, zatikatua eta zehatza. Bonaparteren mapan koloreak nahasten ez diren bezalaxe, euskalkien tasun bereizgarriak ere ezin nahasturikoak ziren era berean. Hau da Campionen hitzon azpian datzan erizpidea: «Es verdaderamente curiosa la insistencia con que la lengua bascongada viene marcando epentéticamente un plural en las flexiones de esta categoría. Las que ahora tenemos a la vista lo han redoblado: *it* ó *tu* y *z*». (CAMPION, 1884, 564.or.)". (Laka 1987a:30).

[103] Larramendiren azentuerazko irizpide zuhurra azpimarratzen du Mitxelenak, lehen jasoriko pasartean:

"On se méfie, en général, de la fantaisie du P. Larramendi. Mais ce serait à notre avis, pousser trop loin le scepticisme que de croire que tout ceci est né, à l'instar de Minerve, de la tête du célèbre jésuite, sans aucun fondement dans les faits. En outre, on doit avouer que les détails de son exposé ne s'éloignent pas trop de ce que rapportent les observateurs modernes". (1957a, *SHLV*:224)

Eta antzera (1981e) lanean.

Altubek ere puntu honetan halaxe zeukala Larramendi adierazten du.

> Bere hirikoen ordez bere euskalkiko argitasunak agertzen dizkigu [gramatikan], eta Gipuzkoako euskalki hori berak begiz joa da, Beterri aldera. Badaki, ordea, euskalki bat baino gehiago dituela euskarak eta saiatzen da ahaleginean beste dialektuen berria zabaltzen. (1983c:98).

Hemen bilduek gainera –espainiar misiolarien gramatikekin batean–, Hervás-ek geroagoko sintesi-lana mamitu ahal izatea bideratuko dute[104].

Eta hiztegian ere –garaiak eta bitartekoek ematen zioten abagadunearen neurrian[105]–, euskalkien hitz-altxorra jaso gogo du:

> Ez zuen inoiz inongo euskalkirik baztertu nahi izan, ezaguera zen traba bakarra. (1984b:31).

hitzak nondikakoak diren alboan zehazteke, zeinahi lurraldetako euskaldunak, besterenak bereak balliran erabili ahal izan ditzan.

---

[104] "Ella [misiolarien hizkuntza- eta etnografi lana] hizo posible la síntesis de Hervás a finales del XVIII, a la que también contribuyó sustancialmente Larramendi". (1959d, *SHLV*:904).

"[Larramendiri] le es deudor en particular de importantes medios de trabajo Hervás, investigador que ha recibido más encomios que intentos de valoración precisa". (1959d, *SHLV*:910).

Azurmendik (1992:235), ebanjelio-hedatzearen hastapenetan azpimarratzen duen eliza katolikoaren gidabideak, izango zuen, aplika, ikuskizuna, atze-olhal gisa besterik ez bazen ere:

"Estatuaren alderantziz egin ohi zuen Elizak, ebanjelizazioaren hasieretan: apez eta misiolari guziei esijitzen zitzaien, komunitateren baten kargu hartu aurretik, indioen mintzaira ikastea eta esamina bat aprobatzea. Erretore edo Eliza baten kargudun zirenean, indieraz eman behar zuten dotrina eta katekesia. Obligazio hori betetzen zabar zebilenari, heren bat mozten zitzaien pagua. Halere korrejitzen ez bazen, kastigu geroz eta gogorragoak ematen zitzaizkion, harik eta ikasi arte. Legeak behintzat hala eman ziren Limako Kontzilioan (1567), praxia nola ibili zen, gutxi badakigu ere".

[105] Zein euskalkiren berri zuen Larramendik aztertu bem du R. M. Pagolak (1992). Halarik ere, bada lan honetan deigarri xamar egiten denik:

"Badirudi Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako hizkerak ez zituela [Larramendik] ezagutzen, ez bat zuten literatura idatzirik. Eta, batez ere, Nafarroako eta Behe-Nafarrerako [sic] beste toki batzutako hizkerak ere, literatura faltaz edo ezagutu gabe geldituko zen". (Pagola 1992:265).

Oker aditzen ez badugu, lerrootan Larramendik erronkarieraren berririk zuenik ukatzen da.

Nola uztar daiteke, ordea, iritzi hori Mitxelenaren beste hauekin?:

"Dan fe de ello los importantes *Suplementos* a su [Larramendiren] Diccionario que le fueron enviados en 1746 por el carmelita fray José de María (Araquistáin), y publicados, como la *Corografía* de Larramendi, por el padre Fidel Fita. Araquistáin recogió ahí una rica colección de términos guipuzcoanos y navarros y tiene el mérito de haber sido el primero en interesarse por el roncalés, de cuyo carácter aberrante tenía ya noticia Etcheberri el de Sara, a juzgar por una mención incidental en su *Lau-urdiri gomendiozko carta, edo guthuna* (1718)". (1964a, *SHLV*:5).

"Y, entre los muchos términos guipuzcoanos y navarros cuya existencia señala [Araquistain-ek] al P. Larramendi, aparece por primera vez una lista de palabras roncalesas. Parece, pues haber sido el precursor de Bonaparte en comprender el alto interés científico de ese dialecto marginal". (1984a:81).

Eta ildo bereko Urkizuren beste ondokoarekin?:

"Horien [Larramendiren laguntzaileen] artean Jose María Araquistain karmeldarra aurkitzen dugu, zeinen eskuizkribua (Acl. Hist., ms. 9/7262) osorik orain arte argitaragabe dugun, eta non Etxeberri Ziburukoaz eta Gazteluzarrez hala nola erronkarieraz eta Itziarko hizkeraz mintzatzen zaion [Larramendiri] besteak beste". (Urkizu 1992:314).

Lan batean zein bestean, euskaraz entzunak eta irakurriak oso aurrean ditu andoaindar euskalariak. Zeharkako era honi esker, gainera, berak eskuztatu ahal izan zituen aurreko euskal lanen testigutza egungo egunetaraino iritsi da[106]:

> Hautatu zuen gipuzkera, oharturik ala oharkabez, Beterrikoa izan zen (...) Ez zeukan, noski, gipuzkera gogoan, edo ez zeukan gogoan soil-soilik, Larramendik, euskara bera baitzuen begiz joa: ez zegoen, ordea, euskalkirik gabeko euskararik eta dialektuak, bestalde, ez dira noraezean (ikus Grezia) hizkuntzarentzat kategarri. Etorkizuneko batasun kontuak nekez pentsa zitezkeen orduan, eta egin, inola ere ez. (1963a:60).

Mitxelenak hor adierazten duenaren arabera, Larramendik nahi lukeen izkribuzko euskararen zain nagusiak, anartean moldezko izaerarik ez zuen Beterriko giputz hizkeran landatzen baditu ere, ez du –asmoz, bederen–, gipuzkera bere soilean literatur euskalki bakar bilakatzeko asmorik, beste euskalkiez atzentzea ez baitu gogo gipuzkoarrak.

Nolanahi ere den, Mitxelenak garaian garaikoak kokatuz ikusten du arazoa eta, andoaindarrak egina epaitu: ezin eska Larramendiri, aspaldiko sustraiak dituen batasun-asmoa (1968. urtean benetan gatzatuz hasten dena) XVIII. mendean borobildu eta aurrera ateratzea.

Ildo honetan miratu behar da Mitxelenak 1972. urtean Kintanarekin duen liskarra.

Larramendiren garaikide zenbaitek agertzen duen lapurterarekiko isuria eta gipuzkera literatur euskara bakarra ez bilakatu izana dira tarteko Kintanaren mintzaldian[107]. Mitxelenak bizkaitarrari erantzunez, hain justu, eransten du "Azken ordukoak"[108] delako lana.

Hemen jaulkiek oso gogoan hartzekoak dirudite, auzi hau dela eta, inoren ahotan ibili diren zenbait topikoren balioa kolokan paratu ez ezik, Larramendik proposatzen duen euskara-mota ere gogoeta-iturri suerta daitekeelako, gaurko euskara batura iristeko urratu den bidearen argitan batez ere[109]:

---

[106] Hiztegian aipatzen dituen hamasei lanen zehaztapenak b[illegible]tzen du Arana Martija (1991:138) Larramendi lehen euskal bibliografotzat jotzera, lehen esan bezala.

Bestalde, Larramendik eskueran zituen lanen berri zehatza Altunak (1984) argitara du.

[107] "Gaia «gipuzkera idatzia» da, dirudienez, ez «gipuzkera teorikoa», zer nahi ere den azkeneko hau. Gipuzkera «idatzi horren «gurasoak Kardaberaz eta Mendiburu izan ziren, inondikan ere Larramendiren kategoriakoak ez z[illegible]enak». Halabiz, eta ez naiz «kategoria»-z eztabaidan hasiko (...)

Lehenenak egiten ditu egileak [Kintanak] frogantza beharrik ez duten puntuak frogatzeko. Frogatuak izateaz gain, aho batean [Mitxelenak] aitorturik baitaude: «En cuanto al guipuzcoano, parece haber estado en una clara situación de inferioridad con respecto al vizcaíno –no hablemos ya del labortano– en cuanto a su uso como lengua escrita, durante los siglos XVI y XVII. Sólo en el siguiente por obra sobre todo del padre Manuel de Larramendi, alcanzó un cultivo literario que ya después no se ha interrumpido». Gipuzkoaz ari nintzenez gero, han geldituko nintzen, legegizona ez naizelako agian, eta ez nintzen zenbaitek hain gogoko duen norgehiagokan sartu". (1972a:164).

[108] (1972a).

[109] Alde honetatik, interesgarria da Mitxelenak lan horretan (1972a) agertzen dituen "*dizkigute*-gipuzkeraren" (bere hitzez esateko) aldeko argudioei erreparatzea. Bestalde, ez da atzendu behar Mitxelenak aldezturiko adiz-moldea (1972e) izan zela, hain zuzen ere, batasunerako hobetsi zena.

«Bestalde -[Kintanak] dio beheraxeago-, ez Larramendik, ez Kardaberazek, ez Mendiburuk ez zuten lortu *gipuzkera* alde honetako literatur euskara bakartzat jartzea». «Eta, egia esan -darraio-, ez zuten horretarako batere ahaleginik egin». Egia esan behar bada, beraz, aski genuen gorago idatzirik dagoen *lortu* hori tintontzian geldittu baitz: saiatu egin behar baita, zernahi lortzeko edo ez lortzeko.

«Ubillos, gainera, giputza izan arren, lapurtar literaturaganako joera nabariaz ari zaiku». «Gainera»?, Jainkoari eskerrak, esan genezake. Eta Ubillos ez ezik, baita Larramendi bera ere, baita Lardizabal eta Agirre Asteasukoa ere. Eta, besteak beste, ez zaigu atzendu behar Bizkaikoak ere hain ederki ikasi zituen Iztueta[110]. (1972a:165).

Mitxelenak ez du uste, esana doan bezala, Larramendiren asmoetan zegoenik "gipuzkera" literatur euskara bilakatzea, bai, ordea, euskararentzat hizkuntza idatzia eta landua oratzeko moduko eredua bilatzea, oker ulerturiko "prebintziakeriarik"[111] gabe.

Muina Beterriko giputz hizkeran duen euskara landu honek, beste euskalkietarik ere –lapurteratik bereziki– edaten du. Bi arrazoi nagusi begitantzen dira alde baterako nahiz besterako makurtzearen argibide: euskalkiaren izaera bera ukitzen duena bata, eta idazlearen beraren jaidura bestea:

Acaso no se insiste lo suficiente en que, en un dialecto central como el guipuzcoano, hay siempre una cierta tensión: el autor que lo utiliza, conocedor de otros modelos de lengua escrita, trata de aproximar su variedad a una u otra de las vecinas, a veces a una y a otras. O. de Arin, nada literato por otra parte, parece seguir muy de cerca los catecismos vizcaínos: luego, Larramendi y Ubillos, por no decir nada de Mendiburu[112], sienten fuertemente la tentación labortana, como también, sobre todo en el léxico, Lardizabal[113]. Iztueta, por el contrario, parece inclinarse por el vizcaíno, que estudió detenidamente: su diccionario manuscrito está lleno de palabras y sobre todo de expresiones de ese origen. Esta influencia occidental reaparece con los aranistas, y entonces se trata sobre todo del vizcaíno según Moguel, etc., no del vizcaíno según Añibarro. (1970a, *PT*:298).

---

[110]Bego momentuz, Mitxelenak besten (Olabideri besteak beste) salaturiko "euskalki-nahastearen" auzia

[111]Sarasolagandik (1971) hartzen dugu hitza

[112]Mitxelenak (1960b:101) Mendibururen kasuan, sorterriko hizkera eta misiolaritza aipatzen ditu olartzuarraren hizkera-hautaera baldintzatu zuten eragileetzat.

Sarasolak (1971:33), baiez ere, misolari-zeregin aren eragina azpimarratzen du:

"Mogel-ek, Bizkaia aldeko literatura mugimenduaren aintzindariak, gipuzkeraz idatzi zuen bere lehen liburua, Cardaberaz eta Mendiburuk literario mailara altzatu zuten gipuzkeraz hain zuzen. Lapurtar klasikoz beharrean gipuzkeraz idaztea, irakaskintza xedeak inposatzen zien gauza zen. Hirdo beretik Mendibururen euskera nafarruago aurkitzen da Cardaberazena baino, haren lana Nafarroa aldera hedatzen baitzen gehienez. Hasieratik bertatik gipuzkera literarioa ez da lapurtar klasikoa bezain homogeneo / Lapurtarrek itzal haundiko maisu eta gidari bat izan zuten, Axular. Gipuzkoarrek, aldiz, ez zuten halakorik izan, Larramendik gaztelaniaz idatzi baitzuen / eta honek baino zokokeria gehiago du hark". (Idoia bera, Sarasola 1976:60).

Giputz hizkera idatziaren batasun-eza azpimarratzen du Lasak ere (1991:29,122).

Larramendiren eragina aztertzean itzuliko gara puntu honetara.

[113]Lapurtera aldeko isuria euskal literaturan ez da Larramendiren garaira murrizten, Sarasolak (1976:48) jasoaren arabera:

"La tendencia de los demás dialectos a dejarse influir por el labortano es una constante en la literatura vasca antigua. Esta tendencia se interrumpió hacia 1900 por razones políticas. Se introducen entonces en los otros dialectos varias palabras exclusivas del vizcaíno. En la actualidad, superada ya esa corriente, la tendencia hacia el labortano es nuevamente muy general".

Antzeko argudioa irakur daiteke, hain zuzen ere, Kintanari egiten dion erantzunean, euskalkiaren izaerari baino idazleen jarrerari lotzenago zaiola, haatik:

> 1) giputz horiek, aldi joaneko beste edozein euzkaldunen arabera, ez zirela "inperialistak" izan; * 2) landuagoetarik ikasteko ez zutela kupidarik; 3) errazago zitzaiela gipuzkoarrei, orain ere errazago zaien gisan, Lapurdi aldera makurtzea bizkaitarrei baino. (1972a:165).

Larramendik bularturiko eredu-premia, erlijio-gauzetan ez ezik, esparru horretako ateak zabaltzen hasi orduko, bestelakoetara hedatuko da[114]. Gogaide dituen Iztueta, Iturriaga egileen erlijioz kanpoko lanetan, besteak beste, nabari da hizkuntzarentzat molde finkoa bilatu nahiaren ardura:

> Se tiende por necesidad, al menos en intención, a formas supradialectales de la lengua o, más modestamente, al empleo de variedades dialectales completadas con aportaciones de dialectos vecinos. Así Iztueta, a pesar de su guipuzcoanismo, fue asiduo recolector de voces y frases vizcaínas -de ello da fe su diccionario manuscrito, aún inédito- y no desconocía, al menos indirectamente, el labortano. Tanto él como Iturriaga no pueden menos de hacer uso de abundantes neologismos, que en aquel entonces tenían que ser de cuño larramendiano: en el fondo, es Larramendi el que mueve a Iturriaga y a Iztueta, como movió a Harriet: al otro lado de la frontera.
> Lo que sorprende en Iztueta, en su última obra más que en ninguna otra, es el cuidado con que ha tratado de emplear, con un acierto en conjunto indiscutible, una forma de lengua ajustada a una norma única, desde la primera página hasta la última. Es inevitable así una cierta pérdida de frescura y de naturalidad, en comparación sobre todo con un fray Bartolomé, que emplea un vizcaíno de tinte muy local, aunque tampoco libre de neologismos. Pero, como he dicho, no había otro modo de remediar esto, si se buscaba otra cosa. (1978d, *PT*:359).

Era honetan, Larramendik erdiesten du, zabalgoaz mehartuz doan euskara, izaeraz, hobetuz –hots, graduz igoz– joatea:

> Eremuz, euskara ez zebilen irabazian: mende horretan galdu omen zuen, hain zuzen, lurralde ederra Araban, balta Nafarroan ere segur aski. Bestalde, lekuari begira gelditzen ez bagara, berriz, gorabidean ablatu zen euskara bazter hauetan, Larramendiri eskerrak, batez ere. (1983b:114).

2.5.3. Euskara idatziaren lehengaiezko burubidea

Larramendik plazara du xedea eta begiz joa eredua. Alabaina, ezin bazterrean utzi bistakoa dena: hizkuntza horrek, idatziko bada, lehengaiak behar ditu. Bide berriak korritu gabea denez gero, halabeharrez, hutsuneak gertatuko zaizkio:

---

[114] Beste puntu batean gai hau berariaz jorratuko dugu.

> Hiru bide hartu zituen, ene ustez, Larramendik euskal hitzak, esaerak eta gramatikabideak aberasteko asmoak, garbitzeko eta zuzentzeko ez ezik. (1983a:61)[115].

Jendarteraturiko lanabesteat joriko Hiztegi eta Gramatikazkoak, hauen osagaien zehaztapenak eta abarrak aurreragoko utziz, hitz-mailako lehengaiez hornitzean zehazki Larramendik gogoan izanak Mitxelenak nola agertzen dituen ikusiko da puntu honetan. Bestela esan, nondik nora jo zuen Larramendik, Mitxelenaren aburuz, hitzak "aberastean, garbitzean eta zuzentzean".

Hiru bide aipatu ditu Mitxelenak:

a) Lehen bidea, hitzaren "euskaltasunari" dagokio. Larramendirentzat, euskal hitz-altxorraren eskubide bereko osagaiak dira, erdaratikakoak nahiz, euskalki batekoak zein bestekoak, aldiak aldi.

Era honetan, batetik, aspaldiko mailegu[116] (halakotzat sumatuak eta) irentsiak, euskal hitz direnez gero, euskaldunak lasai erabil ditzake, euskaldunak usatzeak zilegiztatzen baititu.

Bestetik, berriz, euskal ondareari etekina ateratzeko premia nabarmentzen da: toki-garai bateko euskaldunak ez diezaieke muzin egin beste toki-garaietako euskaldunen hizkerei.

Irikiena omen litzateke bide hau, baina gauzatzeko trabarik ez zaio falta. Euskaldunon gaitasuna eta, ezaupiderako beharrezkoa den jakinmina nahitaezko izaki, euskaldunek, nonbait, alferkeria eta arduragabekeria direla medio, irikien litzatekeen bidea malkar neketsu bilakatzen dute.

b) Euskal hitz noiz eta nondinahiko direnak, ordu arteko ez bezalako esanahi berriez aberastu, testuinguru berrien arabera, hedapen semantikoa, alegia. Era honetara, estrukturalisten (Hjelmslev-en bereziki) antzera hitzegiterik badago, Adierazpen Planoan ukitu gehiegirik egin gabe, Edukiarena aberastea lortzen ahal da.

Honela ez ezik, bestela ere joka daiteke, beste hizkuntzek egin ohi duten legez: euskarak oso baliabide indartsua duen hitz-sorbidean, lexikoa berritzeko euskal bideetan oinarrituz, alegia, hizperriak era daitezke[117]. Hots, euskal ondasunez baliatuz, Adierazpen Planoa ere aberats daiteke, eratorpenera eta elkarketara[118] joz.

---

[115] Ber gauza (1983c) lanean.

[116] Garai bateko euskaldun, zehazkiago esan apologilari, guztiek onartzen ez zuten ideia baina Garibayk aipatua: euskarak gaztelaniatik mailegatu berri dituela zenbait hitz atortzen du (Zubiaur 1989:128).

[117] Zer irizten dien Mitxelenak Larramendik honela sortuei, aurreragoko ikusiko dugu.

[118] Larramendiren bide honen azterketa, Azkaratek (1992) ikertu berria du.
Honbe helduko zaio tesi honen hirugarren zati nagusian, andoaindarrak ez baina, errenteriarrak erabiliak hartuz ikerkizun.

> Honela jokatuz gero, ez du inongo euskaldunak harritzeko eta espantuz agertzeko eskubiderik. (1983b:61).

Bide hau ere, ez da nonbait arazobakoa. Behaztoparriaren iturburua, lehengo arrazoi berean datza: euskaldunek burua nekatzeko gogo eskasean.

Larramendi kexu da, euskal hitza itxuraldatuxe kanporaz gero, euskaldunengandik jaso ohi den erantzunagatik: kopeta zimurtu eta bere ezjakina aitortuta, aditzeko salorik ez dute egiten.

Larramendik baliabide honi[119] bestelako etekinik ere aterako dio, hiztegiaren hitzaurrean asmalana zilegiztatzeko paperera dituen hitz berezituen[120] osabideaz esanak, lekuko.

c) Arestiko biak egoki izanik ere ez dira aski, euskara idatzi-landuak behar dituen lexikozko lehengaiak osatzeko.

Hizkuntza orori gertatzen zaion bezalaxe, euskarak ere beste hizkuntzetatik mailegatu beharra dauka.

Hartze-lanetan euskaldunak aspaldixkotik ibiliak direnez eta zordun agertu nahi ez dutenez gero, Larramendi baino lehen usaturiko prozedura erabil daiteke: etimologia bitxien[121] bidez eman dakioke bira norabideari, zordun besteak ager daitezen (*alabantza, artilleria* hamaika bider aipatuak, besteak beste).

Baina zor berriak egitea ere zilegi da Larramendiren ustez[122]; ez nolanahi, haatik:

> beharraren beharrez eta hoberik asmatzeko sormena ernatzeko modurik aurkitzen ez zenean behinik behin. (1983c:100).

Begien aurrean izan behar da, Larramendi ere, bere neurrian garbizalea dela, euskara "garbitu" nahi duela. Honen ondoan, ez dago ahanzterik, euskal gaiztoz predikatzen duten erlijiogizonei leporatzen diena, errazenera joz, zabarkerian erortzen direla[123], alegia.

Hauek dira, beraz, Mitxelenaren ustez Larramendik hitzen mailan urraturiko bideak, euskal hiztegia –euskara noranahiko bihur dadin– aberasteko, garbitzeko eta zuzentzeko.

---

[119] Mitxelenak (1983c:99) papereratzen dituen Larramendigandikako adibideak (*zorionak, goi lenen..*), aurrerago erabiliko ditugula eta, ez dugu hemen aipurik jasoko.

[120] Hauen inguruko auzia berariaz aztertuko da.

[121] Arestian mintzagai genituen euskal apologigileek egina, esaterako. Nolanahi ere, etimologiak eta hauen ingurukoak berariaz jorratuko dira.

[122] Jakina den bezala, Larramendiren jokabide hau, besteak beste, baliatu dute gerora zenbait euskaltzalek andoaindarraren izena bezteko eta euskalaritzaren barrutitik eskumikatzeko, erakutsiko dugun bezala.

[123] Garibayk ere ikusia eta adierazia omen zuen euskara gaztelaniarekin eta frantsesarekin nahasiz zihoala (Bilbon eta Baionan, hurrenez hurren, batipat) eta *depravación* hitza darabil egoera irudikatzeko (Zubiaur 1989:136).

2.6. LARRAMENDIK ESKAINIRIKO LANABESAK

Larramendik amets duen noranahiko euskara mamituko bada, lanabesak beharko ditu euskal idazleak[124].

Testuinguru honetan kokatu behar dira bere bi lanik nagusienak: *El impossible vencido. Arte de la lengua bascongada* (1729) eta *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin* (1745), honen azkenaldeko gehigarria ahantzi gabe[125].

2.6.1. *El impossible vencido. Arte de la lengua bascongada* (1729) (edo *Ezina egina*)[126]

Euskara "arte"[127] bilakarazlea den hau, argia ikusi duen lehen euskal gramatika izanagatik, ez da hutsetik abiatu, aitzindariak baititu Mitxelenaren ustez.

Bi dira Mitxelenak nabarmentzen dituen aitzindariak: euskalaritzaren esparruan, Oihenart – Urterena ezin ezagut baitzezakeen andoaindarrak – eta zedarri horietarik kanpo eta urrutixeagotik, misiolarien lana[128].

Oihenartek *Notitian* eskainiriko gramatika-iruzkinak oso gogoan hartzekoak direla dio

---

[124]Honetantxe ikusten du, hain justu Lakarrak (1985a:20) apologisten samaldan multzoak bereizteko zioa:
"Ohar bedi, halaber, apologistek «apologista huts» diren neurrian bederen, ez dutela iruzkingile egin ohi, Etxeberri eta Larramendiren alderantziz, hain zuzen".
Halaber, gogoan hartzekoa da, Sarasolak (1986:2) Larramendiren egitasmo orotarikoan, «azpiegituraren» osagaioi ematen dien kokalekua.
Azurmendiren (1992) sailei ere ezin muzin egin zaizkielarran gaude.

[125]Ez dugu hemen sartu Altunak plazaraturiko Larramendiren euskal-erdal hiztegiñoa, Mitxelenak aipatu besterik egiten ez duelako.

[126]Larramendiren gramatikak Euskal Herrian eta kanpoan izan zuen eraginaz, Lakarra (1985a:42).

[127]Klasikoen moduan darabilgu, Dionisio Traziakoren *Téchnē grammatikē* (τέχνη γραμματική)-k urraturiko bidetik.

[128]Beste lan batean ere –Larramendiren izenari lotua ez baina Brozastarrarenari–, berradierazten duena:
"Así, tal vez no haya sido debidamente apreciada la valiosísima aportación de los misioneros españoles, tantas veces subrayada por TOVAR, al conocimiento de las lenguas del mundo, fundamento necesario de la lingüística, aportación bien aprovechada por HERVÁS y otros. Como hablamos de resultados y no de intenciones, lo mismo da que esta contribución fuera fruto de un deseo desinteresado de saber o mero subproducto de otras actividades. Las consideraciones utilitarias nunca han dejado de pesar en el desarrollo de la ciencia más teórica". (1975a, *LH*:114).
Aipuan jasotzen den Hervás-en sintesi-lanean misiolariek eginarcn ondoan, dagoeneko hona aldatu den Larramendiren ekarria ere ez atzentzekoa da.

Mitxelenak eta Larramendik ere modu berean ikusi eta etekina atera ziela[129]. Harreman honen adierazgarritzat[130] dauka euskalaritzan auzi-sortzaile izan den puntu baten gaineko ikusmoldea: euskal hitz guztiak *-a*z bukatzen zirela uste zuten aurreko beste zenbait euskalarik ez bezala, zuberotarrak eta gipuzkoarrak, garbi antzeman diote euskal hitzaren amaiari, *-a* "artikulu mugatzailearen" izaeraz jabetu baitira[131].

Alabaina, zuberotarrarenak, andoaindarrak ontzen duen irudi ia osoaren parean, arrastoak dira:

> Pero lo suyo [Oihenartena] no es más que un esbozo al lado del cuadro, aunque de proporciones modestas, del jesuita. (1959d, *SHLV*:904).

Misiolariei dagokienez, berriz, espainiarrek eta euskaldunak asmo berak bulkaturik ekin diote hizkuntzen gramatikagintzari: Berri Onaren zabalkundea dute gogoan. Jesulagun euskaldunaren kasuan, gainera, arestian adierazi bezala, arimaren salbabideezkoei, hizkuntzazkoarenak ere gehitu behar zaizkio.

---

[129] "[Oihenartek] expresó ideas muy avanzadas en materia de lenguaje que Larramendi con acierto no dejó de aprovechar" (1959d, *SHLV*:904).

[130] Oin-ohar honezaz hornitzen du Mitxelenak ustea:

"Así en lo que escribe de *-a*, artículo determinado: «De aquí se conoce que yerran los que piensan que en Bascuence, todo nombre se acaba en *á*, error en que estuvieron Garibay y Echabes (sic) y otros muchos, que ciertamente son inexcusables, pudiendo fácilmente averse desengañado con exemplares obvios y con toda la construcción Bascongada que antes bien son pocos los nombres que se acaban en *a*». (*El imposible vencido*, p.16). Compárese con lo que decía Oihenart: «Hay que perdonar a Marineo y Merula, como desconocedores de la lengua vasca, los cuales no pudieron enterarse bien, por vivir ellos lejos de la región en que se habla. Pero Garibay es culpable de no pequeña negligencia, por cuanto, siendo su nativa lengua, incurrió más gravemente que ellos en el mismo error, ya que habiendo aquéllos querido decirlo especialmente de algunos vocablos, él no titubeó en afirmarlo en general de todos» (*Noticia de las dos Vasconias*, trad. del P. J. Gorosterratzu, San Sebastián 1929, p. 29)". (1959d; *SHLV*:904).

[131] Elkarren arteko aldeak badauden arren, Oihenarten ekarriak nabarmentzen dituen Oyhartzabalek agerian paratu duenez:

"Bizkitartean, hurbiletik behatzen dialarik egungo gramatikariak orialde horiei [*Notitia*koei] ikus dezake Oihenarten azterkabidea arras aitzinatua zela, eta puntu gehienetan Larramendik berak baino ikuspegi zehatzagoa eta zuzenagoa zuela. /Puntu batean, ordea, arras okerrean gelditu zen, Larramendik aitzitik gauzak hobeki ikusi zituelarik. Oihenartentzat (Pouvreaurentzat edo Urterentzat bezalaxe) izenak eta izenondoak (hitzak, hots, eta ez sintagmak) deklinatzen ziren euskaraz, latinez bezala (...) Baina okerrak oker, horrela ere, oso politak eta jeinutsuak dira azterketa horren barnetik ematen dituen azalpenak/ Ez dabil euskara beste mintzaira baino gehiago edo gutxiago den izartu beharrez, baina den bezala hartuik haren morfologiazko ezaugarriak sistematikoki agertarazten ditu. Printzipio batek gidatzen du haren azterketa morfologikoa: forma bati morfema bat dagokiola, eta alderantziz. Jokabide hotz eta zorrotz horrek latinaren menpekotasunatik ateratzeko bidea eskaintzen dio, eta morfologiari dagozkion puntu gehienetan puntako aitzindari agertarazten du euskal gramatikagintzaren historiografian: *-a(k)* artikulu gisa azterkatzea; mugagabeari dagokion deklinabideko paradigmaren eskaintzea, ergatibitateari ohartzea eta latinaren sistema nominatibo-akusatiboarekin kontrastatuz argitzea, artikulu pluraleko ondarkien azalpena, aditz laguntzaileen salikapen modernoa (*izan*, **edun*, **edin*, **ezan*)... Hori guztia, eta besterik ere, iragaitzaz bezala ondu hamabost bat orialderen barnean". (Oyhartzabal 1993:16).

Mitxelenak ahotan duen puntu zehatz horretan, beraz, gogoeman daiteke egungo euskal gramatikagileari andoaindarraren ikusmoldea gogo-asegarriago gertatuko zaiola Oihenartena baino.

Kasu batean nahiz bestean, zeharbidez nahiz zuzenean eta xedeak xede, misiolariok eta Larramendik ekoizturikoak, hizkuntzalaritzaren eta jakiteen garabidean, guztiz emankor gertatu dira Mitxelenarentzat.

Horregatik, Mitxelenak andoaindarrari aitortzen dio euskalaritzak dion zorra:

> Le debemos con todo un considerable progreso en los estudios referentes a la lengua vasca. (1959d, *SHLV*:910).

Larramendirentzat ezagungabea zen beste euskal gramatikari Urteren lanarekin ere berdintzen du Mitxelenak Larramendiren *Arte*a, aldi berean, andoaindarraren lanazko ikuspegia eta edukia ere emanez:

> *Arte*-a morfologiaren barrutian dago la-la mugatua: gramatika, paradigma bihurtu zalo, paradigma *bilduma hobeki esan. Formak erakusten dizkigu formen erabilera baino areago. Adinkide ezezaguna* zuen Urteren aldamenean, urriago delarik agian adizki kontuan, ordena argia azaltzen du liburuan barrena. Gehiago dena, ez da txokozale donibandarraren gisan. (1983c:98)[132]

Honela laburbiltzen du Mitxelenak, kritikak –ezinbestean– goraipatu duen[133]

---

[132]Oroi lehen euskalkien ezagutzaz eta islaz esanak.

[133]Interesgarri deritzagu, giroa oso alde ez zuen Orixek Larramendiren lanak epaitzean ("¿Será pecado en nuestros días ocuparse de uno de los vascólogos que más desprecio inspiran a los "sabios" actuales, del soñador de cómodas etimologías, Larramendi?" (*Orixe 1924, IG*:207)) *hiztegiari eta gramatikari buruzko iruzkinak* ekartzeari.

Hiztegiazkoa aurreragoko utziz, hona *Ezine eginaz* adieraziriko zenbait pasarte.

"El valor principal de *El imposible vencido* es el apologético (...) quienes más efectivamente lueron [sic] influidos: de los PP. Cardaberaz y Mendiburu. Ambos habían olvidado totalmente su lengua, pero gracias al trabajo de Larramendi, fueron los misioneros más insignes del País por aquel tiempo (...) El valor científico de la Gramática de Larramendi no es, sin embargo, cosa sorprendente, si uno está al tanto de lo que se ha escrito sobre la materia, si bien para los de su tiempo fué una revelación. No se crea empero, que por faltar Larramendi en puntos tan importantes como el concepto de la declinación y el relativo *zeña*, no tiene bastante aprovechable para el científico, singularmente en la exposición del vérbo. Este tratado es bastante completo, y el autor demuestra un conocimiento de los dialecios [sic] vascos, que muchos quisiéramos hoy tener. Tiene frecuentes datos de comparación con el castellano, cosa que lo hace más interesante e inteligible a pesar de que a veces perjudique a la concepción; y aún en nuestros días se han publicado tratados del verbo vasco menos pedagógicos que el de Garagorri (...) Ante todo, *El imposible vencido* tiene el valor de los datos, prescindiendo de su clasificación (...) Omitiendo hablar del *Apendiz de la Poesía bascongada* que no tiene interés...".

(Ez dugu uste Orixe hagitz fin dabilenik Kardaberazen eta Mendibururen euskararen ezaupide-orotarezetan. Hona *Larramendiren eta beste bion arteko alderatzeñoa*:

Larramendik hamahiru urte zituela aldegin zuen etxetik; besteok, hamazazpi-hemezortzi zituztela. Larramendi berrogeita bi urte zituela Euskal Herriratu zen; besteak, berriz, hogeita bederatzi zituztela. Ikus daitekeen bezala, arrazoi gehiago zegoen Larramendik euskara aizenduago izateko besteek izateko baino).

Eta honela burutzen du lana:

"Es la primera obra publicada, pues la de Micoleta no merece llamarse Gramática, y por ese concepto tiene su mérito. El inventor de la máquina del más maravilloso engranaje no puede eclipsar la gloria del que inventó la primera combinación de ruedas". (Orixe 1930a).

Jasoko *den hiztegiaz esanarekin erkatuz, sortzen zaigun susmoa da, oro har Larramendiren lana* hainbeteran goraipatzen duen Orixe –lanok aztertu dituzten gehienak ez bezala– hiztegizaleago ez ote den agertzen gramatikazale baino. Susmoaren funtsa, Larramendiren ekarri orotarikoaz ez baina, zuzenean bi lanak aztergai

Larramendiren lanabes honen gaineko aburua:

> Si he de dar brevemente mi opinión, creo que se trata de una exposición clara en que lo más importante de la estructura gramatical del vascuence ha quedado bien de manifiesto, animada de cuando en cuando, para romper la monotonía del estilo didáctico, con incisos polémicos. (1959d, *SHLV*:903).

Eta aurrerago erantsi, Larramendiri zor zaiola ikertzaileen eskuera jartzea euskararen deskripzio aski osoaren[134] aitzinatasuna.

Larramendiren lan honek jaso litzakeen kritiken artean, latinezko gramatiken molde-terminologietara[135] makurtuegi egotea edo egon liteke. Honelakorik lepora liezaiokeenari, aurrea hartuz, Mitxelenak lana zuritzen du:

> No se podía exigir que Larramendi se adelantara a su tiempo en rigor ni que se librara enteramente de los cuadros y de la terminología del inevitable modelo latino. (1959d, *SHLV*:903).

Halarik ere, latin-ereduarekiko morrontzaz ezin hitzegin daiteke, Larramendik euskararen berezkotasuna agerian uztea jomuga izaki, honek ematen baitizkio, hain justu, ohiko gramatika-moldeetatik askeago ibiltzeko ihespideak[136]:

> Su mismo empeño en poner de manifiesto lo que hay en vascuence de distinto a las lenguas por él conocidas le ha ayudado a no caer en la dependencia servil de la gramática latina. (1959d, *SHLV*:903).

---

hartzen dituenean, batean eta bestean makur irtzietan ezarriko genuke.

Orixeren juzkuen gure adimodua, ez dator, beraz, osotoro bat, Lakarrak (1985c:439) adieraziarekin:

"Lehen ere (*ASJU* 1985-1; 12 or. [gure Lakarra 1985a]) aipatu izan dut Orixeren salbuespena lan bana eskaini bait zien hark gramatika eta hiztegiari bere Larramendiren obrazion balorapena beti arras aldekoa izateaz kanpo".

Bat gatoz, Orixek Larramendiren ekarriaren eta utziriko hatzaren orotariko balorazioa egiten duenean (Orixe 1924, 1927, 1932) oso goraipatzen duela andoaindarrak egina, halaber, hiztegia, alde makurrik nabarmentzen ez dio eta. Horren garbi ikusten ez duguna da gramatikaren *arras* aldeko egertzen denik, aitortzen dizkion merituak merittu.

[134] Ez ditugu berraipatuko gramatikan, euskalkien berri-emaile denaz bezainbatean, Mitxelenak goraipatuak.

[135] Orol lehen paperera den Urkixok (Urquijo 1918:18) euskal gramatikei gaitzirtzia. Larramendirena, zabalgoa dela medio, aipagarri irudikuagatik, *entre estas* kokatu du.

Bestalde, Oihenarten eta Larramendiren arteko harremanez eta *Ezina egina*ren eredu greko-latinoarekiko abdikimendu-urruntzeez, Gómez (1991), Oyhartzabal (1993).

[136] Alde honetatik, zenbait erromatarrek erakutsiriko gramatikari grekoen ereduarekiko morrontzatik (Varrok *De lingua latina*n, artikulua bereizterainokoa edo Priszianok *Institutiones grammaticaen* egiterainokoa, zortzi perpaus-zatiei abdikibeharrak "se vio obligado a extraer las interjecciones del apartado de los adverbios" (Tusón 1982:38), esate baterako) aldenduko da andoaindarra.

Liskar-kalapitek zipriztindu ez bide duten lan honen izenburuak ere hizpidea ematen dio Mitxelenari.

Honela, 1959an, izenburua "arrogante no, sino polémico" duela dio, eta iturburua, abertzaletasunean bilatu behar zaiola:

> Va dirigido a todos aquellos, vascos o no, que creían que no había gramática vasca porque no podía haberla (...) Fue, pues, el patriotismo antes que la soberbia lo que le dictó el título. (1959d, *SHLV*:903).

1966ko euskal lan batean[137], berriz, Mitxelenak, *arroxkotzat* dauka, barkatzekoa iruditzen bazaio ere:

> Larramendiren euskal gramatika, ordea, lehen argitaratua izateaz gainera, ederki tajutua dago eta barka dakioke, egin dituen mesedeen aldera, daraman izen arroxkoa [sic]. (1966a:68).

Geroagoko beste lan batean[138] emango du Mitxelenak zehazki izenburu eztabaidagarriaren etorkia, 1959ko lanean esanaren ildoan argitzen duela titulu-hautaeraren karia:

> título que como señaló Antonio Arrúe es mera copia del que lleva un relato de María de Zayas Sotomayor (es más, en otras palabras, una muestra de ingenio que una expresión de jactancia). (1987b:98).

Beraz, ikusiagatik, Mitxelenak Larramendiren *Ezina egina* oso estimu handian duela ondoriozta daiteke; denboran zehar, estreinako iritzi baikorrari bere horretan eutsi dio eta.

2.6.2. *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin* (1745)

Hainbat istilu sorrarazi duen lan honi Mitxelenak zer irizten dion ikusi asmoz, batetik aurkeztuko da nola auzipetu duen errenteriarrak hiztegia oro harturik denboran zehar, eta bestetik, puntuz puntu, hiztegiaren osagaiez eta osagaion atzean leudekeen Larramendiren ikuspegiez adieraziak.

---

[137] (1966a), hau da, "Alta Larramendiren ehun urteurrena".

[138] "Literatura en lengua vasca" (1987b).

2.6.2.a. Orobateko juzkua

Hiztegia juzkupean duenean, Mitxelenak argi eta garbi adierazten ditu aurkitzen dizkion alderdi makurrak. Honela, "defectos muchos y notorios"[139] dituela dio, okerrak biotan bilduz: "datos poco dignos de confianza, etimologías".

Euskal literaturaren historian ere (1958ko laburtuan nahiz 1960koan) ez du Mitxelenak ikusten dion okerrik isilpean gordetzen:

> ... su diccionario ha caído en completo descrédito, y no sin razón, a causa de los "sigilosos y arbitrarios neologismos", para usar la expresión de Ibar, que en él sembró a manos llenas, aunque afirmó sin pestañear que sólo contenía tres voces de su invención. (1960b:97).

Sineskortasun eskaseko datuen ondorio zuzena izango da, hain justu, Larramendik geroko euskal lexikografia bide irristakorretan barrena sarraraztea, garbi berezi ez dituelako entzun-irakurriak eta bere burutikakoak[140]:

> ... laberinto inextricable en que sumió en tantas cuestiones a la lexicografía vasca posterior por su genio enredador y por su poco cuidado en distinguir los datos recogidos de oído o en lecturas –que son más abundantes de lo que se suele decir[141]– de los productos de su imaginación. (1964a, *SHLV*:25).
>
> No faltan *cruces* en nuestra lexicografía, pero todo es relativamente simple al lado de los problemas fundamentales que legó a la crítica el *Diccionario trilingüe* de Larramendi. (1984a:29)[142].
>
> No obstante, Larramendi, por la influencia que alcanzó su *Diccionario trilingüe* (1745), ha enredado bastante las cosas por lo que se refiere al conocimiento de lo que era realmente la lengua de Guipúzcoa de su tiempo. (1977b:55).

Halarik ere, beti –apika– behar adina azpimarratu ez den, beste zerbaiti ere egin behar zaio kaso Mitxelenaren aspaldiskoko aipamenetan.

Izan ere, kritika zorrotzak egiten dizkionean, pisua orekatzen duten leungarriak maiz aski alboratzen dizkie arestikoei.

---

[139] (1959d, *SHLV*:905).

[140] (1959d).

[141] "Ikerketa faltaz edo, ahaztu edo gutxietsi egin da *Hiztegi Hirukoitzak* garai hartako eta lehenagoko euskarari buruz eman dizkigukeen iekukotasuna (...) Alabaina –eta hau garbiago agertzen da euskara-gaztelera hiztegia dazagunetik [sic]– *Hirukoitzean* gutxiena da asmatua eta gehiena herritik eta autoreetatik bildua". (Lakarra 1985a:25).
"Bat nator Lakarrarekin «*Hirukoitzean* gutxiena da asmatua eta gehiena herritik eta autoreetatik hartua» dionean [sic], baina dena dela asko da nere ustez berak sortua". (Sarasola 1986:207).

[142] 1970eko testua da berez, berrikusi ondoan utzia, halaz ere.

Esate baterako, "obra principal por su extensión como por su influencia"[143]; *annus mirabilis*-tzat dauka hiztegiak argia ikusi zuen 1745.a[144] edo, ekarri berri den 1966ko aipuan kritikatzen badu ere, lerro batzuk beherago, "hiztegi gaietan lehenbizi, diogun zorra lotsarik gabe aitortzen hasiak baikara berriz ere" esanez amaitzen du.

Areago eta atzerago eginez, paperera diren baino aipu zaharrago batean[145], honakoa irakur daiteke:

> *joso*. Aunque esta variante del extendido *jaso* «levantar» (...) no está registrada en Azkue, es no sólo de fácil explicación teórica (cf. *RS* 27 *jauso*), sino que además figura en el Diccionario Trilingüe de Larramendi, obra cuyo valor es mucho mayor que el que en los últimos tiempos se le ha venido atribuyendo. (1954b, *SHLV*:847).

Edo, lexikografian nahastea ekarri duela esana duen arren –aurrerago berariaz jorratuko den puntu batean erakutsiko den bezala–, erne ibili beharra dagoela ere badio, konfidantza eskaseko datutzat hartuetan ustegabekoak topatu ohi baitira maiz, arestiko aipamenean zehazten zuen Larramendiik entzun-irakurrietatik jasoak "más abundantes de lo que se suele decir" izatea, seinale.

Hiztegiak Mitxelenaren begietan merezi duen orobateko iritzia, aipurik zaharrenetatik bertatik ñabartu behar dela argi ikusten den bezala, zehaztu ere behar da, juzku ezkorra sorrarazi dion beste alderdi bat: kanpotarrei begira eginiko lana dela, hain justu[146].

Larramendiren jokabide okerrekoaren arrazoiaren sustraia, kanpora begira eginiko lana izatean letzake, hau da, hainbatetan aipatzen den "esportaziorako" lana izatean[147]:

> ez da, etimologiarik aipatu gabe ere, akatsik gabea, erdal-euskal hiztegi hura (...) erdaldunak txunditurik utzi nahi zituelako egin baitzuen noski. "Ibar"-ek erakutsi zigunez. (1966a:68).

Baina, jaso den legez, hau egia izan arren eta Mitxelenak behin baino gehiagotan ideia honi eusten badio ere, honen ondoan jarri behar da lan zaharrenetan bertan (geroagokoetara iritsi gabe), hiztegiaren bi erabilesparru aipatzen dituela:

---

[143](1960b:94).

[144](1961a:52). Urte hauxe berraipatzen du (1984b:30) mugarritzat hartuz, lehen aldatu bezala.

[145]"Las escrituras apócrifas de Andramendi".

[146]Iritzi honen kontra egertzen da Lakarra (Altuna-Lakarra 1990).

[147]"obra para la exportación" (1959d, *SHLV*:907); "erdaldunak harritu beharrez" (1961a:53).

> Hay además otra razón, mucho más fundada, para que el *Diccionario* fuera castellano-vasco. Larramendi no cesa en sus obras de fulminar a los predicadores del país que, con algunas excepciones (...) predicaban en castellano o al menos en mal vascuence. (1959d, *SHLV*:907,908).

Hementxe bertan irakur daiteke beste arrazoi hau "mucho más fundada"-tzat daukala Mitxelenak 1959an. Hurrengo urteko euskal literaturaren historian ñabartzen du delako arrazoia:

> La disposición del *Diccionario* (castellano-vasco-latín) es un pie forzado que le obligó a rellenar con neologismos los huecos sin traducción, pero una razón para ello, que no tiene por qué ser la única ni siquiera la primera, se halla en el deseo de Larramendi de facilitar la tarea a los malos predicadores - mucho más abundantes que los buenos, según nos cuenta, por aquel entonces - que predicaban en castellano o en mal vascuence "porque lo traducen del castellano y no saben las reglas de una buena traducción". (1960b:98).

Ikusi bezala, auzi honekin loturik datoz Larramendik bere hiztegia antolatzean begiz joriko hizkuntzen hurrenkera eta hiztegigintzan mamituriko ihardunbidea:

> Artean sortu berria zen[148] Real Academia-ren hiztegitik hartu zituen hitzak bana-banan eta bana-banan alboratu zizkien euskarazko ordainak, latinezkoak gelditzen zirela hirugarren. Ez zen antzekorik gurean egin, dakigularik, 1745 baino lehen. (1984b:30).

Hurrenkera hau hautatu zuela eta, erdal-euskal hiztegitzat jotzen du Mitxelenak[149]. Alabaina, eta hitz horien ordena oharkabearen fruitu ez dela oso gogoan izanik, "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)" lanean **euskal hiztegia** dela azpimarratzen du:

> *Diccionario trilingüe* deritzan euskal hiztegia (euskara barta ezpairik gabe nagusi hiru hizkuntzetan). (1983a:59).

Mitxelenak jaulkietan oinarrituz, eta bereziki aspaldiko lanetan oinak finkatuz, badirudi, aieruz nahiz zuzenean adierazi gogo duela, Lakarrak[150] aldeztu bezala, hiztegi-hurrenkeraren funtsa bi aldetatik arrazoi daitekeela.

---

[148] Honelaxe dio. Guri ohikoago egiten zaigu "artean sortu gabea zen" edo antzeko esamoldea.

[149] (1962a:83, 1966a:68).
Lehenean gainera, besteron aipamena zuzentzen du:
"Dirudienez, ez baitut kontatu, 255 lerro utzi nizkion Larramendiri, "cuya obra principal es un diccionario vasco-español (**atzekoz aurrera irakur beza irakurleak**) plagado de aberraciones"". (Beltz. gurea).

[150] Lakarra (1985a:18, 1992).

- Kanporako lana da, besteren ahoak mutuarazteko baina,
- Barrurako lana ere bai, predikarien nahiz, garaiak aurrera ahala, euskara bide berrietan saiatu nahiko duten euskal idazleen mesederako gatzatua ere badelako.

Honengatik guztiagatik eta ondoren zehazkiago adieraziko direnengatik, aurrera daiteke Mitxelenak, Larramendiren hiztegia juzkupean hartzen duenean, jaidura berezia agertzen duela ikusten dizkion alderdi gaiztoen ondoan, merezimenduak ere alboratzekoa. Gisa honetan, aski irudi orekatuak irteten du gailen irakurlearen begietan.

2.6.2.b. Hiztegiaren osagaiak

2.6.2.b.1. Erdaratikakoak

Mitxelenak nabarmentzen du hitz-aitxorra biltzean zein irizpidez baliatu zen Larramendi euskal hitzak hartzeko. Esana doan bezala, Larramendik ez du hitzaren jatorria irizpide erabakigarri auzi honetan, hau da, ez die muzin egiten aspalditik euskarak irentsi dituen erdaretatiko hitzei, Mendibururi esana besterik ez da gogora ekarri behar hori ikusteko.

Larramendik, honenbestez, ez du inongo kupidarik erdal iralgikoak ere euskal hitzen artekotzat aitortzeko, baina erdaratikakoak euskal hitz izanagatik, ez du bere burua errazkerian erortzen uzten:

> Ate-leihoak zabaldu, baina noraino? Ez dakit puntu hau behar bezala aztertua izan denik, baina badirudi, arras oker ez banabil, erabiltzen ziren erdaratikakoak hartu zituela bere obran, ez zuela gehiagorik erabili ez besteri erabilerazi (1984b:31).

Mitxelenak azkenaldiko iritzi-agerketa honetan, argi adierazten du nola begitantzen zaion Larramendiren hitz horiekiko jarrera erabilerak euskal hitz bihurturiko maileguak erabili bai, baina kontuz eta –ahal den neurrian– zorra areagotu gabe, ez baita ahaztekoa Larramendi ere garbizalea dela[151], ikusiko den bezala.

Mitxelenaren lanetan zehar, bi arrazoi-mota irakur daitezke, maileguen erabilerak biz dezakeen kontzientzia gaiztoaren lasaigarri.

Batetik, berariaz ikusiko diren (honenbestez aipatu besterik egingo ez diren) etimologia bitxiak, Mitxelenak lanik gehienetan pleguetara eramanak. Hauen ondoan, 1984eko lana arte kausitzen ez den beste honakoa ere aurrean izan beharrekoa da:

> [maileguen erabileran] Mailak hobeki finkatu beharko genituzke, nik uste, orduko usarioetan ere.

---

[151] Lakarraren (Altuna-Lakarra 1990:10) hitzetan, "erdiko bidetiko garbizalea".

> Egin dezagun kontu *amatu* erabiltzen dutela baita Larramendiren ondoko idazlerik txukunenetakoek[152] ere, eta ez noski horretarako etxaldeko mintzamolderik falta zitzaielako: *onetsi* eta *onerbi*, bizirik zirauten neurrian antzinako balioaz horniturik; *maite izan*, *maitatu*... Bestelako arrazoirik behar, beraz, mailebu aski desegoki horren sarrera eta segida esplikatuko badugu, eta honako aieru honek sakoneko funtsa ekar dezake axalera. *Amatu* horrek, bidea utzi ez badut, erabilera berezia du, *maitatu*-k eta ez bezalakoa, eta maila ere bai, erabilera bezain berezkoa. Hitz horrek, hona erraz gezurtatzun[153] den ustekaria, ez du gehienbat - sekula ez duela ez naiz esaten ausartzen- "aragizko" kutsurik (...) Egitate hori, *amatzea* alegia, Jainkoari, Jainkoarengandikako legeari, Ama Birjinari eta horrelakoei zor zitzaien. Gainerakoek [sic] beheragoko eta arruntagorekin kontent ziren.
>
> Orduko jendeak, diodan bidenabar, bazekien, ohartuki jakin gabe noski, zer zitekeen gero izendatuko zuten pragmatika. (1984b:31,32).

Hementxe kausitzen da maileguak zuritzeko bigarren arrazoia: hizkera-e ebilerari eta hizkera-mailari dagokio.

Honenbestez, garbinahia baretzeko moduko bi irtenbide proposatzen ditu Mitxelenak:

- hizkuntzaren atzoan finkatuz, etimologiaz baliatzen da Larramendi, kanpoko iseka eta irainen mutukari eta etxeko garbimin itzelak joen susmoen lasaigarri[154].
- hizkuntzaren erabileran eta hizkuntz mailakatzean oinarrituz: erdal iralgikoa, badagoen euskal (?) hitzaren lehiakide gertatuz gero (menturaz, premiarik gabeko harraldiaren ondorioz), hitz bakoitzean erabilesparrua nahiz hizkera-maila bereziz zurituko litzateke.

Erdaratikako euskal hitzak erabiltzeko debekurik ez duen Larramendi, ordea, ez errazkerian ez mordoilokerian erortzen bide da. Areago, euskara aberastu, zuzendu eta garbitu gogo du, predikari axolakabeei aurpegiratuak, erakusgarri:

> Larramendik nahi zuen euskarak hitz-altxor ugariagoa eta garbiagoa behar zuen izan. Ugaritasunaren bazterrak kanpotik ezarriak zeuzkan, aski baitzuen euskarak, baita gehiegixko ere, erdaraz Real Academiak agertu berria zuen hiztegiaren ordain zuzenak ematea hitzez-hitz. Garbitasunari zor zitzaizkionak ere kitatu behar ziren, ordea. (1983c:98).

> Lo que él trató de conseguir fue que el euskara, lengua en cuyo cultivo fue más experto que copioso, tenía que alcanzar antes que nada un grado suficiente de dignidad y pureza. Y esto lo logró plenamente, por su propio esfuerzo y por la ayuda de continuadores directos o indirectos. (1987b:98).

Larramendi, honenbestez, garbizalea da, ez haatik, urteek aurrera ahala sortuko diren

---

[152] Jat. *txukunenetakoak*.

[153] Ikus Mitxelenaren erabilera honen bitxiaz, azterlaneko *-kizun* atzizkian dioguna.

[154] Azken uste hau indar dezakeen beste argudioa aurreraxeago ikusiko da.

garbizaleak bezalakoa[155], "Euskal hitzak zein diren" 1959ko artikulu adierazgarrian irakur daitekeen bezala.

Gainera, hitz berezituei hiztegian sarbidea emateak ere, Mitxelenaren aburuz, garbizale sutsuenengandik urruntzen duen beste ezaugarri bat da:

> Reste aussi à étudier une grande partie du vocabulaire technique au sens large du terme (mots culturels, etc.), laquelle, comme nous signalait Julio Caro Baroja pendant la récente visite d'Euskaltzaindia à Vera, ne figure pas dans la plupart des dictionnaires basques (les anciens, et celui de Larramendi en premier lieu, constituant la principale exception à la règle)[156], à la suite de considérations d'ordre puriste. (1981f, *SHLV*:995).

Laburbilduz: premiarik gabeko erdarakadarik ez erabili ez erabilaraziko du Larramendik, baina aldi berean, euskal bideetan barrena aspalditik erabilici ez die euskal hitz-altxorrean tokirik ukatuko.

Orain artekoak, zenbait gogoeta burura dizkigu, Mitxelenak Larramendigan sasoi desberdinetan antzemanikoetan errenteriarraren beraren jarreraren isla eta ispilu izan daitezkeelakoan paperera dakartzagunak.

Bitxi deritzogu aldi bateko garbi-giroa puri-purian zegoenean (1959ko "Euskal hitzak zein diren" artikuluaz ari gara bereziki) Mitxelenak, garai hartan oraindik ere askok eskumikaturik zeukaten Larramendi, aspaldiko maileguekiko jarrera egoki eta eredugarriaren exenplutzat deitzea. Lan honetan, Mitxelenak bere egiten ditu Larramendik euskal hitzat hartuak.

---

[155]Puntu honi arreta berezia paratzen dio Lakarra larramendizaleak lan bat baino gehiagotan. Bereziki adierazgarriak dira ondokoak, beste garbizaleekiko nahastearen makurraren funtsa axalera dutenen aldetik:

"Badirudi usuegi hurbildu garela Larramendiren obrara bestegandik sortu aurrentziak harengan frogatzera. Ez dakit, esate baterako nola ez den gehiago zehaztu Larramendi eta zenbait larramendiar eta Sabino Arana eta zenbait sabindar beste aldetik gonbaratzean. Egia da bai batzuk eta bai besteek hitzberriak erabiltzen dituztela nahiz eta, bide batez, esan behar den ez dituztela hitzberri berdinak erabiltzen. Haatik bi taldeek oso irtzi eta jokamolde ezberdinak dituzte euskal hitzen altxorraz: zein diren hitzok, zer egin behar den erdaratiko hitzekin, euskal literatura zaharragoak merezi duen begiramenaz eta honelako arazoei lotu beste hainbat galderetan beren ihardespenak maiz dira kontrakoak eta are guztiz kontrakoak ere.

Larramendiarrek *halabeharrez* sortzen dituzte berba berriak, ez erdaratiko euskal hitzen ordekotzat baina erdal hitz ordaingabeak itzuli ahal izateko: *bradona*, *jaupa*, *donoki* eta *gabeuki* ez dira larramendiarrak, bai aldiz *izarjakinde*, *neurkidagarri*, *zenbatiera* eta *berterosi*; halaber Larramendiri ez zitzaion burutik pasa bere aurrekoren baten sermoirik «euskara garbian» ematea Sabinok Mogelekin egin legez eta hori badazagularik [sic] zer nolako irtziak zituen bere garaiko sermoi eta sermoilari gehienez". (Lakarra 1985a:35)

"Eta «sabindarrekin» dituen ezberdintasunak ez dira soilik hitzberrietara mugatzen, esan bezala. Garbizale zen Larramendi noski, eta behin eta berriz iharrosi ohi zuten halako ahuntzerdara, euskara, gaztelera eta beste hizkuntzen nahaste mordoiloak, lehenago Etxeberrik egin bezala (...)

Gure artean garbizaleek azken boladan arrakasta eta begiramen handirik izan ez dutenez gero, komeniko da garbitasuna eta garbizalekeria berezten hastea Larramendik -lehenago Etxeberrik bezala- ez bait du ezer bigarrenetik". (Lakarra 1985a:37,38).

Halaber, gogora dantzke, auzi hau dela eta, Urkizuk (1989:107-109) Larramendi-Urte bikotea kontrakarrean ipintzeari Lakarrak (1992a:303,304) gaitzitziak.

[156]Gure saioa egin dugu tesiaren hirugarren atal nagusian.

1984eko Sarasolaren *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*ren aurkezpena da, gure ustez, arestikoari kontrakarrean jar dakiokeena. Larramendiri berariaz, "euskara noranahiko" bihurgogoa aitortzen dionean, alegia.

Lan honetan Mitxelena argi eta ozen mintzatzen da euskal lanetan, euskal gizartean, nabaritzen duen eta gogoasetzen ez duen jokabidea salatuz: erdara bakarraren gero eta mendekoago ikusten ditu euskaldunak eta euskara.

Eta, berriro ere, Larramendiren lekukotasuna darama paperera. Orain, haatik, itxuragabeko mallegutzaren larriari neurria ezarri beharraren premia aldarrikatzeko.

Giltz-testutzat hartzen ditugun bi lanok, honako ondorioetara garamatzate:

Larramendirekiko miresmenean eta andoaindarragan ikusiriko funtsezko hizkuntz irizpideetan, funtsean -berriz diogu-, aldakuntzarik ez bide da sumatzen Mitxelenarenean: Larramendi baliagarri zaio bi muturretako jarrerei eraso egiteko eta, okerrak zuzenbidetik abiarazteko.

Honen bitartez gogoeman daiteke, Mitxelenak aldi desberdinetan arrisku-mota bestelakoak ikusten dituela eta aldian aldikoari aurre egin beharraz ohartarazi nahi duela.

Garai batean, muturreko garbizaletasuna begitantzen zitzaion euskara hegalda zedin behaztoparri eta, horrexeri egin borroka. Aldi-giroak aldatu ahala, ordea, bestetan antzematen du galbidea, hots, euskara gero eta erdara bakarraren menpekoago dakus eta, honen aurrean, esklabutza honek ekar ditzakeenen gihian ukitzen.

Baina honekin batean -balizkoen munduan utzi nahi genukeen- besterik ere begitantzen zaigu: aldien joanak ez al zuen nolabaiteko hatzik utzi Mitxelenaren beraren hizkuntzazko iritzietan, (halabeharrez?) garai batean aiseago onartzeko prest zegoen erdaratikakoez, piskanaka, saihestuz eta Mitxelena bera ere garbizaleago bilakatuz joan bide zelako?

2.6.2.b.2. Etimologiak

Etimologien auziari lotzea egoki bide da, honetan ere, aldien joznean Mitxelenari nolabaiteko aburu-aldatzerik antzeman ote dakiokeen axalera asmoz.

Mitxelenaren lan zaharrenetan bertan, garbi nabari daiteke ezin zuzen iritz diezaiekeela Larramendik hiztegian zehar han-hemen papereraturiko etimologiei[157]:

> Hay por otra parte las abundantísimas etimologías con que Larramendi adornó los artículos, con la finalidad constante de probar que las voces latinas y romances provienen del vascuence, y que

---

[157] Lakarrak behin baino gehiagotan (1985a:12, 1985c:443, esate baterako) aipatu izan du Larramendiren inguruko ideietan (bere sorkariak erabiltzen ez zituela, "kanporako" lana egin nahi izan zuela...) Ibar-en lanak izan zuen zerikusia.

Etimologien puntu zehatzari dagokionez, ez dakiguna da zenbateraino indarra izan zuten, lehen ere paperotara ekarri dugun Urkixoren iritziek; ondokoak, kasurako:

"La falta absoluta de método y el entusiasmo patriótico llevan a nuestros abuelos, y Dios quiera no lleven a los menos instruídos o a los más ciegos de nuestros contemporáneos, a proponer la etimologías más estrambóticas y a sostener las hipótesis más grotescas". (Urquijo 1918:16).

siempre son más propias para producir risa que convicción. Ellas le han dado una fama poco apetecible de vascómano[158] apasionado y ligero que es necesario examinar más detenidamente.

Reconozcamos desde el primer momento que las etimologías son absolutamente indefendibles (...) Quien se complazca en el espectáculo de las aberraciones del entendimiento humano encontrará muchos otros ejemplos en el *Diccionario trilingüe*. (1959d, *SHLV*:905).

Baina kontuan hartzekoa da, Mitxelenak, Larramendiren etimologiak bezten dituen lan horiexetan ere, Larramendi bera izan zela bere etimologien sineskortasuna, kolokan utzi zuen lehena azpimarkatzen duela[159]:

muchas de sus famosas etimologías con las que explica palabras romances por el vascuence no puede menos de sospecharse si el grave escritor no se estaba riendo de los lectores contemporáneos y futuros. (1958a:363).

... como tampoco creo que nos apartemos mucho de la verdad si pensamos que al escribir algunas de sus estupendas etimologías no le faltaba mucho para reírse a cuenta de los crédulos lectores, presentes o futuros. (1959d, *SHLV*:906)[160]

---

[158] Ikus lehen Larramendiren *vascomanía*-ri iruzkindua.

[159] *España*ren etimologia eman ondoan Larramendik dioena har dateke, apika, horren adigarri:

"Confiesso que me retoza la risa, acordandome del caño, con que oiran todo esto los Diaristas, sin mas recurso, ni desahogo, que llamarlo *violencia*, *voluntariedad*, *disparate*, pero se hallarán atajados, no hallando razon, ni motivo, para tanto mal nombre: porque si se empeñan en buscar la falta de naturalidad de nuestras etymologías con los nombres, se meten, sin querer, en lo que aborrecen, que es en dar otras, que no sean violentas, sino naturales. Es mucha la passion, que hai en esto. Ven, que por otros Autores, no solo en otros nombres, sino en estos mismos de España, se dan varias etymologías en Reyes fabulosos: en el Griego, Hebreo, Phenicio, que ni aun son tan oportunas como las nuestras en Bascuence: y no obstante ó las admiten, ó tratan a lo menos con respeto, y cortesía. Pero á nuetras etymologías, solo porque son nuestras, y dúl Bascuence, aunque sean mas oportunas, y naturales, tocan á violencia, y á disparate. Tales respuestas no merecen otra replica, que el descubrirles su passion, y poquissima indiferencia. Yo diria, que estos burlones son como aquellos gallinas, que de talanquera dan vaya al que saca una suerte al toro, pero enmudecen, diciendoles *baxe el valenton, y haga otro tanto*, porque ni tienen valor, ni habilidad para esso. Dexemos esto assi hasta luego". (*DT*:cxj)

[160] Ia hatzez hitz errepikaturik irakur daitezke hemengoak (1960b:66).

Oineko oharrean, Mitxelenak Orixe gogaide aipatzen duela eta, gramatikaz honek esanak jaso diren legez, jasoko ere dira zenbait pasarte:

"Lafamendiren iztegi ofetaz azer onik esan al dteke? Furfuriaka eta aize-poteka asiko dira noski (...) Lafamendiren lana aundia da, asi izatea besterik egin ez ba lu ere (...) Ta Lafamendik berak ez al zekien, ez al zan oartu euskeran itz a/otz asko sartu zala? Bai noski, baiña iztegian bakoizka jartzean, euskerari egokitzen dizkio bere alde, alegia... oraingo jakintsuak bezalaxe (...) Ez ordea neri iduritzen beti beti benaz eta egiz ari danik. Lafamendi askotan beraizik ari da; bere buruaren gaiñetik ere pa/a egiten du; zergatik ez Mayans'en edo Armesto'ren lepotik? Nonbait esan zuen berekiko. Nik esana gorabera, *atzeftar* oiek ez dite begi emango ala dan ez ote dan. Etzeukaten aintzat euskera ta ikasteko asmorik ez iñork. Esan dezadan bada olako ta alako, ta ni nagusi (...) Baiña Lafamendik ez al zun siñisten berak iztegian elka/en ondozka ipiñitako itz oietan bat baka/a ere euskerarena e-tzanik? Ez egieki (...) Baiña -esan lezake norbaitek-: or [Mendibururi hitz erdaretikakoez emaniko gaztiguetan] esandako ori iztegian bamen nola aztu zitzaion? -Etzitzaion aztu, adiskidea. Iztegiaren itzaufean edo sa/eran ederki erantzuten dio Mayans jaunari (...)".

Ondoren, Larramendik Mayans eta besteri erdaraz esanak euskarara aldatzen (ziegi bazaigu adieraztea, maisuki aldatu ere) ditu Orixek eta Larramendik euskaraz idatziei helduz, honela iruzkintzen ditu:

"Orain ontzat ematen ez ditugun esaera batzuk ba ditu, baiño aiek bereiz, gaurko euskerarik obeenan ere ez dio zor aundirik. Mingañ da, Lafamendi euskeraz idatzirik geio ez utzi izatea (...)".

Ondoren datorrenak, Orixeren burubidea izanik ere, jasotzea merezi duela uste dugu, bertan irakurri ahal

Nik ez dut inondik ere uste, arrotzek maizenik uste dutenez, zinetan eta benetan hartzen zituela Larramendik honelako ateraldiak. Erdaldunek sinesten ez badiote, hor utzi du, *sutumpa(dia)*-ren itxuran[161], garbiago dirudien zerbait. (1983c:100).

Gainera, bazter ezinekoa da Larramendiren lan osoan zehar, nonbait, islatzen dena eta andoaindarraren lana ezaugarritu ere egiten duena: bere izakera, alegia[162]:

Larramendi era, ya se ha dicho, un apologista por considerarlo un deber y además un polemista por temperamento y hasta por educación. (1959d, *SHLV*:905).

Hau dela eta, Mitxelenak etimologiak horren gogor hartu dituen lanean, hain justu, arestiko hitzei, lerro batzuk beherago azalpen modukoa alboratzen dizkie:

pueden justificarse o al menos explicarse, aunque la explicación, para defender su sensatez, haya de ir en detrimento de su probidad científica. (1959d, *SHLV*:905)[163].

Eta ildo beretik uler bide daitezke ondokoak, hau da, kanpotarren ahoak mututzea, euskaldunak arrotzen aurrean lotsagarri ez gelditzea, kanpora begira, beraz, ematen dituela etimologiak:

---

direnek –hein batean bederen, Larramendi iturburua izaki– garbi erakusten dutelako, Larramendik egitamuan landatuak izan duela ernabidea, beste atal batean zehaztuko direnez gain, baita Orixegan ere. Ernamuina gara dadin, Orixeren ahotik hitz bezgarririk jasotzen ez duen hiztegia, hobeto esan, hiztegian baliaturiko hizkuntzaren *ernetzeko indarra* (hots, *vitalidad germinativa* delakoa) lagun hartuz, apika?

"Euskera. Lafamendik esan bezain aberatsa ai da? Bai jaunak, berez ala da, *per se*, Lafamendik dion bezela: oraingoz edo bein beingoz (per accidens) ufia baiñz ere (...) Zer aberastasun du euskerak? Ez diru txearen aberastasuna, ondasunena baiño. Zer falta du gaur euskerak? Diru-ale ori, eskuetako alda-dirua, edo erdal-itz mordoiloaren bidez esaten duguna *ganbioak*. Efozko edo ondozko aberastasunak ba ditu ugari euskerak. Ganbio oietxen bealean arkatzen gera euskaldunok, biia ibili ez geralako. Noiznai'ko burutapenak adierazteko indafa ba du euskerak, baiño gaur-gaurko artu-emanetan, gaurko asmaketa, buru-zurikeri ta gogapenak adierazteko *ganbio* batzuen beafean arkatzen da. Eskuetako alda-diru ori bear du, ta ori bein beingo gauza da; ori ez da berez aberastasuna.

Erabili dezagun bada, oitu dezagun gure euskera edozer gaitan, nolanaiko buruaren artu-emanetan eta Lafamendiren esana egi aterako da". (Orixe 1930b).

Hemen euskaraz jaulkiriko ideia gehienak erdaraz ere irakur daitezke Orixe (1924) lanean.

[161] "*Artilleria* erabiltzen genuen eta erabileraren zuzena honelaxe erakusten zaigu: «viene de el Bascuence *arte*, rectitud, y de *illeria*, enfermedad y golpe de muerte», «artilleria, sutumpa, sutumpadia»". (1983c:100).

[162] (1980b, *SHLV*:923)-n ere Larramendiren eztabaidazaletasuna eta umore ona azpimarratzen ditu.

[163] Halaz guztiz, arlo honetan ere, ustegabekoak gertatzen omen dira, larteka:

"Por otra parte, lingüistas actuales proceden, en ocasiones, al reestudio y en algún caso revaloración, de autores pasados en el difícil tema de la Etimología. Coseriu ha considerado que las listas de sus [Giambullari izeneko italiar filologoarenak] etimologías, reestudiadas, nos darían una proporción considerable de aciertos". (Zubiaur 1989:149).

> Erakutsia zuen, besteak beste, bere *Arte*-aren bitartez, ezina egin zitekeela eta, aurrerago joaz, eglaztatzen saiatua zen euskarak ez ziola hitz-kontuan inolazko zorrik inongo erdarari, latin eta gaztelaniari lehen-lehenik. Egia da bestea baino ezinagoa zela azkeneko ezin hau eta, horrexegatik beragatik, ez zuela erdizka baizik egin, onenean ere. Dena den, zerbait erakutsi zuen behintzat: sail honetan ere, maltzurkeria lagun, ez genuela lotsagarri gelditu behar gaztelauen aurrean. (1982a:104,105).

> Guztiok dakigu zenbateraino zabaldu zizkien ate-leihoak kanpotikakoei, eta nola zuritu zuen, etorkiaren norabidea irauliz, egin zien harrera eskuzabala. Ez dago berriz ere esan beharrik irudimen arinez asmatu zituen arrazoizko desarrazolak ez zeuzkala berak ere zuzentzat frankotan: lotsagabe xamarra izan zitekeen Larramendi, ez ordea ergela. Mayans-ekin eta, kontu-garbi-etan ari zen, ea zertan genbiltzan zorretan eta zertan ginen hartzekodun. Horrelakoetan agitu ohi denez, esan beharrik ez, zorrak soiltzera jo zuen, eta hartzekoak gehitzera. (1984b:31).

Baina etimologietara jotze hau ez da andoaindarrak asmatua, etxean ez eze, kanpoan ere aitzindariak bai baititu:

> Horrelako okerrak [malleguak] zuzentzeko tankera egokia Larramendik gehitu eta zabaldua zuen, ez aitzindaririk gabe: zorrak hartzeko bihurtzea. (1983c:100)

Aitzindari horien artean, Plato[164], Isidoro eta abarren ondotik ibili ziren atzerritar bidegileez saihestuz eta etxekoetara mugatuz, Mitxelenak berak aipatzen duen Oihenart ekarri beharko litzateke:

> La etimología de *azucena*, de la que se rieron Mayâns y otros, procede en realidad de Oihenart (1959d, *SHLV*:905)[165].

> Así, los vascófilos se creen obligados a mantener que, en contra de lo que indican las apariencias más obvias al igual que el estudio en profundidad, el vascuence había cedido al romance más de lo que había tomado de éste. La prueba de esta proposición le salió fallida hasta a Oihenart, por no hablar de Larramendi que, en materia etimológica, procedía de acuerdo a su formación e inclinaciones: como un disputador escolástico (o, lo que vendría a ser lo mismo en cuanto a los resultados, como un leguleyo) con más que ribetes de humorista. (1980b, *SHLV*:923)

---

[164]Greziarrak *Crátilon* paperera eramanak, nagusiki.

[165]Hitz honetan ez eze, bestetan ere, mauletarraren eta andoaindarraren bat etortzeak, halabehar hutsak azalduko lituzkeen ez da garbi ikusten. Hona batzuk erakusgarri gisa, ezker aldean, Oihenarten *Notitiakoak* (O) eta eskuinean, Larramendiren hiztegikoak (L) paratuz.

(O): *ACHAQUE. achequia* / (L): *aitzaquia ò achaquia*,
AHILARSE. hila / *hila*;
ALBRICIAS. albristea / *albiristea, albistea*;
AMONTONAR. montoa / *montoya*;
ANCHO. andicho / *andicho*;
ARISCO. arrisco (< *harri*) / *arinsco ò arrisco*.
AYO. aio (aia) / *ayoa, aurzaya*.
ACHOCAR. choco / *choco*.
ALDEA. alde / *alde*;
BARRAGAN. berregin / *berregin*... eta beste.

Edo, lehen aipatu diren Garibayk, Pozak, Echavek eta beste apologistek[166] eginak ere aurrean izan beharko lirateke.

Bitxi gerta daitekeena da, Mitxelenak horren zuhur, hotz eta zentzuduntzat daukan mauletarrak ere behaztoparri berean estrapozu egitea:

> Y, quizá porque tenía una mentalidad demasiado crítica para confundirse con la grey de los apologistas, demasiado fría también para granjearse el cariño de sus paisanos, expresó ideas muy avanzadas en materia de lenguaje que Larramendi con acierto no dejó a veces de aprovechar. (1959d, *SHLV*:904).

Bataren eta bestearen xede-helburu orotarikoak, etimologiak kokatzen dituzten lanmoten izaerak, etimologien bitartez iritsi nahi dituztenak... ikuskizunik ote?[167]

Esana eta jasoa dago Mitxelenarentzat Larramendiren etimologi saioen hartzailea kanpotarra dela. Halarik ere, bada lan batean Mitxelenak dioen zerbait, Larramendik bere etimologia xelebreak gatzatzean kanpotarrak ez ezik euskaldunak ere ez ote zituen gogoan pentsaraz dezakeena eta, arestiko puntuan maileguak mintzagai zirenean adierazi denaren sendogarri gerta daitekeena:

> Baditugu gainera geureganatuak eta etxerakotuak ditugunak metaka eta ez gentuzke (Aitubek oraindik orain horixe uste zuen) bertan behera utzi behar. Horrelakoetan, aski da, garbiminak joak daudenentzat, mailebuen norabidea aldatzea (*norabidea*, noski baino noskiago adiskide zenak idazten zuenez, erdarazko, «sentido» da, ez «dirección», deus baldin bada): erdaratik euskarara

---

[166] Zubiaur irakasleak aztertuaren arabera, euskal apologistek ez dute beti modu berean jokatu iraigen nondik-norakoa zehaztean.

Honela, iturburu grekoa bilatzen die euskal hitz askori, "Garibay, Poza, Echave y otros apologistas" samaldak, era honetan iraigi "gortarreko" bihurtuz, beraz, andoaindarrak ez bezala jokatuz.

"El jesuita Larramendi invertirá la explicación, pretendiendo derivar muchas palabras griegas, y latinas de la lengua vasca, si bien alguno cree que,.de modo burlesco, estaba en realidad respondiendo a la no menos absurda teoría del "Castellano Primitivo" que defendieron en el siglo de Oro F. Madera y otros". (Zubiaur 1989:160).

Grezia loriatsuan iturburuak bilatze hau, ez da euskal apologigileen berezkotasuna, haatik:

"... galoen jatorrizko hizkuntza, lehenago, aspaldi batean, grekoa izan omen zela. (Espainian Juan de Valdés dago halaber "en esta opinión que la lengua que en España se hablara antiguamente era assi griega como la que agora se habla es latina"). Azpian dagoena, hizkuntz-nazionalismo kurioso bat da". (Azurmendi 1992:173).

Zubiaurrek (1989:282), gaztelau hiztegia euskal hiztegitik erakartzeko lehen saioen aztarna sumatzen du XVI. mendeko apologisten lanetan eta adibide gisa eman (1989:191), Baltasar de Echavek, 1607. urtean México-n idatzian, euskal *Gaztelaoatik* erakartzen duela gaztelaniazko *castillo*, esate baterako.

Lakarrak (1985a:15) ere, Larramendiren eta Astarloaren etimologiak hari honetan aditzen ditu.

[167] Nolanahi dela ere, ondokoa gogoan hartu beharrekoa bide da, Oihenarten etimologi saioei Mitxelenak iritzien dienaz jabetzeko:

"Los ensayos etimológicos de Oihenart, hijo de las ideas lingüísticas de su tiempo –aunque fueran europeas, no caseras, como las de algunos otros–, pueden haber ido por senderos errados, pero es muy raro que su información sobre hechos de lengua, nacida de una observación atenta y crítica, pueda ser hallada en falta". (1968a, *SHLV*:518).

Ohargarria da Mitxelenak behin baino gehiagotan egiten duen Oihenarten zuritzea. Beste kapitulu batean ere ikusiko dugu.

izan beharrean, usuenik gertatu denez, alda ditzagun euskaratik erdarara. (1983a:61).

Pasarteko "garbiminak joen" erreferentea, nekez uler daiteke kanpotarrei begira; euskaldun garbizaleak bide dira maileguak erabiltzeko erreparoak izan ditzaketenak, ez erdaldunak.

Ulermodu hau zuzen balego, Larramendik etimologien bitartez erdietsi gogo zuena hedatu beharko litzateke, lehen beste ikuspegi batetik arrazoitu eta Lakarrak proposatu bezala: etimologien eginkizuna kanpotarrak isilaraztea da, bai, baina baita euskaldunen menturazko barne-harraren lasaigarri modukoa ere.

Esan berriagatik, eta arestiko puntuan adieraziagatik, ondoriozta daiteke Larramendi euskaran erroturiko maileguak erabiltzearen alde ageri dela, Mendibururi egin gutunean argi asko egiazta daitekeen bezala.

Gai honezazko Mitxelenaren adierazpenei begira, berriz, gure ustez, era honetara iruzkin daiteke andoaindarraren etimologien zioei errenteriarrak derizkiena:

Beste euskal itxura handiagoko hitz lehiakiderik ez duen erdaratikako hitza "euskal" oso bilakatzeko bidea, hitz horren iralgiari bira ematea izaki, hala bihurtuaren aurrean, kanpotarrek isildu besterik ez dute, zordun baitira. Honezaz gainera, aldi berean, hartzekodun izateak euskaldun garbizaleari biz liezaiokeen estuasuna baretzen du.

Itxuraz euskaldunago den hitzik badago mailegatuarekin lehian suerta daitekeenik, berriz, euskaldunei begira -bereziki- pentsaturiko irtenbidea, erabileraren, hizkuntz mailak bereiztearen ildotik dator: batzuei eta besteei erabilesparrua zedarritu.

Guztiaren gainetik, halaz ere, kontuan izanik, mailegutzara ezinbestean besterik ez duela jo gogo Larramendik, euskal bideak agorturik edo baliogabe gertatzen zaizkionean, alegia.

Zeinahi gisaz, ez bide da begi-bistatik uxatzea komeni, Larramendiren bidearen egokitasuna ukitzen duten aldi desberdinetako bi lan.

Aspaldiskoko lanean[168], Larramendiren iritzia darabil, hain justu, mailegu zaharren euskaltasuna argudiatzeko, Larramendiren etimologiei, zuzentasuna ez baina probetxua ikusiz, antza, batetik:

[*alabanza*-ren etimologia dela eta] Eta horretxekin konpontzen zituen gauzak eta ez litzateke[169] hori ere bide txarra guretzat. Beharbada beste etimologia asko baino probetxukoago izango lirateke[170] honelakoak guretzat ere. (1959a:126).

---

[168] 1959ko "Euskal hitzak zein diren" artikuluan, alegia.

[169] Jat. *elitzake*.

[170] Jat. *lirake*.

Hau da, Mitxelena euskalari jantzi eta zentzudunari orartezin gertatzen zaizkionak, Mitxelena euskaltzaleari, apika, helburuaren mesedetan, ez dirudi horren irenstezin gertatzen zaizkionik, "guretzat ere" (irten)bidea izan daitekeela adierazten baitu.

Alabaina, hogeita lau urte geroagoko beste lan batean[171], arestikoa gezurtatzen bide duen bestelako hau ere irakur daiteke, kontrakotik:

> *Alabantza*, esate baterako, *alaba antza* da, bistan dagoen arabera. Bidea, gezurraz baliatzea zilegi baldin bada (probetxugarri den gezurraz, jakina), ez da gaitzerakoa. Aitubek ez zukeen, ordea, ontzat hartuko, ezta guk ere apika. (1983a:62).

Bigarren aipu honen adimoduaren arabera, aldiz —Larramendiren bidea garaian garaikoa izaki eta ingurumari hartan barkakizuna edo gutxienez ulertzekoa—, egungo egunetako euskaldunari baliogabetu ez ote zaion susmoa izan daiteke eta, Mitxelena ez ote den besterik eskatzen ari ondorioztatu. Hau da, beste bide malkarrago baina zuhurragoetatik barrena abiatu beharra zeinahi gisatako hizkuntz irizpideak sendotzeko.

Ikusten den bezala, maileguezko puntuan genioenaren hari berean koka daiteke etimologiezko hau ere. Mitxelenak, berriz ere, Larramendiren jokabidea deitzen du testigu, bi aldi diferentetan eta kontrako (antza) ideiak aurrera atera nahirik, euskalaritzan, bere ustez, jarraitu behar zaion eta ez zaion bidean, iparrorratz hartu behar dena finkatzeko.

2.6.2.b.3. Hitz asmaberriak

Larramendik bere hiztegia oratzean entzunak eta irakurriak ez ezik bere burutikakoak ere sartu ditu, batzuk aitortuak: berariaz mintzagai izango diren hitz berezituak batez ere, baina aitorgabekorik ere bai.

Mitxelenak ondokoetan, Larramendik asmalanari ekiteko arrazoia kanpora begira eginiko lanean dakus:

> Dio euskal hitzetan zeuzkan teoria asko ez zirela euskaldunentzat eginak, kanpokoentzat baizik. Berak haiei[172] erakutsi nahi zien euskara gai zela[173] edozer gauza esateko. Eta gai zela[174]

---

[171] "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)" (1983a).

[172] Jat. *aieri*.

[173] Jat. *zala*.

[174] Jat. *zala*.

edozer gauza esateko erdaratik[175] hartuak ez ziren hizkin. (1959a:125).

Larramendik, izan ere, bere asmakari ugariak erdaldunentzat sortu zituen eta hoberik opa zien euskaldunei. (1959b:116).

La disposición del *Diccionario* (castellano-vasco-latín) es un pie forzado que le obligó a rellenar con neologismos los huecos sin traducción. (1960b:98).

Honengatik, erakusgarri eta froga izateko eta ez beste eginbidetarako asmatu dituelako, ez benetako praktikotasunik ez pleguzko izateko egokitasunik ikusten die, antza, sorkariei eta Larramendik berak aurrenik iharduera horri muzin egingo diola dio Mitxelenak, horretarako "botikario-botika" edo "mediku-erremedio" irudiez baliatuz[176]:

Botikario askok egiten duten bezala[177] Larramendik ez zuen berak saltzen zuen botikarik hartzen eta berak euskaraz[178] idatzita utzi dizkigun gauzetan garbi eta jator mintzatzen da. (1959a:125).

Además, como ciertos médicos que vacilan en aplicarse a sí mismos los remedios que recomiendan a sus pacientes, no utilizaba sus propios neologismos. (1959d, *SHLV*:909).

Además, como ciertos médicos que vacilan en aplicarse a sí mismos los remedios que recomiendan a sus pacientes, no usaba sino con cierta mesura[179] de los neologismos que forjó con tanta facilidad. (1960b:98).

Areago, ez omen zen andoaindarraren gogotik pasa bere burutikakoak bestek erabiliko zituenik, berariaz agindu baitzien halakorik ez erabiltzeko:

Siempre podrá decirse, sin embargo, en favor del padre Larramendi que en la práctica se mostró mucho más comedido que en la teoría y sólo hizo un uso muy moderado de los flamantes neologismos que creó con tanta fertilidad: incluso recomendó expresamente esta moderación. (1958a:363).

... no usaba sino con la más extrema mesura de los neologismos que forjó con tanta facilidad y no se cansó de recomendar expresamente a todos esta moderación. (1960b:98).

---

[175] Jat. *erderatik*.

[176] Botikarioarena, irudi-erabiltzailearen izenik aipatzeke, kritikatzen du Lakarrak.
"Ez dirudi, bada, inorentzako on duen sendagaia beretzako gaitzesten duen mirikua, edota atzerritarren gainditzeko hiztegirako erruz asmatuak ondoratzen eta atzentzen dituen nahastekatzailea. Bidebatez, konpli da Hiztegi *aurreko* testuetan ere, lehendabizikoetarik hain zuzen, ematen dela hitzbermen erabilera gogoratzea." (Altuna-Lakarra 1990:8).

[177] Jat. *bezela*.

[178] Jat. *euskeraz*.

[179] Errepara bekie arestiko testuaren moldatzea den geroagoko honetan erantsiriko hitz hauei.

> Oinarri makur horretatik[180] jaio zen hainbeste asmakari, euskaldun garbiek erabiliko ez zituztelakoan, beharbada, egileak berak erabili ez zituen bezala. (1966a:68).

Euskaldunek erabil ez ditzaten Larramendik gatzatzen dituen asmakariok neurkizun hartzen ditu Mitxelenak. Izan ere, ikusi den bezala, hauek, etimologia funtsik gabeekin batean, osatzen dute buruen-buruenik hiztegiaren alderdi makurra.

Gainera, hauexek berak ekarri bide diote euskal lexikografiari nahastea eta ziurtasuneza, entzun-irakurriak eta bere burutikakoak ez banatzean.

Eta arestikoa gutxi bailitzan, asmakariok juzkupean hartzean, Mitxelenak ez daudela ongi eratuak[181] ere esaten du:

> Nous n'avons trouvé aucun témoignage de *estalpe* avant le guipuzcoan Larramendi (1745), qui emploie ce mot pour traduire *arcano, misterio, protección* et *tapete*. Or il est bien connu que ce lexicographe a crée pas mal de néologismes et l'on ne peut guère douter que *estalpe* «mystère» en fasse partie. Il a exprimé ce concept par un composé basque qui signifierait «chose qui est sous couverture» au lieu d'employer l'emprunt usuel (*misterio* se trouve déjà chez Liçarrague). Il en est de même de *estalpe* «protection», bien que l'on puisse croire qu'il a pris ici un mot de sens concret pour rendre une nuance plus abstraite. (1957b, *SHLV*:109).

> Asmazio horietan, gerokoen usteak zuzenak baldin badira eta zuzenak dirudite, ez zuen beti, ezta gehienetan ere, bestelako arazoetan maiz agertua zuen esku trebea erakutsi. (1982a:105).

> [Etxeberri Sarakoa] es el autor menos indicado para recurrir a neologismos que, además de ajenos [Larramendirenak], eran de discutible calidad. (1984a:30).

Honetan, gainera –bestetarako ere berdintzen duen–, Oihenarten aldean, andoaindarrak galduan irteten du:

> Hitz berriak sortzeko eskua ere badugu, edozein hizkuntzatan gertatzen denez, eta Larramendi baliatu zen horretaz, XVII.ean Oihenart bezalatsu, traketsago haatik[182]. (1983a:61).

---

[180] Jat. *ortatik*.

[181] Sarasolaren (1986:208) hitzetan, besterik sumatu uste dugulakoan gaude:

"... esan beharrik ez dago Larramendiren proposamenetako asko ezer gutxi erabiliak edo erabat baztertuak izan zirela. Gertakari honen arrazoi nagusitzat (...) zera aipatu da, idazleok –eta Larramendi bera– bere euskal senari eskerrak, aldrebeskeria edo bitxikeria horien desegokitasunaz –hizkuntz desegokitasuna, hain zuzen– ohartuak zirela, alegia.

Nik besterik dela uste dut. Larramendiri dagokionez, prestatzen ari zen euskal-erdal hiztegi P. Altunak argitaratuan *DT*-ko «voces facultativas» direlako guztiak sartzen ari zela ikusirik, benetan nekeza da orduan ere txantxetan ari zela pentsatzea (...)

Dena dela bazegoen desegokitasunik Larramendiren ahaleginean. Baina ez zen hizkuntzarekiko desegokitasuna, euskaldungoaren kultur egoerari buruzkoa baizik".

[182] Miren Azkaratek aztertu berri du, hain justu, bi egileon lexiko-sorkuntza.

Frantsesezko aipamenean salbu - eta tesigile honi itzuri ezean ez du Mitxelenak, ordea, zehazten zein alde makur ikusten dizkion Larramendiren sorkariei, zertan ibili zen, justu, trakets hitz-eraketan[183].

Esanak esanagatik, kontuz ibili beharra dago, Larramendi aitatzat jo izan den batzuetan, gerora ikusi baita bazutela beste nonbait iturria:

> Como se sabe, el gran problema de la lexicografía vasca es la obra del Padre Larramendi, cuyas indicaciones, a causa del amplio margen que concedió a la inventiva cuando la información le faltaba, no se sabe cómo valorar muchas veces. Es cierto que Azkue procedió a principios de este siglo a una revisión crítica, pero esta revisión, según he indicado en otro lugar (véase EUSKERA 6, 1961 p. 13ss[184]) es insuficiente por exceso a la vez que por defecto. En efecto, puede demostrarse en más de una ocasión[185] que voces de Larramendi a las que Azkue no dio entrada en su *Diccionario*, sin duda por creerlas manufacturadas por el jesuita, son totalmente auténticas, como acreditadas en fuentes anteriores y por lo tanto independientes de él.
>
> Es cierto que tal prueba falta muy a menudo, y que en ese caso nos inclinamos a creerlas espurias. Pero, si las probabilidades se inclinan decididamente a favor de un juicio de esa clase, no debemos olvidar que probabilidad no es certeza. (1963b, *SHLV*:411).

Larramendik berariaz aitortu hitz asmatuak dira, *godaria*, *sutumpa* eta *surrautsa* hiru sonatuez gaineko hitz berezituak edo andoaindarraren hitzetan, *voces facultativas* direlakoak:

---

[183]Azkaratek (1992) erakusten duenez, Larramendiren sorkariak hiztegian zehar, aitorturikoak (berezituak eta hiru hitz sonatuak) baino harantzago doaz eta gainera, Larramendik berak ematen du zenbait sorkariren osamodua hiztegiari eginiko sarreran:

"Lo que diran algunos, que es licencia, que me he tomado en el Diccionario es, que en las voces Castellanas compuestas que empiezan con *des*, y con doy por correspondientes otras Bascongadas compuestas con la misma preposición *des*, y con la posposicion, ó terminacion *quida*, *quidea*, *quidatu*, que es novedad contra el uso. Pero la satisfaccion es pronta y facil (...)

En las voces correspondientes á las Castellanas compuestas de la preposicion *con*, me valgo de *quidatu*, para los verbos; *quida*, y *quidea* para los nombres: ni esto debe parecer nuevo, porque las voces *quidea quida* significan en Bascuence al que con otro concurre a alguna acción, y son iguales en tiempo, en calidad, ó en alguna otra cosa; *ideac dira*, *quideac dira*, decimos de los que son iguales, de un tiempo, etc. De aqui decimos *aitaquidea*, *altaidea* al compadre, *amaquidea*, *amaidea* á la comadre. De aqui á los amigos *adisquideac*, porque igualmente se entienden, y mutuamente se comunican. Por esto tambien en el Nuevo Testamento se dice *servitzariquidea* al consiervo, siendo esto assi, y que son voces tan oportunas, se las restituyo al Bascuence, que las ha ido perdiendo por incuria, y poca inteligencia de los Naturales, y á poca repetición quedarán usuales, y corrientes. (*DT* §XXVI)".

[184]"Euskal-iztegigilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan", *Euskera* VI, 1961, 7-22 [*MEIG* VII, 47-66], gure (1961a).

[185]Erakusgarri bat, han eta hemen (1958c, *SHLV*:434; 1963b, *SHLV* 411 ...). Mitxelenak ematen dituenen artean:

"Ubillosez ari dela (151gn. ornaidean) dio A. Villasantek: "... por Sabiduría emplea *Jaquiundea*, palabra que trae Larramendi, pero que no es popular; y es curioso que Larramendi no traiga, en cambio el popularísimo *jakinduria*, *jakituria*". Baina gaur herriko hitza ez bada, dirudienez, ez du horrek noraezean esan nahi herriko hitza ez zenik eta are gutxiago Larramendik asmatua denik. Egia esan, Larramendi baino lehenago ageri da, O. de Annen Dotrinan, 31gn. ornaidean esate baterako (...) Hori aski ez balitz, hona zer idazten dion Arakistainek Larramendiri bidali zizkion eraskinetan: "*Sabiduria*, *jaquiundea*, *jaquitea*, *jaquintea* G.". Gainera, oker ez banago, ez *jakituria* ez *jakinduria* ez dira behin ere agertzen O. de Arin'gan. Beraz, dirudienez, oraingo *jakinduria* berria da eta, Gipuzkoan behinik behin antzinako *jakiundea*-ren ondorengotza hartu duena". (1961b:66).

Altunak jendarteraturiko Larramendiren euskal-erdal hiztegiñoan, *jaquinde*, *jaquintza*, *jaquintasuna* irakur daitezke; *jaquiunderik*, ordea, ez.

Nolanahi ere den, Larramendik argi eta garbi aitortu zuen asmatzea zilegi zela, edozein hizkuntzatan bezala[186], «voces facultativas» direlakoetan, hots, alemanez *fachsprachlich* (eta hemen orain *berezituak*) omen direnak. (1983c:100).

Hitz hauek, zeinahi hizkuntzak aurrerabidean asmatzea zilegi dituenak dira, eta Larramendiren geroko xede-helburuetan bete-betean kokatzen direnak.

Larramendik hitz hauentzat begiz joriko osamoduak, Mitxelenaren begietan, euskal hitz-eraketan du ernamuina, antza. Hau da, euskal oinarrietatik abiatu bide da Larramendi, euskaraz artean hitz-gorputzik ez duten adigai berriak mamitu asmoz[187].

Ez du Mitxelenak, eremu zehatz honi dagokionez, Larramendik mailegubidea onartu nahiz arbuiatu zuenik zehazki adierazten, uxatzekoa ez bada ere - jaso legez - andoaindarrak ez diola muzin egiten bide honi.

Zeinahi gisaz, pentsatzekoa da ez dela berezituen mundua Larramendik mailegatzeko

---

[186]Eta Azurmendiren (1992:42,43) testigutza (aukeratua)ren arabera, zainak, aspaldi xamarrekoak dituena, gainera, jokaera hau. Larramendiri, bere ihardunbidea zirriru eta funtsatzeko, ezin aukerakoago iruditu, nonbait:

"Erromatarrak, egia da, zibilizatu-berriak gentuen berak ere. Larri eta estu ikusten dugu, behintzat, Ziceron bera, hizkuntza latinoaren trakeskeriagatik, esate baterako, eta Arteetako gorabeherak latinez nola adierazi asmatu ezinda: «aut enim nova sunt rerum novarum facienda nomina, aut ex aliis transferenda» (Beraz, euskara garbi ala mordoilaren buruhaustearekin Ziceron bera ere!). Bere estuasunean, ba, eta hitz greko pila hartu ondoren, azkenean, asmatzen ausartu da neologismo bat, *qualitas*, bestela ez bait zekien nola esan latinez ("qualitates igitur apellavi quas *poiotitas* Graeci vocant"). Zilegi da, ezta? Ziceronek dialektiko onaren moduan defendatzen du bere asmaketarako eskubidea: grekoak, hizkuntza aurreratua eta kultura handikoa izanik, hitzak asmatzen baditu, gero herriak ulertuko ez baditu ere [gogora Larramendik hitz berezituen adi- eta erabiltesparruaz esanak, erantsiko genuke gure aldetik], zientzia gaietarako («non est vulgari verbum sed philosophorum»), zenbat gehiago egin beharko du hori bera latinak, hizkuntza txiroa eta Arteetan hasi-berria izanik? *Quod si Graeci faciunt qui his rebus cedendum est, qui haec nunc primum tractare conamur*... Ez zaizkio akordatu gabe pasa gure Larramendiri Ziceronen larritasun horiek, ez horixe. «Nunca estuvo el latín -hona haren iruzkina- en estado más florido que en tiempo de Cicerón: no obstante, se queja en varios lugares de sus obras filosóficas, de la penuria de su lengua latina, para hablar en ellas. Lo mismo daría si quisiera hablar en cosas matemáticas, médicas, anatómicas y otras muchas. Y de hecho la lengua latina apenas tiene vocablo propio suyo en esas artes y ciencias, pues los más de los vocablos son griegos». Zibilizatuak, erromatarrak? Basapizti galantak ziren zazpi muinoetako seme horiek! Grekoentzat, barbaro hutsak, etruskoentzat, inzibilizatuak".

Baina Grezian ere suma omen daitezke hutsune honek sorturiko kexuak:

"Aristotele bera, grekoari terminoak falta zaizkiola, kexatuko da. Ez dagoela filosofia ondo esaterik. Neologismoak asmatu beharra dagoela, cfr. *De anima*, II, 7, 418a 26; 419a 2-6, 32, etab; *Et. Nic.*, I., 10, 115b 25; IV, 12, 1126b 19, (...)

Baldin orain euskara, den bezain "labur, eskas eta hertsi" bada, "nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela" guk badakigu aspaldi, "euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak". Landu izan balute behar bezala gure arbasoek, etc. Arrazoi hau, nik ez dakit zenbat aldiktan, zenbat hizkuntzatan, lurraldetan, baldintzatan, eratan, arotan, ikusita daukadan nire irakurraldietan. Arruntaren arbiarrunta da literatura guztietan topikoa. Ikusi dudan topiko horren formula zaharrena, halere, *Sofista*-ko hauxe da. Jesukristo baino lehen laugarren mendean. Grekoaren terminologia faltaz ari da hor Platon: "¿Dónde, entonces, debemos buscar un nombre apropiado para cada cosa? No hay duda de que es difícil encontrarlo, porque los antiguos, según parece, tenían cierta pereza y falta de discriminación..., con el resultado, de que hay una seria carencia de nombres".

Ikusi dugu, lantu bera latinarekin Ziceronek zerabilela: grekoa txiro, latina pobre... (Ez bait dirudi oso pertsona kultuarena, norbere kulturaz harroegi ibiltzea). Kultura -hizkuntza- guztietan dago nonbait harrokeriaren ordua eta apaltasunaren ordua". (Azurmendi 1992:429).

Esan al daiteke, Larramendik -zuzen nahiz oker- lantu-kexuetatik haraindi, konponbideak eskaintzen saiatu nahi izan zuela?

[187]Hitz-altxorra berritzeko egitamuko bigarren bidea nagusiki.

begiz joa, arlo hori berariaz hartzen eta argudiatzen baitu hitz berriak eratzeko barruti osakizuntzat:

> Sólo se ha tomado la licencia, dice, de crear, con elementos conocidos palabras compuestas para traducir las «voces facultativas». (1959d, *SHLV*:907).

Gaurko begietan harrigarri samar gerta daitekeena da jakintza-gaietan, hain zuzen, nazioartekotasuna dela eta, mailegutzak alor erosoagoa duenean, hain zuzen ere, Larramendik hiztegi-arlo hauxe ez nabarmentzea zor berriak egiteko barkakizunagotzat.

Zein litzateke hitz-mota honen adiera-esparrua? Bestela esan, zein hartuko lituzke Larramendik berezitutzat?

> No aclaró muy bien cuál es la extensión que atribuye a tales voces, es decir, a «las que pertenecen a las Facultades, Artes y Ciencias», pero en todo caso, tuvo que ser muchísimo mayor que la que se les da habitualmente. (1959d, *SHLV*:907).

Ez dirudi, beraz, oso garbi dagoenik, Larramendiren zedarritze ohartua ezean, zein den hitzok hartzen duten barruti justua, baina nolanahi ere, terminologia estu-zorrotzak ezarrietatik harantzago jo beharko litzatekeela adi daiteke Mitxelenaren hitzetan:

> Creo que Aquesolo, p.364 s., no anda del todo acertado al atribuir al carmelita [Fray Bartolomé] una preocupación por los estudios universitarios en el país: *facultad* significaba sencillamente «ciencia o arte», como cuando Larramendi habla de *voces facultativas* o técnicas, y nada tiene que ver con el nivel de la enseñanza. (1978d, *PT*:355).

Azken aipu honen arabera, jakiteez, jakinbideez, zabal hartuta, mintzatzeko hitz oro halakotzat jo ohi duela Larramendik gogoeman behar dela dirudi.

Larramendiren sorkariak direla eta, zenbait galdera sortzen da, alderdi desberdinetatik sortu ere.

Batzuk beheraxeagoko utziz, ikertzaileen artean berriro biztu den baten erantzuna, Mitxelenaren izkribuetatik nola adi daitekeen aztertzeari ekingo zaio orain.

Kanpotarren ahoak mutuarazteko oso txukun asmatu ez dituenak --eta besteri erabil ez ditzaten aholkatu--, zenbateraino ez ditu Larramendik berak, bere lumatik ari denean papereratzen?

"Botikario-botikaren" eta "mediku-erremedioaren" irudia gogora besterik ez dago, esan bezala, Mitxelenak behin baino gehiagotan adieraziaz jabetzeko: Larramendik asmakariak erdaldunentzat sortuak zituela eta euskaldunek –Larramendik berak, aurrenik–, ez zuela gisa

horretakorik paperera behar, alegia.

Halarik ere, bada Mitxelenaren hitzetatik, denboraren poderioz, nolabaiteko iritzi-aldaketa ez ote zen gertatu ondorioztatzeko modua eman dezakeen aipurik:

> Ez da behar bada alferrik izango Larramendik berak hamalaudun ilunxko honi ezarri zizkion argibideak hona aldatzea: "(...) *Lenén*, ori berá esan nai du *Principe, nolá Latinez badiogú*, principem locum tenere, lenéngo lecuá, edó lecu lenená iduquitzea, euquitzea. *Lenén goiá*, goituá, goicoá, goratuá, orobatezcoac dira hitz oec (synonimos): etá emén ez hitzai, báicic hitzaquin esán, edó adierazo nai degunari oartú bear gátzaizca. *Ausartziá*, ala dérritza valentiari: *onesguná*, onetsi, amatú, maitatu; etá andic *onesguná*, amorea, maitetasuna. Gañeracoa erráz da..."
>
> Eta hobe agian erdal itzulpena ere aldatzea (zein da ordea zeinen itzulpen?). (1961c:217).

> Euskarazkoei, nondinahiko direla, eskuak zabaltzeaz gainera, beste bidea, zabalagoa agian, hartu du Larramendik, aipatu pasartean bertan[188] nabari denez. Euskal hitzen adiera, testu-inguru berriak hautatuz, nahi edo ahal adina hedatu behar du. Nola lor bestela delako *goi Lenén* hori «Príncipe Augusto» bihur dadin? «*Lénen* –azaltzen du Larramendik–, ori berá esan nai...[arestiko aipamenean jasoa]. Adiera berriak ezezik, etxeko ondasunez baliaturik hitzak ere sor daitezke. Ik. leku berean «onesguná, onetsi, amatú, maitatu; etá andic *onesguná*, amorea, maitetasuna». Hitz eratorri horrek ez du, egia esan etorkizun aberatsik izan, *et pour cause*. Jokabidea, ordea. Oihenartek eta Pouvreauk ikusi zutena, ederki ematen du adituera[189]. (1983c:99).

Bi aipuok elkarren segidan irakurtzean, beharrezkoa begitantzen zaigu idazdata beretsuan Mitxelenak gai honezaz esanak kontutan hartzea.

Izan ere, 1959ko eta hurrengo urteetako adierazpideetan, gehien barreiatu den irizpidea islatzen du Mitxelenak lan frankotan[190]. Baina, halaz ere, zer dela eta pasarteko "argibideak aldatzeko" atakan ikusi Mitxelenak bere burua? Larramendik *Ezina eginan* txertaturiko olerkian erabiliko hitzak euskal ohiko altxorrekoak baziren, euskaldunak debekurik gabe adi bazitzakeen, ez zegoen zer argitu hitzon adiera; alabaina, Larramendik argitzeko premia ikusi du eta Mitxelena ondotik dabilkio.

1983ko pasarteko exenplu berak bestelako testuinguruan kokatzean, hots, Larramendiren hitz-sorbideak autu hartzean, sendoago argitzen da esan berria:

Mitxelenak "lortu" ondoko adieratzat dauzka Larramendiren *goi Lenén* eta *onesguna*

---

[188] Arestiko puntuan, Larramendiren hitzok paperera ditu, *Arte*, 389 hh.tik jasoz:

"Lo que es de admirar es, que aun hasta los nombres más obvios se les [euskaldunei] hagan difíciles, por sólo mudar el caso, dexar el artículo, y otras variedades propias de la Syntaxis. Dirán fácilmente lo que significa *zori oneán*, como también *eché onean*; pero si se les pregunta que es *zori-á*? responden *nic daquit beda*, que no lo saben: *etá cer oté da eche-á*? Ori badaquigu: *Zori-onac*, eztet adituen; *eché ónac*, bai. No puede imaginarse menos reflexión... Badaquizu cer dan lenena? jaquin bear bada; *aurreán doaná, edó dagoená*; oró bat da *lendavicicoá*. Etá badaquizu, cer esan nai duen *goi lenén*? ez nic; cer da *goi* ori? Alózea. diozúnean *goiermá* edó *goiermtár*, cer esan nai du *goi* orrec? Orain badá sinis nazázu, ezdaquizulá euscáraz, eta aimbát guichiago daquizulá, ceimbat gueiágo uste dezún".

[189] Hau eta beste dela eta, Lakarrak (1985a), (Altuna-Lakarra 1990) Larramendik hizperniak hautabidean paratu ez ezik erabili ere bazerabiltzala aldezten du.

[190] (1959a, 1959b, 1959d, 1960a).

hitzena[191], biak baliabide desberdinak erabiliagatik. Izan ere, lehenean, hitzaren adiera da hedatu-aldatu duena, aitzitik bigarrenean, Larramendik erabideak baliatu ditu *onetsi* aditzetik berea oratzeko.

Badirudi, beraz, Mitxelenak papereratzen dituen Larramendiren testu hutsetan oinarriturik, badagoela esatea andoaindarrak, 1729ko gramatikan gutxienez, hau da, *Hiztegia* baino lehenagoko lanean, badarabiltzala beragandikakoak.

Azken hauen ondoan, Mendibururi emaniko burubideetan (1747) erabiliriko *egikari, hizkunde* (lehen mintzagai izan direnak) berpaperaraz gero, Mitxelenak eskuartean erabili ahal izan zituen Larramendiren testuetan –ez gerora ikertzaileek aurkitu eta ezagutzera eman dituztenetan[192]– sorkari, edo gutxienez, Larramendi arte eratu gabeko euskal hitz "berriak" irakur daitezkeela iruzurrik egin gabe esan daiteke.

Aitor honek, ordea, aipatu denaz gaineko bestelako ondorioak dakartza.

Baldin Mendibururi eginiko gutunean[193], Larramendi euskal idazle txukun-jatorraren[194] lanik adierazgarrienetarikoan, urrutirago gabe, bere sormenetikakoak badarabiltza[195], ez dakigu noraino euts dakiokeen, bestelako zehaztasunik egin gabe, Larramendiren euskal testuen jatortasun-garbitasuna[196], besteak beste baina batez ere, asmaturik ez erabiltzeari zor zaiola.

Ala Larramendik asmatuen artean ere –eta honek bestelakoetara darama auzia–, bereizkuntzak egin beharrak dira modu desberdinetara juzgatuz, euskal bide ohikoetarik urruntzen ez direnak, eratuak izanik ere euskaldunak irakurtzean berriak direnik ia antzematen ez dienak, euskal hitzen adierak hedatuz taxutzen dituenak, batetik eta euskal erabideak bere gogara bortxatuz (hitz berezituetan batez ere?) oratuak eta asmatuak, bestetik?

Bereizkuntza honetan oinak finkatuz gero, agian, ulerterrazago gertatzen dira Mitxelenaren (eta besteren) iritziak.

Larramendik euskaraz idaztean txukun eta jator idazten du Mitxelenaren ustez, gaurko ikertzaileek hautemaniko nahiz oharkabean itzuririko sorkariak barne, oro har, darabiltzan gaiek hitz berezituen premia handirik sortzen ez diotelako.

Alabaina, hiztegian –begiak urrutirago irauliak izaki–, bestelakoak ere sortu eta sartzen ditu kanpokoei begira eta, geroko euskaldunek, apika, erabili ahal izan ditzaten[197].

---

[191] Arestiko pasarteko *orobatezco (synonimos)* hori ere erantsi behar ote?

[192] Altunak eta Lakarrak (1990) bilduetan, buruen-buruenik.

[193] "Euskara berriaren "Carta Magna"", Altuna-Lakarra (1990) egileen hitzetan.

[194] Beste puntu batean jorratuko da zehazki puntu hau, baina edozein grisaz, hona *Historian* irakur daitekeena:

"Su prólogo al *Jesusen Biotzaren Devocioa* de Mendiburu debe figurar por méritos propios en cualquier antología de prosa vasca...". (1960b:98).

[195] Hemen bakarrik ez, Lakarrak (Altuna-Lakarra 1990:8) dioenarren arabera.

[196] (1959a:125).

[197] Sarasolak (1986) azpimarratuaren ildotik.

Larramendik, orduan, eskaini besterik ez du egiten, hitz horien premia sorraraziko lioketen gairik jorratzen ez duenez gero.

Azalpen-modu honek argituko luke, apika, Mitxelenak Larramendi euskal idazle ontzat edukitzea, darabiltzan sorkariak sorkari.

Ez du, ordea, argitzen, lehen erreparatu zaion beste kontu bat: Olabide eta Larramendi berdindu dituenean, beste argudioak beste, Mitxelenak, bat euskaldun berria izatea eta bestea, berriz, ez izatea erabili du, Larramendi euskaldun zaharrari[198] euskal senak ematen dion ezaupidea eredugarritzat hartuz.

Baina non gelditzen da Larramendiren euskal sena eta juzku zuzena hitzak itxuratxarki ontzen dituenean? Nolatan euskaraz horren poliki moldatzen omen den Larramendi atzentzen da, ezinbestean, errotik ezagutu behar zituen euskal hitzen erabideez?

Puntu-galderok badute, gainera, zerikusirik ondoren aztertuko denarekin, erakutsiko den bezala.

2.6.3. *Suplementoa*

Hiztegi mardularen txit atal berezia osatzen du gehigarriak.

> Ez zeukan, bada, beste egiteko'ik, hitz berrien asmatzeak uzten zizkion txolarte laburretan irakurri –eta beharbada entzun– zituen euskal hitzen zerrenda hiztegiari eranstea baizik, betegarri gisa. (1963a:53).

Eraskinak, hiztegiak ez bezalako iritzia merezi du Mitxelenaren ustez, bertan jasoriko hitzen artean, Larramendik dioenez, bere burutikakorik paperera ez duelako eta gainera, iturriak berariaz aitortu dituelako.

Honengatik, asmamenari tarterik utzi ez dion hiztegigintza-lana delako, hain justu, goraipatzen du Mitxelenak; hor bilduak, entzunak edo irakurriak dira.

Behin baino gehiagotan[199], Larramendi baino geroagoko lanak auzipetzeko neurgailu hartzen du gainera eraskina. Eta hain erabakigarri hartu, ezen beste geroagoko euskalarien lanetan, Larramendiren eraskinekoak jasoz gero, lan aztergaiarentzako mesedegarri, baina hiztegitikakoak baliatu badituzte, lanaren kaltetan egina epaitzen duen.

Halarik ere, badirudi izen onez hornitzeko arrazoiak ez duela Mitxelena erabat gogoasetzen, ez baitu Betegarrian bilduriko lekukotasuna, aipaturiko hiru iturrietan beti egiaztatua ikusten:

---

[198]Orol, halaz ere, Altunaren (1992b) lanaz, Larramendi euskaldun berritutzat joz eta ematen dituen erakusgarriez; beherago aldatuko dugun bezala, Larramendiren "txukun-jatortasuna" lausoxe uzten bide dute.

[199](1961a).

hitz mordo ugaria geldítzen zaigu eta ez dira noski mordo horretan gehientsuak Larramendik XVIIIgarren mendean entzunak. (1961a:55)

De estas tres fuentes [Axular, *RS*, Landucci] procede la mayoría del *Suplemento*, pero queda todavía un residuo considerable, procedente, según Larramendi, de la lengua hablada o de otros libros. Pero esto puede deberse en parte a la falta de acierto de mi investigación y otros podrán corregir su deficiencia. (1984a:44)

Hau dela eta, astiroago ikuskatu beharra azpimarkatzen du.

Iturburu aratz eta ezagunik gabeko horien artean ba omen daude, batetik, sortaldeko eltea dutenak eta bestetik, Bizkai-aldekoak:

Lasai gaudezke gainera irudikorren batek asmatutzat eduki ditzakeen Larramendiren *Suplemento*-ko hitzei buruz. Zenbaitek, egia esan, badu halako egitura miragarri bat[200]. (1961a:59).

Baina hauek justifikatzen ditu *RS*-eko[201] beste harrigarrien bidetik, hiztegigintzan ustegabekoak, maiz gertatzen baitira.

Hauen ondoan, berriz:

Ez dugu ahazturik eduki behar, gainera, badirela horiekin batera euskal usai hobea darlotenak, hots, adi-errazago zaizkigun hitz elkartuak edo erakarriak. (1961a:60).

eta ematen dituen adibideen artean, *jocaquidea, lanarteac* biltzen ditu Mitxelenak.

Usain euskaldunago duten horiek dira, ordea, Mitxelenak Eraskinari nabarmenduriko bertutea --asmaturik ez paratzea, alegia--, auzitan jar dezaketenak, oin-oharraren bitartez papereratzen duen susmoak aditzera ematen duen bezala:

Zalantzan geldítzen gara[202], guztiaz ere, *-kuntza* atzizkiaren bitartez agertzen den hitz-sail

---

[200] "*comèr demasiado*", chiflatzea, esate baterako, sartzen du Mitxelenak zerrenda horretan. P. Urteren hiztegian, *xiflatzaile* irakur daiteke, 'grand mangeur', 'comilón' adierekin.

[201] "Por fortuna, Larramendi alcanzó a ver otro [*RS*-en alea] que aprovechó en el "Suplemento" que cierra el segundo tomo de su *Diccionario Trilingüe* (S.S., 1745) y de aquél proceden, por más que no siempre estemos en condiciones de probarlo, bastantes de las voces que incluyó". (1965b, *LH*:271).

[202] Jat. *gera*.

mardulegiarekin: «atrevimiento, *azarcunza*», «caso, sucesso, *guertacuntza*»[203], «mejoras, *obecuntzac*», «passeo, *ibilcuntza*», «preferencia, *lencuntza*», «suficiencia, *asquicuntza*», «tormento, *toliacuntza*». Iturrietan ez dut *azarkuntza* baizik aurkitzen[204] (RS 165). Axularren *midicuntça*[205] besterik balta. (1961a:54).

Larramendik zein diren garbi zehazten ez dituen hitz berezituak eratzeko duen eskubideaz -Azkaratek (1992) zioen bezala-, bestelakoetara, hizkuntza usukoetara, hedatzeaz gain, galde daitekeena da, ea Eraskineko osagaietaraino ere zabaldu ote duen andoaindarrak, hau da, hiztegian jokatu bezala, aipatzen dituen paperezko eta entzunezko iturriei bere adimenetikakoak ere ez ote dizkion erantsi.

Uste dugu Mitxelenak ere zalantzaren lainopean uzten duela eraskineko hitzen iturburuaren aitatasun-auzia.

Mitxelenak loriatu duen Eraskinaren alderdi txarrak, berriz, presak eraginda frogak zuzentzeko egokierarik ezean, honenbestez, inprenta-hutsetan, batipat eta, jatorrizko testuetako oker adituetan[206] dute oinarria[207]:

> La segunda de las fuentes confesadas es Axular, de quien procede efectivamente buena parte de las palabras, bien o mal entendidas, del Suplemento. (1984a:43).

Baina edozein kasutan, Larramendi ("beti hobenduntzat" jo ohi dena[208]) oso irizpide

---

[203] P. Urteren hiztegian, *gertaki* da adiera hau duen Larramendiren hitzaren ordaina.
Bestetik, bidenabar esan daiteke, Larramendiren *-kuntza* atzizkidun horiek ez dutela berdinik dontbandarraren lanean eta, oro har, axaleko begiraldi batean, bederen, oso gutxitan (*hizkuntza*) baliatzen duela atzizki hau.

[204] Jat. *arkitzen*.

[205] Larramendiren Eraskinean: "Medicamento, *midicuntza*", irakurtzen da.
Villasantek plazaraturiko Axularren hiztegian, "**midikuntza**: tratamiento, medicamento/médication".

[206] Honen adibiderik ez da falta. *Suplementoaren hutsak* atalitxoan:
"Aguar, *urtsatu (-tzutu-*ren ordez, cf. Ax. 406, Pouv. *Urtçutcea*, tremper dans l'eau.; edo Escondrijo, *estalguna (-gune-*ren ordez, cf. Ax. 4:*Ezta harentçat golccoric, çocconic eta ez estalgunerik*)". (1961a:64).

[207] (1961a:56).

[208] En nuestro caso basta con acudir al texto para convencerse de que la versión de Azkue es arbitraria. Los dos refranes, números 196 y 197, son *Belontac berea daroa* ('El rollo, lo suyo lleva') y *Belorita ezcur ona esquequi asco baleuco* ('El rollo buen frutal, si tuviese muchos colgajos'). Que no se trata de un árbol, sino de algo que puede sostener cosas suspendidas a la manera de las ramas de un árbol, lo vio ya Larramendi, cuando en el "Suplemento" se limitó a copiar: "Rollo, *belonita*". En efecto, en el cuerpo de su *Diccionario*, "rollo" es 'rollo, picota u horca', es decir, 'la picota ù horca hecha de piedra, y en forma redonda ù de coluna', que decía Covarrubias". (1965b, *LH*:271).
"'Judu aragui-cor guciac ciran haren etsaiac". Hitz honek ongi ematen du aditzera idazle txukun baten, batez ere hideak zabaltzen ari denaren hizkuntzan topa daitekeen artifizial kutsua: Ubillosen errua larriagoa da, gure betiko hobendunak, Larramendik, bestela jarri zuelako. Honek hiztegian, "aragikoi" sartu zuen, behar bezala". (1981c:157).

fidagarrikoa iruditzen zaio Mitxelenari[209], nahiz batzuetan berak ongi jasoak gero besteren eskuz itxuraldatu --edo itxuratxartu- diren.

Beraz, hiru zati arras berezi dituen *Diccionario Trilingüe* entzutetsuko atalik gailenena da hirugarren hau Mitxelenaren ustez; Larramendik hau besterik egin izan ez balu ere, andoaindarraren ospea eta omena oso goian utziko zukeena:

> ... zorretan baikeundeke harekin [Larramendirekin] hainbeste aldiz ahotan hartu dudan *Suplemento*-a besterik utzi ez baligu ere. (1961a:61).

-kor / *-koi* atzizkiak, hain zuzen ere, aztertu berri ditu besteak beste, Azkaratek (1992:211). Honakoa antzeman dio Larramendiren jokamoldeari:

"Azkenik, [Larramendik] nahasian aipatzen ditu *-kor* eta *-koi*, adizoinari erantsirik joera, erraztasuna, zaletasuna, adierazteko:

v.g. de *ibili* andar *ibilcorra* andariego; de *iragan*, *irago* passar *iragancorra*, facil de pasarse, o transitorio; de *eman*, o *emon* dar *emacorra* facil, y dispuesto a darse. y tambien *ibilcoi*, *iragancoi*, *emacoi*. Esta formacion se estiende tambien a varios nombres, *barrencoi*, intrinseco, interior, y retirado; *campocoi*, extrinseco, superficial, y amigo de bulla (267-268)".

[209](1955d, 1956d, 1962b).

2.7. LARRAMENDI IDAZLEA

Larramendi idazle den bezainbatean azterpuntuan hartzea ere egoki bide da, orain arteko zenbait auzik bai baitute ikuskizunik alderdi honekin.

Larramendi bertsogilea ez dela Mitxelenaren gogobetekoa, gai honezazko adierazpideak ikustatzen hasi orduko ageri-agerian suma daitekeena da. Hona erakusgarria[210]:

> dakigun loraldia eman zion jende ikasi samalda, latinezko bertsoak (esate baterako) hutsik gabe neurtzen zekiena, uhun urtez geroago Larramendik neurtitz zuzenik sortzen ez zuelarik. (1981b:85).

> Lapurtar hauen aldean, Larramendi ez zen hurrengo mendean horren kontuz eta taxuz ibiltzen latin neurkeran. Belarrira edo begira, oder bazitzaion ongi zegoen neurtitza, latin silaben luze-laburra gora-behera: *ei quod tentabam dicere versus erat*, esan zezakeen andoaindarrak ere[211]. (1981d:118).

> Hitz neurtuz egin zituenez hobe genuke beste batean mintza. Inoiz esaten zenez, berez behar Billabonako. (1983c:97).

Larramendik ez du Mitxelenarentzat, bada, neurtitzetako jaidura ez trebetasun apartekorik, ez latinez ari denean, antza –honetan, aurreko mendeko lapurtarrengandik bereziz–, ez bestela ari denean ere.

Halarik ere, *Gavon sariac*en egilea nor zen erabakikizun zegoela eta, honen inguruan adieraziriko zenbait ideiak, bestela pentsatzeko, edo gutxienez Larramendi bertsogilea erabat ez arbuiatzeko bidea eman dezaketela dirudi:

---

[210] Jasoriko aipuez gain, bada besterik: 1956a, 1958a, 1959a, 1960b... esate baterako.

"Ya hemos aludido a la ineptitud del padre Larramendi como poeta, salvo en alguna pieza ligera. Tuvo un digno discípulo en el jesuita P. Bernardo Recio, castellano que aprendió el vascuence, a quien se imputa una poesía a la muerte de Felipe V, uno de los más grandes disparates en verso que se haya escrito en cualquier lengua". (1958a:367).

Eta (1960b:116) lanean nonakoa jarraitzen zaio arestiko pasarte horri: "... y digno hermano de la elegía del padre Alesón a la muerte de Felipe IV".

Honetan ere Larramendiren eraginaz hitzegin al daiteke?

[211] Harrigarri xamarra gertatzen da ezinbestean latinez ongi jakin behar zuen Larramendik halakorik egitea. Altunak (1992a:11) dioenaren arabera, behin bederen erruduna ez da Larramendi:

"Salo handi edo "Actus maior" horri nagokiola puntu hutsal bat argitu nahi nuke. Amaieran Larramendik erantsi zion bertsoari buruz honela dio Tellechea: "Es una rara muestra poética de Larramendi que refleja su posesión de la lengua latina, aunque la perspicacia de L. Michelena descubra algún pie cojo en su último verso" (*Autob.*, Intr., XXV). Bai, azken bertsoa hanka motza da, baina garbi dago ez dela Larramendiren erruz edo gutxi jakitez, ezpada bertso horiek orijinaletik liburura bitartean egin duten bideko lagunen baten ezaxolaz, ezen bertsoaren "potoa" bezain nabaria da berorren jatorrizko molde zuzena. Larramendik ez zuen bertso hori horrela ondu -"...edidique melos"-, baizik honela: "Audit hoc orbis, edidit atque melos". Egingo nuke lepoa. Eta gero okertu zion, auskalo nork".

Barren-aldeari bagagozkio, lehenago joko du begiz edozeinek Larramendi egiletzat Peñafloridia baino, balta Alta Meagher eta orduko beste edozein jesuita ezagun baino ere. Peñafloridia, *El borracho burlado*-n ikus dezakegunez, euskaldun garbia zen, hizkuntza sendo, ugari eta betearen jabea; idazle gallenaren eta egiazko poetaren maitara heltzeko, haatik, gehiegizko falta zitzaion. Zirla sartzen eta adarra jotzen ere, ez zen gure kondea eliz-gizonaren pareko mutila. (1961c:215)[212].

Peñafloridari bertsoen altasuna ukatzeko eta Larramendiri emateko arrazoiak, kontearen idazle-poeta graduan eta bertsoen izakera bihurri eta jolasberan ikusten bide ditu Mitxelenak. Hau dela eta, hausnar zitekeen Mitxelenarentzat Larramendi idazle gailen eta egiazko poeta izan zitekeela. Ezaugarri honi, Larramendiren isuri adarjotzailea gaineratuz, idazlanaren egiletzaren pisua, jesulagunaren aldera makurtuko litzateke.

Alabaina, Larramendigandikako bertsozko lekukotasunek, ez dute bide erosoegirik eskaintzen arestikoen ahaidetzat edukitzeko:

Zorlxarrez, lepoa egingo bagenuke ere horrelakoxe jolas-bertsoak onduko zituela Larramendik, inoiz ondu baziluen, ez daukagu bere eskutikako besterik, dakidanez, hoekin erkatzeko eta berdintzeko[213]. Bertsotan hasi zenean, edo behintzat bertsoak argitara zituenean, adar epikoa[214] jo zuen gehienbat. Eta ikus dezagun nola orrua eragin zion adarrari poesiaren Fray Gerundio[215] honek. (1961c:216).

Azpimarra daiteke "adarra jo" esapidearen esanahi-aniztasunaz baliatzen dela

---

[212]Halaz ere, 1960ko *Historia de la literatura vasca*n, Muniberen alde agertzen zuen bere burua:

"Además, según una antigua tradición que parece a todas luces bien fundada, es el mismo Munibe quien se ocultó bajo el extraño pseudónimo de sor María de la Misericordia al publicar los *Gavon-Sariac* o villancicos que iban a cantarse en la iglesia de Azcoitia el año 1762. Son una inspirada parafrasis en jugoso lenguaje de la égloga cuarta de Virgilio, de un bucolismo encantador". (1960b:105)

Antzezlanari antzematen dion taxuaz beherago mintzatuko gara.

[213]Hiztegiaren sarreran, Mayans-i adarra (epikoa ez, ordea) jotzeko bitartekaritzkook, ezin hobeko erakusgarriñotzat jo?:

"Chori-buru, puztua
Ero, garbi, buztan, latz
Nondic, hiri, ciquiñ, orri
Becaitz, aldia, eldu zac?
Eztec, berdiñ, iguerrico,
Hitz oy-etan, cer, datzan". (*DT* CXCIX).

[214]"Badirudi nolazpait ere gerokoen aitzindari direla [Hiribarrenen neurtitzak], 1853 ean adar epikoa jotzen saiatu zenean, alegia, ondu zituenena". (1983d:121).

[215]Beste lan batean ere, Mitxelenak Fray Gerundiorekin erkatzen du:

"Quien se complazca en el espectáculo de las aberraciones del entendimiento humano encontrará muchos otros ejemplos en el *Diccionario Trilingüe*, ejemplos que, como los sermones de Fray Gerundio, "pueden acometer en sus mismas trincheras a la melancolía"". (1959d, *SHLV*:905).

"Larramendik berezkoa zuen ironi puntu horren adierazle gisa, beste bi kasu: behin, sarritan bezala saltsaren batetan sartuik, Umieta eta Hernaniren arteko liskar batean hain zuzen, azaldu omen ziren bertso satiriko batzuk Fray Gerundio de Maquillaga ezizenez, eta beste behin, Eulogio de Puztaburu sinaduraz; ez zuen gutxitan jolastu ironiaz hitzekin...". (Lasa 1991:43).

Mitxelena Larramendiren bertsoak –eta nortasuna– nolakoak diren begien aurrean jartzeko.

Esapideak ohiko hizkuntza arruntean dituen konnotazioei (jesulaguna eginkizun honetan aparta zela esan beharrik ez), *epiko* izenondoaz laguntzeak sortzen dituenak erantsi behar zaizkie. *Adar jotze* hori *epikoa* da, neurriz sekulakoa delako eta, *epikoa* da batipat historiari lotzen zaiolako.

Honek erakusten du, Mitxelenarentzat Larramendiren izakerak bere lanak oro zipriztintzen dituela batetik eta zein gai hartu zituen andoaindarrak bertsotan hasi zenean, bestetik.

Hamar urte geroago, oraindik ere erabakitzeke dago bertsoen gurasotasuna:

> Gutxi idatzi zuen euskaraz[216], besteri eragin baino gutxiago, baina urre gorriaren pareko dira utzi zizkigun orrialdeak: are gehiago, *Gabon-sariak* bereak baldin badira. (1966a:69).

Hemen esanaren arabera, direlako bertsook, goitartzat daukan Larramendi idazlearen maila goragotu besterik ez dute egiten.

Auzia azkenik, azkoitiarraren alde erabakitzen badu ere, Peñafloridari aitatasuna alboratzeko errezeloa bizten dion arrazoietariko beste honakoa adierazten du Mitxelenak: "Argituen" seriotasunari, antza, nekez baino ez zaio josten bertsoen gatza eta ozpina. Umore-mintza, berriz, andoaindarrari bete-betean egokituko litzaioke, lehen jaso bezala:

> Pero, si no en lo científico y técnico, el vascuence halló un lugar dentro de las actividades artísticas tan del gusto de la Sociedad. Peñaflorida, compositor asiduo, escribió una ópera cómica *El borracho burlado*, bilingüe por razones circunstanciales. También son suyos los *Gavon-Sariac*, 1762[217], que debieron de cantarse en la parroquia de Azcoitia: hoy se sabe con certeza que es el conde quien se oculta bajo el nombre de Sor María de la Misericordia. Esta paráfrasis jocosa de la égloga cuarta de Virgilio[218] muestra naturalidad, gracia y humor en un grado inesperado

---

[216] Jat. *euskeraz*.

[217] Hau dela eta, lehen idazle larramendizale laikoa al genuke Munibe jauna?

[218] Bi lanon arteko antza Mitxelenak zertan sustraitzen duen agerira ekar dezagun, biotariko ondoko pasarteak aldatuko ditugu.

Hona lehenik, Polliori eskainiriko IV. egloga den irudizko iturburukoaren argumentua Sixtus Colombo paratzaileak laburbilduta:

"Ecloga haec non est bucolicum carmen, sed potius encomium in C. Asinium Pollionem, cuius laudes poeta in III Ecloga extulit. Pollio consul fuit anno U. c. 714, quo anno, composita pace cum Sex. Pompeio, res prospere cesserunt romanae civitati, cibariis in urbem confluentibus, quorum magna propter bellum penuria fuerat. Cum eo anno filius Pollioni consuli natus esset, poeta genethliacon eius versibus ornare instituit, in eam aetatem conferens quae Cumana Sibylla de instaurando aureo saeculo et novo rerum ordine ineundo cecinisse dicebatur". (*P. Vergilii maronis opera. Recensuit, commentariolo et indice instruxit Sixtus Colombo*, 1964, Torino, Società Editrice Internazionale, 34. or.).

Hemen, berriz, euskal neurtitzen euskarritzat har daitezkeen laterazkoak:

"Ultima Cumaei venit iam carminis aetas; / magnus ab integro saeclorum nascitur ordo. / iam redit et Virgo, redeunt Saturnia regna; / iam nova progenies caelo demittitur alto. / tu modo nascenti puero, quo ferrea primum / desinet ac toto surget gens aurea mundo, / casta fave Lucina; tuus iam regnat Apollo. / Teque adeo decus hoc

en un grave caballero de la Ilustración. (1987b:99).

Ikusiagatik, beraz, egiletza Larramendiri ondoratzeko lituzkeen arrazoietatik, bestelako jakingarririk erdiesten ahal da. Mitxelenak, Manuel Garagorri gizonaren umorea eta Larramendi idazlearen gailentasuna –areago, egiazko poetaren maila– agerian uzten ditu.

Umoreari dagokionez, Larramendi hitz lauz mintzatzen denean ere, ez omen zaio jaidura honen agergarririk falta. Idazle gailen izateaz den bezanbatean –segituan ikusiko den bezala–, ez dago debeku larririk Larramendi bertso horien ontzailetzat jotzeko. Eragozpenak, bertsooi parean jar dakizkiekeen Larramendirengandikako gisa beretsukoen ezak sortzen ditu.

Honengatik guztiagatik, gure ustez eta Mitxelenaren hango eta hemengo iritzietan oin hartuz, *Gavon sariac*en egiletza Xabier Muniberi aitortzeak, aurretiaz adieraziak zituen iritziak aldatzera edo zorroztera makurtu behar zukeen Mitxelena, aitortze horrek konteari literaturaren maila eta balioa goititzea baitakarkio.

Larramendik hitz lauz idatziak, erdaraz zein euskaraz, dira besteren gainetik nabarmendu beharrak.

Euskaraz idatziriko testuei dagokienez, aipurik zaharrenetarik agertzen du Mitxelenak bere Larramendiganako miresmena.

Bertsoen guraso-auzian jasoetarik[219] ondoriozta daitekeenaz gain, han eta hemen ez du errenteriarrak isilpean gordetzen bere Larramendi idazleazko ikuspegi baikorra:

> Fué un escritor fluído y brillante tanto en vascuence como en castellano. (1958a:363)
>
> Si es cierto además que esta correspondencia, al menos en parte, está escrita en vascuence, se puede asegurar de antemano que Larramendi ocupará entre los prosistas en lengua vasca el lugar de honor que sólo la brevedad de las muestras que hasta ahora conocemos, y no su calidad, le han negado. (1959c:441).

---

aevi, te consule inibit, / Pollio, et incipient magni procedere menses, / te duce, si qua manent sceleris vestigia nostri, / irrita perpetua solvent formidine terras (...)

ipsae lacte domum referent distenta capellae / ubera, nec magnos metuent armenta leones (...)

Hinc, ubi iam firmata virum te fecerit aetas, / cedet et ipse mari vector, nec nautica pinus / mutabit merces. omnis feret omnia tellus.

Eta, azkenik, euskal lanetik begiz joriko zenbait pasarte, Mitxelenaren iruzkinen irozgarri begiantzen zaizkigunak:

"Ezagun da munduak / Jesus jaio dena; / Ain dago mudatua, / Ez dirudi lena; / Len guzia zan pena, / Ta oraiñ atsegiñ, gusto, / Algara, parreak.

Gorroto, errieria, / Auziak ta gerra, / Gaitzak, gose, gezur ta / Intentzio okerrak / Juanik, ia ez dago / Ezerren bildurrik, / Ta ala dago mundua / Zeru bat egiñik.

Abogadu, eskribau / Eta merioak, / Mediku, barbero ta / Botikarioak, / Ez dira bear; ta argatik / Izango da sarri / Hipokrates gaxoa / Saguen janari. (...)

Ez da onezkero esango / Gezurrik batere, / Egia esango dute / Dendariak ere. / Juan da emendik tranpa / Ta pede gaistoa, / Ia ur bage saltzen da / Tabernan ardoa. (...)

Otsoa ta ardia / Zelai zabalean / Sarri ekusten dira / Biak jolasean; / Alberdanian txita / Aizanarekiñ, / Portugesa laztanga / Gastelaubarekiñ.

Auxen bai dala egiaz / Denbora urrezkoa, / Ta ez len koplari zarrak / Erausitakoa; / Oraiñ aien amesak / Egia sorturik, / Ekusten ari gera / Pozez zoraturik". (*Teatro zaarra. Gabonetako ikuskizuna; Gabon-sariak; El borracho burlado*, 1965, Donostia, Auspoa, 73-76. or.).

[219](1956, 1966a).

A pesar de eso, no escribió mucho en vascuence, aparte de lo que diseminó en las obras en romance, ya para confusión de sus enemigos ya para expresar conceptos que podían parecer atrevidos a oídos que no fueran los de sus paisanos. Pero lo poco que escribió -salvo los versos, que es mejor no recordar- es de primera calidad. Sabía y usaba la lengua a la perfección[220], con una ligera inclinación al énfasis y a buscar la abundancia en las voces y la rotundidad en los períodos. Estas pocas páginas no desmerecen al lado de los mejores prosistas en lengua vasca. (1959d, *SHLV*:908,9).

... lo que nos ha llegado de lo que escribió en vascuence hace que tengamos que deplorar su escasez. Su prólogo al *Jesusen Biotzaren Devocioa* de Mendiburu debe figurar por méritos propios en cualquier antología de prosa vasca y su panegírico de San Agustín con su exuberancia, sus *calembours* y sus paradojas es un magnífico aparato de pirotecnia verbal quemado brillantemente desde el púlpito en un día de gran solemnidad. (1960b:98).

Halarik ere, aho betean goraipa dezakegu idazle trebe den aldetik, bai euskaraz laburzki, bai erdaraz ausarki. (1983a:60).

Zenbaitek esan dezake eta zenbaitek esango du euskal idazle kaxkarra izan genuela andoaindarra, euskara la ixil-gordean baizik erabili ez zuena, testu zaharrei Telletxeak gehitu dizkienak haintzakotzat [sic] hartzen baditugu ere. (1983c:95).

Euskal idazle txukun-jatorra, goi gradukoa, gailena begitantzen zaio Mitxelenari Larramendi, esana doan bezala, bere burutikako asmakaririk ez erabiltzeari zor zaiola, hein batean, bederen, euskal testuei darien jatortasuna[221].

Aipuotan deitoratzen dena, berriz, euskal testuen urritasuna da, Mitxelenak azken aipuan besteren (*zenbaitek*) ahotan jartzen duenaren arabera, kopuruz urri idazteak idazmailan ere ezinbestean eskaxa (*kaxkarra*) izatea bailekarkeen.

Urritasun honek gure ustez, hari-mutur bat baino gehiago du.

Batetik, begira dakioke aurkitu gabeko gutunen auziari.

Badirudi Mitxelenak *brevedad/calidad* bikotearen bitartez adierazten duena honako zerbait dela: eskuera dagoen Larramendiren urria ona bada, pentsatzekoa da idatzi omen duena baina oraingoz ikusterik ez dagoena aurkitzean, areagotu besterik ez dela egingo Larramendi prosalariaren maila. Ugaltzeak mesede besterik ez dio ekarriko.

Honenbestez, Mitxelenak ez bide du ustegabekorik espero.

Beste alde batetik, berriz, Larramendigandik, Mendiburugandik eta Kardaberazengandik heldu zaizkigun testu-motak ikusiz, oharteman daiteke predikuak direla nagusiki andoaindarrarengandik gureganainotuak; beste biengandik, aitzitik, ez dago gisa horretako arrastorik eta pentsa daiteke ez zituztela sermolak idazten.

Mitxelenak ondorioztatu gabekorik ondorioztatzerik badago, zilegi ote da pentsatzea Larramendik bere buruan konfiantza gutxiago zuelako predikuak **idatzi** behar zituen bitartean, beste biek ez zutela halako "makuluaren" premiarik sumatzen?

---

[220] Lehen ere esan dugu Altunak (1992b) atzeman duela arrasto bat baino gehiago hau zorroztu beharra eskatzen bide duena.

[221] Ez gara berriz hitz asmaluen erabilesparruaz mintzatuko.

Larramendiren euskal testuetan "herri euskara", asmakaririk gabea... irakurtzen dela diote, hataber, Villasantek (1979$_2$:139) edo Sagarnak (1982), bestek beste.

Honek Altunaren tesira bulkatuko gintuzke: Larramendi ez zen esan ohi den bezain euskal idazle txukun eta jatorra, euskaraz idazteak lanak ematen zizkion.

Nolanahi dela ere, Mitxelenak ez du adierazi berri dugunaz hitz-erdi esaten.

Hirugarren hari-muturrari helduz, uste dugu lehengo urritasunak ere baduela, apika, kantitate hutsezko baina areagoko auziekin zerikusirik; zehazkiago esan, lehen mintzagai izan diren Larramendiren xede-helburuekin[222].

Behin eta birritan ahotan hartzen da Larramendi "dotrinagilea", Larramendi mamitzaileari gaineratzen zaiola eta halaxe egiten du Mitxelenak ere:

> "Dotrinaren" bidez ahalegindu omen zen Larramendi, Kardaberazek arestian esan digunez[223], euskararen inguruan, euskaraz ez bazen ere, mintzatzen. (1983c:97).

Mitxelenak, gure ustez, hitz-jokoa egiten du Kardaberazen hitzak lehengai hartuz. Elizgizona kexu da Larramendik euskararen gainean bai baina euskaraz idatzi ez duelako eta desio du ariketan erakus dezan, liburuak, sermoiak eta dotrinak euskaraz mami ditzan.

Mitxelenak azken dotrina horiek hartzen ditu, gure ustez, Kardaberazen kexuari beste itxura bat emateko: "dotrinaren" bidez, bidea erakutsiz baina berak bide hori apenas urratuta aritu omen da Larramendi.

Aurrerago joz, Mitxelenak ahotan hartzen ditu Larramendiren lanabes-dotrinak. Hauek erdaraz eskaini izatea arrazoi bati baino gehiagori zor zaiola dio.

Lehenik eta behin, kontutan hartu beharrekoa da, lehen arrazoitu den Mitxelenak adieraziriko harakoa:

---

[222] Azurmendik, apologigintza erdaraz egin beste erremediorik ez du ikusten, erasotzaileek ulertuko badute. Honenbestez, Larramendiren mota honetako lanen argibidea ere, hari horretan uler daitekeela dirudi.

"Apologisten preokupazioak eta enpeinua benetan sintomatiko dira. Irakurleria espainola dute begitan, hau da, beren noblezian dudatzen eta beren kulturan sinesten ez zuena. Hau da: parean berdintzat hartu nahi ez zituen gaztelaua. Lizentziatu Poza, Madariagak, Zaldibiak, Garibayk, Etxabek, denek enpeinu amorratu bera eta probabide berberak. Zein antzinakoak eta nahastu gabeak diren euskaldunak eta *quán elegante y antiguo es este lenguaje*, hots, *Lengua Vizcayna* (...) Hau da, erdaldunen kriterio berberak darabiltzate: antzinate, odol-garbitasun, inoiz menperatu eta inorekin nahastu gabeko, etc". (Azurmendi 1992:323).

Nolanahi dela ere, baztertzekoa ez da Axularrengan aurki daitekeela euskara, hizkuntza garbiaren mitoa, Altunak (1988d) agerian utzi zuen bezala:

"Ez eta aztitut beti-ere Eskritura Saindu eta Doktoren erranak ere itzez-itz euskarara bihurtzen; zeren, Euskara eta bertze izkuntzak diferent baitira. Ordea, ezta handik segitzen gaixtoagoa dela Euskara. Aitzitik ba'dirudi, ezen, bertze izkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla; baiña Euskara bere lehenbiziko asteen eta garbitasunean dagola". (*Gero* 1954$_4$:XLII).

[223] Harako behin eta birritan aipaturiko Kardaberazen pasarte sonatua:

"V. Rev. que ha escrito a la maravilla y tantos libros sobre el bascuence y del bascuence –erantzun zion behin batean Kardaberazek–, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá hubiera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos hubiera hecho a todos otro favor mayor y nos hubiera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc." (1983c:96) lanean jasoa.

Aipu honetara itzuliko gara Kardaberazez mintzatzean.

> Bazekien, noski, goregi zegoela orduko entzule-irakurleentzat; bazekien, eta horrexegatik behar bada hain guttitan eman zion euskarari amore. Hor gelditu zen, beraz, marka ahal zezanak, ahal zitekeen momentuan, bertan eta gaindi zezan. (1983c:97).

Hau da, Larramendik bere egitamua eta hau burutzeko bitartekoak eskaintzean inguruko eta garaiko giroak ditu gogoan eta bere buruari eginbide zehatz bat ezartzen dio, dituen jaidurak?, ahalmenak? aurrean izanik.

Garaian garaikoak kokatze honetan besterik ere bada gogoan hartu beharra. Larramendiren mintzabide-aukera[224] bere betean ulertu ahal izateko, aurrean behar da izan Europan zebiltzan haizeek nondik jotzen zuten.

Izan ere, XVIII. mendea ez da izan Mitxelenarentzat, herri-hizkuntzek irmoki aurrera jotzeko aldirik egokiena, nazioartean onarturiko araneko hizkuntzaz mamitzen baitituzte jakitegaiak ordukoek[225].

Euskal Herrian, urrutirago gabe, jakiteen aurreranahian buru-belarri jardun zuten Zalduntxoak, Bergarako *Real Seminario*konk, ez dira honetan salbuespen:

> Nor bere garaiko ume denez, berrizale haiek [Azkoitiko Zalduntxoak, Bergarako Erret Mintegikoak] iraganaldiari josiak zeuden eta ez zuten lotura hori hautsiko eredutzat hartu zituzten arrotzek besterik

---

[224] Azkuek honela ikusten zuen zioa:

"Lafamendik euskerari bizia emateko lan luzeak egin zituelarik, geien geienak erderazkoak izan ziran, euskeraz alako lanak egitea orain neketsua bada, orduan gaitzagoa ta zailagoa baitzan. Euskerazko lanik gutxi ta laburak utzi zizkigun: *Arta Asteteren kristau Doktriña* [Ikus Altuna (1982)], *San Agustinen panegirikua (doanditza* eman zion berak izentzat), len aipatu diran zirikadatxo batzuk eta Arta Sebastian Mendiburuni 1747 bidali zion eskutitz luze edefa". (Azkue 1934:11).

[225] Errenazimentu garaitik, jakitegaiak ere hizkuntza herrikoietan landu beharraren aldeko ahotsak entzun badaitezke ere, Azurmendik (1992:331hh) jasotzen duenez. Ideia honen aldeztaile sutsuenetarikotzat dauka, hainbat arazo izan zituen XVI. mendeko Fray Luis de León. Hona, Azurmendik papereratzen dituen gaztelauaren hitzak. Luzesko joko badu ere, uste dugu beraren adierazgarritasunak zilegiztatzen duela:

"En lo que toca a la lengua no hay diferencia, ni son unas lenguas para decir unas cosas, sino en todas hay lugar para todas; y esto mismo de que tratamos no se escribiera como debiera por solo escribirse en latín, si se escribiera vilmente, que las palabras no son graves por ser latinas, sino por ser dichas como a la gravedad le conviene, o sean españolas, o sean francesas; que si porque a nuestra lengua la llamamos vulgar se imaginan que no podemos escribir en ella sino vulgar y bajamente, es grandísimo error, que Platón escribió no vulgarmente ni cosas vulgares en su lengua vulgar, y no menores ni menos levantadamente las escribió Cicerón en la lengua que era vulgar en su tiempo; y por decir lo que es más vecino a mi hecho, los santos Basilio y Crisóstomo, y Gregorio Nacianceno y Cirilo, con toda la antigüedad de los griegos, en su lengua materna griega, que, cuando ellos vivían, la mamaban con la leche los niños y la hablaban en la plaza las vendedoras, escribieron los misterios más divinos de nuestra fe, y no dudaron de poner en su lengua lo que sabían que no había de ser entendido por muchos de los que entendían la lengua".

Eta hona, berriz, Mitxelenaren honezazko iritzia:

"Mendebalde osoan kultur alderdi batzu latinaren mendean egon zirela luzaz. Eta Fray Luis de León-ek *De los nombres de Cristo* idatzi zuenean zergatik ari zen herri hizkeraz adierazi behar izan zuen arazin solasean, eta Descartes-ek bere *Discours de la méthode* frantsesez idatzi zuenean ere eraberritze bat izan zen, gainerako obra gehienak latin hutsez ondu baitzituen". (1972b5:113).

irakasten ez bazieten[226]. Hor momentu batez geldituz bagara, luzaro gabe hautemango[227] dugu ez zela XVIII. mendea, mende guztien bilduman, xoko bakoitzeko hizkuntzaz nahiz dialektuaz gehien arduratu izan dena. (1983a:57).

Ezta, Mitxelenak miresten duen Leibniz alemanduna ere, hizkuntzez arduratuagatik:

Leibniz hartu nahi dut mintzagai, jakintsua izateaz gain, langile amorratua eta munduan izen den adimendurik garbienetako baten jabea. Adimendu hori eta adimendu horri eragin zion lana zernahiz arritu zen eta zernahiri bide artean ez ezagunak zabaldu. Ez zeuzkan hizkuntzak ahaztutik eta, hizkuntza kontuan, jakin nahi zuen euskara non koka Europakoen artean.

Ez dirudi, bada, eredu makurra gogoan badugu, eta ez da betaurrekorik behar hori ikusteko, bere herriko hizkuntza, alemana, guztiz malte zuela. Eta guztiarekin ere, ia idatzi zuen guztia «erdaraz» idatzi zuen: aspaldidanik zetorren latinaz, Europako lehengo hizkuntza ikasiaz, eta Europaz[228] zenbait sailetan nagusitzen ari zen frantsesaz, berri bezain landuaz. (1983a:57).

Hau guztia ikusirik, Kardaberazen kexuaren arrazoiari muzin egin gabe, ulertzenago da, apika, Mitxelenaren ikuspegitik, Larramendik bere lan "dotrinemailea" nagusiki erdaraz egina izana. Horrela egitea, gainera, mesedegarriago ere izan zitekeen, Mitxelenak behin eta birritan papereratzen duen harako "erdaraz eginiko lanak euskararentzat onuragarri izan daitezkeelako" irizpidearen ildotik[229].

Haatik, azpimarkatu behar genuke agian nabari dela erdaraz ugari bezain euskaraz urri mintzatu zen Larramendik ondorio ageria izan baldin bazuen, eta euskarari zegokionez izan ere, erdarazkoak ez

---

[226] Zalduntxoen hizkuntzarekiko ardura bere zeregin nagusienetan arpatzen ez bada ere, gogoan hartzekoa da Mitxelenak arpatzen duen honakoa:

"La Sociedad, si se inclinaba por las ciencias, no despreciaba ni mucho menos las artes. No parece haberse propuesto expresamente el cultivo de la lengua vernácula, pero ésta entraba también dentro de sus variados intereses como lo muestra, entre otros ejemplos, el proyecto de un diccionario vasco". (1958a:364)

Mitxelenak berak atondu zuen hiztegi horren argitalpena: "El diccionario vasco proyectado por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y la Obra de José María Azpiazu. Instrucción para la formación de un diccionario de la lengua bascongada", *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa* 6, 1965, San Sebastián, 99-114.

Gure hiztegiaren sarreran adieraziko dugunez, alde askotatik da deigarria gorputzik izan ez zuen hiztegi honen egitamugileen adimendu argia.

[227] Jat. *autemango*.

[228] Honelaxe irakur daiteke lehen argitaraldian ere. Zuzen ote?

[229] Erdaraz idatziak euskararen mesederako izan daitezkeela esana du Mitxelenak pieza ugaritan. Honela, esate baterako:

"Oker dabil, nik uste, Kintana Astarloa eta Larramendiri hitza kentzen dienean erdaraz idatzi zuelako gehienetan. Horien (eta Bonaparte bezalako zenbait arrotzen) eragina euskal literaturan ezin-ukatuzkoa da". (1972b4:102), edo:

"Haatik, azpimarkatu behar genuke agian nabari dela erdaraz ugari bezain euskaraz urri mintzatu zen Larramendik ondorio ageria izan baldin bazuen, eta euskarari zegokionez izan ere, erdarazkoak ez direla nahi eta ez kaltegarri euskarazkoentzat. Probetxuzko ere gerta daitezke agi danean". (1982a:95).

Halaber, gogora daiteke ildo honetatik, "Begiermen" izengoitiaren atzekoekin izan zituenak Marxek bere lan handia euskaraz egin izan balu Marxek eta marxismoak izan zezaketen arrakastaz.

direla nahi eta ez kaltegarri euskarazkoentzat. Probetxuzko ere gerta daitezke, agi danean. (1983c:95,96).

habiendo escrito más que nada en castellano (y en un castellano que en su tiempo bien pudo haber sido considerado ejemplar), fue, a pesar de ello o acaso por ello mismo, el gran impulsor del cultivo escrito de la lengua vasca. (1987: 98).

Guztiarekin ere, oso aurrean eduki beharrekoa da Mitxelenaren ondokoa:

difícilmente hubieran aceptado ciegamente la autoridad del Padre Larramendi oradores y escritores de la talla de Mendiburu si aquél no hubiera mostrado con hechos su perfecto dominio práctico del idioma. (1960b:98).

Hemen jasoek Larramendi euskal idazle -eta ez epela gainera- ere badela azpimarratzen dute ala Mendiburuk eta bestek Larramendiren gidaritza teorikoa, andoaindarrak utziriko lanabesak bere euskararen ezaupide sakon eta erabatekoaren erakusgarriak aski izan zituztela pentsatu behar ote da?

Mitxelenaren testuko *hechos, dominio práctico* horiek, seguruenik lehen ustea onartzera makurtuko gintuzkete[230].

Erdaraz ere dotore idazten duela Larramendik azpimarkatzen du Mitxelenak:

Alta Larramendirena da guretzat harritzekoa, euskaraz hain jator egiten zuelarik ez ziokeen inork igerriko, izkribuz behintzat, erdaraz mintzatzean hemengoa zenik. "Holgárame yo muy mucho" baino okerragoak ere -jatorragoak, alegia- aise itzurtzen zitzaizkion. (1956a:78)[231]

Pero no es mejor[232] escritor en vascuence que en romance. A diferencia de lo que suele ocurrir con vascos contemporáneos cuyo dominio del vascuence es sin embargo precario, no rehula lo castizo cuando escribía en castellano. Tampoco era en él el casticismo, como en otros vascos, un postizo mal pegado, sino modo natural de expresión (...) Entre tantos escritores sin estilo, es siempre personal, agudo, variado en registros y rico en sorpresas (...) Su espontáneo buen humor, su *entrain*, el placer evidente que saca de la disputa, se comunican fácilmente al lector. Con todo el respeto a la preceptiva de la época, tenía, como el P. Isla, a quien tanto se asemeja en muchos aspectos, un fondo de humor, una viva y gozosa intuición de las incongruencias de la mente humana, que hubiera hecho de él un buen humorista en tiempos en que el humorismo se ha

---

[230] Halaz ere, gogoan izan behar da Mendiburu-Kardaberazek Larramendi eta honek euskararen alde eginiko lanak biziki goratzen badituzte ere, ez dutela inoiz haren **euskara** ahotan hartzen, aldiz Larramendik Mendibururena bai.

[231] "y don Pío, que lo repudió [*casticismo*-a] desde el primer momento y que, tal vez por eso mismo, contribuyó como muy pocos a la formación de la prosa literaria moderna en castellano (...) Así yo, que abomino del casticismo y del cliché tanto como Baroja...". (1974, *SHLV*:398).

Nola uler daiteke erdal *jatortasuna* arbuiatu eta Larramendik erdal lanetan mamitua halakoez hornitua degoela esanik, Larramendiren erdal prosa oso goi mailakotzat edukitzea? Honetan ere, *jatortasun*-gradu edo motez hitzegin behar, apika.

[232] Ez ote zetorren hobeto *Pero no es peor escritor...* esatea?

convertido en una técnica apreciada y racionalizada. (1959d, *SHLV*:909)[233].

Erdaraz idatzi zuen gehienbat, guztiok dakigunez, eta ausarki bezain ederki, gaztelaniaz batez ere. (1983c:95).

Larramendik euskaraz zein erdaraz euskaldunongan oso usu gertatu ohi ez dena, antza–, ederki idazten du, Mitxelenaren ustez, bi mintzaeren hizkuntz gaitasuna errotik barneratua duelako eta bere buruan eta hizkuntza horien osasunean segurtasun osoa duelako:

Larramendi, una muestra tan espléndida como otra cualquiera, se revistió sin violencia de la piel de escritor de castellano castizo (como antes, aunque con menor talento literario, Garibay y tantos otros), quizá por la misma seguridad que tenía en su posesión de la lengua materna. Era dueño de dos sistemas, muy diferentes entre sí, pero muy sólidos ambos (y no sólo en el reino etéreo de las estructuras), aunque no se le ocultara que la solidez momentánea del propio, cimentada en una masa compacta de hablantes, podía trocarse en debilidad con el correr de los años. Y ya es debilidad lo que hallan los escritores vascos del 98. (1974, *SHLV*:397)[234]

Larramendik trebetasun hau, gainera, idaztankeraren luzimenduari tarterik meharrena uzten dion teknika-prosan ere erakusten du:

Si en estos escritos [teknikoetan] encontramos además un discreto o elevado nivel literario, esto será la excepción, no la regla. Así son excepcionales entre nosotros Larramendi, con su *Corografía de Guipúzcoa*, Moguel o el mismo Iztueta, cuando se decide a bajar de su Arcadia ideal y a darnos información sobre detalles concretos de la vida guipuzcoana en la primera mitad del S XIX. (1973a, *SHLV*:404).

Baina erdal lanen artean, besteren gainetik burua agerian ateratzen duena *Corografía* da:

No hay tantas obras en prosa en el siglo XVIII español que le sean a este respecto claramente superiores. (1960b:95).

Gaztelaniaz, berriz, gezurrrik gabe, esan daiteke[235] gutxi idatzi zela XVIIIgarren mendean, besteak beste, haren *Corografía* bizi, txairo eta dotorearekin berdin daitekeenik[236]. (1966a:69).

---

[233]Gisa beretsuan irakur daiteke (1960b:94) lanean.

[234]Saihetsean uzten ditugu, erdaraz idatzi zuten 98ko "belaunaldiko" Euskal Herriko idazleez atera daitezkeen ondorioak.

[235]Jat. *diteke*.

[236]Jat. *ditekeanik*.

Eta honelakoa izanik ere, ez du beste andoaindarraren erdal lanek ez bezalako zoria izan, erdal literaturan merezimendu osoz beharko lukeen tokia ukatu baitzaio:

> Alde horretarik idazle bezala zor zitzaion zorra, egia esan, ez zaio oraindik aitortu, baina hori beharbada askok Barojari ukatu dionaren pareko arrazoiengatik gertatu da: erdara itsuski, tankera gaiztoan erabili omen zutelako. On da gu ere erdaraz mintzatzea, ahoz eta izkribuz; beheko mailatik goraxeago ezin igo gaitezkeelakoan, halaz guztiz. (1983c:95).

Mitxelenak ematen duen atzentzearen arrazoia, paradoxikoki, Larramendiren kontrakarrean ipini duen Barojari izena ukatzeko zenbaitek erabiliriko bera da, erdal "jatortasunari" amorru bizia zion Barojak eta "jatortasun" horrezaz baliatzen egoki dakien Larramendi –bata zein bestea Mitxelenaren gogokoak–, "askorentzat", nonbait, kanpoko zenbaitentzat makur berak joak dira.

Mitxelenak goraipatu duen *Corografía* erdal lanetan sintzakotzat ez hartzearen atzean ere, arrazoi bat baino gehiago egon daitekeela bistaratzen zaio Mitxelenari:

> En mi opinión, de no tratarse como se trata de la descripción de un pequeño país, y también acaso por la creencia de que las cosas vascas no pueden interesar más que a vascos o a especialistas en cosas vascas, la *Corografía* hubiera alcanzado mayor atención de los historiadores de la literatura. (1959d, *SHLV*:910)[237].

Ez ezagutzearen ondorioz galduan ateratzen dira, euskaldunak ez eze, baita erdaldunak ere, ez baitute XVIII. mendeko hitz lainozko literaturan halako aberastasun soberaskorik maila honetako lana saihesteko bide lasaiegirik ematen dienik:

> ... en realidad sorprende que en las historias de la literatura castellana de su siglo, en que tantas obras de erudición se reseñan, no se le conceda un lugar más destacado. (1958a:363).

> ... erdaldunek, diodan bidenabar, ez diote ezagutu ez aitortu gaztelaniak dion zorra baina ez ezagutzearekin ez dute deuseztatu. (1983a:60).

Ezagutza faltaren errudunak, Mitxelenarentzat, erdaldunak –hobeto esan– gaztelaniazko literaturaren historiolariak dira hein batean. Ez osorik, haatik, euskaldunak ere ez baitaude lehen harria botatzeko egokieran:

> Ezagunago ez baldin bada erbestean, ez dute agian arrotzek erru osoa. (1966a:69).

---

[237] Berdin (1960b:95).

2.8. LARRAMENDIREN ERAGINA[238]

Larramendik euskal letretan utzi zuen hatza eta oinatza ez da berehalakoan galduko. (1983a:60).

Larramendik utziriko hatzaz hitzegitean[239], Larramendi zuzpertzailea, Larramendi tresnagilearen ondo-ondoan ikusi behar dela dirudi, zituen asmo beretsuen ondorioak baitira. Alabaina, komeni litzateke, beharbada, bi alderdiok bereiztea, gerta baitaiteke, jomugetan bat eginagatik, bere hiztegilikakoak, esate baterako, ez erabiltzea:

> Maiz asko aztertua izan den arren, merezi luke andoaindar handi honen eraginak berriz ere arakatua eta miratua izatea. Nolanahi ere den eta euskaraz usuegi idatzi ez zuelarik, maisu agertu zen bere garaikoen eta gerokoen aurrean harik eta azken mendearen hondarreraino[240], hurbilago ere aitormen onik, gero eta bakanklago, bildu duela.
>
> Larramendiren irakaskuntzaren oihartzuna inguruan aurki daiteke Konpainiako jendearen artean, baina laster aski zabaltzen da ingurune horretarik kanpora ere. Bidasoaz honantza dudarik gabe, baina baita Bidasoaz harantz ere, zenbaitek uste duen baino gehiago. (1983b:114)

Mitxelenak, Larramendik utzi duen azterrena askotan aipatuagatik, ez du beti bereizten noiz duen mintzagai, ideien aldetikako segizio soila eta noiz Larramendigandikako hitzen erabiltzaile izatera mugatzen duen andoaindarraren itzala[241].

---

[238] Eraginaz Lakarra (1985a, 1985b, 1985c, 1992). Sarasola (1986), eraginak zabaltze-zenazteez gain, adigai honen atzean egin beharreko bereizkuntzaz mintzatzen da.

Lakarraren (1985b:239) iritzi, Larramendik utziriko hatza uste baino zabalagoa izan da, halaber, Larramendigan bestek utzia (Lakarra 1992a), (Urgell 1992).

Iparraldeko hiztegigileenganakoaz, zehazki, Urkizuk (1992), Robin, Eguiateguy eta Bela aipatzen ditu. Hauezaz kanpo, XVIII. mendean oihartzun handirik ez zuela izan iruditzen zaio lezoarrari.

[239] Ez diogu erreparatuko Larramendik hizkuntzaz kanpokoetan utzi zuen ondorioari, txit interesgarri izanagatik, Larramendiren irizpide zabala eta jakinminaren erakusgarri den aldetik.

Bi aipu adierazgarri besterik ez dugu jasoko, iragaitzaz eta lasterrean bada ere.

"En Guipúzcoa, por otra parte, el precursor más señalado de los Caballeritos no es otro que el jesuita Larramendi". (1960b:121).

"...en Vasconia fue en cierto modo el precursor de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País y de su Real Seminario de Vergara, hermano mayor del Instituto Asturiano de Gijón". (1959d, *SHLV*:911).

[240] Ik. 18. oin-oharra.

[241] Eta alde honetatik, Sarasolak (1986:204) dioenari ere erreparatu beharko litzaiokeelakoan gaude:

"Larramendiren eragina neurtzeko ez da aski «agerkidatu», «jaiera» edo «leinargi» agertzen diren testuen bila aritzea. Beraren lana zela medio Hegoaldean (edo Gipuzkoan edo Bizkaian) hedatu ziren hitzak ere kontuan hartu beharko lirateke. Izan ere, hitz asko dira gaur egun erabatekotzat edo euskalki guztietan betidanikotzat jotzen baditugu ere Larramendiri eskerrak berezko eremutik at hedatu direnak: esate baterako, *adin* ez da Larramendiri esker gipuzkerazko idazleen artera hedatu zen hitz bakarra".

Halaber, beharrezko deritza *DT*-ren ondotik zein hitz baztertu edo desagertu ziren euskal izkribuetatik miratzeari:

"Hemen ere mailak leudeke: denek edo baztertzen dituzten hitzak (*infinitamente* etab.), eta idazle «boukunenak» soilik (Mendiburuk eta Agirre Asteasukoak bai, baina Cardaberazek eta Gerrikok ez, esaterako)

Honela, zenbaitetan hitzen aldetikako eraginaz ari dela argi eta garbi adierazten duen bitartean:

> pues sus neologismos no dejaron de ser aceptados, al menos en teoría, por los escritores en vascuence y eruditos posteriores. (1959d, *SHLV*:907).
>
> Larramendiren eragina eta kutsua, ene iritziz, uste den baino urrutiago heldu da hitz gaietan. (1961b:67).
>
> ... de los productos de su imaginación que encontraron aceptación en más autores de lo que se cree. (1964a, *SHLV*:25).
>
> hango hitzen aztarna uste baino euskal idazle gehiagotan aurki[242] daitekeelako[243] gero, hemengo jatorrenetan eta Bidasoaz haranzkoetan[244] ere bai. (1966a:68).
>
> Haren lana, halaz guztiz, ez zen arras antzua eta elkorra izan ondorengoentzat. Hor du, lekukorik eskatzen duenak batekin aski baldin badu, Larramendiren *garransia*, orain *garrantzi* bihurtua.
>
> Puntu honetan, bere eragina edozeinengan da nabari, non sendoago non ahulago, baita mugaz haruntza ere. (1982a:105).

bestetan, ez dago justu zehazterik nola hartu behar den eragin hori:

> Segiziokoen artean ez daude soilik bere garai eta garaitsukoak, ezta, ez alderatzeko ere, alde honetako euskaldunak: hangoen idazkiak, zori gaiztoz, hemengoak ez ezik, ez ditugu ongi ezagutzen. (1983c:96).

Besterik ere suma dakieke hitzoi. Mitxelena, garai bateko testuen arabera bederen, sinetsirik dago Larramendiren hitzak uste den baino gehiagorengan aurki daitezkeela, baina honen ondoan altortu behar da, geroagoko zenbait lanetan, kasu batzuezko bere iritzien okerra erakutsi eta zuzentzen duela, erakutsiko den bezala.

Atzera-aurrera ibiltze honek, badu ikuskizunik, noski, euskal ikerlanen egoerarekin[245]:

---

baztertzen dituztenak'. (Sarasola 1986:205).

[242] Jat. *arki*.

[243] Jat. *ditekealako*.

[244] Jat. *arunzkoetan*.

[245] Eraginon argibidean saio itzela egiten ari dira azken urteotan euskalariak, P. Altuna, I. Sarasola, J. A. Lakarra, D. Urgell, I. Pagola, P. Urkizu eta besteren lanei esker.

> Ez dakit zenbat jende baliatu zen Larramendik sortutakoaz, ikerlana atzera baitabil hemen ere. (1964b:33).

Zeinahi gisaz, diskutitzen ez duena da Larramendik euskal gauzatan, literaturan bereziki, aro berri bati eman ziola hasiera, berebiziko eztenkadaz ziztatu zuela:

> Gure literaturak ere ezagutu ditu, bere txikian, aroak, gora beherak eta eraberritzeak. Hor dauzkagu Detxepareren agerketa bakartia, ondorenik izan ez zuen Leizarragaren eragina, Materrez gero Lapurdin sortu zen mugimendu bizi eta aberatsa. Larramendiren astinaldi gaitzak zabaldu zuen lurrikara, Bonaparteren itzalean lanari ekin zioten langile apalak. (1960a:30).

Mitxelenak gai honezaz han-hemen adieraziak eta zuzenduak jasoko dira bada, hari nagusitzat hartuz Mitxelenak Larramendiren itzala sumatu uste duen egilearen sorterria eta jorraturiko lanaren gaia, euskalkia eta -aukera denean-, hitz-mailako eragina zehaztuz.

Ondoko aipamenen ildotik, abiapuntu Hegoaldea jo da begiz, Gipuzkoatik hasi eta, hurrenez hurren, Bizkaia, Nafarroa eta Araba; ondoren, lparraldeari begiratuko zaio. Bakoitzean, horretarako gairik izanez gero, mamituriko lanen mota kontuan hartuko da.

> A él [Larramendiri] se debe antes que a nadie la publicación de numerosos libros vascos, primero de devoción, como los de los jesuitas Cardaveraz y Mendiburu, y después también de literatura amena en Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra durante los siglos XVIII y XIX, comparables a los que se venían imprimiendo en el País Vasco-francés desde hacía más de un siglo. (1959d, *SHLV*:908).

> Berrikuntzak Gipuzkoan aurki daitezke eta Gipuzkoatik Bizkaira eta,indarra galduz, baita Nafarroara ere zabaltzen dira. Iturburua, hemen, Larramendi jesuita dugu (1690-1766), andoaindarra jaiotzez. (1983a:59).

> [Larramendik nahi zuena zen] eredu bat sortu eredurik ez zuen hizkeran. Eta ezin uka nahi zuena erdietsi zuela, hein jakin batean beti gertatu ohi den gisa, Gipuzkoan eta, elkarren hurren, Bizkaian eta Nafarroan. (1983a:60).

> Hemen biztu zen sua ez zen Gipuzkoako lurretan gelditu: bizkaieraren loraldia luzaro gabe dator, Nafarroa (bakarti gehienetan) ez zen erabat lozorroan gelditu eta beste aldekoek hartu zuten ordutik aurrera lehen guk haiengandik bildu genuenaren truk. (1986a:127).

2.8.1. GIPUZKOA

Larramendiren asmoak Gipuzkoan du oihartzunik ozenena, abiatik bertatik, lurralde honetan aurkitzen baitu nork mamitu desio duen izkribuzko euskara landua.

Gertuko jarraileok, sorterrikide izanagatik, ez dute euskalki bera ohiko hizkera eta honek ere -besteak beste- izango du eraginik gatzatuko duten lanean, baina guztiok, bestalde, elizgizonak dira, jesulagunak bi, Mendiburu eta Kardaberaz, frantziskotarra hirugarrena, Ubillos.

Hiru segizioko aipatuenoi eta, bereziki, Larramendirekiko harremanei erreparatzen die

Mitxelenak zenbait lanetan. Ildo berari jarraikiko zaio hemen, Mitxelenak papereraturiko aburuon isla emanez.

Mitxelenak, Mendiburu eta Kardaberaz --nor bere gisakoa izanik ere-- sarritan elkarren ondoan aurkezten ditu:

> Eraskin moduko batean badugu argitasun franko Larramendik Mendibururekin (eta Kardaberaz Mendibururekin dabil, batipat) izan zituen harremanez. (1982a:102).

> Mendiburuk (eta Kardaberazek) Larramendiren aldean izan zitzaketen ezberdintasunak ageri-agerian zeuden, lehen ere, *Jesusen Bihotzaren Devocioa* eta Larramendik honi ipini zion hitzaurrearen arteko bitartean. Orain, eta *Dotrina*-ren testu-ukituari eskerrak, are nabariago gerta daitezke. Nabari diren aldeen funtsa non dagoen edo non legokeen ez da artean[246], dakidanez ongi miratu. (1982a:104).

> Harek sortu zuen giroan hazi ziren Mendiburu, lehengoa eta oraingoa, Kardaberaz, balta Basterretxea[247] eta Gamiz bera ere, urrutitik bederen. Lehenbiziko biek izan zituzten Larramendirekin errietaldi aski larriak, balta hizkuntzari dagokion aldetik ere. Maisu eta gidari izan zuten beti, halaz guztiz, hizkuntzaren arloan bestetan baino gehiago. (1983c:96).

Bi jarraileok lotzen dituzten lokarriak sortèrria, Lagundia, prediku-lana, Larramendiren asmoekin --hein batean bederen-- bat etortzea, honen maisutza eta gidaritza onartzea... izanik ere, bada besterik, beharbada, Larramendi daramanik biak aurrez aurre paratzera, hain justu.

Batak zein besteak, ez dute Larramendigandik datorkien oro beste gabe onartzen:

> Maisua, aho batez altortuko zuketen guztiok, andoaindarra zen, baina maisutza ezagun honek ez du esan nahi ikasle umili, eta batez ere beti ixil, zirenik besteak. (1982a:107).

Nork bere aldetik Larramendirekin bat ez etortzeak eta sesio-errietaldiak izan zituela dio Mitxelenak eta auzi-gaiak gisa bakarrekoak izan ez zirela.

Mitxelenak aipatzen dituen gaien kontu emateko, hizkuntzaren ingurukoak ekarri behar dira, batetik, honetan, Larramendik biokin izan baitzuen zer eztabaida edo zer kritika. Baina, bestetik, bakoitzarekin izan zituen bestelakoak ere, teologi auziak, moralaren aldetikako juzkuak eta antzekoak izaki ezadostasunaren iturburua.

Banan-banan ikusten hasi baino lehen, halaz ere, maisua segiziokoengandik aldentzen duen funtsezko arrazoi bat gogoan izan behar da, arrazoi hau, beste puntu batean jaso bada ere, funtsezko gerta daitekeelako.

P. Altunak jorratu eta atonduriko Mendibururen lan argitaragabeen plazaratzeari

---

[246] Lehen nabarmentzen genuen "artean sortu berria zen" hari alboratzekoa orainaldia aldamenean duen beste hau?

[247] Sarasolak (1986:206) jasotzen duenez, Mitxelenak ahoz behin baino gehiagotan esana zion Larramendiren eragina, ez hitzen aldetikakoa soilik, ikusten zuela Basterretxearen bertsoek eta Muniberen teatro-saioek "erakusten zuten moldaera-handinahian" batipat.

eginiko iruzkinean[248], maisuaren eta jarraileen arteko "aldeen funtsa" (ez bereziki haserraldiena) mirakizun dagoela adieraziagatik, Mitxelenak litekeen arrazoia eskaintzen du:

> Dena den, ez da beharbada gehiegizko ausarkeria izango nik esatea ez dela eginbide zailegia zenbait arrazoi ikustea edo erdi-ikustea. Larramendik, adibidez, besteek baino gorago zeuzkala jarriak beglak: euskararen beraren ongia eta hobekuntza nahi zituen, jakinaren gainean nahi ere, euskararen bidez egin behar zen erlijio irakaskuntzaz kanpo, zein ere ardura handikoa zen erakaskuntza hau. (1982a:104).

Asmoetan, beraz, edo asmoen zehazte-graduak edo gatzatzeko barrutiak hautestean bederen, Mitxelenak uste du ez datozela osotoro bat gidari-jarraileak.

Hizkuntz egitamuan ez baina, hizkuntza idatzia gauzatzean ere badute liskarrik elkarren artean.

Honela, Mendiburuk, badu nortasunik maisuaren hizkuntz jaidurei hertsi-hertsian ez jarraitzeko eta bere kasako "berrizale" izateko: *-tasun* atzizkiari hitz bereskuko oso izateko eskubidea ematea edo, kontrako aldetik, *giro* izena atzizki (bitxi samar) bilakatzea[249], eman daitezke adibide gisa.

Kardaberazekiko hizkuntz auziak, puntu zehatzez gaineko beste alderdirik ere badu, bide-erakuslearen eta mamitzaile apalaren arteko harremana ere tartean baita.

Kardaberaz mintzen duena da –lehen ere esan den bezala– Larramendik teorian esanak besteri agindu bai baina berak gatzatu ez eta, halaz ere, juzkupean hartzen dituela honetan saiatuen lanak[250], nahiz mesede handiak eginak izana ukatzen ez dion:

> [Larramendi] Bizi zalarik ere, jarraile inoiz mindua izan zuen Kardaberatzek holakorik egotzi zion. Euskaraz usuago idatzi izan balu, «nos huviera hecho a todos otro gran favor mayor y nos huviera enseñado prácticamente a hablar, escribir, etc.» Nolanahi ere, «mesede tiklagoa», zeharkakoa gainera, ez dio ukatzen. Nola uka zezakeen, nahi izanik ere! (1983a:60)[251].

---

[248] Mendibururen hizkeraz hitz bi" (1982a).

[249] Lizardik bere egingo duena, esango den bezala.

[250] Bitxi gertatzen da, Tellechea Idigorasek (1968:19) jasotzen duen pasarte batean, Larramendik Kardaberazen liburuñoari eginiko kritikaren ondoan, Kardaberazen erantzunean honakoa irakurtzea:

"Dice V.Rev.: «*No se diga Jangoicoa, sino Jaungoicoa, porque Dios* no es jana, ez goicoa ez becoa. Digase Jaincoa», etc. El P. Mendiburu lo usa y lo alaba".

Hau da, Mendibururen izena ahotan hartzen du Kardaberazek bere erabilera zuritzeko. Ala aurrerago (aurreraegi?) jo behar da eta, Larramendik olartzuarraren eta hernaniarraren lanak neurtzean ez zerabilela neurgailu bera egoiten ari ote zaio Kardaberaz?

[251] "Son muy pocos los que con rigor saben el bascuence según toda su estensión en nombres, verbos y la rarísima armonía de sus conjugaciones; ni soy yo de estos pocos, y acaso será V.Rev. solo y no *ay* más. Si con reñirme más y de más gana, pudiera V.Rev. infundirme o meterme en esta mala y dolonda cabeza parte de

Kardaberazekin izandako gorabehera zehatzetara pasaz, ortografiaren alorrekoak dira Mitxelenak berariaz aipatzen dituenak[252].

Larramendikindar-kemenak ortografiaren finkapenean edo antzekoetan berezikixahutu ez bazituen ere, ohartzekoa da maila honetan aurkezturiko berrikuntza apurrek ez zutela arrakasta handiegirik izan, ezta miresten zuen Kardaberazengan ere, eta maisuak egin zizkion ohar eta zuzenketak antzu gertatu zirela:

> Ez dirudi [Larramendik] deus berririk atera zuenik grafia kontuan edo deus gutti, ezer atera bazuen. Aurkeztu zituen apurrak berak ez ziren beti ontzat emanak izan eta Kardaberaz dugu besterik gabe diodanaren lekuko. (1983c:98).

Hizkuntz gaiez kanpoko auzi liskar-sortzaileei erreparatuz gero, berriz, Mitxelenak, andoaindarrak Mendibururekin izanak euskal dantzen ingurukoetara batipat eta, bigarren mailan, zezenketara mugatzen du zehaztapena[253]:

> Merece señalarse además que en la cuestión palpitante de entonces, la de la licitud de las danzas y secundariamente de las corridas de toros, el padre Mendiburu fue un rigorista que luchó incansablemente por conseguir su prohibición de las autoridades. Muy diferente fue en este punto, como es bien sabido, la actitud de Larramendi, quien nos dejó en la *Corografía* una larga, ingeniosa, liberal y desenvuelta defensa de los bailes tradicionales del país. (1960b:101).

> Euskal herriko dantzak zirela eta, ordea, nork berean iraun zuen, ez baitzuen hortaz gehiegi esaten ez Testamentu zaharrak (halaz ere ahotan du Larramendik, oker ez banabil) ez berriak. (1982a:107).

Kardaberaz "jarraile inoiz minduaren"[254] eta Larramendiren arteko, hizkuntzaz kanpoko adostasun-ezak, batez ere, teologiaren ingurumariari lotzen zaizkio.

Kardaberaz, ohi zenez, egile ospetsuen aipuetan –*auctoritate*-engan, bestela esan–, oinarritzen da bereak sendotu eta frogatzeko, horien artean, Cornelio a Lapide-gan. Larramendiri bere izakera konformagaitzak, aldiz, eragozten dio besteren uste eta iritziak

---

su noticia y conocimento de todo el bascuence, me haría un favor inestimable. ¡Válgate Dios por Maestro! Ya preguntaré algunas dudas sobre los artículos con varios nombres. V.Rev. que ha escrito a la maravilla tantos libros sobre el bascuence o del bascuence, ni uno ha escrito en bascuence. ¡Ojalá huviera escrito muchos y muchos sermones y aun más doctrina! Nos huviera echo a todos otro favor mayor y nos huviera enseñado practicamente a hablar, ecribir, etc.". (Tellechea Idígoras 1968:20).

Jaso den hau, 1763an plazara zen *Jesus María ta Joseren devocioa edo iru persona divino orien eguiazco amorioa* debozio-lantxoak argitara zedin pasa beharreko oniritzietakoa denez gero, adierazgarria izan daiteke, argitara berri diren Larramendiren euskal lanak Kardaberazena baino lehenagokoak edo urte beretsukoak direla gogoan hartzea.

[252] Tellechea Idígorasen (1968) lanean berri zehatz-aberatsa jasorik dago.
Interesgarria litzateke, batak bestearri eginiko zuzenketak eta bigarrenaren erantzunak elkarren ondoan paratzea. Hemen, ez dugu, ordea, halakorik egingo.

[253] Gai honezaz bereziki (Altuna 1982:XXII,XXXIII) non Kardaberazen hitz adierazgarriak irakur daitezkeen.

[254] (1983a:60).

besterik gabe onartzea[255]:

> Bere buruaren nagusitasunaz aspaldi jabetua zen Larramendi ere. Teologia auzietan, esaterako, iturburuak aipatzerakoan, ez du aski, Kardaberazek bezala, «gure Cornelio a Lapide»-rekin: lekuko jatorragoak eskatzen ditu besteak. (1982a:107).

Malsuagandik bereizten baina aldi berean elkartzen dituztenak ikusi ondoan, Mendiburu eta Kardaberaz Larramendiren alde bateko asmoen mamitzaile ere badirenez gero, errepara dakioke nork zer edo nola gatzatu zuen paperera eraman beharreko euskara gorenahia.

Arestian esana doa, biok sorterriz gipuztar izanik, ez dutela euskalki bera ohiko eta gertakizun honek, gehi, prediku-lanean ihardun behar zuten hizkera-herrialdeak, hatza utzi bide duela bakoitzaren euskara idatziaren moldean[256].

Mendiburu olartzuarraren izkribuzko hizkeran ikuskizuna dute, Mitxelenaren ustez, sorterriko euskalkiak ez ezik, misiolaritzan ihardun zuen barrutiak ere, giputz hizkeratik eta lapurtarretik oso urruti kokatzen ez den goi-nafarra baitu ohiko hizkera eta gainera Nafarroan ariko baita, batez ere, bere zeregin nagusian:

> Como correspondía al lugar de su nacimiento y al campo principal de su actividad misionera, Mendiburu no escribió en guipuzcoano, sino en alto-navarro, dialecto por lo demás muy próximo al primero. (1960b:101).

> Mendiburuk, jaioterriz eta ohiturazko bizilekuz, Nafarroarako zuen isuria eta bere lanbideak ere horretara behartzen zuen. (1982a:103).

Alabaina, Mendiburuk oztopo gaindigaitzei egin behar die aurre, Larramendik eskatzen zuen "gaiarekikoaz gaineko hizkuntzarekiko arreta"[257] hura bere eginkizunean eman eta etekinak erdiesteko.

> Ezin zetorkeen bat, beraz, Larramendirekin eta are guttiago Kardaberazekin. Giputz-nafarreraren arteko neurria eta erdi aldeko bidea asmatzeaz eta segitzeaz gainera, behartsuago eta eskasago aurkitzen zen bigarrenari dagokionez. (1982a:104).

---

[255] "Larramendi, mente más racionalista y menos piadosa que la de Cardaveraz, exige sin consideración rigor en las palabras, seriedad en las afirmaciones históricas y teológicas y con estilo desenvuelto deja caer una y otra vez juicios severos y ásperos sobre su discípulo y admirador: Mal dicho, es falso, devociones mal fundadas, etc.". (Tellechea Idígoras, 1968:5).

[256] Oroi hizkera-ereduaz aritu garenean jaso ditugunak.

[257] (1983c:97).

Mendiburuk, beraz, hutsaren parekotik hasi behar du bidea urratzen, ez du eta gidari aitzindaririk. Hau dela eta, "Zizeron euskalduna" birretsiak[258] iritsia, berezikl, Mitxelenari bit balio handikoa egiten zaio:

> Literatur hizkuntza, hobeki esan literatur prosa, nahiz eta mailarik jasoeneko zereginetarako ez izan, la ezdeusetik sortzea, Larramendik eta honen ingurukoek sortu zuten eran, ez da inolaz ere lan arin eta leuna. Eta Mendiburuk hemen eta bestetan darabilen prosak badirudi, hala ez bada ere, ibilera luzeen fruitu behar duela. (1982a:103).

Edozein moduz, eraginak neurtzean aurrean izan behar da Mitxelenak berariaz ez dioela Mendibururen hizkeran Larramendigandikakorik aurkitu duenik[259]. Beraz, pentsa al daiteke asmoen mailara murriztu behar dela eragin hori?

Kardaberaz hernaniarrak hautatu eta gatzaturiko hizkera-moldeaz, berriz, ez dugu[260] Mitxelenak beste Larramendiren segiziokoez adierazien gisako daturik kausitu, hizkeraren lehengalei baino erreparatzenago baitio idazmoduari eta testuinguru honetan Mendibururekin berdintzen.

Nolanahi dela ere, kontuan hartzekoa da, apika, sorterriz, Beterriko gipuzkoarrez mintzatuko zela eta, misiolaritzan, batipat Gipuzkoan eta Bizkaian ihardun zuela:

> Es el primero el padre Agustín Cardaberaz, nacido en Hernani en 1703. A partir de 1731 tuvo su residencia en Loyola y desde allí recorría continuamente Guipúzcoa y Vizcaya como misionero con fama de santidad hasta que fue expulsado en 1767. (1960b:100).

Mitxelenaren testuei helduz, zeharbidetik bada ere, ondoriozta daitekeena da, ez duela bestegan nabarmentzen duen lapurteraren aldeko isuririk hautematen, gai hau autu duenean hernaniarraren izenik ez baitu aipatzen:

> Larramendiren eragina ez zen gainera, eta beharrik, Konpainian gelditu, Larramendi hil bezain laster bidali baitzituzten aurrean Jesuitak, besteak beste. Hor dago, urrutirago jo gabe, Ubillosen <Hitz aurrea> (...) Horko irakaspenak, eta ez zenbait hitz (*hitzunea, arautsa* eta are *hitzaurrea* bera) bakarrik, Larramendirenak baitira. (1983c:96).

Ubillos Amasa-Billabonako frantziskotarra da, Larramendiren gipuzkoar jarraile adinkideetariko hirugarrena.

---

[258](1982a:103).

[259]Mendibururen aztertzaile P. Altunak ez du olartzuarraren hizkeran Larramendiren arrastorik aurkitu.

[260]Ezta *Euskeraren berri onaken* argitalpenari eginiko iruzkinean ere (1964).

Elizgizon honen hizkera ahotan du Mitxelenak behin baino gehiagotan, sarritan, sorterriz eta hizkeraz gipuzkoar izanik, Lapurdi aldera agertzen duen isuria[261] azpimarkatzeko:

> En este arreglo, limpia y cuidadosamente escrito [*Cristau doctriñ berri-ecarlea*, (1785)], cuyo lenguaje ha sido muy elogiado, se notan, además de la de Larramendi, influencias labortanas cuyo origen preciso no ha sido aclarado. (1960b:102).

> luego, Larramendi y Ubillos, por no decir nada de Mendiburu, sienten fuertemente la tentación labortana, como también, sobre todo en el léxico, Lardizabal. (1970a, *PT*:298).

> Ubillos, gainera, giputza izan arren, lapurtar literaturaganako joera nabariaz ari zaiku". Gainera?, Jainkoari eskerrak, esan genezake. Eta Ubillos ez ezik, baita Larramendi bera ere, baita Lardizabal eta Agirre Astoasukoa ere. (1972a:165).

> Egia da gure euskal idazleek ezagutzen zituztela aski bestetangoak; esate baterako Ubillosen argitara berria den *Kristau doktrin berri ekarlea* irakurtzen baduzue, hor besteak beste aurkituko duzue zati bat ez hitzez hitz, baina bai elkarren antz handia dutelarik, Axularren liburutik hartua[262], alpamen bat, alegia, barrengo harraz ari dela; Ubillosek, beraz, Axular ongi ezagutzen zuen. (1981a:64).

Gainera, aipamenik zaharrenean lapurtar iturburua ezin asmatutzat badauka ere, azkenean, argi adierazten du, iturrietariko bat bederen.

Testuinguru honetan uler daiteke, Mitxelenak Ubillosengan ikustea Larramendiren segizioko leialena (egiteko moduak modu), euskalkiak –hiztegi mailan bederen– bildu nahi izatearen aldetik:

> Euskalki "arrotzen" hiztegiaz den bezainbestean Ubillos izan genuen, nik uste, Larramendiren imitatzailerik eskukoena. (1982a:106).

Larramendi maisu eta gidari hautatu duen Ubillos, bestalde, arestian aipatu (eta ondoren papererako) direnak bezala, bide-urratzailea da euskara idatziaren moldea finkatu nahi honetan.

---

[261] Beti ez omen ditu, halaz ere, lapurtarrenak "ongi aditzen" Ubillosek (1981a:71).

[262] 1978ko hitzaldiaren argitalpena da artikulua (1981a), ondoren aipatuko dena bezala.

Artikulu horren "Eraskin gisa" (1981a:72) delakoa berriz, argia ikusi zuen garaikoa izanik, ulertzen da Mitxelenaren beldurra Ubillos beti besteren zordun agertarazten ote duelako edo eta, ustearen erdi ustela uxatzeko, Amasakoaren eta Gerrikoren testu bana elkarren parean aldatzen ditu, argi gera dadin kasu horretan bestea dela Ubillosen zordun.

Gogoan hartu behar baita, aipatzen zen bigarren lan horretan ("Euskal literaturaren kondairarako oinarriak" (1981b)) Ubillos zordun erabatekotzat aurkeztu duela, gisa honetakoak egotziz: "Inoren laguntza gogoko zuen Ubillosek" (1981b:82), "Hona beste Ubillosen bat, bai baitirudi ez zuela gogoko bere kabuz saiatzea lana, nahiz lantxorik eskasena ere bestek egina ikusten zuenean" (1982a:83) eta oraingoan, Axularren ez baina Mendibururen pasartea papererarako darama bion arteko antzak nabari daitezen.

Ihardun berean ari direnei legez, ezin txuliatuzko gertatzen zaio, bere hizkerak[263] oraindik ere zolitasuna, usutasuna erdietsiak ez izatea[264].

> *Judu aragui-cor guciac ciran haren etsaiac.* /Hitz honek ongi ematen du aditzera idazle txukun baten, batez ere bideak zabaltzen ari denaren hizkuntzan topa daitekeen artifizialtasun kutsua[265].../. (1981c:157).

Baina Larramendiren Ubillosenganako itzala ez da hitzen maila soilera mugatzen, Mitxelenaren ustez.

> "Eusqueraz darausquizunean, eusquerazco hitzac ez badarabiltzatzu, zure erausia hitzunea, edo *barbarismoa* dala esango dizue; ta hitz bacoitza, dagocan toquian sartzen ez-padezu, zure hitz-já́rio[a]rí[266] arautsa edo *Solecismoa* deituco dioe. Bost onelacò enzuten degu eusquerazco sermoietan! Ala baña, zori gaiztoan dacuscun bezala, euscaldun guichic necatu nai dù eusquerazco hitzac billatzen, ta bacoitza bere toquian ipintzen. Eusquèrazco hitzàc ongui ezpadirudi[267], edo oitua ez pada; hurà utzi, aren[268] ordean artu diteque, arc esan naiduana, adiràzteco adiña dan, beste bat" (...) Horko irakaspenak, eta ez zenbait hitz (*hitzunea, arautsa* eta are *hitzaurrea* bera) bakarrik, Larramendirenak baitira, geroxeago ikusiko dugunez. (1983c:96)[269]

---

[263]Patxi Altunak bere gain hartu zuen *Christau doctriñ bem-ecarlearen* 1785eko argitaraldi zaharraren faksimile moduko 1989ko bosgarren argitaraldia atontzea. Liburuaren atarian paraturiko aitzinsolasean, Ubillosen hizkeraren azterketak "samurra eta isurbera" (Altuna 1989:IX) duela esatera darama.

Bestalde, interesgarri deritzagu, azterketa horretan zehar adierazriko zenbait gogoangarri hona aldatzeari:

"Guretzat garai beteko gipuzkeraren lekuko den aldetik da batez ere interesgarria liburu hau. Kontura gaitezen Larramendi hemeretzi urte lehenago baino ez zela hila. Andoaindarraren arrastoa eta zantzua nabari da liburuan barrena: horko *ceegui, araututs, doaindu, ecarraizco, elizgue, hitzune, larriquitu* eta beste zenbait hitzek Larramendiren zigilua erakusten dute. Elkar ezagutzen ere zuten dudarik gabe: Ubillosen aita ere andoaindarra zen eta Larramendi Loiolan bizi izan zen urte handietan, hogei eta hamairutan, Tolosara maiz joaten zela badakigu.

Iparraldeko euskalkien eta idazleen ezagupidea ere nabarmentzen zaio garbi asko (...)

Ubillosen hizkera ezinbestean gipuzkera da, halaz guztiz ere, eta gipuzkeraren arrastoak nonnahi ageri dira. Maiz darabil *h*, haatik, Larramendik berak baino gehiago. Ez naiz abiatuko hemen ihardukitzera gipuzkera deritzagun euskalkia bizkaiera baino ez den ala baden". (Altuna 1989:X,XI,XII).

Eta hona ondorioa:

"Harriduraz ohartuko ginateke lehengo mendeetako, hain mugaz haraindiko zein honaindiko, idazleen euskara uste dugun baino bat-ago izan dela mendeetan zehar". (Altuna 1989:XVIII).

[264]Gogora ekar daiteke Iztueta eta besteri antzematen zien "pérdida de frescura y de naturalidad" ezaugarri bera dela (1978d, *PT*:359).

[265]Ez dugu berraipatuko Larramendi "hobendunazkoa".

[266]Altunak (1989) paraturikoaren arabera, *jàriorí*.
Mitxelenak erantsia da *[a]* hori.

[267]*ez-padirudi* Altunaren argitalpenean.

[268]*haren* Altunarenean.

[269]Ubillosek testu honen ondoan (1785:L), Larramendi ez baina," Fr. Laurentius à Villavecentio, in suo opere *de recte formando studio Theologiae*, lib. 3. cap. 8 pag. 391 edit novissa" aipatzen du darabilen argudioaren indargarri.

Ubillosen testuko bigarren zati daitekeenari abiada ematen dion *ala baña* aurkaritzako lokailutik[270] aurrerakoan batipat idoro bide da Larramendiren zigilua, hitzetan ez eze ideietan ere bai. Hementxe dago landaturik Larramendiren zenbait ideiaren isla: euskaldunen euskararekiko eta beste euskalkiekiko axolakaberia eta lexikoan bide berriak urratzeko gonbitea.

Aipatuez gain, Gipuzkoako idazleen artean, erlijio-lanak ontzen dituzten Agirre asteasuarra eta Lardizabal zaldibiarra dira Mitxelenak Larramendik eraginen artean aipatzen dituenak.

Ez zituzten hauek ere, Mitxelenaren ustez, itsu-itsuan Larramendigandikakoak hartu eta plametara eraman, hitzen aldetikako zorrak egitean, neurria hartuz egin baitzuten hartzea:

> ...los escritores posteriores han echado mano, casi sin excepción, de Larramendi, y por tanto, de sus neologismos, los unos (Joaquín Lizarraga, Iztueta, Hiribarren) con profusión, los otros (J. B. Aguirre, Lardizabal, Harriet) con parsimonia. (1984a:29).

> Agirre Asteasukoa, bere betiko neurri jakinean, berriz, bai [segiziokoa izan zela]. ikus *bertiztu, bebraunde, bidutzi, enura* (apenas entzun zezakeen Azkuek Lekunberrin), eta (1984b:33).

Egileok, arestikoekin eta ondoren aipatuko direnekin batean, mamituko dute, hain justu, lehen aldiz, Larramendik bultzaturiko lapurtera-kutsua[271] duen giputz hizkera mota batean oinarrituriko izkribuzko euskararen moldea:

> [Larramendik] Hautatu zuen gipuzkera, oharturik ala oharkabez, Beterrikoa izan zen, eta hori da gero Larregiren ondotik ibili zen Lardizabal zaldibiarrak, Larramendiren gramatika ia-ia hitzez-hitz aldatzeaz gainera, *Condaira*-n (1855) bereganatu zuena. Ez da, bada, miresteko aurki Bonapartek gipuzkera huts bihurtzea[272]. (1983a:60).

Beste arlo batean, hainbat gauzatan aditu zen Peñafloridako kontea ere aipatu behar da, *Gavon Sariac*en aita berantetsia, hau ere –idazle ona ez ezik– Larramendiren ezpalekotzat baitauka Mitxelenak:

> Hizkuntzari dagokionez, bat datoz, gutxi gora-behera Munibe eta Larramendi, hura honekin ados datorrela esatea ez baldin bada zuzenago. (1986a:127).

---

[270] *EGLU-III* (1990:114).

[271] (1970a, *PT*:298; 1972a:165).

[272] Saihetsean utziko ditugu Bonaparteren idatzizko euskalkien banaketaren eta ingurukoen auzlak, jaso baititugu.

> Su lenguaje[273] [Peñafloridarena], aquí [*Gavon Saniac*-en] y en otras partes, no desmerece, dentro del módulo larramendiano, del de ningún autor eclesiástico. (1987b:99).

Baina honetan ez ezik, baita euskal kulturaren zuzperraldian ere, Larramendik eta Munibek, nork berean, emaniko bultzadek ondorio sakonak izan baitzituzten:

> ... orduan hasi zela eta ez lehenago gure Hegoalde honetan gero eta aberatsago (la paperetan soilik, zorrixarrez) egungo eguneraino iraun duen bizialdi berria. (1986a:127).

Astialdietako literatura edo "literatura amena" delakora igaroz, Agustin Paskual Iturriaga apaiz hernaniarra (bereziki honen *Jolasak* lana) paperera behar da.

Lehen jaso dira Mitxelenak maisu "argitu" honengan eta beste gogaidegan ikusten dituen euskararen aldeko saioak - irakaskuntzan batipat - eta saio hauek nola uztartzen diren andoaindarrak bulkaturiko euskara noranahiko bihurtzeko asmoarekin.

Orain, jesulagunaren asmokide izateaz atikako beste alderdi bati begiratuko zaio: ea Iturriaga, idazle den aldetik, larramendizaletzat ote daukan Mitxelenak[274].

Arestian jaso den bezala, euskara bide berrietan barrena abiarazi nahi duten garai horretako euskal idazleek, adigaiek euskal hizkuntz gorputzik har dezaten; hizperrietara jo beharra daukate eta garai honetan, Larramendiren iturrian edan behar:

> Tanto él [Iztueta] como Iturriaga no pueden menos de hacer uso de abundantes neologismos, que en aquel entonces tenían que ser de cuño larramendiano[275]: en el fondo, es Larramendi el que mueve a Iturriaga y a Iztueta, como movió a Harriet al otro lado de la frontera. (1978d, *PT*:359).

Eta honetan ez ezik, beharbada, Iapurtarraren aldera makurtzea ere, akuilu berari zor dakioke.

Mitxelenak Iturriagaren asmo-lanez, oro har, hitzegiten duenean, beraz, Larramendiren itzala sumatzen du atzean.

Iturriagaren lan zehatzetara joz gero, prosazko lanez ematen duen iritzia osatzeko,

---

[273] Oroi, arestian jasoaren arabera, honen hizkera "sendo, ugari eta betetzat" zeukala.

[274] Lakarrak (1985c:451) jasoak ditu zenbait zehaztapen.

[275] "a) Hegoaldean bederen, 1750-1900 bitartean kultur maila gutxienekoa -hots, bertsolari eskolatu gabeena edo kristau ikasbide marjinalena- gainditu duten euskal idazlan gehienen atzean Larramendiren eragina -zuzena nahiz zeharkakoa- nabari daiteke. Eta maila jakin batetik gora aritu behar zenean nahi ta ez jo behar zen haren hiztegira. Ez zegoen euskararen alorrean beste hautabiderik". (Sarasola 1986:211).

aldera daitezke *Historia de la literatura vasca*n esanak[276], hiru urte geroago *Jolasaki* eginiko iruzkinean[277] paperera jaulkiekin.

1960ko erdal lanean, inolako balio-iritzirik ez du agertzen Mitxelenak hitz lainozko lanen gainean, aurkezpen soilean uzten du iruzkina. Euskal lanean, aldiz, lanari ikusten dion alderdi makur bakarra, Larramendiren asmakariak erabiltzeari zor zaio:

> Eta hori ikasteko nekez idoro dezakete Iturriaga baino gidari hoberik, bai gaiaren eta bai hizkuntzaren aldetik. Larramendigandik datozkion zenbait asmakari gora-behera (1963a:113).

Garbi dago, Mitxelenak hemen ez duela oso begi onez ikusten Larramendik sorturiko hitzak bestek usatzea.

Larramendirenak erabiltzen dituztenei makur etsien arrazoiak argitzen saiatzean astiroxeago ikuskatuko den puntua denez gero, aurreragoko utziko da auzi honen argitze-saioa.

Iztueta zaldibiarra eta Iturriagaren adiskidea da literatur prosa ez erlijiozkoa mamitzen duen lehen euskal idazle laikoa[278].

Mitxelenak, idazle honengan ikusten du (aipatzen dituen Londres, Otxandio, eskuizkribu zenbait, Añibarro, Kardaberaz eta Hervás y Pandurorekin batean) Larramendirenek euskal hiztegigintzan tokia izan zezaten, sarbidea ematen lagundu dutenetariko bat. Izan ere, Azkuek, Larramendiren usaina zuten hitzak bere hiztegitik eskumikatu nahi izan bazituen ere, Iztuetarenak jasotzean, ohartzaka, "Larramendi otsoaren ardi-larruetariko bat" baliatu du[279].

Iztuetak gorpuzten du Larramendiren asmoa "habito-eranzte" saioaren ordezkaririk nabarmenena, andoaindarraren burubideari atxikiz, erlijioaren esparrutik irten eta munduko gauzetarako euskara idatzi landua atontzen ariko denez gero[280]:

> Hau izan zen, halaz guztiz, Larramendiren bidea saiatu zuena inork baino lehenago eta areago, mundu honetako gauzak (dantzak zein erabateko kondaira) tratatzeko. (1984b:33).

---

[276](1960b).

[277](1963a).

[278]"Ilustrazio garaian familiako hezkuntzaz, etxeko ekonomiaz eta bestez idazten dutenak agertzen dira, ez dakigu segur ordea lan batzuk argitara ote ziren ala eskuizkribuetan [Jat. *esku iskribuetan*] geldatu ziren. Beste zenbait gaitaz (albaritzaz, nabigazioneaz) badira XVII. mendeko lanak Lapurdin. Etxeberri Sarakoa, mediku eta krakasle, jakina denez, argitara gabea da mende honen hasiera [Jat. *hasera*] arte". (1978a:37), oin-oharrean zehazten badu ere.

[279](1961a:55). Astiroxeago miratuko da puntu hau Azkue aztergai hartzean.

[280]Lakarra (1985c:444hh).

Iztuetak, erronka berri bati erantzun nahirik ikasi beharko du euskara moldatzen ezohiko bideetan barrena. Honenbestez, erabilesparru berrietan usatzeko molde jakin-finkorik ez duen hizkuntza horretan, premiazko gertatuko zaio, lehen Iturriagaz adierazten zen bezala, hitz eta molde berrietara jotzea[281].

Baina Iztuetaren kasuak, bestetik, beste auzi orotarikoago batera darama gaia: zer irizten dio Mitxelenak Larramendigandikako hitzak usatzeari?

Izan ere, Iztuetaren saioa hizkera-moldea finkatzeko txit emankor ikusten du Mitxelenak. Harrigarri ere baderizkio zaldibiarrak mamiturik euskara-modu euskalkiartekoari[282], nahiz Iztuetagan, jaidurak - aipatu diren autore gehienenak ez bezala -, makurtzenago duen Bizkai aldera Lapurdi aldera baino, zaldibiarrak, azken euskalki honen ezaupidea izanagatik:

> Lo que sorprende en Iztueta, en su última obra más que en ninguna otra, es el cuidado con que ha tratado de emplear, con un acierto en conjunto indiscutible, una forma de lengua ajustada a una norma única, desde la primera página hasta la última. Es inevitable así una cierta pérdida de frescura y de naturalidad, en comparación sobre todo con un fray Bartolomé, que emplea un vizcaíno de tinte muy local, aunque tampoco libre de neologismos. Pero, como he dicho, no había otro modo de remediar esto, si se buscaba otra cosa. (1978d, *PT*:359).

Honenbestez, agerian dago, Mitxelenak Iztuetaren saioa ez duela begi gaiztoz ebazten. Areago, idazleen artean gutxi batzuen (Larramendi eta Mogel aipatzen ditu honen ondoan) helmenean dagoen dohainaren jabe ere bada, gauza teknikoez (edo tekniko antzekoez) mintzatzen denean ere, literatur mailaren kaltetan ez gertatzea lortzen baitu, bere "ametsetako Arkadiatik jaisten denean"[283] bederen.

Hau ikusita, orduan, nola aditu behar dira ondokoak?

> [Iztueta] Como prosista propende a la difusión y no siempre supo emplear los neologismos manufacturados por Larramendi con la discreción que éste reservaba para los productos de su propia mente. (1958a:367).

> ... Esto [Larramendiren hizperriak behar bezain kontuz ez zituela erabili, alegia] resulta particularmente evidente en las traducciones de documentos oficiales, cuyo texto vasco sería punto menos que ininteligible, como se ha solido indicar, si no fuera acompañado del original. Cuando se olvida del ornato, sin embargo, el lenguaje de Iztueta es castizo y natural. (1960b:113).

---

[281] (1978d, *PT*:359).

[282] "formas supradialectales de la lengua", "variedades dialectales completadas con aportaciones de dialectos vecinos". (1978d, *PT*:359).

[283] (1973a, *SHLV*:404).

> Oinarri makur horretatik[284] [erdaldunak txunditu nahi zituelako] jaio zen hainbeste asmakari, euskaldun garbiek erabiliko ez zituztelakoan, beharbada, egileak berak erabili ez zituen bezala. Euskaldunok, ordea, Iztueta buru genuela[285], ez ginen[286] behar bezain zentzudun agertu. (1966a:68).

Erakusgarritzat paperera ditugunok ez dute agortzen, ikusten joan den bezala, Mitxelenak zenbait urtetan gogoraziriko Larramendik beste euskaldunei bere sorkariak erabiltzean emaniko kontuz ibiltzeko gaztiguaren isla, baina burubideari muzin egin zion nabarmenena. Mitxelenarentzat, Iztueta izaki, egoki bide da ordezkaritzat hartuagan gelditzea.

Lehen aipuan, Mitxelenak Iztuetari Larramendiren asmaberriekin andoaindarrak berak eskatzen zuen -eta bere idazlanetan betetzen bide zuen[287]- zuhurtziaz ez jokatzea egozten dio.

Bigarren aipukoa izan daiteke, apika, eztabaidarako iturri. Iztuetaren testu ofizialen ulertezina dela eta, beste arazo bat ez ote dagoen atzean susma daiteke, egingo baikenuke, egungo gisa bereko zenbait argitalpen, txit ondotik dabilzkiola Iztuetarenari. Iraulpenean dago oztopo bakarra ala euskaldunon ohitura-ezak eta gaiaren beraren "arroztasun-artifizialtasunek" ere badute ikuskizuna?[288]

1966ko hirugarren aipuak, berriz, 1984eko beste pasarte batekin lotu beharrekoa dela dirudi.

Zaharrenean dioenaren arabera, badirudi euskal idazleek Larramendigandikakoak erabiltzeari ekin ziotela, ez zirela andoaindarrak desio zuen bezain "zentzudun" agertu, Iztueta honetan buru, jesulagunak erdaldunak txunditzeko asmatu zituenak eta ustez euskaldun jatorrek erabiliko ez zituztenak, usatu baitzituzten:

> Orduko idazleek, halaz guztiz[289], kontuz erabiltzen zituzten hitz asmaberriak, sortzailearen oinatzetan, pozoitsu izan zitezkeelakoan[290], dirudienez, harraldi larriegitan.
>
> Ezagunik baztertu baldin bazen usario horretarik 1850 arte, Iztueta izan zen hori. Honek,

---

[284] Jat. *ortatik*.

[285] Jat. *genduela*.

[286] Jat. *ginan*.

[287] Ikus hitz asmaberriez lehen esanak.

[288] Sarasolaren (1986:211) gogaide garela uste dugu, Iztuetarena "zuritze" honetan.

[289] Jat. *alaz guztiz*.

[290] Jat. *zitezkelakoan*.

harako Olartzungo apaizaren[291] arabera, ezinasezko gosez ekin baitzien arbola erdi-debekatuaren fruituei ez ezik, baita hosto era adaxkei ere:

"dozenaka tragatzen zituen aliak
alako aixa nola antxua baliak". (1984b:33).

Beste hau irakurrita, berriz, ondoriozta daitekeena da Larramendiren asmaberrien usatzaileak, uste baino gutxiago izaki, kopuruz murriztu behar direla, Iztueta la bakarti aipatzen baitu, usario orotarikotik salhestuxe.

Iztuetak Larramendirenak gainera, neurrigabe darabiltza, konparazio-metaforen bitartez aditzera ematen duenez.

Testamentu zaharreko paradisuko pasadizoaz baliatzen da Mitxelena Larramendiren sorkarien eta hauen balizko usatzaile zitezkeen euskal idazleen arteko harremana iruditatzeko:

Arbola erdi-debekatuko (Larramendi) fruituak (hiztegiko euskal hitz "jatorrak"?) baina baita jateko ez diren hosto eta adaxkak ere (euskaldunok erabili behar omen ez zituzten hitz asmatuak) erabili zituen Iztuetak[292].

Bukaerako Bilintxen "Potajiarena" bertsoen izugarrikeriaz borobiltzen du (tartean bertso-lerroren bat edo beste utzi badu ere) irudia, neurrigabekeriaren mezua irmo landatuz.

Begiz joriko bi pasarte erkagaien arteko aldea funtsa al daiteke, lehenean (orain arteko azterpuntuetako beste aipamenetan zehar jaso den bezala) Larramendiren arrakasta, bere hitzen erabiltzeari dagokionez, handia zen bitartean, oraingo beste aipamenaren arabera, apaldu, gutxitu beharrean?

Egia esan, 1984eko aipamenaren gertuko testuinguruan, Mitxelenak, "ikerlana honetan atzera dabilela" adierazten du eta honen seinale har daitezke, "Hiribarrenen bertso-lanetan" ez duela Larramendirenik kausitzen, bai, ordea –baina "neurri jakinean"– Agirre Asteasukorengan esatea edo Iztuetaren bakartasuna dela eta, "Bazterrak ongi arakatuz gero, Iztueta ez legoke hain bakarti" eranstea.

Usatzaile jakinen auzia, ikerlan orobatekorik eta lekukotasun zehatzik ezean, *sub iudice* utziz, kopuruari muzin eginez, honenbestez, Larramendigandikakoak erabiltze hutsazkoari helduko zaio orain, horretarako, paperera eta papererako diren aipuetatik zenbait lerro hautatuz.

Iztuetaren asmaberrien erabileraz esan berriei, beste honakoak erantsiz:

> Lapurdi aldean ere, hau da okerrena, nabari da Larramendiren eragina. (1961a:55).

eta honen erdal ordaina den:

> Lo malo es que también en Labort se deja sentir la influencia de Larramendi. (1984a:29).

---

[291] Apaizaren sorterrian ez dugu uste zuzen dabilenik Mitxelena. Oker ez bagaude, Txoptea Astigarragako apaiz xelebreari eskaini zizkion bertsook Bilintxek.

[292] Lakarrak (1985a:30) eta Sarasolak (1986:211) zuritzen bide dute delako "gehiegikeria" testu-motan oinarrituz.

gehi, Iturriagaren *Jolasaken* iruzkinekc:

> Larramendigandik datozkion zenbait asmakari gora-behera. (1963a:113).

ikusten dugu Mitxelenak ez duela, nonbait, oso gogoko Larramendiren sorkari gisa batekoak bederen bestek erabiltzea.

Baina, halaz ere, gure ustez, ezin hemendik ondoriozta daiteke, Mitxelenak Larramendik hiztegian bilduak orobat arbuiatzen dituenik. Beste frogak beste, Eraskinaz etsia gogoratu baizik ez dago, jaso berri ditugun lapurtarrezko aipuetan, hiztegikoak erabiltzeari gaitz iriztea baina *Suplemento*koak izanik, berriz, onargarri ez ezik, egoki eta zuzen ere juzgatzea, dei daitezke.

Ez dago bestetik atzentzerik, gero zehaztuko den bezala, Nafarroa garaiko eremu idorrean, Lizarraga Elkanokoak, –Mikelestorenarekin batean–, Larramendiren eraginari esker (hiztegi mailakoak barne) sorterrikideek baino maila goraxeagoa erakutsiko duela.

Honezaz gainera, gogoan izan behar da, kritiketan, *discrección, parsimonia, neurria* eta antzeko hitzak darabiltzala Mitxelenak. Erabilera kontuz eta tientoz eginez gero, horren txartzat, agian, hartzeko modukoa ez dela adierazteko ote?

Honenbestez, hitz asmaberrien puntuan adierazi bezala, gure ustez, Larramendik eraturiko hitzetan[293], nolabaiteko bereizkuntza egitea komeniko litzateke, hitza Larramendik eratua izanak ez baitakar, ezinbestean gaizki eraturiko hitza izatea.

Hau dela eta, euskal autoreak jakin beharko zukeen bereizten, zein Larramendiren (edo Larramendik bilduriko) hitz eratu, ohiko euskal hitz-eraketaren bidekoa zen, euskaldunak, neke gehiegirik gabe aditzeko modukoa –sekula entzun gabea izanik ere–, eta noiz Larramendik, hoberik ezinean, bide honetatik saihestu eta ahal zuen ihespidetik jo zuen ("itxuragaiztoko" hitzak sortuz), kanpotarren ahoak mutu zitezen.

Honekin lotua dator, Larramendik berariaz hesitzen ez dituen hitz berezituen auzia.

Pentsatzekoa da, hiztegi berezituak –zenbait arlotakoak batez ere– direla hizkuntza batean berrikuntza eta eguneratze premiarik handiena dutenak.

Hau honela ikusirik, berez bezala dator ondorioztatzea horretan zituzkeela euskarak hutsunerik handienak eta, honen kariaz, barruti hori litzatekeela eskekoena Larramendik hitz-eraketan bere sorrindarra eta kemena isur zitzan; hemen, beraz, asmatzeko eta huts egiteko aukerarik handienak.

Ildo honetatik, haizbehar hutsa ote, euskal prosa elizgaietatik irten ahala hizperrien (Larramendiren nahiz besteren) egarriak egotea, eta Iztueta izatea, hain justu, Mitxelenak Larramendirenak nabarmenenik darabiltzanak azpimarratzea?

---

[293] Inori hitz baten guraso izatea albora dakiokeen neurri irristakorrean.

Gertakizun beraren ondoriotzat har daitezke, menturaz, Mitxelenak, adibide gisa paperera daramatzan Iztuetaren ondoko (1876tik aurrerako batez ere) lan laikoen aipuak. Larramendiren itzala[294] urte horietan, Iztuetaren zubigintzari esker, gisa honetako literaturan nabaria da:

> Iztuetak ondorengo gutxi utzi zuela pentsatzen duena ez dabil guztiz zuzen, 1876tik aurrera, urtea gora urtea behera, ederki ikusten denez, idazle laikoak ugariiu ahala[295]. Aski genuke lekukotzat Donostiako plaza polit batean Okendo hamaika aldiz garaituaren estatuan daudenak irakurtzea, *argidotar* eta guzti[296]. Bada, haatik, bestelako iturburu aberatsagorik ere.

---

[294] Larramendik Lore-jokoetan izan zuen itzala eta utzi zuen hatzaz, Pagolak (1984) berri zehatza ematen du. Hona, jaidura-giroen zer-nolakoa:

"La influencia de Larramendi en el terreno léxico nunca ha sido tan fuerte como en los Juegos Florales. Alrededor de ellos surge un espíritu nuevo que transformará en muchos aspectos las características de la literatura anterior. Es ahora cuando comienza el teatro vasco moderno, se desarrolla una producción poética importante y la prosa deja de ser predominantemente religiosa. Se trata de buscar a la lengua nuevos campos de cultivo y en este intento se recurre, con una profusión hasta entonces desconocida, al Diccionario Trilingüe. En este sentido, posiblemente lo único comparable a un texto del Consistorio sea una traducción de Iztueta de un documento oficial.

De Larramendi no sólo se toman sus neologismos: también se extrapolan a otras categorías gramaticales -verbos nuevos creados a partir de sustantivos tomados del Diccionario Trilingüe, etc.-, se imitan sus procedimientos para crear voces nuevas e incluso se cometen «errores» como *gaizenda* que se utiliza con el valor de «título nobiliario» cuando para Larramendi es «título, inscripción». Esta fidelidad a Larramendi permite además utilizar con toda tranquilidad palabras castellanas legitimadas por él, cuyo uso en purismos posteriores sería impensable.

En los Juegos Florales se crea y mantiene durante más de treinta años una importante tradición léxica, marcadamente larramendiana, que se desvanece y es completa y rápidamente olvidada ante el empuje que van adquiriendo otros purismos y muy particularmente es de Arana Goiri". (Pagola 1984:55)

[295] "b) 1900 urtea arteko euskal idazleentzat Larramendiren hiztegiari ezin zitzaion hizkuntz aldetikako artzakiarik jarri; hortaz, gaiaren nolakotasunak, tankera eta kultur edukiak alde batetik, eta irakurlegoak -ustezko irakurlegoak- bestetik, baldintzatzen zuten, beste ezerk baino areago, haren erabilera". (Sarasola 1986:211).

Hau oso gogoan hartzekoa iruditzen zaigu.

Gauza beraren isiatzat har daiteke, 1879-1891 epeko euskal leiendezko Toledoren (1990:21,22) iruzkina. Uste dugu merezi duela pasarte luzexkoa hona ekartzeak:

"Xehetasunak alboratuz bada ere, orohar onartu beharra dago leiendak mundu landuan lekutzen [sic] direla. Komunikazio honetan parte hartzen duten elementuen ezaugarriek eskaintzen dituzten zantzuak norabide horretara bideratzen dira. Egiletza jende ikasiaren eskutik dator, erdi mailako edo goi mailako ikasketak egin dituztenak dira, kultura-gai desberdinez iharduten duten aldizkariak dituz" gorpen-leku eta testuetan ez da falta mundu landura igortzen gaituen erreferentziarik; nabarmenak diren ezaugarrietara joaz: Aita Manuel Larramendiren hiztegiaz egiten duten erabilera, iturrien aipamena eta historia-geografiaz erakusten duten ezaguera.

Hainbat eta hainbat hitz oin-oharrez hornitzen dituzte. Gertaera hau, besterik gabe, erabilera arruntekoak ez ziren adierazle da, nahiz eta beharbada baiezpen horrek salbuespen batzuk izan ditzakeen. Hitz horietako zenbaiten oin-ohirra arrazoi semantikoak, eta ez erabilerazkoak, eragina izan daiekeen kasu haietan ere, erdal ordainek agerian uzten dute hiztegi jantziaren arrastoa. Beste hitz batzuren -ez gutxirena- azalpena erabilera-arazoak sortua da: Larramendiren hiztegia dute zuzen-zuzeneko ala zeharkako iturri eta erabileraren esparrura heltzea erdietsi ez duten hitzak dira. Behin edo behin espreski aipatzen den iturria da.

Dena den, Aita Larramendiren hiztegia iturri izan eta erabilera mailan hedapenik ez lortzea, ez da beti oin-ohar sortzaile bihurtzen...".

[296] "Es significativo que aparezca [*argidotar* hitza] en la inscripción del monumento a Oquendo (Plaza de Oquendo en San Sebastián). Según nuestro informante, Javier Mª Sada, el pedestal data del 12 de septiembre de 1894 y la estatua del 21 de marzo de 1895. La inscripción parece ser posterior ya que *aintza* es un neologismo de Arana Goiri del que no se tiene noticia hasta 1897. El texto de la inscripción es el siguiente: *Okendo-ko Antonio / Itsas-egintari aundiyari / Itsas-gizon azkar, / gudari bikañ / Kristau fedetsun, / España-ren almena makurtezrakuan / Sorterriyaren aomena / eun gudetan eusten jakin zubana / Jasotzen diyo naitasunezko / Oroipen au seme ain /*

> Har dezagun *Euskal Erria* (...) eta ez dugu pauskrik aurreratuko Larramendiren gain eta bikainarekin topo egin gabe. Goazen ingurutsu horretan hasi zen Donosti-inguruko teatroarekin. Elkarrizketaz kanpoko zertzeladak ez dira erdaraz agertzen, Barrutiarenean bezala, euskaraz baizik. Euskara honetan: *aurkeztu, biltokia, burtina, egintza, irudia, irudilegia, jostaeta (jostirudi* berriagoa da, dirudienez)..., eta *pertsona* latinez, eta ingelesez bidenabar (*dramatis personae*) esaten den eran. *Damuba... garaiz*-en eskaintzak *donquitea* deritza. (1984b:34).

> Eta zer esan *Euskal erria*-z eta honen gisakoez ia mende erdi batez euskara idatziaren bidean gidari izan zirenez? Zer, iturburu garbi duten Larramendiz? Gauzatxo bakar bat, uste dut: oker baino okerrago ibili zirela. Gerokoak gazteagoen begi-gogoetan okerrak izan diren gisan[297]. (1986a:129).

Iztueta ondoko lanetan Larramendirekin noraino egiten den topo, zein neurritan, norengan eta abarrak sakontzeke utziz, Mitxelenak aipuotan azpimarkatzen du, Iztuetaren bitartekotzaz, Larramendik garai bateko euskal literatura idatzian hatza eta oinatza izan zuela, hau da, XVIII. mendetik zetorren izkribuzko hizkera-molde bati eutsi ziola.

Etena, Mitxelenak –gure ustez, ironiaz– aipatzen dituen "gazteek" ekarri zuten, bestela esan, Larramendiren kontrako oldarra biztu zutenek[298].

2.8.2. BIZKAIA

Bizkaira joz, Mitxelenak behin eta birritan esaten du jesuitaren oihartzuna entzun daitekeela, arestian jaso den legez, baina egia esan, Añibarro[299] da, eta zeharka gainera, Larramendirengandik hartu zuela aipatzen duen bakarrenetakoa, Basterretxearekin batean:

> el Padre Villasante muestra muy bien su [Añibarroren] dependencia de Larramendi, sin que esto quite nada a su profundo conocimiento del léxico vasco. (1963b, *SHLV*:412).

> Mendiburu, más navarro que guipuzcoano de habla. Cardaveraz, sin duda el mismo vizcaino Basterrechea, autor de una famosa composición en verso, el franciscano Ubillos... (1987b:98).

---

argidotarrari aintzez poztutik / Donosti-ko Urlyak". (Pagola 1985:157).

[297] "Orain eun urte Larramendiren itzak itz garbi eta "kultotzat" erabiltzen ziren. Geroxeago beste joera berriagoa nausitu zen emen: itz berriagoak asmatu edo sortu eta erabiltzekoa (...) Sorta onek ikuspegi obea emango digu gure literaturak emeretzigarren mendetik ona eman duen urratsak ezagutzeko, zer artu eta zer utzi duen ikusteko. Utzi, batez ere, Bidasoaz onuntzako literaturan Larramendiren kutsua utzi du. Orain eun urte *Euskalerria* aldizkariaren inguruan sortzen zena ere kutsadura orrek jota zebilen. Geroago ere agertu da kutsadurarik, garbizalekenarena eta oraingo askoren edonondik edozer artu bearrarena (...) Eta zer artu? Gure aurretiko idazleak euskal-giro osasuntsuagoan bizi ziren, euskerak armas garbiagoa artzen zuenekoan". (Akesolo 1987:18,20).

[298] Larramendiren zoriaz artzean esango den bezala, puntu honi berariaz erreparatuko zaionez gero, ez da hemen aztergai hartuko.

[299] Zor hau aztertzen du Urgellek (1985), asmoetan, gramatikan, hiztegian Larramendigandikako zer atzeman daitekeen zehaztuz.

Añibarrok Larramendigandik hartuen seinaleen lekukotasunik ez da falta Mitxelenaren hiztegigintzazko lanetan barreiu, horietako asko, Azkueren hiztegiaren iturburuak miatzean, bereziki, agerian utziak[300].

Hona, erakusgarri soila.
Etzidazu-z ari dela:

> Larramendigandik dator, Humboldt, Añibarro ("aun otro día después (de pasado mañana)") eta besterengana (Bonaparteganaino ere bai ote?). (1971b:105).

jasotzen du edo, beste honakoa:

> Behin baino gehiagotan hartu dut ahotan, Larramendik «Suplemento»-an dakarren "muerte, *baibea*" dela eta, harako Añibarroren hiztegiko pasarte hura: "Muerte, activamente: c. *erioa*. En los cuentos de Peru y Maria, b. *baibea*. Muerte, pasivamente: c: *eriotza*". (1977a:96).

Ez da aditzera eman nahi, Larramendiren eragina bizkaitarrengan, eragin hau zuzena, onartua nahiz zeharbidekoa, Añibarro-Basterretxeagana murriztu behar denik, bai ordea, Mitxelenak eskuarki baieztatzen duena, Bizkaian ere suma daitekeela Larramendiren eragina, alegia, (Iparraldeaz dioenean bezalaxe) miratu ditugun lanetan, Añibarro-Basterretxeak topatu ditugula bakarti[301].

Samalda berean koka zitekeen, beharbada, Fray Bartolome karmeldarra, nahiz

---

[300] Nahiz, Azkue, nonbait, Añibarro, "Larramendi otsoaren ardi-larruetakoetarikoa" zenik ez nabaritu Azkueri eskainiriko azterpuntuan berriz hartuko da auzi hau mintzagai.

[301] Ez du, esate baterako, Mitxelenak Txomin Agirre aipatzen, *Auñamendiko lorean* duen hatza hagitz nabarmen izanagatik:

"Andre Luziak, Portunek, Riktrudisek, Amandok, Adalbaldok, Peru Padarrak... Larramendiren hiztegia darabilte, nahiz eta hiztegi honen presentzia batipat kontalariaren ahotsean nabarmendu. Hor daude Andre Luziaren ahotseko "ustakida", edo Portunen ahotseko "erakaia", "erakidarik" edo Riktrudisen ahotseko "azalkai", "goiende", "beregande", "doskaiña", "begirunetu" edo Amandoren "onkai", "oantasun", "zedai", "doaiñ", "dienf", "izutaldi", "oben" edo Adalbaldoren "leikor", "betuste", "menginde", "illunketa", "ospill", edo Peru Padarraren "deseigoa"; baita ere kontalariaren ahotseko "koiña", "betzigo", "iguiñ" (...) Larramendik bere hiztegira eramandako hitzak dira, baina R. M. Azkuek, esate baterako, bere **Diccionario vasco-español-francés**-en jaso ez dituenak". (Toledo 1989:624,625).

Aipuan isilpean utzi ditugun kontalariaren Larramendigandikakoak hagitz uganaigoak dira pertsonaiek esanak baino (30 inguru paperera ditu Ana Toledok).

Hain nabarmen hauteman daitezkeen hitzek nolatan ez zuten Mitxelenaren arreta bereganatu, galdetzekoa da, apika.

Beharbada, Toledok (1989) ematen duen eta jasotzen duen Lhanderen arrazoia, hots, zabalkunde eskasa izan zuela Agirreren estreinako lanak, Mitxelenaren hitzen atzean suma daitekeenarekin uztar daiteke:

"Se sigue considerando a Domingo Aguirre (1865-1920) como el mejor de los novelistas en lengua vasca. No debe este título al primer ensayo en el género todavía en boga en el país de la novela histórica (*Auñamendiko lorea*, 1898), ni siquiera a *Kresala* (1906) (...) sino a Garoa ("El helecho", 1912), la novela del caserío vasco". (1960b:156).

Mitxelenak zehatz esaten ez duen darabiltzan hizperriak Larramendigandikakoak dituenik:

> Es inevitable así una cierta pérdida de frescura y de naturalidad, en comparación sobre todo con un fray Bartolomé, que emplea un vizcaíno de tinte muy local, aunque tampoco libre de neologismos. (1978d, *PT*:359).

Astarloa, berriz, Kintanaren artikuluan esaten denaren kontra, kanpoan uzten du Mitxelenak:

> Ez dut uste, inondik ere, Astarloa Larramendiren "jarraitzaile" izan zenik: ondorengoa, bai, aitzindariaren onak hobetu zituena gramatika aldetik. (1972a:166).

2.8.3. NAFARROA

Lurralde honetan, Larramendiren itzala, ez da, nonbait hegoaldeko beste lurraldeetan adinakoa, Nafarroak bizi duen egoera bakartia dela medio[302].

Salbuespenetarikoa da Lizarraga Elkanokoa, Larramendiren eta ingurukoen lanak ezagutu ez ezik, imitatzen ere saiatzen dena eta honen ondoan Mikelestorena, Mendibururen lagun mina[303]:

> También debió partir de Larramendi el impulso que movió a Joaquín Lizarraga de Elcano a escribir en el poco cultivado alto-navarro meridional bastantes obras. (1964a, *SHLV*:6).

> Eta Lizarraga bezalako nafarrik, alegia Larramendi, eta Larramendiren ingurukoen lanak ongi ezagutzen eta imitatzen zituenik ez da erraz aurkitzen. (1981a:64).

Aurrego, Lizarragari Larramendigandikakoak usatzeak, on besterik ez dakarkio, nafar idazleen barrutian zabarkeriatik[304] hegaldatzeko lagungarri baitzaio[305]:

---

[302] Halaz guztiz ere, bakoitza bere aldetik dabil eta horrexek egin du kalte izugarria, batez ere bazterretako eskualdeetan, esate baterako Nafarroa garaian.

Horiek baitira euskararen eta euskal literaturaren aldetik besteekin harremanik gutxienak izan zituztenak. Horretarako aski duzue Nafarroa garaiko edozein idazle, hamazortzigarren mendeko Lizarraga, esate baterako, hartzea; hor ikusiko duzue idazle horrek zer ikusi gutxi duela bestetan ordurako landua zegoen hizkuntzarekin". (1981a:64).

Lizarraga, halere, testuan jasoko den bezala, eremu horretan burua agerian ateratzen duen bakartizat dauka Mitxelenak.

[303] (1963a:.60).

[304] Sarasolaren (1986:212) ikuspegitik, igorlearenak ez eze, hartzailearen kultur mailak ere ikuskizun handia leukake.

Erka daiteke, Mitxelenaren honekin:

Lizarraga ez zen, haatik, zabarrenetakoa: ez da ikusi besterik nola ballatzen zen Larramendiren aberastasun irabaziberriez (*aldiritar* ere ezagutzen zuen). (1984b:42).

Larramendiren oinatzetan datozenak ahotan dituela eta, Lizarragaren andoaindarrarenganako zorrez duen iritzia, hala ere, Mitxelena zendu ondoan argitara emaniko lanean[306] leuntzen du:

Mendiburu [sic], más navarro que guipuzcoano de habla, Cardaveraz, sin duda el mismo vizcaino Basterrechea, autor de una famosa composición en verso, el franciscano Ubillos, el sacerdote navarro Miquelestorena y también, aunque no de la manera directa que antes se pensaba, Lizarraga de Elcano en Navarra. No habría que olvidar tampoco su relación con corresponsales como el carmelita Araquistain y Gandara de Guernica. (1987b:98).

Ez du iritzirik aldatzen, ordea, Mendiburuk lagun mina zuen Mikelestorena apaiz nafarraz.

2.8.4. ARABA

Mitxelenak berariaz lurralde hau Larramendiren eraginpekoen artean ez aipatuagatik, arabar bat tartean denez gero, egoki ikusi da –zalantzaz bada ere–, honi ere tokia egitea.

Arabar bakar hori, ezpalaren lainopean uzten du Mitxelenak larramenditarren artekotzat jo beharraz den bezainbestean: Gamiz sabandotarra da paperera eramana:

Harek [Larramendik] sortu zuen giroan hazi ziren Mendiburu, lehengoa eta oraingoa, Kardaberaz, balta Basterretxea eta Gamiz bera ere, urrutitik bederen. (1983c:96).

"Urrutitik" Larramendik sorturiko giroan haztea, ez da erraz bistaratzen justu nola haritu behar den, Gamizen lana aurkeztatzean ere ez baitu ezjakina uxatzeko daturik aski ematen. Asmoen aldetikako eragin soilaz ari ote da?

"Eta jendeak ez zioia predikariari eragiten hizkera moduan, honek hari baizik edo, are zehazkiago, elkarlanean zebiltzala bata bestearekin, XVIII. mendeko *FLV*-en argitara zen Gesalaz aldeko dotrinak azaltzen digu (...) Ez da entzuleen auzia: hauek *beti* beste *pèrpetuamente* hura bezain aise gutxienez konpreni zezaketen. Gipuzkoarrak, txukunegia ez izanik, ez zuen urrutiago joan behar izan bila. Nafarrak, ordea, bere jakinduria erakutsi behar zuen eta ongi zekien horretarako egokiagoa zela erdara euskara baino. Nahiz entzuleen kaltetan izan.

Horrelakoak gertatu ohi ziren, besteak beste, ez entzuleen laguntza eta mesedetan, idazle-hizlariari erdara politago, jantziago, dotoreago iruditzen zaiolako baizik". (1984b:42).

[305] Aldera daiteke hurriagaz eta iztuetaz esanekin.

Bestalde, adierazpide honek ez bide du esan nahi, Mitxelenaren begietan Lizarraga idazle gorena denik: "Elkanoko Lizarraga bera, zein ere garbizale eta landu agertu nahi duen hiztegiari buruz, ez du joskeran Mendibururen urrutiko antzik ere". (1982a:104).

[306] (1987b:98).

Alta Goikoetxea Maizak ikertu du hemen ea gure sabandotarra[307] ere Larramendiren zordun ote den bere euskaltzaletasunean. Orduan jalo zen, dena den, eta bizi ere orduan bizi. (1983b:114).

2.8.5. IPARRALDEA

Lapurdi aldean ere[308], hau da okerrena, nabari da Larramendiren eragina, eta ez Hiribarrengan bakarrik: Hiribarrengan adina ezagun da Harrietengan. Baita hemen hain jatortzat daukagun Haraneder rengan ere, hobeto esan, Harriet-ek zuzendu eta argitara zuen *Testament Berria*-n. Berdin bitza nahi duenak Larramendiren *Suplemento*-a eta Harrietek darabilgun liburuari erantsi zion "Hiztegi laburra, laur Ebanyelioetan iracurtcen diren cembait hitcen, escualdun guehienentçat, adibidea". Nolanahi ere, Harrietek ez du ezin konpon daitekeen kalterik egin Larramendiren *Suplemento*-ari gehiago zabaldu diolako atea, Azkueren antzera, haren hiztegiari baino. (1961a:55)[309].

Harriet, larramendizale ezpairik gabekotzat dauka Mitxelenak eta, denboran zehar eginiko aipuetan ez zaio honezazko inolako iritzi-aldakuntzarik sumatzen.

Besterik da, ordea, Hiribarrenekin gertatua. 1961ean[310] eta 1970ean[311], bigarrenean batez ere, "con profusión"[312] hartu dutenetarik zeukalarik ere, geroagoko lanetan juzku okerra zuzendu gogo du Mitxelenak, poema-lanei dagokien aldetik, behinipehin:

Larramendiren urratsetan datoz, Kardaberatzez kanpora, Mendiburu (eta Mikelestorena), Basterretxea, Ubillos... Jesultak aldegitera behartu ondoren ere, Larramendi hil eta hurrengo urtean, bestek hartuko du haren xedea eta jokabidea, hurbilagotik nahiz urrutiagotik. Hor duzue Lizarraga apaiz nafarra eta, nahi baduzue, Harriet, Haraneder-en itzulpena Larramendiren hiztegiari esker zuzendu (nahiz okertu) zuena. Inolako kulparik erakusten ez duena, nik besterik esan arren, Hiribarren-en *Eskaldunac* poema da. (1983a:60).

Nolanahi ere, diodan bidenabar, Hiribarren, *Eskaldunac* poeman eta beste zenbait bertso-lanetan, ez zen segiziokoa izan. (1984b:33).

---

[307] 1983ko, hots, urte bereko "Gamizen Olerkiei sarrera" artikulutxoan, *sabandoar* darabil Mitxelenak berak.

[308] "Etxepare [Jan] garbizale agertzen zaigu. Ori Lapurdiko idazleen artean gauza bakantxoa da. Emeretzigarren mendean aurkitzen dugu bat, Josef Egiategi, Larramendiren itzez josirik bere idazlanak idatzi zituena". (Akesolo 1987:18).

[309] "Lo malo es que también en Labort se deja sentir la influencia de Larramendi y no tan sólo, como se suele sugerir en Hiribarren: la influencia es tan clara en Harriet como en éste. La hallamos incluso en Haraneder o, para hablar con más exactitud, en el *Testament Berria* retocado y publicado por Harriet, que aquí solemos considerar con demasiada frecuencia como un modelo de lenguaje castizo (...) Lo que no podemos ignorar es que los escritores posteriores han echado mano, casi sin excepción, de Larramendi y, por tanto, de sus neologismos, los unos (Joaquin Lizarraga, Iztueta, Hiribarren) con profusión, los otros (J. B. Aguirre, Lardizabal, Harriet) con parsimonia". (1984a:29).

[310] "Euskal iztegigilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan" (1961a).

[311] "Introducción y estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue" (1984a).

[312] (1984a:29).

Eta gertari beraren seinale da, Azkueren iturriezko azterlanaren berrikustatzean, arestiko iritzia zuzendu gogo izatea eta halaxe adieraztea, 1983an erantsiriko "Codicilio de 1983" delakoan:

> Ahora que conozco mejor a Hiribarren puedo asegurar que, ocurra lo que ocurra con su diccionario que no me ha sido accesible, su *Euskaldunac* y algunas obras menores están asombrosamante inmunes de larramendismos[315]. (1984a:89).

Haranederri dagokionez, berriz, ez dago justu jakiterik halakotzat ote daukan Mitxelenak, Harrieten galbahetik pasatzean "larramenditu" zela honen lana esaten baitu[314].

> Halaz guztiz ere, Azkuek ez zuen iturri hori zeharo agortu. Asmatuen artean jatorrik asko dakarrelako aurrenik – batez ere azken-aldean erantsi zion "Suplemento"-an – eta jator edo asmatu, hango hitzen aztarna uste baino euskal idazle gehiagotan aurki[315] daitekeelako[316] gero, hemengo jatorrenetan eta Bidasoaz haranzkoetan[317] ere bai. Etxeberri Sarakoa bera, nik uste, zordun ageri baita. (1966a:68).

Larramendi eta Etxeberri Sarakoaren arteko harremanak ere, ez daude osotoro garbi, hitzen mailari dagokionez, bederen[318]. Honen erakusgarritzat har daiteke, hitz jakin batzuen emaile-hartzaile zereginak zehazteari Mitxelenak eskainia.

Aldien ardatzari atxikiz, honakoa ikus daiteke:

Aipamenik zaharrenean, Etxeberri Larramendiren balizko zorduntzat dauka Mitxelenak:

> Larramendiren eragina eta kutsua, ene iritziz, uste den baino urrutiago heldu da hitz gaietan. Etxeberri saratarrak, adibidez, *alosia* darabil (*Obras, 123gn. or.)* latinezko *musa* itzultzeko eta beste leku batetan ere baliatzen da hitz horretaz (...) Bestetan ez dut aurkitzen hitz hori, Larramendigan izan ezik (...) Ez ote da, beraz, Azkuek jaso ez duen hitz bitxi hau andoaindarraren semeetarik bat? (1961b:67).

---

[313] Gogaide du Mitxelenak Altuna *Eskaldunaken* paratzaileak; ez du Larramendigandikakorik aurkitu.

[314] Komeni da gogoan izatea Haraneder ixuraldatu gabeak, Mitxelena zendu ondoren ikusi duela argia (Altuna 1990). Paratzaileak ez du Larramendigandikakorik aurkitu.

[315] Jat. *arki*.

[316] Jat. *ditekeelako*.

[317] Jat. *arunzkoetan*.

[318] Lakarrari (1985a:13), elkarren arteko harremanak argituak ez daudelno, gogobeteago zaio "gogaideez" hitzegitea, "jarraitzaileez" hitzegitea baino.
Harremanez, halaber, (Lakarra 1992a).

1963ko lanean ere, ezpalbide den *alosia* hitzaren asmatzea Larramendiren isurietatik gertuago ikusten du lapurtarrarenetatik baino, azken honi, "poco dado a la verbifactura"[319], irizten baitio.

Ildo beretik:

> En todo caso, se piensa *a priori* que Etcheberri - admirador, seguidor, imitador y hasta transcriptor literal de Axular - es el autor menos indicado para recurrir a neologismos que, además de ajenos, eran de discutible calidad. Y, sin embargo hay coincidencias que no pueden ser debidas al acaso. (1984a:29)[320].

Halarik ere, 1965eko euskal lan batean[321] esanari, zalantzaren itzala antzeman dakioke. Mitxelenak duda egiten du, ez du garbi Larramendik Etxeberriren ondoren hartu ote zuen hitza.

Hona hemen aipamena:

> Zenbait argitasun, hizkeraz. Badira hemen hitz batzu ia berak [Etxeberrik] eta (bere ondoren?) Larramendik baizik erabiltzen ez dituztenak. Hauetarik dituzue *alosia* (<musa>, <harmonia>, Larramendik dioenez) eta *huzkuria* <senipartea> edo hemen. Beste bat, *hauterize* ongi aldatua badago, Etxeberrirena da, <hautespena, auke.amena> adierazteko, eta orobat *astrugaizki* <moldegaizki, itxura txarrean>. (1965a:70)[322].

Nolanahi dela ere, eta hemengo erantzun garbirik ezean, bestelako hipotesian oinarritzeko eskubiderik ba ote dagoen gogoeman daiteke.

Beste bukaerako bi hitzok, Etxeberriri leporatzen dizkionak, ematen al diote bide bestea, *alosia* alegia, lapurtarrak sortua izan daitekeela ondorioztatzeko?

Azkueren hiztegiaren iturburuen ikerlanean, zalantzak aidean uzten ditu Mitxelenak, egoera honela adieraziz:

-Larramendik eta Etxeberrik elkar ezagutzen zuten.
-Larramendik aitortzen du Etxeberriren hiztegiaren eskuizkribua eskuartean izan eta

---

[319](1963b, *SHLV*:412). Gu ez gaude horren seguru horrezaz. Altunak (1988d) erakutsiaren arabera

[320]"Baina arazo horretan, lanabes faltaz sartu gabe, garbi dago Etxeberrik teorian zilegitzat jo zituen hitz berriak praktikan ere erabili zituela; hor dira bere gramatikazko *komuntzadura, komuntzatu, izenordain, laburdura* (=<syncopa>), *etorki, berretkailu*, etab.". (Lakarra 1985a:22).

[321]"Sarako Joanes Etxeberriren *Euskal herriko gazteriari*" (1965a).

[322]Altunak (1988d) zerrenda horretako *alosia, astrugaizqui* bildu zituen Axutarrengan irakur ez daitezkeen Etxeberriren hitzen artean.

erabili zuela.

-Bestetik berriz Etxeberri, "Axulartarra" izaki, ez omen litzateke hizperrizaleen arteko hautagai aproposa, esaten denez.

-Halere, Larramendiren Hiztegi hirueledunean jasorik dauden zenbait bitxi: *alosia, boccantça, huzcuja (uzcuyá)* darabiltza.

-"Hiztegi laueleduna" (Sbarbi-k eta Dogdson-ek Etxeberriri egozten ziotena eta Urkixok autoretza ukatu edo zalantzan jartzen zuena) Larramendirenaren eta eraskinaren zordun ageri da[323].

-Etxeberriren jabegokotzat jotzeko eragozpen bakarra data litzateke, Etxeberri 1749.ean hil baitzen eta Larramendiren hiztegiak 1745ean argia ikusi zuen.

> Cabe, por lo tanto, en lo posible, y hasta en lo verosímil, que el manuscrito sea de Etcheberri, lo cual vale tanto como considerarle acreedor en su comercio con Larramendi. En tal caso, Etcheberri sería la fuente primera de *alosia*, forma que aparece aislada en el léxico vasco, de *boccantça*, que pudo ser popular o formado por analogía, y de *huzcuja*, que sería un derivado de *utzi*, «dejar». (1984a:30).

Mailebuaren norabidea aldaturik ote, lehenengo aipamenetik hona? Azken hitza hau ote zuen? Ahoa bete esaterik ez badago ere, aztertuen arteko azkena dela (bestelakorik itzuri ezean) adieraz daiteke, Azkueren iturriezko lanari erantsiriko "Codicilo de 1983" delakoan ez baitio deus kontrakorik[324].

---

[323] Ez dugu uste premiazko denik Mitxelenaren arrazoiak zehatz-mehatz hona aldatzea.

[324] Azken lekukotasunak deitu dirugula eta, komeni da, apika, *OEH*-n paratua hona aldatzea:

"**alosia** (Lar, Sb-Urq). ♦ Armonía; musa (?). Es ésta una muestra que podría ser crucial, de las relaciones de préstamo entre Larramendi y ES. Para el primero, *alosia* es exclusivamente «harmonía» y traduce «musa» por *musa*. El segundo, sin embargo, atribuye este último valor a la palabra: cf. pág. 123 (ed. 1907) «*Musa*. Alosia», «*Musae*. Alosiac», pero los ejemplos parecen significar claramente 'armonía'".

2.9. LARRAMENDIREN ZORIA[325]

Larramendiren zoria gora-behera handikoa izan da Mitxelenaren ustez. Bere garaitik hasi eta mende t'erdi handian izena eta omena ez zitzaizkion ukatu, baina loraldi honek ez du bere horretan iraun:

> Luego, con el progreso de los conocimientos y con la aparición de nuevos instrumentos de trabajo, su prestigio fue decayendo. Al fin ha llegado a perder hasta el aprecio de sus paisanos que durante tiempo fueron por lo común admiradores incondicionales de su persona y de su obra (1959d, *SHLV*:900).

Izen- eta omen-guttiestea (are bezteraino ere iritsi zena), egile zahar anitzi gertatzen zaion arrazoiengatik agitu bide zitzaiola Larramendiri ere adi daiteke jaso berri den pasartetik. Ez da, ordea, Mitxelenaren aburuz, hori, Larramendi urte batzuetan (handiegietan?) zokoratuxe gera zedin jokatu zuen arrazoirik erabakigarrienetz:

> Ez zuen aldi joanen errotarriak eho haren oroitzapena bestela bezala: jende azkarra eta langilea behar izan zen horrenbestetarako. Izenez izendatuz, Arana Goiri eta Azkue, 1900 ingurutik aurrera. (1984b:34)[326].

Aldien joan-etorriek ekar ditzaketen zaharkituez atzentzeko eta arnasberritzeko gogoak ez ziren, bada, aski izan andoaindarraren errainua urratzeko; ohartuki harturiko erabakien ondoriozko kontrako oldarrak behar izan ziren Manuel Garagorri Larramendiren patua aldaraz zezaten.

Mitxelenak dioenaren ildotik, "izenez izendatuz" paperera dituenak -nor bere arrazoiengatik- izan bide ziren euskal munduan, aitzindariaren arrastoa iluntzen eta desagertarazten saiatu ziren indarrik bortitzenak, jesulaguna, urte handitan zehar, izengaiztoko bilakatzeraino iritsiz.

Kontrako indarraren bultzatzaileei atal berezi bat eskainiko diegunez gero, ez gara hemen gaian murgilduko eta, geroko utziko dugu arbuiatzearen atzean egon zitezkeen zioen argitzea.

Larramendiren zerk iraun duen gaur arte galdetuz gero, Mitxelenak, hitzen mailan, honako *txirbilak* aipatzen ditu:

---

[325] Lakarra (1985a:24), Sarasola (1986).

[326] Ideia bera berresaten duen aipamen bat besterik ez dakargu erakusgarri.

> Andoaindarrarenak oro uxatu zituzten batzuen eta besteen artean, lauzpabost ale baino ez dela geldítzen. Tira, *eskutitza*, *garrantzia* (hark *garransia* idatzi zuena), eta *berezitu*, orain berriro berpiztua. Besterik geratu da eta lehentxeago eta gehixeago. Neronek, esate baterako, *oguzi* irakurria dut "(ahoz) ebaki" adierazteko; hain aspaldiko ez diren Euskaltzaindiaren agirietan ikus daiteke elkarte hori hango edo hemengo *Ekauta Jauregian* batu zela (ez genuen artean Jaurerririk. Olabideren itzulpenetan izan ezik); *bertiza* eta *bertiztu* Artetxe zenak erabili bide zituen azkenengoz, eta premia gorrian gaudenean galdutzat utzi behar.
>
> Hona, zerrenda apurren bat luza badaiteke ere, antzinako ondasunetarik geldítzen zaizkigun txirbilak. Besterik behar galduen truk eta besterik sartu zen. (1984b:34,35).

Lekukotasunei begira, beraz, badirudi, guganaino Larramendiren askorik ez dela iritsi, hau da, uxalanean aritu zirenek ezin hobeki burutu zutela asmo zutena[327].

Andoaindarraren oroz atzentzeak, beste ondorioak beste, Mitxelenaren begietan euskal hitz-altxorrari galera ekarri diola pentsa daiteke, hitz haien ordez, berriz ere hutsarteak betetzeko, besterik sartu behar izan zelako.

Hemen koka daitekeela iruditzen zaigu, errenteriarraren kexua, hitz-altxorrean nola-hala tokia zuten (edo bide horretan zeuden) hitzak arbuiatzean, ordezkaritza beti egoki bete ez ote zen aierua susmatu uste baitugu, hutsak betetzea, desegoki (ohiko euskal hitz-eraketaz atzenduz) nahiz, geroago, mailegutza neurrigabera joz egin izan baita[328].

Beraz, Larramendik plazaratuak beti itxura onekoak ez baziren ere, izkribuzko euskara-molde baten osagarri ziren neurrian, euskaldunek onartu bazituzten ontzat ematekoak zirela eta betiko "egin-desegitean", "lan-deslanean" aritzeak euskarari eta honen euskarri den euskararen erabilera landuari kalte besterik ez diola ekarri ondoriozta al daiteke adierazpide hauetarik?

> Hizkuntza kontuetan, eta hortaz [sic] ari gara hemen bestetaz baino areago, ez dira beti onartzekoak, behar bada, Larramendik zorrozki adtzera ematen dituen usteak. Onartzekoak dira, noski, geroko belaunaldiek zuzen nahiz oker, onartu dituztenak. (1982a:107).

Mitxelenaren ikuspegian, Larramendik egun duen itzala hitzen barruti soilera mugatzea gehiegizko xinpletzea litzatekeela dirudi.

Hitz zehatzen kontuak ez eze, euskal hitz-altxorra aberasteko, zuzentzeko eta aberasteko burubide osoa utzi baitu, egun, oraindik ere, baliagarri dena. Eta hauen ondoan (gainetik? apika), hor dago Larramendiren hilburuko den asmoa eta egitamua, garaiak garai, nahi zuen "euskara noranahikoa" erdietsi beharraren akuilua. Akuilukada honek eraginik, gerora ere ariko dira, euskararen orainak eta geroak kezkatzen dituen euskaleri langileak, buruen-buruenik, Koldo Mitxelena.

---

[327] *Boutadetzat* hartu beharko litzateke, orduan, honakoa esatea?

Larramendik berak bere asmakariak bestek erabiltzerik nahi ez zuenez gero, alde honetatik, urratzaile-desegileok ederki baino ederkiago bete zuten haren desioa.

Beste kontua litzateke, asmakariekin batean "Larramendi-usaineko" edozer desagertarazteaz ondorioztatu beharko litzatekeena.

[328] Oroi (1984b) lanetik harturiko pasarteez iruzkinduak.

Ez litzateke, ordea, zuzen atal honi amaia ematea, bigarren puntuan esaniko zerbait berresan gabe lagata: Mitxelenak –besteak beste[329]–, Larramendiren berreskuralanean (ariketa honek dakarren azterketarekin batean) eginiko saloari esker, badutela egungo kezka-iturri askotxoren iturburua non araka gaurko euskararen egoerak eta gerokoaren etorkizunak arduratzen dituen euskaltzale-euskalariek.

[329]Uste dugu eginbehar honetan Orixeren izena ez dela estali gorde behar.

I. ATALA

3. Kapitulua: R. M. AZKUE ETA S. ARANA GOIRI

3.1. ATARIKOA

Tesiaren lehen atal nagusi honetan zehar ikusten ari gara eta ikusiko dugu Larramendi, Orixe eta Lizardi azken honen neurtitzez elkarganatu dituela Mitxelenak, lokarria, nork bere erara, euskara noranahiko bilakatzea asmo izaki.

Errenteriar ikertzailearen beraren eredu eta mamilanetara iritsi ahal izateko, halaz ere, egoki dirudi eredugarri dauzkanez esanetan ez eze beste nonbait ere arakatzeak: euskara noranahiko bilakatzeranzko ibilbide horretan, behaztoparri jotzen dituenez adierazietan hain zuzen ere.

Okerrekoek Mitxelenari sorrarazten dizkioten gogoetak, hain zuzen, hagitz bitarteko emankorrak dira, euskara tresna baliagarri bilaka dadin zuzen irizten dionaz eta arbuiatzekoaz jabetzeko.

Hari honetan, oharteman daiteke izkribuzko Mitxelena kezkatzenago bide dutela euskal barrutikako arriskuek, euskarak kanpotik jasaten dituen erasoek baino. Euskal barrutitik bertatik heldu direnak, zehatz esan, euskalaritza-literaturen esparruetan ari direnek sortuak, hizkuntzari bere gaibidean debeku bilaka baitakizkioke Mitxelenaren ustez.

Ildo honetan, tesiaren atarikoan genioen bezala, gure ustez, Mitxelenaren ihardunbideak, bere hitzez esateko, "nolakotasunean jauzia" dakarkio euskalaritzari.

Delako jauzi horrek alderdi bat baino gehiago baditu ere, tesi honen taxuerarekin eta bereziki kapitulu honekin ikuskizun bete-betea duten bi nabarmen daitezke: euskalaritza, benetako hizkuntzalaritza-filologien bideetatik abiaraztea[1] eta, euskara noranahiko bilakatzea galerazten duten izterbegien bila kanpora ez jotzea.

Jauziaren lehen ondorearen zantzuak, Mitxelenak jendartera bere baitarikako iritzietan eta batez ere, mamituriko ikerlanetan garden antzeman daitezke. Bada besterik, haatik. Errenteriarrak euskalarien lanak auzipetzen dituenetan ere, sarritan, halako lanei egiten dien kritiken atzean gogo-mingarri bera kausitzen du, hots, hizkuntz jakiteetan jantzirik ez egoteak daramatza euskalari asko eta asko okerreko azterketak egitera, jakiteek ezinbestekoak dituzten oinarrien berri ez dute eta.

Besteren lanak ebaztean plazaratuek ere ematen dute bide arestiko "nolakotasunean jauziaren" bigarren ondoreez mintzatzeko. Izan ere, behialako euskararen aldeko apologistek euskararen alde ari direnean, batipat, kanpoko erasoan ikusten dute euskararen galbidearen zioa.

---

[1] Mitxelenaren etengabeko kezkabide honen lekukorik falta ez bada ere, osagarri moduan erantsi nahi genuke Mitxelenaren Euskal Idaztan Guztietan (*MEIG*) bildu gabeko hau.

Mitxelenak 1964ean, hizkuntzalaritza autu zuten hitzaldi batzuk eman zituen Donostiako Ategorrietan. Hauek ostean *Zeruko Argia*ko E'tar N. batek Mitxelenarekin izandako solasaldietik honakoak atera daitezke:

"M.–Gauzak nola agertzen diren, ala erabaki bearko ditugu, gerokoak. Baiña nolanai, oraingo asiera au, batez ere jende gazteeen artean gai auetariko gogoa esnatzeko bide egokia izango da.

E.–Ez litzake txarra izango, bakarra zaitugun Maixu orrek, gazte-talde bat linguistika-bideetan sartuko bazendu.

M.–Bai, gure artean, borondate oneko ezjakin asko degu, gure gaietan oker jokatzen dutenak. Euskalerriak, jende ikasia bear du, gure euskal-esnaerak izen aundia artu dezan". ("Gci-ikaskintza itzaldiak. Luis Michelena'k emanak", *Zeruko Argia*, 1964, Epailak 8, 8. or.).

Mitxelenak hau ez ukatuagatik, ikusmoldean jiratzea dakar, euskaldunek berek erdaraz, baina batez ere euskaraz egiten dituztenak aztergai hartu eta euskara idatziaren finka- eta garabidean zertan izan ote daitezkeen kaltegarri agerian utziko baitu, hurrengo kapituluan astiroago ikusiko den bezala.

Euskal barrutian oin hartuz, bada, eta Mitxelenak euskaraz -bereziki- idatzia miatuz, nabarmen ageri da euskararen etorkizunari begira, euskarak bizitzeko nahitaezko eta noraezeko dituen nora- eta noiznahiko bilakabidean, bizitzea egokitu zaion garaian, zorigaiztoz, oztopo eta kezkabide begitantzen zaion hizkuntz jokaera bat oraindik ere lndarrean ikusten duela: garbinahi[2] neurriz kanpokoa[3].

Joera garbizalea ez da, Mitxelenaren ikuspegitik, "berez" arbuiatzekoa, baina sustrai aspaldikoak dituen jaidura honetan[4] - Larramendiri eskainiriko kapituluan ikusi bezala graduak eta mailak bereiztea ezinbestekoa da.

Orain azterkizun hartuko dena, bestek ez bezalako ondorea utzi duen mende-hasierako garbizaletasuna da; hobeto esan, mende-bihurgunean gertatu zen etenaren hazian dagoena[5], ikuspegi hau muturrerarino eraman dutenak -eta ez behialako garbizale haiek- baitira Mitxelenaren begietarako benetako behaztoparriak.

Baina, jokabide hori garatu zutenek hutsetik sortu ez zutenez gero, iritzien etorkiari

---

[2]*Garbinahi, garbiasmo* eta antzeko izengoitiez baliatuko gara **joera orotarikoaz** aniko garenean. *-tasun/-keria* atzizkiez osaturiko jokoaz ere bai, aldizka, hauen arteko auziaren segurtasun-faltaren eta adierak bereizteko definizio *operatiborik* ezaren jakinaren gainean, halaz ere.

"Hay quienes, sin haber oído hablar de Bridgmann, poseen la definición operativa que permite separar *garbitasuna* de *garbikeria* o similares en el léxico". (1984d, *SHLV* 655).

Joera-ahaideentzat, berriz, *garbizale* erabiliko dugu Mitxelenak darabilenan eutsiz.

Nolanahi dela ere, saiatuko gara, graduak eta mailak bereizten.

[3]Auzi honek noraino antegatzen zuen Mitxelena, garbi erakusten dute bere lanek, euskal letretan eginko sarbidetik bertatik hasi (1951c) eta -iskanbila amaitatuxe bazegoen ere- 1975 ingurukoak artekoek, hurrengo kapituluan zehaztuko dugun bezala.

[4]"Bi hitz bukatzeko Oihenarten hizkerari buruz. Bet-bateko polemika-gai gogaikarri hau ezinbestean ukitzen dut, ez gehiegi luzatzekotan, zori gaiztoz ezin-utzizkoa delako. Oihenart garbizalea genuen. Arta Olabide gogorazten digula esango nuke, nahiz hitzei dagokienez, nahiz hain gogoko zituen adizki sintetikoei". (1953b 52).

"Esan behar da ere Larramendiren garbitasuna ez zela [Jat. *zala*], ezta gutxiagorik ere, beste geroagoko batzuen mailara heldu". (1959a:125).

Zuberotarrari dagokionez, Oyhartzabalek (1993:22) jaidura hori beste testuinguru zabalago batean kokatu ez ezik, izendapen beraren gerizpean bildu ohi diren bestelako jarrera zehatzetarik ere bereizten du:

"Ororen buru Oihenarten asmoa frantses olerkigintzan Malherbe batek izan zuenarekin pareka daiteke. Hark bezala mintzairaren garbia kontuan hartu nahi izan zuen Oihenartek. Euskal letretan izan dugun lehen garbizalea dugu Oihenart, garbizaletasun hori arrazoizkoa eta euskararen barnetik pentsatua izanagatik, eta ez soilik erdararen arabera. Larramendiren ondotik eginen den bezala".

Larramendiren gainekoak, aurreko kapituluan jorratu ditugu.

[5]Honen erakuskarietarikotzat har daiteke, beharbada, batasun-bidetik abiatu asmoz edo, mende hasi berriko bilkuretan (Hendaian, Hondarribian...) gertatua:

"XX. mende-hasieran, ortografia arautzeko asmoak gidatuta, euskaltzaleak lehendabizi Hendaian elkartzen dira 1901ean eta hurrengo urtean (1902) Hondarribian. Eztabaida latzak izan ondoren, harremanik hoztu egin dira Ipar eta Hegoaldeko euskaltzaleen artean. Eten honen ondorioz, bakoitzak bere bidea egingo du. Honela, Iparraldekoek "Euskaltzaleen Biltzarra" sortzen dute eta Hegoaldekoek, berriz, "Euskal-Esnalea". Helburutzat euskararen kaupena eta hedapena daukaten bi kultur elkarte dauzkagu, beraz. Bidasoako mugaz alde banatan. Eztabaida horren atzean, Sabino Aranaren hizkuntz arauak ziren hango euskaltzaleak zatitzen zituenak, haren itzala, linguistikoa baino areago politikoa, ukaezina bait zen Ipar Euskal Herrian ere". (Iztueta 1991a:280).

begiratu beharko zaio, aldi bereko bi jomuga iritsi nahirik. Batetik, etorkia bera argitu, baina honen ondoan, azalera eramateko –jarralleez ariko garen hurrengo kapituluan erakusten saiatuko garen bezala–, segiziokoak aitzindarienak azken muturrera eramatean –aitzindariek asma ez zezaketen gisan, menturaz– ez zitzaizkiela, ez beti bederen, bide-erakusleei estuegi lotu.

Mitxelenak idatzietan oin hartuz, joera horren ernamuinean[6] bi dira –zalantza-izpirik gabe–, aipatu beharreko izenak, bakarrak ez izanagatik bestek baino oihartzun eta hatz sakonagoa utzi dutenak: Mitxelenak frankotan elkarren ondoan aipatzen dituen, Sabino Arana Goiri eta Resurrección María de Azkue, "iraultza parea"[7].

Bizkaitar biok, ikusiko den bezala, ez dute elkar hartzen auzi frankotan baina batzen dituen gairik ere ez da falta, Larramendiri eraso egitea edo, oldartze honekin ikuskizun sakona duen garbizaletasuna, urrutirago gabe.

Hauei bioi Mitxelenak zer juzku egiten dien ikustea, ezinbestekoa da, beraz, gaiaren konplexutasuna bere betean argiago gera dadin. Hauexei eskainiko zaie, honenbestez, kapitulu hau.

Aurrera baino lehen, halaz ere, orain arte esanetarik ondoriozta litekeena argitu behar da.

Bi urratzaileon hazia oso egoki ernatu ez zen aidetik begiratzea eta halaxe aurkeztatzea, arestian adierazi den bezala, ez da erabat zuzena, ez egia osoa. Mitxelenaren ikusmoldean, biok dute hutsen ondoan, merezimendurik aski, euskara sustatzen iraulkaturiko indar-kemenak direla medio, zor zaizkienen aitorra ezagut dakien.

Adinkide biok, nahiz mamituriko zer guztietan ez duten asmatu, eta nor bere bidetik ibili bada ere, euskalaritzan bultzaraziriko enbataz, besteak beste[8], euskararekiko, euskal literaturarekiko jarrerari astinaldi gaitza eman diote, "berbizkundea" deituriko mugimendua sortu ahal izateko bidea urratuz, esate baterako[9].

---

[6]Altube ere (1934:215) nabaritua zen bi euskaltzaleon eraginaz:

"En efecto: por una parte Arana-Goiri con su sagaz penetración en el examen y discusión de los problemas que se planteaba, con la subyugante dialéctica capaz de convencer y cautivar a todos sus lectores, y por otra parte Azkue con la autoridad proveniente de su completo dominio del euskera hablado, del lenguaje íntimo heredado de sus padres, marcaron de una manera indeleble aquella ruta, a nuestro juicio, «excesivamente idealista», y ello, repetimos, en el arranque mismo del período renacentista; con lo cual (lo digo con todo el respeto a mis admirados maestros, pero también con pleno y triste convencimiento) desvirtuaron o agostaron la semilla sembrada por ellos mismos y, por consiguiente, dificultaron grandemente el desarrollo futuro del movimiento euskerista que con tanto entusiasmo y patriotismo iniciaran". (Altube 1934:215).

[7](1960a:128).

[8]Hala diogu, bestelako bistako inplikazioak ere badituelako, buruen-buruenik, hemen azterkizun harruko ez diren politikoak, esate baterako.

[9]"la llamada "Escuela Renacentista" es, en sus diversas manifestaciones, fruto de las ideas que comparten en torno al euskera [sic] dos nombres tradicionalmente enfrentados: Azkue y AG. Con ellos el purismo, como las ideas políticas, se radicaliza extendiéndose, más allá del léxico, a la morfología y, en menor medida, también a la sintaxis. Por otra parte, los neologismos de Larramendi desaparecen a medida que se imponen los de AG".

Honela bada, Larramendiren arrastoa desegiten eta urratzen saiatu ziren bi autoreon lan-asmoak hartuko dira azterkizun, bakoitzari Mitxelenak, zuzen -euskararekiko ardura, zuzpertzailetza, ezeren gainetik- eta oker iritziei -garbikeria, hizkuntza-jakiteetan oso jantziak ez egotea, besteak beste- erreparatuz, harilkatu gogo eta asmo dugun matazan, hots, Mitxelenak "euskara noranahikotzean", bere aurrekoen saioetan epaitzen dituenak, zein toki hartzen duten axaleratzeko asmoz.

Gisa honetara egituratuko da kapitulu hau:

3.2. Resurrección Mª Azkue
- 3.2.1. Sorlanak
- 3.2.2. Ikerlanak
  - 3.2.2.1. Hizkuntzaz atikakoak
  - 3.2.2.2. Hizkuntzazkoak
    - 3.2.2.2.1. Gramatika-lanak
      - 3.2.2.2.1.a. *Euskal Izkindea*
      - 3.2.2.2.1.b. *Morfologia vasca*
    - 3.2.2.2.2. Hiztegigintzazkoak
      - 3.2.2.2.2.a. *Diccionario vasco-español-francés*
- 3.2.3. Batasun-saioen inguruan
  - 3.2.3.1. Euskaltzaindia
  - 3.2.3.2. *Gipuzkera osotua*
- 3.2.4. Azkueren eragina
- 3.2.5. Bibliografia berezia

3.3. Sabino Arana Goiri
- 3.3.1. Idazlea
- 3.3.2. Politika-egitasmoa eta euskaltzaletasuna
- 3.3.3. Euskalaritza
- 3.3.4. Sabino eta sabindarrak

3.4. Arana Goiri versus Azkue

3.5. Laburbilduz

(Pagola 1988:VI).

3.2. RESURRECCIÓN Mª AZKUE (1864-1951)

Esan bezala, Azkueri eta Arana Goiriri bizkarreratzen die Mitxelenak mende-hasierako iraultzaren erantzunkizuna.

Atal osoan zehar ikusi ahal izango denez, hainbat eta hainbat lan egin zuen Azkueren ekarriari zor zaizkio, hein handian, euskalaritzaren eta euskal literaturaren barrutian haren ondotik mamituak.

Asko eta askotarikoak utzi zituen urte handiz bizi izan zen Azkuek, baina oparotasun horretako guztiei ez die Mitxelenak abegi bera egiten arrazoi desberdinak direla medio: Azkueren beraren iritzi-aldatzeak, Mitxelenak bere burua gai batzuetarik gertuago ikustea...

Nolanahi dela ere, ukaezintzat dauka errenteriar hizkuntzalariak, geroko euskaldunak aldez edo moldez Azkueren zordun direla, hau da, nork bere neurrian, euskal kulturaren eta lanen zuzpertzaile den Azkueren iturritik edan dutela, mamitzaile ere baden eragileagandik, alegia.

Hortaz, Azkuek aldeko dituen isuri anitzak eta lan-ahalmen neurriz kanpokoak lagundurik, emango dizkio euskal arloari oso taxukera desberdineko emaitzak, bai euskaraz bai gaztelaniaz.

Bigarren lanok daramate Mitxelena, hain justu, Azkue erdarez baliatu diren euskararen aldeztaileen samaldan kokatzera:

> "Euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea dela" uste duten "zenbait" horiek, hona bat. euskaraz ere idazten bait dute (...) Horretaz gainera, ahaztu egin zaio nonbait U. jaunari esatea hainbeste mindu duten erdal artikulu horietarik bi hiztegi tankerakoak direla: Lafon jaunarena bata, Azkue zenarena bestea (...) "Euskera", Euskaltzaindiaren aldizkaria, ez da inoiz euskara hutsez agertu. Hor azaldu dira, gogoangarrienetatik bat edo beste aipatzeko, Azkueren "Morfologia vasca" osoa –ez da laburra– eta Altuberen "Erderismos" eta "El acento vasco", euskararen kaltean behar bada U. jaunaren ustez. (1956b:126).

Mintzagai den sustatzearen adibide argia da bi astekari sortzea: *Euskalzale* (1897) eta *Ibaizabal* (1903), biak, antza, bizi laburrekoak eta biak, aldi berean, euskal idazle zenbaitentzako elkarleku:

> creó en 1897 el semanario *Euskalzale*, de corta vida, seguido de *Ibaizabal* (1903-1905). (1987b:104).

> ...en los que escribieron autores tan conocidos en las letras vascas como Domingo Aguirre, Evaristo de Bustinza ("Kirikiño"), Urruzuno y Zamarripa. (1960b:142)[10].

---

[10] Hitzez hitz 1958ko laburpenean adierazia (1958a:373).
Ohi ez bezala, pasarte berriena aurretik aldatu dugu Mitxelenaren bi aipuok hobeki uztartzearen kariaz.

Baita euskal ondareak biltzen ibiltzea, euskalaritzan aritzea edo Euskaltzaindian sorreratik bertatik lanean ihardutea ere.

Iharduera guztiok, Azkue lanera bultzatzen duen asmo eragileak azaltzen ditu, euskara gaitu nahiak, alegia, horretarako usatzen dituen azterbideak eta honen ondore diren mamituak –aldez aurreko iritzi jakinen isla diren aldetik– Mitxelenaren aburuz, eztabaidaz at ez dauden arren:

> No hay necesidad de decir, creo, que no era un simple interés científico, el mero deseo de saber, el que impulsaba a Azkue, sino que además, al lado y por encima de éste, le movía la urgencia de orden práctico de enriquecer y purificar el léxico y capacitar así a la lengua. (1966b, *SHLV*:384)[11].

Azkuek mundurakuriko lanak gerokoen begiek gisa berean ez ber neurrian hartu ez dituztenez gero, hau da, utziriko hatzaren luze-laburra nabarra denez gero, Mitxelenak, molde bakoitzaren araberako neurgailu egokia erabili nahirik, Azkueren lanen sailkatzeari onuragarri irizten dio.

Honela, lehenik eta behin, ikerlanak eta sorlanak berezi behar dira, garaiko eta geroko euskalaritzan eta euskal literaturan erdietsi duten entzuteari eta arrakastari begira, ez baitago ezpairik Azkue ikertzaileak arras uzten duela itzalpean Azkue sortzailea, geroxeago jasoko den bezala.

Mitxelenak, bere idazlanetan, batipat ikerlanei erreparatzen die eta, hauen barrutian, hiztegigintzaren alorrekoei bereziki[12], errenteriarraren ofizioak nahiz bestegandik harturiko mandatuak –isurlak ere bai, apika– horretara makurtzen baitu:

> Pero será mejor, antes de seguir más adelante, volver al punto de partida y resumir en pocas palabras el carácter y el alcance de la obra lexicográfica de Azkue, la única parte de su producción de la que puedo hablar con alguna competencia. Para otros aspectos de su abundante actividad puedo remitir afortunadamente a publicaciones conocidas y a las exposiciones que aquí mismo van a hacerse. (1966b, *SHLV*:374).

Azkueri eskainiriko atal honetan ere desoreka hori nabarmen gelditu ko da, Mitxelenak begiz joriko lanen nolakotasunak eta lanoi egotziriko iritzi-kopuruak berez dakartena baita.

---

[11] Berdin, (1984a:26).

[12] Azkueri berariaz eskainiriko artikuluen izenburukoei begiratu besterik ez dago horretaz ohartzeko: "Azkue eta euskal hiztegia" (1964c), "Azkue lexicógrafo" (1966b) edo, 1970eko *Estudio de las fuentes del diccionario de Azkue* (1984a), honen barnean, "Azkue y la lexicografía vasca" atala, buruen-buruenik.

3.2.1. Sorlanak

Sortzezkoen eremuan, nobelak, zartzuelak eta operak aipatzen ditu Mitxelenak:

> cultivó también la literatura con zarzuelas (*Vizcaytik Bizkaira*), óperas y novelas: (*Urlo, Ortzuri*), cuya letra y música compuso, *Ardi galdua* (1978) [sic][13] en forma epistolar, *Latsibi*. (1960b:142).

Lan hauek ez dira Azkueren itzalaren luze-laburra neurtzeko egokienak Mitxelenaren ustez, hauek mintzagai dituen aipamenei begiratuz ondoriozta daitekeenaren arabera:

> ...sin menospreciar en absoluto el valor de esta obra original, la influencia de Azkue en la literatura vasca ha sido indirecta, pero no por ello menos decisiva. (1960b:142).

1960ko Mitxelenak Azkueren lanok gogoan izatekoak direla badio ere, hogeita zazpi urte geroagokoarengan susma daiteke direlako sorlanen balioa indargabetzen edo dela:

> No tuvo demasiada fortuna con su música original (zarzuela y ópera) y sus novelas, pero esto no afectó a la solidez de su magisterio en materia de lengua. (1987b:104).

Badirudi, azken aldiko Mitxelenak iritzirik tartean sartu gogo ez duela, euskaldun multzo berezi gabeari begirako Azkueren arrakasta neurtzen ari dela. Hau da, Azkueren sorlanek (hain maitea zuen musikak barne) ez zutela jendartean aparteko entzuterik izan[14], gero aitortu zitzaion hizkuntz maisutza artesitu ez bazuten ere.

Arestian Mitxelenagandik hartua, jendarteko arrakasta –ez, berez, Mitxelenaren iritzia– dela pentsa daiteke. Izan ere, Mitxelenak, bere burua jantzia ikusten duen gaietan eta azterkizun begiz joetan, bestela jokatzen du.

---

[13]Bazterreko ohar pare bat. Batetik, 1978 hori, bistakoa denez, 1918 da. *Historiaren* argitaraldi berriagoan (1988:144) okerrari eutsi diote. Bestetik, Euskal Editoreen Elkarteak argitara emandako Azkueren lanean (1989), *Arrli, Argi* bihurtu dute azaleko izenburuan.

[14]Olaizolak (1957:40,41) *Urlo* operak izan zuen abegi hitsaren berri ematen du:

"Su puesta en escena fué lo que proporcionó el mayor disgusto de su vida. No tuvo éxito. No es obra para las masas. Se calculó en que podrían darse dos y hasta quizá tres representaciones, con lo que podrían sufragarse con creces todos los gastos.

Arrastrado de su diremos excesiva buena voluntad, él [Azkuek] contrató la Orquesta de Barcelona con su director Lamote de Grignon, decoraciones expresamante adecuadas a su obra, alquiló el teatro, es decir, montó la ópera él personalmente. La preparación de la obra fué deficiente y por la falta de propaganda adecuada y otras circunstancias asistió un público tan poco numeroso que el fracaso económico fué magno, cayendo toda la responsabilidad sobre el autor de la música, letra y del... empresario".

Bestetan eragozpenik topatzen ez du Azkueren on-gaitzak juzkupean hartzeko[15], bestek –larregi aztertzeke, antza– maisu etsiaren lanari kritika zorrotza eginez, aurrerago zehaztuko den legez.

Areago, horrexeri emango dizkio kemenik handienak. Gogoeman daiteke, beraz, bestek uste eta esanaren oihartzunago dela, apika, Mitxelenak horra[16] aldatua, Mitxelenak berak uste duena baino.

Azkueren mota honetako lanezko edo hauen inguruko iritzi zehatzagoak jakiteko, berriz ere atzera egin behar da, begiak 1960ko literaturaren historiara irauliz:

> Azkue escribía en un vascuence diáfano, rico y fácil (...) No obstante, no podía ocultar largo tiempo su afán preceptista[17] y tampoco conseguía siempre refrenar el deseo incontenible de volcar a cada momento las riquezas del léxico vasco que tan bien conocía. De aquí el aire poco grato a composición literaria o a ejercicio de estilo que despiden algunas de sus páginas[18]. (1960b:143).

---

[15]Atal honetan zehar zehaztuz joango badira ere, Mitxelenak zinetako eta benetako begiruneaz duen adimoduaren –hau da, kritikakizun hartzearen eta honek aldez aurretik eskakizun duen Mitxelenaren azterlanaren- eraskusgarriok paperera alda daitezke.

"Las observaciones de Azkue y Menéndez Pidal (p. 379 y 381) de que «hay todavía» vascos que tienden a pronunciarla como *p* suponen algo que no está demostrado, a saber: que esa pronunciación era mucho más general en otros tiempos. Los textos, repito, parecen probar lo contrario, pues en ellos *f* es mucho más general que hoy en casos en que ninguna preocupación etimológica podía pesar: *afari*, «cena», *ifiri* «puesto», etc." (1956c, *LH*:317).

"Mejor dicho, de los datos algo sibilinos que facilita Azkue, que no era estructuralista ni había oído hablar de campos semánticos, se deduce que en vizcaíno, salvo en algunas localidades marginales, se designa por *okela* la 'carne que sirve de alimento' (fr. *viande*, ingl. *meat*), no la que se marchita como el heno y es el compendio de la fragilidad humana.

Muy otra es la imagen que nos dan los textos para siglos anteriores". (1965b, *LH*:272).

Artikulu horretan bertan aurreraxeago (279 or.):

"El roncalés de Isaba y Uztarroz, únicos puntos donde lo he alcanzado a conocer, los distingue perfectamente, ya que opone *egiá* 'la verdad' / *égia* 'verdad' a *bégia* / *bégi*, etc. Pero Azkue, convencido del origen extraño de todo acento no «melódico», no parece haber advertido su valor funcional".

Azken aipu honetan paperera dakargun azentu-kontua dela eta, Azkue eta Altuberen arteko bat etorrize-eza Altubek Azkueren *Morfologiari* eginiko oharretan, esate baterako, irakur daiteke:

"En las páginas 24, 25, 26, 250-14, 420-2... y en las notas marginales de las páginas 368, 610 y 800, se ocupa la MORFOLOGÍA de la acentuación propia de ciertos afijos y vocablos euskéricos; y se sostiene la teoría de que en algunos de ellos la sílaba final es tónica y en otros *átona*.

En mi estudio intitulado EL ACENTO VASCO (publicado también en esta revista *Euskera*, Tomo XIII) se trató extensamente de esta materia, manteniendo la tesis contraria o sea, que en euskera, fuera de casos especialísimos, las palabras de *igual número de sílabas* y colocadas en *la misma posición sintáctica*, se acentúan *idénticamente*". (Altube 1934:186,187).

Orixez aritzean, azentuaren gaira itzuliko gara.

[16](1987b:104).

[17]"A pesar de lo notable que es la parte lírica de *Vizcay'tik Bizkai'ra* y de las bellezas que contiene su parte literaria, adivínase desde el primer momento que el Sr. Azkue no ha producido esa obra por sus aficiones literarias o artísticas, sino sólamente para que se saque fruto de ella, al mismo tiempo que para demostrar el adelanto de sus discípulos en el estudio del Euskera". (Arana Goiri *OC*:489).

Mitxelena eta Arana Goiri gogaide?

[18]Azkue zendu berriaz ez zuen, haatik, honelakorik adierazi:

"Convendría en cambio releer la ilusionada obra literaria de su juventud y la clara y elegante prosa vasca de muchos de sus trabajos científicos". (1951d:473).

Ikusten denez, pasarte honetan Mitxelenak ez dio zehazki Azkueren sorlanak bereziki direnik gogoan dituenak, ezta lan zehatzen batez ari denik ere, baina *Izkindea*ren bidetik lerratuxeez ez ote den ari errezeloa izan daiteke, argitasuna, aberastasuna eta erraztasuna baltira tarteko eta, ez baitirudi, "hiperbizkaieraren[19] oin-liburutzat" hartuan[20] proposatuak erabili izan baiitu, Mitxelenak halako iritzi baikorrik alboratuko zienik.

Uste honen irozgarri ekar daiteke *Izkindea*ren garaiko sorlan zenbaiten berria berandu samar arte izan ez duelako aitortza:

> Azkueren *Bein da betiko*-z ezin luzeegi mintza. Ixilpekoa ezkutatzen baduzue, aitortu beharko dizuet ez dudala hala beharrez, nahiz bitan argitaratua izan den, ikusteko aukerarik izan, are gutxiago irakurtzeko astirik. Besteren kaltetan - eta agian gezurretan - mintzatzea ez balitz, bekatari bakarra ez naizela esatera ausartuko nintzateke.
> Zerbait behintzat jakin dut, *Bein da betiko* delakoa elazarra dela, S.Onaindiaren hitzez, eta bizkaieraz landua. Aranak (<Hay menos Sabinos que Aranas>[21] entzun nion behin adiskide bati) eta Arakistainek eta euskaraz Domingo Agirrek hasieran zerabiten bidean ibilia dugu, beraz. Azkue bera ere, laster lehen geure begiz ikusi ez genuenean ikusiko dugunez. (1986a:133).

Mitxelenak ahotan duen lanaren (eta *Batxi Guzuren*) paratzaileak dioen moduan[22], Azkuek gaztaroko gramatikan urraturiko bidetik mamituriko sorlan ia bakarrak badira, litekeena da, 1960ko iruzkina Mitxelenak Azkueren beste gisatakoei egotzia izatea.

3.2.2. Ikerlanak

Ikerlanei erreparatzen die bereziki Mitxelenak; hauek bereganatuko dute Mitxelenaren arretarik pausatu eta zehatzena, hauexek baitira, arestian esan legez, euskalaritzan eta euskal literaturan hatzik sendoena utzi dutenak ez ezik, errenteriarraren ihardunbidetik gertuen daudenak, bereziki miratuko duen hiztegia (*DVEF*) batipat.

Testu-motak ikuskizunik?

[19]Michelenak (1981g, *PT*:43) erdaraz "hipervizcaino" dioena, alegia.

[20]Aurrerago ere baliatuko ditugun Lakaren lanen arabera, halakotzat joa.

[21]Pentsatzekoa da Arana hori *Historia de la literatura vasca*n (1960b:137) aipatzen duen *Los últimos Iberos* (1882) "elezarraren" egilea, V. de Arana izango dela, Juan V. Araquistain *Tradiciones vasco-cántabras* (1886) eta *El Baso-jaun de Etumeta* (1882) lanen egilearen ondoan aipatzen duena, hain justu. Hauek eta Agirrek, *Auñemendiko lorea* hastapenetakoan, histori kutsuko gaiak baliatuz literaturgai, Azkuek beste honetan bezalaxe.

[22]"*Bein da betiko* liburu bezala irten zen argitara Bilbaoko *Imprenta de la Casa de Misericordia* delakoan 1893. urtean. Lehen argitalpen honek bitxitasun aski nabarmena ageri du: bikoitza da, Azkueren hitzez esateko "Eskerreko erreskadaan Bizkai guztiko izkera edo berbeta bat egina oitu daugu [='dugu']; eskumakoan Leketiokoa". Zorionez, "Bizkai guztiko hizkera" horretaz, hc \, *Izkindea*n ematen dituen proposamenei jarraituz eraikitako *entelékheiaz*, ez da berriro baliatuko, gaztaroko Grar atika sekula erabat baztertuko ez badu ere". (Pagola 1986:22).

Lanok ageri duten euskararen eta euskal altxorraren aberastasunen ezaupide itzela dela medio, erdietsi du, hil ondoko Azkuek batipat, gidaritzaren[23] aho batezko aitortza, egia bada ere, gutxi batzuetan –Azkueren aitzindaritza ez ukatuagatik–, bestek onduaren bitartez jorratu, sakondu eta ezagutu dela Azkuek urraturiko hizkuntz gertakaria, *elemento inquirido*-rekin gertatua, lekuko:

> Galdegaiaren izena, erdal izena (*elemento inquirido*) alegia, Azkuegandik omen dator[24], hura izan omen zen eta gai hau ikertzen hasi zena. Guztiok dakigu, ordea, 1929tik egungo egunera Altube, Altuberen *Erderismos*, izan dugula beti gidari. (1981c:146).

Paperera dakargun zehaztasun honek, argi asko uzten du agerian zein izango den Mitxelena eta Azkuerengandikakoen arteko harremana.

Mitxelena bereizten saiatuko da, Azkueren lanak aztertuz eta juzkupean hartuz, zer duen Azkuek berea eta zer den gerora, beste gabe, ikerlan pausaturik gabek· topikoak errepikatzearen ondore hutsa[25]. Eta, aldi berean, Azkuek bere lan eskergan asmatuak eta huts eginak banatuko ditu, hauxe baita, Mitxelenaren ustez, jaso[26] (eta jasoko) den bezala, inori bere eskerrona eta miresmena agertzeko modurik zintzoena. Mitxelenaren ikerlanari atxiki behar, beraz, argirik eskuratuko bada.

Bi bideri eutsi ziela Azkuek oharteman dakieke Mitxelenaren pleguei: *fieldwork* delakoari, hots, bilketari batetik, eta, "bulego-lan" dei daitekeenari, bestetik, nahiz Azkuegan biak erabat bakan daitezkeela bete-betean ezin esan daitekeen.

Mitxelenagan nabarituriko ildo horiexei jarraikiko zaie hemengo sailkapenean: bildumak eta bulego- (edo "gabinete-") lanak ardatz hartuz, sail bestelakoetan bilduz, haatik.

Zentzu hertsian hizkuntzazkoak ez direnak alde batetik ikusiko dira eta, hizkuntzari

---

[23]Jarraileek (edo jarraietzakoek) gidariari zioten leialtasuna, maizkara, duda egitekoa izanagatik:

"Más que difícil sería imposible justipreciar, aun de modo aproximado, la influencia que Azkue ejerce hoy entre nosotros, en la teoría y en la práctica de la lengua. Podría estimarse no sin motivo que es acaso mayor que la que ejerció en vida, ya que ahora cuenta, a juzgar por las apariencias, con una legión de seguidores que entonces más bien le faltaban. Cabe en lo posible, sin embargo, que don Resurrección no se sintiera demasiado satisfecho de la situación actual, en el supuesto que le fuera dado conocerla, pues sabía de sobra, como lo prueban textos más que explícitos a este respecto, que está muy generalizada la debilidad demasiado humana de declararnos fieles seguidores de otros a fin de podernos seguir mejor a nosotros mismos". (1979b, *PT*:437).

Itzuliko gara puntu honetara bai Azkuez bai Aranaz jardutean.

[24]"§5. El Sr. Azkue en su *Euskal-Izkindea* hace una somera mención d'l distinto caracter que presentan en euskera, bajo el aspecto que acabamos de señalar, las diferentes partes de una oración. Y llama "elementos inquiridos" a los que (...) revisten el caracter de *principales* en las respectivas oraciones.

§6. Adoptando la denominación del Sr. Azkue, llamaremos, pues, miembros inquiridos a aquellos que (...) ocupan en las oraciones ordinarias, por su importancia y por el acento especial que se les imprime en la pronunciación, el mismo lugar que las palabras interrogativas o inquisitivas («Nor», «Noiz», etc.) en las oraciones de interrogación". (Altube 1930:2-3).

[25]Honen erakuskaria izango da bibliografiari eskainiko diogun 2.5. atal berezia.

[26]Ikus pasa berri kapituluan Larramendiz esana.

zuzen-zuzenean dagozkionak bestetik, luzeen joko duten azkenok bitan banatuz, gramatika-lanak –morfologia barne– batetik eta hiztegigintzazkoa bestetik, sail bakoitzean lanez laneko miatzeari ekinez.

Beste sailkamodu honen arrazoia, Azkueren ihardueran funtsatzen da. Izan ere, hiztegiak bereziki, sailkapenerako arazoak sorrarazten ditu, ezen bilduma izanik ere, ez dago ukatzerik –zeinahi hiztegik bezalaxe–, bildu ondoko bulego-lana eskakizun duela. Hauek direla eta, bi sail nagusiok paratuko dira[27], Mitxelenak eman garrantziaren arabera: arinago azterkatzen dituen hizkuntzaz atikakoak aurrenik eta hizkuntzazkoak ondoren.

3.2.2.1. Hizkuntzaz atikakoak

Mota honetan bil daitezkeenak ez dira oso Mitxelenak azterpuntuan hartuak.

Azkuek herriaren ezpainetara jotzea duela ezaugarri azpimarkatzen du Mitxelenak, ohiturak, doinuak, kantak... ahozko hariak gordetzen duen zernahi, herri-ondasunaren osagai oro[28], jasotzea ditu gidari eta xede[29].

---

[27] Bestelako sailkapenik ere egin zitekeen. Azkuek segiruriko bidean ez baina jorraturiko gai zehatzetan oinarrituz.

Arruek (1957:17) bost sailetan banatu zituen lekeitiarraren "lanegiñak": folklorezkoak, hiztegigintzakoak eta gramatika-lanak berezi zituzten berriz. Caro Barojak, Mitxelenak eta Tovar-ek, hurrenez hurren, 1966an argitara emaniko lanean.

Azken sailkapen hau hartu dugu oinarri.

[28] Oro diogun arren, zertxobait soildu behar da baieztapena.

"Cuando editó el «Cancionero» no tuvo empacho en advertir que modificaba algunas melodías, indicando, sin embargo, con honradez, donde había introducido algún compás de su cosecha, o más, de su gusto". (Caro Baroja 1966:43).

Eta aurrerago, egile honek berak, *Literatura popular del País Vascoz*, honela dio:

"Así volcó en su obra lo recogido, año tras año, en sus cuadernillos y papeles, sin grandes preocupaciones doctrinales y metodológicas. Ni el «primitivismo vasco», ni el «medievalismo walterscottiano», ni ningún otro «ismo» de los que gravitan sobre las averiguaciones humanísticas hechas en el país pesó sobre la colección de Azkue; ni siquiera el «purismo», que limitó tanto su labor lexicográfica, según va dicho". (Caro Baroja 1966:48).

Alabaina, ez dugu guk uste Caro Barojak aipatzen dituen musika-aldakuntza arduratsu hutsetara mugatu zuenik Azkuek bere eskuz kantu-bildumetan. Hona erakusgarria:

"Aido onak, aido onak / emateizkit indafak, / aido onak, aido onak / kentzen ntin ondafak / Mirizen neskato erdafdunik gutxko / batailun bat balitzake / Bordelera yoaiteko.

De Luis del Puerto, gipuzkoano que pasó años en Ziburu (L); de donde procede la canción.

Por *erdafdunik* tenía el original un vocablo impresentable". (Azkue, *CPV* 1990_3:149).

Lan horretan bertan, beste honakoak ere irakur daitezke:

"*Hoberetsi* y *gaineratu* se han puesto en substitución de *preferatu* y *kargatu*". (Azkue *CPV* 1990_3:496); "En el *Cancionero Selecto*, pág 3, se puso *Goizuetan da gizon zakar bat* en lugar de *Goizuetan bada gizon bat*, que es verso corto. También se corrigieron *biotza paltso* por *biotza gaizto*, y *sekula* por *bein ere*, como también *dilijentziak* por *asimasiak*". (Azkue *CPV* 1990_3:510).

Eta azkenik, "Amamendiko" izeneko kantua paperera daramalarik, honakoa ruzkintzen du:

"La cantó Luis del Puerto, de Rentería (G), con letra muy diferente a aquélla. Fué esta que sigue:

I. Goiefitik otoi / nintzan onuntza, / andreak pena (y) artzen du / nere biotza / kariño otza, mingain zolotza / ofa nolakoa dan / gure ezkontza.

II. Bestek ezkontza egin zidan lenago, / orain eskarmentuan sartua nago, / laster akabo, / andrearen anaia, gizon fuertea, / arebarentzat dauka borondatea / iama maitea! / zu ere oien alde yafi zaitea / inere kaltea! / esku txafetan daukat efematea.

III. Amabi alkandora neuk ekafiak / estreñatu gabeko befi befiak / pilan yafiak, / aien gainean befiz urregofiak / gustagafiak: / negar egin lezake nitaz afiak.

Herri-aberastasunen biltzaile den bezanbatean, Mitxelenak, ahotan izan eta izango den Barandiaranekin eta Aita Donostiarekin batean elkarganatzen du:

> Nunca ha despreciado los textos D. José Miguel de Barandiarán, uno de los mayores exploradores, con Azkue y el Padre Donostia, de nuestro saber popular. (1967c, *SHLV*:740).

Hemen bide dira kokatzekoak *Cancionero popular vasco* eta *Euskalerriaren Yakintza*:

> En sus incesantes andanzas por todas las regiones de Vasconia recogió también gran número de melodías y otros elementos de la cultura popular, reunidos en su conocido *Cancionero popular vasco* y en los cuatro volúmenes de *Euskalerriaren Yakintza*. (1960b:142).

Bestelako iritzi edo iruzkin zehatzagorik ez du Mitxelenak lan hauen gainean ematen.

Ezin jakin, Mitxelenak Azkue biltzailea -oro har- autu duenean esaten dituenak noraino albora dakizkiokeen herri-ohiturak, herri-jakintza... ere bildu zituen Azkueri. Bestela esan, aurrerago ere mintzagai izango den Azkue izkribauaren (*barataria*ren, Azkueren (1934) hitzez esateko) "bere gisakotasuna" hiztegi-gaiak biltzean nagusitu zitzaion bezala, nagusitu ote zitzaion lan hauek gatzatzean ere.

Argibiderik ezean, Mitxelenak utzi bezala -aipu soilean, alegia-, utziko da hemen ere gaia.

3.2.2.2. Hizkuntzazkoak

Mitxelena, benetako begiramena besteren lanak aztertuz erakusten delakoan dago eta, irizpide honi eutsiz, hain arrakastatsu eta ia-ia diskutiezin bilakatu ziren Azkueren hizkuntz ikerlanak aztertzeari ekiten dio: egiteke zegoen eta beinbestean egin behar denari.

¿Qué había de hacer el folklorista sino raer tales esperpentos, por lo menos en el *Cancionero Selecto*?". (Azkue *CPV* 1990_3:577,578)

Azkenak garbi erakusten du hitzen "garbitasunaz" gaineko beste "garbitasunak" ere baldintzatzen zuela Azkueren lana, bigarren ahapaldiko mami izkutuan erreparatu eta "Ura ixunik" erromantzearenarekin uztartuz gero, eskura dauzkeen ondorioei dagokienez behinipehin.

Zeinahi kasutan, jokabide bikoitza nabarmen daiteke. Jaso dugun lehen erakusgarrian zein ote zitekeen hitz *impresentablea* jakiteke uzten gaituen bitartean, besteetan, Azkuek "herrikoitzat" daukan kantutegian ateak zabaltzen dizkie, kantutegi "nautatuan" tokirik, antza, merezi ez dutenei.

[29] "En una época y en un ambiente apegados más bien a los bienes materiales, se dedicó a atesorar aquello que el orín y la polilla no consumen, pero que la desidia y el abandono humanos dejan disiparse irremediablemente: el patrimonio espiritual de un pueblo". (1951d:473).

Hamaikatan bere burua Azkueren zordun agertzen duen errenteriarrak, arlo hau du begiz joa lekeitiarrarekiko zorrak arintzeko.

Hiru dira multzo honetan bil daitezkeen Azkueren lanak, bi gramatikaren ingurukoak: 1891ko gaztaroko *Euskal-Izkindea* (*EI*) -euskaraz idatziriko lehen euskal gramatika- eta 1923ko *Morfologia vasca* (*MV*) eta hiztegigintzazko bat, 1905-1906 urteetan plazaraturiko *Diccionario vasco-español-francés* (*DVEF*) hiztegi handia.

Mitxelenaren arreta erakartzearen araberako hurrenkera hartuko da gidari, lehenik, gramatikazkoak ekarriz. Aipurik urrienak bereganatu dituen gramatika-lanetik (*EI*) hasi, *Morfologia vasca*rekin jarraitu eta, hizkuntzazko arlo zabalean, luzeen eta sakonkien jorratu duen hiztegigintzaren barrutian amaituz.

Hizkuntzarekin zerikusi estua izanagatik, multzo honetatik kanpo begiratuko zaie euskararen ikasbideari eta *Gipuzkera osotuari* -azken honi berezki-, berariaz miratua izan dadin merezi duen beste gai funtsezko bat ukitzen dutelakoan: euskararen batasunbidean kokatu behar den Azkuek nahi lukeen euskara moldearen erakusgarriak direlakoan, hain zuzen ere.

3.2.2.2.1. Gramatika-lanak

3.2.2.2.1.a. *Euskal Izkindea* (1891)[30]

Aipagarria da, Mitxelenak 1960ko *Historia de la literatura vasca*n, Azkueren hizkuntz ikerketa *zientifikoen* eragin urraezina gai duela, 1891ko *Euskal Izkindea* isilpean gordetzea, honela uzten duen Azkueren lan bakarra ez dela esan behar bada ere.

Hiztegiaren sorburutzat[31] (*a contrario* izan bazen ere) daukan *Izkindea*, makur larri batek joa gatzatu du Azkuek, Mitxelenaren aburuz, Azkuek berak Dodgson-i aitortzen dion

---

[30] Lan honetako aditzaren azterketa eta Azkueren eta Aranaren arteko eztabaiden berri zehatza ematen du Lakak (1986a). Egile honek berak, garbi azpimarkatzen du "hiperbizkaieraren" sortze-hedatzeetan lekeitiarrak erdietsiriko gidaritza.

Bestalde, lan honezazko iruzkin orotarikoa, Tovar-ek (1966) agertzen du.

Pagolak (1988 XV) euskal gramatika hau ikusten du, hain justu, Larramendiren hiztegiaz barra-barra baliatzen ez den garaiko lehen lan garbizalea:

"La Gramática de Azkue (1891), primera escrita en lengua vasca, es también la primera obra purista de la época que no recurre masivamente a los neologismos del Diccionario Trilingüe".

Larramendigandikako oro uxatzen duenik ezin esan daiteke, halaz ere:

"En esta obra coexisten los neologismos de Azkue, que en ocasiones imitan los procedimientos de Larramendi (por ej. izkinde 'gramática', izkirakinde 'ortografía', aoskinde 'prosodia', etc.), junto a los tomados directamente del Diccionario Trilingüe. Arriandiaga (1897) y muchos de los autores que escriben en Euskalzale, etc., se conducen de manera similar".

[31] "Para buscar el origen del *Diccionario* hay que subir, como se sabe, hasta la publicación de *Euskal Izkindea* (1891), trabajo primerizo que provocó la censura crítica de Edward Spencer Dogdson, hombre un tanto extraño pero eficaz promotor de los estudios vascos". (1984a:26).

Gogora daiteke Dodgson izan zela *Izkindea*ko euskarari "Azcuence" deitu ziona.

makurra, hain zuzen ere[32]: Bonaparte eta bestegandik ikasietan oinarrituz, euskalkiak nahasi eta jatorrizko zitezkeen baina balizko izaera hutsa zuten formak proposatu eta, garaitsu horretako sorlanetan erabiltzen hasi da[33].

Mitxelenak, Azkueren aitor honen atzean, garai hartako halabeharrezko kutsadura ikusten du (harrigarri, bestela gertatua zatekeen), hots, "eraikuntzarako", "asma-sorkuntzarako" isuriaren ondorioa. Eta, hain zuzen, "berreraikuntza" ulertzeko eta, honenbestez, mamitzeko moduan, bilatu behar da, menturaz, Mitxelenak *Izkindea* zientzi lanen artean ez edukiaren argibidea.

Azkuek ez die Schleicher-en irakatsiei etekin handirik atera: hizkuntz berreraikuntza[34] ez da zaharberritzea eta ez dakar, inola ere, ondorio, benetako mamiketa[35]. Azkueren asmoa, haatik, hain justu horixe izaki; aldiek nabartu eta lokazturiko hizkuntzari behialako jatorrizko[36] distira berreskuratzea[37], alegia.

---

[32]Azkueren aitortza jaso arren, lan honen gorentasuna azpimarkatu zuenik ere bazen

"No obstante, yo recuerdo haber leído hace años la crítica de un eminente euskerólogo, según el cual, "Euskal-Izkindea" era la mejor gramática vasca que, hasta entonces, había visto la luz pública. De hecho es la única vestida a la usanza del país, es decir, escrita en vasco" (Ibargutxi 1957 27)

Badirudi, norbaitentzat, euskaraz idatzia izana beste merezimendurik ez duela behar ontzat jotzeko

[33]Euskalki-nahastearen ondorioei Mitxelenak iruzkin diena, hurrengo kapituluan ikusiko dugu

[34]Gai honen inguruko zehapen teorikoaren erakusgarririk sakonena, gure ustez, Mitxelenaren *Lenguas y protolenguas* ikertlana da (1963c). Hemen adieraziek argitzenago dute Azkueren okerreko bidearen zioa

[35]Bidenabar gogora dezagun Schleicher-ek "indoeuroparrez" idatziriko "Ardia eta zaldiak" alegiaz

"... y se sintió con fuerzas suficientes para reconstruir una fábula que fue compuesta en el *Ursprache* original, del mismo modo que hoy se podría componer un pasaje de una lengua muerta, aventura que le costó la crítica jocosa de autores posteriores" (Robins 1980_2 179)

"... creía poder obtener de la comparación un conocimiento lo suficientemente preciso para permitirle reconstituir el estado lingüístico primitivo y realizar -extravío paradójico, si se piensa en el amor por la precisión que caracteriza su actividad en todo lo demás- el sueño caro a los primeros comparatistas: en efecto, ¿no compuso en "indoeuropeo común" toda una fábula titulada *Avis akvasas ka* ("La oveja y los caballos")? Esta ingenua audacia sin duda fue el punto culminante de los conmovedores esfuerzos de la lingüística naciente por alcanzar su imposible ideal" (Leroy 1974 33)

[36]Hona Gramatikaren beste puntua (Lyons-en hitzez baliatzen ari naiz Alejandriako filologo eta gramatikari helenistez ari delarik): hauek V mendeko idazle atikoen hizkuntza zuzenagoa eta egokiagoa zela uste zuten beren mendean erabiltzen zena baino (...) Gogoan eduki dezagun *garbitasuna, jatortasuna, hondamena* eta gisa honetako adierazgarriek ez dutela balio absolutorik erantsi jakin bati alderatuz ezik" (1972b1 32)

Alde honetatik, Grezian sorturiko gramatika klasiko edo tradizionalarekin badu antzik Azkueren asmoak. Alabaina, haiek, aspaldiko garai bateko idazleen testuak baztuzten imitatuzun, hots, forma historikoak eskuera zituzten; Azkue gazteak, ordea, hizkuntz arrastoak baino lehenagoko aldikoak nahiago bide ditu, izkribuzko euskal lekuko zaharren hizkera baino

[37]"Importa fijar, antes que nada, el horizonte temporal (creo que lo suelen llamar así) en que se sitúa el debate [erakusleen sistema-mota da autu]. El primer argumento de Azkue nos lleva, parece ser a una remota prehistoria, si no nos conduce a los momentos mismos en que la lengua se iba formando, no evolucionando. Para mí eso no tiene demasiado sentido, ya que cualquier estado de lengua que, por estar dentro de una determinada tradición podríamos, (si llegáramos a conocerla) llamar vasca no sin incurrir en grave licencia de lenguaje, no es más que la prolongación de algún otro, nada unitario, por otra parte, y así sucesivamente. No hasta el infinito, pero sí hasta épocas que, por decenas o centenas de milenios, están más allá de nuestras posibilidades de

Honetan Azkue oker dabil[38], Mitxelenaren ustez, *Junggrammtiker* zirelakoek eta ondokoek ziotenez[39], nahikunde hori ezinezko ez ezik, bururik gabekoa ere baita, ez dago eta hutsetik sortzerik, ezta hondamendi-aurreko loraldi zoriontsuetan sinesterik ere; hizkuntzan dena bilakaera da:

> Hutsak bete, gaitzak senda eta urrutiak konpon daitezkeela usteko du agian norbaitek, Azkuek egin asmo zuenaren arabera, baina zentzua galdu du: ezinkizun da hori, ez eginkizun. Makurrak, diotenez, ezin zuzen daitezkeen horietakoak baitira. (1972a:170).

Berreraikuntzak eta izartxoaz hornituriko formek ez dute interes teorikoa baizik, testuetako forma historikoen azalpen gisa eta, gehienez ere, batasuna iraganean dagoela eta ez etorkizunean -baldin eta formaren bat besteei nagusitzen ez bazaie- frogatzeko bitartekoak dira:

> Es decir que la reconstrucción y las formas provistas de asterisco que suelen ser su resultado no tienen más que un interés teórico, en la medida en que permiten explicar las formas históricamente dadas a partir de protoformas prehistóricas, no atestiguadas, y reducir, por lo menos en los casos más favorables, su diversidad a una unidad anterior. Si esto tiene algún valor práctico, lo tiene sólo en el sentido de que nos obliga a aceptar como hecho evidente que la unidad de las formas dialectales diversificadas no se halla en el futuro, sino en el pasado, histórico o prehistórico, de la lengua. Se quiere decir una unidad en que las diferencias quedan abolidas y reconciliadas en la raíz de su origen común. En el futuro puede estar la unidad en que una de las variantes suplanta y devora a las otras. (1984a:26)[40].

> Hizkuntz berreraiketak muga zorrotzegiak ditu, apurka eta pitinga ari da beti lanean eta eskemen eskemak ditu azken irabaziak, onenean ere. (1985a:112)

Azkue, halaz ere, ez da zaharberri-berreraikitze lanetan muturrean ibilia; ez,

---

conocimiento". (1979b, *PT* 449).

[38]Azkue -hobeto esan, garai bateko Azkue- noraino zegoen hizkuntzalaritzaren ekarrietan jantzia zalantza egitekoa dela dirudi, zenbait aurritzuren arabera, bederen.

Tovar-ek ere (1966:61) gauza bertsua adierazten du:

"En este su primer libro [*Euskal-Izkindean*], las ideas lingüísticas de Azkue eran peculiares y originales, pero ajenas a los métodos de trabajar contemporáneos, sin participar del espíritu de los lingüistas de su tiempo".

[39]Mitxelenak berak aitortua da gramatikari gazte edo berriei dien atxikimendua:

"Hizkuntzalaria naizelarik, eta hizkuntzalari naizen aldetik *Junggrammatiker* maite haien ondorengoa". (1981b:74).

[40]Hizkuntzen iraganeko batasun-kontu zehatzak, (1981g) lanean irakur daitezke.

behinipehin, Sarako Etxeberrik filosofia eskolastikotik hartu eta ahotan zuen aholkuari[41] muzin egin zioten Vinsonen eta Sarôihandyren neurrian, hauek ez bezala, adierazia baitu direlako formen "balizkotasuna".

Alde honetatik, bada, hein batez bederen, Azkue tientoz ibili da. Halaz guztiz, Mitxelenak zehaztu gogo du, Azkuek, jaidura "berreraikitzailea", beti oso zuzen osaberritzen ez dituen adizkien paradigma hutsetara mugatu duela, lexikoaren barrutian ez baitio, beharrik, barne-isuriari jaramonik egin.

Euskal aditz berreraikitzaile gehientsuenak jotako gaitz berak ukitu du Azkue: irregulartasunean izterbegia dakus, hizkuntzan logikak aginduko bailuen[42].

Mitxelenak, Meillet harturik oinarri, gauzak zeharo bestela gertatzen direla aldarrikatzen du, formarik irregularrenak izan ohi baitira, hain justu, zaharrenak.

Esan berriari, arestitxoan adierazitik ondoriozta daitekeen zerbait ere erants dakioke.

Mitxelenak zehaztu du, aditzen sailean dela batipat –hitzen mailan ez, ordea– nabarmen Azkueren berreraikitzearen inguruko irizpide okerren isla[43]. Honetan oin hartuz eta *Izkindearen* gramatika-izaera aurrean izanik, pentsa al daiteke, alderdi makurrak nabarmenago begitarako direla lan honetan, esate baterako, hiztegian baino?

Alderdiok guztiok, bada, azalduko lukete, beharbada, Mitxelenak, *Izkindea* "zientzi

---

[41] "A tales excesos, en los que incurrieron mucho más Vinson y Sarôihandy, por ejemplo, que Azkue hay que oponer el principio que mencionaba nuestro Etcheberri de Sara, sin citar el nombre un alto [sic, *tanto*, zuzen lehen argitalpenean] sospechoso de Guillermo de Occam «ceren Philosophoen arteco errefina bata *Enba non sunt multiplicanda sine necessitate*. Gauçac eztira multçutu, eta berretu behar mengoanc eta premianc gabe»" (1984a:27).

[42] Tovar (1966:61) ere nabarmen zen Azkueren gain honezaz eta honen ildoaz:

"Otra de las ideas lingüísticas de Azkue es la de la regularización de la lengua. En estas ideas academizantes encontramos una curiosa reviviscencia de las de los antiguos analogistas de Alejandría, de las de Julio César, favorables a la regularización del idioma. «Cuando acerca de una cosa -dice p. VIII- vea dos usos opuestos, después de analizar uno y otro lo más exactamente que pueda y dejando el irregular, manifestaré siempre por eúskaro el uso regular»

Esta oposición a la irregularidad es la crítica de la división del vascuence en incontables variedades dialectales. Azkue, en una lengua poco escrita, necesita como guía de la regularidad (...)

Un prestigioso historiador de la literatura euskérica ha hablado de esos «hombres dotados de óptima voluntad y amor a la lengua, pero que por aferrarse a sistemas *lógicos* y a lo que *debería ser*, según ellos, pero que *no es*, se han esforzado en escribir en una especie de esperanto vasco». Azkue en esta obra de juventud, por preocupación literaria, por falta de atención a la lengua viva, en cuyos mil modos no encontraba criterio de autoridad, podía parecer en peligro de caer por estos despeñaderos".

Delako izengoiti-emailea Urkixo delakoan gaude. Ikus beherago Elexalderi egotziaz Mitxelenak jasotzen duena.

[43] Orixeri eskainiko diogun atalean astiroxeago ikusiko dugun arren, konpli bide da, Mitxelenak, "Asaba zaharren baratza" 1960ko lanean, Azkue eta Orixe elkarren ondoan puratzearen arrazoia hona ekartzea: aditz-saileko nahastea da, hain zuzen ere, uztarria:

"Egia esan, bedute gaurko askatasun atseginean zer ikusirik aditz sailean lokarriak hausten hasi ziren gorengo idazle eta hizkuntzalari jakintsu batek edo bestek nori berea emateko. Azkue gogoangarriak eta Orixe euskal-letren aitagoiak" (1960a:38).

lanetatik" eskumikatu izana[44], hauezaz ari denean, 1891koaz "ahanztea", alegia. Eta hauexek berek argi emango, Dodgson-en kritikak direla medio, Azkueren *mea culpa*-n ez ezik, baita lanaren zorigaiztoan[45] ere:

> *Euskal Izkindea*, 1891, texto bilingüe que ha sido después minusvalorado sistemáticamente, a empezar por el autor. (1987b:104).

> escarmentado acaso del camino seguido en *Euskal Izkindea*, veía con desconfianza los neologismos. (1987b:104).

Esan bezala, Azkue bera laster asko ohartu zen okerraz[46] eta hor urraturiko bideetatik urruntzera jo zuen[47]. Ez erabat, haatik, ondoren ikusiko denez[48].

3.2.2.2.1.b. *Morfología vasca* (1923)

Hiztegiarekin batean, Mitxelenak lan garaientzat[49] daukan *Morfologia*n, oraindik ere arestiko lanari bizkarrera dizkion okerretarik zenbaitek isla du, Azkuek "berreskuranahiari" dion atxikimendua ez baita lehen gramatika-saio hartan amatatzen.

Areago, anitz alderditarik, Mitxelenak oso goian daukan lan honen alde gaiztoek hortxe dute, hain justu, etorkia; hauek bezten dute, bestela lan itzeltzat daukan *Morfología:*

> De ahí procede el vicio radical que quita valor a la segunda parte de su excelente *Morfología vasca* (1923), compensado en parte por el apéndice que dedicó al verbo guipuzcoano. (1984a:27).

---

[44] Tovar-ek (1966:71) ere, Azkueren beste lanak honen gainetik jartzen bide ditu.

"La grandeza de Azkue resalta mejor en el conjunto de su obra que en su solo aspecto de gramático. El recolector de palabras en su *Diccionario*, el investigador de distintos campos del folklore en su *Euskalerriaren Yakintza*, hubo forzosamente de adaptarse y seguir a la realidad, y por consiguiente, está más en su época, más dentro de las grandes corrientes que dominaban en la ciencia contemporánea".

[45] Hau, jakina, zehaztu behar da. Lakak aztertuaren arabera, lan hauxe hartuko baita garai batean indarrean bizi zen "hiperbizkaieraren" zurajetzat, adizkien sailean batez ere, eragin honetatik, ez Arana Goiri ez Arriandiaga -nabarmenenak aipatzearren- libratu zirela ahantzi gabe.

[46] "... después, poco después en realidad, hubo de parecerle excesivo". (1984a:26).

[47] Ikus lehen Pagolak (1986) *Bein da betikoz* esanak eta Laka (1987b).

[48] "Sin embargo, el viejo gusto por regular la lengua y explicar las irregularidades de ella como faltas, a veces perdura en nuestro gramático". (Tovar 1966:78).

[49] "La obra de 1925 es un fruto de madurez. En lugar de basarse en Astarloa y en el Padre Zabala, Azkue ha podido al fin estudiar las obras de Bonaparte y de todos los grandes vascólogos (...) La *Morfología* es una colección de materiales muy completa por que [sic] obedece a menos prejuicios que el mismo *Diccionario*, quizá la obra maestra de don Resurrección." (Tovar 1966:73,74).

*Morfologia*ko adizkien sailak, aipatu den aldetik ez ezik, beste ikuspegi batetik ere badu kritikatzekorik, Mitxelenaren ustez.

Hiztegiaz esango den makur berak –hein apalagoan– lan honetan ere hatzak utzi ditu, idatzizko jatorrizko oin-gaiak, beti ez baitaude behar bezain egiaztatuak; hau da, usu, testuen jatorria edo-eta egiaztasuna ez dira zalantzapekoak:

> Los mismos inconvenientes presenta el material de su *Morfología*, aunque en mucho menor grado. Es lástima sobre todo que, en cuanto a las formas personales del verbo, Azkue se preocupara más de presentar sus propias teorías que de exponer los copiosos datos que recogió en una larga encuesta. (1991b:182)[50].

> Sus teorías personales, a alguna de las cuales profesó una tenaz adhesión, no dejaron tampoco de perjudicar algunas de sus exposiciones[51], sobre todo lo que del verbo vizcaíno presenta en su *Morfología*, al lado de la cual es mucho más digno de confianza el apéndice dedicado al verbo guipuzcoano (1932). (1964a, *SHLV*:7).

Honek lanari dakarkiona da, besteak beste, euskal dialektologiari biziki garrantzizko litzaizkiokeen gaiak baliogabetzen edo zaizkiola.

Baina aipatuak aldeka batera utziz, *Morfología vasca* lan mardularen beteari honako juzkuak egozten dizkio Mitxelenak:

> De sus muchos estudios gramaticales debe citarse por lo menos la monumental *Morfología vasca* (1925). (1960b:142).

> La *Morfología vasca* (1923) es su correlato [Hiztegiarena, alegia[52]] en el campo de la gramática (1987b:104).

Lan erraldoitzat dauka Mitxelenak *Morfología*, hain handi eta hain eredugarri, non literatur hizkuntzaren gramatika-alderdien batasun eta finkapenerako ezinbestekoa den:

> Y por lo que toca a la fijación y unificación de la lengua literaria (...) sean cualesquiera las

---

[50] Oroi, Mitxelenaren pleguek 1961-1962 ingurukoak direla
Modu berean mintzatzen da (1981e, *SHLV* 326) lanean:

[51] Altuzarrek ere (1934:185) etimologien pisu galgarria azpimarratua zuen:
"Por eso, y teniendo en cuenta el prestigio de que justamente disfruta el autor de la MORFOLOGÍA, resulta, creo yo, improcedente y peligroso que en una obra de la envergadura y excelencias de ésta haya dado, aunque sea en un solo caso, el nocivo ejemplo de suscitar y dejar por resueltas cuestiones etimológicas, hoy por hoy, de difícil o imposible solución; y aún mucho más improcedente y peligroso por su detestable ejemplaridad, el que, fundándose en esas *supuestas etimologías*, haya juzgado *ilegítimas* y rechazado formas gramaticales que han recibido la consagración del *uso general y secular*".

[52] Aipu hau, hiztegiari alboratuaren testuinguruan aditu behar da, hau da, hiztegiaren handitasuna goraipatu duela gogoan izanik.

direcciones que esta tarea vaya a seguir, tendrá que fundarse a buen seguro en las inmensas colecciones de material que él nos legó: en su *Diccionario* para el léxico y en otras numerosas obras, en particular en su *Morfología*, para la gramática. (1966b, *SHLV*:384).

Esan den bezala, honek ez dakar, noski, Azkuek bertan esan eta bildu guztiak zuzenak direnik. Horrezaz jabetu ahal izateko, ordea, aldez aurretik aztertu beharra dago. Ezinbesteko arakatze honen ondorio dira, hain zuzen ere, Mitxelenaren lanak.

Mitxelenak miaketarik entzutetsuena Azkueren lanen artean Hiztegiari[53] egin badio ere, ez dira errenteriarraren lanetan falta *Morfologia*ren azterketa zehatzaren eraskugarriak.

Hona bi adibide soil: Mitxelenak *Morfologia*n zuzen etsiak dira, esate baterako: *-ko* atzizkiaren erabileraren gainekoak[54] edo *nondik?, noreen?, norik?, hemendik, onerik, arik* eta enparatuei buruzkoak[55].

Hauen ondoan, ordea, Azkuerekiko adostasun-ezak aurkitzen ere, ez da zaila.

Hona adibide batzuk: Bizkaierazko *a* erakusleekin doanaren izaera[56] edo, Mitxelenagan ere garai batean eragina izan zuen okerreko iritziaren ondoriotzat duen *deus, jeus* baino zaharragotzat jotzea[57], Mitxelenak gerora zuzenduko duena.

Nahiz hemen *Morfologia*n bilduezkoak aipatu diren, azterlan arretatsua azaleratzen duten gisa honetako zuzenketak eta bat etortzeak ez dizkio Mitxelenak lan honi bakarrik -ezta pausatuago ekarriko diren hiztegiazkoei ere- murrizten. Mitxelenaren pleguetan irakur daitezke bakanago Azkueren beste zenbait lanen ingurukoak ere, batzuetan iturriaren izenburua aipatuz[58], bestetan argitaralekura igortze soilez[59]

---

[53] Euskal hiztegigintzaren hatsapen eta oin-lantzat jo daitekeen *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* ikerlanean, alegia

[54] Aipamen osoa jaso beharrean, Mitxelenaren testuko 31 oin-oharrean esana dakargu, adierazgarri delakoan:

"Véanse los testimonios en AZKUE, *Morfología vasca*, Bilbao, 1923, págs 294 s." (1972c, *LH*:304)

[55] Hemen ere, Mitxelenaren oin-oharraz baliatuko gara:

"(37). Para *(h)arik eta*, cf. R. LAFON. *Le système du verbe basque au XVIe. siècle I*, Burdeos, 1943, 465 s. En general, AZKUE, *Morfología vasca*, 426 s." (1972c, *LH*:306).

[56] (1979b, *PT*:437hh)

[57] (1965b, *LH*:278).

[58] "Desde Bonaparte se sabe que en Aezcoa se da, al menos localmente, *au* por ant. *eu* (como también *ou*<*au*, *ei*<*ai*): *auri* 'lluvia' de *euri*, *gaurok* 'nosotros mismos' por *geurok*, etc. Cf. R. MARIA DE AZKUE. *Aezkera*. Bilbao, 1928 p.87." (1965b, *LH*:275).

[59] "AZKUE proponía (*Euskera*, I, 5) la etimología **(h)arzt-to* (cf. *osto* 'hoja' de **orr(i)-sto*) que me parece mejor, en todo caso, que pensar con ROHLFS en lat. *asinus*." (1954d, *LH*:433).

3.2.2.2.2. Hiztegigintzazkoak

Alor honetakoen azterketa, Azkueren hiztegira murrizten du Mitxelenak, Azkueren beste lexikografi lanak, ia aipu hutsean utziz[60]. Hau dela eta, hemen ere horrixe eutsiko zaio.

3.2.2.2.2.a. *Diccionario vasco-español-francés* (1905-1906)

> Orain ehun urte zorionean jaio zitzaigun Azkuek lan miragarria egin zuen sail askotan. Eta, halaz ere, zerbait aukeratu behar bagenu[61] horien artean, bere hiztegi handia litzateke[62], neretzat behintzat, harrigarriena eta bikainena. Are harrigarriagoa eta bikainagoa idurituko zaigu, gogoan badugu 1905-1906ean atera zuela argitara, berrogeiren bat urte zituelarik eta ez, behar zukeen[63] bezala, bere bizitza luzearen azken buruan. (1964c:71).

Azkueren lan "harrigarrien eta bikainenari" eskainiko dizkio Mitxelenak, hain justu, azterrordurik gehienak; hitz-altxor honetan bilduriko aberastasunen nondik-norakoa argitzen emango urte handiak.

Mitxelenaren "sas ak eta belarrak" bereizte hau, beste arrazoiak beste, Azkueri zor dion miresmenaren seinaletzat hartu behar da. Mitxelenak esanean oin hartuz: errespetua agertzeko modurik egiazkoena bestek egina aztertzea da. Iharduera honek, ezinbestean, alde onak, baina baita makurrak ere, axalera eramatea ekarriko du:

> —Zorrotza behar kritikak, hortaz?
> —Ez zorrotza ez biguna: zuzena eta berdina. Ustez eta gogoz, zuzena eta berdina. Kritiko gogorregiak pekatu egiten baldin badu zuzenbidearen kontra, ez gutxiago bigunegiak. Ahoa betean eralgitzen baditugu goresmenak, zer gelditzen zaigu egiazki goragarri den idazlan batezko irrizia azaldu behar dugunerako? "Goi-gorengo irakurgaia, bere bizikoa, aparta, txanbelina"? Zer balio dute hitzetik hortzera barreiatzen ari garen hutsaren hurrengo hitz merke horiek? (1957e:83).

> No hay, además dos críticas: una benéfica o «constructiva», como ahora se complacen en repetir, y otra maléfica y destructora. La crítica es lo que es: crítica a secas y en el fondo, en cierto sentido, destructiva siempre. Pero no es destructiva por el placer de destruir, sino por deseo de edificar mejor, por creer que nada estable puede asentarse sobre cimientos inciertos, vacilantes o carcomidos. (1984a:28).

Baldin Mitxelenak Azkueren hiztegigintza ikerbarruti hautetsi badu —lekeitiarrak jorraturiko beste gaien gainetik—, Mitxelenaren aldatu miresmen-kritikezko ikuspegi honek berez bezala ekarriko du, Mitxelenaren lanetan, Azkuek alor honetan eginiko hutsen

---

[60] Azalduko dira Mitxelenak urritasun honen atzean ikusten dituen arrazoiak.

[61] Jat. *begendi*.

[62] Jat. *litzake*.

[63] Jat. *zukean*.

lekukotasuna asmatu-beteen kontu emateari gailenduko zaiola.

Honenbestez –tesi honetan Mitxelenak esanei eutsi gogo zaien heinean– hiztegiaz puntu honetan jasoei leriekeen gaitzespen-kutsu guztizkoa, esan berria gogoan izanik aditu behar da, samurtuko luketen mereziriko loriak, Mitxelenak estari edo, sarriegitan ez hagitz agerian bederen, utzi dituenez gero.

Hiztegiaren zerak neurtzen hasi baino lehen, atzean dagoen egilearen iritzi-jaidurak gogoan hartu behar dira, bai baitute eraginik jendarteraturiko lanean.

Honela, lehenik eta behin gogoan hartu behar da, Mitxelenaren aburuz, Azkuek barneago bizi duela, gramatikagile deskribatzailearen eta arauemailearen aldeko isuria hiztegigilearena baino[64].

Aurrerago erreparatuko zaien beste alderdiak beste, horren seinaletzat dauka Mitxelenak, hiztegi osteko material berririk apenas argitara ematea[65].

Baina, gogara nahiz desgogara mamituagatik, hiztegia da, bi euskal eremutan –literaturan eta hizkuntzalaritza-filologietan–, hatzik sakonenak utzi dituen Azkueren lana:

> [Azkueren eragina] Procede sobre todo de su labor científica y muy en particular de su *Diccionario vasco-español-francés* (1905 y 1906) que inicia una nueva época en el conocimiento del vocabulario vasco en los textos y en el uso popular[66] (1960b:142).

---

[64] (1966b, *SHLV*:374).

Ildo honetan, adierazgarria da, 1957an Euskaltzaindiak Azkueren omenez kalera emaniko *Euskeraren alean* N. Oleagak ere alderdi berauxe jaso eta paperera eramana.

"Izkindean, Gramatikari, buruz, (au zan bere zaletasunik andiena) len aitaturikoen ganera, idatzi ta argitaratu ebazan "Morfologia" (liburu eder-ederra, euskera sakon-sakon ikasteko ta berbetean erabili ori doguzan utsak eta oker esanak zuzentzeko ikaspiderik onena eta egokiena) ta "Gipuzkera osotua", beronen bidez gipuzkerea, beronen utsak bete ta ederturik, euskera batasunerako gai egiteko gogoz" (Oleaga 1957:12).

Lakak ere (1986a:716), Azkuegan lokarri hauxe ikusten bide du:

"Kontraesana badirudi ere, Azkue garbizalea eta Azkue populistaren artean bada hari bat behin ere eteten ez dena (eta gramatika lanez ari naiz bereziki), zenbait ezaugarriren bidez antzeman daitekeena erregulartasunarekiko zaletasuna, hizkuntzaren lehena, garai zaharra hobesteko joera."

[65] "La excepción mayor es el léxico aezcoano, bastante breve, que incluyó en su *Aezkera edo Petriberro-inguruetako mintzaera* (1928), ya que, en contra de lo que se podía pensar, *Particularidades del dialecto roncalés* (1932) no es en el aspecto que aquí nos interesa, más que una recopilación de los datos dispersos en las páginas de la gran obra impresa en 1905-1906" (1984a:26).

[66] Alabaina, Mitxelenak berak aitortuaren arabera eta Lourdes Otaegik Lizardigandik jasoaren arabera, garai bateko euskaltzaleen artean, Azkueren hiztegi hau baino erabiliagorik bazegoela ikus daiteke. Bera-Lopez Mendizabal egileena, alegia.

Hona Mitxelenarena:

"Desde su aparición en Tolosa, en 1916, el diccionario Bera-López Mendizábal, castellano-vasco y vasco-castellano, ha sido probablemente entre nosotros más manejado que ningún otro. Su popularidad ha sido, sin duda, mucho mayor que la de los diccionarios de Azkue y de Lhande –considerados, al parecer, apropiados sólo para gente que había hecho estudios superiores– y su influencia, nada despreciable, es fácil de descubrir en muchos autores posteriores" (1965j:115).

Eta hona Otaegirena, Lizardiren arrazoiak eta guzti:

"Pizkunde aroko belaunaldiarengan Azkuek izandako eragin guztizkoa ongi ezagutzen den arren, Lizardiren

> Horra[67] doaz euskal idazleak hitzez hornitzera, horra hizkuntzalariak euskal hitzen jatorria eta historia aztertzera[68]. (1964c:73).

Konpli bide da, beraz, halako azterren urragaitzak utzi dituen lanaren etorkitik hastea.

Azkuek aitortu Hiztegiaren etorburua, esana doan bezala, *Izkindearen* makurrek ikastarazirikoan ikusi behar da batetik. Hau da, 1891ko gramatikan erabiliriko balizko formen ordez, hizkuntza mintzatuan -batez ere baina baita testuetan ere, benetako izaera duten hitzak jaso nahi izatean, alegia:

> Entonces vino la preocupación por autorizar cada una de las afirmaciones que salían de su pluma por medio de las únicas autoridades que reconoció mientras vivía: la tradición escrita y, muy por encima de ésta, la tradición oral[69] (...) incluso nos ha señalado, s.v.*kortaitz* (en realidad, *kortaits*, v. abajo, 3.258), de donde partió el impulso inmediato: "Con ocasión de esta palabra concibió el autor la idea de reunir a vascos de diversas localidades que autorizasen la obra". (1984a:26).

Mitxelenak, ordea, Azkuek seguru aski halakoren berririk ez zuelako aipatzen ez duen beste iturburu bat ere ikusten du Hiztegiaren abia eta mamibidean: Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak Ilustrazioaren oihartzunez, Azkue baino bi mende lehenago aurkeztu zuen auzo-lanean mamitzeko euskal hiztegi bat gauzatzeko egitamua[70]. Mitxelenaren

---

1928ko artikulu batek argi eta garbi aitortzen du Azkueren hiztegia guztiz begiragarria bazaie ere, eragozpen nagusi bat nabarmentzen zaiola, alegia, euskaratik erdarara egina izateagatik gehienetan euskal idazleek alderantziz ihardun behar dutenez, erabilera zaileko gertatzen zaiela:

> "Pidiendo el debido tributo a la valía y méritos de nuestros primitivos diccionarios fijémonos más especialmente en la presente ocasión en aquellos más modernos que casi exclusivamente han sido y están siendo empleados por los obreros del actual renacimiento euskérico. Se reducen a dos: el del señor Azkue y el de los señores Bera-López Mendizábal. Enorme, valiosísima, bastante a inmortalizar en la historia de nuestras letras de su infatigable autor es la labor que supone el primero, rico el tesoro en él recogido, pero dificulta en extremo su uso eficaz y corriente la carencia de clave romance. A remediar este obstáculo viene oportunamente el segundo, y su ayuda práctica al idazle ha sido por ello meritísima, pero en la actualidad comienza a ser ya insuficiente" ("Traducciones-diccionarios", *Euzkadi*, 1928-8-7, 1 or.; K-L, 125-126 or.)" (Otaegi 1992:55).

[67] Jat. *orrera*. Atzetik datorrena, berdin.

[68] Gisa bertsuan adierazia zuen Arruek (1957:19) Azkueren goratzarrezko lanean, hiztegiaren ezinbestea:
"Esan genezake, oker aundirik gabe, Azkue'ren Iztegia, iñoiz euskeran burutz egin dan lanik bikain eta garaiena dala, ta gaurko euskal-idazle ta euskal-iztun aundi ta txiki guzion *makulua*, gañera:
«Berrogeita amar urte beetik euskeraz idatzi dugunok -dio Orixe'k- Azkue'ren Iztegian ikasi dugu, ta Iztegi ortara yotzen dugu argitasun zuri.»"

[69] Hizkuntzaren bi alderdi hauen arteko neurketan gailen zeinek irten behar duen aurrerago berraipatuko da.

[70] XVIII. mendeko egitasmoarekiko alde bakarra, Azkuek, juzku onez, Mitxelenaren ustez, izen nagusiak kontuan ez hartzea da:
"Lo único que dejó de lado en el proyecto dieciochesco, y con muy buen acuerdo por cierto, fue la onomástica, cuya recogida y estudio habría exigido trabajos especiales" (1984a:27). Orobat, aspaldiagoko (1966b, *SHLV*:375).

laudorioak merezi dituena, bestalde.

Alde horretatik, beraz, aspaldiko kezka baten erantzuna ere bada Azkueren *DVEF* lana.

Mitxelenak hiztegi-gaien miratze xehean esango dituenak bere neurrian aditu ahal izateko, ezinbesteko deritzo Azkuek lan mardul hau gauzatzean ezarririko zioak, euskal ikerketek bizi zuten egoeran kokatzeari:

> Euskal hitzen arazoan, dakienak daki nolako nahastea genuen[71] jaun eta jabe 1900 inguruan. Akerrak barreiaturik zebiltzan ardien artean eta nekez aurki[72] zitekeen zein zein zen[73] zekienik. Maizenik, gurasoengandik hartu genituen ondasunak bazterturik, letoizko bitxi politez apaindua genbiltzan. Azkue paper-eske, lekuko-bila hasi zen arte, herriz herri eta euskalkiz euskalki, hiri eta hiriska urrutienetaraino joaz. (1964c:71).

Azkuek bizi duen giroan, euskal hitz-altxorrean anabasa eta nahastea dira jaun eta jabe. Ez dago jakiterik euskal hiztegiaren luze-laburra, aldartea honetaratzean, gainera, eragile bat baino gehiagoren eskua tarteko izan da eta.

1900 ingurua du ahotan Mitxelenak eta, kontuan hartu behar da, garai horretan, zein euskararekiko -baina batipat "**euskal** hiztegiarekiko"- joera indartuz doan. Labur esan, garbikeriara iristen den garbitasuna, honek dakartzan ondore larriekin[74].

Honezaz gain, hiztegigileen -Larramendiren bereziki- eta besteren asmakariak euskal hitz-ondarekoekin nahasian dabiltza.

Hiztegigintzazko lan zehatz eta sakonik, hitzen iralgia, lekukotasuna... argitzen duenik ere ez dago.

Hitz gutxitan esanda, euskaldun arruntaren eskumenekoak, asmakariak, erdal usaina zutelakoan eskumikatuak, hauen ordezko "itxura euskaldunagokoak"... oro, elkarren gainean metaturik bizi dira[75]. Halako egoera desitxuratu, korapilatsu eta, tamalgarriari egin behar dio aurre Azkuek.

Hortaz, bazter-garbitzean begi zorrotzez miratu behar ditu lekeitiarrak hitz-zokoak, nori eta zeri dagokiona finkatuko badu.

Alde honetatik, hots, bahe-beharrez eginiko bilketa den bezainbatean, Azkuek, Urkixo

---

Hiztegi honezazkoak, gure hiztegiaren sarreran berraipatuko dira.

Ildo honetan, Altunaren (1985) eta Etxenikeren (1985) lanetan irakur daitezke Aizpiartek asmo zuenaren eta mamituaren nondik-norakoa.

[71] Jat. *genduen*.

[72] Jat. *arki*.

[73] Jat. *zan*.

[74] Arana Goirizko eta, batez ere, "garbizaleen" gaineko ataletan erakutsiko direnak.

[75] Bistakoa da, ez dugula esan nahi euskaldun orok eta bakoitzak iturri guztietatik edaten zuenik.

eta Barandiaran gogaide ditu, hirurok ber moduan aritu ez baziren ere:

> egiazko eta benetako biliketa mende honetan bertan egin da, batez ere Azkueren eta Barandiaranen [76]. (1981a:62).

Ihardun honetan Azkueri bidera ateratzen zaion arerio edo -gutxienez behaztoparrietariko- bat, ez bakarra, ezta, apika nagusiena ere, Larramendiren hiztegia da eta, halakotzat daukanez gero, saiatuko ere da andoaindarraren esku zuzenetarik datorkeen edozer uxatzen[77].

Hau da, euskal hiztegigintzaren hainbat nahasteren iturri gertatzen zaizkio andoaindarrarenak eta, hitzak, "herriaren ahotik" entzun ezean, baztertzen ahaleginduko da Azkue, aitzindari[78] arbuiatuaren asmakizun-usaineko oro kanpoan utzi nahiz. Ez beti asmatzen, ordea.

Mitxelenak askotan esana da, Larramendigandikako hitzekiko jokabidean ez zuela Azkuek erabat asmatu, *gogorregi* eta aldi berean, *biguinegi* jokatu zuelako. Hitzok arbuiatu nahirik, sarbide gutxiegi eman zien alde batetik, baina oharkabean, sobera sartu zitzaizkion "zirrikituetatik"[79].

---

[76] Halaber.

"Ya he solido señalar otras veces, sin pecar de original, que la obra de Azkue tiene, en el fondo aunque no en las maneras, un sentido no muy distinto que la de Urquijo, por ejemplo, o la de Barandiarán (...) Y en el campo del léxico llegó con Azkue la hora de intentar separar de una vez para siempre, el buen grano de la cizaña" (1984a:27)

Arpamen hau bera irakur daiteke (1966b: *SHLV* 376) lanean.

Hala ere, sasiak bereiztea dela eta Urkixo, Azkue eta Aranzadi hartzen ditu ahotan Mitxelenak eta honakoa berezi:

"Para bien o para mal, Azkue fue, sin duda, el más refractario a todo modernismo en las ideas. La formación científica y lo que por entonces se llamaba con término polémico europeísmo le era connatural, por decirlo así a Aranzadi quien, aun dejando a un lado su temperamento, era naturalista, al fin y al cabo. Téngase también en cuenta que la labor previa de desbroce era menos necesaria en el campo de la prehistoria, todavía naciente, y en el de la antropología, física y cultural" (1971b: *LH* 99)

[77] Azkuek hiztegiaren sarreran (*DVEF* XIII, 1984a:119) berariaz adierazten duen legez

"Con grandísimo sentimiento he tenido que dejar á un lado el Diccionario trilingüe del gran vascófilo Larramendi, porque viendo que había un sinnúmero de voces debidas á su fecunda pluma, no sabía cuáles eran las populares y cuáles las elaboradas"

Baina, jarraian,

"Muchas he visto confirmadas por el pueblo y las he incluido en la obra"

[78] Norbait aitzindari edo bide-urratzaile izateak ez bide dakar ezinbestean, aurrekoarenak oro ontzat hartu behar direnik.

Halarik ere, (halabeharrezko?) bion arteko antzak ere hor daude, bion izakeran eta idazkeran iger omen daitekezkeenak. Mitxelenari begiantzen zaizkionez, bederen:

"Como su precursor, el padre Larramendi -cuya obra por cierto no admiraba demasiado-, tenía un humor amable y juguetón que le llevaba a menudo a llenar de chascarrillos las páginas más serias de sus obras" (1960b:143).

[79] Ez ditugu berresango Larramendiren gaineko kapituluan eta gure (1992) lanean adierazlak.

Honezaz, Mitxelenaren (1961a; 1963b; 1966b; 1984a) -nabarmenenak ekartzearren- gogoan har daitezke.

Zernahi gisaz, Azkuek, hiztegi-mailako agintea behinipehin, bere eskuetara iraulkatu zuen:

> Azkuek hartu zuen, guztiok dakigunez, bere *Diccionario vasco-español-francés* harrigarria argitara orduko, artean Larramendik zeukan lekua eta agintea[80]. (1961a:55).

Baina, esan bezala, ez da Larramendi, Azkuek hiztegia antolatzean topatzen duen behaztopa bakarra, bestelakori ere, sarrerarik ez baitio zabaldu nahi.

Asmaberri-itxurakoak ere saihestuko ditu, hizperrien sarbidea Euskaltzaindiak erabaki beharreko auzia dela argudiatuz[81].

Hizperriak ez dira Azkuerentzat plazarako duen hiztegiaren osagaiak.

Eta, euskal hiztegiak dituen premiak eta hutsuneak ikusi eta bere betegarriak eratuagatik:

> Luego, por más que rehuyo por sistema la tarea, obligado por la necesidad, creé una larga serie de palabras (...) ateniéndome en lo que tiene de compaginable con el carácter de nuestra lengua, al procedimiento de que se ha valido el alemán para crear sus palabras nuevas[82]. (1959a:129).

ez du Azkuek, Mitxelenak azpimarratzen duenez, halakoren lekukotasunik hiztegian jaso gogo:

> Besterik behar [hitz] galduen truk eta besterik sartu zen. Ongi nabaritu[83] zen Azkue horretaz, baina, hitz-sorketa bizirо gogoko izan arren[84], ez zion atezulorik ireki bere isuriari: zer-esanon

---

[80] Halaz ere, ez dirudi andoaindarraren hatza erabat urratzea erdietsi zuenik:
"Con la aparición del *Diccionario Vasco-español-francés* Azkue se alzó con el puesto y la autoridad de que antes disfrutaba Larramendi, pero no acertó a superarle y a hacerle innecesario en adelante". (1984a:29).

[81] "No he querido exponer palabras nuevas de nadie, á pesar de haber mucha necesidad; pues todavía no hay autoridad para implantarlas". (*DVEF* XIX, 1984a:125).

[82] Mitxelenak jasotzen dituen Azkueren hitz horien ondokoak ere adierazgarri askorik dira:
"A pesar del cariño que tengo á estas palabras y otras á este tenor, no figurará ninguna de ellas en este Diccionario. Cuando en los diversos manuscritos que he manejado me he encontrado con voces de creación reciente, como muchas de Duvoisin y Añibarro, las he copiado aparte para someterlas á la futura Academia. Las voces acerca de las cuales tenía alguna duda y no las he visto confirmadas por el pueblo, las he incluido provisionalmente y acompañadas de un signo de interrogación á continuación de ellas, indicando su incierto origen". (*DVEF* XIX, 1984a:125).

[83] Jat. *nabaitu*.

[84] Isuri horren erakusgarri argia dateke, besteren gainetik, beharbada, *Euskal-Izkindean* erakutsia, lehen jaso bezala.
Edozein moduz, badirudi, Azkueren jokabidean –Lakak adierazi bezala– epeez hitzegin behar dela, zenbait

ihes, etsaitasunaren beldur, bake bila?[85] Ez dakit, baina, haizeak[86] horrantz bazeraman, ez zion amore eman haizeari[87]. Gogora datozkit harako 1891ko *erritasun* hura, Orixez beste usatzaileik doi-doi[88] aurkitu duena, edo, beharbada, Erribera kaleko zoko ilunetan eri handi bizi zen *zadorlaria*[89]. (1984b:35).

Mitxelenaren hitzotatik adi daitekeen bezala, Azkue saiatu, saiatu zen hizperriak eratzen, baina errenteriarrak paperera dituen adibide urriak, gaztaroko gramatikagilearen eginkizunera murrizten dituenak dira, Azkuek bere hiztegian jaso ez dituenak, bestalde.

Honenbestez, Mitxelenaren esanetan oin hartuz, badirudi berezi beharko liratekeela, Azkue idazle-gramatikaria eta Azkue hiztegigilea, euskal hitz-eraketarekiko jarrerari dagokionez bederen.

---

abururi bere horretan eutsiko badie ere, denboraren poderioz aldatuz joan zela suma baitaiteke.

Honela, Tovarrek (1966:60) adierazia zeukan, geroago ere berresango den bezala, Azkue gazteak, gramatika-terminologia sortu beharra duen Azkuek, zehazkiago esan, hitz-eraiketara jo beharra duela, ezinbestean:

"Las dificultades que se oponían a la empresa [euskaraz idatziriko lehen euskal gramatika], eran de varias clases. En primer lugar, era necesario crear toda una terminología gramatical, nunca desarrollada en vascuence (...) El joven Azkue, ya lo veremos, era menos prudente que cuando unos años más tarde, redactando su monumental diccionario, se basaba en la literatura escrita y, sobre todo, en la dialectología viva. Pero sus neologismos eran precisos en la etimología y explicaban lo que él quería".

Hona terminologi sortzailearen kezkabideen adierra:

"Erderaz" oraiarteko izkiratariak legez" izkinde au izkiratu baneu" arazu ta buru-auste gitšiago emon izango eustan nire asmoak, eznintzan itz barririk sortuteko peremina latzean egongo, liburu bi baten ipini beartik bere ezneuan izango, eta ganera nire lantšo onek eukiko dauzan arerio askok" abegi obea egingo eutsen.

Itz barri asko sortu bear izan dautaz" itz barriak ezdaiz beingoan belarriratuten, augatik nire agerkeraa askok bere modukotzat eukiko dauela uste daut. Baina (ziurtasun onek geroko nire naibageak gozatuko daustaz) aingeruak sortuniko itz barriak erakutsiko baneuz bere" barritasunaz irakurle gehienen belarriak ase bage geldituko litzakez. (Azkue *El*:VII)

Eta erakusgarri zehatza. Azkuek lan horretan, gramatikaren ohiko lau osagaiok berenzten ditu: *Aoskundea* ['prosodia'], *Izkirakundea* ['ortografía'], *Irazmena* ['aglutinación'] eta *Alkarmena* ['sintaxis']. Larramendiren zigilua daramatenak, jasoa doan bezala.

[85] "Euskaltzaindiak hartu zuen noraezean hartu behar zuen erabakia, artean mila arrazoi edo atzakia [Jat. *atxakia*] zirela medio (lotsa gaiztoa, zeresanen beldurra, bake-itxurak gorde nahia bakerik ez zen lekuan...) hartu ez zuena. Erabakirik onena hartu zuen. Euskal herriari, euskaldun guztiak minduko baztiuen ere, aspalditxo zor zionа: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea" (1978c:163).

Arrazoien arteko antzaren bixia. Mitxelenak argudio paretsukoak darabiltza Euskaltzaindiak, Arantzazuko bilkura aurretik euskararen batasunerako erabakirik ez hartua eta Azkuek sorkariei muzin egitea azaltzeko.

[86] Jat. *arzeak*.

[87] Jat. *arzeari*.

[88] *Erritasun* hitzaren beste usatzaileen artekoa da Orixeren omenez argitara emaniko liburugileetariko Ibinagabeitia'tar Andima (1965:91):

"Zer esango ote-lukete "Euskaldunak" darion erri-gantzua, erri-gogoa, erri-izkera, erabat esan ERRITASUNA mudatu aal izango balukete?"

[89] Azkue bera?

"Ez nuen nik gaztetan ezagutu nasoiaren kemena eta garra gainezka zerionean, zahartzaro hotzak akaturik baizik, paperez eta hautsez josirik zeponn Erribera-kaleko gela ilun eta triste hartan: bakarrik ageri zen erraldoi makurtua, aspaldiko orotzaponetan murgildua, ingurukoen begiramenak inguratzen bazuen ere". (1984a:19).

Ala Olabide, Euskaltzaindiko idazkari izan zena?

Eta, Azkuek erakusten duen hizperriekiko jokabide honek bestelako auziak azalera dakartza.

Batetik, Azkuek, hiztegi-gaiak biltzean, herriaren lekuko izan gogo duela eta, herriaren ezpainek egiaztatu gabeko hitzak baztertzen ditu. Honek ba ote dakar, orduan, herriari entzuniko oro hiztegian egoteko eskubidearen jabe izatea?

Mitxelenak ez du uste, batetik Azkuek herriaren ezpainetarik entzuniko oro (zentzurik zabalenean) hiztegira aldatu duenik eta, bestetik, herriari entzun gabekoek ere hiztegian badute kokalekua. Azkueren iragazkiaren atzean arrazoiak badaude, ezin atzen daiteke eta garbizaletasunaren inguruko auziaz, Azkuek honezaz dituen iritzi-usteek, hiztegiaren osagaietan errainu zuzena baitute:

> Denek[90] dakigun bezala[91], Azkue iritzi horren [garbizale amorratuen, alegia] etsaia izan zen[92] edo etsai bezala agertu zen, baina ikusiko dugunez ongi begiratuez gero ez zen zeharo etsaia[93]. (1959a:126).

> *Almirente* nabarmenegia iruditzen zitzaiolako edo, zertxobait itxuraldaturik hartu zuen Azkuek: *albiente*, Gipuzkoa-Nafarroetako zenbait herritan jasoa, eta eraskinetan Etxarri-Aranazko *almiente*. Halaz ere, aitortzen du bere *Aezkera*-n *almirante* dela hango hitza. (1962b:227)

Hau letorke, Azkuek bere burua, nolabaiteko aukera egin beharrean ikusten duelako, erabaki behar baitu entzun eta irakurrietatik zeinek duen euskal hiztegian egoteko adina esku, eta honetan, pentsatzekoa da, erdarakada larritzat hartuek ez dutela hiztegian tokirik izango.

Irizpide honi jarraitu zaio, hortaz, hiztegigilea: muturreko garbizaleek ez bezala jokatuz,

---

[90] Jat. *denak*.

[91] Jat. *bezela*. Hurrengoa, berdin.

[92] Jat. *zan*. Hurrengoak, berdin.

[93] "Tradicionalmente AG ha sido considerado el responsable principal de este ideal de pureza, y Azkue, su máximo oponente. Como señaló Altube [1934:214] y se demuestra en este trabajo, lo cierto es que Azkue es esencialmente tan purista como AG. Casi no hay neologismo de éste para el que aquél no ofrezca alternativa; en cambio no puede decirse lo mismo de AG con respecto a Azkue, sin duda porque éste vivió muchos más años. Azkue participa de la obsesión de AG por rehuir los préstamos". (Pagola:1988:XI,I).

Hona, Altuberen iritzia:

"No será del todo inoportuno consignar aquí que, en uno de los aspectos básicos de la euskerología, el criterio de ambos insignes escritores ha sido fundamentalmente idéntico: me refiero al *purismo lexical* o *aversión a los vocablos de origen exótico*, revelado siempre por Arana-Goiri y, aunque un poco mas atenuado, también por Azkue. Ambos euskerálogos han coincidido asimismo (o coincidieron en sus primeras producciones gramaticales), en prohijar algunas reformas de carácter morfológico".

Orixe ere nabarritua zen Azkueren isuri honezaz. Areago, jaiduraren artzindaritza ere eskainia zion lekeitiarrari:

"Lenbiziko euskera garbizale Azkue izan dugu, ez oso amorratu oietakoa. Aren tankera artu dugu eunetatik larogeita emezortzi idazle ondorekook". (Orixe 1951d:16).

Mitxelenak Oihenartez eta Larramendiz dioena aurrean izanik, atzerago eraman beharko litzateke hizkuntz jarrera horren hastapenaren abia.

Lakak ere bere lanetan Azkueren isuri honen kontu ematen du.

ez du erdal usaineko oro kanpoan utziko:

> Lehengo batean, ordea, Azkueren hiztegia esku artean nerabilelarik, hitz batek jo ninduen begietan: «*Andari* (Bc), andero, conductor de cadáveres». Hitza ez dut bestetan ikusi, baina egiazkoa da, noski, ez alegiazkoa (euskal idazle trebe batek egoki esaten duen bezala). Azkuek ez bazituen, guztiok dakigunez, erdaratikako hitzak gehiegi maite. (1966c:246)

Ordezko jatorrik ez dutenek tokia dute hiztegian, hitzaren ondo-ondoan, erdal jatorri garbikoak badira, bi galdera zeinuz eta, zalantzapeko baderitzo iturriari, bakar batez hornituz, halaz ere[94].

Guztiarekin ere, Azkuek hasieran esanaren eta gero moldatu eta mamituaren artean, guztizko bat ez etortzea ikusten duela Mitxelenak gogoeman daiteke, 1959ko "Euskal hitzak zein diren" artikuluan iragaitzaz edo, adieraziriko zerbaitetan oinarrituz.

Azkue joera garbizale amorratuaren etsai agertu zela eta, hiztegiko hitzaurreko hitzak aldatzen ditu Mitxelenak. Azkuek euskarazkotzat jotzeko lekukoak eskatzen dituela herria eta idazleak, lehena batipat . aspaldi mailegaturiko beste zenbaitek ere (ordain jatorrik ez dutenek) hiztegian tokia izango dutela... adierazten dutenak:

> Beraz Azkuerentzat lehendabiziko kontua zen[95] beste modu garbiago batean ezin esan ahal izatea. Horretaz[96] gainera hitza sartua eta betidanikoa baldin bazen ere berdin zitzaion, **teorian behintzat.** (1959a:127) (Betz gurea)

Bukaerako *teorian* hori, ordea, susmagarri xamar begitantzen da. Hau da, Azkuek, teorian gauza bat agertu, baina orrazketa mamitzean bestela jokatu zuela pentsatzeko bidea ere ez ote duten ematen Mitxelenaren hitzok susma daiteke.

Batetik, Azkuerenean ez dira jasotzen herriari entzundako guztiak eta honetan, Lhandek Iparraldeko euskalkietakoekin ez bezala jokatu du:

---

[94] "IX: Barbarismo. En cuanto a las voces exóticas, he incluido aquellas que no tienen equivalente castizo y han tomado carta de naturaleza en el idioma; como ELIZA, «iglesia», LEGE, «ley», ERREGE, «rey», LIBURU, «libro»; MEZA, «misa», etc.

Estas voces y todas las del mismo género irán acompañadas de dos signos de interrogación puestos entre paréntesis. Las voces de cuyo extraño origen no tuviese completa certidumbre, irán acompañadas de un solo signo de interrogación". (*DVEF* XV, 1984a:121)

[95] Jat. *zan*. Hurrengoa, berdin.

[96] Jat. *ortaz*.

> Badakizue[97] nola Azkueren hiztegiaren ondoren beste hiztegi bat egin zela[98] [sic], beste euskal hiztegi bat, beste aldeko euskalkiak bakarrik hartzen dituena, eta hori da Lhanderena. Ez duzue[99] ikusi besterik zenbat milaka hitz agertzen diren[100] Lhanderen hiztegian euskal hitz bezala[101] Azkueren hiztegian agertzen ez direnak. (1959a:127).

Mitxelenak, Azkuek kanpoan utziak zein diren ez zehaztuagatik, errezeloa izan daiteke, jaso gabekoen artean izan daitezkeela bere itxurak jatorri arrotzekoak direla edo salatzen dutenak[102].

Beraz, Azkuek ahotan darabilen herriaren nagusigoa zalantzapean gelditzen da. Honen eragilea, Azkueren isuri garbizalea da, hain zuzen ere.

Honen beste adibidea da, herriak hitzetik hortzera darabilen *bertsolari* hitzari Azkuek iruzkindua:

> Azkuek *bertsolari* hitzean hauxe dio: «Es voz extraña...» Erdaraz[103] ezin esan daitekeen gauza bat, erdaraz adierazi behar dutena beste modurik ez daukatelako, hori al da erdal hitza? (1959a:128).

Gainera, arestikoarekin loturik, Mitxelenaren ustez, ez legoke zer jarri *errege*, *lege* eta antzekoei, Azkuek aldamenean ipintzen dien harridura-zeinurik, euskal hitz bete-beteak direlako, etorkia gora-behera:

> *Errege* euskal hitza da erdaraz[104] ezin esan dezakedalako *Hoy es el dia de los tres erregues magos*. Eta euskaraz ezin esan dezaket *Gaur hiru rey magoen eguna da*. Beraz *rey* ez da euskal hitza. Horretara *errege* eta *rey* zeharo bi hitz dira, bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa[105] Eta hori da aurreneko irizpidea. (1959a:128).

---

[97] Jat. *badakizute*.

[98] Jat. *zala*.

[99] Jat. *duzute*.

[100] Jat. *diran*. Hurrengoa, berdin.

[101] Jat. *bezela*.

[102] Hiztegiaren ezaugarri nagusiez hitzegitean ikusiko den bezala, susmo hau indartuko dute bi hiztegion arteko alderatzean esango direnek.

[103] Jat. *erderaz*. Hurrengoa, berdin.

[104] Jat. *erdera, euskera*.

[105] Aldrebes bide da.

Adigarri guztion argitan ikusten da zergatik dioen Mitxelenak, Azkueri berdin izatea *teorian* dela, halaber, zer dela eta, Mitxelenaren ustez, Azkuek hasieran esanak eta gero aldatu-gauzatuak bat ez datozen eta aitortu baino garbizaleago agertzen den.

Funtsean datzana, Azkuek "euskal" hitzat jotzeko irizpide okerra da, Mitxelenaren ustez:

> Euskal hitzak ez ditu bihurtzen bere jatorriak eta iturburuak, euskaldunak eratbiltzeak baizik (1959a:129)

Azkue, ordea, "izurriak baino kalte gehiago egin duen"[106] etimologiaz baliatu da, euskal eta erdal hitzak bereizteko. Eragozpen larriak dakarzkio hautaera honek, ordea, garai horretan etimologi jakitean erdietsiak eta Azkue bera gaian jantziegi ez izatea, behaztoparri larri ditu eta.

Honela, Azkueren gurasotasuna zuzenean ez aipatuagatik, honek hiztegiaren hitzaurrean landaturiko etimologia batez[107] baliatzen da Mitxelena, irizpidearen ahulezia eta arriskua -darabilenaren kontra bihurtu arteraino koa -, agerian gera dadin:

> ... askok uste dute, *aizkora*, *aitzur* eta holakoak [sic] *aitz*-etik datozela. Baina, duela gutxi Gorostiagak esan eta[108] argitaratu du lantxo bat adierazlaz *aizkora* latinetik datorrela. Neri ez zait iruditzen batere zentzugabekeria. Batere.[109] Beraz, eman dezagun oraln arrazoi duela Gorostiaga jaunak eta *aizkora* latinetik datorrela. Eta hor daukagu atzo arte euskal hitz garbia zena[110] atzotik gaurrera erdal hitz bihurtua. (1959a:128)

Hiztegi-lanak jomuga duen denaren kontu emate eta deskripzioaren ordez, hitzaren ustezko iralgia irizpide hartzeak, begien bistan uzten du, nolako bihurrikerietara eraman dezakeen lana.

Aurriritziok guztiok, eskuak estekari latzez kateatu dizkiote Azkueri: ezin hiztegian hitz

---

[106](1959a:128).

[107]Honela dio Azkuek:

"Voces como AIZKORA, AIZTUR, AIZTO, cuyo tema es conocido, pero no la desinencia ( ) /Casi se puede asegurar que es derivado de AITZ, «piedra», + TO, «pequeña», = «piedrecita»" (*DVEF* XXXVI, 1984a:142).

[108]Jat. *ta*

[109]Mitxelenak, *FHV*-n, iritzi hau sendotzen du:

"No deja de ser curioso que escaseen ejemplos en los cuales se puede asegurar que *l* era lo primitivo. Uno podría ser *aizkora/aizkol-* si, como propone Gorostiaga, *Euskera* III (1958), 61, procede del lat- *asciola* (> **aiscóla*), explicación que me parece preferible a todas las que hasta ahora se han presentado" (*FHV* 1985_3:319).

[110]Jat. *zana*.

berriak jaso, herriaren ahotik entzun ez ditu eta. Aldi berean, ezin maileguak onartu, "euskal hitz" bilakatu ahal izatea, jatorriak ezinezko bihurtzen duenez gero. Hona, egoera bihurri honen aurreko Mitxelenaren proposamena:

> ¿No sería mejor aceptar ambas posibilidades, cada una en la medida[111] que corresponda? (1984a:31).

Baina beste honen atzean ere, bada, Mitxelenaren ustez, Azkueren jokabidea argi dezakeen arrazoirik: Azkue ez lexikografo ez filologo da; bestela esan, ez da "oliziokoa"[112].

Azkue ez da, antza, gaztarotsuko lan hau osatzen ari denean filologiaren[113] barne-katramiletan adituegia eta, hemen bide dute hiztegiko zenbait akatsek iturburua, hala nola, letra-soinu harreman aldakorraz ez ohartzea[114]:

> El profano que no ha sido iniciado en los principios de la filología, y Azkue lo era cuando compiló su gran obra, suele tomar las letras por su valor nominal, es decir, por el que tienen en su día en el sistema ortográfico que le es más familiar, sin tener en cuenta que no es lícito atribuir a éste una

---

[111] Hementxe gakoa, gure ustez, neurriaren finkatzean.

[112] "No hay necesidad de decir, creo, que no era un simple interés científico, el mero deseo de saber, el que impulsaba a Azkue. " (1966b, *SHLV* 384), lehen jasoaz ohi daiteke.

[113] Ezta linguistika erromanikoaren aurrerapideetan ere, antza.

"R.M[a] de Azkue, l'illustre lexicographe basque, qui d'ailleurs ne se souciait guère des progrès de la linguistique romane, proclama à plusieurs reprises l'origine basque du mot espagnol. Il fondait son avis sur la possibilité d'analyser le mot roncalais [*xeme, breme*], qui serait composé de *xe*, diminutif de *ze(h)e* «empan» (ronc. *ze*), et *me (<mehe)* «mince, fin, subtil, maigre» Il faut ajouter qu'Azkue ne connaissait d'autre étymologie de l'esp. *jeme* que celle, trop fantaisiste, qu'il avait lue dans le dictionnaire de l'Académie espagnole (gr.-)lat. *spithama* «empan»". (1958d: *SHLV* 1:16).

Hona beste bi ikuspegi Mitxelenarenarekin, apika, erosoegi uztartzen ez direnak:

"Pero por lo que dejó hecho se ve que, aparte de seguir la carrera sacerdotal (que sin duda le dio una base lingüística sólida, en lenguas antiguas), aprendió muy bien el francés y el alemán, armonía, composición, después Gramática general, Lingüística en el más amplio sentido de la palabra". (Caro Baroja 1966:43).

"Recordábamos entonces las invenciones que al campo de la ciencia lingüística trajo aquella generación: «Que la lengua no es un organismo», «que la lengua es una actividad social», «que cada palabra tiene una vida propia, quebrando así el rigor de las leyes fonéticas», «que la división de las lenguas y de los dialectos se atomiza en áreas, ya que cada palabra, cada sonido, cada evolución fonética, tiene su frontera». Esos grandes descubrimientos, que todos tienen en común un acercamiento menos esquemático a la realidad, se impusieron mejor en las actividades de Azkue como recolector que en las primeras de Azkue gramático.

Las ideas de los lingüistas contemporáneos le ayudan a perfeccionar sus orientaciones científicas para analizar el vascuence" (Tovar 1966:71).

[114] Nahaste honen arriskuaz:

"... y, por otra parte, también el que plantea dificultades mayores, ya que cualquier sistema de escritura, de la época que sea, está lejos de ser un espejo fiel y unívoco de la pronunciación. La filología ya antigua y la más moderna lingüística han puesto a punto, sin embargo, una serie de instrumentos que facilitan esa hermenéutica". (1963c:16).

Azkuek ezagunak ez izaki, antza.

validez intemporal. (1984a:36)[115].

Honezaz gain, Azkuek ez du lexikografia bere gogoz begiz jo, gogoaren kontra baizik. Mitxelenak -garai batean[116] eta bestek, honela uste ez bazuten ere:

> La razón de esto [hiztegigintza-lanei jarraierarik apenas ematea] se halla probablemente en el hecho, reconocido claramente por él, pero no bastante subrayado, de que Azkue fue una especie de lexicógrafo *malgré lui*, por sentido del deber y en contra de sus más entrañables inclinaciones, fueran éstas mejores o peores. (1984a:26).

Gogozko eta borondatezko hiztegigile izan gabe adituari dagozkion eginbeharretan aritzeak, errainuak utzi ditu hiztegian[117].

Azkuek, esparru berezi eta mugatuak dituzten jakinbideak nahasi ditu etimologia eta lexikografia deskribatzailea zaku berean sartuz. Berez bezala dator, orduan, etimologia deskripzioan oinarritu ordez, kontrara jokatu izana, hots, denaren kontu eman ordez, ongi sustraitu eta jorratu gabeko hala-nolako etimologiara makurtzea.

Mitxelenaren ustez aurriritzien sustraian dagoen garbinahiari, zainak, arazo askoz ere zabalagoan bilatu beharko zaizkio.

Uste gaiztoa, Azkuek hizkuntzaz beraz duen ikuspegian datza: *Etorkizun* islatzen den herri-ustearen arabera, hizkuntza izen-bilduma da, hitz-zerrenda "Ez adituen" artean uste usua denez, hizkuntzaren zeregina izendapenari lotzen zaio, kanpoko munduko gauzei "etiketak" jartzeari, alegia; hau dela eta, hizkuntza batetik beste batera itzultzea, izen-etiketa aldatzea

---

[115] Hitz beretsuak irakur daitezke "Azkue lexicógrafo-ri" (1966b, *SHLV* 379)

[116] "En contra de lo que yo mismo pensaba y de lo que sin duda pensarán otros muchos, Azkue no tenía ninguna vocación de lexicógrafo" (1966b, *SHLV* 374)

Bestalde, ikusiko dugunez, Azkueren hizkuntzazko ikuspegia Mitxelenarentzat "no especialista" (1966b, *SHLV* 392), "«ingenua» en el sentido kantiano" eta "popular" da (1984a:32)

[117] Ez aditu izateak ikuskizuna ote luke lehen aipatu den Azkuek bere burua "herrian" ikustearekin eta Mitxelenak leporatzen dion urrutiko hoztasun-ezarekin?

"De aquí el carácter humano, y hasta demasiado humano, de su gran *Diccionario*, en el que el hombre se manifiesta, en sus preferencias más íntimas, quizá con mayor calor y sinceridad que en sus creaciones literarias o musicales". (1984a:39)

Gogora daiteke, halaber, Mitxelenaren iritziz Azkuek ornalderik serioenak ere txaskarriz betetzen zituela, sortzezko lanei "didaktikotasun" kutsua antzemanez. Ez bide zuen Azkuek asmatu non zer adierazten?

Halarik ere, bada, zientzi lanetan bihozberatasuna erakustea bestela juzgatzen duenik:

"Una de ellas [Azkueren bertuteak] es su humildad. La ciencia deshumaniza. Tomáis en la mano un libro científico y estará lleno de ideas y preñado de espléndidos raciocinios, de visiones geniales si queréis; pero, ¡cuán poco humano resulta con frecuencia! Por eso son tan difíciles muchas veces de leer. Si tomáis un trabajo de Azkue, uno de sus trabajos científicos, veis latir debajo de la ciencia, debajo de la erudición, un corazón. El no tendrá la fría cita: fulano dice tal; él aprovechará la ocasión para recordar con alegría una amistad, para añorar quizás al amigo perdido, para lamentarse de un olvido, quizás para responder en algunos momentos en que su corazón estaba ya lleno, a una acusación, a una insidia, a un silencio intencionado; pero siempre con toda discreción". (Mañarikua 1957:51)

besterik ez da.

Mitxelenak ahotan dituen Martinet, Mounin eta hizkuntzalaritzan adituentzat –Mitxelena barne–, hizkuntza bakoitzak, munduaren ulermodua ere baldintzatzen du[118], sistema semantiko zehatzean du iturria eta, izenen hots-katea gutxiena da.

Azkueren irizpideari eutsiz gero, berriz, txullaezineko menpekotasunaren adierazgarri direnei (hots, malleguei) ihesi, hizkuntza, beste menpekotasun larriagoan sarrarazten da, arrotzen eredu ikusgaitzagoetara makurtzen baitzaio. Hau da, azala susmagarria duelako baztertzen da, euskaldunak errotua duen halako adigaia adierazteko bidea; beraz, azalak eraginez azal-mamiak zokoratuak:

> Y, si el adjetivo *prestu* es la expresión de algo así como la *kalokágathia* vasca, del hombre *comm'il faut*, no podemos rechazarlo sin grave pérdida porque su envoltorio, no su sustancia, resulte sospechoso de préstamo. (1984a:32)[119].

Baina hiztegi honetan bilduek eskaintzen dute, Mitxelenaren ustez, bestelako aberastasunik.

DVEF-ek (eta Azkueren beste zenbait lanek) euskalkien berri ugaria ematen du, beste datuak beste. Honenbestez, bilketa lana ere den heinean, Bähr-en eta besteren saioekin batean, Bonaparteren bidetik[120] (gerora eten zuten bidea[121]), euskal dialektologiaren zuraje eta oinarri bilakatzen da, jakite honen lehen urratsak emanez[122] hasten baita.

---

[118]Ozoi Humboldt-ez, Sapir-ez edo Whorf-ez, esate baterako.
Hataber, kontu hau dela eta, Lizardiren kapituluan esango diren zenbait uztar dakizkioke.

[119]Aipamen hau bera irakur daiteke "Azkue lexicógrafo" lanean. Bukaera, gure ustez, ez du behar bezala aldatua:
"no podemos rechazarlo sin grave pérdida porque su sustancia, resulte sospechoso de préstamo" (1966b, *SHLV*:383).

[120]"No vale la pena de extenderse sobre los antecedentes de la dialectología vasca, que son de sobra conocidos, a partir de Oihenart y Larramendi, por lo menos. Si dejamos a un lado estos precedentes remotos, se puede afirmar que, al menos hasta estos mismos días, la zona de habla vasca ha sido sobre todo el objeto de dos encuestas directas, más o menos sistemáticas: la realizada por el príncipe Luis Luciano Bonaparte en el siglo pasado y la que durante largos años llevó a cabo en éste don Resurrección M.ª de Azkue, con ayuda después de la Academia de la Lengua Vasca, fundada en 1918" (1981e, *SHLV* 323).

[121]"1918an generaman martxak iraun balu, norbaitek eta zerbaitek moztu izan ez balu, bagenuen honez gero (Eusko Ikaskuntzari, Euskaltzaindiari, Urkixori, Azkueri eta nahi duzuenari eskerrak) horren [Atlasaren] antzeko zerbait...". (1983e:136).

[122]Gogora daiteke Larramendi aipatu duela Mitxelenak, Oihenartekin batean, dialektologiaren aitzindari, aurreko kapituluan jaso bezala. Hauek eta Bonaparte ez dira, horregatik, Azkue dialektologiaren aitzindari bakarrak. Bi hauen ondoan, Añibarro ere jarri beharko baliteke:
"Con todo, a causa de su preocupación por la extensión de los términos, por lo que había de diferencial en el léxico, Añibarro resulta un claro precedente de Azkue, de la dialectología y de la geografía lingüística modernas". (1963b, *SHLV*:412). Añibarro, nolanahi dela, Larramendiren zordun jo du Mitxelenak.
Bestalde, Bonaparteren eragin eta gidantza ukatu gabe, Azkue maisuagandik askatuxe zebilela pentsa daiteke, beherago argituko den legez:
[Bonaparteren bereizkuntza] "Onartzekoa ez ezik, onartua ere izan da, guztiok bastarabigu harrezkero [Jat.

Alabaina, ariketa honetan ere, badu Azkuek Mitxelenaren begiei makur aurkezten zaienik, ez baitio lekeitiarrak, egun dialektologoak eutsiko liokeen irizpideari eusten -ez beti behinipehin-, entzuniko oro ez baitu hiztegian bildu.

Horregatik, Barandiaran ez bezala jokatua da:

> Hortik datoz hitz berriak eta berak [Apalategik] seguru aski jaso ez zituen esaera bitxiak. Barkakizun da, ordea, horretan ere. Bere garaiko joera bantzen hori. Azkuek berak ere burutik burura segitu zuena. Herriko gizonaren lekuko lelal izaten Barandiaran jauna izan dugu geroztikakoek gidari, beste sail askotan bezalaxe. (1961c:55)

Azkuek entzunikoa esan-esanean ez jasotzeko arrazoia, ez da gara: hartako euskal dialektologiaren bitarteko urrietan edo alfabeto fonetikoa ez erabiltze soiletan bilatu behar, hori ere egia den arren:

> Goragotik (Bonapartegandik, azken buruan) zetorkien tradizioaren ondorengo umil zirelarik puntu horretan, Azkuek, Bahr-ek eta beste zenbaitek bazuten ardura zitzaizkien hitzak eta formak (adizkiak, esate baterako) izkribuz jasotzeko modurik, nahiz eta gutti-gora-beherakoak izan hauek. (1983e:127).

Beste norabait jo behar, Azkuek entzunei (eta irakurriei) ezarririko iragazkiaren zioa argituko bada, lehen ere autu izan diren iritzi garbizaleetara[123], alegia.

Nahiz herriarena izan azken hitza, ez du Azkuek aparteko eragozpenik ikusten bere burua "herriaren" samaldakoa izaki entzunikoak "zuzentzeko, apaintzeko eta hainbestetan soiltzeko"[124] eta honetxek ere urruntzen du, hain zuzen, Bonaparte aitzindariagandik[125].

---

arrezkero]. Azkueren edo besteren zenbait ukitu gorabehera" (1983a:66).

Ukitu horien testigutza: hor daiteke ondokoa:

"Bonaparte, que lo [erronkariera] consideró en su clasificación como subdialecto español del suletino, vaciló siempre entre atribuirle esta posición subordinada o darle la condición de dialecto independiente, coordinado al suletino. Azkue, en la práctica, habló siempre del «dialecto roncalés», designado en sus obras con la sigla *R*, sin incluirlo en el suletino, señalado por *S*. De hecho, esta práctica ha sido seguida, ya que resulta útil por su comodidad, por los autores posteriores" (1964a: *SHLV* 13).

[123] Honetan Urkixo ere nahiko gertu izuke:

"Garbi-giroa ere bere [Azkueren] garaikoa zuen, ez berea. Urkixo bera (nork esan?) ez zebilen hain urrun Azkuegandik. Horrexegatik, batez ere, ez zen [Jat zan] behin ere ausartu Landuccien hiztegia edo Zuberoako pastoralak argitaratzen". (1964c:72).

[124] "Le meilleur dictionnaire basque, celui d'Azkue, n'est pas un dictionnaire historique. Au surplus, en dehors des erreurs involontaires qu'on n'arrive jamais à supprimer, il porte parfois l'empreinte des préjugés puristes de l'auteur. On y cherchera en vain, par exemple, certains acceptions qui lui semblaient sans doute dangereusement proches de la valeur originelle du mot et qui seraient donc de nature à en déceler l'origine romane: *autortu*, pour ne citer qu'un cas, ne veut pas seulement «avouer, confesser»; dans un ouvrage manuscrit rédigé à Oñate vers 1790 il signifie exactement «octroyer, concéder»" (1957b, *SHLV*:114).

Mitxelenaren iritziz, jokabide bikoitza agertzen du Azkuek jaso eta azterkizun etsiriko aberastasunen aurrean: begiramena eta kritika. Bi.biztasun hau behar bezala ulertuko bada, Azkueren beraren aztergaiarekiko jarreran eta bere buruaren kokagunean ikusi behar da.

Azkue ez ua kanpoko ikusle hotz eta objetiboa[126], Azkue, esan bezala, "herri" ere bada eta honen ondorioz, tartean sartzeko eskubidearen jabe.

Mitxelenaren eta Azkueren arteko beste liskar-puntu batek ere, artean ikusiriko bat ez etorize berean du iturburua.

Auziak orain, hizkera-motaren inguruketan du isla, zehatz esan, herri- hizkera/literatur hizkera bikoteari dagokio.

Baldin Mitxelenaren tesia bada, esan bezala, euskaldunek erabili dutena eta darabiltena dela euskal hitza, lehenari begiratzeko eta, honenbestez hitzaren historikotasunaren lekukoak bilatzeko, testuak euskarri sendoagoak[127] iruditzen zaizkio herri-hizkera baino. Hautaera erosoagoa da, noski, hizkuntzaren adierazpide biak ahalik eta

---

[125]"Y aparte de sus teorías, Azkue estaba muy lejos de pensar y de proceder como Bonaparte para quien la dialectología debía ser, como la novela para Stendhal, algo así como un espejo fiel en lo posible que se paseara impasible e impersonal, a lo largo y a lo ancho del país. Azkue, con un criterio estético y purista, no aceptaba pura y simplemente los hechos, sino que se creía en el derecho, e incluso en el deber, de someterlos a un cribado previo: así no nos ofrece un vocabulario aezcoano o roncalés, sino un florilegio, un ramillete de flores escogidas que creyó dignas de admiración por su aire arcaico, por su pintoresquismo o por su pureza" (1964a, *SHLV* 8)

Halarik ere, beharbada, dialektologia hutsezko lana ez zelako, ahozkoari eta idatzizkoari garrantzi bera ematen ez zielako, "herriari" atxikimendu hanoi(egia?) ziolako edo, besteren testuetan eskua sartzeko, nonbait, ez zuen printzeak beti halako debeku gotorrik aurkitu.

"... bestetik Bonapartek gipuzkerazkoa, Iturriagaren *[Jolasak]* 1842koa, ez zuelako honek hamabost urte lehenago Ermanin agertu bezala eman, ezpada berak bere gisa -ala Urianteren esanera?- aldaketa txiki batzu eginik. Bonapartek ere bere mania txikiak bazituen. Ez zuen, esate baterako, herriak erabiltzen ez zuen eta inork asmatua zen hitzik maite eta Iturriaga orduko hila bazen, bere gogara egin zuen zenbait aldakuntza. Har badezagu, esate baterako, *Lehenbiziko jolasa*, aldakuntza hauek atzemango ditugu: Iturriagak *ciricoa edo seda* dioenean Bonapartek *seda* bakarrik uzten du eta beste bitan *ciricoa* bakarrik agerí baita Iturriagarenean, haren ordez *seda* ezartzen. Iturriagak *boltsa edo zorro* dio eta Bonapartek *bolsa* bakarrik uzten du, eta hori bi bider. Gainerako zuzenketak simpleak dira. Iturriagak *baña, lerdia, lirdizco* (hutsa ote?) eta *pistuco*. Bonapartek aldiz *bana, lerdea, lerdezco* eta *piztuco*; halaber Iturriagaren *-tcen* asko *-tzen* idazten ditu, eta azkenik beste hau: *Atseguin det jaquitea* dio Iturriagak, Bonapartek berriz *Atseguin det jaquiteaz*, lehena okerra edo hutsegitea balitz bezala" (Altuna 1987:27)

Eta Sarasolaren (1986:215) beste honek ere Bonaparteren jokabidea susmo-usainez ez ote duen inguratzen pentsa daiteke:

"Jakina denez, Bonapartek literatur euskalkiak eta hizkera arruntak bereizten zituen, eta haietan, batez ere literatur gipuzkera eta lapurterazko itzulpenetan, halako eskuzabaltasuna erakusten zuen maila jasoko hitzak onartzeari buruz (...) Dena dela, printzeak B. Echeniquen idatzi zion harako «la lengua hablada no tiene ninguna autoridad en estos dialectos literarios. Sólo hay que invocar los buenos libros» (...) baieztapena ez dut uste praktikan erabat bete zuenik"

[126]"Personalmente la comprendo sin dificultad, porque he llevado siempre dentro de mí la lucha de los dos hombres, aunque espero y deseo que el observador frío y como desinteresado -aunque esté lejos de serlo- salga siempre con ventaja" (1966b, *SHLV* 384)

Beraz, ezta zuhurra erraza denik, ezin esan, beraz.

[127]Hizkuntzalaritza-filologietan erabiltzen den zentzu hertsian, ezinbestekoa.

Honetan, halarik ere, Azkue ez datzil bakarrik:

"El desprecio de la historia, en el que pueden incurrir algunos comparatistas, no es ni mucho menos pecado propio y exclusivo de ellos: hay también, por ejemplo, los lingüistas habituados al trabajo de campo para quienes el valor de las formas oídas en sus correrías está por encima del de cualquier escrito, sea de la fecha que sea" (1963c:15).

uztartuenik dabiltzanean[128].

Ahozko hizkera eta pleguetakoa batean hartuz baina bietakoren bati azken hitza eman behar zaionean, Azkuek herri-hizkera[129] dela nagusi egin diren zehaztasun guztiekin dioen bitartean, Mitxelenak testuak aukeratzeari zenbait "abantail[130]", Axularrek zioen bezala"[131], ikusten dizkio:

> Batetik literatur-hizkera izaten da hizkera arauduna eta normalizatua, eta hori idazleek berek hala egin dute. Herri hizkera, berriz, askotaz ere askatuagoa izaten da. Bestetik askotaz ere errazago izaten da jakitea zer dioten idazleek[132] hemak zer dioen[133] baino. (1959a:129)

Honen atzean dagoena, ikertzaile biok hizkuntza baten hitz-altxorraz, hiztegiaz duten ikuspegia da, zein osagai diren biltzekoak, alegia.

Mitxelenarentzat hiztegietan gramatiketan bezalaxe islatzen da, beti erabat eta garden mugatzerik ez dagoen ahozko eta idatzizko hizkeren arteko aldea.

Azkuek ahozkoaren alde egiten du apustu garbia, aukeraren arrazoia begien bistakotzat joz. Mitxelenak, haatik, guztiz bestelako aukerari eutsi behar zaiola dio, euskaraz -beste hizkuntzetan bezala-, hizkuntza idatziari buruzko arauak hizkuntza idatzian bilatu

---

[128] Bi adierazpideen arteko osinari ez bide dio halaz ere Mitxelenak osasungarri iritzi:

"Hay una cierta falta de contacto entre los estudiosos de la literatura popular y los lingüistas, algunos de los cuales trabajamos esencialmente, en materia de diacronía, sobre textos escritos"

Eta, osin honen aringarritzat dauka, hain justu, Azkueren lana:

"Azkue fue durante muchos años el puente que unía a unos y a otros, aunque acaso también él se inclinara por la lengua misma más que por lo que se ha expresado en ella" (1971a: *SHLV* 724)

Honenbestez, Azkueren onek erantsi beharreko beste zer bat?

[129] "Así, cuando opone el vascuence propiamente tal, con sus dialectos (*euskeraa* [Azkuek (1891: EI VIII), *euskeraa darabil*] bera bere izkeranizakaz) y el vulgar (que él llama, con neologismo, *diarrekoa*), y con cierta ironía reconoce que el otro es de mil modos. Cierto que Azkue estaba preocupado con la invasión de los erderismos en la lengua hablada, pero hasta en su misma reducción del vascuence a cuatro o cinco dialectos (los dialectos «literarios», como decía Campión) [Bonapartegandik datorren partiketa, hain justu] estaba curiosamente dependiendo de la lengua escrita. Y ello cuando ya estaba germinando la lingüística de los atlas, la recolección de los dialectos en labios de los hablantes, la lingüística que Azkue iba a practicar en seguida, al principio casi instintivamente, después cada vez con más conciencia, para componer su diccionario" (Tovar 1966:61)

[130] Naban dateke argudio-harlaren aldeareki "borobildi" mamitzen duen aipua. Testuetan, egileengan oinarritu beharra adierazten ari delarik, Axular deitzen du Mitxelenak adibide.

Naban, halaber, *abantail* -*a*#*rik* gabe ematen duela Axularren moduan.

[131] (1959a:129). Jat. *zion*.

[132] Jat. *idazleak*.

[133] Jat. *dion*.

behar direlako[134].

Ikuspegi honexek behartuko du Azkue hiztegian sarbideak ematerakoan beti zuzen ez ibiltzera.

Esate baterako, *(zeru) goien, goren, hiztegi* edo *hirutasun* hitzekiko jokabidea[135]: lehen hirurak Azkuek hiztegian jasotzen ditu, laugarrena, berriz, ez. Alabaina, Mitxelenak dioenez, aspaldi samarrekoak dira guztien lekukotasunak hizkera idatzian, Azkueren erresalbuak erresalbu[136].

Garbi esan, "herriak" itsuturik, Azkuek ez die sarbiderik ematen euskal literaturan erabili diren zenbait hitzi.

Urrutiegi joatea al litzateke ondorioztatzea, hitza zenbat eta "tekniko", "berezitu" edo "landuago" izan, orduan eta aukera gutxiago duela Azkueren hiztegian agertzeko, "herriaren" ahotik entzutea nekezago denez gero?[137]

Ildo beretik, jakingarria litzateke (Mitxelenak honelako eginkizunik aipatzen ez duen arren) Azkueren hiztegikoak eremu semantikoetan sailkaturik, zein eremu-mota liratekeen nagusi eta zein proportziotan.

Zehaztu diren irizpide horien errainua duen Azkueren lan handiazko orotariko ikuspegia aurkeztatzeari ekiten dionean, hiru ezaugarri nabarmentzen ditu Mitxelenak Azkueren hiztegia, ***handia***, ***kritikoa*** eta ***historikoa*** da. Hirurak, ongi gatzaturiko lanak legez, egileak eskaini uste baino etekin aberatsagoaren ondorio.

---

[134]Orixez hazegrean itzuliko gara puntu honetara.

[135]Edo beste honakoa:

"Permítaseme, para terminar, pasar breve revista a otras denominaciones que se han usado en lengua vasca para «noble» o «nobleza», en una acepción o en otra. Hay que mencionar, aunque no sea más que para remediar la **nada involuntaria omisión de Azkue**, que *noble*, generalmente con valor adjetivo y el abstracto *nobleza* están ricamente representados en la literatura vasca. Por el contrario, viz.: *irargira)* «prueba, documento justificante» se le coló de contrabando, gracias a su disfraz semántico, aunque el ejemplo mundaquês tomado sin duda de su madre (*irargia ...taralea* «sacar las pruebas de un aserto», en realidad «sacar la hidalguía»), debía haberle abierto los ojos" (1968a: *SHLV* 525) (Beltz gurea)

[136]Luze samar joagatik pasarte osoa hona aldatzeari argigarri deritzogu:

"Alguna vez los escrúpulos de Azkue en esta materia [*herria* gainetik jartzea, alegia] nos parecen un tanto excesivos. Según él, *zeru goen* o *goren*, «cielo empíreo» es «voz muy usada entre los predicadores. No sé si el pueblo se ha valido nunca de ella». Pero ¿quién se vale de palabra -y hoy hasta por escrito- de *cielo empíreo* en castellano? La expresión vasca, de todos modos, es razonablemente antigua, puesto que *ceruric gorenenac* aparece ya en Harizmendi, y tiene la ventaja de que su comprensión no ofrece la menor dificultad para nadie, cosa que no ocurre con *empíreo* (...)

Azkue no recogió *hirurtasun*, «trinidad», o alguna de sus variantes, a pesar de que ya viene en Etchebern de Ciboure, etc., y de que se trata de una formación clara y bien motivada; a pesar de esto, tampoco recoge *trinitate*. De *hiztegi*, «diccionario» nos dice que «es relativamente nueva en esta acepción; pero se ha generalizado, aunque naturalmente no ha llegado al vulgo». No es tan nueva, ya que la recogió Pouvreau en el siglo XVII, ni la limitación en su empleo es tan significativa como aparece a primera vista: sólo la han empleado los que por alguna razón se han interesado por los diccionarios". (1984a:31)

Orixez aitzean itzuliko gara honetara.

[137]Oroi daiteke, puntu hau zela eta, Larramendiren hiztegiari Mitxelenak iritzia.

. *HANDIA*

Handia[138] da luze-zabalean, oparotasunean, eta handia da, batez ere, ilustrazioak erdietsien mailan egoteko oztoporik bat ere ez duelako Mitxelenaren begietarako. Hau gutxi bailitzan, gainera, izan duen entzutea ere, handitasun horren froga argi eta nabaria da.

. *KRITIKOA*

Azkueren hiztegia kritikoa ere bada Mitxelenaren ustez, Azkuek honelako notakotasunik bere hiztegiari berariaz ez alboratuagatik.

Kritiko izatea, arestian aipatzen zen nori berea-eman nahi izatetik datorkio, hiztegitik sasiak at utzi nahi izatetik, Larramendirenak lehen-lehenik[139]. Honen ondorio zuzena da, hiztegiko hitzei sarrera eman aurretik, lekukoak bilatu nahi izatea.

Era honetan, hiztegigintzak halabeharrez eskatzen duen kritikotasunari atxikitzen zaio Azkue. Azter-hurren duenaren egoera, gainera, baztertzekoa ez da, euskal tradizio lexikoa inongoa baino nahasiagoa baita.

Azkuek badaki tradizioarekiko jarrera kritikoa hautesten duenean, zenbait eragozpen larriri aurre egin beharko diela. Mitxelenaren iritziz, Azkue, bere lana era honetan taxutzean, zeregin latzaren jakinaren gainean dago eta jakin ere badaki lanari gaitz iritziko dionik ez dela faltako.

Oztopoak oztopo. Azkuek erdiesten du Mitxelenari premiazko begitantzen zaion kritika-katea osatuz joatea, Azkuek aurrekoak juzkupean hartu bezala, bere burua ere ebazkai bihurtzen duenez gero[140], hauxe baita Mitxelenarentzat segitu beharreko bidea, jakiteek aurrera egingo badute.

---

[138] Puntu honetan esan eta esango direnen hornigarri eta Azkueren lan honen handitasunaren seinalagarri, Mitxelenak besteren artetik -Erkiagaren artetik, zehazki esanez- paperera jaulkitzen duen lekukotasuna erantsi beharko litzateke. Mitxelenak eta bestek, frantses aldatzaileek Azkue bera izan ote zen edo agertuko goganbeharra da tarteko. Agidanez, Erkiagak Mitxelenaganztuaren arabera, ez dago halako debekurik bortitzik pentsatzeko Azkue bera izan zitekeela hiztegiko frantses aldaera alboratu zuena. Mitxelenak, halaz ere, ez du bere iritzia garbi azaleratzen. (1967f)

[139] Ezin bide dio Azkuek, halaz ere, bere Lizarzon-izaerari erabat muzin egin. Mitxelenaren ustez:

"Si Azkue hubiera aplicado a los textos bíblicos el mismo espíritu crítico que le llevó a rechazar, junto con los neologismos, tantos términos populares de Larramendi y otros antecesores, difícilmente se hubiera librado de alguna grave acusación de modernismo" (1956a, *SHLV* 513).

[140] En el «Diccionario» dejó de introducir los que consideraba «erderismos» escandalosos. Su inquina hacia el Padre Larramendi ha hecho que circule una anécdota en la que aparece el maestro en trance de «deslarramendizar» algunas palabras, de suerte que su discípulo y amigo, Mourlane, le advertía: «Deslarramendicemos, don Resurrección, deslarramendicemos, que alguien desaskuzará más adelante»". (Caro Baroja 1966:44).

Azkuek, zoko-garbitze betebeharrari maisuki eutsi zion[141] eta, orohar, zuzen ibili zen[142]. Baina Mitxelena ondoko ustekoa baita:

> Jakite-gaietan, gainera, goramenek[143] ez dute ezertarako balio: aurrera joko bada, kritika zorrotzaren bidez beharko da aurreratu. (1964c:72).

laudorioak alde batera utzi eta, onbeharrez, Azkuek besterekin eginari ekingo dio, Azkueren hutsak batipat agerian jartzeari:

> Hiztegia, bestalde, eta edozein hiztegi gero, hustegia dela[144] esan daiteke, ez baita libururik hiztegi batek adina huts bil dezakeenik. Hiztegigileok[145], izan ere, aurrekoen hutsak jaso ohi dituzte, kontuz badabiltza ere, eta beste zenbait erantsi gero beren baitatik. Kritika, beraz, beharrezkoa, premiazkoa, nahi eta ezkoa eta are derrigorrekoa da eginbide horretan. (1964c:72).

Azkue honetan okerren ibilia ez den arren[146], hiztegigintza-lanak usu bezten dituen makur bera antzematen dio Mitxelenak Azkuerenari ere: bestegandikako hutsak jaso eta era berean hiztegira jaulki ditu.

Hizkuntzalariek egiten duten garrantzizko bereizkuntzari eutsiz, bi gai-motaz baliatu ohi dela hiztegigilea dio Mitxelenak: **testuak** eta **hiztegiak**.

Testuak, hiztegiak baino ziurragoak izan ohi dira, benetako hizkuntzaren islatzaile zintzoago direlako eta. Azkue, zuzen, testuez baliatu da, testu hutsak —idatziak nahiz ahozko jatorrikoak— hitz-iturri bakartzat izan ez baditu ere.

Alabaina, hiztegi-hiztegigileen errainuak testuetaraino jaulkitzen direnez eta testuotan beste hitzak bezalako izaeraz jazten, moldezko lekukoen erabateko zintzotasuna kolokan gelditzen da sarri.

Hauxe gertatu bide zaio Azkueri, batipat[147] Larramendiren ihesi dabilelarik,

---

[141] "asumió con ejemplar entereza". (1984a:28).

[142] "crítica que en conjunto ejerció con acierto extraordinario". (1984a:28).

[143] Jat. *goramenak*.

[144] Jat. *dala*.

[145] Jat. *iztegigilleak*.

[146] "Azkue, ciertamente, no es de los que más han pecado en esto". (1984a:29).

[147] Ez dugu Larramendi eta Azkueren arteko "hitzen inguruko" harremana berriz ere muntzagai hartuko

"eskuizkribuetarik" nahiz guraso jakinak dituzten besteetarik hartu duenean, ohartzaka, hiztegigileek sortuak, nahiz oker adituak, sartu baitzaizkio.

Eskukada ez baina, hiztegiak ere erabili ditu Azkuek (halakorik usatu duenean, iturburua aitortuz) eta, erabili dituenez gero, honek dakartzan arriskuetatik ez da kalterik gabe atera.

Hiztegigile orok ez ditu bildu nahi dituen hitzak aldakuntzarik gabe jasotzen, oharkabean, iritzi-aburuek baldintzatuta, erosotasunagatik, ezjakina aitortu nahi ez izateagatik nahiz etimologi isuria... edo beste zernahi arrazoi dela medio, azkenean mamituak, Mitxelenaren ustez, beti egiaztakizun dira, testuetan lekukorik aurkitzen ez zaieino, behinipehin.

Besteei legez, Azkue hiztegigileari ere, aurrekoen huts hauen zantzuak ere isuri zaizkio[148] bere lanera, kontu handiz ibili bada ere.

Beraiegandik hanturiko *ghost-words* edo *iratxo* direlakoei, Azkue iturburu dutenak erantsi behar zaizkie, okerraren sortzailea beti Azkue ez bada ere.

Hiztegiko okerren artean daude, batetik, arazo mekaniko hutsei, hala nola, eskuz idazteari, esku bat baino gehiago kopiagintzan aritzeari, inprentatzaileei erantsiei etabarrei dagozkienak.

Gainera, ohargarria da Azkuek erabiliriko testuak ere batzuetan jatorrizkoaren kopiak direla, ez jatorrizkoak berak.

Honezaz gain, zenbait testu behar bezalako patxaraz ozin aztertu izanak, presaka aritzeak (Bonaparteren eskuizkribuekin agituak, esate baterako) ere zenbait huts sorrarazi dizkio.

Hauei erantsi behar zaizkie, bestalde, Azkuek oker adituak, letraren garaiko balioa beti behar bezala ez ulertuak, larriagotua, esana doan bezala.

Azken mota honetakoak dira Mitxelenak hainbatetan ahotan darabilizan *arnari*, *margo* eta *oldoztu*[149], besteak beste[150]. Azken hitz honi erreparatzea komenigarria da, Mitxelenaren jarreraren erakusgarri egokia da eta.

---

[148] Bistako arrazoiengatik ez ditugu xeheki eta banan-banan hona ekarriko. Mitxelenaren *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* ikerlan osoan zehar irakur daiteke bai Azkuek -besteren ispilu- jasoak, bai Azkuek berak sortzak.

[149] Mitxelenak, errealitate-motez eta maiez hitzegin duelarik, gaztelaniazko zenbait exenplu ematen ditu bere iritziaren hornigarri.

Hona bi aldaki:

"O *gavilán* más que abanto «cierta ave de presa», y a *forhori* que abanco *(auanco)*, probable error de copia". (1966b, *SHLV* 377).

"Pocos negarán, me parece, que en castellano *paloma* es más real que *abanto*, 'cierta ave de presa', y todavía más que *abanco (auanco)*, nacido probablemente de un error de transmisión". (1964a 28).

[150] Batzuk ematearren: *kosabe, pukullu, jasale, toronda, naunitu, azhiroina, sou, belorita*... (1965b, *LH* 271) aipe daiteke.

Behin eta birritan[151], Mitxelenak aditz horren iratxo-izaera azpimarkatu du, *oldozquera*, izaera ziurragoko izenarekiko adostasun-ezak –zehazkiago esan, esanahiaren aldetikako kontraesan-itxurakoak– begietan jotzen baitu, azkenean *oldoztu* aditza 'pentsatu'-ren baliokide ezinezkotzat jotzera eramanik.

Halaz ere, 1983ko "Codicilio" delakoan honakoa irakur daiteke:

> Me sentía razonablemente seguro de mis conclusiones a propósito del sentido de *oldoztu* y me vi además confirmado por las primeras ediciones de los diccionarios de Kintana et al. y L.M. Mugica[152]. Me hizo vacilar, sin embargo, una carta que siento no poder citar al pie de la letra, de mi admirado amigo Karl Bouda (q.e.p.d.). Venía a decir que en *oldozquera(n)* podía estar presente, de alguna manera, la partícula *-ga, -ka* de que aquí se hace repetidamente mención. De ahí el sentido negativo de esa palabra y, por implicación, el afirmativo de *oldoztu*, que sería efectivamente «pensar». *Und die Bibel hatte doch recht*, behar bada. (1984a:89).

Jarrera aipatu da lehen, jarrera-kontua baita nork bere erruak onartu ez ezik jendaurreko aitorpena ere egitea, eta Mitxelenaren jokabide honen testigutzak bere euskal nahiz erdal lanak irakurtzen hasi orduko topa daitezkeela ere esan behar da, "nik besterik esan arren" edo antzekoen ondoan[153].

Azkueren hutsen artean, larrienak –edo, gutxienez, Mitxelenak bereziki azpimarkatuak–, seguruenik, *Izkindean* ere errainua utzi zuen uste beraren ondorio dira, lehen autu izan diren zaharberritu-berreraiki nahikundearenak, alegia[154].

Testuetan lema garbiaren ordez, testu-hitza aurkitzean[155], Azkuek oinarrizkoa sortzera jotzen du; beti asmatzen ez ordea[156].

---

[151](1961a:56, 1966b, *SHLV*:376, 1984a:28).

[152]Ironia sumatu uste dugu hitzon atzean.

Kintanak (eta bestek) eta L. Mª Mujikak argitara emandakoetan benetako hiztegi-lana, hots, kritikoa, egin ez dela adierazi nahi ote du?

L. Mª Mujikak, *oldoztu* hiztegi-sarreran 'estar sin pensar' iraulpena alboratzen dio. Kintanak ere gaztelaniazko itzulera bera dakar *oldozturentzat*.

[153]Esate baterako, (1963b, *SHLV*:412).

[154]Arana Goiriz mintzatzean berriz ere paperera ekarriko den Astarloaren eraginaren menpeko aitortzak zerikusia izan dezake puntu honetan.

"En su prólogo [*Euskal-Izkindearena*], Azkue (p.IX) confiesa quiénes son todavía sus maestros. En primer lugar, Astarloa, después Zabala y finalmente Campión.

Es curioso que no haya puesto en primer lugar a Larramendi, pero sin duda que ya en 1891 Azkue disentía gravemente de la lexicografía del jesuita guipuzcoano. Y extrañamente para nuestro gusto, el sobrio y despierto trabajo de *El imposible vencido*, prefiere las especulaciones del duranguês, en quien con razón su contemporáneo Moguel critica el «genio sistemático»" (Tovar 1966:62).

Ikus, halaz ere, Azkueren lan honetako terminologiaz eta garai honetako sorlanez gehioena.

[155]Sarasolaren (1982) deizioez baliatzen gara.

[156]Hay restituciones erróneas de formas básicas, en las que todos incurrimos con facilidad cuando lo único que está documentado son, en la terminología de Kurylowicz *formes fondées*, y no las correspondientes *formes de fondation*: téngase en cuenta que éstas son básicas porque a partir de ellas las otras son previsibles,

Halakotzat jotzen du Mitxelenak, esate baterako, kontsonante busti guztiak *i* + kontsonante busti gabea" zuela jatorria Azkuek uste izatea: "*doillor* (*dollor*), temor"-en kasua, adibidez. Honetan, gainera, galerarik handiena azalari ez baina mamiari dagokionak jasan du, berez izenondo zena, izen bilakatu baitu[157].

Azkueren lanari zehaztuak, hiztegi kritiko dena, kritikagai bilakatzearen ondoriotzat ditu Mitxelenak[158].

HISTORIKOA

Hirugarren ezaugarri hau, Azkueren asmo "historizalearena" baino areago, erraietan bizi duen beste jaidura baten ondorea da, hots, euskal ondasunen biltzaile eta berreraikitzaile izatearena.

Antzinakoen lekukotasunez baliatzen da Azkue bere iritziak sendotzeko, baina bate: ere, hitzak ahantz ez daitezen eta, ahal dela, erabilera idatzian gutxienez berbiz daitezen gogoan duela[159].

Honek esan nahi du, abagunearen arabera papereratzen dituela, ez hiztegi historiko erabatekoak eskakizun duen sistematikotasunak aginduko lukeen bezala.

Guztiarekin ere, neurri batean bederen, Azkuerena hiztegi historikoa ere bada edo, hiztegi historikoen antzekoena den euskal hiztegia bederen[160]:

> El *Diccionario*, por ejemplo, que presenta reunido, con indicación de procedencia, un material importantísimo recogido o comprobado por el autor mismo, une a él, como no podía ser menos en una especie de diccionario histórico, otro también abundante, procedente de fuentes escritas,

---

mientras que la inversa no siempre es cierta". (1984a:37)

Gure aldetik, *erahil*, era horretan sortua ere aipatuko genuke, Azkuek *-oker*, *antza-*, bereraiki zuen eran-en ondoan.

Arazo orotarikoazko Mitxelenaren ikuspegia, Villasanteki Axularren idaztanetik osaturiko hitz-altxorraz esanak gogoan har daitezke (1974a).

Gure hiztegi-lanean mamiuari dagokionez, berriz, hiztegiari eginiko sarreran esanetara igortzen dugu.

[157] Ikus beherago auzi beraz dioguna.

[158] Mitxelenaren *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue* batetik eta, I. Sarasolarekin (eta beste lankide guztiekin) batean gauza-hurren utzi duen *Orotariko Euskal Hiztegia* bereziki, Azkueren lanaren matxura hauek gainditzeko bide aukerakoa dira, zalantza-itzpirik gabe.

[159] "Porque don Resurrección no coleccionó jamás hojas secas. Recogió siempre brotes vivos cuya vida, lozana o próxima a extinguirse, trató amorosamente de conservar. Soñó incluso en reanimar con sus cuidados lo que le llegaba envuelto en las páginas muertas de los libros antiguos". (1951c:473).

[160] "Pero, aunque el suyo no sea un diccionario histórico, tiene mucho de tal o es por lo menos lo más parecido a un diccionario histórico que jamás hayamos llegado a poseer". (1984a:31).

Gogora harako, "horra [Jat. *orrera*] [doaz] hizkuntzalariak euskal hitzen jatorria eta historia aztertzera. Hor jakin dugu anitzek aintzinako aberastasun gutxiesten berri". (1964c:73).

cuyo origen y a veces cuya autenticidad está lejos de estar libre de dudas. (1991b:182).

Mitxelenaren ikuspegiaren arabera, hiztegi batek honako eskakizuna bete behar du zinez historikotzat jotzeko, benetako kritiko izateko bezala: behin eta berriro jatorrizko iturrietara jo arartekoei muzin eginez. Izan ere, maiz aski, jatorrizkoa kopiatu soilik edo -okerrago dena- aldaketa behar ez litzatekeenean aldatu besterik egiten ez da:

> El estado de la lexicografía vasca no es todavía [1969] floreciente para que un proyecto de esta clase pudiera ser llevado a buen término con todas sus consecuencias. Se trata simplemente de que, junto a las dimensiones geográficas la variedad dialectal [161], se introduzca también sistemáticamente la de la profundidad temporal. (1984a:31).

Mitxelenek lerro horiek idatziriko garaian (1969) egoerarik egokiena bizi ez bada, pentsatzekoa da (eta honela aitortzen dio errenteriarrak Azkueri) Azkuerenean, are eta zailago zatekeela, euskarak behar duen eta Mitxelenak amesten duen, hiztegi kritiko-historiko hori gauzatu ahal izatea.

Arestiko baldintzak erabat betetzen ez baditu ere, hiztegi historikoa egiteko asmorik ez duen Azkuek eskainiak, halaz guztiz, kritikagai ez baina laudagarri dira Mitxelenarentzat, hau da, hiztegiaren berezko balioari erantsi beharrekoak. Hau, ongi mamituriko lanen dohaitzat dauka errenteriarrak:

> Ongi egin den[162] lanak, ordea, askotarako balio du, egileak berak uste duen baino gehiagotarako[163]. (1964c:73).

Halako egitamu aberatsa gatzatzeak, noraezean, aldez aurreko ikerlan sakon eta ugarien premia du eta Azkueren ekarria, geroko ikerlanentzako ezinbesteko lehengaia da.

---

[161] Ildo honetatik, Sarasolak (1986:213), euskalki-markak noiz paratu beharko liratekeen auztan jarri ez ezik, bestelako alderdiei erreparatzea ere eskatzen du:

"Literatur tradizioari buruzko azterketen ondorioak ateratzeko orduan kontutan eduki beharko genuke euskalkien banaketaz gain hizkuntza mailena -euskal hiztunen mailena- dagoela. Esaterako, gipuzkerazko testuetan *irutasun* edo *almen* agertzeak ez du esan nahi, noski, Gipuzkoako azken baserritarrak berezkoak zituelako erabiltzen ziren hitz batzuen aurrean gaudenik. Berezko ez zituen hitz horiek ez horien erdal ordainak. Bere bizitzatik -hots bere kulturatik,- at zeuden denok. Eta, bestalde, zer zentzu du horretako hitzei, Azkuek eta egiten duten bezala, euskalki-marka ezartzea?".

[162] Jat. *den*.

[163] "Este, como todo el que trabaja mucho y bien, da mucho más de lo que el autor se proponía al componerla". (1984a:31).

Lehengai horri etekina ateratzen mutila den Mitxelenaren eta beste ikertzaileen lanak[164] hemen kokatu behar dira, gure ustez. Mitxelenak berak argitara emaniko artikuluak, *Textos Arcaicos vascos* eta, bereziki, *Fonética histórica vasca*[165] eta *Orotariko Euskal Hiztegia* dira, besteak beste, honen erakusgarririk gailenenak.

Ikusiagatik, beraz, ondoriozta daiteke, alderdi asko eta askotarik euskalaritzaren eta euskal literaturaren garabiderako zutabea eta oina den Azkueren lan itzel honek, badituela Mitxelenak -ikerlan sakonaren ondorioz- agerian paraturiko alde makurrak. Ikusi ere da hauen iturburua ezin murritz daitekeela arrazoi bakar batera: hiztegigileak lanean hasi orduko topaturiko behazteparriak, Azkueren beraren isuriak, hizkuntz jakiteetan (ez) zuen hezkuntza... noraezean, aurrean izan behar baitira.

Ildo honetan, beraz, Azkueren erruaren aringarriak oso gogoan izatekoak dira Mitxelenaren ustez. Eta, esanez edo erdiesanez gain, honakoak ere aipatu beharko lirateke:

Euskara beti hizkuntza sendoagoen barrutian besteren menpe bizi izan da; sekula gizatalde osoaren -eta batez ere gutxiengo landuaren- adierazpide ohikoa izan ez da.

Mende handitan zehar bizi (izan) den menpekotasun honen isla garbia da, hain zuzen ere, hitz-altxorrean zegoen nahastea, hau da, ezin jakitea zer zen benetan eta betean euskal hiztegia eta zer besteri utzi beharra.

Mugak non jarri ikertzailearen eskuetan izaki, lehen esan bezala, Azkuerenak (nahiz aldez aurretik ezarririko mugarriei irmoki beti ez heldu azkeneraino) eta besterenak: Larramendirenak, Lhandeerenak eta Mitxelenarenak, zehatz esanik, ez datoz bat.

Bestetik, Azkue eta honek mamituriko lana, bere garaian kokatu behar dira. Azkue, bere garaiko hizkuntz ideien morroi da, euskaldun erromantiko guztiei, nonbait, dagokien berantiarra izateaz gain[166].

Hizkuntz ikerketan zaharberrigintza egitasmo daukanez gero, hor isuriko ditu (lehen

---

164 "...reciente edición de *Guero* (...) Padre Villasante, (...) poesías de Dechepare y Oihenart (...) Lafon, Lafon *Le système du verbe basque au XVI siècle*. Burdeos, 1943, (...) Padre Villasante (...) vocabulario de Axular (...) *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra* de fray Pedro Antonio de Añibarro, (...) diccionario inédito de Landucci, trabajos (...) en *Euskera* y en el *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*; (...) *Vocabulario navarro* (Pamplona, 1952), con *Adiciones* (1958), de José María Iribarren o *Voces alavesas* (Bilbao, 1958, separata de *Euskera* 3) de Gerardo Lz. de Guereñu, (...) notas, breves pero preciosas, Ignacio Zumalabe, (...) Karl Bouda (...) en Eusko-Jakintza y en BAP". (1964a:38).

165 Hitzaurrean honakoa dio:

"Para la historia de las palabras vascas y para conocer su difusión geográfica, la fuente principal (a falta de un Atlas lingüístico cuya necesidad es cada día más urgente) es el Diccionario de Azkue, completado en ciertos aspectos por el de Lhande. En esto me he hallado en condiciones favorables en lo posible, pues la Academia de la Lengua Vasca me confió la preparación de una edición corregida del primero. De los nuevos materiales acumulados por Azkue mismo y de los que hasta ahora he reunido, no he hecho, sin embargo, más que un uso muy limitado en este trabajo". (*FHV* 1985_3:17).

166 "Aquí mismo, en Bilbao, expuso Tovar con una claridad que yo no acertaría a igualar hasta qué punto fue Azkue hijo de las ideas lingüísticas de su tiempo, sin dejar de ser un romántico retrasado, como todos los nuestros". (1966b, *SHLV*:383).

Ezaguna da, bestalde, Mitxelenaren harako salbuespena:

"J. A. Chaho (1811-1858), el último romántico no rezagado que ha producido Vasconia". (1960b:91).

eslavista garaiek legez) bere kemen eta indarrak. Honi erantsi behar zaio, gainera, orduko euskal filologia[167] -beste hizkuntzetakoarekin berdinduz atzera dabilena- ez dagoela geroztikakoaren mailan, hau da, Azkuek ezin erabili izan dituela ondotik etorri direnek erabili ahal izan dituzten tresnak, Azkueren hiztegia, hain justu, buruen-buruenik.

Hau guztia gogoan izanik ekin dio Mitxelenak, beraz, hiztegigintzak, menturaz, beste jakinbideek baino premiazkoagoa duen kritika-lanari eta era honetan bete, Azkuerekiko begiruneak eskatzen dion zoko-garbitzea.

3.2.3. Batasun-saioen inguruan

3.2.3.1. Euskaltzaindian

Azkue hiztegigileak Mitxelenaren arretarik luze eta sakonena erakarriagatik, ez ditu errenteriar euskaltzainak gaitzerupean gordetzen Euskaltzaindiak urte luzez buru[168] izan zuen Azkue eta honen *Gipuzkera osotua*ren ingurukoak.

Azkue euskaltzainburuari dagozkionak -hobeto esan, Azkueren nortasuna nolabait islatzen duten Euskaltzaindia gidatzeko moduari dagozkionak-, Mitxelenak Ibarzabalekin izandako solasean agertuetan irakur daitezke batez ere:

> Basándose en su competencia, ejerció sobre la Academia una influencia casi dictatorial. (Ibarzabal 1977:29)[169]

---

[167] Orotu besterik ez dago, besteta ere paperera ekarri den, Urkixoren 1918ko mintzaldia.

[168] "...y fue director de la Academia de la Lengua Vasca desde la fundación de esta entidad hasta su muerte". (1960b:142).

"La Sociedad de Estudios Vascos de la que llegó a constituirse en órgano nació en el Congreso de Estudios Vascos de Oñate, en 1918. Al lado o dentro de ésta nace la (ahora Real) Academia de la Lengua Vasca, de la que Azkue fue director hasta su muerte". (1987b:105).

[169] Irizi honen funtsaren erakusgarri honako pasadizoa azaltzen du:

"¿Conoces la historia de D. Resurrección con Ixaka Lopez Mendizabal?... Sabes que ixaka, junto al Padre Vera, hizo un Diccionario de Azkue y, sin embargo no lo mencionó en ninguna parte. Azkue no se lo perdonó nunca; cuando se planteó el hacer miembro de número a D. Ixaka, que tenía méritos más que suficientes para ello, Azkue se negó: '... si ése entra, salgo yo...'. Y no entró". (Ibarzabal 1977:29).

Ez da, ordea, erraz asmatzen Azkuek "diktadoretza" justu noraino eraman nahi (ahal?) izan zuen, bost ornalde lehenago beste honakoa ere esaten baitu Mitxelenak:

"Se aceptó la ortografía sabiniana -Azkue renunció a sus propuestas-...". (Ibarzabal 1977:24).

Halaz ere, Azkuek Euskaltzaindian zuen eskuaren irozgarri har daitezke ondokoak ere:

"[Euskaltzaindiak] Norabide berri honi F. Krutwig sartuz geroztik ekin zion, sarrera hau Azkuek, N. Oleaga jaunak eta bestek babesten edo behintzat onartzen zutelarik, orain norbaitek ahaztu nahi omen duen arren". (1978a:41).

Onartu eta babestu baino gehiago, antza, Iztuetak (1991a:875) oin-oharrean jasotzen duenez:

"Azkuek sartu zuen Krutwig Euskaltzaindian eta haren gerizpean bilaketu zen euskaltzain, 22 urterekin, 1942an. Halaber, Azkue zaharrak eman zion Euskaltzaindia berritzeko enkargua 1945ean. Harentzat aitabitxi bezala zen euskaltzain-burua: "A pesar de que podía ser perfectamente mi abuelo, fue el académico que más cerca estuvo siempre de mí. La relación fue muy intensa. Venía mucho a mi casa, e incluso las Navidades las pasaba

Honen ondoriotzat jo daiteke, beharbada, Mitxelenaren 1987ko beste elkarrizketan[170] Euskaltzaindia eta Azkue, bat eta bakartzat hartzea *Erizkizundi Irukoitza*[171] zela eta[172].

Honela, Euskaltzaindiaren asmoa izan zela dioen arren:

> Gero, delako Erizkizundi Irukoitzaz badakizu ezta, hori Euskaltzaindiak asmatu zuen. (1987c:75).

asmoaren azalpenari heltzen dionean, Euskaltzaindia ez baina Azkue darabil ahotan[173]:

> Gutxi gora behera Azkuek nahi zuen, ez dakit, hauteskunde moduko zerbait. (1987c:75).

Azkue-Euskaltzaindien egitamu horri, "ikaragarrizko astakeria"[174] deritza 1987ko Mitxelenak eta, baliogabetzat jotzen bi arrazoi nagusigatik.

Lehenik, "pentsatu zen egitekorako ez ze[lako] batere egokia", eredu batuak erabaki eta finkatzeko, herrien kopurua hartu baitzen irizpide, bestelako soziologia aldetikako alderdiak bazterrean utziz. Honi erantsi behar zaio argitara- eta zabalkunde-modua ere oso desegokia izan zuela[175].

---

con mi familia. Yo estaba con él cuando murió" (Ibarzabal, E. "Ayer y hoy de Federico Krutwig", op. cit., 53-54 orr.). Nahiz oso gaztea izan, Azkue agure ohoragarriaren onarpenarekin kontatzen zuenez gero, eskuak aske zituen zernahitarako. Horretan zetzan Krutwig gaztearen itzal heldua".

[170] *Argia* aldizkariak zendu ondoan argitara eman zuen "Elkarrizketa" (1987c).

[171] Komeni da azpimarkatzea, Larramendiren *DT*-n onarritu zirela, hain justu.

[172] Honetan ere badugu "bainarik" izan ere, ez dugu garbi ikusten nola josten den Azkueren agintea ondokoarekin:

"Ez dakigula behintzat berriz gertatuko Euskaltzaindiari, 'Erizkizundi Irukoitza' zela medio, gertatu zitzaiona. Nor bere gisara eta batutarik gabe solasa jotzen ari zirela sortu zuten anarkia (anarkia eskuindarra, baina anarkia halere) daukat gogoan". (1983e:105).

[173] "Esta Academia, por iniciativa probablemente de Azkue sobre todo, inició una encuesta extensa, no muy discutida en cuanto a procedimientos externos de lo que es corriente en trabajos dialectológicos modernos..." (1964a, *SHLV*:182). Hitz berak (1981e, *SHLV*:326).

[174] "Beno, alegia, nire ustez, eta hori askotan esan dut, hori ikaragarrizko astakeria zen, pentsatu zuten bezala". (1987c:75).

[175] "Si el fruto de esta encuesta no ha sido mayor para el progreso de nuestra geografía lingüística, ello debe achacarse sobre todo a dos razones. A la finalidad, en primer lugar, porque al preparar el cuestionario se esperaba que sirviera para una especie de plebiscito (...) Por esa razón, figuran en el cuestionario bastantes preguntas de escaso interés científico, al paso que otras muchas de primera importancia no fueron incluidas en él.

Esto con todo, no habría sido un inconveniente mayor de haberse publicado las contestaciones en forma satisfactoria. Y, por desgracia, esto no ocurrió". (1964a, *SHLV*:8). Hitz berak edo beretsuak, (1991b:182,183; 1981e,

Horregatik, ez dauka Mitxelenak lan hau, euskarak behar duen atlasaren ordain egokitzat, erabat arbuiatzeko irizten ez badio ere; bestelako etekinik atera dakioke lanari, garaiko datuen bilduma ere badenez gero.

Lan honek aditzera ematen du, irizpide-moduetan oker ibiliagatik, Azkuek, nolanahi ere, batasun-helburua (lehen esan den bezala) erraietan bizi duela, hurrengo puntuan jasoko denak argiago utziko duenez[176].

3.2.3.2. *Gipuzkera osotua*

Azkueren batasun-xedearen erakusgarririk argiena *Gipuzkera osotua* aurrera atera nahi izatea da, seguruenik.

Teorian baino lanetan mamituago zuen[177] eredurako, Azkuek –Larramendik bezala–, Beterriko gipuzkoarrean jarri zituen begiak, honela, gerora Euskaltzaindiak erabakiriko bidetik oso lerraturik ibiltzeke, Mitxelenaren ustez:

> Jakina da edozein batasun saio zenbait euskalkiren kaltetan egingo dela, eta ez kalterik egin nahi delako, beste erremediorik ez dagoelako baizik, Azkuerenean ere gipuzkera ifiten zen, deiturak ematen du aditzera, abantailaturik. (1978c:171)

SHLV 326) lanetan, esate baterako.

Azken oker hau, A. Mª Etxaideren (1984) lanari esker zuzendu da. *Iker* 3, Bilbo, Euskaltzaindia.

[176] Asmo beraren ondoriotzat jotzen du Lakak (1987b:423) gaztaroko *Izkindea*:

"Azkueren lehen ahalegin honetan bada, gure eritzi, hizkuntza normaltzeko saio bat, honetarako aukeratu zuen ereduaren egokitasuna gora-behera. Saio honek, bestalde, ez zuen izan Azkuek hasiera batean uste adina arrakasta, baina ezin esan daiteke, inolaz ere, gotik behera porrot egin zuenik. Erakunde publikoen erantzunaz gaindi, hizkuntza-arautze lanetan jarraitu zuen Azkuek bere bizitzan zehar, Euskaltzaindiaren sorreran parte hartu arteraino. Eta, azken batean, aukeraturiko euskara eredua bestelakoa izanik ere, arazo guztien gainetik, eztabaida guztien azpitik, euskararen normaltzearena litzateke, Azkuerengandik guganaino urraturiko bidea".

[177] "Ez zuen, dakidanez, gehiegi zehatu teorikoki". (1978c:169)

"Fue el más decidido defensor, por sus obras todavía más que por sus doctrinas, de la adopción del dialecto guipuzcoano como base, completada y corregida con elementos tomados de otras hablas, de la lengua literaria unificada". (1960b:143).

"R. Mª de Azkuek, bai lan teorikoetan (**Prontuario eta Euskera Osotua**) eta bai berariaz idatzitako zenbait literatur lanetan (**Latsibi, Ardi Galdua** ...) argi asko erakutsi bazuen ere zein zen bere hizkuntz-eredua iristeko errepidea, ez zuen eredu hori ondorengoek ikasi eta irakatsi ahal izateko moduan sistematizatu eta zehaztu eta, hauek, euskara bere osotasunean Azkuek bezala ezagutzen ez zutelarik, bakoitzak bere erara jardungo zuen bide zabal horretan. Azkueren eredu bakarra antzetan zatikatuz joango zelarik. Literatura zaharra aide batera uzteak, bestalde, areagotu baizik ez zuen egingo joera zatikatzaile hori, azkenorduko fonetismo eta berrikuntzei leku erosoa eskainiko zitzaielarik". (Zuazo 1987a:222).

Azkueren geroagoko historiarekiko isuriaren errainua daraman *Gipuzkera osotuan*[178] ez ezik, *Prontuarion* irakur daitekeen euskara eta, Euskaltzaindiaren euskara batuaren arteko aldeak ("dozenerdi bat alde"[179]), bitan laburbiltzen ditu Mitxelenak:

hrik ez[180] eta, *ikusi zuan, ikusi zuenen* ordez erabiltzea, zehatz esan.

Aditz laguntzailearen aukera hau, Mitxelenak honela zuzenean ez badio ere, 1987ko elkarrizketan eskainiriko adibideetatik oskura daiteke:

> beno, egia esan nik ez dut sekula gipuzkera osotuan idatzi edo idazteko gogorik izan, nik «dut» esaten banuen [sic], Errenterian bertan «dut» esaten genuelako. (1987c:79)

Ikusten den bezala, Mitxelenak euskara batuaren moldeen arteko aldeen erakusgarrietariko bat eskaintzeko, adizki zehatzetara jotzen du, azalpena borobiltzeko, aditzsail osoari egokitzea, alegia, ondorioztatzeko utziz.

Ber moduaz baliatzen da, *gipuzkera osotuaren* eta euskara batuaren arteko antzberdintasunak agerian gera daitezen.

Beste kasu honetan, kontsonante bustien inguruko auzia da.
Azkuek ez zuela sekula *ll*-rik ez *ñ*-rik erabili *mutila, egina, oilo, bainan* edo antzekoetan, alegia, azpimarkatzen du Mitxelenak; *bella* 'bera' edo *ttantto*[181] erabiliagatik.

Mitxelenak hau dioenean, Azkueren juzku ona eta aukera zuzena hobesten ditu, egun erabiltzen den ortografi bereizkuntza berari eutsi baitzion euskaltzainburuak.

Bestela esan, Mitxelenak berariaz azaltzen ez duen bereizketari eutsi dio Azkuek, oharkabeko bustidura eta esanahiaren mailan ondorioak dituen bustidura adierazkorra, grafikoki molde berean aldatzen ez dituenez gero[182].

---

[178] "También hay que señalar, para ser completamente justos, la atención que siguió prestando a obras de otros siglos (los refranes de Sauguis, Capanaga, Barrutia, *El borracho burlado*, etc.) de estas lecturas dan fe, por ejemplo, *Gipuzkera osotua* (1933) o *Evolución de la lengua vasca* (1935)". (1984a:26)

[179] (1987c:79).
"Este guipuzcoano enriquecido y desdialectalizado en intención coincidía de manera notable, en contra de lo que se ha sostenido, con el *euskara batua*, a éste simplemente se le buscarían los orígenes algo más hacia el Este (y, si acaso, algo más arriba en el tiempo) que a aquél. No se debe omitir, sin embargo, la mención de un detalle tan visible como importante. En el proyecto de Azkue, *h* no existía y sin duda llegó a esa decisión tras reflexión madura". (1980c:9)

[180] Lizardi eta Azkue elkarretaratzen ditu Mitxelenak pasarte batean, harekiko jokabidea dela eta. Lizardiri eskainiko diogun kapituluan azaltzen gara.

[181] (1978c:170).

[182] Halaz ere, hiztegian, bederen:
"En cuanto a los sonidos, Azkue descuidaba con frecuencia la notación de las consonantes palatalizadas que, por prejuicios teóricos, resolvía muchas veces en *i* + consonante no palatalizada. No interesa por ahora determinar hasta qué punto reconstruía obrando así formas más antiguas y hasta qué punto se equivocaba en la restitución". (1958e, *SHLV*:314)

Bestetan eta bestegan gertatua, alabaina, agitu bide zaie Azkueri eta honen ereduari, Mitxelenaren iritziz. Hau da, Euskaltzaindiari eraso[183] egiteko Azkueren *Gipuzkera osotua* eredu eta gida hartu duten berak, ez zaizkie haren legeei atxiki[184]:

> Orain bertan bada Euskaltzaindiaren laguntza gipuzkera osotuaren alde eskatzen duenik eta denbora berean *o(i)lloak, ba(i)ñak, egiñak* eta *abillak* behar dituenik. Eskuetan dut haren *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular* (*fácil*! alde batetik, eta *lengua vasca popular*, bestetik!), 1932koa, eta *herri* euskaraz ikasteko eskuliburu *errazaren* egileak *oilo* eta *bainan*, eta *egina*, noski, idazten du, eta ez banaka batzuetan, beti baizik, baina, *bella* 'bera', *tanto*-ren aldamenean. Zer ari gara, orduan? Zergatik ez dira Azkuez esaten, bestez hain ugari esaten diren zakarkeriak? (1978c:170).

"Si Azkue, tras encabezar un artículo por *soru* 'suelo, fondo, etc...' advierte que en Vizcaya "algunos dicen *zoru*", su observación no puede tener ningún sentido fonológicamente válido: en los textos, sin embargo, vemos que también en Vizcaya se escribía, y sin duda se decía, *zoru*, cuando y donde la distinción se conservaba". (1965d, *LH*:284).

Bustiduraren letraldatze-modua dela eta, txit interesgarri deritzkegu, bestelakoetan ere adimen argia erakutsi zuen Luis Eleizaldek 1918ko Oñatiko Biltzarrean esanei:

"Y si nos empeñamos en sustentarlas [*fonéticas particularistas* izan ditu ahotan], lo que equivale a querer escribir como se habla, tendremos las siguientes transcripciones vulgo-fonéticas de una misma voz: ogia, ogie, ogiya, ogiye, ogija, ogijae, obijae y creo que aun me dejo algunas.
Todo ello es fonéticamente legítimo, y perfectamente absurdo. Lo razonable será, a mi juicio, adoptar en la grafía la forma orgánica «ogia», como única. ¿Por qué, en lugar de radicalizar estas divergencias, no hemos de tratar de reducirlas, por el bien común?

Otra de las divergencias fonéticas importantes, que se refleja inmediatamente en lo escrito por nuestro afán de escribir como se habla, sin fijarnos en más, es la que se refiere al «mouillement», o sea ala «mojadura» -que así se llama- de ciertos sonidos consonantes. Estas mojaduras son un fenómeno muy característico del Euzkera; lo malo es que obedecen a dos sistemas completamente distintos y, lo que es peor, incompatibles. Hay las mojaduras «asémicas» -o sea que no alteran la significación de la voz que las recibe- y las «semánticas» que, como dice su nombre, alteran la significación. Las primeras son más propias del dialecto bizkaino. ¿Cuál de los dos sistemas será el preferible? Para mí, el segundo, el de las mojaduras «semánticas», por eso mismo, porque lo son, porque matizan la significación de las voces, al paso que las asémicas son un fenómeno puramente físico, si puede decirse así, una mera influencia del sonido «i» anterior, sin matización significativa". (Eleizalde 1919:436).

[183]-Gu oso gogor hartu ginituzten «mutila» idatzi behar zela esaten genuelako, ezta? Eta ez «mutilla» edo «mutille» edo". (1987c:79).

[184]-Gure arteko batu edo baturako hori, bide batez esango dut, ez du inork asmatu: hautatu egin dute euskalkien artean, begiz jo, begi zuzenez nahiz makurrez. Idatzia izanik eta are zenbait gai eta sailetan idatzirik erabiltzekoa (irakaskuntzan, esate baterako, maila batetik gora; zabalkunde politikoan bertan, nahi eta ez, etc.), ez dabil lerro hauetan bertan agertzen den hizkeratik urrutiegi. Azkueren «gipuzkera osotu» haren antzekoa ere dela esango nuke. Besteak beste, alde honekin, haatik: hura, maiz gorarpatua bezain erabilia dela orain. Orain poparean datorren hainzea, onerako naiz gaitzerako, ez da ordukoa". (1977c:47).

"Incidentalmente, [euskara batua] se parece mucho, salvo en detalles, al *gipuzkera osotua* de Azkue, con una diferencia esencial: aquél ha sido tan elogiado como ignorado en la práctica, mientras que el de ahora es tan abominado como usado o, más precisamente, no falta quien abomine de él precisamente porque muchos lo usan". (1977b:83).

"Las innegables virtudes de la concepción de Azkue no dieron fruto por falta de apoyo en el entorno; la tentativa reciente ha encontrado, por el contrario, clima más propicio, como todos sabemos. Aquélla fue objeto, en el mejor de los casos, de una especie de contemplación estética, desde luego nada hostil, mientras que ésta ha sido combatida con una enconada acritud, carente desde luego de cualquier distanciamiento contemplativo". (1980c:9).

Hauek Azkue darabilte hizpidean, antza, Euskaltzaindiaren erabakiei herri-kutsurik ez erraztasunik ezin hauteman dakiekeela kritikatzeko, nabaritu gabe (ohartuki muzin eginez nahiz ezjakinaren poderioz), maisu eta gidaritzat hartuaren *gipuzkera osotua*, hain zuzen, Arantzazutik arras gertu egon ez eze, berek ez darabilten bezalakoa ere dela[185]:

> Azkueren gipuzkera osotuaren aldeko jende asko eta asko Azkueren legeen kontra[186] ibili zen jendea izan zen. (1987c:79).

Horregatik, seguru aski, segizioko *urri* eta *ez oso leial* izateagatik, Azkueren egitamuak, *zorigaiztoan*, ez du arrakastarik izan[187], Azkue soil eta bakarragan hasi eta amaitu baitzen: "Azkue beraren izkribuez landakoetan", zail da gipuzkera osotu horretan mamiturikorik kausitzea, Mitxelenaren ustez.

Eta honen kariaz, euskara batuaren moldea finkatzeko erabakiak hartu behar zirenean, Mitxelenak hautagaien artekotzat ez dauka:

> ez ote zegoen han hautagai? Nik, eta egiaz ari naizelakoan nabil, ez dut uste. (1978c:169).

Eta ildo honetan, bidenabar, hiru gipuzkera idatziren berri ematen du Mitxelenak. Batetik, Azkuerena, bestetik, jarraile --omen-- liratekeenena:

> Gipuzkera antzeko zerbaitetan, bai, noski, eta beste euskalkietarik eraskinak dituenean. Baina, eta testuak dira lekuko, nor bere gisara antzora eta moldera [gauzatua]. (1978c:170).

---

[185] Hona Zuazok (1989:268) ildo beretik dioena:

"Azkueren ustezko jarraitzaileetariko batzuren zabarkeria eta itsukeria ere nabarmena izan da. Izan dira, alde batetik, "gipuzkera osotua" "gipuzkera hutsarekin" berdindu dutenak".

[186] Berez bezala datozkie Azkuek bestegatik, Arana Goirigatik hain zuzen ere, esanak:

"Azkue zenaren hitzak datoz gogora, beste batzuentzat esan bazituen ere: «... al decir "no reconocemos otra autoridad que la del Maestro", quieren en suma dar a entender que no reconocen otra autoridad que la suya propia, la de ellos; pues cuando les parece bien o mal le dejan o le siguen, y seguirle de esta manera es seguirse a sí mismos» [Morfología Vasca 297 or]". (1953b:54,55).

[187] "D.Resurrección propuso un modelo para la unificación: el "gipuzkera osotua" o guipuzcoano enriquecido; nadie lo aceptó en la práctica, y las cosas siguieron exactamente igual que antes, pese a ser sumamente elogiado". (Ibarzabal 1977:24).

"Proposamen honek, berez oso zentzuzko iruditzen zaigun arren, ez zuen luzera begira arrakasta handiegirik erdietsiko. Lau dira porrot horretan ikusi uste ditugun arrazoi nagusiak: a) eredu hau behar bezain zehatz arautua ez egotea; b) (zenbait) idazle giputzen jarrera; c) euskal literatura zaharra behar den neurrian aintzakotzat ez hartzea eta d) laguntzarik eta babes ofizialik eza". (Zuazo 1987a:222).

Ildo berean:

"Azkueren asmoak ez zuen, hala ere, aurrera egin eta, pixkanaka, gainbehera etorriko zen ondorengo urteetan. Lau dira, gure iduriko, hondamendi horretan zerikusia izan lezaketen arrazoi nagusiak: a) laguntzarik eta babes ofizialik eza, b) hizkuntz eredu hau behar bezain zehatz arautua ez egona, c) literatur tradizioa behar zen neurrian aintzakotzat hartu ez izana eta d) (zenbait) idazle giputzen jarrera "txokozalea"." (Zuazo 1989:267).

hots, eredu erabateko eta finkoa ez lukeena[188] eta, hirugarrenik "oraintsu arte ahaztuxe zegoen gipuzkera osotua, gehien erabili eta erabiltzen den gipuzkera, beste guraso ongi ezagunak" dituena[189].

Azkueren *gipuzkera osotua*ren zorigaiztoa, ordea, bere burua Azkueren segiziokotzat zeukatenei soilik ezin egotz dakieke. Nahiz hauek azterketa-ezaren hobendun izan, Azkueri kontra altxatuak ere, arestikoen pare dabiltza, Azkueren lanak ikertzeari dagokion heinean, behintzat:

> Okerrena hau da, hau da geure artean bakarrik gerta daitekeena: Azkueren kontra zebiltzan, Azkueren lanik sekula irakurri ez zutenak. (1987c:79).

Berriz ere errepikatu behar da Mitxelenak hainbatetan esana: gaiek aztertu zain diraute, sarri aski, itxuragaiztoko topikoen gainean eraiki-deseraiki lanetan aritzen den bitartean.

Bestek horrela jokatu duen bitartean, Mitxelenak "begiramen osoz harturiko"[190] "euskara modu eder" horretan idatziak azterpuntuan ditu juzkugai hartzeko.

3.2.4. Azkueren eragina

Mitxelenak puntu honi dagozkionetan zehaztasun handirik ematen ez du[191], gutxitan baino ez du-eta berariaz paperera eramaten zein euskal idazlegan nabari daitekeen Azkueren eskua, baina modu orotarikoagoan, Azkue kokatzen du garai batetik aurrerako euskalaritzaren

---

[188] Izan da jarrera "tradizionala" (=chauvinista) horrek umuntzo eraman dituenik ere. Antza "gipuzkera hutsean" baino ere gehiagotxo arnoa ematen zuten. Gipuzkoako azken herrixe azken mutrikuko euzo gaitzen (ez) erabiltzen omen duen bezelako -txuri osoa jatorra, hori bai- arnoa zela maiz entzuten (...) Herrixe ha ez omen zen bere eran bakarra euzoarekin egiten. Ez ziren gutxi euzoa ez zutenak. Ez zuten ere gipuzkera hutsean egiten. Ez zuten ere gipuzkera osotuan. Horiek ere ez ziren gutxi. Eta ez zuten ere gipuzkera osotuan egiten. Ez zuten ere gipuzkera hutsean

muinean.

Halarik ere, ikusten joan den bezala, badirudi Mitxelenaren begietan, bizi zen Azkuek eta zendu ondokoak ez dutela arrakasta bera izan.

Hau da, errenteriarrak izen zehatzik ematen ez badu ere, behin baino gehiagotan du ahotan[192], Azkueren itzal-entzuteak hil ondoan batez ere areagotu zirela batetik[193] eta, bestetik, jarraile aitortuak ez zirela zioten bezain leial eta zintzo. Baina, berriz ere esan, ez du halakorik izendatuki paperera aldatzen. Zernahi gisaz, hil ondoko Azkueren arrakasta, dudaz kanpo ikusten du Mitxelenak.

Azkueren eraginaren ingurukoen berri zehatzak ematen dituenean Mitxelenak aitortzen dio, euskal ikerlanen gune[194] izan dela. Bere bizitza luzean mamituek, Mistral-ek okzitanoarentzat 1885ean eta Akademiak gaztelaniarentzat 1926-27an bete zituztenen pareko bilakatzen dute[195].

Gune izatea hiztegi hutsari lotzen ez bazaio ere, lan honek izango du bestek ez bezalako entzutea, bai argia ikusi zuen garaian baita gerora ere.

Bi arlotan atzeman daitezke batipat hiztegiaren zantzuak: euskal idazle eta hizlariengan batetik eta, hizkuntzalariengan bestetik.

Lehen samaldakoez, oro har, "hitzez hornitzera" jotzen dutela esateaz gain[196] eta lehen esanak esan, Mitxelenak ematen duen adibiderik zehatzena, Azkuek adinkide zuen eta bera baino hogeitsu urte lehenago hil zen Txomin Agirreren[197] bi lanetako hiztegien arteko aldea da[198]:

---

[192](1979b, *PT* 437).

[193]Eta honen senaletzat har daiteke, apika, Bera eta Lopez Mendizabal hiztegigileen lana euskal idazleek usatzenago zutela, jaso den bezala.

[194]Mitxelenaren aitorpen hau ez da hitz hutsetara murriztu. Ikerlan zehatzez gain, Azkuegandik hartutako adibideak baliatzen dituk han hemen erakusgarri jaso dela esateko nahiz, eta deskripta adierazi ez, (gehienetan zuzenduta) 3 4 5 puntuan hautatu dituzu eratxekiak.

[195]

[196]

[197]"1865-1920". (1960b).

[198]Gogora daiteke Larramendiri eskainiriko kapituluan, Agirreren estreinako eta geroko lanen arteko aldeez genioena.

> Hiztegi horren ondoreak aztertu nahi dituenak euskal literaturan har bitza bi liburu, Azkueren kide zen[199] Txomin Agirrerenak: *Krasala eta Garoa*. Euskalkia gora-behera hitzetan duten aldea, eta ez da deus gutxikoa. Azkueren hiztegi berriaren gidaritzari zor zaio soil-soilik[200]. (1964c:72).

Honek ez du, halaz ere, esan nahi, Azkueren hiztegiaren oihartzunak euskal literaturan, lan bakar honetara murriztu behar direnik:

> Eta euskal literatura osoak agirian darama geroztik, kopetezurrean josia, Azkuek utzi zion seinalea. (1964c:72).

Honen beste seinale bat, zeharbidez hauteman behar bada ere, Zatarainengan nabarmendua da:

> [A. Zatarain] Aurrean baitz, ordea, banuke gogo galderatxo bat egiteko, eta ez bila gabiltzan galdegai horietako eske. Ea zer deabruzko hegohaize erok, galdatuko nioke, amildu ote zuen Otxandioko seme jator hura, 1881ean gainera, "euskara"-ren hondamendira; hitz hori, edozein Euskaltzaindikoren pare, hiru alditz horrela idazteko[201]. Are gehiago, zerk eragin zion, zortzi lerrotatik hiru *Euskara* hitzez, letra larri eta guzti, hastera. Dirudienez, ez zegoen gure santugilea Zatarain jauna bezain murgildua Herriaren sabel-erraietan. Jakina, ez bide zuen artean otxandiarrak Azkueren Hiztegia[202] ikusteko egokiera onik izan. (1981c:156).

Bigarrenekoez –hots, hizkuntzalariez–, berriz, zantzuen luze-laburrak neurtzean, gogoan hartu behar da ez direla hizkuntzalari euskaldunak bakarrik Azkueren hiztegiaz baliatu direnak, kanpoko euskalarientzat ere ezinbesteko erreferentzipuntu bilakatu baitzen.

Hala nola, Hugo Schuchardtentzat:

> Por otra parte, *Baskisch und Romanisch* de Hugo Schuchardt no es más que el grito de júbilo y de agradecimiento que arrancó al genial lingüista austriaco la aparición del primer volumen de la obra cuya publicación le había de ahorrar en adelante la penosa consulta de diccionarios y

---

[199] Jat. *zan*.

[200] Ikus, halaber (1954h:43; 1966b, *SHLV*:375) eta (1984a:25).

[201] "Euskaldun jayo nintzan, / Euskalduna azi, / Euskara utsik amak / Eustan irakatsi / Euskara malte malte / Zabiltz neugaz beti, / Euskara ill ezkero / Ez dot gura bizi. (Donostian, Urriaren 29an 1881an)".

[202] Azkuek hiztegian, **Euskara** sarreran, EUSKERAra igortzen du, azken honi honakoa alboratuz: "1° (B,...), manera, usanza vascongada (...) - 2° (AN, B, G), vascuence, lengua vascongada (...) ¿De dónde viene la radical EUSK-? Dios lo sabe".

Garbi dago, beraz, Azkuerentzat lema nagusia *euskera* dela, aldagaietarikoen arteko aukera testuetan oinarritzen ez badu ere.

Bidenabar, errepara dakioke balizko *eusk-* erroaren iraigiazko zalantzari, Arana Goiriren ikuspegiari muzin egitea den bezanbatean.

Tesi honen hirugarren multzo nagusia osatzen duen aztertanean, berriz ere ukituko dugu puntu hau.

vocabularios insuficientes y no siempre dignos de crédito. (1964a:25).

Azken lerro horietan jasoek ematen dute argi, austriarrarentzat ez ezik, euskal ikerketetan murgilduriko edonorentzat ere, Azkueren hiztegia gune bilakatzearen arrazoia: Azkuek, aurreko hiztegi-bilduma eskasantzak edo-eta, konfidantza gehiegirik sortzen ez zuten horiek gainditu ditu, alegia. Honetxek bilakatu du, hain zuzen ere, hiztegia, ezinbesteko, noraezeko:

> Geroztik etorri direnek[203] (lehen mailan Aita Lhande eta beronen laguntzaileek[204]) ez dute Azkueren hiztegia garaitu eta menderatu, berretu, gehitu eta osatu baizik: zenbaitetan, gainera, neroni aurrelari naizelarik, zertxobait murriztu ere bai. (1964c:72)

Aipamen hau biziki interesgarria da, hor esanek, Mitxelenaren beste testuetan sakabanatuxe adieraziak zehazten dituzte eta.

Aipu honen hasierari bereziki erreparatuz, laudorio hutsak ote diren, beste gabe halakotzat hartu behar ote diren, zalantza egin daiteke.

"Lehen mailan" ahotan duen Lhanderen hiztegiaz, geroagoko beste lanetan dioena ekar daiteke aurrenik.

Luze-laburrean ez ezik zabal-meharrean ere Azkuerena Lhanderena baino aberatsagoa da, bistakoa denez. Halaber da bistakoa, ordea, gure ustez, batak eta besteak aldez aurretik begiz jotako esparrua ere ez dela bera, euskara baita Azkueren bilduma-gaia (*Diccionario vasco-español-francés*), Lhanderenak euskalki batzuei, ohartuki heltzen dien bitartean: *Dictionnaire basque-français (dialectes labourdin, basnavarrais et souletin)*, izenburuetan bertan (bi erdaratara batean eta bakarrera bestean, itzultzen direla gainera) irakur daitekeenez.

Ez da tamaina, apika, hiztegi bakoitzaren on-gaitzak neurtzeko eredurik zuzenena; ez, batipat, hiztegigileak jakinaren gainean eginiko aukera estari utzi ez badu eta hasieratik zedarriak non paratu gogo dituen aitortu badu.

Bestelako arrazoia da tartean, seguruenik.

Lhandek berak, Harrieten eta Azkueren zorduntzat jotzen du bere burua eta honela aitortzen.

Honezaz gain, Mitxelenarentzat, Lhanderen hiztegian erantsiriko xehetasun-ñabardurak, ez dira Azkuerenak bezain fidagarriak[205].

---

[203] Jat. *diranak*.

[204] Jat. *laguntzailleak*.

[205] "Lhande suele indicar, sin embargo, el origen extraño de muchas voces, en notas someras y a menudo mal orientadas". (1964a:28). Honen adibide, esate baterako, Lhandek *ageru* jasotzea *ajeru* edo *aieru* behar lukeenaren ordez. (1964a:36).

Arrazoi hauek, Mitxelena, Lhanderen hiztegia Azkuerena baino apalagotzat jotzera badaramate ere, *Dictionnnairek* badu *Diccionario* garaitzen duen zerbait, Mitxelena zeharo erakartzen duena:

> La única superioridad del diccionario de Lhande, pero ésta es clara e indiscutible, consiste en que da una impresión mucho más completa de la extensión de léxico vasco, ya que, al basarse en la realidad de los hechos y no en el ideal de los deseos, da entrada a las voces sin prestar mayor atención a su origen, con un criterio mucho más amplio que el estrechamente selectivo de Azkue. (1984a:28).

Nahiz Lhanderen nagusitasun argi eta diskutiezina puntu bakarrean antzeman dakiokeela esan duen, ez dirudi gutxiestekoa, Mitxelenak Azkueri eginiko kritika-zati handi bat, honetaraxe zuzendua dagoela kontuan hartuz gero.

Gainera, Mitxelenak Lhanderenean euskal hiztegiaren luze-laburraren irudi osoagoa azpimarkatzen duenean, ez ditu euskalki zehatz batzuk bereizten. Pentsatu behar ote da, orduan, bere mugatuan Lhanderen hiztegia, alde honetatik begiratuta, "zabalagoa" dela Azkuerena baino? Eta, honenbestez, Azkueren hiztegia "berretu, gehitu eta osatu" dutenen artean paratzekoa litzateke Lhande?

Arestiko euskal aipamenean, Mitxelenak bere burua *murriztaileen* artean kokatzeak ematen du bide, bestalde, Mitxelenaren Azkuerekiko urritzeak mintzagai hartzeko, *murriztea* zertan datzakeen ikusi ahal izateko, alegia.

Murrizlanak aurretiaz dakar, gehi- eta osalanak baino areago, Azkueren obra nagusiaren azterketa geldi eta sakona, hitz batean esateko: ariketa kritikoa eta, hauxe da, hain zuzen ere, Mitxelenaren hainbat urtetako eginbidea, Azkuek aurreko euskal hiztegigintzarekin egin nahi izan zuen antzera.

Murriztearen ondorio dira, beraz, *iratxoei (ghost-words* direlakoei) antzematea, hiztegigileak asmaturikoak zehaztea, iturri zein izan dituen esatea eta beste. Batez ere *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue* ikerlana mamitzea, alegia.

> Hiztegigileok[206], izan ere, aurrekoen hutsak jaso ohi dituzte, kontuz badabiltza ere, eta beste zenbait eramsi gero beren baitatik. Kritika, beraz, beharrezkoa, premiazkoa, nahi eta ezkoa eta are derriorrekoa da eginbide horretan. (1964c:72).

Nolanahi dela ere, egin dakizkiokeen *derriorreko* kritikek, ez dute Azkueren hiztegiak euskal ikerketetan duen garrantzia baliogabetuko, altxor horretan bildurik baitaude, ikusi bezala, "euskal hitzen jatorria eta historia aztertzeko" gaiak, antzinako "aberastasun gutxietsiak

---

[206] Jat. *iztegigilleak*.

eta hizkuntzaren batasunerako oinarriak, besteak beste"[207].

> Eta, azkenik, Azkue h-zalea ez zelarik, hor ikasi dute askok (ikasi dugu esan ote dezaket?) letra hori noiz erabili behar den[208], gure klasikoen eredura, eta noiz ez. (1964c:73).

Azkuek, bere jaidurak erabiltzera makurtzen ez duen *h*-aren berri ere ematen du, "klasikoen" testigutzak jasotzen ditu eta. Hemen datza, hain zuzen, etorkizunari begira, Azkue noraezeko bilakatzen duen arrazoietariko bat, euskal literaturaren atzearen lekukotasunari muzin egin ez diolako[209].

Baina bestetik, paradoxikoki, lanak irabazi duen ezinbesteko izate berberak sorrarazi ditu –Azkueren erruz baino areago ondorengoen zabarkeriaz– kalte larriak, irabazi zuen ospea dela medio.

Azkueren lanak hizkuntzalari-idazleei ziurtasun arriskutsua eman die, iturrietara jotzea eta eglaztatzea premiagabeko bilakatu du eta. Honela, Azkuerenak bere horretan hartu dituzte beste frogarik gabe eta ez dira Azkueren zuzenak eta okerrak bereizten ahalegindu.

Mitxelenak jaulkietarikako adibide batzuk ekar daitezke erakusgarri.

Zaitegi da Azkueren erruak errepikatzen dituztenetariko bat:

> Hurrengoan, berriz, ene iritziz, *igun* "martinete" ez dago arras zuzen, ez Zaitegiren baizik Azkueren erruz: *iguna* ez da *kiderra* edo *kirtena* besterik. *Peru Abarka*-tik honek hartu zuen pasartean (127gn. or.) *igunpian* goraxeagoko *gabi-igunaren* laburpena besterik ez baita. (1962c:77).

Beste bat, garbiasmoak Azkuerekin elkartu duen Olabide da[210]:

> Honen antzeko beste bat, *amaina* "alguacil", badakar Azkuek giputz-nafartzat, nondik hartua ez dakit: zuzen jasoa dagoenik ere ez nuke esango, beste lekukorik agertzen ez den bitartean. Eta, hain zuzen, honexekin egin zuen topo Olabidek, erdalkerien ihesi ohi bezala zebilela noski. (1962b:228).

---

[207] *Morfologia* genuelako arestian mintzagai utzi dugu iruzkindu gabe hiztegiazkoa. Garbi dago baina, literatur hizkuntzaren finkapena eta batasunerako **biak**, *Morfologia Hiztegiak* –zein bere arloan– direla beharrezko Mitxelenarentzat.

[208] Jat. *dan*.

[209] Euskal literaturaren berri-emaile den alde honetan kokatu behar da, testuan nabarmendu ez den Azkueren ihardunbide argitaratzailea ere, Barrutiaren lanarena, besteak beste:

"Gure artean, berriz, aurkikunde miresgarria izan zen Barrutiaren *Acto*-a Gerrak topatzea eta Azkuek argitara ateratzea". (1963a:59).

[210] Mitxelenak jesulagun honi iritziari beste kapitulu batean berariaz erreparatuko diogu .

Berriz ere, Olabideren hitzekiko jokabidea zuzena ez dela adierazteko, Azkue (eta Lhande) papereratzen ditu:

> Baina Azkue eta Lhanderen hiztegian aurkitzeagatik hutsagetik -eta horiztan aurkitzen ez direnak ere badira ugari liburu honetan- ez du hitz batek beste edozeinek adinbat esku (...) Diodan ormaldeetan bi aldiz agertzen da *dordoa*. Ez nekien ongi zer zen eta Azkuegana jo behar: Bizkaiko hitza omen da *durdua* "dificultad" eta Mogelek (baina zein Mogelek eta non?) darabilena. (1959b:114).

Era honetako adibide gehiago ere badakartza, Olabidek erabilikoen azalpen bila Azkuegana joz beti ere eta, Azkueren hitzen ondoan *omen* ipiniz:

> Halakoak ditugu, esate baterako: *burbuñoka* "moviendo la cabeza, p. ej. de pereza y aun voluntariamente". Erronkariko Uztarrotzen entzun **omen** zuen Azkuek (...) *kûnkuin* "repleto" (*biel*, alegia) Zuberoan erabiltzen **omen** da (...) *Ekalo* "atmida kapnoû, uaporem fumi", *kelaino*, *kemeta* edo *kemordo* alegia. Baztangoa **omen** da (...) Har ditzagun *ekera-orezkiak*, sortalde-sartaldeak (...) Aurrerakoeri (*ekera*-ri alegia) dagokionez, norknahi daki *egutera* askozaz zabalduagoa dagoela gure artean *ekera* baino. hau (Azkuek du berriz hitza) Ezkiogan erabiltzen **omen** dute. (1959b:114). (Beltz. gurea).

Alabaina, ez dago euskaldunei bakarrik zer egotzi Azkueren okerrak bere horretan jaso eta ematea, kanpotarrak ere, euskaraz -begi onez zein gaiztoz- arduratu direnean, katea horretan sartu baitira.

Saldo honetakotzat dauka, esate baterako, Mons. Griera, Mitxelenak ironikoki, "el adelantado de la geografía lingüística en España"-tzat daukana.

Azkuerekiko jarreran, Grierak huts ugari egin ditu: hasteko, Azkue iturri bakar hartu du, honezaz gain, Azkuek esanak gaizki aldatu ditu eta gainera, Azkueri hitzen kokapen-eza leporatu dio.

Huts guztien buruan, halarik ere, Grieraren saioa dago Azkue bera gainditu asmoz, honek oker aditu eta paperera eramaniko euskal hitz sekula izan ez direnak, etimologia aztergai hartu ditu eta:

> A nadie sorprenderá, pues, que Mons. GRIERA haya logrado la auténtica hazaña de encontrar buenas etimologías de palabras que propiamente nunca han existido: *aitor*, *amari*[211], *lausku*

---

[211] Hitz hau dela eta, GRIERA du berriz ahotan 1965eko "Vasco-románica" artikuluan:

"Hay algunos [bekatuak] en el por tantos conceptos notable *Vocabulario* vasco de A. GRIERA, San Cugat del Vallés, 1960. Así, a propósito del roncalés *amari* 'fruto, bellota' («lo que se guarda en la *arna*», según Griera), me permito remitir a una nota que publiqué en Euskera, 2ª ép., 1958, III, p. 5 ss., donde se demuestra, si no me equivoco mucho que *amari* es un fantasma que nació de la interpretación errónea que dio Azkue a una carta de su informador Mendigacha". (1965b, *LH*:270)

Mitxelenak hor aipatzen duen artikulua: 1958ko "Unas observaciones al último número da "EUSKERA" da, orain *SHLV*-n (432-435) bildua (gure 1958b).

«bizco», *sorbo* «cuerno», etc. AZKUE, aunque competente en grado sumo, no era ni podía ser infalible. (1960c, *LH*:331).

Azken honetan, ikusten denez, Grierari dagokio soilik, Azkueren erruak areagotzearen erantzukizuna, baina errudunak errudun, aldi berean, Azkueren izenaren eta entzutearen adierazgarria ere bada.

Paperera diren erakusgarriek agerian uzten dute norainoko itzala eta oihartzuna izan duen –eta duen– lekeitiarraren lanak eta zenbateraino den mirapuntuan eduki beharra.

Atalean zehar esaten eta berresaten den legez, Mitxelenak, ezin muzin egingo dio euskalaritzaren –bereziki hiztegigintzaren– oinarrian dagoena aztertzeari, bere benetako tamainan har dadin batetik, baina honen ondoan, Mitxelenari ezinbestekoa iruditzen zaiolako, jakite horrek –besteek bezala– aurrera egingo badu, zimentarri sendoen gainean eraikitzea[212].

Zimentarri-sendotzearen lekukotzat hartu behar bide da, bai Azkue berariaz autu duenean bai bestelakoa denean mintzagaia, Mitxelena haren iritzi-datuez baliatzen dela, lekeitiarra hizpidean dagoela adierazteko nahiz oker zertan dabilen azalera eramateko.

Lekukotasun horren seinaleak dira hurrengo puntuan bilduak.

3.2.5. Bibliografia berezia

Ondoren papererako dena, kapitulua osatzeko usuenik erabili diren Mitxelenaren erdal lanen hautaera da.

Litekeena da, diren guztiak multzo honetan ez egotea, baina dauden guztiak badira. Guztiek dute Michelena (errenteriarrak baliatzen zuen ortografi jokoa hemen ere zilegi bada) aita eta erdaraz daude, eta guztietan, aldez edo moldez, Azkue aipatzen du, luze nahiz labur, adibide gisa nahiz sakonkiago, iragaitzaz nahiz berariaz.

Zerrendatze honen helburua, Mitxelenak Azkueren lanei eginiko miratze geldi-sakona erakustea da; begirunea adierazteko modua azterketa delako burubidea, Mitxelenak hitzez ez ezik ekinez ere bete duela, alegia, eta ez duela hau erakutsi euskaraz ari denean bakarrik.

Denbora-ardatzari eutsiz emango dira lanak, errenkaz errenka.

1949a, "Notas de gramática histórica vasca"
1949b, "Voces vascas"
1950a, "De fonética vasca. La aspiración intervocálica"
1950b, "Notas etimológicas vascas"
1951a, "De fonética vasca. I. La distribución de las oclusivas aspiradas y no aspiradas"

[212] Eta puntu-mintz honetan, besteak beste, Urkixoren izena nahi eta ez aipatu behar da.

1951b, "De fonética vasca, II. La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet"
1953a, *Apellidos vascos*
1953c, "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés"
1953d, "J. Gorostiaga, *Vocabulario del refranero vizcaino* de 1596"
1954b, "Las escrituras apócrifas de Andramendi"
1954c, "La posición fonética del dialecto vasco del Roncal"
1954d, "De onomástica aquitana"
1954e, "Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca"
1954f, "J. Corominas, *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*"
1956c, "F. Jungemann, *La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones*"
1957a, "À propos de l'accent basque"
1957b, "Basque et Roman"
1958a, "Literatura en lengua vasca"
1958b, "Unas observaciones al último número de *Euskera*. 1. Ronc. *arnari* 'fruto'; 2. A. Nav. *euntze* 'belardi' ['prado']"
1958c, "Hispánico antiguo y vasco"
1958d, "Notes sur les éléments romans du Basque"
1958e, "Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Principe Bonaparte"
1958f, "Introducción", N. Landuchio, *Dictionarium linguae Cantabricae (1562)*
1959e, "Los cantares de la Quema de Mondragón (1448)"
1960b, *Historia de la literatura vasca*
1960c, "A. Griera, *Vocabulario vasco (Ensayo de una interpretación de la lengua vasca)*"
1961, *Fonética Histórica vasca*
1963b, "P. A. Añibarro [L. Villasante, arg.], *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra*"
1964a, *Sobre el pasado de la lengua vasca*
1964b, *Textos arcaicos vascos*
1964e, "Preámbulo", J. de Urquijo, *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596*
1964f, "J. de Urquijo, *Refranero vasco. Los refranes y sentencias de 1596*"
1965b, "Vasco-románica"
1965c, "A propósito de uno de los refranes de 1596"
1965d, "Lat. S: el testimonio vasco"
1966b, "Azkue lexicógrafo", *Don Resurrección María de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático. Conmemoración del centenario del nacimiento del filólogo vasco, perteneciente a la Real Academia Española*
1966d, "Joan Coromines, *Estudis de Toponimia Catalana*"
1967a, "Los refranes del cuaderno de Oihenart"
1967b, "J. Hubschmid, *Thesaurus Praeromanicus, II*"
1967c, "Tradición viva y letra muerta"
1968a, "*Aitonen, altoren seme* 'noble hidalgo'"
1968b, "Nombres de la "comadreja" (*mustela nivalis*) en el País Vasco"
1969a, "Sobre algunos nombres vascos de parentesco"
1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*
1970a, "Nombre y verbo en la etimología vasca"

1970b, "La lectura en territorio vasco"
1971a, "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos"
1971b, "Urquijo y la Sociedad de Estudios Vascos"
1972c, "Etimología y transformación"
1972d, "Color y sonido en la lengua"
1973a, "Lexicografía técnica"
1974a, "De lexicografía vasca. A propósito de *Axular-en hiztegia* del Padre Luis Villasante"
1978e, "Miscelánea filológica vasca, I"
1978f, "Miscelánea filológica vasca, II"
1978i, "El texto de *Peru Abarca*"
1979a, "Miscelánea filológica vasca, III"
1979b, "Miscelánea filológica vasca, IV"
1981e, "Encuestas lingüísticas en el País Vasco"
1981f, "Perspective de recherches futures"
1981g, "Lengua común y dialectos vascos"
1981h, "Nuevo y más extenso texto arcaico vasco, de una carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumarraga"
1986b, "Contra Lekobide"
1987b, "Literatura en lengua vasca"
1990, "De re linguistica (I)"
1991b, (?1961-1962), "De dialectología vasca"

3.3. SABINO ARANA GOIRI (1865-1903)

Mitxelenak Sabino Arana Goiri autu duen lanetara begiak irauliz, lehen begi-kolpean ageri da, erdal lanetan[213] daudela batipat abandotarrari buruz zuzenean emaniko abururik osoenak; gaztelaniazko lanetan jendarteratzen du Mitxelenak Aranazko ikuspegirik beteena. Errenteriarraren euskal lanetako aipamenetan, berriz, hizkuntzaren gaineko auziak dira, batez ere, nagusi.

3.3.1. Idazlea

Sabino Aranaren ekarrian, apika, alderdirik xumeenetik edo azpimarkatzea gutxien merezi ko lukeenetik hasiz, esan behar da, Mitxelenaren testuetan, beste alderdiekin berdinduz, bizkaitarra politikaren arloan aritua izana dela abantailatuenik ateratzen dena. Halaz eta guztiz, Arana erdaraz eta euskaraz aritu zen idazleaz ere han-hemen isurtzen ditu Mitxelenak –larregitan ez bada ere– bere iritziak.

Arana Goirik, euskaraz hitz lauz eta neurtuz ondu dituela dio Mitxelenak, baina literaturaren ikusmoldetik, bigarrenak dira bereziki gogoangarriak[214].

Poesi lan hauek iruzkintzean. Mitxelenak –Orixeren iritzia bere egiten duela aitortuz– trinkotasun erabatekoan adieraziriko indarraren eta benetako bizne-zirrararen adierazgarri direla esaten du. Alabaina, honen ondoan, erantsi ere egiten du neurri herrikoiak eta aire ezagunak erabiliagatik, usatzen duen hizkera "gogor" xamarra dela:

> Para la literatura cuentan sobre todo sus poesías, editadas en Bilbao en 1919. Muestran, como señala Ormaechea[215], fuerza y emoción auténtica, expresadas a veces en fórmulas de rotunda concisión, pero, a pesar de que utilizó metros populares con melodías conocidas en varias ocasiones, su lenguaje adolece de una cierta dureza. (1960b:143).

---

[213] 1960b, 1967b eta Ibarzabalek 1977an argitara eman zuen elkarrizketan batez ere. 1984eko "Los vascos y su nombre" (1984c) lanean barreiu esanak eta *Muga* aldizkarian Jose María de Areitzaren *1865-1965. Otro centenario: Sabino de Arana y Goiri* eta Jean-Claude Larronde-ren tesi-lanari eginiko iruzkinetan adieraziak ere (1965h eta 1979e, hurrenez hurren) gogcan hartzekoak dira.

[214] Halarik ere, hona zertzelada.

"Tengo la impresión de que la importancia de Sabino en cuestiones de lengua en general y como prosista en euskera en particular ha sido claramente minusvalorada, por mí mismo en primer lugar, por lo que no puedo reprochar a Larronde que se haya hecho eco incidentalmente de la opinión dominante. Hoy pienso que su *Lenengo Egutegi Bizkaitarra* (1898) es, aparte de que representa un esfuerzo extraordinario para adecuar la lengua escrita a nuevas necesidades, una muestra insuperable de literatura propagandística, tanto en la ponderación de productos propios como en el descrédito de los ajenos, muy en particular de los más próximos y afines". (1979e:103).

[215] "Olerkietan baditu burutapen sendoak, ¿nork uka?, ta biozmina ere bai; baino nere ustez ez da izena beteko poeta; ez biotzondo samurra duten orietakoa beintzat. Neuritzak kantatzeko egin zituen, susmo onaz alare, baina laguntasuna merits edo palta dute". (Orixe 1927:248).

Iritzi hau, ikusi bezala, *Historia de la literatura vasca*n irakur daiteke[216]. Ez du hemen literatur arloko besterik mintzagai, ez du hitz lainoz onduriko lanezko abururik papereratzen.

Hauxe bera gertatzen da Mitxelenaren euskal lanetan, hauetan ere ez baitu Aranaren sorlanik (hobeto esan, literatur lanik) juzkupean hartzen.

Literaturaren aldetikako juzkuak berriz ere irakurri ahal izateko, 1987ko *Tierras de Españ*ako atalean adieraziak arte itxoin behar da.

Azken lan honetan, Mitxelenak *Historia*n esanak zehaztu-osatu nahi ote dituen errezeloa izan daiteke, izan ere, geroagokoan, bertsoak ez baina, Aranaren prosa-lanak autu hartuz –uste ohi den hobeak izaki–, izan duten baino behatze gertukoagoa merezi dutela esaten du:

> pero su prosa merece mayor estimación que la que ha tenido. (1987b:105).

Guztiarekin ere, arestian aipatu berria ez da Mitxelenaren ustez Aranaren eragina neurtzeko eredurik egokiena. Bestela esan, Arana Goirik euskal literaturan bereziki (eta euskalaritza zabalean, erantsiko genuke) utziriko hatzak, ez du berak mamituriko literatur ereduan iturburua, bestelakoetara eta urrunago iristen baita:

> No obstante, sería injusto medir su influencia en la literatura vasca por la huella de su obra original. (1960b:143).

3.3.2. Politika-egitasmoa eta euskaltzaletasuna

Mitxelenarentzat, Arana Goiri inongo dudarik gabe, areago da ideologi hedatzailea idazlea baino; denek aho batez onarturiko iritziak arbuiatzeko trebetasunaz eta, hala behar izanik, indarkeriaz erabiliriko arrazoiez baliatuko den propagandaketari miragarria:

> Al leer las obras de Sabino, inmediatamente se da cuenta uno de que su obra está guiada por el único objetivo de la propaganda política. En este sentido, creo que Sabino fue un agente de publicidad maravilloso. Pero no fue el creador de una escuela literaria, ni lo pretendió. (Ibarzabal 1977:25).

izakera sendo eta tinkoa[217] iritzen du Aranak Mitxelenarentzat, hizkuntzazkoetan

---

[216] Eta honen laburpen eta aitzindari zen 1958ko Díaz Plaja-ren bilduman (1958a:373) argitara emanikoan, *duras* beharrean, *rígidas* darabilela.

[217] "El consenso que hoy existe sobre una serie de cosas, como por ejemplo la ikurriña, se debe a que Sabino las planteó de la manera más brutal posible; fue muy duro, pero con los años la ikurriña se aceptó". (Ibarzabal 1977:24).

ondorio aldez onak eta aldez latzak izango dituena, baina izakera horrexeri eskerrak izango da gauza bere burua euskalduntzeko, orduko lanabes eta bitarteko urriak urri.

Aranaren ahalegin hau, halaz ere, testuinguru zabalagoan kokatu behar da. Arana ez da euskarara hurbildu hizkuntzazko arretak horretaratua[218], Aranaren euskararekiko atxikimendua, bere politika-egitasmo orotarikoan ikusi beharra baita.

Bi alderdion arteko –hots, euskararen eta Aranak nahi lukeen *Euskadi*ren[219] arteko– harremanak Mitxelenak honela ulertzen dituela esan daiteke:

-Arana Goirirentzat aberria eta hizkuntza garrantzizko izanagatik, aukeran, aberria hautatzen du. Iritzi honen euskarri, Arana Goirirengandikako hitzak paperetzen ditu Mitxelenak oin-ohar batean:

"A Sabino le gustaba más la franqueza, hasta la franqueza brutal, que la evasiva. Si de algo peca, en efecto, es de categórico y de estridente, de llegar a la paradoja cuando la consecuencia parece exigírselo. Pudo influir en ello su temperamento (era de los vascos que viven de certezas), pero también pudo moverle una intuición de político sagaz, que empezó y tuvo que continuar siendo un hábil e infatigable propagandista. Si quería mover un país, hacerle cambiar de ideas y conductas, no podía proceder con cauta lentitud, sino precipitadamente, con voces y escándalo, escándalo que no dejó de acompañarle desde Larrazábal". (1979e:101).

[218] "Arana ez da, bada, politika gaiez kezkatzen den euskalaria, baizik euskal gaiez arduratzen den politika gizona". (Laka 1987a:15).

"Arana Goirik bere politika egitasmoaren barne ikusten zuen hizkuntzaren berpizte eta garapena". (Laka 1987b:416).

Ikertzaile honek aztertuak, autu dugun iritzia irmotu ez ezik, bestelakoak argitzea ere badakar. Bilboko euskarako katedra erdiesteko gogo bizia, beherago beranaz ikusiko duen Azkue eta Aranaren arteko liskarren iturburu nagusietarik bat, hain justu.

[219] Honetan Arana Goiri, Xahoren zordun al litzateke?

"Berak [Xahok] aurkitu omen zuen, itzulinguru larrekin egia esan, gure herriaren egizko [sic] bide zuzena. Jende gutxik zekien, ordea, hori zekitenek berek ez zekten orain jakin uste dugun arabera. Arana Goiriren atzindari izan genuela Garate jaunak erakutsi-izan du, eritzule-irakurleak harrimenez eta espantuz beteizen zituelarik. Hori, Donostiaidean, 1930ean, zenbait urte gorabehera gertatzen zen gertakaria da, orotzen naizenez. Gazteegia naiz, ordea, neure zaharrean, lekuko fidagarria izateko". (1983a:62).

Ala Justo Garate oker xamar zebilela adierazi nahi ote du? Ibarzabali honelako arrapostua emana baitzion Mitxelenak:

"Hay dos personas empeñadas en demostrar que Sabino no fue original en nada; Justo Gárate y Xabier Kintana". (Ibarzabal 1977:28).

Politikak zerikusirik izan ote dezake Garate eta Arana Goiriren arteko bat etortze-ezean? (Iztueta 1991a:267).

Halarik ere, ez bide da baztertzekoa Azkueren hau:

"Chahoren beste burutasuna eguzkiaren semeak gerala, luzaro ilda egonalen, gure egunetan berriz bizi izaten asi da. Gure izkerak eta eliak noiznai (ezagutzen ditugun gizaldietan beintzat) eta izkelki guzi guzi izan duten eta orain ere dadukaten, *S* erauzi edo kendu egin bear dala. ¿Zer esango oteluke Lafamendik orain biziko baliz? (...) [Ondokoa, Larramendirena baitzan darama paperera Azkuek] *Euskera*-ren ordez *euzkera* esan bear degula? Gutxi da ori. *Eguzkera* esan bearko arkitzen degu burua: *Eguzkera* ta *Eguzkaldun* ta *Eguzkalefi*. *Eguz* au ezpainetarako biguñ biguña ta belaiñako ozen-ozena degu. Gainera, gure burua *eguzkaldun* egiñikan, munduak obekiago ikusiko luke guk gure Alta beñi oni diogun esker ona. Altor: eguzkia baino ere lenago gallegu odoldun Chahok euskaldunen Alta egin zenituen *Altorbo*, egure makur uzkur, zimur ori: zure semeek bigalen Alta debela jakinez, etzaitzala mutuitu, ilundu, asafatu". (Azkue 1934:14,15).

Oroi honen *DVEF*-ko **euskera** hiztegi-sarrerari iruzkinduaz.

Cf. *Obras completas de Arana-Goiri'tarr Sabin*, Buenos Aires 1964, 1296. or.: «Dana da aberrtzaletasuna, euzkerea jakin ezik be. Aberrija eztau gaizkatuko euzkereak; bai ta bakarrik aberrtzaletasunak. Zabaldu egitxu aberrtzaletasuna, ta berarekin euzkerea be zabalduko da. Zabalten be-dozu euzkerea aberri bako izkeratzat, Aberrijaren arerijuak berakin zabalduko dira». (1978a:37).

-Halere, euskara jasaten ari den galbideak biziki kezkatzeaz gain, konponbideak bilatzeko premia aldarrikatzera darama. Mitxelenak artikulu aipatu berrian (1978a) bertan jasoa, adigarritzat har daiteke:

> Hortik ere dator, hein batez, Karlos Santamariak aipatu ohi duen «factor recesivo en la transmisión» delakoaren gelaraztea, bide horretatik hizkuntza nahitaezko galbidera zihoala. /Ikus Arana Goiri, *Obras completas*, 214 or., «Fédération littéraire basque» zelako asmoaz dakarrena: «Los vascos, hablen o no el euzkera, deben tener igual representación en la Asamblea. Los vascos que no lo saben son hijos de quienes lo hablaron; los vascos que no lo hablan son padres de quienes lo saben; los que no lo saben no están en el caso de perderlo. Para conservar y propagar el euzkera, hay que atender a los unos y a los otros»/. (1978a:44).

Honela, euskara bilakatzen eta paratzen du Aranak -behartu xamar bilakatu ere, Mitxelenaren aburuz[220]- euskal bizitzaren gune, eta jarraileen samaldak asmo berari eutsiko dio:

> Sabino es el primero que concede esta importancia al euskera y que tiene una fuerza detrás para ayudarle. Probablemente Iztueta lo había dicho antes, pero Iztueta estaba solo. (Ibarzabal 1977:28).
>
> Aun en lo tocante al pasado más remoto, al mismo Arana Goiri, cuyas preocupaciones iban más bien hacia lo que llamaba 'raza', se le hacía a veces difícil apartarla de la lengua, como parecen indicar estas palabras que tomo de la reseña de un trabajo de Lewy d'Abartiague sobre el origen de los vascos (*Obras completas*, Buenos Aires, 1340 ss.), cuya solución constituía un imposible no vencido[221]: «La lengua es el único instrumento que nos queda para investigar aquella larga época protohistórica de la raza». Y digo que hablaba de raza, porque no es sencillo emparejar genes con fonemas o construcciones sintácticas. (1984c, *SHLV*:538).

-*Bizkaiera-Bizkaitarra* bikoteari dagokionez -honetan ere Iztueta gipuzkoarra darabil Mitxelenak berdingai-, badirudi euskalkien arteko azaleko bereiztasunen azpian, Mitxelenaren begietan, Sabino Aranak euskararen eta Euskal Herriaren batasuna ikusi duela:

> Halaz ere zatikatze hauek oinarriko batasunaren sena -ageria nahiz izkutua- erabat suntsitu ez zuten bezala /Iztuetaren gipuztasunean, beste argibide batzuk ematekotan, argi ageri da euskaltasunaren funtsa, hizkuntzaz hain zuzen ere euskalduna, eta Arana Goiriren bizkaitartasuna

---

[220] Sabino se vio obligado a aceptar que la lengua tenía que ser un elemento central en la nacionalidad". (Ibarzabal 1977:27).
Ikuskizunik ote euskaldun berria izateak eta euskal literatura gaingiroki baizik ez ezagutzeak?

[221] Errepara Larramendi-usainari.

Halaz ere zatikatze hauek oinarriko batasunaren sena -ageria nahiz izkutua- erabat suntsitu ez zuten bezala /Iztuetaren gipuztasunean, beste argibide batzuk ematekotan, argi ageri da euskaltasunaren funtsa, hizkuntzaz hain zuzen ere euskalduna, eta Arana Goiriren bizkaitartasuna (Arana Goiritarrena hobe, agian), egungo egunean itxura berekoia lezakeen arren, euskal batasunaren adierazperik suharrenaren iturburua izan zen/, euskalki ugaritasunak[222] ere ez zuen inoiz hizkuntzaren bat izate hori zalantzan jarri maila guztietan ageri denez[223]. (1978a:27).

Guztiarekin ere, Mitxelenak zehazki adierazten ez duena da, ea Aranak, euskararen batasuna edo euskara-molde zehatza ote duen gogoan. Iztueta gipuzkoarra, berriz, hizkuntzaren aldetik batasunzaleago ez ote zaion errenteriarrari begitantzen susmoa izan daiteke[224].

Badirudi, bi giputz-bizkaitarrok hizkuntzaren alorrean eta herriaren esparrua zedarritzean, ez datozela osotoro bat.

Politikaren ikuspegitik *bizkaitar* sortu eta *euskotar* bilakatu zitzaion Arana Goiriri ez bezala[225] (Mitxelenak Gipuzkoatik abiatuta atera zituen ondorio berberetara iritsiz,

---

[222]Aranaren euskalkiekiko jarrera poliki aztertu du Lakak zenbait lanetan:

"... Beraz, badirudi, adibideen arauera, Aranak ez duela inolako oztoporik *ditut* bezalako forma baten ondoan *dodaz* erabiltzeko: biak dauzka bizkaitartzat. Honelako jokabiderik ezin aurki daiteke aditzaz kezkatu zirelr aurreko eta garaiko euskalarien artean, ez Campionengan, eta ez Azkuerengan, esaterako. Izan ere, Aranaren idatzietan ez da gainerako euskalarien lanetan antzeman daitekeen neurriko kezkarik ageri, euskalkiei dagokienez: Hots, euskalki bakoitza tasun ezberdin batek duela bereizten, eta ezinezkoa dela zeregin bera duten tasun ezberdin bi (gure kasurako -*it*- eta -*z*- pluralgileak) euskalki berean agertzea". (Laka 1987a:30).

Hona, ikertzaile beraren beste pasarte bat, Aranaren beraren aipu argigarriari oinarritua. Honela dio Aranak:

"*Lo razonable es, pues, que dentro del Euskera se construyan, por de pronto, tantos dialectos como regiones hay dentro de Euskeria que han sido políticamente distintas en la historia, y que cada uno de esos dialectos se forme con los elementos gramaticales y lexicológicos más puros que hoy se encuentran esparcidos en los diferentes subdialectos y variedades de la respectiva región*". (*O.C.*, 1896, 823.or.)".

Eta hona Lakaren (1987a:38) iruzkina:

"Beraz, euskalki bakoitzeko azpieuskalki edo aldagarrien arteko aukera da egin behar dena; garbitasunaren arauerako aukera".

[223]Honako Aranaren hitzak al ditu gogoan Mitxelenak hau dioenean?:

"Lo que procede, en mi opinión, es componer dentro de cada región euskerana que haya sido antes estado autónomo y se halle en la posibilidad de volver a serlo algún día, un dialecto general, formado con los elementos menos alejados de las formas orgánicas, esparcidas aquí y allá, en los diferentes subdialectos o variedades que se hablen en el territorio que se trate (...) De esta suerte tendríamos un solo Euskera Guipuzkoano, un solo Euskera Nabarro, un solo Euskera Bizkaino, etc., viniendo a realizarse en la esfera lingüística la fórmula que en la política tiene tantos y tan decididos partidarios, la variedad en la unidad, que correspondería exactamente a la que hubiese de regir en este último orden. (*O.C.*, 1896, 824.or.)". [Laka 1987a:38,39-tik jasoa].

[224]Ez ditugu berrekarriko Larramendiren atalean Iztuetaren burubideez eta honek mamituez adieraziak.

[225]Sabino Aranaren lehen liburua, ***Bizcaya por su independencia*** izenekoa, 1892an argitaratu zen. Hemen agertzen da lehen aldiz independentziaren ideia, foruzaletasunaren ideologiarekin hautsiz. Hasieran, liburuaren izenburuak dioen bezala, independentzia Bizkaiarentzat bakarrik aldarrikatzen du. Euskal Herri osoari begira egindako planteamendua geroagokoa da: 1897koa, hain zuzen. "Euzkeldun Batzokija"ko Estatutuetan (1894), 8. artikuluan, zazpi probintzietarako intenbide independentista eta Euskal Herri barrurako federalista proposatzen da. Euskaldun guztien nazioa deitzeko "Euzkadi" hitza asmatzen du". (Iztueta 1991a:229,230).

Foruen aldeztaile ez izate honetan -bestelakoak aldeka batera utziaz-, abandotarrak, Mitxelena gogaide

errenteriarrak aitortzen duenez) gertatu bide zitzaion Iztuetari. Hau da, nahiz batasun horren arrastorik bazuela pentsa daitekeen, Gipuzkoaren mugen barne gelditu zen eta ez zuen harantzago egin:

> Arana Goirik berak atera zituen ondorioak atera nituen, beraz, nik ere, Gipuzkoatik abiaturik: ez ote zitzaion bada hari ere bizkaitar asmatu zuen ikurrina euskotar bihurtu?
>
> Bi eratako jendea aurki daiteke gure artean, auzi honi bagagozkio. Iztueta, esaterako, "gipuzkoarra" dugu: kondaira, Gipuzkoakoak dantzak ere. Bazekien pausoro darabiltzan euskara eta euskaldunak ez zirela gipuzkoar soilak. Baina ez du berez datorren ondoriorik ateratzen. (1987a:152).

Honenbestez, Aranari Bizkaitik eta Larramendiri (eta Mitxelenari) Gipuzkoatik abiatuz, gauza bera agitu zitzaien, sorterri ttikiaren mugaz haraindiko sorterri handiagoa, Euskal Herria alegia, idoro zutela. Ez, ordea, Iztuetari.

Hizkuntzazkoetan, berriz, gauzak bestela ikusi behar direla dirudi.

Iztueta gipuzkoar sutsua euskararen gainean ari denean eta euskaraz idaztean, halako saio berezia egiten du ahalik eta euskal eredu arartekoena gatzatzen, honen aurreko kapituluan jaso den bezala.

Aranaz ez du Mitxelenak halako asmo bateragilerik *de facto* mamitu zuenik zehazten. Kausitu dugun iritzi honetatik gertukoena, lehen jasoa da.

Mitxelenak ematen dituen adigarrietan oin hartuz, orduan, ondoriozta al daiteke, errenteriarrak ez duela Arana Goiriren asmoetan nabaritzen euskalkietan sustraituriko euskara-molde komun bat eskaini nahi izatea, nahiz teorian "hizkuntzaren bat izatea" guztiz ontzat eman[226]? Hizkuntzaren garbi-beharraz zuen ikuspegiak, seguruenik, erabat baldintzatu

---

du:

"Beste gauza bat ere aipatu behar da, guztiz beharrezkoa dena, Euskal Herriaren partiketa. Barrenen daramadana nik hemen argi eta garbi esan behar baldin badut, eta momentu honetan esateko asmoetan nabil -besterik pentsatzen duenak barka biezait-, ni ez naiz batere foruzalea. Orain askok eta askok karlista dirudigu, bat batean foruzaletasun izugarria sortu baitzaigu, eta ni ez naiz, esango dizuet zergatik, oso foruzalea. Foruek ez dute sortu Euskal Herriaren partiketa, edo zatiketa, baizik Euskal Herriaren zatiketaren ondorio dira foruak". (1981a:63).

Mitxelenaren azken hitzak bere sakonean aditzeko, gogoan izan behar da, 1978an esan zituela eta 1976an beta zela, hain zuzen ere, foru-galtzearen mendeurrena, orduntte honek ekarri zituen ospakizunak tarteko.

[226] Euskarari buruz euskaraz mamituak aztertzun harturik, Lakak (1987a) eginiko Aranaren testuen azterketak, agerian uzten du bi epe aski garbiak bereiz daitezkeela euskara-moldearen hautaerak erabakirik: 1897 arte, euskaraz idazten duenean, ez da literatur tradiziotik larregi aldentzen (aditza-joskeretan leialago ortografia-hiztegietan baino), erdal testu teorikoetan joera berrizalearen lehen zantzuak sumatzen hasten diren arren (1894.eko *Cartas a Euskólilon* ikusten du Lakak lehen testigutza). Sabindarrek esku-liburutzat hartuko duten 1896ko *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkainok* markatzen du maila teorikoan, nolazpait, muga, oraindik ere bi hizkuntz moldeen ezaugarriak agertzen baditu ere. Baina benetako haustura, "1897. urtetik aurrera *Egutegi Bizkaitarratik* aurrera hain zuzen ere, Aranak erabat aldatzen du aditz laguntzailearen sistima, eta hiperbizkaierazkoa hartzen bete-betean". (Laka 1987a:31).

Honela laburbiltzen ditu ikertzaile honek Aranaren molde berriaren ezaugarriak:

"Baina ortografia eta fonetikaz gaindi doan aldaketa dago une honetatik aurrera. Aditz sistima erabat hiperbizkaierazkoa da *Egutegi Bizkaitarran* eta baita bere ondoren Aranak idazten dituen guztietan. Are gehiago dena, orain arte zalantzak eta definizionik ezak ibiltzen bazuen Aranaren bizkaiera idatzia aditz laguntzailearen erabilerari zegokionean, 1897.etik aurrera behin ere hutsik egin gabe erabiliko ditu abandotarrak hiperbizkaierazko

zuen Aranaren hautabidea.

Aranaren politika-egitasmoa izan bada ere eragilerik indartsuena, Mitxelenaren ikuspegitik bazterrezinezkoa da euskaltzale-euskalari-euskal idazle andanak Aranari zor diona.

Abandokoaren joerak muturrera eraman nahi izan zituzten jarraile gartsu eta sutsuak ez ezik (L. de Elizalde, Arriandiaga Alta[227], Errenteria Aba...), beren burua jarraikiletzat ez daukatenak, are kontra ageri zaizkion asko ere[228] Mitxelenaren iritziz, haren zordun dira. Zorra nagusiki, bizkaitarrak idazleei emaniko bultzadan eta hauengan bizturiko gehiagonahian nabari daiteke, Lizardik aitortu legez[229].

Aranaren, aztertu den Azkueren eta beste euskaldun gutxiren[230] ahaleginez, euskarak --zabalgoaz ez bada ere-- gorabidea hartu du, bide-erakusle hauen akuilukadari esker. Euskaldunengan, bere hizkuntzarekiko arreta biztu dute eta euskarak ohiko ez zituen arloetan jorratzeko gogo sendoaren ernamuina aldatu:

> Dena den, erraz froga daitekeenez, hizkuntzak indarra eta lurra, zedarrietan eta barrenean, galdu ahala, ugaldu doa altzitik beronen premia eta landu beharrarekiko ardura. Zuzperraldi honetan, Larramendi aipa genezake besteak beste (...) Arana Goiri eta Azkue -ez ziren gogaide minak agidanez[231], ez eta hizkuntza auzietan ere[232]-. (1978a:37).

---

formak, zehazki eta zalantzarik gabe muga daitekeen paradigmaren arauera.

Urte honetan desagertzen dira, bada, gehiago ez agerteko, *-it-* pluralgiledun aditz formak eta *deu-* moetako NNN laguntzaileak. Hauekin batera doaz, joskerari dagokionez, galdetzailez eginiko menpeko perpausak: nekez aurkituko da honelakorik *Egutegi Bizkaitarar*en ondorengo idatzietan. Hizkuntz eroduaren aldaketa bat batekoa da, bitarte-mailarik gabea". (Laka 1987a:35).

[227]Sabindarrez hitzegitean ikusiko dugun bezala, jendaurreko aitortza eta anketan erakutsia beti elkarren ondoan ez bazetozen ere.

[228]"Arana gabe edo Arana'z leku ari izanak eta ari direnak badituzu, baino aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bitartekoak, naiz Arana-kukuak, ua dute eragile nola edo ala". (Orixe 1927:246).

[229]"El poema que como a maestro le dedicó Lizardi (figura en la primera edición de *Brotz-begietan*), por ejemplo, no es una simple fórmula de cortesía, sino el escueto reconocimiento de una deuda". (1960b:144).

Lizardiz aitzean itzuliko gara honetara.

[230]Oroi Larramendiz esanak.

[231]Politikan, besteak beste:

"Izan ere, oso gauza gutxitan zetozen bat euskaldun biak, bai euskal gaien arloan eta bai politikarenean". (Laka 1987b:419).

Orixek bere euskal literaturazko ikuspegian, Azkueren aurkeztatzea, Aranaren aurkari moduan egiten du, hain justu:

"*Arana-kukuak*. Arana-kukurik aundiena (Anti-aranista aundiena), Azkue R. M. dugu, ta ez diogu ukatuko berak ain mafe duen ospe ori. Balin ba da, Azkue jaunak onontzarazi ditu Aranagoko oriek; baino ¿beroriek ere ez ote dira oaftu okel-antza ari zirela? Egia da, Azkue'k euskera bere einean auferazteko lanik aski egin du". (Orixe 1927:249).

[232]Hona, Lakaren (1987a) lanetik ateratako zenbait pasarte argigarri:

Aranak idatziriko lehen euskal testuan (1893) joskeraren mailatik, "galdetzailez egindako erlatiboak ugari ageri dira", "garai honetan dagoeneko berrizaleen artean arbuiaturik diren zenbait egitura ere badarabiltza Aranak, literatur tradizioari jarraiki; esaterako *zerren* eta *eze* moetako konpletibak", gehi aditz mailan darabiltzanak, Azkueren

3.3.3. Euskalaritza

Arana Goirik euskal ikerketen barrutira ekarriak ditu mintzagai Mitxelenak, onestekoak eta arbuiatzekoak, zein bere lekuan kokatuz.

Hizkuntz ikerketa orotarikoaren zatitzat har daitekeen euskalaritzari zuzenean dagozkionetan sartu aurretik, halaz ere, komeni da, Mitxelenak Sabino Aranaren hizkuntz ideiak autu dituen lekukotasun –itzuri ezean– bakarraren berri ematea.

Liburu baten iruzkinean[233] papereratzen ditu Mitxelenak gai honen gainekoak. Lehenik eta behin, Aranaren hizkuntz ideiak[234], ikerkizuntzat jotzen ditu eta lan horretarako gomitea egiten, balizko ikertzaileak gogoan hartu beharreko burubidea ere adieraziz:

> No estaría de más, y permítaseme que me prevalga de esta lejana ocasión para arrimar el ascua a mi sardina, que alguien hiciera un estudio de las ideas lingüísticas –teóricas, no aplicadas– de Sabino, separándolas en lo posible de las de sus sucesores y seguidores. Tengo la impresión de que el resultado no carecería de interés, aunque en este terreno estuviera mucho más cerca del pensamiento tradicional entre nosotros que de los innovadores, que por aquellas fechas habían pasado en el mundo de oposición revolucionaria a poder sólidamente establecido. (1965h:441)

Bereizte-zehazteak besteren bizkar utziagatik, Mitxelenak ez du bere aburua estari gordetzen:

Izkindekoak ez izatetik ondorioztatzen du Lakak (1987a:22).

"Garbi ageri da, bada, Aranak ez diola Azkueren bideari jarraitzen, azagutzen duen arren. Dirudienez, nahiz teorikoki Azkuek eskeintzen dituen aditz formak onartu, ez legoke prest hizkuntza idatzian erabiltzeko. Zentzu honetan, Arana gazteak ezberdintzen ditu hizkuntzaren historia eta bere oraina. Azkuek garai beretsuan egiten ez zuena. Kontrako joera badugu ere, urte hauetan Azkue zen Arana baino ausartagoa hizkuntzaren berrituraketan (...) ez zuen Aranak *Izkindearen* aditz eredu berria onartu (...) abiapuntu hipotesietan ados zeuden euskaldun biok, baina ez ordea berreginiko formen erabileran. Aranak ontzat ematen zituen beharbada Azkueren eskeintzak; beste kontu bat zen, ordea, gramatika *teoriko* horien bidurik zegoen bizkaieraz idaztera makurtzera".

Eta aurreraxeago:

"Hasieratik era, ostera, ez zituen [Aranak] Azkueren proposamenak onartu, ez ortografia kontuetan –hau agerian irakur daitekeelarik bere lanetan–, ez eta aditz edo joskera arazoetan, azken atalok agerian kritikaturik ez azaldu arren, euskaraz idaztean darabilen ereduak erakusten bat digu".

[233] J. M. de Areitzaren *1865-1965. Otro centenario: Sabino de Arana y Goiri*, 1965ekoari egindako, hain zuzen ere.

Bidenabar esango genuke, berebiziko abilezia erakusten duela Mitxelenak 1965eko Euskal Herri hartan, Arana Goiriz zer edo zer esan edo "erdi esateko".

[234] Hizkuntz ideiak bakarrik ez, esaten ari garen bezala, bestelakoetan ere, ez du uste Mitxelenak Arana behar bezain sakonki aztertu denik:

"El fundador del nacionalismo vasco, y supongo que no hay dudas sobre su nombre, es una persona que, en sus dichos y hechos, mostró aspectos variados y hasta contradictorios, que rara vez han sido debidamente considerados, es decir, examinados desde una cierta distancia. Cuando una obra fría y alejada ha aparecido, y este sería para mí el caso de la obra de Larronde [ikus 1979e], es marginada en favor de productos de la militancia partisana". (1984c, *SHLV*:553).

> Con la señalada excepción de su inacabado *Tratado etimológico de los apellidos euskéricos* (1897), llego [sic] a constituir un sistema al que no le faltaba una terminología técnica, creación en buena medida original. (1965h:441).

Jaso berritik ondoriozta zitekeen, Arana Goiriren hizkuntz ideiak zehazki beharbada ez, baina antolatu zuen "sistema" hori eta horren kariaz gatzaturiko terminologia ez dituela Mitxelenak hagitz begi gaiztoz ikusten.

Halarik ere, arestikoari ondotik jarraikitzen zaionak agerian uzten du, ez dagoela halako iritzirik Mitxelenaren lumari alboratzerik:

> Claro es que se trata, a mi parecer, de un sistema cerrado, escolástico, como el de Astarloa por ejemplo; no abierto como son los que algunos nos complacemos en llamar científicos. En último término, se trata de la base empírica necesaria a toda disciplina basada en la experiencia, aunque no pueda llamarse estrictamente experimental. (1965h:441).

Hor gakoa. Aranaren delako sistema hori ez dago Mitxelenak behin eta birritan hizkuntz auziak direnean eskakizun duen denean, datuetan oinarriturik. Arana Goiriren sistema horrek –gero ere aipatu beharko den–, Astarloaren urratsetan, eskolastika-kutsua du, hortsia da, zientziazkoen arras bestelakoa alegia, eta ez da hizkuntz gertakarien ikerketan sustraitzen.

Ikusten da, beraz, zein neurgailu darabilen Mitxelenak hizkuntz azterlanak auzipetzean. Hizkuntz gertakariak begien aurrean izan ezean, nor beraren iritzi-apetei atea zabalik utzi eta denetik urrunegi aritzeko arriskua dago[235].

Euskalaritzari bete-betean dagozkionei eutsiz, berriz, errenteriarrak ia aipu hutsean uzten duen batetik hasita, neurtzkeraren gaineko auzia[236] ekarri behar da paperera.

Mintzagai honezazko pasarterik aspaldikoenean, Mitxelenak ez dio –izendatuki ez, behintzat– Aranak euskal neurtzkeraren azterlanik edo teoriarik mamitu zuenik:

> Hortan [sic] ere, oker ez banabil, ez dakigu zein izan zitekeen, garai batean, euskal neurkera hori, zenbaiten saioak (Lekuona, <Orixe>, Leizaola, Gaztelu, etc.) gora-behera, ez baitugu oraindik guztiek onar dezaketen teoriarik. Azterlurik dagoena edo azter daitekeena bederik, besterik da: nola neurtzen diren eta gainera, nola neurtu behar liratekeen (Arana Goiri eta abar) orain[237]. (1977a:93).

---

[235] Azkuez eta orain Aranaz jasotzen ari garen hau, argiago erakutsiko dugu Orixez eta zenbait euskalariz mintzatzean.

[236] Orixez aritzean berriz ere autu hartuko ditugu gaiok.

[237] "Entre los innovadores de la métrica vasca merece ser citado junto a Olhenart el que, no exclusivamente por motivos de carácter lingüístico, es, sin lugar a duda, una de las figuras señeras de la historia literaria vasca en la época moderna: Sabino Arana Goiri. Su doctrina sobre la versificación vasca, expuesta en el trabajo *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*, no responde a un estudio y análisis de lo que fuera en el

Lau urte geroagoko lan batean[238] emango du Mitxelenak Arana Goiriren bide-urratzearen berri, Oihenartekin elkarganatuz:

> Metrika aldeko kitzikak ez zaizkio, nik uste, gogorregi hartu behar Oihenarteri. Etxeberri, eta beste horrenbeste, ohitura zaharrei atxikiak ageri zaizkigu gai honetan. Oihenartek, berriz (ehunka urtez beranduago[239] Arana Goirik egin zuen gisan[240]), bere legeak sartu nahi ditu, nahiz lege horiek atzerrietako bertsogintzan maiz onartuak izan. (1981d:119).

Ez du, ordea zehazten Arana Goirik sartu nahi izan zituen lege horien nondik-norakoa.

Ortografi sistemak, euskararen idaztaraudiak arduratzen du, bestetik, Arana[241] eta horren kontu ematen errenteriarrak.

Mitxelenak, hizkuntza eta idaztarauen arteko halabeharrezko lotura-ezaren aldeko

---

pasado dicha versificación, o al menos, no se contiene en él ninguna referencia a ella, aunque sin duda la conocía y la tuvo presente, sino que se cifra en unas pocas leyes y normas de la que él consideraba métrica vasca correcta. Así le enjuicia Michelena, cuando establece la diferencia entre otros autores, como Lecuona, Leizaola, Goicoechea, que habrían investigado «*nola neurtzen diren*» ('la manera como se miden') de hecho los versos vascos, y Arana Goiri, que habría prescrito «*nola neurtu behar liratekeen orain*» ('la manera como deberían medirse en la actualidad'). Es, pues, en este sentido un preceptista, al igual que Oihenart. Pero, a diferencia de éste, Arana Goiri no censura el modo tradicional, limitándose exclusivamente a señalar nuevos derroteros. Sus innovaciones se reducen a dos capítulos: la creación del verso libre, exento de toda rima, y la fijación de los límites en los que la sinalefa es obligatoria. También en este último punto muestra semejanzas con Oihenart, aunque, como se verá, es más moderado". (Altuna 1979a:91).

[238] "Patxi Altunari erantzunez" (1981d).

[239] Zuzen ote dago? Ez al luke "geroago" behar?

[240] Aurreko oin-oharrean esana, hein batean, berresanez:

"No todos los autores abordan las cuestiones desde la misma perspectiva. Oihenart y Arana Goiri, más que teóricos e investigadores de la esencia de la métrica vasca, son simples preceptistas, que han dictado normas y leyes para componer versos regulares y correctos, de acuerdo con los cánones que ellos consideraban modélicos; Lecuona, Leizaola y Goicoechea han emitido, por el contrario, juicios sobre como [sic] se miden de hecho los versos vascos y, por tanto, sobre el sistema que preside la estructura, sobre su unidad métrica y sus constitutivos esenciales, sobre los factores que determinan y marcan el ritmo". (Altuna 1979a:79).

[241] "Etimologiarekiko zaletasun hau bazter ezinezkoa da, gure ustez, Aranak eskeintziko berrikuntza eta proposamenak aztertzeko orduan. Fonetika eta ortografiaz zituen kezkak, batta bere lanaren bizkarrezur den Astarloazaletasuna ere, iturri honetatik datoz (...)

Zenbaitetan ortografiaren arbitrariotasunaz mintzatzen bada ere, ezin onartuzkoa begitantzen zitzaion Aranari, bere lanetan finkaturiko lege fonetikoak bitzen ez zituen eredu ortografikoa, eredu markagabe bat bezala, hiztunari bere ohitura fonetikoen arauera irakurtzeko askatasuna ematen zuena. Aldez aurretik aztertu eta finkatu diren lege fonetikoek lukete bakarrik izateko eskubidea; horrexegatik bildu behar ditu ortografiak, irakurketa unibokoa izan dadin (...)

(...) azpimarratzen digute Aranak hizkietan [sic] sartzen zuen balio fonetiko tinkoa. Balio aldakorrezko konbentzio markak baino areago, alfabeto fonetiko antzeko baten zeinu bezala aipatzen ditu hizkiak [sic] bere lanetan sarri. Esan daiteke Aranak ez zituela zinez ortografia eta fonetika garbi bereizi. Hau da ortografiari buruzko eztabaidetan zerabilen kemen eta garraren zio nagusia. Bere eredu ortografikoarekin lotzen zituen fonetika eta etimologia alorretan egindako eraiketa guztiaren balio eta frogak. Hizkuntza idazlanerakiko morroitasun oharkabe honek, *sandhia* bera ukatzeraino eramaten du". (Laka 1987a:17).

iritzia, Caro Barojaren aipu batekin indartu eta[242], Arana Goiri darama paperera honen kezkabideen berri emanez.

Arana Goiri, kexu ageri da euskaldunek beren idazkera berezia ez dutelako (inoiz izan badute galtzen utzi dutelako[243]), iberikoari arrotz balteritza[244]. Badirudi Arana Goirik asmo duela euskarak berarizko idazmoldea izan dezan[245], honetan ere, erdaretatik urruntzea dela tarteko, seguruenik.

Xedea lortzearren zein urrats zehatz eman dituen Arana Goirik aipatzen ez ditu Mitxelenak, ezta zer irizten dien horiei ere (nahiz eta, bistakoa denez, Azkueren garaiko erabakiaren kontra 1968ko batasun-ereduan zenbait baztertu zirela ahantz ez daitekeen: "konkordunak" eta zenbait *z* destokitu, edo *h*-a sartzea, besteak beste), hau da, ez du Arana Goiriren –ez honi zuzenean lotzen dion–, ortografi sistema berariaz epaitzen.

Alabaina, badu Mitxelenak erdal plegu batean, Arana Goiri ortografi auzietan guztiz eta beti oker ibili ez dela pentsatzeko bidea ematen duen aipamena.

Idazkerak fonologian eta ez fonetikan behar dituela oinarriak eta, Arana Goirik sudurkarien grafietarako adieraziari gogoan izateko deritza Mitxelenak:

> hacia 1900 Arana Goiri propuso, y la gente ha aceptado sin mayor resistencia, una notación de las nasales vascas a lo Alarcos, con el archifonema (si se me permite la palabra) escrito *n*: *denbora* 'tiempo', lo mismo que *handi* 'grande', *antzu* 'estéril', *anbume* 'cabrito', *ongarri* 'abono'. Había, sin duda, razones morfonológicas para ello, claras por ejemplo en el último caso, cuyos componentes

---

[242] Se olvidó que, como decía Caro Baroja, *la existencia de un alfabeto es un fenómeno cultural más que lingüístico, de manera que, aunque las inscripciones constituyan uno de los principales elementos para aclarar el problema, no hay que pensar nunca que un alfabeto determinado ha de ir orgánicamente unido con una lengua*". (1978g, *LH*:389).

[243] Ildo honetan, aipagarria da L. Eleizalderen iritzi Aranaren ez bezalakoa:

"En general, deberemos adoptar un sistema gráfico sencillo, fácilmente realizable por las cajas de todas las imprentas y por los teclados de las máquinas corrientes de escribir, un sistema que, sin sacrificar las peculiaridades esenciales del idioma, éntre, en cuanto a la mayoría de los signos empleados, en el acervo común de las grafías occidentales, entre las cuales hemos de vivir. Desde este punto de vista, celebro infinito que nuestro alfabeto peculiar haya desaparecido, porque hoy representaría una dificultad más, y no de pequeña categoría, a la difusión y culturización del Euzkera que todos anhelamos. No tengamos la pretensión de representar gráficamente todos los sonidos que viven en nuestra lengua, que eso sería confundir lastimosamente la escritura con la fonografía. Atengámonos en estas cuestiones a una prudente «vía media», teniendo en cuenta que ninguna lengua se escribe como se habla, ni puede escribirse además. Esos principios generales de «cada signo un sonido» y «cada sonido un signo» son, en teoría, muy acertados; pero en la práctica resultan inaplicables en muchos casos. No los debemos tomar, de consiguiente, en su absoluta rigidez, sino, al contrario, atribuirles cierta elasticidad que permita armonizar las exigencias de cada etimología con las de la fonética, y todas ellas con la claridad". (Eleizalde 1919:435).

[244] Así, ARANA GOIRI, *Obras completas*, Buenos Aires, 1965, pág. 820, se lamenta de que los vascos no tuvieran escritura propia o de que la perdieran, si alguna vez la tuvieron, ya que no aceptaba como propia la ibérica. Los navarros, en cambio, con cierto derecho puesto que este sistema se había empleado en territorio de los vascones, al menos en monedas, pusieron en signos ibéricos un texto vasco que sigue en pie en el monumento a los fueros en Pamplona, en el paseo de los Fueros o de Sarasate". (1978g, *LH*:389).

[245] Islandiar ezezagunaz oroi daiteke.

reaparecen en *on* 'bueno', *ondu* 'abonado' y *edergarri* 'adorno, ilustración', *izugarri* 'terrible', etc. (1971c, *LH*:65).

Beste alde batetik, Arana Goiri *denbora*, etc. idazten hasi zenean Pragakoen altzindari genatu zitzaigun, "arkilonema" delakoa aurkitu baitzuen *avant le mot*. (1972a:102).

Bestetik, berriz, Arana Goirik, Astarloaren eraginez[246], hitz-zatitze amaigabeari ekin dio, morfema-hizkiei ez ezik, letrei ere ñabardura semantikoa bilatuz[247]. Hau dela eta, Astarloaren irakatsi zuzenen (euskal adizkien partiketa, deklinabide mugagabearen berezitasunak) eta ez hain zuzenen, jarraile ere bada Arana Goiri euskalaria[248]:

Kontrako aldetik, berriz, berak [Astarloak] sartu zuen, ez sortu, testuak (hitzak, hobeki esan) azken muturreraino xehatzeko usarioa eta partiketa modu hori, Arana Goirik ontzat hartu zuelako noski, bizirik zegoen 1936an, nahiz zokoratuxea, Altubek esaten digunez. (1983a:66)[249].

---

[246]Ez da, haatik, Astarloaren eragina puntu honetan jaso duen bakarra, Tovar-ek (1966:64hh) dioenaren arabera, Azkuek berak ere, gaztaroko *Euskal Izkindean* bederen, itsatsiak baitaramatza durangarraren irtzi-aburuak:

"Pero inspirada por las ideas de Astarloa está la que leemos en Azkue de que «el que haya palabras onomatopéyicas hermosea la lengua» (p.23). Y a continuación se complace en extender la ya amplia zona de las onomatopeyas vascas haciendo una lista de palabras infantiles «para que se conozcan y se vea la hermosura del eúskera» (p. 25). Y peor aún era que el joven Azkue se dejara llevar de la idea de Astarloa sobre el soñado significado primitivo de los sonidos: «*a* es extensión, fortaleza; *r* movimiento; *i* quiere decir sutileza. *A, r, i*, es, pues, movimiento sútil de extensión...» etcétera, etcétera. Y así, siguiendo Azkue a Astarloa, explica palabras como *arin*, «ligero»; *aragi*, «carne»... y hasta el latín *anima*, «alma» en euskera (p.55)".

Bidenabar, ez ote, honetan ere, Platoren *Cratilo*ko azalpenen oihartzunik?

Puntu hau neurtzean, guztiarekin ere, Tovar-ek (1966:65) dioen beste zerbaitek gogoan hartzekoa dirudi, kitagarri ez bada ere, aringarri izan baitaiteke:

"Hay que tener en cuenta que el estudio científico de la fonética estaba casi iniciándose por aquellos tiempos [Azkueren garaian] en Alemania y apenas si estaba llegando a París y a Londres la nueva ciencia".

[247]Leku bakarra ez den arren, plazara den azkena delako dakargu hona *FLV* 56. alean (1990) Mitxelena zendu ondoren argitara emaniko "De re lingüística (I)" laneko oharretan esana:

"Me refiero a la creencia generalizada en que las formas lingüísticas nos dicen algo más que su contenido, en que palabras y frases (y para Astarloa hasta los sonidos sueltos) nos comunican por añadidura saberes que van más allá de lo que significan aquí y ahora, en el momento en que se pronuncian. Lo primero que en este contexto se nos viene a las mentes es la etimología y su práctica curanderil o médica, al menos supuestamente médica". (1990:134).

[248]Lakak bere lanetan azpimarratu eta erakutsi bezala. Halaber, Pagolak (1988).

[249]Astarloak euskalaritzari ekarria oso gogor hartzen du Urkixok (Urquijo 1918:22,23) besteren zordun aipatuagatik. Luze joko badu ere, interesgarri deritzogu aipamena osorik ekartzeari:

"A este propósito, y aun a trueque de escandalizar a más de uno, he de expresar mi sincero sentir de que la influencia de Astarloa, que aún pesa sobre los vascófilos del país, lejos de ser beneficiosa, ha sido otra de las causas del estancamiento de nuestros estudios.

Entiéndase que no trato de negar talento al autor de los *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, ni mucho menos de poner en duda su buena fe. En una época en la que se admitía por muchos la gran influencia de la lógica en la formación de las lenguas, nada tiene de particular que el vascófilo durangués se encariñara con esta idea y escribiera los *Discursos* ya citados y la *Apología de la lengua bascongada* (...)

Pero el error más garrafal de Astarloa, el que más estragos ha causado en la vascología indígena, es el de haber aplicado al vascuence el desacreditado sistema etimológico del celtista Davies. En vez de detenerse en la raíz de las palabras, Astarloa pretende que cada una de las letras de todo vocablo vasco, tiene una significación determinada.

Este sistema, basado en un hecho falso, cual es el de suponer que una palabra es la definición adecuada

Arestian aipaturiko Aranaren tinkotasun horixe bera euskalaritzari kaltegarri suertatu zalo, batez ere, oso euskaldunen gogoko (omen) den "logikari"[250] dion miresmenarekin uztartu duelako:

> Tenía además una ciega admiración, muy vasca, por la lógica: en nombre de la consecuencia nunca vacilaba en aceptar una conclusión, por extraña que resultara, si ésta parecía seguirse de los principios que se había fijado[251]. (1960b:144).

> Es claro, por lo tanto, que esperaríamos †*lurr-an* 'en la tierra' (como quería Arana-Goiri en nombre de la «lógica», por otro nombre analogía) y también, si queremos ser consecuentes, †*bide-ran* 'en el camino', en vez de los atestiguados *lurr-ean* y *bide-an*. (1972c, *LI*:303).

Edozein moduz, badirudi logikarekiko morrontzan (ez bakarrik honetan, antza) ikasleak sutsuago agertu direla irakaslea baino[252]:

---

y completa de una idea o de un objeto, se presta a las conclusiones más extraordinarias e inesperadas, sobre todo si quien lo maneja da rienda suelta a su imaginación. Y en efecto, las conclusiones que de él se han sacado, han sido todavía más extraordinarias e inesperadas que lo que *a priori* hubiera podido suponerse".

Eta oin-oharrean argitzen du:

"Varias personas se han extrañado de que me hubiera entretenido en refutar a Astarloa por considerar a este autor pasado de moda. Quien crea esto último, o no conoce a fondo la cuestión, o no está al tanto de la literatura *euskeralógica* contemporánea. En realidad de verdad, tomé al vascófilo durangués de *cabeza de turco* para refutar a autores que gozan, indebidamente, de gran predicamento".

Hainbat puntutan Urkixoren jarraile den Mitxelenak, haatik, Astarloaren makurrak ez ezkutatuagatik, hein batean, bederen, bizkaitarraren ekarria zuritu gogo du, harrapatzen dizkion merituak adieraziz:

"Astarloak badîtu merezimendu gailenak eta, gailenak izateaz gain, beti aintzen ez zaizkionak. Berak erakutsi zigun, izan ere, nola euskal adizkiak parti, deklinabide mugagabearen berezitasuna berak ezagutu zuen Darmgolek baino lehenago eta utz ditzadan horretan gauzak, gaia behar bezain landua ez dagoelako". (1983a:66).

Beñat Oyhartzabalek Olhamarten sortzurrena zela eta EUTGetan (1992/XI/25ean) emaniko hitzaldian, berriz, *Notitia*ko hizkuntzazko atalean aurkitzen duela garbi mugagabearen berezitasunaren isla adierazi zuen, Larramendizko kapituluan jaso dugun bezala (Ikus Oyhartzabal 1993).

[250]Hiztegi-mailan, logikarekiko atxikimenduak, euskal hitzak hartuak "zuzentzera" ere eramango du Arana: "el perfeccionamiento de las formas indígenas, fuente de un grupo de neologismos numéricamente menos importante (...) Consecuentemente, en nombre de la razón, única autoridad en materia de lengua, aberastu se convierte en ABERATSITU, alde en ALDEZ, argitu en ARGIZTU (...) La ortografía etimológica (...) –práctica habitual en el joven Azkue– es una manifestación más de la primacía de la lógica sobre la tradición establecida por el uso (...) La lógica lleva de suyo a la relación biunívoca entre forma y función, si además se cree, como cree AG tomándolo de Astarloa, que el signo lingüístico no es arbitrario, la homonimia y sinonimia sólo se explican por "degeneración" y el instrumento más seguro para repararla es la etimología". (Pagola 1988:XIV).

Bestalde, erka daitezke besto zenbaitetan ere oso bat ez datozen Arana eta Larramendiren logikarekiko joerak. Andoaindarrak, ondorioa garbi eta begiz joa izaki, argumentuak "moldatzeko" erreparonik ez eta abandokoa arrazoibideei irmoki eustearren zeinahi ondorio onartzeko prest.

[251]Berdin (1979e:101).

[252]Azkuez esanak gogora dakezke.

Bestalde ez litzateke zilegi, gure ustez, logikarekiko miresmena euskaldunei soilik bizkarreratzea, erroak, espaldiko Grezian kausi baitaitezke, Alexandriako analogizaleen artean, batipat; hauek izaki, hain zuzen, mendebaldeko gramatikabidearen oina eta funtsa. Tovar-ek (1966) Azkueren *Izkindea* gaztaroko lanaz esan bezala.

Todavía resulta más grave su tendencia, acentuada por algunos de sus discípulos, a innovar en la gramática siempre que la "lógica" parecía exigirlo. (1960b:144).

Hizkuntzazkoak logikaren menpe makurtzea gutxi bailitzan, bere gisako garbinahia ere erantsi behar zaio. Arana dauka Mitxelenak, euskaldunen artean barreiaturiko garbinahi neurrigabearen[253] erantzulerik nagusienetakotzat, ez bakartzat, halaz ere. Garbikuntza horretan, asmaturiko hizperriek hartuko dute lekurik gailenena[254].

---

[253]Urkixok (Urquijo 1918:27) euskalaritzak aurre egin behar zien arazoak aldarrikatzean, "Problemas de orden práctico (...) unificación ortográfica y el de los neologismos" aipatzen ditu. Bigarrenari oin-oharrean erantsiek, garbi adierazten dute, Urkixo ederki asko nabaritua zela garbitze neurrigabeak zekartzakeen arriskuez:

"En esta materia se observan dos tendencias: la de los que siguen a Arana-Goiri (uno de los vascos que más se ha preocupado por el resurgimiento de la lengua), el cual preconiza en sus escritos el abandono de todos los vocablos que el euskera ha tomado del latín o de las lenguas neo-latinas, y la de los que pretendemos que deben respetarse, a falta de vocablos genuinamente vascos, aquellos que se han asimilado a nuestra lengua mediante una evolución fonética o semántica (...) Una consideración que debe tenerse en cuenta, al discutir esta cuestión del léxico, es la siguiente: el señor Azkue no dió cabida en su diccionario a todas aquellas palabras que el vulgo usa y que son claramente castellanas o francesas; pues bien, aun eliminadas todas esas, todavía resulta que de los vocablos incluídos en su monumental obra por el lexicógrafo lequeitiano, un cincuenta por ciento son de origen exótico; si los desecháramos del léxico literario, nos veríamos obligados a *crear* miles de vocablos nuevos, *aun para los objetos e ideas más usuales*, lo que daría lugar a un nuevo dialecto que diferiría de los ocho ya existentes más de lo que difieren éstos entre sí.

Aparte de que esto crearía una barrera lingüística casi infranqueable entre los instruídos y los analfabetos (que en nuestras anteiglesias y caseríos, son los más). Téngase, asimismo, en cuenta lo difícil que sería hacer que el pueblo aceptase las nuevas palabras, en un país como en el nuestro, en el que se lee tan poco, cuando en otras naciones (por ejemplo, en Alemania, donde no hay nadie que no sepa leer) la mayor parte de los neologismos propuestos no logran arraigar".

[254]Lakaren lanetan aditu dugunaren arabera, Arana Goiriren politika-egitasmoak berez bezala dakar, hiztegi-mailako garbitzea ez ezik, historiara begiak irauli eta ildo horren argitan etimologiak azaltzea ere:

"Aranaren beste kezka nagusia Euskal Herriaren historia da; historia *magistra vitae* gisan ulertua (...) Nahikoa hestu [sic] lotunik aritzen [sic] ditu Aranak hizkuntza eta historia. Honek eraman zuen agian etimologiaren alorra jorratzera bereziki euskalaritzan: etimologia, hitzen sorburuak bilatzen dituen aldetik, hizkuntzaren jabe den herriaren historia berreginteko eta ezagutzeko lanabes gisa erabilia (...)

(...) azpimarratu nahi genuke Aranak *hitzari* ematen dion garrantzia. Izan ere, hitzak dira bere kezka nagusia: hitzak idatzi-ahoskatzeko modua, hitzen historia eta sorburua, eta azkenik hitzen jatorrtasuna". (Laka 1987a:15,18).

Honela laburbiltzen du Pagolak (1988:X) Arana Goiriren hizperrigintza:

"La labor neologista de AG se desarrolla en tres direcciones:

a) sustitución de términos "alienígenas";
b) creación de voces que satisfagan las nuevas necesidades; y
c) perfeccionamiento de formas indígenas.

Su característica más sobresaliente es el rechazo sistemático de los términos vascos de origen extraño aunque estuvieran ya avecindados en la lengua desde fechas muy antiguas".

Honezaz gain, gogoan hartzekoa da, Aranak hizperrigintzan baduela berezkotasunik, beste hizperrigileengandik urruntzen duenik:

"Por otra parte, se observa cierto trasvase de neologismos entre ellos: Azkue toma de otros autores, incluído AG, Arriandiaga toma de Azkue, etc. AG en cambio parte de cero. Una de las cosas que sorprenden en él es el absoluto desprecio por los neologismos de otros autores, tanto anteriores como contemporáneos. Fuera de casos aislados como **ADITZ, AGAKA** o **IRATSI**, el empleo de neologismos que no son suyos es involuntario. En nuestra opinión, este aislamiento deriva de la conciencia de poseer un sistema original y propio, sistema que consiste básicamente en remedar el proceder de la lengua en la formación de palabras según lo entiende Astarloa". (Pagola 1988:XV).

Urkixok aspalditxo (Urquijo 1918:28) adierazia zuen bere gisa honetako hizperriezko irtzia:

"En cuanto a los neologismos vascos puestos ya en circulación y que a diario se leen en ciertas

Mitxelenak adierazten dituen garbitze-asmatzeen atzeko arrazoi eragileak[255], honela bil daitezke[256].

-Ezkondu ondoko testu batean aitortzen duenez, Arana Goiriren ustea da euskal bizitzaren gunean ezarri duen euskarak ez diola gai guztietarako balio, motz gelditzen zaiola.

-Euskara lehen hizkuntza ez izaki eta, euskal "sena" falta du, *meza* eta *fuerza represiboak*-en arteko aldeaz, esate baterako, jabetzeko. Biak txartzat joko lituzke, beste gabe[257].

-Euskal literaturaren ezaupide arina. Areago, oso gogoko ere ez du, edo gutxienez jaramon handirik ez dio egiten (Foru garaiko historialdiari irizten dion antzera).

Bigarren arrazoia barkatzekoa iruditzen zaio Mitxelenari, Aranak, euskara, ikasiriko hizkuntza zuelako[258].

Lehenaren ondoriotzat dauka, berriz, hizkuntz garbitzea. Ariketa hau, era daitezkeen hitzetara mugatu beharrean, euskaran aspaldi-aspalditik erroturik daudenetaraino ere iristen da: jatorriz besterengandik hartuak izatea (edo halakotzat jotzea) da uxatzeko arrazoi bakarra, iralgizko arrazoi etimologiko hutsa. Gisa honetan (jaso den hirugarren arrazoiak ere izan

---

publicaciones, conviene advertir que no pocos de ellos están mal formados y no debieran aceptarse.

Se pretende, por ejemplo, desterrar el tradicional *eliza*, que, con ligeras variantes, es usual en todo el territorio *euskeldun*, y se le sustituye por *tradon*, cuyo segundo elemento, *don(e)*, es tan latino como *eliza* puede ser latino o griego. Tenemos testimonios de que, desde hace siglos, el vocablo *barri*, *berri* «nuevo, nueva», significa, asimismo, «noticia» (cf. esp. *nueva*, fr. *nouvelle*, ingl. *news*, etcétera), y se trata, sin embargo, de introducir, en este último sentido, *itzpar*, de *itz*, «palabra», y *barri*, «nuevo, nueva». Aun prescindiendo de que una noticia puede darse con palabras viejas y de que cabe comunicar cosas antiguas y archisabidas con vocablos nuevos, fíjese el lector en que *itzpar*, o mejor dicho, *itz-barri*, significa, en realidad, «palabra nueva», es decir, «neologismo»".

Bidenabar esan daiteke, Mitxelenak 1959an euskal hitzat hartu beharraz agertutikoak entzun uste ditugula, adibide-mota eta guzti.

[255]Honako egitamu orotarikoan kokatu beharrekoa, Lakaren ustez:

"Honela bada, XIX. mendearen azken urteetatik aurrerako bizkaiera idatzia Astarloaren lanen uzta beranta genuke: hiztegi aldetik, Aranak burutzen du, neologismogintzaren bidetik, haren soinuen berezko esangurari buruzko ideia; morfologia aldetik, eta are joskerarenetik ere, Azkuek jasoko luke durangarraren ikuspuntua eta perifrasmoldea, horren arauera aditz laguntzailea itxuraberrituz. Astarloaren lana da, beraz, XIX. mendearen amaieran gorputzen duena aurkakotzat aurkeztu izan diren euskalari bi hauek zubi dituelarik: hiztegiari dagokionez Arana, aditzari, aldiz, Azkue; biak, halere, egitamu berarekin: ahalik eta hizkuntza garbien, osoen eta akatsik gabekoena erdiestea". (Laka 1986:713).

[256](Ibarzabal 1977:27).

[257]Pagolak ere (1988:XI,II,III) alderdi hauxe azpimarratzen du Azkue eta Arana Goiriren arteko liskarretan:

"Azkue participa de la obsesión de AG por rehuir los préstamos, lo que le reprocha al creador del nacionalismo vasco es su imperfecto conocimiento del idioma, es decir, básicamente, el quebrantar las leyes fonéticas de la composición y derivación contrayendo en exceso los vocablos (...) y la creación innecesaria de los mismos por existir en la lengua términos equivalentes por muy remotos y arcaicos que éstos sean (...) Azkue sólo recurre a la formación de voces nuevas una vez ha agotado esta última vía; en cambio a AG la sustitución de préstamos le conduce casi siempre al neologismo, sin duda porque su conocimiento del léxico vasco es notablemente inferior al de Azkue, pero sobre todo porque, contra la tradición (Oihenart, Larramendi, etc.) que Azkue no interrumpe, para él no existe –si no es a un cierto nivel de abstracción– el léxico vasco patrimonio de todo el euskera. El euskera no es uno, sino varios y cada dialecto ha de habérselas con sus propios recursos".

[258]Gogora daitezke, gai hau zela eta, Larramendi eta Otabide alderatzean adieraziak.

dezake ikuskizuna) literatur hariarekiko etena sortu da.

Hona, Arana aipatu gabeko pasarte honetan, "mende hasierako etena" zertan den adierazteko argudioa, argibide:

> Orduan euskaraz[259] erabiltzen ziren[260] hitzak, ez gauza eta gogoeta berriak izendatzekoak bakarrik, *telefonoa* edo beste horrelako zerbait esatekoak, baita betidanik Euskalerri guztian mundu guztiak erabiltzen zituen hitzak ere, guztiok dakigunez, baztertu egin nahi izan ziren, eta horien ordez beste garbi batzuek erabili. Orduko irizpidea euskal hitzak eta erdal hitzak bereizteko garbitasuna izan zen[261], diogun bezala[262], hitzaren jatorriari eta iturburuari begiratu behar zaiola. Nondik dator hitz hau? latinetik, edo gaztelaniatik, edo frantsesetik, edo nik dakit nondik! Bada ez da euskal hitza. Beraz euskal hitza da bakarrik –beraiek[263] beste era batera esango zuketen[264]– ez latinetik, ez gaztelaniatik, ez guk ezagutzen dugun beste hizkuntzatik ez datorrena. (1959a:126).

Asmo honen atzetik abiatu da Arana eta abiatuko dira ondotik etorriko direnak ere, Mitxelenak Aranari egozten dizkion hiztegia "garbitze" eta "euskalduntzearen" adibideak oso bakanka baizik eskaintzen ez dituen arren, gero ikusiko den bezala.

Esan berriarekin oso bat ez datorkeen aipu bat ere paperera behar da, halaz eta guztiz ere:

> Azkena izan daiteke Arana Goiriki eta gero, euskal kondai[ra]ren legeak hobeki zekizkiela. Olabidek eta hartu zuten bidea, izen propioetan batez ere. Olabideren *ebaingeri*-ak, adibidez, dakarren egitea duela 1700-2000 urteko mailebuak euskararen barruan har zezakeen antza da: lat. *euangelium ebaingeri* bihur zitekeen eta badirudi la *ebaingeri* bihurtu behar zuela. (1983f:190).

Ez dugu oso ongi aditzen, erdal kutsurik zuen edozeren ordez "jatorrak" eta "garbiak" asmatu eta paratzen dabiltzan berberek nolatan har dezaketen mailegatzeko era zehatzen bat. Are harrigarriago, euskararen *kondairari*[265] lotzen zaiona dela ikusirik.

---

[259] Jat. *euskeraz*.

[260] Jat. *ziran*.

[261] Jat. *zan*.

[262] Jat. *bezela*.

[263] Jat. *berak*.

[264] Jat. *zutekean*.

[265] Egoki al litzateke *kondairaz* hitzegitea 1700-2000 urteko mailaguaz ari garenean?
"Otra distinción esencial, y más radical todavía que la anterior, debe establecerse entre historia y prehistoria de las lenguas. Todo lo que podemos saber, que no es poco, de la prehistoria de éstas cuando mediante las técnicas de la reconstrucción nos adentramos en su pasado no documentado más allá de los primeros testimonios accesibles, debe ser separado de una manera tajante de lo histórico, y de hecho es

Erantzunik ez dugu.

Neurrigabeko garbinahi honek, Mitxelenarentzat, euskarari kaltea dakarkio, literatur hariarekin eta herri-hizkuntzarekin eten bortitza baitu ondorio.

Garbi dago, beraz, Mitxelenak ezin begi onez ikus dezakeela halakorik.

Alabaina, Mitxelena hizkuntz joeraz oro har ez baina, Aranaren hizperrigintzaz berariaz ari denean papereratzen dituen adibide urriezko iruzkinek, ez bide dute bizkaitarraren iharduna bezten ez beheititzen. Hona gure uste honen indargarria.

Ez ditu errenteriarrak maizegi pleguetara aldatzen Aranaren sorkari zehatzak, baina ematen dituen apurretan, ez dirudi Mitxelenak Aranagandikako sorkariei gaitzegi irizten dienik:

> <... De *irakurri* leer, extrajo Arana-Goiri, como si fuera primitivo suyo, *ikurri*, dándole el alcance semántico de significar>[266] /De ahí salieron, ante todo dos neologismos que han tenido amplia difusión: *ikurrin*, 'bandera' e *ikur* 'insignia'. Lo que sucedió es que, como con tantos otros neologismos, esas palabras han pasado a significar una determinada bandera y una determinada insignia[267]. A un guipuzcoano que escribe en diciembre de 1970[268] se le encontrarán, espero, atenuantes si se reduce a una vaga alusión y no entra en detalles. (1970b, *PT*:263).

Areago, Aranaren zenbait hizperri erabiltzearen aldeko agertzen da Mitxelena. Hala nola, Euskal Herriko gizataldearen deizio-eza betetzeko *euskotar* hitzari egoki deritza:

> Naturalmente también, es sabido que antes se propuso y hasta se aceptó por muchos una solución, *X* = *euskotar*, que ahora se rechaza o se evita, sin que acabe de comprender muy bien por qué. Claro está que se trata de un neologismo, pero no todo neologismo, y más cuando se trata de un joven de unos ochenta años de edad, es *eo ipso* condenable, sobre todo si posee, como éste, la excelsa virtud de llenar un vacío más que molesto[269]. Añadiré, para ir formando un *dossier* que todavía está muy incompleto, que ese término fue proscrito del uso público en 1936-37, a consecuencia del Glorioso, por razones que, supongo, no deben ser las mismas que las que ahora se le oponen. Vaya esto por delante a título de primer intento de llegar a una situación en que se puedan discutir los tabús y las interdicciones que tanto abundan entre nosotros sin trabas auto- o heterocensoriales. (1977b:67).
>
> Ya indiqué, en *La lengua vasca* 1977, p.67, que yo personalmente votaría por *euskotar*, término por lo menos respetable, ya que fue proscrito por el franquismo. Pero parece que, por razones que

---

costumbre hacerlo así separado por medio de un asterisco las formas meramente reconstruidas de aquellas de las cuales poseemos constancia documental". (1964a, *SHLV*:23).

Ala Mitxelenaren erabileran *kondaira* ez da 'historiaren' esanahikide erabatekoa, 'atze' zehaztugabearen esanahitik gertuago legokeena baizik?

[266]Azkuek *Morfología vasca*, Bilbao 1923, 181 or.an esana.

[267]Halaz ere, berak, "Poloniako ikurrina" darabil (1972b:28). Ikus gure hiztegia.

[268]Franco bizirik zegoela ezin baztertzekoa dela uste dugu azken hau ulertu ahal izateko.

[269]Beheraxeago jasoko den bezala, Larramendiren hizperriez antzeko argudioa darabil Mitxelenak.

acaso algún día llegarán a aclararse, la censura inmanente actual coincide en este punto, que no es único, con la no tan antigua censura transcendente[270].

Naturalmente, no trato de ocultar que se trata de una creación de Sabino Arana, como también lo es el casi universalmente aceptado *Euskadi*: no hace falta advertir, además que en todos estos nombres sustituyo zz, que en algunos casos aparecen más bien tarde, por ss. Un neologismo (de 1897?) que cuenta unos ochenta años es, en todo caso, de edad venerable entre nosotros. Añadiré, para evitar confusiones, que, por más que la calle Bidebarrieta existiera ya varios siglos antes que *euskotar*, éste es anterior a Juventud Vasca de Bilbao y precede en unos veinte años a *Aberri*. (1984c, *SHLV*:551).

Baita, zur bereko ezpala den *eusko-* elkarketan erabiltzekoa ere. Bigarren honezaz baliatzeko arrazoi sendoagoak ikusten ditu gainera, arestiko *euskotar* aldeztetzeko baino, *euskal-* elkarketaren osagaiarekiko aldeak gorde nahi izatea dela medio. Eta nahiz, delako *eusko*-ren jatorri eta osamoduan Arana arras zuzen ibili ez zen eta gerora zorigaiztokoa izan den, Mitxelenak, kontrako ahotsen gainetik[271], sorkariari onartzeko eta usatzeko deritza:

La base lingüística de sus consideraciones sobre «Obtención de *euzko*», etc., son sin duda muy endebles, pero hay otras con fundamentos no más sólidos que han subsistido, en lo tocante a la lengua (remito simplemente a *Euskadi*) y en otros campos. Su artificialidad se reduce en todo caso a -*o*, la última vocal, y se me asegura que 'radicales' no siempre bien autorizados abundan por ejemplo en húngaro, a partir del siglo XVIII (...)

Venga de donde venga *eusko* y tenga la base histórica que tenga, su empleo, mientras le falten sustitutos, tiene en mi opinión un valor profiláctico, ya que nos hallamos frente a una cuestión de lengua. Acordémonos de los escritores vascos, de la prensa vasca, de la bibliografía vasca, de la universidad vasca, últimamente de la televisión vasca, etc. Introdúzcase *euskal*, tomándolo primero en el valor que tiene de 'vasco' en el uso actual del castellano: inmediatamente nos encontraremos con que se trata de imponerlo en su valor fuerte, lingüístico. Y del lío, y esta es la versión de un conocido aforismo latino, no saldrán más que líos (...)

De manera que, insisto, si *eusko* no estuviera disponible, habría que inventarlo.

No obstante, está disponible, porque todavía no han acabado con él ni Franco ni los reivindicadores post-franquistas[272]. (1984c, *SHLV*:551).

---

[270] Hjelmslev-en oihartzuna belarrietara dakar.

[271] Mitxelenak, mintzaldi baten ostean gazte batekin izan zuen ez abaida darama paperera. Gaztea nonbait, alderdi jakin baten itzala ikusten eta *eusko* erabiltzearen kontra mintzatu zan. Errentenarrak, bestoak beste, honako adigarriak eman zizkion bere usteeren ustela agerian utzi asmoz: *Eusko Abertzale Ekintza*, *Eusko Indarra*, *Eusko Ikaskuntza*, *Eusko Jaurlaritza* -1936an Itaunez osatutako gobernuaren izena (eta egungoarena, eranzsiko genuke)-, *Eusko-Folklore* eta, egun hartan oharkabean aipatu ez zuen *Eusko gudariak* kanta. Mitxelenaren ustez, seguruenik, gazte konformagaitzak berak hamaikatan kantatua.

Hauek ikusita, kezkati ageri da Mitxelena:

"No sé muy bien lo que está pasando con una parte de nuestras jóvenes generaciones. Están acaso tan preocupados por la necesidad de no olvidar nombre tras nombre de los que llevan en su memoria que se han olvidado de la historia de su País, por no hablar de la de fuera. Ya no se trata de lo que pasaba en 1900, 1920, 1931, 1936...; no recordamos lo que se hacía en 1960 ó 1970". (1984c, *SHLV*:552).

[272] Mitxelenaren *euskotar* eta *euskoren* aldeko hitzok oihartzun handiegierik izan ote duten susmoa egin daiteke. Adierazgarria da, lido honetan, *Euskaldunon Egunkariak* bere *Estilo liburuan* ematen dituen aholku-arauak. Honela, 23. idaztarauak honela dio:

"Nola itzuliko genuke 'vascos/basques'?

-'euskal herritarrak' --> Euskal Herriko biztanleak.

-'euskaldunak' --> euskaraz mintzo direnak.

Eta sorta beraren azken erakusgarria, jaso berri den pasartean iragaitzaz aipaturiko *Euskadi*ri dagokiona da, patuaren bitxiaz, aurreko beste biak ez bezalako onartzea eta finkatzea erdietsi duena:

> Me limitaré a decir unas palabras, porque más sería demasiado, a propósito de *Euskadi*, que es neológico, que procede de un *euzko-/eusko-* inexistente, que atenta contra la gramática, etc., etc., pero que está hoy aceptado, dentro y fuera de Vasconia (...) Pues bien, *Euskadi* es un nombre que, para mí y sin duda para muchos otros, no suena nada mal.
>
> Se ha escrito que es «un neologismo mal formado» o algo por el estilo, y no estoy enteramente de acuerdo con este parecer. Ahora me inclinaría por aceptar el punto de vista expresado por Justo Gárate, y diría en mis propias palabras que es «un no tan neologismo bien o mal *reformado*», porque aquí la creación tiene modelos bien claros, en la misma obra del reformador anterior a la reforma. (1984c, SHLV:553).

Begien bistan gelditzen da Mitxelenak ez dituela Aranagandikako erakusgarri urriok gaitzespenez inguratzen, osamoduak osamodu, garrantzizko hutsuneak betetzeko aukerako gertatu baitira.

Urrutirago ere badoa Mitxelena Aranaren hizperrigintzazko orotariko juzkua egiten duenean:

> Por eso siento cierto recelo de expresar mi opinión de que no es injusto atribuirle un estimable buen gusto, en materia de oído y en relación con buena parte del material que fabricó. Recuerdo, por escoger un botón, nombres de mujer como *Edurne* o *Igone*, etc., aunque sea obligado reconocer que en los de varón, por la *-a* impuesta en muchos casos por el conocido prejuicio de Astarloa, no fue tan afortunado. (1984c, *SHLV*:553).

Begietan ematen du Mitxelena hiztegigintza-lexikologietan adituak Arana hizperrigilea epaitzean darabilen argudio-motak. Izan ere, badirudi, ikertzaileari iritzia ematean euskal hitz-sorbideek arautzen duten hitzaren osamoduaren aldean, nagusitzen zaiola gustoaren edo estetikaren alderdi neurgaitza. Eta, baldin, euskal belarriei atsegin zaizkien sorkariok Aranak makur samar oratu baditu, Mitxelenak abandotarra zuritzen du, Astarloa erruaren iturburu deituz.

Jasoak ematen al du bide, Mitxelenak Arana Goiriren ihardunean honako bereizkuntza egiten duela ondorioztatzeko?

Arana Goiri ez dabil zuzen hizkuntz ideietan ez joera garbizale muturrekoan, erdaratikako euskal hitz-altxorrekoen ordez berriak sarrarazi nahi izan dituenean.

Baina hizperrigintzan beste helburu baten kariaz aritu denean, hagitz garrantzizko

---

Hizkuntzaren tradizioan, eta herri-oroimenean, 'euskalduna' euskaraz mintzo dena da". (18. or.)

Eta liburuaren amaiko hiztegiño arau-emailean, berriz, honelako gaztigua ematen zaie balizko usatzaileei: "**eusko**, Eusko. Hitz hau bakarrik izen berezietan onartzen da".

"**euskotar**. e. euskal herritar. v. 23. araua". (270. or.).

ema'tzak jendartera ditu.

Euskarak betetzeko zituen hutsune larriak estali ditu. Betetzeko premiak zuritzen —arintzen gutxienez— du sorkarion osamoduari leriokeen narras-antzaren errua.

Hain garrantzizko estalki horiek, euskaldunen aho batezko onespena irabazi dute.

Honenbestez, Arana Goiriren hizkuntzarekiko jaidura, ez daiteke esan Mitxelenarentzat bete-betean kaltegarria denik, Ibarzabali erantzuna eta aurreragoko Mitxelenaren hitzok adierazten duten bezala:

> De su influencia, acentuada por algunos seguidores, se produjeron luchas que a menudo nos parecen inútiles, pero no se puede negar que de ello se sigue un aumento considerable de los límites de uso de la lengua. (Ibarzabal 1977:105).

Beraz, kontrako egoeretatik ere zerikasia badago. Zerbait baztertzekotzat jotzeko, aldez aurretikako azterketa eta iritziak sendotzea, ezinbesteko baldintzak dira.

Auzi hauek guztiak, beste zerbaiten argitan aditu behar bide dira. Esana doan bezala, Arana Goiri ez da hizkuntzalari eta ez du literatur eskolarik edo antzekorik sortzeko helbururik, politika-xedea du eragile, baina helburu horren mesedetan hizkuntzari eman dion kokagunea emanez, Mitxelenaren iritziz, bete-betean asmatu du. Honek bilakatzen ditu Mitxelenaren begietan, apika, barkatzeko, bestela irenskaitzak liratekeenak.

Zein dira Mitxelenak Aranagan, ez ordea jarraileengan, nabarmentzen dituenak?

Ideologiazko ur sakonetan sartzeke —"sabindar" hitza zabalegia eta aldi berean murritzegia iruditzen baitzaio[273]— baina Mitxelenak bere burua abertzale aitortu duela ahanzteke, honela laburbiltzen ditu Aranak euskarazkoei ekarriak[274]:

-Sekula baino euskal irakurle ugariago sorrarazi du.
-Ortografi auzian eredu finko bat proposatu du[275].
-Euskarari bultzada itzela eman dio.
-Euskara euskal bizitzaren gunean kokatzean, premia berriei erantzun behar asmoz, erabakiak hartzera behartu du[276].

---

[273]¿Qué quiere decir sabiniano? ...Todo individuo que se proclame nacionalista vasco, en principio es sabiniano, pero me parece que sería hablar en un sentido demasiado genérico. De la misma manera, si para ser sabiniano es preciso reconocer que: ..."Sólo por Dios ha resonado"... el patrón no nos sirve, ya que de lo que estamos ahora hablando es de un patrón político". (Ibarzabal 1977:25).

[274]Ibarzabal (1977:26hh). Mitxelenaren erantzunaren hurrenkerari eutsi diogu. Garrantziaren araberakoa denik esan nahi ez dugu, ordea.

[275]Beste kontua da eredu horren zuzentasuna.

[276]Orbek ere, abandotarraren hizkuntz jokabidean beztekorik aski harrapatu arren, merezimendu osoz aitortzen diona, ikusi den bezala.

Guztiok berez dakarte politika-auzietan ez ezik, euskarazkoetan ere, Sabino Arana Goirik ezin urratuzko mugarria ezarria izana, hain atzenezina non Sabinoren aurreko eta osteko epeez hitzegin daitekeen[277].

Eta, hain zuzen ere, ostekoak hartuko dira orain mintzagai.

3.3.4. Sabino eta sabindarrak

Zatiatal honetan mintzagai hartuko da, Mitxelenak sarritan ahotan harturiko nori berea ematea, nori dagokiona zehaztea, euskal ikerketak ezinbesteko betekizuna duena, alegia.

Beti ere beharrezko den ariketa hau, Arana Goirirenean eginkizunago legokeela eta, soilketan[278] lagun ditzaketen aipamenak jo dira begiz, Mitxelenak hitzez eta egitatez nola betetzen duen ikertzaile ororen betebeharra agerian gera dadin.

Abandotarrari egozten zaizkionen artean, berezi beharko lirateke egiaz honenak direnak eta, gerora, segiziokoek[279] maisuaren izenean, aitortuz nahiz izenik aipatu gabe,

---

[277]Honela ikusten zuen Orixek ere (1927) euskal literaturaren alzean hiru mugarriak, Axular ("Lapurdi-mendea"), Larramendi ("Gipuzkoa-mendea") eta "Bizkai-mendearen" ordezkari, Azkue eta Arana Goiri paratu zituenean:

"¿Zein utzi dugu irugafen? Guzonik ipini nai ezpaduzu, ipini ezazu Bizkaia, euskaldun literatura paĩalari onek erauntsi baño gaufko kemena. Bidasoaz emendi. Gipuzkoa'n etzegoen literatura Bizkaia'n bezain ila, baino Bizkai'ko bizte edo bifbizteak ango bizitze-txingiari bulafez aizegin dio. Mintza gaitezen bizkof: oezagun bekoki Azkue'ren lztegi aundia [izenondo berbera darabil Mitxelenak, ikusi den bezala] softu ezpaitza, oraingo euskera-bizte onek ba zuken zulorik aski. Ala ere, liburu edef bat zfteken ori, balnba liburutegian aipef egon beafa, efi-esnatze edo politica-dafdara [sic] gefta ezpaitza. Geroz irugafen biribilkia Arana-Goiri'rena bedi, bera euskal-idazle edo beintzat idaztari ez izanik ere".

Eta aurreraxeago, Arana Goiriz, bereziki:

"Nolzbait ari izan afen, ez da euskal-idaztari izan; utzi ziguntxoa, ofegatik, ez da gaitzeko. Jesukfistoren Nekaustea Mateo Deunaren araura, Lenengo egutegi Bizkafafa, ta poesi batzuk daduzkagu burutan. Ez politicaz [sic] bakafaz, bai bere idaztankeraz ere ildoa ufatu digu. Euskera gafbizea ez ezen, euskeraz burutapen sendoak egeftzea izan zuen xede ta asmo, ta garai aftarako inofk afdietsi zezakena afdietsi zizun. Aren ikasleetaz gero mintzatuko naiz, zeftan atzeman, zeftan utsegin duten. Andik onata euskera aufera doa arek eman ziztua geitzen dularik. Ez dakigu ilen ote den, agian ez, baino biziko ba da, geroak esanen du Arana'ren bultzaraz noraino diteken gure mintzoa ta literatura". (Orixe 1927:150,151).

[278]Eginkizun honetan Ines Pagolaren (1988) eta Itziar Lakaren (1986, 1987) lanak aipatu beharrekoak dira, noski.

[279]Segiziokook "Maisuaren" lanak, are, oin-liburutzat harturiko *Lecciones*, zenbatetaraino jorratu eta barrendu zituzten ere ikustekoa litzateke, antza:

"Tengo, sin embargo, algunas dudas sobre la fortuna de este esfuerzo tan meritorio, y sospecho que el volumen [Arana Goiriren *Obras completas*] ha podido ser más comprado que leído. Y lo sospecho porque, sobre todo en cuestiones de lengua, tropiezo a menudo con sedicentes sabinianos que atribuyen al Maestro opiniones que yo no acabo de documentar en sus obras, cuando no encuentro en ellas algo diametralmente opuesto". (1979e:100).

"Aranaren jarraitzailerik garrantzitsuenetako batek, Luis de Elizaldek, egerian jarri zuen hitzon bitartez liburu honek [*Leccionesek*] eskola honetan zuen esan nahia: «Ahí tenemos, por ejemplo, encerrada en muy pequeño volumen, una de las más grandes obras que ha producido la Euskeralogía moderna, las *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*; libro que bajo su modesto título, es todo un esfuerzo colosal de inteligencia y de energía; pues, muy posible será que puedan contarse con los dedos de las manos los vascos que se hayan tomado el trabajo de leer ese libro y de meditarlo como se merece. A ciencia cierta, son muchísimos, son legión, los vascos

hala liratekeelakoan ezarriak. Batez ere, aldiak igaro ahala oinarri sendoak ez dituzten usteiritziak, gero eta hedatuago bilaka daitezen arriskua baitago[280].

Testuinguru honetan kokatu behar dela dirudi, 1972ko "Azken ordukoak" Mitxelenaren zertzelada-adabaki bilduma eta, gaiazko errenteriarraren iritzien isla den neurrian, puntu hau jorratzeko aukerako dena.

Kintanak "Aditzaren batasunaz gauzak argiro (III)"[281] artikuluan esanek, hizpidea ematen diote Mitxelenari, hemen aipatzen ari den auziari –beste gaiak beste[282]– dihoazkion irizpideak azalera eramateko. Izan ere, Kintanari lan horretan jaulkiak, nolabait esan, usadio orotariko baten erakusgarri dira, "ezken mende mugako arazoezko *ezjakina*", Mitxelenaren hitzez.

Mitxelena bat dator Kintanarekin Arana Goirik hizkuntzan izan zuen eraginaren luzelaburrean. Alabaina, Kintanak ez duela garai hartako idazlanen ezaupide sakonik eta, honenbestez, paperera irauliriko iritziek oinarri gotorrik ere ezin izango dutela frogatzen ariko da Mitxelena, hau da, "hobeto dakizkienen" kontu ematen:

> Damurik, «sasoi hartako jelkideek» nola idazten zuten ongi ez badakit ere, Kintanak baino hobeto

---

que ni siquiera hayan oído hablar de tal obra, ¡y se dicen patriotas, y se creen ilustrados! A bien que se sentirían molestados si se les supusiera ignorantes de que ha existido un Cervantes y que ese tal ha compuesto un Quijote, y valen más las *Lecciones de Ortografía* que diez mil *Quijotes*». (ELEIZALDE, «Nuevos apuntes acerca de las conjugaciones simples» in *Euzkadi* 1906, III, 7. zenb.). Izan ere, Aranatarren eskolako buruen lanak aztertzean garbi ageri da Eleizaldek liburu honen ezagutza sakonaz dioena, eta oro har Arana Goiriren euskal lanei buruzkoa egia dela: ezagutua baino areago, aipatua den izena baita Arana Goirirena, jokabide honetan bere jarraitzailerik sutsuenak ere bame gelditzen direlarik maiz". (Laka 1987a:28).

[280] "Quería [Sabinok] que nos dejaran solos, pero nunca se le ocurrió que debíamos mandar sobre nuestros inferiores. Buena señal de esta xenofobia es su obstinado empleo del término ***maqueto***, palabra que nada tiene de vasco (y nada tiene que ver, sea dicho de paso, con francés ***métèque***). Sigue muy viva en la Montaña para designar a la gente de Ultrapuertos (vamos, a los que allí llaman castellanos), aunque los santanderinos llevan 75 años callados como muertos, y de la Montaña entró en la zona de habla romance de Vizcaya. Esto lo sabía Echave-Sustaeta y el mismo Arana-Goiri, esto es lo peor, lo reconoce implícitamente en la polémica". (1979e:102).

"Entrados ya en el capítulo de las ofensas mutuas, no voy a tratar de paliar lo que *maqueto* haya podido tener de despectivo entre nosotros: tampoco *jebo* y similares, sea dicho de paso, eran encomiásticos. No obstante, sí puedo afirmar, en primer lugar, que la frecuencia de uso de aquel término se está acercando por aquí a cero; también puedo asegurar, después que el término nada tiene de vasco, que sepamos, por su origen. Esto lo sabía Echave Sustaeta e incluso el mismo Arana Goiri, gran divulgador del término. Al menos reconoce en 1897 que es voz reciente y de difusión restringida (...) Aunque por aquí y por allá muchos se resisten a enterarse, es notorio que Sabino Arana se quedó muy corto al marcar los límites occidentales de *maketo*, o mejor *maqueto*, lo mismo que *comparsa* (...) Difícilmente podemos dudar de que la palabreja nos vino de poniente, dato que vuelvo a consignar, aunque escriba una vez más sobre arena". (1984c, *SHLV*:543).

Hitz auzi-gai berberaz, berriz ere:

"Okerrena zen, geroxeago ikusi nuenez, ez nuela inolazko kezkabiderik. Erraz ager daiteke zer jakin nahi zuten galdatzaileek, eta zergatik. Mendiz harunzkoa ote nintzen ziren beldur, Burgos-Palencia aldekoa, *maqueto* bat beraz, bertako [Cabezón de la Sal-eko] mintzaerarik jatorrenean esan ohi duten moduan". (1987a:149).

[281] *Anaitasuna* 228, 1972/II/15.

[282] Larramendiri buruzko kapituluan ere aipatu dugu artikulu honetako "besteetakorik".

dakit, halabeharrez eta merezimendurik gabe. (1972a:166).

Zehaztu beharreko lehen gauza, Kintanak darabilen hiztegi desegokia da, *jelkide* baitarabil *jeltzaile* behar lukeenaren ordez. Hitz-aukeran zorrozkiago ibili behar zuen Kintanak jende haiek bere burua izendatzeko zerabilten izenari eutsiz.

Gero, izengoitirik ipini nahi badiogu, edota bestek asmatu badio, diogun argi eta garbi ez dela izena, izengoitia baizik. (1972a:166).

Eta honela eransten du oin-oharrean:

Nik, jakina, aipatu dudan hartan, banuen esku neure buruari nahi nuen izengoitia ezartzeko. (1972a:166).

"Aipatu duen hura", pentsatzekoa da, *Memorias de un* ***jelkide***[283], 1936an beldurrak eraginda surtan bukatu zuen Mitxelenaren gaztaroko *primum opus* dela.

Zehaztasun hau –Mitxelenak esku bazuela nahi zuen izengoitia erabiltzeko, alegia–, ez bide da oharkabean egina, lepora dakiokeen kontraesanari aurre hartzeko asmoz adierazia baizik.

Eta bigarrenik, Kintanaren iritzien mamiari dagozkionak dira Mitxelenak zehazkizun etsiak, Kintanak artikulu honetan esaten baitu Arana Goiriren alderdiak argitaratzen zituen aldizkarietan idazten zuten guztiak saiatzen zirela "bizkaieraren tankeraz" idazten.

Mitxelenak erantzunean zenbait argibide ematen ditu aburu horren ahulezia agerian uzteko.

Honela, batetik, Mitxelenaren hitzek bide ematen dute ondorioztatzeko, alderdi horren zenbait aldizkaritan behintzat, bizkaiera ez den beste euskalkietan idatziriko lanak ere irakur daitezkeela –zuzenean honelakorik ez dioen arren–, galdera erretorikoaz baliatzen baita Kintanari ihardesteko:

Zinetan uste ote du Kintanak *Gipuzkoarra*-n, *Napartarra*-n, geroko *Amayur*-en –delako alderdi horren aldizkariak ziren hauek–, euskaraz ager zitezkeenak bizkaieraz agertu zirela? (1972a:167).

Honen seinale, Eleizalde bergarar "bezain sabindarrak" zuzentzen zuen *Euzkadi* aldizkarian idatzietatik Mitxelenak begiz jotako pasartean irakur daitezkeen adizkiak

---

[283] Betizaska gurea.

bizkaierazkoak ez izatea.

Eta azken argibidea:

> Gerokoetara bagoaz, ba ote daki Kintanak zein euskalkitan dagoen idatzia 1936-1937etan Bilbon, la Bizkairako bakarrik, argitara zen *Diario oficial del País Vasco*? (1972a:167)[284].

Berriz ere erantzun zuzenik gabe uzten duen galdera erretorikoak barruan dakar ihardespena: bizkaiera ez zen izan hautaturiko euskalkia.

Honengatik guztiagatik, ondorio-gaztigu honezaz amaitzen du Mitxelenak puntu honi dagokiona:

> Ixilik egotea hobe izaten da ez dakigunaz, are gehiago ikasi nahi ez dugunaz, mintzatzea baino. (1972a:167).

Aranaren eta jarraileen artekoak zehaztu eta berezi beharra, arestiko artikuluan bezala, hitzez adierazi ez ezik, ekinez ere egin ohi duela Mitxelenak esan daiteke.

Honen lekukotzat har daiteke 1975eko "Gorputz eta soin"[285] artikulua, hemen esanak, zehazteko premiaren beste erakusgarri bat baitira.

Mitxelenaren hitzek hasieratik bertatik ageri dute, *gorputz* eta *soin* gatazka-iturri[286] izan direla, halaber, Mitxelenak bere burua ez bataren ez bestearen alde agertzeko asmorik duela:

> Besterik ematen dusla aditzera badirudi ere izenburuak, ez noa geure burua "butzu ondogabe" horretan murgiltzera, *gorputz*-zale nahiz *soin*-zale nahiz erdibideko agertuaz. (1975b:87).

Mitxelena erraietarik kezkatzen duena da, hitzen arteko aukera baino areago, hitz baten nahiz bestearen alde zein kontra agertuek ez dutela atzera begiratu, ez dela testuetara

---

[284]Hau bera ote da ondokoan aipatua?:

"Orduan ez dadila ben t gerta (eta, egia esan, badakigu ez *dela* gertatu) be.iala *Boletín oficial del País Vasco* edo zelakoarekin (Zugazak argitara emana ez daukat hemen aurrean) gertatu zena. Ez dakigularik nola bai eta nola ez, horren itzulpena gipuzkeraz agertu zela. Ez diot inork gaizki egin zuenik. Gaizki egin zutena besterik zen: Gobernuak ez zuela, nik dakidanez, erabakirik hartu horretarako, atzeko atetik sartu zela ofizialtasuna (*Boletin*-ean, behinik-behin) eta euskara modu horri eman zitzaion bultzada". (1978c:163).

[285](1975b).

[286]Erdal lanetan ere bada honen islarik:

"Pero no voy a alargarme más en esta enumeración de opiniones no coincidentes (ni voy a mentar *soin* ni siquiera por descuido), que habría de ser inacabable". (1974a, *SHLV*:396).

miatzera jo erabakia hartu aurretik. "Gaitz kalteçarritzat" daukan horretan, gainera, zaharrak errudunago dira, duela ez gehiegi esanez eta entzunez ere atzendu direlako:

> Inoren irtzlak eta jokabideak goraipatzen eta arbuiatzen hasi baino lehen, premiazkoa da irtzi-jokabideok zer-nolakoak diren finkatzea. (1975b:87).

Abandoko Arranoa (Arana Goiri, alegia) ezinbestean aipatu behar du Mitxelenak, auzi honetan "kalterik larriena" jasan baitu. Izan ere, euskal gaietan batipat, erabat oratu eta borobildu gabeko lanak utzi zituenez gero, ondotik etorriek ondorioak bere gisara atera dituzte.

Horregatik:

> Mugatu behar litzateke, beraz, zer zor zaion iturburuari eta zer den gerokoek handik ur-jarioari erantsi diotena. (1975b:88).

esan eta, mugagintzari ekingo dio Mitxelenak, Arana Goirik sorturiko *Euzkadi* aldizkariaren 1905-1915 bitarteko aleak aztertuz.

Ez du aukerarik galtzen, esan eta idatzi diren zenbait irizpide –frogak eskainiz baina– bidenabar zuzentzeko, *gorputz-soin* auzi zehatzetik ierratuxe ibiliko bada ere, sabindarren inguruko topikoak urratu eta gaia kokatzeko baliagarriak izan daitezkeelakoan.

Honela, nabari daitekeen lehen puntua da *Euzkadin* ez zela hasieratik irizpide erabateko eta bakarra erabili hizkuntz gaietan, idaztarauetan bereziki.

Esate baterako, 1905 inguruan[287] Kirikiñok *s*-z idazten ditu *euskaldunari, euskerara, euskerea*, baita *Euskadi* ere[288]. Honenbestez, izan zitekeen ikuspegi monolitikoaren baliogabea agerian uzten du Mitxelenak: garai horretan ez zegoen hitz horiek *s*-z idazteko debekurik:

> Gero, egia esan, ez da horrelako liberaltasunik. Irudikorren batek pentsa dezake, gainera, izan zuela horretan zer ikusirik gero eta nabarmenago agertzen den Arriandiaga'tar Imanol jaunak[289].

---

[287] "Asaben ogasunak" (2. aldia, II (1905), 194-203) da Mitxelenak aipatzen duen Kirikiñoren artikulua.

[288] Orixek ere, adierazia zuen Kirikiñoren bide askea:
"*Euzkadi*'n Kirikiño, Aranatafa da «ez egia ez apufa», efdikoa baizen. Eskuaheko burutapenak poliki derabiltza (*Abafak, Egunekua, Euskel-etala*, t. a.). Efiko euskera ez du atzean utzi nai, geldixeago joanen ba da ere, ta ala beaf". (Orixe 1927:249).

[289] Itziar Lakak poliki aztertu du Arriandiaga altaren eragina noraino iritsi zen "hiperbizkaieraren" sorkuntzan eta "hipereuskararanzko" hedapenean, Aranarekiko (eta Azkuerekiko) zintzotasuna eta askatasuna barne. Laka (1987c): "Manuel Arriandiaga: berrazterketarako oinarriak. (Hiperbizkaieraren historiaz. IV)" eta (1987d): "Manuel

(1975b:88).

Irudikor horren lekuan Mitxelena jartzeko eragozpenik ez bide dago, hitz horien jarraian aipatzen dituen Arriandiagaren eta G. Mujikaren arteko auziazko artikuluen ildotik[290]. Zehazkiago esan, Mitxelenak Arriandiagagan aurkitzen du Aranari bizkarrera zaizkion zenbait iritzi eta jokabideren iturburua:

> Garbi dago, honenbestez, gauza bat direla Arriandiagaren iritziak, bere baitzrik ari zenez gero, eta bestea Aranarenak. (1975b:88)[291].

Zehaztatuta gero, artikuluaren hari nagusira itzultzen da Mitxelena.

Hasieran, Mitxelenak bere burua hautestetik at utziko duela esanagatik, zein iritzitara makurtzenago den antzemateko hitzak iraultzen ditu:

> Azken aldi honetan, izan ere, badirudi hekatu mortalean daudela (**gaudela?**) *soin*-ek eta *gorputz*-ek adiera berbera ez dutela esan duten guztiak. Iritzi hori, ordea, ez da oraingo Euskaltzaindian, holakoren edo halakoren kontra sortua eta hazia. Erroak, eta horixe da hemen azaldu nahi nukeena, goraxeago ditu. (1975b:88). (Beltz. gurea).

Arriandiaga. Euskal aditza Bizkai, Gipuzko, Lapurdi ta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa", bereziki.

Aipa zitezkeen puntu interesgarri anitzen artean bakarra ekarriko dugu, dezakeen bitxi-usaina dela medio. 1987d lanean Lakak eransten duen glosategian, Larramendiren hitzak darabiltzate gaztaroko Azkuek (*Euskal Izkindean*) eta Arriandiagak, eta hitz-sortzeari ekiten diotenean ere, aldizka, Larramendiren moldeei jarraikitzen zaizkie. Esate baterako, Arriandiagaren: "*gizakindari*: Naturalista (...) Dirudienez, Arriandiagaren neologismoa Larramendiren erara sortua", (Laka 1987d:808).

[290]Lehen aldiz, III (1906), 143-151, "Carta abierta al Sr. D. Gregorio de Mujica" delako artikuluan aurkitu dut honen [Arrandiagaren] izena. Eta ez dira nolanahikoak Mujikak *RIEV*-en "Euskaldun gazteriari" *euskaraz* argitara zuen lanari *erdaraz* aditzera ematen dizkion hutsak eta desegokikeriak". (1975b:88).

[291]Lakaren (1986, 1987a, 1987c, 1987d) datuetan ikus daitezke hauetako batzuk:

"*Mibisusek* (hau izan zen berak [Arriandiagak] gehien erabilitako ezizena) euskal aditzari buruz plazaratu zituen ertzi eta proposamenik gehienek (...) bere gaztaroan idatziriko lehen lan hartan dute sorburua, hots, *Euskal-aditza Bizkaia, Gipuzko, Lapurdi eta Zuberoko izkerantzetan garbiturikoa* izeneko eskuizkribuan, eta honen bitartez, Azkueren *Euskal-Izkindean*. Arriandiaga izan genuen *aranatarren eskolaren* egituratzaile nagusienetako bat; bere hitza, maisuaren hitza zen. Bere irakaspenek eratu zuten, aditz morfologiari dagokionean bederen, eskola honen pentsamoldea, zenbaitetan Arana-Goiriren beraren ertziak alde batera utziriz ere; honelakorik egiten zenean, baina, ematen du nolabait estali edo zomorropean legez izkutatzen dela nondik datorren aukeratzen den proposamena. Azken batean -eta hau aranatarren eskolan jokabide orokorra dela begiantzen zaigu-, Aranaren izenean defendatuko dira zenbaitetan Aranarenak ez ziren ertziak, eta alderantziz, bere izena aipatzeko baztertuko dira bestetan bere esanak, *Irakasleak* sekula esan izan ez balitu bezala. Honela, hizkuntzari dagokionean behintzat, esan liteke, gure ustez, bi kontu direla Aranaren lana eta *aranatarren eskolarena*. Azkenak, hiztegi eta ortografia arazoetan soilik bildu zuen bere irakaslearen ondarea, baina morfologia eta baita joskera arazoetan, garbizaletasunak jarraitu zuen bidea ez zuen inolaz ere abandotarrak urratu, baizik, haziaren ereitean bederen, Azkuek. Azkenburuan (...) itzal bakar bat nagusitzen da XX. mendearen hasierako bizkaieraren bilakaeran (eta baita, honen bete-betean ez bada ere, gipuzkeran): Astarloa durangarrarena, bai hezgintzaren alorrean, Arana-Goirik jaso zuelarik inork baino areago soinuen berezko esanguraren teoria, eta baita aditz morfologian, Azkueren *Izkindear*en eskutik. Iido bi hauek Arriandiagaren lanean biltzen dira eta, ondorioz, eskola edo talde garbizalean". (Laka 1987c:738).

Astarloaren itzala dela eta, gogora daitezke jasoriko Urkixoren kexuak.

Pentsa daiteke, beraz, Mitxelena *soin* eta *gorputz*en arteko adiera-bereizkuntzaren aldekoen artekotzat jo daitekeela.

Hitz horiek, gainera, besterik ere adierazten dute: norbaitek Euskaltzaindia etsi duela adiera-bereizkuntzaren sorreraren hobendun. Iritzi honen makurra azalduko du Mitxelenak artikulu osoan zehar, auziaren sustraien lekukotasunak eskainiz.

Lehen lekukoak (Urriolabeitia-tarr Paulek), erdal etorkia dela eta, arbuiagarri irizten dio *gorputzi*, baina paperera daramatzan *auctoritate*-ek ("euskal jakitunik jakintsuenek", Mitxelenaren hitzetan) duda egitera daramate: Arana Goirik, Eleizaldek[292] eta Arriandiagak *gorputz* omen darabilte.

Arriandiagaren erantzuna da bigarren testigutza. Honek jasotzen duenaren arabera, Arana Goirik *gorputz* zerabilen beti, *soin* sekula ez; *Maisua* ordaratikakoaz baliatzea sinestezin egiten zaionez gero, Arriandiagaren irtenbidea (Larramendiren jokabidearen antzera) *gorputz*en etorkia "garbitzea" da, latinarekiko zorra ukatuz.

Honezaz gain, *gorputz*en eta *soin*en esanahia dela eta, Arriandiagak, Arana Goiri –hain zuzen ere– eta Azkue hartzen ditu testigu *gorputz*ek eta *soin*ek adiera bana eta bestelakoa dutela azaltzeko: *gorputz*ek 'cuerpo' eta *soin*ek 'hombro, espalda, loma' esan nahi omen dute, hurrenez hurren.

Lekukook agerian uzten dute bi hitz horien esanahikidetasun-eza ez dela Euskaltzaindiak ez beste inork berriki sortua, ez dela azken momentuko berrikeria, alegia.

Hondarrik hondarrenean datzan arazoa, artikuluaren hasieran aipaturikoa da, oroimennahiz azterketa-falta dela eta, berritzat jo ohi dela hala ez dena: "Berri itxurako oro ez da beti berri". Eta honen argibide eta irozgarri, daramatza paperera Mitxelenak, *gorputz-soin* auziaz landako beste zenbait.

Hala nola, "norbaiten irudimen liluragarriak sortu duen euskerantoak", Julio de Urquijok Eleizalderi[293], honen aditzazko burubidea zela eta egotziriko *euskal-esperantista* izengoitia aitzindari du[294].

---

[292]Mitxelenak paperera aldatuetan, Elizalde irakurtzen da, baina guk uste dugu Luis Eleizalde dela Urriolabeitiak horra dekua:

"El señor Elizalde ha usado de la palabra *gorputza* en su traducción al euzkera del "Anima Christi", si mal no recuerdo". (1975b:89).

[293]Eleizalde (XI (1914), 99)". (1975b:91).

[294]Eleizalde matematikalariaren jokamoldea dela eta, bitxi gertatzen da Mitxelena matematikazaleak nola zuritzen duen bergarar sabindarrarena.

Neurgailu berbera erabiliko ote zukeen Mitxelenak, Eleizaldek bultzatu zuen ez bezalako eragiloa izan zutenek Eleizalderen jokamoldearen antzekoxea mamituz gero? Ezezkoan gaude; Azkueri eta Orixeri, besteak beste, leporatua gooora ekarri besterik ez dago:

"Ez dut uideraban baizik aipatuko euskal-aditzari buruz egin zuen lana. Ez dut ere uste, neure teilatura harrika hastea bali litzateke, lanbidez matematikelarako zuer. buriak makurtu zuenik gai honetan. Bazuen hemen

Edo, Mitxelenak berak *dut/dudan* argitzeko "*duda*ra abiatu beharra, Arana Goirik[295] adierazia zuen.

Halaber, *Eneko, eneren* ahaide ez ote zitekeen, Mitxelenak adieraziriko susmoa, Eleizaldek ere esana zuen[296].

Eta adibide-sorta burutzeko, artikuluan zehar ahotan erabili duen Arriandiagaren beraren hitzak jasotzen ditu Mitxelenak, Arriandiagaren ustea, zuzena ez zela argitzeko[297], gerora testuek, lekukoek, kontrakoa adierazten baitute.

Jaso den orok, euskalaritzak azterbideen oinarriak nola finkatu behar lituzkeen azaltzea ez ezik, ariketan erakustea ere duela helburu susma daiteke, artikuluko azken pasarteak (*kontseilu* eta guzti) laburbiltzen duenaren haritik:

> Duela zenbait urte, aski zabaldua zebilen harako saltzaile ibiltari bati "nor zenak" eman omen zion kontseilua: "Pues viaje V. menos, y lea más los periódicos". Horrelako zerbait esan behar genieke gure gazte ausartei eta zahar gordinei. Lehengo arazoez mintzatu behar baduzue, irakur itzazue orduko paperak edota, bestela galda iezaiezue bizirik dauzkagunei. Horretan hasi behar dut neuronek ere, bai baitut premia. (1975b:92).

---

sekula matematika kutsurik izan ez zuen aski irakasle, Astarloagandik benera gutienez. Bere asmoa zuzena zen, funtsean. Bazekien Eleizaldek euskarak, mendeak joan eta mendeak etorri, ez zuela asabengandik zetorkion ondadea galera gaitzik gabe gorde. Galduak irabazi nahi zituen Eleizaldek aditz-sailean, **dirudienez sekulan izan ez ditugun aberastasunez jabetu nahi zuelarik**;". (1971f:52). (Betiz. gurea).

[295] "Diodan aldizkariaren arabera (X (1913), 268), *Análisis y reforma de la numeración euzkérica*-koak omen dira aipatu dituzun hitzak, *bat*-i buruz idatziak". (1975b:91).

[296] "(IX (1912), 315-316)". (1975b:91).

[297] "La hipótesis de un verbo *eun*, que ha precedido, no nos parece admisible. Dicho *eun*, que siempre sería distinto de *eun*=hilar, nos habría dejado muy probablemente algún rastro de su existencia, en el uso o significado diverso de las meras funciones auxiliares. Así sucede con el verbo *iñon* o *ion*=decir, que si ha desaparecido como infinitivo, tiene existencia y funciones claras, definidas e independientes en las flexiones *diñot*, o *diot, diñok* o *diok*, etc. (95.or.)". (Mitxelenak artikuluan dakarren Arriandiagaren aipu luzatua da Lakagandik (1987c:743) hartu dugun hau).

Mitxelenak, haatik, Landuccioren hiztegian, XVI gn.ean bizi zelako lekukoa aipatzen du.

3.4. ARANA GOIRI versus AZKUE

Bi bizkaitarrok elkarrekin aurkezten ditu maiz Mitxelenak[298], elkarretaratzeak adostasun orobatekoa ez dakarrela azpimarkatuz, haatik.

Zenbaitetan –puntu bat baino gehiagotan–, halaz ere, bat datoz: biak, besteak beste, euskararen galbideaz jabeturik, saiatu dira euskara premiazko bilakatu nahian eta beronen azterkotaren ezinbestea agerian uzten.

> Dena den, erraz froga daitekeenez, hizkuntzak indarra eta lurra, zedarrietan eta barrenean, galdu ahala, ugalduz doa aitzitik beronen premia eta landu beharrarekiko ardura. Zuzperraldi honetan, Larramendi aipa genezake besteak beste (...) Iztueta, Manterola, Arana Goiri eta Azkue (...) eta, 1936 baino lehen amaitzeko, Artiztimuño, "Euskaltzaleak" eta Lizardi. (1978a:37).

> Gero berriz mila bederatzirehun inguruan Arana Goiri eta Azkue zirela bide (...) Mila bederatzirehun inguruan gauzak franko aldatzen dira berriz ere (...) Baina euskaldungoa murriztzen doa eta aho hizkera murriztu ahala euskal literatura aldiz goraka, bere neurrian goraka, gero eta ausartago, zabalago. (1981a:67).

Zuzpertzeak –egitateak, nolabait esan– batzen ditu batetik Arana eta Azkue. Alabaina, Mitxelenaren begietan, honi dagozkionek ez ezik, ariketa berean Larramendi sahiesteko asmoak ere bidaide bilakatzen ditu, hots, "desegiteak" batzen.

Areago. Esan daiteke, Mitxelenaren lanetan Azkue eta Aranaren arteko harremana ia puntu zehatz honetara bakarrik lerratzen dela[299]:

> Arana Goiri eta Azkue (...) bat etorri ziren, nor baino nor amorratuago, Larramendiren kontra. (1983c:100).

> Larramendigandikakoek eta horien ondorioek irauten dutelarik gogor baino gogorrago hartuko ditu laster 1900 aldean sortzen den iraultzak. Bestela esan, iraultza pareak, Arana-Goiri eta Azkue... (1986a:128).

---

[298](1978a:37, 1981a:67, 1983c:100, 1984b:34, 1986a:129), euskal lanetan.
Erdal lanetan, berriz, berdiniketarik zaharrena Ibarzabalek eginiko elkarrizketan aurki daiteke, (Ibarzabal 1977:24). (1987b:104), *Tierras de España* laneko atalean ere berriz dauzka ahotan.

[299]Bion arteko liskarren eta hauen iturburuen argibidea, behin eta birritan esan den bezala, I. Lakaren bi lanotan bereziki irakur daiteke: "Bizkaiko Aldundiaren euskarazko katedra. (Hiperbizkaieraren historiaz I)" *ASJU* XXI-2, (1987b) eta "Sabino Arana Goiri eta Hiperbizkaiera. (Hiperbizkaieraren historiaz. III)" *ASJU* XXI-1, (1987a). Hauetan, "katedrak" noraino jokatu zuen bion arteko osina sakontzean nabarmen ageri da, batipat, delako postuak garai hartan katedradunaren eskumenean uzten zuen agintea dela bide.
Katedraren ingurukoak irakur daitezke 1988ko *Euskera* XXXIII.ean ere, Villasantek (1988), Arana Martijak (1988) eta Irigoienek (1988) atonduetan, bereziki.

Hauen eta segiziokoen erantzunkizuna da Mitxelenarentzat Larramendiren orduarteko ospearen eta omenaren gainbehera, andoaindarraren hatz sakon-luzea urra zedin ez baitzatekeen aski denboraren indar soila:

> Ez zuen aldi joanen errotarriak eho haren [Larramendiren] orotzapena, bestela bezala: jende azkarra eta langilea behar izan zen horrenbesterako. Izenez izendatuz, Arana Goiri eta Azkue, 1900 ingurutik aurrera. (1984b:34).

Nork bere barrutitik, jakinaren gainean, Larramendirenak uxatzeari ekin dio[300]:

> [Azkueren] Honen hiztegiak ez zuen Larramendirenik bildu jakinaren gainean; bai, eta sarri asko, oharkabez[301]. Gerra bizia sortu zion beste hark [Aranak] deserretara oidali zuen aurrean. (1984b:34)[302].

Arana-Azkuek, Larramendi eta Larramendirenak arbuiatzeko arrazoi berak ez dituzten arren, Mitxelenak behin eta birritan errepikatzen duenez:

> [Arana eta Azkue] (nahiz biak bide beretik ez ibili, ezta gutxiago ere, nolazpait helburu batera jotzen dute). (1981a:67).

> Arana Goiri eta Azkue ez ziren talde berekoak euskarari buruz, baina bat etorri ziren, nor baino nor amorratuago, Larramendiren kontra, eta bere inguruan bazen noski jende gehiago, lehen mordoskaka eta gero samaldaka. (1983c:100).

---

[300] Halarik ere, gogoan hartu beharko litzateke garai bateko Azkuek (gaztarokoak bereziki) ez dieta orobat muzin egiten Larramendigandikakoei. Honen erakusgarnak ikus daitezke, Pagolak (1986) prestaturiko Azkueren *Bein da betiko* (1893) eta *Batzi Guzur* (1897) lanetan edo Lakak (1987d) azkenaldean erantsiriko glosategi gehigarrian. Azkueren *Izkindea* da, azken kasu honetan Larramendiren erraintzabia.

Honela adierazten du Lakarrak ere (1985a:12):

"Behar lukeen bezain ezaguna ez bada ere Azkue ere izan zen garbizale (ik. orain l. Pagolaren lana, baita *ASJU* honetako I. Lakarena ere haren *Parnasorako bide*aren edizioaz) eta lehen garai batean (cf. *Euskal Izkindea*, 1891) are larramendizale ere".

Andoaindarrari, hiztegi-lanean batipat, eraso ziola ahantzi gabe ere, hor dago Azkueren 1934eko lana, *Corografía*ren (eta honen egilearen) aldekotzat jo daitekeena.

[301] Honi zegozkionak zehaztu dira.

[302] Hizkuntzazkoak direla eta, Larramendi "**deserr**itzeko" abagunerik ez du galtzen abandotarrak lanetan zehar:

"DESEGUIN (deshacer, destruir). Ya apareció el incalificable *des* de Larramendi, del tratadista que, no contento con hacer Euskera de todo lo castellano, quiso importar las notas derivativas, que habrían traído la corrupción a lo más interno de nuestra lengua, si los euskerálogos posteriores, que no anduvieron tan lejos como él de nacer para lingüistas, no quieren todos comprender esta verdad: que Larramendi es el primer euskerálogo, considerado cronológicamente; pero científicamente juzgado, es uno de los últimos. En lugar de *desegin* debiera haber dicho Moguel *ondatu*, adjetivo verbal que más adelante emplea con la significación de *destruir*". (Arana Goiri *OC*:217).

Ez bide du Mitxelenak **des-** aurrizkia oharkabean erabili, ezta "Ba: datoz [Arana eta Azkue] **desegite** lanean" (1986a:128) dioenean ere. (Beltz. gurea).

Bestela esan, iraultza pareak, Arana-Goiri eta Azkue ez batabiltza bat -hori izan ohi da iraultzaileen zoria- desegite lanetan baizik. Egin eta eraiki, nork bere egin eta eraiki nahi du eta, Larramendirenak aho batez arbuiatzen dituztelarik, ez du batarenak zer ikusi handirik bestearenarekin: honentzat mattagarri, harentzat higuingarri. (1986a:128).

Hauek bazekiten zerbait, franko ere bai, Azkue eta Arana Goiriren on eta gaitzerritziez: baita bi nagusiren zerbitzariak ere izan zirela, Kirikiño[303] dugula lekuko gallen. (1986a:128).

Bata eta bestea Larramendi saihestera daramatzaten zioak han eta hemen irakur daitezke Mitxelenaren lanetan.

Azkuek ezin ontzat eman dezake Larramendi asmalanean ibiltzerik, herriak sekula erabili gabeko hitzak hiztegian ohiko ondarekoekin nahasian ematerik, alegia.

Aranak makur ikusten duena, berriz, lotzenago zaie Larramendik sarbidea eman zien erdaratikakoei, arrazoi nagusi honi Larramendik asmatuek batere gogobetetzen ez dutela erantsi behar zaiola gainera.

Nolanahi dela ere, ez batak ez bestoak onartzen dute Larramendirenik, ez asmaturik ez erdal etorkikorik[304]:

Han zeudela, besterentzat eragozpen, izan zen, nik uste, Larramendiren hitz berriak, 150 urte ez badira aski horrelakoak zahartzeko[305], uxatzeko jokatu zuen arrazoi nagusia. (1984b:35).

Larramendiren hitzak beti "berritzat" hartu dituztela Mitxelenak salatzea adierazgarria da. Izan ere, ehun eta berrogeita hamar urtek berri-geruza kentzerik lortu ez badute, ohiko hizkuntzan ez dituztela sarriegi usatu adieraz dezake; bestela esan, hizkuntza arruntean lekurik gabe eta gatzatzeke -honenbestez, usadiozko hiztegitik lekora- geiditu direla.

Honek ondorio larriak ditu, Larramendiren hitzen mailako eragina ukitzen baitu betebetean.

Mitxelenak ematen dituen bi arrazoi horiei erreparatuz -berritzat edukitzeari eta han *egote* soila hitzak uxatzeko aski izateari, alegia-, honako hipotesi bikoitza proposa daiteke, non zeuden eta norentzat ziren *berri* itaunekin ikuskizuna duena:

-Larramendiren sorkariek pleguetan bakarrik izan dute bizitza eta, herri ikasi gabeak bere hizkera arruntean txertatu ez ditu.

-Paperaren zedarriak gaindituz, euskaldunek erabili dituzte beste hitzekin batean, ohiko hiztegiaren osagai bilakatuz.

Lehen balizko ustearen arabera, ulertzenago da "berri" kutsuaren urragaitza, batez ere

---

[303]Kirikiñok gorpuztu zuen bikoiztasunaren azalpen argiak irakur daitezke *Abarraken* paratzaile I. Lakaren (1986b) pleguetan.

[304]Azkueren kasuan, gogoan hartu beharrekoak dira adierazirik doazenak.

[305]Oroi, halaber, Aranak asmaturikoen "zahartasunaz" esanak.

gogoan bada, Larramendik sorturiko ugari "hitz berezitu" direla, hots, esparru mugatukoak direla. Era honetan, Azkueri eta Aranari (igertzeko gauza direnean), Larramendiren "hizperriak" hauteman eta, baztertzea samurrago zaie.

Aldiz, euskaldunek mintzatzean zerabiltzatenak baziren, Azkue eta Aranaren urralana askoz ere bortitzagoa izan da, euskaldunek, denboraren poderioz, hitzen "berri-usaina" piskanaka atzenduxea bailukete. Kasu honetan, Larramendiren hitzak, testuetatik ez eze solasaldietatik ere lekutzea erdietsi dute.

Egote soila eta "nahiago lituzketen beste hitzen" lekua betetzea dira, esan bezala, Mitxelenak ematen dituen arrazoirik nagusienak, baina arrazoioi ez deriztela "tekniko" Mitxelenak, filia-fobiek bultzatuak baizik, nolabait esan, susma daiteke[306], bestelako arrazoiak ere aipatzen baititu:

> Arrazoibide teknikoagoak ere bazebiltzan tartean, eta ez nuke esango zuzenak ez zirenik. Mordoiloak omen dira hitzok, itxuragabeki eratuak eta, hori dela medio, ilunak eta zatigaitzak. (1984b:35).

Mitxelenak, arrazoibide hauek ematen dituztenak hizpidean egon daitezkeela ukatzen ez du eta honen erakusgarri, honakoa alboratzen die arestiko hitzei:

> nork esan, izan ere, arima herratuen psikoanalistaren batek izan ezik, nondik atereak diren *megopea* edo *txaberama*? (1984b:35).

---

[306] Mitxelenak (Caro Barojari jarraiki), Larramendi euskal arrazaren harroespenaren aitzindaritzat joagatik, Aranak andoaindarra oso begiko ez izateko beste arrazoi bat ere aipa daitekeela uste dugu: arrazoi politikoa, alegia.

Larramendik, garaian indarrean zegoen kantabrismoari eta eusko-iberismoari eutsiz, euskaldunak espainolen arbaso bilakatzen ditu eta, honenbestez, euskara gaztelaniaren haitzekodun. Ez zaigu iruditzen tesi hau Aranari oso erakargarria irudi zekiokeenik, aurrera bultzatu nahi zuen ideologiarekin nekez ezkon baitzitekeen. Aranak, Larramendi ahotan ez darabilen arren -P. Arana da autua-, andoaindar jesulagunari egozteko debeku handirik ez dagokeelakoan gaude:

"Fúndanse este tratadista guipuzkoano y los que como él piensan en la interpretación que Efo hizo de las inscripciones numismáticas llamadas *ibéricas*, y en determinadas teorías que, si hoy van cayendo en descrédito, florecieron en cierta época en que todo el afán de los tratadistas parecía ser el de demostrar que los euskarianos son los verdaderos españoles, porque su raza fuese la aborigen de esta península; de la misma manera que más tarde se expusieron como pruebas contundentes para defender nuestros llamados *Fueros* contra la saña del enemigo la filiación de nuestra raza respecto de la ibera, originaria de España, el amor, la lealtad y la generosidad con que siempre se condujeron nuestros padres con dicha nación, sin pedir jamás ninguna recompensa por sus servicios, y la compatibilidad de nuestros derechos con la unidad de la monarquía española (!) (...) Todo cuanto se diga acerca de la protohistoria del pueblo *euskeldun* es meramente conjetural, y si puede servir de hipótesis para demostraciones lingüísticas o históricas, nunca se debe tomar por base de resoluciones de práctica aplicación". (Arana Goiri *OC*:819).

Azurmendik (1992:395) ere, bere moduan ikusten du Aranaren basko-iberismoaren garrantzespena. Zegamarraren ikuspuntutik, Aranak ezin onar dezake teoria hori, hondarrik hondarrenean datzana, Espainiaren betasuna baita:

"Olhenartek ez zuen onartzen teoria basko-iberista. Eta konprenitzen da, Arana Goirik ere basko-iberismoa ez bazuen onartzen. Garbi bait dago haren zentzu politikoa. Jauntxo eta jauntxozaleak, ordea, basko-iberistak dira. Beti horretantxe *aritu* ohi dira basko-iberistak, atzokoak nahiz egungoak: euskaldunek Espainiari zenbat eman dioten, nola destakatu diren Inperioraren enpresa handietan, eta abar, eta abar".

Larramendizko kapitulura igortzen dugu.

Bi hitzok Larramendiren hiztegian irakur daitezkeenak izaki[307], ez du andoaindarrak hiztegian nondik ez nola sortu dituen aitortzen.

"Arima herratuaren psikoanalistaren" bilaketan argi eman dezakeen Arana Goiriren testu bat ekar daiteke, *megopea* hitzaren iralgiaren berri eman ez ezik, bizkaitarraren Larramendigandikako sorkariekiko jarreraren adierazle ere baden heinean:

> A Lafamendi, no obstante, no le sonaba bien **espíritu**[308] (cosa, dicho sea entre paréntesis, verdaderamente extraña, pues nos dio como euskéricas miles de voces *erdéricas*, a las que luego Novia de Salcedo se encargó de aplicarles etimología euskérica); y sabiendo aquel tratadista que el *espíritu* es una *sustancia sutil*, analizó el *substantia* latino y vio que venía de *sub-stare* (estar debajo) y con las voces euskéricas **egon** (estar) y **be** o **pe** (debajo) formó el vocablo **egope** (sustancia)[309], y agregándole contra toda sintaxis el adjetivo **me** (sutil), obtuvo el **megope** (espíritu), que ni es *sustancia*, ni es *sutil*, ni es Euskera, pero que, dado en un diccionario con la naturalidad con que Lafamendi daba las voces inventadas[310] por él (esto es, sin advertírselo al lector), se ha extendido[311] ya deplorablemente. (Arana Goiri *OC*:954).

Txaberamaz, berriz, ez Larramendigan ez Arana Goirigan kausitu dugu argibiderik. Novia Salcedoren hiztegian ere "*Chaberamá:* Tortuga, animal. No se comprende su formación" irakur daiteke[312].

---

[307] *MEIG*-en liburuki honen paratzaileak atzekoz aurrera aldatu ditu hitzon azalpenak:
"*megope* eta *txaberama*: tortoka eta izpiritu, adimen, hurrenez hurren".
Txaberama, *DT*-n: *Tortuga, animal* sarrera-buruan dago jasoa. *chaberamá. Lat. Testudo. Megope*, berriz. *Espíritu, substancia incorporea, megopea, ispiritua. Lat. Spiritus.*

[308] Ez dugu uste Arana Goiri hagitz zuzen dabilenik honetan.
Ez dirudi *espíritu* hitza Larramendik begietan hartua zuenik edo halako aiherkunderik zionik:
"Espíritu, substancia incorporea, *megopea*, **Ispíritua**. Lat. Spiritus". (*DT*). (Beltz gurea).
Arestikoaren indargarria da, Aranak bere *Gogo Deunaren* ordez *Megope Doatsuba* darabiltenei oker irizteko zioaren atzean Larramendiren itzala ikusi uste duenean ere ez duela erabat asmatu, andoaindarrak *Espíritu Santo, Espíritu Santua* aldatzen baitu, *Megopearik* edo antzekorik gabe.
Baina egia ere da, Larramendigan halako zehazteko eta bereizteko ahalegina sumatzen dela, arestikoen ondoan, beste erdal *espíritu* desberdinen euskal ordainok ere ematen baititu:
"Espíritu, *anima racional*, vease. [Ez du, ordea, *anima racionalik* jasotzen].
Espíritu de, *doaiña, emaitza*. Lat. Spiritus.
Espíritu vital, *bicicaya*. Lat. Spiritus vitalis,
Espíritu, valor, *alaidea*. Lat. Virtus.
Espíritus, *galzquiñak*. Lat. Dæmones.
Espíritus, vapores, efluvios sutiles, *quemeac, quemearrac*. Lat. Spiritus." (*DT*).

[309] Honelaxe dakar Larramendik *substancia* hiztegi-sarreran, *egopea*.

[310] "No sé si Lafamendi [*aste* hitzari] le señalaría algún otro origen. Lo poco, muy poco, que he leído de este autor me ha quitado las ganas de leerle más". (Arana Goiri *OC*:2361).

[311] "Garbitu" osteko hitz desagertua litzateke, boraz, *megope(a)* hau, lehen erabilia eta gerora arrakastarik izan ez duenetakoa?

[312] "(e)txabe + erama" <== "etxea berak eramana", argitu digu P. Altunak.

Beste argibiderik ezean, balizko psikoanalistaren esku utzi behar, beraz, Larramendiren iturburuen zehaztapena.

Adibide honen bitartez, berriz ere ikus daiteke, Mitxelenak asmorik bat ere ez duela Larramendiren sorkarien -zenbait sorkariren behinipehin- zuzentasuna kritikatu dutenak beti oker ibili direnik esateko[313]. Arrazoi faltarik ez dute sarritan eta, alde honetatik, Arana-Azkuek ez dute galbahea hagitz desegoki usatu.

Arana-Azkuek eta segiziokoek[314] erdietsiko dute Larramendiren lana ia osotoro deuseztatzea, "berririk nahi ez zutelako edota guztia berritu nahi zutelako erabat"[315]. Hauei dagokie bere betean, urralanaren erantzunkizuna Mitxelenaren ustez.

Halaz ere, erantzupide horrek muga lasaiago eta -beharbada-, lausotuagoak lituzkeela pentsa daiteke. Bestela esan, honen atzean edo azpian beste auzi orotarikoagoa datza: hitzen bizitza.

Lehenxeagoko auzira itzuli behar, bada.

Zer dela eta hiztunek hitz batzuk onartu eta erabiltzen dituzte, beste hitz batzuek gatzatzerik erdiesten ez duten bitartean? Nahikoa al da gizabanako zenbaitek ohartuki kontra erasotzea hitz batzuk saihesteko, herri-hiztunak bere egin baditu?

> Halaz guztiz, Larramendiren sorkariekin hainbestetan gertatu zen legez, gero ere jendeak, burutik orporaino alderdi-setak loturik ez zegoen neurrian, gehiegizko zerrtzanak ez zituen onartzen: batipat ez zituen erabiltzen. (1984b:36).

Mitxelenak hitzen zoriaren azkena jendearen esku uzten du, baina lehen esanaren ildotik, eragileen indarrari ere ezin muzin egin dakioke[316].

---

[313] Mintzatu gara honezaz andoaindarrari eskainiriko kapituluan.

[314] "bi horien inguruan bazen noski jende gehiago lehen mordoskaka eta gero samaldaka". (1983c:100).

[315] (1984b:35).

[316] Adierazgarria iruditzen zaigu Pagolak (1988:XXIII) Azkueren eta Arana Goiriren hizpennen gainean iruzkindua.

Aranagandikakoei, ez derizkie oso oinarri irmoetan eratuak ez beti hagitz zuzenak:

"... se deduce sin dificultad que no hay regla fija en las "metátesis", "epéntesis" y, sobre todo, "elipsis" que observan los neologismos de AG. Este no distingue composición de derivación, sus leyes fonéticas no entienden de contexto; y sin embargo, puede hablarse de estilo. Existe una manera de hacer, difícil de precisar pero reconocible en todo caso, un cierto automatismo que posibilita la reproducción por imitación".

Halarik ere, eta nahiz eta Azkuek txukunago eratu dituen, honenei nagusituko zaizkie.

"y es, sobre todo, este estilo, este aire de modernidad que presentan sus creaciones y -entiéndase bien- no las creaciones mismas, que se confunden muchas veces con las de sus seguidores, el que se impone sobre los neologismos gramaticalmente "intachables" de Azkue".

Pagolak A. Rey-ren hitzak paperera daramatza gertakizun honen hornigarri:

"10 ou 100 000 techniciens et ingénieurs ayant à produire le discours de leurs pratique pèsent plus lourd que quelques dizaines de terminologues normalisateurs et de critiques puristes -ne pas confondre!-, si ces

Larramendirenak desegiten bat datozen Aranaren eta Azkueren arteko bestelako harremanen berri ere ematen du Mitxelenak.

Mitxelenari euskal lanetan jaulkiek, liskarren sorburua hizkuntza soilari zegokiola pentsaraz edo zezaketen -gisa honetako arrazoiak besterik ez baititu zehazten- baina Ibarzabalekin duen solasean, bestelako arrazoiak ere bazeudela erdi agerian uzten du:

> En Bilbao, Azkue era el hombre enfrentado a Sabino desde varios puntos de vista: sus ideas lingüísticas no coincidían y estaba ligado a Euskalerría -el grupo de Sota[317]-, en aquel momento la "bicha negra" de Sabino. (Ibarzabal 1977:29).

Hitzotan oin hartuz ondoriozta daiteke -aieruz besterik ez badio ere-, Mitxelenak hizkuntz kontuez gain, politikaren ingurukoak ere ikusten dituela Arana Goiri eta Azkueren arteko gorabeheretan. Ez du, baina (edo ez dugu guk kausitu) besterik zehazten.

Honen ondoan, berriz, pasarte ilunsko batean, zerbaitek biak elkarbiltzea ondore izan duela adierazten du, hobeto esan, elkarri besoa emanez ibili zirela edo.

Ez lehenagoko ez geroko Mitxelenaren lanetan aurkitu dugu *ukitu-ukamen*aren arrastorik. Argibiderik ezean, beraz, argitzeke gelditu behar Mitxelenak estari gorde duen arrazoia:

---

derniers ne disposent pas de moyens d'intervention efficaces" (A. Rey 19179,77)".

317. - ¿Qué me cuenta usted del Sr. Azkue?

- Verá usted: que primeramente fue carlista, luego integrista, después, sin decir ni oste ni moste, volvió las espaldas a Nocedal y se declaró nacionalista bizkaino; en el nacionalismo estuvo seis meses; y al cabo de este tiempo se ha hecho regionalista indefinido, esto es de los euskalerriacos, etc., siendo ya hoy Capellán electo del partido por nombramiento otorgado verbalmente por el Sr. Sota el día 21.

- Querrá pertenecer a la vez a todos los partidos... por amor al prójimo, se entiende.

- Pero como esto es imposible, tiene que andar de la Ceca a la Meca. De todas maneras, es de sabios el variar".

Eta oin-oharrean honakoa eransten du:

"Hablamos del Sr. Azkue como hombre político, prescindiendo en absoluto de su carácter sacerdotal, que es entre todos el más digno de respeto para nosotros. Es preciso pintar claramente a los sujetos para que sepa todo el mundo a qué atenerse. El rompimiento del Sr. Azkue con el nacionalismo fue anterior a la función que el *Euskeldun* celebró en Begoña el 14 y en el que predicó dicho señor. Por esto en su discurso no hubo una palabra de Patria. Fue un sermón que, traducido al español, podría haberse aplicado lo mismo a la Virgen del Pilar o a la de Montserrat. Nuestra Señora de Begoña apareció en él como una advocación regional, no nacional". (Arana Goiri *OC*:668).

Sermoia 1895eko uztailaren 14ean izan zen, Aranak beste artikulu batean dioenez.

"Antonio Elorza-k "clases medias" izenekoetan jartzen du euskal nazionalismoaren oinarri soziala. Sotaren taldea da burgesena handia errepresentatzen duena eta, maila politikoan, "Euskalerria" elkartearen bidetik Alderdian sartzen dena". (Iztueta 1991a:232).

"Joera **biguna** [sic] politika posibilista baten aldekoa da eta, edukin nazionalistaren aldetik, autonomiarekin konformatzen dena. Honen interesak Espainiako merkatuan daude, batipat. Joera honen plataforma ideologikoa ***Euskalduna*** astekaria da eta bertan, politika-jokabidetzat, bi xedeok lortu nahi dira: batetik, sabindar pentsamenduari zintzo jarraitzea eta, bestetik, erregimen kontzentratuak eskaintzen dituen abantailez baliatzea. Lege eta ekonomiazko ingurune honetara moldatu beharra aldarrikatzen duten ideologo nagusiak Koldo Eleizalde eta, batez ere, Engrazio Arantzadi (Kizkitza) dira eta, ekonomi munduan, Ramón Sota finantziaria, Bilboko oligarki sektore baten interesak zaintzen dituena". (Iztueta 1991a:271).

> Zerbaitek, orain ukituko ez dudan zerbaitek, ekarri zuen bestetan etsai edo zirenen erabateko ukamen hori. (1983c:100).

Atal honekin amaitzeko esan behar dugu, ikusiaren arabera, Mitxelenak, Arana eta Azkue elkarren ondoan aipatzen dituen gehienetan, Larramendi dutela uztargilo, hau da, mende-bihurrerako bi egile handien elementu bateratzailea, batipat, Larramendigandikakoak uxatzea dela.

Larramendiren "bere gisako" garbi-ixuria ukatzeko ere, Azkuek eta Arana Goirik bestelakoa sortu dute, "itxura nabarra duen garbikeria"[318] alegia, eta harenak baino ondore larriagoak izan dituena. Izan ere, hasi eta bularlu duten garbinahiaren hatza eta errainua, urte handiz eramango dute itsatsia euskalaritza-euskal literaturek:

> No obstante, estaban conformes ambos en rechazar de raíz a Larramendi, en términos tradicionales y neologismos. De aquí el purismo que dominó hasta hace poco[319]. (1987b:104).

Gidarien izenak hartuko dituzte ahotan, hain zuzen ere, atzetik etorriko direnek, ernamuinean edo hazixea zegoena garatu eta, maizkara, nork bere gogo eta apetaren araberako fruituak bilduko azkenean.

Duela gutxi arte sasoian zegoen garbikeriaren islak, hain justu, hartuko dira aztergai hurrengo kapituluan; Mitxelenak adinkideengan antzematen dituen okerreko bideko erakusgarrien mintzetan arakatuz jabe baitaiteke Mitxelenak bere bizkar harturiko eginkizun horren luze-laburraz, bai besterengan bezteko begitantzen zazkionen aldetik, baina baita ere –zeharbidetik eginez–, besterengan gaitzetsia, berak zuzen etsiaren berri ematen duenetik; guztiak, Mitxelenaren xede-helburuezko ikuspegiaren osagarri.

---

[318] Pluralean erabiltzea egokiego, joera-desberdintasunaren aurrean?

[319] Garbitze hau Pagolaren (1988:XI) ikuspegian, euskararen aizean sekula agitu ez bezalakoa da eta ondorio larriak dituena, gainera:

"Este radicalismo, derivado de la convicción de que la pureza de raza y la pureza del idioma están ínsitas en la idea de la nación vasca, no tiene precedentes en la historia de la lengua. La tradición purista anterior, preocupada sobre todo por dotar al euskera de los neologismos que precisa para hacer frente a las modernas necesidades evitando así tener que recurrir a nuevos préstamos, no parece inquietarse por las voces de origen extraño que tienen carta de naturaleza en la lengua; esto aparte de que su fidelidad a Larramendi -de él no sólo se toman sus neologismos, se imitan también sus procedimientos-, le permite emplear sin reparo términos de origen no vasco, siquiera porque éstos habían sido legitimados por él (...) Por otra parte, no se recurre indiscriminadamente al empleo de neologismos. Conforme el lenguaje se hace más culto, más elevado, se hace también más larramendiano, pero en los escritos de tipo coloquial como las comedias sin pretensiones de M. Soroa, T. Alzaga, etc. es difícil encontrar neologismos fuera de acotaciones y títulos. AG, en cambio, suprime la variedad de registros; para él no hay límite cuando se trata de evitar los términos vascos de origen extraño, que como se sabe no son escasos".

3.5. LABURBILDUZ

Kapitulu honetan, mende-bihurreran ernatu eta aurrerantzean ere indarrez loriatu zen hizkuntzarekiko joera garbizale neurrigabearen hazian Mitxelenak kausitzen dituen bi euskaltzaleen zerak agerira ekartzen saiatu gara.

Begiz jotzearen atzean esan berria egoki, hastapenetatik bertatik, bi euskaltzaleozko pleguoi, ia ezinbestean, ezkor-antza darie.

Ez ditu Mitxelenak hauenak bezteko arrazoiak estari gordetzen, izan ere, biok ikusten ditu euskal munduan inoiz agitu ez bezalako etenaren atze-oihalean, arrazoirik eragileena, desio duten euskara garbi hobenbakoa ezartzeko gogoa izanik.

Ez du honek esan nahi, halaz ere, Mitxelenak, euskararen zorigaizto guztien errudun atzematen dituenik, segiziokoek –edo segiziotzakoek– izan baitute horretan esku, ikusi eta ikusiko den bezala. Nolabait esan, euskalari-euskaltzale bion zorigaitza izan bide da, jarraileek –sakonegi aztertzeke–, Mitxelenari beztekoenak begitantzen zaizkionak, hain zuzen ere, hartu dituztela bide eta aitzaikia, nork bere apetak eta gogoak otuaren araberakoak, gidariaren izenean sortu eta hedatzeko.

Mitxelenak, kritikaren, eta honek aldez aurretik eskakizun duen ikertzearen premia etengabe aldarrikatzen eta eginez erakusten du, gertuago duen Azkueren kasuan batez ere.

Mitxelenaren azterlanetan zehar, batarengan eta bestearengan nabarmendu duen kontu emate laburbildua, honela adieraziko genuke.

Azkueren makurrik larrienek, hizkuntz ideietan, bestela esan, ofizio-zeretan aditu ez izatean dute iturburu nagusia. Horren ondorio dira honako bezteko hauek:

- Hizkuntz berreraiketa, zaharberritzearen baliokidetzat hartu du. Gaztaroko Azkuegan eta adizkien sailean batez ere, kausitzen du Mitxelenak irizpide gaiztoen errainua.
- Hizkuntzan bènetan denaren berri eman ordez, desio lukeenari atxikiago zaio.
- Ahozkotasunera makurtuago, izkribuzko alderdira baino, baina,
- Izkribuzkoak, baina ahozkoak ere bai, "bere galbahetik" iragazten ditu garbinahiak bultzatuta. Honen ondorioz, erdal usaineko euskal hitz bilakatu eta errotu zenbaiti muzin egin die.

Azkue ez da, beraz, hizkuntz azterbideen aldetik eredugarri. Ildo honetan, Mitxelenak Azkueren lanean –hiztegian bereziki– egiten duen arakatze xehetuak, bi helburu erdietsiko lituzke, gure ustez: Azkueren burubideen ajeak agerian jarri bai, baina orpoz-orpo, euskal hiztegigintzak zehazki eta euskalaritzak, oro har, nolako zimentarrien gainean eraiki behar dituen lanak erakutsi.

Jomuga bikoitz honek azalduko luke, beharbada, azterlanean sumatu uste dugun Azkuerekiko jarrera kritiko zorrotzagoa Aranarekikoa baino.

Bazteko alderdiok, halaz ere, ez dira aski, ekarrien oparoa lainotzeko. Izan ere, Azkueri zor zaizkio:

- Geroko euskalarien eskueran paratzea txit baliozko lehengaiak, bai euskararen atzearen berri izateko, baina baita etorkizunari begira ere; bi aldeketatik -gibel eta aitzin-, Azkuek pleguetatik nahiz herriaren ezpainetarik bilduriko ondasuna ezinbestekoa da.

- Euskal hiztegigintzaren barrutiaren zedarrietan, Azkueri aitortu behar zaio "sasiak eta belarrak" berezi gogoaren lehen saioa, mamitu guztietan asmatu zuenik ezin aldez badaiteke ere.

- Idatzizko euskara-molde bat finkatu gogo izan du, euskararentzat premiazkoa.

Arana Goiri ere, Azkuegan ikusten duen huts berak kutsatua dakus Mitxelenak: hizkuntz ideietan ez dabil hagitz zuzen eta ez da ofiziokoa. Arrazoi honek, gehi euskaraz eta euskal literaturaz duen ezaupide ez behar bezain sakonak, zenbait puntutan okerreko bidetik abiarazi du.

- Buruen-buruenik, euskal hitz-altxorrean nahasteari eta anabasari bidea zabalik utzi dio, erdal jatorriko -edo halakotzat joriko- oro, eskumikatu eta bere burutikako asmakariak ezarri nahi izan dituelako. Isuri honek batipat izango ditu ondore larriak, segiziokotzakoen lan areagotzailearen kariaz.

- Bere burua Astarloaren irakaskuntza zalantzakoenen (baztertzekoenen) oinordeko aitortuta, etimologiaren gorabeherak, uste-desioen mundura aldatu ditu. Ondorioa, hizkuntzan berez esanahibako diren elementuei ere esanahia "idoro" eta horretan sustraitu ditu bere burutikako hizperriak.

- Izkribuzko euskarari begiramen handirik ez, honek dakarren, euskal autore zaharren gaitzespena eta, honenbestez, aurreko literaturarekin etetea.

Alabaina, Mitxelenak -zegokion puntuan genioen bezala- ez du uste Arana Goiriren sorkariak, duten etorkia eta osamodua dutelarik ere, nahitaez baztertzekoak direnik.

- Baditu Aranak, Mitxelenaren begietan, oraindik ere balio duten hizperriak, batizpat, hutsune larriak betetzeko sortu eta euskaldunen artean errotzea iritsi dutenak.

- Honezaz gain, Aranari zor zaio -Mitxelenak begi gaiztoz ikusten ez duen- politika-egitasmo zehatz batean hizkuntzak bere tokia irabaztea, hobeto esan, hizkuntza bilakatzea asmo zabal horien gune.

Bizkaitar biak elkarganatuz, Mitxelenaren hitzei antzematen zaie, errotikako arrazoi berberak, bestela aparte dabiltzan biak uztartu dituela. Horren erakusgarririk gardenena, Larramendirenak uxatzea da.

Alabaina, bi bizkaitarron gaineko Mitxelenaren iritzia desitxuratzeko arriskuari itzuri, berresan behar dugu, baldin biok eta andoaindarra urruntzen zituen karirik bazen ere, hirurok ikusten dituela Mitxelenak, kezka berak eraginda, horretara daramatzaten arrazoiak arrazoi: euskarak aurrera egin dezan nahi dute eta saiatu ere dira, nor bere modura, euskara aurrerabidean jartzen, euskaldun lotien bame-harra esnaraziz.

Azkuek -esan bezala-, bere indar-kemenak, euskalaritzan sekulako lanak mamituz xahutu ditu, herri-aberastasunak bilduz, euskararen batasun-bidea urratuz, euskal

morfologiaren oinarriak paratuz, euskara idatziaren hariari eutsiz..., baina nagusienik, euskal hiztegian, gerora nobetzeko eta zuzentzeko den zurajea eskainiz.

Azkueren lan hauei guztiei esker, euskaltzaitzak badu, beste hizkuntzetako hizkuntz ikerketaranzko hurbilbidea, emeki-emeki, urratzeko lehengaia.

Arena Goiriren ekarrian, berriz, euskaltzaitzan gauzatuak baino, ideologia baten hedatzeari emanikoak azpimarkagarriagoak dira, bere orotariko egitasmoan euskara muinean kokatuz euskaldunen kontzientzia lokartuxeak esnarazi dituelako, euskara, arretagune bilakatu duelako.

Biok, beraz, euskara sustatzen eta zuzpertzen ahalegindu dira eta, zehazki gatzatuei Mitxelenaren begiek gaitz iritziko dietenik falta ez bada ere, erdietsi duto euskaldunak bere hizkuntzaz arduratzea, aztergaitzat hartuz ez ezik, ihardunean ere, euskaraz baliatzea.

Hau guztia begien aurrean izanik, Mitxelenaren hitzetan susma daiteke, mende-bihurgunean gertaturiko traultzaren erantzunkizunean kapitulu honetako aztergaiei bizkarrera behar zaiena larregi arintzeke, hazia jarri zutenoi baino beteago dagokiela, apika, haiek ezpainetan hartuz, haienak izan ez izan, azken muturrera eraman nahi izan zituzten inguruko eta ondotik etorriei. Hauek hartuko dira jorrakizun hurrengo kapituluan.

I. ATALA

4. Kapitulua: GARBIZALEAK

4.1. ATARIKOA

Kapitulu igaro berrian, okerreko hizkuntz joera baten hazi-ernamuinetan arakatu dugu. Orain da parada delako joera horren barrenetan murgiltzeko; bestela esan, Mitxelenak, euskara noranahiko bihur dadin ikusten dituen behaztoparri mota batekoei erreparatzeko.

Aurrera baino lehen, halaz ere, esan behar dugu, gure ustez, Mitxelenaren testuek agerian jartzen dutela, kapitulu honetan zehar azterkizun hartuko ditugunak auzi- edo arrisku-iturri beraren hari-muturretako bat besterik ez direla.

Hau da, euskarari bizitzea suertatu zaion aldartean, bera baino osasuntsuago dabiltzan erdarek inguratua daukate. Erdara horien indar-eraginak arrisku bilakatzeraino iritsi direla begitandu ohi zaizkie euskaldunei. Arrisku horri itzuri, erdal usaina darion edozer saihesten leherrenak eginez saiatzea izan da euskaldun-samalda batek ikusi duen irtenbidea eta, horren kariaz, hizkuntza "garbitzen" xahutu dituzte indar-kemenak.

Iharduera honek, ordea --beste ondore larriak beste--, Mitxelenaren aburuz, mota bateko morrontza erakusten du. Hauek argitzen saiatuko gara kapitulu honetan zehar.

Jokamolde hau hizkuntzari kaltegarri gertatu bazaio ere, ez da, Mitxelenaren begietan, euskararen kalterako sortu den bakarra. Izan ere --eta hemen dator bigarren hari-muturra-- arrisku beraren aurrean, Mitxelenak, kezkati, gero eta nabarmenago ikusten duen bestelako ihardunbidea ere antzematen du.

Euskara, "erdara" baten gero eta mendekoago ikusten du, hain mendeko ikusi ere, ondore sekulakoak ekarriko dizkio. Labur esateko, bi biziki larriak: euskararen ar[illegible]teko bidea ahanztea eta alde bateko eta besteko euskaldunak gero eta nor bere erdara eredugarriaren bideari itsatsiago ibiltzea.

Erdarari itzuri, garai bateko euskaldunen irtenbide garbizale mota batekoak Mitxelena gogobetetzen ez duela, areago, arriskutsua ere iruditzen zaiola eta, jokamolde horren okerra --kapitulu honetan azterkatukc duguna-- agerian uzten saiatu dela esan daitekeen bezalaxe, esan behar ere da, batipat geroago Mitxelenaren kezka- eta haserrabidea besteak sorrarazten duela: errazkeriak, erdalkeria neurrigabeak.

Bata zein bestea, euskaldunen artean sortu eta bulartuak, bata zein bestea, Mitxelenaren iritziz, euskararentzako arrisku ez ezik, baita galbidera iraul dezaketenak ere.

Bi jokamoldeetariko lehenari atxikiz eta bigarrena aurreragoko utziz, esan daiteke, Mitxelenari etxe-barneko debeku begitantzen zaizkiola, euskara, garaiko gizarteak eskatzen duen bezalako tresna bilaka dadin, egitasmo egokia ez dutenak eta, honen ondorioz, mamilanak ere gisa horretakoak kaleratzen dituztenak.

Euskaraz idazten, euskarara aldatzen nahiz argitaraldiak paratzen dihardutenen etekinak hartzen ditu Mitxelenak juzkupean aldizkarietan --*Eganen* bereziki--. Pleguotan plazarako ditu, liburu-iruzkinez, elkarrizketez, saiakera gisakoez, liburuei eginiko hitzaurreez, mintzaldiez eta bestez --hau da, mota askotariko lanez-- baliatuko da ebazkizun hautetsiriko

bestek kalera duen lanari, zer eta zergatik irizten dion gaizki -adierazi berri den jomuga iristeko bidearen aldetik-, argitan jartzen.

1953-1976[1] epeko lanei erreparatuko zaie bereziki. Lanon hautespena, Mitxelenak "garbi-mordoilo" eta "zahar-gazte" deituriko auziak mintzagai hartzeak baldintzatua da.

Honek ez du, halaz ere, esan nahi, sesio-iturria beste lanetan agertua ez izana, orotariko bibliografian bildurikoek agerian utziko duten bezala. Astiro jorratuko diren lan horietan, istiluen mamia eta funtsa kausi daltekeelakoan jo dira begiz.

Direlako lanoi begiratu bat emanez gero, ohar daiteke Mitxelenaren izkribu gehientsuenetan, nola edo hala, aipatzen ari den auzia tartean dela: hitz batean esateko, neurri gabeko **garbinahia**, Azkue eta Arana Goiriren itzalean, mende aldi honetan berebiziro indartua.

Honenbestez, kapitulu honetan bilduek, nolazpait ere, aurreko kapituluan azterkizun begietsien jarraipen modukoa osatzen dute.

Ez dugu, halaz ere, aditzera eman nahi, hemen aipatuko diren guztiek, Arana Goiriren edo Azkueren segizioko sutsu eta porrokatutzat daukatenik bere burua, hemen azterkizun dagoena ez baita leialtasun-kontua ezta eskola-auzia ere. Hona ekartzea ez da, beraz, horretan sustraitzen.

---

[1] Ondoko zerrendan, kapitulu honetan zehar geldiro aztertuko diren lanen izenburu eta argitaradatak aldatu ditugu.

Denbora-ardatzaren arabera zerrendaturik doaz, nahiz kapituluan zehar bestelako iritzpideei eutsiz sailkatuko ditugun:

1953b, "Arnaut Oihenart"
1954g, "Axular, *Gero*"
1955a, "Yon Etxaide, *Joanak-joan*"
1956b, "«Euzko Gogoa» eta «Euskera»"
1956e, "Tx. Agirre, *Garoa, irugarren agerraldia*"
1956f, "Homero [Barandiaran'dar Salbador aitak] *Ilias'ena (Iliada euzkeraz)*"
1957c, "Berriketan. Aita Plazido Mujikak esan digu"
1957e, "Berriketan. Etxekoekin hizketan"
1957f, "Hugo Wast, *Bide itzkutua, Itunbe'k euskeratua*"
1957g, "Sarrera-itz batzu"
1959a, "Euskal itzak zein diren"
1959b, "*Itun zar eta berria, Olabide'tar Erraimun, S.I. (1869-1942). Bilbo'n, Yesu'ren Biotzaren Deya, 1958*"
1959f, "P. Baroja [Y. Etxaidetarrak euskerara emana], *Itxasoa laño dago... Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezkak*"
1960a, "Asaba zaarren baratza"
1960d, "Txillardegi" (Jose Luis Alvarez Enparantza), *Peru Leartza'ko*"
1960e, "José Estornés Lasa, *Cómo aprender el vasco fácilmente*"
1960f, "José Luis Muñoyerro, *Lartaun eguzki-semea*"
1961d, "F. Apalategi, S.I., *Euskal mutillak armetan I.*"
1962a, "Indalecio Bizcarrondo, "Bilintx", *Bertso ta lan guztiak*"
1963d, "Gaztelu, *Musika billa*, Fray Luis León eta Donibane Gurutzen olerkirik onenak, erderaz eta euskaraz"
1970c, "Pro domo"
1972a, "Azken ordukoak"
1976a, "Hitz bitan", E. Bozas Urrutia, *Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Errenteria kondairan eta ipuin zaharretan*"
[1975b, "Gorputz eta soin" lana, nahiz gaiari dagozkionak tartean izan, ez dugu berariaz hemen aztertuko, arestiko kapituluan, sabindarrez aritzean, autu izan dugu eta).

4.2. LIBURU-IRUZKINAK[5]

4.2.1. Asmalanak

4.2.1.1. Argitaralanak

* (1954) "Axular, *Gero*"[6], *Egan* 2-4, 39-41; *BAP* 10, 388-389; *MIH*, 163-166; *MEIG* II, 39-42]. (1954g).

Gisa honetako lanetan, denbora-ardatzean lehena, Axularren *Gero* entzutetsuaren argitaraldia da, M. Lekuona euskaltzainburu zenak atondu eta aitzin-solasturikoa[7].

---

[5]Atal honetan aztertbidean izango ditugu *Eganen* argitara emaniko erreseina gisakoak bereziki, garbinahi auzia nola-hala ukitzearen arabera.

[6]Iruzkinaren burukoan bakarrik eutsiko diogu lehen argitaraldiko *grafi* moldeari. Hortik aurrera, eguneratuaz baliatuko gara.

[7]Lan berazko erdal iruzkina ere egin zuen Mitxelenak *Julio Urquijo* aldizkarian. Bertatik hartuko ditugu honako ideia azpimarkagarriak:

"No es ésta una edición que pueda suplir a la facsímile que don Julio de Urquijo estaba publicando en *RIEV* y que desgraciadamente quedó sin completar. Dicho está con ello que no puede satisfacer a un cierto público especializado, a los lingüistas por ejemplo, pero sí en cambio a un grupo mucho más amplio de lectores entre quienes aquella reedición nunca ha podido ser popular (...)

Esta modernización se ha hecho metódicamente y con arreglo a criterios definidos que, naturalmente, como personales que son, no están a salvo de toda crítica. Pero nadie podrá negar que la labor del editor ha sido concienzuda y basada en un perfecto conocimiento tanto de la primera como de la segunda edición de la obra, y que se ha llevado a cabo con todo el respeto posible al original (...)

En el mismo prólogo hay un detenido intento de valoración de la prosa de Axular, fundado –como frecuentemente suele ocurrir entre nosotros– más sobre criterios de casticismo que sobre puntos de vista estéticos y de capacidad expresiva. Ya hemos indicado en otro lugar que estamos en completo desacuerdo con esta manera, que el señor Krutwig calificaría de "populista", de considerar el habla de nuestros escritores: una lengua necesita sobre todo riqueza y flexibilidad, no casticismo y pureza". (1954h:128,129).

Bidenabarreko oharra: alderdi askotarik hain goragarria den eta baliozko (izan) zaigun Mitxelenaren lan guztien kontu-emate zehatzean (*Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*eko atarikoan) errakuntza bat dago, lan bakar bailiran elkarganatu baititzte erdal iruzkin hau eta *Egan*eko euskalduna, bata bestearen itzulpen hutsa ez baina izaera desberdineko bi izanik (gure 1954g eta 1954h).

Bestalde, testuan aztergai duguna, harnar urte geroago Villasantek paratu zuenari Mitxelenak iritzia pareka dakioke:

"Euskal testoa Axularrena da, oraingo idazkerara antolatzea beste aldakuntzarik gabe, lehen aldiz agertu zen bezalaxe, eta azpian darama, orriz orri, erdal itzulpena. Sarrera, argitaratze lanak eta itzulpena erabat Arta Villasanterenak dira eta badakigu guztiok zein sakon eta errotik ezagutzen duen honek euskal literaturaren bazirik aberatsen hau". (1964h:135).

Nabarmentzekoa deritzagu, bestalde, Mitxelenaren hitz-aukera honi:
1954g lanean (jatorrizkoan), *textu* darabil ("Textua eraberitzean gauzatxo bat egin da oker ene ustez"); 1964h geroagokoan, berriz, *testo* ("Euskal-testoa Axular'ena da") pasarte aldatu berrian ikus daitekeen bezala. Aldera daitezke bi formok, gerora proposatuko duen *testu*rekin:

"Zaharragoen bila dabilena ez dabil, nahi eta ez, iturburuaren bila. Italiarrek *testo* idazten dutenaz gero, guk ere *testu* idatz dezakegu. Bada euskal idazle zaharrik hitz hori s-rekin idatzi duenik eta italiarrak, deus izatekotan, gu baino ikasiagoak eta latinari mila bider lotuagoak dira". (1979g:184).

Jarraipena beste nonbait ikusten dugu: bizkaitar egile handi halen lan eskergarria "beztuxe" uzten duen beste alderdi batean, hain zuzen. Bere eragin erraldoiaren bitartez, abiapide eman zioten euskararekiko jarrera batean, ondokoek, sarritan, burutik burura segitu nahiz areagotu zutena; bestelako izenez esanda, garbizalekeria edo garbinahi itsuan, eta garbizaletasunean, beste gabe[2].

Segizioko, segiziotzako nahiz halakotzat aitortu gabekoen lanak ekarriko dira pleguetara, Mitxelenaren begietan, hizkuntz jokabide okerrekoa gorpuzten duten heinean eta Mitxelenari, egokitu zaion garaian, bere burua makur horiei aurre egiteko kinkan –euskarak etorkizunik izango badu– ikustarazten dioten ikuspegitik.

Honela, bada, bi lerro nagusitan bilduko dira sakonkizun aukeraturiko Mitxelenaren lanak, errenteriarrak bestek egina juzkupean hautatzearen ala Mitxelenak berak sortua izatearen arabera. "Liburu-iruzkinak"[3] eta "Mitxelenaren baitakoak" deiziopean bilduko dira, hurrenez hurren.

Bestek eginiko lan iruzkingaiaren arabera lau sail nagusi bereziko dira.

Lehenean, bestek eginiko asmalanak aztertuko dira, hemen hiru gisatakoak bitan bilduz: argitaralanak eta sorkari hutsak, azken hauetan, Mitxelenak besteren lanak hornitzeko paraturiko aitzin-solasak barne hartuz[4]. Bi motak elkarretaratzeko arrazoia, testuaren izaerari dagokio, hots, ez dela beste hizkuntzatik bihurturikorik, jatorriz, sortzez euskaraz gatzatua baizik.

Argitaratzaileen lana ere azterkizun hartzea, ihardunbide honek autu den auziarekin dituen lokarri sendoetan datza. Ikusiko den bezala, sarri, besteren izkribuak atontzen eta paratzen dituztenek, auziaz dituzten irizpideak isurtzen baitituzte eta hala taxutzen azkenean lana.

Itzul-lanak ikusiko dira bigarren.

Hirugarren batean, euskara ikasteko lanabesak, "Euskararen Ikasbideak" izendatuak ekarriko dira paperera, aurrekoek baino luze-laburra txikiagoa izanagatik, lanotan ere, ikasgai eskainiriko hizkuntza-motan ondorioak baitauzka, halabeharrez izan ere, mintzagaiazko jarrerak.

Laugarrenik, eta azkenik, bilduko dira berriz –auziarekin zerikusia izaki–, Mitxelenaren ustez burubide zuzenez mamitu dituzten zenbait egileren lanei buruzko iruzkinetako pasarteak.

Mitxelenaren baitarikoek osatuko dute, berriz, hirugarren puntu nagusia, testu-molde

---

[2]Dagoeneko esana doana ez dugu berresango. Oroi, halaz ere, garbinahiaren barneko graduak eta abarrak berezi beharraz adieraziak.

[3]Honelako deizio zabalean utziko dugu, maizkara, geure burua ez dugulako behar bezain jantzia ikusten, Mitxelenaren halako lana, "erreseina" edo kontu-emate hutsa den, ala "kritikaren" mailara eraman behar ote den bereizteko, bertan irauitzen dituen jakingarriei –ez lerro-kopuru hutsari– erreparatuz gero, bederen.

[4]Bi dira, hautetsiriko Mitxelenaren sarrerak: 1957ko Txillardegiren *Leturiari* (1957g) eta 1976ko Bozas Urrutiaren *Andanzas y mudanzas de mi pueblo* lanaren bigarren argitaraldi elebidunduari (1976a) eginak.

desberdinetakoen lokarria, auzia, aldez edo moldez, autu izatea izaki.

Sail bakoitzeko barne-antolamendua aldiaren ardatzari atxikiko zaio, mota bereko Mitxelenaren lanik aspaldikoenetik hasi eta berrieneraino joz.

Honenbestez, era honetara antolatuko da kapitulu hau:

4.2. Liburu-iruzkinak
  4.2.1. Asmalanak
    4.2.1.1. Argitaralanak
    4.2.1.2. Bere baitakoak
  4.2.2. Itzul-lanak
  4.2.3. Euskararen ikasbideak
  4.2.4. Zuzen etsien aipamenak
4.3. Mitxelenaren baitakoak
4.4. Ondoreak

Mitxelenak argitaralan honen on[8]-gaitzak[9] aipatuagatik, garbinahiaren gaineko auzlaren gihia ukitzen duena, hor adierazietan ez baina, iruzkina taxutzeko begiz jo duen balizko irakurlearekiko[10] solasaldi antzekoan kausi daiteke. Mitxelena ohartzen da irakurlegoaren barnean, garbizaleek osatzen duten multzoari ezin muzin egin diezaiokeela, hau da, gogoan izateko jende-samalda dela:

> Eta ez dezazula Jainkoagatik gutxietsi, **garbizale horrekin ari naiz**, nahi bezain garbi ez dentzazulako. Garbitasuna antzua da hemen ere: ez du umerik izaten. Hizkuntza mintzabide bat besterik ez da; hobeto esan, gizonak duen mintzabidea, horren ondoan beste guziak eskas eta ezerez baitira. Euskara ez da txukun eta ederki bildurik, hauts apurrik gabe, kanpotarrei erakusteko gorde behar dugun bitxia edo jostailua, zenbait etxetako liburuen antzera. Dirua edo gure probetxurako asmatzen dugun edozein tresna bezala, erabiltzeko da, eskuz esku eta ahoz aho ibiltzeko. Ibilian, jakina, galdu beharko du harako lehengo garbitasun eta diztira hura, baina horren orde gero eta leunago, egokiago, erabilkorrago bihurtuko da. (1954g:40). (Beltz. gurea).

Irakurle garbizaleari zuzenean mintzatzen zaio Mitxelena bi helburu ordietsi nahirik: irakurlea garbinahiaren elkortasunaz jabe dadin, batetik –hizkuntza ez baita uki-ezinezko altxorra, mintzabide soila baizik–, eta bestetik. Axularren (eta garai hartako euskal idazleen) lanen balioa agerian geldi dadin, mamiari dagozkion zeretan ez ezik, baita mintza-moldeari dagozkionetan ere. Mitxelenak gogoan baitu, oso, zein arrazoi-mota[11] eman izan diren euskal literaturaren garai handi batez, beste gabe, atzentzeko[12].

Axular Bizkunde aroko (berantiarra) izaki, euskarari egokitu nahi izan dizkio, bestek bere hizkuntzei legez, greko-erromarren ereduak, hizkuntzazkoak barne. Europako beste herrietan ohoregarritzat daukatena –"hizkuntzak aberastu, trebetu eta gaitu zituztelakoan" baitaude–, Euskal Herrian era horretan ikusi ez duenik bada, horregatik.

Ingurumari zabal honetan adi daitezke batetik, Bizkunde arokoen jokaera eta Harri

---

[8] "ederki baino ederkiago burutu du bere eginkizuna". (1954g:41).

[9] "Textua eraberritzean gauzatxo bat egin da oker, ene ustez. Axularrek *semék, semén* eta antzekoak jarri zituenean *semeen, semeek* eta abar aldatzea (...) Ez da hori, ene iritzi, bokal luzea adierazteko bidea, doinua edo azentua bokal horrek zeramalakoa baizik.

Lekuona jaunak herri-hizkera gehiegitxo jasotzen duela ere esango nuke, hori egiteko literatur hizkera beheratzen baitu." (1954g:40).

[10] "Hemen duzu, irakurle (...) Ez dezazula, bada...". (1954g:39).

[11] "Zer dago baztertzekorik Axularrengan, uraingo ustez? Hitzak, gutxi edo gehiago (*desplazer, desordenatu* eta antzekoak), *azen, nola, non* eta *zein* batzu; hitz ordena ere apur bat aldatu behar omen zaio, guztiok dakizkigun legeen [Altuberen legeen] arabera. Euskal gramatikaren mamiari eta bihotzari bagagozkio, ordea, badaiteke inoiz oker ibiltzea Axular, ozena ez dut nik behin ere hauts aurkitu". (1959b:121).

Itzuliko gara estilu kontuetara, 1953ko "Arnaut Oihenart" (1953b) eta 1956ko "*Euzko-gogoa* eta *Euskera*" (1956b) lanez hitzegitean.

[12] 1978ko "Sarrera gisa-n" aukur daiteke Mitxelenaren begien araberako auzi honi buruzko nondik-norakoen laburpena. (1978b:21hh).

aroko (beraz, garbizaleek amesturiko moldezko lekukorik ez duen aldiko) nahikundeen munduko garbitasuna aurrez aurre ipintzea eta, bestetik, Mitxelenak –ironiaz beteriko pasarte honetan–, Axular eta –bestek ohartuki ahantzi nahi izan duen– euskal literatura aldezteko, ahotan hartzea:

> Guk, beharbada, aberastasun horiek guziak pozik emango genituzke Harri-aroko[13] garbitasunaren truke, baina gogoak eman behar liguke behin edo behin ez ote den harritzeko Jainko eskuzabalak, beste guziak zoratzen dituelarik, guri bakarrik[14] jakinduria ematea. (1954g:41).

Liburu baten berrargitaraldiaz baliatu da Mitxelena orain, beraz, garbinahiaren makurrak agerian uzteko. Bitarteko gisa usatzea argiago gelditzen da, argitaratzailearen lana, esan bezala, mintzagai honetatik lekoratuxe utzi duela ikusten denean.

Oso bestelakoa da bi urte geroagoko ondokoa:

* (1956) "Tx. Agirre, *Garoa, irugarren agerraldia*", *Egan* 5-6, 145-147 [*MEIG* II, 78-81]. (1956e).

Argitaraldi *obetu* honi eginiko iruzkina, bere laburrean, garai bateko argitaramoduari eginiko kritikarik latzenetakotzat jo daiteke, apika.

Sarreran ohiko "txalo eta laudorioak" eskaintzen dizkio, baina Mitxelenaren testu osoak, argitaratzailearen lana (izenik gabeko Aita I. prantziskotarra) gaitzestea duela xede pentsa daiteke, "kortesiazko" amai leungarriaren izpiñorik ere hemen kausi ez daiteke eta.

Areago, abiapuntutik bertatik, argitaragaia eta argitara emana lan bera ote den zalantzazko baino zalantzazkoagotzat bide dauka: "*Garo* berbera –antzeko zerbait baizik– ez delarik ere"[15].

Lan berbera ez izateak, agerraldi honen "huts bakar baina larrian", argitaratzaileak

---

[13] Historiaurreko aldia amestu zutenen zerrenda ez litzateke seguruenik laburra, baina mintzaga-arekin zerikusi zuzena duela eta, *Izkindea* mamitu zuen Azkue eta Olabide aipa daitezke adibide. Lakaren (1986a:710) hitzak hona aldatuz:

"Azkuek goraipatzen duen iragan hori, ez da inolaz ere iragan historikoa; atzeraco kokatuko litzateke, erromatarrak etorri aurreko garairen batean, agian. Euskal tradizio idatziaren gaitzeste honek luzaro iraungo zuen euskalarien artean, batez ere garbizaletasunaren ildotik zebiltzanen inguruan; pentsabide hau bikainki bildurik agertzen da Olabidek Azkueri bidaltzako gutun batean".

[14] Mitxelenak behin eta berriro errepikaturiko burubidea: ez euskaldunok ez euskara gara besteak ez bezalakoak.

Hona, Arana Goiri-Azkuezko kapituluan ere paperotara aldatu den elkarrizketa beraren beste pasarte adierazgarri bat:

"M.–Aurrenengo ikas-aldi auek, edozein izkuntzari dagozkionak izan dira. Linguistika-sarrera bezela antolatu ditut nere izketaldiak.

E. –Baiña beti, euskera-saiberа joan oi-zera, adibideak, ejenploak ipintzerakoan-eta.

M. –Ori gaiak ematen du berez. Edozein izkuntzetan gertatzen dana, gure euskeran ere, ala gertatzen dala, erakustea, izango da emen erakusbiderik onena". (1964j:8).

[15] (1956e:79).

hobetzean, alegia, du iturburua.

Hobetzearen akatsak honela laburbil daitezke:

-Lehenik eta behin, liburu-atontzailea ez da lehen argitaraldiaz baliatu, itxuraldaturiko bigarrenaz baizik[16].

-Bigarren argitaraldia begiz jotzeko hitzaurregileak ahotan darabilen argudioak ez du funtsik; aitzakia besterik ez du hor ikusten Mitxelenak. Bigarren argitaraldiaz gaizki esaka aritu direnak ez omen dira -hitzaurregilearen[17] ustez-, *herri*, "herri xume jatorrari goitik behera begiratzen dioten zenbait harroxko lepa-gogor baizik"[18]. Mitxelenak aburu honi, haatik, *herri ixila* edozertarako aitzakia izaten dela esanez erantzuten dio.

-Bigarren argitaraldia ezagunagoa izatea ez da aski arrazoi herrikoiago eta jatorragotzat jotzeko. Berriago denez gero, errazago aurkitu ahal izateak argitzen du zabalkundea, ez, ordea, herrikoi-jatortasunek:

> "Illargiaren jira", esate baterako, ez da zaillago gure jendearentzat hemen (Bgn. orrialdean) eta bigarrenean irakur daitekeen "Illargiaren baranoa" baino. (1956e:79).

Jira, erdal itxura gardenagokoaren ordez, *barano* paratu dutenen asmoa agerian dago: erdararen ihesi ibiltzea. Paradoxikoki, ez bide dira konturatu *barano* bera jatorriz erdaratikoa denik[19].

-*Etika* auzia da sakonean datzana. Inork ez du esku, egileak idatziak aldatu eta "zuzentzeko" huskerietan izan ezik, hobetzeko asmorik zintzoenaz egiten bada ere. "Are gutxiago egilea -nolakoa, gero!- hilik dagoenean"[20].

Hirugarren agerraldi hau are makurragoa da, *Garoa*, *hobetu* ez ezen, *hobeagotu* ere dutelako. Honegatik dio Mitxelenak ironia osoz:

---

[16]Agirreren idazlan honek izan dituen argitaraldien berri ematen du I. Etxebarriak (1990).

[17]Hona hitzaurregilearen hitzak:

"Au egitean, bigarrena izan degu begien aurrean, bigarrenari atxiki gatzaio, Lekuona Apaiz euskalzaiñak moldatu eta Lopez Mendizabal'dar Ixakak argitara eman zunekoari, alegia. Badakigu bigarren argitaldi ori, azaldu zanean, naiko maxiatua ta gaizki ikusia izan zala. Ez gera gu ortan sartu... Egia da, kritikoen begietatik ikusi nai izan ezkero, obe zala aurreneko argitaldiari jarraitzea. Baña guk eztegu edizio kritiko oietakorik egin izan nai; ezta ori gure asmoa izan. Errearen begietatik ikusi nai izan degu; ta orregatik aukeratu degu bigarren argitaldia, errak ezagunagoa ta irakurragoa zulako, errian zabalduagoa zegolako". (*Garoa*, 1935, "Hitz bi", XVII).

[18]Oroi A. Irigaraik (1935) bigarren agerraldi "hobetuari" egin zion kritikaz.

[19]Olabideren itzulpenaz aritzean ikusiko dugun bezala:

"*Inguru* latinetikakoa da, ez erromantzetik hartua, aspaldidanik euskaldundua, beraz; *barano*, aldiz, bearnesetik hartua, sartu berria beraz bestearen ondoan, bearnesa ere erdara baita eta euskararen mugakidea, hain zuzen". (1959b:115).

[20](1956e:80).

> Ez ditugu, izan ere, aurrerakada makalak egin 30 urte hauetan, eta ongi irabazia dugu gure aldetik zerbait hobetzeko eskubidea. (1956e:80).

Lehen argitaralditik bigarrenerako aldeak, Mitxelenaren adibideen arabera, morfologiari bazegozkion bereziki (zehazkiago, berezko *-a* kentzeari: *gauza* > *gauz*, *eleiza* > *eleiz*, *neskatxa* > *neskatx*), bigarrenetik hirugarrenerakoan *hobetzailearen* esku *ausartek* ("eskuak ausartzen ari zaizkigu eta") semantikaren alorrekoak ukitu dituzte, hauek baitira, agidanez, "zuzenketak" larrienik aldatuak.

Zoko-garbitzea Agirreren laneko Eibarko mitinari dagokiola bereziki pentsa daiteke, hauek dira eta, Mitxelenak paperera irauliak. Garbitua jasanak zein izan diren argiago gera dadin, Mitxelenak bietara ematen ditu, jatorrizkoan ezabatu edo aldatu dena, letra larriz edo etzanez nabarmenduz.

Joera garbizalearen bigarren alderdi bat begitantzen da beraz, hemen, azalezkoei ez baina, edukizkoei ezarririko zentsura (*inausaldia*) dela medio[21]. Honexek ematen dio hizpide Mitxelenari iruzkinaren harian, ondorio orotarikoagoak txertatu eta papereratzeko:

> Lastima da, benetan, horrako zuzentzaile horrek liburua zuzendu duen bezain erraz mundua ezin zuzendu ahal izatea. Ez dakit halare ez ote nukeen nahiago gauden mundu traketsean bizi, berak zuzendutakoan baino. (1956e:80).

Hizkuntzazkoak bazterrean gelditu direla, munduazko ikuspegian ere ezin bat etorri dira, Euskal Herrian Eibar bezalako herri "marxistarik" onar ez dezakeena eta, herri berberaz ari dela, *ilustraziñodun* izatea goragarritzat daukan Mitxelena. Ezin bat etorri, hitzaurregileak kimalanean bazterrean utzi dituenak, hau da, gaitz iritzi dienak, "gaurko edozeinek ontzat hartuko lituzkeen eskabideak" badira: zortzi orduko lana, esate baterako[22].

Garoako Azkarragako Martinek mitinean esanak, beraz, ez dira bete-betean burugabekeriak Mitxelenaren ustez, ez zortzi orduko lanaren eskaerari ezta diru-etxeei *lapur-etxe* irizteari dagokionez ere, Mitxelenak aipatzen dituen bi gaiotan jarrailerik bailuke Martin *ilustraziñodunak*.

Martin hizpidean egotea ala ez, dena dela, ez da hemen garrantzizkoena. Hondarrik hondarrenean, arestiko "etika-auzia" datza: inork ezeren izenean eskurik ez du, idazleak paperera eramanak gogoak eman bezala aldatzeko, gizaki oro baita egokitu zaion garaiaren

---

[21] Honetara itzuliko gara.

[22] *MEIG* argitaraldiazko ohartxoa: ezinbestekoa da *Eganen* (1956) plazaraturiko Mitxelenaren jatorrizko testura jotzea Mitxelenaren hitzak aditu ahal izateko. Arrazoia honakoxea da: jatorrizkoan letra larriz ipiniak *zortzi orduko lana gura genduke (Moxolok: Askotxo dek, baño, tira, nai duanak egin dezala) oraiñ artean baño aloger obia biar dogu. (Denak: Ori, ori! Betor dirua! Venga diñero!)* eta honenbestez, hirugarren agerraldi honetan ezabatuak, ez dira era honetan (larri edo etzanez alegia) paratu *Etoren* berriagoan. Nabarmentze-ez honek dakar, irakurlea Mitxelenaren hitzen aurrean harrituxe geldirzea.

seme edo alaba[23], idazlea, irakurlea, baina baita hitzaurregile edo liburu-paratzailea ere.

Hauek guztiak direlo eta, Mitxelenak "esan nahi ez lukeen" baina esaten duen aditzari beste zenbait aditz semantikoki uztartzen dizkio iruzkina burutan ilkitzeko:

> Gaxoak gu eta gaxoak gaurko liburuak! Surtara ez badoaz denak, zenbat bider ez ote dituzte **murriztuko, soilduko, hankamoztuko, itxuraldatuko eta hitz batean "hobetuko"!** Ez nuke **"lardaskatuko" esan nahi.** (1956e:81). (Beltz. gurea).

Iruzkinaren hasieran moldatzailearen lanari egotzi dion huts bakanaren *larritasuna*, azken pasarte honetan betetzen du edukiz Mitxelenak, **hobetzea** zerekin kidetzen duen zehaztean: **murriztea, soiltzea, hankamoztea, itxuraldatzea** eta **lardaskatzea** da.

* (1961) "F. Apalategi, S.I., *Euskal mutillak armetan I*. Auspoa Liburutegia, 3, Tolosan, 1961", *Egan* 1-3, 144-145 [*MEIG* III, 54-56]. (1961d).

"Auspoa"-koek –arestikoak ez bezala– Apalategi zenduaren lana bere hartan argitara eman dute. Zuzen deritza Mitxelenak erabakiari:

> Diodan gai hauek egileak utzi zituen bezalaxe, batere orrazketarik gabe, argitara dituzte "Auspoa"-koek. Arras txalogarria da jokabide hori: gai biluzkorriek dute hor axola, ez horien apaindurarik ezak. (1961d:55).

Jokabide hau txalotzea ez da gutxiestekoa, bi arrazoiongatik: ikusi berri den legez, Mitxelenak argitara-emaileen lanari garrantzi handia ematen diolako, eta bigarrenik, liburuaren iruzkinean Mitxelenak jatorrizko testuari kausitzen dion akatsa –oso gogokoa ez bide duen euskara "garbiegia" erabiltzea, alegia–, "zuzentzeko" eskuaz jabetu ez direlako.

Liburuaren hutsa idazleagandik datorrena izaki, *Garoa*zko iruzkinean esana errepika daiteke hemen: hark idatzia aldatzeko eskubide-eza.

> Honek [Apalategik] euskara garbia maite zuen, maiteegi apika, eta ez zuen etsiko entzuten zituenak nolazpait ere zuzendu eta apaindu gaberik. (1961d:55).

Apalategik, han-hemen entzunak "garbituz" (hitz berriak, seguru aski entzun ez zituen esaera bitxiak) aldatu zituen paperera eta jokamolde hau Mitxelenarentzat *hutsa* bada ere, barkatzeko –edo ulertzeko gutxienez– irizten dio, garaiko joerak aginduta, horretara makurtzea ez da eta harritzekoa.

Herriaren lekukotasunari atxikitzeko leialtasuna, nahiz leialtasun-eza, bestelako

---

[23] "Bere aldiko semea izan gure Txomin. Atzo-goizekoa dala esan genezake. Baña atomika-aldi auetan atzo-goizetik gaur gauera asko ibiltzen da bat". (*Garoa*, 1935, "Hitz bi" XVI.).

berdinketa egiteko baliatzen du Mitxelenak: Apalategik –Azkuek[24] bezala– ez zituen besterenak entzun bezala ematen[25], aitzitik, Barandiaran, leialtasun-asmoak eraginik, bestela aritua da:

> Herriko gizonaren lekuko leial izaten Barandiaran jauna izan dugu geroztikakoek gidari, beste sail askotan bezalaxe. Orain esanen mamia ez ezik, azala ere gorde nahi izaten dugu. (1961d:56).

Bukaerako hitzek besterik ere ematen dute aditzera. Ondasun-biltzean, ez da aski, Mitxelenaren aburuz, entzunaren mami hutsa gorderik ere, biltzailearen galbahetik iragazirik iraultzerik, mamiari zein mami horren kanpoko geruzari (adigaiak hartzen duen hizkuntz antzirudiari, alegia) begiramen bera zor zaio.

Apalategiren iharduna gora-behera eta ariketa hau ulertzekoa izan ez izan, Mitxelenaren egitekoaren adierazgarria da egokiera ikusten duenean, garbinahiaren ingurukoak planetara eramatea.

* (1962) "Indalecio Bizcarrondo, "Bilintx", *Bertso ta lan guztiak*, 12gn. zenbakia", *Egan* 1-3, 91-92 [*MEIG* III, 83-84]. (1962a).

Aita Zabalaren argitaralana goraipatzen du Mitxelenak bukaeran[26]. Alde honetatik, beraz, ezer beztekorik ez du liburu-atontzaileak. Alabaina, bestelako etekinik atera gogo dio Mitxelenak iruzkinari, bestela esan, Mitxelenaren iruzkin hau, argitaramoduari eta Bilintxen bertsoei irizten dienaz kanpoko –ez, haatik, erabat kanpoko– beste auzi baten erantzuntzat jo daiteke.

Mitxelena Bilintxek sinboliza dezakeenaz baliatzen da bi jomuga iritsi asmoz: bertsolari honi euskal literaturan merezi duen lekua eskubide osoz aitortzeko eta errenteriarrak bere lan batean esanei[27], izenik gabeko norbaitek eginiko kritikak islatzen duen ikuspegiari eraso egiteko.

Eztabaidan murgilduriko ihardespenaren taxua du iruzkinak hasieratik ("kontuak hartu dizkidate") eta, bestek esanak baliogabetzeari begira abiarazten du.

Honela, hasteko, kritikagilearen argudioen okerra agerian gera dadin, bestek argumentu gisa erabili duenari heltzen dio Mitxelena kritikatuak. Delako kritikagileak, euskal

---

[24] Honi eskainiriko atalean mintzatu gara honezaz.

[25] "Bere garaiko joera bat zen hori, Azkuek berak ere burutik burura segitu zuena". (1961d:55).

[26] "Ederki egiten du beti bere eginbidea argitaratzaileak (...) baina badirudi hemen bere marka guztiak urratu beharrean aritu zaigula". (1962a:84).

[27] *Hª de la literatura vasca* da lana.

idazleen garrantzia neurtzeko, errenteriarrak beste lan batean eskainiriko **lerro-kopuruari** erreparatu dio[28], honexeri atxikiko zaio hatsapenean Mitxelena ere, liburuxkinaren bukaeratsuan berriz ere berpuntura itzuliz.

Lerro-kopuruaren berdinketan, talde bitan banatu ditu kritikagileak zenbait autore, Mitxelenak eman dion lerro-kopuruaren arabera: merezi baino lerro gehiago eskaini dizkien Larramendi, Iparragirre, Bilintx ("beste zenbaiten artean") batetik eta, aipatzeke utzi edo iragaitzaz ahotan erabili dituen A. Zabala-Arana, A. Urrutia eta A. Manuel Arriandiaga[29], hurrenez hurren, bestetik.

Kritikagileak gaztelaniaz idatziriko hitzak iragazi eta euskaratu gabe jaulkitzen ditu paperera Mitxelenak eta beste horrek gaitzesten duen Larramendiren hiztegiazko okerra zuzentzeko besterik ez du sartzen tartean hitza:

> cuya obra principal es un diccionario vasco-español (atzekoz aurrera irakur beza irakurleak)[30] plagado de aberraciones. (1962a:83).

Besteak lehian paratuei helduko die hain zuzen Mitxelenak, Larramendiri eta Bilintxi liburuan irizten ziena baieztatu ez ezik, bigarren taldean bilduez han esan gabeak edo urrixe esanak argitu asmoak ere bultzatuta.

Larramendiri dagokionez[31], idatzia berregin behar balu, bere hartan utziko lituzkeela han adieraziak esanez kitatzen du andoaindarrazkoa.

> Besterekin, ordea, zorretan gelditu nintzenik ez dut ukatzen, hitz gogortxoak esan beharko nituelakoan ere bai, inoiz edo behin. (1962a:84).

Mitxelenak zuhurbeharrez hartua zuen isilik egoteko erabakia, baina kritika egiten duen horrek Bilintx eta "elizgizon jakin horiek" aurkez aurk paratzea dela medio, Mitxelena ere horiexek berdintzeko kinkan jarri du, gogoaren kontra jarri ere. Hori dela eta, *gogo gaiztoz* bada ere, aurre egiten dio errenteriarrak eginkizun horri.

Zabala-Arana, Urrutia eta Arriandiaga euskaltzaleen lanak direla eta, nahiz

---

[28]Zehaztasunetan sartuta, 37 lerro t'erdi dira, ez kritikagileak ahotan dituen 38, Mitxelenak (1960b:132,133) Bilintxi eskainiak.

[29]Nolarebait, autu izan duguna.

[30]Gogoan izan, halaz ere, Larramendiri eskaini kapituluan, hiztegiaren izaeraz zehaztua.

[31]Ikus honi eskainiriko kapitulua.

errespetuzko eskerrona adierazten dien, "*Daneurtitziak*[32], "*Pisiak*[33] nahiz "*Goizparkiak*[34] moldatzeko, berebiziko gaitasunik gabe ere ("nere eskasean") mami daitezkeela azpimarkatzen du. Hau esanik, auzi sakonago eta korapilatsuagoetan sartzeari, hau da, Mitxelenak begi onez ikusten ez dituen komatxo arteko *hizparriak* juzgatzeari, muzin egiten dio.

Sortzeko gaitasuna da, hain zuzen ere, Mitxelenak aipatu berri *jakintsuak* eta Bilintx *arlotearen* arteko aukera egiteko darabilen neurgailua. Berdingaiengandik lekora dagoen hirugarrenak –Mitxelenak berak, alegia– bere burua neurketan sartu eta, zer lan-mota egin lezakeen eta zein ez erabakigarri bilakatzen du.

Hau da, hain bestelako direnak erkatzera behartu dutenez gero, bestek lehian jarririkoak erreferentzi puntu beraren arabera neurtu beharrean, Mitxelenak bere burua jomuga horretara iritsi ahal izatea ala ez izatea jotzen du begiz auzian ezker-eskuin egiteko. Ez du, beraz, kritikagileak asmo lukeen barrutitik erantzuten, Mitxelenak berak hautatutik baizik.

Arrazoi beraren ondorea da, apika, Mitxelenak bigarren baliabide bat ere erabiltzea. Elizqizonak eta bertsolaria zuzenean berdindu nahi ez eta, lehengo aukera sendotzeko, batzuek eta besteak landuriko gaiak hautesten ditu. Oraingoan, *egiazko lirika* eta *jakituria* dira kontrakarrean jarriak:

> Egiazko lirikarako[35] joera ez dator ez jakitetik ez hizkuntza landutik. Barrendik dator edo, nahiago baduzue, goitik. Eta egiazko lirikaren urrearen aldamenean gainerako guztia –eta batipat jakitun ugariaren ume dena– ez da tupiki ozena baizik, gehienaz ere. (1962a:84).

Mitxelena hizkuntzalari jakintsuak, *egiazko lirika* beste edozeren gainetik jartzen du hemen, izendatuki pleguetara ez dituen elizgizonen eta aipatuko duen Bilintxen artekoan, bertsolaria garaile irten dadin. Izan ere, egiazko lirikari begira, lehen *askojakin*tzat jo dituen haiei, ezin albora dakieke, –irudi bidez esanez– *edale huna, kapaxarduna* behialako esaera, egiazko lirikari begira, bai, ordea, honen "izpitxo bat edo beste" Bilintx arloteari.

Hautetsiriko neurgailuak ematen dio bide Mitxelenari, beraz, hasierako lerro-kopuruaren auzira itzuliz, bereari irmo eutsi eta areagotuz, honakoa ondorioztatzeko: "Aski

---

[32][Zabala-Arrnak] "Publicó además *daneurtiztia* ("Geometría"), *Zenbakiztiya* ("Aritmética"), etc.". (Villasante 1978_2:360).

[33]"Pero su [G. Jauregi Unibarrenen] más valiosa contribución a la cultura vasca fueron los dos libros siguientes: *Pisia* ("Física"), 1935 (...) *Kimia* ("Química"), 1936". (Villasante 1979_2:373).

[34]*Goizpa*/ datoʃ *goi-izpa*/'tik: goi edo zerutiko izpaʃa. *Izpa*/a da, gauʃ erderatik ahutako *baʃija* lakoxia, ta datoʃ *itz-baʃ*'tik. Baʃa esan leʃeke *guzpa*/, oʃ ta *u* baʃdin diralako. *Goizpa*/ edo *guzpa*/, ba, pantzeraz *évangile* ta espaňeraz *evangelio* da". (Arana Goiri *O.C.*:1407; "Lenengo egutegi bizkataʃa" 1898koa).

[35]Lizardiz aritzean itzuliko gara puntu honetara

merezimendu da hori hirurehun lerro merezi izateko, hogeita hamar ez ezik"[36].

Hala kritikariak nola Mitxelenak, elkarren kontra paratuak bere soilean hartu beharrean, gorpuzten dituzten joerak epaitzeko darabiltzatela pentsa daiteke, garbinahia izaki batzuk eta besteak banatzeko irizpidea: kritikagile ezagungabea, garbi-isuridunen aldeko agertzen da, Mitxelena, aldiz, horrek gutxietsien. Era honetan, Bilintxen bertsoen bilduma Mitxelenak hizpide hartu du, Bilintxez ez ezen, garai horretan puri-purian zegoen eztabaidaz ere bere iritziak jendarteratzeko.

* (1976) "Hitz bitan", E. Bozas Urrutia, *Andanzas y mudanzas de mi pueblo. Errenteria kondairan eta ipuin zaharretan*, Donostia, 1976, XVIII-XXXI. [*MEIG* IX, 40-45]. (1976b).

Lan honek ez du, beharbada, kokagune erosorik begiz jo den anarteko sailkamoduan[37].

Zailtasuna, jatorriz gaztelaniaz idatzia eta argia ikusia izanik ere, berrargitaratzean erantsiriko alderdi batek –euskal bihurrera aldamenean paratzeak[38]– eta, Mitxelenak bigarren argitaraldi honi atarikoa egitean juzkupean hartzen dituenak sorrarazten dute.

Argitaraldien, hobeto esan, berrargitaraldien saila ez du, apika, babesleku egokiena, ez baita Mitxelenaren hitzetan, gai honezazko aierurik inon ageri, baina nolazpait ere, Mitxelenaren isilaldia ulertzekoa da. Gabiltzan testuinguruaren zedarrietan barrena, hots, euskal lanen plazaratzean, argitaratzaileak besteren lanean eskua sartzean asmatu duen edo okerrera duen juzgatzeko aukerarik ez du eta Mitxelenak, jatorrizko testua gaztelaniaz egoki.

Bestetik berriz, itzul-lanen artean ere sar zitekeen. Testuan ikusiko denez, haatik, Mitxelenak iruzkinak egiterakoan itzulpena berariaz ez baina, jatorrizko testu gaztelaniazkoa batez ere gogoan izatea, debeku begitantzen da.

Kapituluan zehar ikusi eta ikusiko diren lanak ez bezalakoa den honentzat –zuzen ala oker– begietsi den kokalekua, hauxe da, asmalan baten (kasu bakar honetan erdal asmalan baten) argitara ematea duelako Mitxelenak idaz-barrutia eta, ez duelako lanaren iraulpena ebazgai hautatu, argitaratzea bera, hots, argitaramodua, autu izango ez badu ere.

Honela, bada, estreinakoz gaztelaniaz gatzaturiko liburu honen berrargitaraldi

---

[36](1962a:84).

[37]Egia esan, irizpide, aztergaia ez baina, Mitxelenaren testu-mota aukeratu izan bagenu, sail berezi bat antola zitekeen hitzaurre soilekin, baina liburu-iruzkin hutsaren eta kritikaren arteko mugak ez zaizkigu, Mitxelenaren kasuan, hain garden eta aratz begitantzen, esan dugun bezala, erreseina-itxurako lantxo "inozoetan", lerro gutxitan, mami askorik bil bataiteke, lanaren kontu-emate xumetzat hartzeko.

Gainera, autu dugun auzian, argitaratzaileen lanak bereziki, sail oso baten jabe izateko adinako pisua duela, iruditzen zaigu.

Honetan oin hartuz, zentzuzkoago ikusi dugu –oker, apika– egin dugun moduan egitea, 1976ko lan honek sortzen dizkigun auziak auzi.

[38]1921eko jatorrizkoaren itzultzailea, Rodolfo Bozas Urrutia, Evaristo Bozas Urrutia egilearen seme eta Euskaltzaindiko urgazlea, da.

elebiduna, Mitxelenak hornituriko euskal hitzaurre bikoitzaz – bi baitira hitzaurreak, ez bakarra itzulia[39]– hornitzen du. Euskaraz eginean aurki daitezke, hain justu, kapitulu honen gaiari dagozkionak, Mitxelenak bere burua kokatzea barne:

> Alde bat aurki daiteke, halaz guztiz, gure irizien eta gure autorearenaren [Evaristo aitarenaren] artean. Guk, eredutzat hartuak ditugunez gero, ez dugu uste Xenpelarren[bertso]ak inoren zurikeia[40] beharrean daudenik. **Gu ez gara garbi-zaleeglak**; hura, berriz, arraioak ez badu, garbizaleen kontra[41] ausarki mintzatzen zaigun hura, **garbizaletasunaren harrak joa** agertzen zaigu, hondarrik hondarrenean. Izan ere, garbizaleak izan genituen, garbizaletasunari era batean nahiz bestean amore emanak, Arana Goiri eta sabindarrak ez ezik, Azkue, Txomin Agirre, Urkixo eta azkenik, Bozas Urrutia bera, nondipait ere. (1976a:43). (Beltz. gurea).

---

[39]Contado esto y, como me he comprometido a escribir el prólogo o los dos prólogos -porque no voy a repetir en uno, prevaleciéndome de la diferencia de lengua, lo que ya se dice en el otro-". (1976b:XXIV).

Halaber:

"Euskal irakurleak erderaz irakurtzen du, denon gisara, eta ez dago euskaraz berresan beharrik erderaz hobeto behin eta berriro esan diren gauzak irakurleari zerbait jakingarri ez badakarkiote". (1957a:83).

Ez berresatea, agindu ez ezik bete ere betetzen du Mitxelenak. Urrutiragoko gabe, kapitulu honetara ekartzeko biderik ematen ez du erdal aitzin-solasak, garbinahiaren inguruko auzirik ahotan ez du eta.

[40]Egoki deritzagu bi aldeerak, Evaristo Bozas Urrutia aitarena eta Rodolfo seme euskaratzailearena hona ekartzeari, besteak beste, jatorrizkotik euskaratura dauden aldeak (adibideak, esate baterako) ez ezik, itzultzailearen egikera ere agerian utz ditzakeelako:

"Su construcción poética [Xenpelarrena, alegia] se resiente frecuentemente del vicio de «vascongadizar» caprichosamente palabras de visible origen y significación castellanos. No es suya, si se quiere, la culpa de ello. El pueblo vasco, de cien años a esta parte, viene sustituyendo en el uso viejas palabras por otras castellanas, mejor avenidas para el recíproco entendimiento entre las gentes. En el vascuence de Xenpelar, recogido en el pueblo, se deslizan palabras como éstas: ***prestatzen, gustatzen, maliziya, arrazoi, pentsatu, entenditu, desio***. No hay que extrañarse de ello. Entre nuestros «arrantzales» solía cantarse años atrás, en tiempos de menos cosmopolitismo, versos bilingües como éste, que pretenden pasar por vascos:

Ez enbarkatu, maitia
ez enbarkatu, amoriyua,
zergatik etorriko zaizun
mariasiyua...

-Au dek au, vascuentzez ablatzeko manera!- exclamaban burlonamente los euskerófilos.

Pero la verdad es que tal es el vascuence que hablan miles y miles de vascos netos y de ahí el éxito de Xenpelar ante el inapelable juicio popular. Claro que los cánones del vascuence moderno no le perdonarán su erderización, pero esto no le quita un solo mérito a Xenpelar, cuyo nombre repiten con cariño los aldeanos de mi pueblo". (Bozas Urrutia 1976_2:280,281). (Beltz. gurea).

"Badu akatsa: parrastan erabiltzen dituela, erderatikako itzak. Baina ez bota berari kulpa guzia, horixe bera egiten bait-dute euskaldun gehienek aspalditxodanik aikarri konprentzeko egokiago diren itzak artuaz. Xenpelarren izkeran -herri-hizkera baita- honelako itzak arkitzen ditugu: **abertsariyua, graziya, disimulatu, igual, kuidadoz, erretirua, maldiziyo**... Ez da arritzeko gauza. Aspaldi batez, gaur bezainbat herri-nahaspilik ez zen egunetan ere, honoko «euskaldun» kanta hauxe kantatu oi zuten gure arrantzaleek: (...)

Baina, halakoxea da millaka da millaka euskaldun jatorrek itz egiten duten euskara eta horixek datorkio «Xenpelar»-eri erri-jende artean duen arrakasta ta entzutea. Gaurko euskaldun gazbizaleek ez diote noski erdaljoera hori barkatuko; bainan horrek ez du Xenpelarren meritua ezertan ere mendratzen eta ttipitzen. Ta haren izenaz maiterik gogoratzen dira nire herriko baserritarrak". (Bozas Urrutia 1976_2:282,283). (Beltz. gurea).

[41]Arestiko aipamenean irauliez gain, Bozas Urrutiaren beste hau ere irakur daiteke, Mitxelenaren baieztapenaren euskarri:

"Vez pasada, unos cuantos mocitos bromistas, de los **puristas filológicos-literarios** se le rieron a Uranga con motivo de un certamen a celebrarse en Francia". (Bozas Urrutia 1976_2:328). (Beltz. gurea).

Hona semearen euskal bihurrera:

"Lehengo batez, Euskal-Herrian egiteko zegoen bertso-txapelketa bat kausa zela, **Euzkadi aldeko** gaztetxo trufatzaile zenbaitek adarra jo nai izan zioten Urangari". (Bozas Urrutia 1976_2:329). (Beltz. gurea).

Bere burua *garbizaleegi*tzat ez daukan Mitxelenaren eta beste errenteriarraren arteko aldea, bigarrenaren jokabidearen bitxian gorpuztен da: nolatan, garbizaleen kontra mintzatzen den horrek, Xenpelarren hizkerazkoak zuritu beharreko atakan ikusi bere burua?

Garbi-isuria erabat ukatzen ez duen Mitxelenari (*-egi*k adierazten duen gehiegizko maila[42] baita hor ukatua, ez izenondoa bere betean) gaitz zaio ulertzea, bere burua garbizaletzat ez daukan Bozas Urrutiaren jokabidea. Honek eginak erakusten du ez duela zintzoki sinesten ontzat emaniko jokamoldean, egin duen Xenpelarren jokabide-zuriketak, kanorerik ez du, ez baitago zuzenetsia besteren aurrean zer arrazoitu.

Aipamen honezaz gain, badira garbitasun-auziaren ondorioak (eta batasuneranzko bide malkarra) ukitzen duten beste honako hitzak:

> Gure literatur tradizioan, urria delarik, maiz gertatu ohi diren eten horietako bat gertatu baitzen batzuen eta besteen artean. Hizkuntzaren aldetik, lehen buruan. Ikus, bestela, gure autoreak XVIIIgn. kapituluan "de ese vascuence difícil" dioena: "Nazionalisten euskera akademikoaz ari naiz, jakina; nik konprenitzen dudan euskera, amonak eta amak irakatsia dut". Bazen orduan ere, orain bezalaxe, amaren –eta are amonaren– hizkuntza aipatzen eta goraipatzen zuenik[43]. Eta egingo nuke, gainera, harako Bozas Urrutiaren hark eta honako zenbaiten honek, biak amaldekoak izanik, ez dutela elkarren antz handirik. (1976a:44).

Hitzotan, euskal barrutian istilurik aski biztu zituzten bi auzi islatzen direla suma daiteke: "euskara zaila / euskara erraza" deitu ohi dena[44] eta, honekin lokarri estua duen "ama" ahotan hartzearena, alegia.

Lehena, hizperriekin eta garai bateko euskara idatziaren moldearekin bete-betean uztar daiteke; bigarrena, berriz, aurrekoaren ildoari jarraikitzen zaiola –are, kontrakarrean paratu ohi zitzaiola– pentsa daiteke, arestikoak sortu ohi zuen zailtasunaren aurrean, nork bere herri

---

[42] *EGLU-I* (1985:293).

[43] Gogora daiteke "Pro domo"-n Zaloñarekiko liskarra. Hona lerro batzuk erakusgarri:

"Segur dakidana besterik da: ez Eleizalderen, ez neronen, ez hark dioen bezala, horretaz, beste hizkuntzei begiraldirik bat emanaz, noizean behin bederen pentsatu duenaren ustez, ezin dezakeela iraun gure hizkuntzak oraingo heinean, **bakoitzaren "amaren hizkuntza" delarik, ama horiek gehiegi direlako, eta desberdinegiak dituzten mintzaerak.**

Batasun-bidez ahalzekotan, nahitaezkoa da, aldez aurretik, zer batu nahi dugun jakitea; zein diren euskaikien arteko berezkuntzak ezagutzea. **Euskara *norberaren* "amaren hizkuntza" dela uste duguno, eta ez auzokoaren amarena, batasun-bidean gara beti. Bidean ez ezik, batasunean bertan: aski da, eta hori da uste duguna nahiz altor ez dezagun, beste guztiak *guregana* makurtzea, gainerakoek guri amore ematea. Gauza errazagoriki".** (1970c:142). (Beltz. gurea).

Edo, Bergarako bilkuran berriz ere adierazia:

"Euskalkiak, bestalde, Villasantek ederki arestian erakutsi duenaren arabera, ez dira inoren "amaren hizkuntza". Batuak dira, nolanahi ere, goraka dabiltzanean bederen eta ez beheraka, *standard* bihurtuak zenbait erabilera eta usariotarako. Ez bakarrik, bestela badirudi ere, izkribu ikasi eta prediku jakintsuetarako". (1978c:165).

Ikus, halaber, aurreko kapituluan Zuazok (1989) gai honezaz esanak, "gipuzkerak" zirela eta.

[44] Auzi honen oihartzunak irakur daitezke, esate baterako, Iztuetaren (1991a) lanean.

herrixka, auzo nahiz txokoko hizkera-modua jator bakartzat hartzearekin.

Mitxelenak pleguetara daramatzan hitzek, ez batean ez bestean kokatzen duela bere burua ondorioztatzeko bidea ematen dute. Izan ere, "euskara zaila", literatur tradizio xumean gertaturiko etenetariko baten ondo-ondoan aipatzen duen bitartean, ez du besteren (kasu honetan Bozas Urrutiaren) aldeko apustu egiten, "nazionalisten euskera akademikoaren" bestalde hautagai paraturikoa ez baita molde finkoa duen hizkera, "nork bere amarena" izaki, modu asko eta askotarikoak izan daitezke eta.

Honenbestez, inoren aldeko adierazpide berariazkorik ezean, hobeto esan, bi jokaeron aurreko jarrera kritikoaren aurrean, Mitxelenak, batasun-bidearen arriskuak eta bide horren aldapatsua ikustarazi asmo duela gogoeman daiteke.

4.2.1.2. Bere baitakoak

* (1955) "Yon Etxaide, *Joanak-joan*, Kuliska sorta, 9-10gn. zenbakia, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en", *Egan* 5-6, 69-71 [*MEIG* II, 55-58]. (1955a).

Etxaideren asmalan honi eginiko iruzkinean, Mitxelenak literatur kritikari bete-betean dagozkionak hizkuntz aldetikakoen alboan pleguetaratzen ditu. Hemen, kapituluaren ardatzari atxikiz, bigarrenei bakarrik erreparatuko zaie.

Hizkeraren barrutian, beraz, bi *gauzatxo* begitantzen zaizkio Mitxelenari nabarmengarri. Bat, Etxaide *gramatikaria* Etxaide *idazleari* nagusitzearen ondoriotzat daukana.

Etxaidek, euskararen esateko moduez atzenduz, euskara bere moldeetara aldatu du, gramatika hizkuntzaren neurrira makurtu beharrean hizkuntza gramatikarenera egokituz[45]. Alde honetatik, beraz, Etxaide, hizkuntza balizko gramatikaren mirabe bihurtu dutenen samaldakotzat jotzen du Mitxelenak.

Badu, haatik, Etxaidek bigarren kritikatzekorik ere. Etxaidek oin-oharretan euskal hitzen erdal azalpen ugari txertatzen ditu han-hemen. Azalpen horiek destokituak daude Mitxelenarentzat, literatur lan hauetan lekurik ez dute, hizkuntza ongi menderatzen duten irakurleentzat baitira *Joanak joan*en gisako lanak.

Hondarraren hondarrenean, hizkuntzen arteko harremanei buruzko ikuspegia du Etxaidek eragile. Izan ere, adierraztasunak baino areago (Mitxelenak bestetan ere aipatzen duen) desafioari erantzuteak bultzatzen du Etxaide (eta era honetara jokatzen dutenak); erdaraz zail eta dotore esan ohi direnak, euskaraz honenbeste (edo hobeto) esan daitezkeela erakusteak, alegia. Honek, ordea, Mitxelenak oso gogoko ez bide duen[46] hitz bat agerian

---

[45] "Berak aurretik jakin izan balu Gaxuxarekin asteak zekarkiokean ondoren gaiztoa, *elitzateke asiko* noski" da Mitxelenak aldatzen duen Etxaideren pasarte makurra. (1955a:57)

[46] Ez dugu esan nahi hitzari berez arbuiatzeko derrigorrik. Hitz horrek euskararen gaitz guztien iturburuaren estalkia ikusten dutenen jokamoldea da Mitxelenari gogoateragiten diona.

Auzi hau berriz ere azterkizun hartuko dugu.

uzten du: **diglosia**, bestela esan, **mendekotasuna, morrontza**[47].

> Galda diezaiogun geure buruari: irakurleari lagundu nahia al dugu eragile bakarra, erdarara itzultzen ari garenean? Ez ote digu beste ezerk zimiko egiten inoiz? Esate baterako, mundu guztiari adierazi nahiak: «Begira zein ederki, eta hori euskaraz ari naizelarik, esaten dudan nik: «impulsado por el furor de un odio indomable», edo «con su habilidosa y dúctil conversación», edo «los seres humanos poseemos una tendencia inanata al mal». Ohar horiek hitzek baino askotaz nabarmenago aitortzen dute bi hizkuntza mota direla guretzat: erdara, hizkuntza nagusia; euskara mirabea eta mendekoa. (1955a:58).

Mitxelenak bide honi erabat gaitzirizten dio, era horietara jokatuz ez baitago euskararik jasotzerik[48], ezta literatur lanen mailan goregi jotzerik ere:

> Ez deritzat nik euskara bide honetatik jaso litekeenik. Euskarak erdaraz esan ez diren, edo hain ongi adierazi ez diren, gogoeta eta bihotzondokoei bide emanaz bakarrik jaso dezake burua, lehen, orain eta beti. Gainerakoari izen itsusi bat eman diote frantsesek: *pastiche*. (1955a:58).

Areago, zehaztu ere egiten du zein eginkizun duten euskal literatur lanek bere ustez. Euskaldunagan etorkia duten adierazkizun-sentimenduen oihartzun izan behar du sorlanak eta ez beste hizkuntzari begira, hartan esanak adierazteko gauza badela erakustea xede duena[49].

Besterik ere badio Mitxelenak hitz horietan. Izan ere, aurrerago argi eta garbi adieraziko duen zerbait bidenabar edo esana baitago: euskal sorlanak behar dira itzul-lanak baino areago.

* (1957) "Sarrera-itz batzu"[50], J. L. Alvarez Enparanza, *Leturia'ren egunkari ezkutua*. Bilbao, 5-17 [*MIH*, 296-305; *MEIG* V, 137-145]. (1957g).

Mitxelenaren lehen[51] aitzin-solas aitortu honek leku berezia behar du honaino bildu eta aztertu diren euskal lanen artean.

Berezitasuna –Txillardegiren gaztetasuna dela medio– Mitxelenak giro berrien "bozeramaile" antzematean datza batipat. Honen kariaz, Mitxelenak, bai egilea bai honek

---

[47] Mintzatuko gara honezaz.

[48] Itzultzearen betekizunaz aritzean zehaztuko dugu puntu hau.

[49] Lizardiri eskainiko diogun kapituluan itzuliko gara euskal literaturaren eginkizunarekiko auzi honetara.

[50] *MEIG* V.ean jasoriko hitzaurre honetako zenbait pasarte *Egan*, 1957 (3-4), 225 (eta orain *MEIG* II.ean) *J.L. Alvarez Enparantza (Txillardegi), LETURIAren EGUNKARI EZKUTUA, Euskal idaz-lanak Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1957* izenburupean eman ziren argitara.

[51] "Ez dut gaurdaino hitzaurrerik egin, eta ez nuen uste gogoz egiten ari naizen egitekn hori gogoz egin zitekeenik". (1957g:137).

gatzatua joko ditu begiz iruzkingai, argitaraeraz ezer esateari muzin eginez[52].

Berezitasun horren lagungarri ere bada Mitxelenak besteren liburuei iritziekin alderatuz honetan suma daitekeena. Sarri askotan, liburu-erreseinen taxukoak izan ohi dira Mitxelenak besteri eginak, hau da, iruzkin laburrak, *Leturia*ri eskainiriko honek, berriz, luze-laburrez eta pleguen mamiaren sakonaz, iruzkin soilaren zedarriak gainditzen dituela gogoeman daiteke.

Areago, Alvarez Enparanzaren lan honek garai hartan izan zezakeen arrakastaz ongi jabetua da Mitxelena hitzaurrea egiten dionean, bertan berariaz nabarmendu eta, urte batzuk geroago berriz ere gogoraziko duenez[53].

Lan honetan ikusten ditu Mitxelenak garaiko euskal gizarte hiritarraren errainuak, mamiz eta hizkeraz.

Mamiaren berrikuntza, Lizardiren giro-aldien heriotz ziurtagiriaren moduan begitantzen zaio sarreragileari[54], ez baititu Mitxelenak, Lizardi (eta "Urte giroak") eta Txillardegi (eta *Leturia*) oharkabean berdintzen; batak eta besteak aurkezturiko munduen arteko borroka dago azpian; bata eta bestea dira zerbaiten sinbolo; J. Azurmendiren hitzetan, belaunaldi *zahar eta berriena*, alegia:

> Nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta *Leturiaren egunkari ezkutua* gizaldi berri baten eta gizaldi horren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit (...) Gizaldi berria –Txillardegi eta bere seme Leturia hartzen ditut egia horren lekuko– gurea baino hobea, jatorragoa, iruditzen zait zenbait

---

[52] *Egan*ekoan honi eskainiriko hitzak ez bide dira Mitxelenaren lumatikakoak:

"Agertu berria da, Bilboko Ellakuriarenean txukunki inprimatua eta J.M. Alvarez Enparantza, egilearen anaiaren, edergarri dotorez apaindua lankide marte dugun Txillardegiren lehen liburua: eleberri bat. Era berriko liburua da gure artean. Zertan datzan berritasun hori agertzeko, L. Mitxelenak liburuari eman dion hitzaurretik aldatzen ditugu hona zenbait lerro". (*Egan* eta *MEIG* II:89).

Argitaraerazko bazterreko oharñoa:

MEIG V.eko "Sarrera hitz batzu" eta *MEIG* II.eko "J.L. Alvarez Enparantza..." ez datoz osotoro bat pasarte berak egokitzean, ortografiazkoak alde batera utzita. Hona aldeak:

"Lehen baino lehen **has zedin** eskatu nion eta ahalik lasterren buka **zezan**" (*MEIG* V)/ "Lehen baino lehen **hasi zedila** eskatu nion, eta ahalik lasterren buka **zezala**" (*MEIG* II);

"Baina, baldin **neure** iritzia estalkirik gabe agertu behar badut (...) horrenbesteko **garraxi** sarkorrik..." (*MEIG* V)/ "Baina, baldin **nere** iritzia estalkirik gabe agertu behar badut (...) horrenbesteko **karraxi** sarkorrik ..." (*MEIG* II);

"Ate joka **ditugu**..." (*MEIG* V)/ "Ate-joka **dauzkagu**..." (*MEIG* II).

Ditugu/dauzkagu bikoteari dagokionez, esan behar dugu, 1957ko jatorrizko "Sarrera-itz batzu" delakoan ez bata ez bestea daudela paperean, itzuri zitzaielako edo; *Egan*ekoan, bestalde, *dauzkagu* irakur daiteke.

Litekeena da, beraz, *MEIG* II.aren paratzailea azken honi hertsiki lotu bezala lotzea V.arena "Sarrera-itz batzu" 1957koari eta honenbestez, hutsunean *ditugu* tarteratzea, oin-ohar edo antzekorik ez daramalarik, halaz ere.

[53] 1970eko "Pro domo-n", hain zuzen. (1970c:146).

Eleberri honek biztu zituen kontrako erantzunen gibelean, honelako zerbait sumatzen ote Mitxelenak?:

"Gure pentsamolde kontserbadorea, ia aldez aurretik halabeharrari amore emanda, guztion gogoan dagoen axioma batera bil daiteke: gizarteko orekan zetorren edozein aldaketak, zenik txikienak ere, hizkuntzaren kaltetan gertatu behar zuen". (1978a:39).

[54] "Yo sabía que la temática de "Leturiaren egunkari ezkutua", primera novela de Txillardegi, demostraba que el firme y seguro mundo de Lizardi había dejado de existir. Llevaba un prólogo mío y se publicó en 1957". (Ibarzabal 1977:187).

Lizardiz antzean itzuliko gara honetara.

aldetatik. Itxurak eta izen ederrek gu baino gutxiago lotsatzen dituzte: izanari lotuagoak ageri dira izenari baino[55]. (1957g:143).

Mitxelenak, gizaldi berriak dakarrenari begira uzkur ez egoteari ezinbesteko deritzo ("gaur eta hemen, argi eta garbi ageri da jende berriaren premia").

Jende berriaren direlako ekarriok, txit funtsezko dira errenteriarrarentzat[56]: egia –zein ere mingarria dan–; makurrez jabetzea eskakizun duen kritika ("arrazoi-adineko egiteko latz eta nekagarria"), hau da, heldutasunak noraezeko dituen zerak biak eta irudizko haurtzaroko zorion okitua eta Paradisu galduaren bilaketa alferrari amaia eman nahi izatearen bitartez aurkezten dituenak[57]. Hok guztiok ikusten ditu Mitxelenak *Leturian* gorpuztuak.

Alde honetatik, beraz, gerra ondoko joera nagusiarekiko lehen eten larria sorrarazi du Txillardegiren *Leturi*aren mamiak:

> ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrik, horrenbesteko garraxi sarkorrik. Ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, Leturiarena bezalako

---

[55]Antzeko hitzak errepikatzen ditu 1972an duen elkarrizketa batean:

"Oraingo jendea euskal kultur gaietara isuriagoa aurkitzen dut, besteak beste, gure sasoikoa baino. Egia ere da bazela orduan orain ez den beste lanbiderik. Eta, gezurra badirudi ere, hauxe da oraingoei aurkitzen diedan alderik onena; lotsa galdu dutela. Harako guk genuen lotsa galzto hartaz ari naiz. Etsirik geunden euskaraz "paxamodu" mintzatzea, ahoz nahiz izkribuz ("tolerablemente", zion Orkaiztegik), apur batzuek bakarrik egin zezaketen gauza zela, eta errazegi jotzen genuen erdarara, mordoilokerian ez amiitzearren. Orain, berriz, lehen bakanka baizik erabiltzen ez ziren gaiak ere ausarki darabiltzate, dotoretasunaz gehiegi kezkatu gabe". (1972f:58).

[56]Mitxelenak hemen aitortu hauei erantsi beharko litzaieke, tesi honetan, bidenabar baino ukitu ez dugun beste auzi batean, batasun-bidearenean alegia, errenteriarrak aurkitzen duen aurrera egiteko iroz eta bultzagarria.

"Nik hemen esan dut lehen ere: ni ez nintzakeen [sic] behinere lan honetan sartuko, uste izan ez baldin banu atzetik indar bat zegoela, eta, jakina, indar horrek eragin behar dio ontziari eta guk gehienez ere lema pixkaren bat eskubira edo ezkerrera okertu, baina besterik ez. Nik badut esperantza franko, atzetik datorren indar horretan, gauza batengatik batez ere, alegia, nik uste dut, gu ere inoiz gazteak izanak gara, gehien bat oraingo gazteak, gutxiago izango dira beharbada; baina uste dut seriotasun gehiagorekin hartzen dituztela auzi hauek, ez dutela beren burua, hizkuntzaren kontuan esate baterako, gehiegi engainatu nahi, eta gauzak diren bezala ikusten dituztela: behar gorrian gaudela, heriotzako arriskuan; eta hori gerta ez dadin, nahi ta nahi ez lan gogorra egin behar dela, eta hori egiteko gertu baldin badaude, esperantza hoberik ezin izan dezakegu". (1968f:50,51).

"Berandu eta ezinbestean sartu nintzen gainera (...) «Urruxolako lekaioa» eta harako «Bazko biharamona» bezala, etorkizuneko kanta zaharretan maiz aipatua izango den Arantzazuko «okasio» hartan, bidea markatua eta irekia aurkitu nuen nik. Ez nuen uste orduan, eta ez dut orain uste, arrazoibide hutsen bitartez batasunera hel gaitezkeenik. Besterik ere behar da horretarako: gibelaldetik bulka eta bultzaka ari den indarren bat. Eta indar hori, bela haiza eta mugi zezakeen haizea, alde batean ikusten nuen. Ez bakarrik gazteago zirelako indardunak, baizik eta eragileago, langileago eta emakorrago agertzen zirelako. Usteak alderdia ustel omen du eta orduko kalkuluak oker zeudekeen. Ez dirudi, haatik, geroz gertatuak ikusi ondoan, kolpe huts egin genuenik". (1975e:62).

[57]Eta honelaxe geroago azpimarkatu ere, gazteen eta zaharren arteko konponbidea daitekeena dela esan ondoan, nahitaezko baldintza bakantzat jotzean:

"Adin hutsarte horretaz gainera, gogoan eduki behar genituzke urte hauetan gertatu eta gertatzen ari direnak: inoiz baino usuago etorri direi aldakuntzak esku hutsik aurkitu gaituzte. Ez da, beda, harritzeko etendurak, osinak eta elkar ezin ikusiak nabarme i agertzea. Ez da hori deuseztatuko duenik, baina konponketan saiatu behar genuke. Kondizio bakarra ipiniko nuke nik horretarako, baina bitan partitua eta berezia: kritikaren premian gara bai zaharrok eta bai gazteak. Zaharra ez da, zahar delako eta kito, errespetagarri; gaztearen irtziek ez dute, gazte baten ahotik edo lumatik jaiki direlako, arren-amenik merezi. Kritikarirnik zorrotzenek ez dute, dirudienez, kritika ontzat hartzen beren edo kideen bizkar doanean. Ez luke inork, ez zahar ez gaztek, bulda erosteko eskubiderik izan behar. Bulda, badakizu, orain herri euskararen aldekoek bula bihurtu duten hori duzu". (1975e:64).

ibilaldirik gogo bideetan barrena. (1957g:141).

Gisa honetako ibilaldiak erdaraz irakurri ohi dituzte euskaldunek; areago, honelakorik euskaraz idaztearen zilegitasuna ukatuko duenik ere ez da falta euskaldunen artean. Orain, berriz, euskaraz gatzatu eta buruturiko lan *berria* dute eskueran. Zeregin honetarako euskara izatea begiz joa -dakartzan oztopo eta erantsiriko zama bitarteko direla- Mitxelenari eskergarri iruditzen zaio:

> Eskerrak eman nahi nizkioke, azkenik, Txillardegiri eleberri hau euskaraz eman digulako. Ez ote du, bada, behar zuena, euskaldun bati dagokiona, bakarrik egin? Bai, horrelaxe da noski. Baina ez da alferrik esana izango, gure arteko gor asko kontura daitezen, eginbeharra ez dela sarritan nolanahi betetzen, heroismu hutsa eskatzen digula. Zerbait esateko duena euskaraz mintzatzea, mintzabeharra jatorra badu, ez da erraz eta alaikiro hartu eta burutuko den erabakia. Ez dago hemen egiari uko egiterik. (1957g:145).

"Zama erantsia" hartu du Txillardegik bizkar gainean hizkuntz aukera egin duenean, bere burua kinka honetan ikusi eta erabaki bera hartzen dutenek bezala.

Hizkuntza hautatzea dago batetik, baina hizkuntza hori nola erabili ere ez da baztertzekoa auzi honetan, mami berriak molde berriak eskatu ohi baititu eta **hizkeran** ikusten du, hain zuzen ere, Mitxelenak, gizaldi berriaren errainurik agerikoena:

> Hizkeran nabaritu baita, bestetan baino lehenago, gazteen etorrera, axal axalean ageri delako edo. (1957g:144).

Txillardegiren idaztankerari hertsiki dagozkionen artean hizkuntz mailakoak xeheki adierazten ditu Mitxelenak: Txillardegik "zaharrak eta berriak" darabiltzala dio. Zedarritzerik ezean, gogoeman daiteke, Mitxelena hitzez ari dela, ondoren eransten baitu Txillardegik liburuetan ikusiak dituela eta ez hiztegietan.

Azken honek badu garrantzirik, ikusiko denez, "laborategiko euskaraz" "amets-euskaldunentzat" idazten dutenei, hiztegi-bizitza soila dutenak erabiltzea aurpegirako baitie.

"Hitz arrotz eta jatorrak" darabiltza Txillardegik, batzuk eta besteak "jakintza hizkuntza eta herri esaerak" josita irauliz[58]. Iraulketa ez bide zaio Mitxelenari arras baketsua iruditzen, Txillardegi, begiz jotako hitz horiekin, "borroka bizian" ari dela zehazten baitu.

Borroka, bere ariman izkutaturik dauden burutapen sakon, iheskorrak, euskal hizkuntz mami bilakagogoak sorrarazten dio.

Orain arte[59] euskaraz molde-izaerarik izan ez duten gogoetak euskaraz eman nahiak

---

[58]Azpimarkatzen diruen hauexek ez ote dakizkieke aurki Mitxelenaren pieguei?

[59]Berritasuna, gai-aukerari baino areago hizkuntz aukerari bide dagokio:

"Liburu honen iturburuen bila hasiz gero, aurkituko genuke noski nor aipa. Euskaldun baten izena behinik behin, Unamunorena, aise etorriko litzaiguke gogora. Oker handia egingo genieke, ordea, bai Leturiari bai egileari,

areagotzen du borroka, adierazkizun dituenak euskaraz adierazi beharrak larriago egiten nobelagilearen lana, lehen jasotzen zenez.

Inon begiratzerik ez baitu Txillardegik eredu bila: "Ez baita, batez ere, inoren oihartzun, ez baita besteren ahoz ari, bere baitaren baitatik baizik"[60].

Adieraznahia adierazlearen ederrari gainjartzeak ("ez baititu hitz politak apainkiro elkartu nahi belarrien gozorako"[61]) zenbait ondorio dakarzkio idaztizkuntzari: mintzaera "gordin antxa" du ezinbestean, euskal barrutian heltzeko betarik izan ez duten adigaiak baititu autu eta honen ondoan, hizkera, apika, "oso **garbia** ez izatea". Halarik ere, Mitxelenak aurrera baino lehen libratzen du Txillardegi lepora zekiokeen "mordoilokeriaren" gaitzetik:

> Bizia eta adierazkorra baldin bada, zertarako behar du garbia izan? Euskararekiko kontuak ere garbiro egin beharrean aurkitzen gara. Zertarako nahi eta behar dugu euskara? Gure mundukoa ez den oroigarri xahar kuttun bat eduki genezakeen moduan edukitzeko? Zikintzeko beldurrez inor ukitzera ausartzen ez den zenbait liburutegitako azal ederreko liburuak bezala gordetzeko? (1957g:144).

Hementxe agertzen du Mitxelenak, aurrerago ikusiko den **euskara garbia / euskara bizi**aren arteko dikotomia. Euskara garbiak Mitxelenari -besteri aldi berriek dakarzkioten- "hileta hotsak" dakarzkio belarrietara; garbi ez den euskara "bizi eta adierazkorrak", berriz, "udaberri aurrean" egon ustea eta, Txillardegi, halakoaz baliatu denez gero, mundua bestela ikusten duen eta ohi ez ziren gaiez euskaraz mintzatu nahiko duen "gizaldi berri horren obren aitzindari" agertzen zaio Mitxelenari.

* (1960) "Txillardegi" (Jose Luis Alvarez Enparantza), *Peru Leartza'ko*, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en, 1960", *Egan* 1-2, 101-106 [*MIH*, 333-340; *MEIG* II, 135-142]. (1960d).

Txillardegiren bigarren "nobela antzekoari" Mitxelenak eginiko iruzkin honi ere "zenbait aldetatik bakarrik" begiratuko zaio. Zehatz esanez, Peruk, garai bateko euskal gazteen artean indarrean egon zen irtenbidea sinboliza dezakeenetik, batipat.

Hona ekartzeko arrazoia, ez da hizkuntzaren mailakoa beraz, ez bete-betean, bederen. Izan ere, Txillardegik idazlan honetan darabilen hizkeraz ezer gutxi dio Mitxelenak: kritikaren amaialdean irakur daitezkeen ondoko hitzak besterik ez:

---

bide horretatik abiatuko begira. Jakina, egileak ez du deus sortu ezerezetik, sortzailea baliatzeke orduan, Jainkoaren antzera, ez egilea. Leturiaren nahigabea ere ez da beste inork sumatu ez duenetakoa, non eta noiznahiko gizonarena -eta batez ere gaurkoarena- baizik". (1957g:141).

"Beretasuna", halaz ere, ezin uka dakioke:

"Ez uste izan, orduan, horrenbestez bere kezkak ez direla besterenaren ispilu eta errainu besterik. Bihotz bihotzean daramazki itzaturik, nork ukatuko dio, bada, jabetasuna? Ba ote da ohazea baino gauza gureagorik?". (1957g:141).

Halaber, "[Leturia] Aquello era nuevo, aunque a otros niveles no fuera realmente innovador, tampoco ere mera copia. Era expresión vasca". (Ibarzabal 1977:187).

[60](1957g:144).

[61](1957g:144).

> Honaino heldu naiz, eta pozkarri da, liburu honen idaz tankera ahotan hartu gabe. Bizpahiru hitz aski izan bitez. Txillardegiren euskara ez da, nere ustez, hutsik gabea, baina liburu honetan ere ederki bete du egitekorik gaitzena: bizkor, zailu eta erraz mintzatzea. (1960d:142).

Mitxelenak berak aitortzen du, idaztankera hizpidean ez izatea, hain justu, seinale ontzat hartu behar dela, beztekorik kausitu ez diolako edo[62].

Nolanahi dela ere, bukaerako aditzondoek garbi azaleratzen dute, Txillardegiren euskarari, "hutsik gabea" ez denari eta, (Mitxelenak honela berariaz ez dioen arren) garbizaletzat jo ez daitekeenari Mitxelenak zer irizten dion.

Bestelako arrazoia da, beraz, hona ekartzearen iturburua. Idazlanaren azalari ez baina, mamiari dagokio.

Txillardegiren estreinako "nobela antzekoaren" (hau ere halakotzat baitauka Mitxelenak[63]) aitzin-solasean, errenteriarra ozen agertu da lan horren barne-azalen alde[64]; ikusi den bezala, euskara, garaian garaiko kezka-arrenkuren adierazgarri, bide berrietan barrena abiarazi duelako.

Bigarren honetan ere, nahiz alde honetatikako bozkariagarririk aurkitu duen, mamizkoak dira, batipat, Mitxelenak juzkupean hartu gogo dituenak.

Gure ustez, "garbi-mordoilo" auziaren zantzuak idazlan honetan kausitzen ote dituen Mitxelenak propio paperera ez isuri arren, belaunaldi berriaren (hizkeraz eta gogobidez berri) bozeramaile edo sinbolotzat hartzeak ezartzen du uztarria.

Eta uztartzearen irozgarri begitantzen da Mitxelenak, jasoko den pasarte batean, *zikindu* aditza erabiltzea. Txillardegik ez du euskara bitxi garbi eta aratz bailitzan hartu, aitzitik, gaurkotasunak eskakizun bide duen bide *zikinetan* sarrarazi baizik. Eta hau, euskararen osasunerako onuragarria da.

---

[62]Iztueta ere (1991a:1005) begietan ematen du Mitxelenaren hizkuntz alderdiko lasterreko adierazpideak. Honetatik eta *Peru* osoazko Mitxelenaren hitzetatik ondorioztatzen duena, haatik, ez da ongiegi uztartzen –testuan ikus daitekeenez– guk eginiko irakurrerarekin:

> " Txillardegiren hizkuntzaz, bi lerro bakarrik beretzen ditu [Mitxelenak]. Eta horiek azkenean, hauxe esateko (...) Ez dut kausitzen batere harrigarri hizkuntzarena hain gainetik pasatzea. Mitxelenak, batez ere, euskal literaturan arlo tematikoaren aldaketa justifikatu nahi zuen, modernotasunari ateak ireki nahi zizkion, gazteria berriaren pentsakerari babes morala eskaini nahi zion. Txillardegirekin kunplitzen da, hain zuzen, Mitxelenak 1951n aldarrikatzen zuen larre-hizkuntzaren hirnartzea. Horregatik da pozik sentitzen. Eta Peru Leartzakoa horrela txalotzean, horren egilea Orixek egin zion kritika zorrotzaren hatzaparretatik salbatzen du. Eta gazteriak, Mitxelenaren literatur erizpideak onerritziko ditu".
>
> Ez ditugu garbi ikusten direlako "justifikazio-pozak"

[63]"Nobela antzekoa izan zen, guztiok dakigunez, Txillardegiren lehen liburua: *Leturia'ren egunkari ezkutua*. Neronek ipini nion hitzaurrea, giro berrien sainalagarri iruditu zitzaidalako. Eta nobela antzekoa da *Peru Leartza'ko* hau ere. Alta baten seme izanik, badute elkarren eitea, baina ez dira berdinak, ezta alderatzeko ere". (1960d:136).

[64]Ikus, halere, Lizardiri eskainiko zalon kapituluan, Mitxelena eta Leturia (Txillardegiren eta honen gizaldiaren sinboloa, alegia) urruntzen dituenak.

Baina, arestikoaren ondoan (edo gainetik), esan ere daiteke idazlan horri abegi ona egin dion jende gaztearen pentsamoldean, Mitxelenari onartezin egiten zaiona eta, nolabait esan, azken orduko "berrikerietan" murgiltze itsuak, euskal gazteriari ekar liezazkiokeen arriskuak zehazteko ere baliatzen dela Mitxelena iruzkin honezaz. Mitxelenak, bere burua, jende gaztearen alde aurkeztuagatik, jende horrek eginiko guztia ontzat emateko prest ez dagoela ageri utzi nahi duela iruditzen zaigu[65].

Kritikarekin hasiz, Mitxelenak oraingoan ere (*Leturia*renean legez), poza agertzen du euskal idazlan honek argia ikusi duelako:

> biziro alartzen nau, besteri besterik iruditzen bazaio ere, liburu hori euskaraz idatzia ikusteak, bizi-bizirik dugulako seinalea baita. Bizirik badago, gaurkoa bada, egungo eguneko arazoak, gogoetak, kezkak eta nahigabeak behar ditu adierazi; gaurko edertasunez jantzi nahi badu, gaurko lokatzetan beharko du zikindu. Ametsa zoroa litzateke pakezko Arkadia miragarri bateko hizkuntza errugabea bezala gure mendean iraun dezakeenik sinestea. (1960d:136).

Euskararen iraupenaren seinale pozkarria da, beraz, Mitxelenarentzat, Txillardegiren beste lan hau, gaurkotasunak utzi beharreko ezinbesteko hatzak berarekin daramatzana.

Badu, gainera Mitxelenak, bere poza agertzeko bigarren arrazoi bat, Leturiagan sumatzen zuen bezalakoa; lan honetan islatuak daude gazteak asaldatzen dituzten haize berriak:

> Oinetako lur hau ikara dabilkigu eta ez dira oraindik txildu dardara berrien artzin-gidari datozen trumoi hots ilunak. Etorkizunaren berri jakin nahi genuke eta, etorkizunari antzemango badiogu, gu baino gazteagoek gogoan zer darabilten igerri egin behar. (1960d:136).

Erdi Aroko adierazpidea hartzen du Mitxelenak[66], euskal gizarte zaharraren zimentarrietan, gazteen burubide berriak sortzen ari diren artesituak iruditaratzeko. Eta Txillardegik, Peruren bitartez "gazteagoek gogoan darabiltena" sinbolizatzen du:

> Horixe balitz nabari gure artean, ezer nabari bada: hamabost urteren gorabeherak ireki duen osina (...) Bere buruz ari da, baina berekin dakar noski, halaz ere, bere gizaldiaren zantzua. (1960d:136).

---

[65] Errenteriarrak sarritan ahotan duen *amor fati* delakoaren ingurukoek ere izan dezakete ikuskizuna. Mitxelenak bere burua (eta honekin batean, hazaldi osoa) "desgaraiko" al dauka?:

"Ez dut deus esango neure kideko eta zaharragoen kontra, neure buruaren kontra mintzatzea baliatzeke. Aldi txarrean jaio gara gure neurriaren betea agertzeko: mendera ezin genitzakeen gertariek erabili gaituzte maiz aski orbela bezala nora ez genekiela". (1957g:143).

[66] "Erdi Arotik datorkigu, adibidez, harako *Oñetaco lurrau jabilt icaralau araguioc verean verala* hura edo, zertxobait aldaturik, *Oñetaco lurrau jabilt icara/gorpuceco lau araguioc berala*. Formula horiek bai apaingarri eta bai betegarri bezala erabiltzen baitziren, funtsez berdin zirautelarik batera eta bestera aldakizun: *metri causa* edo beste arrazoiren batengatik". (1977a:97).

Hau dela eta, Txillardegiren lan honek laguntza eskerga eskaintzen dio "gazteen" artekotzat bere burua ez daukan euskal irakurleari, hor adieraziek lagun baitezakete auzitan zer dagoen ohartarazten. Horren isla da, Mitxelenari berari gertatzen zaiona, maiz askitan, --hala dio, behintzat--, oraingoenak aditzea aspaldikoak aditzea baino zailago gertatzen baitzaio, eta ez bide da hizkera "gaiztasunaren" sorburua:

> Neri behintzat, egia altortu behar badut, gaitzago zait sarritan oraingo idazki franko barreintzea hamaboskarren[67] mendeko kanta zaharrak baino. (1960d:136).

Aipatuagatik eskerrak eman bezain sarri, halaz ere, Mitxelenak garbi adierazten du ez dusla bere burua sinbolo horren gerizpean ikusten; hau da, mintzagai izango dituen gazteen irtenbideak ezin bere egin dituela, zehaztuz joango den arrazoiengatik.

Mitxelenak bere burua, ohartuki, lan honetan sinbolizaturikotik urruntzera eta Peru[68] *sasiko*tzat jotzera daramaten gogoetak honela laburbil daitezke:

-"Peruren jatorrasuna honetan omen datza: gaur nabaitzen den joera zabala nortzean"

"Joera zabal" delako hori begiak ekialderantz iraultzea izaki, ez dute asmatu Mitxelenaren ustez, eredugarri zein ekialdeko bazter, ez zein egile hautesten: Mitxelenak Konfuziogandik gertuago ikusten du hurbilbidea Buddhagandik baino:

> Eta, diodan bidenabar, ez zukeen Peruk, entzun dudana egia baldin bada, maisu txarra aurkituko Konfuziogan, sortaldetarra hori ere eta txinoa gainera. Argia -edo ilunbea-, sortaldetik etortzekotan, oz ote zaigu Txinatik agertuko? (1960d:140).

-Peruk Buddha gidari badu ere, ez du budismoaren gogobidea behar bezala aditu eta, inork ikusi ez dizkionak ikusi dizkio, antza, indiarrari.

Mitxelenak, *etsi* euskal aditzaren esanahi-aniztasunak eskaintzen dion hitz-jokoa egiteko aukerari heldu eta, Peruren oker aditua iruditara darama:

> "Budismoaren zirikaldia etsipen osoa" izan daiteke, bai eta ez. Jakina da *etsi* eta *etsipen*-ekin oso xelebrekeria xelebrea gertatzen dela euskaraz: gaztelaniazko elkarren etsai amorratu diren *resignación* eta *desesperación*-ek adina adierazten duela berak bakarrik. Budismoaren etsipena *resignación* izango da gehienez ere eta gure Peruk, euskalduna izanik, oker aditu du hitzaren zentzua. (1960d:140).

---

[67] Honelaxe dio *h*bako jatorrizkoak.

[68] Esan bezala, ez gara sakonki sartuko literatur kritikari bere betean legozkiokeen Mitxelenaren juzkuen azterketan; Peruren irudiari helduko diogu, gizaldiaren sinbolo den aldetik batez ere.

Budismoaren oinarriez behar bezala jabetu ez delako, apika, ez du Peruk budistek legez jokatzen, gehienez ere, sasi-budistek legez, baizik:

> Bere nortasuna desegitea nahi ote du? Sala bedi ahaleginean makina bat budista zintzoren antzera. Ez duela nahi, horretan pentsatze hutsak beldurrez airean daukala? Sasi-budista da orduan, ez budista: ez du Buddhak tentatzen, izutzen baizik. (1960d:140).

Gordin esan, Mitxelenak garbi ikusten ez duena da "zer arraioren bila dabilen" Peru.

-*Etsipena* badu gidari, eredua okerreko tokian bilatu du, Mitxelenaren ustez, Indiara gabe Europa zaharrean bertan bai baitzuen non begiratu, estoikoen *amor fati* hortxe baitzuen ikasgai:

> Egin izan dute irakaspen horren probantza Peru baino estuasun larriagoetan aurkitu direnek, baita ikusi ere bere gizontasunari eustea duela gizonak lehen eginbidea. Hori, ordea, Europa zaharreko jokabide horietako bat izango da, beharbada. (1960d:141).

Honetantxe datza Mitxelena hondarrik hondarrenean kezkatzen duena eta gihia ukitzen diona. Euskal gazteek muzin egin diotela Europari[69] eta honek ekarriari, saihetseko arrazoiak polikiegi aztertzeke eta, urrutira jo dutela irtenbide bila, urrutikoak ere behar bezain ongi barneratu gabe, haatik.

Mitxelenaren burubide irmoa den zehaztasun-premia, egokitzen dio oraingo auzi honi ere, Txillardegiren liburuan jasotzen diren Gandhi "gizon begiragarriaren" hitzak zergatik ez ditzakeen onar adieraziz.

Europarrek makinak (teknika) egin dituztela egia bada ere (horiek bakarrik egin dituztela ez, ordea), oso gogoan behar da izan non duten iturburua makinek: **jakintzan**, alegia eta jakintzak[70], halaber, "jakin gosean", ez "aginte gosean". Honen bidez, ideia-katea bere tokian ezarri uste du Mitxelenak.

Europarrei dagozkie jakin-gosearen fruitu diren aurrerapide horiek, ez indiarrei, ez baitira azkenok horretan saiatu, eta horreian aritu ez izanak, hain zuzen, bilakatu ditu Europaren mendeko:

> Sator lanean dabiltza gehienez ere Europan barrena Budharen usteak; Indiako eremu zabal guztiak beteak daude, berriz, Europako makinaz, etxez, lantegiz, elizaz, ideaz, asmoz eta hizkuntzaz. Afrika-Asietako herri askatu berri edo askatasun bidean direnen marmar hotsa ez da gehienbat Europan ikasi dituzten hitzen, gogoeten eta hizkuntzen oihartzuna baizik. Erlijioan bertan askozaz gehiago

---

[69]Ez bide da halabehar hutsa, Mitxelenak urte berean "Asaba zaharren baratza-n" "Europa eta gu-z" atal batean lhardutea, ezta beste batean "Filosofia eta Jakintza-z" aritzea ere.

[70]Puntu honi dagozkionak aztertuko dira.

zor zion (berak aitortua) Gandhik kristautasunari, edozein europar nabarmenek budismoari baino. (1960d:141).

Europak mundu osoan izan duen eta duen eragina ukaezina da, beraz. Areago, ez du kanorerik, ekialdeko burubideak liluratuta, berri-itxuraz jantzirik[71] jabetu desio den gogozko sortalderatze horrek, ekialdekoek berek, Europatikako aurrerapide-ideiez baliatzearen abantailez ohartzen hasiak direla begien aurrean bada batez ere.

Horregatik Mitxelenak, azken ondorio gisa, ezjakitearen eta azken orduko berrikeria erakargarrien arriskuaren nondik-norakoa[72] eta honi aurre egiteko gaztigua eskaini gogo dizkie euskal gazteei:

> Gerta daitekeena deta derrizat gurea bezalako bazter herri bateko jendeak Europa arbuiatzen hastea Europaren berri ongi jakin baino lehenago. Europan bertan badaukagu, nere ustez, zer ikasia ugari luzarorako, bestetara jo gabe. Peñafloridak eta beste zalduntxoek XVIIIgarren mendean[73] hasi

---

[71] "Ez dut uste, esate baterako, egia denik, Europaz ari bagara, "Sorkaldearen anditasuna eta goratasuna orain asi geranik ezagutzen". Fr. Schlegel'en *Sprache und Weisheit der Inder* 1808koa da. Ez ote zuen geroxeago esan *Schopenhauer*-ek Indiako literatura aurkitu berriak eragin behar ziola joan den mendeari antzinakoen izkribuek Pizkunde aldiari adina? Jakite berri horren hotsa ez ote zuen ekarri nolazpait ere Chahok Euskalerriraino? Eta ez ote ditugu geurok, europarrok, argitara eman, aztertu eta azaldu Indiako erlijio-, arte-, eta jakite-liburuak ehunetan laurogeita hemeretzi bider?". (1960d:142).

[72] "Guk gosea berdintzeko daukagu; ez dugu oraingoz asearen beldurrik" dio, "Asaba zaharren baratza"-n. (1960a:45).

Eta *Zenbait hitzaldi*n dioen honetan ere, hizkuntzalaritzaz ari den arren, luntseko gai berbera datzala derizkiogu:

"Irizpide eta pentsamolde andana bat dugu eta hein batez irizpide hauek maiz, modak bezala, soziologiaren ondorio izan ohi dira; hemen ere modetan bezala estilo zaharragoak eta estilo berriagoak izan ohi ditugu. Horregatik, kulturaz marjinalak diren eskualdeetan -eta gurea marjinala da- arrisku bat dugu: pasa berriak diren teoriak azken hitza bezala hartzeko arriskua". (1972b0:24).

[73] Zalduntxoen ekarria ekarri, ez ditu estali gordetzen Mitxelenak berak nahiz bestek haiengan sumatu uste dituzten beztekoak:

"Gizon urduri eta gogor horien kezkak, ardailak eta lanak irakurri ondoren, askozaz ere hobeto ikusten eta ulertzen dugu XVIIIgarren mendeak Euskalerriari eragin zion gogo aldaketa. Eta argi eta garbi ikusten dugu hemen, gure artean ere, ekonomia izan dela goragoko lanbide apainagoen oinarri eta eragile. Konpainia sortu ez balitz, agertuko ote ziren, agertu ziren bezala, Azkoitiko Zalduntxoak? Jakin gosea diru gosearen ondoren eta diru gosearekin batean etorri zitzaigun.

Ildefonso Gurrutxaga jaunari entzun izan diot Matxinada deta gure artean Zalduntxoen beste aurpegia, aurpegi beltz eta lotsagarri xamarra: Zalduntxoak baitziren, izan ere, orduko jauntxoak edota behintzat orduko jauntxoen gaina eta pikaina. Konpainiak ere izan zituen Venezuelan matxinadak. Horrelako jokabideei dagokie, noski, egungo hizkuntzan, kolonialismoaren izena". (1963ti:126).

"El hecho tiene antecedentes remotos, aunque no llego a ver si esto es un motivo de consuelo o de desesperación. Los Amigos del País, a pesar de su ilustración o a causa de ella, estiman más en Vergara la enseñanza de Chabaneau, casi un insigne desconocido, que la de Proust, cuyo nombre era inevitablemente familiar hasta para los estudiantes del antiguo bachillerato: los de ahora, de la mano de la UNESCO, aprenden seguramente cosas más importantes". (1973a, *SHLV*:401).

Zientzien eta teorien oinarri sendoa ez duen teknikari Euskal Herrian zaion miresmenaren gainekoez ariko gara aurreraxeago.

zuten lanbidea zai daukagu oraindik, ez baitiu bestek geroztik gehiegi aurrerazi[74]. (1960d:142).

Honenbestez, idazlan honetan euskara "zikintzea" hobesten duen bezala, gaitzesten ere du Mitxelenak Peruk iruditaratzen duen zenbait gazteren gogobidea eta jakiteekiko jarduera.

Aurrerakuntzaren alde apostu egiten du Mitxelenak, hizkuntzazkoetan (euskara itotzeraino eraman dezakeen garbizaletkeriatik urrunduz) eta gogobide-jarreretan. Baina, lehenarekin hertsiki lotuak (haien gidari?) diren bigarrenotan, kontu handiagoz ibiltzeko premia aldarrikatzen du, urratu beharreko tarteko pausoak egosi eta irentsi gabe – hots, bertako jakingarrietan sakontzeke – urrutiko azken orduko "haizeek" sor dezaketen illurarekin estrapozu egin ez dadin.

4.2.2. Itzul-lanak

*Egan*ek liburu-iruzkinei eskainiriko atalean, euskal asmalanei ez eze, euskaratuei ere arreta berezia jarriko die Mitxelenak, garbinahiaren euzia dela eta, bere iritziak, han eta hemen tartekatuz. Areago, zenbaitetan, itzulpenen neurgai bakar bilakatuz.

Ez da harritzeko itzulpenak izatea, hain justu, Mitxelenari hizkuntzazko kritikarik ugarienak sorrarazten dizkiotenak, juzkupean jatorrizko testuaren egilea bainc itzul-lan bera duenez gero. Hau dela kausa, hona ekarriko dira auziarekin ikuskizuna duten liburuen iruzkinak.

Hasiera, 1956an Orixek euskaraturiko *Agustin Gurenaren Aitorkizunak* lanari eginean landa badaiteke ere, Orixeri dagokion kapituluan astiroago miratzear utziko dira eta ez dira errepikatuko. Amai antzeko, berriz, 1963ko Gazteluren, *Musika ixillari* egina har daiteke.

* (1956) "Homero [Barandiaran'dar Salbador aitak] *Ilias'ena (Iliada euzkeraz)*", *Egan* 3-4, 102-105 [*MEIG* II, 67-71]. (1956f).

Kritikaren abiapuntukc lerroetan, *máxima* kutsua duen esaeraz baliatzen da Mitxelena, ondoren esango dituenen alderdi mingarrien iturburu, eta buru-zuriketa moduan:

> Ez da berri txarrik aldamenean gozagarri pittinen bat ez dakarrenik, ezta berri onik ere erabat on esan dezakegunik. Kritika sallean ari denak maiz esan behar izaten du, Axularrek bezala: "Eta aldez damu dut, eta aldez atsegin". (1956f:67).

Arestikoaren eta gero esango dituenen arteko lotura itzultzailearen hitzek ematen diote. Berri pozgarria zitekeena, hots, *Iliada* euskaraz irakurri ahal izatea, "erabat ontzat" jo

---

[74]Bidenabar bada ere, nabarmengarria deritzogu Mitxelenak XVIII. mendeari dion atxikidurari:

"XVIIIgarren mendeak, oinarri eta dorre garai dugun mende horrek, zabaldu bide zizkien berriz gizaldi luzeetan barrena giltzatuak eurkitu zituzten ateak". (1963l:123).

ezin izateko falta zaionak (iruzkinaren hasieran errezeloa sortu eta amaian lan egina baliogabetzerainoko larriak) asmo hutsean uzten du.

Gaizka Barandiaranen hitzetako aditza: "***Baduzu*** *eskuetan, Euzkaldunal nai-izan ezkero, beñola izan dan Poemarik onen: Iliasena (Iliada)*", zergatik den Mitxelenaren begietan mamigabea azaltzen ariko da kritika osoan zehar.

Eta azkena kritikaren huruan emango dion arren, hasieratik bertatik susma daiteke, Mitxelenak Barandiaranen hitzetan txertatzen dituen zalantza-artesituak: berri onak ez direla beti erabat on izaten aditzera emanez eta, batez ere, "Poz gaitezke, beraz, euskaldun guziok, dioena zuzen badago, baldintzapean utziz.

Argumentu-antolamenduan, Mitxelena saihesten doa oztopo izan zitezkeen –baina Barandiaranenean hala ez diren– gaiak.

-Mitxelena bat dator itzultzailearekin mundu zabaleko lan klasiko handiak ere euskaraz eman behar izatean.

-Halaber, *Iliada*, zehazki, ederrestean[75].

-*Iliada*ren gaurkotasuna ez da oztopo: "...eder hori, gaurko zahar-gazteek, prestaera berezirik gabe, dasta eta goza dezaketela badakit"[76].

-Euskararen gaitasuna ere ez. Mitxelenak, *auctoritate* moduan darabilen Orixerenean izkutatzen du bere iritzia eta bertan oin hartuz, euskarak, grekoa baino gazteago izanagatik ("hura baino bi mila urte baino gehiagoz gazteagoa da"[77]), hizkuntza ospetsu honek adina aisetasun duela hitz elkartuak sortzeko adierazten du.

Itzul-lanaren nekea aitorturik ere, arestiko oztopo-ezek itzultzaileak lan egokia mami zezakeela ematen dute aditzera; balizko ahalmen hutsean gelditu da, ordea, asmo biluzkorrian, Mitxelenaren ustez, eta asmoak ez baina, eginak, *uztak*, Barandiaranek munduratuak, aiegia, dira Mitxelenak aztergai hautetsiak:

> Homerogandik hasi eta irakurleagarainoo, luzeegia izelako edo, bi gauza gelditu dira bidean, nabarmen xamarrak biak, eta ez dira inon agerri: poemaren edertasuna eta grazia batetik, eta euskara bestetik (1956f:68).

Honelaxe ematen dio Mitxelenak abiapidea aztergaiaren kritika zuzenari. Luzetsiaren

---

[75]Segalaren *erdal itzulpen bikainaz* baliatu zela mutil koxkorretan eta grekozkoa ere irakurri duela pentsatzeko bidea ematen du:

"Geroago –apaiz eta praile-gai ez direnek ere batzuetan grekoz ikasi edo erdi ikasi behar izaten baitute Unibertsitatean– lehen bezain gogoko dut, gutxienez". (1956f:67).

[76](1956f:67).

[77](1956f:68).

ironiaz hornitzen duen mezua, arras urragarria[78] da; zer gelditzen da, bada, "poemaren edertasuna eta grazia" (itzulgaia) eta "euskara" (itzultzailearen lana) bidean galduz gero?

Galduaren truk, itzultzaileak bere kabuz erantsiriko *orbela* besterik ez. Halakotzat dauzka Mitxelenak, esate baterako, jainko-jainkosak *h*-z jositako hizkera batean ("ai, behar den lekuan baleude!") mintzatzea edo-eta gizon hilkorrak "halako Bizkai-usai arin bat darion" beste batean[79] aritzea.

Iraulpen osoan erabiliriko hizkera, zeinahi euskal irakurleri, "zenbat ere euskaldunago, eramangaitzago eta gogaikarriago izango zaio" eta arrazoia ez da itzulgaiaren zailtasunean, lehen aitortu denez, bilatu behar, bestek ekarri ditu, itzultzaileak, alegia, barkakizun ez diren gogorkeriak.

Era honetan hornitzen du Mitxelenak irudiz hizkera:

> Itzulpen honetako hizkerak leku malkarretan barrena, katazka bizian, dabilen gurdi zahar negartiak baino kurrinka eta karranka gehiago dario. (1956f:69)[80].

Barandiaranek euskara **egin** asmo izan du, ez hornitu edo egokitu eta, azkenean, benetako euskararekin (hezur-haragizko euskaldunenarekin) antz larregirik gabea ekoiztu du.

Egin ustez, euskara **desegin** du eta honengatik, Mitxelenak euskaldunentzat ororentzat ematen duen aholkuaren hartzaile bilakatzen du Barandiaran: euskara ongi ikasi beharra dago edozein saiori ekin baino lehen. Mitxelenaren kritika honen garratza areagotzen du itzultzaileak "Euzkeragintza" zuzpertu nahirik itzulpena ondu duelako aitortzak.

"Aurre-itz" delakoan, itzultzaileak irakurleari igorririko deiari ("*Ekiozu, ba, leenbaileen... ta asi Euzkeragintzan*") erantzunez ihardungo du Mitxelenak, *Ilias'ena*tikako "bitxi politak", ironia mikatzez agerian jarriz:

- anaforikoen eta erreferenteen arteko loturak oker daude emanak (*norbera* eta *bera*renak, esate baterako);
- erdararen ihespide asmaturiko zenbait hitz desegokiak dira, hala nola *gudalontzi*, 'arma' adierazteko; *aufeman*, 'hautatu' edo antzeko baten ordez; *itoketa lepoketa*ren ondoan, Sofokleren istoria itxuraldatu eta ulertezin bilakatuz: "Eta noiz ezkero ito dezake inor burni edo tupiki zorrotzak?" galde egiten du Mitxelenak);
- ez dago lanean batasunik anabasa baizik, soinu-bilakaeraren legeei muzin egin dielako: "*Klitaimnestere*-k, "*Kulutaimenestere*" behar luke, legeei atxikiz";

---

[78] Ez da hau Mitxelenak Barandiaran ahotan duen leku bakarra. "Txerribuztango errekako errotaria" Adabakian (1963e:237) ere, Lahovary jauna jipoitzen duelarik, Barandiaran ez ote duen kritikak harrapatzen pentsa daiteke.

Arestiko ote horrek ez du, ordea, inola ere lekurik "Asaba zaharren baratza"-ko beste aipamen zuzen honetan:

"Garbizaleen garbizaletasuna ez da "eza" besterik -**Barandiaranengan ikus daiteke "ez" hori zer den**- eta "ezetik" bizi da, huts hutsik". (1960a:42). (Beltz. gurea).

[79] (1956f:69).

[80] Ez ote bitxia joskera hau?

- ohiko euskal hitzak itxuragaiztotu ditu bai azalez (*erasartu*, *aurke*, azken hau *aurkituren* ordez), bai mamiz:

> Ez da hitzak bere onetatik atera beharrik, zuzen ugari esku artean dauzkagunean batez ere. (1956f:70).

- euskalkiak nahasian erabili nahi izan ditu euskalkiak behar bezala jakin gabe (*-ak/-ek* leku okerretan)...

Itzultzaileak honen guztiaren iturburua **garbiasmoaz** zuritu gogo du, baina ez da aitzakia besterik Mitxelenarentzat ("Garbia delako ez; behar den bezain garbia ez delako, bai"[81]), garbitasunaren izenean lanean landatuak, euskara ez jakite hutsaren erakusgarriak direlako.

Hau dela eta, *Ilias'ena* ez da *Iliada* eta hau oraindik "itzultzeko daukagu", hots, egiteke dago, Barandiaranen lana ("lan izugarria") alferrikakoa gertatu baita, deusaren parekoa, hain lirateke larriak Mitxelenarentzat, itzultzaileak "bere gisako" euskaraz eginiko hutsak:

> Euskara ez da nerea ez zurea: guziok erdizka aurrekoengandik hartu dugun ondasun ederra da. Eta ez du inork bere-berea balu bezala nahi duen gisara erabiltzeko –*utendi et abutendi*– eskubide osorik. Eta zorigaiztokoak euskara eta gu, besterik uste badugu. (1956f:71)[82].

* (1957) "Hugo Wast, *Bide Izkutua, Itunbe'k euskeratua*", *Egan* 1-2, 116-117 [*MEIG* II, 83-86]. (1957f).

Itzul-laneko hizkera (eta idaztankera) begiz jotzen duela eta[83], egokiera aproposa eskaintzen du iruzkin honek, Mitxelenak ***bart arratseko euskara*** deiziopean biltzen duen euskara hori zein ezaugarrik osatzen duten jakiteko:

> berri xamarra dugu, baina ez berrienetakoa: **bart arratsekoa** dela esango genuke gaur eguerdikoa baino areago. (1957f:84). (Beltz. gurea).

Honako tasunek ezaugarritzen dute euskara modu hori:

---

[81](1956f:71).

[82]Geroxeagoko (1960a:40) ekar daiteke gogora, hurrengo kapituluan ikusiko den bezala.

[83]Honako aurkeztatzea egina zion Euskaltzaindiaren saria jaso zuen lan honi:
"Bigarren eta hirugarren saria, Berasaluze eta Erkiagak eramanak, itzulpenentzat izan dira. Biak, Hugo Wast'ena bata eta Simenon'ena bestea, aukerakoak dira gaiez, jende askoak gogoz irakurriko dituenetakoak, eta ezin hobeki euskaratuak. Ez dute halare elkarren antzik". (1955g:49).

- Hitz laburtuxeak. Hau da, ahozkotasunari makurtuaren ondoriozkoak.
- Adizki trinko gutxitan erabiltzen direnak edo inoiz erabili ez direnak.
- *-ki* atzizkia behar ez denetan erabilia.
- Aditzik gabeko izen-esaldiak.
- Zuzenako hizketa elkarrizketaz kanpora.
- Literatur hizkuntzan anartean sarbiderik izan ez duten esaerak[84].
- Lege jakinik eza zenbait puntutan. Esate baterako, adizki laguntzaileen sailean, ez darabil forma bakarra: *etzun, zuan* perpaus berean, halaber, *ninduala, nindula*.
- Dialekto-nahastea. Azkeneko honek ondore kaltegarriak ditu, "ez baita beti erraz jakiten nola mintzatzen diren beste euskalkietan"[85].

Ezaugarri hauetako batzuk, arestiko *Ilias'enaren* itzul-lanean makur iritziriko berberak direla azpimarra daiteke eta, bietan dialekto-nahasteari Mitxelenak arreta berezia paratzen diola.

"Bart arratseko hizkeraren" osagaiek ez dute, halaz ere, Mitxelenaren iruzkina agortzen, idaztankerari dagozkienek ere zerikusia baitute etekin itzuli osoarekin: "egileek poesi-prosarako duten joeran daudela deritzat itzulpen honen alde txarrenak"[86].

Honenbestez, garbinahi auzitik, itxuraz, lerratuxe egon zitekeen literatur kritika, noraezean ekarri beharra dago, hortxe ikusten duelako Mitxelenak hizkera-makur ugariren iturburua:

> Hau da, nere ustez, lehen aipatu ditudan esaera frankoren iturburua, eta beste zenbaitena ere bai[87]. (1957f:85).

Itunbe izengoitiaren atzean izkutaturiko "hiru frantzizkotar gazteak[88]" ez dira jabetu, Mitxelenaren ustez, halako testu-motak gisa bereko hizkera egokia zor duela, testu-moldeak hizkera-moldea duela eskakizun[89]. Honengatik, ez dute jatorrizko testuaren mailari zegokion

---

[84] *dantzalari, osta-zale, dijoazte, zijoazten, bai'du, bai'zuen, Pizarra igikor zirudin, Nikanor'k, Soler'k, Aguilar'k, Matildetzaz, ostoko*. Oker etsitako adibideak hauek direlarik eta, era bat baino gehiagotako arazoek sortuak, Mitxelenak esaera -adigai-muga zorrotzegiak ez dituen hitza- erabili nahingo izan du?

[85] (1957f:84).

[86] (1957f:85).

[87] "*Gezur ari zaizait, Gidari zakidazu, Lasto: senar zaitudake, Emakume ori len aizpa zitzaidan, erantzun zion irri, tximista baten ariñez, gero li ninduzuke, maite ai ninduzuke, Pazientzia inditarrena añe arkitzea, Teniente jaunarekin soiliki zerbait esan beharra det*, eta abar". (1957f:85).

[88] "Iturria'tar Joseba, Unzurrunzaga'tar Imanol eta Berasaluze'tar Sabin". (1957f:83).

[89] "Hizkera-mota asko daude eta badu bakoitzak bere garaia eta tenorea: ez gara kulpitutik ari -ari direnak- sukalde zokoan bezala". (1957f:85).

hizkera-moldea hautatzen asmatu[90], duintasun *destokituaz* hornitu baitute euskal aldakia:

> Eta "Cs Lusiadas" baten doinu jasoa destokitua ageri da, Mogelek esango zukeen bezala, honen antzeko nobela arrunt bat itzultzean. (1957f:85).

Camino de las llamas hagitz nobela goitar ez denari legokiokeen beheragoko euskara arrunt eta egunorokoaren antzekoagoaz (Mogelek, D. Agirrek, Kirikiñok, Jon Etxaidek edo Loidik mamituaz, esate baterako) baliatu ordez, *Bide izkutua* bihurtuan "esaera berriak, gutxi edo behin ere ez entzunak", lan jasoagoetan, beharbada, zuzen tokituak liratekeenak, erabili dituzte aldatzaileek "poesi-prosarako duten ixuriak" hartaraturik.

Honezaz gain, *Bide izkutua*ko hizkera-moldearen okerra areagotzen du eleberri-mota arrunt horretarako, euskal eredua arestian aipatuek jorratua izaki eta, honi muzin eginez, beste maila batekoa —"doinu jasoagoa" eskakizun duen mailakoa, alegia—, erabilia izanak.

Funtsaren funtsean, *Itunberi* bakarrik ez baina, euskararen trebabideari dagokion auzia da tartean dena eta hemen azaleratzen dena, testu-mota eta hizkera egokia zuzen uztartzen jakitea, alegia:

> Euskaraz poesi hizkera trebea daukagu, zenbait olerkariri eskerrak: prosa hizkera, berriz, ez dago, nik uste behar lukeen mailan. (1957f:85).

Jorratzeke dagoen prosa-hizkera hori[91], ez bide da *Camino de las llamas* euskaratzeko behar dena, gailurrera gabe, hegietan zehar dabiltzan lanentzako euskal bidea urraturik baitago eta, hala dagoelako, hain justu, ulerkaitzago begitantzen zaio Mitxelenari *Itunbe* okerreko bidean bilaka aritzeko erabakia.

Honekin guztiarekin, beharbada, ikusteko guztizkoa izan dezakeen beste zerbait ere gogoan hartzekoa da: itzultzaileek duten literaturaren ezaupidea, itzultzaileen literatur irizpideak. Mitxelena eta *Itunbe* ez baitatoz inola ere bat, "itzaurrean"[92] Wast-i bidaide ipini zaizkionak samalda berean sartzean:

---

[90] itzultzaileei, testuaren apaltasuna oharkabean itzuri zaiela esaterik ez dago gainera:

"Ta «Quijote», «Os Lussiades», «Il promessi sposi» «Quo Vadis», ta abar, aldiak zeru-goietan jarri ditun oro alde batera utzirik, iñoiz entzun ez dezun **eleberritxo bat eskeintzen dizut: laburra, apala, baña bizia, arduratzkoa**". (Itunbe 1956:11). (Beltz gurea).

[91] Altuna paratzaileak (1988b, 1988c) nabarritu bezala, Mitxelenaren kezkabideetariko bat da euskal prosaren moldeak jorratu beharra.

[92] "Gañera ez du notanaizko egillea. Hugo Wast izenak ospe-aizeak eramanik, mundu guztiko mugak irabaziak ditu. Bere lanak, ia Europa osoko izkuntzetara irauliak izan dira. Walter Sccot [sic], L. Tolstoi, Pereda, B.M. Croker, Naverry, ta beste izarrik argienen pare dezu eleberrigintzan". (Itunbe 1956:11).

> Hitzaurreaz bi hitz esango nituzke, Tolstoi-zalea naizenez. Ez dute lagunarte onean sartu, munduan izan diren dozena pare bat nobelista garairen artean aipa beharrekoa denez gero. W. Scott ez du lagun txarra. Pereda ere bere neurrian, tira. B.M. Croker, ordea, ez nuke nik behintzat horien aldamenean izendatuko. Naverry, berriz, ez dakit nor den. Eta nere ama zenak zioenez, maizago izan ditut nobelak esku artean, eliz- edo eskola-liburuak baino. (1957f:86).

Wast juzgatzeari itzuri, Mitxelenak begiko duen Tolstoi aukeratzen du bateratzearen okerra ageri dadin[93].

Mundu zabaleko literaturazko ezaupide azalekoaren ondoriozko irizpide ahul samarrak; euskal literaturan urraturiko bideetatik saihestuxe ibiltzeak eta, batez ere, pragmatikaren **egokitasuna**ren urrezko legeari iruzur egiteak, laburbil ditzakete Mitxelenak, euskara literatur tresna baliagarri eta egoki gauza dadin, iruzkin honetan kausitu dituen oztopoak, "bart arratseko hizkera" hizkuntz isla dutenak.

* (1959) "Olabide'tar Erraimun, S.I. (1869-1942), *Itun zar eta berria*, Bilbo'n, Yesu'ren Biotzaren Deya, 1958". *Egan* 2. aldia XIV, 85-94 [*MIH*, 341-353; *MEIG* II, 111-122]. (1959b).

Aztertu berrian "bart arratseko hizkeraren" ezaugarriak bildu baditu Mitxelenak, oraingoan ***salo euskara, euskara experimentala***ren [sic] nondik-norakoak azaltzeko baliatuko du iruzkina, Olabideren itzulpenean gatzatuak, hizkera-mota horren erakusgarririk gardenentzat jotzen dituenez gero.

Olabide euskaldun berriak, iruzkinaren abiapuntutik hasi eta kritikan zehar, laudorioak sorrarazten dizkio Mitxelenari, "giza eredu jatortzat" dauka eta:

> Inolaz ere, euskaldun batek letra sailean inoiz burutu duen egitekorik larrienetakoa da eta are larriagoa agertzen zaigu euskaldun berri batek egin zuela gogoratzean. (1959b:111).
>
> Hitz batean, eredutzat hartzekoa dugu Olabide. Giza eredu jatorra dugu, gutxi bezalakoa, euskara hain ongi ikasteaz gainera horrenbesteko lan ikaragarria egin zuelako. Euskaldun berri izanik eragozpen gehiago zuenez gero, ohorea ere neurri handiagoan dagokio. (1959b:120).

Baina ondoren, Mitxelenak Bibliaren aurretikako itzulpenak hartzen ditu mintzagai eta, bestela bezala ari dela irudi dezakeen arren, bere hitzok zerikusi zuzena dute Olabidek *Itun berria*ren aurkezpen gisakoan jaulkiekin, jesulagunak bere lanarentzat eskatzen duen aitzindaritza[94] ukatzen baitio:

---

[93]Bidenabar, errepara dakioke Naverry-ren ezagutza-ezaren argudio ironiatsuari.

[94]Hona, luze joko duten arren, Olabideren atariko hitzak:

"Dana dala ogendun, beñz, gure Ef'i maitea beti bizi izan da, igande-mezatan eguneko Ebanjeniaz azaltzen zitzayona besterik ezagutuke ta ezagutuko biderik izateke. **Yainkoaren itza iñork ere ez dio aren izkuntzaz yañ.** Idazteuna irakuñzeko, beste izkuntza lenik ikasi beañez euskalduna aufkitu da beti. **Yainkoaren idaztiak euskaldunentzat ez dirudite egiñak** (Ez añtu ori irakuñzean. Duvoisin'ek Lapurdi'ko euskeraz, ta Uriarte'k (Fr. Jose Antonio'k), Gipuzko euskeraz, idazteun osoa **Bonaparte'rentzat** yañ zuten, noski; ez ordea

Ez da lehen aldiz agertzen orain euskarazko Biblia osoa. Aurten ehun urte, hain zuzen, eman zuen argitara Bonapartek **Duvoisinen itzulketa ederra. Alta Uriartek** ere osorik itzuli zuen, osorik agertu ez bada ere[95]. Ez zituen Bonapartek, egia esan, Elizak agindu bezala argitaratzen, ez baitzituen euskaldunen arimen onerako eragin, baina huts horiek -behar ziren oharrak eta baimenak- erraz osa zitezkeen, euskaldunok nahi izan bagenu. Ez zegoen deus itzulpen horietan, Vulgatatik hartuak zirenez gero, Elizak ontzat eman ez zezakeenik. Ez dizkigu oraingo A. Olabideren itun zahar eta berriak lehengo Testamentu zahar eta berriak ahantzarazi behar; lehenago ere itzuliak zeudela jakitea ere ez da aski oraingo hau gutxiesteko. (1959b:111). (Beltz. gurea).

Dena dela, ez bide da estreinakotasuna Mitxelenaren iruzkinaren eztabaida-gunea. Esana doan bezala, Mitxelenak juzkuak batipat, Olabidek mamituriko "saio euskara" delakoari egotziko dizkio, Olabideren hizkerari, hor sortuak baitira itzulpenaren "huts larriak".

"Naturaltasunik eza"[96] antzematen dio Mitxelenak Olabideren euskarari, orpoz orpo, saioek ezinbesteko gidari duten teoria- kasu honetan, okerra - dela bide sortuak dituenak, alegia. Iritzi hauek non oinarritzen dituen azaltzen, eta Olabidegandik harturiko adibideak agerian jartzen ariko da Mitxelena iruzkin osoan zehar.

Lehenik eta behin, halaz ere, argitu behar da Mitxelenak Olabideren hizkera aztergai hautesten duela Olabide bakarrarena ez eze, joera zabalago batena ere badela ikusten

---

Euskaleſiarentzat. Bonaparte euskaltzale miñak eskatuta, lan aundi au burutu zuten, Vulgatari zeſaizkiola. Baña biak, Duvoisin ta Uriarte, katoliko zintzoak ziran, ta Bonaparte'k Elizaren isilean ta Elizak agindutako oaſik gabe ayen lana argitaratu nai baitzun, ayek oſelako argitaraldia erabat eragotzi zioten, ehari irakuſgai ateratzeko baimena ukatuz".

Eta beste horrenbeste esan dartekeela Salaberryz (BN), Etcheniquez (N), Inchauspez (Z) eta Lizarragaz eransten du:

"Euskaleſiarentzat, beſiz, euskeratu ta argitaratuak" omen dirateke: "Leiçarragaren Testamentu Berria, Urruthyren Ebanjelio saintia Jesus Kistena, jondone Johaneren arabera, Pierre d'Urteren Ethorquia, Oteizaren San Lucasena eta, Izenik gabeko Leganitos'tik baſeyatzen diran Evangelioak".

"Guziok Elizaren aufka euskeratu ta argitaratuak dira, ordea; katolikoek ezin irakuſ ditzakegu. **Beraz, Euskaleſiarentzat ezer ez dira. Elizaren itzalpean bizi geran euskaldunok, euskaldun guziok, beraz, Yainkoaren idaztirik irakuſgai ez daukagu, urengo auek baizik**". Eta aipatzen dituenak honakoak dira: Haraneder-enak, "*Testament Berria* izenpean lau *Ebanyelioak* baizik ez dakar), Orixeren "*Jesukristoren beſi-ona S. Joanek idatzi bezela* (zatika argitaratua ta eladeratik euskerara edeſki baño edeſkiago) Arana ta Goiri'tar Sabinen *Ebaingerien zati batzu; Jaunaren Nekauztia-Deun Matal'ren Goizpaſaren legez*. Ta emen aipatu litezke Argia'k, Jaungoikozale'k, Zeruko Argia'k eta Euzkadi'k argitaratu oi dituten Igande-mezatako Ebaingeriak". (Olabide 1931). (Beltz. gurea).

[95]Villasantek bere literaturaren historian (1979_2:271), Uriarteren iraulpenaren zorigaiztoa ahotan duela, Olabiderena paperera darama erkagai, honela iruzkinduz:

"La Diputación de Guipúzcoa, que adquirió los manuscritos de la Biblia traducida por el P. Uriarte al guipuzcoano, haría, a nuestro juicio, un gran servicio al país y a las letras vascas patrocinando la publicación de este grandioso monumento. Y no se objete que después de publicada la Biblia del P. Olabide, esta otra resulta innecesaria. La diferencia de lenguaje entre ambas es inmensa; y sinceramente creemos que para la inteligencia general del público euskaldun es mucho más acomodada la del P. Uriarte, sin que queramos con esto decir que sea perfecta ni carente de defectos. Además es una fuente de lengua, que, publicada, podría contribuir poderosamente al mantenimiento de la tradición literaria y ayudar a superar el clima de confusionismo y desorientación [1961ean idazten du hau Villasantek] creado por un purismo extremo en torno a lo que es propiamente "lo vasco"".

[96]"Laboratorioko ontzien erdian jaio dena, *Faust*-eko Homunculus haren gisa, nekez helduko da gizatasun osora". (1959b:120).

"Arnaut Oihenart" mintzaldiaz aritzean berriz ere ahotan erabili beharko dugu.

duelako, areago, joera horrek ordezkaririk argiena, *eredu* duelako Olabide[97]. Ez bailitzateke bide horretatik inor Olabide bezain urruti iritsia, "ez baita beste inor hain zeharo eta jakinaren gainean ibili bide horretan barrena"[98], iruzkinaren amaian errepikatzen duen bezala.

Olabideren euskara, beraz, joera baten gorputz hartzea da, joera horren eredu gorpuztua eta horixe kritikatu gogo du Mitxelenak Olabideren itzulpenaren bitartez:

> Badirudi, bada, euskalki bakoitzeko euskaldunek izan behar luketela hitza auzi honetan, **euskalkien arteko berexkuntzak baitira nolazpait ere auzi osoaren mamia**. (1959b:112). (Beltz gurea).

Olabideren euskarak, euskaldun orori zerbait esateko aukera ematen dio Mitxelenari, euskalki guztiak ukitzen dituelako, guztiez atzenduz[99]. Hizkera hori ez da egungo ez atzoko euskaldunek darabiltena, "bihar-etzitako euskaldunek", beharbada, erabil lezaketena baizik. Hezur-haragizko euskaldunengan luntsatu gabeko "saio hizkera" da.

Saio-izaera hain du nabarmen, ezen beste euskalkiekin ohitu gabeko euskaldunari ere, euskalki horietan idatziei sumatzen ez dien arroztasuna sumarazten dion. Horren erakusgarriegat dauka Mitxelenak, bere ez dituen beste euskalkietan idatzi duten zenbait egile eta Olabide, bi multzo berezitan banatu eta haiek gertuago sentitzea[100].

Ondoko puntuotan laburbil daitezke Mitxelenak "saio euskara" ezaugarritzeko plametan paratuak:

- Ortografian. Berrikeriak darabiltza –Olabide honetan bakarra ez den arren–, "batasunaren eta euskal irakurlearen kaltean sorturiko era berriak". Esate baterako, *Y*, "*r gailurduna*", *ê*, *ô*. Ohituraren kontrako Y[101]-ren erabilerak gainera, erdararen ihes, norainoko

---

[97] Iztuetaren (1991a) hitzez, G. Barandiaran eta Orixerekin batean gorpuztu duen "Jesuiten eskolarena", hain zuzen.

Halarik ere, gogoan behar da izan Olabideren eta G. Barandiaranen artean (erdian Orixe izanik) hogeita hamabost urte inguru badireta. Herri-hizkeraz mintzatu zen aita Manzisidor ere hor erdian dago.

[98] (1959b:112).

[99] Akesolok, puntu honi dagokionez, Olabideren itzul-lanaren alde (eta Mitxelenak adierazirikoaren kontra) aitxatua du boza:

"Ez degu argi ikusten, esaterako, euskerak ondasunik batere ez badauka galtzeko, zergatik izan bear duen pekatu euskalki batek ez daukadana [sic] beste batean billatzeak. Eta leenengo pekatua euskera bizitik urrun ibiltzea bada, zergatik esaten zaigu gero batasun-bidea euskera zaarrean billatu bear degula, edo ta zergatik Olabide artan pekatutzat egotzi gipuzkera duela bere euskeraren muiña, gipuzkera murritza bada ere? Danean neurria bear da, iñolaz ere. Baiña neurri ori ez degu Mitxelenaren kritikan argieri [sic] ikusten. Olabideren euskeran ere ez, baiña beronen kritikatzaillearen itzetan ere ez". (Akesolo 1989:885).

[100] "...Urte, Duvoisin, Uriarte, Larregi, Lardizabal (...) beren artean dituzten berezitasun larriak gorabehera, bixkiak dirudite azken hoek guztiok Olabideren aldamenean (...) Nik (...) lehenago ezagutu nuen Olabide (...) besteak baino (...) Aldatu nintzen, horratik, eta atzerri latzean ikusten dut ene burua berriro Olabideratzean". (1959b:112).

[101] 3. oin-oharrean honakoa zehazten du:

"Badirudi hemen, erdararen ihesi gabiltzala, sarritan bezala erdarari euskaraz behar ez lukeen eskua ematen diogula. Ez genuke, alegia, gaztelaniazko *j*-rik nahi euskaraz arrotza delako: hotsa esan nahi dut, ez letra. Lasai gaitezen. Zerbaiten berri dudan hizkuntzetan gaztelania da bakar bakarra / letra horrela ebakitzen duena. Ez da, beraz, harritzeko, gaztelaniaz apur batean bederen ahazten bagara, euskaraz ere letra hori bestela irakurtzea". (1959b:113).

bidegabekeriak sor ditzakeen adierazten du: *ayola* erabiltzea, berez, *axola* behar lukeenaren ordez, kasurako.

- Lexikoan. Olabidek aukeratzen dituen hitzek arazo larriagoa dakarte arestiko ortografiak baino.

Hizperrizale amorratua ez den arren, maiz aski begiz jotako hitzak[102] euskal irakurleak arrotz sentitzen ditu, ondoko arrazoiongatik:

- "zaharraren zaharrez aspaldi usteldiuak dira".

Hitz hauek ez dute esku, ezinbesteko izan ezean (ez da kasua, ordea, Mitxelenaren ustez), oraingo liburu batean egoteko:

> Zaharzalea nauzue, baina zahar- nahiz berri-zaletasunean beharrezkoa dirudi neurriak. (1959b:114).

- "euskalki guztietatik hartu du"[103]

Azkue eta Lhanderen hiztegiak (batez ere) hitzaren benetako izaeraren ziurtagiritzat hartu ditu, baina Olabide ez bide da ohartu hiztegi horietan ez daudela beti hitzak eta adierak zuzen jasoak.

Bestetik, gainera, hitzaren itxura (adierazlea nahiago bada) eredu amankomunetik aldenduena eta, honenbestez, euskaldunen gehiengoarentzat ulerkaitzena aukeratu du zenbaitetan:

> Olabidek, berriz, maizegi hartu ditu Euskalerriko xokorik galduenetan jaso izan diren hitzak, baita aspaldidanik nonnahi ahaztu zirenak ere, literaturan nahiz herri hizkuntzan zabalduago eta ezagunagoak direnen kaltetan. (1959b:114).

- Garbinahiak erabat ez itsutuagatik, nahiago ditu, ustez, erdararekin antz handiegirik ez dutenak; txuliatzeak, haatik, ohartzaka, erdaren morrontza zuzenagora darama:

---

[102] "El P. Olabide es purista a ultranza. Pero hay que decir en su honor que no recurre normalmente a "terminachos", aunque también de esto tiene. El ha sometido a un estudio sitemático el gran diccionario de Azkue. Las palabras que emplea son casi siempre auténticas, pero muchas de ellas son localísimas y traídas de los más diversos dialectos, oscuras, sin tradición literaria. Evita por sistema las que huelen a erdera". (Villasante 1979_2:368).

Egile berak (Villasante 1979_2:390) "Azkueren eskola" ikusten du Olabideren hitz-hautaera honen atzean: "Con todo, hay que decir que también él [Azkuek] ha formado escuela. Frente a la escuela aranista existe o existió también la de Azkue. Purista, aunque con criterios y caminos distintos a los de aquélla. Olabide, por ejemplo, es típico representante de esta dirección, y tantos otros, que no recurren a voces de forja, pero sí en cambio a voces de escasísimo arraigo en perjuicio de otras que gozan de un área de extensión y de un empleo incomparablemente mayores en la lengua viva".

[103] Berriz ere honetara itzuli beharko dugun arren, oroi daiteke arestiko iruzkinetan azpimarratuaz.

zeape, ziape/jeben edo *barano/inguru* bikoteen artekoa erakusgarri[104].

Hiru bide hauezaz baliatzearen ondorioz, Olabidek hitz-altxorra, hizperriez, atzenduez edo oso txoko murriztuxeetan erabiliez osatzen du, euskal literaturan sarbiderik sekula izan ez (edo apenas izan) dutenez, alegia. Honek dakarrena, euskal irakurleari premiarik gabeko neurrian lana larrik: oztopatzea da:

> Irakurleari ez zaio biderik gehiegi zabaldu behar, aglan, baina arantzaz eta sasiz irauntzeak ere ez dirudi egoki. (1959b:114).

-"Itxura txarreko esaera ugari" darabiltza: "*zoaz, ordea, apaizari aurkezteko (Mc. I,44)*"[105], esate baterako.

-"Hikako hizkera ikaragarria sortu du"[106]: "*Etsita ote zeudek nagusiak Kisto'a dukala au? Bañan au nongoa dukan bazekikagu; Kisto'a zetorrkanean, berriz, iñork ez zekikek nongoa dukanik (Ioh. 7,26-27)*"[107], jasotzen ditu Mitxelenak.

Makurrok, Olabideren uste-iritziek sortuak dira, Mitxelenaren aburuz. Olabide ez delako hezur-haragizko "euskaldun kaxkar ezjakinekin" ari, behar liratekeen euskaldun jantziekin, bihar edo etzi ugariago sor litezkeen euskaldunekin baizik, ezin onar ditzake –Larramendik, bai, haatik, Mitxelenak aurkez aurk paratzen diona hona ekarriz[108]– euskaldun jatorrek, nondinahiko diren, debekurik gabe darabiltzaten hitz asko eta asko. "Saio euskara", euskaldun jatorren hizkuntza zarpaila hobetzeko asmoz sortua da[109].

---

[104] Azkueri eskainian esana berraipa daiteke:

"Eta, hain zuzen, honexekin [*amaina* da hitza] egin zuen topo Olabidek, erdalkerien ihesi ohi bezala zebiela noski...". (1962b:228).

[105] (1959b:122).

[106] Gogora daiteke "Asaba zaharren baratza" lanean honen gisakoei jipoitua.

Bestalde, egoki dentzogu, Euskaltzaindiko bilkuretan Mitxelenak esanak ere hona ekartzeari, erakusgarri moduan besterik ez bada ere, kritikagilearen gaiarekiko ardura azalera daramalakoan.

Hona, *Euskera* 1960koan, esate baterako, irakur daitekeena:

"Beste bat, ikako euskera. Egia da ikako euskeran naste izugarriak badaudela. Esate baterako, Mogelek berak eztu ikako izkera erabiltzen gaur ikako izkera jator eta garbi egiten dutenek erabiltzen duten bezela. Nafarroako eta Bidasoaz arunzko ottura itz gutxitan esan dteke. Esaldi nagusian bakarrik erabiltzen dute ikako izkera. Aiek eztute erabiltzen gaiñera galderetan". (*Euskera* 1960:91).

[107] (1959b:122).

[108] Biok elkarretara ditugu andoaindarrari eskainian.

[109] "La actitud de espíritu con que Olabide se consagra a su tarea de escribir podríamos describirla diciendo que él es un escritor a largo plazo. Se desentiende del ambiente, no le preocupa el hecho de que el público real, o sea, los vascos de carne y hueso de su generación, encuentren extraña y poco digerible su lengua. El es un hombre de estudio, de vida sedentaria, que se cierra en su gabinete, que no habla siquiera la lengua en que escribe, que no se relaciona con las gentes cuyo idioma vivo es el vascuence. Encerrado en su laboratorio de trabajo, se pone a construir a fundamentis la cultura vasca, escribiendo en el euskera ideal en que él sueña. Dicen que él solía decir: Ya vendrán detrás de mí las escuelas vascas que enseñen esta lengua a los vascos del futuro,

Olabide joera horren erakusgarririk gailenena izanagatik, esana doan bezala, erantzunkizun bete-bakarra ezin bizkarrera dakioke, garaian indarrean zeuden honako iritziak izaki:

> Jakina eta ezaguna baitzen euskaldun jatorrek "hobetu beharreko" hizkuntza zarpail batean egiten zutela. Ez dago Txomin Agirreri bertsolarien jardunak ematen zion tristuraz oroitu besterik edota Campionen harako txantxetako hura: "Los vascos son unos burros que no saben lo que se vascuencean". Barreatua zegoen gainera hizkuntza nolanahi eraberritu, aldatu, ugaritu eta murriztu zitekeelako iritzia, ohitura eta tradizioaz batere konturik egin gabe. (1959b:116).

Olabidegan, gainera, oker jokatzeko arriskua areagotu duen beste arrazoi eragilerik kausitzen du Mitxelenak: **euskaldun berria** da Olabide. Gora eta laudagarri dena, aldi berean, etsai bilakatzen zaio, batez ere, hizkuntzetarako jaidura ez du eta bere dohaien artean. Mitxelenaren ustez, Olabide gizona, jakintza-gizonago da –honela esaterik badago– hizkuntz menderatzaile trebea baino:

> Nahi zuena zehazkiro adieraziko zizun, nahiz eta korapilatu antzean gehienbat ez zen hitzekin bestela bezala jolas arin-bizian ibiltzeko gizona. (1959b:120).

eta ez du erdietsi hizkuntza menderatzerik:

> ez diot Axularrek, Mendiburuk, Agirrek edo Prai Bartolomek bezala, ezta umilago diren Duvoisinek, Lardizabalek edo Uriartek adinean ere[110]. (1959b:121).

"nekearen nekez bereganatzea" baizik.

Hori dela eta, euskal sen jatorrizkoaren jabe ez delako, menturaz, "ezin gauzak ikus" euskaldun zaharrek bezala[111], eta nekez erabili ahal izango ditu hitzak, benetako euskaldunek darabiltzaten bezalako ñabardura eta egokitasunez:

> Hitzek, jakina da, badute beste zerbait, adimenez nolazpait besarka daitekeen adieraz gainera, adimenak ikusten ez badu ere bihotzak ukl dezakeena: beren giroa, usaia, lurrina eta sentimen kutsua. (1959b:117).

---

y así todo se hará viable". (Villasante 1979$_2$:368).

[110]Mitxelenaren salkatze hau ez da apika ororentzat onartzeko modukoa izango, baina honela banatzen ditu errenteriarrak.

[111]Gogora bedi Arana Goiriz antzera esana.

Adimen soilez besarka ez daitezkeen *giroa, usaia, lurrina, sentimena* dira Olabideren hitz-aukerari antzeman ez dakizkiokeenak; amets-euskaldunek ez, apika, baina hezur-haragizkoek faltan ematen dituztenak, euskara horri arroztasun-kutsua harrapatzera daramatzatenak, alegia[112].

Iruzkinean zehar, dagoeneko bi bider aipatu euskalkien erabileraren auziari berriz ere heltzen dio Mitxelenak sakontzeko asmoz, eta aldi berean, noraino zaion kezkagarria euskalkien *mélange* burugabea pleguetan islatuz[113].

"Salo-euskara" egin nahi izatearen ondoriotzat dauka Mitxelenak Olabidek euskalkiak ausarki nahastea. Honek ondore latzak dakartza, hizkuntza osorik itxuraldatzen –itxuragaiztotzen?– delako:

> ez ote da beharrezko horrelako nahaste batean hizkuntza bizlaren kemen eta jatortasuna urtzea eta deseglitea argizagia surtan bezala? Hitzak berak, hizkuntza baten zatirik aldakorrenak eta askatuenak, ez dira ezer hiztegi osoaren eglturaz eta sistemaz kanpora. Elkarrekiko harremanak direla bide bakarrik dute zeinek bere adiera. Eta hitz batek, ingurukoak gehitzen, gutxitzen nahiz aldatzen bazaizkio, ezin lehengoan iraun. (1959b:118).

Olabidek islatzen duen hiztegi-hizkuntzekiko jarrerak –hizkuntz unitateak aske, besteekin ikuskizunik ez bailuten ikusteak–, estrukturalismoaren[114] funtsezko hastapenari eraso egin ez ezik, benetako euskarari ere, kalte gaitzak dakarzkio, emaitza, leku-garairik gabeko hizkuntza deserrotua denez gero.

Euskalkiak itxuratxarki nahastean, halaz ere, desoreka da nagusi, Mitxelenak "azken urteotako gipuzkera murritz, ertsi, laburtuaren" alde makurturik ikusten baitu Olabidek oratua, ez plegu-bizitza izan duen giputz hizkeraren. Txokoko gipuzkeraren ezaugarriak baitira abantailaturik irteten dutenak, hala nola, hots-lehia dagoenean ("*p*"-ren alde), ahozko laburduretan (*aregorik, ordun, ua*), "hizkuntzaren muina" den morfologiazkoetan besteak beste.

Azken honen barrutian, **aditz**aren erabilera da batipat Mitxelena begietan jotzen duena (*eritzi* aditzarena, kasurako). Olabidek "azken urteotako *gipuzkera laburtu*ko" adizkiak hartzen baditu ere, ez ditu beti horrela jasotzen, analogiaren indarrari ezin ihes egin eta, bere erara

---

[112]Hementxe kokatzen du Mitxelenak tinta isurarazi zuen Olabideren *izortu* sonatua. Gero, hemen esana zuzendu behar izan zuen (1959g:209).

[113]Honela adierazten du urte batzuk geroago euskalkien inguruko kezkaren errotzat har daitekeena:

"Euskalkien azterketa ere ez da etzidamurako utzi daitekeen eginbidea. Zenbait lekutako hizkera galzorian dugulako, aurrenik, eta aspaldidaniko hizkuntzak galtzen ari direlako, bestetik. Batasun ahaleginak premiazko ditugu hizkuntzak iraungo baldin badu, baina, batera ahala, euskalkiak nahasten ari dira, galtzen ez badira ere. Nahasteak, aise ikusten da, beti izan dira gure artean, beti izan baitira, ugari edo bakan, eskualde bateko eta bestekoen artean har-emanak. Ez, ordea, alderatzeko ere, oraingo neurrian". (1976c:102,103).

[114]Azkueri oker hauxe bera leporatu dio.

moldatzen baititu (*dikat, zaituzt*...). Aditz trinkoen[115] sailean nabarmenago da "moldatzailearen" eskua, esparru hau baitu bereziki begiz joa Olabidek entseiukarrean aritzeko[116]:

> Hemen metatu ditu ikatz-ihintirik bizienak irakurlearen buru gainean (...) Beste pasarte askotan bezalaxe, elkarrekin daude hor, pilaturik, otsoak ardiekin iduri, erabiltzen diren adizkiak erabili izanak eta sekula erabili ez direnak. Hona beste bat: "Abraham'en seme ba'ziñate, Abraham'ek **zeklonari zuek ere zeneklokete**". (Ioh. 8,39). Grekoz emango dut, eta ez daukat adarra jotzeko gogorik, norbaiti lagunduko diolakoan hau ulertzen neri lagundu didan antzera: *Ei tékna toû Abraám este, tà érga toû Abraám epoieîte*. (Vulgatak *facite* dio). Urdail gogorra beharko du izan irakurleak horrelako aditz pilo egoskorrak egosteko. (1959b:118). (Beltz. gurea).

Adibide gisa paperera eraman azkena da, hain zuzen ere, Mitxelena eta Orixeren[117] arteko[118] gorabehera baten sortzailea, Olabidek hor trinkoen iduri jokaturiko *ekin* aditza erabat ulerkaitza egiten baitzaio Mitxelenari. Errenteriarraren "Ohar gisa" (1959g) da Orixeri emaniko erantzuna:

> Badakigu, noski, zergatik: *ekin* ez delako sekula horrela erabili euskaraz. Euskaldunek ezin uler dezaketen itzulpena ezin, beraz, itzulpen egokia izan. (1959g:207).

Onartezin egiten zaion *entseiukarreko* euskara nahasi-mahasiaren arrazoia, Mitxelenak hitz gutxitan adierazten du: "labur-beharra"[119].

Xede hau erdietsi nahiaren argibidea, beste hizkuntzen parean euskarak bere burua gutxietsia ikusi nahi ez izatean sumatzen du Mitxelenak; bestela esan, beste hizkuntzek baino hitz gehiago erabili nahi ez izatean adigai bera adierazteko.

Ikuspegi honek, halaz ere, beste hizkuntzekiko morrontza islatzen du, labur-nahia ez baita euskararen zedarrien barrutik sortua, beste hizkuntzekiko lehiaren[120] ondorioz baizik:

---

[115] *Itun zal eta beñaren* amaian "Aditzak" atala eransten dio lanari Olabidek.
Ildo honetan, besteren artean, Arriandiagaren saioa gogoan har daiteke.

[116] "Es también un apasionado del verbo sintético a lo Eleizalde. Muchas de las flexiones que emplea no se usan ni consta que se usaron nunca; están deducidas lógicamente". (Villasante 1979_2:368).
Aurreko kapituluan adierazi dugu gure Eleizalderekiko Mitxelenaren jokamoldeak sortzen digun harridura.

[117] Orixe (1959b).

[118] *Egan* 1959, 186. Mitxelenaren erantzunaren aurretik irakur daiteke Orixeren "OLABIDE, BAI L. Mitxelena launari".

[119] Gai honetara itzuli beharko dugu, batipat, Orixez aritzean.
Alpatu berri den Orixeren eta Mitxelenaren arteko eztabaidan Mitxelenak *Aforkizunak* kritikatuaren oihartzunik bai ote?

[120] Oroi Etxaideri egotziaz.

Ez ote da horrelakorik inguruko erdaraian hitz batez adierazten direlako eta lotsagarri litzatekeelako haiek baino eskasago agertzea? Eta haiek hitz batean esaten badute, guri, euskaldunoi, zer? (1959b:119).

Gainera, okerrago dena, euskal literatura zaharraz atzendu direnez gero, laburnahiaren eredu zitezkeenen euskal erabilerak ez dituzte gogoan hartu, Mitxelenak oinoharrean aldatzen duenez:

Laburrago mintzatu ziren haatik behin baino gehiagotan euskal autore zaharrak. Etxeberri Ziburukoarena *Eliçara erabilteco liburua, 274. or: Aha-sabaiari lehen dabekala minia.* Olabiderena (Ps. 137,6): *Nere mingaña ao-sapayari itsatsita geldi bedi.* (1959b:119).

Jasoriko guztiak errenteriarra bultzatzen du, Mitxelenaren begietan "giza-eredu jatorra" den Olabide, hizkuntz eredu inola ere ezin hartzera; ez Olabide, ezta ildo beretik ibiliak ere[121], euskara eta euskaldunak arriskubide larrian jarri dituzte eta.

Axular iparrorratz hautestearen arriskuak jendartera dituen A. Mujikak ez bezala[122], Mitxelenak, saiogintzan aritu direnengan ikusten du arriskua, euskal gramatikan finkatu gabeko hainbat puntutan zalantzan dagoena ("ez gauzen berri dakiena") okerreko bidean sarraraz dezakeelako.

---

[121] "Nik, berriz, bestetan ikusten dut arriskua: Olabideren itun zahar eta berrian ez ezik, azken urtetan egin diren beste zenbait saiotan ere bai". (1959b:121).

Bestalde, ez du Mitxelenak aukerarik galtzen, Mujikaren hiztegi handiaz ari denean, delako arriskuaren ingurukoa berriz ere ahotan hartzeko:

"Un reparo más importante, ya que se sigue tanto de sus criterios como de los míos, es el carácter demasiado poco selectivo de este diccionario. El autor se ha dejado tentar, como tantos otros, por la aparente riqueza que constituyen las variantes de todo género, formales o semánticas, del léxico vasco y ha tratado de recogerlas todas, sin un criterio normativo que en una obra de esta clase parece estar en su lugar; no sólo ha multiplicado a veces *ad nauseam* las variantes fonéticas, sino las que, como *judu* y *yudu*, no son más que ortográficas. El resultado es que -si se me permite volver por pasiva las manifestaciones que el autor hizo en *Egan* en cierta ocasión a propósito de Axular y valerme al mismo tiempo de un adjetivo caro al padre Garmendia de Otaola- su libro será "peligroso" en manos de personas de escasa formación en nuestra lengua, aunque vaya a ser útil y aún utilísimo para quienes disponen de una buena preparación y son capaces de elegir por su propia cuenta y con arreglo a criterios bien establecidos. Porque la elección, que en tantos casos no ha hecho el padre Mújica, tendrá que hacerla el usuario de su obra". (1965i:432).

[122] Behin, aldizkari honetan (*Egan* 1957, 133 or.), Axularren alde onez eta txarrez mintzatu zitzaigun A. Mujika: arriskubide izan daiteke, zioen, euskal gaietan ongia eta gaizkia ezagutzeko adinbat jakituri ez dutenentzat".

Hona Mitxelenak jasotzen dituen Mujikak esanak:

"Axularren ugaritasuna eta biziiasuna, esate baterako, harrigarriak dira. Halare ordea pitxi eder askoren artean, erdal kutsua darioten joskera nabarmenak gehiegi ageri dira Axularren liburuetan eta beste idazle batzuenetan ere bai. Hori dela eta, euskaraz ikasten edo dakitena zerbait lantzen eta orrazten hasi direnei ez diet nik sekula Axular emango, aurretik ohar batzuk egin gabe behintzat. On baino kalte gehiago egingo lieke horrelakoei. **Euskal ikasketan aurrera dabiltzanei eta euskaraz poliki idazten dutenei askoz errexago emango nieke Axular. Ona ta txarra ondo bereizten dakitenak asko ikasi dezakete ikasle horietan".** (1957d:97). (Beltz. gurea)

Halaber (1953b:54), gero ikusiko den legez.

Bidenabar, gogoan izan daiteke Mitxelenak argitaratzaileen "hobetzeari" irizten diona.

Egoeraren kezkagarria eta, aldi berean, irteerarik gabeko esperimentuzko bideari amaia eman nahia, argi asko islatzen dute iruzkinaren buruko hitzok:

> Saioa egina dago. Ez dago bide horretatik Olabide baino gorago joaterik. Liburu hau ez da inondik probetxugarriago bide horretako amildegiak agerian uzten dituen aldetik baino. Argituko ahal ditu Jainkoak guztion begiak, gure hizkuntzaren onerako! (1959b:122).

Ez da, haatik, kritika honetan adieraziriko guztia bezteko asmoz esana. Gaitzesten duen joeraren erpinaren erakusle honi, alde onak ere aitortzen dizkio Mitxelenak, gaiari zein hizkuntzari dagokienez.

Gaiari dihoakionez, bihurtzaileak gidari izan dituen arreta-zehaztasunek –jatorrizko testuei izan dien atxikidurak–, *longe princeps* bilakatzen dute Olabideren hau Liburu Sainduaren euskal itzulpenen artean, horregatik, ezinbestekoa du euskaraz gai hauetan (*Izkribu Santuak* jorratzen) diharduen edo ariko den edonork:

> Itzuli ere ez zuen nolanahi egin, gogo beroz, arreta handiz eta jakite ugariz baizik. Maiz eduki beharko dugu gogoan eta esku artean liburu hau aurrerantzean (...) Jatorrizko hizkuntzetarik hartua dago Olabiderena, ez latinetik, eta Biblia gaietan egungo egunean aurki daitekeen jakitearen laguntzarekin itzulia. (1959b:111,112).
>
> Gaiari begira, aurrenik, esan dudan bezala, hemen erabili den arreta eta zehaztasuna. Alde horretatik *longe princeps* da Olabiderena Bibliaren euskal itzulpenen artean. Hobe du hori aldamenean eduki Izkribu Santuak euskaraz aipatu behar dituenak. (1959b:119)[123].

Hizkuntzazkoetan, honako goragarriak zehazten ditu Mitxelenak paperean:

- Euskal hitz eta esaeren balioa ederki azaltzen ditu: *esku-igar* "habens manum aridam" (Mc. 3,1), *makur aundia da, noski, zuena* (I Cor. 6,7), *nereak egin du*[124] "consumatum est"

---

[123] *Historia de la literatura vasca* ere, Olabidek jatorrizko testuari izan zizkion begiramen eta atxikimenduak goresten dizkio:

"De mayor rigor y de carácter mucho más erudito es la obra del también jesuita padre R. Olabide (1869-1942) que publicó una notable traducción del Nuevo Testamento (*Itun berria*, 1931), purista pero muy exacta, y dejó escrita la versión completa de los libros del Antiguo Testamento, cuya edición acaba de salir a la luz junto con la ya publicada bajo la dirección del padre F. Echeverría: *Itun zar eta berria* (Bilbao, 1958)". (1960b:153).

[124] Paradoxikoki, berriz, Mitxelenak hizkuntz bahegintzan goretsiaren gutxi horretako *nereak egin du* esapideari, hain justu, *eliz-gizon* batek eta beste norbaitek heiduko diote, Mitxelena goramenean zuzen ez dabilela eta Olabidek horretan ere ez duela asmatu adierazteko. Hona ezagungabearen hitzak:

"Ba-dakit esaera au (*nereak egin du*) oso errikoia dala; baiña erriaren ezpaiñetan esaldi onek daukan adiera, eta Ebanjelioko textu arek adierazten duena, oso ezberdiñak diralakoan nago. Gure Eskriturako irakasle luzaro izana, beintzat, sutu egiten da itzulpen ori ikusita, eta eztu konprenditzen nola goratu liteken. Olabide, erri-euskeran erdi-aztamuka zebilen-ta, bearbada erri-esaldi orren nondik norakoa ondo neurtu gabe edo, antu ta santu zuan bere liburuan, baiña eztet uste jatorrizko textuaren ordaiña danik, ezta urrik ere".

Eta beste batek, autu beraren inguruan:

"Gauza batean aatik ez naiz Mitxelena'ren iritzikoa. Ontzat eta are edertzat ematen du arako itzulpen ura: *Nereak egin du* (= *Consummatum est*). Bai ote? Ori euskera ona danik eztut ukatzen; baiña grekoaren zentzua ori ote da? Edozein erderatik euskerara zerbait itzultzean, ezpalta aski euskera nai bezain ederra egitea; bearrena da

(Ioh. 19,30), esate baterako.

- Euskal aditzaren berezitasunak bere lekuan uztea (*zatzaizkit/zakizkit* bereizketa zuzena, adibidez), euskaldun zahar "euskalari gorengo" zenbaitek –tamalez– egin ez dutena:

> Goramen bereziak merezi ditu euskal aditzaren bereiztasunak bere lekuan utzi dituelako, euskalari gorengoen irtziak gorabehera (eta ez ziren zorrtxarrez euskaldun berriak): bat da Olabiderentzat *zatzazkit (zuI ez zuek*[125]) eta bestea, zein bestea ere, *zakizkit (zuI*, berriz ere). (1959b:119).

- Mitxelenak ere egokiago ikusten duen *bait-* usatzen du.

> Orain berriro izan diren bozetan, ez dakit Olabideren botoa jaso duten: *bait-* darabil beti honek. (1959b:120)[126].

Geroagoko beste lan batean ere, oin-oharrean, zenbait euskal itzultzaileren arteko berdintzean, Olabide da hobesten duena:

> Kanako ezteiko hartan, Io, 2, 4, *Quid mihi et tibi est, mulier?* da galdera. Ez zait iruditzen latinez *quid* inolaz ere azkenburuan joan zitekeenik, gaztelaniaren tankeran: *a mi y a tí ¿qué?* Euskaraz, gaztelaniaz bezala, bata nahiz bestea gerta zitekeen, eta bietatik aurkitzen da. Duvoisinek: *Emaztekia, zer da ene eta zure arteko?* Pentsa zitekeen begiramena zela kausa batek baino gehiagok gogortxo idoro duen ihardespena leundu egin zuela bere kabuz, baina Leizarraga protestanteak ez zuen bestela jokatu, hitanoz kanpo: *Zer dut nic hirequin emaztea?* Orobat Orixek: *Emakume, zer Zuri ta Neri?* Olabide da, azkenik, *Itun Berria*-n zuzenkienik, ene irtziak balio baldin badu, irauli zuena: *Emakume, Zuri eta Niri zer?* (1981c:151).

Jaso berri direnak *seinalagarri* dauzkala eta Mitxelenari laudorioak sorrarazten dizkiotela ahantzi gabe, laudatuon aurreko pasartean, goraipamenak eta loriak nahaste, beste zerbait ere ez ote den erdi esaten ari errenteriarra errezeloa izan daiteke:

> Hizkuntzari dagokionez ere, dudarik gabe, ezin utzizkoa eta miratu beharrekoa da aurrerantzean euskal aberastasun zahar eta berrien bilduma jori hau. Ederki ikasi zuen euskaraz Olabidek. Eta buruz, taxuz eta adorez, ez esku arinez, **nekearen nekez baino egiten den lanari gertatu ohi zaionez, harena ere iraukorra izango da. Joera horretakoen artean behinik behin gailen eta nagusi jasoko du burua.** (1959b:119). (Beltz. gurea).

---

erderaren esan-nahia euskerara zeatz aldatzea. Bestela egia aterako da esankizun aipatu ura: *Traduttore, traditore*. Arau ortara, euskerazko *nereak egin du* orrek eta grekerazko *tetélestai* arek zentzu bera ote dute? Eztut uste...". ("Nereak egin du" 1959:189,190).

Jatorrizko testuetatik aldatu ditugun blok, grafia gaurkotuaz (*MEIG* I:208) bilduman irakur daitezke.

[125]Mitxelenak iragaitzaz dakarren *zu* eta *zuek*-en arteko liskarrean, aurreko kapituluan aipaturiko zenbaitek –besteak beste– ikuskizunik badutela esango genuke.

[126]Auzi honen berri emango dugu "Euskal hitzak zein diren" (1959a) lana aztergai hartuko dugunean.

Izan ere, Mitxelenak goraipatzeko ematen duen arrazoia, lanaren itzela da, euskaldun berri batek egiteak itzelago bilakatzen duena. Aberastasun zahar eta **berriak** miratu beharrak ere, ez du berez, halabeharrezko goresmenik itsatsirik[127], onak eta makurrak bereizte soila izan dezake xede.

Baina, azken hitzak dira, batez ere, laudorioak lainotzera eraman dezaketenak: gaiten eta nagusi da lana bai, ez orobat, inolako zedarririk gabe haatik, joera horren hesien barruan (*behinik behin*) baizik.

Orogatik esan daiteke, beharbada, Mitxelenak iraulpen honetan ikusten dituen akatsen larriak estalixe uzten dituela asmatu-beteak.

* (1959) "P. Baroja [Y. Etxaidetarrak euskerara emana]. *Itxasoa laño dago... Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezkak*", *Egan* 2. aldia XII, 192-193 [*MEIG* II, 127-129]. (1959f).

Mitxelenak hain begiko duen Barojaren[128] *Las inquietudes de Shanti Andia*ren euskal bihurrera atal honetan sartzeko arrazoia, iruzkinean jaurtia kapituluaren lokarri-gaia lotzean datza.

Mitxelena kritikagileak Etxaide idazle-nobelagile[129]-itzultzaileaz zehazki esanak baino, Etxaidek aurre egin behar dion egoera eta hautesten duen irtenbidea dira nagusiki hemen tarteko, izan ere Mitxelenak, halabeharrez estekaturik aurkezten du Etxaidek gatzatua euskal letren egoerarekin:

> Nondik jo ez dakiela somatzen dugu batzuetan, eta ez da harritzeko. (1959f:128).

"Harritzeko ez" den Etxaideren noraezak, egoeraren nahasian ditu sustraiak: "lehentxeagoko" garbinahiak, euskara sendakizun hartuz, "baraua eta odol ateratzea" beste

---

[127] Gogora Larramendiren edo Azkueren lanen azterpremiaz esanak.

[128] Han-hemen, Baroja ahotan duen pasarteez gain, 1956an eginiko elkarrizketan ("Pio Barojak esan digu") eta hil ondoko "Pio Baroja" urte berekoan esanak gogora dakezke. Halaber:

"Oro har, ez da ene ustez, besterena hobetsiz, bihurgune eta itzulinguru gehiegirik honako paper zar [sic] hauetan. Izatekotan ere, leio gogaikarri batzu aurkitu ditut, behin eta berriro. **Barojaren kutsua zerbaitetan, alderik okerrenean bada ere, itsatsia dut, nonbait**". (1972a:157). (Beltz. gurea).

Ez du, beraz, errenteriarrak barojazaletasuna estali gordetzen.

Mitxelenaren jaidura honen inguruko kalapiten mostra: Begiarmen (1974) alde batetik eta Zubizarreta (1975c) bestetik.

[129] Mintzagai dugun honetan ez ezik, *Joanak-joan* (1955a:55-58) (ikus hemen honen azterketan jasoak) eta *Pernando Plaentxiarra* (1957h:91,92) lanen erreseina kritikoetan ere irakur dakezke alderdi honei dagozkienak.

Nolanahi dela ere, azpimarragarri dateke, bai *Joanak-joan* sorlanean bai beste itzulpen honetan, akats bera aurkitzen diola Mitxelenak: Etxaideren ahotsa ozenegi (pertsonaiak isilarazteraino) entzuten dela, alegia:

"Labur esateko, eskasean aurkitzen dut Etxaide nobelagilea Etxaide idazlearen aldean. Nabarmenegi ageri da askotan egilearen eskua. Bere gizakiek diotena, honek arakutsi die esaten, ez baitira sarri bere baitatik mintzatzeko eta mugitzeko gauza". (1955a:57).

"Euskaraz ari zaigun Baroja honek Jon Etxaide berberaren boza du maiz xamar". (1959f:129).

irtenbiderik ikusi ez zuen. Ikusmolde honen mamitzaileek, "lau hitz jaioberri eta bi esaera besterik" utzi ez zituzten euskal altxorrean.

Ikuztearen ondoren, ordea, eraikitzea ezinbesteko begitandu eta, beste euskalkietan jarri zituzten begiak, hitza euskalki ezagungabekoa izate hutsak, "euskaltasun-ziurtagiriz" janztea bailekarkeen. Euskalki horiek erdaretatik hartuak ordea --egoeraren bitxia!--, bosteekin batean sartu zitzaizkien:

> Hutsak betetzeko, zeinahi euskalkitatik hartzen hasi ginen eskuak betean[130]: gauza jakina da beste erdara batetikako erdarakadek ez gaituztela asko mintzen. (1959f:128).

Aldiak aurrera ahala, mailegatzeari beldurra galdu eta, erdaratikakoak hartzeari ere ekin zaio[131]. Honen ondorioa da, Mitxelenak ondoko hitzotan laburbiltzen duen euskal hiztegiaren egoera bihurria, Etxaide "gidari dabilen txara tapitua":

> Azkenean, dialektu nahastea dela, euskaldunek beti ahotan dituzten "erdal-hitzak" nahiz dozenatxo bat lagunek darabiltzan hitz "jatorrak" direla, badaukagu non hauta, gaurko erdaren iturri garbitik barra-barra biltzen hasi garenak, edonongo kultur hitzak eta Garibayren arima bezala ez izango bai izango dabiltzan *ghost-word* erratuak ahaztu gabe. (1959f:128).

Hiztegikoak gutxi bailiran, gramatika-arloan ere, egoera ez da gardenagoa, ez gramatika-arauak finkatzeke, ilun, nahiz murrizturik zeudelako ("bideak zabalik zeuden"), zenbait gramatikari axolakabe eta idazle lasai *bide* horiek ibilezin bihurtzen aritu direlako baizik.

Gramatikagileek benetako euskararen legeak ez baina, amets eta nahi luketen euskararenak finkatu asmo izan dituzte[132]; direlako idazle horiek berriz, nork bere apeta gidari bakar hartuz, zedarri finkorik gabeko eredu-ugaritasuna (honenbestez, eredu-eza) sortu dute, bidea "otez eta elorriz" josiz. Honetan ere, argi bila dabil Etxaide eta Etxaiderekin batean --pentsatzekoa da-- euskal idazleria.

* (1960) "José Luis Muñoyerro, *Lartaun eguzki-semea*, euskeratzallea, Miren Arantzazu Urreta, Itxaropena Argitaldaria", *Egan* 3-6, 231-232 [*MEIG* III, 44-45]. (1960f).

Liburu-erreseina honetan itzul-lanari eskaintzen dizkion lerro urriak ere, kapitulu honen gaiari datxezko:

> Liburua poliki eta txukunki itzulia dago, 1930 inguruko hizkuntza **garbituan** eta **laburtuan**. Orduko

---

[130]Errepara berriz ere euskalkien itxuragaiztoko nahastean ematen dion garrantzia.

[131]Mintzatuko gara honezaz.

[132]Gogora bitez logika-analogiez lehen esanak.

moda **berriak gaur zahartuxea** dirudi batzuetan. (1960f:45). (Beltz. gurea).

Ez du beste abururik paperera iraultzen, baina bere laburrean, iraganiko joeraz baliatzearen desgaraitasuna agerian uzten du Mitxelenak.

Esan al daiteke, berriz ere, Mitxelenak ez duela aukerarik galtzen biziki eta muinetaraino kezkatzen duena azaleratzeko?

* (1963) "Gaztelu, *Musika ixilla*, Fray Luis León eta Donibane Gurutzen olerkirik onenak, erderaz eta euskaraz, Gazteluk autatuak eta itzuliak, Sarrera, Orixek N. Basterretxearen irudiak", *Egan* 1-3, 141-143 [*MEIG* III, 105-108]. (1963d).

Joan Inazio Goikoetxeak euskarara irauliari eginiko ebaztean ere, garbinahiaren gaineko auzia tartean ikusten duela Mitxelenak gogoeman daiteke:

> Nik, aukeran, [bertsoak] berriegiak arkitzen [sic] ditut, "garbiegiak" nolabait esateko, erabateko artzakietan sartu behar baldin badut. Bestela esango dut, argiago geldi dadin. Erdal olerki honek zahar kutsua, zahar usaia dute, oraingo irakurlearentzat; euskal itzulpenak, berriz, berri antzekoak dira: Orixerenez oroiterazten gaituzte. (1963d:106).

Hau da, itzultzaileak ez du asmatu itzulgaiei zegokien hizkera-mota hautesten, batetik, hizkera hori desgaraiko zaielako[133]; honenbestez, erdal idazleen aldi-giroei egokitzen ez zaien hizkera, ez da itzul-lanetarako zuzena.

Pentsa daitekeena da, Gazteluk hizkuntz eredua begiz jotzean, ez duela, apika, behar zen tokian begiratu. Orixeren ordez, "musika zaharragoa" belarrietara dezaketen beste aspaldiko euskal autoreak hauta zitzakeen:

> Beste hots bat dute [erdal neurtitzek], musika horretara ohitua dagoen belarriarentzat. Detxepare, Joanes Etxeberri edo Gazteluzarren bertsoek, baita XV, XVI eta XVIIgarren mendeetatik gureganaino heldu diren maite kantek ere. (1963d:106).

Baina bestetik, Goikoetxeak mamitu hizkera-mota zehatza nolakotzeko Mitxelenak darabiltzan ***berri, garbi*** izenondoek aditzera eman dezakete, Goikoetxea ezin itzuri zaiola urte horietako joera bati (eta Orixeren gidaritzari, dagokion atalean zehaztuko denez).

---

[133] Kritika hau bera egiten dio Mitxelenak Villasanteri, *Axular-en hiztegia* dela kausa:

"Volviendo al *Gero*, no pretendo que Villasante, a fuerza de practicar el *pastiche* [gogora Etxaideri leporatua], nos diera de él una versión a lo Fray Luis de Granada. Pero se trata, al fin y al cabo, de un escritor del XVII, formado en el XVI, y no había razón para acentuar esa nota culta y atípica que tiene el léxico castellano usado entre nosotros. Así yo, que abomino del casticismo y del cliché tanto como Baroja, habría preferido, a fin de cuentas, *quijada* a *mandíbula (mathela)*...". (1974a, *SHLV*:398).

Oroi, halaber, lehen ahotan genuen Mitxelenaren barojazaletasuna.

Nolanahi dela ere, Mitxelenak Gazteluri egozten dion *errua*, *arina* da, *akatsa*, *ezereza*, aringarri den beste zerbaitek ere ikuskizun ukaezina baitu:

> Gure hizkuntza dagoen baino landuago balego, pekatu larria litzateke, noski, mendeari eta garaiari dagokion giro jakin hori ez itzultzea. Gauden gaudenean, ordea, eta inor gutxi[134] saiatu denez gero giro berezien begitarte aldakorra itzultzen eta irakurleari erakusten, ezin daiteke izan erru arina baizik, akats ezereza, Gazteluri egotzi diodana. Honek ere esan dezake, harako Detxeparek azken buruan esan zuen hura bera: *Debile principium melior fortuna sequatur*. (1963d:106).

[134] *Camino de las llamas*en itzultzaileei makur etsia dator gogora.

4.2.3. Euskararen ikasoldeak

* (1960) "J. Estornés Lasa, *Cómo aprender el vasco fácilmente*, Editorial Itxaropena, Zarauz,", *Egan* 3-6, 235-236 [*MEIG* III, 48-49]. (1960e).

> Liburua guztira ederki egina dago eta ezin hobeki argitaratua, arpegi [sic] alaiko irudi politekin. Euskal zatiak gehienbat errazak eta egokiak dira, mailatan ongi ipiniak, eta oharrak ere erosoak sor daitezkeen eragozpenak desegiteko. (1960e:48).

Halako sarrera samurra eginez abiapidea ematen dion iruzkin honetan, hizkuntz ikasbidea izateko asmoz oraturiko lanari Mitxelenak leporatzen dizkion akatsak, ez daude bestelako zenbait lani alboratuetarik hagitz urruti.

Ortografian, nahaspila, testu-zati hautatuetan, batasun-eza eta esaera harrigarriak iraultzea dira, hutsak aipatzen hasi orduko, Mitxelenak adieraziak.

Direlako zatien arteko batasun-ezak, bai hiztegian bai joskeran ditu ondorioak, lehenean batipat, nahasten baititu aho-hizkerazkoak, asma berriak (*orlegi, akeitetxe*) eta erdarakada larriak (*dolmenak*).

Honezaz gain, zenbait hitzen esanahiari ez dio liburugileak behar bezala eusten. Honela, esate baterako, *zura* eta *egurra* nahasten dituela aipatzen du Mitxelenak, beste zenbait *aldrebeskeriaren* ondoan:

> *larunbatan, biotzan, enborran*, firmadunak gainera batzuek: *metri causa* sartuak bide diren arren, hobe litzateke noski euskaldun berriari horrelako aldrebeskeriarik ez begien aurrean ipintzea. (1960e:49).

Ikasbidearen xedea da aldez aurretik egoki mugatu ez dena, ikaslea benetako eta hezur-haragizko egungo euskaldunekin mintzatzeko bidean jartzea behar bailuke eta ez, Olabide eta besteri kritikatuaren bidetik:

> etorkizun eder bezain ametsezko batean izan daitezkeen euskaldun landu eta apainduekin. (1960e:49).

Hau dela eta, hizkera arruntean *maizenik* (egiaz eta ez uste hutsez) erabiltzen diren hitzek eta esaerek bete beharko dute batipat taxu honetako lana, nahiz –egia da– Mitxelenak lan hori eginkizun dagoela aitortzen duen[135].

Eginkizun bada ere (ehuneko ehunean amaitzeke, beraz), liburuaren azkenaldeko

---

[135] Hutsune hau betetzera datoz buruen-buruenik, Sarasolaren *Maiztasun hiztegia* eta Euskaltzaindiaren aginduz UZEIn mamitzen ari den XX. mendeko euskara idatziko lexikoaren azterketa, *Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa* (*EEBS*).

hiztegiari "zeharo eraberritzeko" edo "zeharo kentzeko" irizten dio Mitxelenak, horra aldatuak ez zaizkiolako bat ere hurbiltzen arrunteko hizkera horri:

> Zer arraiotarako behar du euskaldun berriak jakin nola esaten diren "apogeo" eta "perigeo"? (Nola esaten diren?). (1960e:49).

Ez dira hemen amaitzen, gardenen esatearren, hizkuntz ikasbide honen hutsak: hizkuntz irakaskintzaren teknikan egin diren aurrerapideak ez dituela gogoan hartu Estornesek, iragaitzaz buda ere, adierazten baitu Mitxelenak.

Honen ondorioz, lan honek ezinbesteko diru berrikustea eta bermoidatzea:

> Gogoz hartu dute askok liburu hau lehen argitaraldian eta are gogozago hartuko dute beste argitaraldi hobetu batean. Aski litzateke horretarako hizkuntz irakaskintzaren teknikak egin dituen aurrerapenak gogoan edukitzea. Eta badakit ez diotela sekula muzinik egin Estornestarrek ez teknikari eta ez aurrerapideari. (1960e:49).

4.2.4. Zuzen etsien aipamenak

Orain arteko guztiak erakusten du, beraz, noraino kezkatzen duten Mitxelena, euskararen etorkizunerako behaztopagarri iruditzen zaizkion jarrera-jokabideok, berez, literatur kritika zatekeenean ere, auziaren oihartzunak sarri topatzeraino eta, aukera guztiak, kaltegarritzat daukanari erasotzeko profitatzeraino: argitaraldiak direla, sorlanak direla, itzulanak direla mintzagai.

Arlo honetatik atera gabe, erantsi beharreko zerbait badago, ordea. Jipoitzeko estakururik ez duen legez, erreparorik ere ez du Mitxelenak, euskararen erabilpen zuzen-egokia dela eta, ereduaren finkabidean lagungarri irizten dienei laudorioak eskaintzeko, garbizale sutsuak, edota guztiz gogaidetzat ez dauzkanak izan daitezkeen arren.

Honako lanetan aurkitu ditugu esan berriaren mintzak:

* (1958) "Campion, A., *El último tamborilero de Rahondo*-ri Aita Justo Mari Mokoroak eginiko euskaralpena: *Erraondo-ko azken danbolinteroa*, *Egan* 1-2, 106 [*MEIG* II, 103-104]. (1958g).

Iruzkin osoa[136] era honetako laudorioez josten du: "hain da euskalduna, erraz, garbikeriarik gabe garbia, ugaria (...) Hizkuntz eredu bikaina (...) ikasbidea"[137] etabar.

---

[136] Amaian ohar bat eransten dio, halaz ere:

"Ohartxo bat. Euskaraz ere *Juslapeña* agenzen da 14garren orrialdeko oharrean, *Txulapain*-en ordez (ik. A. Irigaray, *Euskera* 1956, I, 46gn. orrialdean)". (1958g:104).

[137] (1958g:103).

* (1959) "Aita Omaetxebarriaren *Euskera. Un poco de gramatica y algo de Morfologia del verbo vasco*, *Egan* 1-4, 194-195 [*MEIG* II, 129-130]. (1959h).

Txit pasarte argi eta adierazgarria hauta daiteke Omaetxebarria gramatikagilearen iritzi zuzen, jardun zuhur eta ongi eginaren erakuskarri:

> Euskal literaturari doakion gauza denez gero, esan behar da gainera A. Omaetxebarria ez dela ibili euskal aditza bere buruko amets lanbrotik sortzen, Jainkoak mundua ezerezetik sortu zuen bezala. Hor azaltzen digun aditza ez da "berea", euskal aditza baizik. Ez dago, beraz, eta nahi eta nahiez ezin zegokeen, azken urteotan – eta bai edo beste lehendanik – gure Gipuzkoa honetan agertu diren berrikerien alde.
>
> Egilearen iritziak – eta norenak ez?– okerrak izan daitezke hemen edo han. Ez behin ere, ordea, zimendu gogorren gainean eraiki ez dituelako. Eskeintzen dizkigun aditz jokoak ez dira Basarteko auzo galduren batean norbaitek erabiltzen omen dituenak edo egilearen arrebari, lehengusuari nahiz izterlehengusuari halako batean entzunak. Aditz joko eta esaeren jabeek honelako izenak dituzte: Mendiburu, Kardaberaz, J.B. Agirre, Lardizabal, G. Arrue, Elizanburu, D. Agirre, Urruzuno, Orixe, Lizardi, A. Iraizoz eta abar. (1959h:120).

* (1962) "Aita Luis Villasante, O.F.M., *Kristau Fedearen Sustraiak, I. Jainkoa*. Jakintaldearen ardurapean, Arantzazu-Oñatin, 1962", *Egan* 1-3, 94-95 [*MEIG* III, 87-89]. (1962j).

> Euskaraz, ordea, zergatik egin honelako liburu bat, erdarazkoak daudelarik? Erdarazkoak daudelako, hain zuzen ere, Aita Villasantek begi zorrotzez ikusi duenez. Haien lekuan ezer ipintzen ez badu, laster burutuko da azken urteotan ohartzaka doan azpilana. Kristau ikasbideak gaur eskatzen duen goragoko mailarako euskara lantzen ez badugu, zokoan geldituko zaigu poliki-poliki bakankako zenbait elizkizunetarako: haurren dotrinarako, lege zaharreko sermoietarako, elizkanta batzuetarako... Ezerk artegatzen ez zuen fedea, gurasoengandik zuzen-zuzenean zetorkigun hura, ederra izanik, ez da gaur aski. Eta oraingo beharkizunetarako nekez sor zitekeen Villasanteren hau bezain liburu egokirik (...)
>
> Nere iritzi eskasak ezer balio badu, ez dut uste aspaldiko urteetan liburu honen baliokorik asko izan dugunik. Eta arrazoia bistan dago: Villasante ez da etzi edo etzidamu sor daitezkeen euskaldun jatorrekin ari. Gurekin, gaurko euskaldunekin, garenak garela, ari da eta hortik datozkio liburuari dohairik ederrenak.
>
> Hizkuntzaren aldetik, eta gure sailean sartzen naiz honenbestez, ez da gogo gaiztoz bezala begiratzekoa, astiro eta sakon aztertzekoa baizik. Gure hizkuntza jakite hizkuntza bihurtzeko egin diren saioetan burua harro daramake honako honek. Alde horretatik ere, badugu zer ikasi ugari liburu honetan. (1962j:88).

* (1962) "*Lau Ebanjelioak. Arantzazu-ko prailleek egiña*", *Egan* 4-6, 310-311 [*MEIG* III, 95-96]. (1962d).

> Itzulpen hau, berriz, zuzena izanik, jatorra da eta euskal usai garbia dariona alde guztietatik. Ez du garbikeri kutsurik behar izan zinez eta benetan garbi agertzeko, ezta mordoilokerien laguntzarik ere nornahirentzat adierraz eta irakurgarria izateko, ikasientzat adina eskolarik gabeentzat. Larramendiren ezinak, hitz batean, egina dirudi atzera ere. (1962d:100).

* (1963) "*Eguneroko Meza. Kerexetatar Jaime eta Aita Onaindiak eginda, ta Kerexetaren ardurapean atonduta, Bilbao*", *Egan* 4-6, 244-245 [*MEIG* III, 127]. (1963f).

Nolako hizkera darabilten ere esana dago horrenbestez: besteak beste eta bizkaiko [sic][138] doinuan ari direlarik, ez dabiltza horretan ere hain urruti Orixeren joeratik. Erdiko bidetik jotzea erabaki du Kerexeta jaunak, besterik ezin zitekeelakoan: "bai mordoillokerialik, bai garbikeritik alde egiñik". Hitzetan, garbi-antxean, nahiz eta itzulpena behe-aldean ezarri behar izan, noizean behin; gramatikan eta joskeran, berriz, areago, joskera jatorra eta gramatika baliira "edozein izkuntzaren arima".

Ezin esan dezaket aukeratu dutena ote den biderik onena Bizkaiko kristauen egarria asetzeko, eta pizteko gehiago beharbada asetzeko baino: auzi horretan ez dut hitzik ez botorik. Irakurle landuak, ordea –euskal gaietan landuak, diot– nekerik gabe eta atseginez irakurriko ditu orrialde horiek. Giro eta joera baten ezaugarriak nabarmen dituzte aurpegian, baina giro eta joera horren fruitu zori eta helduak dira. Asko eta ederki dakite bihur-lanean aritu direnek, baita dakitenaz zentzuz eta neurriz baliatzen ere. (1963f:127).

* (1967) "P.Altuna, *Euskera, ire laguna!*", *Egan* 1-6, 131-132 [*MEIG* III, 153-154]. (1967d).

Hiztegi aldetik ere, **garbizale xamar** aurkitzen dut, neure gogorako. Baina langileak –berriz ere "maiña"-rekin hasi behar– lanean ari denak, hobeki daki lanaren berri besoak gurutzaturik begira dagoenak baino (...)

Nik behintzat besoak desgurutzatzen ditut. Aita Altunak **mordoillokeria** barkakizun etsiko duelakoan, behin-behingoa delako edo, egina duen lana txalotzeko. (1967d:154). (Beltz. gurea).

[138] Jat. *Bizkai'ko*.

4.3. MITXELENAREN BAITAKOAK

Bestek mamituei eginiko iruzkinak, "garbinahi" auziaren eztabaida-esparru gisa baliatu baditu ere, ez zaio Mitxelenari begia eremu horrezaz soilik hautatu bere iritziak jendarteratzeko.

Hitzaldietan, besterekin -nahiz bere buru "bestetuarekin"- izandako solasaldietan, jatorriz artikulu izaera izan dezaten gatzatuetan... auzi honi dagozkionak iraultzen ditu Mitxelenak. Hau dela eta, sortzez hitzaldi edo elkarrizketa gatzatuagatik, beste artikuluekin batean aztertuko dira, hedabide, pleguak izana dela medio.

Aldi-ardatzari eutsiz berriz ere, bada, honako Mitxelenaren baitako idazlanetan antzeman daitezke auziaren oihartzunak.

* (1953) "Arnaut Oihenart" hitzaldia, *BAP* IX, 445-463 [*MIH*, 233-256; *SHLV* II, 866-879; *MEIG* V, 35-57]. (1953b).

Oihenarten hizkerak ematen dio bide, hain zuzen, auziaz ("beti-bateko polemika-gai gogaikarriaz"), *zori gaiztoz* bada ere mintzaldian iharduteko.

Oihenart garbizalea[139] da Mitxelenarentzat, hitzak[140] eta adizki trinkoak[141] asmatzeko isuria duena eta, Oihenarten jaiera honek hain justu, Aita Olabiderekin alderatu ahal izatera darama.

Alabaina, hementxe bukatzen dela Oihenarten eta Olabidek "gorenki" gauzatzen duen joeraren arteko bat etortzea pentsa daiteke, Oihenartek asmatuei ez baitiete geroagoko zenbait garbizaleren begiek eskatu bezain "garbi" iritzi:

> Kimika atzeratuxea egoki artean eta ezin atera bere gaiak gaurkoek bezain huts, garbi eta aratz, batere -ustez behintzat- erdal kutsurik eta gandurik ere gabe. (1953b:53).

Hemengo *kimika*ren aipamena ez bide da oharkabean egina, Olabideren "saio-

---

[139] XX. mendea baino lehenagoko garbizale gutxiren izenik irakur daitcke Mitxelenaren pleguetan. Oihenarteren ondoan, hein batean bederen, Mendiburu aipatu beharrekoa da, agidanez:

"Aita Cardaberaz hiztun erraz eta ugari egertzen zaigu utzi zizkigun liburu guztietan. Ez zen hain garbia edo, dirudienez, garbitasunak ez zion Aita Mendibururi adina axola". (1964d:132).

Bata Larramendi ere, zegokion kapituluan erakutsi dugun bezala.

Nolanahi dela ere, esan eta esaten ari garen bezala, lehengo eta geroko garbizaleen artean graduez edo motez hitzegitea ezinbestekoa da.

[140] Mitxelenak, honakoak aiboratzen dizkio: *neurthitz, ilhartitz, ilhots, hamarkuna, hamalaurkuna*...

[141] "Hauetatik batzu (*donhetsa, duzkizu, dedetazuna, neroske, nigorra*) berak asmatu ote zituelako susmoa ere zabaldu da". (1953b:52).

euskara", "laborategi hizkuntza", "euskara experimentala" gogoan bada, kimikaren adigai-eremu beretsuko hitzak erabiliko baititu Mitxelenak (ikusi den bezala) joera hori arbuiatzeko.

Oihenartek, beraz, jakinaren gainean (*eskarmentaturik*) ez ditu erdal hitsik batere gabeak ilkitzen burutik. Ez du, ordea, hau aitzakia, euskal ondareaz atzendu eta neurririk gabe mailegatzeko, bere adinkide gehienek ez bezala, ahal duela, nahiago baitu, euskararen atzoari eta sor- edo erneindarrari etekina atera:

> Baina ordukoek ez bezalako arretaz jasotzen zituen hitz zaharrak, gutxi erabilitak, eta maiteago zituen beti euskarak berezko dituenak. Ohartzen zen, nonbait, bere kideak gehienetan ez bezala, ez duela aski hizkuntza batek hitzak, beharra sortu-ahala, ingurukoetatik hartzea, eta ernal-iturria agortu-ahala, hizkuntza bera ere agortuz doala. (1953b:53).

Mitxelenak Oihenartengan hiztegi-hautamen egokia ikusten duela[142] azpimarkatzekoa da, hau da, neurri batean, bederen, Mitxelenak bere egingo lukeen joera "garbian" oinarritua: lehenik euskal altxorrari etekinak atera; behar dena euskararen "atzoan" izan ez bada, euskal ernal-iturrietara (eratorpenera, elkarketara) jo; baina ezinbesteko denean, mailegatzeari ere ateak hertsi gabe[143].

Edonola ere, jaso berri diren hitzetan, bada begietan eman dezakeen zerbait: Mitxelenak, "hitz zaharrak" eta "gutxi erabililak" ahotan ditu, Oihenarten zentzu zuzena erakusteko.

Gogoan bada Olabidegan gaitzetsien artean, oso erabilbarruti murritzeko "bitxikeriak" eta gisa horretakoak zituela, Mitxelenak ez duela neurgailu bera erabiltzen batarenak eta bestearenak ebaztean ondoriozta al daiteke? edo, denboraren poderioz (1953-1959) iritzia aldatu duela?

Erabateko erantzunik ez badugu ere, errepara dakioke, Oihenarten kasuan, *jaso* zituela dioen bitartean, Olabidek, katolikoen oin-liburuan *paperera eraman* dituela dioela.

Hau dela eta, pentsa al daiteke, Oihenarten ihardunbidea, zuberotarraren euskal sorkariei, hots, Oihenart egile dutenei (neurtitzei) ez baina, Oihenartek bildu zituenei (atsotitzei) lotzen diela errenteriarrak eta, alde honetatik, euskararen atzean arakatzeko lekukoak eta gaiak eskaintzean letzakeela eginaren ongia?:

> Baina ez dira hitzak bakarrik: Europako hizkuntza landuek joskera ere, batzuek besteen antzera eta guztiok latinaren arabera, antzaldatu dute. Horian ere, hitzetan bezalaxe, gure autoreak latinaren eredura ahaleginduz ziren euskara egokitzen. (1953b:53).

---

[142] Errepara bekio Mitxelenak adizki trinkoak behin aipatu ondoan ez dituela berriz hizketa-gai hartzen.

Ez ote da harrigarri xamarra Mitxelenak arrazoi hauxe berbera zela medio hamaika euskaldun (kapitulu honetan behin bilduei, Azkue-Orixez esanak erantsiz) beztu dituen bitartean, Oihenart autu duenean kritika-kutsukorik deus ez alboratzea?

[143] Hitzaldi honetan Larramendi aipatzen ez badu ere, ez dabilkiokeela oso urruti iruditzen zaigu.

Hiztegikoek Oihenarten hizkeraren ingurukoa agortzen ez dute; "hitz-joskera edo sintaxisean" zer begiratua baitago Mitxelenaren ustez.

Oihenartek (Axular eta besteren neurrian) euskararen gabezi egoera bati aurre egin behar izan dio: hizkuntza landuek urraturik zuten bideetan barrena sarrarazi nahi izan du euskal poesia; literatura goia sortu gogo izan du, euskaraz sortu ere.

Asmo duena on dezan, euskara kultur bideetatik ablarazi behar du, herri-hizkuntzak eskaintzen dizkionez gainetikakoak jorratu beharrean ikusiz bere burua eta, horretarako, hiztegia ez ezik, joskera ere egokitzen saiatuz:

> Bestela esateko, egunoroko hizkuntza egunoroko gauzak adierazteko gai baldin bada, ez da gai, joskera deus aldatu gabe, poesia eta batez ere prosa landurako. Horretarako bigunagorik [sic] behar da. (1953b:55).

Joskerazkoak *biguntzea* latin-ereduari gertuagotik jarraitzea dela aditu behar da eta, Oihenart "garbizaleak" ez du eragozpenik euskara ibilbide horretan sartzeko. Areago:

> Bai Axularrek[144] bai Oihenartek euskara gaitu, egokitu nahi zuten, batek hitz-lauz, besteak hitz-neurtuz. Bazekiten garbitasunak gutxi ajola diola hizkuntzari, aberastasunak, biguntasunak, erraztasunak, berriz asko. Eta latin eredura euskara egokitu beharrean ari zirenean, uste zuten, **zuzen noski**, ez zirela euskara nahaspiltzen eta zikintzen ari, aberasten eta gaiagotzen baizik. (1953b:55). (Beltz. gurea).

Zuzen irizten bide dio Mitxelenak Oihenarten (eta Axularren) jokamoldeari, baraua beste sendabiderik onartzen ez dutenek "erdarakadatza!" dauzkaten egiturok, euskaldunentzat ulertzekoak izateaz gain, irakurgarri ere badira; hots, "gogoz irakurtzen" direnak, "hots atseginagoa" baitute euskal begi-belarrientzat "euskal adimenarentzat ez bada ere"[145].

> Gehiago ere esango nuke. Ur huts-hutsak edateko balio ez duen bezala, ezta euskal-joskera huts-huts horrek ere gogoz irakurtzeko edo entzuteko. (1953b:56).

---

[144] Lizardiren gaineko kapituluan jaso eta sakonduko den bezala, ez du Mitxelenak begi gaiztoz ikusten Axularrek eta euskarari itsatsi dioten aire hau (1954g), Arantzazuko biltzarrean ere gogoraziko duen bezala:

"Nolabait esan, bi errenteriar desberdin aipatzea zilegi bazait, askozaz ere hobeki zekien euskaraz Xenpelarrek nik baino: Xenpelarren hizkerak, haatik, hain egokia izanik, ez du neretzat balio. Bestela eta erabatago esanik, sartaldeko hizkuntzetako prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, noragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

Ibilaldi honek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zailuago, malguago bihurtu dute. Euskaldunok ez dugu, herri-gaietan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gara [Jat. *gera*], kultura-barruti horretan bizi gara. Ezin izan dezakegu, beraz, askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekeen [Jat. *zitekean*] Viligarren mendean, XIIIgarrenean eta XVIgarrenean ere bai oraindik, agian, ez, ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan. Latinaren, eta erabat, sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Alfor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik". (1968d:152,153).

Gure aztergaitik lerrotuxe dakusaguta eta, galdera hutsean utziko dugu: noraino da Mitxelenaren sintaxia, "ariketan", aldezten duen eredu horren jarraile?

[145] -eta ez dakit horrelako ernelekiarik inon aurki ote daitekeen-". (1953b:56), eransten du.

Ildo honetan kokatu behar da Oihenart eta Axular elkarganatzea eta hauezaz ari delarik, Axular eta Axulartarren artekoak (hauen "joera berria") paperera eramatea[146]:

> Badirudi, beraz, gure literatura klasikoari segi nahi diotenek erabat segi behar lioketela. Alabaina ez da hori gertatzen. Alta Villasante-Kortabitarteren kritzia besteek onesten baldin badute. (1953b:53).

Oker aditu ez bada, Mitxelenak "Axulartartzat" dauzkanek (Villasantek eta), **hitzen eremuan** eragozpenik ikusten ez dute Europako herri landuek darabiltzatenak euskaraz ere ber modutsuan erabil daitezen, ondasun horiek inorenak ez (edo ororenak) liratekeenez gero. **Joskerak** sortzen dizkie, haatik, kezkabideak, honetan ez daudelako, agidanean, gidari hautetsien jokabideari itsu-itsuan jarraitzeko prest.

Bestetan imitagarri dituzten egileon lanak berriz kalerako balira, "ukiturik" gabe ez lukete irtengo[147], sintaxi aldetikako urrun-gogoa hain da larria:

> garbi altortzen du ez derizkiela honetan imitagarri. Hainbesteraino, ez baliluzke eredutzat hartu dituen antzinako liburuak dauden daudenean berriz argitara emango, <arriskuz betheriko egitekoa> dela jakinik ere, <Syntaxis aldetik zuzendurik> baino. <... euskara zuzen eta kanonikoaren ithurri eta maisu izaiteko egiten diren edizinoetan horrenbertze haizu litekela dirudi>. (1953b:54).

Mitxelenak ezin onar dezake gisa honetako "zuzentzerik[148]", argitaraldiezko iruzkinetan jaso den legez eta, "bihotz-barrendik" ahoratzen zaion orrua, *Absit!* bakarrean gorpuzten du.

Atzean dagoena, euskal sintaxiarekiko ikuspegia da; hau da, Mitxelenaren aburuz, nahastea (edo okerra) bizi dute jarrera horren aldekoek, *euskal sintaxi zuzen*tzat zer daukaten

---

[146]Hiru urte geroagoko "Euzko-gogoa eta Euskera" lanean, Mitxelenak, honelaxe laburbiltzen zuen auziaren funtsa:

"Bada, nere ustez, irakurleak, gehiago ez badaki, ez du hortik argibide zuzenik aterako. Zer ikusirik duten puntuak hauexek dira, deritzadanez: 1) hitzaldixo bat egin nuen behin, gero argitara emana, Oihenarten olerkiei buruz; 2) hitzaldixo horretan, bizpahiru hitz sartu nituen bidenabar "Axulartar" zirelakoen kontra, Alta Villasanteren kontra batipat; 3) hori zela eta aipatzen nuen Altube jaunaren "Erderismos" ez berak finkatutako legeak mugatzen saiatzeko, baizik nere ustez gutxi edo gehiago mugatu beharrak zirela adierazteko. "Euskera"-n, nik esanari erantzun dio Altube jaunak, Axulartarrak eta Alta Villasante, oso oker ez banago, zehero alde bat utzirik. Alta Villasanterekin nuen auzia labur azalduko dut. Axular eta bere jarraitzaileak honek nahi zuen bezala eredutzat hartuz gero, ez nuen uste nik sintaxis aldetik erabat alda zitezkeenik. Zuzen nengoen ala ez, bestek esan beza. Argi eta garbi dago nolanahi ere ez ginela Alta Villasante eta ni iritzi batekoak. Pekatu asko genituen apika, baina nork bereak. Eta "Euskera"-n Altube jaunak inor astindu badu, ni astindu nau, ez ditu *zenbait euskaltzain* astindu". (1956b:130).

Bai 1953ko bai 1956ko lanetan, *sintaxis* darabiltela Mitxelena, bidenabar bada ere, nabarmendu gogo dugu. Hitz honezazko jokabidearen argi zehatzago bila, gure azterlanera igortzen dugu.

[147]Orol daiteke Alta Mujikak Mitxelenari adieraziez.

[148]Argitaraldiezko iruzkinetan argi eta nabari geldiu da Garoeri egina, gogoratu besterik ez dago.

erabakitzerakoan.

Euskal sintaxi zuzentzat, Altuberen arauetan bildua daukate, nonbait[149]; Mitxelena, haatik, Altubek, benetan **dena eta behar lukeena** berezi gabe eman duelakoan dago. Areago, zenbait euskalkiri -eta hauei ere ez bete-betean-, egoki dakizkiokeen legeak dira Altubek landatuak. **Behar lukeena** ezin izan neurgailu egoki, beraz, **dena** epaitzeko.

Gainera, Altuberen legeak, erabilesparru okerrekoan usatu nahi izan dituzte, literatur hizkuntzarako eredugarri bailiran, gehienez ere (arestiko murriztapenekin) **herri-hizkeraren** -ez ordea izkribuzkoarenaren[150]- ispilu liratekeelako[151].

Axularrez esanak Oihenarti ere (Mitxelenak autore horien joskera-moldea zuzenetsi duenez gero) egoki dakizkiokeelakoan, ez dago zer jarri deman, Gorostiaga euskaltzainak egiten duen bezala, Axular eta besteak (Oihenart barne) eta garaile bakar urdazubiarra hartu besteak azpiratuz, Mitxelenarentzat, azken finean (aipamenean jaso den bezala) buru-jokebide beretsuei jarraituko bailitzaizkieke:

> Eta euskara bide horretan gehiago ibili izan balitz, ez zen noski bere kaltean ibiliko izango, eta ibilaldi bakoitzean bildu dituen ondasun apurrak sakabanatu beharrean mailekiro gorde izan bagenitu,

---

[149] Izenik ez dio baina... Altube-Orixeen itzalik ez ote?

"Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko gateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar izkutua nabarmenduaz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, garbi betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuaz, hizkuntza menderatu, hizkuntz-legeen lotarnak eta trabak, airea hegaztiarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezen". (1968d:153).

[150] *Fonética histórica vasca*-ren bigarren argitaraldia prestatu baino lehen, aski lan egin dut lehengo eta batez ere oraingo, oraingo eta Errenteri aldeko azentuaz, *pitch* nahiz *stress* dela, bata bestearengandik bereiz badaiteke. Eta hemen ere Altubek kontutan hartu ez zuen oinarrizko partiketa batekin egin dut topo: ez dira gauza bera, ezta hurrik eman ere, elkarrizketa, alde batetik, eta kontaketa bestetik, nahiz biak hizketa izan.

Bestela esan, galde-erantzunei dagozkiela soil-soilik, Altube-ren legeak elkar-hizketarenak dira. Benveniste-ren harako "*présente* instance de discours" hari datxezkionak". (1977a:101).

Eta bereizkuntza honen zehaztapen xeheagoa. "Galdegaia eta mintzagaia" lanean:

"Elkarrizketa hartu dut ahotan, eskuarki, hori delako benarbada Altuberen azterketan behar adina garbitu gabe geldittu zen puntua. Izan ere, haren oinarrizko irtziaren ondoren, baiezko eta ezezko perpausak (ilobe, agian, esaldiak) gertatu edo, maizago, gertakizun diren galderen erantzun gisa ulertzen eta moldatzen ditugu. Molda-modu horrek ez luke, beraz, balio, berez behintzat, eske eta aginduak aditzera ematen direnerako, ezin ere bihotz barruan irakiten daramakeguna bridarik gabe isurtzen zaigunean. Edo, berdin dena, itsumustuko eta heriosuharreko [Jat. *eriosuarreko*] ahapaldiak artoski eratzen ditugunean hotz-hotzean.

Direlako lege horiek ez dute ere balio ez gogoetan ari garenerako eta ezta ere kontu kontari mintzatzen denarentzako". (1981c:143).

[151] Mitxelenak izenik ez aipu zuzenik ematen ez du.

Villasanteren "Literatur-euskara laphurtarr klassikoaren gain erairua", lanera joz iraku" daitake Mitxelenak ezeztatzen dituen irtzien iturria:

"Egun, euskarari zorr zaion joskera edo syntaxis bereziaren azterketa zorrotzago eta sakonago bat egina izan da, eta, beraz, heiek izan etziluzten argi eta zuzenbideak ditugu beharr bezalako syntazis [sic] hori erabiltzeko. **Altube'tarr Seber** euskaltzain jeunak btudi egin-egineko bat eta alde guztiz zorrotza burutu du, **euskarak galde egiten duen syntaxia nolako edo zer moldezko den** gaingiroki, sustratik eta sahets orotarik frogatu eta sendo ezarririk utziaz. Lege hoik **litteratur-euskaran** kontuan iduki beharr direla erranik dago onezkero". (Villasante 1952:284). (Beltz. gurea).

garen baino aberatsago ginateke[152] (1953b:57).

Honenbestez, A. Oihenarti eskainiriko hitzaldia, Mitxelenak egitamu zabalago batean kokatzen duela ondoriozta daiteke: garbinahiaren iritzi okerretan sustraitu direnek gaitzetsi dituzten autoreak –eta hauen hizkera– berreskuratzean, alegia[153].

Joera horrek eteniko haria, berriz ere lokarri bilaka dadin dihardu Mitxelenak, ez inoizkoak egungoak baino ederragotzat dauzkalako, aurrera begira ere, euskara gaiagotuko bada, ezinbesteko azterkizun dituelako baizik.

Oihenarten saioari, beraz, hala hiztegian nola joskeran, laudagarri deritza Mitxelenak: *erramu-boneta* merezimendu osoz eramateko duina[154].

Mintzaldiez ez eze, *Egan* aldizkariaz ere baliatzen da Mitxelena bere iritziak agertzeko; zehazkiago esanez, izakera kalapitatsu edo polemikoko zenbait artikulu, aldizkari horren orrialdeetan iritzigo dira plazara, "besteren" aburuen zuzentasun-eza agerian uztea dutela helburu.

* (1956) "*Euzko-Gogoa* eta *Euskera*", *Egan* 5-6, 157-163 [*MIH*, 201-209; *MEIG* VIII, 125-

---

[152] Menpekoak ustekabean eta supituan bizimodu berri batera moldatu beharrean aurkitzen dira, ez ordea jabe direnak; edota hobeki esan, alde batetik gainekoak ere moldatu beharrak dira, baina hau beren gogo eta arsiara egingo dute, zeren, gehienetan azpikoei ez baitzaie galdegiten antolamendu berria gogoko duten ala ez. Argi da honelakoetan korapilo larria gertatzen dela.

Honen ondorengoak hiztegian ageri dira zenbait ideia berri sartu egin behar baita nahita-ez. Sintaxian [Jat. *sintasian*] ere honelako zerbait badugu. Europan latin joskerak eta horren araberako frase luzeak eta hipotaxi ugari erabilizen hasten da Ciceronen moldeei lotu nahiz (...) /Eta norbaitek marteko ez duen euskaraz: *Eta nork burrukan zein leku hartu baitzuen, ia hura bera estaltzen zuen, bizia galdurik, gorputzez*/. Honelako joskerek arrakasta miragarria izan zuten beste hizkeretan, eta denak hauen arabera idazten hasi ziren. Eta Mendebaleko zibilizazioa sintaxi [Jat. *sintasi*] honen bidez itzuli denez gero, beronen mendean ziren hizkuntza guztiak bortxatuak zeuden molde hauetara makurtzera. Euskaraz ere Etchebern Ziburukoak bataioaz ari delarik berriso hauek idazten ditu:

Arren haurtxoari urak, egiozu grazia,
Khen diozon hobenari narrio iarraikia.
Guri ere egiguzu grazia iasaleei,
Ibilibideei guardia emateko hunenei.

Argi da Etchebertik darabilen hiperbaton hau ez zela bere mendeko euskaldunek erabilia Mendebaleko hizkuntzen imitazioa baizik, eta azken finean latinarena". (1972b5:117) /Mitxelenak emendatua/.

[153] Gogora batez ere Axularen *Gero*ren berrargitalpenari eskainiak.

[154] Mitxelenaren iritzi Oihenartzalea ulerkatz samarra gertatzen da zenbaitetan, gure ustez.

Larramendiri eskainiriko kapituluan ikusi da apologistekin erkatu eta hagitz abantailatzen duela, dituen hizkuntz ideiak direla medio. Bego hau baina errispara ondokoei:

Lehen aldatu dugu adizki trinkoen sortzaile izan arren ez duela horregatik bezten.

Neurtitzetan Oihenartek berak aitortzen du "sarpasu" dela baina Mitxelenak –hementxe bertan beherago eta Orixezko kapituluan ikusiko dugun bezala– honela ikusten ez eta "erramu boneta" eskaini dio.

Ez dakigu zer dela eta Mitxelena agertzen den horren Oihenarten aldeztaile.

132][155]. (1956b).

Eztabaida-artikulu honen hasieratik bertatik, gogor egiten dio eraso Mitxelenak U.[156] delako jaun baten *lantxoari*[157], *purrustaldiari*[158], U.k idatziak karikatura irrigarrian laburbilduz: *Western* batekoak bailiran, *gaiztoak*, hots, *gezurrezko euskaltzaleak* eta heroi garailea, U. bera, manikeoki banatuta.

*Western*eko karikaturatik *Kixote*renerako urratsa, Cervantesen liburuko pasadizo batez ematen du:

> Beldur naiz horratik, etsai izugarriak eta **erraldoi itzalak** apurtzen dituelakoan ez ote den ardi otxan eta **haize errotekin** borroka ibili. (1956b:125). (Beltz. gurea).

hurrengo lerroetan izendatuki papereratzen:

> Mancha-ko zaldun ibiltarien ibilera berriak ... luma darabil oraingoan armen ordez ... (1956b:125).

eta artikulu osoan zehar desagertarazi ondoren, amaia aldean berraipatuko:

---

[155] J. Azurmendik *Zer dugu Orixeren kontra* liburuaren "Garbi eta mordoilo" atalean artikulu hau du gogoan lehen lerroetan:

"1956an *Euzko Gogoa*-ko U. batekin eztabaidan ari da [Mitxelena]. U. honek ez zituen begi onez ikusten, barruan hartzen hasiak ziren bide mordoiloak («barruan», esaten dut, piska bat esilloaren eta barruaren arteko diferentzia bat da): «Euskal itz latorren ordez mordoiloenak erabiltzen asiak ditugu bazterretan». Mitxelenak, ostera: «Ken dezagun, arren, burutik euskara. Mintza gaitezen honetaz eta hartaz –euskaraz, bai, orduak eta gaiak eskatzen duten guztietan– baina gaiari begira eta ez hizkerari bakarrik». «Hizkuntza bat (...) ez da mintzabide bat besterik. Zerbaitetarako da, zerbait adierazteko, ez bere txilborrari begira egoteko...»" (Azurmendi 1976:118).

*Euzko-Gogoa*ren eta *Euskera*ren ez baina, Guatemalakoaren eta *Egan*en arteko tira-birezko ikuspegia iztuetaren (1991a:800nh) lanean irakur daiteke.

[156] Umandi, izenik esaten ez bada ere.

[157] Mitxelenak paperera aldatzen duen artikulua hauxe da, "Euskera Euskaltzaindiaren lan eta aginak I, 1956", *Euzko-Gogoa*, 1956 gko. Ilbeltza-Otsaila, 115. or.

[158] Bidenabar *Euzko-Gogoa* ere erasoaldiak zipriztintzen du:

"'Euskal-aldizkari bakarra' ez ezik 'euskal-aldizkarien erregea' –itsuen herrian okerra errege–, hots 'Euzko-Gogoa'". (1956b:125).

Gogora, halaz ere, geroagoko (1972ko) "Azken ordukoak"-en esanak:

"Beda [purrustada] bat, haatik, *Euzko-Gogoa*-rekikoa, bide zuzenez eco zeharbidez Zaitegiren kontra doana. Zaitegi eta ni, leunkiro adieraz dezadan, ez gentozen beti bat. Hori gora-behera eta hitzak hizpidoa ekarri duenez gero, zor zaiona atontu beharrean aurkitzen naiz, are ozenkiago erbestean dugulako. Ez da euskaldunik asko hizkuntzari eta herriari Zaitegiren neurrian lana, ondasunak, osasuna bera eskaini dizkionik". (1972a:157).

Eta 1978ko "Euskararen bide luze bezain malkarrak" artikuluko beste hau:

"Baina orduan [Krutwig] berarekiko jarrera kritiko samarra izateko nuen kariaz, **eta era berean, arrazoi gabe segur aski, Zaitegi eta Euzko-Gogoarekiko, ez dit barrenak uzten ustea gordean edukitzen...**". (1978a:41). (Beltz. gurea).

Utzi ditzagun **quijotekeriak**, zentzatzeko ordua badugu eta. (1956b:132). (Beltz. gurea).

U.ren hitzak, hitz hutsal besterik ez direla eta, inolako ondoriorik izango ez dutela adierazten du Mitxelenak, bestela esan, alferrik aritu dela U., eta U.ren saioaren alferra argitzeari eskainiko dio, hain zuzen, Mitxelenak artikulua.

Burrundara bizian etorri da erasoa, baina zaparrada atertu ondoan lehen bezain lasai ari dira ardiak belarretan. (1956b:126).

*Euskera*ren ale batean idatzi duten euskaltzain batzuen lanak *erderaz* idatziak egoteak, bide ematen dio U.ri zenbait argudio plazaratzeko:

- "Erdaraz euskarari mesederik egiterik ez dago"[159]

Mitxelenak, argudioaren desarrazoia agerian paratzeko, U.ren burubidearen kontrako adibideez gain, argumentua muturrera eramanez gero, ondoriozta daitekeena paperera darama:

- *Euskera*ren ale horretan erdaraz baliatu direnak bestetan euskaraz ere baliatzen dira.
- Egileak hautetsiriko idaztizkuntza euskara ez izateak, ez dakar ezinbestean mamituriko lana euskararen arerio denik, aitzitik, euskararentzat osasungarri izan diren franko aipa zitezkeen, U.k goraipatzen duen Altuberen *Erderismos* "erdal" lana barne.
- Euskal hiztegi gehientsuenak txarretsi beharko lirateke, azalpenak erdaraz dituztenez gero.
- Euskaldunek erdal libururik ez lukete ukituko.

- "Euskaldunak eta euskaltzaleak behar dira, ez euskalariak"[160]

Euskalariak eta euskaldun-euskaltzaleak elkarren kontrako bi taldetan banatzeak, Mitxelenagan biztu bide duen suminaren errainu dira ironia garratzez iraulikook:

Adimen aberatsa behar gizonak horren antzeko burutapen bat izateko! Horrelakorik behin bederen izan duena lasai hil daiteke, esan baitezake harako harek baino eskubide hobez: "Non omnis

---

159. "Azkenik eskuetara zait Euskaltzaindiaren aldizkaria: ao bete aginekin utzi nau, damurik. Zortzi idazlanetatik bi soilik euskeraz, Altube ta Lekuona euskaltzain iakintsuenak, alegia. Dirudinez, zenbaten irritzian, euskera zaitzeko biderik ederrena erderaz idaztea bide da". (U. 1956:115, 1956b:125-126).

160. "Euskalariak baino areago euskaldun eta euskaltzaleak bear ditugu, noski baino noskiago, beste nonbait idatzi nuneż". (U. 1956:115, 1956b:126).

moriar"[161]. (1956b:126).

Mitxelenak *garai, bakun, xinple* deritza U.ren burutapen honi:

Bi gizon mota baizik ez da; gauza nabarlagorik!: euskalariak batetik, euskaldun euskaltzaleak bestetik. (1956b:127).

Westerneko ikuspegi manikeistaren oihartzun, honela darraio iruzkinari:

Nortzu dira euskararen etsai? Euskalariak[162]. Nortzu laguntzaile? Euskaldun-euskaltzaleak.

---

[161] "**Non omnis moriar** multaque pars mei
Vitabit Libitinam: usque ego postera".
Horacio-ren Oda XXII, libro III-tik harturiko latin-esapide hau bestetan ere badarabil Mitxelenak. Honela, Txirritagan harrigarri aurkitzen duena irudiaratzeko:
"Ohi ez bezalako gizaki honen bereztasun nabarmenetan, batek harritu nau, Ata Zabala harritu duen antzera, gure artean egunorokoa eta nonnahikoa ez delako: beste "hirugarren" bizitzan –ospearenean, alegiazeukan sinesteak. *Non omnis moriar*, esango zukeen hark ere latinez ikasi izan balu, azken urteetan nahi omen zuen bezala. Ez zuen, ordea, okerrago esan ia ahaztua zeukan euskaraz:

Pixka batian ez naiz aztuko
sartuagatik lurpian,
nere attamenak izango dira
beste larogei urtian". (1962e:99).

Mitxelenak ere parafraseatzen ditu euskarara aldatuz:
"Teoriak, noski, iragankorrak dira, ez dute bere hartan irauten. Baina izen hori merezi duen: edozein teoriak esan dezake bere buruaz besteak esan zuena: *Non omnis moriar*. Hilko naiz, baina ez naiz osoro suntsituko, geroagokoetan neure aztarna utzi gabe". (1980a:64).

[162] "Esatera noan **erdaldun** batek ere –**euskalaria** bera, eta Euskaltzaindiaren urgazlea- idazten duela hor,...". (1956b:126). (Beltz, gurea).
Ez du Mitxelenak auzi hau urteek aurrera egin ahala ahantzi. Kanpoko euskalarien lana oso eskerr eta goragarria izan dela behin baino gehiagotan aitortzen bartu:
"*Pro domo* ari naizelarik, leku agerian ipini nahi nuke hemen, beharbada aitermik izango ez delakoan, euskalariak izan direla, ez euskaltzaleak –«ofizioz» euskaltzale direnak, behintzat–, Etxepareren obra bezala, hainbeste euskal autoreren obrak argitara atera, azaldu eta adierazi dituztenak: lehengoez gainera, Bonaparte, Dodgson (Lewis Carroll izengoitiaren azpian *Alice in Wonderland* bitxia idatzi zuen logiko-matematikoaren anaia, hain zuzen), Linschmann eta abar. Honexek garbitu behar lituzke, itxura duenez, euskalariak zenbaitek egozten dien bekatu astunetik". (1978b:26).
Arestikoei eranstsi beharrekoa da, ezpairik gabe eta besteak beste, Tauer-en izena:
"Nola aditzera eman, aditzera eman beharrik balego, zenbaitetarainoko zorra dugun **euskaltzale** arrotz honengana? Gutariko zenbat baino gehiago arduratzen da euskararen biziaz eta lantzeaz, eta are esango nuke trebeago mintzatzen ikasi duela, ariaren aniaz, jaiotzez euskaldun garen asko(k) baino". (1963k:114)
Aldatu berriaren beste irozgarri bat, Euskaltzaindiaren *Azkue Bibliotekan* gordetzen diren gutunetariko batean ere aurki daiteke. Testuan hizpidean dugun auziari nola-hala dagokio. Norbert Tauer-i Salamanca-tik igorria, 1971-XI-13n.
"Egia da, diozun bezala, inoiz baino euskal liburu gehiago argitaratzen dela. Egingo nuke ia, azken hamabost urte hauetan, artean inoiz baino liburu gehiago agertu dela. Pozkarria da hori eta bizi garelako seinalea. Egia ere da maizegi gabiltzala mokoka elkarrekin, baina hori ere biziak dakar berekin. Zu ere hasi zaituzte behin behintzat gure istiluetan, eta min eman zidan. **Euskaltzalea izanik, baina euskalduna ez (orain hitz hau hartzen den eran darabilt)** ez baituzu zertan agenturik gure arteko borroketan. Badakigu guztiok gogorik [bi]ziena azaldu duzula, hitzez ez ezik bai egitez ere, gure alderako...". (Azpimarratua, jatorrizkoan; beltzaxkaz,

(1956b:127).

Honenbestez, zein amai dagokio *filma*ri?:

> Akaba ditzagun, beraz, lehen baino lehen euskalariak eta bake oderrean biziko gara aurrerantzean euskaldun-euskaltzaleok. (1956b:127).

Azken pasarte honen ironia harik eta bistakoago bihurtzen da, besteren burubidea Mitxelenak bere bailitzan irauli eta, handik lerro batzuetara, bere burua **euskalari**tzat aitortzen duenean:

> Nik, egia esan, kale garbitzaile edo zatar-biltzaile izatea nahiago nuke, baina ez naiz damurik ez kale-garbitzaile ez zatar-biltzaile. euskalaria naiz, edo hobeto esan euskara batez ere gogoan duen linguista. (1956b:127).

Bere burua linguista-euskalaritzat daukan Mitxelenak ezin onar dezake U.ren "burutapen harrigarriak" (ez, ordea, *zuzenak*) gordetzen duena: ez du, inondik inora, kanorerik euskalariak euskaldun-euskaltzaleei kontrajartzeak, **euskalari** izatea *lanbide*ari, *irabazpide*ari dagokiona besterik ez denez gero. Edonor izan daiteke, beraz, euskalari, "apaiz, mediku, zapatari eta abar" izan daitekeen bezalaxe.

Lanbideari ez dagokiona (arras bestelakoa gero), euskaldun eta euskaltzale izatea da —irabazpideak honetan ezer gutxi ikustekorik du—, inork ez baitu euskaldun nahiz euskaltzale izate hutsagatik soldatarik jasotzen:

> U. jaunak hori ikusten ez badu[163], badu, ezagun da, makurren bat begietan. Ez lioke batere kalterik egingo mediku euskaltzale edo ez euskaltzale batengana luzatu gabe joateak. (1956b:127).

Honenbestez, nor-zer bakoitza bere lekuan kokatzearen alde mintzatzen den Mitxelenak ez du zilegi ikusten aldez aurretikako iritzien araberako sailkapenik egitea:

> Gauza ageri xamarra da zapatariak euskaltzaleak direla batzuetan, eta besteetan ez. Orobat apaizak, medikuak eta euskalariak. (1956b:127).

Puntu honi dagozkionak bilduz, beraz, garbi ikusten da Mitxelenarentzat euskalaria eta euskaldun-euskaltzalea kontrajartzerik ez dagoela; euskalari eta euskaltzale izan daiteke euskaldun izan gabe; halaber, euskaldun guztiak ez dira ez euskalari, noski, baina ezta

---

gurea).

Gutunak ukitzen duen beste gaia, hots, mokoka aritzea biziak dakarrela... aipatuko dugu aurrerago ere

[163] "Nik, beintzat, eztut haien begietatik argia ikusten, ala bearrik". (U. 1956:115, 1956b:126).

euskaltzale ere. Ba ote, ordea –azken aipameneko hitzetan oinarrituz– euskalari izatea euskaltzale izan gabe?

Bestela esan, Mitxelenaren hitzak era honetara irakur daitezke: zapatariak, medikuak etabar bezala, euskalaria ere euskaltzale izan daiteke edo ez; hau da, euskalaritzak lanbide soilari dagozkion –ez gehiago, ez bestelako– inplikazioak ditu, bihozberatasunaren mundutik gertuago dagoen euskaltzaletasunak horretan ikuskizunik ez du.

Laburbilduz, euskalari, euskaldun eta euskaltzale[164] hiru barrutitako izari desberdinak direnez gero, ezin erka daitezke eta, U.ren burutapenak gordetzen zuen *euskaldun-euskaltzale* uztardura ere, Mitxelenak, *hauts* bihurtzen du[165].

Mitxelenak bere burua euskalaritzan eta linguistikan kokatu duenetik U.rekiko auzia bete-betean bere hezur-haragietan itsatsiz, *Euskera*ko artikulua oraingoan erdaraz zergatik egin duen azaltzen du, baina aldi berean, honetxek ematen dio bide, berriz ere, auzi zabalera jauzi egiteko.

Auziaren muinak, mezuaren balizko **hartzailea** eta mezuaren **zabalkundea** ukitzen duela esan daiteke. Mitxelenak artikulu hori gaztelaniaz idaztea, balizko hartzaileak euskaldun soilei ez murriztean sendotzen du, euskaldunek ez baitute erdaraz irakurtzeko debekurik. Areago, euskaraz idazten duenak jakin behar du hizkuntza hori mintzabide hautestean, oso esparru mugatuan besterik ez duela oihartzunik izango, honenbestez –eta hemen dator jauzirik larriena– lana munduan barrena ezagut dadin, euskaldunak bere hizkuntzari uko egin eta nazioartekotasun-estatusa eskuratu dutenen artekoren batez baliatu beharko du, batez ere, delako lana jakintzaren aurrerapiderako baldin bada, euskaraz emango balu "mutua oihulari" hartzea bezalakoxea bailitzateke.

Mitxelenarentzat, jakintzaren aurrerapideari dagozkionak euskaraz emateak kaltea lekarkieke, egileari aurrenik eta jakintzari gero (azken honen ondorio praktikoak ahantzi gabe), zabalkunderik izango ez luke eta:

---

164. Además de ser de aquí, me parece necesario añadir que, sean de aquí o allí o estén en una u otra parte, deben *sentirse* de aquí. Ya sé que, al decir esto, me aparto de la opinión del profesor Savater, reputado por su descubrimiento de R. L. Stevenson, en un largo y reciente artículo de EL PAÍS. Y no es que yo esté en desacuerdo con sus conclusiones, o con sus premisas, que sólo encuentro un tanto incompletas. En efecto, muchísimos vascos *se saben* (quiero decir: *nos sabemos*) españoles, como bastantes otros *se saben* franceses, cosa que a cualquiera le cuesta esfuerzo olvidar.

También es difícil que se nos traspapele la circunstancia evidente de que uno no *se sabe* vasco, al menos no en una medida comparable, y confío en que nadie pedirá la prueba formal de ello, sencilla de dar por otra parte, a empezar por el D.N.I. En nuestra triste condición, lo único que podemos hacer, ya que no nos sabemos, es *sentirnos*, o *no sentirnos*, vascos". (1984c, *SHLV*:549).

165. Guzti honen ondorioz, zeharo aldatu dira Euskalaritzaren izaera eta ezaugarriak. 50 eta 60ko hamarkadetan "zaletuak" (euskaltzaleak) baldin baziren nagusiki euskara-gaietan zihardutenak –alde batera utziko ditugu oraingoz hizkuntzalari atzerritarrak–, **behin 80ko hamarkadara iritsiz gero**, "ofiziodunak" (euskalariak) –euskaltzale ere izanik edo izan gabe– ditugu lehentasuna berenganatuz joan direnak. "Euskaltzale/Euskalari (+euskaltzale)" berizketa hori geroz eta gardenago bilakatuko da azken urtetan eta, ondorengoetan, urak beren bidetik badoaz behinik behin, are gardenagoa izango dela espero behar". (Zuazo 1990:8). (Beltz. gurea).

Zuazoren baieztapena orotarikoari dagokion neurrian aldatzeko asmorik gabe, azpimarratuko genuke "nori berea" ematearen premiaren aldeko Mitxelenaren aldarrikapena 1956koa dela eta auzi berbera zuela autu Urkixok 1918an, esate baterako.

> ... bi gauza dira, eta arras bereziak, jakintza irakastea eta jakintza aurreraztea, edo aurrerazi nahiean ibiltzea, gizon ikasi asko-jakina eta bilatzailea zeharo ezberdinak diren antzera. Munduan barrena dabiltzan eskuliburuak, euskaldunen ikasbiderako, itzultzeari eta haien gisakoak antolatzeari ezin hobeki derizkiot. Baina jakintz arloan bila ari denak ezer berririk euskaraz adierazi? Zertako? Kontatzen dakienak ez du horrelakorik egingo[166]. (1956b:129).

"Kontatzen dakien" euskaltzale zentzudunak (Mitxelenaren arabera euskaltzaletasuna eta zentzua elkarren etsai balira, euskaltzaletasunari uko egingo lioketenak, alegia) zinetako, eta ez nahikunde edo ametsetako, egoerari aurre egin behar dio eta, den bezala hartu, hots, euskaldun guztiek erdaraz irakurtzeko gauza direla eta lan guztiak euskaraz, salbuespenik gabe, euskaraz mamitzeagatik euskarak ez duela geroa ziurtatua garbi izatea, besteak beste:

> Zer erakutsiko luke, gainera, euskaraz idatziaz? Gauza dela euskara, alegia, horrelako gaiak adierazteko? Ez al dira itzuli orain berriro San Agustinen "Aitorkizunak"? Ez ote lituzke norbaitek, behar izanez gero, Einstein-en idazlanak ere itzuliko? Ez da, bada, gaitasun hori egiztatu beharrik: ageri-agerian dago. Horrelako idazlanak irakurtzeko gogoa eta behar bizia sumatzen duen jendea behar genuke. (1956b:128).

Azken aipamen honetako zenbait ideia azpimarratzea komeniko litzateke: Mitxelenak, esana doan legez, ez dio egoki irizten jakintza aurrarazteko bidean, lanak euskaraz plazaratzeari, oihartzun-eza dela medio, baina honekin batean, besterik ere lotzen du[167].

Euskararen gaitasuna (euskaldunen betiko desafioa[168]) frogatu beharrik ez dago, euskara, hizkuntza, edozer adierazteko gai denik ez baitago ukatzerik. Mitxelenak ematen duen erakuskaria, ordea, bitxi samar gerta daiteke, **itzulpenak** baitira euskararen gaitasunaren froga gisa begiz joak, eta ez jakintzen esparruan euskaraz gatzatuak. Hau da, itzuli ahal izateak erakutsiko luke (*ageri-agerian* jarriko) euskararen ahalmena.

Bada, bestalde, beste azpimarkatzekorik ere: San Agustinen *Aitorkizunak*en euskaratzea aipatzea, hain zuzen, euskararen gaitasunaren erakusgarri. Itzulpenaren iruzkinean esango direnak[169] gogoan badira batetik, eta, beste artikulu honetan itzultzailearen (Orixeren) izenik ez aipatzea bestetik lotuz gero, Orixerekiko jokaera ez guztiz garden eta betibatekoa duela Mitxelenak susma daiteke. Izan ere, iruzkin hartan laudorioen ondoan hizkuntzazko "xehetasunak" leporatzen badizkio, nolatan orain (aita aitorturik gabeko) adigarri ageriko gisa aipatu?

---

[166] Bazterretan ugari ditugu ainitz ta agitz euskeraz dakitenek: euskeraz, ordea, urri itz egin ta idatzi or duteta, iakintzaren sail gelentsuenetan euskera larru gorrian ageri zaigu. Areago euskeraz mintzatzeko ta idazteko garaian bizi gera, euskera dala-ta erderaz baino". (U. 1956:115).

[167] Auzi zehatz honen inguruan: Begiarmenen erasoa (1974) eta Mitxelenaren erantzuna (1975c). Kanpotik, berriz, Zubizarreta (1975d).

[168] Gogora Larramendiz, besteak beste.

[169] Ikus Orixeri eskainiriko kapitulua.

Orixerekikoa ez ezik, Mitxelenak bere lanekiko duen jokaeraz ere sortzen da galderarik. Artikulu honetan dioena irizpide hartuz, pentsa al daiteke Mitxelenak euskaraz mamituetan, irakurle euskalduna beste hartzailerik ez duenez gero, ez duela ohartuki jakintzaren aurrerapidean lagungarri daitekeen ezer isuri?

Hau da, linguistika eta euskalaritza jakintzen artekoak izanik, **irakasteko** soilik –ez aurrerazteko– idatzi dituela euskaraz gai horiei buruzko lanak, bestelakoak erdaraz emanez? Errentagarritasunaren mesedetan jokaera bikoitz hori izan al du?

Guztiz interesgarri litzateke lan honen mugak gainditzen dituen azterketa berdintzailea egitea Mitxelenak euskal eta erdal lanetan aztertu dituen gaien artean[170].

Garbinahi auzitik lerratuxe dagokeen arren, Mitxelenaren jokabideari eta izakerari muin-muinetik egokitzeak dakar hona, halabeharrez, U.ri egozten dion hurrengo errua nabarmentzea, Mitxelenak hainbatetan ezinbestekotzat daukan kritikagintza baita tarteko.

Batek adierazten dituenak irudipena baino euskarri sendoagorik behar duela gogoraziz, kritika egiteko moduari eusten dio Mitxelenak:

> Nor dira, edo nor gara, *zenbait euskaltzain* horiek?[171] U. jaunak dotore baino dotoreagotzat edukiko ditu zehar-esan eta aipamen izkutu horiek, baina munduan barrena egiten den kritikak aspaldi utzi zion "ikusi-makusika" ibiltzeari. Hauntzaroa joan zitzaigun. Igerketaz bada ere, pentsa dezakegu "zenbait" eta "lukete" horiek ez direla *figura rhetorica* hutsa. (1956b:130).

Mitxelenak ez du onartzen kritikaren alorrean halako zehaztasun-ezaz jokatzerik. U. delakoak ez du jipoitzen dituen euskaltzainen ez lanen izenik paperera aldatzen, justu zer eta zergatik derizten arbuiatzeko agerian gera dadin:

> Baina kritikak baditu bere legeak, eta lege horiek ez dira beti gaizki esatea izan daitekeen bezain atseginak. Jorratzen diren obrak irakurri ere egin behar dira, kritikatuak dioenaz jabetu behar da eta irakurleari, kritikoaren iritziaz gainera, eman behar zaio zehazkiro besteak dioenaren berri (1956b:129).

Adierazi kritikaren eginbeharrak hurrengo eztabaida-punturako igarobidea eman ez ezik, U.k ahotan darabilen argudioa ere irrigarri uzten du. Izan ere, U.k bere burua erdal lanak

---

[170] Nolanahi dela ere, lesian zehar ikusten ari garenez eta ikusiko dugunez, maizkara errepikatzen ditu ideiak aldian aldiko mintzabide desberdinetan.

[171] "Gatozen arira. Ele-eder-euskeraren ioskera dalo-ta, idazten digu Altube buru-zuriak, berak oi dun sakon eta argi. Euskal-itz iatorren ordez, mordoiloenak erabilten asiak daugu bazterretan. Orain berriz, zenbait euskaltzainek euskal-ioskera bera gainazpikatu ta itzulipurdikatu nai lukete, ageri danez. Burubide oker orren aurka ari da gure Altube". (U. 1956:115, 1956b:129).

juzkupean hartzeko "nor" ez dela aitortzen du[172].

Mitxelenak, adierazpide honen kanoregabetasuna hartzen du abiapuntu. U.k ez du oztoporik ez hizkuntzaren aldetik, ezta gaiaren aldetik ere. Era honetara, Mitxelenak U.ren jokamoldearen bihurria azalera darama:

> Damurik, gutxiagok uler dezaten edo, erdaraz eman du [Villasantek] bere iritzi berria. Nondik daki, bada, U. jaunak –*hispanica non leguntur*– "zenbait euskaltzainen burubide okerraren aurka" ari dela Aitube, erdarazko lan hori irakurri ez badu? Eta nondik daki burubide hori, Aita Villasanteri dagokionez, okerra denik "erdarazkoen iritzia emateko nor ezpada"? (1956b:132).

Eta hemendik, ondore orotarikoagora doa Mitxelena. Euskaldunak, besteek bezalaxe, edo besteak baino areago beharbada, ezin diezaioke beste hizkuntzetan idatziari itsuarena egin, ezin euskal kulturarik garatu *euskal* soilean geldituz[173]:

> Euskal kultura nahi nuke, kultura horrek euskara mintzabide duela. Horretarako, nik uste, kulturarako gogo bizia duen jendea behar genuke aurrenik, eta gainera euskaltzalea. (1956b:131).

Euskaltzaletasuna eta zentzua balizko aukeran jarri dituenean **zentzua** hautetsi duen molde berean, **kultura**ri ematen dio orain lehentasuna, euskaltzaletasunaren gainetik ipiniz. Hau da, "hizkuntz axalak" mami erakargarri eta garrantzitsua estali behar du eta euskaraz idaztea ez daiteke izan, inola ere, aitzakia zernahi justifikatzeko:

> Bestela, zorioneko euskara landu behar horrekin, hiru motatako idazlanak sortuko zaizkigu soil-soilik: a) lan "sakonak" *pour épater l'étranger*, b) "A, gure Euskera ederra!", c) "O, gure Euskara gaxoa!" (1956b:131).

Honela laburbiltzen du Mitxelenak, edukiaren ordez mintzabidea mezu bilakatzen dutenen saioen ekoizpena.

Hirurak, hizkuntzen arrunteko erabileratik saihestuak, eta aldi berean, hizkuntzaren ikuspegi okerraren isla; izan ere, hirurek adieraziko lukete ez dutela Mitxelenaren ondoko iritzia ariketan mamitzen:

> Hizkuntza bat –eta euskara ez da besteak ez bezalakoa– ez da mintzabide bat besterik. Zerbaitetarako da, zerbait adierazteko, ez bere txilborrari begira egoteko. (1956b:132).

---

[172] "Erderazkoen iritzia emateko nor ezkera, euskera irauneraziteko, edertzeko ta zabaltzeko bidea erdera danik ezpaleritzagu, bestalde". (U. 1956:115; 1956b:130).

[173] Gai honetara itzuliko gara.

Mito-eranztea, "arruntera makurtzea" (honela esatea zilegi bada), hau da, "normalizatzea" duela gogobide Mitxelenak esan daiteke, euskara beste hizkuntzekin zaiitasun-lehian garaile agertaraztea, euskara aratz gorde behar den bitxi-ederkaritzat edukitzea eta euskara munduko hizkuntzarik zorigaiztokoena dela berresaten denbora ematea izaki, hain zuzen, egoera "ez ohikoaren", ikuspegi mito-sortzailearen, erakuslerik agerikoenak.

Hau dela eta, euskaldunei orori, aginterazko aditzez josirik, egiten die ondoko gomitea:

> **Utzi ditzagun** itxurakeriak lagunartean behintzat: ez dakit kanpotarrei zirirk sartuko diegun -kanpoetan ere jendea ernatzen hasia omen da-; etxekoei ez, behinik behin. **Utzi ditzagun** quijotekeriak, zentzatzeko ordua badugu eta. **Utzi diezalogun**, gere buruak edertzeko edo, akuilu beharrik ez dutenak akuilatzeari. **Ken dezagun**, arren, burutik euskara. **Mintza gaitezen** honetaz edo hartaz -euskaraz, bai, orduak eta gaiak eskatzen duten guztietan-, baina gaiari begira eta ez hizkerari bakarrik. (1956b:132).

1957ko bi solasaldıtan ere garbinahi auziaren zantzuak hauteman daitezke.

* (1957) "Berriketan. Etxekoekin hizketan", *Egan* 1-2, 3-8 [*MIH*, 167-169; *MEIG* I, 81-87]. (1957e).

Mitxelenak bere buruarekin izandako hitzaspertuan, lehenengo itaunaren ihardespenean bertan aurkitzen da aierua:

> Ez ginen hasi inongo enperadore (**kaisar, garbizalea bazaitugu**)[174], errege, ezta buruzagi ere izatekotan. (1957e:82). (Beltz. gurea).

Baina solasaldi (itxurakoa) aurrera ahala, aieruka ez baina zuzenean jartzen du gaia mahai gainean honako galderaren bitartez:

> -Hizkuntzarekiko eztabaida gogorrak omen dabiltza. Ba al duzue zer ikusirik horretan? (1957e:85).

Pluralean erantzunagatik, erantzunak, egoeraren berri eman ez ezik, Mitxelenaren kokagunea ere argitzen du:

---

[174]Bi ohar. Lehena, gogora daiteke Orixeri leporaturiko harako "Jakinzale ez da filosofo ezta **agintari enperadore** ere". Bigarrena, (1954g:40), "garbizale horrekin ari naiz" esaka zuzentzen zitzaion irakurle-mota bati.

-Nahi eta ez, gaur euskaraz ari denak etxean baitu gerra, emazte ederraren jabeak bezala[175] (1957e:85).

Ildo beretik aditu behar da beste hurrengo galdera hau eta beronen erantzuna:

-Zer diozue oraingo zenbait gazteren mordoilokeriaz? Kaltegarritzat al daukazue joera hori?
-Ez horrenbeste: gu sortzez mordoilo xamarrak garelako eta euskal prosaren erpin garaietara igotzeko gauza ez garelako edo. *Egan*-en behin Txillardegik zioena esango genuke geuk ere: ez bata eta ez bestea. Halaz ere, uste dugu oraingo ezin egona eta gehiegikeriak osasungarri izan daitezkeela zenbait aldetatik, edo osasun-bidean gaudelako ezaugarriak behinipehin. Gure jendeak, alegia, zerbait adierazi nahi du zuzen ala oker, garbi ala zikin. Eta izenari baino izanari lotuagoa ageri den mintzabehar horrek, barren-irakite horrek[176], uzta joria sor dezake, dirudien bezala jatorra eta benetakoa baldin bada. (1957e:86).

* (1957) Plazido Mujikarekin izandako solasaldia ere ("Berriketan. Plazido Mujikak esan digu", *Egan* 3-4, 127-133 [*MEIG* I, 89-98]. (1957d).) garrantzizko dateke, garbi-mordoilo auziaren zedarrien barne Mujikak aukerak egin behar izaki eta, zein irizpide lexikologiko-lexikografikotan oinarritu den bere hiztegia mamitzeko jakiteko modu zuzena delako.

Bestela esan, auzi horrek euskalaritzan norainoko indarra eta oihartzuna duen jakiteko bidea eskain dezakeelako.

Alabaina, tesi honi dagozkionak Mitxelenaren iritziak izaki, eta Mitxelenak hiztegigilearenak paperera aldatu besterik egin ez duela aitortzen duenez gero, Mitxelenaren galderetan arreta paratzea, egokiago etsi da hemen:

Aita Mujikaren hitzak dauden daudenean orialde hauetara aldatzea besterik. (1957d:98).

Azterbideaz eta euskal literaturaz galde egin ostean, Mitxelenak, liskar-iturriarekin ikuskizuna duten zenbait galde egiten dizkio solaslagunari:

-Hitz zahar erabiliak ere agertzen al dira zure hiztegian, erdaratikakoak izan arren?
(...)
-Zer deritzazu gaur garbi eta mordoilo-zaleen artean piztu den eztabaidari?[177]

---

[175] Errepara dakioke Mitxelenaren baliabideari, "Emazte ederra duenak, etxean gerra" atsotitzaz baliatuz. Nolanahi dela ere, beste hau ere hor dago:
"Emazte dolorraren jaubea jopu".

[176] Gogoan har *Leturia*ren iruzkinean adieraziak.

[177] Bitxi samar gertatzen da galde honen aurrean oso jokabide desberdinak mamitu dituztenek bere burua "erdian" kokatuz erantzun dutela irakurtzea:
"¡Adelante, depuradores! Sin incurrir en excesivos purismos, pero arrancando chispas a nuestro idioma que atesora tantas posibilidades (...) Felicito al P. Omaechevarría por su valentía al defendernos a los puristas moderados". (Orixe 1953a:16).

(...)
-Ez ote dute arrazoi piskaren bat erdal hitzak, teknika gaietan batez ere, lasai xamar hartu behar genituzkeela pentsatzen dutenak?
(...)
-Komeni ote da gaurko euskaltzaleek idazle zaharrak –Axular edo, eta gure artean Mendiburu, Agirre, Lardizabal eta antzekoak– irakurtzea? (1957d:92-97).

Mitxelenaren galdeok, eztabaida puri-purian zeuden gaiak islatzen dituzte: bigarrenak egun haietako tira-birei, orobat, Mujikak irizten diena jasotzea duela helburu; laugarrena, egoera horren aurrean irtenbidea bilatzeko borondatea eta balizko "sendagarrienetako" baten zantzutzat jo daiteke.

Lehenengoak eta hirugarrenak, berriz, auzia bere zabalean ez baina, eztabaida-puntu zehatzak dituzte galdegai, hala nola, erdal jatorrizko euskal *hitz zaharrak*, batetik eta *teknik*aren barrutiko terminologiaren osakuntza, bestetik.

Ez ditu, halaz ere, bi galderok molde berean egiten Mitxelenak, batak, Mujikaren jokabidearen berri jasotzea du xede, bestearen bitartez, aldiz, teknika-gaietan mailegatzeari ateak zabalixeago utzi beharra "besteren" usteaz eskatzen dio Mujikari aburua.

Bestelakoa da (ez, haatik, gaiaz landakoa) hona aldatu den azken galdera.

Egia esan, literaturaz, irakurzaletasunaz eta bestez, Mitxelena elkarrizketaria iritzi eske dabilela pentsa daitekeela ukatu nahi ez bada ere, bestela bezala eginiko galdera honi, auziaren beste adar, biziki garrantzizkoa, hauteman dakioke[178]: solasaldiaren garaiko zenbait euskaltzalek, garbizaletasuna zela autu, autore zaharrei irizten zietena, alegia.

Honenbestez, Mitxelenak galderotan, garbinahi auziaren –zabal hartuz, nahiz auziaren osagai zehatz batzuk aipatuz– printzak iraultzen ditu mahai gainera.

* (1959) "Euskal itzak zein diren", *Euskera* 2. aldia IV, 206-214 [*MEIG* VII, 125-133]. (1959a).

"Z-Euskara garbia ala mordoiloa bear degu erabili gure idazlanetan?
Orixe-Garbi amorratuaren eta bien erdikoa". (Garmendia 1965b:55).
"Mitxelena-Hitz zahar erabilak ere agertzen al dira zure hiztegian, erdaratikakoak izan arren?
P.Mujika-Bai, noski! Eztabaida honetan ez nuke ibili nahi ez ezkerretik ez eskubatik erdian baizik". (1957d:92).
"-Hizkuntzarekiko eztabaida gogorrak omen dabiltza. Ba al duzue zer ikusirik horretan?
-Nahi eta ez, (gaur euskaraz ari denak etxean baitu...). Gu erdi-aldeko epel honetakoak gaituzu, besterik baino gehiago, eta halare ez dugu erraz jendea pozik edukitzen". (1957e:85).
Azken hau aurrerago zehazten badu ere:
"Ertzeko bi joerak, hots, euskara "esperantoa" (mordoiloegia) eta euskara "extranbotikua" (garbizaleegia), alde batera utzi eta erdiko bidetik jo beharko litzateke [hastapenetako *Yakin*eko partaide eta bulartzaile izan zen I. Bastarrikaren ustez] (...) Erdiko bide hori, berak izen eta guzti aipatuko duenez, Orixeren eskolan datza, ez Krutwig-enean (...) Aterabide hau, Joxe Azurmendik zioenez, teorian ederra eta onargarria izan zitekeen, baina praktikan ez zuen ezertarako balio, garbitasunaren kontuan erdibide horren mugarria oso erlatiboa gertatzen bait zen. Erdibide horretan, praktikan, oso ezkerretik edo oso eskuinetik joan daiteke (...)
Ihaki Bastarrikaren erdiko bide erlatibo hori baino askoz zehatzagoa da Fernando Mendizabalek zenbaki berean [*Yakin* 1957 3. zk.] proposatzen duena, kultur hitzak kanpotik hartzeko askoz ere irekiagoa agertzen bait da". (Iztueta 1991a:954).
Halaber, Kerexetak, jaso den bezala.

[178] Ikus lehen Mitxelenak egile zaharren berreskuratzanaren premiaz agertuak.

Ez bide da noraezeko Mitxelenak gai hau begiz jotzea Euskaltzaindiaren bilkurarako, ezta hitzaldian aurkezturiko irizpidea, erakundeak bere egin eta, ofizialtasunaren indarrez sendotu zuela nabarmentzea ere.

Gai nagusia tituluan bertan landatua dago eta izenburu horrek mugatzen du. Mintzaldian zehar jendarteraturiko iritziak oso dira gogoan hartzekoak, hitzen "euskaltasuna" erabakitzerakoan ikuskizun larria izan duten teoriei eta teoria hauen bestelako ondorioei Mitxelenak irizten diena jakiteko bidea ere badirelako.

Honela, Mitxelenak berak *sarrera modu*kotzat daukanean, hitzen euskaltasunaz Larramendik zuzen etsia hartzen du abiapuntu:

> Gainera berberak dio sartuta dauden hitzak, nahiz eta erdaratik[179] sartuak izan erabili behar direla[180] (...) Esan behar da ere Larramendiren garbitasuna ez zela[181], ezta gutxiagorik ere, beste geroagoko batzuen mailara heldu[182]. (1959a:125).

Larramendik ez bezalako ustea izan dutenak hartzen ditu ebazkizun errenteriarrak, garbitasunaren izenean, Mitxelenak agertuko duen iritziaren kontra borrokatu zirenak hain zuzen, lerro-tarte gutxiko errepikapenak kaltearen larria azpimarratzen duela:

> Gero esaten du[183] nola mende honen hasieran **eten egin zen**[184] **tradizioa literaturan alde honetan**. (1959a:126). (Beltz. gurea).
>
> Gure artean mende honen hasiera inguruko joera berri hauek gauza bat egin zuten, **euskal literatura zeharo eten**. Bidasoaz beste aldera gertatu ez dana [sic][185]. (1959a:127). (Beltz. gurea).
>
> Gero, ezagun denez[186], batez ere gerraren ondoren sekulako zalantzak sortu izan dira **mende**

---

[179] Jat. *erderatik*.

[180] Jat. *direla*.
Mitxelenak Larramendiren ezpainetan jartzen duen hau, zorrotztu eta zehaztu beharko litzateke, apika

[181] Jat. *zala*.

[182] Lehen genioen bezala, garbitasunean gradu-mailak ardurazkoak dira.

[183] Artikulu hau bi eskuk egina den seinalea. Oraingoan, "beste" ari da kontakizunean. Arestiko aipameneko *erek* "beste" al luke atta?

[184] Jat. *zan*.

[185] Jatorrizkoari eutsi diote.

[186] Jat. *danez*.

honen haslera inguruan izan genuen[187] erreboluzio[188] hori zuzena ote zen[189] eta geroztik egin ziren guztiak bide zuzenetik ote zihoazten [sic][190] ala ez. Egia esan, bai Aitube jaunak, eta bai Mocoroa jaunak[191], beste batzuen artean holako zalantzak eta kezkak lehenago ere adierazi zituzten. (1959a:127). (Beltz. gurea).

Hitza euskal hitz zen ala ez erabakitzeko jatorriari, iturburuari ahalmen osoa ematen zietenen iritziaren makurrak agerian utzita, tokitzeari eta bere irizpideak landatzeari ekingo dio Mitxelenak.

Argudio-hariaren abiapidea besteren ustea da, hots, hitzaren jatorriari eta iturburuari begiratu behar zaiola.

Mitxelenaren erantzunak –estrukturalisten terminologiaz baliatuz– sintagma-ardatzean du funtsa eta egiaztagia: erdal katean erabil ez daitekeena ez daiteke erdal hitz izan:

Errege euskal hitza da erdaraz[192] ezin esan dezakedalako: *Hoy es el día de los tres reyes magos*. Hori ezin esan dezaket erdaraz, beraz ez da erdal hitza. Eta euskaraz ezin esan dezaket: *Gaur hiru rey magoen eguna da*. Beraz, *rey* ez da euskal hitza. Horretara *errege* eta *rey* zeharo bi hitz dira, bata gaztelaniazkoa eta bestea euskarazkoa. Eta hori da aurren aurreneko irizpidea. (1959a:128).

---

[187] Jat. *genduen*.

[188] Jat. *revoluzio*.

[189] Jat. *zan, ziran...*

[190] Jat. *zijoazten*.

[191] Ibarri dagokionez, zalantzak baino gehixeago kanpora zituela esan daiteke:

"XII. Se incurrió también en el error positivo de *desnaturalizar las funciones de la lengua y de la literatura*, con daño del euskera y de la misma producción.

Son hechos públicos y notorios, a nadie puede escandalizar que se saquen a colación, y la vida del euskera vale más que todos los miramientos convencionales para que debamos disimularlos, los siguientes:

a) que durante los últimos cuarenta años se ha atropellado por sistema el sentido común, el derecho usual y la tradición escrita en materia de interpretación de sonidos, cuantas veces se ha atravesado una **hipótesis etimológica**;

b) que llevados de un prurito morboso de sojuzgar el habla viviente y de reducirle a normas de «lógica» preconcebida, hay escritores y escuelas que parecen haberse complacido en hacer tabla rasa de las leyes usuales de la estructura, composición y derivación de palabras, de la conjugación y declinación; y aun de la sintaxis;

c) que en nombre del **fetiche etimológico llamado «purismo»** se han anatemizado y proscrito centenares de voces de uso diario e inmemorial, no obstante su prestancia, valor poético y virtud evocadora, desflorando el lenguaje vivo, y privándolo de aroma y encanto;

d) que la manía del **neologismo y de la «reforma»** ha llegado a excesos que en otras lenguas parecerían monstruosos y no hay razón para que no lo sean en la nuestra...". (Ibar 1936:88). (Beltz. gurea).

"Oker geunden, noski. Zaharretan onenek, guk baino hobeki idazten zuten euskaraz, lehen eta oinarrizko hizkuntza zutelako guk ez bezalako moduan: hitz egin, noski, guk baino ederkiago egiten zuen edozein nekazarik, edozein bertsolarik, euskaraz funtsaren funtsean ederkiago zekielako. Hori, urte haietan, dagoeneko aldarrikatua zuten Aitubek, Mokoroak, "Sabiagak" (Apalategik), gehiegik entzungor egin bazien ere". (1984b:37).

[192] Jat. *erderaz, euskeraz*.

Areago, erdaraz ari direnean ere euskal hitzaz baliatu behar badute. Horregatik, ez du bururik Azkueren harako, *bertsolari*: "Es voz extraña..." azalpenak.

> Erdaraz[193] ezin esan daitekeen[194] gauza bat, erdaraz adierazi behar dutenean euskal[195] hitz batekin adierazi behar dutena beste modurik ez daukatelako, hori al da erdal hitza?[196] (1959a:128).

"Izurriak baino kalte gehiago" ekarri dituen **etimologia** ez da, gainera, arriskuz kanpoko irizpidea, euskarak aspaldi eginiko zorren berri sakon eta zehatzik ez dagoenez gero, batetik:

> Jakina, horiek baino lehenago ere euskaldunek izan baigenituen hartu-emanak beste hizkuntzekin, orain ezagutzen ez ditugunekin, horietan ez dakigu zein sartu genituen eta zein ez. (1959a:126).

eta etimologiazko ezaupideak aurrera ahala, ustegabekoak idoro daitezkeelako, bestetik. Esate baterako, "euskal hitz garbitzat" hartzen zen hitzen bati **erdal** jatorria ediren zaionean.

> Eta hor daukagu atzo arte euskal hitz garbia zena atzotik gaurrera erdal hitz bihurtuta[197]. (1959a:128).

Honenbestez, Mitxelenaren bigarren irizpidea: euskal hitzak ez ditu bihurtzen bere jatorriak eta iturburuak, euskaldunak erabiltzeak baizik.

Euskaldunek **erabiltzea** arrazoirik aski dela Mitxelenarentzat dirudien arren, erabiltze

---

[193] Jat. *erderaz*.

[194] Jat. *ditekean*.

[195] Beharbada hementxe dago gakoa, Mitxelenarentzat "euskal" dena ez dela honela Azkuerentzat.

[196] Jakina da, ordea, erromaniko ez den hitz asko dela errealitate hori adierazteko. Baina bestela baitz ere "arbola" hitza ez al [Jat. *aha/*] da euskaraz? Kanpotikakoa dela? Eta zer axola du? Zenbat euskaldun garbizalek *aire* hitzari susmogarri deritza, baina gogora ezazue *aire* /maiiebatua dela inguruko anitz hizkuntzatan, bai erromantzeetan ere, latinetik izkribu bidez hartua/. Ageri denez, *aire* latinez Ennio-ren *Annaletan* agertzen da lehendabizikoz honela dioelarik: *vento quem perhibent Graium genus aera lingua*. Hitza oraindik latineratu gabe dago, asimilatu gabe, akusatibo hori griegoz bana (*aera*), eta ez latinez *(aerem)*; haatik, Ennio-k berak beste leku batean *aerem* darabil. Beraz, hitz hau greziarra izanik, handik latinera igaro da, latinetik hurrengora... eta abar. Euskaraz ere beste horrenbeste gertatzen da *delako* horrekin. Beraren bitartez nahi dena sar daiteke, ondoren *delakoa* ezarriz gero. Jendea *aire* entzuten ohitutakoan *delako* hori alde batera uzten da eta hitz berria beldurrik gabe erabiltzen". (1972b5:115). /Mitxelenak erantsia/.

[197] Hemengo adibidea, jasorik doan *aizkora*rena da.
Orol, bestalde, aurreko kapituluan Urkixok (Urquijo 1918:28) *txadonaz* esanez.

horri mugak ezartzen dizkio jarraian.

Literatur hizkera, eta ez herri-hizkera hartzea eredu ez da halabeharraren ondorio gorria, bi arrazoi sendok bultzatzen dute Mitxelena hautatze horretara: araupekoa izateak batetik, eta paper-izaerak ematen dion iraunkortasunak bestetik, herri-hizkeran kausitzen gaitzago direnak, biak.

Literatur hizkeraren barruan nolabaiteko aukera ez ote duen Mitxelenak egiten errezeloa izan daiteke –ez baitio honela zuzenean– hitz hauek irakurrita:

> Ez diot aipatuko dudan gai honetan[198] diktadurarik behar dugunik,-baina **aristokrazia** ere bada. **Altoren semeak, edo zaldunak,** edo horrelakoak badira. (1959a:129). (Beltz. gurea).

"Aipatuko duen gaia", *bai-, bait-* en artean ezker-eskuin egin behar eta, bozketaz ***bai-*** ren alde agertu zirela biltzarkideak delako adibideaz hornitzen du, eta honetxek eman dezake bide, hain zuzen, *aristokrazian* zein sartzen dituen Mitxelenak ikusteko: ***bait-*** en aldeko biltzarreko gutxiengoa[199]:

> Bada, nik alde batean, *bait*-en aldean, Axular jarriko nuke. Eta bildur naiz, nahiz eta zereko botazioa *bai*-ren aldekoek[200] eraman, hori ez ote den[201] behera joango. Eta umetatik *bait* esaten dugunok, –Gipuzkoako Goierri aldean ez da holakorik [sic][202] erabiltzen, bai, ordea, Nafarroan eta Lapurdi aldean– Gipuzkoako Beterri aldeko erabiltzen dugunok honetan nagusi gara[203], beste guztietan ez bagara ere. (1959a:130).

"Hitzak **euskal** hitz **jator** egiten ditu euskaldunen erabilerak, honen ondorioz, hitz horiek **garbi** ere badira" hitzetara alda daiteke Mitxelenaren hirugarren irizpidea. Hau da, iturburua hitzaren euskaltasuna, jatortasuna erabakitzeko gutxienekoa izanik, Mitxelenarentzat **euskal-jator-garbi,** banaezineko hirukotea da.

Etimologia irizpide hartu dutenek, hiztegia ikuzteari ekin diote, erdal usaineko ohiko hitz usuak saihestu eta, horien ordez, zinetako eta benetako "garbiak" sartu. "Garbitzako" edo "garbi usteko" horiek, ordea, Mitxelenaren aburuz ez dira ez "garbi" ezta –larriago dena– "euskal" ere.

---

[198] Jat. *ontan*.

[199] Oroi lehen Olabideri zuzen atortua

[200] Jat. *aldekoak*.

[201] Jat. *dan*.

[202] Jat. *olakorik*.

[203] Jat. *gera*. Hurrengoan, berdin.

Hondarrik hondarrenean, ondoko bi terminook gorpuzten duten irizpide-nahastea datza: ez da gauza bera hitzak *erdaratikoak* eta *erdarazkoak* izatea. Bereizkuntza hau ardura handikoa da, hitza, **erdaratikoa** izanik, **euskal hitz jator eta garbi** izan daitekeelako, Mitxelenak honelakotzat dituenen hitz-zerrenda, erakusgarri[204].

Bestelakoak dira **erdarazkoak**. Termino honen azalpen-ezean ("Eta erdaratikoak diot eta ez erdarazkoak" da aipamen soila), erdaraz erabiltzen dituzten hitzak, beste gabe, direla ondorioztatu behar da, arestian *rey/errege* adibidean eta artikuluaren amaian esanean ("Esate baterako, nola esaten da **erdarazko** *presentar* euskaraz?") oinarriturik.

Beraz, *erdaratiko*, **etimologia** soilari – eta ez hitzaren benetako eta egungo izanari –, dagokion terminoa da; *erdarazkoa* erdal hiztunak arruntean darabilen hitza da (*euskarazkoa*, euskaldunak darabilena den bezala), iturburua iturburu. Bigarren honetan, hiztunen arrunteko erabilera da irizpide erabakigarri bakarra.

Irizpide hauek ezarriagatik, mugak labain samarrak direla ohartzen da Mitxelena eta, oso hitz gutxitan –bestela bezala edo– aditzera ematen. Gauza da, sortu diren hitz "garbi" batzuk euskal hiztunek –erabileraren poderioz– **bere** egin dituztela (Mitxelenak irauliriko irizpideari zintzoki eutsiz, "iturburuari" muzin eginez?):

> Azken urteotan zerbait sarrera izan dutelako, paperean behintzat, ez dira baztertzekoak gutxi batzuek. Esate baterako *idatzi*[205]. (1959a:131).

"Ez dira baztertzekoak", bada, sarrera izan duten horiek. Honek betibateko auzira garamatza, haatik: nola, zerk eraginda iristen dute hitzek sarbidea?[206] zergatik *gudari, aberri* eta beste[207] bai, baina *gentza, mintzul* edo *bakaldun* ez?

---

[204] *Arima, arku, arropa, arraza* etabar luze bat ematen du *in abstracto* ez dabilela adierazteko, guztiak erdal jatorrikoak.

[205] Irizpide honetan gogaide du Mitxelenak ondoko zuzen duen Sarasola, errenteriarra zendu ondoan hutsik utzi zuen Euskaltzaindiko eserlekua bete zuenean adierazi legez:

"Bigarrenik, badirudi irizpide hori [kritikatzen ari den "gaizki eraturiko hitzak" irizpide erabakigarri erabiltzea, alegia] gogoak ematen digunean edo komeni zaigunean soilik erabiltzen dugula. Adibidez, eta milaren artean hiru soilik aipatzeko, *irrati, argazki* eta *idatzi*, baztergarritzat jotzen direnak [*abesti, sendi* aipatu berri ditu] bezain oker edo okerrago sortuak daude, eta hala ere ez dute besteei egozten zaien *san benitoa* jaso". (Sarasola 1989:412).

Oroi, halaber, Arana Goiriri eskainian jasoaz.

[206] Matoré-k (1953) laneko "Naissance et diffussion du néologisme" atalean paratzen duen gizartearen premiei erantzutearen araberako azalpenak benetako arrazoiak erabat agortzen ez dituelakoan gaude, argibide zehatzagoak eskaintzeko gauza ez garen arren. Nolanahi dela ere, benetako "premia" zer den, nola sor daitekeen, baina nork eragiten duen ere, gogoan izatekoak liratekе gure ustez, *bolada* edo *moda* kontuek, arinkeria badirudi ere, zer esana izan dezaketela baztertu gabe.

Nolanahi dela ere, hitzen patuan, badirudi, ezjakina aldeago dagoela jakitea baino:

"Pourquoi des signes qui remplissaient fort bien leur office et ne présentaient apparemment aucun inconvénient particulier disparaissent-ils au profit d'autres que ne leur semblent en rien supérieurs? Autant s'interroger sur l'origine du mouvement et de la vie!". (Picoche 1977:89).

"il est souvent impossible de savoir pour quoi tel mot a été adopté et tel autre écarté". (Bacquet 1974:78).

Larramendiri eskainian ere arritu gara honezaz.

[207] Gogora ekar daitezke Arana Goiriri eskainian oin-oharrean *euskotar, ikurrin* eta *Euskadiz* esanak.

Mitxelenaren laugarren irizpidetzat jo daiteke, erdaratiko hitza eta, itxuraz[208] bederen, euskal jatorri garbikoa dena, lehian egonez gero, bigarrena oso hedapen murritzekoa izanik, ez daitekeela "jatorragotzako" hori Euskal Herri guztian erabiltzen den erdaratikoa arbuiatzeko har[209].

Orain arteko guztia, dagoeneko **baden** euskal hitz-altxorrari dagokiola aurrean izanik, azken irizpidea zubitzat hartu eta, gerora begira gaztigatzen du Mitxelenak:

> Honetako gauzetan, gainerakoetan bezala[210], gogoan eduki behar ditugu beti Bidasoaz haranzko[211] euskaldunak. Ez dugu batasunik egingo beharbada. Baina, gutxienez ere, ez ditzagun desberdintasunak gehitu [sic]. Alegia, hitz berriak sortzerakoan, edo modu berrietan hasterakoan, begira dezagun haiek nola ari diren[212] (1959a:131).

Hitzak sortzeko premiari erantzuterakoan, hiztegia gaurkotu eta egokitzerakoan, ezinbesteko deritza Mitxelenak **Bidasoaz haranzkoei** begiratzeari, ezinbestekoago, batasun-bidean abiatu nahiz gero, noski. Azken buruan, hauxe baita kezka: euskaldunen arteko osina farriagotzera daramaten urratsak saihestu eta, batasun-bidea sendotuko dutenak eman, helburuaren noraezak Bidasoaz honanzkoak amore emateko prest egotea eskakizun balu ere:

> beharbada, esango didazue[213], haiek guri ez digute kasu gehiegirik egiten. Hala izango da, baina ez da zeharo egia. Baina zer? Guk haiei kasu egiten baldin badiegu elkarrekin[214] ibiliko gara[215] edo ez gara behintzat elkarrengandik gehiegi aldenduko. (1959a:131).

Eta, hain zuzen ere, euskaldunen arteko hizkuntz osina sakonago egiten ariko lirateke, euskarari omen dioten maitasuna itxurak eginez bakarrik erakutsiz, bere burutikako asmakizunak euskararen legeei makurtzeko prest ez daudenak:

---

[208] *Baranoren etimoaz esanak gogora dantzke.*

[209] Gogora, bereziki, Olabideri egotziak.

[210] Jat. *bezela*.

[211] Jat. *arunzko*.

[212] Jat. *diran*.

[213] Jat. *didazute*.

[214] Jat. *elkarrekin*. Hurrengoa, berdin.

[215] Jat. *gera*. Hurrengoa, berdin.

> Ez gara[216] inor euskararen[217] jabe. Ondasun horren gozamena eman ziguten aurrekoek, ez jabetza. Eta galerarik gabe ematera behartuak gaude gure ondorengoei. Ez dugu, beraz, hobe beharrez bada ere, itxuragaiztotzeko[218] eskubiderik. (1959a:131).

Mitxelenaren burutapen honek, beste zerbaiten oihartzunak ditu[219], hizkuntz ideien historiaren hastapenetan ernaturiko eztabaida batenak, hain zuzen.

Izan ere, hizkuntza bere apeta eta gogora moldatzeko (*itxuragaiztotzeko*) esku duelakoan dagoenak, izena eta erreferentearen (edo adieraziaren) arteko lotura derrigorrean oinarrituta dagoelakoan dago, Grezia zaharreko ikuspegi *naturalistak* defenditzen zuen legez:

> Ez dezagun gainera ametsik egin. Hitz eta gogoeten arteko lokarria, esaten duten bezala[220], egiunezkoa da, ez gauzen izaeran finkatua. Eta horrexegatik beragatik da hain etenkaitza eta aldakaitza. Esan nahi dut. *Zaldi* hitzarekin izendatzen dugun gauza eta *zaldi* hitzak ez dute elkarren artean izaerazko lokarririk. *Zaldi* deitzen diogu gure aurrekoek ere *zaldi* deitzen ziotelako eta *zaldi* esaten erakutsi digutelako. Beraz bertdin litzateke[221] *zaldi* esan beharrean *asto* esango bagenu[222]. Baina nola ez dugun elkar[223] hartuko *asto* esaten, ezin genezake nahi dugun bezala hizkera alda. Horrexegatik beragatik, egiazko eta zinezko eta izaerazko lokarririk ez dagoelako hitz eta gogoeten artean, ezin genezake gure gogora hizkuntza alda. Ez garezen behintzat gure indarretan fida. (1959a:131,132)

Mitxelenak, **konbentzionalismoaren** funtsa azaltzen du hitzotan, egiunezkotzat, hitzarmenezkotzat joz hitza eta hizkuntzaz kanpoko izakiaren arteko uztardura[224]. Uztarri hauxe da, gainera, gizabanakoaren amets-nahikundeak hizkuntz gizataldera makurtzera estekatzen duen lokarririk sendoena, bestek adituko badute; bestela esan, honetantxe kokaturik datza elkarrekiko hizkuntz harremana.

"Amets xuri-gorriak", eder-asmorik goitarrenak, ezin izan daitezke aitzakia, euskara den

---

[216] Jat. *ezkera*.

[217] Jat. *euskeraren*.

[218] Jat. *itxura gaiztotzeko*.

[219] Gogora Azkuen leporatua.

[220] Jat. *bezela*.

[221] Jat. *litzake*.

[222] Jat. *begendu*.

[223] Jat. *alkar*. Errepara lerro batzuk gorago *elkarren* irakur daitekeela lehen argitaraldian.

[224] Grekoak kezkatu zituen eztabaida sonatu haren zantzuen antzematea, are nabariago egiten da, Mitxelenak darabilen adibidea Platon-en *Cratilo*nekotik oso urruti ez dagoela ikusiz gero:

"SOCRATES -¡Pero qué! Si quiero nombrar la primera cosa que se me presente, por ejemplo, lo que llamamos hombre, llamándolo **caballo**; y lo que llamamos **caballo**, llamándolo hombre, ¿un mismo ser tendrá el nombre de hombre para todo el mundo, y para mí sólo el de **caballo**, y el mismo ser tendrá el nombre de hombre para mí solo y el de **caballo** para todo el mundo?". (Platon, *Diálogos* 1984:250). (Betiz. gurea).

bezalakoa –dolore eta arlote–, ez hartzeko, bere ugari eta urrian, ezta omen zaion balizko maitasuna ere, den (ez nahi litzatekeen) euskaraz atzenduz, norberaren neurri meharren araborakoa sortzeko ere:

> Maitasuna ez ezik, eta maitasuna baino lehenago besterik eskatzen digu gaur nere ustez euskarak[225] euskaldunoi, begiramen eta errespeto piska bat, baina zinetako eta benetako begiramena. (1959a:132).

Hitzaldi osoan zehar, Mitxelenak, begiramenaren izenean garbizale itsuen jokaera ebatzi eta salatu du[226]. Amaitu ondoan, Alvarezekin duen elkarrizketan, hizpidean izan duen eredugarri iritzia zehaztera dator.

Zehaztapenak ereduak bereiztea du xede. Arestian esan denaren arabera, literatur hizkera du Mitxelenak hautetsia gidari, baina moldezko hizkera horretan ere nolabaiteko aukera egin beharra legoke.

---

[225] Jat. *euskerak*.

[226] Mintzaldi berbera bestetan ere luma-mutturrean hartuko du gerora. Aurrerago ukituko dugun garrantzizko auzi bat tarteko dela eta, uste dugu, bidezko, are komeni ere datekeela, mirapuntu beraren gaineko zenbait pasarte hona aldatzea.

Arantzazuko biltzarreko txostenean, urrutirago gabe, hitz bermen premia ukaezina aldarrikatzean, bi hornibide ikusten ditu Mitxelenak hutsartea betetko bada –besterengandik hartu ala euskararen sorrinderra ernalarazi, alegia– eta ingurumari honetan, Euskaltzaindiaren erabaki hau zedarritu eta aldi berean, haruntzago jo beharra idaroki gogo duela edo esan datteke:

"Euskaltzaindiak behinola esanak honetarako [Jat. *hontarako*] bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berririk sortu beharrik adierazteko euskal hitz zahar-jatorrak, erdaratikakoak direlakoak, baztertzeko asmoz". (1968d:147).

Hurrengoan, erabakia "zentzuzkotza" jo ez ezik, garai-giroen isla ere badarama paperera. Agidanez, ez da horrezaz hitzegin nahi 1978 inguruan:

"1976.eko azkenetaraino lortu dena, nahi adina ez izanik ere, guttiestekoa ere ez da. Euskaltzaindia, urte luzeetan isilik egon ondoan –gol maitako iker lanak egin arren ez zen ia erabakirik hartu–, zentzuzko erabaki apal batez hasi zen; beronek dioenez, «euskal hitza» aspaldidanik euskaldunek erabili duten eta darabilten hitza da, datorren lekutik datorrela, bestela esan, *quod semper, quod ubique, quod ab omnibus*. Erabaki honek bere garaian harrotu zituen haserreez ez omen du egungo egunean inork oroitu nahi". (1978a:42).

Dakargun hirugarrenean, lehenean susmatzen zen goganbeharra berariaz adierazirik dago; hots, erabaki sonatua, zehatz eta hesikizun dago:

"Normalerantz jo nahi badugu, eta normalerantz jo behar genuke, notazparteko hesiak ipini beharko dizkiogu geure hiztegiari, hesi eta mugarri aldakorrak alde batetik eta iraunkorrak bestetik. Urrutiko inoiz batean. Bilbon noski, "Euskal hitzak zein diren" edo zelako erabakia hartu zuen Euskaltzaindiak. Erabakiaren mamia eta muina hauxe genuen, oker ez banabil: hitzaren jatorrasuna ez dela etorkiaren arabera neurtzen, hiztunen usaioaren arabera baizik. Nondinahiko den, bada, euskarazkoa da euskaldunek erabili eta erabiltzen badute. Zenbatek, zenbatetan eta zenbateraino, ordea, erabili? (...) Norbanek, Euskaltzaindiak inork baino lehenago, saiatu beharko luke soroa usuago mugarritzen eta hitz kontuak garbitzeko galbahe [Jat. *galbae*] tapiuagoa erabiltzen. Ez da hau, ordea, begien itxireki batean erabaki dateken arazoa". (1983l:188).

Hurrengo urteko azkenean, euskarak urteek aurrera ahala hartu duen mendekotasunezko bidea ikusirik, Mitxelena gero eta artegatuago ageri dela egiazta datteke:

"Esana dut noski horrenbestez, begi onez ikusten dudala, behin batean Euskaltzaindiak beste zerbait ikusi zuen bezala, Sarasolaren hiztegi hau (...) Lehen oinarri hau, erabiltzeak bihurtzen duela hitza euskal hitz eta ez etorkiak, Euskaltzaindiak aditzera eman zuen, ez zalapartarik gabe, Bilboko biltzarrean, Arantzazukoaren ondorengoan (...) Daramagun martxan, laster esan beharko da, eta Euskaltzaindiak aldarrikatuko balu hobe, 1950 inguruan euskaldun guztiok euskalduntzat zeuzkaten hitzak euskal hitz direla. Ez garela, formaz eta adieraz, mailebatuen mirabe. Eta aspaldidanikako euskal hitza denez gero, egokiago letorke esklabo, mirabe baino". (1984b:26,38,44).

"Arte-eredua" eta "hizkuntz eredua" dira elkarren kontra paratuak, bi baitira, ez bakarra, eta, zein bere barrutikoa. Hitzen auzi honetan, arteak baino pisu handiagoa behar du izan hizkuntz ereduak Mitxelenarentzat; honenbestez, gaurko hizkera[227] baino lekuko fidagarriago den orain arteko **euskara idatzian** miazkatu eta aztertu beharko da, eredutzat hartu beharrekoa erabaki ahal izateko, era honetan irispidean beste xede bat izanik: euskararen lehenaz ez atzentzea, ezinbesteko baldintza batasuna erdiesteko[228].

* (1960) "Asaba zaarren baratza", *Egan* 1-2, 121-134 [*MIH*, 55-90; *MEIG* IV, 29-47]. (1960a).

Lizardiren *Biotz-begietan* osatzen duten poemetariko baten izenburua egiten du bere Mitxelenak, ohartuki hautetsi ere, artikulu honen tituluan landatzeko.

Poeman, mintzabide berak (euskarak) lotzen ditu ámona-ilobak; ingurune bera dute elkarleku (asaba zaharren baratza), ez da "*Ene asaben lokarri zaarra, Yaunari zor (...) eten*" dio olerkariak. Jarraipena dago, beraz, iragana eta orainaren artean.

Alabaina ez da hemen amaitzen poema, etorkizuna ("*Nire Tabor-mendi: nire / baratz zaarraren antzalda!, / egi, mami, biur adi: leenaren muiñak aldatu beza/ baratz zaarra baratz berri!*") itxaropenez betea ikusten baitu Lizardik.

Labur-zurrean azaldu den Lizardiren mezua jaso eta, etorkizun zen orainean nola mamitu den erakutsiko du Mitxelenak. Lizardik desio eta amets zuena nola bete den, lehenaren muinak zahar zen baratza nola berritu duen; haize berriek zeri eragin dioten aztertzea du helburu.

Honetarako, "egungo" (1960 inguruko) euskal literatura joko du begiz Mitxelenak, hortxe antzeman daitezkeelako literaturan ez eze, euskal gizartean ere, bizi diren aldakuntzen zantzuak:

> Ez, oraingo euskal literaturari begiratu nahi nioke soil-soilik, erabat eta gaingiroki, nor eta zerekikoetan sartu gabe. Eta euskal literaturari begiratu nahi nioke batez ere gaurko gure arteko gogoglroaren ezaugarri eta salatari den aldetik. (1960a:30)

Begiratze huts izateko asmoz aurkezturiko lan honek baditu, ordea, eginkizun hori gainditzen duten bestelako xedeak ere irispidean –garbizaleen auzia aski gertu dago eta–, aztersaio honetan azaldu gogo denez.

Egoki deritzagu artikulu honen azterkatze geldiari, bertan baitaude bildurik Mitxelenaren garai horretako burubiderik funtsezko eta eragingarrienak.

---

[227] "Eta horregatik euskal liburuak alde askotatik eredu hobeak: ditugu hiz kontuan ere, gaurko hizkera baino". (1959a:133)

[228] Sarasolak (1989:408), atzera begiratze hau, garai bateko "estrategiatzat" dauka, baina bizi dugun aldian indargabeturea edo gertatzen dena.

Artikuluaren taxua honakoa da:

-[Sarrera][229]
-Bide zaharrak eta berriak
-Kritika
-Hitzen bizitza
-Aditza dela eta
-Itzulketan
-Euskal kulturaren mugak
-Europa eta gu
-Filosofia eta jakintza
-Hizkuntza bizia

- **["Sarrera"]**

Artikuluaren idazpurua azalduz abiatzen da.

"Euskal baratzea" batetik, definizio zehatzik ez duen "zerbait" da, gure herriarekin lotzen gaituen haurtzaroak "eiho zuen liluraren sare argala". Sarearen mugak estuegi izan daitezkeela eta, nahiz haize askatuagoen bila ez itotzearren bestera jo, urraezina da, erabat etenezin, *argala* den sarea. Jaioterriarekiko atxikimendu-maitasunak iruditaratzen ditu hemen Mitxelenak.

Bestetik, ordea, "euskal baratzeak" muga murritzagoak eta agerikoagoak ditu: euskal literatura da. Euskal literatura da *baratzea* eta, literatur lanak, bertako loreak:

> Aski dugu orain hor ere zenbait lore eder aurki daitezkeela jakitearekin. Baita ere, gainera, besterentzat ximel xamar agertu arren guretzat atsegin, begiko eta kuttun direnak ugari. (1960a:29).

Mintzagaia orainean zedarrituz, Mitxelenak aldi igaroan jartzen ditu bogiak nabarmengarri zaizkionak aipatzeko:

> Gure literaturak ere ezagutu ditu, bere txikian, aroak, gorabeherak eta eraberritzeak. Hor dauzkagu Detxepareren agerketa bakartia, ondorerik izan ez zuen Leizarragaren eragina, Materrez gero Lapurdin sortu zen mugimendu bizi eta aberatsa, Larramendiren astinaldi gaitzak zabaldu zuen lurrikara, Bonaparteren itzalean lanari ekin zioten langile apalak. (1960a:30).

Horiek nabarmentzeak, atzoaz ez atzentzea adierazteaz gain, beste arrazoirik ere badu.

Hor aipatuek euskal literaturan leku berezia merezi dute, mugarritzat har daitezke, eraberrikuntzan aitzindari agertu direlako eta artikuluan zehar aztertuko dituen gaiek ere eginkizun bera dute. Alda-asmoak lotzen ditu, beraz, lehengo haiek eta oraingoak, guztiak

---

[229] Ez da "Sarrera" izeneko atalik jatorrizkoan. Guk sartua delako doa taket artean.

dira, nolabait, garaian garaiko egoeraren aldaketa-seinale. Era honetan, berriz esan daiteke lokarri zaharra ez dela eten.

"Bide zaharrak eta berriak"

Aldien gainetik igaroaz, zuzenean heltzen dio Mitxelenak mende-hasierako egoerari, ordu arteko eraberritzeak txikienean utzi zituen aldakuntzari:

> Bide aldatzerik larriena, halere, azken mende-mugak ekarri ziguna dugu noski, bai hizkuntzaren axalean eta bai galaren mamian. Luzaroan oinkatu ditugu, atzera behin ere begiratu gabe, orduan ireki ziren galtzada zabalak eta ez zitzaigun iruditzen ere beste biderik hauta zitekeenik. (1960a:30).

Azkue eta Arana Goiri hemen ez aipatuagatik, susma daiteke hauek harturik gidari aritu zirenak dituela, batez ere, Mitxelenak *gu* itxurazko horretan bilduak. Horiek sortu dute euskal literaturan *bide-aldatze*rik larriena, hizkuntzaren axalari eta mamiari dagokiena.

Ondore larriak izan ditu gainera, irekitako "galtzada zabaletan" barrena abiatu baitira ondokoak beste biderik ez bailegoen eta bide horiek zuzen ote zeuden inoiz kritikapean hartu gabe: "atzera behin ere begiratu gabe".

> Ez zen inor ausartu esaten, dakidanez, inoiz baino ugariago **mintzatzen** ginenik euskaraz ezta **aho** hizkuntza aberastu zenik ere. Gehienok esaten genuen, ordea, eta ez da oraindik ospe hori ixildu, ez dela behin ere, mundua mundu denez gero, azken urteotan bezain ongi **idatzi** gure hizkuntza. (1960a:30). (Beltz. gurea).

Ahozko eta izkribuzko alderdien arteko osina uzten du agerian Mitxelenak. Garai horretan, ez kopuruz ez nolakotasunez, euskara mintzaturaino iritsi bide zen izkribuz erdietsi usteko "maila"[230]. Hau da, inork aitortzen ez bazuen ere, gutxi hitzegiten zen euskaraz eta denak sekula baino hobeki idazten zelakoan zeuden. Horrekin aski zuten, nonbait.

Gerra osteko jende *kopetilun* eta *ukakorrak* ekarriko du, aurreko belaunaldikoenak auzipetuz, eraberrikuntza, Krutwig buru dutela. Bizilegea baita Mitxelenarentzat, gazteek zaharrenak arbuiatzea, baita, horren atzetik dabiltzala, aldizka, gehiegikerietara jotzea ere.

Bere burua "zaharragoen" artean[231] kokatu duen 46 urteko Mitxelenak, gazteen

---

[230]Desoreka honen zantzua jasotzen du Iztuetak (1991a:977), 1956an Parisen egin zen 'Euskal Batzar orokorrean':

"Aho batez onartua da, hasteko, Euskal Herriaren deseuskalduntzea gero eta handiagoa dela. Bizi laburra ematen diote. Batek 50 urtekoa bakarrik. Euskararen atzerapen hau, ordea, paradoxikoa da, zeren, euskal literatura indartuz doan bitartean, hiztunak gutxitzen ari bait dira / Antxarandoik: "No hay relación de causalidad entre el progreso de la literatura euskérica y la disminución del área euskalduna" /. Beraz, intentsitatean irabazten duena hedadurari galtzen du".

[231]"Zaharragoak, ni ere tartean naizela, inoiz baino hobeto ari beharrean ezin okerrago jokatuak gara horien ustez aire askotatik". (1960a:31).

berrikeriak ez ditu **erabat** gogoko, "gure garaikoak maiteen genituen (...) uste eta balioen kontra doazelako batez ere", eta honen erakuskari, urte berean *Peru Leartza'k*ori eginiko iruzkinera igortzen duen arren, han iraullak leundu asmo edo ez ote dituen susma daiteke, bere ondoeza aipatzen du eta: "urdaila berriz asaldatzen hasia nuen ordurako agian".

Beharbada, "berrikerien" aurrean gogor samar jokatua izana aitortzen ez ote den ari pentsa daiteke, batez ere, hurrengo pasartean dioena kontuan hartzen bada.

Atalaren azken pasarte horretan, bada, Mitxelenak gazteen "berrikerien" alderdi ona azpimarratzen du, zergatik nahigabetzen duenak aldi berean duen pozten adieraziz: Euskal Herria **bizi** den seinalea[232] da.

> Bizirik dagoen herri batean ez ditu gizaldi gazteak aurrekoen sinesteak, esanak eta eginak itsu-itsuan ontzat hartuko[233] eta zenbat ere biziago herria, orduan eta .bizlago gizaldien arteko etsaitasuna. Beraz, lehenaren adorazio harrituan ez badaude auzpezturik gure gazteak, bizi garelako seinale da hori, besterik baino gehiago. (1960a:32).

- **"Kritika"**

Kritika hitza atal amaitu berrian erabili ez duelarik ere, kontzeptu-zubia eraikitzen du Mitxelenak beste atal honetara igarotzeko.

Kritika egiteak, sorterriari kalte besterik ez dakarkiolakoan edo jaioterriari begiramen-eza adierazten duelakoan daudenen kontra mintzatzen da Mitxelena[234].

Izan ere, jaioterri-maitasuna "bi eratan ager daitekeela" esaten duen arren (**daitekeen**aren planoan):

> Batzuek ez dute loria eta handitasuna baizik ikusten; beren buruari ederretsiz, harrotasunean igeri dabiltza txerriak lokatzetan bezala. (1960a:32).

---

[232] Aldiak aldi eta aldeak alde, uste dugu aldatuko ditugun bi gutunen zatiak aski adierazgarriak direla Mitxelenak "sesioak" bizlaren seinaletzat dauzkala erakusteko:

"Donostian, 1968 abenduak 17. Tauer'tar Norberta jaunari Pragan. (...) Neure idazkera honek zerbait harrituko zinduen. Ba dakizu, noski, batasun-bideetan abiatuak gerala. Ni ez nintzen inolaz ere sartuko atzetik indar berri bat, gazteena, somatu ez baldin banu. Horrexegatik, eta batasunaren behar larrian aurkitzen gerala aspaldidanik dakidalako, sartu naiz bide hauetan, eta eragile gisa agertu Arantzazuko batzarretan. Bideak onak diren ala ez, ez dakit, zorrixarrez: onena eta egokiena aurkitu nahi nuke, baina goragoko laguntza behar horretarako. Ez dizaguta huts egin!".

Lehen ere jasoaren ildotik, azpimarragarri derrigu gazteen indarrean bilatzea adorea Mitxelenak, kasu honetan, batasun-bideari ekiteko.

Honela, 1970-8-22an, oraingoan Parisko Sorbonatik Tauer-i igortzen dion beste gutun batean ere ideia bera errepikatzen du, batasuna zela eta zituzten xotra-kalapitei alderdi osasungarri berbera atzemanez:

"Badakizu, noski, nolako eztabaidak eta istiluak dabiltzan euskaltzaleen artean, eta ni, Jainkoak hala nahirik, erdi-erdian naukazu. Mingarri zait, alde batetik, baina pozgarri bestetik, bizi dena bait da mugitzen eta oihuka ari dena".

[233] Lizardiri eskainiko diogun atalean itzuliko gara.

[234] Orol Azkueri buruzko kapituluan aldatu ditugun Mitxelenaren kritikaren gaineko irtziak.

jokabidea berdintzeko darabilen irudiak, argi aski erakusten du jaioterriari maitasuna agertzeko era honi irizten diona.

Jokamolde honetan, ez bide du Mitxelenak lehena ederrestea gaitzesten (nola gaitzetsi, bada!), harrokeria elkor-antzua da, gure ustez, jipoitzen duena. Bere burua harro harrapatzeko arrazoi bakarra, balizko iragan loriatsuan planto egin dutenak, hortik aurrera bestelako ikaskizunik ez lanerako asmorik erakutsi ez dutenak, alegia, dira Mitxelenaren erasoaren helburu.

Honenbestez, **daltekeen**aren ez baina **baden**aren planoan, hots, zinetako maitasuna erakustekoan, begiak atzean itsaste antzua, ez bide da aintzakotzat hartzeko modukoa; hori ez da **zinetako eta benetako** maitasuna agertzeko modua.

> Beste batzuek, berriz, nahiago izaten dituzte betaurrekoak begi-estalkiak baino, hots, beren herriaren izaera eta egoera hobetu nahi lituzkete eta behar-beharrezkoa iruditzen zaie horretarako huts eta beltzuneak ahalik argi eta garbien ikustea eta salatzea (1960a:32).

Hobe-asmo duten hauek, ezinbesteko ere dute amets-nahikundeen gainean eraiki ordez, benetako egoerari aurre eginez –makurrak barne– aritzea eta, horretarako, **kritika** halabeharrezko pasabidea da. Uste honetakoak dira gazteak, halaber Mitxelena[235].

Kritikan urralana besterik ikusten ez dutenei erantzun die Mitxelenak: jaioterri-maitasuna adierazteko modua da **kritika**; azken finean, jaioterriari zaiona, nork bere buruari dion "maitasun hilezkor eta eten-ezinaren ondorea eta eranskina" baizik ez baita, desegin-ezina, beraz.

Euskal gizabanakoa eta herria lotu dituenez gero, zabal esanaren adibide zehatzaz baliatuko da hurren Mitxelena, bere buruan eta bere herrian aurki ditzakeenak aurkajarriz azpimarratu nahi duen ideia agerian uzteko:

> Harritzekorik aski ez badut aurkitzen neuregan, neure herrian aurki dezaket: etxean edo etxe-aldamenean bizi izan naiz beti, baina mundua Elkanok inguratu zuen; ez dut ordena berririk sortu, baina herritar batek sortu zuen Jesusen Konpainia. Ze arraio! Mérimée-ren Don José bera, lapurretan andaluziarrei irakatsi ziena, ez ote zen, bada, Elizondokoa? (1960a:32).

Kritikarik amorratuenak ere ez du desegingo Euskal Herriak bere txikian sortu dituen

---

235 "Hori baita, nik uste, kritikaren ezugarririk nagusiena. Nork bere iritzia ager dezake; ez, ordea, gogoak ematen diolako, horretarako dituen onarriak ongi azaldu ondoan baizik". (1978b:34).

gizon horien lorpen harrigarriak[236], Mitxelenak bere burua Elkano eta Inazio Loiolakoarekin berdintzen duenean aditzera ematen duenez. Bi gizonok erdietsiak gainera, ez dira nolanahikoak, Euskal Herriaren zedarrietatik kanporaino ere haien izenaren eta omenaren oihartzunak iristen baitira.

Izan dira, beraz, euskaldunak kanpotarrei zer irakatsia izan dutenak (*Carmen* operako D. Jose *drammatis personae* Mitxelenaren ateraldi irrigarrikoa barne) eta kritikarik zorrotz eta urranahienak ere, ez du iritsiko haien oroimena deuseztatzerik. Izan ere, kritikak sekula ez du inor bere burua ukatzeraino erakarriko.

Aitzitik, osasungarria ere dateke kritika, anarteko egoeratik, "zoramen gorrian geure buruari begira luzaroan" bizitzetik, alegia, ateratzeko bidea bada. Azken ideia honek argiagotzen du **kanporako proiekzioa** izan duten arestiko bi herritarrak ahotan erabiltzea, bere zilborrari begira baino, begiak harantzago jarri zituztenak liratekeenez gero.

Baina bestetik, zehaztu behar litzateke, Mitxelenak, mundu zabalean ezagunak diren euskaldun entzutetsuok paperera eramatetik atera behar den ondorea: haiek ospetsu izan zirelako, mireste hutsean, adorazio ergelean ez du gelditu behar geroko euskaldunak iraganaldiko beste horien lumez bere gandorra apainduz, lehen adierazi den ildotik:

> Kritika horrek bi xede ditu: **hizkuntza eta ideiak**. Lotsagarri da, sarri esan dudan legez, beti hizkuntzaz mintzatzen aritzea hizkuntza horren bitartez beste sakonagoko zerbait adierazi beharrean. **Lotsagarri eta penagarri** eta halaz guztiz **nahitaezko**. Hizkuntzarekiko auziak ez baitaude oraindik egon behar luketen egoeran, nahaspilarik larrienean baizik. (1960a:33). (Beltz. gurea).

---

[236] Azurmendik, oso bestelakoa du ikuspegia "euskaldun argidotarroz". (Ikuspegi honetatik, ez bide du asmatu Mitxelenak adibide zehatzak aukeratzean?):

"Uler dezagun inguruko herriek euskara, esate baterako, eta euskaldunak berak arrunki, ezer handitan ez edukitzea, aspaldikoa da. Eta, beharbada, harritzekoa ez da. Badakigu herriotan zeri eritzi izan zaion handitasun. Gu ez gara konkistadore herririk. Ez dugu Inperiorik (...)

XVI-XVII. mende honetan euskaldunak mundu zabal guztian sakabanaturik zebiltzan, Flandrian, italiako gerretan, Ameriketan, itsasoetan... Gure historia gizandiz, heroiez eta pertsonaia printzipalez betetzen duten horiek, euskal handitasun handienak orduan aurkitzen dizkigute jeneralean: Elkano, Lakoza, Legazpi, Irala, Garay, Joan Urbietakoa, Lope Agirreko, Saint-Cyran, San Inazio Loiolako, Xabier, San Martin, Arta Zumarraga... Guk euskal mixeriaren hasiera ikusten dugu lorazko mende honetan. Eta honexekin batera ikusten ditugu: Murga, Bilbon urkatu zutena, Matalas, matxinoak. Euskal Herriak bere bidea galdu egin zuen.

Euskaldunak bazterrak aurrera zebiltzan garaiotan, nola ikusten zuten besteek euskalduna? Zertzat zeukaten? Gizajotzat. Basatitzat. Zen bezalakoxe tonto harrotzat". (Azurmendi 1992:262).

Tovar-ek (1966:64) dioen honekin lot al daiteke?:

"y en el prólogo de un modo exactamente paralelo a la dedicatoria de Azkue, declara [Kanpionenk] que «este libro es hijo de un movimiento de patriótica angustia», y que con su gramática el autor aspira «a llenar un vacío que deploran en España todos los que desean conocer el mecanismo y el genio de un interesantísimo idioma, que es -dice- el heredero directo y único del de los primitivos españoles». Recordemos aquí el parecido énfasis con que en su dedicatoria decía Azkue (p. V) [*Euskal-Izkindea*]: «La inmensa mayoría de las grandezas de España, ora por las victorias ganadas por mar y tierra, ora por sus creencias (la parte más dichosa de su historia) están amasadas y dulcificadas con la copia de la sangre de hijos del pueblo eúskaro».

El sentimiento por la pérdida de las viejas leyes forales está todavía ligado a dos orgullos: el de descender de los antiguos españoles, como había sostenido con copia de razones, buenas y malas, Larramendi, y el de que buena parte de la historia de España -la inmensa mayoría, dice Azkue- había sido llevada a cabo por vascongados y navarros".

Kontrakarrean, Tovar-ek (1966:80) berak adieraziriko beste honakoa lukeelarik?:

"Las peculiaridades del vascuence, su diferencia profunda de nuestra lengua, sus caracteres viejísimos y originales, lo hacen difícil, poco contagioso, poco resistente, en una palabra, débil ante las lenguas que lo rodean. Para mí, la conservación del euskera es una parte de la conservación de nuestras tradiciones, en un sentido amplio, españolas".

Hizkuntza eta Idelak[237] dira ebazteko hartuak, *lotsagarri, penagarri* baina aldi berean *nahitaezko* eginkizuna jartzen dio Mitxelenak bere buruari eta, estreinakoz **hizkuntzazkoak** aztertu.

Nahaspilaren oinarrian, **garbitasuna** ikusten du Mitxelenak, garbitasunaren izenean, euskal ondarekoak baztertu eta hauen ordez berrikeriak sartu direlako[238]. Garbiketan arituek –beste hizkuntzetan ihardunek ez bezala ("hankak mozturik, besoak loturik, baita bere burua txapelarekin batean zoko batean utzirik ere")–, hiztegia murriztea eta soiltzea ekarri dute ondorio. Honexegatik, urritasuna delarik nagusi, miresgarri deritzo Mitxelenak halako inguruginoan idazlan ederrik[239] sortu ahal izanari.

Inausteari berari utziriko hutsuneak betetzeko modua ere erantsi behar zaio, Mitxelenaren ustez, zulo-estaltzeak ere ondorio larriak ekarri baitizkio hizkuntzari: sorkari berriak –adibideak erakusgarri–, euskal tradizioaz guztiz atzenduz hautetsi dira, "logika" nahiz gisa horretako beste argudioak ahotan hartuz:

> Badirudi gainera iratxo madarikaturen batek okertzen zituela –ezin zuzentzen esan– gure pausoak hitz eta esaera jatorren ordezko bila genbiltzanean. *Gerraren* edo *gerlaren* bila ez[240], baina ihesi genbiltzala, *gudu* jatorra hautatu beharrean, besterik esan nahi badu ere, *guda* sasikoa aukeratu genuen; *santu (saindu)* eta *fruitu*-ren ihesi genbiltzala, *deun* eta *arnari* gurasotik gabekoak hartu genituen; *abuztua* atsegin ez zitzaigulako, antzinako hitz galdu bat "ederturik" zegoen zegoenean ezin utzi– *dagonila* sortu genuen; *eztakit hau zer dukan*[241] eta antzeko barrabaskeriak idazten hasiak gara (ez ote digu oraintsu gramatikari ezagun batek[242] erakutsi *izan bedi, izan bitez*

---

[237] "2-10-1961 (...) Gauza jakiña da eztutela gure artean izkuntza bakarrik garbitu. Erri-jakintza-gaietan, beraz, zenbait berdekeria biltzeak eta azaltzeak aztigu kalterik egingo, probetxu baizik". Norbert Tauer-i Donostiatik igorririko gutuna.

[238] Azpimarkagarria da Mitxelenak bi hitz-multzoak aurkez aurk jartzeko darabilen irudia: euskaldunek beticanik erabili dituzten hitzak *gozoz eta zaporez* beteta daude, berrikeriek, berriz, *ez kolorerik ez usainik* dute.

[239] Lizardiz dioena dator gogora, erakutsiko den bezala.

[240] Xenpelarren bertsoen oihartzuna.

[241] Oroi Olabiden egotziaz:

"Okerragoa da hemen agertzen den hikako hizkera ikaragarria: *Etsita ote zeudek nagusiak Kristo'a dukala au? Bañan au nongoa dukan bazekikagu; Kristo'a zeiorkanean, berriz, iñork ez zekikek nongoa dukanik* (...) Ez ote dakar honek gogora harako *abominatio desolationis* hura?". (1959b:122).

Urte batzuk lehenagokoa da, berriz, beste hau:

"Oierkietan –atontu bear– ez du [Lizardik] beronelan jokatzen. Ua duk guk ireisi ezin dugun era berria. ¿Euzkararik ez ete-dakigu? Itz neurtuen azal-azpian, azkenengo tantoa jario arteo, estutu dik oldozkuna. ¿Gure adimenerako sakonegi al-duk? Etzekiat zer dukan. Alboan daraman erderazko argiontzia bideak urratzeko ezpa'genu, gure oi-urratsak legartza-tartean barna zaurika ituzke". (Barrensoro 1932, Iztuetak (1991a:684) aldatua).

[242] Umandiren gramatikan –pareak uztartzen asmatu badugu–, *dedikan /dediñan* eta *ditezkan / diteznan*, hurrenez hurren. Honela arrazoitzen du gramatikagileak paradigma:

"En la mayor parte de los dialectos vascos, así como en muchos otros autores, no se emplean hoy en oraciones subordinadas, otras formas familiares que aquéllas en que la 2ª persona interviene realmente en el proceso verbal. Es decir que, tratándose de formas verbales que vayan provistas de prefijo –excepto *ba-* afirmativo y *ez-* negativo– o sufijo, en las cuales no intervenga la 2ª persona directamente, así como en las de imperativo, se usan las formas corrientes.

Es esto lo correcto en euskera? No nos decidimos a dar una contestación definitiva, aunque no olvidamos que, en un idioma sobre todo, el uso acaba haciendo la ley. Podemos, sin embargo, decir, que hemos oído

hitanoz nola esan behar diren?), "Logika"-k horrela eskatzen duelako; horrexegatik beragatik, *dautso, daust* erabili behar omen dira Bizkaian, *deutso, deust* zokoratuaz, "orainaldiak *a* bear duelako". Batasunera bidean, gutxietsi dituzte Bizkaian Euskalerri osoko *ditu(z)* eta bere kideak, "giputzak direlako". Euskaldun guzion aho-lumetan aspaldidanik dabilen *osasunaren gainean*-en ordez, ezin barkatuzko erdalkeria zelakoan (*hamar egunen buruan, hilabete barru* eta horien gisako beste zenbait esaera ere ez bagenerabiltza bezala), parregarrizko edo negargarrizko *-tzaz* agertu da, atzizki jator bat dagokion lekutik atereaz. (1960a:33,34)

- "Hitzen bizitza"

Auzi aipatu berria hartzen du bide Mitxelenak, **hizkuntzaren** azterbidetik irten gabe, **hitzen** esparru mugatuan murgiltzeko.

Hasteko, "hitzen biziaz[243]" hitzegitea, Mitxelenarentzat, esateko modu batez baliatzea besterik ez da; ez harantzagokorik, hitzak ez baitira sortu biologiak mugatuak, ez dira benetako "bizidunak" bezalako bizidun[244], hitzak "bizirik" egotea hiztunen esku dagoena besterik ez da eta.

Alabaina –hau zehaztea beharrezkoa da–, hitz guztiak ez dira Mitxelenarentzat era bereko. Idazleren batek erabilia izana, hiztegiren batean jasoa egotea, hots, tinta-izaera izatea, ez da aski hitza erabateko nortasun-agiriduna izan dadin, bai baitago nortasun-irispidean iragazki erabakigarria: erabilera, hain zuzen.

> Badira batzuek non eta noiznahi sarri erabiltzen direnak; beste zenbait berriz gehienok ezagutu arren, bakanka baizik esaten ez ditugunak; beste batzuek oraindik lurralde eta lanbide berezi batekoak dira, handik kanpora ozta inork dakizkienak; hor egoten dira azkenik inoren onginahiak, apetak eta ezjakinak asmatu dituen bitxikeriak, odolik ez duten hutsaren hurrengo iratxoak, hain zuzen ere *ghost-words* deitzen dituztenak. (1960a:34)[245]

Erabilesparruaren araberako sailkapena egiten duelarik ere, Mitxelenak beste mota bateko irizpidea eransten du pasartearen amaian. Izan ere, zenbait hitz *iratxo*tzat jotzea ez da erabilerari dagokiona, **iturburu** soilari baizik, gerta baitaiteke jatorriz *iratxo* zenak erabileraren

---

emplear formas verbales de oraciones subordinadas en las que no aparece la 2ª persona como sujeto ni como complemento, en conjugación familiar y las hemos visto empleadas también por algún autor.

Basados pues en esto y recordando lo que se dice en el último párrafo de la lección nº 159 (leído a Azkue) exponemos las formas familiares en todos los tiempos, sin preconizar que su empleo sea o no correcto. El desarrollo posterior del idioma y el uso que se haga del mismo determinarán en definitiva lo que proceda.

Cuando hablamos aquí de «uso» no nos referimos al hablado actual, restringido cada vez más por influencia del empleo de otros idiomas, que van asfixiando al euskera, sino al que puede y debe llegar a tener nuestro idioma empleado intensamente en toda la vida del País, en toda la enseñanza y en toda empresa vasca de cultura". (Umandi 1959_2 399).

Ikus Umandiz adieraziak.

[243] Errepara bekio, izenburuan *bizitza* badarabil ere, testuan, *bizia* dioela.

[244] Ez ote bidenabar garai batean indarrean egon zen hizkuntzaren ikuspegi biologizalea auzipean hartzen ari?

[245] Igaro kapituluetan esanetara igortzen dugu.

poderioz hizkera arrunteán – nahiz berezituetan – besteren pareko maila erdiestea.

Irizpide-eranste hau ez da, beharbada, oharkabean egina, *asmakariak* joak baititu begiz Mitxelenak atal osoan mintzagai, atalaren hasieratik, baina sorkuraz asmatu diren horiek, hiztegian errotzea erdiets baitezakete:

> Galozen goragoko galderara: "Ez ote dira, bada, ezer *arnari, margo* edo *itun*?" Bai, zerbait badira, baina galdera horrek beste bat zor du: horiek zerbait badira, ez ote dira ezer euskaldun guziok menderik mende darabiltzagun (liburuetan adina herri-kantetan) *fruitu, kolore* eta *triste*? Izakiak dira, noski, izandunak edo izatedunak edo nolanahi ere dela, eta izakiak ez ezik beste maila eta neurri bateko izakiak lehen aipatu ditugunen aldean. (1960a:35).

Arnari, margo, itun iratxo-hitzen izaerazko itaunari beste galdera batez erantzuten dio Mitxelenak, beraz, bigarren galde honen erantzunean, euskaldunek menderik mende **erabili** dituzten horien ordezkoen benetako – eta arestiko horien ez bezalako –, euskal izaera aldeztuz eta, bide batez, lehen galdeari ere erantzunez: *fruitu, kolore, triste* (...) "euskaldunagoak dira ezin konta ahala euskaldunek euskaldundu dituztenez gero".

Hitzen arteko eztabaida hau, beste arazo larriago baten geruza besterik ez da. Nolabait esan, Mitxelenarentzat zentzugabeki jokatzen ari da, euskararentzat hil-ala-biziko den egoerari irtenbide taxuzkoak bilaka aritu behairean, "auzi ez direnak" (edo "behar ez luketenak") auzi bilakatuz ari dena. Euskararen garbitasunak besterik kezkatzen ez dituenek, euskara, historiaren haritik kanpo uzteko arriskuan jartzen dute eta, honekin batean, euskararen etorkizuna.

> Luzeko lohiez gatzatuak eta mamituak daude lurreko gauzak oro. Euskarak bere garbitasun hartan iraun zezakeen Paradisuko hizkuntza zeino baina Lur-paradisua utzi genuenez gero – han nonbait, Phison, Gehon, Tigris eta Eufrates ibaien inguruan –, maiztu, zarpildu eta lohitu[246] beharrean aurkitu da, dirua eta jazkiak bezalaxe. Horrela izango da aurrera ere, biziko baldin bada. Hauta dezagun, bada, behin eta betiko zer nahi dugun: euskara garbia ala bizia. Ez dago beste aukerarik. (1960a:35).

Euskara *lohitzearen* alde deiadar egiten du Mitxelenak[247] garbitasuna eta iraupena kontrajarriz eta, *lohitzen* dutenak, *gazte* kritikazaleak (*Yakin*ekoak, esate baterako) goraipatuz.

"Lohiaren beldur" ez direnei esker iraun ahal izango baitu euskarak bizirik, ekinari uzkur egiten ez diotelako, behar bezain garbi ariko ez ote diren, eginbeharraz gibeleratzeko

---

[246] Gogora, *Peruko* "zikintzea".

[247] Behin eta birritan (Lizardi, Txillardegiz eta beztez ari delarik) luma-puntan duena:

"[Euskara] Biziko bada, gainera, delako lur urrin gozo hori ere galdu beharko du. Nola ez du, bada, galduko gure lurrak orain, hainbat eta hainbat lekutan, darionia ez baita kiratsa besterik? Gizarea ere aldatu zaigu, nola ere aldatu, eta ezin iraun dezake euskarak bere hartan beran goxo gizarte horren mintzabide aurrera ere izan nahi badu". (1978c:166).

aitzakia ez dutelako. Lantzea da orain axola duena, gerora etorriko da apaintasuna[248].

Orain arteko atalak harilkatzeko bor baliabidea darabil Mitxelenak, "Hitzaren bizitza"-tik "Aditza dela eta" atalera igarotzeko: azken pasartean eutsiz ondoren landuko duen gaiazko ideiaren bati.

Hitzen "axaleko" maila utzi eta, *larriagoak* hartzen ditu mintzagai Mitxelenak atalaren amaian.

Hirurogei urte hurbiltsu, asmoz bederen, *batasuna* erdietsi nahirik ibili eta, artean mamituak guztiz kontrakoaren seinale izatea da *larria*, benetan egin dena *nahastea* izan baita eta ez ***batzea*** (herri auzoen arteko hizka-mizka salatzen duen alderatzearen arabera): "Pasaiako ardogileek kolore bateko eta besteko ixurkariak nahasten omen dituzten eran".

Euskalkietatikoak metatzeari ekin zaio inolako irizpide finkorik gabe, honen ondorio mingarria, euskararen leçeez ez eze, nor bere euskalkiarenez ere atzentzea da, "oraingo pintatzaile asko" bezala euskararen oinarriak, tradizioa, ikasi gabe "bide berriak zabaltzeari" ekin zaiolako[249].

- "Aditza dela eta"

Bide berriak itsumustuan zabaltzearen adibidea da, hain justu, **aditzarekiko** jokaera, honetan begitantzen baita "gaurko askatasun atseginaren" zutabeetako bat.

Orixeri eskainiriko atalean esango direnak berresan gabe, azpimarra daiteke, atal osoan zehar istilu-iturri diren adizkien azterketari eman ondoren, amaiai aldean, auzia testuinguru orotarikoan kokatzen duela berriz, **izkribu-hizkuntzaren** gidaritza, aho-hizkuntzaren aldakortasunaren gainetik jarriz[250].

Izkribu-hizkuntza ahotan hartzea da, oraingoan, hurrengo ataleranzko pasabidea, itzulkiana eta iharduera honen ingurukoak izango baitira aztertuak.

- "Itzulketan"

Mitxelenak bihurlanak euskararen gaitasunaren erakusgarri ziren bezainbatean goretsi bazituen ere[251], ariketa horri "planto" egiteko ordua iritsi zaiolakoan dago[252] (honela

---

[248]Hau dela eta, pentsa daiteke gazte hauen jokamoldearen frutuizat har daitekeela lehengo honako azturarekin etetea:

"Ixiltzen ez ditugularik, gainera, gureak zituen akats nabarmenak, zenbait gai hizketan agertu bezain laster erdarara eramaten gintuztenak dermio". (1978c:167).

[249]Gogora, berriz ere, Txillardegiren bigarren nieberriari leporatua.

[250]Azkueri eskainian zehaztu den lepez.

[251]Ikus U.ri ihardetsia "*Euzko-Gogoa* eta *Euskera*" artikuluan.

esatea zilegi bada).

Ez du ukatzen Mitxelenak hizkuntza lantzeko itzulpenen egokitasuna, ezta iraganiko aldartean zegoen haien premia ere, **baina** itzulketa ez dago arriskuz libre; beraz, iraulpenek literatur etekin osoan hartzen duten tamaina eta proportzioa poliki miratu behar da.

Literaturari maila ez diote bihurlanek ematen, sorlanek baizik, eta itzulpenak hauen ondotik datoz "gorputzaren ondoren isatsa" datorren legez. Hizkuntza landuentzat balio duen hau, ordea, euskararentzat baliogabeko bilakatzeko zorian dago, itzulpenak (*isatsa*) berarizko sorlanek (*gorputza*) bete behar luketen tokia hartzen ari direnez gero, eraskina (itzulpena) gune bihurtuz.

> Gehiago txundituko ditugu arrotzak gure obra bat haien erdarara[253] itzuleraziz haien erdaratik hamar gureganatuaz baino. (1960a:41).

Honezaz gain, arrotzak *txunditu* beharra aipatzea, bestek erabili bide duen argudioaren oihartzuna izan daiteke. Hau da, euskara, erdaraz esaten direnak esateko gauza dela (are **hobeto** esateko ere) erdaldunak ohar daitezen eta txundituta geldi, itzulpenaren premia aldeztu dutenen ustea deuseztatzeko asmoa duela Mitxelenak dirudi, *txundidura* sortzeko bidearen norabideari bira eman eta iturri-hizkuntza ohi dena jomuga-hizkuntza bihurtuz.

Bi hizkuntzen (itzulgaiaren eta itzulmugaren) arteko harremana da, hain zuzen ere, Mitxelenak arriskuz beterik ikusten duena, itzulgaiak bere legeak ezartzen baitizkio itzulkizunari:

> Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera. Ez da hizkuntza bere buruaren jabe, besteren mirabe baizik: besteren hitzak, esaerak eta legeak dauzka beti gogoan haiei nola egokituko zaien asma-beharrez. (1960a:41).

Eta **mirabe** bihurtzearen adibideak ere ematen ditu Mitxelenak, hiztegi-arlokoa bata, gramatikazkoa bestea:

> Euskaltzaindia bere hiztegi handia prestatzen ari zelarik, ez zuen inork txintik atera hiztegi hori erdal-euskal hiztegi bat zelako, hots, ez euskaraz mintzatzeko bidea, baizik eta erdaraz esanak euskaraz berresateko. Erdalkeriaren ihesi ote genbiltzan ala erdalkeriaren bila? (1960a:41).

---

[252] Ikus gorago, Etxaideren lanaz esanak (1959a).

[253] Emeki-emeki euskal literatura bide horretan abiatua den mintzak badira (J. A. Loidi, Aresti), egun, A. Urretabizkaren, M. Asun Landaren eta, batez ere, B. Atxagaren erdal bihurrerak, erakusgarri.
Halarik ere, "enara batek...".
Lizardiz aritzean itzuliko gara puntu honetara

Orobat gertatu zaie zenbait gramatikagileri (Umandiri zehazki[254]), erdal kategorien euskal ordainen bilatzoa beste lanik hartu ez dute eta, euskaratik bertatik abiatu ordez:

> Hona oraindik beste bat. Badirudi gure gramatikariek, euskara bere-berean aztertu beharrean - eta zenbat eta erdalkeriaren etsaiago, orduan eta areago - ez dutela beste kezkarik erdal kategoriak euskaraz nola adieraz daitezkeen azaltzea baizik. Oraindik orain idazten zuen, esate baterako, Umandik, Aita Omaetxebarriaren irtziak zuzenduaz (...) Aldi horiek gaztelaniaz bereizten direla, eta guri zer? Zertan ari gara? Erdal ala euskal gramatikaren legeak ematen? (1960a 41).

Adibide bakoitza burutzeko paratzen dituen galderek agerian uzten dute, beraz, Mitxelenarentzat iturri-hizkuntza gaztelania hartzeko jokaera horrek dakarkeen euskararen mendekotasun eta morrontzaren arriskua[255].

Bada, ordea, besterik gramatikagintza horren atzean, Mitxelenak, iragaitzaz edo zehazten duena: gramatikagile horiek gramatikaz beraz duten ikuspegia da, hain zuzen ere.

> Baina nekerik gabe egiazta daiteke - nekerik gabe, gramatika jakite enpiriko bat denez gero, testuetatik atera behar dena, ez inoren burutik -[256] (1960a 41).

Behialako alexandriarren gisa, logikaren eta analogiaren izenean, hizkuntzak beharko lukeen "erregulartasuna" bilatzen -eta, halakorik ezean baita asmatzen ere- ari dira, gramatikaren izaera enpirikoak eskatzen duen testuekiko atxikimenduari muzin eginez.

Gramatikari hauen lanak, bada, ez dira ofizioak eskatzen dituen baldintzetan sartzen, ez diote euskarari den bezalakoa begiratzen bere irregularitate eta kategoria dituela[257].

---

[254] Ikus Orixezko kapitulua.

Halarik ere, ez da zokoratzekoa Umandik *Gramática vasca* kaiera zuenean Mitxelenak egin zion iruzkina, oro harturik, ez baitarama iruzkingileak bezteko tarrirk agerira. Gure aburuz, zorrotzena, apika, honakoa da:

"Es una lástima, en mi opinión, que en algunos aspectos la terminología gramatical no sea más moderna. No abogo por la introducción de términos que en una obra de esta clase parecerían revolucionarios y podrían ser perjudiciales al chocar con los que son familiares al estudiante. Pero no creo que pueda ser dañoso, y sí útil, puesto que ayuda a adquirir ideas más exactas sobre la naturaleza del lenguaje, el llamar sonidos a los sonidos en vez de llamarles letras". (1955e 461).

[255] Bidasoaren bi aldeetako bi nagusi desberdinen zerbitzari izateak areagotua.

[256] Behin eta berriro Mitxelenagan irakur daitekeen leloa da hau, ikusi eta ikusiko den bezala.

[257] Ildo honetan, aipagarriak dira zenbait erdal erreseinetan, zuzenean nahiz bidenabar, gai honen gainean esanak. Hona bi, Zamarripanaz eta Lafitterenaz:

"Diremos también que es probablemente la única exposición completa y digna de confianza del dialecto vizcaíno entre lo que hoy puede adquirirse en las librerías. Y al decir digna de confianza aludimos a que, dentro de lo que pueda tener de personal, es una exposición del vizcaíno tradicional y no de las ideas del autor acerca de lo que debiera ser el vizcaíno". (1955f:462).

"Por otra parte, sin dejar de tener una discreta preocupación normativa (o más bien selectiva), intenta siempre ajustarse y ceñirse a una realidad dada, y no construirla o crearla.

En este aspecto, que como salta a la vista es central en una obra de este género, la **Grammaire basque** se distingue con gran ventaja de casi todas las gramáticas o métodos contemporáneos. Su mayor

Auzipetu duen Umandi gramatikariaren aipamena hartuko du, berriz ere Mitxelenak, hurrengo ataleraino zubi gisa, Umandi etorkizunaz mintzatzea izaki lokarri-ideia[258].

Bestetan ere aipatu den aldien arteko gatazkari eusten dio orain errenteriarrak, Umandiren (eta *aurrerrazaleen*) eta bere ikuspegiaren arteko adostasun-ezak azaltzeko.

Mitxelena, **oraInak** kezkatzen du, gaurko hizkuntza du gune, baina **orain** honek sustralak iraganean dituela:

> gaurko hizkuntzaren legeak eta oinarriak ez daude geroan, aldi igaroan baizik. (1960a:42)

Berriz ere, euskal literatura zaharraren berreskura beharraz kezkati, Mitxelenak agerian utzi nahi du, Axular, Mogeldarrak, Agirre Asteasukoa etab. arbuiatzeko garbizaleen argudioen funtsik eza: erdalkeriak luma-muturrean omen dituztela ezin izan daiteke euskal literaturaz atzentzeko arrazoirik aski, idazle zahar eta berrien arteko berdinketak begien bistan jartzen duen bezala.

> Garbizaleen garbizaletasuna ez da **"eza"** besterik –Barandiaranengan[259] ikus daiteke **"ez"** hori zer den– eta **"ezetik"** bizi da huts hutsik. Hitz honek erdaratik hartua zirudik: **bazter** dezadan. Esaera honen antzekoak erdaraz aurkitzen dituk: **arbuia** ditzagun horrelako erdalkeria zantarrak. Erdararen zerbitzari izatea nok bere hizkuntza aberasteko eta hornitzeko izango baldin bada, ez dertzat gaizki. Baina erdararen mendean ibili, haren agindupeko izan, gure hizkuntza bakantzeko eta murrizteko? (1960a:42). (Bertz. gurea).

Baztertzea, arbuiatzea beste ihardupiderik ez duen garbizaletasunak, **ukazioa** du abiapuntu eta helmuga Mitxelenarentzat, baina hagitz ondorio larria du ezezka aritze horrek, lehen esan bezala: paradoxikoki erdalkerien ihesi dabiltzalarik, erdararen mirabe dira, euskara aberastu ordez "bakantzen eta murrizten" ari direlako.

Nolako etekina eskura dezake, orduan euskarak, halako egoera soildu, are biluzkorrian? Nola garatu euskal kulturarik, mintzabide behar lukeena estekadura gogorrek kateatzen badute?

---

alabanza, a mi entender, está es unas palabras de A. Martinet, **Bulletin de la Société de Linguistique de Paris** 57 (1692), 73, quien, al mencionar la primera edición, la describe como "un manuel dont personne ne met en doute qu'il se fonde sur un basque authentique". Para quienes sabemos algo de esto, no cabe decir más". (1963h:181)

[258] "Honela darraio Umandi. Noizko egingo da argia? Egiaz, ausaz, gai au, beste hainbeste bezela, bear danez uler ta adierazteko, yakitunek euskeraz beren burua egingo dutenean ikusi ahal izango dute. Beren kultura laterazkoa edo beste edozein erderazkoa izan dedin bitartean, zalla edo izango zaie: nai ta nai ez, beste kultura olek, beren lana egiña izango bailute". (1960a:41).

[259] Ikus honen bihurlanaz lehen esana.

- "Euskal kulturaren mugak"

Mitxelenaren iritziz, etorkizuneko euskal kultura, mintzabidearen muga hertsiek baldintzatuko dute eta, honek dakartzan ondorioei arretaz erreparatu behar zaie.

Ametsezko egoeran, euskara "ikasbide eta irakasbide" nagusi izatea badaiteke ere, benetakoan ez da honelakorik. Honenbestez, euskaldunak ezin geldi daitezke euskara mintzabide duten lan soiletan eta, munduko goi mailakoen berri izatera behartuta daude[260], antze-sailean dela, eta - batez ere - jakintza-sailean dela, "zenbait kultura sailetan, duguntxo pixkaren zordun" direnez gero, zorrak ezagutu eta aitortzea dagokie, zordun orori legez.

Horrexegatik deritza miresgarri, euskal hiztegia, filosofia eta jakintza-gaiak adierazteko erdara baino egokiago izateari, Orixeren kapituluan jasoko den bezala.

Premiazko dena da, beraz -Sokrateren burubideari jarraiki-, "Ez dugula eta ez dakigula jakitea, hori ez dakigun bitartean" ez baikara izateko eta "jakiteko bidean sartuko". Gabeziaz ohartuki, etorkizunari aurre egin beharko zaio, asmo-jakiteak[261] gidari direla. Hitz-jokoaz baliatuz, honela adierazten du:

> Eusko-Ikaskuntzak, **jakinaren gainean**, laburtu zuen esaerak dioenez:
>
> Bekoak goikoa eskondu leidi
> Ta txikiak andia benzi leidi
> Asmuz ta jakitez.
>
> Nekez, ordea, **asmo-jakiterik** gabe. Eta ez dakigula **jakitea** omen da jakinduriaren hasiera eta iturburua. (1960a:44). (Beltz gurea).

Atal hau, artikuluaren hasieran aipatzen ziren kritikaren bi xedeetatik bigarreneranzko pasabidea da, hizkuntza soilezkoetatik emeki irten eta, ideien esparruan sartzen baita.

- "Europa eta gu"[262]

Kanpora begiratu beharra azpimarratu du atal pasa berrian eta, gai honi helduko oraingoan.

---

[260] "También el mundo de la cultura, lejos de regirse por normas de estricta equidad, conoce *beati possidentes* y grupos privilegiados. El marginado tiene la obligación de enterarse de lo que <los otros> publican; quien no está marginado puede pagarse el lujo de ignorarlo. En realidad, y ésta es una justa compensación, los marginados no siempre se toman muy en serio su deber moral". (1975a, *LH*:121).

[261] Gogora "Euskal hitzak zein diren".

[262] "1957 abenduak 11. D. Peillen jaunari Parisen. (...) Gure arteko gauzez zer esango nizuke? Etsi-etsia nago gure jendearekin. Gogorik onena agertzen dute beti, baina gauzak beste iñon egiten direnaren bezala egin beharrean dituzte. Eta zerbait esaten baduzu, begitan artzen zaituzte".

Gogora dakezke *Peru Leartza*'koren azterketan esanak.

Europako "berrikeriek" Euskal Herria kutsatu eta bide zuzenetik saihesten ez ote diren ari uste duenik bada euskal gizartean, 98-koen auzia –"gehienetan bezala"– berandu samar berbiztuz[263].

Mitxelenak bere burua Europan ikusten du inolako zalantzarik gabe. Areago, ez du kanorerik bere ustez, euskaldunen europartasunaz galdezka ibiltzeak, Europaren kultura euskaldun ororena delako, "nerea ez ezik, nahi badugu eta nahi ez badugu" eta, hain da honela, "euskal" nortasun berezia, Mitxelenarentzat, "europartasunaren hezur-mamiei usaia eta kolore berexi-antzekoa ematen dien larmintz mehea baizik ez da"[264].

Europatik edoskietarik –baliotsu izanagatik– arbuia daitezkeenak badiren arren ("literatura, pintura, musika, etab.") ezin arbuia daiteke Europan sorturiko jakintza[265].

> **Dirua** ez da zoriona, baina haren atzetik gabiltza gehienok, baita euskaldunok ere. **Jakintza** ez da salbabidea, baina eskeintzen dizkigun dohaiak tentagarriegiak dira haien ihesi ibiltzeko. **Dohai** horiek dira **jakitea** eta, jakitea aski ez dela, indarra edo berriz esaten hasi den bezala, **boterea**[266]. (1960a:45).

Egitura aurkaritzakoa errepikatzeak lehenengoan esana halaber betetzen dela bestean izan dezake helburu, berdinketa estari gordez; bestela esan, dirua zoriona ez dela jakinik ere, jendearen mugiarazlerik eragingarriena den bezain tentagarri dira salbabidea ez den jakintzaren dohaiak, hots, **jakitea**[267] eta **boterea**. Hauek, "inongo herrik" arbuiatuko ez lituzkeenak izanik, Mitxelenaren ustez.

Honezaz gain, gogoan izan behar litzateke, jakintza horren ondorio zenbaitzuez jabetu

---

[263]Gehienetako ibilera berantiarraren salbuespen bakarra Azkoitiko Zalduntxoena litzateke Mitxelenarentzat: "Gogora dezadan, beraz, aurre askoan ibili zela behin Euskal herria gai horretan, Azkoitiko zalduntxoekin". (1960a:44).

Beste maila batean, Txaho berrekarri beharko litzateke.

[264]Mitxelenak oso azpimarkatzen duen ideia da. Hona, zaletasun horren sustraian datzakeen arrazoiaren argigarri egokitzat daukaguna:

"Euskaldunok, eta Txillida dakart lekuko, ez gara arrotz Europa honetan, Europan bizi baikara eta Europan ari, Europarren berri jakin dezakegunez gero. Eta Europa ez da, guretzat behintzat, eskualde zabal nahiz mehar, bortiz nahiz ahul, aberats nahiz behartsu baten deitura soila. Hori ederki ikusi zuen Wilhelm vom Humboldt-ek 1800 inguruan eta are nabarmenkiago ageri da gure egunotan. Europa diogenak zerbait gehiago dio, nahi eta ez. Europak, bere buruaz oharturik abiatu zenez geroztik eta zenbait bidegabetze gora-behera, bihotz-erraietan itzatua daraman grinaz eta ixuriaz ari naiz. Gizonari –gizon delako, eta kito– dagokion bizimoduaren bila leihatu da, jakite egarriz, giza-eskubideen eta kunplieraziko diren lege zuzenen alde. Laburzki esan dezadan, askatasuna erdietsi nahi du, edota askatasunera daraman bide zabala gutienez. Hori izan da, behinik-behin, Europaren izpirtua, noiz edo noiz bide horretarik baztertu bada ere, europarrik argienek eta onenek adierazi dutenez mendez mende". (1975d:60).

[265]*Peruk* sinbolizatzen zuena kritikapean hartzean adierazi bezala.

[266]Saihetseko oharra. Hitz hau, Mitxelenak berreskuratutzat dauka, agidanez.

HLEH-k, hitz honen lehen moldezko testigantza, 1545ean jasorik du.

[267]*jakintza / jakite* bikotean, honako bereizkuntza sumatu uste dugu: lehena, ezaupide abstraktoa, hots, 'zientzia'; bigarren aditz-izenak, apika, konkretua adieraziko luke, ondorea, nolazpait esan, batek gaiez duen ezaupidea, alegia. Ez gaude, halaz ere, batere seguru.

direla euskaldunak, **teknika**[268] soilarenaz, esate baterako.

> Saia gaitezen, beraz, kultura baten alde onez lehenbailehen jabetzen, alde txar askoren jabe aspaldi egin ginenez gero. (1960a:45).

Europatik hartzeak, ordea, neurtua behar du izan, ez itsumustuka, Euskal Herriaren atzerakada dela medio, gerta baitaiteke, tarteko epeak agortu gabe, euskal gazteei erakargarri gerta dakizkiekeen "kozkak eta errenkurak" egosi gabe bereganatzea:

> Guk gosea berdintzeko daukagu; ez dugu oraingoz asearen beldurrik. (1960a:45).

Mitxelenak hemen ezer ez dioen arren, urte berean *Peru Leartza'k*ori eginiko iruzkinean ekialdeko filosofiaz eta esanak har daitezke, beharbada, arrisku horren erakusgarri,

---

[268] *Peru Leartza'k*oren gaineko iruzkinean jasoaren ildotik, eta luze joko duen arren, hemen jaso nahi ditugu Euskal Herria eta teknikaren arteko harremanez diharduten erdal eta euskal bina pasarte hagitz adierazgarriak:

"Orrekin betiko kontura goaz. Kultura gaietan lenengo emen zertarako dan begiratzen diogu eta euskaldun askok uste dugu, eta neroni ere uste orretakoa izan naiz, beste zenbait erri baiño askotaz ere gorago gaudela orretan. Eta zergatik? Aplikazio ta teknika kontuetan aurreratuago gaudelako eta ori da norbaitek asmatu dituen gauzak zer ondoren izango lutekean. Betiko kontua da, teknika menderatzen dugulako, teknikaren jabe geralako uste baldin badugu goi mailan gaudela zearo oker gaude. Gaiñera bein ere ezkera konturatuko zer falta zaigun. Eta falta deguna da ez teknika, emen norbaitek esaten zuen, parregarrikeri bezela esana dago baiña zearo egia da. Universidade gauzak sortzekotan ibili diranean beti pentsatu izan dala ingenieruak bear ditugula. Ez jauna, matematika utsa edo metafisika edo olako arraloken bat, ezertarako balio eztuen gauza bat bear genduke. Ori da falta zaiguna, gaiñerakoa badugu obeto edo gaizkiago, baiña gorde maillan, jakite utsa ezertarako eztena, berez egiten dena, ori da falta zaiguna". (*Euskera* 1962:316).

"Baina egungo egunean besterik gertatzen da, oraintsu arte uste izan baitugu, /eta Euskal herrian bestetan baino areago/, gure munduan balio zuen gauza bakarra teknika zela, hau da, bakar-bakarrik momentuko eta berehalako probetxu eta irabazia ekar zezakeena. Baina, egia esan, gauzak ez doaz ondo alderdi biak, teorikoa eta praktikoa, elkarri uztarturik ez dauden bitartean, batak bestea ernatzen eta laguntzen duelarik". (1972b0:23). /Mitxelenak bere eskuz emendatua/.

"Para un extraño tiene pues que resultar incomprensible que un país que se considera próspero y abierto a todo lo moderno, por lo menos en el terreno de la técnica, preste tan poca atención a una riqueza -no menos riqueza porque no se pueda convertir sin más en dinero contante y sonante- de cuya casi milagrosa conservación se jactan a todas horas sus habitantes". (1964a, *SHLV*:13).

"Personalmente, tengo que confesar que siento una cierta aversión hacia la técnica o, mejor dicho, hacia la estrecha y hasta exclusiva vinculación que se suele establecer entre la técnica y nuestro País, y entre nuestro País y la técnica, con olvido, no sé si involuntario o interesado, de instancias superiores. Lo poco que sé de historia me basta para reconocer que un pensamiento científico disociado de la técnica, como el que se dio en líneas generales en el mundo griego, no pasa de ser un embrión, entreverado de metafísica y mitología, que sólo pudo dar fruto cumplido muchos siglos después, en un contexto muy diferente. Pero no es menos peligrosa la concepción de la técnica como algo autónomo que de nada depende, que tiene en sí mismo su principio y su fin. No es sólo que no sea menos peligrosa: es que, dado que la otra alternativa ya no existe, es la única que es peligrosa y muy peligrosa para nosotros y en este momento de nuestra historia (...) Y, dentro del problema cultural, el del desarrollo científico -tanto en el dominio de las ciencias formales como el de las naturales y humanas- no es el menos importante. No lo es, precisamente porque el relativo progreso técnico de que gozamos, como los que disfrutan o padecen un régimen colonial inteligente y paternal, encubre y hasta enmascara la realidad y ayuda a adormecer las escasas inquietudes que en un medio tan poco adecuado puedan todavía despertar. La creencia en la omnipotencia de la técnica, fe de carbonero que ni siquiera los desembolsos en patentes alcanzan a debilitar, es nuestra versión casera del opio de marras". (1973a, *SHLV*:400).

zegokionean zehaztu dugun bezala.

- **"Filosofia eta jakintza"**

Europako **jakintza**[269] izan berri du ahotan Mitxelenak. Orain, gaurkoen ustez, jakintza filosofiaren ezinbesteko oinarri dela, eta jakintza jorratzeko premia adierazteko, A. Intxausti eta Orixeren arteko auziaz baliatuko da Mitxelena, azkenari eskaini kapituluan astiroago azalduko den bezala.

- **"Hizkuntza bizia"**

Azkena den atal honi hasiera ematen dio, artikuluan zehar gai sakonez (literaturaz, filosofiaz...) arituz, hizkuntza biziaren egoeraz atzendu izana egotz dakiokeen erantzukiari arrapostu emanez: errezago da, bai, gai horietaz mintzatzea, hurbileko premiei zuzenean eustea baino.

Ez dirudi, halaz ere, erraztasun soila denik Mitxelena literaturaz hitzegitera bultzatzen duena, erraztasuna mintzatzeari ez ezik **etekinei** ere baitagokie[270]:

> Bai, errazago da literaturaz mintzatzea eta errezago ere da literaturaren bidez zerbait egitea (1960a:47).

Hitzotan eta hurrengoetan, Mitxelenak, beste euskaldunei lan-gonbitea egiten die, kultura-lanetan ihardun dezaten, **hizkuntza biziari** mesede besterik egingo ez baitiote eta, gainera, beste inork, euskaldunek egingo ez dutena, egingo ez duelako:

> Asko esan nahi du kultura-lanetan, beste edozeinetan bezala, aldez aurretik begiz jota edukitzeak helburuak, mugarriak, pausoak eta bideak. Guztion onerako izango den eran gai horiezaz elkarrekin mintzatzeko adina etorri zaigu. Ea hurbil dugun Urte berriak aurrerapidean aurreratuak ikusten gaituen (1960a:47).

Lanok, halaz ere, egitasmo orotariko baten barruan gatzatu eta egiunez aurrera eraman beharra azpimarratzen du Mitxelenak.

Laburbilduz, **hizkuntza bizia** mintzagai hartu beharrean, ekinaren ekinez bultzagarri sendoagoa ematen zaiola adierazten du Mitxelenak, eta horixe da berak mamitua.

---

[269] Errepara bekio arestiko oin-oharrean jakintzari ematen dion garrantziari.

[270] Ezin ahantz daiteke 1951ko "Euskal literaturaren etorkizuna" (1951c) lanean adieraziez, zehaztuko dugun bezala.

Egitamuaren premia adierazi du, helburuak, mugarriak pausoak eta bideak finkatuz. "Asaba zaharren baratza" egitamu horren habe eta gida, nondik-norakoa, izan daitekeelakoan ez ote duen idatzi Mitxelenak gogoeman daiteke.

Hau guztia ikusirik, artikuluaren sarrera gisakoan Mitxelenak zedarrituriko mintzagaia: **egungo literatura**, lanaren edukiarekin berdinduz, motz gelditu dela esan daiteke, literaturaz ez eze –J. Azurmendiren (1982:77) hitzak hona ekarriz–, "Asaba zaharren baratza"-k, "hein batean, gerra aurreko "garbikeria" bidearen azkena signifika dezake, bide berrien finkapena behintzat" ere badelako, *bide berriok* literaturaz handikakoak ere hartzen dituztela atzendu gabe.

Orain arte azterturiko lanak, Mitxelenaren bide berrien finkapeneranzko urratsak direla esan badaiteke ere, "Asaba zaharren baratza"-k, nolabait esan, azken hitzarena edo egiten du.

Alabaina, 1960 baino geroagoko Mitxelenaren lanetan, euskal gizarteak oraindik ere zahar/gazte, garbi/mordoilo auziak ongi egosi eta irentsi gabe dituelako islak irakur daitezke.

* (1970) "Pro domo", *Egan* 2. aldia XXX, 11-26 [*MIH*, 211-231; *MEIG* VIII, 133-151] (1970c).

Saiakera-taxuko lan honetan kausi daitezke, arestian aipatu berri den irentsi-ez horren erakusgarriak; zehazkiago mugatuz, Mitxelenak Artetxeri emaniko erantzuna izan daiteke auzi honen ispilu garbia.

Artetxeren hizkuntzazko ikuspegia mitogabetu ondoan, ("hiztunak dira ez hizkuntzak amuts nahiz zorrotz, garbi zein lizun" ikurritzean landa daitekeena), garbitasuna eta gazteen jokabidea –Artetxe artegatzen duten gaiak–, zehaztera jotzen du Mitxelenak.

Garbitasunaz eta beronen iturburuez mintzatzeko asmorik ez duela adierazita, Mitxelenak, Artetxeren *arrazoibidea* agertu eta *kate-mailaren* ahulezia azaltzeari eusten dio:

> [Geroko euskal gazteek] inolazko dudarik gabe esan dezakegu besterik ere jakin beharko dutela, euskaraz gainera. Eta azken esaldi honek dudazkorik baldin badu, azken partea bakarrik izan dezake duda-mudakoa. (1970c:136).

Mitxelenagandik iragaziriko Artetxeren burubidea honela alda daiteke: oraingo (1970 inguruko) gazteen idazkiak direla medio, geroko gazteek ezingo dute **euskaraz** gauza zuzenik irakurri, garbiak eta egokiak oro **erdaraz** idatziak kausituko dituztelako eta, beraz, **euskara** bera higuinduko dute balizko geroko euskal irakurle gazte horiek.

Mitxelenarentzat, argudio honek ez bururik ez hankarik du, euskaraz, beste hizkuntzetan legez, egokiak eta desegokiak idazten direlako; hizkuntzak horretan ikuskizun larregirik ez du, idazleek mamituak dira horretan erabakigarri. Hau dela eta –Artetxeren argumentu-hariari jarraiki–, honako ondoriora iritsiko litzateke:

> Ez dute, beraz, [gazteek] gure hizkuntza hutsa higuinduko, hizkuntza guztiak izango dituzte higuin eta, beste biderik ez dutelarik, gogozko mutu bihurtuko dira, hain galgarri den mintzatzeko gaitasuna erdeinuz baztertuaz. (1970c:136).

Bestela esan, euskarari halako oker adituriko begirunea galdu eta beste hizkuntzak bezalaxe, arruntera jotzeko, normalizatzeko bidean sartzeko premia aldarrikatzen du Mitxelenak, iritzi mitogileak baztertuz.

Euskara "zikintzeko" beldurrak uxatzeko ezinbestoa azpimarkatzen du berriz ere artikulu berean:

> Komeni ere da, hizkuntzaren aldetik, harako <barrabeskeriak> euskaraz argitaratzea, bizi delako seinale nabarmen bat dira. Inguruan somatzen ditugun ideia eta iritzien arteko gerla garratz-suminak gure herrian eta gure hizkuntzan somatuko ez bagenitu, hilik ginateke edo gure hizkuntza bederen hilik legoke. Hori, esango du norbaitek, gaitzaren ordez gaitzagoa sartzea da. Bai, nahi baduzu, baina ni hizkuntzaren biziaz ari naiz, besterik gabe. Ez bestekorik ez delako munduan, baizik eta munduko zer bakoitzari zor zaiona aitortu behar zaiolako, besteak beste. (1970c:146).

Belaunaldien arteko borrokak –"Asaba zaharren baratza"-n azpimarratzen zuen bezala–, ezinbestekoak dira, bizirik egoteak berarekin dakartzanez gero. Honenbestez, aldakuntzaren haizeak, hizkuntzaraino, literaturaraino, iristeak ere bizilege behar du izan, *Leturia*ren iruzkinean esana lekuko.

Guztiarekin ere, Mitxelenak "gerla garratz-sumina" urrunegi ez ote den eraman eta, konponbideren bat, elkarri aditzeko moduak, bilatu beharra aipatzen du:

> Ez genukeen sekula ardurarik izan bagenu, utzi behar gizaldien eta belaunaldien arteko borroka heldu den punturaino hel zedin. Elkarrekin bizi behar dugu, zenbait urretan behintzat, herri berean bizi behar dugu, guztiok –nork batera, nork bestera– maite dugun herrian. Eta irekirik egon behar dugu elkarren arteko mintzabideak, nahiz mokoka ari, nahiz errietan ekin. (1970c:148).

Elkarri aditzeak, nork bere jarreraren makurrak onartzetik abiatu beharra du: gazteek, aurrekoek eginiko lanaren balioa ikusi eta ezagutu behar duten bezala, egon behar dute prest zaharragoek ere, belaunaldi berrienarenak aintzat hartzeko:

> Ez ote gabiltza guztiok elkar ezin ikusirik, lekua kenduko diguten beldurrez batzuek, lekurik uzten ez diegulako amorruz besteak? (1970c:148).

Zaharren artean bere burua kokatzen duen Mitxelenak, **protagonismoan** ere ikusten du istiluen iturburua.

Jarrerak malgutzeak ez dakar iritziak bateratzea. Ezinkizun izateaz gain, Mitxelenarentzat, onuragarri ere ez litzatekeelako, apika, borroka horri ikusten baitizkio

besteren parean dabiltzala euskaldunak ere erakutsiko luke, nekez joko baita aurrera, Euskal Herrian eta nonahi, iritzi-adostasun erabatekoan geldituz:

> Gure artean sutan dauden ezin konta ahala istilu horiek (aldizkarietan dela, liburuetan dela, bazkunetan dela, ikastoletan dela, erlijio gaietan dela, politikan dela) luntsezko belaunaldi-borrokaren ageriko ezaugarriak besterik ez dira, ene ustez. Gure artean ditugunak bezainbeste non nahi, edozein herrialdetan ikusten direnak. (1970c:148).

Baina, zeinahi kasutan, Mitxelenak argi eta ozen aldarrikatzen du garaian garaiko begiez ikusmiratu beharra eta eguneko behar-eskakizunei erantzun egokiak bilatzeko indarrak ez sakabanatzeko desioa. Alde honetatik, Mitxelenak, bake-bidea eskaini asmo duela azpimarkatu behar da:

> Saia gaitezen, eske hori egiten diot ene buruari eta besteri, oraingo gauzak oraingo begiz ikusten, oraingo auziak oraingo buruz xurtzen. Ez gaitezen gal amets-bideetan barrena; utzi ditzagun ametsak lo gaudenerako. Bereizten gaituzten auziei deus ere kendu gabe, ez ditzagun behintzat, setaz eta elkarri ezin amor emanez, gehi eta zabal. Bizi garelako gabiltza borroka. Eta othu nabarmenen azpitik, ez ote dugu somatzen elkarrengana garamatzan barren-barrengo dei ixil bat? Hala uste dut nik, behinik behin, eta gaizki esanak barka. (1970c:151).

Ez du hau, ordea, Mitxelenak, "zahar-gazte" auziaz pleguetara duen azken hitza. Bi urte geroagoko lan batean, Mitxelenak, bere burua testuan zirtatzen du, zenbait gazterengandikako urruntasuna garbi paratuz[271].

* (1972) "Azken ordukoak", *MIH*, 365-401 [*MEIG* VIII, 151-185]. (1972a).

P. Altunak, *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak* bilduma paratu duela eta, errenteriarrak egokiera du bertan jasoezko (eta jaso gabeezko) bere iritziak berrikusi, zorroztu eta berriak eransteko eta, ez dio aukerari muzin egiten, darabilgun gaia, hain zuzen, berbizteko.

Gaiari berriz heltzeko arrazoia, Mitxelenak *susmur*tzat jotzen duen bestek (maiz legez, ikusi den bezala) leporatua da:

---

[271] Eta honen ondoan, azalduko diren arrazoiak direla medio, hemen ez baina aurrerago berariaz begietsiko den 1984eko *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*ren aurkezpena (1984b) aipatu behar da. Hemengoa da, hain zuzen ere, zaharren eta gazteen arteko kalapitazko ondokoa. Mitxelenak bere behialako jokamoldearen berri eman baino areago egiten du, ikus dezakeenez:

"Lehenbizi-lehenbiztik nabari zen, gazteagoen artean, susmo kontentagarz baten arraiza eta hori, duda-mudakotzat jo baziteken hasieran, gero eta argiago eta zaratatsuago. Lehen ez ziren arrazoiak ongi aztertu eta erabaki; behar ez zen bideko jokaera erabili zuten. Nik, egia esan, begi zorrotzak izan ditut hutsak ikusteko (batez ere, huts horiek geure buruarenak, neronenak barne, direnean), baiezkoan erantzun ohi nuen, ez beti, baina bai gehienetan. (Egoera trankilduz zihoala, bat-batean konturatu nintzen zerbaiten gainzespenak sustrai sakonagoak zituela: gu santu omen ginen gerrate hartan eta, hori aski ez izanik, geure erruz galdu genuen. Eta horrek berehala hoztu eta are izoztu ninduen: hor konpon, jaun-andreak!)". (1984b:37).

> Guztiarekin ere, badabil halako susmor bat gure artean: ni, alegia, poliki-poliki, haizeak daraman horbelaren gisa, gero eta urrunago omen nago «gutarrengandik». (1972a:159).

Mitxelenak, hasteko, ez du onartzen zedarri ilun eta labainegiak dituen *gu* (aldi berean zabal eta murritz) batek izenda dezakeen samaldan bere burua sartuta ikusterik, *ni* bakoitzak *gu* asko gordetzen baititu batean. Hau da, Mitxelena orobatze arriskutsuei itzuri, inolako *guren* saldoan ez sartzeko *ni* kritikoaz baliatzen da, batzuengan eta besteengan (zaharrengan eta gazteengan, alegia) nabarmengarri iruditzen zaiona adierazteko.

Honela, Mitxelenak, adinkidetasun soilak, *gu* ("gutarrak eta bestetarrak") biiakatuen artean bere burua kokatuz, gazteen zaharrekiko jokabide itsu eta murriztailea hartzen du auzipean.

Gazteek ez bide dute asmatu aurrekoak ebazten, ez baitute onei antzemateko gogo bizirik agertu, ezta hutsak behar zen lekuan bilatzen asmatu ere. Jarrera murritz-estua agertu dute:

> Kaxkartzat jo gaituzte, beste auzirik gabe, eta kito. (1972a:159).

Areago, gazteen ustean, egina ez oze, eginkizuna ere ukatua dute zaharrek; ez dute, "gora jotzeko" aukerarik, "harako Hegel-en tribunal haren erabaki berankorrari begira edo" egotera beharturik daude.

Aurreko izate hutsagatik, beraz, Historiaren azken epaiaren zain egon beste aukerarik ez bide dute zaharrek, gazteek hala erabaki. Oker dabiltza honetan azkenok, Mitxelenaren ustez.

Bestetik, berriz, Mitxelenaren gizaldikoek ere ez dute zuzen jokatu:

> Guri geuroi, berriz, ez dakit zer sorginkeria dela medio, geure egiazko irudia atzendu edo zaigu eta amets-irudipenezko argitan ikusten ditugu behialako geure buruak. (1972a:159).

Zaharragoen errua, gaztaroko amets-irudia egiazko bailitzan aritzean datza batetik, baina honen ondoan, eraberrigintzari jakinaren gainean gogor egin nahian ere bai, ohartuki ari baitira, gazteak zer minduko, huraxe adierazten.

Bi jarreron setak, elkar begietan hartzea dakar ondorio[272]:

---

[272] "Badirudi, belaunaldiak direla eta ez direla. X-ek [Begiarmenek] nonbait (ez dut oraingo pasartea aurkitzen) Ortega-ren segiziokotzat hartu nauela, eta ez naiz larriki poztu, horren kulturalismoa gogaikarri (ez dut gogorragorik esan nahi) izan baitzait beti. Besterik da hor eta bestetan esan dudana edo esan nahi nuena: badugula, aspaldidanik, gure artean harako Nafarroan genuen «osin ondargabe» haren antzeko zerbait, eta hosin hori komunikabiderik ezak zabaldu eta sakondu duela. Gazteagoek, eta ez dira hain gazte, ez dakite gure berri (ez ote dut, bada, oraindik orain irakurri Pikabea Donostiatik *ihesi* joan zela?), eta zaharragoek ez dugu gazteagoen berririk ere jakin nahi, esaten eta egiten dutena okerreko aldetik hartzeko ez baldin bada. Badakigu, noski, nondik datorren elkar ezin adiru hori. Batzuengandik besteenganako bideak eta zubiak zabaltzen saiatu behar genuke. «Ori desio nuke nik», behintzat". (1975c:41).

Nekez hartuko dugu elkar, elkarri gibela emanik gabiltzaino. (1972a:159).

Mitxelenak, esan bezala, alde batera eta bestera banatzen ditu gaizto etsiak, bi samaldekiko urruntasuna agerian utzi nahirik. Ez du nahi, ordea, **bere** iritzi soilean sustraituriko irudia aurkezten duen usterik irakurleagan sendo dadin eta, horretarako *besteren* irizkidetasuna darabil argumentu:

Besterekin mintzatu naiz, ez oihu eta zalaparta dabiltzan horiekin; bai, ordea, non izan diren eta zer egin duten segur dakidanekin. Eta gure oroitzapenetan bateratsu gatozela ikusteak bakarrik sendotu dit nuen irudia eta ustea. (1972a:159).

Inoren alde garbi agertu ordez, ulerkaiztasunaren iturburuak azaldu dituela, hurrengo ataltxo osoan, **gazteen jarrera** (politikoa batez ere) du mintzagai Mitxelenak. Hemen aipatuko dituen kritikak direla medio, gazteengandik zerk urruntzen duen azalerako du.

Gazteek ikasmina ageri dute, bere burua jakintzak hornitzeko premian ikusten dute:

Barau luzeegiak teoria-egarria ernatu die eta badute non ase: iturriak, haatik, berri baino berriagoa beharko du izan, ez aspaldidanik dariona. (1972a:159).

Teoria **berriak** ikasteko irrikan daudela gazteak nabarmentzea adierazgarria da, Mitxelenak antzinaz atzentzea leporatu ez ezik, ikusi eta ikusiko den bezala, **berritzat** daukaten hori, seguruenik, zaharrago baten oihartzun desitxuratua ere datekeelako[273].

Gazte franko zahar batzuekin bat datoz, gazteek bizi izan ez dituzten "forma hutsezko diren askatasun eta eskubideei" muzin egitean:

zaharrago hauek forma ilaun horiek – hain ilaun eta hutsalak ez direlako, jakina – beti gorroto izan dituztelako edota, bestela, Ejitoko ilunbeak baino ilunagoen erdian, Damaskora gabe, argiaren distirak begiak liluratu dizkielako. (1972a:160).

Forma-askatasunak eta eskubideak gogoan ez hartzeko, bi arrazoi-mota izan daitezkeela tarteko ikusten du Mitxelenak: *forma* hain azaleko ez dela erakusten du zaharrek dioten gorrotoak batetik eta, inguru zinetan goibelean, gaitz guztien sendabidea litzatekeen "argiak liluraturik" egotea dateke bigarren argibidea.

Hementxe hasten da –piskanaka zehazten joango garen– **erlijioaren** eta **politikaren** arteko alderatzea[274], Ejito, Damasko eta "argi distiratsua" aipatuz. Izan ere, San Pablori Damaskorako bidean gertatua (itsutu zuen argi distiratsua!: benetako argia ikusten lagundu

[273]Txillardegiren bigarren eleberriari eginiko kritika dakar belarrietara.

[274]Garai honetatsukoa da X. Letek plazarik plaza kantatzen zuen "Ideologia-Teologia" kanta, oker ez bagaude.

ziola, alegia) Mitxelenak parekatzen du, teoria politiko berriaren aurkikuntzarekin.

Forma-askatasunak baztertzen dituztenak (arrazoi bat nahiz beste dela medio) errealitatetik urruti dabiltza, Mitxelenaren ustez. Espainiak ez baitzuen 1868an[275] mamitzerik izan Frantzian 1789ko iraultzak erdietsia. Historiaz eta ingurunearen egoeraz jabetu gabe, beharrezko tarteko pausorik urratu gabe ari direla adierazi nahi duela Mitxelenak ondoriozta daiteke. Ildo honetan, lehen ahotan genuen Indiara begiak iraultzea, gertari horren erakusgarri gardena litzateke:

> Karismadunen artean bizi direlarik beti, karisma apurren bat lortu nahi lukete, nondik edo handik. Ebanjelioa irakurri ez badute ere, badakite, zeruetakoari ez ezen, lurreko erresumari ere «bortxa egiten zaiola, eta kelxuek harrapatzen dutela hura». (1972a:160).

Berriz ere Itun berriaz[276] baliatzen da Mitxelena, gazteen jarrera auzipean hartzeko.

Bortxa da orain, indarkeria, Mitxelenak ahotan duena. Ebanjelioetako zeruetakoan bezala, "lurreko erresuman" ere, helburuak erdiesteko bortxakeria noraezeko bidaidea da, asko baitira harzaz jabetu nahi dutenak.

Gazteek *alderdi, talde, taldetxo, mordo* eta *mordoxketan* aurkitu bide dute berri- eta alda-asmoak bideratzeko barrutia:

> Sinai berrian ikasi duten agindu bakarra, hau da xelebrekeria, ez da donostiar alaiek jaietan kantatzen zuten harako hura baizik (eta txantxetan ari zirelakoan kantatzen zuten axolakabe haiek!)
>
> Ni naiz kapitan pilotu (bis)
> Niri behar zait obedtu
> Obedtu. (1972a:160).

Erlijioarekiko parekatzeari jarraiki, *Sinai* da orain berdingaia, hobeto esan, Exodok XIX. kapitulutik aurrera jasotzen duen Sinain gertatua. "Alderdi-Sinai"-n gazteek jaso dituzten aginduak batean biltzen dira (gerora Jesusek bitan laburbildu bezala), Liburu Saindukoaren oso bestelako mezua izanik, ordea.

Ironia handiz (irrigarri uzteraino) iruditaratzen du Mitxelenak "agindu berria": agin-gosea eta norberekoikeria da orain ikasten den doktrina eta, gidari bakarra, beste oro *nere* esanetara edukitzeko eskubidea.

Zenbait gazteren jarrerei ezaugarri hauek antzeman dizkiela eta, Mitxelenak bere burua aipatzen du, artean ebatzirikoekiko aldeak nabarmentzeko, argumentu-bidearen norabide-aldatzea *ni* izenordaina erabiliz gauzatu eta, pasarte bakar batean, gazteei egotziriko makurrak bilduz:

---

[275]Gogora daiteke Mitxelenak aipaturiko urte hori, Prim eta enparauen saioari dagokiola. Espainian ideia liberalak hedatu eta finkatzeko asmoz ahaleginduz zirenen saio hutsalari, alegia.

[276]S. Mattheu, XI,12: "Eta Ioannes Baptistaren egunetaric oraindrano, ceruétaco resumari bortcha eguiten çayo, eta keichuéc harrapatzen dute hura". (Leiçarraga 1571).

> Forma soilak ez ditut arbuiatzen. Zer da gizalegea bera, funtsez, axaleko itxurez gainera? Halaz guztiz, ez gara gizartean bizi gizalegeari eskerrak baizik. Bortxa itsua, gainera, hutsala eta ilauna iruditzen zait. Ez, jakina, gizaki bakoitzaren bizitze neurriz neurtzen badugu; bai herrien bizia astiro aldatzen duen erlojuari bagagozkio. Eta nik ez dut ezeren eta inoren buruzagi izateko gogorik. Izan banu ere, gogaiturik nengoke jadanik. (1972a:160)

Bestek *formak* arbuiatzen dituela eta, Mitxelenak ez arbuiatzeaz gain, gizartearen funtsa diren gizalegeak "forma, axaleko itxura" besterik ez direla dio izendatuki.

Axaleko geruzarik gabeko "bortxa itsuari" –lehen ahotan hartu dituen zaharrek *formari* bezala–, *hutsal* eta *ilaun* deritza. Atributo berak josten dizkie, beraz, kontrako adigaiei. Bigarren kasukoa, gazteei egotzia, alegia, arestian kritikatu dien zerbaitetan oinarritzen du: kondairan ez dutela arakatu, honen ezaupideak ematen baitu argirik aski, bortxa, *hutsal* eta *ilaun* dela ikusi eta ikasteko. Ez du, gainera, Mitxelenak, bere burua aginzurrean dabiltzanen artean kokatu ere gogo.

Gazteek (eta zenbait zaharrek) erakutsiaren eta Mitxelenaren gogobideen artekoak kitatu eta, Euskal Herriaren etorkizunean jartzen ditu begiak Mitxelenak, zein arriskupean (gaitz irizten dion bidetik segituz gero, behinipehin) ikusten duen azaltzeko:

> Argi ez badago, hauxe da gogoko ez dudana: Martin Santos-en *Tiempo de silencio* hura eta berrogeizaro hark (ez naiz garizumaz[277] ari) utzi digun ondare ikaragarria. Gure arteko zenbaiti hezur-muinetaraino itsatsi zaion hori diot. (1972a:161).

Mitxelena, adiskide zuen nobelagilearen lan miretsiaren[278] aipamenaz baliatzen da, *gogoko ez* duenaren irudi. Ez da, noski, Martin Santosen lana arbuiatzen duena, *Tiempo de silencio*ko pleguen mamiak erakusten duen gizarte-aldartea, agin-nahi bortitz eta itsuaren –diktaduraren– mendekoa eta, jakintzari aurrera jotzea eragozten zion bide antzua baizik.

Garizuma ez den gerra osteko berrogei urteko isilaldiaren triskantzak bizirik lirauke oraindik eta, hori ikara sortzekoa da (*ikaragarria*) Mitxelenaren aburuz, batez ere, "gure arteko zenbaitek" bere-berea egina badute haren *ondarea*.

Ez du Mitxelenak nahi, 1933an Heidegger-ek (zein ere filosofo sonatua zen) nazien alde egin zituen adierazpenak zirela eta, izan zuen *erreur tragique*-k (*zerrikeria*k Mitxelenak zeharka dioenez), gaurgeroko (1972tik aurrerako) Euskal Herrian ispilua aurki lezan, areago euskaldun hauek, hura bezain *filosofo sonatu* ez badira.

Ez du ere, Euskal Herria munduko gertakariei eta hauen ondorioei gibela emanez bizitzerik nahi: *gerra hotz*ak berea egin zuen, hemen horren aditzerik ez duenik badagoen arren:

---

[277] Azterkizun dugun lan honek, gutxik bezala, "Salamancan has eta Gipuzkoako Errenterian buka, **Bazko bezperan**" (Beltz gurea), du amaiegun aitortua.

[278] Lan honi eta egileari iritziak "Luis Martin Santos" nobelagilea zendu ondoko ederlan hunkigarrian irakur daitezke.

Beronen irakur-saiotxoa egina dugu (1991).

> Eta oroit bitez, mesedez, gure artean agertu zaizkigun sorgin-ehiztari bipilak McCarthy zenaren gorputza (B.b.) [sic] aspaldi usteldu zela. (1972a:161).

EEBBetan sorgin-ehizean aritu zen McCarthy entzuna darama plamara Mitxelenak, gerra hotzaren ingurunean kokatu beharreko gertakizun hura aspaldi iragana dela eta, kanpoko gertakari negargarri hura Euskal Herrian berbizteak bururik ez duela adierazteko, ideologi ehiza -inoren gogo-apetak besterenoi indarrean ezartzea-, bidegabekeria eta kondairaz deus ez ikastearen erakusgarria besterik ez bailitzateke.

Amaitzeko, berriz ere, *ni* izenordaina luman darabil Mitxelenak azken pasarteari abiada eman diezaion:

> Ni, Orixe ez bezala, Galileo ondokoa naiz, eta beste gizaki eta gertakari askoren ondokoa gainera, eta ondokoari dagokionez nahi nuke jokatu. (1972a:161)[279].

Mitxelenak hemen, gizon-emakumeek erdietsirikoetarik eta Historiak dagoeneko irakatsietarik abiatu beharra aldarrikatzen du[280], baina ohartzen da, agidanean, bere iritzi hauek ez dutela sorterrikideengan nahi lukeen oihartzuna:

> Beharrak beharra eraginik, paraboletara narama premia gorriak, inguruko beste anitz bezala (1972a:161).

Hau dela eta, berriz ere irudi bila erlijio-iturri emankorrera joz, *parabola* bidez mintzatzen da[281]:

> Haritza gogoko dut nik, eta haritza gogoko bezanbat pinua higuin eta gorroto. Ordenuan agindurik utziko nuke: ez kaobarik, ezta ere inongo pinurik. Zuberoako leherrak. Erronkari-Zaraitzuetako ler eta llerko lerdenak, ederki. Euskal herrian gero eta usuago ikusten ditugun pinu beltzak. Barojaren llunbe ilunzaleak berak ere nahiko ez lituzkeenak, inola ere ez. (1972a:161).

---

[279]Pasarte hau bera jasoko da Orixeri eskainiko zaion kapituluan.

[280]Gogora "Asaba zaharren baratza"-n esanak.

[281]S. Matheu XIII, 10: "Orduan hurbilduric discipuluec erran cieçoten, Cergatic comparationez minço atzaye?, 11: "Eta harc ihardesten çuela erran ciecen, Ceren çuey eman baitzaiçue cerubtaco resumaco secretuén eçagutzea, baina haey etzaye eman", 12."Ecen norc-ere baitu, hari emanen çayó, eta hambatez guehiago ukanen du: baina norc-ere ezpaitu, hari duena-ere edequiren çayó"; 13: "Halacotz comparationez minço natzaye: ceren dacussatelaric ezpaitute ikusten, eta ençuten dutelaric ezpaitute ençuten, ez adiçen"; 14: "Hala complitzen da hetan Esaiasen prophetiá, ceinec baitio, Ençutez ençunen duçue, eta ez adituren: eta dacussaçuela ikussiren duçue eta etzaizquiote oharturen"; 15: "Ecen guicendua da populu honen bihotza, eta beharriéz gogorqui ençun ukan dué, eta beguiac entsi ukan dituzté: beguiez ikus, eta beharriéz ençun, eta bihotzaz adi ezteçaten, eta converti eztitecen, eta senda eztitzadan". (Leiçarraga 1571).

Aurrerapideei ezin muzin egina adierazia du, baina honen ondoan, herri honek zainak non dauzkan ahanzterik ez dago. Izan ere, arbola-motek (Ebanjelioetako parabola askotan landareak aipatzen diren bezala) sinboliza dezaketenaz ondoriozta daitekeena horixe da: *haritza, leherrak, ler eta llerko lerdenak* Euskal Herriko zuhaitzak eta Euskal Herriko kondairaren barrukoak diren ez bezalakoak dira azken aldian gero eta ugariago ikusten diren *pinu beltzak*.

Ez hil-kutxa dotoreetan erabili ohi den *kaoba*-zurik ez *pinu*rik nahi du Mitxelenak. Bestela esan, ez kanpoko teoria miresgarri askatzailerik -are gutxiago, teoria horien berritasuna aspaldiko pentsabideen (itun berriaren) isla desegokia badira-, ez berehalako etekina lortu asmoz aldi berean agortzaile daitekeenik, orain arte metatua zurgatu eta hutsal utziko duena baita.

Mitxelenak geroari atzokoaz atzendu gabe aurre egitea, baina on-makurretatik ikasia beti aurrean izanik du hemen berriz ere burubidea.

4.4. ONDOREAK

4.4.1 Kapitulu honetan ikertua orain artekoen haritik pittin bat saihesten bada ere –atarikoan esan bezala–, uste dugu beharrezkoa dela, Mitxelenaren asmoa eta egitamu horren mamitzea bere betean ulertuko badugu.

Izan ere, gogaide hautetsien on-makurretan arakatzen eta azalera eramaten saiatu den bezala, saiatu da berak begiz jo bidean debeku eta behaztopa gertatzen zaizkionen zuzen-okerrak jendarteratzen ere.

Euskara tresna baliagarria izan dadin, behar duen duintasuna eta erabil-hedadura erdiets dezan, hamaika korapilo askatu eta makina bat auziri irtenbidea eman beharko dio. Berez dituenei eranstera datoz, nolabait esan, kapitulu honetan ikerkizun harturiko "garbizale" gisa nabarrekoak eta horiei borrokatuko zaie Mitxelena.

4.4.2. Orain, kapituluan zehar han eta hemen barreiu ikusten joan dena laburbiltzea komeni bide da, punturik larrienetan bederen, Mitxelenak zein hizkuntz joerari eta zein gogobideri gaitz irizten dien batetik eta hauek hezurmamitzen dituzten jarrera-jokamoldeak euskararen gora- eta hedabidean oztopagarri zein begitantzen zaizkion, bestetik.

Segitu den sailka-modu orotarikoari eutsiz, estreinakoz, argitaralanei egotziak ekar daitezke.

* Argitaratzaileen eginkizuna hagitz ardurazkoa iruditzen zaiola Mitxelenari da jaso daitekeen lehen puntua; are eta ardurazkoago, jendarteratzen direnak aldi aspaldietako euskal idazleen idazlanak badira.

Ihardunbide honek alderdi bat baino gehiago ukitzen ditu: gizalegezko hutsezkoetatik hasi eta, euskararentzako molde bat finkatzeko baliagarri daitezkeen bitarterainokoak.

Urrezko legetzat dauka errenteriarrak, zeinahi autoreri eta honen sorkariari zor zaion begiramena; honen ondorio zuzena da, inork ez duela –orobat esan– esku, besterengandikakoetan gogoak eman bezala –zein ere asmorik zintzoenez egiten duen– aldakuntza-ukiturik egiteko.

"Hobe beharrez" eginiko aldaketok, mamizkoak nahiz azalezkoak uki ditzakete. Ez batean ez bestean zilegizta daiteke jokabide "hobetzailea", huskerietan izan ezik.

Hemen jaso diren kritikei erreparatuz, ikus daiteke hizkuntzazkoetan –hots, azalezkoetan–, argi eta nabari islatzen dela indarrean dagoen hizkuntz boladak, nolabait esan, aztura zabaldu berriak, bestela esan, jatorrizko testua baino geroagoko arauak (edo arau ustekoak) hartzen dituela neurgailu, bestearen lana, era horretara, egokitu eta "zuzentzeko".

Ingurumari honetan, azken ertzeraino eramandako garbinahiak testu berriz kaleratuari kalte handia dakarkio. Hau –esana doan legez–, are eta larriago bilakatzen da, euskararen hegaldatzean eta batasun-bidean eredugarri izan daitezkeen idazleen lanekin egitean, hauek itxuraldatzeak (gaiztotzeak) euskal literaturazko ikuspegia bera aldatzea baitakar, desgaraikoak eta destokikoak modu gaiztoz txertatuz.

Lege hau urratu dutenekiko kupidarik ez du Mitxelenak. Euskararen atzoa leialki jaso behar da, gerokoaren zimentu eta zuraje baita. Okerreko bide honen erakusgarririk agerikoentzat, 1956ean Txomin Agirreren *Garoaz* eginiko "irugarren agerraldi obetua" har daiteke.

* Urteotan plazara diren sorlanei dagokienez, berriz –Mitxelenak, besteren lanak neurtzeko irizpide hartua daukanaren arabera epaitzen dituelarik–, iruzkinok bide aproposa dira, besteri makur etsien bitartez, burua zerk darabilkion sumatzeko.

Hizkuntza eta ideiak auzipetzen ditu.

Mitxelenak garbi du euskarak bide berrietan barrena abiatu behar duela, hots, ezin muga dezakeela bere ibilbidea baserri-mendietara; biziko bada, kaletartzea noraezeko zaiola.

Honenbestez, abegi ona egingo die horretan saiatuei. Gehixeago esatera ausartuko ginateke: azal horrek beste mamirik gordeko balu, apika, hizkuntzazkoak ez lirateke bere begi zorrotzetarik hain aise iragaziko, berariazko ohar edo antzekorik gabe. Honen ordezkari, 1957ko Txillardegiren *Leturia-ren egunkari ezkutua* har daiteke.

Halaz ere, eta mamizkoetatik irtetzeke, erne ibili behar da direlako bide berriok hautestean; euskalduna, oinak non dituen, nondik heldu den ezin atzen daiteke, azken orduko berrikeria liluragarrien arriskuetan murgildu nahi ez badu, bederen. Arrisku horren lekuko nabaria, 1960ko Txillardegiren *Peru Leartza'ko* litzateke.

Beraz, euskara gaurkotu bai, garaian garaikoen mintzabidea baita, baina halako azpiko sare gabeko jauzi ikusgarririk egin gabe.

Aipatu berri ditugun mamizkoek, Mitxelena, euskara bide berrietarik abiarazi duten gazteengandik, aldi berean, hurbildu eta urruntzen dute, ikusi den bezala.

* Mamizkoak utzi eta, hizkuntzazkoei lotuz esan daiteke, ezin onar dezakeela Mitxelenak, euskaldunaren ohiko hizkeran, balizko iragazi garbitzaile batek zahia eta bihia bana ditzan, hau egiteak, euskaraz eta euskal literaturaz atzentzea eta sustrairik ez duen izaki bat hutsetik eraikitzea baitakar.

Ez du, beraz, bururik, iragazi horrek.

Alderdi hau astiroxeago ikusteko parada eskaintzen dute itzul-lanek, hauetan oro har mamizkoak ez baina, hizkera aldetikakoak baitira ebazgai.

Mitxelenaren kritikok, anitz puntu garrantzizko ukitzen dituzte, bai hizkuntz jarreren aldetik, orobat esan, bai beheraxeago jasoko diren itzul-lanarenetik, bereziki.

G. Barandiaranek 1956an kaleraturiko *Ilias'ena* lanean bildurik leudeke gaizki eginaren hainbat eta hainbat lekuko; guztiak, nagusiki, garbiusle oker adituaren ondorio. "Euzkeragintza" deizio-ordezkaripean jaso dira.

Honen ondoan, garbiberatasun horrek, itxura ñabarreko euskara-moldeak sorrarazi ditu. Hemen kokatu behar dira "saio-euskara" eta "bart arratseko euskara", hain zuzen ere, Olabideren Liburu Sainduko itzulpenak eta *Itunbek* Wast-en lanari eginak, hurrenez hurren, ordezkari izanik.

Kapituluan zehar erakusgarrien bitartez bilduriko hizkuntz jaidurok ondorio larriak dakarzkiote euskararen batasunari, finkapenari eta erabilerari; tradizioaz atzentzen dira bere burutikako sorrituritik etengabe edan eta, benetan den euskarari muzin eginez dabiltzanak. Hauek, ez dute orobateko jokamolderik hizkuntz hautaeran eta gainera, irakurlearen lana oztopatu besterik ez dute egiten.

Alderdiok, denok, baztertzeko dauzka Mitxelenak.

" Hizkuntz ereduaz – eredu-ezaz – gain, itzul-lhardun bera ere azterkizun hartu behar da, are azterkizunago, garai batean iraulpenek euskal liburuen ekoizpen orotarikoan hartzen duten tamaina aurrean izanik batez ere[282].

Laburbiltze honetan, honakoak iruditzen zaizkigu nabarmengarrienak:

- Itzul-gaiaren eta itzuliaren arteko bat etortzea.

Lege honi ez atxikitzeagatik kritikatzen ditu Mitxelenak. Halarik ere, nabaritzen da, euskararen kasuan, aringarririk badela, zenbait ariotan bederen, eredu urraturik ez dagoelako.

Halakorik badenean jipoitzen du bereziki euskal itzultzailea (*Camino de las llamas*ena gogora daiteke).

- Bihurturiko lanaren balizko hartzailea.

Itzultzaileak (idazleak, oro har) oso gogoan izan behar du zein hedaesparru duen begiz joa lana mamitzean.

Hau da, gaiaren arabera, lan hori barrenduko duen euskaldunaren hizkuntz ezaupidearen maila kontuan hartu eta, molde horren harian eman.

---

[282] Adierazgarri dateke, kapitulu honetan mirakizun harturiko Mitxelena egile ez duten lanei erreparatzea. Argitaraldiak eta euskara ikasteko bideak saihestuz, euskal sortanak hiru dira, binurlanak, bost.

Torrealdayren (1977:5575-583) zerrendari axaleko begiratu bat emanez, ikus daiteke, 1950-1960 hamar urtekoa hartuz, argitaralanak 202 izanik, 25 direla itzul-lanak. Oso kopuru handia ez dirudien arren, gogoan izan behar da, batazbesteko orotarikoan, 17 berrargitaipenak direla eta 8 bilduma-lanak, datuoi erantsi behar zaie, gainera, gramatikak, eskola-liburuak eta batez ere, erlijio-lanak direla nabarmenki gailen.

Sarasolaren (1975) azterlanean ere, mintzagai dugun aldiari hurbilenik lotzen zaion erakusgarrizat hartuak, hots, 1962-1963 epeak, antzeko egoera axaleratzen bide du:

"Koadroan ikusten dugunez garaiko produkzio originala 19 liburukoa da, produkzioa 26koa eta argitarazioa 42koa. Horrela, produkzio originalaren portzentaia argitarazioari buruz 42,2koa da. Beraz, 1962-1963 epean euskaraz burutzen den obra ez da argitaratzen denaren erdia ere. Euskal literatura memento xar baten aurrean aurkitzen da eta aurreko garaitan moldatu zenaren errentez bizi da gehien bat. Gainera berreditatzen dena batez ere liburu herrikoiak dira, hau da, literatura-mailarik apalena.

Bestalde, erlijio-liburuen produkzioan gertatzen den gorakada nabaria da: gerraaurrean erlijio-liburuen produkzioa totalaren %20 bazen, gerraondoko garai honetan 26,9koa da: ezaugarri guztiek euskal liburugintzaren atzerakada bat adierazten dute". (Sarasola 1975:45).

Jendarte zabalarentzat datekeen lanean, ez dute, beraz, tokirik bitxikeriek, itzultzaileari halako batean gogoratuek, bestela esanik, irakurbidea beharrik gabe oztopatzen duten oteez hornitzen dutenek.

4.4.3. Kapituluan zehar ikusi da Mitxelenak urteotako lanetan azaleratzen duen kezkabideak, euskara hegal berriez janzteak, baduela islarik besteren lanei eginiko iruzkin-kritiketan, nahiz bere baitarik ari denean.

Hegaleztatze neurtu honetan - honela esatea zilegi bada -, orain izterbegiko edo aurkezten zaizkionak, euskararekiko eta ideiekiko itsutasuna erakusten duten okerbideko "garbizaleak" dira, hitz bitan esateko, euskara (eta euskaldunen pentsamoldeak) "lohitzeari, zikintzeari" borrokatzen zaizkionak, jarrera honek, bizitzea egokitu zaion aldiari gibel emanaraztea eta galbidean behera erortzen uztea baitakarkio euskarari.

Hau da, erdararen beldur jakiara hautetsiriko hizkuntz jokamolde ihesle honek azken hondarrean agerian uzten duena, erdararen gisa bateko mendekotasuna da, euskararen garabiderako hagitz arriskutsua gertatzen dena gainera, atzeaz atzentzearekin batean etorkizuna ere kolokan jartzen baitu, zuraje-zutabeak ahultzearen poderioz.

4.4.4. Honainokoan paperera ekarri direnak, auzi baten oihartzunak baziren eta Mitxelena, garbizale itsuen kontra aritu bada ere, ezin koka daiteke errenteriarra beste muturreko jarreran, ezin esan daiteke, mordoilozale denik, bere lanetan esan-mamituek argi erakusten duten bezala[283].

Iritzi hau funtsatzeko eta erakusgarri soil moduan, azken urteetako mailegatze larriari eta honek ezinbestean dakartzan arriskuei berariaz eskainiriko lanei errepara dakieke, hala nola, 1983ko "Hitz mailebatuez" edo, 1985eko "Mailegu berrien idazkera".

Ez dira, haatik, Mitxelenaren arriskuazko lehen iritzi-agertzeak ez bakarrak. Lanen izenburuetan ez landatuagatik, mami-edukietan, aspaldisko lanetan bertan kausi daitezke, beste mota honetako mirabe izateazko mintzak[284] eta besteren mende izate honek noraino artegatzen duen.

Honela, bada, "garbinahiarekiko auzia" kitatzearekin bat, beste gisa bateko - ez, haatik, guztiz bestelako, esan eta esango den bezala - auziaren zantzuak sumatu ahal izango dira Mitxelenaren lanetan. Bego momentuz aipatu hutsean.

---

[283] Momentuz horrela utziko dugu kontua, kapitulu oso bat eskainiko baitiogu berariaz.

[284] Erakusgarri soiltzat, (1959b, 1959f, 1968d, 1979g, 1983e...) lanetan zuzenean nahiz iragaitzaz adierazlak ekar daitezke. Eta buruen-buruenik, Ibon Sarasolaren *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegi*ari eginiko aurkezpena (1984b).

I. ATALA

5. Kapitulua: NIKOLAS ORMAETXEA "ORIXE" (1888-1961)

5.1. ATARIKOA

Aurreko kapituluetan eginaren ildotik, oraingo honetan ere beste euskal idazle bat hartuko da azterkizun, Mitxelenak honezaz barreiu esanak nolabaiteko sistematizasaio batetik iragazi eta autore horren irudia osatu asmoz.

Orixe da kapituluan zehar autu hartuko dena, Orixez Mitxelenak alde eta kontra adieraziak, hobeki esan. Garbi gera bedi, beraz, estreinakoz, hemen ez dela Orixezko halako mirasaio berririk eskainiko; oina Mitxelenaren testuetan paraturik dago, ez Orixerenetan.

Bai ordea, Mitxelenaren hitzak nahiz iritzi-aburuak hobeto ulertzeko edo osatzeko –Orixeren beraren lanez gain– lagungarri izan diren beste ikertzaileen lanez baliatuko, crexar-ulziarrazko ikerlanek, 1965eko omenalditik hasi, Azurmendiren lan garrantzizkoekin (1976, 1977) jarraitu eta, gerora –Iztuetaren lan itzela txit da azpimarkatzekoa–, mendeurrenaren kariaz kaleratuek eta bestek, egundoko aurrerapidea ekarri baitiote Orixeren eta berak onduaren azterlanari, luze-laburrez eta sakontasunez[1].

Baina, zer dela eta Orixe begiz jo tesi honen kapitulu bat eskaintzeko?

Arrazoiak, beste kapituluetan ere adierazi bezala, Mitxelenaren beraren hitzetan ditu zainak. Mitxelenak Orixegan ikusten du –izendatuki aitortuz–, euskara noranahiko bilakatu eta jomuga horren karian, eginahalean trebatu nahi izan duen euskalduna:

> Orixek egin zuen lehenbizi harako amets hura, Lizardik adierazi bazuen ere gero hitzez:
>
> Baña nik, izkuntza larrekoa,
> nai aunat ere noranaikoa:
> Yakite-egoek igoa;
> soña zaar, berri gogoa;
> azal orizta, muin betirakoa. (1961e:118).

Honenbestez, Orixeren ametsak, Larramendik eta Lizardik amets zutenarekin elkarganatzen du orexarra. Hiruron amets-lanak, mataza bereko hariak lotzen ditu Mitxelenaren begietan; beraz, bat eginik ikusten duen hiruko horretako euskal idazle honi miratuko zaio orain, Mitxelenak harengan, eredu- eta imitagarri eta baztertzeko zeri irizten dion agerira eraman nahirik.

Mitxelena Orixezko bere aburuak papereratzeko bide bat baino gehiagoz baliatzen da, bestez egiteko legez: artikuluaren gai-ardatza Orixe bera edo bere lanen bat hartzetik –biderik zuzenena–, bestez ari dela Orixeren hitz bat aipatzeraino doan aukera-tarte aberatsaz, alegia.

---

[1] Akesolok (1987:18) esanak esan:
"Orixe-ren euskal-lanez esateko guztiak esanik daudela esan genezake: zer dugun aren alde, eta zer aren aurka".

Lehen bide horretakoak dira –gehientsuenetan izenburua bera[2] da horren erakusgarria–, honako hauek:

(1954a) "Orixe gure artean"; (1956h) "*Agustin Gurenaren Aitorkizunak*. Nikolas Ormaetxea "Orixe"-k euskeratua"; (1958h) "Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean"; (1961e) "Orixe-ren eriotzean"; (1965e) "Atarikoa" edo erdal (1961h) "In memoriam. Nicolás Ormechea (1888-1961)", urte bereko euskal lanaren ordaintzakoa.

Zenbait zehaztapen egin behar da, halere, aurrera baino lehen.

1959an (1959g) "Ohar gisa" izenpean jasoriko lerro batzuk, nahiz eztabaidagaia Olabideren itzulpena den, Orixeren esanei ihardesteko idazten ditu. Hau dela eta, lehen mota honetan bete-betean kabitzekoak, apika, ez diren arren –esan baita Orixe edo Orixeren lanak direla mintzagai–, Orixeron iritziak direnez tarteko, arestiko besteen artean koka daitezke.

Bestelakoa da 1958ko artikulua debekurik gabe lehen mota honetan sartzea oztopatzen duen arrazoia. Izenburuan, **Nikolas Ormaetxea** landatuagatik –eta hasiera-amaiak, bereziki, Orixeri eskaini–, egia ere da lanaren erdiko gorputza, Orixez ez baina, fonologia-fonetikez, azentuaz oro har, eta bestez diharduela Mitxelenak, Patxi Altuna eta Pello Salaburu Euskaltzaindian sartzean eginiko arrapostu-hitzaldietan jokatzen duen antzera.

Mintzagai diren arestiko lanok, izakera nabarrekoak dira. Horrela, hauetariko zaharrena (1954a), **gazeta-elkarrizketa** da; 1956koa aldiz (1956h), Orixek itzuliriko lan bati buruzko **kritika** (hizkuntz kritika, zehazkiago esanez); 1958koa (1958h) **hitzaldia**; 1961ekoak (1961e), (1961h), hil-ondokoak edo **nekrologikoak**; 1965ekoa (1965e), talde-lan baten **hitzaurrea**, eta 1959koa ere (1959g) hauen artean sartuz gero, eztabaida- edo polemika-kutsua duen **gazeta-lana**.

Orixeri eskainiriko azterketa luze edo berariazko ikerlan zabalik ezean, beraz, artikuluok hartu behar dira –zein bere moldean– birreraiki-lan honen oinarri eta abiapuntu.

Esan ere da, horregatik, Mitxelena ez dela Orixez mintzatzen soil-soilik hari zuzenean eskainitako lanetan; beste artikuluetan zehar ere –eta ez beti modu berean–, Orixe gizona, idazlea, euskalaria... lerro artean topa daiteke.

Bestetan ere aipatu eta aipatuko den Mitxelenaren jokamolde honi, ezinbestean arretaz begiratu beharko zaio, baldin eta Orixez ahalik eta ikuspegirik zabalena eta aberatsena osatuko bada, nolabait esan, "puzzle" bateko ataltxoek, berezko izaera duen beste unitate bat osatzen duten gisa[3].

---

[2] Gehienetan diogu eta ez guztietan, "Atarikoa" deritzanaren kasuan ez baita Orixeren ez bere lanen izenik egertzen, baina arrazoia nahiko bistakoa da, Orixeri eskainiriko omenaldiaren sarrera denez gero.

[3] Hauek dira, lehen aipatuez gain, gehientsu erabili ditugun Mitxelenaren euskal lanak:
1951c, "Euskal literaturaren etorkizuna"
1953b, "Arnaut Oihenart"
1955c, "C. J. Cela, *Historias de Venezuela. La Catira*"
1956f, "Homero [Barandiaran'dar Salbador aitak] *Ilias'ena (Iliada euzkeraz)*"
1956g, "X. Lizardi, *Biotz begietan*"
1959a, "Euskal itzak zein diren"
1959b, "*Itun zar eta berria*, Olabide'tar Erraimun, S.I.(1869-1942)"

Atariko honen ondoan jorratuko diren hurrengo puntuok, Mitxelenak han-hemen ematen dituen iritzi-aburuen bilduman oinarrituriko ordenamendu –ustez leiala eta egokia– gatzatu nahi lukete; hau da, Mitxelenaren Orixezko ikuspegi sistemara bildua.

5.2. Nikolas Ormaetxea: nortasuna eta gogobideak
5.3. Orixe eta euskara
5.4. Orixe eta Euskalaritza
  5.4.1. Hizkuntz ideiak
  5.4.2. Hizkuntz azterlanak
5.5. Orixe eta Literatura
  5.5.1. Literatur kritikagilea
  5.5.2. Aitzinsolasgilea
  5.5.3. Sortzailea
    5.5.3.1. Hitz lainoz
    5.5.3.2. Neurtitzez
  5.5.4. Itzultzailea
  5.5.5. Eraskina: Mitxelenaren lanetan aipatzen diren Orixeren lanak
5.6. Orixeren hizkera
5.7. Orixeren ekarria, eragina eta zoria
  5.7.1. Orixeren ekarria
  5.7.2. Orixeren eragina eta zoria

1960g, "Euskal-aldizkariak"
1960a, "Asaba zaarren baratza"
1961f, "Loramendi, *Olerki ta idatzi guziak*"
1962f, "*Beharki* Leizarragaren *Testamentu Berrian*"
1962i, "Aita Bitoriano Gandiaga, *Elorri*"
1963d, "Gaztelu, *Musika ixilla*. Fray Luis León eta Donibane Gurutzen olerkirik onenak, erderaz eta euskaraz"
1965f, "Aita Gasteluzarrek itz neurtuz egin zituen zenbait itzulpen"
1970c, "Pro domo"
1972a, "Azken ordukoak"
1972e, "Aditz Batuaz"
1975c, "Sei idazle plazara"
1977a, "Euskal hizkera eta euskal neurkera"
1978a, "Euskeraren bide luze bezain malkarrak"
1978c, "Arantzazutik Bergarara"
1979c, "Gabriel Aresti eta *Egan*"
1981a, "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak"
1981c, "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz"
1981d, "Patxi Altunari erantzunez"
1982a, "Mendibururen hizkeraz hitz bi"
1984b, "*Hauta-lanerako Euskal hiztegia*ren aurkezpena"
1985a, "Pello Salabururen Euskaltzaindian sartzea"
1985b, "Esaera zahar baten bigarren agerraldia"
1986a, "Liburu sorta zaharberritu baten atarian"
1986c, "Eratorbidea eta Deklinabidea"

Euskal lan hauen ondoan, ordea, oinarrizkotzat jo daitezkeen euskal literaturaren historia-laburpen erdarazkoak ez ezik (1958a, 1960b, 1987b), maizegi aipatzen ez den Mitxelenaren beste hau bereziki aipatu beharra dago: 1961h, "In memoriam. Nicolás Ormaechea (1888-1988)".

5.2. NIKOLAS ORMAETXEA: NORTASUNA ETA GOGOBIDEAK

5.2.1. Denbora-ardatzari helduz, euskal lanen barrutian Mitxelenak Orixe ahotan duen lehen aldia 1951ko "Euskal literaturaren etorkizuna" izenekoan da, Mitxelenak euskal letretan egiten duen estrenan, hain zuzen ere. Artikuluaren gaia euskal literatura izaki, 1951. urtean, ezin Orixe aipatzeke utzi duela, nahiko bistakoa da.

Lehen Mitxelenaren honetan, Orixeren lanezko berri zehatz oparorik ezean, nolabaiteko ikuspegi orotarikoa ematen du, Orixe eta euskal literaturaren arteko lotura batipat nabarmenduz.

Mitxelenak bertan adierazia mamitsua izanagatik (kapitulu honetan zehar erakutsiko den bezala), ez dio deus, hemen abiapuntu begiz jo denaren inguruan, hots, Nikolas Ormaetxea gizonaren gainean. Geroagoko, Orixe zendu ondoko, (1965e) lanean dioenean hartuko da hemen oin abia emateko:

> Gizon bezala, eta hauxe da noski lehenbizikoa, ezin hobea da Orixek utzi digun eredua. Egiazko gizon, bere buruarekin borrokan eta Jainkoaren bila, egiazko euskaldun eta euskaltzale, Euskalherriaren seme jator, ez hitzez eta oihuz, egunoroko lanaren lanez baizik[4]. (1965e:129).

Jaso berriaren arabera, badirudi errenteriarrari oso gertatzen zaiola garrantzizko, nolabait esan, Orixeren atzean dagoen Nikolas Ormaetxeari erreparatzea.

Pentsa daiteke, apika, orobateko gertakari bide dena, kasu honetan bereziki, adierazgarriagoa edo izan daitekeela; bestela esan, badutela ikuskizunik – atzeko oihal gisa edo– gizabanako legez, Orixeren nortasunak eta gogoan zerabiltzan aburu-apetek, honek mundura ekarriarekin.

Honenbestez Mitxelenaren hitzak harturik gidari, hemen ere, alderdi horrexeri begiratuko zaio hasteko eta, Nikolas Ormaetxea gizonari eutsiko.

5.2.2. Ibilbide honen abiapunturik aproposena, Mitxelenak Orixe etxera berriari egiten dion elkarrizketa izan daiteke[5], errenteriarrak eginiko galdera-motek eta Orixeren erantzunek

---

[4] Ez bide dator oker, Mitxelenak, erdaraz, Orixez egiten duen aurkezpenean "bidenabar" tartean sartzen duena hona ekartzea:

"El es acaso en varios aspectos el autor más importante de toda la literatura vasca y es también en cierto modo, en la coherencia y en las contradicciones de su personalidad, como un compendio del complejo carácter de un pueblo que no es tosco y simple más que para los ojos que no penetran más allá de la superficie". (1960b:148).

Orixegan ikusten ditu, nonbait, gorpuzturik, aurrerago mintzagai izango dugun euskal literatura ez ezik, baita euskaldunaren izaera ere.

[5] 1951-1954 epeko lanetan Orixe gizabanakoaz ez du Mitxelenak deus esaten. Orixe gizonari buruzkoak zuzenean, elkarrizketa honen ondokoetan irakurtzen ahal dira.

isla baitezakete, bestetan baino gardenago, lehenak bigarrenaz jaso eta osatzen duen iritzia.

Alabaina, ez da aipatu berria abiapuntuaren aukeran zeresana duen arrazoi bakarra. Mitxelenak berak, elkarrizketaren sarrera gisakoan, 1954 baino lehen, Orixe lanen bitartez besterik ez zuela ezagutzen berariaz aitortzen du.

Nikolas Ormaetxea gizona oraingo mintzagaia izaki, bi euskaldunok elkar ezagutzen duten abagunea jo daiteke, beraz, galdegilearen begietan besteak uzten duen hatza eta sorrarazten dion ikuspegiaren egokierarik aukerakoentzat.

Honela, bada, Mitxelenak Orixeren "tintazko-ezaguletzat" jotzen du bere burua, orexarrak mundura dituen mamitu soilen bitartez ezagutzen duten "urrutiko ikasleetarikotzat":

> Pozkarria benetan Orixeren etorrera, bai ahaztutzeke zeukaten aspaldiko adiskideentzat eta bai bere lanaz kanpora ezagutzen ez zutenentzat. Eta azkenetakoa naizenez gero, hauetaz mintza nadin bereziki. (1954a:51)

Zorigaiztoko gerrak ("gau ilunak" Mitxelenak bestetan esaten duen legez) eta honen ondoreek oztopatu dute, dudarik gabe, Mitxelenak eta Orixek elkar ezagutzea; gogoratu besterik ez dago bataren eta bestearen urte haietako kinka.

Orixe ez da garai horretako euskal letren barrutian edonor; badu itzala. Horren adierazgarritzat har daiteke, lanen bitartez bazik ezagutzen ez duen Mitxelenak, "Ormaetxea jauna" aurrean duenean, begiramen handiz Orixe aurkeztea eta aurkezpen horretan, "urrutiko adiskideek" beragan ikasiriko –eta aurreraxeago mintzagai hartuko diren– bi gauza maitagarrien kontu eman nahi izatea[6]

Bada, etorreraren poza eta urrutiko adiskidetasuna adierazi bezain sarri, hauen orpoz orpo, Mitxelenak bere burua –"urrutiko adiskideek" bezala–, Orixeren ikasletzat jotzen du, "ikasle koxkor eta kaxkarren" artekotzat, alegia[7].

Elkarren arteko solas laburrean, irakasle duen horri Mitxelenak lau galdera –hobeto esan, erantzuna jasoko duten lau galdera– besterik ezin egin dizkio. Lauren gaia Orixeren lanak eta euskal irakurlegoaren ingurukoak dira.

Mitxelenaren itaunari erantzunez, Orixeren ahotik jakin daiteke, *Aitorkizunak* eta

---

[6]Aurrerago zehaztuko dira banan-banan bi ikasgai begikoon gorabeherak.

[7]Irakasle izate hori bestetan ere aitortuko du Mitxelenak.
Adigarri gisa, "Orixeren heriotzean" lanekoa:
"Guztiok –ezjakinean edo jakinaren gainean– irakasle genuena galdu dugu guk eta zeukan haberik sendoenetariko bat galdu du euskarak." (1961e:117).
edo 1965eko "Atarikoa" ekar daitezke:
"Guztion aitormenez irabazia zuen irakasletza eta gidaritza..." (1965e:127).
Nolanahi ere den, mintzatuko gara honezaz Orixeren eraginaz eta zoriaz artzean.

Salmoak oraindik argitara gabe daudela, argitaratzaileen eskuetan egoki bigarrena aurki kaleratzea[8].

Orixe kezkatzen dute, beraz, bere lanen argitaratze-hedapenek eta horrixe helduko dio, hain zuzen, Mitxelenak, Orixeren lanen irakurleez eta Orixek berak liburuan aipatzen duen irakurle-urritasunaz ("berrehun edo hirurehun") galdetzeko[9].

Horretara bainoo lehen, halaz ere, Mitxelenak bere kabuzko pasarte bat tartekatzen du eta, erdi esanez edo ("Salmoen itzulketa, berea izanik ere, ez omen du begi txarrez ikusten Orixek"), Ormaetxearen beste ezaugarri bat ez ote den iragaitzaz bada ere , adierazten ari susma daiteke: Orixe, bere lanez harro agertzen da[10].

Elkarrizketaren hariari berriz heltzen dionean, euskal irakurleen auzia darama Mitxelenak paperera, esan bezala, Orixek jakinaren gainean, berrehun edo hirurehun lagun soil horientzat idazten duela berariaz gogoraziz.

Orixek bi eratako arrazoiak ematen ditu urritasunaren argibide: arrazoi praktiko hutsa bata, liburuen garestia, eta euskaldunen azturekin ikuskizuna duena bigarrena: "gure herria" ez da irakurlea.

Galdera egiteko moduagatik eta jasoriko erantzunagatik, Orixeren nortasunaren izpiren bat edo beste ere paperera iragazten dela pentsa daiteke.

Batetik, gutxik irakurriko dutela jakinik ere, berean jarraitzen du "elementuon aurka"

---

[8]Lehena 1956an kalera zen, bigarrenak gehixeago itxoin behar izan zuen argia ikus zezan. 1968an plazara zuten Lazkaoko benedikatarrek, Donostian.

[9]Hona Orixeren era bereko beste aipamen hau:

"Ern-emiarentzat ez-baña gure 350 irakurle orientzat". (Orixe 1953b:81).

Eta hona, bestetik, Mitxelenarena:

"[Mogel-en *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean eracesteac*, 1800 liburuaz ari delarik] Estamos muy lejos aquí de la riqueza y abundancia de *Peru Abarca*, de su voluntad de estilo, de la búsqueda deliberada de una variedad de registros, al servicio de la cual se recurre hasta a dialectos diferentes. Este sí es libro que va dirigido a un público muy otro, menos amplio por necesidad (a saber si Moguel pensaba también en los 300 con que Orixe creía defender nuestras Termópilas) y formado en su mayor parte, es de suponer, por eclesiásticos". (1978i, *SHLV*:933).

[10]"Norbait bere adiskide min bati barru-barrutik mintzatzen zaionean esan ohi dira egiarik handienak. Orixek, haur batek duen inozentziaren handiz, bere barne-sentimendua husten dio Ibar adiskideari, Donibane Lohitzunetik 1949ko martxoaren 11n egindako gutunean: "Presaka egiñerazi didate (amalau ilabete eskasetan), baña ez dut lêr egin. Oso ondo omen (venia tantorum virorum lapurdidanorum). Iru ilabetean inprimatuko omen. Andik berela etxeko txokora. Ta Olentzeroz elkarrikusten dugun, Misal'a **formidable, phantastique** omen, emengotar zenbaiten ertzian ere. Latsaga Jaun Bikarioak Onaindia Jaunari, **Ormaetxea est un phénomène** esan omen zion. Himno guziak neurri berean, eta abar. Hazpa-ren'go misionesta bat ere ba dut **grand admirateur**. Astiroago, ta zure lan luze eder ori bezalakoekin, obeki egin nezaken; bainan oraingoz, dagon bezala bearko".

Egilea, bederen, bere gaitzetan ezin kabiturik bezala geratu zen Misalaren egitekoak hamalau hilabete eskasetan despatxatu ondoren. Handik eta hemendik, Iparraldean beran, bera "un phénomène" eta Misala "formidable, phantastique" dela esaka ari zaizkiola, harritzekoa ere ez da zoramenean lokartua bezala sentitzea eta egolatria zer izan daitekeen enteratu ere ez egitea. Bere baitan hain bildurik zegoen batentzat, normala". (Izkueta 1991a:912).

(hau dela eta Unamunorekin berdinduko du aurrerago Mitxelenak); eta bestetik, nolabaiteko "elitismoa", hau da, "deitu gutxientzako" lanak egitea ez du gogo gaiztoz hartzen Orixek. Zeinahi kasutan, bere gisa dabil, baina ideia honi berriz helduko zaionez gero, bego momentuz aipatu soilean.

Orixeren erantzunak merezi du pittin batez gelditzea. Ez bide du bereizten, bere liburuen zoria eta euskal liburuena orobat hartuz; ez omen da euskaraz irakurtzen eta etsia dago, gaitz honen harra ez dagoela irakurleari eskaintzen zaion lanean, irakurleagan beragan baizik, hots, idazleagandik at.

Mitxelenak hurrengo galderaren bitartez, Orixeren iritzi hori zehaztu gogo du, besteren (ez baitu Mitxelenak berea denik esaten) ahotan jarriz irakurle-urritasun horren balizko karia: herriaren izateran ez baina, lanen irakurtzea oztopatzen dutenetan egon daiteke[11]:

> Euskal liburuak zailak arkitzen [sic] dituzte askok. Norena ote da gehienbat errua, egileena edo irakurleena? (1954a:52).

Oso litekeena da, Mitxelenak zailtasuna besterengandik hartu eta bere ahotik kanporatzen duen horretan, garai jahin bateko euskal liburu-mota bat izatea gogoan.

Eta hori ez eze, Orixeren aurreko hitzetatik atera zitekeen ideia –hau da, irakurlea, lanaren balizko hartzailea, litzatekeela errudun– argitu ere nahi duela ikus daiteke, erruak banatzerakoan Orixek aipatu ez duen beste bigarren elementu bat sartzen baitu tartean, idazlea, igorlea, alegia.

Orixeren erantzunak ("Biena") ez ditu zalantzak gehiegi uxatzen, biena dela esan arren ez baitio zertan bata, noraino bestea, etab. Erantzuna, motz eta hotz samarra begitantzen da.

Mitxelenak ez dio, haatik, azken esana argi dezan eskatzen, baina egiten dion hurrengo (laugarren) galderan, Orixeren hitzen atzean susma daitekeen balizko iritzia (irakurleak errudun behar bezain ikasiak ez direlako, alegia) onartu bezala edo egiten du, gaia urrutirago eramateko.

---

[11] Euskal irakurlearen auzi honek zain aspaldikoak ditu (Larramendiz oroitu besterik ez dago), baina beharbada, gerraurreko berbizkunde giro hartan, bestetan baino larriago eta kezkagarriago agertzen da:

"Hona hemen azkenik, Atzoien «balantze» hari erantzunez, Gurbindo gotizena erabiltzen zuen idazle batek argitara zuen «Los males del idioma» deritzan artikulua, bertan agertuko da, ispilu batean bezala, Atzoien saminaren barrenean gordetzen den frakasoaren arrazoietako bat.

«Si pues ni por falta de interés (calidad) por parte de los autores, ni por los costos de su adquisición cabe explicar el retraimiento de los lectores euskaldunes, ¿cómo no ha de preocupar el tan corto número de lectores de las obras euskéricas?

¿Es acaso que no interesan los temas de estos libros, por ejemplo?

No sostendremos que el contenido de algunos de ellos, por ejemplo «Itz Lauz» y «Umezurtz olerkiak» sean de franco sabor popular, pero de todas formas entre los estudioso renacentistas ¿no cabe arbitrar arriba de 300 compradores? Esto revelaría un índice cultural pobrísimo. ¿Dónde están esas élites vascas que sacamos a relucir cuando se trae a mientes la potencialidad de nuestro pueblo?»". (Otaegi 1983a:25).

Otaegik berak, 1992ko tesian, (Otaegi 1992:82) argitzen du "Gurbindo" izengoitiaren atzean dagoen lagunaren izena: J. Agerre.

Halako egoeraren aurrean, irtenbide-eske agertzen zaio Mitxelena Orixeri ("zein izango litzateke erakusteko eta zaletzeko biderik erosoena?"), egileen edo "ikasiagoen" arduraz galde eginez. Ikasi edo gogolandu direnez gero, hauen esku bide dago besteari, ezjakinari, irakastea eta ezjakinetik irteten laguntzea.

Orixeren erantzuna adierazgarria da. Berriz ere, hotz eta motz mintzatzen da[12]:

> Gauza urragarri bat idaztea v.g. "Coprógenas" antzekoa. (1954a:52)

Orixek, gisa bereziko liburu hori aipatuz[13] ematen duen ihardespenak, ez du literaturgileen betekizunaz, egile-mozu-irakurleez edo barruti bereko abar luze eta beharrezkoez deus esaten, baina bere motzean, argi uzten duela dirudi, nola hartzen dituen orduko euskal irakurleak: irakurlanean zaletzeko bide bakarra "gauza urragarriak" idaztea da, ez nolabaiteko maila batekoak.

Euskal irakurleaz duen iritzi hau ez bide dator bat Mitxelenak duenarekin, ez dirudi eta Mitxelenak literaturtasun apurrik ere ez duten eta oso zalantzazko gustoko lanak ikusten dituenik euskal irakurzaletasuna biztu eta areagotzeko:

> (Bide honetatik ez ote da inor abiatu? Jakinekoa litzateke kiratsak lore-usaiak baino irakurle gehiago bildu ote duen). (1954a:52)

Mitxelenak hemen plazaratzen duen galderari, halako erretoriko-kutsua dario; hau da, euskaraz maila lizunekorik ere egin dela eta eginagatik ez duela irakurle-koourua jaso.

Gainera, oso ezpaikoa bide da, lan txarrek onek baino arrakasta handiagoa izan ohi dutela. Mitxelenak "Jakitekotzat" daukana, jakina ere baduela pentsa daiteke, hots, "kiratsak lore-usaiak baino irakurle gehiago" ez dituela bildu.

Ez litzateke beraz, Mitxelenaren aburuz, Orixek proposaturiko bidea zuzenena ez egokiena irakurzaletasuna sorrarazteko.

Iritzien arteko adostasun-ez honek eman al dezake bide arestitxoan zintzilik utziriko

---

[12] Elkarrizketa ez zuela oso gogo onez hartu genuen susmoa bareztatzen du ondokoak.

"Nos costó lo indecible hacerle la entrevista: creía que todo el fascismo internacional estaba detrás de él". (Ibarzabal 1977:158).

Arestikoari beste hauek erantsiz gero, argi daiteke, apika, Orixek erantzuten agertzen duen "zuhurrena".

"Esan dezagun, zirikatzen artu gareia artortu dugunez gero: ez dugula eztabaida gorroto". (1954a:52).

"Ez da arritzekoa, orregatik, zirikatu ta oldartzen zutenen kontra asarrekoi ta latz, otz eta motz agertzen bazan". (Labayen 1965:17).

[13] Oroi *Coprógenas* zuela izenburu jesulagun izenik gabeko batek joan den mendean argitara emandako gaztel lan batek. Garaiko politikoez (Castelarrez eta bestez) trufatzeaz gain, liburuaren ardatz nagusiak, gauza "eskatologikoen" inguruan dihardu (txiste horistak...).

"elitismoazkoa" borobiltzeko? Hau da, Orixek irakurleaz duen iritzian, urruntasuna, "ikasien" eta "herri ezjakinaren" arteko osina nabari da: ezjakinari zalantzazko mailako gauza samurrak eman behar zaizkio, maila onekoak aditu gutxi batzuentzat gordez[14].

Ildo honetatik, elkarrizketan ikusi da Orixek ez duela ukatzen euskal lanak zailak direnik, baina zailtasun hori noraino ez ote zaion, apika, pozkarri ere ikusi beharko litzateke, Mitxelenaren galderari ez baitio hori ukatuz erantzuten. Honen gisako gogobidea darabilkiola ondoriozta al daiteke? Mailaren jomuga hor dago eta, bertara, gutxi batzuk iristen dira, horiek merezi dute "lore usaina", besteek *Coprógenas*ekin aski lukete.

Zeinahi kasutan, aipagarria da Orixeren erantzunean ez dela hizkuntzaren eta edukiaren aldetikako bereizkuntzarik egiten; hau da, ez dela bereizten idazlanaren mamiak ohitu gabeko edo ikasketa apaleko irakurleari berez bezala sor diezazkiokeen bistako oztoparriak eta, mamia mami, hizkuntzak berak (edo idazlearen hizkera-idaztankera jakinek) sortuak.

Bereizkuntza honek, ordea, oso aurrean edukitzekoa dirudi, eta Mitxelenari ere guztiz funtsezko iruditzen zaiola esan daiteke, beherago adieraziko diren zenbait liskar-puntuk erakutsiko duten bezala.

Adierazgarriak dira, bestalde, Mitxelenak aipatu nahi izan dituen eginiko galdera erantzunik gabeak eta Orixeren isiltasuna:

> Galdera gehiago ere egin dizkiogu. Ea, esate baterako, batasun-bila, eguzki edo etzin-aldera, zaharretara edo berrietara jo behar dugun; ea XVIIgn. mendeko hizkuntza berpizteari daitekeen gauza ahal derizkion, eta abar. (1954a:52).

---

[14] Itxura guztiz, Orixek ez zuen irakurle-mota bakar bat gogoan lanak gaitzatzean, bere lanen izaera nabarrak erakusten du nabarrtua zela auzi honezaz:

"«Lo popular, lo popular» me está zumbando en los oídos. ¿Y qué es lo popular? ¿Quién es el pueblo? No es tan fácil la respuesta. El mero pueblo lector no existe. El que lee vasco en nuestro País peninsular es Sacerdote, religioso, seglar de alguna ilustración; pero todos ellos forman un tanto por ciento muy escaso de nuestra población. El resto, no lee nada. De manera que cientos de escritores nuestros que escriben (muy poco claro está) en estilo que ellos creen popular, no serían entendidos por ese resto de pueblo. El pueblo más o menos ilustrado, ese pueblo limitado que he referido, es precisamente el pueblo que desearía algo más que coplas y cuentos, si se los dieran, y a ese hay que atender". (Orixe 1951a:19).

"Erria, erria! Erri nekazariak ez du batere irakurtzen, (eunetatik batek?), besteia ipar-Amerikan, esaterako idazleek miloika aleak atera bearko lukete. Erri irakurleak bi dauzkagu gaur: matxinada aurrekoa ta ondorekoa. Nik erri nekazariarentzat poema ta Santa Kruz apaiza ditut egiñak. Beste liburuak erri irakurlearentzat, lengoarentzat; orain irugarren irakurle mota etorri zaigu, ark aiña ez dakiña ta eskatzen ez duna.

Atare, oraingo gaztediaren berotasuna ikusirik, esan liteke gure lengo erri ikasiaren einera igoko dala. Urrengo nere liburua guzientzat izango da, Jainkoak onez, baiña ez uste izan nik atzera egingo dudanik. Gelago eskatzen digutenei gelago eman bear diegu". (Orixe 1957:93).

"Orixek gutxienik bi euskara mota bereizten eta erabiltzen zituela, beste hainbeste "herri" motari zuzenean datxezkionak: ez ikasia, batetik, "xumea" edo "erri-erria", irakurtzeko ohitura handirik ez duena; herri ikasia edo landua, bestetik, "yakinkizunetan" eta irakurketan trebatuak direnen gutxiengoa. Lehenbiziko multzoari dihoakiona euskara mordoilloa da, edo, hobeki esan, ahalik mordoilloena, soil landugabe eta errazegi ere ez dena, Leizarraga edo Kirikiñok -Orixek berak aipatzen dituen izenak dira- erabiltzen zutena. Bigarren multzo gotituago horrentzat egin behar dena berriz, euskara garbia da, eta, garbi izateaz gainera, Orixek gogokoen zuen estiloan, dotorea eta ederra, baina ez inolaz ere "garbi amorratua"". (Segurola 1987:29).

Itzuliko gara puntu honetara.

Eztabaida puri-purian zeuden gaiak izaki, batasun-eredu baten bila zebiltzala, Orixek ez du erantzunik eman nahi izan, nahiz artikulu eta abarrek –eta bere lanetan darabilen euskarak–, arazo honek kezkatzen duela azaleratzen duten.

5.2.3. Orixek gorde duen isiltzeko eskubidea, Mitxelenak zuhurtziaren ondorio dela dio. Badirudi, beraz, gai hauei ez erantzutea "gizon zuhurrari" dagokiola esanez, nahiko egoera istilutsu eta korapilatsuaren oihartzuna pleguetara eraman gogo duela Mitxelenak.

Esan berriagatik eta lehen emandako erantzun laburrengatik, Orixe gizon zuhur eta isila dela ondoriozta zitekeen, baina berandu baino lehen ustearen alderdi ustela azalean jarriko du Mitxelenak:

> Esan dezagun, zirikatzen aritu garela aitortu dugunez gero, ez dugula eztabaida gorroto. Pakeak ere ederrago dirudi burrukaldi gogor baten ondoren. Lege zaharreko ohitura dugu hori euskaldunok eta ez ziren egiteko horretan makalak izan Larramendi, Azkue, Urkixo eta beste hainbeste eta hainbeste. Ez da makala ere, dakigunez, poesia, gramatika edo gaurko kultura dela. Ormaetxea jauna (1954a:52).

Hementxe topa daiteke, beraz, Ormaetxearen eta beste zenbait euskaldunen berezko ezaugarria omen dena: eztabaidazaletasuna alegia, Larramendi, Azkue, Urkixo –eta Mitxelena bera– elkarretaratzen dituena, hain zuzen ere.

Honenbestez, poesian, gramatikan, kulturan eta bestetan zer esana baduen Orixe gidariak, Orixe irakasleak, Mitxelenaren beste galderek agertzen duten kezketan argirik eman nahi ez izanean, zuhurtasun soila ala, ikusiko den bakarti ibiltzeko isuna den isilaldiaren eragilea galde ere daiteke.

Elkarrizketa honetan adierazlek, beraz, euskal literaturak bizi zuen auziaren zantzuak: euskara idatziaren eredua, liburuen zabalpen xumea... agertzen dituzte, baina aldi berean –nahiz bidenabar, zeharka izan–, errenteriarraren eta maisu etsiaren arteko erabateko adostasun-eza ere, erdi ikus daiteke; bestela esan, begiramena bai baina mireste itsua ez dion mintzak[15].

Orixe gizonaren aurkezpen gisa erabili berri dugun artikuluaren mugetatik atereaz, Mitxelenaren Orixeri buruzko iritziak gordetzen dituzten aipamenen ildoan, 1961eko "Orixeren heriotzean" nekrologikoa eta Orixeren gorazarrez 1965ean gatzaturiko lanaren "Atarikoa"-n esanak, Mitxelenak Orixe gizonaz pentsatzen dituenen bildumarik aberatsentzat jo daitezke.

---

15. "Gauza bat da norbait miresten, eta beste gauza bat onartzea. Askotan gehien miresten direnak dira gehien baztertzen direnak. Bi kontzeptu hauek, mirespena eta onarpena, alegia, ez doaz gizarte-harremanetan derrigorrez parean, eta bai sarriagotan kontrakarrean". (Iztueta 1991a:720).

Mitxelenak, horietariko lehen lanean[16], Ormaetxearen bizitzaren mugen artekoaren berri ematea besteri uzten badio ere[17], Orixeren lanetan errainua duen gogo- eta bizibideazko zertzelada, iragaitzaz bada ere, ematen du.

Jesusen Konpainiatik erauzi zuten Orixe eta, arrazoi eragilea ez zen izan gerora ere erakutsi zuen Jainkoaganako maitasunari uko egitea:

> Mundura zenean berriz, eta **ez bere gogoz**[18], bizirik zeukan jainkoazko gose-egarria. (1961e:118). (Beltz. gurea).

Orixeren bizitzaren berri zehatzak ematetik saihestu eta, Mitxelenak, berarinz begiz jotzen duen bidea, orexarrak kaleraturikoen bilaketako irudia osatzea da:

> Gizaki baten irudia utzi digu, halarik ere[19], nolzpaiteko "ilunzaleen" gisa argiz eta ilunbez oratua: bere buruarena. (1961e:122).

Orixek utzi bere buruaren irudia Mitxelenari nola begitantzen zaion hitz gutxitan laburbiltzea zilegi bada, barne-borroka, barne-etsaitasunak ezinbestean aipatu beharrak dira, honen ondorio aurkezten baititu Mitxelenak han eta hemen Nikolas Ormaetxearen laner ezaugarriak:

> Harro eta apal, eramankor eta suminbera, herrikoi eta landu, ederzale eta gramatikalari..., zenbat eta zenbat horrelako etsaitasun ez zeramatzan barruan, guztiok bezala! (1961e:122).

Iturburu hori dute Orixeren lan-hizkerek. Honela, Orixe, "herrikoi eta landu" agertzen da bere lanetan, eta –ondore gaitzak dituena– "ederzale eta gramatikalari".

Izan ere, Mitxelenak azaldu ez baina aipatu besterik egiten ez duen "azkenaldian erabili eta erabili arazi nahi izan zuen euskara moldea" berariaz jorratuko ez duela esanagatik ("Ez naiz laburzki baizik mintzatuko"), barne-etsaitasun horietako baten fruitu bailitzan aurkezten du, aipu jaso berrian ere, kontrakarrean paraturiko "ederzalea eta gramatikalaria" gizabanako

---

[16](1961e).

[17]"Horien berri ederki baino ederkiago eman baitu *Aranzazu*-n (XLI, 268-269 or) adiskide min izan zuen Antonio M. Labayenek". (1961e:117).

[18]"(si no entró en la Compañía de Jesús no fue, como es sabido, por falta de vocación)". (1961h:431).

Jesulagunen erabaki hartan nork izan zuen erantzunkizuna eta zein izan ziren itxurazko eta benetako arrazoiak, Orixeren kexuak jasotzen dituzten gutunak barne, ederki asko plazara ditu Paulo Iztuetak (1988, 1991a). Auzi bera jo zuen begiz Altunak (1989a) Orixeri Utzin eskaini zitzaion omenaldirako.

[19]"Halarik ere" hau, *Euskaldunak* lanean Mitxelenak benetako gizakirik ez topatzeari zor zaio.

bakarrarengan biltzearen ondoretzat, alegia:

> Ez da gehienetan zorionekoa izaten euskal idazle eta euskalariaren arteko ezkontza, bata bestearen kaltean ari baitira beti. Eta Orixe, onerako edo galtzerako euskalari trebea genuen eta idazle handia. Biak pertsona bakar baten barrunbean kokatzen badira, ez dago ez bakerik ez osasunik gizon asko ero-etxera eraman dituen bide batean baizik: "gogo erdibiturik" bizi beharko du horrelako ezbeharra soinean daramanak, aldizka euskalariaren ahoz mintzatuaz, aldizka idazleari emanaz hitza. Nork bere sailean nagusi behar du izan, eta bestearenean mirabe. (1961e:120).

"Gogo erdibiturik bizitzea"[20], bada, inoren osasunerako galgarri izaki, Orixegan eta honek mamiturikoetan utziko du hatzik aski.

Mitxelenaren azken hitzetan, nolabaiteko aukera egin beharra ez ote den adierazten ari gogoeman daiteke. Hau da, Mitxelenak ez dioenari gisa honetako adimodua har dakioke. Orixek, idazle eta euskalari izatearen artean bat hautetsi beharrean bestela jokatu duenez gero, lanetan nabariko dira lan-esparruak ez bereiztearen ondoro kaltegarriak.

Itxura guztiz, Mitxelenak emango ziokeen gaztigua, gramatikagintzako lanez arzendu eta edergintzan bere kemenak xahutzea litzateke. Geroagoko lan bateko (1965e) harako "Orixe gramatikalaria da gutxien asetzen nauena" adierazpenak - mintzagai hartuko dugunak- uste hau indartuko luke, bederen[21].

Halarik ere, bereizte-ezak ekarriek ez daramate Mitxelena Orixe euskalariaren lanak osotoro eta erabat arbuiatzera, honako aringarria eransten baitie arestiko hitzei:

> Eginbide erraza ez dela badakit eta bestela jokatzetik datozen nahasketak barkakizun irudituen zaizkit, osasungarri ez diren arren. (1965e:120).

---

[20] Eskizofreniaren izengoiti xamurra?

[21] Bestelako arrazoiek bultzaturik ere, aholku berbera eman zion, Orixeren garaiko euskal literaturan halako gidaritza eta hatza utzi duen Estefania jesulagun kritikariak, iztuetak (1991a:654) jasotzen duenez:

"J. M. Estefania kritikari ikasiarentzat, Orixe erabateko garantia da euskal letretan, berme frogatua jadanik eginak dauzkan lanengatik. Eusko Pizkundearen goraldian, bera da greziar literato handien estilora diharduen artistarik handienetako bat. Horregatik, euskal gramatika eta hiztegia nahiz euskal literatura klasikoa sakoniki ezagutzen dituelako eta, aldi berean, idazle trebea delako, Aita Estefaniak uste du Orixe dela Eusko Pizkundeak behar duen gidaririk seguruena. Hori esanda -ez da gutxi esatea-, Orixeren itzulpenari erabateko onespena ematen dio; halakoa, ezen, azkenean, gramatika-kontuak utzi eta, osoki literaturari ekitera aholkatzen bat du: "... consideramos esta traducción de gran mérito literario y útil para cuantos quieran profundizar en el estudio del vascuence. Tanto que creemos un deber nuestro aconsejar al Sr. Ormaechea que aplique todo su tiempo y todo su talento a producir literatura artística vasca y no los quiera malgastar en discusiones gramaticales, con la que a pesar de su gran competencia indiscutible, nunca podrá enriquecer tanto al vascuence como con aquélla, en la que él puede tanto y en la que apenas si se encuentran algunos pocos que puedan tanto como él". Orixe ondoko urteetan (1929tik aurrera, alegia), agian Aita Estefaniaren aholkuari men eginez, literaturagintzari lotzen zaio batipat. Lumaren artista izatea erabakitzen du".

5.2.4. Orixeren izakeraren eta pentsamoldearen ondoriotzat jo daitekeen bestelakoren berri ere ematen du Mitxelenak:

> Nori berea zor zaionez gero, ahortu behar da, beraz, ez zutela indartsuek gehiegi belduriztzen eta nahiago zuela gehienen kontra mintzatu, alde baino. Zaharzale agertu zitzaigun giroa berrizale zenean eta berrizale beste aldekoak gailenduxe direnean[22]. (1961e:122).

Mitxelenak ez du hemen zehazten, "berrizale" eta "zaharzale" deiziopean, literaturazkoak, hizkuntzazkoak ala bietakoak dituen gogoan baieztapen hori egiten duenean. Nolanahi dela ere, Orixeren izakerari dihoakion aldetik, "gehienen kontra mintzatu" zela azpimarkatu behar da. Joera nagusien aurka joan nahi izate horrek, bilakatuko du, hain zuzen –euskara–moldeari zehazki dagokionez–, berrizaleak nagusi zirenean zaharzale, eta piskanaka haizeak bestera jo zuenean, berrizale, aurrerago zehaztuko den bezala.

Orixeren euskarari bere tartea eskainiko zaion arren, ez bide dator destokiturik, Orixeren beraren hitzak hona aldatzea –Mitxelenak dioena –hizkuntzaren inguruko auziari uztartuz–, Orixeren beraren aitorraz egiaztatzeko:

> [Gizon ikasi horiek, *kultura* hitza darabiltenek, alegia] bide ortatik ez dute ezer aterako. Baizik ere... gu len baiño garbizaleago egitea. Erri erriarentzat ez-baiña gure 350 irakurle olentzat, onez aurrera erabiliko ditut Eusko Gaztedi'koen itzak ere. (Orixe 1953b:81).

Edo *Yakin*eko beste hauek:

> Bi jardunbide oriek, bi lege auen eredu dira: bata "alegiñik gutxienekoa" (bi gizonen izenak dauzkat buruan)[23], eta "alegiñik aundienekoa", (Alta Urrutia, esaterako). Aukeran ni onen alderago, onengandik geiago ikasten baitut beste biengandik baiño. (Orixe 1957:90).

Barne-etsaitasunen ildo berean kokatu behar bide da "mistiko ixila" eta "polemista bortitza" Mitxelenak aurkez aurk, baina elkarrekin, paratzea.

1954eko elkarrizketaren bukaera aldean esanean, berriz ere nabarmentzen du Mitxelenak Ormaetxearen izakerari datxekan ezaugarria, eztabaidazaletasuna, alegia.

Alderdi honi lerro ugari eskaintzen dizkio errenteriar hizkuntzalariak, orain, "lege zaharreko euskaldunekin" ez baina, Ormaetxeak oso begiko ez bide zuen Unamunorekin

---

[22] Len, Bilbo'n bizi izan zanean, ango garbi-zaleen aurka joka zuan bizi; eta orain, zenbait idazle gazteen irtziak euskera mordoilora jo dutenean, garbi-zale alek obetzat jo ditu, gaurko zenbait mordoillo-zale baiño. Ori zan "Orixe": mokoka asteko beti gertu". (Etxaniz 1965:33).

[23] Uste dugu Villasante eta Krutwig direla, *Gernika*ko artikuluan irakurrirkoen erabera.

parekatuz[24]:

> Mistiko ixil hura bera genuen mila bider, hau eta bestea dela, eztabaida minetan oihuka zebilen polemista bortitza. "Contra esto y aquello", esan zezakeen Unamunok bezala eta ez dabil Unamunogandik dirudien bezain urruti[25]. (1961e:122).

> Bestotan esan dut (*Egan* 1961, 157 eta ondokoak) eta berriz ere esatea ez da alferrik izango bazutela elkarren antzik Unamunok eta Orixek, honek ere *Contra esto y aquello*[26] izenda baitzitzakeen eskubide osoz bere lanik asko. Erro batetik jaioak ziren eta, aldiaren eta giroaren goiari amor eman beharrean, gogor egingo zioten, leher-eztanda gaizto egingo bazuten ere, batak eta besteak. (1965e:127).

"Polemista bortitza" izateak uztartzen ditu, beraz, batetik Orixe eta Unamuno eta honen ondoan, ahotan hartu duen "giroari kontra egiteak", beheraxeago eta astiroago ikusiko den beste arrazoi batekin batean:

> "Gerraren billa gau t'egun" zebilen munduan barrena eta bakea, bazterrik gabeko bakea, maite zuen bihotz-bihotzez. (1961e:122).

Barne-borroka horrek ere, bada, bultzatzen du Orixe –Mitxelenak sorterrikide Xenpelarrengandik hartzen dituen hitzez esanez–, "Gerraren billa gau t'egun" ibiltzera, "bakea, bazterrik gabeko bakea", maite duen arren eta etsaitasun honek ere izango du, Mitxelenarentzat, Ormaetxearen lanetan ondoriorik:

- "Borrokarako grinak eragin dizkio, agian, orrialderik bizienak **prosaz**"[27]
- "Jainkoaren altzo zabalean atseden hartu nahi duen maitasunak **neurtitzik**

---

[24] Orixe eta Unamunoren arteko antzak Azurmendik ere jaso ditu bere Orixeri buruzko bi liburuetan, esate baterako, (1977:51) biak "progresoaren" kontra elkarganatuz.

[25] "Polemista encarnizado, acre y como suele ocurrir no siempre justo –contra el verso, contra la cultura, contra los clérigos evolucionistas y contra otras muchas cosas–, es también un místico extraño en un pueblo de gentes para las que la religión es fundamentalmente un conjunto de normas éticas y de preceptos legales dentro de un sistema bien organizado que abarca el universo visible y el invisible". (1960b:149).

[26] Arestiz ere gauza bera diote, Mitxelenak ez ezik.

"Eta Arestik, horren oraintsuko Arestik, hainbeste ezagutu dugun Arestik, hain ozenki mintzatzen zen Arestik, *contra esto y aquello* maiz aski, utzi du pasarte ilunik ugari". (1981b:81).

Azurmendik ere bai (1976:114).

[27] Aurrerago jasoko den legez:

"Orixe, Orixe berbera da beti, baina eztabaidaren haize haserreak berotzen duenean inoiz baino ibilera arinagoa agertzen du". (1960a:46).

Halaber:

"Y no hay que olvidar al polemista, más bien intemperante según la línea tradicional entre nosotros, de cuya pluma salieron tantas páginas de magnífica prosa". (1961h:432).

ederrenak"[28]

Eta paradoxaz, lehen jasotzen zen eztabaida gogoko izateak ez ezik, erlijioak sortzen dizkion kezkek ere batuko dute euskararen auzian gauzak guztiz bestela ikusten dituen Unamunorekin:

> Hain zuzen ere, bertsan dezadan bidenabar, elkarren bizkiak dirudite beste zerbaitetan ere. Izan ere, Jainkoaren bila abiatu ziren biak eta ez zuten atsedenik hartu heriotzeko orduan baizik (1965e:127).

Bilbotarrak esana zuen euskara ez zela gauza barneko gai sakonak, adigai abstraktoak eta maila horretakoak adierazteko. Ustearen alderdi ustela agerian jartzeak akuilaturik, Mayans eta enparatuei erantzun asmoz Larramendik plazara irten bezala, irtengo ere du Orixek, Unamunori (besteak beste)[29] erantzun gogoz. Eta, ironia badirudi ere, aurkariarekin aurkitzen dizkio antzak Mitxelenak Orixeri, izterbegiko gertatzen zaion Unamuno horrekin elkarretaratzen, 1961 eta 1965eko artikuluetan.

Parekatzeko euskarria orain, Orixek hain barnean bizi duen Jainko-bilatzean ikusten du Mitxelenak.

Orixek "herri teologia" poesian sartu duenean, neurtitz horien erak Unamuno dakarkio

---

[28]Hona Mitxelenaren luman euskaraz eta erdaraz, Orixeren epitafio modukotzat har daitezkeenak:

"Erraiak erretzen zizkion egartsua asea du noski honez gero goiko iturri garbian". (1961e:124)

"Hoy, aquietado el flujo perturbador de la conciencia y del mundo exterior, estará en posesión del único Ser cuya contemplación inalterada persiguió a todo lo largo de su vida

Amak sabeleari gu suma bezala
sums zagun launa. Ilen garenean
ark baino barnago altzoan gaitzala". (1961h:432).

Mitxelenak kokatzen ez dituen Orixeren neurtitzok, *Barne-muinetan* lanetik hartu ditu (Orixe 1934:134), Orixek "Anai sabeleide Martin"i" eskaintzen dion otoitzetik, hain zuzen ere.

[29]Hau bera aipatzen du Ibinagabetia'tar Andimak Orixeren hitzak iruzkinduz. Hona Orixerenak ("Lenengo Euskal-egunetan" 1921eko lanetik hartzen ditu Ibinagabetiak):

"'Nonbaiteko euskaldun berriari batek egundañoko ergelkeri edo eztakit zerkeri esan omen du. Zer gero? Oraingo asmaketarako ez dela gai gure izkuntza, oso zarra dela, zarregi, aspaldikoa dela. Zein ote-dugu gizon iakintsu ori? Etorri akit: zaarra duk euskera, ala duk, aspaldikoa duk; baña ez duk zartu, ez zimeldu, ez igartu, ez amaundu. Gaur erakutsiko diat eginalean, gure izkuntza leuna dela, oze dagola, *sasi-iakintsu* orrek uste baño geiagorako gai direkela'".

Eta hona Andimarenak:

"*Sasi-iakintsu* ori ezta zail asmatzen nor zen. Lizardiren "Unamuno'tar Mikel yaun argia" (Biotz-begietan-Euzko-bidaztiarena) berbera, dudarik gabe. *Sasi-iakintsu* izenondo gogorra iduriko zaio norbaiti, baña "Orixe"k bazuen eskubiderik, gure izkuntza atergabe bezten ekin zion gizon orri alako deitura errukigabea ezartzeko. Euskalgaietan aiaxe zan, izan ere, bilbotar sonatua, eta linguistika-filologi iakintzan ere, etzuen iñoiz erakutsi iñor arritzeko doai berezirik, ezta gutxiagorik ere. Idazle iaioa, baiño izkuntzari exkax zenuten Mikel Unamuno eta gaiñera aize-orratza bezin gizon aldakorra". (Ibinagabetia 1965:89).

Azurmendik ere (1986:120-122), Unamunoren akuilukadak gerra aurreko giro hartan, euskaltzaleengan, eta Lizardi-Orixegan bereziki, zenbaterainoko eragina izan zuen aztertua du:

"Unamunoren *affaire* hau, ba, kontutan hartu beharko da, mendearen lehen parte osoko euskaltzaleen suminak eta enpeinuak, planteamenduak ulertzeko, gure kasuan Orixerenak". (Azurmendi 1986:122).

gogora Mitxelenari, "atzekoz aurrera" bada ere. Eta honela dio, itxuraz, kontrako bideetatik dabiltzala pentsa zitekeelako[30]:

> Bide batetik eta beretik ez zirela ibili esango didate noski, ez dela sekula Orixe bide nagusitik baztertu ez errebelatu bilaketa luze horretan. (1965e:127).

Honela, kezkak barrena jaten badio bilbotarrari, Orixek ez bide cu bere sinesmenean zalantza-artesiturik ("Auek adinbat okertu gabe / itzai, adimena atzetik")[31].

Gainera,

> Betikotasun batean murgildu beharrak artegatzen zuen Unamuno; bizitza honen ur lasterren ezin geldiak, Orixe. Ezin bihur inolaz oraina beti. (1961e:123).

Alabaina, Mitxelenari bion arteko aldeak, axalezko begitantzen zaizkio, Jainkoaren bilatze etengabeak elkartuko bailituzke biak.

Horregatik, Mitxelenak bide bera ez dutela urratu esango lioketenei aurrea hartuz –erlijioa mahai gainera ekartzen den bestetan bezala–, bere burua auzi horietan sartzeko nor ez dela aitortuagatik ("Ez naiz nor, ez dago esan beharrik"), lehen urratsa litzatekeen bilatzea paratzen du bidearen nondik-norakoaren gainetik; bilatzeko moduan bat ez etorrita ere, biak bila dabiltza beraren:

> eta Pascalek behintzat baietz esango lidake: "Ez hintzateke ene bila ibiliko, aurkitu ez baninduk". (1965e:128).

Eta bilatze horrek berberak, bat egiten ditu Orixe eta Unamuno besterekin[32],

---

[30] Beste zerbaitetan kontrako bideetatik ibiltzeak egiazkoagoa dirudi, *Hª de la literatura vasca* Unamunori "impudor exhibicionista" (1972a:158ko *streap-tessaz* atzendu gabe), eta Orixeri berriz, "elíptico, maestro en el arte de la alusión" alboratzen baitzikie.

[31] Hau da Mitxelenak papereratzen duena osorik:

"Itzai bat bidez doa, gurdia
ideiei lotuz. Aurre'ik
itzulinguruz, iges, baztarka
txakurra isatsa iasorik.
Isatsa ere iosta-lagun du,
–oroi ta irudi ala nik–.
Auek adinbat okertu bage
itzai, adimena atzetik." (1961e:123).

[32] Baita Bergman zinegilearen irudimenezko (?) pertsona batekin ere:

"Eta azken orduetan hasten da (*Zazpigarren zigiluako* zalduna) noranahi, argi eske, bide-bila. Jainko-bila dabilela esan daiteke. Ez noski, Orixeren antzera, nahi lukeen Jainko hori ez baitu ezagutzen eta zalantzarik gabe

"argituekin" eta Eneko Loiolako euskaldun ospetsuarekin, hain zuzen ere.

Orixeren eta Unamunoren bilaketei, Loiolakoarenei sumatzen dien kutsu bera hartzen die Mitxelenak: mistikarakoa (eta elkarganatzen dituen mistikak ez dituela beti aho betezko onespenak jaso, areago, arriskutsu ere gertatu izan dela inoiz erantsi):

> Ez naiz batere segur, bestalde, guk bezain begi onez ikusiak izango ote ziren Orixeren bilaketak -eta Unamunorenak zer esanik ez- gai horiek orain baino zorrozkiago hartzen zituzten garairen batean bizi izan balitz. Denbora bateko hainbeste eta hainbeste "argitu" hartzen ditut lekuko, eta Eneko Loiolakoa bera ere bai, mistikarako isuria heresi-kutsuaren pareko etsi daitekeelako ezaugarritzat[33]. (1965e:128).

5.2.5. Baina barne-etsaitasunaren ondorio den garaiari oldar egitea, beste gai batzuetan ere islatzen du Orixek, auzia ez baita hitz- edo hizkera-kontu soilera mugatzen, sustrai sakonagoak ditu:

> [Alta Omaetxebarria eta Alta Karmel Iturria] Auek gure gizaldiko (Azkue'ren gizaldi denuko nioke) gizonak dira. Gizaldi berria asmatu nahi duten oriek, gure gaiñetik pasa bearko dute. (Orixe 1957:91).

Gizartearen berrikuntzarik -bere gogoko ez den berrikuntzarik behinipehin- ez nahi eta, berri-kutsurik harrapatzen dionari borroka egiten dio, bere indar-kemenak horretan emanez.

Ildo honetan koka daitezke, beharbada, Mitxelenak han eta hemen paperera jaulkitzen dituen zenbait izpi.

Hala nola, 1955eko artikulu batean (1955c), Mitxelenak Cela-ren *La Cátira* ironia betez iruzkinduaren hasieran, honakoa adierazten du.

Kasu honetan, *kultura* hitza eta honek ondotik dakarrena dira eztabaidaren iturburuan kokatzen dituenak:

> Gogor egin zien Orixek, duela zenbait hilabete, euskaldun «berrizaleei» Buenos Airesko *Euskalduna*

---

aitortzen. Nolazpait ere ezagutzen du, ordea, Pascalen hura (eta barka besterena baldin bada, Pascalena izan beharrean) egia baldin bada: "Ez zinateke ene bila ibiliko aurkitu ez baninduzu"". (1961h:197,198).

Altuna paratzaileak, Mitxelenak Pascalen kutsua sumatzen dien hitzoi, San Agustinena antzematen die. Honela eransten du oin-oharrean:

"San Agustinena (ere?) dela esango nuke nik, hori edo antzekoa".

[33]Mitxelenak ez dioena ondorioztatzerik badago, errepara dakioke, alde honetatik bederen, aldi joanetan ez bizitzean eskerrak eman beharko lizkioketen Orixe eta Unamuno, hain justu... garaiaren aurka altxatzen direla.

aldizkarian «Euskaldunak» zuen izena artikuluak ere[34]. Ez zen hizkuntzaz ari: mamiari dagokion auzia zen eta da. Gaurko zenbaiten lanak, «*cultura*-ren izen nazkagarri ortan» gertuagoak omen dira gure herriaren gogoa hondatzeko lantzeko baino. (1955c:51).

Ikusten den bezala, ez da hitz-kontu soila Orixek besterengandik onartzen ez duena, mami-kontua ere bada, *kultura* hitza, Orixek atsegin ez duen berritasunaren sinbolo baita[35].

Kultura hitza darabilten horiek ateismoa sartu nahi dute Euskal Herri kristauean[36]. Jainkoa, "basauntza ur bizien irrikaz bezala", *barne-muinetan* duen Orixek, "jainkoazko gose-egarria"[37] horren bizirik daukanak, ezin onartuko du Jainkorik gabeko Euskal Herririk, are gutxiago ideia "arrotz" horiek euskaraz sartu nahi badituzte[38].

Eta hari bereko zuntzatzat jo daiteke bere garaian zalaparta handia atera zuen Orixeren eta J. Intxaustiren arteko eztabaida[39] ("izanaz, izateaz eta izakiaz"[40]), Mitxelenaren

---

[34]Mitxelenak aipatzen ez duen arren, Orixek (1953b:81) adieraziari guztiz argigarri deritzogu. Bihoa hasiera:

"Zu ere bai, xeme? ¿Zer da *kultur*, izen itsusi ori? Etzaitzatela bildu, pixkarik ere, beren xoko-kabira berrizale oiek. Etzoazala oien besotik gizabete ere. Bein edo bein, oso bakan, ezetbestean, eskua eman, bai".

Halaber:

"Erdal-itz asko ezin eman ditugu gaur bat-batean, baiña beste asko, bai. Esaterako: "zer da k..., idatzi nai ere ez dudan itz nazkagarri ori? Humanismo ta civilización, beste bi aizpa oriekin, ori da nik gorrotorik aundienstuna diodan itza; aldez aldez kristautasun jatorrari ere lekua kendu nai izan baitio". (Orixe 1957:91)

"Honek ere badu, orden, bere koska: norbaitek esan omen du hizkuntza landuetan (barka *kulto/kultu*-etan) -te, -tze bezalako gramatika-aitzizki arrunt batek ordezkari hoberik eta berezirik izan ohi duela". (1984b:45)

"hitz arruntak eta hitz jasoak edo ikasiak -zenbaitek "kulto" hitz itxuragabeaz izendatzen dituzten horiek-". (Sarasola 1989:407)

[35]"Orixe, hombre de sólida formación clásica y poco amigo de lo moderno, conoce como muy pocos las formas de vida más sencillas y primitivas de los lugares apartados del país, donde las antiguas tradiciones han llegado menos alteradas hasta nosotros". (1960b:149)

[36]Jesuiten eskolaren" izpirituaren ezaugarriak, honela laburbiltzen ditu Azurmendik (1986:138):

"euskaltasuna, kristautasuna eta humanitate klasikoak bat-bat egiten zituen".

[37](1961e:118).

[38]"Ez dakit Krutwig Budaren ala Tzeus'en seme dan. ¿Neuritz oiek lumari erdoia kentzeko egin ote ditu? Ala ere arinkeri aundia litzake! ¡Ara, mutikoak! Oraintxe sartu da euskera gizabidean, lainkoa ukatzen ikasi baitu. ¡Zer zadura-badura nâsiak ematen digun zantari berri ortan!". (Orixe 1953b:82).

[39]Iztuetaren (1991a:1016) ustez, garai batean eskolastikan sonoriko eztabaida bera berbiztuz:

"Zuztarrean hauxe besterik ez: Intxaustik tomisten arabera, existentzia eta esentzia bereizten dituela eta Orixek aldiz, Suárez-en iidotik, biak gauza beratzat dauzkala. Lehen Metafisikaz ihardutean ikusi bezala, Eskolastikan eman zen eztabaida bera errepikatzen dela Orixe eta Intxaustiren artean. Eskola oesberdinen arteko borroka".

[40]"Es innegable, le guste a uno o no, que Fichte, más todavía Hegel, así como también Heidegger, trajeron consigo nuevos estilos de filosofar, y con sus filosofías impusieron sus juegos de lenguaje: *aufheben = (jaso, gorde + gainditu = deuseztatu)*, etc. Mientras que nosotros, por pobreza de ideas, no podemos conseguir que otros se interesen por el misterio de *halabeharrez = por casualidad + por necesidad*. Hay quien piensa que esto, lo alemán y lo vasco, se reduce a logomaquias, pero algunas de ellas, las alemanas por ejemplo, interesan a la gente *at large*, y las discusiones que entre nosotros se produjeron en torno a *izan, izate, izaera*, etc., difícilmente llegarán a tanto". (1981i, *SHLV*:1007).

ikuspegiaren arabera, jakintza eta filosofia ulertzeko moduetan datzana, hain zuzen ere.

Mitxelenak 1960ko "Asaba zaharren baratza" artikuluan[41] jasotzen du, beste gaiak beste, liskar horren oihartzuna, gaiazko bere aburuak ere tartekatuz.

Aurreko kapituluan bezala, honetan ere egoki dateke Mitxelenaren lan honi arretaz erreparatzea, Orixez berariaz ez ezik, euskal munduaren zuraje eta etorkizunaz adierazten dituenak ere, testuinguru horretan txit adierazgarriak bide direlako, hor suma baitaiteke Orixek gorpuzten duen jarreraren eta molde berrien arteko osinaren erakusgarri gardena.

Artikulu horren barrutian, beraz, lehen besteri eta besteren gaineko auziei begiratu bezala begiratuko zaie orain Orixeren ingurukoei, Orixe aldez edo moldez ukitzen dutenei, batipat, "Aditza dela eta", "Filosofia eta jakintza" eta "Euskal kulturaren mugak" puntuetan bilduei, alegia.

Hizkuntzaren aldetikakoak Orixe eta euskara eta orexar-uitziarraren hizkera aztertuko denerako utzi eta arestian aipatu berri den autuarekin ikuskizunik hertsiena duenari eutsiz -hots, "Filosofia eta jakintza" atalari bereziki- azpimarka daitekeen lehen kontua da, Mitxelenak, liskar-kalapitaren urrutiko ikusle[42] -ez isila- bailitzan, gisa honetan aurkezten dituela lehiakide biak:

> Orixe, Orixe berbera da beti, baina eztabaidaren haize haserreak berotzen duenean inoiz baino ibiliera arinagoa agertzen du[43]. Bestea, berriz, harritzekoa da nola moldatzen den adierazkizunik zailenak hizkera argi, zehatz eta -nere ustez- garbi batean adierazten. (1960a:46).

Eztabaidan darabiltzaten bi euskara-motak ulertzeko debekurik ez duela eta, sesioan

---

[41] Iztuetaren (1991a:1019) hitzetan, Orixeren azkena ezarri zuena:

"Dena dela, ekintza historiko horretan [euskal letrak 'regegabetzean', Leizarragak ziokeenez] bere protagonismoagatik norbait bereiztea eskatuko balitzaio, neke handirik gabe apartatuko nuke Mitxelena. Erabat deskalifikatuak uzten ditu, lehenik, Jesuiten Eskola Olabideri egindako kritikan (1959) eta, bigarrenik, Orixe "Asaba zaarren baratzan" [sic] artikuluan (1960)."

Ez dakigu Iztueta hagitz zuzen ote dabilen batzuk eta besteak zaku berean sartzean. Nolanahi dela ere, zalantza egitekoa da Mitxelenak "Jesuiten eskola" deskalifikatzeko asmoak edo bultkatu zuenik Olabideri egin zion kritika egitera batetik eta Orixez esan zituenak esatera, bestetik.

"Itunbe"-ri eman zion jipoiak oinarririk aski emango al luke, hortaz, Mitxelenak "Frantziskotarren eskola" (esaterik badago) deskalifikatu zuela esateko?

Geure ezjakinean ez gara nor eliza-barneko kapilatxoez eta beraien arteko borrokez ezer argitzeko. Bego, beraz, horrela.

Nolanahi dela ere, hemen doakionari, Orixeri, dagokionez -honen aurreko kapituluen adierazi bezala-, azken ematearen zantzuak, urte batzuk lehenago sumatu uste ditugu, 1951ko "Euskal literaturaren etorkizuna" lanean, hain zuzen ere.

Gai hau berariaz aztertuko dugu Orixeren eraginaz eta zoriaz aritzean.

[42] Iztuetarentzat (1991a:1018), "jarrera salomonikoz".

[43] Gogora daiteke harako, "Borrokarako grinak eragin dizkio, agian, orrialderik bizienak" (1961e:122), lehen aldatua.

ari direnen oker aditzea hizkuntz arazoa izan daitekeela uxatu ondoan, mamiari heltzen dio Mitxelenak.

Ez omen du ulertzen hor datzana, eta ez ulertzea, gaiak behar bezalako funtsik[44] ote duen ala "musika eder edo poema bikain baten zentzu" hutsa ote den pentsatzetik datorkio.

Bestela esan, bi hausnartzaileon arteko polemika, hutsal samarra begitantzen zaio Mitxelenari, garaiek ekarri dituzten uste berrien ikuspegitik ikusita, bederen.

Azken ikusmolde honen arabera, filosofiak jakintzaren ezinbesteko premia du:

> Nekez izango da gaur filosofiarik, filosofiaren izena merezi duenik, jakintza-oinarri sendorik gabe. (1960a:47).

eta arrazoi hutsa ez da aski; errealitatera, hots, espekulazio hutsetik enpirismora, jo beharra dago (gramatikan ez eze) filosofian ere.

Alabaina, mokoka dabiltzanek –ez baitu Mitxelenak zehazten zein duen mintzagai– ez bide dute Mitxelenaren bezalako filosofiazko ikuspegia. Hori dela eta, auzi honetan gertuago ikusten ditu, ausaz, Mitxelenak, paperera daraman Brunetière-gandik[45] –"Jakintzak erreka jo zuela" aldarrikatu zuenarengandik–, aipatzen ere dituen Russell, Tarski edo Carnap, lehengo sinismenen urratzaileengandik baino[46].

Eta filosofiaren oinarri ikusten duen jakintza –Mitxelenak garbi eta ozen aldarrikatzen du artikulu horretan bertan[47]–, ez daiteke "silogismu ziurretan" oinarri, bere mugak non

---

[44] Azurmendik bestela ikusten du bion arteko tira-bira.

"Funtsik ba ote? Bai horixe! Ezkutu-ezkutuan, ordea. Han hauztan zegoena ez bat ziren izana, izatea eta izakia eta bai Orixe eta Orixeren itzala. "Berrien" konfrontazio bat zen Orixerekin. Intxausti eskinatik zebilen, laster agertuko zen bezala. Kasu hartan, behintzat, **mamiak inportantzia guti zuen eta formak dena.** Intxaustik Orixeren bidetik ibiltzerik ez zegoela, erakutsi nahi zuen, eta hain zuzen Orixeren bidetik ibiliz erakutsi nahi zuen hori. Ez dut uste Intxaustik berak, eztabaidan sartu zenean, hori dena hain garbi ikusten zuenik. Baina azkenean horixe agertu zen". (1976:95). (Beltz gurea).

Hamasei urte lehenago Mitxelenak esanak baieztatzen dituela iruditzen zaigu. Azurmendik ematen digun Intxausti "Orixeren lehia barrutian" artzearen arrazoiari guztiz baliagarri deritzogu, bestalde. Nolanahi dela ere, "berrien" eta Orixeren arteko liskarrak, eta ez gerra zehatz hori. Mitxelenak behin baino gehiagotan aipatzen du. Ikus, esate baterako (1965e:127), edo (1960a:33), azken honetakoa: "Kritika horrek bi xede ditu: hizkuntza eta ideiak", kasurako.

[45] Uste dugu Ferdinand Brunetière (1849-1906) literaturgile eta kritikari frantsesaz ari dela, *Historia y Literatura, La novela naturalista, La evolución de la crítica, La evolución de la poesía lírica, Temas de crítica* lanen egileaz.

[46] "Niri, egia esan, Popper atseginago zait Adorno baino. Hori ez da iritzi bat baizik, baina bataren eta bestearen iritzien gainetik, badirudi badela gure artean, Mendebaleko mundu honek XVI-XVIIgn. mendeetan biribildu zuen lehen irauitzari buruz, halako nahas-mahas orapilatsu bat: Galileo aurrekoa, ez da Orixe bakarra izan gurean". (1975c:40).

"Gogoeta filosofikoan askoz gogokoago du [Mitxelenak] positibisten inguruko jakintza eskolastikoen metafisika idorra baino. Ez du nahi jakintza-oinarrirnk gabeko filosofiarik. Salaketa hau bien [Orixeren eta Intxaustiren] kontra doa zuzenean". (Iztueta 1991a:1018).

[47] (1960a:39).

dituen daklenez geroztik "probabilista" bilakatu baita[48].

Orixe - bakarrik ez baina Orixe ere bai - Mitxelenaren ustez, filosofi eta jakintza-gaietan[49] ez da bere garaiko gizona[50], "Orixeren heriotzean" (1961e), eta "Atarikoa" lanetan (1965e) berresango duen bezala.

Honela, azken hauetako lehenean, errenteriarrak gai horiek ebazteko nor ez dela aurretik badio ere:

> Filosofi gaietan lan sakonak argitara zituen Ormaetxeak, ontologiaz edo. Ez naiz nor horiezaz iritzia azaltzeko, filosofiaren adiskidea - adiskide ezjakina - izanik ere. (1961e:123).

Orixe "giza jakitearen mugez" arduratu ez delako ("eta mugak ditugu damurik, aspaldiz gero lehen auzia eta arazoa") eta "duderen herdoiak [sic]" jo ez duelako, hau da, "lehengoek uste zuten adina" jakin ote daitekeen kolokan jartzen dutenetarikoa ez delako, joko du Mitxelenak Orixe "jakintza berria sortu baino lehenagokotzat", "Galileo aurreko" gizontzat[51]:

> Orixe, nere iritziz, Galileo aurreko gizona genuen[52], jakintza berria sortu baino lehenagokoa,

---

[48] Beglarmenek (1974:31) Jacques Monod eta neopositibismoaren *principium verificationis* delakoa ikusten ditu Mitxelenaren burubideon atzean.

[49] Giro baten ordezkaritzat har daitezke Sarasolaren hitzok:

"«Orixe»-ren jakituriaz uste oker bat dago. Ez da egia, adibidez, Aita Onaindiak hartaz mintzatzean diosna: «Gizon azkarra ziñez ta edozein gaietan oso jakintsua». Perpausa [sic] honetan erabiltzen den jakituria, San Tomas arteko filosofiaz, literatura klasikoaz eta ohizko teologiaz osatzen den jakituria bat da. Jakituria konzeptoaren mugatze izugarri hau, orain arte aztertu diren mugaketen ondorio da. San Tomas ondoko filosofia ez zen filosofia, garaiko literaturak ez zuen literatura izena merezi etab. Hortik kanpo, «Orixe»-ren inorantzia ahalguztidun zen". (Sarasola 1971:66).

[50] Beste adibide bat honakoa litzateke:

"Ez zituen oraingo eta oraintsuko jendeak ongi ezagutzen: Bergsonen kutsua eta eragina aurkitzen zuen, esate baterako, Txillardegigan". (1965e:128).

[51] Egia ere da, Mitxelenaren ustez ezaugarri hauek ez dagozkiola bakarrik Orixeri:

"Galileo aurrekoa, ez da Orixe bakarra izan gurean" (1975c:40) jaso berriak adierazten duen legez.

[52] Azurmendik, aldiz, honela ikusten ditu gauzak:

"Beraz, edozertan ere, «Galilei aurreko» omen genuenaren mentalitatea sumatzen da. Orixek mentalitate horri zegozkion eremuak landu zituen, eta halakoxe erak desarrollatu ere". (Azurmendi 1976:164).

Omen horrek uzten duen zalantze-izpiak -adierazpenaren gurasotasuna besteri egotziz-, indar hartzen du hurrengo urteko lanean. Hona bi pasarte Mitxelenaren iritziarekiko adostasun-eza agerian dutenak.

Modernismoak antimodernismoa berarekin dakarrela esan ondoren, honela jarraitzen zaio Azurmendi:

"Mugatzeko eta definitzeko mundu zail horretatik sortu da Orixe, berak uste baino askoz bere garaiagoan,... Galileoren askoz geroztik. Orixeren «arkaismoa» oso modernua bait da, guri gustatzen ez zaigun modernutasun batetakoa izan arren". (Azurmendi 1977:51).

Eta lan honetan bertan aurrerago:

"Orixek, ba, arrazoimenari uko egin zion fedearen alde. (Ez gaitezen engaina: Galilei aurrekoa omen zen honek arrazionalismo modernua ezagutzen zuenaren [sic] mila seinale dago haren izkribuetan, zaputz egin bazion ere) / Bat, Anaximene eta Plotini buruzko pasartean egiten duen erlijio-historiaren aluzioa: kristauon Jaungoiko idola

alegia. (1961e:123).

Galileo-aurrekoa dugula esan izan dut, jakite berriaren ukatzailea[53]. (1965e:128).

Mitxelenaren adierazpide hau mamitsua da, txit. Mitxelenak Orixe "Galileo aurrekoa" dela dioenean, egitate ugari izkutatzen bide da hitz horien atzean, "aurreko" izateak, arlo bat baino gehiagotako auziezko ikuspegiak estaltzen baititu.

Honela, aipatu berri diren filosofi jakintzezkoez gain, bada bestelakorik, horiekin harreman estuak dituenik, are horien ondoriotzat jo daitekeenik.

Izan ere, Orixek hizkuntzalaritzaz, hizkuntz ikerketaz dituen zenbait ustek -ikusiko den bezala- ikuspegi horretan dute iturburua, jakintzetariko bat den hizkuntzalaritzak eskakizun dituen lege-azterbideez ez baita behar bezala jabetu.

Honenbestez, hizkuntz azterketaren ingurumariari dagokionez, kasu honetan Orixek sinbolizatzen duen "Galileo aurrekoen" (ofizioko ez liratekeenen) saldoak, hizkuntzalaritza, jakintza- edo zientzi mailara eraman dutenen berri ez izatea edo bide malkar horiei muzin egitea ezaugarri bide du.

Ofiziokoak dira "Galileo ondokoak", beraz, hizkuntz azterketa bestela, hots, hizkuntzalaritza urrats neke baina sendoez, oinarritu nahi dutenak.

Deizio berak, halaber, besterik gordetzen du, horren mamiak sortu ere baitu, antza, Orixe eta *gure* ("Galileo ondokoen") arteko osina areagotzea, gerrateen ondoko gogo-giro berriek -hobeto esan, aldakuntzei jaramonik ez edo itsuarena egiteak- batipat, Orixegan ondorio larriak izan baitituzte:

> Diodan, bada, labur beharrez, zerbait berri agertu dela gure artean gerra-ondoko urte hauetan: bestelako pentsabidea bestelako bizimoduen eskutik, giro aldaera larria, herriko eta atzerriko haize berrien eraginaz (...) Orixek gainera, eta zertxobait ezagutzen zuenak ikus zezakeen hori aldez aurretik, ez zuen amorerik eman. Bigundu eta samurtu beharrean, gogortzen hasi zitzaigun, gero

---

ez dela neoplatonikoen ekarkinik /". (Azurmendi 1977:229)

[53] Iztuetak (1991a:254), Rocher-engandik (*Introduction à la Sociologie Générale*, II, HMH, Paris, 1968, 103) hartzen du *conservatisme* hitza ("Le ***consevatisme*** qui caractérise la mentalité traditionnelle est donc foncièrement une protection contre tout ce qui menace la tradition comme base de l'ordre intellectuel et de l'adaptation réussie à l'ordre naturel"), Orixek gorpuztu eta erakusten dituen gogo- eta jokabideak izendatzeko:

"Azken batean, Orixeren pentsamenduan, nekazal gizartea eta gizarte teknologikoa daude kontrajarrita (...) Gertatzen dena da Orixek nekazal gizarteari egozten dizkiola ohitura garbiak eta gainerako tasunak oro (dantza eta musika jatorrak, alaitasuna, bakea, isiltasuna, etab.) eta, horri kontrajarririk, gizarte teknologikoa dela gizarte-desoreka guztien iturri (...) Orixeren gizarte-mota ideala Ulzin bere gaztaroan ezagutu zuen huraxe da: hots, ikazkinena, basogizonena, zerrarlena, lalari, segalari eta igitarlena, zeregin kolektiboetan (festaburuan, artazuriketan...) taldeka, zahar eta gazte, biltzen diren herritar xume guztiek osatzen dutenena. Nekazal gizarteari datxekion kontserbadurismoa da Orixerengan nagusitzen dena".

Eta honetxek zigilu urraezina ezarri, agidanez, Iztuetak jarraian ondorioztatzen duenez:

"Ulzin bizi izandako gizarte-baldintzek zertua zeukatela Orixeren pentsamendua jadanik Jesusen Konpainian sartu aurretik. Orixek biologiatik hartu zuen bere gizabanakotasuna; nortasuna ezarri, ordea, Ulzik eta beronen inguruneak ezarri zioten. Nabaria da, Orixeren kasuan bai bederen, gizarte-baldintzek hezkuntzan duten eragina".

ta [sic] gogorrago, nahiz eta horretarako inoiz higuindu zituenak berak onetsi behar bazituen ere[54]. (1965e:127).

Mitxelenak -bere burua Iraultza zientifikoaren ondoko kumetzat daukanak[55]-, jakite berri hori edoski ez ezik, horrek sortu ahal izan dituen lantegietako tximinien ke artean hartzen ere du amasa kirastua[56]. "Galileo aurreko" Orixe, halako gisakoei bizkar emanez bizi denez gero[57], ezin *gure* artekotzat jo.

Ez da hemen amaitzen, ordea, Orixe eta "Galileo ondokoak" (Mitxelena barne[58]) bereizten dituena eta, orpoz orpo, giroaren kontra egitearen erakusgarritzat har daitezkeenen kontu-ematea.

Osinak, batak eta besteek atsegin duten literatura-mota ere barne hartzen du. Mitxelenaren ustez:

> Besteak beste, laster ezagutu zituen, eta ezagutu ahala maitatu, gaztetaniazko maisu zaharrak eta are antzinagoko Erroma eta Greziako idazleak[59]. Ikastaldi haiek ez ziren mendi-mutil harentzat izan -behinola Eneko Loiolakoarentzat bezala- ezinbestean eta nekearen nekez egin behar diren

---

[54]Mitxelenaren adierazpide hau [sic] batez horretzera gindoazen, alabaina, Hiribarrenek (Argitaraldi zaharrean, 119; berrian: 5576 bertsoa) badarabil honen pareko egiturarik.

[55]Hona Mitxelenak Ibarzabali adierazia:

"Alguna vez he dicho que Orixe era anterior a Galileo, y quiero que se me entienda bien; antes de la Revolución de Octubre, de las revoluciones burguesas y de la industrial, hubo una que muchos olvidan: la Revolución científica, madre, en gran parte, de todas ellas. Orixe era absolutamente ajeno a ello, para él no se había dado y, en este sentido, era coetáneo riguroso de muchos vascos post-marxistas de la actualidad, la única diferencia reside en que las raíces pre-científicas de Orixe estaban en los Padres de la Iglesia, y las de algunos vascos de hoy están también en Padres, sólo que de distinta Iglesia.

La revolución científica es teoría deductiva, recurso a la experiencia y, en el fondo, libre exámen. En este sentido Orixe era un vasco actual, el que las bases no sean las mismas no supone más que una diferencia coyuntural, como se dice ahora". (Ibarzabal 1977:158).

Unamunok eta abarrek osatzen duten Orixerekiko konparagaien zerrendari erantsi beharrekoak genituzke, agidanean, egun haietako euskaldun Marxen ondoko zenbait ere. Lotura, banakoaren askatasun kimatuan eta "gidarien" aginduen eztabaidaezinean legoke.

Oroi dateke 1970eko "Pro domo" lanean, itun berriko irudiei noluko etekina ateratzen dien.

[56]"La industria segula representada para él por los viejos ferrones, que aún no tenían poder para envenenar los ríos y arrasar los bosques". (1961h:431).

[57]*Euskaldunak* aztertzean, astiroxeago ikusiko da puntu hau.

[58]Hemen zuzen-zuzenean adierazia:

"Ni, Orixe ez bezala, Galileo ondokoa naiz, eta beste gizaki eta gertakari askoren ondokoa gainera, eta ondokoari dagokionez nahi nuke jokatu". (1972a:161).

[59]Nolanahi dela ere, Orixeren isuri hau bestek ere bazuen, Azurmendik (1985) eta Iztuetak (1991a) "jesuiten eskolakoak" izendatzen dituzten kideek -Lauxeta barne-, besteak beste.

Jalera hutsa baino sustrai sakonagoak bide zituen Grazia eta Erromako autore handiak eredu hautatzeak, euskara eta Euskal Herriaren berbizkundeari begira ez ezik, beste hizkuntza eta herriei begira ere.

egitekoak. Olerkari zaharretan –bukolikoetan epikoetan baino gehiago[60]– aurkitu zuen betidanik poesiarako zekarren joerak eskatzen zuen bidea eta ez zen aurrerantzean bide horretatik baztenuko. (1961e:116).

Ez zitzaion atsegin Orixeri erromantikoen bigunkeria ozena[61] –eta erromantikokume gara gehientsuok–, edozein nabarmenkeriatik [sic] itzuri dabilen klasikoaren neurria baizik. (1961e:121).

Gehienik biztu gaituen poesia ere ez da antzinakoa, ezta ere horren irudira ondu zen XVI-XVIIgarren mendeetakoa. Orixek higuin zituen erromantikoek ase gaituzte eta are hark higuinago zituzkeen ondokoek. (1965e:128).

---

[60] Iztuetak, jaidura honetan zedarritzen du, hain justu, adiskide miretsia zuen Lizardiren "Urte giroak eze beglan" olerkiaren gainetik, Orixek Jakakortajarenaren "Gure astoak" jartzea Tolosako 1931ko olerki-lehiaketan eta, honenbestez, honi bere botua ematea:

"Lehen epaaldi honetan ere, Orixe Lizardi-zale da. Eta hala bada, zergatik lehenesten du Txomin Jakakortajarena Tolosako lehiaketan? Ez, nik uste, berastegiarra zarautztarra baino poeta gorenago delako, seguraski ede: gaiaren aldetik haren aukera hobesten duelako baizik. Badirudi Orixek maiteago duela gai bukolikoak berekin daraman zipoa, Jakakortajarenak darabilen alorra, Lizardiren izadi-gai lirikoa baino. Zergatik? Funtsean, batetik, sekula modatik pasatzen ez den generoa delako; eta, bestetik, euskal literaturan tradizio aberatsa duelako (par Euskal Herrian berezki, Etxsanburu, Zaiduby, Otxalde, Ibarrarte, Barber, Otxobi, Zerbitzari eta asko landu dutena da Euskaldunaren izakerari poesi mota hauxe doakio ondoen (...) Orixeren ustez zen, [sic] -geroko historia hurbilak ezetsiko zuen **a priori** merke samar hori-, euskaldun herritarraren sentimendua gehiago kilmatzen zuela gai bukolikoak paisaiearenak baino". (Iztueta 1991a:692).

Halarik ere, azin saihets dadeke, Mitxelenak ez duela Orixe *Euskaldunaken* mamitzaileagan, inolako bukolikotasun merkeren bilatzailerik atzematen (1961n:431).

[61] Erromantiko-kutsurik antzematen ote zion Orixek Mistral-en lanako zenbait pasarteri, aldatzerakoan, "kimatze" bat edo beste egin benarrean ikusiz bere burua?:

"Mistral'en sortzetik eun urtegafenean emen duzu euskeraz gizon aipatu onen «Mirei» poema nagusia. Euskeratzea etzait beste munduko lana izan, baño ba ditu bere oztopoak, batez ere idaz-tankera befi-antza nasten dunean. «Loreak eta ugiñak eta eguzki-izpiak» apainkeri ordez ez ditu erabat utzi bere gizaldiko gizon onek, ez darabiltza, ordea, ugari. Nere ustezko gerlegikeri bakar oriek euskerari ongi ez datozkiola-ta, besteen irtzia beste, soildu egin ditut eskuarki. Gaiñera baiikeri oriek itzik iz euskeratzea lan gantza baitzen, eta lan aipefa, diodanez". (Orixe 1930c:VI).

"Baina Aita Estefania ez du asetzen Orixeren arrazoi honek: "Esta última razón no nos convence, porque todos los rasgos omitidos no llenan juntos ni siquiera un par de páginas, y, por otra parte, ofrecen todos ellos bastante menor dificultad que los muchos que traduce". Beraz, ondorioa berez dator: zailean badezakeenak badezake errezean ere. Eta Orixeren kasuan, arrazoi gehiagoz, zeren, kritikari jesuitaren aburuz, hazi egiten bait da zailtasunen aurrean: "Diga lo que diga el traductor, las dificultades parece que le estimulan y le agigantan. Cuando uno tropieza en el texto mismo con frases que constituyen un obstáculo para su versión y las lee después en ésta, no puede menos de admirar los inesperados recursos de expresión con que el señor Ormaetxea, merced a sus profundos conocimientos de la milenaria lengua y a su certero instinto literario, nos las traslada, sin que se desvanezcan más de lo inevitable ni su fragancia ni su significación". (Iztueta 1991a:658).

Bestalde, Orixek, erdal testuak aldatzean, ez bide zuen bakarrik Mistral-en lana murriztu, *Tormes*-koarekin ere guraizea dantzatu zuen eta. Aita Estefaniaren eta Lizardiren maiseatzea irabazi:

"*Tormesko itsu-mutilla* argitaratu zuenean, Aita Estefaniak ere agitz [sic] goraldu zuen Orixeren lana, baina Lizardirena baino indulgentzia gutiagoz egin ere, izan ere, orain arte aipatu ez badugu ere, bai bait zuen Orixeren itzulpen honek ezaugarri bitxi bat. Tormesko itsu-aurreko mutil pikaro haren ibileren amaiera, hau da elizgizon baten amorantzea zen senar bilakatuz eta haien kontura biziz, ez bait zitzaion Orixeri batere oredu onuragarria iruditu euskal irakurlearen arima garbiarentzat eta bestelako amaiera bat asmatzeaz gai[n] euskaraz, gaztelaniaz ere moldatu bait zuen berak euskaraz asmaturikoaren itzulpena.

Jatorrizko testuari begiramenik ez izates aipatzen diote bi kritikoek Orixeri, batek emeklago, besteak zorrotzago, euskareran eder-beharrez are posible den pasarteetan behar adina ez atxiki izana jatorrizko testuari". (Otaegi 1991:98).

Kasu bietan, Orixe gizonaren aburu-burubideak akullaturik, seguruenik.

Orixe eta Galileo ondokoen arteko adostasun-ezak laburbilduz –sinpletze-arintzeak direla medio, itxuragaiztotuz, beraz–, gisa honetara aurkez daitezke banatzen dituzten gaiak.

ORIXE	GALILEO ONDOKOAK
Eskolastika[62], espekulazioa[63]	Zientzia, enpirismoa
Mendia, baserria	Industria, hiria
Antzinako(Grekoen eta latinoen)[64] eta XVI-XVII.eko poesia	Erromantikoen eta ondokoen poesia

---

[62]Hementxe funtsatzen du, hain zuzen, Andonegik (1991:149) Orixerekiko osinaren alderdi bat:

"Klasikotasun eskolastikoaren aukera metodikoak bazeukan, garaiko egoeraren aurrean, beste alderdi bat kritikoagoa. Elizaren aldetik Vatikanoko II. Kontzilioaren helmugarantz, eta gizartearen aldetik, 1968ko maiatzarantz [sic] mugitzen hasia zegoen gizarte-giro berria. Honen kontrako jarrera kritiko eta zorrotza Orixeri zalantzak uxatzen diruen fededun segurtasunetik, eta modernotasunaren arriskuen aurka Elizaren aldezle izatetik zetorkion. Ez zitzaion buruan inolaz ere sartzen jendeak zeukan arazo berriak sortu beharra, batez ere Euskadin, lehengo fedezko giro baketsua ondatzera [sic] zetozela".

[63]Uler bedi *speculum*, Erdi Arokoen gisa.

[64]Kortazarrek (1986:26-48), 'klasikotasuna' deila eta, Orixeren eta Lauaxetaren auzi horrezazko ikuspegiak omaten ditu.

Hona egile mundakarrak paperera daraman Orixeren poesia klasikoaren definizioa ("Bide barrijak" 1931ko artikulutik hartua):

"Pensamientos y sentimientos fundidos armónicamente, son los que han de construir las grandes obras... Hay leyes filosóficas eternas que están asentadas sobre el buen sentido, la disciplina, la armonía, la medida y sobre todo la unidad artística".

Eta Lauaxetak ere gauzak oso modu desberdinean ikusten ez dituela azpimarkatu ondoan, honela darrai Kortazarrek:

"Por tanto, ¿dónde surge el debate?, en la matización, por supuesto. Lauaxeta, otra vez, más sutil que Orixe, se da cuenta antes que éste dónde se encuentra el problema. Veamos lo que dice refiriéndose a Orixe:

"Para poetas de tanta nobleza aldeana los tiempos actuales son cadenas de prisión. Pues días son estos en los que se desarrolla excesivamente la sensibilidad, con detrimento de la inteligencia, o se cultiva el intelecto con pérdida absoluta de la facultad, siempre divina de poder sentir la belleza"

El problema estaba pues, en «estos días» es decir, en la historia, en la sucesión del tiempo, en la diacronía. Y desde esta lectura, podemos comprender qué es lo que diferencia a los dos poetas.

Leamos de nuevo las definiciones del concepto clásico. Y entre los dos hay una diferencia: Orixe hace referencia a «leyes eternas», lo clásico es, pues, inmutable «eterno», mientras que para Lauaxeta el concepto clásico depende del tiempo, es diacrónico. Con el tiempo no sólo cambia la forma de entender el concepto «clásico», sino que evoluciona también la forma de «componer» la clasicidad, la literatura clásica (...)

Lo que subyace en Orixe es una confusión común: suponer que los románticos no son clásicos". (Kortazar 1986:29,30).

Iztuetak, berriz, ez ditu, antza, gauzak modu berean ikusten:

"Nik ez dut uste Orixeren eta Lauaxetaren artean halako diferentziarik dagoenik, ez bederen klasikotasunaren eta modernotasunaren artean egon daitekeen adinakorik. Eduki ditzaketen diferentzietan, nagusien hauxe duzu, nire aburuz: alegia, nor den klasiko interpretatzeko orduan, Orixek Lauaxetak baino neurri estuagoa erabiltzen duela (...) Funtsean, ordea, biak ditugu klasikoak, biak eskola berean hezitako jesuita-semeak. Horregatik, Jon Kortazarrek uste duenaren kontra, arazoa ez da hainbeste Lauaxetak "klasiko" kontzeptuaren edukina garaiaren arabera erlatibizatzen duela eta, Orixeren ikuspegi sinkronikoa gaindituz, modernotasunari lehiatilak iretzten dizkiola. Hau baieztatzeko dakartzan arrazoiak ez zaizkit iruditzen baliozkoak. Lehenengoa da Lauaxetak [sic], bere hautaketan autore klasikoak nahiz modernoak sartzean, klasikotasunaren ikuspegi diakronikoaz baliatzen dela. Lauaxetaren kasuan hala bada, Orixeren zerrendan autore modernoak ez direla kabitzen eta, ezin zaio ukatu kategoria hori, besterik gabe. Dakigunez, autore klasikotzat dauzka, ez bakarrik lehen aipatutakoak ("Dabid, Fr. Luis León-goa, Sofokle, Virgilio, Platon (676 or.)], baita geroagoko hauek ere: Krisostomo, Agustin, Anbrosio, Zipriano, Jeronimo, Fr. Luis León-goa, Dante, Quevedo, Antxieta, etab. Euskal garaikideen artean, bai ta Lizardi eta Lauaxeta bera ere. Zentzu honetan, Orixe, alde handirik gabe, Lauaxeta bezain diakronikoa da bere ikuspegian (...) ez zait iruditzen Orixek eta Lauaxetak izandako eztabaida hau klasikotasunaren eta modernismoaren arteko konfrontazio

5.2.6. Laburbilduriko puntu urri hauetan bilduek, iruditaratzen dute, nolabait, zerk urruntzen duen Orixe "Galileo ondokoengandik" eta..., Mitxelenagandik ere bai.

Nikolas Ormaetxea, bestalde, gizon euskalduna da eta hau oso gogoan izatekoa da orexarraren izaera-nortasunak osatzean Mitxelena iturri hautesten denean.

Euskaldun zintzo gisa jokatua da Mitxelenaren begietan, Euskal Herriari eta euskarari dion maitasuna ederki asko erakutsi baitu hitzez baino areago, lanen bitartez:

> Egia da nonnahi eta noiznahi ere ez dueia Euskal-herritik alde egin, Euskal-herria berekin zeramalako edo, eta honi eta honen hizkuntzari eskeini diola beti bere nekeen etekina. (1954a:51).
>
> Atzoko, gaurko eta betiko euskaldun honek jaso du, bestek oz adina, euskararen eta euskaldunen izena eta omena. (1958h:97).
>
> Eta ez zeukan beste eginbiderik, goragoko eginbideak baziren ere, hizkuntza lantzetik alde-eragin ziezaiokeenik. (1961e:118).

Orixeren jokabide zuzenaz baliatzen da, hain justu, Mitxelena zenbait guraso euskaldunen euskararekikoa bezteko:

> Han [Xabierren], dirudienez, euskaldun garbia izatea ez zitzaion izan gure arteko zenbait gurasok[65] beren seme-alabentzat beldur duten bezain trabagarri. (1961e:117).

Jaso berri den lan honetan bertan -baita geroagokoetan ere-, irakur daitezke, berriz ere, Orixe gizon euskalduna eta sorterriari zion maitasuna bat eginik:

---

modura ulertu behar denik. Horretarako elementu posible batzu hautematen badira ere, bi autore horien arteko lotura klasikoak oraindik hertsiegiak dira etenduraz mintzatu ahal izateko. Gorzegi da. Familia berean seme-alabak oro berdinak ez diren bezala. Orixe eta Lauaxeta ez ditugu pentsagai guztietan gogakide, nahiz eta eskola berean hazi eta heztiakoak izan. Desberdintasunak, hala ere, familiarekoak dira. Barrukoak. Korronte modernoarekiko Orixe Lauxeta baino fidagaitzago bada, Estetika arautzen duten arrazoi morala eta intelektuala betikotasunaren argitan begiratzen dituelako da. Oso posible da Lauaxeta, puntu horretan, eszeptikoago eta kritikoagoa izatea. Bestalde, Lauxetak hain maite zituen autore modernoak hurbilegi zeuzkan erabateko ertzirik eman ahal izateko. Kritika klasikoan, arrazoizko denbora-urruntasuna eskatzen da obra bat klasikoen zerrendan sartu ahal izateko. Elementu hau ere ez da ahaztu behar eztabaida honetan". (Iztueta 1991a:679,680).

Nori berea.

Mitxelenak, berriz, "nork bere klasikoak dituela" (1986a:130) esan izan du.

[65] Guraso euskaldunen erantzunkizunak -hobeki esan, erantzunkizun-ezak- sakonki antegatzen zuela Mitxelena argi islatzen dute testuko hitzok ez ezik, Euskaltzaindiko bilkuretan esanen moldezko lekukoek ere.

"Teatro gaietan eztakit ezer, baiña ortan zerbait badakit. Irakaskintza emen dagoen bezela dagoeño eztago ezertxo ere egiterik sail ortan nere ustez, ezpaitira bakar bakarrik ikastetxetakoak izkuntzari ajola gutxi ematen diotenak, baita gurasoak ere. Eta Donostian ondoren negargarriak izan dituzte gai ortan egin diran saioak. Ondorenak argitaratuko baldin balira aski lirake gu betiko lotsatzeko eta gu betiko ixilarazteko. Ori da egia. Irakaskintza orain dagoen bezela dagoeño ikastetxeetako nagusiak erakutsiko dute berak nai dutena eta gurasoak joango dira ardiak antaldean ibiltzen diren bezelaxe eta or eztago ezer egiterik". (*Euskera* 1962:346).

Gizona, berriz, gizabetekoa da. Jaioterriari eskeini zizkion hartu zituen dohaiak oro eta hari lotua iraun du azkenera arte, etengabeko lanean haren alde. Obra mardula utzi digu eta bizitz eredu beteagoa. (1961e:124).

Goresmenik behar balu, aski litzateke esatea, eta ez genuke egia soila baizik esango, Euskal-herriari eta euskarari eskeini dizkiola bere bizitza luze eta lanpetuaren fruiturik gehienak eta onenak, etengabeko ahaleginen gaina eta bikaina. Hori nahikoa ez balitz, gainera, esan daiteke bere obra dugula beharbada asmoz eta neurriz, erabat hartutik eta inorena gutxietsi gabe, euskal idazle batek, noiznahikoa den, sortu duen lanriena[66]. (1965e:125).

Euskal Herriari dion maitasuna, gainera, une latzetan erakutsi du Orixek.

Además, y esto es lo más importante, aquel insociable estuvo indefectiblemente unido a su pueblo por sus escritos y por sus actos, en las horas de dolor más que en los momentos fáciles. (1961h:432).

Horrenbeste alderdi dituen Orixeren, bere lanetan nortasuna isuri eta islatu duen Orixeren, baina batez ere, Euskal Herria eta euskara horren barnean zeramatzan Orixeren obra mardulaz Mitxelenak iruzkindua azterkatzeari jarraikiko gatzaizkio, bada, aurrerantzean ere.

[66] "Hay en todo caso un valor, la grandeza, que difícilmente podrá negársele nunca a su obra". (1961h:431)

5.3. ORIXE ETA EUSKARA

5.3.1. Orixe eta Jainkoa, bere maitasunik bizi eta sakonena[67], elkarrekin aipatu dira arestiko atalean, Jainkoa eta Orixe hertsiki estekaturik aurkezten baititu Mitxelenak[68], baina ezin Orixe, "inoizko eta betiko" Orixe, Euskal Herririk eta euskararik gabe, bere bigarren maiterik[69] gabe, alegia, bere betean ulertu, ikusi berri den bezala.

"Orixe eta euskara" bezalako deizio zabalpean - zabalegipean, apika - bil daitezke, bada, Orixeren eta maite duen euskararen arteko harremanez Mitxelenak adierazten dituenak.

Aurrera baino lehen, halaz ere, beharbada egoki dateke argitzea, ez direla puntu bakar batean Orixeren eta euskararen artekoak bilduko.

Orain, egitasmo edo burubide mailan, Mitxelenak Orixegan nabarmentzen dituenak jasoko dira, bigarren puntu batean, Orixe eta euskalaritzaren ingurukoak eta, hirugarrenean, Orixek mamitzen duen hizkerari Mitxelenak irizten dionaren kontu emango dugu.

Baliteke, sailkapen honi halako artifizial-kutsua antzematea, apika, hondarrik

---

[67] J. M. Aranalde Orixeren ilobak, osabak Jainkoari zion maitasuna Euskal Herriari zionaren gainetik paratzen du, inolako ezpairik gabe:

"Zazpi urte datorren illean egingo dira andik etorri zitzaigula, baña ez da naikoa andik etorri zala esatea, zerk ekarriarazi zun ere jakin, jaun-andreak. Egunero Jaunartzeagatik bakarrik etorri zan Amerikatatik. Askoz atsegiñago zitzaion lur ura Euskalerria baño ta askozaz ederrago zerizkion. Norbaitek onera zanean, arako Iparragirreren "baña biotzak dio: Zoaz Euskalerrira" ura gogoratuz egin zion eskuitza, ta par egiten zun. Ango lurra, ango abereak, ango eguzkia ... askoz maiteago zitun ern-lurra baño. Beraz, etzuan ekarriarazi errimaiteak, Jainkomaiteak baizik". (Aranalde 1965:38).

Baña -Euskal Herriratzea autu ez duen arren- Baztarrikak ere:

"'Orixe'ren Jainko-lana bide batez beti euskera-lana izan da, euskeraren aldeko lana. Bere Jainko-lan osoa euskeraz mamitu dulako. Jainkoa ta euskera, naiz Jainkoa beti lenik jarri, maitasun bakar batez maite izan ditu "Orixe"ren biotz zabalak". (Baztarrika 1965:187).

Aña Goiriak, haatik, liburu berean:

"Mundu-zearko itzul-maulka ostean, barriro zan aberriratu Iparragirre'rena jazo ere-yakon?

Erri alde guztietan
toki onak ba-dira
baña biotzak dio:
Zoaz Euskalerrira

Alaxe erriratu zan". (Goiria 1965:66).

Iztuetak (1991b:38), aitzitik, ez du arrazoi bakarra ikusten Orixeren Euskal Herriratzearen atzean. Arrazoi "materialagoak" ere sumatzen ditu, itxuraz:

"Ez zen, nire ustez, meza-arazoa bakarrik. Inoren etxean zegoen, ia gehienetan dirurik gabe eta Jokin Zaitegiri diru-eske, eta ez zegoen martxa hartan segitzeko pronto".

[68] Arestian gai hau aztertuagatik, Mitxelenak Orixe zendu bernan eskainiriko agur-epitafioak gogora ekartzea ez bide da soberakoa:

[69] "Baña nere emaztegairik kutunena euskera izan da, ta oni atsegin egitearren nere burua arloteago ikustea ederretsi dut. San Salvador'ko Universidadean ere, sarrera be-neukan, polikitxo irabazteko bidearekin; baña nere emaztegaiari txatxan egiten ari nintzala diru askok igesegin dit. Orra egi garbia. Baña nere emazte polita, obeki esan, ederra, ondo lokatu zait, gaixoa. Diru asko ba'lu, guziak neretzat lituke, baña dirua baiño gelago baño dun zerbait eman dit". Onaindiak (1965:127) jasoa.

hondarrenean, guztia kateaturik baitago. Helburu duena erdietsi gogoak bultzatzen baitu Orixe halakoa halako moldez egitera, hizkuntzaz oro har, eta hizkuntz azterketaz dituen usteek, mamituak baldintzatzen duten bezala.

Kapituluaren harian, ordea, egokiago etsi da era honetan egitea, ideien argibidea irabazian aterako delakoan.

Esan bezala, beraz, gogobide mailan, Mitxelenaren ustez Orixek euskara nola ikusten duen, zer opa dion..., lasterrean esanez, ekarriko dira orain hona, puntu zehatzen gaineko kritikak eta abarrak, beste tokietan ikusteko utziz.

5.3.2. Mitxelenaren lanetan kausitzen ahal diren Orixeren euskarazko, bere etorkizunazko, berau gaitzeko ahalmenazko eta abarrezko ideiak, 1956ko *Iliada*, Barandiaranek eginiko euskal bihurreraren iruzkinean irakur daitezke hasteko.

Aurrestiko kapituluan, Barandiaranen itzul-lan hau berariaz aztertu den arren, berriz ere ekarri behar da paperera, arrazoi desberdinengatik kontuan hartu beharrekoa da eta.

Kasu honetan azterkizun hartzeko zioa, Orixek euskara hornitzeko zehazturiko baliabidea Mitxelenak paperera aldatzea da:

> Euskararen gaitasunaz ez diot ezer. Ez ote zuen Orixek berberak esan ez zuela hizkuntza egokiagorik ezagutzen poema hau itzultzeko? (...) Ez; Orixek, oker ez banago diodanez, euskarak hitz elkartuak, grekoaren gisa, aise sortzen dituelako baizik. (1956f:67,68).

Hona hemen –argudioaren indargarri Mitxelenak Orixe ahotan hartzeaz gain–, Orixek euskararen ahalmenaz adieraziriko ideietariko bat: euskarak, ospe handiko grekoak legez, osasuneko sorrindar sendoa du hitz elkartuak eratzeko.

Ikusiko den bezala, euskal hiztegia berritzeko erabiderik indartsuentzat dauka Orixek hitz-elkarketa[70].

Euskararen gaitasun edo ianabes hau ez ukatuagatik –hots, baliabide mailan Mitxelena eta Orixe bat ez datozela susmatzeko goganbeharrik ez izan arren–, elkarren artean adostasun-eza sortuko duen besterik bada, haatik.

Mitxelenak lau urte geroago idatzian –"Asaba zaharren baratza" laneko "Euskal kulturaren mugak" lehen aipatu atalean, hain zuzen ere– kausi daiteke, Orixe berariaz ahotan hartzen ez badu ere, orexarrak ordezka dezakeen jokamoldearekiko bat ez etortzearen iturburua:

---

[70] Itzul-lanezko iruzkinak aztertzean ikusiko da, Orixek euskarari nabarmentzen dion gaitasun hau, Orixeren teorian ez ezik, ariketan ere egiaztatzen duela Mitxelenak:

"Trebe baino trebeagoa izan da beti hitz berriak sortzeko -hitz elkartuak batez ere-". (1956h:75)

Mirestekoa izateke, beraz, egokiagoa eta aberatsagoa izatea euskal hizkuntza filosofia eta jakintza-gaiak adierazteko, entzun ohi dugun legez, inguruko erdara harroena baino. Berez gai denik euskara horretarako eta gehiagotarako, beste edozein hizkuntza den bezalaxe, ezin uka, baina egungo egunean landugabea luzaro landuak baino gehiago eta zehatzago izan? Gaitz dirudi.

Euskararen gehiagotasuna honetan omen datza: euskarazko hitz elkartuak eta erakarriak "zioduna" izatean (*motivés*), alemanez gertatu ohi den bezalatsu. Horrelako hitz bakoitzaren elementuek eta elementu horien antolabideek euskaran bertan dute oinarri eta gaurko euskaldun batek uler ditzake horrexegatik, nahiz sortu berriak izan. Inguruko erdarek, berriz, bestetandik harturiko gaiez –antzinako hizkuntza batetik edo bestetik– osatzen dituzte beren hitz eskolatuak. Horrelaxe, artzai edo ikazkin euskaldun bati azaltzen badizkiogu teologiaren edo fisikaren izkutu sakonak, jabetuko da gure hitzen mamiaz; ez ordea, erdaldun ezjakin bat, erdaraz sail horietan erabili ohi diren hitzak badarabiltzagu. (1960a:43)[71].

---

[71] Orixek euskararen garrasiaz diruen irtziez jabetzeko. (Orixe 1951a, 1953a).

Azken honetan, hain zuzen, Orixeren pasarte argigarri hau irakur daiteke, hizkuntzaz kanpoko ondorio filosofiko-politiko-antropologiko eta guzti:

"Voy a contar un caso instructivo que me pasó en Francia. Una señora distinguida e ilustrada, vecina mía de mesa, había llegado a descifrar todas las palabras del crucigrama del día menos una que constaba de seis letras. Desistiendo al fin –vaya es decir– de encontrarla, por más que había cavilado me dirige esta pregunta: "Caballero, sabría Vd. decirme qué nombre tienen las estrellas que forman la constelación de la lluvia? –*Les Hyades*, le respondí–. *Pardón*, me replica. Se lo escribí, encajó las letras, y "*C'est exact, Merci, Monsieur*", me dijo. Si a aquella señora le hubieran enseñado la astronomía en francés popular, ninguna dificultad hubiera tenido en decir *Les pluvieuses*, o un poco más pedante *Les Pluvioses*. Lo otro era para ella griego... griego sempiterno. El último campesino o marino de Grecia no hubiera hallado ninguna dificultad. Y eso es lo que pomposamente llama *cultura*? La pregunta de la dama francesa con su respuesta se expresa muy naturalmente, en el euskara de los labriegos. Y otras muchas cosas, muchísimas que en los romances **no se pueden decir por falta de composición gramatical**. Hay necesidad sí, de formar una palabra, pero como dentro del idioma hay raíces, no resulta neologismo. (¡A qué habrá que enseñar a nuestros prohombres lo que es neologismo!) Lo que un latín por derivación se dijo con-stellatio, en vasco por composición se dice izar-mordo ¿Habrá un solo **carbonero** que no lo entienda a la primera? *Nola deritza euria dakarren izar mordo ori*? La respuesta es lo de la mujer del quesero que será? *Euriarena*. Y si se quiere formar *euri-izar*, palabra nueva, pero no neologismo valdrá más que esa griega, que no dice más que "las de la lluvia". La nuestra dice "las estrellas de la lluvia", que también pueden decir en griego; pero no en español ni en francés. ¿Y a eso llaman *cultura*? ¡Pedantes! Querrán decir *konstelazionea, Huade'k*?".

Eta aurrerago, eta hemen datoz arestian aipatzen genduen "bestelako" ondorioak:

"¿Por qué nuestro pueblo se resiste a esa pedantería y a esa... barbarie? –Porque no admite separación de clases sociales en su lenguaje, creando uno popular y otro culto, en cuanto esto se pueda, que sí se puede mucho en vasco. Nuestra literatura querrá permanecer popular, democrática, si se quiere, sin cultismos innecesarios y pedantes".

Hementxe datza, gure ustez, Mitxelenak Orixeren euskarari ikusten dizkion akatsetariko bat, hizkuntz maillak ez bereiztea, alegia.

Era berean eta Mitxelenaren ideiei berriz heiduz, hona Orixerenak:

"Explotemos nuestra mina propia, señores Krutwig y Villasante, conociendo bien la lengua de que traducimos o adaptamos y la nuestra propia. Observemos la regla sencilla y sabia de Campión, formulada poco más o menos con estas palabras: "En la composición, los elementos componentes deben ocupar el mismo puesto que fuera de ella en el habla corriente".

Así evitaremos las formaciones viciosas que ni los mismos clásicos griegos evitaron. Si a alguno le parece que Don Arturo exageró al decir que **nuestra lengua se podía parangonar en composición con la griega y la alemana**, el académico de la española García de Diego lo expresó con otras palabras: "el vascuence tiene dentro de sí una vitalidad germinativa de la que carecen las lenguas que lo rodean". (Orixe 1953c:211). (Beltz. gurea).

"Orixek, egia esateko, ez zion (teorian) inola oneritziko, jende xehearentzat eta jaunarentzat euskara desberdinegiak egitean, baina onartzen zizun diferentziaren beharra (...) Eskolatuentzat <garbiagoa> nahi zizun. Praxian, halere, bazekien beste edozeinek adinatsu diferentziak markatzen, hortik ematen bazion". (Azurmendi 1986:131).

Aipamenaren luzea, jasoaren mamitsuak zilegiztatzen bide du, Mitxelenak -zuzenean aipatzen ez duen- Orixeren eta gogaideen iritziak zertan sustraitzen diren agerian uzten baititu.

Mitxelenak ez du hor aldatu iritzian euskararen formazko ulertahalbidea[72] bezton, besterik da hor auzitan.

Batetik, euskara bezalako hizkuntza bat -jakinbideetan barrena berriro hasi dena- bide horiek aspalditik urratu eta ibiliak dituzten beste hizkuntzekin norgehiagoka paratu eta hauei gainetik jartzeak bururik ez du.

Gainera, hala jokatu dutenen argudioari ere gaitz irizten dio. Mitxelenak ez du ukatzen euskarak hitz-eraketarako ahalbiderik indartsuenetarikoa hitz-elkarketa duenik, hitz eratu horien izaeran oinak finkatuz bestek ondorioztatzen duena balzik: euskararen "gehiagotasuna" eraturiko hitzak ulerterrazak, gardenak izatean datzala.

Hondarrik hondarrenean, hizkuntza-mailen arteko bereizte-eza eta honekin hertsiki loturik garbinahia, dira hor tartean[73].

Ez dira hizkuntza arrunta eta berezitua betekizunen arabera zehazten eta ez zaio inolako eskakizunik ez mugarik jartzen jakintzetan erabili beharreko hizkerari[74], hiztegia barne.

Mailak beti bereizterrazak ez direlarik ere, Mitxelenak ez du ontzat ematen jakiteetan erabiltzen diren "hitz eskolatuek", ezinbestean, hizkuntza bateko hiztun ororentzat ulerterrazak, gardenak izan behar dutenik, helbururik "demokratikoenak"[75] bultzaturik egiten bada ere; sailean sailekoentzat izan beharko dute antzemanerraz eta argi.

Horregatik, jakite horietako terminologia antolatzean ez da nahitaezko eskakizuntzat hartuko hitz eratuaren osagaien jendarteko ulerterraztasuna, ezta garbia izatea ere. Besteri begiratu beharko zaio, zehaztasunari, batipat: "zehaztasunak argitasunak eta garbitasunak adina balio du"[76].

---

[72] "su acierto en la formación de palabras, signos precisos y transparentes de nuevos conceptos, ha sido extraordinario". (1960b:149).

"Ni ere ortara ari naiz lan ontan. "Orixe" itz-sorle yayua dela esaten dudanean, itz-erroak izkuntzak berak demazkio: eztitu ark utsetik ateratzen, az atera bear ere". (Altuna 1965:236).

[73] Orixe itzultzaileaz aritzean berriz ere mintzagai hartuko da.

[74] "Esta palabra [*empíreo*], con todo -y esto es siempre lo que se han negado a reconocer Orixe y los que piensan como él-, ofrece una considerable ventaja: que, para el hombre culto, tienen toda una cadena de resonancias históricas, ausente en *zeru goren*, que pueden desarrollarse como un curso abreviado de historia de la astronomía". (1964a:31).

Auzi honezaz, Sarasola (1989).

[75] Orixe (1953c:214).

[76] (1960a:44).

Azterlanean aldatuko dugun bezala, Mitxelenak aitortzen du hizkuntzalaritza-terminologia euskaraz erabili behar duenean ez dabilela garbikeriatan eta Europako hizkuntza gehienetan erabiltzen diren deizioak bere egingo dituela (1968d:89).

Honenbestez, Orixeren euskarazko ikuspegian erreparorik jartzen ez dio Mitxelenak hitz-eraketaz baliatzeari, ez Orixek mamitzen dituenen itxurazko alderdiari; bai ordea, Orixek eta bestek zuzen eraturiko horien eta bere adigaien arteko lokarriari eta erabileremuaren muga lausoegiei[77].

Bestetara baino lehen, halaz ere, puntutxo zenbaitetan gelditzeak merezi du, batek bereziki, jasoko den Mitxelenaren hurrengo aipamenekin ikuskizuna du eta.

Harrigarri samar gertatzen da, arestiko puntuan[78] ahotan ibili den Orixeren aitorra, irakurle-mota guztiz gogoan zuela, eta horren ezaupide inplizito (edo esplizitoa) zuela zioena, alegia, batetik, eta oraintsu aipatu berri direnak bestetik elkarren ondoan ikusirik.

Are harrigarriago bilakatzen, gutxi batzuentzat idazten duela Orixek berak aitortzen duela ikustean[79].

Nolatan, bada, euskalkiak (eta beste zenbait hizkuntza) hain sakonki ezagutzen dituen Orixe, euskal irakurlegoaren nolakotasuna ezagungabea ez zaiona, itzultze-lanean ordu handiak eman dituena, ez da ohartu jakiteetako hizkuntzetako hitzek eskatzen duten zehaztasunaz eta eguneroko hizkuntza arruntarekiko aldeaz, hiztegi berezitua atontzeko moldamoduei dagokien bezainbatean? Euskarak, ezin muzin egin diezaiokeela erabat -Europako inguruko beste hizkuntzen jokabideari kontra eginez-, mendebaldeko jakintzen zainetan dagoen ondare greko-latinoari, esate baterako?

Erantzun bila, Orixeren izaerara eta hezkuntza-motara jo behar da, apika, horrek eman baitezake argibidea.

Puntu honezazko Mitxelenaren jokabidea, teslaren hirugarren zatian -azterlanean, alegia-, eta ondorio orotarikoetan erakusten saiatuko gara.

[77] Honen adibide zehatzak San Agustinen lanaren itzul-lanean irakur daitezke bereziki, erakutsiko den bezala. Villasantek ere berriki, akats berau antzematen dio Orixeren jokamoldeari:

"Baina, beste aldetik, mailegu berrietara ez du jo nahi. Esate baterako, idazlan honetan [*Quito'n arrebarekin* lanean] erabiltzen dituen gaiak Teologia eta Mistika esparrukoak dira, gauza horiei buruz bada jakintza bat, bada terminologia bat, baina berak onartutik den terminologia hori ez dizu erabiliko, inoiz edo behin hitzen bat itzuri bazaio ere. Orduan gauza horiek adierazteko, herri-hizkuntzazko hitz arruntetara joko dizu edo itzulinguru bidez gauzak azaldu nahiko ditu. Baina zer lortzen da horrela? Askotan ezin duzula asmatu zuzen zer esan nahi duen, hazlamuka ibili behar duzula, alegia. *Otoitz bikaina* esaten duenean, zer esan nahi ote du? (...) Anbiguotasun handiko esamoldeetara jo behar izaten du, hartako dagoen hitz teknikoa ez erabiltzeagatik. Hitz abstraktua baztertuko du, eta horren ordez honelakoak erabiliko dizkizu [sic] *nor dana, zer dana, ba dana, ala-naia*, etab. *Bezala* juntagailua ere ahalez baztertu egiten du. Bikainduak, perfekziora iritsi direnak". (1991:471).

Nolanahi dela ere, dudarik ez dago, hasieran ulertezinak edo ulergaitzak direnak, askotan ohiturak bilakatzen direla ohiko.

[78] 2. Nikolas Ormaetxea: nortasuna eta gogobideak".

[79] Irakurle-ezaz gerra ondoan esaten dituen zenbait aipatu baditugu ere, gerra aitzineko beste honakoa ere ekarri nahi genuke, honetan behinipehin Orixek iritzirik aldatu ez zuen seinale:

"Egia da, gure eliak ez zuela deus askorik irakuri nahi, liburuz beintzat.

Oraindio ere, liburua erostean, ipuin-liburua bada ere Meza entzuteko biderik bai ote duen galdegiten du. *Aitzia*-n ere, bein baino gelagotan ikusirik gaude "Ebanjelioa" irakuitzen dutela aufenik, edo batzu batzuan bakarik. Gainerontzean liburuak ez dite gose aundirik ematen. Ezin uka diteke, ordea, esan dugun bezala, neuftitzetarako itoa dela euskalduna". (Orixe 1927:175).

5.3.3. Orixe, honetan ere "Galileo aurrekoa" izateak, hots, jakintza espekulatiboak enpirikoen gainetik hobesteak, izan ote dezake ikuskizunik?

Orixe ez bide da jakintzetan gertatu diren eraldakuntzez jabetu, edo nabaritu bada ere ez die jaramon gehiegirik egiten aldakuntzok ekarri dituzten azterbide zorrotzei eta maila guztietan eskakizun duten zehaztasunari.

Egoera horretan, ausaz, euskarak berez dituen baliabideekin nahikoa bide du, "neologismo" –adiera batean–[80] diratekeen hitz eratuen bitartez, hots, elkarketaren bitartez, konponduko bailuke auzia.

Baina beste bi arazoren itzala ere sumatzen da atzean: beherago mintzagai hartuko den –eta horregatik bidenabar baino aipatuko ez den– garbizaletasunarena eta euskararen erabilesparruaren zedarriena, alegia.

Garbinahia izan daiteke Orixeren hiztegi-berrikuntzan eragile indartsua, zehaztasunaren edo nazioarteko hizkera berezituan halako hitzak dituen adiera jakinen gainetik, "euskal" sorbideez eraturiko edozein nahiago izatera daramana, ekar ditzakeen ondoreak dakartzalarik ere[81].

Esan den bezala, bada besterik, ordea: noraino axola zaizkio Orixeri "zientziak", eta jakintza horietan erabili beharreko euskara?[82]

---

[80] "Neologismo" hitzak, beraz, bi adiera ditu Orixeren luman, nahiz eta bere azalpenean hain argia ez izan: batetik, Campion-en erizpidean oinarrituta, adierazi nahi du euskarak, alemanieraren antzera, hitz berriak sortu behar dituela euskal gramatikak ahalbidetzen duen neurrian; bestetik, kultur hitzak beste hizkuntzetatik hartu behar direnean, beharrezkoak eta egokiak bakarrik onartuko direla. Ahal dela, etxeko neologismoetara jo behar da, ezinbestean bakarrik maileguetara". (Iztueta 1991a:853).

[81] "Neologismoak, beste hizkuntza landuetan beharrezkoak izan diren bezala, euskarak ere behar ditu. Hau da Orixeren tesia, errotik defendatzen duena (...) Kontuan har Orixek neologismoak sortu dioela eta ez beste hizkuntzetatik maileguz hartu. Hizkuntza landuetatik, grekotik nahiz latinetik nahiz beste edozeinetik [sic], hitz kultuak besterik gabe hartzeari kontrajartzen zaio, euskara harrobi aski aberatsa bait da kontzeptu igoenen edukina zehaztasunez adierazi ahal izateko. Orixe neologista da kontzeptu teknikoak adierazteko hitz berriak sortzen dituen zentzuan, baina ez da neologista hitz tekniko horiek beste hizkuntzetatik bere hartan hartzen dituen zentzuan. Horixe da, ez besterik, neologismoaz uiertzen duena: euskarak hizkuntza tekniko-zientifikoa lantzeko daukan gramatika-gaitasuna". (Iztueta 1991a:824,825).

[82] Horren erakusgarritzat hartu behar al da ondokoa? Ala, Mitxelenak, iragaitzaz, besterik ere erakutsi gogo du, hots, Orixek bere "jakin-gosea" asetzeko itun berrira jotzen duela, behiala (Erdi Aroan...) egiten zen bezala eta, honenbestez, honetan ere "Galileo aurrekoa" izatearen beste adigarri bat litzateke?:

"Ez dut honekin Alta Olabide denik apurrena ere gutxietsi nahi. Altzitik joera horretan [garbizaletasunean] hain gorengoa delako aipatu dut. Orixek nonbait esan duenari nagokio: Jakintza-gaietan euskal liburu bakar batez baliatu izan dela, «Itun Berria»-z". (1953b:52).

"*Nonbait*" hori, oker ez bagaude, *Gernika* aldizkarian 1950ean Orixek argitara eman zuen "Errores de vascólogos nuestros (conclusión)" (1950c) artikulua da:

"Debo decir en honor de Olabide, que la única vez que he acudido a leer vasco por necesidad científica, es a su versión de las epístolas de San Pablo, que entiendo mejor que en griego y en latín y mejor que en francés y en castellano". (Orixe 1950c:25).

"Maileguzko hitz landuak ezin badira onartu, zer egin? Orixek, arazoa zuzen planteatzeko, jakintza eta hizkuntzaren txukuntasuna bereizten dizkigu edota, bestela esanda, kultura hutsa eta hizkuntzaren kultura, gaztelaniaz "ciencia gramatical" eta "lengua gramatical". Jakintzak bere iker-eremu espezifikoa du eta hizkuntzak berea, derrigorrez batera ez doazenak: "Yakintasun ori, latiñez naiz beste izkuntzaz ikasi dezakegu, bañan gure izkera euskeraz ikasi bear dugu. Izkera ez da lantzen edo yakintsu biurtzen, besteren basotik sasiak ekarriz.

Ez dirudi jakintzek, zenbait jakingaik behinipehin, Orixeren arreta erakartzen dutenik:

> Ba-du euskerak bere edertasuna non agertu: ele-eder edo literaturan, izate-gaiean edo metapisikan, eder-legoetan edo estetikan, izakeran edo gramatikan. Utzi dezagun kimika[83] ta olakoak, oriek ez baitira giza-izkuntza yatorra. Oriek ez dute batere edertu inongo izkuntzarik. Itsatsi bai, gogotik. (Orixe 1959a:92).

Orixek berak aitortzen du zenbait jakite ez zaizkiola lantzeko iruditzen –jakintzen aukera bera ere adierazgarria da– eta arrazoia eman ere bai: ez dira euskararen edertasuna erakusteko aproposak. Honenbestez, pentsatzekoa da, ez dagoela zer saiatu jakite horien euskal terminologiarik edo hiztegi bereziturik osatzen ere.

Orixek, beraz, euskararen edertasuna, eta honek aurretik dakarren euskara lantzea eta gaitzea non erakutsi begiz loa du, baita horretara makurtzen duen zioa aitortua ere.

Orduan, nola ulertu behar dira Mitxelenaren hurrengook?:

> Antzinako aberastasun ugariak gordetzeaz gainera, ahaleginean saiatu da gure hizkuntza aldi ere eginkizun berrietarako egokitzen, hizkera zallu, labur, bizlago bat moldatzen. (1958h:98).

Orixek egin zuen lehenbizi harako ametsa hura, Lizardik adierazi bazuen ere gero hitzez:

> Baña nik, izkuntza larreko,
> nai aunat ere norenaikoa:
> Yakite-egoek igoa;

Orixintxe ere, euskal-izkera inguruetakoak baño landuago daukagu". Zentzu honetan, kultura huts-garbiaren lanketan egiteko handia badaukagu ere, hizkuntzaren kulturan euskara zuzio-hizkuntzak baino aberatsagoa dugu. Frantsesa zein gaztelania teknikotik zerbait euskaratu behar izan duenean, inoiz tokatu izan zaio jatorrizko testua bera lehenik ulergarri bihurtu beharra, gero itzuli ahal izateko. Noizbehi ere, eta hau da Krutwig-i ematen dion aholkua, lehenik hizkuntzaren kultura landu behar da, eta gero, ahal den neinban, kultura zientifikoa. Gaizki egitekotan, hobe bertan behera uztea.

Horregatik, eta puntu honek asko argitzen du Orixek euskara tekniko-zientifikoaz zeukan ikuspegia, ez dago euskaraz zertan emanik kultura zientifiko osoa, hemen disziplinak oro sartuz. Aitzitik, egokiago ikusten du helburu horretarako latina erabiltzea, Leibnitz-ek eta, egin zuten bezala. Galdera airean uzten du: "¿Por qué no hemos de hacer la cultura pura en latín y la cultura del idioma en vasco?". Beste pasarte batean, erdi-txantxetan bezala, Orixek bere burua eskaintzen du Europa eta Amerikan zientzi gai bakoitzean egindako eskulibururik onenak latinera itzultzeko, baldin horretarako Krutwig-ek subentzioa lor baliezaio. Dena dela, bera bederen ausartu zen Metafisika eta Estetika euskaraz ematen eta, bere ustez, latinezko nahiz neolatinezko testuetan bezain argi eta gozo". (Iztueta 1991a:836,837).

[83] Ez da Orixe ikuspegi honen jaun eta jabe bakarra. Geroagokoetara gabe, garai horretako (1950-1960 arteko, esate baterako) aldizkariei begirada axalekoa emanez gero, honakoak ere irakurri ahal izango ditugu:

"Landuzale berri batzuek ba-ditugu aurrerantzean euskera areago eraman nai dutenak: Philosophia Naturalis, Bacon, Newton eta Einstein'en eremuetara. Ez dago gaizki ametsa. Nik uste ordea, ez ote dan oraingoz urrutixo joatea. Teoloji gaiak, Kimika ta antzekoak ikasteko beti jo bearko dugu erderara. Gure indar eta almenak neurtu gabe geiegi eskatzea kaltegarri litzaiguke agian. Apaltxo iraungo ba'genu ere pozik. Gure literatura "quadrivium"otan sartuko nuke: 1)Kristau-ikasbide ta erlisioa 2)Erri-Jakintza (ipui, kanta, komeri, bertso ta ele-berri) 3)Gauzen ikaskizunak 4)Szientzi Matematikaren apur eta oñarriak, astapenak alegia". (Aspaldiko 1954:154).

Erdi Aroko ikasketen itzala "quadrivium" honetan eta Orixek hautetsietan?

soña zaar, berri gogoa;
azal orizta, muin betirakoa. (1961e:118).

Orixe zendu ondoko 1961eko lanean (1961e) landatzen ditu Mitxelenak azken hitzok, euskararen geroak kezkatzen duela Orixe, euskara noranahiko bihurtzean ikusten duela beronen etorkizuna adierazten dutenak, alegia.

Eta testuinguru berean ulertu behar da, beharbada, lau urte geroagoko ondokoa:

Berak erakutsi digu –egitez, hitzez baino gehiago– gai dela gure hizkuntza edonongo edozer itzultzeko eta bereganatzeko. Berak, gauza dela euskara bihotzaren sentierarik izkutuenak adierazteko (...) egiazko euskaldun eta euskaltzale, Euskalherriaren seme jator, ez hitzez eta othuz, egunoroko lanaren lanez baizik. (1965e:129).

Orixe, beraz, Mitxelenari euskara noranahikotzeko egitasmogile ez ezik –areago, agian–, asmo horren mamitzaile begitantzen zaio. Alde honetatik, bada, Orixe ez da arrunteko apologisten gisa jokatua[84].

Halaz guztiz, arestian jasoa berriz ere begi aurrean jarriz gero, ez ote zaizkio *noranahiko* horri hesi estuxeagoak ezarri behar?

Mitxelenak ez dio hemen gisa horretakorik deus. Nolanahi dela ere, bitxi gertatzen da, Lizardiren neurtitzetan "yakite-egoek igoa" irakurtzea, Orixek jakintzetan darabilen iragazkiaren ondoan, bederen.

Honen ondoan, ezin atzen daiteke, 1951n Mitxelenak euskal literaturan egiten duen sarbidean ere, Orixe goraipatu ondoan, euskara "kaletartzeko" premia aldarrikatzen duela. Areago, bide hori amaitutzat ematen duela:

Egiteko hori egina dago beraz. Lehengoan badirau edo hatzeak badarama, ezin urratuzko aztarna utzi du betiko. Eta oraindik ere, Jauna lagun, agiriagorik utziko du, Orixek bere-bere duen beste poema hori argitara eman dezanean. Denborari gogor egitea, etxeak hartu dituen kalteak nolabait konpontzea, hizkuntzak aurrerantzean ere bizitzeko behar duen kemenez indarberritzea, gure arloa da. Larre hizkuntza dena kale hizkuntza bihur dadin, hain mate dugun garo usaia –noiZartek gorotz usaia esango luke– zertxobait galtzea nahitaezkoa izango du. (1951c:26)[85].

---

[84] Ildo honetan, begira daitezke adibide gisa Orixeren (1949a, 1950e) edo (1950b), azken hau bereziki.

Hona erakusgarria:

"Otros muchos, señalando los defectos de los demás, nunca escriben nada por su parte si no es en erdera. Parece que andan a caza de gazapos y que ese es su único oficio, en el cual encuentran especial regocijo. No hacen más que desanimar a los demás con sus críticas burlescas; y lo que es peor, no quisieran que se escribiese nada en nuestra lengua". (Orixe 1951c:18).

Ibiuetak (1991a:887) berariaz erreparatzen dio Orixek erdaraz idazten zuten euskaldun-euskaltzaleei irizten zienari.

[85] Hurrengo kapituluen astiroago aztertuko dira Mitxelenaren hitzok.

Funtsezko hastapen hau, nekez lot dakioke Orixeri[66], Mitxelenek *Euskaldunak* poemari, Euskal Herriaren ispilu izateko gatzaturiko lanari, 1961ean egotzia alboan bada batipat.

Halarik ere, ez bide da komeni bistatik kentzea, 1961eko lan berean irakur daitezkeela, Orixek amestu zuela gero Lizardik hitzez gatzatu zuen harako "euskara noranahikoa" eta –*Euskaldunak* astiroago aztertzean erakutsiko den– Orixek, Euskal Herriazko ikuspegi ez osoa ematen duela, "huts larriak" daudela dioen bestea.

Berriz galdera: Orixeren euskara noranahiko bihurtzeko asmoari zedarriak jarri behar eta, zedarri horien barnean betetzen al da edukiz egitasmoa?

Argibide moduko zerbait proposatzerik badago, esan daiteke, apika, Mitxelenak Orixeren asmoa txit laudagarri eta imitagarri otsiagatik, dena egina ez dagoela azpimarratu gogo duela; hau da, Orixeren (Larramendiren, Lizardiren) egitasmoak zutik dirau, baina ezin bertan planto egin, hortik aurrera jo beharra dago.

Orixe saiatu da euskara bere gisara eta bere gogobideen mugen barne noranahiko bilakatzen, alabaina bada ordua euskaldun kaletarra ere ber moduan saia dadin. Mitxelenaren burubidea honela laburbil daitekeelakoan gaude: asmoz, Orixe bai; jomugaren mami zehatza, aitzitik, egoki-berritu, "kaletartu" beharra dago.

Aurreko auzia aldez edo moldez ukitzen duen besterik bada. Euskarazko berazko ikuspegiaren eta beronen erabilmugaren gainean Orixek berak adieraziarekin hagitz ongi josten ez diren Mitxelenaren hitz batzuk, hain zuzen ere:

> Orixe ez zen inoiz hizkuntzaren edertasun hondargabeetan ito: hizkuntza zerbaitetarako nahi zuen, euskaldunen izaera, gogo-giroa eta bizimodiak adierazteko. (1961c:120).

Itxura guztiz, Mitxelenak hemen ez dauka Orixe euskara bitxi polit eta ukiezintzat daukatenen samaldakotzat eta, hizkuntzaren edertzaile iritziagatik[67], ez zaio Mitxelenari iruditzen, Orixek euskara apaindu eta hornitzearekin aski duenik, euskara adierazpide baitu orexarrak, ez hornigai hutsa[68].

Alabaina, berriz ere galdea, ez al du Orixek berak –euskalariaren eta eder-sortzailearen arteko borroka hezurmuinetan bizi duen horrek– irizpide erabili, hizkuntzen edertasuna

---

[66] Bai ordea, hein batean bederen Txillardegik *Leturian* gatzatuari, ikusi den bezala.

[67] "Bi eratara, ordea, hura [Azkue] biltzailea baitzen batez ere, txingurri langilearen antzera, hau [Orixe], berriz, edertzailea". (1961c:121).

[68] "Euskara ez da txukun eta ederki bildurik, hauts apurrik gabe, kanpotarrei erakusteko gorde behar dugun bitxia edo jostailua, zenbait etxetako liburuen antzera. Dirua edo gure probetxurako asmatzen dugun edozein tresna bezala, erabiltzeko da, eskuz esku eta ahoz aho ibiltzeko". (1954g:40).

erakutsi ahal izatea ala ez izatea, horretarako egokiak diren eta ez diren jakintzak bereizteko eta honen ondorioz euskararentzako jorrasaila hautatzeko?

Badirudi, beraz, Orixeren beraren lehengo hitzekin aurkaesanean leudekeela Mitxelenaren azken hauek, errenteriarrak alboratzen baitio, hizkuntza ez litzaiokeela edertasuna jorratzeko arlo soil gisa axolako, hizkuntzan "lanabesa" ere ikusiko lukeela. Mitxelenaren esanetan, Orixek, hizkuntzaren erabilbalioa betekizun honetan ikusten du: euskaldunen izaera, gogo-giroa eta bizimoduak adierazi.

Azken kasu honetan, halaz ere –noranahiko nahi izatean argitu ez duena–, Mitxelenak zehaztapena egiten du: Orixek islatu gogo duen euskalduna, Orixeren euskalduna, oso euskaldun-mota zehatza da:

> Eta euskalduna, harentzat, ez zen hirritarra, nekazaria eta itsas-gizona eta aire artzaia eta ikazkina baizik. (1961e:120)[89]

Auzi honen barne-katramilen argitzea *Euskaldunak* ederlana aztertzerako utziz, ondoriozta daiteke –arestian jakintzetako terminologiaz egin bezala–, nekez ahaleginduko dela bere ereduan kabitzen ez den euskaldunarentzat hizkera-molde bat ontzen[90].

5.3.4. Orixeren hizkuntz egitamuak beste hari-mutur bat du, garai batean –eta Orixeren itzala gogoan hartuz– berebiziko garrantzia hartzen duena, euskararen batasun-bideari baitagokio bete-betean.

Lehenik eta behin esan daiteke, eredu begitantzen den Orixe ez duela Mitxelenak batasun-eredu. Aburu hau irmotzeko irozgarririk aski bada Mitxelenaren testuetan, modu batera zein bestera adieraziak.

Aitorkizunak, astiroago arakatuko den Orixeren itzul-lanean, antzeman daitezke aipatu jokabidearen lehen zantzuak.

Mitxelenak, Orixeren gidaritza kolokan jartzeaz gain[91], Orixeren bere gisa ibili nahiak nolako ondore gaiztoak dakarzkion aurkeztatzen du:

---

[89] Ezta fededun ez dena ere, antza.

"Ta bigarren sailetko ["Jainko-idaztanak" ez direnetan, alegia] lan bitan ere beintzat, Santa Cruz Apaiza ta Euskaldunak poeman, arrigarriro ageri da "Orixe"ren fede bizia, Jainko-griña. Euskaldunak, adibidez, Euskalerri fededunaren poema degu lenengo itzetik azkeneraño". (Baztarrika 1965:167).

[90] Ba ote ikuskizunik honek guztiek, "euskara noranahiko" bilakatu nahi izan dutenen aitzindaritza 1984ean Larramendiri emateareki?

[91] (1956h:77). Itzuliko gara puntu honetara.

> Bide ibiliak maiz utzi ditu Orixek (...) Adizki jator baten ordez, *natzaio*-ren ordez, alegia, bi erabiltzen ditu, euskal literaturan sarrerarik izan ez dutenak (...) Orobat *zatzaizkio*-ren ordez (...) Berdintsu gertatzen da *diego* eta bere senideekin. (1956h:75).

Batasun-eredu gaitza, beraz, era honetako jokamoldea duena.

Beste erakusgarri bat, "Asaba zaharren baratza" -hamaikatan paperera ekarri eta ekarriko den- lanetik har daiteke.

Mitxelenak Orixeren (eta Azkueren[92]) adizkien erabileraren gainean esanek[93], garbi asko uzten dute agerian, bere gisara ibilgogoaren eta bere buruaz besteren aginterik ez onartzearen ondorioz[94], Orixek euskara idatziaren moldea finkatzean areagoturiko nahastea: *nendun* adizkiarena da, kasu honetan, adibide paradigmatikoa, honela esan badaiteke[95].

Orixek "bere" euskara egiteko eskubideari ez dio ukorik egingo eta, ez zaio bestek esanari aise makurtuko:

> Aitzitik, hasieran eta geroago ere bai, bere gisa eta bere kabuz ibili zen luzaroan, giroari entzungor eginik. Bere bidetik abiatu nahi zuen eta bere buruaren jabe izan, gizona izan daitekeen neurrian, ez inoren esanera egon. (1965e:126).

Eta entzungor egiteak ondorea du, erakutsiko den bezala, Orixeren aldian aldiko hizkera-moldean.

Bere bidetik dabilelako, euskara hain errotik ezagutzen duen Orixegan, Mitxelenak ez du -ezin du- batasun-xede gidaririk azpimarkatu, aberastasuna da nabarmentzekoa:

---

[92] Mitxelenak Azkue eta Orixe ez ditu bezteko bakarrik elkarganatzen, ikusi eta ikusiko den bezala, zuzen eginak ere elkartzen ditu, biok -nor bere modura- herri-ondasunen zaintzaile izateak, alegia.

[93] Orixe euskalariaren hizkuntz idelak miratzean autu izango denez gero, ez zaio orain asturo erreparatuko.

[94] Orixe, bakarrik hamar ibili zela aditzeko aieruak badira Mitxelenaren hitzetatik lekora, besterenetan ere. Hona iztuetaren bat:

"Euskal Herriak ez bait du bere Euskal Unibertsitaterik ezagutu, hori dagozkion tan akademikoen supientzi zeregina, beti ere notabaitzeko behin-behinekotasunez eta oso aldizka, Eusko Ikaskuntzak egin izan du, Euskal intelektualen plataforma izan da. Alabaina, euskal literaturari nahiz euskeralogiari buruz egindako ez hitzaldietan ez bestelakoetan ageri da Orixeren izenik (...) Eta ordurako inoren izena sonatua baldin bazen, batipat 1920ko hamarkadatik aurrera, Uitziko artzainarena zen. Hala ere, bego hor bitxikeriaren irriñoa, ez bait dakigu Orixek huts egin zion Eusko Ikaskuntzari edota, agian litekeenagoa dena, honek hari. Orixek ez du lekurik euskal "inteligentsia" elitistaren zerrendan". (iztueta 1991a:291).

[95] "Nork sartu ote du burruntzalia nere eltzean, esaterako, *San Agustiñen Aitorkizunetan*, nik *nendun* ezarri-toki guztietan *nuan* ipinteko? Noren baimenez egin dute ori? (...)

Ez al didate nere euskera egiten utziko? Zer jauntxokeri da ori? Nik ez diot inori agindu nere antzera egin dezan. Egin baldin ba'dute, ta ez gutxik, diotenez, olek atera naute jauntxo, ez nik nere burua egin dudalako". (Orixe 1959a:90). (Beltz, gurea).

Orixek hizkuntzaren aberatsaile izateko dohain hobeak zituen batzaile izateko [balno][96]. (1978c:168).

Gogorrago esanda:

NICOLAS de ORMAECHEA, «Orixe», guía principal de la minoría más activa, fue, sí, un maestro del lenguaje, arcaísta o innovador, apegado al color local al tiempo que introductor de influencias procedentes de los puntos más diversos en el espacio y en el tiempo, pero también **un anarquista que modelaba la lengua según su gusto personal**. Siempre defendía la libertad del autor frente a toda regla[97], excepto, de modo más bien curioso, en lo referente al orden de palabras en la

---

[96] *MEIG* saileko liburu-paratzaileak "erautsia".

[97] ... Eta EUSKERA'REN BATASUNA eta EUSKALKIAK nola ikusten dituzu?

-Ez naiz egundo izan BATASUNA'ren aldeko bero-beroa, batzuk aditzen duten eran.

-EUSKERA'REN BATASUN-EREDU BAT, zure ustez nolaz lajutua bear luke izan?

-Nere iritziz, BATASUN-EREDU BAT, auxe litzake: *bakoitzak besteren euskalkiak ikasi ditzala, irakurtzeko lain beinizat, eta orra or BATASUNA*.

-Eta erri-ezikasiarentzat, zer?

-Erri-ezikasiari ez dio ajolik, gizona, beure bidetik juango da, eta erri-ikasixamarra, laister jabetuko-da, besteren euskaigiz.

-Nik ere ala uste, "Orixe"

-Bai, ba; ta ala, gure denboran, ikasixamarrak eta gogoz eta poliki irakurtzen zituzten "HERRIA", "ARGIA", "EKIN", "JAUNGOIKO ZALE", "ZERUKO ARGIA", etz., baita "EUSKEREA" ere.

-Oraiñaldian ere berdin gerta-dedin, zer uste dezu bea: 'tzakela egin?

-Auxe: Bizkayak'k batu dezala beurea, guk aditzeko eran, au da: *gure euskalkietatik geiegi urrundu gabetanik*. Orobat, *besteok*.

-Baiña, baiña...

-Zaude pixkabat. Entzun: BATASUNIK ez bedi sortu, LITERATURAN!

-Zergatik diozu ori?

-Kaite aundia litzakelako.

-Zer dala-ta?

-Bakoitzak berezko *jasa, jaidura, bairotasuna*, galduko lukialako. Esan dedan *batasun* ori *jakingai* edo *jakinkizunetarako* bedi!". (Garmendia 1965:55,56).

Saihetseko bi ohar: ez bide da desegoki Aranak euskalkiz euskalkiko molde "batuei" zeriztena gogora ekartzea, bat, eta bestea, Orixek literaturarentzat nahi ez duen batasunaren erakusgarritzat hartu behar al da, lerro gutxiren aldearekin, *euskalki* eta *euskalgi* irakurri ahal izatea?

Era berean, argigarri deritzogu Orixek 1922 urte inguruetsuan pentsatzen zituenen adigarri diratekeen besteok hona ekartzeari:

"No hay inconveniente en que la Academia trabaje en la unificación de la ortografía, sí en cambio a nuestro parecer, en que se dé a unificar **la sintaxis**, y sobre todo **la morfología** (...) ¿En qué forma se deberá practicar, pues, la unificación sin adoptar ningún dialecto fijo ni limitar por selección la riqueza de todos ellos? **Dando libertad a cada escritor para que en cada ocasión, género literario y otras circunstancias que se le presenten al escribir, escoja con tino y siempre con arte, y use con prudencia sin acumularlas las formas más distantes y extrañas sin excluir ninguna.** [Grekoek egin omen zuten gisan, lehen esan duenez] (...) Rehuyendo, pues, todo aquello en que cada dialecto se aparta mucho de los demás, pero usando de elementos de muchos dialectos consiguió [*Píndaro*] que la aplaudieran en Sicilia, y que en la isla de Rodas, tan distante, grabaran con letras de oro su preciosa oda al púgil Diágoras, natural de ella. Esa es la norma que me parece más acertada, y **ninguno tan apto para realizarla que el mismo escritor**, que con amor más sacrificado e idealista del que es posible en cualquiera discusión colectiva, acogerá diferencias de dialecto y podrá ser más amplio en la elección de formas (...) **Cada escritor, pues, según el fin y la índole de la obra literaria** [lehen aipatu du zein euskalki iruditzen zaion egokiena zeregin bakoitzeko: eliz gaietarako, gipuzkoarra; beste lako gaietarako, literatur lanetan, lapurtera] **es el llamado a unificar el lenguaje, entendida la unificación como es debido**. Lamentarse del exceso de dialectos y quererles reducir a uno inflexible

frase. (1982b, *LH*:222)[98]. (Beltz. gurea).

Anarkia[99] deitzen du Mitxelenak erdal testu honetan, Orixek idazleentzat eskatzen duen askatasuna. Ezin, nonbait, Mitxelenak askatasuntzat jo adibide bat ematearren honakoak idaztea, Azurmendik jasotzen duen bezala:

> Lerro gutiren aldearekin, *itxedon/itxoin/itxaron; isila/isilla/ixilla; probetxu/protxu*, etc., nahastuak aurkituko ditu. Eta horien antzeko beste milla: *yayo/yaio/iaio; aulao/aho/agolabo*, eta abar. (Azurmendi 1976:109)[100].

Bere gisa ibiltzea ez da, haatik, ortografiazkoetara mugatzen. Horietan ez ezik[101], bestetan ere, morfologian batipat, gogoak ematen dion bezala euskara erabiltzeko

---

formado sí en cuanto al léxico del caudal de todos, pero adoptando una morfología estrecha y matemática, es procedimiento antinatural, antiartístico y absurdo, incapaz de retener la ruina del idioma, y muy capaz de apresurarla. Es de esperar que los que se admiran de que en nuestro país no se venden ni leen ciertos libros sólo inteligibles para cuatro iniciados en el mismo secreto, vean pronto en ese fracaso la imposibilidad de salvar el idioma y de fundar una literatura. A la reconstrucción lógica hay que oponer la histórica, y, sobre todo, la psicológica". (Orixe 1922:43-54). (Beltz. gureak)

"Y siguiendo con el paralelo helénico, el aprovechamiento literario a la griega de nuestra diversidad dialectal, tal como lo propuso Orixe más bien a principios de su carrera, no parece posible o, al menos, no es por ahí por donde han ido después las cosas. Bien al contrario, se ha llegado hoy en día, y es a mi entender una suerte que exista, a un esbozo de lengua común para el uso escrito como p[illegible]r paso para la normalización en ciertos empleos de la lengua hablada". (1981g, *PT* 38)

[98]Bakanduriko pasarte honen aurrekoa ere aberezgarria izan daiteke, batasun-bidearen malkarra agerian uzteko:

"No obstante, sería erróneo suponer que de modo paralelo [idaztarsk eta hauen motak ugaltzearekin batean] se habían hecho progresos en lo tocante a la normalización de la lengua escrita. Bien al contrario, al presentarse de modo habitual lo nuevo como rechazo de lo viejo, inválido ya por diversas razones, el respeto a las normas antiguas, cada vez menos conocidas además de menos vigentes, fue disminuyendo, hasta el punto (el máximo, o el mínimo si se prefiere, se podría acaso poner en 1936 y en los largos años de clandestinidad de la postguerra) de que ya no había norma que tuviera curso fuera de cada grupo o grupito". (1982b, *LH* 222).

[99]"Hizkuntzari dagokionez, aldiz, ez da berdin gertatzen. Euskera ongi ezagutzen zuen eta trebetasun handi batez erabiltzen zuen, hala obra orijinaletan, nola egin zituen itzulpen paregabeetan «Hizkuntzaren nekazale», euskera hizkerak motel eta makal izateari utz ziezaion ahaleginduz zen batez ere. Euskalki guztiak ezagutzen zituen eta oroz baliatu zen bere esperimenduetan, euskal prosarentzat bide berriak irekirik. Baina esperimenduzaletasunaren ondorioz, «Orixe»-ren obraren balorearen [sic] desberdintasuna eta koherentzi falta nabarmentzen dira. Hori da hain zuzen «Orixe»-ren behartoparik handiena, gaurko idazleentzat eredu bezala jartzerakoan". (Sarasola 1971:66).

[100]Horrexegatik, harrigarri xamar egiten zaigu Otaegik (1992:182) Lizardiren eta Orixeren jokamoldea bateratzea:

"Izan ere, Orixerekin batera hizkuntz eredu eta hizak **idazteko** era bakar eta osoa erabiltzearen aldeko bait da [Lizardi], hizkuntzaren normalizazio linguistikoaren aldeko". (Beltz. gurea).

[101]Orixeren lirzpide ortografikoetan arguclio nahiko bitxiak topa daitezke. Esate baterako, (1950d:41-43) pleguetan ematen dituen arrazoiak. Hauek azaltzeko modua guztiz gure egingo ez bagenuke ere, *x*-en alde eta *ś, sh*-en kontra agerí da

(1952b:170,171) artikuluan berriz, eta Arana harturik lagun, *l*-ren aldera makurtzen da.

eskubidearen jabe ikusten bide du Orixek bere burua. Mitxelenak San Agustinen lanaren euskal bihurrerari eginiko kritikan edo, Joxe Azurmendik garbikeri bidearen azkentzat jotzen duen[102] "Asaba zaharren baratza" 1960koan, ageri askoan uzten dute morfologiaren aldetikako nahaste hau.

Iragaitzaz baino aipatuko ez den beste auzi bat ere bada jaso berri den erdal aipuan[103]: Orixe eta hitz-hurrenkeraren arteko harremana, alegia.

Mitxelenak hor esanaren arabera, Orixek idazleari jartzen dion lokarri bakarra hitz-kateatearen antolamodua dela aditzen da. Orixeren ikuspegi honek ikuskizunik izan dezake, hizkuntzetan, oro har, eta euskaran bereziki, sintaxiari[104] ikusten dion kokaleku eta pisuarekin. Hala ikusten delako, Orixeren hizkuntz ideiak aztertzerako utziko da.

Jasoagatik, beraz, ez da neke ondorioztatzen Mitxelenaren ustez, Orixek euskara batuaren osabideari ez diola laguntza larriegirik eskaini. Euskararentzat aski larria zen atakan, hain premiazko zen irtenbide-bilatzean, Orixek –zuen itzala ezin ahantziz– bateratzearen alde jokatu beharrean –hein batean, behintzat–, nahastea areagotu du.

Ez ote da Orixe egoeraren larriaz jabetzen? Ez ikusten, duen itzala dela medio, berak esan eta eginek nolako ondorioak izan ditzaketen?

Orixek bere buruari omen dion atxikimenduak argi dezakeenaz gain, beste alderdi bat ere izan daiteke tarteko, apika.

Orixe ez da hizkuntz egitasmogile –ofizioko izatearen zentzuan ez, bederen– eta, euskararen geroak kezkatuagatik, bizi dituen barne-etsaitasunen borroka horretan,

---

[102] "Hein batean, gerra aurreko «garbikeria» bidearen azkena signifika dezake, bide berriaren finkapena behintzat". (Azurmendi 1982:77).

[103] (1982b, *LH* 22).

[104] Orixerentzat sintaxia eta hitz-hurrenkera noraino diren edo ez diren antzekoak susmoa egin daiteke:

"Urrenago, itz-urrenean datza gure izkeraren indarra" dio Orixek (1963:14) euskal lestuan eta, honela berriz, Orixe berak erdarazkoan: "No olvidemos entretanto que la fuerza de nuestro idioma está principalmente en su sintaxis". (Orixe 1963:15).

Mitxelenak ere Orixegan muga zorrotz eza ez ote zuen igertzen ondorioztatu daiteke honakotik:

"No estará de más advertir que el orden de palabras, más bien libre que forzado, tiene una importancia poco común en nuestra lengua, hasta el punto de que *joskera*, empleado como equivalente laxo de sintaxis, quedó en la práctica reducido a poco más que una combinatoria sintagmática. Todos somos conscientes de esto desde que Severo Altube, cuyo centenario celebramos este año, publicó *Erderismos*, libro cuya parte más recordada, precisamente por ser sistemática, es la que se relaciona con el orden de las palabras, problema con el que tuvo que enfrentarse de nuevo al tratar del acento vasco. Entre nosotros, y recuérdese si no a "Orixe" por ejemplo, pecar contra la "sintaxis vasca" (*euskal joskera*) ha sido ante todo faltar en la correcta colocación de los elementos gramaticales autónomos, es decir, generalmente de las palabras". (1979f:9).

"Orixek hitzen hurrenkera eta joskera bereizten ditu. Azkuek izkinoean bezala (deiturak gorabehera). Sintaxia lehenbizikoa da eta urrezko legea Altubek formulatua izango litzateke. Baina joskerari buruz *El Lenguaje Vasco*-k ez digu gauza handirik esaten (...) Dena den, Orixeren iritzia honako esaldi honetan laburbil liteke: "Aunque no en la sintaxis propiamente dicha, en la construcción estamos erderizados más o menos, absolutamente todos" (Orixe, "Comentarios a un artículo de Gernika", *Gernika* 1948-1953, 21)". (Goenaga 1991:551).

beharbada, oder-sortzailea da gailentzen zaiona. Irudimena estekatzea irudi dakioke Orixeri, bere sortzeko askatasuna kateatzea, finkatu nahi den batasuna.

Pentsa daitekeena da, Orixek, batasun-saioaren atzean erabatekotasunaren, orobatasunaren mamua ikusten duela, beharbada, bestela esan, ez bide dela jabetzen batasunaren xede-helburuak muga jakin batzuen barnean aditu behar direla[105], edo ikusita ere, literaturgilearen eskua arriskutan ikusirik, nahiago bide du, nonbait, gerora euskararen bizi eta garapenerako (hezkuntza, komunikabideak...) ezinbesteko begitandu dena, odertzailearen askatasunari makurtu.

Kontua, orduan, ez da literaturgileari – zeinahi sortzaileri legez –, zor zaion begiramena eta aitortu behar zaion askatasuna, ezta –Larramendik ere euskaldun ororentzat eskatzen zuen– besteen euskalkiak ezagutzeko premia, asmo desegokia izatea ere, hau guztia nola ulertzen eta mamitzen den baizik.

---

[105] Zedarritzea garbi zuen Mitxelenak, etengabe berresateak erakusten duen bezala:

"Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskara [Lehen arg. *euskera*, *MIH*-en *euskara*] idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskara idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago". (1968d:135)

Halaber, bi urtez geroago Ugalde mintzalagunari erantzunean:

"Idatziz (ez naiz literaturaz ari, baizik gure arteko harru-emanetan behar dugun idatzi-bide batez baizik) adierazteko hizkuntza behar dugu". (1970e:53).

Beranako bitzarrean, berriz ere:

"Esanak esan neure postura nolabait azaltzeko erabateko jokabideez, gai teknikoei ekindo diet, uste dudana argi eta garbi esanaz. Hizkuntza batuaren eredu hori *izkribuz* erabiltzeko da, noski, gero aho-hizkuntza bihur baledi ere. Eta izkribuz diodanean, lehen esan izan dudan legez, irakaskintzaz ari naiz batez ere, gainerako hizkuntza idatziaren bideak batere gutxietsi gabe". (1972e:157).

Aditz laguntzaile batua finkatzean, berriz gogorazten du:

"Batasun hori, behin eta berriro esan da, ez dugu batipat behar literatur hizkuntzan, harako amets ditugun mailako fruituak ekar ditzakeen hartan. Hainbeste eta hainbeste hizkuntza batu eskolan eta eskolatik gora irakasten direnean, ez dira bestek ez bezala mintzatzeko dohain eta ahalmena duten bakanentzat irakasten: guztientzat, hiztun trebe eta dorpeentzat, irakasten dira. Ez elaberri eder eta poema zoragarrik sor ditzaten, baizik eta edozein, egunoroko premien asegarri, prosa hizkera biluzi, zehatz, zorrotz eta zailu baten jabe izan dadin, herriak eta eskualdeak zehar elkarren arteko har-emanetarako mintza eta adierazpide landu eta bateratua da non-nahi ikasten eta irakasten dena. Ez dezala, behinik-behin, inork egiaz esan gure artean gogo lukeen tresna falta zaionik". (1973b:96,97).

Euskaltzaindiko *Azkue bibliotekan* ("Mitxelena" paperbilduman) gorderik dauden paperetan arakatuz, elkarren ondoan topa daitezke Orixeren kezka-iturriaren zioak eta Mitxelenak hasieratik adierazi zuen mirilak bereizteko premiaren lekukotasunak.

Honela, Euskaltzaindiak "Literatura euskeraren batasunerako" eratu eta izendatu zuen batzordea. Alabaina, Arantzazuko bitzarrean esan paperera letreiatuetara joz gero (hona aldatu dugun lehen moldezko lekukoaren atzean dagoena, hain zuzen ere), Mitxelenak lehen mintzaldian bertan, premiazkotzat daukan bereizkuntza argi eta ozen egiten du:

"Ezertan asi baino lehen, euskera-batasunaren gaia, euskera idatziarena da. Alegia, literatura ederrean, poesian t. a. ez, baizik idatzian, ikastoletan t. a. Orregatik, axaleko gauzak garrantzi aundikoak. Ni ez naiz ari eginkizun ontan, gustokoa dudalako... Neretzat Errenderikoa errexena ta ederrena, baizik eginbeharra ikusten dudalako". (Jatorrizko grafiari eutsi diogu).

5.4. ORIXE ETA EUSKALARITZA

Mitxelenak adierazian oin hartuz, Ormaetxearen barne-etsaitasunetarikoa da, esan bezala, ondore larriak dakartzan euskalariak eta literatur gizonak osatzen duten aldebiko izaki bakarra. Izaki bakar horren bi alderdiak, Nikolas Ormaetxea lagun berak biltzen dituenak, alegia, bereziko dira hemen, Orixe eta euskaritzari eta Orixe eta literaturari[106], zeini bere atala eskainiz.

Mitxelenak Orixe euskalaria ahotan duen lehen aldian (1958h) arlo zehatz bateko (azentuaren gaineko) lanaren berri ematen du. Halaz guztiz, egokiago dirudi estreinakoz beste alde batera begiak iraultzea. Hau da, Orixek hizkuntz azterketan mamituei erreparatu aurretik, bidezkoago dirudi Orixeren gogoa darabilten hizkuntz ideiak, hizkuntz azterbideen ezaupidea eta ingurukoak miratzea, ariketan gatzatua, aldez aurretikako beste aburu horien isla izango delakoan.

5.4.1. Hizkuntz ideiak

Orixeren ikerlanak gidatzen dituzten hizkuntz irizpideak ezin ikus daitezke –ez erabat, bederen– Nikolas Ormaetxearen gogobideekin inolako ikuskizunik ez bailuten, hondarrik hondarrenean, mundua eta jakintza aditzeko modua baita atzean dagoena. Bihoa, beraz, deus baino lehen, arestian Nikolas Ormaetxea gizonaz adierazia, oraingo autuaren atzeoihal eta harroin-zuraje gisa hartzen dela.

1960ko "Asaba zaharren baratza" lanean, Orixe euskalariaren makurren eta hauek sorrarazi dizkioten hizkuntz ideia desegokien kontu ematen du Mitxelenak, aditzaren sailean bereziki oinak finkatuz.

Puntuaren izenburukoa "Aditza dela eta" izanagatik eta Mitxelena adizkien arloak –bestetan ere erakusten duen bezala– biziro kezkatuagatik, errenteriarrak hor adierazten dituenak Orixeren adizki okerretara ezin murritz daitezkeela esan daiteke.

Lehen urratsean, Mitxelenak auziaren nondik-norakoa aurkezten du: euskara idatzian molde finkorik eza adizkien sailean eta, larriago dena, eredu baten premian egoki eta, egoerari irtenbideak bilatu ordez, zenbait euskalari eginahalean saiatu da nahastea areagotzen:

> Egia esan, badute gaurko askatasun atseginean zer ikusirik aditz sailean lokarriak hausten hasi ziren gorengo idazle eta hizkuntzalari batek edo bestek: nori berea emateko, Azkue gogoangarriak eta

---

[106] Hobeto esan, Orixe eta hizkuntz ikerketak –oro har– eta Orixe eta literatura bereziz. Honenbestez, Orixe literatur aztertzailea ere bigarren sailean kokatu dugu, euskalaritzan (zabal hartuz) egon baztekeen ere.

Orixe euskal-letren altagoiak. (1960a:36)[107].

Erruduntzat jotzen dituenen bi izen ematen dituen arren, Azkue aipu soilean utzi eta, puntu osoan zehar, Orixeren jokabideari eusten dio Mitxelenak, bezteko irizten diona agerian paratuz.

Orixeren *nendunen* aldeko argudioak paperera eramanez ekiten dio kritikari Mitxelenak, beste hark aipatzen dituen *nuan, nuban, nuen, nuben, nuin, niin, noon, noñ, ñuun, nun* aldaerak ere jasoz.

Mitxelenak, urratsez urrats, Orixeren arrazoibideak deuseztatzeaz bat, filologiazko eskola ere ematen diola Orixeri esan daiteke, hizkuntzalaritza historiko eta erkatzaileak eta *Junggrammatiker* taldekoek irakatsiez ere baliatuz[108].

Hasteko, Mitxelenak ez du onartzen Gipuzkoako euskara idatzian halako anarkiarik zegoenik adizki honen erabileran, berrizaleak "berrigintzan" hasi aurretik bederen, euskara idatzi molde horretan, *nuan* eta *nuen* besterik ez baita irakurtzen.

Orixek aipatzen dituen adizki guztietarik, lau soiletara mugatu beharko litzateke aukeraren auzia, baina gogoan hartu behar da, halaber, adizki bakoitzaren erabilera eta iturburua:

> Beraz, elkarren lehian gaur dabilzkigun lau formetatik bi – bi berrikeriak, alegia– Orixeren eragitez edo Orixeren laguntzaz iten dira plazara. Ehuneko berrogeitamar guztira: ez da gutxi. Laster menderatuko dugu anarkia bide horretatik. (1960a:37).

---

[107] Orixe eta Azkueren arteko harremanaren berri beste honakoan ere ematen dugu:

"Gogora datozkit harako 1891ko *erritasun* hura, Orixez beste usatzailerik doi-doi aurkitu duena, edo, beharbada. Erribera kaleko zoko ilunetan eri handi bizi zen *zadorlaria*". (1984b:35), 1891koa bata Azkueren *Euskal-Izkindea*, honi zegokion kapituluan jaso den bezala.

[108] (1960a:38) edo, Azkueri leporaturiko hura gogora ekar dateke:

"Porque la reconstrucción lingüística, tal como se viene practicando desde Schleicher, no es una restauración ni tiene efectos prácticos de ninguna suerte. Pero lo que Azkue quería era precisamente esto, restaurar, por ejemplo, el verbo vasco, como se restaura un edificio o un cuadro: borrar en la lengua las injurias del tiempo y desempañar el brillo original del instante mismo de su creación. Y eso, para los neogramáticos por lo menos y para sus sucesores, no es sólo empresa imposible, sino que carece de todo sentido, porque no hay creación *ex nihilo* ni estado paradisíaco anterior a la caída, sino evolución en que todo estado de lengua procede de otro estado anterior de lengua.

Es decir que la reconstrucción y las formas provistas de asterisco que suelen ser su resultado no tienen más que un interés teórico, en la medida en que permiten explicar las formas históricamente dadas a partir de protoformas prehistóricas, no atestiguadas, y reducir, por lo menos en los casos más favorables, su diversidad a una unidad anterior. Si esto tiene algún valor práctico, lo tiene sólo en el sentido de que nos obliga a aceptar como hecho evidente que la unidad de las formas dialectales diversificadas no se halla en el futuro, sino en el pasado, histórico o prehistórico, de la lengua. Se quiere decir una unidad en que las diferencias quedan abolidas y reconciliadas en la raíz de su origen común. En el futuro puede estar la unidad en que una de las variantes suplanta y devora a las otras". (1984a:26).

Istilu-sortzaile diren berrikerien aitatasuna argitu ondoan[109], Mitxelenak Orixeren irizpideen makurra agerian uzteari heltzen dio bi puntutan bilduz, Orixek ematen dituen arrazoi-motei jarraiki.

Lehena, moldezko testigutzekin lotua dago eta, praktikoagoa dirudien arren, nolabait esan, badu atze teorikorik, hizkuntza baten eredu idatzia finkatzerakoan jokatu behar duten burubideak baitira tarteko. Bigarrena ere "ofizioko" izan ala ez izateari atxikitzen zaio betebetean eta, hizkuntzalaritza diakronikoa, hizkuntz berreraiketa, balizko forma teorikoak benetakotzat bailiran hartu eta erabiltzea, besteak beste, ukitzen ditu.

Orixek proposatzen duen *nendun* erabiltzeko arrazoietariko bat, adizki horren erabilesparruari dagokio, Euskal Herriko hainbat herritan entzun ahal izan duela baitio orexarrak.

Mitxelenaren erantzuna, hizkera-mailak bereiztean funtsatzen da. Euskara idatziaren oina, testu-izaera izan dutenek –hots, forma historikoek, hizkuntzalaritzan erabiltzen den zentzuan– osatzen dute lehenik. Beraz, bidea egina duten formak baldin badaude, ez dago zer atzendu, nolabaiteko tradizioa duten horiezaz eta berriz ere atzera egin.

Coseriu-ren bereizkuntza aipatuaz baliatuz (1952), esan daiteke euskara batua finkatzeko, **arau**ean oinarritu beharko litzatekeela ez **sistema**n (ezta **erabilera zehatz**ean ere), hots, ez balizko aukeretan, ez bapateko –aldian aldiko– sorkarietan, nolabait esan. Honenbestez arau **idatzi**an, lekukotasun historikoa duenean, alegia, ahozkotasunera makurtzeak bereizkuntzak areagotzera besterik ez baitakar.

Orixek *nendun* idazteko ematen duen bigarren arrazoiak, beste adizkien balizko *ama* izatean du bere funtsa.

Mitxelenak honetan, bi alderdi oker antzematen dizkio Orixeren usteari: bat, zehatza, beste adizkien iralgia hori denik ukatzen du, eta bi, iralgia hori izan ez izan, idatzizko moldea hautesteko momentuan, balizko iralgi horiek ezer gutxi dira bestelako arrazoien aldakan, lehen kritikan adieraziaren ildotik.

Adizkien iralgia autu den auziarekin ikuskizunik gabeko etsiagatik, geldi egiten du Mitxelenak honen gaineko zenbait gauza argitzeko:

> Esaldi horrek zerbait esan nahi baldin badu, hauxe esan nahi du: *nenduan (nendun* baino hobeto) dela formarik zaharrena eta horretatik sortu direla *neban, nuan, nuen* eta gainerakoak, hotsak legez aldaturik ala analogia-bidez ez dakigu, ez baitzaigu ezer esaten. Nolanahi ere, horrelako lege

---

[109] Hauen ondoan Orixeren beste honakoak ere aipa daitezkeela iruditzen zaigu:

"Volviendo finalmente a las excrecencias que afean nuestro verbo, nos basta cortarlas y fijar una forma única para cada caso. De *zuken*, hagamos *zukela*, y no *zukeala, zukeela, zukeiela*, etc. De *zakigu* no hagamos *zazkigu, zaizkigu, zakizkigu*, de *gakio no hagamos gazkio, gaizkio, gakizkio*. Podemos tantos plurales inútiles, repluraies y tripuraies, y el verbo vasco vendrá a sus verdaderas y armónicas proporciones. Esa es la solución mirando al pueblo vasco.

Déjese, buen amigo [Anjel Irigarairi zuzentzen ari zaio], de los postulados de esos **filólogos comerciales y antiestetas. Que no le sequen el cerebro ciertos libros de la andante filología**". (Orixe 1950a:35,40). (Betiz, gurea).

fonetikorik ezagutzen ez dugunez gero, analogia izan bide da aldaketa horren egilea. (1960a:38).

Mitxelenak "bidenabar" aztertzen duen honek, ez dirudi horren ardura eskasekoa. Euskara idatziaren moldea, zehazki –eta hau hedatuz, euskara batua eta euskararen etorkizuna– ukitu ez ezik, bestelako erro sakonak ere badira hor tartean.

Iraigi-argitze horretan, ofiziokoen eta ofizioko ez direnen arteko mugak bereizten ditu Mitxelenak, eta hau, Orixeri –beste euskalariri beste– bere betean dagokio.

"Ez ofiziokotzat" jotzen du Orixe (zeharka badio ere) "latina, luzaroan usteldu ondoren aspaldi hil zela" uste dutenen artekotzat, alegia; ofiziokoak, hots, "hizkuntza franko, ahalik gehienak nola aldatu diren dakienak"[110], *nuen, nenduan* eta *nebanen* artean, *nuen* joko luke iturburutzat, formarik irregularrena[111], alegia. Orixeren aukera, ordea, bestelakoa izaki.

Orixe ez da ofiziokoa, honelakoak aztertu behar dituen jakintzaz ikuspegi okerra duelako, silogismu ziurrak sustrai dituen jakintzan oinarritzen delako, hain zuzen:

> Ez da hor noski jakite ziurra eta egiazkoa, egiantzekoa baizik. Bere mugen jakite den oraingo jakintza ez bada silogismu ziurrez gehiegi arduratzen, probabilista bihurtu denez geroztik. Baina inork ezagutzen ez duen egiak ez dio inori eskubiderik ematen nabari den egiantzaren kontra oldar dadin. (1960a:39).

Ikusten da, beraz, adizki-sail zehatz batean aurkitzen duela hizpidea Mitxelenak, delako sail horren etorkira jotzeko ez ezik, hizkuntzalaritza diakronikoaren eta hizkuntz berreraiketaren oin-hastapenen, bestela esan, hizkuntzaren atzean murgiltzeko azterbideen azalpena ere egiteko.

Orixeren arrazoiaren beste alderdiari begiratuz, berriz ere azpimarkatu behar da Orixeren hutsa, ez baitu asmatu behialako balizkako forma teorikoen balioarekin.

Forma horiek –zein ere egiantzik handienekoak diren– ezin proposa daitezke moldezko eredu bat finkatzean, aldien joanak hizkuntzari inolako aldakuntzarik ekarri ez baillion, are gutxiago jadanik badirenak ordezkatu asmoz egiten bada.

---

[110] "Ofiziokoa da hizkuntza franko, ahalik gehienak, nola aldatu diren dakiena: latina, luzaroan usteldu ondoren, aspaldi hil zela uste duena ez da ofiziokoa". (1960a:39).

[111] "El "método de las anomalías" es también el "criterio de las anomalías". Constituye, como se sabe, un punto básico de toda la enseñanza de Meillet, quien no se cansaba de proclamar su importancia (...) Esto, *mutatis mutandis*, no es otra cosa sino el tan recomendado respeto a la *lectio difficilior* que, si en algún manuscrito se ha mantenido, ha sido a contrapelo de la inclinación de los copistas a limar las asperezas del texto: reconstrucción comparativa y crítica textual tienen mucho en común, según se señaló hace ya mucho tiempo. De aquí la justificada preferencia que los comparatistas sienten por los paradigmas irregulares (...) Lo mismo ocurre con el siguiente ejemplo vasco, cuya explicación diacrónica no damos, porque sólo en hipótesis es conocida. Se trata de las formas de pasado ('yo había', 'nosotros habíamos', 'vos (ant. vosotros) habíais') del auxiliar transitivo, las primeras de uso general con variantes y las dos últimas empleadas en sendas comarcas de habla vizcaína:

*nuan (< *neuan)*	*nenduan*	*neban (< *neuan)*
genduan	*genduan*	*geban*
zenduan	*zenduan*	*zeban*". (1963c:49).

Denari behatu behar zaio, lekukotasuna duenari, Orixek (besteak beste) darabiltzanen artean, ordea, inolako tradiziorik (izkribuzko tradiziorik, bestela esan, historiarik) ez dutenak badira.

Mitxelenari Orixeren arrazoi-desarrazoiak onartezinak egiten zaizkio. Horregatik lehen esanari eransten dio:

> Neronek uste dut *naiz* eta *aiz* lehenago **naiza* eta **aiza* izanak direla[112] [113]; gaurko izan, berriz, **eizan*. Eta zer axola du honek hemen darabilgun auzian? Ahuntzaren gauerdiko eztulak baino gutxiago. Egun edo bihar – ez dakiola Jainkoari nahi! – *naiza, aiza, eizan* idazten hasi banaiz, aldez aurretik ematen diot edozein esku ero-etxe batean ongi estekaturik sar nazan. (1960a:39).

Mitxelenaren azken hitzoi darien ironiak (*zeaŕ-mintzoak*, Orixerenaz baliatuz) edo –hobeto, apika–, haserreak, esanahi beteagoa hartzen du testuinguru zabalagoan kokaturik: euskararen orduko egcera nahasian, alegia.

Batasun-bidean ibili nahi eta, Orixeren (edo Azkueren, zegokion kapituluan ikusi den bezala) moduko jokabideek, berez malkarra dena, aldapatsuago bilakatzen dute, zeinahi batasun-saio oztopatzen duen anarkia dakartelako.

Honengatik guztiagatik, atalaren amaian, ondore moduan honako puntuak azpimarratzen ditu Mitxelenak:

> Hizkuntzaren legeak eta ereduak, bide zuzenetik ibiliko bagara, ez du egon beharko gure baitan, nahierara alda dezagun, gugandik kanpo eta gure gainetik baizik. (1960a:40).

Inork ez du esku, beraz, gogoak eman bezala hizkuntza aldatzeko eta erabiltzeko; euskarari izan dakiokeen maitasunik suharrenak edo eder-asmorik zintzoenak bultzata egiten badu ere, hizkuntzaren legeetara makurtu beharra dauka. Euskara errotik, gutxik bezala, ezagutzeak ez du honetan Orixe salbuespen bilakatzen. Nor bere gisa ibiltzerik ez, beraz:

> Biziro maite dugu euskara, beste behin esan nuenez. Biziro maite, baina nork geure gisara moldatua

---

[112] Erabiltzen al ditut neronek *ere niza, iza*, ta olako oriek? Nik nerez naiago nuke *etorri nizak, nizan, etorri neuk, naun* baño. Zenbaten aldea dago orietatik *nabik, nabin* oietara? Emeki emeki ez ote litezke sarrerazi? *Nabok, nabon*, ez ain ongi, *nauk naun*'en *u* ori baitakarte gogora; *nabiok nabion* ere ez; *i* ta *u (o)* biak batean hasten baitira. Esazu Amillanz, *zure erriko gabik, gabin* eta Xubero'ko *gitzak, gitzan* ain urrun al daude elkarrengandik?

Ni etorri nizaio ez al da iatorrago ta politago zuen *natzaio* ta gure *naitzaio* baño? Nik *nakio, nakizu nakie* ta abar erabiltzen ditut politegotzat, baiñan *izan*'en muiña ain ederki agertzen duten *nizaizu, zizaio* zail dira belarriako ta uiertzeko?" (Orixe 1951b:46).

[113] Zuzen dirudien partiketa bakarra, hauxe genuke: *n-a-iz, a-iz, *n-a-iza, *a-iza*-tik jaioak, *naizate, aizate (RS ajate*, oraingo idazkeran *axate*) eta gisa horretakoek argiro salatzen dutenez: orain ere ez dago deusen premiarik *z* eta *t*, elkarri hain harrera ona egiten dien kontsonanteak, nahi eta ez bereizteko". (1985b:192).

eta aldatua, horrela "politago"[114] delako, ez den denean. Eta hori, nere iritziz, ez da euskara maitatzea, nork bere burua, bere usteak eta setak, baizik. Gu gara hizkuntzari makurtu behar gatzaizkionak, ez hizkuntza guri, gogoak ematen digunean eta gogoak ematen digun bezala. Hobe genuke, hitz batean, euskarak maitasun gutxixeago eta begiramen gehixeago jasoko balu gugandik. (1960a:40)[115].

Bestetik, lehen ahotan izan duen beste alderdi bat ere anarkiaren sortzailea da: izkribuzko hizkera finkatzean, moldezkoak du beti lehentasuna ahozkoaren gainetik, izkribuzkoez batasuna erdiestea hagitz samurragoa baita tokian tokiko ahozkoez egiten bada baino. Alde honetatik, bada, anarki sortzaileagoa da ahozko mintzairetan oinarriak nahi dituen jokabidea.

Gainera, nolabaiteko adostasuna dagoeneko iritsia denean, horri muzin eginez besterik sartu nahi izateak, arazoa larriago bilakatzen du, berriz ere nahastea eta eredua bazegoen tokian eredu-eza baitakar.

Aldatu berri diren Mitxelenaren iritzien ondoan, besterik ere badela gogoeman daiteke.

Tradizioari bizkar emateak, batetik, euskal testuei begiramenik eza adierazten du eta, okerrago dena, arbasoengandik heldu den hari bat etetea, izkribuzko euskararen moldea jarraipenik gabe uzten baita[116].

Gauzak honela, beraz, Orixe, ez lebilkieke urrutiegi[117] Mitxelenak artikulu bereko hurrengo puntuan ("Itzulketan" puntuan, alegia) ahotan dituen zenbait euskal gramatikari logikaren miresle itsuei. Hauek ere, ikusi den bezala, testuei, gramatikaren izaera enpirikoari eutsi beharrean, bere gogotikakoak hobetsi baitituzte, euskara idatziaren moldean anarkiari bidea zabalduz.

Aipatu berri den uztarria sendotuko luke, Orixe gramatikaria autu duen 1965eko pasarte laburrean adieraziak:

Neure aldetik zerbait aitortzea zilegi bazait, ausartuko nintzateke esatera Orixe gramatikalaria dela gutxien asetzen nauena[118]. Gramatika, izan ere, jakite enpirikoa da[119] eta berak beste

---

[114]Goenagak (1991) ere alderdi hauxe azpimarkatzen du Orixe gramatikariarengan, hots, estetikak duen zama (destoktu) itzela.

[115]Gogora arestiko kapituluan *Iliada*ren bihurreraren amaian adierazia.

[116]Helduko diogu berriz gai honi Orixeren alderdi berreskuratzaileaz mintzatzean.

[117]Orixeren isuri honen beste adibide aski argia, Mitxelenak "Asaba zaharren baratza" artikuluan aipatzen duen *Yakin* 9, 1959ko "MEA CULPA eta QUOS EGO" (Orixe 1959a) lana da.

[118]"Gramatika-kontuan, Orixek ez du irakaslerik ezagutzen". (Iztueta 1991a:890).

Eredu-bibliografiez aitzentzeak dakartzanak, oro har, azter- eta ebazkizun hartzen ez dituen iztuetak ("ofiziokoek dute hitza" 1991a:1021), ez du, halarik ere, debeku larriegirik kausitzen, antza, Orixe, egungo hizkuntz filosofiaren -are, Chomskyren beraren- aitzindari ezagungabetzat jotzeko:

"Egun Chomsky-ri aitortzen zaion meriturik handienetako bat, hain zuzen, hizkuntzalaritza psikologia kognitiboarekin edo ezagutzarekin eta, ondorioz, giza izaera berarekin harremanean jartzea izan da. Orixe hogei

bidetatik eraman nahi zuen Erdi Aroko eta gero ia oraintsukoen antzera, ez bait genituen ezagun Sartaldean, esaterako, Panini baten moldeak[120]. (1965e:129).

Beste gramatikariak beztu dituen arrazoi beragatik bezten du Mitxelenak Orixe; gramatikak oinarri behar duen benetako hizkuntzaz atzenduta "beste bidetik" eraman nahi izan du.

Mitxelenak hitz horietan, halaz ere, ez du Orixe beste euskal gramatikariekin lotzen, uztarguneak bestetan ikusten ditu; zehazki esanez, Erdi Arokoengan eta "ia oraintsukoengan".

Gramatika, Mitxelenarentzat, jakite enpirikoa da eta ez Erdi Aroko Modistek ulertzen zuten bezala, "espekulatzailea"[121], hau da, hizkuntz egitatearen berri eman behar du, den hizkuntzari atxiki behar zaio. Orixek honela ez jokatu eta, horrexek hurbiltzen du "Erdi Arokoengana".

Baina, bidenabar, bestelako lokunea ere ezartzen du Mitxelenak, "ia oraintsukoak" aipatzen dituenean. Izan ere, izenik ez emanagatik, susma daiteke Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailea ez dabilela Mitxelenaren aiputik oso urruti, gramatika honen moldea eta taxua gogoan bada.

Eta bestetik, berriz, ez da halabehar hutsa, Panini indiar gramatikaria[122] (Europan

---

urtez aurreratu zitzaion.

Nik ez dakit Orixek nondik hartuak zituen ideia horiek. Ez dut uste García Diego, Kolovrat eta horiengandik jasoko zituenik. Beranetik ari bazen, esan behar dut, mirespenez beteta esan, ezagutzen ez nuen Orixe gramatikalari unibertsal razionalista berria aurkitu dudala. Noiz eta orduan, Mitxelena, Txillardegi eta belaunaldi berriko filologo gazteak agertu baino lehen. Aipatu ditudan 1940ko hamarkadako iturri horiek irakurtzeko gomendioa egiten diot ofizioko irakurleari".

Aristoteles, klasikoak, Erdi Aroko kontuak... ongisko ezagutzen zituen Orixek, ez ote zituen ezagutuko, besteak beste, "Modista" zirelakoak, hots, hizkuntzalaritzaren kondaira ugaritan -ez guztietan, noiz eta ere, (nork bere buriak)- Chomskyren aitzindari aitortu (eta izuetak paperera dituen) Port Royal-ekoen aurrekotzat hartu ohi direnak, eta Mitxelenak ere jaso dugun aipuan elkarganatzen dituenak?

[119]"Gramatika, eta gramatika barrutian gabiltza orain, jakite enpiriko bat besterik ez da eta, enpirikoa denez gero, zer gertatzen den ikusi behar dugu eta ez zer gertatu behar litzatekeen" (1964g:180).

[120]Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailearen aita Chomsky-k *Syntactic Structures* entzutetsua eta makina bat istiluren iturria, 1957.ean eman zuela argitara, ingelesez, eta hizkuntzalaritzaren historian bizi den ikuspegi "teorikoaren" berreskuratzaile ere badela (Erdi Aroko Modistae, Sánchez de las Brozas, Port Royal eta abarrena, alegia) kontuan badugu, Mitxelenaren beste ideia sendoetariko batekin ez ote genukeen topo egingo pentsa daiteke; laburki esanda, hizkuntzalaritzan ere "zaharrak berri" gertuzke maiz.

[121]"El término *speculativa* procede de *speculum*, 'espejo': en el espejo de la gramática es donde vemos reflejada esa realidad que es inasequible al conocimiento directo". (Marcos Marín 1983:348).

[122]Beste uztarri bat ere ezar daiteke, kasu honetan, "oraintsukoen" eta indiarren artean. Gaia transformazio edo ikuspegi aldatzeak izaki, indiarrei ematen die Mitxelenak, hizkuntz gertakari horrezaz ohartzearen aitzindaritza:

"Ikuspegi aldatze horiek [transformazioez ari da] ez dira Chomskyk asmatuak, aspaldi-aspaldidanikakoak baizik, izanak berdinak ez badira ere, indiako gram... 'ariek ere ezagutu baitzituzten". (1972b4:91). (Pasarte osoa Mitxelenaren irakaspaperetakoa).

"Las reglas [*sūtra*], como las de la gramática generativa moderna, tienen que ser aplicadas en un orden fijo; y además del carácter tan exhaustivo que presenta el tratamiento de la formación de palabras, sorprende al lector de su obra, ya hindú o europeo, la extrema economía de todas sus afirmaciones lingüísticas. Esta búsqueda por la economía formó parte del contexto de la composición gramatical hindú primitiva". (Robins 1980_2:147).

bart arrats arte ezezaguna[123]) aipatzea, honen lanak (*Astadhyayi*k alegia) duen izaera "enpirikoa" aurrean izanik[124].

Orixek, beraz, ez du oso zuzen jokatu hizkuntzaren arau-erregelak aztertu dituenean, baina Mitxelenaren ustez, Orixeren ekarri erabatekoak zuritzen du huts honetatik:

> Baina akats hori, akatsa baldin bada, hutsa da besteen aldean. (1965e:129)

Bi lanotan adieraziek, beraz, agerian uzten dute zergatik den Orixe gramatikaria Mitxelena gutxien asetzen duena. Orixe euskalaria, ez da oliziokoa eta ez du hizkuntzalaritzak eskakizun dituen azterbide-legeen berri bailuen jokatzen, hizkuntz aztertzeari ekiten dionean iparrorratz desegokia du gidari eta jomuga[125].

Puntu honi amaia emateko, Orixe eta euskararen arteko harremanak mintzagai izan direnean osatzear utzi den auzi bati helduko zaio orain.

Euskararen erabilera zuzena, euskara-moldea ukitzen baditu ere, Orixeren hizkuntz ideien erakusgarria denez gero, Orixe eta sintaxiaren, Orixe eta hitz-hurrenkeraren artekoei erreparatuko zaie.

Iturburua, Mitxelenak[126] Orixeren pentsaera-jokamoldeetan sumatzen duen ondokoan du: Orixek, idazlearen askatasunari muga bakar bat ezartzen dio, hitz-hurrenkera[127].

---

[123] 1786an Sir William Jones-en sanskritoaren berri-emate arrakastatsua esan nahi da. (Robins 1980_2:136).

[124] "La lingüística de la India no fue de orientación histórica, aunque sus raíces se fundamentaron en los cambios que sufren las lenguas en el transcurso del tiempo. Pero los temas tratados por la lingüística moderna descriptiva, como son la semántica, la gramática, la fonología y la fonética fueron abordados en extensión por la tradición hindú, y en fonética y en ciertos aspectos de la gramática, la teoría y la práctica hindúes fueron más adelantadas que las de Europa o cualquier otra parte (...) y conforme observa un escritor moderno, «la curiosidad científica emparejada con la fina audición y efectiva metodología que poseyeron les llevó a efectuar descripciones que, con toda certeza, debieron superar las metas propuestas inicialmente»". (Robins 1980_2:140).

[125] Lakarra paratzaileak oin-oharrean, honakoa dio:

"[Mitxelenak] idatziz jarri ez bazuen ere, dakidanez, bada hari «Hizkuntzalaritza kontuetan Orixek A badio nik ez diot B baina bai ez A» aditu dionik". (Lakarra 1988:20).

[126] (1982b, *LH*:222).

[127] Areago, Iztuetak (1991a:857) jasotzen duenez, horixe hartzen du irizpide orexarrak idazleazko juzkua emateko:

"Nor den idazle on epaitzeko orduan [Orixek eta Martin Oiartzabalek] (...) oinarrizko erizpideetzat "az-uiren" edo sintaxiaren erabilera hartu zuten".

Errepara, Iztuetak ez dituela Orixegan Goenagak (1991) berezitik ikusten dituen sintaxia eta hitz-hurrenkera.

Iztuetak[128] berariaz jorratzen du puntu hau, "Sintaxia da hizkuntzaren muina" izenburu adierazgarriaren pean. Orixek berebiziko garrantzia ematen dio hizkuntzen sintaxiari, hor ikusten baitu hizkuntzek bereen duten maila; hau da, aldiek eta hizkuntza auzoek aztarrenik ahulena utz diezaioketena[129]. Honen argitan, bada, ulertzen da Orixek, sintaxiari hainbesteko lehentasuna ematea[130].

Nola uztartzen da, ordea, Orixek besterentzat eskakizun duena –hots, euskal hitz-hurrenkerari eutsi beharra– Mitxelenak berak urte batzuk lehenago Orixeren asmatze betetzat daukanarekin; hau da, hitzurrena egoki dantzatuz erdietsi ahal izan duen idaztankerarekin?:

> Con todo, el gran secreto de su estilo está probablemente en lo más sencillo: en la certera utilización de las posibilidades expresivas de la considerable libertad que admite la lengua en el orden de las palabras. No ha sido él el descubridor de estas posibilidades [Altuberen *Erderismos* aipatzen du oin-oharrean], pero sí quien mejor ha mostrado el partido artístico que se puede sacar de ellas. (1960b:149).

Balizko gisa honetako argibidea aurkez daiteke.

Euskarak hitz-hurrenkeran ez du halako katea bortitzik; beraz, idazlearen esku dago ahalbideei etekin egokia atera diezaien, hor du, bere jakiotasuna erakusteko esparru egokia.

Halarik ere, askatasun ia osoaren jabe den idazle horrek, ez dezake gogoak eman

---

[128](1991a:855-857).

[129]Besterik ere badio Iztuetak, Orixeren "Mintzaera bakarra, giza-enda bakarra" (1948) eta "La sintaxis primitiva de la lengua española" (1950ekoa) lanetan oin harluz.

Orixeren burubidean argi ematen duten puntutik garrantzizkoenak aldatuko ditugu.

Hizkuntzarteko aldera-lanak honako ondorioetara eraman du Orixe:

Etorkizko hizkuntza bakarraren hipotesiaren aldeko agertzen da.

Behiala, hizkuntzen arteko antzak, sintaxian batipat, gerora baino askoz ere handiagoak ziren; honen erakusgarria da, aztertu ondoren ondorioztatu duena, alegia, latin-joskera eta euskararena bide beretsutik doabiltzala (gaztelaniarena eta grekoarena ez bezala, huuek "endekapena" –Iztuetaren esamoldean– jasan baitute).

Hauek aurrean izanik gure aldetik erantsiko genuke, hernentxe topa ditzakegula hizkuntz ideien historian gorputz hartu izan duten zenbait teoriaren, zaharkituen eta berbiztuen (monogenismoa edo etorkizko hizkuntza bakarra, hizkuntz bilakaera, aldien joanak hizkuntzari hondamendia ekartzearekin bat egitea; hizkuntzarteko sintaxi bakarra) eta, azterbidean (hizkuntzarteko alderatzea) oihartzuna.

Iztuetak (1991a:557), halaber, bat eginik ikusten ditu Orixegan, hizkuntzen bilakaerazko ikuspegia eta eboluzionismoazkoa: biak, arbuiatzekoak:

"Bestalde, nahiz eta gogoeta filologikoek harremanik ez dutela dirudien arren [sic], badirudi Orixeren kasuan zerbait senezkoa dela eboluzionismoaren aurkako lehia. Gizakiaren jatorriaz ihardutean fixismo-ikuspegia defendatu zuten bezala, arras aderazgarri gertatzen da hizkuntz eboluzioari buruzko eritzietan ere primitibismoa sostengatzen duela, hasierako jatortasuna eta zinezkotasuna. Hasieran giza arraza bat-bedera zen bezala, hizkuntzak oro bat ziren. Hasieran oro zen bikain, jator, on; gero, eboluzioarekin batera, endekapena dator. Endekapena, ulertzazu, maila guztietan. Hizkuntzalaritzan ere, haren jarrerak konserbadore baten errainua josten dit begietan, ezin kendu izateraino josi ere".

[130]Etorkizko hizkuntza bakar hartatik euskararen (eta latinaren) joskera hurbilago ikustea –eszte baterako, gaztelaniarena edo grekoarena baino–, ezin jos daiteke, behiala, "perfektotasunaren" lasterrean abiada eman zioten hizkuntzen arteko "zeingehiagokarekin"?

bezala antolatu euskal berbaldia, bai baitaude derrigorrez gorde beharreko arauak[131].

Hemen kokatzekoa dirudi Mitxelenak Oihenarten joskera dela eta, paperera aldatzen duen behialako euskal idazleen sintaxiazko Orixeren iritziak[132].

> *Dohatsua, zeinetarik,*
> *Zeinen beso bietarik*
> *Urkaturik egon barta*
> *Sekuru ororen garharta...*
>
> Hauek eta hauen antzekoak irakurtzean, ez zaizkigu atsegin, edozein arrotz kutsutik barau luzeak, gure artean zernahi erlasunentzat usatzen den sendabide bakarrak, garbitu bait gaitu. Aisa jartzen gara horratik horrelako «erdarakadetara». Hori da agian Orixek esan nahi diguna: «Euskal-yoskerarik eztute neurtitz oek, baino arrunkean bai Oihenartenak»[133] /[Orixe 1927]/. (1953b:54).

1927ko Orixek, bada, Oihenarten neurtitzotan ez du "euskal-yoskerarik" kausitzen eta, susmoa egin daiteke, mauletarraren *zeinetarik, zeinen* horiek, ikuskizunik badutela[134].

---

[131] Nolabait esan, Orixek, ondoko Jespersenen hitzetako moldaezineko "puntutzat" luke hitz-hurrenkera:

"Existe una especie de constante tira y afloja entre el individuo y la comunidad, un eterno flujo y reflujo entre constricción y libertad lingüística. Plena libertad en el amplio sentido de la palabra no existe nunca, si es que queremos comunicar nuestros pensamientos a los demás... Pero de otro lado, la constricción ejercida por la lengua tampoco es nunca completa, por la razón de que sólo en algunos puntos está totalmente establecido el uso lingüístico en forma que no pueda ser alterado y éstos, por regla general, son puntos en los cuales el individuo se siente menos impelido a afirmarse a sí mismo". (Jespersen 1947:160).

[132] Honen aurreko kapituluan "Axularrarrak" zirela eta, autu hartu duguna.

Oroi, bestalde, Mitxelenak sintaxiazko "erdarakada" horiei irizten diena:

"Ur huts-hutsak edateko balio ez duen bezala, ezta euskal-joskera huts-huts horrek ere gogoz irakurtzeko edo entzuteko. Nabarmenagos oraindik euskal adimenarentzat ez bada ere -eta ez dakit horrelako entelekiarik inon aurki daitekeen- hots atseginagoa duela euskal belarriarentzat Axularren prosak Aitzubek ereduzat hautetsi dizkigun zenbait zatirenak baino. Ez da oena irabazia izan, behartuta, azken urteotan. Nekearen nekez irabaziak gaitzen izan ditugu, batere kezkarik gabe". (1953b:58).

[133] Egia esan. Orixek beste neurtitz hauek dau autu irizi hori kanporatzen duenean:

> "... eskua afgi
> nola afoltze befi efuna
>
> Eskua afgi, afoltze efun-beha bezala. Euskal-yoskerarik...". (Orixe 1927:210).

[134] Dotrina zaharren joskerei leporaturikoa ere, apika, horren seinaletzat har daiteke (Orixe 1948) edo, lehen ere nola esan dugun pasarte baten jarraiera hau:

"Todos los demás [Aita Zabala eta beste] han caído en la herejía gramatical de los idiomas vecinos al decir *au da nere gorputza, au da nere odola*, en lugar de *au nere gorputza da, au nere odola da*. Al decir "este es mi Cuerpo" refiriéndose a lo que tenía en las manos, gramaticalmente se excluye al Cuerpo que lo sostenía, si bien teológicamente sabemos que era el mismo. Por sintaxis entiendo lo que Arotzarena entiende por "Ordre des mots".

Quizá habrá ocasión de volver sobre algunos puntos interesantes de Gramática como el que ha suscitado el Señor Aitzubi hablando de "Los peores barbarismos". Aunque no en la sintaxis propiamente dicha, en la construcción estamos erderizados más o menos absolutamente todos". (Orixe 1951a:21).

"Azkuek bere ***Euskal-Izkindea*-n (1891) emandako arauaren arabera, galdegaia da sintaxiaren oinarrie. Hitzak, hurrenez hurren, galderari dagozkion toki berean jarri ohi dira (...)** Azkuek euskal sintaxiaz ozarritako arauaren argian, eredurik bada, Gasteizko ***Kristau-ikasbidea*** da hori. Baionakooren aldean askoz hobea, azken honetan **hortako, hola, zerean** ordezko galdekizunak ("proinquisitivos") **eta zoin, zointan** eta horrelako letinkeriak bat datoz. Sintaxian, beraz, Azkueren erizpidea dauka gidaritzat". (Iztueta 1991a:855,856). (Beltz. jat.).

Honenbestez, Orixeren eta euskal sintaxiaren eta hitzen kokalekuaren artekoak, laburbilduz, era honetara uler bide daitezke: Orixerentzat euskal sintaxia euskararen muina da, honenbestez, beste hizkuntz mailatan horren premiazko ikusten ez duen atxikimendua zor zaio honi, eta zuzentzat daukan euskal sintaxi jatorrarekiko leialtasunari, ezin muzin egin diote, ezta bestela askatasun osoa omen duten sortzaileek ere.

Hesi horien barnean asmatu bide du Orixek Mitxelenaren begietan, euskarari etekin berebizikoak ateratzen eta honetxek ere ezaugarritzen du Orixeren idaztankera. Baina... edonor ez da Orixe.

5.4.2. Hizkuntz azterketa zehatzak

Aurreko puntuan aztertu diren adizkien sailekoez gain, Orixeren hizkuntz ikerlan zehatzik apenas du azter- edo kritikakizun Mitxelenak; zehatzago esan, azentu-kontu hutsera lerra daitezke Mitxelenak luman hartzen dituen Orixeren hizkuntz azterketak.

Azentuaren gaineko gaia, 1958an N. Ormaetxea Euskaltzaindian sartu zen mintzaldiaren[135] ondoko erantzunean irakur daitekeena da (1958h):

> Gaur, ordea, beste "Orixe" bat agertu zaigu hemen, "Orixe" euskalaria (1958h:98).

Hitzaldi honetan[136], Orixeri buruzko iruzkin orobatekoaren ondoan, begiz jo duen mintzagaia hesitzen du hasiera-hasieratik Mitxelenak, Orixek bere sarrerarako hautetsiriko gai zehatzean ikasle besterik ez dela aitortuz:

> Zilegi izan bekit, beraz, gai ez naizenez gero bestetarako, erabateko zenbait gauza esatea azentuaz eta bereziki euskal azentuaz (1958h:98).

Ez du iztuetak aipatzen Altuberik, ikusten den bezala, baina errezelroa dugu, Mitxelenak Orixeren sintaxi-jaieraren atzean Azkue baino gertuago ikusten duela Altube, ez dio bederen –guri itzuri ezean–, honetan Azkuerik alboratzen, bai, ordea, oin-oharraren bitartez eta "Axulartarren" liskarra dela eta, Altube.

[135] "Leitza'ko Mintza-Doiñua".

[136] Jon Garmendiak, honela aurkezten du egun hartako Mitxelenaren hitzaldia:

"Gure *Mitxelena*, euskaltzain jakintsuaren erantzun-itzaldia ere, gain-gaiñekoa izan zitzaigun. Ala izan zan izan ere-ta! *Gai-sakon* eta *biurri* oietaz *Altube*'k eta *Azkue*'k leendik esanak zituzten irritziak berrituaz, egoki ta garbi asko adierazi zigun, *Mitxelena* jaunak, alegia *itz-doñu guziak ez dutela jatortasun ziurrik, ez esanai berdiñik*, eta ezezko ezaugarri oiek argi agertzen dirala zenbait errietako *itz-doñuen ez-berdintasunak* azterkatzean. Eta *Ormaetxea* jaunaren ("Orixe"ren) euskal-gaizko lan jakingarri ta arrigarrien eragin garrantzitsuaren neurketa, bikainki ta zeatztasun arrigarriz egin ondoren, goi-goian utzi zun, *Ormaetxea jaunaren izena*, bere azken-itz adigarri abekin: "EUSKALTZAINDIAK EZ DU "ORIXE" GORALTZEN, BERE BARRUAN ARTZEAN, BAIZIK "ORIXE" BERAK EUSKALTZAINDIA GORATZEN DU BERE BARRUAN SARTZEAZ". Ain itz gutxitan, ezin lezakio, *goraipen aundiagorik, ez naigarriagorik*, gizon bati...". (Garmendia 1965a:43). (Etz. jat.).

Orixek irakurri berri duen mintzagaiari hertsiki heldu ordez, Mitxelenak azentuaren inguruko eta euskal azentuazko iritzi erabatekoak hautetsiak ditu bere hitzaldirako.

Honela, Fonologia eta Fonetikaren arteko bereizkuntzez, azentuaz[137] oro har, eta albokoez hitzegiten du, itxuraz bederen, Orixeren aurreko hitzekin, nahiz gai horrezaz idatzi zituen beste lanekin[138], ikuskizun handirik ez bailuen.

Alabaina, "Berri Onaren" (Fonologiaren) aurkezpen gisakoan bertan, mintzaldia aurrera ahala egingo duenaren –hots, Orixeren zenbait usteren deuseztatzearen– aztarna, ez ote den lerro artetik iragazten ari pentsa daiteke:

> Ebanjelio hau ez da hagitz berria, egia esan, baina ez du inork oraindik, jakinaren gainean, euskal azentuaren auzia horren esanera ipini. (1958h:99).

Izan ere, azentu-kontuetan murgildurik dabilen hizkuntzalariak, ezaguna behar du izan, "horren berria" ez den fonologia. Orixe gai horretan aspalditik aritu da, baina ez dio bere azterlanari horren gisakorik egokitu.

Hau dela eta, pentsa ote daiteke kapitulu honetan aurretiaz jaso den, baina Mitxelenak berariaz geroago leporako dion– ofizioko ez izatea agerian uzten ari dela Mitxelena hitz horien bitartez?

Galde soilean utziko da, ez baitago beste euskarri sendoagorik, erantzuna alde batera nahiz bestera makurrarazteko modukorik.

Besterik du Mitxelenak zuzenean kritikagai Orixeren azentuazko lanean.

Hasieran esanari eutsiz –hau da, Leitza eta inguruetako mintza-doinuaz ezer epaitzeko nor ez delakoan jarraituz–, puntu zehatz horren ez baina, Orixeren euskal azentuazko tesiaren beraren alderdi ahulak agerira eramango ditu.

Orixe, euskaraz indar-azenturik ez dagoelakoan dago[139]:

> Gure [azentu] onek, griego zârak bezala, ez du indarrezko azentu nabarmenik; gora-bêrako mintzoi leguna du, ta ortatik eldu da (dator) kantarekin oztopo itsusirik ez egitea. (Orixe 1958:30).

---

[137] Orixeren azentuazko ikuspegia aipatua zuen Mitxelenak 1957-1958ko "Á propos de l'accent basque" (1957a) lanean, Orixeren *Joxantoniiio...* adibidea barne.

[138] "Acento vasco" (Orixe 1919).

[139] "Y supuesto por ahora, que en el habla ordinaria vasca no hay acento intensivo ó una sílaba más intensa que otra, definiremos el acento vasco diciendo que es la altura relativa de una sílaba en la palabra, frase ó período". (Orixe 1919:3).
Orixeren jakinturria belarri soila zela pentsa daiteke, batez ere Mitxelenaren hau irakurrita:
"tresnak, gure Orixeren ustearen kontra, giza-entzumena baino zorrotzagoak baitira". (1972b3:55).

Eta uste horretan egoteak, Labaien-Ezkurra inguruetako euskaran entzun daitezkeenak, silaba batzuk besteak baino luzeago eginez, "kantatuegi" esatetik sortuak liratekeela baieztatzera darama.

Mitxelenak, ordea, Orixegandik harturiko hitzak oin-oharrean emanez hain justu:

> Ormaetxea jaunak dioenez[140] ez dago hizkera horretan indar bereizkuntza larririk silaba batetik bestera: "A causa del excesivo canturreo alargan notablemente unas sílabas sobre otras. En vez de Joxantonio, que se pronuncia en otras partes con los tonos inicial y final, dicen Joxaantoniio, conservando sin embargo en lo demás los acentos indicados" ("Acento vasco", RIEV 9 (1919) 1hh. 15garren orrialdean). (1958h:104).

tesi horrekiko adostasun-eza frogatu eta agertzen du[141]:

> Azentudun silaba indar gehiagorekin eta askozaz ere luzeago ebakitzen dute [Beintza-Labaienen]; hurrengoa berriz, ez da ia adirzen, hain barra laburra eta ixilla. (1958h:104).

Mitxelenak uste du, indar-azentuak, Orixek adibidetzat harturiko leku horietan ez eze (Orixek aitortuaren arabera egokitzat ez daukan Nafarroako Ultzamakoa barne[142]), beste zenbait lekutan ere (Zuberoan, Gipuzkoako Irun-Hondarribietan, Zarautzun), bizirik dirauela eta azentu-mota hori, hizkuntzaren atzoari begiratuz gainera, ez litzaiokeela, apika, euskarari horren arrotz:

> Ez da, beraz, azentu-mota hori hain desegokia euskal belarriendako. Batez ere, euskararen atzoari, historiari begiratzen badiogu. (1958h:105).

"Ondar-gainean" hipotesiak eraikitzen ez dituzten Mitxelenaren beraren eta Martinet hizkuntzalari jakintsuaren ikerlanek, Orixeren iritziaren aurkako ondoriootara daramate, beraz, auzia:

---

[140] Jat. *dionez*.

[141] Gure aburuz, Orixeren hitz horien jarraian datozenak argiago dirateke Orixeren iritziaz jabetzeko:
"A pesar de lo agradable que se hace al oído aquel lenguaje, tengo para mí que ese tonillo es de transición, no el verdadero y neto vasco; y que de él a los acentos intensivos fijos no hay más que un paso".

[142] "En el valle de Ulzama, si la memoria no me es infiel he oído á algunos *tor da* en vez de *etorri da*; *kar dit* por *ekarri dit*; *kus duzu* por *ikusi duzu*. No es que *etorri* venga de *tor*, ni *ekarri* de *kar*, ni *ikusi* de *kus*, sino vicecersa. La explicación está en la misma **prosodia degenerada** de los que la hablan de ese modo. **Transforman el acento tónico en intensivo**, de lo cual se sigue la elipsis y la agrupación de más consonantes alrededor de él". (Orixe 1919:14). (Beltz. gurea).

> euskara zaharrak indar-azentua zuela eta azentu hori hitzaren silaba jakin batean zegoela. Eta beldur naiz bestek ere, euskararen prehistorian barrena abiatzen baldin bada, ez ote duen indar-azentuarekin topo egingo. (1958h:106).

Hitzaldi hau har daiteke, beharbada, Mitxelenaren asmoak, euskalaritzari eskatzen dizkion betekizunak eta lan-moldeak, zein eta nolako dauzkan jakin ahal izateko erakusgarritzat.

Hizkuntz azterketan enpirismoa uxatzen dutenak jo daitezke mezuaren balizko hartzailetzat. Mitxelenak zuzenean paperera aldatuetan ez ezik:

> Hipotesis direlakoak, horratik, ez dira ondar-gainean eraiki behar: behar bezalakoak direnean, aurrean dauzkagun gertariak azaldu beharrak bakarrik sortarazi baititu. (1958h:106).

mintzaldian zehar, argumentu-harian ere islatu baitu eskakizun hau.

Aldez aurretik zedarritu gabeko iritzietarik abiatu ordez, prozedura eta azterbide finkatuak dituzten jakintzetara jo beharra dago: horregatik Fonologia/Fonetika; fonema/soinua... pragatarren bereizkuntza teorikoetatik abiatzen da errenteriar hizkuntzalaria.

Finkaturiko zutabe teoriko eta metodologiko horietaz baliatuz eta horien argitan, euskaraz zer gertatzen den aztertu eta azaltzeko modurik ematen ote duten ikusi beharra legoke.

Honela, bide horren urratsetan erdietsirikoak, uste soiletan oinarrituz lortuak baino sineskizunagoak dira eta, kasu honi dagokionez, jakinbideen azterbideak erabili dituztenek eskura dituzten ondoreak, Orixeren iritzien aurkakoak gertatu dira.

Nolabait esan, aho batez aitorturiko Orixeren intuizioa, ukatzen ez zaion euskal sena, ez litzateke erabat zuzena euskal azentuaren izaerazko puntu zehatz honetan, seguruenik, ondorioztatu dituenen atzean, aurriritziak izan dituelako gidari[143].

Izan ere, Orixe-Mitxelena bat bide datoz indar-azentuaren izatean: euskaraz bada halakorik. Ez datoz bat, aitzitik, honen izakeran, batentzat arrotz-kutsukoa, hondamendiaren erakusgarria dena, bestearentzat, aspaldiko arrastoa da.

Ez du Mitxelenak, ordea, bere saioa Orixe beztuz amaitu gogo:

> Eta astiro eta behar bezala aztertu diodanean, gaur Ormaetxea jaunari Leitzako doinuaz entzun diogun azter-lana bezalakoak dauzkat gogoan. Aspaldi hasi zen lanean arlo honetan eta urteek ondu besterik ez dute egin bere jakinduria, ardoa bezala. Esan dut. (1958h:106).

---

[143] Goenagak ere (1991) hauxe nabarmentzen du.

Honenbestez, Orixeren aburuaren alderdi okerra axalera eramanagatik, ezin ondoriozta daiteke orexar-uitziarrak barruti honetan mamituriko orori Mitxelenak arbuiatzeko deritzanik. Beharbada, pentsa daiteke, esparru murritza azterkizun hartzen duten Orixeren gisako lanak, beste lan zabalago eta osatuagoentzako lagungarri gerta daitezkeela eta, ildo honetan, Orixek egina, lehengaia izan daitekeela.

5.5. ORIXE ETA LITERATURA

Orixe eta hizkuntz azterketa ikusi ondoan, Orixeren beste alderdi –apika, adierazgarriago eta entzute handiagoko– bati helduko zaio orain. Orixe eta literaturaren[144], hobeto esan, Orixe eta euskal literaturaren arteko harremanari, hain zuzen ere.

Harreman honen gainekoak, hiru puntu nagusitan eraikiko dira, eremu honetako Orixeren erabateko lana, sailkamodu honek egoki antolatuko duelakoan.

Batetik Orixe euskalariaren beste azterradartzat jo litekeen literatur ikerlanari begiratuko zaio; hau da, Orixek besteren euskal lanei iritzia Mitxelenak nola jasotzen duen eta Orixeren juzkuari zer derizkion adieraziko da.

Bestetik, berriz, Orixe ederlan-sortzaileari, hots, bere baitarikako euskal lanen mamitzaileari erreparatuko zaio. Hemen, beste zatisailkapen bat egingo da, idazlanen tankeraren arabera.

Eta azkenik, Orixe bihurtzaile edo euskaratzaileari, Orixeren ariketa honek bai baitu Mitxelenaren arreta bereziki bereganatzen.

5.5.1. Literatur kritikaria

Mitxelenak, Orixe eta euskal literaturaren arteko lokarriak autu dituenean, Orixe sortzailearen ondoan, Orixe euskal literaturaren kritikaria eta berri-emailea ere lotzen du.

Kritikagintzan kabi daitezke, aldez edo moldez, hemen paperera ekarriko diren Orixek euskal literaturaren historiaz esanak, neurtizkeraz adieraziak nahiz besteren idazlanei eginiko hitzaurreak, Mitxelenak honelako sailkapenik egiten ez badu ere.

Orixe literatur kritikariaren lehen berria, "Arnaut Oihenart" izeneko 1953ko artikuluan ematen du Mitxelenak. Orixe darama paperera –zehazkiago esan, bere "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra" (1927)–, lan honetan Orixek adierazia bere eginez, bestela esan, Orixeren aburua zuzen etsiz eta *auctoritate*-tzat joz:

> [Oihenart] Poeta landuen edo bederik landuxeen artean sartu zigun Orixek. Eta tinta-usairako joera dutenei izatez dagokie elkar ezagutzea eta elkar aipatzea. (1953b:39).

---

[144] Zehaztekoa iruditzen zaigu, Orixe euskal idazlea baldin bada Mitxelenak eskuarki azterpuntuan hartzen duena, behin (guk kaustuaren arabera) Orixe erdal idazleaz ere bere iritzia ematen duela. Bere laburrean interesgarri aski den "In memoriam" 1961ekoan, alegia.

"No hay que olvidar, porque este aspecto de su obra es menos conocido ahora, que su prosa castellana, dentro de la concisión y sobriedad de siempre, fue muy cuidada y castiza". (1961h:431).

Alderdi honek ere, Larramendirekin lotzeko biderik ematen al du?

Jaso berrian argi gelditzen bada ere, ondoren datozen lerroetan, are gardenago irakur daiteke Mitxelenak Orixegan goraipatzen duen nagusitasuna.

Oihenart poetaz ez bide dago iritzi bateraturik, zenbait aztertzaileren artean bederen. Hauetariko bi papereratzen ditu Mitxelenak bere aburua axalera baino lehen: Francisque Michel-ena, "euskal literaturak hainbeste zor dion jakintsuarena" alegia, eta Orixerena, hain justu.

Michel kanpotarrak, itxura guztiz, Oihenart poeta Oihenart historialariaren azpikotzat dauka, bi dohaiok, nonbait, elkar etortzen zailxeak izaki.

Mitxelenak ez dio Orixek Oihenarten alderdi biok elkarren parean jarri eta bat abantailatu duenik, baina dioena da Orixeren ikusmoldearen arabera, ez direla zeharo baztertzekoak Oihenartek hitz neurtuz eginak:

> berez zorrotz xamarra izanik, neurtitz gaietan batez ere, ez ditu zeharo gaitzesten. Jakite-lanez kanpora ere, zorretan gaude Oihenartekin[145]. (1953b:40).

Michel-en eta Orixeren arteko adostasun-eza, badirudi, Oihenartegandikako neurtitzak erabat gaitzestean ala ez egitean datzala. Mitxelena, Orixegana makurtzen da; *etxekoari*, *kanpokoari* baino fidagarriago irizten dio eta:

> Nori sinetsi? Orixeri noski, etxekoen begi-belarriak erneagoak izaten baitira holakoetan kanpotarrenak[146] baino. (1953b:40).

Mitxelenak Orixegan nabarmentzen duen irizpide zuzena eta maisutza ez du, horregatik, arestiko poeten arteko uztarri horretara mugatzen.

Uste honen beste irozgarritzat har daiteke, Olabideren *Itun*ak mintzagai dituela, Mitxelena, berriz ere Orixeren uste zuzenaz baliatzea eta bere egitea:

> [Olabide] Gero eta hobeto ari zela ere egia da. Liburu honetan bertan, **Orixek erakutsi duenez**, alde handia dago Itun zaharretik, orainengo itzulitik, Itun berrira. (1959b:121). (Beltz. gurea).

---

[145] Hona Mitxelenak (1953b:40) aldatzen diruen Orixerenak:

"poeta landuxea izanik, neurtitz politak utzi zizkigulako. Etxepare baino landuagoa, zailuagoa, arinagoa... Badtu burutapen ugari, erderatik artu arren, euskerara ederki egokitzen diruenak... Gaur den egunean ere lanik aski Oihenarten neurtitzak baino legunagorik, landuagorik, jasoagorik egiten". (Orixe 1927:210-211, Mitxelenak emana).

[146] Kasu honetan, gainera, kanpotarrekiko mesfidantza areagotzeko arrazoirik ez da falta. Mitxelenak berak dioenez:

"Ezin esan beretzat eta bere laguntzaile Artxurentzat, neurtitz horiek zeharo "hortus conclusus" direnik, baratze ixia edo zazpi zigiluz giltzatutako liburua. Bazekiten, bai, gutxi gorabehera behinik-behin, zertaz ari zen Oihenart; ahapaldi osoak ere adituko zizkizuten batzuetan. Baina kritikaren oinarri nagusia, hitz eta esaldien mami izkutua atzematea, gehienetan falta zitzaien". (1953b:41).

Bi erakusgarriok –bere urrian– bide ematen dute, esan bezala, Mitxelenak Orixegan iritzi zuzeneko kritikagilea ikusten duela, aldizka behintzat, ondorioztatzeko.

Arestian jaso bezala, Orixe literatur kritikaria neurtitzez ondutako lanetarako begi zorrotzeko etsi du Mitxelenak. Hau dela eta, komeni bide da, neurtitzen barrutian pittin batez gelditzea eta Mitxelenak gai honetan zenbatetarainoko gaitasuna aitortzen dion begiratzea, berariaz nabarmentzen baitu orexarraren iharduera hau.

Mitxelenak gai honezazko aipurik zaharrenean (Oihenarten gaineko lanean txertaturik ematen duenean) esanetik abiatuz, Orixe eta neurtizkeraren harremanaren arteko hurrengo berria, 1963an kaleraturiko Gazteluren *Musika ixilla* itzul-lanari eginiko sarreran[147] adieraziez ematen du.

Ez du, ordea, Mitxelenak hemen zehazten zein den Orixeren neurkerazko ikuspegia, "neurtizkera erabat" aztertzen duela esanagatik. Ez eta, euskal neurtizkeraren inguruan dauden bi ikuspegien artean –labur esan, Lekuona zaharraren "oinetan"[148] sustraiturikoarekin antz handia hartzen dion Gazteluren "pikoetan" oinarrituaren[149] eta, "Detxeparez gero, gutxienez" silabetan oinarritzen denaren– zein hautesten duen Orixek[150].

---

[147] Orixeren testuak izaera hau duela eta, hurrengo puntuan ere berriz aipatuko da.

[148] "Nik nere itzaldian [Durangon, 1919an], Euskeraren metrikari latiñezko metrikaren jokaera erantsi nion. Latiñaren jokaera, ez erderarena: ots, euskeraz ez dirugula bertsuak silabaz neurtu bear, oñetaz baizik.

Ontan oso nerekin zegoen gure "Orixe". Oñai begiratu bear zayela, ez silabai /Itzaldiaren asieran, gauzak errezago adierazteko, berak ere *silabak* aipatzen ditu; bañan neurtitza nola neurtu esan bear duanean, *oñetara* jotzen du bete-betean./ Oria datozela elkarrekin neurri-neurria gure bertsuak, ez bestela, ez silabaz neurtuta". (Lekuona 1965:210).

Lekuonak egiten duen Orixeren hitzezko erabileraren eta olartzuarraren erabateko teoriaren ez bezalako ikusmoldea, Altunak (1979:99,102,103) esate baterako, adierazia du:

"Prestutasunaren bidean, handik aurrera, greko-latinoen eredutasunak bere papera jokatuko du bertsolaritzaren prestigiatzeko ere: poesia greko-latinoetan bezala, bertsoa oinetan neurtzen da, ez silabatan, etab.". (Azurmendi 1986:135).

Orixeren neurkeraz, berariaz, bestalde, Etxeberria (1990).

[149] "Gazteluren ustez, ez lukete silabek izan behar –Detxeparez gero, gutxienez, diren bezala– euskal neurtitzen oinarri: "Zorrotxarrez aukera izan dugu neurtizkeratzat zorioneko izki-zenbakera dalakoa. Neurtizketarako pikoak [*ictus* direlakoak] zenbatu behar lirake, ez silabak, neurbide errezagoa dana gañera, irakurleak igerri baldin badio". Teoria horrek, oker ez banabil, badu beste baten antea: harako Manuel Lekuona jaunak bere *Literatura oral euskérika*-n azaldu zuen harena. Pikoak esatea nahiz oinak esatea berdintsu balitz. Gehi dezagun piko edo oin horiek neurtzeko erregela xehe xamarrak ipintzen dituela Gazteluk". (1963d:107).

"Oin bakoitzak bi une ditu, bi zati, bere izaeran. Lenengo uneari, *une indarduna* esan oi zayo, eta bigarrenari *une argala* /Ba'dakit zenbaitzuek, gregorianistai jarraituaz, nayago izaten dutela une indarduna ta une argalaren ordez, antziñako *tesis* ta *arsis* esatea; bañan nolanai dala, tesis dalakoaren gañean etorri bear omen-du *ictus*, ots, *piku* dalakoak, eta piku ori indar-gauza ez ote-dan-edo-ta, nik beti ere *une indardun (tiempo fuerte)* ta *une argal (tiempo débil)* esaten jarraituko det lantxo ontan, errezago alkar aditu dezagun. Jakiñaren gañean./ Ots: "oña" esan oi deguna, obeto esateko, *urratsa*, pausua da". (Lekuona 1965:213).

[150] Sarasolak bai:

"Dena dela ez da behaztoparik falta hipotesis honen funtsasuna egiaztatzeko. Lehenik, Aranak delako artikuluan <la unidad del metro euzkérico es siempre la sílaba> baieztatzen du, eta jakina da Orixek nahiz Lekuonak azentu-oinean finkatzen zituztela euskal metrikari buruzko beren teoriak. Halaber da jakina garai hartako Orixe ez zela prezezki aranazalea". (Sarasola 1978:962).

Halarik ere, esan, badio, Orixek noizpait, lehen ereduaren arabera ("eredu edo patroi berriaren" arabera, alegia) ondu zituela zenbait lan:

> Bistan dago bi alde dituela teoria horrek. Batetik, eredu berri bat (Orixek behinola, oker ez banago, segitu zuena Prudenzioren zenbait itzulpenetan) (1963d:107).

Orixe euskal neurkeraren aztertzaile moduan aurkezten duen hurrengo aipamena, 1977koa da:

> Bertsoak, musikak ez ezik, berezko du neurria, eta hortik datorkio gure artean hartu duen dentura: neurtitza edo hitz neurtua, alegia. Neurriaz gainera, besterik ere izan dezake, baina badirudi, han eta hemen, premiazko duela neurria, nahiz neurkera batera zein bestera egin.
> Hontan [sic] ere, oker ez banabil, ez dakigu zein izan zitekeen, garai batean, euskal neurkera hori, zenbaiten saioak (Lekuona, <Orixe>, Leizaola, Gaztelu, etc.) gora-behera, ez baitugu oraindik guztiek onar dezaketen teoriarik. Aztertzurik dagoena edo azter daitekeena bederik, besterik da: nola neurtzen diren eta gainera, nola neurtu behar liratekeen (Arana Goiri eta abar[151]) orain. (1977a:93)

Baina, ikusten den bezala, ez die ezer berririk eransten lehen adieraziei.

Honenbestez, bere burua, "hitz neurtuz mintzatzen direnen"[152] artekotzat ez duen Mitxelenak, Oihenarten eta Gazteluren gaineko kritikez adierazien arabera, ez bide du gaizki ikusten Orixe neurtitz-aztertzaileak arlo honetan egina.

Alabaina, Orixe literatur kritikariarekin uztarri zuzena bide duen Orixe literaturaren historialariagan, ikusten du Mitxelenak agerian uztekorik:

> Euskal literaturaren lehenbiziko kondaira zein da? (...) Lehenbizikoa dirudienez Orixerena da. Orixek euskaraz egin zuena. Nik ez diot Orixerenari deus kenduko, baina esate baterako hau esan daiteke: teatrorik ez du aipatzen. Barrutia izan bazen ala ez zen ez da agertzen. (1981a:61).

Hau da, Orixe literatur historialariari zerbait itzuri zaio, hutsune nabarmen samarra, Mitxelenaren begietan.

---

[151] Mitxelenak, neurtizkera dela eta, Arana Goiriren eta Orixeren arteko lokarririk ahotan ez du: bai, ordea, Sarasolak (1978:961), gaia ikerkizun dagoela aitortzen badu ere.

"Artikulu hortan [<La fonética en el metro del verso>, 1929koan] olerkarien ihardukitik atera genituen legeak euskal metrikaren legetzat ematen ziren: olerkariek Arana-Goirik asmatu /<asmatu> diogu, erregela horiek euskal poemagintzaren historia osoan inoiz bete ez direlarik Arana-Goiriren irudimenaren fruitu hutsa bait ziren. Bestalde seinalatu behar dugu <licencias métricas> izendatzen duen partean ez duela guk adierazi dugun <a> mugatzailearen bazterketaren kontua aipatzen./ zituen erregelen arauera zuten eratua beren neurgintza".

[152] (1963d:107).

Tartean sartzea zilegi bada, Orixeren 1927ko lana begien aurrean izanik, zer edo zer zehatz daiteke Mitxelenaren iritzi hau.

Egia da Barrutiarik ez dela agertzen, "teatrorik" (izen hori duenik behintzat) ere ez, baina "Poesi Efitara"[153] izenburuaren azpian *Pastoralak* aipatzen ditu, eta *Etude sur le theatre basque* RIEV, IX, pág 80 ere bai oin-oharrean.

Pastoralak antzez-lanetarikotzat onartuz gero, Orixek teatroari txokoa –xumea bada ere–, eskaini diola aitortu behar ez ote den pentsa daiteke.

Zernahi gisaz, geroagoko Mitxelenaren pasarte jaso berriak, Orixeren maisutzan ez ote duen beste artesitu bat sortzen errezeloa egin daiteke.

5.5.2. Aitzinsolasgilea

Ekarri behar den Orixeren beste alderdi bat, hau ere Orixeren maisutasunaren euskarri eta erakusgarria, Orixe **liburuen** aitzinsolasgile edo hitzaurregilearena da.

Sarreragile izatea, nolabait, kritikari izatearekin loturik ikus daiteke, delako aitzinsolasaren mamiaren arabera, hau, kritikatik lerratuxeagoa nahiz, aurkezpen-kutsu handikoagoa izanik. Mitxelenak nolako taxua duten Orixeren hitzaurreek beti argitzen ez duenez gero, nahiago izan da hemen bakanduxe, paratu.

Lizardirekin hain bat eginik zegoen Orixek egin dio, hain justu, adiskideari *Biotz-begietan* lanaren hitzaurrea, eta hala jaso Mitxelenak.

Nahiz iruzkinaren azkenerako utzi Mitxelenak Orixeren aitzinsolasa, amaian aipatuagatik gutxiena ez dela esan eta zehaztu gogo du:

> Azkenik –*last, but not least*–, aipa dezadan lehen argitaraldian hainbeste bider irakurria dugun Orixeren hitzaurrea. (1956g:66).

Berri-emate hutsera murrizten du Mitxelenak Orixerena, baina garbi ikus daiteke, azkenekotzat ez joz eta hamaikatan irakurria izatea aitortuz, ez zaiola inondik ere baztertzekoa iruditzen.

Orixeren aitzinsolasa ("erdiko solasa", hemen) du autu Mitxelenak, Loramendiren *Olerki ta idatzi guztiak*i eginiko iruzkinean. Ez dabil laudorio-zurrean errenteriarra Orixeren ongi egina azpimarratzean:

> Badu liburuak hitzaurreaz landara beste hitzaurre edo erdiko hitz bat, arras biziki, egoki eta, honela

[153](Orixe 1927:169).

esan badaiteke, toleskabeki idatzia: Orixerena Loramendiren olerkiaz. Zuzen baino zuzenkiago adierazten du bertan Loramendi-ren izenaren eta eginaren egokitasuna: "Izan ere, lore oriek igali edo amari biurtu baiño len il zan gizagajoa". (1961f:59).

Orixek moldera eramanikook, liburuaren atariko edo iritzi-azalpenak izateaz gain –ikusi diren kasuetan bezala–, bestelako betekizun zehatza dutenak dira.

Horrela, lehen ahotan hartu den Gaztaluren *Musika ixillari* Orixek aurrean landatua, Mitxelenarentzat, Orixek euskal literaturari utzi nahi izan dion hilburuko edo *ordenua* da:

> Sarrera, euskaraz eta erdaraz, Orixerena da. Hor aztertzen ditu neurtitz hauek eta neurtizkera erabat, poema hauek eta poesia erabat. Esan daiteke, gehiegizko gezurrik esan gabe, hor dagoela euskal literaturari, eta literaturari erabat, utzi dion testamentua eta ordenua[154]. (1963d:107).

Bide honek eraikitzen du, hain zuzen, arestian aipatzen zen hitzaurregile-kritikari zubia.

Honen ondoan, ekarri behar da, Mitxelenak zer irizten dien Orixek *testamentuan* adieraziei. Goi mailakoak bide ditu, oso, giputz-nafarrarenak jarraian beste honakoa aitortzen baitio:

> Nahikoak genituzke orrialde horiek irakur-irrika edozeinengan sortarazteko. (1963d:107).

Beraz, Orixe hitzaurregilea estimu handian duela Mitxelenak ondoriozta daiteke.

5.5.3. Sortzailea

Mitxelenak Orixe eta euskal literatura harremanetan jarriz egiten duen lehen euskal aipamena, esana doan legez, Orixe hil baino hamar urte lehenagokoa da, 1951koa alegia:

> Euskal literaturak azkeneko urte hauetan miragarrizko lana burutu du Orixeren bitartez. (1951c:25).

Ez du hemen Mitxelenak Orixeren lan zehatzen izenik ematen, beraz, Orixeren ordurarteko ekarria bide da, Mitxelenak, euskal literatura eta Orixe bat egiteraino uztarturik ikusten duena.

Egia da ez dela Orixe –perpausaren azal gorriari begiratuz gero, behintzat– burutze-

---

[154] Gazteluk (1963:52) berak halakotzat dauka:

"Zenbat egun aurretik, Donibane Gurutzen itzulkizunetzaz eskuz jarritako bere iritzia galdu edo oarkabe ausi egin zulata, olaxe joan zitzaigun ustekabe gure "Orixe". Gure ele-maisu zanaren **liburuko lana** esan diteken au neretzat egin zulako, nere esker ona azaldu bearrean natzaio". (Beltz. gurea).

lanaren subjektua, **euskal literatura** baizik. Baina sintaxi hutsari muzin egin eta semantika-egituran oinak finkatuz, perpaus hori bera, bestela ere irakur daiteke, Orixe bailitzateke benetako "egilea" subjektu ez bada ere, egungo semantikan erabili ohi den terminologia honi egokitzea zilegi bada.

Egile-artekari horrek, honakoa ekarriz[155] aberastu du euskal literatura:

> Ezin sinistuzkoa da gozogabeko urteotan eman digun euskal bizitzaren irudi garbia. Gure aldiko haize erauntsiek erruki gabe astindu badute ere, geroak lur gainetik osoro urra badeza ere, hor daukagu, ez atzoko, ez gaurko, ez biharko, bai ordea betiko, "sub quadam aeternitatis specie", Jainkoaren begi maitakorretan betidanik egon daitekeen bezalaxe. Eta hor daukagu betiko, batez ere, eusko anima jatorra, sinismen sendoa, Jaunaren sabel beroan zalantzarik gabe etzana. (1951c:25).

Nahiz Mitxelenak, esan bezala, lan zehatzen izenik eman ez, galda daiteke, apika, zein izan ote daite(z)keen euskal literaturak "miragarrizko lana" burutzen, lagun izan d(it)uen Orixeren lana(k).

Honetan argi-izpiren bat kausitzea garrantzizko dateke, Mitxelenak Orixeren zein lani irizten dion euskal literatura osoa ordezkatzeko modukoa(k) eta, honek dakarren Mitxelenaren Orixeren lanezko juzkuak jakin ahal izateko.

Hona beraz, galdera, zein litzateke (edo lirateke) Tarsoko Pauloren[156] hitzek gatzatzen dutenaren atzean legokeena (leudekeenak)?

Joxe Azurmendik, pasarte hau bera mintzagai duenean, *Euskaldunak* ez dela adierazten du, oin-ohar baten bidez:

> Oraindik *Euskaldunak* argitara eman gabe zegoen, Mitxelenak lerrook idatzi zituenean. (Azurmendi 1977:94).

---

[155] Orixeren orobateko ekarriari aurrerago erreparatuko zaio.

[156] Mitxelenak norenak diren orain ez badio ere, Patxi Altuna paratzaileak "Hitz Bi" atalean eskaintzen du laterazko esapidearen iturburua:

"*Euskal literaturaren etorkizuna* delakoan, hauxe irakurtzen dugu:

«Paulo apostoluaren hitzak datoz gogora: «Haur nintzenean, haurrarn dagokionez hitz egin, haurrari dagokionez uste, haurrari dagokionez asmatzen nuen. Gizondu orduko, berriz, haurkeriak utzi ditut».

Lerro batzu beherago «sub quadam aeternitatis specie» esaera aipatzen du; geroxeago ostera ere «Barrenean bi gizonen burruka latza somatzen dugu -berriz ere Pauloren hitzak aipatu behar-» dio berak, eta azkenik norenak diren esan gabe berriz Pauloren beste hauek: «lupiki ozen eta txilin burrunbaria bezala»". (Altuna 1988b:28).

Mitxelenaren lanaren eta *Euskaldunaken* argitaradatak begiratuz ordea, harrigarri samar gerta daiteke Azurmendiren iritzia, Mitxelenaren artikulua 1951koa eta Orixek 1931-1936 epean onduriko poemak, 1950ean ikusi baitzuen argia.

Ondoren jasotzen diren Mitxelenaren beraren beste hitzok garbitzen bide dute auzia:

> Eta oraindik ere, Jauna lagun, agiriagorik utziko du, Orixek bere-bere duen beste poema hori argitara eman dezanean. (1951c:26).

Honen ondorioz, pentsatzekoa da, Mitxelenaren lanarekin gertatua, argitarakontu hutsa dela; hau da, behin baino gehiagotan gertatu ohi denez, idazlanaren data eta aldizkariko zenbaki-urteak ez datozela bat[157].

Datak gora-behera, ardura duena da, Mitxelenak estraineko aipuan, "euskal bizitzaren irudi garbia" ez duela zuzenean *Euskaldunak* lan "larriarekin" lotzen.

Honenbestez, 1950 arte Orixek plazaraturiko euskal lanak begi aurrean paratu behar dira argirik atzemango bada.

Lehenik eta behin, ez lirateke mirakizun, erdal lanekin batean (euskal literatura baita tartean), lan euskaratuak eta garaian garaiko gora-beherak mintzagai dituzten artikulu eta enparatuak.

Bihurlanak saihetsean uzteko arrazoia, lanak ematen duen irudi garbia, "euskal bizitzarena" izatean letzake. Honek dakar, epe horretako Orixeren lanak begiratu beharra, liburuetarik[158], bi besterik ez liratekeela hautakizun: *Santa Kruz Apaiza* (1929) eta *Barne-Muinetan* (1934).

Gure ustez, balizko bi hautagaietatik, bigarrena da, *Barne-Muinetan*, alegia, Mitxelenaren hitzen iturbururik nagusiena[159]. Uste honen irozgarria, ondokoetan luntsa daiteke:

- Esan den bezala, Orixeren lan honek ez du bestearen zoririk izan, hots, argitaradata

---

[157] Aldizkarien datekin, batzuetan, bitxikeriak gertatu ohi dira. Esaterako, Mitxelenaren beraren "Luis Martin Santos" artikulua, Martin Santos hil aurreko data duen ale batean argitara emana dago, nobelagilea 1964eko urtarrilean herioak eraman zuelarik *Egan* 1963koan baitago.

[158] 1965eko omenaldian jasoez gain, Iztuetak (1991a:1357-1374) zehatz-mehatz ematen du Orixeren (eta honen gaineko) bibliografia ugaria. Epe horretako (1950 aneko, alegia) liburu ez diren beste euskal lan gehientsuenen izaerak, uste dugu testuan mintzagai dugun aukeratik lerratuxe uzten dituela.

Salbuespentzat hartuko genituzke, Mitxelenak –erakutsiko den bezala– hamaikatan ahotan dituen Orixe "lirikoaren" erakusgarririk argi eta baliozkoenak. Lizardi zendu ondokoa, esate baterako.

[159] Sarasolak ere, hauxe du aipagarriena literaturaren ikuspegitik:

"<Orixe>-ren lana kriterio literario batez arakatzen bada, haren poemak eta prosako zenbait lan hartu behar da gogoan soilik, gainerako obra guztiak itzulpenak baitira. Alde honetatik haren lanik baliotsuena <Barne-muinetan> dateke. Obra honen baloreak [sic] ukaezin badira ere, ez dira asko egilea euskal literaturako mailarik garaienean ezartzeko". (Sarasola 1971:66).

ez du eragozpen, *Barne-Muinetan* 1934ean atera baitzen kalera, Zarautzen.

- Mitxelenak iruzkinean nabarmentzen dituen alderdiei begiratuz: "euskal bizitzaren irudi garbia", irudi horren urraezina, "eusko anima jatorra, sinismen sendoa", "Jaunaren sabel beroan zalantzarik gabe etzana", egiazta daiteke, halakoen ispilutzat daukan idazlanak, nolabaiteko sakontasuna batetik, eta Jainkoarekiko lotura, bestetik, adierazi behar dituela[160].

- Mitxelenak berak aitortua du, bestalde, Orixe lirikoa duela Orixe guztietatik begikoena, baita aukera honetara bultzatzen duen karia ere.

Hau ikusirik, Orixe mistikoa egile duen liburu hau eta aldizkarietan argitara emaniko molde ez oso bestelakoko poesi lanak direla Mitxelenaren irozgarria pentsa daiteke.

Zeinahi kasutan, ez da beharbada, zokoratzekoa, poema handia argitaratzeko, aldez edo moldez, Mitxelenak bistaratua izana. Horretara makur dezake, bederen, ondoko pasartean dioenak:

> Osorik zegoen poema, osorik eta bizirik. **Zatiren bat edo beste ikusi genuen** eta egunen batean, zenbait euskaltzale presturi eskerrak, irten zen argitara, azal ederrez jantzia, lehen eta oraingo Euskal-herriaren ispilu garbia. (1965e:126). (Beltz gurea).

Mitxelenak lanaren berri bazuen, "zatiren bat edo beste" eskuztaturik ere bai[161], beraz, testu osoa kalera aitzin[162].

Gauzak honela, Orixeren eta euskal literaturaren arteko harremanak Mitxelenari nola begitan dakizkiokeen argitu nahirik, 1951ko artikuluko ingurumari zabalagora jotzea ezinbestekoa da.

Mitxelena, Orixeren izena eta honek ekarria paperera baino lehen, Lizardiren asmo hamaikatan aipatuaz mintzatu da, baina –eta txit funtsezko dirudi– baita honen jarraian Lizardi zendu ondoko hogei urteetan gertatu diren aldakuntza larriez ere:

> Baina urteok gutxi izanagatik, urte larriak izan dira, gizaldiz gizaldi bere hartan iraun duten gauza asko aldatzeko eta deuseztatzeko indarra beregan zekartenak. (1951c:24).

---

[160]Bestalde, Orixeren *Barne-Muinetan* (1934) irakurri besterik ez dago, lehen poesian bertan "Iankoaren Begiera" izenekoan, honelakoak ikusteko: "neurtzen ari nauzun Begi" (28 or.), "begikaldu samur" (30 or.), "Atseden zak ontan, gogo; / isil, beha, / ta launagan ago tinki" (32 or.).

[161]Ez du bestelako zehaztapenik ematen.

[162]Joxe Azurmendik adierazi digunez, euskaltzaleen esku artean ibili ziren zatiok. Oso litekeena da errenteriarrak Burgosko "unibertsitatean" irakurria izana. Nolanahi ere den, Mitxelenaz gain, bestek ere ezaguna zuen Orixeren lana, atalka bazen ere.

Aldakuntza gaitzak ekarri dituzte urteok. Hortaz, euskal literaturak eta euskarak, Paulo apostoluaren hitzen mamiari egokitu beharra dute ezinbestean, hots, haurtzarotik heldutasunera jauzi egin beharra dago[163].

Eta euskararen eta euskal literaturaren etorkizunerako nahitaezko duen zeregina finkatu eta paperean landatu ostean, hain justu, hartzen du Mitxelenak ahotan Orixe.

Halako jauziaren atzean zer egon daitekeen argi bila hasita, berez bezala dator galdetzea ea Mitxelenarentzat Orixeren literaturak, hil-ala-bizikotzat daukan eskakizuna betetzen ote duen eta baiezkoan, noraino betetzen duen.

Gure ustez, Orixek mamitua Mitxelena aldez betetzen du eta aldez ez; bestela esan, atzera begira bai, ez horregatik, orainari eta –funtsezkoagoa dena– geroari begira.

Orixeren lana –ez dago ukatzerik– lan itzela eta gaitza da, baina Mitxelenaren solasean, Orixeren izena paperera orduko, adiera bat baino gehiago har dezaketen hitzak –hots, ikuspegien arabera helduleku bat baino gehiago dutenak– irakur daitezke[164].

Honela, miragarritzat dauka Mitxelenak euskal literaturak Orixeren bitartez –lehen arrazoituaren harian, *Barne-Muinetan* lanaren bitartez nagusiki, apika– erdietsia.

Zein da, ordea, halakotzat hartzeko arrazoia? Bistakoena, agerikoena, Orixeren lanaren handian sustraitzen den arrazoiak dirudi. Alabaina, ondoren datorrenarekin josiz, bestela ere adi daitekeela ematen du.

Urteak *gozogabekoak* izaki, Orixek ez du gisa horretako euskal bizitzaren irudia eman, irudi –modu bateko– aratz eta garbia baizik, eta horretxek egiten du, hain zuzen ere, "ezin sinestuzkoa".

Orixek ondua garairik gabeko irudia da, inguruaren oihartzun eta ispilu ez dena, Paulo beraren beste hitzetan bete-betean kabitzen dena: "sub quadam aeternitatis specie" eta inoizko ez izateak eman bide dio, betikotasuna, "ezin urratuzko aztarna" utzi ahal izatea.

Baina, "egiteko hori egina dago", hau da, amaitutzat eman beharra dago, epe hori betea bide du euskal literaturak eta, egoki bazitekeen ere, euskal literaturak eta euskarak besterik behar dute, nolabait esan, "heldutasunera" iritsi diren aztarnak eta hatzak itsatsi behar zaizkie.

Orixeren *Barne-Muinetan* ezin har daiteke euskal literaturak urratu behar duen bideko aitzindari, baina ezta euskaldunen ametsak gauzatzera omen datorren eta argitaratzear dagoen *Euskaldunak* ere. *Euskaldunak* –beherago erakutsiko den bezala–, *egiteko* horren beraren, euskal literaturan gatzatu duen irudi garbi berberaren, beste erakusgarri bat, *agiriagoa* berau, baita. Ez da ezarririko ardatzetik saihesten.

Orixek bere lana bete du, "gurasoei zegokiena" egin du, garaia da "haur zirenak" heldutasunari dagozkion erantzunkizunak bizkarrera dituztela erakustekoa eta, halakoetan maiz gertatu ohi denez, gazteen eta gurasoen ikuspegiak ez bide datoz osotoro bat.

---

[163] Artikulu hau eta Pauloren hitzok berariaz, Lizardiri eskainiriko kapituluan miratuko ditugu.

[164] Sarritxotan gertatu zaigu hau, Mitxelenaren idazmoduagatik beharbada edo litekeenagoa dena, gure ezjakinagatik. Horregatik azpimarratu dugu, tesiaren lehen zati nagusia osatzen duten kapituluak gure irakurmoduaren araberakoak direla.

Lehen ere adieraziaren ildotik, Orixek mamituetan, nekez kausi dezake Mitxelenak, euskal literaturaren etorkizunerako ezinbesteko dituen "kaletartzearen" edo, "biziera nahasia", "gizonaren ezereza"[165], islatzearen aztarrenik, eta gainera, Orixegandik espero den lan handiak ere ez bide die kezkabide berri horiei erantzungo. Euskal literaturaraino haize berriek iritsi behar dute eta, gazteen txanda iritsia da Mitxelenarentzat: "Gazteak behar horretarako"[166] [167].

Plazara den ustearen harian kokatu behar dira, hiru urte geroago, Orixe Euskal Herrira berriarekin Mitxelenak izandako solasaren atarian adieraziak ere[168]:

> Urrutiko adiskideok Orixegandik bi gauza ikasi ditugulakoan nago, batez ere, bihotz-bihotzez maite ditugun gauza bi: bere idaztanen bidez Euskal-herriari eman dion poesi-izaera, urteen joanak desegin edo aldatuko ez duen betiko izaera harrigarria... (1954a:51)

Mitxelenak Orixegandik ikasi "bihotz-bihotzez maite duen" lehen gauza, arestian aipatu denarekin hertsiki lotua dator. Hau da, Orixek, bere ederlanen bitartez ematen duen Euskal Herriaren irudia, "betikoa" eta "harrigarria" da.

Inoizko ez izatea, berez, beztekoa ez da; aitzitik, maila horretan, eskertzekoa eta maitatzekoa da. "Harrigarritzat" edukitzeak, ordea, sor dezake susmoa, lehengo "miragarria" eta "ezin sinestuzkoa" aldamenean paratzen bazaizkio, bederen.

Honenbestez, Orixek erdietsia oso da garrantzizko euskal literaturaren barrutian, baina hesi batzuen barne hartu behar da. Besterik, hortik aurrerakorik, hau da, garai-inguruek kutsatuagorik, behar dutela euskara-euskal literaturek aldarrikatzen duela Mitxelenak ondoriozta daiteke.

---

[165](1951c:26)

[166](1951c:26)

[167]P. Iztuetak (1991a:848) bestela adtzen bide ditu Mitxelenaren hitzok:

"Bigarrene [irtzi interesgarria], aurreko urteetan egin den lanaren onarpena duzu, bereziki Orixerena. Lizardiren "larreko izkuntza noranaiko egin, jakite-egoz jaso, soin zarrari gogo berria eman ta gogo ortan izar urdiñetarañoko asmoak sortarazi" desira poetiko hari gorputza eman diona edota, Krutwig-en hizkuntzan esateko, euskara kultur bide bihurtzen ekarperik latzena egin duena, Orixe izan da. Esplizituki egiten du aitorpen hau: "Euskal-literaturak azkeneko urte auetan miragarrizko lana burutu du, Orixe'ren bitartez. Ezin-siñestuzkoa da gozogabeko urteotan eman digun euskal-biztzaren irudi garbia. Gure aldiko aize-erauntsiak erruki gabe astindu ba'dute ere, geroak lur-gaiñetik osoro urra ba'deza ere, or daukagu ez atzoko, ez gaurko, ez biarko, bai ordea betiko, **sub quadam aeternitatis specie**, Jainkoaren begi mataikorretan betidanik egon diteken bezelaxe"".

Testuinguru honetan kokatzen ditu, guk testura eramandako Mitxelenaren hitzak eta iruzkin gisa, erantsi:

"Hogei urte besterik ez dira Lizardi desagertu zela eta, orduandanik egindako lana ikusita, itxaropideari eusteko arrazoi gehiago ikusten du etsibidean egoteko baino".

Testuan diogun bezala, gure ustez, bidea –zein ere ederra zen– amaitutzat emater du Mitxelenak. Bestalde, Mitxelenaren gogobideari dagokionez, *itxaropideari* eustetik baino, bide berretan barrena 'anari ekiteko dela egitetik gertuago ikusten dugu.

[168]Solas hau lehen ere autu izan dugu, Orixeren nortasunaren berri ematen zuen aldetik.

Ez da hemen agortzen, halaz ere, Mitxelenak Orixeren eta euskal literaturaren artekoez eskuarki dioena:

> Berak landu eta eraberritu dizkigu euskal prosa eta neurtitzak, hizkuntza ere zaharberrituz. Antzinako joera klasikoei jarraituaz, beharbada, baina alfer egonak genituen joera horiek bera etorri arte. (1965e:128).

Orixek, aldi berean, euskara eta euskal literatura zaharberritu ditu, "doinu berriz" mintzaraziz, zehaztu eta zehaztuko den bezala.

Berrigintza honek, hein batean bederen, dituen aspaldiko euskal zainak beheraxeagoko utziz, aipu honetan dagoen besteri erreparatu behar zaio.

Egia da Orixeren klasikoenganako ixuria behin baino gehiagotan hartzen duela mintzagai Mitxelenak, orexarraren literatur jaidurak adieraztean[169] eta egia ere da, *Euskaldunak* aztertzean ikusiko den bezala, jaidura horren isla ikusten duela bere lanetan.

Alabaina, bestetan Orixe goresteko ahotan hartzen duenik ezin esan daitekeen bitartean, hemen, Orixe zuritzeko eta garaikoen berri ez izatea bezten dutenen aurrean Orixeren egina goraipatzeko darabil.

Hau da, "ez zituen oraingo eta oraintsuko jendeak ongi ezagutzen" esan ondoan, "Eta zer?" erantzunez, arestian jasoak eta beste, meritu askitzat ditu Mitxelenak Orixe beztu dezaketenen aringarri izateko.

Meritu horietako bat, hain zuzen ere, hizkuntza-literaturak berritzean, euskal autore zaharrak kontuan hartzea ez ezik, mendebaldeko kulturan itzala izan duten "antzinako joera klasikoak" ere euskarari egokitzea da[170].

Alde honetatik, Orixe ez da bide-urratzailea, ez zentzu hertsian, orduko, bideak klasikoek urratuak baitziren, baina Orixek "alfer egonak" zeuden joerak berbiztu ditu, euskal literatura gisa bateko kultur bideetan abiaraziz[171].

---

[169](1961e:118,121; 1965e:128).

[170]Lehen ere ahotan hartu da Azurmendi-Iztuetak "jesuiten eskolaz" adieraziak, baina zernahi gisaz, egoki dirudi, hizkuntza zaharberritzeko atzera begiratzeari erreparatzea:

"Edozeinek pentsa lezake, ordea, objekzio gisa, kontraesan bat dagoela, nahi omen den heiburuaren eta harantzkotzeko nahi den moduaren artean: euskara modernotu egin nahi bait da, baina nola eta, antigoalera itzuliz... Nola aurreratu atzerantz joanez?

Objekzio honek suposatzen du, klasiko greko-latinoak izango direla, izan, oso klasiko bikainak, baina «moderno» ez direla. Eredu miresgarri, baina pasatuak direla. Ordea, horixe ez ligukete onartuko berek. Sinestuta bait zeuden, klasiko greko-latinoak, atzoko nahiz bihariko zein betikoak zirela (...) Kontraesana, guretzat egon daiteke, haientzat ez zegoen". (Azurmendi 1986:138).

[171]Mitxelenaren hitzon atzean, *Euskaldunak* lanaz gain, Orixek euskarara aldaturiko zenbait honako lan egon daitezkeela pentsa daiteke:

"ZALDIA, Bergiliren "Georgikon"etik itzulia (...), HORATI'ren BEATUS ILLE, euskeraz NEKAZARITZA (...) Homer'en Iliadatik ietxitako zati bi eman zizkigun, dastagarri bezela: LASTERKARIARENA eta BURRUKALARIENA, Iliadako azken-kantutik antuak bi-biak..." (Ibinagabeitia 1965:99,100,101).

Bestalde, hurrengo kapituluan ikusiko da, Axular eta Etxepare-Lizardiren berdintzearen funtsa.

Honenbestez, Orixek euskal literatura berritu gogoz ihardun duenean, bere burutikakoen ondoan, irozgarri baliatu ditu aldi joanetakoak: euskal arlokoak eta miresten dituen mundu klasikokoak, eta baliatze hau, Mitxelenaren iduriz, onerako gertatu zaio.

5.5.3.1. Hitz lainoz

Orixek euskaraz hitz lauz onduak ez ditu banan-banan azterkizun hartzen Mitxelenak. Areago, gisa honetako euskal sorlanik apenas aipatzen du berariaz.

Santa Kruz Apaiza da –ohartzeke itzuri ezean–, salbuespena; hau da, izendatuki paperera daraman bakarra. Halaz guztiz, ez du honen azterketarik egiten, hornigarri gisa darabil hitz-ordena kontaketan "bere gisakoa" dela adierazteko:

> Hitz ordena ere bere gisakoa da kontaketan (...) Horrelatsu jokatzen du Orixek ere, bere Santa Kruz Apaiza-*n* (1977a:103).

Lan honi albora dakioke, iragaitzaz aipaturiko *Jainkoaren bila*[172], baina pasartean egiazta daitekeen bezala, ez du Mitxelenak inolako grafiaz edo bestelako bereizgarriz hornitzen, Orixeren hitz lainozko mistika-lan zehatz hori aipatu nahi ote duen jakin ahal izateko:

> Hain zuzen ere, berresan dezadan bidenabar, elkarren bizkiak dirudite beste zerbaitetan ere. Izan ere, Jainkoaren bila ablatu ziren biak [Orixe eta Unamuno] eta ez zuten atsedenik hartu heriotzeko orduan baizik. (1965e:127).

Orixeren prosazko sorlanen berririk ez eta, "Orixe prosa-maisuaz" dioenera jo behar da, hau baitu berariaz behin mintzagai hautatua, baina Orixe hau autu duenean ere, zeharbidea hartu beste heldulekurik ez dago sorlanez –eta ez hizkuntzaz aldatuez– ari dela jakiteko.

Honela bada, Orixe Euskaltzaindian sartu zeneko mintzaldian, "Orixe lirikoa",

---

[172] Ala itzul-lantzat jo beharko litzateke?:

"'Orixe'ri ez diogu errex ordainduko idazti mistiku orek, batez ere "Jainkoaren Billa", euskeraz ematearekin egin digun ona. Erderaz egiña zeukan lan ori bera izenburu onekin "*El trato con Dios*", euskerazko au baño zabalago ta jakintsuago gaiñera. Alare erderazkoa itzaiean utzi ta euskerazkoa argitaratu nai izan du gure Nikolas'ek". (Baztarrika 1965:187).

Iztuetak ere, (1990:42), Orixeren patu txarreko lan honen azterketaren ondoan, euskal lana erdal lanaren moldaeratzat dauka:

"*Jainkoaren billa* eta *El trato con Dios* (...) oso parekoak dira, parekoak bai gaiaren eta bai trataeraren aldetik. Tratatu eran egina dago hau, haren antzera. Aipuak eta ideiak, kasurik gehienetan, berberak edo oso antzekoak dira. (...) azken batean, [*Jainkoaren billa*] gehiago dela *El trato con Dios*-en euskarazko moldaera dela [sic]. *Jainkoaren billa* horrela burutuz gero, ulergarri egiten da Orixek *El trato con Dios* hautsi izana, edo nahi izana, bietan datorren mezua berbera bait da. Eta atal solte horietan egiaztatu ahal izan dudanez, pasarte askotan bederen, idazketa bera ere bai".

"euskaratzailea", "euskalduna", "hiztuna"... aipatu ondoan, beste "Orixe" bat aipatu gogo duela dio:

> ... beste "Orixe" bat aipatu nahi nuke hemen: prosa-maisua. Honekin baikaude zorretan hitz-neurtuetarako dohairik ez dugun idazleok, izen larri hori nere buruaren gainean ezartzeko baimena ematen badidate. (1958h:98).

Beraz, Orixe euskal prosagilearen zorduntzat dauka bere burua, hitz lainoz idatzi "beste erremediorik" ez duen Mitxelena euskal idazleak.

Zor hori zertan mamitzen den ikusi ahala, ikus ere daiteke zein diren Mitxelenak Orixe "prosa-maisuagan" azpimarkatzeko begitantzen zaizkion ezaugarriak[173]:

> Ormaetxea jaunari eskerrak batez ere, ez zen eten gure artean eteteko zorian egon zen "gure asaben lokarri zaharra". (1958h:98).
>
> XXgarren mende honetako euskara erkidxea ez ezik, antzinako liburuak ere astiro irakurriak eta aztertuak zituen. (1961e:118).

Orixe, beraz, "bere gisa" ibiltzea maite duen Orixe berbera, hain zuzen, ikusten du Mitxelenak asabekiko lokarri, moldezko eta ahozko euskal lekukotasunaren oihartzun. Orixe da mende-hasierako eten larriaren gainetik, euskal literaturak izan duen zubi bakarrenetarikoa, horrela aritzean jarraile-samaldarik ondotik izan ez badu ere:

> Hala ere hemen gutxi batzuek, nolabait ere, eutsi diote tradizio horri. Gaurko idazle askorentzat bide bat bakarra dago zerbait jakiteko lehenagokoa zer zen. Hori da Orixe. Orixek gaurko askok uste duten baino hitz, esaera eta joskera askozaz gehiago baititu antzinako liburuetatik hartuak. Baina Orixe bakar samar ibilia izan da luzaroan bide horretatik[174]. (1959a:127).

Areago, barneratu duen ondasunaren igortze eta hedatzean eraiki duen zubiaren bitartez, hartzaileak ohartzeke, uste baino gehiagoz hornitu dira, Orixegandik hartzen dutelakoan, euskal literatura osoaren zantzuak beregana baitituzte:

> Bere bitartez heldu zaizkigu askori, ohartzen ez ginelarik[175] sarritan, lau mendetako euskal-idazleen mintzaera dotorea eta ikasia, eta bertsolarien etorri egokia eta lasaia. (1958h:98).

---

[173] "Prosa-maisuari" alboratzen dizkiolako dakartzagu hemen, baina beharbada, "lokarri" edo "zubi" izatea, ez bide da soilik, prosagileari, bere hutsean, nabarmentzekoa.

[174] Jat. *ortatik*.

[175] Jat. *giñalarik*.

> Orixeri zor diogu batez ere orduko gazteek oihartzuna zenik ez genekiela belarrietara zitzaigun oihartzuna. (1961e:118).

Halakoren adibidetzat har daiteke, menturaz, Mitxelenak 1985eko "Esaera zahar baten bigarren agerraldia" lanean paperera daraman honakoa:

> Esanak esan eta usteak uste, guk ere gehi dezakegu, intentzio hobez halare egokiera ere bestelakoa denez gero, harako Etxepareren ezkutariak bere damatxoari aurpegira ziona:
>
> *Hiçac hari bira, dugun eguyna*
>
> Horrelako esaeretako joera ez zen, zorionez, XVI. mendean galdu: ez, alderatzeko ere. Ikus, bestela Orixeren *Euskaldunak* II, 405 hh.[176] Eta XX.era gabe, XVII.aren azken aldean bizi zen, joera ez ezik, baita esaera horren berorren oroitzapena ere. (1985b:193).

Orixek zubigintza honetan, gainera, ez du amore eman, garaiko "errepidetik" baino nahiago izan baitu lehengo "estrata" zaharretik segitu. Hain barnean bizi duen giroari kontra egiteko gogoak lagundu bide du zeregin honetan eta –ikusi den bezala–, haizeak bestera joagatik, ez dio "zaharren" testigutzari uko egin gogo.

> Hizkuntzari dagokion aldetik, berriz ez zen berrizale –orduko zenbaitek nahi zuketen adina ez, behinipein–, zaharzale baizik: ahoz eta izkribuz jaso zuen ondarearen zaintzaile leial, zaintzaile leial izate horrek garai hartako errepidetik baztertuko bazuen ere. (1965e:126).

Pasarteok guztiok, Orixe iraganaren berreskuratzailea eta jarrailea axaleratzen dute. Mitxelenak eskergarri eta goragarritzat daukan alderdia, alegia.

Ez du, ordea, Mitxelenak hemen amaitzen "Orixe prosa-maisuarekiko" zorren zerrenda. Atzera begira ez eze, garaiari begira ere. Orixe hartzekodun bilakatzen duen besterik ere baita:

> Antzinako aberastasun ugariak gordetzeaz gainera, ahaleginean saiatu da gure hizkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen, hizkera zailu, labur, biziago bat moldatzen. (1958h:98).
>
> Gal-zorian zebiltzan antzinako eta herriko ondasunak jasotzeaz gainera, gehiago ere egin nahi izan zuen Orixek (...) Eginahalean saiatu zen beraz –beste nonbait esan dudanez– gure hizkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen, hizkera zailu, labur, biziago bat moldatzen. (1961e:118).

Orixe eta euskararen artekoak azterkizun hartu direnean jorratu den puntua den arren,

---

[176] Hau da Mitxelenak aldatzen ez duen Orixeren pasarte hori:

> "Bi azken oriek dute "ederrez" izena
> –Larraun-erran bakarrxo arkituko dena–
> Bear bada aldatu zuten lenengo gaitzizena;
> ederki dagokie orain deriztena".

komeni bide da pasarte hauei berriz ere erreparatzea. Kasu honetan, Orixeren egitasmoarekin loturik ez baina, darabilen prosa-molde zehatzarekin, batetik –idazkeraren berri ematen duen neurrian–, baina bestetik, beheraxeago argitu gogo den Orixeren prosa-ereduaren auziarekin ere ikuskizuna duen aldetik.

Orixek hitz lauz –"prosa-maisuaren" barrutitik ez baita atera Mitxelena arestikoa dioenean– darabilen hizkera, asmoz, bederen, "zailua, laburra, bizia" da, aurrekoek zerabiltenari kontra eginez mamitua:

> Preocupado por lo que creía hallar de pesado y monótono en el ritmo de la lengua, preocupación por cierto muy moderna, se ha esforzado siempre por darle rapidez y variedad. (1960b:149).
>
> Motela, nagia aurkitzen zuen arterainoko prosa, gaztelaniaz 98koek bezala, gehiegizko apaingarriz jantzia. (1961e:119).

Horrek bultzatzen du, beraz, "zailu, labur eta bizi" nahi lukeen beste prosa eraberritua gatzatzera. Ezaugarriok dakarkiote euskarari, antza, ordurarte entzun gabeko "doinu berriz", "musika berriz", mintzatzeko ahalbidea:

> euskaraz entzuarazi digun musika berri garbia. (1954a:51).
>
> y, aunque no todos sus ensayos podrán merecer el mismo aplauso, de hecho ha conseguido hacerla sonar como un instrumento nuevo. (1960b:149).
>
> Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal-prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu. (1961e:119).

Mitxelenak, euskal lanetan bederen, honelakorik berariaz ez dioen arren, pentsatzekoa da aurrerago aztertuko den labur-beharra ere tartean dela, batez ere, "doinu horretara saiatu nahi genuke gure mintzoa"[177] eta "labur-beharrez zebilen beti Orixe, eta labur-beharrez ibili gara haren ondotik genbiltzanok, biribiltasun betegin baten bila"[178] adierazpenak elkarren ondoan paratzen badira.

Orixek "doinu berria" mamitu ahal izateko darabiltzan baliabide zehatzak, 1960ko *Historia de la literatura vasca*n paperera jalkitzen ditu Mitxelenak:

> Sus recursos han sido muchos: su acierto en la formación de palabras, signos precisos y transparentes de nuevos conceptos, ha sido extraordinario y también debe señalarse su respeto, raro en un tiempo, por el vocabulario tradicional cargado de valores que no puede ser sustituido

---

[177] (1954a:51).

[178] (1979c:153).

> sin gravísimo detrimento por equivalentes incoloros. Con todo, el gran secreto de su estilo está probablemente en lo más sencillo: en la certera utilización de las posibilidades expresivas de la considerable libertad que admite la lengua en el orden de las palabras. No ha sido él el descubridor de estas posibilidades, pero sí quien mejor ha mostrado el partido artístico que se puede sacar de ellas. (1960b:149).

Mitxelenaren erdal hitz hauek laburbiltzen dituzte Orixeren idazlanen taxuan ondorea utzi duten baliabideak: hitzen mailakoak (hitz-eraketarako gaitasun aparta eta, aspalditik euskal hitz-altxorrean errotuak erabiltzea, jatorria jatorri) eta horien gainetik, hitz-hurrenkerarekin jokatu eta etekina ateratzeko erakusten duen trebetasuna[179].

Orixek urratua, tamalez, ez da bide lau eta zabala Mitxelenaren ustez; bestela esan, Orixek mamitzen duen eredua ez da edonoren eskueran dagoena:

> Musika hori daukagu belarrietan sartua hamalka ikasle koxkor eta kaxkarrek, eta doinu horretara saiatu nahi genuke gure mintzoa, nahi eta ezin badugu ere. (1954a:51).

> Eredutzat daukagu Orixe prosa-gaietan, baina - eta hau da inork ahaztu behar ez lukeena - nekez eta izerdiz bakarrik hurbil gaitzakeen eredutzat. (1958h:98).

Orixeren prosa, beraz, Mitxelenari eskuragaitza egiten zaio, molde horretara saiatu arren, erdiesten zaila. Bere burua ikasletzat aitortua daukan Mitxelenak ordea, ez du pasarte horien ondoan argirik ematen hurbilgaiztasuna zertan antzematen dion jakin dadin.

Argirik ezean, Orixe itzultzailea -ikusiko den bezala- eredu imitagaitza gertatzen zaion ildoko balizko azalpena proposa daiteke: edonor ez da Orixe, edonork ez du berak adinako euskararen ezaupiderik, edonor ez da Orixeren "virtuosismoaren" jabe.

Honenbestez, Orixe "zaharzale-berrizalea" saiatu da euskal literaturan molde berri bati hasiera ematen, eta saiatu ez ezik, iritsi ere du bere "doinu berria" besteri erakargarri eta imitagarri gerta dakion.

Ondokoek, bestalde, bai eredu hori bere eginik -bidearen malkarrez- saiatu arren iritsi ez dutenek, bai jakinaren gainean arbuiatu dutenek, ezin uka dezakete Orixek, hitz lainoz eginetan zehazki, eta euskal literaturan, oro har, utziriko hatz "berria", "atsegin bazaigu eta ez

---

[179] Hitz-hurrenkeraren auziaz mintzatu gara "Orixe eta euskalaritza" atalean.

Nolanahi dela ere, Orixek berak, bere hizkeraz ez baina, euskararen ahalbideez ari denean, alderdiok biok ere azpimarkatzen dituela gogoan hartzekoa da:

"Uts bat du aundi xamarra gureak [hizkuntzak], aundiena ia esateko; itz luzeekikoa, errazago egin oi dugu itz-elkarketaz; baiñan adiz ele-biko orrek asturtzen digu izkera olerkirako. Besteak itz bakarrean ematen duzten [sic] itzak, guk bitan eman bearra daukagu. Uts edo oker au zuzentzen dugu batzutan itz-biltzerarekin [*elipsis* dio erdal testuan] bidez. Lân lênagoko izkuntza zarretan egin oi zuena, guk ere egin oi dugu, ta ederki datorkigu (...) Urrena, mintzaeran dago gure euskeraren aitor ona, batez ere sudur-izki esaten zaienetan. Urrenago, itz-urrenean datza gure izakeraren indarra. Oraingo izkuntzenen aldean, indar aundia ematen dio aderazpideari, geroxeago dakuskegunez". (Orixe 1963:14).

bazalgu".

5.5.3.2. Neurtitzez

Mitxelenaren lan ugaritan irakur daitezke Orixek hitz neurtuetan onduezko aipuak, zeharbidez nahiz zuzenean, hau da, izaera nabarrez, orobat harturik.

Honela, urrutirago gabe, frankotan paperera ekarri den Mitxelenak euskal letretan egiten duen estreinaldian bertan[180], bere lumatik zuzenean ilkirik[181] kausi daiteke Orixe neurtitz-ontzaileazko lehen aipua: Orixek "bere-bere duen poema", hots *Euskaldunak*, argitaratzear dagoena[182].

Esanak doazenetatik at, lan honetan, poemaren ez ikerlanik egiten ez abururik ematen du Mitxelenak.

1954ean Orixerekin duen elkarrizketa moldezko bihurtuan ere, Orixe eta poesia uztarturik aurkezten ditu Mitxelenak, Orixe eder-sortzailea, Euskal Herriaren izaera baten moldatzailetzat hartuz: Euskal Herriari, poesi izaera berriko eta harrigarria eman dio.

Honetan ere, ez du bere iritziaren irozgarria izan zitekeen azterlanik irakurleganatzen, baina errepara dakioke, lehen ere jaso den bezala, Orixe maisu hautatua duten ikasleen artean bere burua ikusten duen Mitxelenak, bihotzez maite duen ikasgaitzat daukala poesi izaera hori.

Lizardiren *Biotz-begietan* du Mitxelenak, Orixe poesigilea autu hartzeko hurrengo hizpidea. Kasu honetan ere, ez dago Orixeren idazlanen azterlan zehatzik; aipu soil bat besterik ez:

> Eta ez du gutxiagorik merezi herriotzak eten ez duen adiskidetasun ederrak. Horrek esan du, Orixeren ahoz, inoiz adiskidetasunak –edozein hizkuntzatan dakidanez– esan duen esaldirik ederrena. (1956g:66).

Aipu labur horrek, ordea, Mitxelenaren Orixezko iritzia islatzen du, Orixegan ikusten baitu, adiskidetasunak inongo hizkuntzatan hartu ahal izan duen adierazpiderik ederrenaren sortzailea.

Iritzi honek ematen du bide, hain zuzen ere, aurreraxeagoko utziko den Orixe guztien

---

[180] 1951ko "Euskal literaturaren etorkizuna" artikuluan (1951c).

[181] Honela diogu nahiz lehenago aipu horren atzean guk *Barne-muinetan* ikusten dugula esan dugun, Mitxelenak izendatuki aipatzen ez du eta.

[182] Poema hau, berariaz beste puntu batean ikerkizun hartuko denez gero, oraingoz, kontu-emate hutsean utziko da.

artean Mitxelenak zein Orixe duen begikoen eta zergatik miratzeko.

Eta ildo beroni jarraikitzen zaio, 1958an Orixe lirikoa beste guztien gainetik paratzea eta 1961eko beste hauek adieraztea:

> Hutsik gabeko bertso doietan behin eta berriro itzuri zaion deadar bihoztiak balio du, ene ustez, bere lumatik sortu diren gainerako laneginek beste. (1961e:122).

> Adiskidetasun horrek izan baitu ondore ugariric gure literaturan bertso eder (edozein hizkuntzatan egin diren bezain eder) horiezaz gainera. (1961e:124).

Baina 1958ko lan batean aurki daiteke, azalpen handiz hornitua ez bada ere, Orixeren neurtizkerazko lehen aipamen zehatz antzekoa:

> Halaz guztiz, ez da noski okerregi esana izango aipatu ditudan olerkariak [Sagartzazu, Eltzo, Zubigar, Jauregi], beste gehiago lagun dituztela, poesia horren aldi eta era baten ezaugarri gailenak direla gero, 1930tik [sic] edo hasita, Orixek, Lizardik, Lauaxetak eta zabaldu zituzten molde berrien aurrekoarena, alegia. Poesia txukun-apaina, baina herrikoia eta errax antzekoa; barrenkoia eta goibel-ixurikoa «Intza begietan» eta malkoa bihotzean. Sugarra, harrimena edo poz axolakabea baino nahiago zuten, izan ere, negar xamur ixila. (1958i:102).

Lizardiri eskainiko zaion kapituluan astiroxeago begiratuko den arren, ez bide da desegokia, pasarte hau hona ekartzea, Orixe –Lizardi, Lauaxeta eta besterekin batean–, euskal poesiaren molde berrien zabaltzailetzat dauka eta[183].

Hitz hauetatik adi daitekeen bakarra da zein ezaugarri ikusten dituen Mitxelenak Sagartzazu, Eltzo, Zubigar, Jauregi eta samalda bereko olerkariengan[184]. Argitzen ez duena da molde berrizaleek[185] zer ekarri zuten berri euskal neurtitzen barrutian, ezta Orixek horrekin izan zuen ikuskizuna ere.

Honenbestez, Orixe "zaharzalea", ez bide da horren "zaharzale" agertzen, poesi moldeei dagokienez?

Mitxelenaren erdal lan batean irakur daiteke Orixe bertso-ontzaileazko iritzi orotarikoa:

---

[183] Ikus daitekeen bezala, Mitxelena ez da elkarganatuen arteko hizka-mizketan sartzen. Orixe-Lauaxeta pareari dagokienez, Kortazar (1986), Iztueta (1991a), nor bere aztertuaren aldeko.

[184] "Hitzaurrean Lekuona jaunak ederki dioen bezala, beste zenbait olerkariarenarekin lotua agertzen zaigu Sagartzazuren izena: Eltzo, Zubigar eta Jauregirenarekin, Beterri aldekoak besterik ez aipatzeko". (1958i:102).

[185] "Bere aurre-proiektuari leial izango zaio eta garaian garaiko eztabaida literarioetan esku hartzen badu ere "berrizale"en alde, Orixe bere betebeharrari emana biziko da". (Otaegi 1991:108).

> Su dominio del verso, del que tantas veces ha abominado, va de par con el de la lengua. (1960b:150).

Hizkuntzaren jabetzarekin bertsoena parekatzean, bistan da Mitxelenak Orixe bertsogile aukerakotzat daukala erakutsi gogo duela.

Eta Orixeren lanei zer irizten dien adierazi ez ezik, Mitxelenak argitzen ere du du zein iruditzen zaion Orixeri "neurtitzik ederrenak" eragin dizkion indarra, lehen ere aipatu bezala:

> Jainkoaren altzo zabalean atseden hartu nahi duen maitasunak [eragin dizkio] bertsorik ederrenak. (1961e:122).

Bestetik, Orixe poesigileari erantsi beharreko beste alderdi bat, Unamunorekiko antza zela eta aipatu den herri-teologia da:

> Urte haietan nagusi zen euskal estiloaren arabera - apaingarrietan, letretan, etxeetan, musikan - herri teologia sartu zuen gure poesian. (1961e:122).

Garaiari eta giroari gogor egiten dion Orixek, ez dio honetan, antza, barne-isuriari amore ematen eta, "nagusi zen euskal estiloari" segituz, euskal poesian ildo berri bat –jarraileak izango dituen ildo bat, berresango den bezala– urratzeari ekiten dio.

Mitxelenagandik jaso eta aldatu diren Orixe neurtitz-ontzailearen alderdi guztietatik, bi dira bereziki pausatuago begiratu beharrak, Mitxelenak eskaintzen dien arreta iparrorratz hartuz: *Euskaldunak* lan zehatza eta "Orixe lirikoa" deiziopean biltzen duena.

5.5.3.2.1. *Euskaldunak*

5.5.3.2.1.1. Orixeren lanik entzutetsuenaz esana doa, 1951n argitara emandako "Euskal literaturaren etorkizuna" artikuluan, argitaratzear dagoen poema, Orixeren ildoan kokatu eta egiteko modu horren adierazgarririk agerikoentzat hartu duela Mitxelenak.

Baina ederlan honezazko ikuspegi zehatzak, Orixe zendu ondoko "Orixeren heriotzean" (1961e) eta "Atarikoa" (1965e) euskal lanetan eta *Historia de la literatura vasca* (1960b) eta "In memoriam. Nicolás Ormaechea (1888-1961)" (1961h) erdarazkoetan ematen ditu errenteriarrak.

Euskal lan aspaldikoenetik hasita, Mitxelenak zein lan duen autu zehaztu baino lehen, Orixeren gogobideak paperera daramatza, ondoren esango duenaren inguramendu moduan.

Orixek hizkuntza, "euskaldunaren izaera, gogo-giroa eta bizimoduak" adierazteko nahi du, baina Orixeren euskalduna euskaldun-mota zehatz bat da eta bere gogotik ilkia ere, begiko duen euskaldun horren ispilu izango da:

Eta euskalduna, harentzat, ez zen hiritarra, nekazaria eta itsas-gizona eta are artzaia etz ikazkina baizik. (1961e:120).

Zedarriak paratuta daude, beraz eta poesi gaia begiz joa.

Alabaina, Mitxelenak ez du Orixeren aukera honetan ihespide asmorik ikusten; Orixek ez du –atsegin ez duen beste mundu batetik itzuri– amesturiko mundu baketsura alde egiten, umetan benetan bizi izan duenari eman nahi dio poesi izaera:

Zorionez, ordea, ez zebilen hirietako bizitzaz higuindurik ihesi mendi bila, ez zeraman herresta antzinako amets bukolikoaren lilurak. Bizimodu hura hauitzaroan ikasi zuena besterik ez zen[186] eta ez zion bere nahiari ukorik egin behar inoiz San Antonio abadeak bezala[187], mendian basa-

---

[186] "Azkenik, Utzi matte zun "Orixek". Euskalerria'ten arnasa, gero poeman "mamitu" zuna, an eman ziotelako. Esaten du poeman, euskal-alderdi guztietako azia iritxi zala erri txiki antara, denak an beren zitua emanez, arek gero bere poeman metatu zuna". (Aranalde 1965:36).

Iztuetak ere (1991a:243) argi eta garbi ikusten du Utzi dela *Euskaldunak*eko herria:

"Orixek asko zor dio Utziri. Ez gutxiago honek hari. Honi eskaini zion bere poema nagusia, poema nazionala. Ez Euskal Herriko hiribururen bati edo beste herri abstrakturen bati. Geroari muntzo bailitzaion, "antaz egiña diñat liburu bat: onezkero bidean dim", esaten dio bere arreba Denboari. Non egingo eta, Orexan. Bilbo utzi eta hona erretiratu zitzaigun horrelako lan bati ekiteko. Hemen, Urkieta eta Musairu mendi-puntak irudimenarekin zeharkatuz, Orixeren oroimenak Orexatik Utzirako eguneroko txango etnografiko-literarioa egiten zuen ***Euskaldunak*** poemaren sorkuntz prozesu osoan zehar".

Eta aurrerago:

"Behiak, ardiak eta basoan txondarrak. Hara hor Orixeren garaiko utziar baserritarren bizimodua! Orixek oso ondo tipifikatuak utzi dizkigu nekazal gizarte horretan nagusitzen ziren ofizioak, batez ere taldelana eskatzen zutenak". (*Iztueta 1991a:248*).

Ez dute egileok, beraz, duda-izpirik, Orixek moldera eramana, egiazko eta zinetako –eta ez alegiazko edo irudimenezko– izena duen euskal herri bat denik. Halarik ere, errepara dakioke Iztuetaren azken aipuko *tipifikatu* horri.

Nolanahi dela ere, Orixeren Euskal Herri hori ez omen zen, Iztuetaren (1991b:31) ustez, bakarrik Orixeren Euskal Herria:

"Mendiz inguratua, oinetan lur hezea eta zeruan egurats garbia, inguruetan ardien marraka eta behien marruma, "Gogortzane"ko balkoitik Utziria begira egindako poema duzue *Euskaldunak*, pieza funtsean etnologikoa, bertsotan eta nekazarien hizkuntzan landua. Bilbotik zetorren, burdina goria urtzen zen lekutik, espainiera nagusi zen gizarte-girotik. Baina Orixerentzat ez zen hura Euskal Herri, nahiz Euskal Herrian egon. Horregatik, etnologiaren aldetik, euskalduntasunaren altxorra ondoen gordetzen zuen nekazal gizarteari kantatu zion, gogotik kantatu ere. Baina ez zion berak bakarrik kantatu. Garaiko euskaltzale gehienek ere Euskal Herri horixe bera zuten kantagai. Eta halaxe izanez segitu zuen, adibide historikoki markagarria aipatzeko, Arestiren *Harri eta Herri*-k 1964ean mailukada batez etxe bukoliko hori desegin zuen arte. Belaunaldi oso baten pentsamoldea jarri zen orduan jakean, ez erabat matean".

[187] Ildo honetan kokatu behar ote Orixek, antza, "franciscanista" bataiatuak higuin izatearen arrazoia?:

"Aitzolek frantses modernu horiek herri poesiarengana itzuli direla eta herri bizikerari eta naturarekiko harremanetan egiten den bizikera horretatik mundu ikuskera eta joera liriko berria aipatzen du eta horrek Orixeren olerkiek duten kutsu herrikoi baina landuaz bat egiten dutela esaten duenean, ez du zehazki une horretan "dernier parnasien" horien ordezkariak zein diren esaten. Joera hori definitzerakoan ematen dituen ezaugarrengatik antzeman bai dezakeen ere, Orixek zuzen-zuzenik erasotzen ditu beren buruei "franciscanistas" deitura ematen zietenak. Francis Jammes eta kideekoek egin zuten poesia sinbolista berankorrari inolako definiziorik ematekotan hasten denean, arbuiorik borobilena besterik ez liezaieke egin:

> "... el mundo, hastiado de su propia mentira se ha querido refugiar en cierto franciscanismo extravagante, del todo panteista, al que para ser neto franciscano le falta sencillamente una cosa, el contacto con Dios, con lo sobrenatural, es decir le falta todo. Me basta que un poeta o pretendido poeta se llame franciscano para cerrar instintivamente su presuntuoso libro. Es un caso

gizonen artean bizitzeko[188]. (1961e:120).

Lanari darion mendi-usaina, ez da bukolikotasun merkea, ez txaplata, ez du artifizio-kutsurik, usain hori edoskia eta barneratua baitu.

Baserri- eta mendi-giroko Euskal Herrian bere tokia duten artzain, ikazkin, basagizon eta ber gisakoak izan ditu bizilagun, auzo eta maisu, eta haiengandik ikasia, oroimenean itsatsia gelditu zaio betiko[189].

Gainera, idazle goitarren ezagutzak, beragan zekarren beste herri-jakinduria gutxietsi edo atzentzera ez du makurtu. Guztiz bestela, literatura handia ikasteak, xume zirudiena goratzera eraman du:

> Honek erakutsi zion aitzitik deus gutxikotzat dauzkagun huskeria haien egiazko balioa[190]. (1961e:121).

Kanpoko literaturan sustrai dezake Orixek Euskal Herriaren herri-ondasunen balioa eta, era honetan, Orixe eder-sortzailea, ondasun-biltzaile ere bilakatzen da:

> Bi lagunek ezagutu dituzte inork baino hobeki gure herri-ondasunak: Azkuek eta Ormaetxeak. Bi

---

quizá, más que de falsía, de alelamiento, nuestro original franciscano se coloca en un plano espiritual ficticio que ni siquiera llega a lo sobrenatural.". (Otaegi 1991:103).

[188]"Orixe, hombre de sólida formación clásica y poco amigo de lo moderno conoce como muy pocos las formas de vida más sencillas y primitivas de los lugares apartados del país, donde las antiguas tradiciones han llegado menos alteradas hasta nosotros. Puede convivir con pastores y carboneros, quizá muchos [sic] más a gusto que con los burgueses de las grandes villas, no por el espejismo de los recuerdos sacados de la lectura de Teócrito o Virgilio, y mucho menos de Rousseau, sino por su inclinación espontánea a lo auténtico y natural". (1960b:149).

"Puede decirse, sin la menor intención peyorativa, que "Orixe" era un *basa-gizon*, un hombre familiarizado en pleno siglo XX, por un milagro difícil de explicar, con los modos de vida y maneras de pensar de carboneros y pastores (que, huelga decirlo, poco tienen en común con los de la poesía bucólica tradicional), todavía más que con los labradores". (1961h:431).

[189]Oroimen-lagungarriak ere izan zituela aitortzen du, haatik, Orixek berak:

"«Euskalerriaren lakintza» irakurria zidan [Azkuek] geiena argiara baño len. Gauza orek nik errian bizi izanak ziran arren, erdi-loan neduzkan, eta ez nun uste alako ioan-etorri aundirik; baña nere poemarako laguntasun izan zaizkida. Bai ta Barandiaran iaunaren orriak ere. Azkuerenean irakurririk, Utziko Pestaburu batez au esan nien mutilleri: «Naparroan zenbait erritan dantzatzen dute Kadira-dantza, ola ta ola. «Bai emen ere», erantzun zidaten. Egizute bada -nik-, bost duroko bat emango dizuet. «Ez diteke, ori iñaute dantza da, tabernan dantzatzekoa. Zuk tabernan asi baño len emendik aldegin bartziñun, orregatik ez zenekin». Gero, nere laioterrian -Gipuzkoan dagoela ere- eztaietan dantzatzen zutela esan zidaten alki-dantza ori. Nik ez nekin, ez bainintzan eztai batean ere gertatu". (Orixe 1964:3).

[190]"Pero este hombre, que siguió entrañablemente unido al ambiente rústico en que pasó su niñez, recibió después (si no entró en la Compañía de Jesús no fue, como es sabido, por falta de vocación) una magnífica formación humanística que no quedó en una suma de conocimientos adquiridos por obediencia, sino que se convirtió para él en un molde amplio y flexible que le permitió expresar en su primera lengua, sin temor a las audacias formales, su experiencia personal y la del campesino anónimo". (1961h:431).

eratara, ordea, hura biltzailea bazen batez ere, txingurri langilearen antzera: hau berriz, edertzailea[191].

Horrelaxe Azkueren hiztegiaren edo Euskalerriaren Yakintzaren ondoan Orixek *Euskaldunak* poema ipini du, gure artean ondu den ederlanik larriena[192]. (1961e:121).

Orixe eta Azkue elkarganaturik ikusten ditu berriz ere Mitxelenak, herri-jakinduriak kezkaturik[193], eta nork bere gisa, ezaupide eta lekukotasun horren isla darama bere lanetara.

Honenbestez, besteren aginduz Orixek onduriko lanaren etorkian, bat egiten dute dagoeneko aipatu diren bi alderdik: mendi-giroko euskalduna iruditarako du, bere munduazko ikuspegian, benetako euskalduna hori duelako eta gainera, euskaldun horrek oraindik ere gordetzen eta bizi duen herri-jakinduriaren lekuko delako.

Del conocimiento de la lengua y de la cultura popular, de la misma renuncia de Orixe a ser un hombre moderno, murado por las modas y preocupaciones del momento, ha podido nacer el poema *Euskaldunak*, acabado ya antes de nuestra guerra y publicado en 1950[194]. (1960b:150).

5.5.3.2.1.2. Lanaren etorkia eta poema horretan zein Euskal Herrik aurkitu ahal izango duen bere neurriko ispilua argiturik, lanazko iritzi-emateari ekiten dio bete-betean Mitxelenak.

"Gure artean ondu den ederlanik larriena"[195] da Mitxelenaren orobateko juzkua, jaso den bezala. Alabaina, honen ondotik, "larriaren" uztarkideak bat ez baina, bi direla ere adierazten du eta bikoiztasun honek kontuz miratzekoa dirudi.

---

[191] "Era un extraordinario conocedor –uno de los mejores que jamás hubo– de la lengua vasca hablada y escrita, cuyos recursos expresivos no se contentó con adquirir, sino que fueron enriquecidos por él en gran medida". (1961h:431).

[192] Errepara arestiko Orixeren aitorrari.

[193] Orixek Azkueren hiztegia oso guztizkoa zuen, "*Euskera onaren iturri* lo llamó Orixe, como recuerda el padre Villasante, op. cit. p. 374 [Honen euskal literaturaren historian]". (1966b, *SHLV*:375).

[194] "Horra hor zergatik gogoematen duen ***Euskaldunak*** poema nekazal gizartean. Gainbehera doan eta herri-nortasunaren zutabe nagusi den baserriari omenaldi bat egin nahi dio. Horregatik uzten du Bilbo industri hiri handia eta Orexan, Gipuzkoako hiririk txikienean, ezkutatzen da". (Iztueta 1991a:934).

[195] Eta halaxe irizten dio erdaraz ere urte berean:

"Su poema *Euskaldunak* (1950), es probablemente la obra de mayor aliento de toda la literatura vasca, y tan característico a la vez de una persona y de un pueblo por sus riquezas y hasta por lo que se podrían considerar sus insuficiencias".

Baina, honetan ere, ondoren bada "bainarik", "con todo" batez gorpuztua:

"Con todo, mis preferencias han ido siempre hacia su lírica". (1961h:432).

Larriena, erdietsi duen handitasunean eta eskas dabilen puntuetan ez baitira hutsak bereizgarririk kaxkarrenak[195]. (1961e:121).

"Handitasunean" ez ezik, "hutsetan" ere da larria *Euskaldunak*. Honenbestez, nola ulertu behar da; zer esan nahi du "larriena" izateak?

Azurmendik larritasuna, obran bertan gabe, Mitxelena kritikagileagan ikusten du[197], Orixeren lana neurtu beharrak iritzi-emaileari sortzen diona alegia, hain da handia lana eta hain da Orixe, Orixe.

Mitxelenaren eta Azurmendiren hitzak aditu ahal izateko, ezin baztertuzkoak dira *Euskaldunak* argitara eman zen garaia eta lanak sorrarazi zituenak: laudorioak eta kritika gogorrak, orpoz orpo[196].

Baina komeni bide da, Mitxelenak obraren larria neurtzeko zein irozgarri ematen duen ikustea, hau da, non ikusten duen erdietsiaren larria eta non hutsena.

Eginbehar honetan bere iritziak aldatzen hasi beharrean, besteren aho-lumetatik entzun-irakurriak jakinaraztetik hasi nahiago bide du Mitxelenak. Lehen auzia poemaren zailtasunari dagokio.

Hemen, "norbait" da Orixeren lanari ondokoa bizkarrera diona: ez erraza, ez herrikoa da.

Honen aurrean, Mitxelenak bere aburua azalera darama, "norbaiten" gogaide agertuz, zailtasunari dagokion bezainbatean. Errenteiarra ere erraza ez delakoan dago, baina "norbaitek" ematen dituen arrazoi ez bezalakoengatik. Hobeki esan, kontrakoengatik, hain justu.

"Norbaitentzat" zailtasunaren iturburua herrikoa ez izatean datza, Mitxelenarentzat,

---

[195]San Agustinen itzulpenaren iruzkinaren bukaera dakarkigu gogora.

[197]"Larriena" konpromisoz esana dirudi. Obraren bat goratu behar dugunean, eta gauza apartekorik iruditzen ez bazaigu, edo ez baldin badakigu zer esan, apurotik irteteko, obra jakingarria dela, interesgarria, bizkorra, eta holakoak esan ohi ditugu, zerbait esan eta ezer ez esateko. Zer esan nahi du *larri* horrek? Jigante bat dela. Baina jigante bat interesgarri ahal da? Ona ahal da? Txarra? Beharbada beldur gara, egun Orixetaz besterik esateko Orixe goratzea arriskutsu izan bait daiteke... Larriena dela esateak, konpromiso gabetsu dirudi, behin Mitxelenak esan zuenez gero batez ere (...)

Orixe astiro irakurriz eta landuz konprentzen da, haren obraren *larritasun* horrek zer esan nahi duen eta nondik datorren adjetibo hau: kritikoaren larritasunetik. Eta larritasun hori ez dator, bestela, Orixeren obra ugari desberdinetik bakarrik. Ez eta Orixeren kontrarioen batek, goratzen badugu, burla egin liezagukeenaren kezkatik ere. Orixe edozein bere gauzatan mila alderditatik begira genezakeen Autore *larria* da, muga gabeko eremua, aberatsa, hondogabea, harrigarria. Deskontzentraturik uzten zaitu, eta ez dizu -konpromiso antzera, etsita- horixe beste adjetiborik uzten: obra larria". (Azurmendi 1976:19,20).

[196]Horren sakonki aztertu duen Iztuetak, Orixeren lan erraldoi hau epaitzean hagitz funtsezko den zerbait gutxitan baizik ez dela gogoan izaten agerian utzi gogo du:

"Eta horietako bat, sinpletasunaren sinpletasunez kontuan hartzen ez dena, zera da: gizarte-geriakari bakoitzak, edozein mailatakoak, bere garaiak eta inguruneak ematen diola izateko arrazoia eta, ondorioz, esanahia. Orixeren poemari gerta zekiokeen paturik gaiztoena, hain zuzen, 1936an idatzi eta 1950ean argitaratu izana da. Oker hau apenas den zuzengarri, nola eta ez den historia berregiten eta egilea bera, bere obrarekin batera, bere garaian kokatzen". (Iztueta 1991a:914).

aldiz, herri-kutsuak sortzen ditu oztopoak[199], beste izenez esanik, elipsia da galztasunaren iturburua:

> Herri-bertsoak ez ditu behar bezala ulertuko, Xenpelar lekuko, euskaldun garbia ez denak, diotenak adina ardura baitu ixilik uzten dutenak. (1961e:121).

Mitxelenak begi gaiztoz ikusten ez duen esateko edo erdiesateko era hau[200], ez du Orixek hutsetik asmatu; sustraiak bertsolaritzan ikusten dizkio Mitxelenak eta adierazmodu honek, hain zuzen ere, elkarren ondoan -aurkez aurk oraingoan- jartzera darama berriz ere Orixe eta Unamuno; berdintzean, lehenengoaren bidea abantailarazten du:

> La intimidad de éstos [*Euskaldunak*eko pertsonaiak] no se desborda en minuciosas descripciones, no porque el idioma vasco sea "por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior" como pontificó en cierta ocasión Ortega sin mayor conocimiento de causa, sino porque un cierto recato –que, cuando se rompe puede llevar al impudor exhibicionista de Unamuno– veda la expresión abierta de lo que es profundamente sentido. Por eso el poema de Orixe, fundamentalmente elíptico, es una obra maestra del arte de la alusión, tan apreciado por los oyentes de los bersolaris, que apunta con un breve ademán verbal lo que ni se debe ni es necesario exponer con menudo detalle[201]. (1960b:150).

Eta berretsiko geroagoko beste lan batean, argi eta garbi: Mitxelenak, bertsolarien, Orixeren eta Descartesen aieru-imintzioak maiteago ditu, ezpairik gabe, Unamunoren barren-agertzeak baino:

> *Larvatus incedo*, esaten omen zuen Descartes-ek (<pour ne pas donner prise à la suspicion>, noski). Baita ni ere, nahiz ez haren pareko izan. Eta nor ez, gibelaldean utzixe ditugun urte ilun hauetan?[202] Ez naiz, gainera, Unamunok hain gogoko zituen *strip-tease* saio haien aldeko izan sekula bizian. (1972a:158).

---

[199] Horixe gertatu bide zitzaion Mokoroari, Orixek berak dioenez:

"No se atrevió a sacar la misma conclusión el P. Mocoroa, a pesar de haber dejado de entender algunos o bastantes pasajes en primera lectura. En una segunda, lo recorrió junto a su madre, completamente iliterata, y ésta le aclaró una por una las dudas que su hijo había apuntado, y le dió variantes folklóricos de interés". (Orixe 1951a:20).

[200] Oroi honen aurreko kapituluan U.n egotzia.

[201] Orixek berak ere esana zuen hau:

"Zeaf-mintzo'rako (*ironia*'rako) yayoa duzu euskera, gaiekoa. Bai euskaldunek ere, ta zenbat gizon landuk ez dezakena ere, gure eftar nekazari batek ba dezake gizagajoak. Ateraldi zofotza, paf-eragilea baino onetsiago duzu literaturan zeaf-mintzo paflfiduna. Ohan nabari dituzu gure beftsolari oriek, eta orien literaturak ere badu nofbaitek uste baino gatz gelago. Besteren izkuntzara aldatu nai dunean zaina ta mina ezin alda diezke; berekin gofdetzen du euskerak, beste edozein izkuntzak bezala, bere xofoxtasuna". (Orixe 1927:173).

[202] Lerro artean irakurtzen den bestek gogoaren kontra ezarritako epaixka edo imintzioz aditzera emateari errepara dakioke. Garai bateko aldarte politikoaren lekukotasuna darama Mitxelenak paperera.

Ez bide da, beraz, gisa honetako erraztasun-eza *Euskaldunak*en hutsen artean kokatu beharrekoa; beste norabait zuzendu behar begiak "eskas dabilen puntuak", "hutsak" aurkituko badira.

Aurrera baino lehen, halaz ere, garbi gelditzen ez zaigun zerbait paperera behar dugu. Mitxelenak ontzat eman du lana zaila dela.

Argitu du, halaber, norentzat gerta daitekeen zaila: euskaldun peto ez denarentzat.

Orduan, zein da ondorea? Mitxelena ez da burutik oinetarainoko euskalduna? Lana ez da Mitxelenarentzat zaila? Ala zailtasuna beste nonbait bilatu behar da?

Ez dakigu zer asma.

Hurrengo kritikagaia, apika, "hutsen" auziarekin lotuago egon daiteke: Orixeren lanari darion "halako lehor-antxari" dagokio.

Berriz ere, Mitxelena, subjektu jakinik gabeko perpausaz baliatzen da, inoren ezpainlumei egozteke, poema handiari kritikatu ohi zaionaren berri emateko.

Kasu honetan, Mitxelenak ez du arestiko kritikarekin bezala jokatzen. Aurrekoan, besteren aburuari kontrako zioak ikusi badizkio, orain, bestek adieraziaren iturburua argitzen, bestela esan, *Euskaldunak*en hutsak erroa non duen azaltzen du.

Orixek atsegin duen literatur mota da atzean dagoena, lehen jaso den bezala, erromantikoen biguinkeria eta nabarmenkeria higuin eta klasikoen neurri justu eta doia maite izatea.

Orixek ez die honetan ezagutzen dituen antzinako autoreei segitzen, bere burua katea latzez estekatuz, giza maitasunak ezinbestean duen "lohia" bere poematik baztertu nahi izan duenez gero[203]:

> Ez zuen lohutu nahi eta ez da lohirik gabe egiazko giza-maitasunik, gora-beharra eta lurrera-nahiaren arteko teinkak ematen baitio, hain zuzen ere, bere izaera berezia. (1961e:121).

Horregatik ez dago hezur-haragizko pertsonarik[204], ez bereiz daitekeen eta nortasuna duen gizakirik[205], taldea, Orixeren "Euskalerri osoa" (ez, haatik, euskotar-

---

[203] Orixe gizon "hegaberaren" emakumeekiko urrun-nahiaren lekukotasunik ez da falta, Etxanizen (1965) edo Aranalderen (1965) lanetan, esate baterako.

[204] Aranaldek (1989), haatik, Orixe bera ikusten du sormenezko pertsonen atzean. Zehaztu beharra litzateke, apika, atzean egotearen eta irakurgaiko izakiak gizaki bihurtzeko behar dutenaren arteko aldea.

Euskaldunak laneko pertsonek, hizpidea eman dutela, bestalde, bistakoa da. Honela, Lekuonak (1989:132), esate baterako, izaera eta ofizio berezikoak jo ditu begiz *erretaula* osatzeko. Azpimarka daiteke, diantzuar ikertzaileak ere sumatzen dien estatikotasuna eta honek -halabeharrez?- dakarren *erretaula* osatze bera:

"Bestalde, pertsonaien *erretaula* esatean, zera bakarrik kontatu nahi dizuet: lauki, iduri eta kuadro modura Orixek zirriborrotu dizkigun aipatu pertsonaien traza. Erretaula estatikoa duzue, kondairarik eta elkarrizketarik gabea. Baina esanahi haundiko irudigintza dugu Orixerena, ipuin-kondaira asko bururatzen diguna".

[205] "Su profundo conocimiento de la lengua y de la cultura popular unido a su dominio del verso le han permitido trazar en el poema *Euskaldunak* (1950) un cuadro a la vez amplio y detallado, actual e intemporal, de la vida del pueblo vasco, que se resiente sólo de ser un Mirèio sin auténticos enamorados". (1958a:375).

"... cuadro a la vez amplio y detallado, actual e intemporal, de la vida del pueblo vasco. Va pasando el

euskaldun guztiena) da hor iruditara gogo dena[206], Mitxelenak paperera aldatzen duen poetaren aitortzak berariaz jakinarazten duen bezala:

> "Euskalerri osoa dut kanta gai, ez biko bat edo beste, gure gauzeri lokarri bat ezartzeko asmatu ba dut ere. Lepazintzailu eder batean, arri-pitxiak dira bearrenik, bein "Lizardi" zanak (Goian bedi) esan zidan bezala: aria izan dteke naiz olako, naiz alako". (1961e:121).

Kontua da, beraz, Orixerentzat, egiazko protagonista gizataldea dela, ez halako nortasuna duen gizabanakoa.

Mitxelenak, hau bai, lanaren huts "larritzat" dauka, Orixeren pertsonak ez dira sinesteko modukoak: maiteminduek ez dute mundutarrago ("lohituago") egingo lituzkeen bihozberatasunik erakusten, eta beste gizakiengan ere etsaitasun-amodioen erakusgarririk ezin atzeman daiteke.

Mitxelenak pertsona horiei zinetako euskarririk ikusten ez eta, hauek lanari ona ekarri ordez, hutsa dakarkiotelakoan dago[207]:

---

movedizo paisaje de los meses del año con sus labores, sus fiestas y sus juegos -los trabajos y los días- y con ellos va viviéndose la vida de los personajes". (1960b:150).

"De lo que sí se resiente *Euskaldunak* es de ser un *Mirèio* sin auténticos enamorados. La inevitable pareja no ha sido para Orixe, y así lo afirma expresamente, más que un mero pretexto para dar una cierta unidad argumental a los distintos cantos". (1960b:151)

"Se reanuda la historia de los dos jóvenes en la faena de la recolección de la castaña. La caza de la marmota.

Si bien en estilo de epopeya no debe representar papel primario ninguna pareja enamorada -testigos Homero y Virgilio- condescendiendo con el público moderno he accedido a la petición de dos amigos, uno de los cuales me ha proporcionado hasta los nombres de esta pareja secundaria, pero que resulta importante.

El personaje primario y principal es el mismo pueblo innominado". (Orixe 1950a, 1976:69).

[206] Orixeren kritikari berriak saiatu dira, inondik ere, Orixeren eta bere lanen nondik-norakoak ingurumenduaren argitan azaltzen (eta justifikatzen).

Iztuetaren lan osoaz gain, Otaegiren (1991:108) ondoko hitzak har dezake ikuspegi berri horren lekuko:

"Balorazio kritikoetan sartzeko asmo izpirik gabe, *Euskaldunak* poemaren ingurumaria azaltzea eta guda ondoren nahiz alde nahiz aurka arritu zirenek zein irudi okerra zuten erakustea. Horretarako balioko al du behintzat, nandiegi eta ustelegi dutenentzat, amorrurik eta idealizazionik gabe irakurtzen ikas dezaten laguntzea, gaizkaren berotasunean, batez ere informazionik gabeko eztabaidek sorturiko eztabaiden ondoren, urak bere onera etortzean eta itzalen errainu faltsuak desegiterakoan, benetako neurria har diezaiegun figurei. Horregatik, ez dago gehiago esaterik Orixeren *Euskaldunak* ez direla "hezur-haragizkoak" edo berak erakusten duen Euskal Herri hori ez dela Euskal Herri osoa eta beste hainbat gauza ere ez. Orixek egin nahi zuena ez baitzen azken hamarkada hauetan hain gustagarri izan zaizkigun [sic] Euskal Herriari buruzko lan soziologiko, psikologiko edo antropologikorik. Alferrik da metro horrekin neurtzea Orixeren obra hau, ez bait zaio egiazko luze-zabalerarik igartzen, alde batetik, eta bestetik bidegabekeria literario nabarmena egitea bait da".

[207] Argudio bera darabil ikusi dugun legez, 1958ko gaztel lanean (1958a) eta baita *Historian* (1960b) ere. Azken honetan, (1960b:151, 147 oin oharrean) jaso ditugun hitzen jarraian honakoak irakur baititzakegu:

"Pero la figura de los **dos jóvenes, protagonistas aparentes**, queda tan pálida y borrosa ante la del único **personaje verdadero, la colectividad**, que habría sido preferible prescindir de ellos o presentarlos al menos en un plano más lejano".

Ez du Mitxelenak denboran zehar honetan irtzirik aldatu:

"Su producción de mayor volumen es el poema *Euskaldunak*, mucho más apegado a la colectividad que a los individuos, que trata de fijar un amplio cuadro, no del todo contemporáneo, de lo que se ha llamado la Euskal Herria de Vasconia". (1987b:106). (Beltz. gureak).

> Bestela pentsatzen dugunok, halaz ere, huts horren damuz geldituen gara, euskal literatura osoaren hutsa baita, Orixerena ez ezik. (1961e:122).

Orixeren hutsa, ederlanera eramanean soilik ez baina (honen gainetik, apika), jakinaren gainean saihetsean utzian datza; bestela esan, literatur izaera ematean gizaki liratekeenak "gizatasunez" biluztean eta erretaula zabaleko osagai huts bilakatzean.

Honetan Orixe, Lizardiren beste aldera jokatua da Mitxelenaren begietan: lehena [+gizakia] [-gizaki] bilakatzen eta bigarrena, aldiz, ("esanak esan") tasunei bira emanez, hots, "bizigabeak bizten eta "nortzen" saiatuz".

Are eta larriagoa da hutsa, gainera Mitxelenaren ustez, euskal literatura osorik delako galduan atera dena, lehen eginaren ildotik[208], berriz ere, Orixe eta euskal literatura bat eginez ikusten baititu.

Honenbestez, "larriena" handitasunean eta "larriena" "eskazian, faltan" zergatik dioen Mitxelenak gogoeman daiteke.

Euskaldunak –ikusi besterik ez dago–, obra handia da, luzea, itzela, mamituari begira, hau da, Orixek irudira eraman nahi izan duen Euskal Herriari begira, baina aldi berean, hor ez daudenak ez dira meharragoak Mitxelenarentzat.

Orixek izaera eman dien pertsonen hutsa, falta dutena, "benetako" izateko behar luketen "lohia" da, hots, mundu honetakoak izatea.

Baina, aipatu den hutsaren ondoan –Mitxelenak testuinguru honetan halakorik ez dioen arren–, beste huts larri bat ez ote den alboratzekoa pentsa daiteke. Abiapuntutik bertatik Orixeren *Euskaldunak*, "Euskal Herri osoa" kantagai izan gogo duen poema, zerbaiten faltan da, garai-giroek "lohitu" dituzten euskaldun hiritarren Euskal Herriaren, bestela esan, "Galileo ondoko euskaldunen Euskal Herriaren".

Euskaldun horiengandik etorriko zaizkio, hain justu, Orixeren lanari kritikarik gogorrenak eta ondore larriak ekarriko poemaren –eta Orixeren– zoriari, aurrerago ikusiko den bezala[209].

Nolanahi dela ere, esan behar da, Mitxelenak ez duela lana amaitzen, Orixerekiko (eta honen lanekiko) arreta eta ezagutza-premia aldarrikatzeke.

Azkenik, nabarmen daiteke, ez dioela Mitxelenak deus, poemaren azalazko, hots, hizkuntzazko alderdiaz –arestian aldatzen zen baina Mitxelenak zehazten ez duen zailtasunarenaz gain–. Mamia da, huts-hutsik kritikagai hautetsia.

1965ean Orixeren gorazarrez atonduriko liburuaren "Atarikoa" lanean (1965e), irakur

---

[208] 1951ko "Euskal literaturak azkeneko urte hauetan miragarrizko lana burutu du Orixeren bitartez", dugu gogoan.

[209] Erakusgarri soil bat ekartzearren, Sarasolaren (1971:65) hitzak alda daitezke:

"«Euskaldunak» poemari buruzko iritziak zeharo desberdinak dira: batzurentzat euskal literaturaren obra nagusia da. Beste estremokoentzat, aldiz, «Anuario de Eusko-Folklore»-aren numero extra bat dirudi".

daitezke poemazko hurrengo iritziak.

Aburuetan sartzeko hari gertukoa, pasarte paperera berrian, Lizardi-Orixe bikotearen gidaritza autu duela eta, lehenaren heriotzak ekarri zuenetik, hots, Orixegan itxaropenak landaturik ikustetik, datorkio.

Honela, bada, Orixe ikusten dute garai horretako euskaldunek –Mitxelenak barne– "usteen, itxaropenen eta ametsen" habia[210]:

> Besteak beste, honek eman behar zigun, aurki jakin genuenez, euskaldun umezurtzok ez genuen poema nagusia. Lanean ari zen, aurreratuxea zuen lana, are bukatua ere bai. Orduan, ordea – eta zertara orotarazi guztiok gogoan daukaguna?– gauaren ilunak uxatu zuen aldi bateko poesiaren argia.
>
> Eta, hala ere, gainerako ezbeharrak aski ez gentiuelarik, ez ginen gutxi beste nahigabe eta kezka larri baten mendean geundenak. Galdua ote dugu –aritu ginen luzaroan galdezka, batak besteari eta nork bere buruari– poema jaioberria? Gerrateen ondoan, azkenik, hartu genuen erantzuna eta erantzunarekin atsedena. (1965e:126).

Irakurri orduko, pasarte horrek gogora dakarren irudiak[211], Liburu Sainduarekin lokarri agerikoak bide ditu:

Judu umezurtzak Mesiasen zain zeuden bezalaxe zeuden euskaldun umezurtzak "bere" poema noiz jaioko. Erditzeko garaian, ordea –egina, osatua baitzegoen ederlana–, Herodesena egin zuen gauaren ilunak –hots, atzentzen neke zaien gerrateak–, bortizki ezindu zuen salbabidea.

Eta Mesias igurikiaren gurasoek ljitora jo zuten bezala eman behar izan zion Orixek haur jaioberriarekin ihesari. Azkenik (1950ean), bi gerrateen ondoren –Espainiakoaren (1936-1939) eta Europakoaren (1939-1945), pluralean dagoenez gero– poema jaioberri osoak argia ikusi ahal izan zuen.

Poemaren gatzatzeari dagozkio, zentzu hertsian, Mitxelenaren hitzak, baina horien atzean ez ote dagoen halako ironi ukiturik susma daiteke[212]. Aieruaren euskarri, batipat,

---

[210] Otaegik (1991) gerra ondoko giro hau bereziki azpimarkatzen du, Mitxelenaren lan honetan, hain zuzen ere, oin hartuz.

[211] Irudi horrek Mitxelenaren beraren hitzetan ere badu oinarria:

"Por entonces se pensaba en el gran poema que, **nuevo Mesías**, traería la salvación de la lengua en la que fue escrito. Se invocaba el *Kalevala*, etc., sin pensar demasiado en Mistral, que sin embargo fue traducido en aquellos años, que con poemas, prosa, premio Nobel más un valioso trabajo filológico no consiguió sacar a flote al occitano, no voy a examinar por qué". (1981i, *SHLV*:1005). Hurrengo ornaldean beste honekin ere berdintzen du:

"Antes se trataba de crear, de sacar *geure baitarik* un poema como la *Divina Commedia* o, para algunos menos tradicionalistas, una novela de la grandeza de *Guerra y Paz* (que era, por cierto, una de las bichas declaradas de Aresti)". (Beltz. gurea).

[212] Ibarzabali aitortuak uste hau sendotuko lukeela dirudi:

"[Aitzol] Pensaba que el destino del euskera dependía de la literatura, la poesía y las Bellas Artes; su porvenir estaría salvado si se producía una obra maestra en euskera. Se trataba, por tanto, de mantener a Orixe con mesa y mantel puesto (*eta ez omen zen jale makala!*), y éste nos crearía el gran poema que el euskera

sortzen duen irudian kausi daiteke, darabilen hiztegia (*umezurtz* batez ere) eta pasarteari emaniko "doinu" berezia horretan laguntzaile izaki.

Bestela esan, ez dirudi hagitz ongi josten direnik 1951n esanak eta jaso berriak: batetik, euskara bide berrietatik barrena abiatzeko premia eta –arrakastarik izango bada–, guztion lanaren ezinbestea eskaka dabil Mitxelena. Honen ondoan, urte horretan bertan, Orixek "bere-bere" duen poema aurki argitarako dela, baina premiazkotzat daukan berrikuntzaren ildoan koka ez daitekeela dio Mitxelenak. Gainera, Pauloren hitzetan sustraituz, heldutasunak ezinbestean dakarrenari heltzeko garala dela lau haizetara esaka dabil errenteriarra.

Orduan, nolatan bere burua umezurtz ikusi eta aitaren esperoan egon daiteke, gurasoarenak –zein ere ongi jokatu diren–, egin badu?

Honetan guztian oin hartuz eta arestiko pasartea irakurriz, halako susmoa biztea ez bide da funtsik gabea:

> Osorik zegoen poema, osorik eta bizirik. Zatiren bat edo beste ikusi genuen eta egunen batean, zenbait euskaltzale presturi eskerrak, irten zen argitara, azal ederrez jantzia, lehen eta oraingo Euskal-herriaren ispilu garbia. (1965e:126).

Poemaren azala ederresten du Mitxelenak eta, mamiari dagokionez, berriz, lehen ere aipatu den Euskal Herriaren ispilu izatea jaso, baina "lehen eta oraingoa" da Orixek ederrez jantzi duen Euskal Herri hori, Mitxelenaren azken aipuan.

Mitxelenaren laneko sarrera gisakoan aurrera egin eta ondoren datorrena irakurri ezean, hemengo "lehen eta orain" hauen esanahi oso-betea behar bezala ez atzemateko arriskua dago, agidanez. Lehengo eta oraingo aldi berean izatea, noiznahikoa izatea da eta noiznahikotasuna, Mitxelenaren hitzetan poliki miratu beharreko auzia ere bai. Gure ustez, erlatibizatu beharrekoa.

Zernahi gisaz eta auzi honetan sartu baino lehen, errepara dakioke, Orixek ematen duen ispiluaren "garbitasunari".

Orixeren zorian ikuskizun itzela izan zuen hazaldien arteko osina da Mitxelenak Orixeren lanak neurtzean –orobat eta *Euskaldunak* poema handia bereziki– beharrezko ikusten duen arrazoi ohargarria, neurgailua egoki erabiliko bada.

Galileo-aurrekoen eta ondokoen auzian berriz ere sartzeke, berresan behar da, hor ikusten duela Mitxelenak poema nagusitik landa utzirikoaren –eta *Euskaldunaken* "hutsen" artekoen– erakusgarria:

> Galileo-aurrekoa dugula esan izan dut, jakite berriaren ukatzailea. Jakite horretatik sortu den

---

necesitaba. Todo esto hoy parece una barbaridad, pero entonces era disculpable". (Ibarzabal 1977:54).
Ironiak ironia, halaz ere, garaian garaikoak aditu beharra ere tartean da.

> industriari ere ez dio lekurik opa bere poema nagusian. Gu, ordea, eta are gehiago gazteagoak, jakite horretan hazlak gara, oraingo hirietan bizi garenak, fabrikaz inguratuak. (1965e:128).

Orixek poeman tokirik utzi ez dion zerbait, euskaldun askoren ("gure eta gazteen", bederen) egunoroko bizimoduaren osagai eta baldintzatzailea da. Baztertu nahi izan duen industriak "Euskal Herri osoarentzat" nahi lukeen poeman tokirik ez badu, noraino euts dakioke, "oraingo Euskal Herriaren ispilu garbia" hor mamitua dagoela pentsatzeari?

Argibide bila, lehen ere esanaren ildoan oinak finkatuz, proposa daiteke ez bide dela egoki, Orixeren lanaz aritzean, denbora-ardatz soila irizpide hartzea. *Euskaldunak*, "oraingo" Euskal Herri baten ispilu bailitzateke, industri kutsadurarik -hitz bitan esanez, "Galileo ondoko" izateak sinboliza dezakeenik- ez duen Euskal Herriaren, ez, haatik, osoaren.

> Ez naiz, ordea, gaizki esaka ari. Gure aldikoa izan balitz, gure gisako gizona eta idazlea izango genukeen, hobea nahiz kaskarragoa, baina antzekoa eta kidea. Euskal-herriaren aldi igaro ilun hartatik itzuri zelarik, ordea, bestelakoa agertu da gure artean, aspaldikoa eta noiznahikoa, eta noiznahikotasun horri eskerrak eskeini digu inoiz euskaldun batek euskaraz eman duen betiko Euskal-herriaren irudirik beteena. (1965e:128).

Euskal Herri hori da "noiznahikotasunari" atxikia, aldiaren joanak deus gutxi aldatu duena, euskal sena gorde duena...[213] eta, Mitxelenak, bizitzea egokitu zaion garaian destenorean ikusten duen Orixek maite duena. Euskal Herri hori kanta- eta edergai hartzean, Orixek, artesiturik gabeko Euskal Herri baten irudi betikoa mamitzea erdietsi du:

> Betea diot, ez baitu ilunabarren laino beltzik, Txomin Agirrerena goibeltzen eta tristatzen duenaren antzekorik[214]. (1965e:128).

Orixe eta Txomin Agirre elkarretaratzen ditu Mitxelenak, elkarren arteko

---

[213] Lehengo "la Euskal Herria de Vasconia" (1987b:106).

[214] "Beste euskal libururik gehienak bezala behar adina irakurtzen ez den Domingo Agirreren *Garoan*, Joanes artzaiaren begiak Urkiolan zaharreriak goibelduak dauzka. Inguruko mendiak ez zaizkio gaztetan bezain eder (...) Euskal mendietako zuhaitz-belarrak azpijanean ihartzen ari den satorraren beldurra ez da Joanes bakarrarena. Gernikako arbola iharraren sustraiak ere, aitari entzuna dut, sator batek jan omen zituen. Dena dela, satorraren lana atertu gabe aurrera joango zela Joanes agure zaharrak ere orduezkero antzeman zezakeen eta jakina: euskalduntasuna eta burnibidea, hark uste bezala, betikoz elkarren etsai izanik, burnibideak euskalduntasuna egunen batean, urrutira gabe, baztertu eta ezereztu behar". (1951c:23).

"Hala ere, zenbait ekintzaile eta lanerako gogatsu den arren, zerbait betiko galdu izanaren minaz negartiak eta lantu jotzaileak nagusitzen dira euskaltzaleen artean. Honen lekuko dituGu Domingo Agirrek *Garoa*-n Joanesen ezpainetan ipintzen dituen gogoetak [Jat. *gogaetak*], erdi egia erdi alegiazko trena dela eta: berau aurreratu ahala, batek mendi tontorretan izkutatu beste biderik ez du; mendiek, ordea, ez dute trena gelarazten, behar izanez gero satorrak bezala zulatu ere egiten baititu. Gero eta gorago ihesi goaz, jakinik ere asko igoagatik azkenean harrapatu eta lekutuko gaituela". (1978a:37).

Bidenabar, gogora daiteke Agirreren "gora-ihesari" (honela esatea zilegi bada) irizten diona:

"Ur lasterraren erdian goaz, ez gaude la erizetik begira. Mendi tontorretara igotzearekin ere, Domingo Agirrek nahi zuenez, ez dugu deus askorik aurreratuko". (1957g:145).

desberdintasuna agerian uzteko elkarretaratu ere. Orixek eta Txomin Agirrek[215], atsegin ez zaien aurrerapidearen aurrean ez dute jokamolde bera. Orixek ez du ondarrutarrak axaleratzen duen kejakizunik idazlanera eramaten, ez dio bere ederlanean inolako tarterik uzten, ezta bere kontra oldartzeko ere. Orixeren Euskal Herrian zeinek bere tokia du eta oreka da nagusi, erretaula osoa da eta balizko oreka horren nahastaile daitekeenari entzungor egiten zaio.

Adieraziriko guztitik atera daitekeen ondorea da Mitxelenak ez duela auzitan jartzen Orixeren neurtitz hauen ongi egina; halaber, ez dio orexar-uitziarrak zuen asmoaren kariaz kolpe huts egin zuenik ere. Kontua da, gizarteak aldakuntza gaitzak izan dituela eta, idatzi zenetik hamabost urte ingurutsura argitara eman zen *Euskaldunak* "Euskal Herriaren poema", ez dela euskal gizartean sortu den zurrunbilo horren oihartzun.

Euskal Herriak, euskarak, euskal literaturak zituzten premietarako, apika, destenorez plazara zen *Euskaldunak*; ez zen belaunaldi gazteen arrenkurak asetzeko moduko lana. Honetan letzake, seguru aski, batzuen araberako hutsa.

Bestela begiratuta, aldiz, garai-giroei ez lotze horrek berberak eman bide dio, Mitxelenaren ikuspegitik, antze-lanek orok irrika duten noiznahikotasun-taxua[216].

5.5.3.2.2. Orixe lirikoa[217]

Eta Orixeren lanen azalpenaren azkenerako utzi den Orixe lirikoari eutsiko zaio orain, Mitxelenak beste "Orixe" guztien gainetik jartzen duen Orixeri[218]:

---

[215] Iztuetak (1991a:279), oker aditu ez badugu, aski parean jartzen ditu biok, sakoneko ideologiari dagokionez.

Ezin bazter, bestalde, Orixek (1927:20), "oraindainoko literato edo antze-idazlerik garaientzat" daukala ondarrutarra, egia bada ere, azken honen lanen artean, *Kresala* gogokoago duela *Garoa* baino.

Agirreren ikuspegiaz (eta bere lanez), ezinbestean aipatu behar da Ana Toledo irakasleareen doktore-tesia (Toledo 1989).

[216] Iokin Zaitegik noiznahikotasun honi dagozkionetan muinezkoak eta azalezkoak berezi eta, atzoko, gaurko eta biharko Euskal Herria ikusten du hor gorpuztua:

"[Euskal Herria] Noizkoa? Atzokoa, gaurkoa ala biarkoa? Muiñetan betikoa; azalez, ordea, atzokoa. Gaurkoa: ez bailugu erabateko Euskalerria, damurik; eta biarkoa igarleak bakarrik ezagun eta igarri lezakete. Olerkari dana, berez, igarlea izan, ordea, nolarebait, ta biarko Euskalerria ere antzeman digu Orixe'k". (Zaitegi 1965:256).

[217] Argitu behar da, hemen "Orixe liriko" delzioak, Mitxelenari -eta besteri: Baztarrika (1965), Azurmendi (1976, 1977), Mujika (1990), Iztueta (1991a)- jarraiki, Orixeren neurtitz mistikoak ere barne hartzen dituela. Honenbestez, ez zaio Orixe mistikoari (hitz lauz nahiz neurtuz mintzatu zen mistikoari) berariaz erreparatuko, sailkapenerako, idazlanen azaleko taxua beronen mamiaren gainetik hobetsi baita.

[218] Iido beretik, erdaraz:

"Con todo, mis preferencias han ido siempre hacia su lírica que en muchos momentos ha alcanzado la perfección de la más desnuda sencillez". (1961h:432).

Orixe lirikoa beste guztien gainetik jartzea ez da, Mitxelenak behin baino gehiagotan aitortzen duen bezala, errenteriarraren bakarraren ustea, hori bera pentsatzen baitute Lizardik, Mitxelenak (1960b:164) 26.oin-oharrean jasotzen duenez:

"Lizardi ya vio esto, según puede apreciarse por los consejos que de él reconoce haber recibido Orixe: *Biotz-bertsoak egin nai eta / lainko billa nauk oldartu; / ik esan idan bein ta berriro / ontan nendilla leiatu* (p. 930 de antología del padre Onaindía)".

> Hor dugu nik beste guztien gainean jarriko nukeen[219] "Orixe" lirikoa[220]. Lizardiren adiskide bihotzekoa, mundu honetan suma daitekeen egarririk ederrenak mintzarazi duena. Hor dugu bere aldiko **euskaratzailea** (...)
>
> Oraindik, badakidan arren ez dituela goresmenak gogoko, beste "Orixe" bat aipatu nahi nuke hemen: **prosa-maisua** (...) Gaur, ordea, beste "Orixe" bat agertu zaigu hemen, "Orixe" **euskalaria**. (1958h:97). (Beltz. gureak).

Orixe hainbat arlotan lanean aritua izanak, izaera edo alderdi anitzeko bilakatzen du Mitxelenaren begi aurrean: lirikoa, itzultzailea, prosa-maisua, euskalaria... eta Orixe guztietarik gutxien asetzen duena (gramatikaria, alegia) zein duen adierazi bezala, esan ere badio zein Orixe duen begikoena, Orixe lirikoa, alegia.

Orixe liriko hori, Mitxelenak sarrienik, Lizardiren ondo-ondoan ikusten du, bataz aritzea bestea epaixka gordez ezinezko gertatuko bailitzaion:

> Beharrezkoa da bi izen hauek beti elkarrekin agertzea[221]. (1956g:66).

Bikote hau uztartzen duen adiskidetasunaren emankorraz aberastu da euskara, batetik:

> nabari baita zenbat zor dion euskarak Orixeri Lizardiren bitartez ere[222]. (1956g:66).

Edo Estefaniak ere, *Barne-muinetanen* idatziriko "Liburu ontaz irtzia" atalean, besteak beste, honakoa irakur baitaiteke:

"«Orixe» oberenen artean gendun sortu bezalatsu linka gaiean. Zuzen idatzi zidan «Lauaxeta'k»: «mingafi da onek (Orixe'k) linka-sailean ez areago iardutea»". (Estefania 1934:20).

Mitxelenaren gai honi buruzko azken lanean ere, bere uste hori besterengana zabaltzen du:

"Tienen seguramente razón, con todo, quienes creen que lo mejor de su obra son los versos líricos, de inspiración mística, desparramados a lo largo de su vida". (1987b:106).

[219] Jat. *nukean*.

[220] Ez bide ditu gauzak ber moduan ikusten Azurmendik (1977:77):

"Gotik beheraino eta beti epiko, azal nahiz mami. Eta *Euskaldunak* da haren, eta euskarazko, obra epiko nagusia. Orixek poesia asko egin du, modu oso diferentetakoa. Ez zait posible iruditzen Orixeren «poesiaz» erabat irtzi bat ematea. Baina ematekotan, horixe emango nuke: edozertan ere, beti epiko dela, beste guztiaren gainetik eta guztiaren barnean. Sekula ez nau komentzitu Orixeri buruz jeneraldu den bereizkuntza hark: Orixe epikoa alde batetik eta mistiko-lirikoa bestetik".

[221] "Literatura guztietan elkarrekin alpa bear izan oi-diran izenak ezagutzen ditugu: poeta-bikote paregabeak. Esate baterako: Virjilio ta Horazio Erroma'n; Goethe ta Schiller, Alemania'n, ta abar eta abar.

Gure motzean zergatik ez aitatu Adema-Zalduby ta Elizanburu, ta batik bat "Orixe" ta Lizardi?... Bata besterengandik oso urbil ibilli bait-ziran munduan". (Labayen 1965:21).

[222] Katea horretan eta ez oso urruti gainera, izen bat eransterik bagenu, Mitxelena aipatuko genuke. Mintzatuko gara honezaz.

Eta hizkuntzaren aldetikako maisutza horren erakusgarririk ere ematen du Mitxelenak, Orixek Lizardigan utzi zuen hatzaren adibide zehatz honen bitartez:

> Eta eguzki-aldera bultatu zuen Lizardi, batez ere gorpuztu gabe joan zitzaigun azken-azkeneko Lizardi hura. Honek, bestalde, hasieratik bertatik, Orixeren arrimuan, erakutsi zuen isuria bera ez zegoen Lapurdiko mugetarik urruti. (1978c:168).

Orixeren euskararekiko joera eta jaiduraren seinale nabaria da, lehen ikusi bezala, Lizardi ere bide horretan begiak ekialderuntz irauliz, alegia abiarazi nahi izana.

Orixe du, bada, Lizardik euskarazko irakasle eta, jorratu eta zolituriko euskara hori, goi lirikaren gailurrik erpinenetararaino eramango[223].

Euskara ez ezik, lirika ere irabazian atera da, adiskidetasun sendo eta zintzo horrek eragin baitio Orixeri, edozein hizkuntzaz adierazi diren barren-sentiera, lirikaz jantzien aurrean, herabe ez agertzeko moduko bertsoak ontzera:

> Inoiz, adiskidetasunak edozein hizkuntzatan, dakidanez esan duen esaldirik ederrena:
>
> Bekokian dik aren itzala,
> lagun dik oraindik ere. (1956g:66)[224].
>
> Oraln Orixe eta Lizardiren adiskidetasuna nahi nuke gogoratu, hitz bitan. Hain ezberdinak izanik eta hain ezberdinak zirelako biak bildu zituen lokarria ez zuen herlotzak berak eten eta Orixe, lehortzat geneukan gizona, ez zuen inolazko lotsa gaiztoak lotu bere adiskideaz mintzo zenean. Hain ederki esan zuen bezala:
>
> Bego negarra, lurrindu bedi
> begian malko mingotsa,
> alare ez uke nik iregatik
> negar egitea lotsa[225].

---

[223] Eugenio Ibarzabalekin izandako elkarrizketan ere Lizardi-Orixe bikoteaz eta Lizardiren aitzindari, iturburu ezagunik aurkitu ezinak sortzen dion kezkaz ere mintzatzen da, beste hauek ere, besteak beste, esaten dituelarik: "Orixe, a su vez, ejerció una gran influencia sobre Lizardi". (Ibarzabal 1977:56).

[224] (1960b:151)-n ere jasotzen du:
"De sus relaciones con Lizardi, su discípulo y su guía, contadas por la muerte de éste, nacieron algunos de los versos más hermosos que la amistad haya inspirado en cualquier lengua. Si el dolor de la pérdida es contenido, nada hay que le obligue a serlo:
alare ez uke nik iregatik
negar egitea lotsa".

[225] Orixeren "Beti lagun" izeneko bertsotik aterea dago. (Animaeque, umbraeque silentes (Virgilio)) du titulu-azpikoa 1933ko ederlan honek eta honela diote lehen eta azken bertsoek:
"Non dago? non aut? ez ote da auxe
neretzat lêngo Tolosa?
Ez âl dezaket entzun berriro
mintzo goxo aren otsa?

Adiskidetasun honek izan baitu ondore ugarrik gure literaturan bertso eder[226] (edozein hizkuntzatan egin diren bezain eder) horiezaz gainera. Lizardiren alderdi bat Orixeri zor diogu eta Orixerenetik aski Lizardiri, ikasle bezain gidari izan zuenari[227]. (1961e:124).

Hartzaile-emailearenak truka daitezke, beraz, Orixeren eta Lizardiren artean, ez baitaiteke ahantz –Mitxelenak berariaz aipatzen ez duen arren–, Orixeren *Euskaldunaken* sorreran Lizardik izan zuen eragina[228].

Lokarriaren garrantzia indarberrituko luke, Orixeren heriotzaren ondoren idatzirikoan ere, artikuluan zehar bi lekutan berriz ere mintzagai hartzen duela ikusteak; lehen aipatu den hartan –artikuluaren bukaera aldean– eta, kapitulu honetan beste arrazoiak direla medio– paperera ere den beste honetan:

Orixek egin zuen lehenbizi harako amets hura, Lizardik adierazi bazuen ere gero hitzez:

> Baña nik, izkuntza larrekoa,
> nai aunat ere noranaikoa:
> Yakite-egoek igoa;
> soña zaar, berri gogoa;
> azal orizta, muin betirakoa. (1961e:118).

Eta, berriz ere, Orixeren omenez argitara emandako liburuaren hitzaurrean, Orixeren

---

> Bego negarra, lurrindu bedi
> begian malko mingotsa,
> alâre ez uke nik iregatik
> negar egitea, lotsa
> (...)
> Nere bigarren aitbo-aingeru,
> nere Jainko-erakusle,
> il arte lagun, ortik onera
> etzegok lên ainbat bide
> Bakar-bakarrik nakustenean
> jendeak esan bezate:
> bekokian dik aren itzala,
> lagun dik oraindik ere" (Orixe 1972:481,482).

[226] Kortazarrek (1991:242) beste ondoriorik ere ikusten die bertsooi.

"*Planctus* hau ez da zirraragarria eta gogoangarria jarraituriko oraka bidea hautsi egiten duelako, poemak hasieratik bukaeraino [sic] duen tonu klasikoagatik baizik eta gainera, lehenengoz aurkitzen dugulako Orixe XX. mendeko poesiaren gai nagusiaren aurrean, heriotzaren aurrean. Gai modernoaren ateetan jarri du Orixe Lizardiren heriotzak".

[227] "De la auténtica humildad del hombre aparentemente huraño soy testigo de excepción. De la profundidad de sentimientos de quien ha sido tachado de seco y frío da fe la amistad con Lizardi, su discípulo y su guía, tan fructífera para las letras vascas". (1961h:432).

[228] "Bein eta berriz esan beharra dago "Orixe"k bultza zuala Lizardi "Biotz-Begietan" argitaratzera; baiñan era berean "Orixe"k ez zuan "Euskaldunak" poema ederra idatzi ta bururatu izango, ez balu Lizardi'k antara beartu". (Labayen 1965:19).

eragina zuen Lizardi zendu ondoan, Orixegan ikusi zutela zarauztarrak urraturiko bidearen iraupena adierazten du Mitxelenak:

> Bere barratik ontzen zituenak aski ez zirela, laster ikusi genuen zenbatetaraino izan zen bere eragina eta gidaritza Lizardi bihotzekoaren harrigarrizko lora-aldi labur hartan. Elkarri loturik geneuzkan adiskide bion izenak eta, Lizardi behar baino lehenago galdu genuenean, Orixegan landaturik geldítu ziren gure usteak, itxaropenak eta ametsak. (1965e:126).

Alabaina, bi lirikoen arteko loturaz gain, besterik ere badio azken lerroetan Mitxelenak.

Itxura guztiz, Mitxelenak –bakarrik ez– bi adiskideongan ikusten bide zuen euskara noranahiko bilakatzeko bidean, gidaritza eraman zezakeen bikote emankorra. Herioak, ordea, itxuragabeki moztu du itxaropenez beterik aurkezten zen bide hori, hein batean bederen, guztiz oinarri eta zutabe zen bat, Lizardi, alegia, mundu honetatik ebatsi duelako.

Testuinguru honetan ulertu behar da, apika, Orixe lirikoak Mitxelenaren laudoriorik ozenenak jasotzea.

Orixeren neurtitz horiei, prosa-lanei ez bezalako iturburua antzematen die: "Jainkoaren altzo zabalean atseden hartu nahi duen maitasunak" kanporazi dizkio "neurtitzik ederrenak, hutsik gabeko bertso doiak"; prosa-lan biziak, berriz, borrokarako grinak sorrarazi dizkion bitartean:

> Oraingo zenbait gizoni guziok beregan gauzkan Jainkoaren eskua ageri ez zaionez gero –gure Ortxek agian inork ez bezala kantatu duen <esku legun begiduna>[229]–. (1951c:22).

> Hutsik gabeko bertso doietan behin eta berriro itzuri zaion deadar bihoztiak balio du, ene ustez, bere lumatik sortu diren gainerako laneginek beste[230]. (1961e:122).

Eta, pentsa daiteke, halaber, molde horretako lanak zituela gogoan 1951n, honakoa zioenean:

---

229 "Jainkoak bafeia
gindunan bere esku legun begidunez:
halere esku huntan geuden zorionez,
ezin aldeginki. Bai esku zabala,
sabel berokia, begi maitakoía". ("Afebà sabelkide Denuxi'ri" Orixe 1934:136).

230. "En cambio sus poesías místicas dejan traslucir, dentro de su aparente sequedad, un hondo sentimiento expresado en un verso sobrio y simple, de factura perfecta. Acaso sea aquí, en la lírica, donde la personalidad de Orixe, a pesar de sus invectivas contra la poesía, ha alcanzado su más alta manifestación". (1958a:375).

"Si la expresión apasionada del amor profano ha sido evitada por Orixe con tanto cuidado, no ha usado afortunadamente la misma restricción con otros sentimientos. En sus poesías de tema místico se ha traslucido siempre, dentro a veces de una aparente sequedad, una honda emoción que con los años se ha ido expresando en un tono cada vez más abierto y más sincero. Tal vez se encuentre en estos poemas, compuestos en un verso sobrio y simple, de factura perfecta, la manifestación más alta de la personalidad de Orixe". (1960b:151).

Eta hor daukagu betiko, batez ere, eusko anima jatorra, sinismen sendoa, Jaunaren sabel beroan zalantzarik gabe etzana. (1951c:25).

"Jainkoaren altzo zabalean atseden hartu nahi duen maitasuna" –Orixe lirikoaz izendatuki hitzegiten duenean darabilen esapidea– eta hemengo "Jaunaren sabel beroan zalantzarik gabe etzana" (eta ez Unamunoren egonezinak astindua, ikusi den bezala), guztiz parekotzat jo daitezkeenez gero.

Barren-isuri horrek sortuak, gainera, ez dira antzuak. Euskal literaturan eredua sortu dute –esana doan bezala–, herri-teologiaren hazia hortxe bilatzen du eta Mitxelenak. Hazi hori fruitu bilakatzen, Felix Markiegi eta Nemesio Etxaniz, besteak beste, aritu dira[231].

Hona beraz, Orixe lirikoak Mitxelenaren hitzetan osatzen duen sarea, Orixeren eragina neurtzean kontuan hartu beharrekoa.

Honenbestez, Orixek hitz neurtuen barrutian munduratuetan, honako alderdiak lirateke azpimarkatzekoenak:

- Poesiaz Euskal Herriari izaera betikoa eta berria eman dio.

- Klasikozale izanik, molde berriak urratu ditu euskal poesian, Lizardi, Lauaxeta eta besterekin batean.

- Euskal lirika gailurretaraino eraman du, bertso doiak eginez, batipat bihotzari zintzoki mintzatzen utzi dionean. Honen erakusgarririk agerikoena, Lizardirekiko adiskidetasunak eragin dizkionak.

- Euskal poesian herri-teologia sartu du.

Gure ustez, Orixeren hizkerarekin oro har, eta hitz-sorbide edo hitz-eraketarekin zehazkiago, gertatzen zaion gauza bera gertatzen zaio Mitxelenari Orixeren bertsoekin: itxuraren gainean apenas dio deus eta dioen pixarra goraipatzeko da.

Mamizkoak dira Mitxelenari kezkabidea sorrarazten diotenak, buruen buruenik, euskaltzaleek urte handitan espero etsian zeuden *Euskaldunak* obra larriaren mamiak, hor iruditaturiko Euskal Herriak, garai hartako Euskal Herriak bizi zuen egoerari eta zituen premiei erantzuten ez dielako. Halarik ere, ezin muzin egin dakieke Mitxelenak aipatzen dituen noiznahikotasunaren alderdi goragarriei.

---

[231] "La misma compenetración de naturaleza y espíritu, patente en la genial utilización de imágenes de la vida rural para dar perfil preciso a ideas y sentimientos complejos, tendencia seguida con acierto por poetas como Félix Marquiegui y Nemesio Echániz, les asegura un valor duradero". (1960b:151).

5.5.4. Orixe itzultzailea[232]

5.5.4.1. Orixe itzultzaileari, orobat harturik, Mitxelenak laudorio-goragarriak alboratzen dizkio[233]:

---

[232]Gerra aurreko garaian batipat euskaratzeak zuen garrantzia eta zeregin honetan Orixek irabaziak zituen izen-itzalen adierazgarriak dira iztuetak eta Otaegik paperera aldatzen dituzten honakoak:

"Testu honek esan nahi du itzulpenen ideia ez zutela askok begi onez ikusten. Lizardi eta Orixe, bakoitza bere aldetik, itzulpenen apologista bihurtzen dira. Cicero-k grekotik latinera itzultzean erabili zuen eredua aplikatu nahi luke euskararenean. Testu honetan ikusiko duzu ondoenik zein den Orixeren itzulpen-erizpidea: "Cicerón opinaba que no debía de traducir precisamente, a no ser como ejercicio, y él nos dice que practicaba la lectura de los autores griegos y después se ejercitaba en trasladarlo a su manera al latín, hablándolo primero, con lo que nos dejó obras maestras. Es la idea recta de la traducción menos ceñida, pero del contenido cultural mejor asimilado. ¡Oh, si hubiera muchos Cicerones en vasco, aun so pena de no ser originales, como no fué él! ¿No se autorizaría la lengua, y mucho, con tales traducciones?". Beraz, itzulpenak on dira hizkuntz ariketak egiteko; bestalde, itzulpenean testuaren edukina ongi jasotzea da garrantzizkoena, baina jaso hizkuntza hartzaileari dagokion eran eta moldean. Horregatik dute Orixeren itzulpenek euskara-kutsu freskoa. Zehaztasunaren arazoa beste puntu bat da, lanari ezarri dizkiodan mugengatik, hemen ukitzen ez dudana". (Iztueta 1991a:649). (Eta Mitxelenak, ahula harrapatzen duen puntua, hain justu).

"Alde batetik, euskal irakurlegoari bailo handiko irakurgaiak dastatzeko aukera eskaintzen diolako estimatzen dute idazle hauek itzulpengintza (...) Bigarrenik Lizardik, literaturgileak berak bere idaz-estiloa lantzeko beharrezko duen ariketa moduan aurkezten du itzulpengintza, hizkuntzaren baliabideak hobeki ezagutzeko eta menderatzera iristeko lanketa modura (...) Hirugarrenik berriz, hizkuntza bera malgutzeko, aberasteko eta lantzeko bailo lezakeen lanketatzat jotzen zuen Lizardik itzulpen-lana (...) Kultura mailara igotzeko eta hizkuntza bera garatzeko bailo lezakeen hein berean Lizardiren garaiko idazleek laugarren betebehar bat erasten diote itzulpengintzari, alegia, euskaraz ezer itxurazkorik idatzi ditekeenik [sic] uste ez duena aho bete hortz uzteko helburua ere bazuen. "Pour epater l'etrangere" [sic], nahiz eta kasu honetan Lizardiren ustetan epatatu behar diren "Etrangere" [sic] direlako horiek euskaldunak berak izan, euskaraz jakin arren ez irakurtzen, ez baloratzen zutenak.

Prestijio kontua zen honetan noski garrantzi handikoa, hizkuntza zahar honen berritzeko ahalmenaz ohartaraztea euskaldunak eta atzerritarrak, euskarari inolako baliogarritasunik aitortzen ez zioten haiei euskaraz ere klasiko handien sorkuntzetako mamia eta muina euskarara ixuri zitekeela ikus araztea". (Otaegi 1991:95).

Larramendirenak ez du, nonbait, egin.

Eta aurrerago, Otaegik berak (1991:96):

"Lizardik aipatu duen bezala, Orixeren itzulpenak euskarari berari gehiago ohartzen zaizkio, euskara isurkor eta naturala egiteari, eredua gertu-gertutik jarraitzeari baino. Zehaztasun gabezia, hau da itzultzen ari den testuaren zenbait puntu isiltzen dituela".

[233]"...es un traductor maravilloso. Lo prueban no sólo sus excelentes versiones de *El lazarillo de Tormes*, Mistral y San Agustín, sino sobre todo las traducciones en verso de *Urte guziko meza-bezperak*, donde se encuentra por ejemplo el milagro de una versión absolutamente fiel de «Lauda, Sion, Salvatorem» en la misma medida que el original". (1958a:375).

"Excelente traductor siempre, como lo prueban sus versiones de *El lazarillo de Tormes*, Mistral y San Agustín (*Agustin gurenaren aitorkizunak*, 1955) ha conseguido en verso, por ejemplo, el milagro de una versión absolutamente fiel de "Lauda, Sion, Salvatorem" en la misma medida que el original –en realidad, la traducción tiene dos versos menos–, sin soslayar ninguna de las dificultades que ofrecía ese comprimido teológico". (1960b:150).

"Esto [ahozko eta moldezko euskararen ezaupide paregabeak] le convirtió en un traductor de excepcional destreza, en prosa y sobre todo en verso". (1961h:421).

Lekuonak (1991) latinarekiko leialtasun erabatekoa ñabartzeko premiaren erakusgarriak ematen ditu, haatik:

"Bestalde, Orduen Liturgiarako gorazarreak aukeratzen eta egiten arritu ginenean, ikusi genuen nola "versión absolutamente fiel", "en la misma medida que el original", "sin soslayar ninguna de las dificultades" horiek, neurri handi batean egia izanik ere, asko zehaztu beharrezkoak zirela oro har, eta ñabardurez hornitu beharrezkoak, Orixek liturgi olerkiez eginiko itzulpengintzari buruz iritzi tajuzkorik eduki nahi bada". (Lekuona 1991:389).

Aipagarria gure ustez, Mitxelenak hautesten duen mintzabidearen arabera esaten dituenen arteko aldea, *Agustin gurenaren aitorkizunak* itzul-lanari batipat, dagokionez.

"Etxeko zikinak" etxean garbitu behar?

[*Aitorkizunak*] Orain, euskaraz ikusirik, harri eta belarri eginik gelditukо ginatekeen. Behar adina harritu ez bagara, Orixek egin dituelako izan da soil-soilik. Ongiegi ohituak gauzka; etsirik gaude zernahi gauza eman dezakeela euskara garbian eta, okerrago dena, nolanahi eta batere nekerik gabe eman dezakeela. Itzul lanetan irabazi duen entzute merezia du hemen Orixek etsairik bizkorrena[234]. (1956h:75).

bere aldiko euskaratzailea (1958h:97).

zenbaitetaraino jabetu zen hizkuntzaz, itzulpenek ematen digute adituera, bere baitarikako idazlanek baino areago. (1961e:117).

Berak erakutsi digu -egitez, hitzez baino gehiago- gai dela gure hizkuntza edonongo [illegible]ter itzultzeko eta bereganatzeko. (1965e:129).

Orixe euskaratzaileaz Mitxelenak erabateko juzkua ematen duenean, beraz, goresmen-laudorioak estari gordetzen ez ditu. Alabaina, ezin esan daiteke Orixe bihurtzailearen ibilerek, Mitxelena beti ase eta gogobete dutenik. Besterik ere susma daiteke.

Erakutsiko den bezala, urteek aurrera ahala, Mitxelena Orixe euskaratzailearen izen eta omenean artesiak sorraraziz joango da, aitortu dion buruzagitza eta erregetza kolokan jarri eta (ia?) beste koroatzeraino.

Orixeren bihurtanen lehen berria, lehen ere mintzagai hartu den solas batean topa daiteke, hau da, Orixe etxera berriarekin duen elkarrizketan[235].

Mitxelenak eginiko galdearen erantzunez, Orixeren ahotik jakin daiteke bi itzul-lanen berri: "San Agustinen "Aitorkizunak"" eta *Salmoak*[236], hain zuzen ere. Mitxelenak aipatzen duen bakarra, *Meza liburua* da[237].

Ez du, Mitxelenak, ordea, lan hauezazko iritzirik ematen, ez lehen biez ez hirugarrenaz.

Orixe berri-emaile dutenen kasuan, iruzkin-ematea ezina ere bada, argitaratzear daudenak izaki eta, Salmoei dagokienez, besteren ahotari dabilen ustea paperera eraman eta hornitze soilera mugatzen du Mitxelenak bere eginkizuna:

Salmoen itzulketa, berea izanik ere, ez omen du begi txarrez ikusten Orixek. Ez da hau egileak esana, jakina, kalean entzuna baizik, baina berri ona izanik ez dugu ixilpean gorde nahi. (1954a:52).

Baina Mitxelenak *Meza liburuaz*, hots, iruzkin zezakeen bakarraz ere, ez dio ezer,

---

[234] "Eta "Orixe"ren itzulpen ederra eskuartean artu eta irakurtzen asterakoan, kuxkuiuta, benetan ihulduta geldizen da irakurlea, gure irakasle aundia nola intxi zitekean alako betegintasunera asmatu ezinik.

Aurrerago aztartu ditugun itzulpenetan argi bezain garbi ikusita daukagu aren itzuliztarako trebetasuna, baña oraingo itzulpen onetan lenagoko marka garaienak zearo erretzen ditu, euskera arruntez esango genukenez *jo ta pasa egiten du*". (Ibinagabeitia 1965:113).

[235] "Orixe gure artean" (1954a).

[236] (1954a:52).

[237] (1954a:52).

Orixeren adierazpide baten kokaleku huts gisa aipatzen baitu:

> Nonbait esan duzu –Meza liburuan noski– (1954a:52).

Besterik da argitaratzear zegoen horietako bat plazara denean gertatzen dena.

Arestian aipatzen zen Orixe itzultzailearen makalaldiaren lehen erakusgarritzat –argien eta agerikoentzat, bestalde–, San Agustinen *Aitorkizunak* plazara zenean errenteriarrak eginiko kritika har daiteke, hemen biltzen baititu kritikagileak, Orixe euskaratzaileak mamituriko lanean eginiko hutsak. Orobat esan, Orixeren euskaran makur begitantzen zaizkionak[238].

Kritikaren hasieran, Orixe euskaratzailearen lana goresten du Mitxelenak. Zeinahi erdal lan, euskara garbian eta nekerik gabe eman ahal izatea, Orixeren eskuek irudi egiantzekoa edo sorrarazten dute ariketa samur-antzeko bihurtzen baitute. Horixe du, hain zuzen, Orixek izterbegirik nagusiena, kostako ez bailitzaion, beti, euskarara aldatu ahal izana, alegia.

Kasu honetan, gainera, emaitzak bestela irudituagatik –esan beharrik ez–, "lanaren gaitzak" areagotua izanik:

> Ez dago lanaren gaitza goraipatu beharrik, ongi baitaki norainokoa den edozein hizkuntzatan, axaletik bederen, Aitorkizunak urratu dituenak[239]. (1956h:75).

Hau da, orobat harturik, Orixeren bihurlana goragarri begitantzen zaio Mitxelenari. Baina, zabaletik "xehetasunera" pasa orduko, Orixeren lan handia bezten duten "txikikerien" kontu ematen hasten da.

Jarraian aztertuko den auziari ez dagokion bat, Orixeren euskara-moldearen hautaerari ez baina, Orixeren beraren latinezko ezaupideari lotzen zaio. Mitxelenak lanaren amaiko zertzelada honetan, Orixe latinzale sutsuaren adimodua okertzat dauka eta honela zuzentzen

---

[238] Aitzitik, Orixek, hauxe bide zuen, euskararen aldetikako bere lanik gorentzat.

"–Zure irritzi, zein, danetan onena?

–*Nola* ta *nola*...

–EUSKERA'ri begiratuta, alegia.

–EUSKERA'ri begiratuta, "AITORKIZUNAK". Ori aztertuko dute, geienik, *euskera sakonago* ikasi nahi dutenak". (Garmendia 1965b:54).

Eta ez dabilkio oso urruti, hogeita bost urte ingurutsu geroago, J. A. Arrieta.

"Hau bai dela "joanda arrapazak!" esateko modukoa. Zeren zain gaude? Nolatan ez dira egin azken urtetan, Euskal Filologiako Fakultatetik [sic] honez gero sei edo zazpi promozio iragan direlarik, 217 tesina eta 174 tesi doktoral, gutxienez, liburu honetan Orixek erakusten duen euskararen trebeziaren agergarri diren ezinkontahala alderdietatik [sic] honi, horri edo hari buruz?". (Arrieta 1991:365).

[239] "Dabillenak bakarrik daki bidearen nekeza, esan oi da, eta ala da izan ere. Itzulgai zailik izatekotan, auxe bat. Ez bakarrik euskeratzeko, baita beste edozein izkuntzetara biurtzeko ere. Hiponako Arranoa etzen alperrik egaldatzen, goienengo lakintzaren mulñoak zear aren egaldi zerutarrak erri-izkuntzaren sare-mailla estuetan atzeman al-izateko. Etzen ez egiteko ori edozeinentzat". (Ibinagabeitia 1965:112).

du:

> hirugarren liburuan, zatitxo batek (3,4, hemen 77-78 orrialdeetan) badirudi ez dagoela ongi itzulita. Latinezko "Itaque illos planos quos mathematicos vocant...", euskaraz honela emana dago: "...matematiku izenekoen azti-karta alek". Bestetan ikusi dudanari zuzenago deritzat: "...matematiku izeneko engainatzaile haiek". Hemengo *planus* hau, *a* laburduna, grekozko *plános* da noski. (1956h:78).

Mitxelenak egiten dion zuzenketaren arabera, Orixek laterazko *plánus, (a luzeduna)* ('karta') eta grekozko *planus* ('iruzurgilea') nahasi ditu.

Baina iruzkinaren zioa ez da arestikoaren gisakoak agerian uztea, euskarari bete-betean dagozkionak baizik.

Honela, Mitxelenak lehen esandakoengatik, itxuraz, ardura handirik gabeko gauza ñimiñoak[240] direla azterkizun begietsi dituenak pentsa daitekeen arren, ez dirudi Mitxelenarentzat horren txiki eta horren pisu gutxiko direnik, kritikan bi tokitan pleguetara daramatzan hitzoi erreparatzen bazaie, bederen:

> Xehetasunetan sartuz gero, gaurko auzia da eta. (1956h:76).

> Azkenik esandakoak huskeriak direla badakit. Huskeriak dira, baina ongi begiratuz gero, euskal gaietan ongi ikasiak begiratuz gero, ez dira alderatzeko ere liburu eder honen bikaintasunaren ondoan. Baina hizkuntza gauzetan ez dira axaleko, hitz eta esaerak hizkuntza berbera baitira. (1956h:78).

Honenbestez, "huskeriak" ez diren "huskeriei" begiratu behar, Mitxelenaren hizkuntza aldetikako –halakoak baitira nabarmenduak[241]– aburuei antzemateko[242].

---

[240] Ez gatoz bat Mendigurenek (1991:521) egiten duen Mitxelenaren hitzon adimoduarekin. Mitxelenak nabarmentzen dituen hizkuntz desegokitasunen berri eman ondoan, honakoa eransten baitu:

"Halere, normala denez, guzti hauek huskeriatzat jotzen ditu lan eskergak dituen merezimenduen parean".

Honexegatik, ezin ontzat eman dezakegu ateratzen duen ondorioa:

"Laburpen gisa, Orixeren itzulpengintzaz urteetan zehar eman diren iritzi desberdinak bilduz gero, kritikoenak azken dozena bat urteotan eginak ageri zaizkigu. Alde batetik, testu literarioen eta testu pragmatikoen itzulpenak bete behar dituzten baldintza dezberdinak [sic] kontutan ez hartzea leporatzen zaio. Eta bestetik, itzulkizun guztiak, literarioak barne direla, "ulergarri" bihurtu nahia eta zenbaitetan egokipenak egitea egozten zaio". (Mendiguren 1991:522).

Gure ustez, erakutsi eta erakutsiko dugun bezala, Mitxelenaren hitzek akats beroriexek axaleratzen dituzte; hor esaten den baino dexente urte lehenago, haatik.

[241] Arestikoan diogunak ez du, haatik, ukatzen, itzultze-lanaz beraz –Orixeren lan honezaz eta bestez– Mendigurenek (1991) eginiko saioaren interesa.

[242] Itzkuntza garbi, trinko ta xur batean, iatorraren indarra ta larioa galdu gabe, Hiponakoaren idazlanik ezegun eta aipatuen au eman zigun. Itzulpen onetan erakusten digu, ain zuzen, bere egoneziñaren eta gora-nalaren neurria, izkuntza gaindegietara iasotzeko. Etzuen iñola ere euskera geldi eta arri-biurtu bat nai, ibilkor, zailu ta eragiña baizik,

Hiztegitik hasita, Orixek ez omen du euskaldunak zatikatzen zituen irizpide muturrekorik erakusten. Ohi duen bezala, ez erabateko garbizale ez hein bereko mordoilozale agertzen da:

> Ez du gai honetan alderdikeria handirik azaldu Orixek, ez lehen ez orain. (1956h:76).

Eta horren seinale da, erdaratikako hitzak ("ez horrenbestez erdal hitzak"[243]) kupidarik gabe darabiltzala: *animaliak, arma, duda, elefante, engañatu...* Alabaina, Orixeren jaidura bestelakoa izaki, betiko moduan, hizperriak eratuz, maisuki moldatzen dela ere eransten du Mitxelenak.

Hitz eratu horiek hitz-elkarketaren bitartez sortzen ditu nagusiki, eta baliabide honen ondoan, baita hitz arruntak esanahi berriz jantziz ere. Bi bideok urratzearen eragilea, apika, garbizaletasuna ez ote duen Mitxelenak ikusten gogoeman daiteke, "*tour de force* bezala" edo ez ote dauden eginak, aringarri moduan dioen arren. Hau da, Mitxelenak paperera daramatzan Orixeren ordainek, erdaratikako *denbora* hitza txuliatu asmoz ez ote darabiltzan pentsatzeko bidea eman dezakete:

> Denboraz hain luze eta sakon diharduen XIgn. liburuan, adibidez, ez du *denbora*-rik aipatzen. Badu halare *tempus* itzultzeko ordekorik aski: noiz, noizaldi, noizko, aldi, orduko. *Tour de force* bezala egin bide du. Ez dut uste behintzat *denbora* horren higuin duenik[244]. (1956h:76).

Jatorrizko testuari begiratuz, Orixek maiz, oso era egokian aldatu ditu latinezkoak euskarara, esate baterako, latinezko *cogo / cogito*, euskal *bil / erabil* bikotearen bitartez.

Ez du, horregatik, beti asmatu, gazteek leporatzen diotenez eta Mitxelenak ere uste duenez, eta ez asmatzea, Orixek erabili dituen hitzen eta adierazkizun dituen adigaien arteko adostasun-ezean datza batipat[245].

---

edozerri, nun-nai, noiz-nai aurpegi emateko aiñakoa". (Ibinagabeitia 1965:113).

[243] y también debe señalarse su respeto, raro en un tiempo, por el vocabulario tradicional cargado de valores que no puede ser sustituido sin gravísimo detrimento por equivalentes incoloros". (1960b:149).

[244] Adigai hori adierazteko Orixek darabiltzanen beste adibideak ikus daitezke "Noizko-nongoak" lanean (Orixe 1955). Hemen: *noizkoa, beta, noizaldia, oraiña, bat eta bete, beti, alde, tarte...* irakur ditzakegu.

[245] Azurmendik, Orixe "eder-sortzaileak", itzultzeaz beraz zuen ikuspegian funtsatzen du arazoa, hots, bihurtzaileak bere nahi duen askatasunean eta testu-itzulgaien motari zor zaion atxikimendu-maila ez bereiztean:

"Orixe, ordea, itzulpenetan ere literato gisa ibili zaigu, itzultzekoa birkreatuz, eta kreaziorako beharrezkoak uste zituen arauen eran –eusko eran– kreatuz hain zuzen. Itzultzaile onak hori egin behar omen du. Hala esan ohi da. Baina hori ez da guztiz zuzen-zuzenik [sic], literaturatik kanpo behintzat, beste zenbait sailetan. Badaude nork bere erara birkreatzerik ez dagoen gauzak, edo oso besteta -transmisio huts antzean– birkrea litezkeenak, jatorrizko hitz-mugaketari lotu-loturik. Libertatea eta ahalmen kreatiboak eta direla diren beste dohain guztiak, horietan kalamitate hutsa dira". (Azurmendi 1976:145).

Itzultzeko modu honek, badu gaiazko bibliografian deiziorik, Mendigurenek (1991:525) jasotzen duenez:

Hau da, erdaratikakoak erabili nahi ez izateak bultzatu (edo behartu) du Orixe euskaldunago bai, apika, baina era berean horren zehatz ez direnak erabiltzera:

> "Agintari" ez da "enperadore"-ren ordain jatorra, ezta "jakinzale" ere "filosofo"-rena, ez gaur eta ez Agustinen denboran; "ele-zati" askotara -gehiegitara- har daiteke, ez "silaba"-tzat bakarrik. Gehiago aipa daitezke. (1956h:76).

Honek ez dakar, halaz ere, Mitxelenak Orixe hiztegia bere erara egokitzean, beti oker dabilela pentsatzen duela ondorioztatzea, Mitxelenak berak Orixeren hitzak aukeratzen baititu batzuetan adierazi nahi dituen adigaientzat egoki izan daitezkeelakoan. Honelakoak dirudite, behintzat, gisa honetakoek:

> [Aresti] Bestalde, berriz, eta balta izugarrikeriekin batera ere sarritan, sentiberatasun belaxkaz (horrela ziokeen Orixek) inguraturik azaltzen zaigu. (1979c:133).

> Horien aldamenean, haatik, aurki daitezke, gaiurrik garaienetan (zenbait erakutsi dizkigu Altunak behatz zorrotzez) Orixek arnasa[246] deitzen zuen haren kutsua, poemagintzan, kristau nahiz jentilengan, egiazko garrez dizekanean, gortar dena, gortik omen datorrena. (1981d:117).

Bestetan ere aitortzen dion euskararen ezaupide paregabe horrek, ez bide du, bada, Mitxelena itsutzen makurrak ez hautemateraino. Mitxelenak, ohi duenez, Orixeren hizkera idatzian zuzena eta okerra bereizteari ekiten dio.

Hiztegikoez gainetara pasa aurretik, halaz ere, zehaztu behar da Mitxelenak ez dioela txintik ere hitz-eraikuntzaren itxurazko alderdiaz, hots, ez duela hitzen osamoduazko kritikarik adierazten, hor kritikatuetan beztekoa hitzaren forma ez baina, hitzaren eta bere adigaren arteko uztarri desegokia baita.

Aitorkizunen itzulpen horrek badu besterik, eta ez axola gutxikorik. Beste arrazoi horretan kausitzen du Mitxelenak, beherago zehaztuko diren euskara horren hutsen iturburua eta sustraia, Orixeren hizkeraren berri ematean ikusiko den bezala.

Laburregi eta trinkoegi izatea da ikusten dion akatsa eta, honetxek oztopatzen du, hain zuzen ere, bestela ere oso mami samurra ez duen lanaren aditzea[247], irakurtzea malkartsu

---

Berman-en "etnozentriko" eta "hipertestuala" dagokio.

[246] "Arnas au Aitagana / dadukat intziri; / biotzez onen lagun / bear nuke beti. / Arnasak diraudano / Arnas barnago oni / lagun iodan soinu / agofago oneki (...) Arnas soil au entzunaz, / Zure Arnasari / lagun egin zaiodan / alde bage emendi, / betibateko ots ontaz, / eitzagor iduri, / Zure musika mintxo / bafenagoko ofi". (Orixe 1934:40,44).

[247] "S. Agustin, tan inclinado a los juegos ingeniosos de palabras, a los retruécanos, paradojas, etc., ha hallado un digno traductor al euskera, que no cede al autor en concentración y en habilidad para decir las cosas. Incluso hay que decir que con frecuencia se pasa de la raya y se toma libertades que no parece se puedan justificar. En conjunto resulta un libro difícilmente digerible". (Villasante 1979_2:421).

bilakatzen duenez gero:

> Hau bezalako liburu batean, batez ere. Inolako oharrik ez daukalarik, aurkituko du irakurleak franko eragozpen, hizkuntzaren aldetik oztopo-biderik ez duela ere. (1956h:76).

Euskaldun irakurleak lanak izango ditu, beraz, itzulpena irakurtzean eta, horregatik, Mitxelenak *laburtasuna, argitasuna*, eta *erraztasuna* aukeran jarriz, gisa honetako kasuetarako, argitasuna eta erraztasuna jotzen ditu begiz, lau urte geroagoko lan batean[248], jakintzak mintzagai dituelarik, "zehaztasunak argitasunak eta garbitasunak" adina balio duela esango ere duen bezala, lehen jaso denez:

> Laburtasunak merezi ote du horrenbeste opari? Argitasunak eta erraztasunak balio dute, gutxienez laburtasunak adina[249]. (1956h:76).

Nolabait esan, Orixek ez bide du asmatu –gaurko pragmatikaren hitzez balia badaiteke– "egokitasunaren hastapenari" eusten[250], hots, testuinguru, egoera eta gai bakoitzari dagokion hizkuntz maila erabiltzen.

Hau da, ez dirudi irakurleari lan ematea Mitxelenari oker larria iruditzen zaionik, arazoa bestelakoa da: jakite-zientzietako terminologia, hizkuntza arrunta eta literatur hizkuntza ez daitezke era berean erabil.

Jakintzek zehaztasuna ezinbestekoa dute eta, ez dute zer izan gizaki ororentzat ulerterraz, gai horietan adituentzat baizik. Zehaztasunaren hastapena da nagusi.

---

[248](1960a).

[249]Itzul-lanetan laburtasunari norainoko pisua ematen zioten agerian uzteko, argigarria da Iztuetaren (1991a:650) testigutza. Luze joko duen arren, hona hemen:

"Baina Lizardiri, batez ere, Orixeren itzulpengintza ezaugarritzen duten alderdi estilistikoak interesatzen zaizkio. Itzulpen batek, ona izateko, hiru arau hauek bete behar ditu, haren aipu honek dakarrenez: "Toda versión al euskera de obra castellana, del castellano clásico sobre todo, debe, a nuestro juicio, dirigirse en términos generales por las normas que se observan en la que hoy nos ocupa, y que podríamos titular, mas o menos propiamente, concisión, división e impresión" [*Euzkadi*, 17-VII-1929/]. Euskaraz esanda: zehaztasuna, zatiketa eta inpresioa dituzu arau horiek, Orixeren itzulpenentan oso ondo betetzen direnak.

Itzulpenak, lehenik, zehatza izan behar du. Alferrikako apainkeriak bazter utzita, ideiak zuzen eta garbi ematera jo behar da. Honek esan nahi du, oraingo bertsio modernoan, ez hitzak, baizik eta kontzeptuak itzuli behar direla. Hauxe da itzultzaile bati eskatzen zaion kualitaterik behinena: "No gusta el euskera castizo de prodigar adjetivos ni giros de puro ornato: plácele elegir viejas palabras, plenamente sabrosas, y servir la idea con las menores complicaciones que sea posible. Esta noble concisión que trasciende a la lengua primitiva, es gran cualidad en todo traductor, y de un modo especial en el vasco, siempre que no la obtenga a costa de escamotear trozos o matices de original" [Lizardi, leku berean]. Orixek arau hau ederki betetzen duela adierazteko, adibide hau ekartzen du: "Dice el original: 'el deseo de alabanza le hace ponerse al peligro'. Tradúcese: 'izen-gureak daroa arriskura'". Hara hor ideia zuzen eta soil asko adierazita! Jatorrizko testua zenbat eta laburrago itzuli, orduan eta ohore handiago itzultzailearentzat. Horren atzetik ibili zen Orixe, laburtasunean gaztelania eta latina bera hautsi nahirik, batzuen ustez, zenbaitetan, neurriz kanpo ere bai".

[250]Muzin egiten diegu orain Levinson-ek (1983) pragmatika ulertzeko modu honi ikusten dizkion eragozpenei.

Bestela da hizkuntza arruntarekin eta literaturarekin gertatzen dena, anbiguitatea, hitzjokoak, irudiak eta enparauak baitira jaun eta jabe, ulerterraztasunaren mugetatik urrunegi jo gabe.

Hizkuntza idatzian, lanaren balizko hartzaile-motaren arabera antolatu behar bide du idazleak berbaldia era batera nahiz bestera eta, honetan sortzen da, seguruenik, Orixeren eta Mitxelenaren arteko etorriezinetako bat, aurreko kapituluan itzultzaileez –*Itunbez*, bereziki– esana bezala.

Orixek berak aitortua da "ikastea" gustagarri duela, hauxe du, esate baterako, E. Gaztedikoen lanak irakurtzeko arrazoia, euskara ikasi nahi du testu horietan, bere burua ea paperekoak ulertzeko gauza den ikusi nahi du, berak dioenez.

Mitxelenak irakurleari jartzen dizkion behaztoparriak ez bide dira era honetakoak, irakurleari ez zaio ahia eman behar, irakurle langilea eskatzen du Mitxelenak, baina kemenak euskara "deszifratzen" eman beharrean testua oztopo-lasterketa bailitzan , bestelakoetan eman beharko ditu[251], gaia barrentzen edo iragaitzaz baizik aipatzen ez dituen aipamen izkutuen erreferenteak bilatzen, besteak beste.

Arazoa honela esaterik badago –, egokitasunean datza, gaiaren eta irakurlearen arabera hizkuntz maila egokiak erabiltzean, alegia, eta Orixek honetan ez bide du asmatu, Mitxelenaren aburuz.

5.5.4.2. Laburtasuna izan du ahotan Mitxelenak, eta *labur-behar*[252] honen ondorio gisa aurkeztu ere, Orixek itzulpenean gauzatu dituen eta Mitxelenak egokitzat ez dituen ondokook:

---

[251] Alde honetatik, argigarriak dira ondoko Mitxelenaren hitzok, garbi adierazten baitute bere aburuz euskal irakurleak duen betekizuna

"Norbaitek esango du, beharbada, trinkoegi eta bidenabar gogorregi aurkitzen duela [*Gorrotoa lege*] han hemenka. Gogoan eduki behar luke, ordea, harako hark ezinezkoa dela hizkuntza idazle-hiztariek lantzea, era berean lantzen ez badituzte irakurleek beren buruak. Badakit, noski, nekez ikasiko dituela irakurleak "irakurletasunak" eskatzen dizkion zerak –letraduna baldin bada, euskaraz letradunentzat egiten direnak irakurtzeko behar dituenak, erdarazkoak irakurtzen dituen eran–, inork irakasten ez badizkio. Halaz guztiz ere, irakurle-gai bakoitza errugabe agertzen baldin bada ere, banan-banan hartuz gero, ez da horrenbestez esan euskal irakurleok erabat errudun –eta errudun larri, gainera– ez garenik. Nolanahi ere, irakurgairen bat zailtzat jotzen dugunen, esan behar genuke ere norentzat den zail, gure ustean. Gerta baitaiteke, eta maiz gertatzen baita, zailtasun horren hogena idazlearena ez izatea. Eta ez da idazlearena izango euskara argi eta garbian mintzatzen baldin bada, hemen Etxaide bezala, nahiz euskara argi eta garbi hori, hemen bezala berriz ere, aberatsa eta ohi baino ugariagoa izan". (1965l:138).

[252] "Lehen, esaldi luzeetan larrena zalantzarik gabe murgiltzen ziren euskal idazleek ez zuten horrelako kezkarik. Orain berriz, bide berrien bila eta labur-beharrez ari garenok errenka gabiltza serritan, oinetako estuegiak [sic] min ematen baligute bezala" (1956a:78).

"El vascuence posee, en la estructura de las palabras y en la conexión general del habla, una fuerza especial, emanada de la brevedad y osadía de la expresión". (Humboldt, G. *Sobre la diversidad de estructura del lenguaje humano y su influjo en la evolución espiritual de la humanidad*, Valverde-k (1955:138) jasoa).

- Baztertzeko etsi dituen jatorrizko latinezkoak, eginahalean baztertu ditu Orixek[253].

- "Hitzak motx, hotzak kuxkurturik baleude bezala" eman ditu, ahozkotasunari makurtuz: *amaiarreba, probu, ordun, doatsugo, umikarrigo*. Bestelako laburdurak ere egin ditu, hala nola, partizipioak eraman beharko lukeen *-tu* ezabatu[254]: *balia ziran, suntsi dituzu*.

- Aditz trinkoa erabiltzeko jaidura nabarmena, nahiz adizkiok sekula erabili gabeak edo, zaharraren zaharrez gaurkotasunik ez dutenak izan: *legotzidaken, zigurikan, zitxeroken*.

- Aditz laguntzailea, berez ez duen indarrez, trinko moduan erabili du.

Hemen zehaztuak, gainera, ez zaizkio Mitxelenari aldian aldiko begitantzen, Orixek, lan honetan ez ezik, bestetan ere molde beretsukoak erabili baititu. Alde honetatik dira bereziki interesgarri, Orixe honen, hots, *Aitorkizunaken* aldatzailearen isuri-jaidura soilak ez direlako; kontrara esanez, Orixe euskal idazlearen erakusgarri ere badirelako, alegia:

> Bereizgarri horietarik gehienak ezagunak genituen lehendik ere Orixerengan, baina ez dertzet besterik gabe onestekoak. (1956h:77).

Mitxelenak, Orixeren horiek beztearekin batean, Orixeri gidaritza ukatzen diola esan daiteke, hainbatetan aitortu dion alderditik, gainera, hau da, hizkuntzaren alderditik, bestetan, ideien aldetik ere ukatu dion bezala, kapituluuren azken aldean zehaztuko denez.

Aditzen erabileran funtsatzen du batipat Mitxelenak erasoa[255], Orixeren bere gisa

---

[253] Mitxelenak aipatzen ez dituen arren, Orixek itzultzailearen betekizunaz dituen zenbait irizpi ekarri nahi ditugu, argigarri izan daitezkeelakoan.

"Mi táctica de traducir ha sido la siguiente: dudar primero de si en el original estará bien expresada la idea, y una vez confirmada la corrección o inexactitud, cosa muy frecuente, corregirla en su lenguaje original". (Orixe 1949a:17).

Edo beste honakoa:

"Eso no se puede traducir al vasco, porque las atrocidades no se pueden ni se deben traducir a ningún idioma sensato". (Orixe 1950b:18).

Honelaxe jasotzen du Iztuetak ere (1991a:825):

"Orixek, bada, jarraiko hiru arau hauek beti aurrean zeuzkan bere itzulpen-lanetan: lehenik, zalantzan jartzen zuen jatorrizko testuan ideia zuzen adierazia zegoenentz; bigarrenik, egiaztatuz gero ez zegoela zuzen -sarritan gertatzen zena-, jatorrizko testu hura bera zuzentzeari ekiten zion; hirugarrenik, baldin konturatzen bazen jatorrizko hizkuntza hark ez zuela ideia hura egoki adierazteko aski baliabiderik bere baitan, euskaraz atzematen zuen baliakide zuzen eta egokia".

Oroi, esate baterako, *Tormes*'koari (euskal eta gaztelaniazkoari) aldaturiko amaiaz.

[254] Ezaugarri hauxe bera atzeman du Altuna Hiribarrenen *Eskaldunaken* paratzaileak (lan argitaragabe).

Bestalde, gai zehatz honek Mitxelenari sorrarazten dion kezkabidearen beste lekukorik ere ekar daiteke, Mitxelenak Euskaltzindiko bilkuretan esanetatik:

"Baiña bada oitura bat gaurko idazle askotan oso sartua dagoena, eta ori da nere ustez ontzat ezin eman diteke ana, **-tu** ori kentzea beste aldekoak kentzen eztuten garaian. Esan nai dut, ez **gerta diteke**, baiña **gerta da**; ez **sar diteke**, baizik **sar da**. Orrelako gauzak irakurtzen ditut eta eztut uste oiek iñongo oituraren erara egiñak deudenik [sic]". (*Euskera* 1960:91).

[255] Nabarmena da zenbateraino artegatzen duen Mitxelena adizkien arlo honek, aurreko kapituluan ere azpimarratu bezala. Garai batean, hortxe ikusten zuen, hain justu, arlorik bateragatzena:

"Goaz aditzera. Oraingoz, egia esan, ez zait iruditzen batasuna irispidean dagoenik. Forma-komtu hutsean ere, alde gehiegi dago batetik bestera: batzekotan, berea utzi beharko lukete askok, amore eman eta besterenera

ibiltzea inon baino nabarmenago baita arlo honetan, adizkietan bereziki. Hemen ikusten du Mitxelenak "bide ibiliak uztearen" eta –bere apetan iturburua duten sorkariak erabiliz–, bide berriak urratzearen adibidetegirik ugariena, bestela esan, euskal literaturan sarbiderik izan ez dutenak maizenik erabili dituenen saila: *ezaguten (ezagutzen), gakion (gakizkion), nindezaten (nintzaten), zaida*[256] *(zait), etzekizkidan (etzitzaizkidan), gendin (gindezen), nenzan (nezan), nenkusan (nekusan), nenkarren (nekarren), nenkartzien (nekartzan), nakio (natzaio), nizaio (natzaio), zaitio (zatzaizkio), zakio (zatzaizkio):*

> Berdintsu gertatzen da *diago* eta bere senideekin. Dakidanez –eta poztuko ninduke bizirо oker nagoela jakiteak–, euskal literatura guztian behin agertzen da adizki hori, Garibayk XVIgn. mendean jaso zuen esaera batean: "Atzean diagonak utsean diago". Jakin, ez dakigu ziur "dio" esan nahi duenik ere, bitara itzulia ageri baita: "dize" eta "hieren"[257]. (1956h:78).

Honen atzean dagoena, *labur-beharra*[258] dela dio Mitxelenak. Behar hori ikusten du makur etsiaren etorkian, baina honek ere, aldi berean, badu bere jatorria: Orixeren hizkuntz ideiak; zehazkiago esanik, euskal esaldiaren doinu-taxuaz duen aburua, Orixe euskaltzain oso bilakatu zeneko erantzunean ere errenteriarrak maiseatuko duena, hain zuzen:

---

makurtu. Ez diot, ordea, horrenbestez, gauzak bertan behera utzi behar ditugunik". (1968d:150).

Honela zioen Arantzazuko bitzarrean, eta modu beretsuan geroxeago ere:

"Berehala ikusi nuen, ez baitzen argitasun bereziren beharrik hori ikusteko, aditz kontuan izango genuela behaztopabiderik zailena. Nahiago nuen, egokiago zirudielako, aditzarekiko auziak gerorako utzi, geroak geldiro garbi zitzan. <Axeak bestera garoaz>, ordea". (1972a:162).

"Aspaldi esana dut aditza genuela bidean aurki genezakeen behaztoparik bihurriena: hautatu behar, eta nekez hautatuko. Adizki sail baten alde mintzatzen baldin bagara, izan ere, badirudi bazterlu eta arbuiatu egiten ditugula, nora ezean, horien kidekoak. Eta bazlergarriak oro (berrikeriak, itxura gaiztoko formak eta abar) bazterlu ondoan ere, bada beti, edozein har-eman adierazteko, euskal adizki zuzenik aski eta geniegi". (1973b:94,95).

Samurra ez zelarik, beraz, pozik ager daiteke Bergarakoan, baturako finkaturiko aditzaren onirtzia ikusirik:

"Aipa dezadan bidenabar mugaketa lana ez dela gelditu eta hor dugula orain aditza ere (nik Arantzazun ezinezkotzat, berehalako batean ezinezkotzat jo nuen eginbidea) onartua eta onartutzat erabakia". (1978c:170).

Hau guztia ikusirik, konprentzekoa da adizki-asmatzaileek Mitxelenari sortzen dioten larritasuna. Bestela ere bazen makina bat buru-hauste inork bazterrak areago nahastekatzeko.

[256] Adizki hauxe irakur daiteke, urrutirago gabe, Orixek Euskaltzaindian egin zuen sarrera-hitzaldian bertan:

"Ala ere, aspaldietan emengo seme argi zen Arta Gabriel Huarte Txortxiko'nekoari esan niona, Leitza'ko mintzoa iduri zaida entzun dudan latorrena, edo beintzat, beretasunik aundiena duna". (Orixe 1958:29).

Adizki honezaz gain, testuan jasoriko beste ere, bestalde, *Ouito-n arrebarekin* lanean ere nabarmendu ditu Segurolak (1987:34).

"Orixek bere lanetan maizenik erabiltzen zituen *ditio, nition, zitidan* bezalako formak dira hemen ere nagusi, *-zki-* pluragilea daramatenak bazterlu gabe, halere. *Nakio* ('natza:o'), *gakio* ('gatzaizkio'), *zakit* ('zatzaizkit' nahiz 'zakizkit'), bezalako forma ez-ohizkoak ere aurkituko ditu irakurleak, ikustera ohiturik dagoen "itsuskeria" arrunten tokian".

[257] "Bada, azkenik, Orixeren izkribuetarik landa nekez aurki daitekeen forma bat: *diago*, 'dio' ez ezik 'defendatzen, sostengatzen du' adierazten duena Orixeren irtzian, *ago* ('aho')-rekin omen duen ahaidetasunaren kariaz; ik. *Yakin* 1960 (3-4), azken aldera erabiltzen hasi zen bere gisako euskara hartan: "*Dio* ordez *diAGO*, naiz *diño*. Aspalditan alargun nago autore zâr eta berritatik eta euskal liburuutatik; baiña René Lafon euskaltzaiñaren sar-itzaldiñ arkituko duzu. AGO, *boca*. Bizkaitarrek ABO artu dute, batez ere, aâna ori baita. Esan-ez gaiñera, *proteger, amparar, defender en juicio*: iAGOn"". (Segurola 1987:35).

[258] Auzi honi berriz helduko diogu Orixeren hizkeraz aritzean.

> Euskal esaldiari buruz aspaldi azaldu zituen iritzietan aurki daitezke agian labur-behar horren erroak (ikus RIEV 9,9 eta hur.): euskal esaldiak ez omen du zati berezirik, ez geldilekurik; gora eta gora omen doa doinu-gaiburreraino, handik gainbehera arnaserik hartu gabe, amiltzeko. (1956h:77).

Iritzi oker horrek dakarren laburtzearen mamitzeak, Orixe bide arriskutsutik abiarazi du, aurreko prosa-maisuengandik urruntzera baitarama, ("bide ibiliak utziz", lehen esan bezala); nolabait esan, Orixek estu eta larri dioena, behialakoek "mintzaera lasaiagoz" esana baitzuten.

Baina badu bestelako ondoriorik ere labur-behar horrek, ondorio larritzat har daitezkeenak eta aurreko kapituluko zenbait kritikatan Mitxelenak adieraziaren ondoan ikusteak, batez ere, larriago bilakatzen dituenak:

> Hizketako itobeharrari idazkietan ere amore emateak ondore jakina du: euskalkien arteko berelzkuntzak sakontzea eta zabaltzea. (1956h:77).

Itobeharra, labur beharra, kasu honetan Mitxelenaren luman, beste gaitz baten deiziotzat har daitezke. Beste zenbait egileren lanak bezteko hizpidean izan duen gaitz bera legoke tartean Orixeren honetan ere: ahozko mintzairari atxikiz, moldezko mailara eraman nahia gorpuzten duen joera. Txokokeriei euste horrek berarekin baitakar, izkribuzko euskararentzako molde bakar eta finkorik ezean, euskalkien eta euskaldunen arteko osina handitzea.

Orixek "bere" erara jokatu du, beraz, nolabait esan, itzulpen honetan, euskara duela zerbitzari eta mirabe.

Ikusiriko guztiak, hasiera aldean kanporatzen genuen susmoa –hots, "huskeriak ez direla huskeria"–, baieztatu eta sendotzen duelakoan gaude.

5.5.4.3. Mitxelenak ez du Orixeren beste itzul-lanik berariaz aztertzen, ez ikusi berri den gisan behintzat; honenbestez, han eta hemen paperera jalkietan zirtatuak –maiz aipu huts besterik ez direnak– atzeman behar dira.

Honela, 1958ko "Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean" erantzun-mintzaldian, Orixe euskalaria ageriko autu –eta Orixe prosa-maisua, zeharbideko– begietsiagatik, sarrera modukoan, Orixerekiko zorren kontu emateari ekiten dionean, besteak beste, "bere aldiko euskaratzailea" du ahotan errenteriar euskaltzainak.

Orixeren lan euskaratuen izenbururik hor ezin irakur daiteke eta, zeharkako aipamenen argitan besterik ez dago jakiterik Orixeren lanen berri, euskaraz gatzatuak eta itzuliak nahaste:

> Hor dugu gure herriaren izaera, mamiz eta azalez, barne-mulnetaraino bereganatu duen gizona (...) Ederrez igortzia dago bere kanta, gure mintzo nardatu honetan, provenzar handi hark bezala, eman duen kanta. "Edertasunak ukitu duen gauza –zion Keats-ek– beti da atsegin. Gero eta ederrago

ageri da eta ez du inoiz ezerezak irentsiko"[259]. (1958h:97,98).

Barne-muinetan berariaz adierazia eta *Euskaldunak*, apika –"herriaren izaera" hori dela medio–, sorlanen ondoan, *Mireio*k ere eranstekoa dirudi, "provenzarra" tartean denez gero.

Edertasuna da Orixeren kantari atxikitzen dion ezaugarria. "Provenzarra" muga horien barne kokatu arren, ez dirudi bide erosoegirik dagoenik jakiteko *Mireio* lanaz ari den Mitxelena justu, Orixeren lanaz, oro har, ala, beste lan zehatzen bat darabilen gogoan, *Euskaldunak* bera, esate baterako.

Azken hau pentsatzeko bidea eman dezakete Mitxelenak eta Villasantek antzematen dioten probentzarraren poemarekiko parekotasunek[260]:

> De lo que sí se resiente *Euskaldunak* es de ser un *Mirèio* sin auténticos enamorados. (1960b:151).
>
> [*Euskaldunak* poemak] También tiene analogías con el poema Mireya de Mistral, que él tradujo al vasco. (Villasante 1979$_2$:420).

Honenbestez, ausartegia dateke, agian, Mitxelenak Orixeren *Mireio* bihurlan "edertzat" daukala ondorioztatzea. Beste argirik ezean, honelaxe utzi behar.

Orixe zendu ondoko 1961eko lanean, hilberriaren irudi orotarikoa osatzean, Orixe euskaratzaileari ere bere tartea eskaintzen dio Mitxelenak.

Orain, itzulpena denik zehazten ez duen *Tormesko itsu-mutilla*, iragaitzaz edo aipatzen du. Orixe neurtitzen aldatzailea batetik eta Orixe euskaratzailea, oro har, dira bereziki azterkizun hartzen dituenak.

Puntu honen hasieran jasotzen zen bezala, Mitxelenak, bihurlanetan ikusten du Orixek euskaraz zuen ezaupidearen adigarririk argiena; hemen erakusten du Orixek, beste inon baino gardenago, noraino duen hizkuntza barneratua:

> Zenbatetaraino jabetu zen hizkuntzaz itzulpenek ematen digute aditzera, bere baitarikako idazlanek baino areago, lotuagoa baitago beti itzuliketan ari dena bere ahoz, horrelako lokarririk gabe, mintzatzen dena baino. (1961e:119).

---

[259] Mitxelenak berak euskal letretan egiten duen sarbidean –bere lehen euskal artikuluan, alegia–, John Keats berberaren hitzak, ingelesez, aldatzen ditu paperera. Hurrengo kapituluan polikixeago aztertuko da hau.

[260] Bi lanon arteko lotura nabarmentzen du Iztuetak ere (1991a:662):

"Nola bait esanda, dexente sinplifikatuz, ***Mirelo*** izango litzateke ***Euskaldunak*** poemaren historiaurrea".

Bestalde, Mistral eta Orixeren artekoez, Azurmendi (1991), lehenaren oihartzun zehatzez Orixeren *Euskaldunaken*, Otaegi (1991a) eta alderdi biezaz, Otaegi (1990).

Ariketa hau berez, samurra ez bada, are zailago bihurtzen du itzulgaia neurtitzak izateak:

> Eta lokarriak kate [sic] gogor bihurtzen dira itzul-lana neurtitzetan egin behar denean. (1961e:119).

Orixek, ordea, maisuen pare burutzen du eginkizuna, aho batezko ustearen ustela agerian utziz:

> Aspaldidanik esana dago, eta itxuraz esana, esate baterako, ez dela inor gauza izango gaurko hizkuntza batean –eta gurea gaurko hizkuntza berrietako bat da, zorionez–[261] *Lauda, Sion, Salvatorem* zehazkiro emateko neurri berean. Hori, ordea, eta *Stabat mater* eta beste asko, *Urte guziko Meza-bazpiretan* ikus daitezke, latinez baino laburrago esanak, guziok dakigunez. Ez dut uste San Tomasek berak haserrebide handirik izango zukeenik, ahapaldirik gehienetan behintzat[262]. (1961e:119).

Orixe euskaratzaileari, bada, izen-omenak ongi merezita eman dizkiote lan mamituek.

Berandu gabe, haatik, hitz horien ondotik, begi aurrean arrisku bat paratu gogo du Mitxelenak: Orixek erdietsiak ez dakar ezinbestean, zeinahi euskaldun euskaratzailek Orixe eredu hurbil eta eskuraerraz izan ahal izatea:

> Eredu ederra daukagu Orixegan itzulketarako, baina –eta hau ere gogoan eduki behar dugu beti– gutxi batzuen mailako eredua[263]. Itxaropen berria sortu digu gure hizkuntzaren gaitasunari buruz, uste genuen bezain traketsa eta moldakaitza ez dela argi baino argiago –egitez, eta ez hitzez– erakutsi digunean. Edozein gauza, baita izkutuena eta zailena ere, eman daiteke euskaraz, euskara garbiz, baina ez du edozeinek emango, leherrenak egiten badiu ere. Gaitzago da oraindik

---

[261] Errepara dakioke Mitxelenak bestela bezala dioen honi.

Halabehar hutsa ote. Orixeren izena inguruan dela, bi bider (1956f:68) eta hemen, euskara hizkuntza **berria** dela alboratzea?

[262] Itzul-lan honi dagokionez, bidezko deritzagu ondoko bi iritziok hona aldatzeari:

"Aunque este libro, por las reformas litúrgicas que después se han seguido, no sirve hoy para el fin para el que fue escrito, cumplió no obstante su cometido durante bastantes años y además ha prestado un gran servicio a la hora de hacer estas mismas reformas. Orixe se revela en él un traductor sumamente hábil. Su tendencia a decir las cosas con las menos palabras posibles y sin mengua de la exactitud se patentiza en el hecho de que el texto vasco ocupa menos sitio que el original latino de la columna contigua. Esta tendencia a la concisión excesiva y a la adopción de un lenguaje puro sin palabras de forja ni préstamos, como también ciertas innovaciones que se permite en la lengua, hacen que el libro sea poco digerible y un tanto artificioso. Esto no obsta para que haya en él trozos maravillosamente bien logrados". (Villasante 1979_2:419).

"Joan Mari Lekuonari entzuna diodanez, gaurko liturgi euskara, Hegoaldean bederen, Orixenetik hartua omen da funtsean. Ezin ukatuko da, bada, batasunerako bidea erraztu ez zuenik, hizkuntza liturgikoan bederen. Ez nago ahaztuta, horregatio, hortik literatur batasunera badagoela oraindik zer ibilirik. Baina Orixek bere aitari entzuna hamaika bider esaten zuen hura errepikatu beharko hemen ere: danean dantxoa, nere gizontxoa". (Iztueta 1991a:914).

[263] Orol bedi, "prosa-maisua", "nekez eta izerdiz bakarrik hurbil daitekeena" (1958h:98) eta "urrutiko gailurretarik bidea erakusten zigun gidaria" (1965e:126) dela. Halako urruntasun-kutsua bide darie adierazpideoi oro.

> euskaldun ikasi batentzat, askozaz ere gaitzago, inguruko erdara batetik euskarara itzultzea, erdara horietako batetik bestera baino. Ez digu, egia mingarri hori estali behar Ormaetxearen "virtuosismo" miragarriak. (1961e:120).

Honenbestez, Orixe euskaratzaileagan beragan agortzen ote da urraturiko eredua, edozer euskara garbira aldatzeko trebetasuna eta ahalmena, Orixek beste inork ez duen gaitasunean funtsatua dagoenez gero?

Hitz horien atze-oihalean, Orixe bat eta bakar bilakatzen duen eta, aldi berean, beste euskaratzaileengandik bereizten duen honako arrazoia sumatu uste da: Orixek euskara barne-muinetaraino bereganatua du, ez du hizkuntzaren ezaupidea debeku zernahi euskarara aldatzeko, euskaldun "ikasiek" berriz, halabeharrez, gogoa jantzi duten hizkuntzaren zubitik pasa beharra daukate, azkenean euskararaino iritsiko badira.

Honengatik, Orixek lanean erakusten duen "virtuosismoak", egiazko eta benetako gertari mingarria itxuraldatu eta euskaldunen artean gezurrezko itxaropena sortzeko arriskua du: edozer, oztopo larriegirik gabe, Orixeren bezalako euskara garbi bihur daitekeela, alegia. Guztiak, ordea, ezin Orixe izan.

1965ean kausi daiteke Orixe euskaratzailearen lehentasun-aginteak kolokan jartzen dituen beste erakusgarria.

Mitxelenak, kasu honetan, Orixeren aitzindaritza-ezean funtsatzen du argudioa:

> Maiz aipatu izan dut Orixe zenak beste hizkuntzetan idatziak gurera bihurtzen agertu zuen trebetasun harrigarria, batez ere hitz neurtuz ari zenean. Ez diet lehen esanei oraingoan deus kendu nahi, baina, halaz ere, erakutsi nahi nuke izan zituela bide horretan aitzin-gidari zaharrak. Ez dut esaten horiei zorrik dienik; bai, ordea, ez zela bera bide horretan barrena aurrenik abiatu, ibilia zegoelako ordurako bidea. (1965f:59).

Orixe baino lehenagoko euskal maisu bertso-aldatzaileen artean –hitzez-hitz ez baina "bere gisara" aritu zirenen artean, alegia–, Etxeberri Ziburukoa, Sarako Harizmendi eta, artikuluak mintzagai duen Aita Bernard Gasteluzar aipatzen ditu Mitxelenak.

Azken honenak dira, hain zuzen, *Lauda, Sion, Salvatorem, Stabat mater*, eta *Dies irae* sekuentziak[264], Orixek ere itzuliak:

> Eta itzulien artean, hain zuzen ere, hiru <prosa> daloz, Orixeren liburu ezagunean neurtitzetan euskaratuak agertzen direnak (...) Hirurak, ereduari datxekala, neurri berean bihurtuak. (1965f:59).

---

[264] Lekuonaren (1991:375) terminologiari jarraikiz:

"Sekuentziak. Zenbait festaburutako neurtitzok, eliz egutegiaren arabera emanik, hauek ditugu: *Stabat Mater*, Ama Doloretakoarena, 20 estrofa (...) *Lauda Sion*, Jesusen Gorputz-odol Santuen egunekoa, 24 estrofakoa, eta azkenik, *Dies irae*, hildakoen mezetakoa, 19 estrofek osatua".

Mitxelenak bihurrera honen gaineko juzkurik ematen ez du eta, hori ez ezik, espreski dio ez dituela bi egileok "nor gehiagoka" paratu gogo, baina errepara daiteke, Orixeri aitortzen zitzaion merezimendurik nagusienetakoa, hain gaitz zirudien latin-neurkerari gorde zion atxikimendua zela.

XVII. mendeko Gasteluzar jesulagunak ere, "ereduari datxekala, neurri berean bihurtu" dituela azpimarratzen duenez gero, adierazpen honek –zeharka bada ere– Orixek erdietsiaz irabaziriko izena eta omena –pittin batez bederen– kuzkurtzen ez ote duen ondoriozta daiteke.

Zehazturiko guztiok (Agustinen lanean eginiko hutsak, eredu gaitz eta hurbilezin bilakatzen dutenak, estrainekotasuna ukatzen dioten testigantzak...) ote daramate Mitxelena, urte batzuk geroago Orixeri itzulpengintzaren erregetza kendu eta, errege berri Duvoisin izandatzera?:

> [Duvoisin] Euskal itzultzaileen buruzagi eta errege deituko nuke, Orixeren itzal haserrea tentatzeko beldurrik ez banu. (1986a:129)[265].

Ez dirudi eta baztertzekoa, Orixeren hizkerari eginiko kritikarik orobatekoenetarikoa eta, beharbada, zehatzenetakoa, "bere aldiko euskaratzaileak" euskarara aldatzean egina azterkizun hartuz burutu duela errenteriarrak, Orixeren itzul-lan batean kausitu dituela, hain zuzen ere, bezteko franko.

5.5.5. Eraskina: Mitxelenaren lanetan aipatzen diren Orixeren lanak[266].

1953b:35, "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra", *Euskal-Esnalea*, 1927, XVII, 210.
1954a:52, *San Agustinen Aitorkizunak*
Salmoak
Meza liburua
1955c:51, "Euskaldunak" *Euskalduna* aldizkaria, Buenos Aires
1956h:75, *Agustin Gurenaren Aitorkizunak*, *RIEV* 9,9
1958a:375, *El lazarillo de Tormes*
Mistral (*Mireio*)
San Agustin
Urte guziko meza-bezperak ("Lauda, Sion, Salvatorem")

---

[265] Irtzi-aldaketa horren adierazle ote 1987ko lanean ondoko lerro "aseptikoak" eskaintzea, hogeita hamar urte lehenago, jaso diren laudorioak eskaini dizkiolarik?:

"'Orixe', de quien volveremos a ocuparnos, tradujo en prosa el *Lazarillo*, *Mireio* de Mistral, las *Confesiones* de San Agustín, el Misal, los Salmos, etc..." (1987b:106).

[266] Izenburu hau, lan bat edo beste, Mitxelenak berak ez baina bestek Mitxelenaren pleguetan aipatua izanari zor zaio, hala nola, 1954eko *Aitorkizunak* eta *Salmoak*.

Bestalde, hona aldatu dira, berariaz izendaturiko idaztanak. Zehatbidez edo aipatuen berri (esate baterako, (1951c:25) "bere-bere duen poema", edo (1965e:129), *Jainkoaren bilia* (?) gisakoak) aurreko puntuetan eman da.

Euskaldunak

1958h:104, "Acento vasco", *RIEV* 9 (1919) 1hh, 15 or.

1960a:36, *YAKIN* 9, 89 or.

1960b:150, *El lazarillo de Tormes*

Mistral (*Mirèio*)

San Agustín (*Agustin gurenaren aitorkizunak*)

Euskaldunak

1961f:59, Loramendiren liburuaren hitzaurrea [Loramendi, *Olerki ta idatzi guziak]*

1961e:118, *Tormesko itsu-mutilla* eta zenbait olerki

:119, *Urte guziko Meza-bezperak* ("Lauda, Sion, Salvatorem", "Stabat mater")

:121, *Euskaldunak*

:123, "Filosofi gaietan lan sakonak argitara zituen Ormaetxeak, ontologiaz edo"

1963d:105, Gazteluren liburuaren sarrera [Gaztelu, *Musika ixilla*]

:107, "Prudenzioren zenbait itzulpen"

1977a:103, *Santa Kruz Apaiza*

1985b:193, *Euskaldunak* II, 405 hh.

1987b:106, *Lazarillo*

Mirèio de Mistral

Las *Confesiones* de San Agustín

Misal

Salmos

5.6. ORIXEREN HIZKERA

5.6.1. Orixe eta euskararen artekoak aztertu dira, orexarrak –gogobide eta egitasmo mailan– euskara norako, zertarako... desio duen, agerian jarri asmoz.

Erakutsi berri da, bestetik, Mitxelenak Orixeren idazlanei irizten diena, hitz lauz, neurtuz, (euskaraz nahiz beste hizkuntzatik irauliz) aritu denean.

Aurreko urratsen ondoan, komeni bide da orain, Orixeren hizkerari bereziki erreparatzea eta puntu desberdinetan adierazi diren zenbaitetan oin hartuz, Orixek darabilen hizkera[267] –hizkuntzaren aldetik[268], batipat–, zertan daukan Mitxelenak osatzea.

Orixeren hizkerazko Mitxelenaren aburuetan barneratzeko, erabateko juzku batean landa daiteke abiada, honelakoxea baita Mitxelenaren estreinako iritzia:

> euskaraz entzuarazi digun musika berri garbia. Musika hori daukagu belarrietan sartua hamaika ikasle koxkor eta kaxkarrek, eta doinu horretara saiatu[269] nahi genuke gure mintzoa, nahi eta ezin badugu ere. (1954a:51)

Aipu honen mamia azken hondarreraino xahutzear utziz –Orixeren eragina neurtzean berriz helduko baitzaio–, azpimarra daiteke pasarte horrek islatzen dituen mintzoaren aldetikako Orixeren gidaritza-eredutzak.

Hau da, garai honetako Mitxelenari Orixek "entzuarazi dion musika berri garbia", txit eredu- eta imitagarri egiten zaio, horretaraino iristeak sor diezazkiokeen zailtasunak zailtasun.

Ereduzko erabateko aitortza honek, ordea, ez bide dirau luzaroan. Arestiko hitzak baino bi urte geroagokoetan, imitagarritzat hartua artesitzen ez ote den hasia susmoa egin daiteke eta.

Agustin Gurenaren Aitorkizunak, Orixek euskarara aldatuan erabiliriko hizkera da, gure ustez, artesien karia. Honela uler daiteke behintzat[270], Mitxelenaren kritikaren zatirik handiena[271].

---

[267] Ikusi eta ikusiko dugun bezala, beharbada, egiari hurbilagotik jarraikiko litzaioke pluralean adieraztea, hots, "darabiltzan hizkerak".

[268] Ezin ukatu, hizkera diogunean, hizkuntza bera eta hizkuntza horrek idazlearen eskuetan hartzen duen molde zehatza atzean daudela, Segurolak (1987:28) dioen bezala:
"Gatozen axalera, hizkuntzaz edo, orobatsu dena, estiloaz zenbait hitz esatera".

[269] Gogora daiteke "nekez eta izerdiz bakarrik hurbil gakizkiokeen eredutzat" (1958h:98) joko duela.

[270] Ez dugu beste ulermodurik ukatzen. Hau da, litekeena da "musika berri garbia" atsegin izatea eta aldi berean morfologi kontuei bezteko iritzea.

[271] Xehetasunetarako, honen berariazko azterketara igortzen dugu.

Kritika horretan bilduriko orori berriz ere zehatz-mehatz erreparatuko ez zaio, ezpada Orixeren hizkeraren jaidura orotarikoaren oihartzuna dakartenei.

Lehenik eta behin, hiztegi mailan batipat gatazka-gunea duen garbizaletasunarena aipatu behar da:

> ez du gai honetan alderdikeria handirik azaldu Orixek, ez lehen ez orain. Erdaratiko hitzak –ez horrenbestez erdal hitzak– kupidarik gabe hartzen ditu (...) Baina, oker ez banago, bestetara du ixuria Orixek. (1956h:76).

Hemen adieraziek ikuspegi bat baino gehiagotatik begiratzea merezi dute.

Batetik, Mitxelenak Orixe aurkezten du lehian zebiltzan joeretatik at, ez baitu inongo alderditan (garbizale sutsuen edo mordoilozale amorratuen artean) kokatzen. Areago, jokamolde hau ez dagokio bakarrik itzul-lan honi, "ez lehen ez orain" gisa berean jokatu duela garbi esaten baitu Mitxelenak.

Jaso berriak, Mitxelenaren geroagoko beste adierazpide batzuekin lotuz, irudi beteagoa hartzen du:

> Orixek gaurko askok uste duten baino hitz, esaera eta joskera askozaz gehiago baititu antzinako liburuetatik hartuak. Baina Orixe bakar samar ibilia izan da luzaroan bide horretatik[272]. (1959a:127).

> Berrizale agertu zitzaigun nolazpait ere; ez, ordea, bere aldiko garbizaleen gisara, barrenago eta mamirago baitzihoan bera. (1961e:118).

> Nori berea zor zaionez gero, artortu behar da, bertz, ez zutela indartsuek gehiegi beldurtzen eta nahiago zuela gehienen kontra mintzatu, alde baino. Zaharzale agertu zitzaigun giroa berrizale zenean eta berrizale beste aldekoak gailenduxe direnean. (1961e:122).

> Hizkuntzari dagokion aldetik, berriz ez zen berrizale –orduko zenbaitek nahi.zuketen adina ez, behinipein [sic]–, zaharzale baizik: ahoz eta izkribuz jaso zuen ondarearen zaintzaile leial, zaintzaile leial izate horrek garai hartako errepidetik baztertuko bazuen ere. (1965e:126).

> Bigundu eta samurtu beharrean, gogortzen hasi zitzaigun, gero eta gogorrago, nahiz eta horretarako inoiz higuindu zituenak berak onetsi behar bazituen ere. Nahiago zuen hark zaharzale agertu berrizaleen aldian; lehengo bateko berrizaleak bezain berrizale, ordea, zaharzaleak eta herrizaleak gailenduxe zaizkigun garaian. (1965e:127).

Pasarte hauetan, Orixeren hizkeraren bilakaera aurkezten du Mitxelenak. Labur esanez, zaharrekiko atxikimendutik, azken orduko berrizaleenganako bidea, hain zuzen ere, eta bilakabide horren norabidearen akuilua, jaso den bezala, Orixeren izakeran kausitzen du Mitxelenak.

---

[272] Jat. *ortatik*.

Nolanahi dela ere –aipuen ugariak indartzen du– Mitxelena eginahalean saiatzen da Orixeren hizkeraz ari denean, laburtze-sinpletze arriskutsuetatik itzuri, garaian garaikoak bereizten.

Horregatik ulertzekoa da, berak erakutsi duen zehaztasun-premia honi atxiki ez zaizkionak ahotan hartu eta maiseatzea:

> Ez naiz orain hasiko euskal idazle sabindarren (barka "aranisten") multzoa neurtzen. Bistan da, adibidez, Lauaxeta "sabindarrago" zela ehun bider hizkerari bagagozkio Lizardi baino. **Orixe ote zen, bada, joera horretakoa?** (1984b:34). (Beltz. gurea).

Orixe ez daiteke, Mitxelenaren ustez, "aranisten" (uler bedi, sabindarren[273]) artekotzat beste gabe jo[274]. Orixek Lizardiren hizkeran izan zuen eragina gogoratu besterik ez dago, Orixe "aranisten" samaldan sartu dutenen uste ustela agerian jartzeko:

> Oraintsukoek[275] jakin izan balute, ez zuketen segur aski, batek edo bestek egin duen bezala,

---

[273] Termino hauen gainean mintzatu gara arestiko kapituluetan.

[274] Orixeren "Eusk, Euskadi" artikulua har daiteke argibide:

"Guk Euskadi a'rekin erabiltzean, Sabiñengandik on deritzoguna artzen dugu, oker deritzoguna utzirik. Ori ez da Sabiñi begirunea galtzea". (Orixe 1951c:12).

Orixeren hitzok ez ote dakarte Lizardi belarrietara?

[275] Mitxelenak aipatzen dituen "oraintsuko" horiek ez bide dute Orixeren hau, esaterako, osorik irakurri:

"Cuando se habla de escritores vascos modernizantes o que roturan nuevos terrenos, **se engloba a todos por igual**, y lo mismo a Entidades. Diríase que poca diferencia se llevan por ejemplo la Academia Vasca y Juventud Vasca de Bilbao. **De esta última fuí franco adversario, o ella de mí; pero hoy la miro con más simpatía que a esos erderizantes que no quieren explorar nada nuevo en vasco.** Y supongamos que por influencia política, ayudada de unas buenas circunstancias, Juventud Vasca hubiera implantado su euskera, y él fuese el que hubiese dominado y aun subsistido solo. Sería un lenguaje más duro que el de algunos poetas y prosistas latinos? Juventud Vasca usaba, por lo menos, una sintaxis irreprochable. Los latinos la alteraron, y no sólo al hacer revivir los casos declinativos, que es mucho más que implantar docenas y aun centenares de palabras. Ya admitiría yo de buen grado que en el año dos mil estuviese pujante la lengua nuestra, aunque fuese la exclusiva de Juventud Vasca. No digamos la de Azkue, Eguzkiza y otros académicos! Los prohombres de Eusko-Gaztedi fueron Arriandiaga y Zabala Arana. Antes volveré a leerlos que a otros retrógados, y me he servido últimamente del «Aste Gurena» de Zabala Arana para componer el mío". (Orixe 1950c:26). (Beltz. gurea).

Orixeren jarrera-aldaketaren testigutzarik ez da falta Orixeren beraren hitzetan, bai gaztelaniaz, bai euskaraz, ondoren dakarguna bezala, Azkue ere tartean agertuz:

"Azkue jaunak etzun irakurri oi euskeraz idazten zan pixka ere; naiko lan ba-zeukan bere gauzak idazten, eta, batez ere, **etzun irakurtzen E. Gaztedi'koen euskera. Gaztedi orrek gogor eraso zion zanari ta Euskalzaindiari** [sic] **–bai neri ere–**, ta, aldea batera, gauzak dakarrena da, ainik irakurri ez izatea. Nik irakurtzen nun, naiz erantzuteko, naiz... ikasteko, gutxi edo asko (...)

Eusko-Gaztedikoek ere gaizki egiten dute, Kardaberaz'i ta alakoeri muziñ egitea, mordollo ari izan ziralako; guk ere bai berrizale oiek ez irakurtzea. Beti zerbait ikasten da (...)

Iñor aiña ukabilka egiñik nago Eusko-Gaztedikoekin; bañan ez ninduten artaraño ltsutu. Ain euskera ikasi nun, eta gaur ez da neretzat itz sortuberririk". (Orixe 1952e:269,270). (Beltz. gurea).

Beste hauetan, aldeko agertzen zaigu argi eta garbi:

"Ningún traductor vasco del Nuevo Testamento ha traducido bien nunca las fórmulas de la Consagración

Orixe «sabinddiarr (barka, aranista) batza»-n bilduko. Arriandiagaz[276], Euzkeltzale Bazkunaz, *Euzkerea*-z eta aber entzuna zuketen nahi-ta-ez. (1986a:129).

Ezin, bada, besterik gabe, Orixeren hizkera Sabinen jarraileen –batzuen bederen– saldokoarenarekin batean kokatu, Mitxelenak aipatzen duen giroari aurka egin nahi horrek Orixeren azken lanetan joera horretatik bere burua hurbilago ("berrizaleago") ikusten badu ere.

Mitxelenaren haserraldiaren atzean iger daitezke, bestetan esan den legez, bestegan ikusten dituela, hitzak eta adigaiak behar bezala ez zehaztea eta topiko edo uste zurrun bilakatuak beste gabe berresatea[277].

Garbizale, berrizale, sabind(d)(i)ar, aranista... euskal bibliografia zenbaitetan, ikuspegi murritzegi eta –seguru aski– azalekoegiaren arabera, baliokidetzat erabili izan direnez gero, Orixe bera ere, besteak beste, harrapatu du gaitzak.

Zehaztasun-behar horri atxikiz, hain zuzen, hemen ere, Mitxelenak lehengo pasarte batean erabiliriko hitz baten ingurukoak argitu gogo ditugu.

Pasarterik gehientsuenetan[278] ematen du "berrizale / zaharzale" binakoaren osagaiak, garbizale itsuek ekarririko etenarekin eta aurreko euskal literaturari eutsi nahi izan diotenekin, hurrenez hurren, parekatu dituela Mitxelenak.

Alabaina, bada bat, adiera hori ñabartzea eskatzen duena eta kapitulu honen beste zenbait puntu ukitzen dituena.

Hona lehengo pasarte osatua:

---

del pan y vino, salvo el P. Zabala Arana de Juventud Vasca. Todos los demás han caído en la herejía gramatical de los idiomas vecinos al decir *au da nere gorputza, au da nere odola*, en lugar de *au nere gorputza da; au nere odola da*". (Orixe 1951e:21).

[276] Aurreko oin-oharrean jaso direnei, 1927ko Euskal literaturaren historian esanak eranis dakizkioke.

"*Arana baino Aranagoak*" izenburupean, honakoa biltzen du Orixek:

"*Afiandiaga*.–Afiandiaga Claret'arra, buruz efnea ta argia da, moral-zale garaia; baino euskeran guziz utsegin du eftik aldegitean. Ufutia ta Zabala-Arana ta beste batzuk aren atzetik ari dira. Euskerari bere joanera geldaregoa ba da ere, edukiagoa eman beaf zaio. Orientsu dijoa Zinkunegi, Balmes'en *Irizpidea* euskaratu duena.

Euzko-Gaztedi deritzaion lagunaftea, laistefkatxo asi zen. Asmo zuzen ta Maisuarenganako jaiera itsua zuten gazte oriek; baino Maisua luzaroago bizi izan baitza, euskera-lanetan onontzaxego geldiaraziko zituela nago, euskera gafbatzeari bere astia emainen baitzion. Itzali zen orien *Euzko-deia* ta baita lagunaftea bera ere Gobefnua zala bide, edo ixilik dago beintzat, ezpaitzaio zilegi *Abefi* afgitaratzea. *Jaungoiko-Zale* ere azkafegi asi zen euskera gafbiketan; baino eskuratzen ari da. Orain irakufgafiago da". (Orixe 1927:248).

Bidenabar, errepara, 1927an *Euzko-Gaztedi* (z letraz, alegia), idazten duela, 1950ean eta 1952an gutxienez, s letraz idazten duena.

[277] Gogora daiteke –gaia bestetakoa badu ere (*protolenguaren* erabilera anitza)– honako balioko lukeen ondorio honetara iristen dela:

"Valdría también más que les diéramos distintas denominaciones, porque la distinción de nombres es requisito importante, si no indispensable, para la distinción de conceptos". (1963c:53).

[278] (1961e:122, 1965e:126, 1965e:127).

> Berrizale agertu zitzaigun nolazpait ere; ez, ordea, bere aldiko garbizaleen gisara, barrenago eta mamirago baitzihoan bera. Motela, nagia aurkitzen zuen arterainoko prosa, gaztelaniaz 98koek bezala, gehiegizko apaingarriz jantzia. Eginahalean saiatu zen, beraz –beste nonbait esan dudanez–, gure hizkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen, hizkera zailu, labur, biziago bat moldatzen. Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal-prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu. (1961e:118,119).

Hemengo *berrizalea* ez daiteke *garbizaleen* multzo berean bereizkuntzarik gabe txerta. Areago, bi maila desberdinetako adigaiak estal ditzaketela aurkez aurk paraturiko adierazleok errezeloa egin daiteke.

Garbizale, joera baten hizkera-mota jakin bati (eta honek ondotik zekartzanei) josiago legokeela dirudi, bestela esan, hizkuntzaren "azalari" lotuago; aldiz, *berrizale*, bestelako egitasmo zabalago eta sakonago ("barrenago eta mamirago" jotzen duen) bati uztartuago legoke.

Orixeren berrikuntza, hemen, euskal prosa-molde osobete bati eta prosa horren betekizunari dagokie. Orixek berritu nahi duena (zaharberritu, egokiago, apika[279]), euskal prosa bere betean da, eta bere saioa ez da antzu gertatu, erdietsi baitu prosa hori beste doinu batean mintzaraztea[280].

Orixeren joera "zaharra" dei daitekeenean oin hartuz, berriz, komeni da azpimarkatzea, bi aldetarik bide duela garrantzia: puntu honek bereziki autu duen hizkuntzaren aldetik, eta ikusi den euskal literaturarenetik.

Arestian jaso den pasarteari, beste honakoak alboratuz gero:

> Bere bitartez heldu zaizkigu askori, ohartzen ez ginelarik[281] sarritan, lau mendetako euskal-idazleen mintzaera dotorea eta ikasia, eta bertsolarien etorri ugaria eta lasaia. (1958h:98).

> XXgarren mende honetako euskara erkituxea ez ezik, antzinako liburuak ere astiro irakurriak eta aztertuak zituen. Orixeri zor diogu batez ere orduko gazteek olhartzuna zenik ez genekiela belarrietara zitzaigun olhartzuna. (1961e:118).

garbi ikusten da Mitxelenak Orixeren hizkeran nabarmentzen duen baliozko beste alderdi bat. Orexar-üitziarrak mamituriko euskal lanen bitartez, euskara-molde zaharrek (moldezko nahiz ahozko etorkikoek), hein batean bederen, jarraipena dute.

Mitxelenak Orixegan zaharren lokarri izatea nabarmentzen duen momentutik –esklusioz, bada–, arestian adieraziaren sendogarri litzateke hau, hots, Orixe –garai bateko Orixe bederen– ez da "berrizale-garbizaleen" artean kokatzekoa.

---

[279] "Berak landu eta eraberritu dizkigu euskal prosa eta neurtitzak, hizkuntza zaharberrituaz". (1965e:128).

[280] Orixeren zoriaz aritzean helduko diogu "atsegin bazaigu eta ez bazaigu" delakoari.

[281] Jat. *giñalarik*.

Abiapuntu hartu dugun 1956ko aipamenera berriz ere itzuliz, aztertu berriarekin ikuskizun estua duen garbizaletasunaren inguruko arazoa dagoela tartean nabarmentzen da. Hauxe galdera: Mitxelenarentzat, Orixe garbizalea al da? Eta hala bada, nolakoa?

Mitxelenaren lehen hitzei soilik begiratuz (erdaratiko hitzak lasai darabiltzala Orixek) ondoriozta zitekeen Orixeren jokabidea, laster asko zehaztu beharra dago: "bestetara du ixuria"[282].

Eta arestiko beste aipamenean, bestela bezala, ia lerro artean, erabili duen izenondoak ere ("musika berri garbia"), kokaleku zabalago honetan esanahi beteagoa hartuko lukeela pentsa daiteke, Orixeren ixuria gogoan izanik.

Itzulpenaren iruzkinera itzuliz, nabarmen daiteke Mitxelenak ez diola –izendatuki behintzat, ez– Orixeri garbizale edo antzeko deliziorik alboratu, baina jasoriko hitzen ondotik datozenak, Orixek, erdal itxurako hitzei itzuri, erabili dituen baliabideen kontu-ematetzat har daitezke.

Mitxelenak zeharka edo adibideen bitartez pleguetaratuek Orixeren honako itzuri-bide nagusiak erakusten dituzte:

- Hitz-eratzea, hitz-elkarketa bereziki.
- Ohiko hitz arruntak adiera berriz jantzi.

Itzul-lanaz aritzean erakutsi den bezala, ez du Orixek Mitxelenaren begietan beti asmatu eta, maila honetan antzematen dion okerrik usuena, adigaiaren eta euskal itxura duen azalaren arteko lokarri desegoki edo lasaiegia da.

Kasu honetan, berriz ere –"Asaba zaharren baratza" laneko atal batean iruzkindu den ildo berean–, Orixek erdal itxurakoei ihesi, euskal harrobira jo duenean, euskararen "erne-indarraz" baliatu denean, itzulgaiarekiko ordaintasun zuzena eta zehaztasuna galduan atera dira[283].

Gaitz berak jotzat har daiteke, apika, beste honakoa:

---

[282] Hitzei gagozkiela gehienbat, Orixeren euskara landu analik garbien horren ezaugarriak eta mugak Azkuek hiztegian egin zuen hautaketarekin bateratsu doaz (...) Hitz berri edo jaioberriek ez zuten haren luman leku handirik. Gogokoago zuen, premia zuen aldioro, hitz "zaharberrituak" eta hitz elkartuak moldatzea, hitz ezagunak adiera berrietara egokitzea, maileguzkoei Azkueren hiztegiak baino sarrera zabalagoa utziz, baina, beti ere, euskararen hitz *bere berekiei* zezakeen zuku eta etekin guztia ateratzen saiatu ondoren". (Segurola 1987:30).

[283] Maileguzko hitzei neurrizko iruditzen zitzaion lekua emanik ere, nahiago zuen eskuarki, esan bezala, euskarazko ordainak moldatzen saiatzea, euskal hitz garbi ez amorratuak erabiltzea, erdaratikako "itz arri elkortuak" kultura gaietakoak batipat, beste gabe hartzea baino (...) Etsi-etsirik zegoen gainera Orixe euskal hitz garbi gehienetan adierazago direla euskaldun herridarrentzat, direlako harri elkortu horiek erdaldunentzat baino, eta, horrela, liturji hizkuntzari dagokion adibide bat jartzeagatik, hitzaren esanahia eta muina hobeki jasotzen duela, *víspera* adizten duen erdaldunak baino, *atsal-oroitz* (eta ez *bezpera*) esaten dioten euskaldunak.

Hitzekiko auzi hau izan zen, bestalde, Orixe eta gerra-ondoko belaunaldi gazteen artean zabalduz joan zen hesiaren arrazoietarik bat, hots, aldi bertetako jende ikasiaren "mordollozaletasuna" gehiegizkoa, edo Euskaltzaindiak berak 1959an agertarazi zuen euskal hitzei buruzko agirian gomendatzen zen erdaratikako hitz etxekotuen eta "izkuntza berezien gaiñetik zabaldurik dauden kultura eta zibilizaziozko itzen" erabilera". (Segurola 1987:31).

Gogora Mitxelenak 1959ko Euskaltzaindiaren erabaki hartan izan zuen eskua.

> Aurrera gabe eta bada ezpada ere, ez da alferrik esana izango nik hemen <azentu> izendatzen dudana, beste zertzeladarik aipatzen ez den bitartean, ingelesezko *stress* nahiz *pitch*-en ordain bezala (*intonation* baino areago, inondik ere) erabiliko dudala. Alde horretatik, ez dirudi inolzko Orixeren *mintzor*[284] hura gehiegi zabaldu denik, ezta ere, batzuetan *stress*-en eta besteetan *pitch*-en baliokide dirudielarik, bere muina garbiegi aditzera ematen zuenik. (1981c:137).

Mitxelenak ez du bere egiten Orixeren proposamena, hor ematen duen arrazoiaren arabera, zehaztasun urriko eta adierazleak adigaia oso era gardenean gorpuztea ez duela irizten diolako.

Mitxelenak badakar Orixeren garbi-ixuriaren aldeko beste erakusgarririk.

Honela, esate baterako, erakusgarri xumea bada ere, "Asaba zaharren baratza" laneko pasarte honetan:

> Galozen goragoko galderara: "Ez ote dira, bada, ezer *arnari, margo* edo *itun*?" Bai, zerbait badira, baina galdera horrek beste bat zor du: horiek zerbait badira, ez ote dira ezer euskaldun guztiok menderik mende darabiltzagun (liburuetan adina herri-kantetan) *fruitu, kolore* eta *triste*? Izakiak dira, noski, izandunak edo izatedunak edo nolanahi ere dela, eta izakiak ez ezik beste maila eta neurri bateko izakiak lehen aipatu ditugunen aldean. (1960a:35).

Orixeren oihartzuna dakarten hitzak topatu uste dira, batetik ("Izakiak dira, noski, izandunak edo izatedunak edo nolanahi ere dela[285]"). Gainera, arestiko pasarteari beste ondokoa alboan paratuz, Orixeren halako keinu garbizaleak, nolabait esan, ez ote daitezkeen ondoriozta pentsa daiteke:

> Zuzen baino zuzenklago adierazten du [Orixek] bertan Loramendi-ren izenaren eta eginen egoktasuna: "Izan ere, lore oriek igali edo arnari biurtu baiño len il zan gizagajoa". (1961f:59).

Beste hizkuntzetako hiztunen garbizaletasuna mintzagai duelarik ere, Mitxelenak Orixe paperera eramatea –euskaldunaren ustea zuzentzeko gainera– adierazgarria izan daiteke:

---

[284] Orixek Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldian, esate baterako, hauxe darabil, *azenturen* ondoan, halaz ere:

"Gure azentua eskurakoi da erabiltzeko, baiña beste ainbeste zail esamiñatzeko, igeskorra bata inguruko izkuntzena ez-bezala. Gure onek, griego zârak [sic] bezala, ez du indarrezko azentu nabarmenik; gora-bêrako mintzor leguna du, ta ortatik eldu da (dator) kantarekin oztopo itsusirik ez egitea.

Iru azentu-mota bereiziko ditut: silaba bakarrean daudenak, bitan dagokala daudenak, eta irutan dagokala daudenak. Silaba bakarrean dagon azentua griegoen *oxytonos* eta *barytonos* da, au da, gora-mintzorra ta bêra-mintzorra". (Orixe 1958:30).

[285] Artikulu berean (1960a:45), "Filosofia eta jakintza" atalean hain zuzen ere.

> Hungranioek bederen, eta garbizaleak dira inon garbizalerik bada (hantxe[286] izan dira garbizalerik sutsuenak, Orixek besterik uste izan arren, eta ez Polonian[287]), *materialismus dialektikus* edo antzeko zerbait idazten dute: alemanez ere, oker ez banabil, *Materialismus* da erabiltzen den hitza. (1972b5:116).

Paperera direnak, bere heinean, Orixeren ixuri garbizalearen[288] erakusgarritzat har daitezke.

Halarik ere, azken aldeko Mitxelenak testu batean, garbitasun-neurriez hitzegin beharra aldarrikatuta gero, Orixe eta Olabideren arteko bereizkuntza egiten du:

> Garbitasuna, nonbait eta norabaiteraino beti behar[289] den garbitasuna, modu hagitz ezberdinez neur daiteke (...) Orixek ere bazuen ixuri hori baina honek entzunak sartzen zituen, eta hark [Olabidek], berriz, irakurriak, hiztegietan gehienbat. (1984b:38,39).

Alderik bada, beraz, Mitxelenarentzat inoren ahotik entzunen eta hiztegi-izaera hutsa duten hitzen artean[290]. Kontrakarrean jartzen dituen Orixe eta Olabideren kasuan, itxura guztiz, barkakizunago egiten zaio Mitxelenari Orixerena Olabiderena baino.

Hitz hauen aurrean zenbait galde aira daitezkeela iruditzen zaigu:

Moldezko lekukotasunetan testuetakoak eta hiztegietakoak bereiztea eta irizpide erabakigarri bakartzat testuak hartzea beti segurua al da? Ez al da gertatzen hiztegietakoak testuetara eta testuetakoak hiztegietara aldatzea? (Larramendi...)

Non entzun zitzakeen Orixek *mintzor, atse-otoitze* eta beste hamaika?

Non entzun ziezaiokeen Olabidek inori euskaraz?

Orixeren jokamoldea dela eta, 1984eko Mitxelena hau lehen garaietakoa baino barkaberago sumatzen dugu.

---

[286] Jat. *han*. Mitxelenaren irakaspaperetan ere *han*.

[287] Hona Errenteria Abaren hauek, Polonia Euskal Herriaren berdingaitzat hartuz, hain zuzen ere:

"Denak goraitzen dute polonatarren abertzaletasuna, ukatzen diralako edo nai ez dutelako alemaneraz otoitzak egin, poloneraz baño.

Zergatik ez goraldu euzkotarren abertzaletasuna ori bera euzkeraren aldez egiten badute?". (Errenteria Aba 1935:17).

[288] Hona Orixeren aitorpena:

"Lenbiziko euskera garbizale Azkue izan dugu, ez oso amorratu oietakoa. Aren tankera artu dugu eunetatik larogeita emezortzi idazle ondorekook". (Orixe 1951c:16).

Azkue eta Orixe elkarren ondoan ipintzea ez da, antza, Mitxelenaren irudipena sortik.

[289] "Behar" honek ez dirudi halabeharrezko hutsa.

[290] Aresteko kapituluan artu gara honezaz.

5.6.2. Baina honezaz gain, puntuaren hasieran paratzen zen bigarren galdeak erantzuna hemen luke, inondik ere, hots, Orixe garbizalea da Mitxelenarentzat, baina bere gisako garbizale "neurtua".

Aitorkizunaken hariari berriz eutsiz, Orixeren hizkeran –Orixerenean bakarrik ez, ikusiko den bezala– hatza uzten duen beste alderdi bat azterkizun hartu beharrekoa da: labur-beharraren auzia, hain zuzen ere.

Horren berri aditzeko, Orixeren hizkeraren erabateko irudi honetan, itzul-lanaren kritikan Mitxelenak adierazira ezinbestean itzuli behar da, Orixeren hizkeran Mitxelenak makurtzat joriko ugari lan horretan molderatzen baititu Mitxelenak lehen aldiz[291].

Han zehaztu direnen ("hitzak kuxkurturik", "aditz sintetikoa beti gailen", aditz laguntzailea trinko baliitzan erabilia...) sorburua (Orixeren euskal esaldiazko ustea), mamibidea ("hizketako itobeharrari idazkietan ere amor ematea") eta azken ondorea ("euskalkien arteko bereizkuntzak sakontzea eta zabaltzea") aurrean izanik, berriz begiratu behar zaio labur-beharraren auziari, aipatu diren ondorioen gainekorik ere badu eta.

Euskal literaturan molde berri bati eman bide dio abiada Orixek labur-behar horrek bultzaturik[292].

Batetik, atzeari begira, behialako euskal prosagileek urraturiko bidetik saihestera bide darama:

> Mintzaera lasaigoa izan dute, ordea, Orixe baino lehenago izan ditugun prosa maisuek. (1956h:77).

Baina bestetik, geroagoko euskal literaturari begira, bi jokamolde elkarren parean paratzeko abiada ere eman du, nolabait esan.

Batean koka daiteke Mitxelenak ahotan hartzen duen Aresti poeta-prosagilea, Orixeren jarrerari aurkajarririk aurkezten duena, Azurmendik 1976an argitara emandako lanaren izenburuaz baliatuz[293]:

> Galda daiteke, besteren hitzez balia nadin, zer zuen hor Orixeren kontra. (1979c:133).

---

[291] Horrek ez du esan nahi Orixe itzul-lanetan halakoak egiten hasi zenik. Mitxelenak dioenez (1956h:77), lehenagoztik ere ezagunak zituen Orixegan.

[292] Hiribarrenek ere *Eskaldunak* lanean adizki laguntzaileak eta jokatuak isilarazteko isuria ageri-agerian du. Altunak paraturiko argitaraldian erakusten duen bezala (lan argitaragabea). Nolanahi dela ere, gogoan behar da izan neurtitzez ondu zuela lana.

[293] Badirudi Azurmendik landatua, deizio usu bilakatu dela Orixez aritzean. Mitxelenaren honen ondoan, Akesolorena (1987:18) ere hor dago, esate baterako.

Eta, bestetik, berriz, Orixeren ereduari imitagarri irizten diotenak, besteak beste, Mitxelena bera[294]:

> labur-beharrez zebilen beti Orixe, eta labur-beharrez ibili gara haren ondotik genbiltzanok. biribiltasun betegin baten bila. Eta lar eta gehiegizko, premiarik gabeko, zirudien guztia soildu egin behar genuen, bide horretan barrena abiatuko baginen. (1979c:153). (Beltz. gurea).

Soiltze, biribiltasun-bilatze horrek, batez ere morfologiaren arloari –zehazkiago, aditzen sailari– eragiten dio. Honen ondore zuzena da aditz laguntzailea ezabatzea:

> murrizte honetan, gainera, aditz laguntzailea zen beti aurren-aurrenik galduan intengo zena. (1979c:133).

Arestik aldiz –Orixegandik (are Mitxelenagandik[295]) urrun zezaketen beste arrazoiak beste[296]–, hizkera-moldeari hertsiki dagokionez, erabat bestelako jaiera du; aditz laguntzailea, lotsaizunik gabe behin eta berriro errepikatzea, horren seinale.

Honenbestez, labur-beharraren auzia dela eta, honako ondorioa atera daiteke ikusiriko guztitik: "Labur-beharra", Mitxelenaren luman, ez bide da adiera bakarreko adierazpidea, honako biok bil baititzake:

- Mitxelenak ontzat ematen ez duen labur-beharra.

Orixegan du ordezkaririk nabarmenena, bere euskal esaldiaren ustean oinarritu eta hizkeran, San Agustinen itzul-lanean Mitxelenak beztu dituenak ditu ondore. Hauek, halaber, euskararen moldezko eredua finkatzeko bideari oztopo eta debeku gertatzen zaizkio, hizketako "itobeharrari" amore ematen zaiolako.

- Mitxelenak eta bestek –Lizardik, esate baterako, hurrengo kapituluan erakutsiko den bezala eta Orixek– imitagarritzat daukaten labur-beharra.

Balizkoen munduan esan daiteke, Orixek aurrekoen prosan aurkitzen duen nagi- eta

---

[294] Zilegi al da aitor honetarik ondorioztatzea puntu honetan Mitxelenak bere burua ikusten duela behialako prosa-maisuzalea baino Orixezaleagoa?

[295] "Desmasia zuen lege [Arestik], eta ez zenbaitek noraezean gorde nahi **genukeen** nolabaiteko oreka irristakorra". (1979c:133). (Beltz. gurea).

[296] "bertsoetakoei buruz zenbait gauza entzunak dizkiot berari (...) Hortik kanpora ere, balegoke besterik. Aresti ez zen, parnasiano modura, zizel-lanean aritzen bere bertso eta hitz-lauzkoekin. Edota, horrela ari bazen ere, bere gisara ari zen, ez besterenera. Delako "gustu" doi, ez batera ez bestera makurtuko ez den hori, ez zen Arestirena, gehiegizkoa nahiago izaten baitzuen maizenik, neurrizkoa baino". (1979c:133).

moteltasunean eta apaingarri-desmasian izan ditzakeela erroak[297]. Hizkuntza zailu, arin eta egoki bat mamitu gogo da eta premiarik gabekoa soildu eta ahalik eta lasterren adierazi; biribiltasuna eta trinkotasuna erdietsi nahi dira. Hizkuntzaren aldetik galduan ateratzen direnak: aditz laguntzaileak, nagusiki.

Gure ustez ondoriozta daiteke Orixegan –barne-etsaitasunak hain errotik bizi dituen Orixe beragan– Mitxelenak bi aldetikako jokamolde "laburzaleak" antzematen dituela; bat erakargarri egiten zaiona eta bestea, berriz –arestiko kapituluan ikerturikoekin lotuz–, arbuiatzekotzat daukana.

5.6.3. Orain arte pleguetara ekarririko ideien ardatz etsiari, *Aitorkizunaki*, alegia, Mitxelenak eginiko kritikaren zedarrietatik atereaz, Orixeren hizkeran azpimarratzea merezi duen beste puntu bat ekarri behar da orain:

> gure hizkuntzaren aberastasuna gainezka darion hiztun goxoa. (1958h:97)
>
> zeukan haberik sendoenetariko bat galdu euskarak. (1961e:117)
>
> ... Orixeren "virtuosismo" miragarriak. (1961e:120).
>
> Bi lagunek ezagutu dituzte inork baino hobeki gure herri-ondasunak: Azkuek eta Ormaetxeak. (1961e:121)

Arestikook, Mitxelenak Orixeri aitortzen dion euskararen ezaupide sakon eta barneratuaren erakusgarri batzuk besterik ez dira.

Ildo honetan kokatu beharrak dira, bestalde, Mitxelenak bere egiten dituen eta Orixe iturburu izendatua duten adierazpide lehen paperera ekarrien ondoan ("sentiberatasun belaxka", "arnasa"), beste hauek ere[298]:

> Hitz ordena ere bere gisakoa da kontaketan. Goien aipatu da S.V.O. daraman esaldia (maizenik, kontaketan ere, S.O.V. agertzen omen da, R. de Rijk-ek azaldu zigunez), baita, O-rik ez denean, V.S. ere (...) eta S dagoeneko ezaguna denean (...) V-k O segidan duela (...) Horrelatsu jokatzen du Orixek ere, bere *Santa Kruz Apaiza*-n, eta bigarren edizioaz baliatzen naiz. (1977a:103).
>
> Gogoan geldtu zitzaidan harako Orixeren argudio hura, *Urte guziko meza-bezperak*, viii: "Bestela ere esan oi da *Sancti Patres Ecclesiae*, eta oieri, Alta ordez Guraso esaten diet "Elizako Guraso", gure zarrak bezala. ez "Elizaren guraso", Jesukristo bera baita". Ez naiz nor teologia aldeko

---

[297] Oroi Mitxelenak Orixeren asmo berritzaileaz zioena (1961e:119).

[298] Edo beste erdal hau, hiztegi-mailakoa:

"Otra palabra común, muy rara es *huzcuja (uzcuyá*, «división» en el *Diccionario Trilingüe*), que ocurre por lo menos en la p.101 de las *Obras* de Echeberri: *choliqui erran diteque, hau dela alferqueriac bere haurrei, eta cerbitçariel emalten derauen, emaitça huzcuja, edo primeça.* Urquijo la interpretó como «donación», pero me parece mejor la versión de Orixe en una papeleta manuscrita: «porción, parte que toca a cada uno en un reparto, partija»". (1984a:30).

> arrazoiak neurtzeko eta pisatzeko. Aski dut, nolanahi ere, "gure zarrak" horrela mintzatu zirela jakitea, aski eta sobera: besterik gabe haien aukera aukeratua dut neronek[299] (...) maiz somatzen ditugun zalantza erabakigaitzak, eta Orixe plazara dugu lekuko, seinale nabari dira elkarren [*-(r)en* eta *-(e)ko* atzizkien] hurbiltasunaz". (1966c:172,174).

Adigarriok erakusten dute, beraz, Mitxelenak Orixe *auctoritate* moduan aiputan duela, honek esanak eta erabiliak, zenbaitetan, argudioari fida- eta erabakigarri iritzi eta zuzenesten dituela.

Zertan funtsatzen den Mitxelena halakoak aitortzeko eta, aldi berean, ezaupide hori Orixeren hizkeran, hots, honek mamituetan, erakusten ote den ikusi ahal izateko, bidea eman dezake, hein batean bederen, Mitxelenak Orixe eta euskalkien arteko harramenaz dioenari erreparatzeak:

> Euskara ez zen behinere izan Ormaetxea zenarentzat, euskaldun askorentzat bezala, bere txoko eta auzoko hizkera. Bizkaiera zeharo ikasi zuen –*Tormesko itsu-mutilla*[300] eta zenbait olerki lekuko– eta barren bxuriak iparraldeko euskalkietara zeramala aski ezaguna da[301]. (1961e:118).

Mitxelenak argi adierazten ditu hor Orixeren euskararekiko jarrera ez ezik, baita hizkera-hautaera zehatzak eta Orixek, eskuarki, lanetan islaturiko hizkera-moldeak ere.

Beraz, Orixe ez da txokozalea[302] mintzabidearei dagokionez, besteren euskalkiak ere ezagutzen ditu, sakonki ezagutu ere, hitz lainozko lan bat gutxienez eta neurtuzko beste zenbait, bizkaieraz ontzeko gauza izan baita.

Baina Orixeren erabateko jaidurak iparraldera darama, bere nafar-hizkeratik abiatuz[303], han jartzen ditu begiak, agidanean, euskal lanak gatzatzean:

---

[299] Zenbait alderdi errepara dakieke, testuan diogun Orixeren fidagarritasunaz gain.

Mitxelenaren aukera garbia, zaharren erabilera askiestea, alegia, batetik, baina bestetik ere, lehen aipatu den Orixeren zubi-lzaera, zaharren berri-emaile eta jarraile den aldetik.

[300] "Este libro nos ofrece el texto castellano del Lazarillo de Tormes y en página contigua la traducción vasca en dialecto vizcaíno. Orixe realizó esta traducción para demostrar a los archipuristas, neologistas y reformistas del tiempo que se podía escribir guardando fidelidad a la lengua popular y tradicional". (Villasante 1979$_2$:419).

Liburu honen barrenetan Orixek izan zuen eskua aipatu da.

[301] "Bizkaieraz, napar gipuzkeraz, lapurdieraz ere idatzi zuen, baina geienetan bere euskera eskola jakinik gabekoan. Euskera kontuan ez du izan eskola jakiñik ez joera tinkorik. Ala ere, askok eta askok euskera gaietan maisutasuna aitortu izan diote. Askok eta askok aren idaz-lanetan aurkitu dute euskera landua eta jatorragoa egiteko eredua". (Akesolo 1987:19).

[302] Orol Larramendiz.

[303] "Jakiña da Orixek geien batez bere napar-euskera erabiltzen zuela. Eta bere arrebarekin, esan bearrik ez nongoa egingo zuen". (Akesolo 1987:19).

> Mamiz nolanahi ere, nahiz azala ñabartu, nafarra izan zen beti, haurtzaroko azturek eguzki-aldera zeramatena. Eta eguzki-aldera bultatu zuen Lizardi, batez ere gorpuztu gabe joan zitzaigun azken-azkeneko Lizardi hura. Honek, bestalde, hasieratik bertatik, Orixeren arrimuan, erakutsi zuen isuria bera ez zegoen Lapurdiko mugetarik urruti. (1978c:168).

> Gogoz eta hizkeraz nafar zen hark [Orixek] (euskaldun guztiok gara nondik edo handik nafar) ez baitzuen zinetako jaioterria hautatu nahi izan bere sarrerako. (1985a:107).

Jaso berri direnetarik lehenean[304] eta beheraxeago papererako den hurrengoan, bitxi gerta daiteke, euskararen batasun-saioan aparteko borondaterik ikusten ez dion Orixez, hain justu, baliatzea Mitxelena euskara batua (hurrengo honetan, aditz batua zehazki) finkatzeko orduan, Gipuzkoakoaren aldeko argudio gisa:

> Izanaz gainera, «irudia» dago, eta badirudi gipuzkeraren irudia dotoreago eta liluragarriago agertzen dela azken urte hauetan. Bidasoaz honaindi behintzat. Giputz aditza erabili dute, esate baterako, Arestik[305] eta Villasantek maiz, Mirande eta Peillenek sarritan. Lehen, gerla-aitzinean, Orixek bizkaieraz zerbait idatzi zuen; gerla-ondoan, ezin daiteke horrelakorik pentsa ere. (1972e:158).

Garbi dago, beraz, Mitxelenaren begietan, Orixek begiz joriko hizkera-moldea, orobat hartuz, sartaldekotik gertuago ikusten duela mendebaldekotik baino, nolabait esan, eta aukera hau gainera, ez dela Orixeren beraren lanetan bakarrik agortzen, euskal literaturan (eta, Mitxelenak berak aitortzen duenez beragan) halako itzala utzi duen Lizardi bezalako eder-sortzaileaganaino luzatu baita.

5.6.4. Honenbestez, Orixeren hizkerazko halako juzku orotarikoa laburbilduz, esan daiteke, Mitxelenak Orixegan miresten duela hizkuntza, bere eskuetan, zailutasunez eta malgutasunez jazteko erakusten duen trebetasuna. Euskararen ezagutzaile berebiziko izateari etekina ateratzen badaki Orixek.

Orixe gauza da hizkuntzaren sor- eta erneandarrez, gutxik ahal duen heinean baliatzeko, nahiz bereak isurtzen aritu nahiz besterenak euskarara aldatzen.

Ahalbidetze honetan sor daitekeen arriskua, hots, laborategiko euskara sortzea,

---

[304] (1978c:168).

[305] "Hau ez da hitz eta bitsa, hau froga daiteke, eta erraz gainera. Besterik pentsatzen duenak irakur beza 1959ko Arestiren *Maldan behera* poema luzea: ez zait iruditzen lan aspergarria, baina, hala gertatzen baitzaio norbaiti, nekez atzemango du lanik gabe jakin sarirk. Hor Ibon Sarasolak arestian esan duenez (eta Joan San Martinek ere bai lehenago, dirudienez, eskuartean ez dudan pasarte batean), hor dago alde-aldean Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. Arestik hor darabilena baita, hain zuzen, gero, Arestik kontra egin arren, Euskaltzaindiak ontzat hartu zuena. Eta hori, ikus dezakezuenez, Arantzazuko bilera baino bederatzei urtez lehenagoko kontua duzue". (1978c:168).

euskararekin esperimentatzea[306] –kapitulu igaroan ikusi bezala, Mitxelenak besteri alboratzen dizkionak–, ez dizkio Mitxelenak –izendatuki eta erabat ez bederen– Orixeri alboratzen.

Hobeto esan, beztekoak egozten dizkionean, ez du saio- edo esperimentu-usainik harrapatzen dionik honela adierazten. Hau dela eta, badirudi, Orixeren hizkeran beztekorik kausitzen badu ere –larririk aski, zenbaitetan, ikusi den bezala–, ez duela bestegan atzematen duen adinako nahaste-borrasterik ikusten. Urrutirago gabe, Orixeren euskalkien erabilera goraipatzeko besterik ez darama paperera Mitxelenak.

Orixeren "eguzki aldeko" isuria ere, bere egiten du Mitxelenak.

Orixeren hizkera laburrarekiko (ahozkotasunaren jopu ez den laburrarekiko) atxikimendua ere argi eta garbi aitortzen du errenteriarrak.

Baina Orixeren hizkerak izterbegirik arriskutsuena Nikolas Ormaetxea bera du. Autu izan diren sakoneko arrazoiak berresan gabe, honako puntuotan bil daitezke, Mitxelenak Orixeren hizkeran bezten dituen larrienak.

Berea bakarra duen "virtuosismoak" jarraile-samalda lukeen eredutzat hartzea larri oztopatzen du.

"Bere gisa" ibiltzeak, berriz, euskara idatziaren molde eginez atzentzera eraman ohi du.

Bere betibateko euskal iturria agortzeraino –mailak ongi berezi gabe–, erabili beharrak, hitzak behar bezain argi eta zehatz ez erabiltzera bultzatu du.

Adierazi den bezala, errenteriarrak, hizkuntz jokabideok gaitzesten ditu bestela eredugarri daukan Orixegan.

---

[306] Orixeren barne-kanpoak hain sakon ezagutzen dituen Iztuetak, ez du debeku gehiegi, antza, hitz hori erabiltzeko:

"Ez dut uste euskal letretan inor egongo denik euskararekin Orixek adina esperimentatu duenik".

Alabaina, ezin, beste esperimentugileen aldekan, beste gabe, paratu:

"mosaiko bat da Orixek pintatu digun euskararen kuadroa, hor esperientzia ugari kabitzen bait da: euskalki desberdinen erabilera, euskara erraza eta zailaren ereduak, literatur estilo desberdinen jauziak, etab. Hala ere, ezta kasurik ahulenean ere, ez dut uste artifizialkeriarik egotz dezaiokeenik [sic]. Eta horren arrazoia da, bizkaieraz edo lapurteraz ari denean ere, haren euskarak ez duela galtzen herri-kutsua". (Iztueta 1991a:261).

5.7. ORIXEREN EKARRIA, ERAGINA ETA... ZORIA

5.7.1. Orixeren ekarria edo Orixerekiko zorrak.

Puntu honetan laburbildu gogo ditugu, Mitxelenaren lanen argitaradatei eutsiz, Orixeren ekarriaz adieraziak, orexarraren irudiari nolabaiteko osotasuna eta batasuna eman asmoz.

Euskal lan zaharrenetik hasiz, Orixek ekarriak oihartzuna du Mitxelenaren idazlanean:

> Ezin sinistuzkoa da gozogabeko urteotan eman digun euskal bizitzaren irudi garbia. Gure aldiko haize erauntsiek erruki gabe astindu badute ere, geroak lur gainetik osoro urra badeza ere, hor daukagu, ez atzoko, ez gaurko, ez biharko, bai ordea betiko, "sub quadam aeternitatis specie", Jainkoaren begi maitakorretan betidanik egon daitekeen bezalaxe. Eta hor daukagu betiko, batez ere, eusko anima jatorra, sinismen sendoa, Jaunaren sabel beroan zalantzarik gabe etzana. (1951c:25).

Orixeri zor zaio, bada, lehen ere aztergai izan den "euskal bizitzaren irudi garbi betikoa", eusko anima sendo-tinkoa, literaturaren bitartez gatzatzea.

Eta berorri eutsiko dio Mitxelenak, 1954eko "Orixe gure artean" elkarrizketan ere.

Orixek euskal literaturaren azterlanari ekarria azpimarka daiteke Mitxelenaren geroagoko beste lan honetan: "Arnaut Oihenart" 1953koan, alegia.

Orixeren irizpideari ezin muzin egin dakioke, euskal egileei sailkalekua bilatzean –Oihenart poeta landuen artean kokatzea, erakusgarri–, ez bertso-lanen maila neurtzean.

1954eko "Orixe gure artean" solaseko aurkezpen modukoan, Mitxelenak berariaz hartzen du anotan Orixegandik ikasia, bi puntutan laburbilduz:

> Urrutiko adiskideok Orixegandik bi gauza ikasi ditugulakoan nago, batez ere, bihotz-bihotzez maite ditugun gauza bi: bere idazlanen bidez Euskal-herriari eman dion poesi-izaera, urteen joanak desegin edo aldatuko ez duen betiko izaera harrigarria, eta euskaraz entzuarazi digun musika berri garbia. (1954a:51).

Lehen ikaskizunak, 1951ko lanean adieraziarekin bat egiten du, esan den legez, hau da, betiko landaturik utzi duen Euskal Herriaren irudi baten mamitzailea da Orixe.

Bigarrena, berriz, kapituluan aztertu den euskararen erabilera bere gisakoari, Orixek idazlanetan gatzatu duen hizkerari lotzen zaio. Orixek, euskal literatura berritu du[307].

Honenbestez, ikasgaietarik bata, idazlanen mamiari dagokio batipat eta, bestea berriz,

---

[307] Ildo beretik, (1958h:97, 1961e:118,119).

adierazmoduari, azalari.

Lizardi adiskidearen *Biotz-begietan* lirika-lanari Orixek eginiko hitzaurrea da honen ekarria edo, aldrebes ikusita, Orixerekiko zorrak ahotan hartzera Mitxelena bultzatzen duena.

Kasu honetan, Orixeri euskarak zor dio bi aldetatik, aldi bietan, halaz ere, Lizardi artekari dela[308].

Batetik, euskarak Orixerekin du zorra, Lizardiren zordun ere badelako. Lizardik, euskara barneratzen eta janzten Orixe maisu izan duenez gero, zarauztarraren lanaren merituen atzean, Orixeren itzala ere badago.

Baina bestetik, euskarak –eta lirikak, eskuarki– Orixeri zor dio, Orixeren bihotz-lumetatik ilkia, adiskidetasunak sekula izan duen hizkuntz jantzi ederrenaz hornitu duelako. Horren sorrarazlea, guztizko zuen Lizardiren heriotza izaki.

Euskara eta lirika Orixeren zordun dira, beraz.

Zor-kontua da, berriz ere, Mitxelenak 1956an Orixeri alboratzen diona, baina ez du zorren kontu ematearen gorabeherarik zehazten:

> Zor berria dugu euskaldunok, lehengo askoren gain, Orixerekin. (1956h:75).

Halaz guztiz, lan honetan Orixe itzultzailearen trebetasuna goraipatzen duenean, orexarraren lanek agerian uzten dutena ere esaten du errenteriarrak: gauza dela edozer euskara garbian eta –itxura batean– nekerik gabe emateko.

Hemendik ondoriozta daiteke, apika, Mitxelenaren ustez, Orixek eginez erakutsi duela euskararen malgutasuna eta beste hizkuntzetatik aldatzeko ahalmena, geroagoko beste lan batean[309] berariaz dioen bezala.

Lan honetan bertan[310], Orixeren beste irakaspenik bada. Hitz berriak sortzeko (hitz elkartuak batez ere) edota hitz arruntak adiera berriei egokitzeko duen trebetasunaren bitartez, euskaldunei begi bistan jarri die norainoko etekinak eskura ditzaketen bere hizkuntzaren sorrindarra dantzatuz gero.

Zorrak dira Mitxelenak Orixe euskaltzain berriari egin "erantzun-hitzaldian" (honela esatea zilegi bada) abia-abiatik begiz joak: "Euskal Herri guztiak eta Nafarroak batipat" Orixeri gorazarrea zor dio.

Ongi merezia, Mitxelenarentzat, Orixeri ("berandu xamar halabeharrez"[311]) egun

---

[308](1961e:124, 1965e:126).

[309](1961e:120).

[310](1956h:76).

[311](1985a:107).

horretan egiten zaion gorazarrea, mintzaldian aurrera ahala zehaztuko dituen Orixek eginak, meriturik aski baitira besteren hartzekoduntzat jotzeko.

Jasoko diren zenbait dagoeneko esan diren arren, egoki bide da Mitxelenaren pasartea osorik paperera ekartzea, Orixezko halako kalidoskopio-itxura trinkoa ematen baitu:

> Asko zor diogu "Orixe"-ri eta Euskaltzaindiak inork baino gehiago. Asko eta askotara. Hor dugu nik beste guztien gainean jarriko nukeen[312] "Orixe" lirikoa, Lizardiren adiskide bihotzekoa, mundu honetan suma daitekeen[313] egarririk ederrenak mintzarazi duena. Hor dugu bere aldiko euskaratzailea[314].Hor dugu gure herriaren izaera, mamiz eta azalez, barne-muinetaraino bereganatu duen gizona, gure hizkuntzaren aberastasuna gainezka darion hiztun goxoa. Atzoko, gaurko eta betiko euskaldun honek jaso du, bestek ez adina, euskararen eta euskaldunen izena eta omena (...) Oraindik, badakidan arren ez dituela goresmenak gogoko, beste "Orixe" bat aipatu nahi nuke hemen: prosa-maisua. Honekin baikaude zorretan hitz-neurtuetarako dohairik ez dugun idazleok (...) Ormaetxea jaunari eskerrak batez ere, ez zen eten gure artean eteteko zorian egon zen "gure asaben lokarri zaharra"[315] (...) Antzinako aberastasun ugariak gordetzeaz gainera, ahaleginean saiatu da gure hizkuntza aldi eta eginkizun berrietarako egokitzen, hizkera zailu, labur, bizlago bat moldatzen (...) Gaur, ordea, beste "Orixe" bat agertu zaigu hemen, "Orixe" euskalaria (1958h:97).

Horra hor, Mitxelenak bilduriko Orixeren eginen (bestek dizkion zorren) kontu-ematea.

- Lirikoa
- Euskaratzailea
- Herriaren izaera barneratu duen euskalduna
- Hiztun oparo eta goxoa
- Euskararen eta euskaldunen izen-omenak inork baino garaiago jaso dituena
- Prosa-maisua
- "Asaben lokarri zaharraren" eusle eta hedatzailea
- Antzinako ondarearen zaintzailea
- Hizkuntz egokitzailea
- Euskalaria

Mitxelenak lerro horietan landatuek agerian uzten dute zer dela eta zor zaizkion Orixeri "asko eta askotara" Orixek ekarriak, asko eta era askotakoak baitira[316].

---

[312] Jat. *nukean*.

[313] Jat. *ditekean*.

[314] Jasoa doa Orixe aldatzailearen bikaina, orobat herturik. Kritiketarako, *Aitorkizunak*en kritikara (1956h) jo daiteke bereziki.

[315] Berdin, (1959a:127, 1961e:118).

[316] Ikusi besterik ez dago, Orixeren omenez plazarako bi lanetako (1965), (1991) artikuluen izaera nabarra.

Orixeren ekarritzat ere jo daiteke euskal poesia molde berrietatik barrena abiaraztea, hau da, euskal literatura "eraberritzea", ariketa honetan bakarrik ez ibiliagatik:

> 1930tik [sic] edo hasita, Orixek, Lizardik, Lauaxetak eta zabaldu zituzten molde berri[ak]. (1958i:102).

Orixe hilberriari Mitxelenak eskaintzen dion lanean ere, "itxaropen berria sortu digu hizkuntzaren gaitasunari buruz", euskalaria, "herri-ondasunak" bildu eta "edertu" dituena, Lizardirekin zuen adiskidetasuna dela medio, euskal literaturan uzta oparoa utzi duena... jaso direnen ondoan, euskal poesian "herri teologia sartu duela"[317], bere ekarrien artean aipatu behar da.

Halarik ere, lanaren bukaeran, Orixek egina eta utzia uztartu gogo ditu Mitxelenak, lanak eta gizona bat eginez:

> Gizona, berriz, gizabetekoa da. Jaioterriari eskeini zizkion hartu zituen dohaiak oro eta hari lotua iraun du azkenera arte, etengabeko lanean haren alde. Obra mardula utzi digu eta bizitz credu beteagoa. (1961e:124).

Hitzotan, obraren luze-sakonaz gain, euskararen eta Euskal Herriaren aldeko Orixe langile sutsuaren irudi eredugarria azpimarkatzen du Mitxelenak; hau da, Orixeren lanei egin dakiekeen azterlana, haietatik ikas edo bazter daitekeenaren ondoan, Orixek beste ordenu bat utzi die euskaldunei, sorterriarekiko maitasuna "eginez" erakutsiz[318].

Orixeren gorazarrez egina da *Orixe. Omenaldi* 1965eko lana eta lan horren atarikoan tartekaturik doaz, Mitxelenaren hitzetan, Orixeri zor zaizkionak:

> Ezetz esatea, nolazpait ere, Orixerekiko zorra ez aitortu nahi izatea bezalatsu bailitzateke: euskaldun guztiok duguna eta, batez ere, nik neronek dudana. (1965e:125).

Buruen-buruenik, aurreko lanean aipatu berri denarekin loturik, Orixek, Euskal Herriari eta euskarari dion maitasuna ekinaren ekinez ("etengabeko ahaleginean") erakutsia goraipatzen du Mitxelenak, langile honek, bere fruiturik gehienak eta onenak eman baitizkio:

> Hori nahikoa ez balitz, gainera, esan daiteke bere obra dugula beharbada asmoz eta neurriz, erabat harturik eta inorena gutxietsi gabe, euskal idazle batek, noiznahikoa den, sortu duen larriena. (1965e:125).

---

[317] (1961e:122).

[318] (1965e:129).

Azken lerrootan pixkaren bat pausatzeak merezi bide du, *Euskaldunak* berariaz aztergai izan den puntuarekin ikuskizunik bai baitu.

1961eko lanean[319], *Euskaldunak* poema nagusia zen Mitxelenak "larritzat" jotzen zuena. Lau urte geroagoko beste honetan, aldiz, poema zehatzari ez baina, Orixeren lan osoari irizten dio "larri".

Halarik ere, aurreko lanean ez bezalako neurgailua darabil orain "larritzat" hartzeko, "asmoz eta neurriz" da larria ('nabar-oparoa, ugaria') Orixeren lana "erabat harturik". Han ordea, "handitasunean eta eskas dabilen puntuetan" zen larri ('handi') *Euskaldunak*.

Badirudi, beraz, lau urte lehenago idazlan zehatzari ondoraturiko bi alderdietarik, neurrizko bakarrari eutsi diola Mitxelenak Orixeren erabateko lanaren gaineko juzkua ematean: Orixek, lan handia, erraldoia egin gogo eta mainitu ere egin du; ez da lerro horietan[320] gabeziaren poxirik islatzen.

Orixeren ekarria, larria da.

Eta ekarri horren larria agerian utziz, hain zuzen ere, zuritzen du Mitxelenak Orixe beztu duten iritzietatik:

> Berak landu eta eraberritu dizkigu euskal prosa eta neurtitzak, hizkuntza ere zaharberrituaz. Antzinako joera klasikoei jarraituaz, beharbada, baina aifer egonak genituen joera horiek bera etorri arte. Berak erakutsi digu – egitez, hitzez baino gehiago – gai dela gure hizkuntza edonongo edozer itzultzeko eta bereganatzeko. Berak, gauza dela euskara bihotzaren sentierarik izkutuenak adierazteko. Axalez bakarrik baitzen lehorra[321], hotza eta xekena. (1965e:129).

Azkenik, jasoak daudenei erantsi beharrekoa litzateke, zegokion atalean nabarmendu den beste honakoa, Mitxelenak Orixegan ikusten duen joera klasikoen egokitzailea, alegia.

Bilduriko lekukotasunen ugariak, argi uzten du, beraz, ez duela Mitxelenak estari gorde gogo euskaldunek Orixeri zor dizkiotenen kontu ematea, ez Orixeri eskertu beharreko ekarriaren nabarra eta oparoa.

---

[319](1961e).

[320]Hemen diogu, hurrengo orrialdean industriak poema nagusian tokirik ez duela nabarmentzen baitu, baina aurrerago autu hartuko dugun puntua denez gero, bego horrela.

[321]"Azalez legor zirudin arren, bein baño gelagotan eskerroneko malkoak zerizkiola ikusi izan dut". (Labayen 1965:17).

5.7.2. Orixeren eragina[322] eta zoria[323] edo ondore gisa

5.7.2.1. Orixeren eragina eta zoria neurtzean, lehen-lehenik aurrean eduki beharrekoa da Mitxelenak berak maisu eta eredu aitortutzat daukala, bere burua, ikasleen samaldakoen artean berariaz kokatzen duela, alegia:

> Musika hori daukagu belarrietan sartua hamaika ikasle koxkor eta kaxkarrek, eta doinu horretara saiatu nahi genuke gure mintzoa, nahi eta ezin badugu ere. (1954a:51).

> Eredutzat daukagu Orixe prosa-gaietan, baina –eta hau da inork ahaztu behar ez lukeena– nekez eta izerdiz bakarrik hurbil gakizkiokeen eredutzat. (1958h:98).

> Ez noa, jakina, orain Leitza eta inguruetako mintza-doinuaz ikasi dugunari ezer eranstera. Ez naiz hemen beste edozeinen gisako ikasle umil eta bil bat besterik. Anitz gauza ikasi izan dut sail honetan "Orixe"-rengandik; gaurdaino, ordea, liburuetan. Orain bere ahotik ikastea gertatu zait zorionez. (1958h:98).

> Gaurko idazle askorentzat bide bat bakarra dago zerbait jakiteko lehenagokoa zer zen. Hori da Orixe. Orixek gaurko askok uste duten baino hitz, esaera eta joskera askozaz gehiago bainu antzinako liburuetatik hartuak. (1959a:127).

> Guztiok –ezjakinean edo jakinaren gainean– irakasle genuena galdu dugu guk eta zeukan haberik sendoenetariko bat galdu du euskarak. Euskal literaturaren oroitzapenak lurrean diraueino ez da noski itzaliko haren izena eta omena. (1961e:117).

> Eredu ederra daukagu Orixegan itzuiketarako, baina –eta hau ere gogoan eduki behar dugu beti– gutxi batzuen mailako eredua. (1961e:120).

> Bizirik genuen gure artean gau-egunetako ametsetan bila genbiltzan hizkuntz-eredua, irakaslea eta urrutiko gailurretatik bidea erakusten zigun gidaria. (1965e:126).

> Hainbat lasterren adierazteko, labur-beharrez zebilen beti Orixe, eta labur-beharrez ibili gara haren ondotik genbiltzanok, biribiltasun betegin baten bila. (1979c:133).

Orixe maisuaren itzala, arestiko puntuan erakutsi eta oraintxe ikusi berri den bezala, euskal literaturan, euskalaritzan, euskaldunengan, erabat esan, iger daiteke.

Halako baieztapen orotarikoen ondoan, halaz ere, Mitxelenak aldizka, han eta hemen, ematen du Orixeri ondotik ibili zaizkion edo Orixe atzean duten egile-lanen lekukotasun zehatzak:

---

[322] "Durante muchos años, especialmente en la época en que el franquismo ponía toda suerte de cortapisas a lo vasco, Orixe vino a ser para los cultivadores y amantes del euskera algo así como el divo, el símbolo o encarnación de sus ideales. El exilio no hacía sino agrandar el halo de su figura". (Villasante 1979_2:418).

[323] "Pero Orixe era un hombre de contrastes fuertes. Muy discutido, por otra parte. No faltan quienes le regatean todo mérito y quienes le aupan sin medida. La evolución que últimamente ha sufrido el país, la decadencia de los modos de vida tradicionales, etc., ha contribuido sin duda a que su estrella haya palidecido un tanto. Pese a todo, Orixe merece sin duda ser revalorizado y justipreciado". (Villasante 1979_2:418).

Alta Olabide bera ere ez zen gutxi Orixeren laguntzaz baliatu. (1961e:124)[324].

Nik, aukeran, berriegiak arkitzen [sic] ditut, "garbiegiak" nolabait esateko, erabateko artzakietan sartu behar baldin badut. Bestela esango dut, argiago geldi dadin. Erdal olerki horiek zahar kutsua, zahar usaia dute, oraingo irakurlearentzat; euskal itzulpenak [Gazteluren *Musika txilla*-k], berriz, berri antzekoak dira: Orixerenez oroitarazten gaituzte. (1963d:106).

Badu liburu eder honek harako Orixeren *Urte guziko Meza-bezperak* ezagunaren egitea eta antza. Nola ez du, bada, izango? Paperak eta edergarriak – euskal tankerakoak– berdintsuak dira eta gaia, berdintsua ez ezik, berbera dute (...) Nolako hizkera darabilten [Kerexetak eta Alta Onaindiak] ere esana dago horrenbestez: besteak beste eta bizkaiko [sic][325] doinuan ari direlarik, ez darabiltza horretan ere hain urruti Orixeren joeratik. (1963f:127).

Mitxelenak, bere buruaren ondoan, Olabide, Gaztelu eta Kerexeta-Onaindia daramatza paperera izendatuki. Baina, izen-emate honetan buruen buruenik, Lizardi da aipatu beharra, jaso den bezala:

Adiskidetasun honek izan baitu ondore ugaririk gure literaturan bertso eder (edozein hizkuntzatan egin diren bezain eder) horiezaz gainera. Lizardiren alderdi bat Orixeri zor diogu eta Orixerenetik aski Lizardiri, ikasle bezain gidari izan zuenari. (1961e:124).

Bere baitatik ontzen zituenak aski ez zirela, laster ikusi genuen zenbatetarainokoa izan zen bere eragina eta gidaritza Lizardi bihotzekoaren harrigarrizko lora-aldi labur hartan. (1965e:126).

Eta eguzki-aldera bulkatu zuen Lizardi, batez ere gorpuztu gabe joan zitzaigun azken-azkeneko Lizardi hura. Honek, bestalde, hasieratik bertatik, Orixeren arrimuan, erakutsi zuen isuria bera ez zegoen Lapurdiko mugetarik urruti. (1978c:168).

Eraginaren, Orixeren maisutzaren lekukotasunak agerian daude, beraz; ez litzaioke, haatik, aipu-ehiza hau egiari leialkiegi hurbilduko, eraginaren aurkezpen hutsean planto eginez gero. Orixeren zoria, hots, aldian-aldian izan duen entzutea, ezinbestean begiratu beharr da, honetan, Mitxelenak berak ikuskizunik bai baitu.

5.7.2.2. Orixe maisuaren ospeak eta omenak gorabehera gaitzak izan dituela dio Mitxelenak berak:

Azterketan hasiez gero, esan behar da aurren-aurrenik ez dela beti Orixe, orain besterik badirudi ere,

---

[324] Olabide eta Orixeren arteko harremanean, nabarmengarri dateke, gasteiztarrak eginiko bi itunen itzulpenetan, kontrako iritziak irakurri ahala nola ateratzen den orexarra haren alde. *Itun Berri*aren kasuan (1931), Alta Iraizozen kritika gaitzetsiz eta *Itun zar eta berri*arenean (1959), berriz, Mitxelenaren iritziarekiko adostasun-eza eta aldatzailearen ongi egina azpimarkatuz.

[325] Jat. *Bizkai'ko*.

> euskal letren aitagoi onetsia eta ezin-ukituzko eredua[326]. Aitzitik, hasieran eta geroago ere bai, bere gisa eta bere kabuz ibili zen luzaroan, giroari entzungor eginik. (1965e:125).

Mitxelenak 1965ean egiten duen adierazpen honek agerira darama Orixe maisuaren ospe-omenek —Larramendirenek eta "Kapernaunenak" bezala— gorabehera gaitzak izan dituztela[327].

Orixe "euskal-letren aitagoiaren" goraldiaren hasiera, "Euskaltzaleak" taldearen sorreraren inguruan kokatzen du Mitxelenak:

> Plazaren erdian geroago agertu zitzaigun bete-betean: "Euskaltzaleak" sortu zeneko harian, sortze hori giro berrien aitzindari eta ondore izan baitzen euskal literaturaren alorrean. (1965e:126).

Giro horretan handituz eta sendotuz doa Orixeren izena; Orixe jotzen dute begiz zenbait euskaltzalek Euskal Herriak behar duen poema nagusia ora dezan eta hari ematen erantzunkizun larriko mandatua[328]; baita honek mamitu ere:

> Urte haietan heldu zen gorengo mailara Orixeren izena eta omena. Bizirik genuen gure artean gau-egunetako ametsetan bila genbiltzan hizkuntz-eredua[329], irakaslea eta urrutiko gailurretatik bidea erakusten zigun gidaria. (1965e:126).

Garai honetan jotzen du goia Orixeren ospeak. Orixe maisu eta langile sutsua etengabe ari da lanean euskal lanak argitara ematen:

> Poemaz landa, gainera, ez zegoen geldirik Orixe. Bere euskal lanak, inoiz ez bezala, samaldan zetozkigun, multzuka, bata bestearen gain hitz lauz eta hitz neurtuz. Eta bakoitza, banan-banan, lehengoen ospea gehitzen eta zabaltzen ari zitzaigun. (1965e:126).

Orixeren goraldia, halaz ere, ez da iraupen luzekoa ezta aho batez onartua ere. Gerra

---

[326] "Orixe miretsia, baina baztertua" izendatzen du, hain zuzen ere Iztuetak (1991a:711-721) gerraurreko Orixeren egoera.

[327] Honen erakusgarri gardenak dira, gure ustez, *Zeruko Argiak* 1972. urtean eskaini zion ale berezian bilduak, batetik eta J. Azurmendiren bi lanak (1976, 1977) bestetik, 1965eko omenaldizko lanaren ondoan.

[328] Honen inguruko ak, Iztueta (1991a:600-747).

[329] Honela ezaugarritzen du Iztuetak (1991a:909):

"Orixeren jarrera, oro har, hauxe da hizkuntz ereduari buruzko arazo konplikatuan: herritarra, eta toperaino, herri-literatura egin behar denean; neologista, eta hemen bere burua moderatutzat jotzen du, gutxiengo ikasiarentzat egiten dituen lanetan".

ondoko urteetan, eredu (aldez) onetsiari, ezpaipean hartzea eta loraldiaren zapuztea, "herriko eta atzerriko haize berrien eraginez" biztuko den "giro-aldaerak" ekarriko baitizkio, Mitxelenaren ustez.

Halarik ere, ez da zokoratzekoa Mitxelenaren ustez –lekukotasuna aldatu dugu–, gerrateak baino lehen ere, Orixe ezin-ukituzko eredu eta euskaldunek aho batez onarturiko gidari erabateko ez zela izan.

5.7.2.3. Orixeren bakartasunak hementxe bide du kokalekua. Mitxelenak, bakarrik ibiltze honen atzean, N. Ormaetxearen nortasuna ikusten du nagusiki, aldi-giroei ezikusiarena egiteak dakarkiona, alegia:

> Baina Orixe bakar samar ibilia izan da luzaroan bide horretatik[330]. (1959a:127).
>
> ...hasieran eta geroago ere bai, bere gisa eta bere kabuz ibili zen luzaroan, giroari entzungor eginik. Bere bidetik abiatu nahi zuen eta bere buruaren jabe izan, gizona izan daitekeen neurrian, ez inoren esanera egon[331]. (1965e:125).

Eta honen isla garbia da, hizkuntza aldetikako aukera, "berrizaleak" nagusi direnean, bera "zaharzale" agertuz, "garbizale" itsuen jokamoldeei makurtu gabe, bereari tinko eutsiz[332].

Baina, esan bezala, Orixeren bakarraldia, batipat gerrateen ondoan finkatzen du Mitxelenak. Euskal Herrian eta kanpoan haize berriek bazterrak astindu dituzte eta gogo-giro aldakuntzak ekarri. Bizimolde eta pentsabide berriek, gizakia eta gizartea erraietatik irauliko dituzte eta, Orixe moldakaitzaren ospea eta aitagoitasuna (esaterik badago) hankaz gora utziko:

> Egungo egunean inoiz baino nahastiagoak daude arazoak Euskal herrian, idea kontuan batez ere: ez dago sinesterik, usterik, ez osperik alde guztietan onartuko dutenik. Orixek ez du, bada, aurkitzen zenbait alderditan duela zenbait urte aurkitu zuen begiramen harriturik. (1961e:124).
>
> Ez naiz ni hemen mintzatuko ez giro-aldaera horren alde ez kontra. Gertatua da eta ezinbestekoa, gertatua denez gero. Esan beharko dut, ordea, hortaz ari bait gara, aldakuntza horiek –usteak, sinesteak eta ospeak astindu dituen balioen trukaera izanik– ez diola Orixeri ere, ustez edozein eztabaidaren gainetik geneukan Orixeri berari, begiramenik gorde. Guztion aitormenez irabazia zuen

---

[330] Jat. *ortatik*.

[331] "Ez da erraza Orixe eskola jakin batean sailkatzea, zeren pixka bat bere bidetik ibili baitzen beti". (Villasante 1989:69).

[332] Honezazko pasarteak jaso dira.

irakasletza eta gidaritza ukatu dio oraintsu batek baino gehiagok[333] [334]. (1965e:127).

Orixeren zorian eragin bortitza izan duen aldakuntzaz, ez alde ez kontra mintzatu gogo du Mitxelenak hemen[335], baina inoren alde ez agertuagatik, aldakuntza hori zertan datzan azalduko du, Orixeren "usteak, sinesteak eta ospea" astintzen dituen ikuspegitik batez ere:

> Hizkerarekikoa da gutxiena, ez baita hori barren sakonean dabilen zurrunbiloaren gaina eta axala baizik. Hogei-hogeita bost-hogeitamar urte honetan gora-behera gaitzak ikusi dituzte gauzek eta, gauzekin batean, gure gauzekiko iritziek. (1965e:127).

Liskarraren muin-muinean dagoena ez da hizkera, antza (aipatzea bera ez al da ohartzekoa?), "gauzetan" eta "gauzezko iritzietan" jazo diren "gora-beherak" baizik, bestela (eta berriz) esanik, "Galileo aurrekoak" eta "Galileo ondokoak" bereizten dituen ikuspegi desberdinetan.

Orixe goi-gailurretan sostengatzen duten zimentarri-harroinak artesitzen hasiak dira, beraz[336].

---

[333] Orixeren gorazarrez mamiturik lanean (1965) esku-hartzaileen goresmenik falta ez bada ere, ondoko Altunaren pasartean bilduak bereziki adierazgarriak gerta daitezke, ia-ia puntuz puntu, Orixeri leporatu ohi zaizkion beztelo larrienak eta norien erantzunak irakurtzen ahal dira eta:

"Gaurko euskaldunentzat idatzi bear omen-dugu, eta ez emendik eun urtera biziko direnentzat. Noski! "Orixe"k, ain zuzen, gaurkoentzat idatzi du.

Gaurko kristauei dagozkien gaiak erabilli bear omen-ditugu: gaurko gizadiaren auziak, jakite-gaiak eta abar. Baita! Iñork baiño jakite-gai geiago erabilli ta jorratu du "Orixe"k.

Erri arrunta eta gizon ikasia, biak izan bear omen-ditugu begien aurrean; biak omen-dira euskeraz irakurtzeko naiz entzuteko gose, eta betiko ipui zaarrekin ez omen-da gose on berdinduko duenik. Jakiña da! Erri xearentzat eta gizon jakituentzat gutxik aiña idatzi du "Orixe"k.

Onenbestez eztut uste iñora joan bear dugunik maixu billa. Bertan dugu maixua. Gure gizaldikoa. Gure gizaldiko kristauentzat idatzi duena.

Batak emendik eun urtera biziko diren euskaldunentzat idatzi duela eta ez deritzaie maixu egokia. Bego! Baiñan olek berak, maixu billa asi eta orain eun urte bizi zen idazlea eman nai digute maixu. Nondik eta nola? Ark ere, apika, bere garaiko euskaldunentzat idatziko zuen ba, ala? Eztugu oriaz gaurkuok maixu artzekoa. Bego ua ere! Ala-ta, ark ere andik eun urtera biziko giñen euskaldunentzat idatzi ote-zuen, gaurko zenbaitek bezala, mantutzat jarri nai diguten ezkero?

Obe dugu denok, denon onerako eta euskeraren oberako, gaurko idazle bat eta gaurkoentzat idatzi duen bat maixu artu. Olakorik, berriz, gutxi dugu, maixu izateko mailiara irixi denik bederen, zori txarrez... edo onez, bearbada. Aukeratzen beiñipein asti aundirik ez genuke galdu bear".

[334] "El cambio de ideas y sentimientos ha hecho, por desgracia, que hayan perdido atractivo [neurtiz lirikoek] para muchos". (1987b:106).

[335] Mintzatua da jadanik beste lanetan (1957g, 1960a, 1960d besteak beste), aurreko kapituluan batipat ikusi den bezala.

[336] Otaegik (1991:93) honela laburbiltzen ditu giro-aldaketaren ardatzak:

"Alde batetik batasunaren arazoan, bestetik sineskizun erlijioso eta moralismoarenean, eta azkenik jarrera politikoen erradikalizatzearen arazoan".

5.7.2.4. Orain arte paperera ekarrietan, Orixeren gidaritzaren gainbehera, Mitxelenaz kanpoko arrazoietan argitu da. Halaz guztiz, gure ustez, Mitxelenak ere badu erantzunkizunik –ikuskizunik gutxienez bai–, Orixe eredu diskutitu samar izatetik diskutitu bilakatzean, eztabaidagai hartze soilak, ezinbestean arbuiatzea ez dakarrela aurrean izanik, halarik ere.

Mitxelenak zenbait lanetan adieraziak ekarriko dira, Orixeren arlo batzuetako eredutza kolokan jartzearen irozgarritzat har daitezkeelakoan.

- Itzulketan, Orixek berebiziko entzutea (entzute merezia) du.

1956an, Orixek *Agustin Gurenaren Aitorkizunak* argitara ematen du eta honen ondotik, Mitxelenak, bihur-lanazko iruzkina.

Astiro ikusi den bezala, Orixek erabili duen hizkeraren on eta gaitzak, bigarrenak batez ere, paperera daramatza, arrazoi desberdinak direla medio, Orixeren egina beztuz.

Gogoan hartu beharreko lehen kontua da, beraz, "hizkuntz-gidariaren" hizkera, ez dela hutsik gabea.

Eta honen harian, Mitxelenaren adierazpen batek sendotzen du, argi eta garbi, pleguotan kanporatzen ari den gogobidea. Hauxe da:

> Bereizgarri horietarik gehienak ezagunak genituen lehendik ere Orixerengan, baina ez deriztet besterik gabe onestekoak. (1956h:77).

Bestela irakurrita, Orixek –duen euskararen ezaupidea ezaupide, itzultzen mutila izanik, aitortu behar zaizkion guztiak aitortuta, Orixek ere– ez du esku hizkuntza gogoak eman bezala erabiltzeko. Orixek erabiltzeak ez du ezer, beste gabe, onartzeko bilakatzen.

Itzul-lanen barrutitik irten gabe, hurrengo urtean, Olabideren *Itun zar eta berria* dela eta, Mitxelenak eta Orixek liskargaia dute, istiluaren erakusgarri zehatza, Olabidek *ekin* aditza trinko gisa erabiltzea izaki.

Hona, Mitxelenaren bukaera: "Euskaldunek ezin uler dezaketen itzulpena ezin, beraz, itzulpen egokia izan"[337].

Ez bide da destokitua, Mitxelenak Orixeren itzulpenean kritikaturiko puntu bat, lekukotasunik ez duten adizkiak darabiltzala, alegia, gogora ekartzea[338].

Orixe euskaratzaileak, neurtitzak aldatzean sortu du miresmenik eta harrimenik handiena, *Lauda, Sion, Salvatorem* eta *Stabat mater* sekuentzia deituriko eliza-kantez erdietsia, erakusgarri[339].

---

[337](1959g:207).

[338]Gauza bera egiten du Olhenartek, aitzitik Mitxelenak ez du hori borrokatzeko luma dantzatzen.

[339](1961e:119).

Miresmen-harridurok, apika, pittin bat soildu beharrak dira, euskal literaturaren atzeari begira, Etxeberri Ziburukoak, Sarako Harizmendik, Gasteluzarrek[340] –azken honek bereziki–, aitzinurratsak emanak baitituzte.

Azken lekukotasuna (arestikoak baino franko geroagokoa), euskal itzultzaileen erregetza eskualdatzean ikus daiteke:

> [Duvoisin] Euskal itzultzaileen buruzagi eta errege deituko nuke, Orixeren itzal haserrea tentatzeko beldurrik ez banu. (1986a:129).

Honenbestez, Orixe berebiziko euskaratzailea denik ukatu gabe, ñabartu eta zehaztu beharra dago benetako luze-laburrean hartu ahal izateko.

- "Euskal letren aitagoia" izendatzen du Orixe 1960ko "Asaba zaharren baratza" artikuluan.

Alabaina, Mitxelenak hau dioeneko testuinguruari ezin muzin egin dakioke[341]: aditzen sailean "lokarriak hausten hasi" diren "gorengo idazle eta hizkuntzalari jakintsuen" artean kokatzen du Orixe eta, euskal aditzen sailean dagoen "askatasun atseginean" (bestela esanda, anarkian) erantzunkizun larria, Azkuerekin batean, bizkarreratzen.

5.7.2.5. Ez da, baldinbetan, urrutiegi jotzea izango, hemendik honakoa ondorioztatzea: Orixe ez bide da eredu aproposa euskal letren lehengaia den hizkuntzaren zati bat bederen finkatzeko.

Ildo berean kokatzekoa dirudi ondokoak:

> Orixek hizkuntzaren aberatsaile izateko dohain hobeak zituen batzaile izateko [baino][342]. (1978c:168).

- Euskal kulturaren mugez eta kultura horrek behar duen mintzabide-motaz, Orixeren eta Mitxelenaren artean, adostasun-eza da nagusi.

Hizkera aldetikako auzia, nagusiki, jakintzetan erabili beharreko hitz berezituen hautaera eta itxurari lotzen zaie. 1960ko "Asaba zaharren baratza" da, batez ere, Mitxelenaren pentsabideen erakustokia, San Agustin "euskaldunduaz" adieraziez atzendu gabe.

Orixek, ikusi den bezala, euskararen sorrindarrari etekinak ateratzea du biderik

---

[340] (1965f:59).

[341] (1960a:36).

[342] *MEIG* saileko liburu-paratzaileak "erautsia".

egokiena, are ezinbestekoa, terminoaren adiesparrua zehaztasunez galduan aterako bada ere.

Orixek gidatzen dituen hiztegi berezitua egokitu eta berritzeko bide-ereduak, Mitxelenak kritikatu eta baztertzen ditu.

- Arestiko puntuarekin erabat loturik dator, filosofiaz eta jakintzaz, mamiaren aldetik kasu honetan, dituzten ikuspegi desberdinak.

Ereduaren kolokan jartze honetan, lehen begiratuan ez dute, beharbada, ikuskizun larregirik Orixek filosofiaz izan ditzakeen iritzi-aburuek, baina auzi honek, gure ustez, Orixeren destenorea batetik, eta, Orixe gramatikariaren eredua, bestetik, zipriztintzen ditu.

Bigarrenari helduz, zegokion puntuan arrazoitu bezala, Orixek (eta lehiakide duen Intxaustik) filosofian "arrazoi hutsean", "arrazoibide soilen indarrean" bilatzen duela euskarria[343] jaso da. Mitxelenak, Russell, Tarski eta Carnap-en ildotik, jakintza ikusten du filosofiaren sustraietan.

Bere mugen jakile den giza jakintzak[344], oro har, denaren berri eman beharra dauka, gertakari-datuetan oinarritu behar, "silogismo ziurretan" gabe. Eta jakintzaz esana, hizkuntzalaritzari eta gramatikagintzari egokitu behar zaizkio, jakintza hauek enpirikoak izaki.

Orixe —gauzak horrela ikusten ez eta—, euskalaritzan Mitxelenak zuzen esten ez duen bidetik barrena abiatu da. Ondorioa, "Orixe gramatikalaria gutxien asetzea"[345], hau da, Orixe ez da gramatika-kontuetan eredu imitagarria Mitxelena hizkuntzalariarentzat.

- Ideien mailan kokatu du Mitxelenak gerra ondoan sorturiko osina. Maila horretan bertan finkatzen bide ditu Mitxelenak berak oinak Orixeren zenbait alderdi auzitan jartzeko.

Euskalduna ez da bakarrik baserrikoa edo mendi-girokoa; euskara kaletartu beharra dago[346].

Euskaldun eta Euskal Herri hauek ez dute tokirik Orixerenean. Honen erakusgarririk agerikoena: Mitxelenak *Euskaldunaki* egotzia[347].

Horrek ondore zuzena du, euskalduna eta Euskal Herria bizimolde eta pentsabide berrietan barrena abiatu da, Orixeren gogoko ez diren bizimolde eta pentsabideetan, alegia. Mitxelenaren aburua: "lohitu beharra dago"[348], hau da, egungo gizakumea artegatzen dutenek euskal mintzabidea izan behar dute.

---

[343](1960a:46).

[344](1961e:123).

[345](1965e:129).

[346](1951c:26).

[347](1961e:120, 1965e:128).
Honezaz bakarrik ez baina, bereziki, poema nagusiaren erabateko juzkuaz, jaso berriak zehaztuko dira, pisuaren bestaldean jarri beharrekoen berri ematean.

[348](1961e:121).

Ideia-ikuspegien mailan, hortaz, Orixeren mundua ez da Mitxelenarena.

- Orixe, euskal literaturaren lehen historigilea omen da.

Honetan ere, Orixerenari "deus kendu" gabe, Mitxelenak zertzeladaz hornitzen du, aho batez –antza– ontzat emandako iritzia: "teatrorik ez du aipatzen, Barrutia izan bazen ala ez zen ez da agertzen"[349].

Orixeri murriztu beharreko beste bat?

Mitxelenak berak, beraz, ikuskizunik izan du Orixeren zori horretan. Eredu orobatekoan zirika egin eta, kanporarazi ditu urteetan zehar, Orixegan bezteko iritzitakoak.

5.7.2.6. Baina honetatik guztitik, ez litzateke, inola ere, bidezkoa, Mitxelena, Orixeren eginaren desegile edo urratzaile denik ondorioztatzea. Orixek egoki, zuzen eta onuragarririk ere utzi baitu.

Horien kontu-ematea azalduz joan garen arren, orain, istilurik latzenak sortu zituen puntu bati bereziki erreparatuko diogu, Orixek utziaren zoriaren balioan berebiziko garrantzia du eta: Orixeren eta bere lanen –*Barne-muinetan* eta *Euskaldunak* poesi lanen, batez ere– noiznahikotasuna da auzitan.

Noiznahikotasuna eta Orixe elkarren ondoan paratzen ditu sarritan Mitxelenak, dela Euskal Herriari eman dion irudi garbi eta betikoagatik[350], dela, Orixe bera "atzoko, gaurko eta betiko euskalduna"[351], "gurasorik gabe mirariz jaioa balitz bezala"[352], hor baitago gure aurrean ez oraingo, ez egungo eguneko, inoizko aldi urrun bateko seme dirudiela"[353] aurkeztearen bitartez. Horrexegatik gertatzen bide zaio harrigarri Mitxelenari "Orixe bat bizi zen

---

[349](1981a:61).

[350](1951c:25, 1954a:51).

[351](1958h:97).

[352]Otaegik (1991:93) gerokoen artean heda daitekeen uste honen gezurra erakusteko, hain zuzen ere, Orixeren garaiko giroari erreparatzea ezinbestekotzat dauka:

"Bestalde, Orixe eta berarekin bizirik geratu ziren Pizkunde mogimenduko superbibienteen jokaerak eta pentsamoldeak euskal kultura ikusteko zuten moldeak –gudaostean gaizki ezagutu eta gaizki interpretatu zenak– bestelako kontestu, bestelako marko zertzelada baten beharrean daude, ene iritziz, hain zuzen ere, gerra-aurreko Pizkunde-aro horren markoaren beharrean.

Bestela bai bat lirudike 1950-1960 urteetako giroa ikusita, Orixe jaio zenetik izan zela jakintsu eta eredugarri, denen estimu eta aiputan ibilia, Mitxelenak "Atarikoan" dioen bezala: "*Gurasorik gabe, mirariz jaio balitz bezala*". Baina ez zen hala izan guda-aurretik eta dagoeneko ederki dakizuenez, guda-ostean are gutxiago".

Mintzatu gara Otaegik azken lerroetan ahotan duen Orixeren zoriaren gorabehera honezaz.

[353](1965e:128).

aldietan bizitzea"[354].

Bizitzea suertatu zaion garaitik kanpo ikusten du Mitxelenak Orixe, eta desgaraiko izate honek, ezinbestean ondoreak ditu.

Ondore gaiztoak, "Galileo aurreko" deiziopean bilduek (dagoeneko jasoek) erakusten dituzte, horien literatur isla zehatza, 1961ean *Euskaldunak* lanaz esanetan egiazta daitekeena izaki: "huts horren damuz gelditzen gara, euskal literatura osoaren hutsa baita"[355].

Alabaina, 1965eko artikuluan, Mitxelenagan, gure ustez (ustelaz?), Orixeren eta bere lanaren noiznahikotasunaren alderanzko aldakuntza suma daiteke.

Izan ere, bestetan ere ahotan izan duen Orixeren "Galileo aurreko" izatea eta honek geroagoko jendeagandik ekarri dion urruntzea aipatu ondoan, honakoa dio:

> Ez naiz, ordea, gaizki esaka ari. Gure aldikoa izan baitz, gure gisako gizona eta idazlea izango genukeen, hobea nahiz kaxkarragoa, baina antzekoa eta kidea. Euskal-herriaren aldi igaro ilun hartatik itzuri zelarik, ordea, bestelakoa agertu da gure artean, aspaldikoa eta noiznahikoa, eta noiznahikotasun horri eskerrak eskeini digu inoiz euskaldun batek euskaraz eman duen betiko Euskal-herriaren irudirik beteena. Betea diot, ez baitu Ilunabarraren laino beltzik. Txomin Agirrerena goibeltzen eta tristatzen duenaren antzekorik. Ez zituen oraingo eta oraintsuko jendeak ongi ezagutzen: Bergsonen kutsua eta eragina aurkitzen zuen, esate baterako, Txillardegigan. Eta zer?[356] (1965e:128).

Mitxelena "ez da gaizki esaka ari", ez du, beste gabe, Orixeren inoizkotasuna bezteko ahotan hartzen. Areago, urruntasun hori, besteak bezalakoa ez izate hori du alde Orixek, aldiek urra ez dezaketen Euskal Herriaren irudia osatu ahal izan dezan.

Bere lanean garaian garaiko aldarte-gertakizunen oihartzunik ez jasotzea ikusmolde honetan, "hutsa" ez baina, ederlanari betiko balioa emateko meritu bilakatzen da eta, testuinguru honetan beste adimodua hartzen, "ilunabarraren laino beltzek goibeltzen ez duten irudi bete" horrek.

Orixek ez dio hiri- eta industri gizarteari atemaratilarik zabaldu bere lanean, ezta gaitzetsi edo arbuiatzeko ere, gaitzespenak berak, nolabait esan, mamitu gogo duen Euskal Herriaren irudia, ingurumari eta aldarte jakin batean kokatzea bailekarke.

Honenbestez, Orixe inoizko-noiznahikoari eskerrak, "betiko Euskal Herriak" irudirik beteena, euskaraz, erdietsi ahal izan du.

Ez dira, halaz ere, hemen amaitzen, ikusi den bezala, Mitxelenaren geroagoko aipuak, Orixeren ongi egina, juzku zuzena azpimarkatuz edo, Orixe zuritu nahirik adieraziak.

---

[354](1970c:148).
"Lizardi bat sortu zen garaian sortzea" iruditzen zaion bezalaxe, ikusiko dugun bezala.

[355](1961e:122).

[356]Eta ondoren datoz, lehenago paperera ekarri diren Mitxelenari pisuzko begitantzen zaizkion Orixeren ekarriak.

Honela, esate baterako, "Galileo aurreko" izateak hartu duen adiera aurrean izanik, Mitxelenak ez du erreparorik Orixez esana besteri ere hedatzeko:

> Galileo aurrekoa, ez da Orixe bakarra izan gurean. (1975c:40).

Edo, Orixe hizkuntz aberatsailea, hizkuntz batzailearen gainetik paratuta ere, euskara baturako begiz joriko ereduaren zioak azaltzean, Orixeren hizkera-moldea darabil Mitxelenak argudio[357].

Garbizaletasuna dela eta, Orixek "entzunak" eta Olabide gasteiztarrak, berriz, "irakurriak" paperera aldatzen zituztela adieraziz[358], egileok gorpuzten dituzten jokamoldeen arteko aldearen aurrean, Orixerena hobestea ere ildo berean kokatzekoa da.

Eta, azkenik, azkenaldiko Mitxelenaren lanetariko batean[359] esana ere gogoan izan beharko litzateke, euskarak askatzear dituen hamaika orapiloren arteko batean —*(e)ko* eta *-(r)en* atzizkien erabilesparrua zedarritzean, alegia–, Orixeren erabileraz eta honek aiputan duen "zaharren" lekukotasunaz baliatzen baita errenteriarra.

Honenbestez, arestiko guztiak erakusten du, Mitxelenak esan ez ezik:

> Orain, hemen utzi ginduen Orixe urrutixeagotik ikusten dugunean, orain da garaia bere lanak hobeto aztertzeko eta zehatzago ezagutzeko. Azpian ginduzkan itzala luzatzen ari da eta mehetzen: orain hartu behar genituzke haren luze-laburraren neurri zehatzak. Horretarako, argitara ditzagun argitara gabeak eta ikusmira ditzagun astiroago argitaratuak[360]. (1965e:129).

ekinaren ekinez betetzen ere ahalegindu dela jendarteraturiko gomitea. Aldien joanaren urruntasunak ematen duen neurtzeko patxadaz, Orixek asmatuak eta huts eginak bereizten ihardun duela han eta hemen barreiatu dituen adierazpenetan agerian utzi baitu.

Urte batzuk lehenago eskatuaren ildotik:

---

[357] (1978c:168).

[358] (1984b:39).

[359] (1986c:172).

[360] "Esta obra dispersa es la que tenemos el deber de recoger y publicar cuanto antes en su integridad, junto con sus escritos inéditos". (1961h:432).

Ez dirudi Mitxelenaren hitzok hutsean gelditu direnik, Azurmendik, Iztuetak (bereziki) eta Euskaltzaindiak, EUTG eta EHU-ren itzalean elkarturiko ikerzaileen lanak seinale.

> Orixeren ondoren orpoz-orpo ibiltzea bestetara jo gabe, munduaren lau bazterrak aztertu balitu bezalaxe, kategarria litzateke, noski. Okerrago litzateke, ordea, Orixe baztertzea, irakurri gabe gutxiestea.
> Alderik alde eta bazterrik bazter ibili beharrean, aspaldi honetan gabiltzan bezala, hobe genuke Hegelek irakasten zuen *Aufhebung*[361] hura zer den ikastea. Ezer ukatzeak ez garamatza inora: goragoko maila batean idoro daiteke liskarbideen atsedena. (1961e:124).

Hegelen irakaspena Mitxelenak ikasia duela agerian utzi du. Orixegandik jaso eta gordetzearekin batean, Orixe gainditu beharra hasieratik bertatik aldarrikatu du, eta ariketan erakutsi, bere aburuen araberako Orixeganako sasiak eta belarrak bereziz[362]. Orixe berreskuratzekoa dela:

> Gure ondorengoek, orain pixka bat ahazturik badaukate ere, aurkituko dute berriz egunen batean Orixe, harrimenez eta espantuz. (1965e:128).

Mitxelenak eta bestek inoiz "harrimenez eta espantuz" aurkitu zuten Orixe hori ber moduan dute ondorengoek aurkikizun, bada.

---

[361] "Es innegable, le guste a uno o no, que Fichte, más todavía Hegel, así como también Heidegger, trajeron consigo nuevos estilos de filosofar, y con sus filosofías impusieron sus juegos de lenguaje: *aufheben* = *(jaso, gorde + gainditu = deuseztatu)* etc..." (1981i, *SHLV*:1007).

[362] "Bi joera horien erdian [Orixeren *Euskaldunak* gora eta infernuetara zutenen artean, alegia], Koldo Mitxelenaren jarrera lekutuko [sic] nuke, nolabait, Lafitte-ren harrik edo, Orixekeria eta Orixetasuna bereizten ahalegintzen dena. Nik dakidala ez bait zuen inoiz jainkotu, desmitifikatzen ere ez zuen lanik izan. Baina Galileo aurreko gizon hargan, bere garaiaren kontra zitalki borrokatu zen bigarren Unamuno hargan, beste gutxik ikusi zutena ikusi zuen: norbait handi, norbait erraldoi". (Iztueta 1991a:929).

I. ATALA

6. Kapitulua: JOSE Mª AGIRRE "LIZARDI" (1896-1933)

6.1. ATARIKOA

Lizardi etsi da kapitulu honetan Ikerkizun. Harilkatuz joan diren aurreko kapituluetan behin eta birritan esan denaren iturburua –aldez edo moldezko iturburua, bederen–, hementxe, Lizardigan, alegia, kausitzen da eta. Honenbestez, Mitxelenak desio duen asmoaren ikurritzen[1] sortzaileari arretaz erreparatuko zaio.

> Hasiera horrek izan ditu ondoreak; [Etxepare] bera baino hobeak beharbada, ez halare behar adinakoak. Detxepareren delak laurehun urteren buruan bakarrik izan du erantzun betea: Lizardiren "Eusko-bidaztiarena"[2]. Honengan agertzen zaigu poetaren dohai harrigarria: ikasi gabe daki eta begiratu gabe begi argiz ikusten du; pentsatu gabe hitz sarkor betikoak ahora etorri zaizkio. Euskal literaturaren eginkizuna, behar-beharrezkoa eta ber-bertatik ekitekoa, ezin-hobeki agindua daukagu: larreko hizkuntza noranahiko egin, jakite-hegoz jaso, soin zaharrari gogo berria eman eta gogo hortan [sic] izar urdinetarainoko asmoak sortarazi. (1951c:24).

Mitxelenak Lizardigandik hartuen iturburu zehatzezkoak aurreragoko lagaz, nabarmendu behar da, Mitxelenak, euskal literatur bideetan egiten duen estreinuan, abiatik bertatik beraz, Lizardi hautesten duela, gidari eta bide-erakusle.

Lizardi poetari aitortzen dio, bada, euskal literaturak hil-ala-biziko duen kinkatik ateratzeko egitasmoaren hizkuntz gatzatzea. Poeta horrengan landatzen ditu begiak, etorkizunari begira. Argi adierazia dago egitekoa eta garbi, Mitxelenaren asmoen kariaz, Lizardiz aritzeko nahitaeza.

Ez da, bestetik, deus berririk idoro, esanez gero Lizardi **lirikoa** dela –Orixe aldeaniztunagan azpimarratzen zuen bezalaxe– Mitxelenarentzat beste Lizardiei gailentzen

---

[1] "*Politique d'abord* izan zitekeen gure ikurritza (horrela esaten zen, nik uste, erdarazko «lema»), baina frantsesez ez genekienena ere". (1977c:44).

"Esaten zen" horrek izen-deiturak ere baditu. Koldo Mitxelena bera 1963ko ian batean, urrutirago gabe:

"«Goazen aurrera» –izan daiteke bilduma honen **ikurritza**–, «baina lehengoaz ahaztu gabe», aldi igaroan baititu sustraiak orainak eta geroak". (1963j:110). (Beltz. gurea).

Eta horko bestelako harian jarraiki; ondoko Xabier Leteren hitzek ez ote dakartzate belarrietara Mitxelenaren azkenak?:

"Ez nau izutzen negu hurbilak / uda betezko beroan / dakidalako irauten duela / orainak ere geroan / nolabaitezko kate geldian / unez uneko lerroan / guztia present bihurtu arte / nor izanaren erroan // (...) Ez nau larritzen azken orduan / arnasa galdu beharrak / bide xumea hesituarren / amildegiaren larrak, / ardo berriak onduko ditu / mahastietan aihen zarrak / gure oraina arrazoiturik / beste batzuren biarrak". (Mikel Laboaren "Bertara noa" diskatik).

[2] Lizardiren aipuak hona aldatzeko, 1956ko argitaraldia hartu dugu, honi eskaini baitio Mitxelenak berariazko ikuzkina. Argitaraldi honetan falta direnak, 1983an Letek paraturik plazara zen *Olerkiak* lanarekin osatu ditugu oro har. Azkena guztien iturri ez hartzeko arrazoia, erakutsiko den bezala, itzulpenek ere garrantzia zutelako da. (Lizardi 1956_2) eta (Lizardi 1983) kodetu ditugu, hurrenez hurren, argitaraldi biak.

1956ko argitaraldi horretan, bada, *Biotz-begietan* lanaren bigarrenean, alegia, olerkiaren buruan, *eusko*, *s*-z irakurtzen den arren, liburuaren azkeneko *bilabidean*, *euzko* idatzi zuten. 1983ko *Olerkiak* bilduman, bi tokietan, *s*-z.

zaiena, lekuko idatzirik aski utzi baitu han-hemen errenteriar lizardizaleak, bai euskaraz bai gaztelaniaz[3]. Horren ondorio izango da, hain justu, kapitulu honetan ere, Lizardiren lirika-lanez luzeago aritzea.

Alabaina, Lizardi lirikoa bere bakarrean hartzea arriskutsu gerteke. Bestela esan, atal honetan zehar argitu nahiko denez, Mitxelenarentzat, Lizardi lirikoa Lizardi hizkuntz egokitzailearekin, gaiagotzailearekin batean ulertu behar da, bi alde hauek ia beretzen baitute Mitxelenak ematen duen Lizardiren irudia, beste alderdi gehientsuenak hauen ondorio agertuz.

Honela, adierazgarria da, Lizardiz ari denean ez duela Mitxelenak zarauztarraren asmokide dauzkan Larramendiz eta Orixez ari denean bezalako jokamoldea aukeratzen.

Beste biotan, ikusi den legez, Manuel Garagorri eta Nikolas Ormaetxea gizonak, halabeharrez, gogoan hartu behar izan ditu, gizonon nortasunaren argitan bilakatzen direlako zenbait iritzi eta lan ulerkor. Argudiatu den Mitxelenaren aburu horri eutsi zaio, beraz, tesi-lan honetan zehar ere.

Orain, aldiz, ez da euskal lanetan inon Jose Maria Agirre gizonazko iritzirik kausitzen ahal, Lizardi idazlea –poeta, batipat– da ia esparru osoa beretzen duena.

Baditu Mitxelenak, halere, erdal lanen artean Lizardiren izakeraz bestek esanetan eta irakurketatik sorturiko aburuetan oinarrituriko zenbait hitz, Mitxelenak ezagutu ez zuela baina olerkariak testuetara aldatuek, isurtzailearen irudi nahiko fidagarria adierazten dutela aditzera ematen dutenak:

> Ortxe tenía una especie de sequedad exterior que se compensaba con la agradable manera de ser de Lizardi (...)
> Lizardi era un hombre que se correspondía muy bien con la imagen que uno tenía de él a través de sus escritos: muy agradable, nada agresivo, se llevaba bien con la gente, lo cual no quería decir que no tuviera puntos de vista firmes. Dejó una buenísima impresión entre los que le conocieron. (Ibarzabal 1977:56).

Beste erdal pasarte batean ere, gaia besterik badu ere, Lizardi idazleaz gaineko beste zertzelada bat irakur daiteke, Lizardi gizabanako euskaldunaren jokabidearen berri emanez:

> A partir de 1931 «Euskaltzaleak» se volvió cada vez más monocolor[4], pero nunca perdió impulso, sino que su actividad se fue haciendo más intensa y más amplia hasta 1963 [sic], inclusive. Lizardi, por coger una muestra, y no hablo de Lauaxeta, era un militante[5], aunque al final de su vida,

---

[3] Halabehar hutsa, zarauztarraren gaztaroko izengoitietarikoa "Samalko Zulo" (Otaegi 1992:170) erabiltzea eta errenteriar gazteak ere, "Mikelazuloko kukua" bere burua bataiatzea, gertuzen biak, nork bere sorterriko txokoen deizioetan oinarrituz?

[4] Talde honezaz aurrerago mintzatuko gara.

[5] Jose Mari Agirreren alderdi hau, argi berriz aurkeztatu du L. Otaegik doktore-tesian (Otaegi 1992), Euzko Alderdi Jeltzalearekiko loturaren sendoa agerian uzten duten dokumentu ugari eskainiz.

precisamente en los años en que dio lo más granado de su obra, pidió que se le dispensara de cargos. Y algo semejante se podría decir de muchos otros, escritores en verso o en prosa[6]. (1981l, *SHLV*:1004).

Baina, esana doan legez, hau da Lizardi gizonaz berariaz aurkitu dugun bakarra.

Gauzak honela, hemendik aurrerakoan, beraz, Lizardi olerkari eta egitamu-aldarrikatzaileaz – Lizardi "noranahikotzaileaz", hitza zilegi bada – bereziki, errenteriarrak dioena aditu eta antolatzeari ekingo zaio, batipat, Mitxelenaren hautuaren arrazoiak argitu gogoz.

Honako puntuetan josiko dira Mitxelenak urteetan barrena Lizardiz paperera eramanak[7].

---

[6] Lizardi idazlearen atalean lekua izan lezakete hitzok, gogo-langile edo intelektualen herriarekiko atxikimendua baliz tarteko.

[7] Lizardi aldez edo moldez autu du Mitxelenak ondoko lanetan. Hauetan oinarritu gara bereziki irudi hau osatzeko, besterik ere eskuztatu dugun arren.

Euskal lanak:

1951c, "Euskal literaturaren etorkizuna"
1954g, "Axular, *Gero IV. argitaraldia Euskaltzaindiko LEKUONA apaizak prestatua eta aitzin-solastua*"
1956a, "Pio Baroja"
1956f, "Homero [Barandiaran'dar Salbador artak] *Ilias'ena (Iliada euzkeraz)*"
1956g, "X. Lizardi, *Bihotz begietan*"
1957g, "Sarrera-itz batzu", J. L. Alvarez Enparanza, *Leturia'ren egunkari ezkutua*, Bilbao"
1957i, "J. L. Alvarez Enparantza, *Leturia'ren egunkari ezkutua*"
1958i, "C. Sagarzazu, *Intza begietan*"
1959a, "Euskal itzak zein diren"
1959f, "P. Baroja, *Itxasoa laño dago... Xanti Andia itxas-gizonaren bizitza ta kezkak*. Yon Etxaidetarrak euskerara emana"
1960a, "Asaba zaarren baratza"
1961e, "Orixe'-ren eriotzean"
1962g, "Adabakiak. Ikasle"
1963g, "J. Oteiza, *Quosque tandem*"
1964g, "Gabriel Arestiri"
1970c, "Pro domo"
1977c, "Jaioko dira berriak"
1978a, "Euskararen bide luze bezain malkarrak"
1978c, "Arantzazutik Bergarara"
1979d, "Euskararen izterlengusuak direla eta"
1981a, "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak"
1981b, "Euskal literaturaren kondairarako oinarriak"
1981d, "Patxi Altunari erantzunez"
1982a, "Mendibururen hizkeraz hitz bi"
1984b, "*Hauta-lanerako euskal hiztegia*ren aurkezpena"

Era berean, Mitxelenaren erdal lan hauek ere baliotsuak gertatu zaizkigu:

1960b, *Historia de la literatura vasca*
1971d, "Lengua y cultura"
1981g, "Lengua común y dialectos vascos"
1981l, "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia"
1984d, "Lingüística inmanente y lingüística trascendente"
1984e, "Estratos en la toponimia alavesa"
1986b, "Contra Lekobide"
1987b, "Literatura en lengua vasca", *Tierras de España*. País Vasco.
1990, "De re linguistica"

6.2. Egitasmogilea
6.3. Euskal idazle eder-sortzailea
6.3.1. Antzezlanak
6.3.2. Hitz lauzkoak
6.3.3. Neurtitzez
6.3.3.1. Lizardi olerkariaren literatur inguramendua
6.3.3.2. Lizardi olerkaria
6.3.3.2.a. *Biotz-begietan*. Euskal lirika gorpuztua
6.3.3.2.b. Beste neurtitzak
6.4. Lizardiren hizkera
6.5. Lizardiren iturriak eta Lizardiganako eraginak
6.6. Ondore laburbilduak

6.2. LIZARDI EGITASMOGILEA

6.2.1. Mitxelena-Lizardi harremanaz jabetzeko, bestela esan, Mitxelenari Lizardiren egitasmoa zergatik egiten zaion erakar- eta imitagarri bere oso-betean aditzeko, ezinbesteko begitaratzen da lan honetan zehar sarritan aipatu den Mitxelenaren 1951ko artikuluari arduraz erreparatzea.

Ikusiko den bezala, Mitxelenak euskal literaturaren eta bere buruaren ibilbideari ezarri gogo dizkion egitasmo-helburuak hortxe zehazten ditu eta hauen argitan, hain zuzen ere, aditzen da Mitxelenaren Lizardirekiko atxikimendua eta honengan antzematen duen ikuspegiaren gardena.

Zilegi izan bedi urratsez urrats Mitxelena josten dihoan ideien miratzeari ekitea, eta puntu honen bizkarrezur, artikulu hauxe hautestea, Mitxelenaren beste lanetakoak, ardatz honi josiz.

Artikuluaren izenburuak, "Euskal literaturaren etorkizuna", mintzagaia argi zedarritzen du; hau da, 1951tik aurrera euskal literaturak, etorkizunik izango badu, nondik abiatu beharra daukan azalduko du Mitxelenak.

Ez da, bestalde gutxiestekoa, titulupeko erdal aipua. Keats[8] jotzen du begiz Mitxelenak:

> "A thing of beauty is a joy for ever:
> its loveliness increases; it will never
> pass into nothingness, but still will keep
> a bower quiet for us, and a sleep
> full of sweet dreams, and health, and quiet breathing"[9]. (1951c:21).

Halaber, ez bide da halabehar hutsaren ondorio –ikusiko den bezala–, Mitxelenak, etorkizuneko euskal literaturaz ari delarik, edertasunaren betibateko iraunkortasuna paperera eramatea.

Testua bera, gizabanakoaren "zinetako izaeraz" galdetuz hasten da. Galdetu bezain

---

[8]Beldur bat zuen, ordea, Lauxetaren bihotzak: Euskal Herriak Lizardi merezi zuen neurrian ez onartzearena; eta, horrela, irakurri-ala, gogoratzen dizkion poetak aipatzen dizkigu: Keats, Leopardi, Maragall. Beharbada, ez dira Lizardiren iturri zuzenak; baina, agian, estetika beraren jarraitzaile direnak". (Kortazar 1983:14).

Lauaxeta eta Mitxelena gogaide?

[9]Gogora, Oriberi alboraturiko harako:

"Edertasunak ukitu duen gauza –zion Keats-ek– beti da atsegin. Gero eta ederrago ageri da eta ez du inoiz ezerezak irentsiko". (1958h:98).

Mitxelenak edertasunari ematen dion betibateko iraupenaz gain, errenteriarraren itzuleraren berri jakiteko modu aukerakoa ere eskaintzen duelakoan gaude.

sarri, ordea, zenbaitek eman izan duen erantzuna ere jasotzen du, gizabanakoaren izaeraren zatirik "barrenena", "besteengandik banatu eta bereizten duen izaera berezia da".

Honelako erantzuna ematen duenaren gogoan, Mitxelenak bakartasuna sumatzen du, existentzialismoaren ildoko bakartasuna dela esan daiteke: gizakumea, nola eta zergatik ez dakiela, munduan bizi da eta oharturik dago bere biziaren irteerarik gabeko ahuleziaz eta ez inork ez ezerk ezin atera dezakeela suertatu zaion giltzapetik. Honenbestez, honentzat:

> ni ni naiz eta besteak beste, eta nere-nerezko dudana ikara eta nahigabe hutsa den bakartasun tristea. (1951c:22).

Ikusmolde honen ordainean, hain zuzen, aipatzen du lehen aldiz Mitxelenak Lizardi. Lizardik, "nork gere muñean dugun itzalera"[10] jo duenean, bakartasuna, ikara eta nahigabea ez baina, hurkoaganako lotura aurkitu du, gizabanakoaren osagai oro, besterengandik jasoa baita.

Lizardik kausituaren lekukotasunak ematen dio bide Mitxelenari autuazko bere ikuspegia azaltzeko, errenteriar prosagilea, olerkariaren gogaide agertzen baita norberaren hesi estuetatik ateratzeko premian:

> Eta nere nortasun hutsa jazten duten <zer> hauek ez dira nere buruari erantsi dizkiodan gauzak, nolanahi erantzi ditzakedan jazkiak. (1951c:22).

Hau da, gizabanakoa besterekin estekatzen duten "zerak" –hots, aipatu berri dituen "hezur, mami, odol, ohitura, ixuri, joera, sisnismen [sic], izaera, pentsabideak"–, ezin norberaren nortasunari gaineraturiko eraskin soiltzat hartu; horiexek, arbasoekin lotzen dituen kateak izaki:

> Geurekoikeriak maitasun hori maiz lainotzen badu ere, maiteago ditut –nereago alegia– nere nortasun berezia baino eta, hala behar bada, geure bizi bakar ezin berrituzkoa galbidean jarri ez ezik, galdu ere egingo dugu ezinbestean zori gaiztoa onarturik, aurrekoengandik ondorengoengana doan <lokarri zaharra> eten ez dadin. (1951c:22).

---

10 "Aren argibidez ni yabetu
enegan bazala norbait atxilotu
Ordun, yetxi nazu lezera,
nork gere muiñean dugun itzalera". "Gure mintzo" "(Arana-Goiri'ren oroiz ta eskarrez)" (Lizardi 1983:207).

Bidenabar esan, olerki hau dela bigarren argitaraldian, 1956koan, alegia, kanpoan geldítu zirenetakoa. Aurrerago berriz helduko diogu gai honi.

Lizardik euskarari ope dion lekuaz, hizkuntzaren normalizazio-beharraz eta ingurukoez, bereziki, Otaegiren (1992:47-61) "2.3. Euskararen normalizazio beharraren kontzientzia larria" atal zabal eta mamitsua. Garbi erakusten du Ikertzaile lizardizaleak noraino zituen argi Lizardik auzi honezazko ideiak, baita, egun soziolinguistikaren barrutikotzat joko liratekeen gaien garrantzia ere.

Areago, besterenak ere badirenak, "bereago" eta "maiteago" ditu Mitxelenak. Bestegandik bereiztekoak eta lokarriak kontrakarrean paratuz gero, bigarrenak hautetsi beste erremediorik ikusten ez du. Hots, norberaren "bizi bakarra ezin berrituzkoa", galbidean jartzeko, are galtzeko prest ere egon beharko da, "zori gaiztoa" onartuta ere, hagitz garrantzizkoago baitu arbasoekiko "lokarri zaharra" ez etetea, banakoarenak gordetzea baino[11].

Lizardi aipatu du lehen, eta --aitatasuna aitortzen ez dion-- Lizardiren adierazpidea[12] darabil orain, ideia berberaren azalpenean. Lizardigan ikusten du, beraz, Mitxelenak bere aburuaren irozgarria.

"Lokarri zaharra", besteekiko uztarria, buruen-buruenik zein duen zehazten du ondoren Mitxelenak; hizkuntza[13] da:

> Eta gainerakoen gain, gorago eta barrenago, gure izaera osoa biltzen eta barrentzen duen hizkuntza, barrengo mintzabeharrari hitz-iturri luzea ematen diona. (1951c:22).

---

[11] Lokarri honi ematen dion garrantziaren erakusgarri, hauta ziezkeenen artean, Mitxelenak Bilbon eginiko hizaldiko pasarte hau ekar dateke:

"Todos sabemos o creemos saber que las condiciones de la vida moderna, de la vida actual, no favorecen la variedad, se dice a menudo que ciertas reliquias del pasado están condenadas a desaparecer. Sería temerario, y no conduciría más que a resultados lamentables, el obstinarse en negar los hechos. La Historia es cambio y para sobrevivir hay que saber ajustarse a las nuevas condiciones de vida. Sin embargo, del mismo modo que una familia no es en buena parte tal sino en la medida en que conserva la tradición, los usos y modos que han ido transmitiéndose de padres a hijos, y cuando se abandona esta tradición sin otro fin que el de estar al día, no se produce otra cosa que gentes sin ser ni consistencia, así nosotros, si abandonáramos o pusiéramos en peligro algo que nos viene de muchas generaciones atrás, algo que precisamente porque no se puede ver o tocar tiene un valor muy superior a cuanto de material pueda producir el hombre, cometeríamos, como decía ayer Irigoyen, una especie de suicidio colectivo, o por lo menos de automutilación. Poseemos algo cuyo valor, por tratarse de un hecho cotidiano y consabido, no apreciamos en su justo valor, sobre todo en estos días en que sólo nos sentimos inclinados a dar valor a lo que entra por los sentidos. Pero, si no valoramos debidamente este bien espiritual que no sabemos muy bien por qué, por una tenacidad inexplicable de la que no hay otro ejemplo en la Europa occidental, ha llegado vivo hasta nosotros, lo apreciaríamos el día en que lo hubiéramos perdido o cuando, puesta en peligro su existencia, viéramos que se extinguía la esperanza de conservarlo vivo y presente". (1956i:121).

[12]
> "Lêna zegoen oraňaz
> ele gozoka. Bitzuok
> mintzo beraz ziarduten.
> Ene asaben lokafi zâfa,
> Yaunari zor, e-tzan eten!". "Asaba zâfen baratza" (Lizardi 1956$_2$:134).

[13] Gauza bat da, beraz, hizkuntzak herriaren pentsamolde, izaera eta gainerakoak noraino mugatzen dituen erabakitzea, eta bestea, arras bestea gero, hizkuntzak herri batekin, herria gizarte eta gizatalde den aldetik duen zerikusia. Urrutira joan gabe, egungo egunean Euskal herriaz mintzatzen baldin bagara. Euskal herria dentzan zerbait baldin bada oraindik munduan, mendez mende gorde dugun hizkuntzari zor zaio. Ez da, esan beharrik ez, hizkuntza bakarrik izan; bai, ordea, beste arrazoi askoren azkeneko erro eta oinarri". (1972b5:132). (Testu osoa Mitxelenak erantsia).

"Hizkuntza da, hain zuzen, euskal arimaren muina. Hauxe da Lizardiren poetikaren giltza (...) Hizkuntza ez da azal hutsa, hau da, ideiak, asmoak etabar adierazteko mintzabide huts (...) azala eta mamia da, aldi berean.

Hizkuntza gure euskaltasunaren muina da, eta gure nortasunaren konformatzaile. Ondorioz, euskara erro errotik ezagutzeak idazle baten lana euskaldunago bihur dezakeelakoan dago. Hau da, euskara erabiltzerakoan haren sena ez dela kontuan hartzen edo ez dela ezagutzen antzemanez gero, idaztanaren kaltzateari funtsezko osagarria falta zaiola deritzo". (Otaegi 1992:95). Humboldt-en itzala sumatzen du ikusmolde honen atzean.

"Izaera osoa biltzen eta barrentzen duena" eta norberaren barnekoen adierazpidea izateak zeinahi hizkuntza premiazko bilakatzen dutela oharturik ere, are baliozkoagoa gertatzen da euskaldunen kasuan, hizkuntzak bizi duen hil-ala-biziko kinka larrian, inon baino gardenago ageri baita beronen iraupenaren ezinbestea.

Orain arte esanaren harian josiz, ulertzen da Mitxelenak hizkuntzaren iraupenari ematen dion garrantzia ("zein gurea, zein ezin utzizkoa"). Hizkuntza bada herri baten nortasun-sortzailerik eragikorrena, hizkuntza galdu ahala herriarenak ere egin du. Bestela esan, "lokarri zaharra" etenez gero, gizabanakoa bere hiztun-taldearekin lotzen zuen lokarria ere eteten da.

Euskal literatura da, euskalduna arbasoekin lotzen duen lokarri moldezkoa eta ingurumari honetan euskararen estuasunaz, "lokarri zaharra" eteteko arriskuaz, arduratu diren euskal idazleen artean bi jarrera bereizten ditu Mitxelenak.

"Negar haria" da bata, erakusle-samalda duena, baina Mitxelenak, ordezkaritzarako honakoak begiz jotzen dituenena: Domingo Agirre, "errenteriar baten ametsa erdiragarria[14]" eta, hauek baino lehenagoko Arrese Beitia[15].

"Alaiagoen haria" da bestea, euskara "munduko plaza zabalera", lehen aldiz aterarazi zuen Etxepare erretoreak, estreinuaren jakinaren gainean hasia. Garaztarrak hasiriko errenkan, hain justu, kokatzen du Mitxelenak, berriz ere, Lizardi, honengan baizik ez baitu ikusten Donezaharreko erretorearen deiaren erabateko ihardeslea:

> Haslera horrek [Etxeparerenak] izan ditu ondoreak; bera baino hobeak beharbada, ez halare behar adinakoak. Detxepareren deiak laurehun urteren buruan bakarrik izan du erantzun betea: Lizardiren "Eusko-bidaztiarena"[16]. (1951c:24).

---

[14]"Errenteriar baten ametsa gogoratzen zait, ameskatz erdiragarria bera. Bere maitearen bila dabil zelai-baso-mendietan barrena eta ez du haren aztarnarik inon ere aurkitzen. Elz-ezkilak ere, haren hileta hotsa bederen eman behar zutenak, bilik daude. Eta holako ametsen batek gainerako euskal poeten gogoak, begien aurrean zuten edertasuna itsustuaz noiz edo noiz nahigabetu ez dituenik nola esan?". (1951c:23).

Eginahalak egin ditugu errenteriar hori nor izan ote zitekeen aurkitzeko, honela, Jautarkolen *Biozkadak*, beronek *Yakintzan* argitara emaniko beste olerki solteak, Errenteria Abaren poesi liburua eta beste miratu ditugu, zorte onik gabe, ordea.

I. Goikoetxeak (1972a:7), "*Mitxeleneren idazlan hautatuak* kalera berria"-ren "aldatzaileak", "Nik maite nuen kutuna" papereratzen du Mitxelenak ahotan duen errenteriarraren olerkiaren titulutzat joz. Ez du, haatik, argitzen zerk bultzatu duen halakorik zehaztera.

Arrasto honi jarraiki, delako ezkutuko olerkigilea, "Zubigar" (Jon Garbizu Salaberria) ote den pentsa al daiteke?

[15]Harl hau geroago ere ahotan du Mitxelenak. Hala nola, beherago ahotan hartuko den (1977c:44) edo beste honakoa:

"Ez dira faltatu negar eresiak eta deitoreak Kanpionek hainbat miresten zuen Arrese Beitiarenak esaterako, eta berau noski, ez da azkena izango. Hala ere, zenbait ekintzaile eta lanerako gogatsu den arren, zerbait betiko galdu izanaren minaz negartiak eta lantu jotzaileak nagusitzen dira euskaltzaleen artean. Honen lekuko ditugu Domingo Agirrek *Garoa*-n Joanesen ezpainetan ipintzen dituen gogoetak [Jat. *gogaetak*], erdi egia erdi alegiazko trena dela eta". (1978a:36,37).

[16]Karlos Otegik, Lizardiganako eraginak puntu iluna dela eta, Lizardiren hizketan oinarrituz, garaztarra eta zarauztarra garbi uztartzen ditu "Eusko-bidaztiarena" poeman, Lerbundik (1983) antzeman duen Baudelaire-renaren gainetik paratuz: Lizardik, Etxepareren gomitea laurehun urte geroago garatu besterik ez du egin.

Lourdes Otaegik ere elkarganatzen ditu, puntu oso bat, "5. *BIOTZ-BEGIETAN* MODERNITATEAREN "PRIMITIAE"" izendatuz (Otaegi 1992:339-341).

Lizardik, olerki jakin horren bitartez erdietsi du laurehun urte handiz erantzuteke zegoen delari erantzutea, hitzez gatzatu baitu euskal literaturak bizitzeko ezinbesteko duena.

Ez bide da Mitxelenari oharkabean itzuria Etxepare eta Lizardi elkarganatzea –beste arrazoiak beste–, aurrean bada, poemaren hasieran, "Unamuno yaun argiari" egiten dion eskaintzaren azpian:

> Heuskara, ialgi adi kanpora!
> Heuskara, habil mundu guzira!
> (Etxepare'k, orain lareuntsu urte). (Lizardi 1956$_2$:116).

paratu duela poetak:

> Honengan agertzen zaigu poetaren dohai harrigarria: ikasi gabe daki eta begiratu gabe begi argiz ikusten du; pentsatu gabe hitz sarkor betikoak ahora etorri zaizkio. Euskal literaturaren eginkizuna, behar-beharrezkoa eta ber-bertatik ekitekoa, ezin-hobeki agindua daukagu: larreko hizkuntza noranahiko egin, jakite-hegoz jaso, soin zaharrari gogo berria eman eta gogo hortan [sic] izar urdinetarainoko asmoak sortarazi. (1951c:24).

Poetari aitortzen dio Mitxelenak euskal literaturaren salbabiderako bete beharreko agindua. Garrantzizkoa dirudi Mitxelenak zeinahi poetari –Lizardiri, kasu honetan–, ikusten dizkion dohaiei erreparatzeak, hementxe kausi baitaiteke, apika, Mitxelenak, Lizardi egitasmogile eta bide-erakusle hautesteko karia, beste asmokiderik falta ez izanagatik[17].

Poeta berezko ezaupidearen jabe da[18], gauza baita ikasi gabe, jakiteko, begiratu gabe, argi ikusi ahal izateko, pentsatu gabe, "hitz sarkor betikoak" landatzeko. Ez du aurrerago alderatuko dion jakintzalariak nahitaezkoa duen ikasbide eta hausnartze luzeen premiarik gaitzaren gihia ukitzeko eta irtenbideak bilatzeko[19].

---

[17] Alde honetatik, interesgarria da Lourdes Otaegiren tesian jasotzen den ondokoa:

"Hizkuntzen etorkizunaren arloan duen zeregina dela eta, Lizardik olerkaria "laumaturgoa" dela esaten du, la-la aztiaren gaitasunak bere esku dituen pertsona da (...) Sarritan aurki daitezke Lizardiren artikuluetan idazlearen irudia eta zeregina prestigiatzera zuzenduriko saioak, eta hau alde batetik bultzatzen ari den Pizkunde literarioaren ingurumarian guztiz logikotzat jo badaiteke ere, berak olerkari izateagatik sumatzen duen gaitzespen edo iseka giroari eman nahi dion erantzuna ere izan daiteke". (Otaegi 1992:96,98).

Igarle izatearen ingurukoak zehazkiago beherago harituko ditugu ahotan. Olerkari-poetek aurkitu dute bere lana pisuzko etsi dutenen laguntza: garaiko haizeak oso alde sentitzen ez zituen Lizardi olerkariagan beragan ez ezik, baita urte batzuk geroagoko Mitxelena prosagile-jakinlariagan ere.

[18] "Lauaxeraren ustetan, Egia antzematen jakin du Lizardik: «Novalis nos dijo: "la poesía es la más absoluta y auténtica realidad". Pero más tarde Fauenbahc recalca: «La poesía más excelsa solamente se encuentra en la verdad absoluta»". (Kortazar 1983:13).

[19] Otaegik (1992:101) jasotzen duenaren arabera, Lizardi ere ohartua da olerkariaren dohai honezaz:

"Berak, ordea, poeta delako, prisma sublimadorea du, errealitate horretan urrea antzemateko gaitasuna du eta olerkian gauzaturik eskaintzen dio irakurleari".

Alabaina, ikusi eta hitz bihurtu ez ezik, Lizardi, euskal olerkaria da, bere burua herriarekin lotua ikusten duena eta erantzunkizunak bizkarrean hartzeko prest dagoena:

Arestian esan da garrantzizkoa dela Mitxelenak poetari alboratzen dion dohaia arretaz begiratzea. 1951ko artikuluan paperera jalkien —eta hona ekarrien— ondoan, bada beste lekukotasunik uste hau irozotzeko.

Honela, adibide xume bat ematearren, *mitxoleta* hitzaren iturburua argitu nahirik dabilela, Mitxelenari, frantsesezko *méchelette* eta euskal *mitxeleta* ahaide eta kide ez ote diren burura datorkio.

Lehenaren esanahia, 'espèce de petite prune tardive'[20] izaki, bigarrenaren jatorrizkoa ere ez ote daitekeen 'udazken-aldeko pinpilinpauxa'[21] izan aurkezten du. Eta hementxe kokatzen du Lizardi "poeta-begiz" hornituak asmatua:

> Horrela sortua badugu *mitxeleta* (eta toki-aldatze hutsa den *tximeleta*), poeta begiz asmatu zuen Lizardik, udazkenean, *zarpil egoak, ezkontzeko atsotu diranetakoak* (buruz ari naiz aipatzen[22]) ikusi zituenean. (1967e:254).

Baina, bestelako sakonagoetaraino iristen dira poetaren begi zorrotzak Mitxelenaren ustez, ikusi den bezala:

> Errainu artean bizi zen amesgile hark, egiazko poetaren dohaia izaki hori, begi argiagoak baitzituen lurreko gauzetarako jakintza gizonek baino. (1956g:65).

> Hay, sin duda, muchas cosas que ningún lenguaje humano ha podido expresar directamente hasta ahora y sólo por circunstancias y por alusiones podemos manifestar mucho de nuestra experiencia directa, externa o interna. Es mucho más fácil, aunque no lo parezca a primera vista, dar forma redonda a los axiomas de Peano, pongamos por ejemplo, que a sentimientos confusos que bullen mezclados y contrapuestos en nuestro ánimo. De aquí que, en esferas como la de la poesía lírica, los maestros de la palabra lo sean más por los atisbos sorprendentes que por medio de ella nos pueden ofrecer que por la precisión de su lenguaje. (1990[23]:134).

"Lizardiren artikuluetan jasoa dagoenez, hiru norabide dira orokorrean idazleak ekin beharrekoak.

Lehenik, maila kulturaleko hiztunari, eta orokorrean euskaldungoari, herri osoari zuzendurik, haiek euskal literaturara hurbildu eta beren kultura bertan islatzaurik ikusirik, euskaltasunaren aldeko jarrera linguistikoak, kulturalak eta are politikoak eragin behar ditu.

Bigarrenik, Espainiako intelektualei euskararen gaitasun espresiboaren frogak eskaini behar dizkie, euskarak duen prestigio gabezia, eta are irudi primitibo eta zantarra ezabatzeko.

Hirugarrenik berriz, euskal literaturaren beraren esparruan bernikuntzari ekitea, euskal literatura gaurkotu eta kultur maila egokia duten hizkuntzen artean, euskaraz ere olerkigintza duina egin daitekeela erakustea". (Otaegi 1992:97).

[20](1967e:254).

[21](1967e:254).

[22]Honela dio Lizardik "Urte-giroak ene begian" olerkiko "Ondar gofi" atalean:

> "Mitxeleta gofi, zarpil egoak
> maitatzeka atsotu diranetakoak". (Lizardi 1956_2:110).

Errepara olerkariaren *maitatu* aditza Mitxelenari gogoan nola itsatsi zaion.

[23]Mitxelena zendu ondoan plazara zen artikulu honen idazturiea, 1981 inguruan koka daiteke, lanean zehar egiten dituen zenbait aipamen direla medio.

Mitxelena jakintza-gizonaren hitzok argi erakusten dute, beraz, poetari aitortzen dion trebetasuna, adierazkaitzena ere hizkuntz gorputz argi bihurtzeko.

Lizardi poeta lirikoak bete-betean asmatu du euskal literaturak urratu beharreko bidea, poesi ikurritzez janztean, "Eusko-bidaztiarena" poeman gatzatuak gidari izaki. Eta poema horretarik, hain justu, ateratzen ditu Mitxelenak, euskal literaturak "behar-beharrezko eta berbertatik ekiteko" dituen lau eginkizunok: "larreko hizkuntza noranahiko egin", "jakite-hegoz jaso", "soin zaharrari gogo berria eman", "gogo horretan izar urdinetaraino asmoak sortarazi".

Biotz-begietan lanazko iruzkina azterkizun hartzean erabiliko den bideari -alegia, Mitxelenaren hitzen eta hauen iturburu Lizardiren arteko alderatzeari- eutsiz, hona nabarmen daitezkeenak.

Mitxelenak lautan banatu eta aldi berean batzen ditu, Lizardik bestela adieraziak[24]. Lizardiren poemako ataltxo batean, Mitxelenaren lehen hirurak irakur daitezke, ez haatik, Mitxelenak aldatu bezala. Lizardik, "izkuntza larrekoa noranaiko ere izan dadin" helburu bakarraren azalpenean, bi punturen ondoan, zehazten du nola otutzen zaion hizkuntzaren hedatze hori, jakite-hegoek igoz, soin zaharrari eutsiz baina gogoa berrituz, baita, Mitxelenak hemen estari uztén duen, "azal orizta, muin betirakoa" gordez ere[25].

Gainera, errenteriarrak aldatu ez duen honen ordez, Lizardik poema burutzeko adierazia, bere adimodutik iragaziz paratzen du; Lizardik: "Ta bêko gaiok agor-ezkeroz, / Iguzki'k ezin urtuzko egoz / (Ikar'ek ez bezelakoz) / goazeman zerura igoz, / izar urdiñetarañoko asmoz!" dioen bitartean, Mitxelenak, "eta gogo hortan izan urdinetarainoko asmoak sortarazi" dio.

Ikusten da, bada, Lizardirenean, aurreko beste poema-atalekin uztartzeko hitza, "hegoa" dela. Mitxelenaren ulermoduan, berriz, "gogoa" da hautetsi duen azkenaurreko ezaugarriarekin lotzen duena. Hau da, pentsa daiteke, Mitxelenak bere aburuetatik iragazten dituen Lizardiren hitzetan, premiazkoago edo nabarmengarriago, bederen, iruditzen zaiola, "gogo-berritzean" oinak finkatuz gora-asmoak sortzea azpimarkatzea.

Nolanahi dela ere, ohargarria da, Mitxelenak ez bide duela katea gotorrik ikusten, gogaide eta erakusle aitortzen duen Lizardirenak diren-direnean jaso beharrean, bere moldeei

---

24 "ORO-MINTZO
Baña nik, izkuntza lafekoa,
nai aunat ere noranaikoa:
yakite-egoek igoa;
soña zâr, befi gogoa;
azal orizta, muin betirakoa.
GURENTZA
Ta, bêko gaiok agor-ezkeroz,
Iguzki'k ezin urtuzko egoz
(Ikar'ek ez bezelakoz)
goazeman zerura igoz,
izar urdiñetarañoko asmoz!". (Lizardi 1956_2:118,124).

25 "Hain zuzen ere, besteen begietan ez-modernotzat agertzea ekidin nahiez, mundu zaharrekoa dela dirudien euskal hizkuntza eta kulturak ere modernitatean tokirik izan dezaketela frogatzen ahalegintzen da". (Otaegi 1992:111).

egokitzeko[26].

Hortaz, Lizardik euskal literaturari utziriko ordenua hortxe dago, eta honek agindua Mitxelenak jomuga hautatua. Alabaina, gailen iritziriko egitasmoaren gauzatzeaz galdetzeko orduak jo du Mitxelenaren ustez; hau da, Lizardik, 1931n idatzi zituenok, hogei urte geroagoko euskal literaturzaleek mamiz nola bete behar dituzten gogoematekoa.

Lehenik eta behin, Mitxelenak azpimarratzen du, igaro urteak kopuruz ugari ez izanagatik, handiak izan direla, oso, bitarte horretan sortu diren aldakuntza larriak direla medio.

Honenbestez, euskal literaturak arduratzen dituenek, nahitaez, zenbait galdera egin beharko dizkiote bere buruari eta horien argitan, erabakiak hartu:

> ea zertan garen, itxaropidean ala etsibidean; ea zein den gure eginkizuna eta, batez ere, gure lagundu nahia zenbateraino den. (1951c:25).

Mitxelenak bere erantzun zuzen eta erabatekorik ematen ez du, ezpada, itaun hauen garrantzia eta erantzunen premiaren larria indartzen, horretarako Paulo apostoluaren hitzez baliatuz:

> Haur ginelarik, geuron bizitza bestek zuzentzen zuen; etxea jasotzeko kezkakizunik ez genuen. Zama astun hori gurasoek zeramaten bizkarrean. Gero, berriz, gure gain hartu behar izan dugu. Euskal literaturari eta euskararen biziari buruz horixe ikas dezagun eta, ikastea nahikoa ez delarik, buru-bihotzetan josi: lan nekagarri hori, ia ezin jaso ahalako zama astun hori gure gain dagoela, ez duela bestek egingo, ez digula inork eramango. Eta aski murriztua eta erdi agorturik gureganaino heldu den hizkuntza aurrera ere biziko bada, gure eskuan dagoela ahalegintzea, orain arte inoiz ez bezala. Eta hortarako [sic] nahi hutsa, ondore gabeko nahia, eragin indarrik gabekoa, ez deta aski izango. (1951c:25).

Euskal literaturaz nolabaiteko kezka agertzen duenak ezin muzin egin dio kezkatzeak dakarkion erantzunkizunari, ezin, behialako idazle ospetsuen lepotik bizi; "lan nekagarria" bere bizkar soiletan datzala onartuta egin behar dio aurrera hautatu duen bideari, euskal literaturaren eta euskararen bizia balta jokoan[27].

Ez du bide samurra honetan sartu gogo duenak, jakin behar baitu zernolako lana bizkarreratzen duen, heldu zaion hizkuntza, literaturaren lehengaia den hizkuntza, "aski murriztua" eta "erdi agorturik", baitatorkio, jasan dituen erascaldiak direla medio.

Litekeena da, Mitxelenak, hizkuntzaren kinka estua autu duen honetan, bai barneko bai kanpoko kontrako indarrak izatea gogoan. Aipatu dituen hogei urte larri horietan, aldarte politikoak kalterik aski ekarri baitio euskarari, batetik. Baina bestetik ere, atzentzekoa ez da,

---

[26] Jokabide honek izan litzakeen ikuskizunak, aurreragoko utziko dira.

[27] Mitxelenak honetan ere Lizardi gogaide du. Aitzolek asmo zuen lan "salbatzaileari" jarriko erreparoak gogoratu besterik ez dago. (Otaegi 1983a, 1992; Otegui 1990).

euskaldun-euskalarien barrutian, nahikundeetako euskara garbiaren izenean, nolakoak egin diren[28].

Halaz eta guztiz, itsu-itsuan ez baina, "orain arte inoiz ez bezalako" ahalegina egin beharko dela oharturik, aurrera egin beharra dago, eta ez du aski Mitxelenak borondate hutsa; asmoek gatzatuetan islatu beharko dute.

Euskal literaturak jadanik iritsia ere ez du aski –Orixezko ataloan erakutsi bezala–; bide berriak urratu behar dira, horretarako, zenbait eginkizuni ahalik lasterren eutsiz:

> Denborari gogor egitea, etxeak hartu dituen kalteak nolabait konpontzea, hizkuntzak aurrerantzean ere bizitzeko behar duen kemenez indarberritzea, gure arloa da. Larre hizkuntza dena kale hizkuntza bihur dadin, hain maite dugun garo usaia –norbaitek gorotz usaia esango luke– zertxobait galtzea nahitaezkoa izango du[29]. (1951c:26).

Haur ziren oraingo jende haziei, nolabait esan, dagozkie ("gure arloa da") Mitxelenak hizkuntzaren barrutian hesitzen dituen honako lanok:

- denboraren halabeharrak hizkuntzari ekarririko maxurak konpondu, indarberrituz. Honenbestez, atzera begira, gaizki eginak zuzendu, hutsuneak bete.
- aurrera begira, lehen ere ahotan izan duen Lizardiren ikurritza, eduki gaurkotuaz bete; hots, "larre hizkuntza dena", zehazki, "kale hizkuntza" bihurtu.

Euskarak ezinbestekoa du "garo usaia" galtzea[30] bizirik iraungo badu, "zori gaiztoz edo zori onez" gero eta ugariagoak baitira euskaldun kaletarrak. Horregatik da beharbeharrezkoa euskaldun kaletar horien hizkuntzarekiko atxikimendua, baina indarberrilanean, nekez irabaziko dira premiazko diren eskuak, euskarak –eta euskal literaturak– hauen kezkabide berriei gorrarena eginik:

---

[28] Hauezaz mintzatu gara.

[29] Bat gatoz Azurmendik (1977:92) pasarte honezaz egiten duen irakurketarekin. Zegamarrak 1983an aldezten duen Mitxelenaren lan honezazko erabateko ikusmoldeak, ordea, ez gaitu asebetetzen.

[30] Lizardik berak agintzen duen bezala:

"LAŔE-LORE
Eder aunagu, mintzo yoria,
eder, benetan, garoz yantzia:
lafe-loretik eztia,
basotik euskal-mamia,
laister sortzen al-duk, Olerkaria!". (Lizardi 1956_2:116).

Hasierako deskripzioan esan ondoan, desio duen, "larrekoa noranaiko" hamaikatan jasoa eta ondoko "zernaitarakoa" ere aurrean eduki beharrekoak dira:

"AMETS-BIDEETAN BARNA
(...)
Ortzi oro ta egute oro
yaso, ikus-ala, ta abes gozoro...
Apaindu zernaitarako:
agi gai adirazteko
gizaki guzien alderdi ta asmo". "Eusko-bidaztiarena" (Lizardi 1956_2:122).

> Eta kaletarron buru-bihotzak ez izaki beti lehengo euskaldunenak bezain garbi. Barrenean bi gizonen burruka latza somatzen dugu – berriz ere Pauloren hitzak aipatu behar–, bihotz euskalduna eta buru erdaldunaren arteko burruka amaigabea: ohiturа burnizko katea baino lokarri etengaitzagoa baita. (1951c:26).

1951ko euskaldun kaletar askok ezin bere burua ezagut dezake behialako euskaldunaren ereduaren ispiluan. Lehenik eta behin, oraingoak, buru-bihotzak bitan banaturik sumatzen dituelako: bihotzak euskarara bulkatzen badu ere, burua erdaraz jantzia dauka[31]. Nahiz garbita-unaren kaltetan izan, barren-borroka horrek, nahasmendu horrek euskal mintzabidea izan beharko du:

> Eta euskara biziko baldin bada –eta gure aurrekoena ez baina geure izaera benetan azalduko baldin badugu–, gure herrietako biziera nahasia euskaraz jarri behar nahita ez: gaurko ezinegona, bizi beharra eta ezin-bizia, handinahia, diru-gosea, maltasun-gorrotoak; gaurko gizonen ametsak, zuhur edo zoro; ezerezaren gau beltzean –hiltzeko sortua–, nondik datorren eta zertarako den ez dakienak daraman huskeriazko ibilera galdua eta bera baino goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera behartzen duen indar ezkutua. (1951c:26).

Hortxe zerrendatzen ditu Mitxelenak 1951ko gizabanakoak –honenbestez, euskaldunak ere – bizi dituen barne-kezkabide aspaldiko euskaldunenak ez bezalakoak, eta hortxe, azken hitzetan, esanak, artikuluaren hasierara darama gaia.

Nahasmenduaren adierazleen ondoan, existentzialista-kutsuko "huskeriazko ibilera galduak" ere, euskaraz adierazpidea aurki dezan eskatzen du[32] Mitxelenak batetik, baina honen jarraian, lehengo harira itzuliz, norberarenez atzendu eta bere gaineko "indar ezkutuak" ere euskal mintzoa behar duela zehazten.

Honela, bada, artikuluaren hasieran elkarren kontra paraturiko bi jarrerok, hots, gizabanakoa hesiz inguratua ikusten duenak eta, Lizardik sinbolizatzen duen "lokarri zaharrean" norberak bere nortasuna aurkitzen duenak, biok, euskal adierazpidea behar dutela aldarrikatzen du.

Era honetan, berri-itxurako artegabide berekoiak ere aspalditik datorren harian zirtatuz, batenak ez baina ororenak izatea erdiets dezaketela ez ote den idarokitzen ari Mitxelena gogoeman daiteke. Hau da, euskal mintzoa lorkizun duten garaian garaiko larriak ere lokarri zaharraren luzagarri bilaka daitezke.

Lizardiz baliatu da Mitxelena –aldez edo moldez, izendatuki nahiz iragaitzaz– egitasmoa, lanaren nekeza eta gaiak zehazteko eta Lizardiz baliatuko da plazara gogo duen lan-gomitea egiteko ere:

---

[31] Oroi Orixe itzultzaileari leporaturiko harako "virtuosismoaren" iturburuaz (1961a:120). Aurrerago, Lizardiren "biberoiez hazitako euskaldunak" ere ahotan izango ditu.

[32] *Leturia'ren egunkari ezkutua* Txillardegiren nobelari eginiko iruzkinaz laugarren kapituluan adieraziei, aurreraxeago erantsiko dizkiogu beste zenbait, egunkari horren eta Lizardiren urte-sasoien ibilbideak berdinduz.

Eta gozen lehenbailehen Lizardik bere maitearekin amets-bideetan barrena egin zuen bidaldi luzea berritzera. Bizitz-lege zorrotza hauxe baita: besteren ederra bereganatzen ez duena bestek besterenganatzen duela. (1951c:26).

Lizardik Maiteder-euskararekin, "Amets-bideetan barna"[33] eginiko txangoa jotzen du begiz Mitxelenak abiatzeko, baina ez errepikatzeko asmoz, "berritzeko" gogoz baizik.

Lizardi gauza izan da euskara bidaldi luze eta berrietan barne abiaraziz euskal literatura ederrez jazteko, orain dute ordu oinordekoek lan horri jarraipena eman diezaioten.

Aforismo gisako bukaera kriptiko samarrez bukatzen du Mitxelenak pasartea[34]. Badirudi, Lizardik eginiko ibilgotik eskuraturiko ondorea euskal literaturaren bide berrientzako baliagarri zaiola: herri bat gauza ez bada bestek sorturiko ederra bere egiteko eta bere literaturan isla izateko, herri hori "bestek" menpeko izango du, "besterenganatua"[35]. Hementxe letorke Lizardi, hain zuzen ere, beste literaturen mailan –inolako debeku larririk gabe– tokia duen euskal lirika gatzatuz.

Hasieran jaso bezala, Lizardik erdietsi du euskal mintzoa betibatekotasunez jaztea, ederrez jantzi baitu, bihotza dei ezkutuei ireki baitie. Beharrezkoa da, beraz, poeten, eder-sortzaileen lana:

Olerkariek eginbeharra erakutsi digute eta bai aurrera ere –gure lurrak emango al ditu– erakutsiko. (1951c:26).

Alabaina, hain da eginbeharra larria eta zaila, ez da aski artikuluan lehenago ere ahotan izan dituen olerkarien lan soila. Eta hemen egiten du jauzi Mitxelenak, euskal literatura ez ezik euskara ere bizi dadin beharrezkotzat dauzkanak zehaztera:

---

33 "AMETS-BIDEETAN BARNA
Ez adi beldur, nere Maiteder:
baserriz landa nai aunat ager-
arazi, baztefik-bazter,
afoki; ezpaitun ezer
lurbiran edefik i bezain eder!". "Eusko-bidaztiarena" (Lizardi 1956_2:118).

34 Hitz ilunsko hauen argigarri genituzkeela beste ondokook uste dugu:
"Kultur alorrean zerbait sortzen duen herriak beretzat eta besterentzat sortzen du eta, orobat, besterentzat sortzen ez duenak ez du beretzat ere sortzen. Eta ezinbestean, besteri eman nahi eza dela medio, besteren mirabe eta mendeko bihurtuko da bai sail horretan eta bai bestetan. Hitz garratz bezain sonatuek diotenez, «aizkora arbolen errora ezarria da; beraz, fruitu onik egiten ez duen arbola guzia ebakia izango da eta suntara egotzia»". (1980a:65).
Hitz "sonatu" horien iturburua Testamentu Berriko Lk 3,9 eta Mt 3,10ean bide da.

35 Otaegik (1992:336) Lizardiri alboraturiko Humboldt-engandikako honen oihartzuna?:
"Horretaz gain, Lizardik hizkuntza euskal psikologia, nortasuna, mundu-ikuskeraren moldatzailetzat jotzen zuenez, garrantzi berezia eman zion okerrez ardura formal hutsa dela uste izan daitekeen honi: funtsezko puntua da hizkuntzaren moldaerak euskal mundu-ikuskera adieraztea, "gurea gaiturik, besteren gogo-menbetik" aska gaitzakeen tresna baita, Lizardiren ustetan".

Amesgileak nahiko ez direla –zori oneko amesgileak!–, eguneroko zeregina noiz eta nola egin behar den erakutsiko diguten gizon burutsuak behar ditugu. (1951c:26).

Honenbestez, olerkari amesgileen ondoan, adituen, ofiziokoen lana ere nahitaezkoa da. Baina arestiko bi jende-samalden ihardunak nekez izango du ondorerik bestegan oihartzunik iritsi ezean:

Eta beste guzion gain eta edozer baino gehiago, entzule eta irakurleen lana dugu beharrezko. Sortzaileen esanak hauek beren bihotzetan mattekiro gorde eta ernatzeko lurrik ematen ez badiete, halen mintzoa «tupiki ozen eta txilin burrunbaria bezala»[36], iraupen laburrekoa izango da. (1951c:27).

Ongi asko ohartua da Mitxelena mezuek ezinbesteko dutela hartzailea, hots, entzule-irakurlerik gabe[37], mezu-igorleen lana antzua dela. Honenbestez, etorkizunerako hirugarren zutoina adierazia dago.

Bada, haatik, laugarren bat:

Eta entzule-irakurleak gaitzeko gai direnak lanari lehenbailehen ekin beharko, gizonaren gaitasunak gutxitan baizik ez baitira berez sortzen. (1951c:27).

Gutxi batzuen ez baina, entzule-irakurle ahalik eta multzorik zabalenaren premia dagoenez gero, irakaste-ikasteak behar-beharrezkoak dira; euskalduna "entzule-irakurle" bilakatu beharra dago eta horretan, irakasle-prestatzaileek badute zer egina.

Beraz, egitasmogile diren poetek (Lizardik zehazki) bidea erakutsi dute; bide hori urratzeko, ofiziokoen (hizkuntzalarien, pentsalarien eta abarren) lana beharrezkoa da, aldian aldian nondik eta nola jo jakin dadin; maisu-irakasleena ere txit garrantzizkoa da, entzule-irakurleak (euskaldun letradunak) erdiesteko, eta, noski, azken hauek ere bere aldetik jarri beharko dute, komunikazio-katea osatuko bada.

Hona, Mitxelenak 1951n eskatzen dituenak, euskaldun guztiak, nola edo hala, barne hartzen dituenak. Ez dago urrutitik etorriko den salbazioaren esperoan egoterik, ez halako maisu aitortu ata goretsi jakin batzuen eskuetan etorkizuna uzterik; guztien laguntza behar-

---

[36] "eta azkenik norenak diren esan gabe berriz Pauloren beste hauek: «tupiki ozen eta txilin burrunbaria bezala»". (Altuna 1988a:28).
1 Cor. XIII,1 pasartean dute iturburua.

[37] "Zenbat falta zaigun ikusten duenak, nola esan urrunegi joan garenik? Irakurle sail bakoitzak -eta irakurleak ere prestatu behar ditugu, ez bakarrik idazleak- gogoko duen bazka hartu behar luke idazleengandik. Hemen eta bestetan, inorentzat ez diren irakurgaiak dituzu okerrenak". (1972f:59).
Orol Orbxeren erantzunaz.

beharrezkoa da; euskaldun "helduena", alegia[38]:

> Jakin dezagun, bada, egiteko hau hartzen badugu, geure bizirako lana hartzen dugula. Aurrekoen ondarea, oinordeko garenez, dagoen dagoenean, gogo onez eta inork behartu gabe, geurez hartu behar. Negar alferrik eta errenkurarik gabe lanean jarduteko, urteek zarpildu itzalia[39] - egia hau da, ahotan ez badarabilgu ere, euskal bihotz askoren ergarria - lehengora ekarriko ez bagendu ere, halabehar gogorrak menderatuko bagintu ere. Antzinakoen *amor fati*[40] hura - kristauentzat Jaunaren borondatearen onartze umila - aldez aurretik ongi ikas dezagun. (1951c:27).

Eginbeharra eta lanak banatu eta adierazita daude. Ez dago, halaz ere, lanaren gaitzari begiak hersterik.

Egungo gizonak - hutsetik sortu ez denez gero -, histori erantzunkizuna du. Arbasoen ondoko denez gero, haien zordun da; hau dela eta, Lizardik "bere muinaren itzalera" jo zuenean aurkituriko "lokarri zaharrari" eutsi behar dio, gogo onez eutsi ere. Honenbestez, etorkizuna, "lokarri zaharraren" berreskuratze hutsa ez bada ere, haren jarraipena da.

Eginahalean, lanaren lanez, saiatu behar, aurrera egiteko abagunerik egokiena bizi ez bada ere eta -artikuluaren hasieran ahotan izan duen- heriotzaren laino beltza beti aurrean izanagatik.

Hiltzeko sortua izatea ez da arrazoi askia, giza lanaren alferraren kariaz etsi eta eginbeharrari muzin egiteko.

6.2.2. Ikusi da Mitxelenak artikulu honetan, euskara kaletartu beharraz gain, besterik ere landatu duela[41].

Etsipenera makur zezakeen existentzialismo berekoiaren aurrean -itxaropenez, ez haatik, inozokeria itsuaz- herrian -hizkuntzan buruen-buruenik- kausitu behar dira nortasunaren irozgarriak. Atzoaz atzendu gabeko lana da etorkizunari begira proposatua.

Poetak berezko duen dohaiaz -hots, Lizardik eder-hitzez- erakutsi du aurreranzko bidea. Baina, euskarak egoera berrira moldatu beharra dauka, "kale hizkuntza bihurtu"

---

[38] "Hizkuntzari dagokionez, berriz, nik ez dakit behar adina konturatzen ote garen geure asmoak eta nahiak ez datozela beti bat, artzitik badirudirela maiz aski elkarren etsai. Batetik, "herriagana" hurbildu nahi dugu eta horra hizkuntza makurtu. Bestetik, hizkuntza batu, landu, eta eginkizun berrietarako gaitu. Nahi dugun lekura makurtzen badugu, ordea, ez dugu ez batasunik, ez lantzerik, ez gaitasunik izango. Horretarako, hizkuntza adina landu beharko ditugu hiztunak eta irakurleak, bestela, nahitaez, gutxi batzuentzat ariko baikara, gero eta gutxiagorentzat. Badirudi, gainera, gramatika poxka bat ere beharko dugula, katalanak eta horretan saiatu bartira gu baino lehenago". (1965g:142,143).

[39] "Urte yoanen zitala!
Zuek zarpildu-itzalia
lênera nork lekardako?
zabal-narda nuen baratza,
gaur ain estu, gaur ain gabe!". "Asaba zâfen baratza" (Lizardi 1956_2:128).

[40] Orol *Peru Leartza'ko* Txillardegiren lanari beztua (1960d:141), estoikoen *amor fati* hau eta Peruren Indiako etsipena kontrakarrean ipiniz.

[41] Alde honetatik, murritzegia iruditzen zaigu Azurmendiren (1982) artikulu honezazko kalifikazioa.

beharra[42], alegia, eta horretarako ez dira aski arnesgileak, euskaldun ororen premia dago, ez baitago salbabide osoa ekarriko duen halako formula miresgarririk, jakinaren gainean eginiko egunoroko lana baizik.

Egitasmo hau bete dadin, Lizardi du Mitxelenak, bide-gidari begiz joa.

Hiru urte geroago, Lizardiren hondarreko asmoa ez arbuiatuagatik, 1951ko artikuluan adieraziriko asmo hori egunean jarri beharraren zantzu zehatza irakur daiteke:

> Asko jakina zen Axular eta mutila, gainera, zekiena esaten. Detxeparek, lehenengo euskal autoreak, plazara atera nahi zuen euskara etxe zokotik. Lizardik, oraintsuago, ezkon bidai luzea eginarazi zion herriz herri. Baina ez da asko, zernahitarako izateko, hizkuntza bat herriz-herri ibiltzea: aldiz-aldi eta garaiz garai ere ibili behar du, herrietan barrena egin dituen ibilaldietatik aberastasun ugari jasotzen baitu. (1954g:40)

Etxepare eta Lizardi goretsiz elkarganatu ditu Mitxelenak 1951an eta elkarganaberritu 1954ean. Alabaina, garaztarrak eta zarauztarrak eginei, murritzago (murritzegi) irizten die, artean talde berean aipatua ez zuen Axularrenari baino.

Aurrera egite mailakatua ez ote duen Mitxelenak sumatzen hiru egileon lanetan pentsa daiteke.

Honela, Etxeparek, "etxe zokotik, plazara" atera du euskara, euskal barrutitik irten gabe, halaz ere. Lizardik, euskara-emaztearekin, Euskal Herritik kanpo egin du txangoa[43], bere ederraz jabe dadin, besteren aurrean zer lotsa ez duela egiazta dezan[44]. Lizardirekin, euskarak Euskal Herriaren mugetatik harantz jo du.

Baina, ibilbide biotan, Mitxelenak hutsune berbera atzematen du: ongi da euskara esparru jakin batera ez mugatzea; ez da aski, ordea; ez, bederen, ibileretatik deus itsasten ez bazaio, ikusle huts bada. Horregatik, herriz herri ez ezik, garaiz garai ibiliaren errainua ere beharrezkoa du, zernahitarako bilakatuko bada. Hau da, Lizardik euskara bazterrik bazter abiarazi duenean erdizka baino ez du asmatu, txango hori kanpokoengandik ikasi asmoz ez baina, norberarena sendotzeko egin baitu.

---

[42] (1951c:26).

[43] "BIDAZTIAR-DEI
Abeiaren abots eztia,
gogamenaren ezkon xuria:
ekatzan esku guria,
atorkit geldi-geldia,
uztagun, aldikoz, Euskalefia". "Eusko-bidaztiarena" (Lizardi 1956_2:116).

[44] "AMETS-BIDEETAN BARNA
Ez adi beldur, nere Maneder,
basefiz landa nai aunat ager-
arazi, baztefik-bazter,
afoki; ezpaitun ezer
lurbiran ederik i bezain eder!". "Eusko-bidaztiarena" (Lizardi 1956_2:118).

Adierazgarria, bestetan ere esan eta esango dugun bezala, kanpora begiratu beharra norberarenak neurtzeko.

Hemen hartzen du Axularrek mamituak esanahi osoa, Axular Bizkunde aroko berantiarra izaki[45]- saiatu baita, garaikoen ildotik, maisu hautetsiak zituzten greko eta erromarren moldeak ("hamaika gai, esaera, ipui eta gertakari"[46]) bereganatu eta euskarara iraultzen. Ez datza, haatik, egokitze soil honetan Axularren asmabetea:

> Ez zen Axular «euskara lantzen» ari: besterik zeukan buruan. Eta gizonak - beti bere buruari begira egon gabe- besteri laguntzen dionean bere burua jasotzen duen gisa[47], horrelaxe lantzen dira hizkuntzak ere: gauza eder, behar, jakingarriak adierazteko bide bihurturik[48]. (1954g:41).

Axularrek euskara lantzea erdietsi du zeharkako bidetik, hau da, lantze bera helburu ez duelako, mami jakingarriak adierazteko euskaraz baliatu delako, hain justu. Eta jakingarriok, arestitxoan paperera aldatu den bidetik jalki ditu, kulturbideen errainua daramatela, alegia.

Hementxe bide datza Etxepare-Lizardien eta Axularren arteko aldea. Haiek, euskara bera mintzagaia izaki, "plazara", "herriz herri" abiarazi dute, mundu zabaleko - mendebaldeko, gutxienez- bide urratuen, jende ikasien, oihartzunari belarriak behar adina zabaldu gabe, haatik[49]. Axularren kezkabideak, berriz, hizkuntzaz atikakoa izanik ere, mamituak, hizkuntzari berari halako maila-igotzea ekarri dio.

Ikusten den bezala, Mitxelenak Lizardiren egitasmoa egoki eta imitagarri etsiagatik,

---

[45] Laugarren kapituluan jaso bezala.

[46] (1954g:40).

[47] Errepara berriz ere, aztertu dugun aurreko artikuluan zioenaren ildoko ideia: nor bere muga estuegietatik irten beharra, alegia.

[48] Hau da, kanpokoen erasoei erantzutea beste helburu ez izateaz atzenduz?
Itzuliko gara auzi honetara ondorioetan.

[49] Ikuskizunik ote, Mitxelenak Lizardigan eragin jakinik ez antzemateak? Hala balitz, literatur kritikariek nabarmendu uste dituzten kanpoko nahiz bertako eraginek, ikuspegia aldaraziko ote zioten errementar lizardizaleari?
Otaegik (1992:152), esate baterako, Lizardiren berarizkotasuna artoturik ere, sumatzen duen bezalako honek?:

"Harrigarria badirudi ere, Lizardiren olerkigintzari, lirikaren zedarripenari eskainiriko pasarteek literatura manualeetan Espainiako Barroko garaiko kontzeptismoaren irizpide nagusitzat aipatu ohi diren definizioekin bat egiten dute. Hitzez hitzeko definizio kointzidentzia honek egiantza handia du, Lizardiren formazio literarioaren muga akademikoak garaiko batxilergo eta Unibertsitaterako "preparatorio" ikasketak direnez, eta geroagoko irakurketak ez bait zuten historia literarioa edo kritika literarioarekin harreman handirik izen zuenik iradokitzen (...) Labaienek nolabait, estilo kontzeptistaren beste iturria erakutsi zuen, hots, Gongorarekiko eta Barroko garaiko kontzeptismoarekiko Lizardik zuen zaletasuna".

Eta aurrerago, gongorazaletasun horren atzean dagoena argitzen du:

"Lizardik Gongora literaturaren historiarako zertan erreibindikaturik ez zuela bistan da. Baina olerkariak estetikoi izateko eskubidearen aldarrikapena egin beharra bazegoen euskal literaturaren esparruan eta, ene ustez, zentzu horretan ulertu behar da batez ere Lizardiren Gongorazaletasuna, bai eta literatur mintzaira "jasotzeko" eta dignifikatzeko hautaturiko bide kultoan ere". (Otaegi 1992:336).

Itzuliko gara puntu honetara.

erabateko asmo hori zehazterakoan egiten dizkion zertzeladek erakusten dute zarauztarrari zor dion miresmena ez dela itsua eta –besterengatik esan bezala–, aztertu eta ikasi ondoan, aurrera egitea, gorago jotzea beharrezko daukala.

1951ko lanean, alde-giro berriei egokitu beharra azpimarkatu du. Orain, mendebaldeko kulturaren oinarri direnen jakinduriari muzin egitearen, hau da, euskal barruti soilekoen mugetan gelditzearen bidegabekeria eta honekin batean, hizkuntzaz beraz etengabe aritu ordez, euskal mintzabidea hartuko duen edukiari erreparatu beharra[50].

6.2.3. Lizardiren egitasmoaren huts-beteen kontu-emate honetan ekarri behar den Mitxelenaren hurrengo lana, *Biotz-begietan* poemategiko olerkien 1956ko bigarren argitaraldiari eginiko iruzkina da, aurreraxeago astiroago aztertuko dena.

Lizardik poesi jantziz utzi dituenen harian, zarauztarraren ekarrien zerrendan, honek agertu duen izakien izaera itxuraberritzeko dohaia hartu du Mitxelenak ahotan:

> Ez dut nik esango, harrokeriaz mintzatzea litzateke eta, euskal arima[51] zer-nolakoa den adituera eman duenik[52]. Bai, ordea, adierazi duela zein den euskal eredua, euskaldunik gehienok, denok ez baldin bada, maite dugun ametsa, xamurtasunez eta ixiltasunez nahasia. (1956g:64).

"Euskal eredua" adierazi du[53], bada, Lizardik, euskaldunek maite dutena eta gainera, desioen munduan ez ezik, biziarenean ere baliagarri dena:

> Ez da ametsa hutsa, behin bederen mamitu baita, Lizardigan. Haren gogo erne, beratz eta irrikor, bare eta aldartetsuak –iguzki eta laino, eta hodei nabarrak zeruan barrena lasterka– opa zuen bizi

---

[50] Hauxe bera aldarrikatzen du 1956an:

"Ken dezagun, arren, burutik euskara. Mintza gaitezen honetaz edo hartaz –euskaraz, bai, orduak eta gaiak eskatzen duten guztietan–, baina gaiari begira eta ez hizkerari bakarrik". (1956b:132).

[51] "Pizkunde aroko idazleetan artean, eta batez ere, arte nazionalari, herri-ertiari buruzko kontzepzioak, gerraondoko literaturan eragile bizkorrak diren Koldo Mitxelena edo Txillardegi bezalako idazleetan ere badirauen *euskal animaren* errealtasunaren kontzeptuaren inguruan eraikitzen dira (...) Mitxelenaren zenbait artikulutan [gure 1951c eta 1956g artikuluetako aipu hemen aztertuak jasotzen ditu oin-oharrean] ikus genezake euskal animaren kontzeptu horren iraupena, eta inongo zalantzarik gabe, honi dagokionez, Lizardiren kontzeptua hartzen du oso osorik, hark erabili zituen metaforak eta hark eman zien zentzu eta guztir". (Otaegi 1992:93).

Gure aztertan honetan zehazki azaltzen saiatu gara.

[52] "Arnaut Oihenart" hitzaldian (1953b:56) ere esana du halako "entelekiarik" inon baden ez dakiela.

[53] Kortazarri (1986:11) berriz, harrigarri samar egiten zaio Mitxelenak Lizardigan azpimarkatzen duen alderdi hau:

"A este respecto resulta curioso que el título de su libro *Biotz begietan* [sic], que puede encontrarse en un verso de Leopardi, se haya interpretado siempre como genuinamente vasco".

eta heriotza hortxe dago, hitz gutxitan emana, «Urte-giro»-en azken hogeitasei bertsoetan[54], eta ez luke inork, burniz eta tupikiz ondu nahi balu ere, irudi sendoagorik sortuko[55]. (1956g 64).

"Eusko-bidaztiarena" poeman ikusi du Mitxelenak 1951n euskarak behar duen hizkuntz egitasmoa; "Urte-giroak ene begian" ederlaneko azken hogeita sei bertsoetan, berriz, Lizardik –Lizardiren gogo berebizikoak– mamitu dituen euskaldunen amets-ereduak, "opa zuen bizi eta heriotza".

Inork ora ez ditzakeen irudiak sortu ditu olerkariak eta irudiotan euskaldunen amets maitea landatu. Hau dela eta, marra arteko "iguzki eta laino eta hodei nabarrak zeruan barrena lasterka" –metafora, naturatik harturikoez antolatzen du Mitxelenak adierazpidea; hau da, Lizardik irudi bidez adierazia ber moduan itzultzen du Mitxelenak:

Oi, zein dan ituna
bêra-bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Giroen argia galtzerakoan
lên-oiartzuna dut ozen gogoan.
Iru giro izanok, nik dei ta atozte:
nork-zeren sarla ekardazute;
batak itxaro, besteak berbizte;
irugafenak bizitza-indar bete.
Oro bear zaitute ene biotzak,
Lên-min baidamada neuritz zâfen otsak!

(*Negu*).
Ikus bezat, Yauna, bein ta beſiro,
otalore eziñegona...

(*Udabeli*).
Bekusat sagasti gazte elurgiro,
udalen-sortoge dana.
Ikus bitzat arako irusta-saĩak

---

[54]Hitz hau dela eta, Mitxelenak dagoen nahastearen errainua itsatsia darama:
"Recuérdese, por otra parte, que vasc. *bertso, berset* tiende a la ambigüedad, ya que en el uso popular más bien significa estrofa". (1986b, *SHLV*.855).

[55]Mitxelenak hain goragarritzat dauzkan irudi hauek A. Lertxundik ez bide ditu maila berean, oso zehazki ez dituela aztertu aitortzen badu ere:
"-Sinbolismoa: sinbologia arrunt samarra poemagintza osoan, zehatza «Eusko bidaztiarena» poeman, hor-nonbaitekoa alderdi honetatik zehatzegi aztertu ez dugun «Urte-giroak ene begian» poemario luzean (konstata beza irakurleak, poema luze hau izan zela orduartean eginkizun lirikorik anbiziotsuena euskal letretan)". (Lertxundi 1983b:113).

Halere, *Jakin*en ale horretako aurreko beste artikulu baten oin-oharrean, irtziaren gogorra leuntzera etor daitezkeenak esanak ditu:
"Egia esan, sinboloak aski primitiboak dira frantses sinbolistekin konparatzeko, baina kontutan hartu behar da beti ere Lizardiren erreto poetikoa zein ingurune kulturaletan mugitzen zen. Sinestesien erabilkera zuhurra, imajina ausartek imajina topikoekin gordetzen duten oreka... Guzti hau kontutan izan gabe ez da legezko Lizardirengana Baudelaire-rengana bezala jotzea. Baudelaire-k tradizio izugarria zuen aurretik. Ez, ordea, Lizardik". (Lertxundi 1983a:100).

eskuan dituela ardo-txanbiłak.
Entzun bezat inoizko olerkaria,
zelaiean bitzun lur-yauregia.

(*Uda*).
Yainko-muño-gañetara baño lên
(edeła bata bizia!),
ufezko itsaso bebit urduria,
itzal dudala laguntzaĺe lerden.

(*Udazken*).
Ta udazken-atsafeko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko Betean! 1930. (Lizardi 1956$_2$:112-114).

Mitxelenak begiz joriko hogeita sei bertso-lerro horietan Lizardik poema burutzeko urte sasoi guztiak hizketan jartzen ditu, nork berarizkoena azalduz; hortxe laburbilduko litzateke urte osoaren joana, heriotza azkena duen bizitzarena[56].

Itxaropenez beterik amaitzen du Lizardiren urte-sasoi hiztunak; halaber, apika, Mitxelenarentzat, euskal bizitzaren ereduak:

> Maiz ari gara euskalduntasunari buruzko asmo eta lanak adierazi beharrean. Zertarako? Adieraziak dauzka Lizardik, ez guk esan genitzakeen baino ederkiago bakarrik, baita zehatz eta zorrozkiago ere. (1956g:64).

Formulaberri-premiarik ez duen hilburukoa utzi du Lizardi olerkariak, *euskalduntasunaren* zerak, zehatz, zorrotz eta ederki adierazi baititu; beraz, ez da zer ibili euskalduntasun-ereduaren gainean atzera eta aurrera:

> Asaben lokarri zaharra ez baldin bada eteten, ez dugu besteren beharrik. Aski genuke beti begien aurrean edukitzea euskarari "amets-bideetan barna" eragin zion ibilaldi luze hura. Euskarak inoiz egin duenik ederrena, eta halare, egiteko –gerok egiteko– dagoena. (1956g:65).

"Asaba zâfen baratza" eta "Eusko-bidaztiarena"-ren aipuak dituen pasarte honetan berriz ere egiaztatzen da Lizardi olerkari-igarlea hautetsi duela Mitxelenak gidari eta bide-erakusle. Lehengo hariari heldu eta, "izkuntza lafekoa noranaiko" bilakatu gogoa –lehen ikusi bezala, "amets-bideetan barna" abiatuz erdietsi desio duena– jendartera baitu.

Alabaina, Lizardik bere maitearekin egin bidaldiak, euskarak sekula egin duen ederrena izanik ere, ez du egitasmoa agortu, euskaldun guztion erantzunkizuna baita ("gerok egiteko dago") bidaldi hura berritzea, 1951n zioen bezala.

---

[56] Orixek lehen argitaraldiaren sarreran azken hogeita sei bertso-lerroez ez baina azken hogeita hamabiez honakoa dio:

"IV ONDAR GORRI. Ausaz, oberena. Lau urtaroen zfua berekin du. Azken zatia biotz-bxuria du, sendoro ordea.

Arrigarria da zati au. Nik ezagutzen dudan lirikurik aundienaren zatirik ederrenari batere ez dio zorrik".

6.2.4. Lizardik urratuetan planto egiterik ez dagoela eta, geroko euskaldunen ardurakoa dela egitasmo hura eduki berriz indarberritzea da, oraindaino aztertu diren Mitxelenaren hiru lanotatik azalera den mezuetariko bat.

Ber mezua eta Lizardirenak berritu beharraren sustraien argibidea, Txillardegiren *Leturia'ren egunkari ezkutua* eleberriari Mitxelenak aurrean paraturiko sarrera-hitzek ematen dute (1957g)[57], aitzin-solas honetako atal oso bat, Txillardegiren lana eta Lizardiren "Urte-giroak ene begian" berdintzeari, hain zuzen ere, eskaintzen dio eta:

> *Leturiaren Egunkariak* lau aldi ditu, lau *tempo*, sinfonia batek bezala[58]. Lizardiren *Urte giroak* bezala, gainera, urte-sasoien izenak daramazkite hasieran. Berez bezala dator horrexegatik, ezer behartu eta bihurritu gabe, *Urtegiro* haiek eta *Egunkari* hau elkarrekin berdintzea nahiz formari nahiz mamiari dagokionez, elkarrengandik hain guztiz beste direlarik ere. (1957g:141)

Txillardegik eta Lizardik, laukote beraren gainean eraiki dituzte lanak, lau urte-sasoien izenburupean antolatu baitituzte ondokoak. Hortxe, frogarik behar balitz, "berez bezala" alderatu ahal izateko irozgarria; antolamenduen arteko antzen handiak zilegiztatzen du bestela hain desberdin direnak, itxuraren eta mamiaren aldetik elkarren parean jarri ahal izatea:

> Duela hogeitabost urteko gizaki guztiak ez ziren Lizardi, baina gizarteko gailur garai hura[59] bere aldiko semea zen, edozeinen antzera. Gaurko nornahi ere ez da Txillardegi, baina Txillardegi gaur gaurkoa dugu, inor bada. Bestalde, eta hori duzue okerrena berdinketan hasteko, Leturia ez da Txillardegi, Txillardegiren umea baizik, gehienez ere. (1957g:141).

Lizardi bere gisakoak, suertatu zen garaiko errainuak eraman bezala daramatza bere gisako den Txillardegik ere, nor bere aldiko seme-alaba baita. Alderaketa oztopa dezakeen gertaritzat dauka, halaz ere, Mitxelenak, Leturia Txillardegi bera ez izatea.

Alabaina, debekua ez da itxuraz baino debeku ("Leturia ez da, beraz, bere aita, baina badu aitaren eitea"), nobelagileak, Txillardegi hezur-haragizkoaren eta honen kideen "nahigabe zama astuna", Leturiaren bizkarrera aldatu baitu:

---

[57] Laugarren kapituluan, hau (1957g) eta honen aldakia dena (1957i) aztertu dira. Hemen, Lizardirekikoan finkatuko da oina.

[58] Egiazko lirikaz aritzean ikusiko dugu musika darabilela Mitxelenak konparagai.

[59] Koma baten gorabeherak, guztiz pareko bi erdal testuren irakurketa desberdinak sortzeko bidea ematen du, "gailurra", kasu batean Lizardiren lirika-lanak direla eta bestean berriz, Lizardi bera dela adi baitaiteke. Hona, hurrenez hurren:

"En sus mejores poesías, la más alta cima de la lírica vasca, nos ha dado a la vez el drama inolvidablemente animado de las horas y las estaciones en el paisaje vasco...". (1958a:375).

"En sus mejores poesías, la más alta cima de la lírica vasca nos ha dado el drama de las horas y de las estaciones en el paisaje vasco...". (1960b:146). (Beltz. gurea).

> Ez hori bakarrik. Hobeto mintzatzeko, Kimikak - eta Literaturak orobat - ohi duen eran, hain larrimin hutsezkoa egin du, non ezinak berak ez du atzeraziko. Guri, ohitura lagun, egunoroko huskerietan murgiltze nahiak, halabeharrari amor egiteak ematen digun eraman-indarraz zeharo erantzi du. (1957g:141).

Txillardegik Leturia, aldi berean jantzi eta erantzi du. Irudimenezko pertsonaren jazkia, "nahigabe zama" eta "larrimin hutsa" dira. Baina bigarren honek ez ote duen eraman Mitxelena, Leturia, sinbolo huts -errepara Kimika tartean sartzeari- bilakatzeraino, susmatzeko bidea ere eman dezake. Eta alderdi berberak, Mitxelenagandik eta "gu" zehaztu gabe baten atzean egon daitezkeenengandik urruntzera ere ez ote duen makurtzen errezeloa biz daiteke.

Izan ere, biziaren irozgarria, aurrera egiteko "eraman-indarra" sostengatzen dituen bi ezaugarriak, egunorokotasunean murgiltzea eta halabeharraren indarraz jabetzea, alegia, Mitxelenak bere buruagandik hagitz urruti ikusten ez dituen bi ezaugarri, ez baititu Leturiagan kausitzen. Horixe da Leturia eranztean saihetsean utzia.

Aipatzen den urruntasuna indartzen dute, testuan Leturiaren kontrakarrean paraturiko "gu" horrek ez ezik, *amor fati* delakoaz 1951n esanak[60], aurreraxeago aipatuko direnak[61], eta hiru urte gerogo, Txillardegiren bigarren lanazko iruzkinekoak[62], jaso bezala.

Beraz, alderatze bera zilegiztatuta baina bi idazleenak zehazki berdintzen hasi aitzin, Mitxelenak garbi adierazten du zertan ez datorren Txillardegiren ikusmoldearekin bat[63].

Egitura beretsua izanagatik, ez dute euskal idazle biok urte-sasoi bera begiz jo, ez abian ez jomugan. Gainera, egile bakoitzak aukeraturiko hurrenkera esanguratsua gertatzen zaio Mitxelenari.

Lizardik, neguan abiatu nahi izan du, negu gorrian ez baina, "udaberriaren zantzu garbiak nabarmen zirenean baizik". Amaitzeko, berriz, udazkena hautetsi du, udazkenaren gainbehera hastear dagoenean, "gau beltzaren hurbilak eguna inoiz baino desiragarriago bihurtzen duenean"[64]; hau da, egun argiaren irrikaz, itxaropenez burutu gogo du ibilbidea: argi itzalixetik hasi, argia piztu zain amaitu; argitik argira[65].

---

[60](1951c:27).

[61](1957g:143).

[62](1960d:141).

[63]Ikusiko den legez, honek ez du, halaz ere, ekarriko, beste gabe, bigarren konparagaiaren errenkan, Lizardirekin orpoz orpo, alegia, kokatu behar denik.

[64](1957g:142).

[65]Ber morluan aditu du Lizardiren ikertzaile Karlos Otegik:

"Al final del recorrido, el otoño apela a una nueva revitalización de la naturaleza; con el invierno vuelve a iniciarse el ciclo vital. Lizardi no considera el invierno como etapa radicalmente nocturna. Separándose de la visión tradicional que ordena las estaciones según la serie primavera, verano, otoño e invierno, abre el ciclo con esta última y lo cierra con el otoño (...) El invierno (...) no es la estación de las sombras y de la muerte, no constituye la etapa final, sino la primera, el depósito y refugio de la vida". (Otegui 1990:583).

Txillardegirenean, berriz, ez dago halako borobiltasunik, udaberri argitsutik negu ilunera iritsi eta bertan bukatzen baitu ibilia.

Lizardik, bestetik, ez dio zalantzari artesiturik uzten, ez du zer izan kontentagaitza, biziak eskaintzen dizkionak poz-iturri zaizkio, oso zutoin sendoaren gainean eraiki baitezake bizi hori: fedearen gainean, alegia. Ez barnetik, ez kanpotik antzematen da bere lanean pozaldi eta patxaraldi hori astinduko duen erasorik, bere buruarekin eta ingurumariarekin pake-zorroan bizi da[66].

Lehengo lokarri beretik, arbasoengandikako bizimodu, aztura, iritzi, sinesmen eta abarrak gehiegi aztertu gabe, ezpaiari tarterik uzteke, onartu, bereganatu eta, axaleko ukituak gora-behera, betiko modu beretsuan jarraitzean oinarritzen da Lizardiren eta besteren bizimodua.

Atsedena eta atsegina nagusi diren bizimodu hau ez da, hala ere, Lizardik asmatua, ez da ihespidea. Garai hartako Euskal Herri zuhaitzez jantzia jotzen du begiz Lizardik ederlana mamitzeko, hau da, egiazko ispilu horretan begiratu besterik ez du egiten Mitxelenarentzat; ez dago, bada, asmatze-ihespideen premiarik.

Baina... orduko, Europan eta mundu zabalean lurrikara baten zantzu eta dardarizoak entzuten eta sumatzen hasiak dira; ez da honaino, ordea, astinaldi horren oihartzunik iristen:

> Dardarak ez gintuen artean ukitu edo, ukitu bagintuen ere, begi-belarri erneak eta arima urduria behar ziren zirrara sumatzeko. (1957g:142).

Ez bide da Lizardi Mitxelenak eskakizun dituenen jabe: urduritasun egonezinik barnean sumatzen ez, eta, gainera, "gorra" da.

Horregatik, beharbada aurrerago zehaztuko diren hizkerazkoen ondoan, aldaketak hain bortitzak izanik, harrigarri egiten zaio Mitxelenari, miresgarri, "Lizardi bat sortu zen garaian sortzea"[67], ez Lizardi garaiz beste bizi delako, Euskal Herri hura, Lizardik bizi eta jaso duena[68], –munduaren, edo munduaren parte baten behinipehin– ibileraz beste bizi

---

[66]Oso bestelakoak dira Otaegi Lizardiren aztertzaileak (1992:28,29,327-332) erakusten dituen ondorioak, Mitxelenaren iritzi hauek errotik kolokan utzi eta are deuseztatzeraino daramatenak, hain zuzen ere.

Ikertzaile bezamarrak, gogoan hartu beharreko besterik ere badio:

"Orixek adieraziriko irizpide honen garrantziaz [*Mendi-gaiña* olerkiari ahuten iriztea] ohartuz gero, pentsa daiteke *Biotz-begietan* liburuaren gerraosteko irakurleek harturiko inpresioa, hots, Mitxelenak Lizardiren mundu-ikuskera etxe seguru eta artesirik gabekoaren paradigmatzat hartzea 1932ko Pizkundearen ingurumarian liburuaren bidez proiektatu nahi izan zen eredu neurtu eta "osasungarri"ari gehiago dagokiola, Lizardiren beraren mundu-ikuskera errealari baino". (Otaegi 1992:343).

Hemen, bestetan bezala, gure lana Mitxelenaren "gure gisako oihartzuna" izatera mugatzen dugu. Ez dugu, horregatik, irozgarri-ezik antzematen Lourdes Otaegiren argudio-erakusgarrietan, baina *Biotz-begietan* olerkiegiaz esanak eta Lizardiz beraz ondorioztatuak ez ote dabiltzan nahasi samar esatera ere ausartuko ginateke.

[67](1970c:148).

[68]Haritschelharrek ez du uste Lizardiren Euskal Herria egiazkoa zenik:

"Egiazko Euskal Herria hori? Ez dut uste, berak hala dio: Gurazko aberria. Eta gurazko aberri honetan ikusten ditugu bi gauza: alde batetik maitasuna, zeren eta aberria aipatzen duelarik, maitasunez dio hori, eta gero "gurazkoa", berak asmaturiko aberri bat baita. Eta berak jadanik mendi gaina aipatzen duelarik, hor dio nahi lukeela

delako baizik.

> Engainatua zebilen[69]. Gaur badakigu astindu gaituzten lur-ikarak sortuak zirela ordurako, eta ez direla berehalakoan baketuko. (1957g:142)

Engainatua ibiltzeari Mitxelenak zer irizten dion txit jakingarri dirudi, auzi honen argibideak garrantzizko puntu bat baino gehiago ukitzen baititu.

Batetik, ez da atzentzekoa, ikusi den bezala, Lizardiren egitasmoa ontzat emanik ere, "gaurkotu" beharraren alde agertzen dela Mitxelena behin baino gehiagotan. Hortaz, alde honetatik begiratuta, Lizardik urratu bidearen mugapuntutik haranzkoak -Txillardegiren lan hau, urrutirago gabe- hobestera makurtu behar luke Mitxelenak, eta -tesi honen laugarren kapituluan erakutsi bezala- halaxe ere egin du.

Honenbestez, engainaturik ibiltzeak, aldi-giro berrien oldarrari entzungor egiteak, kritika-kutsua hartzen du Mitxelenaren luman.

Alabaina, ezin amai daiteke hemen juzkua:

> Zorioneko gorreria ordukoa, alde batetik, hari zor baitiogu ihartuko ez den Lizardiren poesia, gure eta ondorengoen atsedentoki baketsu izateko sortua. (1957g:142).

Gorreria zorionekoa ere bada, alde batetik bederen, Mitxelenarentzat, horri esker, euskal literaturak erdietsi baitu denborak maskalduko ez duen poesia, aurrerantzean ere zeregin finkoa baduena: "atsedentoki baketsua izatea", alegia.

Honela bada, engainatuta ibiltzearen alderdi onari esker, euskal literatura irabazian atera da, inoizko-betiko lanaz aberastu baita.

Jaso berri honek, ezinbestean, Orixe belarrietaratzen du. Mitxelenak Orixegan goratzen duen alderdi berbera goresten du Lizardigan ere, eta elkarretaratze honek, aldi berean, ikuspegi orotarikoagora darama auzia.

---

egon; beraz badu goi-goiko nahikunde bat; goi hartan datza bere aberria, asmaturiko aberria eta aberri horretan lasai dago, eta pozez asea. Asmo bat besterik ez, mendi eta goietako beharra, hirietarik etorri jendeak nahi duena". (Hartschelhar 1981:378).

Ez bide dator, Karlos Otegiren ikuspegiarekin bat. Honek, Lizardiren poesien benetako ingurumaria kokatu ondoan, honela zehazten du errealitatearen eta poesi munduaren arteko harremana:

"Todo esto no significa que la poesía de Biotz-begietan sea mero intento de copia de la realidad. Una cosa es el material, las realidades experimentadas y otra su configuración poética. Lo real no se identifica exclusivamente con el tratamiento realista; puede presentarse, aun conservando su peculiaridad, según moldes poéticos no realistas. Lizardi, si bien dentro de unos límites, selecciona, ordena, transforma y crea un mundo original a partir de un material perteneciente a la realidad inmediata, al entorno percibido directamente. La elaboración poética se injerta en la autenticidad". (Otegui 1990:422).

[69] Hala al zebilen? Jakitekoa litzateke, apika, ea gorreria ohartuki hautatu zuen, eta honenbestez, Lizardik jakinaren gainean mamitu zuen lana, hau da, errealkzio gisa, ala oharkabean zebilen "engainatua".

Gauza bera esan al daiteke Orixez?

Izan ere, Orixe-Lizardik bere lanak garaiko gorabehera zehatzez busti ez dituztelako iritsi dute horiek noiznahikotasunez janztea; ez bide dute euskal letrek berezko eskakizun, aldien aldarteen isla hutsa izatea. Halako katea - agerikorik bederen - ez duen lana ez da, beste gabe, desegokia. Areago, onerako ere izan daiteke, euskal literaturan mugarria ezartzen du eta[70].

Lizardiren gorreriaren alderdi onuragarriari zor zaio aldiek zimelduko ez duten ederlana.

Urteak ez dira, halaz ere, alferrik pasa eta bada arestikoari jarraikitzen zaion beste "bainarik":

> Baina ez Leturiak ez Txillardegik ez gaurko nornahik ez dezake entzungor egin. Bizibeharra eta ezinbizia aurrean ditugu, ezin ditzakegu besterik gabe guregana usteak, sinesteak, bizibideak, ohiturazkoak direlako bakarrik, zehatz eta astiro esaminatu gabe. (1957g:142).

Lizardiren garaian, apika, zilegi zitekeenak ez du "gaurkoentzat" balio, ez baitago sineste itsuan aurrera egiterik; azterlana behar du, nahitaez, oinarri. Eta orduko "mundu geldia, gaurko gozogabe hau baino" atseginago gertatuagatik, ezin atsegin asegarri hartan gelditu, garai hartatik honantz gertatuei muzin egitea ezinezko gertatzen baitzaio munduan ibili gogo duen geroagoko euskaldunari. Hondarrik hondarrenean, norberari suertatu zaion egoerak eskakizun duena da tarteko:

> Ez du ordea inork bere mundua, giroa eta sorteguna aukeratzen. Nor geure aldian eta tokian

---

[70] Mitxelenak zehazki halakorik ez dioen arren, ez da, apika zokoratzekoa. Orixek bere poeman hiriari lekua ukatu dion bitartean, Lizardik tartea uzten diola, "Parisko txolarrea", kasurako, baina, nagusiki, berak olerkietan ez mamituagatik, honako desioa adierazten duenean:

"Iri nagusi, giza-erlauntza:
zorapenezko aruntz-onuntza
sumabeaña, yakintza,
sal-eros ekurugaitza,
gure elkar-indañak itzuli biza!

Ortzi oro ta egute oro
yaso, ikus-ala, ta abes gozoro..
Apaindu zernaitarako:
agi gai adirazteko
gizaki guzien alderdi ta asmo". "Eusko-bidaztiarena" (Lizardi 1956_2:122).

Hiru urrats edo sumatzen ditugu garai hau arteko euskal literaturan, "baserri / hiri" auziari, nolabait esan, dagokionez.

Txomin Agirrek ordezkatzen duena, hiria izendatuki arbuiatuz; Orixek egina, hiriari muzin eginez, begiak estaliz eta Lizardik gorpuztua, berez "hiritartzat" jo daitekeen ederlana ez eginagatik, mundu berri horri atezuloa zabaldu ez eze, etorkizunerantz, apika, hortik jo beharko dela adierazten duena.

Lizardiren isuri naturzaleaz eta hiriarekiko harremanez, Mujika (1983) eta Otegui (1990) auziazko ikuspegi desberdinen erakusgarri.

gertatzen gara, nola ez dakigula[71]. Eta gurekin jaiotzen da, geure aldiko seme jatorrak bagara, harako antzinakoen *amor fati* hura, gure denbora - gure sorterria bezalaxe beste edozein baino maiteago bihurtzen diguna. Gurea delako nonbait, gureiarrekin itsatsirik gaudelako. (1957g:143).

Patuari lotua dago gizona, garai-giroei errotik atxikia. Lizardiri suertatua, ez da hogei-hogeita hamar urte handien tarteak ekarria bezalakoa eta Lizardik aukera ez zezakeen bezalaxe ez dezake geroko euskaldunak ere hautetsi biziunea.

Atsegin izan ez izan, onartu beste erremediorik ez dauka. Onartzea, etsipenez ez baina, itxaropidez egitea da Mitxelenak hemen besteak beste proposatua eta honetxek urruntzen du, lehen adierazi bezala, Leturia "erantziagandik", baina aldi berean lotzen, Leturia "larrimin hutsa", garai-giroen isla ere badelako. Itxaropide berorrek uztartzen du, bestalde, Lizardirekin, egoera nahasiaren adierazle ez izateak urruntzen duen bezala:

> Maiz entzuten dira gure artean hileta hotsak; badirudi udazkeneko hotzikara sentitzen dugula gorputzean. Eta hatare ez dakit. Askotan egiten dut nerekiko ez ote gauden aitzitik udaberri aurrean. Zaharrak omen gara, beste edozein herri baino zaharragoak. Egia dirudi, baina herri baten adina, gizon batena baino areago, urtez bakarrik neur ote daiteke? Ez ote gara euskaldunok - ez naiz honelako edo halako euskaldunez ari -, urtea joan urtea etorri, betiko haurtzaroan bizi? Gaur azkenik munduari zor diogun hitza esateko zorian gaudela derritzat, eta uste hori *Egunkari* hau irakurtzeak biziro sendotu dit. Ez daukagu beste biderik. Haurretango oharkabetasun atsegina utzi beharko, biziko baldin bagara, arrazoi-adineko egiteko latz eta nekagarriei ekiteko. (1957g:144).

Gertaeraren bitxia. Leturia etsiberaren *Egunkaria*k bizten dio, hain justu, itxaropidea Mitxelenari. 1951n euskaldunentzat eskatzen zuen haurtzarotik arrazoi-adinera igaro beharraren erakusgarria munduratzeko egokieran egotearen zantzua hor ikusten du eta. Alde honetatik, *Egunkaria* bere ustearen sendogarria da.

Honenbestez, Lizardiren egitasmoak bere horretan dirau. Asmo horren mamitze egokia, aldiek eskatzen duten aldakuntzez hornitzea izango da, hau da, "euskara noranahiko" bihurtzeak, besteak beste, literatur gaiak, idazlanek islatzen dituzten mundu-ikusmoldeak egokitzea ekarri beharko ditu eta hortxe kokatu behar da, hain zuzen ere, hain Lizardirena ez bezalakoa den Txillardegiren ekarria[72].

---

[71] "Gizonak bere burua munduan aurkitzen du, hemen gertatzen da -hemen suertatzen, gure artean esaten den bezala- nola eta zergatik ez dakiela" (1951c:22) harako harriaz gogora daiteke.

[72] "La duda, la insatisfacción, la crítica que no perdona a propios ni a extraños han hecho su aparición en una literatura de gentes seguras y hasta un poco pagadas de sí mismas, acostumbradas a vivir de convicciones indiscutidas e indiscutibles. La sólida contextura del universo de un Lizardi les es completamente desconocida, por ejemplo, a los personajes de José Luis Alvarez que abominan de la pequeña rutina diaria y, disconforme con los caminos convencionales, buscan no se sabe qué modos de vivir una existencia más auténtica". (1960b:161).

"Yo sabía que la temática de "Leturiaren egunkari ezkutua", primera novela de Txillardegi, demostraba que el firme y seguro mundo de Lizardi había dejado de existir.

Llevaba un prólogo mío y se publicó en 1957. Aquello era nuevo; aunque a otros niveles no fuera realmente innovador, tampoco era una mera copia. Era expresión vasca". (Ibarzabal 1977:187).

Auzi honen ingurukoen berri -*Leturiaren* "Sarrera hitz batzu"ko pasarteak barne-, ematen du Mitxelenak

Eta testuinguru berean kokatu behar dira, Mitxelenak beste euskaldunen lanak neurtzean "giro berrien" islatzaile izatea irizpide hautestea. Honelakotzat har daitezke ondoko biak.

Bata, L. M. Mujikaren *Bide-giroak* poesi lanaren[73] iruzkinean esana[74]:

> Arlo berriak landu nahi baditugu eta horretan ari da, noski, Mujika, inor ari bada , gogorki eta baldarki mintzatu beharko dugu, leuntasuna eta txairotasunera iritxi baino lehen. Mintzatzea da aurrenik: leun mintzatzea atzerago dator (...) Gehiagotara ausartu behar badugu eta leihoak kanpo aldera ireki, gure inguruko gogo-giroa aldatu beharko dugu aurrenik, eta gogo-giro berri hori izango da literaturaren eredu eta eragile. Bide horretan abiatuak gara, nolanahi ere, nahitaezkoa dugulako, gogokoa dugun ala ez, eta Mujikaren liburua bera aldakuntza horren aitzindari ozen bezala datorkigu. Aldi igaroa, berriz, ezin alda dezakegunez, hobe genuke den bezala, bere urrian edo ugarian, hartuko bagenu, hartaz ahal dezakegun neurrian baliatuaz. (1965g:142).

Bestea, berriz, Patxi Altunaren *Euskara ire lagunal* euskararen ikasbideazkoan:

> Salo hau, besteak beste, giro berrien lekuko dugu: gure hizkuntzaren ikasbideetara azkenean, gainerako hizkuntza gehienen ondoren bada ere, agertu zaizkigun era errazago eta erosoagoen. (1967d:154).

Baina Lizardiren mundu ziur hura artesitzen hastea seinale onuragarritzat jotzeak, ez dakarkie, horregatik, Mitxelenaren begiei Lizardiren egitasmoa baliogabetzea.

Honela aditu behar bide da, 1960ko euskal literaturaren historiako ondoko aipua:

> Su profunda gratitud al idioma, que tan fielmente le sirvió como medio de expresión, le inspiró una canción definitiva, de rara lucidez ("Eusko-bidaztiarena"), en el [sic][75] que la vieja lengua, transfigurada, aparece como es en realidad: una nueva posibilidad, apenas realizada, capaz de

---

"Pro domo" artikuluan (1970c:146,147).

[73]Ez ote da nabarmengarria, Sarasolak (1971:87) Lizardirekin elkarretaratzen duen ("Horrela, Arestiren personalitateak, Lizardirekin jazo zen bezala besteren poemagintza deuseztu beharrean, indarberritu egin zuen, poesia berri honek egun mostratzen duen jokaera desberdinen aberastasunari bide seguroago bat eskuraturik, itzalean egiten ari zen lan isila argitara zabaldurik eta poesiatik at, euskaldungoa itotzen zuen folklorekeria betirako gainditu eta idazle jenerazino bat prestatu zuen «Gazte naiz» horriko egintzari sostengu bat emanik".) Gabriel Arestiren *Harri eta herri* lanaz Mitxelenak deus ez idaztea, batipat, Txillardegiren estreinako nobelaren iruzkina begi aurrean izanik?

[74]Ez dugu aditzera eman asmo Mitxelenari idazlan hau bere betean akatsik gabea eta erabat goragarria iruditzen zaionik.

[75]Gaztelaniazko artikulu maskulinoa, seguruenik femininoaren ordez dago, *la canción* baita erreferentzikidea gure ustez, ala poema ote du gogoan Mitxelenak?

Oroi, bestalde, 1951ko aipu dagoeneko aztertua (1951c:24), "izar urdinetarainoko asmoak" eta guzti.

Saihetsekoa izan badaiteke ere, esan behar dugu, 1960b lanaren aitzindari laburra den 1958koan (1958a) ez dusta Mitxelenak passrte hau ez honen gogaiderik paperera.

recorrer el mundo y de llegar hasta las azules estrellas. (1960b:147).

Nabarmentzekoa da "Eusko-bidaztiarena" poemari zehazki irizten diona, honen literatur balioak autu hartu beharrean, mezua baitu adierazkizun Mitxelena literaturaren historigileak. Olerki hau, harrigarri bilakatzeraino argi iruditzen zaio Mitxelenari; areago, azken hitza esana du hor Lizardik.

Bada besterik, gainera. Lizardik hizkuntza itxuraldatuz, euskara zinetako eta benetakoaren gakoa asmatu du, hots, mundu zabalean barrena ibili eta izar urdinetaraino iristeko gauza den eta oraindik ere gauzatzear dagoen ahalbidea mamitu eta erakutsi baitu bertan.

Horra, berriz ere landaturik, egitasmoaren norabidea.

Lizardi egitasmogilearen aldeztaile izateari ez dio uzten Mitxelenak aurrera ere.

Euskararen zuzperraldian eragile agertzen zaizkionen artean, Larramendi, Iztueta, Manterola, Arana Goiri, Azkue, "Euskaltzaleak", Ariztimuño eta Lizardi aipatzen ditu gerra aurrean planto eginez[76]:

> Ene ustez, behiala esan nuenez[77], honen «Eusko-bidaztiarena» izan da gaurdaino gure artean egin den hizkuntz egitamurik osoena, eta irakurri ere dut nonbait honi buruz ironiazko idaztanik. Nere hartan jarraitzen dut hala ere: hitz hegodunena[78] gorabehera, hortxe ditugu hitzez hitz ondoan opa diren helburu eta jomugok. Ez daude, noski, bitartekoak; bideak, ordea, irtsi nahi ditugun helburuoi egokitu beharko zaizkie. (1978a:38).

Garbi dago bestek esanak esan ez duela Mitxelenak zalantza-izpiñorik, Lizardiren hizkuntz egitamua osoentzat jotzeko eta halaxe jendaurrean aurkeztatzeko.

Badu aipamen honek, halaz eta guztiz ere, zehaztu beharreko amaia: poeman *bitartekoak* ez daudela dio Mitxelenak. Irakurketarik egiantzekoenaren arabera, ezin joko da "Eusko-bidaztiarena" ederlanera[79] euskarak egokitzeko behar dituen arau lexiko, morfologiko, sintaktiko eta abar zehatzen bila; bilaketaren esparrua eta nondik-norakoa da

---

[76] Hauetako zenbait autu izan ditugu dagoeneko. "Euskaltzaleak" taldearen gainekoak, aurrerago miratuko ditugu.

[77] Argitaraldi-paratzailearen oharra:
"Euskal literaturaren etorkizuna"-n, alegia; ikus *Literaturaren inguruan*".
Hauxe da, hain zuzen arestian guk hona ekarri duguna. Halarik ere, ikusi dugu bestetan ere gogobide bera adierazi duela Mitxelenak, aldez edo moldez.

[78] Bi tokitan darabil Lizardik poeman zehar *hegoaren* irudia: "yakite-egoek igoa" (Lizardi 1956_2:118) eta, bukaera aldean, "Ta, bêko gaiok agor-ezkeroz, / Iguzki'k ezin urtuzko egoz / (Ikar'ek ez bezalakoz) / goazeman zerura igoz, / izar urdiñetarañoko asmoz!". (Lizardi 1956_2:124).

[79] "Eusko-bidaztiarena" es la expresión poética de estas inquietudes, proyectos y deseos. Este material inicial, que podría servir de base para un artículo, ensayo o programa lingüístico, aquí se transforma en verso lírico gracias a la utilización de estructuras verbales, poéticas y simbólicas apropiadas". (Otegui 1990:671). (Beltz. gurea).

eskaintzen dena, "helburu-jomugak", alegia[80] [81].

Baina egia ere da, Lizardik asmoa ez ezik hizkuntz eredu bat ere utzi duela - jaso berri den aipamenean Mitxelenak horrezaz ezer ez dioen arren-, eta hizkuntz eredu hori, lehenxeago adierazi denez eta Lizardiren hizkeraz aritzean ikusiko ere denez, Mitxelena "lizardizaleak" egoki eta baliagarritzat dauka:

> Gerra aurrekoen isla eta errainu zirudiena txoil bestelakatua ikusi dugu azkenean, giza-ohiturak alda daitezkeen arabera. Berezkoa da noski aldatze hori eta ez gara nor, aldi bitarte luzeagorik igaro arte, onerakoak eta txarrerakoak mugatzeko eta zedarritzeko. Era eta modu berriak [sic], nolanahi den, dakarte zaharragoak baztertzea lehenik eta zaharragoez atzentzea ondoren.
>
> Horixe da, hain justu, hemen dihoakigun auzia. Lizardi-ondokoak ahituxe ditugu honezkero eta horiekin batean agortu da Lizardiren garaiko eta aurreraxeagoko egoeraren berria. (1986a:129).

Lizardiren eta garaikideen zoria egungo begietan, arras "bestelakatua" ageri da eta honen zioa, Mitxelenak, aldakuntzan ikusten du.

Aldatzea bizilegea izaki, Mitxelenak funtsezko bi ideia paperera daramatza:

-Lizardi bidez sinbolizatzen duen hazaldiaz geroztik gertaturiko aldakuntzak behar bezala esteko egokierarik eza, ez baitzaio Mitxelenari, 1986an bederen, behar bezala neurtzeko aski urruti.

-Halako erresumina ere islatzen dute Mitxelenaren hitzek. Azkenaldikoek ez dute, apika, Lizardi-ondokoekin zentzuz jokatu, ahitutzat eman dituzte haien bideak eta atzendu, sakonegi ezagutzeke eta saiheste honek eraman ditu iritzi okerretara[82].

Hona, bada, Lizardi poeta egitamugileak, hitz-gorputza, "ikurritzak" landaturik, Mitxelenaren begietan erdietsi duena.

Honexegatik, jasoz joan diren aipuetan ez ezik, mintzagaia Lizardi ez izanagatik, honek poesi izaera emanez ere baliatzen da inoiz errenteriarra, euskaraz nahiz erdaraz ari denean.

Esate baterako, pelikula bat iruzkintzen ari dela eta, Lizardigandikakoaz baliatzen da zinema-kritika burutzeko:

---

[80] Bitarteko zehatzak -baztertzekoak bazter- Larramendigan bilatu behar, Mitxelenak 1984ean (1984b:33) adieraziaren ildotik?

[81] Ikusi bezala, Mitxelena eta Lizardi bat datoz euskara gunetzat hartzean, alabaina, ez zaizkio ulermodu honek sor ditzakeen zenbait jokamolderen arriskuak oharkabean itzurtzen:

"En cuanto a los defensores de la cultura que Lizardi podría personificar y que es también -no hay por qué disimular- la que para mí es la primera, les ofrecería algunos consejos, nacidos de una larga e interesante experiencia, aunque sin esperanza de mover montañas. Me parece que en lo vasco, la lengua es el elemento cultural más importante: el más importante, pero también el más frágil. Utilizarla como ariete en apoyo de fines que son a lo sumo políticos me parece una insensatez pura y simple, si no es un crimen contra el país". (1964d, *SHLV*:655).

[82] Oroi Orixe "aranisten batzan" kokatzeaz adieraziak, esate baterako.

Humphrey Bogart ere, makur antzeko gizon zuzena, hor daukagu. Eta azkenean, behar bezala, onek daramate saria, diruaren ordez kontzientzia garbia besterik ez bada ere. Izan ere nork ukatuko? ez omen da aberastasun hoberik.

Bai-bertatik urrundik
Gabonetarako
seme zarra: bidean
elurpe du oro;
ebreko sutondoan
bixkortu-ezkero,
ikus aren ezpañean
parreantza gozo!
(LIZARDI)[83]. (1956j 167).

Edo, arrastakera bestelakoa duen beste honakoan. Luis Martin Santosen heriotzak Mitxelenari sortu zion samina moldezko bilakatu ondoan, nobelagileari agur egiteko, Lizardiren neurtitzak begiz jotzen ditu, iturburua estari gordez:

Baina, txingurriek oin zapaltzallearen berri ez dakitelarik, irazki nahasia eta urratua ehun ederragoren baten gai bihur daiteke goragoko Ehuie haren eskuz eta arduraz. Sineste hori da gure ezinaren sustengua:

Ezin aal baledi, Jaun errukiorra,
barkatu zaiozu zizukean zorra[84]. (1963i:82).

Baita, berriz ere olerkariaren izenik ahotan hartzeke, norbaiten jokamoldea bezteko ere: -

Eta ezin gaindituzkoa dirudien ñabardura horren ñabarra ez da atxakia txarra izaten nor bere sukalde-zokoan, nor bere "oroigarri zaharrei maitez begira"[85] geldizeko. (1980b:63).

Lizardi du iturburu beste ondokoetan ere:

Halaz guztiz, eta ezinbestean bederik, nik ere igaro ditut ateak eta oinak lur sakratuan, begiramenez ikara, ipini. Horra bada non egin dugun topo Aitunak eta biok, alor berbera lantzeko asmoaren

---

[83] "Izotz-ondoko iguzki" olerkitik hartu du Mitxelenak. (Lizardi 1983:201).
Aipe txiki bat dago Mitxelenak horra aldatuaren eta 1983ko argitaraldiaren artean. Mitxelenak, *parreantza* idatzi duena, bestean, *parreantxa* irakurtzen da.

[84] "Agur", *Biotz-begietan* bildumako olerkitik hartua. (Lizardi 1956_2:64).

[85] "Beiro igo nauzu ene mendira,
oroigarri zaharrei maitez begira...
Andre Lufak yauiki ditu igaliak;
zurbil dauka arpegia, itzal begia". "Ondar gorri", "Urte-giroak ene begian" (Lizardi 1956_2:108).

eraginez. Ez gaude bakarrik, zorionean, ezta alderatzeko ere. Etorkizunerako ere, oraingoaldia baino hobeagoa izango delakoan, baditugu ametsak. Guk ere esan dezakegu, bidazti-olerkariaren antzera:

Ibilgo-buru

.....

aur begi-argirik anitz bekargu. (1981d:115).

Berariaz ez aitortuagatik, *bidazti-olerkari*tzat duen Lizardigandik hartu ditu bertso-lerro kimatuok[86] Mitxelenak.

Ametsak ditu mintzagai euskaltzain erantzuleak eta "Amets-bideetan barna" da aukeraturiko Lizardiren poemaren atala. "Eusko-bidaztiarena" poema hamaika aldiz goratzaren izenburuaz baliatzen da, eta aldi berean, Lizardi neurtitz-sortzailearen izena estari gorderik ere, poeta bera nolakotzen du, "eusko-bidaztia", "bidazti-olerkari" bilakatuz.

Etorkizuneko ibilbide itxaroz betea adierazteko Lizardigandikakoa da errenteriarrak begiz joa.

Hagitz antzekoa da urte bereko hurrengo erdal aipukoa. Kasu honetan ere, etorkizunkontuak dira tarteko. Arestikoan, euskalaritzarena (euskal filologiarena bereziki) eta orain berriz, euskara batu edo estandarrarena izaki bion arteko aldea:

> Bien al contrario, se ha llegado hoy en día, y es a mi entender una suerte que exista, a un esbozo de lengua común para el uso escrito como primer paso para la normalización en ciertos empleos de la lengua hablada. Lo que se construya sobre este fundamento podrá servir de punto de referencia para la multiplicidad de dialectos y variedades, de cuya savia (y no de la invención libre) se tendrá que nutrir la lengua común para su formación y desarrollo. Esto en el supuesto de que la actual tentativa de levantar un país nuevo sobre las raíces tradicionales (*azal orizta, muin betirakoa*, en la formulación de Lizard[i]) no sucumba por impotencia ante los embates despiadados de enemigos interiores y exteriores. (1981g, *PT*:38).

Kasu bietan, bada, Lizardik adieraziaren balioa eta gaurkotasuna zalantzabakoa da: Lizardiren amets-egitasmoek bizirik diraute.

---

[86] Jatorrizko ahapaldi osoa honakoa da.

"Gogamenaren ezkon ez-antzu,
eztei-ondoko bide diñagu.
Otoi, Yauna, **ibilgo-buru,**
maitasun-edermin-zitu,
aur begi-argirik anitz bekargu". "Amets-bideetan barna", "Eusko-bidaztiarena" (Lizardi 1956_2:118). (Betz. gurea).

6.3. LIZARDI, EUSKAL IDAZLE EDER-SORTZAILEA

Oraingo puntuan, Mitxelenak Lizardi idazlearen inguruan adierazlak izango dira azterkizun; beraz, hemen bilduko dira Lizardiren alderdi hau, aldez edo moldez ukitzen dutenak.

Lizardi idazlea bere bete eta bakarrean hartuz, nabari den lehen gauza da Mitxelenak, ez euskal ez erdal lanetan esaten duela, Lizardi gaztelaniaz ere idazten aritu zenik; hau da, Mitxelenaren lanen bitartez ezin jakin daiteke Lizardi bi hizkuntzatan aritu zenik, ez baitu halakorik zehazten.

Hau dela eta, pentsatzekoa da Lizardi euskal idazlea duela beti gogoan errenteriarrak, alegia, Lizardi euskal idazle soilari lotzen dizkiola iritzi eta juzkuak.

Lizardiren hiru idazlan-mota ditu autu Mitxelenak[87]: neurtitzak, hitz lauzkoak, antzezlanak. Hirurok –erakutsiko den legez–, luze-laburrean ez sakontasunean, arreta modu berean erakartzen ez badiote ere.

6.3.1. Antzezlanak

Mitxelenari xumeen edo apalenen begitantzen zaizkionetatik hasiz, Lizardiren antzezlanez esanak hartu behar dira aztergai.

Gisa honetako lanen berri, ez du Mitxelenak euskal lanetan ematen; honenbestez, ikertzailearen erdal lanetara jo beharra dago iritzirik jasoko bada.

Mota beretsuko hiru lanetan isurtzen ditu Mitxelenak bere aburuak: 1958ko "Literatura en lengua vasca"[88], 1960ko *Historia de la literatura vasca*[89] eta 1987ko *Tierras de España*, lan zabaleko "Literatura en lengua vasca" atalean[90]:

> Sus ensayos teatrales tienen menos interés. (1958a:375).

---

[87] Lourdes Otaegik (1992:438) honela sailkatzen ditu zarauztarraren lanak:
"Lizardik landu zituen genero literarioak lau dira, kazetaritza, antzerkia, olertia eta ipuingintza".
Ikusiko den bezala, Mitxelenak ez du ipuinik berariaz aipatzen.

[88] (1958a).

[89] (1960b).

[90] (1987b).

Sus ensayos teatrales (*Izar eta laiño, Ezkondu ezin ziteken mutilla*[91]), más ajustados a los moldes tradicionales, ofrecen menos interés. (1960b:147).

Dejó también una comedia, pero se le sigue mencionando como poeta. (1987b:106). (Beltz gurea).

Ez bide du Mitxelenak Lizardi antzezlanen egilea oso estimu handian, ez du bederik Mitxelenak arreta horietan ipintzen.

Ez dago, beraz, alde handirik, aipamen zaharrenetik berrienera: bigarrenean lanen (bi lanen) izenburuak ematen dituela eta azken berri ematean, aldiz, bakarra duela aholan, zein den zehazteke utziz[92].

Lizardiren antzezlanen moldeaz jaso daitekeen iritzi zehatz bakarra da, literatur genero honetan mamituak ez zirela larregi saihestu ohiko bideetatik, hau da, aparteko berrikuntzarik ez bide ziotela euskal antzertiari ekarri.

6.3.2. Hitz lauzkoak

Hitz lainozkoei irizten diena ere, Mitxelenaren erdal lanetan arakatu behar da.

Egia bada ere aldizka, Lizardiren *Itz-lauz* aipatu ez eze, bertatik mailegaturiko hitz edo esapideak euskal (eta erdal) lanetan han-hemen darabiltzala –ikusiko den legez–, egiago da ez duela Mitxelenak euskal aipuetan Lizardiren prosari irizten diona paperera jalkitzen.

Erdal lanetara jo behar, beraz, iritzi-ehiztaritzak ondorerik izango badu:

Casi tan original como sus versos, aunque breve, es su obra de prosista ágil, de humor intencionado y amable, llena siempre de sorpresas en el fondo y en la forma (*Itz-lauz*, 1934). (1958a:375).

Su prosa es también original, casi tan original como sus versos. Agil, descriptor tan certero como rápido del mundo exterior y del mundo interior, de humor intencionado y amable, está siempre lleno de sorpresas, tanto de fondo como de forma. Sólo la brevedad de su obra, reunida en un pequeño volumen (*Itz-lauz*, 1934), le impide alcanzar el puesto eminente que consiguió en la poesía. (1960b:147).

"Lizardi" (J.M de Aguirre, 1896-1933) fue un prosista agudo de fondo y audaz por la forma, pero

---

[91] Ez horrela ikusten, nonbait, Labaienek (1953) eta Otaegik berrikiago:

"Labaienen iritzi zuzen eta enpeinuari esker eman zen argitara gertakizunak hain hurbiletik deskribatzen omen dituen antzerki lana. *Ezkondu ezin ziteken mutilla* obrak duen balore [sic] dokumentalaz eta biografikoaz baliatuz, ezagutu dezake Lizardiren egoera sozioekonomikoaren zehaztasun zenbait". (Otaegi 1992:23).

*Egan*en eman zen argitara (1953, 2-4, 25-27); beraz, Mitxelenak Lizardiren lana ez ezik Labaienen hitzaurrea ere ezaguna zuen. Eta halaz ere...

[92] Harrigarri xamarra suertatzen da Mitxelenaren zehaztasun-eza. Lourdes Otaegik (1992:440-442), lau antzezlaneri berri ematen du: *Laño ta Izar* (*El Día* 1930-7-30), *Bi aizpak* (*Antzerti* 5.6 zk.), *Ezkondu ezin zitekeen mutilla* (*Egan* 1953, 2-4 zk.), *Artaxuriketa*.

Azkena, aipu soilez besterik ezagutzerik ez dagoenez gero –hots, ez da testurik gordetzen–, Mitxelenak, apika, horren arrastorik ez zuela izango aitortuz ere, beste hirurak ezagutzeko debekurik ez bide zuen, argitara emanak baitziren. Gainera, errepara, tiulu batean izenak lekualdatu dituela, *Laño ta Izar* zena, *Izar eta laño* bilakatuz.

equilibrado dentro de su afán renovador. (1987b:106).

Lizardi prosagileak, garbi dago, aho betez aitortu ohi den Lizardi poetaren ondo-ondoan egoteko eskubide osoa du Mitxelenarentzat.

Zarauztarrak hitz lauz idatzietan, Mitxelenari azpimarragarri (are erakargarri) egiten zaiona, erakusten duen "berezkotasuna" da. Arina, zehatza, azkarra dira Lizardi deskribatzaileari Mitxelenak alboratzen dizkion izenondoak. Ezaugarriok, gainera, erakusteko debekurik ez du, barrena nahiz ingurua mintzagai dituenean.

Mami-azalak direla medio, irakurlea ezustean harrapatzen duten pleguei, inozokeriarekin edo lainokeriarekin ikuskizunik ez duen umore bizi eta, aldi berean, mingostasun-gabea kausitzen die Mitxelenak.

Mamizkoetan zorrotza bezain da ausarta azalezkoetan, baina ausardiak ez darama itxuragabekerietaraino, ez baitu euskal prosa berriztatu nahiak oreka galtzera irauli.

Ezaugarriok guztiok Mitxelenaren gogobetekotzat jotzea ez bide da, baldinbetan, sustrairik gabea. Lizardi prosagileazko iruzkin hauek, Mitxelenak beretzat nahiko lituzkeenak ere ez ote diren pentsa daiteke; arintasuna, zehaztasuna, bizitasuna, umore-ironiezko keinuak, irakurlea ustegabean harrapatzeko asmoa... ez bide dabiltza urrutiegi Mitxelenak mamitzen dituen lanen ezaugarri -aldizka- aitortuetatik.

Mitxelenak Ibarzabalekin izaniko solasaldi pleguetaratuan adieraziak, arestiko ustearen irozgarritzat har daitezke:

> Lizardi para mí supuso una revelación. Trató de crear un lenguaje poético y, a menudo resultaba difícil[93], incluso en prosa tenía giros de tipo poético alejados del lenguaje diario. (Ibarzabal 1977:56).

Lizardik, Mitxelenak atsegin duen eraberritzea dakar, euskal literaturan ordurarte ikusi ez duen eta desio duen hizkera-molde berria, euskara, poesi hizkeraren bideetatik abiarazi baitu, neurtitzetan ez ezik, prosan ere bai.

Lizardik, egunoroko hizkeratik urrundu gogoz mamitu duen prosa -poesia bezalaxe- zaila gerta daitekeen arren, Mitxelenari atsegin duen berritasunez aurkezten zaio.

Honenbestez, mamizkoetan zorroztasuna eta azalezkoetan ausardia nabarmentzen dizkion Lizardiri, berri-nahiak bizturiko ausardia orekarako eragozpen bilakatu ez zaio, berritze neurtua ekarri bide du, bestela esan.

Hau du Mitxelenak, antza, Lizardi prosalariazko azken hitza.

---

[93] Lizardiren hizkerari eta honen zailtasunari, aurreraxeago erreparatuko zaie.

6.3.3. Neurtitzez

Ikusi berri diren Lizardiren beste lanen berri emanagatik, Mitxelenak, Lizardi poetari eskaintzen dizkio, zalantzarik gabe, aipurik luze, zehatz eta ikerlanek eskakizun duten hoztasunetik urrunduxe ibiltzeko arriskua hemen barkakizun bada ederrenak. Lizardi neurtitzen egileari oharteman dio errenteriarrak arretarik geldi eta pausatuena.

Alabaina, Lizardi poetaz berariaz dioena begiratzen hasi aurretik, egoki bide da, Lizardi ingurumari zabalagoan kokatuz, olerkariek osatu zuten mugimendu orotarikoaz eta, olerkari auzoekin alderatuz, Lizardik eremu zabalago horretan botetzen duen zereginaz Mitxelenak dioena ekartzea.

6.3.3.1. Lizardi olerkariaren literatur inguramendua

Lizardi olerkaria besterekin elkarretaratzen duen aipurik aspaldikoenean bertan[94], berrikuntza da guneko giltz-hitza.

Mitxelenak, Orixe[95], Lizardi eta Lauaxeta hartzen ditu ahotan, euskal poesian, zehazten ez dituen molde berrien zabaltzaileetzat:

> gero, 1930tik edo hasita, Orixek, Lizardik, Lauaxetak eta zabaldu zituzten molde berrien aurrekoarena, alegia. (1958i:102).

Berritzaile hauen gaineko jakin-iturri zehatzik ezean, zeharkako bidea hautatu beste erremediorik ez, baztertzen dituztenak, besterik ez bada ere, eskuratuko badira.

Sagartzazutar Klaudi "Satarka" olerkariaren[96] lanaren iruzkina da poesi moldeak aurkez aurk paratzeko hautetsiriko esparrua:

> Gipuzkoako euskal poesiaren gorabeherak aztertzeko nerea baino jakinduri [sic] mardulagoa nahi litzateke. Halaz guztiz, ez da noski okerregia esana izango aipatu ditudan olerkariak [Etzo, Zubigar, Jauregi], beste gehiago lagun dituztela, poesia horren aldi eta era baten ezaugarri gailenak direla (...) Poesia txukun-apaina, baina herrikoia eta errax antzekoa; barrenkoia eta goibel-ixurikoa. <Intza begietan> eta malkoa bihotzean. Sugarra, harrimena edo poz axolakabea baino nahiago zuten, izan ere, negar xamur ixila. (1958i:102).

---

[94](1958an).

[95]Orixezko atalean aritu gara honezaz.

[96]Mitxelenak hitz hauxe darabil, adigai-esparru zabalez, hau da, "olerkarien" mugimenduko partaide izan ez izan berezi gabe. Olerkari deziopean biltzen ditu, "Satarka" ez ezik, Etzo, Zubigar eta Jauregi.

A contrario ondoriozta daitekeena da, beraz, deskribatu duen moduko poesiarik ez dutela Orixek, Lizardik eta Lauaxetak, gutxienez, gogoko eta molde hauek haustera edo datozela berritzaileok. Ezin jakin zehazki, ordea, zertan datzan haustura.

Nolanahi ere den, merezi du, Mitxelenak, "Satarka" eta gogaideen poesiari irizten diona begiratzeak, berritzaileen on-gaitzez irudi zuzenagoa osatu ahal izateko.

Aurkezteko eragatik, pentsa daiteke ez duela Mitxelenak oso goian poesi molde hau, darabiltzan bustidura ugariek (*errax, goibel-ixuriko, xamur, ixil*) horretara bulkatuko lukete iritzia bederen; hau da, xamurtasunez bai, baina aldi berean xume-antzean edo aurkeztatzen dituela errezela daiteke[97].

Alabaina, ez du erabat gaitzesten Mitxelenak, poesia hau. Goiko gailurretaraino ez iritsiagatik, beste betekizun bat badu; euskaldunen sentiberatasuna ukitzea:

> Ez dakit zer esan behar duen poesi mota honezaz egun edo biharko kritikak. Nik behintzat ezin dezaket gai honetan kritikarik egin. Hau bada haurretan, besterik bazen ere ez nekienean, ezagutu nuena; hau, euskaldun guztiok, bada zekenenak ere, bihotzean gorderik daukagun xoko minbera horretaraino sartu zitzaidana. Geroztik irakurri dut hoberik eta goragokorik, baina ez dut bestetan sumatu ustekabean hartu ninduen haurtzaroko ikara berri haren bizia. (1958i:102).

Mitxelenari haurtzaroko oroimenak dakarzkioten olerkiok badute egitekorik, baina pentsatzekoa da ez duela Mitxelenak uste euskal poesiak etorkizuna hortik abiatuz - hobeto esan, hortik jarraikiz - bideratu behar duenik, batipat, 1951ko arrazoi-adinari dagozkion betebeharrak aurrean badira.

Poesiaren berrikuntza du ahotan, hain zuzen ere, bi urte geroago argitara emaniko euskal literaturaren historia erdarazkoan:

> La renovación en este campo [poesían] coincide con la labor de la sociedad Euskaltzaleak, dirigida y animada por José de Ariztimuño ("Aitzol"), a partir de 1930. (1960b:146).

Baina ez du Lizardi zuzenean lotzen erakundearekin. "Euskaltzaleak" taldearen bulkadaz lehiaketetara neurtitzak aurkeztu zituzten olerkigileen izen batzuk paperera aldatzen

---

[97] Irizi hau indartzen dute, Mitxelenaren ondoko eta geroagoko erdal hitzok:

"En el segundo y tercer decenio de este siglo pueden citarse entre nosotros, pasando por alto a muchos otros, los nombres de Emeterio Arrese, Elzo, Pedro de Embeita, Luis de Jáuregui, Claudio Sagarzazu. Se trata en general de poesía fácil, postromántica, de tono ligeramente elegiaco. No están aún lejanos los días en que Menéndez Pelayo pudo hablar, no sin razón, de la "honrada poesía vascongada". (1960b:146).

"La poesía es muy cultivada, como en cualquier época, y con alguna renovación formal mantiene el tono suavemente elegiaco: Elzo, Arrese ya citado, Luis de Jáuregui, cuya persona y obra influyeron mucho sobre Ariztimuño". (1987b:105).

Lizardi eta Jautarkol berdintzen ditu, hain zuzen, Mitxelenak honakoan:

"No era la típica efusión lírico-sentimental de "Biozkadak", aquello era otra cosa". (Ibarzabal 1977:56).

baditu ere[98], ez da Lizardiren arrastorik kausitzen ahal. Bai, aitzitik, beheraxeago Lizardiren alboan paratuko duen Lauaxetarena:

> Al lado de la tendencia más popular o clasicista de otros, Esteban de Urquiaga, "Lauaxeta" (1907-1937), ensaya nuevos caminos (*Bide barrijak*) y en su último volumen (*Arrats beran*) la utilización sabia de motivos populares a la manera del Lorca del *Romancero gitano*. (1960b:146).

"Berritzaileen" aldakuntzezko Mitxelenaren iritzien berri zehatzagoak, 1977ko "Jaioko dira berriak"[99] artikuluan kausi daitezke.

Lan honetan, poesi moldeez zuzenean ari ez bada ere, molde berri horiek, euskararen egoerarekin eta desio zaion etorkizunarekin uztartzen ditu:

> Ordurako, gainera, atzerakorik ez duen pausoa emana zegoen: asmoz emana, egitez ez bada ere, lasterrago baltabil beti gogoa begia baino. Urrats hori «Euskaltzaleak» bazkunak egin zuen, Aitzolen eskutik[100], bai, baina Lizardi zuela tronpetari. (1977c:44).

Hemen garbi lotzen du Lizardi "Euskaltzaleak" taldearekin[101]. Areago, Aitzolen gidaritza eta itzala ukatzen ez badu ere, Lizardiri, hedatzaile, propagandista betekizuna, bizkarreratzen dio.

Aldakuntzaren berri ere ematen du Mitxelenak, ez zuzenean, haatik. Nahiago bide du delako aldakuntzaren nondik-norakoa erkagaien bitartez, irudiz adierazi.

Lehenik eta behin, dialektikatik harturiko "nolakotasunean jauzia" gertatu dela dio:

---

[98] J. de Bedoña "Loramendi", padre F. Echeberría, Eusebio Erquiaga, Gaztelu, Domingo Jacacortajarena, Fabián Loidi, F. Marquiegui, padre Onaindía, Alejandro Tapia-Perurena, Zaitegui. (1960b:146).

[99] (1977c).

[100] Mitxelenaren hitzetatik ezin deus asma, "Euskaltzaleak" bazkunaren bilakaeran Aitzolek izan zezakeen erantzunkizunaz. Otaegik (1983a, 1992:66-68) poliki erakutsi bezala. Alabaina, susmagarri samar gertatzen diren hitzak egon badaude:

"A partir de 1931 «Euskaltzaleak» se volvió cada vez más monocolor, pero nunca perdió impulso, sino que su actividad se fue haciendo cada vez más intensa y más amplia hasta 1963 [sic], inclusive". (1981i, *SHLV*:1004).

[101] Lan honen asmo-eginez, ez bide dago erabatekotasunik Mitxelenaren pasarteetan. Honela, Ibarzabalekin izaniko solasean, bazkunaren indarra azpimarkatzen duen bezala:

"Así como la entidad Euskaltzaleak fue un auténtico motor, la Academia de la Lengua Vasca nunca lo fue, ni acaso podía serlo". (Ibarzabal 1977:24).

1987ko euskal literaturaren laburpen antzekoan, talde honen indar eragilea edo, aho bateko gidaritza bederen, ez ote duen beratu gogo susma daiteke.

"Los conatos dispersos se cristalizan en la sociedad "Euskaltzaleak", obra ante todo de José de Ariztimuño ("Aitzol", 1896-1936) (...) Sería erróneo centrar en esta entidad la totalidad de los empeños literarios en lengua vasca: en Vizcaya, por ejemplo, tenemos *Euskaltzale-Bazkuna*, con su revista *Euzkerea*, o *Ekin*, órgano de los sacerdotes que desde 1912 publicaron *Juangoiko-zale*". (1987b:106).

> Aldakuntza hau da, noski, egungo ezker-eskumeko dialektikoek «nolakotasunean jauzia» dei lezaketena, eta barka biezadate bai Osak[102] eta bai Iralaren segiziokoek nik hitzak, ezjakinaren podorioz, behar bezala erabiltzen ez baditut: ni lege zaharrekoa izanik, harako San Tomas nahiz Quine-ren «ez (P eta ez P)» hari natxeko. (1977c:44).

Baita aurrerago, jauzia nola aditu behar den ere. Baina, azaldu ordez, bi poeten lanez baliatzen da argitzeko:

> Salto horrek[103], nolazpait esan, otxandiarraren «Ama Euskerearen azken agurrak»-etik honat harik eta tolosarraren[104] «Eusko bidaztiarena»-raino garamatzi edo gakartzi[105]. (1977c:44).

Bi euskararekiko jarrera eta bi poesi molde arras bestelakoak gorpuzten dituzten bi neurtitz-egileak daramatza Mitxelenak paperera, elkarren arteko aldeak non dauden zehazki argitzeke utziz, halaz ere.

Horretarako, gogora ekarri behar da, Mitxelenak behiala[106], euskal literaturaren bi hariez esanak: negartien hariak josi ditu Arrese Beitia, D. Agirre (*Garoa*koa batez ere) eta, nor den esaten ez duen errenteriarra. Alaiagoen artean, berriz, Etxepare eta Lizardi, jaso den bezala.

Kontua da, galbidean ikusten den hizkuntzaren aurrean poetak hautesten duen jokamoldea: atzera begira, galduaren mingotsaz hil-hotsak jo, ala, oraindik etortzeko dagoenari eutsi, laino beltzen artean, itxaropidezko argi-izpiak kausitu. Horrek banatzen ditu otxandiar santugilea eta zarauztar fabrika-gizona eta hortxe dago aldea: ez dago borroka zer galdutzat eman.

Harantzago doa Lizardi, ikusi bezala, hizkuntzak jakitez arnasberritu beharra baitauka, gerora ere beste hizkuntzen mailan erabiliko bada.

Funtsezko aldea dago ikusmolde baten eta bestearen artean eta bereizkuntza hau adierazi ostean elkarretaratzen ditu –lehen aipatu bezala–, Lizardi eta Lauaxeta:

---

[102] Mitxelenak dioenaz ongi jabetzeko ezinbestekoa da *Muga* aldizkanaren 63. zenbakian argitara emandako "Una inquietud y algunas preguntas" Mitxelenaren artikulua (1983g). Hemen irakur ditzakegu A. Irala eta besteren *Revolución-represión o burujabetza* eta E. Osaren *Dialektikaz eta kulturaz*, lanezko juzkuak.

Nolanahi ere den, errepara dakioke "ezker-eskumeko dialektika" –Mitxelenak bere burua "lege zaharrekotzat" jo duenean–, San Tomas eta Quine zaku berean sartzeak goroetzen duen ironiari.

[103] Salto honen iturburuak, garabideak eta nondik-norakoak astiro jorratzen ditu Oteguk (1990:801-818).

[104] 1957ko "Felipe Arrese Beitia, *Olerkiak*" erreseinan, otxandiarra ez daukala "egiazko lirikotzat" irakur daiteke. (1957j:86). Halaber (1960b:138).

Egiazko lirikotzat daukana ez al zen, sonerriz (gogoz ere bai, antza) zarauztarra?

[105] Mitxelenak darabilen egitura honetan ere ez ote dago "saltorik"?:

"*-tik harik -raino*", tartean aditzik gabe? Gauza bera antzeman dugu Larramendiri eskaininko kapituluan aldatu dugun (1983b:114) lanean.

[106] (1951c:23).

Bide-berrien bila agertu zirzaigun Lauaxeta («Euskaltzaleak»-en joerarekin zituen har-emanez zerbait gehi dezaket neronek ere[107]) eta giro berrien aitzindari bezala Lizardi. (1977c:44). (Beltz. gurea).

Lauaxeta eta Lizardi nabarmentzen ditu Mitxelenak besteen artean. Bion lanak ere, aieruz, hala direla esan gabe, erdi aipatzen ditu, Lauaxetaren *Bide barrijak* eta Lizardiren "Urte-giroak" Mitxelenaren hitzen atzean atzomaten ez baita zail.

Ez ditu, halaz ere, ber moduan aurkeztatzen. Lauaxeta "bide berri" horien bila abiatuta erakusten duen bitartean, arestitxoan "tronpetaritzat" jo duen Lizardi, "giro berrien" aitzindaritzat dauka.

Beheraxeago ikusiko direnez atzentzeke ere, adierazgarria izan daiteke Mitxelenak bi olerkarioz dioena berdintzea, alderatzeak ondoreak baititu.

Honen berri izateko, Mitxelenaren erdal lanetan arakatu behar da batez ere.

Honela 1960an, lehen jaso den honakoa badio ere:

Al lado de la tendencia más popular o clasicista de otros, Esteban de Urquiaga, "Lauaxeta" (1907-1937), ensaya nuevos caminos (*Bide barrijak*) y en su último volumen (*Arrats beran*) la utilización sabia de motivos populares a la manera del Lorca del *Romancero gitano*. (1960b:146).

1987ko *Tierras de Españan* argitara emanean esandakoen arabera, berriz, Lauaxetarekiko aburua ez ote duen pittin batez aldatu edo ondoriozta daiteke:

prosista asiduo (diario) durante varios años sin mayor brillo, publicó dos pequeños volúmenes de poesía, que van desde unos melancólicos "paisajes interiores" a unas brevísimas notas descriptivas o narrativas, de tono muy del día, que buscan y a menudo consiguen una escueta redondez, con motivos populares o cultos. Como vizcaíno y sabiniano es el que más se aparta de los otros[108]. (1987b:106).

---

[107]"Hoy se recuerdan tres nombres de esa época, aunque un cribado más fino permitiría matizar esta afirmación". (1987b:108).

Lauaxeta, Lizardi eta Orixe dira izenok. Ez dakiguna da baheak zein utziko lituzkeen gainean eta zein iragaziko. Lauaxeta ote da kanpoan utzi beharrekoa?:

"Como vizcaíno y sabiniano es el que más se aparta de los otros". (1987b:106).

Irtzi hau sendotuko luke Lauaxeta bazkuneko kide ez zela jakiteak.

[108]Orixeren kapituluan jaso bezala, Mitxelenak Arana Goirigandik Lauaxeta gertuago ikusten du Lizardi baino:

"Bistan da, adibidez, Lauaxeta "sabindarrago" zela ehun bider hizkerari begagozkio Lizardi baino". (1984b:34).

Halaxe zehazten du Sarasolak ere:

"Hildo honetan, kontuan hartu behar da olerkarien artean soilik Lauaxeta jarraiki zitzaiela Aranaren ortografi arauei. Gainerako guztiek Euskaltzaindiaren gomendioen arauera moldatu zituzten beren idazlanak, eta Lauaxetak berak ere onartu zituen azkenean gomendioak". (Sarasola 1978:962).

Lauaxetak ez bide ditu Mitxelenaren begietan Lizardik merezi dituen laudorioak, ez prosa-lanetan ezta zarauztarraren hasierakoez dioena gora-behera neurtitzetan ere.

Jaso diren eta jasoko diren Lizardiz adierazien ondoan arestiko hitzak paratuz gero, agerian gelditzen da Mitxelenarentzat, Lizardiren "giro berriak" Lauaxetaren "bide berriak" baino eragikorrago eta eredugarriagoak direla.

Halarik ere, biak dira Lizardiri aitortu dion[109] dohaiaren jabe:

> ez ziren lekuko izan, igarle baino urte luzeen buruan batzik mamituko ez ziren bide eta giro berrien igarle[110]. Ernamuina han zegoen, ordea, gero inork asma zezakeen lehorte gogorrenaren erdian hoztituko zen ernamuina[111]. (1977c:44).

Ez dira bi olerkariok Mitxelenarentzat bizi duten garaiaren testigu huts, geroari begira mamitu baitituzte lanak, geroan, gerra osteko basamortu kixkalian, helduko diren fruituen hazi izan daitezen.

Aztergai honetatik lerratuxe dagoelakoan, esan besterik ez dugu egingo, Lauaxeta eta Lizardi olerkarien eragina, gizaldi gazteagoengan noraino suma daitekeen ikusteak merezi lukeela, *ernamuina* euskal literaturaren, zehazkiago, euskal poesiaren soroan noraino *hozitu* den, ala asmo hutsean gelditu ote den jakin ahal izateko[112].

---

[109](1951c:24).

[110]Ez ote luke *baino* ondoan komarik beharko? *Dean* argitara eman zen jatorrizkoan ere ez dago komarik.
Marnian gogozkiolarik, bitxi deritzogu, Mitxelenak eginiko bereizkuntza, *MEIG* argitaraldiaren prestatzaileek gogoan ez hartzean: *igarle* ez da inondik ere Mitxelenarentzat 'profeta', Oteizaz ari denean garden eta aratz bereizten duenez:
"Aurrenik, ordea, profeta eta igarlea elkarrengandik berezi beharko genituzke. Igarlearen egitekoa igertzea da, noski, baina ez profetarena, berez eta lehenabiziko behintzat. Profeta, bestenik baino lehenago, Jainkozko ezin-egonak sutan daukan gizona da, inguruan ikusten dituen bidegabekeriek ikatz bizien antzera erretzen duena (...) Profeten antzera, badu Oteizak ere garra eta etorria, badu deadarka *opportune et importune* mintzatzeko deia".
Mitxelenak, berriz, bere burua ez *igarle* ez *profetatzat* dauka:
"Izango duten ala ez, ordea, ezin dezaket esan, ez bainaiz, profeta ez ezik, ezta igarlea ere". (1963g:117,119).

[111]"Hazi" izateaz ongi jabetua zegoela azpimarkatzen du Otaegik (1992:338):
"Iluna eta zaila izatea aldez aurretik kalkulaturik duen eragozpena da. Ederraren, estetikoi izatearen aldarrikapen "zoroa" da berea, jarraigo handirik izango ez duena, baina Lizardiren ustez, legamiak bezala altxagarri gisa ondoren etorriko direnentzat hartan oinarritu eta abiapuntu gisa balioko duena, dituen okerrak eta gehiegikeriak zuzenduz".

[112]Puntu hau aztertzearen premia aldarrikatzen du Kortazar Lauaxetaren aztertzaileak ere eta ondorio honetara iritsi:
"Nos interesa Lauaxeta por la influencia que ha ejercido en la literatura. Casi todos los poetas importantes de la literatura vasca contemporánea se han visto influenciados por su obra, aunque debe tenerse en cuenta también a Lizardi. Este es un punto aún no investigado en la Historia de Literatura Vasca [sic], pero del que poseemos abundantes indicios". (Kortazar 1986:11).

Guztiarekin ere, egungo egoerari begira, esan daiteke, Lauaxeta eta Lizardiren poesi molde zehatzezkoak alde batera utzirik, bide eta giro berri horien mamikuntzaren seinaleak (hezkuntza, unibertsitatea, ikerkuntza etab.) aurkitzen oso zail ez dela, Mitxelenagandik hasita. Hau da, Mitxelenak azpimarratzen dien *igarle*tza baieztaturik dagoela hein batean bederen.

6.3.3.2. Lizardi olerkaria

Lizardi neurtitz-ontzailea berariaz hartuz, begietan ematen duen lehen gauza, Mitxelenak Lizardiren poesigintzazko[113] ikuspegi orotarikoa, nagusiki erdal lanetan ematen duela baieztatzea da. Zehazkiago esanez, euskal literaturaren historian (1960b) eta beronen laburpen aitzindari (1958a) eta azkenaldikoan (1987b).

Hona osorik hiru lekuotan adierazia:

> Un lugar aparte y excepcional corresponde a José María Aguirre, más conocido por su pseudónimo de <Xabier de Lizardi> (1896-1933). Caso único en nuestra literatura, Lizardi es ante todo un transmutador[114], y esto es en él actitud espontánea, no el resultado de un propósito preconcebido: sensaciones, emociones e ideas son en sus manos depurada materia estética. En sus mejores poesías, la más alta cima de la lírica vasca, nos ha dado a la vez el drama inolvidablemente animado de las horas y las estaciones en el paisaje vasco y la serena imagen de un espíritu noble, serenidad teñida de una leve melancolía, como si presintiera el fin prematuro. (1958a:374,375).

> Un lugar aparte y excepcional corresponde a José María Aguirre, más conocido por su pseudónimo de "Xabier de Lizardi". Caso único en nuestra literatura, Lizardi es ante todo un transmutador, y esto es en él actitud natural y espontánea, no el resultado de un propósito preconcebido de "crear belleza": sensaciones, emociones e ideas se vuelven en sus manos depurada materia estética. En sus mejores poesías, la más alta cima de la lírica vasca nos ha dado el drama de las horas y de las estaciones del paisaje vasco, inolvidablemente animado por unos personajes que no tienen más que la leve, y sin embargo suficiente, consistencia de una metáfora[115]. (1960b:146).

> Aun si alguno de sus poemas (los primeros, se diría) son endebles, esto no alcanza al núcleo compacto de su obra, que para algunos es la cumbre más alta de esta poesía, por lengua y estilo. Y también por la viva imagen que dejó de su mundo, hacia fuera y hacia dentro. (1987b:106).

---

[113] Lizardiren heriotzaren 50. urteurrena zela eta, 1983an ale bakarrean bildu zituzten ia poemak oro, X. Letek paratuz.

[114] "Sus sentidos, los ojos en particular, activados por la imaginación, poseen la facultad singular de transfigurar los componentes de la realidad dotándoles de un aspecto nuevo e insólito. Nuestro poeta no trata de reflejar exactamente la realidad, pero en esa transfiguración tampoco busca el engaño, la falsificación, sino ser fiel a su propia visión del mundo, ser auténtico consigo mismo". (Otegui 1990:436).

[115] "El tipo de imagen que mejor caracteriza a Biotz-begietan y que mejor manifiesta la labor transformadora de la realidad operada por Lizardi es la prosopopeya, entendida ampliamente como sustitución o identificación metafórica por la que se atribuyen identidad, cualidades o acciones animadas a seres inanimados, animación, o incluso humanas a seres no humanos, personificación propiamente dicha". (Otegui 1990:447)
Lizardi-Mitxelenaren irudiok beherago astiro aztertuko ditugu.

Mitxelenak, ikuspegi orotarikootan, bada, euskal literaturan gailen ikusten du Lizardi olerkaria, besteren gainetik bakarti agertarazteko duina.

Lizardi berezko eraldatzailea da Mitxelenarentzat, berea du barne-isuriak eta burubideak edertasun bilakatzeko dohaia eta dohai hau ez zaio Mitxelenari ikas-ihardun nekearen ondorio agertzen, ezta iruzur-usainez ere, naturaltasun osoz baizik, era honetara, poesietan gatzatuaren bitartez, euskal lirika erpinera eraman du.

Lehen eta bigarren aipu zehatzagoen arabera, Lizardik erdietsi du denboraren joana poesia bilakatzea urte-sasoien itxuraldatzeak hartuz irudi.

Azpimarkatzekoa da bi lanetan, Mitxelenak *drama* hitza darabilela. Badirudi, Lizardik mamitzen duen horretan, bizitasuna kausitzen duela Mitxelenak, ez du Orixez ari zenean zerabilen *cuadro* edo geldotasuna gogora ekar dezakeen hitzik erabili gogo; Lizardiren poesia antzerkitik hurbilago sumatzen du, agidanez, deskripzio estatikotik baino. Zarauztarrak euskal lurra[116] nortu du eta sorturiko "pertsonak", metaforaren izaera sotila besterik ez badute ere, bizirik begitantzen zaizkio Mitxelenari.

Gainera, kanpora begira ez eze, barrura begira ere burutu du Lizardik gogoangarririk Mitxelenaren ustez. Bere izpiritua poesietaraino iragazi du, izpiritu neurtua, amaia gertuxe sentitzen duen izpiritu malenkoniatsua.

Lizardizko orobateko iritzi-agertze honetan, Mitxelenaren hitzek olerkariaren lanean epeak edo aroak bereizteko bidea ematen dute.

Honela, ondoko pasarteetan, bi epe bereizten ditu, trinkotasuna ezaugarri lukeen bat eta isuri herritarragoa edo islatuko lukeen geroagoko beste bat:

> Lizardi bera ere hizkera eta neurri erraz eta herrikoiagoen atzetik zebilen azkenaldera: zortziko txikitan ondu zituen "Etxeko sagastia" eta "Egamin" olerkietan, esate baterako. (1953g:65).

> En los últimos años de su vida, probablemente bajo la influencia de Orixe tendía a un tipo más simple –más popular– y aparentemente menos trabajado de poesía, abandonando un poco la concisa densidad que hasta entonces le había distinguido. Es un camino apenas emprendido y sería evidentemente ocioso hacer conjeturas sobre los resultados que andando por él hubiera llegado a obtener. (1960b:147).

---

[116] Bixi gertatzen da, behin baino gehiagotan, Mitxelenak Lizardi eta Baroja elkarretaratzea, euskal lurraren ezaupide aparta eta, lur hori, literatura bilakatzeko trebetasuna dela medio:

"[Barojak] Gure lurraldea inor gutxik bezala ikusi du, aurrenik: Pierre Loti eta beste gisara, Lizardi kenduz gero, nor aldera dakioke? Ornalde luzeetan eman digu marrekiro gure lur-barren eta itsas-aldearen irudia, hain zehatz eta bizia". (1956a:77).

"...beste batzuek, gorri-antxeko horietakoek edo, *La leyenda de Juan* [sic] *de Alzate* daukate Barojaren euskal testamentuzat". (1959f:127).

"hallamos los viejos incondicionales de Pío Baroja (...) Me refiero a **La leyenda de Jaun de Alzate**, obra por la que otros y yo hemos sentido siempre especial debilidad. Lo cual no quiere decir, evidentemente, que por esa inclinación nuestra haya de ser la mejor ni la más importante de Pío Baroja". (1962h:216).

"Pero mi entusiasmo por esa obra [*Biotz begietan*], difícil de entender ahora por la nueva crítica, iba acompañado, no intento explicar por qué, de la [sic] que sentí (y ejemplifico una vez más) por *La leyenda de Jaun de Alzate*, obra que leí, siempre que pude, en el folletín TIERRA VASCA, órgano de Eusko Ekintza, por otro nombre Acción Nacionalista Vasca. No voy a tratar de explicar por qué y en qué –desde luego, no en la lengua– lo encontraba *gogaide*, del mismo espíritu, que los poemas de Lizardi: el hecho es ése. A fin de cuentas, uno llegaba a la conclusión de que hasta los Bárbaros sentíamos, y podíamos expresar en los mejores momentos, algo que valía la pena de defender. Incluso con la muerte (pero no con el asesinato)". (1964d, *SHLV*:655).

Heriotzak eten du Lizardik hasi berri besterik ez duen poesi molde berriaren bilakaera eta ezin jakin daiteke, nolako fruituak eman zitzakeen; hori dela eta, Mitxelenak nahiago bide du aro horrezazko iritzia estali gorde.

Baina iritzirik ematen ez duen arren, ez dirudi azken Lizardik eman zezakeen horrek Mitxelena larregi artegatzen duenik; hobeto esan, zain egon beharrik ez dago, Lizardik aurretiaz mamituak aski baitira bere izena lirikaren gailurrean merezimendu osoz egoteko:

> Sin embargo, la acabada perfección de algunas de sus poesías líricas hace que nos olvidemos de lo que hubiera podido ser y evita que podamos considerar su obra como truncada. (1960b:148).

Arestian jaso den erdal pasarterik berrienean[117], berriz, besteetan adierazi gabeko beste nabardura bat eransten du.

Ahulagoak edo iruditzen zaizkio lehen Lizardiren lanak helduarokoak baino. Baina, orain ere eta berriz ere, ez dira hauek, Mitxelenaren begietan, Lizardiren obra bezteko edo kolokan jartzeko gauza.

Bestetik, berriz, azken Mitxelenaren erdal aipu horretan bertan ikus daiteke, Mitxelenak bere aburukotzat izan duena, besteren ezpainetara ere hedatu eta Lizardi gailen aurkezteko neurgarria zehazten ere duela: hizkera eta idaztankera –lehen berariaz esan gabeak, alegia–, batetik, eta arestian aipatu den beste arrazoi bat, –kanpora nahiz barrura begira, irudi bizia utzi duela–, bestetik, dira Lizardi lirikaren goi-gailurretara daramatenak.

Honela bada, Lizardiren bilakabide poetikoaz Mitxelenak han-hemen jalkiak laburbilduz, ondoriozta daiteke, hiru epe bereizten dituela Lizardi olerkariagan, estreinakoa (ahulentzat jo duena), trinkotasuna nagusi duen bigarren bat eta azkenaldekoa, molde herritarragoetara hurbildua. Erakutsi denaren arabera, bigarren epeko Lizardi duela Mitxelenak begikoena gogoeman daiteke.

Lizardi olerkariagan, oro har, Mitxelenak nabarmentzen dituenak eta euskal lirikaren gailurretaraino eramateko bultzatzen duten zioak, berriz, honakoetan laburbil daitezke:

-Eraldatzailea, eder-sortzailea
-Kanpora begira, irudi biziak
-Barrura begira, izpiritu orekatua
-Hizkeran eta idaztankeran, erdiespen berebizikoak

Aipatu ezaugarriok zehatz-mehatz ikusteko egokierarik aukerakoena, *Biotz-begietan* lanari Mitxelenak iritzian kausitzen da ezpairik gabe, liburu honetan bilduei, beste poemei ez bezalako arreta paratzen baitie. Alderdion iturburuak izango ditu, hain zuzen, aztergai, Lizardiri

---

[117] (1987b:106).

eskainiriko artikulurik luzeenean.

6.3.3.2.a. *Biotz-begietan*. Euskal lirika gorpuztua

6.3.3.2.a.1. Aipatu Mitxelenaren artikulua, "Lizardi'tar X. BIOTZ-BEGIETAN. OLERKIAK (POESIAS VASCAS, CON TRADUCCION CASTELLANA). Industria Gráfica Valverde, S.A. San Sebastián, 1956" *Egan*en urte horretan argia ikusi zuena da; hau da, Lizardiren olerki-bildumaren bigarren argitaraldia iruzkingai duena.

Liburu-iruzkin honen lehen nabarmentzekoa, artikuluan sarrera gisakoarena egiten duen pasartearen taxukera da, galaren antolamendu-harlaren nondik-norakoa.

Mitxelena orotarikoenetik, zabalenetik hasten da "mundu guziko literaturan" leku irabazia duten eta eztabaidaz kanpo dauden lan handiak aipatuz: Edipo, Macbeth, Don Quijote, Faust, Aita Goriot, Stavrogin, guztiok, poema epiko, drama, kontakizunak dira, "gizonak bere irudira sortu dituen errainu iraunkorrak", gaitzak, luzeak, handiak.

Ez bide da honetan Mitxelenarentzat zail bat etortzen, inori munduko literatur lan handiez galde egitean, aho batez emaniko erantzuna izan ohi baita. Aitor hau onartu bezain sarri, ordea, Mitxelenak lokailu aurkaritzakoa sartu eta eskegita utziz amaitzen du paragrafoa: "Eta, hala ere..."[118].

Hau da, jakintzat ematen den, edonorentzat bistakoa den egia horretan, arrunteko aburu hori ontzat emanik ere, pittin batez saihesteko Mitxelenak arrazoiak badituela edo susmatzeko bidea ematen du, bukaera hori dela medio. Hutsune nabaria atzematen du Mitxelenak zerrenda horretan.

Susmoaren irozgarria —hots, gehiengoak estari gordetzen duen hutsune larriaren argibidea—, argumentazioan beste urrats bat emanez islatzen du. Oihartzunik handiena dutenetatik jauzi eginez eta esparrua murriztuz, alegia, mundu zabaleko literatur lan sonatuetatik, hainbestetan aipatzen ez diren *egiazko lirika*koetara doan urratsa emanez; bestela esan, itxuraz handien direnetatik, itxuraz xumeago direnetara igaroz.

Egiazko lirikari ez dagokio aipaturiko beste lan haiei dagokien handitasuna, ez du handiusterik, "lore apal eta izkutua" da. Luze-laburra, ordea, ez da edertasunaren neurgailurik zuzenena, horregatik, egiazko lirika-lanek, "ez diote ttiki eta labur izanagatik, inori ederrean zorrik". Nahiz literatur lan ezagunenen balioa ukatzen ez duen, Mitxelena egiazko lirika-lanena aldeztuz mintzatzen da.

Zeinahi olerki-poesia ez da, ordea, beste gabe, lirika-lana. Sasiko ez baina egiazko lirikaren barrutian bere lekua erdiets dezan ez baita aski lerro-lerrokako antolamendu hutsa; besterik behar du sortanak "giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaienetaraino" hegalda dadin. Mitxelenaren ikusmoldeaz esanez, gizakiak hizkuntzaz baliatuz inoiz mami dezakeen eta mamituko duen sorkarirlk preziatuenen artekotzat hartuko bada.

---

[118] Latinoen "etiam, concedo; tantum, nego" ez ote dakar betametara Mitxelenaren baitabide honek?

Egiazko lirika, "poesia barrenkoi eta bakana da", "solla eta apaingarririk gabea" eta, solitasun horixe du, hain justu, oztopo gehiengoarengana iristeko eta dastatua izateko.

Bi alderdiren jabe da egiazko lirika-lana Mitxelenarentzat: musikaduna eta mamitsua da. Musikarekin badu eiterik, baina hark baino ezinbestekoago du mamitsua izatea, gogoetak gordetzea, alegia.

Ez da, honenbestez nahikoa soriana azal eder eta apainez jantzita egotea egiazko lirikan sartu ahal izateko, nahitaezko eskakizun du, gogoetez mamitsua izatea.

Zerrendan atzematen duen hutsunea bete eta argitu duela, zehaztasuneranzko beste urrats batez jarraitzen zalo Mitxelena hurrengo paragrafoan, lirika zabaletik euskal lirikaren barrutira igaroz.

Aitor bat eginez hasten da: "Gurean, beste nonnahi bezala, ez dira asko izan egiazko lirikoak"[119]. Euskal lirikaren eremu hesitu honetan gertatzen denak bestetan gertatzen denarekin alde larriegirik ez du[120]; hau da, arestiko eskakizunak gainditzen dituen autore askoren lanik ezin topatu da ez mundu zabaleko literaturan ez euskal literaturgileen artean ere[121].

Eta eskakizun zorrotz horien barnean, Lizardi da hautetsia, errenteriarraren erabaki sollez ez baina, euskaldun frankoren adostasunez gainera, "Lizardi hautatuko genuke askok[122]". Lizardi da euskaldun asko horientzat, "euskal lirikaren ezaugarria", Lizardigan du euskal lirikak ordezkatzailerik bikainena[123].

Atariko eta kokatzetzat jo daitekeen orain arteko pasarte argigarriaren ondoren; hau da, Lizardi non eta nola kokatzen duen agerian utzi eta gero, Mitxelena iruzkingaiaraino, Lizardiganaino iritsi da.

Lizardiz zehazki idazten hasteko hautatzen duen bidea da orain nabarmengarri. Ez du autu duen lanaz berariazkorik deus adierazten, olerki-liburuaren antolamendu nahiz bestelakoez, aitzitik, Lizardirekiko zorren **zerrenda** harilkatzeari ekiten dio.

---

[119](1956g:63).

[120]Behin baino gehiagotan Mitxelenak errepikatzen duen leloa. euskaldunak ez gara gauza aritzetan hagitz desberdin.

[121]"Euskal liriko" izena bere beteen eraman dezaketen gutxi horien artean, Lizardiz gain, Orixe, noski, ahantzezina da. Halere, Bilintx duela mintzagai, honakoa irakur daiteke:

"Egiazko lirikarako joera ez dator jakitetik ez hizkuntza landutik. Barrendik dator edo, nahiago baduzue, goitik. Eta egiazko lirikaren urrearen aldamenean gainerako guztia -eta batipat jakituri [sic] ugariaren ume denaez da tupiki ozena baizik, gehienaz ere. Eta nik uste izaki, oker ala zuzen, badela horrelako urre izpitxo bat edo beste sakabanatuvik Bilintx arlotearen bertso traketsetan. Aski merezimendu da hori hirurehun lerro merezi izateko, hogeitamar ez ezik". (1962a:84).

[122](1956g:64).

[123]"Si se me permite descender a interioridades, diré que tuve la fortuna de familiarizarme con la obra de Lizardi (personalizo por sencillez) poco antes de la guerra, durante ésta y años después. Guardo todavía un cuaderno de la copia que hice, con mejor letra que ahora, de *Biotz begietan* en la Prisión Central de Burgos, donde por cierto, y no quiero dejar de aprovechar la ocasión, pero no donde dicen ciertos interesados promotores, se publicó la primera revista clandestina impresa, ESPETXIAN, que yo reconozca bajo el franquismo.

Pero mi entusiasmo por esa obra, difícil de entender ahora por la nueva crítica...". (1984d, *SHLV*:654)

Zorren kontu ematea, ez du, horregatik, nolanahi josten Mitxelenak. Esaten joango denen iturburua argitzeko utziz antolatzen ditu, bata bestearen ondoan Lizardigandikako hitzak eta bereak, zein den batarena norainokoa bestearena, Lizardiren jatorrizkoa aurrean izan ezean, erabaki-ezin bihurtuz[124].

Lehenengo zorra, Mitxelenaren esanetan, "euskal lurraldea" estreinakoz "jantzi eta biztea"[125] da.

"Jazteari" dagokionez, jazkia edertasuna izaki, Lizardiren egitatea definitzean, bi gertariren artean ezpaian dabil Mitxelena. Galdera moduan aldatzen du paperera bere duda:

> Edertasun berriz estali digula esango al dugu, edota gordean zegoen edertasuna idoro eta agerrarazi duela? (1956g:64).

-"Edertasun berriz estali du" euskal lurraldea. Lizardi da badagoen gorputzarentzat "jazkl" berria atondu duen josluna.

-"Gordean zegoen edertasuna idoro eta agerrarazi du". Ez du Lizardik bazegoena hornitu, bilaketaren ondorioz, sakonean zetzana atzeman eta agerira eraman du[126].

Mitxelenak aitortu Lizardiren poesi moldearen iturburuak jakin-ezarekin ikuskizunik cte galderen ondoriozko balizko erantzun bikoitz honek? Non letzake gorderik edertasun hori, euskal literaturako izkribuetan? Ahozko tradizioan? Kanpoko ederlanetan? Galderak baizik ezin paratu, Mitxelenak berak, irtenbiderik ematen ez du eta: "Dena dela[127]" batez hurrengo puntura igarotzen da.

"Bizteari" dagokionez, berriz, Lizardik bizia eman dien "itxura xotilen" ezaugarria, ezin urratuzkoak izatea da Mitxelenaren iritziz: "inguruan izango ditugu aurrerantzean hark biztu zituen itxura xotilak".

Artikuluaren hasieran, Mitxelenak literatur lan handiei alboratu badie errainu iraunkorra uztea[128], egiazko lirika isilago izanik ere, Lizardi lirikoaren itxurek inoizko- eta betikotasuna

---

[124]Mitxelenaren jokamoldea. Lizardirenak barrendu eta bere igurtziz hornituz paperera aldatzea, zarauztarrarenak muineraino bereganatuak izatearen seinaletzat, are jokamolde la mimetikotzat har daiteke. Gure iritzi honen irozgarriak, beheraxeago erakusten joango gara.

[125]Gogora daiteke harako:

"Lizardik berak, esanak esan, elderantziz jokatu zuen lirikan bertan izaki bizigabeak bizten eta "nortzen" salatu zenean" (1961e:122), Orixeren bestaldera jokatu zuela adieraztekoa.

[126]Ikus, halaz ere, Arestirekin duen eztabaidan (1964g) agerian geldltzen dena.

[127](1956g:64).

[128]"Gizonak bere irudira -poema epikoetan, draman, kontakizunetan- sortu dituen errainu iraunkorrak gogoratuko litzaizkioke lehenbizi". (1956g:63).

iritsi dute[129].

Lizardik bizturiko "itxura xotilen" zerrenda honetan kausitzen da, hain zuzen, arestian esaten zen Mitxelenarenak eta Lizardirenak lehen begiradan ezin bereiztea; errenteriarrak lirikoarenak noraino dituen barrenduak erakusten duen testigutza, alegia.

6.3.3.2.a.2. Argi beharrez, urratsez urrats erakusten joango gara hemendik aurrerakoan, nola uztartzen diren Lizardiren eta Mitxelenaren adierazpideak, Mitxelenaren pasarteetan Lizardiren hitzak tartekatuz[130].

1. *Udaberri neskatxa, urdinez jantzia, basoak maitea*

"Neskatx urdin-yantzia"

Udabeti, uste-ezik,
arki dut basoan.
Neskatxa da, ta **urdiñez**
yantzita ziyoan. (38.or.)

Non da, non da sorgiña,
basoak maitea? (44.or.)

2. *goizegi karraxika hasi zaion Otalore ezinegona*

"Urte-giroak ene begian"

I. BIZIA LO

Otsail-erdi

Bide-ertzean, ez mafubi
ez belar gizenik.
Otalorea, bakanka,
goiztxo kafaxika,
Udabeliari deika. (88.or.)

---

[129]Mitxelenak beste erdal artikulu batean mintzagai duen (eta elipsia dela eta, gogaidetzako eduki daitekeen) Sánchez de las Brozas-ez esan ohi dena gertatu ote zaio Lizardiri, hots, latinazko (*Minerva seu de causis linguae latinae*) azterketa agindu eta orotariko arauak eskaini zituela; Meilletek Bopp-ez edo historiako Colon edo Columbus-i gertatuaz esaten denaren antzera?

[130]*Letra lerriz* (edo etzanez) idatziko ditugu Mitxelenarenak, Lizardirenetatik bereizteko. Darabilgun argitaraldia, Mitxelenak iruzkindu berbera da; honenbestez, orrialdea besterik ez dugu zehaztuko. Beltzaxka guztiak gureak dira, Mitxelenaren iturburu zehatzak nabarmenago gera daitezen.

IV. ONDAR GOŔI

(Negu)

Ikus bezat, Yauna, bein ta beiro,
otalore eziñegona... (112.or.)

3. *Uda, mendiaren eguerdia*

"Urte-giroak ene begian"

III. BASO ITZAL

Uzta-uzta

Udal Mendiak i au eguerdi,
ta ufezko opor-aro, ta abaro-aldi... (101.or.)

4. *Negu agurea: Itzal beltxerana, Baso'ren umea*

"Urte-giroak ene begian"

II. SAGAR-LORE

Loreil-bete

Ibil, txoriok, ta kanta alaiki.
Negu agurea ĩla da, baiki,
lufa soil baitago elufez: (96.or.)

III. BASO ITZAL

Uzta-uzta

Itzall, Baso'ren ume yaukal,
xaloagorik ezin ål:
beltxeran, begi bai azal:
Itzal!...
Itzal!... (104.or.)

5. *Jaun Iguzki oraila, lehorteen aita*

"Urte-giroak ene begian"

II. SAGAR-LORE

Loreil-bete

Anitz egunez, ez gera alaitu
lurtalok. Golen sar egin baitu
Euri'k Eguzki giltzapean;
yaun orail eder, legorteen aita,
katez loturik egona baita
odei bustien sabelean. (92.or.)

6. *bere ama, Gau naroa, ezagutzen ez duen Egun begi urdina*

"Afats-golf"

Beldur naiz, eneño, afats goſiotan
erio-oxkilla dabiltzun zaiñetan;
Egun begi-urdin iltzer dagola-ta,
arengana zauden maitez ukituta... (140.or.)[131]

(...)

Gauaren aginduz, oſa sua itzali
Itz ok bota dizka Egun yoanari:
<Al, Egunſo txoro!, **ez ezagun ama,**
Lên uts sakonean Bakar nindukana?... (142.or.)

(...)

<Begi-beltz, oin-iſaun, **ama Gau naroa,**
ekarkor bekigu zure azaroa:
egun begi-urdin betoz ugariak
gure elkarmin onen gaiñezkagaſiak!...> (144.or.)

[131] Lizardiren lehen aipamena dakargu (15. bertso-lerrokoa), 25. eta 63. bertso-lerroetan ere badarabil "Egun" erreferentzikidea.

7. Pago pertxenta gaztea

"Urte-giroak ene begian"

II. SAGAR-LORE

Loreil-bete

Zertan udalen dan igertzeko
begi bear diot bide-ertzeko
pago pertxenta gaztearl. (94.or.)

8. lurrezko jauregian bizi den kilker olerkari arlotea

"Urte-giroak ene begian"

II. SAGAR-LORE

Loreil-bete

Kilker olerkari arloteak
neurritz ozenak ditun boteak
lurezko yauregi-atean?... (94.or.)

IV. ONDAR GORI

Azaro-lêna

ixil zen **olerkari yaun Kilker**
aixtian, alper eder den Txitx (110.or.)

9. Urretxindor adiskidearen hilkizunetara berandu beldurrez lehiatzen diren txori saldoak, eta hainbeste eta hainbeste

"Urte-giroak ene begian"

IV. ONDAR GORI

Azaro-lêna

Ta zuek, nora, txorlok, saldoka
zoazte, iraduz ufundu-bearka?

Adiskide Ufetxindor il zaizute,
ta aren ilkizunetara
- **ogoak ikara** -
berandu-beldurrak al-zaramate? (112.or.)

Hemen zatika emanak, zortzi lerro eskas betetzen ditu Mitxelenaren testuan eta puntu eta koma (;) soilaz baliatzen da *itxura* bat hurrengotik bereizteko.

Hor daude metaturik Lizardigandik handik eta hemendik begiz joak. Pilatua ez zaio beti poesiaren (eta poesien) hurrenkerari heltzen, ikusi den bezala. Mitxelenak adierazpide[132] batean lotzen dituenek ez baitute, iturburu-poesiako ez lekua, ez lotura ezta ordena ere gordetzen; ez guztiek eta ez beti behinipehin.

Jatorrizko testutik Mitxelenaren adierazpideetara doan aldea aztertuz, zenbait ondorio atera daitezke:

-Mitxelenaren aipamen guztiek, hobeto esan, itxura bakarra osatzen duten puntu eta komen arteko adierazpide orok, Lizardiren poema beraren "gaietan" dute iturburua, egia bada ere "kilker olerkaria", jaso bezala, Lizardiren bi olerkitan errepikatzen dela.

-Ahapaldiei dagokienez, ez du Mitxelenak jokaera bakarra, diferenteetatikoak nahiz ahapaldi bereko irudiak baitarabiltza itxura bat osatzeko. Honela, ahapaldi bereko irudiez baliatzen da 3., 5., 7., 8. eta 9. adierazpideetan; beste lauretan (1., 2., 4., 6.) berriz, ahapaldi desberdinetakoez.

-Ahapaldi desberdinak josteak, bertso-lerro bera iturri ez izatea ezinbestean dakarren bitartean, ahapaldi bakarraren esparrutik hautaera egin duenean, bertso-lerro bera ala besteetakoak begiz jotzeko aukera ematen dio.

Ahapaldi beretik hautatuak izanik gogoan, honakoa nabari daiteke: bitan (3. eta 7. itxuren adierazpideetan) lerro berari eusten dio; beste hiruretan (5., 8. eta 9.ean) aldiz, lerro-nahastearen alde makurtzen da.

Honi dagozkionak laburbilduz esan daiteke, Mitxelena bederatzi adierazpideotarik, bi soiletan, 3. eta 7.ean alegia, Lizardik eman bezalako hurrenkerari jarraitzen zaiola; beste guztietan, bere gisako antolamendua nahiago du, bai ahapaldietakoak nahasiz (1., 2., 4., 6.etan), baita ahapaldiak nahasi gabe, lerroen ordenari muzin eginez (5., 8. eta 9.etan).

---

[132] "Adierazpide" darabilgu konnotazio zehatzik gabe, ez sintaktikorik, ez bestelakorik.

Eskematikoki, honela iruditara daiteke[133]:

Mitxelena	POEMA	AHAPALDIA	LERROA
1	+		–
2	+		–
3	+	+	+
4	+	–	–
5	+	+	–
6	+	–	–
7	+	+	+
8	+	+	–
9	+	+	–

Hirugarrenak eta zazpigarrenak adieraz dezaketen berdintasuna dela eta, zehaztu beharrekoak daude.

Mitxelenaren zazpigarren adierazpidea da Lizardiren *itxura* hitzez hitz eta molde berean jasotzen duen bakarra (*pago pertxenta gaztea* | "pago pertxenta gazteari"), aipamen luzearen sintaxi-egiturak, halabeharrez dakarren kasu-marka aldeka batera utziz. Beste guztietan, hirugarrena barne, Mitxelenaren eskua dabil ararteko.

Hirugarren honetan, urrutirago gabe, joskeraren aldaketa dago: *Uda, mendiaren eguerdia* | "Uda! Mendiak i au eguerdi". Lizardi poetak, urte-giro "nortuarekin" duen solasa –2. pertsonaren agerpena–, Mitxelenarenean erabat desagertu da eta berarekin batean aditza.

Nolabait esan, garai bateko Port-Royal-ekoen (gero zokoraturiko) irakaspideei jarraiki, genitiboaren azalpenerako erabiltzen zenaz baliatuz, Lizardi "Sakoneko Egiturari" atxikitzen zaio eta Mitxelena, berriz, "Azalekoari", transformazioak tarteko.

Lerroarenak ez baina ahapaldi beraren mugak onartzen dituenean ere iger dakieke Mitxelenaren adierazpideei aldaketaranzko joera, batzuetan "ia-iazkoa" bada ere.

Esate baterako, bostgarrenean alderik apenas antzeman daiteke Lizardiren eta Mitxelenaren artean, baina egon, badago: *Jaun Iguzki oraila, lehorteen aita* | "Eguzki / yaun orail eder, legorteen aita". Lizardiren bigarren lerroan, aurreko lerroko "E(l)guzki" "Yaun"-en erreferentzikidea txertatu eta "eder" izenondoa desagerrarazi du.

Zortzigarren adierazpidean aldakuntza nabariagoa da: Mitxelenak erlatibozko perpausean, atzekoz aurrera josi ditu Lizardiren poemakoak. Esan nahi da, Lizardik "kilker olerkari arlotea" aipatzen du estreinakoz, beste lerro bat dator ondoren eta hurrengoan, "lurrezko yauregia".

Hurrenkera-alderanzketaz gain (Mitxelenak aukeraturiko perpausa erlatibozkoa izateak izan dezake, agian, zerikusia) beste desberdintasun bat ere antzeman dakioke. Lizardik ez

---

133. "+" ikurrak hurrenkera 'bera' adierazten du, "–" ikurrak, 'desberdina'. Halaber, Mitxelenarenak eta Lizardirenak berdinduko ditugunean "|"ikurraz baliatuko gara bi egileonak bereizteko, "/" bakarra, ohi den bezala, poetaren bertso-lerrokoak banantzeko gordez.

Lehen bezala, Mitxelenarenak (hitz-katean lehenak) letra lerriz edo etzanez aldatuko ditugu eta Lizardirenak, komatxo artean.

du poema osoan zehar adierazten kiiker hori lurrezko jaureglan bizi denik; Mitxelenak, ordea, hor kokatu dio bizilekua. Esan daiteke, bada, Mitxelena irakurlearen eskua dabilela tarteko, hau da, irakurketatik jaso duen irudia aldatu duela, ez Lizardik zuzenean dioena.

Ahapaldi bera iturri duen azken adierazpidean ere –bederatzigarrenean, alegia–, antzera jokatzen du errenteriarrak. Honetan ere, erlatibozko perpausaz baliatu da ahapaldian zehar sakabanaturiko irudiak josi eta batasun batean biltzeko.

Lizardik txoriekin duen elkarrizketa (zuka ari zaie) desagerrarazi eta hirugarren pertsonan aurkezten du Mitxelenak *itxura*. Hitzen gramatika-kategoriak edo-eta sintaxi-betekizunak ere ez zaizkie Lizardirenei jarraitzen:

txori saldoak ----- "txoriok, saldoka"
Urretxindor adiskidearen hilkizunetara ----- "Adiskide Ufetxindor (...)/ ta aren ilkizunetara"
berandu beldurrez ----- "berandu-beldufak[134]"

Aldeak alde, hauetan guztietan, Lizardiren hitz berak darabiltza Mitxelenak, ez ordea adierazpide osoan.

Zortzigarren adierazpideaz esan denaren antzekoa ikus daiteke berriz ere bederatzigarren honetan: lehen Mitxelenak erantsiriko aditza zen, orain, antzeko esanahia izan dezakeen beste hitz bat darabil (aditza) Lizardiren adizlagunaren ordez; honela, Lizardik, "iraduz" eta Mitxelenak, *lehiatzen diren*.

Beste hirugarren multzoa osatzen dutenei erreparatuz gero –Mitxelenaren lehen, bigarren, laugarren eta seigarren adierazpideei alegia–, berriz ere, Mitxelenak bere erara aldatu dituen seinalerik ez da falta, batzuk nabarmenago besteak baino.

Lehenengotik hasita, ikus daiteke Lizardik lerro eta perpaus diferenteetan, are ahapaldi urrun samarrekoetan (sei orrialdeko tartea) emanak, alborakuntzaz lotzen dituela Mitxelenak adierazpide bakarrean, lotura bakarra erreferentzikidetasuna izaki.

Lehen bi adierazpideak osatzeko Lizardik gertu paratuez baliatzen den arren, hirugarrenaren bilaketa (*basoak maitea*) sei orrialdez luzatu behar da, poetaren "basoak maite" duen "sorgiña" aurkitu ahal izateko. Oierki osoa irakurriz eta ulertuz bakarrik jakiten ahal da "sorgiña" udaberria dela, hau da, "udaberria" eta "sorgiña" erreferentzikide direla.

Mitxelenaren bigarren adierazpidean ere (zortzigarrenaren eta bederatzigarrenaren gisa), erlatibozkoa jo du begiz irudiak josteko.

Egia bada ere Lizardik ahapaldi bereko jarraiko bertso-lerroetan ematen dituela Mitxelenaren adierazpidea osatzen duten ia elementu guztiak ("Otalorea... / goiztxo karraxika"), egia ere da, Mitxelenak otalorearen nolakotasuna adierazten duen *ezinegona* izenendoak, ez

[134] NORK kasuan, alegia.

duela ahapaldi horretan iturburua, "Otalore ezinegona" izen-multzo osoa, handik hogeita lau orrialdetara aurkitzen baita.

Berriz ere, bada, atzekoz aurrerakoa da erlatibozko perpauseko irudien ordena.

Ez da hori, halaz ere, aldakuntza bakarra. Mitxelenak graduz areagotu du aditzondoa, Lizardiren "goiztxo" zena *goizegi* bilakatuz.

Laugarren adierazpidean bilduek, lehen adierazpidekoekin dute antza, honetan ere ez baitago irudiak lotzen dituen aditzik. Bada, horregatik, elkarren arteko aldea: lehenengo hartan, koma soilez baliatzen zen irudi erreferentzikideak metatzeko; honetan, aldiz, "Negu agurea" Lizardik sintagma bakarrean bildurikoa, Mitxelenak azalpengai hartu eta, bi punturen ondoren, komak direla tartean, aldatzen ditu beste bi irudiok (*itzal beltxerana, Baso'ren umea*), lehenaren kide eta era berean, nolabaiteko azalpen direnak, hain zuzen.

Bi puntuez baliatze honek izan al dezake, apika, ikuskizunik, Lizardik ere bigarren eta hirugarren irudien iturburu den ahapaldian bi puntuak (bi bider) erabiltzearekin?

Adierazpideko lehen iruditik ("Negu agurea") beste bien osagaietaraino iristeko, ahapaldiak ez ezik, poemaren atalak ere (II. SAGAR-LORE, III. BASO ITZAL) zeharkatu beharra dago zortzi orrialdez.

Bigarren irudiko (*Itzal beltxerana*) osagaiak ez daude Lizardirenean honela lotuak, lehen eta bigarrenaren artean dagoenean ematen baitu Lizardik, besteak beste, Mitxelenaren hirugarren irudia dena (*Baso'ren ume*). Hau da, "Itzal" eta "beltxeran"-en artean lerro t'erdi dago.

Berriz esan, irudi hauek guztiak honela mamitzeko poema osoa irakurria ez ezik, ongi barrendua izatea ezinbesteko begitantzen da.

Azkenerako utzi den seigarren adierazpideari helduz, azpimarra daiteke, seigarren hau eta lehena direla, hain zuzen, Mitxelenak "Urte-giroak" olerkitik hartu ez dituen bakarrak, hura "Neskatx urdin-yantzia" izenekotik eta hau berriz, "Afats gofi" deritzanetik aukeratu ditu eta.

Adierazpidea osatzeko –bigarrenean, zortzigarrenean eta bederatzigarrenean bezala–, erlatibozko perpausa nahiago izan du Mitxelenak, poema osoan zehar Lizardik han-hemen errepikatzen duen "Egun" (5., 38., 39. bertso-lerroetan), zehazkiago, "Egun begi-urdiña" (15., 25., 63. bertso-lerroetan) *itxura* aipatzeko aiegia.

Mitxelenak *Egun begi urdin* horri itsasten dizkionak, ahapaldi desberdinetatik hartuak ditu, Lizardiren hurrenkerari jaramonik gabe. Honela, "Egun"-ek ez duela ama ezagutzen irakur daiteke 39. bertso-lerroan, ama "Gau" naroa dela, berriz, 61.ean; Mitxelenak, ordea, alderantziz aurkeztu ditu.

6.3.3.2.a.3. Orain artekoak, euskaldunek Lizardiri zor dizkiotenak dira, poetak biztu eta betiko utziriko "itxura xotilak". Ez dira, haatik, hemen amaitzen poetarekiko zorrak:

> Maiagarri beharrean zen oraindik Lizardi hasi berri hartan: laster sortu zuen horratik, bere kaltarik. Chahok eta Arakistainek asma zezaketen baino Mitologia jatorragoa eta, bere-berea zuelarik, gureagoa. (1956g:64).

Gabeziaz ongi ohartua aurkezten du Mitxelenak hastapenetako Lizardi: "Maitagarri beharrean"[135], eta hutsune hori bete asmoz sortuko, Chahok eta Arakistainek asmatu ez bezalako mitologia. Lizardirena beste horiena baino mitologia "jatorragoa eta, bere-berea zuelarik, gureagoa" baita.

Berriz ere, arestian esan den bezala, poetaren dohaia da bere barnera jotzean ororentzako emaitzak kanporatu eta eskaintzea. Guztiontzat eta betiko dira Mitxelenarentzat, Lizardik bere barnetik jalgiriko *itxura* eta irudiak, eta egungo azaleko aldaketek, diren bortitzak direla, ezin urratuko dituzte:

> Eta horrenbeste gipuzkoar langile elkarren lehian ari bazaizkigu ere, oraingo gisan, mendiak murrizten edo gehienez pinu beltzez jazten , ez dute, eginahalak egin arren, Lizardik utzi zigun baso antzaldatua soilduko[136]. (1956g:64)[137].

Mendiaren itxura gizakiek bertako gipuzkoarrek alda dezaketena izaki, azaleko aldakuntzak -litekeen larriena delarik ere- ez du sekula lortuko Lizardik eraikiriko mendi liluragarri-magiko hori suntsitzea:

> harako leihoak itxitako jauregia dirudien hura, atsedenaren eliza, gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak -izar irudiz zirtatuak- behean dituena. (1956g:64).

Lerro hauetan laburbiltzen ditu berriz ere Mitxelenak -lehen itxura xotilekin egin gisan-, Lizardiren baso antzaldatua osatzen dutenak. Oraingo kasuan, ordea, *harako*k adierazten du Mitxelenarenak ez baina, Mitxelenak hartuak direla.

---

[135] *Biotz-begietan*eko bigarren argitaraldi honetako lehen olerkian bertan dago "Maitagarri amestu" horren lehen agerpena:

> "... Amets dagit, basoan
> il nauela, parean
> maitagarri batek,
> ta, gozorik, ilete
> abesten didatela
> bafeun mila lorek...". "Oia" (Lizardi 1956_2:8).

Ez da, hastik, bakarra:

> "Egiz maitagarriak
> dituk ire basotan?..
> egiz duk arnaskai bat
> ezilkortzen duna?...". "Mendi-gaña" (Lizardi 1956_2:14).

[136] Karlos Otegik azpimarkatua du Lizardiren ikusmolde hauxe bera:

"Lizardi subraya este segundo aspecto: no ve a la naturaleza como hostil al ser humano, sino a éste como adversario de la naturaleza". (Otegui 1990:576).

[137] Mitxelenak mendiek jasan zuten erasoa oso gogokoa ez zuela garbi ikus daiteke hemen, hondamendiaren errudunak kanpora gabe topa daitezkeela esanez gainera. Ez da "naturarekiko kezka" (ekologizaletasuna, nahiago bada) agertzen duen leku bakarra. Ikus (1972a:161), laugarren kapituluan.

-leihoak itxitako jauregia dirudien hura, Lizardiren "Urte-giroak ene begian" olerkiko III. BASO ITZAL (Uzta-uzta) zatian irakur daiteke:

> "**Leioak itxitako yauregia**
> **basoak irudi**. Lo nagusia". (104 or.)

-atsedenaren eliza, olerki-zati berean.

> "**Atsedenaren eliz**, zutoiz bete,
> osto-pilo ta izar izunak abe:
> ta i bertan olaneko yaupaleme...". (104 or.)

-gau argi izarrez josia goian eta ur berdeak - izar irudiz zirtatuak - behean dituena. Beste hau, aldiz, "Neskatx urdin-yantzia" lehen ere hona ekarritik.

> "Ustez, **buru gañean**
> **gaua dut, argia**
> **amaika izar urdiñen**
> **dirdirak yoela...**
> Ustez, **ur oriegiak**
> nituan oñean,
> **izafok ziralarik**
> **islatzen**[138] **urean...**
> Gezur amesgaiia
> liiurak sortua!
> Goien urdiña nuan,
> ostoak xêtua;
> bêan, beiiz, uiezko
> yarioz argiak
> beiafean oi-ditun
> begibil zoliak". (42 or.)

Itxuren aipamen batzuk mamitzean jarraituriko baliabideei eusten die berriz ere hemen Mitxelenak. Orain ere, erlatibozko perpausean batzen ditu Lizardiren olerkikoak.

Lizardirenean, basoak du mintzoa, Mitxelenarenean, berriz –Lizardik bizigabeei emaniko boza mututuz , kanpoko hirugarren pertsona da deskribatzailea; deskribatzaile ez osoro objektiboa, halarik ere, ondoren jasoko direnak, leialtasun itsu ezaren erakusgarritzat har baitaitezke.

---

[138] Bazterreko onarñoa. Bai Lizardik bai Mitxelenak *isla* eta *islatzen* darabilte egun hedatuago dabiltzan *islada* eta *isladatzen* formen ordez.

Lizardik banandurik emanikoen artean, Mitxelenak begiz jo eta sorberritzen ditu. Honela, lehen lau bertso-lerroetan gertatzen dena:

-"izar urdiñen dirdirak yosia" den argia, Mitxelenarenean, egilerik eta kolorerik gabeko *izarrez josia* aldaturik dago.

-"buru gañean", *goian* bihurtzen du.

Beste lau lerroez ere, beste horrenbeste egiten du *eta* juntagailuaren ondoren datorrena birsortuz.

-Lizardiren "ur orlegi" izen-multzoari, izenondo "hizperria" aldatu eta, *ur berde* bilakatzen du.

-*izar irudiz zirtatuak* darabil Mitxelenak, Lizardik erabili gabeko bi hitz sartuz: *irudi*, eta *zirtatu*, eta irudia aldatuxe emanez. Lizardik izarren isla soila ahotan duen bitartean, Mitxelenak bere poesi metafora sortzen du.

Aitortu behar da, halaz ere, Mitxelenaren metafora honek poemaren hurrengo pasartean izan dezakeela iturria, "bêan, befiz, uſezko / yarioz argiak / belaſean oi-ditun / begibil zoliak"[139] baitio Lizardik, baina Mitxelenak darabiltzan hitzak ez dira Lizardiren lumatikako berberak.

Ageri denez, *harako*ren ondoko hiru lerrotsuetan bilduek - Lizardiren *baso antzaldatua* nolakotzen dutenek -, lehen, "itxura xotilen" berri emateko erabilitako prozedura parekoan dute oinarria.

Guztiek osatzen dute Lizardik sortu edo itxuraberritu duen "Maitagarrien mundua", poesi munduan sustraituriko mitologia. Baina Mitxelenak mundu hori aurkezteko duen modua ere oso azpimarragarria da. Lehen hemen aitortzen zitzaion poemen ezaupide sakona islatzeaz gain, mundu horretan blai egin eta Lizardiren bidetik sorberritzen du. Honek eman dezake bide, apika, nolabaiteko mimesiaz hitzegiteko, Lizardik kutsatua ageri baita errepikatze edo parafraseatze hutsa egiten ez duen Mitxelena[140].

Baina arakatzen ari garen iruzkinaren zedarriez gaindi, besterako zubia eraikitzea ezinbestekoa da. Izan ere, azpimarkatzekoa da Mitxelenak euskaraz baliaturikoaren bidetik, hots, Lizardigandikako irudiak moldeberrituz, jokatzen duela erdaraz ere zarauztarrarenak neurkizun dituenean.

Arestikoa baino lau urte geroagoko *Historia de la literatura vasca* da lana:

> En sus mejores poesías, la más alta cima de la lírica vasca nos ha dado el drama de las horas y de las estaciones en el paisaje vasco, inolvidablemente animado por unos personajes que no

---

[139](Lizardi 1956$_2$:42).

[140]Mitxelenak mamitu "soinugailuak" ematen al du esku, berak Gaztelugan nabaritzen duen "anapoeta" izaera, hein batean bederen, errenteriar prosagileari alboratzeko, honek prosazkoez esanak esan?:

"Horretarako behar du bihurtzaileak "anapoeta" izan, Unamunoren hitzez esateko, poeta ez ezik: hots, ber-egilea edo ber-sortzailea. Ez baita aski, prosaz bezala, besteren hitzen musika eta mamia adieraztea; haren hitzen musika ere, eta ez musika ixila, bolarriek suma dezaketena baizik, nolabait ere berritu behar baita beste soinugailu baten bitartez". (1963d:105).

tienen más que la leve, y sin embargo suficiente, consistencia de una metáfora: el desnudo silencio del invierno que sólo rompe el temprano grito de la amarilla flor del árgoma; el inesperado encuentro con la primavera, muchacha vestida de azul, en el despertar del bosque; el robledal, palacio dormido en su mediodía de estío, abrumado por el sol; la angustia del monte otoñal, cubierto de orín, que no tienen otro consuelo que el recuerdo y la esperanza. (1960b:147).

Gaztelaniaz mamituriko lan honetan ere, euskarazkoan legez, handik eta hemendik harturikoak usatzen ditu Mitxelenak, Lizardiren zein lan, zein poema zehatz duen iturburu aipatzeke, bere adierazpideen bitartez, Lizardiren lirikaren zutoin begitantzen zaizkion lau urte-sasoien irudiak osatzeko[141].

Bi poema ditu lehengai orain Mitxelenak lau izaki-metaforok osatzeko, "Neskatx urdinyantzia" ("La doncella vestida de azul") eta "Urte-giroak ene begian" ("Paisaje de las estaciones").

Laurotan nabari daitekeena da, euskarazkoetan bezala, Mitxelenak sorberritzen duela. Hau da, Lizardiren liburuko itzulpenei ez zaiela gehiegi atxiki eta, Mitxelena bera dela aldatzaile-sortzailea. Honela[142]:

-el desnudo silencio del invierno que sólo rompe el grito temprano de la amarilla flor del árgoma

"La doncella vestida de azul"

Desnudo el bosque estaba al morir el invierno,
(...)
y despertó la vida en las negras ramas. (41.or.)

"Paisaje de las estaciones"

I. LA VIDA DUERME

Mediado Febrero

No hay fresas en la orilla del camino, ni hay
hierba jugosa. Hay una que otra flor de árgoma
estridente que, por anticipado, llama a la primavera. (89.or.)

---

[141] Ez dugu euskarazkoetan bezalako arreta paratuko; aieru soilari mugatuko gatzaizkio.

[142] *Biotz-begietan*en bigarren argitaraldiko erdal aldaeraren lerro-banaketari eutsi diogu.

IV. ROJA ARENA

A principios de la sementera

(INVIERNO). Vea yo, Señor, una y otra vez,
la inquieta flor de árgoma. (113.or.)

-el inesperado encuentro con la primavera, muchacha vestida de azul, en el despertar del bosque

"La doncella vestida de azul"

Impensadamente, heme encontrado en el bosque
a Primavera. Doncella es, y de azul iba vestida. (39.or.)

(...)

Desnudo el bosque estaba al morir el invierno,
cuando entró la muchacha vestida de azul. A me-
dida que pasaba, esparcía un tibio aliento, lleno
de fragancias: y despertó la vida en las negras
ramas. (41.or.)

-el robledal, palacio dormido en un mediodía de estío, abrumado por el sol

"Paisaje de las estaciones"

III. BOSQUE UMBRIO

Pleno Julio

Palacio que tuviera cerradas sus ventanas pa-
rece el bosque. Dormido está el señor. (105.or.)

-la angustia del monte otoñal, cubierto de orín, que no tiene otro consuelo que el recuerdo y la esperanza

"Paisaje de las estaciones"

IV. ROJA ARENA

A principios de la sementera

Me sitúo frente a un hondo barranco. La ver-
tiente está poblada de frondas y helecho. El

bosque, en otro tiempo verde, hoy amarillea. Se ven ya calvicies de bosque con rojo helecho por fondo. Allí campeaba otra cumbre verde, que hoy semeja mina de hierro ¿Se ha cubierto de roña la corteza terrestre, o es que se agolpa la sangre a mis ojos? (111.or.)

Mientras se extingue en mí la luz de las estaciones, suena vibrante en mi alma el eco de lo pasado. Vosotras mis tres estaciones que fenecisteis, volved por mí llamadas, trayendo cada una vuestro don: la una, la esperanza; la otra, la resurrección; la tercera, la plenitud de la vida. De todas vosotras necesita mi corazón, pues la música de mis antiguos versos me causa nostalgia de lo pasado. (113.or.)

Hauek dira metaforaren izaera sotil baina askia duten pertsonak, Lizardiren eta Mitxelenaren moldeetan, elkarren alboan.

Mitxelenak, ez du honetan amaitzen erakusten ari garen baliabidea. Euskal testuan izendatuki aipatu dituen azken hogeita sei bertsoen[143] itzulpen-laburpena ematen du erdal lan honetan, non oinarritzen den, berriz ere, adierazi gabe:

Porque en sus poesías vive siempre, cercana o lejana, la tremenda certidumbre de la caducidad de todas las cosas terrenas –"Yo no quisiera que el día se volviese noche"–, el sabor a ceniza que hace más preciosa la percepción fugaz de cualquier belleza. Pero esta melancolía, presagio de un fin prematuro, nace de la noble serenidad de un espíritu que una mañana de principios de otoño, recorrido una vez más el círculo de las estaciones, espera descansar en la plenitud de Dios. (1960b:147).

Hona Lizardirenak:

"Paisaje de las estaciones"

IV- ROJA ARENA

A principios de la sementera

Cuán triste es la inexorable necesidad de caducar. ¡No deseara yo que el día se trocase en

---

143. "opa zuen bizi eta heriotza hortxe dago, hitz gutxitan emana, «Urte-giro»-en azken hogeitasei bertsoetan". (1956g:64).

noche! (113.or.)[144]

(OTOÑO). Y en una mañana de principios
de otoño, despierte yo en la plenitud divina. (115.or.)

Ikusten da Mitxelena Lizardi euskal lirikaren ezaugarri, erakusgarri, goi gailurtzat edukitzera daramaten arrazoiak xeheki papereratzen dituenean, jokamolde paretsukoaz ballatzen dela euskaraz nahiz erdaraz ari denean. Bietan, Lizardik gatzaturiko irudi iraunkorrak bereganatu eta egokituz, sorberrituz aldatzen ditu.

Azterpuntuan dugun kritika-iruzkinean, ez ditu Mitxelenak Lizardirekiko zorrak jasoekin amaitutzat ematen. Euskal lurraldea edertasunez jantzi, itxura xotilak biztu eta "gure" Mitologia jatorra aitortzearekin ezin kitatu dira, besterik ere ekarri baitu olerkari oparoak.

Mitxelenak, poemategiaren euskal iruzkina aurrera doala, aurkajartzen ditu euskal arima eta euskal eredua. Lizardik euskal arima zer eta nolakoa den, apika, aditzera eman ez duen arren, ederki adierazi du zer den euskal eredua, kapitulu honetako bigarren puntuan jaso bezala[145].

Lizardiren ekarriekin badu ikuskizunik Mitxelenak jauzi eginez, paperera daraman hurrengo gaiak eta Lizardiren hizkeraz berariaz aritzean berriz ere aztergai hartuko dugunak ere: Lizardiren hizkeraren zailtasuna da tarteko. Eta ikuskizuna baduela esan daiteke, Lizardiri zor baitzaio, lehen ere esan bezala, euskal lirika gailurretaraino goraldatzea, eta eginahal horretan beharrezkoa duen duintasunez janzteak azaleko zailtasuna ekarri du ondore.

Besteren ahotan jartzen du Mitxelenak, Lizardi bezteko erabili ohi den argudioa:

Zenbaitek esango du, beharbada, azal zaila dutela Lizardiren olerkiek. (1956g:65)

Ez du Mitxelenak arrazoi honen euskarria ukatzen, baina ez du ere berariaz ontzat ematen. Halaz guztiz, ez dirudi –Lizardiren kasuan bederik– gaitzegi deritzonik zailtasun-mota honi, honetxek, Lizardi lirikorik hoberenekin batzen baitu. Eta hari honi jarraiki, berriz ere, artikuluaren abiapuntura itzultzen da, lirika benetakoa izan dadin, zein betebehar dituen argitzeari ekinez.

Musikarekin berdintzen du, lehen eginaren ildotik:

---

[144] Ikus, berriz ere, ez duela Mitxelenak hitz-hitz jaso.

[145] Ikus, "6.2. Lizardi egitasmogilea".

> Hutsaren inguruko azal atseginak, musika itsaskorrak bezala, gogait eragiten digu luzaro gabe. Mamia behar baitu lirikak, eta mami joria, behin eta berriro irakurriko badugu. (1956g:65).

Honenbestez, badirudi ez duela beste gabe Mitxelenak azalaren zaila sorkaria arbuiatzeko argudioa aski esten. Kontua litzateke, apika, azal horrek estaltzen duen mamiarekiko oreka gordetzen duen ala ez neurtzea. Azal xamur eta atsegin hutsa, azalaren azala, nolabait esan, ez da deus, jabetu orduko asetzen duelako, ez du bigarren ekinaldi bat irauten, bertan sakontzea eta berritasunik kausitzea ezinezko gertatzen delako.

Azala zaila duten lanak mamitsuak badira, berriz, ez dira lehen irakurraldian agortzen, beti dira esanguratsu eta beti daude sakonkizun.

Honainokoaren arabera, izendatuki zailtzat ez daukan Lizardi zuritzea edo dela Mitxelenaren asmoa ondoriozta daiteke.

Alabaina hitz hauen ondoan datozenek, zailtasunaren auzia hein batean bihurritzen dute:

> Mamia behar baitu lirikak, eta mami joria, behin eta berriro irakurriko badugu[146]. Lizardi bera ere hizkera eta neurri erraz eta herrikoiagoen atzetik zebilen azkenaldera: zortziko tiktian ondu zituen "Etxeko sagastia" eta "Egamin" olerkietan, esate baterako. (1956g:65).

Azkenaldeko Lizardi hizkera eta neurri errezagoetara jotzea beste zerbaiten adierazgarritzat har daiteke. Mamia da hondarrik hondarrenean garrantzizkoa dena eta mami jori horrek, nonbait, har dezake gisa bateko zein besteko azala, zaila nahiz errazagoa.

Beraz, lehengo kontuari berriz helduz, pentsatzekoa da Mitxelenak ez duela bere burua Lizardi "zailaren" aldeko agertzen; Lizardi "mamitsua" da aldezten duena.

Bestalde, azkenean aipatzen dituen Lizardiren lan herrikoiagoek ematen dute bide, 1956ko argitaraldian sartu ez zituzten Lizardiren beste neurtitzez Mitxelenak pentsatzen duena aztertzeko, beheraxeago ikusiko den bezala.

Lan horien gainetik igaroz baina *Biotz-begietan* poemategiaren zedarrietarik irtetzeko, Mitxelenak argitaralanari deritzana hartu behar da mirakizun[147].

Mitxelenak honezaz esanak garrantzizkoak dira bi arrazoigatik. Bata, *Biotz-begietan*en merezimenduei alboratzeko beste gaiak hor kausi daitezkeelako eta bestea, euskal literaturaren auzi zabalagoak ere ukitzen dituztelako.

Argitaratzaileen lana oro hartuz goratzen du Mitxelenak, olerkien hautaera dela eta, paratzaileekiko adostasun-ez batzuk salbu[148]. Bereziki azpimarkatzen du Valverde

---

[146] Jaso berri dugun arren, berriz ere aldatu dugu, gure baieztapenaren erakusgarri delakoan.

[147] Gogora bestalde, laugarren kapituluan paratze-inprimatzeen gainekoak.

[148] Poemategi honetan sartu gabekoez arritzean helduko diogu berriz honi, Mitxelenaren Lizardigandikakoezko irtzi-agerketa da eta.

Karlos Otegik ere (Otegui 1990:16) bigarren argitaraldi honetako kimatzea azpimarkatzen du:

pintorearena, Lizardik hitzez sorturiko mundu hori irudi bilakatu ahal izan baitu, egiazko lizardizale[149] batek bakarrik egin zezakeen gisan:

> Valverderen edergarriak Lizardiren poemen gogalde jator direla. Hori zuen opa noski artista trebe eta Lizardizale honek. (1956g:65).

Liburu borobila da hau (egon behar luketen poemena gora-behera), nola poetaren lanari –azal ederra, mamitsua...– hala apaingarriei dagozkien aldetatik. Ez dira, haatik, liburuaren onak hemen agortzen, artikuluaren azken aurreko paragrafoan irakur daitekeenez. Hementxe dauntza arestian aipatzen ziren alboratu beharreko merezimenduak:

> Orain, azal eder honekin eta hain apainkiro erc'araturik, zabal genezake erdaldunen artean euskal lirikaren erakusgarri hau. (1956g:66).

Lizardiren lana bi hizkuntzetan plazaratzeari onuragarri deritza Mitxelenak, erdaldunek ere euskal lanetan sarbidea izan dezaten. Ez dio ezer, ordea, euskaldunak itzulpenari atera diezaiokeen balizko etekinaz[150].

"Se trata, por lo tanto, de una edición acaso ajustada al momento histórico y a la situación lingüística, pero mutiladora del texto original del poeta".

[149] Antonio Valverderi lizardizaletasuna, Mitxelenaz gain Labayenek ere, argitaraldi honen "Bigafen edizioa'ri buruz" atariko oharrean aitortua dio:

"Gure asmoa ezin autera eraman al izango gendun Donostiko INDUSTRIA GRÁFICA VALVERDE, S. A., etxe ospetsuaren laguntza gabe; ta batik bat bertako nagusi dugun A. Valverde («Ayalde»), ertilari ta lizardi-zale pufukatuak ez ba zun jafi lan ortan bere buru, biotz, esku, au da: alegin osoe". (Labayen, *Biotz-begietan* 1956$_2$:VII).

[150] Honela du aitortua X. Letek *Olerkiaken* "Aintzin-solas"-ean, garai hartako euskaldunez ez eze, baita bere buruaz ere:

"Lehen argitalpena egin zitzaiolarik, Lizardik horrela nahi izan zuen: gaztelan itzulpenez argitaratzea. Jokabide berdina Orixerena bere "Barne-muinetan" argitaratu zioteneen. Beraz, haiek horrela nahi izan bazuten, beren garaieko euskaldunen jakite-mailaz (euskara aldetik, alegia) ez ziren agian asko fidatuko; edo, behar bada, eta hau litzateke agian arrazoin funtsezkoa, batez ere Lizardiren kasoan, erdal itzulpenak beren euskal poesia zentzuz eta tajuz osatu eta borobildu egiten zuela iruditiuko zitzaion (Juan Mari Lekuonak ironikoki azken hilabete hauetan hainbestetan aipatu digun "plusbalia" horren bilaketa, alegia).

Baina, egia esan, ez da batere erreza eta iritz hartzekoa arazo hauxe. Lizardiren liburua euskara hutsean argitaratzea erabaki genuenean, eta horretarako beharrezko ziren sinonimo, parafrasi, glosa eta ohar argigarrien idazteari ekin, zera hortaz konturatu ginen nahiko azkar: erdal itzulpenak suposatzen zuen laguntzaz. Asko eta askotan, eta zalantza baten aurrean, itzulpenak argitzen baizigun bidea". (Lete 1983:9).

Lizardiren garaian hobesten zen joera honezaz –euskal lanek itzulpena alboan eramateaaren ingurukoaz, alegia–, Otaegik (1992) argibideak dakartza. Halaber, *Biotz-begietan* lanaren argitaraldi desberdinen eta, oro har, Lizardiren olerkien aldaki guztien kontu-emate zehatza.

Iido honetan, adierazgarri deritzegu "Gaztelu", *«Euskaldunak» poema eta Orixeren olerki guztiak* lanaren paratzaileak, Orixeren itzulpenei ikusten dizkien abantailei:

"Gaztelaniaz ere egin da, lehenen Orixek bere poema haundia gaztelaniaz itzulia zuelako eta, egiña zegoen ezkero, ez zeritzan egoki itzulpen hori gabe berriro argitaratzea. Bigarren, Orixeren idazmoldeak aski korapillo bedu eta bere lana ez da guztientzat ulerl-erraza. Eta azkenik, Orixeren poesiian bikain eta larria gehiago hedatu ahal dedin, bai euskaldun askoren artean, bai kanpokoen artean ere, euskaldunok idazle eta olerkari aundi bat izan dugula jakin dezaten". (Erriaide 1972:1).

Esaten duenari heiduz, bada, azpimarkatu behar dena da bide hauxe iruditzen zaiola Mitxelenari –bestetan ere badio[151]– euskararen gaitasuna frogatzeko zuzen eta egokiena. Bestela esan, hemen ikusten du gorpuzturik desio duena: itzul-lana ez dadila izan beti erdaretatik euskarara.

Hizkuntza-aldatzearen norabidea ohi ez bezalakoa izan dadin, ordea, euskaraz buruturiko lanek baldintza bat bete beharko dute, itzulgarriak, hizkuntzez aldatzea merezi dutenak izatea, nonahi literatur balioa aitortuko zaienak:

> Betiko leloa aipatu beharrean naiz, berriz ere. Hauxe da nornahiri euskararen gaitasunak adierazteko biderik zuzenena: euskal ederlanak sortzea, eta batez ere liburuxko hau bezala euskaraz hain aise, erdaraz hain nekez eta kaltez eman daitekeena. (1956g:66).

Itzulgaia itzulgarria izatearen ondoan, aldatzeari berari ere erreparatu behar zaio. Ez dio, haatik, Mitxelenak izendatuki nor den Lizardiren euskal olerkien aldatzailea; bere hitz soilen bitartez ez dago jakiterik nork burutu duen garrantzizkotzat daukan lan hori[152].

Gisa honetako lanak, "euskaraz aise eta erdaraz nekez eta kaltez" eman ohi dira[153], nonbait, baina Mitxelenak ez dio hemen halakorik gertatu ote den, *apainkiro* erdaratu dutela dio, bestelako zetzeladarik eman gabe[154].

Edozein moduz, mezua garbia delakoan gaude: ederlan honek "euskararen gaitasuna adierazteko biderik zuzen eta egokiena" mamitu du eta horixe da komeni zaiguna, maila

---

[151] Urte gutxi geroagoko honakoa aida daiteke:

"Gehiago bundituko ditugu arrotzak gure obra bat haien erdarara itzuleraziz haien erdaratik hamar gureganatuaz baino". (1960a:41)

[152] Zegokionean genioen bezala, hemen ere ez du Mitxelenak esaten Lizardik ezer (itzulpenak barne) gaztelaniaz idatzi zuenik.

Bestalde, Lizardiren sorkarien erdal aldakietan Orixek -hitzaurrean aitortuaz gain- izan zuen eskuaren berri. Otaegik (1992) zehazki azaltzen du.

[153] Bestalde, honekin batean badugu poesian eta batipat lirikan (metafisikan ere esango nuke neuk) erabiltzen den beste hizkuntza moldea. Eta beraren bidez adierazi nahi duguna hertsiki lotua da hizkuntzari berari, hizkuntzaren azal ñaberrari.

Aipa ditzagun bi idazle errusiar ezagun: Pushkin eta Dostolevski, esate baterako. Dostolevski irakurri nahi izan duen edonork mendebaleko edozein hizkuntzatan irakur zezakeen; batean osoki ezin izan badu, bitan. Baina denek aitortzen dutenez Pushkin sekulako poeta lirikoa da. Nork irakurri du? Inork ez, bere hizkuntzan ez beda! Pushkinen lirikotasuna itzultzea ez balitz berak esaten duena hitzez-hitz aldatzea. Ikusi besterik ez duzue poesiaren doinua bera. Orobat diot Poe-ren *Annabel Lee* hartu eta azentu gabeko hizkuntza batetara itzultzen saiatzen bazarete; frantsesera, esate baterako. Badakigu Baudelaire-k Poe-ren prosazko itzulpen famatuak egin zituela, halaz ere *Annabel Lee* ez zuen itzuli, beronen indar asko ingeles azentuan zelako eta hau ezin itzuli daitekeelako frantsesaren gisako hizkuntzetara. Eta doinuari ez ezik, konzeptuei eta sentimenduei gagozkielarik Pushkin edo beste edozein lirikoren itzulpena ez da aski hitzez-hitz egitea egokitze lan bat behar delako". (1972b5:129).

[154] Gure laugarren kapituluan lekukorik eskl jaso dugu itzulpengintzari Mitxelenak ematen zion garrantziaz. Hemen ez du, haatik, halakorik ematen. Zergatik ote?

honetako euskal lanak plazaratzea[155].

Ikusi guztiak, Lizardiren poemategiaz ondokoa ondorioztatzera garamatza:

Mitxelenak Lizardigan, lehen ahotan hartu den hizkuntz egitasmogile eredugarriaz gain, euskal lirika gorpuztua dakus. Euskal lirikoaren hizkera[156] poetikoak osatzen duen sareak, nolabait esan, Mitxelena harrapatzen du. Poesi hizkera eta munduek eragiten dioten zirrarak eredutzat hartu eta bere berbalditik ezin eranztera daramate; bere egiten ditu, are kritika-lanetan azter- edo azalgai duenean ere.

Baina jabetzearekin batean, Mitxelenari berari, literatur sorbidea ernaltzen diola ere antzeman daiteke, literatur kritikaria, aztergaia kritikatzetik sorberritzera, Lizardiren poesi mundua trinkotasunez adierazberritzera iraulkatzen baitu.

6.3.3.2.a.4.*Biotz-begietan*en eta Lizardi lirikoaren adimodurako hurbilbide eta oin-artikuluaren azterketan zehar, xeheki ikusi dira Mitxelenak Lizardi lirika-gizonagan kausiturtko alderdirik goragarrienak, "euskal lirikaren ezaugarritzat" hartzera bultzatzen dutenak. Ez gintzaizkioke, haatik, Mitxelenaren erabateko juzkuari zintzoegi atxikiko, Mitxelenak oso berea duen zerbait hona ekarriko ez bagenu. Hau da, beste azterkizun hartuekin egin ohi duen legez, Lizardiren on-laudatzekoen ondoan makur atzemanek hemen oihartzunik ez balute. Horretarako, Lizardiren poema-bildumazko iruzkinetik irten eta bestera jo behar da.

Auziak, bi hari-mutur ditu: batetik, Lizardiren hizkera (eta euskararen ezaupidea[157]) eta bestetik, sortu duen irudimenezko poesi munduaren euskaltasuna ukitzen ditu.

Jakin-iturria, Mitxelenak *Egan* aldizkariko pleguetan[158] Gabriel Arestirekin duen liskarra da, bizkaitarrak kitzikatua dela kausa[159].

---

[155]Liburuazkoei amaia emateko -Orixeri eskainiriko atalean mintzagai izan den, eta beherago berriz ere ahotan hartuko den- Orixe eta Lizardiren arteko adiskidetasuna begiz jotzen du Mitxelenak, Orixek lehen argitaraldiari eginiko hitzaurrea izanik loturaren zubia. Honenbestez, esanak ez dira birresango.

[156]Mitxelenak Lizardiren hizkeraren gainean adierazlei hurrengo puntuan helduko zaie.

[157]Hau dela eta, Lizardiren hizkeraz antzean berriz ere aipatu besterik ez da egingo.
Han ez jorratzeko arrazoia da, gramatika-kontu hutsekin -hots, euskal gramatikaren legeei atxiki ez atxikitzearekin- baino lotuago ikusi dugula -oker, apika- direlako "itxuren" izaerarekin.

[158]1964. urteko 1-6 zenbakiko 157-160 orrialdeetan, hain zuzen, testuaren lehen zati nagusi honi dagokion bibliografian jaso bezala.

[159]Honela dio inoren izen zehatzik luman ez duen Arestik *Zeruko Argian*, Mitxelenak ahotan duen lana baino lehenagoko batean:
"Lizardi azta esplikatzen. Lizardi konprenitu egiten da. Egun batean gizon eskolatuak etorriko dira, eta gorputz edo hilotz ustel baltz bezala, autopsia zehatz bat egiteko asmoa ekarriko dute. Filologuak, eskola-[?]gizonak, linguista, hizkuntzaren aztertzaileek, gramatikoak... hoek, gizon jakintsu guzti hoek, hizkuntza bizlaren eta eskritorearen etsaiak dira. Gure hegalak moztutzen dituzte. Haren arazietatik ihes egin behar dugu, honela gure

Arestik bere burua lizardizaletzat agertu duela eta, orobat egiten du Mitxelenak:

> Neroni ere, zure antzera, Lizardizalea bainaiz, askotan agertu dudan bezala, Bilbon esan nuena gorabehera[160]. (1964g:179).

Aitorra egina dago, baina miresmenak itsutzera ez daramala ere berandu baino lehen agerian paratuko du. Eta hain zuzen, Arestirekiko auzia, "Lizardiri dihoakionez soil-soilik" berrituko duela ere zehaztu[161].

Susma daiteke, Mitxelenaren aldetik, eztabaidan dagoena hitanoaren erabateko erabilera dela[162], eta Lizardiren erabilera zehatza, horren erakusgarrietariko bat da eztabaida-esparru zabalean.

Kontua da euskaraz, gizaseme batekin edo emakumezko batekin aritzean ez baina, sexurik ez dutenekin[163] ihardun nahi izanez gero, nola mintzatu behar zaien hika.

Mitxelenak, Lizardi ahotan hartu aurretik, euskal autore zaharretara jotzen du lekuko

---

ibiltaldia luzeagoa izan dadin. Eskritorearen eta herriaren artean komunio batek egon behar du. Gramatikoak eta filologuak komunio hori zikintzen dute (...) Baina egun batean, badakit, filologo bat etorriko da eta Lizardiren poesia aztertuko du puntatik ondoragino. Lizardiren poesiaren gorputza hilen du ganibet-kolpeka. Haren espiritua eztu ukituko ere, zergatik... nola kometatuko dute filologuek poesiarekin? Baina nin, Lizardi kenduko dit beso artetik" (Aresti 1964a:3).

Eta honela, Mitxelenak arpatzen duen "zirriaren" kokagunea. Goragotik eta osoago aldatuko dugu, testuaren gatzozpina agerlago gera dadin. Arestian aldatu berri dugun artikuluko pasarteak luman hartuz ematen dio hasiera Aresti bere irizlari:

"Filologoek, gizon xenoegi hoiek, edertasunarekin akabatuko dute, poesiaren haragia sendatu nahirik, haren arima bihotzkorra hilen dute (...) Filologoak Lizardiri etorriko zaizkio, esaten nuen bertan, eta ... eta etorri egin zaizkio. Jainkoak barka ditzala, barkaziorik merezi badute.

Aste honetan Bilbon, ingeneri-eskola nagusian, jakintsuak izan dira (...) Euskerari buruz ere mintzatu dira batzuk, Luis Mitxelena jauna eta Atta Villasante Arantzazuko frantziskanoa (...) Oraln hlle pare bat hitzaldi bat ematera eraman ninduen Donostiara Iñaki Beobide jaunak, eta ni entzuten etzeuden hogeitamar persona ere. Nire buruarekin hasarretu nintzen, pentsatzen nuelako nik esan dezakedana eztiola jenteari batere inporta. Baina, zer duda dago Mitxelena eta Villasante ni baino autoritatedunagoak direla? Hoek batira euskal gaietan entenduenetatik aurkitzen diren bi. Baina, hala ere, hoek mintzatzen hasi zirenean, hiru gizon geunden entzule!! Gero ugaritxuago etorri zen jentea, hamar bat guztiz. Jainkoak barka dezala Euskalerria!!"

Eta halako aurkezpen-kokatzeen premisen ostean, honela darraio:

"Mitxelena jauna filologoa da, euskara mataganra estudiatu duen filologorik haundi eta hoberen bat. **Eta gauza tekniko asko esplikatu zigun, gehienak konprenitu ezkenituenak**" (Aresti 1964b:3). (Beltz Mitxelenak bere lanean txertatuak).

[160]Oin-oharrean jaso den bezala, Mitxelenak Lizardiren gaineko hitzaldia Bilbon eman zuen.

[161]Jasoko den bezala, handik zazpi urtera "Lengua y cultura" artikuluan auzi bera "berri-berrituko" du, honela esaterik badago.

Bestetik, berriz, Lizardiz kanpoko bestelako auzi-iturririk aurki zezakeen Mitxelenak -horretaraz gero- Arestiren hitzetan, aldatu ditugun bizkaitarrenak nabarmen uzten duten bezala.

[162]Geroago ere aditza zela eta, hobeto esan, aditz batuaren paradigma-hautaera egiteko momentuan, ez bide ziren bide beretik ibili Mitxelena eta Aresti, Larresorok (Txillardegi 1972:7) jasotzen duenez.

[163]"notanahiko izakiak, gorputzdunak eta gorputzik gabeak, ez direnak ez gizonezkoak eta ez emakumezkoak ez ezik, ez harrak [sic] [Jat. *arrak*] eta ez emeek ere". (1964g:180)

bila eta, Lafonen azterlanean oin hartuz[164], euskal literaturak eskuetara dizkion emaitzak erakusten ditu.

Leizarraga "erdaizale amorratua", baina "hitanoa beste inork baino gehiago" erabili duena, sexugabeko izakiei mintzatzen zaienean, behin izan ezik[165], beti gizaseme antzera ari zaie.

Eta jokamolde bera dute, Etxeparek, Oihenartek, Zabala eta Mogeldar alegigileek, Etxahun bertsolariak, "Cerquand-ek jaso duen pipitaki batek" erakusten duenak, Elissambururen olerkiek, Salaberryk, F. Michelek bilduriko kantek, Mayi Ariztiaren ipuinek eta bestek.

Euskal literaturaren orotariko jokabide honetan, salbuespenak badaude, haatik:

Legez kontrako adibideak, Lafonek dioenez, gutxi dira eta erraz esplika daitezkeenak, erdararen eragina dela medio: Elissambururen «Apecha eta lorea» (*La pauvre fleur disait au papillon céleste...*)[166], Lardizabalek (ez, ordea, Duvoisinek eta Uriartek) sugeari zorrozten dion *lurra jango*

---

[164] "Remarques sur l'emploi du masculin et du féminin en Basque", *Via Domitia* (1957, 2-9) zehazten du Mitxelenak oin-oharrean.

[165] "Behin bakarrik egiten du huts, *Babylon-i* emakume antzera mintzatzen zaionean, eta ez da harritzeko *paillarda* eta *alhargun* ez den *reguina* baita" (1964g:180).

[166] Lehen aipatzen genuen "Lengua y cultura" lanean irakur daiteke, hain zuzen, Elissambururen jokaeraren azalpena:

"Es, sobre todo, el caso de las categorías obligatorias manifiestas (*overt*) en unas lenguas, que no lo son, o lo son de manera distinta, en otras. Así, por tomar un ejemplo sencillo que ya he utilizado varias veces, *la pauvre fleur* y *le papillon céleste* de Victor Hugo, son intraducibles, aunque no inadaptables, al castellano. En efecto, la voluble movilidad del varón comparada con la sumisa fijación al suelo de la mujer (anterior, claro está, a su emancipación actual, no sé si conseguida o en vías de consecución), se refleja en el hecho superficial de que *fleur* es femenino en francés, mientras que *papillon* (pero no *mariposa*!) es masculino. Elissamburu, que se expresaba en una lengua en la que el género gramatical, en ese sentido, es desconocido, no tuvo dificultad en imitar el texto francés con su *Apecha eta lorea*. Sobre la influencia del género (no vasco) en los poemas vascos de Lizardi, véase *Egan* 1964, pág. 157 ss. con bibliografía". (1971d, *LH*:154).

Hona, gai zehatz beraren inguruko Mitxelenaren beste pasarte bat, arestikoaren ohartzun:

"'*La pauvre fleur disait au papillon céleste*: '*Je reste, tu t'en vas*'". Hau Victor Hugo-rena da, eta beronek eman zion bide Elissambururi *Apecha eta Lorea* idazteko. Ba [Jat. *ahal*] da eragozpenik frase hau gaztelaniaz honela itzultzeko: *La pobre flor decía a la celeste mariposa*: '*yo me quedo tú te vas*'? Gogora ezazue honetarako Victor Hugo emakumearen askatze eta emantzipazioa baino lehenagokoa zela (ez dakit lortua duten ala lortzekotan diren), eta emakumea gizabako jopuaren pare lurrari loturik eta erroturik zegoen, gizona batetik bestera alaiki lorez-lore zebiltzan bitartean. Baina zer dela eta ezin itzuli daiteke gaztelaniaz honela? *Papillon* gaztelaniaz *mariposa*, femenino delako, eta hain zuzen ere horretantxe datza poesia honen funtsa. Behar-beharrezko da hemen lorea emakume izatea eta *papillon* zerutarra gizonezko, eta irudi hau jeneroetan datza. Elissamburuk, ordea, itzul dezake, euskaraz jenerorik ez denez gero *apecha eta lorea* bata bestea bezain neutro batira". (1972b5:130).

Hona Elissambururen testuko zenbait bertso Mitxelenak dioenaren adigarri:

LOREAK

Nere besoak ditik ihuntzak zerratzen,
Ondikoz! iguzkiak gozean urratzen;
Zertako haiz hi bethi ntarik urruntzen?
Hi goan-eta, badakik, nigarrez nauk urtzen.

APECHAK

Zertako nigar egin, oi lili maitea?
Egunaz iguzkia dun ene jabea;
Gozetik lorez lore dun ene bidea;

den hura eta, batez ere, Mendigatxaren ipuietan agertzen diren franko. Erronkariarrak, noski, erdara zeukan gogoan *batxitera, iñurria* eta beste zenbait «ematzen» dituenean[167]. (1964g:181).

Argi dago zein den Mitxelenaren aburuko legez kontrako jokamoldearen bultzagarria: erdara. Euskara inguratzen duten erderek - euskarak ez bezala -, berez sexurik ez duten izakietan ere, gramatika-generoa bereizten baitute. Hementxe datza euskal autore zenbaiten aginek erakusten duten arrazoia, eta testuinguru honetan kokatzen du, hain zuzen ere, Lafonek bigarren jokamolde hau dutenen samaldan ahotan ez duen Lizardi:

Lafonek ez zuen horratik ikusi Lizardiren irudimen mitosortzailea ere gramatikaren mirabe izan zela: erdal gramatikaren mirabe, ordea, ez euskal gramatikaren. (1964g:181).

Lizardiren makurrak, nolabait esan, Humboldt, Sapir, Whorf eta besteren iritziekin ikuskizuna du, hizkuntza eta munduaren arteko erlazioari buruzko ikuspegia da auzitan dagoena[168].

Zarauztarrak poesian bizigabeak bizidun bilakatzean, "zerak nortzean", ezin muzin egin dio eredu bati; eredua, euskalduna ez baina, erdal eredua izaki, ordea, oharkabean, erdal gramatikaren mende ibilia da[169].

Horregatik, eme bilakatu du udaberria ("neskatxa urdin-yantzia"); negua, berriz, ar

---

iguzkia sartzean bethi naun hirea.

LOREAK

Goz guziez «Adio»; arraxean «Agur»...

Egunak luze dituk, gauak haintz labur;

Nere nigarrez, othoi, ez hadila samur,

Zeren hire galtzeaz bethi bainauk beldur". (Elizanburu, "Apecha eta Lorea", *Urruñaco Eliza-besta. Coplarien gudua. Garhait-saria M. Elizambururi emana*, 1862, Bayonne). (Betz. gurea)

Ikus daiteke euskarak bi hitzok gramatika-generoz berazirik ez dituenez gero, zilegi duela komeni bezala bata zein bestea sexuz bereiztea.

[167]Mitxelenak, oin-oharrean, Lafonen iritzia honela zuzentzen du:

"Gauzatxo batean dabil oker Lafon, ene ustez: Mendigatxaren *olabeorra* emakumezkoa eta *garagarra* gizonezkoak direla diosenean, gaztelaniaz biak (*cizaña* eta *cebada*) emakumezkoak izan arren. Erdal akademikoren batentzat bai, beharbada, baina ez Mendigatxarentzat eta Bidangoztarrentzat: hoentzat «olabeorra» la *balluca* baitzen eta «garagarra», berriz, el *ordio*". (1964g:181).

[168]Gure asmoetarako teorien azalpena ezinbestekoa ez delakoan, gizakumeok, nonbait, espaloitxotik kezkatu gaituen arazo honetaz idatzi duten egilerik aipatuenak direlako dakarzagu prusiarraren eta hizkuntz erlatibismoaren hipotesiaren aiten izenak. Hirurak Mitxelenaren testuetan behin baino gehiagotan aipatuak.

Auzi hau jorratzen du Mitxelenak zuzen-zuzenean, "Hizkuntza eta kultura", *Zenbait hitzaldi* (1972b5) lanean eta "Azken ordukoak" (1972a) urte berekoan –Arestiren inguruko hau aipatuz–, iragarraz bada ere.

Otaegik (1992) bestalde, lanean zehar maiztxo aipatzen du Humboldten teoriek Lizardigan duten oihartzuna.

[169]Arestik aldatzen dituen Mitxelenaren hitzen arabera, zehatzago esan, gaztelaniaren mirabe:

"Hitz bitan: Lizardik, kaso hoietan eztio euskaldunaren espirituari jarraitzen, eta gaztelaniaz dadukaten gramatik-jeneroa ematen die. Frantzesez pentsatu balu, udaberria neskatila bat izan beharrean, mutil bat izanen zela. Eta hortik beste ondorerik etzigun Mitxelena jaunak atera nahi ukan". (Aresti 1964b:3).

("agurea"), mitxeleta udazkenean "atsotu" da; eguzkia, "yaun orail ederra" eta "errege"; lurra, "andra"[170]; egun "begi-urdiña", gau "amaren semea" da[171].

> Eta, batez ere, «mintzo yoria», «izkuntza larrekoa», «Aberriaren abots eztia», neskatxa ezkonberri bihurturik! Zer esango zukeen Dechepare zaharrak horrelakorik entzun balu?[172] (1964g:182).

Lizardiri, aspaldi honetako euskaldun askori gertatzen zaiena besterik ez zaio gertatu. Hizkuntza bat baino gehiago mintzabide izaki, hizkuntza "atzearen" legeei makurtu zaie

---

[170] Mitxelenak berak ere, badarabil, horregatik, irudi bera:

"Baina aurki horri ere aurki dakioke bere ifrentzua: hintarrak, kaletarrak, badira oraingo euskal eskoletako haurrak, eta kaletarrak direlako hain zuzen, guztiok mantentzen gaituen **ama lurretik** sahestuak eta aldenduak, are gehiago komeni zaie nekazaritza eta aberezaintzaren berri jakitea". (1963a:112,113). (Beltz. gurea)

[171] Ez horrela juzgatzen, ordea, Otaegi Lizardiren ikertzaileak:

"Honela, Lizardik joera guztiz pertsonalari atxikiz, naturaz euskal giza-ak izaniko ikuskerarekin eta ikuskera hori linguistikoki adierazteko adierazbidearekin egiten du bat, "ilargi amandrea" ospetsua eta ezagunaren bidetik sortuak dira "Negu agurea".

Honelako hitz-elkartuak ez dira bereziki arruntak Lizardiren olerkigintzan, baina haren metaforen joerarik azpimarragarrienetako baten adierazbide direnez, merezi du haien originaltatea azpimarratzea, aldi berean euskal pentsakeraren bidean oharturik atxikirik harturikoa denez". (Otaegi 1992:244)

[172] Eta honetaz ari garenez gero ikus dezagun zer gertatzen den Lizardiren poemekin. Hauetan pertsonaiak gaztelaniaz hartuak dira. Negua agurea da, eta udaberria "neskatx urdin yantzia", eguzkia mutil gazte maitaria, gaua egunaren ama, eta abar, eta abar... Konturatu gabe beste hizkuntza bateko kategoriez ari zen. Agustin García Calvo-k *Emerita*-n honela izendatzen du artikulu bat: *Por qué al sol le llaman Lorenzo y a la luna Catalina*. Alemanez eguzkia ezin izan daiteke Lorenzo eta ilargia Katalina ere. Beraz, maila honetan hizkuntza, hizkuntzaren axala, axola handikoa da bere kolorez tindatzen [Jat. *tintatzen*] baitu adierazten duen guztia. Hizkuntzaz kanpoko sustantzia izanagatik hizkuntzaren berezitasun ere bada, eta bi mutur hauen artean sartzen ditugu gainerako gauzak". (1972b5:130).

Hemengo García Calvo berori aipatzen du testuan aztertzen ari garen lanean ere, beste deuzio batez izendatzen du artikulua, hastik: "La feminidad del camino", *Emerita* 32 (1964), 49-56. Guk uste dugu artikulu bera dela Mitxelenak titulu desberdinez ematen duena, *Emerita* aldizkarira jota, "La feminidad del camino" izenburukoan, honakoa irakur baitaiteke:

"que de ahí mismo viene que entre nosotros el sol se llame Lorenzo y la luna Catalina, pero se inviertan los papeles del noviazgo o quede reducido a fraternal pareja según el género de los nombres de ambos astros en la lengua de que la imaginación mítica se sirva". (García Calvo 1964:50).

Mitxelenak berak geroago adierazten du ez duela erdal artikulu hori irakurri:

"Se supone, en segundo lugar, que es conocido de todos que los nombres vascos no tienen género, aunque los entes designados por ellos puedan tener sexo. Por eso, estoy seguro, porque le he visto reaccionar en circunstancias muy semejantes (su réplica fue: ¿Por qué *Euskadi Roja*? ¿Por qué no *Euskadi Rojo*?), de que nuestro malogrado ARESTI, al oír el título *Amalur*, habría preguntado sin tardar: «*Amalur*, y ¿por qué no *Aitalur*?» Porque la tierra, *lur*, va precedida ahí de *ama* «madre», por la simple razón de que el latín *terra* y sus continuadores, a empezar por *tierra*, son de género femenino, al igual que el alemán *Erde*, el ruso *zemja*, y así sucesivamente.

Se trata, pues, de un calco que, de tratarse de una obra de arte y no de un nombre, sería calificado de plagio. «Por qué al sol se le llama Lorenzo y a la luna Catalina» o algo muy parecido era el encabezamiento de un artículo que AGUSTÍN GARCÍA CALVO publicó en *Emérita*: **no lo leí, la verdad**, pero ya el título parecía dar idea clara del meollo del contenido". (1981ll, *LH*:95). (Beltz. gurea).

ohartzaka[173].

> Bai bartakigu baztertzen gogoaren argi-une laburretan agertzen den arrotz gaitzetsia, baina ez neurri berean uxatzen barren-gaztetuko zoko galduetan barreiu dabiltzan iratxo ilaunak. Ilunbeko jendeak zirla sartu dio, behin eta berriro ere, argi-semeari. (1964g:182).

Lizardi deskuidatu orduko, beraz, bere oharmenari itzuri zaizkio beste indar ezkutuko horien eraginaren ondore diren zehaztuok. Lukasen Itun Berriko pasartean bezala[174], "Ilunbeko jendea", mundiko jende azkar-zuhurra, "argi-semeari" gailendu zaio lehia honetan.

Honek ez dakar, ordea, Mitxelenarentzat, Lizardi ez Lizardiren sorkaririk arbuiatu behar denik. Lehen bezalaxeko miresmena zor dakioke hauek agerira eramanik ere:

> «Mitxelena jaunak diozu dioena gora-behera, pagadiaren freskura atsedenean nire arima pausatzen jarraikiko dut, goiak egur hezearen[175] kea izanen du kolore[176]». Eta Mitxelenak berak ere horixe egingo du, bere hitzak gorabehera, eta horixe egin behar, ez baitute hitzok gure olerkaria ez goratzen ez behertitzen. Gehienez ere, haren jokabideak ulertzen laguntzen ahal dute[177]. (1964g:182).

Hau esatea aski ez balitz, gainera, "edozeini gerta lekiokeela[178]" ere badio, eta hala izanik, "bekatu larritzat" ezin jo daitekeela. Areago, lehen, euskal jokamolde jatorraren erakusgarri zenbait euskal idazle zahar deitu baditu, orain, Axular ospetsua darama paperera, Lizardik egina zuritzea duela helburu. Axular ere "bekatari" baita, Lizardik egin "bekatu" berberaren "erruduna".

---

[173] Zilegi al litzateke Lizardi ere, erabilera hau dela eta, ondoko "kasuan" sartzea?:
"Okerragoa, haatik, bi hizkuntzen borroka hizkuntzaren barrunbean (hots, hiztunaren gogoan) sortzen denean, bitarik bat gero eta nagusiago nabarmentzen delarik. Horixe baita, nik uste, gure kasua". (1964b:43).

[174] Lk. XVI,8.
Oharmen-konszientearen eta inkonszientearen arteko jokoa ere tartean egon daiteke, apika.

[175] Arestiren jatorrizkoan, *h*-rik gabe.

[176] Errepara bekio atzean dagoen Lizardiren neurtitzari.

[177] "[Mitxelenak ez] Baina guk ondore larriak atera behar ditugu; Lizardiren euskerak eztirudi erderaztaturik dagoena; eztirudi, ez, azal koloreztatu bat eman diolako, erderatik datorren hitz gutxi erabiltzen duelako. Baina barreneko marmian, puntatik ondoragino dagoela erderaztaturik. Egia izanen da? Eztakit. Eztit inporta. Eztut hori kontuan edukiko. Lizardiren poesiaren barreneko muina erderazkoa ala euskerazkoa denik; bakarrik edukiko dut kontuan munduak sortu dituen poeten artean maitagarrienetakiko bat dela (...) Eta Mitxelena jauna barkatu beharko dut, nire bihotzean ilusio deseagarri bat hiltzeko arriskuan jarri baita". (Aresti 1964b:3).

[178] "Edozeini gerta lekioke horrelakorik eta edozeini gerta lekiokeena ezin da izan bekatu [Jat. *pekatu*] larria. Bekatu [Jat. *pekatu*] hau, gainera, orain ikusi dudanez, beste idazle batek ere egin zuen, aspaldiko gainera: Axular handiak." (1964g:182).

Hau da, sexurik ez duten izakiekin edo izakiez mintzatzeko, bai Lizardi, bai Axular "handia", erdal ikuspegiaren isiatzaile dira. Ez honela Leizarraga "erdaizalea"[179], besteak beste, honek, artzat hartu baitu izaki eme ez den oro, bestelako eragile sendoagorik izan ezean.

Zeinahi kasutan, Lizardi ez da honetan euskal eredu "jatorraren" erakusgarririk egokiena, eta zuritzeak zuri, Mitxelena aldi berean beste zerbait ere agerian jartzen ari delakoan, honako galderak para daitezke.

Batetik, "euskal eredua" irudi iraunkorretan landatzea aitortu dio, baina iturburua erdal ereduan dutela ikusi ondoan ere, bere hartan jarraituko al luke errenteriarrak?

Ez dirudi gerora[180] honen gainekorik zehaztu edo erantsi duenik, baina zeinahi kasutan, okerreko ispiluan begiratu honek ez diola Mitxelenari bere Lizardizko iritzia larregi aldarazi esan daiteke, geroagoko iritzi-agerketetan ez du eta puntu honetan oin hartu Lizardirenak bezteko.

Bestetik, berriz, zenbateraino da Lizardi "lokarri zaharraren" jarraile zintzo edo, gutxienez, norainoko euskal literaturaren ezaupidea aitortu behar dio[181] Mitxelenak kritika honen ondoren?

Honen ingurukoa argituko ote luke, apika, Lizardiren euskal literaturara hurbiltze berantiarrak, Orixeren eraginaz aritzean ikusiko den bezala?[182]

---

[179] **Erdaizaleak** [Leizarragak] gogor egin zion, bada, *anima*, *âme*, eta *alma* femininoen indar elkartuari. **Axular garbiak**, berriz, ez zuen horrenbestetarako kemenik izan". (1964g:182). (Beltz. gurea).

Badirudi, bidenabar, Mitxelenak aurkez aurk paratu nahi dituela, bi jokamoldeen eredu hartuak, Leizarraga "erdaizalea" eta Axular "garbia", hain zuzen ere, kontrajartze horren falazia agerian uzteko, "erdaizalea", euskal joeraren jarraile jatorra baita eta, "eredu garbia", berriz, erdararen morroi.

[180] Jaso dugun 1972ko *Zenbait hitzaldi* lanekoa kenduta, noski.

[181] Die? Lizardi ez ezik, Aresti ere tartean baita.

[182] Karlos Otegik, bestelako arrazoiak ikusten ditu Lizardiren jokabide hau zuritzeko.

Mitxelenaren kritikaren berri eman ondoan, honela darraio:

"La cuestión del modelo es importante desde el punto de vista gramatical, así como también desde el psicolingüístico o sociolingüístico, pero no la consideramos especialmente relevante en el plano literario. Más interesante que el patrón lingüístico es el resultado de la elección. En Biotz-begietan, las posibilidades poéticas ofrecidas por la utilización del género-sexo son particularmente significativas en aquellos poemas en los que el desarrollo imaginario de unas relaciones íntimo-afectivas sirve de apoyo apropiado al tratamiento de un tema central en la composición. Puesto que el "yo" poético es implícita, y a veces explícitamente (...) masculino, la consideración de una entidad como femenina, permite que entre ambos se establezca un contacto amoroso figurado que sirve para manifestar y acentuar la atracción y la identificación que el "yo" experimenta con respecto a dicha entidad". (Otegui 1990:378).

Kontua da, gure ustez, Mitxelenaren eta Arestiren arteko liskar-puntua ez dela bientzat bera. Mitxelenaren ikuspegiaren arabera, agidanez, euskal idazlearen hitanozko erabilera ohikoari ez atxikitzeak ez du Lizardiren iruditen egokitasun poetikoa behetitzen. Arestik, aldiz, Lizardiren hizkuntz jokabideazko galtzerikoa, poesi iruditen kalterako baiitzan hartzen du.

6.3.3.2.b. Beste neurtitzak

Biotz-begietan liburuaren iruzkinean esanez bailatu behar da Mitxelenak Lizardiren beste zenbait neurtitzi irizten diena jakin ahal izateko. Izan ere, bigarren argitaraldia ontzeko paratzaileek irizpide hartuezko juzkuek ematen dute bidea, hain zuzen ere, Mitxelenak Lizardiren beste zenbait olerki-lani deritzanaz jabetzeko.

Honako olerkiak dira Mitxelenak berariaz ahotan dituenak: "Etxeko sagastia", "Egamin" eta "Gazte'ren esnatzea", lehen argitaraldian ez zeuden arren –geroagokoak baitira– Mitxelenaren ustez, bigarrenean egon behar zutenak, eta, bestalde, "Etxeko keea[183]", aurrekoak ez bezala, bigarren argitaraldian erantsia.

Honenbestez, bi gertari-mota desberdin: Lizardiren poemategirik aipatuenaren lehen argitaraldian ez zeudenak, baina argitaraberritzean Mitxelenak gogoan hartzekotzat dauzkanak, eta kontrako aldetik, berriz, paratzaileek erantsiagatik, Mitxelenaren ustez, kanpoan gera zitekeena:

> Lizardi bera ere hizkera eta neurri erraz eta herrikoiagoen aitzetik zebilen azkenaldera: zortziko ttikitan ondu zituen "Etxeko sagastia"[184] eta "Egamin" olerkietan, esate baterako. (1956g:65).

Azken urteetako Lizardiren bi olerkiok[185], poetaren norabide-aldakuntza erakusten

---

[183] Mitxelenak darabilen grafiaren arabera.

[184] Lizardi zendu ondoan bere paper artean aurkiturtko poema honek, 1935ean *Yakintzan* argitaratu beste plazaratzerik ez du izan, ezta 1983ko *Olerkiak* bilduman ere:

"Posteriormente a Umezurtz olerkiak se han publicado dos poemas: 51) "Etxeko sagastia" Firma: "Lizardi'tar Xabier" Publicación: Yakintza, 14, III/IV-1935, p.95. 52) "Euskal Pizkundea" Firma: "Lizardi'tar X." Publicación: Biotz-begietan, edición de 1970 Composición: III-1933". (Otegui 1990:14).

Dagokigun lehenaz –hots, "Etxeko sagastia" izenekoaz–, barri zehatzagorik ezean, Otaegiren (1992) adierazpenez baliatuko gara, Mitxelenaren hautaeraren arrazoietan argi eman dezaketelakoan:

"1935ean *Jakintza* aldizkariak argitaratu zuen *Etxeko sagastia* izeneko olerkia bere sarne-alabekiko sentimenduen adierazle garbia da, Lizardiren poema luzeek duen giro bera sumatzen zuten bere garaikideek haren inguran bizi zirelarik. Lekuko bakar gisa aipa dezagun, Orixek, Liman ibili zenean, Santa Arrosaren etxea ikustera joan zelarik: "Santa Arrosa'ren etxea ta lore-baratza, ordun bezalaxe zeuden. Lizardi zanaren etxea ta lorebaratza gogora zidanan". (Otaegi 1992:26).

"Bestalde, *Umezurtz Olerkiak* bilduman agertzen ez den eta 1935ean *Yakintza* aldizkariak 13. alean argitaratu zuen azken poema bat *Etxeko sagastia* izenburua duena ere *Maitearen apurtxoetako* bat bide da, utzi zuen eskema poetikoaren VII. jalkiaren arian egiten den "Lau aurtxoena" aipamenari chartuz gero". (Otaegi 1992:448).

"Ohar metrikoak: Aranaren araudia. Ahapaldia: 7/7a/7/6a/7/6a/7/6a. Errima: bi bokaletan oinarritua sarritan, bai eta azken silaba osoan ere.

Ohar tematikoak: Olerki honek "*Maitearen apurtxoak*" izeneko poema amaigabearekin du zerikusia gaiari begiratzen bazaio. *Umezurtz olerkiak* delakoan argitaraturiko VII. jalkian aipatzen den "Lau aurtxoena" izeneko zatia, beharbada, olerki honezaz osatzeko asmoa zuen. Aipagarria da *Maitearen* arian, olerki honetan eta *Ebe barne bizia* ausnarketa beraz amaitzen duela gogoratzea, eta baliteke poema osoaren amaieratzat moldatua izatea poema hau". (Otaegi 1992:569).

[185] Biak, Lizardi zendu ondoan argitara emanak.

"Lizardik 1933ko martxoaren 14ean hil ondoren beste zenbait olerki eman zituzten ezagutzera Euskaltzaleek taldekoek. Horietako batzuk, *Yakintza* aldizkarian, *Argi egidazu*, *Egamin*, *Etxeko kea* ta *Arrats gorri* direlakoak, dataik

dute, hizkera eta neurri herritarragoak darabiltza eta.

Ez dirudi olerki-lanok, ez hauen tankera berria Mitxelenak begi gaiztoz ikusten dituenik, horiexek ematen baititu faltan bigarren argitaraldian. Hau da, nahiz lehen argitaraldian tokirik izan ez zuten, Mitxelenaren aburuz, merezi dute bigarrenean agertzea, Labayen paratzaileari eginiko kritikaren arabera:

> Nahiago nukeen honako hauek ere jaso izan baitu Labayen jaunak[186] bilduma honetan, ezinbestean "Etxeko keea" kentzen zuelarik ere (...) Beste zati bat bada, baztertunk geldtu behar ez lukeena: *Yakintza*-n agertu zen "Gazte'ren esnatzea" (1956g:65).

Ez dago, bada, esaterik Mitxelenak Lizardiren azken garaiko joera gaitzesten duenik —aurreko puntuan jaso den geroagoko erdal aipuak hau ñabartzen badu ere[187] , baina zeinahi kasutan, aro honetako olerkien artean ere bere aukera egiten du: "Etxeko kéa", bigarren argitaraldian erantsia, kanpoan uzteko prest ageri den bitartean, "Gazte'ren esnatzea" bérriz, atzenezintzat dauka. Hau da, aipamen horrek erakusten du Mitxelenak, Lizardi mirestu arren, bere lanen artean aukera egiten duela, begikoagoak dituela olerki batzuk beste batzuk baino.

Mitxelenak egin hautaeraren zioan arakatu nahirik, lehenik azpimarkatu behar da, batzuk sartu eta bestea kanpoan uzteko arrazoi zehatzik zuzenean bederik ematen ez duela.

Ez daudenei, baina Mitxelenaren ustez, egon behar luketenei aurrenik erreparatuz, ohargarria da zein hitz alboratzen dizkien lehen biei ahotan hartu bezain sarri:

> Hizkeraz ez ezik, baita barren ixuriz ere ez zegoen olerki horietatik urruti beste liriko handi baten ukitua. (1956g:65).

---

gabe argitaratu ziren". (Otaegi 1992:447).

Otaegik berak zehazten ditu poemon argitaradata eta lekua. "Egaman", 1933-V/VI, *Yakintza* 3 eta "Etxeko sagastia", aurreko oin-oharrean zehaztu bezala, aldizkari berean, 1935ean.

Saihetseko oharra. Lizardi tesi-gaitzat hartu duten ikertzaile biok ez dutoz bat olerkariaren heriotzeguna finkatzean, ikusi bezala, Lourdes Otaegik, 1933ko martxoaren 14ean paratzen du. Karlos Otegik, berriz, urte eta hile bereko 12an:

"Lizardi fallece el 12 de marzo de 1933". (Otegui 1990:12).

[186]Hau dio Antonio M. Labayenek "BIGAŔEN EDIZIOA'ri BURUZ" delako atariko oharrean:

"Bakaŕik irakurleai adierazi nai diet lenengo ediziotik lau puska kendu ditugula: «Yaun erukio'a», «Aldakeri», «Izotz-ondoko iguzki» ta «Gaur gure mintzo», olerkiak.

Beste bi gertu dizkiogu ordea, ordaňez «A'ats go'i» eta «Etxeko-kêa» UMEZURTZ OLERKIETATIK artuak".

Orixek sarreran ez du Mitxelenak beste erremediorik ezean kenduko lukeen "Etxeko keea"-z iruzkinik egiten, lehen argitaraldiko oharrak bere horretan utzi baititu. Poema horixe da Labayenek izuliriko bakarra.

[187]Guztiarekin ere, beste Lizardi zehatz eta trinkoagoa ez ote zuen begikoago barrunta daiteke, lehen esan bezala (1960b:148).

Beste "liriko handi" hori Orixe dela pentsatzeko oztopo handirik ez da ikusten, lehen jaso diren Mitxelenaren geroagoko esanak alboan paratzen bazaizkio[188].

Badirudi, Mitxelenari Orixeren eragin herritarragoa ez zaiola kalterako iruditzen, olerki xaloagoak, itxuraz ez horren landuak, ezta horren trinkoak ere mamitzera makurtuagatik.

Ez du, halaz ere, azken urteetako Lizardizko iritzi borobil eta erabatekorik eman gogo, hastapen gorrian gelditu zela eta,hortik ondorio sendorik atera ezinean ikusten du bere burua.

Mitxelenak faltan ematen duen Lizardiren hirugarren lana, "Gazte'ren esnatzea[189]" da, berak zehaztu bezala, *Yakintzan* argia ikusi zuena[190].

Mitxelenak izan dezakeen jasotzeko arrazoia ez dago lanaren mailan, "onenetakotzat" ez dauka eta, ezta bere olerkigintzaren halako erakusgarri edo adigarritzat daukalako, "ez da poesia hutsa", beste nonbait begiratu behar Mitxelena hautestera bultkatzen duen arrazoiaren bila: osotasun batetik bakanduriko[191] "saio jakingarria" da Mitxelenarentzat Lizardik hemen egina.

Gogoeman daiteke, apika, Mitxelenak baduela jakinminik Lizardiren saio berriek zer ekarriko. Hau da, Lizardiren bilakabidearen erakusgarri izan daitekeela.

Bada, halaz ere, besterik:

> Badirudi hilberri den norbaitek euskarari ukatu zion dohai hura azaldu nahian zebilela, "barren-bizitzaren jario igeskorra" adieraztekoa, alegia. (1956g:65).

"Eusko-bidaztiarena" Lizardik izendatuki Unamunori "ausardi gorriz" eskaini zion, "Gazte'ren esnatzea"-n, berriz, ez dago gisa honetako eskaintzarik.

Akuilua saio honen lerroen artean idoro ote du errenteriarrak? Mitxelenak lerrook idazten dituenean –1956an, alegia–, hilberriak, edo aski gertu hilak bederen, Ortega y Gasset[192] (1955ean) eta Baroja[193] (1956an) dira, biak, era honetako aipamenak behin

---

[188](1960b:147).

[189]"Un fragmento de poema descriptivo ('Gazte'ren ernatzea'[sic] ha quedado también aislado". (1960b:148).

[190]1933ko *Yakintza*-n, 27.or.an irakur daiteke. Ale berean, Orixeren "Lizardi'ren azken-olerkiak" artikulua ere jasoa dago, 405-418 orrialdeetan.

[191]Honela diote paratzaileek izenburuaren azpian:
"(Orotza-sail batetik bakandua)".
Orotza-sail osoa *Umezurtz olerkiak*en jaso zuen Atzolek 1934ean.

[192]"Los hermanos Zubiaurre son vascos, sordomudos y pintores. Esto quiere decir que hay en ellos tres potencias de mutismos. *Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal*. El misterioso pueblo vascongado posee un idioma elemental que apenas sirve para nombrar las cosas materiales, y es por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior. Por otra parte, no es la pintura complacencia en la mudez de las cosas y una divina organización de la taciturnidad". (Ortega y Gasset, J., "Los hermanos Zubiaurre" in *El espectador*, 1920 (urria), in *Obras completas*, II, Revista de Occidente, Madrid, 1961.83, 267-270. or. (6. arg.).

baino gehiagotan adierazi zituztenak:[194].

Ez du Mitxelenak zehazki esaten nor darabilen gogoan, baina Ortega y Gasset-en aldera makurtzeko arrazoi gehiago dagoela dirudi, oin-oharrean jaso den aipuko hitzen la "hitzez hitzeko" iraulpena baltirudite Mitxelenaren hauek.

Hau ikusi ondoan eta Mitxelenak Lizardiren saioari, jakingarri deritzala aurrean izanik, ondoriozta daiteke, saiatu ez ezik, erdietsi ere zuela zarauztarrak "barren-bizitzaren jario igeskorra" azaltzea eta hor ikusten duela Mitxelenak lan honen meritua[195].

Bestetik, galde daitekeena da zergatik Mitxelenak "Etxeko keea" baztertzekotzat daukan[196] (ez horrela "Afats Gofi", hau ere, bigarren argitaraldian erantsia) eta Labayenek

---

267.or. Otaegigandik (1992:106) jasoa).

Ez zebilen On Jose oso fin mutu-kontuetan, euskaldunena eta pintoreena aldeka batera utzita ere. "Gormutua" fonlatrian diskutitu baino areago den terminoa izateaz gain, gorrak ez dira, ezinbestean mutu; gutxiago, "mutu" izatearen ahalbide edo antzekoaren jabe. Honezaz, Fortich Morell, L., 1987, *La deficiencia auditiva: una aproximación interdisciplinar*, Valencia, Promolibro.

[193]"Aparecieron una serie de declaraciones sobre el euskera -en realidad, ataques- por parte de gente como Unamuno y Baroja". (Ibarzabal 1977:54).

[194]Izenburutik hasita (Gazte "nortu" mugatzailerik gabea) topatuko al genuke frogatu nahiaren seinale?:

"Sintagma mugagabeak, funtzio tekniko batzuez gain (...) beste zenbait helburu bete ditzakeela gudaurreko idazle honengan: hizkuntzaren posibilitate abstraktiboak areagotzea, pertsonifikazio eta "guztitaratze" honen bidez...". (Otaegi 1983b:45).

Bigarrenik, Lizardi ez litzateke hilberriaren ustearen erdi ustela, ala osoa, agertzen saiatuko zen bakarra. Aspaldikoagoa da Urkixoren aipamen hau, esate baterako, kasu honetan, Baroja da izterbegia:

"Si lo que quiere decir Pío Baroja es que la estructura gramatical del vascuence, su carácter sintético la imposibilitan para ser lengua literaria, yo le recordaré que, aparte de que las lenguas evolucionan y el vascuence ha evolucionado en sentido analítico, como lo prueba su conjugación, la aptitud para expresar los matices del pensamiento, no está vinculada en lenguas de un solo tipo". (Urquijo 1919a:174).

[195]Kasu honetan ere, uste dugu adierazgarriak direla Aitzolen hitzak, *Umezurtz olerkiak* paratzeko lan-hautestean, gogoan zerabilenaren erakusgarri baitira:

Ondoko hitzak behar bezala aditzeko, ez da atzendu behar, "Gazte'ren esnatzea", "«Maitea»ren apurñoak" zeritzan sailetik bakandua dela, lehen ere esan bezala:

"Ez deritzaigu amar olerkitxo oietzaz ["«Maitea»ren apurñoak"], yoskerarik gabe banaka-banaka aztertuik, «Lizardi» zanari olerkari bezela zer aundirik eskantsi lezaiokeenik. Edertasun yalogorik darioten bertso-mordoak ba-ditu amaika «Biotz-begietan» [sic].

Zertarako argitaratu, bada, oraingoak? -diokezu.

Seme olek aitari itxuskeririk ez diote egingo beintzat. «Lizardi» zanari dagokioten olerkiak dira guztiak. Oraingoak eta lengoak era batera talutuak dira. Orok daramate etxeko antza; bai edertasunez, bai euskera giarrez. Ba-liteke lenen yaiotakoetan seme aratz eta sotillagorik aurkitzea; aizken sortuetan elbarriturik ez dago baiño.

Aur guztiak ezagutu araziaz euskaltzaleak obeki aita nor zan yakin genezake. Batez ere, aizken sortu olek «Gazte»ren barrunbeak zorrozkiroago argitzen dizkigute. «Lizardi»ren gaztaroa eguzkira dakarkigute (...)

«Biotz-begietan»goak atarira begiratzen dute, ez guziak, bai yaioenetakoak ordea; «Maiteñoaren apurñoa»koak barrunera soegiten dute. «Gazte» berari dagokioten gai utsak darabilzki «Lizardi»k poemako neurtitzetan; len argitaratutakoetan olerkariarekin ikuturik ez zuten galak (...) Besterik ditugu oraingoak baiña. «Lizardi»ren izakerazatibxoak zaizkigu «Ama gau beltxeran» ta «Gazteren esnatzea»". (Lizardi 1983:339tik aldatua).

Aitzolek, Lizardiren barnearen adierazpidea aipatzen du; ez, horregatik, akuilariren izenik.

[196]Aitzolek paraturiko *Umezurtz olerkiak* (1934) izeneko argitaraldian jaso zuen hau, Mitxelenak *Biotz-begietan* 1956koan faltan ematen dituen "Egamin" eta "Gazte'ren esnatzea" olerkiekin batean.

Hona, Mitxelenari "ezinbestean" besteak baino batertzekoago iruditzen zaion honi Aitzolek hitzaurrean ebatzia:

albora utzi dituen besteez ezer ez dioen.

Ez du, ordea biderik ematen arrazoiak argitzeko.

Mitxelenak luman hartzen dituen Lizardiren lan zehatzez gain, bada zer hausnartua ematen duen besterik. Bigarren argitaraldi honetan plazara ez diren zenbait lan isilpean gordetzen ditu Mitxelenak, hots, nabarmentzekoa da aipatu ere ez dituela egiten Labayenek sarbiderik eman ez dien "Yaun errukiorra", "Aldakeri", "Izotz-ondoko iguzki" eta "Gaur gure mintzo", lehen argitaraldian bazeudenak. Mitxelenaren kritika, paratzaileak sar zitzakeenei lotu zaie, eta ez 1932koan bazeudenak zokoratzeko arrazoiei.

Ez Mitxelenak ez Labayenek ematen dute olerki-hautaeran hauek baztertzeko arrazoirik. Argi bila, honakoak har daitezke gogoan:

-"Yaun errukiorra" 1917koa[197] da, lehenengoetakoa beraz[198].

Jasoa doa lehen poemei Mitxelenak irizten ziena[199], makal samarrak zirela, alegia; litekeena da, poema hau ezaugarri horren jabetzat edukitzea.

Gogoan izan behar da, halaber, gaztelaniatik itzulia dela eta Orixek hitz hauek alboratu zizkiola lehen argitaraldiari eginiko sarreran:

"Ez dirudi etxeetako baminiak darioten kea edertasun iturburu izan litekenik. Keak sutondoa, mata, baserriak dakarzkio irudipenera; eta bira-bira goruntz diyoanak bi bertso dotore olek esan erazten dizka:

«Susmo niñan zeru goxoa
keok ote zen egiña»

Olerkitxo au errikoi bertsoen tankerara taiutua da. Lenengo aapaldian edozein errikoi bertsoen kutsua nabaitzen zaio:

«Aldean eder usoa
mendi-mendian, pagoa...
Ebre gaingorriak emana
kee dun ederragoa...»

Ale galanta egia izateko olerkariak diona, alegia usoa baiño ederrago kea...

«Ebeko kea»n errikoi bertsoen edertasuna zorrozki nabaitu zuela «Lizardi»k erakusten digu. Bide orretatik yo izan ba-zigun...". (Lizardi 1983:336tik aldatua).

Ez dirudi Altzol eta Mitxelena oso bat datozenik.

[197]Lanon kokapenerako, Lizardizko bi tesi nagusienez baliatuko gara, lehenik, zaharrenak (Otegui 1990) ematen dituen xehetasunak hona aldatuz eta horiek bakarrik utziz bernagoek (Otaegi 1992) bestelako habarduraric erantsi ezean.

"4) Jaun errukitsuboi!...". Firma: "Zarautz'ar Sabin". Publicación: Euzko-Deya, 41, 16-XII-1917, p.2. Composición: 1917. Versión definitiva: "Yaun errukiorra". Publicación: Biotz-begietan, 1932". (Otegui 1990:7).

"Hiru [bertsio] aipe litezke, bata esku-izkribukoa Valverderen 1973eko edizioan 61 orrialdeen jasorikoa eta zaharrenatzat jotzen duguna izenpea Samaiko-Zulo dakarrelako (...) Hurrena argitaratu zituen olerki eta ipuinetan Zarautz'ar Sabin erabili zuelako". (Otaegi 1992:483). Beste biak, arestiko horiek dira.

[198]Lourdes Otaegiren (1992:443,444) salkapenaren arabera, 1917tik 1919ra doan "lehen epekoa", alegia.

[199]"Aun si alguno de sus poemas (los primeros, se diría) son endebles". (1967b:105).

Erderatik itzuka, dio berak[200]. Gogai ederra du erderazko amalauko oneh, baina euskal-belarriendako gogor-antxa dirudi[201].

Orixeren aburuarekin bat datorrelako gorde du isilpean Mitxelenak?

-"Aldakeri", 1925ekoa[202 203].

"Maitezko ipui minkatza" dio Lizardik berak izenburu-azpian. Aieruak ijuak baino maiteago dituen Mitxelenak, ageriko gehiegitxo atzeman ote?

-"Izotz-ondoko iguzki", 1931koa[204 205].

X. Leteren hitzetan kausi daitezke, agian, Mitxelenak poema hau oso guztizko ez izatearen arrazoiak:

> Garai hartako abertzalegoari mattagarri zitzaizkion ikur, sinbolo eta erreferentziak goraipatuak agertzen dira **estaigarririk gabe** poema honetan: mendia, Aralar eta Mikel deuna, gazteria abertzalea, etab... (Lete 1983:198). (Beltz. gurea).

Estalkirik gabe... gardenegi Mitxelenarentzat?

-"Gure mintzo", 1931koa[206].

Honako eskaintza egin zuen Lizardik olerkiaren buruan:

> "Arana-Goiri'ren
> oroiz ta eskarrez"

---

[200] "Amalaukoa. Egilleak gazteleraz idatzi, eta gero berak euskeratua", dio Lizardik titulupean. (Lizardi 1983:17).

[201] (Lizardi 1983:326).

[202-20] "Aldaker. Firma: "Lizardi'tar Xabier". Publicación: Euskal-Esnalea, 306-307, VI/VII-1929, pp.105-109. Composición:1925. Versión definitiva: "Aldakeri". Publicación: Biotz-begietan, 1932". (Otegui 1990:9).
"Hiru bertsio ezagutzen dira. Lehenengoa prosazkoa *Euzko Deya* aldizkarian 1917-3-16koa, 26. alean argitaratua". (Otaegi 1992:454). Eta ondoren, arestiko beste biak aipatzen ditu.

[203] Otaegiren (1992:445,446) hitzetan, "Bigarren epea: igesi joan nahia, kazka, yorana" bataiaturiko epekoa, alegia.

[204-36] "Izotz-ondoko iguzki". Composición:1931". (Otegui 1990:12). Eta argitzen du, lehen argitaraldia, *Biotz-begietan* 1932koan izan zuela.

[205] Hau eta hurrengoa, Otaegiren (1992:447) "hirugarren epekoak" lirateke, hots, Lizardiren "jarrera bital osoan heldutasun eta finkotasun handiagoa sumatzen den epea" ezaugarri duenekoak.

[206] Arestikoa bezala, 1932ko *Biotz-begietan* bilduman ikusi zuen lehen aldiz argia.
"37) "Gure mintzo". Composición:1931". (Otegui 1990:12).

Frankismopean bizitzeak ikuskizunik ote honen eta, agian, aipatu berriaren, aipamen-ezarekin[207]?

Azken bi hauezaz honela dio Orixek:

> Landuak noski, ez orde bear bezain legunduak. Itz berri ta aditz-yoku berri zenbaitek olerti-guriña kendu egiten diote[208].

Berriz ere, *magister dixit*?

Mitxelenak esanetan nahiz estari gordeetan arakatuz, Lizardiren zenbait neurtitz zehatzen gainean eskuetara diren juzku-ondoreak dira jaso berriok. Hamaikatan aldatzen diren Mitxelenaren *Biotz-begietan* laneko Lizardiz edo, oro har, Lizardi lirikoazko iritzi ezkutuagoak, baina aldi berean, garrantzizkoak, haien osagarri diren neurrian.

---

[207] Karlos Otegik ere (Otegui 1990:16) bigarren argitaraldiko hutsune-erantsien balizko arrazoitzat dauka honako hau, besteak beste:

"No conocemos los motivos exactos por los que se apartaron las cuatro composiciones. Labayen simplemente constata, sin dar razones (...) Quizá influyó el sentido político de los poemas "Izotz-ondoko iguzki" y "Gure mintzo", puede ser que intervinieran razones referentes a la calidad poética o al nivel de purismo léxico. Tampoco alcanzamos a ver con claridad los motivos de inclusión de esos dos poemas en concreto. Labayen alude simplemente a razones de cantidad".

[208] (Lizardi 1983:330).

6.4. LIZARDIREN HIZKERA

Orixez bereziki tesi honetan esanaren ildotik egilearen idaztankera eta hizkera, zinki eta finki bereiztea samurra ez dela aurrean izanik alegia , Lizardiren idaztankera zehatzaz, hobeto esan, idazmolde horrek ezinbesteko osagaia duen hizkuntz lehengaiaz, gatzatzen duen hizkeraz, Mitxelenak adieraziak erakusteko saioa egingo da.

Azalpen hau, zarauztarrarengan erakargarri eta, aldizka, bezteko Mitxelenari zer egiten zaion agerian jartzearen kariaz egingo da, hortxe egiaztatu ahal izango baita, errenteriar hizkuntzalariaren lizardizaletasuna[209] noraino iristen den.

Gai honetan murgiltzen hasi bezain sarri, begietan ematen duen lehen zera da, Lizardik mamitu hizkera zehatzazko Mitxelenaren aipuen urritasunak.

Ez du gehiegitan errenteriarrak jendarteratzen hizkerari dagokionez bereziki lizardizaletzat ere hartu behar ote den. Gehienetan, ikusiko den bezala, iritzi erabatekoak dira paperera aldatuak, ez halako Lizardiren jokamolde lexikologiko edo antzekoen azalpenak[210].

Areago, ikusi eta ikusiko denaren ildotik, esan daiteke, Mitxelena Lizardiz ari denean, hizkerazkoak baino areago, literatur irizpideak darabiltzala. Beste euskal autoreekin hain maiz egilen ez duena.

Ez gatzaizkio, baldinbetan, egiari hagitz aldenduko, harrigarri xamarra egilen zaigula aitortzen badugu. Gure harriduraren funtsa Mitxelena bipilaren jokamolde bestetan ez bezalakoan datza, ikusi baita beste euskal idazle asko hagitz zorrotz auzipetzen dituela; ez dugu uste, ordea, Mitxelenak hemen neurgailu berbera darabilenik.

Lizardiren hizkera autu duen aipamenik aspaldikoena, jaso den delako "zailtasunari" atxikitzen zaio:

> Zenbaitek esango du, beharbada, azal zaila dutela Lizardiren olerkiek. (1956g:65).

---

[209] Artean ikusiez gain, lizardizaletasun honi azken puntuan eutsiko zaio berriz ere.

[210] Oteguik tesiaren bigarren kapitulu osoa (1990:178-225,253-259 bereziki) eskaintzen dio Lizardiren poemen hizkuntz gaien azterketari, batipat, hizkera poetikoaren osagai eta hizkera horren taxu-moldatzaile den aldetik.

Otaegik ere (1992:236-325) atal oso batez dihardu Lizardiren hizkeraren "azterketa morfosintaktikoaren azterketan" eta bertan, "arkaismoak" deitzen dituenen erakusgarria ematen du, Lizardik autore zaharrengandik hartuen adigarri.

Mitxelenaren lekukotasun zehatzen eza harritzeko samar gertatzen zaigu –esate baterako, Lizardiren aditz trinkoen erabilera–, halaber, Lizardik hizkuntz gai zehatzak jorratu zituenik ere ez aipatzea, hala nola, "Traductores-Diccionarios", "Gramáticas euskéricas" edo "Neologismos en aritmética", hirurak berriro, *Kazetari-lanak* delako bilduman jasoak (Lizardi 1986).

Mitxelenak besteren ahotan jartzen du Lizardiri leporatua, baina zegokion lekuan erakutsi bezala, berak ez ukatzen ez baieztatzen du, ez berariaz bederen. Zeharka, ordea, bestek adierazia onartzen duela erakutsi da, baita, azalaren zailtasuna benetako lirikaren eta mami jori-oparoaren baitan zuritzen duela ere.

Esanak berresan gabe, hauxe da Mitxelenaren hitzek islatzen duten Lizardiren lehen ezaugarritzat jo daitekeena: Lizardiren hizkera ez da erraza, ezin bere betean adi daiteke lehen irakurraldian, behin eta birritako irakurrera pausatua eskatzen du mami joria estaltzen duen azal zailxko horrek.

Ez du, ordea, Mitxelenak zehazten zein puntu zehatzetan antzeman dakiokeen zailtasuna, zerk bilakatzen duen Lizardiren hizkera zail[211] eta hau ere harrigarri xamarra gertatzen zaigu.

Lizardiren hizkerazko hurrengo aipua, hagitz da laburra baina bere motzean, adierazgarria.

Kasu honetan, ereduak dira liskargaia, zehatzago esan, hizkuntz betekizunen araberako hizkera-ereduak. Aurkez aurk paratuak, "arte-eredua" eta "hizkuntz eredua" dira, Lizardik eta Agirre Asteasukoak, hurrenez hurren ordezkatzen dituztenak:

> Mitxelena: Zuk hor dauzkazu bi autore, Lizardi eta Agirre Asteasukoa. Zein daukazu hobetzat?
> Alvarez: Mamiz dudarik gabe Lizardi da.
> Mitxelena: Irain da. Arte aldetik ez dute munduan aldarik eta. Baina nik hizkuntza aldetik jakinago dertzot[212] Agirre Asteasukoari. Eta nire ustez Barrutia ere eredu da arte aldetik hizkuntza aldetik

---

[211] Honelaxe adierazi du Letek ere (1974:21):

"Eta alde horretatik begiratuta, haren poesia zail da. Zail da, hizkuntza sintetizatu, landu, osatu, berrikuratu baten bidez espresatzen delako, batez ere aberastasuna, eta xehetasun guztien parekotasun plastikoa aurkitzen saiatzen zelako (...) Egia esan, Lizardiren poesia, batez ere hasiera batetan, irakurle saiatu eta ikasiarentzat ere nahiko zail da".

Ez da, ordea, zailtasun merkea, ouartzuarrarentzat, honela baitarraio:

"Baina zailtasun hori, deliberatuki bilatua izanik akats eta pedantekeria itxkeen bezala. Lizardiren ahaleginetik aberastasun eta edertasun sakon besterik ez da".

Oteguik (1990:337in), berriz, Lizardiren poesia egungo irakurle are ikasiari ere zail gerta dakiokeela ez ukatuagatik, ez du gaindezinekotzat jotzen eta nahiago bide du "puntos de dificultad, zonas limitadas de oscuridad que varían de poema a poema según el tono y la construcción de la composición" moduan hitzegin.

Irakurrera malkartzen edo duten "oztopegarri" edo "barruti ilun" direlakook aipatzen ditu: "la elipsis", "el orden de la frase", "el uso de construcciones sintácticas poco habituales", "el léxico (...) el uso de algún purismo (...) o de varios verbos o formas sintéticas poco usuales (...) pero sobre todo la inserción de palabras pertenecientes a un léxico escogido, crea en el lector de capacidad receptora medianamente trabajada momentos de trabazón", "[berez ilun ez den lexema] unido a otro u otros lexemas por la composición o por la construcción de la frase, viene a constituir segmentos cuyo significado llega a escaper al lector, bien por la elipsis operada, bien por la dificultad en captar el sentido que el poeta ha querido dar a la unión de los lexemas". (Beltz. gurea).

Alderdiok guztiok, halaz ere, ez omen dira banaka hartuz zailtasunaren sortzaile, adituzko arazoak, batipat, zehazturiko horietako bat baino gehiago metatzen direnean gertatzen omen da. Honek guztiak, honakoa ondorioztatzera darama:

"Estos factores apremian al lector y le exigen una lectura reflexiva, realizada por conexión de segmentos". (Otegui 1990:340)

[212] Jat. *dertzkiot*.

baino gehiago. (1958a:133).

Pasarte honek agerian jartzen du, Lizardi "arte-eredu" egokitzat duen arren, ez duela Mitxelenak "bainarik" olerkariak bere lanetan darabilen lehengai zehatzean hizkeran, alegia, beztekoak atzemateko; ez dio ordea, zergatik. Hau da, ez du Mitxelenak adierazten, zergatik gogokoago duen "hizkuntza aldetik" Agirre Asteasukoa Lizardi baino, non kausitzen duen asteasuarra zarauztarra baino jatorrago[213].

1960ko *Historia de la literatura vasca* delakoan[214] irakurtzen ahal da Lizardiren hizkerazko beste zertzelada bat. Orain, prosa da ezaugarritua.

Jaso bezala, Mitxelenak Lizardigan azpimarkatzen duena, bertsoetan ere sumatzen dion berezkotasunaren ondoan, arintasuna, umorea, azal-mamizkoetan, irakurlea ustegabean harrapatzeko jaidura, barne nahiz kanpoko munduaren deskribatzaile azkarra eta zehatza dira Lizardi prosagileari alboratzen dizkion ezaugarri orotarikoak; ez da xehetasunetan sartzen.

Aldatu guztiak idaztankerazkoak izaki; berriz ere, ez du euskara aldetikako ñabardurarik gaineratzen.

Urte berean ikusi zuen argia "Asaba zaharren baratza" izenburu lizardizalea daraman Mitxelenaren saio-artikuluak.

Lizardiren hizkerari hertsiki lotzen zaionari erreparatuz[215], orain ere, aipu labur bat besterik ez da irakurtzen ahal:

> Miresteko da, benetan, nola zenbait idazlan eder Lizardiren poesia, esaterako sortu ziren garai horretan, hiztegia horrela murriztu eta soildu ondoren. (1960a:33).

Ez du Mitxelenak Lizardik lanetan darabilen hizkerazko iritzi zehatzik kanporatzen, baina badu pasarte honek zeharka atera dakiokeen etekinik.

Hasteko, beste lanetan adieraziaren ildotik, Lizardiren poesiari, "idazlan eder" deritzo, baina hau baino esanguratsuagoa da, apika, Lizardi - bere garaikideak bezalaxe - aurre egin behar izan dion egoeraren ingurumarian kokatuz, Mitxelenak Lizardik erdiets'ari ematen dion balioa.

Lizardi olerkariak bere ederlanak on ditzan, hizkuntz lehengaia ezinbestekoa du, hiztegia nagusiki. Garbinahi muturrekoaren eraginez, ez du, ordea, egokierarik aukerakoena

---

[213] Arte aldetik Lizardi zergatik jotzen duen begiz xeheki azaltzen ez duen bezala. Ez du honetan, ordea, zalantza-izpirik ere.

[214] "Casi tan original como sus versos, aunque breve, es su obra de prosista ágil, de humor intencionado y amable, llena siempre de sorpresas en el fondo y en la forma (*Itz-lauz*, 1934)". (1958a:375).

"Su prosa es también original, casi tan original como sus versos. Agil, descriptor tan certero como rápido del mundo exterior y del mundo interior, de humor intencionado y amable, está siempre lleno de sorpresas, tanto de fondo como de forma". (1960b:147).

[215] Artikulu hau astiro jorratu da laugarren eta bostgarren kapituluetan.

eginbeharra betetzeko. Halaz ere, halako baldintza desegokietan, euskal lirikaren ezaugarri izatera iritsiko den lana mamitzeko gauza izan da.

Ondoriozta daitekeena da, ez duela Mitxelenak Lizardigandikakoetan sumatzen hiztegi murriztu edo eskasturik, miresgarri egiten baitzaio. Hau da, baldintza horietan espero zitekeena, Lizardik hiztegian halako gabezia edo mehartasuna agertzea zen; honelakorik antzematen ez, ordea, eta honek egiten du miresteko olerkariaren eskuerakutsia.

Lizardiren hizkera, hiztegiaren aldetik ez da murritza.

Honako hurrengoa ere hiztegi aldetikakoa da, eta aldi berean, Mitxelenaren jaiera orotariko baten erakusgarria.

Mitxelena, iturburu aitortua duten Lizardiren hitzez baliatzen da behin baino gehiagotan, zarauztarraren erabileraren zuzena agerian gera dadin.

Honela,

> Eta, honaino heldu garenez gero, beste ohartxo bat, hor Iztuetak darabilen *jabetu* hitzaren inguruan. Azkuek, hiztegian, Bidasoaz harunzkotzat jo zuen eta "apoderarse, apropiarse" itzuli, soil-soilik. Geroago, ordea, eskuz gehitu zituen eraskinetan, "enterarse" dela dio, Gipuzkoako Asteasun. Gogoratzen al zara horretara erabili zuela Lizardik "Eusko-bidaztiarena" olerkiaren eskentzan: "Unamuno'tar Mikel, yaun argiari, gure ausardi gorriaz yabetu dedin". (1962g:221)

Lizardi du luman Mitxelenak euskal hitz horren erabilera zuzenaren adigarri, Lizardiri -arestian, hizkuntza aldetik beste asteasuar hura bezain jator etsi ez duen Lizardiri- aitortzen dio, kasu zehatz honetan, Azkue hiztegigileari baino hitzaren ezaupide zorrotzago edo, gutxienez, aberatsagoa.

Esan berriaren kontrako aldean para daiteke, haatik, lehen astiroago ikuskatu den eta honenbestez aipatu besterik egingo ez den, Lizardiren "irudimen mitosortzaile" erdal gramatikaren mirabea, 1964g lanean adierazten duenaren ildotik[216].

Hurrengo biak, ez dira Lizardi neurtitz-ontzaileagandik hartuak, prosagileagandik baizik. Baina, hauek ere, erakusten ari garen ideia beraren irozgarri dira. Mitxelenak Lizardigandikako adierazpideak darabiltza adigaien mintzabide egokiak direlakoan:

> Euskaldunak ere ez datoz beti orain, lehen bezala amaren sabeletik ondo ikasiak: maiz aski, eta ezin bestean, biberoiez haziak ditugu. Lizardik esango zukeen legez[217] (1977c:45).

---

[216] Ikus *Biotz-begietan* lanari eginiko iruzkin-kritiken gainekoak, 6.3.3.2.a. puntuan.

[217] Lizardik adierazpide horien bitartez agerian jartzen duen gertariak; Lizardirekin berarekin ikuskizuna du, Lizardi bera, "biberoiz haziako" euskalduna da eta.

Lizardiren euskaldunberritzearen ingurukoak, ederki azalduak dauzka Otaegik (1992). Nolanahi dela ere, "Gure mintzo" olerkiko eskaintza eta eskerrona gogora ekar daiezke: "Arana-Goiri'ren / oroiz ta eskarriz".

Ikus "zerak nortzean" nagusitu zitzaion ereduaren ingurukoak.

Lizardiren adierazpide honek agerian jartzen duen gizarte aldetikako kezkaz ez da berariaz mintzatzen Mitxelena. Esan nahi da, Mitxelenak ez duela zehazki Lizardiren maila honetako ihardunaren berri ematen, aski

Gero eta ugariago, ez dira euskaldunak "amarenetik arituak", Lizardik zioenez (*Itz-lauz*, 1934, 85)[218], "amaren bularretik aziak". Biberoiari eskerrak dira euskaldun. (1978c:167).

Biotan hautatzen ditu Mitxelenak Lizardiren hitz berak azalpenaren hornigarri, biotan (Etxegarairen bertso entzutetsuen oihartzuna belarrietara dakartela[219]), Lizardiz baliatzen da honen adierazpideen egokitasunaren adigarri.

Beste honenbeste, ondokoak erakusten duena:

Gure analtzakoei[220] (eta Lizardigandik hartzen dut hitza) zerbait jakineraztekotan... (1979d:122).

Hurrengoak ere –lehengo batek bezala–, Mitxelenaren erdal testu batean du etorkia. Mitxelena erdaraz ari delarik ere, Lizardiren euskal hitzez baliatzen da, hizkuntza bihurtu gogo dituen adigalentzat hagitz gorputz egokiak direlakoan:

En esta parte del mundo no es frecuente, ni muchísimo menos, que una colonización haya sido, sin mixtura de población, una pura y simple población de tierras deshabitadas, es decir, una humanización del paisaje, la conversión en *giza-lur*[221] de lo que nuestro Lizardi llamó *basa-*

---

zabala eta nabarmena izan zen arren. (Otegui 1990 eta batez ere, Otaegi 1990).

[218] Lizardirenak:
"Ateraldi aretxek argi eman zion nere leguntxoari. Beresia, gorri-gorri eginda, izkide errikoari altortu bear izan zion baletz, bera e-tzala bikitan amarenetik aritua..., biberoiakin azia zala!"

[219] "Festarik bear bada
bego Donostia,
betikoa du fama
ondo merezia.
bestetan ez bezela
emen gazteria
amaren sabeletik
dator ikasia". (Etxegarai, J. V., *Festara*, Donostia, Auspoa 35-36. zkia, 139. or).
Mitxelenak paperera aldatua du ahapaldi hauxe bera (1964i:131) lanean ere.

[220] "O, zein aizen eder loa!
eriotzaren analtzakoa:
bizitzazko urioa!...". "Urte-giroak ene begian" (Lizardi 1956_2:90).

[221] "Gizalur-ezaugarri,
Kea dugun mutil alai!
Ebatik-ebe dabil,
gain gorriez garai.
Beti goranai,
kide goitar beerrez
duzu biurtzen ortzigai". "Gazte'ren esnatzea" (Lizardi 1983:243).

lur[222]. (1964e:604).

Adibide-sorta honekin jarraituz, ekar daitekeen beste honetan ere, Lizardik asmaturiko irudiaz baliatzen da Mitxelena. Pello Salaburu euskaltzain oso berriak egiten duen sarrera-mintzaldirako begiz joa duen Bungerekin berdintzeko darabil Mitxelenak Lizardigandikako konparagaia:

> Iraganaldiari buruz haztamuka gabiltza guztiok, eta itsu-itsuan, urrutiegi jo nahi baldin badugu. Horrela, bada, Lizardiren txoriak udazkenean bezala "urrundu beharka"[223] ari zaigun Bunge sarri asko ikusiko dugu zilipurdika. (1985a:112).

Baina euskararen ezaupide soila ez ezik, euskararen eta erdararen arteko uztardura zuzenaren ezagutzailetzat ere badauka Mitxelenak Lizardi.

Honela, auzia *euskal idazle* adierazpidearen erdal ordain egokia ote daitekeena izaki, Lizardi hautesten du Mitxelenak irizpide eta hitz-aukera zuzenaren adibide:

> Penagarri da gure jendea atergabeko lan-destanean ikustea, baita lehenagoxekoek argi baino argiago ikusi zituzten auzietan ere. Lizardi ez dugu atzokoen artean ahaztuena, baina halere ez du inork aipatu hark zorrozki egin zuen bereizkuntza (*Itz-lauz*, 1934,146: «Ortarako... *Euskaltzale* bazkunaren barrenean, zuek, *Euskal-idazleok*, taldetxo bat osatu bear dezute, zuen Bazkuntz Artezkari bereziaz: ori izan daiteke Euskel-Idazle-Batza, erderaz *Federación de Escritores Euskéricos*[224]». (1981a:51).

---

222 "Basalurez bidalari
kê urdiña be-dut naberi,
ai nire pozal, uraxe baita
gizalur-ezagungaiti". "Etxeko kêa" (Lizardi 1956$_2$:136).

223 "Ta zuek, nora, txoriok, saldoka
zoazte, iraduz ufundu-bearka?
Adiskide Ufobindor il zaizute,
ta aren ilkizunetara
– egoak ikara –
berandu-beldurrak al-zaramate?". "Urte-giroak ene begian" (Lizardi 1956$_2$:112).

224 Bihoa ondoko aipu-oparoa, auzi honek Mitxelena zenbaitetaraino artegatzen duen erakusgarri:
"Eusko Idazleek, notapait esateko, hiru sailetan bereizten dira –azken aldi honetakoek behintzat– erabili duten hizkuntzaren arabera: baditugu euskal idazleak eta, horiezaz gainera, bi erdaratan egin duten Euskalerriko semeak. Eta badirudi hiru sail horiek, Estornes jaunak ederki dioenez, hiru mundu berezi direla elkarrengandik hesiz eta murruz baztertuak". (1965k:143).
"Pero también debe saber que Leizaola, nada inexperto en la materia, puso *Euzko*, con el elemento prefijado que también llevaba y lleva *Eusko Ikaskuntza*, alias Sociedad de Estudios Vascos, por ejemplo, así como el mismo Gobierno del cual formaba parte. Y lo puso sin duda a sabiendas y no puso *Euskal*, que alude inconfundiblemente a una Universidad vasca de lengua, es decir, a lo que en castellano se decía con un término que Luis Mari Mujika ha vuelto a usar, *euskérica* y a lo que antes todavía se habría llamado *vascongada*". (1980d:4).
"Para mí, Jean de Sponde o Blas de Otero (por no hablar de S. Mantell o de Oscar Rochelt) son escritores vascos. Salta a la vista, en cambio, que no representan a la literatura *en lengua vasca, d'expresión*

Lizardik garbi bereizten bide du *escritor euskérico* delakoaren atzeko errealitatea ez dela, *escritor vasco* zabalegiaren guztiz parekoa eta, Mitxelenak, premiazkotzat daukan bereizkuntza honi, Lizardigan ongi finkatua ikusi eta imitagarri deritzo.

Baina Ibarzabalekin izaniko solasaldian irakur daitezke, apika, Lizardiren hizkeraren inguruko adierazpiderik ugari eta zehatzenetakoak, alde honetatiko Mitxelenaren lizardizaletasuna argitzen dutenak barne:

> Lizardi para mí supuso una revelación. Trató de crear un lenguaje poético y, a menudo resultaba difícil, incluso en prosa tenía giros de tipo poético alejados del lenguaje diario. Recuerdo un indignado artículo de Tomás Garbizu en "El Día", quejándose de esta tendencia a la concisión. Sin embargo, merecía la pena romper la dura corteza del exterior, dentro había algo que valía. No era la típica efusión sentimental de "Biozkadak"; aquello era otra cosa. (Ibarzabal 1977:56).

Pasarte honetan badira Mitxelenaen iritzia argitzen laguntzen duten zenbait giltz-hitz. Honela, *revelación* darabil Mitxelenak lehenik. Badirudi honenbestez Lizardiren lanak baino lehen ez zuela Mitxelenak euskal literaturaren barrutian kausitu honen gisakorik. Artean begiztatuek ez bezalako zirrara sorrarazi ziola Lizardigana hurbiltzeak, Jautarkolen lanaren aipamena lekuko[225].

Zirrara horren sortzailetzat zein duen ere zehazten du, Lizardik oratu nahi izan zuen hizkera poetikoa.

Baita delako poesi hizkera horren ezaugarriren bat edo beste adierazi ere. Zailtasuna da, berriz ere, Mitxelenaren ahotik jalkia.

Poesi hizkera eta hizkera honen zailtasuna ez bide dagozkie, haatik, soil-soilik Lizardiren neurtitzei, Lizardiren poesi hizkerari baizik. Hori pentsa daiteke, bederen, Garbizuren haserraldiaren sustraietara begiratuz gero; Lizardiren erabateko "tendencia a la concisión" delakoa da berari ireskaitza egiten zaiona.

Baina haserraldi honek beste alde batetikako interesa ere badu, izendatuki adierazten baita "ireskaiztasunaren" arrazoia. Garbizuk zail harrapatzen duena, ez bide dira Lizardik bere prosan darabiltzan egunoroko hizkera usutik aldenduriko esamolde poetikoak. Garbizu gogobetetzen ez duena "labur-gogoa" da.

---

basque, éuskara o, como se decía antes del Glorioso y bastante después, *euskérica*, adjetivo que ha usado recientemente L. M. Mújica. Tampoco a lo que yo aconsejaba en una mal llamada *Historia de la literatura vasca*, 1960, negándome a seguir mi propio consejo: «El término castellano castizo y preciso para designar la literatura en lengua vasca es el de literatura vascongada»." (1984c, *SHLV*:552).

"Ez genuke bestalde aitzendu behar ez dela euskal literatura gutaz eta gure artean izan dugun literatura bakarra gure herri honetan. "Literatura vasca» ez da beti, ezta maizenik ere, antzina «literatura vascongada» deitu ohi zutena (hots, "euskal literatura"), nahiz guk besterik nahi". (1986a:126).

Auzi honen ingurukoen oihartzuna paperera dugu hirugarren kapituluan.

Sakonki aztertzen du gai hau, testura aldatu dugun pasartearen iturburu-artikuluan ez ezik (1981eko "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak" (1981a) baita 1984eko "Los vascos y su nombre" (1984c) erdal lanean ere.

[225] Aipatu dugu Orixek, Lauaxetak eta Lizardik euskal poesian sartu zituzten "molde berrien" inguruko ikus 6.3.3.1. puntua, *Intza begietan* lanaren iruzkinean esanaz (1958*i*).

Hementxe datza Lizardiren hizkerari atxikitzen zaion giltz-hitza[226], Garbizuk begien bistan ikusi ezin duena baina Mitxelenak mamiaren baitan zuritzen duena: azala gogorra izanik ere, mamiak merezi du halako lana hartzea.

Mitxelenak eta Garbizuk gertari beraren aurrean, guztiz kontrako jarrerak dituzte. Garbizuk hastandu bezala zuritzen du Mitxelenak. Honek 1956ko iruzkinean egiazko lirikaz esanaren ildo berean azal zailxko horren barruan baliozkorik kausitzen baitu, mami joria alegia, eta aurkikuntza honek ederki asko ordaintzen ditu azal zaila hausteak sor

---

[226]Mitxelenaren eta besteren ahotan ibili den Lizardiziko juzku hau (Villasante 1975:235, Artetxeren iritzia zehaztuz, esate baterako) onartu eta argitzen dute Karlos Otegik bere tesian eta Otaegik artikulu (1983b) eta tesian (1992).

Luze joko duen arren, uste dugu, egoki dela egile hauen iritziak hona aldatzea, delako laburtasun horren argibide zehatzak dira eta.

"La poesía de Lizardi es concisa y sobria en el sentido de que tiende a eliminar aquellos elementos morfosintácticos redundantes, que no son necesarios para la comprensión del poema, podando sufijos de declinación, desinencias verbales, partículas de enlace, etc. Busca construcciones gramaticales que le permiten expresar las realidades, las emociones, los conceptos, con la menor cantidad posible de medios lingüísticos. Pero no es sobria, si por sobrio se entiende extensión reducida, parquedad, laconismo. Esta poesía no es breve, ni parca en percepciones, sentimientos e ideas. Al contrario, Lizardi recurre a la matización, a la ampliación, a la complementación, eso sí, a ser posible a través de elementos semánticos ricos. Es decir, concisión, sobriedad formal, morfosintáctica, pero no sobriedad expresiva, sino abundancia y generosidad, sin caer en la ampulosidad o el barroquismo.

La densidad de contenido no es simplemente un resultado mecánico consiguiente a la eliminación de componentes morfosintácticos redundantes. La supresión de elementos puramente gramaticales no implica necesariamente que los términos utilizados hayan de ser forzosamente de contenido condensado. Este resultado es fruto de una nueva operación poética, aunque ésta puede ser favorecida por la concisión. La poesía de Lizardi no alcanza un alto nivel de condensación semántica solamente [sic] porque trate de comunicar, y lo logre, la mayor carga de sentido posible con el menor número de palabras posible, sino también porque consigue expresar con cada una de las palabras escogidas, con cada uno de los sintagmas y frases construidos, un significado denso, apretado, concentrado. El verso lírico "ayuda a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva" (Kaz[*elari-lanak*],360), y el poeta configura sus poemas no a base de palabras triviales, sino con palabras plenas, de forma que su lectura constituye un enriquecimiento semántico ininterrumpido.

El encuentro de estas dos fuerzas poéticas, sobriedad formal, no reñida con la abundancia expresiva, y densidad semántica, produce una tensión rítmica de tipo sintáctico-semántico peculiar. La primera de ellas, acción de poda, de efecto reductor, de signo negativo, acelera la lectura, lanza al lector hacia adelante, en línea recta, apartándolo de desviaciones secundarias; la segunda, acción de acumulación, de efecto enriquecedor, de signo positivo, exige una lectura atenta, reposada, que permite captar el sentido concentrado en cada palabra. En la poesía de Lizardi, el equilibrio provisional operado por esta tensión dinámica, se rompe a favor de la segunda fuerza; el ritmo léxico-semántico domina al ritmo sintáctico, y apenas existen elementos léxicos que ofrezcan descanso a la atención receptora del lector".

Eta honako alderdiei erraparatzen die, laburtasunaren sortzaile izatearen kariaz:

"En el análisis de los aspectos morfosintácticos destacamos los procedimientos de reducción, las técnicas de elipsis, y en el terreno del léxico subrayamos la condensación semántica configurada en isotopías elaboradas a partir de nombres, adjetivos y verbos relevantes en el poemario". (Otegui 1990:180,181).

Otaegik ere (1983b:40hh) azalduak zituen Lizardiren hizkeraren ezaugarri funtsezkotzat joak: "hiztegian hautaketa zaindua" beste horrenbeste "morfologi eta sintaxi egituretan" eta "trinkozaletasuna". Eta autu dugun azken honen hizkuntz euskarrien artean, honakoak nabarmentzen: "sintagma indeterminatuak", "adizaren partizipio/infinitibo jokoa", eta "maila morfologiko eta sintaktikoko beste zenbait jokabide", hala nola, "eratorketa, konposaketa" eta sintaxian, "elipsia".

Labur-trinkotasun honen atzean, Otaegik, euskararen izaera "aglutinantean" Lizardik (besteak beste) duen sinesmena dakus.

Esana doan bezala, hizkuntz alderdi guztiok, astiroago aztertzen ditu bere tesi-lanean (Otaegi 1992).

Mitxelenak Ibarzabali adierazriko hitz gutxi baino adierazgarriek eta 1987ko erdal laneko "ausardi orekatuak", hemen izan dezakete, apika, azalpena.

Zeinahi gisaz, errepara ikertzaileok (lehenik aldatuak berezki) antzemandako ezaugarriei. Otabide eta beste bezteko Mitxelenak mihi-muturrean harturiko asko ez al da hor tarteen? Eta halaz ere ez dio deus zehazki hauezaz.

diezaizkiokeen nekeak. Labur-trinkotasunean bide datzan Lizardiren "zailtasuna" ez da zailtasun merkea, zailaren zaila gogoko izateagatik egina, mamiari egoki atxikitzen zaiona baizik.

Honenbestez, arrasto gutxi horietan azaldu du Mitxelenak bere Lizardirekiko atxikimendua, hobeto esan, Lizardik gatzatu mamiarekikoa[227]. Ez horrenbeste Lizardiren hizkeraren ezaugarri zehatzen ingurukoa.

Solasaldi berean, Ibarzabalek Mitxelenari Orixe eta Lizardi orpoz orpo aurkezten dizkio elkarren arteko eraginez mintza dadin. Orexarragandik zarauztarraganakoa azaltzean kausi daitezke, Lizardiren hizkeraren ezaugarrien berri ematen duten beste printzak:

> Orixe, a su vez, ejerció una gran influencia sobre Lizardi, y esto se ve claramente en un aspecto muy concreto: Orixe conocía bien la literatura tradicional vasca y era más euskaldun que Lizardi. La evolución de éste hacia formas más populares y clasicistas se debe a la lectura de los clásicos recomendada por Orixe; ésta es al menos mi impresión. (Ibarzabal 1977:56).

Lizardi ez da, antza, euskal literatura zaharraren berebiziko ezagutzailea ezta Orixe bezain euskalduna[228] ere. Lizardi, beraz, Orixeren eraginez, euskararen eta euskal literaturaren barrutian murgiltzera doa.

Honen erakusgarritzat har daiteke, apika, ondokoa:

> Gainerakoan ere, bageneklen lehen eta orain lehen baino hobeki dakigu, «berrikerien» bidea hartu zuela Mendiburuk: *tasun* hitz banako bezala, ez hitz-zati gisa, erabiltzea, *-giro* atzizkiaren usaera ugari eta bitxia (hortik dator, azken finean, Lizardiren *sagasti gazte elurgiro hura*), eta abar. (1982a:106).

Baina eragin honek beste ondorerik ere badu, ez baita hizkuntzaren ezagutza soilera mugatzen. Lizardiren hizkera poetikoan, poesiaren moldean ere errainua duelakoan dago Mitxelena.

Azken aro honetan kokatu behar dira 1956ko iruzkinean aipatu "Etxeko sagastia" eta "Egamin", hots, "liriko handi haren ukitua" pasarte honetan argitzen dela ondoriozta daiteke.

Lizardiren hizkeraren ezaugarriak eta honen bilakaerazko[229] zertzeladak mintzagai

---

[227] Jaso dugun bezala, honelaxe aitortu du, *Biotz-begietan* lanaz zehazki: "Pero mi entusiasmo por esa obra...". (1984d, *SHLV*.654).

[228] "Biberoia" zela eta, aipatu dugu hau.

[229] "Lizardiren kasuan, hizkuntz ereduari dagokionez, bilakaera sumatzen da idazlanetatik azkenekoetara izan ere, lehenengoek Gipuzkoako euskalkiaren ezaugarri fonetiko guztiak idatziz adierazirik badituzte ere, eta Bilboko Euskaltzale Bazkunaren *Euzko Deya* aldizkarian idazteko sabindarren araueiara makurtzen da [sic]. *Euzko Deian* [sic] argitaraturiko zenbait lan berriro argitaratzean, 1926an jadanik eredu normalizatu baterantz hurbiltzen ari dela suma daiteke: fonetismoak ezabatu eta hizen forma "standar"a ematen saiatzen da (...) Azken urteetan berriz, 1926tik aurrerako lan berrietan "Gipuzkera osotua" erabiltzen bait du, Lapurdiko euskalkiaren kutsu gero

ditu Mitxelenak hamar urteko batasun-bideazko gogoetetan, "Arantzazutik Bergarara" urraturiko bidean, alegia.

Ez dirudi halabehar hutsekoa, ingurumari honetan Lizardi besteak beste ahotan hartzea. Izan ere, Lizardiren jaidura osatuago esan, haren isuri Orixek bulkatua darabil Mitxelenak 1978an egiten jarraitu gogo den batasunaren norabidearen irozgarri[230].

> Eta eguzki-aldera bulkatu zuen Lizardi, batez ere gorpuztu gabe joan zitzaigun azken-azkeneko Lizardi hura. Honek, bestalde, hasieratik bertatik, Orixeren arrimuan, erakutsi zuen isuria bera ez zegoen Lapurdiko mugetarik urruti[231]. (1978c:168).

Lizardiren hizkeran Orixek izan zuen eragin berebizikoa azpimarkatzen da berriz ere pasarte honetan, Lapurdi aldera, ekialdera bultzatzen du zarauztarra. Orixe-Lizardien hizkera hau profitatzen du Mitxelenak, hain zuzen ere, egiten ari den batasunaren sustraietariko bat non datzan erakusteko.

Arrazoi beretsua suma daiteke lerro batzuk beherago, Lizardi eta, orain, Azkue elkarren ondoan paperera eramateko:

> Aspaldiko amets genuen hizkuntz batasuna atzean geneukala ohartu ginen aurrean baino areago; eta batasuna ez bazen, bai, behinik-behin, batasunaren haziak eta ernamuinak. Garbi zegoela iruditzen zitzaigun, esate baterako, Azkuek eta Lizardik, bakanka bederen, erabili ohi zituzten *lên, zâr* ez zirela norbaitentzat izugarri gerta zitekeen beste zerbaiten ihes- edo irtenbide baizik. (1978c:169).

Hitzon balizko azalpena, era honetara proposa daiteke:

Itxura guztiz, Azkuek eta Lizardik erabili ohi zituzten *lên, zâr* horiek, ortografi auziari lotzen zaizkio. Besteri "izugarri" gerta zekiokeena, apika, zorioneko *h* letra izaki, Azkuek eta Lizardik hautetsiriko "ihes- edo irtenbidea" bokalaren gainean txapelatxoa idaztea da. Modu honetara, ez zaio tokian tokiko ebakera laburtzaileari makurtzen eta, hitz horretan zerbaiten

---

eta nabanagoaz". (Otaegi 1992:56,57).

[230] Orixeri eskainiriko atalean jaso diren arren errepikatzea komeni delakoan gaude.

[231] "Lizardik eta Orixek bide bera onetsi zuten euskararen baterakuntzari zegokionez, Sabinoren joerak alde batera utziz, Azkueren "gipuzkera osotua" edo Euskaltzaindiaren ortografia erabakiak onartuz, lexikoaren aldetik eta hitzen forma osoak idazterakoan, lapurteraren bidea, lapurtera klasikoaren eredua bereganatu zuten, ortografian izan ezik (...)

Nola nahi ere den, ahoskatzerakoan euskalkiek dituzten fonetismoek grafiaz idazteko joera gaindituz, hitzen forma osoak berreskuratuz, eta idazle klasikoen idazlanak ezagutuz eta profitatuz, Lizardik eta Orixek garbizaletasunaren mendebalak euskeraren [sic] baitan, nahiz Sabino Aranaren bidetik, nahiz Azkuerenetik euskal literatura idatziaren tradiziotik urruntzeko joera zuzendu zuten, hizkuntza mintzatu bizi aren ekarriari berea ailortuz". (Otaegi 1992:57).

Orixeren gainekoak argitu ditugu.

arrastoa badagoela agerian geldítzen da[232].

Arrazoia hau izan ez izan, Mitxelenak, Lizardiren jokamoldea batasunarekin uztartzen du. Hau da, Mitxelenak Lizardiren hizkeran, egiteke baina eginkizun dagoen batasunarentzako oina eta funtsa kausitzen du.

Ildo honetan, koka daiteke, apika, urte batzuk geroagoko hurrengo iritzia.

Mitxelenak, Lizardi hizkera aldetik "sabindarra" zenik ala ez zenik argitzen ez badu ere, Lauaxetarekin berdintzea dela medio, adi daitekeena da, gradu-kontuan bederen, ez dela Lizardi bere joera aranazaleagatik nabarmentzen[233].

> Bistan da, adibidez, Lauaxeta "sabindarrago" zela ehun bider hizkeran bagagozkio Lizardi baino (1984b:34).

Lizardiren hizkerazko berariazko aipu berriena, 1987ko euskal literaturaren erdal laburpenekoa da, Lizardi prosagileaz aritzean aldatu dena, hain zuzen ere:

> "Lizardi" (J.M de Aguirre, 1896-1933) fue un prosista agudo de fondo y audaz por la forma, pero equilibrado dentro de su afán renovador. (1987b:106)

Zorroztasuna mamizkoetan, ausardia azalezkoetan baina berri-gogoak gehiegikerietara ez daramana, hauek dira Mitxelenak, hiru arrastoz aurkeztatzen duen Lizardi prosagilea ezaugarritzen duten tasunak. Baina hauetan ere, hizkerari berariaz dagokion izenondo bakarrean uzten du kontua: ausarta.

Artean izendatuki aipatu gabeko ezaugarri bat erantsi du Mitxelenak honetan: oreka. Badirudi, kritikariak azpimarkatu nahi duela, ezin egotz dakiokeela Lizardiri itsu-itsuko berrikeriarik, hau da, berritzea desio izanagatik ez duela nahikunde horrek berrikuntza

---

[232] Villasantek ere (1975:231) azpimarratzen du forma hauek agerian uzten duten Lizardiren batasunasmoa:

"Si cito estos ejemplos [*-ek; -ei; -z; -larik; unetan, Iguzki, untzi, itsaso; erraidazu; eskuerki,, oldez; antzo, atzeman...*] es para que se vea hasta qué punto acertó Lizardi a tomar en líneas generales el mismo camino que años más tarde recomendaría Euskaltzaindia para llegar a la constitución de una lengua literaria común. Aunque él no emplea la *h*, sin embargo, guarda respetuosamente las vocales dobles: *leen* (I.-L., 48), *zuurtasuna* (id., 49), *naaspildu* (51), *zaar* (52), *beeko* (54), *aalmen* (54); y formas de declinación como *oietarik* (50), *guztietarik* (49)".

[233] Hizkera- eta grafi kontuak zirela eta (*s / z* letren gainekoak, esate baterako) Lizardik "sabindar" sutsuekin izan zituenak poliki jorratu ditu Otsegik (1992).

Alpagarri deritzogu Lizardik puntu honetan erakutsiriko zentzuari, Arana (honen burubide politikoak, zehazkiago esan) ukatu gabe, hizkerazkoak eta besteak bereiztean eta Euskaltzaindiaren esanetara makurtzeko prest agertzean, baita erakundearen aburuak guztiz gogobeteko ez zitzaizkionean ere.

azalezko hutsetara bulkatzen. Berrilanean oreka erdietsi du[234].

Ikusi da, puntu zehatz batzuk gora-behera, Mitxelenak oro har, oso estimu handian duela Lizardiren literatur mota. Literatura horren lehengai den hizkeraz, haatik, aieruz, arrasto bitartez baizik ez du paperera jaulkitzen.

Labur-trinkotasuna, hizkera landua, azal zaila baina aldi berean, mamitsua, Lizardiren idazlanen alderdiok erakargarri egiten zaizkio Mitxelenari.

Lizardik begiz joriko euskara-mota zehatza ere, errenteriarraren isurietatik hagitz gertukoa da. Bidasoaz bestaldera begiak irauitzen dituena. Idatzizko euskararen batasunerako oinarri izan daitekeena.

Arestikoei ere erantsi behar zaie, Lizardiren hizkerak hein batean bederen, aspaldiko euskal autoreen oihartzuna dakarrela; bestela esan, "lokarri zaharra" ez eteteko desioa duela eta ez duela Lizardik hitzez adierazle hutsera mugatzen. Bere lanetan ere, horren erakusgarriak baditu, paperera diren Etxeparerena edo Mendibururena kasurako. Alderdi honetatik esan daiteke, Mitxelena gogaide duela.

Zehazturiko orok aditzen laguntzen du Mitxelenaren lizardizaletasunaren alderdi hau eta harengandik harturiko hitz nahiz adierazpideen zioa.

Halaz ere, zokoratzekoa ez da Mitxelenaren isiltasuna Lizardik darabilen euskararen, hizkeraren inguruan.

Behin eta birritan azpimarkatu dugu gure harridura. Puntu honen hasieran genioen bezala, ez da hagitz ongi aditzen Mitxelena euskalariaren jakinaren gaineko isiltasuna. Zergatik ez ote duen behin ere Lizardiren erabilera zalantzako edo okerrik salatzen.

Orain arte ikertu ditugun euskal autore guztietan literatur kritikari atxikiena da Lizardiri egiten diona, bestetan ahotan dituen hizkuntzazkoak estaltzeraino iristen dena.

Honek guztiak, Mitxelenaren "filia eta fobietan" edo pentsatzeko bidea ematen duelakoan gaude[235].

---

[234] Lirika-lanetan ere hauxe bera azpimarkatzen du Oteguik:

"Lizardi se distingue por su búsqueda del equilibrio. En Biotz-begietan no hallamos estridencias, extremismos o valoraciones desproporcionadas, la armonía, la medida, la unidad, es lo habitual. Ese equilibrio se manifiesta tanto en la expresión como en el contenido y las actitudes". (Otegui 1990:887).

[235] Ondorioetan helduko diogu.

6.5. LIZARDIREN ITURRIAK ETA LIZARDIGANAKO ERAGINAK

Mitxelenaren lan aspaldikoenetatik ageri den kezka da, Lizardiri iturri zehatzik ezin antzeman diola, gaitz zaio asmatzen zein ereduri jarraitu zaion, noren eragina onartu eta bereganatu duen:

> Personal[236] hasta el punto de que es difícil señalar influencias en su obra, y denso, tendía en los últimos años a un tipo más simple y aparentemente menos trabajado de poesía (1958a:375)
>
> Es extraño que su poesía sea personal hasta el punto de que resulte difícil señalar influencias en su obra; bien es verdad que falta un estudio crítico de ella (1960b:147)[237]

Baina hauen ondoan, egia ere da, ikusi den bezala, Orixeren itzala Lizardigandik gertu ikusten duela Mitxelenak[238]. Hain gertu, bikotearen bana-ezina adierazteraino iristen da[239]:

> Beharrezkoa da bi izen hauek beti elkarrekin agertzea, nabari baita zenbat zor dion euskarak Orixeri Lizardiren bitartez ere. (1956g:66).
>
> E. IBARZABAL:-Si Aitzol, como impulsor, llena toda la época, Orixe y Lizardi son sus escritores más representativos. ¿Consideras correcto presentarlos unidos?...

---

[236] "Lizardiren berrikuntza estetikoa ez doa euskal ahozko olerkigintzaren bidetik, ez eta hizkuntza arrotzeko estetikaren bereganatze soilaren bidetik ere. Bere estetikaren formulaketa guztiz pertsonala da". (Otaegi 1992:93)

[237] Geroztik, Lizardiz arduratu denik izan da eta bada, jakina denez.

Azken urteotan Deustuko unibertsitatean aurkeztutako bi doktore-tesiak horren erakusgarri pozgarriak dira: Karlos Otegi (Otegui 1990) eta Lourdes Otaegi (1992), kapitulu hau oratzen hagitz baliagarri gertatu zaizkigunak, agerian geldidu den bezala.

Lehenean, gainera, Lizardiko ikerlanen gaineko bibliografiaren berri zehatza jasorik dago.

[238] Zelaietak (1963), esate baterako, lau Orixegandikako eragin ikusten ditu Lizardigan: Azentuan, Erriman, Aglutinazioan, Epikan.

Kortazarrek poetika-mailan eta lehen aroan bederen, ez du inolako eraginik ikusten:

"Guzti honek salatzen duenez, hasiera batetan ez dirudi Orixeren poetikak Lizardirengan erabateko eragina izan zuenik, honen poetikaren lehen aroan behintzat". (Kortazar 1983:12)

Otegui (1990:859-861), Orixeren beraren hitzetan oin hartuz, Orixeren eragina hizkuntza-kontu hutsera mugatzearen alde agertzen da.

Hizkera poetikoaren aldetik Orixek Lizardigan inolako hatzik utzi zion ukatzen duen, aitzitik, alderantzizko eragina ikusten duen Otaegik (1992:127), beste honakoan ikusten du orexarraren eragina:

"Orixe beste mutturreko eredua da Lizardirentzat. "De nuestro manzano en flor", "Traductores de Cervantes" eta "Tormes'ko itsu-mutilla" dertzen iruzkin literarioetan suma daitekeenez. Hizkuntzaren izpirtua ongienik ezagutzen duen eta menderatzen duen euskal idazlea da bere ingurunean eta eredu bilakatzen zaio osatu nahi duen kanon estetikoaren zenbait ezaugarriri dagokionez: sentimentu eutsia, neurtua eta trinkozaletasunari dagokionez berezki". (Otaegi 1992:96).

Ez bide da puntu gardena, are geroko Lizardiren ikertzaileentzat ere.

[239] Ez ditugu Orixeri eskainiriko kapituluan esanak berresango.

L. MICHELENA -Sí, es correcto. Hay una estrechísima amistad entre los dos y una mutua influencia. (Ibarzabal 1977:55).

Baldin Orixe izan bazen Lizardi molde herritarrago eta klasikoagoetara hurbildu zuena, edo hor ikusten badu bederen Mitxelenak Lizardiren bilakaeraren arrazoia, pentsa daitekeena da aldakuntza aurreko Lizardi dela batipat iturburu iluneko begitantzen zaiona.

Orixez gain, beste izen bat besterik ez du aipatzen Mitxelenak, Sully-Prudhomme da hori:

El caso de Lizardi para mí es una incógnita. Ninguno de nosotros se lo saca todo de la manga, ideas, imágenes, tipo de lengua, tienen siempre precedentes. Sin embargo, en Lizardi, dejando aparte uno de sus poemas menores inspirado según confiesa en Sully-Prudhomme, no se le observan precedentes conocidos. (Ibarzabal 1977:56).

Aipamenen ehiztaritza ere ez da egiteko alferra, inork ez baitu deus ezerezetik ateratzen, beti behar izaten baitira gidariak eta sostenguak. Zenbait idazle etkorrak gertatzen dira sail horretan, horrelaxe «Lizardi» (Sully-Prudhomme-ren aipamen altortuaz kanpo). (1981b:81).

Ez da tesi-lan honen jomugetarikoa Lizardiren iturrietan arakatu eta argia aurkitzen saiatzea ezta Mitxelenaren aipamen honek sorturiko erantzunetan[240] sartzea ere.

Halaz guztiz, ez bide da desegoki *Kazetari lanak*en paratzaile Lourdes Otaegik, oin-ohar batean dioena ekartzea[241]:

Lizardiren garaian euskara eta euskal kultura zaharra modernitatearen kontextuan nola kokatu eta irzupen posibilitaterik izango ote zuenez arduratzen hasiak ziren.

Korronte estetikoetan joerarik aurreratuena kubismoa, eta gizarte aldakuntzetan komunismoaren eraginak modernitatearen adierazgarri ziren, eta berrikuntza guzti horien aurrean hizkuntzak zituen zailtasun eta behaztopa handiez ohartzen hasiak ziren.

Ikus esate baterako, Lizardiren «Biotz-Begietan» liburua argitaratu zenean zein esaldi aukeratu zituen Lizardik liburuaren bitolan erakargarri gisa inprimatzeko:

Léeme: Poesías vascas con traducción castellana: Ensayo de modernidad en una de las lenguas más viejas del mundo. Si el fenómeno de su floración en el siglo del comunismo y del

---

[240]Otegui (1990) eta Otaegi (1992) lan sakonen ondoan, gai honetaz arduratu direnen artean, aipa daitezke, besteak beste, X. Lete, A. Zelaieta eta A. Lertxundi (1974), *Jakin* aldizkariaren 1983ko 29.; L.M. Mujika (1983); J. Kortazar (1983, 1986) azken honetan Lizardiren eragin teoriko eta praktikoez.

Aitzenotan Novalis, Fichte, Hegel, Kant, Verlaine, Baudelaire, Maragall, Mistral, Rubén Darío, 27ko belaunaldia, Dámaso Alonso, Darío de Regoyos, Sorolla, Arteta, Ezra Pound, Ortega y Gasset. Othenart, Arana Goiri, Orixe aipatzen dira, besteak beste, Lizardigan notabaiteko hatza utziaren seinale.

Bitxi gertatzen zaigu Lizardi sakonkienik aztertu duten bi tesigileok "eszeptikoenak" agertzea puntu zehatz honetan.

J. Kortazarren "Other parea Lizardiren iturrez" aipaturiko *Jakinen* ale horretan jasoari, oharño bat egin gogo genioke. Bertan adierazten du Mitxelena ez zela zuzen ibili Lizardiri Sully-Prudhomme alboratu zionean, Lauaxeta izan zela, eta ez Lizardi egile erdaldunaren itzultzailea. Gure aldetik bakar-bakarrik erantsiko genuke, Mitxelenak ez duela **itzulpenik** ahotan.

[241]Erakusgarri hau ere badarabil tesian zehar, Lizardiren "gaurkotasunazko" ardura agerian uzteko.

cubismo te interesa. Léeme. (Otaegi 1986:140)

Ez dirudi Mitxelenak bitola hori irakurri arren, bertan landatuei jaramon gehiegirik egin dienik, lehen argitaraldia irakurria (are kopiatua ere) bazuela berak aitortzen baitu. Hau da, ez bide dio Mitxelenak aparteko etekinik atera. Lizardiren iturrien argitzeari dagokion aldetik bederen:

> aipa dezadan **lehen argitaraldian** hainbeste bider irakurria dugun Orixeren hitzaurrea. (1956g:66)

> Si se me permite descender a interioridades, diré que tuve la fortuna de familiarizarme con la obra de Lizardi (personalizo por sencillez) poco antes de la guerra, durante ésta y años después. Guardo todavía un cuaderno de la copia que hice, con mejor letra que ahora, de *Biotz begietan* en la Prisión Central de Burgos. (1984d, *SHLV*:654)

Egia dena da geroagoko lanetan Mitxelenak ez duela iturri ezagun eza berriz ere mintzagai hartzen, ez bere hartan jarraitzen duela baieztatzeko, ezta lehen oker etsia ote zuen edo aitortzeko. Ezin, beraz, Mitxelenari ilun egiten zitzaion puntu honetan argi gehiago eman.

6.6. ONDORE LABURBIDUAK

Mitxelenak lizardizaletzat aitortzen du bere burua inolako debekurik gabe, honengan kausitzen baitu, berak ere gidari izango duen egitasmoaren aldarrikatzaile eta gatzatzailea.

Lizardik etorkizuneko ikusmen argia du. Zorrotz eta zuzen asmatu du euskarak, bizirik iraungo badu, ezinbesteko duena eta, honenbestez, horretan lagundu nahi duten euskaldunen eginbeharra.

Eginbehar horren nondik-norakoak, gainera, euskara lirika-bideetan gora abiaraziz adierazi ditu. Lizardin zor zaio premiazko ariketa horren ikurritza landatzea eta Mitxelenak bere eginez, eginahal horretan gogaide ikusten dituenak lotzeko darabilena: "hizkuntza larrekoa noranahiko egin"[242].

Ildo honetan Lizardik berebiziko trebetasuna erakutsia du adigai adierazkizunei hitz egoki-zuzenak aukeratzean. Honen seinale Mitxelenak bere eginak, batzuetan iturburua aipatuz, bestetan aipatzeke utziz.

Alde honetatik, ondoriozta daiteke honetan funtsatzen dela nagusiki Mitxelenaren hizkeraren aldetikako lizardizaletasuna; hau da, adigaiei hizkuntz gorputza ematean duen trebetasunean.

Lizardik eredu oso bat utzi du bere "euskara noranahiko" bilakabidean, neurtitzez nahiz *itz-zelaiez*[243] edo lainoz, erakutsi ez ezik mamitu ere baitu Mitxelenak imitagarritzat daukan "patroia", Mitxelenari gogobeteko zaiona. "Labur-trinkotasuna" da hitza, azal ederreko mami joria.

Miresmen aitortu horrek, ordea, hein batean bederen, ez dakar itsu ibiltzea eta

---

[242]Kapitulueetan zehar erakusten joan garen bezala, ikurritzon pean elkarganatu ditu Mitxelenak, Lizardi, noski, Orixe eta Larramendi.

Azkenarekiko uztardurari dagokionez, Villasanteren hitzok adierazgarriak iruditzen zaizkigu:

"Hemos citado a Larramendi. Bajo algún aspecto, la personalidad de Lizardi no deja de tener su parecido con la de aquél. También Larramendi se sintió herido por las invectivas de algunos castellanos que motejaban al País Vasco, propinándole piropos tales como el de «asna nación», etc. Se referían dichos motejadores a que los vascos hablaban una lengua que parecía reacia o refractaria a todo cultivo literario. Ya hemos dicho que a Lizardi se le clavaron también en el alma las invectivas de Unamuno, motivadas por esta misma causa del euskera". (Villasante 1975:232).

Halabehar hutsa, bestalde, Lizardi "Euskaltzaleak" bazkunako buru zenean antolatu zirela Andoainen jesulagunaren omenazko ospakizunak?:

"Bera nagusi zala Andoain'go Larramendi-gorasarreari buruz egindako jaiak ospatu berriak ziran, artean". (Aitzol, "Aguirre'tar Joseba Mirena "Lizardi", olerkari ospetsua zenaren il-urtemuga" in *El Día*, 1934-3-11; *Idazlan Guztiak*, VI, 38 or.), Otaegigandik (1992:68) hartua.

Hirukia hersteko irozgarria, apika, Azurmendiren adierazpide honek eskainiko luke, Orixe eta Lizardi –besterekin batean– elkarretaratzen baititu euskara "badela" demostralanean:

"Idazle zahar la guztien eta berriago ez gutxiren etengabeko kezka da, euskara benetan ez dela beste hizkuntzak baino gutxiago. *Zeren euskara eta bertze hizkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gabtoago dela euskara.* Buruhauste horiekin aurkituko ditugu Orixe eta Lizardi berak oraino... Aspaldidanik eta sarri entzuna bat da, euskara beste hizkuntzak baino gauzazago dela". (Azurmendi 1992:308).

[243]Lizardi (1934, 1972:79).

Mitxelenak, aldez aurretikako azterlana eskatzen duen kritikapean hartzen ditu Lizardirenak bere juzkuaren arabera, asmabeteak eta hutsak atzemateko.

Eginbide honetan, gogoan hartu beharko litzateke, apika, Mitxelenaren begi zorrotzek ez dituztela Lizardiren lan guztiak izari beraz juzgatzen.

Jorratuena, Lizardi lirikoa dela esan daiteke; prosa, neurri apalagoan eta antzezlanak noraino arakatu zituen errenteriarrak, laino artean gelditzen da, zegokion puntuan ikusi bezala, alderdi ahul bat baino gehiago agerian uzten baitu.

Alabaina, ez du Mitxelenak Lizardi agortzeraino sakondu asmo, ez honen lan kritiko erabatekoa mamitu gogo. Lizardigandik, gogobetekoen, aipagarrien iruditzen zaizkion alderdiak adierazi baizik.

Hizkeraren aldetikako kritika-eza da nagusiki atzeman duguna. Areago, isiltasuna edo oso modu orotarikoan adieraziriko ezaugarri gutxi batzuk. Olerkariari dion miresmena ote dabil isiltasunaren atzean?

Errenteriarrak esan du ez dagoela Lizardirenean gelditzerik, aurrera egin beharra dagoela, ez itsumustuan, haatik, ongi ohartuta baizik, hots, Lizardi kasu honetan aztertuz, baliagarri denari eutsiz eta egokitu beharrak eguneratuz.

Astiro begiratzeak, Lizardi ez ezik, Lizardirenak diren "Asaba zâŕen baratza" eta "lokaŕi zâŕa" ere harrapatzen ditu. Izan ere, geroagoko euskalduna gizabanako euskaldun egiten duen arbasoekin lotzen duen zilbor-hestea ez etetea eta haiengandik heldu denetik ikastea, bere egiten ditu Mitxelenak.

Honenbestez, gure ustez, Lizardiren honako ekarriak dira nagusiki Mitxelenari erakargarri egiten zaizkionak:

-lirikoa
-egitamugilea
-adigaien hizkuntz gorputzen oratzailea

Esan daiteke, bada, Mitxelenak eginez erakusten duela, zarauztar olerkariaren bizibidea eta hilburukoa ez dela antzu gertatu eta Lizardik amestu egitamuak zori ona[244]

---

[244] Mitxelenak ez du gai hau ukitzen, ez Lizardik bere garaian izan zuena, ez gerora izan duena.

Suma daitekeena da ez bide dagoela erabateko adostasunik ikertzaileen artean Lizardik bere garaian izan zuen zoriaz:

"En efecto, hojeando las páginas del semanario «Argia» del año 1932 nos encontramos con declaraciones que hoy nos pueden sorprender o parecer chocantes. Pues hoy Lizardi tiene un puesto de honor indiscutido en las letras vascas. Puesto que entonces aún no tenía". (Villasante 1975:227).

"Eztabaida guztiak ez dira Lizardiri buruzkoak, ezta gutxiago ere. Lizardiren poesiaren nagusitasuna ahobatez onartu zuten idazle gehienek". (Kortazar 1983:6).

Lourdes Otsegik (1992:37) ere, Villasantek bezala, Lizardik bere garaian larrosak baino arantza gehiago izan zituela edo dio:

"Lizardiren konpromezu politikoa eta zeregin literarioaren gaiari buruz, hura hil ondoren, guda osteko literaturgile eta literaturzale abertzale eta jelkideen artean Lizardik izandako aureolak itsuturik aierutan ibiltzea da

izan duela Mitxelenagan izan baitu jarrailerik[245], apika, leialena.

honelako irtziak jaulkitzea [Jon Juaristiren irtzi bat da liskar-sortzailea]. Nik aztertu ahal izan dudan hemean behintzat, garaiko lekukotzek gezurtatu egiten dute hori horrela zenik.

Lizardi olerkari onartu eta gurtua zenik, eta garaiko hoberenatzat zutenik guztiz zalantzagarri da. Oso eztabaidatua bat zen. Bere taldekoen artean, Eusko Ikaskuntzakoen eta Euskaltzaleen partaideen artean ere bai, zuen nortasun polemiko nabariak hainbat liskar eta gora-behera erakarri zizkiola frogatua bat dago" (Otaegi 1992:37).

[245]Lizardiren eragina dela eta, azpimarkatzekoa da Mitxelenak gai hau ahotan ez hartzea.

Sarasolak (1971:64) "Lizardiren obra ezin daiteke estudia izan duen ondorioa baztertuik" baieztatzen du, ez du, ordea, zehazten zer hartu behar den Lizardiren ondoriotzat.

Zenahi kasutan, literaturaren historiolari honentzat, seguziokoek ez bide zuten asmatu Lizardirekin berarekin agortzen zen bidetik abiatzean. Honela ondoriozta daiteke, behintzat, ondoko pasarteetatik:

"Ba dirudi poema horretan [*Martean*] bide berri bila hasi zela, molde deskribatzaileagoak erabiliaz, hizkuntza estilo zehatz eta soila apur bat baztertuz, neurri herrikoiagoak (zortziko xipia adibidez) onduz, lengoaia eta molde irudiz singleago [sic] batzuk lortu nahiean. Aldakuntza desira honek adierazi ematen du. Lizardiren jarraitzaileak lantzera hainbeste entseiatu diren hildoa. Lizardirentzat berarentzat agortunik zegoketa. Ba dirudi Lizardiren obrak euskal poesiaren zikio bat hersten duela, hain marsuki gauzatzen duen igarokortasunaren oihartzun plastikoan, haren asmaketen iluntasun malenkoniatsuan ez zela ezer osatu behar. Irtzi honen frogantzarik finkoena gerra ondoko lizarditarren lanaren bailo urria daiteke". (Sarasola 1971:65).

"Gehien lantzen den idaztaiua poesia da. Poesiaren nagusigo honetan, ohizko motiboei garaiko egoerak erantzen dituenak emendatu behar zaizkie (...) Bestalde, Lizardiren itzala haundiegia zen, eta haren herriotze goiztarrak euskal poeten baitan hauen ustez hark bukatu gabe utzi zuen lanari jarraitzeko grina sortu zuen. Gertakaria honek markatzen du zeharo periodo honetako poemagintza. Grina haren frutua pobrea izan zen. Lizardik ahitu baitzitukeen landu zuen poemagintzaren posibilitate guztiak". (Sarasola 1971:71,72).

Arestiren saikapena iparrorratz hartuz egiten duen idazle-taldekatzean, "Lizardiren eskolakotzat" jotzen ditu Telesforo Monzon, Nemesi Etxaniz, Salbatore Mitxelena, Fernando Artola, Jokin Zaitegi, Bingen Amezaga eta Santiago Onaindia, eta "neolizarditasunaren" barnean, berriz, Antonio Bilbao eta Bitoriano Gandiaga kokatzen ditu (Sarasola 1971:127,127).

1976ko historiaren erdal aldaki mamiberrituan, jarraileen samalda ez ote behar litzatekeen murriztu behar pentsatzeko bidea ere ematen duela dirudi:

"Continuadora de la tradición de los olerkaris (más que de la poesía de Lizardi, inimitable por su especificidad y fuerte personalidad) la poesía de la postguerra desarrolla los aspectos más tópicos de la renovación poética de los últimos años de la preguerra". (Sarasola 1976:154).

I. ATALA

7. Kapitulua: NARRAS-ZALEAK

7.1. ATARIKOA

Aurreko kapituluetan –laugarrenean bereziki– esan bezala, uste dugu Mitxelenaren noranahikotze-lana bere betean ezin uler daitekeela garaian garaiko arrisku etsiekiko jokamoldea aurrean izan ezean.

Honela bada, zenbait urtetan zehar indar-kemenak hizkuntzaren bilakabidearentzako tupust- eta behaztoparri zerizkion garbizale neurrigabeen oker-makurrak agerian jartzen eman baditu, bestelako arrisku bat gero eta nabarmenago dakus Mitxelenak azken urteotako euskararen bilakabidean.

Azalez bestelako agertuagatik, ez dira, hondarrik hondarrenean, gaitz beraren agerpide bi besterik, hau da, lehen jokamoldearen zenbait agergarritan zein bigarrenarenetan, Mitxelenak arrisku- eta galbide bera dakus: euskaldunak eta euskara mendeko izatea.

Mirabe, mendeko izatea da euskara arrisku bizian jarrarazten duen kitzikaria eta mendekotasun horrek, hizkuntzaren (eta bestelakoen) alderdi bat baino gehiagotan du eragina. Hauek azalera eramaten engoitik saiatuko gara, igaro kapituluetan baino laburkiago, haatik.

Azterkizun hartu ditugun lanen artean, 1984eko Ibon Sarasolaren *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegi*aren aurkezpenak, besteak baino astiroago begiestea merezi duelakoan gaude. Izan ere, bertan landatuak, Mitxelenaren begien araberako hizkuntzaren azken urteetako bilakabidearen irudirik oso eta beteena begitantzen zaigu.

Gure ustez, bada, hor aboro bilduek, ematen dute gairik aski, azken urteetako Mitxelenak gogoan darabiltzanen berri zehatz eta argiez jabetzeko.

Bestelako lanik ere ekarriko da horregatik paperera. Zabal esan, mendekotasunaren arriskua aldez edo moldez ukitzen dutenak: "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz" (1979g), "Hitz mailebatuez" (1983f), "Mailegu berrien idazkera" (1985c), "Eratorbidea eta deklinabidea" (1986c), hain zuzen ere.

Arriskua eta mendekotasuna ahora orduko, maileguak –eta hauen orpoz orpo, erdarakadak, euskal gaiztoa– tartean dira eta Mitxelenak erdaratikakoak etxekotzeko proposamen zehatzak eginak ere baditu. Ez dugu hemen, ordea, proposamenon nondik-norakoa, on-gaitzak edo etorkizuneko arrakasta neurtzeko salo berezirik egingo, aldian-aldian, testura ekarri arren. Ez dugu honetan hesitu gure ikertzea, Mitxelenaren gogo- edo buruzpide mailan balzik[1].

Iido berean, lanotan arakatzean jokamolde berari lotuko gatzaizkio. Mitxelenak halako lanean beste auturik badu ere, muzin egingo diogu delako beste galari –zein ere beste auzietarako garrantzizkoa izan daitekeen– eta kapitulu honen bizkarrezurrari atxikitzen zaion

---

[1]Teslaren hirugarren atal nagusian, azterlanean alegia, ukituko dugu alderdi hau. Han argituko ditugun arrazoiengatik, haatik, ez galak merezi bezain sakonki.

heinean bakarrik aldatuko dugu hona.

Beraz, 1978-1986 bitarteko aipatu lanon iker-miratzeek osatuko dute kapitulu labur honen gorputza. Aldi-mugarriak, ikerkizun dugun gaia berariaz jorratzen duten lanik aspaldikoenaren (1978) eta berantiarrenaren (1986) urteek ezarria da[2].

Epe horretakoak dira Mitxelenaren kezkabide-agergarrien plazaraleku nagusienak, baina arestian esan bezala, badu Mitxelenak lehenagokorik –laugarren kapituluan aldatuak seinale–, eite bateko mendekotasunaren errainua batetik baina baita zetorren oldarra aztiatzen edo zuela erakusten duenik. Pasarte hauen bilduma hartuko dugu ablapuntu, gaia bete-betean jorratzen dutenetara iristeko.

Egoki iritzi diogu, halaber, azkenaldiko Mitxelenak euskal lanetan euskal gaiztotzat dauzkanen[3], berariaz arbuiatzen dituenen lekukotasunak pleguotan olhartzuna izateari[4]. Moldezko[5] testiguok izango dira laugarren puntuan bilduko ditugunak.

Azkenik, ondore laburbiltzaileak aurkeztuko ditugu.

Honenbestez, honela egituratuko dugu kapitulu hau:

7.2. 1978 baino lehenagoko mintzak
7.3. 1978-1986 epeko zenbait lan
7.4. Euskal gaiztoen bilduma
7.5. Ondoreak

---

[2]Zendu ondoan argitara emandako elkarrizketa batetikako pasarte bat euskal gaiztoen bilduman sartuko badugu ere.

[3]Garbizaleen moldeetan beztuen kontu-ematea zegokion kapituluan egin baitugu.

[4]Hitza zilegi bada, halako 'higuingarritegia' osatzeari edo.

[5]Moldezko diogu, besteri entzuna baitiogu Mitxelenak ahoz frankotan kanporatzen zituela bere haserrabideen iturburuak. Guk, tamalez, ez dugu bere ezpainetatik entzuteko (eta ikasteko) zori hori izan.

7.2. 1978 BAINO LEHENAGOKO MINTZAK

Garai honetako lanetan eta zedarritu dugun gaiaren barrutian, Mitxelenaren kezkabiderik nagusiena, garbizaleek eta "zahar-gazte" izendatu kalapitek sorrarazten diotena da[6]. Agidanez, ez du Mitxelena larregi artegatzen azken urteetan[7] gazteek gero eta erabiltzenago duten euskara-molde berriak. Areago esanak lasterrean berresanez , abegi ona egiten diola ere ikusi dugu, beste zerbaiten ispilu eta oinatz derizten aldetik.

Euskararen mendekotasuna, ez du honenbestez mailegutzaren arazoarekin lotzen. Euskaldunak eta euskara mendeko dira, Mitxelenaren ustez, baina ez geroago igerri, sumatu, are salatuko ere duen bezalako mendeko. Mirabe izatea beste nonbait kausitzen du erakutsi dugun bezala.

Alabaina, laugarren kapituluan azaldurikoez gain, Mitxelenak lan gutxi batzuetan euskal irakurleari helarazten dio estutzen hasia den arriskuaren funtsa; bestela esan, datorren erasoak euskarari ekar diezazkiokeen ondore gaitzak.

Hona lerro-lerro, zein bere mamia laburbiltzen duen ikurritzaren pean, Mitxelenak antzematen dituen mendekotasunaren izpi eta erakusgarriak, laugarren kapituluan aldatuak berriz ere plametara gabe.

* Euskaldunen arteko osina areagotzeko arriskua

> Oroit gaitezen beti euskalkiak gero eta gehiago bereizten ari zaigun mugaz, batez ere hiztegi aldetik. Nahiz Lapurdikoa, adibidez, Giputzaren kide hurbilagoa izan hizkuntzalari batentzat Bizkaitarra baino, maiz aski baterago gatoz hitzetan Giputz-Bizkaitarrak Giputz-Lapurtarrak baino, erdal giro batean bizi garelako[8] Hegoaldekoak eta bestean Iparraldekoak. (1968d:147).

1968ko Arantzazuko biltzarrean bertan, Mitxelenak geroago indar handiz azpimarkatuko duen kezka azalera darama.

Euskaldunen arteko osina gero eta nabarmentzenago ari da eta amildegia ez dute behialako euskalkien arteko aldeek areagotzen, bestelako indar eragileagoa dabil gero eta bortizkiago: muga politikoa, bi estatu desberdinen barrutietan bizitzea, alegia.

Hementxe datza arriskuaren iturburua, erdal giro bitan bizi direla euskaldunak eta, erremediorik bilatu ezean, aurrerantzean ere zein bere alderago ibiliko dela.

Errepara dakioke, halaber, hiztegi-kontua dela batizpat Mitxelenak lan honetan

---

[6] Laugarren kapituluan aztertuen argitaradatek agerian uzten duten bezala: 1976koa da han aipatzen den azkena.

[7] Txillardegiren eleberrian, "yakintariengan" eta bestetan kausitzen duen euskara "lohituan", alegia.

[8] Jat. *geralako*.

azpimarkatzen duena.

* Euskaldunak barrunbean duen hizkuntza ez da euskara

> Hor sartzen dira harako *izan, izaera, izate, den dena, dena da* haiek eta horien gisakoak. Poesian euskarak berak ez ezik, erdarak ere izan dezakeen eskuaz bestetan mintzatua naiz, «Gabriel Arestiri» izena zeramaten lerro batzutan: *Egan* 1964, 157-160. Lizardiren poemak eta gero aipatuko dudan Axularren pasarte bat (Lc. 12,19) hartu nituen gai. (1972a 171).

Lizardiz aritzean ikusi bezala, egungo euskaldunak ezin muzin egin diezaioke sorkuraz bizi duen egoera bati: ohiko hizkuntza, egunoroko eta zeregin guztietarako hizkuntza ez du euskara, erdara baizik eta honek bere aztarrena uzten du, hitzetan ez eze, euskaldunen gogoan ere.

* Euskaldun berrien hazkundea zorionekoa da baina ez arrisku-gabea, besteak beste, euskararen doinu-kontuetan:

> Euskaldun berriak ere gero eta nabarmenago ageri dira gure artean, ez inoiz bezala ikasle eta entzule ixil eta motel gisa, baizik eta besteren eragile moduan. Pozgarri da hori, eta ez negargarri, baina beldur izatekoa da hizkuntzak ez ote duen, bide hortarik doala, zerbait irabazten duen bitartean, zerbait ere galduko.
>
> Badakigu, esate baterako, aspaldidanik datozela zenbait euskalkitako azentuari edo doinuari dagozkion duda-mudak eta eztabaidak. Zalantzaren iturburua egin diren iker saioen eskasean dago, noski. Baina, horretan dabilenak ongi daki badela funtsezko aski eragozpen. Egiten diren bereizkuntzak hutsaren hurrengoak dira maizenik, beharrlak eta are makinek ere nekez jasotzen dituztenak. Hutsak izateaz gainera, aldakorrak dira (eta Altubek arrazoi zuela dirudi honetan), hitzak, perpausean nozi ditzakeen tokialdaketen arabera. (1976c:101).

Jendeak euskalduntzea pozgarria da Mitxelenarentzat, baina hitz etorkinez esango duen bezala, ez da arriskubakoa. Izan ere, gogoa euskaraz berandu jantzi duenak, hizkuntzaren beste mailak beste, berekin ditu lehengo doinu-azturak eta, ezinbestean, bigarrengoz ikasiari itsasten dizkio.

Erne egon beharra dago -hitz-joskeretan gerta daitezkeenen alboan-, ahozko alderdikoekin nondik jotzen den euskal azentu-doinuak itxuragabe, itxuragaizto ez daitezen.

Lan honetan bertan, Mitxelenaren hiztegi eta gramatika-saio aldetikako kezkaren berri ere jakin daiteke:

> Gure saioetan inon makurrik ikusten baldin badut, orain hizkuntza egungo premietarako egokitzeko darabiltzagun eginahaletan ikusten dut. Lehengo eta oraingoen arteko lokarriak, nik uste, behar baino maizago eten dituguiako. Horrela ez zait iruditzen beti antzinakoak gogoan eduki ditugunik, haiek ere zenbait sail bederen landu baitzituzten. Inon baino argiago ageri da hori, behar bada,

gramatika saio berrietan. (1976c:103)

Aldatu txirbiletan, beherago azterkatuko diren lanetan berriz ere Mitxelenak burumingarri aurkeztuko dituen gai garrantzizkoei oharteman dakieke: euskaldunen arteko osina larriagotzea, erdarak direla medio, azalean ez eze, mamian, gogo- eta pentsabideetan ere, erdararen moldeak eragile izatea; azkenean, azentu-doinuekiko joputza eta "lokarri zaharra" etetea, arbasoenak aintzakotzat hartu gabe aurrera egiten ari delako.

Hurrengo puntuan, bada, gaia berariaz azterrunean hartzen duten Mitxelenaren bost lanen edukia azalera aldatzeari ekingo diogu.

7.3. 1978-1986 EPEKO ZENBAIT LAN

* (1979) "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz", *Euskera* 2. aldia XXIV, 773-785 [*SHLV*, 341-348; *MEIG* VII, 173-186]. (1979g).

Artikulu honetan auzitan dagoena hitzek euskaraz hartu behar duten moldezko itxura finkatzea da[9]. Ihardunbide honetan, zalantza-iturri gertatu ohi diren alderdi eragileen berri ematen du Mitxelenak, bere aldian aldiko noraezaren aitorretik hasiz.

Euskararentzako arriskubide izan daitezkeenei erreparatuz, ikus daiteke, Mitxelenak, halako gogo berezia agertzen duela, halako saio berezia egiten, izkribuzko eta ahozko hizkeren arteko harremanen nondik norakoak agerira eramaten.

Hau da, hasieratik bertatik euskara estandarraren xedea izkribuzko molde amankomuna finkatzea bazen ere, Mitxelenak azpimarkatzen du noraino egon daitezkeen kateaturik alderdi biok, idatzia eta mintzatua, elkarrekiko uztardura honek ondorerik baitu:

> Badugu, beraz, mintzoa, hotsen ebakera, alde batetik, eta izkribuzkoaren grafia, bestetik. Bata eta bestea axaletik behintzat bereziko ez dituenik ez da, segur aski, gure artean. Ohartxo bat, halaz guztiz, bada ezpada ere. Grafiak, *hizkuntza idatzian*, ez du noraezean mintzoaren mirabe apal izan behar: are gehiago, ez da sekula ere zerbitzari ixil izaten, fonetika lanetan edo izan ezik, zenbaitek hala nahi balu ere (...) Xinpleegia litzateke, horretaz gain, ahozko hizketan fonemak eta fonema-andanak banan-banan ez ikustea - ez sumatzea, nahiago baduzue -, gainean edo aldamenean azentu-doinuen gehigarria daramatelarik, gehienez ere. Eta berdin genuke, fonemak aipatu beharrean, bereizgarri multzoez mintzatzea. Fonemak ebakitzeko nahiz letrak irakurtzeko zenbait erregela beharrezko ditugu beti, bakoitzak berea eskatzen baitu. (1979g:175).

Erregelak behar dira, beraz, hitzen moldezko itxura nahiz hitz horien ebakera finkatuko badira.

Hemen dator, euskararen atzoan indarrean zeuden baina egun, apika, baliogabetu edo diren erregelei oharteman beharra eta hemen dator, hain zuzen ere, erregelen eraberritzean mailegutzak izan dezakeen eragina ere, "hots eta hots-bilkura berriei" sarbidea eman baitiezaieke:

> Ez, ebakerari dagokion guztia zerbaiti loturik, zerbaitetan gatzaturik dator: hots, hitzetan, hitz-ataletan (morfemetan edo), esaldietan. Hauek mailebatu ahala mailebatzen baitira besteak ere. Eta ez esan hitzetik gorakorik, hitza baino luzeagorik ez dela mailebatzen, gurean ere bai baita horrelakorik ugari: *auskalo, porkuantobos* eta beste hainbeste. (1979g:178).

Beraz, euskarak arazoa du batez ere mailegua euskararen ohiko hots-egiturarekin bat

---

[9] Oroi bedi, Bergarako bitzarraren ingurugirokoa dela.

ez datorrenean[10] eta arretaz erreparatu beharko zaio hartze-moduari, letretan ez ezik, ebakeran ere bere hatza utzi baitezake.

Hondarrik hondarreko kontua da, beraz, euskaldunak hitzak behar dituela eta bi bide dituela aurrean biei ahalik eta etekinik emankorrena atera ahal izateko:

> Hitz berrien premia gorrian gaude eta presaka eta muturka sortu edo hartu beharko ditugu oraindik luzaroan. Sortu *eta* hartu, egungo egunean egin ohi den bezala, atzoko alderdikeriak baztertuxe daudelarik. (1979g:184).

Garbi dakus Mitxelenak euskarak ez duela aski bere sorrindar gorriarekin. Euskal iturrietara joz hitzak eratzea egoki (egokien?) bada ere, ez da nahikoa eta maizkara besterengandik hartu beharko ditu betetzeko dituen hutsarteak estaliko baditu. Mailegabidea, beraz, ez da baztertzekoa.

Bide hau ontzat eman bezain sarri, ordea, kontuz ibili beharra adierazten du:

> Etorkinak ugaritzea ez zaigu komeni, hitzak, lehen esan bezala, ez datozelako bakarrik. Lege berriak ere badakarzkite berekin, biderako sakoteakin batean, bai ebakera eta bai joskera ere aldatuko dituztenak. Eta hobe genuke hartzen ditugunen formari kontuz begiratuko bagenio, gure fonologi legeak, gelditzen zaizkigun hondakinak, itxuragaizki gal ez daitezen. (1979g:184).

Artikuluaren hasieran dioenaren harian dator oraingoa. Izan ere, behialako erregelak ezagutzea, hauen indarra neurtzea... ezinbestekoa da egungo etxekotzea errorik gabeko bidetik gerta ez dadin eta, are ezarian ere, euskararen legeak etorkinenetara makur ez daitezen.

Areago, idatziaren indarra ere oso gogoan hartzekoa da, garbitu behar den auzia ez baita bakarrik esaten dena nola idatzi behar den, baita idatziz ikasia nola ebaki behar den ere. Eta puntu honetan, eskolatzeak ezinbesteko garrantzia du:

---

[10] Puntu zehatz hauek ukitzen ditu Mitxelenak:

. Hasierako *#r-*:

"Eta hemen berian galdera bat, gerokoen artzindari, egiteko gogoak hartu nau. Oraindik, zaharrek bederen *arraza, arreparatu, errezeta, errezibitu, errifa, erroskila, Arroxa* edo *Erramun* esaten dugun bezala, ez gaude oso segur ugaritzen ari den beste kasu samalda batean nola joka: erregela mugatu egin behar ote dugu ala zabaldu? *Errepublika* eta *erromantiko*, tira, baina *errima, errítmo* ere bai? Azkenik, *erretonika* behar genuke ongi herrikoa den *erretolika*-ren aldamenean?" (1979g:180).

. *T + S*:

-Hitz-hasieran: "*ps* idatzi eta *s* hutsik ebaki";

-*x*-ren ingurukoa:

"[*atsolütüki, etsenplu, etsamina*] Hori genuke izan daitezkeen irtenbideen artean euskal tradizioari lotuena. Gogorregia iruditu zaio, haatik, bati baino gehiagori, batez ere Euskal Herriaren beste mutur honetan sartzeko eta erabiltzeko. Orduan, *setsu* nahi ez badugu, esaterako, har dezagun *sesu* eta okerrenean *seksu*. Nik ezinbestean baizik ez nuke *sexu* erabiliko izkribuz: behin baino gehiagotan pur tu honi gagozkiola aipatu izan den Marx-en izenean eta horretarik erakarrietan". (1979g:181).

. $T_1 + T_2$ (*kt, pt*).

Daitezkeen bi aukeretarik –hots, kontsonante-multzoari eutsi ala bakuntzeak dakarren lehena baztertzea–, bigarrenaren alde makurtzen da Mitxelena.

> Nolanahi ere, eta gai honetan bakar-bakarrik sartzen naiz irakasleen[11] alorrean, zertxobait aldatu behar genituzke geure pentsamoldeak haurrak eta haziak geure hizkuntzan eskolatzekoan. Esaten dena nola idatzi behar den jakiteak badu bere axola. Are gehiago, ordea, egun eta gure artean, irakurtzekoan ikusten dena nola ebaki behar den irakasteak. Letretarik ahora daraman bidean bai bata nahikoa bihurgune. (1979g:184).

Hona, berriz ere azpimarkatua mailegutzak ahozko alderdian utzi dezakeen aztarna eta honek sorraraz dezakeen norabide-galtzea.

Ahozko alderdiaren ondoan, idatzizkoa ere ukitzen du Mitxelenak bere aburua plazaratzeko.

Kasu honetan tartean dena da, hitz sartu berri edo sartzeko direnek ez baina[12] aspalditxotik euskarak bere egin dituenek zein izkribuzko itxura hartu behar duten.

Mitxelenak garbi egiten du trabes paperezko lekuko zaharrenen alde hau da, idatziz hedatuenik dagoen formarik antzinakoenaren alde antzinatasuna eta iturburua nahasteke, haatik[13].

Etimologi bidea txarresten du Mitxelenak bi arrazoigatik. Batetik, euskal etimologiara makurtzeak, balizko okerreko formak hedatzea ekar dezakeelako ondore[14] eta bestetik, euskara dagoen egoeran dagoelako:

> Ikasiago, gizatalde bezala eta oro har, bihurtzen garenean izango dugu beharbada erdaratikako hitzak era ikasiago eta dotoreago batean hartzen hasteko egokiera. Eta ez nuke nahi inork hau txartzat har lezan, neure buruari harrika eta ez besteri ari naizenez gero. Ez ere harako gorago esan dudan hura: euskaldunok, alegia, geure hizkuntzaz landa besterik ere beharko dugula etorkizunean. (1979g:185).

Artikuluan lehenago ere eman dituen arrazoibideen ildoko beste honetan, Mitxelenak, bide arrazoizko eta daitekeenetik jotzea hobesten du, teorian, zitekeen egokiagotik edo baino, Krutwig, Kintana eta abarren buruzpideetarik aldenduz.

Izan ere, maileguez aritzean, batipat gaztelania euskaldunen bitarteko izateari[15] oso begiaurrean izateko deritza Mitxelenak:

> Ez du inork ukatuko hizkuntza klasikoei (hauei batez ere, nahiz zeharbidez izan) gorde nahi zaien leialtasunak ez duela gure irakurleen (eta batipat idazleen) eginbidea erraztuko, zailduko baizik. Ororen gain, *gaztelaniaz mintzatzen den kultur munduan partaide diren euskaldunentzat* zailduko du, eta ez dira ez guttienak ez ezerezenak. Ez dut neure buruari begiratu besterik, nahiz eta hizkuntza

---

[11] Kontu egin behar da urte horretan ez zela oraindik euskal irrati-telebistarik sortu.

[12] Hauezaz mintzatuko da geroago.

[13] Iesturen alde, esate baterako.

[14] Laugarren puntuan bilduko ditugun *halegia, hazaro*...

[15] Puntu honen gainean beherago ariko gara.

klasikoekin ofiziozko harremanak aspaldidanik izan ditudan. Euskaldunak aurrera jotzen baldin badu espezialistaren bidetik, jakin beharko du erdararik bai orain eta bai, *balta onenean ere*, geroko gero luzean. Hortik gora esan behar dut bedakidala zein erdara ageri den gero eta gailenago inguru hauetan. Baina, noiz arte iraungo du oraingo joerak? Ez beti, noski, historiak erakusten digunez, eta gaztelaniaren etorkizuna ez nuke nik inondik ere guttietsiko. Hizkuntzaz gaztelau direnak ugaritzen ari direlarik, ez ote zaizkigu halaber jakitez ere pixkaren bat haziko? (1979g:183).

Egoera hori bizi du euskaldunik gehienak, bere jakiniturria erdara –gaztelania bereziki– izanik, honenbestez, mendeko eta besteren eskeko izate hori ezin begietatik uxa daiteke euskara gaurkotuaren gaineko zeinahi den erregela-proposamen egiteko momentuan ere.

"Hortik gora" dioenari ere begiratu behar zaio, izan ere, egungo egoeran beste hizkuntzaren bat bada ere zenbait arlotako jakiteen mintzabide nagusia, ez du uste Mitxelenak nahitaez aurrerantzean ere horrela izango denik. Ez du ere uste beste hizkuntza horren arabera euskararentzako gaurkobideak bideratu behar direnik, ez bederen, gaztelaniari bizkar emanez.

Erdarei –gaztelaniari nagusiki– ezin muzin egin dakieke, ezin begien bistatik ken daitezke, batetik, euskaldunak ez direlako nabarmendu jakiteak aurrerazten egin dituzten saioengatik baina hala balitz ere, bestelakorik ere badelako tarteko. Egoera den bezalakoa izanik, beste herrialdeetako jakintsuei helarazteko hizkuntzan –euskara ez den beste hizkuntzaren batean– plazara beharko dituztelako lanak ezagutuko badira, bederen[16]:

Opa daitekeen etorkizunik onena opa diot nik gure hizkuntzari. Baina (al *baina* madarikatua!) irispidean, helmenean edo helbidean gerta daitezkeenen artean hautatu behar dut etorkizunik onena. Hona garbiro esan. (1979g:186).

Azken hitzotan suma daiteke Mitxelenak buruzpide eta gogo-gidari duen errealismoa; aurrera egin nahi izanez gero, ezin denbora eman hoberenaren espero etsian, eskuera daudenen arteko aukera egitera beharturik dago[17].

* (1983), "Hitz mailebatuez", *Euskera* 2. aldia XXVIII, 103-105 [*SHLV*, 436-438; *MEIG* VII, 187-190]. (1983f).

Anartean euskaraz lantzeko egon diren esparruak euskaraz jorratu gogo ditu

---

[16]Tarski semantikalariaren funtsezko artikulu baten zoria hartzen du Mitxelenak adigarri.
Orol, bestalde, errenterarrak 1975ean Begiarmenekin izaniko molde-bidezko liskarra, gure laugarren kapituluan olhartzuna izan duena.

[17]Harako Olhenarten "Ororen nahiz, oro gal" edo "Lo mejor enemigo de lo bueno" esaerek diotenez. Edo Mitxelenak berak, batasun-bidean egin zen hautaera zela eta zioena:
"Mundurik onena hautatu omen zuen Jainkoak, Leibniz-ek zioenez, gure hau sortzekoan; ez, ordea, erabat onena, baizik eta *inter possibilia* onena, izan zitekeen mundurik onen hori mundu zelarik eta ez hutsik gabeko, Jainkoaren beraren pare. Hutsez eta makurrez betea sortu zuen, beda, baina ahal zitekeen neurrian hutsik eta makurrik gutxien zituena, halaz ere". (1970c:143).

euskaldunak, adigai berriek euskal gorputza izan dezaten. Berez bezala dakar honek, orduan, ezinbestean hitz berriak eratzeari ekin beharko diola.

Bi bide ditu erabilikizun horretan sartuko denak –elkarren etsai ez diren bi bide, alegia–, euskal bideetatik abiatu eta besteetara jo eta bertatik hartu.

Barrura begirako bideari ez deritza aski emankor Mitxelenak, euskaldunak menderik mende pilatzen utzi dituen hutsuneak laster bizian bete ahal izatea ezinkizun baita.

Hortaz, garbi dago beste bideari ere ekin behar diola, hots, erdaratikakoak euskal bideetan barrena sarrarazi beharko dituela:

> Mailebuen beharra nondik datorren bistan dugu. Euskara, hizkuntza "himiñoa" izateaz gainera, ez da erabilia izan, menderen mendetan, hainbat eta hainbat eremutan. Eremu horiek euskaraz landu nahi baditugu, beraz, eta badirudi euskaraz landu nahi dituguia, gure hitz-altxorra la ibuiegabeki ugaritu beharrean aurkitzen gara, dela hitz sortuen medioz, dela bestetariko hitz "arrotzen" bitartez. (1983f:187).

Hau aitortu orduko, ordea, auziak sortzen zaizkio hizkuntza hartzaileari, mailegatzeak ordain-saria eskatu ohi baitu.

Ildo honetako bi auzi zehatz plazaratzen ditu Mitxelenak:

> a) nondik-norakoa da premia horren neurri arrazoizkoa, zuzena ez bada ere;
> b) zer ibuiratan agertu behar dute mailebutan hartzen edo ditugun hitzok. (1983f:187).

Premiaren neurriarekin ikuskizuna duten bi gertari ditu begiaurrean Mitxelenak, hizkuntzazkoa bete-betean bata, jakiteen aurrerabideazkoa, bestea.

Lehen esanaren ildotik, euskararen hedadurak eta zenbait eremutan ez erabilia izanak, ikuskizuna dute premiaren izariarekin; ez da guztia, haatik, aldi berean, Mitxelenak besterik ere azpimarkatzen baitu.

Beste kapituluetan aieruz edo jaso den kezkabide batek hartua du hemen berriz ere Mitxelena: ez da hiztegi-kontu hutsa mendekotasunaren karia, hutsune hori beste gertari baten isla ere bada; euskaldunak apenas mundura du bere baitakorik, ez euskaraz eta ez erdaraz:

> Zerbait ikasi egin dugu, ononean ere, alor horietan, baina ikasi duguntxoa, besterengandik ikasi dugunez maizenik, besteren hizkuntzan ikasi dugu eta ikasten. Morrontza honetarik ihes egin nahi badugu, bai hizkuntza galetan ere, norabezeko izango dugu hitzak ez ezik bestelako sorkariak ere sortzea[18]. (1983f:188).

---

[18] Afrikan, berriz, gehienbat, nahiago dute, aurrerazaleenak buru direla, "kolonizatzaileen" hizkuntzaz (ingelesez eta frantsesez, batez ere) mintzatu, gurasoengandikako hizkuntza traba eta debeku iruditzen zaielako aurrerakuntzarako eta goi-maitara beren burua jasotzeko. Norbera aurreratzeko eta norberaren burua jasotzeko esan behar genuke, horixe baita, hain zuzen, han gertatzen ari dena. Ez dute ikasiek eta erdi ikasiek astirik ez gogorik beren herritarrak altxatzeko. Presa dute, baina (zenbait lekutan xarneguek beltzen artean bezala) beren burua

Epe luzerako lana jendarteratzen du hemen Mitxelenak eta hizkuntza soila baino harantzago doana.

Hizkuntzazkoetara hobeto esan, hiztegiazkoetara berriz ere itzuliz, Mitxelenak arestian paperera duen lehen auziari heltzen dio, hots, premiaren arrazoizko neurriari eta honetan, argi eta ozen mintzatzen da euskal hiztegia hesitzearen alde, mugarri aldakorrez eta iraunkorrez zedarritzearen alde:

> Urruriko inoiz batean, Bilbon noski, "Euskal hitzak zein diren" edo zelako erabakia hartu zuen Euskaltzaindiak. Erabakiaren mamia eta muina hauxe genuen, oker ez banabil: hitzaren jatorrizkotasuna ez dela etorkiaren arabera neurtzen, hiztunen usaioaren arabera baizik. Nondinahiko den, bada, euskarazkoa da euskaldunek erabili eta erabiltzen badute. Zenbatek, zenbatetan ta zenbateraino, ordea, erabili? (1983f:188).

Ez dirudi Mitxelenak 1959ko Euskaltzaindiaren erabaki hura bestela bezala paperera dakarrenik. Jakinaren gainean dakar oso, euskararen inguruko giroa zeharo bestelakotua begitantzen zaio eta[19].

Aldi hartan garbinahi itsuaren podorioz halako nahastea bizi bazen euskal hitz-altxorraren barrutian eta Euskaltzaindiak egoera nahasi hari erantzun bat eman bazion, 1983an Mitxelenak erabaki hura mugarritzeari eta aldi-giro berriei egokitzeari beharrezko deritza, egiten duen azken galderak agerian jartzen duen bezala.

Mitxelena ohartzen da euskaldunak eskueran dituen bi "hitz-zorroetarik" ausaz aiseago jotzen duela erdararen, "inguru hauetan erdara baten", "zaku sakon-zabalera".

Jokabide hau ez da Mitxelenaren gogo-asegarri ez idazterakoan ezta aho-hizkera landuan ari behar denean ere. Horregatik, 1959an Euskaltzaindia euskal hitzak zein ziren aldarrikatzera bultatu bazuen aspalditik erroturiko erdal etorkikoen euskaltasun-agiria emanez, nolabait esan, orain, premiazkotzat dauka norbaitek, Euskaltzaindiak, mugarritze-saio berezia egin dezan, saihestu beharrak zein diren – honenbestez, euskaltasun-agiririk izateko esku ez dutenak– adieraziz:

> Norbaitek, Euskaltzaindiak inork baino lehenago, saiatu behar luke soroa usuago mugarritzen eta hitz kontuak garbitzeko galbahe[20] tapituagoa erabiltzen[21]. Ez da hau, ordea, begien itxureki

---

altxatzeko presa, ea lehen-bait-lehen eltxoa bezain ugari inguruan duten ez-jakinen pilo nardagarritik [jat. *nardargarrik*] ihes egiten duten [jat. *ihes egin dezaten*]. Hirugarren mundu horretan, beraz, ondade preziatua da jatorrizko eta etorkizko hizkuntza batzuentzat, harresi latza besteentzat (...)

Egungo egunean, badirudi herriaren aurrerakuntzaz (promozioaz, esan ohi denez) ari garenean, ez garela guztiok [jat. *guztioz*], bat baldin bagatoz ere ahoz, gauza batez ere [sic]. Zein da gure asmoa eta gogoa? Gure herriaren egiazko aurrerakuntza, herriarekin batean gu ere aurreratzen garelarik? Ala, herriaren atxakian, geure buruak jasotzea eta besteak hor konpon? Badirudi, inolaz ere, badela munduan barrena aski jende prest dagoenik, berak trenak [sic] galduko ez ote duen beldurrez edo, herria eta herriarenak bertan behera uzteko. Hirugarren mundukoak ez bagara ere, guk ere bat ala bestea hautatu beharko dugu". (1972b5:131,132). (Mitxelenak gehitua).

[19]Laugarren kapituluan mintzatzu gara erabaki honezaz eta hementxe bertan, beheraxeago, berriz ere mintzatuko.

[20]Jat. *galbae*.

batean erabaki daitekeen arazoa. Are gehiago, ez da, gainera, hemen eta orain dihoakiguna. (1983f:188).

Artikuluaren atarian pleguetara duen bigarren auziari dagozkionak bitan banatzen ditu Mitxelenak. Nahasiturri ez direnak eta zalantza-sortzaile gertatzen direnak.

Lehen kasukotzat dauzka hots, ukituren premiarik ez dutenetakotzat itxuraldaketaren bat nozitu duten hitz edo morfema berriak:

> eta berriak dira aspaldixkodanik hartuak ez ezik onartuak ere izan direnak gure artean. (1983f:189).

Puntu honetan ohargarria da Mitxelenak artikulu hau baino lehen hona aldatu den 1978ko lanean, "erdaratikako hitz zaharrak" kezkabide zituen bitartean, hamabost urte geroago, antza, auzi hori konpondutzat ematen duela[22]:

> Besteak dira, agian, berri-berriak, ezinbestearen ezinbesteak harrerazi dizkigunak (demagun ikusi berri dudan *exakzioa*[23]) holako zerbaiten premia bizian aurkitzen direnak. (1983f:189).

Berri-berri hauek, bi auzi-motaren sorrarazle begitantzen zaizkio Mitxelenari, letra-kontua da bata, hau da, erdaratikako hitz horiek nola euskarari egokitu; iturburuarekin du ikuskizuna bigarrenak.

Bigarrenak biziki artegatzen du Mitxelena:

> Erdara esan ohi dugu euskaldunok eta nahiz ongi dakigun "erdara" hitz-estalkiak hizkuntza bat baino gehiago tapatzen dituela (hitz bitan, gurea ez diren lehengo, oraingo eta etorkizuneko hizkuntzak oro), badugu halako ixuri bat nork bere inguruko erdara erabateko ERDARA *kat'exokhen* balitz bezala hartzeko. Eta egungo egunean eta bizi garen Euskal Herriko partean, gaztelania da *de facto* erdara bakarra, are gehiago hizkuntza gidari bakarra, milaka eta milaka hitz berri guri, eta guri ez bada gure ondorengoei, sartu nahi dizkietenean. (1983f:189).

Hor, berriz ere, Mitxelenak gero eta gertuago ikusten duen arriskubidea, bestek (agidanez, *dizkiete* aditzak salatzen duenaren arabera) erdara, mugaren alde honetan

---

[21] Beheraxeago jasoko dugun bezala, Euskaltzaindiak ez dio muzin egin erantzupide honi.

[22] Hasieran esan bezala, Bergarako bilzarra tartean dela ezin bazter daiteke.

[23] Honengatik ari ote?:

"X. Kintana eta L. M. Mujika-ren hiztegiek, bestalde, auzi honetan ere osorik erizkide ez izan arren, >x< letraren aldeko bultzada nabarmena eragin dute. Mujikaren hiztegiak, batez ere, frantses-gaztelaniek >x< bidez eman ohi dituzten ia hitz guztiak (baita euskarak aspaldi mailegatu dituenak ere) grafia horrekin mantentzen ditu: ***exaktzio, exzedentzia, exzepzio, exklusibismo, exhibizionismo, experientzia, extraktzio, existentzia, xantofila, xenofobia, xilografia, hidroxido, sexualitate, heterodoxia, paroxismo,...*** etab.". (UZEI 1982:172). (Beltz. gurea).

gaztelaniarekin bat egin eta, sarriturri bakar eta gidaritzat hartzea.

Arestiko artikuluan autu izanikoa berriz ere hartzen du, euskaraz iturburuari norainoko zintzotasuna zor izatea komeni den arazoaren aurrean dabiltzan irtzi zenbait aurkeztuz.

Bigarrentzat joari erreparatzea interesgarria dateke, bertan, aldi bakarreko mendekotasunaren errainua ikusten baitu:

> 2. Erdararen itxura ahalik eta ieialkienik gorde nahi dutenak baina Erdararenak, lehen esan dugun bezala: *texto, doktore, esakzio* [jat. *exakzio*][24], *experimentu*... Eta erdaraz *film filme* bihurtu badigute, guk ere *filme*-ri eutsi beharko, esate baterako. (1983f:189).

Mitxelenak ez bide du jokamolde honetan bere aburua gatzaturik ikusten eta bereak jakin ahal izateko, 1979ko lanera[25] igortzen du.

Zeinahi kasutan, azpimarka daiteke lan honetan berariaz ez dioen arren ERDARA dela eta, honek ezinbestean dakarrela mugaz bi aldeetako euskaldunen arteko osina larriagotzea.

* (1984), "Aurkezpena", Ibon Sarasola, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia. A-Aurten*, Donostia, GAKP, 11-23 [*SHLV*, 349-360; *MEIG* VII, 25-46]. (1984b).

Atarikoan adierazi bezala, Mitxelenaren baitako aurkezpen honek merezi du pausatuki arakatzeak bai baitu gorderik Mitxelena gerokoaren irizpide-gaitzerikorik franko inguruan ikusten dituen hizkuntz jokamoldeez eta bestez.

Lehen hitzetan garbi aitortzen du Mitxelenak, bestetan ez bezala, gogoz abiatu dela eginkizun duen lanean. Hau aurrean izanik aditu beharko dira, beraz, ondotik esango dituenak.

Sarasolaren hiztegia da aurkezkizun duena, baina honen barrenak juzgatuko baditu ere, lasterrean egiten du[26]. Esan daiteke Mitxelenak hemen bere ikusmoldearen galbahetik

---

[24] Ba ote, bestela bururik?

[25] Arestian aztertu dugun "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz" (1979g), jatorriz 1978koa den lanera, alegia.

[26] Berariaz, hirutan hartzen du ahotan.

Hasiera aldean, lehena:

"Esana dut noski horrenbestez, begi onez ikusten dudala, behin batean Euskaltzaindiak beste zerbait ikusi zuen bezala, Sarasolaren hiztegi hau, sarreran aditzera ematen dituen irtzi eta jokabideengatik eta are gehiago horien erakusgarri azaltzen duen lanagatik. Bada hor, ez dut dudarik egiten, onik eta ez hain onik, zuzenik eta makurrik, baina, bere bidetik dabilela, ez zaio inori larregi kostako nondik nora dabilen ikustea, ez igertzea bakarrik. Sartu dituenen lagungarriak agerian dakartza. Falta direnak gelditu dira gorderik ezinbestean, ez baitzegoen artzinsolasean esanen ondoan ezezko lekukotasunik sartzerik". (1984b:26).

Erdi parean, bigarrena:

"Har dezagun *Euskal Errie*, lan hau egiteko Sarasolak hartu duen bezala, eta ez dugu pausorik aurreratuko Larramendiren gain eta bikainarekin topo egin gabe". (1984b:34).

Eta amaiko beste hau:

iragazitako euskararen egoeraren (zabal esan) irudi oso-betea areago dela jendarteratzen duen hau, eskuartean duen lanazko kritika baino. Kritikapean hartu gaia, euskal hiztegiaren gorabeherak dira:

> Bada eztabaida franko, borroka ere bai, euskal hitz altxorrari buruz: hor dabiltza, izan ere, gureak, gureganatuak (hauek ere gure-gure dira, gureganatze hori zinetan eta benetan burutua dagoen heinean), eta gureganatzekoak batipat, gureganatzeko bidean direnak eta omen direnak, horietan baitago, bestetan baino areago, sesiobidea[27]. (1984b:25).

Etorkiari begira eginiko euskal hitz-altxorraren barne-sailkapen honetan, lehen momentutik bertatik nabarmen daiteke, Mitxelenak, mailegu ziren etxekotuen ondoan, sesio-sortzaileak mihi-puntan dituela.

Liskar-kalapiten sortzaileak *gureganatzeko* direlakoak izaki, Mitxelenak, berandu baino lehen, zenbaiten jokaera gaiztoa salatzen du: hitzak eta hitz-mordoak proposatu egiten omen dira, baita sarrarazi ere, baina horretara bultzatzen dituzten arrazoiak argitzeke. Areago, onenean ere, arrazoiak ematen direnean, ez omen du garbi ikusten eginiko hautaeraren funtsaren sendoa:

> Gogora datorkit ustez irakurri berria dudan zerbait. Demagun, eta gustora emango nuke, hitz baten jatorrasunak - antzinatasuna eta hedadura hartzen ditugularik neurri, hauek ere elkarrekin erretan maiz dabiltzala jakinik- eta nazioartekotasunak pisu larria duela beroren "euskaltasuna" mugatzeko. Bistan da, ordea, ez dela usu aski "hau eta hori" nahiz "hau edo hori" atera behar den kontua, "hau ala hori" baino. Zer erabaki orduan? Hor daukagu beti pisagarritzat asko eta gehiegi den nahia; gogoak ematen diguna, nolazpait esan. Horrela gerta daiteke eta gertatzen da nazioartekotasuna gailen intetea. (1984b:26).

Mitxelena gogobetetzen ez duten hitz eta hitz-mordoen bulartzaile horiek, nazioartekotasuna dute ahotan, nonbait, aukeran forma bat baino gehiago izan eta zirt edo zart egin behar denean, jatorrasunaren kaltetan.

Mitxelenaren haserrea ez du nazioartekotasuna izari izateak bizten, besteren "nazioartekotasun" delako horren atzean ikusten duenak baizik:

> nazioartekotasun hori "nazio bakar baten artekotasuna" besterik ez bada ere. (1984b:26).

"Ez dut uste inolazko kalterik egingo duen horretarako Sarasolaren lan honek. Arrazoi gutxi agertzen du, argitasuna, berriz, ugari. Eta, han eta hemen, baita hizkuntza gaietan ere, argitasunak, lekukoak, dokumentuak dira jaun eta jabe. Jaun eta jabe bakarrak. Eta alde horretatik ez zait iruditzen nain zarpailki aurkeztu dudan obrak oraingo besteren zor handirik duenik". (1984b:45).

[27] Ez al dakar gogora harako:

"Azkenean, dialektu nahastea dela, euskaldunek beti ahotan dituzten "erdal-hitzak" nahiz dozenatxo bat lagunek darabiltzan hitz "jatorrak" direla, badaukagu non hauta, gaurko erdaren iturri garbitik barra-barra biltzen hasi garenak, edonongo kultur hitzak eta Garibayren arima bezala ez izango bai izango dabiltzan *ghost-word* erratuak ahaztu gabe". (1959f:128).

Egiten duen hitz-jokoaren bitartez, garbi uzten du bere erresuminaren iturburua: erdara bakarra da artekari eta bitarteko halako hitza besteren kaltetan hobestean.

Bere buruaz eta gai batzuez eta bestez hitzegiteko duen eskuaz mintzatu ondoren hiztegi-kontuetara itzultzen denean, azpimarkatzen ditu hiztegigilearentzat jakingarri dituenak:

. bai euskarazko bai erdarazko hitzen berria

. hitzek erakusten dituzten gauza, gauzakiak eta gogorazten dituzten irudi-gogoetak, bestela esan, adigaiak:

> Eta delako guzti hori, hitz eta gogoeta, ez da aski, ez luke aski izan behar, orain zer-nolako diren ezagutzea. Euskal hitzen legeak geurok atera nahi ez baditugu geure baitarik, gainera, beste zerbaiten mende baldin bagaude (hizkuntzaren mende, alegia, "hizkuntza" dena den), jakin behar dugu, ez diot "jakin behar genuke", lehenagoko euskaldunek nola zeriztен bihotz-begietan[28] aurkaz-aurk zituztenei, nondik-nora etorri diren hitzok egungo kokalekura. (1984b:28).

Baina euskararen atzearen berri ez ezik, inguruko erdaren berri ere izan behar du euskal hiztegigileak Mitxelenaren ustez, mende luzeetan, euskaldunak emaile ez baina hartzaile izan baitira:

> Unamunorena okerragora aldaturik esan dezaket: "Bestek sor dezala", sortuko bada premiazko diren erdiminen orde gutxi kostako zaigun mailebu-lana nahiago, erraz eta lasaiago denez gero, baitugu. (1984b:28).

Garbi egiten du Mitxelenak, inguruan nabaritzen duen zabarkeri giroaren salaketa. Eta errazenera jotze horren berorren ondore dira harilkatuz joango den kezkabideen eta kezkabide hauen atzean dauden euskal gaiztoen zerrenda.

Bitakoak bereizten ditu Mitxelenak, hitzen mailakoak, batetik eta gramatika lardaskatzen dutenak, bestetik. Bigarrenez, honela dihardu:

> Gramatika aldetik, nolanahi ere, ongi baino hobeki gabiltza. Badakigu, behintzat, *geniezazkizuekeen* esaten, baldin ederki esana badago. Baita ere, gainera, *topikoa bihurtu da*[29] (ze arraio bihurtu ote da "topiko" hori?) eta *bi penike bakoitzeko*, harako zahar elbarrituek *bina* esango luketenaren ordainetan. Nori zaizkio, ordea, ardura horrelako ezerezkeriak? (1984b:29).

Mitxelenak hemen azaleratzen duen ironia, barren-saminaren isla garbia da: hagitz arlegatzen du egungo euskaran entzun-irakur ditzakeen gisa horretako barrabaskeriak eta ikusten den bezala, kezka-iturria ez da hiztegi soilera murrizten, gramatika ere har berak joa

---

[28] Lizardi, berriz ere.

[29] "Topikoa bihurtu da esatea Lete poeta bezala betiere kantari izanarekin lotuta imajinatu behar dela, eta hori egiaztatzea baino ez zait niri geldizen oraingoan ere". (Landa 1983:97).
Ikuskizunik?

begitantzen zaio, arestiko[30] lanetan, azentu-doinuzkoek kezkatzen zutela zioen bezala.

Alabaina, hitz-kontuei lotzen zaie batipat Mitxelena, kezkabide nagusi aitortu dituenei, alegia:

> Gure oraingo kezkabideak, pentsatzen dudana esan behar baldin badut, hitz kontukoak dira gehienbat: hiztegi kontukoak ere bai, beraz. (1984b:29).

Mitxelenak euskararen gibelera begiratzen du eta, hastapenetatik hasi eta egungo egoerara iritsi bitarteko bidea korrituz, aldian aldikoak aletuz doa.

Euskal hiztegian "katramila eta saltsa" izan da nagusi aspaldidanik. Bai, baina hemen dator lehen zehaztapena, nahastea Hegoaldean bakarrik gertatu da.

Izan ere, Iparraldean giro askozaz ere baketsuagoa bizi izan dute, hemendik begiratuta behintzat. Iparraldekoek, abiatik bertatik erdietsi omen zuten hitzen barrutian halako itxurazko bitarteko maila, ez goregi ez zabarregi arituz.

Azterkizun dagoen arlotzat daukan arren, Mitxelena etsia dago ez dela Bidasoaz bestaldean, honanzkoan nozituriko ezberdintasun, alderdikeria eta elkar ezinikusirik bizi izan.

Hegoaldeko ibilbide berezi hori hartzen du Mitxelenak, hain zuzen, azalkizun eta bertan zenbait aro bereizten, aro bakoitzean, hitzen eremuari dagozkionak nabarmenduz.

Lehenik eta behin, aroak mugarritu eta aurkezten ditu, lau epe nagusi bereziz.

I. Aro zaharra.

Hasiera berantiarrean (XVI. mendetik aurrera), ez zen aparteko zalantzarik izan hitzak hautatzean. Halako maila bat ere hartu zen hitzetan zein joskeran, iritsitako maila hori iparraldekoenarekin alderatzeko gauza ez bazen ere, hegoaldekoek hagitz maila apalagoan urratu baitzituzten bideak.

Hemen kokatzen ditu Mitxelenak -neurtizkileak aldeka batera utziz-, Betolaza, Kapanaga, Zubia-Lezamiz, O. de Arin, Irazusta, Olaetxea. Salbuespen bakartzat, Beriain dauka:

> Beriain da, S. de Elso ilunbetan dagoeino, pixkaren bat bestelakoa, eta ez euskalkiz bakarrik. Badirudi besteek baino goitixeago jaso zituela begiak. Horrela gertatu bide zen gaiari buruz ere besteek baino gehixeago sartu zuelako bere aldetik. (1984b:30).

II. Lehen "aro berria". Larramendiren aldia

Larramendik biztu eta bultzaturiko aroa.

Honen hiztegia jotzen du Mitxelenak aroen arteko mugarritzat, urtemuga 1745ean ezarriz.

---

[30](1976c; 1979g).

Lasterrean esan[31], Mitxelenak Larramendigan ikusten du, euskara bere zokotik eta inolako lotsalzunik gabe, kalera, hirira aterazi nahi duen euskalduna eta horretarako bitartekoak eskaintzen dituena gainera.

Hitzen mailari atxikiz, Larramendik --zituen helburuak hartaraturik-- ez du debekurik erdaratikakoei sarbidea emateko, baina mugak jartzen dizkio harraldiari.

Ez du, batetik, zorren zerrenda areagotzen ez besteri halakorik erabilerazten.

Bestetik, berriz, (ustez) euskal hitzekiko lehian itxura gaiztoko mailegu *desegokirik* bada, bakoitzaren erabilesparrua ere hesitua du. Esate baterako, *onetsi, oneretxi, malte izan, maltatu...* hitzen ondoan, *amatu* erabiltzen badute Larramendik ez ezik, "ondoko idazlerik txukunenetakoek" ere, erabilesparruari edo hizkuntz mailari zor zaion berelzkuntza eginez darabilte:

> *Amatu* horrek, bidea utzi ez badut, erabilera berezia du, *maltatu*-k eta ez bezalakoa, eta maila ere bai, erabilera bezain berezkoa. Hitz horrek, hona erraz gezurtatzun den ustekaria, ez du gehienbat --sekula ez dueia esaten ez naiz ausartzen - "aragizko" kutsurik. (1984b:31).

Larramendiren garaiko jendeak bazuela euskal pragmatikaren sena da Mitxelenak ematen duen azalbidea, geroko euskaldunek galdu duten sena (*ezkongabe, Kaixo!, Alajainkoa!*[32]), alegia.

Puntu berri bat eransten du Mitxelenak pasarte honetan, euskaldunen mendekotasunaren ezaugarrien zerrendari gehitu beharrekoa.

Izan ere, azentu-doinuak, hiztegia, gramatika, mendekotasunaren arraizaren erakustoki kausitu baditu, orain, arestikoei, hizkera-maila eta erabilesparruei atxikitzen zaizkienak alboratu behar zaizkie.

Honetan ere, egungo euskalduna, XVIII.ekoarekin alderatuz, mendeko begietaratzen zaio Mitxelenari.

III. Bigarren "aro berria". 1900 ingurutik aurrera

Azkueren eta Arana Goiriren aroa[33]. Euskal hiztegian sekulako iraultza ekarriko du.

Garai honetako ezaugarririk azpimarkagarrientzat dauka Mitxelenak, lehenik eta behin, Larramendirenak oro jakinaren gainean eskumikatzea ekarri duela; "Larramendiren hondamendia" izendatzen du Mitxelenak beste "aro berri" hau.

Bestetik, berriz, garai horretako zenbait euskaldunen hizkuntz jokamoldeaz ere Mitxelenak bere gaitzerikoa agertzen du:

---

[31]Kapitulu osoa eskaini diogunez gero, han luze eta sakonago esanak ez ditugu berresango.

[32]Ikus laugarren puntuan gisa honetakoen bilduma testulnguratua.

[33]Hauei ere, atal bana eskaini diegunez gero kapitulutxo honi dagokion alde aolletik erreparatuko zaie.

Honako honen irudiko ipuinak ez ziren ipuinak besterik: "Ze gabeukitan[34] –gaide egin omen zion baserritar batl edozein kaletar ikasik– izaten da jaupa[35] txadon[36] ontan?" Beste zerbait zen baserritarrek txartzat hartzen zutena kaletarrengan: hauek, erdaraz ari zirela elkarrekin, "behekoentzat" gordetzea euskara[37]. (1984b:36).

Garai honetako euskaldun "ikasiak" ez du, antza, euskara gaztelaniaren mailan ikusten, euskara, baserri-giroarekin, maila apalagoko jendearekin hizketatzeko –modu "garbian", hori bai– besterik ez darabil.

Mende-bihurguneko hazi honen ernaltze-garapenek euskarari –eskuarki– eta euskal hiztegiari –zehazki– ekarriak, beherago laburbilduko ditu.

IV. Azken hogeita bost urteak. 1959-1984

Larramendiren hondamendiak ekarri zuen aro berria hasiz geroz pasa dira urteak. Eta urteek, esan dezagun azken 25 urteek, eraberritu dituzte bazterrak hizkuntza kontuan[38]. Franko gauza desegin dira, eta ez zaizkigu hondakinak baizik agertzen; ez dira gutxi, halere, bere hartan iraun dutenak. Ze irizpidetan finkatu diren bereizketa egin dutenak ez dut garbi ikusten: zergatik *populu* ez den bizi, adibidez, eta *gudari*, bai. (1984b:36).

1959tik aurrerako urteek hizkuntzaren barrutian, besteak beste, iraulkatze larria ekarri

---

[34] *DVEF*-ek ez dakar.
B-LM: "*gabeuki* (de *gabeunki*, porción determinada), hora, cada una de las 24 partes en que se divide el día natural: (*ordu* es voz exótica)".
HLEH: "**gabeuki.** *Iz.* (*1909, 1927). *H. b.* (G. er.). Ordua".

[35] *DVEF*-ek ez dakar.
B-LM: "*jaupa* (de *jaun-opa*), misa".
HLEH: "**jaupa.** *Iz.* (1897). *H. b.* (G. er.). Meza".

[36] *DVEF*-ek ez dakar. Pagolak (1988:847), Aranaren sorkariaren ez ezik, Azkueren gaitzespenaren berri ere ematen du:
"TXADON, iglesia, templo (1897). De etxe 'casa' y DEUN 'santo':
"[Neol.] Txadon / [origen] etxe-deun / [significado] etexe / [en fr.] église, temple / [en esp.] iglesia, templo" 1897a, 78 (1063) (...) Azkue (1918, s. v. iglesia) desaprueba el neol.: "Eleiza, eliza. No es admisible el neol. txadon, pues el elemento segundo, de que se compone, es tan extraño al vascuence como el mismo eliza. Años más tarde, con igual significado emplea jaureta (Apaiz ostegunerako elizkizun 22)".
Azkueren garbi-lsuriari erantsi beharreko beste bat, beraz.
B-LM: "*txadon* (de *etxe-deun*), templo".

[37] Ez ote dakar belarrietara, egungo guraso frankoren jokamoldea, baserritarren ordez, haurrak izaki euskal mezuaren hartzaileak, helduek elkarren artean gaztelania jatorrez aritzen direlarik?

[38] Kontuak ateraz, hogeita bost urte dira, hain justu, Euskaltzaindiak euskal hitzat hartu beharrekoen gaineko erabakia hartu zuela.
Bazterreko oharrioa: *hitzat* hobetsi dugu eta halaxe erabili (eta erabiliko tesi osoan zehar), Mitxelenaren giputzaren bidetik:
"Tradizioz jaso ditugun euskalkien artean kokatu behar begeritu bere izkribuak, nik behintzat, dudarik gabe, giputzat joko nuke, bestetzat baino lehenago". (1972a:170). (Beltz. gurea).

dute, "etendura larria". Aldakuntza hauek, euskal hiztegiari bete-betean eragin diote, izan ere, beti argitzen oso samurrak ez diren arrazoiak direla medio, hitz batzuk zokoratu eta arbuiatu dira, beste batzuek iraupena erdietsi duten bitartean:

> Ez da harritzeko ere, etendura larria ezagutu baitugu, eta hizkuntzan bestetan baino larriagoa, beharbada. Jaso eta iraitzi direnen ondoan, anitz dira hizkuntzan (halako moduko hizkera idatzian, bereziki) sortu eta sartu, sartu gehienbat, mailebua-mailebuaren gain metatzen delarik Babelgo markak haustekotan edo. (1984b:36).

Hona Mitxelenak azken urteotan sumatzen duen bide arriskutsuaren nondik norakoa: itsu-itsuan, mailegatze neurri- eta asegabeari ekin zaio, hutsarteak betetzeko beste biderik ez bailegoen.

Jokamolde honek dakarren ondorea, etendura da. Mitxelenak bere burua, oraingoz eta erabat, neurtzeko egokieran ikusten ez duen etendura:

> Zaharregia naiz agian, eta gazteegia orobat, etendura horren ondorioak juzgatzeko, orain ondorio diruditen ondorioak, urte gutxi barru agertuko direnak, etorkizun baitira oraingoz eta ilunbetan lainotuak. (1984b:36).

Aroak zedarritu ondoan, bada, eta bakoitzaren ezaugarri nagusientzat jotzen dituenak azaldu ostean, gerra baino lehenxeagotik honanzkoa hartzen du bete-betean azterbarruti, 1959 baino lehen eta ordutik aurrerakoen artekoak aurkez aurk berdinduz.

Hona aldatuko diren puntuetan biltzen ditu Mitxelenak 1959 baino lehenagokoen, gerrate-bezperetako "zaharren", huts-erruak.

Honetan sartu aitzin, ordea, bada begietan ematen duen eta azalpena behar duen zerbait, hondoan datzan bestelako auzi sakona ukitzen baitu: Mitxelenak kontaketarako begiz jotzen duen kontalariaren gramatika-pertsona da giltz-hitza.

Mitxelena pluraleko lehen pertsonaz baliatuko da garai hartako "errudunez" aritzeko eta, itxura guztiz, *gu* erretoriko horrek badu bere oinarria eta funtsa.

Aurkezpenari hasieratsutik halako erresumina badario ere, hitzen kontuan bete-betean sartu baino lehenagoko pasartean[39] beste inon baino areago suma daiteke Mitxelenaren sentimendu hori:

> Lehenbizi-lehenbiziik nabari zen, gazteagoen artean, susmo kontentagaitz baten arraiza eta hori, duda-mudakotzat jo baztekeen hasieran, gero eta argiago eta zaratatsuago. Lehen ez ziren arrazoiak ongi aztertu eta erabaki; behar ez zen bideko jokaera erabili zuten. Nik, egia esan, begi zorrotzak izan ditut hutsak ikusteko (batez ere, huts horiek geure buruetenak, neronenak barne, direnean), baiezkoan erantzun ohi nuen, ez beti, baina bai gehienetan. (Egoera trankilduz zihoala,

[39] Laugarren kapituluan, gazteen eta zaharren arteko kalapitak eta Mitxelenak horiekin izan zuen ikuskizuna aztertzean aldatu duguna.

bat-batean konturatu nintzen zerbaiten gatzespenak sustrai sakonagoak zituela: gu sartu omen ginen gerrate hartan eta, hori aski ez izanik, geure erruz galdu genuen. Eta horrek berehala hoztu eta are izoztu ninduen: hor konpon, jaun-andreak!). (1984b:37).

Behiala (batzuetan aldeago, bestetan haiekiko bat ez etortzeak garbi landatuz) gazteen alde mintzatu den oraingo hirurogeita hamar urte ingurutsuko Mitxelenak, bere burua, gerratea egin zutenen samalda bestek auzipetuan kokaturik ikusten du.

Belaunaldi bereko kide dela ukaezina den arren, Mitxelenari irenskaitz zaio gazteagoen ahotan sumatzen bide duen zehaztasun-eza eta arrazoibide horien hondarra aurrekoenak epaitzen dituztenean, gaitzeriko orotartzaileegia ez bide du gogoko eta, nolabait esan, Mitxelenak hemen "gazteekin" begitarte ona egin zien bera baino gazteagoekin erabat eteten du.

Bestek oraturiko *gu* horretako partaide izaki, ikuspegi horretan oin hartuz, hain zuzen, egingo ditu ondotik hizkuntza aldetikako oharrak, Mitxelenak berak eginak izan ala ez izan berezi gabe; bestela esan, Mitxelenak bere ahotsa, bere hazaldiaren ahots bilakatzen du, gizaldi honen baitan zeuden iritzi-ikusmoldeak ñabartu eta berezi gabe, zenbait gazte kritikariren moldeak bere eginez. Haien hutsa ageriago gera dadin?

A. 1936 baino lehen. Garai honetako uste zabala da hizkuntza-kontuetan inoiz baino hobeto dabiltzala, aurrekoenak gutxiesteko adinako mailan. Euskal idazle zaharrak mesprezatzen dituzte (*c, ch* darabil Mitxelenak garai bateko idazleriaren ordezkari) beraz.

Uste okerra, ordukoa. Izan ere, idazle zaharretan onenek bai zeinahi euskaldunek, hobeki idazten zuten eta mintzatzen ziren euskaraz, arrazoi xalo eta begibistako honegatik: "lehen eta oinarrizko hizkuntza" euskara zutelako, gerokoek ez bezalako moduan.

Betidanik euskal lokarri zaharrari eutsi beharra aldarrikatzen duen Mitxelena, *gu*ren bitartez mintzatzen da pasarte honetan. Hemen kausi daiteke, arestian esandako izenordaina erabiltzearen lehen izkurra.

B. Garbitasuna dute irizpide eta neurgailu bakarra, *x* eta *tx* erabili ez ezik (aurrekoen *c* eta *ch*ei kontrajarriz), ez ditu behialako dotrinagileen[40] mordoilokeriak kutsatzen.

Trakets deritza Mitxelenak neurgailuari.

Alabaina, "garbitasuna" hitz-estalkiak gorde ditzakeenak argitzeari bere tartea egiten dio:

> Garbitasuna, **nonbait eta norabaiteraino beti behar den garbitasuna**, modu hagitz ezberdinez neur daiteke. Gainetik eta gaingiroki neurtzen genuen guk, esaldien axalean ager zitezkeen erdaratikako hitz eta esaeren, azken hauek txit bigarren mailako zirelarik, arabera. Gure ustez, ordea, egiazko garbitasuna eta ez alegiazkoa sakonago zegoen (Chomsky argitara baino lehenago ari ginen), jatortasunaren osinean ezkutatua. (1984b:38). (Beltz. gurea).

---

[40] Hainbatetan paperetara aldaturik irakurtzen ahal den Irazustaren harako, "Nor da Jaungoicoa? Da gauza ai pensatu aldiequean excelenteena eta admirableena..., sabioa, justoa, principioa eta fiña gauza guztiena" da Mitxelenaren adiçarria.

"Beti behar den" bi motatako garbitasuna du ahotan Mitxelenak, axalekoa bata, sakonekoa bestea, eta gertari honek, hain zuzen, izenordainaren erabileraz arestian esana berriz ere egiaztatzen du.

Hemen, gramatika-pertsona berbera kontrako iritzien euskarri aurkezten du Mitxelenak: *gu* ginen axaleko garbitasunaren aldeztaile eta *gu*, halaber, egiazkoaren.

Lehenak, hitz-esaeren axalari, etorkiari, erreparatzen dio. Uste horretakoa denak, baztertzeko dauka erdal usainik darion oro. Bigarrenak, berriz, sakonera begiratu gogo du, hots, jatortasunari, honetan baitatza egiazko garbitasuna.

Bigarren *gu*ren atzekoek, euskaldunek erabiltzean izkribuz batez ere funtsatu dute hitzen jatortasuna. Hauen buruzpidearen mintzo moldeztatua, Euskaltzaindiak 1959an jendartera agiria da:

> Hitzei dagokienez, beraz, garbia da jatorra dena, euskaldunek (literatur mailaz ari ginen batipat) erabili dutena nondik ere nahikoa den. Lehen oinarri hau, erabiltzeak bihurtzen duela hitza euskal hitz eta ez etorkiak, Euskaltzaindiak aditzera eman zuen, ez zalapartarik gabe, Bilboko biltzarrean, Arantzazukoaren ondorengoan[41]. (1984b:38).

C. Lehen motako garbi-gogoaren ondorioz, euskal hitz-altxorrean ikuzketa burugabeari ekin zitzaion. Kontua ez zen hutsarte berriak estaltzea, ez nagusiki bederen, euskarak etxeko zituenen ordez, bestelako asmakariak ("garbi-kutsu itsaskorrak zekarren eritasunaren aztarnak") sarraraztea baizik:

> Zertarako sor *sendia*[42] dagoeneko *familia*[43] (eta *mainada*[44] eta abar) eskumenean

---

[41] Mitxelena ez da ari, noski, Arantzazuko sonatuenaz -1968koaz, alegia-, Arantzazun bai baina 1956ko irailaren 14, 15 eta 16an egin zutenaz baizik.

[42] *DVEF*-ek badakar, beste adiera batekin, ordea:
"**Sendi** (BN-ist), doliente, atacado de enfermedad : *souffrant, éprouvé par la maladie*".
"SENDI, familia (1896). De sen- por sein 'niño, infante' y -DI.
"[Neol.] Sendi / [origen] sen-di / [significado] familja" 1896b, 47 (10:4)" (...) Se extiende pronto a la prensa nacionalista (...) y, con los años, también fuera de ella (vid., por solo citar un par de casos, Azkue 1918a, 90; Uztaro 104, etc. etc.) (...) La opinión de Azkue (1928c, 192) en este punto es que no debe crearse ningún neol. si existe en la lengua término equivalente: "Arana Goirik berak "familia" adierazteko sendi ta Mogelek etxadi etziuen argitaratuko, Gipuzkoa-aldean Azkazi (Lamina-artean eta, aldegoa eztelarik, erdi ilik bazen ere) bizi zela yakin balute". (Pagola 1988:829).
B-LM: "*sendi* (de *sein-di*), familia: *Sendi Deuna*, la Sagrada Familia".

[43] *DVEF*-ek ez dakar; *B-LM*-ek ere ez (ezta "zuzentzat" dituen *pz* hasien artean ere).
HLEH: "**familia**. iz. (*1562, 1571)".

[44] *DVEF*: "**MAINADA** (S. P.), familia, *famille*".
HLEH: "**mainada**. iz. (1635). Familia".
B-LM-ek ez dakar.

geneukatarik? (Zertarako *aberria*[45] esango zukeen ausartagoren batek, *sorterria*[46] *(jaioterria*[47], etc.) etxeko genuelarik?). Eta ez dut lehen ukitu ditudan *gabeuki, gabeukatz*[48] eta gainerakoez deus gehiago esango: *jaupa*-k, gehienez ere, *jaupari*[49]-ren bitartez harrigarrizko *jaupaleme* bat gauzatu zuela euskal poesian[50]. (1984b:38)

Ihardunbide hau, Aranaren ildokotzat jo daiteke.

D. Hiztegi-nahastean eragina izan zuen ondoko beste gertari hau ere, gerrate aurretikakoen bezgarrien zerrendan erantsi beharrekoa da:

Behin baino gehiagotan, berri eta kutsatuen truk zahar garbiak, edo garbi ustekoak, usatzen genituen. (1984b:38).

---

[45] *DVEF*-ek ez dakar.
B-LM: "*aberri* (de *aba-erri*), patria".
OEH: "**aberri**. (Neol.) Creado por AG en 1896, de *aba* y *erri* (AG 1061). ♦ Patria, nación. v. **sorterri**. ■ *Tr.* Según *NeolAG*, un año después de su primera aparición *aberri* es ya corriente entre escritores de la prensa nacionalista, pero no se encuentra en la revista de Azkue *Euskaltzale*, donde sí parecen *aiterri, asaberri* y, sobre todo, *jaioterri*. En 1919 Altube (*Eusk* 1919-20, 51) incluye *aberri* entre los neologismos que, por haber alcanzado ya cierta extensión, han de ser aceptados. En *DFrec* hay 180 ejs. de *aberri*, de ellos 4 septentrionales".
HLEH: "**aberri** iz. (1896). H. b. Sorterria, berezk. naziotzat hartzen denean".

[46] *DVEF*: "**Sorterri** (AN-b, BN-ald), **sortherri** (L), patria, pueblo de origen : *patrie, pays d'origine*. ATZERRI HAUTAN ALFERRIK DOHAZI GURE SOTHERRIRAKO AUHENAK, en este pueblo extraño se pierden inútilmente nuestros suspiros por la patria, *nous soupirs vers la patrie s'exhalent en vain sur ces rives étrangères*. (Duv. *ms.*)".
B-LM: "*sorterri*, pueblo natal".

[47] *DVEF*: "**Jayoterri** (B, G), pueblo natal, *village natal*".
Bitxia da, Azkuek aldatzen duen esanahi bereko beste hiztegi-sarreran irakur daitekeena:
"**Jayotari** (B, G), pueblo natal, *village natal*. ETA IL ZAN ARAN BERE AITA TARE BAIÑO LENAGO, BERE JAYOTERRIAN : y murió Arán antes que su padre Tare en su pueblo natal : *et Aran mourut avant Tharé, son père, au lieu de sa naissence*. (Ur. *Gen.* xi-28)". (Beltz gurea)
Non dago pasarte horretan, *jayotarrik*?
B-LM-ek, *jaioterri* ez baina *jaitegin* biltzen du esanahia: "*jaitegi* (*jayo-tegi*), lugar de nacimiento".
HLEH: "**jaioterri** iz. (1847; *iaiat herri* 1636, *jaiterri*, 1759)".

[48] *DVEF*-ek ez dakar.
B-LM: "*gabeukatz*, (de *gau-egun-atz*) reloj".
HLEH: "**gabeukatz** iz. (1912). H. b. (G. er.). Erlojua".

[49] *DVEF*-ek ez dakar.
B-LM: "*jaupari* (de *jaun-opa-ari*), sacerdote, presbítero".
HLEH: "**jauparl** iz. (1897). H. b. (G. er.). Apaiza, meza-emailea".

[50] "Atsedenaren eliz, zutoiz bete,
osto-piño ta izar izunak abe
ta i bertan oianeko yaupaleme...". "Baso itzal", "Urte-giroak ene begian" (Lizardi 1956$_2$:104).
Lirika-gizonari eskainiriko kapituluan esan bezala, Mixelenak berariaz apenas dio ezer beziekorik Lizardiren hizkuntz jokamoldeez. Alabaina, hemengo *yaupaleme*ren ondoan, *barano, arnari* eta *-tu* partizipio-markarik gabeak... darabiltza, besteak beste, olerkariak.

Hau da, garbizaleen beste alderdi honen arabera, hutsetik sortuz ez baina, euskal oinarriak ibilbide berrietarik abiaraziz eratu dituzte "zahar garbiak edo garbi ustekoak".

Halakotzat dauzka Mitxelenak bi modutakoak:

- "gaizki sortuak", hau da, euskal hitz-sorbidearen legeei atxikitzen ez zaizkionak, eratorbidearen edo elkarketaren ohiko bideetarik urruntzen direlako, hala nola, *Euskaltzaindia*[51].

- "gaizki erabiliak", hots, hitzari ez dagokion esanahiaz. Esate baterako, *oben*[52], Gasteiztik zabaldua; 'bekatua' ez baina 'kulpa', 'errua', esan nahi baitu.

E. Oso bazterreko erabileremua duten hitzei lehentasuna eman ohi zaie, euskal literatura osoan "ia esaldi oro" erabiltzen direnez atzenduz, bitxi haiek garbiago edo direlakoan:

adei[53] eta *dedu*[54] (eta *jeben*[55], *ziape*[56]-ren lekuan?) har ditzaket Olabidegandik. (1984b:39).

---

[51] Ikus gure azterlanean atzizki honen inguruan dioguna.

[52] Azkuek honela aldatzen du:

"**OBEN** : 1° (B), decaimiento, *déchéance*. PEKATURA OBENDU TA MAKURTUA, decaído é inclinado al pecado, *déchu et incliné au péché*. (Ur. *Maiatz*. 144-19) - 2° (AN-b-oy, B,..., BN-s, G, R), **hoben** (BN-ald), vicio, defecto, culpa: *vice, défaut, faute*. ORDEA ENEAK DIRA FALTAK, ENEA DA HOBENA: empero son mías las faltas, mía es la culpa: *toutefois les fautes en sont á moi, je suis le coupable*. (Ax. 3ª-XIII-11.) ETZINITUZTEN EGUNDAINO KONDENATUKO OBENIK GABEAK, jamás condenarías á los inocentes, *vous n'auriez jamais condamné des innocents*. (Ur. *Math*. XII-7) - 3° (B-oñ), daño, molestia: *tort, dérangement, ennui*. - 4° (B, G), condescendencia, *condescendance*. -5° (B-ar), quiebra, *déconfiture*. - 6° (c,...), (lo) mejor, *(le) meilleur*. (Contr. de OBEREN)".

Garbi dago, beraz, Gasteizko dotrinagileak ez zirela Azkuerenean oinarritu.

HLEH: "**hoben**. iz. (1617, *(h)ogen* 1545) **1.** *Ipar*. Hutsa, errua (...) **2.** (1545?; °1745, 1897) *A. b.* (G. g. er.). Bekatua".

Guztiz zuzen al dabil Mitxelena hitz honen esanahiari dagokionez?

"No parece inverosímil que en Dechepare al menos en un verso *ogen* signifique también <pecado>. Compárense los versos I,154 y I,273, que sólo difieren en que en uno leemos *oguen* y en el otro *beqhatu*". (Altuna 1979b:144).

"OGUEN oro publicoqui aguerturen orduyan". (I,154).

"BEQHATU oro publicoqui aguerico orduyan". (I,273).

[53] *DVEF*: "**ADEI** (BN-baig), deferencia, *déférence*. ADEI EKARRI, dar el primer paso para hacer paces, *faire le premier pas pour se réconcilier*".

OEH: "**adei** (BN-baig ap. A). ♦**1.** Deferencia, <*Adei ekarri*, dar el primer paso para hacer paces> A. <Cortesanía, cortesía, decoro, deferencia> BeraLzM. ■ *Tr.* La antigüedad de *adei*, por no hablar de su origen (probablemente románico) es muy dudosa. Se trata, sin duda, de un término local, mal testimoniado, que Azkue y sobre todo sus seguidores (Olabide y su escuela, etc.), basándose en la ecuación *adei = gracia*, extendieron con compuestos y derivados, **que curiosamente, no han sido rechazados por los *contras* recientes**". (Azken beltz. gurea).

HLEH: "**adei.** iz. (°1905, 1932). **1.** Norbaitenganako begirune edo onginahia (...) **2.** (1931). *G. g. er.* (Zeruko) grazia".

Bazterreko oharrioa, *HLEH*-ko "1932" hori, Lizardiren *Biotz begietan*i dagokio.

[54] Azkueren hiztegian hau ere:

"**DEDU** (B-i-ond), honra, decoro: *honneur, dignité*".

HLEH: "**dedu.** iz. (°1905, 1921; 191? "zintzotasun"). *G. g. er.* Ohorea".

Azken jokamolde honek iturburua Azkuegandik hagitz urruti ez duela esan daitekeela dirudi.

Laugarren kapituluan azalera eramanek bere isla dute hemen puntuz puntu adierazietan. Hau da, urtetan zehar Mitxelenak beste euskal idazleen lanetan bezturiko hizkuntz aztura gaiztoen laburbildumatzat jo daiteke egin berri duena.

Gaitz haienak egin du, horregatik, eta oraingo arriskubideak Mitxelenak beste nonbait ikusten ditu: arestian, azken hogeita bost urteak ahotan hartu dituenean adierazietan, hain zuzen ere.

Alabaina, badirudi Mitxelenak bi jokamoldeen artean nolabaiteko uztardura ikusten duela:

> Laburzkiago saiatuko naiz gure arazoak zertan diren kontatzen, aipatu puntuetan lehenbizi. Nekez antzemango baitieke inork gure orduko susmoei, hartu genituen sendagai eta sendabideei, oraingo egoerak kanpoko oinarririk ez balu. (1984b:39).

Alegia, lehengoen egitateek -zein ere beztekoak ziren- bazutela oinarririk, etor zitekeenaren beldur izateko arrazoirik edo, ez ote den esaten ari pentsa daiteke.

Oraingo egoeraren iturburua, egun Mitxelenak ikusten dituen beztekoena, euskaratik landa dago, bestela ezin adi daiteke beheraxeago aldatu eta jipoitu baino areago egingo duen makina bat aldrebeskeria. Garbizaleek, antza, aztiatua zuten halako zerbait etor zitekeela eta, zeharo beste muturrera jota aurkitu zuten sendabidea -sendabide, esan bezala, desegokia-, igertzen zutelako zein zulo beltzean, erdararen atzaparretan, eror zitezkeen.

Beraz, alde honetatik, buruzpide edo susmoen mailan, badirudi orainak arrazoia eman diela garbizale haiei.

Oraingo arazoak non eta zertan ikusten dituen kontu emateko, lehen garbizaleez aritzeko erabili duen prozedura berberaz baliatzen da Mitxelena.

a) Mitxelenak **A.** puntuan azalera eraman badu lehengo jendearen ustea ("dena genekiela uste genuen, gero eta hobeto genbiltzala"), eta uste horren ustela agerira eraman, orain ere, "gero eta hobeto goazela" altortzen du ironia betez.

---

[55] Hau ez dakarte ez Azkuek, ez *B-LM-ek*, bai, ordea, P. Mujikak hiztegi-sarrera bitan:
"**JEBEN** = 1. mostaza.
JEBEN (**veben**) = mostaza ajenabe, jenabe".
HLEH-k ere ez dakar.

[56] *DVEF*: "**Ziape**: 1º (AN, G, Añ. *ms*, BN-s, R-bid), mostaza, *moutarde*. (D. lat. *sinapis?*.) - 2º (B-i), cierto arbusto, *certain arbuste*. ZIAPEA EGUR GOGORRENA DA. OIN DA ERDI GOIERAKOA, MAIŁUKIEN BESTEKO GARAU ZURIDUNA, TŜALUPAK GARBITUTEKO EROATEN DABENA: es el leño más duro, de pie y medio de alto, tiene granos blancos tan grandes como fresas, lo llevan (los pescadores) para limpiar las lanchas; *c'est le bois le plus dur, d'un pied et demi de haut; il a des grains blancs aussi gros que des fraises, (les pêcheurs) l'emploient pour nettoyer les barques*".

Lehengoen hutsa zaharragoak mesprezatu eta saihestea zen, oraingoena ere ez da samurragoa. Itxuraz kontrako diren jokamolde bien sustraian, arazo berbera datza: atzera begiratu gogo-eza, "zubigintzan" aritu nahi ez izatea.

Areago, orain, "graduz igo egin gara"[57], lehen "idazleak" baitziren eta, orain, berriz, "literatoak".

Salaketa honen atzean izkutatzen dena jakingo bada, ikurritz bakoitzak, "idazlek" batetik eta "literatok" bestetik ordezkatzen duena argitu behar.

Bi auzi direla hor tarteko uste dugu, batetik, euskal moldezko mintzamoldean literaturatzat zer jo behar ote den ukitzen duena, (ia) etengabeko auzi-iturria[58], eta bestetik, idazle / literato hitz-aukera zehatza, literatura ederrik sortzen ez duen eta hala egiten duenaren arteko muga ezartzeko[59].

Mitxelenak ez du onartzen halakorik: "arraioak ez baitu!" ozen batez burutzen du pasartea.

Lehen berdingaian, beraz, ez dirudi larregi aurreratu denik garbizaleen garaitik honantz.

b) "Axaleko garbizaleen" jokamoldea zen auzitan puntu honen parekoan, hots, hizteg1an erdal usainik zerion ezeri muzin egitea.

Oraingoengan ez da jokabide hori kausitzen ahal, "ez hitzetan, ez mintza-moldeetan", erabat bestaldera jotzen delako: *lokuzio*[60], *olbido*[61] (*adiguritasun*[62] "berba zantarraren"

---

57 "Bajatu gera graduan,
lengo egunak goguan,
gustora giñan orduan;
bertso berriak jartzera nua
euskeraz eta klaruan;
pasiak dauzkit buruan,
jakin ditzaten munduan,
komeni diran moduan". "Bertso Berriak Senpelarrek jarriak: "Bajatu gera graduan" (Xenpelar, Zavala 1965:231).

58 Mitxelenak berariaz jorratzen duena (1981a, 1981b).

59 "Hala, izkribu hizkera hutsa behar zuena literatur hizkera egin dugu eziaren ezinez, idazleak idazkari egin dira (Arestik eskritorea eta idazlea bereizten zituen). Euskara literarioa, Barthesi jarraikiz, *idazkera zuria* da, kolorerik gabekoa, baina *zurikeriazko zuria* ere bai, falsoa, guztiekikoa, konpromisorik gabekoa... Bere euskalkia menderatzen duen idazlerik ba al dago? Gaur egungo literatoak dialekto beharrik ez du, euskara batuak «dohan ematen dizkion» posibilitateekin konformatzen da, bestenik gabe (...) Literatoen hizkera konformista honek euskal irakurlea frustratu du (...) Ordea, inork jaso behar baldin badu euskara batua literaturarako euskarara, literatoa da: berari dagokio, eta ez besteri, euskararen izendatzen ahalmena indartzea, bera bata euskararen plazerra eta trajedia osotasunean bizitzen duen bakarra: euskara batuaren neutralitatearen kontra egon behar genuke literatook". (Izagirre 1981:XXIII).

"Erdia baino dezente gehiago literatura zen, ia idazle guztiak literatoak ziren, eta horrek berez markatu zuen aldizkariaren karakterra". (Landa 1983:35).

"Era berean, ez dezagun ahantz orduko literatur kritiko ofiziala zen K. Mitxelena hizkuntzalaria zela batik bat, eta ez literato (haren kritikak ere halakoak ziren)". (Landa 1983:58).

Gure ustez (okerrez, menturaz), bigarren lanean bereziki aurkezten den ikusmoldean eta pasarte adigarri bietan erabiltzen den hitzean kausitzen da Mitxelenaren haserrearen funtsa.

60 Argitaraldi-paratzaileak oin-oharrean argitu bezala, 1981ean Koldo Izagirrek *Euskal lokuzioak* izeneko lana plazara zuen.

ondoan):

> Xenpelarrek ere, bizi baitz, ikasiko luke, J. R. Ewingen ahotik, tratuak ez direla *egiten*, harako Hernaniko hura bezala[63], *itxi* baizik. *Ez America septentrionali* (**gaztelania bitarteko dela**) *lux*. (1984b:40). (Beltz. gurea)

Hortxe datza arazoaren muina, bitarteko den hizkuntzan, gaztelanian, hain zuzen ere, erdarakadak sartu ez eze, euskaraz bestela esaten ziren (eta diren) hitz, nahiz mintzamoldeak, haren irudira itxuraldatzen arritzean.

c) Lehengo hirugarren puntuan, errorik gabeko sorkariak zituen ahotan. Orain ere bada haren antzeko zerbaiten aztarnarik: *Alde zaharra, Orereta...*, euskaldunen artean erroturik dauden *Parte zaharra, Errenteria...* deizioen ordez.

Besterik sartzeko aukera ere ez du galtzen Mitxelenak, deizio- edo hitz-kontuetatik harantzago doana: *-(e)ko* eta *-(r)en* atzizkien arteko nahastea[64], hau da, *Herriko enparantza* ez da *Herriaren (Populuaren)* enparantzaren baliokidea, biak euskaraz zilegi izanagatik.

d) Gaizki sortuak eta gaizki erabiliak ziren **b.** puntuan auzipetuak; halaber, kide gaurkotua duen **d.** honetan bilduak.

*Erail*eren zatikatze okerrekoaren ume dela *erail* jakintzat dauka Mitxelenak, *hil* edo *ero, erho, eho* izan da eta euskaldunek egitate hori adierazteko erabili ohi duten eta darabilten hitza:

> Berriagoek, ordea, sabindarrengana itzuliz, *erail* esan (olhukarien bitartez) eta idazten dute, maizegi zoritxarrez. *Erailketak*, berriz, topaketak bezain ugariak ditugu. (1984b:40).

---

[61] Honakoak salatu nahi ote ditu Mitxelenak?:

"Historiatxo honetan falta dira izen batzu, baina zabarkeriaz edota olbidoz batez ere. Inor ez bada ageri hala errazi diodalako izango da eta ez beste arrazoiengatik". (Landa 1983:8).

"Baina errealitatea da Etxanizen poemagintza oso mata apal batetan geldi'tu dela, olbido merkean, eta gaur egun haren poemak irakurrita konturatzenago gara zein tamainako injustizia den norixe". (Landa 1983:49).

[62] *ediguri* bai, baina *ediguritasunik* ez dugu eskuztatu hiztegietan kausitu ahal izan. Ez eta –itzuri ezean– Landaren lanean ere.

[63]
"Ostegun joan danian
amabost Ernani'ñ
betroiaren tratua
genduen egiñ". "Bertso berriyak (Betroiarenak)" (Xenpelar, Zavala 1969:295).

[64] Beherago aztertuko dugun "Eratorbidea eta deklinabidea" (1986c) artikuluan autu izango duena, hain zuzen ere.

Egoeraren bitxia, sabindarrenak uxatu gogo eta, haien bidetik dabiltza berriagoak.

Mitxelenaren gaitzeriko honetan besterik ere badela susma daiteke[65]. Ez ote da *erail*en gainekoen ondoan, *-keta* eratorratzizkiaren desmasia salatzen ari?

e) Olabidegandikako *adei* eta *dedu*, besteak beste, aldatu ditu, bazterreko bitxikeria bila ibili ohi zirenen jarrera bezteko.

Orpoz orpo jartzekorik badu egungo euskararen iturritik edanez: *ertain* da hitza. Honek ere, Mitxelenaren ustez, beste haien samaldan sartu ahal izateko eskakizuna betetzen du, "Bizkaian nonbait erabiltzen omen den eta Erkiagak behin bederen idatzi zuen hitz ezezaguna" da eta, batetik, eta gainera, euskara komunean ordezkorik baduena (*bitarteko*). Agirregandik hartzen duen testigutzak erakusten duen bezala.

Ikusi da, garbizaleei arrazoiz beztuek, puntuz puntuko eta erabateko ispilua dutela azken hogeita bost urteetako euskaran kausitzen dituenetan. Badirudi, beraz, ez dela gehiegi ikasi lehengoen makur iritzien bizkarretik. Gauzak honela, ulertzekoa da Mitxelenaren erresumina eta testuari darion ironia mina:

> Ez nau asetzen, are gutxiago asebetetzen, egunotako euskararen egoerak: eta hizkuntzaz, zenbait egituraren jabe den sistima den aldetik ari naiz hemen, eta ez (axola gehiago duen) jendeak egiten dion harreraren aldetik. (1984b:41).

Euskararen egoerak, daraman bilakabideak artegatzen du Mitxelena, izan ere, hizkuntza, "zenbait egituraren jabe den sistima" bada, sistema hori arriskutsuki itxuraldatzen ari dela ikusten du, lehengo egituretatik gero eta urruntzenago, eta itxuraldatze-urruntzeek etorki garbia dute:

> Hona larritasunaren sustraia: euskara, mendeko ikusten dut, gero eta mendekoago erdararen. Eta gure artean ez ditugu aurrez aurre *euskara / erdarak*, *euskara / erdara* baizik. Guretzat, zinetan eta benetan, erdara, beste zerbait bezala, *no hay más que una*. (1984b:41).

Mendekotasuna, alde bakarreko mendekotasuna da euskararen egitura-sistemak arriskutan jartzen dituena, gertatzen ari dena baita - erdal esapidean amagatik esan ohi den bezala-, gaztelania beste artekaririk ez dagoela. Bistakoa da, hizkuntza aldetikakoez gain -arestiko artikuluetan ere azpimarratuaren ildotik- honek beste kalterik ere berarekin dakarrela: mugaz bi aldeetako euskaldunak gero eta aldenduago ibiltzea.

Bestek euskararen egoerarentzako izena ezarria du, *diglosia* da ondoezaren deizioa. Mitxelenak itxuraz baino ez du onartzen izendapen hori:

---

[65] Hizkuntzaren aldetikako soilez ari gara. Politika-giroarekin ikuskizunik izan dezaketenak saihestuz.

Diglosia, da ahoa bete belarrietaratzen diguten deadarra, eta nik ere *diglosia* diot. Dena den, menderen mende iraun du euskarak, diglosia hori gora-behera eta iraun du jendearen ahoan, izkribuz ez bazen ere, hori izan delako lehen hizkuntza, beste guztien parean "gurea", ez "gureena". Hain beharrezko ez ziren gauzetarako idazteko, adibidez zeuden gainetik edo sakonki ezagutzen genituen erdarak. (1984b:41).

Ezagun du Mitxelenak ez duela begiko Ferguson-en[66] terminoaz egun eta hemen egiten den erabilera, ez bide du uste, bestela esan, euskararen egoera eta delako terminoa uztarkide egokiegiak direnik.

Bai baitirudi hitza ahotan dutenek, eritasunaren izena asmatzearekin aski dutela, sendabidea termino-erreitze soilak ekarriko bailuen, beheragoko eta goragokoetan

---

[66] "Si no me engaña la memoria, cuando CH. A. FERGUSON lanzó el término, se refería en lo fundamental al caso en que en un determinado dominio lingüístico se emplean dos variedades, que pueden ser muy distintas, de algo que es sentido como la misma lengua: árabe literal y vulgar (pero no árabe de una u otra clase y bereber), griego popular y *katharéousa*, latín y romance durante algunos siglos de la Edad Media, *Bühnensprache* y suizo-alemán, etc. Pero la elaboración ha seguido después caminos muy distintos y esta interpretación puede tomarse, si se quiere, como un caso límite: aquel en que las variedades en contacto muestran un mínimo de divergencia ya que, al menos en intención, no son más que dos caras de una misma realidad". (1978j, *LH*:196).

"'Diglosia' es un término que ha alcanzado una merecida difusión, y que por cierto hace furor por estas latitudes durante los últimos años. Ahora bien, a esa palabra, como a cualquier otra, se le puede dar el contenido que se desee, siempre que no se haga caer en confusión. Admitido esto, pienso, sin embargo, que el valor que FERGUSON le atribuyó en su artículo germinal de 1959 merece ser retenido con esa denominación o con otra: los niveles no son dos variedades lingüísticas cualesquiera, ni son tan siquiera variedades ligadas entre sí por el parentesco genético. Se trata de aspectos de algo que es «sentido» (y esto, aunque sea difícil de definir, es fácil de comprender para cualquiera que ha vivido esa vivencia) como una sola y misma lengua, bajo accidentes diversos. Una de las ilustraciones que adujo FERGUSON, y creo que la más importante, es el caso del árabe, cuya forma «elevada» es llamada *literal*, que alude de manera inconfundible a la escritura unitaria, que a menudo puede unir lo que separa la pronunciación desde Marruecos hasta el Iraq. Ahora bien, por frágil que sea el concepto de distancia entre dos variedades (la inteligibilidad mutua tiene mucho de subjetivo y de mudable, entre primer encuentro y contacto más prolongado, y no parece haberse llegado a un sistema generalmente aceptado de cuantificar las divergencias), no deja a pesar de ello de constituir una realidad que contribuye a explicar por qué, por ej., el romance echó a andar por escrito sin andaderas antes en el norte de la Galia que en Italia.

Volviendo a nuestro tema, **la lengua vasca no ha alcanzado en época histórica a diversificarse hasta el punto de especiación**". (1982b, *LH*:215). (Beltz. gurea)

"Fergusonek ez zekien ongi zer gerta zitekeen hedatu zuen «diglosia» hizarekin eta hitzak azaltzen edo estaltzen duen gogoetarekin: ezin asma zezakeen, leherrenak [Jat. *lerrenak*] eginik ere, hortik sortuko zela euskarak dituen eta izan dituen nolanahiko gaitzen argibidea. Diglosiak joa dagoen egoeran, ez zaio orain beheko maila baizik antortzen gure hizkuntzari. Beldur naiz, haatik, ez ote ziren gauzak bestela gertatzen gurean, ez bataiteke izan azpiko eta morrontzako hizkuntzarik mendez-mende iraungo duenik gureak bezala". (1983a:49).

"El término 'diglosia' fue introducido en la literatura de la sociolingüística inglesa por Charles Ferguson (1959), con el fin de describir situaciones como las encontradas en Grecia, el mundo de lengua árabe en general, la parte germanófona de Suiza, y la isla de Haití. En todas estas sociedades existen dos variedades, suficientemente distintas para el profano como para ser consideradas lenguas diferentes, siendo utilizada una de ellas sólo en acontecimientos públicos y formales, mientras que la otra forma es usada por todo el mundo en las circunstancias diarias y normales. La definición que Ferguson da de diglosia es la siguiente:

> Diglosia es una situación lingüística relativamente estable en la que, además de los dialectos primarios de la lengua (que puede incluir un estándar o estándares regionales), existe una variedad superpuesta, muy divergente y altamente codificada (a menudo gramaticalmente más compleja), vehículo de un *corpus* extenso y respetable de literatura escrita, bien de una época anterior, bien de otra comunidad lingüística, que es extensamente aprendida en la educación formal y que es utilizada en la mayoría de sus funciones formales escritas y habladas, pero que no es utilizada por ningún sector de la comunidad en la conversación ordinaria". (Hudson 1981:64).

Nolanahi ere, Ferguson-en hastapenetako definizio hau hedatzearen aldeztalerik ez da falta, hala nola, Fishman, bi hizkuntzen arteko harremanez arritzeko.

sakontzeko.

Mitxelenak, egungo egoeraren nahiago bide duen hitzez esan, mendekotasunaren arrazoiak argitzeko premia ikusten du, horretarako, atzera jotzea ezinbestekoa izanik. Aspaldiko erroak ditu zori gaiztoko mendeko izateak, beraz, eta horiek argitu ezean, nekez idoroko da erremedio egokirik.

Mitxelenaren ustez, euskararen iraupenak, ahozko iraupenak, erakusten du behialako euskaldunek lehen hizkuntza zuten harekin beharrezko zituzten gauzentzat aski zutela, horren premiazko ez zutenerako, idazteko, zerabiltzatela erdarak. Eta horrek ez ziola euskarari halako kalte larririk ekarri aditu behar bide da, hurrengo pasartetik aurrera, benetako kaltea argitzeari ekingo baitio.

Euskararentzat kaltegarri aurkezten duen lehen gertaria, euskaldunek euskara landu beharrik ez ikustean datza; ez ziren hizkuntza gaitzen eta trebatzen ahalegindu, etorkizuneko larrialdirik aztiatzen ez zuten eta. Mendekotasunaren arraizak, ordea, agertzen hasiak ziren, mugaldean hasieran.

Garaiko predikarien jokamoldeetan, hizkuntz aukera zehatzetan nabari du Mitxelenak plazaratzen ari den aburuaren irozgarri sendoa.

Izan ere, bi garaikideren dotrinak hartuz, Ernialdeko erretore gipuzkoarrarena (1739)[67] eta Elizalde jesuita nafarrarena (1735), eta elkarren ondoan paratuz, lehen begiratuan ikus daiteke, lehenak halako erdarakada larririk erabiltzeko beharrik sumatzen ez duen bitartean (*beti*), mugaldeko nafarrak, *perpetuamente* bezalako premiarik gabeko erdarazkoa sartzen duela.

Mitxelenak ez du uste bikoiztasun hau entzulearen ulerterraztasunaren mesedetan egina denik, predikariagan dago iltzea. Gipuzkoarrak ez du entzulearen aurrean bere jakinduria erakusteko saio nabarmenik egiteko beharrik ikusten.

> Nafarrak, ordea, bere jakinduria erakutsi behar zuen eta ongi zekien horretarako egokiagoa zela erdara euskara baino. Nahiz entzuleen kaltetan izan. (1984b:42).

Kontua da, beraz, gauza dotore-goitarrak adierazteko, ulerterraztasuna baino akuilari irmoagoa dela nork bere burua besteren aurrean "jantzi", "landu" erakusteko gogoa, eta erakuskizun horretarako mintzabide "egokia" ez da egunoroko etxaldeko euskara, erdara goititua baizik.

Okerrago dena, Mitxelenak ez du uste hizkuntz mailen araberako hizkuntz hautaera hau amaitutzat eman behar denik, orain-orain ikusmolde hori barrunbean itsatsia dagoelako aztarrenik ("harlauza horrek zapalduxe gauzka") ez da falta eta.

"Zorioneko diglosiaren" atzaparretan dakus Mitxelenak euskal gizartea eta zail ikusten du indar bortitz horretaz libratzea; hori erakusten duen adigarririk aski ikusten du inguruan. Bi kasu aldatzen ditu paperera, berriagoa bata, aspaldikoagoa, bestea.

---

[67] Irazustaren dotrinaren argitaraurtea Villasantek (1979$_2$:122) (1742) ematen du.

Mitxelenak "beti gogoko izan duen" Saizarbitoriaren eleberri batean[68] eta Agirre Asteasukoarenean, gertari kezkagarri bera ikusten du; bietan, izan ere, euskal testuak erdal pasartez zintaturik doaz, zein bere helburuaren kariaz. Berriagoari goretsi zaion "jokoaren abilezian" Mitxelenak beste zerbaiten itzala ikusten du, mendekotasunarena, alegia:

> Horrelakoak gizartean gertatzen dira, jendartean, elkarrekiko tratuan. Agerkari horiek ez dira seinale pozgarriegiak izaten, gaitz ezkutuaren adierazgarri izan daitezkeen aldetik. Okerragoa, haatik, bi hizkuntzen borroka hizkuntzaren barrunbean (hots, hiztunaren gogoan) sortzen denean, bitarik bat gero eta nagusiago nabarmentzen delarik. Horixe baita, nik uste, gure kasua. (1984b:43).

Gizarte mailan nabari den zerbait dakar argira Mitxelenak. Entzule-irakurleagan erantzun jakin bat sorrarazi nahiak agintzen bide du igorlearen gogoan eta hizkuntz aukera egitera bultkatu, dela "errealismoaren" izenean, dela irri- eta farregarri gerta dadin nahi delako[69].

Baina diglosia-mendekotasunak beste alderdi arriskutsuagoa ere badu, jendartean ez baina, hiztunaren barrunbean bizi denean. Nork bere gogoan agintari duena ez da euskara, erdara baizik, eta maizkara oharkabean haren arabera eta haren zerbitzutan gatzatzen ditu adieraztekoak[70]. Hor dago gakoa Mitxelenarentzat eta ez euskararen gaitz guztien atzean "diglosia" ahoa bete aldarrikatzen dutenek adierazi nahi dutenean.

Arazoa ezin aurkez daiteke hiztunarengandik kanpoko bi hizkuntzen arteko indarneurtze soilean, zainak eta sustraiak hagitz sakonagoak ditu, hiztunaren gogoa bera baita tartean. Eta honek ondore larriak dakartza:

> Coseriuk "nomenklatura"[71] deritzana aurrean dugula eta egunoroko hiztegia (funtsezkoa, arruntena, usuena, premiazkoena) gero eta atzerago, galtzen ari baikara mingain-muturrean izan behar genituzkeen hitz eta esaeren prestasuna, amildegira joan gaitezke. Ezin-konponduzko matxurak sortzen eta gehitzen ari gara, gutxieneko kontuan. (1984b:43).

---

[68] *Ehun metron*, hain zuzen ere.

[69] Honen adibiderik ez falta izan da (Txomin del Regato...) ez falta da oraintsuago (ETBko "Funtzioa" edo "Ama begira zazu" teatro-saio arrakastatsuak, urrutirago gabe).

[70] Oroi Lizardigan nabarmenduaz.

[71] "Ante todo, la cuestión de las *terminologías*. Las terminologías científicas y técnicas no pertenecen al lenguaje ni, por consiguiente, a las estructuraciones léxicas del mismo modo que las «palabras usuales»: constituyen utilizaciones del lenguaje para clasificaciones diferentes (y, en principio, autónomas) de la realidad o de ciertas secciones de la realidad. En parte, las terminologías no están «estructuradas» en absoluto (son simples «**nomenclaturas**» enumerativas que corresponden a delimitaciones en los objetos) y, en la medida en que lo están, su estructuración no corresponde a las normas del lenguaje, sino a los puntos de vista y a las exigencias de las ciencias y técnicas respectivas, que se refieren a la realidad misma de las cosas (...) Pero lo importante es que se reconozca que en lo que se llama «léxico» de una lengua hay amplias secciones puramente «designativas», donde la única «estructuración» posible es la enumeración, y otras que están, sí, estructuradas, pero no desde el punto de vista del lenguaje: que hay un *léxico estructurado*, lingüístico, y un ***léxico «nomenclator» y terminológico***". (Coseriu 1981_2:96,99). (Betz. gurea).

Mitxelenak euskara okerreko ibilbidetik herrestan ikusten du, artifizio-kutsua darion zeregin jakinetako hizkuntza bilakatzen ari dela sumatzen baitu; hau da, hizkuntza bizia denak bere duen egunoroko eginkizun-harreman eta abar xume baina luzetik eta garrantzizkotik gero eta aldenduago; ahora datorren lehen hizkuntza izatetik gero eta gutxiago duena.

Hitz gutxitan esanda, behialakoen euskal sena, euskal sentiberatasuna, erremediorik gabe, galdu-hurren ikusten du, maxura konponezinak gero eta ugariagoak dira eta.

Horietakotzat jo daiteke *posible*ren nonahikotasuna[72], inon eta edonon topa daitekeena.

Labaien zaharraren liburu berrian irakurri ahal izan duen "daitekeen batasuna" hartzen du Mitxelenak ongi eginaren adigarri, gaitzesten duen *posible*ren betiko ordainen berri emateko ez ezik, korapilo sakonagoa plazaratu eta salatzeko: euskal egitura erdal egituraren mirabea da, euskal egiturak, haren ispilu eta oinatz izan behar omen duelako.

> Jakina, ez da erdaraz ohiturazko adizkiak, atzizki eta guzti, horretako zerbait adierazi nahi denean erabiltzea. (1984b 43)

Funtsean datzan arrazoia lehen adierazia da, delako diglosia barrunbean duela euskaldunak eta, jendartean aritu beharrik ez duela azaleratzeko, barrunbe sakon eta ezkutu horretan indarberritzen ari baitzaio.

Honek dakarkio nafar katiximagileari bezala, entzule-irakurleen premiarik gabe, haatik—, goitarra, apaina, dotorea "erdarari eta erdararen begira" egitea; hau da, euskara erdarakadez jostea nahiz azaleko itxura euskaldunagoan (euskaldunago ustekoan) erdara zirrituetatik sartzea, luze-labur bereko hitzak direla, molde bereko egituren bila ibiltzea dela....

> Beharrak beharra eraginda gure artean azkenaldi honetan gehien tratatzen diren gaiak izan daitezke heltzen denaren argibide. Bai, horrelatsu da, noski, baina ez da arrazoi nahikoa gainerako bideak mozteko. Tradizioz datorkigun euskara ahultzen ari da, irtenbideak itxi ahala. Zaharrak ahazturik doaz eta, hau da lehena eta azkena, emankortasuna ukatzen zaie edo bederen soiltzen antzinatik datozen era eta moldeei. (1984b 44)

Ez du Mitxelenak ukatzen maileguen premia. Artean urratu gabeko bidetik hizkuntza —euskara— abiarazi nahi izaten denean, maileguz hornitzea txuliezina gertatu ohi baita. Ezta engoitik ere beste hizkuntzetarik hartzen jarraitu beharko denik. Hornibide bakarra bailegoen jokatzea, lehengo bideak saiatzen ez ahalegintzea, honetan ari diren euskaldunei besterengandik hartu beste irtenbiderik ez gogoratzea da Mitxelena kezkatan uzten duena, "lokarri zaharra", arbasoekiko haria, listuz baitoa eta euskara ez den beste gisa bateko hizkera sortzen.

Bestek eman izan du hautaera honen arrazoirik: artikuluaren hasieratsuan Mitxelenak luman hartu duen "nazioartekotasuna" bata, eta "euskal bidez eratuak" erdarazkoen ordain zehatz eta erabatekoak ez izatea biga.rena, nagusiki.

---

[72] *Noiznahikotasun* hitzaren bidetik halakorik eratzea zilegi bada.

Mitxelenak, aitzakia eta akiakula derizte arrazoi moduko horiei, eta, arestian, "nazioartekotasunaren" atzean mendekotasuna zetzala esan duen bezala, orain, "ordaintasunaz" zer ulertzen duen argitzen du:

> "Ordaintasunari" lotuko natzaio, euskara, hizkera horretan, besteren "ordain" barik gehienbat hots, *kat'exokhén* erdara den horren ordain[73]. Daramagun martxan, laster esan beharko da, eta Euskaltzaindiak aldarrikatuko balu hobe, 1950 inguruan euskaldun guztiok euskalduntzat zeuzkaten hitzak euskal hitz direla. Ez garela, formaz eta adieraz, mailebatuen mirabe[74]. Eta aspaldidanikako euskal hitza denez gero, egokiago letorke esklabo[75], mirabe baino. (1984b:44).

"Nazioartekotasunaren" makurra agerian uzteko hitz-jokoaz baliatu bada Mitxelena, hondarrik hondarrean, "nazio bakar baten artekotasuna" zela erakutsiz, orain ere, hitzaren adierari datxeka, "ordain" deizioak estaltzen duena iruzurra dela azalera eramateko.

Ez da benetako ordaintasunik gertatzen euskara eta ERDARA-gaztelaniaren artean, ez dago baliokidetasunaz hitzegiterik; ordaina beti alde batekoa da eta, honenbestez, etengabeko iturburu eredugarritzat hartuak bere legeak ezartzen dizkio hartzaileari.

Mailegutza errazera jotzeko bi arrazoi-itxurakoak gaitzetsi ez ezik, birrindu ditu Mitxelenak; ez nazioartekotasunak ez ordaintasunak ematen du oinarririk aski euskal ernaliturrietara ez jotzeko eta —zabarkeria dela medio—, betiko iturri emankor den gaztelania erdara bakarretik ezin asez edateko.

Esandako guztiaren irudigarri, Mitxelenak berari gertatu pasadizoa pleguetaratzen du, han gertatua, orotariko ikusmolde-egoeren adigarri gardena delakoan.

Mitxelena gaztelaniaz ari zenean *unificación* eta euskaraz aritzean, berriz, *batasun* zerabilela eta, jendarteko norbaitek, bi hitzak euskal eta erdal hitzak guztizko baliokidetzat ezin jo zitezkeelako erantzuki isil-ozena egin zuen:

> Baina, euskaraz ari banaiz, zer axola zait nik hitz bakar baten bitartez adierazten dudana edozeinek uler dezakeelarik, erdarazko batez, biz ala ehunez ematen den aditzera? (1984b:44).

---

[73] Ikus aldatu (1983h:189)tikako pasartea.

[74] Eskari bera egina zuen (1983f:188) ikusi bezala. Euskaltzaindiak Bilboko bilkuran 1991.eko apirilaren 26an hartu zuen, Mitxelenak beharrezko ikusten zuen erabakia:

"Bada orduan [1959an] zenbait hitzen euskal nortasuna defendatu zuen bezala, egungo egunean beste zenbaten arroztasuna salatu nahi du Euskaltzaindiak, esanez: *Euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal hitzak*, sustraitzen ez diren bitartean bederen; eta orduan bezala nahi du irakatsi hitz baten sustraiei igortzeko hiru irizpide ditugula: alegia, hitzaren hedadura, hitzaren antzinatasuna eta hitzaren erabilera idazle zaharretan, ezen erderatikako [sic] hitzak izan daitezke noski euskal hitzak, baina horrek ez du esan nahi erdaratikako hitz guziak euskal hitz direnik (..) Ez dira euskal hitzak, *muntra, bubrel, rehen, amotinatu, frakaso, sorteo, arraba* ("Errealak oso *arraba* ona du") *erreskatatu, entzerrona*. Ez eta ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak, non baitirudi zenbait euskal telekomunikabideetako zenbait programa aditzeko bortxatzen ditugula Iparraldeko euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa". (Euskaltzaindia 1992a:11,12).

[75] *HLEH*: "**esklabo**. *iz.* (1571; *esklabu* 1562). Jopua".
"**mirabe**. *iz.* (1596). Mendekoa, zerbitzaria".

Berriz ere Mitxelenaren argudioa, erdal eta euskal egituren arteko harremana ulertzeko moduari dihoakio, izan ere, erdaraz *unificación* eta *unión* guztiz berdin ez direlako, euskarari beste hainbeste egin dezan eskatzen zaio.

Mitxelenaren ustez, ordea, euskaldunak *batasuna* aditzeko debekurik ez nahasbidera eraman dezakeen bestelako arrazoirik ez du, honenbestez bestearen bereizteko gogoa ganorabakoa da.

Eskaintzen du, halaz ere, beste litekeen ordainik (*batze, bateratze*, berak usatutakotzat aitortuak) eta eskaintza honetan, hain zuzen ere, beste auzi bat ukitzen du. Euskal hitz-sorbideei, euskal lexiko-sorkuntzari bete-betean dagokion auzia: *-t(z)e* atzizki "gutxietsiarena", hain justu.

Hizkuntza landuek ez omen dute jotzen gisa horretako gramatika-atzizkietara hitzak eratzeko.

Mitxelenak, orduan, ingelesezko zenbait adibide pleguetaratzen ditu, *-ing* atzizki bitartez eraturiko izenak dituzten idazle-pentsalari entzutetsuen lanen izenburuetan landatuak: F. Bacon-en *Advancement of Learning*, David Hume-ren *Human understanding*, I. Gelb-en *A study of writing*.

> Ea inor noizpait saiatzen den, *la problemática* eta utzita, bestetarikoak itzultzen: *self-conscious*, esate baterako, *serendipity* edo *Schadenfreude*, *Esprit de finesse* itzuli zuen norbaitek, baina horrelako gizon "xelebreen" (hori ere idatzi zuen euskaldun jakintsu batek) itzulpenak ez dira oraindik oso. (1984b:45).

Mitxelenak itzulkizun komenigarritzat dauzkanei ezinbestean erreparatu eta hauen adieraz jabetu behar da pasartearen mezua atxikiko badugu.

Gaztelaniazkoa uxatzearen eta beste erdaretarikoak itzultzearen alde agertzen da Mitxelena, batetik.

Gaztelaniazko *la problemática* hori, berriaren berriko berrikerien ordezkaritzat ez ote den hartu behar edo adi daiteke, hots, azken urteetako euskaraz, itzulkizun nagusi hartu bide den hizkera-mota baten ikurritzat.

Ingelesezko biek, hurrenez hurren, *self-conscious*[76], eta *serendipity* ilunak[77], berriz, bi motatako hitzak direla gogoeman daiteke.

Alegia, giza izakeraren ezaugarri edo nolakotasun baten adierazlea da 'herabe'

---

[76] **self-conscious** cohibido, tímido". Smith, C., *Diccionario Collins español-inglés, english-spanish*, Glasgow, Collins.

[77] Britaniar Entziklopediak honelako azalpena dakar:

"**SERENDIB**, also spelled **SERENDIP**, Arabic SARANDĪB, the island of Ceylan. The name, Arabic in origin, was recorded in use at least as early as 361 and for a time gained considerable currency in the West. It is best known to speakers of English through the word **serendipity**, invented in the 18th century by the English man of letters Horace Walpole on the inspiration of a Persian fairy tale, "The Three Princes of Serendip", whose heroes often made fortuitous discoveries by chance.

No longer used, the name Serendib is a corruption of the Sanskrit compound Simhaladv pa (Dwelling-Place-of-Lions Island). The Arabs are thought to have borrowed the name from Indians with whom they had trading contacts". *Micropaedia*, vol. 10 (1985_{15}:647).

Sanskritozko iturburu bera omen du ingeles *Ceylanek* ere. *Macropaedia* vol. 28 (1985_{15}:179).

adierazten duen lehena eta bigarrena berriz, halako iturburu exotiko eta literaturazkoa duen oraingo Sri-Lanka-ren izaera abstraktoa edo adierazten duena ("Sri-Lankatasun"? "Zeilantasun"?).

Alemanezko *Schadenfreude*[78] hitzak, berriz, "hurkoaren kalte-gaitzez poztea"[79] edo adierazten bide du; hau ere, ingelesezko lehenaren ildotik, oso gizakiari datxekon sentimendua.

Euskaratzea erdietsi omen[80] duen frantsesezkoa ere, giza jokamoldeekin hagitz uztarturiko adigaia dela ikus daiteke (finezia?, sotiltasuna?).

Ez da erraz (guri ez bederen) jakiten zer darabilen justu Mitxelenak gogoan hitzok adierazten dituenean, baina balizko ustea ematera ausartuz honakoa esango dugu.

Gure ustez, adibide hauen bitartez, Mitxelenak lan-eskaintza bikoitza egiten du. Batetik, gaztelania ez diren beste hizkuntzei ere begiratu beharra, itzulgaia beti ERDARA izan ez dadin.

Aldi berean, egungo eguneko artifizio-kutsuko hizkuntzatik, hiztegi berezitu usaingabekotik urrundu eta beste hizkuntzen egunoroko hizkuntza usura, giza sentimenduak adierazten dituenera, giza sorkari den literatur iturburua izan dezakeenera, zeinahi hizkuntzatako hiztunak bere mintzoari atera diezaiokeen sorrindarrez baliatuz eratzen dituenera, hitz batean esateko, hiztunaren prestasuna islatzen duenera jotzeko aldarrikapena ere egiten ari da erakusgarri hauen bitartez[81].

> Ez nuke nahi euskara beste hizkuntza baten (Erdararen) errainu hits bihur dadin, eta "errainu" bitara har daitekeenez[82] berehala argitzera noa zer esan nahi dudan. Guretzat, "errainua" da guztiok itsatsirik daramaguna eta harako Peter Schlemihl hark galdu omen zuena[83]. (1984b:45).

---

[78]**Scha·den|-freude** *f alegría f del mal ajeno*". J. Slabý, R. Grossmann, C. Illig, 1991$_4$. *Diccionario de las lenguas española y alemana*, Barcelona, Herder.

[79]Proposa al daiteke *kalte-poz* mendekotasunezko hitz eikartua, azterlanean ikerkizun izango ditugun *sudur hots* eta antzekoen bidetik.

[80]Saiatu bagara ere, ezin atzeman izan ditugu Mitxelenaren hitzek estaltzen dituzten bi lagun horien izenak, itzultzailearena eta kritikariarena, alegia.

[81]Ondoko honek ikuskizunik?

"El *euskaldun berri*, es decir, el que ha aprendido esa lengua como segunda (por lo menos), es cada vez más importante en la sociedad vasca, y muy en especial en los medios en que la lengua vasca es más empleada. Lejos de considerarse inferiores en este terreno a los hablantes nativos, se consideran superiores, si se me permite al expresión, porque, a diferencia de éstos, tiene ese conocimiento de la lengua que se suele llamar gramatical y además la costumbre de **expresarse en ella de materias alejadas de la cotidianeidad, comparables en principio al que tiene la gente instruida de otra lengua**, en tanto que mucho *euskaldun zahar*, vasco de primera lengua, es (casi) analfabeto en ella". (1982b, *LH*:227). (Beltz. gurea).

Lizardiren "biberoiko euskaldunen" ugaltzea aurrean izanik, kontuak ateratzen ez bide da zailegia.

[82]'argi-izpia' eta 'itzala' alegia.

[83]Britaniar Entziklopedian aurkitu dugu, berriz ere, Fausto-usaina darion pertsona honen berria:

"CHAMISSO, Adelbert von, original name Louis-Charles- Adélaïde Chamisso de Boncourt (b. Jan. 30, 1781, Château de Boncourt, Fr. -- d. Aug. 21, 1838, Berlin), one of the most gifted lyricist of the Berlin Romanticists

Hori da Mitxelenak, "daramagun martxan" ikusten duen arriskua, euskarak bere itzala galtzekoa, alegia, baldin, aurkezpenaren bukaeran berriz ere azpimarkatzen duen bezala, argibide, gidari eta beharrezko irozgarri, testuek, dokumentuek bilduak aintzakotzat hartzen ez badira.

* (1965), "Mailegu berrien idazkera", *Euskera* 2. aldia XXX, 457-459 [*MEIG* VII, 191-194]. (1985c).

Egin zitzaion eskearen erantzun den honetan[84], ohargarria da artean egin gabeko bereizkuntza egin gogo duela Mitxelenak.

Honela, maileguen idazkerari ez deritza "lege bakar-zorrotzetan" bil daitekeen a.. ia, hitzen mailan aritzean, maizkara, "bana-banako" arazoak izan ohi baitira tarteko eta gramatiken nahiz Akademien barrutietarik landakoak.

Beste argikizuna, berriz, mailegutzat zer hartu behar den finkatzeari dagokio:

> Mailegua hartzekotan ari bagara, izan ere, ez da mailegu, sartua eta hartua izan behar baiiuke horretarako. Nonnahi topa badezakegu, aspaldixko onartua dugula, mailegu izana da, baina ez mailegu, etxeko bailik, sartua eta hartua, geuretua dugulako. (1985c:191).

Goitik eta behetik zedarrituaren arabera, badirudi Mitxelenarentzat, ez euskarak eskuarki aspaldi bereganatuak eta ez hartzeko daudenak, oraindik "irentsi gabeak[85]", alegia, direla benetako mailegutzat hartu beharrak.

Erantsi gogo duen beste zertzelada, mailegu hitzaren ondoan *egoera* paratzeari dagokiona da. Izan ere, artikuluaren buruan landaturik doan idazkeraren aldetikako nahasiturria dagoeneko etxekotua denak ez baina etxekotzeko bideak sortzen du. Horregatik

---

and best remembered for the "Faust"-like fairy tale "Peter Schlemihls wundersame Geschichte" (1814; "Peter Schlemihls's Remarkable Story, 1927)

(...)

In 1814 Chamisso published the peculiar tale of Peter Schlemihl, which, more than any other work, obtained lasting recognition for its author. The story of a man who sold his shadow to the devil, it allegorized Chamisso's own political fate as a man without a country. Though rewarded with an inexhaustible purse, Schlemihl soon discovers that the lack of a shadow involves him in unexpected difficulties. He refuses, however, a subsequent offer to restore the shadow in exchange for his soul an instead, with the help of a pair of seven-league boots, wanders through the world searching for the peace of mind he had bartered away". *Micropaedia* vol. 3 (1985_{15}:70).

[84]Mitxelenak halaxe dio bostenaren ablan. *Euskera*ren ale horretan bertan zehazkiago jakin daiteke eske horren berria:

"Beste hizkuntzetarik etxekotu behar diren hitzen idazkera eta ikurrari buruz, dakizuenez, Euskaltzaindiak bi Jardunaldi eginak ditu, biak Landagoienen (...) Bigarren Jardunaldietako gaiak sailkatzeko eta oihan beltz horretan argi eglten laguntzeko, Mitxelenarengana jo nuen lehenbizi. Honen bostena Urriko batzarrean aurkeztu eta zabaldu zen. Hura oinarri harturik..." (Villasante 1985:461).

Villasantek ahotan duen hori da, egidanez, Mitxelenaren hau. Izan ere, "1984-X-25" idazteguna irakur daiteke Mitxelenaren bostenaren buruan.

[85]Azterlanean erabiliko dugun UZEiren (1982) terminologiaz baliatuz.

nahiago du *bilakaera* edo *bilakabidea* ahotan hartu, *egoera* baino.

Zehaztasun hauek badute ikuskizuna ondoren datorrenarekin, Mitxelenak garbi bereizten baititu bi jokamolde desberdin, eta hautaeraren arabera, bi bide ere proposatzen:

-kanpotikakoak izatearen seinalea agerian eraman dezaten nahi da
-hitza euskalduntzeko gogoa dago.

Lehen kasuan, Mitxelena jatorrizkoa bere horretan gordetzearen aldeko agertzen da (*vodka*, *versta* idaztearen aldeko, adibidez):

> Zilegi behar luke izan, beraz, euskaraz zein erdaraz, jatorrizko grafia gordetzea kanpotikakoa (eta berria) delarik iturburuari diogun zorra aitortzeko, besterik ez bada ere. (1985c:192).

Puntu honetan, zalantza ez bada ere, sor daiteke istilurik, beste alfabetoetatik letraldatu behar denean nagusiki, hala nola, "URSS-ekoak" edo "Txinakoak"[86] euskal moduan eman behar direnean.

Baina besteak dira, hots, itxura euskalduna izan dezaten nahi direnak, buruhausterik handienak dakartzatenak. Mitxelenak bere proposamen zehatzak egin eta egiten baditu ere[87], harrituriko azturei makurtzea hobesten du, eginak desegiten hasi beharrean:

> Geure legeak hartu genituen, edo jendeak hartuak izan dira, eta hobe genuke, premiarik gabe, ez aldatu. Hitza gureganatzean, zenbait gauza kentzen saiatzen gara (edota saiatu izan gara), beste zenbait gehitzen, beste batzu, azkenik, aldatzen. Horretakoak gertatzea hitza sartua eta hartua dagoelako seinalea da. Hobe, beraz, ohiturazko jokabide horiek gorde, salbuespenak salbu. Salbuespenek, jakinaren gainean egin direnean, badute edo izan dezakete esanahia. (1985c:193).

---

[86] Elhuyar taldeak egin berri du bere irtzi-eskaintza, munduko leku-izenak (1991) eta pertsona-izenak (1992) euskaraz nola letraldatu erakutsiz.

[87] Hala nola, *hitzak euskalduntzu ahala*, Mitxelenak azaltzen dituen ondoko laburbilduak:

-y

"Nik, neure makurrez, *i* erabiliko nuke maizago hitz hasieran, dudakoetan, *latagan*, etc., eta ez zenbait izenetan bakarrik (*lapeto*, etc.)".

-h

"Nik *h*, bakarka, bere hartan jasoko nuke, arrazoi berezirik ez baldin bada. Gure arteko etimologiberatasun horren aldamenean, edo hobeki aurrean, bereizkuntzaren alde jokatzeak balioko luke, aglan: *istoria* eta *historia*, *armonia* eta *hermonia*, eta aber".

-tz, *ts*, *tx* --> ohiturari jarraiki, ohiko testuinguruetan sartu
-n / m --> *n*, euskal moldera
-p... + *h* eta kontsonante bikoitzak --> bakundu
-kontsonante-multzoak

"Kontsonante multzoak beraz soilduko lirateke, euskaltasunak (gorde ez duen) lehengo indarra gorde balu. Neure aldetik, badira batzuek besteak baino errazagoak eta atseginagoak: cf. *primu* (eta hitz hasieran agertzen dena hitz barruan agertzen da: ez alderantziz nahi eta ez), *atriaka*, *dulabre*, *duple* (*-tl-* bakan azalduko da, ez baitzuen latinak berezkorik, are gutiago *-dl-*). Zenbait hitz ikasik (*atleta*, etc. ez dio inori beharriko nahiz begiko minik emango".

- *-pt-*, *pt-*, *-ps-*, *ps-*, *-sz-*, *-kn-*, *-mn-*...

Kontsonante bi baino gehiago direnean, murriztu, hobe.

. *sz* --> *z*
. *-xt-* --> *-st-*

Hasierako kasuistika eta erabaki erabatekoak hartu ezina ahora ditu berriz ere artikuluaren bukaeran. Mitxelenak ez du gogo maileguen idazkeraren auzi honetan halako lege zorrotzak ezartzerik:

> Aditzera eman dituzanek isuria edo gogoa baizik ez dute azaltzen: ez nituzke, neure esku banitu ere, baldintza guztiak erabat eta segituan beteko. Gutti batzuei, ordea, premiazko edo behintzat probetxuzko deritzet. (1985c:194).

Txosten hau, beraz, kezkagarri zaion mailegutzaren gaineko bi gertariren adierazgarri dela ondoriozta daiteke: hagitz mundu korapilatsua dela (sarritan, hitzez hitz ikusi beharra) eta aurrera egiteko etxekotze-bideak erakutsi behar badira ere, halako molde finko samarra erdietsi dutenean, nahastea areagotzea ez dela komeni.

Begietsi berri dugun artikulu honen ondoan, erants daiteke gaia bestelakoa duen urte bereko ondoko lanean bidenabar edo esana, zabarkeriak Mitxelena noraino artegatzen duen erakusgarri:

> Badakigu, esanez gainera, *atsotitza* XVII. mendeko hitz <berria> dela (...) baina mailegatzeko eskubidea ezker-eskuin eta zuzen-bihurri mugarik gabe geureganatua dugunez gero, ez ote dugu zilegi, emendailuz bezala, geure baitarik zer-edo-zer sortzea? (1985b:186).

* (1986), "Eratorbidea eta deklinabidea", *Euskera* 2. aldia XXXI-2, 535-541 [*SHLV*, 674-679; *MEIG* VI, 169-177]. (1986c).

Euskaraz ez eze beste hizkuntzetan ere gaizki mintzatze-idazteak inoren ahotan dabiltzala eta, Mitxelenak, makur orotariko horretan, euskarari dagozkionei bereziki erreparatuko die, horiexek izaki euskaldunarentzat kezkabiderik larriena bi arrazoigatik batez ere: begien bistako hurbiltasuna da lehena eta "sendabideak urriagoak" direlako, bestea:

> Edonon dira nabari, gurean, hutsak eta huts-gisakotzat har ditzakegunak. Hitz kontuan, aurrenik. Birtute genuen garbizaletasuna inoiz, ez hain aspaldi; orain, berriz, ezin itzurizko bidegabekeria. Badirudi, izan ere, merkeagoak, hutsalagoak, deusezagoak direla guretar frankorentzat, guztira jota, etxekoak kanpoko inongoak baino (1986c:169).

Hiztegi mailako "huts eta huts-gisakoak" artegabide dira, euskal hitz-altxorrean izan diren jazargo eta iraulkatzeak direla medio. Bestetan ere ahotan hartu duen puntu zehatz honi dagozkion bi jokamolde aurkezten ditu hor Mitxelenak: behialako garbizaletasuna eta oraingo mailegutza neurrigabea.

Mitxelenak Aldous Huxley-gandik hartzen duen iritziaren arabera, ingelesez ere ezagun

dira halako hitz-pareak[88], baliokide antzeko izanagatik, elkarren arteko alde nabarmena dutenak; esan nahi da, bietariko bat, goitar, landuagotzat dauka hiztun-idazleak bestea baino:

> *Personality* ez omen lukete hain goi-mailako gogoeten deituratzat hartuko, herriko jantziz *selfness* baleritzo. (1986c:169).

Lekukotasun honetan oin harturz, beraz, lehen begiratuan, Mitxelenak ere halako bikoteak euskaraz eratzeari hots, euskal sorbideetatik joz egina eta beste hizkuntzaren batetik mailegatu landua ez diola gaitzirizten ondoriozta liteke.

Alabaina, honen jarraian, Mitxelenak bere kabuz erantsi gogo duen alemanezko adibideari begiratzen bazaio, ondore atera berria pittin batez bederen ez ote den zehaztu eta ñabartu behar susmoa egin daiteke. Izan ere, ingelesen arestiko bikote horren aldamenean, alemanek "bide erdi, *Persönlichkeit*-ekin gelditu direla" dio.

Eta alemanezko hitz horrek erakusten duen "erdiko bidea", hitz-eratzea, bi bide uztartzean datzala ikusteak[89] hots, erro landu klasikoa alemanaren hitz-erabideetan sartuz–, aldatu adibide ingelesen bideaz besterik ere badela erakusteko ez ote duen Mitxelenak alemanezko hau emendatu pentsa daiteke.

Beste hizkuntzetarikoak plazara ostean, euskarari - zehazki esan, egungo euskararen hiztegi-erabiltze eta hornitzeari - heltzen dio, makur atzemanak agerian uztearren:

> Gure jendeak ezagutzen du (baldinbattere!) *begibakar* eta hitz hori horren gauza xumea eta ezkorra izanik ez du arlean inork *monophtalmo* esateko zaletasunik agertu, ez behintzat mordoka eta saldoka. (1986c:170).

Euskaldunak ez du, antza, euskararen moldeetara jotzea debeku adigaia hitz eratzean, "gauza xume eta ezkorra" delako edo. Areago, Mitxelenak ironiari eutsiz alboratzen dionaren arabera, itxura goitarragoa duen *monophtalmo* erabiltzeko premiarik sumatu ere ez bide du:

> Besterik da, haatik, *monolingüe*, gogoeta garai eta goitar baten adierazlea: nola etsi, horrelako "jaklunde" galetan, *begibakar*-en ereduarekin?[90] Ahoa ez litzaiguke beteko. (1986c:170).

Euskaldunak, nonbait, "gogoeta garai eta goitarrak" adierazkizun dituenean bestela

---

[88] *maternal / motherly, intoxicated / drunk, eructation / belch*, aldatzen ditu adigarri moduan.

[89] "Hibrido" direlakoen bidetik joz, alegia.
Mitxelenaren gisa honetakoak, azterlanean begietsiko dira.

[90] Berak etsi du, bada, aspaldisko gainera:
"Unamunoz kanpora ere maiz agertu izan dira munduan euskaldun asmobakarrak, "begibakar"-en antzera hitza eratzea zilegi bada". (1956a:75).

jokatzen du, eta horixe da Mitxelena salatzen ari dena.

Hau da, Mitxelena ironiaz hornituz paperera duen euskal adibide honen bitartez, euskaldunen gogoan agintea duen ezkutuko indarraz ari da berriz ere, hiztunaren barrunbean jaun eta jabe bizi den mendekotasuna, xume, xotil denarentzat euskara eta hortik gorakoentzat, bertako mintzamoldea eskas eta motz gelditzen zaiola eta, bestera jotzera behartzen duenaz.

Berezi beharra, egungo euskaldunaren gaitza izaki, nonbait, kanpotar euskaldunak euskal erabideetara joz hitza eratzeko lotsaizunik ez du eta:

> Sánchez Carrión-ek, hemen jaioa ez delako beharbada, *elebakar* darabil, *elebidun*-en harritik, lehengo *elebitza*[91] eta orainagoko *elebitasun*[92]-en inguruan. (1986c:170).

Zuzen deritza Mitxelenak, agidanez, Txepetxen jokamoldeari, hutsartea betetzeko begiak aldamenera irauli aurretik, bertara zuzendu dituelako. Zuzen irizteaz gainekorik ere egiten duela errezeloa izan daiteke:

> Badakigu *elea*[93] ez dela zeharo hizkuntza, baina aski ohiuak gaude hitzen adierekin lasaiki jostatzen. (1986c:170).

Sánchez Carrión-en hitz-hautaera zehatza litekeen egokiena izan ez bada ere, zuritzen edo bide du Mitxelenak, orotariko jokamoldea salatzearen bidez, eta hain zuzen ere, engoitik aletzen joango da, jolas lasai horren adigarriak non kausitzen dituen esanez:

> *Leguna* ez da *adiskidea*, esate baterako, hamar Euskal Telebista sortzen bazaizkigu ere baten ordez[94]. Orobat, hemen nahastea zaharragoa eta barreiatuagoa bada ere, *egurra* ez da *zura*, ezta *hanka* ere *oina*. (1986c:170).

Euskal hitzen betiko eta berezko osanahiak aldatzen ari dira. Aldakuntza hizkuntzaren bizilegea izanik ere, nahaste eta bereizkuntza-ez honetan, betiko beste hizkuntzaren itzala hagitz urruti ez dabilela ikus daiteke.

---

[91] *HLEH*: "**elebitza** iz. (1930). G. g er. Elebitasuna".

[92] *HLEH*: "**elebitasun** iz. (1977). Elebiduna denaren nolakotasuna; bi hizkuntza gertatzen diren egoera edo zerizelada".
Mitxelenak ez dio ezer hitz hauen osamoduaz.

[93] *DVEF*: "**ELE** ; (...) 2° (AN-arak-b, BN, L, R), **elhe** (BN, L, Sc), palabra, cuento: *parole, conte*".
HLEH: "**ele** iz. (1571). *Ipar. edo jas.* 1. Hitza; hizketa berriketa (...) 2. (XX.h.). A.b. (Heg jas.). Hizkuntza".

[94] Oroi beste batean ere (1984b) Euskal Telebista, zeharbidez bazen ere, ahotan hartu duela, J. R. Ewing-ek "tratuak itxi" egiten dituela eta; bietan, hizkuntz jokamoldea bezteko.

Honela, badirudi kontrako bidetik jokatzen ari dela euskal hiztegian azken urteotan. Izan ere, euskalduna, berez, apika berezi beharrik ez dutenak, leherrenak eginez bereizten saiatzen ari da eta euskaraz bereziak zirenak batzen, erdarak eginaren moldera.

Ondorea:

> Etxeko ondasunak galtzen eta ondatzen [sic] baditugu, noraezeko izango dugu gero eta aldamenekoen eskekoago bihurtzea. (1986c:170).

Eta ez dago, antza, ingelesa argudio gisa ahotan hartzerik, egoerak zeharo bestelakoak direlako; euskaldunengatik ezin baita ingelesengatik esan daitekeena esan:

> eskuzabalak izanik nonnahikoak hartzeko kontuan, ez dira estuago ematekoan. (1986c:170).

Hiztegi-gai kezkagarrien kontu eman ostean, bestetara ere begiratu beharra adierazten du Mitxelenak, euskarak daraman bilakabidean arriskugarriak ez baitira hitzen alor soilean agortzen:

> Halaz guztiz eta hiztegia hiztegi, larriago gertatzen zaizkigu arazoak istilu orapilatsuagoetan: gramatikakoetan, esaeretan eta beste hainbestetan. Aipa ditzadan zenbait gogoko ez ditudanak, eta nik baino lehenago ere euskaldunik trebeenek higuin zituztenak. Higuin zituzketenak, hobeki esan, sekula entzun nahiz irakurri izan balituzte. (1986c:170).

Hona, bada, Mitxelenari higuingarri zaizkionak, puntuz puntu:

- *-a* "atzizkiaren" kaltetan antzematen duen *bat*en desmasia da lehen puntuan zehaztua. *Bat*en gehiegiak, sustrai jakin eta ezagunak ditu:

> erdararen moduan (hemen, *nota bene*, **erdara gaztelania da**, besterik azaltzen ez denean), kontutan eduki gabe gure "artikulu" hura ez dela erdarazkoa bezain mugatzailea, lasaiago lotzen duela izena edo izen-multzoa. Horrexegatik, hain juxtu, erabiltzen dugu erdarazkoa baino aise usuago. (1986c:170). (Beltz. gurea).

- Behar ez denean, *-a* erabiltzea.

Arestikoan honen eskasia bada beztua, kasu honetan, berriz, izen (izen-multzo[95]) mugaturik onartzen ez duten aditzei, *-a* jantziz alboratzen zaizkie: *norbait alkatea izendatu,*

---

[95] Hortik gorakorik?

zerbait hautsa bihurtu[96], *hutsa gertatu*, esate baterako.

- Hitzen mailakoa da Mitxelenak salatzen duen hurrengoa. Gaztelaniaren modura, berriz ere, maskulinoa ortariko genero bailitzan erabiltzen da, euskaraz, oro har[97], egiten ez den neutralizazioa[98] edo eginez eta horretarako berezko duen "dvandva" hitz elkartu motaz atzenduz:

> Erdara gorroto izateaz gainera emaztekien aldeko purrukatu garen arren, "txoko" atsegin bat *Altonen aterpea* dei dezakegu (Pasai Sanjuan-en, adibidez, orain Pasai Donibane bihurtuan[99]), eta hori han amonak ere biltzen direlarik[100]. (1986c:171).

- *Izan / egon*

Bigarrena dabil nagusi, lehenaren kaltetan:

> *den* arbulaturik, *dagoen* baino umilagoarekin ez gara kontent geldítzen. (1986c:171).

- *da / du / dauka*

Izan aditza iragankor moduan erabili ordez, *eduki* da maizkara erabili ohi dena:

> Hor daude, *zure antza zeukan, zenbat urte dauzkazu?* edota, gramatika "hobeari" etxekirik, *zenbat urte daukazu?* (1986c:171).

Aipatu makurrari alboratu behar zaio, behiala, euskalaritzan indarra izan zuen harako, galdetzaile, zenbatzaile eta enparatuekin singularrezko komunztadura egin behar zelako uste Mitxelenak galtzetsia.

Nahastearen eragilea, gaztelaniazko *ser* eta *haber* aditzen moldera *da* eta *du* erabiltzea da Mitxelenaren ustez, hala egiten duena ez baita ohartzen, euskal aditz horiek, laguntzaile ez ezik trinko ere badirela.

Hiztegi-gramatikezko salatzea egin eta gero, berez artikulu-gaia denari heltzen dio, hots, *-(r)en* eta *-(e)ko* euskal atzizkien gaineko auziari.

Kapitulu honen autuarekin badu ikuskizunik –hein batean bederen– gai honek. Bestela ere erabilera bereizterrazegirik ez duten bi atzizkion (Mitxelenaren hemengo

---

[96]Lehengo *topikoa bihurtu*.

[97]Hala diogu, "gizona gizon delno" eta antzekoak gogoan izanik.

[98]Coseriuren (1964, 1981_2:30) lexikoaren mailako neutralizazioa, alegia.

[99](1984b) laneko "Alde zaharra" eta "Ororeta" deizioei erantsi beharra, beraz?

[100]Egun ez da neke "aitak", "osabak", "semeak" (azken hau, baita gizon ospetsuen ahotan ere) entzutea Mitxelenak bezten duen bello ortariko hori dutela.

proposamenaren arabera, erator-atzizkion) arteko saltsa eta anabasan, erdararen eskua baltabil tarteko.

Bi adibide daramatza paperera nahastea non dagoen agerian uzteko.

Lehen ere[101] ahotan hartua, bata: Mitxelenaren sorterriko plaza baten izena da erabilera galztoaren adigarria:

> Horietarik batzu hurbildik dagozkit Errenteria maitean sortu eta haziak direlako. Horrela, gure plaza nagusiari, Kontzejukoari, *Herriko enparantza* deritza, "La place du Peuple" delako sinestean, "Place de la ville" murritza baizik ez delarik. Orobat, bere eta besteren jaioterriari izena aldatu nahi diotenek "Orereta gure herriko izena da" aldarrikatzen digute. Hori bederen egia da, inondik ere: Errenteria, gure herria, sortu zen lekuari Orereta zeritzan eta egungo egunean ere bada, oker ez banabil, Orereta deritzan kalea. Bistan denez, ordea, Errenteria da gure herriaren izena eta, "La place du Peuple" eman nahi badugu aditzera, *Herriaren plaza* beharko dugu esan. Beheragokorik, ez. (1986c:171).

Hedadura zabalagokoa da bigarrena:

> Honako beste izkribu honek, Errenteriatik urruti ere luze-zabalean hedatu denak, sortu ditu eztabaida saminak, nahi adina eta gehiago, edukiari dagokionez ordea beti, ez azalari begira: *Urlia eta Sandia Galeko kitzikariak*. Honetaz, egia zor dut, zerbait galdatu dit batek baino gehiagok, baina hitzen gainean. Hitz baten gainean, hobe, delako *kitzikari* horren sustraiak jakin nahian.
>
> Aspaldi ez duela, *kitzikari*-rekin nahiz *kitzikari*-rik gabe, ilea laztu zekiokeen euskaldun oso dei zitekeen edozeini. Guztiok badakigu, arteka-marteka ahaztu egiten bazaigu ere, *-(r)en* dela atzizki zuzen bakarra horrelakoetan. (1986c:172).

Kasu bietan, *-(r)en* eta *-(e)ko* atzizkien arteko zalantzaren itzala dabil, hau da, egungo euskaldunak, sarritan bere burua noraezean ikusten du biotarik zein aukeratuko[102].

Mitxelenak uste du zenbait gertarik ikuskizun handia dutela noraez horrekin.

- Biak, deklinabide-atzizkitzat hartu ohi dira eta "genitibo" izengoiti beraren pean bildu.

- Biek badute, haatik, erator-atzizkiekin batzen duen eta aldi berean deklinabide-atzizkietatik bereizten duen "tasunik".

- Erabileran gertatzen da batipat zalantza eta honetan, badirudi, *-(e)ko* abantailaturik ikusten duela Mitxelenak. Zalantzaren iturburua, hiztunaren gogoan kokatzen du Mitxelonak, hau da, arras desberdinak sumatzen ez dituelako edo, ezpala sortzen zaio, noiz zein erabili behar duen erabakitzeko unean.

Horregatik, egin beharreko galdera, Mitxelenaren ustez, batzen dituen horren gainekoa da:

> Zerk batzen ditu, elkarrekin aipatu ohi ditugunez gero, gure ahoan eta gogoan, bi direlarik? (1986c:174).

---

[101](1964b:40).

[102]Orixegandik hartzen duen lekukotasunak ere, buruhausteak egungo egunekoak baino aspaldixeagokoak direla erakusten du: "Elizako gurasо" / "Elizaren gurasо".

Eta erantzunaren muinean, berriz ere, erdara datza. Lehen esan bezala, "genitibo / génitif" baita halakoentzako erabiltzen den izendapen bateragilea. Baina besterik ere bada:

> Kasu baten eta bestearen izena ia beti, edozein hizkuntzatan, berbera da, zein bere emendailuz berezia ager badaiteke ere. Hori aski ez baitz, itzulpen kontua izan badaiteke (itzulpen berdina baldin badute, *de* erdaraz esaterako, nola ez dute zentzu berdina izango?), maiz somatzen ditugun zalantza erabakigaitzak, eta Orixe plazara dugu lekuko, seinale nabari dira elkarren hurbiltasunaz. (1986c:174).

Bigarren arrazoiak, erdararekiko mendekotasuna erakusten du, izan ere, "itzultzea" da kontua eta hizkuntza itzulgaiaren moldeak baldintzatzen du euskarara aldatzea.
Arrazoiok, dudarik ez, euskaldunari, lehenagotik ere bizi dituen ezpaien errekai gertatzen zaizkio.

Auzi korapilatsua delako, hain zuzen ere, saiatzen da Mitxelena zeini bere erabilesparrua zedarritzen[103].

Era honetan, nahasbidean argibidea bilatzen eta beharrezko bereizkuntza egiten lagungarri izan daitezkeen lekukoak eta egiaztagarriak eskaintzen dituela Mitxelenak ondoriozta daiteke. Bestela esan, euskararen erraietan sakontzearekin batean, erdararen mendekotasunetikako ihesbidea:

> Euskalki guztietakoak dira, euskararenak, bada. Berdintsu erabiltzen dira nonnahi, eta berdinago erabiltzen ziren lehen orain baino. Aipatu ditudan bereizgarriez gainera, badute beste bat: beste atzizkiak kupidarik gabe har ditzaketela ondotik. Badirudi, beraz, ondasun horietaz ere baliatu behar genukeela. **Etxekoak ez luke mirabe izan behar beti, eta kanpotarrak nagusi.** (1986c:177). (Beltz. gurea).

---

[103] *-(r)en*: [+bizidun, -markatua]
-(e)ko: [-bizidun, +markatua], iruditara daitekeena, beta; eusezkoak (*-(r)enek*, alegia), "hitz oinarri berriak sortzeko ahalmenaz gainera, bere burua hurrenez hurren errepikatzekoa" ere baduela da, labur esan, bestea.

7.4. EUSKAL GAIZTOEN BILDUMA

Atarikoan esan bezala, hona aldatu bilduma Mitxelenak berariaz gaitziritzitako hitz, egitura eta bestek osatuko du. Esan daiteke, guztiak zahar eta berriagoak batzen dituen lokarria bera dela: erdararen itzala dabil euskal gaiztoaren atzean edo sakonean.

Egokiago iritzi diogu pasarte zabal samarrez horniturik aldatzeari, Mitxelenaren argudio-arrazoiak argiago ikus daitezkeelakoan.

Hona, bada, 1957tik 1987 bitarteko lanetarik eskuraturiko "perla- edo higuingarri-sorta":

(Galestarrek, ikusten denez, badituzte guk ez bezala beren izenak, urrutiko herri eta hirienak ere: izen jatorrak esan nahi dut, ez inork asmatuak edo antolatuak. Gure artean maiz entzuten dira izenak erdal-itxuran euskaraz ari garela: Llodio, Aramayona, Oñate, Pasajes, Salazar, Roncal, Toulouse, Burdeos, Dax, Anglet, esate baterako, Laudio, Aramaio, Oñati, Pasaia, Zaraitzu, Erronkari edo Errongari, Tolosa edo nahi baldin bada Frantziako Tolosa, Bordele, Akize eta Angelu esan beharrean. Okerragoak Donostia eta inguruetako neska-mutilek behintzat maiz esaten dituzten "**Joan da *a Paris***", "**etorri da *de Italia***" eta antzekoak). (1957k:37,38). (Beltz. gureak).

("Euskaraz" horrela mintzatuko ginateke gisa horretara: "*las diez y media* dira", "**sesenta** urte ditu". Azkenekoaren antzekorik ez du inork esaten gure artean; lehenbizikoaren antzekorik, ez naiz fio). (1957k:38). (Beltz. gurea).

(Gure ***ilea hartu, hitzaldi bat eman, eskuan musu eman, harengatik esan, siesta bota***; beste aldean, K. Bouda jaunak seinalatzen zidan ***gugandik hurbildu*** "s'approcher de nous"). (1957k:39). (Beltz. gureak).

Zein baserritan ikasi ote du, horixe nahi nuke jakin, ***kontuan erortzen*** esaten? (1970c:150). (Beltz. gurea).

Halabiz, eta ez naiz <**kategoria**>-z eztabaidan hasiko. Hauxe gehituko nuke, haatik: gaztelaniaz txukun-antzean idatzi nahi dutenek ez dute sekula *categoria* hitza adiera horretan erabiltzen, eta ez dut ikusten zergatik hartu behar duen euskarak erdal gaiztoaren kutsurik. Aristotelen, Kanten eta besteren kategorien beharrean gara; hor aipatzen direnen premian, ez erdaraz eta ez euskaraz, ni, behintzat, ez. (1972a:164). (Beltz. gurea).

Egungo egunean, badirudi herriaren aurrerakuntzaz (**promozioaz**, esan ohi denez) ari garenean, ez garela guztiok, bat baldin bagatoz ere ahoz, gauza batez ere. (1972b5:132). (Beltz. gurea).

Beldur izatekoa da, eta ez naiz txantxetan ari, ez ote dabilen hor Zatarain, nahiz besteen antioinetan egon, ***zedaharri*** edo ***mugaharri*** eta horien antzeko aldrebeskeria moldakaitzak ausarki darabiltzatenen inguruan. Ez hark eta ez hauek ez baitute ikusten, itxura duenez, eta zuzen ez banabil barka, hitz horiek diren direnean mamitu dituzten erregelen jokoa. (1979g:177). (Beltz. gureak).

Etimologiaren gose-egarri denak, eta izan da horrelakorik gure artean, egin ditzake, berezko duen lekutik ateratzen badu, egiteko diren kalteak. Hortik jaio zaizkigu ***halegia***-k, ***hazaro***-k, aipatu ditudan ***mugaharri***-ak, eta ***albanitza***-k behar ez dituen ***ahal***-ak. (1979g:185). (Beltz. gureak).

Esan dezadan, gerora gabe, egoera eskas hau ez dela euskal hitz-altxorrarena ("**kultoagoek**" "**lexikoa**" deitzen duten horrena). (1983f:187). (Beltz. gureak).

Gramatika aldetik, nolanahi ere, ongi baino hobeki gabiltza. Badakigu, behintzat, ***geniezazkizuekeen*** esaten, baldin ederki esana badago. Baita ere, gainera, ***topikoa bihurtu da***

(ze arraio bihurtu ote da "topiko" hori?) eta ***bi penike bakoitzeko***, harako zahar elbarrituek *bina* esango luketenaren ordainetan. Nori zaizkio, ordea, ardura horrelako ezerezkeriak? (1984b:29). (Beltz. gureak).

Beste moduz, ez zuen garai hartako mutilak nahiz gizonak aldameneko neskatxa nahiz emakume hazia, ezkongai adina ezkondua (barka, orain, ez dakit ze sasi-arrazoigatik, ***ezkongabe*** entzuten dena) gogoan edo/eta eskumenean zuenean erabiltzen. (1984b:32). (Beltz. gurea).

[XVIII. mendeko jendea] Txunditurik gelditu ko zen, esaterako, entzun izan balu ***Kaixo!*** dela nonnahi, nornahirekin erabiltzen den euskal diosala. Beste hainbeste, noski, irakurri izan balu ***Alajainkoa!*** *(erdaraz* egiten omen den) teatro-saio baten lituluan. Zergatik ez dute jartzen: *¡Como hay Dios!*? Ez dakitelako euskarazkoa noiz eta nola erabiltzen den; euskarazkoak zer esan nahi duen hitzez-hitz. (1984b:32). (Beltz. gureak).

Gaurkoan, ordea, "literatoak" barreatu zaizkigu gurean, "literato" oso eta biziak, arraioak ez baitu!

b) Irudi duenez, ez gaude garbizaleen artean, ez hitzetan ez mintza-moldeetan. ***Lokuzioetan***, hobe, idazle ezagun batek lituluan bertan landatu duenez, *pour épater le bourgeois* beharbada, horren izutia delakoan: ez dut gaitzez hartu ahotan "idazle" deitura, dotoreago baita edonon idazle on izan "literato" exkax baino. Bai, hori irakurri dugu, ***olbidoa*** ere bai. Gero, begien aurrean dugu, gutxien espero dugunean, ***adiguritasuna*** edo horren gisako beste berba zantarren bat. Xenpelarrek ere, bizi baitz, ikasiko luke, J. R. Ewingen ahotik, **tratuak** ez direla *egiten*, harako Hernaniko hura bezala, ***itxi*** baizik. *Ex America septentrionali* (gaztelania bitarteko dela) *lux*.

c) Donostiako alderdi bati, ezagunetan ezaguna, *Parte zaharra* deitzen genion guztiok, urtea joan eta urtea etorri, eta lasai bizi ginen, halaz ere. Orain, berriz, ***Alde zaharra***, bihurtu zaigu, mintzatzen ez den herriaren aginduz, aldameneko herri koskor bat, *Errenteria* zapuzturik, ***Ororeta*** bilakatu zaigun arabera. *Enparantza* ez genuen nahi, Arakistainen lekukotasuna gora-behera, gainerako dokumentu guztiek besterik diotelako, *plaza* baizik. Eta hitzak hizpidea ekarri duenez, ohartxo bat egin gogo nieke neure herritar bihotzekoei, ixilka bederen: ***Herriko enparantza*** ez da, euskal gramatika etsai duelako, "la Place du Peuple", "la Place de la Ville" baizik. Bestea gogoko duenak, *Herriaren enparantza* esan behar eta, nahi ez balu, *Populuarena*.

d) Aspaldi erakutsi ziguten ***erail*** analisi oker baten umea zela, eta ez besterik: *eraile* gaizki zatikatu zutenen erruz. Euskaraz, "norbaitek bestea hil" edo "norbaitek bere burua hil" *ero*, *erho* esaten zen, oraindik ere Zuberoan *eho* esaten den antzera. Hori galdu den lekuetan, berriz, guztiok dakigunez, *hil* usatzen dugu: *hil da* nahiz *hil du*. Berriagoek, ordea, sabindarrengana itzuliz, *erail* esan (oihukarien bitartez) eta idazten dute, maizegi zorrotxarrez. ***Erailketak***, berriz, topaketak bezain ugariak ditugu.

e) Esan dudana *adei* eta *dedu*-z, ez du apika ulertuko gazteagoren batek, eta ez nioke nik kulpa larririk egotziko. Bada[104], niri orobat gertatu zitzaidan delako ***ertain***-ekin, Bizkaian nonbait erabiltzen omen den eta Erkiagak behin bederen idatzi zuen hitz ezezagun horrekin. Hobe nukeen *mediano* edo esan balidate[105], erdaraz ere bai baitakit ezinbestean eta horrela esanik adituko bainuen esanahia. Adituko nukeen, gainera, Agirreren modutsuan (2, 330) adierazi balidate:

> Becaturaco beste bide, eta perilla da *bitartecoa*, au da ez osotoro *urruticoa*, eta ez *urcoa*, baicic bien artecoa.

(1984b:39,40). (Beltz. gureak).

Guretzat, *daitekeen* (eta besteak) non eta noiznahi aurkitzen dugun ***posible***-ren kide ziren; *dezakeena*-k, berriz, eta orobat aldamenekoek, "ahal izatea" adierazten zuten, diruz batez ere: *dezakeen jendea da*, *dezakeena*, etc. Galdu ote dira edota erdararen pisuak ito ote ditu? Jakina, ez da erdaraz ohiturazko adizkiak, atzizki eta guzti, horrelako zerbait adierazi nahi denean erabiltzea. (1984b:43). (Beltz. gurea).

---

[104] Jat. *ba*.

[105] Jat. *balirate*. Hurrengoa, berdin.

Egia da, ahorik zabaldu ez banuen ere, delako *unificación* goitar hori azaldu [sic][106] daitekeela euskaraz. Aski genuke, adibidez, *batze* edota nik neronek usatu izan dudan *bateratze*. Honek ere badu, ordea, bere koska: norbaitek esan omen du hizkuntza landuetan (barka, *kulto/kultu*-etan) *-te*, *-tze* bezalako gramatika-atzizki arrunt batek ordezkari hoberik eta berezirik izan ohi duela. (1984b:44). (Beltz. gurea).

Horrela, gure haurren haurrek *herriak behar zaitu* idatzi beharrean, zahar kaskailduen antzera, ***herria behar zaitu*** ipiniko dute atzeman berria dugun goragoko mailan. Ez ote da hor, *avant le mot*, harako *stadial'nost'* zelako 'doctrina berri' haren zantzurik? (1985d:82). (Beltz. gurea).

Besterik da, haatik, ***monolingüe***, gogoeta garai eta goitar baten adierazlea: nola etsi, horrelako "jakiunde" galetan, *begibakar*-en ereduarekin? Ahoa *ez* litzaiguko beteko (1986c:170). (Beltz. gurea).

Badakigu ***elea*** ez dela zeharo hizkuntza, baina aski ohituak gaude hitzen adierekin lasaiki jostatzen. ***Laguna ez da adiskidea***, esate baterako, hamar Euskal Telebista sortzen bazaizkigu ere baten ordez. Orobat, hemen nahastea zaharragoa eta barreiatuagoa bada ere, ***egurra ez da zura, ezta hanka ere oina***. (1986c:170). (Beltz. gureak).

Esate baterako, ***bat usuegi*** agertzen da, hagitz oker ez banabil, eta ***-a atzizkia bakanegi***, erdararen moduan (hemen, *nota bene*, erdara gaztelania da, besterik azaltzen ez denean), kontutan eduki gabe gure "artikulu" hura *ez* dela erdarazkoa bezain mugatzailea, lasaiago lotzen duela izena edo izen-multzoa. Horrexegatik, hain juxtu, erabiltzen dugu erdarazkoa baino aise usuago.

Mendi bat sar dezakegu, bada, eta sartzen dugu *mendia*-ren ordez. Ez, alajaina, *mendia*-ren atzizkia gogoko ez dugulako, ***norbait aikatea izendatu*** eta ***zerbait hautsa bihurtu*** nahiz ***hutsa gertatu*** esateak ez baitigu inolako minik ematen; ezta idazteak ere. Erdara gorroto izateaz gainera emaztekien aldeko purrukatu garen arren, "txoko" atsegin bat ***Altonen aterpea*** dei dezakegu (Pasai Sanjuan-en, adibidez, orain **Pasai Donibane** bihurtuan) eta hori han amonak ere biltzen direlarik.

Ez da dagoeneko inor etxean, kalean, mendian denik, ezpada harako *Arta* hura, oraindik *zeruetan dena*: hori, gainera, oraintsu arte *zeruetan zegoelarik*. Gainerakoetan, *den* arbulaturik, ***dagoen*** baino umilagorekin ez gara kontent geldirzen. Okerragoa da halere beste *izan*, iragankorra delakoarekin, gertatu ohi zaiguna. Hor daude ***zure antza zeukan, zenbat urte dauzkazu?*** edota, gramatika "hobearei" etxekirik, ***zenbat urte daukazu?*** Atzenduxe dugu aspaldidanikako ezaguera zabaldu hura: *da*, *du* eta gainerantzekoek, *ser* eta *haber*-ek ez bezala, laguntzaile izan daitezkeelarik, baduteia bestalde berezko indarra ere. (1986c:170,171). (Beltz. gureak).

Horietarik batzu hurbildik dagozkit Errenteria maitean sortu eta haziak direlako. Horrela, gure plaza nagusiari, Kontzejukoari, ***Herriko enparantza*** deritza, "La place du Peuple" delako sinestean, "Place de la ville" mumtza baizik ez delarik. Orobat, bere eta besteren jaioterriari izena aldatu nahi diotenek **"Orereta gure herriko izena da"** aldarrikatzen digute. Hori bederen egia da, inondik ere: Errenteria, gure herria, sortu zen lekuari Orereta zeritzan eta egungo egunean ere bada, oker ez banabil, Orereta deritzan kalea. Bistan denez, ordea, Errenteria da gure herri*aren* izena eta, "La place du Peuple" eman nahi badugu aditzera, *Herriaren plaza* beharko dugu esan. Beheragokorik, ez. (1986c:171). (Beltz. gurea).

Honako beste izkribu honek, Errenteriatik urruti ere luze-zabalean hedatu denak, sortu ditu eztabaida saminak, nahi adina eta gehiago, edukiari dagokionez ordea beti, ez azalari begira: ***Urlia eta Sandia Galeko kitzikariak***. Honetaz, egia zor dut, zerbait galdatu dit batek baino gehiagok, baina hitzen gainean. Hitz baten gainean, hobe, delako *kitzikari* horren sustraiak jakin nahian.

---

106. Aditza darabilgunean, beharrezkoak ditugu, gero eta gehiago, adizkiez gainera, <izenkiak> ere, hala nola *sar*, *sartu*, *sartzen*, etc. Lehenbiziko biak honelatsu erabiltzen dira bereizten dituzten lekuetan, eta usario hori bizirik zegoen, nora-ezekoa ez bezen ere, bizkaiera zaharrean: *sar bedi*, *sar diteke*, *sar dadin*, *iraul beza*, *iraul dezake*, *iraul dezan* baina *sartu da*, *sartu behar du*, eta abar. Hori da, hain zuzen batasunerako bidea, neure iritziz, baina, batasunera nahi ez dutenek ere ikas bezate, bederen, noiz kendu behar diren *-tu* eta *-i* horiek eta noiz utzi dauden daudenean. Nahasmendura goaz bestela, ez batasunera". (1968d:151).

Aspaldi ez duela, *kitzikari*-rekin nahiz *kitzikari*-rik gabe, ilea laztu zekiokeen euskaldun oso dei zitekeen edozeini. Guztiok badakigu, arteka-marteka ahaztu egiten bazaigu ere, *-(r)en* dela atzizki zuzen bakarra horrelakoetan. (1986c:172). (Beltz. gurea).

Eutezko delakoak (*eute, eun* eta *euko* ikusiak ditut, baina ez dut sekula *edute*-ren aztarrenik idoro) badu, hitz oinarri berriak sortzeko ahalmenaz gainera, bere burua hurrenez hurren errepikatzekoa ere. (1986c:175).

ARGIA: Zergatik tardatu zuen hainbeste euskal filologia estatal batek Gasteizen?
MITXELENA: Barka, ez dizut ondo ulertu, bueno, zoritxarrez uste dut ongiegi ulertu dizudala... Bai, zergatik horrenbeste berandatu zen Gasteizen jartzea hori?... Berandatu zen, tardatu ez da esaten euskaraz, joño! ea gauza[k] pixka bat zuzentzen ditugun!... Bai hori mundu guztiak esaten du, hori ez da, hori kaleko hitza da ezta? Nik ez dut uste erdal hiztegiak euskal hiztegiaren lekuan sartu behar duenik, besterik gabe. Beno, zergatik horren berandu agertu zen Gasteizen hori? (1987a:71). (Beltz. gurea).

7.5. ONDOREAK

Euskarak aurrera egingo badu, beharrezkoa du trebatzea eta aldi berriei erantzuteko egokieran izatea. Honek bi alderdi ditu: hizkuntzazkoa bata, ideien mailakoa bestea.

Euskara gaiagotzeko, ezin jarrai daiteke azken urteetan urraturiko bidetik. Errazenera jota, aldez aurretik bertako baliabideek eskain dezaketena aztertzeke, azken irtenbidea den mailegutza neurrigabea irtenbide bakarra bailitzan arituz. Mitxelena, gero eta "garbizaleago" ageri da, ingurugiroa gero eta "zabar eta mordoilo itxuragaiztokoago" begietaratzen zaiolako.

Mailegutza berez baztertzekoa ez bada ere, neurriz eta tientoz egin beharra da, zenbait ondore ekar baititzake / baitakartza. Ikurritza, "mendekotasuna" da.

Iturburu beti hizkuntza bat eta bera izateak dakartzan arriskuak agerian utzi dira:

- Bidasoaz bi aldeetariko euskaldunak urruntzea[107].
- Ebakeran, hiztegian, gramatikan, pragmatikan, lehengo euskal bideez atzendu eta pixkanaka iturburu hizkuntzarenetara makurtzea: "Lokarri zaharra" eteteko zoria.

Ideien mailan ere euskaldunak mendeko ikusten ditu Mitxelenak. Nekez erdietsiko du euskaldunak besterengandik ikasteari kontrajartzen ez zaion bere eskuko izaterik jakiniturria beti beste mintzabidezkoa bada. Ordu da, besterenak euskaraz bai baina euskaldunen baitakoak ere mundura ialgitzeko, bestela betiko mendekotasunetik ezin aterako da. Euskara noranahikotzeko, euskaldunen adimena ere noranahiko bihurtu behar da.

Kapitulu honetan bilduek argi erakusten dute, beraz, noraino kezkatzen duen Mitxelena euskaldunen joputzak eta nola mendeko izatea hizkuntzan islatzen bada ere, beste arazo larriagoaren ondoretzat daukan: euskaldunaren gogo-adimenak gero eta ERDARAren mendekoago ikustean.

Uste dugu hemen bildu-azalduak aski egokiak direla ondoren datozen tesiaren beste bi ataleranzko pasabidetzat hartzeko. Izan ere, hiztegi-izaera emango diogun hitz-bildumak batetik, eta hauetan oinarrituz mamituko dugun lexikologi azterkatzea dela medio, azaltzen saiatuko garenak bestetik, erakutsiko dute, Mitxelena, eginbeharra egokitu zaionean eginahalean aritu dela (esanez ez eze, eginez ere) euskararen sorrindarra ernaltzen, okerreko edo muturreko garbinahiak itsutu ez badu ere.

---

[107] Honakoa ondorioztatzea zilegi al da: Euskara bada Euskal Herriari izaera ematen dion lokarri bateratzailea, halakorik ez badago, zertan geldizen da Euskal Herria?

II. ATALA

8. Kapitulua: HIZTEGIAREN SARRERA

8.1. ATARIKOA

La rime est involontaire et pourtant significative : il n'y a pas de lexicographe sans gaffes. Elles sont pour ainsi dire inévitables. Je dirais presque: heureusement, car elles rattachent les lexicographes au genre humain en général. Le dictionnaire et le glossaire ont, en effet, quelque chose d'inhumain, ils font sentir une atmosphère de robot, par la présentation décousue des faites de langue, par l'atomisation de ce qui veut être cohérent. Les hommes qui font d'un dictionnaire leur livre de chevet sont rares. On ne lit pas, on le consulte. Les dictionnaires ne sont humains que par la faiblesse humaine de ceux qui les font. Eliminer toutes les bévues des dictionnaires, ce serait leur déshumanisation totale. Cela fait d'ailleurs la joie des lexicographes eux-mêmes de découvrir les erreurs de leurs confrères, ce qui ne les empêchera jamais d'en commettre d'autres qui, à leur tour, feront le délice de leurs successeurs. La tradition est garantie depuis qu'il y a lexicographie. N'oublions pourtant pas qu'il y a lieu de faire des distinctions, bien sûr. Si les erreurs s'accumulent, se systématisent pour ainsi dire, si l'on trouve dans un dictionnaire plus d'erreurs que d'indications correctes, le délice se transforme en désabusement, le lecteur se fâche, le lexicographe est proscrit par ses confrères. Les gaffes sont le piment d'un dictionnaire, mais il faut se garder d'en abuser. Même dans l'éloge de la folie il faut garder la juste mesure. Je suis sûr d'avoir Erasme de mon côté. (Baldinger 1974:81).

8.1.1. Hiztegiaren arrazoia eta hiztegi-gaia

Tesiaren bigarren atal nagusia osatuko du *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak (VI) ("Hizkuntzalaritzaz I") (MEIG VI)*, *Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak (VII) ("Hizkuntzalaritzaz II") (MEIG VII)* eta *Zenbait hitzaldi* liburukietan bilduriko Mitxelenaren artikulu-hitzaldietako lexiko-unitateen[1], hiztegi-izakien, bildumak:

Acaso no sea insensato pensar que nuestra aportación más valiosa en siglos pasados – suspendo el juicio sobre tiempos más recientes – a la constitución de un vocabulario que vaya más allá de lo puramente técnico haya consistido, al menos en razón del esfuerzo invertido, en esos intentos personales y aislados de adecuar la lengua del país para que sirviera a necesidades antes no sentidas. (1973a, *SHLV*:402).

Tesiaren hari nagusiari jarraiki, bidezko etsi da hiru liburukion hitz-altxorrean arakatu eta atondurik eskaintzea, Mitxelenaren hizkera berezituaren (teknolektoaren[2]) hiztegi-mailako testigutzarik lelalena eman dezakeelakoan.

Egia bada ere eginiko aukera murritzegi gerta daitekeela Mitxelenak mamitzen duen euskararen erabilera ikasi-landu osoaren berri eman nahi izanez gero eta, alde honetatik, lan

---

[1] Zgusta-ren (1971:23,157) *lexical unit*.

[2] "Por 'tecnolectos' o 'lenguas de especialidad' se entienden lenguajes de grupo que, desde el punto de vista lingüístico, habría que clasificar dentro de la diferenciación diastrática, pero que, por la importancia que tienen y que van adquiriendo cada día, se tratan aquí como grupo aparte (...) además de los tecnolectos, hay que tener en cuenta las terminologías que pertenecen a un tecnolecto". (Ettinger 1982:389).

oso-beteagoa zitekeela euskal lan guztien lexikola[3] ez ezik, beste hizkuntz mailen azterketa ere egitea, tesiari zedarriak jarri beharrak batetik eta erdietsi nahi den xedeak bestetik, ekarri du eremu zabalean sail bat begiz jotzea, Mitxelenaren hitzez esanez, "hiztegi orokorrek, premiazko duten mikro-hiztegia" egitea[4].

Nahiz Mitxelena hizkuntzaz, oro har, hautetsiriko hiru liburukietan bakarrik mintzatzen ez den, hiztegi-gai aukeraturiko lehen bi liburuxken kasuan, argitaraldi berriaren testu-moldatzaileek[5] ikusi duten gaiaren aldetikako batasuna hemen ere ontzat eman da, horien gaineko azterlana egitea, eremu zabalagoaren ispilu egoki eta adierazgarria izan daitekeelakoan.

Izakeraz bestelakoa izanik, *Zenbait hitzaldi* ere azterkizun hartu nahi izan da, idazlan honi muzin eginez gero, Mitxelenak hizkuntzalaritzaz bete-betean adieraziriko zati handi eta garrantzizko bat kanpoan gelditzuko litzatekeelako.

Irakasaldi-bilduma honen aitatasuna ezin albora dakioke Mitxelenari oso-osorik[6]. Halarik ere, J. A. Letamendiaren hitzetan garbi asko adierazten da Mitxelenak itzulpen osoa ikusi eta, egoki iritzi zion orrazketa egin ondoan[7], ez zuela oztopabiderik jarri plazara zedin. Areago, "Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailea" deritzan atalak, Mitxelena du ia erabateko egile.

Honenbestez, bestek bestela egin bazezakeen ere, tesigileak hirurok jo ditu begiz hiztegi-gai[8], Mitxelenagan antzeman daitekeen euskara noranahikotzeko asmo mamituen erakusgarri izan daitezen:

> El léxico técnico, en cualquier parte, ha de ser buscado donde normalmente debe encontrarse: en obras o escritos que, de alguna manera, tengan una relación directa con la técnica. (1973a, *SHLV*:404).

Hitz-altxorraren zedarrietan kokatu gogo da ikerlanaren atal hau, maila honetan ikusi uste delako beste hizkuntz mailetan baino garden eta aiseago, adigaiak hizkuntza bilakatzen saiatzen denaren islarik zuzenena; bestela esan, halabeharrez maila honi lotu beharko

---

[3] *vocabulaire* (Rey 1977b:V-39).

[4] (1976c:103).

[5] Sarasolak (1986:207) eginiko deitura-berezkuntzaren lidotik, "testu-moldatzaile" erabiliko dugu usuenik, argitaraldiezko itsaskinean axalean utziko ditugun gertariek horretaraturik.

[6] "Zorioneko *Zenbait hitzaldi* horiek ez nituen nik erdaraz idatzi. Egin erdaraz egin nituen, hala eskatu zidatelako, nahiz ondoko elkar hizketak erdaraz eta euskaraz izan ziren. Neure kabuz, ez nituen sekula argitarako, ez erdaraz ez euskaraz. Ez nien, ordea, eskatu zidaten baimenik ukatu. Letamendiari esker agertu ziren. Neronek ere, halaz guztiz, hartu nuen lanik aski, ez inoren itzulpena orrazten, baizik eta trakeski esanak zertxobait osatzen eta zuzentzen". (1975c:40).

[7] Ikus 1990eko *Zenbait hitzaldi*ren "Aurrekoen osagarri".

[8] Lehengaiaren aukera zehatzaren, eta jatorrizko testuen eta erabiliriko argitaraldien anteko aldeen berri xehea argitaraldiezko itsaskinean emango dugu.

zalolako hizkuntza bide berrietan barrena ablarazi nahi duenaren ahalegina eta eginahalaren aztarren zehatza.

Hautespen honetatik abiatuz, bada, ondokoan bilduko eta (lexikografi antolamenduak ezinbestean aurretiaz eskakizun duena izaki) aztertuko dira hizkuntzalaritza-filologiei estu-estu dagozkion idazlanetan Mitxelenak erabiliriko lexiko-unitateak.

8.1.2. Hiztegi-mota

Hiztegi-zeren bildumak, ohiko tipologian[9] itxura bat edo beste har dezake eta honen ondorioz, hiztegigintza-lan mota batean nahiz bestean koka daiteke.

Sailkapen-delturek ez dute beti, halaz ere, ikertzaileen adostasunik biltzen eta, sarritan, antzeko hitz-bildumek izendapen desberdinak izan ohi dituzte[10].

Hiztegi hau ere, beste askoren antzera, nekez baino ez daiteke kabi mota aratz batean, duen izaera nabarra dela medio.

Hizkuntza anitzeko hiztegien artean[11] (hizkuntza bikoen artean[12], batipat) erosoago koka daiteke, apika, ohiko idazle jakin baten lexikoien[13] artean baino, nahiz eta autore baten lan batzuen gainean eraikiko den.

Aspaldiko idazleen lexikoiek[14] edo izaera exegetikoa dutenek[15] ezinbesteko eskakizuna bide duten testu-kokaleku zehatzak ematea, tesiaren xede orotarikoari begira, ez

---

[9]Mounin (1965), Wagner (1967), Malkiel (1967), Quemada (1968), Rey (1965,1970,1977a,1977b), Dubois (1971), Zgusta (1971), Otero (1975), Alvar Ezquerra (1976), Guilbert (1977).

Seco-k (1934), berriz, tipologia orotarikoa bitan biltzen du: *originales/los otros*, hiztegiak, aurreko hiztegien zordun ez izatearen ala izatearen arabera.

[10]Sailkapen garbiak eta sail gardenak ezartzeko debekuen lekukotasuna irakur daiteke Haensch-engan (1982:95hh), besteak beste.

[11]Eite honetako hiztegiez Alvar Ezquerra-k (1976.124,183) dioena, ongi uztartzen bide zaio hemengo honi:

"En general, son menos normativistas que los "diccionarios de lengua", y son más permeables a los lenguajes especializados de las ciencias y de las técnicas".

[12]Martin-ek (1967:153) adieraziak bizi baditugu ere:

"Making a bilingual dictionary involves frustration and compromise. You set out with the cheerful view that you can produce a work that will be all things to all men –and perhaps to all machines– you end up with a feeling that you are failing one and all. You want to make a dictionary that will be concise but exhaustive; exact while not exacting; linguistically adequate for BOTH langages, yet uncluttered with trivial details. Sooner or later you have to concentrate on certain goals and forget others. Each dictionary represents some unique compromise, useful –we hope– for some purposes and frustrating the others".

[13]Ez da hiztegigintzarako bibliografian erabateko terminologiarik kausitzen lexikografi lanak izendatzerakoan: Read-ek (1973:166) eta Alvar Ezquerra-k (1976, 1980) jaso bezala.

[14](1974a, *SHLV*:387).

[15]Zgusta (1971:207).

da hemen hain erabakigarri etsi, non hiztegiaren moldakuntzari gaineratzen zizkioten zailtasunak gainditu beharrak, ariketa horretan eman beharrekoek ordain zezaketen.

Ez zaio, beraz, hiztegi-sarrera bakoitzari testu-kokalekua alboratuko[16]. Alabaina, tesiaren hirugarren atal nagusia osatuko duen berezituen azterlanean zehar, arrazoi desberdinek akuilaturik beharrezko iritziz gero, aipu kokatu zehatzak aldatuko dira.

Bestetik, bada hiztegi hau, nolabaiteko termino-hiztegia[17]. Ez, halaz ere, ohiko hizkuntzarteko termino-hiztegia, ez bederen, halakotzat jotzeko eskakizun txuliaezintzat, hizkuntza anitzeko termino-hiztegi usuen legeetariko bat – terminotzat joak soilik biltzea[18], alegia– hartzen bada, ez eta, beste terminotegi- (hitza zilegi bada) mota baten araberako terminoen definizioa edo azalpena[19] xede izatea neurgarri hartuta[20].

Azterlanean arrazoituko den gogobideari jarraiki, erabileraz berezitu diren hitzak, (Eginkizun Berezietarako Hizkuntzaren osagaiak), hizkuntzaren osagai ere badirenez gero, HIZTEGIaren, eta honenbestez, HIZKUNTZAren eremuan koka daitezke.

Hau dela eta, egokiago ikusi du tesigileak berezitutzat joak soilik bildu baino, barruti zabalean –hots, hiru liburukiek osatzen duten esparruan–, erabiliriko oro jasotzea, nahiz eta, morfologi azterlan zehatza berezitu direlako bakarren gainean egingo duen.

Beraz, esan daiteke, hiztegi honetan, hiztegi-zer berezituek, hitz-altxor osoaren barruan zati-esparrua osatuko dutela. Beste modu batera esanez, Mitxelenaren hizkuntzalaritza-filologiezko teknolektoaren lexiko-gaiak osatuko duela hiztegiaren barruti zabala, berezitu edo terminotzat joek zatibarrutia osatuz[21].

Halarik ere, begi aurrean izan dira hizkuntza anitzeko termino-hiztegiei leporatu ohi zaizkien akatsak[22]. Ahal den neurrian txuliatu asmoz, beraz, berezitutzat joek ere, besteek

---

[16]Erreferentzia guztiak datu-basean gordeak daude, inorengan ikusminik sortuz gero miratu ahal izan ditzan.

[17]Hauen tipologia eskaintzen dute, Guilbert-ek (1977) eta Rey-k (1977b).

[18]Hiztegi usuaz, teknika-hiztegiaz eta tartean legokeen jakite orotariko hiztegiaren arteko harremanez ez gara hemen beraniaz ariko. Pnal (1968), Fernández-Sevilla (1974:122), Opitz (1983a,1983b).

[19]Puntu zehatz honezaz arduratzen da Scholfield (1980:105).

[20]Rey (1977b).

[21]Alde honetatik, *restricted or special* (Zgusta 1971:204) edo *segmental* (Opitz 1983a:56) izaki, hiztegi *diateknikoa* (Haensch 1982:145) izango du barruan hiztegi osoak.

Rey-ren (1977b:Vb-29) hitzez esanez, hitz-altxor osoak, *dictionnaire multilingue à vocation terminologique* delako *objet mixte* denetik gertu xamar koka daitekeena barnean hartuko du.

[22]Rey-k (1977b:V-29) oso kritikatzen du gisa honetako hiztegia, mota bakarrekoa ez izaki, mota diferenteen ahuleziak beregana ohi dituelako:

"Ces dictionnaires exigent théoriquement de leurs rédacteurs (a) la connaisance approfondie des réalités décrites (technologie, science, institutions...) et de leur conceptualisation, (b) celle des procédures de description,

bezalako lexikografi azterketa izango dute[23]; hau da, gramatika-kategoria (ahal denean) alboratuko zaie, adibideak emango dira; izenaz gain, beste morfologi izaerazkoak ere kontutan hartuko dira. Hitz gutxitan esanez, batipat alderdi morfologiko-lexikologikoetan sustraituriko hiztegi-antolamendua gatzatzeko saioa egingo da.

Ez da adigaien azalpenik emango –laburdura eta beste kasu gutxi batzuetan ezik–, iraulordaina[24] balzik, hizkuntzarteko hiztegi arrunten bidearl atxikiz.

Aipatuez gain, hiztegiaren izaeran hatza utziko duen beste alderdi bat hiztegiaren balizko usatzailea[25] da, eta honekin batean datorren beste honakoa: hiztegiak erdietsi nahi lukeen xedea, lagungarri izatea, alegia[26].

---

tant lexicographique que terminographique. (c) celle des ressemblances et divergences entre langues. Il leur faudrait donc être à la fois technologues, lexicographes, terminographes (et donc lexicologues et terminologues); enfin comparatistes et traducteurs. Nul individu ne pouvant raisonnablement prétendre à une telle universalité, la réponse au besoin de qualité est évidemment le travail en équipes interdisciplinaires, dont on connaît les difficultés".

Halako handi-usterik gabe ere, itxurazko zerbait antolatzen saiatu gara, besteren laguntzaz ere baliatuz. Erdietsia...

[23]Rey-k (1976:98) terminoko proposatzen duen informazio osotik, bereziki, hizkuntz mailako zehaztapen morfosintaktikoa litzatekeena, alegia.

[24]"La solución más razonable consiste, por lo tanto, en dar como 'equivalentes de traducción' (empleamos aquí el término ya consagrado por el uso, a pesar de no ser muy acertado, porque precisamente no se trata de relaciones de equivalencia), en el diccionario de traducción, aquellas unidades léxicas de la lengua de destino que contengan, por lo menos, un semema que concuerde en su composición, en la mayor medida posible, con un semema, al menos, de la unidad léxica dada en la lengua de destino". (Werner 1982:288).

Guk erdal *equivalente de traducción* hori euskaraz, "iraulordain" erabiliko dugu.

[25]Erabiltzaile-motak, hiztegi elebidunen izaeraz kezkatu diren egileen artetz bereganatu du. Ez dago, halaz ere, erabateko adostasunik hizkuntza bakarreko ala bi hizkuntzetako hiztunen jakinmina ase behar ote duen erabakitzeko unean, azta esanahia zehazteko azalpen-oharrak zein hizkuntzatan eman behar direnean ere.

Honela, esate baterako, Schnorr-ek (1986:54) *decoding* eta *encoding* ariketak aipatzen dituelarik, ez du bi hizkuntzatako hiztunak gogoan izatea baztertzen.

Haas (1967:45) biak gogoan hartzearen alde agertzen da garbiro.

Ianucci-k (1967:203) *foreign-to-native* eta *native-to-foreign* norabideen zehaztapena eskatu eta abiapuntuko hizkuntzan zehaztasunak ematea proposatzen du.

Wiezell-ek (1975) aipatu berria jotzen du begiz, hain justu, kritikatzeko eta bi hizkuntzetan eman beharreko argigarri-motak (*completion type*, hizkuntza jomugan eta *meaning discrimination*, abiapuntukoan) bereizteko.

Duval-ek (1986:95) ere, *version/thème* bereizkuntza proposatzen du, lehena, hiztegi-sarreraren hizkuntza jatorriz ez duenari eta bigarrena, bere ohiko hizkuntza horixe duenari, egokituz.

Edozein kasutan, erabiltzailea, hiztegigileak bere lanaren hasieratik bertatik oso begi aurrean eduki beharrekotzat azpimarratzen da han eta hemen: Harrell (1967), Martin (1967:154).

Gure aukera, ikusiko den bezala, adigarri-azalpenak euskaraz landatzea izango da.

[26]Alde honetatik, Agirrebaltzategik (1985:41) desio duen eginkizunean bere aletxoa eskaini gogo luke:

"Bestalde, altortu beharra dago, gaurregun euskaraz teknolekto bakoitzaren lantzeak, aurretik alor horretako lexiko historikoa sistematikoki biltzea eskatzen duela; bide horretatik, baiko handikoak dira alor konkretu batzutan egin diren terminologi bilketak; baina oraindik lan handia geldituzen da egiteko. Eginkizun hori nolabait betetzeko, hiztegi bakoitzaren lanbidean sartzen da, literatura orokor eta berezituaren, klasikoaren nahiz modernoaren, irakurketa eta hustuketa lexikala egitea (...) c) Lexikogintza tekniko-berezitua zentzuz eta ausardiz, baina segurtasun kritikoz eta zientifikoz, aurrera eramateko, euskararen lexiko-sorkuntzareko bideak aztertu beharra dago".

Mitxelenak batasun-bidean[27] eta euskararen buru-jasotze saioan duen itzal ukaezinean oin hartuz, hizkuntzalaritza-filologietako euskal ikasleak bereziki – hizkuntz galen berri gutxi-asko dutenak– hiztegi-gatzatzearen atzeoihalean daude, uste baita, Mitxelenaren hizkuntz galezko euskal testuak irakurtzean (eta gai berazko beste inoren euskal testuak ere bai, apika) euskaldun horrek lagungarri aurki dezakeela euskal hitzen erdal ordainak eskueran izatea, kontutan izanik eskierki darabilen bibliografia erdaretan dagoela.

Hau dela eta, zenbait iraulpenetako zehaztapen-ñabardurak, balizko erabiltzaile horrengan pentsatuz egingo dira.

Halaz guztiz, erdaldunari edo euskalduntzen ari denari ez zaizkio ateak erabat hertsi nahi[28].

Mitxelenak *Orotariko Euskal Hiztegia*ren aurkezpenean adieraziak hona alda daitezke, gogaidetasunaren seinale:

> Erdara erabiltzen du, baina hizkuntza laguntzaile bezala. Bi arrazoigatik: errazago delako hitzak itzultzea bakoitzaren zer-nolakoa azalpen luze eta aspergarriren bitartez ematea baino eta, bigarren, komeni delako erdaldunek ere hiztegira sarrera izatea. (1987d:79).

Aurrean izanik hiztegiaren xedea errenteriarrak bere ofizioko zereginetan aurkitu bide dituen *onomasiological gaps*[29] direlakoak betetzen nola moldatu den hiztegiaren bitartez erakustea dela, Mitxelenak Larramendigatik esanak atzekoz aurrera paratuz esan daiteke, hiztegi honetan Mitxelenak "euskaldunak harritu beharrez" eginaren erakusgarria eman nahiko dela, euskaratik abiatu eta erdarara/erdaretara aldatuz mamituak.

Bestetik argitu behar da informatikaren laguntzaz baliatuagatik ez dela maiztasun-hiztegirik[30] ez *computarized dictionary*[31] edo *lexical database*[32] gisakorik eskainiko[33], informatika-euskarria izateak, balizko geroko aldietarako ateak zabalik utz baditzake ere.

Sailkalanaz arduratu diren bi ikertzaileren –bertako eta kanpoko biren– irizpideak hona aldatuz, aurkezten den hiztegiak honako ezaugarriak dituela esan daiteke:

---

[27] Alderdi honi ere ezin muzin egin dakiokeelakoan gaude.

[28] Usatzaile-mota bat baino gehiago gogoan izateak dakartzan arriskuez atzendu ez bagara ere (Werner 1982:293).

[29] Zgusta (1971:306).

[30] Aztertanerako baliozko etsi diren kasuetan salbu, ez da kopururik zehaztuko.

[31] Warwick (1968:95) eta *Lexicographica* aldizkarian, oro har, egun erabiltzen den zentzuan. Gaztelaniari dagokionez, azpimarra daiteke, Casajuana-k (1985) eta bestek eskuartean duten lana.

[32] Neuhaus (1988:61).

[33] Besteak beste, morfologi azterketak oso aurrera ibiltzea eskatuko lukeelako.

Arzamendik ahotan duen (1981) Malkiel-en tipologian sustraiturik sailkapenaren arabera:

-"Materiaren" irizpidean sustraituriko "Autore edo liburu baten hiztegia"; "Bi (eta hiru) hizkuntzatakoa".

-"Ardatzaren" arabera, "aldi batekoa (edo sinkronikoa)" eta "itunezkoa (edo hurrenkera konbentzionalean antolatua)".

-"Artikuluen egitura eta informazioari" dagokionez, "ballokidetza" eta "kategori gramatikazkoa" dira, hiztegi-artikuluetan kausi daitezkeen informazioak.

Haensch-en (1982) terminologiari helduz, berriz:

-exhaustiboa (begiz joriko gaia osorik jasoa[34])

-deskribatzailea (ez du, noski, hiztegi orok ezinbestean omen duen errainu arau-emaileaz gaineko asmorik)

-sinkronikoa

-diateknikoa

-hizkuntza anitzeko-elebiduna

-alfabeto-hurrenkeraren araberakoa[35].

Idazle baten lan batzuetako hitz-altxorra da, beraz, aurkezkizun, hau da, hizkuntz azterketaren ondorioz eta egungo hiztegigintza- (eta lexikologi[36]) arauei begira atonduriko hiztegia.

Guztiarekin ere, azpimarratu behar da, hitz-altxor honek ez duela tesiaren helburua agortzen eta beronen izatea, xede-jomuga orotarikoen mesedetan ikusten duela tesigileak.

---

[34] Zehaztuko da hau.

[35] Hau ere zehaztu beharko da.

[36] "On ne fait pas de bonne lexicographie sans bonne lexicologie". (Imbs 1960:17).

8.2. LEMA-PARATZEA

8.2.1. Orotariko irizpideak

Begiz joriko hiru liburukiak informatika-euskarrian erabili dira geroko prozesuaren abiapuntu. Esan beharrik ez, hizkuntz gaietan ere, informatikaren makuluez baliatzea ezinbesteko begitantzen dela, corpus handi xamarrak erabili behar direnean batipat[37].

Lana gisa honetan egin ahal izan da, *Orotariko Euskal Hiztegia*ko eta UZEI-ko lankideei esker. Lehenek disketeetara baitituzte hiztegi-gaia osatzen duten *MEIG VI* eta *MEIG VII* liburukiak, eta UZEI-ren irakurgailuak (eskanerrak), paper-izaera zuen *Zenbait hitzaldi* informatika-izaerako bilakatu baitu.

Lana samurtu du, oso, euskararen hiztegi orotarikoa mamitzen ari direnek Mitxelenaren testuen aldaera batua eta ez jatorrizkoa erabiltzeak[38], konputagailua lanabes baliotsua izanik ere, bere mugak bai baititu.

Honela, oztopabide bihurtu dira marratxoak[39] edo oraindik ortografia erabat finkatua ez duten zenbait hizkuntz gai (*nahi eta nahi ez, nahitanahiez, nahi-(e)ta-ez...* eta gisa honetakoak, esate baterako), eman zaien irtenbidea beherago azaltzean erakutsiko den bezala.

Hau izan da ibilbidea[40]:

Lehen lana, testuak eskuera bezala zuzen ote dauden egiaztatzea izan da, hau da, datozen-datozenean hutsik gabe ote dauden eta, honenbestez, beste gabe, langaia osa ote dezaketen ziurtatzea.

Lanaren aldi honetan, zenbait zuzenketatxo egin beharrak izaten dira (oharkabean itzuriko hitzak, gaizki adituriko bat edo beste, pasarteren bat falta, ohiko akats ñimiñoak...), testua (ustez) okerrik gabe utzi arte.

Zuzenketa egin ostean, testua lehen galbahetik pasa behar izan da, Mitxelenaren berbaldiaren osagaiak besteetarik bereziz, hiztegia osatzerakoan bigarrenak Mitxelenagandikakoen ondoan agertuko ez badira.

---

[37] Ez dugu eskainiko gai honezazko bibliografiaren adigarri soil bat baizik, hain da zabala eta egunoro zabaldu beharra. Muller (1963,1973), Ouemada (1968), Alvar Ezquerra (1976,1987) hastapenetakoak aipatzearren. *Computational Linguistics* delakoan lanean ari direnen ekarriak ere, zein bere neurrian, oso probetxugarriak gertatu zaizkigu: *Coling* (1984), Bátori (1989).

[38] Ikus argitaraldiezko itsaskina.

[39] Mekanika-bideetan grafia eta hitza bana-banako harremanetan ez egoteak sortzen dituen arazoak aipatuak zituen Muller-ek (1963).

[40] Phal-ek (1984:57-60) zehaztuak oso lagungarriak gertatu zaizkigu lanaren aldi honetan.

Honela, besteren aipuak, adibideak, izenburuak, leku- eta pertsona-izenak[41], hau da, erabilera autonimiko[42] edo metalinguistiko hutsaren ondoriozko hizkuntz elementuak, Mitxelenak bere berbaldian txertatu bai, baina jabetza errenteriarrari ezagutzeko aukerarik ematen ez dutenak[43] salbuetsean utzi behar izan dira, horretarako, ordenagailuak ezagut ditzakeen adierazgarri batzuk aiboratuz eta tresnaren irakurmodurako nahasiturri gerta daitezkeenak urratuz.

Halarik ere, zenbait kasutan, Mitxelenak hitzaren iturburua besteri aitortuagatik, bere berbaldian txertatu eta beste hitzekin nahaste darabil. Halakoak ere hiztegian jasoko dira, hitzaren eskuinean izartxo batez hornituz (**analtzako***, [abantail*]...).

Mitxelenaren jabegokoak berezi ondoan, testu-izaera duten osagaiak bakantzea dator, bestela esan, hustuketa[44].

Ihardun honetan, UZEI *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* (EEBS) egitasmoan baliatzen ari den informatika-tresneria (RTerm) lan honi egokitzeko aukera eskergaitza izan da. Honen ondorea, testu-hitzak[45] eskuratzea izan da.

Eginkizun hau burutu ahal izateko, kode-jartze berezi bat egokitu behar izan zaie testuei liburu-orrialdeak zehaztuz. Pasartea eta pasarte-barneko kokalekua, berriz, programak automatikoki ezarri ditu; honela, hitz bakoitza helduleku zehatzaz hornitu da, testuen eta hitzen arteko lotura estrapozo gabe gerta dadin, hagitz garrantzizkoa hau, beherago ikusiko den bezala.

Honela bada, hitz bakoitza, lema ezartzeko ezinbestekoa den bi punturen arteko pasarte argigarrian[46] kokatzeko bidea eman zaio makinari, hemendik aurrera, datu-

---

[41] Aurreraxeago zehaztuko dugu hau.

Edozein kasutan, lexikografiaren orotariko arauak leku-izenak baztertzea badakar ere, herritarren izenak jasoko ditugu, *MH*-k az bezala jokatuz:

"Hitz-eren zerrendako hainbat errenkada, leku edo herri-izenei zegozkien. Horrelakoak ezabatu egin genituen besterik gabe, eta halaber, oro har, herritarren izenei zegozkienak. Haatik, *mairu*, *judu* eta interes berezia zuten beste zenbait gorde egin genituen, eta ondorioz, erkaketa egin ahal izateko, baita ere *moro*, *judutar* e.a. Hizkuntz izenak, aldiz, beti gorde genituen. Herritarrak eta beren hizkuntza hitz beraz adierazten direnean, hizkuntzari dagozkion agerraldiak soilik zenbatu genituen leman. Horrela *katalan*-en agertzen diren maiztasun-kopuruak hizkuntza adierazi dagozkionak soilik dira; horrela, *katalanera* lemarekin erkaketa zuzenean egin daiteke". (1982:2.6).

Guk, haatik, biziki interesgarri iritzi diogu hain hurbil dauden herritarren eta hizkuntzen izenak -guztiak- jasotzeari, azterlanean eratorbidean murgiltzean argiago ikusiko diren arrazoiak direla medio.

[42] Rey-Debove (1978).

[43] Hau ere, azterlanean zehaztuko dugu.

[44] Muller-en (1963:156) *découpage*.

[45] *MH*-tik hartu dugu euskal deitura.
Erdaraz, *unité de texte* (Muller 1963), *palabra de texto* (Alvar Ezquerra 1976), besteak beste.

[46] Testulinguruaren premiaz: Zgusta (1971:227).

basean[47] lan egin ahal izan dezan[48]. Honenbestez, *preedición*[49] delako testu-txukuntze eta egokitzeari amaia eman zaio[50].

Aurrera baino lehen erabaki behar da zein hizkuntz unitate joko den begiz hiztegi-unitate bilakatzeko.

Aukeran litezkeenen artean, definizio-arazorik gabea ez izanagatik, biderik usuenetik jo eta **hitzaren**[51] gainean eraikiko da hiztegia[52].

Testu-hitzok forma kanonikoetara, lemetara[53], biltzeko (hau da, bigarren lana osatzen duen *classement*[54] delakoari ekiteko), makinari emango zaio agindua, testu-hitzak hitz-eratan[55] bildu eta alfabeto-ordenan antola ditzan.

Zein lema zehatz erabakitzeko, Euskaltzaindiak argitara emanak[56] izan dira gogoan

---

[47]Ez darabilgu Neuhaus-ek (1968:61) termino honi ematen eta eskatzen dion zentzuan.

[48]*Dbase4* programan lan egin ahal izateko egokitu digute testu hustua EUTGetako kalkulu-zentroan.

[49]Alvar Ezquerra (1976:209).

[50]Pasabide honetan, laurogeita hamar mila inguru erregistro edo fitxetarik, hirurogeita hamalka mila ingurura murriztu da datu-basea.

[51]Rey-k (1977a:188) lexikologiazko unitaterik txikientzat daukana, alegia.

[52]Morfeman oinarrituriko hiztegiaren alde ageri dira, artztik, bai Byrd (1983), bai *computarized dictionaries* direlakoak mamitu nahirik diharduten, erdietsi nahi duten izaera prediktiboaren kariaz.

Gramatika Sortzailea eta Bihurtzaileak lexikoiaz (izan) dituen ikuspegien arabera, hitzean eta morfeman oinarrituriko hiztegiak berezi ohi dira. Cabré eta Rigau ikertzaileek jasotzen duten bezala (1987_2:16hh). Kataluniarren lan honetan, hiztegi-mota bakoitzaren alde on-gaiztoen berri argia jaso daiteke.

Izan ere da bestelako proposamenik. Hala nola, hitza-lexemak baztertu eta *formante* delakoaren gainean oinarrituriko hiztegia aldeztu eta mamitzen duen Costas Rodríguez-ena (1980:83), lehenaren zabaltasuna eta bigarrenaren balizko izaera polisemikoak bere hiztegiazko ikuspegian sortarazten dizkion oztopoak direla medio:

"Puesto que en el problema de la representación de las entradas léxicas hemos optado por la solución de Weinreich, es decir, que a cada significado debe corresponder una entrada léxica, no nos sirve ya el término "lexema", que en principio no parece excluir la polisemia, y mucho menos sirve el término "palabra", cuya vaguedad no requiere demostración. El término "formante" queda así como el más adecuado para representar la unidad monosémica con que operamos".

Auzi honezaz, halaber, Ettinger (1982), Werner (1982:224).

[53]*lema, palabra-clave, voz-guía, cabecera*, espainolez; *lemma, entry word, main entry, headword*, ingelesez; *mot vedette, mot-entrée*, frantsesez; *Lemma, Stich wort*, alemanez dira Haensch-ek (1982:461) biltzen dituen ordainak.

Seco-k (1978:217) *palabra-entrada* ere badarabil espainolez.

Guk euskaraz, "lema" nahiz "hiztegi-sarrera" erabiliko ditugu.

[54]Muller (1963:156).

[55]Euskal deitura hau ere *MH*-tik hartu dugu.

[56](1968,1975,1979,1985,1986,1987a,1987b,1987c,1990,1991,1992a,1992b, 1992c).

-OEH eta *HLEH* lanekin batean-, lema-gaiek gidari hartu lanotan kokalekurik izanez gero.

Hemendik aurrerakoan, hitz-era bakoitza, lema beraren ala lema desberdinen agerraldiak ote diren erabaki beharra dago. Zeregin honetan hasi orduko, haatik, polisemi eta homonimi arazoekin egiten da topo.

Hiztegigintzazko lanetan behin eta berriro[57] ahotan hartzen den arazoa da polisemia eta homonimiaren arteko bereizkuntzaren labaina eta honek hiztegi-antolamenduan duen ondorioa. Honen seinale argia da, hiztegiz hiztegi, gertakizun beraren aurreko irtenbide desberdinak falta ez izatea[58].

Werner-ek[59] polisemia eta homonimia bereizteko aldatzen dituen hiru irizpideak ere (etimologikoa, hiztunaren hizkuntz oharmena eta hitzen edukien osamodua) ez dira arazo gabeak. Izan ere, hiztegi sinkronikoa[60] bada egin nahi dena, objetibatzen zaila den oharmena baino euskarri sendoagoak nahi badira eta, hirugarren irizpideak eskatuko lukeen, esanahi guztien semen[61] xehapen zehatza egiteko baldin badago, ez da, antza, lan samurra delako bereizkuntzari zedarri gotorrak ezartzea.

Ez dirudi, beraz, proposatu ohi diren irtenbideek ikertzaile ororen kezkak asetu dituztenik[62] eta, honengatik guztiagatik, bereizkuntzaren beharra bera ere auzitan jarri izan da[63].

Baina egia ere bada, hizkuntz gertakizunok hor daudela eta hiztegigileak nonbaitetik jo behar duela, eginiko aukerak, hiztegiaren makroegituran eta mikroegituran -orobat esan,

---

[57]Muller (1963), Weinreich (1963:75-77), Marcellesi (1969:115), Zgusta (1971), Quemada (1972:406), Michelena (1974a, *SHLV*:395), Bosque (1982a), Martinet (1983:141), Euskara Zerbitzua (1987:38), adibidez.

[58]Marcellesi-gan (1969:115) edo Quemada-gan (1972:443) ikus daitezke, esate baterako, irizpide-aniztasunaren adibideak.

[59](1982:297hh).

[60]"Historiquement, on peut distinguer la polysémie et l'homonymie. Du point de vue synchronique, cette distinction n'existe pas". (Muller 1963:165).

[61]Semantika estrukturalean eta esanahiaren osagaietan oinarrituriko azterketan edo azterketa (logiko)-konponentzialean, oro har, erabili ohi den moduan.

[62]Esate baterako, onomasiologia eta semasiologia ardatz hartuz, Bergmann-ek bereizten zuena ere -hau da, homonimia igorleari dagokiola eta entzuleari, berriz, polisemia- ez du Werner ase-betetzen:

"Los problemas que plantea esta solución [Bergmann-ena] se resolverían abandonando el dogma del carácter bilateral del signo lingüístico. (...) Al sustituir la teoría de la unidad del significante y del significado por el concepto de atribución recíproca del significante y del significado, no hay por qué reunir varios sememas en un significado (tengan semas comunes o no). Entonces se pueden atribuir, en principio, varios sememas a un solo significante, y asimismo se pueden atribuir varios significantes a un solo semema, de modo que tanto la distinción entre polisemia y homonimia como la de sinonimia y polimorfismo resulta superflua". (Werner 1982:312).

[63]"Tanto desde el punto de vista teórico como desde el práctico, cabe preguntarse si una distinción de polisemia y homonimia es verdaderamente necesaria". (Werner 1982:309).

hiztegiaren taxukeran–, ondoreak baititu.

Orotariko gertariaren aurrean, ez da falta bere lana sinkroniaren ardatzean kokatu gogo duen hiztegigilearen aldian aldiko irtenbidearen alde mintzatzen denik[64]. Halaz ere, hein batean bederen, historiara begiak iraultzea ez da hutsala, horrek argi baitezake –lekukotasunak izateko zori ona denean–, baita makurtu ere, halako erabaki zehatzaren nondik-norakoa.

Bestetik, izan da, hiztegigileari auzi-iturri bilakatzen zaizkionen aurrean irtenbide zehatzak eskaini gogo duena ere. Hala nola, Werner:

> Ya que una determinada forma de palabra puede pertenecer a varios paradigmas de flexión, resulta oportuno poner varios lemas en el diccionario semasiológico y en el bilingüe, concretamente un lema por paradigma de flexión, cuando la atribución de diferentes sememas a un significante está en relación paralela con la pertenencia a varios paradigmas de flexión. Esto ocurre, por ejemplo, en palabras como, en español, *cantar* (sustantivo/verbo), en inglés *lie* (diferente conjugación según el semema 'estar colocado en posición horizontal' o 'mentir'... (Werner 1982:314).

Edo bide beretik jotzen duen Haensch[65], hiztegi-sarrera beregainak proposatuz, paradigma desberdinak dituztenentzat ez ezik, ebakera diferenteko homografoentzat ere.

Bestetik, zokoratzekoa ez da hiztegiaren izaera. Honela, hizkuntza bat baino gehiagoz baliatzeak eta luze-laburrek, esate baterako, puntu honi dihoakionez askexeago ibiltzeko parada eman dezaketen arren[66] –halaber hiztegi etimologiko edo historiko izateko asmorik ez izateak–, egia da egungo hiztegigileak ezin muzin egin diezaiokeela hiztegi-gaien antolamendu zehatz bat eskaintzeari ere eta horretan, historiaren alderdiari, hitzen atzoari begiratzea noraezeko bilakatzen zaio, zenbait bereizkuntzaren irozgarriak hortxe baitu iturburua.

---

[64] "Restent les cas où une même forme exprime deux ou plusieurs sens sans que sa fonction syntaxique en soit modifiée. Y a-t-il un mot, ou plusieurs? Le critère des dictionnaires est l'etymologie, sans valeur pour nous. Le vrai critère, en linguistique synchronique, serait le lien sémantique qui a subsisté (dans le cas de la polysémie) ou qui s'est établi (dans le cas de l'homonymie) entre les deux acceptions. Mais ce lien sémantique ne peut être apprecié que dans le conscience des sujets parlants, difficile à sonder. Si bien que chacun est réduit à s'interroger ou à pratiquer des sondages limités et de faible valeur. Le problème n'a pas de solution générale, sinon la soumission à *un* dictionnaire pris comme arbitre en pleine conaissance de cause". (Muller 1963:166).

[65] (1982:467).

[66] "In the more practical dictionaries which serve other purposes, e.g. in small billingual dictionaries, it is really of quite minor importance whether the lexicographer presents his data basically in the form:

crane (1) "bird", (2) "machine"

indicating thus that he considers it a case of polisemy, or in the form:

(I) *crane* "bird"

(II) *crane* "machine",

indicating thus that he considers it a case of homonymy". (Zgusta 1971:88)

Zeinahi erabaki hartu ahal izateko, beraz, ezinbesteko begitantzen da hitzak bere testuinguruan kokaturik eskuztatu ahal izatea[67]. Hau da, hiztegi-gai jakinaren izaera nabarraren gainean nolabaiteko sistematizazio-saioa egingo bada, hitzen corpus zerrendatua[68] eskueran izan behar.

Hau guztia begien bistan izanik, beraz, aipatu berri diren gisako arazoei eman zaien irtenbidea hiztegigintzan –oro har– baliatzen diren irizpide teorikoei eta euskal lexikografian –bereziki[69]– antzeman uste den ildoari atxikiko zaie.

Polisemian, oso gorputz egonkorreko iritzi zaienean, adierak lema berean, zein bere azpisarreraren jabe, bilduko dira. Halako bereizkuntza gotorrik eta egonkorrik izan ezean, lema bakarrean –azpisarrerarik berezi gabe, beraz– adierak zenbaki bidez bereziko dira soilik. Batera zein bestera, sarrera-buru nagusi bakarraren barruan bilduko dira polisemikotzat joak.

Lehenaren adibidetzat, **alde** paperera daiteke. **alde** bakarraren barruan, ALDE-1, ALDE-2, ALDE-3 azpisarrerak banatuko dira. Bigarrenarena, berriz, **ebaki**. Zenbaki bidez bereziko dira adierak eta dagozkien iraulpenak. Honela, *1. cortar. 2. pronunciar*[70].

Homonimiaren (eta homografiaren) kasuan, berriz –aldearen funtsa horrelakotzat jo denean–, gramatika-kategorian (arestiko Werner-en "paradigman") aldeak badaude, lematizatzean bertan zehaztuko dira kategoriak, hitz bakoitza sarrera banatan bil dadin (**hazi. izond.; hazi. iz.**). Egokiera hau izan ezean –hots, kategoria (paradigma) berekoak direnean–, lemari zenbakia(k) alboratuko zaio(zaizkio) ordenagailuak ezagut eta bereiz ditzan, (**egite. iz., egite-1. iz.; hil. iz., hil-1. iz.**).

Paperera diren polisemia eta homonimiazko arazoei, lanabes informatikoak berak dituen mugak eta sortarazten dituenak[71] erantsi behar zaizkie, makinak ez baitu zer jakin halako hitza elkartua dela edo, marratxo bidez idatziriko hura eta halakorik ez duen bestea grafi aldagai hutsak besterik ez direla, esate baterako. Hau da, bi zuriune arteko ikur-katearen mugak gainditzen dituen elementuak oro, hiztegi-zerak oro, bana-banako arreta berezia eskatzen dio lema-paratzalleari.

Kasu hauetan hartu den jokamoldea, unitate diferente bailiran lematizatzea izan da,

---

[67] Informatikarien lana izan da bi datu-baseak, testuena eta hitzena, uztartu ahal izatea, hau da, hitzez hitz, zein lema egokitu behar zaion erabakitzeko, delako hitz hori testuinguruz hornitua begi aurrean izateko bideak jartzea.

Gure eskerrona.

[68] *MH*.

[69] Bereziago, *OEH* eta *HLEH* izan ditugu argi-emaile eta bide-erakusle.

[70] Beherago zehaztuko da aditzekiko jokamoldea.

Letra etzanari dagokionez, esan, hemen erdal ordainak honela iruditara badizkigu ere, hiztegian ez dela horrela gertatuko.

Ik. tipografiaren gainekoa.

[71] Arestian aipatu ditugun Muller-en (1963) gai honezazko oharrei, Warwick-enak (1969:101) eta konputagailua lanabes baliatzen duen hiztegigintzan ari direnenak, oro har, erants dakizkieke.

azalduko den bezala, hizkuntz hitz[72] desberdintzat ez joagatik.

Egoera ñabar honen aurrean, ekonomiaren kariaz, ez da bidezko ikusi aldaera guztiak hiztegi-sarrera izan daitezen, ezta guztiek iraulpen bera errepikatua izan dezaten ere. Honek, ordea, forma bat itzulkizun aukeratu beharra dakar.

Ahal izan denean, Mitxelenaren erabileraren maiztasunari erreparatu zaio, maizenik darabilena hiztegi-sarrera eta itzulgai hartuz, eta kide itxuraldatuak nagusiaren aldaeren artean jasoz. Halako aukerarik ezean –maiztasun berekoak edo oso alde ñimiñokoak direnean–, ezinbestean, tesigilearen iritziak izan behar erabakigarri. Gidari eta irizpide harturiko lanei eta euskalaritzan ustez sumaturiko joerari eutsi die hiztegigileak lehentasunak ezartzerakoan.

Erabaki honen arrazoia, unitate horien idazmoldearen azterketa egiteko asmorik ezari, Mitxelenaren erabateko erabilera finko ezari eta testu-moldatzaileen aldakuntzei zor zaie[73], direlako unitateen idaztirudi finko eta erabatekoa, oraindik ere erabakitzeko dagoen puntua dela atzendu gabe[74]. Zeinahi gisaz, ez dirudi jokamolde honek Mitxelenaren hitz-altxorra itxuragaiztotzeko arriskua dakarrenik, aldaera guztiek izango baitute bere hiztegi-lekukotasuna.

Aipatu berri den auziarekin ikuskizuna dute –grafi irudiari dagokion aldetik–, bi zuriune arteko zedarriak gainditzen dituzten unitateek (hitz elkartuek, aditz-esapideek eta bestek[75]...).

Phal-ek[76] eta Auger-ek eta Rousseau-k[77] proposaturiko bidetik, berezita jaso dira lema-paratzearen lehen urratsean, unitate konplexuari osagai guztietatik sarbidea emanez, gisa honetara jokatuz, informazioa galtzeko arrisku gutxiago zegoela ikusi baita. Hiztegian, ordea, oro har[78], behin bakarrik jasoko da[79] unitate konplexua.

Hizkuntza-hitzei –euskalkia dela, adierazkortasuna dela edo beste arrazoiren bat dela medio, hitz beraren aldagai grafiko huts ez diren forma lehiakideei–, lema bana eman zaie uztardura agerian utziz, halaz ere.

Honek esan nahi du, arau-emaile ez den hiztegi baten zereginetakoa ez den

---

[72] *MH*-tik hartua hau ere.

[73] Argitaraldien arteko aldeez, ikus hiztegiari alboraturiko itsaskin-emendailua.

[74] Lanaren atal hau amaitu ondoren eman berri ditu (1992ko trailean) Euskaltzaindiak marratxoaren erabilerazko gomendioak. Auzi franko konponkizun geldítu dira, haatik.

[75] Ikus aurrerago hitz-andanez dioguna.

[76] (1964).

[77] (1978).

[78] Honela diogu, kasu gutxi batzuetan errepikatzea komeniganria ikusi dugulako, hiztegian egiaztatu ahalko denez.

[79] Unitate hauek hiztegian duten kokalekua eta enparatuak aurreraxeago adieraziko dira.

hautesterik egiteari muzin egin zaiola, ez zaiola forma jakin bati lehentasunik eman; alegia, guztiak Mitxelenak erabiliak izaki, maila berekotzat jo direla.

Halarik ere, Euskaltzaindiak aldian-aldian emaniko arau-gomendioak begi aurrean izan dira hiztegi-sarrera bat beste(ar)en parean abantailatzeko. Hau dela eta, **arpegi**, **beharri** jasoko badira ere, Euskaltzaindiak hobetsiriko **aurpegi**, **belarri** sarreretara igorriko da, baldin Mitxelenak beste formok erabili baditu.

Euskaltzaindiak halako aldaeren artean aukera zehatzik egin ez badu, zerrendetan jaso ez delako, nahiz baliokidetzat jo dituelako, sarrera bana izango du delako hitzak. Esate baterako, **artzai** eta **artzain**[80] edo **podorio** eta **poderio**. Beti ere, azken argitaraldietan irakur daitezkeenak badira direlako aldaerok guztiok[81].

Lema-finkatzeak sortu dituen oztopo eta zailtasun batzuk beheragoko mintzagaia izango badira ere, ezer baino lehen argitu behar da, hiztegigileak sorturiko lemak (gutxi) ere badaudela tartean.

Horren premia nabaritu da, zenbait kasutan.

Esate baterako, menpekotasunezko hitz elkartu baten osagaia elkarketa horretan soilik erabili denean[82], elkartuarentzat datu-baseko erregistro bat, (fitxa bat, nolabait esan) eta osagai bakoitzarentzat erregistro bana eratu behar izan da, bestela, osagaiok ez bailukete errainurik hiztegian.

Aditzen kasuan ere, adizki jokatu hutsetan gorpuztu denean delako aditza, era burutura eraman da[83] oro har.

Inoiz gerta daiteke hiztegi-sarreran paratua, era horretan bederen, ezin kausi daitekeela Mitxelenaren testuetan, esapide batean erabili duelako, halako adierazpide zehatzean besterik kausi ez daitekeelako...

Halakoetan, lema hiztegigileak sartua (ez sortua) dela baina testu-euskarria duela adierazteko, iraulordaina lemari eman ordez azpian jasoari -hots, Mitxelenak benetan erabiliari- emango zaio. Hona irtenbide bera eman zaien gertakari desberdin batzuk erakusgarri:

agi., iraulordainik gabe, baina hiztegi-artikulu berean jasoriko AGI DANEAN, itzulpenaz; edo Mitxelenaren testuotan irakurtzen ez den **pribilejio** itzulpenik gabea baina testutik jaso den PRIBILEJIOZKO itzulpenez hornitua; edota, azkenik, bakarrik irakur ez daitekeen **gestora** lema itzulpenbakoaren pean, BATZORDE GESTORA testuan irakur daitekeena, itzulpenez jantzia.

---

[80] Euskaltzaindiak gomendatu duen molde *-n*-dunaren hobespena berriro jaso dugu (1993/X), tesiaren atal hau amaituta zegoenean.

[81] Eta hemen sartu beharrak dira garaian garaiko idaztazturek sortu aldaerak ere, *haren* gorabeherak nagusiki.

Argitaraldi desberdinen artean sorturiko bat ez etortzeei emaniko irtenbidea itsaskinean azalduko dugu.

[82] Elkartu-mota guztiek, ikusiko den bezala, ez dute aditzeko modu bera eta honetan sustraiturik, ez zaie kokagune bera eman.

[83] Aditzen antolamenduari buruzkoan xehaago azalduko dugu hau.

Mitxelanaren testuetan euskarririk ez dutenak –honenbestez, hiztegigileak sartu eta sortu dituenak–, berriz, (H) ikurrez horniturik iruditarako dira: **erion (H)**[84], **hápax legómenon (H)**[85], edo **arruntki (H)**[86], esate baterako.

Lehen argitaraldietan bai baina hiztegia oratzeko baliatuan izaerarik ez zutelako eta, honenbestez, hizteglan kokalekurik ez izateko arriskutan zeudelako zenbait lema erantsi dira[87]: **enas]** (H), **criollo]** (H), **hazil]** (H)... bi ikur eskuinean alboratuz. Lehenaren bitartez, iturburua lehen argitaraldian dutela agerian uzten da; bigarrenak, berriz, hiztegigileak sartuak bai, baina sortuak ez direla adierazten du.

Salbuespen hauek salbuespen, testu-hitzen (hitz-eren) lemak finkatzeko gidari hautetsiriko lanak, beraz, Euskaltzaindiak dagoeneko plazara jaulkiak, I. Sarasolarenak[88] eta Mitxelena-Sarasolaren *OEH* dira nagusiki, eta hauek urraturiko ildotik jarraiki nahi izan zaie[89] (halakorik egiterik izan den heinean, bederen) eta modu osagarrian, beste euskal hiztegiak[90] [91].

8.2.2. Lema-paratzeak sortu dituen behaztoparririk aipagarrienak.

8.2.2.1. Izenaren inguruan

Izenak eratorriak eta elkartuak barne[92]– deklinabide-atzizki[93] gabeko oinarrizko formetan[94] lematizatu dira, ohi den legez[95]. Halarik ere, kasu batzuetan, ez da garbi

---

[84]Adizki jokatuak besterik ez dauzke irakur, bistakoa denez. Beherago berriz ere hartuko dugu ahotan.

[85]Pluralez bakarrik irakur daitekeena.

[86]"Arrunt eta komunzki" da testuinguru iturburua.
Zalantza egitekoa bada ere hau –eta ez *arrunki*, esate baterako–, hautestea.
Hitz honi emaniko irtenbidea har bedi, gertari bereko besteren ordezkari gisa.

[87]Itsaskinean haven kontu xehea emango dugu. Bego, beraz, testukoa adigarri gisa.

[88]*AE, MH, HLEH.*

[89]Ez genuke egia osoa aitortuko, UZEIkideek eskuartean darabilten "LEMA-LAGUN"-ek hasieran batipat eman digun laguntza aipatuko ez bagenu.

[90]Bibliografian jaso dira eskuztatuak.

[91]Euskal hiztegi gauzatuez gain, lema-finkapenerako eta hiztegilaneko irizpide orotarikoetarako, berriz, ezinbestekoak gertatu zaizkigu Zgusta (1971), Michelena (1974a), eta Haensch eta beste (1982), buruen-buruenik.

[92]Hitz eratuei hiztegi-antolamenduan eman zaien irtenbide zehatza beheraxeago argituko da.

[93]Alboan uzten ditugu benetako euskal deklinabideaz hitzegitea zuzen ote den eta honen gainekoak.

[94]Oinarrizko izateak ez du esan nahi morfema bakarrekoa denik, noski.

ikuster noraino den egoki atzizkia kentzea, forma soilak ez baitu hitz-izaerarik izaten[96].

Testuinguru horietan aipa daitezke ondokoak:

Oso maiz ez bada ere, gertatzen da hitzak amaierako *-a* berezkoa ote duen jakiteko irizpide ziurrik ez izatea, eta gainera testuak argi gehiegirik ez eskaintzea.

(a) Irudikatuko da baldin eta Mitxelenaren erabilera bikoitzak Euskaltzaindiaren araugomendioetan argibiderako euskarririk ez badu: **aurk(a)**[97].

Halaz ere, **garrantzi** emango dugu Mitxelenak bietara badarabil ere[98], Euskaltzaindiaren isiltasunaren, baina *HLEH*-ren *-a* gabearen aurrean.

Mitxelenaren erabilera bikoitzak Euskaltzaindiaren aginduetan zalantza uxatzeko heldulekurik izanez gero, hauxe izango du sarrera eta Mitxelenaren bestelakoa, arestikoaren aldaeratzat joko da: **ahaikoa. Iz.** [ahaiko.][99].

Eta ber moduan, *-e* bada auzi-sortzailea: **facsimil(e)**[100].

Oro har, beraz, puntu honetan aldaerarik izanez gero, sarrera nagusia hobetsiriko moldean eta salhesten dena honen aldaera-itxuran agertuko dira hiztegian (**jakinduria** [jakinduri.], **literatura** [literatur.]...).

Halako duda-sortzailetzat jo daitezke, esate baterako, **baita**(*-n, -rik, -ko...*) edo bigarren osagaia *pe(an, -ko...)* dutenak ere.

Hemen begiz joriko bidea, **baita**, batetik eta *-pe* duen hitz osoa bestetik, lema gisa paratzea izan da: **ardurape, etxateilape, ilunbe, ixilpe**[101]...

Arestikoekin loturik, atzizki-gabeko oinarrizko forma izanagatik, maiztasun handiz eta

---

[95] "Para citar los nombres, es decir, las formas nominales en sentido amplio, es costumbre entre nosotros, al menos desde Azkue, darlos en indefinido, sin artículo ni sufijo alguno. Es, sin duda, una costumbre inmejorable o, en otras palabras, la más útil para el lector, a quien así se da la mayor información posible". (Michelena 1974a, *SHLV*:389).

[96] "Pero, en la misma medida en que le es provechosa al usuario, es molesta para el lexicógrafo que, en bastantes casos, no posee datos suficientes para establecer cuál es la forma precisa del tema nominal". (Michelena 1974a, *SHLV*:389).

[97] *OEH*-k **aurka** ezartzen du leman.

[98] "Hor du, lekukorik eskatzen duenak batekin aski baldin badu, Larramendiren *garransia*, orain *garrantzi* bihurtua". (1982a:105).
Itsaskinean berriz hartuko dugu ahotan hitz hau.

[99] *OEH*-k, **ahaiko(a)** lema ematen du. *HLEH*-k, berriz, **ahaiko**.

[100] *facsimil(e)* honela lematizatzea, testua erabakitzaile ez izateari zor zaio, *facsimilez* baita testu-hitza:
"Honen gutun lagunak, José Paulo Ulibarri- beronen *Gutunliburua* facsimilez irakur daiteke orain (Gasteiz,1975)-...". (1978a:38).

[101] *HLEH*-k bezala baina *MH*-k ez bezala jokatuz, alegia:
"Deklinabide-atzizkiz soilik agertzen diren hitzetan, lematzat atzizkirik gabeko era hartu dugu, baina ondoan "=" zeinua erantsirik. Horrela, *baita=*, *ardurape=* e.a.". (*MH*:2.4).

esanahi mugatuz erabiltzen diren hitz-formak[102] -hots, atzizkidun formak ere-, modu berezian jasotzea komenigarri etsi da, azpisarreraren mailan kokatuz *HLEH*-ri[103] jarraiki: AGERIAN, ..., aditz-esapideekin eta besterekin egingo den bezala.

Aipamen berezia merezi dute izenlagunetatik eratorririko izenek, hobeto esan, jatorriz izenlagun direnek baina erabileraren poderioz izen bilakatu diren *-ko* atzizkidunek[104]. Halakoetan, izen bereskukotzat jo direnez gero, atzizkidun hitzak osorik lematizatu dira, beste izenak bezala (**alaldeko, lekuko...**)[105].

Hitz elkartuko lehen osagaiaren (izenaren) azken buruak aspaldiko legeen araberako hots-aldakuntza nozituz atzeman bada hiztegi-gaian, lematizatu eta azpisarreran zehaztuko da osagai itxuraldatua: ART-, ERDAL-, EUSKAL-, GAL-...[106].

---

[102] *HLEH*-tik hartu dugu dezioa.

[103] (1984:38).

[104] "Aun dejando de lado la cuestión de las categorías gramaticales, no faltan motivos de incertidumbre en un diccionario vasco. Así no se sabe muy bien qué es una palabra, algo que debe entrar como elemento léxico unitario en un diccionario vasco, y qué es una expresión más compleja que debe ser descompuesta en elementos más sencillos. Falta en Villasante *laur kantoiñetako*, que es equivalente preciso de *cuadrangular*, en la descripción de las pirámides, p. 26: *pilare, harroin, edo thomba laur cantoiñetaco gora ailtchatu baiçuc*. Villasante, no hace falta decirlo, no ha innovado en esto, sino que se ha limitado a seguir la costumbre que, como todas, no está falta de algún fundamento, sea racional o pseudo-racional. Es evidente que la inclusión de los derivados en *-ko*, porque son derivados, alargaría desmesuradamente los diccionarios vascos, y los alargaría con escaso provecho, pues tanto la formación como el sentido del derivado se obtienen por lo general a partir de la forma básica sin tropiezo alguno. Alguno de ellos, con todo, se infiltra siempre en los diccionarios: esto ha sucedido aquí con *ardurako* «corriente, ordinario, frecuente, común», por lo menos. Valdría la pena, creo, de investigar las razones, ocultas seguramente debajo del nivel de la conciencia del lexicógrafo, que han motivado y motivan la concesión de estos pasaportes excepcionales. No me parece que se trate en todas las ocasiones de algún rasgo formal o semántico inesperado". (1974a, *SHLV*:393).

Auzi hau berariaz miratuko da azterlanean. Nolanahi ere den, *-ko* atzizkidunek ez dute, antza, euskal hiztegigileen erabateko adostasunik erdietsi, ez unitate-izaerari ez kokalekuari dagokionez, Azkaratek (1990c) erakusten duen bezala.

[105] Beheraxeago berriz ere ahotan hartuko ditugu izenlagunaren ingurukoak.

[106] Malone-ren (1967:115) burubideari muzin eginez. Ingeles hiztegientzat, *self/selv-* moduko sarrera bikoitza paratzearen alde agertzen da eta.

8.2.2.2. Aditzaren inguruan

Aditzak era burutuan edo partizipioan[107] bilduko dira lema ezartzerakoan[108][109].

Hiztegi-sarreraren osagarria ez da, halaz guztiz, era burutu bakarra izango, esklerki, ondoan eramango baititu, aditz-oina[110] eta era ez burutua[111][112], hauek biak bat ez datozenean. Azkenok berdinak direnean, aldiz, era etorkizunak[113] osatuko du hirukotea, *HLEH*-ren bidetik.

Aipatu berri den zehazteak ez du eragozpen larririk, egileak formak oro badarabiltza. Ez da beti, ordea, zori hori izaten.

Debeku hauek direla medio, nahiago izan da Mitxelenak darabiltzanak bakarrik jaso[114] hiztegigileak bere kasa erantsi baino.

Halakoak gertatzen dira, esate baterako, zenbait aditz-oinen forma ezartzea ziurtasun handiz egin ez daitekeenean. Zein lirateke, urrutirago gabe, ondokoentzat Mitxelenak hautetsiko lituzkeen aditz-oinak: **belztu, beztu, xitu, zehaztu**? Hauei ez zaie aditz-oinik erantsi.

---

[107] *MH, EGLU-II* (1987:28); "era perfektoan" (AE:9).

[108] "Los verbos se suelen introducir por una forma no personal. El uso parece haber decidido que ésta sea el participio que, como es sabido, coincide con el radical en bastantes verbos de máxima frecuencia: *eman, egin*, etc.". (1974a, *SHLV*:389).

[109] Esan beharrik ez, azalduko den aditzezko jokabide erabateko honetatik kanpo geldituko direla, *dagoeneko* eta *den(a)* ("guztia"), edo adizki ez den *jakina* bere horretan lematizatuak.

[110] *EGLU-II* (1987:27).

[111] *HLEH*, "ez perfektoa" (*AU*:9); "inesiboz jantziriko aditz izena" *EGLU-II* (1987:30,103).

[112] Mitxelenaren "izenkiak" (1968d:151) (edo beheko *formas nominales* direlakoak), Sarasolak (*MH*:2.9) "aditz-izenkiak" deituak, alegia:

"En ciertas lenguas un diccionario lleva indicaciones que permiten saber cómo se conjuga un verbo, salvo en casos de irregularidad excepcional. (...). No parece que esto sea interesante ni posible en un diccionario de nuestra lengua, al menos en lo que toca a las formas finitas, sintéticas o fuertes. Sí lo es, con todo, y además de posible lo creo conveniente, cuando se trata de las formas nominales, es decir, del participio, del radical y del nombre de acción: *hartu, har, hartzen* en Axular, si no se quiere buscar más lejos. (...); con todo, no estaría quizá de más señalar expresamente, información que suele faltar en los diccionarios vascos, que mientras en la lengua de Axular el radical de *pairatu* es *paira*, y éste es con mucho el tipo más corriente, los radicales de *lothu, orhoitu* y *usatu* son, respectivamente, *lot, orhoit* y *usat*. Del mismo modo, se podría advertir que, aun cuando tenemos *iar, utz* de *iarri, utzi*, en *il(t)ki* o *iarraiki* radical y participio se confunden en una forma única, lo mismo que *egin*, etc. Detalles de este género no ocuparían demasiado espacio. Y es curioso que, sin razones de economía que lo justifiquen, propendamos a menospreciarlos precisamente los occidentales que, por nuestro escaso empleo del radical, somos quienes estamos más necesitados de adquirir esa información". (1974a, *SHLV*:390).

[113] (*AE*:9); "leku gentiboa jantziriko aditz izena" *EGLU-II* (1987:104).

[114] Hiztegigileari inferentzi bideak lekarzkiokeen (eta dakarzkion) ustekari gaiztoen adibideak krakur daitezke Michelenaren lanean (1974a, *SHLV*:390,391).

Edo aditz-oin moldez besterik topa ez daitekeenean: **asper-neka**[115]. Kasu honetan, hiztegigileak erantsi dio *-tu* marka, baina hiztegi-sarreraren azpian Mitxelenak darabilena jasoz.

Honenbestez, **asper-nekatu (H)** hiztegian.

Eta beste horrenbeste esan daiteke, hiztegi-gaian aditz-izenki molde hutsez irakur daitezkeenez, hala nola, *belarrietaratzen* besterik ezin atzeman daitekeenaz. **belarrietara(tu) (H), belarrietaratzen** izango du lema baina azpian aldatuko den "belarrietaratzen"[116] horrek adieraziko du hau dela testukoa[117].

Lema-paratze honetako jokamolde orotarikoa izango da, beraz, Mitxelenagan halakorik atzeman ez denean nahiz hiztegigilearen eskua tartean dabilenean, hiztegian falta-gehitzeen isla agerian uztea[118].

Hiztegi-sarrerako aditz-erek aldagaiak badituzte, aldagai guztiak jasoko dira: **erakus/erakuts, eransten/erasten, hazitzen/hazten** edo aditz-oin gisa erabiliriko **mugaturen** ondoren badarabilen **muga** ere bai, besteak beste.

Hiztegigile lema-paratzaileari auzi-iturri bilakatu ohi zaizkio[119] zenbait adizki jokatu. Hona istilutsuenen berria eta emango zaien irtenbidea:

- *dario...*

darion (zerion) adizkiei (hitz-erei) dagokienez, *EGLU-II*-ri[120] jarraiki, **erion (H)** lemapean bilduko dira, zalantzaz bilduko ere[121].

---

[115] "Asper-neka dadinean [Jat. *dedinean*], eskumendean du kontrako eztarri zuloan sartutik daraman S horretaz [Jat. *hortaz*] libratzeko bide erraza". (1972b4:78). (Mitxelenaren irakaspaperetakoa).

[116] Komatxogabea, noski, hiztegian.

[117] Kasu batean zein bestean, hiztegigilearen eskua ez da estali gordeko eta (H) hornigarria eramango du alboan sartua denak.

[118] Ikus beherago *-ra(tu)/-gara(tu)*z dioguna.

[119] "Pero, ¿qué hacer cuando sólo están documentadas formas personales? Se puede recurrir, no sin riesgo, a otras fuentes: así *dabreko*, etc., están aquí reunidos bajo **ebeki*, creo que con toda razón. El asterisco sólo indica que *ebeki*, de cuya realidad no cabe sospechar, no ocurre en el Gero. Pero, s. u. *irion*, por sacar otra muestra, hallamos *ura dario*, lo cual me parece una equivocación total.(...) Ya se ha indicado que, cuando un verbo tiene formas no finitas, cosa que puede muy bien no ocurrir (en mi uso y en el de muchos vascos, para volver a mismo ejemplo, *dario* carece de ellas), queda por determinar si alguna de ellas puede servir como básica o fundamental, de modo que de ahí puedan obtenerse las otras por medio de reglas unívocas o, si por el contrario, esto no ocurre, algunas veces, muchas o todas". (1974a, *SHLV*:390).

Gure irtenbidea, testuan.

[120] (1987:256).

[121] *HLEH*-k: "**Jario, Jarioko.** zaio *ad* (...) Ik. **erion**" badio ere, ez dago **erion** sarrera-buruaren azterrenik behar lukeen tokian.

- *datxeko...*

datxeko, datxeka, datxezkio, datxezko, natxeko adizki jokatuen hitz-erei dagokienez, berriz, duda egin dugu *EGLU-II*-ren[122] arabera *atxeki* ala paratuko dugun **atxiki** ezartzearen artean, beste behin irakur daitekeen **etxeki**[123] ere lehian dabilela atzendu gabe.

atxiki hautatzeko arrazoia *atxikia*[124], *atxikiago*[125], *atxikiak*[126], *atxikiena*[127] (gehi **atxikidura** izena, eranstea zilegi bada) hitz-era lehiakide gabeak erabiltzean datza.

- *iritzi/eritzi*

Ikusi berriaren antzeko gertakaria da *eritzi/iritzi* aditzak sortu ohi duena.

Aditz gisa, ez da hiztegi-galan inoiz *eritzi*rik irakurtzen ahal, nahiz **eritzi** (iz.) bitan[128] atzeman dugun.

Kontrako aldetik, berriz, **iritzi** (ad.)[129] seitan, **iritzi** (iz.) laurogeita hamairutan, gehi usu darabiltzan **irizkide**, **irizpide**, *erizkide* edo *erizpide*-ren arrastorik ez dagoen bitartean.

Hau ikusirik, zuzenago dirudi adizkiak lematizatzean **iritzi** oinarrizko formapean biltzeak[130].

- *-i/-tu*

-i nahiz *-tu* partizipio-marka har ditzaketen aditzek ere kezkabidera eraman dezakete hiztegigilea[131]:

---

[122](1987:254).

[123]"Hor daude *zure antza zeukan, zenbat urte dauzkazu?* edota, gramatika "hobeari" etxekirik, *zenbat urte daukazu?*". (1966c:171).

[124](1978a:104).

[125](1968c:90).

[126](1972b1:33), (1972b4:85), (1978a:32), (1983e:132).

[127](1981c:144).

[128](1978a:29,30).
"Bestalde, ez ditut kontuan izan K. Mitxelenaren testuak, Errenteriako irakasleak erruz erabiltzen baitzuen hitza, beti *iritzi* forman, eta zertzelada honek grafikoak desitxurako zituelako". (Sarasola 1992:453).

[129](1972b4:80,81,88), (1972b5:121), (1981c:155), (1983a:49).

[130]Halaxe gomendatu berri du Euskaltzaindiak.

[131]Michelenak dioen bezala (1974a, *SHLV*:391).

Euskal morfologiaren notakotasunaren ondorioz, lematizatzearen ikuspuntutik anbiguoak gertatzen ziren hainbat hitz-erarekin aurkitu izan ginen. Adizkeratatik hasteko, aditz jakin baten partizipioak *-i-zko* eta *-tu*-zko aldaerak dituenean, aditz-izenkiaren salleko hitz-era guztiak anbiguoak gertatzen dira. Horrela, *itzaltzen*-en agerraldietan ez genuen, oro har, biderik, zein *itzali*-ri eta zein *itzaldu*-ri egokitu behar genion jakiteko. Ezinbestean *itzaltzen* lematzat hartu genuen, *itzaltzera*, *itzaltzeko* eta gainerako era anbiguoak bertan batuz. (*MH*:2.9).

. *ahantzi/ahaztu* bikoteak sortaraz dezake gisa honetako ezpaia, zenbait aditz-formatan bereizten dituen *-n-* labainkorxea dela medio.

ahantzi, ahantz, jasoko dira batetik, eta **ahaztu, ahaz, ahazten**, bestetik.

. *ateri/atertu* ere kasu beraren erakusgarria da.

-tu duena hautetsi da *atertzen* aditz-izenkiarentzat, *atertu* badarabilela eta *ateri*-rik ez darabilela ikusirik.

Beraz, **atertu, atertzen** hiztegian.

. *nahasi/nahastu.*

Lehentasuna lehenari emango zaio, *nahastu* behin bakarrik darabilelako, *nahasi* hamalautan darabilen bitartean. Honen ondorioz, lematizatzean, **nahastu** bakarraz osaturiko lema ipiniko da batetik eta **nahasi, nahas, nahasten**, bestetik, baina aditz-oina eta inesiboz jantzi aditz-izenkia bakar bati egoztea erabat zuzen ote den zalantzaren lainopean utziz.

- Aditzen sail honetan paperera behar den beste bikote kezkagarria *berezi/bereizi*[132] da.

Aditz honen erabilera nahasia dela eta[133], egoki ikusten da lematizatzean jarraikiriko gogobidearen[134] eta eskuartean erabiliriko datuen berri ematea.

bereizi, bereiz, bereizten deiziopean bilduak honakoak dira:

bereizi (era burutua) -- behin[135], *bereiz* (aditz-oina) -- hamahirutan[136], *bereizten, bereizteko*... (aditz-izenak) -- hirurogeita bat aldiz.

berezi, berez, berezten deiziopekoak:

---

[132]Aditzaren nahiz izenondoaren gainean eratorriak Mitxelenak paperera bezala jasoko dira hiztegian, erabilera anitzak barne.

[133]Puntu honezaz, beranaz, Sarasolak (1985) nahastearen oihartzuna eta erabileren azterlana pleguetara du.

[134]Goganbeharrez ezarri ditugu burubideok, *i* bokalaren toki egongaitza dela medio. Ik. *FHV* (1985$_3$:159).

[135](1971e:104).

[136](1958h:101 bitan,102 bitan), (1972b4:67,68,70,107), (1972b5:109), (1981c:142 hirutan).

berazi (era burutua) – hemezortzi aldiz[137], *berez* (aditz-oina) – bitan[138], *berezten, berezteko...* (aditz-izenak) seitan[139].

Azpimarra daiteke, bestalde:

- *bereziko* (zazpitan[140]), *barezirik* (hirutan[141]), *bereziz* (behin)[142] soilik irakur daitezkeela testuetan; *bereiziko, bereizirik* edo antzekoren arrastorik kausitu ez da.
- izenondoa beti, *berazi* da (berrogeita zortzi aldiz), *bereizi*-rik ez dago[143].
- adberbioaren betekizunean, *bereiz*[144] eta *berex*[145] atzeman dira.

- *arazi/erazi*

> [Villasanteren lanean] No hay artículos especiales para los causativos en *-arazi*, aunque hay uno general, s.u. *arazi*, en el que no aparece, por ej. *iben araci*, p. 89, y sin duda alguno más. En este caso la exclusión me parece menos justificada, o menos explicable, que en el anterior. Si *goganbehartu* «sospechar, recelar» tiene entrada aparte junto a *goganbehar* «sospecha, recelo», no se ve razón de que no aparezca *goganbehar-arazi cf. gogan behar araciteco*, p.403. Al contrario de lo que sucede con *-ko*, se esperaría a priori que la distribución de *arazi* se caracterizara por cierto número de lagunas reveladoras. (1974a, *SHLV*:393).

Gure hiztegian – Mitxelenaren burubideari eta idazmoduari jarraiki– sarrera-buru osotzat jo ditugu Mitxelenak bat eginik (gehienetan gertatzen dena) nahiz bananduriK idatzi dituen bakanak: **bete-erazi, entzun-arazi, jakin erazi...**[146]

---

[137](1968d:91), (1968d:141,143,149), (1972b0:23,28), (1972b2:44), (1972b3:53), (1972b4:102), (1972b5:119,120), (1979d:122), (1981c:147,153), (1983e:130,131), (1985a:113), (1986c:174).

[138](1972b0:28), (1978a:44).

[139](1972b0:28), (1972b1:32), (1972b3:56), (1972b5:125,126), (1978a:27).

[140](1968e:77), (1972b4:84), (1979g:175), (1983e:130,134), (1984b:30), (1985d:75).

[141](1968d:143), (1971e:101), (1972b4:68).

[142](1972b2:44).

[143]Puntu honetan bat dator, beraz, Mitxelenaren erabilera Sarasolak (1985:941) egungo joeran hautemanarekin. Eratorriez eta haien onarriez, eratorbidean eskainirikoan ariko gara.

[144](1972b3:61).

[145](1965c:191).
Sarasolak (1985:938) dioenez, Larregik lehen aldiz erabilia.

[146]Salbuespen dira ADITZERA EMANERAZI, LUR JOERAZI eta LOKAR ARAZI, **aditze** eta **lur** izenen azpisarreran kokatuak lehen biak eta hiztegigileak sortu eta sarturiko **lokartu** (H) aditzaren azpian kokatua hirugarrena.
Euskaltzaindiak gomendatu berriaren ildotik, *arazi* da hobetsia.

- -ra(tu), -gana(tu)[147]

Molde hauek hartuko dituzte hiztegian direlako aditzok.

Mitxelenaren erabilera zaharren moldeari[148] –hots, *-tu* partizipio-markarik ez duenari– atxikitzen zaionean, () ikurrak adieraziko du, balioz era burutukoa izanik ere, ez duela *-tu*rik jantzi: **aurpegira()**, **eskuetara()**, **eskura()**, **gainera()**, **kalera()**, **paperera()** edo **plazara()**, esate baterako.

-tu markaz besterik ez badu erabili era burutua, ez da parentesirik erabiliko eta beste aditzek bezalako lema hartuko du: **aurreratu**, **bateratu**, **elkarganatu**, **geureganatu**...

*-tu*ren agertzea aldizkakoa bada, parentesi artean jasoko da ezaugarria: **argitara(tu)**, **beregana(tu)**, **gogora(tu)**...

Aditz hauen izaera bereziaren kariaz, era burutu moduan erabili ez badu, berriz -hau da, lema geurok sartua denean–, **(H)** ikurra alboratuko zaio, lema-ezarpena, Mitxelenaren erabilerak bide ematen duen moldez edo *HLEH*-ren arabera eginez: **axalera(tu) (H)**, **belarrietara(tu) (H)**... baina sarrera-buruaren azpian –lehen esan bezala– Mitxelenak erabiliaren kontu emanez: "axaleratzen", "belarrietaratzen".

gainera() (H), lematizatuko da, berriz, Mitxelenak darabilen[149] –eta lemaren azpian jasoko den– "gainerako (etork.)" moduan oin hartuz.

- ukan

Lema hau erabiliko da[150], aditza trinko nahiz laguntzaile moduan erabili denean berezi gabe, *izan* aditzean jokatuko den bezala.

EGLU-II-k[151], euskal adizki laguntzaileak zedarritzean, anarteko laguntzaileen sailkapenean aldakuntza proposatuz, *ukan* ez baina **edun* ematen du[152] ergatiboa agertzen duten perpausetako laguntzaileetarikotzat eta, ildo horretarik, laguntzaileen

---

[147]"No dejaré, por último de señalar que no deja de haber razones que abogan en contra de la inclusión de estos «verbos» [*hartara, eskupera, eskuetara*...] en un diccionario. La primera y principal es la ya mencionada a propósito de los derivados en *-ko*: que, por tratarse de una formación plenamente productiva, su número es abierto y no se le puede fijar cota superior". (1974a, *SHLV*:395).

[148]*AE*-ren (20) hitzetan, "jatorragoari".

[149]"Asmatu, ez omen zuen hiruzpalau baizik egin eta gezurra dioela erantzun lezaiokeenari, hauxe **gainerako** dio: *voces facultativas* direlakoak ez dituela kontutan hartu...". (1984b:32). (Beltz. gurea).

[150]Ez zaio hiztegigileak sartuak direnei ondoraturiko grafi ñabarduraik erantsiko, *ukandu*.' hitza behin betarabil Mitxelenak.

[151](1987:121).

[152]Nolanahi dela ere, gogo eman daiteke, zenbaitetan, halako bereizkuntza zorrotzik ez dela egiten adizki (berak?, berdinak?) lituzketen partizipioen izendapenak erabiltzean. Honela, "Partizipioarekin osaturiko parafrasiak" deitako atalean, "*-ik + ukan/eduki*" mota bereizten da eta jasotzen diren adigarrien ondoan, honakoa irakur daiteke:

"Bi aditz horien aukera [*ukan/eduki*, alegia] euskalkien arauerakoa da. **Edun* zubereraz erabiltzen da eta **eduki** nahiago da lapurteraz eta gipuzkeraz". (*EGLU-II* 1987:477).

paradigmak papereratzean **edun*-ena ere eskaintzen[153].

ukan, berriz, trinkoen artean paradigmarik zehazten ez bazaio ere, aditz nagusi soiltzat jotzen da:

> Esan dugunaren arauera, dugu, genuen eta horiek **edun*-etik sortuak bezala eman ditugu. Hala ere, zenbait gramatikatan ikusiko da **ukan** aukeratzen dela haien errotzat. Beste batzutan **edun* nahiago dute. Guk egin dugun aukera, esan bezala, honako hau da: **ukan** erabiliko dugu aditz nagusi bezala (hartu edo ekarri erabiltzen diren bezala) eta **edun* izanen da aditz jokatua. (*EGLU-II* 1987:122).

Esana doan bezala, ez laguntzaile/trinko bereizkuntzari, ez aditz nagusiak aspektu-marka eramatearen ala ez eramatearen araberako sailkapenaren ondoriozkoari (hots, **ezan* ere –eta *izan*-en kasuan **edin*– bereiztera behartuko lukeenari) jaramonik egingo zaio eta, leman, trinko liratekeenen partizipioa ezartzera joko da: **Izan** batetik eta **ukan** bestetik.

8.2.2.3. Adjektiboak, Adberbioak

Kasu bietan, *EGLU-I*-en termino-bereizkuntzaren urratsetan, ez dira *adb.* eta *adj.* hiperonimoen ezaugarriak[154] loma-jartzean erabiliko.

Izenondoak eta izenlagunak, bereziko dira (**izond.**; **izlag.**) batetik eta aditzondoak eta adizlagunak (**adond.**; **adlag.**) bestetik[155].

8.2.2.4. Izenordainak, Erakusleak

Hamaika puntu interesgarri azterkizun eta erabakikizun egonagatik, tesi honen arretatik at ikustearen kariaz honako bidetik jotzea hautetsi da:

Eskierki, NOR kasuan bilduko dira erakusle-izenordainak, arrazoi bat edo besterengatik alpagarri iritzi zaizkienak azpisarreretan edo adibideetan jasoko badira ere.

Nabarmengarri iritzi zaie, esate baterako, erakusle (eta adberbioen) kasuan, *-xe* atzizkidunei, hurrenkera –hots, atzizkiaren kokaleku ez erabatekoa– dela medio: **honelakoxe, horrelakoxe / horrelaxeko**, HORREXETARA baina HORRETARAKOXE, besteak beste.

Edo, esate baterako: HARANZKO / HARAZKO gisakoak[156].

---

[153] *EGLU-II* (1987:182hh).

[154] *EGLU-I* (1985:241-305,453-505).

[155] Kategorion arteko muga labainaren gainekoez beherago ariko gara.

[156] Ikus itsaskineen hauen gainekoa.

Aipatuok, gehi *-tsu* atzizkidunak berez lematizatu dira, hiztegiaren hierarkian, azpisarreran nahiz adibideen artean paratuz, eta oro har, ez dute iraulpenik izango.

Izenordainei dagokienez, arestian aipatu den bidetik jo da, lema NOR kasuan, paradigma osoaren ordezkaritzat hartuan, bilduz.

Halarik ere, nahiz lematizatze garaian xehetasunen gainetik orobatasunari lehentasuna eman zaion, puntutxoren baten adigarria emateari garrantzizko deritzagu, euskara batuaren finkatze eta bilakabidearekin ikuskizunik izan lezakeelakoan.

Auzia[157] *ni* izenordainari dagokio bereziki eta tartean direnak, genitibozko erabilera eta izenordainaren era indartuak dira nagusiki[158].

Mitxelenaren hiru liburukiotan egiaztatu dugun aipaturiko izenordainarekiko jokabidea paratuko dugu[159], zenbat bider erabili duen zehaztuz[160] eta alboan, guk emaniko lema ipiniz[161]:

. *neronek (neronen, neroni)* (hogeita hamarretan) --> **nerau**.
. *neu (neuk)* (hamahirutan) --> **neu**.
. *nerau* (bitan)[162] --> **nerau**.
. *nerauk* (behin)[163] --> **nerauk**.
. *neuronek* (bitan)[164] --> **neuronek**[165].
. *neure* (berrogeita bederatzitan) --> **neure**.

---

[157]"Para no citar más que una de las supersticiones corrientes entre nosotros, entre quienes hoy prefieren escribir *nire* 'mi, mío' en vez de *nere*, no faltan quienes piensan que *nire* no es solamente «más correcto», sino también «más antiguo» que *nere*, puesto que su vocal tiene el apoyo del personal *ni* 'yo'. Esto puede parecer razonable, pero no es más que una suposición, que los documentos descartan radicalmente.

Sin remontarnos demasiado en el pasado, vemos por los textos que todas las variedades vascas parecen haber conocido un posesivo *ene* 'mi, mío', que se contraponía a un intensivo o enfático cuya forma más generalizada es *neure* 'mi propio, de mí mismo', una de cuyas variantes es *nere*. Donde *nere* está hoy en uso tenemos, por lo tanto, una forma antigua, aunque usada fuera de su antiguo contexto: *nire*, en cambio, no es sino una formación analógica moderna construida sobre *ni* según el modelo *i : ire :: gu : gure*, etc.". (1964a, *SHLV*:24).

Auzi honezaz, Sarasola (1980,1992).

[158]Nagusiki diogu, *neri/niri*ren ingurukoak ere aldatuko ditugulako, autuarekin ikuskizunik ere bai baitu, gure ustez.

[159]Datu hauek guztiak lehen argitaraldietan egiaztatu ditugu.

[160]Berri zehatza kopuruz txiki direnena besterik ez dugu emango.

[161]Puntu honentzat osoarentzat, argitaraldi desberdinen arteko berriak izateko, itsaskinera igortzen dugu.

[162](1978c:164), (1983d:119).

[163](1979g:182).

[164](1975b:91,92).

[165]Nahiago izan dugu bere horretan hiztegira aldatu geurok erantsiriko lema ezarri baino.

. *ene* (hogeita bederatzitan) --> **ene**.
. *nere (neretzat)* (hogeita zazpitan) --> **nere**[166].
. *nire* (bitan)[167] --> **nire**.
. *neri* (bitan)[168] --> **ni**.
. *niri* (zortzitan)[169] --> **ni**.

Begietan ematen duen lehen gauza, kopuruen arteko desoreka da. Begira diezaiogun astiroxeago.

nire, bitan darabil, 1959ko[170] artikulu berean. Lan honetan bertan, haatik, *nere*, *neri* eta *neretzat* ere badarabiltza.

niri, berriz, beste hauetan darabil:

(1972b5:128) baina eraskinean zehaztuko den bezala, lehenik kalera emandakoan *neri* da paratua, *niri* argitalpen berriak sortu du[171].

(1981c:137,142), "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz".

(1983a:74), "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)". Baina honen ondoan, artikulu berean *nere* hiru bider irakur daiteke.

(1983d:117,120), "Iruñea".

(1984b:40), "*Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*ren aurkezpena". Baina bi orrialde aurreragó *nere* irakur daiteke.

(1985d:79,87), "Camponen *Gramática* eta beste".

Argitaradataren arabera ordenaturik ematea, denboraren joanak Mitxelenagan aldakuntzarik ekarri ote duen ziurtatu gogoari zor zaio. Halarik ere, komeni bide da 1985eko artikulu horretan planto egiteke, garai beretsuko beste artikuluak ikusmiratzea ondoreak ibzuragaiztotzeko arriskuari itzuri.

Hona erakusgarria:

. (1983f) "Hitz mailebatuez", (1985a) "Pello Salabururen Euskaltzaindian sartzea", (1985c) "Mailegu berrien idazkera", forma mintzagaiak darabiltzan azken urteetako artikuluetan, *nere* darabil.

---

[166] Egia esan, lema hau ezarriagatik, *ni*-ren lemapean bil zitezkeen hau eta darraiona (Sarasolak *HLEH*-an egina eta (1992:457) lanean adieraziaren ildotik), indargarri-kutsu garden eza dela medio. Nahiago izan dugu, haatik, hiztegian ere isla izan zezaten.

[167] (1959a:130,133).
Jakina denez, Euskaltzaindiak molde hau (eta honen paradigmakoak) gomendatu bem ditu.

[168] (1959a:128), (1961a:47).

[169] (1972b5:128)]], (1981c:137,142), (1983a:74), (1983d:117,120), (1984b:40), (1985d:79,87).

[170] "Euskal itzak zein diren", (1959a:130,133), jaso bezala.

[171] Hau dela eta, lehen zortzitan darabilela esatea.

Beste izenordainen lema-ezartzean jarraikiriko jokamoldea, honakoa izan da[172]:

. *gure* (berrogeitan) --> **gure**.
. *geure* (berrogeita hamaikatan) --> **geure**.
. *geren* (behin)[173] --> **geren**[174].
. *geron* (behin)[175] -- [geron].].
. *geuron* (behin)[176] --> **geuron**.
. *geronen* (behin)[177] --> **geronen**.
. *geu (geuk)* (lautan)[178] --> **geu**.
. *gerok* (bostetan)[179] --> **gerok**.
. *geurok* (bostetan)[180] --> **geurok**.

Hirugarren pertsonari dagokionez, berriz, honelako lema-jantziz landatuko dira hiztegian.

. *bera (beraganaino, beragandik... berak, berek, berei...)* --> **bera**.
. *berau, berauek, berauen, beronek, beronen* --> **berau, beror**.
. *berbera* --> **berbera**.
. *berori, bero(r)iei, berorien, beroriek, berorrek, berorren* --> **berori**.
. *barbera* --> **berbera**.
. *bere (berea, bereak, berean, beregan, beren...)* --> **bere**.

. *hura (hark, harekiko, harekin...)* --> **hura**.
. *haiek (haiei, haiekin, haien....)* --> **hura**.

---

[172] Argitaraldien arteko aldeez eta honek hiztegian utzi duen hatzaz itsaskinean ariko gara.

[173] (1959a:131).

[174] Honela (eta ez beste lema zabalago baten pean) jasotzeko arrazoia, molde berezianen lekuko izateari zor zaio. Beste horrenbeste balio du darraiotenentzat.

[175] "Linguistika berriaren berri onak", *Jakin*, 1968:13. Itsaskinean zehaztuko den bezala, lehengai baliatu dugun azken argitaraldian ezin irakur daitekeenez gero, aldatu **geuronen** aldaeraren izaera izango du hiztegian: [geron].].

[176] (1961a:61).

[177] (1959a:132).

[178] (1972b0:26), (1972b2:41), (1972b5:111 bitan).

[179] (1968d:136,148), (1972b5:111,125), (1987d:80).

[180] (1972b4:92), (1983e:135), (1984b:28,42), (1985c:192).

Bestetik eta azkenik, honako lema ezarri zaie beste hauei:

. *zu* --> **zu**.
. *zuek (zuei, zuekiko, zuen, zuen)* --> **zuek**.
. *zerok*[181] --> **zerok**.
. *zerorrek*[182] --> **zerorrek**[183].

Formaz (edo etorkiz) erakusle izanik eginkizunez hala ez direnak, halaz ere, ez dira ber moduan lematizatu.

Honela, **honen, horren; honako, harako, horrako** ('delako'), **honetara, horretara** ('hala', 'gisa hartan'), **hona, horra** ('hona hemen', 'horra hor', 'ikus'), **horratik / horregatik** ('ordea'), **hortaz** ('beraz')... hau da, lokailuaren[184] betekizuna edo dutenak bere horretan gordeko dira.

8.2.2.5. Bat, batzuk

Azterketa geldia eta tesi honen mugak gainditzen dituena eskatzen dutelakoan, ez zaie bereziki erreparatuko (esan nahi da, ez dira tokian tokiko eginkizunak xeheki islatuko) eta, beste gabe, bi formotan bilduko dira.

Azkenik esan behar da hiztegi-artikuluaren buruan kategoria agertze-ezak eskuztatu bibliografian zalantzak uxatzeko irozgarririk aski ez aurkitu izana besterik ez duela agerian utziko.

---

[181](1972b5:123).

[182](1981c:153).

[183]Kasu honetan ere nahiago izan dugu Mitxelenak behin darabilen modu honi eutsi.

[184]*EGLU-III* (1990).
Halarik ere, hiztegian, ez da "lokailu" deziorik erabiliko. **Junt.** erabiliko dugu, benetako juntagailuak, menderagailuak eta lokailuak berezi gabe, hirueronimo gisa, alegia.

8.3. HIZTEGI-ANTOLAMENDUA (makroegitura eta mikroegitura)

8.3.1.1. Hiztegi-sarrera motak

Hiztegian kokalekua duen forma oro –hau da, lematizatu den oro– hiztegi-sarrera da, bertan duen hierarkia hierarkia. Esan nahi baita, lema-ezartzea amaitutakoan, izaki teoriko horiek, hiztegian maila jakin batean kokatu beharrak direla, guztiak ez baitira hiztegigintzaren ikuspegitik estatus berekoak.

Hau dela eta, hiztegiaren antolamenduari dagokionez, ohiko hizkuntzalaritza-irizpideei jarraiki, hiru sarrera-mota nagusi bereziko dira hiztegi-izakien artean, zeini bere itxuratzeko molde berezia harraraziz: **sarrera-burua**, hau da, hiztegi-sarrera osoa –hiztegiaren makroegitura osatzen duena– batetik (beltzaxkaz iruditarako dena); sarrera-buru horrek bil ditzakeen AZPI-SARRERAK, bigarrenik (arestikoaren azpian letra larriz irakurri ahal izango direnak) eta hornigarri edo erakusgarri moduan paraturiko adibideak bestetik (arestiko biak baino letra ttikiagoan itxuratuko direnak)[185].

Hiztegi-antolamendua ontzean eta hiztegi-gaiak mailakatzean honakoak izan dira gogoan:

. Hiztegi honek (eta batipat, hiztegiaren barneko zati-hiztegiño berezituak) duen izaera berezia dela eta, hau da, bete-betean idazle baten lexikoia –ohiko zentzuan– ez baina gai jakin bati buruzko (hizkuntzalaritza-filologia-gramatikezko) idazlan batzuetan idazle batek darabiltzan lexiko-gaien bilduma izan gogo duela eta, termino-hiztegien gisara, beste ohiko hiztegiek jokatu behar bide duten bezain zorrotz ez jokatzeko eskua bazegoela begitandu da[186]:

> L'abondance des groupes de mots liés à une notion exige, alors, soit une répartition encore plus arbitraire des unités que dans le dictionnaire de langue. (Rey 1977b:V-31).

Honek dakar –landaturiko jomugaren kariaz–, hiztegi-sarreratzat zer jo erabakitzean eta hala hautetsien hiztegi-hierarkia ezartzean, ohi ez bezala jokatuko dela, hizkuntza usuazko hiztegietan edo bestelakoetan ez bezala, alegia.

Honen ondorioa da, hain justu, entziklopedi izaera ez duten hiztegiei[187] nekez zilegiztatzen zaien izen berezi edo propioen lekukotasuna ere aldizka jasotzea, salbuespen

---

[185] Ez dira zokoratzekoak eskueran genituen informatika-lanabesek ezarri dizkiguten mugak. Konputagailu txiki bati (PC bati) atera dakiokeen zukua ateratzen saiatu gara, halaz ere.

[186] Alvar Ezquerra (1978), Opitz (1983a:62).

[187] Termino-hiztegiek entziklopedia aldekoekin dituzten lokarriak eta heslak aztertzen dituzte Rey-k (1977b) eta Guilbert-ek (1977).

moduan hartu behar badira ere, jokabide orotarikoa baztertzearen aldekoa izan baita[188].

Direlako erresalbuetarikoak dira hizkuntzalaritza-filologiezkoetan nolabaiteko esanahi berezituaren jabeak, adigai[189] zehatz baten delzio direnak, eskuarki, lege, ereegela edo antzekoen izendapenak. Halakoei emango zalen hiztegi-hierarkia, azpi-sarrerarena izango da, orobat harturik: **lege** lemapean, esate baterako, GRASSMANN-EN LEGEA, edo FORTUNATOV ETA SAUSSURE-REN LEGEA irakurri ahalko da.

. Gertakizun beraren beste ondorio bat da, aipatu berri den hierarki auzia ukitzen duena. Izan ere, esan den bezala, ohiko hiztegietan izenlagunak sarrera-buruan kokatzekotzat hartu ohi ez badira ere, erabilera berezituetakoek bereziki, beste begiz ikusi eta, nabarmentze modu hori hartuko dute behin baino gehiagotan: **azaleko**, edo **ohiko**, kasurako.

. Pluralezko formek, oro har, hiztegian islarik ez badute ere -Scholfield-en[190] irizpidea gure eginez--, zenbaitetan –hizkuntzalaritza-filologia-gramatikezko berezitu zenbaitetan, alegia–, nabarmengarri etsi direnean, pluralezko forma azpisarreran jasoko da, Mitxelenak pluralez erabili badu: HÁPAX LEGÓMENA[191], KOINAÍ, esate baterako.

. Atzizkiak, garai eta taxu bateko euskal hiztegigintzatik urrunduz[192], ez dira hiztegi-sarreratzat joko, zenbait erdaren preposizioen kidetzakotzat har daitezkeen euskal juntagailuak (**arren**...[193]) edo eratorpenaren eta elkarketaren mugan kokatuko diren zenbait hitz (**aldi**, **alde**, **gai**...), hau da, atzizki-betekizunik ez dutenak salbu.

. Antzinateko gramatikatikako hitz beteen, esanahidunen, eta funtzio- edo gramatika-

---

[188] III-EMENDAKINean bilduko dira, halaz ere, euskararen batasun-bidean edo interes berezia zutela iruditu zaizkigun leku-izenak.

[189] Kontzeptu'ren kide gisa darabilgu, ez 'esanahi'rena. Hau da, oraindik ere hizkuntza jakin batean hizkuntz izaerarik hartu ez duen endeleguzko izakia.
Lewandowski-k (1982$_2$) jasotzen du termino honen inguruko nahastearen aztarnarik.

[190] (1980:102).

[191] Kasu honetan, gainera, ez dugu singularrezkorik aurkitu.

[192] "Sea lo que fuere, se diría que los diccionarios vascos, desde Azkue por lo menos, contienen al mismo tiempo más y menos información gramatical que la que facilitan los de otras lenguas. No hay, que yo sepa, diccionario latino que dedique artículos a *-lex*, a *-mentum* o a *-osus*; tampoco tratan de *ad- (adduco*, etc.), *de- (deficio*, etc.) o *e(x)- (exigo, edico*, etc.), aunque sí de *ad, de, ex*, como preposiciones. La información omitida, que Azkue introdujo en su gran obra, se hallará en un manual de morfología que trate de la formación de palabras, que no son todos, ni mucho menos". (1974a, *SHLV*:392).
Azken puntu horrixe helduko zaio, hain justu, teslaren hirugarren atal nagusian.

[193] "Esan arren"-ekoa, ez "esatearren"-ekoa, hots, adbentsaziozkoa bai, kausazkoa, ez, *HLEH*-ren ber ildotik.
Esan beharrik ez, 'otoi'-ren (*pragmatic operator* (Zgusta (1971:36)), delakoaren alegia) ordain denak, sarrera osoa lukeela, honek berak gure hiztegian izango duen bezala.

hitzen[194], hitz huts ere deituen arteko bereizkuntza ez da hiztegi-sarreratzat zer jo erabakitzerakoan irizpide hartuko eta, bigarren motakoak ere beste hitzak bezalaxe jasoko dira[195], Zgustak eskatzen duen betekizun-azalpen zehatzik ondoratuko ez bazaio ere, hiztegi honen izaeraren kariaz[196]:

> For the lexicographer, these grammatical words, or function words (or whatever he chooses to call them) are just a part of the total lexicon of the language, as any other words. It is duty to register them and to indicate their meaning, in this case roughly speaking, to indicate with what grammatical function, when and how they are used. (Zgusta 1971:115).

Ohiko hiztegigintza-bideetarik joz eta hiztegi hau hitzean eta ez morfeman oinarritzen dela aurrean izanik, kanpoan utziko dira gramatika-aurrizki soiltzat (eta ez "hitz"-tzat) joriko *ba-* eta *bait-* (lehenaren kasuan, baiezko - eta ez baldintzazko- balioa duenean kontrako ordain duen ez jasoa izateak zalantza sor dezakeen arren), atzizkiak, oro har, eta gamatika-atzizkiak bereziki, kanpoan utziko diren arrazoi beragatik, hots, benetako "hitz"-tzat hartu ezinagatik.

Kontutan hartu behar da, bestalde -Zgusta-ren terminologiaz baliatuz--, zenbait hitz *semi-lexical* nahiz *semi-grammatical* izan daitezkeela; hau da, forma berak (betekizun-aniztasuna nahiz homonimia direla medio) funtzio bat baino gehiago bete dezakeela.

Kasu honetakotzat jo daitezke, esate baterako, posposizioak osatzeko erabiltzen direnak. Hiztegi-antolamenduari dagokionez, posposiziotzat hartuak, osagai nagusiaren azpisarreren artean bilduko dira: **buru** lemapean, -(R)I BURUZ, esate baterako.

. *-ago*, *-egi* atzizkiei ez zaie lematizatzean jaramonik egingo kasu jakin batzuetan ezik: **gehiago**, **gehiegi** eta antzekoetan, hots, lexikalizazioa burutu dutela esan daitekeenean.

Halaz ere, forma horiek berek *-xe* atzizkia baliatu badute -atzizki hau jantzi duten besteekin jokatuko den bezala- direlako forma *-xe*dunak oinarriaren lemapean jasoko dira, lehen azaldukoagatik.

. Sigla edo laburdurak ere hiztegian jasoko dira, Alvar Ezquerra-ren[197] eta Haensch-

---

[194] *mots de structure ou mots grammaticaux* (Guiraud 1954:62), *monemas de contenido gramatical, monemas funcionales* (Martinet 1965:140-157), *structure words* (Opitz 1983a:58) deizioak irakur daitezke, besteak beste. Werner-ek (1982:191) puntu honezazko bibliografia zabala eskaintzen du.

[195] Imbs-ek (1960) ere adierazia zuen gisa honetako hizkuntz elementuak hiztegietan jaso beharra. Geroago, Ahumada-k (1989:142) ere ildo beretik jotzen du.
Swanson-ek (1967:66) *function-words* direlakoak hiztegi elebidunetan sartu beharra azpimarratzen du.

[196] Kontrako aldetik, izaera hauxe luke hitz-mota hauek jasotzeko areriorik nagusiena, Alvar Ezquerra-ren (1978:164) ustez.

[197] "La inclusión de las siglas en el diccionario es incuestionable". (1976:196, 1978:175).

en[198] gogobideari helduz eta ez dira eraskinen batean bilduko.

. Zenbakiak, hitz-eraketarako oinarri ez badira, ez dira jasoko.

8.3.1.2. Morfema bakunaz gorako hiztegi-sarrerak

Puntu berezi batean azalduko da nola jokatuko den morfema lexiko bakunaz goragoko hizkuntz zerekin, eratorri eta konposatuekin bereziki. Ettinger-ek[199] adierazi bezala, hiztegigintzan ihardutean, hizkuntz gertari hauen azterketari heltzea ezinbestekoa da eta.

Argi gera bedi, halaz ere, jokamolde orotarikoa dela azalduko dena, berezitutzat hartuek, bestek baino aukera handiagoa izango baitute, nolabait esan, legez zegokien mailan baino goragoko batean kokalekua erdiesteko[200].

8.3.1.2.1. Hitz eratorriak

Hiztegietan zehar bestelako antolamendurik ikus daitekeen arren (oinarriaren azpian bildurik, esate baterako), hitz eratorriek henien sarrera osoa izango dute oro har, ikusi baita, ibxuraren egituran oinarrituriko sailkamodua eginez, lanari abantailak baino areago, nahasteak eta balizko koherentzi faltak lekarzkiokeela[201].

Honenbestez, Martinet-en[202] hitzak aldatuz, hemen ere aho batez onarturiko arbitrariotasuna hobetsiko da, subjetibismo irristakorraren aldean.

Puntu honetan, zehaztu behar da, halaz ere, bi atzizkirekin ez dela osorik beteko adierazi jokamoldea[203].

Batetik, *-ka* aditzondo-sortzailea da arau orotarikotik pittin bat saihesten dena.

---

[198](1982:418,459).

[199](1982:233-258).

[200]Esan nahi da, jokamolde orotarikoaren arabera azpisarreran edo adibideen artean behar lukeena, esana doan bezala, bigarrena azpisarrera eta lehena sarrera oso izatera iritsi daitekeela. Ikus izenlagunez dioguna, urrutirago gabe.

[201]*structural inventory* (Quemada 1972:445) delakoa eginez, alegia, Dubois-ek bere hiztegian egin bezala Martinet-ek (1983:139,140) *Robert méthodique* hiztegiari egiten dion kritiken artean hauxe irakur daiteke.

[202](1983:140).

[203]Beraz, *HLEH*-k eginetik aldendu gara.
"Zerbait seinalagarri ez duten bitartean, *-(z)ko, -ka, -dun*... atzizkiez eratutako eratorriak –azpi-sarrera gisa doazenak– ez dira definitzen, beren esanahia gramatika-bidezkoa eta automatikoa baita". (*HLEH* 1984:37).

Arruntean, direlako *-kaz* hornituak sarrera osoaren jabe izango badira ere, kasu gutxi batzuetan besteren artikulu-barruan kokatuko dira[204].

Bigarrena, berriz, azterlanean eratorpenean eta hitz elkartuen alorretan azterkizun hartuko den *-dunez* eratuek osatzen dute.

Kasu honetan ere, eskuarki, sarrera osoa emango bazaie ere (**araudun, bisilabadun, bizardun, markadun...**), atzizki honek ia edozein oinarri hartzeko duen erraztasuna dela medio, ez zaie sarrera osorik emango hitzaz gorako gramatika-zerei (AZENTU LUZE-DUN...).

8.3.1.2.2. Hitz elkartuak.

Bi hitzez osaturiko formak, batari nahiz besteari dagokion sarreran ezar daitezke berez. (*HLEH*:39).

Gure hiztegian, hitz elkartuaren osagaien arteko harremanak ondorioa izango du elkartu osoaren sailkalekuan ez ezik, hiztegiko hierarkian ere.

Halakoak sailkatzeko irizpide bat baino gehiago baliatzen ahal delarik ere[205], alfabetoari ez baina semantikari erreparatuko zaio, eskuarki, elkarketan gune denaren sarreran hitz eratua kokatuz.

8.3.1.2.2.1. Hitz elkartu kopulatiboak

Kopulatibo direlako hitz elkartuen artean, nolabaiteko bereizkuntza egingo da elkarketa-motaren arabera.

Honela, hitz elkartu osoari eutsiko zaio sarrera-buru izan dadin "Dvandva" eta gehiketa motetakoak direnean, osagaien arteko harreman semantikoari begira biak erabat maila berean

---

[204]HAN HEMENKA, han hiztegi-sarreran paratuko dena, BANAKA, bana sarrerara eramango dena eta ATE-JOKA ate lemapean bilduko dena.

Erator-atzizkia jarzteko oinarriaren izaerak makurtu gaitu lehenari hiztegi-sarrera osoa ez ematera.

Bigarrenean arrazoi erabakigarria izan da beste banaka izenondoa ere hiztegian agertzea. Autu dugunak (aditzondoak, alegia) bere oinarriarekiko (zenbatzailearekiko) duen harremana argiago geldituko zelakoan egin dugu aukera.

Hirugarrena, berriz, euskal hiztegigintzak eginak (*OEH*-k eta *HLEH*-k) baldintzatua da.

[205]Morfologi izaera hau dutenek arreta berezia eskatu beharko lioke hiztegigileari zenbait azterzaileren ustez: Opitz (1963a, 1963b), Cowie (1983). Azken honek, 1933ko *Oxford English Dictionary* lanaren sailkapenaren araberako tipografi bereizkuntzaren berri ematen du, hitz elkartuen artean hiru multzo nagusi bereziz: osagaiek esanahi osoa eta gardena gordetzen badute, sarrera-buruaren azkenean letra etzanez jasoak; elkartu osoak nolabaiteko esanahi-zeharkapena badakar baina oraindik ere osagaiak antzemateko modukoak badira, arestikoen tokian baina beltzaxkaz jasoak; eta azkenik "a combination is 'semantically unified' or is used in various senses or has a long history it appears in an entry of its own, as a 'main word'". (Cowie 1983:105).

Tipografiari eskainiko diogun puntuan erakutsiko dugun bezala, ingeles lanaren ber moduan jokatu ez badugu ere, hitz elkartuen azterlanaren ondoriozko bereizkuntza egingo da hiztegi honetan ere.

kokatzekoak izaki, ez baitago erabakitzerik zein osagairi eman bestearen aldean lehentasuna, zeinek behar duen izan bestearentzako hiztegi-sarbidea. Honezaz gain, maizkara, gisa honetako elkartuak, ez daude geroagoko hitz soiletatik hagitz urrun (**anai-arreba, entzule-irakurle, ipui-eleberri, galiziar-portuges**...)

Tautologiatzat hartuak, halaber, osorik, hiztegi-sarreraren jabe izango dira (**xede-helburu**...).

Baita ihartutzat jo daitekeen justapoziozko bat edo beste ere: **eleberri**.

Atribuziozkotzat hartuak, oro har, determinatuaren lemapean bilduko dira (MUIN ESALDI, **esaldin**, edo AITA-HIZKUNTZA **hizkuntzan** bezala, IZEN SUSTANTIBO, **izen** sarreran, HIZKUNTZA GIDARI, **hizkuntzan**.

Salbuespen dira, noski, erabat lexikalizatutzat har daitezkeenak, hala nola, **giltzarri, mugarri**...

Ber moduan jokatuko da, sail berezi samarrak osatzen dituzten, aposizio eta "Subsumptive" direlakoekin (**itxuraldatze**, DELETION ITXURALDATZE; **sinbolo**, NEG SINBOLO; **novela**, POLIZI-NOVELA...)[206].

8.3.1.2.2.2. Menpekotasunezkoak

Begiz jo den jokabide orotarikoaren arabera, menpekotasunezko hitz elkartu osoak, mugakizunaren lemapean izango du kokalekua. Honenbestez, Zgusta-k hiztegiaren usatzailearentzat eskatzen bide duen erabilerraztasunean oinarrituriko alfabeto-hurrenkerari ez baina osagaien arteko semantika-harremanari makurtuko gatzaizkio.

Halarik era, zehaztuko diren kasuetan ez zaio arestikoari bete-betean eutsiko:

. Hitz elkartuak, elkartu izanik euskal hitz-altxorrean aspaldiko sustraiak baditu –hau da, harritu edo lexikalizatutzat har badaiteke–, hala bilakatzear dagoela edo pasabide horretan egon daitekeela pentsatu bada, sarrera osoaren jabe izango da: **abere-talde, ablapuntu, aho-sapai, mingain**...

Halaber, aditz elkartuak, beherago argituko den bezala.

. *antz, gisa, itxura, modu, tankera*... bigarren osagaia dutenak, posposizio gisara erabili direnean, hauekin egingo den bezala[207], ezker aldeko osagaiaren sarrerako adibideen artean kokatuko dira, oro har.

. *gai* osagai mugakizuna dutenak, mugakizun honen hiztegi-artikuluan kokatuko dira eskuarki, beste menpekotasunezkoak bezala. Alabaina, duen izaera nabarraren kariaz[208], baldin Mitxelenaren erabilerak elkarketatik baino eratorpenetik gertuago egon daitekeela ondorioztatzeko bidea eman badeza, batez ere lehen osagaia aditz-oina bada eta bat eginik idatzi badu, sarrera oso bilakatuko da: **aztergai, galdegai, mintzagai**.

. lehen osagaia *erdal, euskal* dutenek, mugakizunaren sarrerako adibideen artean

---

[206] Ez honela **aginte modu**, sarrera osoduna eta hiztegiko beste "aginte-modu" ez bezalakoa dena. Lehena, subsumptive motakoa izanik ('agintzeko modua'), bigarrena, hitz elkartu menpekotasunezkoa da ('agintzeko modua', 'gobernatzeko modua').

[207] Ikus azterlaneko hitz elkartuen atala.

[208] Eratorpenaren eta elkarketaren artekoen azterpuntura igortzen dugu.

jasoko dira[209].

- Aditza osagai duten izen balioko zenbait egitura –zehatz esan, eskuineko osagaia **behar, gogo, nahi, uste** izenak dituztenak[210]– azken hauen sarrerapean bilduko dira, menpekotasunezko beste elkartuen gisan[211].

8.3.1.2.2.3. Hitz elkartu sintetikoak

Mota honetako hitz elkartuek hiztegian lema oso eta beregaina izango dute (**liburu moldatzaile, dato metatze**...).

- *bila, eske*... eskuineko osagaia dutenei, berriz, "Jardun-elkarte sintetikoan" kokatzekoak badira ere[212], ez zaie sarrera osorik emango eta eskuineko osagai honen pean bilduko dira, moldezko izaera, menpekotasunezko elkartuena bera hartuz (**bila**. batasun bila, lekuko-bila, **eske**. paper-eske, zergatiko-eske...)[213].

8.3.1.2.2.4. "Bahuvrîhi" deituekin ez da beti era berean jokatuko. Batzuk osorik jaso eta hiztegi-sarrera nagusian landatuko badira ere (**teorizeken**..), beste batzuk azpisarreretan bilduko dira. Irizpidea: sumatu uste zaien lexikalizazio-gradua.

8.3.1.2.3. Hitz elkartuen inguruko egiturak

Hitz elkartuen barrutitik aski gertu[214] suma daitezkeen egituretan jarraikiko zaion jokabidearen ardatz nagusiak honakoak izango dira, *HLEH*-n eta *OEH*-n –beti elkar hartzen ez badute ere–, antzeman uste den eginbideari ahal den heinean atxikiz:

- Sarrera-buru osoa izango duten ihartu edo lexikalizatuak izan ezik (**gaidegin, hauteman, onartu**), idazmoldea dela eta, batez ere, osagaiak oraindik ere bere gainak direla antzemateko bidea ematen duten aditz-esapideak (*egin, eman, hartu* aditzez osatuak, nagusiki), osagai duten izenaren azpisarrera izango dira eskuarki (LEHER GAIZTO EGIN, LO

---

[209]Mugatzaileetzat izen hauek dituztenen berezitasunaz Azkarate (1990b:314-316).

[210]*EGLU-II* (1987:444-454), Azkarate (1990b:415-419).

[211]*LEF*-3-k (1991:101-117) "Asmo elkartean" kokatzen ditu.

[212]*LEF*-3 (1991:56), *LEF*-4 (1992:65). Honek esan nahi du, *eskeren* kasuan ez garela *eske* izenaz ari. Hala balitz menpekotasunezko elkartua litzateke eta.

[213]Ez dute moldezko itxura hau hartuko, aldiz, gisa honetako elkartu sintetiko osatuak, *-ka* atzizkiaz izan den jokamolde erabatekoan urtu dira eta.

Honela, **ate** lemapean, ATE-JOKA irakurriko da hiztegian, lehen esan bezala.

[214]Azkarate (1990b:415).

EGIN, MIN EMAN..., **leher, lo, min** lemen pean, esate baterako).

- "Aditza + *bem*"

Egitura honetakoak, oro har, aditzaren sarrerako adibidetzat joko dira (**sartu, sar, sartzen. ad.** sartu bem).

- "Esaldi-moduko hitzek" (*HLEH*-aren arabera) – hau da, izena eta aditzaz, izena eta adjektiboaz osatuek gunetzat hartuaren sarrerako adibide moduan emango dira[215].

8.3.1.2.4. Aditzaren inguruan

- Aditz ez jokatuak – era burutuak, zehazkiago esan –, izenondo betekizun soilean erabili direnean, izenondotzat joko dira: **amorratu, asibilatu, busti, elbarritu, gonparatu, konposatu, normalizatu**...). Ez horrela, haatik, bai aditz moduan bai izenondo moduan erabiliak, hiztegi-sarrera aditza izanik, izenondo erabilera azpisarreran zehaztuko baita: AIPATU, DEBEKATU...

Jatorriz partizipio den izenondoa, kategori aldakuntza dela medio, izen izatera ere iritsi bada eta nolabaiteko izaera finkoa baduela antzeman bazaio, izenondo eta izen gisa (**izond. eta iz.**) landatuko da hiztegian, baldin eta jokamolde bikoitza agertzen badu: **aditu**, esate baterako. Izen soila denean, berriz, izentzat joko da, beste gabe.

Azkenik, bai aditz gisa bai izenondo edo izen gisa erabili dituenean baina izenondoa edo izena, nolabaiteko izaera egonkorrez edo, batipat, erabilera berezituan hein bateko maiztasunez erabili baditu, sarrera bi izango dituzte, bat aditz moduan eta bestea izenondo nahiz izen moduan: **argitu, bete, eduki** edo **erantzun**, kasurako.

- Aditz-izenek, beste izenek bezalako sarrera osoa izango dute, baldin eta betekizuna ere maila horretakoa badute eta ez sintaxi-egiturak baldintzaturikoa. Azkenokin, beste aditzekin bezala jokatuko da.

- Aditz elkartuek (**eraberritu, formaldatu, itxuraldatu, begietsi, onetsi**...) eta aditz-esapide[216] harritu edo harritzear daudenek, esan bezala, beste aditzek bezalako sarrera osoa izango dute. Besteei eman kokalekua, aurreko puntuan azaldu berria da.

---

[215] Ikus beheraxeago hitz-andanez dioguna.

[216] Azterlanean deitura hauen barrutiaz ariko gara.

8.3.1.2.5. Hitz-andanak

Hitzak juntatuz gatza daitezkeen egiturek[217] oso izaera nabarra hartzen dute hanhemengo bibliografian, ez dute, bederen, hizkuntz egiturok eta hauen deiziook adostasun handirik bereganatzen eta, antzeman daitekeena da hitz elkartuetatik abiatu eta sintaxiaren barrutira hurbildu ahala, gero eta gaitzago bilakatzen dela erabateko sistematizazio-terminologia finkoak kausitzea.

Hona, denboraren harian kokatuz, diogunaren erakusgarria:

Bally-ren[218] *unités phraséologiques, séries phraséologiques, clichés*, aipa daitezke testigutzarik zaharrenen artean.

groupes phraséologiques / unités phraséologiques[219] */ assemblages phraséologiques, clichés-phrases* (hauen barnean atsotitzak, esapideak, *cliché-réplique* direlakoak), *termes modaux, tournures modales* bereizten ditu Isačenko-k[220] Vinogradov-en terminologia bereganatuz.

Dimitrescu-k[221] ere, lan osoan zehar fraseologiaren esparruan kokatzen dituen *locution* eta *expression* direlakoen azterketari ekiten dio, bibliografia usuko terminologi nahastea azpimarratuz.

idiotismes, lexies, dictons, clichés, proverbes, locutions verbales aipatzen ditu Greimas-ek[222], anarteko terminologi nahasketa kritikatuz, baina aldi berean, beste zenbait aztertzailek hitz elkartutzat joko lukeen *pomme de terre* bezalakoak *idiotismes*-en artean kokatuz.

Guiraud-ek[223] *locution* direlakoak aztertzen ditu.

Dubois-ek[224] *unité sémantique complexe* eta *unité phraséologique* aipatzen ditu.

Weinreich-ek[225] –Vinogradov-en bidetik honek ere–, *concretions, phraseological unities* eta *phraseological collocations* bereizten ditu.

Phal-ek[226] *groupe de mots* direlakoetan sartzen ditu *locutions verbales; expressions*

---

[217] *combination of words* (Zgusta 1971:138) orobateko izenaz.

[218] (1909).

[219] Newmayer-en (1974) *semi-idioms*-etatik gertu askiak.

[220] (1948).

[221] (1957).

[222] (1960).

[223] (1962).

[224] (1962).

[225] (1963).

[226] (1964).

ligés (*locutions verbales, prépositionnelles, conjuntives et pronominales*); *véritables mot composés sans trait d'union*, eta bestetik, Benveniste-ren (1966) *synapsie*-en kide liratekeen *séquences* direlakoak.

Coseriu-k[227] honako hiru mota bereizten ditu *discurso repetido* deritzanean:

Lehenekoak dira, "frases metafóricas, proverbios, dichos, sentencias, «wellerismos», refranes) sólo son conmutables en el plano de las oraciones y de los textos, con otras oraciones y otros textos enteros". Hauek lexikologiaren esparrutik irtenaraziz, honakoa zehazten du:

> El hecho de que a menudo se hallen registradas en los diccionarios de las lenguas puede justificarse desde el punto de vista práctico, pero, a pesar de ello, se trata de una incoherencia teórica de la lexicología tradicional. Para estas unidades podría reservarse el nombre genérico de *locuciones*. (Coseriu 1981_2:116).

Bigarren motakoak dira, berriz, *sintagmas estereotipados* deitzen dituenak, perpausaren esparruan konbinatu ahal izatea, sintagmekiko ordezkapen-harremanetan erabili ahal izatea eta, sintagmen mailan interpretatzea ezaugarri dituztenak.

Hirugarrenekoak, azkenik, *perifrasis léxicas* dira. Hauek ere perpausean konbina daitezkeenak izaki, hitz soilek ordezka ditzakete eta lexiko-barrutia dute interpretalekua:

> Pero, como se ha dicho más arriba, puede resultar difícil distinguir las «perifrasis léxicas» de los «sintagmas estereotipados». La conmutación por sí sola no es suficiente, puesto que en la oración muchos sintagmas son a menudo conmutables con palabras simples, y al revés. (Coseriu 1981_2:117).

Marcellesi-tarrek[228] unitate hauen izaeraz ari direlarik, zenbait ikertzaileren terminoak jasotzen dituzte, hala nola, Guilbert-en *unités de signification*; Hollymann-en *composés*, Benveniste-ren *synapsies* eta Martinet-en *synthèmes*.

Behin eta birritan[229] ahotan hartzen diren Pottier-en[230] lexiak (*simple/ compuesta/compleja*, honen barruan, *estable* eta *variable/textual*) ere aipatu beharrekoak dira.

Guilbert-ek[231], *unités syntagmatiques à base verbale* eta *locutions verbales* ditu mintzagai.

---

[227](1964).

[228](1969).

[229]Alvar Ezquerra (1976:195), esate baterako.

[230](1968, 1970).

[231](1971).

Zgusta-k[232], *combination of words* orotariko hizkuntz gertakariaren barnean, *free combinations* eta *set combinations* -azkenotan *multiword lexical unit*[233] paratuz- bereizteko irizpideak ematen ditu ondokoetan oin hartuz: osagaien ordezkapen-ahalmena, beste elementurik eransteko erraztasuna, semantikarekin loturiko lexikalizazio-gradua, osagaien jokabidea unitate goreneko partaide direnean eta aske erabiltzen direnean, hitz bakarra ordain izatea, ezaugarri formal eta gramatikal bereziak eta beste.

Rey-k[234], *lexie complexe, locution* eta *expression* direlakoen arteko zedarriak ezartzeko zailtasunak aipatzearekin batean, *syntagme à statut phraséologique*-ren izaera jasotzen du. Bestetik, *proverbe* eta *locution-phrase* bereiztearen alde ageri da, bere ustez, bi izaki teoriko desberdin liratekeenez gero.

Fernández-Sevilla-ren[235] ustez, *lexia* deitua, *locución* litzateke.

Picoche-k[236] ere, besteren *lexia, synapsis, synthéme, unité syntagmatique, unité phraséologique* terminoak bildu, kritikatu eta honako bereizkuntza proposatzen du: *mot composé* batetik eta *locution* bestetik, bigarrenak aditza osagai izatea ezaugarri izanik.

Costas Rodríguez-ek[237], Fillmore-rengandik[238] harturiko terminologiaz baliatuz, *predicator* direlakoez osaturiko *unidades complejas* ditu ahotan.

Bosque-k[239], *unidades lexicalizadas* deituez arduratzen den artikuluan, deizio horren pean *modismos, clichés*, eta "locuciones adverbiales, prepositivas, conjuntivas, e incluso algunas figuras retóricas -en particular, tropos-" bildu ohi direla dio eta lexikalizatzeaz ez baina bere hizkuntz legeak (morfosintaktiko, semantiko, pragmatiko eta abarrak) lituzkeen zatisistema baten izaeraz hitzegin beharraren alde mintzatzen da.

Artikulu berean, espainiarrak, Coseriu-k[240] Porzig-engandik hartu *solidaridades léxicas* eta *modismos*-en arteko aldeak zertan leudekeen azaltzen du, unitate osoaren osagaiek ordezkapena onartu ahal izatean ala ezinean funtsatuz.

Haensch-ek ere[241], hiztegi orotariko batek gaitzat zer hartu behar lukeen zehazten

---

[232](1971).

[233]"What we call *multiword lexical units* are sometimes called *lexemes* or *complex lexemes, lexemes clusters* or *conjuncts, synthèmes, locutions*, or in yet other terminologies, *bound syntagmas* etc. Coates: *compound lexical units*; (...). Halliday (...) *compound lexical item; phrases, lexicalized phrases, fixed* (or *set*) *collocations, idioms...*". (Zgusta 1971:143).

[234](1973:97, 1977a:188-199).

[235](1974:21).

[236](1977:23).

[237](1980:101,182).

[238](1971:389).

[239](1982a).

[240](1967).

[241](1982:415-422).

duenean, mintzagai dugun gaiarekin ikuskizuna duten ondokoak jaulkitzen ditu: *palabras compuestas y combinaciones lexicalizadas, colocaciones usuales, unidades fraseológicas, modismos* "(hasta frases enteras, por lo general no identificables por el sentido de la suma de los componentes)", *fórmulas de la vida social, nombres comunes que se usan en vez de nombres propios y denominaciones perifrásticas, combinaciones de palabras más letras o cifras, refranes, citas y frases célebres.*

Alvar Ezquerra-k[242], *expresiones pluriverbales* (gure aditz-esapideen ingurukoak) jaso beharrezkotzat jotzen ditu, adieren mailan berezita, izaera lexikalizatuxea izanez gero, halakorik ezean, glosa eta adibideetan paratuz.

Konputagailuz eginiko lexikografiaren munduan ere, ez da oharkabean pasa unitate hauen izaera. Alpatu berri Alvar Ezquerraren ondoan, Warwick-en[243] sailkapena ekar daiteke adigarri moduan.

Multi-word expressions direlakoen artean, *collocations, idioms* eta *technical terms* alpatzen ditu, oraindik ere gisa honetako hiztegigintzak azterkizun eta konponkizun dituen hizkuntz izakitzat joz.

Beste multzo batean bil daitezke, Firth-ek[244] proposaturiko *collocation*[245] direlakoez arduratzen direnen lanak.

Cowie-k[246] *collocation* eta *idiom*[247] bereizten ditu, gai honezazko bibliografian dagoen terminologi nahastearen berri emanez eta egituran oinarrituriko sailkapena aldeztuz.

Nuccorini-k[248], *collocation* eta *idioms* izaki desberdintzat dauzka, biak *composite elements* izanik ere. Honezaz gain, *collocation* eta *restricted collocation* ere berezi beharko liratekeela dio, bigarrenak, gutxi gora behera, Zgusta-ren *multiword lexical units* direlakoen zatitzat joz.

Euskal bibliografiari begiratua eginez, berriz, gai honi estuen lotuko litzaizkiokeen Izagirreren (1981) eta Mocoroaren (1990) lanetan[249] ere gauzak ez daudela zeharo garbi

---

[242](1987:51).

[243](1988:101,102).

[244](1957).

[245]Beste ikuspegi batetik, Pratt-ek (1992), mailegutza *collocations* direlakoei ere badagokiela azpimarratzen du. Gure aldetik, "kalkoaren" barnekotzat hartuko genuke, ematen duen *contaminación acústica* < *noise pollution* adibideari begira.

[246](1981).

[247]Izaera honezazkoez, A. Makkai-ren (1972) *Idiom Structure in English*. The Hague-Paris, Mouton ikuska daiteke, Hockett-engandik nasi eta Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailea bitarteko lanen berria jasotzen du.

[248](1992).

[249]Elkarren segidan alpatzeak ez du esan nahi sailkalanean irizpide berak baliatu dituztenik batak eta besteak. Izagirrek irizpide formalegoak erabili nahi izan ditu –lanaren tituluan bertan krakur daitekeen legez– adigai-maila hutsean oinak finkatu dituen Mocoroak baino:

"Había que proceder luego a la clasificación de las fichas. D. Julio Casares me tenía sugerida la pauta

esan daiteke.

Lehenak, *lokuzio* direlakoak batetik eta *errefrauak, esaerak edo atsotitzak* bestetik bereizten baditu ere:

> Errefraua, esaera edo atsotitza sententzia bat da, moraleja bat, aholku bat, gutienaz bi ideia elkartzen dituen esaldi oso eta independientea, sarritan aditz eliptikoa izan arren, zuzenezko pentsamendu bat: *zenbat buru hainbat haburu* (daude, ditugu), edo alegiazkoa: *urruneko elizea errana da urrez, bertara joan eta lurrez*. Lokuzioa, gehienetan, ez da esaldi oso bat eta perpausaren barrenean hartzen du bere indar osoa, salbu eta esklamaziozkoek. Ez du inolako mensajerik, ez dakar agindurik. (Izagirre 1981:IX).

Benetako *lokuzio*tzat dauzkanen sailkapenean sartzen dituen ugari, egun, bederen, nekez joko lirateke halakotzat.

Esate baterako, *nominal*etakotzat dauzkan *amona mantangorri, Erromako zubia, ortzadarra, hotzbero, hotzikara*, edo *izenlagun*etan aipatzen dituen *astakirten, bat-bateko, badaezpadako*.

Mocoroaren (1990) lanaren hitzaurregileak ere agerira darama izendapen nahasiaren auzia:

> Zer bildu ote du? [Mocoroak] Euskal esaerak. Esaera, ordea, esan-nai zabaleko itza da.
>
> Esaera esaten diogu atsotitz, zahar-hitz, zuhur-hitz, errefrau ta abarri. Erderazko ***refrán, proverbio, adagio, sentencia*** ta abar, alegia.
>
> Esateko moduari ere ***esaera*** esaten diogu, ordea. Esateko modu oiei esaldi esaten zien Basarrik, orain denbora asko ez dala, bere idazlan batean: (...).
>
> Gazteleraz ***modismo, idiotismo*** ta abar esan oi zaie olakoai. (Zavala 1990:12)[250].

Mocoroa biltzaileak eginiko sarreran ere, honen zantzuak suma daitezke:

> ¿Qué traté de registrar en esos cuadernos?... Por regla general, todo tipo de expresiones características del euskera que, además de hacer de él instrumento de más íntima compenetración para quienes se criaron en su ambiente, constituyen valiosos elementos estilísticos para dotar al

---

desde mi visita del 52: «buscar para cada locución un *vocablo* que evocase *su concepto* fundamental, para así, por medio de la clasificación de los vocablos, obtener automáticamente la clasificación de las locuciones mismas»". (Mocoroa 1990:23).

[250] "Eta hor heldu dira, nola ez bada, letraz-letra irauli zaizkigun esaerak, errefrauak nahiz atsotitzak. Ez dira, noski, besterik gabe *lokuzioak*, hauek, euskaraz deus ez izateaz gainera, erdaraz (erdaretan) ere ezer gutti direlako: hizkera teknikoan ia sarrerarik ez duten «esateko moduak» edo.

Badakit euskarazko *esaera* lasaiegi datorkigula, nolanahiko esanak «esaerak» direlako ezinbestean: dena den, nik *esaera zaharrak* direla entzun dut hauetandik hemen ahotan hartzera noanak, Ultzaman Izagirrek jaso zuenez *erran-airsak* omen direnak". (1985b:186).

Mami-kontuaz gain, *lokuzio* delturari berari Mitxelenak zer irizten dion jaso dugu.

lenguaje usado de especial viveza y colorido, gracia o energía. A mí se me había ocurrido relacionarlos con lo que comúnmente se entiende por *giros o modismos*; pero, años más tarde, en visita que le hice en 1952, D. Julio Casares, el insigne Secretario de la Real Academia Española, me aconsejó que las llamase *locuciones*. (Mocoroa 1990:22).

Bibliografia ikuskatu orduko, beraz, nabari da, izakera desberdinetako unitateak direla mintzagai, hitz elkartuetarik hasi eta atsotitzeraino iritsiz.

Honen guztiaren aurrean, hautetsi den jokamoldea honakoa izan da:

Azkarateren (1990b) lanean oina ezarriz, hitz elkartuek bere kokaleku berarizkoa izango dute, arestian esana doan bezala. Honenbestez, hitz-andana deiturak, ez ditu hitz elkartuak estaliko.

Beste muturrera joz, atsotitzak eta aipuak (*quotation*) ere --Coseriu-ren[251] *discurso repetido* delako lehen motan bete-betean kabituko liratekeenak, alegia-, ez dira hitz-andanatzat joko eta ez dira hiztegian jasoko, bigarrenak emendakin batean bilduko badira ere[252].

Bion tartekoek; hots, elkartuen eta atsotitz-aipuen tarteko esparru labainkorrekoek -tesi honen hesiak gainezkatzen dituen azterketa sakonik eta sailkapen berezirik gabe- osatuko dute, beraz, hitz-andanen esparru nabarra.

Azterketa xeheagoa egiteko utziz eta bide zabaletik joz, hitz-andana estalkipean hartuko dira, usu erabiltzeak lexikalizatuxe edo maizkara, lexiko-unitate egonkor xamarrá balliran erabiltzen diren hitz-kateak, izena eta aditza nagusiki gune duten egiturak, alegia.

Hiztegian bilduko dira, sintaxiaren eta lexikoaren arteko muga meharraren gainean gabiltzala begi aurrean izanagatik[253].

Hiztegian errainua izate honek dakarren arazoa da zein hierarkiatan diren jasotzekoak eta, sarrera-buru ez badira, zein osagairen sarrerapean kokatu behar diren erabakitzea.

Erdal bibliografian jaso diren lan gutxitan zehazten da hau.

Gisa honetako unitateek hiztegietan izan ohi dituzten kokaleku desberdinak, eta zehazki, kritikagai duen *Robert méthodique*k mamitua aldatzen du Martinet-ek[254], *chemin de fer* bezalakoak, batzuetan hiztegi-sarrera osoaren jabetzat eta bestetan *locutions* direlakotzat hartu dituztelako.

Corpas Pastor-ek[255], *collocation*-en lexiko-mailaz kezkaturik, era honetako unitateei hiztegigintzan eskuarki eman ohi zaien hiztegizko kokaguneari --bestela esan, hierarki mailari-

---

[251](1964).

[252]II-EMENDAKINean, hain zuzen ere.

[253]Aztertanean astiroago zehaztuko dira honezazko zenbait; erabileraz berezitutzat jo dutezkeenak, alegia.

[254](1983).

[255](1992).

erreparatzen dio, ikusiz, ezin antzeman dakiekeela erabateko jokabiderik. Izan ere, nahiz ohikoena adibideen artean paratzea den, sarrera osotzat dauzkaten hiztegiak ere badaude.

Egokien irizten dio ingeles hiztegi batzuetan harturiko erabakiari, osagai bakoitzaren sarreran *collocation* delakoa paratzeari.

Alvar Ezquerra-k[256] *lexias complejas* direlakoak lehen osagaiaren azpian bildu beharrekotzat dauzka: *monóxido de carbono*, **monóxidon**, esate baterako, baina euskaraz ordena bestelakoa izanik, lehen edo bigarren osagaiaz hitzegitea baino egokiago litzateke, apika, kasu honetan, erakuntzaren gunetzat hartuan kokatu behar dela esatea.

Honelako irtenbidearen alde egiten du trabes Cowie-k[257], *headphrase* delakotzat hartuan bilduz, eta honek aldez aurretik eskakizun duen zer jo behar den gune edo muintzat arretaz begiratu behar dela zehaztuz.

Hauek ikusirik, gure hiztegian honako bidetik joko da hitz-andanen kokaguneari dihoakionez.

Cowie-ren bidetik, ohiko kokagunea, gunetzat hartuaren lema-barneko adibideen artekoa izango dute, euskal hiztegigintzan mamituek bestelako hierarkian kokatzeko irozgarririk eman ezean (**azken hitz, bere gain hartu, bere laburrean...**, **hitz**, **hartu**, **labur** lemen artikuluetan, esate baterako).

Halaz guztiz, gogoan behar da izan hiztegi honen izaera bereziak baldintzatuko duela –beste hiztegi-galen kokalekua baldintzatu bezala– hiztegi-sarrera hauen kokalekua ere. Besteez adieraziaren ildotik, ohiko hiztegigintzan baino esku zabalagoa izango da erabilera berezituz usaturikoekin eta honek ekarriko du, azpisarreretan hitz-andana ugariago kausitu ahalko dela hemen, apika, bestelako hiztegietan baino (**aditz** leman, ADITZ LAGUNTZAILE, **adierazlenean** AGERIKO ADIERAZLE edo **urratzen**, SINBOLOAREN URRATZE...), esate baterako:

> The same trouble must be expected when the lexicographer works with the terminology of different sciences. To use an extreme example, specialists in different fields of science will insists that expressions like *bacille de Koch, bacille d'Eberth, bacille de Hausen* are multiword lexical units, that they are terms with a unified designatum and even denotatum, but the lexicographer will probably be disinclined to accept this position and will rather maintain that we have different specifications of *bacille* before us. I would be prepared to accept the position that the status of souch of groups varies: in the specialized, restricted languages of the different sciences (and scientists) they may be multiword lexical units (of a designative, terminological nature), but in the general language, they may be more or less freee combinations which specify the lexical unit *bacille* and are probably understood (in the general language, I enphasize) only in a general, vague way. (Zgusta 1971:156)[258].

---

[256](1976:195).

[257](1981:227).

[258]Arrazoibide hau adierazia zuen Phal-ek (1964:48-56). Bide beretik, Alvar Ezquerra (1976:193).

8.3.2. Hiztegi-artikuluen gorputza

Hiztegi-artikulua[259] -hots, hiztegiaren mikroegitura[260]- lemaz gain, artikulu horren gorputza osatzen duten bi izaki nagusik osatuko dute: gramatika-kategoriek eta iraulpenek, zabal esanik.

8.3.2.1. Gramatika-kategorien zehaztapena

> Es, por el contrario, costumbre general, pero no vasca, la de acompañar la palabra cuyo sentido se define, se glosa o se trata de circunscribir de alguna manera, de indicaciones como «sustantivo», «adjetivo», «verbo», «perfectivo», «imperfectivo», etc., por no hablar de peculiaridades formales a que ya antes hemos aludido. (1974a, *SHLV*:392).

> En cualquier diccionario de lengua, la voz que figura en la entrada va sistemáticamente acompañada de su correspondiente información gramatical; si encontramos un diccionario en que no se incluya de una manera general esa noticia, podremos afirmar, sin temer mucho a la equivocación, que no es un diccionario lingüístico. Todos los investigadores actuales[261] de la lexicografía coinciden en señalar la presencia de la notación de la categoría gramatical como elemento necesario entre las informaciones del diccionario, incluso en una posición fija, tras la entrada del artículo. (Alvar Ezquerra 1982:174).

Berriz ere, euskal hiztegigintzaren ohiko bidetik urrunduz baina nazioarteko ohitura usuaren[262] araberako egungo euskal saio urrietara[263] hurbilduz, sarrera-buru bakoitzari

---

[259] *artículo, entrada* (esp.), *article, entry, item* (ingl.), *article, entrée* (fr.), *Artikel, Eintrag, Wortstelle* (al.), Haensch-ek (1982:461) jasotzen dituen ordainen arabera.

[260] Haensh (1982:469).

[261] Dubois, Fernández Sevilla, Rey-Debove, Seco, Zgusta deitzen ditu gogaide.

[262] Gramatika-kategoria zehaztu beharraren oihartzunak, lexikografiaz arduratzen diren sorterri desberdinetako ikertzaile frankoren lanetan jasotzen dira: Imbs (1960), Zgusta (1971), Porto Dapena (1980), Haensch (1982), Massariello (1983), adigarri gisa eman daitezke.

Alvar Ezquerra-k (1976:57,174) egokiago ikusten du, eskolen arteko ezadostasun terminologiko eta teorikoak direla medio, elementua erabil daitekeen sintaxi-inguramendu mota zehaztea, baina praktikak, Espainiako Akademiak darabiltzan kategoriak bere horretan hartzera darama.

[263] "Urrf" diogu, zehazteak dakartzan zailtasunengatik edo, ohikoena ez betetzea dela ikus daitekeelako.

Arzamendik (1981:177) ere kezka bera jasotzen du. Honek sailkaturiko euskal hiztegiei erreparatuz, ikus daiteke, XX. mendean kokatuei dagokienez, 1979. urte artekoek honako ematzak ematen dituztela gramatika-kategortaren zehaztapenari begira: Hiztegien materiala XX. mendekoa dutenak hogeita hiru dira, hiruk ematen dute; Liburuaren argitalpena XX. mendean erdietsiriko hirurogeita batetik, lauk; XX.mendean idatziriko berrogeita hamalauetatik, hamarrek eransten diote gisa horretako informazioa (aurrean izan behar da, halarik ere, hiru ezaugarriak hiztegi bakar batek bil ditzakeela).

Bestetik, berriz, 1974etik honanzko euskal hiztegiei gainbegiratua eginez, esate baterako, salbuespen dira mundu zabaleko lexikografiaren eskakizun hau betetzen dutenak: *HLEH, OEH*.

Azken urteotako adibide batzuk ekartzearren aipa daiteke, batetik, Aulestiak (1989) gramatika-kategoriak alboratzen dizkiela (*prep.* ere markatzen du) baina ez bide da lan hau nazioarteko lexikografiaren arauen ildoan kokatzen erraza, atzizkiei oro (eratorpenezkoak eta beste: *-rantz*...) sarrera osoak ematen dizkie, aditzak

(halakorik irispidean denean[264]) gramatika-kategoria alboratuko zaio Euskaltzaindiaren *(EGLUren)* terminologiari jarraiki. Halaber, azpisarrera gehientsuenei, batipat, lemarekin bat ez datozenean.

Behin baino gehiagotan, zalantza-iturri bilakatzen da kategori ezartze hau eta jokabide orotarikoa sistema-mailakoa jaso eta berbaldi huts mailakoa[265] baztertzekoa izanik ere, behin baino gehiagotan ez da aise bereizkuntza gardenak egitea.

Halako ezpaiko kasuetan, nonbaitetik jo behar eta, Mitxelenaren erabilera hartu da irizpide, beti ere forma sistematikoaren zedarrietan barne egokitu nahirik delako agerpen zehatza.

8.3.2.1.1. Izenaren inguruan

Izena eta izenondoa ez dira beti kategoria bereizterrazak, berez batekoa izanik, bestearen betekizuna egiteko erraztasuna dela medio[266].

Litekeenaren mailan izen nahiz izenondo gisa erabiltzeko aukera duten perpaus-zatien aurrean, Mitxelenaren erabilerari antzeman zaiona islatzea izango da ihardunbidea, honela, hiztegi-gaian bietara erabiliak badira bien kontu emango da hiztegian (**adierazgarri. iz. eta izond., biltzaile iz. eta izond....**), aukeran biak izanik ere, bakarra kausi badaiteke, berriz, bakar hori jasoko da (**araudun. iz., galiziar-portuges. iz. ...**).

EGLU Euskaltzaindiaren lanean bereziki, eta euskal bibliografian oro har, oin hartuz, etorkizko kategoriaren aldakuntza nozitu dela antzemateko euskarririk bada, honako irtenbidea emango zaie hizkuntz gertariei: lema nagusian bilduko da jatorrizko kategoria eta azpi-sarreratzat joko hemendik eratorri edo hedatua: izenondotik izenera (**bikain. izond.**

---

ezaugarritzeko, euskararako bederen, osotoro egoki ez bide den (Oregi, *AE, HLEH*) transitibo/intransitibo terminologia darabil... Azken zehaztapen hau dela eta, Bostak-bat-ek (1986) eta Altuna-Arriaga-k (1992), gramatika-kategoria alboratzen ez duten arren, aditzok hartu ohi dituzten flexioak zehazten dituzte.

Hau ikusirik, harrigarri samar gertatzen da, beniala, Adiskideen Elkarteak burutu asmo zuen lanaren egitamuan zehazki adierazi zuenak euskal hiztegigintzan horren oihartzun ahula izatea:

"Se ha de individualizar en cada artículo u voz, qué parte de la oración sea: esto es, si es nombre substantivo, adjetivo, aumentativo, superlativo, pronombre, verbo, partícula, modo adverbial, expresión, o modo de hablar, frase o refrán, u otra voz especial. (...) En los verbos se expresará si es activo, neutro, etc. y se advertirán todas las irregularidades y particularidades que tuviesen que notar. Estas advertencias se harán en el infinitivo radical de cada verbo". (Michelena (1965f), Sagarna 1982:106)-en jasoa.

[264]Halakorik egiteko gauza izan garenean, hobeto esan. Euskal hitzen gramatika-kategoriak ezartzea ez da beti lan samurra, izen-izenondo auziaz gain, zein da, esate baterako *adin*aren gramatika-kategoria?

Euskal hiztegigileak kausitzen dituen zailtasun hauen oihartzunak: Michelena (1974a, *SHLV*:392), Altuna (1974), Sarasolaren lanak, besteak beste.

[265]Porto Dapena (1980:271).

[266]Gertari auzi-sortzaile hau, halaz ere, ez bide da bakarrik euskaraz jazotzen:

"Les *adjectifs substantivés* et les *substantifs adjectivés* sont aussi embarrassants, car le passage de l'une à l'autre de ces catégories voisines se fait avec la plus grande facilité, et souvent sans que le sens en semble affecté. (...) La séparation entre la catégorie du substantif et celle de l'adjectif est ici délicate, et exige souvent une analyse du contexte". (Muller 1963:167).

Testuingurua ez izaki beti, ordea, desio bezain argigarri. Azterlanean puntu honetara itzuliko gara.

BIKAIN iz., esate baterako), baldin bietarik kausitu bada hiztegi-gaian.

Bikoiztasunik izan ezean, dagoenaren kontu soila emango da.

Etorkiz izenlagun izanak izen erabateko bilakatuak badira, beste izenak bezalaxe hartuko dira: **alaldeko, lekuko**... eta zein bere lemaren jabetzat joko, esan den bezala.

Izenlagun eta izen moduan, bietara erabili badira, berriz, honako bereizkuntza egingo da: izenlaguna, oinarri duen izenaren azpisarreran kokatuko da, atzizki bidez kategoria erdiesten dutenak sarrera-buru ez izateko irizpide orotarikoari jarraiki; izenak, berriz, bere sarrera izango du (**bertako. iz., bertan. adond.** BERTAKO. izlag.). Halarik ere, berezituekin, bestetan bezala, bestela jokatuko da eta izango da izenlagunik hiztegi-sarreraren jabe, hala nola, **ageriko. izlag., azaleko. izlag.**....

8.3.2.1.2. Adjektibo-Adberbioak

Izenondo eta aditzondo garbiak –hots, gramatika-kategoria ezartzean aparteko kezkabiderik sortarazten ez dutenak– hiztegi-sarrera osoaren jabe izango dira (**adierazkor. izond., bihar. adond.**)...

Argitu berria da adjektibo deitura zabalaren barneko izenlagunen hiztegi-kokamenduaren ingurukoa, izenarekin ikuskizuna zuen aldetik.

Adberbioei dagokienez, berriz, adizlagunek, oro har, ez dute sarrera osorik izango[267], izaera egonkor samarra antzematen zaien kasu gutxi batzuk salbu (**abian, beharrean, beharrez**, esate baterako), eta azpisarreretan bilduko dira.

Aditzondo erabatekoak, aldiz, hiztegi-sarrera osoaren jabe izango dira, esan bezala. Halaber, atzizki bitartez sorturiko aditzondoak (*-ik, -ka*[268], *-ki, -la, -ro*...)[269], jatorriz beste kategoria batekoak izanik Mitxelenak aditzondo gisa besterik erabili ez dituenak (**urrun**), edo itxura eta osamoduari begira adizlagun badira ere, ia erabateko aditzondotzat har daitezkeenak (**benaz, benetan, orduan, ondoan** (= 'ondoren')...)[270].

Gertakizun usua da izenondoen eta aditzondoen arteko lokarri estua, halako hitza kategoria bati nahiz besteari definizioz atxikitzeko estakuru dena, hain zuzen ere[271].

---

[267] *AE*:23).

[268] Ez kasu guzti-guztietan, esan dugun bezala.

[269] *-ka, -ki* eta *-ro* atzizkiei dagokienez, hitz eratorriez esanaren ildotik.

[270] Egia esan, *EGLU-I*-ek atortzen duen bezala, hauen eta arestian aipaturiko **abian, beharrean, beharrez** adizlaguntzat joen arteko muga-ezarzea ez da hagitz garbi gertatzen. Gu –asmoz bedere– Euskaltzaindiaren lanari lotu nahi izan gatzaizkio.

[271] (*HLEH*.31).

Nahiz eta izenondoek adberbio betekizuna egiteko duten jaidura ia automatikotzat jo daitekeen, hauen kontu ere eman behar zela pentsatu da, beti bezala, Mitxelenak mamitu hizkeraren berri ematearen kariaz.

Aurreko puntuan izenondoen eta izenen arteko pasabideaz esana eta iparrorratz hautetsia egoki ere dakieke sail honetakoei, **arin. izond.** ARIN adond.; **erraz. izond.** ERRAZ adond. ..., iruditarako dira hiztegian –hots, jatorrizko kategoriaduna leman eta hemendik eratorria azpisarreran– baldin Mitxelenak bietara erabili badu. Modu bakarrean erabiliz gero, esan bezala, horixe izango da lemari alboratuko zaiona.

Autu bi kategorien landak zabalduz eta harantzago joanez, esan berria heda daiteke eta argitu, kategori aldakuntzei dagokienez, oro har, modu beretsuan jokatuko dela: euskal bibliografiak etorkizko kategoria finkatzeko irozgarririk aski eskaini ezean, hiztegi-gaian begietsi kategoriak maila berean paratuko dira (**makur. izond, iz.; eske. iz., adond...**) zeini bere lema berapeko sarrera emanez.

8.3.2.1.3. Aditzaren inguruan

Aditzek, lemaren alboan, bestelako zehaztapena ere izango dute hiztegi-sarreran, euskalaritzan zehazki baina baita kanpoko bibliografian ere azpimarkatuari atxikiz[272].

Oregik (1975) urraturiko, eta euskalaritzan eutsi zaion, terminologiaren bidetik, laguntzaileak hartu bide[273] dituen flexioen araberako aditzak[274], "eskatzen duen sintagmaren" araberako "aditz-erak"[275], "hartzen dituzten laguntzaile-moten" araberako "aditz-motak"[276], "onartzen dituzten kasu gramatikalen" araberako "aditz-motak"[277]

---

[272]Hau da, nolabait esan, Zgusta-k (1971:138) hiztegigilearen eginkizunen artekotzat jotzen duen aditz-errekzioa zehaztea:

"The direct object of the Latin verb *video* "to see" must be in the accusative case: *video aliquid* "to see something"; the direct object of the Latin verb *utor* "to use" must be in the ablative case: *utor aliqua re* "to use something". Opinions may differ on whether this is a syntactic phenomenon in the proper sense of the term. In any case, it is the lexicographer's duty to give the necessary indications to this effect. He must supply the user of his dictionary with information about the most important grammatical properties of the lexical units. Just as the lexicographer indicates, for example, the gender of the substantives, it is likewise his duty to indicate the rection of verbs, the cases governed by prepositions etc.".

[273]Azterlanean erakutsiko den bezala, puntu istilutsu gertatzen da egungo euskaldunarentzat behintzat, zenbait aditzen mota berezkoa ezartzea, denboraren joanak ere aldakuntzak ekarri bide baititu. Azken hauen lekukotasun zenbait Oregiren (1975) lanean irakur daitezke.

Bestalde, forman oinarrituriko sailkapenen oztopoen ondoan, aditzak ezinbestean eskatzen duen argumentuaren araberako sailkapenak ere egiteke daudela erants daiteke, hau da, azterlanean aipatuko den euskal aditzen barne-argumentuak finkatzeko (Azkarate-Olarte 1991).

[274](*AE*:19).

[275]Goenaga (1980_2:155).

[276]*HLEH* (1984:30).

paratuko dira.

Hizkuntzaren sistema-izaera abstraktoan oinarrituz, hiztegi usuan, aditzaren hiztegi-sarreran halako aditz-motatakoa dela paratu ohi da, direlako aditzek jokatzeko onartzen dituzten laguntzaileen berri emanez. Biziki garrantzizkoa da ñabartze hau, batez ere, modu bakarrean jokatzen ez diren aditzak (*ahaztu, bailatu, begiratu, gogoratu*) edo *da-du* erabilerak aukeran dituztenak[278], besteak beste, auzi-iturri gertatu ohi baitira.

Hemen pentsatu da egokiago dela testuetan agertzen duten jokamolde zehatzen berri ematea definizo orotartzailean urtu baino, hondarrik hondarrenean, Mitxelenaren erabilera baita ispilatu gogo eta behar dena[279]. Honek dakar, hiztegian alboratuko zaien mota, hiztegi-gaian kausitua dela, **da, du, dio, zaio** paradigma osoen ordezkaritzat hartuz[280].

Hiztegiaren barne-antolamenduari dagokionez, aditzaren leman bertan laguntzaile-mota(k) landatuko da(dira) baldin eta delako laguntzaile-motak inolako alderik ez badakarkio aditzaren esanahiari. Laguntzaile-motaren aukerak ondore semantikoa badakar, berriz, aditzaren lema nagusiari mota zehazteke, beronen azpian, zeini bere sarbidea emango zaio, dago(z)kion esanahia(k) itzuliz.

Adbz: **begiratu, begira, begiratzen. du.dio ad.** lema nagusi bakarrak agerian uzten duena da guk kausitu erabileretan adizki laguntzaile desberdinak izanagatik, alde horrek ez dakarkiola –guk ez dugula sumatu, bederen– esanahiaren aldetikako parekorik. Alabaina, **alderatu, aldera, alderatzen. ad.** lema nagusiaren pean, "alderatu. du ad.", batetik eta "alderatu. dio ad."[281] bestetik iruditarako dira, zein bere adizki laguntzailearen motaz hornituz, bitarte semantikoa ere badagoelako: kasu batean 'erkatu' eta bestean, berriz, 'alboratu' adierazteko erabili baititu.

Burubide berari eutsiz, jokaturik ez dauden aditzei ez zaie beti mota alboratuko. Ez zaie paratuko, testuinguruak aukera zehatza egiteko biderik ematen ez duenean, hiztegigilearen eskuari dukeen baino pisu handiagoa ez ematearren.

8.3.2.1.4. Morfologi izaera betea ez duten **Pred., Posp.** ezaugarriez ere baliatuko gara, *HLEH*-ren ildotik, hiztegi-gaiaren kontu zehatza emateko gogoarekin batean,

---

[277] *EGLU-II* (1987:47,59).

[278] "aktitiboak" (*AE*:17), edo "inkoatiboen erazleak" *EGLU-II* (1987:52).

[279] Honenbestez, muzin egingo diogu aldian aldiko erabilera baztertzeari *EGLU-II* (1987:37-63).

[280] Sarasolak eginetik pittin batez urrunduz, esan bezala, "daitekeenaren" mailan ez baina "badenarenean" ihardungo dugulako:

"Aditzak, hartzen dituzten laguntzaile-moten arabera sailkatu ditugu: *da* aditzak, NOR eta NOR-NORI motatako laguntzaileak har ditzakeenak; *du* aditzak, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK motatakoak har ditzaketenak; *da-du* aditzak, bi jokaerok onartzen dituztenak; *zaio* aditzak, *da* sailekoak izanik objetoa NORI sintagmaren bidez gauzatzen dutenak; *dio* aditzak, *du* sailekoak izanik objetoa NORI sintagmaren bidez gauzatzen dutenak". (*HLEH*:30).

[281] Komatxoak darabiltzagun arren, ez du honek esan nahi hiztegira hala aldatuko direnik.

pisuzko deritzagulako -lehenaren kasuan batipat- gisa honetako izakiek hiztegian isla izan dezaten, egungo euskaran urratzen ari diren bideak direla kausa[282].

8.3.2.2. Iraulordainak

Hiztegigilearen aukerakoa da, jaso den bezala, hiztegi-mota erabakitzea; bere esku du, halaber, hiztegi-sarreren eskuinean eskaini asmo duena[283], dela hitzaren azalpena, dela definizioa, dela sinonimoa (nahiz antonimoa)... edo dela, hiztegi eleaniztunetan jotzen den bidetik, hipostasiriko esanahia[284] beste mintzairara aldatzea.

Hiztegi honen izaerak -hots, hizkuntza bat baino gehiagokoa izateak- iraulordainak edo itzulpenak ematean, *perennial problem* delakoarekin[285] topo egitera darama noraezean. Arazo honek sortu du batzuetan debeku larririk, hizkuntzen arteko bat banako ordain erabateko eza, *anisomorphism*[286], gertakizuna dela medio.

Hizkuntza itzulgaia eta itzulia[287] izakeraz bestelako direnean auzia nahasiago bilakatzen da gainera:

> If the grammatical structures of the two langages are very different, it will be more difficult but also more necessary to decide in advance in what forms the respective lexical units are to be coordinated. If at least one of the two langages shows diglossia, it will be necessary to decide which of the diglotic levels is mainly to be stressed, or how the situation will generally be solved. But even if there is no diglossia involved, the two langages must be compared in respect to the single style levels observable in them (...) But seemingly identical levels are not always absolutely equivalent. (Zgusta 1971:299).

Hiztegi hau oratzean, Werner-ek[288] kontu eman kasuistikarekin egin da topo[289].

---

[282]Erdal -*bi*eren ingurukoa dugu gogoan batipat.

[283]Auzi honezaz dagoen bibliografia ugariaren artean bereziki nabarmen daitezke: Imbs (1960), Rey (1965), Rey-Debove (1967), Weinreich (1967), Alvar Ezquerra (1976), Seco (1978,1987), Bosque (1982b).

[284]Read (1973:172).

[285]Schnorr (1986).

[286]Zgusta (1971:294), Read (1973:181), Alvar Ezquerra (1981:190).
Zgusta-k (1971:323-326), hiru oztopo-mota nagusitan biltzen ditu: *lexical units with other designative functions, culture-bound words* eta *onomasiological gaps*, azkenak, hiztegigilearen az baina hizkuntz egitamugileen ardurapekotzat joz.

[287]Hizkuntza itzuliaz edo jomugaz singularrean ariko gara nahiz, esango den bezala, hitz berezituei hiru hizkuntzetako itzulordainak eman, oro har.

[288](1982:288).

. Arazobakoa den, baina gutxitan gertatzen den, erabateko ordaintasuna[290]. Hau, batipat, terminoekin gertatzen dela aipatu ohi da, eta halaxe gertatu, aski finko eta aho batez onarturiko terminoak dituzten jakiteetan, hau da, *terminologie scientifique* erabatekoa dutenetan[291].

Alabaina, ezin atzen daiteke, hizkuntzalaritza-filologiak nekez para daitezkeela -azterlanean zehaztuko den bezala- bere terminologia zimendarri sendoetan eraikia eta erabat finkatua duten jakiteen artean, ez bete-betean:

> En outre, cette superbe autonomie des terminologies scientifiques disparaît dans la mesure où, les connaissances étant nommées, les noms, les "termes" peuvent fonctionner dans le discours sociaux de la pédagogie, du didactisme, de la polémique et de l'idéologie, ou, tout simplement, dans le discours de l'ignorance. (Rey 1977b:V-18).

Alde honetatik, frantziar ikertzailearekin batean esan daiteke, normalizazio-bidean dagoen jakiteak sortzen dituen behaztoparriak hemen ere tartean direla:

> Cependant, dans les sciences en voie d'élaboration (la quasi totalité des sciences de l'homme, y compris la linguistique et la terminologie!) une nomme peut être proposée pour régler les rapports entre théories différents appliquées à un même objet de savoir. Cette normalisation, aussi indispensable que difficile, est le fait de l'épistemologie: elle suppose une pratique terminologique et lexicologique. (Rey 1977b:V-20).

. Abiapuntuko hizkuntzako hitz batek, hizkuntza-jomugan itzulordain bat baino gehiago[292] du, dela abiapuntukoan polisemiko/homonimiko delako eta jomugan hizkuntz izaera bestelakoak hartzen dituztelako direlako esanahiek, dela, abiapuntukoan adiera anitzeko ez izan arren, jomugako hizkuntzara iraultzean hala gertatzen delako.

---

[289] Hohulin-ek (1986), ordainen bilaketan sortu ohi diren oztopoak lau gertakizun-motatan biltzen ditu: *Semantic dimensions*, non sinonimia, hiponimia eta antonimia kokatzen dituen; *Extralinguistic realities* direlakoez egon daitezkeen ikuspegi desberdinak; *Presupposition*-en eremuan adostasun-ezak eta azkenik, Zgusta-ren (1971:27-38) bidetik, hitz soilek bete ditzaketen *lexical function* (*designative, performative, contact, expressive* eta *logical*) desberdinen arteko bat ez etortzeak, alegia.

Gai beraz, halaber, Steiner (1976).

[290] "Il y aura monosémie bilingue lorsque l'équivalent (ou les équivalents interchangeables) de la langue d'arrivée rend compte de tous les emplois du mot de la langue de départ en tout contexte, même si le signifiant recouvre plusieurs signifiés". (Duval 1986:98).

[291] "sciences dites exactes, hypothético-déductives (mathématiques, astronomie, physique théorique) ainsi que pour les sciences inductives à tendance taxonimique". (Rey 1977b:V-17).

[292] "Il y aura polysémie bilingue lorsque les équivalents proposés ne sont pas interchangeables et nécessitent des éléments métalinguistiques d'explication permettant de les distinguer, alors même que le mot de la langue de départ est ressenti comme monosémique par le locuteur natif". (Duval 1986:98). Halaber, Ianucci (1967).

Kasu honi eman zaion irtenbidea, hurrengo puntuan, adieren hurrenkeraz aritzean zehaztuko da.

. Abiapuntuko hizkuntzako hitz batek baino gehiagok, hizkuntza-jomugan itzulordain bakarra du.

Honek, oztopo gutxiago sortarazten du, euskal hitz bakoitzak bere sarrera izango duelako. Nolanahi dela ere, ñabardurarik (adierazkortasunaren aldetik edo) balego, itzulpen bakoitzari zehaztea komeni da.

. Abiapuntuko hizkuntzako hitzak ez du itzulordain erabatekorik.

Azken kasu honetan koka daitezke, Haensch-ek[293] zehazten dituen honakoak:

- Abiapuntuko hizkuntzako izendapenezko balioari ezer ez dagokio beste hizkuntzan. Hemengoak dira *exotismos* edo kulturapeko hitzak[294].

Hitz hauek –oro har esanik– ezaugarri dute gaitz direla hizkuntza batetik bestera aldatzen. Gure kasuan, euskal gauzaki, adigai edo antzekoari hertsiki uztarturik egon eta erdaretan parekorik, hizkuntz izaera duen ordainik, kausitzen ez zaielako:

> It would be another mistake to think that it is only the difference in the material extralinguistic world, the absence of the denotatum which is of basic importance; to the contrary, it is the designatum which has the fundamental role. The material extralinguistic world may be more or less identical but the same "things" are conceived as parts of no designatum in one language but not in another. (Zgusta 1971:294).

Haensch-ek[295] halakoen itzulordainak emateko hiru irtenbide[296] ikusten ditu: definizioa eman eta hizkuntza itzulgaiaren hitzari eutsi hizkuntza-jomugan, perifrasi bidez azaldu edo erabateko ez bada ere ordain gertukoa (*congruente* izanik) eman.

Era honetako hitzak hiztegian aurkituko direla eta, ondoko jokabideari eutsiko zaio:

Euskal hitzaren errealitateko erreferenteak erdaretan parekorik ez badu baina erdal munduan ezaguna bada, UZEI-k eginaren bidetik, euskal hitzari beste gabe eutsiko zaio, komatxo artean kokatuz: **bertsolari**renean ["bertsolari"]. / ["bertsolari"]. / ["bertsolari"].

---

[293] (1982:520).

[294] *culture-bound words* Zgusta (1971:294), Rey (1986), Schnorr (1986).

[295] (1982:520).

[296] Alvar Ezquerra-k ere (1981:196) hiru aukera ikusten ditu: hitza hiztegian ez sartu, sartu eta azaldu edo jatorrizko hizkuntzan lukeen definizio edo deskripzioa itzuli.

Schnorr-ek (1986:59,60), berriz, bi hizkuntzetako hiztunen jakinmina asebete nahi duen hiztegigileari, honako irtenbideak proposatzen dizkio:

"1) In cases where there is no equivalent, an explanation should be given which is aimed at the target language user and written in the target language. 2) In those cases where there is an equivalent but also a discrepancy in the degree of knowledge, the equivalent should be stated, mainly for the encoding user, and an explanation should be added for the decoding user. Where there is an equivalent that is only partly correct, a restricting explanation should be added for the decoding and encoding user. 3) In the case of entries where the problem is less one of the word being bound to the culture of one particular language but rather a problem of education or specialist knowledge, only the equivalent should be listed in a bilingual dictionary leaving it up to a monolingual dictionary or an encyclopedia to close the gap in the user's knowledge".

Azken irtenbide honek, ordea, gure hiztegiarentzat gehiegi balio ez duelakoan gaude.

Euskal hitzaren adigaiak beste hizkuntzetan hizkuntz izaerarik ez badu eta Mitxelenak erdal lanetan honelakorik erabili ez badu[297], azalpen labur batez edo perifrasi bidez[298] argi badaiteke, bide horretarik joko da, euskal hitza ordain gisa errepikatu gabe: **bearneskeria, euskarakada, sintasilari**... hitzena, esate baterako.

- Bestetik kontutan hartzekoak dira,

Euskal interjekzio, harridurazko esapide, esapideak, oro har, eta hitzez hitzeko itzulpenik nekez baino ez duten hizkuntz unitateak.

Ahal den kasu guztietan, balio bereko edo pareko erdal itzulordainez emango dira: **arraio, alajaina**, ADARRA JO, edo (gaztelaniaz justu aldrebes erabiltzen dituzten) burutik orporaino edo hotsa atera eta enparatuak, alegia.

- Kontuz ibili beharreko gertatu ohi dira "itxurazko adiskide"[299] direlakoak ere: **xelebre**, adibidez[300].

- Arestikoei erantsi behar zaizkie, bi hizkuntzatan erreferente bat baino gehiago izan dezaketen hitzak.

Kasu honen adierazgarria da populuaren jatorrizko izena eta populu horrek mintzo duen hizkuntzaren deitura bat datozenean. Halakoetan, **(pop.)** eta **(hizk.)** ñabardurak erantsiko zaizkie[301] [302], iraulpenek ematen ez duten argiari eta erreferente-zehaztapen ezinbestekoari irtenbidea eman nahirik[303].

- Iraulpenari dihoazkionak ez ezik, gramatika-izaerari datxezkonak ere behaztopa-iturri bihur daitezke.

Batzuetan, abiapuntuko hizkuntzako hitz bakar bat, hitz-andanaz itzuli behar da, edo abiapuntuko hizkuntzan gramatika-kategoria bateko hitzak bestelako gramatika-kategoriatakoa izan dezake parean, esate baterako.

Arestiko behaztopa guztiak aurrean izanik, hiztegi honetan hizkuntzarteko iraulordaina hautetsi da, jokamolde bitan gauzatuz:

---

[297] Hau zehazten dugu, aipatuko den *izenkiren* kasua ez bezalakoetatik bereizteko.

[298] "Le métalangue bilingue a donc un rôle discriminant d'étiquetage, de désambiguation des traductions non-interchangeables". (Duval 1986:97)

[299] *faux amis* (Wiezell 1975:133,4), *false friends* (Schofield 1980), *falsos amigos*, hau da, "palabras de la misma etimología y formalmente parecidas en dos lenguas, pero que no tienen acepciones comunes". (Haensch 1982:522); halaber, Alvar Ezquerra (1981:191).

[300] Aztergaian esango den bezala, susmoa dugu, egun euskaraz (komunikabideak barne) bereizkuntza honen usaina galduxe edo galtzear dagoela, gisa honetako gertakari zenbaitetan bederen (*sesio, balore, mantendu, emendatu, akordatu*...).

[301] "Important as it is to provide meaning discriminations which are brief and clear, the choice of the language in which these discriminations should be given is even more important". (Ianucci 1967:203).
Azken irtzi honezaz, ikus balizko erabiltzaileaz aiarikoan esanak.

[302] Malkiel (1967:15).

[303] Honezaz gain, azterlanean berariaz ukituko den puntua izango da.

. Erabilera bereziturik atzeman ez zaion hiztegi-sarrerari, gaztelau iraulpen hutsa alboratuko zaio, Real Academia de la Lengua Española delakoaren barneko lan-taldearen burubideei[304], eskuarki, jarraikiz.

Inoiz gertatuko da, gaztelania mintzatuan entzun uste den hitzik hiztegi horretan jasorik ez ikustea, parekoren bat baizik.

Honela, euskal **artifizialtasun** hitzaren ordain *artificiosidad* emango dugu, entzun (eta irakurri?) uste dugun ?*artificialidad*-en ordez, begiz joriko hiztegi gidarian jasoa, hura eta ez bigarrena delako.

Zenbait kasutan, halaz ere, euskal hitzari zegokion ordainak ez du aipaturiko hiztegian islarik. Halakoetan, gaztelaniazko iraulpena ([unificable], adibidez), kortxete artean paratuko da.

Honek balio du, noski, lehen ahotan hartu "bertsolari" eta kideentzat. Honenbestez, ["bertsolari"] itxura hartuko du hiztegian.

Erdal Akademiak oraindik onartu ez dituen baina gidari hautetsi eskuhiztegiak (hitza zilegi bada) onartzear dituenak, "[" moldez iruditarako dira, hiztegi horretan egin bezala (**batzaile** = "[unificador").

Aditzen iraulordainari dagokienez, esan behar da euskaraz NOR eta NOR-NORK erabileren gaztelaniazko ordainetan, erabili den erdal hiztegian pronominal gisa ere erabil daitekeela zehazten denean, iraulpenean, *(se)* zehaztuko dela baldin Mitxelenak bietara (*da-du*, alegia) erabili badu. Aukeran dauden bietarik bakarra atzeman badugu horrek bakarrak izango du ordaina (**amaitu. da-du ad**: acabar(se), finalizar(se) baina **ahantzi. du ad.**: olvidar, esate baterako).

Lemari, hiztegi-sarrera nagusiari, erdal ordainik alboratu ez bazaio, azpisarreraren mailakoa soilik erabili duela Mitxelenak utzi nahiko da axalean. Halakoetan, azpisarrerari bakarrik alboratuko zaio itzulpena: **adi.** ADI-ADI, **abisu.** ABISU EMAN edo, **arkeologia.** ARKEOLOGIAZKO... besteak beste[305], lehen ere adierazi den legez.

. Berezitutzat joak, berriz –tesigilea ordainak aurkitzeko gauza izan den kasu guztietan[306]–, gaztelaniara, frantsesera eta ingelesera aldatuko dira[307].

---

[304] *Diccionario Manual e Ilustrado de la Lengua Española* (1989). Laugarren argitaraldi zuzenduaren arabera.

[305] Lema hauek ere hiztegigileak sartu arren, ez dute (H) ezaugarririk alboan eramango, itzulpen-ezak berak salatuko duelako gertaria.

[306] Ingelesezko edo frantsesezko iraulpenik izan ezean, iraulpenez jantziari (Ingl.) edo (fr.) alboratuko zaio, zein den itzulia zehazteko.

Esate baterako, MUNDU IKUSKERA azpisarreraren alboan, *visión del mundo./ vision du monde (fr.)* irakurriko da, ingelesezko ordainik gabe.

Kontrako aldetik, berriz, HIZKUNTZAREN ONTOGENIA delakoarenean, *ontogenia de la lengua./ linguistic ontogeny (ingl.)*., frantsesezkorik gabe.

Kasu batean zein bestean, eskas diren ordainak aurkitu ezinari zor zaio.

Azkenokin arestikoekin ez bezala jokatzeko arrazoia, izaera berezkoan datza. Izan ere, azterlanean aipatuko den legez, hitz berezituek, oro har, eta terminoek bereziki, nazioartekotasuna ohi dute ezaugarri, hau izaki, hain justu, halakotzat jotzeko irizpideetariko bat zenbait aztertzaileren ustez[308].

Gisa honetako hiztegietako lanpenak ere, Fernández-Sevilla-ren[309] iritziz bestelakoak dira, Saussure-ren terminoez baliatuz, adierazlea baita soilik beste hizkuntzara aldatu behar dena[310]. Ez da, gure kasuan, ordea, erdiesan eta erakutsiko den bezala beti hain alse beteko orobateko ordaintasun hori.

Erdaraz (erdaretan), eskuarki, eta euskalaritzaren[311] barrutian zehazkiago, hiztegi honen kideantzeko gertuen ikusten diren hizkuntzalaritzako terminologiazko hiztegi eta antzekoek hautetsiriko bidea dela eta, beraz, hemen ere ber bidetik joko da.

Halarik ere, ezin mamitu izan da beti itzulmodu hau, zenbaitetan, Mitxelenak erabiliriko (gure ustez) berezituak, euskalaritzaren barruti murritzari[312] –hots, beste hizkuntzetan ordainik ez duen adigaiari– lotzen zaizkiolako edo, tesiaren helburuak eraginik, zabal jokatu nahi izan delako[313]. Hau da, hizkuntzalaritza-filologietako adigai huts eta zehatzak ez ezik, euskararen erabilera landu-ikasiaren moldatzeko bideen eraikusgarri zirelakoen lekukotasuna

---

[307]Gogoan izan behar da, halaz ere, hiztegigilearen hizkuntza usuak euskara eta gaztelania direla, irantsesa eta ingelesa geroztikako ikasketaren poderioz bereganatuak izanik.

Hutsune hori bete asmoz, hizkuntzalaritzako irakaskide ditugun Jose Ramon Zubiaurrek frantsesezkoa eta Esther Zulaikak ingelesezkoa ikuskatu dituzte paraturiko irautpenak.

Bego zorraren aitorpena eta gure eskerrona irakaskideoi eta zalantzak uxatzen lagundu diguten ingeles filologiako irakaskideei ere.

[308]Azterlanaren sarreran astiroago ikusiko da.

[309](1974:115).

[310]Hau dela eta, Duval-ek (1986:97) ondokoa dio:

"Les renseignements fournis ne sont pas d'ordre notionnel. Du point de vue de la traduction, le [hiztegi] bilingue est asémantique".

[311]UZEI (1982b).

[312]"Ocurre que un término no tiene ningun equivalente en una lengua determinada. En tal caso, el lexicógrafo puede proponer un término, pero especificando que se trata de una propuesta suya y no de un término consagrado por el uso". (Haensch 1982:533).

[313]"Este diccionario contiene, en más de mil artículos, términos especializados importantes de lingüística, que no entendemos en sentido estricto, de teoría del sistema, sino, de manera más amplia, integrando aspectos de teoría de la información y teoría de la ciencia. Se incluyen términos de la sociolingüística y la psicolingüística, la lingüística textual y pragmática, así como algunos conceptos fundamentales, indispensables, de la lingüística tradicional y la gramática histórica.

La dificultad de esta forma de proceder nos viene, en una ciencia que estudia el lenguaje y su uso y que se encuentra en rápido y controvertido progreso, de la multiplicidad de aspectos y teorías que estudian el lenguaje y los fenómenos lingüísticos en niveles a menudo muy diferentes. Algunas generalizaciones demasiado parciales resultan especialmente llamativas al utilizar en la enseñanza de la lengua perspectivas claramente limitadas". (Lewandowski 1982:VII).

Gogaide dakargun aipugileak ahotan duenari, testuan diogun bezala, euskararen egoera bereziak dakarzkionak areagotuz.

ere jaso nahi izan delako[314].

Honela bada, bibliografian aipatzen diren hizkuntzalaritza-filologia-gramatiketako hiztegi, index, glosategi (hitza zilegi bada) eta antzeko bildumetara jo da euskal formaren erdal ordain bila, testuan mintzagai zen hizkuntzalaritza-eskola edo gaiari zuzenenik atxikitzen zitzaizkionak bilatzen saiatuz eta zeregin honetan, gaian gaiko bibliografia miratuz[315].

UZEI-ren lanak[316] bereziki aipatu beharrak dira, euskal sarreratik abiatzen direnez gero, euskal hiztegigilearentzako lanabes apropos bilakatzen baitira. Ez da eta zokoratzekoa, eskueran dagoen era honetako bibliografiarik gehienak erdal hiztegi-sarrera izan ohi duela.

Esan berriak ez dakar, halaz ere, lan horri itsu-itsuan jarraikiko zaionik, behin baino gehiagotan, adigai berarentzat UZEIkideek lema gisa ezarria eta Mitxelenak erabilia bat ez etortzea gerta baitaiteke, batetik, eta bestetik, berriz, Mitxelenak erabiliriko hitz berezitua aipaturiko lanean jasoa ez izatea ere litekeena baita.

Alde honetatik, iraulpenak oro ematean, baina hitz berezituenak nagusiki, saiatuko gara Mitxelenak berak erdal lanetan kideko formarik erabili ote duen ikusten, behin baino gehiagotan gai berez baitihardu mintzabide desberdinez.

Honela, esate baterako, **izenki**ren erabateko baliokide, *forma nominal* darabilen gaztelaniazkoa[317], edo **beltaren** ordain zuzenak liratekeen "*input o cebo*" darabiltzanak[318], edo **gipuztasun**, [guipuzcoanismo] aldatuko duguna[319].

Korritu beharreko bidearen nondik norakoa, honakoa da:

Hartzaileari dagokion aldez aurretikako semasiologi bidetik[320] abiatuz –hots, testuko halako hitzaren ustezko adigaia atzituz–, igorleari dagokion onomasiologi bideari[321] ekin; bestela esan, delako adigaiari beste hizkuntzetan nolako hizkuntz adierazpidea dagokion bilatze eta aldatzeari.

UZEI-ren (1982b) lanak, Mitxelenagandikakoarekin ongi uztartzen denean, bigarren urratsa batipat samurtzen badu ere, ez da beti eragozpenik gabea gertatzen, hizkuntza desberdinen arteko zubia eraikitzeak berez dakarrena izaki:

---

[314] Tesigileari oharkabean itzuriak ere, noski, erantsi behar zaizkie.

[315] Zgusta-k (1971:308) eskatu bezala.

[316] (1982b) batipat baina baita (1982a) ere.

[317] (1974a, *SHLV*:390).

[318] (1992:361).
Oso eskertzekoa da Satrustegiren lana Mitxelenak argitaragabe utziriko paperak jendaurreratzean. Bereziki *FLV* aldizkariko azken aleetan (54, 56, 57, 61) irakur daitezkeenak hagitz baliagarri izan zaizkigu iraulpenak emateko.

[319] (1978d, *PT*:355) lanaren arabera.

[320] Baldinger-en (1966,1968), Coseriu-k (1968 1981_2:164) jasoa.

[321] "La onomasiología (...) parte del concepto, que (...) es independiente de la estructura de una lengua dada, para encontrar las designaciones, las realizaciones lingüísticas en una o más lenguas". (Baldinger 1966:12).

La situación es aún más compleja en el caso del diccionario bilingüe, en el que coinciden los dos puntos de vista. La base la constituye aquí el análisis semasiológico de las unidades léxicas de la lengua de origen, tal como se lleva a cabo en un buen diccionario monolingüe. La búsqueda de equivalentes en la lengua de destino supone asimismo este análisis. Sin embargo, es un hecho, confirmado por la experiencia, que la extensión significativa de una palabra de una lengua pocas veces coincide exactamente con la de una palabra de otra lengua. Generalmente en este análisis de significado, sólo puede comprobarse una coincidencia entre acepciones aisladas. Y esto es un procedimiento onomasiológico, ya que metodológicamente, en la búsqueda de estos equivalentes, se necesita un *tertium comparationis* para la comparación de dos unidades, 'tertium' que se descubre a través del análisis de sememas y que se fija en forma de conceptos independientes de una lengua determinada. En el diccionario bilingüe, a la unidad léxica que corresponde al concepto así definido, en la lengua de origen, se le contrapone una unidad léxica o una definición en la lengua de destino. Se trata aquí en definitiva, del problema de la sinonimia, del problema, tan controvertido, de la existencia de expresiones sinónimas[322]. (Wolf 1982:347).

Azpimarratu nahi da, halaber, iraulpenetan oro, ahalegin berezia egingo dela itzulordainak ematean arazoak sortarazi ohi dituen beste honakoa ere begietan edukitzen: itzulgaia eta itzulia hizkuntz maila berean edo ahalik eta antzekoenean paratzen[323], itzulpenak ondorio lotsagarri gaiztorik izan ez dezan, nahiz euskal hitzari, halako maila zehatza axalerako lukeen adierazgarririk[324] aldamenean sistematikoki paratuko ez zaion.

Zehaztea egingo da, iraulordaina hizkuntz maila bereizteko gauza ez denean batipat: *-keria* atzizkiaz eratorririko zenbaiten ondoan, **(galtzesp.)** ondoratuz, esate baterako.

Bestalde, ondokoek ez dute oro har hiztegian iraulpenik izango: adibidetzat joriko gehienek, atzizki txikigileez edo jantziek, hitz bat baino gehiagoko eraikuntzen esanahi-adierek osagai bakanduen elkarketa gardenaren ondoriotzat jo direnean; kasu hauetan guztietan ez da erdar(a)(eta)ra aldatu eta antzeko moduan jokatuko da hiztegigileak erdal ordainak emateko debeku larriak ikusi ez eze aldatzea bera ezina bilakatu zaionean ere.

---

[322] Arazo honen ingurukoez arritu gara eta asko.

[323] Traupman-ek (1985:168) besteri kritikatzen diona txukatu nahirik:
"However, the editors of WILDHAGEN failed to apply consistently the lexicographical principle that the level of usage of the source language and the target language must be the same".
Ildo beretik, Michelena (1974a, *SHLV*:396), mailaz gain, garaian garaiko ordezko egokiak eman beharraz. Eskakizun honezaz, oro har: Zgusta (1971), Sarasola (*AE*, *HLEH*).

[324] Hau da, *HLEH*-k darabiltzan *(zah.)*, *(klas.)*, *(lit.)*, *(jas.)*, *(herr.)*, *(lgart.)* edo hiztegigile berak *AE*-n usaturiko *(kult.)*, *(poet.)*, *(lagart.)*, *(arrt.)*, *(espr.)*, *(pejor.)* edo antzekorik ez da ia zehaztu.

8.3.2.3. Adierak

Arestikoarekin hertsiki kateaturik dator **adieren**[325] ordainen antolamendua, euskal hitzaren adieraren araberako iraulpena jarriko baitzaio hizkuntza jomugan.

Erdal bibliografian, hurrenkera-irizpideen kopurua eta zehaztapena ez datoz guztiz bat; papererako ditugunok, izan daitezke diogunaren erakusgarria:

> 'criterio de la cronología', 'criterio etimológico', 'criterio lógico', 'criterio de la conciencia lingüística', 'criterio de la frecuencia', 'criterio de la posición dentro del sistema colectivo', 'criterio de la distribución sintáctica'. (Werner 1982:315).

> 'ordenación histórica', 'ordenación lógica', 'ordenación según la frecuencia', 'ordenación distribucional'. (Hausmann[326]).

> Criterio di ordinamento di tipo *storico* ad uno di tipo *logico*, cui la Rey-Debove, che guarda alle realizzazioni più recenti, aggiunde un ordinamento *frequenziale*. (Massariello 1983:120)

Euskal biliografian, puntu honezazko zehaztapena dakar *HLEH*-k, Massariello-ren bidetik, hiru irizpide horiek berak aipatuz eta testu-agerraldiaren denbora-neurriari lehentasuna emanez[327]:

> Adieren hurrenkera irizpide askoren arabera egitura daiteke. Logika edo maiztasuna har daitezke ardatzat, esate baterako. Guk hurrenkera kronologikoa hautatu dugu batipat, nahasbideak eta hutsak saihesteko egokiena delakoan. Beraz, kontrakorik adierazten ez den bitartean, aurren agertzen denetik hasita hurrenkeratuko ditugu adierak, hain labainkor eta finkatzeko gaitz gerta daitezkeen etimologiak eta maiztasunak alde batera utzirik. (*HLEH*:30).

Adieren hurrenkera erabakitzea zalantza-gabea gertatzen ez dela eta[328], ikertzaileen artean alde bateko zein besteko arrazoiak eman ohi dira hurrenkera-mota bat hobesteko.

Honela, gaiaz sakonki arduratu den bat ekartzearren, Haensch-ek zailtasuna azpimarratu eta "orotarikotik xehera" jotzea momentu batean begi hobez ikusten du:

---

[325] "adiera" darabilgu, *HLEH*-k bezala, gazt. *acepción* (Alvar Ezquerra 1976), fr. *acception*, ingl. *sense* (Read 1973) erdarazkoen ordain.

[326] Werner-ek (1982:316) jasoa.

[327] Lehentasun honen alde agertzen dira Casares (1969_2:70); eta Alvar Ezquerra era (1976:62), azken honek Espainolaren *Tesoroa* gogoan duela zehaztu behar da, halaz guztiz.

[328] Casares (1969_2:70), Zgusta (1971:275-282), Alvar Ezquerra (1976:62), Werner (1982:315-328), Haensch (1982:470-473).

> Más difícil es el establecimiento de criterios para la ordenación de acepciones, cuando la unidad léxica en cuestión pertenece a una sola categoría gramatical y no presenta diferencias de construcción, como ocurre con muchos sustantivos y adjetivos (...) La mayoría de los grandes diccionarios generales (monolingües y bilingües) se basa en la etimología y (o) la cronología como criterio de ordenación, lo cual es poco satisfactorio en diccionarios puramente descriptivos (...) e incluso imposible en muchos casos (...) Quedaría, pues, como solución más aceptable el criterio de la frecuencia (conocida o supuesta) combinado con el de la posición dentro del sistema lingüístico colectivo. Pero, aun así, difícilmente se podría conseguir el máximum de uniformidad, debido a la valoración subjetiva que esta solución implica en la mayoría de los casos. Si se quiere adoptar un sistema coherente, se puede aplicar el principio 'de lo general a lo particular'. (Haensch 1982:472).

Alabaina, azken irtenbide honek ere arazoak sortarazten dizkionez gero, ez du asebetetzen eta aurrerago egokiago ikusten du -Werner-ekin[329] batean- arrazoi historiko eta etimologikoetan oinarritzen ez diren hiztegietan irizpide bakar bati ez heltzea.

Berezko zailtasuna, hizkuntza bat baino gehiago jasotzen dituzten hiztegien izaerak areagotzen du, gainera:

> El problema de la ordenación de indicaciones en la parte definitoria es aún más difícil de resolver en el caso del diccionario bilingüe que en el semasiológico. (Werner 1982:324).

Hizkuntzaren atzoan -hots, etimologian edo lekukotasun historikoetan[330]-, oinak finkatzen ez dituzten arrunteko hiztegietan, edo maiztasun-hiztegi ez direnetan, badirudi ohikoena dela, lexiko-unitatearen oinarrizko esanahia, adiera-gunea[331], aurrenik eta hemendik eratorririko adierak, nahiz eratorri gabe gerora hartuak, ondoren paratzea:

> If the polysemous word has a dominant sense, this should be the first sense indicated; if it does not have any dominant sense, the sense which has the broadest application and no marked connotation should be indicated. (Zgusta 1971:276).

Halarik ere, zer hartu behar den jatorrizkotzat eta zer eratorritzat ez da beti guztiz gardena[332].

---

[329](1982:326).

[330]Beti bereizten ez diren bi irizpide diferentetzat dauzka Werner-ek (1982:315). Malkiel-ek (1967:16) urte batzuk lehenagotik garbi bereizten zituen.

[331]*basic sense* (Zgusta 1971:65), *significado normal o central* (Bloomfield 1964:173), *sens propre* (Imbs Preface XXXV), *sentido propio, sentido original* (Alvar Ezquerra 1976:62), *significado básico* (Werner 1982:317).

[332]Werner (1982:317).

Gertakizun hau korapilatuago egiten duen beste zerbait ere aurrean izan behar da. Hizkuntza usuko eta hizkuntza berezituko hiztegien harremanak direla medio, hiztegi honetan bilduetan, behin baino gehiagotan gertatuko da ohiko hizkuntzan adiera bat duten hitzek, berezitu moduan erabiltzean beste adiera zehatzak hartu ahal izatea[333]; hau da, erabilera usuko eta aldi berean hizkuntzalaritza-filologietako metahizkuntzako diren hitzak aurkitu ahal izango direla[334] (**adar, aldi, kasu** edo lehen ahotan hartu den **belta** bera, urrutirago gabe).

Eta halakoetan ere, hitz berezituak jasotzen dituzten hiztegi orotarikoetan lehenik adierarik zabalena, markagabeena, konnotazio zehatz gutxien dituena jaso ohi da.

Hemen, aitzitik, kasu batean zein bestean, Mitxelenaren erabileraren maiztasunari helduko zaio nagusiki, nahiz eta erabaki honek, adiera "destokitu" edo "eratorria"[335] –hots, seguruenik jatorrizkoa baino geroztikakoa dena (honelakorik jakiteko egokiera beti izaten ez bada ere)– gunekoaren aurretik paratzea ekar dezakeen.

Honela, bada, hitza bietara erabili badu, puntu batez eta zenbakiez bereziz, **(Gram.)**[336] ezaugarria alboratuko zaio berezitu moduan erabiliari.

Honelako bereizkuntzarik izan ezean, hiztegian jaso bakarra (berezitu nahiz ez berezitu) kausitu dela ulertu beharko da (**adar, adaska** edo **adaxka** izenen kasua, esate baterako, Chomskyrenaz aritzeko soilik erabiliak)[337].

Maiztasunez halako alde nabarmenik ez badago, lehen hona aldatu "orotarikotik xehera" joz, aurrenik adierarik zabalena paratuko da eta markatuagoa dena, ondoren.

Kasu gutxi batzuetan, hitza, aldian aldiko adieran[338], testuinguruaren baitan aditu beharra dago, hau da, testuingururik gabe nekez adi daitekeen irudizko adieran[339].

---

[333] *specialized sense*: "a sense of a word, that reveals itself in some specialized contexts, usually dealing with a unified subject matter, as, e.g., a branch of science, technology, etc. It is most often the case that these specialized senses have a terminological value; that the word in question is used, in these contexd, as a term of the respective branch of knowledge". (Zgusta 1974:63).

[334] "technical senses frequently develop from general ones". (Zgusta 1971:278).

[335] *transfered sense* (Zgusta 1971:57), *significado marginal, metafórico o transferido* (Bloomfield 1964:173). Konnotazioaren (Zgusta 1971:27) ondoriozko *primary distributional parameter* Weinreich-ena (1963:67).

[336] Gisa honetako zehaztapenen premia azpimarratzen du Alvar Ezquerra-k (1976:190) hiztegi zehatz edo berezituak barne hartzen dituzten hiztegi orotarikoentzat.
(Gram.) erabiliko dugu oso era zabalean, hizkuntzalaritza, filologia eta gramatikaz ulertzen dena barne hartzen dituela.

[337] Bietara erabili duenean edo nahasbidera eraman dezakeenean bakarrik alboratuko zaio.
Nolanahi dela ere, hiru hizkuntzetara irautpena izatea, berezitutzat hartuaren seinaletzat hartuko da.

[338] *significado ocasional* (Bloomfield 1964:522), *secondary distributional parameters* (Weinreich 1963:67), *actual signification in the context* (Zgusta 1971:47).

[339] *figurative, occasional signification* (Zgusta 1971:58).

Modu soil honetan erabili badu, parentesi artean ipiniko zaio izendapenezko[340] iraulpena eta ondoan testuan hartu duen zehatza. Adibidez: **belta**ren iraulordainean, *(cebo) aducto, input*, edo **irristabide**renean, *(camino resbaladizo) inducción a error*.

Bietara erabili badu, berriz, arestikoekiko jokabide berari eutsiko zaio.

Hortaz, adieren hurrenkeraren antolamendua honakoa izango da:

Esanahi ohikoa, oinarrizkoa, besterik ez duten adiera bakarreko euskal hitzei, erdal hitz bakar bat badagokie[341], oro har, iraulpen bakarra emango zaie, bestelako adabakirik gabe.

Zenbait kasutan, halaz ere, itzulpenak, erdal ia sinonimotzat jo daitezkeenez hornituko dira, komaz bereziz.

Euskal hitzak adiera bat baino gehiago badu:

Erdar(et)ara aldatzean, kontutan hartuko da beste hizkuntza horietan hitz bakar batez ala bat baino gehiagoz adierazten diren direlako euskal adierok.

. Bai euskaraz bai erdarez hitzak modu bat baino gehiagotara adi badaitezke - arestian aipatzen ziren herritarren eta hizkuntzen deizioak edo, erabilera-esparru anitzeko *kasu* bezalakoak, alegia–, eskuinean, parentesi artean, adimodu zehatzaren adierazgarria alboratuko zaizkie: **(pop.)**, **(hizk.)**, lehen kasuan, **(Gram.)**, bigarrenean, esate baterako, eta zenbaki bidez berezi.

Hurrenkeraren premian suertatuz gero, Mitxelenak erabiliaren maiztasunak erabakiko du.

. Euskaraz hitz bakarra erabiltzen bada adigai bat baino gehiago adierazteko –bestela esan, polisemikoa bada– eta erdal hiztegietan hiztegi-sarrera beregain eta lokabeak badituzte direlako adigaiok, zenbakiz bereziko dira adieron erdal itzulpenak. Esate baterako, **argi. iz.** *1 aclaración. 2 luz*, edo **esku. iz.** *1 mano. 2 derecho. 3 influencia, intervención, poder.*

Hauen hurrenkera ere, daturik aski denean, maiztasunak erabakiko du.

8.3.2.4. Adibideak

Hiztegi askotan legez, honetan ere egoki ikusi da adibideek bere txokoa izan dezaten.

Adibideak jasotzen dituzten hiztegiek bi bide nagusitarik jo ohi dutela aipatzen da bibliografian[342]: hiztegigileak bere kabutik asmatuz, nahiz idazleengandik aipu osoak jasoz. Bide bakoitzak baditu bere aldeztaile eta ukatzaileak.

Hemengo adibideek, ordea, bestelako izaera nabarra izango dute.

---

[340] *designation* (Zgusta 1971:27).

[341] Beti ere, gogoan izanik Mitxelenaren erabilerari eusten zaiola eta hizkuntza bakoitzean, erabilera jakinen arabera har ditzakeen ñabardurak... saihesten direla.

[342] Casares (1950), Imbs (*Préface*), Imbs (1960), Martin (1967), Alvar Ezquerra (1976,1981)...

Guztiak Mitxelenagandik aldatuak izanik, ez dira pasarte osoak bere horretan hartuko, adizki jokatu, hitz atzizkidun... eta guzti. Aitzitik, hauek ere lemetara eraman eta nolabaiteko forma kanonikoetara bilduko dira.

Esan nahi baita, esaeraren (zabal esanda) osagaiak lemen formetan emango direla. Esate baterako: *paperera aldatu dituzte-ren* modukoa, paperera aldatu bilakatu dela, alegia.

Beraz, adibideen sarrera-maila erraztngo zaie, aurkezpen honetan zehar aipatuz joan direnez gain, bereziki, Mitxelenak egiten duen hizkuntzaren erabilera berezituaren erakusgarri izan daitezkeenei, duten morfologi edo sintaxi-izaera dutela.

Hauezaz gain, elkarren arteko mugak finkatzeko erraztasun erabatekorik ez duten esamolde modukoak[343], posposizioak, *collocations* edo *colocaciones*[344], *idioms*[345], *modismos, combinaciones fijas de lexemas*[346]; hau da, hitz-andanen artekotzat hartuak eta bestelako egitura, gure ustez, arrazoi bat edo besteagatik nabarmentzea merezi dutenak ere jasoko dira.

Hau da, Haensch-ek[347] orotariko hiztegientzako eskakizun duena, gure egingo dugu –hiztegi hau bestelakoa izanagatik– eta, hiztegi berezietako zati sintagmatikoan unitate zabalei ere kokagunea emango. Beraz, Haensch-ek ahotan hartzen dituen hiztegi-gai horiek Mitxelenak erabili baditu jasoko dira.

Horien artekotzat dauzka *unidades fraseológicas* direlakoak eta hauen adibide gisa *plantear un problema* ematen du. Hiztegi honetan erdal adibidearen antzekotzat har daitezkeen ahoz aho ebaki, hitzez hitz itzuli, ondorea atera... eta beste aldatuko dira. Bilduak oro, Mitxelenaren hizkeraren berri-emaile izan daitezkeelakoan.

Halarik ere – hitz-andanei buruzko puntuan esan bezala –, hitz bakun edo eratu ez den oro ez da beste gabe adibideen alorrera eramango.

Baldin egiaztatu bada euskal hiztegietan, erabilera finko edo usuaren poderioz, nolabaiteko maiztasunez ageri dela azpisarrera moduan, hemen ere azpisarreren artekotzat hartuko da: ARGITARA EMAN, BEGIZ JO, EGINAHALAK EGIN, ESKUMENEAN IZAN...

Ez dira, horratik, hemen sartuko atsotitzak eta Mitxelenak besterengandik harturiko aipuak (landuak nahiz bestelakoak), (Pottier-en "lexias textuales" direlakoak alegia), hauezaz emendakin berezi bat osatuko baita, esan den bezala.

8.3.3. Hiztegiaren egitura paradigmatikoa

---

[343] Zgusta (1971:336hh).

[344] Ettinger (1982:251-254).

[345] Fraser (1970).

[346] Ettinger (1982).

[347] (1982:415).

Sinonimiak, esanahiaren mundu ilunean argi bila ibili diren eta dabiltzan ikertzaile askoren arreta aspalditik bereganatu du[348], sinonimi motak bereizten dituztenengandik[349] hasi eta, sinonimiaren izaera bera ukatzen dutenenganaino joz[350].

Erabateko sinonimiaz hitzegitea egokiegi ez irudituagatik, hiztegiak bere izaera balizko berdintasun horren gainean eraikiz eskuratzen du, hain zuzen ere[351]. Hau dela eta, bidezko ikusi da hiztegi honetan ere balizkotasun horrek berariazko isla izan dezan.

Hortaz, hiztegi-sarreren zentzukide edo sinonimoak paratuko dira, Zgusta-k[352] proposatzen duen *synonym* eta *near-synonym*[353] direlakoen arteko bereizkuntza zehatza zorrotzegi hartu gabe, baina nolabait gogoan izanik.

Eremu honetako guztiak, hiztegi-gaia osatzen duten corpusetik bilduko dira; hau da, ezinbesteko eskakizun dute Mitxelenak paperera jaulkiak izatea. Hiztegigilearen eginkizuna, honenbestez, uztartze hutsari mugatuko zaio.

Honen berri ematea garrantzizko etsi da, Mitxelenaren aberastasunaren kontu emateaz gain, adigai berarentzako adierazpide desberdinen mamitzearen erakusgarri ere badelako.

Era honetara jokatuko da:

. Mitxelenak berak berariaz kideturikoak komatxo artean " " irudiztatuko dira. Halako ikurrik ezean, hiztegigileak errenteriarraren artikulu berean nahiz besteren batean atzemana dela ondorioztatuko da.

. Aipaturiko Zgustaren bereizkuntza dela eta, oro har jokatu da benetako sinonimo liratekeenak alboan paratuz. Alabaina, erabateko ez baina ia sinonimo, edo sinonimoantzekotzat hartuak taket artean eta hitzaren ezkerrean gutxi-gorabehera adierazi gogo duen ikurra alboratuz ({[¬]}) eramango dira paperera[354]: **adiskide** hiztegi-sarreran, erabat baliokide ez den **{[¬lagun]}**, adibidez.

Kode-janzte berbera erabiliko da, ia sinonimo izateke, arrazoi desberdinengatik uztartzeko iritzi zaionarekin, gramatika-kategorietan bat ez etorrita ere. Adbz: **akulturatze**ren uztarkide **{[¬deskulturizatu]}** paratuko da eta alderantziz, adigai gertukoen molde desberdinak batean ikusi ahal izan daitezen.

Puntu honetan ere, adierak zenbaki bidez berezi badira, kodeatze horri berorri eutsiko

---

[348] Tesi honen asmoetatik urrun dago semantika-gertakizun korapilatsuetan murgiltzea (Lyons-engandik (1977) har daiteke mostra). Hiztegiaren antolamenduan eragin dezakeen neurrian hartuko da kontutan.

[349] Hiztegigintzaren esparrura murriztuz, Weinreich-en (1963:69) sailkapena aipa daiteke, esate baterako.

[350] Nida (1958:281) aipa daiteke adigarri.

[351] Lara-k (1980:238-243) adierazi bezala.

[352] (1971:89).

[353] Malkiel-ek (1967:18) ere terminologia hau zerabilen.

[354] Nahiago genukeen matematiketan erabili ohi dena (-) guk ere usatu, baina *DBASE4*-k bere mugak ditu eta, zitzkeenen artean antzekoena hauxe iruditu zaigu.

zaio kideak ematean. Halako eskakizunik izan ezean, alfabetikoki ordenatuko dira.

Sinonimoak oro iraulpenen gibelean eta giltz artean emango dira eta kokaleku duten lema nagusiaren letra-molde bera izango dute adibideen artean kokatuek izan ezik[355].

Datu-basearen eremu honetan bertan ere – sinonimoekin batean, beraz – sartuko dira euskalki-aldaerak (**aitzakia**renean, **{atxakia}** eta alderantziz, esate baterako), nahiz maileguaren egokitzapen desberdinek sortarazi dituen forma lehiakideak (**abstraktor**enean **{astrakto}** edo **transformazio** sarreran, **{trasformazio}**, kasurako).

Eremu bera baliatuko da bestetarako ere.

Hiztegi honetan eskainiko den beste jakingarria, Mitxelenak izendatuki uxatzen (arbuiatzen) dituenei – euskal gaiztoei, bereziki – dagokiena da.

Direlako eskumikatuok, Mitxelenak hobesten dituenen hiztegi-artikuluetan kokatuko dira eta hauen berri emateko modua, sinonimoen moldez baina bi izartxo artean kokatuz izango da: **landu** hiztegi-sarreran, **{*kulto*, *kultu*}**, esate baterako[356].

---

[355] Informatikak mugaturik.

[356] Beraz, Mitxelenak besterengandik ebatsi aztortuekiko aldea honetan datzake. Arbuiatuek bi muturretan izartxoak jantziko dituzten bitartean, besterenak, eskuin aldean bakarrik eramango dute, gehi, sinonimoek, esan bezala, giltzak izango dituztela aitzin-gibeletan.

8.4. TIPOGRAFIA, IDAZMOLDEAK

Informatikaz baliatzea mesedegarria (ezinbestekoa) bada ere, esan den bezala, bere joko-legeak eta mugak ezartzen dizkio usatzaileari.

Hona zedarri horren barruan, eskueran zeuden ahalbideei, atera zaien etekina eta hiztegian hartuko duen itxura.

Mugekin hasiz, lehenik eta behin argitu behar da harrigarri gerta daitekeen zerbait: lemon hurrenkera.

Hiztegi alfabetikoa egin asmo eta gogo bazen ere, *DBASE4* programak bere ordenatze berezia izaki, ezin bete ahalko da orabat ohiko alfabeto-hurrenkera eta ikusiko da, esate baterako, **aldi**, hasieran lau letra horiek berak dituzten hitz luzeagoen gibeletik kokatuko dela.

Era berean, argitu behar da, espainolez erabiltzen diren ¿, ¡ ikurrak ezagutzen ez dituenez gero, guztiak, ! eta ? bilakatzen dituela. Era berean, hain garrantzizkoa den letra etzana ezin erabil daitekeenez gero, beste irtenbide batzuk bilatzen saiatu behar izan dugu.

Labur esan, letra larriak, puntuak, marratxoak, apostrofoak eta antzeko ikurrek baldintzatuko dute erabateko hurrenkera[357]. Hiztegiaren eskuztatzea lan gogaikarri bilaka badezake ere, ez dugu uste hiztegiaren balizko balioa murrizteko eta urritzeko aski pisuzkoa denik, ahalbideen mailan, jokamolde bera egokitzen saiatu gara eta.

Hiztegi-sarrerek hartuko duten itxurari dihoakionez, honakoak ikusi ahal izango dira:

Arrunteko letraz eta beltzaxkaz hiztegi-sarrera nagusiak (lemak), gehi gramatika-kategoria edo aditzen kasuan aditz-mota.

Letra larriz azpisarrerak.

Letra ttikiz adibideak.

Menpekotasunezko hitz elkartuak, lema nagusiak bezalako letra-moldez baina beltzaxkaz hornitu gabe.

Sinonimoak, esan bezala, adibideen eremukoak salbu, lema nagusiak bezalaxe, baina giltz artean.

Aldaerak kortxete artean, baina eskuineko taketaren aurretik puntu bat izanik[358].

Hiztegi-artikuluaren barrura begiratuz, berriz, honakoak eta hurrenkera honetan kausitu ahal izango dira:

---

[357] Inoiz argitara baledi hauek zuzendu beharko lirateke, noski.

[358] Ez dira nahasi beharko, beraz, argitaraldien arteko aldeak seinalatzeko erabiliko kodeatzea eta aldaeren hau.

Aldaera guztiak [aldaera.] iruditarako diren bitartean, argitaraldien arteko gora beherak, eskuin aldean) edo]] paratuz markatuko dira.

Aldea aldi berean aldaera baitz, honako itxura hartuko luke: [alde-aldaera).], lehen argitaraldikoa bada eta [alde-aldaera]].] bigarrenekoa bada.

Ez da beharbada oso irtenbide egokia baina ez zaigu hoberik gogoratu.

Lehenik, lema nagusia dagokion kategoriarekin (edo aditz-motarekin).

Arestikotik puntu batez berezita, iraulpena(k). Bakarra bada, gaztelaniazkoa, bestela, oro har, gaztelania, frantsesa eta ingelesa (hurrenkera honetan) emango dira, kasu gutxi batzuetan salbu[360].

Sinonimorik badu, itzulpenaren(itzulpenen) atzetik eta puntu baten ondoan irakurriko da, giltzez hornitua. Orain arteko guztiak, lerro berean, edo beraren jarraipenean.

Azpisarrerarik badu, beste errenkadan eta letra larriz jasoko da, gehienetan, aldamenean kategoria (aditz-mota) duela, ohiko letraz, ez larriz.

Jarraian itzulpena(k).

Azpisarrerak ere sinonimoa izan dezake. Lema nagusiarena bezala iruditarako da.

Litekeena da menpekotasunezko hitz elkartua(k) ere hiztegi-artikulu beraren osagai izatea. Bere tokia, azpisarreren hurrengo lerroan izango da. Letraren tamaina, arruntekoa.

Adibiderik badago, beste hiztegi-zerek baino letra ttikiagoz iruditarako dira.

Hiztegi-artikuluaren buruan joango dira, azkenik, lemen aldaerak, esan bezala, letra-tamaina arruntez baina taket artean sartuz, eskuineko taketa baino lehen puntu bat izanik.

---

[359]Ikus lehen (fr.) eta (ingl.) laburdurez esana.

8.5. EMENDAKINAK

Hiztegi honi, argitaraldiazko itsaskinaz gain, hiru emendakin alboratuko zaizkio:

I-EMENDAKINA deituan, Mitxelenak testuan adigaiak azaltzeko nahiz halako euskal deiturak (terminoak gehienetan) zein erdal ordain duen argitzeko darabiltzan erdarazko (ez erdaratikako) hitzen bilduma emango da.

Badute beti ñabargarriren bat Mitxelenak bere jabegokoak ez dituela antzemateko, dela, besteren izenari berariaz bizkarreratzen diolako delako hitza (honenbestez * ezaugarria eramango du eskuinean), dela besteren izen jakinik ahotan ez badu ere, euskal hitza aldamenean izaki eta letra etzanez, parentesiez edo bestelako bitartez agerian uzten duelako ez duela bere egiten.

Idazmolde ñabartzaileak –informatikaren ahalbideen zedarrietan– komatxoetara murriztuko dira.

Iraulpenen ordez, Mitxelenak berak ordezkorik eman badu horren lekukotasuna jasoko da, sinonimoekin egin bezala, komatxo artean " " sartuz Mitxelenaren ordaina.

II-EMENDAKINA deitua, berriz, Mitxelenak papereratzen dituen aipuek (lehengo *quotation* edo *lexías textuales* direlakoek, alegia) osatuko dute. Ez zaie iraulpenik alboratuko.

Hauetako gehientsuenak aipu ikasi-landuak dira.

Arestian esanaren hari beretik, Mitxelenaren ordainak aldatuko dira.

III-EMENDAKINA delakoan, azkenik, izen berezien berri emango da.

Leku-izenek osatuko dute batipat.

Euskal leku-izenei ez zaie iraulpenik erantsiko.

Kanpoko lekuen izenekin bitara jokatuko da:

Baldin Mitxelenak inolako egokitzerik egin ez badu, ez zaio iraulpenik alboratuko.

Egokitzapenik, nahiz itzulpenik egin badu, berriz, erdal ordaina gehituko zaio.

8.6. HIZTEGIGILEAK DARABILTZAN IKUR-LABURDURAK

]	Lehen argitaraldia.
]]	Bigarren argitaraldia.
(H)	Hiztegigileak erantsia.
x*	Mitxelenak besteri aitortua.
x	Mitxelenak berariaz arbuiatua.
()	Zenbait aditzetan, era burutuaren ezaugarri-eza. Zenbait iraulordainetan, izendapenezko esanahia. Oro har, informazio osagarria.
‘ ’	Iraulordainetan, erdal ordainik gabea. Sinonimoetan, Mitxelenak zuzenean ordainez emana. Hiztegi artikuluan, metahizkuntza adierazteko. Lemaren azpian, testuko grafi ñabardura.
{ }	Sinonimoa.
[¬]	Sinonimoetan, gutxi-gora-beherako kidea.
*[*	Gaztelaniaz, Akademiak onartzear duena.
[ ]	Iraulordainean, Akademiaren hiztegian agertzen ez dena. Hiztegi-artikuluaren buruan, lemaren aldaera. Hiztegi-artikuluan, soinu-fonemak iruditatzekoa.
1, 2, 3...	Adierak banatzekoak.

ad.	=	Aditza.
adlag.	=	Adizlaguna.
adond.	=	Aditzondoa.
gald.	=	Galdetzailea.
genit.	=	Genitiboa.
Ik.	=	Ikus.
inter.	=	Interjekzioa.
iz.	=	Izena.
izlag.	=	Izenlaguna.

izond.	=	Izenondoa.
izord.	=	Izenordaina.
junt.	=	Juntagailua.
nolak.	=	Nolakotzailea
ord.	=	Ordinala.
orok.	=	Orokorra.
Posp.	=	Posposizioa.
Pred.	=	Predikatua.
zehazt.	=	Zehaztua.
zehaztgb.	=	Zehaztugabea.
zenbtz.	=	Zenbatzailea.

(antzer.)	=	Antzerkia.
(Arist.)	=	Aristotele.
(bok.)	=	Bokala.
(EEBB)	=	Estatu Batuak.
(Erlij.)	=	Erlijioa.
(etork.)	=	Aldi etorkizuna.
(Fis.)	=	Fisika.
(Fon.)	=	Fonologia-Fonetika.
(fr.)	=	Frantsesez.
(gaitzesp.)	=	Gaitzespena.
(Gizart.)	=	Gizartearen aldetik.
(Gram.)	=	Gramatika (hizkuntzalaritza, filologia).
(hizk.)	=	Hizkuntza.
(ingl.)	=	Ingelesez.
(Ingl.)	=	Ingalaterran.
(Irak.)	=	Irakaskuntzan
(izkr.)	=	Izkribua.
(konts.)	=	Kontsonantea.
(Mat.)	=	Matematika.
(milit.)	=	Militarra.
(Musik.)	=	Musika.
(Pents.)	=	Pentsamenduaren alorrean.
(pl.)	=	Plurala.
(Polit.)	=	Politika.
(pop.)	=	Populua.
(Unibers.)	=	Unibertsitatean.

8.7. AZKENA

In short: in lexicography a good knowledge of the language in question is not only as important as in any other field of linguistics; it seems that if the lexicographer has a so to say philological knowledge of the language (i.e. a well trained ability to understand all the more difficult texts spoken and written, in all their details and stylistic, exegetic and other intricacies, applicational occasionalities, nouces and contextual nuances and overstones), he has a greater chance of compiling a really good dictionary. (Zgusta 1971:234).

Le lexicographe doit assumer les incohérences de l'usage sans tenter de donner, aux usagers, l'impression d'une logique qui n'existe pas. (Martinet 1983:144).

II. ATALA

9. Kapitulua: ARGITARALDIEZKO ITSASKINA

9.1. HIZTEGIRAKO BEGIZ JO DEN ARGITARALDIA

Hiztegiaren oinarri behar zuten testu zehatzen aukera -hobeto esan, lehengai behar zuen argitaraldiarena-, ez da zalantza gabea izan, bi kontrako indarren eragina baitzen tarteko: testugileari, autoreari beti zor zaion leialtasuna, Mitxelenak noizpait gogorazi ez ezik besteren lana bezteko ere kanporatua:

> Etika auzia dugu. Irakurgai hori ez da sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda daiteke jabearen baimenik gabe, zenbait huskeriatan -grafian, huts nabarietan- izan ezik. Are gutxiago egilea -nolakoa, gero!- hilik dagoenean. (1956e:79).

eta, bestetik, berriz, hiztegiaren egungo balizko erabilerraztasuna, hau da, hiztegi usatzailearen nolakotasuna.

Nonbaitetik jo behar eta, argitalpen eguneratuari lehentasuna eman zaio honako arrazoi-gertariok aurrean izanik:

Batetik, azken argitaraldiko liburu-egokitzaileek[1] liburusken atariko "Hitz bi" delakoan aitortu bezala, Mitxelenak emana zuen inoiz bere aspaldiko lanak itxuraldatzeko baimena.

> Mitxelenak behin bederen emana zuen idazlan haiek euskara batura aldatzeko baimena eta hala argitaratu ere ziren. (...) eta euskara batu horren sortzailetzat hein handi batean dsukagun Mitxelenak hala nahiago izango zuela uste izan dugulako. (*MEIG* 1988:13).

Halaxe adierazia baitzuen bitan gutxienez errenteriarrak, bai, bere eskuz eginez egoki zerizkien aldakuntzak:

> Baina oraindik ere ikusi nahi ez dutenik aski denez gero gure artean, hona aldatzera noa zenbait pasarte ortografia, hori bai, zertxobait aldatuaz, gezurra badirudi ere ez bait naiz sekula, oraintsu arte, *n*-zale izan[2].(1970c:147).

bai besteri baimena emanez egin zitzan:

> Itxura, noski, aldaturik dakarte. Ortografia behialakoa baino moldakaitzagoa, jakina, dakizkizuen arrazoiengatik; mintzaera ere, zenbait axaleko puntutan bestelakotua. Guztiori bateratua balego, bederen! Bizpahiru aldiz ukitua izan den arren -edo, agian, ukitua izan delako-, ez dator beti bat bere buruarekin, ezta ere azken-azkeneko soinekoz jantzirik. Ez dut uste gehiegi ardura duenik. Ni

---

[1] Blanka Urgell, Patxi Altuna, Joseba Lakarra, Ibon Sarasola.

[2] Ikus, halaz ere, aurrerago zehaztuko dugun zerrenda.

ez naiz eredutarako jaioa[3], eta hoberik aurki dezake irakurleak bazterretan. (1972a:152)

Bistakoa da, artikulurik zaharrenetik hasita (1958ko "Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian sartzean" (1958h)) azkena arte (1987ko "*Orotariko Euskal Hiztegia*ren inguruan" (1987d)) euskarak batasun-bidean eginiko urratsek, buruen-buruenik 1968ko Arantzazuko Biltzarrak eta hamar urtez geroagoko Bergarakoak gehi Euskaltzaindia arian-arian hartuz joan den erabakiek[4] errainu zuzena izan dutela Mitxelenaren jatorrizko artikuluen idazmoldean (ortografiazkoetan, adizkietan...), hots, egokituz joan zaizkiola aldian-aldiko gomendio-erabakiei ere.

Arestian jasoriko Mitxelenaren 1956ko esanek gainera, grafi eta huts-kontuetan jatorrizkoetan eskua sartzea zilegiztatzen dute. Salbuespen horrek eta lan honen xedeak –hots, argitaraldi kritikorik ez testu-kritikarik egitea ez izateak, Mitxelenak erabiliriko hitzen[5] kontu-ematea baizik (grafiak grafia)–, makurtu gaitu azkenean argitaraldi gaurkotuak hautestera, Mitxelenaren hitz-aukerari dagozkionek desitxuratzerik ez kalterik hartuko ez dutelakoan.

Lehen esan bezala, oso gogoan izan dugu gure hiztegiari eman nahi izan diogun izaera praktikoa ere; hau da, egungo euskal irakurlea izan dugu batez ere begi aurrean eta balizko irakurle horrek helmenean duen argitaraldira joko du, testu-bilatze lana besteri utziz[6].

Emandako arrazoiei beste bat –eta ez ardura gutxikoa– erants dakieke: informatika-bideek eskaintzen dituzten ahalbideak eta berauen praktikotasuna ukitzen duena, hain zuzen ere.

Orotariko Euskal Hiztegia mamitzen ari diren hiztegigileek *MEIG* VI (26. zkia.) eta *MEIG* VII (27. zkia.) liburuskak informatika-euskarrietan, disketeetan, gure irispidean jartzeak erruz samurtu du gero UZEIn eginiko hitz-hustuketa. Ez zen, beraz, pisuzko arrazoirik ikusten euskararen hiztegi orotarikoarentzat baliagarri zen lehengaia, jomuga xumeagoa eta izaera bestelakoa[7] duen beste honentzat hala ez gertatzeko. Ez zen, bestela esan, funts askirik ikusten, premiazko begitantzen ez zen lana geure bizkarrari eransteko[8].

---

[3]Batasunaren bultzatzailerik eragileetarikoagan honako hitzak harrigarri xamar gerta badaitezke ere, ondoren erakutsiko dugun kontu-emate zehatzak Mitxelenaren hitzok bermatzen dituela dirudi.

[4]Ondoko lanean eskuzta daiteke berauen bilduma: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak (1991) kalera emandako *Euskaltzaindiak Batasunerako eskaini dituen erabakiak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia.

[5]Hiztegi-unitateezkoak beste atal batean zehaztu dira.

[6]Jatorrizkoarekiko kezkatan balego, *Klasikoen Saila*ko artikulu bakoitzaren buruan zehazturik du iturria delako irakurle jakin-goseak.

[7]Hiztegi honen taxua eta nondik-norakoa zehaztu dira.

[8]Pentsa daiteke grafi hutsek hamaika kasutan sortuko zuketen aldaera-aniztasunean eta honek lematizatzeko garaian zekartzakeen nahasteketan, esate baterako.

Aukeraren arrazoiek, haatik, ez dute baztertu argitaraldien estreinako-moldatu erkatzea, bidezko (areago, ezinbesteko) etsi balta "bada-ezpadako frogatze-lana" egitea, testu-egokitzaileek egina auzipean jartzea xede izateke, halaz ere.

Berdintze honek azalean jarri du, hain justu, kasu gutxi batzuetan, testu-moldatzaileen lanak grafia eta aditz-morfologiaz[9] gaineko beste puntu batzuetan ere izan duela eragina, ondoko puntuan ikusiko den bezala.

Halako kasuetan; hau da, lehen argitaralditik hiztegi-gai begiz joriko azkenerako igarobidean, hitzak grafia ez zen bestelako aldakuntza nozitu duenean, hiztegian, ezaugarri berezi batez horniturik hartuko du gorputz.

Informatikak mugatzen gaituen zedarrien barne, bi ikurrez baliatzea deliberatu dugu:] ikurrak (lehen argitaraldiaren ezaugarri erabiliko dugunak), azken argitaraldian halakorik ezin irakurtzea azalean utziko du, eta]] azken argitaraldi soilekoa dela adierazteko erabiliko dugu, testu-moldatzaileena adierazteko.

Hona adibide batzuk, argigarri:

- Lemaren bat lehen argitaraldian eta azkenean molde desberdinez irakurtzen bada, delako aldakuntza hiztegigintzaren aldetik, nahiz euskara batua finkatzearenetik adierazgarria izanik, hiztegi-sarrera besteak bezalakoa izango du, baina hiztegi-artikulu bakoitzaren buruan –aldaerei eginiko tartean, beraz– amaiko puntua baino lehen,] eskuinean eramanez itxuratuko da aldaera, baldin eta beste lanen batean ere hiztegi-sarrera nagusian bezala (hau da, ez bakarrik molde aldatuan) erabili bada lehen argitaraldian.

Adbz.: **genitibo** sarreran, [genitivo].] jasoko da.

Hiztegi-sarrera **genitibo** izateak esan nahi du lehen argitaraldiren batean honelaxe ere irakur daitekeela. Eskuin aldeko] ikurrak, berriz, azken argitaraldian era honek errainurik izan ez duela eta, geurok sartua dela eta iturburua beste lehen argitaraldi batean duela.

- Gerta daiteke, molderen bat soil-soilik lehen argitaraldi batean kausitu ahal izatea ere; hau da, ez beste lehen argitaraldiko lanen batean ez azken argitaraldian errainurik ez izatea. Honelakoetan, bietara aldatuko da hiztegira, lehen argitaraldiaren ezaugarriaz (]) eta azkenarentzat erabiliko dugunaz (]]) horniturik jasoko dugu.

Adbz., Mitxelenaren lehen argitaraldiko *aurre-sapaikari*, testu-moldatzaileek aldaturiko *aurre-sabaikari* azken argitaraldikoaren sarreran jasoko da honen aldaeratzat joz: **aurre-sabaikari]]**, [aurre-sapaikari].].

Forma bien eskuinaldeko ikurrek agerian utziko dute azaldu berri den iturburua; hots, azken argitaraldian *aurre-sapaikari*rik ezin atzeman daitekeela, baina aldi berean, *aurre-sabaikari* moldatzaileek sartua dela.

Gertakizun beraren areagotzea da, hiztegiaren sarreran jaso den *enas* izenondoaren kasua, azken argitaraldian tokirik ez duena.

Guk **enas]** (H) landatuko dugu hiztegi-sarreran, eskuineko muturreko ikurraren bitartez (H) adierazi nahirik, hiztegigilearen eskua dabilela tartean.

---

[9] Hiztegi-maitari bete-betean ez dagokiona eta, beraz, hemen ez dihoana, baina aleruz besterik ez bada ere, hona aldatuko dena.

Era berean, aipagarri deritzogun beste aldakuntza bat ere egin dugu lematizatzeko garaian, liburu-moldatzaileen eta gure jatorrizko testuaren irakurrera bat ez zetozelako eta honek ondorio nabarmenak zituelako: *gar-arte*[10] da adostasun-ezaren iturria.

Moldatzaileek, "gararte" aldatu dute, oin-oharrean 'gariarte', 'garitza' ordain bailiran emanez. Aitzitik, gure irakurrerak, 'gar-arte', jatorrizkoari atxikirik (edo 'gar arte' nahiago bada) eskatzen du, *gar*ik, euskal hitz-erabideei jarraiki, nekez eman dezakeelako *gararterik*: *gal arte* (*galbahe* eta abarren aspaldiko bidetik) edo *gari arte* dira aukeran ikusten direnak. Gure ustez *gar* da hitza (*sugar...*).

Honexegatik, jatorrizko testuari eutsi eta GAR-ARTE] (H) gordeko dugu, **gar** hiztegi-sarreraren barruan, grafiaren oraingo bat egiteari muzin eginez.

- Inprenta-huts etsi direnak, berriz, ustez zuzendu ditugu, gure eskua tarteko denean, beti bezala, eskuinean **(H)** ikurraz baliatuz aldakuntzaren berri emateko.

Baldin paper-izaera duen era bakarra hots, egungo idaztarauei atxikitzen zaion lehiakiderik ez duena bada, horren berri emango da hiztegian.

Esate baterako, **harroxko**, **herren** edo **aintzat** hiztegi-sarrerak geurok paratuak dira, argitaraldi desberdinetan *arroxko*, *erren*, *haintzat hartu* baitira irakur daitezkeenak. Halaber, argitaraldi bietan irakur daitekeen *birralgitalpen* moldea.

Informatika-lanabesek mugaturik, irtenbide bera eman diegu adigarri gisa paperera aldatu kasuei: **harroxko (H)**, **herren (H)**, **aintzat (H)**, **birrargitalpen (H)** emango ditugu hiztegi-sarreretan, baina aldaeretan zehaztuko dugu [arroxko],]].], [erren],]].], [haintzat hartu],]].] edo [birralgitalpen],]].][11] direla plazara testuetan irakur daitezkeenak eta hauei emango itzulpenak.

Hau guztia dela eta, laburbilduz berriz esan behar dugu, hiztegi-gaia, Euskal Editoreen Elkarteak kaleraturiko Klasikoen Saileko 26, 27[12] eta 36 zenbakiak dituzten liburusketatik bildu eta bizkarrezur hartu dugula, argitaraldien arteko aldakuntzen isla, hiru kode hauen bitartez eginez: gure eskua tarteko denean (lehen argitaraldian bai baina geroagokoan ez zegoelako)] ikurraz eta testu-moldatzaileena denean berriz,]] hornituz delako aldakuntza.

---

[10] Hauxe da pasartea:

"Gure hizkuntzan, ordea, ikusirik daukagu, lan gogorragoa dugu baten ordez bi xurritu beharrean aurkitzen geralako. Gogorragoa izateaz gainera, Benveniste-ren artikuluak ukatu ere gabe, gar-arteaan pasatzen baldz bezala, uzten duena ilunbetik argitara dakar". "Egunak eta egun-izenak" (MUNIBE 4, 1971:591).

[11] "... Jean Etchepareren *Buruchkak* zirela bide 1910.ean gertatua besterik ez dut gogoratuko, berau lanago delarik 1941.eko, gutxi gorabehera, **birralgitalpenean**, eta nere aldetik ezer gehitzeko asmorik gabe hortxe dago Aita Villasantek dakarrena...". ("Euskararen bide luze bezain malkarrak", *Euskararen liburu zuria*, 1978:21). (Beltz gurea).

(1978a:38) berrian.

[12] *Orotariko Euskal Hiztegi*akoek aditzera eman zigutenez, *Mitxelenaren Idazlan hautatuak* Patxi Altuna prestaturiko argitaraldia, *Klasikoen Saila* baino lehenago sartua zutenez gero, ez zuten berriz ere argitaraldi berria ordenagailuan sartu eta grafi egokitzapenak eta bere gain hartu zituzten. Hemengoari dihoakionari begira, honakoak dira ilurburu hori dutenak: VI04 "Linguistika berriaren berri onak" (1968c), VII13 "Euskararen batasun bideak" (1968d) eta VII14 "Aditz batuaz" (1972e).

Bestetik, berresan behar dugu *Zenbait hitzaldi* geurok moldatu genuela informatika-moduan, UZEIko eskanerraz baliatuz, aipaturiko hiztegikoek ez zutenez gero. Nolanahi ere den, *Klasikoen Saila*ko argitaraldia jo zen begiz, beste liburuskekiko pareko egoera gordetzearren.

(H) ikurrak, esan bezala, hiztegigilearen amatasuna adieraziko du, argitaraldiak zein bestelako gertariek hartara dutenean.

Ondoren zehaztuko direnek, argi- eta xehekiago utziko dituzte agerian guztiak.

9.2. ARGITARALDIEN ARTEKO ERKATZEA[13]

Arestiko puntuan esan bezala, egoki ikusi da argitaraldien arteko berdintzeari ekin eta itsaskin bidez papereratzea. Honen arrazoia, jatorrizkoetatik bestek egokituetara sor daitezkeen adostasun-ezen berri emateko premian ikusten da.

Hemen, hiztegi-maila ukitzen dutenei erreparatuko zaie batipat, tarteka, bestelako hizkuntz azterketa-mailezkoak ere aipatuko diren arren.

Inprenta-hutsei ere nolabaiteko tartea utzi behar zaielakoan, ondoko zehaztapenetan halakotzat jo ez direnen arteko aldeei eutsiko zaie, dudazko etsi direnei galdera-markaren ikurra (?) alboan paratuz.

Alderaketa-hurrenkera argitaraldi berriena bera izango da, artikuluz artikulu[14] ohargarri iritzi zaienak papereratuz.

Euskararen batasun-agiria baino lehenagokoetan (1968 bitartekoetan) ez dira zehaztuko, aparteko arrazoirik ikusi ezean, *hrik* gabe, *iñ* edo *illez* idatziriko hitzak, datu-ematearen buruan, ohar erabateko gisa, honelaxeko aipuaz jakintzat emango baita baldintza horiek betetzen dituztenei ortografi egokitzapen bera ezarri zaiela; hau da, *ha* erantsi eta *in* eta *il* aldatu direla[15].

Arantzazuko txostenak (1968), puntuazioaren eta idazmoldeen gainekoak (1971, 1972, 1974), Bergarakoak – eta honen ondore zuzen izan ziren hurrengo urteko *h*aren idaztarauak (1979)– edo Euskaltzaindiaren beste arau-emate zehatzen plazara-urteei (1986, eta gerora, 1991a, 1991b) erreparatuko zaie kausitzen diren formen bitxiak oharkizun hartzeko. Arau horiek baino geroztikakoak, beraz, kasuz kasu ekarriko dira paperera estreinako grafiaren eta eguneratuaren artean adostasunik ez dagoenean, esate baterako, garai batean erabiltzen ziren baina egun erabiltzen ez diren *h*ak edo alderantzizko gertakariak[16].

Aipatu berriek nahiz garaian garaiko arauetatik at atzemandakoek, hiztegian isla izango dute. Arestiko puntuan besterengatik zehaztu bezala jokatuko da, testu-hustuketak azalera eraman ez duenak – hots, geurok sartua denak–] ikurra izango du alboan lehen argitaraldi soilari dagokiona dela adierazi nahiko denean, testu-moldatzaileena dela adierazteko, berriz,]] ikurraz baliatuz.

---

[13] Lehen argitaraldia eta hiztegi-gai begiz jo dugunaren antekoa egingo dugu, tarteko beste argitaraldiak, arrazoi berezirik izan ezean, saihestuz.

[14] Artikulu bakoitzaren izenburuaren ondoan zehazten den data argitara emandakoari dagokio ez idatzi zeneko urtean.

[15] Aipagarri denzkiegunak, halaz ere, ahotan hartuko ditugu.

[16] Egungo moldeari emango zaio lehentasuna, lehen argitaraldikoak ere aldaera gisa jasoz, esan bezala. Hauen kontu-ematea gertari bitxiei zor zaie. Esate baterako, *h*a dela eta, ez dugu Euskaltzaindiak egun arte plazara arau-gomendioetan inon kausitu *lehengusu* eta *izterlehengusu* behar dutenik eta ez Mitxelenak darabiltzan *lengusu*, *izterlengusu*.

Istilu- eta nahasiturri gertatzen da usu marratxoaren erabilera, elkarturik ala bereiz idatziriko zenbait hitzekin[17] batean. Ez zaio puntu honi bereziki erreparatuko, adigarri moduan noziturikо aldakuntza baten batzuk papererako badira ere, ez baita, oro har, ez lehengo ez oraingo jokabidean halako irizpide sendorik ikusten, batetik, eta hemen dihoakionari begira hitz-aukerari, alegia ez diolako argi itzelik ekartzen.

Hiztegian forma lehiakideak jasotzeak (**guzi / guzti**, edo **eskeini / eskaini** kasurako) argitaraldi berrian ere honela gorde direla adierazten du; bestela esan, Mitxelenaren erabilera aniizaren ispilu dira[18], eraskin honetan kontrakorik - hots, jatorrizkoan bat zena argitaraldi berrian bat baino gehiago bilakatua zehazten ez denean.

9.2.1. *MEIG* VI, *MEIG* VII

• VI01 "Euskararen bide luze bezain malkarrak", *Euskararen liburu zuria*, Bilbo, 15-28 [*MEIG* VI, 25-46]. (1978a).

Egun *hrik* gabe idazten diren:

halegia[19], *hauzi, oinharriko, oinharrizko, onhartu, Erdi Haro.*

egiztatu = egiaztatu (26,29,30)[20].
iskribu = izkribu (26,34,36).
Euzko Jaurlaritza = Eusko Jaurlaritza (26).
hibai arro = ibai harro (?)[21] (29).
iskritu gotiko = izkribu gotiko (31).
erlijio iskribu = erlijio izkribu (32).
ararteko = hararteko (?) (33).
hasera[22] = hasiera (37).
esku iskribu = eskuizkribu (37).
gogaeta (?) = gogoeta (37).
experientzia = esperientzia (39).
sintaxis = sintasis (41).

---

[17] "hitz" zabal har bedi.

[18] Edo jatorrizko testuan akats izan daitezkeenen.

[19] Letra etzanez emango dira lehen argitaraldikoak.
Aldatuen eskuineko zenbakiak, argitaraldi berriaren orrialdea adierazten du.

[20] Muzintzekoa ez da, apika, hitz honen sortzailetzakoak a gabe eratu zuela:
"cilhegui bada erratea *gueçurtatcea*, cergatic ezta erranen *eguiztatcea* eta *handiztatcea*?" (Sarako Etxeberri, *Escual-herriari eta escualdun guzthiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteko*, 18. or., Altuna (1988d) lanetik hartua).

[21] Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan *(h)ibai arro*. Ez dugu geroztikako aldakuntzen berririk.

[22] *Hápax* gure aztergaian.

Bidenabar aipa daitezke honako beste aldakuntzak:

hauk = hauek (43), *horik* = horiek (39), *harek* = hark (33, 35), *haronzko* = haranzko (34), *honera* = hona (34).

batetan = batean (34).

agintariak (NORK pl.) = agintariek (28).

beharbada = beharbada, *elkarlan* = elkarlan, *nola nahi ere* = nolanahi ere, *zer nahi ere den* = zernahi ere den, *hego alde* = hegoalde, *hego mendebalde* = hegomendebalde, *berrogei ta hamar* = berrogei eta hamar.

Hauezaz gain, lehen argitaraldian *koiné* letra etzanez idatzia inolako grafi ñabardurarik gabe aldatu da azkenera.

* VI02 "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)", *IX Congreso de estudios vascos. Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Bilbao, 239-250 [*MEIG* VI, 47-88]. (1983a).

nolapait ere = nolazpait ere (47)[23].
lerrenak egin = leherrenak egin (49).
ar (?) ('zizare') = har (50).
ori (erak.) (?) = hori (53).
ss. (laburdura) = hh (53)[24].
aize (?) = haize (56).
auteman (?) = hauteman (57,71).
arrezkero = harrezkero (66).
ez urrik eman ere = ez hurrik eman ere (70).

honuntza = honantza (53)[25], *hontan* = honetan (67), *honera* = hona (71), *harek* = hark (55).

alegiak (NORK pl.) = alegiek (56), *lanak* (NORK pl.) = lanek (56), *harenek* (NORK pl.) = harenak (64).

---

[23] Baina jatorrizkoan *nolazpait ere* azken argitaraldian bere horretan jasoa (47) ere bai.

[24] Baina argitaraldi bietan *hh* ere bai (1983a:73).

[25] Baina *honantz* aurreko orrialdean.

jo ta pasea = jo eta pasea (72).

han-hemengo = han hemengo, *esku-izkribu* = eskuizkribu, *gramatika-bide* = gramatikabide, *testu-inguru* = testuinguru.

* VI03 "Campionen *Gramática* eta beste", *Euskera* 2. aldia XXX, 63-70 [*SHLV*, 965-971; *MEIG* VI, 75-87]. (1985d).

saiestu (?) = saihestu (75).
orratik (?) = horratik (79).

* VI04 "Linguistika berriaren berri onak", *Jakin* 1968-1, [*MIH*, 191-199; *MEIG* VI, 89-96]. (1968c).

Mitxelenaren lan honek hiru argitaraldi izan ditu, *Jakin*eko lehena eta Altunak paraturiko *Mitxelenaren idazlan hautatuak* bigarrena, errenteriarrak ikusi ahal izan zituenak; hirugarrena, berriz, EEEk plazaratua da.

Ardurazko deritzagu hirurak aurrez aurre paratzeari, lehen bien arteko aldeak Mitxelenak berak zilegiztatuak izaki, jokamolde-aldakuntzen (arau berrietara moldatzearen) seinaletzat har daitezkeelako.

Gogoan izan, *OEH*-koek, bigarrena baliatu zutela hiztegigintzarako, honenbestez, gure hiztegiaren euskarria ere, bigarren argitaraldi hau izan dela.

Behean doan berdintzean, zehaztu ezean, bigarren eta hirugarren argitaraldietan berdin jokatu dela adierazi nahi da.

1968koan *hrik* eskuarki erabiltzen ez bada ere, badira letra horrezaz idatziak, hala nola:

lehen, lehenbizi, lehenbiziko, ahal (izan), *bertan behera utzi, gutxi gora-behera, holandes* (pop.), *humanista, homomorfismo, nahasmendu, zahar.*

iñ eta *ill* erabiltzen dira.

Apostrofoa: *Europa'ko, Aita Adan'i, Polonia'n, Saussure'k...*

1972ko *MIH*n, berriz, arestiko *h*-ezak, kontsonante bustiak eta apostrofoak desagertu dira.

umiltasun = humiltasun (*MIH*)[26] = umiltasun (89).
arkitu = aurkitu (90).
estadistika = estatistika (91).

---

[26] *OEH*-k eskuetara disketeetan, *humiltasun* gorde zuen bitartean, ez zioten hauzoni eutsi.

estadistiko (iz.) = estatistiko (91).
Gestaltpsychologie = Gestaltpsychologie (*MIH*) = Gestalpsychologie (92).
funzio = funtzio (92).
auzo = hauzo (*MIH*) = auzo (92)
transformation grammar = transformational grammar (93).
nere = neure (94).
laguntz (?)[27] = laguntza (95).
geron = geuron (95).
sovietiko = sovietiko (*MIH*) = sobietiko (96 hirutan).
amerikano-sovietiko = amerikano-sovietiko (*MIH*) = amerikano-sobietiko (96).

Lehen argitaraldiko ondokoen aldakuntza sistematikoa izan da bigarren (eta, noski) hirugarren argitaraldietan:

erdera = erdara.
euskera = euskara.

ager-nahiean = ager-nahian (89).

oek = hauek (90...).

besteek = bestek (*MIH*) = besteek (91). *sovietikoek* (NOR pl.) = sovietikoak (*MIH*), sobietikoak (96)[28].

matematikaruzko = matematikaruzko (*MIH*) = matematikaranzko (93).

zion = zioen ('esan') (90...).

mugatu (aditz-oina)[29] = muga (*MIH*) = muga (95).

nintzake, ditezkean, lukean, dedin[30]...

Marratxoaren erabilerari dagokionez, antzeman daiteke, lehen argitaralditik bigarrenera,

---

[27]Gisa honetakoek ere hiztegian isla izan behar dutelakoan, jasoko ditugu.

[28]Baina -ek ere badarabil:
"Eskolastikoek bakarrek esaten omen dute oraindik, gero eta goragoko garraxiak egiñaz, kantidade-jakitea dela matematika...". (*Jakin* 1968:9).

[29]Gertakari honek ere errainua izango du hiztegian, sarreran esan bezala.

[30]Adizki hauek paradigma osoaren erakusgarri peratuko ditugu, adiz laguntzaileen era batua finkatu baino lehenagoko (1973) Mitxelenaren lanetan kausitu ahal den jokamoldearen erakusgarri.

ia marratxo guztiak desagertu direla[31].

Lehena eta hirugarrena aurkez aurk paratuz ikus daiteke, bigarrenaren ildotik, marratxo bidez loturiko asko banandurik aldatu direla, hala nola:

zer-ikusi, sukalde-zoko, gogait-eragin, lumaz-luma, gai-pilla, matematika-alde, egitura-billa, izkuntz-tipologia, esku-artean, matematika-ikasle, linguistika-liburu (behin honela utzi delarik), *humanista-azibide, matematika-sail, latin-fonologia*[32], *itz-egin, matematika-bide, nahi-ta-ez* eta *euskal-* nahiz *erdal-* hitz elkartuen lehen osagaia daramaten *euskal-ordaiña*[33], *euskal-itz, euskal-sustrai* edo *erdal-jatorri* bezalakoak.

Kontrako aldetik, berriz, jatorrizko testuan marratxoa duten *ezin-bestean, har-eman* edo *esan-nai* hitzak bat eginez aldatu dituzte hirugarrenean: --> ezinbestean, --> harreman, bigarrenean bezala, baina --> esanahi, *MIH*-en lehenean bezala gorde zena.

* VI05 "Euskaltzaindian sartzerakoan Ormaetxea jaunak egindako itzaldia eta Mitxelena jaunaren erantzuna", *Euskera* 2. aldia III, 36-44 [*MEIG* VI, 97-106]. (1958h).

hrik ez, oro har, *historia, hipotesis* eta *prehistoria* salbu[34].

iñ, ill.

Apostrofoa: *Euskaltzaindi'ko, Lizardi'ren.*

ta.

deadar = deiadar (99).
gaberdi = gauerdi (99).
mingaiña = mihingaina (99).
mingain-mutur = mihingain-mutur (100)[35]
arkitu = aurkitu (100,102,103 bitan).
iduki = eduki (101,103).
vokal-sinkopa = bokal-sinkopa (105).

---

[31] Oroi Euskaltzaindiaren erabakiak tartean direla: *Euskera* 2. aldia XVI (1971) eta *Euskera* 2. aldia XVII (1972).

[32] Aipagarri deritzogu, hiru argitaraldietan, *latin fonologia* (94, azken argitaraldian) azentuduna gordea izanari.

[33] Mugatzaile eta guzti gorde nugu adibidea, ez dago eta justu jakiterik hitz honen gibela zein zitekeen.

[34] Baina *aaztu, aalegiñean, leen, gora-beera*... jatorrizkoan.

[35] Beherago argituko dugu forma hauek honela jasotzera makurtu gaituen karia.

euskera = euskara (102 hirutan) (salbuespen dira, *euskara, erdara* eta *euskaratzaille* baitira artikuluan zehar irakur daitezkeenak).

Adizkiei dagokienez, honako aldakuntzak dira aipagarriak:

deritzate = deritzete (100), *dijoaz* = doaz (103), *daramatzi* = daramatza (105).

Ezezko formak, adizkiari loturik idazten ditu:

eztitugu, etziren...

Adizki laguntzaileen paradigma, (1968c) artikuluan esanaren ildotik:

ditekean, giñalarik, litzaizkiokeanak, gera, litzake... Bestetik, berriz, *dionez...*

Marratxoduna berezi da honakoetan:

jakite-mota, itz-pare, idi-pare, indar-bereizkuntza, azentu-marka, azentu-modu, azentu-doñu[36], *euskal-idazle, euskal-azentu* (behin honelaxe gordea), *euskal-belarri, erdal-itz...*

Marratxoduna baturik idatzi da, aitzitik, honakoetan:

esan-nai, buru-muiña[37], *azter-lan* (behin honela aldatua), *idaz-lan, Iruñ-erri*, edo *azken-aldi*.

Banandurik idatziriko *bear bada* baturik ageri da argitaraldi moldatuan.

* VI06 "Pello Salabururen Euskaltzaindian sartzea", *Euskera* 2. aldia XXX, 331-339 [*MEIG* VI, 107-119]. (1985a).

sintaxi = sintasi (111).
auteman (?) = hauteman (112).
doai (?)[38] = dohai (119).

---

[36] Berezteak, kasu honetan, ondoreak izan ditzake. "Dvandva" motako izen elkartuaren izaera desitxuratzen baitu, gure ustez:

"Dagoeneko, behintzat, zerbait ageri zaigu argi eta garbi, edozein dudaren gainetik: euskararen historia ez dugu behar adina ezagutuko gaurko euskalki guztietako azentu **dolnuak** astiro azter ez ditzaguno. Hor baitago urte joanek estali eta ibuiagabetu dituzten izkutu askoren argibidea". (1958h:106).

[37] Nahiago dugu mugatzaile eta guzti jaso orain ere, egia bada ere, zerrendan jasoriko *mingainek buru-muin* lekarkeela iruditu. Testuan ez dugu, haatik, halakorik ikusi.

[38] Lanaren datak bultzatzen gaitu hiztegian *doai]* hau jasotzera.

basatienak (NORK pl.) = basatienek (115).

oso ta bete = oso eta bete (114).

hala beharrez = halabeharrez.
zer ikusi = zerikusi.

* VI07 "Euskararen izterlengusuak direla eta", *Euskera* 2. aldia XXIV, 161-163 [*PT*, 57-58; *MEIG* VI 121-123]. (1979d).

oinharri, oinharrizko.

izterlengusu = izterlehengusu (121).
gerta ala gerta = gerta hala gerta (122).

gutti gora-behera = gutti gorabehera.
behinik-behin = behinik behin.

* VI08 "Euskalkien ageriko aurpegia", *Euskera* 2. aldia XXVIII, 245-252 [*SHLV*, 334-340; *MEIG* VI, 125-136]. (1983e).

izter-lengusu = izter-lehengusu (126).
lengusu = lehengusu (126).
orratik (?) = horratik (126).
iritxi (?) = iritsi (130).
enas = eskas (126)[39].
mingain = mihingain (130).
lerrenak egin = leherrenak egin (135).

euskal-hizkera eta *hitz-azken* banandurik aldatu dituzte, *gutti gora-beherako*, berriz, --> gutti-gora-beherako.

* VI09 "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz", *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo, 57-81 [*MEIG* VI, 137-167]. (1981c).

---

[39] Arestixoan genuen bezala, hau da geuk erantsiriko hitzetarik bat, hiztegian, (H) ezaugarriz hornitua doana. *Hápax* da.

"Euskal hizkuntz-atlasa storkizunaren lainopean kokatzen bagenuen ere, ez da orratik geldirik egon, bertan goxo planto eginik, euskal dialektologia. Ez dira urri, ez *enas* sail horretan, gero eta ugariago, eta aberatsago, agertu direnak". (*Euskera* XXVIII, 1983:246). (Beltz. gurea).

galdatu = galdetu (139,140)[40].
ez urrik eman ere = ez hurrik eman ere (143).
eriosuharreko = heriosuharreko (144).
ari (?) (iz.) = hari (146,148).
hauzi = auzi (148,165).
ss. (laburdura) = h. (149).
ehunda (?) = ehunka (153).
ain justu (?) = hain justu (154).
hortaraz gero = horretaraz gero (155).
ori (erak.) (?) = hori (157).

bikoteak (NORK pl.) = bikoteek (139), *oharrak* (NORK pl.) = oharrek (142), *landuak* (NOR sing.) = landua.

danean = denean (147, 161), *dagokion* ("haiei") = dagokien (149), *dakarzki* = dakartza (150)[41], *diranez* = direnez (155).

hala beharrez, azpi-egitura, esku-izkribu, ezin-ukituzko, behar bada, baturik.

Mitxelenak Azkueren lana autu duelarik, lehenean grafi ñabarduraz ez hornituagatik, argitaraldi berrian *Hiztegia* -letra etzanaz, alegia- bilakatu dutena (158).
Guk huts etsiko genukeen *goihen* bere horretan gorde dute (142).

Eta liburu-moldatzaileek oin-oharrean aitortu bezala, jatorrizko *sintetiko* bat, --> perifrastiko bilakatua (1981c:156)[42].

* VI10 "Eratorbidea eta deklinabidea", *Euskera* 2. aldia XXXI-2, 535-541 [*SHLV*, 674-679; *MEIG* VI, 169-177]. (1986c).

Ia alderik ez dago argitalpenen artean.

haruntz = harantz (173).

Marratxoaren erabilerarekin zerikusia dutenok:

---

[40]Beherago zehaztuko dugun bezala, ez da beti artikulu honetan aldakuntza bera egin. *galdatu* ere irakur baitaiteke azken argitaraldian.

[41]Baina (1961a:58,60) *dakarzki* gorde dute.

[42]Gure aztergaian behin ere jaso ez duguna, bestalde, *konposatu* baita gure hiztegi-gaian -berriz esan- irakurri ahal izan dugun bakarra.

Euskal-herri –> Euskal herri bilakatua eta *non-nahiko* eta *non-nahi* –> nonnahiko eta -> nonnahi, hurrenez hurren.

Aipatzekoa dateke, bestetik, argitaraldi bietan *ondatu* irakur daitekeela (170)[43].

* VI11 "Gabriel Aresti'ri", *Egan* 1-6, 157-160 [*MEIG* VI, 179-183]. (1964g).

hrik ez, eskuarki, *gora-behera, ezin konta ahala, zahar, beheititu,* eta *lehen* salbu.

ill, iñ.

Apostroloa: *Aresti'ri, Lizardi'ri.*

euskera, erdera.

vokal-artean = bokal artean (179).
arkitu = aurkitu (179,182).
enganatu = engainatu (180).
ar ([-eme]) = har (?) (180).
ar-emetasun = har-emetasun (?) (181).
gaitsetsi (?) = gaitzetsi (182).
pekatu larri = bekatu larri (182).
pekatu[44] = bekatu (182).

onezkero = honez gero (183).

adizki-sail, emakume-antzera, vokal-artean, gramatika-barruti, euskal-literatura, euskal-gramatika, erdal-akademiko, erdal-gramatika... banandurik.
gora-behera, bear bada, gorputz-dun, mito-sortzaille, Lizardi-zale baturik.

* VI12 "Esaera zahar baten bigarren agerraldia", *Aingeru Irigarayri omenaldia*, Donostia, 209-217 [*SHLV*, 880-885; *MEIG* VI, 185-194]. (1985b).

emaitz (?) = emaitza (185).
izkera (?) = hizkera (188).

---

[43] **hondatu** ere irakur daitekeenez gero, [ondatu].]] jasoko da hiztegian, tanaren argitaradata dela medio.

[44] Leherkari ahoskabeaz, bi kasuotan bakarrik.

podorioz = poderioz (191).

Hápax den *halare* bere horretan gorde da (193).

Baturik idatziak jatorrizko:

testu inguru, oroit-ez, esku-izkribu, esan-nahi, lege-jakitun.

Gora-behera, berriz, marratxorik gabe eta banandurik aldatu da.

* VII01 "Aurkezpena", Ibon Sarasola, *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia. A-Aurten*, Donostia, GAKP, 11-23 [*SHLV*, 349-360; *MEIG* VII, 25-46]. (1984b).

naiz (junt.) (?) = nahiz (30).
alaz guztiz (?) = halaz guztiz (33).
nabaitu = nabaritu (35,41).
aize (bitan) (?) = haize (35).
aitzaki = aitzakia (44).
ba = bada (40).

bihurtu izan nahi duena = bihurtu nahi izan duena (33).
zitezkelakoan (?) = zitezkeelakoan, *balirate* (bitan) (?) = balidate (40).

oso ta bizi = oso eta bizi (39).

txukunenetakoak (NORK pl.) = txukunenetakoek (31). Jatorrizko *gainerakoek* (NOR pl.) berriz, bere horretan gorde da (32).

* VII02 "Euskal-iztegigilleak XVII-XVIII'garren mendeetan", *Euskera* 2. aldia VI, 7-22 [*MEIG* VII, 47-66]. (1961a).

hrik ez[45], baina *Nafarroa beherea* (49), *holandes* (61).

iñ, ill.

Apostrofoa: *Donibane'tik, Musde Irigaray'ri...*

erdera, euskera.

---

[45] Baina honetan ere, *leen, leenbiziko, beera, zaar, aztu...*

arkitu = aurkitu (47,48 bitan,50,51,52,54 bitan,56 bitan,57,58 bitan,61,62 bitan,63 bitan,65 bitan).
Iraukor = iraunkor (48).
eraste[46] = eranste (53).
pollit = polit (57).
iges (egin) = ihes (egin) (60).

bil-nalean = bil-nahian (47).
artzaz = hartaz (54), *onunzko* = honanzko (49).
dagoka = dagokio (65).

Azpimarra daiteke, erakusleen erabilerari dagokionez, *orietan, onetan, orretan...* askoz ere maizago irakur daitezkeela lehen argitaraldiko testuan, *ontatik, ortan... baino*. Argitaratzaileek egungo moldera batu dituzte.

Bestetan ere esan bezala, adizkietan:

ditekean, litzake, zitzakean, gera, gendukeala..., batasuna baino lehenagokoak.

'esan' adizki jokatuak *dion*[47], *zion...*

errefrau-bilduma, etorri-ala, itz-mordo, azken-orrialde, itzaldi-barru, inprenta-uts, esku-utsik, euskal-iztegi, euskal-iztegigille, euskal-iztegi-gille, euskal-gauza, euskal-iztegi-lan (--> euskal hiztegi-lan bihurtua), *euskal-errefrau, euskal-itz, euskal-filologia, Euskal-erri, erdal-itzulpen*, banandurik.

Baturik, berriz, jatorrizko:

argitara-berri, esku-izkribu, esku-artean (honela ere behin gordea), *leen-bait-leen* (--> lehenbaitlehen aldatua).

* VII03 "Aita Larramendi'ren eun urteurrenean (1960[sic]-1766)" *Zeruko Argia* 1966-I-30 [*MEIG* VII, 67-70]. (1966a).

hrik ez, *lege zaharrak, "histori-lan", lehen, lehenbizi* ezik.

iñ, ill.

Apostrofoa: *Larramendi'ren, Bilbao'n...*

---

[46]Bai, haatik, aurreraxeago *erantsi* (*Euskera* 2. aldia VI, 1961:13).

[47]Behin irakur daiteke modu honetan argitaraldi berrian (1961a:55).

euskera, erdera.

Bilbao = Bilbo (67).
igeskor = iheskor (68).
arkitu = aurkitu (68).

naiz (junt.) (67) eta *arroxko* (68), berriz, bere honetan utzi dituzte argitaraldi berrian.

il-ezkerozko = hilez gerozko, *gabiltzan ezkero* = *gabiltzanez gero, dugun ezkero* = dugunez gero.

ortatik = horretatik (68), *arunzko* = *haranzko (68).*

Adizkiak: *gera, giñan, genduen, ditekealako, litzake...*

kromosoma-pillo, euskal-gramatika, euskal-idazle... banatu dituzte.

bear bada, berriz, batu.

* VII04 "Azkue eta euskal-iztegia", *Zeruko Argia*, 1964-VIII-9 [*MEIG* VII, 71-73]. (1964c).

hrik ez[48]. Baina behin *herri* (72) eta *historia* (73)

iñ, ill.

Apostrofoa: *Azkue'k, Tovar'ek...*

arkitu = aurkitu (71).
euskerakada = euskarakada (72).
pillotari = pilotari (72).

direnak (NORK pl.) = direnek (72), *laguntzailleak* (NORK pl.) = laguntzaileek (72), *goramenak* (NORK pl.) = goramenek (72), *iztegigilleak* (NORK pl.) = hiztegigileok (72)[49].

orrera = horra (73), baina *orretan*.

---

[48]Baina *naaste, zaar, aal, gora-beera, leen...* Kontrako aldetik, berriz, *aztu.*

[49]Ez dugu, egia esan, hurbileko pluralez aldatzeko arrazoirik ikusten. Jatorrizkoa emango dugu: "Iztegigilleak, izan ere, aurrekoen utsak jaso oi dituzte, kontuz badabiltza ere, eta beste zenbait erantsi gero beren baitatik". (*Zeruko Argia* 1964-VIII-9).

gau ta egun = gau eta egun (71).

zan, genduen, zitekean, dan[50]...

zan ezkero = zenez gero.

azken-buru, banan-banan, euskal-leio, euskal-itz, euskal-literatura, euskal-idazle, nai-ta-ezko (--> nahi eta ezko) banandurik aldatuak, *bear bada, arri-jasotzaille, plaza-gizon*, berriz, baturik.

* VII05 "Euskaltzaindiaren euskal-iztegiaz", *Euskera* 2. aldia XIII, 270-271 [*MEIG* VII, 75-77]. (1968e).

hrik ez, oro har, *ahal* (izan), *behera, bertan-behera utzi, lehen, zahar, zaharkitu* ezik.

iñ, ill.

Apostrofoa: *Lhande'ren, Azkue'k.*

euskera, erdera.

Jatorrizko *ondakiñari* ez zaio hasierako *hrik* erantsi (75).

darabiltzatenak (NORK pl.)[51] = darabiltzatenek (75).

oek = horiek[52] (76).

alaz ta guztiz ere[53] = halaz eta guztiz ere.

gera, lukeanik, litzakean, dezaioke, dedin...

duen ezkero = duenez gero, *dagoen ezkero* = dagoenez gero.

---

[50]Bere honetan utzi dutena (1964c:72).

[51]Baina jatorrizkoan:
"eta euskaldunen bearrek eta premick erakusten dioten bidean dabillela". (*Euskera* 2. aldia XIII, 1968:271).

[52]Ez ote luke *hauek* behar? (1961a) laneko *oek*, berriz, *hoek* utzi dituzte.

[53]eta ere badarabil jatorrizkoan.

Banandurik:

euskal- lehen osagaia duten *euskal-iztegi, euskal-itz, euskal-ondasun, Euskal-Akademia*, gehi *erdal-itz, iztegi-lan, ikertu-ala*.

Baina *euskal-bihurrera* marratxodunari eutsi zaio.

Bat eginik aldatu da, berriz, *ezin bestean*.

• VII06 "*Orotariko Euskal Hiztegiaren* inguruan", *Euskera* 2. aldia XXXII, 127-129; *MEIG* VII, 79-81]. (1987d).

Ez dago ia alderik.

Aipa daitezke, *gerok* = geurok (80) eta errakuntzatzat jo daitezkeen ondokoak:

liburki (?) = liburuki (80), *ditezen* (?) = daitczen (81).

testu-inguru, eta duda-mudakoa den *sesio-bide* (lerro-gibelean harrapatzen baitu lehen argitaraldian) bateratu dituzte.

Bestetik erantsi behar dugu, *erren* dela lehen eta bigarren argitaraldietan irakur daitekeen hitza, guk -*arroskorekin* egin bezala- hasierako *hz* jantzi duguna. Honenbestez, **herren** (H) iruditarako dugu hiztegian.

• VII07 "*Beharki* Leizarragaren *Testamentu Berrian*", *Euskera* 2. aldia VII, 59-60 [*SHLV*, 426-427; *MEIG* VII, 83-85]. (1962f).

hrik ez[54].

iñ, ill.

Apostrofoa: *Leizarraga'ren, Azkue'k.*

euskera, erdera.

testo[55] = testu (85).

---

[54] Baina *zaar, leenbiziko, leen.*

[55] *Hápax* da gure langaian.

dakarzki = dakartza (83).

diteke, genduke, dizaiguke.

dion ('esan').

* VII08 "*Gorputz* eta *soin*", *Euskera* 2. aldia XX, 353-358 [*SHLV*, 428-431; *MEIG* VII, 87-92]. (1975b).

oinharri, hauzi, h gabe gaurkotuak.

beharri = belarri (87).

hontan = honetan (87).

ez ta ukitu ere = ez eta ukitu ere (88).

esku artean = eskuartean (88).

* VII09 "Egunak eta egun-izenak", *Munibe* 23, 583-391 [*PT*, 269-282; *MEIG* VII, 93-110]. (1971e).

hauzi, oinharri, oinhatz, egungo legera, *h* gabetuak.

indo-europar = indi-europar[56] (94).
sortalde-alde (?) = sartalde-alde[57] (95).
genitivo = genitibo (96,109)
euskera = euskara (96 bitan).
Oinati-alde = Oñati alde (96).
bilbaotar = bilbotar (96).
Iruinean = Iruñean (100).
vokal = bokal (101).
haurzaro = haurtzaro (101).
Etxelar (?) = Etxalar (103).

---

[56]Era honek ere hiztegian errainua du, hiztegi-gaian inon ez baita moldatzaileek aldaturiko *indi-europarrik* kausitzen ahal, *indo-europar*, berriz, bai, *indieuropar* eta *indoeuroparren* ondoan.
Bidenabar erantsi behar dugu, *PT*-eko argitaraldian ere, eraldatze bera nozitu duela.

[57]Testu-moldatzaileek ongi zuzendua, gure ustez, Bizkai-aldea baitu ahotan Mitxelenak.

sartalde (?) = sortalde[58] (105).
antzaldatze = formaldatze[59] (106).
ablativo = ablatibo (109).

honera = hona (94).

nagoka = nagokio, *ginoazke* = gindoazke.

ditezkean, dizaioke, litzakealako, zezaketean, zitekean, ditzakean, gendukean, nukean, lirake, dedin.

dion ('esan').

azin-besteko (baina *ezin-bestean* bitara aldatu da, bere horretan eta batean), *azken-zati, antzina-antzinako, iturburu-bila, atzizki-gisa, Baztan-alde, hitz-azken, arrazoi-izpi, azken-zati, lehen-hitz, ezker-alde, azken-buru, transformazio-bidez, euskal-hitz, euskal-etimologia, euskal-egitura, Euskal-herri, euskal-ordain, euskal-itzultzaile, euskal-diakronia, euskal-izen-ordain* (--> euskal izenordain), *erdal-itzulpen, erdal-hitz, erdal-hitz, greko-joera, lehen-hitz...*, banandurik.
hala beharrez, bezan batean, zein nahi, har-eman, esan-nahi, nora-ezean, gar-artean[60], *ezin-bestean...* batean.

* VII10. "Apodaka", *Homenaje a Odón de Apraiz*, Vitoria, 259-261 [*PT*, 183-185; *MEIG* VII, 111-114]. (1981l).

hala-holako = hala-nolako (111).
ez urrik eman ere = ez hurrik eman ere (112).
hibai (?) = ibai (112,113 bitan).
atxakia = aitzakia (114).

datxezka = datxezkio (112).

esan-nahi = esanahi.

* VII11 "Iruñea", *Pierres Lafitteri Omenaldia*, Bilbo, Euskaltzaindia (*Iker* 2, 445-457)

---

[58]Zuzen aldatua, gure ustez,Mitxelenak ahotan duena *orai* "aldi-hiza" da eta.

[59]Ez dugu ikusten aldakuntza honen sustraia.

[60]Ikus lehen puntuan honezaz esanak.

[*MEIG* VII, 115-123]. (1983d).

ez urrik eman ere = ez hurrik eman ere (115).
hitz laño = hitz lainо (116).
sudurkari busti edo aurre-sapaikari = sudurkari busti edo aurre-sabaikari (123).
ezkribu = izkribu (123).

Batean idatzirik jatorrizko:

idaz-modu, froga-katea, testu-inguru, esan-nahi...

* VII12 "Euskal itzak zein diren", *Euskera* 2. aldia IV, 206-214 [*MEIG* VII, 125-134]. (1959a).

hrik ez[61].

iñ, ill.

ta, eta anabasan.

bezela = bezala.

euskera, erdera.

revoluzio = erreboluzio (127).
parkatu[62] = barkatu (130).
komilla tartean = komila tartean (130).
itxura gaiztotu = itxuragaiztotu[63] (131).

---

[61]Baina *leendabizi* (eta *lendabizi*), *leenago* (eta *lenagoko*) erabili dira lehen argitaraldian.

[62]Hemen bakarrik.

[63]Honek buruhausteak sortu dizkigu bai lematizatzean bai azterlanean. Nola hartu behar da, *antzaldatu, itxuraldatu* eta antzekoen sailekotzat ala aditz-sintagma soila besterik ez da?
"Ezkera ihor euskeraren jabe. Ondasun orren gozamena eman ziguten aurrekoek, ez jabetza. Eta galerarik gabe ematera beartuak gaude gure ondorengoai. Eztugu, beraz, obe bearrez bada ere, itxura gaiztotzeko eskubiderik". (*Euskera* 2. aldia IV, 1959:211).
Testu-moldatzaileen alde makurtuko ginateke, apika.

alkar = elkar (130,131 bitan,132)[64]

arunzko = haranzko (131).

aieri = haiei, *arek* = hark, *onek* = hauek[65], *ortara* = horretara, *ortaz* = horretaz, *ortatik* = horretatik, *ontan* = honetan, *onera* = hona. Baina *orretarako, orrelako, onetara, bakanak ere bai.*

NORK pluralaren seinalea dela eta, lehen argitaraldiak erakusten duen orotariko jokamoldea *-ak* erabiltzea da. Kasu honetakoak dira:

denak, besteak, laguntzaileak, euskaldunak, autoreak, idazleak, aldekoak, besteak, Xuberotarrak.

Baina aldi berean, arestikoen ondoan, *aurrekoek* (131,132) irakur daiteke.

Argitaraldi berrian, formak oro egunera dituzte.

Aipagarri deritzagu, bestalde, Mitxelenaren *berak* (NORK pl.) --> beraiek aldatu dutela (126). Gure aztergaian ez dugu inon kausitu honelakorik Mitxelenagandikakoetan.

derizkiot = deritzot (133).

zan, zala, litzake, lirake, zutekean, dan[66]*, diteke(an), dakizute*[67]*, genduen, zijoazten, gera(la), dedila, zerate, zegoala, ezkaitezan, didazute, liguketean...*

zion, dion... ('esan').

naiz-eta, erri-izkera (marratxoz loturik ere aldatuz), *euskal-izkribatzaile, euskal-itz* (jatorrizkoan bertan marratxorik gabe ere idatzia), *euskal-iztegi, euskal-literatura, euskal-jatorri, euskal-liburu, erdal-itz...* banandurik.

ber-bera, bear bada, ar-eman batean.

---

[64]Baina *elkar* (*Euskera* 2. aldia IV, 1959:212 bitan).

[65]Plurala eskatzen du testuak (130).

[66]Horrela gordea (127).
Bestetik, berriz, *den* irakur daiteke hirutan (*Euskera* 2. aldia IV, 1959:212) pasarte berean.

[67]Baina hurrengo lerroan ezhuzue (*Euskera* 2. aldia IV, 1959:208).

* VII13 "Euskararen batasun bideak" (= "Ortografia"). *Euskera* 2. aldia XIII, 203-269; *MIH*, 95-116; *SHLV* 972-983; *MEIG* VII, 135-153]. (1968d).

"Linguistika berriaren berri onak" (1968c) lanarekin egin bezala, hemen ere, hiru argitaraldiak paratuko dira aurrez aurre.

Lehen argitaraldian, apostrofoak aldizka erabiltzen dira:

Baiona'n, Errongari'n... baina *Baiona-n, Europa-ko...* ere bai[68].

Gaurko begientzat *h*aren erabilera nahasixea ageri du lehen argitaraldiak. Hemen jasoko dira, egun *h* barik erabiltzen direla eta, era honetara aldatuak batetik, eta kontrakoak, hots, jatorrizkoan *h* gabeak izanik, *h*dun bilakatuak, bestetik.

ahal (galde-partikula), *oinharri* (*oinarri* ere badarabil), *hurrundu, hauzi, hatze, hainitz, hanitz, hurrun, hatzeman, onhartu.*

il-edo-biziko, elburu, eldu (*heldu* ere bai jatorrizkoan), *ain zuzen, beinere, bear* (izan) (behin), *autatu, ao* (baina *aho-sapaieko*), *han-emenka, irukote, itano, naiz* (junt.) (behin), *Euskal-erri, Ego-aldeko* eta bestetan ere erabili duen *ez urrik eman ere.*

MIH-en, lehen saileko *hazeman* da bere horretan gorderiko bakarra. Kontrako aldetik, *hauzi* da puntu honezazko egungo grafiari atxikitzen ez zaiona.

Hitz bakar batean eta behin (honenbestez, inprenta-huts?) erabili da *ñ* jatorrizko argitaraldian: *antziña* (140)[69].

Lehen argitaraldian, halaber, *euskera, erdera* da sistematikoki erabiltzen den moldea.

begi-beharri = begi-belarri (*MIH*) = begi-beharri (135).
gerok = geurok (136,148).
Bilbao = Bilbao (*MIH*) = Bilbo (136).
diagrama (?) = digrama[70] (137).
vokal = vokal (*MIH*) = bokal (139 lautan,145)[71].

---

[68] Oroi, txosten honetan, hain zuzen ere, erdal izenentzat marratxoa dela hobesten dena.

[69] Lehen argitaraldian, (*Euskera* 2. aldia XIII, 1968:207).

[70] Hirugarren argitaraldian aldatutzat aitortua. Bigarrenean ere *digrama* da irakur daitekeena.

[71] Jatorrizko *vokal*-arteko -hirugarren argitaraldian *bokal*-arteko (145) bilakatua- *MIH*-en *vocal*-arteko aldatu zuten, oharkabean, seguruenik.

arkitu = aurkitu[72] (146).
beharri = belarri (149).
ez urrik eman ere = ez hurrik eman ere (150).
sintaksi = sintasis (151).
egizta = egizta (*MIH*) = egiazta (151).
ipui-eleberri = ipuin-eleberri (*MIH*) = ipui-eleberri (152).

aho-sapaieko = aho-sapaiko (137).

hurbilxago = hurbilago (*MIH*) = hurbilxago (143), *haien buruzko* = haien buruzko (MIH) = haiei buruzko (152).

dagozte = dagozte (*MIH*) = dagozkio, *dagoka* = dagoka (*MIH*) = dagokio, *bait garamazki* = baikaramatzi (*MIH*) = bait garamatza, *deritzate* = deritzate (*MIH*) = derizte.

litzake, lirake = litzake, lirake (*MIH*), *dakiokeala, diteke, gera, lituzkean, ditezen, genduke, dedila, dedin* = dedila, dedin (*MIH*), *luketeala, zitekean*

Elkarturik:

elkar-izketa, zein nahi (--> zeinnahi), *har-eman, esan-nahi, presta lan, nazio-arteko, ba da* (*ba* + aditza, baina *bagoaz* ere bai)...

Banandurik, oro har, jatorrizkoan *euskal-* eta *erdal-* lehen osagaia dutenak.
MIH argitaraldian, joera orotarikoa marratxoak ez erabiltzearen aldekoa da, kasu gutxi batzuetan salbu:

begi-belarri, Hego-aldeko, h-dun, abc-ordena, soil-soilik, gehien-gehienek, (zati-)hizkuntza, Giputz-Bizkaitar, Giputz-Lapurtar, sor-iturri, duda-mudako, gramatika-forma, huts-bete...

* VII14 "Aditz batuaz", *MIH*, 119-125 [*MEIG* VII, 155-160]. (1972e).

Hirugarren hau ere, *MIH* bilduman argitara zen, ez bigarrengoz, arestikoak bezala, estreinakoz baizik. Honenbestez, erkagaiak orain, Altunaren paralana eta EEErena dira.

harma, hauzi, egun *h*gabeak erabiltzen dira sistematikoki.

kontservadore = kontserbadore (156).

---

[72] Baina *aurkitu* ere bai (*Euskera* 2. aldia XIII, 1968:219).

Bilbao = Bilbo (158).

nola-nahi ere = nolanahi ere.
hala-holako = halaholako.
nahi ta nahiezko = nahi eta nahiezko.

dioguna (haiei) = dieguna.

litzake, dedila, genduke.

dionez, diona ('esan').

*VII15 "Arantzazutik Bergarara", *Euskera* 2. aldia XXIII, 467-477 [*MEIG* VII, 161-172]. (1978c).
ari (?) (iz.) = hari (163).
atxakia = aitzakia (163).
goiherriar = goierriar (166).
auteman = hauteman (166).

hortarako = horretarako, *hortara* = horretara, *honera* = hona, *hortaz* = horretaz.

deritzate = derizte.

ema-muin, ezin-hautsizko marratxodun dudakoak baturik aldatu dituzte, halaber, *behar bada.*

* VII16 "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz", *Euskera* 2. aldia XXIV, 1979, 773-785 [*SHLV*, 341-348; *MEIG* VII, 173-186]. (1979g)[73].

hauzi.

beharri = belarri (175).

---

[73] Prestatzaileek artikulu honetan bereziki akats ugari zuzendu behar izan dituztelakoan gaude. Hona esan berriaren irozgarri: *elkar-elekuan* ("elkar-lekuan"), *araber i* ("arabera"), *Ispaldi* ("Aspaldi"), *Or* ("Hor"), *asi* ("hasi"), *hrdea* ("ordea"), *egunets* "egun eta"), *naimeta* ("nahiz eta"), "poloniar bat" harrigarrizko *poloniah bas* bilakatua, besteak beste.

Aipagarri bide da, bestalde, ormalde berean lerro gutxiren aldearekin *eransten* eta *erasten* irakur daitezkeela jatorrizkoan. Honelaxe ere aldatu dute egokitzaileek.

asi (?) = hasi (181).
or (adond.) (?) = hor (181).
hordea (?) = ordea (184).

kultur hitzak (NORK pl.) = kultur hitzek (182).

alfer-lan = alferlan.

* VII17 "Hitz mailebatuez", *Euskera* 2. aldia XXVIII, 103-105 [*SHLV*, 436-438; *MEIG* VII, 187-190]. (1983f).

arrezkero (?) = harrezkero (187).
galbae (?) = galbahe (188).

honera = hona (190).

Bestetik, aipatzekoa da, adizki laguntzaileen paradigma finkatu baino lehenagoko lanetan darabiltzan adizki bat edo besteren arrastoak kausi daitezkeela azkenaldiko lan honetan ere, hala nola: *litzake* edo *ditezke* (187,190, hurrenez hurren). Bigarrena, *a* baten gorabeherako errakuntza izan daitekeela, apika, ukatu gabe.

* VII18 "Mailegu berrien idazkera", *Euskera* 2. aldia XXX, 457-459 [*MEIG* VII, 191-194]. (1985c).

Grafiaren aldetik, bi hitzen aldakuntza besterik ez da kausitu: *esan-nahi, testu-inguru*, --> esanahi, --> testuinguru bilakatuak.

Bestetik, berriz, *honeraino, horreraino* erakusleak irakur daitezke jatorrizko lanean, --> honaino, --> horraino aldatu dituztenak.

9.2.2. *Zenbait hitzaldi*

Liburu honekin, beste bi liburukietan bilduekin ez bezalako aukera izan dugu, Mitxelenaren jatorrizko testuak eskuztatu ahal izan ditugulako[74]. Aukera honezaz baliatuko

[74]Eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiogu Juan Antonio Letamendia *Zenbait hitzaldi* liburuaren egileantzeko-egokitzaileari ezagutu ere gabe beti erakutsi digun eskuzabaltasunegatik. Hari zor diogu atal guztien Mitxelenaren zuzenketen eta "Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailea" delakoaren jatorrizko testuaren fotokopiak gure irispidean jartzea.

gara bada, ondokoak zehazteko.

Ondoko zerrendan (M) marka daramatenek[75] Mitxelenaren jatorrizkoekiko erkaketan dute iturburua. Galdera-ikurren arrazoia, berriz, guk duda-mudako edo okertzako hartuak izanean datza. Ikusiko den legez, oro har, *ETOR*-ek 1972an argitara emana leialkiago jarraiki zaio Mitxelenak erabiliari[76].

Atalez-atal eta orrialdez-orrialde zehaztuko dira, beraz, bi argitaraldien arteko bat ez etortzeak, hitz-multzo bakoitza liburu-atal banari dagokiola, hurrenez-hurren[77].

ETOR (1972)	E.E.E.(1989)
0.	0.
11. hauzi (M) (= 15,24,26...)	23. auzi (= 26,31,32...)
13. ala (adond.)	25. hala
15. geuk	26. guk
16. gure	27. geure
1.	1.
21. histori aurreko	29. historia aurreko
21. Erdi Haro (= 27...)	29. Erdi Aro (= 33...)
22. erraz	29. errez (?)
22. Bera	30. Bere (?)
22. aditz-sintagma	30. aditz sintagma
22. neure	30. nere
24. filologia	31. filosofia (?)
28. erakusten	34. irakasten
29. hestu (= 38...)	35. estu (= 42...)
30. xarmagarri	35. xarmangarri
30. antza (3 bider)	36. antz (3 bider)
30. lengusu	36. lehengusu
32. "x" ala (M) (= 45...)	37. "x" ahala (= 47...)

[75] Honelako markarik ezean, hitz honek ageri ziren pasarteen aitatasuna zuzenean Mitxelenari zor ez zaiola (edo bilaketan itzuri zaizkigula) aditzen da, guztiak bere begiek ikusiak direla atzendu gabe, haatik.

[76] Besterik ere esan daiteke, bigarren argitaraldiak askozaz ere errakuntza gehiago ditu lehenak baino.

[77] Hau da, lehen multzokoak (0), "Sarrera"-ri, bigarrengoak (1) "Linguistika tradizionala"-ri, hirugarren multzoa (2) "Konparatismoa"-ri dagokio, laugarrena (3) "Estrukturalismoa"-ri, bostgarrena (4) "Gramatika sortzailea eta bihurtzailea"-ri eta azkena (5) "Hizkuntza eta kultura"-ri.

2.

34. nahasteak (?)
34. ehunda hogeita hamar
34. *criollo* (M)
35. hildo (= 60...)
35. ikus molde
35. egite (M)
36. hondarrik hondarrenean
37. hauzo
38. iguingarri
41. alkar
42. krioiłoz
43. han ere bizi behar
43. Yenan-en
45. guzti
46. argigarri bezala

2.

39. nahasteka
39. ehun eta hogeitamar
39. *creole*
40. ildo (= 59...)
40. ikusmolde
40. eite
40. hondarrik hondarrean
41. auzo
42. higuingarri
44. elkar
46. krioilez (?)
46. han ere bizi izan behar
46. Yenan
47. guzi
47. argigarri

3.

48. hogeita bat, hogeita bi, hogeita bost
48. azentoera
49. linguista (M)
53. hazil (bitan)
55. honuntz (M)
57. antzeman (= 77,151,152)

3.

51. hogeitabat, hogeitabi, hogeitabost
51. azentuera
52. linguistika (?)
54. azaro (bitan)
56. honantz
57. atzeman (= 74,129 bi bider)

4.

65. XVIgn (M)
68. nahasteka (M)
71. anka
74. sintasi (bi bider)
75. ahal (gald.) (= 144)
75. hestuasun
77. egiztatu (M)
79. distiatsu
80. sistima mekaniko (M)
82. parentesis (M)
87. sintasi (hiru bider)
91. osogarri (?)
91. osagarri

4.

65. XVgn (?)
67. nahasketa (?)
70. hanka
72. sintaxi (bi bider)
73. al (gald.) (= 124)
73. estuasun
74. egiaztatu
75. distiratsu
77. sistema mekaniko
77. parentesi
81. sintaxi (hiru bider)
85. osagarri
85. osogarri (?)

93. -->	86.
101. egazkin (M)	92. hegazkin
103. sintasi liburu	93. sintaxi liburu
104. sintasi (M)	94. sintaxis
106. sintasis (lau bider) (M)	96. sintaxis (hiru bider)
	96. sintaxi
109. garaitzaile (M)	98. garaitzale (?)
113. beren (M)	101. bere
114. ari (iz.) (M)	102. hari (iz.)
118. baina (M)	105. bainan (?)
5.	5.
124. seme	110. seme-alaba
125. lengusu (bitan)	110. lehengusu (bitan)
125. izter lengusu (M)	110. izter lehengusu
133. han (M)	116. hantxe
134. sintasi (bi bider)	117. sintaxi (bi bider)
139. alkartu	120. elkartu
144. errusiar (M)	124. errusiatar (?)
144. baino	124. baina
146. New Mexiko	126. New Mexico
147. horri (iz.)	126. orri (iz.)
149. neri	128. niri
149. postulado	127. postulatu (iz.)
153. tintatu (M).	130. tindatu (?).

Zehatz daiteke, Mitxelenaren jatorrizko paperei beha eginez, honako kasuetan ez dela betetzen ergatibo pluralaren seinalea:

besteak = besteek (4-65)[78].
makinak = makinek (4-66).

Bestetik, berriz, lehen argitaralditik bigarrenera beste honako aldakuntzei ere antzeman dakieke:

jokamolde itsua dirudi (M) = jokamolde itsu dirudi (4-68).
tokialdatzea egin (M) = tokialdatze egin (4-91).
Hau da miresgarri (M) = Hau da miresgarria (4-104).
arras sinple delako (M) = arras sinplea delako (5-123).

[78] Bigarren argitaraldiko orrialdea emango dugu soilik, jakintzat emanez, dagokion lehen argitaraldiko orrialdean, aldakuntza berbera egin dutela. Honela ez balitz, zehaztuko genuke.

Erakusleei dagokienez, Mitxelenaren jatorrizko paperetan ez dago erabateko jokamolde finkorik, honela, azturarik usuena *hontan, hortan...* erabiltzearen alde dela nabarmen badalteke ere, *horretan...* ere irakur daitezke.

Aditz-morfologiari dagozkion honako adizkiek nozitu dituzten eraldatzeak ere paperera daitezke:

. *dakitziten*, lehen argitaraldian (0-13) —> dakizkiten bigarrenean (0-24).

. *zekartzien* (4-74) —> zekartzan (4-72).

. *zitzakeen* (5-130) —> zatekeen (5-114).

Eta oro har, *litzake, lirake, dedin...* eguneratuak.

Mitxelenaren jatorrizko paperetarik, jendarteko argitaraldi bietaranzko pasabidean eguneratu dira errenteriarraren izkribuzko *dion, zion...* 'esan' balioa dutenak ere.

Marratxoaren erabilera dela eta, esan daiteke, aski jokamolde paretsukoak agintzen duela argitaraldi bietan eta Mitxelenaren baitarikako paperetan –halakorik egiaztatzeko dagoenean, bederen–, kazu gehientsuenetan, alde handirik ezin atzeman daiteke.

Orobatasun honetan salbuespen dira, Mitxelenaren paperetan irakur daitezkeen *begimuin* edo *har-eman*, argitaraldi bietan, lehena banandurik eta bigarrena bat eginik aldatu dituztenak.

Alpatu alde xeheez gain, bi pasarte oso ez datoz bat, argitaraldi bietan: leheneko (4-80,81), bestelako hurrenkeraz atondu da bigarrenean (4-76,77), eta lehen argitaraldian oker emanikako (5-132,133) zuzendu dute bigarrenean (5-116).

9.3. ALDERATZEAREN ZENBAIT ONDORIO

9.3.1. *Zenbait hitzaldi*ren inguruan

Lehen esan bezala, testu honek besteek ez bezalako aukera uzten du ikertzailearen eskuera, Mitxelenaren beraren jatorrizko irakaspaperak eskuztatu ahal izan baitira.

Arrazoi honek gehi beste lanek ez bezalako batasunak - gaiaz zein idaz-denboraz - bultzatzen gaituzte, ondoren papererako den ohar-sortañoa paratzera, argitaramoldeari dagozkion punturik nabarmengarrienen kontu eman gogoz eta tesiaren hirugarren atala osatuko duen azterlanari begira, mesede- eta argigarri izango delakoan.

Egungo idaztarauak saihesten dituzten bi argitaraldietan errepikatzen diren forma alpagarriak dira[79]: *aisago* (0-26), *alkartu* (0-28), *garrantsi(a?)*[80] (1-35), *alabehar* (2-39)[81], *haintzat hartu* (3-55, 4-75), *arpegi* (3-57), *agitz* (3-59), *historio* (4-98), *euskera* (5-115).

Forma beraren aldaerei dagokienez, jatorrizko argitaraldian[82] honako bikoteak irakur daitezke:

. *izen germaniar* (2-39), *anglo-jermandar* (2-39) eta *germaniar batu* (2-39) (M).

. *Chomsky zale* (4-71) eta *chomskizale* (4-87)[83].

. *sintasi* (4-74 bitan, 4-87 hirutan, 4-103, 4-104 (M), 5-134) eta *sintasis* (4-106) lautan

---

[79] Edizio berriko erreferentziak dira, atala eta orrialdea, hurrenez hurren zehaztuz. Bitxi direlzko (okerrak barne?), erabidera usutik saihesten direnak alegia, aipatzen dira; bestela esan, egungo ortografi azturei jarraikitzea da ohikoa eta aipatuko direnak salbuespena.

[80] Bestalde, irtaztiak ugaltzeko mekanika tresna bat agertzen da: inprenta. Honen *garrantsia* egundainokoa da".

Garrantsi(a) hori zalantzako egiten zaigu. Bete-betean okertzat ez hartzeko arrazoia, Mitxelenaren beste honako pasarteai zor zaie.

"Hor du, lekukorik eskatzen duenak batekin aski baldin badu, Larramendiren *garransia*, orain *garrantzi* bihurtua". (1982a:105).

"Andoaindarrarenak oro uxatu zituzten batzuen eta besteen artean, lauzpabost ale baino ez dela geldituzen. Tira, *eskutitza*, *garrantzia* (hark *garransia* idatzi zuena), eta *berezitu*, orain berriro berpiztua". (1984b:34). (Etzana jator.).

[81] Baina *halabehar* (1972b4:87,97), biak Mitxelenaren irakaspaperetakoak.

Hitz hau dela eta, egoki da Mitxelenaren honako hizak aldatzea:

"¿No sería mejor escribir *hala-behar* o *hala behar* para evitar la doble aspiración dentro de los límites de una misma palabra gráfica?". (1980c:90).

Mitxelenaren ikusmolde honi albora dakioke gure aztergaian antzeman diogun jokaera.

Lehen argitaraldiei begira,

hala behar darabil (1961c:150), (1985a:107,111).

halabehar, berriz, (1971e:93), (1972b4:87,97), (1978a:31,38,39,41), (1983a:48).

Argitaraldi berrietan, *alabehar* ez beste guztiak modu berean aldatu dituzte: *halabehar*, baturik, alegia.

[82] Argitaraldi honi dagozkio emango ditugun kokalekuak.

[83] *Chomskytar* ere jaso dugu. Atal honetan bere eskuzkoetan: (1972b4:65,101 bitan) eta bestelako ondokoan ere bai: (1985a:109,110).

(M).

. *sistima mekaniko* (4-80), *berridazte sistima* (4-95) eta *sistema* (4-108 bitan) guztiak Mitxelenarengandikakoak.

. *parentesis* (4-82) eta *parentesi artean* (4-93) Mitxelenarenak hauek ere.

. *trasformatibo* (4-88 bitan), *transformazio* (4-88 bitan) eta *trasformazio* (4-97,100 bitan,102) (M).

. *ari* (4-114) baina *hari* (4-121) biak (M).

. *piska* lan honetan lautan irakur daitekeena, behin darabil Mitxelenak bere idazlanean *pixka* bezala[84];

edo amaitzeko, *berezi/bereizi* aditzarekin gertatzen dena. Pasarte berean, hirutan *bereizten* paratu ondoren, bitan *berezten* irakur daiteke (5-145, 146)[85].

Esan daiteke, halaber, jatorrizko-moldezko alderaketan, bi argitaraldietan Mitxelenak erabiliak itxuraldaturik aurkitu ditugula honakoetan:

Mitxelenak *podorioz* bitan idatzi duena, --> *poderioz* (4-79, 4-109 lehen argitaraldian, 4-75, 4-98 bigarrenean) bilakatu da.

Beste horrenbeste gertatu zaio Mitxelenaren *analisis* hitzari, bai lehen argitaraldian (4-106), bai bigarrenean (4-103), --> *analisi* bilakatu dute.

Mitxelenaren *taxu*, --> *taju* bihurturik irakurtzen ahal da argitaraldi bietan: (4-82 bitan,92,108) lehenean, (4-77 bitan,86,97) bigarrenean.

Argitaraldi bietan, baina ez leku berean irakur daitekeen --> *osogarri*rik ez da Mitxelenaren paperetan ageri, pasarte berean, *osagarri*[86] da darabilen molde bakarra.

Bietan, halaber, --> *simbolo* irakur daitekeena ((4-93) eta (4-86), lehen eta bigarren argitaraldietan), *sinbolo* da Mitxelenarenean.

Arestiko zerrendan, aipatu berri ditugun orrialdeetan beste gertari bitxiari errepara dakioke. Ezkerreko geziak (-->, 4-93) ez du ordainik argitaraldi berrian (4-86). Bigarren argitaraldiko testua irakurriz, ezin jabe daiteke beraz, zein ote den Mitxelenak mintzagai duen delako "sinboloa" eta ezin behar bezala adi daiteke adibideen artean ematen den honakoa: "*SN (Art) + N*", izen-sintagmaren erdal laburduraren eskuinean aipatu gezia eskas baita.

Ildo berean, Mitxelenaren jatorrizko irakaspaperetako *labur* bat, *luze* bihurturik plazara dela argitaraldi bietan egiazta daiteke (5-143, 5-123, hurrenez hurren). Gu, testu-moldatzailearen aukerari makurtuko gintzaizkioke, Mitxelenarenaren kaltetan[87].

---

[84]Hona atzeman ditugun bion kokalekuak, argitaraldi berrien arabera:

piska: (1959a:132), (1972b2:46), (1972b3:57), (1972b4:75,97) azkena (M).

pixka: (1961a:52,61), (1968c:90), (1972b4:80) (M), (1979g:173,183), (1981c:161), (1983a:54), (1983d:119), (1983e:129), (1984b:30,43).

[85]Bikote honi arretaz begiratu zaio hizlegiaren sarreran.

[86]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan bezala, alegia.

[87]Pasartea aldatuko dugu gure aukeraren irozgarri:

"Mundu guztiak dakienez eguneroko zenbaki sistemarekin batean (0, 1, 2, 3, 4, 5...) badaude beste sistema batzu ere, eta hauen arteko bat, binakoa oso ezaguna da arras /sinplea/ delako: 0, 1, 10, 11, 100, 101... (...) Zerok ikusten dituzue sistema baten eta bestearen alde on eta gaitzak. Lehenengoan hamar zeinu diferente ikasi behar dira, bigarrenean bi aski direlarik. Baina alda daitezkeen elementuen paradigma aberastasuna (batean hamar eta bestean bi) bestearen sintagma jokoarekin berdintzen da. Bigarrenean hitzak, lumeroak, ikastea askoz zailagoa da.

Jatorrizkotik moldezkorako bidean bada, bestetik, pisuzko iritz dakiokeen gertakaririk eta Mitxelenaren isuriaren errainutzat har daitekeenik.

Batetik aipa daitezke, Mitxelenaren paperetan irakurtzen ahal diren bikoteak, estreinakoz idatziak eta gerora zuzenduak.

Sail honetakoak dira:

. *gradu / maila*. Ekuazioez ari delarik, *maila* da lehen idazkeran paratua, baina *gradu* da azken eskualdian hobesten duena (4-71[88] bitan).

. *hautemate / oharpen*. "Ongien finkatuak diruditen hipotesisak ere **(oharpen) hautemate** berri batek desegin ditzake" pasartean irakurtzen ahal dena. *Hautemate* abantailatzen du (4-71).

. *desafioa eraman / desafioa irabazi*. Aditz bion artean ere, azken orrazkeran, *eraman*en alde egiten du trabes (4-80).

Bestetik, berriz, testu-moldatzailearentzako oharrek ere merezi dute pittin batez arretaz begiestea.

Hizteglan ikusiko den bezala, *nobela* eta *novela* jaso dira. *Zenbait hitzaldi*ko ez den adibide bakarra[89] *b*-duna da, beste *v*-dun guztiak liburu honetakoak izanik. Mitxelenaren paperetan behin agertzen da hitza testu-moldatzailearentzako honako oharrez hornitua: "histori-nobela edo nahiago baduzu, nobela historikoa". Hauxe da aukeran jartzen dion bikotea, moldatzaileak, bigarren aldatura makurtuz, "novela historiko" eraman du paperera bi argitaraldietan[90].

Letamendiak, nonbait, *mensaje* hitza paratua zuen beste pasarte batean. Honako oharñoa eransten dio Mitxelenak:

"zergatik ez mandatu edo mezu, mensajeren ordez?". Mitxelenak aukeran paraturiko biezaz baliatzen da testu-atontzailea, erdarazkoa atzenduz.

Eta azkenik, Mitxelenak, behiala (1968c) bere burua Adan izen-emaile gisa ikusi zuen bezala ikusten duela beste parada honetan ere susmoa izan daiteke. Izenik gabeak, orain, Chomskyren egi'ura sonatuak izaki, honako burubidea ematen dio Letamendiari:
"axaleko č. eta e. sakona, behar bada".

9.3.2.1. Zenbait hitz-molde auzi-sortzaile

Egoki deritzagu argitaraldi desberdinetan itxura erabatekoa izan ez duten hitz-pareei erreparatzeari, Mitxelenaren hitz-aukera zehatzaren isplilu leialagoa izan daitekeelakoan, batetik eta gure hizteglan hartuko duten taxuaren irozgarria non datzan argiago uzten duelakoan bestetik.

Hitzak, lumeroak, askoz ere **luzeagoak** direlako". (1972b5:123). (Beltz gurea). /lehen arg. sinple/.

[88]Argitaraldi berriaren arabera.

[89](1978a:37).

[90]Euskaltzaindiak (1975), *nobela, elaberri*.

.AITZAKIA / ATXAKIA / AITZAKI

Lehena da argitaraldi berritu batean (1972b5:132) ez beste kasu guztietan irakur daitekeena.

Jatorriz, haatik, *aitxakia* zen (1978c:163), (1981l:114).

Besteotan: (1958h:97), (1981c:166), *aitzakia* erabili da lehen argitaraldian.

Eta (1984b:44) lanean berriz, *aitzaki*, argitaraldi berrian, *aitzakia* bilakatua.

Hiztegian, beraz, [aitzaki].], **aitzakia** eta **atxakia**, azken biek azken argitaraldietan isla badutenez gero.

.ANALISI / ANALISIS

-*analisi*: (1972b1:30), (1981c:164), (1983a:135), (1984b:40).

-*analisis*: (1972b1:30), (1972b4:84,85,103 (M)), azkena argitaraldietan --> analisi bilakatua.

.ANTZEMAN / ATZEMAN

Aldaketa honen adibide guztiak, arestiko zerrendan jasoak daude: (1972b:74,129, bitan)[91].

.AR / HAR ([-eme])

Lehen argitaraldiko *ar* eta *ar-emetasun*, *har* eta *har-emetasun* itxuraldatu dituzte (1964g:180,181), egungo grafi moldeetarik saihestuz[92].

Aurrean izanik, (1972b5:120) hirutan *ar* dela irakur daitekeena, gure hiztegian honako itxura hartuko du: **ar**, [har]].]

ar-emetasun ere (1972b5:120 bitan) honelaxe gorde dutenez gero, ez du inolako marka berezirik alboan eramango sarrera nagusian (**ar-emetasun**), bigarren argitaraldi aldatua, betiko moduan, [har-emetasun]].] jasoko da.

.ARARTEKO / HARARTEKO

'bitarteko', 'artekari' edo kide dituena, lehen argitaralditik bigarrenera, *hararteko* bilakatu dute (1978a:33).

---

[91] Azken argitaraldiaren arabera.

[92] Erka dakioke beste *ar* / *har* ('zizare') bikotean.

Behin besterik ez dugu atzeman aztergaian beste hau. Lehen argitaraldian, *ar* da irakur daitekeena eta paratzaileek *hz* jantziz zuzendu dutena: (1983a:50).

[ar].] eta **har**]], beraz, kasu honetan.

ararteko ere bada, haatik, bigarren argitaraldian (1984b:29).

Honenbestez, **ararteko**, [hararteko]].], hiztegian.

.ARRO / HARRO

Aipatu berri direnen antzeko gertaria da oraingoa. Lehen argitaraldiko *arro* (ibaiarena) (1978a:29), *harro* bilakatu dute[93] eta.

Hiztegian, **arro**] eta [harro]].].

.AURKITU / ARKITU

Batasuna baino lehenagoko lanetan arruntean irakur daitekeen *arkitu*rik (1958h:100,102,103 bitan), (1961a:47,48 bitan,50,51,52,54 bitan,56 bitan,57,58 bitan,61,62 bitan,63 bitan,65 bitan), (1964c:71), (1964g:179,182), (1966a:68), (1968c:90), (1968d:146) urte honetarik aurrerako artikuluetan ezin berriz atzemango da.

Hiztegian, **aurkitu**ren aldaeratzat jo eta [arkitu].] irakurri ahal izango da.

.AURRE-SAPAIKARI / AURRE-SABAIKARI

Lehena da lehen argitaraldian irakur daitekeen bakarra eta testu-moldatzaileek bokal arteko leherkari ahoskabe kideaz aldatu dutena (19893d:123)[94].

aurre-sabaikari]], [aurre-sapaikari].].

.AZENTUERA / AZENTOERA

Lehian dauden bi erotarik, *azentuera* (1981c:141) irakur daitekeen bitartean, *azentoera* da beste lehen argitaraldi batean irakur daitekeena. Halarik ere, bigarren hau, bestearen moldera aldatu dute bigarren argitaraldian (1972b3:51).

azentuera, [azentoera].], beraz, hiztegian.

.BARKATU / PARKATU

Behin bakarrik *parkatu* (1959a:130), geroko argitaraldian, Mitxelenaren beste *barkatu*ekin bateratua.

barkatu, [parkatu].] jasoko da hiztegian.

---

[93] Kontrako aldetik, berriz, lehen argitaraldiko *arroxko* ('umil ez dena', alegia), bere horretan utzi dute (1966a:68). Hau dela eta gure **harroxko** (H), [arroxko].]].

[94] *sabaikari* soilik ere ez dugu atzeman, bai ordea, *sapaiko*.

.BEKATU / PEKATU

Bitan bakarrik irakurri ahal da lehen argitaraldian hasierako leherkari ahoskabeaz (1964g:182).

Argitaraldi berrian, formarik usuenera eraman dituzte.

bekatu, [pekatu].], beraz.

.BELARRI / BEHARRI

-belarri: (1958h:99 lautan,100 bitan,101,104,105), (1959a:126), (1972b4:70,71,100 hirutan),(1972b5:125bitan,126bitan),(1981c:140),(1983a:50),(1983e:130lautan,131,132,134 bitan,135), (1985a:118 bitan), (1985c:193), (1986c:175).

-beharri: (1968d:135,149), (1975b:87), (1979g:175).

Testu-moldatzaileek, (1968d:135) ez beste guztiak *belarri* aldatu dituzte azken argitaraldian[95].

Hiztegian biak jasoko dira, **beharri** sarreratik **belarrira** igorriz, Euskaltzaindiak hobetsiaren ildotik.

.DEADAR / DEIADAR

deadar da lehen argitaraldietan irakur daitekeen era bakarra (1958h:99), (1984b:41), testu-moldatzaileek lehena, beste inon kausitu ez dugun *deiadar* bilakatuagatik.

Beraz, *deiadar* bestek sartua,]] ikurraz hornitua hiztegian:

deadar lematik Euskaltzaindiak hobetsiriko **deiadar]]**era igorriko da.

.DISTIATSU / DISTIRATSU

Lehena da lehen argitaraldian (eta behin) irakur daitekeena eta bigarrenean *distiratsu* bilakatua (1972b4:75).

Halarik ere, ez da zokoratzekoa, *distira* (1972b5:122) eta *distirante* (1972b3:59) (M) ere irakur daitezkeela.

distiratsu]]. [distiatsu].].

.EDUKI / IDUKI

Bitan atzeman dugu *iduki* aditza, bietan argitaraldi berrian *eduki* bilakatua: (1958h:101,103).

---

[95] Ikus erestiko zerrendan argitaraldien arteko aldeak.

Era honen lekukotasun berriro desagerraraziak [iduki].] gorputza hartuko du hiztegian, **eduki** lemapean.

.EGIZTATU / EGIAZTATU

Mitxelenaren lehen argitaraldietan ez dugu inon kausitu *egiaztatu*rik, ez aspaldiko ez azkenaldiko lanetan.

Honako lanetan erabili du Mitxelenak *egiztatu* aditza: (1968d:151), (1972b4:71 (M),72,74), (1978a:26,29,30). Eta erants dakiokeen *egiztatze*, argitaraldi berrian honelaxe gordea (1972b4:71) (M).

Argitaraldi berrietan, *egiaztatu*ren alde makurtu dira liburu-moldatzaileak, (1972b4:71,72) atalekoetan salbu.

Kasu honetan, **egiaztatu]**, [egiztatu].] irakurri ahal izango dira hiztegian.

.EITE / EGITE

-eite: (1958d:104), (1968d:144), (1979g:182), (1981c:147,158,164), (1981l:112), (1983e:127), (1984b:42), (1985a:108,116), (1985b:187).

-egite: (1968c:92,93), (1972b2:40), (1983f:190).

Ikusten den bezala, Mitxelenak *eite* hagitz sarriago darabilen arren, ezin zokora daiteke (1972b2:40) *egite* zela bere irakaspaperetan irakur zitekeena - eta lehen argitaraldian irakur daitekeena-, bigarrenean formarik usuenera makurtu duten hau.

egite-1 eta **eite**, beraz.

.ENGAINATU / ENGANATU

engainatu bihurtu dute -Mitxelenaren lanetan maizenik irakur daitekeena, alegia (1961a:55), (1981c:163), (1985d:130)[96]- lehen argitaraldian *enganatu* dena (1964g:180).

[enganatu].]-k bere tokia izango du hiztegian, **engainatu** lemarenean.

.ERIOSUAR, ERIOSUARREKO / HERIOSUHARREKO

eriosuhar darabil Mitxelenak[97] eta bere horretan gorde da (1972b4:80).

---

[96] *engainagarri* ere erants dakioke, apika (1983e:131).

[97] Bere eskuz gehitua.

Lehen argitaraldiko *eriosuarreko*, kontrako aldetik, argitaraldi berrian, *heriosuharreko* aldatu dute (1981c:144).

Hiztegi-itxurari dagokionez, beraz, **eriosuar** batetik eta **heriosuhar]]**, [eriosuarreko].] bestetik izango da moldea.

.ERRUSIAR / ERRUSIATAR

errusiar da lehen argitaraldian irakur daitekeen bakarra (1972b5:124 (M),127,129), *errusiatar* bigarren argitaraldikoa (1972b5:124), berriz, *hápax* da.

Honenbestez, **errusiar** eta **errusiatar]]**.

.ESTADISTIKA / ESTATISTIKA, ESTADISTIKO / ESTATISTIKO

Lehen argitaraldian, leherkari ahostunak erabili bazituen ere, *MIH*-en, ahoskabez horniturik plazara ziren, hirugarrenean plazarako diren bezalaxe: (1968c:91). Bada, haatik, beste *estadistika*rik azken argitaraldietan: (1972b1:32), (1972b5:131).

Eta kontrako aldetik, beste *estatistika* bat ere irakurtzen ahal da lehen argitaraldi batean (eta berrituan ere bai): (1972e:158).

Beraz, **estadistika**, **estatistika**, [estadistiko].] eta **estatistiko]]**.

. ESPERIENTZIA / EXPERIENTZIA

(1972b3:57 bitan), *s* bitartezko moldakuntzaz darabil[96].

Harrigarri xamar gertatzen da, lehen argitaraldian (1978a:39), letra moldagaitz eta istilu-sortzaileaz idatzirik ikustea, Mitxelenaren puntu honezazko ikusmoldea aurrean izanik, batipat (1979g:181). Bestela ere errakuntza ugariz horniturik argia ikusi zuen laneko beste bat ote hau?

Testu-moldatzaileek guztiak, *esperientziara* eraman dituzte.

Hiztegian, [experientzia].] jasoko da, **esperientziaren** azpian.

.EZ URRIK EMAN ERE / EZ HURRIK EMAN ERE

Lehen letraren gorabehera batasunaren agiria baino lehenagoko lanetan zalantzazko izan daitekeen arren, 1968 baino geroagoko lanetan ere Mitxelenak *h*gabea usatzen jarraitzen duela ohartaraztea azpimarkatzekoa da. Guztietan, *urrik* darabil eta guztietan *hurrik* aldatu da: (1968d:150), (1981c:143), (1981l:112), (1983d:115).

Halaz ere esan behar da, erabilerarik zaharrenaren bigarren aldaeran – Mitxelenak bere begiz ikusi ahal izan zuen *MIH* bilduman, alegia – *hz* argitara zela.

---

[96] Eta gertuko *esperimentu* ere bai (1972b1:31,37), (1972b3:58).

Beraz, EZ URRIK EMAN ERE] eta EZ HURRIK EMAN ERE]], azpisarrerak baitira.

.FUNZIO / FUNTZIO

Lehen argitaraldian, xistukari igurzkariaz baliatu da Mitxelena erdaratikakoa (ala, egokitze xumea eta letra etzana direla medio, oraindik ere "erdarazkoa"?) itxuratzeko: (1968c:92).

Ezin bazter daiteke, haatik, *MIHen* afrikatuz aldatu zela (hirugarren argitaraldian bezala) eta, bestetik, *funtzional* bat ere irakur daitekeela beste lan batean (1972b3:55).

funtzio]] eta [funzio].] jasoko dira, beraz.

.GALDATU / GALDETU

-galdatu ondokoetan darabil: (1972b4:107), (1975b:92), (1981c:139,140, 148, 149, 155, 156,157,160,161,166 bitan), (1983a:64), (1984b:44), (1985a:108), (1985b:191), (1986c:172).

-galdetu, berriz, beste hauetan: (1961a:48,49), (1968e:75 bitan), (1979a:127,133 bitan), (1983e:133)[99].

Arestiko erkatze zehatzean ikusi bezala, argitaraldi berrian, ez dira beti jatorrizkoak gorde eta *galdetu*ren alde makurtu dute pisua honakoetan: (1981c:139,140).

Ikus daitekeenez, haatik, Mitxelenaren isuri-gogoek[100] *galdatu*ra daramate.

. GEROK/GEUROK, GEUK/GEUK, GURE/GEURE, GERON/GEURON

Zehaztu bezala, izenordainon formek zenbait aldakuntza nozitu dituzte argitaraldi batetik besterako igarobidean.

. *geron* lehen argitaraldikoak, *geuron* bilakaturik ikusi du argia bigarrenean (1968c:95).

. *geuk* estreinako bat, *guk* bilakatu dute bigarrenean (1972b0:26).

. *gerok*, berriz, *geurok* itxuran irakur daiteke argitaraldi moldatuetan (1968d:136,148), (1987d:80)[101].

. *gure*, *geure* bilakatu dute ondokoan (1972b0:27).

---

[99]Baina lan honetan bertan, *galdatzaile* darabil (1983e:130).

[100]Ala arauek? Ez de eta zokoratzekoa, Euskaltzaindiaren "Batasunerako hiztegia" 1968koan, berau dela bultzatzen dena, *galdetu* gabe. Ez dugu erabaki-aldatzearen arrastorik.

[101]Bitan gorde dute, halaz ere: (1972b5:111,125), (argit. berrian).

Hauek ikusita, azpimarra daitekeena da, aldatu guztiek lehen argitaraldietako eretan oinarria badutela kasu batean ezik: ezin argitaraldi berrietan irakur daiteke *geron* modua, lehen argitaraldian beste behin irakur daitekeen *geuron*[102] moldean urtu baitute.

Hau dela eta, *geron]* jasoko da hiztegian, **geuron** lemapean.

.HONUNTZ, HARUNTZ / HONANTZ, HORRANTZ

-honuntz (1972b3:56) (Mitxelenaren irakaspaperetakoa); *honuntza* (1983a:53); *honunzko* (1961a:49).

-honantz (1983a:52).

-honeraino (1985c:192).

-horrantz (1984b:35).

-horreraino (1985c:192).

-haruntz (1986c:173); *harunzko* (1959a:131), (1966a:68).

-haronzko (1978a:34).

Lehen argitaraldietako erabilera aldatu berria izanik, ez du istarik azken argitaraldian, zerrenda xehetan ikusi bezala, guztiak *-antz* moldez bateratu baitituzte.

Azpimarkatzeko deritzagu lehen argitaraldietan *honantz* eta *horrantz* bana besterik ezin irakur daitekeela, geroztikako lanetan ere, *-untz* baita usuenik darabilena.

Hiztegiari begira, beraz, honela iruditatuko ditugu:

HONANTZ, HORRANTZ batetik, bi argitaraldietan irakur daitezkeenak izaki. Baina HONAINO]], HORRAINO]], HARANTZ]], HARANZKO]], HARAZKO]] testu-moldatzaileek sartuak. Kontrako aldetik berriz, HONERAINO], HORRERAINO], HARUNTZ], HARUNZKO], HARONZKO] lehen argitaraldietakoak.

.HASIERA / HASERA

Behin besterik ez da atzeman lehen argitaraldian *hasera*, moldatzaileek –Mitxelenaren orotariko azturari jarraiki *hasiera* bihurtu dutena: (1978a:37).

hasieran, [hasera].] jasoko da hiztegian.

.HAURZARO / HAURTZARO

haurzaro lehen argitaraldikoa (1971e:101), *haurtzaro* bilakaturik ikusten ahal da geroagokoan, Mitxelenak beste bitan darabilen moldean, alegia.

Beraz, **haurtzaro**, eta [haurzaro].]

---

[102] "Euskal-iztegigileak XVII-XVIII'garren mendeetan", *Euskera* 2. aldia VI, 1961:18.

.HAUTEMAN / AUTEMAN

Biak irakurtzen ahal dira lehen argitaraldietan.
-auteman: (1978c:166), (1983a:57,71), (1985a:112).
-hauteman: (1972b4:71), (1984b:42).

Bigarren argitaraldietan, *hauteman* da irakur daitekeen bakarra. Hau dela eta, [auteman].] eta **hauteman**, bigarrena hornigarririk gabe, beste lehen argitaraldietan ere honelaxe irakur daitekeenez gero.

.HITZ LAÑO / HITZ LAINO

Lehena da azken urteetako lan batean (1983d:116) irakur daitekeen bakarra baina testu-moldatzaileek, bustidura erantziz paratu dutena.
hitz laino]], [hitz laño].] beraz.

.HORRATIK / ORRATIK

Begietan ematen duena da, oro har, *h*dun forma erabiltzen delarik ere (1958h:97,103), (1961a:47,51,57,58), (1964c:72), (1964g:181), (1968c:90,92), (1984b:39), (1986c:175) azken urteetako lan hauen lehen argitaraldietan, *orratik* irakurtzen dela: (1983e:126), (1985d:79).

Zalantza areago dezake, *horratik* letraldatu den lanik gehienak batasuna baino lehenagokoak izateak. Zeinahi kasutan, hor daude 1984-1986etakoak, kontrakarrean jartzeko moduan.

horratik lemapean, [orratik].] ere jasoko da, beraz.

.INDIEUROPAR / INDI-EUROPAR, INDOEUROPAR / INDO-EUROPAR

Ez dugu aztergaian inon *indi-europar*rik kausitu lehen argitaraldietan.
- *indo-europar*: (1971e:94).
- *indoeuropar*: (1972b5:114,120,121 bitan,126), (1978a:29 bitan), (1983a:49).
- *indieuropar*: (1985a:112).

Eta *indoeuropartzale* (1978a:30), *indoeuropartze* (1978a:30) eta *indoeuropeista* (1972b4:96) erants dakioke arestiko zerrendari.

Lehen argitaraldiko *indo-europar* da *indi-europar* bakan bilakatua.

indi-europar]] eta honen aldaeratzat, [indo-europar].] moduan jasoko dira hiztegian.

.IRAUNKOR / IRAUKOR

Bi aldaeron adibide bana kausitu dugu lehen argitaraldietan: (1961a:48), (1983f:188). Aspaldikoena da sudurkaririk gabea eta testu-moldatzaileek bestearekin berdindu dutena.

Iraunkor, [iraukor].] irakurri ahalko da hiztegian.

.IZKRIBU / ISKRIBU / ISKRITU / EZKRIBU

Arruntekoa[103] *izkribu* den arren, *iskribu* (1978a:26,32,34,46,37) eta *iskritu* (1978a:31) -lan berean, beraz- irakur daitezke.

Halabor, zalantzazko izan daitekeen *ezkribu* (1983d:123).

Guztiak *izkribura* iragan dituzte.

Hiztegian, hari nagusitik salbesten direnek, honako itxura hartuko dute: [iskribu].], [iskritu].], [ezkribu].], guztiak **izkribu** lemapean.

.LENGUSU / LEHENGUSU, IZTERLENGUSU / IZTERLEHENGUSU

Egun bitxia dirudikeen arren, lehen argitaraldietan, *lengusu* eta *izterlengusu* dira (azkenaren osagaien moldezko uztardura gora-behera) aurkitu ditugunak:

-lengusu da (1972b1:36), (1972b5:110 bitan), (1983e:126) lanetan irakur daitekeena.

-izterlengusu, berriz, (1972b5:110) (M), (1979d:121), (1983e:126).

Argitaraldi berrietan ez zaio molde honi atxiki eta, *lehengusu*, *izterlehengusu* jo dira begiz bateratzean, osagaien arteko moldezko uztardura uztardura.

1979 baino geroago ere *h*rik gabe darabilela ikusteak bultzatu gaitu hiztegian: **lehengusu]]**, [lengusu].] eta, **izterlehengusu]]**, [izterlengusu].] jasotzera.

.KOMILLA / KOMILA

Hápax den honek (1959a:130) zalantza sortarazten du, lehen esan bezala. Hiztegian, bi erak jasoko dira: **komilla]** eta [komila].].

Testu-gaurkotzaileek aldatu legez ala "komilla tartean" behar ote lukeen ez diogu argi antzematen, sasoi horretako grafi azturei jarraiki ez baitago jakiterik justu nola aldatuko zukeen Mitxelenak. Gainera, ezin dakioke euskararen batasun ondokorik erkakizun jar, hitz hau bakan ageri delako.

Baditu, halaz guztiz, parean jar dakizkiokeen geroagoko antzeko gertakariaren

---

[103] Hogeita hamasei aldiz.

erakusgarriak, *batxillerato* eta *artilleria*[104], esate baterako, honelaxe irakur daitezkeenak *batxillerato*, *artilleria*, bikoitzaz, alegia (1972b0:25), (1972b5:122 hirutan), hurrenez hurren.

.LERRENAK EGIN / LEHERRENAK EGIN

Honetan ere, Mitxelenak *hrik* gabea darabil, batasun ondoko lanak diren arren: (1983a:49), (1983e:135).

Zokoratzekoa ez da, halaz guztiz, *leherkari*, *leher gaizto egin* irakur daitezkeela.

Testu-moldatzaileek *leherrenak egin* aldatu dituztenez gero, LERRENAK EGIN] eta LEHERRENAK EGIN]] hiztegiko azpisarreran.

.MINGAIN / MIHINGAIN

Honakoak atzeman daitezke aztergaian:

mingain (eta honezaz moldatuak: *mingain-mutur*...): (1958h:99,100), (1983e:130), (1984b:43).

Kontuan izanik, lehen biak 1958koak direla eta garaiko idazmoldean *hrik* usatzen ez zuela oro har[105] Mitxelenak, erkatzetik at utz daiteke eta beste biei erreparatu.

Bietan[106], *mingain* da Mitxelenak erabilia, argitaraldi berrian, haatik, gorde duten bakarra azken urtekoa da, beste biak, *mihingain* aldatu baitituzte[107].

Hizteglan, **mingain]**, [mihingain]].]

.NABARITU / NABAITU

Bikote honen bigarren osagaiaren bitxia sorrarazten duena, Mitxelenak bitan eta azken urteetako lan batean darabilela da (1984b:35,41). Kasu bietan, moldatzaileek *nabaritu* hobetsi dute.

nabaritu, [nabaitu].].

---

[104]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan bezala.

[105]Hala diogu, lehen zehaztu bezala, *historia*, *prehistoria*... badarabiltzalako lan honetan bertan, urrutirago gabe.

[106]*mingaiña* eta *mingain-mutur*, jatorrizkoan.

[107]Argitaraldi berriko formek (birreraikitzakoek?), euskal bilakaera legeen arabera, bururik ote? Ik. *FHV* (1985_3:146) -**ini* bukaeraz.

Testuan jasoak ez du, noski, esan nahi Mitxelenak *mihirik* ez darabilenik: (1971e:93), (1981c:145), (1984b:27).

.NAHASTEKA / NAHASKETA

-nahasteka: (1971e:108), (1972b2:39), (1972b4:67).
-nahasketa: (1968d:150), (1972b2:46).

Argitaraldi berrietan, (1972b2:67) *nahasketa* aldatu dute eta, kontrako aldetik, berriz, (1972b2:39) jatorrizko *nahasteak* batek, *nahasketa* itxura hartu du.

Ezinbesteko deritzagu lehen argitaraldiko pasartea hona aldatzeari, gure hautaeraren irozgarria argi dadin:

> Bestelako arrazoiak omaten zituzten, ikusi dugunez, hala nola herrien nahasteak eta, ondorio bezala, hizkuntzena. (1972b1:34).

Gramatikak bigarren argitaraldiko irakurmodua hobesten duela esango genuke, *hizkuntzena* hori dela medio.

.PARENTESIS / PARENTESI

Lan eta atal berean beste inon kausitu ez dugun bikotea. Biak Mitxelenaren paperetakoak izaki, *parentesis* da (1972b4:77) jatorrizkoan irakur daitekeena, *parentesi* izanik (1972b4:86) aurreraxeagokoa.

Argitaraldi bietan, *parentesi* era bakarra jo du begiz testu-moldatzaileak.

Honenbestez, **parentesi**ren azpian, [parentesis].] ere gaineratuko diogu hiztegiari.

.PILLOTARI / PILOTARI

Ez dugu garbi ikusten zenbatetaraino izan daitekeen zilegi Mitxelenaren hizkeran beste gabe bustidura automatikotzat hartzea[106].

Argitaraldi berrian, busti gabeko forma da irakur daitekeena (1964c:72).

pilotari]] eta [pillotari].], beraz.

.POLLIT / POLIT

Kasu honetan ere bustidura da tarteko baina arestikoa ez bezalakoa izateak, gure ustez, areagotzen du estreinako erari eutsi beharra.

Argitaraldi berrian, ordea, *polit* bateratu dute (1961a:57).

polit eta [pollit].].

---

[106] *pilotaleku* ere badarabil, berasun ondoko lan batean, ordea (1978c:169).

.PODORIOZ / PODERIOZ

-poderioz: (1984b:27).
-podorioz : (1972b4:75,98), (1983e:134), (1985b:191).

Aukera honen aurrean esan behar da, batetik, argitaratzaileek eraldatu dituztela Mitxelenaren hiru jatorrizko *podorioz* eta *poderioz* paperera eraman: (1972b4:75,98) (M) eta (1985b:191).

Honenbestez, Mitxelenaren *poderioz* seguru bakarra, (1984b:27)-koa da, besteetan, *podorioz* nahiago izan du.

Hiztegian, PODERIOZ, PODORIOZ.

. SINTASI / SINTASIS / SINTAXI / SINTAXIS / SINTAKSI

Aukera-aniztasun honi poliki erreparatzeak merezi duelakoan gaude. Hona, lehen argitaraldietan (Mitxelenaren jatorrizko testuez atzendu gabe) kausi daitezkeen moldeen bilduma:

-sintaksi: (1968d:151).
-sintasis: (1972b4:106 lautan) (M).
-sintaxis: (1978a:41).
-sintasi: (1972b4:72 bitan,81 hirutan,93,94 (M), (1972b5:117), (1981c:138,165), (1983e:126 bitan).
-sintaxi: (1985a:111).

Forma hauek dira, berriz esan, lehen argitaraldietan, nahiz Mitxelenaren jatorrizko paperetan kausitu ahal izan ditugunak.

Argitaraldi berrietan, halaz ere, ez dute itxura berbera gorde eta honako aldakuntzak nozitu dituzte aipatuok[109]:

sintaksi --> sintasis (1968d:151).
sintasi --> sintaxi (1972b4:81,93,96,117).
sintasi --> sintaxis (1972b4:94).
sintasis --> sintaxis (1972b4:96).
sintasis --> sintaxi (1972b4:96).
sintaxis --> sintasis (1978a:41).
sintaxi --> sintasi (1985a:111).

Hiztegian, beraz, **sintasi, sintasis, sintaxi, sintaxis** lemak jasoko dira eta aldaeratzat, azken argitaraldian lekurik ez duen [sintaksi].] hartuko.

---

[109] Aztertanean erreparatuko zaio aniztasun honi.

.SISTEMA / SISTIMA

-sistima: (1972b4:77,87), (1983e:129), (1984b:41).
Iruinea]. (Irufea)
Irunberri.
Irunia.
Irun.
Irufa.
Irufea.
Iruferri.
Italia.
Iturri zabaleta.
Izaba.
Jugoslavie. Yugoslavia.
Kapernaum. Cafarnau´n.
Katalunia. Catalunya.
Kaukaso. Cáucaso.
Kopenhage. Copenhague.
Labaien.
Lakabe.
Lapurdi.
Legasa.
Leire.
Leitza.
Lekaroz.
Lekeitio.
Lekunberri.
Lizarra.
Lizarrerri.
Londres.
Luca.
Madrid. (Madril)
Madril. Madrid. (Madrid)
Manila.
Markina.
Maule.
Mena.
Mendebaleko Europa. Europa occidental.
Mendiola.
Mexiko. Méjico.
Mondragoe.
Morea.
Mungia.
Mutriku.
Nafarrate.
Nafarroa Beherea.
Nafarroa Garaia.
Nafarroa.
Nevada.
New Mexico]]. (New Mexiko])
New Mexiko]. Nuevo Méjico.
Oeasso.
Oiartzun. (Oihartzun)
Oihartzun. (Oiartzun)

Oinati]. {Oñati }
Olazti.
Olinpia. Olimpia.
Ondarribia. {Hondarribia }
Oñati.
Orozko.
Otsagi.
Otxandio.
Oviedo.
Pampelune.
Pampilona.
Pamplona.
Pancorbo.
Paraguay.
Paris.
Parte Zaharra. {*Alde Zaharra* }
Pasai Sanjuan. {*Pasai Donibane* }
Pekin.
Pirinio. Pirineo.
Plaza Gorri. Plaza Roja.
Plentzia.
Polonia.
Pompaelo.
Portugal.
Praga.
Romania.
Rubena.
Salamanca.
Saldis.
Sara.
Sepúlveda.
Soviet Batasuna. Unión Soviética. {URSS }
Suiza.
Tbilis.
Ternua. Terranova.
Tolosa.
Tordesillas.
Torquemada.
Txina. China.
Txorierri.
Ugarritza.
Ultzama.
Uralak. Urales.
Urdiain.
URSS. {Soviet Batasuna }
Urunberri.
USA. {Estatu Batuak }
Uterga.
Valpuesta.
Veleia.
Viena.
Vietnam.
Villodrigo.
Yenan. Yenanma.
Zadorra.
Zalla.

Zaragoza.
Zaraitzu.
Ziburu.
Zigoitia.
Zuberoa.
Zürich.

III. ATALA

11. Kapitulua: AZTERLANAREN SARRERA

11.1. ATARIKOA

1. Hizkuntza bizia hitz berrien premian da beti: bere baitarik sortzen ditu batzuetan, besterengandik hartu besteetan. Bi bideak zilegi eta beharrezko dira eta nork taxutuko du aldez aurretik bakoitzaren neurria eta mugak? Euskaltzaindiak behinola esanak honetarako[1] bakarrik balio zuen: ez dagoela hitz berririk sortu beharrik adierazteko euskal hitz, zahar-jatorrak, erdaratikakoak direlakoak, baztertzeko asmoz.
2. Euskal hitzak sortzean, eta nornahik sortzen ditu mintzatzean, gogoan eduki dezagun beti, premiaz gainera, gure hizkuntzaren moldea, beti izan bait dugu horretarako erraztasuna, hitz-elkartzearen bitartez, batez ere. Nora-ezekoa du hizkuntzak sor-iturri horrek bizirik iraun dezan, bere izatean iraungo baldin badu. (1968d:147).

Tesiaren nondik-norakoak, Mitxelenak darabilen hizkera aztertzera darama ikeriana. Izan ere, halakorik egin ezean ez litzateke burutuko hasieratik ezarririko xedea; hau da, euskara "noranahikotzeko" bideetan[2] salatu direnen on-gaitzez eta asmo horretan behaztopa-harri bilakatuez Mitxelenak esanei ez balitzaizkieke aldamenean paratuko Mitxelenak berak mamituak, hala egokitu zaionean.

Hizkera osorik (edo Mitxelenaren hitz-aitxor osoa esaterako, besteak beste) azter bazitekeen ere, hiztegian ere islatu den asmo apalago eta murritzagoa hobetsi da, hiru liburukietan bilduriko hizkuntzalaritza-filologiazkoei erreparatuz. Burubide berak dakar, aztergaia ere, mugarritzearen ondorioz murriztea.

Tesiaren orain arteko hariari jarraikitzeak, begietsiko dena aukeratzera zeramala lana iruditu zaigu: aipaturiko jakiteetako terminotzat joen azterketa, terminotzat (edo hitz berezitutzat) zer jo eta zer ez –hurrengo puntuan azalduko denez–, eztabaidagai gertatuagatik.

Honenbestez, ikerkizun dagoena Mitxelenak, Klasikoen sailean argitara emandako 26., 27. eta 36. liburukietan bilduriko lanetan[3] darabilen hizkerako (teknolektoko) hizkuntzalaritza-filologiezko terminologia, zentzu zabalean, izango da[4].

---

[1] Jat. *hontarako*.

[2] Salo honen ibilbidearen berri zehatza ez da emango, ez euskarari ez beste hizkuntzei dagokienez. Edozein kasutan, Sagarnak (1988) aurkezturiko kezken eta eginkizunen esparruan kokatzen dugu lan hau.
Egitamugile jakin batena ez baina finlandiarraren eta hebreoaren hiztegia gaurkotzeko saioak aztertuak ditu, hain zuzen, Sagarnak (1989). Lan hori, ordea, hiztegietan funtsatua dago eta hemen aztertuko ez diren alderdiak jorratzen ditu: esanahi-aldakuntza, alderdi fonologikoak...

[3] Jadanik emaniko arrazoiak ez ditugu berremango.

[4] Goenagak (1991:552) Orixerentzat eskatzen duenaren lidoan, nolabait esan.
"Adibidez, ez litzateke huskeria izango Orixeren gramatika lanetan agertzen den hiztegi berezia biltzea". Zehazkiago, Lakarrak adierazia, hein batean bederen, erakutsi asmoz:
"Altapontekoak, bestalde, behiala Adanek nola aurkitu zuen bere burua, hots, gauzak nola deituko ebatzi beharrean. Artikuluan bertan ["Linguistika berriaren berri onak"] (*sinkronia, diakronia, multzo-teoria, maiztasun, egitura, sortzaile, aldatzaile, azken-gabe, zati-multzo, (arki-)fonema, berezgarri, iburuldatze...*) eta beste hainbatetan hizkuntzalaritza eta filologi hiztegia nola sortzen duen eta trebatzen ikustea ezin axolazkoago iruditzen zaigu; sortaren baldintzak gaindituko lituzkeelarik horrelako likerkata batek ez dugu hemen gauzatzerik izan. Bego esana, haatik, bere interesa ez litzatekeela soilik historikoa edo teorikoa". (Lakarra 1988:19).

Arestiko pasartean usatu berri den *darabilen* horrek baditu atzean aztergaiaren nolakotasunarekin ikuskizuna duten arrazoiak. Izan ere, ez da auzitan jarriko, ez zaie begiratuko, hitzen (terminoen) sortze eta jabegoari; ez da, bestela esan, aztergaiaren ardurazkoa izango zein duen guraso halako edo bestelako hitz edo terminok, Mitxelenak **erabiltzea** nahikoa izango da azterkizun hartzeko.

Aztergaia zedarritu ondoren[5], azterbidea hautestea dator; litezkeen azterbideetatik bat begiz jotzea, beti ere termino/hitz berezituen[6] osatze-eratzeen berri emateko biderik aproposena gerta daitekeena jomuga hartuz.

Alde honetatik, Eginkizun Berezietarako Hizkuntzak eta terminologiak, zenbaitetan bere legeak badituzte ere –hurrengo puntuan arrazoituko den legez–, hizkuntzan oro har gauzatzen diren gertakari berak jazotzen direla termino edo hitz berezituen sorbidean[7] ere aldeztuko da.

Hemendik ondoriozta daiteke, adigaiek hizkuntza-gorputza har dezaten erabili ohi diren baliabideak –hau da, hitz-sorbideak[8]– eremu murritzagoa osatzen duen aztergai honi ere egoki dakizkiokeela eta honelaxe egingo da hemen ere.

Boulanger-ek, termino-sorkuntzan ikusten du, hain zuzen, hitz berriak sortzeko alderdietariko bat ez ezik, hitz-sorbideen azterketarako aukera egokia ere ematen duena[9]:

> L'accélération des besoins terminologiques a suscité des recherches approfondies en néologie et sur les mécanismes sous-jacents de la créativité lexicale. Les terminologies spécialisées deviennent les zones pionnières d'exploration et d'étude de la néologie. Elles ouvrent des perspectives nouvelles pour comprender la dynamique de la créativité lexicale, saisie en quelque sorte sur le vif. (Boulanger 1984:7).

Ez dirudi, beraz, bidegabekeria lexiko-sorkuntzarako bideei begiratzeak noraino egoki dakizkiokeen aztergai honi egiaztatu asmoz.

---

[5] Hurrengo puntuan ikusiko da.

[6] Bikote honezazkoek hurrengo puntuan argituko dira.

[7] *néonymie*-n Kocourek (1982:153), alegia.

[8] "Badu euskarak [Jat. *euskerak*] hitz-sorbide ugari, baina batta ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan". (1968d:148).

"hitz-sorbide" erabiliko dugu adigaiak hizkuntza-izaki bilakatzeko hizkuntzak erabil ditzakeen prozedurak izendatzeko, "hitz-erakeita" eratorbidea eta elkarketa biltzen dituen lexiko-baliabiderako gordez, zehaztuko den bezala.

Beraz, "hitz berezitu-sorbide" edo "termino-unitate-sorbide" erabili beharko litzatekeen arren –"hitzaren" mugak gainditzen baititu–, labur beharrez, horrela utziko da.

Honenbestez, hemengo "hitz-sorbide" deitura, Zalbideren (1982) "hitz-erakeita"-ri edo "lexiko-berrikuntza"-ri edo Guilbert-en (1975) *créativité lexicale*-ri lotuago zaio, izendapen orotariko hau ere bete-betean ez egokituagatik.

[9] Terminoen sorkuntza hizkuntzaren legeen mendekoa dela aitortu eta ondorio berera iristen da Guilbert (1965:339).

M. Zalbidek[10], gaiazko ohiko bibliografian aipatzen diren ***mailegutza, eratorpena eta konposizioa***ri beste hiru eransten dizkio, bide "klasikoen" adierazle sollarekiko atxikiduraren murritzaz oharturik: ***zabalkuntza semantikoa, berrezarpen lexikala*** eta, aipamen hutsean uzten duen ***berrikuntza fonologikoa***.

Aipaturiko bideotarik, *mailegutza*ren azterketak, delako hitzak sarrera noizkoa duen jakitea eskatu ez ezik arazo korapilotsuetara ere eraman dezake aztertzailea: denbora-neurriaren arabera hitza noiztik eta noiz arte jotzen den mailegutzat, mailegu aspaldikoak eta berriki sarturikoak gisa berean ikusi behar ote diren eta beste, etimologi ezaupide sendoak eskatzeaz gain.

Mailegutza zeinahi hizkuntzaren eguneratzean guztiz boteretsu izanagatik eta maileguak euskal bideetara egokitzeko moduak azaltzea bit garrantzizko izanagatik, azterlan honetan ez zaio ildo horri hondarreraino jarraikiko, hitz bakunen atalean birrarrazoituko den bezala.

*Berrezarpen lexikala*ri heltzeak ere debeku latzak lekartzake berarekin eta honetan, euskaldun bakoitzaren bere euskalkiazko ezaupidea ez ezik, beste euskalkiena ere da tarteko, beste alderdiak beste.

Egun, testu-izaera izan duten hitzen berri, *OEH*-ri eta *HLEH*-ri esker jakitea baden arren, eta XX. mendeko euskarari dagokionez, *EEBS*[11] egitasmoa dela bide –bete-betean ez bada ere[12]–, beste horrenbeste, bide honi ere ez zaio jarraikiko, hizkuntzaren historiazko nondik-norakoak, hitzen historia (agertzea-desagertzea-agerberritzea), zehazki jakitea eskatzen duelako, eta azterlan honen arreta-gunetik at geldituko delako.

Zabalkuntza semantikoak ere ez dira berariaz jorratuko, tarteka aipamenen bat edo beste eginagatik. Forma hutsari heldu nahi izan zaio, esanahiaren azterketaren euskarri teorikoak eta egokitzapen praktikoak, oraingoz bederen, formarenak bezain sendoak ez dituztelakoan[13].

Halarik ere, arestiko burubidea ez legoke guztiz zuzen zerbait argitu ezean.

Aztergaiaren aukeratik bertatik, dudarik ez dago irizpide semantikoak sekulako garrantzia duela hizkuntza-izaki bat bereziki –hots, egunoroko hizkuntza usuan ez bezala–, erabili ote den erabakitzeko unean; beraz, irizpide bakarra ez bada ere, adigaia izendatzeko

---

[10](1982:199).

P. Urkizuk (1989:105) P. D'Urteren hitz-atxorraren azterketarako ere Zalbideren "mailegutza, eratorpena, konposizioa, zabalkuntza semantikoa eta berrezarpen lexikala" aipatu eta "Lau [sic] era hauetarik hiru lehenak "ikertuko dituela" dio.

Alde honetatik, beraz, badu nolabaiteko egitea hemen burutu gogo den ikerlanarekin. Halarik ere, asmo hutsekotzat joko genuke haren eta hemengoaren arteko antz hori.

[11]Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa.

[12]Asmoak bestelakoak dituztelako, estatistikan sustraturiko oso lagin adierazgarria jo dute begiz. Alabaina ez da erabatekoa eta litekeena da hitz bakanen batek edo bestek itzuri egitea.

[13]Ez dugu esan nahi egin ez daitekeenik, ez eta azterketa semantiko zehatzik egin ez denik ere, baina eginiko gehienek, semantika estrukturalaren bidetik eta oro har oso eremu lauko (Coseriu 1977) hautatuetan egin dira.

Euskalarritzan eginak, erakusgarri: Polge (1971), Txillardegi (1975), Larzabal (1975), Eguzkitza (1977), Etxeberria (1990).

"x" unitate bat dela erabakitzen denetik, beste arrazoiak beste, semantikoa ere tartean da. Hau, inon argi axaleratzen bada, hizkuntza arrunteko unitateak beste erabilera zehatzez erabiltzen direnean da, hain zuzen ere.

Honenbestez, esanahiaren hedatzea, murriztea edo aldatzea nola gertatu den berariaz aztertuko ez bada ere, *zabalkuntza semantikoa* azterlan honen atzean dagoen gertakizuna dela aitortu behar da.

Nahiz gertakizun bera ez den, esanahiarekin ere zerikusia duen besterik zehaztu behar da.

Hitz-eraketa[14] aztertzean, itxuran oinarrituriko irizpideez gain, esanahian oinarrituek ere bere pisua izango dute, sailkapenak –zehatzago esan, zatisailkapenak– proposatzerakoan batipat.

Hortaz, Zalbideren (1982) proposamenaren arrazoiak onartuz ere –hau da, beste era horietara ere hizkuntza batek bere hitz-altxorra berri dezakeela eta berritzen ere duela ukatu gabe–, azterlan honetan aipaturiko bideetarik, Morfologia Sortzaileareri araberako terminologiari eutsiz, *hitz-eraketari*[15] erreparatuko zaio, hots, lexikoaren esparruko hitz-eratorbide eta elkarketari.

Alabaina, hurrengo puntuan azalduko den bezala, hitz-eraketa bakarra terminologi kontuetan motz gelditzen da; maiz aski, baliabide lexikoez harantzagokoez baliatzen balta adigalak izendatzeko.

Gisa horretakotzat jo behar da, hain zuzen ere, izenlagunak sortzea, aztergaian eremu zabal xamarra hartzen duena[16], eta –orobat esan–, sintaxi-baliabideen barneko "hedadurazko egiturak" izenburupean bilduko diren zenbait egitura-mota (izena gune hartuz, batipat, eskuineranzko nahiz ezkerreranzko hedaduraz gatzatuak), gehi zenbait perpaus eta aditza gune duten egitura batzuk.

Hitz berezituen sorbideak eskatzen duen bide-zabaltzea dela eta, terminologiaren mundura eskierki eta, batez ere, gaia jorratu duten *Language for Special Purposes (LSP)* edo *Langues d'especialité* direlakoenera begiak irauli eta azterlan honetarako etekinak ateratzeko saioa egingo da.

---

[14] *Hitz eraketa*' erabili dugu, alemanezko 'Wortbildung' izuitzeko, kontzeptu honek, hizperriak sortzeko hizkuntzak dituen bide guztiak biltzen bait ditu; hau da, bai eratorketa eta bai hitz elkarketa". (Azkarate 1990b:27).

Bide guztiak ez baina, lexiko-baliabideetan sustraitzen direnentzat gordeko da "hitz-eraketa" hemen, lehen esan bezala, Morfologia Sortzaileen, *formación de palabras* (Mattews 1960:50) arikataren edo RFP (Reglas de Formación de Palabras) (Scalise 1987) direlakoen lan-eremua osatzen dutenentzat, alegia.

[15] Morfologia Sortzailearen arabera erabiliko dugu "hitz" terminoa. Termino honen ulermodu diferenteak: Sapir (1921), Bloomfield (1933), Hockett (1958), Martinet (1960), Ullmann (1962), Benveniste (1966), Lyons (1968), Mattews (1974), Otero (1975) adierazgarri batzuk ekartzearren.

[16] Baieztapen honen arrazoiak -ko atzizkiaz arduratzean ikusiko dira zehazkiago.

Hau guztia aurrean izanik, beraz, hau izango da azterlanaren taxu orotarikoa:

11.1. Hitz bakunak

- nabarmengarri gabeak
- nabarmenduak

11.2. Baliabide lexikoen ondoriozkoak

- Hitz eratorriak
- Hitz elkartuak

11.3. Sintaxi-baliabideen ondoriozkoak

- Izenlagunak
- Hedadurazko egiturak

11.2. AZTERGAIA

Aztergaiaren hautespena zertan oinarriturik egin den azaltzeko, beharrezkoa da aldez aurretik zenbait argibide ematea.

Esana doan bezala, tesiaren atal honen helburua, Mitxelena hizkuntz auziez euskaraz mintzatzean/idaztean gatzatzen dituen baliabideen aurkezpen-azalpenak erakustea da.

Euskaraz eta ***hizkuntz auziez*** esan berri da, horrek esan nahi du, Mitxelenak hizkuntza jakin bat darabilela eta hizkuntza hori zeregin edo eginkizun jakin baten baitan usatzen duela.

Honek dakarren lehen galdera da ea eginkizun zehatz eta jakin baterako erabiltzen den hizkuntzaz - hau da, egunoroko zeregin arruntetarako erabiltzen ez den hizkuntzaz -, eta beste bigarren honezaz hitzegiten denean hizkuntza beraz ala hizkuntza desberdinez hitzegin behar ote den.

11.2.1. *Eginkizun Orotarako Hizkuntza (EOH)*[17]*/Eginkizun Berezietarako Hizkuntza (EBH)*

"Zientzia-hizkuntza", "hizkuntza tekniko", "maila jasoetako hizkuntza"[18] eta gisa horretako deizioak erabili ohi dira hizkuntzaren erabilera mugatu bat izendatzeko: zehazkiago esan, jakite-tekniketan usatzen den hizkuntza izendatzeko.

Hizkuntza-mota horrek maila diferenteetan beste hizkuntza-motetatik bereizten dituen ezaugarriak dituela aldeztu izan da, erabiltzen duen hiztegitik hasi eta, egitura sintaktiko batzuen nagusitasuneraino doan tartea betetzen duten berezkotasunak.

Berezitasun horiek direla eta, hain justu, hiru hizkuntza-mota bereizteko proposamenak ere egin izan dira: hizkuntza arrunta, usua; orotariko zientzien hizkuntza eta, adarrez adarreko edo jakitez jakiteko hizkuntzak, zein bere alorrean kokatuz.

Inguramendu horretan ulertu behar da, esate baterako, Phal-en (1968) proposamena –Gougenheim eta Rivenc aztertzaileen bidetik–, *langue* orotarikotik hasi eta *langue quotidienne*, *langue scientifique générale* eta *langues de spécialité* bereziz[19].

Bakoitzaren osagai-ezaugarriak laburbilduz:

langue: lexique, fonctionnement.
langue quotidienne: Vocabulaire usuel (Vu), syntaxe général.
langue scientifique général: Vocabulaire scientifique commun (emprunté au voc.

---

[17]EOH darabilgu *LGP (Langage for General Purposes)* (*International Institute for Terminology Research* erakundeko partaideen arabera), *langue quotidienne* (Phal 1968), *langue courante* (Malmberg 1970) aldatzeko.

[18]Sagarna (1988:130).

[19]Eta bereizkuntza honen ondorio diren hiztegi-mailakoak: Phal et al. (1971), Fernández Sevilla (1974), Auger-Rousseau (1967_2), Alvar Ezquerra (1976, 1978).

usuel mais plus restreint) (Vs<Vu)". Hau da, ohiko terminologiaren lehen- eta aztergaia[20].

"**langues de spécialité**: Vocabulaire scientifique commun + Vocabulaires spécifiques", azken hau terminografian[21] kokatu ohi dena[22].

Bi azkenoi, "syntaxe scientifique (empruntée à la syntaxe générale mais plus restreinte et spécialisé)" eta "vocabulaire de fonctionnement + schémas syntaxiques privilegiés" ezaugarriak alboratzen dizkie.

Phal-en (1968) hizkuntzazko bereizkuntza hirukoitza gerora onartu ez dutenak ere[23] Phal-ekin bat datoz, hemen berariaz aztertuko ez den puntu batean: ezin hitzegin daitekeela hiztegi-maila soilaz jakiteetan erabiltzen den hizkuntzaz jardutean; hau da, termino-zerrenda[24] hutsaz gainekoak ere kontutan hartu beharrak direla, berbaldi-mailako azterketa eginez[25], kontrako ahotsak ere falta ez diren arren[26].

Berbaldi-mailako ezaugarrien[27] azterketa hemen egingo ez den arren, jaso den ikuspegia baliagarria da hemen jorratuko diren atalen antolamenduak euskarria hor duelako: ez da azterketa hiztegi-maila soilean utziko, batetik, eta bestetik, jakite-gaietan erabiltiriko hizkuntza ez da hizkuntza usuarekin inolako zerikusirik ez lukeen hizkuntzatzat hartuko;

---

[20]Sagarna (1988:130).

[21]Terminologiaren eta terminografiaren arteko bereizkuntzaz: Rey (1977b).

[22]Sagarna (1988).

[23]Kocourek (1982), esate baterako.

[24]Aurreraxeago itzuliko gara honetara.

[25]Dubois (1966) Guilbert (1965) kritikatuz, Malmberg (1970:91):

"Les traits structuraux de la langue spécialisée sont choisis et combinés autrement que dans le langage ordinaire. Ils ont une référence particulière à une substance sémantique spéciale dont le non-spécialiste n'a pas d'experience, ou moins d'expérience. C'est pourtant moins par ces traits pris isolément que comme ensemble de traits que la langue spécialisée se distingue de la langue générale", Opitz (1980), Ettinger (1982), Rondeau (1984) *plan textuel* proposatuz...

[26]Notre hypothèse est que le langage technique ne semble pas comporter une grammaire différente du langage général, mais seulement un vocabulaire spécifique dont le système morphologique s'insère dans le système général de la langue". (Guilbert 1965:9).

Trujillo-k (1974) *lenguaje técnico*-ren ordez, nahiago du *vocabulario técnico* soilaz hitzegin:

"ya que no hay realmente un lenguaje técnico, por ejemplo, en un sentido morfológico o sintáctico, aunque existan procedimientos de composición, de base greco-latina, ya consagrados para la formación de este tipo de léxico".

Ikusten denez, oin ikasi edo landuez sortuak bakarrik ditu beretzeko teknikotzat. Itzuliko gara puntu honetara.

Qvistgaard ere gogaide dute:

"La syntaxe en est à peine différente /la langue juridique et la langue commerciale font donc ici formellement exception/ de celle de la langue courante (...) Une telle analyse révélerait probablement une grande concordance dans l'inventaire des structures apparaissent plus fréquemment en langue technique qu'en langue courante". (Qvistgaard 1976:139).

[27]Honakoak aipatzen ditu Kocourek-ek (1982:20):

"la précision du contenu, la concision de la forme, l'élégance et la systematicité de la terminologie employée, la reduction de la synonimie et de la ambigüité, en bref toutes les propiétés idéales liées à l'intellectualité et à la particularité de cette langue".

argiago esan, hizkuntza-auziak azaltzeko hizkuntza (euskara), HIZKUNTZAren (EUSKARAren) zatimultzo berezi bailitzan hartuko da:

> Il se produit aussi des recoupements entre la langue courante et langues de spécialité pour la bonne raison que les langues de spécialité procèdent en grande partie du langage courant et que les phénomènes liés aux domaines spécialisés font de plus en plus partie intégrante de la vie quotidienne. (Ovistgaard 1976:138).

> Pour nous, la langue de spécialité sera une sous-langue de la langue dite naturelle. (Kocourek 1982:13).

Iritzi hauek garamatzate, beraz, *Eginkizun Berezietarako Hizkuntza* izendatu duguna, HIZKUNTZAtik berezi bai baina ez saihestera, bereizkuntza horren ardatza pragmatikatik mailegaturiko **erabileran** jarriz[28]. Hau da, hizkuntza bera izaki, erabilera izango da eginkizun edo zeregin jakin eta zehatz bati begira *berezitu* bilakatuko duena:

> The purpose of language –in a general or a specialized context– is not information but the *conveyance* of information (...) *LSP*[29] means a particular use is made of linguistics material which operates within the norms and conventions of the standard language, from which certain features are selected that are appropiate to the needs of the comunicative situation at hand. The comunicative situation, then, really determines the modalities of the locution; in other words, the language *act* is special, but not the language itself (...) *LSP* is a pragmatic concept, and must be handled in a pragmatic way. (Opitz 1980:25).

Baina, eginkizun desberdinetarako gai bera erabiltzeak batetik, eta arrazoi soziolinguistikoek bestetik[30], sortuko dituzte, hain justu, zedarri- edo muga-arazoak. Ikertzaileak irizpide batzuetan sustraiturik erabaki beharko du noiz hitzegin daitekeen era *berezituan* erabiltzen den hizkuntzaz eta noiz ez daitekeen halakotzat jo:

---

[28] Pragmatikan "klasiko" bilakatuak bakarrik aipatzearren, Grice (1957), Austin (1962), Searle (1969). Pragmatikaren nondik-norakoak: Levinson (1983).

[29] Ingeles *LSP* deizioaren nondik-norakoak: Opitz (1980).

[30] "Para algunos la terminología es un problema poco importante por cuanto afecta a una cantidad de hablantes notablemente inferior a la que afecta al léxico en general. Este aspecto es muy evidente si pensamos exclusivamente en la terminología técnica y científica de alta especialidad. Si, por el contrario, consideramos que también es terminología el conjunto de palabras de cada lengua profesional, el número inicial de afectados crece sensiblemente. Cada profesión, cada ámbito de trabajo, cada disciplina científica o técnica, cada rama aplicada de la ciencia y de la técnica, cada actividad especial, artesanía, deportes, ocio, comercio, etc. tiene su terminología propia, conocida en su integridad únicamente por sus usuarios reales. Sin embargo, también es cierto que una parte de cada terminología, parte que varía según el dominio temático que consideremos, es conocida por el hablante medio de un idioma sin que éste deba tener relación profesional alguna con dicho dominio. Hay por tanto interrelaciones complejas entre el léxico general y la terminología en relación al hablante". (Cabré 1998:391).

Il n'y a pas de limite absolue entre langue courante et langue spécialisée. (Malmberg 1970:91)[31].

It is notoriously difficult, and methodologically well nigh impossible, to establish criteria permitting a clear distinction to be made between specialized language (or language for special purposes-LSP) and general language (or language for general purposes-LGP). (Galinski 1990:75).

Esan bezala, bada, berebiziko garrantzia izango du gaiak aztertzean irizpideak finkatzeak zer *berezituen* atalean sartu eta zer ez erabakitzeko.

11.2.2. *Hitza / hitz berezitua / terminoa*

EBH-ren lehengaia EOH-ren lehengai bera dela esan berri da; hau da, EBH-k (EOH-k bezala) morfologi unitateak eta honen barneko lexikologiakoak – zehatzago esan, **morfemak, hitzak**– erabiliko ditu batetik, eta hitz horiek egitura jakin batean josirik usatzen dituenez gero, sintaxiak ere lanabesak eskueran jarriko dizkio **sintagmak, esaldiak, perpausak** osa ditzan.

Alabaina, lehengai horiek eginkizun berezi bat bete dezaten erabiltzen direlarik, aipaturiko jakiteek erabilera berezi horretako gaiak formalki eskaintzera mugatuko dute lana nagusiki.

Beste maila bateko unitateekin lan egin beharra dagoela begitantzen da.

Tradizionalki, teknika-hizkuntza edo jakite-hizkuntzak, oro har, aztergai izan direnean, **terminoa** eta **terminologia** izan dira eikarren ondoan alboratu zaizkienak.

Komeni da, beraz, **terminoaz** eta **terminologiaz**[32] iruzkin labur bat ematea, azalean gera dadin zergatik ez den bide hau bete-betean hemen korrituko.

11.2.2.1. Adigaien maila edo adigaiekiko lotura

Termino, orobat esan, teknika-jakite zehatzetan erabiltzen diren adigaiak izendatzeko hizkuntz izakiari deritza. Bibliografian[33] zehar aurki daitezkeen definizioetarik, adigarri moduan honakoa aldatuko da unitateen arteko erkatze aski argia eskaini bide duelako:

Una palabra es un conjunto formal y semántico que denomina una parcela de la realidad concreta

---

[31]Bide beretik, Fernández Sevilla (1974:118-124).

[32]Hauen historiaren laburpena eta nondik-norakoak: Felber (1979), Sagarna (1985).
Zehaztu behar da *terminologia* hitza 'termino-multzoa' eta 'terminoazko jakitea' adizera emateko erabiltzen dela. Terminoaren muga lmo ezaz arduratzen da Rey (1977b).

[33]Erakusgarri izan daitezke Lewandowski-k (1976) jasotzen dituen definizioez gain, *ISO* erakundearen *R 1087 gomendioa* (1969), Rey (1977b), Rondeau (1984$_2$), Sagarna (1985:26) ["Termino bat kontzeptu baten izendapena da. Izan daiteke "hitz" bakarra, hitz-elkarketa ala eraikuntza sintagmatikoa"], Cabré (1986), Picht (1987) lanetan, besteak beste, lrakur daitezkeenak.
Adostasun-ezaren aurrean, Guilbert-ek (1977:V-2) *terminologisme* proposatzen du *terme*-ren ordez.

o abstracta. Un término es un conjunto formal y semántico que denomina los conceptos de una determinada área profesional. (Cabré 1986:5).

Hitzok biltzen dute terminoaren muineko izaeratzat behin eta berriro jotzen dena: izendapena, izendapenean ikusten baita terminoaren funtsa.

Irizpide honetan oin hartuz, termino-bilduma zerrenda huts bailitzan hartu dutenak izan dira, "nomenklatura" edo "izendegi" soiltzat joz terminoek osatzen duten gorputz hori.

Honela, Coseriu-k (1964)[34] terminoak izendapenaren (*designación*) esparruan kokatu eta signifikazioarenari dagozkion egitura lexematikoetatik saihestu eta aztertzeko uzten ditu:

Pero lo importante es que se reconozca que en lo que se llama <léxico> de una lengua hay amplias secciones puramente <designativas>, donde la única <estructuración> posible es la enumeración, y otras que están, sí, estructuradas, pero no desde el punta de vista del lenguaje, que hay un *léxico estructurado*, lingüístico, y un *léxico <nomenclator> y terminológico*. (Coseriu 1981_2:99).

Rey[35] eta Leduc-Adine[36], berriz, ez letozke bat, izendegia eta terminologia bereizten dituztelako, lehenak "extensioz" eta bigarrenak "konprensioz" definitzen duela esanez. Areago, hauen ustez, ezin hitzegin daiteke termino-bilduma hutsaz, nolabaiteko taxuketa egin beharra dago, termino-antolatzeak, *criterios clasificatorios estructurados* bailituzke eskakizun.

Coseriu-ren aipuak, nolanahi dela ere, garai bateko terminoezko eta terminologiazko[37] ikuspegia islatzen du: terminoak adigaien hizkuntz "etiketak" dira, eta pentsa daiteke, morfologiaren arabera, hitzaren mugen barne kokatu beharrak direla.

Ikuraren gainekoak aurreraxeagoko utziz, gogoan hartu behar da zein eskakizun azpimarratu izan diren halako hitza "terminotzat" jo ahal izateko.

Honela:

De tous les points de comparaison évoqués semblent se dégager certains traits spécifiques du signe en tant que terme scientifique et technique: il dénote ou dénomme, tend à être monosémique [aurrerago zehazten du sema bakarreko baino egokiago erreferentzia bakarreko], il jouit d'un rang de fréquence peu élevé dans une masse de vocabulaire indifférenciée, il se présente plus fréquemment comme néologisme parce qu'il se crée en liaison avec l'invention des choses, il prend plus facilement la forme étrangère. (Guilbert 1973:8).

Au plan notionnel, pour qu'un nom ait droit ou titre de *terme*, il faut qu'il puisse, en tant qu'élément d'un ensemble (*une terminologie*) être distingué de tout autre. (Rey 1977b:40).

---

[34] Trujillo-k (1974) bide beretik jotzen du.

[35] (1977b:27).

[36] (1980:9).

[37] Aurreraxeago argituko da.

Terminoak, beraz, erreferente bakarra eta zehatza izan behar duela, adigaiarekiko bana-banako egokieran egon behar duela[38], bere saileko besteekiko oposizioak osatu behar dituela[39], jakite horretako izakia aditzera emateko gauza izan behar duela, nolabaiteko nazioartekotasuna behar duela... dira han eta hemen errepikatzen diren terminotzat jotzeko eskakizunak[40].

Hauei polisemiaren auzia ere erantsi behar zaie. Ahal den neurrian bxuliatu beharra dagoela, erabilera diakronikoa ere kontutan hartu beharrekoa dela[41], definizio bati zor zaiola[42], beretako terminoak ez duela testuinguruaren premiarik aditu ahal izateko, bestela esan, terminoa aditzea ez dagoela testuinguruaren menpe...

Alabaina, azpimarratzen den baieztapena da, arestiko eskakizunak nahikundeen munduari lotzenago zaizkiola gertakizunen munduari baino:

> D'une part, en théorie, elle [terminotzat zer jo eraskigarri den termino-definizioa] doit exprimer les traits pertinents du terme, et refléter ceux de la notion (du concept); elle ne peut donc s'appliquer qu'à un terme "pur", parfaitement traductible en toutes langues, et qu'à un système terminologique parfaitemen cohérent (consistent), où chaque notion est construite de manière univoque et explicitable (...) Empiriquement, la définition terminologique est bien différente. C'est un compromise entre définition lexicographique et description encyclopédique (...) Comme elle est formée dans une langue naturelle, elle véhicule toutes les ambigüités, polysémies, connotations, etc., des unités-mots de cette langue; elle peut y remédier, difficilement, de manière coûteuse, mais non pas y échapper. (Rey 1977b:42)[43].

Mugon gehiegizko zorroztasuna berrikusi beharra eta terminoak hesitzeko langak lasaixeago utzi beharra adierazten hasiko da terminologiaren munduan diharduen aztertzaile bat baino gehiago ondoko arrazoiotan funtsatuz:

. Hizkuntz unitatea erabilerak bilakatzen du termino[44].

. Termino-osakuntzarako lehengaia hizkuntza arruntean (EOH-n) dago, eta alderantziz; hau da, bereziki jakite batean erabiltzeko sorturiko terminoen herritartzea dela medio, eginkizun berezirik gabeko hizkuntzan erabiltzen dira. Hau da, EBH eta EOH erabat

---

[38]Alvar Ezquerra (1978).

[39]Trujillo (1974).

[40]Riba-k (1986:3) honako eskakizun bete beharrekoak aipatzen ditu hitz berri bat terminologikotzat jotzeko: *motivació, univocitat, adequació a la llengua catalana, possibilitats de derivació, freqüencia, paral·lelisme amb altres llengües de difusió científica i tecnològica, eufonia, adequació sociolingüística.*

[41]Vidos (1961).

[42]Trujillo (1974), Rey (1977b), Kocourek (1979).

[43]Bar ildotik, Kocourek (1982:76).

[44]Trujillo (1974), Opitz (1980).

banatzerik ez dagoen ber moduan ezin ere daiteke hizkuntza-mota horretako bakoitzaren gaia beste hizkuntza-motakotik erabat aldenarazi[45].

Honen isla garbia da hiztegigintzan halako lema edo adieraren ondoan hizkuntz maila zehazten denean hizteglak bat ez etortzea[46].

. Alorrez alor erabaki behar da hitzaren "termino" izaera, horretarako, alor horretan dihardutenak dira, ikertzaile batzuen ustez, iritzirik zuhurrena eman dezaketenak[47].

Honela, aztergai honetan, jatorriz beste jakiteetako diren hitz berezituak ere besteen ondoan jasoko dira, baldin eta hizkuntzalaritza-filologia eskolaren batek bere azalpenetan usu badarabiltza; esate baterako, garai bateko amerikar estrukturalismoak antropologiatik hartuak edo GSB-k matematika, zibernetika edo beste jakiteetatik mailegatuak[48].

. Ikusiagatik guztiagatik, *LSP*-ren azterketan dihardutenen bidetik[49], beharbada, horren muga estu eta zorrotzak ez dituen "hitz berezitu", edo hobeto esan, "EBHko hitz" deizioa egokiago gerta daiteke azterlan honetan baliaturiko irizpiderako.

Beraz, puntu honen hasierara itzuliz esan daiteke, "hitza" gertakizun morfologiko-lexikologikoei dagokien unitatea dela, eta hitz hori, erabileraren baitan, hitz berezitu, are termino ere, izan daitekeela, baina beti ere kontutan hartuz bi mailatako unitateak direla.

11.2.2.2. Itxuraren maila. Hizkuntz unitateak

11.2.2.2.1. Hitza, gunea

Orain arteko azalpena terminoen eta hitz berezituen adigaiaren aldetikako izaerari bazegokion, erabileraz "berezitu" diren unitate horien itxurari dagozkionak ere zehaztu

---

[45] Vidos (1965), Malmberg (1970), Phal (1968, 1970), Kocourek (1982), Rey (1988a).

[46] Hona bi adibide.

Anastasi-k (1967) "voces comunes" direlakoen artean aipatzen ditu: *espectrofotómetro, encefalografía* edo *parataxis*, azken honen ondoan honakoa erantsi arren: "Tecnicismo gramatical empleado para expresar la coordinación sintáctica...". Eta, kontrako aldetik berriz, *tecnicismos* omen lirateke *aerosol, colesterol, histeria, aneconda, butano* edo *infrarrojo*.

Auzi hau data medio, Azorín-ek (1992) *Diccionario de la Lengua Española* (DRAE) eta *Diccionario General Ilustrado de la Lengua Española* (D.G.I.L.E. edo VOX) erkatzen ditu, teknikotzat joriko adieren nagusitasun nabarmena azpimarratuz lehenean. Honen erakusgarria da, DRAE-k *apendicitis* edo *apósito* lemei tekniko iritzien dien bitartean, VOX-en ez dutela halako zehaztapenik

[47] Kocourek (1982), Cabré (1986).

Azken honek honako iritzia ezarriagatik:

"a) no todas las palabras son términos ni siquiera si se usan en un dominio profesional. (La actitud del terminólogo ha de ser muy clara al respecto)", aitortzen du "las fronteras entre los dominios son borrosas", eta erantsi:.

"la pertinencia de los términos incluídos en una terminología depende a veces del objeto del trabajo". (Cabré 1986:7).

[48] Jakite-auzoetakoak ere kontutan hartzearen alde agerí da Haensch (1982:532).

[49] Picht (1987, 1990a, 1990b), Kjaer (1990a, 1990b), Nedobity (1990), Budin (1990), Galinski (1990), Plunger (1990).

beharrak dira, lan bat baino gehiagoren mintzagaia izan baita.

Halako unitateek eskakizun dute, termino soilez hitzegitean zehaztu den bezala, jakite bateko adigai bakar bati[50] egokitu beharra, Opitz-en hitzez esanez, honako galderari baiezkoan erantzuteko gauza izan beharra:

> Is this locution sufficiently different from standard language, and is it consistently enough employed in a special situation, in order to be associated with that specialization only? (Opitz 1980:23).

Alde honetatik, beraz, arestian ikusirikoekiko alde handirik ez dago. Kontzeptumailan[51] ez baina, adigai horiek hartzen duten hizkuntz adierazpidean datza desberdintasuna.

Coseriuren aipamena jasotzen zen lehen, terminologia, termino-bilduma, izendegi edo nomenklaturatzat joz. Ikuspegi honen atzean, badirudi terminoaren morfologia-lexikologiazko ordaina hitzera murrizten dela, ez dagoela hitza baino harantzagoko unitaterik[52].

Terminoen betekizuna izendatzea izaki, ez da harritzekoa izenean funtsatzea terminologiaren zeregina[53]:

> le nom est l'objet même de la terminologie: en effet, un nom définissable à l'intérieur d'un système cohérent, énumératif et/ou structuré, est un *terme*; le contenu de sa définition correspondant à une notion (concept) analysable en compréhension. (Rey 1977b:22).

Ikusmolde hau terminologiaren hastapenetan usuena bazen ere, Oldřich Man ohartua zen "that phrasal terms may be viewed as an important and specific subclass of what he

---

[50] "Erreferentzia bakarreko", "adiera bakarreko" (nahikundeei legokiekeena) aipatzen dira Rondeau-ren (1984_2:26) edo Auger-Rousseau-ren (1987_2:26) lanetan.

[51] Phal-ek (1970:100) ez du ziurtasun sendorik ikusten irizpide honetan:
"S'il n'y a pas de problèmes pour certains mots, nous avons vu que d'autres (le plus grand nombre) ont une faculté d'association variable qui se traduit par la création de lexies complexes assez "élastiques" dont il est difficile de fixer les limites. Bien entendu, on peut appliquer le critère de l'unité de sens, mais le critère est subjectif et même d'un spécialiste à l'autre il arrive que les avis diffèrent sur la lexie et le concept qu'elle recouvre".

[52] Guiraud-ek (1968) aipatu ere ez du egiten bestelako unitaterik.

[53] Eta horrexegatik, gure aztergaian ikusiko den bezala, izenak dira ugarienak.
Nagusitasun honezaz Qvistgaard (1976:143), Alvar Ezquerra (1978:164), Kocourek (1982:65), Auger-Rousseau (1987_2:26).

called phraseological units"[54]. Guilbert ere nabaritua zen unitatea ezartzeko zailtasunaz eta horregatik, baita *unité de signification*[55] proposatu ere.

Arestiko Rey-ren aipamena luzatu ahala agerian geldituko da izena gune izateari jarraitzen bazaio ere, berez izen ez diren baina izenaren zeregina bete dezaketen unitate zabalagoei ere heslak zabaldu behar zaizkiela:

> La terminologie ne s'intéresse aux signes (mots et unités plus grands) qu'en tant qu'ils fonctionnent comme des noms, dénotant des objets, et comme "indicateurs de notions" (de concepts). Les systèmes terminologiques excluent tout signe linguistique dont la fonction de dénotation classificatrice ou de symbole conceptuel est nulle ou dérivée: ainsi des marques de l'énonciation (pronoms personnels, qui, comme les nombres propes linguistiques dénotent un objet unique, mais ne le classent pas selon des critères notionnels, adjectifs possessifs; adverbes de temps et de lieu), des unités à fonction relationnelle (mots dits "grammaticaux"), des unités considéres comme des transformés sémantiques (adverbes qu'ont peut ramener à un adjectif, verbes nominalisables...). (Rey 1977b:23).

11.2.2.2.2. Hitzetik gorako unitateak

Auzi garrantzizko hau dela eta, hona aldatu gogo dira termino/hitz berezituak azterkizun izan dituztenen artean unitate zabalago horien azterketa-premiaren oihartzun ugarietariko zenbait:

Phal (1964), Benveniste-ren (1966) *nomenclature technique* delakoearen barneko *synapsie*, Guilbert (1965, 1970), Dubois (1966), Pottier-en (1968, 1970) *lexie complexe*, (1973) *lexie*, Qvistgaard-ek (1976) aztergaian kokatzen dituen *syntagme prépositionnels* direlakoak, Alvar Ezquerra-ren (1978) *lexia compleja*, Kocourek-en (1979) *lexical phrases*[56] eta (1982) *terme-syntagme*, Feyry-Miannay-ren (1984) *groupes lexicaux complexes*, Auger-Rousseau ikertzaileen *mot complexe*, Rey-ren (1988b:30) "formes désignatives (noms, termes) (...) tout ce qui, lexicologiquement dépasse l'unité-mot"[57]...

Aipuen ugariak ez du, halaz ere, beste honako sakoneko gertaera estaltzen: beti ere izena eta izena gune duen egitura izango dira nagusi azterlanotan, eta horrela gertatzea Rey-

---

[54](1953:109). Iido beretik, Kocourek (1979:126).

Hitz soila baino goragoko unitateek ez zuten ikertzaileen arreta erakarri terminologi auzi hutsetan, morfologiaren esparruan, oro har, eta lexikologiarenean berezki, hitz elkartuak beino goragoko unitatezko lanak plazan baitziren. Ez dugu horren kontu zehatzik emango, Azkarateren (1990b) lanean irakur baitaitezke sintagmultzoak eta hitz elkartuak bereiztako irizpideen azalpenak.

[55](Rey 1977b:27)

Termino-ri (*terme*-ri) eutsi nahia berriz, Kocourek-ek (1982:76) adierazten du:

"Nous emploierons l'expression de *terme* (cf. Rondeau ed.'79), que nous préférons à ses synonymes *unité terminologique* (Rey'79:18) et *terminologisme* (Guilbert'76:242). Nous évitons également l'appellation *terme technique* au sens général de *terme spécialisé*".

[56]Kocourek-ek lan honetan bere *lexical phrase* delakoaren kide edo kideantzeko hogeita hamabost izendapen desberdin jasotzen ditu.

[57]Erabilera berezitukoez arigora hemen. Gisa honetako unitateen korapilotsuaren berri hiztegiaren sarreran emana dago.

ren[58] hitzekin loturik dago; terminologiaren funtsa izendapenean ikustearekin, alegia, duten luzera dutela eta dituzten osagaiak dituztela aipaturiko egiturok.

Hau dela eta, ulertzekoa da terminologiaren munduko azterlanetan zehar izenaren (edo izenaren betekizuna duten egituren) nagusitasuna, beste morfologi kategorietakoak sistematikoki baztertzen diren bitartean.

Honela, Rey-k[59] egiten duen bereizkuntza horri, beste honakoa ere erants dakioke ikuspegi-jokabide orotarikoagoen erakusgarri:

> Terme: tota unitat lingüística que anomena una noció de manera unívoca a l'interior d'un camp. D'aquesta definició resulta que la funció principal és la denominació, és a dir, l'establiment d'una relació entre una realitat (concreta o abstracta) i un signe del llenguatge. En conseqüencia, la terminologia es limita a l'estudi de les categories lèxiques següents: 1) substantius i sintagmes nominals; 2) adjectius i sintagmes adjectivals; verbs i sintagmes verbals. Quedan exclosos, doncs, els mots gramaticals i els elements de relació. (Auger-Rousseau 1987_2:26).

Esana doan bezala, bada, aurkezturiko ikuspegiaren arabera, izendatzea du helburu terminologiak eta horren inguruan kokatzen du bere zeregina, izendatze hori hitz soilaz, konplexuaz nahiz sintaxi-kategorien bidez eginik[60].

Azken hauen kasuan, halakotzat jo ahal izateko errepikatzen den eskakizuna berbaldi-unitatea (aldian-aldikoa) eta "lexikalizazioa" edo "lexikalizazio-bidean" dagoena berezi beharra da; lehenak ez luke terminoen artean egoteko eskubiderik[61].

Kocourek-en lanari (1979) erreparatuko diogu astiroxeago, bertan paraturiko irizpideak, bere horretan hartuko ez badira ere, baliagarri gertatuko direlako azterlanean zehar.

Honela definitzen du *lexical phrase*:

---

[58](1977b:23).
Halaber:
"la syntaxe du syntagme nominal est la clé de la production terminologique". (Rey 1988b:31).

[59](1977b:23).

[60]"[terminologiak] a pour objet, en effet, la dénomination des notions; ce n'est donc que de façon accesoire que ses préocupations rencontrent celles de la phonologie, de la morphologie et de la syntaxe. La terminologie étudie les moyens de nommer, à l'aide de mots et d'expressions, les notions en usage dans les activités spécialisées de l'homme; c'est donc à un ensemble lexical qu'elle s'intéresse /Les termes, ou lexèmes spécialisés, ne se limitent pas dans leur forme à unités simples; on y trouve parfois, répétons-la, des groupements syntagmatiques fort complexes/ d'abord et avant tout". (Rondeau 1984_2:23).

[61]Auger (1987_2:26), Kocourek (1979, 1982:116) eta bereziki Rey (1988a).
Hiztegi berezituetan aurki daitezkeen hutsen iruzkinean, azken ikertzaileak alde horretatik egiten du kritika hain justu:
"Le classement formel des exemples, s'agissant d'un substantif à valeur terminologique, ne suffit pas. Ainsi les syntagmes *mécanique ancienne, classique, nouvelle, moderne* sont relatifs à une situation de discours; ces syntagmes, comme *mécanique galiléenne, newtonienne* (et *mécanique de Descartes, de Newton*) ne peuvent pas être sur le même plan que *mécanique céleste, industrielle*... ou que *mécanique quantique* (unité terminologique quasi lexicalisée). Syntagmes courants, indispensables et syntagmes aléatoires sont parfois mis sur le même plan". (Rey 1988a:221).

A lexical phrase is regarded as:
- a combination of elements into a higher unit (synapsis, synaptique, syntagme, syntgmatique, composé, groupe, locution, complexe, unité, supérieur, para-);
- belonging to the lexical paradigmatic system of units (lexie, lexème, mot in the broad sense, codé, lexical, lexicalisé, lexique);
- united through its meaning, through its naming properties (dénomination, sémantique, signification). (Kocourek 1979:125).

Eta honako mugarriak jartzen dizkio:

First comes the distinction between lexical phrases and compounds, the latter being the type of single-word lexical unit nearest to lexical phrases (...) Secondly, the difference between lexical phrases and other types of set combinations. The third distinction is that between a lexical phrase and contingent phrases, including collocations and descriptive, definitoid or catalogue-type phrases having little or no status in the lexical system. Within the concept of lexical phrases, there is the distinction between non-terminological appellative phrases, proper-name phrases and terminological phrases (multiword terms, phrasal terms). (Kocourek 1979:125).

Aztertzaileak, frantsesezko *noun-phrase term*-etara azterketa murriztuz, ez hitz elkartu, ez konbinazio aske, ez *contingent* den beste unitate honi zenbait froga pasarazten dizkio halakotzat hartu ahal izateko[62].

Fonologia-fonetikazkoak eta tipografikoak alde batera utziz, lexikologian erabili izan diren sintaxian oinarrituriko irizpideak papereratzen ditu, lau oinarrizko ariketotan bil daitezkeela proposatuz:

- *Modifier shift (rearrengement)*. Esaldien hurrenkera egonkorrean funtsatzen dela eta, oro har, lexiko-esaldiak ez du ordena-aldakuntzarik onartzen. Onartuz gero, modifikatzailea guneari zuzenean ez lotzearen seinale (ez, haatik, irizpide erabakigarria) litzateke.

- *Expansion*. Hedapenaren irizpidea, modifikatzaileren baten tartekatzeari lotzen zaio, bestela esan, osagaien arteko lotura-mailari: adjektiboak, graduatzaileak, zenbatzaileak... dira frogarako erabiliak.

- *Ellipsis*. Modifikatzailearen ezabaketak (dela erabilera anaforikoan, dela koordinaziozko egituretan) egitura osoaren esanahian ondorioak dituen ala ez ikusten da.

- *Commutation*. Arestikoarekin ikuskizuna duena. Begiratzen dena da ea modifikatzailerik ordezka ote daitekeen edo esaldi osoaren ordez hitz bakuna erabil ote daitekeen eremu semantiko berekoen artean.

Azken irizpide hau, debeku-gabea ez bada ere, heda daiteke hizkuntza-barneko ordezkapenetik hizkuntzarteko[63] ordezkapenera.

Semantikaren aldetik,

- *Semantic unpredictability*[64] izan ohi da gehienetan aipatzen den irizpidea; hau da,

---

[62] Euskararen barrutian, berriro eskuetara zaigun BERBA aldizkarian, Dz. De Lezanak (1993) ardatz formala eta semantikoa gogoan hartuz, hamabi "irizpide objektibo" landatzen ditu "sintagma terminologikoak" bereizteko.

[63] *épreuve de traduction* (Phal 1964:55-57).

[64] *écartement sémantique* (Gougenheim 1961).

osagaien esanahietatik ezin asma daitekeela egitura osoaren esanahia.

Kocourek-ek "ustegabeko" izate horretan graduak eta motak berezi behar direla dio, inondik ere espero ez daitekeen esanahitik (lexikalizatzeko egokierarik hoberenean dagoenetik), uste izateko aukera -ahul xamarra badu ere- izan dezakeen bitarteraino. Mailakatze honetan, gune den izenaren balizko polisemiari, edo irudizko adierari, sintaxiari dagozkion gertakizunek utz diezaleketen hatza ere eragingarri izan daiteke.

Behin lexikalizatuz gero, *non-transparent* eta *transparent* diren termino-esaldiez hitzegin daiteke:

> A non-transparent phrasal term is one showing a discrepancy between its suggested and actual semantic properties, or between the wording of its motivation and its defining phrase. (Kocourek 1979:141).

- Specialized definition

Benveniste-k[65] "unique and stable character of the signifié", Guilbert-ek[66] "the unique signifié, the stability of the meaning relation", Picoche-k[67] "concept unitaire et non l'association d'un déterminé et d'un déterminant" landatu dituzte lexikalizaziorako irizpide erabakigarri.

Kocourek-ek uste du, terminoak jakiteetako adituek definitu beharrekoak direnez gero, arestiko irizpide hauek beste bakar batean bil daitezkeela:

> In assigning a defining phrase (definiens) to a lexical phrase (definiendum), a specialized definition tends to provide, to the extent to which it is at all possible, the required uniqueness and completeness of denotation. A definition also indicates an intention to consider the definiens as a unitary concept and to regard the relation between name and sense as stable (...) a phrase not obtaining a definition would exclude defining phrases, occasional descriptive phrases and certain catalogue phrases from the lexical system. (Kocourek 1979:143).

- Usage, frequency, recurrence

Justaposizioen atalean esango den bezala, Darmesteter-engandik hasita, elkarren ondoan oso maiz erabiltzen diren osagaiek, erablieraren eta denboraren poderioz, unitate bakar bat gatza dezaketela nabaritu da. Ikuspegi hau erablierari ez ezik maiztasunari ere badagokio.

Kocourek-ek ez du, ordea, uste, maiztasun hutsa lexikalizatutzat jotzeko aski argumentu denik, ez eta *recurrence* delakoa ere. Hau da, autore diferentegan errepikaturik ikuste bakarrak ez dakar ezinbestean lexikalizaturik egotea, berbaldian kokatzeko moduak

---

[65] (1966).

[66] (1965).

[67] (1977).

ere tarteko izan daitezkeelako[68]:

> Since a phrase can be defined and introduced as a name for a concept without being necessarily recurrent in the above sense, recurrence would not be a criterion of lexicalization. (Kocourek 1979:145).

Honenbestez, irizpide hau, definituriko *hápax legomena* (edo kodeturiko bizitza laburreko adierazpideak) eta ongi erroturiko esaldiak bereizteko lanabes izan badaiteke ere, ez du auzia hondarreraino garbitzen.

Kocourek-en ustez zehazturiko irizpideak oro hartu behar dira kontutan, bakar bati begiratzea ez delako aski lexikalizaturiko unitatea ote den ala ez erabakitzeko.

Ikertzaile berak 1982ko lanean, arestian aipatu ez dituen beste izaerako unitateei ere tokia uzten die:

> Les termes sont, ensuite, des unités lexicales dont les sens est défini par les spécialistes dans les textes de spécialité. Si c'est le cas, ce sens est en même temps une notion (un concept) de la spécialité. Au cas où la définition ne serait pas jugée satisfaisante, on peut employer l'etiquette *quasi-terme* ou *unité lexicale spéciale*, mais ce jugement n'est pas, en principe, du ressort linguistique. (Kocourek 1982:77).

Jasoriko irizpide-mordoak eta aipuek agerian uzten dutena da, terminologiaren barneko mugak lasaitu beharra.

Hemen kokatu behar da, hain zuzen ere, ohiko terminologia hutsean ez baina Eginkizun Berezietarako Hizkuntzan arreta paratu duen talde baten saioa: Vienan kokagunea duen *International Institute for Terminology Research* delakoarena, alegia.

Talde honek, ohiko terminologiaren mugak zabaldu beharra aldarrikatzen du: izendapen hutsetik –hots, estatikoki soilik ikusiriko terminologia[69] batetik (hortik izenen nagusitasuna)– higidura-alderdia[70] ere kontutan hartzen duen terminologia batera joz (aditzak eta aditza gune duten egiturak) eta ordurarte aztertzeke uzten ziren hizkuntza-kategoriak eta egiturak terminologiaren ikergunean paratuz:

> An expansion of the theory of term formation becomes necessary: word formation rules for word combinations that are phraseological units have to be found. (Plunger 1990:88).

Honen erakusgarria da, hain justu, Ian ugari "LSP Phraseology" –hots, aditza gune

---

[68] Hitz bakunen atalean arazo hau, iragaitzaz bada ere, ukituko dugu.

[69] Kontzeptuaren *object aspect* (Plunger 1990:87).

[70] *processual aspect* (Plunge 1990:87).

duen egitura– hartu dutela ikerkizun[71], hain zuzen ere, eta egitura horien azterketatik ondorioztatzen dutela:

> The separation of terms on the one hand and the linking elements from LGP on the other may not be maintained uncritically. (Picht 1987:153).

Muga-lasaitze horrek badu gure azterlan honetan eraginik.

Terminologiaren ohiko ikuspegiaren adigarri paperera diren iritzien arabera, hitza baino goragoko unitatea termino-unitatetzat jotzeko eskakizun gotorrak bete behar ditu, bestela gertatuta, hitz-konbinazio aske etsi eta[72], azterreremutik kanpo geldituko litzateke. Irizpide hau hertsiki hartuta, aztergai honetan kokaturiko zenbait "hitz-multzo berezituk" ez lukete, beharbada, toki erosorik.

EBH-ren testuinguruan kokatzen bada azterlana, berriz, burutik oinetarako terminologian ez kabitu arren, hizkuntzaren eginkizun jakin baten araberako erabilerako osagai "berezituak" izan daitezkeela (egitura lexikalizatuetatik gertuago nahiz urrunago egon daitezkeenak) pentsatu eta termino-unitate erabateko ez baina hizkuntza-mota horretako osagarri bailiran jaso daitezke.

Kjær-ek hizkuntzaz kanpoko euskarriaren premia ezinbestekotzat dauka:

> In most cases the specialization of meaning of multi-word terms and their fixation as unnit cannot in my opinion be explained in terms of the syntactic and semantic relations between their components, but must be analysed in terms of their dependency on the non-linguistic contexts in wich they are used. (Kjær 1990a:13).

Eta aske deitu ohi diren loturak hain aske ez direla azpimarratu ondoan: "**Free** does not mean unrestricted, but **restricted within predictable limits**", konbinazio horietan mailak bereiztearen alde agertzen da.

Gure azterlan honek duen arretakoa ere badenez, ez bide da desegokia, "termino erabatekoak" dei genitzakeenen ondoan, baldin eta testuek horretarako bide ematen badute[73], euskararen erabilera berezitu horren maila bateko osagaiak azertzea, horiei ere arreta paratzea.

Beraz, aztergaia zedarritzerakoan, bide zabaletik joko da –Scholfield-ek (1980) proposatu legez–, hau da, seguraski, garai bateko terminologiak onartuko ez lukeen bidetik baina erabileran oinarritzen diren teoriek zilegi bilakatzen dutenetik. Honek esan nahi du, hautaketa egitean Kocourek-ek (1979) zehazten zituen irizpideak kontutan hartu badira ere,

---

[71] Picht (1987). *Terminology Science & Research* aldizkariaren lehen ale (1990) osoa gai honi eskaini diote.

[72] Konbinazio-moten arteko bereizkuntzaz, Cowie (1981).

[73] Gulbert (1977), Kocourek (1979, 1982), Bergenholtz-Mugdan (1985).

ez direla erabakigarriak izango.

11.2.3. Metahizkuntzaren inguruan

Aurrean izan beharreko beste puntu bat, azterkizun dagoen EBH honen izaera bera da. Izan ere, ikersaioa ez da edozein jakiteren hitz/hitz-multzo berezituen gainean eraikiko, hizkuntzari buruz hitzegiteko hizkuntzaren[74], metahizkuntzaren azterketa baita.

Izaera berezi honek bere isla izango du, EBH-ren ikuspegi zabalean ez ezik:

> The language of linguistics differs from the professional jargons, or langages for special specific purposes (LSP), of others disciplines in that it is not only an object of lexicografic description, but at the same time the very tool employed for this purpose. (Bergenholtz-Mugdan 1985:4).

baita hizkuntza berezitu horren osagaien izaeran ere:

> Un certain nombre de *ces unités* sont *monosémiques* et n'appartiennent qu'au métalexique: ainsi *substantif, syntagme*... Bally a défini depuis longtemps ce principe de la *bi-univocité du rapport signifié/signifiant dans la "langue" scientifique* (...) D'autres unités, au contraire sont polysémiques, c'est à dire qu'elle peuvent appartenir au lexique général (...) *langue / discours / lettre / conjuger / verbe*. (Leduc-Adine 1980:15).

Honek, zenbait kasutan, orain arte ahotan hartu den mugatze-lanean oztopoak sor ditzake, Rey-k (1977b) zehaztu bezala.

Beraz, esan daiteke, hemengo aztergaia Rey-ren "metaterminologia", edo "hizkuntzaz hitzegitea eginkizun berezia duen hizkuntza"-ren berbaldi-mailakoak ez diren osagaiek gorpuztuko dutela:

> La "terminologie grammaticale" désigne: 1. *l'ensemble des termes* à valeur théorique et technique, dont le contenu est structuré en système ou présénte comme tel. 2. *la description systématique de cet ensemble* fortement structuré à la fois dans ses rapports syntagmatiques et dans ses rapports paradigmatiques. 3. *la théorisation de cet ensemble*, pour laquelle Alain Rey propose le terme de "métaterminologie". (Leduc-Adine 1980:7).

Nolanahi dela ere, ezin muzin egingo zaio halabeharrezko arbitrariotasunari, zedarriak paratzen salatuagatik:

---

74 "Bigarren zalitasuna gatik beretik sortzen da. Matematika, fisika, edo kimika ematen diruzkenek abantaila handiagoa dute entzuleen aurrean, gehienetan entzuleek ez dakizkiten [M: *dakitziten*] gauzez ari baitira. Linguistikan, berriz ez da honelakorik. Nik hizketan baldin badakit zuek ere hainbestean edo areago badakizue. Honetan bederen batere alderik ez dut zuekiko. Baztekeen ere mintzatzean dagokion praktika honetaz neu teoria batzuen jabe izatea, baina hala behar eta, linguistikan den-denok gara jakitun". (1972b0:25).

he [lexikografoak] decides, his decision is arbitrary, for there is nothing in those two expressions that *per se* would identify them as either "general" or "specialized". (Opitz 1980:23).

Laburbilduz, hitz edo hitz-multzo berezitutzat hartuko dira hizkuntza, *Egínkizun Berezietarako Hizkuntza* bilakatzen laguntzen duten hizkuntz elementu oro. EBH hori, kasu honetan, hizkuntzazko gaiak adieraztekoa da, baina HIZKUNTZAren osagaitzat jo dela atzentzeke. Honelakotzat hartuek gorpuztuko dute aztergaia.

Honek dakar hautetsi dela:

- Hizkuntzalaritza-gramatika-filologiezko adigai zehatza duena.
- Beste hizkuntzetako ordainak dituela egiaztatu dena, hiztegiko ordainek erakusten duten legez.
- Beste hizkuntzetako ordainik gabea izanik, euskal hizkuntzazko hizkuntza-gertariren baten izendapena dena.
- Hizkuntzalaritza-eskolek, jatorriz bere arlokoa ez bada ere, bere azalpenetan usatzen dutena.
- Jakite horietan, nahiz izen propio izan, adigai zehatz baten deizio direnak[75], hala nola legeen, erregelen, hizkuntzalaritza-eskolen... izenak.
- Aipaturiko hitz-multzo berezituazko ikuspegi zabalaren arabera, euskararen gaurkotzeari begira interes berezia izan dezakeena, bai adigaiaren mailan, baita egitura edo osamoduaren mailan ere[76].

Guztiarekin ere, argitu nahi da, osagai horien azterketa –teminologiaren ekarriak baliatuagatik– ez dela terminologi azterketa[77], *stricto sensu*, izango. Eskuarteko EBH honi

---

[75]"Incidentally, it should not only consider technical terms and language names; it should also mention important linguists as well as journals and learned societies". (Bergenholtz-Mugdan 1985:13).

[76]Villasantek ahotan dituen lehen eta bigarren motakoak maizkara azterkizun hartuz, alegia:

"Hablando con propiedad, entre estas palabras habría aún que distinguir como dos clases o especies: 1ª términos estricamente técnicos y especializados que se usan en las diversas ciencias o ramas del saber humano; 2ª términos que, sin ser estrictamente técnico-científicos, están ampliamente difundidos en toda la cultura occidental por encima de las diversas lenguas, o sea, son aceptados por ellas –aunque no en la misma proporción por todas– /Ejemplo de la primera clase sería, por ejemplo: «isotermo»; de la segunda, «técnica», «política», «hidráulico», «hidrografía», «místico», «homogéneo», «heterogéneo», «esotérico», «antropofagia», etc. Los diccionarios de Uzei tratan de resolver la manera de expresar en vasco la terminología de la 1ª clase o especie. Sin negar la importancia de que se resuelva este problema, tal vez, con todo, haya que decir que son los nombres de la 2ª especie los más difíciles de resolver y los que están pidiendo una solución urgente. No todos son de origen griego; muchos son puramente latinos, pero los emplean tanto los idiomas neolatinos como los de origen germánico. La amplia difusión de esta terminología cultural en las lenguas de Occidente es manifiesta.../". (Villasante 1980:78).

Ba ote luke honekin ikuskizunik beste kapitulu batean jaso Mitxelenaren eskakizunak (1984b:45), *self-conscious*, *serendipity* eta *Schadenfreude* zirela eta?

[77]"*Terminology work*: Collecting and recording of concepts and terms of a specific subject field; describing or prescribing a permanent assignment of a term to a concept and vice versa, as well as the relationship between concepts; description of concepts by means of definitions, storage of terminological data on various data carriers (specialized vocabulary, tape, etc.).

These activities presuppose application of scientific methods (terminological and lexicographical principles)

-EOH-ren erabilera berezitzat hartu denez gero- delako "orotarako" den hizkuntzak erabil ditzakeen baliabideen azterketa lexikologikoa, batipat egokituko zaio.

which in turn are based upon results of recent research in the General theory of terminology". (Felber 1979:20).

11.3. AZTERBIDEAK

Azterbidea aukeratzerakoan, azterkizun hartuaren berri modurik egokienean eman dezakeena hautatzea da jomuga.

Sarreran esana doan bezala, xedea Mitxelenak hizkuntzazko gaiak euskaraz jorratzen dituenean, EBH mamitzean, zein bidetatik jotzen duen deskribitu eta azaltzea denez gero, berez bezala dator hitz-sorbideez oro har eta hitz-eraketaz bereziki arduratu direnen lanetara begiak iraultzea.

Bigarren puntuan adierazi bezala, hitz berezituen osakuntza azalera eramateko ez da aski lexikoaren mailan gelditzea. Hau dela eta, azterbideak erabakitzeko lehen urratsean, hitz(-multzo) berezituak hartu duen morfologi izaeran oina finkatuz, hitz soiletik hasi[78] eta sintaxi-egituretarainokoak bereziko dira; buruen-buruenik, hitzaren esparrukoa eta hitzaz kanpokoa bananduz.

Baina hitzaren esparruan ere, nolabaiteko sailkapena egin beharra dago, "hitz" deizioan kabitzen den oro ez baita gisa berekoa. Honek dakar, hitz bakunetatik abiatuz eta konplexuetatik[79] –hots, eratorri eta elkartuetatik–, igaroz, hitzak sortzeko prozedurak berezi beharra, orobat esanik, estu-estuan lexiko-mailako prozeduren ondorio diren hitzak eta bestelako, hau da, sintaxi-mailako, prozeduren ondoriozkoak sailkatu beharra.

Bereizkuntza horren euskarri teoriko osatuena, sistematizatze-formulatzeekin batean, azken urteotako Morfologia Sortzaileak jorratu duela begitandu zaigu, sintaxia gune bakar hartzeak eta morfologiari tarterik ez eskaintzeak gramatika osoaren antolamenduan sortzen zituen arazoei konponbidea ematen saiatzen hasi denetik[80].

11.3.1. Hitz bakunak

Halakotzat joko dira, ustez, inolako aldakuntzarik, ez baliabide lexikoren ondoriozkorik, ez sintaxi-mailakorik nozitu ez dutenak, eta ustezkoa izatea, hitzen iraigiazko ezaupide ziur eta erabatekoaren ezari zor zaio.

Honek esan nahi du **hitz-andana ihartuak** ere besteekin batean jasoak egon daitezkeela, bakunak bailiran, ezaupidea ikertzailearentzako oztopo izan denean.

Bi multzo nagusitan banatuko dira hitzok Mitxelenak testuetan beraiekiko urruntasuna edo arroztasuna nolabait markatzearen ala ez markatzearen ondorioz: jatorria jatorri, **euskal** etsiko diren hitzak, batetik –honenbestez, maileguak ere, zahar nahiz berriago, hemen kokatuko dira– eta, **erdal, erdarazko, irentsi gabeko** iritzi zaienak bestetik.

Dagokion atalean erakutsiko den bezala, azkenok badute modu bateko nahiz besteko

---

[78]Morfematik abiatzeak ez luke hemen bururik, nahiz morfema (edo nahiago monema (Martinet (1960)), estrukturalismoan, oro har, esanahia duen unitaterik txikientzat jo.

[79]Scalise (1987:24), Rey (1988b:30) *unités complexes*.

[80]Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailearen (GSB-ren) bilakabide honen nondik-norakoak: Botha (1968), Scalise (1984).

markarik (ortografiko, tipografiko, diskurtsozko eta abarrik), testuko beste hitzetatik bereizteko bide ematen duenik. Horrexeri eutsiko zaio, beraz, bigarren multzoan kokatzeko.

Jatorri- eta irenste-kontuak aparte, hitzaren osamoduari dagokion beste zerbait ere bada argitu beharra.

Hitz bakunen atalean kokatuko dira euskal bideetan barrena inolako aldakuntza nozitu izanaren seinalerik ez duten *composant savant*[81] edo hitz ikasi edo landu direlakoak ere, itxuraz konplexu izanagatik (greko-latinetatik harturiko oinak[82] direla medio) euskararen ikuspegitik bestelako azterketarik izan ez dutelakoan.

Honek ez du, halaz ere, esan nahi, halako etorkia duen elementu oro multzo berean kokatuko denik, euskal hitz-eraketaren legeek eragin dioten momentutik –hots, eratorpenean nahiz elkarketan bidea korritu duenetik[83]– batean nahiz bestean aztertuko da, esana doan bezala, azterlan honen helburua ez zaiolako hitzen etorkiari lotuko.

11.3.2. Baliabide lexikoen ondoriozkoak

Morfologia Sortzailean, lexikoaren mailan, hitzak eratzeko bi bide bereizten dira: eratorpena edo eratorbidea[84] batetik eta hitz elkarketa bestetik.

> L'anàlisi dels *radicals complexos* (que consten de més d'un morfema) i la creació morfològica de mots nous coincideixen. A aquest procés, tant si és històric (formació de mots nous) com si és descriptiu (anàlisi de l'estructura dels mots existents) li donem el nom de *formació de mots*. Distingim, dins de la formació de mots, entre *derivació* i *composició*. (Mascaró 1986:14).

Euskalaritzaren barrutian, teoria honen oihartzunak eta egokitzapenak irakur daitezke Azkarateren lanetan (1988, 1990b, 1991, 1992) bereziki, eta Euskaltzaindiaren barneko LEF batzordearen (*LEF-1* 1987, *LEF-3* 1991, *LEF-4* 1992) lanetan, hitz elkartuei dagokienez eta, Azkarate (1990a, 1990c, 1991, 1992), Azkarate-Olarte (1991), Altuna-Azkarate (1992), eratorpenari dagokionez.

Tesi honen xedeetariko bat, Mitxelenaren lexiko-mailako hitz-eraketa jorratzea, aurkeztea eta azaltzea izaki, Morfologia Sortzailearen esparruko lanak, nahiz hizkuntza jakinen gaineko azterketak eta bereziki euskararen hitz-eraketa azaltzeko mamituak, jo dira begiz horretarako, deskribapen-azalpenei egokien iritzi zaielako

Honek ez du, haatik, ekarriko, aurreko morfologiaz eta lexikologiaz eta inguramendu honetan tokirik ez duen orain arteko euskalaritzaz atzendu denik, baina beti ere aipatu den beste orotariko eremu teoriko horren baitan lagungarri izan daitezkeen heinean.

---

[81] Hitz-mota honezazko bibliografia eta abarrak hitz bakunen atalean emango dira.

[82] Scalise-ren (1987) *tema*.

[83] Euskaren ikuspegitik *hibrido* bilakatu denetik, alegia.

[84] Hitz biok erabiliko ditugu elkarren arteko alderik gabe.

Ondoren, bada, bi lexiko-baliabideetan nola jokatuko den aurkeztuko da.

11.3.2.1. Hitz eratorriak

> En el primer cas [eratorpenean] l'arrel[85] sofreix una modificació que en català és, en general, l'afegiment d'un sufix. Quan de l'afixació no en resulta un mot o un radical nous, el procés és de flexió. (Mascaró 1986:14).

Erator-hizkien eta flexio-hizkien arteko bereizkuntzaz berri zehatzik emango ez bada ere[86], gogoan izan behar da, flexio-hizki izana erator-hizki bilakatzea ez dela ezohiko gertaera, ez euskarraz ez beste hizkuntzetan. Honezaz gain dudako kasuak ere gerta daitezkeenez gero, funtsezkoa izango da irizpide euskarri batzuk eskueran izatea, zer zeri dagokion erabaki ahal izateko; hau da, hizkia "paradigma" bateko partaide ala "hitz-familia" batekoa ote den bereizteko:

> Com a conseqüència, tots els mots flexionats (...) a partir del mateix radical, pertanyen al mateix mot. El conjunt de totes les formes inflectives d'un mot constitueix un *paradigma* (en el cas particular del verb l'anomenem *conjugació*). En canvi, quan d'una arrel formen un *derivat*, el nou mot està relacionat amb l'anterior però és un mot distint. El conjunt de tots els mots relacionats per derivació és una *família de mots*. (Mascaró 1986:14).

Irizpide-finkatzeak berebiziko garrantzia izango du batipat *-ko* atzizkiari dagozkion auzietan.

Honenbestez, lan honetan honako irizpide nagusiok[87] hartu dira bereizkuntza sustraitzeko:

. Erator-hizkiak lexiko-kategoria nagusiei (I, A, Izond[88]) soilik ezar dakizkieke.

---

[85] *oinarri* erabiliko dugu, Azkarateren (1991a) modura, *erroa* eta *oina* berezi gabe erator-hizkia jarriten duen morfema(k) izendatzeko, hots, "base"-ren ordain moduan.

"[sailkapen] Xehena hartuaz dena den, Bauer (1983)-ena honako terminoak definitu beharko genituzke: erroa/root (inflexio eta deribazio-hizki guztiak kendu ondoren geratzen den atala, zati bikiagoetan aztertu ezin dena; Saussure (1916)-ren 'racine'), oina/stem (inflexio-hizkiak kendu ondoren geratzen dena; Saussure-ren 'radical', azken batean 'oin' eta 'base' kontzeptuei dagokiena, erroa + atzizkia baita), basea (edozein motatako hizkiak har ditzakeen forma). Edozein 'root' edo 'steem' izan daiteke beraz, 'base'; baina 'base' zerbait zabalagoa da, hitz eratorri nahiz elkartu bat izan bait daitezke 'base'". (Azkarate 1991a:11).

[86] Martinet (1960), Matthews (1974), Scalise (1984), Trask (1985), Mascaró (1986), Cabré-Rigau (1986), Mitxelena (1986c), Rijk (1988), *EGLU-I(Er.)* (1987).

[87] Funtsezkoenak, aztertzerako erabakigarrienak gertatzen direnak, aipatuko ditugu.

[88] Bally-k (1950$_4$) *catégories lexicales* sailean N, Adj., V eta Adv. aipatzen ditu.
Kocourek-ek (1982:72) beste bide batetik, lexiko-kategorien artean ere sendoak eta ahulak bereizten ditu: "L'analyse du plan lexical de la langue technoscientifique a pour l'objet surtout les aspects non

Usuenik, etekina lexiko-kategoria nagusi[89] berri bat izango da[90].

. Eratorpenaren barrutiko morfemek eratorkizun den oinarriaren azpikategorizazioa aldarazten dute. Aldakuntza honek maizenik gramatika-kategoriari eragiten dio[91], alabaina, era horretako aldakuntzarik nozitu gabe ere (aurrizkiek eta *aspectiú* direlako atzizkiek sorrarazten dutena esate baterako), azpikategorizazioko beste tasunen bati eragin diezaioke[92]. Honenbestez, erator-hizkiek dakartzaten aldakuntzok esanahian ere hatza uzten dute[93].

. Erator-hizkiek metaketa onartzen dute –hots, indar berrizkatzailea dute– (elkarketak bezala), baina ezin dakieke flexio-hizkirik tartekatu, azken hauek geruzarik azalenekoan dutelako kokalekua[94].

. Euskal erator-atzizkiek, arruntean[95], kasu-marken ezarketak ez bezalako hots-gertakizunak onartzen dituzte morfemek topo egitean[96].

Baldintza hauek bete ezean, ez da erator-hizkitzat joko.

. Eratorpenari, bere bakarrean, dagokionez, Azkarateren (1991) bidetik[97], formulazio teorikoetarako eta sailkamoduetarako, Scalise (1984), Mascaró (1986), eta Cabré-Rigau (1986)[98] hartu dira batez ere gidari, azkena batipat.

Honek esan nahi du, euskalariek oro har –Ithurryk (1895) salbu– eginiko sailkapenak ez bezalakoa izango dela, bere osotasunean hartuta, hemen erabiliko dena, Azkueren (1923-

---

grammaticaux des unités lexicales **fortes**, appartenant aux classes nominale, verbale, adjetivale et, en partie, adverbiale. Au lieu d'unités fortes, on dit aussi pleines, "lexicales", autosémantiques, de signification".

[89]Morfologia Sortzaileko lanetan behin eta berriro errepikatzen den baldintza.

[90]Halarik ere, ikusiko dugun bezala, batzuetan kolokan gerta daiteke baldintza hau.

[91]Lyons (1977).

[92]Cabré-Rigau (1986).

[93]Euskalaritzan, Zalbidek ere (1982:201), nahiz honela formulatu ez, ikusia zuen erator-atzizkien betekizun aldatzaile bikoitz hau:

"Eratorpenaz ematen diren azalpide aski desberdinen artean faktore bi dira, azken batean, garrantzi berezia dutenak: hizki bakoitzaren esanahi-eremua eta, batez ere, hizki horrek kategori aldatzaile gisa berekin daraman eginkizuna".

[94]Bosque (1983:133).

[95]Arruntean, ez beti.

[96]Azkue (1923-25).

[97]Azterbide hau euskarari egokituz eginiko *Irakaskuntza Proiektuan* gatzatua, ezinbesteko egin zaigu eratorpenaren azterlanean zehar.

[98]Azterlaneko erreferentziek erakutsiko duten bezala, bigarren argitaraldiaz (1967_2) baliatu gara.

25) eta Lafitteren (1944)[99] sailkapenekin puntu batzuetan bat etorriko den arren.

Ez zaio alfabeto-hurrenkerari jarraikiko (Villasantek (1974), Campionek (1884), edo Mugicak (1969) egin ez bezala, alegia), Azkueren (1923-25) eta Lafitteren (1944) iidotik, hitz eratorriaren gramatika-kategoria hartuko da sail nagusiak bereizteko.

Sail bakoitzaren barruan, erator-hizkiak (atzizki-aurrizkiak) adieren arabera sailkatuko dira, alpatu berri diren bi euskalariok bezala, Azkue (1923-25) hartuz batipat gidari.

Honezaz gain, Cabré-Rigau (1986) ikertzaileek katalanarentzat egin bezala, erator-hizki bakoitzaren barruan, oinarriaren gramatika-kategoria ere hartuko da kontutan.

Halaz ere, zehaztu behar da, atzizki bakoitzean, oinarriaren, atzizkiaren eta eratorriaren azpikategorizazioak zehaztean aztergaiko formak multzotan biltzeko jarraikiriko irizpide orotarikoa gramatika-kategoria izanik ere, kasu batean berariaz bilduko direla, aditzoina oinarri izaki, 'ekintza/ondorioa' adiera duten eratorriak, nominalizazioaren esparru labain xamarraren eta egungo euskararen ohiko erabileran duen pisuaren kariaz.

Hiru alderdiok izango dira sailkapenaren ardatza, eta aurkezturiko hurrenkera –hiru irizpideon arteko hierarkia–, lehen biok sailak osatzean eta hirugarrenak, erator-hizki bakoitzaren barne-antolamendua eratzean gidatuko du.

Hizkiz hizkiko barne-antolamendu hori dela eta, azaldu behar da zein informazio-klase emango den eta zergatik.

Lehen puntu batean, erator-hizkiaren **lema** zehaztuko da, auzi bat baino gehiago ukitzen baitu lema-finkatzeak; bestela esan, alomorfoak[100] biltzeko eta berauen oinarri izateko gauza den morfema abstraktuaren finkapenak.

Honekin batean dator, halaber, erator-hizki beraren aldagaiak ote diren ala bi (nahiz gehiago) erator-hizki diren erabaki beharra.

Honetarako, Nida-ren (1949_2) 5. hastapeneko morfema homofonoezko baldintzak izango dira batipat gogoan:

1. Esanahia eta forma fonemiko berdinak --> atzizki bera.
2. Esanahian alderik ez baina forma fonemiko desberdinak.
   . Fonologikoki azal daitezke --> morfema beraren alomorfo, inguramendu fonologikoak eragina.
3. Homofonia denean:
   . esanahian aldeak --> morfema desberdinak
   . esanahi hurbilak, guztiz berdinak ez badira ere:
      - esanahi-desberdintasunei, banaketa-desberdintasunak ez badagozkio --> morfema beraren alomorfo.
      - esanahi-desberdintasunei, distribuzio-desberdintasunak badagozkio --> morfema desberdinen alomorfo.

---

[99] Bigarren argitaraldiaz baliatuko gara (1962_2).

[100] Alomorfoez: Nida (1949_2), Lyons (1968), Mattews (1974) besteak beste.

Honela, lemaren ezarpenean alomorfoak ez baina, morfema homofonotzat jo direnetan elkarren artean bereizteko lemaren azpian alboraturiko zenbakitxoek (esate baterako, *-ki*$_1$, *-ki*$_2$...) aztergaian kausituriko atzizki homofonoen kopuruari dagozkio eta ez euskaraz daitezkeen homofono guztiei; esan nahi baita, *-tza*$_1$ eta *-tza*$_2$ berezi badira, honek ez duela ukatzen euskaraz hirugarren *-tza*$_3$ bat ('multzoa' adiera duena, adibidez) egotea. Horren lekukorik hemen ez aurkitzeak, aztergaian horren aztarnarik eza adierazten du.

Iido honetatik, euskal eratorpenari estu-estuan dagokionez eta tesi honek norabide etimologiko-diakronikorik ez badu ere, Mitxelenak (*FHV*) ematen dituen morfemezko histori iruzkinak txit baliagarri izango dira, behin baino gehiagotan, gaurko gertakizun ilunak, erator-hizkien lehenaren argitan azal baitaitezke:

> La dicotomía *sincronía-diacronía* es, como sabemos, una oposición *metodológica*, como también lo es la dicotomía *lengua-habla*. Ambas oposiciones contienen un importante componente de *idealización* (...) Probablemente es la Morfología la disciplina lingüística en la que más patente se hace esa idealización a la que nos referíamos. (Bosque 1983:120).

> Ese carácter fundamentalmente mutable del léxico es la primera gran dificultad de una teoría basada de forma radical en el corte sincrónico de la lengua y que incluye, por razones metodológicas, un importante componente de idealización. (Bosque 1983:149).

Bigarren puntua, **azpikategorizazioei** lotuko zaie.

Cabré-Rigau (1986) kataluniarren bidetik, hizkiz hizki, oinarriaren, atzizkiaren eta hitz eratorriaren azpikategorizazioak (tasun-matrizak edo eskutadak) papererako dira.

Honek esan nahi du, eratorbidean hatza utz dezaketen tasunak –hau da, eratormodua baldintza dezaketenak– direla tasun-multzoetan bilduak; beraz, adierari dagozkionak ere, beste tasunak bezalaxe, matrizean bilduko dira, eratorpenean duten betekizun berebizikoa dela medio[101].

Honen arrazoia, erator-hizkitzat jotzeko baldintza batekin erabat lotua dago, esan baita eratorpenaren funtsa oinarriaren azpikategorizazioa aldatzea dela. Honenbestez, era honetan ikusi ahal izango da nolakoa den, justu, eratorpenak oinarriari dakarkion aldakuntza.

Hirugarrenik, eratorpena gertatzean **hots-aldakuntzarik** gertatuz gero, hala zehaztuko da, batipat, *FHV* eta Azkarate (1990b) lanetan oinarrituz.

Azkenik, Guilbert-ek (1975), eta *LEF-1*-ek (1987:30) elkarketarako proposaturiko bidetik, **hizki-metaketarik**[102] sortuz gero, horien kontu ere emango da.

Gaurko euskararen irizpide-finkapenerako atzizki bakoitzaren emankortasuna gogoan hartu beharreko puntua izanik ere, ez da atzizkiz atzizkiko sailkapenean zehaztuko, ondorioak

---

[101] Azpikategorizazioko tasunen eta hitz-eraketarako erregelen muntiatapenen arteko auzien ikuspegi laburra: Byrd (1983).

[102] Zehazkiago esan, berrelkarketa eta garapena dira azken lan honetan elkartuentzat kontutan hartzen dituztenak.

gatzatzerako lagako baita.

Laburbilduz, erator-atzizkiak baliaturiko sail nagusiak honakoak izango dira:

- A. Izen-sortzaileak
- B. Izenondo-sortzaileak
- C. Aditzak sortzeko atzizkiak
- D. Aditzondo-sortzaileak
- E. Atzizki txikigileak eta handigileak

Egungo euskara honetan bide duen garrantziagatik, zenbait erdal aurrizkiren zenbait euskal ordainen berri ere eskainiko da kapitulu batean; zehazkiago esan, Mitxelenaren erabileraren azterketatik aurrizki horien ordaintzat proposa daitezkeenena.

11.3.2.2. Hitz elkartuak

> En el segon cas [hitz-elkarketan], els components del mot format són mots, o arrels. (Mascaró 1986:14).

Esan bezala, Azkarate (1990b), *LEF-1* (1987), *LEF-3* (1991) eta *LEF-4* (1992) lanak jo dira begiz batipat atal hau ikertzeko egingo diren sailkapen-azalpenen zimendarri eta azterbide izan daitezen.

Azterbiderik egokien irizteko arrazoiek honakoetan dute funtsa:

- Euskal hitz elkartuen esparruan, euskalaritzan eginiko saioetan, sailkapenak egiteko irizpideak murritz geldítzen dira hitz elkartuen konplexutasunaren berri emateko, dela (ia) zerrenda huts eta nahasi xamarretara mugatzen dutelako balizko sailkapena[103], dela kategoria lexikoetan oinarrituriko ikuspegi batetik, hitz elkartutzat nekez jo litezkeenak ere tartean direlako[104], nahiz, osagaien arteko harreman logikoak batez ere iparrorratz hartuz[105] –Azkaratek (1990b) erakusten duenez– irizpideen ordenamendu finkoaren faltaren ondoriozko aurkaesanak, tokirik gabeko benetako elkartuak eta alderantzizkoak sortzen direlako.

Aztergidari aukeraturiko lanek, aurreko euskalarien lanak zokoratu gabe eta aldi berean, egungo hizkuntzalaritzak urratu dituen bide berriei etekina ateraz, irizpide sistematizatuagoak eta sailkamodu agortzaileagoak eskaintzen dituzte.

Azkarateren (1990b) lana izango da bereziki hitz elkartuen sailkapen orotarikorako erabiliko dena. Berak erakutsi bezala, ez da nahikoa izango irizpide bakar bati eustea hitz

---

[103] Campion (1884), Ithurry (1895).

[104] Lafitte (1944, 1962$_2$).

[105] Azkue (1923-25), Villasante (1974).

elkartuen berri zehatz emateko. Hori dela eta, lan horretan proposaturiko irizpide-aniztasun eta hurrenkerari jarraikiko zaio elkartu-motak eta sailak ezartzerakoan.

Aurrenik, beste hizkuntzetan ere **hitz eratorrien eta elkartuen mugan** kokatu beharreko *semi-suffixes* (Marchand 1960) direlakoak kapitulu berezi batean bilduko dira. Mugako iriztea, elementu beregain dena/izana, atzizki bilakatzeko bidean aurkitzeari zor zaio.

. **Hitz elkartuak**[106] bi multzo nagusitan banatu ohi dira osagaien arteko harremanen arabera: elkarren arteko harreman horretan biak maila berekoak direnak, **kopulatiboak**, batetik eta, **menpekotasunezkoak** bestetik, eta hemen ere bereizkuntza horri eutsiko zaio.

Alabaina, sailak proposatzerakoan, bereizkuntza hori aldez aurreko beste bereizkuntza batean kokatuko da.

Hiru izango dira, oro har, hitz elkartuak sailkatzeko kontutan hartuko direnak: osagaien gramatika-kategoria, hitz elkartuaren gramatika-kategoria eta osagaion arteko harremanak.

Lehen adierazi bezala, irizpide bakarrari estuegi heltzeak sailkapena desitxura dezakeenez gero (edo, gutxienez, sailkapen ez guztiz egokia ekar dezakeenez gero), irizpide-andana erabiliko da.

Honela, Azkaratek (1990b) euskal hitz elkartuak sailkatzeko –Bustos-ek (1986) gaztelaniazkoak aztertzean bezala– Marchand-en (1973) bidetik eginikoa egingo da hemen ere.

Aipaturiko gramatika-kategorien araberako sail bakoitzaren barruan, osagaien arteko erlazio logikoak izango dira iparrorratz; horren arabera, **kopulatiboak** eta **menpekotasunezkoak** bereziko dira.

Kopulatiboak, osagai elkartuen gramatika-kategoriaren arabera sailkatuko dira lehenik; ondoren, harreman-motaren arabera, **dvandvak, koordinaziozkoak** (edo **gehiketa**), **atribuziozkoak** (edo **atributu elkarteak**), **aposizioak, tautologiak** eta **subsumptive** elkarteak bananduz. Izenondo elkartuen artean kokatuko dira exozentriko edo "bahuvrihiak".

Menpekotasunezko hitz elkartuei irizpide sintaktikoa egokituko zaie, hitz elkartuak lezakeen sintaxiazko parafrasian osagaiek beteko luketen zeregin sintaktikoaren araberako zatisailak proposatuz; ondoan, balizko egitura horretan mintzagaia litekeenaren araberako parafrasia alboratuko zaie.

Azkenik, osagaien arteko harreman semantikoak joko dira begiz, lehen osagaiak duen bigarrenarekiko erlazio hori izanik egituraren deskripzioan islatuko dena.

Hitz-elkarketatik gertu koka daitezkeen **justaposizioek** beste multzo bat osatuko dute.

Horien ondotik, **"izena + -ko + (izena)"** izendaturiko egiturapekoak bilduko dira.

Hots-uztarduraz edo **onomatopelaz** sortuen berri ere emango da. Halaber, **neurri-sintagmak** izendatuak.

Beste puntu batean bi osagai baino gehiagoko elkarteak aztertuko dira, bere

---

[106] Ez ditugu hona ekarriko elkartutzat zer jo erabakitzeko (izan) diren irizpideak; Azkarateren (1990b:15-45) lanera igortzen dugu.

osamoduaren deskripzioa emanez, garrantzizkoa baita egituraren zehapena ez eze –Bloomfield-ek (1933) ikusi bezala–, osagaien arteko metatze-moduen berri ere ematea.

Auzi honek lotura estuak ditu bestelako gertakariekin, egituraren deskribapenari osagaien arteko antolamendua zehaztu behar zaion momentutik, hitz-elkarketa eta eratorpenaren arteko harremanak ere tartean izan ohi baitira.

Hau dela eta, Morfologia Sortzailean proposatu izan den hitzak eratzeko erregelen hurrenkeran, eratorpena elkarketaren aurretik kokatu ohi da; euskaraz, aitzitik –erakutsiko den bezala– arau hau itsu-itsuan jarraitzea behin baino gehiagotan nekeza, are ezina ere, gertatzen da[107].

Azterlanean, hitz elkartutzat hartuko da, hala gertatuz gero, hitz elkartu **osoari** eratoratzizkia dagokionean, hau soilduta geldítzen den hitz eratua, hitz eratorri osoa (elkartu eratorria, kasu honetan) eratorpenean aztertuko da.

Gerta daiteke, hitz elkartuaren osagaietako bat eratorria izatea. Halakoetan, bere horretan jasoko da, izaera horrezazko kontu-ematea egingo bada ere. Hauek ere, eratorpenean aztertuko dira.

Irizpideak hauek izanik, ordea, daitekeena da, dudazko kasuekin topo egitea, erakutsiko den bezala.

Honainokoa lexikoaren mailari, zentzu hertsian, dagokionak osatzen du, baina ez da horregatik azterlana hemen etengo. Esana doan bezala, hitz-eraketaz harantzagoko sorbideen berri ere eman nahi da eta.

Hori gauzatu ahal izateko, kategoria lexikoetatik urrunduz, kategoria sintaktikoetara hurbilduko da azterjarduna.

11.3.3. Sintaxi-baliabideen ondoriozkoak

Sorbide hau aztertzearen premia, esana doan bezala, adigaiak mintza-gorputza har dezaten bideetariko bat izateari zor zaio.

Han eman diren arrazoiak ez dira errepikatuko eta azterbideari dagokiona soilik aurkeztuko da.

Gisa honetako egiturak ere –hots, sintaxi-baliabideen ondoriozko hitz konplexuaren gainetikakoak–, zerbaiten izendapen, gauza bakar baten deizio izan daitezkeela konturatu orduko[108] hauen begiestea txuliaezin bilakatzen da.

Jarraikiko den bidea (hemen jorratuko ez diren baina aldez aurretikako baldintza duten adigai-auziak alde batera utziz), egitura beraren deskripzioari lotuko zaio bereziki, berriki garaturiko *LSP*-ren azterketan murgildurik dabiltzanen ildotik[109].

Bide horri helduko zaio beraz hemen, egituren deskribapenak eskainiz. Egituren zehaztapen horretan elementuen funtzioak ez baina elementu horien kategoria izango da

---

[107] Azkarate (1990b:293,294).

[108] Phal (1964), Guilbert (1965, 1971b), Ovistgaard (1976), Rey (1977b), Cowie (1981), Feyry-Miannay (1984).

[109] Nebodity (1990).

zehaztuko dena.

Ezer baino lehen, haatik, argitu beharra dago, erdarezko lanetan jarraikiriko ildoari atxikitzeak ez dakarrela prozeduraz kanpoko bestelako abdkitze itsurik; esan nahi da, beste hizkuntzetan multzo honetako egituraz baliaturikoa izateak ez duela nahitaez esan nahi euskaraz ere ber moduan adierazi denik, ezta adierazi behar denik ere, noski.

Honela esate baterako, Kocourek-ek[110] *lexical phrase*-tzat dauzkan: *noble gases, fatty acid, Canadian geese, Grimm's law* edo *centre of gravity* bezalakoek, euskal ordainek luketen osamoduaren arabera, justaposizioen artean, eratorpenean, sintaxi-bailabideen ondorioko "hitz-multzo berezitu" dei genitzakeenen artean, egon daitezke sailkatuta, irizpide, euskal egitura hartu delako.

Beraz, esana doa, euskal taxukerari begiratuko zaiola eta horren arabera sailkatuko, sintaxi-baliabidea denean erabilia, erderetan gisa horretan osaturikoen bide beretik, egituraren zehaztapena emanez.

Eskuarki izena gune dutenak, ezkerreranzko eta eskuineranzko hedapenaren arabera bereziko dira.

Atarikoan adierazi bezala, multzo ugaria osatuko dute *-ko* erator-atzizki ez denaren erasketaz sorturiko izenlagunek. Arreta berezia eskaintzea zilegiztatzen dute bide honek euskaraz duen indarrak batetik, beste *-ko* (r)(e)kin izan diren sailkapen korapilatsuak bestetik, eta EBH-etan erdal adjektibo erreferentzialen ordain usua[111] izateak azkenik. Hau dela eta, izena (nahiz beste kategoria bat) hedatuz garatzen den izenlaguna ez da "hedadurazko egituren" artean aztertuko, berariaz jorratuko den puntu batean baizik.

-ko honen azpisailkapena, atzizkia janzten duen elementuaren kategoriaren arabera egingo da *EGLU-I(Er.)*-ren (1987) bidetik.

Eskuineranzko eta ezkerreranzko hedadurak bereziko dira, adierazi bezala.

Eskuineranzkoan, batipat "izena + izenondoa" egituraren berri emango da.

Egitura hau zalantza-ituni bilakatuko da behin baino gehiagotan, justaposizioekin duen uztarri estua dea medio.

Honelakoetan, aldian aldiko berbaldi-eraikuntzak ez izateari begiratuko zaio batipat; hau da, nolabaiteko egonkortasuna eta adiera zehatzagokoak izatea eskatuko zaizkio direlako eraikuntzari "izena + izenondoa" egituratik justaposizioen eremura igortzeko, Darmesteter-ek aipatzen zuen zahartasunaren –hots, erabilia izanaren– argudioa, hizkuntzalaritzazko euskal testuetan baliogabetuxe gertatzen denez gero.

Hau dela eta, esate baterako –eta oker beharbada–, "greko klasiko" justaposiziotzat joko den bitartean, "greko berri" ez da halakotzat hartuko[112].

Zehaztuko den beste egitura norabide berekoa, "izena + izenlaguna" egiturapekoa izango da.

---

[110](1979:123).

[111]Ensunza (1989).

[112]Orol daiteke Rey-ren (1988a:222), *mécanique nouvelle* eta *mécanique quantique*-ren arteko aldeaz.

Ezkerreranzko hedapenean, honako multzo nagusiak bereziko dira:

2.1. Izenlaguna [*-ko*] + izena
2.2. (Zenbatzailea) + izena + (izenondoa) + *-ko* + (izena)
2.3. Izenlaguna [*-ren]* + (izenlaguna) + izena + (izenondoa)
2.4. Izen-multzoa + *-ren* + izena
2.5. Izenordaina + *-ren* + izena

Egitura hauek Phal-en[113] iritziaren sendogarri izan daitezke zenbait kasutan, egitura hedatuz doan neurrian adigaia murriztuz doanekoa, alegia.

Multzo berezi batean bilduko dira hizkuntza-auziekin zerikusia duten izen bereziez osaturiko egiturak. Kasurik gehienetan "lege", "formula", "erregela" edo antzekoen izenak dira.

3. Izen bereziak
   3.1. Izen berezia + *-ren* + izena
   3.2. Izen berezia + *-ko* + izena

Perpausean oinarri zuzena duten bi egitura-mota bereziko dira, azkenik, ezohiko gertatuagatik, baliabide hau ere eskueran dagoen seinale ikusi direlako; zehazkiago esan, Mitxelenaren hautabide baten adierazgarri direlako.

Kasuotan, Kocourek-ek (1979) besteren lanetatik jasotzen zituen irizpideen arteko konmutazio-frogari etekina ateraz, baldin eta Mitxelenak bestelako eraikuntza (lexiko nahiz bestelakoa) erabili badu, alboratuko zaio.

4. Nominalizazioak

5. Perpausak

6. Aditzaren inguruko egiturak

Seigarren multzoa bereizteko arrazoia, azken urteotako *LSP-Phraseology* delakoaren azterketan datza, aztergai honetan ere, aditza gune duten zenbait egiturek hor bailukete kokagunea.

Aurkezturiko guztiarekin, Mitxelenaren hizkuntzazko EBH-ren oinarrizko osagaien zehapen osoa edo oso antzekoa eskaintzea espero da.

---

[113] "A chaque addition d'un nouvel adjectivant, la notion recouverte est précisée et approfondie, mais son aire d'emploi se trouve réduite". (Phal 1970:99).

III. ATALA

12. Kapitulua: HITZ BAKUNAK

12.1. ATARIKOA

Ondoko multzoan bilduak, euskal hitz-sorbidearen legeen araberako moldakuntzarik izan ez dutenak dira; zehazkiago esan, itxurari, formari dagokion heinean, aldakuntzarik nozitu ez dutenak eta, honenbestez, hitz soil edo bakuntzat hartu direnak.

Ikuspegien arabera nabar itxura har dezake multzoak oso-betean begiraturik eta onar ere dezake sailkapen-mota bat baino gehiago; hala nola, gramatika-kategoriaren arabera, eremu (edo zatieremu) lexikoen[1] arabera, hitzen jatorriaren edo besteren arabera.

Terminologiaren eta Eginkizun Berezietarako Hizkuntzaren munduan, oro har, eta euskararen gaurkotzearenean hertsikiago, mailegutzak duen indarra neurtzea eta egokitzapen-motak xeheki ikertzea hagitz argi- eta adierazgarri gertatuagatik, ez zaio bide honi agortzeraino jarraikiko ondoren aurkeztuko diren arrazoiak direla medio.

Hitzaren etorkiari erreparatzeak, hitz guztien iralgiaren berri zehatza eskatzen du aldez aurretikako baldintza moduan.

Ikerketak arlo honetan oso aurrera egin badu ere, bistakoa da baldintza osotoro betetzea, hitz guztien iralgia xahutzeraino ezagutzea, gaitza ez ezik ia ezina ere badela.

Ez dago, beraz, beti jakiterik euskal ondarekoa ote den hitza ala besteri hartua den, miraketak aurrera egin ahala, ustegabekoak topatzea ez baita ezohiko gertakizuna:

> Beraz, eman dezagun orain arrazoi duela Gorostiaga jaunak eta *aizkora* latinetik datorrela. Eta hor daukagu atzo arte euskal hitz garbia zena[2] atzotik gaurrera erdal hitz bihurtua. (1959a:128).

Badirudi, honenbestez, etorki-gaietan ziurtasuna mailegutzari lotzenago zaiola hitzaren euskaltasun jator-garbiari baino[3].

Erdaratikako jatorria bide duten hitzen artean, antzina-antzinakoak, aspaldikoak, duela gutxikoak eta oso berriro hartuak bereizterrazak izan daitezkeen arren[4], ez da beti halako egokierarik izaten eta hitza hartua denean –hau da, erdal iturburua antzeman zaionean ere–, kronologi arazoak sortzen dira eten gabe. Izan ere, noiz jarri behar dira erdaratikako hitza, hitz hartu izatetik sartu eta irentsitako euskal hitzat jotzeko mugarriak? Nola zehaztu denbora-

---

[1] *microcampo léxico*, Coseriu (1975).

[2] Jat. *zena*.

[3] Gai honezaz, Mitxelenaren testuetan barrelu, han eta hemengo aipamenik ez da falta. Batzuk nabarmentzearren, 27. liburukian bilduriko zenbait artikuluren izenburuak paperera daitezke: "Euskal itzak zein diren" (1959a), "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz" (1979g), "Hitz mailebatuez" (1983f), "*Hauta-lanerako Euskal Hiztegiaren* aurkezpena" (1984b), "Mailegu berrien idazkera" (1985c).

[4] Bi muturretako adibideak jartzearren: *aditu* / *diferentzial*.

neurrian "erdarazko --> erdaratikako --> euskal hitz, eskubide osoaren jabea"?[5] Mailegutza ez baita bart arratseko gertaria.

Etimologi lanik egitea hemengo xedea ez denez gero, begiz jo den bidea batipat testugileari sumatu uste izan zaion hitzekiko atxikiduran oinarritu da, bi multzo nagusi bereziz.

Lehenean bilduko dira Mitxelenaren testuetan inolako bereizkuntza grafiko edo bestelakorik nozitu ez duten hitzak; hau da, bere hitz-altxorreko osagai arruntak direla pentsatzeko bidea ematen dutenak.

Zorro honetan bilduek eskakizun dute, euskararen ikuspegitik, egungo euskaldun landuak, bere hizkerako hitz bakuntzat joko lituzkeela, jatorriz konplexu bazitezkeen ere. Honek esan nahi du litekeena dela hemen hitz soil edo bakun delakoan jasoa, etorkiz elkartu edo eratorri ihartua izatea eta egungo begiek --edo geure begiek bederen--, ezin antzematea jatorrizko konplexutasun hura[6].

Multzo honen osagaien artean badaude, esan bezala, mailegu-itxura gardenago gordetzen dutenak eta --oraingoz bederen--, euskal jatorrikotzat jo daitezkeenak.

Hitz hauen azterketan zenbait punturi erreparatuko zaie:

Berriz esan, etimologi lanik egingo ez bada ere, batetik, erdaratikakoak direla eta, euskal moldera nolabait egokitu badira, egokitzapen horren berri emango da, horretarako, Euskaltzaindia kaleratuz joan den gaiazko lanei begiratuz eta hauen araberako sailetan bilduz Mitxelenagandikakoak.

Bestetik, berriz, Mitxelenak modu bat baino gehiagotara erabili badu hitz bera (euskalki desberdinetarik edanez, egokitze-molde desberdinez...) horren berri emango da, aldaera bakoitzari darabilen lan zehatzaren kokalekua alboratuz.

Zerrenda hutsean utziko dira, haatik, itxuraren aldetik azpimarratzekorik ez dutela iritzi zaien lehen multzo honetakoak.

Bigarren multzo nagusian bilduko dira erdal jatorria salatzen duen ezaugarriren bat dutenak, Mitxelenak modu batera nahiz bestera nabarmendu dituenak, alegia.

Hauek ere abeze-zerrendan bilduko dira eta kasu honetan erreparatuko zaie Mitxelenak bere berbaldian erabili bai baina oraindik ere euskarak irentsi gabekotzat dauzkanei (*v,c* edo antzeko letrez idatziei, esate baterako).

Honetan ere litekeena da Mitxelenak garai batean irentsi gabetzat zeukan hura, denboraren poderioz etxekotua ikustea. Honen berri emango da, berriz ere, zein bere testu-

---

[5] Auzi honezaz, euskarari dagokionez, UZEI (1982). Bereziki "Maileguzko hitzen irespen-maila" atala. Mailegu-sarbidearen urratsen berri ematen dute Deroy-k (1957), Rey-Debove-k (1973), Humbley-k (1974), Guilbert-ek (1975), besteak beste.

[6] Beheraxeago zehaztuko dugu hau.

kiderraz hornituz.

Azterlanaren sarreran esan bezala, ez dira esanahiaren aldetik ikertuko; forma hutsa izango da kezkabidea.

Beste puntu batean biiduko dira Mitxelenak darabiltzan laburdura-laburpenak.
Eta azkenik, zenbait ondore laburbildu papererako dira.

12.2. ÑABARDURARIK GABEKO HITZ BEREZITU BAKUNEN ZERRENDA

abeze, ablatibo, absoluto, abstrakto, adar, aditu, adjetibo, ageri, ageri-1, agertu, agiri, agiri-1, ahul, alenatu, aleru, aire, akademiko, aktibo, akusatibo, alzidente, albanes, alde, aldi, ale, alegia, aleman, alfabeto, algoritmo, aljebra, alor, anafora, analak, analfabetismo, analfabeto, analisi, analisis, analitika, analitiko, analogia, anamita, andana, anglo-sajol, anglo-sajon, antinomia, antinomiko, antolatu, antropologo, antz, apologia, apostrofo, arabe, aragones, arakatu, arau, arazo, arbaso, arbola, ardatz, argumentu, arkaismo, arkifonema, arlo, armenio, aro, arraize, arrasto, arrazoi, arrunt, artifizial, artikulu, asaba, askazi, astrakto, atal, atari[8], atera[9], atiko, atlas, atzitu, aurkeztu[10], automata, automatiko, autonomia, autore, autu, auzi, axal, axioma, azal, azentu, azken, aztarna[11], aztarren, azterren, aztertu, Bahasa Indonesia, bahe, bakar, bakun, ballo, balto-eslabo[12], barne, barren, barru, barrunbe[13], base, bazka, bazter, beita, berba, beretzi, berezi, bertso, bibliografia, bide, biguin, bigun, bilakatu[14], bildu, bilduma[15], biologia, biologo, birlod, bitarte[16], bloke, boikal, bokale, bortitz, bota, boz, buru, dato, deadar (deiadar]])[1718], debeku, denbora,

---

[7]Hitz berak itxura diferenteak hartu dituenean, banan-banan papererako dira. Esate baterako: *analisi, analisis* edo *abstrakto, astrakto*.

[8]*atari* 'atrio, pórtico' < **ata-iri* 'cercanías de la puerta', cf. top. *Ecquiasso Ata Iria*, Navarra «in montibus Aralarrensis», año 1074". (*FHV* 1985$_3$:91). Halaber, lan berean, 533. or.

"De la observación del significado de la voz *atarija*, compuesta de *ate* Puerta, y *arija* zaguán, se colige que la voz simple *Arija* es legítimamente Bascongada y debe extenderse a todos los dialectos en la misma significación que tiene en Vergara. (...) /[Mitxelenaren oin-oharra]: El dato fue recogido por Azkue en dos obras publicadas en Bermeo, en 1935, *Evolución de la lengua vasca*, p. 40, y *Gipuzkera osotua* p. 117 s., pero no directamente, sino a través de Labayru, *Historia de Bizcaya* I, apéndice (p.850). Y, aunque la explicación de *atari* por los Amigos [arestiko azalpena] y por Azkue sea por lo menos dudosa, no lo es la realidad de *ari(a)*, que se documenta en los *Refranes y Sentencias* de 1596, núm 117: *Auço beco aria, sagu asco en abia* «sala sin vezinos, nido de ratones muchos». cf. J. de Urquijo, *RIEV* 8 (1914), p. 30 *f*". (Sagarnak 1982:106 jasoa).

[9]"Alpetu behar da ohitura zaharra **plazara da / plazara zen** egitea zela, gaur egun oraindik gorde dugun **atera da** adizkian ikusten den moduan". (*EGLU-ti* 1987:40). Ik. *FHV* (1985$_3$:70,161).

Ez da beraz, bakuna, beste gabe.

[10]Eratorri lhartua (*FHV* 1985$_3$:133).

[11]*OEH*:

"*Etim.* Compuesto de *(h)atz* 'huella', de final poco claro. Relacionado con *azterren*".

[12]Jatorrizko hizkuntzan, elkartua.

[13]Elkartu lhartua?

[14]Jatorriz bakuna ez den arren hemen kokatua (*FHV* 1985$_3$:521).

[15]Eratorria?

[16]Elkartu lhartua (*FHV* 1985$_3$:185).

[17]"*deadar* 'grito, clamor', vizc. (Mic., etc.) *gedar*, cf. Pouv. "*deyadarra*, alarme", de *del-adar*, lit. 'cuerno de llamada'". (*FHV* 1985$_3$:176). Halaber, lan berean, 211. or.

Hau ere, beraz, etorkiz elkartua.

determinante, diakronia, diakronista, diakroniko, dialekto, dialektu, dialektologia, diasistema, diferente, diferentzial, digiosia, digrama]], diminutibo, diptongo, disziplina, doinu, dokumentu, dotrina, ebaki, egitamu[19], ejenplu, ekilibrio, ekonomia, elementu, elipsia, elkar, eme, endekagu, enfasi, enkiritiko, enpiriko, entsegu, epentesi, epigono, epika, eredu, eremu, erkatu, erlatibo, errainu, errefain, errefrau, erregela, errelatibo, errenka, errepikatu, erresalbu, erretoriko, erro, erromaniko, erromantizismo, erromantze, erruso, esamina, eskema, eskolastika, eskolastiko, eslabo, espainol, espektro, espektrograma, esperanto, espezialista, estadistika, estatistika, (estadistiko]) estatistiko]], estilistika, estilo, estokastiko, estrato, estruktura, estrukturai; estrukturalismo, estrukturalista, eten, etimologia, etimologiko, etno-linguistika, etnologia, etnologo, etsenplu, exenplu, ezabatu, ezagutu, ezarri, ezkutu, eztanda[20], falisko, femenino, feminino, fenomeno, fenomenu, filogenia, filologia, filologo, filosofia, filosofo, fisika, fisiko, fisiologia, fisiologo, foku, fonema, fonetika, fonetiko, fonetista, foniko, fonologia, fonologiko, forma, formal, formalismo, formula, fosil, frantses, frase, froga, funtzional[21], gai, gailur, gaizto, gako, gaide, gaidu, gales, garai, garaun, garden, garraisia, garraxi, gaskoin, gatazka, gate, gaztelania, genetika, genetiko, genitibo, geografia, giltza, giputz, glotokronologia, gogo, gogor, gotiko, gradu, grafia, gramatika, gramatikal, gramatiko, greko, griego, gune, hari, hatz, helenista, hiperbaton, hipostasi, hipotaxi, hipotesi, hipotesia, historia, historiko, historio, hitano, hitz, holandes, homomorfismo, hondatu, hopi, hots, humanista, hungaro, hurbil, iberiko, iberokaukasiko, idatzi[22], ideia[23], ideal, idealismo, ihardun, ikertu, ikur, indar, indibidual, indirekto, indoeuropeista, infinitibo, ingeles, inguru, ingurumari[24], inkesta, innatismo, intransitibo, instrumental, ipui, ipuin, iragazi, iraigi, irauli, irazi, irakurri[25], irentsi, irlandes, irreal, irudi, isomorfismo, isomorfo, istant, istilu, istudio, italiano, iturri, itxura, itzuli, izen[26], (iskribu], iskritu], ezkribu]) izkribu, izkutu, jan, japones, jardun, jatorri, jauiki, lauzi, jeneral, jeneratibo, jenero, joko, joku, josi, kalkulo, kalkulu, kanpaina, kapitulu, karta, kasu, kazulstika, katalan, kategoria, keinu, kemen, kide, klase, klasiko, kodigo, kokatu, kolore, koma, komila]]

---

[18]Orain arte bezala,] eta]] ikurrak baliatuko ditugu argitaraldien arteko aldeak axalean uzteko, baldin eta aldaera hori bakar-bakarrik argitaraldietariko batean irakur badaiteke.

[19]Azkuek eratorpenean kokatzen duela dirudi:

"Los [erator-atzizkiez ari da] que reciben la *t* [epentetikoa] son estos diez y seis: *eda, aile, ailu, alde, aldi, ara, ari, al, ale, erzun* o *esun, aun* o *un, egi, eri,* de vocablos como *ardaztada* husada, *erakustaile* indicador (...) ***egitamu*** plano e *iltamu* agonía...". (Azkue 1923-5:52). (Beltz. gurea).

Mitxelenak, berriz, elkartu-itxura antzematen dio:

"Con aspecto algo distinto, la formación parece reaparecer en Vizcaya. Azkue [hiztegian] menciona *egitamu, eitemo*, "forma, estructura, distribución, p. ej. de una casa" y, con valores muy semejantes, *egidamu, egiluma, egieramon (egizamon)*. Si se recuerdan variantes como *etzidamu, etziluma* (y *etzikeramon*), que hemos considerado como procedentes de *-egun*, los de *egiramu, egitamu* son sorprendentemente semejantes, tanto que cabría la sospecha, no infundada a primera vista, de que también aquí nos hallemos ante un compuesto de *egi-*, sust. verbal *egite*, y *-egun* como último elemento: cf. *egitura* 'estructura'. Hay que reconocer, sin embargo, que *egun* no parece corresponder bien al sentido y que faltan, a lo que sé, formaciones análogas". (*FHV* 1965_3:507).

[20]Eratorria?

[21]Ikusiko den bezala, *funzio* erabili zuen lehen argitaraldian, gero, *funtzio* jantziz argia ikusi bazuen ere.

[22]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan.

[23]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan bezala.

[24]Eratua?

[25]*HLEH*-k XIV. mendean kokatzen du lehen moldezko testigua.
Erazle ihartua? Ez dugu erantzun gogo-asegarririk aurkitu (*FHV* 1965_3:52,523), (1970b, *PT*:263).

[26]*sustantiboren* uztarkide Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan.

(komilla]), komun, konbinatoria, konkreto, konkretu, konparatismo, konparatleta, konplemento, konponente, kontserbadore, kontsonante, kontu, konzepto, konzeptu, kopia, kopula, kopuru, kriollo, kritika, kritiko, kronologia, kultura, kume, lebur, lan, lanabes[27], latin, larri, lau, lege, leku, lelo, lengoaia[28], leones, lerro, letra[29], letrak, leun, lexiko, lexikografia, linguista, linguistika, linguistiko, lirika, liriko, literario, literatur, literatura, logika, logiko, logistika, lotu, lumero, lurtamu[30], luze, malla, mallebu, mallegu, makina, makrolinguistika, mami, mapa, marjinal, marka, marra, maskulino, matematika, matematiko, materia, material, materialismo, materialista, matriz, mehar, mekanika, mekaniko, mekanismo, mementu, mentalista, metafisika, metafora, metaforiko, meta-hizkuntza, metodo, metodologia, metodologiko, metodu, metriko, mezu, mintzaia, mintzo, modal, modelo, modista, modu, molde, momentu, monema, mordo, mordollo, morfema, morfo(lo)nologia, morfofonologia, morfofonologiko, morfologia, morfonologia, mostra, mota, mozarabe, muga, mugida, muin, muitzo, murritz, natural, naturalismo, neerlandes, neogramatiko, neologismo, neurofisiologia, neurri[31], neutral, neutro, nobela[32], nomenklatura, normal, obra, olizial, oin, oklusibo, okzitano, omen, ondare, ondore, ondoren, ondorio, onomatopeia, ontogenia, ontologiko, orain[33], ordain, ordena, oreka, oroit, ortografia, ortografiko, oseta, osko, oso, ospe[34], ozen, oztopo, paper, paradigma, paradigmatiko, parafrasis, paraleta, pare, parentesi (parentesis]), partikula, partizipio, pasiba, pasibo, patrol, pausa, perfekto, perifrastiko]], perpaus, pertsona, pertsonala, pertsonal, pleonasmo, plural, poema[35], poesia[36], poeta, poetiko, polako, posesibo, pragmatika, prediku, prehistoria, primitibo, proba, problema, propio, prosa, protasis, protogreko, protoeuskara, psiko-linguistika, puntu, razionalismo, rema, romanista, ruso, sabeliko, sail, saio, sakon, samur, sardo, sartu, segida[37], seinale, semantika, semantiko, semitiko, sen, sexu, sibilante, signifikante, sikologia, silaba[38], simetria, sinbolismo, sinbolo, singular, sinkopa, sinkronia, sinkroniko, sino-japones[39], sinonimo, sinple, sintagma, sintagmatiko, sintaktiko, (sintaksi]) sintasi, sintasis, sintaxi, sintaxis, sintetiko, sistema, sistematiko, sistima, soil, soinu, solas, somatu, soro, sorta, sortu, sostengu, soziolinguistika, sozio-linguistiko, subklase, subsubklase, subjetibo, subjuntibo, sujeto,

---

[27] Jatorriz eratua?

[28] Beherago ariko gara honezaz, *mintzaia* eta *pertsonala*rekin batean.

[29] Euskaltzaindia (1975).

[30] *egitamu*rekin zerikusirik?

[31] Michelenaren (1974a, *SHLV*:391) arabera, kategori aldaketaren ondoriozkoa: partizipioa --> izena.

[32] Euskaltzaindiak (1975) hau eta *elaberri* landatu zituen zerrendan.

[33] Bai hau bai beste sail batean kokatuko den *orainaldi*, Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoak.

[34] Probaria la pérdida de la espiración inicial *ospe* 'fama', que Oih. escribe con *h*-, si es como parece un compuesto de *hots* 'ruido, sonido'. (*FHV* 1985$_3$:215).
Ihartua, beraz, ixuraz.

[35] Euskaltzaindia (1975), *olerki*ren ondoan.

[36] Zehaztu berria bezalaxe, *olerti*ren ondoan hau.

[37] Begietan ematen du *mugida*, *segida* parearen amalak.

[38] Euskaltzaindia (1975).

[39] Hau ere, jatorriz elkartua.

sumatu, sustantibo, sustantzialista, sustrai, sustrato, tabu, taju, taket, talde, tankera, tarte, tasun, taxonomia, taxu, teatro, teknika, tekniko, terna, teorema, teoria, teoriko, terminologia, (testo]) testu, tipo, tipologia, tituku, toki, tomista, topiko, toponimo, traba, tradizional, transformatibo, transformazionalista, translibo, trasformatibo, tratu, tresna, triniko, turko, txino, txosten, uhin, ukroniko, ulertu, une, unibertsal, usu, utopiko, xede, xinple, xitu, zabal, zalantza, zantzu, zati, zauri, zehatz, zeinu, zelliberiko, zentru, zentzu, zertzelada[40], zibernetika, zientifiko, zifra, zorrotz, zulo, zuzen

12.2.1. Hitz "ikasi-landuak"

Bildu hitzen eremutik abiatuz sail bat osa daiteke, *composition savant*[41] delakoaren bideko hitz ikasi-landuez[42]; hau da, Guiraud-ek[43] *opérateurs* deriztenen bitartez eraturikoez[44].

Elkarketa-mota honen ezaugarritzat jo ohi da, grekozko edo latinezko erroaz baliatuz (jasoriko *morfo-, filo-, fono-, -logia, -grama, -sofia* eta antzeko osagaiak dituztenez, alegia[45]) hitz elkartua sortu[46] baina hiztun arruntak hitz soil bailitzan hartzen duela:

---

[40]"En éste [*Peru Abarka*-ren 1881eko argitaraldian], como indica Zelaieta, falta *cercelidade*, de valor semejante: *animalijen cercelidade edo circunstancijac*, 184, *euren cercelidade ta propriedadiac*, 186, con la última palabra bien impresa. En la «Nomenclatura» el término ocurre en forma algo distinta: «*Cerceladia*. Circunstancia: *cer celan dan gaucia*». Antes de nuestra guerra, *zertzelada*, que ahora parece arrinconado u olvidado, era frecuente en escritos y no era excepcional oirlo. Tampoco figura en Azkue". (1978i, *SHLV*:941).

Ez du Mitxelenak, damurik, agertzen bere Mogelen azalpenazko irtzirik.

[41]Guilbert (1971).

[42]*compostos amb radicals cultes* (Cabré-Rigau 1987$_2$:154), *compostos de tipus culte* (Mascaró 1986:77), *cultismos* (Scalise 1987:89), hitz "kultoak" (Azkarate 1988).

[43](1968:63).

[44]Gai honezaz: Guiraud (1968), Marchand (1960), Guilbert (1971, 1975), Adams (1973), Neggers (1975), Azkarate (1988).

Guk "hitz ikasi-landu" aldatu dugu.

[45]Hocket-entzat (1958) "erro elkartu" lirateke aztergaiko: *bibliografia, filologia, morfologia*.... esate baterako. Byr-ek (1983) [+latinate] *subcategorization restrictions* direlako murriztapen-motan kokatzen ditu.

Cabré-Rigau (1987$_2$:16) ikertzaileek morfemen azaugarritze-lanetan erabili izan diren frantsesezko [±culte] eta Williams-en (1981) [±latí] aipatzen dituzte.

[46]Ez dirudi beti garbi dagoenik grekozko edo latinezko osagaia hitz beregaintzat ala aurrizkitzat –esate baterako– hartu behar ote den.

Honela, Guiraud-entzat (1968:68) *opérateurs préfixés*, ("*opérateurs*: mots pleins mais que, en raison de leur sens générique, entrent dans la désignation de longues séries". (1968:63)) hota, elementu beregainak dira *auto, iso, proto, pseudo, tri*..., Moliner-entzat (*DUE*) aurrizki direnak.

Bosque-k ere (1983:149), gisa honetako osagaiak ikusten ditu, hain justu, mintzagai dugun elkartu/eratorpen mugen arteko gardentasun-azaren adierazgarri irmo ez aze, eratorpenean aipatuko dugun Aronoff-en, hitzsan oinarturiko Morfologia Sortzaileasen kontrako argumentu sendoa ere:

"El modelo de Aronoff (basado en la palabra) no da cuenta de los lexemas ligados productivos (*bio-, anglo-, filo-, -crata, homo-* etc..) ya que no son palabras. En realidad, este problema (...), es el más importante entre los factores que ponen en duda la existencia de una barrera entre composición y derivación".

> Hitz "kulto" hauen barne egitura aztematerakoan, ordea, bekoitzari dagokion teknika edo zientzia alorrean sarturik ez dagoenak, barne egitura horretako osagaiak bereizten ez dakienez, hitz hauek erabiltzekotan, hitz bakuntzat hartuko ditu (...) Eta osagaiak bereizten ez badira, are gutxiago bereiziko du hiztunak zein kategoria gramatikalen hurrenkera azaltzen den. Horrenbestez, horrelako eraikuntzetan hitz elkartuaren nozioa galdu den neurrian, alferrikakoa dirudi pareko euskal egituren bila hasteak. (Azkarate 1988:175).

Eta hona aldatu zerrenda-moldea gertaera honetxen isla litzateke.

Alabaina, bada zehaztekorik.

Mitxelena ez da jakite-gaietan ezjakin eta jakin badakizki hitz horien osamodu-esanahiak. Ezaupide honi gaineratuz gero erdal bibliografian irakurtzen dituen hitz-adigaiak euskaraz eman gogo dituela, badirudi hiru bide dituela aukeran[47]:

a) bere horretan hartu, hots, hitz horien aztersaiorik gabe euskal testuetan txertatu nahiz grafi moldadurak edo eginez itxuraldatu,

b) aztersaioa aurrera eraman eta euskal ordaina eratzeari ekin eta "hibrido"[48] direlakoak mamitu,

c) euskal iturri soiletara jo.

Azterlanean zehar erakutsiko da hitz ikasiotan ez ezik berezituetan oro zein baliabide usatu dituen Mitxelenak, han ikusiko dira kokaturik, beraz, besteak beste, *savant* direlakoak.

Geroko kokatzeak, ordea, aldez aurretikako gutxieneko eskakizun du hitz ikasi horrek euskal bideko nolabaiteko itxura-aldakuntza nozitua izana.

Hemen bilduak, ordea, ez dira horrelakoak. Hitz ikasiok euskal itxuraldaketarik gabekoak dira. Halaz ere, aurrean izan behar da badirela erdal aurrizkidun hitzak (*arkifonema, diasistema*...). Hauek berriz ere azterkizun hartuko dira, berariaz ikertuko den "zenbait erdal aurrizkiren zenbait euskal ordain" deituriko kapituluan.

Nolanahi ere –gure hiztegiko errankideak dei daitezke lekuko–, behin baino gehiagotan ikusiko da forma pareez, kideez edo ordainez hitzegin beharko dela, erdal hitz ikasiak eta euskal bideko sorkariak osaturik.

Bihoaz, adibide batzuk adigarri:

Hau dela eta, besteak beste, Scalise-k (1987:69) nahiago du "oinak" (*tema*), (*combining forms*, Marchand 1969_2:131) eta benetako aurrizki-atzizkiak berezi.

Mugen labainaren beste erakusgarriak: Marchand (1969_2:131-134) eta gure "zenbait erdal aurrizkiren zenbait euskal ordain" kapituluan jasoak.

[47] Hiru prozedurak erabil daitezkeenak –hobeto esan– darabiltzanak. Aukera batek ez dakar ezinbestean bestea arbuiatzea; gradu-kontua ere tartean da, noski.

[48] Guilbert (1971:LXVI, 1975:228), Adams (1973:129), Azkarate (1988).
Elkartuen kasuan "exoelkartuak" *LEF-4* (1992:101-102).

arkaismo, neogramatiko, neologismo, toponimo

erabilien ondoan,

hitz zaharkitu, gramatiko berri edo gazte, hitz berri eta leku izen

ere, hurrenez hurren, erabili ditu osagaien partiketa ez eze iraulpena ere mamituz.

Nolarebait bereiz daitezke lehengo zerrenda osoko ondokoak:

Hitz ikasiak eratzeko greko-latinoetatik oinak hartzen dituzten hizkuntzek nabari duten elkarketa-mota berezi baten ondoriozko sorkariak dira, hizkuntza hauetan gertatzen baita erroak elkarketan hartzen duen itxura ezin topa daitekeela modu horretan erabiltzen ez denean[49].

Lagin honek bide ematen du, hain justu, Mitxelenaganako egokitze-graduak urratsez urrats ikusten joateko.

Bere horretan, egokitzapen ortografiko soilez, urratsik apalenez, erabiliriko:

anglo-sajon, etno-linguistika, glotokronologia, iberokaukasiko, makrolinguistika[50], metafisika, morfo(fo)nologia, morfofonologia, morfofonologiko, morfonologia, neurofisiologia, psiko-linguistika, serbokroata, soziolinguistika, sozio-linguistiko, zeltiberiko

hitzen ondoan, elkartu ikasiari eutsi baina hitz-amaiko soinu-egokitzapena nozitu duen:

anglosajoi

hitzetik pasa.

---

[49] "En mots compostos com *democràcia, aerodinàmic* o *androfòbia*, el primer component de cada mot prové d'un element lèxic grec -*'dêmos'* (poble), *'aer, aeros'* (aire) i *'aner, andros'* (home), respectivament- que no ha estat mai afix grec sinó radical nominal. El català els empra com a radicals, però com a radicals especialment condicionats. No poden aparèixer fora de la composició. Això mateix succeeix amb el primer element del compost nominal *sociolingüística* i dels compostos adjectivals *anglo-català* o *catalano-germànic*". (Cabré-Rigau 1987$_2$:154).

[50] Zenbait erdal hiztegitan lehen osagaia aurrizki moduan aurkeztuagatik, Scalise-k (1987:90), Siegel-en (1974) lidotik, benetako hizkiak eta oinak (*tema*) bereizteko aipatzen dituen baldintzetako bigarrenaren arabera benetako aurrizkiduntzat ezin jo litzateke:

"(b) Las unidades en cuestión se pueden <extraer>. Podemos decir, por ejemplo, *no importa si son filo o antisoviéticos* pero, cuando nos encontramos con <verdaderos> afijos, esto no es posible: **no sé si debería estar des o revalorizado*".

Moldamoduaren beste urrats bat adieraziko lukeen

indo(-)europar[51]

hitzean, arestikoek bezalako elkarketari eutsiegatik, euskal eratorbidean sartua da (eta han aztertuko da beste eratorrien artean).

Eta, azkenean:

indieuropar[52]

forma, jatorrizko elkarketa bera aldatzeraino iristen dena. Azken hau elkarketan eta eratorpenean aztertuko da.

Aurkeztu den katean, lehen eta bigarren urratsetan geldituak etsi dira "soil" edo "bakun", euskal moldabidean sarrera duen momentutik (hibrido denetik), mamituriko prozeduraren arabera atal batean nahiz bestean aztertuko baita.

12.2.2. Egokitzapenak

Lehen papereratzen ziren mailegua finkatzeko eragozpenak eragozpen, hitzek nozitu dituzten egokitzapenak berariaz hona ekarriko dira –arestikoak bezala, kokalekuz hornituak aukeran bat baino gehiago daudenean–, Mitxelenaren hizkeraren ispilu direlako eta euskara estandar izkribuzkoari begira, argibidea eman dezaketelako.

Ikusiko den bezala, azterlanaren beste ataletan (eratorbidean, elkarketan...) kokalekua izango dutenak ere aldizka hona aldatuko dira, egokitzapenaren aldetik adierazgarriak direla etsi bada.

---

[51] "Un procédé général dans le cas de mots de forme populaire, consiste à prendre la forme savante pour base de la dérivation". (Guiraud 1968:85).

Indieuropar hizkuntzek *populaire* delakoak eratzeko baliabidea eta, seguruenik, baita jatorri bereko ez diren hizkuntzen egokitzapen-gogoaren sinalea, halako hizkuntz mailak berezi gabe, erantsiko genuke.

[52] Argitaraldiezko lesaldnean diogun bezala, azken argitaraldian besterik ez dateke irakur *indi-europar* marratxodun moldea.

12.2.2.1 "g" / "j" / "ts" [ć] / "x" [š]

filogenia, genetika, genetiko, genitibo[53], geografia[54], georgiar (georgiera)[55], logika[56], logiko[57], logistiko, ontogenia

aljebra[58], ejenplu, jeneral[59], jeneratibo[60], jenerazio[61], jenero[62], konberjentzia[63], marjinal[64], orijinalitate[65]

etsenplu, exenplu[66]

---

[53]*HLEH*-k: 1712.

[54]*HLEH*-k: 1872.

[55]Eratorbidean aztertuko ditugunak.
HLEH-k, **georgiar** eta **georgieraren** lehen data -1975ean ezartzen du.

[56]*HLEH*-k: 1761.

[57]Eta eratorbidean berriz ere papererako den *logikari*, elkartuen artean kokatuko diren *logiko-formal* eta *logiko-matematiko* izenondoekin batean.
HLEH-k: 1720.

[58](1972b4:65) (M).
HLEH-k: 1930.

[59](1972b0:23), (1972b3:51), (1972b4:73 bitan,74,81), (1981c:138,164), (1983a:52).
Eta *jeneralizatu, jeneralizazio, jeneraltasun*, eratorbidean ikusiko direnak.
HLEH-k: 1545 ematen du lehen lekukotzat.
Bestetik, berriz, zokoratzekoa ez da euskal *erabateko* baten ordainez ematen duen beste moldea:
"... behar-beharrezkoa dugu erabateko hiztegia (<general> esan nahi dut)...". (1968a:75).

[60](1972b4:70,72,73,82 bitan).

[61](1972b4:74,82).
Atzizki hau jantzi duten besteak bezala, eratorbidean ikusiko dena.

[62](1972b5:120 (M),121 (M),130 bitan).
HLEH-k, **genero** ezartzen du leman (1761).

[63](1978a:28).
Hau eta atzizki bera duten kideak eratorbidean ikusiko dira.

[64](1972b0:24 bitan).

[65](1972b3:52). Hau ere eratorbidean ikuskizun.

[66]Hauek biak eta goiko *ejenplu*, aldaeretan ikusiko dira.

. -logia

analogia, apologia, biologia, dialektologia, etimologia, etnologia, filologia, fisiologia, fonologia, glotokronologia, kronologia, metodologia, morfo(fo)nologia, morfologia, neurofisiologia, sikologia, terminologia, tipologia

... eta *-logia* azken-buruz dutenetan eta antzekoetan, *g* gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan: *jeolojía*, etc., hobeak lirateke belarriarentzat[67]; ez, ordea, begientzat. Eta hizkuntza idatzia begiek jasotzen d- - bestek baino lehenago. (1968d:149).

. -logo

antropologo, biologo, etnologo, filologo, fisiologo

Euskaltzaindiaren (1986) erabakiari begira, ez dakigu bigarren multzokoak (*jenero...*) beti aise lotzen ote zaizkion arauari.

12.2.2.2. Hitz-hasierako egokitzapenak

*** i-

inkesta[68], istudio[69], izkribu[70] (iskribu], iskritu]) baina ezkribu] ere bai.

*** err-, arr-, irr- / r-

arrazoi[71], errealitate, erredukzio[72], errefrau, erregela, errepikatu, erretoriko, erromaniko, erromanizazio, erromantiko, erromantizismo, erromantze, erruso[73]

---

[67] Jat. *beharriarentzat*.

[68] (1961c:138). *HLEH*: 1906 baina Mitxelenak darabilen adieran, 1977.
Eta *inkestagintza* (1983e:134), *inkestagile* (1983e:134).

[69] (1968d:136). *HLEH*-k ez dakar.
Gehi *istudiatu* (1958h:99).

[70] Eta eratorbidean aztertuko den *izkribatzaile*.
Laukotea beherago ikusiko da.

[71] Euskaltzaindiak (1975) *arrazoi(n)* dakar.

[72] Hau eta beheragoko *-zio* atzizkidunak, eratorbidean ikusiko dira.

[73] Beherago *rusorekin* aurkez aurk.

razionalismo[74], rema[75], romanista[76], ruso

. rel- / erl-

errelatibitate, errelatibo

erlatibo

Jakina denez, euskal hitz[ik] ezin zitekeen besterik gabe dardarkari batez hasi (Txillardegiren hitzez ballatzen naiz), eta beste horrenbeste gertatzen zen iberikoz, testuak lekuko: hor daude *arrazoi, errota, Errioma* eta abar. Eta hemen bertan galdera bat, gerokoen aitzindari, egiteko gogoak hartu nau. Oraindik, zaharrek bederen *arraza, erreparatu, errezeta, errezibitu, errifa, erroskila, Arroxa* edo *Erramun* esaten segitzen dugun bezala, ez gaude oso segur ugaritzen ari den beste kasu samalda batean nola joka: erregela mugatu egin behar ote dugu ala zabaldu? *Errepublika* eta *erromantiko*, tira, baina *errima, errimo* ere bai? Azkenik, *erretorika* behar genuke ongi herrikoa den *erretolika*-ren aldamenean? (1979g:180).

Euskaltzaindiak (1975) *balio erlatibo* paratu zuen zerrendan.

Euskaltzaindiaren (1986) arabera, horko *errelatibitatek*, *erlatibitate* behar luke. Eta erakundearen gogobideari jarraiki, pentsa daiteke, horko *r-* hasiera dutenak, apika, ez dutela bestek bezalako irensterik izan, ez zaizkiola horrela begitandu Mitxelenari, bederen.

*** Hasierako leherkariak. "Muta cum liquida"[77]

.p + l: planteatu, pleonasmo, plural

.p + r: pragmatika, predikatu, prediku, prehistoria[78], primitibo, proba, problema, propio, prosa, protasis, protoeuskara[79]

.t + r: tradizional, transformatibo, transformazionalista, transitibo, transkribatu, trasformatibo

.k + l: klase, klasiko

.k + r: kriollo, kritika, kritiko, kronologia

---

[74](1972b1:34).

[75](1981c:165).

[76](1978a:30).

[77]Bokalaren aurretik, joera orotarikoa leherkari ahoskabeei eustea denez gero, ez ditugu horiek hona aldatuko, leherkari ahostuna duten adibide batzuk salbu.
Hitz-hasierako multzoa dutenei erreparatuko diegu nagusiki.

[78]Erdal aurrizkien ordainezko atalean berriz ikusiko dena.

[79]Hau ere erdal aurrizkidunen artean aipatuko dena, *protogrekorekin* batean.

.b + l: bloke

.g + l: glotokronologia[80]

.g + r: gradu, grafia, gramatika, gramatikal, greko, griego

.d + bok.: denbora

.g + bok.: gako, garraisia, garraxi, gaskoin, gatazka, gate, gaztelania, gonparatu[81]

Hasierako kontsonante bilkurak hauen ahoetan gordetzen ziren bitartean, ez zuen hitzak arrotz kutsua galtzen. Gai zezan, beharrezko zen bilkura horiek, kontsonanteren bat baztertuik, bien artean bitartekoren bat sartuik, deseglitea. Horrela etxeko zitezkeen silaba *muta cum liquida* direlakoekin hasten zenean latinez, hots *pluma*-tik *luma* edo **cleta*-tik *gereta* sortu zenean. Gero, guztiok dakigunez, hizkuntzak bilkura horiek ontzat hartu ditu, hitzak ez ezik (...) Berretu ere egin dira gure artean, jatorrizko bideetatik kanpo etxean sortu zaizkigunean (...) Bakuntze horien aldia aspaldi iragana dugu. (1979g:180).

Neure aldetik, badira batzuek besteak baino errazagoak eta atseginagoak: cf. *primu* (eta hitz hasieran agertzen dena hitz barruan agertzen da: ez alderantziz nahi eta ez). (1985c:193).

*** ps-

psiko-linguistika[82]

sikologia[83]

Nik, egia esan, lehen bidea [etorkizko itxura lelaiki gordetzea, alegia] hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-erdira behintzat, *y, kh, th (psykhologia*, etc.) eta gisa horretako idazkerak baztertuaz. (1968d:148).

Hona zer egin dezakegun, okerrenera jota: *ps* idatzi eta *s* hutsik ebaki, gaztelaniaz maixukerian ez dabiltzanek egiten duten arabera. (1979g:181).

Besteetan (hots, (...) *ps-* (...) neure adineko jendea soiltzera makurtuko litzateke eta antzinako kemen horrek iraungo balu, soilduko lirateke. (1985c:193).

Jokamolde bien adigarri bana, beraz.

---

[80]Gehi grafikoki nabarmentzen duen -beraz, beherago ikusiko den- *glide*.
Ikus, halaz ere, beheragoko *ingeles*.

[81]Beraz eratorbidean ikusiko den arren, toki berean ikusi ere egingo den *konparaturen* alboan jartzekoa.

[82](1972b3:60) (M).
Eta *psikoanalista* (1984b:35) aztergaitik kanpokoa.

[83](1972b3:52,55,56,57 hirutan).

12.2.2.3. Hitz-barruko egokitzapenak

12.2.2.3.1. Bi kontsonantek topo egitea

> Kontsonante multzoak berez soilduko lirateke, euskaltasunak (gorde ez duen) lehengo indarra gorde balu. Neure aldetik, badira batzuek besteak baino errazagoak eta atseginagoak: cf. *primu* (eta hitz hasieran agertzen dena hitz barruan agertzen da: ez alderantziz nahi eta ez), *atrlaka, dulabre, duple* (*-tl-* bakan azalduko da, ez baitzuen latinak berezkorik, are gutxiago *-dl-*). Zenbait hitz ikasik (*atleta*, etc.) ez dio inori belarriko nahiz begiko minik emango.
>
> Bestetan (hots, *-pt-* eta *pt-*, ... *-ps-* eta *ps-*, ...*-sz-*, *-kn-*, *-mn-*) neure adineko jendea soltzera makurtuko litzateke eta antzinako kemen horrek iraungo balu, soilduko lirateke. (...) Kontsonanteak bi baino gehiago direnean, murrizteko hobe. (1985c:193).

*** -nn-

innatismo[84]

Mitxelenaren iritzia eta Euskaltzaindiaren (1986) erabakia, bi sudurkari desberdinei dagokie, ordea.

*** -kt-, -pt-

abstrakto, aktibo, astrakto, dialekto, dialektologia, dialektu[85], estruktura, estruktural, estrukturalismo, estrukturalista, indirekto, perfekto, sintaktiko[86]

adjetibo[87], autore[88], dotrina[89], sujeto, subjetibo

diptongo, konzepto, konzeptu[90]

---

[84](1972b4:74 bitan).

[85]Bikoteaz, beherago.

[86]Gehi beherago aldatuko diren *espektro, espektrograma*...

[87]*OEH*: **adjetibo, *ajetibo*** (Urt), ***adjektibo***. Lehen aldaera Kardaberazena da (1761) eta azkena, berriz, Sarako Ebaristorena (1712).
HLEH-k ere: 1761 eta *adjektibo* 1712. Honezaz gain, *adjetivu* 1956.

[88]*OEH*: **autore** (Urt), **autor** (Urt). Bigarrenaren testigutza zaharragoa da (Leizarraga) lehenarena baino (Kardaberaz).
HLEH-k ere, 1761 alboratzen dio **autore** lema hautetsiari eta *autor* 1571 aldaeraz osatzen.

[89]*HLEH*: 1621. Halaz ere, 1545eko *doktrina* ere jasotzen du **dotrina** leman.

[90]Bikoteaz, beherago.

Nik bidezkotzat aitortuko nuke erderatikako[91] hitz berrietan *v* gordetzea eta kontsonante multzoak[92] aldatu gabe uztea, nahiz ez zorrozki agindu: *vektore*... (1968d:149).

Hor[93] ez dago, itxuraz, bi jokabide baizik. Bikurok bertan behera utzi, inguruko hizkuntzetan bezalatsu, *k/c*-ren aldaera gora-behera. Bakundu, bestela, eta bakuntzeak hemen lehen kontsonantea baztertzea esan nahi du. Italieraren arabera jokatzea, beraz. Italieraren irudira, haiaz guztiz, eta ez italierak bezala, gurean ez diren kontsonante bikoitzak ezagunak baitira han: *concetto* esan dezakete, adibidez, esan edo idatzi, gu *kontzetu* soilean gelditzeko ginatekeen bitartean. (1979g:181).

Bestetan (hots, *-pt-* eta *pt-*, (...) neure adineko jendea soiltzera makurtuko litzateke eta antzinako kemen horrek iraungo balu, soilduko lirateke. (1985c:193).

Oro har eta puntu zehatz honi dagokionez, esan daiteke Euskaltzaindiak (1986) ez zuela bide honetatik jo, soiltzera ez baina bere horretan eustera makurtu baitzen[94].

Aztergaiko gehienak ere, ikusi bezala, Euskaltzaindiaren gogobidean koka daitezke.

*** -kn-, -gn-, -gm-

teknika, tekniko

signifikante

pragmatika, sintagma, sintagmatiko

Bestetan (hots, (...) *-kn-* (...) neure adineko jendea soiltzera makurtuko litzateke eta antzinako kemen horrek iraungo balu, soilduko lirateke. (1985c:193).

Euskaltzaindiaren (1986) arabera, haatik, kontsonante-multzoa gorderik. Halaxe moldatuak dira aztergaikoak.

Erakundeak berariaz aipatzen ez dituen -tm- eta -tn- multzoen adibideak ere ikus daitezke aztergaian:

algoritmo

etno-linguistika, etnologia, etnologo

---

[91] Jat. *erderatikako*.

[92] Jat. *kontsonante-multzoak*.

[93] Jat. *or*.

[94] Euskaltzaindia (1975) *arkitekto, insektu* edo *injektore* bezala.

*** -dj-, -bj-

adjetibo[95]

subjetibo[96], subjuntibo[97]

sujeto[98]

Kontsonante biak gordetzen dituztenak (*sujeto* ez beste guztiak, alegia) Euskaltzaindiaren (1986) arauari atxikitzen zaizkio.

*** -sz-

disziplina[99]

Errazenik, *sz* bihur daiteke *z*. (1985c:193).

Euskaltzaindia (1986), haatik, eusteari makurtu zitzaion eta molde honetakoa da, hain justu, Mitxelenagandik jasoa.

*** -pz-, -kz-, -ps-, -ks-, -bs-

deskripzio[100], perzepzio[101], transkripzio[102]

---

[95](1972b0:26 bitan).

[96](1972b3:57), (1972b5:123).

[97](1972b4:94).

[98](1972b1:30 bitan,31), (1972b3:57 bitan,58) (1972b4:72,85 lautan (M)), (1981c:164 hirutan).
Errepara kasu guztietan hitz-barneko iturburuko *-kt-* soltzera jo duela. Ez dugu *adjektibo* edo antzekorik atzeman.
Euskaltzaindiak ere (1975) honelaxe aldatu zuen.

[99](1972b0:23).
Baina *kontzientzia* (1972e:159).

[100](1972b2:48), (1972b3:58), (1972b4:70,71,79 bitan).

[101](1972b5:125,129).

[102]Hirurak gehi beste *-zio* atzizkidunak, eratorbidean aipatuko direnak.

traskrizio[103]

akzidente[104], erredukzio[105], indukzio[106], introspekzio[107], okzitano[108]

sintaksis][109]

elipsis[110]

absoluto[111], abstrazio[112][113]

Ez dugu Euskaltzaindiaren puntu zehatz honezazko arau-gomendiorik aurkitu baina (1975)eko zerrendetan, *dedukzio, indukzio* irakur daitezke.

*** -tl-, -kl-, -gl-

atlas[114]

enklitiko, nomenklatura, oklusibo

erregela, ingeles

---

[103]Bikoteaz, beherago.

[104](1972b0:26).

[105](1972b3:60,61).

[106](1972b4:71) (M).

[107](1972b3:56,57).

[108](1964c:71).

[109]Ik. beherago, "X" letraren ingurukoa.

[110]Ik. aldaerazko puntua.

[111](1972b1:32).
OEH-k, lema bikoitza paratzen du: **absolutu, absoluto**. Lehena, 1780koa, bigarrena, Mirandorena.
HLEH-k, aldiz, **absoluto** galtzetsi eta **atsolutura** igortzen du. Lema honi, *atsoluto* 1975, *absolutu* 1957, *atsolûtoki* *1926, *atsolutuki* *1953, alboratzen dizkio.
Euskaltzaindiak (1975) *bailo atsoluto* landatzen du zerrendan.

[112](1972b5:115).
OEH-k, **abstraikzione** besterik ez du jasotzen, Villasantegandikakoa.
HLEH-k ez dakar.

[113]Gehi beheragoko *abstrakto, estrakto*.

[114](1963e:125,126,132,136), (1965a:111).

Neure aldetik, badira batzuek besteak baino errazagoak eta aseginagoak: (...) *atriaka, dulebre, dupla (-tl-* bakan azalduko da, ez baitzuen latinak berazkorik, are guttiago *-dl-*). Zenbait hitz ikasik (*atleta*, etc.) ez dio inori belarriko nahiz begiko minik emango. (1985c:193).

Mintzagaia *atlas*en bukaerako *-s* hori badu ere, Euskaltzaindiak (1975, 1986), *atlas* hitza, hain zuzen ere, jasotzen du. Ez dugu, haatik, aurkitu era honetako kontsonante-multzoentzako egokitzapen-eredu berariazkorik.

*** -n, -r + txistukaria

entsegu, frantses, kontserbadore[115], kontsonante, zentzu

intransitibo[116], transitibo[117]

diferentzial, enpresantze, esperientzia[118], funtzio) (funtzio)]][119]), funtzional, sustantzialista, zentzu

konjuntzio[120], konzepto[121], konzeptu[122]

pertsona[123], pertsonaia, pertsonal, unibertsal

perzepzio[124]

Nik, beraz, bestek besterik nahi duelarik beharbada, *tz, ts, tx* sartuko nituzke, ohiturari jarraio, testuinguru ezagun horietan, *n* idatziko nuke bestetan *m*-ren ordez, *p*, etc., + *h*, eta kontsonante bikoitzak bakunduko (*p* nahiz *f*, etc., *k*, etc., idatziaz *Hitzak euskaldundu ahala*. Kanpotikakotzat agertzea nahiago badugu, berriz, dauden daudenean geldi bitez. (1985c:193).

---

[115] Eta *kontserbazale*.

[116] (1972b2:48).

[117] (1972b1:31), (1972b4:85).

[118] Eta bukaera hau bera dutenak: *herentzia, konberjentzia, konkordantzia, konpetentzia, korrespondentzia, sustantzia, zientzia*... Ik. eratorbidea.

[119] Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[120] (1972b1:29).

[121] (1972b5:126).

[122] (1972b5:125,129).
Baina *kontzillo* (1978a:31) aztergaitik lekorakoa.

[123] Euskaltzaindiak (1975) bezala.

[124] (1972b5:125).

Euskaltzaindiaren (1986) erabakiaren arabera[125], badirudi *n* eta *r* (eta hemen topa ez daitekeen *l*) ondoko txistukariak, oro har[126], afrikatu behar duela, eta halaxe gertatzen da hemengo kasurik gehientsuenetan ere. Alabaina, badira arauaz kanpokoak: *konjunzio*, azken aipatu *perzepzio, intransitibo, transitibo* bikotea[127] edo lehen argitaraidiko *funzio*.

*** -sk-

eskema[128], eskolastiko, eskolastika

Euskaltzaindiaren (1986) bidetik.

Hemen eranstekoak ote: izkribu (iskribu], iskritu] eta ezkribu]?

12.2.2.3.2. Bi kontsonante baino gehiagotako multzoak

abstrakto, abstrazio

izkribu (iskribu], iskritu], ezkribu]

espektro, espektrograma

instrumental, transformatibo, transformazio, transkribatu, transkripzio[129]

subklase, subsubklase[130]

astrakto, sustantibo[131], sustantzia[132], sustrato[133]

istant, kostituzio[134]

---

[125]Halaz ere, Euskaltzaindiak (1975) *insektu, insektizida* ezarnak zituen.

[126]Hala diogu lau salbuespen ahotan hartzen dituztelako. Ik. *Euskera* 2. aldia XXX, 1985:465.

[127]Guztiak, *Zenbait hitzaldi*koak eta Mitxelenaren irakaspaperetan irakur ez daitezkeenak.

[128]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan.

[129]Azken hirurok eratorbidean ikusiko direnak.

[130]Erdal aurrizkien ordainetan ikusiko direnak.

[131](1972b0:26), (1972b5:129).

[132](1972b0:26 hirutan), (1972b3:56 hirutan), (1972b5:121 bitan,131).

[133](1978a:34).

[134](1972b5:131) (M).

trasformazio, traskrizio[135]

Euskaltzaindiak multzo hauek ahotan hartu zituenean (1986), euskaran aspalditik erroturikoetan (horko *sustantzia*, *istant*, esate baterako) ez beste guztietan kontsonante guztiak gordetzearen alde egin zuen trabes[136].

Hemen ikus daitekeen bezala, ez da halako erabateko jokamolde finkorik egiaztatzen. Areago, azkenaldiko artikulu batean, orrialde berean, bietara moldaturik ikus daiteke kontsonante-multzo bera: *traskizio, transkribatu*.

Atzentzekoak ez dira arestian jasoriko Mitxelenaren hitzak.

12.2.2.4. Hitz-bukaerako egokitzapenak

**** -o / -u

. -o

ablatibo, adjetibo, aktibo, akusatibo, diminutibo, erlatibo, errelatibo, genitibo, infinitibo, intransitibo, oklusibo, posesibo, primitibo, subjetibo, subjuntibo, sustantibo[137] transitibo,

analfabetismo, arkaismo, erromantizismo, estrukturalismo, formalismo, homomorfismo, idealismo, innatismo, isomorfismo, materialismo, mekanismo, naturalismo, neologismo, razionalismo, sinbolismo,

italiano, okzitano

absoluto, alfabeto[138], algoritmo, analfabeto[139], apostrofo, bertso[140], dato[141], dialekto,

---

[135]Hauek ere eratorbidean ikusiko dira.

[136]1975eko zerrendako *inspektoreren* iritzia.

[137]Euskaltzaindia (1975).

[138]*OEH*-k Kardaberaz deitzen du aitzindari.
HLEH-k ere 1761 ezartzen du.
Euskaltzaindiak (1975), aitzitik, *alfabeta*.

[139]*OEH*-k, Kirikiñoren 1930eko lana ematen du.
HLEH-n, aitzitik, 1973 irakurtzen ahal da.

[140]Euskaltzaindiak (1975), *bertsu, bertso*.
OEH: "**bertso, berso, berts** (Urt I 69, Hb ap. Lh, H, *-tsū* Casve), ***bersu, pertsu***". XVII. mendearen hasieratik.
HLEH-k, aldiz hau duenean, **bertsu** bertzat eman eta **bertsora** igortzen du. Hemen, "1745, -1840; *bertsu* 1627 paratzen du.

[141]*HLEH*-k ez hau ez honen baliziko aldaerarik dakar.

diptongo[142], epigono, erruso, eslabo, espektro, esperanto[143], estilo[144], estrato, falsako, femenino, feminino, fenomeno, greko, griego, hungaro, indirekto, isomorfo, istudio, jenero, joko, kalkulo, kodigo, konplemento, konzepto, lumero[145], maskulino, metodo, modelo, neutro[146], partizipio, perfekto, pleonasmo, polako, porteño, postulado], propio, ruso, sardo, sinbolo, sinonimo, sujeto, sustrato, teatro, testo], tipo, topiko, toponimo, umbro, veneto.

. -u

argumentu[147], azentu[148], dokumentu[149], elementu[150], esperimentu[151], mementu, momentu

artikulu[152], kalkulu, kapitulu[153], titulu

dialektu, doinu[154], ejenplu, entsegu[155], etsenplu, exenplu, fenomenu, foku, gradu[156],

---

[142]*HLEH*-k, 1571n aurkitu du lehen moldezko lekukoa.

[143]*HLEH*-k, 1932 ematen du lehen agerraldiztzat.

[144]*HLEH*-k hauxe du lema eta 1926.ean kokatzen estreinakoa.

[145]*HLEH*-k lumero gaitzesten eta numerora igortzen du. Azken honetan, 1627 urtea irakur daiteke.

[146]*HLEH*-k: 1977.

[147]*OEH*-k: "**argumentu** (Urt, *-ment* VocBN), **argumendu, *argumenta*** (Urt)".
HLEH-k ez dakar.
Euskaltzaindiak (1975) jasoa, baina lan berean *departamendu*.

[148]*OEH*-k, Leizarraga alboratzen dio.
HLEH-k, berdin.
Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan ere *azentu*.
Oroi, halaz ere, *azentoera* lehen argitaraldikoaz (1972b3:51). Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[149]*HLEH*-k, 1930 baina *dokumento* 1904 eta *dokument* 1856 ere eransten dizkio lemari.

[150]*HLEH*-k: -1760 eta *element* 1545.

[151]*HLEH*-k: *1562, 1959.

[152]*OEH*: **artikulu** (SP), ***artikulo*** (Lcc).
Adibideetan, lehen **artikulu** Leizarragarena da eta beste aldaerarena, berriz, 1729koa.
HLEH: **artikulu** (1571), *artikulo* *1562.

[153]*HLEH*-k: 1617.

[154]*HLEH*-k: 1803, *tonu* 1571.

[155]*HLEH*-k molde hau gaitzetsi eta **entsetura** igortzen du. Honetan, 1571.

[156]*HLEH*-k: 1627; *grado* 1545.

izkribu (iskribu], iskritu], ezkribu]), joku, kasu[157], konzeptu, kontu[158], metodu, modu[159], prediku, puntu[160], sostengu, testu, tratu, zeinu, zentru, zentzu

Euskaltzaindiaren (1986) zerrendan, horko *ablatibo* (eta saileko guztiak heda dakieke), *neutro* (eta jatorri berekoak) eta *dialekto, zentro*[161] ezartzen ditu zerrendari, batetik.

Bestetik, berriz, *kalkulu, titulu* (eta etorkizko gibel berekoak), *dokumentu* (eta etorkizko amai berekoak), *testu, kontzeptu* irakur daitezke zerrenda horretan.

*** -is / -i

analisis[162], elipsis[163], hipotesis, parafrasis[164], parentesis], protasis[165], sintasis, sintaxis

analisi, enfasi, epentesi, hipostasi, hipotaxi, hipotesi, parentesi, sintaksi], sintasi, sintaxi[166]

Euskaltzaindiak 1986an, eskuarki amaiko *-is* > *-i* erabaki zuen.

*** -al / -ale

. -al

artifizial, bokal[167], diferentzial, estruktural, formal, funtzional, gramatikal, ideal[168], indibidual,

---

[157] *HLEH*-k adiera honezaz, 1712; erabilesparru murriztu gabeaz, 1627 eta 1643.

[158] *HLEH*-k, *1562, 1571; *kondu* 1545.

[159] *HLEH*-k: 1596.

[160] Euskaltzaindia (1975), berdin.
Eratorbidean kokatuko den *puntuazio* erants dakioke.

[161] Honezaz, haatik, argitzen du Axularrek *zentru* zerabilela.

[162] Bikoteei beherago erreparatuko zaie.

[163] Eta beherago aldatuko den *elipsis*. Ikus aldaerak.

[164] (1972b5:128).

[165] (1981c:158).

[166] Honen gainekoak beherago xehaki aztertuko dira.

[167] Hau eta beheragoko *bokale, seinale* izenak izanik ere, multzo honetan sartu ditugu, bukaeraren egokitzapenaren kariaz.

instrumental, inesi, jeneral, marjinal, material, modal, natural, neutral, normal, ofizial, pertsonal, plural[169], tradizional, unibertsal

. -ale

bokale[170], seinale[171]

Euskaltzaindiaren erabakiz (1986), *-al* bukaera hobetsi zen, Mitxelenak gauzatua erakusten duen bidean, hain zuzen ere.

Salbuespentzat jo daitezke azken biak, baina *seinale* ihartutzat eman daitekeela dirudi.

*** -ore

autore, kolore, kontserbadore

Euskaltzaindiaren (1986) araupekoak.

*** -ar /-are

singular

Euskaltzaindiaren (1975, 1986) araberakoa.

Alabaina,

pare

ihartutzat jo daitekeena ere hor dago.

---

[168]Baina *ideia*.

[169]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoa.

[170]Ikus beherago *bokal / bokale* bikotsazkoa.

[171](1964c:72), (1972b4:74,88 (M),105 (M)), (1978a:43), (1978c:162,169), (1983a:69), (1984b43), (1985c:183), (1985d:79), (1986c:174).

*** -ario

literario

Hau ere Euskaltzaindiaren (1986) araberakoa.

*** -on / -oi / -oin

arrazoi, anglosajoi, patroi

anglosajon, hiperbaton

gaskoin

*** -z

boz, matriz

12.2.2.4.1. Hitz-bukaera aipagarriak

Hitz-bukaeraren egokitzapena ere estaltzen duen baina harantzago doan beste puntutxo biren berri emango da orain.

Batetik, adjektibo erreferentzialak eratzeko erdaraz erabiltzen dituzten zenbait[172] atzizkiz osatuak eta euskaraz ere bere horretan –grafi egokitze soilez– hartuak aldatuko dira[173].

Bigarrenik, kokagaitz gertatu diren hiru hitz.

12.2.2.4.1.1. Adjektibo erreferentzialen bukaerak

*** -iko (-ika)

akademiko, analitiko, antinomiko, atiko, automatiko, diakroniko, enkliitiko, enpiriko, erretoriko, erromaniko, erromantiko, eskolastiko (iz.), estokastiko, etimologiko, fisiko, fonetiko, foniko, fonologiko, genetiko, gotiko, gramatiko, historiko, iberiko, iberokaukasiko (iz.), klasiko, kritiko, lexiko

---

[172] *-al, -or* dagoeneko aipatu baitira.
Multzo honetatik ateratzekoak dira arestiko *bokal, bokale, seinale* izenak.

[173] Mikoelenak izen gisa bakarrik erabili badu, halaxe markatuko da hitzaren alboan. Marka-ezak izenondo soil ala izenondo eta izen moduan erabili duela adieraziko du.

(iz.), linguistiko, liriko, logiko, logiko-formal, logiko-matematiko, matematiko, mekaniko, metafisiko, metaforiko, metodologiko, metriko, neogramatiko (iz.), ontologiko, ortografiko, paradigmatiko, perifrastiko)], poetiko, sabeliko, semantiko, semitiko, sinkroniko, sintagmatiko, sintaktiko, sintetiko, sistematiko, sozio-linguistiko, tekniko, teoriko, topiko (iz.), ukroniko, zeltiberiko (iz.), zientifiko[174] (iz.)

Eta hauen ondoan, beste izen hauek ere aipa daitezke, guztiak, jakintza-jakiteen deizioetan erabili ohi direnak:

anatomika, etno-linguistika, fisika, fonetika, genetika, kritika, lirika, linguistika, logika, logistika, makrolinguistika, matematika, mekanika, metafisika, pragmatika, psikolinguistika, semantika, soziolinguistika, teknika, zibernetika

*** -es

albanes, aragones, frantses, gales, galiziar portuges, holandes, irlandes, japones, leones, neerlandes, sino-japones[175]

Guztiak mintzabideen deiturak; guztiak beraz izen gisa erabiliak (batzuk izenondo gisa ere bai, hiztegian egiazta daitekeen bezala).

*** -ista

diakronista (iz.), espezialista (iz.), estrukturalista, fonetista (iz.), helenista, humanista, indoeuropeista (iz.), konparatista (iz.), linguista, materialista, mentalista, modista (iz.), romanista (iz.), tomista (iz.), trasformazionalista

Lanbidea, zaletasuna adieraztekoak denak.

12.2.2.4.1.2. *lengoaia, mintzaia, pertsonaia*

Hiru hitzon gibelak ez du azterlanean kokaleku erosorik.

lengoaia[176], mintzaia[177], pertsonaia

---

[174]Gehi beheragoko erdal izurako *kartvelико*.

[175]Eta aztergaitik kanpo utziriko *polones* populuaren izena, *polako* lehiakide duena.

[176]*HLEH*-k **lengoaje** (1545) edo **lengoaia** (1643) landatzen ditu leman.

Hemen kokatu beharrean, hobeto egon daitezke, apika, eratorbidean[178], azterkatuko den *-aira* jantzi dutenen artean, amaia, hots-aldaeratzat joz.

12.2.2.5. "X" en inguruan

*** Bok. + "x" [-ks-] + Bok.

axioma[179], hipotaxi[180], lexiko[181], lexikografia[182], sexu[183], sintaxi, sintaxis, taxonomia[184]

esamina[185], sintasi, sintasis

sintaksi[186]

*** "x" + konts.

esperientzia, esperimentu, esplikazio, testu

---

[177] *HLEH*-k molde hau txarresten du eta **mintzairara** igortzen. Halaz ere, lekukotasunen arabera, badirudi galtzetsia zaharragoa dela, "XVII erdi aldean kokatzen baitu hau, bestea, 1712kotzat joz.

[178] Irigoienen (1977:526) usteari jarraikiz, alegia.
Honentzat, bukaerako hitz-atala atzizkia litzateke, atzizkitzat ere daukan *-aira/-aire*-ren jatorri bestelakoa lukeena, haatik: *mintzaira*-z ari delarik, oin-oharrean honakoa eransten du eta:
"Axularrek *mintzaia* erabili zuen beste sufixo beranduagoko bat daramala, *bidaia* hitzak bezala".

[179] (1972b5:118), (1978a:39).

[180] (1972b5:117).

[181] (1972b5:124).
Halaz ere, gogoan izan behar dira Mitxelenaren hitz honezazko ironiazkook:
"Esan dezadan, gerora gabe, egoera eskas hau ez dela euskal hitz-altxorrarena ("kultoegoek" "lexikoa" deitzen duten horrena)...". (1963f:187).

[182] (1972b1:29).

[183] (1972b5:120) (M).

[184] (1972b4:70), (1972b5:116), (1981c:165).

[185] (1972b4:75).
-a gibelekoduna, O. de Arin eta Mogelen moldekoa, alegia. Ik. *FHV* (1985_3:146).
Euskaltzaindiak (1975) **etsamina**.
HLEH-k, **esamina** galtzetsi eta **etsamina** zaharragora igortzen du. Hemen, 1664; *etsamen* 1665 alboratzen dio.

[186] Lehen ere esan bezala, aldaeren puntuan polikiago begiratuko zaie honi eta kideei.

experientzia][187]

Zerrenda honetan harrigarriena, agian, Mitxelenaren irakaspaperetan irakurtzen ahal den *sexu* hori da[188].

12.2.3. Aldaerak

Atarikoan esan bezala, sail honetan, Mitxelenak bi (edo gehiagotara) darabiltzan aldaerak zein diren eta non eta noiz erabili dituen[189] begiratuko da.

*** abstrakto[190] / astrakto

abstrakto: (1972b1:31) (M), (1972b2:41); (1972b3:52,58,60 hirutan); (1972b4:75,87 bitan).
astrakto: (1968c:89).

*** ageri / agiri[191]

ageri: (1972b4:67,99) (M), (1972b5:113,115,118,127), (1978a:27,35), (1981l:113)[192].
agiri: (1962f:83)[193].

*** agiri-1 / ageri-1[194]

agiri-1: (1978a:32,34), (1983a:50), (1984b:35).
ageri-1: (1961a:61).

---

[187]Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[188]Ik. beherago *sintaxi* eta ingurukoak.

[189]Erdal grafia / egokitua osaturiko bikoteez beherago ariko gara.

[190]*OEH*-k **abstraktu** leman, 1962ko Villasanteren lana aldatzen du estreinako.
HLEH-k, **astraktu** ezartzen du hiztegi-sarreran eta aldamanean, *astratu* 1960; *abstraktu* 1959 paratzen.

[191]Izenondoak.

[192]Gehi *agerian* (hamaseitan) eta *ageriko* seitan.

[193]Gehi *agirian*, hirutan eta *agiriko* beste bitan.

[194]Izenak, 'txosten', 'dokumentu' esanahikoak.

*** analisi[195] / analisis

analisi: (1972b1:30), (1961c:164), (1983e:135), (1984b:40).
analisis: (1972b1:30), (1972b:84 (M),85 (M),103 (M)[196]).

*** anglosajoi[197] / anglosajon[198]

anglosajoi: (1978a:31).
anglosajon: (1972b2:43 bitan).

*** axal / azal

axal: hogeita zortzitan[199].
azal: hamaseitan.

Ez dago adierazkortasunaren aldetik halako ñabardura berezirik eta berezitu gisa berdin darabiltza bata zein bestea.

*** bereizi / berezi[200]

*** biguin[201] / bigun

biguin: (1961a:55 bitan), (1983d:123), (1985a:113)[202].

---

[195] *OEH*-k ez dakar.
HLEH-k hau hautesten du lematzat nahiz honen lehen moldazko lekukotasuna, *analisis*ena baino geroagokoa izan: 1977 eta 1973, hurrenaz hurren.

[196] Azkena (1972b4:103), Mitxelenaren irakaspaperetako *analisis*, *analisi* bilakatua argitaraldi bietan. Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[197] *OEH*-k ez dakar baina anglesetik, angulesera igortzen du.
Ez du *HLEH*-n erreferentzirik.

[198] Aztergaitik kanpoko *magnetofon* (1958h:99) / *magnetofol* (1972b3:57) bikotea ere aurrean izatekoa da.

[199] Eta axaleko (hemeretzitan), axalezko (bitan) batetik eta azaleko (bitan) eta azalezko (behin). Ik. sintaxi-ballabideezko kapitulua.

[200] Ik. hiztegiaren sarrera.
OEH-k eta *HLEH*-k lema bitarikoa paratzen dute.

[201] *HLEH*-k biguin gaitzetsitik biguinera igortzen du eta han °1745, 1785; *bigun* 1596 landatzen.
Ez dugu Euskaltzaindiaren honezazko hautesterik kausitu.

[202] Gehi *biguinkeria* (1975b:87).

bigun: (1972b5:122), (1979g:177), (1983a:132).

*** bokal[203] / bokale[204][205]

bokal: hogeita lau aldiz.
bokale: behin besterik ez (1983d:121).

*** dialektu[206] / dialekto

dialektu: (1968d:136,145), (1972b2:46,47 seitan), (1972b4:103) (M), (1978c:172 bitan), (1981l:112), (1983a:57,61), (1985a:111).
dialekto: (1978a:27,28 bitan).

Lehen esan bezala, Euskaltzaindiak (1986), *dialekto* hobetsi zuen.

*** elipsis / ellipsis

elipsis: (1972b2:48 bitan) (M), (1972b4:102 bitan,103) (M).
ellipsis: (1972b4:97) (M)[207].

*** erlatibo[208] / errelatibo[209]

erlatibo: (1978a:27).
errelatibo: (1972b4:90) (M).

---

[203] *OEH*-k lehen adibidea Leizarragagandikakoa darama erakusgarri.
HLEH-k ere 1571 ematen du.

[204] *OEH*-k **bokale** badakar baina ez adiera honekin.
HLEH-k galtzesten du arestiko **bokal**en ordain izanez gero.

[205] Argitaraldiezko itsaskinean esan bezala, ez da zokoratzekoa *vokal* ere irakur daitekeela behialako Mitxelenagandikakoetan. Beherago zehaztuko dugu.

[206] *HLEH*-k hau besterik ez du jasotzen. 1761.

[207] Besteri lepora dakioke hitzaren erabilizea:
"Izena *ellipsis* zuen orduan; izana, oraingoxea".
Hurrengo orrialdean *l*-z eta inolako grafi ñaberdurarik gabe idazten du eta.

[208] *HLEH*: 1977. 1956ko *erlatibu* baten berri ematen du.

[209] *HLEH*-k ez dakar hau.

*** erruso[210] / ruso

erruso: (1981c:163), (1983a:66).
ruso: (1968c:90 bitan, 96), (1968d:137), (1971e:98), (1972b4:103) (M), (1972b5:124,131).

*** estatistika[211], estatistiko]] / estadistika, estadistiko]

estatistika: (1972e:158).
estadistika: (1968c:91)[212], (1972b1:32), (1972b5:131).

estadistiko: (1968c:91).
estatistiko, lehen argitaraldian ez dagoena[213].

*** esperientzia[214] / experientzia][215]

*** exenplu[216] / etsenplu[217] / ejenplu[218]

exenplu: (1972b2:40,47), (1972b4:80); (1979g:185).
etsenplu: (1971e:104,105).
ejenplu: (1959a:130).

Euskaltzaindiak (1968) *exenplo* hobetsi zuen.

---

[210] *HLEH*-k molde hau galtzesten du eta **errusierara** igortzen. Azken honek estreinako data 1977koa du. Ik. gure eratorbideazko kapitulua.

[211] *HLEH*-k, **estatistika** ematen du lematzat (1953), alboratzen dion *estadistika* aldaeraren urtea 1952 da, halaz era.

[212] Geroagoko argitaraldietan, *estatistika* bilakatua.

[213] Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[214] *HLEH*: 1571.

[215] Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[216] *HLEH*-k hau txarresten du eta **etsenplu** hobesten.

[217] *HLEH*: 1571.

[218] Ez dakar *HLEH*-k molde honen testigutzarik.

*** femenino / feminino[219]

femenino: (1972b5:120 bitan (M),121,130).
feminino: (1964g:182).

*** fenomenu / fenomeno[220]

fenomenu: (1972b0:27,28), (1972b1:32).
fenomeno: (1972b5:110), (1972b4:95).

*** froga[221], frogatu[222] / proba, probatu[223]

froga: (1972b1:32), (1978a:37), (1981c:140), (1981l:111), (1983a:51,55).
frogatu: (1971e:109), (1972b0:26), (1972b2:47), (1972b3:57), (1972b4:71,98) (M), (1972b5:132 bitan) (M), (1978a:28,37,40,44), (1978c:168), (1981c:145), (1985a:116)[224].

proba: (1961a:55).
probatu: (1959a:126).

Euskaltzaindiak (1968), (1975) *froga* besterik ez zuen zerrendan sartu.

*** garraxi[225] / garraisia

garraxi: (1968c:91).
garraisia: (1972b5:128).

---

[219]Ez bata ez bestea dakartza *HLEH*-k, feminismo eta feminista jasoagatik.

[220]Ez bata, ez bestea *HLEH*-n.

[221]*HLEH*: 1617. probarekin elkarganatzen du.

[222]*HLEH*: 1617. probaturekin uztartzen du.

[223]Aditzak eratorpenean berriz ikusiko diren arren, hona ekartzeko iritzi diegu, oinarriaren aukeraren aldetik.

Ohar honek ere balio du –ikusi eta ikusiko den bezala– beherago aldatuko *mailegatu/mailebatu*, *tra(n)sformazio* eta abarrentzat.

[224]Gehi *frogabide* (1978a:28); *frogagarri* (1981c:150); *frogakatea* (1983d:117).

[225]Gehi *garrasi egin*: (1972b4:74) (M).

HLEH-k, garraisi bazterretik garrasira igortzen du eta han 1761 ezarri. Hemen, halaz ere, lemaren urte bereko honako aldaerak irakur daitezke: *garraxi*, *garraisi*.

*** gate[226] / kateatu[227]

gate: (1968d:153), (1972b4:82,83 (M)).
kateatu: (1983a:48), (1984b:25).

Ez dugu *kate*arik, ez *gateatu*rik aurkitu hiztegi-gaian.

Euskaltzaindiak (1968) *kate(a)* sartu zuen zerrendan; *gate* edo antzekorik, ez.

*** anglo-jermandar / germaniar[228] / germanotasun

anglo-jermandar: (1972b2:43).
germaniar: (1972b2:42,43 (M)).
germanotasun: (1978a:29).

Orrialde berean, beraz, *jermandar* eta *germaniar*, azkena Mitxelenaren irakaspaperetakoa izanik.

*** greko[229] / griego[230]

greko: (1962f:83,84,85), (1971e:98,99,101), (1978a:28), (1979g:174), (1981c:145).
griego: (1972b0:26 hirutan), (1972b1:31), (1972b4:88) (M), (1972b5:115,121 bitan).

*** hipotesi[231] / hipotesis

hipotesi: (1978a:27), (1981c:150), (1985b:190).
hipotesis: (1958h:105), (1972b4:71 lautan, lauetarik hiru (M)).

---

[226] *HLEH*: 1617.

[227] *HLEH*: 1621.

[228] Hau da *HLEH*-k lema begiz joa, 1959. Halaz ere, *germandar* zaharrago baten kontu ematen du (1934).

[229] *HLEH*: 1571.

[230] Eta hizkuntzaren deizio ez den *greziar* (1972b1:31,34 bitan), (1972b2:40), (1972b5:115), *HLEH*-k 1712an kokatzen duena.
Hiztegi honek ez dakar *griegoren* aztarrenik.

[231] *HLEH*-k **hipotesi** leman, 1962 urtea alboratzen dio baina 1954eko *hipotesis*a ere jasotzen du.

*** historia[232] / historio / istorio[233]

historia: berrogeita hamabostetan[234].
historio: (1972b4:98) (M).
istorio: (1978a:32), (1983a:59), (1984b:42).

Gure arteko etimologiberatasun horren aldamenean, edo hobeki aurrean, berelzkuntzaren alde jokatzeak balioko luke, agian: *istoria* eta *historia*, *armonia* eta *harmonia*, eta abar. (1985c:193).

Garbi bereizten ditu (1978a:32) lanean *historia* eta *istorio*, orrialde berean.

HLEH-n lekukotasunik ez duen *historio* horrek, ordea, ez du esanahiaren aldetik alde handirik *h*-gabearekin.

Euskaltzaindiak (1979) *historia* eta *istorio* berezi zituen.

*** hungaro / hungriano

hungaro: (1983f:187).
hungriano: (1972b5:116) (M)[235].

*** lhardun[236] / jardun[237]

lhardun: (1972b0:23,25), (1972b3:58,59,60), (1978a:26,28).
jardun: (1984b:25), (1985a:113)[238].

Euskaltzaindiak (1968) biak eman zituen ontzat, hobesterik gabe.

---

[232] *HLEH*: 1571.

[233] *HLEH*: 1712.

[234] Komeni da ez atzentzea, baita hrik erabiltzen ez zuenean ere (1958h, 1964c), *historia* idazten zuela Mitxelenak (eta *prehistoria*, *hipotesis* eta beste). Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[235] Azkena, arestikoa ez bezala, ez da darabilen *magyar* hizkuntzaren deitura, populuarena baizik.

[236] *HLEH*: 1970.

[237] *HLEH*: 1713.

[238] Bi kasuetan, lren gisa darabiltzanak. Aditz gisa ere bedarabiltza biak.

*** Ipul[239] / Ipuin[240]

Ipul: (1964g:180 bitan, 181).
Ipuin: (1968d:152), (1972b3:62) (M), (1972b4:105) (M), (1972b5:112), (1978a:26), (1983a:68), (1983d:121), (1964b:36 bitan).

Berariazko aukera garbirik egiten ez du, baina (1975) zerrendetan Euskaltzaindiak *Ipuin* landatzen du.

*** Irazi[241] / Iragazi[242]

Irazi: (1958h:100).
Iragazi: (1983e:132,133).

Euskaltzaindiak (1968) biak baliokidetzat eman zituen.

*** Izkribu[243] / Iskribu] / Iskritu] / Ezkribu]

Izkribu: hogeita hamaseitan.
Iskribu: (1978a:26,34,36,37).
Iskritu: (1978a:31).
Ezkribu: (1983d:123).

*** Izkutu, Izkutatu[244] / Ezkutu[245], Ezkutatu[246]

Izkutu: (1958h:101,106), (1968d:153), (1971e:99), (1972b4:67,68,92,101,102), (1978a:27), (1981c:141)

---

[239] *HLEH*: - 1740.

[240] *HLEH*: 1745.

[241] *HLEH*: 1571.

[242] *HLEH*: 1745.

[243] *HLEH*: 1778. Ez du beste aldaeren berri ematen.

[244] *HLEH*-k, Izkutatu bartzat eman eta ezkutatura igortzen du.
Ez dakar Izkuturik.

[245] *HLEH*-k, Izenondoa 1806an aurkitu du lehen aldiz eta izenondo hau bera izen gisa 1855.

[246] *HLEH*-k: -1740.

izkutuko: (1961a:57), (1972b4:68)[247].
izkutatu: (1972b4:97), (1972b5:119), (1978a:37), (1983e:136).
ezkutu: (1984b:43), (1985a:116).
ezkutatu: (1984b:38).

Euskaltzaindiak (1968) ez du aukerarik egiten, zein bere zerrenda-zatian baitoa.

*** joko[248] / joku[249]

joko: (1968d:149 bitan), (1972b2:43), (1972b3:60,62 (M)), (1972b4:73), (1972b5:123), (1978a:44), (1979g:174,177), (1979d:122), (1983a:51), (1984b:42).
joku: (1958h:103), (1981c:146).

Euskaltzaindiaren zerrendetan ez dago bikote honen aztarrenik, baina gogoan izatekoa da "Merkatalgo hiztegia"-n (1973) eta "Zortzi urte arteko ikastola hiztegia"-n, *joko* hobetsi zela.

*** kalkulu / kalkulo[250]

kalkulu: (1978a:44).
kalkulo: (1968c:91).

Euskaltzaindiak (1986) *kalkulu* hobetsi zuen.

*** konkretu[251] / konkreto

konkretu: (1972b0:23,26).
konkreto: (1968c:89).

---

[247]Gehi *izkutuan*: (1968c:95), (1972b3:53,54), (1981c:162), (1983a:58).
Ez da, haatik, ez *ezkutuko* ez *ezkutuan* jaso.

[248]*HLEH*: 1636.

[249]*HLEH*-n honen arrastorik ez.

[250]Ez bata ez bestea *HLEH*-n.

[251]*HLEH*-k, **konkretu** hartzen du lematzat eta 1957 data alboratzen dio.
Bidenabar esan behar dugu, **abstraktu** ezartzen duela antonimotzat baina ez diola azken honi hiztegian tarterik egiten, lehen jaso dugun bezala.

*** konparatista, konparatismo[252], konparatu[253] / gonparatista[254], gonparatu[255]

konparatu: (1972b3:82) (M).
gonparatu: (1978a:28).

konparatista: (1972b2:40) (M).
gonparatleta: (1978a:27,30).

konparatismo: (1972b1:37) (M), (19872b2:39 bitan, 47).

Euskaltzaindiaren (1986) arabera, badirudi leherkari ahoskabeak lehentasuna behar duela.

*** konzeptu[256] / konzepto

konzeptu: (1972b5:125,129).
konzepto: (1972b5:128).

Euskaltzaindiak (1986), *kontzeptu* hobetsi zuen.

*** literatura[257] / literatur

literatur: (1978a:43). *Hápax* da.

**** mailegu[258], mailegatu[259] / mailebu, mailebatu.

---

[252]Gehi eratorbidean aipatuko diren: *konparazio* (1972b2:39) (M), (1972b3:51), *HLEH*-k 1562.ean kokatzen duena, *konparaketa* (1979d:122), (1983a:49), (1985a:111), *konparatzaile* (1972b4:96,99 bitan, 102) (M).

[253]*HLEH*: 1571. 1562ko *konparaduren* berri ere ematen du.

[254]Nahiz *konparatu / gonparatu* eratorpenean ikusiko diren, bidezko iritzi diogu sorta osoa ekartzeari.

[255]*HLEH*-k **gonbaratu** txartzat eman eta **konparatura** igortzen du.

[256]**kontzeptu** da *HLEH*-k dakarrena. 1954ekoa du lehen agerpena.

[257]*HLEH*: 1930.

[258]*HLEH*: 1859 baina *mailleba* jasotzen du 1745ekoa.

[259]*HLEH*-k hau hobesten eta ezpainkaria duena txarresten du. XVII. mendearen erdi-aldean kokatzen du hobetsia eta 1571n, berriz, *mailleba*tu arbuiatua.

mailebu: (1979g:176), (1979d:187 bitan,190), (1963a:61), (1963f:187), (1964b:28,31,36).
mailebatu: (1972b2:44 bitan) (M), (1972b5:115) (M), (1979g:178 bitan,179), (1979d:121), (1963f:187,189), (1964b:44).

mailegu: (1965c:191 zazpitan).
mailegatu: (1965b:186).

mailebu/mailebatu, zazpi lanetan, *mailegu/mailegatu*, bitan baina azken urteetakoetan.

Euskaltzaindiak ez du berariaz bat hautetsi, baina *mailegu* landatu du (1975) lanean eta 1986ko txostenaren izenburuan.

*** mementu[260] / momentu

mementu: (1971e:101).
momentu: (1972b0:23,24,25 bitan,27), (1972b2:43,49), (1972b3:53), (1972b5:117), (1978a:40,43), (1983a:52,57).

Euskaltzaindiak (1968) *memento* hobetsi zuen.

*** metodo[261] / metodu

metodo: (1972b3:56,58,59 bitan,60), (1972b4:82) (M).
metodu: (1979g:174).

*** parentesi / parentesis]

parentesi: (1972b4:86) (M)
parentesis: (1972b4:77) (M)[262].

*** pasiba / pasibo

---

[260]memento 1627koa da *HLEH*-k hobesten duen moldea. moment(u) gaitzesten du eta arestikora igortzen.
Mitxelenagan ez dugu *mementorik* aurkitu.

[261]*HLEH*: 1761, alboratzen dio 1672ko *metoda*. Ez dakar, haatik, *metodurik*.

[262]Gogoan izan, Mitxelenaren irakaspaperetako *parentesis* honek, *parentesi* bilakaturik ikusi zuela argia.

pasiba: (1972b4:81,91 (M))[263].
pasibo: (1972b5:121).

*** sintaksi] / sintasi / sintasis / sintaxi / sintaxis

sintaksi: (1968d:151).
sintasia: (1972b4:106 lautan) (M).
sintaxis: (1978a:41).
sintasi: (1972b4:72 bitan,81 hirutan,93,94 (M)), (1972b5:117), (1981c:138,165), (1983e:126 bitan).
sintaxi: (1985a:111).

Gailen nabarmentzen dena *sintasi* dela antzeman daiteke.

Mitxelenaren beraren aukera zehatzei begiratuz, beraz, sumatzen dena da, denboraren poderioz, nolabaiteko egokitzeari amore eman diola, *sintaksi* zaharrenetik eta ebakerari atzikienetik hasi eta egun usuenik erabili ohi den *sintaxi* bitartean.

Ezinbesteko dirudi Mitxelenak berak Bergaran aurkezturiko txostenari begiratzeak[264], emeki-emeki aldatuz joan den jokamoldea argituko bada:

> *k* + *s*/*z*rekin sortzen da istilurik larriena, ebakerari letra kontua lotzen baitzaio: *x* letrak, alferrik ari naiz hau errepikatzen, hots bat adierazten du *axuri* euskal hitzean, esate baterako, eta erabat beste bat frantsesezko eta gaztelaniazkoetan (...)
> Bada orapiloa mozteko modua, askatzen hasi[265] gabe. Aspaldi[266] asmatu zuten, *p* eta *k* + *s*-rentzat, ekialdeko euskaldunek (...) *etsenplu*[267], *etsamina*[268] (...)
> Hori genuke izan daitezkeen irtenbideen artean euskal tradizioari lotuena. Gogorregia irudituko zaio, haatik, bati baino gehiagori, batez ere Euskal herriaren beste mutur honetan sartzeko eta erabiltzeko. Orduan, *setsu* nahi ez badugu, esaterako, har dezagun *sesu* eta okerrenean ere *seksu*. Nik ezinbestean baizik ez nuke *sexu*[269] erabiliko izkribuz: behin baino gehiagotan puntu honi gagozkiola aipatu izan den Marx-en izenean eta horretarik erakarrietan. (1979g:181).

1985eko *sintaxi, sexu* eta jasoriko antzekoetan, badirudi, "ezinbestean" makurtu behar izan zaiola, Euskaltzaindiak 1986an hobetsi duen idazmoldeari.

Oroi, halaz ere, *sexu* 1972koa hor dagoela.

---

[263] Egia esan, *pesibezko* da Mitxelenak darabilena.

[264] "Euskal hitzen jatorri eta ibrura desberdinaz" (1979g).

[265] Jat. *asi*.

[266] Jat. *Ispaldi*.

[267] Gibeleko bokala gora-behera, Mitxelenak badarabilena.

[268] Ikusi den bezala, Mitxelenak, *esamina* darabil, ordea.

[269] Ik. lehen aldatua.

*** sistema / sistima

sistema: Hogeita hemezortzitan[270].
sistima: (1972b4:77[271],87) (M), (1983e:129), (1984b1:41)[272].

**** sumatu / somatu

sumatu: (1958h:97,99,101), (1972b3:58) (1978c:163,169 bitan), (1979g:175)[273].
somatu: (1979g:174), (1986c:174).

Euskaltzaindiak (1968) *sumatu* abantailatu zuen[274].

*** taju, tajutu... / taxu, taxutu...

taju: (1972b4:77 bitan, 86,97) (M)[275].
tajutu: (1966a:68), (1972b5:125).
tajuz: (1972b5:124).
tajuketa: (1972b0:26).

taxu: (1979g:185).
taxutu: (1968d:147), (1983e:129).
taxuz: (1978a:34).
Euskaltzaindiak (1968) *taxu* hobetsi zuen (*tailu* ere jasotzen du).

*** testu / testo][276]

*** transformatibo / trasformatibo

---

[270](1972b4:97) (M) bame.
sistematasun, *sistematiko* erants dakieke.

[271]Hau bigarren argitaraldian, *sistema* bilakatua.

[272]Baina, (1972b4:70,77,95,97 bitan), *sistema*. Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[273]Gehi *sumarazi* (1958h:99), (1968d:153).

[274]Hau dela eta, Mitxelenaren 1978 eta 1986ko horiek harrigarri xamar egiten dira.

[275]Orol, *taju* guztiak *taxu* zirela Mitxelenaren irakaspaperetan. Duda egin daiteke, beraz, liburu bereko besteaz.

[276]Ik. argitaraldiezko itsaskina. Nolanahi dela ere, *testu* hogeita hamalkatan darabilen bitartean, *testo* behin besterik ez darabil.

transformatibo: (1972b4:82 bitan), (1972b5:109).
trasformatibo: (1972b4:70)[277].

*** transformazio / trasformazio

transformazio: (1971e:106), (1972b4:82 bitan,87), (1981c:149,165 bitan).
trasformazio: (1972b4:84,89 (M),91 bitan (M), 93 (M),94 (M)).

*** transkribatu / transkripzio / traskrizio

transkribatu: (1983e:129).
transkripzio: (1968d:137,149).
traskrizio: (1983e:129).

Hirurak eratorpenean ikusiko badira ere, kapitulu honetara ekartzeak ardurazko dirudi, batipat, testu berean irakur daitekeen jokamolde bikoitzaren adigarriak badaudelako.

Halaz ere, Mitxelenaren piperra berriz ere ez ote dabilen dantzan susmoa egin daiteke:

> Eta hor daude, guztiok dakigunez, asmo berdintsuz baina egitura desberdintsuz taxutuak izan diren, eta izan daitezkeen, traskizio sistimak (eta, azkeneko hau, diodan bidenabar, bere gisara eta moldera transkriba dezake nahi duenak). (1983e:129).

[277] Gehi, *trasformazionalista* (1972b5:109).

12.3. ERDARAZKO HITZ BEREZITUAK

Beste multzo honetan bilduetan, Mitxelenak, ohartuki, berezituaren erdaltasuna eta bere buruarekiko urruntasuna azaleratzen duten adierazgarriak darabiltza.

Ezaugarri dute erdarazko izateari eustea edo, Mitxelenak, euskarak irentsi gabekotzat edukitzea[278]. Uste honen irozgarria ondokoan sustraitu dugu:

> Zilegi beha: luke izan, beraz, euskaraz zein erdaraz, jatorrizko grafia gordetzea kanpotikakoa (eta berria[279]) delarik iturburuari diogun zorra ahortzeko, besterik ez bada ere. (1985c:192).

Aipuan jasotzen den ortografiari eusteaz gain bada bestelako baliabiderik[280], *explicitations*[281], *marques méta-discursives*[282], dela tipografia bitartez (letra berezia edo etzana ohi da usuena, komatxoak ere erabiltzen dira aldizka), dela *marques d'énonciation*[283] edo sintaxi-baliabideen[284] bitartez; hots, ondoan *delako*[285], *izeneko*,

---

[278] Irentsi edo irentsigabe diogunean, UZEIn (1982) egindako bereizketaz ari gara batiatzen, idazkera dugularik kriterio erabakior. Horrela konak gure artean erabat izen arrunta izan arren, *cognac* idazten den neurrian, irentsigabea dela esango dugu. Honek ez du esan nahi, noski, beste kriterionik erabiltzen ez denik maileguen iranspen maila erabakitzeko". (Azkarate 1988:190).

[279] Halakotzat zeukan, nonbait, Mitxelenak *cassette* 1981ean (1981c:138) esate baterako.

[280] Berbaldi-aztterketarik egitea hemengo xedea ez delarik ere, interesgarria dateke Mitxelenak erdarazko hitzak bere testuetan nola txertatzen dituen begiestea.

Gai honezaz, Rey-Debove, J. (1973) eta bereziki (1978), Baggioni et al. (1974), Guespin (1974).

[281] "... Il conviendrait de distinguer les explicitations référentielles (par ostentation, *ainsi la photo*,etc.), les explicitations métalinguistiques (définitions, traductions, etc.), les fausses explicitations (recours à la *forme de l'explicitation* par un *c'est-à-dire* suivant le néologisme, mais porsuite du raisonement, sont le signe néologique a constitué un chaînon finalement non explicité, etc.)". (Guespin 1974:81).

Hizperriez hemen jasoak egoki dakizkioke testuko mintzagaiari.

Baggioni-k eta bestek *explicitations* direlakoen artean, tipografikoa beste honakoekin konbina daitekeela ikusten dute: *copulative, encreux, contextuelle, métalinguistique*. (1974:85).

Leduc-Adine-k berriz, hiru mota ditu ahotan: *graphiques, syntaxiques* eta *sémantiques*. (1980:17).

[282] Gardin et al. (1974).

[283] Rey-Debove-k (1978:281) marka horiek aztertzean, Mitxelenak usatzen duen baliabideetariko batez honakoa dio:

"Parmi les modes du *comme ils disent*, qui renvoient à d'autres parlers (régionaux, archaïques, sociaux, professionnels, etc.), on retiendra le mode du dire étranger à L_1 [ohiko hizkuntza], parce qu'il permet la pénétration de deux langues dans le discours, et force les barrières de l'acceptabilité au profit de l'emprunt".

[284] Gardin et al. (1974:48).

[285] "Euskaraz ere beste horrenbeste gertatzen da *delako* horrekin. Beraren bitartez nahi dena ser daiteke, ondoren *delakoa* ezarriz gero. Jendea *aire* entzuten ohitutakoan *delako* hori alde batera uzten da eta hitz berria beldurrik gabe erabiltzen". (1972b5:115).

harako edo antzekoak paratuz, dela hitzaren edo honen erabileraren jabegoa zehaztuz (*frantsesek x diotena, Benvenisteren x* edo antzekoak).

Halaz ere, euskal-erdal ortografiak bat datozenean batipat, ez da beti erraz igertzen halako nabarmengarria dutenen artean arroztasuna, urruntasuna agerian uzteko erabili den justu ala beste arrazoiak diren bitarteko; adierazkortasunak, arestian aipatua izanak edo egile-altorrak, esate baterako, gisa horretan letraida baitaitezke:

> L'ambiguité sur le sujet d'énonciation a été notée; toutefois, elle recouvre des phénomènes très distincts: par exemple, le cas où il est discursivement impossible de trancher si des guillemets entourant le néologisme visent à sa non-assomption pour raisons normatives, ou à son attribution à une source possible, située dans le voisinage contextuel (guillemets de rejet/guillemets de rapport d'énoncé. (Guespin 1974:81).

Arrazoi hauek baino pisu handiagokoa bada, haatik; testu-motaren –eta honen osagai den hiztegi-motaren– izaerari zor zaiona, hain zuzen.

Testu berezitu edo espezializatu direlarik, beste diskurtso-motetan hain aise onartuko ez liratekeen hitz arrotzak lasaiago erabiltzen dira. Areago, askotan premiazko ere gertatzen dira, batipat halako ikertzaileak sortu duen terminoaren adigaiari estu-estuan eutsi nahi zaionean, hau da, itzultzea nekezago onartzen dutenetan, zehaztasuna lege izatearen kariaz.

Baina, bestaldetik, terminologi falta bizi duen hizkuntza bat halakoez hornitzeko asmo bizia denean eta horretarako hizkuntza horren beraren sorbideei etekina atera nahi zaienean (erdaren mendekotasunari, ahal den neurrian, muzin eginez), egoera zailtzen da, maizkara bien arteko zubigintzan ibili behar delako: itzul-azalpenak, parentesiak eta beste ugaldu behar dira. Honela, aldi berean batzen dira hitzak eratzea, osatzea eta nolabaiteko azaldu nahia.

Beraz, esan bezala, hemen bilduriko erdal hitz berezitu ugari, oso maiz, parafrasi bidez azaltzen ditu, metalinguistikoki, hitzaren erdaltasuna dela medio. Hitz arrotzaren beraren argibideari lotzen zaio batzuetan azalpena, bestetan, adigaia argitu nahia da jomuga, hau da, mamia argitzea. Askotan, euskal ordaina ere proposatzen du Mitxelenak halako termino erdarazkoaren aldamenean[286], edo alderantziz.

Honen ondorea da, ikertzailearentzat jabeak bereiztea zalantzabide bilakatzen dela behin baino gehiagotan[287].

Mitxelenak gogoan darabiltzanak paperera ekarri berrietarik hagitz urrutikoak ez direlakoan, jabego-auziari ez baina, Mitxelenaren erabilerari erreparatuko zaio, garrantzizkoago iritzi baitzaio agerian jartzeari, erdarazko hitzak usatzen dituenean norainoko saioa egiten duen hitzok euskal ordaina izan dezaten, hitz berezituaren sortzailea nor izan den zehazteari baino.

---

[286] Hiztegian ematen da parekotasun horren kontu hitzez hitz.

[287] Hau guztia gogoan izanik, bakoitzaren ondoan zehaztuko da Mitxelenak erabiliko nabarmentze-modua, [g] = grafia bidezkoa (letra etzana, komatxoak...), [d] = *delako, izeneko, harako* erabili denean eta [*] hitzaren sortzaile edo usatzaletzat Mitxelenak bere burua ez beste norbait aitortzen duenean.
Parentesiak, berriz, halako ezaugarria aldizkakoa dela adierazten du.

Horregatik, lehen aipatzen zen proposamena ohartuki egina dutenak (zuzenean adieraziz nahiz esan gabe baina eginez), hau da, Mitxelenak erdarazkoen ordain euskal hitza ematen duenean, parentesi artean sartuko dira nolabait bereizteko.

Parentesirik salbuetsetan ez eramateak, ordea, ez du esan nahi azterturiko hiru liburukietako artikuluetan Mitxelenak inon forma horien euskal ordainik eman ez duenik. Hemen ez zaio tesigileari miaketaren ondoriozko adiera berekoen bildumari eutsiko, Mitxelenaren beraren eskutik eskainirikoari baizik[288].

Hau dela eta, kasu horretakotzat joko da berezitu bera, eta ez berezituaren adigaiaren azalpena, euskaraz[289] ematea gatzatu duenean[290].

Honela, esate baterako, *in praesentia*k *sintagmarekiko* du ondoan testuan, halarik ere ez da parentesi artean paratuko, aditzen baita erdarazko hitz berezituari alboratua ez dela iraulordaina, azalpena baizik.

Ekar dezagun pasarte bat azaltzen ari garenaren adigarri:

> Artikulu mugatzailea, beraz, ez da <axaleko> egituran ageri (*tácito* dago), bai halere azpian datzan (*underlaying*) egituran... (1971e:107).

underlying parentesi artean kokatuko den bitartean, ez du itxura hori hartuko *tácito*-k, ez baitzaio iritzi terminoren baten baliokide zuzen. Euskaraz emaniko azalpen baten adigaia ("ez da axaleko egituran ageri") erdal hitz batean gorpuztua bada, baina ez dirudi esan daitekeenik *tácito*k duen zuzeneko euskal itzulpena *ez da axaleko egituran ageri*, edo denik.

> abc[g], ablativo], aboriginal[g][d], album, (Aux Movement[g][*]), bahuvrihi[g][*], bantu[d], (behavior[g][d]), behaviorist[g][d], behaviorism[g][d][291], (break[g]), (caesura[g]), (casuistry[g][d][*]), casus rectus[g], (chapurreado[g][*]), classical fallacy[g]([d])([*]), (cleft sentence[g]), (comment[g]), (competence[g]([d])), (complemento directo[g][d]), (compromise[g][*]), conductismo[g][d], (conjunto[g][*]), contrastive[g], corpus[g]([d]).

---

[288] Horregatik, adibidez, *créole* ez doa parentesi artean, nahiz hiztegian ikusi den bezala *kriollo* ere badarabilen. Eta horrela beste hamaika.

[289] Kasu batean salbu. Ik. beheragoko *behaviorism* / "conductismo" bikoteaz dioguna.

[290] Notabait esan, Greimas-ek (1960:49) azpimarratzen duen gertakizuna bruiatu nahirik:
"Si, au lieu de comparer les structures syntagmatiques au niveau de leurs signifiants, on les juxtapose en prenant comme terme de comparaison l'équivalence plus ou moins grande de leurs signifiés, on arrive à établir des concordances bilingues de signifiés dont les dimensions et les structures syntagmatiques ne correspondent pas".

[291] Hitz honen argibidea ez du euskaraz ematen, gaztelaniaz baizik:
"Sikologian, duen oinarri aitortua *behaviorism* ("conductismo") delako teoria da". (1972b3:56) (M). Ez dugu eskola honen euskal izenik aurkitu.

créole[g]([d]), criollo[g][d][292], (décalage[g]), (deletion[g][d]), dérivé possessif[g][*], disambiguation[g][d], dossier[g], (elementoinquirido[g][*]), ellipsis[g][*], (ensemble[g][*]), escuela lingüístico-naturalista[g][*], eslavo, (expressif[g]), facsimil(e)[293], factor recesivo en la transmisión[g][d][*], fieldwork[g][294], filière[g][d], (finite state automaton[g][*]), FOCUS, (fronting[g][d]), (general[g]), (generative grammar[g]), genetiuus obiectiuus[g], genetiuus subiectiuus[g], génitif[g][*], génitif de transposition[g][d][*], genkivo], Gestalpsychologie[g][d], ghetto, glide[g], guaraní[g], (hápax legómena[g])[295], (hiatustilgend[g][*]), in absentia[g], in ausentia[g], in praesentia[g], (indicateur syntagmatique[g][*]), inmediate constituent analysis[g][d][*], instance du discours[g][*], instance du récit[g][*], intellectus agens[g][*], International Phonetic Alphabet[g][d], intonation[g][*][296], (jazykovedenie[g][*]), (jazykoznanie[g][*]), karivetiko, (kernel sentence[g][d]), koiné[g]([d]), koinal[g][297], kontservadore], (la expresión[g][d][*]), la présente instance de discours[g][*], (langue[g][*])[298], lectio difficilior[g], lectio facilior[g], (Left Dislocation[g]), (Lingüística comparada[g][d]), (Linguistik[g][*]), linguistique générale[g][d], (lingvistika[g][*]), magyar, (marcador de frase[g][*]), materia[g], (Mengenlehre[g][*]), mentalidad prelógica[g][d][*], (mind[g][*]), modo fortuito[g][d][*], muta cum liquida[g], navarro-labourdin littéraire[g][d], (no terminal[g]), noûs poiêtikós[g][*], novela, (parole[g][*]), (performance[g]([d])), phonological component[g][*], (phrase marker[g]), (phrase structure grammar[g]), pidgin[g]([d]), (pitch[g][*]), porteño[g], prestige[g][d], primitivo[g][*], (recursive element[g]), (rhema[g]), right dislocation[g], salua veritate[g], (set theory[g][*]), (signifiant[g][*]), (signifié[g][*]), spiritus asper[g][d], (Sprachwissenschaft[g][*]), standard[g], (standar average European[g][*]), (stress[g][*]).

---

[292]Hiztegiaren itsaskinean jaso bezala, hitz hau ETOR-ek argitara emandako *Zenbait hitzaldi*ren lehen agerraldi ostean dago, hurrengoan, *créole* aldatu baitute.

[293]Ik. hiztegiaren sarreran hitz honen lemaz dioguna.

[294]Hitz hau baliatzen du euskal ordainik gabe jasotzen duen gaztelaniazko testu bateko *trabajo de campo* autu duelarik:

"... en una época en que la mayoría de los lingüistas dedicaban la mayor parte de sus esfuerzos a trabajos de campo, como ocurre todavía en antropología (cuna de la lingüística moderna)". Nik ez dut gehienetan jakiten zer adierazi nahi den 'moderno'-ren gisako emendaiuen bidez. Ze *fieldwork* egin zuen Saussurek? (...) Ala indioena behar du izan hizkuntzak *fieldwork* bihur dadin lana?". (1965a:111).

[295]Pluralean ematen dugu singularrean erabili ez delako eta plural horren aukera adierazgarria datekeelako. Azenturik gabe ere badarabil baina pluralez beti.

[296]Parentesirik gabe paratzea erabaki dugu hain justu *azentuk* hori ez duela baliokide adierazteko baitarabil. Pasarte osoa dakargu zerrenda honetan bilduriko bestek ere hor baitu iturburua:

"Aurrera gabe eta beda azpada ere, ez da alferrik esana izango nik hemen «azentu» izendatzen dudana, beste zertzeladarik aipatzen ez den bitartean, ingelesezko *stress* nahiz *pitch*-en ordain bezala (*intonation*-ena baino areago, inondik ere) erabiliko dudala". (1981c:137).

[297]Pluralezko erabilera zegoen-zegoenean gorde nahi izan dugu, Mitxelenaren hitz-aukera, grekerazko puralari eustea, ohartua delakoan.

[298]"lengua madre[g][d] Mitxelenak berariaz arbuiatzen duen erdal deitura ere erants zitekeen apika. Honen arbuioek agerian uzten du Mitxelenaren jokamoldea; euskal gaiztoak eskumikatu-xz ezik, erdal deizioek geruzatzen duten adigai okerrekoa ere salatzen du:

"lengua *madre* delakoaren kontua, hain zuzen ere. /Gizaseme naizen aldetik, beti agertu izan dut neure konforme-eza/: ama-hizkuntza, eta zergatik ez aita-hizkuntza? Laidogarri deritzat honi /gizasemeon ohorearentzat!/ Baina ama nahiz aita, nola nahi ere den, metafora hau ez da betere egokia.

(...) Ama eta haurraren artean momentu batean etenduta fisikoa gertatzen da bien artean. Zerbait ebakitzen dela edo uste dut eta berazketa osoa izaten da. Bi izaki berezi dira geroztik: ama eta haurra (...) Hizkuntzekin, latinarekin eta hizkuntza erromanikoekin, berriz, ez dugu honelakorik." (1972b2:43). /Mitxelenak emendatua/.

Beste horrenbeste gertatzen da *isomorfismo* hitzarekin. Ik. 14. kapitulua.

(structura[g]), subject of[g], suppositio materialis[g][d], tácito[g][*], tempo de narration[g], (teorija mnozhestv[g][*]), (terminal[g]), (thema[g]), (topic[g]), topic backing, (topic fronting[g]), (transformation[g]), (transformation[[al]] grammar[g][299]), uerbum substantiuum[g][d], umbro, (underlying[g]), (undistinguished service prosa[g][*]), Urpflanze[g][*], Ursprache[g][*], variable[g], variable independiente[g][d], veneto, vokal, (voces facultativas[g][*]), worora

Hona aldatuetara begiak irauliz, aztersaiotxo bat egin daiteke.
Batetik begiratuko zaie ortografia beste etorki-salatzailerik ez dutenei.
Bestetik, berriz, euskal ordainik ez dutenei.
Eta azkenik, zenbait egitura alpagarriri.

12.3.1. Grafiaren inguruan

Esan den bezala, erdarazkotzat jotzeko irizpideetariko bat grafi moldea izan da. Uste dugu egoki izan daitekeela Mitxelenak besteri bizkarreratzen ez dion –hau da, zerrendan [*] ezaugarririk ez daramaten– erdal itxurako hitzei erreparatzea, Mitxelenak aldian-aldian euskarak irensteke dauzkanen argibide dira eta[300].

Egiaztatu ahal izango den bezala, tartean badira erdal ortografiazko letrez gaineko ezaugarri erantsia daramatenak (letra etzana ..).

12.3.1.1. V, Wdunak

Nik bidezkotzat alkortuko nuke erdaratikako[301] hitz berrietan *v* gordetzea. (1968d:149).

Har ditzagun *v* eta are gehiago *w* letrak. Bistan da, hitz batek ezaugarri horiek daramatzala, oraindik 'erdal kutsua'ren agergarri, nahi eta ez. Noraino alda ditzakegu? Joera[302], dudarik gabe, *b*-ra daramate eta *b* bihurtuko dira segur aski azkenik, gehienbat behintzat, hizkuntza honetan irauten badute, eta oraingoz aztiatzen ez den irauitzaren bat sortzen eta burutzen ez badute euskaldunek. Nik, adibidez, *bokal* idazten dut, hiztegiari amore emanaz (baita ere neure barrengo buriari) eta ez 'hiztegigilearen' *bokale*-ri. Baina oraindik, eta barka edari izenak maizegi agertzen badira, *vodka* jarriko dut beti paperean eta, nonbaiteko ibilaldiez ari bagara, *versta*. (1985c:192).

---

[299] Orol jatorrizkoan *transformation grammar* zegoela idatzia.

[300] Hautetako batzuk –argitaraldietan itxura bestelakotuz plazaratuak alegia–, argitaraldiezko itxaskineen azaldu dira. Ez ditugu han esanak berresango, beraz.

[301] Jat. erderatikako.

[302] Zuzen ote hau?

*** ablativo]: (1971e:109).

*** behavior: (1985a:117).

behaviorism: (1972b3:56).
behaviorist: (1972b4:74).

*** contrastive[303]: (1981c:167).

*** eslabo / eslavo[304]

eslabo: (1972b1:34).
eslavo: (1972b3:55 bitan) (M).

balto-eslabo: (1972b3:51).

*** generative grammar: (1972b1:30).

*** genitivo] / genitibo

genitivo: (1971e:96,106,109).
genitibo: (1986c:173,175).

*** kartveliko: (1979d:122,123).

*** kontservadore] / kontserbadore

kontservadore: (1972e:156).
kontserbadore (1978a:39).

*** navarro-labourdin littéraire: (1972e:158).

*** nobela[305] / novela

---

[303]Alderdi bat baino gehiagotarik euskal idaztarauak urratzen dituzten hau bezalakoak behin bakarrik aldatuko dira paperera.

[304]Ez bata ez bestea irakur daitezke *HLEH*-n.

[305]*HLEH*: 1956.

nobela: (1978a:37).
novela: (1972b2:39), (1972b3:57 hirutan).

*** recursive element: (1972b4:78).

*** salua veritate: (1972b4:91).

*** variable: (1972b5:127).

variable independiente: (1972b5:119).

*** veneto: (1978a:28).

*** vokal] / bokal(e)

vokal: (1958h:105), (1964g:179), (1968d:139 hirutan,145), (1971e:101).
bokal: hemeretzi aldiz[306].

*** fieldwork: (1985a:111 bitan).

*** worora: (1972b5:114 bitan,116).

12.3.1.2. C, CH, QU

*** abc / abeze[307]

abc: (1968d:139).
abeze: (1968e:76).

*** caesura: (1981c:142).

---

[306] 1972 baino lehenagoko lanetan ez darabil hitz hau; urte hori baino gerokoagoetan, *bokal* da nagusiki darabiltena. *Bokale* behin, jaso den bezala.

[307] *OEH*: **abeze** (Urt, Lar, AA), **abezede** (SP), **abezedario** (Urt, Lar) leman, Mitxelenaren ediera honen lldoko lehen testigutza Axularrena da eta *A.B.C.* da adibidean irakur daitekeena.
HLEH-k ere, **abeze** ezartzen du leman: 1761 (1571).

*** casus rectus: (1983d:120).

*** cleft sentence: (1981c:158).

*** comment: (1981c:152).

*** competence: (1972b4:74 bitan,75 bitan,95 bitan), (1985a:110).

*** complemento directo: (1972b1:29).

*** conductismo: (1972b3:56).

*** corpus: (1972b3:58 bitan), (1987d:80).

*** créole / criollo] / krioilo

créole: (1985a:113,114).
kriollo: (1972b2:45,46 bostetan).
criollo]: (1972b2:39)[308].

*** décalage: (1972b4:101).

*** facsimil(e): (1978a:38).

*** FOCUS: (1981c:155).

*** obiectiuus, subiectiuus

genetiuus obiectiuus: (1972b4:67).
genetiuus subiectiuus: (1972b4:67).

---

[308]Azken hau, esan bezala, lehen argitaraldian beserik ezin daiteke liburu honetan irakur, bigarrenean, créole bilakatu baitzuten.

*** International Phonetic Alphabet: (1972b4:82).

*** kernel sentence: (1972b4:83).

*** lectio

lectio difficilior: (1971e:99), (1983d:118).
lectio facilior: (1983d:118).

*** Left Dislocation: (1981c:160).

*** Lingüística comparada: (1972b4:39).

*** muta cum liquida: (1979g:180).

*** performance: (1972b4:74,75 bitan,95 bitan), (1985a:110).

*** phrase marker: (1972b4:86).

*** phrase structure grammar: (1972b4:86).

*** recursive element: (1972b4:78).

*** right dislocation: (1981c:160).

*** structura: (1968c:91).

*** subject of: (1981c:164).

*** topic: (1981c:153).

topic backing: (1981c:160).
topic fronting: (1981c:161).

*** Gestalpsychologie: (1968c:92)[309].

*** linguistique générale: (1972b4:97).

12.3.1.3. Beste zenbait: *mb, mp,* kontsonante-bilkurak, azentuak...

*** disambiguation: (1972b4:67)

temps de narration: (1971e:101).

umbro: (1978a:28).

*** standard: (1978c:165).

spiritus asper: (1978c:172).

*** dossier: (1979d:123).

expressif: (1968d:140).

suppositio materialis: (1981c:139).

transformation[al]] grammar: (1968c:93) .

ghetto: (1978a:44).

uerbum substantiuum: (1981c:156).

*** filière: (1971e:100).

guaraní: (1972b5:132).

hápax legómena: (1985b:194)[310].

koiné: (1972b2:47 bitan), (1978a:28).

koinai: (1978a:26).

---

[309]"Horiek [*y, kh, th*...], noski, izen proploetan behintzat gorde behar lirateke (orobat, *c, qu* eta antzekoak)". (1968d:148).

[310]Orol beste *hapax legomena* azentu gabea ere badagoela: (1961a:50).

*** fronting: (1981c:159,160).

underlying: (1971e:107).

*** magyar: (1983f:187).

*** pidgin: (1972b2:39,46), (1985a:113,114 bitan).

*** rhema: (1981c:152).

thema: (1981c:153).

*** album[311]: (1972b4:70).

Sail osotik bereziki azpimarratzekoak dira ortografia beste ñabargarririk ez daramatenak:

album, esiavo, novela, umbro, vokal, worora

eta batipat gerora euskal moldera egokitzen zaizkienekin bikoteak osatzen dituzten:

abc/abeze, créole/criollo]/kriollo, eslavo/eslabo, genitivo]/genitibo, kontservadore]/kontserbadore, novela/nobela, vokal/bokal

Azpimarratzekoa da, halaber, askori (puntu honetan bilduriko hirurogeita lauetatik hogeita bosti) euskal ordaina alboratu diela Mitxelenak testuan bertan[312].

Baina ez da atzentzekoa euskal bihurrerarik ez duen batek baino gehiagok euskal azalpena duela (*disambiguation*...), edo beste pasarte edo lanen batean baduela iraulordaina (*créole, novela*...), edo nazioartean honela erabiltzen dena dela (*corpus, lectio difficilior*...), nahiz ia izen berezi edo propioetarik aski gertukoa dela edo hala dela (*Gestalpsychologie*...).

---

[311] Euskaltzaindiak (1975) honelaxe aldatua.

[312] Ikus zerrendako parentesidunak.

12.3.2. Euskal ordainik gabeak

Mitxelenak euskal ordain zuzenik gabe erabiliei erreparatuz gero, ikus daiteke nola, batzuetan, egokitze-iraulordain zuzenik gabeak, antzinateko gramatikaren hariko eta tradizio luzeko terminoak diren; hau da, latin-grekerazkoak (kasu batean sanskritozkoa):

abc, bahuvrihi, corpus, ellipsis, facsimil(e), genetiuus obiectiuus, genetiuus subiectiuus, hápax legómena, intellectus agens, koiné (koinaí), lectio difficilior, lectio facilior, muta cum liquida, noûs poiētikós, spiritus asper, suppositio materialis, uerbum substantiuum

Bestetik, berriz, hizkuntza-izenak dira horrela utziak[313]:

bantu, créole, eslavo, guaraní, kartveliko, magyar, pidgin, porteño, umbro, veneto, worora

hauetako batzuk, zerrendan ikusi bezala, ortografiaz gaineko inolako beste markarik gabe paperera jaulkiak.

Hizkuntzalaritza-eskola desberdinek, beste jakiteekin dituzten harremanak direla medio, mailegatu izan dituzte hitzak. Halakotzat jo daitezke[314]:

aboriginal (antrop.), behaviorist (sikol.), mentalidad prelógica (antrop.), novela (liter.), variable, variable independiente (matem.)

edo hizkuntzalaritzak bakarrik ez darabiltzanak, nazioartean eta ez jakite zehatzetan bakarri erabiltzen direnak: dossier, facsimil(e), ghetto, standard ...

Halako iturburuazko baldintzarik ikusten ez zaien ondokoak ere, XIX. mendeko hizkuntzalaritza ostekoan, nazioartean usu erabiltzen direnak direla esan daiteke. Hizkuntzalaritza-motaren eta garaien arabera ere erdara bat nahiz bestearen nagusitasuna suma daiteke:

contrastive, dérivé possessif, disambiguation, fieldwork, filière, FOCUS, génitif, glide, immediate constituent analysis, intonation, linguistique générale, right dislocation, subject of, topic backing

---

[313] Guilbert-en (1975) *xénisme* direlakoen artean koka al daitezke?
Bestetik, erka daitezke jasook *hopi* hizkuntzaren deizioarekin, inolako markarik gabea.

[314] Ik. hiztegiaren eta azterlanaren sarreretan honezaz dioguna.

Autore jakin eta aitortu baten jabegokoak ere sarritan ordainik gabe gordetzen ditu:

classical fallacy, factor recesivo en la transmisión, Urpflanze, Ursprache, génitif de transposition, instance du discours, instance du récit, la présente instance de discours, materia (Arist.), modo fortuito, navarro-labourdin littéraire, temps de narration

Hauei erantsi beharko litzaizkieke izen berezi edo propioak, esate baterako:

escuela lingüístico-naturalista, Gestaltpsychologie, International Phonetic Alphabet

Halarik ere, bestela pentsa daiteke: arroztasuna gordetzen duten neurrian, noraino ez leudeke guztiak izen berezietatik gertuago arruntetatik baino, batez ere ikusten bada bilduen artean erregelen edo bestelako hizkuntz izakien delzioak (FOCUS, adibidez) direla?

12.3.3. Zenbait egitura aipagarri[315]

Atal honetan berezituak soil bailiran hartuko zirela esan (eta hala egin) den arren, arestiko zerrendan jasoez osaturiko egitura batzuk bereziki azpimarkatzekoak dira:

competence/performance, langue/parole, pidgin/créole, thema/rhema, topic/comment

Nahiz guztiak erdarazko hitzez osaturiko hitz-pareak diren, ez dute osagaien arteko harreman bera agertzen. Testuinguruez horniturik aldatuko dira bereizkuntzaren funtsa agerian gera dadin:

... guztien edo gehienen ustez, Chomskyren *competence/performance* ez dira aplan Saussureren *langue/parole*-ren haurride jator, bai bederen, ordea, ahaide hurbil. (1972b4:95).

Nik entzuna nuen, sinista zazue, *topic/comment (thema/rhema)* eta gisa horretakoen izena; izenaz gainera, balta ere zein zitekeen izenokin azaldu nahi zen aldea eta bitartea. (1981c:152).

Pidgin/créole! buruzko ezaguera bazuen Molièrek, balta XVII. mendean euskaldunekin honela mintzatzen ziren islandiarrek ere:... (1985a:113).

Bikote bakoitzaren mugatzailearen lumeroari eta dagokion aditzari erreparatuz gero, ikus daiteke, kasu batean ez beste guztietan plurala dela hautetsia.

Bi izenen –honenbestez, kategoria bereko bi elementuen– batzea gertatzen da eta

---

[315] Ik. hitz elkartuen atalean, "Dvandva" mota.

bi izenon artean ez da menpekotasunezko harremanik antzematen. Beraz, pentsa daiteke, euskal hitz elkartuen sailkapenean, kopulatiboen barneko "Dvandva" motan luketela kokagunea.

Ulermodu honi bete-betean egokitzen zaio *pidgin/créole* parea; hau dela eta, aztergaiko hitz elkartu kopulatiboetara igortzeak zilegi dirudi.

Beste kasuetan, berriz, hitz elkartu kopulatibo mota honetakoek, oro har, dituzten eskakizunak betetzen dituzte: aipaturiko osagaien gramatika-kategoria bera izatea, berauen artean menpekotasunezko harremanik ez gertatzea gehi, semantikaren aldetik eremu edo arlo semantiko berekoak izatea (*pidgin/créole*), nahiz aurkakoa[316] izatea osagaien esanahien arteko erlazioa[317] (*topic/comment, thema/rhema*). Halaz guztiz, zalantzan jar daiteke ea euskal hitz elkartua den ala jatorrizko hizkuntzan elkartu eta euskarak bere horretan hartu ote duen –ia-ia hitz bakun bailiran–, baina euskal elkarketa-mota batean halabeharrezko tokia ere izanik.

Singularrez erabili den kasu bakarrari dagokionez (*langue/parole*-ren), gure ustez, ez dago pentsatzerik errakuntza denik, Mitxelenaren jatorrizko paperetan ere horrelaxe baitago.

Pentsa daitekeena da "bikotea", "binakoa" edo antzeko zerbait isilpean gelditu dela, hau da, 'langue-k eta parole-k osatzen duten binakoa' edo parafrasea daitekeena.

Azken kasu honetan, bi osagai baino gehiagoko hitz elkartuen taxutik gertukoa litzatekeela dirudi, zeinetan, "Dvandva" elkartua, isilpean legokeen "binako" horrekiko menpekotasunezko harremanean legokeen, '*langue/parole*-z (binakoa) zertu', Adizlagun-Objektu 'Edukia' motakoa, ala irakurrera aktiboaren arabera, '*langue/parole*-k (binakoa) zertu', Subjektu-Objektu 'Egilea' motan[318].

Ala Jacobsen-en[319] pluralezko arrunteko erabileren salbuespenak hedatu beharko lirateke, isurkariak eta metalak ez ezik, terminologia berezituetan ere, zabal hartuta, bestela, hizkuntza usuan ez bezala, joka daitekeela esanez?

Guztiarekin ere, lehen aipatu den bikoteok hitz soil bailiran hartu ote diren galderak bere horretan dirauela eta, hemen utzi dira.

---

[316]Nahiago dugu "aurkakotasun" (*contrariedad* Lyons 1973_2:474) hiperonimoa erabili "antinomia" baino, honek semantikan dituen adimodu desberdinak direla eta. Antonimiaz eta beroren arazoez: Lyons (1968), Cabré-Rigau (1987_2:171-173). Beste ikuspegi batetik, Coseriu (1981_2:224-226).

Nolanahi den, Lyons-en berelzkuntza irizpide hartuz gero, *langue/parole* bikotearen osagaien arteko harremanari, izaera (teoriko) antinomikoa dela medio, osagarritasuna (*complementariedad de significados* Lyons 1973_2:474-75) hobeto legokioke, apika, antonimia baino. Beste kasuetan ez dugu horren garbi ikusten norainoko eskakizuna duen osagai batek bestearekiko; hots, noraino baten ukazioak, ezinbestean, bestearen baieztatzea dakarkeen, ala elkarren arteko harremana *implicació bilateral* (Cabré-Rigau 1987_2:172) moduan azaldu behar den.

Izaki teorikoez aritzeak, erlazio logikoen mailako berelzkuntza oztopatzen duela esango genuke, ez baitago errealitatera jotzerik egiaztatze bila eta termino bakoitza adituko moduak ere zarikusi erabatekoa duelako. Esate baterako, perpausen osamodu bikoitza aldarrikatzen duen batentzat IS eta AS osagarritasunezko harremanean egon daitezkeen bitartean, hirunakakoaren aldeko beste harakorentzat ez legoke halakorik. Azken puntu honezaz berariaz, Otero (1975).

[317]Hauek guztiak, hitz elkartuen atalean ikusiko dira.

[318]Menpekotasunezko hitz elkartuak aztertzean berriz sortuko den zalantza.

[319](1962:384).

12.4. LABURPENAK[320]

Multzo honetan, bilduma soil moduan kokatuko dira sigla edo akronimoak[321].

Honakoak aurkitu ditugu hitz berezituen alorrean:

Frantsesez mamituriko lan-liburuaren izenburua, hizkuntzalaritzako bibliografian era laburtu honetan aipatzen dena:

ALF (Atlas Lingustique de la France)

Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailean kategoriak izendatzeko, zenbait erdaratan erabiltzen dituzten:

F, SN, NP, SP, N, SV, VP, V+Aux, V, Art

Gramatika horretan bertan zenbait erregela eta abar izendatzeko erabiltzen diren erdal jatorriko:

AUX, NEG, PAST

Hauen ondoan badarabiltza inoiz eremu honetako laburpen euskaratuak:

Lag, AS, IS

eta erdal-euskal egokitasunaren adigarria:

Aux=Lag

---

[320]Mitxelenak erantsitako oin-oharrean honela darabilela ikusteak makurtu gaitu "sigla" ordez, beste hitz hau erabiltzera:

"Erdarazko laburpenak erabili nituen, eta erdarazko laburpenak utziko ditut hemen. Beraz, honela irakur bitez: *F* = frase, *SN* = sintagma nominal, *SV* = sintagma verbal, *V* = verbo, *Art* = artículo, *N* = nombre". (1972b4:86).

Egia bada ere, *laburdura* gisa beretsuen darabilela:

"... *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* (izena osorik doa, laburdurarik gabe, bada ezpada". (1963e:123).

Bilgaiak lehen motakoak bete-betean izatea hartu dugu irizpide erabakigarri.

Beste hizkuntzetan ere ez dirudi terminologia erabat finkoa denik, Lang-ek (1990:196) jasotzen duenaren arabera.

[321]Mascaró-k (1986:75) *compostos metalingüístics* direlakoen barruan kokatzen ditu.

Hizkuntz tipologian perpausen ohiko ordenaren arabera hizkuntza-motak sailkatzeko proposatu diren:

SOV, SVO

Hizkuntzalaritza-filologia-gramatiketan erabili ohi diren:

aor., art., gen., ind., pers., pl.

Laburpen hauek direla eta, azpimarra daiteke, Mitxelenak, gaiazko bibliografiako erdal laburpenak zein euskal izakiri dagokion zehazten salo berezia egiten duela.

Honela, esate baterako:

Euskal perpausaren predikatua (= VP, hots, AS, nahiago baduzue)... (1981c:164).

Oinarrizko erregelek ez dute inolazko aditz sintagmarik, VP-rik, sortzen: zenbait izen sintagma, NP (...) eta, horiez gainera, V, aditza. (1981c:165).

Laburpenak gutxitan erabiltzen baditu ere ("Galdegaia eta mintzagaia euskaraz" (1981c) eta *Zenbait hitzaldi*ko "Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailea" atal-artikuluetara murritz daitekeela esan daiteke), urri horretan nabarmena da euskal aldakien gutxia.

Datuok aurrean izanik, beraz, antzeman dakiokeen joera erabatekoa honela adieraz daiteke: nahiago bide du erdal bibliografian erabilirikoari eutsiz zein euskal hizkuntza-izakiri dagokion aurkeztu, berak euskal laburpena sortu baino.

Hauek baliatuz bestelako hitz-eraketak mamitu dituenak, dagozkien sailetan ikusiko dira, azterlanean zehar.

Bestetik, hizkuntza-dialektoen deizioek ere badituztela, aldizka, beren laburdurak ikus daiteke:

Hizkuntzak:

arm., arm. klas., eusk., fr., gazt., it., lat., rus.

Euskalkiak:

eezk., antz. bizk., bizk., errong., gip., naf., naf.-gar., zub.

12.5. LABURBILDUZ

Kapituluan zehar xeheki aldatu-aztertuak honako puntuetan bilduko dira Mitxelenak mamituaren isla izan daitezen.

Hitzen adierari begira, nabarmen daitezke, batetik, hizkuntza arrunt-usukoak, erabilerak berezitu bilakatuak[322]. Hala nola: *adar, ahul, arbola, ardatz, erro...*

Jauzi hau, zenbaitetan, bestetan baino larriagoa dela begitantzen zaigu: *bazka* edo *beltak* mamitua, esate baterako.

Bestetik, berriz, hor daude, berez adiera zabalekoak izaki, hizkuntzalaritza-filologietan adiera-murriztapena jasan duten *aldi, kasu, denbora...*

Hitzen iralgiari begira, berriz, gogoan izan beharreko lehena da, Mitxelenak ez diela muzin egiten erdaretikako hitzei –esan nahi da, jatorri segurua erdara dutenei– eta arruntean darabiltzala inolako nabarmengarririk gabe. Bestela esan, Mitxelenaren begietan euskarak irentsitzat dauzkanak badaudela hor, beherago autu izango ditugun irentsi gabeen ondoan. Irenste hori azalpen-eske ikusi delako eman dira, hain zuzen ere, zertzelada xeheak.

Lehen multzo batean aipatzekoak dira hitz ikasi-landuak.

Ikusi bezala, ez du Mitxelenak hitz hauekiko jokamolde bakarrik.

Bere horretan hartu ditu batzuetan, edo gehienez ere grafia egokitu die (*arkaismo, diasistema, indoeuropeista, makrolinguistika* edo *metafisika*).

Harantzagoko egokitzapena erakusten duen *anglosajoi*ren kontu ere eman da.

Baina bestela ere jokatu du, bai euskal erabideetan sarraraziz (*indi(-)europar, indoeuropartzale...* bai, euskal ordainak bilatuz[323]: *hitz zaharkitu, gramatiko berri edo gazte...*

Alde honetatik, azpimarkatzekoa da, jakite-adituen izenetan batez ere, maizago darabiltzala Europan (herrialde batzuetan bederen) erabiltzen diren deizioak, euskal sorkariak baino. Hau da, maizago topatu dugula *-logia* eta *-logoz* amaitzen diren jakite-adituen izenak, esate baterako, bestelakoak baino.

Joera orotariko honen salbuespenen artekotzat joko genituzke badarabiien *linguistika*k aldamenean dituen *hizkuntzalaritza, hizkuntz-jakintza, hizkuntz-jakite*:

> Nolanahi ere, ez naiz gehiegizko garbikerietan ibiliko. Ahal baldin bada, erdal jatorrizko hitza erabiliko dut Europako hizkuntzetan (baita Polonian ere, norbaitek besterik esan arren) elkarren antzeko izenak usatzen direnean: *sinkronia, diakronia*, etc., baita *linguistika* ere, alemanez *Linguistik* eta rusoz *lingvistika* idazten direnez gero, *Sprachwissenschaft* eta *jazykoznanie* edo *jazykovedenie*-ren aldamenean. Nahi eta ez baztertu behar ez ditugun gure *hizkuntz-jakintza* edo *hizkuntz-jakite*-ren

---

[322] Hemen adieraziko dituguneian, ez dugu esan nahi gertakari hauen erantzupidea Mitxelenarena denik, jakina baita beste hizkuntzetan ere ber moduan jokatzen dutela.

[323] Erdal aurrizkien euskal ordainak ikustean polikiago jorratuko dugu.

antzekoak dira azkeneko hauek[324]. (1968c:90).

Bistan, da, beraz, 1968ko Mitxelenak ez diela aparteko oztopabiderik paratzen beste hizkuntzetan ere erabiltzen diren terminoak euskaraz erabiltzeko.

Alabaina, muzin egiten ez dien forma horiek, euskal moldez etxekotu gogo dituenean sortzen zaizkio arazoak eta zalantzak.

Hau da kapituluan zehar "egokitzapenak" deitu ditugunen laburbiltzea:

. *g / j*: Jokamolde erabatekorik ez: *genetika, genetikoren* ondoan, *jeneratibo, jenerazio* edo *jenero* erabili ditu; halaber, *anglo-jermandar* eta *germaniar* lan-orrialde beretan (1972b2:43), *germanotasunez* (1978a) atzendu gabe.

Halaz ere, gogoan izan behar da, lehen adigarriko *j*dun guztiak (1972b) lanekoak direla nahiz *jenero* bitan Mitxelenaren irakaspaperetan irakur daitekeen eta bigarren erakusgarrikoetan, Mitxelenaren irakaspaperetan irakur daitekeena *germaniar* dela.

Beti, halaz ere, *-logia* amaia.

. *r-*: Oro har, *a/e* epentetikoez jantzirik eratu ditu baina honako bikoteak atzeman ditugu: *arrazoi / razionalismo, erromaniko, erromanizazio / romanista, erruso / ruso*.

Ikusi den bezala, *razionalismo* (1972b) lanekoa; *ruso*, aspaldiko lanetakoa (1968c, 1968d, 1971e, 1972b), *erruso* bilakatu da geroagoko lanetan (1981c, 1983a).

Badarabilen *rem*ak, itxura guztiz, nekezago onartzen du euskal bideetako egokitzapenik. Ez dugu, haatik, halako eragozpenik ikusten *romanista* (1978a) *erromanista* bihurtzeko, ahaide dituenen lidotik.

Ez dugu *rel-* hasierarik kausitu, bai ordea, irtenbide bikoitza hitz berarentzat: *errelatibo* (1972b) (M) eta *erlatibo* (1978a).

. Hitz-hasierako "muta cum liquida" multzoei eusten die eskuarki.

. *ps-* hasierakoaren aurrean, jokamolde bikoitza: *psiko-linguistika* (1972b) (M) eta *sikologia* lan berekoak.

Lehen aldatu Mitxelenaren aipuak gogora ekarriz, pentsatzekoa da, apika, soiltzearen aldekoagoa zela baina erregelen "kemenak" berea egin duelako edo ez dizkiola ateak hersten itxura bikoitzean letraldatzeari.

. *-kt-*, oro har gordetzen du baina kontrako egokitzapenaren lekukoak ere ez dira falta (*adjetibo, autore, dotrina, sujeto, subjetibo*).

-pt-, beti gordetzen du.

Uste dugu, arestiko puntuan erantsi azalpen berak balio duela honentzat ere.

. *-kn-, -gn-, -gm-*, bere horretan gordez, *-tm-* eta *-tn-* bezala.

---

[324] Jat. aek.

. *-dj-*, *-bj-* gordez, *sujeto*, ezik.

. *-sz-*

Nahiz 1985ean (1985c:193) soiltzaren alde agertzen den, *disziplina* da (1972b) lanean jasoa.

. *-pz-*, *-kz-*, *-ps-*, *-ks-*, *-bs-*

Gordetzen ditu, *traskrizio* hitzean ezik[325].

Beharbada, erants daiteke, ez dela *-bs-* > *-ts-* ([ć]) joerarik atzeman.

. *-tl-*, *-kl-*

Multzo hauek bere horretan gorde ditu.

-gl- berriz, ez: *erregela*, *ingeles*.

Azken multzo honekiko jokamolde bikoitza, beraz, hitz-hasieran gordetzekoa baina hitz-barruan desegitekoa.

. *-n* + igurzkaria --> *-n* + afrikatua oro har.

Salbuespenak: *intransitibo*, *transitibo* eta *konjunzio*, *konzepto*, *konzeptu* guztiak (1972b) lanekoak.

-r + igurzkaria --> *-r* + afrikatua.

Arestikoa bezalaxe, joera afrikatuaren aldekoa izanik, salbuespen bat dago (*perzepzio*) (1972b) lanekoa hau ere.

. *-bs-*

Multzo honetan ere, ez dago erabateko eta betibateko ihardunbiderik, joera soiltzearen alde makurtzen dela badirudi ere.

Multzoa gordetzen dute ondokook: *abstrakto*, *abstrazio*

Soilduz, berriz: *astrakto*, *sustantibo*, *sustantzia*, *sustrato*

Bikote lehiakideari dagokionez, esan behar da *astrakto*, behin besterik ez dela irakurtzen ahal (1968c), beste hamarretan –guztiak (1972b) lanekoak baina (M) bat tartean dela– *abstrakto* dira.

. *-s/zkr-*, *-ktr-*

Multzo hauek bere horretan gorde ditu.

. *-nst-* multzoak moldamodu bitarikoa izan du: *instrumental*, alde batetik eta *istant*, *kostituzio*, bestetik.

. *-nsf-*. Honetan ere, bietarikoak: *transformatibo*, *transformazio*, *transkribatu*, *transkripzio* baina *trasformazio*, *traskrizio*.

Argitaraldiezko itsaskinean adierazi bezala, *tra(n)sformatibo* (1972b) lanean besterik ez daiteke irakur.

tra(n)sformazio, berriz, (1971e), (1972b) eta (1981c) lanetan.

---

[325] Dagoeneko aski azpimarkatu dugu hitz honen bitdaren ingurukoa.

Mitxelenaren 1972ko irakaspaperetan, *trasformazio* da irakur daitekeena.

transkripzio, *traskrizio* baino lehenagoko lanean atzeman dugu, (1968d) eta (1983e), hurrenez hurren.

-nsk-

Aldatu berri agerraldietarikoak sail honetakoak ere badira: *transkribatu*, *transkripzio* eta *traskrizio* aurkez aurk.

Azpimarratzekoa da, *transkripzio* (1968d) lanekoa denak kide duen *transkribatu*, *traskrizio*ren ondoan darabilela lan berean (1983e).

Ez dakigu, beraz, multzo honezaz zer asma, baina aldatu Mitxelenarenak hor daudela ezin ahantzi.

-bkl- multzo berezi xamarrari eutsi dio: *subklase*.

. -o / -u

Multzo hau nahasia dela iruditzen zaigu. Izan ere, jokamolde batzuek aski finkoak diruditen bitartean, beste zenbaitetan ez dugu halako sistematasunik aurkitu:

-ibo, *-ismo*, *-ano* bukaerak, beti, *-oz*.

Hemendik aurrera, gauzak korapilatuago doaz.

-mentu, oro har, *-uz* baina hor dago *konplemento* (1972b1:30) lanekoa.

-ulu, oro har hau ere *-u*, baina *kalkulo*, *kalkulu*ren ondoan. Lehena (1968c) lanekoa eta bigarrena, berriz, hamar urte geroagoko (1978a) lanekoa.

Bestetik, beheraxeago ahotan hartuko dugun *dialekto/dialektu*ren ondoan, *perfekto* dago.

espektro, *konkreto* eta *neutro* doaz batetik eta *konkretu*, *zentru* bestetik.

Eta batez ere, pareak:

dialektu/dialekto, *fenomenu/fenomeno*, *joko/joku*, *konkreto/konkretu*, *konzeptu/konzepto*, *metodo/metodu*, *testu/testo*

Lehen parean *dialektu* nagusi da (hamaseitan), *dialekto* (hirutan). Zehatz daiteke, lehena, (1968, 1972, 1981, 1983 eta 1985) urteeetako lanetan irakur daitekeen bitartean, bigarrenaren agerraldiak lan bakarrak biltzen dituela (1978a).

Bigarren bikotean nahastea areagotzen du lan bereko (1972b) formak izateak eta kopuruaren aldetik halako alde nabarmenik ez izateak: hirutan *fenomenu*, bitan *fenomeno*.

joko/joku bikotean, lehenaren nagusitasuna azpimarratu behar da:

kopuruaren aldetikako argudioa ekar daiteke batetik (hamahirutan lehena, bitan bigarrena).

Bestetik, berriz, lanen urteei begira ikusten da, lehena urteetan zehar irakur daitekeen bitartean (1968, 1972 –Mitxelenaren irakaspaperetakoa barne– 1978, 1979, 1983, 1984), bigarrena bi lan hauetan besterik ezin daitekeela kausi (1958h, 1981c).

konkreto eta *konkretu* bakan erabili ditu, behin lehena (1968c) bitan bigarrena (1972b).

konzepto eta *konzepturen* banaketa ezartzea ere ez da erraza, biak lan eta atal berean irakur baitaitezke: (1972b5).

metodo kopururari begira abantailaturik irtetzen da (seitan, hauetako bat, Mitxelenaren irakaspaperetakoa); *metodu* behin besterik ezin da kausitu.

Halaz ere, lehen moldeko guztiak (1972b) lanekoak dira eta bigarrenekoa, berriz, (1979g)koa.

tastu/testo bikoteak ez dugu uste lehia bizirik bizten duenik, argitaraldiezko itsaskinean erakutsi bezala, bigarrena, behin besterik ez baitarabil, lehena hogeita hamalkatan darabilen bitartean.

. *-is / -i*

Bukaera hau ere ez da joera batura biltzen erraza, bietarikakoak tartean baitaude, ez kopuruz ez lanen urteez erabakigarririk ezer erakusten ez dutela.

Areago, argitaraldiezko itsaskinean esan bezala, lan berean urrutirago gabe, *analisis* eta *analisi* irakur daitezke, esate baterako.

Nolanahi dela ere, lekukorik berrienak (1985b)ko *hipotesi* eta (1985a)ko *sintaxi* dira.

. *-al / -ale*

Lehena da, dudarik gabe, begiz joriko moldea, bi salbuespen dauden arren: *bokale* (behin besterik ez darabilena) eta *seinale*.

-ore, -ar, -ario bukaerez ere antzeko gauza esan daiteke. Landatu amaia hauek dira darabiltzanak *pare* aldeka batera utziz.

. *-on / -ol / -oin*

Adibide gutxi dira egokitzapen honekin ikuskizuna dutenak:

arrazoi, patroi sistematikoki erabiliak, *hiperbaton* eta *gaskoin* aldagairik gabeak.

Lehian dabiltza, aitzitik, *anglosajon* (1972b) eta *anglosajoi* (1978a).

Jaso berriari, *hiperbaton* (1972b)koa dela erantsiz gero, ondoriozta daiteke, apika, *-oi* aldera makurtzen dela Mitxelena.

*gaskoin*en kasuan, berriz, litekeena da, antzinatasunak eragina izatea Mitxelenaren aukeran[326].

. *-z*

Bere horretan gorde du erabili dituen urrietan: *boz, matriz*.

Ez dago, beraz, amaian *-e* eransteko aierurik ere.

Lehen egin bezala, komeni bide da, azpimarkatzea Mitxelenak debekurik ez duela *-ik(o)(a)* bukaeraz baliatzeko. Ezta erdal adjektibo erreferentzialen *-es* edo *-ista* bukaeradun formez ere.

Halaz ere, adierazi berriaren ondoan esan behar da, modu honek ez dituela bestelako baliabideak agortzen. Honela, ikusiko den bezala, sarritan *-ik(o)(a)* izenondoek ordain egokiak izango dituzte hitz elkartuen artean, edo *-istaren* aurrez aurre, *zale*, edo *-(t)ar* moldeez eratuak ez dira faltako.

. -Bok *x* Bok-

---

[326] *HLEH*-k zehazten duenez, *gaskoi* 1972kotzat jo daitekeen bitartean, lemaren aldaeran aldatzen duen *gaskoin* moldea, 1627koa da.

Oro har eusten dio. Salbuespenak: *esamina, sintasi(s), sintaksi]*[327].

-x Konts-

x, s bihurtua bitan (1972b). Kontrako aldetik, berriz, eta geroztikako lan batean (1978a) *experientzia]*.

Arazoak eta zalantzak hartu dira ahotan etxekotu beharren egokibideen ablapuntuan. Auzi-ezbaiok ezin murritz daitezke, halaz ere, horretan diharduen ariketara, "euskal" hitzak erabili behar dituenean ere, ez da aukera-aniztasunik falta.

Hortxe doaz aldatuak, zein bere testu-iturburuaz horniturik, *ageri/agiri, bereizi/berezi, biguin/bigun* eta beste, behin baino gehiagotan, lan garaikideetan modu bat baino gehiagotara plazara emanak (adierazgarrienetarikoa ekartzearren, hor dago, *mailegu/mailebu*).

Hizkuntzak izkribuzko molde finkorik ez izateak behartzen ote duen horretara, hitz-altxor aberatsaren erakusle izateko gogoak, idaztankera betibateko eta gogaikarriari itzurtzeko nahiaren kariaz ala besterik gabeko irizpide irmorik eza ote den eragilea argitzeke gelditzen bazaigu ere, guri begitantzen zaiguna da, Mitxelak honetan ere, ez duela beti ber moduan jokatu.

Ikusiaren arabera, beraz, Mitxelenak ez du erabateko eta artesiturik gabeko molderik gatzatu eta zalantzan bezala edo agertzen da bai erdaratikakoak moldatzea egokitu zaionean, baina baita halako ariketarik egin behar izan ez duenean ere.

Jokamolde honetan luke sustraia, apika, hasieran aldatzen zen bere aitorrak: "eredutarako" jaio ez izanak, alegia.

Bigarren multzo nagusia osatzen zuten "Erdarazko" bataiatuetara begiak irauliz, berriz, honakoak atzeman ditugu:

Mitxelenak erdararazkoak badarabiltza baina:

Guztiek dute ñabarduraren bat besteetarik bereizteko (ortografia, tipografikoa...).

Erdarazko horien ordainak maiz ematen ditu: *behavior* — "portaera", *Aux Movement* – "Laguntzailearen mugida", esate baterako.

Iraulpena eman ez eman, sarritan azalpen-definizioak ematen ditu, euskal irakurleak aditzeko moduan.

Erdarazkoekin egina, euskal formekin ere egiten du behin baino gehiagotan, erdal uztarkidea bilatzen baitio euskal adibide edo hitzari. Esate baterako, *azentuz* dioena ekar daiteke: berak erabilliko duen moduan, ingelesezko *stress* edo *pitch* terminoei lotzenago zaiela ingelesezko *intonationi* baino.

Ikusi dugu, bestetik, nolako erdarazko hitzak ziren Mitxelenak iraulpen-ordainik alboratzen ez zizkienak: filologia-gramatiketan tradizio sendoa dutenak, hizkuntzen izenak, jakiteetan aski harriztatutzat jo daitezkeenak, norbaiti aitortzen dizkionak, izen propioak...

Grafia arrotza gordetzen dutenak autu hartuz, lehen aldatu dugu Mitxelenaren

---

[327] Ik. lehen honen inguruen esanak.

honezazko iritzi orotarikoa: kanpokotzat eduki bitartean grafia izan dadin zorraren erakusgarria.

Mitxelenaren idazmoldeari erreparatzea[328], beraz, ezinbestekoa da honetan.

. *V, W*

Esango genuke emeki-emeki irenstea gertatu dela; hau da, aspaldiko lanetan oraindik ere erdarazkotzat zuen hitz bat baino gehiago, urteek aurrera egin ahala, etxekotu bilakatu zaiola:

genitivo idazten zuen 1971n, *genitibo*, berriz 1986an; *kontservadore* 1972an, *kontserbadore* 1978an, *novela* 1972an[329], *nobela* 1978an, *vokal* 1972 arte, *bokal* hemendik aurrera...

Ez da beti, halaz ere, irenstea gertatu.

Hortxe daude 1978ko *veneto*, 1979ko *kartveliko* edo 1985eko *behavior* euskal ordaina alboratu diona, besteak beste.

. *C, CH, QU*

Ugariagoak dira grafia hauek gorde dituzten hitzak eta bikote lehiakideak urriago.

Bitxia da *créole/criollo]/kriollo* hirukiaren inguruan gertatua.

Izan ere, *criollo]* eta *krioilo* 1972an irakur daitezkeen bitartean, *créole* irakurtzen ahal da 1985ean.

Ez da zokoratzekoa, bestetik, hasieratik bertatik eta aldaerarik gabe erabiliriko *diakronia, sinkronia, makrolinguistika, soziolinguistika* eta abar ere hor daudela.

Laburpenak ikusi dira eta baita hauekiko jokamoldearen berri eman ere: erdal laburpenen ugaria azpimarkatu da.

Areago, aldatu dugun 1972ko testu batean, berariaz dio lehenago erdaraz erabiliak itzultzeko, bere horretan, utzi gogo dituela.

Alabaina, honen ondoan ez da ahantzi behar, tarteka euskal laburpen-laburduraz edo euskal ordainez hornitzen duela erdal laburpena eta zeinahi gisaz, eskierki mintzagai duen euskal gertakariren bati atxikitzen zaiola erdal laburdura hori.

Hizkuntza-hizkeren deizioen laburpenekin bi jokamodu antzeman ditugu.

Erdaren izenak tarteko direnean, erdarari ahalik eta guttien urruntzen zaiona erabiltzeko joera duela iruditzen zaigu: *rus.*; aldiz euskalkiez ari denean, ez da halakorik sumatzen: *antz. bizk., errong.* edo *naf.-gar.*, esate baterako.

Hitz bakunen atalak honainokoak ondorioztatzeko aukera eman digu, beraz.

---

[328] Lehen argitaraldiei, bistakoa den bezala.

[329] Ik. halaz ere, argitaraldiezko itsaskinean honezaz dioguna.

III. ATALA

13. Kapitulua: HITZ ERATORRIAK

13.1. ERATOR-ATZIZKIDUNEN SAILKAPENA

13.1.A. IZEN-SORTZAILEAK

13.1.A.1. IZEN ABSTRAKTUEN SORTZAILEAK

Izen abstraktua sorrarazten duten atzizkiok atzeman dira aztergaian: *-tasun, -tate, -keria, -goa, -tza*$_1$, *-gintza, -era*$_1$.

-TASUN (-dasun)

1. *LEMA*

-tasun eta *-dasun*.

2. *OINARRIAREN KATEGORIA ETA ADIERA*

Atzizki honek molde nabarreko oinarriak[1] jantzikizun hartzeko erraztasuna du, emankortasunari begira, guztiak parean jar ez badaitezke ere.

$$\begin{bmatrix} +\text{Izond} \\ +\text{kualitatea} \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{abstraktua} \\ +\text{kualitatea} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{abstraktua} \\ +\text{kualitatea} \end{bmatrix}$$

[1] Oinarriei dagokienez argitu behar da batetik, ez dela izenondoen eta izenlagunen arteko bereizkuntzarik egin azpikategorizazioko tasunak ematean. Guztiak izenondo (Izond) deiturapean bildu ditugu, "adjektibo" hiperonimoa erabili bagenezakeen ere.

Bestetik, oinarritzat halako kategoria jotzea: ez dakar ezinbestean Mitxelenak hitz soil hori erabilia izana, zenbaitetan zehaztuko den bezala. Hau da, daitekeena da Mitxelenak forma eratorria soilik erabiltzea eta, beraz, oinarria geurok proposatzea, azterketaren eskakizunez.

Azkenik esan, izenen eta adjektiboen arteko mugaren gardentasun-ezaren ondorioz, oinarria izenondoa dutenen artean (edo alderantziz) kokatzea, erator-atzizki hau gabeko Mitxelenaren erabileran (hala gertatzen denean) sumatu uste den joerari zor zaiola.

aberastasun, aldakortasun, argitasun, bakartasun, ballokidetasun[2], berdintasun, bereiztasun, berezitasun, berezkotasun, beraztasun, bestelakotasun, berjabetasun, burujabetasun, desberdintasun, desegokitasun, egokitasun, emankortasun, etimologiberatasun, ezberdintasun, ezezkotasun, garbitasun, garbizaletasun, hoskidetasun, hurbiltasun, jeneraltasun, linealtasun, lirikotasun, mendekotasun, nagusitasun, ofizialtasun, ofizialkidetasun, oraingotasun, ozentasun, prestasun, xehetasun, xinpletasun, zahartasun, zailtasun, zehaztasun, zorroztasun

$$\begin{bmatrix} +I \\ \text{ł}gizakia \\ \text{ł}abstraktua \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +abstraktua \\ +kualitatea \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +abstraktua \\ +kualitatea \end{bmatrix}$$

ahaidetasun, aitzinatasun, ar-emetasun[3], artekotasun, bitartekotasun, denboratasun, eskolastikotasun, gaitasun[4], gizatasun, kidekotasun, kidetasun, ordaintasun

$$\begin{bmatrix} +I \\ +konkretua \\ -biziduna \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +abstraktua \\ +kualitatea \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +abstraktua \\ +kualitatea \end{bmatrix}$$

bokaltasun, galdegaitasun, gramatikatasun, sinonimotasun, sistematasun

---

[2]Zalantzaz bada ere, hitz honen oinarria izenondotzat jo da, *berjabetasun*, *burujabetasun* (eta *burujabetza*), *hoskidetasun* eta *ofizialkidetasun* hitzena bezalaxe.

Morfologia Sortzaileak eskakizun dituen hitz elkartuak azin izatea osagaien kategoria ez bezalakoa eta eskuineko osagaiaren kategoriaren nagusitasuna elkartura iragaztea, ez dugu uste urratzen direnik *kide* eta *jabe* izen izanagatik. Hau da, litekeena da elkarketaren bitartezko kategori aldakuntza ez gertatzea, eskuineko osagai horiek izen- nahiz izenondo- betekizuna egin ahal izateko errazlasunaren kariaz, gisa honetako sorkariak ekoiztu ahal izatea baizik.

Nolanahi dela ere, eratuen datak adierazgarriak izan daitezke.

OEH: **ballokide** sarreran ez du urterik landatzen.

HLEH: "**ballokide.** *Izond.* (*1974, 1977)".

"**kide.** *Iz.* (1571; *ide* XV h.)".

OEH: **burujabe** sarreran, P. Muj. alboratzen dio. Lehen adibidea 1918an kokatzen du.

HLEH: "**burujabe.** *Izond.* (1918)".

"**jabe.** *Iz.* (XV h.)".

Eta ber gauza esan daitekeela dirudi azken hiztegi honek ez dakarren *berjabez*.

OEH-k, **berjabe**, BeraLzM. alboratzen dio.

Ik. erdal aurrizkien ordainak.

[3]Hitz elkartuen ataiean arrazoituko da.

[4]Beharbada, egokiago litzateke *gai izan* esapidetik ablatzea.



batasun, bitasun, hirutasun

-zenbatzaile zehaztugabea: aniztasun, ugaritasun

-zenbatzailedun sintagma: elebitasun[5]

. aditzondoa: antzinatasun, maiztasun, usutasun

. galdetzailea: nolakotasun, nongotasun

Bada, bestalde, berez ikusi beharreko beste eratorri bat. Izen abstraktuak sortzeko erabili ohi den atzizki honezaz eratua dagoen arren, sorkariak orain arte zehazturiko ez bezalako tasunak ditu eta; hau dela eta, bestelako azpikategorizazioa eskatzen duela dirudi: ondasun da hitza.

Osatzearen iturburuan eratorbidearen oinarria izenondoa bazitekeen ere, badirudi egun[6] erabiltzen den adiera-bereizkuntza dela medio, egokiago dela –apika– pentsatzea *on* izenetik[7] abiatu beharra dagoela [+konkretua] eta [+gauzakia][8], sorkariak ere lituzkeen tasunak zehaztuz.

Bestetik aipatu beharko lirateke [+abstraktua] –> [+konkretua] bilakaera jasan bide dutenak.

argitasun, xehetasun, xinpletasun hitzen adierek ez dute 'argi/xehe/xinple izatearen tasuna',

---

[5]Galda daitekeena da noraino jo daitekeen euskararen ohiko bidekotzat eramolde hau. Ez ote luke behar, onenean ere, *elebiduntasun* edo antzeko zerbait?

[6]"Egun" diogu baina badirudi adieraren zehazte honek (ɬ *ontasun* izen abstraktua) erroak aspaldiskokoak dituela:

"...Leiç. *ontasun* 'bondad' (a.-nav. guip. vizc. *ondasun* 'hacienda' ya Bet[olaza] y *V[ive] J[esús]*; *ontasun* 'bondad'), etc.". (*FHV* 1965_3:245).

Honenbestez, Aronoff-en *desplazamiento semántico* (esanahi-desiokutzea) gertatzeko bidean dagoela esan al daiteke? (Scalise 1987:70).

Aztergai honetan ez da *ontasun* izen abstraktua jaso.

[7]Nolabait esan, Scalise-k (1987:61) aipatzen duen frantsesezko *justice* eta *justesse* hitzen atzizkiek dakarten esanahi-bereizkuntzak eskatuko lukeen oinarriaren bikoiztasunaren parekoa.

[8]Deizio hau darabilgu *objektu/osagarritik* bereziz.

'argiari/xeheari/xinpleari dagokion tasuna' edo antzeko zerbait adierazten, 'argi ematea'[9], 'azalpena', 'xehetzearen ondoriozko zera' eta 'xinpletzea', 'bakuntzea' baizik.

Ikusi bezala, beraz, orotariko izendapenean izen abstraktuak sortzeko atzizkia dela esaten bada ere (eta halaxe bete) egungo erabileran topa daitezke abstraktutasun horri hertsiki lotzen ez zaizkionak[10].

Nolakotasun abstraktua ñabartzen duen atzizki honek izenondoa du ohiko oinarria, bestelakoak ere onartzen dituen arren, ikusi den legez.

Izenondoen artean, nabarmen daitezke erdal izenondo eratorriak osorik hartuak dituztenak: eskolastikotasun, linealtasun, lirikotasun, ofizialtasun. Hauen ondoan, izena oinarri dutenak ere erabili dira: gramatikatasun ikus dezakegu, esate baterako[11].

Mota biok, erdal izenondoek osatua eta laugarren multzoan bilduriko izen bizigabe konkretua oinarri dutenena, seguruenik, euskarak duen hutsune bat betetzeko bideetarikoen adigarri dirateke, izenondo erreferentzial ezak sortua, alegia. Honela (elkartuak alde batera utziz), kasu batean erdal izenondo osoa mailegatu da, besteetan izena (euskal ondaretik gertuago nahiz urrutiagokoa izanik) jo da begiz erator-oinarri izan dadin.

Hirugarren multzoan bilduek, [±gizakia] (eta beti oso zehatz ezin erabakitzearen ondoriozko) [±abstraktua][12] dituzte tasunen artean.

Lehenari dagokionez, esan behar da, behin baino gehiagotan, oinarriak berez eskatzen duen [+gizakia] zehaztu behar baldin bada ere (*ahaide, bitarteko, kide...*), hitz eratorri osoaren erabilera dela medio, esanahi-hedakuntza mamitu dela eta azpikategorizazioko halako tasunari egokitzen ez zaion erreferentearen izendapen izan daitekeela.

Oso kokaleku erosoa ez duena elebitasun da, sintagma bat baitu erator-oinarri, beste inon gertatzen ez dena.

Eratorpen eta elkarketaren artekotzat sailkatuko diren *(k)ide* dutenetako batzuk eta beste[13], erdal aurrizkien ordainen azterketan ikusiko dira.

---

[9]Honetan ez da horren garbi ikusten 'arikeita'-ren, hots, 'argi ematea'-ren eta arikataren ondoriozko ematzaren arteko aldea. *Xehetasunek*, seguruenik, bigarren adiera bakarrik onartuko luke eta *xinpletasunek*, aitzitik, lehena soilik, hiztegian ikusi ahal izan denez, *xinpletze* eta *bakantze* ditu eta adierakide.

[10]Aztergaian zehar, maiz sortu zaigu honako kezka: atzizki bera (?) baliatuz balio diferenteak dituzten hitz eratorrien azpikategorizazioan bertan zehaztu behar al dira aldeok ala eratorri ondoko esanahi aldakuntzatzat jo behar dira?

[11]*gramatikaltasunen* arrastorik ez dago.

[12]Maiz azaltzen den 'konkretu/abstraktu' oposizioa, beriz, alde batera utzi dugu, izena noiz den konkretu eta noiz abstraktu erabakitzeko erizpide garbirik aurkitu ez dugulako".

Azkaratek (1990b:131) hitz elkartuen sailkapenerako harturiko erabakia adigarri askia da eta euskarari bakarrari ez dagokiona, gainera. Bertan jasotzen dituen A. Alonsoren hitzak lekuko.

[13]*ahaidetasun, baliokidetasun, berjabetasun, burujabetasun, hoskidetasun, ofizialkidetasun...*

3. *HOTS-ALDAKETAK*

. *-tasun > -dasun*

ondasun (baina (des)berdintasun, ordaintasun, ozentasun...)

Aitzineko leherkaria ahostun bilakatua, ezkerreko sudurkariaren eraginez.

. afrikatua --> frikari, leherkari gorraren ezkerretara: aberastasun, zehaztasun.

. bereiztasun[14], berezitasun[15], bereztasun[16] [17]

4. *ATZIZKI-METAKETA*

. [+aditzoina] --> [+izenondoa] --> [+izena]

aldakortasun, emankortasun

[+izena] --> [+izena] --> [+izena]

ahaidetasun

. [+izena] --> [+izenlaguna] --> [+izena][18] --> [+izena]

artekotasun, bitartekotasun, kidekotasun, mendekotasun

. [+izena] --> [+izenondoa]?[19] --> [+izena]

---

[14](1972b4:68) (M).

[15](1972b:34,35,36), (1972b5:110,130), (1978a:29), (1983a:66).

[16](1978a:28,30 lautan).

[17]Gisa honetako bikoteez, *FHV* (1985_3:159).

[18]Urrats hau mamitu ondoren jantzi al dute *-tasun* atzizkia?

[19]Galdera-ikurra izen nahiz izenondo izan ahal izateari zor zaio.

ballokidetasun, burujabetasun, hoskidetasun[20]

. [+izenondoa] –> [+izenondoa] –> [+izena]

ofizialkidetasun[21]

. [+izenordaina] –> [+izenondoa] –> [+izena]

berjabetasun[22]

. Aurrizkia + [([+aditzoina] –>) [+izenondoa]] –> [+izena] [23]

izenondoa izenondoa

desegokitasun, ezberdintasun[24], desberdintasun[25]

. [+zenbatzailea] –> [+izenondoa] –> [+izena]

bakoiztasun, bikoiztasun

. [+aditzondoa] –> [+izenondoa] –> [+izena]

oraingotasun

. [+galdetzailea]-> [+izenondoa] –> [+izena]

nolakotasun, nongotasun

---

[20] *hoskide + -tasun* ala *hots + kidetasun*?

[21] Honetaz berariaz, erdal aurrizkien ordainak aztertzean aniko gara.

[22] Hitz elkartuen atalean azalduko dira elkarketa-motazkoak.
Edozein kasutan, ez dugu garbi ikusten *berjabe* izen ala izenondotzat jo behar den.

[23] Aurrerago arrazoituko da egitura-hautaera hau.

[24] (1968d:144), (1979g:178), (1984b:29), (1986c:174 bitan).

[25] (1958h:100), (1959a:131), (1968d:144), (1972b1:35), (1972b4:68), (1972b5:124).

-TATE (-dade, -tade)

1. *LEMA*

R.M. Azkuek[26] *-ada, -ade, -ate* saila osatzen duten *sufijos alienígenas* direlakoen artean kokaturikoa.

Aztergaian, lematzat eman diren hiru atzizkiak erabili dira baina *-tate* gailen nabarmentzen da, mailegu egokituetan batipat[27].

errealitate[28], erretxibitate[29], Humanitateak[30], kualitate[31], modalitate[32], orijinalitate[33], probabilitate[34]

Alabaina, kantidade[35].

2. *OINARRIAREN KATEGORIA ETA ADIERA*

$$\begin{bmatrix} +\text{Izond} \\ +\text{kualitatea} \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{abstraktua} \\ +\text{kualitatea} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{abstraktua} \\ +\text{kualitatea} \end{bmatrix}$$

---

[26](1923-25:22).

[27]Euskaltzaindiaren (1986) irizpideei jarraiki.

[28](1972b0:25 lautan,26 bitan,27 bitan,28 bitan), (1972b5:115).

[29](1972b5:126 bitan,127).

[30](1985a:110 bitan).

[31](1972b0:26).
Mitxelenak ohar hau alboratzen dio: "nolakotasun bat".

[32](1981c:147). Kasu honetan ere, besteren (de Rijk-en) ezpainetarik hartu du hau, bere *nolakotasun*aren azalpen gisa.

[33](1972b3:52).

[34](1972b4:83) (M).


[35](1968c:91 bitan).

. *-dade*

ondade[36], bakardade[37]

. *-tade*

bakartade[38]



.- *tate*

egitate[39]

Aditzoina duenean oinarri, ekintza edo ondorioa adierazten duten atzizkidunen parean erabil daiteke (aztergaiko *egintza, ekintza*, esate baterako). Izenondoa duenean, berriz, -*tasun*en baliokidetzat jo daiteke (aztergaiko *bakartasun*).

Azpikategorizazioan zehazturiko [+abstraktua] eta [+kualitatea] tasunen balioa lainopean geldítzen da ondaderen kasuan. Aurreko *ondasun*en pare, esanahi aski zehatzeko eta nolakotasun-ñabardura eskaseko bilakatua baitirudi. Berriz ere [+abstraktua] -> [+konkretua] aldakuntza mamitu bide da.

---

[36](1961a:51), (1972b2:44), (1972b5:132) (M), (1979g:182).

[37](1978a:29).

[38](1971e:94), (1972b5:112).

[39](1984b:32).

"... *itaune* es comparable de manera muy precisa con el vizc. *egiune*, 'contrato', sin otra diferencia que el empleo como primer miembro del nombre verbal (*egite*, en composición *egita-*, de donde **eita->ita-*) o bien del radical *egi-*, de *egin* 'hacer', delante de *-une*". (*FHV* 1985,3:489).

Hitzok eta 'egintza' esanahia direla medio, pentsa zitekeen oinarria aditzoina ez baina aditz-izena zitekeela. Honelakorik proposatuz gero, ordea, izenetik abiatu beharko litzateke, harrigarri xamarra litzatekeena.

3. HOTS-ALDAKETAK

. *-tate* > *-dade*


Lehen leherkaria ahostun bilakatua aurreko kontsonante ozenaren eraginez eta bigarren bokalartekoa gauza bera, asimilazioz, apika.

-KERIA

1. LEMA

-keria da forma bakarra.

2. OINARRIAREN KATEGORIA ETA ADIERA



berritsukeria, garbikeria, mordoilokeria

Adierari dagokionez, gaitzespen-kutsua ezartzen dio oinarriaren esanahiari.

Azpimarratzekoa da *berritsuk* eta *mordoilok* berekin gaitzeste-ñabardura duten bitartean, *garbiri* –lehen begi-kolpean bederen– ezin egoki dakiokeela horrelako tasunik.

Hau dela eta, esan al daiteke eratorpenean, itxura, oso ohiko ez den gertakari baten aurrean gaudela?

It has already been seen that pejorative suffixes do not attach to bases of positive semantic import (cf. *guapo* –> **guapejo* or *decente* –> **decentacho*). (Lang 1990:47).

Ala oinarritik bertatik kontutan hartu beharko litzateke hitzek, hitzez hitzeko esanahiaz gain, har dezaketela (eta hartzen dutela) bestelako baliorik[40], ironiazko kontrakoa barne

[40]Gogora ekar daiteke harako Wittgenstein-en (1953) aipatu hura: "esanahia erabilera da".

(laena **ederra** egin didazu!), eta alderdi pragmatiko honen zantzuak hitzaren azpikategorizazioa aldarazteraino irits daitezkeela, era honetan *garbik* besteek bezalako azpikategorizazioa eta atzizkiak debekurik gabe onartuz?

garbitasun / garbikeria bikotearen bitartezko "markagabe" / "markatu" jokoa ere ohargarria delakoan gaude.

Beste alde batetik, aztergaian bi hitz jaso dira arestiko azpikategorizazioan bete-betean kabitu ezinak direnak:

bearneskeria, erdalkeria

Izan ere, jasoriko besteen olnarria izenondoa bazen, hauena izena da (*bearnes* zalantzazko izan daitekeen arren) batetik, eta gainera, arestikoei zehazturiko [+abstraktua] nekez egotz dakioke 'hizkuntza batean mintzatzean tartekatzen diren beste hizkuntzazko formak' moduan edo parafrasea daitekeenari.

Gertakari hauek aski ote dira beste atzizki batez hitzegin ahal izateko? Ez dugu halakorik uste. Sarreran azalduriko baldintzen erabateko urratzea gertatzen ez delakoan gaude, [+gaitzespen] tasun semantikoak bere horretan baitirau[41].

3. HOTS-ALDAKETAK

Aldaerak zehaztean adieraziez gain, azken bokala erori eta *-r* amaian gerta daitekeen -> *l*- aldaketa.

. *erdara* --> *erdal*[42].

4. ATZIZKI-METAKETA

. [+izena] --> [+izenondoa] --> [+izena]

berritsukeria

---

[41] Hitz hauek berriz ere aipatuko dira euskarakadez mintzatzean.


[42] Ikus aurrerago *argitaldariri* perturiko oharra.
Bukaerako kontsonanteen aldakuntzaz, *FHV* (1985$_3$:317).

-GO(A), -KO(A)


1. LEMA

Aldagai ahostun eta ahoskabea jaso dira[43].


2. OINARRIAREN KATEGORIA ETA ADIERAK



ahalkoa[44]



zabalgoa



abenikoa[45], eroriko(a)

---

[43] Atzizki honezaz Mitxelenak badakar berririk: *FHV* (1965$_3$:132), (1979g:179).

[44] Orol [+gizakia] tasunaz lehen esanak. Hemen ere, erreferentea ez baitagokio [+gizakia]-ri. Hitz honen jatorriaz: *FHV* (1965$_3$:487) eta (1979g:179).

[45] *OEH*: "*abenit(u) (REW* 218) + *-goa* > *abenitkoa* > *abenikoa*. v. *FHV* 18.2". Gehi, Michelenaren (1974a, *SHLV*:389).

HLEH-k, **abeniko** landatzen du leman, nahiz parentesi artean *-aduna* alboratzen dion.

Azken adibide honen lema-ezarpenak zalantzak sorrarazten dizkigu, *HLEH*-k **eroriko**, *-a* gabea ematen baitu hiztegi-sarreran eta Mitxelenaren testuak[46], gainera, erabakitzen laguntzen ez duelako.

Neurria adierazten duenean, *-era*, atzizkia izan dezake parean (aztergaiko *zabalera*).

3. HOTS-ALDAKETAK

. herskaria + herskaria --> Ø + herskari ahoskabea: ahalkoa

-TZA

1. LEMA

Forma bakarra.

2. OINARRIAREN KATEGORIA ETA ADIERA

$$\begin{bmatrix} +I \\ +gizakia \\ +ofizioa \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +abstraktua \\ +ofizioa \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +abstraktua \\ +ofizioa \end{bmatrix}$$

bertsolaritza, hizkuntzalaritza

Ofizioa adierazi ohi da atzizki honen bitartez, hemengo adibideetan, ñabardura hori lasai xamar hartu beharra gerta daitekeen arren.

4. Atzizki-metaketa

. [+izena] --> [+izena] --> [+izena]

bertsolaritza

---

[46] "Lurraren hedadurak, jendetzaren ugariak, ekonomiak eta bestek honantza [Jat. *honuntza*] makurtzen zuten pisua, eta ez dut uste Utrecht-ko erabakiak izan zirenik eraglle soil urrutiko arrantzaren erorikoarekin, bai beltinudi Luis XIV.ak lur joerazi ziola, ehunen bat urtez lehenago gure aldekoa Felipe II.ak desegin zuen antzera". (1963a:53).

. [+izena] --> [+izena] --> [+izena] --> [+izena]

hizkuntzaleritza

Hiru eta lau terminoko paradigmak.

-GINTZA

1. Lema

Atzizki-metaketan jatorria[47] duen atzizki honen aldaera bakarra jaso da.

Bestetik esan behar da, *LEF-3*-k eta *LEF-4*-k[48], *egin*en oihartzuna dela medio, hitz elkartu sintetikoen artean kokatzen dituztela gisa honetakoak. Azterlan honetan ere, han izango dute paragunea.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$\begin{bmatrix} +I \\ +konkretua \\ -biziduna \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +abstraktua \\ +lantzea \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +abstraktua \\ +lantzea \end{bmatrix}$$

hiztegigintza, inkestagintza, zubigintza

Hemengo adibideetan, ez dago bestetan gerta daitekeen nahasterako tarterik, bestela esan, ez dago "x-*gin*" atzizkidun eratorriaren metaketarik. 'Ariketa', 'egitea' adierazten da.

4. Atzizki-metaketa

. [+izena] --> [+izena] --> [+izena]

hiztegigintza

---

[47] Azkue (1923-25:60).

[48] (1991), (1992) hurrenez hurren.

-ERA,

1. Lema

Lema honen azpian bildu dira dimentsioa edo neurria adieraztekoak[49].

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[+Izond      ]   +   [+atzizkia   ]   -->   [+I          ]
[+neurria    ]       [+I          ]         [+abstraktua ]
                     [+abstraktua ]         [+neurrena   ]
                     [+neurrera   ]
```

luzera, zabalera

3. Hots-aldaketak

Amaierako *-e* bokala *-a* bilakatua ondoko osagaiaren eraginez eta azkenik bokalen soilketa[50]: luzera

13.1.A.2. 'EGILE'-IZENEN SORTZAILEAK

Sail honetako atzizkien sorkariak, 'egiletza' ñabardura dela medio, arruntean bizidunei dagozkienak ohi diren arren, aztergaiaren izaera bereziak –hots, berezituen arloan aritzeak–, eragiten dio usutasun horri eta, seguruenik beste hizkuntza-mailatan baino 'Egile' bizigabe[51] gehiago ere aurkituko dira.

-ARI (-kari, -lari, -tari /-dari)

---

[49]Beste era beregaina menpekotasunezko hitz elkartuen artean kokatuko da.
-era eratorpenezkoan eginiko bereizkuntza, sailkapenean zehar ikus daiteke. Nolanahi ere den, honen ingurukoak aurrerago zehaztuko dira.

[50]Ikus hitz elkartuen atalean, *zedarrin* jasoa.

[51]Azterlan osoak, ez bakarrik eratorpenean ikusiak, uste hau sendotzera garamatza.

1. Lema

Aztergaiko hitz eratorrietan idazpuruan zehazturiko aldaerak atzeman direnak izan arren, euskalariek[52] *-ari* jo dute, oro har, lematzat.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[ +I              ]     [ +atzizkia ]          [ +I              ]
[ +konkretua      ]  +  [ +I        ]    -->   [ +gizakia       ]
[ -biziduna       ]     [ +gizakia  ]          [ +ari dena     ]
                        [ +ari dena ]
```

. -a + *-ari*

elkarrizketari, gramatikari, logikari

. -a + *-lari*

ekonomilari, gramatikalari, historialari, historilari, hizkuntzalari

. -o/-i + *-lari*

historiolari, sintasilari

. -n + *-dari*

altzindari

. kontsonantea + *-lari*

euskalari[53], hizlari (afrikatua igurzkari bilakatua)

. Aditzoina oinarri

---

[52] Azkue (1923-25:85), Villasante (1974:61), Azkarate (1991:40), *FHV* (1985_3:246,316).

[53] Azken honetan, ez dakigu zehazki kontsonante atzokariaren ondokoa *-lari* ala *-ari* den.

. -a + *-ari*

gidari, kontari[54], ordezkari[55]

. -a + *-lari*

kontalari, mintzalari

. -i + *-dari*

argitaldari[56]

oso litekeena da *-tari* atzizkiaren leherkaria ahostun bilakatzea kontsonante albokariaren eraginez.

Kokapen jakinik gabe gelditzen da olerkari ez baitakigu oinarria zein behar ote lukeen. *?oler(tu), ?olerka(tu)* aditzik ez eta begitantzen zaigun bakarra *?oler* da, baina hitz soil horren arrastorik ere ez dugu inon aurkitu[57].

Azpimarratzekoa da ez dagoela erabateko jokamolderik atzizki-aldaera zehatzaren aukeran. Areago, molde lehiakideak hor daude oinarria izena duena bata, aditzoina duena, bigarrena: gramatikari[58]/gramatikalari[59], kontari[60]/kontalari[61].

Atzizki honen bitartez gizakiaren lanbidea edo zaletasuna ematen da aditzera eta oinarriak zertan diharduen adierazten du.

Alde honetatik, beraz, *-gile* atzizkidun izena parean jar dakioke:

---

izena ere har daiteke oinarritzat, *-u*-ren erorketa izaki, orduan, gertatua:

"Cuando el primer miembro es un bisílabo, *-i* y *-u* caen...". (*FHV* 1985_3:125).

[55] *ordezka(tu)* aditzetik abiatuz.

[56] "C) El sufijo declinativo *-ra* no admite esta permutación. De *ebera* a casa y *eskura* a la mano, nacen *eberatu* y *eskurakoi*, no *ebaldu* y *eskukoi*. Desconociendo esto, han creado modernos innovadores *argitaldu* «publicar», en vez del popular *argitaratu* sacar a luz". (Azkue 1923-25:58).

[57] Arazo berarekin egingo dugu topo *olerki* aztertzean.

[58] (1972b1:32,34).

[59] (1972b4:67,91,103) (M), (1981c:145).

[60] (1981c:146).

[61] (1972b3:57) (M).

historilari/historialari/historiolari hirukoteak[62] *historigile*[63] adierakide izateak erakusten duen bezala.

Aditzoinei eransten zaizkien *-le, -tzaile* dutenek ere osa dezakete hemen bilduekin parea: argitaldari / *argitaratzaile*.

Batzuetan esanahi-bereizkuntza ere gerta daiteke: *euskalari ≠ euskaratzaile*.

Elkartu eta eratorrien artekotzat hartuko den *zale* ere aipa daiteke, adiera bera duenean; hala nola, multzo honetan ordainik ez duen *indoeuropartzale*.

3. Hots-aldaketak

euskara --> euskal; argitara --> argital

4. Atzizki-metaketa

. [+izena] + [+izena] --> [+izena]

hizkuntzalari

. [*elkar*] + [[+izena] + [izena]] --> [+izena]

izena izena

elkarrizketari[64]

Adibideotan ikusten denez, *-kuntza* eta *-keta* atzizkiak dira metaketaren lehen osagaiak.

---

[62] Bestalde, hauetan ere ez dirudi erabilera erabat finkoa denik: *historialari* (1978a:35), *historilari* (1978a:31), (1983a:74), *historiolari* (1972b3:57), (1972b5:113).

[63] (1983a:50).
kondairagile ere badarabil (1961a:49).

[64] Ikus *elkar* lehen osagaia dutenen saila hitz elkartuen atalean.

-GILE

1. Lema

egin aditzetik datozkeen *-gin*, *-gile* atzizkietarik[65] bigarrena bakarrik kausitu da aztergaian.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$\begin{bmatrix} +I \\ -biziduna \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +gizakia \\ +egilea \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +gizakia \\ +egilea \end{bmatrix}$$

historigile, hiztegigile, inkestagile, kondairagile, silabagile[66]

. Aditzoina oinarri

galdegile[67]

Adiera hau dutenen salbuespen hasieran esan bezala, eratorrien tasunetan [+gizakia] aurkitzea ohikoena delarik ere, silabagile eta galdegile bezalako hitzei ezin dakieke zehaztapen hori egoki eta, gainera, lehenak bereziki, auzi berezia agerira darama.

Honela, galdegileren kasua –bestetan paratu legez– jatorriz [+gizakia] duen hitzetik abiatu eta esanahi-aldakuntzaren mediozko azalpenak argi lezakeen bitartean, silabagilek beste azalpenen bat eskakizun du.

Izan ere, aztergaian kasu guztietan [-gizakia] den arren, badirudi ez duela autu kasuarentzat argibideak balio, ez gogoasegarri izateraino bederen; gizaki batengatik 'silabak egiten dituena' edo antzekorik nekez esango da.

Beraz, jatorriz *-gile* atzizkiak hitz eratorria [+gizakia] tasunaren jabea izatea bazuen

---

[65] Orol arestian *-gintzaz* esanak hitz elkartu sintetikoen arteko kokaguneaz.

[66] Ala eratorria izena ez baina izenondotzat jo behar da?
"Euskaraz, berriz, gerta zitekeen azentua lehen zatian, bigarren silaban, esate baterako (...) azken zatia ahulago geldituen zelarik eta, bidenabar, silabagile ez zen hotsen bat (*w*, alegia) suntsitzen zelarik". (1981:113).
Egia esan, hau bezalako eguretan ez da beti erraz jakiten zein den elementuaren gramatika-kategoria.

[67] *galde* izen nahiz aditzointzat har daitekeela aurrean izanik.

lege, oraingo euskarazko gisa honetako erabilerek legea lasaitzera behartuko al lukete?

Adieraren aldetik esan daiteke, atzizki honek bestetan duen 'lanbidea' ñabardura baino zuzenago lotzen zaiela hemen bilduei 'Egilea'-rena.

Nabarmendu nahi da, halaber, *galdegile / galdetzaile* bikotearen erabilera-banaketa, lehenak [-gizakia], areago, [-biziduna] du erreferentea, aitzitik bigarrenak [+gizakia] du, egun *EGLU*-k[68] darabilena ez bezalakoa, alegia.

Azkenik, berriz ere azpimarratu behar da *-ari* atzizkidunekin osa dezakeela bikote baliokidea[69].

3. Hots-aldaketak

. -a --> Ø: historigile

4. Atzizki-metaketa

. [+izena] --> [+izena] --> [+izena]

hiztegigile, kondairagile(?)

. [+aditzoina] --> [+izena] --> [+izena]

kondairagile(?)

Azkena biotan paratzea bi ulermoduak daitezkeenak iruditzeari zor zaio.

-LE, -TZAILE (-taile)

1. Lema[70]

Hiru: *-le, -tzaile* eta *-talle*.

Hirugarren aldaera eskuztaturiko eratorpenazko bibliografian aipatzen ez den arren, R.M. Azkueren hiztegian aurki daiteke:

---

[68] *EGLU-I* (1985:87hh).

[69] Ikus *historilari* eta abar. Halaber, *-aire*.

[70] Hitz elkartu sintetikoen atalean ikusiko dira atzizki hau duten osagaiaz oratuak.

-Talle (L). Var. eufon. de TZAILE (...) ERAKUSTAILE: indicador, el que indica. (*DVEF*).

Azkueren iritzi horretan oinarrituz, hain zuzen, jo da bigarrenaren aldaeratzat.

Hemen bilduen arabera R.M. Azkueren[71] arauak gordetzen dira *-le / -tzaile* atzizkien aukeran[72]. Hurrengo puntuan zehaztuko dira aldaeren erabilerak.

2. *Oinarriaren kategoria eta adierak*

$$\text{. aditzoina [+nor-nork]} \cdot + \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{gizakia} \\ +\text{egilea} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{gizakia} \\ +\text{egilea} \end{bmatrix}$$

. -a(tu) + *-tzaile*

argitaratzaile, asmatzaile, erdaratzaile, euskaratzaile[73], galdatzaile, informatzaile, izkribatzaile, konparatzaile[74], moldatzaile, usatzaile

. -r(tu) + *-tzaile*

hartzaile

. -l(i) + *-tzaile*

itzultzaile

---

[71](1923-25:78,79).

[72]Hiztegian *soinujoile* jaso da. Honezaz Villasante (1974:136).

[73]Ikus *euskalari*.

[74]Izenondo moduan ere erabilia. Izen eta adjektiboen arteko mugaren labainaz euskalaritzan aipatuen erakusgarri ekar daiteke: Azkuek (1923-25:74) 'Egilea' adiera duten atzizkiez osatuak, halaber, *FHV* (1965_3:512).

Kazka hau ez da, haatik, euskararen esparrura murrizten, katalanaren aztertzaileen artean ere jaso daitezke aipuak:

"Es tracta del problema de la limitació nom-adjectiu, problema agreujat en les unitats que duen el tret [+animat] (p.e., *cantant, dependent*, etc.)". (Cabré-Rigau 1967_2:127).

Muller-ek (1963:166) ere aipatua zuen, izonondo eta partizipioen artekoaren ondoan, kategorion arteko muga irristakorra, frantsesari zegokionez.

. -n + *-(l)le*

egille, emalle, entzule, eragile[75], erantzule

. -tz(i) + *-le*

idazle

. -r(ri) + *-le*

irakurle

Hemendik aurrerako guztiek batean dutena eratorria [-gizakia] tasuna duenari uztarturik joatea da, honen kariaz, oinarria arestikoek bezalakoxea izanagatik, bi multzotan banatu dira.

. -ts(i) + *-taile*

erakustaile[76]

. -ts(i) + *-le*

erakusle[77]

. -z(i) + *-le*

erazle[78]

. -a(tu) + *-tzaile*

---

[75]Izenondoarena eginez, [-gizakia] tasuna lukeena. Besteokin batean utzi dugu hemen, bigarren multzoan sail berri bat berarentzat bakarrik ez sortzearren.

[76](1971e:104).

[77](1968d:136,150), (1968e:76), (1971e:106 bitan), (1983d:122).
Bizidun eta bizigabeekin erabilia.

[78]"Bistan dugu lehena, Lafonek azpimarratua: aditz erazleari, dena delako, iragankorra izatea dagokio; ez iragangaitza, gure hau maizenik den gisan". (1985b:190).
Galde-ikurraz hornitua beina hitz elkartuetan atribuziozkoen sailean kokatu da egitura osoa. Halarik ere, *HLEH*-k honela aurkezten du: "**erazle.** (...) □ (Abs.). *izlag.* (1966)".

aldatzaile, aukeratzaile, banatzaile, batzaile, berrizkatzaile, formaldatzaile, hautatzaile, kalkulatzaile, klasifikatzaile, kreatzaile, mugatzaile[79], ukatzaile

. *-r(tu) + -tzaile*

bihurtzaile, sortzaile

Nahiz eratorriaren azpikategorizazioan [+I] paratu den, azken bi multzoetan bilduriko guztiak izenondoaren betekizuna eginez erabili dira[80].

Aditzoinaren subkategorizazioan [+nor-nork] mota paratu da[81] aditzaren etorkizko izaerari baino aditzaren erabilerari erreparatu zaiolako. Izan ere, *aldatu* edo *sortu* bezalako aditzak berez *nor* motakoak izanik, hemen iragankor moduan erabiliak daude[82].

Bitxi gerta daiteke, bestalde, berez aditzaren izaera osoa ez duen *erazi*[83] ere beste aditz beregainak bezalaxe erabilia izana.

Atzizkiaren esanahi-balioak egilea gizakia izatea berez bezala lekarkeen arren, bistan da hemengo hitz eratorri askotxotan ez dela honelakorik betetzen, batipat izenondoaren eginkizuna betetzen dutenetan. Honen arrazoia egon daiteke, arestian zehaztu bezala, eratorriak ezkerretara daraman izenaren [-gizakia] tasunaren eraginean, apika.

Zenbait kasutan, 'Egilea' adiera zalantzazkoa edo oso era lasaian hartu beharrekoa gertatzen da; esate baterako, konparatzaile (iz.)[84] zein, aztergaiko *konparatista*tik aski gertu legokeen, '-(r)en aldekoa', 'zalea', are 'lanbidea', 'ofizioa' ñabardura izanik biok. Ildo honek, *zale*-dun *indoeuropartzale* edo *-lari*-dun hizkuntzalarirekin lotuko lituzke.

3. Hots-aldaketak

Arestiko puntuan ikusi bezala, amaia *-n* duten aditzek galtzen dute azken hori atzizkia janzterakoan: egile, emaile...

Era berean, txistukari afrikatua gibelean gertatuz gero, igurzkari bilakatzen da

---

[79] Izenondo moduan ere erabilia.

[80] "Els mots complexos integrats per un radical verbal i el sufix *dor* freguen la frontera borrosa d'adjectiu-nom; podrien ser considerats originàriament adjectius que s'han lexicalitzat com a noms o bé noms directament". (Cabré-Rigau 1987_2:60).

[81] Puntu honezaz Azkue (1923-25:78,79), Villasante (1974:108) eta azken honetan Mitxelenaren (1) oin-oharra.

[82] *causativu* (Cabré-Rigau 1987_2:51) moduan, alegia. Hitz elkartuen atalean itzuliko gara.

[83] *EGLU-II* (1987:60-64), Azkarate (1990b:409), *LEF-3* (1991:39).

[84] "Bloomfieldek, konparatzaile azkarra zalarik, ederki ikusi zuen bazela lokarririk hizkuntza batean orain bizi diren legeen eta aldi laganean pairatu dituen aldakuntzen artean". (1972b4:102) (M).

atzizkiaren aurrean: erakusle, idazle.

4. Atzizki-metaketa

Aipagarria dateke, aditzoina denean oinarria, aditza bera eratorria dela sarritan:

. [+izena] --> [+aditza] --> [+izena]

erdaratzaile, euskaratzaile, [85]@izkribatu([86]?), mugatzaile

. [+izena] --> [+adberbioa] --> [+aditza] --> [+izena]

argitaratzaile

. [+adberbioa] --> [+aditza] --> [+izena]

berrizkatzaile

Batzuetan, oinarri behar lukeen aditzaren erabilerarik ez da mamitu: *@berrizkatu, @informatu, @izkribatu.*

---

[85]Ikur honen bitartez, Mitxelenaren hiru liburukiek osatzen duten barrutian izaera hori duela aurkitu ez dugun forma emango da aditzera aurrerakoan. Garai bateko Morfologia Sortzailearen barneko ikuspegi batek (Aronoff 1976), "badiren" hitzetatik abiatu beharra proposatzen zuenak, alegia, seguruenik nekez onartuko lukeen notazioa, baina geroztikako *overgenerating morphology, (morfologia sobregeneradora)* (Scalise 1987, Lang 1990) delakoak gaitzetsiko ez lukeena.

Beste hizkuntzalaritza-eskola bateko azken irtzi honen aldeko lekukotasunik ere ez litzateke falkako; esate baterako, Coseriu (1961$_2$:179-180) estrukturalistarena:

"La *modificación* [gure eratorpeneko kategori aldakuntzarik ez dakarten atzizkiak bilduko lituzkeena] corresponde a una determinación gramatical «inactual», es decir, a una determinación que no implica una función específica (en la oración) del término primario modificado"

eta aurreraxeago "desarrollo" (gure atzizki-metaketan ikusten duguna), beste "estructura secundaria" (*sèrie morfològica* Cabré-Rigau 1987$_2$:74) delako mota bat, ahotan duela eransten du:

"La existencia del desarrollo en serie como procedimiento permite que se salten etapas, es decir, que se creen términos sucesivos, sin que el término implicado anterior exista efectivamente en la norma de la lengua. Así, lat. *barbatus* implica, desde el punto de vista del sistema de la lengua, un verbo **barbare* («dotar de barba») que, según parece, nunca se ha creado".

Hauxe egoitzen diogu gure aztergaiak osatzen duen "mikroegiturari", alpameneko hizkuntzaren araua aztergaira murriztuz.

[86]Galde-marka, zentzu hertsian, eratorria ote den garbi ez izateari zor zaio.

-KO

1. Lema[87]

Berez 'Egilea' adierazi ez arren, hemen kokatu da, Azkarateren[88] irizpideari jarraiki, jatorriz izenlagun-sortzailea den *-ko*-ren eskuinean doan izenaren (edo mugatzailearen) isilarazteak sortzen duen atzizki hau.

Villasantek[89] ez du eratorpenean aipatzen.

Azkuek[90] ez dio atzizki honi jatorria eratorpenean ikusten: *-en*-ekin batean, deklinabidetik iritsi denekotzat dauka.

Azkarateren hitzak hartuko ditugu irizpide:

> Jatorriz adizlagunari erantsirik izenlaguna sortzeko funtzioa duen atzizki hau zenbaitetan erator atzizki bihurtu dela esan daiteke. (Azkarate 1991:53).

Badu atzizki honek beste berezitasun bat, beste erator-atzizkiek ez bezala, *-e* loturabokala ageri duela oinarria kontsonantez amaitzen denean[91], alegia.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[ +I              ]     [ +atzizkia ]          [ +I       ]
[ +konkretua      ]  +  [ +I        ]  -->     [ +gizakia ]
[ -biziduna       ]     [ +gizakia  ]          [          ]
[ +lekua          ]
```

---

[87] *-ko* motak eta hauen kokalekuezko erabateko ikuspegia, eratorpenean kokatu ez dugun *-ko*-ri eskainiko atalean, beherago beraz, emango dugu. Hara igortzen dugu non zer kokatu den ikusteko.

[88] (1991).

[89] (1974).

[90] (1923-25:92).

[91] Honetxek umunduko luke, hain justu, erabateko eta benetako eratorpenetik. Erregela fonologiko (*Reglas Fonológicas*) hutsen eta Birregokitze erregelen (*Reglas de Reajuste* direlakoen) arteko aldeaz Scalise (1987:71hh).

aurreko, eskolako[92], [+gizakia] tasuna dutenak.
bitarteko, [-gizakia] tasunaren jabea.

$$[+\text{adberbioa}] + \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{gizakia} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{gizakia} \end{bmatrix}$$

antzinako

azken honek [-gizakia] du erreferentea.

Azkuek berariaz alpatzen ez duen *-ko*-ren erabilera da hemen jasoa[93].

Erator-atzizkitzat joa izenlagunak sortzeko erabiltzen den bera dela ukatu gabe, eratorpenean aipatzeko arrazoia azpikategorizazioari dakarkion aldakuntzan datza; hau da, oinarriak [-gizakia] tasunaren jabe izanik eta tartean izenlagun moduko erabilera dela eta, azkenean eskuinean eraman ohi duen izena isilduz eta bere [+gizakia] ezaugarria bereganatuz, eskuratua [+gizakia] tasunez agertzean. Egoera hau betetzen da [+gizakia] zehaztu zaienetan.

Halarik ere (esana doa), maiz aski topatzen den gertakizun bera da [-gizakia] zehaztu zaienek erakusten dutena, hots, eratorria lehen urratsean [+gizakia] ezaugarriaren jabe izanik, hedatu eta halakorik ez dutenei ere egoztea: bitarteko, ordezko hitzekin gertatzen dena, hain justu.

4. Atzizki-metaketa

. [+izena] --> [+izena] --> [+izena]

bitartekotasun[94]

---

[92]Egia esan, aurrerago ikusiko den beste *-ko* sailean ere bil zitekeen, 'jarraile' adiera dela medio.
"Chomsky eta bere eskolakoak [sic], ordea, aztertu duten hizkuntza esateko moduan morfologiarik ez duena gertatu da: ingelesa". (1972b4:87) (M).
"Eskola berriak ez du oraindik dogmarik. Hobeki esan, dogmak baditu, eta gehiegizko, baina ezezko dogmak dira, dogma ukatzaileak, besteren gogoeten aurkakoak. Eskolakoek eskolako franko dogma uka dezakete, artskurik gabe". (1972b4:107) (M).

[93](1923-25). Oroi hiru adiera nagusi antzematen zizkiola: a) 'etxea', b) 'kolpea' eta c) 'jazkia', 'apaingarria'.

[94]*-tasun* atzizkiaren zehapenean ikusi bezala, *-ko* izenlagun-sortzailedun forma (gerora izen bilakatua ager daitekeena) izan daiteke eratorpenerako oinarri: *artekotasun, kidekotasun, mend-skotasun, nolakotasun, nongotasun, oraingotasun*, aztergaian jasoek erakusten duten bezala.


13.1.A.3. 'MULTZOA' ADIERAKO IZEN-SORTZAILEAK

-DI

1. Lema

Bakarra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera



Euskaltzaindi[95]

Hitz honen sorbideazko zenbait pasarte ekarri nahi dugu hona.

"Behin baino gehiagotan, berri eta kutsaturen truk zahar garbiak edo garbi ustekoak, usatzen genituen. Gaizki sortuak, *Euskaltzaindia* bera (barkatuko ahal didazue ez baitut, lotsaz, eta hitz bikoitza atera dut, izen nabarmenetan nabarmenena aipatzen [Euz/skadi?]) gaizki moldatua dagoen eran". (1984b:38).

"No son, sin embargo, arbitrarios los neologismos *gaztedi* juventud y *Euskaltzaindi* Academia de la lengua vasca, liter. conjunto de cuidadores del vascuence; pues en toponimia hay vocablos en que a este sufijo le sirven de tema seres animados". (Azkue 1923-25:81).

"Este sufijo, que en la lengua popular es puramente toponímico, ha sido modernamente empleado en formaciones neológicas, como *Gaztedi*=juventud, *Euskaltzaindi*, etc. El pueblo emplea *Gazteria*, *Umeteria*, *Ontziteria*, *Lorateria*, con "a" orgánica..". (Villasante 1974:66).

Azken honi arrapostua:

"Herriak oinarria [+gizakia] motako izena denean *-teria* erabiltzen omen du. Dirudienez, ordea, erabilera hau XVIII. mendetik gutxienez dator". (Azkarate 1991:46).

"Dirudienez" horren atzean koka daiteke, apika, Sarasolaren (1986:206) ondokoa:

"Beste kontu bat da atzizkiok gerora izan dituzten gorabeherak. *-tasun*-en ezartze-eremua etengabe hedatuz joan da, eta gaur egun *nortasun* bezalako hitzberri bat ez du inork aitzakiatzen. *-di*-ri dagokionez, bere eremu-hedatzea ez da askok uste duten bezain berria: Etxeberriren aipatu adibideez gainera [*uhindi, arraindi*], Cardaberazengan *aingerudi, santudi, erregiadi, jendedi* aurkitu ditut, *ondi, gizondi* Lécluseren *Manuel*-ean eta *gurdidi, odolgirodi* Iztuetarengan; eta begien bistakoa da izterketa sakon batek itxuragabe ugalduko lituzkeela adibideak. Horrela P. Altunak Mendibururen *Idazlan argitaregabeak*-etan zertu duen azterketan *ondasundi, landi, nekadi, atsegindi, etxedi, ontartedi, zulodi, garidi, grazidi, bekatudi, indardi, olaldi...* aurkitu ditu. Eta *lagundi*-ren fabore esan dezadan ez dela Sabino Arana zorionekoak asmatu hitz bat: I. Pagolak erakusten duenez aski erabilia zen Lore Jokoen garaian, Larramendiren *lagunkida*-rekin batera. Egia esan, ez da ulertzen zergatik *nortasun, hiztegi* edo *arautegi* <zilegitzat> ematen dituztenek ez duten *lagundi* edo *araudi*-rekin orobat egiten, arazoa hizkuntzarekikoa gabe ideologikoa (cf. *Euskadi*...) ez bada bederen. Eta *gaztedi* egokia iruditzen ez zaienetakoa naiz, *gazteria* aspaldidanik ongi finkatua hobesten dudalako, besterik gabe".

4. Atzizki-metaketa

. [+izena] --> [+izena] --> [+izena]

-TEGI (-degi)

1. Lema

Atzizkiaren aldaera ahostun eta ahoskabea.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[+I          ]   +   [+atzizkia]   -->   [+I      ]
[+konkretua  ]       [+I       ]         [+multzoa]
[-biziduna   ]       [+multzoa ]
```

hiztegi, izendegi

Oinarrian adierazten direnek osaturiko 'multzoa' edo horiek 'biltzeko lekua'-ren arteko adiera uler bide daiteke[96].

3. Hots-aldaketak

Hitz-bukaerako afrikatua --> igurzkari: hiztegi.

Atzizkiaren hasierako leherkaria ahostun bilakatua sudurkariaren eskuinean: *-t* --> *-d*: izendegi.

-KADA/-TADA


---

[96] Ez dugu Mitxelenagan inon aurkitu egun sumatu uste dugun beste erdal atzizki batzuk (*-terio, -torio*) ordezkatzeko saiorik. Garbi esan, *anbulategi, monastegi* eta enparatuen gisakorik, alegia.

1. Lema

-kada eta *-tada.*

2. Oinarria eta adiera



eskutada, euskarakada]] (euskerakada])[97](?)

eskutada hitzari hemen kokatzeko eragozpenak ikusten ez zaizkion bitartean, ez da garbi ikusten azpikategorizazioan zehaztuetariko tasunak noraino izan daitezkeen egokiak euskarakada hitzarentzat, izan ere, *euskara*-ri [+edukigaia] tasuna, oso urrutitik baizik ez dakiokeela lot uste izatekoa da.

Bestetik, sorkariari dagokionez, [+kantitatea] ([+kopurua] nahiago bada) ongi uztartzen ote zaion ere zalantza egitekoa da.

Aurkez daitekeen balizko azalpena katalanarentzat Cabré-k eta Rigau-k adierazirikoaren ildokoa da.

Aspectiu direlako atzizkiekin gertatzen dena gertatua litzateke, beharbada, kasu honetan. Berez [+edukigaia] eta [+kontagaia] ez den oinarriari, [+kantitatea] eransten dion atzizkia lotuz, nolabaiteko balio-iritzia itsatsiko litzaioke eta, jatorriz *-kada* atzizkiak gaitzespenkutsurik ez badu ere, halakotzat erabilia legoke kasu honetan[98].

---

[97]"Plazagizonak zor du kritika eta plazara, jendartera, agertzen dana [sic] [Jat. *dana*] plazagizon da, nahiz eta pilotari [Jat. *pilotari*], harrijasotzaile edo bertsolari ez izan (eta barka bekit euskarakada [Jat. *euskerakada*] hau, norbaitek besterik baderitza ere)". (1964c:72).

Mintzagaia Azkue izaki, ezin esan oharkabean erabilia dagoenik hitza. Hona Azkuek hiztegian bertsolari hitzaren azalpenean erantsia:

"Es voz extraña procedente de BERTSO, <verso>". (*DVEF*).

Tesi honetan Azkueri eskainiriko atalean jasoa argigarri izan daiteke:

"Azkuek *bertsolari* hitzean hauxe dio: <Es voz extraña...> Erdaraz [Jaat. *erderaz*] ezin esan daitekeen [Jat. *ditekean*] gauza bat, erdaraz [Jat. *erderaz*] adierazi behar dutena beste modurik ez daukatelako, hori al da erdal hitza?". (1959a:128).

[98]Luzesko joko duen arren zenbait pasarte ekarri nahi ditugu hona, testuan imintzioz diogunaren erakusgarri.

cullerada hitza ematen dute katalaniar ikertzaileek beste adibideak beste eta honakoa erantsi:

"Aquests tipus de sufixos que s'adapten a les característiques del radical al qual s'afegeixen sense modificar-lo ni imposar-li els seus trets, sinó simplement incorporant-li la seva matriu, els anomenarem *aspectius*. Dintre dels aspectius nominals haurem de distingir els valoratius (diminitius, augmentatius i despectius) i els quantitatius (col·lectius, aproximatius, intensius", baina oin-oharrean diote zalla deta ekarren arteko bereizkuntza

Iritzizko ñabardura hau dela eta, *bearneskeria* eta *erdalkeria* hitzen ondo-ondoan jarri ahal izango litzateke goiko euskarakada hori[99].

Ez dago bestetik baztertzerik *-ada* erdal atzizkiak izan dezakeen eragina: *animalada, burrada, valentonada*... eta enparatuetan erabiltzen denak, alegia.

Litekeena da, sorkariaren zuzentasuna alde batera utziz, ondokoa gertatzea:

> Hi ha un bon nombre de lexemes integrats per un radical i un sufix aspectiu dels quals el parlant ha perdut la noció de composició; son mostres d'unitats lexicalitzades que entraran directament en un diccionari teòric, ja que les regles no podrien explicar-les satisfactòriament. (Cabré-Rigau 1987_2:77).

Edozein kasutan, euskarakada honek, gure aztergaian atzeman ez dugun *erdarakada* ondo-ondoan du eta Villasantek[100] azkena sail honetan kokatzen du.

13.1.A.4. 'TRESNA'- EDO 'BALIABIDE'-IZENEN SORTZAILEAK

-GAILU (-ailu)

1. Lema

-ailu[101] eta honen aldagia *-gailu* erabili dira. Geroztikako aldagaia abantailatu da leman, sumatu uste zalon egungo emankortasunaren kariaz.

---

egiten eta, honenbestez iritzizkoak eta kantitatezkoak nahas daitezkeela.

Bestetik, Azkuek (1923-25:82) *Derivativos nominales colectivos* direlakoen artean kokatzen du mintzagai dugun atzizkia. Cabré-k eta Rigau-k ere erdal *-ada quantitatius col·lectius* direlakoen artean kokatzen dute.

Irakasle kataluniarrek aurrerago honako zehaztapena egiten dute:

"Aquests casos ens mostren que del que poden donar compte les regles lèxiques que introdueixen sufixos aspectius és del fet que n'hi haurà uns que expressaran la mida de la unitat, pero que si la unitat no és mesurable li afegiran un matís valoratiu, positiu o negatiu segons si el sufix és diminitiu o augmentatiu; i uns altres que sempre actuaran com a valoratius negatius (els despectius)". (1987_2:74).

Gal beraz, Bosque (1983:140), Scalise-ren (1987:152hh) [*sufijos apreciativos* eta ikertzaile beraren iragaitzezko aipamena (1987:162)], Lang (1990:53hh).

[99]Honen irozgarri alda daiteke *HLEH*-k *erdalkeria* eta *erdarakada* balickidetzat ematen dituela:
"**erdarakada.** *iz.* (1953, *erderakada* 1897). (...) Ik. **erdalkeria**".
Bestetik, testigutza-urteak garrantzia izan dezakeelakoan, beste hau ere ekarriko dugu:
"**euskarakada.** *Iz.* (1977; *euskerakada* 1922)".

[100]Por "castellanismo" empléase *erdarakada*". (Villasante 1974:89).

[101]*-ailu*-ren antzinatasunaz, Villasanteren (1974:78) lanean Mitxelenak gehitzen dion oin-oharra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+aditzoina] \quad + \quad \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +konkretua \\ -biziduna \\ +baliabidea \end{bmatrix} \quad \text{--}> \quad \begin{bmatrix} +I \\ +konkretua \\ -biziduna \\ +baliabidea \end{bmatrix}$$

. - *gailu*

aztergailu, juntagailu

. - *ailu*

emendailu

Hemen bilduei ez zaie egun usuago erabiltzen den *-gailu*-k hartu duen 'tresna' ñabardurarik antzematen[102], beharbada, materiazko izaerarik ez duten izaki teorikoak direlako.

emendailuk, *-kin* atzizkiaz osaturiko *eraskin, itsaskin* ditu parean, *-ki*-dun *adabaki* bestetik eta, *-garri*-dun *gehigarri*, hirugarrenetik.

-GARRI (-karri)

1. Lema

-garri eta *-karri* jaso dira, bigarrena ezkerreko kontsonantearen eraginez ahoskabeturiko leherkaria izanik hasieran.

Izenondoak sortzen dituen atzizki hau dagokion sailean berriz aipatuko bada ere, hemen eratorria izena denean hartuko da kontutan eta, izenarena eta izenondoarena[103] eginez erabili denean hala adieraziko da.

---

[102] Eta, ikus daitekeen bezala, egungo eskotxotan ez bezala, editzolnari besterik ez zaizkio lotzen.

[103] "It is well known that all derivatives with the suffix *-garri* are nouns as well as adjectives". (Rijk 1968:82).

2. Oinarrizaren kategoria eta adiera

$$[+aditzoina] \quad + \quad \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +konkretua \\ -biziduna \\ +baliabidea \end{bmatrix} \quad \text{--->} \quad \begin{bmatrix} +I \\ +konkretua \\ -biziduna \\ +baliabidea \end{bmatrix}$$

. *-garri*

adierazgarri (iz. eta izond.), adigarri, agergarri, argigarri, bereizgarri[104] (iz. eta izond.), berezgarri[105] (iz. eta izond.), deigarri, erakusgarri, ezaugarri, frogagarri, gehigarri[106], irizgarri, lagungarri (iz. eta izond.), osagarri[107] (osogarri],]]), seinalagarri

. *-karri*

euskarri, lokarri

-ailul-gailu-z eratorriez esan bezala, hemen ere 'tresna' adieraztetik baino gertuago ikusten da 'baliabidea' hutsik adieraztea.

Bestetik aipa daiteke, hemengo bereizgarrik kide duela *berezle* hitza, lehena 'ezaugarri bereizgarri' moduan ulertzen ez denean, 'hizkuntzen joera' edo 'izaera' adierazkizun denean baizik.

3. Hots-aldaketak

Ez dago esaterik txistukarien eskuinean erator-atzizkiaren lehen kontsonantea ahoskabe bilakatzen denik; izan ere, behin bakarrik ikus daiteke honelakoa: euskarri hitzean, non, amaiko afrikatua igurzkari bilakatu den.

Ahoskabeturiko bigarren adibidea, lokarri, 'lot + *-garri*' dela uler daiteke[108].

---

[104](1958h:100 bitan,101 hirutan), (1968c:95 seitan), (1972b3:61 hirutan) (M), (1972b4:82 lautan,100 lautan) (M), (1972b5:109), (1983e:129,131), (1986c:177).

[105](1972b0:28), (1972b5:110,130).

[106]Itxuraz bai baina mamiz ez dira berdinak Mitxelenaren hau eta Euskaltzaindiaren (1975) *gehigarriak*.

[107]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan.

[108]*FHV* (1985_3:345).

-KI$_1$

Azkuek[109] bi sailetan kokatzen du *-ki* atzizkia, oinarriaren kategoriaren (aditza ala izena izatearen) eta adieraren arabera (lehenean 'tresna', bigarrenean '*objeto material, fragmento*') eta honen ondorioz bata *Derivados instrumentales* eta bestea *Derivados materiales* direlakoetan txertatu, bien arteko mugak lausotuxe gertatzen bazaizkio ere, batzuetan bederen[110].

Sailkapen honetan hiru *-ki* bereziko dira, Nida-ren[111] irizpideei jarraiki: *-ki$_1$* aditzoinari eransten zaiona; *-ki$_2$*, izenari (nagusiki) erantsia eta *-ki$_3$* aditzondoen sortzailea. Villasanteren[112] sailkapen bikoitza[113] (hemengo *-ki$_3$* / besteak), hirukoitz bihurtuz.

1. Lema

Lema bakarra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ -\text{biziduna} \\ +\text{baliabidea} \end{bmatrix} \quad \text{--}> \quad \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ -\text{biziduna} \\ +\text{baliabidea} \end{bmatrix}$$

adierazki, deiki*[114], estaiki, etorki, idazki, izaki

---

[109](1923-25:105).

[110]En contra de lo arriba dicho de que con temas verbales indica instrumento, podrán tal vez citarse dos vocablos que figuran en el diccionario, que al parecer no se ajustan a ese molde: son *e/eki* (AN, BN, L) o *e/aki* (S) que significa "asado de carne" e *ikuski* que tras Añibarro por "trasto, pícaro". (Azkue 1923-25:106).

[111](1949).

[112](1974:100).

[113]Zehazkiago esan, aditzondo-sortzaile ez den *-ki* horretan hiru adiera bereizten ditu Villasantek.

[114]Besteren (Lekuonaren) aitatasun aitortua du hitz honek. Bestalde, *dei* izena ere izan daiteke oinarria.

'Baliabidea' adieraztea *ez* bide dagokio etorkiren hemengo adierari[115], ezta izakiren hemengo[116] adierei ere, gaztelaniazko *cosa*, *ente*tik[117] gertu aski sumatu uste baita.

adierazki[118] ere, apika, 'adierazten den zera', 'aditzera ematen den zera' ulerkeratik gertuago legoke 'adierazteko den, balio duen zera'-tik baino.

Bestetik, kontutan hartu beharrekoa litzateke, hitz eratorria, oro har, [-biziduna] tasunaren jabea bada ere, gizakiezko adibide bat ere badagoela, oin-oharrean erakutsi den bezala.

Nolanahi ere den, 'tresna' edo 'baliabidea' adieraren zantzurik ez da topatzen aipaturiko bi hitzotan ezta idazkin ere. Hau dela eta, *-ki*$_2$ sailean hobeto leudeke izaki eta idazki?

idazkik *idazti* du baliokide.

3. Hots-aldaketak

Amaierako txistukari afrikatua igurzkari bilakatua: idazki.

13.1.A.5. 'GAUZAKIA/EKOIZPENA' ADIERAKO IZENEN SORTZAILEAK

-KI$_1$

1. Lema

Aldagairik ez.

---

[115] "El derivado *etorki* en sus varias acepciones de herencia, linaje, adecuado y original, y tal vez *isurki* vertiente, no dan al sufijo *ki* su verdadera acepción". (Azkue 1923-25:100).

"*Etorki* = bienes que se adquieren por herencia" dio Villasantek eta Mitxelenak erantsi "(2) *Etorki* es, también, como *jatorri*, "origen", "procedencia"". (Villasante 1974:100).

[116] Villasantek (1974:100) "*Izaki* = utensilio, cosa" dakar.


[117] "Gure auzi honetan ere, astiroago begiratzen badiogu, nekerik gabe ikusiko dugu badirela nonahiko izakiak, gorputzdunak eta gorputzik gabeak, ez direnak ez gizonezko eta ez emakumezkoak ez ezik, ez harrak [sic] [Jat. *arrak*] eta ez emeak ere. Eta, halaz guztiz ere, gerta daitekeela gu haiekin hika mintzatzea". (1964g:180). (Ik. argitaraldiezko itsaskina).

"Ama eta haurraren artean momentu batean etendura fisikoa gertatzen da bion artean. Zerbait ebakitzen dela edo uste dut eta berezketa osoa izaten da. Bi izaki dira geroztik: ama eta haurra". (1972b2:43).

"Matematika, haatik, jakite formala da, jakite hutsa. Berak sortu dituen izakiez ari da, ez inguruko mundu honetan diren gauzez. Jakite enpirikoak dira begiz ikusten, belarriz entzuten eta eskuz ukitzen ditugun izakiez arduratzen direnak, eta horietakoa da orain ahotan dugun hizkuntza". (1972b4:71) (M).

[118] "esanahi" da Mitxelenak alboan paratzen dion errankidea.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera



adizki, artizki, atzizki, aurrizki, euskalki, izenki, olerki[119], gizaki



zenbaki



adabaki

Oinarriak adierazten duen sail edo klasekoa adierazteko erabili ohi da atzizki hau, baina hemengo hitz eratorri batek baino gehiagok nekez baizik onar dezake era honetako ulerkerarik.

Honela, izenki, ezin adi daiteke 'izenek osatzen duten salleko x' moduan, aditz-partizipioez ari denez gero[120], 'aditzetik eratorririko izena' gisan ere, bete-betean bederen,

---

[119] Hemen kokatu dugu oinarriaren izaeraren arrastorik ez dugun arren.
Euskaltzaindiak (1975) zerrendan tartea egiten dio, Mitxelenak ere badarabilen *poemaren* ondoan.

[120] "Aditza darabilgunean, beharrezkoak ditugu, gero eta gehiego, adizkiez gainera, «izenkiak» ere, hala nola *sar, sartu, sartzen*, etc". (1968d:151).
"No parece que esto sea ni interesante ni posible en un diccionario de nuestra lengua, al menos en lo que toca a las formas finitas, sintéticas o fuertes. Si lo es, con todo, y además de posible lo creo conveniente, cuando se trata de las formas nominales, es decir del participio, del radical y del nombre de acción: *hartu, har, hartzen* en Axular, si no se quiere buscar más lejos". (1974a, *SHLV*:390).
Ik. hiztegiaren sarrera (8. kapitulua).

onar ote daitekeen ez dugu hagitz garbi ikusten.

artizki, atzizki, eta aurrizki hirukoteak ere arazoa sortzen du aditzeko moduan, ez baitago esaterik **artitz*, **atzitz* edo **aurritz* hitz elkartuak oinarri dituzten eratorriak direnik (adizkik aldiz bai, onartzen du). Ulertzeko modua, *arte + hizki*[121], *atze + hizki*, *aurre + hizki* dela dirudi.

Honenbestez, *hizki* litzateke, 'hitzek osatzen duten salleko x'-a adieraziko lukeena eta, elkarketan berarekin doazen *aurrek*, *artek* eta *atzek* *hizki*aren kokalekua zehaztuko lukete[122].

Halaber zehaztu behar da, gizaki hitzak, azpikategorizazioan usuenik ageri den [-biziduna] [±biziduna] bihurtzera daramala, ez baita bestetan bezala gertatzen; hots, eratorri ondoko erabilera ohiko ez bezalakoa ([+gizakia] / [-gizakia] aldakuntzan gertatzen dena, esate baterako), oinarritik bertatik kontutan hartu beharreko aldea baizik.

Honezaz gain, [+gauzakia] tasuna ere, ez bide da honentzat zuzenena.

3. Hots-aldaketak

. Txistukari afrikatua --> igurzkari, leherkari ahoskabearen aurretik: adizki.

. Bestetan aipatu den *euskara --> euskal-*.

. Amaiko leherkari ahoskabearen erorketa beste leherkari ahoskabearen aurrean: zenbaki.

. *gizon --> giza-*. Zahar itxurako elkartuen bokal-aldakuntza[123]: gizaki.

-KIN

1. Lema

Bakarra.

---

[121] *hizki* 'letra'-ren baliokidetzat erabiltzearen makurraz:

"Euskaraz zerbait ikusgarri gertatzen da. Batzuek /'hizki'/ esaten dute, eta orduan beste aldera gertatzen da, zeren, hizkuntza idatziaren hipostasia aho-hizkuntzara aldatzen da. Hemen uste izan da letra bat, zeinu idatzia, hitzaren zatia dela". (1972b1:32). /Mitxenak erantsia/.

[122] Ikus hitz elkartuen atala.

[123] *FHV* (1985$_3$:126,309).

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+aditzoina] + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +konkretua \\ -biziduna \\ +gauzakia \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +konkretua \\ -biziduna \\ +gauzakia \end{bmatrix}$$

eraskin, errekin, etorkin, irazkin*[124], iruzkin[125], itsaskin

Ekintzaren ondoriozko 'zera' ematen da aditzera. Ez dirudi muga garbirik dagoenik *-ki* eta *-kin* atzizkien erabileran, zenbait kasutan[126] bederen. Honela, esate baterako, idazki eta adierazki erabili diren arren, ez ote daude gertuago –adierari begira–, sail honetakoetatik 'baliabidea' adierazten dutenek osatutik baino?

Nabarmen daiteke, *eraskin* eta *itsaskin* esanahikide direla.

3. Hots-aldaketak

. Txistukari afrikatua --> igurzkari eta sudurkariaren galera txistukariaren ezkerretara: eraskin.

---

[124] Azkueri aitortua.

[125] Zalantzaz sartu dugu hemen ez baitakigu hitz honen osamoduaz zer asma.

Batetik, *iruzkindu* aditzaren oina bera, gehigarririk gabe, *iruzkin* da. (Ala *iruzkin* --> *iruzkindu*? *HLEH*-n biak 1905ean kokaturik daude, eta aditza Azkueren hiztegian, hain zuzen ere).

Horretara, hiru balizko irtenbide gogoratzen zaizkigu:

1. kategori aldakuntza hutsaren bitartez aditzetarik izenak sortzen diren sailera pasa *adierazi*, *eduki*, *eman* eta abarrekin batean.

Irtenbide honek oztopoa badu, halaz ere, bestee' partizipioa (aditzoinetik halakorik bereizterik dagoenean) izan ohi baitute igarobide eta onartaraziko liguke itxura guztiz kontrara gertatu dena; hots, izena aditza baino geroztikakoagoa dela.

2. ???*iruzi*, ???*iruztu*... aditzik hiztegietan ez dugu ikusi. Bada, haatik *irazirik*. Hemendik abiatu beharko ote genuke? Azkueren *irazkin*ak, bigarren irtenbide honetan bide luke oinarria. Nola esplika *a* / *u* aldakuntza, orduan?

3. Ala *iruzur (egin)*era jo beharra dago?

Bitd dirudien arren, azalpen hau iruditzen zaigu egiatik hurbilena.

Izan ere, bai *iruzkin* bai *iruzur* Azkueren hiztegian jasotzen dira lehen aldiz eta lehenak, lehen adiera, 'kritika', "inorengatik gaizki esaka aritzea' edo du (testuaren gaineko komentarioa edo geroagokoa baita *HLEH*:1919).

Azalpen-modu honek *iruzkin* eta *iruzur* semantikaren aldetik zilegiztatzen duela badirudi ere, hitzaren eratzeari dagokion aldetik ezin esplika dezakegu: *??? iruzur (egin) + -kin --> iruzurkin* ez al luke behar, horretaz? Ez dakigu zer esan.

[126] *OEH*-n, **adabaki** (V-m, G-go), ***adobaki*** (V-gip; Lar, Añ; *aro(b)aki* AN-gip), ***arabáki*** (V-al-gip, G), ***adebaikin*** (V-m), ***arabaikin***.

-KARI$_1$ (-ari)

1. Lema

-kari eta *-ari* aldagaiak[127].

Azkuek[128] lotura-kontsonantea erabiltzen duten atzizkiez alpatzen dituen baldintzetarik lehena betetzen ez duen hitz bat jaso da: gertari, gertakari ere ondoan duela, haatik. Beste guztietan *-kari*[129] da erabili dena.

-kari$_1$ ezaugarritu da, izenondo-sortzaile den *-kari*$_2$-tik bereziz.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ -\text{biziduna} \end{bmatrix} \quad \text{--}\rangle \quad \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ -\text{biziduna} \end{bmatrix}$$

. *-kari*

erakuskari, gertakari, leherkari[130], sorkari

. *-ari*

gertari

Hemengo gertari[131] / gertakari[132] bikoteak *-kizun* atzizkidun *gertakizun* (iz.) eta *-era-*

---

[127] *FHV* (1985$_3$:246).

[128] En temas verbales que tienen por final el determinante *i* o el derivativo *tu*". (1923-25:105).

[129] Azkuek (1923-25:17) alpatzen duen ekialdeko *kari* beregaina ere badarabil Mitxelenak, hiztegian egiazta daitekeenez.

[130] Oinarriari dagokionez hemen, baina adiera irizpidetzat harturik, hurrengo saiean behar lukeena.

[131] (1958h:103,106), (1963d:122), (1963e:127), (1965a:116), (1966c:173).

dun *gertaera* ditu kideko.



dardarkari*[133], aurre-sabaikari]] (aurre-sapaikari])[134], sabaikari, sudurkari (izond. ere bai), txistukari (izond. ere bai)

Oinarriaren azpikategorizazioan [+soinua] zehazturiko ezaunak aditzera ematen duena da hotsaren izaerarekin zerikusia duen iturburua, artikulatzeko moduari nahiz tokiari dagokionez.

Sail honetan sarturiko dardarkari*k, *amalgama* edo *morfema portemanteau*[135] delakotzat har daitekeenez gero, arestiko ez bezalako egituraren zehapena onartuko luke.

Honela, oinarria izena ez baina aditzondoa edo aditz-esapidea ('dardarka egin') duela pentsatuz gero: *dardarka* + *-ari* litzateke orduan, oinarriaren eta erator-atzizkiaren adierazpena eta, arestiko multzoan bil zitekeen.

Bestalde, aditzoina oinarri duen leherkarik ere hemen lezake kokagunea eta, beraz, hots-motak ezaugarritzeko ez litzateke nahitaezkoa oinarria izena izatea.

3. *Hots-aldaketak*

. Hitz amaierako txistukari afrikatua igurzkari bihurtua: erakuskari.

---

[132](1972b1:32), (1972b2:40,45,46,48), (1972b3:57 bitan,61), (1972b4:73,83 bitan (M),92 bitan (M),98 (M),101 (M)), (1972b5:113,116,121,125 (M)), (1978a:35), (1979g:179), (1981c:139,146,154 bitan,155,162), (1983a:52,62), (1985b:187).

[133]Txillardegiri atxikitzen dio hitz honen jabegoa:
"Jakina denez, euskal hitz[ik] ezin zitekeen besterik gabe dardarkari batez hasi (Txillardegiren hitzez baliatzen naiz), eta beste horrenbeste gertatzen zen iberikoz, testuak lekuko". (1979g:180).

[134]Izenondo modu soilean erabiliagatik uste dugu hau duela kokalekua.

[135]Bosque (1983:132).

KIZUN,

1. Lema

Jatorrian zitekeen egoera gora-behera[136] *-kizun* da jaso den bakarra.

2. Osagaien kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ -\text{biziduna} \end{bmatrix} \quad \text{--->} \quad \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ -\text{biziduna} \end{bmatrix}$$

asmakizun, gertakizun, hautakizun, kontakizun, pentsakizun

Azkuek hiru adiera[137] bereizten ditu atzizki honezaz ari delarik, izena izatearena, izenondoarena eta predikatuarena egitearen arabera.

Mitxelenak lehen eta hirugarren adieran darabiltza gertakizun eta hautakizun.

Hau dela eta, atzizkiak bereizteko irizpideei jarraio, izenondo-sortzaileen artean jasoko badira'ere, zehaztuko den legez, izenondotzat bete-betean jotzea guztiz zalantzazkoa da.

Azken gertari honek lekartzakeen ondorioak han aztertuko dira.

-kari, sailean aipaturiko forma baliokideez gain, erants daiteke izena denean[138], *-keta*-z eratorriak izan ditzakeela hurbileko kide, honela asmakizun = *asmaketa*; kontakizun = *kontaketa*, pentsakizun = *pentsaketa*.

Oro har, aditzoinak adierazten duena 'x-tzen edo x-tzeko den zera' litzateke adimodua.

---

[136] *FHV* (1985$_3$:245,415).

[137] "a) Indica objeto final, mejor que de acción futura, en cuyo caso es derivado nominal. b) Denota acciones posibles y en tal caso es derivado adjetival; y el tema, a que va unido, siempre tema verbal. c) Expresa ideas contingentes, de acción futura, correspondiente a locuciones como "eso está por hacerse, por verse, por tratarse, por venir"... etcétera.". (1923-25:110).

Villasantek (1974:102) ber moduan jasoa.

[138] Predikatuarena egiten duenean, berriz, -tzeko izan ohi du maiz paretzako.

-KUN

1. Lema

Molde eta agerpen bakarra.

Balio hau duen atzizkirik ez da kausitu bibliografian. Azkuek bere hiztegian[139] "-kun: Sufijo que denota números proporcionales" besterik ez du aipatzen, baina bistakoa da adiera hori ezin atxiki dakiokeela hemengo idazkun honi[140].

Ikura guztiz, bestetara jo beharra dago hitz eratu honen atzeari antzemateko.

Erantzuna, Pagolaren lanean kausi daiteke:

> -KUN. "Sufijo verbal que sirve para formar sustantivos: bazkun (cosa de unir algo, sociedad); ikurrkun (cosa de significar algo, símbolo)" (Afijos del Euzkera 449). La definición anterior está inspirada en la práctica de AG; nótese, con todo, que de los ejemplos aducidos, ambos neolgs. de AG, el primero tiene por tema un sustantivo; fuera de éste y ederrkun, se une siempre a verbos. La innovación tuvo cierto éxito entre aranistas (vid., por ej., agerrkun 'muestra' (1911); erauskun 'arenga' (*1916. Neol. de Olabide ap. Azkue); idazkun 'escrito' (1908); igikun 'movimiento' (1912); zenbakun 'precio' (1920), etc., etc.). (Pagola 1988:971).

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ +\text{gauzakia} \end{bmatrix} \quad \text{--}> \quad \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{konkretua} \\ +\text{gauzakia} \end{bmatrix}$$

idazkun

Balizko atzizki honen lema-ezarpenean axaleraturiko duda-mudei, adieraren aldetikakoak ere erantsi behar zaizkie.

Izan ere, azpikategorizazio hau proposa daiteke *-ki*$_2$ (eta *-kin*)-en ildotik, adieran *idazki*rekiko alde larriegirik sumatze-ezaren ondorioz; baina bestetik, *HLEH*-ren azalpenari eutsiz, 'multzoa' adierazten dutenen artean kokatu behar ote litzatekeen ere ez dugu garbi ikusten.

---

[139] Halaber, Azkue (1923-15:167) eta *EGLU-I* (1985:214).

[140] "Delako idazkun hori Botorritako brontzea da, Zaragoza ondokoa guretzat, baina Tbilisitik, agian, Bilbotik urrun ez dagoena". (1978a:28).

HLEH: "idazkun. iz. (1915, *irazkun* 1897). Harri, diru-pieza... batean idatziriko hitz-multzoa".

13.1.A.6. 'LEKUA' ADIERAZTEN DUTEN ATZIZKIAK

-KO

1. Lema

Bakarra.

2. Oinarrien kategoria eta adiera

$$\begin{bmatrix} +I \\ -arrunta \\ +lekua \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +I \\ +gizakia \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +gizakia \\ +jarrailea \end{bmatrix}$$

Port-Royaleko, Pragako

-ko hau, Azkuek[141] aipatzen duen *declinativo proverbal*-eko lehenaren (A) eta *EGLU-I(Er.)*-k[142] *-ko* laugarrenean biltzen dituenen parekotzat jo daiteke.

Ez da, haatik, bete-betean lanotan zehazten direnen modukoa. Izan ere, Azkuek antzematen dion adiera:

> ko. En su evolución pasa A) de declinativo proverbal a significar casa con tema de seres animados: caso verdaderamente anómalo. (1923-25:92)[143].

eta Euskaltzaindiaren lanean ere, 'etxe'-ren baliokidetzat daukate.

Hemengootan, berriz, oinarriak leku-izen bereziak[144] diren arren, eratorriak ez du ez 'etxe' ez 'halako tokitako biztanlea' adierazten. Ñabardura bereziz hornitua dago, 'halako

---

[141](1923-25:92).

[142](1987:59).

[143]*Anomalia* horretan, hain justu, aurki daiteke atzizki hau benetako erator-atzizkitzat jotzeko karia, azpikategorizazioan aldakuntza gertatu dela seinale baliitzateke.

[144]Beste *-ko*-ren sailean aipatzen genuen *eskolako* hemen sartuz gero baieztapen hau zehaztu beharko litzateke, noski.

tokitan sortu, jorratu...-riko lanaren aldekoa, zalea' edo 'lan horretan diharduena' ulertu behar baita, eratorriak adierazten duen gizaki horren sorterri edo bizilekua gora-behera.

Honenbestez, *-(t)ar* atzizkidun eratorriaren adiera baten eta *zalez* (eskuarki) osaturiko hitzaren parekoa litzateke: *Port-Royaldar* edo *Pragar*, aztergaian bilduek erakusten duten bezala.

13.1.A.7. 'GARAIA' ADIERAZTEN DUTEN ATZIZKIAK

-TE

1. Lema

Bakarra.

Azkuek sail honetan kokatzen duen *aldi* eratorpenaren eta hitz-elkarketaren artekotzat jo denez, ez da hemen kontutan hartuko.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[+I                    ]   +   [+atzizkia             ]   -->   [+I                    ]
[+konkretua            ]       [+I                    ]         [-biziduna            ]
[-biziduna             ]       [-biziduna             ]         [+denboraldia         ]
[-zenbakarria          ]       [+denboraldia          ]
```

Antzinate

'Aldia', 'garaia' adierazten du hitz eratorriak.

13.1.A.8. ADITZOINARI ERANTSIZ, 'EKINTZA / ONDORIOA' ADIERAKO IZENEN SORTZAILEAK

-TZE/-TE

1. Lema

Bi aldagaiak jaso dira[145].

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{ekintza} \end{bmatrix} \quad \text{--} > \quad \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{ekintza} \end{bmatrix}$$

. *-tze*

altzinatze ([146]@altzinatu), akulturatze (@akulturatu), aldatze, alfabetatze (@alfabetatu), antzaldatze (@antzaldatu), asmatze, atzeratze, aurreratze, bakantze, bakuntze, bateratze, batze, berritze, bilatze, destokitze (@destokitu), ebakitze, egiztatze, egokitze, elkartze, eraberritze, erabiltze, erdalduntze, errepikatze, finkatze, formaldatze, galtze, gezurtatze, gibeleratze (@gibeleratu), hautatze, indoeuropartze (@indoeuropartu), interpretatze (@interpretatu), irakurtze, itxuraldatze, jalotze, klasifikatze, kolonizatze (@kolonizatu), lekualdatze, mailakatze (@mailakatu), metatze, mintzatze, mugatze, nagusitze, sailkatze, sortze, toklaldatze, urratze, xinpletze, zabaltze, zatikatze

. *-te*

aditzera emate, aginte, berridazte, egite, egite-1[147], elte, elkarte, eute(zko)[148], haste, hautemate, idazte, iraute, izate(zko), jakite

---

[145]Aldakion arteko aukera eziaz: *FHV* (1985$_3$:249,346,501).

[146]Esana doan legez, ikur hau alboratzeak, aztergaiko formetako testigu-eza adierazten du.

[147]Ik. hiztegiaren itsaskina. Han zehaztu dira molde bakoitzaren iturburuak.

[148]"Eutezko delakoak (*eute*, *eun* eta *euko* ikusiak ditut, baina ez dut sekula *edute*-ren aztarrenik idoro) badu, hiz oinarri berriak sortzeko ahalmenaz gainera, bere burua hurrenez hurren errepikatzekoa ere". (1986c:175).

Ekintza adierazten duten atzizkiok[149] dira, adiera bereko besteen aldean, markagabetzat[150] jo daitezkeela diruditenak.

Begietan ematen du *-te / -tze* atzizki biok osagai dituen elkarte / elkartze bikoteak. Bikoiztasunaren etorkian bizkaieraren eta beste euskalkien arteko *-te / -tze* aukera egon al daiteke, aginten gertatzen bide den legez?

Edozein kasutan, elkarte eta ete, egite-1, aditzezko iturburutik urrunduxe eta (la) erabat izen bilakatuak direla esan daiteke. Hau dela eta, beharbada, egokiago litzateke, hitz hauei dagokienez, [+ekintza] beharrean, [+ondorioa] zehaztea azpikategorizazioan.

Bestetik, aditzera emate eta hautemate aipa daitezke aditzaz osaturiko esamoldeek eta aditz-esapide direlakoek ere benetako aditzek bezalako aldakuntzak nozi ditzaketen seinale[151].

4. Atzizki-metaketa

Ez dago honelakorik baina ohargarri dateke aditz eratorrien (erabiliak nahiz erabili gabeak) ugaritasuna oinarrietan. Honela:

. *-tu / -du*:

@altzinatu, @alfabetatu, atzeratu, bakandu, bakundu, bateratu, batu, berritu, @destokitu, egokitu, elkartu, erdaldundu, finkatu, @gibeleratu, @indoeuroparru, metatu, mintzatu, mugatu, nagusitu, xinpletu, zabaldu

. *-(z)tatu, -katu*:

egi(a)ztatu, gezurtatu, @maitakatu, sailkatu, zatikatu

Aditz elkartuak oinarria dituztenak (lituzketenak) ere badaude:

@antzaldatu, berridatzi, eraberritu, formaldatu, itxuraldatu, tokialdatu

Aditz-esapidea oinarri: hauteman

---

[149]Salhesten dira, noski, perpaus mugagabeen nominalizazio-modu direnak Goenaga (1984). Halaber, Cabré-Rigau (1987$_2$:127), Mascaró (1986:22).

[150]*-men,-pen* atzizkiak aztertzean itzuliko gara puntu honetara.

[151]Ideia hau aurreragoko zenbait gertakizunek indartuko dute.

ERA$_2$ (-kera)

1. Lema

Azkuek[152] izen beregainetik sorturiko atzizkitzat[153] du *-era*, bi adieraren jabe dena: 'ekintza' eta 'modua'-rena hain zuzen ere; bigarrena –bere hitzetan–, herriak lotura-kontsonantedun *-kera*-z usuago aditzera emanagatik.

Ikusiko den bezala, adiera-banaketa hori ez da osotoro betetzen.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{ekintza} \end{bmatrix} \quad \text{--} > \quad \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{ekintza} \end{bmatrix}$$

akabaera, bihurrera, bilakaera, bukaera, egoklera, ezaguera, galdera, galera[154], gertaera, harrera, (hasera]) hasiera[155], haziera, heziera, irteera, sarrera, sorrera, trukaera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{ekintza-modua} \end{bmatrix} \quad \text{--} > \quad \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{ekintza-modua} \end{bmatrix}$$

. *-era*

adiera, aldaera, ebakera, ebakiera, egoera, erabilera, esaera, izaera, jarrera, jokaera,

---

[152](1923-25:14).

[153]Hemen ere honela hobetsi da, hitz elkartuen atalean ikusiko den bezala.

Edozein kasutan, eratorpenaren eta hitz-elkarketaren artekotzat joen artean kokatzeko eragozpen larririk ez dugu ikusten.

[154]Azken bikote honezazkoak, *FHV* (1985$_3$:496,579).

[155]"Parece que debería elidirse la 'i' del participio verbal, pero el hecho es que se usa así, sin tal elisión". (Villasante 1974:72).

Mitxelenaren bikoteaz, ikus argiteraldiezko itsaskina.

mintzaera, neurrera, portaera[156]

. *-kera*

hizkera[157], idazkera, ikuskera, joskera, neurkera

Zehatz daiteke, apika, adiera, esaera, neurrera eta neurkera eratorriek, adieraren murritza dela medio, [+konkretua, -biziduna] tasunak eraman ditzaketela azpikategorizazioan.

. ebakera / ebakiera

Bigarrenean, aditz-partizipioaren azken bokalari eutsi zaio.

ebakiera behin bakarrik erabili da[158], ebakera, bederatzi bider[159] erabili den bitartean (eta kide dituzten *ebakidura*, beste bederatzitan eta *ebakitze*, behin). Ez da adiera-banaketarik sumatzen.

neurrera[160] / neurkera[161]

bikoteak, arestikoaren ez bezalako egoera erakusten du, adiera-banaketa dela medio. Banaketa, ordea, ez dagokio multzoak osatzeko erabiliriko irizpideari, hitz bakoitzak duen adierazlaren zehatzari baizik, honela, neurrera, geometri sailean erabili da (gazt. *dimensión*) eta neurkera, berriz, bertsoei atxikia (gazt. *medida, versificación*).

Bitxi gertatzen den beste hitza, itxuraz, izena oinarri duen hizkera da[162], ikusi bezala, sail honek ezaugarri baitu oinarria aditzoina izatea. Pentsa ote daiteke *hitz egin* esapidearen

---

[156] Euskaltzaindiak (1975) *jokaera*rekin elkarganatua.

[157] Ik. beherago.

[158] Alegia, hitz hau zuzen eta egiazki latinetik hartua izan balitz, eta latin ebakiera berarekin, geuk bagenekikeen honek nola behar zukeen oraingo euskaraz, euskara batuaz, noski. (1972b2:41).
Nolanahi dela ere, gogoan izan behar da *ebaki* aditzoina ere badela, eta halaxe darabilela, hain zuzen Mitxelenak.

[159] (1979g:175,176,178,181,182,184), (1981c:142,152,165).

[160] (1972b5:127 lautan).

[161] (1981c:138,142).

[162] Ber gauza, esan daiteke *hizkuntzaz*.

zantzua egon daitekeela oinarrian?

3. Hots-aldaketak

Puntu honetan azpimarratzekoa da *-kera* duten hitz eratorrietan, neurkera ez beste guztietan, hasierako leherkaridun atzizkia erabili dela, *FHV*-k (1985_3:246) landatu bezala.

Hortaz, badirudi aldaera-banaketa adiera-kontuei baino atxikitzenago zaiola hots-inguramenduari.

Bestetik begietan ematen duen beste gertakizuna, *-a* amaian duten aditzondoek hurrengo bokalarekin ez dutela inolako hurbiltze-saiorik erakusten: akabaera, bilakaera, bukaera, gertaera, trukaera, aldaera, jokaera, mintzaera, portaera.

Erka daiteke multzo ugari hau *-era*, atzizkipean jasotako luzerarekin

4. Atzizki-metaketa

Aipa daiteke, *egoki*, jatorriz eratorri denaren gainean osaturiko egokiera.

-AIRA

Ez dugu izenburuan atzizkiaren aldagaitzat jo[163], atzizki(?) honen izaeraz zalantza gorriak ditugulako. Azkueren bi aipamen aldatuko ditugu paperera zalantzaren sorburua non dagoen ikus dadin.

Hitz beregain izatetik atzizki bilakatzeko bidean daudenen artean aipatzen du lehen aldiz:

> B) Aire. Si no es voz románica, parece alteración de *ide*. Existe en *gorraire*[164] rojizo y también sarampión, *mintzaire* lenguaje, modo de hablar, *urreaire* cobre brillante (parecido al oro). Tiene por variantes *aira* y *airo* = *sorraira* y *sorrairo* nacimiento, modo de nacer, *sarraira* entrada, intimidad. En este segundo caso, como también en *mintzaire* sinónimo de *mintzaire* lenguaje, parece contracción de *era*: *sarraira* = *sarraiera*, *mintzaira* = *mintzaiera*. (Azkue 1923-25:9).

Bigarren aipuan, *Sufijos alienígenas* direlakoen artean:

> C) El sufijo **-aire** de *gorriaire* rojizo, *mintzaire* lenguaje, *urreaire* similar, parecido al oro. (Azkue 1923-25:22).

---

[163] Ikus hurrengo atzizkian Irigoienen (1977) iritzia.

[164] Lafittek (1962_2:34) *Diminutif* direlakoen artean paratzen du: "**gorraire**, *rougeâtre*".

Hauek dira aztergaiko hitzok:

kondaira, mintzaira

Autu direnok kokatzeko irizpide erabatekorik ezin atera daitekeela ematen du.

Batetik, bereziko dugun eratorpenaren eta elkarketaren artean daudenen sailekotzat hartu beharko litzatekeela dirudi *-aira* hau, *aldi*, *alde*, eta besterekin batean.

Bestetik, berriz, Azkuek aipatzen duen *-era* honen aldagaia izanik, hau luke sailkalekua (oinarritzat aditzoina jotzea eta Azkuek alboratzen dion 'modua' adiera honen indargarri lirateke) eta honenbestez, burua *-ERA$_2$ (-kera, -aira)* moldeberritu beharko litzateke.

-era$_3$

1. Lema

Ez dugu eskuztaturiko hitz-eraketaren gaineko bibliografia berariazkoan balizko atzizki honezazko aipamen zehatzik aurkitu eta aurkitze-ezak ikusi berri den *-era* atzizkiaren aldagaia ala beste atzizki bat ote den zalantzazkoago bilakatzen du. Hau da, ez dugu garbi ikusten leherkari ahoskaberik hasieran ez daraman honen kokalekua, ez bestetara begiak iraultzen ez badira, bederen.

Atal honen sarreran zehaztuaren bidetikako arrazoiez gain; hau da, oinarriaren kategoria beti izena izatea eta semantikoki ere adiera oso berezia izatea, bada aurreraxeago erakutsiko den beste bat, bi atzizki banandutzat jotzera makurtzen gaituena.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[+I              ]   +   [+atzizkia       ]   -->   [+I              ]
[+herri-izena    ]       [+I              ]         [+hizkera-modua  ]
                         [+hizkera-modua  ]
```

bizkaiera, errongariera, georgiera, gipuzkera, ingelesera, italiera, lapurtera, poloniera, zuberoera

Oinarria izena izateak, arestiko guztiek aditzoina duten bitartean, atzizkitzat hartu behar

den ala oraindik ere beregain[165] izanik atzizki bilakatzeko bidean ote dagoen hemengo *-era* duda sor dezake baina *era*-k, beregain erabilita, 'hizkuntza' edo 'hizkera' adierarik ez izateak[166] bultzatu gaitu azkenean atzizkien artean kokatzera.

Erabilera honen sorrerazko azalpen irmo eta sendorik ezean, honakoa proposatzeko modua balegoke, apika:

Ondoren aipatuko dugun beste (etorkiz bestelako litzatekeen) atzizki batekin nahasteak gehi, *hizkera, mintzaera* hitzak –itxuraz eta mamiz oso hurbilekoak– hiztunaren eskueran egoteak, argi lezake.

euskara, erdara

Con *k-*, más abundantes: *-(k)ara*, **suf. adverbial** que parece entrar en *euskara* 'lengua vasca', *erdara* 'lengua extraña', originariamente adverbios como *latine, romanice o uasconice*[167] (Cf. Olh., *Notitia* 50: "*sayets cara* versus latus & omissa littera C, *Aitzin-ara* versus anteriorem partem, *guibel-ara* versus posteriorem partem" /Ambas variantes se dan en Olh. *Prov.* 209: *Handiec nahicara, xipiec ahal-ara* "Les Grands font ce qu'ils veulent, & les petits ce qu'ils peuvent"./.(*FHV* 1985_3:245). (Beltz. gurea).

Oker ulertu ez bada, *suf. adverbial* delako hori legoke *euskara* eta *erdara*, jatorriz izen ez baina adberbio liratekeen horietan. Pentsa al daiteke, denboraren poderioz[168] adberbio-

---

[165]Oroi Azkuek (1923-25:14) halakotzat jotzen duela itxuraz berdin den (bera den?) arestiko *-era*.

[166]Eskuztaturiko hiztegiek ez dakarte halakorik behinipehin. Halarik ere, puntu hau segituan azalduko da, erabileraren sorburuaz mintzatzean.

[167]Azalpenik gabe, adierazia zuen Mitxelenak lehenago hizkuntzen deizioen adberbio-jatorria:

"Experimento un estremecimiento de horror, que no dudo que otros compartirán plenamente, ante la idea de que alguien me pueda llamar *eusquera*: el mismo que hubiera sentido Cicerón al oírse llamar *lingua latina*. **Aunque sea un adverbio en su origen, como *romance* y *vascuence*, *euskera* es hoy sustantivo y, si** se quiere usarlo en otra lengua, no debe dársele a mi entender un valor distinto al que tiene en la que designa: «vascuence, lengua vasca»". (1956c, *LH*.318). (Beltz. gurea).

[168]*OEH*-n, honako azalpen argigarria irakur daiteke:

"**bizkaiera, *bizkaiara***. (Neol.). (Dialecto) vizcaíno. Sg. Azkue *DVE* (s.v. *árabe*): «El primero en emplear estas imitaciones fue AG, creando al efecto los neologismos *bizkaiera* 'bizkaino', *pantzera* o *frantzera* 'francés', etc.». Sin embargo señala *NeolAG* que, en el caso de *bizkaiera*, esta atribución es errónea: AG no emplea sino *bizkaitar* '(dialecto vizcaíno', aunque se vale tanto de *ipuzkotar* como de *(g)ipuzkera*. Documentado en textos meridionales de este siglo".

HLEH-n, berriz, honako datak dituzte hemengo batzuek:

bizkaiera (1921) (**bizkaitar**-en adiera honi dagokion azpisarreran "1901. *Zah.*" zehazten da).

erronkariera (1977) (ez da **errongariera** jasotzen).

Mitxelenak ez darabilen **gaztelera** (1929) (eta badarabilen **gaztelania** 1712).

gipuzkera (1897) (**gipuzkoar** jasotzen da adiera berarekin baina ez du data zehatzik. Nolanahi den sarrera nagusiaren ondoan, 1761 ageri da).

ingelera (1916), **ingalera** (1902) (**ingeles eta angles**, bestalde, = 1800 eta = 1640 hurrenez hurren; ez da **ingeleserarik** jasotzen).

italiera (1930) (baina **italiano** 1712).

lapurtera (1977) (**lapurdiera** 1932).

Garbi dago, orobat esan, mende honetan sorturiko joera dela hau.

Usteak kanporatzen hasi garen honetan utz bekigu beste honakoa era adierazten: ez dugu uste Mitxelena

izaera galdu eta hiztunak[169] jatorrizko *-(k)ara* hori beste *-(k)era* izen-sortzaileekin nahasi ondoan, azkenik, leherkaririk gabeko atzizkia hautetsi duela adieraren murriztapena ere berari itsatsiz?

Balizko azalpen gisakoa erabat argitzen da Arana-Goiriren testuetara joz.

Bizkaitarrak esanetan[170], argi eta garbi irakurtzen da auzi honen iturburua.

Lan zaharrenean, Arana Goirik berariaz dio, *euskera*[171] eta *erdera* hitzetako *era* osagaiaren esanahia 'hizkuntza' dela;

> Si, pues, la idea genérica de ambas voces es la de *lengua*, y su parte física común, por otra parte, es ERA, lógico es atribuyamos a éste su componente aquel significado. De todos modos tenemos hoy día el vocablo ERA, que significa *modalidad, manera (façon* del francés), que bien pudo ser *derivación* o bien *origen* de la primera; para el caso es lo mismo, pues se reduce la cuestión a que ya *real* ya *metalóricamente*, el ERA de EUSKERA y ERDERA signifique lengua. (AG 1887, *OC*:35).

Esanikoaz gain, bada besterik lerrootan: Arana Goiriren ustez, *era* izenarekin uztarturikoa da beste *-era* hau.

Ideia berari eutsiko dio, lehen urratsean, aipatu dugun bigarren lanean, jatorria eta ARA-rekiko harremana ere mintzagai dituenean.

Arestiko ideiak berresan gabe eta, Arana Goirik lehen lanean oin-ohar batean jasotzen zuen harako "Los demás dialectos [bizkaitarrenak ez beste guztiek] terminan por lo general ambas voces [EUSKERA, ERDERA] en ARA"[172] harremanaren ildotikakoei eutsiz, honakoa paperera daiteke, gorago proposatzen genuen nahastearen etorkiaren argibide:

> Luego conocemos ya media etimología, atribuyendo la común significación de *lengua* al común componente era. Esta deducción quedará confirmada por la etimología misma de era, que hemos de ver más abajo cuán clara es, sin embargo de haber permanecido hasta hoy tan oculta para todos, yo entre ellos. (AG 1901, *OC*:1784).

Eta etimologia hori, *era*-tik *ara* eratorriz proposatzen du, "ara metátesis de era"

---

oso abildtzen zitzaionik erabilera honi, testuan zehaztuko diren ordainen bitartez erakutsiko den bezala.

[169]Beharbada gehixeago zehatz daiteke delako hiztun horren jatorria, *OEH*-k bizkaieraz dioena kontutan hartuz. Guztiarekin ere, mendebaldean sortua dela nahastea egingo genuke; hots, *euskara* ez baina *euskera* diotenon artean eta *gogara* edo *nahikara*, bestela esan, *-(k)ara* adberbio-atzizkia ez darabiltenen artean, gero eglaztatu ahal izango dugun legez.

[170]1887ko "¿Basco o Vasco?" eta 1901eko "Euzko" lanetan, bigarrenean bereziki.

[171]Oraindik ere *EUSKERA* darabil hemen, gero, *euzko*-rentzat proposaturiko etimologia dela medio, *EUZKERA* bilakatuko duena.

[172](AG 1887, *OC*:34).

moduan fonetikaren ildotik azalduz[173]. Arana Goirirentzat, beraz, *era* duen forma, *ara* duena baino aitzinagokoa da[174].

Eta beste lanean bezala, *era* / *-(k)era* formekin lotzen duenez gero[175], hementxe dator autu dugun erabilera berriaren sorburuaren argudiatzea: ez du, nonbait, lehen proposatua gogoasetzen eta beste hau egokiago ikusiz, hitz-eraketarako bigarren honezaz baliatuko da:

> Pero transcurrieron varios años sin que hallara otra más verosímil, y resignado a dar aquélla por supuesta, formé con el sustantivo itz (palabra) y dicho **era**, tomado en la acepción de *modo*, la voz **Izkera**[176] para significar *lenguaje*, o sea *modo o forma de palabra*. Por fin, no ha mucho, y cuando menos lo pensaba, hallé con perfecta certeza que aquel **era** de **euzkera** significa por sí mismo *palabra, lenguaje, lengua*, quedando con esto anulada la voz **Izkera** y, en cambio, confirmadas las formas **pantzera** (lengua francesa), **españera** (lengua española)[177] y semejantes, que formé también con el repetido **era**, mas en la acepción de *lengua*. (AG 1901, *OC*:1788).

---

[173]Bitxia da azalbide fonetikoz argitu nahi duen horretan, Humboldt-en iritzia aipatzea eta ukatzen duen ulermodu hori izatea, hain justu, *FHV*-n adieraziaren harikoa:

"Por último, advertiré que Humboldt, a pesar de ver la identidad de **euzko** y *vasko*, no descubrió la existencia del primero en la voz **euzkera**: pues según van Eys, atribuyó a **euskara** esta etimología: **eusi-k-ara** (conforme al habla, lenguaje excelente), de **eusi** (ladrar, charlar), **k** fonética y **ara** (según, conforme)". (AG 1901, *OC*:1785).

Ezkerreko osagaiaren ingurukoez Michelenaren (1984c).

[174]"la forma **era**, es, pues, anterior a **ara**" dio zehazki (AG 1901, *OC*:1788).

Irigoienek (1977:526) bestela dakus.

Euskera baino zaharragotzat daukan *euskara*k ageri duen atzizkiaren jatorriaz plazaratzen duen hipotesiaren arabera:

"Kontuan hartzen baldin badugu bizkaitarrek *orregaiti* esaten dugula beste batzuk *(h)orregatik* esaten duten bitartean eta *-gai-* > *-ga-* bihurtu dela hurrengo konsonantearen aurrean, eta *mintzaira* / *mintzaire* formak *–mintza + aira* > *mintzaira* eta gero *mintzaire*, *-a* eta *-e* bukaera duten hitzetan eginikako nahasmendutik sortua– Lapurdi, Zuberoa eta inguruetan '(edozein) hizkuntza' adierazteko espezializaturik zabal dabiltzala, ni ez naiz ezetzik esatera ausartzen".

Oker aditu ez badugu, ondorioztatu beharko litzatekeena da, arestiko puntuan mintzagai genuen *-aira* (eta aldagaitzat jasotzen zen *-aire*) eta *-(k)ara* hau, latin etorki bereko elkarren aldagaiok besterik ez liratekeela.

Garbi ikusten ez duguna da autu dugun *-era*, honentzat, beste "*-Era* sufixoa eta bere bikote *-kera* zentzu bat baino gehiagotan erabiltzen dira kontesto desberdinetan" (523. or.) atzizki honentzako bazalako iraigia proposatzen ote duen.

Jatorri-kontuazko Irigoienen iritzia honela laburbil daitekeela dirudi:
-era/*-kera*, erromantzetik letorke, *-ara*/*-kara*, latinezko *-aria* atzizkitik etorriko litzatekeen bitartean.

[175]"Respecto de su naturaleza ideológica, conjeturé en mi ya citado artículo *¿Basco o Vasco?*, que sería el **era** de **euzkera** [geroagoko honetan *z*] el mismo sustantivo **era** que en el bizkaino actual significa unas veces *modo, manera* y otras *tiempo preciso, vez, turno*: **egikera** (manera de hacer), de **egin**; **afera** (manera de recibir), de **aitu**; **etoera** (tiempo de venir, venida), de **etoři** (...); e indiqué que en **euzkera** pudiera tener significación de *modo*: **euzko-era**, esto es, *manera* (de hablar) *del euzko*". (AG 1901, *OC*:1788).

[176]*HLEH*-ren arabera, 1749koa da hitz honen lehen moldezko lekukoa, 'hizkuntza' esanahia duela.

[177]Arana Goiriren "Umiaren lenengo aizkidia" laneko "Inguři onek daukazan itz bařijak" 1897koan jasorik daude biak (AG 1897, *OC*:1062,1065).

Bigarren hipotesi honetan, beraz, *era*-ren esanahia 'modua' ez baina 'hitza', 'hizkuntza' da.

Ez da, ordea, auzia hemen bukatzen. *Ele* hitzaz baliatuz, azkenean, honakoa aldezten baitu:

> Por otra parte, euzkoel o euzkel se cambió en euzkoera o euzkera por metátesis de l en r y epéntesis de a. [*gari*>*gal*- eta antzeko adibideak ematen ditu] Hasta ahora creíamos la mayor parte de los euzkeristas que euzkeldun se había derivado de euzkera, por contracción de euzkeradun; pero, como se ve, lo que hay de cierto es que de euzkel, nombre de la lengua vaska, se derivó, por un lado euzkeldun, y por otro, procedió la forma euzkera.
>
> He aquí el proceso:
>
> Euzko-el { euzkel { euzkeldun ; euzkela = euzkara } ; euzkoal { euzkoaldun ; euzkoala = euzkoara = euzkara. (AG 1901,OC:1789)

Honenbestez, Arana Goiriren hirugarren hipotesiaren arabera, atzizki moduko *-era*$_3$ deitu dugunaren erabileraren atzean, ez legoke iparraldeko *ele* izenaren soinu-aldakuntzaren ondoriozkoa baizik, modu honetan, esanahiaren aldetikako ahaldetasuna, gainera, sendoturik irtetzen da.

Iralgi auziak auzi, bistakoa dena da, Aranak bere burua hartzen duela erabilera berriaren sortzailetzat.

Begiak Mitxelenagandikakoei itzuliz, ikus daiteke atzizki honen bidez eratorriek maiz dutela alboan forma parea, eta parekotasun hori hizkuntza (hizkera) beraz ez eze modu hau baliatu ez duten beste hizkuntzak (hizkerak) izendatzean ere agerian geldítzen da.

Interesgarri deritzagu hizkuntza-hizkeren deizioak paperera ekartzeari, Mitxelenaren joeraren adierazgarri izan daitekeelakoan[178]:

bizkaiera[179] (10) -- bizkaitar[180] (1), errongariera[181] (1), gaztelania (64) -- [gaztelera[182]

---

[178] Bakoitzaren eskuinean zehaztuko da zenbatetan eta non erabili duen bata eta bestea(k).

[179] (1961a:57), (1968d:150,151), (1968e:77), (1971e:106 bitan), (1972b4:102), (1972e:158,159), (1981c:91).

[180] (1968d:148).

[181] (1972b2:41).

(0)], georgiera[183] (3) -- georgiar[184] (3), gipuzkera (15) -- giputz[185] (2) -- giputz hizkera[186] (1), ingelesera[187] (1) -- ingeles[188] (57), italiano[189] (4) -- italiera[190] (3), lapurtera[191] (1) -- lapurtar[192] (1), poloniera[193] (2) -- polako[194] (1), zuberoera[195] (1)

Ondoren paratuko dira hiztegian zehar irakur daitezkeen beste zenbait hizkuntza-hizkeren izendapenak, bi multzo nagusitan banatuz, euskal erator-atzizkirik ez dutenak batetik eta badutenak bestetik; haatik, guztiek dute ezaugarri, bistakoa denez, mintzagai dugun atzizkirik erabilia ez izana. Bigarren multzokoen erator-atzizkia *-(t)ar* da kasu guztietan:

albanes, aleman, anglosajoi / anglo-sajon[196], arabe, aragones, armenio, Bahasa Indonesia, balto-eslabo, bantu, erromaniko, erromantze, erruso, eslabo / eslavo, espainol, falisko, frantses, gales, gaskoin, gotiko, grieko, griego, hungaro, iberiko, iberokaukasiko, japones, kartveliko, katalan, latin, leones, magyar, neerlandes, okzitano, osko, ruso, sabeliko, sardo, semitiko, serbokroata, sino-japones, veneto, worora, zeltiberiko

armeniar, bizkaitar, dakotar, galiziar-portuges, germaniar, ind(i)(o)europear, iraniar, lapurtar, nafar-hizkera

---

[182] *gaztelera*, zehaztu bezala behin ere ez darabilen arren, agertze-ez hori mamitsua delakoan sartu dugu multzo honetan bere ordainaren parean.

[183] (1979d:122 bitan), (1986c:173).

[184] (1972b:34), (1978a:28,31).

[185] (1961a:49), (1968d:147).

[186] (1981c:163).

[187] (1972b5:115).

[188] *HLEH*: 1813.

[189] (1972b5:116,122), (1979g:182 bitan).
HLEH: - 1640.

[190] (1979g:181 hirutan).
HLEH: 1930.
Lehakide biei, populuaren deitura, *italiar* (1961a:54), (1972b4:100,101) (M), (1979g:184,185) gehi dakieke.

[191] (1983a:67).

[192] (1972e:158).

[193] (1979g:185,186).

[194] (1972b0:28).

[195] (1972b2:41).

[196] Multzo honetako bikote lehiakide guztiek hitz bakunen atalean kokatu ditugu.

Erkaketak erakusten du Mitxelenaren joera, batipat erdarei izenak eman behar dizkienean, sail honetako aztergaitik saihesten dela eta nahiago duela *-era* honezaz baliatu baino beste bideetara jo, hala nola, herri horretako hiztunen (populu horren) jentilizioa eta bertako hizkuntza gisa berean izendatzea, dela erdal izendapenari eutsiz, dela euskal eratorbidetik abiaraziz.

Oinarriari dagokionez, esan daiteke gehienetan lekuaren izenarekin bat baldin badator ere (Bizkaia, Errongari, Georgia...) behin ezin proposa daitekeela honelakorik.

ingeleserak ez du abiapuntu ???*Ingeles(a)* deritzan herri-izenik, *ingeles* populuaren edo *ingeles* hizkuntzaren izena dela halakotzat jo behar dena dirudi. Honenbestez, bi atzizkien metaketa genuke, bat erdarazkoa eta honen gainean "euskal itxura", nolabait esan, emango liokeen euskarazkoa[197].

Hau guztia ikusirik, balizko proposamenaren arabera, hiru *-era* berezi dira aztergaian: *-era*$_1$, *-era*$_2$ *(-kera)* eta, *-era*$_3$, hemengoa, bakoitzak erabilera-esparru eta adiera zehatza izanik.

Azpimarra daiteke, *-era*$_1$ eta *-era*$_3$ batzen dituela, beti aldagai ahoskaberik gabe erabiltzeak, *-era*$_2$ eta *-era*$_3$ berriz, hurbiltasun semantikoak, *-kera* bakarrik *-era*$_2$ deituaren alomorfo bada ere.

3. *Hots-aldaketak*

. *-a* bukaerakoa > Ø: georgiera, gipuzkera[198], italiera, poloniera
. *-a* mugatzailea bukaeran > Ø: bizkaiera, zuberoera (ez *zuberera*[199])
. leherkari ahostuna ahoskabetua: lapurtera[200]

Bukaerako *-a*ren inguruan, hiru gertakizun-mota gurutzatzen direla iruditzen zaigu: *a* mugatzailea duten leku-izenak (*Bizkaia, Zuberoa*), *-a* berezkoa duena (*Gipuzkoa*) eta *-ia* bukaera dutenak (*Georgia, Italia, Polonia*).

Honela, egiazta daiteke, *-a* mugatzailea duten herri-izenek oinarriaren gibeleko *-a* galtzen dutela (bizkaiera, zuberoera).

Halaber *-ia* bukaera dutenek (georgiera, italiera).

---

[197] *-(t)ar* atzizkiaren ingurukoak, beherago ikusiko dira. Ik. bereziki *iraniar*ez dioguna.

[198] *gipuzkoa* izena hartu dugu oinarri, lehen esan bezala. Ezinezkoa ere ez da, ordea, *giputz* (iz.) + *-kera* egitura batean pentsatzea, Gipuzkoako probintziakoen behialako jatorrizko deituran oinarrituta. Oinarri hautetsiak analogian ditu sustraiak, multzo bereko besteekiko parekotasunak, alegia, ohartuki eginiko sorkaria denez gero, guztiak taxu berean eratuak direla eman baitaiteke. Gainera, beste aldera jokatuz gero, leherkari ahoskabea hasieran lukeen bakarra litzateke.

(G)ipuzkoa hitzaren osaketaz eta bere balizko osagaiez, Caro Baroja-ren (1945:223hh) eta Michelenaren (1989$_4$:95,115,135), (eta, bazterretik, (1987a)) lanez gain, bereziki azpimarratu behar da (G)ipuzkoako lurraldearen sorrera historikoa ikergai duen Barrenaren (1989), doktore-tesiko lehen kapitulua (51-64): "Los síntomas de la organización indígena gentilicia apreciables a través del acontecimiento de Olazábal", non izenaren osabidea eta probintziaren osatze historikoa elkarren besotik, halabeharrez, lotuta erakusten diren.

[199] Egun maizago entzun eta irakurtzen dena *zuberera* dela (*gipuzkera* bezalaxe) esango genuke.

[200] Ikus *lapurtar*i dagokion oin-oharra.

-a soila bukaeran duenarekin gertatzen da bitxikeria. Izan ere, azken bokala galdu beharrean, -oa amai osoa galtzen du, zuberoeraren moldetik urrunduz.

-MEN/-PEN (-mendu/-mentu, -mendi)

1. Lema

-men, -pen, -mendi, -mendu[201] eta *-mentu* erabili dira[202]. Jatorrizko balizko egoerari muzin eginez[203], buruan zehazturikoak aldagaitzat jo dira, egungo egoeran sumatu uste den erabilera gogoan izanik.

-pen-en nagusitasuna nabaria da, Rijk-ek[204] berriago den sistema erregularrean nabaritzen duen bezala.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$\begin{bmatrix} +\text{aditzoina} \\ +\text{nor-nork/(nor)} \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{ondorioa/(ekintza)} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{ondorioa/(ekintza} \end{bmatrix}$$

---

[201] "Il me semble indéniable que la propagation du suffixe -MEN, et notamment son application aux états de l'âme, doit beaucoup, sinon tout, à l'existence préalable du suffixe d'origine romane *-mendu/-mentu* de sens voisin. Ainsi, *adimen* 'intelligence', qu'on rencontre d'abord chez J. A. Mog(u)el (...) est précédé du mot de même sens *adimendu* (attesté dès Etxepare et Beriayn, cf. le *DGV*).

Précisons bien qu'il n'y a pas lieu de croire que le suffixe *-mendu* se soit réduit à *-men* par apocope de la syllabe finale, par usure phonétique. Il y a eu substitution morphologique". (Rijk 1991:726).

Halaber, *FHV* (1985_3:271).

[202] Azkuek (1923-25 68hh) ez du *-pen* atzizkirik aipatzen.

[203] Mitxelenak (*FHV* 1985_3:271,277,346) adierakidetzat dauzkan bitartean, Rijk-ek (1991) aurkezten duen balizko histori aurkezpena ez dator osotoro bat honekin. Azkena, oso hitz gutxitan esateko, honela adieraz daiteke, *men* hitz beregainetik, *-men* atzizkia sortu zen, *-mentu / -mendu*, erdal itxura gardenago zuenarekin lehian; bestetik, iparraldetik sarturiko, *-pen* atzizkiarekin ere nahastera iritsi zen. Azkenik, tradizio luzeagoko *-mentu / -mendu*, joera garbizalearen eraginez, piskanaka *-men* atzizkiak irentsi eta berrikiago, borrokan gelditzen zen bikotean (*-men* eta *-pen* bikotearen osagaien artean zehazkiago esan), adiera-bereizkuntzara jo da, kontutan hartu gabe, inguramendu fonetikoak *-men* > *-pen* eta *-pen* > *-men* eman dezakeela. Hemen, testuan adierazi bezala, guztiak aldagai baliran jokatuko da.

[204] (1991).

. *-pen*

adierazpen, agerpen, argitalpen, atzerapen, aurkezpen, azalpen, baieztapen[205], berriztapen, birraigitalpen],]] [sic][206], deskribapen[207], ekoizpen, eragozpen, erakarpen[208], eratorpen[209], hastapen[210], hautespen, ihardespen, ikuspen[211], irakaspen, iraulpen, iraupen, irudipen, itxurapen, itzulpen, laburpen, oharpen, onespen, saibuespen, ukapen

. *-men*

alpamen, hedamen[212], hondamen, prestamen, ukamen

---

[205]"Le mot *baipen*, qu'on utilise parfois dans le sens d'affirmation, mérite un peu plus de discussion, car son histoire est assez curieux. On le rencontre d'abord dans le *DBF* comme mot roncalais. Le sens indiqué est 'consentement', 'approbation', sens qu'Azkue répétera plus tard dans son étude "Particularidades del dialecto roncalés": consentimiento, *baipen* (p.352). Il faut y voir une variante de *baimen* au *p* renforcé, qui doit reposer sur *bait+pen*; pour la forme *bait*, réduction de *baita*, comparez le verbe souletin *baitetsi* 'approuver', de *bait(a)+etsi* (...) Le dérivé *baipen* suposse une base verbale, qui ne peut être que le verbe *baitu*. Ce verbe existe et possede plusieurs sens, mais point celui d'affirmer. Pour ce sens on se sert de *baieztatu* ou de *baieztu*". (Rijk 1991:720)

[206]Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[207]Rijk-en (1991:720) arabera, erdal jatorriko eratorri berriek bizi duten antzinako disimilazio-legearen indarretik kanpoko egoeraren erakusgarri litzatekeena.

[208](1978a:41).

[209](1979g:177).

Honen eta arestikoaren urria harrigarri xamar gerta daitekeen arren, gogoan behar da izan, *eratorbide* eta *erakarbide* (gehi *deribazio*) lehiakide dauzkatela.

[210]Rijk-en (1991:723) ustez, *-pen* atzizkiaren estilo-aldagaia besterik ez den *-tzapen* luke oinarrian:

"Il faut aussi observer que la forme *-tzapen* ne peut s'unir qu'à une base verbale dont le participe passé termine par *-tu/-du*, ou une voyelle autre que la voyelle *i*. (...) Une seule exception; *hastapen* 'début', plus fréquemment employé que *haspen*, du verbe en *i hasi* 'commencer'. (...) Il n'en est pas de même pour *-tzapen*, dont l'usage n'est jamais obligatoire, sinon por des motifs purement stylistiques".

Bakar izateak eta aditz-izenean *hatse/haste* bikoteak izateak izango al luke zerikusirik, *hastapen* ere ondoan duelarik gainera? Bestela esan, ezin daiteke *hatsapen / hastapen* bikote baliokidean pentsa, kontsonante-trukaketa tarteko izanik? Hau ontzat emanez gero, eratorriaren oinarria ez litzateke aditzoina, aditz-izena baizik.

[211]"Beraz ezin ager daiteke munduarekiko ikuspen antzera edo berau azaltzeko dotrina bezala, nahiz eta unibertsoaz ari izan diren kitzi guztiak, hein batez bederen, estrukturalistak izan". (1972b3:59).

Sumatu uste dugun adiera-hiabarduraren arabera, 'ahalmena' ez baina (ezta beharbada bete-betean "ikustearen ondorioa' ere), "ikusteko modua' litzateke aditzera eman nahi dena, beste batean (1972b5:122) darabilen "mundu ikuskera"-ren bidetik, alegia.

[212]Hiaz honetxek, besteak beste, ematen dio bidea Rijk-i (1991:714) euskaraz adierazten zail xamar zaigun *capacité* eta *faculté / puissance* adiera-bereizkuntza egin eta, *-men* atzizki bilakatuaren bigarren zentzua ezaugarritzerakoan, zabalenarekin geldituteko:

"Je me sers à dessin du terme *capacité* plutôt que de celui de *puissance* ou de *faculté*. C'est qu'il nous permet de rendre compte d'exemples comme hedamen 'extension', 'étendue' de *hedatu* 'étendre' (...) où il n'est pas question de faculté, mais d'une capacité d'ordre purament physique".

. *-mendi*


hondamendi

. *-mendu*

antolamendu, mugimendu

. *-mentu*[213]

esperimentu, mugimentu



. *-men*

adimen[214], ahalmen[215], mintzamen[216], oharmen, oroimen[217]

. *-mendu*

adimendu, pentsamendu

---

[213]Nekez erabiliko lirateke *-tu* amaierakorik gabe: ??*esperimen*, ??*mugimen*. Mailegutzaren kronologiak eta aditzaren itxurak ere izango dute, noski, zer esana.

[214]Bai hau, bai aurreraxeagoko *oroimen* Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoak.

[215]Oinarria berez aditzoin ez den arren, *ahal izan* aditz-esapidearen aditzointzakotzat jo daitekeena, Rijk-en (1991:715) aditzen arteko kokapenak aditzera ematen duen bezala? ala, kokapen hori baino lerro batzuk aurretikako euskalari beraren initzi-agerpenaren arabera izena hartu behar da eratorriaren (jatorriz elkartuaren) oinarritzat?

"Le sens primaire du suffixe -MEN -et un des sens du mot indépendant *men*, là où il existe- est 'capacité', comme déjà l'a correctement observé Arturo Campion. Les premiers composés que nous en connaissions sont **à base nominale**". (Beltz. gurea).

[216]"*mintzamen* 'faculté de language', joli terme créé vers 1972 par Txillardegi afin d'exprimer la même réalité por laquelle, en 1785, le père Ubillos inventa le terme *hitzmen* 'parole', désignation, à coup sûr, bien moins appropriée". (Rijk 1991:709).

[217]Hemen gertatzen ez den *oroimen / oroipen* bikoteaz: *FHV* (1985$_3$:346). Rijk-ek (1991:717) Mitxelenaren ikuspegia ontzat eman ez ezik, *oroimenen* azalpen hau ere eskaintzen du:

"Le terme Guipuzcoan pour 'oroimen' repose sur une décomposition plus moderne de *oroitu*: *oroi* + *-tu*". *moderneren* sustrala, aditzoinari zegokion *-t* amaiaz ez jabetzean datzala esango genuke.

. *-pen*

oharpen[218]

Aztergaiko gogamenek, berriz, ez dirudi erator-oinarria aditzoinean duenik, izenean baizik: *gogo*. Honenbestez, orotariko sailetik aldenduko litzatekeen bakarra da.

Atzizkion jatorria gora-behera eta zentzu-bereizkuntzaren sorgaraiazkoak aldeka batera utzi eta erabatasuna abantailatuz, badirudi ikusiak egungo adiera-bereizkuntzaren araberako sailkapena bideratzenago duela.

Honek esan nahi du honako bi multzo nagusi zedarrizta daitezkeela: 'ahalmena'-ren zentzua adieraziko lukeen erabilera batetik (oro har *-men* atzizkiaren bitartez gauzatuko litzatekeena) eta bestetik, 'ekintza' bera ez baina, 'ekintzaren ondorioa'[219] adieraziko lukeena, nagusiki (ez beti, ordea) *-pen* atzizkiaren bitartez mamitua.

Edozein kasutan, lehian dauden bi atzizkion artean, hemengo datuetan oinarrituz esan daiteke *-pen* [+markatua] litzatekeela *-men*-en ondoan, hau da, *-men* atzizkiak 'ahalmena'-z gaineko beste zentzuak onartzeko aparteko debekurik ez duen bitartean, *-pen*-ek, nekez, (behingo oharpen kenduta) hartzen duela ñabardura hori[220].

---

[218] *oharpen* bi adieretan kokatzea, hitzaren erabilera bikoitzean funtsatzen da:

"Alta Villasantek bere erreparoak adierazi zituen hondarrean Lacarraren ustearekin bat zetozen ene oharpen batzuez (...); berez deskribapen hutsa baino ez zirela, egungo irakurle «engaiatuak» Bizantzioren aldeko eta Erromaren kontrako edo bezala har zitzakeen". (1978a:31).

Baina bestetik:

"Zenbatetaraino, ordea, heda daiteke barneko eta bakarkako esperientzia hori? Gogoan eduki sikologian darabilgun oharpen hori erabat subjetibo eta norberekikoa dela". (1972b3:57).

Badirudi hemengo bereizkuntza-ez hau ez datorrela guztiz bat Rijk-ek (1991:742) Duvoisini aitzematen dion erabilerarekin:

"Constatons d'abord que Duvoisin distingue nettement le suffixe -MEN du suffixe -PEN (...) Dès qu'il n'est plus question d'une faculté ni d'un état d'âme, c'est le suffixe -PEN qui apparaît (...) De même, les mots (...) *oharpen* 'provision' se différencient manifestement par le sens des formes correspondantes en -MEN".

[219] "Il est temps de nous occuper du suffix -PEN. Les grammaires lui donnent le sens d'acte ou d'action, mais on doit tout de même exiger un peu plus de précision. Le suffixe -PEN ne dénote jamais l'action en cours, comme peut le faire le nom verbal ou le suffixe *-keta*, il dénote l'action vue accomplie. Je dirais volontiers qu'il indique l'aboutissement du procès, ou encore, le résultat, matériel ou non, de l'action désignée par la base verbale. En d'autres termes, -PEN constitue en quelque sorte un suffixe perfectif, tandis que *-keta* est plutôt imperfectif". (Rijk 1991:718).

Rijk-ek berak 710. orrialdeko oin-oharrean jasotzen duen Leizarragaren *-t(z)e* aditz-izenaren 'ahalmena'-zko erabilera aurrean izanik, esan al daiteke *-pen*, ekintzaren gauzatzeari begira [+markatua] litzatekeen bitartean –gauzatua eskatuko lukeelako–, aditz-izenak ez lukeela horrelako eskakizunik eta [-markatua] izanik, 'aritzea' nahiz beste balioak hartu ahal izango lituzkeela, 'ahalmena'-rena barne? eta, ildo beretik, *-keta* ere [+markatua] litzatekeela baina 'ariketa' eta ez 'aritzearen ondorioa' litzatekeela dagokion balio zehatza? Guztiarekin ere hor daude *erosketa*, *erakusketa* bezalakoak, 'ondorioa', 'ekoizpena' adiera lasai har dezaketenak.

[220] Zernahi gisaz, egun bereizkuntzara jotzen bada ere, egoera ez da zeharo gardena:

"Commençons par le moindre des maux, les complications du côté sémantique. Le sens de -PEN et celui de -MEN sont tous deux des plus abstraits, et, par là même, en quelque sorte difficile à assimiler. En outre, le sens de -MEN en particulier se présente assez compliqué par son manque apparent d'uniformité: capacité, puissance, disposition de l'âme, émotion etc. (...) De toute façon, ce que j'ai voulu faire observer, c'est qu'il y a une classe de dérivés où le sens respectifs de -PEN et -MEN se confondent tout naturellement, et que cette confusion porrait bien contribuer à créer l'impression que les formes *-pen* et *-men* ne sont que des variantes arbitraires d'un même

Oinarri berari atzizki alomorfoak[221] erantsiz sorturiko forma lehiakideak: adimen[222] (6) ≈ adimendu[223] (5); hondamen[224] (1) ≈ hondamendi[225] (7)[226]; mugimendu[227] (6) ≈ mugimentu[228] (1); oharmen[229] (3) ≈ oharpen[230] (2); ukamen[231] (1) ≈ ukapen[232] (1)[233].

Aipa daiteke, sail honetako atzizkidunen alomorfoen arteko kidetasunaz gain, badaudela beste atzizkiez osaturiko hitz eratorri kideak edo kideantzekoak, oinarri beraz nahiz esanahikideren batenaz eraiklak:

-zio: aipamen[234] ≈ *denotazio*; argitalpen ≈ *edizio*; deskribapen ≈ *deskripzio*; erakarpen ≈ eratorpen ≈ *derihazio*; oharmen ≈ *perzepzio*.
-keta: antolamendu ≈ *antolaketa*, pentsamendu ≈ *pentsaketa*[235].
-t(z)e: atzerapen ≈ *atzeratze*; hautespen ≈ *hautatze*; hedamen ≈ *zabaltze*; iraupen ≈ *iraute*;

---

suffixe". (Rijk 1991:724).

[221]Uler bedi egungo erabileran, Rijk-en jatorriazko azalpenaz saihestuz.

[222](1966a:68), (1972b4:79,107), (1972b5:112,115,124).

[223](1972b4:106), (1983a:57 hirutan), (1983e:131).
Ikus *-men / -mendu*-zko oharra.

[224](1972b1:32).

[225](1972b1:37), (1978a:39), (1978c:166), (1981c:156), (1983a:69 bitan), (1984b:36).

[226]Remarquons que la nasale implosive de la base ne suffit sans doute pas à elle seule à provoquer l'adoucissement du *p*. Il paraît hautement probable que la nasale finale du suffixe contribue de manière essentielle au déclenchement du changement assimilatoire. En outre, il faut observer que dans certains cas, le changement en *-man* se trouve favorisé par l'existence préalable d'une forme synonyme en *-mendu* ou *-mendi*". (Rijk 1991:719).

[227](1972b3:60) (M), (1972b4:94 bitan) (M), (1978a:32,40 bitan).

[228](1958h:99).

[229](1972b5:125,126), (1965a:117).

[230](1972b3:57), (1978a:31).

[231](1972b4:92).

[232](1978a:28).

[233]Dans l'usage général du batua actuel, l'assimilation n'est que facultative. On admet: *hondamen* ou *hondapen* 'ruine' (...) *ukamen* ou *ukapen* 'refus', 'désaveu'; *ukimen* ou *ukipen* 'attouchement'". (Rijk 1991:719).

[234]Adiera batean.
Bitxia gerta daiteke uztartze hau, baina testuan bertan du iturburua:
"Puntu hau zein korapilatua den ikusteko, nolako diferentzia dagoen *esan-nahia* (zentzua) eta *aipamen* edo *denotazio* delakoaren artean ikusteko, bi adibide ekarriko ditut". (1972b40:26).

[235]Ikus, haatik, atzizki honezaz eta ondokoaz lehen esanak.

oharmen = *hautemate*.
-era: hastapen = *hasiera*; iraulpen = *bihurrera*; ikuspen = *ikuskera*.
-kizun: hautespen = *hautakizun*.
-dura[236]: laburpen = *laburdura*[237]; mugimendu = *higidura*, *mugida*(?)[238].
-kunde: hedapen = *zabalkunde*.

3. Hots-aldaketak

. *-r* --> *-l*: argitalpen

. *tz* --> *z*, *ts* --> *s*: eragozpen, ihardespen, onespen

. *-n* --> Ø: iraupen

. *-o* --> *a*: gogamen[239]

. *-t* --> Ø: oroimen[240]

4. Atzizki-metaketa

Honelakorik ez. Aipa daitezke birralgitalpen].]] [sic] aurrizkiduna eta eragozpen eratorriaren gainean osaturiko *eragozpenbide*[241].

-ZIO

1. Lema

Forma bakarra.

---

[236]Rijk-ek (1991:712) Azkueren honako bereizkuntzaren berri ematen du:
"*Tura* et *men* sont semblables, mais *men* indique opération et mouvement intellectuels, *tura* opération et mouvement réels. (*Euskal-izkindea*, p. 61)".

[237]Adiera batean.

[238]Galdera-ikurra, *mugida*, *segida* hitzetako amaieraren izaerazko ezjakinari dagokio.

[239]*FHV* (1985_3:126).

[240]*FHV* (1985_3:106,329,344,423).

[241]*bidez* osatuak eratorpenaren eta elkarketaren artekotzat joko dira.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] + \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{ekintzaren ondorioa} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{ekintzaren ondorioa} \end{bmatrix}$$

abstrazio, alienazio, aplikazio, artikulazio, aspirazio, definizio[242], deizio, deklinazio, denotazio, deribazio, deskripzio, eboluzio, edizio, ekuazio, erredukzio, erromanizazio, esplikazio, fonazio, formalizazio, formazio, funtzio]] (funzio])[243], imintzio, imitazio, indukzio, informazio, interpretazio, introspekzio, intuizio, jeneralizazio, jenerazio, klasifikazio, konbinazio, kondizio, konjugazio, konjunzio, konparazio, konposizio, kostituzio, lokuzio, neutralizazio, notazio, operazio, orazio, perzepzio, posizio, preposizio, proposizio, puntuazio, tradizio, transformazio, transkripzio, trasformazio, traskripzio, zibilizazio

Nabarmena da maileguen nagusitasuna.

Egituraren deskribapenean aditzoina oinarri jarriagatik, seguru asko, egokiago litzateke erdal hitzaren euskal moldakuntza edo egokitzapen soilaz hitzegitea[244], batez ere, abiapuntu beharko lukeen aditzik ez dagoenean: eboluzio, ekuazio, funtzio, introspekzio eta abar luze batean, alegia.

Honenbestez, deizio litzateke, beharbada, egituran zehazturikoetan bete-betean kabituko litzatekeena, imintzioren etorkiaren berria argitu ezean[245].

Aurreko atzizkiaren azalpenean ikusi bezala, *-pen / -men* atzizkidunekin kideak dituzte hemen bilduriko batzuek; zenbaitetan, euskal oinarria + *-pen/-men*, erdal jatorrizkoa + *-zio* bikoteak osatzen dira, esate baterako: edizio = *argitalpen*; esplikazio = *azalpen*.

-keta atzizkidunez ere pareak osa ditzakete: konparazio = *konparaketa*; konposizio = *konposaketa*.

Baita -t(z)e izen-sortzaileaz eraturikoekin ere: interpretazio = *interpretatze*, jenerazio = *sortze*, mota biko adigarriak ekartzearren.

---

[242] Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan: *definizio, indukzio*.

[243] Orol Mitxelenaren lehen argitaraldian bistukaria igurzkaria dela, ez afrikatua.

[244] Hitz-moldeen egokitzeaz aritu gara.


[245] Zerikusirik ote ondokoarekin:
"Los ejemplos de *mb* > *m* son más abundantes: (...) *imintzione* 'invención' (Etcheb. *Obras* 57)...)". (*FHV* 1985_3:357).

-KETA (-eta)

1. Lema


-keta da formarik usuena, *-eta* behin erabili da.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera



aldaketa[246], antolaketa, asmaketa, azterketa, bakanketa, banaketa, bereizketa[247], berezketa[248], berreraiketa, bilketa, elkarketa, eraketa, heziketa, idazketa, ikerketa, itaunketa, ibuuraldaketa, konparaketa, konponketa, konposaketa, kontaketa, mugaketa, murrizketa, neurketa, partiketa, pentsaketa, soilketa, sorketa, tajuketa, zatiketa, zenbaketa, zuzenketa

Oro har, oinarria aditzoina izanik ere, aditz-partizipio osoa duen bat, (heziketa[249]) jaso da.



berriketa[250], gogoeta, hizketa, sailketa[251]

---

[246] Aditz honen eta beste zenbait sailkideren (*elkartu, sortu...*) [+causatiu] erabileran, Cabré-Rigau (1987$_2$).

[247] (1972b4:99 bitan) (M), (1972e:157), (1984b:36).

[248] (1972b2:43), (1972b3:55).

[249] Gogoan izan *-era*$_2$ atzizkiazkoan oinarri honezaz esanak.

[250] *berri* izen moduan hartu beharra dagoela dirudi. Ikusiriko *ondasun, ondade* hitzen bidetik?

[251] "Ondoren berauen artean sailketa eta banaketa berriak egingo genituzke klaseak, subklaseak, subsubklaseak eta nahi adina zatiketa egiten dugularik". (1972b4:70).

"Baina harrigarria badirudi ere hotsei gagozkielarik, bai, orduan hizkuntzak berak mugatzen du gure oharmena, gure perzepzioa (nahiz eta honen konzeptuzko sailketa mugatu ez)". (1972b5:125).

-kuntza atzizkidun hitzekin bikoteak osa ditzake, hala nola: aldaketa = *aldakuntza*[252]; bere(l)zketa = *bere(l)zkuntza*[253], zeinetan beti garbi sumatzen ez den formen adieren arteko aldea, batipat 'ekintza' denean adierazia.

Adiera hori duenean, ekintza markagabearen adierazle den *-t(z)e*-tik aski gertukotzat jo daiteke zenbaitetan: aldaketa = *aldatze*; bakanketa = *bakantze*; elkarketa = *elkartze*; ibuuraldaketa = *ibuuraldatze*; mugaketa = *mugatze*; sailketa = *sailkatze*; sorketa = *sortze*.

'Ondorioa' adiera duenean, berriz, *-kuntza*-rekiko aldea antzeman daiteke bakanki: *-keta*-dunak ekintza zehatza eta *-kuntza*-dunak bere aldetik, 'erabatasuna', 'sistema' edo antzeko ñabardura itsatsia daramala; hala nola: hezketa / *hezkuntza*. Mugak, nolanahi dela ere, lausoak dira.

-zio atzizkidunekin osa ditzaketen bikoteak arestiko multzoan zehaztu dira.

-kizun-i eskainian ikusi bezala, beste atzizki honezaz eratuak ere kide izan ditzake: asmaketa = *asmakizun*; kontaketa = *kontakizun*, pentsaketa = *pentsakizun*

-mendu atzizkia baliatuek kidetzakoak osa ditzakete, halek 'ondorioa'(*antolamendu*) eta multzo honetakoek 'ekintza' (antolaketa) ñabardurak bereago izanik.

3. Hots-aldaketak

. *-tz* --> *z*: idazketa

. berreraiketa, zenbaketa

Hitzoz bi balizko azalpen proposatuko genituzke: oinarriaren amaian kontsonante leherkari ahoskabea gertatu eta hurrengo kontsonante mota berekoarekin tupust egitean eskuinekoa nagusitzea (**berreraik(i)* + *-keta*, **zenbat(u)* + *-keta*) nahiz, aditzoina bokalez amaitu[254] eta *-keta* atzizkia, beste gabe janztea (**berrerai* + *-keta*, **zenba* + *-keta*).

-KUNTZA

1. Lema

Bakarra.


---

[252]Kopuruz, *aldaketa* hamalautan eta *aldakuntza*, berriz, hogeita lautan.

[253]*berelzkuntza* berrogeita hamalautan, *berezkuntza* hamalautan.

[254]Euskal adizki zaharretan sumatzen bide den joerari helduz, *-ki*, *-tu* bezalako partiziplo-marka itzatekeelako. Ik. *FHV* (1985$_3$:344).

2. Oinarriaren kategoria eta adiera



aldakuntza, aurrerakuntza, bereizkuntza, berezkuntza[255], berrikuntza, ebakuntza, erabilkuntza, esakuntza, hazkuntza, hezkuntza, ikaskuntza, ikerkuntza, integrakuntza, prestakuntza

Ikusi bezala, eskuarki, aditzoina izan ohi da oinarri[256], behin izena topatuagatik: hizkuntza[257].

ebakuntzari dagokionez, arestian *berreraiketaz* esana berresan beharko litzatekeela dirudi, bestela, **ebakikuntza* edo beharko luke eta[258].

Aipatzekoa da, bestalde, esakuntzak duen erreferentzia zehatza, hots, *esaldi*ren ordain zuzen gisa erabili da.

Hemengo ebakuntzak gertuko ordain ditu *-dura*-dun *ebakidura* (honen adiera batean) eta *-era*-dun *ebakera*; halaber, erabilkuntza = *erabilera* parea para daiteke.

Arestiko multzoan *-keta* ≈ *-kuntza* hurbiltasuna mintzagai izan den arren, kontutan hartu behar da gerta daitezkeela – adieraren zehaztea eta murriztea direla medio –, inolako zerikusia ez duten bikoteak: *berriketa* ('solasa') / berrikuntza non baitirudi lehenean izena dela oinarria

---

[255] Lehen jaso bezala, *bereizkuntza* sarriago darabil *berezkuntza* baino.
Hitz honen moldeak direla eta, uste dugu egoki dela eratorbidean atzemanak laburbiltzea:
Izenondoa oinarri: *bereiztasun* (1) / *berezitasun* (7) / *bereztasun* (5).
Aditzoina oinarri: *bereizgarri* (30) / *berezgarri* (3)
bereizketa (4) / *berezketa* (2)
bereizkuntza (54) / *berezkuntza* (14).
Hauek aurrean izanik ondoriozta daiteke Sarasolak (1985:941) eratorbiderako oinarriez azaldua –hots, ikura zaharragoa gordetzen duen *berezi* izenondoa eta berriagoa den *bereizi* berriz aditzoina– hein handi batean, baina ez osotoro, betetzen dela hemen ere.
Aditzaren inguruko emaitzak hiztegiaren sarreran dagoeneko eman ditugu.

[256] nor-nork mota zehaztuak, berez hala diren aditzak eta halakotzat erabiliak hartzen ditu barne.

[257] Oroi, halaz ere, lehen adierazia.

[258] Michelenak (*FHV* 1985_3: 275) bestela ari dela tartekatzen duen adibidea ere begi aurrean izan beharko litzatekeelakoan gaude:
"guip. *garaman, garamen*, 'sitio donde se corta helecho' < *gareban*, cf. guip. *garo* 'helecho', en composición *gara-*, y *eba-ki* 'cortar'". (Beltz. gurea).
Halaber:
"*ir(a)eban* <sitio en que se corta helecho> (hay también *gareban, garaman*, de *garo*): *Iraeban*. *-eban* está relacionado con *ebaki* <cortado>, con la única diferencia del sufijo (*-n, -ki*)". (1989_4:106). (Beltz. gurea).

eta bigarrenean, berriz, aditzoina[259].

3. *Hots-aldaketak*

Badirudi aurretiko *berreraiketa*rentzat pentsaturiko irtenbidearen antzekoa behar dela ebakuntzarentzat ere.

-DURA (-tura, -kura)

1. *Lema*

-dura, -tura eta *-kura*. Ez da sumatzen inguramendu fonikoaren ondoriozko aukerarik.

2. *Oinarriaren kategoria eta adiera*.

```
[+aditzoina          ]   +   [+atzizkia   ]   -->   [+I         ]
[+nor/(nor-nork)     ]       [+I          ]         [+ondorioa  ]
                             [+ondorioa   ]
```

. *-dura*

-n + -dura

apaindura, etendura

bok. + -dura

bustidura, ebakidura, hedadura, higidura, komunztadura[260], moldadura, prozedura(?)[261]

---

[259] Oroi, saihetsetik bada ere, *euskalari / euskaratzaile* bikotearekin esanak.

[260] palabras muy características de Etcheberri [Sarakoa] (...) *comunztadura* <convenio> (no en el sentido técnico de <concordancia>". (1964a:30).
Aztergaikoak, ordea, adiera berezitua du.

[261] Hemen kokatuagatik, ez dakigu zein duen oinarria.

-r + -dura

laburdura, ñabardura

. *-tura*

-n + -tura

juntura(?)[262]

bok. + -tura

berretura[263], deitura, egitura (-n > Ø[264]), itxitura, lotura (-t > Ø[265]), ohitura[266]

. *-kura*

-l + -kura

bilkura

-s + -kura

joskura

hedadurak *hedamen* (eta *zabalkunde* ere bai) eta laburdurak *laburpen* (adiera batean) forma kideak dituzte.

---

[262]Zein aditzoin proposatu behar da oraingoan? Ala aditzoinik ez baina erdal izen osoaren egokitzapen soilean pentsatu behar da hornigarri dakartzagun hitzekiko antza dela medio?
"Mejor dicho, por un hecho pertinente de sutura (*juncture*)...". (*FHV* 1985_3:581).

[263]*berre(tu)* ala Agud-Tovar-en (1989:944) bidetik *berri(tu)*?

[264]Ikus *egitate*.

[265]Ik. *orolmen*.


[266]Kasu honetan, badirudi *ohi* izenetik abia daitekeela. (*FHV* 1985_3:116).

-KUNDE (-unde?)

1. Lema

-kunde eta *-unde(?)*[267]

2. Oinarriaren kategoria eta adiera



aurkikunde, jakiunde, sorkunde, zabalkunde

Villasantek[268] aipatzen dituen elizaren inguruan sortuen artekotzat dauka sorkunde, hemengo erabileran *sorrera*tik gertuxeago legokeena.

zabalkundek berriz –Villasanteren ustez, berriki sortuen bidekoa–, *-kuntza* edo *-pen / -men* atzizkidunekin bikoteak sor ditzake.

jakiunderi dagokionez esan, *jakite, jakinduria, jakintza* eratorriekin batean 'zientzia' edo aditzera emateko erabili dela[269].

---

[267] Bakizko atzizki honen kokalekuari dagokionez, zalantza gorriak ditugu ez baitugu inon halakoren aipamenik aurkitu. Bi azalpen datozkigu gogora: *jaki(n) + -kunde* eta kakofoniarik gerta ez dadin *jakiunde* emaitza edo *-(k)unde* proposatu behar da *-(k)ide, -(k)izun, -(k)or* eta abarren bidetik (*FHV* 1985_3:245)?

[268] (1974:106).

[269] "Honako beste ohar hau hizkuntzari dagokio. Ubillosez ari dela (151gn. orrialdean) dio A. Villasantek: ‡... por Sabiduría emplea *Jaquiundea*, palabra que trae Larramendi, pero que no es popular; y es curioso que Larramendi no traiga, en cambio, el popularísimo *jakinduria, jakiturie*". Baina gaur herriko hitza ez bada, dirudienez, ez du horrek noraezean esan nahi herriko hitza ez zenik eta are gutxiago Larramendik asmatua denik. Egia esan, Larramendi baino lehenago ageri da, O. de Arinen Dotrinan, 31gn. orrialdean esate baterako: "...(...) poderioaren obra guciac atributcen zaizca Aita Eternoari, jaquiundearenac [edo sabiduriarenac] Semeari...". Hori aski ez balitz, hona zer idazten dion Arakistainek Larramendiri bidali zizkion eraskinetan: "*Sabiduría, jaquiundea, jaquitea, jaquintea* G.". Gainera, oker ez banago, ez *jakituria* ez *jakinduria* ez dira behin ere agertzen O. de Arin'gan. Beraz, dirudienez, oraingo *jakinduria* berria da eta, Gipuzkoan behinik behin antzinako *jakiundea*-ren ondorengotza hartu duena". (1961b:66).

Honela jasotzen du Mitxelenak Arakistainen iekukotasun hori:

"*Jaquiondea*, 464, sup.: <Sabiduria, *jaquiundea, jaquitea, jaquintea*, G>. En Azkue faltan tanto la variante incorrecta como *jakiunde*, bien atestiguado desde Ochoa de Arin". (1964a:84).

-TZA$_2$/TZE

1. Lema[270]

-tza.

Ikusiriko baste -*tza*$_1$ atzizkiaren alomorfotzat joko ez genukeena.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] + \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{I} \\ +\text{ekintza/ondorioa} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +\text{I} \\ +\text{ekintza/ondorioa} \end{bmatrix}$$

aurkientza[271], baldintza[272], egintza[273], ekintza[274], emantza, jakintza

Arestiko azpikategorizazioa ez dakigu[275] noraino egoki dakiokeen burujabetzari[276], baina atzizki honek ablapuntu hartu ohi duen kategorizazioari begira, **burujabetu*tik abiatu

---

[270] *-tza / -tze* atzizkiez ala atzizki beraren alomorfoez: *FHV* (1985$_3$:500).

[271] *FHV* (1985$_3$:122).

[272] Hona, hitz honen sorkundeaz kezkatzen denarentzat, Ubillosek, 17. testuan landatu zuen azalpena: "Oni [Abrami] Jaincoac aguertu ciozcan bere asmoac, onequin eguin zuan baldin-ezco batzea, eta aldartasuna, adirazten ciola: Abran, *baldin* zuc nere esanac eguiten baduzu, Ni zurequin izango naiz...". (1981c:158).

[273] (1983a:50).

[274] (1972b0:23), (1972b4:74).

[275] Gure ezpalak *OEH*-n eta *H:LEH*-n ditu zainak, **burujabetasun** eta **burujabetza** hiztegietan badauden bitartean, ***burujabetu**ren arrastorik ez dago.
Erdal izenaren ordain zuzenean, eta ez balizko euskal aditz batetik eskuraturiko eratorrian, pentsatu behar?

[276] Azkuek (1923-25:74) -*tza* atzizkiaren bigarren adieran -"lanbidea" adierazten duenekoan- honakoak kokatzen ditu:
"Lardizabal trae además *burutza* jefatura (Test. 150-29) y *elegetza* soberanía (G)".
Villasantek (1974:135), bere aldetik:
"En el sentido de "acto" o "cualidad abstracta" son conocidos *Bizitza* = vida, (...). Citemos también, como acuñación de estos últimos años, *Iraultza* = revolución".
Gure usicz, hemengo hau, Villasanteren adieratik gertuago bide dago Azkuek *burujabetzaren* kidetzako diratekeenetan ikusten duen "lanbidea" adieratik baino.

beharra dagoela dirudi.

-TI

1. Lema

R. Lafon-ek (1948) izenondo-sortzaile den atzizki beratzat daukana hemen izen-sortzaile denean hartuko da kontutan.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

Bi hitz dira hemen kokalekua dutenak: barruti[277], idazti.

```
[+I]       +  [+atzizkia]   -->  [+I]
[+lekua]      [+I]               [+lekua]
              [+lekua]
```

barrutiren azpikategorizazioetzat jo daitekeenak ez du, ordea, idazti eratorriarentzat balio.

```
[+aditzoina] + [+atzizkia]                  -->  [+I]
               [+I]                              [+konkretua]
               [+konkretua]                      [-biziduna]
               [-biziduna]                       [+gauzakia/ekoizpena]
               [+gauzakia/ekoizpena]
```

Beste azpikategorizazio hau hobeki egokitzen zaiola dirudi[278], alabaina, ez da arazorik gabea.

Izan ere, *-ti* atzizkia (ez izen-sortzaile eta ez izenondo-sortzaile denetan) ez zaio aditzoin den oinarriari lotzen.

---

[277] Hitz honezaz zehazki *FHV* (1985$_3$:236), non Lafonen hipotesiaren oihartzuna eta hobestea irakur daitezkeen.

[278] "Bestalde, idaztiak ugaltzeko mekanika tresna bat agertzen da: inprenta. Honen garrantzia [sic] egundainokoa da. Lehen, barreiaturik zegoen ezin konta ahala esku izkribu eta ohar sorta galdu bada ere, orain behin prentsa batean sartuz gero ehunka eta milaka botatzen delarik askoz zailagoa da hura aztarrenik gabe galtzea". (1972b1:35).

Bestetik, atzizkiarentzat eta hitz eratorriarentzat proposaturiko tasun-matriza *-ki*$_2$ eta *-kin* atzizkiena bezalakoxea izatea deigarria da.

Hau kontutan izanik, *hápax* den idazti[279] honek, *idazki* edo (beharbada, egokiago?) *idazkin* behar ote luke? Ala ondoko gertaeraren aurrean gaude?:

> En vista de esto, cabe admitir que el nombre que significa 'ave' estuviera formado con el suf. *-ki* (cf. a.-na. Elcano *erazki*), cambiado por disimilación en *-ti(n)*: *egazti, hegazti(n)*. (*FHV* 1985$_3$:259).

Edozein kasutan, egokiago dirudi bigarren *-ti* hau 5. sailean kokatzea ('gauzakia, ekoizpena' adiera dutenen artean) eta bestea (barruti, alegia) 'lekua' adierazten dutenekin batean.

-ADA

1. Lema

Bakarra[280].

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[+Adiz-esapidea]   +   [+atzizkia]   -->   [+I]
[+mugimendua   ]       [+I        ]         [+mugimendua]
                       [+mugimendua]
```

atzerakada, aurrerakada[281]

---

[279] *HLEH*-k: "idaztl. 1904 (1896 *irazti*)".

[280] Ala *-(k)ada*$_2$ 'kolpea' edo antzeko adierako atzizkiarekin bildu behar da?

[281] Hitz bakunen atalean kokatu den *zertzeladak*, zalantzak sorrarazten dizkigu, osamoduazko berri zehatz eta egiaztaturik ez dugu eta.

Baldin, hango oin-oharrean paraturiko Mogelen azalpena ontzat ematekoa balitz, ezin joko litzateke hitz erator-atzizkiduntzat. Egia da, bestalde, eratorria balitz, oinarria asmatzea batetik eta gainera sail honetakoei eman zaien 'mugimendua' tasuna edo nahiago bada 'bultzada' nekez egotziko litzaiokeela beste horri.

Azkuek[282] eta Villasantek[283] ez dute hemen aditu uste den adiera zehazten[284] baina Villasantek zabalik uzten duen bidekotzat jotzeko eragozpenik ez da ikusten.

Ikuspegi batean, berriz ere, *amalgama* edo *morfema portemanteau* baten aurrean egon gaitezkeela dirudi. Honek esan nahiko luke, egiturak, hemen aukeratu ez den beste honako partiketa hau ere onar lezakeela: [+izena]-> [+adberbioa] + *-kada* ('kolpea' adiera-ñabardura dutenen atzizkia).

Ez da, ordea, horrela aditu, bukaeran zehazten den moduan baizik, hots, aditz-esapidea joz eratorpenaren abiapuntu. Ez dakiguna da aukera honek noraino sortuko lizkiokeen debeku teorikoak Morfologia Sortzaileareen barnean ezartzen den lege bati, oinarriak lexiko-kategoria nagusietakoak behar duela aldarrikatzen duenari, alegia[285].

Guztiarekin ere, adituen artean kategoria nagusien eskakizuna kolokan jartzen duenik ere bada[286].

Hemen hautetsiriko egitura-zehapen eta azalmoduaren euskarri, Cabré-Rigau-k ematen duten katalanezko kide den *davallada*-ren egituraren azalpena ekar daiteke:

> Davant una unitat com *davallada* podem proposar dues possibles vies de formació lèxica: que *davall* sigui un element adverbial o que sigui un verb produït per l'aplicació d'una regla de conversió sintàctica de verbalització d'adverbis (...) Podrem explicar *davallada* per l'addició d'un sufix a un element adverbial si, al costat d'aquest cas, en tenim mots altres, fet que no sembla pas ocórrer en català. Sembla que el més adequat és optar per la segona solució: suposar que *davallada* procedeix indirectament d'un radical adverbial que ha canviat de categoria i ha passat a funcionar com un verb en virtut de l'aplicació d'una regla de conversió. Per tant, direm que *davallada*, com *baixada*, procedeix directament de *davallar* o *baixar*, i indirectament de *davall* o *baix*. (Cabré-Rigau 1987_2:55).

---

[282](1923-15:85).

[283](1974:57).

[284]Azkuek:

"a) algunas interjecciones y voces onomatopéyicas; b) a nombres propios". aipatzen ditu atzizki hau hartu ohi dituztenen berri emateko. Villasantek, arestikoei:

"También a voces que no son propiamente onomatopéyicas" egoki dakiekeela atzizkia dio eta, "*Bultzada*=empujón. *Jokada*=jugada" ematen ditu adibidetzat. Zabalik uzten duen azken honetatik gertuenik ikusi ditugu bilduak.

[285]Scalise (1987:176). Ala "aditz-esapidea" (eta *hautemate* berriz dakargu paperera). Scalise-k (1987:150) (Aoun-en aburuaren oihartzuna plazaratuz) azterkizun uzten duen, baina iragaitzaz bederen, proposatzen duen, beste honakoan kokatu behar litzateke? Hau da, hitzak eratzeko *erregelek* sintaxi-kategoria nagusien (*categorías sintácticas* direlakoen) gainean lan egin ordez sintaxi-kategorien ezaugarrien (*rasgos sintácticos categoriales*) gainean lan egin beharra?

[286]The latter-day emphasis on the word, rather than the morpheme, as the base of word formation rules, has led to the postulation of the 'no phrase constraint' according to which only major syntactic word categories such as N, A, V, may generate derivatives, as opposed to non-major categories such as Prep, Adv, Pron, or phrases. Objections to the N, A, V restriction can be noted for Spanish, where pronouns and other parts of speech are sometimes subject to derivation of the type *vos --> voseo, lo --> loísmo, tú --> tutear*, or *ce --> cecear*. In English, the ability of phrases to enter derivational structure is apparent in items such as *stand-offish* or *airyfairyness*. Colloquial neologistic Spanish can likewise offer much counterevidence, in terms such as *sincorbatismo, autoestopista, treintañero, centrocampista, cafeteatril* etc". (Lang 1990:57).

4. Atzizki-metaketa

Atzizki-metaketarik ez dago baina azpimarra daiteke izenetik abiaturiko adberbioa dagoela aditz-esapidearen oinarrian.

. [+izena] -> [+adberbioa] -> [+aditz-esapidea] -> [+izena]

-ANTZA (-antzia, -entzia)

1. Lema[287]

Hemen bilduetan, nekeza da benetako atzizki moduan erabili ote den ala mailegu osoaren egokitzapen hutsa ote den bereiztea, zenbait kasutan bederen.

Gehienetan, bigarren kasukoak direla pentsa daiteke eta honela izanik, eratorpenetik atera beharrekoak.

Halakotzat jo dira:

herentzia, konberjentzia, konkordantzia, konpetentzia, korrespondentzia

Euskaran sarrera aspaldikoa izanaren poderioz[288], bil daitezke bestetik:

diferentzia, kontzientzia, sustantzia, zientzia

13.1.A.9. ZERO ATZIZKIA[289]

Eratorpen-mota hau hizkuntzalaritza-eskola bat baino gehiagoko hizkuntzalari anitzen mintzagaia izan da. Azken urteotako lan adierazgarri batzuetan usatuak aipatzearren honakoak paperera daitezke:

Kurylowicz-en (1936)[290] *dérivation syntaxique*, Coseriu-ren (1967) *desarrollo* hitz-

---

[287]Atzizkiaren jatorriaz: Villasanteren (1974:60) laneko Mitxelenaren oin-oharra.

[288]*HLEH*-k orain arte kalera emanikoetan, ez daude jasoak lehen multzoan bilduak. *Sustantzia* eta *zientzia* jasoko ote diren ala ez, ez daukagu irispidean; guztiarekin ere, **sustantze** dakar Lhandek eta **(s)zientzia** jasoa du Altunak (1974) Etxepareren hiztegian.

HLEH-k honako datez dakartza beste biok: **diferentzia** (1571) eta **kontzientzia** (1545).

[289]Nahiago izan dugu "zero atzizkia" edo "zero morfema" deitu "huts" hitza baliatu baino Hockett-en (*morfema cero* ez den) *morfema vacío*-rekiko nahasteak bultzatzearren. Lehena, Bosque-ren (1983:135) esanetan *morfema sin morfo* litzatekeen bitartean, bigarrena *morfo sin morfema* litzateke.

[290]Bosqueren (1983:135) lanean aipatua.

eraketa motan kokatuz[291], Marchand-en (1960:359-386) *Zero Morpheme*, Guilbert-en (1975:73) *néologie por conversion*, Mascaró-ren (1985:15,38) *habilitació* delakoaren barneko *conversió o derivació zero*, Cabré eta Rigau ikertzaileen (1987_2:32) *conversió sintàctica* edo Scalise-k (1987:56) jasotzen dituen *transposición implícita, conversión* edo *morfema cero*.

Beti ez dago, haatik - euskararen kasuan bederen[292] -, garbi jakiterik zein forma den bestearen oinarri, hots, kategori aldaketa zein norabidetan gertatu den[293].

Auzia zabalik utziz, nahiz sail osoa eratorririko izenei dagokien, hemen eskuarki batean ikusiko dira gertakizun beraren ondorio direnak.

Honela, sorkariaren gramatika-kategoriaren araberako sailkapena aurkeztuko da, aditza oinarri izateari erreparatuz, izen = izenondo arteko[294] atzizki bakoitzaren azpian bilduko baitira[295]. Berresan, zalantzei tarte zabala utzi behar zaiela.

. Aditza --> (Izenondoa?) --> Izena

adierazi, afrikatu, ageri, agindu, eduki, eman, etorri, erantzun, mandatu, (postulado]) postulatu]], predikatu

---

[291]"Un desarrollo corresponde a una determinación gramatical que implica una función oracional específica del término primario. Así, por ejemplo: (...) *rojo* + función epíteto --> *el rojo* (...). Como se ve, un desarrollo implica siempre un cambio de la categoría verbal del término primario desarrollado (un sustantivo se vuelve verbo o adjetivo, un verbo se vuelve adjetivo o sustantivo, et.)". (1981_2:179).

[292]Eta katalanez ere antzeratsu gertatzen dela adierazten dute Cabré-Rigau-k (1987_2:33):

"L'aplicació de regles de conversió sintàctiques planteja una qüestió fonamental en les teories de la formació de mots per derivació. Com podem saber que una forma és anterior a una altra?".

[293]Gramatika Sortzailearen barrutiko ikertzaile batek baino gehiagok (Chomsky-k (1970) berak, urrutirago gabe), arazo honi oinarri abstraktua proposatuz eman zion irtenbidea. Aditza eta izenaren arteko atzinatasunaren auzlaz Cabré-Rigau (1987_2:32-35) eta bertan jasotzen den Corbin-en (1976) frantsesazko baldintzen kontu ematea, katalanarentzat baliogabeko gertatzen diren frogak barne.

[294]Hots, egoera honetakoak:

"A més dels procediments explícites de transcategorització que acabem de presentar, determinades peces lèxiques poden canviar de categoria sense recórrer a elements morfològics o sintàctics formalment explícits, sinó simplement imposant unes determinades condicions als contextos en què han d'aparèixer. És el cas, per exemple, dels adjectius que funcionen com a noms en contextos en què van precedits immediatament per un determinant, o dels noms que funcionen com adjectius situats immediatament per un darrera d'un nom, o dels adjectius en funció d'adverbis darrere verbs...". (Cabré-Rigau 1987_2:32).

[295]Edozein kasutan, eta arazo beraren errepikapena besterik ez bada ere, hona, oraingoan euskalari baten iritzia:

"Que les mots soient simples, dérivés ou composés, il leur arrive, sans changer de forme, de changer de catégories, et même il est souvent difficile en basque de savoir si tel mot est un adjectif pris comme nom ou inversement". (Lafitte 1962_2:40).

. Aditza --> Izenondoa

aditu, aipatu, ageri, argitu,[296] @asibilatu, @berezitu, busti, @determinatu, elkartu, erakarri, eratorri, erdibitu, eskolatu, @espezializatu, @gonparatu, idatzi, ikasi, ireki, itxi, jaso, @konposatu, laburtu, landu, luzatu, mailebatu, mailegatu[297], markatu, mugatu, neurtu, normalizatu, ordenatu, @zaharkitu

Berariaz aipatuko dira, bestetik, sailkatzeko momentuan zalantzak sorrarazi dituzten hitzok: atariko, beherako, gorako, emakumezko, gizonezko, kideko, segizioko. Eta izen elkartuak oinarri lituzketen alaldeko?, atalburuko, (histori aurreko]) historia aurreko, izen(-)ondoko, izen aldameneko, oinordeko.

Guztiak izenak izanez, ez dakigu noraino esan daitekeen kasuotako *-ko* erator-atzizkia den ala gramatika-kategoriaren aldakuntza hutsa gertatu ote den.

Sailkapenean zehar *-ko* erator-atzizkia kontutan hartu da oinarriaren azpikategorizazioko tasunetan eragina bazuelako, gerora sortuko zen eratorrian froga zitekeenez ([-bizidun] --> [+bizidun] bilakatzea, adibidez, edo [+jarraile] tasunaren erasketa...), hauetan berriz, ez da horren garbi ikusten gertakizun hori.

Ezin kabitu dira, Azkuek aipatzen zituen *belarritako, buruko* edo oinarriak gorputz-atalarekin zerikusia duen eta 'jazkia', 'apaingarria' adiera dutenek osatzen duten sailean, ez zaigu horrela iruditu behinipehin. Ezin ere 'kolpea' edo (*muturreko, zaplasteko, beharrondoko...)* adierazten dutenekin batean bildu.

Egia bada ere zenbait kasutan esanahiaren aldetik nolabaiteko zehaztapena badagoela ('hitzaurrea', 'soinuak gorantz edo beherantz egiten duen higidura', 'adjektiboa', kasuetan esate baterako) ez dakigu hori justu nola islatu beharko litzatekeen hitzon atzizkiaren azpikategorizazioan.

Hau dela eta, badaezpadakoa izan arren, atal honetan kokatzea erabaki dugu, gertatzen diren gramatika-kategoriaren aldakuntzek esanahi-ñabardurek (halakorik nozitzen dutenenek) baino irizpide irmoagoak eskaintzen dituztelakoan.

. [+izena[298]]-->[+izenlaguna]-->[+izena]

atariko, emakumezko, gizonezko, kideko, segizioko[299]

alaldeko?, atalburuko, bitarteko, (histori aurreko]) historia aurreko, izen aldameneko, izen(-)ondoko, oinordeko

---

[296] @ ikurrak izenondo moduan soilik erabiliak direla adierazten du, bestela esan, ez dela aztergaian aditz moduko erabilerarik kausatu.

[297] Maxelenaren erabilera zehatza hitz bakunen atalean eskaini dugu.

[298] Hitzaren osamoduari muzin eginik; hots, soilik ala eratua den kontutan hartu gabe.

[299] -zio atzizkiaz aritzean jaso ez dugun hitz honen oinarria ere han bildu beharrekoa litzateke.

. [+izena]-->[+adberbioa]-->[+izenlaguna]-->[+izena]

beherako, gorako

Ikusi bezala, izenlagunak sortzeko atzizkiaz ari gara, atzizkiduna izen bilakatzea, izenlagunak eskuinean eraman ohi duen izena desagertzearen ondoriozkoa izanik, aurreko, bitarteko eta enparatuetan gertatu legez, alegia.

13.1.B. IZENONDO-SORTZAILEAK

13.1.B.1. JATORRIZKOAK

-(T)AR (-dar)

1. Lema

-tar, -ar eta *-dar* alomorfoak erabili dira. Azkena behin besterik ez da jaso, ezkerretara duen kontsonante albokariaren eraginez.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$\begin{bmatrix} +I \\ -arrunta \\ -biziduna \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +Izond \\ +jatorria \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +Izond \\ +jatorria \end{bmatrix}$$

Izenondo-sortzaile den atzizki honezaz baliatuetan nabari daiteke gehienetan izen bezala erabili direla eratorriak[300], hizkuntzen deizioak izateak bultzaturik[301]. Hau dela eta, galde daiteke, azpikategorizazioko [+jatorria] tasunaren ondoan (ordez?) ez ote zitekeen egokiago [+hizkera] edo [+mintzoa] edo antzeko zerbait paratzea, baina atzizkiaren ohiko

---

[300] Kataluniar ikertzaileak ere ez omen datoz bat jentilizio direlakoei izen ala izenondo gramatika-kategoria ezartzean, Cabré-Rigau (1987$_2$:85).

[301] Orol *-era*$_3$-n esanak.

adierari, jatorrizkoari, eutsi nahi izan zaio atzizkiaren beharrezko tasuntzat[302] joz, beste hau, adiera-ñabardura edo hedapena izan daitekeelakoan[303].

. ia + *-ar* --> *-iar*

armeniar, galiziar-portuges, georgiar, germaniar

. -a + *-ar* --> *-ar*

dakotar, indi(-)europar[304], indoeuropar

. -ai + *-tar* --> *-tar*[305]

bizkaitar

Hiru hitzek, ordea, ez dute kokaleku jakinik arestiko sailetan:

iraniar, lapurtar[306], nafar

---

[302]Oroi lehen tasun-motez esanak.

[303]Honela, esate baterako, erabakigarri izateko asmorik gabe, ekar daiteke *bizkaitarez HLEH*-k dakartzan bi adieren, populuaren jatorrizkoaren eta hizkeraren, lehen testigutzen datak: XV ea. lehenarentzat eta 1901 bigarrenarentzat.

[304]Azterreremuaz lekorako pasarteño batean argitzen du Mitxelenak norengandik hartu duen deizio hau:
"Hori dela eta, gainerako hizkuntza indieuroparretan ere (Mirandek zerabilen deitura darabil) saiatu zen Tovar". (1985e:85).
Erator-oinarriari dagokion aldetik, komeni da zehaztea non-noiz darabiltzan biak:
indo-europar: (1971e:94). Esana doan bezala, argitaraldi berrian, *indi-europar* bilakatua.
indoeuropar: (1972b5:114,120 (M),121 bitan,126), (1978a:29 bitan), (1983a:49).
indieuropar: (1985a:112).
Ez da, bestetik, zokoratzekoa, *indoeuropartzale* (1978a:30); *indoeuropartze* (1978a:30) eta *indoeuropeista* (1972b4:96) (M) ere aldamenean dituztela.

[305]Lurraldearen izenaren mugatzailea desagertaraziz.

[306]Dado que *t*, lo mismo que *k*, puede representar no sólo la inicial conservada del último miembro, sino también la final del primero, su valor como indicio para restituir una oclusiva inicial caída queda necesariamente disminuido. En estas condiciones, por otra parte, la descomposición es frecuentemente insegura. ¿Cómo hay que analizar p. ej. *lapurtar* 'labortano' o *zaitoki* (Oih. *Prov.* 127) 'silla de montar'? Podría tratarse lo mismo de **Laphurdi-tar*, **zaldi-toki*, que de **Laphurdi-ar*, **zaldi-oki*". (*FHV* 1985_3:250).

Lehenak ez dirudi oinarri *Iran* duenik; beharbada, erdal izenondoak[307] izan dezake *-i-*ren agerpenarekin zerikusia.

nafaren azalpenak, berriz, hizkuntzaren historian murgiltzea eskatzen duenez eta erabateko iritzirik aurkitu ez dugunez gero, galdera-ikurraz utziko dugu sail honetan azterkizuna[308].

Hemen bilduen kideko beste moduetara osaturiko hizkuntza-hizkeren izenak *-era*$_3$-n jasorik daudenez gero, ez ditugu errepikatuko.

$$\begin{bmatrix} +I \\ -arrunta \\ \pm gizakia \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +Izond \\ +jarraitzailea \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +Izond \\ +jarraitzailea \end{bmatrix}$$

Bi multzo nabarmen, oinarriaren gizaki izaeraren arabera, guztiak izenondo nahiz izen moduan erabiliak:

. konts. + *-tar*

Bloomfield-tar, Marr-tar

. y + *-tar*

Chomskytar

---

[307] Era honetako izenondoez:

"Beste batzuetan badirudi ez zaiola ozer kentzen erdal adjektiboari, bukaeran ezartzen zaio euskal atzizkia (*irakiar*, jatorria gaztelaniazko *iraqui* baldin bada; ez, ordea, jatorria gaztelaniazko *iraqués* edo frantsesezko *irakien* balitz). Beraz, oinarria erdal adjektibo batetik hartzen da". (Loinaz 1992).

Orol, halaber, *ingeleseraz*.

[308] Hitz honen etorkiaz: Caro Baroja (1945:220hh).

Lan honetan, beste leoriak beste, Olhenartek *Notitian* adieraziriko iritzia irakur daiteke: *naba* + *-ar* "natural de la llanura", Moret-en *naba* + *erri-*ren aldamenean. Olhenarten ikuspegia gogobetegarriagoa zaiola iruditu zaigu. Auziaz, halaber, Michelena (1989$_4$:132).

Badirudi, edozein kasutan, ezin pentsa daitekeela lurraldearen izenetik sortua denik bertakoen eta bertakoen hizkuntzaren izena. Itxura guztiz, aldrebeskoa dela gertatua osatera ausartuko ginateke. *Nafarroa*ren ondoan (G)*ipuzkoa* eta *Zuberoa* are (beste leku izenak tarte) hor batuxte. Halaz guztiz, ez dugu honekin adiera ernari handi Michelenak (1989$_4$: 135) jasotzen duen *Azkueren 'lurralden' adierako atzizkiaren izena beste gabe* inoiz sinan ialiar denik (*Aezkera*, 8 alpatzen du Michelenak. 1931eko Lanamendiaren *Corografia* ii eskuinari era gauza bera da Azkuek).

(G)*ipuzkoa*ren berri izateko, *gipuzkerara* igortzen dugu.

Berriro irakurri ahal izan ditugu *Orotariko Euskal Hiztegia* oratzen dabiltzan kideetariko Segurolaren (1993) hitzak, gure uste honen irozgarri:

"Nik uste dut -eta ez nauk luzatuko esplikatzen- *nafar*-etik sortu dela *Nafarroa*, hala nola sortu baitira *gipuz*-etik *Gipuzkoa* eta *aetz*-etik *Aezkoa*".

Gizakizale ez direnek, ordea _ oinarriak leku-izenak diren arren , ez dute jatorria adierazten, halako lekutan 'sortu, jorraturiko... ikaskizunen jarraileak'[309] baizik.

. *-a + -ar*

Pragar

. *-e + -tar*

Kopenhagetar

. *-l + -dar*

Port-Royaldar

Bigarren azpikategorizazioan bilduak, eratorpena eta elkarketaren artekotzat hartu *zalez* osatuen kide izan daitezke: Chomskytar = *chomskizale* batetik, eta *-ko* atzizkiaz baliaturiko *Pragako* eta sailekoak, bestetik.

13.1.B.2 'JOERA-ZALETASUNA' ADIERAZTEN DUTENAK

-KOI

1. Lema

Bakarra.

---

[309] Aulara berriskuntza hau egina zuen Hiurrek 1921 ko irailaren larrenik:

"Dérivation à l'aide des noms communs et des adjectifs pumés" saiean "La terminaison tar ajoutée au nominatif indéfini d'un nom signifie partisan de ce nom. Ex: (...) *hermtar*, qui est du même pays", batetik eta "Dérivation à l'aide des noms propres de personnes et des noms de lieu" delakoan :

"1° La terminaison tar, ajoutée à un nom propre de personne, signifie partisan de cette personne. Ex: (...) *Karlostar*, partisan de Carlos". (1979:436hh).

Azkaratek (1992.211,212) adjektibo erreferentzialak ordaintzeko *-tar*, eta neurri apalagoan *-ko*, atzizkiak baliatzen dituela Larramendik azpimarratzen du.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
[+I          ]   [+atzizkia]          [+Izond]
[+konkretua  ] + [+Izond    ]  -->    [+joera]
[+biziduna   ]   [+joera    ]
```

herrikoi

Izenondo berriaren ezkerretara doan izena biziduna izatea ohikoagoa den arren, hemengo erabileran hitz-mota bat da ezaugarritzen duena: *hitz herrikoia*[310], *kultur hitz*ari aurkajarriz, hain justu. Ez dirudi, haatik, zentzuz kontrakoa 'herri' [+bizidun] moduan, hots 'populu' moduan, hartzeak. Hortara, azpikategorizazioan, izenongoaren ezkerreko izenak [+biziduna] tasuna eraman beharra duela erantsi beharko litzaioke.

-KARI$_2$, -ari

1. Lema

Zalantzaz bada ere, *-kari*, izen-sortzailetik banandurik kokatuko da hemen bildua. *-ari* atzizkiduna da jaso den bakarra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

```
                    [+atzizkia]          [+Izond]
[+aditzoina]   +    [+Izond   ]   -->    [+joera]
                    [+joera   ]
```

irristari

'irristatzeko erraztasuna duena', 'irristatzeko joera duena' adieraziko luke, hots-mota

---

310. Erantzun ere daiteke kultur hitzak eta hitz herrikoiak ez daudela elkarrengandik hain salbestuak non batzuetatik besteetara pasatzeko zubirik ez den'. (1979g:183).

bat zehazten duen honek[311].

Arestikoan zehaztu bezala, atzizkiaren azpikategorizazioko [+biziduna] tasuna ezkerretara daraman izenari lotu ohi zaio; kasu honetan, haatik ez da halako eskakizunik betetzen eratorriaren izaerari begira.

-KOR

1. Lema

Bakarra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{aditzoina}] \quad + \quad \begin{bmatrix} +\text{atzizkia} \\ +\text{Izond} \\ +\text{erraztasuna} \end{bmatrix} \quad \text{--} > \quad \begin{bmatrix} +\text{Izond} \\ +\text{erraztasuna} \end{bmatrix}$$

adierazkor, aldakor, emankor, iragankor, (iraukor]) iraunkor[312]

Azpikategorizazio hau nekez onartzen du orokor[313] izenondoak.

Hitz hau dela eta, zenbait ohar-zertzelada paperera daitezke:

-Ez Azkuek ez Lhandek hiztegietan jasotzen dute, bai ordea, Bera-Lopez Mendizabal hiztegigileek hagitz antzeko dirudien *orokar*, 'católico, universal' erdal ordainez aldatuz.

-Azkuek[314] *-oro* (*-ero, -aro*) atzizki aditzondo-sortzailea beregain bilakatutzat dauka.

-kor atzizkiak adierazten duen 'erraztasuna', 'isuria' ez zaio oso garbi antzematen

---

[311] "Eta hots irristari horiek aurretik daramaten *ñ* bustiak edo biguinak irents dezakeela: irestea legezko zela esatera ere ausartuko nintzateke, Nafarroako eta bestetango erdarez legezko zen bezalatsu". (1983d:123)

[312] Bikote honen gainekoak, hiztegiaren itsaskinean.

[313] Hiru bider darabil Mitxelenak, hiruretan ezkerretara *teoria* eta *hizkuntzalaritza* izenak dituela (1972b4:73 bitan), (1965d:80). Lehiakide duen *orotariko*, berriz, behin: (1965d:80), hau da, arestiko *orokor* horren ondoko orrialde berean.

[314] (1923-25:229).

aztergai dugun hitzari, Villasanteren hipotesia gora-behera[315].

-lido beretik, Azkaratek[316] Morfologia Sortzaileraren bidetik *-kor* eta *-garri* atzizkien arteko aldea azaltzeko ematen duen argumentu-egituran kokaleku gaitza luke:
$_{izond}[+aditzoina + -kor]_{izond}$ / $_{iz}[+Subj, +Jasailea]_{iz}$--

Edozein kasutan, oinarria aditzoin ez lukeen bakarra litzateke[317], ez duela zer izan aditza beti oinarria Azkuek[318] eta Villasantek[319] zehazten dutela aurrean izan behar bada ere.

-BERA

1. Lema

Bakarra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$\begin{bmatrix} +I \\ +konkretua \\ -biziduna \end{bmatrix} + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +Izond \\ +zaletasuna \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +Izond \\ +zaletasuna \end{bmatrix}$$

etimologibera(tasun)

Atzizki erabatekotzat jotzea debeku gabea ez bada ere, badirudi eratorbidean elkarketan baino leku erosoagoa duela adiera honezaz horniturikо *-bera* honek[320].

Bestetik, azalean utzi behar da ez dela izenondoa aztergaian topatua, izenondo berreratorria baizik.

---

[315] "*Orokor* (y la variante *Orokar*) parece provenir de *Oro* + *kor* = propenso al todo, Universal". (1974:105).

[316] (1991:77).

[317] Villasantek (1974:104) *formaciones neológicas* direlakotzat dauzkan *baikor* eta *ezkoren* bidetik sortua?

[318] (1923-25:147).

[319] (1974:104).

[320] Halaxe diote Villasantek (1974:65) eta LEF batzordeak (*LEF-3* 1991:121).
Hitz elkartuen artean berriz aipatuko da, halaz ere.

Adieraren aldetik, ez dirudi honen eta *zale*dunen artean alde larriegirik dagoenik, bestela esan, Mitxelenagan ikusi ez dugun *etimologizaletasun* pare-parean jar dakiokeela ematen du.

Azkuek[321] atzizki moduan erabiliriko *-bera* eta *-(k)or*-en artean, lehena, "naturalmente propenso a... pasiones animales" eta bigarrena "... a pasiones racionales" bereizkuntza ikusten du. Guk ez dugu jasoriko adibide bakar honetan, halakorik antzematen.

-koi ere izan dezake aldamenean, baina oinarriaren azpikategorizazioari begira antzeman daiteke hark izen bizidunak eskakizun bide dituen bitartean honek ez duela halako mugarik.

3. Hots-aldaketak

. -ia --> i : *etimologi*

4. Atzizki-metaketa

Eskuinoranzko hedatzea onartzen du.

. [+izena] -> [+izenondoa] -> [+izena]

13.1.B.3. 'GAITASUNA' ADIERAKOAK

-GARRI

1. Lema[322]

Bakarra paratuko den arren, Cabré-Rigau-k[323] *-dor* atzizki katalanarentzako *[±agentiu]* tasunean funtsatuz proposaturiko *-dor*$_1$/*-dor*$_2$ bereizkuntza bera ere proposa daitekeela dirudi euskal *-garri*-rentzat, *-garri*$_1$ eta *-garri*$_2$ bananduz, egiñe edo eragiletasunaren arabera.

---

[321](1923-25:136-138).


[322]Atzizki honezazkoak, bereziki, Azkarate (1990a).

[323](1987$_2$:91).

2. Oinarriaren kategoria eta adiera



bereizgarri (iz.[324]), berezgarri (iz.), lagungarri (iz.)



adierazgarri[325], entzungarri[326], ulergarri[327]

Egun nahasiturri bilakatu den atzizki honezaz baliatuetan ikus daiteke (1972b5:123)-ko entzungarrik soilik gordetzen duela 'entzutea merezi duena' edo horren tankerako ulermodu zaharra[328], zabal esanda; beste guztietan 'adieraz daitekeena', 'entzun daitekeena' edo 'uler daitekeena' dira adiera-ñabardurak.

Halakoetan izenondoaren ezkerreko izenak aditzoinaren objektua, jasailea argumentu-

---

[324] Parentesi artean zehazten da izen moduan ere erabili denean. Azken hauek izen-sortzaileen artean ikusi dira.

[325] "Eta intuizio honek hitzen bitartez adierazgarri bihurtzen den momentutik bakarrik izango du balio". (1972b0:25).

[326] "Honela, denboraren buruan lotuz doa seinale entzungarri batzu (*ogi*, esaterako) janari mota bati, eta egiaztatuz [Jat. *egiztatuz*] ere doa bere ekintzek batzutan sarla jasotzen dutela eta beste batzutan ez". (1972b4:74).
"Sintaxiak alde batetik fonetikazko interpretazioa egokitzen dio [sic] [Jat. *dion*] konponente bat du. Beroni eskerrak azpiko egitura entzungarri bihur dezakegu". (1972b4:81).
"Neronek ere lehen ingelesez zihardutenean zaunkaka ari zirela uste nuen, baina orain oso hizkera egoki eta entzungarria dertzat". (1972b5:123).
Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[327] "Diogun bidenabar gramatikala edo formala izatea, eta zentzuzkoa edo ulergarria ez dela gauza bera". (1972b4:79).

[328] Azkaraten (1990a) lanean irakur daitezke autore zaharren erabileren eta geroagoko berrikuntzen testigutzak. Halere, esan behar da Larramendik ere beste 'daitekeena' balioaz darabilela zehazten dueta euskaltzainak.

egituran biltzen du. (Azkarate 1991:78).

Puntu honetan ikusi berriak, haatik, Mitxelenaren erabilera orotarikoa desitxura dezakeelakoan, komeni da *-garri*-k [+jasailea] edo [+daitekeena] adiera-ñabardura duten forma lehiakideen berri laburra ematea.

Ezer baino lehen, gogoan izan behar da *-garri* atzizkiaz eratorriak izen moduan erabili direnean (adiera aktiboa dutenak, alegia) beste sailean kokatu direla eta hauen ugaria baztertzekoa ez dela.

Honenbestez aipa daitezke honakook:

. adierazgarri / *adierazkor*.

Hau da Azkaratek[329] Morfologia Sortzailearen bidetik proposaturiko bion arteko aldearen azalpenaren zehaztapena[330]

$$_{izond}[\text{+aditzoina} + \textit{-kor}]_{izond} \quad _{iz} \quad \begin{bmatrix} \text{+Subj} \\ \text{+Jasailea} \end{bmatrix} \quad _{iz.}—$$

$$_{izond}[\text{+aditzoina} + \textit{-garri}]_{izond} \quad _{iz} \quad \begin{bmatrix} \text{+Obj} \\ \text{+Jasailea} \end{bmatrix} \quad _{iz.}—$$

Ikusten den bezala, izenondoaren ezkerreko izenak aditzoinaren subjektu ala objektuaren eginkizuna betetzearen baitan legoke aizizkion arteko aukeraren funtsa.

. ulergarri / *ulerterraz*[331].

. *kontagai*, eratorpen eta elkarketaren artekotzat joak ere baluke hemen tokia.

---

[329](1991:77).

[330]'Eragilea' adieraren jabe direnentzat berriz, honakoa proposatzen du:

$$_{izond}[\text{+aditzoina} + \textit{-garri}]_{izond} \quad _{iz} \quad \begin{bmatrix} \text{+Subj} \\ \text{+Eragilea} \end{bmatrix} \quad _{iz.}—$$

[331]Hizteglan ikus daitezke Mitxelenak berak emaniko *batkor = batu-erraz* adierakideak, non 'jasailea' adiera *-kor* atzizkiaz gauzatua dagoen.

Mitxelenak berak paratzen dio aldamenean parafrasi argigarria:

> Esate baterako, *the boy* izena kontagai dela, konta daitekeena, alegia: *mutil bat, mutil bi...* (1972b1:30).

. *-t(z)eko* egituraz baliatuz

> aztertzeko, itxuraldatzeko, onartzeko, onesteko, pairatzeko, sortzeko.

-kizun ondoren aztertuko den atzizkia ere uler daiteke, modu batean [+daitekeena] tasunaren jabe bailitzan, arestikoak bezain argi ez badago ere. Arrazoia, ikusiko den legez, atributu-sintagmetan ez baina predikatuetan izatean erabilera-esparrua egon daiteke. Sintaxi-kontua da, antza, murrizten duena.

Esanagatik, beraz, egiazta daiteke, [+daitekeena] adiera adjektiboen bitartez eman behar izanez gero, modu bat baino gehiago dituela euskarak eskumenean, edo hobeto esan, Mitxelenak, izan ez ezik, mamitu ere dituela.

-KIZUN$_2$

1. Lema

Bakarra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+aditzoina] + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +Izond \\ +etork./daitekeena \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +Izond \\ +etork./daitekeena \end{bmatrix}$$

gertakizun, hautakizun[332]

Izenondotzat jo diren hauen berezitasuna, izen-sintagmaren barneko izenaren

---

[332] Izen moduan ere erabiliak.

eskuinean joan ezina da; honen kariaz, beste izenondo arruntak ez bezalakotzat jo daitezke[333].

Predikatu-sintagmetan erabili dira[334].

Gertakari honexek, hain zuzen ere, ematen du bide, atzizki honek Morfologia Sortzailearen funtsezko hastapen bat kolokan ez ote duen jartzen pentsatzeko, hitz-eraketaren ondoriozko sorkariak, lexiko-kategoria nagusietakoa izan beharra, alegia. Jasoagatik ikusten baita sorkaria nekez baino ez dela izenondoen artean kabitzen; bestela esan, ez dela benetako eta erabateko izenondo, horren lekuko, oin-oharrean jasotzen den erabilera berezia.

Irtenbiderik ez eta, auzia paperean landaturik uzten dugu, ez baitugu uste, ardatz darabilgun azterbidearen burubideetan toki erosorik ez izategatik, kasu honetan bederen, atzizki izaera (erator-atzizki izaera, zehazkiago esan) hankaz gora irauli behar denik.

Adierari dagokionez, 'etorkizunean zertuko dena', '-t(z)eko dagoena' litzateke estuenik lotuko litzaiokeena; hau dela eta, hauen ordain erabili ez den baina bestetan baliatzen duen *-t(z)eko* izan dezake kideko.

13.1.B.4. 'JABEGOA' ADIERAKOAK

-DUN (-tun)

1. Lema

Azkuek[335] bi sailetan bananduta ematen ditu Villasantek[336] eta Azkaratek[337]

---

[333]Halaz ere, erabilera berazitukoen artean kokatu ez den atzizki hau duen forma eratorriaren erabilera bitxia nabarmen daiteke:

"Hãz horrek, hona erraz gezurtakizun den ustekaria, ez du gehienbat —eskula ez duela esaten ez naiz ausartzen— "aragizko" kutsurik". (1984b:31).

Lehen begi-kolpean ez dirudi elkarren ondoan dauden horko bi elementu uztarrerrazak direnik: *erraz* eta *gezurtakizun*, hain justu; halakorik aditzera eman nahi izanez gero "erraz gezurta daitekeen" edo antzeko zerbait paratzea askozaz ere ohikoagoa baitzateke. Gure ustez, Mitxelenak 'daitekeen' adieraren ordainak emateko salo gisakoa egiten du hemen, *-garri*$_2$ ('jasailea')-ren, eta *posible*ren erabilera neurrigabeari nolabaiteko hesiak paratzearren eta euskarak bestelako aukerak ernamuinean izan ditzakeela azalean uzteko asmoz, sortuaren ordez, lasai asko jar baitzezakeen "gezurterraz" beste gabe.

Alde honetatik, beraz, hemengo *gezurtakizun* hau asmo baten adigarri begiantzen zaigu: hitz-eraketan (zentzu zabalean) bideak urratu nahiaren seinale eta ondorengoei pentsakizun gerta dakien.

[334]"(1)Michelena advierte que en Axular las formas en *(k)izun* son predicativas, no atributivas. Así *dirá hau barkakizun da* o *barkakizun den gauza*, pero no *bekatu barkakizuna*; *urrikalkizun diren bekatariak*, pero no *bekatari urrikalkizunak*". (Villasante 1974:103).

[335](1923-25:152,153).

[336](1974:67).

atzizki bakarraren alomorfotzat dauzkatenok.

Leherkari ahoskabez hasten den bakarra, ezkerreko txistukariaren eraginez azal daitekeena da.

LEF batzordeari[338] jarraiki, hitz elkartu sintetiko errokarien artean ere aipatuko dira hemen bilduok.

2. *Oinarriaren kategoria eta adiera*[339]

Atzizki bilakatuaren etorkiak (*duen*-en laburdurak[340]) baldintzatzen du oinarriaren izaera: izena, izen-multzoa, izen-sintagma izan ditzake oinarri[341]. Honela:

. izena oinarri

araudun, argumentudun, arimadun, artikuludun, atzizkidun, azentudun, azkendun, bizidun, erdaldun[342], euskaldun, gangardun, hiztun[343], markadun

. izen-multzoa oinarri

azentu "luze"dun

Azkenak –*EGLU-I(Er.)*-aren aburuari jarraiki– ohiko ez litzatekeen atzizki-erasketa erakusten du, antza:

Honelako egitura ["iz. + izond.", alegia] duten izen multzoekin badirudi ez dela *-dun* atzizkia ibiltzen, ez eta forma konposaturik ere. Badira, halere, kontrako zenbait adibide, hala nola, **teilatu gorridun**

---

[337](1991:79).

[338]*LEF-3* (1991:35), *LEF-4* (1992:64).

[339]Ikus *-ko* izenondo-sortzailea.

[340]Azkue (1923-25:153), Villasante (1974:67), *FHV* (1985$_3$:412), Azkarate (1991:79).

[341]*EGLU-I(Er.)* (1987:53), *LEF-3* (1991:35).

[342]*Bizidun, erdaldun, euskaldun* eta *hiztun* (azkena ia beti) batipat izen moduan darabiltza.

[343]Tampoco *iztun* y *poztun* antes citados vienen de este posesivo *dun*. Al aplicarse este sufijo a consonantes dobles *ts* y *tz* no sigue la ley general fonética de que una supresión engendra permutación, dado que sea permutable el fonema contiguo al suprimirlo. Al chocar *dun* con vocablos como *ats* hedor (...) desaparece la *t* de estos digamas [sic] *ts* y *tz*, pero *dun* no se convierte en *tun*, sino que decimos con el pueblo *asdun* hediondo (...) etc., etc. ¿Vendrá esto, de que la ley fonética antes citada es de época anterior a la probable evolución de la flexión verbal *duen* (*duan, duun, dun*) "que tiene" al derivativo *-dun*, de *alainadunen emakumea* a *alaindun emakumea* (mujer que tiene peces)? Tal vez". (Azkue 1923-25:152).

etxea, leiho gorridun txabola eta antzekoak entzuten baitira. (*EGLU-I(Er.)* 1987:53).

Gainera, [+bizidun] tasunik[344], nekez ondora dakioke.

. zenbatzalledun izen-sintagma oinarri

bisilabadun

-KO

1. Lema

Atzizkiak bereizteko erabili den notazioa (*-ki*$_1$, *-ki*$_2$...) ez da hemen erabili ez delako garbi ikusten zenbatetaraino jo daitezkeen atzizki desberdintzat hemengo hau eta ikusiriko beste *-ko* atzizkiak[345].

Maiz lehian[346] ageri diren *-dun* ikusi berria eta hemengo *-ko* hau uztartzen dituen arrazoietako bat oinarriaren izaera da, atzizki honek ere, arestikoak bezalaxe, kategoria lexikoetatik goitikoak onartzen baititu[347].

Arrazoi hau eta beste (esate baterako, erator-atzizkiek eskueran duten hurrenez hurren metatzea[348] ezinezkoa zaio *-ko* honi)[349] direla eta, benetako erator-atzizkitzat[350] jo behar ote den auzitan dagoela dirudi:

---

[344]"Gure gaitasunaren arabera, behintzat (nahiz mendebaldeko erabilera islada dezakeen eta ez ekialdekoa), izena bizigabea denean errazago litzateke *-ko* aukeratzea (*lau langako etxea, bi gorringoko arrautza...*); izen hori biziduna denean, aldiz, *-dun* atzizkiaz baliatuko ginatekeela iruditzen zaigu (*buruko ile luzedunak, elurrezko esku zuridun*)". (Alduna-Azkarate 1992:110).

[345]Azkarate (1991:79).

[346]Auzi hau aztertzen dute bereziki Alduna-Azkarate euskaltzainek.

[347]Lehen ere izan dugu arazo hau hizpidean.

[348]Coseriu-ren (1968 (1981$_2$:179-181)) hitzetan *desarrollo* litzatekeena.

[349]Alduna-Azkarate euskaltzainen lanean puntuz puntu zehaztuak.

[350]Gogora ekar daitezke Trask-en (1985:171-172) "*-ko* deribazionala", Mitxelenaren (1986c:173) edo *EGLU-I(Er.)* -ren (1987) "erator-atzizkia" deizioak.

> Emankortasun-kontuak alde batera utzirik, izenlagun kalifikatzaileak sortzen dituen *-ko* ez zaio kategoria lexikalari lotzen, goragoko kategoria bati baino. Eta, nahiz izenondoen pareko funtzioa duen kategoria osatu, izenondoarekin koordinazioan ere ager daitekeena (*bihotz onekoa eta sotila*), ez du ondoren edozein izenondok onartzen duen erator-atzizkia hartzen: *sotiltasun* vs. **bihotz onekotasun*. Ez da, beraz, *-tasun, -keria* etab. bezalako erator-atzizkia. (Altuna-Azkarate 1992:105).

Halarik ere, hemen kokatzea hobetsi da arestiko atzizkiarekiko hurbiltasuna dela medio.

2. *Oinarriaren kategoria eta adiera*

Esan bezala, multzo honetan sartuek amankomunean dute izena gune duen goragoko sintaxi-egiturari *-ko* eranstea. Hemen kokatzen dira Trask-ek[351] eta *EGLU-I(Er.)*-k[352] bananduriko "Izen-multzoa + *-ko*[353]" eta "Zenbatzailea + izena + (izenondoa) + *-ko*"[354]. Guztiak, "(Zenbatzailea) + izena + (izenondoa) + *-ko*" egiturapean bil daitezke.

. Izena + *-ko*

antzeko, behe mailako, dudako, duda-mudako, elteko, ezpaiko, ofizioko, ohiko[355], (erromantze) etorkiko

Gisa honetako izenlagun kalifikatzaileen oinarrian dagoen izenak [+abstraktua] tasuna izan ohi duela aipatzen da[356], [-abstraktua] diren kalifikatzaileak *-dun* atzizkiaz eta izenondo soilarena egiten dutenek (kalifikatzaile ez direnek), berriz, *-ko* hartzen dute.

---

[351] (1985:165).

[352] (1987:48-60).

[353] "Eskema honen barnean ager dakizkiguke, alde batean, izena, izenlaguna edo izenondoa. Zenbatzaile zehaztua edo zehaztugabea ere bai. Bestaldean izanen ditugu izena eta *-ko* atzizkia eta bi hauen artean, aukeran, graduatzailea eta izenondoa". (*EGLU-I(Er.)* 1987:52).

[354] "Aurreko izenlagun deskribatzaileetan ez bezala, izenlagungai den izen multzoan zenbatzailerik agertzen ez bada, nahiz zenbatzaile hori zehaztua edo zehaztugabea izan, eskuarki *-ko* erator atzizkia hartuko da izen multzo hori izenlagun kalifikatzaile bihurtzeko". (*EGLU-I(Er.)* 1987:56).

[355] Perifrasi-multzoen artean aditz modalak osatzeko elementu (*EGLU-II* 1987:462) honen oinarrian *ohi* izena dagoela esan al daiteke?

"... *eun* 'cien', cf. *ehun*; cf. *oi* 'costumbre', or. *ohi*". (*FHV* 1985_3:116).

"(24) Lafon, Système I, 473 ss. y 491 ss. No han perdido, sin embargo, la aspiración determinantes adverbiales, nombres en su origen, como *ehal, ohi, otho*". (*FHV* 1985_3:214). (Beltz. gureak).

[356] Altube (1929:§206-§226). *EGLU-I(Er.)* (1987:52).

Arau honi lotzen ez zaizkion adibideak ez dira falta, ordea[357].
Nolanahi dela ere 'Eutezko' adiera dela nagusi esan daiteke.

. izena + izenondo + *-ko*[358]

adiera bakarreko, adiera berdineko, hizkuntza bakarreko, letra bakarreko, muga gabeko, zentzu berdintsuko, zentzu bereko

eta *azentudun*ek kontrako aldetik duen *gabe*[359] osagaiaz osaturiko azentu gabeko ere aipatu beharko litzateke.

Altubek[360] zehazturiko eskabidea –izenak [+abstraktua] izan beharrekoa, alegia–, eskuarki betetzen dela esan daiteke, kasu batean ezik: *letra*.
Ez da hemen jaso pareko egiturarik *-dun* darabilenik.

. Zenbatzailea + izena + *-ko*[361]

bi arpegitako, bigarren graduko (bihurgune[362]), erregela biko (gramatika), erro bateko, hiru silabako, lau silabako, lehen mailako (ekuazio)

EGLU-I(Er.)-k[363] esaniko bidekoak liratekeelarik ere, ez da ahantzi behar lehiengo *bisilabadun* ere hor dagoela, aurkez-aurk[364].

---

[357] *-dun* atzizkiari eskainian *animadun, bizidun*, irakur daiteke, besteak beste.

[358] *EGLU-I(Er.)* (1987:52), "Izen-Multzoa + -ko".
Izen-multzoa oinarri hartzearen desegokitasunaz: De Rijk (1988). Izen-sintagma mugagabeaz, berriz *EGLU-I(Er.)* (1985:133-34).

[359] *gabez* osatuez: *LEF-3* (1991:133-137). Ikus hemengo hitz elkartuen atala.

[360] (1929).

[361] Laboux-beharrez hurrenkera honetan ematen dugu, izenburua kasu guztietan betetzen ez den arren.

[362] Parentesi artean zehazten dira eskuinean daramatzaten izenak, sintaxi-egituretan osorik aipatuko diren moduan. Multzo honetako guztiei halakorik ez paratzea honako arrazoiari zor zaio: beste adjektiboek, berez, bere bakarrean, berezitutzat jotzeko beste diruditen ez bezalakoak direla hauek, hau da, *bigarren graduko, erregela biko*, eskuinean daramaten izenik gabe, nekezago adituko liratekeela. Halarik ere hemen kokatu dira, goragoko egituretan halako azterketa zehatzailerik egingo ez delako eta honenbestez osagaien taxu horrek inon islarik izango ez lukeelako.

[363] (1987:56).

[364] Amurizak (1974:89) proposaturiko *lau-hortzdun, lau-zangodun* eta era honetakoen bidetik.

Bestetik, gogoan hartzekoa litzateke *EGLU-I(Er.)*-k[365] eta Altunak eta Azkaratek ikuslaren iidotik bi arpegitako, *-tako*-z osatua, *EGLU-I*-k ematen dituen Axular, Etxepare eta Duvoisin-en parekoa litzatekeela[366].

Arestikoek zenbatzaile zehaztua dute, aldiz, ondoren aipatuko dena zehaztugabeaz eratua da.

hizkuntza askotako

Bidezkoa dirudi *-dun* eta *-ko*, baliokide daitezkeen bi atzizkioz baliatuak erkatzeak[367]:

Izen-multzoa oinarri dutenetan nabari da *-ko* atzizkia hiru eraikuntzatan erabili den bitartean, *-dun* atzizkiaz osaturiko bakarra dagoela, *bisilabadun*[368], alegia.

Adieraren aldetik, guztiek 'jabegoa', zabal hartuta, adieraziko lukete.

13.1.C. ADITZAK SORTZEKO ATZIZKIAK

-TU [369]

1. Lema

-tu, -du, -(z)tatu, -katu.

-du, sudurkari eta albokarien (kontsonante ozenen) eskuinean *-tu*-k hartzen duen

---

[365](1987:57).

[366]Ahozko hizkerako adibide bat ere gainera dakieke aipatuei. Azkuek (*Cancionero Popular Vasco* 396 or., 496. kantua) Errenterian jasoriko kanta batean honakoa entzun daiteke (ortografia eguneratuaz):
"**Bost hogei urtetako** dontzeilatxo bat ohean daukat gaixorik. Oilo bat ere hil diot baina ez dauka mejoriarik, beste bat ere hilen nioke jaiki ez baledi ohetik". (Beltz. gurea).

[367]Zenbait erdal aurrizkiren zenbait euskal ordainak aztertzean berriz aipatuko dira.

[368]Alde honetatik Amuriza (1974)-k erdal *bi-, tri-, cuatri-* aurrizkiak ordezkatzeko (...) proposatzen dituen *bi-silabadun, bi-orridun... -ko* atzizkiaz jatorrago ez ote liratekeen ikusi beharko genuke. Hala ematen ditu Mugica (1973)-k, *-dun (-ko*-ren ondoan) zenbaitetan azaltzen bada ere *letra biko, zati-biko "bimembre"...*". (Azkarate 1991:80).

[369]Aditz-sortzeak erstorpenean kokatzeko duen eskubideaz:
"Però la derivació és una relació entre arrels i per tant tanta conversió hi ha en l'anglès a *taste - to taste* com en català a *tast - tastar*". (Mascaró 1986:15).

aldagai ahostuna izanik, *-(z)tatu*-k eta *-katu*-k sor dezakete galdea, *-tu*-ren alomorfo soil ala atzizki desberdintzat, Villasantek (1974) sailkatu bezala, jo beharrazkoa, alegia.

Oinarriaren araberako sailkapenera igaro aurretik, halere, argitu nahi da, multzo berezi batean bildu direla aditz osorik mailegatu uste direnak (mailegatzearen garaia kontutan hartu gabe).

Banantze honek, batipat, egokitzapen-motaren adierazgarri izan daitezkeen ustean du arrazoia.

Ez dira azken atal berezi honretan kokatu, guztiarekin ere, balizko oinarriak (etorkia etorki) euskaraz ere erabiltzen direla nabaritu zaienak: istudiatu, kontatu, miratu, partitu, seinalatu, xinpletu...

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$a.\ [+I/+Iznd] + \begin{bmatrix} +atzizkia \\ +part\ \ burutua \end{bmatrix} \rightarrow [+part.\ burutua]$$

. *-tu*

. Izena oinarri

aipatu[370], altatu[371], aldatu (eta eskuinean osagai hau duten aditz elkartuok: formaldatu, itxuraldatu, lekualdatu, letraldatu, tokialdatu), argitu[372], asmatu, azpimarkatu, azpimarratu, bazterlu, burutu, deitu, eratu, frogatu, funtsatu, galdatu, galdetu[373], gatzatu, gauzatu, gorpuztu, gurutzatu, hizketatu, hondatu, inprentatu, istudiatu(?[374]), itxuratu, izkribatu(?), jokatu, jorratu,

---

[370]Ehun eta laurogeita lautan.

[371](1959a:130 bitan), (1961a:55).

"or. *aip(h)atu* 'mencionado' (>a.-nav. *aitatu*, por disimilación en el modo de articulación), occid. *aitatu*, derivado de *aita* 'padre' /(65): *Via Domitia* 4 (1957), 195. Debo a Nils M. Holmer el paralelo del inglés *to father on, upon*, 'achacar, imputar, atribuir'". (*FHV* 1985_3:258).

Eta aurrerago:

"Del común *aita* 'padre' (...) sale también el denominativo *aiphatu* 'mencionado' en los dialectos septentrionales (sul. *aiphátü*)". (*FHV* 1985_3:409).

[372]Ala *argi* izenondotik abiatu beharra dago, horrela eraturiko aditzek ohiko duten irakurrerarekiko hurbiltasuna dela medio: 'argi (izond.) bihurtu'?

[373]Ik. argitaraldiezko itsaskina.

[374]Galdera-ikurra eskuinean eramatearen arrazoia, izenetik eratorriko aditzek ala aditz osoek egokitu ote diren garbi ez ikusteen datza.

kateetu, kontatu(?), letreiatu(?)[375], mailebetu, mailegatu[376], mamitu, markatu, mintzatu, miratu, moldatu, mugarritu, mugatu, naguatu[377], oinarritu, ordenatu[378], pertitu(?), puskatu, seinalatu(?), tankeratu, tajutu, taxutu[379], trukatu, txertatu[380], uztartu, xedatu, xertatu[381], zatitu

. Izenondoa oinarri

bihurtu, egokitu[382], eraberritu (ad.elk.[383]), finkatu, garaitu, garbitu, indargabetu (ad.elk.)[384], itxuragabetu (ad.elk.), itxuragalztotu]] (ad.elk.), Ixuratxartu (ad.elk.), laburtu, luzatu, murriztu, osatu, prestatu, trebatu, xehatu, xinpletu, zehatu[385], zehaztu

. *-du*

. Izena oinarri

azaldu, landu

. Izenondoa oinarri

---

[375]*HLEH-n* hitz honen lehen agerpena 1571an zehaztuik dago.
Testamentu berria. Kalendrera. Abc lanaren autore honengan "eia" ("ea") eta irakur daitezkeenez gero, pentsa ote daiteke bi bokalen arteko soinu hori erdibideko hotsa (*hiatustilgend*) dela?
Bokalen gertakizun hauezaz: Irigoien (1968).

[376]Azken bikote honen moldezko heldulekuak aurreko kapituluan eman ditugu.

[377]Ikus *argituri* eginiko oharra.

[378]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoa.

[379]Bikote hau argitaraldiezko itsaskinean kokatu da.

[380](1972b2:40), (1979g:174), (1983d:117), (1985b:185).

[381](1972b4:90) (M).

[382]*-ki* Michelenaren *FHV* (1985_3:232) esanetan, aspaldiko atzizki partizipio-sortzaile ihartua luke hemengo *egoki* egun izenondo gisa darabilgunak. Beraz, *egokituk* bi partizipio-marka metaturik lituzke.

[383]"ad.elk."= aditz elkartua.

[384]Aditz elkartuen artean kokatuko ditugu hau eta hurrengoa, *inder + gabetu*... hobetsiz, baina ez zaigu ezinezko iruditzen *indargabe, itxuragabe* izenondoak izatea aditz bilakatuak.

[385]*xehatu*: (1972b4:82), (1983a:66), (1983e:126).
zehatu: (1978c:169).

ahuldu, bakandu, bakundu, berdindu, desberdindu[386], erdeldundu, euskaldundu, makaldu, ondu, soildu, zabaldu

argiagotu

Izenondoa oinarri dutenetan, 'bihurtzea', 'bilakatzea' ñabardura suma daiteke.

b. [IS + *-ra/-gana*] + [+atzizkia, +part. burutua] --> [+part. burutua]

alderatu, argitara(tu), bateratu, kaleratu, latineratu

paperera(), plazara()[387]

Oinarriak adierazten duenera 'joan, eraman...' adieraziz.

c. [IS + *-z*] + [+atzizkia, +part. burutua] --> [+part. burutua]

antzeztu(?), baieztatu, eglaztatu, egiztatu, deuseztatu

-z kasu-marka instrumentalazko osamoduaren aldeko iritzia, Villasantegan[388] irakur daitekeena, ez da oso garbi ikusten hemen bilduriko guztietan.

Bana al daitezke antzeztu, egi(a)ztatu, arestiko adieran, apika, beteago kabituko liratekeenak eta baieztatu, deuseztatu beste alde batetik?

. Instrumental markagabea:

gezurtatu, izendatu

d. $_{adond}$[iz./ad. + *-ka*]$_{adond}$+ [+atzizkia, +part. burutua] -->[part. burutua]

---

[386] *Ezberdindurik* ez dugu aztergaian aizeman.

[387] Bi kasuotan, ez du Mitxelenak *-tu* markadunik bailatu. Ik. hiztegiaren sarrera.

[388] (1974:127).

ahoskatu, harlkatu, lerrokatu, parekatu, sailkatu[389], tartekatu, zatikatu

Ez da aditza sortzeko oinarriotan oro erabat sumatzen atzizki aditzondo-sortzaileak eransten duen ñabardura.

e. [+zenbatzailea][390] + [+atzizkia, +part. burutua] --> [part. burutua]

batu, banatu

f. [+izenordaina] + [+atzizkia, +part. burutua] --> [part. burutua]

elkartu

g. Osorik mailegaturiko aditzak

. bokalen aldakuntzaz[391] egokituak

deskribatu, inprimatu[392], transkribatu

. kontsonanteen aldakuntzaz egokituak

ametitu, konprenitu

---

[389] "kontsonante ozen + leherkari ahoskabe" multzoaz, *FHV* (1985,3:352:n). Euskaltzaindiak (1975) zerrendatua.

[390] Zenbatzaile bakuna nahiz 'eratua'.

[391] 'Aldakuntza' darabilgu xehetasunetan ez sartzearren.

[392] *Inprimatu / inprentatu* bikoteari dihoakionez, hona kokalekuak:
inprimatu: (1983a:59).
inprentatu: (1961a:52), (1983d:119,121).
Euskaltzaindiak (1986) *inprimatu*ren alde egin zuen.
HLEH-k Euskaltzaindiak jasoa besterik ez dakar, 1617 dataz hornitua.

. *-zatu*

deskulturizatu, formalizatu, jeneralizatu[393]

Azken multzo hau bereziki interesgarria dateke, erdal etorkiko izenondo erreferentziala euskaraz ere erabiltzen denez gero[394], amalan gertatzen den kontsonante albokariari partizipio-marka zuzenean erantsi eta *-l + -tu --> -ldu*, *-tu*-ren leherkari ahoskabea ahostun bilakatzea ekarri baitu egungo euskaran !noiz, *espezialdu, formaldu* eta gisakoak sortuz.

Hemen ez da joera horren arrastorik jaso.

. atzizkiaren erasketa soilaz

aplikatu, asimilatu, deklinatu, esplikatu, imitatu, juntatu, kalkulatu, klasifikatu, konparatu[395], multiplikatu, planteatu, portatu, postulatu

3. *Hots-aldaketak*

. -e --> -a

aldatu (eta honezaz elkartuak), gurutzatu (?), luzatu, moldatu, seinalatu[396], trebatu, trukatu, xedatu, xehatu, zehatu

. -o --> -a

asmatu, finkatu, hondatu, istudiatu[397], jokatu, mintzatu, osatu, txertatu, xertatu

. -u --> -a

izkribatu, mailebatu, mailegatu

. azken bokala --> Ø

---

[393]Gehi izenondo modu soilean erabiliriko *espazializatu*.

[394]Aztertzekoa litzateke noraino eutsi zaion eta noraino galdu den erdal *lxurako* euskal hitzek duten fabardura bereziari: *espazial, formal* (eta *formaldu* ǂ *formalizatu*) edo *xelebre, zelebre, proplo*... bezalakoetan, eta honen harian, noraino ez diren *faux amis* direlakoen ildotik berraditzen.

[395]*gonperatu* / *konperatu* formak eta hauen ingurukoak, aurreko kapituluan ikusi dira.

[396]*seinale* dueta oinarri ala osorik mailegatua?

[397]*istudiotik* ala osorik hartua?

uztartu

. bistukari afrikatua --> bistukari frikaria

gorputztu, murritztu, zehaztu

4. Atzizki-metaketa

Sorturiko aditzaren oina, maiz aski eratorpenaren abiapuntu izan daiteke, atzizki bakoitzari zegokion puntuan ikusi bezala.

13.1.D. ADITZONDO-SORTZAILEAK

-KA

1. Lema

Bakarra.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

. [+izenondoa] + [+atzizkia, +adond] --> [+adond]

bakarka(ko), zeharka(ko)[398]

. [+zenbatzailea] + [+atzizkia, +adond] --> [+adond]

binaka(ko), hirunaka(ko)

---

[398] zehar, adj. *HA*-n.

. [+izenordaina] + [+atzizkia, +adond] --> [+adond]

hika(ko)

4. Atzizki-metaketa

Atzizki-metaketa zentzu hertsian, (hots, erator-atzizkien metaketa) gertatua zalantzazko dateke, *-na*, zenbatzaileek har ditzakeenetariko atzizkia erator-atzizkitzat jotzearen ala ez jotzearen baitan.

. [+zenbatzailea]-> [+distributiboa]-> [+adond]-> ([+izenlaguna])

binaka(ko), hirunaka(ko)

Zehatz daiteke eratorri guztiok izenlagun-bilakatzaile *-ko*-z hornituak erabili direla.

-KI$_3$

1. Lema

Bakarra. Sudurkariaren eskuinean dagoenean ere, ez zaio leherkari ahoskabea ahostun bilakatu, ohiko legez.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

[+Izond, +kualitatea] + [+atzizkia, +adond] --> [+adond]

ozenki

Eta eratorri ihartuak: eskierki, eskuarki[399]

Gutxi dira gail hau osatzen dutenak, hiztegi berezituetan ohi denez (Rey 1976).

---

[399] *FHV* (1985$_3$:121, 496-7). Azken aipamen horretan *eaku + (h)ar[tu] + -ki* egitura proposatzen da.

13.1.E. ATZIZKI TXIKIGILEAK ETA HANDIGILEAK

Ez dira kontutan hartu adierazkortasunarekin ikuskizuna duten bustidurazko gertariak: *axal, ttiki* eta abarrak[400], alegia, eratorpena baita mintza- eta aztergaia.

Multzo honetan bilduek (eta aurrizkiek, oro har, berdin) ez dute oinarriaren kategoriarik aldarazten[401], adieraren aldetikakoa da aldakuntza, oinarrian adierazten dena handitu nahiz ttikitu egiten dute.

Ez da handigileren aztarrenik jaso eta ttikigileak ere urri direla ikus daiteke. Berez bezala datorrela esan daiteke adierazkortasunetik urrutienikako hizkera dela jakiteetan eskuarki erabiltzen dena gogoan bada.

a) Izenari eransten zaizkion txikigileak

. *-xka / -ska*

adaxka[402], adaska[403]

. *-xko*

hizkuntzaxko[404]

. *-txo*

hiztegitxo, lzartxo, komatxo[405]

2. Hots-aldaketak

. *-r + -s/xka --> Ø -s/xka*

---

[400] Azkue (1923-25:§277).

[401] Bosque-k (1983:140) honela sailkatzen ditu hizkiak puntu honi gagozkiolarik. Oinarriari kategoriarik aldarazten ez diotenak: aurrizkiak oro har, *morfemas discontinuos* (beste batzuentzat parasintetiko) direlakoak (*en- _ _ -ar...*) saibu, gehi honako adierak dituzten atzizkiok: *diminutivos, aumentativos, despectivos* 'y los que indican "conjunto" o "recipiente".

Oroi, bestalde, Coseriuk (1968) *modificación* delakoan kokatzen zituela.

[402] (1972b4:86 bitan,90 bitan,107 bitan) (M), (1984b:33).

[403] (1972b4:89) (M).

[404] erdi *hizkuntzaren* ordain zuzena.

[405] *komile]] (komille])* ere badarabil.

13.2. EUSKAL AURRIZKIAK

Merece señalarse que la lengua vasca, donde la composición -de tipo muy poco románico- sigue siendo hoy un procedimiento muy productivo, no ha conseguido hacerse con un sistema de prefijos. No se descubren más que conatos aislados, que sólo en algún caso (*des-* alternando con *ez-*, la partícula negativa vasca, en *desegin* 'deshacer', *des- / ezberdin* 'desigual', etc., *mes-* en algunos dialectos) ha llegado a tener vitalidad. (1974b, *PT*:216).

Iritzi zabala eta aho batez onartua da euskarak barruti honetan pairatu (pairatzen) duen eta aurre egin behar dion urria. Ñimiñoa osatuagatik, ordea, bidezkoa dirudi euskal aurrizkitzat jo ohi direnak hona ekartzea, hurrengo atalean zenbait erdal aurrizkiren zenbait euskal ordain zehazkiago ikustean berriz ere mintzagai hartuko badira ere.

Aurrizkien ezaugarria da oinarriaren gramatika-kategoria ezin aldatzea[406]; honenbestez, hemengo sailkapena orain artekoa ez bezalakoa izango da, aurrizkiz aurrizki bananduko dira sailak eta bakoitzaren barruko azpikategorizazioan zehaztuko da oinarriaren (eta honen eratorriaren) kategoria.

BIR-/BER-

1. Lema

bir- eta *ber-*[407] erabili dira, lehena behin besterik agertzen ez bada ere.

2. Oinarriaren kategoria eta aldiera

$$[+\text{part. burutua}] + \begin{bmatrix} +\text{aurrizkia} \\ +\text{errepikapena} \end{bmatrix} \quad \text{--} > \quad \begin{bmatrix} +\text{aditza} \\ +\text{errepikapena} \end{bmatrix}$$

berridatzi, ber-eraiki[408]

---

[406] Ikus sarreran puntu honezaz esanak.

[407] Azkue (1923-25:90), Lafitte (1962$_2$:nº89), *FHV* (1985$_3$:122,588) (bigarren honetan *prefijo verbal* deitza), Villasante (1974:49).

[408] "... urteek bazu eta bateratu dituzte eta, inoiz izan zezaketen [Jat. zezaketean] ibura berritzeko, berraikitzeko erdaraz dioten modura, ez dago bide zuzenik". (1971a:94).

$$[+I] + \begin{bmatrix} +aurrizkia \\ +errepikapena \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +I \\ +errepikapena \end{bmatrix}$$

berreraiketa, berrerantzun[409], berridazte, birraigitalpen].]]

3. Hizki-metaketa

$$\cdot_{aditza}[aurrizkia + aditza]_{aditza} \rightarrow [+izena]$$

berreraiketa, berridazte
birraigitalpen].]]

Aditzaren inguruan kokatu izan den parasintesi delakoaren adibide lirateke jaso berriok, aurrizkia eta atzizkia hitz berean erabili direnez gero. Honek ez du esan nahi, ordea, hornitzea aldi berean gertatzen denik ezinbestean[410].

Morfologia Sortzaileko eskolakoen irizpideari jarraiki, beharbada egokiago lotuko litzaioke beste era honetako azterketa[411]: ba al dago jakiterik zein den eratorpenaren hurrenkera: "aurrizkia + eratorria" ala aurrizkiduna oinarri izanik, eratorpena gauzatu da?

Bestetan baliagarri ohi den bideak ez du hemen balio, eskuartean ditugunok badituzte eta euskaraz oinarri izan daitezkeen hitz gauzatuak, hala nola, *berreraiki, eraiketa, berrargitaratu, argitalpen, berridatzi, idazte.*

Hemen proposatzen dena, aurrizkidun aditz eratorriari dagokiona da, hurrenez hurren esan, lehen urratsean aditzak aurrizkia hartu eta gero aditz-izena eratorri.

Erabaki honen arrazoia, Azkarateren[412] adierazpen batean eta erdal bibliografian bilatu behar da. Euskaltzainaren ustez, aurrizki hau (eta *des-* aurrizkiaren kasuan beste horrenbeste) egun askozaz ere sarriago lotzen zaio aditzari izenari baino eta izena oinarri

---

[409] "Zer eratan behar genituzke erabili, lehendanik ezagunak direnean? Hedatuenik dagoenean, esango bide du zenbaitek, baina "hedatuenik non?" da maizenik erantzun honi dagokion berrerantzuna". (1979g:184).

Erabileraren bidez gain, *autonymique* (Rey-Debove 1978), *statut de citation* (Rey 1973) edo lukeen ibiurri ere suma dakioke eta, hizkuntzaren erabilera honek dituen ezaugarri bereziak direla medio, sorbide ez usu edo "aldian aldikortzat joz, beharbada, argi daitekeena.

[410] Mota honezaz eta bereziki ohiko ikuspegiaren araberako "aldiberatasunazko" (simultaneidad) kritika: Mascaró (1986:31), Cabré eta Rigau (1987$_2$:131), Scalise (1987:168hh), azken honek Corbin-en (1980) lanera igortzen du ordurarteko definizio-ikuspegien bildumaren berri izateko.

Egun, parasintesiaren aldeko agerí da, haatik Lang (1990).

[411] Bloomfield (1933) eta, halaber Bosque:

"Es fundamental, pues, tener presente que no es la identificación de las unidades que entran en juego en los procesos morfológicos la tarea más importante, sino, por el contrario, el establecimiento de la estructura interna de las palabras que tales unidades configuran". (Bosque 1983:131).

[412] (1991:87).

dutenetakoak ihartutzat jo daitezkeelakoan dago. Bestetik, Bosque-ren[413] eta Scalise-ren[414] lanetan ber gauza irakur daiteke *reestructuración* eta *desobediente* hitzen partimoduaz[415].

Euskarak aurrizki hau izenei lotzeko gaztelaniak (eta ingelesak) omen dituzten debekuak ez dituela dirudien arren, erabileraren emankortasunak makurtu gaitu azkenean honela ulertzera.

DES-

1. Lema

Bakarra[416].

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+\text{part. burutua}] + \begin{bmatrix} +\text{aurrizkia} \\ +\text{aurkakoa} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +\text{aditza} \\ +\text{aurkakoa} \end{bmatrix}$$

desagertu, desberdindu, deskulturizatu

$$[+\text{Izond}] + \begin{bmatrix} +\text{aurrizkia} \\ +\text{aurkakoa} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} +\text{Izond} \\ +\text{aurkakoa} \end{bmatrix}$$

desberdin, desegoki[417]

---


[413](1983:130).

[414](1987:48)

[415]"Para mostrar por qué la concatenación no es el modo adecuado de crear palabras, consideremos la palabra *reestructuración*. Esta palabra no se forma simplemente por concatenación de los morfemas *re+estructura+ción*; debe, por el contrario, tener estructura interna ya que no es posible adjuntar cualquier prefijo o sufijo a cualquier base. En concreto, el prefijo *re-* debe adjuntarse a verbos, no a nombres (cfr. **re-verdad*) ni a adjetivos (**re-regrande*)...". (Scalise 1987:48).

[416]Lafitte (1962$_2$:nº90), Villasante (1974:49). Azkuek (1923-25) ez du aipatzen.

[417]*egoki*ren etorkiari begira: [+adizoina] --> [+izond] --> [+izond], eco, besteren esanetan, parasintesia. Ikus *egoki*ren etorki "eratuez" geniocna.



destokitze

Adieraren aldetik, eratorriak oinarriaren kontrakoa adierazten duela esan daiteke.

3. Hizki-metaketa[418]

. [+izenondoa] --> [+izenondoa] --> [+izena]

desberdintasun[419], **desegokitasun**

. [+izenondoa] --> [+aditza] --> [+aditza]

desberdindu

. [+izena] -->(?[+aditza]) --> [+aditza] --> [+izena]

Hau ote litzateke urratsez urrats: "*toki*-> *?tokitu*-> *destokitu* -> *destokitze*"? Ez dugu garbi ikusten **destokitzeren** osabidea.

EZ-

1. Lema

Jatorriz ukatzeko darabilgun elementua delarik ere, aditzaren inguruan ez baina izen edo izenondoarenean erabilia izateak aurrizkien mailara eroan dezakeela dirudi[420].

---

[418]Ez ditugu errepikatuko arestiko aurrizkian hizki-metaketaz aipatu berri ditugunak.

[419]Hala eta guztiz ere:
"Un adjectiu com *desigualtat* ens planteja només un problema nou, el de determinar l'anterioritat del prefix o la del sufix, ja que al costat de *desigualtat* són possibles *desigual* i *igualtat*". (Cabré-Rigau 1987$_2$:132). Ez dute interbiderik ematen.

[420]Azkue (1923-25), Lafitte (1962$_2$:n°91), Villasante (1974:51).

Beste aurrizkiek bezala, ez dakar inolako kategori aldakuntzarik.

2. Oinarriaren kategoria eta adiera

$$[+I] \quad + \quad \begin{bmatrix} +aurrizkia \\ +ukapena \end{bmatrix} \quad \text{--}\rangle \quad \begin{bmatrix} +I \\ +ukapena \end{bmatrix}$$

ez pertsona

$$[+Izond] \quad + \quad \begin{bmatrix} +aurrizkia \\ +ukapena \end{bmatrix} \quad \text{--}\rangle \quad \begin{bmatrix} +Izond \\ +ukapena \end{bmatrix}$$

ezberdin, ez bezalako, ez idatzi, ez mugatu, ez silabagile

ez- aurrizkiaren erabileran honakoa suma daiteke:

oinarria metalinguistikoki (*autonyme* moduan, zehazkiago esan) erabiltzetik txit gertu, are aipu edo izendapen huts izanik, tasun-matrizetan biltzen direnak ezaugarritzeko erabili ohi den "-" (minus)-en parekotzat jo daiteke zenbait kasutan (ez mugatu, ez pertsona, ez silabagile). Alde honetatik, formulen irakurmodua litzateke, izenak aditzera ematen duen "x" horren ukazio borobila.

Izenondoen sailekoei erreparatuta, bada 'ukapena' balio bera duen forma kidea duenik. Urrutirago gabe, ez mugatuk, *gabez* osaturiko hitz elkartua du parean (edo paretsuan): *mugagabe*.

Bestetik, berriz, 'ukapena' denean, *des-* aurrizkiak osatuak lehiakide bilaka daitezke (ezberdin[421] = *desberdin*[422]; ezberdintasun = *desberdintasun*[423]), nahiz, ikusi eta ikusiko den bezala, *des-* aurrizkiaren balioa, 'ukazioa' ez baina 'kontrakoa' izan ohi den[424].

---

[421](1968d:137 bitan), (1978a:40), (1983e:129), (1984b:38), (1986c:173,174).

[422](1958h:103), (1968d:152), (1972b2:46), (1972b3:56,62 (M)), (1972b4:68,75,102) (M), (1972b5:109), (1979g:173), (1984b:44).

[423]Bikote honen zehaztapenak -*tasun* atzizkiaz artu garenean eman ditugu.

[424]Erdal aurrizkien ordainak ikustean berraipatuko da.

3. Hizki-metaketa

. [+izena]/[+izenondoa] --> [+izena]/[+izenondoa] --> [+izena]/[+izenondoa]

ez alfabegile

. [+izenondoa] --> [+izenondoa] --> [+izena][425]

ezberdintasun

[425] Ala [+izenondoa] --> [+izena] --> [+izena]? Bat gauza *desberdintasuni* dagokionez.

13.3. ERATORPENAREN INGURUKOAK

Atal berezi honetan bildu gogo ditugu, eratorpenean bete-betean, beharbada, kabitzen ez diren baina nolabaiteko harremana duten zenbait hitz-eraketa, oinarriari atzizkitzakoa eranstearen poderioz.

13.3.A. ZENBATZAILEAK

Multzo batean aldatuko dira zenbatzailea oinarri ohi duten atzizkiak, erator-izaerazko auziei muzin eginez[426].

-KOITZ

bikoitz

Azkuek *Derivativos numerales* direlakoen barnean *Adjetivales* sailean kokatzen du, guk berezirik paratuko dugun *-kote*, besteak beste, leman ezarri dugunaren aldagaitzat joz:

> Es exactamente lo que el sufijo latino *plex*: *bikoitz*, duplex, doble o duplo (...) Por variantes, además de *koitx*, tiene *kote*, *konde*, *kun*, *kutz* y su sinónimo en *bronda* de B-g. (Azkue 1923-25:167).

Hemen berezirik aurkezteko arrazoia ondokoetan funtsatzen da:

- *-koitz*-ek izenondoak sortzen dituen bitartean, *-kote*-k izenak sortu ohi ditu. Bihoaz *OEH* eta *HLEH* hiztegien lekukoak erakusgarri:

---

[426] Azkuek (1923-25:162-178) *Derivativos numerales* direlakoei liburu-atal bat eskaintzen die; Villasantek (1974) ez ditu inon aipatzen.

Zenbait morfemaren sailkapaztasunaren oihartzunak erdal bibliografian ere irakur daitezke: Nida (1949), esate baterako.

Cabré-Rigau-k (1987$_2$:94hh), izenondoa oinarri duten atzizkien artean, *aspectius* (hots, oinarriaren tasunak aldarazteko gauza ez direnak, esana doan bezala) direlakotzat jotzen dituzte katalanezko *issim*, *et*, *ot*, *enc*, *ós*, *é*. Naberi den bezala, erator-atzizkitzat jotzen dituzten horien euskal ordainek euskal gramatiken ohiko usaikapenetan, kokaleku bat beino gehiago izaten dute. Bosque-k (1983:134) ere ingeles ikertzaileen arteko adostasun-eza aipatzen du *-er (teller...)* eraketa-atzizkiaren izaerari dagokion auzian.

OEH. **bikoitz** (V,G), ***bikotx*** (V; Dgs-Lar, Zam *Voc*), ***bikutz*** (V-gip, G). Ref.:A (...)♦*1*. Doble, compuesto de dos elementos. (...) v. **bikun**. o *Tr.* Documentado en autores meridionales desde principios del s. XIX. (...) ♦*3*. Pareja. v. **bikote**.

HLEH. **bikoitz**. *izond.* (*1905, 1918; *bikotx* 1886). Ik. **bikun**.

OEH. **bikote**. (G-azp ap. Gte *Erd* 63). ♦*1*. Pareja (...) v. **biko** *(4)*, **bikoiti**, **bikoitz** *(3)*. o Tr. Documentado en autores meridionales del presente siglo.

HLEH. **bikote**. *iz.* (*1905 "bikoitz";1930). (...) Ik. **biko**.

- *EGLU-I-ek*[427] ez du bigarrena aipatzen "Adjetibo biderkatzaileak" sortzeko atzizkien artean.

Hau ikusita ausartu gara *-koitz*, adjektibo biderkatzaileak sortzen dituen (erator?) atzizkia batetik, eta *-kote* zenbatzaileei erantsiz[428] izenak sortzen dituena bestetik bereiztera, forma sorkariaren gramatika-kategoria dela medio.

Honenbestez, badaezpadako irudikapen hau proposatuko genuke:

$$[\text{+zenbatzaile zehaztua}] + \begin{bmatrix} \text{+atzizkia} \\ \text{+Izond} \\ \text{+zenb.zehazt} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} \text{+Izond} \\ \text{+zenb.zehazt.} \end{bmatrix}$$

bikoitz

-KOTE

$$[\text{+zenbatzaile zehaztua}] + \begin{bmatrix} \text{+atzizkia} \\ \text{+I} \\ \text{+zenb.zehazt.} \\ \text{+multzo mugatua} \end{bmatrix} \dashrightarrow \begin{bmatrix} \text{+I} \\ \text{+zenb.zehazt.} \\ \text{+multzomugatua} \end{bmatrix}$$

bikote

---

[427] (1985:214).

[428] *-kote* atzizki handigileekin zerikusirik?

-NA

Distributiboa[429].

bana

. -NA(ko)

Distributiboa abiapuntu hartuz izenlaguna (eta izena) sortua:

. [+zenbatzailea] --> [+distributiboa] --> [+izenlaguna] (--> [+izena])

binako

. -NAKA(ko)

Distributibotik berriz ere abiatuz, atzizki aditzondo-sortzailea metatu eta azkenik izenlagun-bilakatzaile *-ko* erantsia.

. [+zenbatzailea]-> [+distributiboa]-> [+aditzondoa]->[+izenlaguna]

binakako, hirunakako

-GARREN

Ordinala[430].

n-garren

Oinarria, berez, zenbatzaile zehaztua ez izanagatik, matematiketan eta bestetan zeinahi numeroren ordain, kopuru zehaztugabea aditzera emateko erabiltzen denez gero, zenbatzaile zehaztugabe berezitzat jo daiteke.

---

[429]Azkue (1923-25:175), *FHV* (1965$_3$:165), *EGLU-I* (1985:204).

[430]Azkue (1923-25:175), *FHV* (1965$_3$:165), *EGLU-I* (1985:209).
Orol katalanezko *-é* atzizkiaz lehen jasoa.

Aipatuari zenbatzaile zehaztua duten bigarren, hirugarren erants dakizkioke, *bigarren hizkuntza, bigarren pertsona, hirugarren pertsona* eta entzekoetan erabiliak.

13.3.B. ATZIZKI GISAKOAK

-TZAKO

garbitzako

Berez erator-atzizkitzat jotzeko debekuak balituzke ere[431], nolabait nabarmengarri delakoan ekartzen da hona prolatiboa baliaturiko hau.

Azkuek *Afijos derivativos adjetivales* eta hauen barruan *Especificos* sailean kokatzen du[432]:

> § 183. **Tzako** (c). Se compone del sufijo adverbial *tzat* "por, como si fuera", y el consabido declinativo *ko*, verdadero proverbo (...) Añadiendo *ko* a estos [-*tzat* atzizkidunei] y cientos vocablos análogos sale el calificativo de "supuesto, presunto" correspondiente al sufijo *tzako*. (Azkue 1923-25:130).

EGLU-I(Er.)-k[433] *-ko* atzizkiari eskainiriko sailkapenean, berriz, "erator-atzizki"tzat daukan *-ko*-z osaturiko zati-multzo honetakoa litzateke: "*Adberbioa* + *-ko*, $_{n)}$ kasu marka gramatikalak + *-ko*".

-ko honen erator-izaeraren auzian berriz ere sartzeko, hasieran esan bezala, nabarmendu nahi izan da, apika, atzizki bilakatzear egon daitekeen hau.

---

[431] Puntu zehatz honetaz ikus daiteke Morfologia Sortzailearen bidetik Altuna-Azkaratek (1991) azalduak.

[432] Honako ezaugarria dute delako sailekoek:
"... compuestos del sufijo declinativo *ko* y varios adverbiales: *ik, la, lan, laso, laz, legez, tzat* y *z*".

[433] (1987:48hh).

-T(Z)EKO

Eratorpenetik kanpo kokatzen den beste eraketa-modu hau ere, *-garri* izenondo sortzailearen balio jasailearen ordain datekeelakoan paperera nahi da.

Hari honetan zehatz daiteke, 'daitekeena' adieraz gain, 'merezi duena' (baita 'etorkizuna' ere) har dezakeela.

Eratorpenean sartu den *-kizun*$_2$ atzizkidunak izan ohi ditu maiz kideko, predikatu-sintagmen osagarri izateko erraztasuna dela medio. Alabaina, badirudi beste horrek ez bezala atributu-sintagmetan erabiltzeko erraztasun handiagoa duela ("arazo hori aztertzeko dago", "arazo aztertzekoa da hori" = "aztertzeko arazoa da hori"/ "arazo hori azterkizun dago" baina *"arazo azterkizuna da hori = *"azterkizun arazoa da hori"[434]).

Nolanahi dela ere, nahiago dugu erabateko erantzunik gabe utzi.

aztertzeko, ikuraldatzeko, onartzeko, onesteko, pairatzeko, sortzeko

13.3.C. ADITZ ERAZLEAK

Puntu bakarrean bilduko dira ikertzaileek bitan banatu ohi dituzten aditz erazleak, hau da, "erazletasuna" *a/erazi*-ren bitartez moldatuak (erasketa honen ondoriozko aditza elkartutzat edukitzera eraman ohi duena), nahiz aditz batzuek tartekatua duten *-ra-* hizkiaz osatuak (eratorpenean aipatzera bulkatu ohi duena).

Honela, Villasantek *Locuciones o perifrasis verbales compuestas* deitzen ditu[435] *arazi = erazi*[436]-z osatuak eta euskalari berak eratorpeneko artizkitzat dauka *-ra-* erazlea[437].

Azkuek, *Derivativos verbales*[438] izendapenean biltzen ditu hemen berezi diren eratorpenean kokaturiko atzizki aditz-sortzailea (*-tu*, alegia) eta *-ra-* eratorpeneko artizkitzat

---

[434] Ikus atzizki horretan zehaztuak.

[435] (1974:27).

[436] Aditz elkartutzat ez jotzeko arrazoiak, Azkarate (1990b:409), *LEF-3* (1991:14). Aditz erazleez, bestetik, *EGLU-II* (1987:60-64) eta erazleen morfemen historiaz, Mitxelenaren (1985b) berariki.

[437] (1974:54).

[438] "Bajo la denominación de derivativos verbales se comprenden no los derivativos que tienen verbos por temas (...) sino aquellos afijos de cuya aplicación a un tema cualquiera (nominal, adjetival, pronominal, adverbial y aun verbal) procede un verbo (...) Los derivativos verbales son cuatro: el infijo *ra* y los sufijos *i*, *du*, y *tu*, románicos en su origen los dos últimos". (Azkue 1923-25:179hh).

daukana. Aditzak erazle bilakatzeko bideen artean sartzen du "auxiliar de infinitivo (*arazi, erazi, arazo, erazo)*" deituz.

. *-ra-*[439]

erabili, eragin, eraiki, eraitsi, erakarri, erakutsi, erantzun, eratorri, irakurri(?)[440]

. Aditzoina + *arazi/erazi* motakoak.

. *arazi ~ erazi*

adierazi, sorrerazi[441], sortarazi[442], sorterazi[443]

Oso garbi ikusten ez duguna da Azkaratek plazaratzen duen iritzi bat. Honakoa dio, aditz erazleak autu dituelarik:

...ez ditugu jaso [aditz elkartuen artean], *eragin* eta *erazi* aditz bakun ez direlako, eta lehen kapituluan hitz elkartua bi osagai lokabez eratutako egitura bezala definitu dugulako. (1990b:409).

Honen bestaldean, ordea, Mitxelenaren erabilera hauek paperera daitezke[444]:

Gutxi idatzi zuen euskaraz[445], besteri eragin baino gutxiago, baino urre gorriaren pareko dira utzi zizkigun ornaldeak... (1966a:69).

Eta berrizaleek eragin duten irraultza ez da sorterrian, Frantzian, atertzen, mugak ez baititu haren olatuak gelditzen. (1983a:52).

---

[439] Villasantek (1974:54) bakabide ihartutzat dauka eta sorkariei, iturburu iluneko deritzie.

[440] Ik. hitz bakunen kapitulua.

[441] (1983a:53), (1985d:78).

[442] (1958h:106).

[443] (1961a:49), (1981c:155).

[444] Edo beste kantuon zatitxoak:
"Eragiok mutil aurreko danbolinari, gaztainak erre artean...";
"Eragiozu eskutxuari, eskutxu eder galant horreri, txalo pin txalo...".

[445] Jat. *euskeraz*.

Gure galdea da ea izaera berekoak diren *arazi/erazi* eta *eragin*.

Bestetik, lehen esana doan arren, berriz ere berresan nahi da *erazlek* berak egoera bitxi xamarra aurkezten duela, bereskuko ez den hitz bat eratorbiderako oinarri bilakatua baita.

13.4. ONDORIO GISAKOAK

Eratorbidearen baliabideari eskaini diogun kapitulu honetan zenbait puntu laburbiltzea egoki ikusi dugu. Han eta hemen esan ditugun arren, berezikl azpimarkatzea merezi dutela uste dugu bi arrazoi-motatan oin hartuz: Mitxelenaren hizkeraren isuriak agerian uzten dituztelako eta, bestalde, egungo euskaran sumatu uste ditugun zenbait jokamolderi aurkez aurk paratzeko egoklera ematen digutelako.

Hona, puntuz puntu hala etsien kontu-ematea:

* Hots-aldaketen inguruan.

Zenbait aldakuntza sistematikoki gertatu direla atzeman dugu; hala nola, oinarriaren azken hotsa afrikatua denean, iguzkari bilakatzea.

Hemendik aurrera, erabateko eta beti-bateko aldakuntzarik ez, oro har.

. *-tasun* --> *-dasun* behin besterik ez dugu kausitu: *ondasun*. Hots-inguramendu bereko beste hitz eratorrietan, halakorik ez: *(des)berdintasun, ordaintasun, ozentasun...*

. *-tate* nagusi denak, itxura guztiz, antzeko aldakuntza nozitu du *ondade* hitzean. Alabaina, hor daude *bakardade, kantidade, bakartade* edo *egitate* aztergaikoak.

. *-garri, -karri* bilakatua da, *lokarri* hitzean ez ezik, *euskarri*, txistukaria ezkerretan duenean ere. Halaz ere, ingurumari bereko *adierazgarri, bere(i)zgarri* edo *erakusgarri* eratorrietan ez da halakorik gertatu.

. 'Egilea' adierako *-le, -tzaile*... atzizkien banaketa oro har molde finkoan betetzen bada ere (*-tu* partizipio-markaduna, *-(l)i*[446] + *-tzaile*; *-n, -(tz)i, -(rr)i, -(z)i* + *-le*), *-(ts)i* amaia jokamolde bikoitzean ikusi dugu, oinarri berari atxikirik, gainera: *-le* atzizkia hartuz (*erakusle*) eta *-taile* hartuz (*erakustaile*) eta zein bere esanahi-eremua zehaztuaz, gainera.

. *-ari, -lari* atzizkien aukeran ere ez dago molde finkorik ezartzerik. Aztergaikoak dira *gramatikari, logikari, elkarrizketari, kontari* batetik eta *gramatikalari, hizkuntzalari, histori(a)lari, kontalari, mintzalari*, bestetik.

Ez dugu ikusten, esan bezala, arau finkorik ezartzeko modurik, ez gramatika-kategorian ezta bukaerako hotsean sustraituz.

. Antzeko gertakaria da *-kari*$_1$, *-ari* aldaeren aukerari dagokiona. Hor daude *gertari/gertakari* adigarri gardenak.

. Oinarriaren gibeleko -ari begiratuz, berriz ere ezin jokamolde betibatekorik landa dezakegu: *historialarik*, pare-parean ditu *historilari, historigile* eta *ekonomilari*.

Halaz ere, badirudi azken moldamodurako isuria (*-e* galtzearen aldekoa, alegia) dabilela gailen.

. *euskara* --> *euskal, erdara* --> *erdal* aldakuntza ere ez da beti gertatu. Honela, *euskalari, Euskaltzaindi, euskalki, euskaldun, erdalkeria* oinarri itxuraldatua dutenen ondoan,

---

[446] Honela emango dugu, partizipio-ezaugarriaren aurreko konsonanteak mintzagaiarekin ikuskizun handia duelako.

euskaratzaile, euskarakada, erdaratzaile oinarri osoari eusten diotenak jaso ditugu.

. Azkenik hots-aldakuntzen puntuari soilik ez dagokion zerbait esan beharra dugula uste dugu. Erator-atzizkitzat harturiko *-ko*-k, beste atzizkiek ez bezalako jokamoldea du oinarriarekiko uztarbideari begira: beste atzizkiek hartzen ez duten lotura-bokalaren premia du. Honetxek bilakatzen du, hain zuzen ere ezpaiko eratorbidearen eremu honetan.

* Erator-hizkia ohiko oinarriei lotzen zaiela egiaztatu da. Salbuespenak dira *olerki, iruzkin, prozedura* edo *idazti* bezalakoak, egiaztatu ahal izan dugun neurrian ikusi dugunez, Mitxelena baino lehenagoko moldezko lekukoak dituztenak[447].

Alde honetatik, esan daiteke Mitxelenaren erabilera ez dela euskararen ohiko bidetik saihesten baina aldi berean ez diela sarbiderik hertsiki oztopatzen osamodu zalantzazkoko molde hedatuei.

* Ez dugu aztergaian kausitu egun han-hemen irakur daitekeen hitz eratorri itxurako erdal hitz "mozorroturik", *asanblada, anbulategi, nazionar* eta abarren moldekorik, alegia.

Honen seinaletzat har daiteke *-zio* atzizkidun ugariak neurri handian mailegu-etorki garbikoak direla: *abstrazio, interpretazio, proposizio, konparazio*... eta beste horrenbeste *-antza (-antzia, -entzia)* dutenak: *herentzia, korrespondetzia, sustantzia*...

Halere, mailegu-jatorri garbiko oinarri zenbaitek badu euskal erator-atzizkirik: *linealtasun, ofizialtasun, eskolastikotasun, informatzaile, deskribapen, integrakuntza* kasurako, baina, nolanahi dela ere, balizko oinarriak beti badu (edo izan dezake) nortasunik, jatorria jatorri.

Beraz, aurkitu ez duguna da (aditzen egokitzapen soilean: *aplikatu, asimilatu*... eta oinarria atzemateko gauza izan ez garen kasu gutxi batzuetan salbu: *juntura, berreraiketa, ebakuntza*...) erator-hizkia erantziz inolako esanahirik ez duen oinarria.

* *-di* atzizkia behin besterik ez darabil, *Euskaltzaindi* hitz berezian hain zuzen ere, egia bada ere, *-eria* behin ere ez dugula aztergaian aurkitu.

Ez dugu 'multzoa' adierazten duten atzizkien arteko *-tegiz* osatuetan erdal *-terio, -torio* atzizkia ordaintzeko saioaren arrastorik aurkitu. Guztiak dira benetako multzoa adieraztekoak: *hiztegi, izendegi*.

* *-gailu* atzizkiak (egun ia edozein gramatika-kategoriari josia ikus daitekeenak) aditzolna du beti oinarrian eta ez du 'tresna' adiera zehatza: *aztergailu*...

* Azpimarkatzekoa da *-garri* izen-sortzailearen ugaria (hamazazpi hitz eratorri desberdinetan): *adigarri, erakusgarri, frogagarri*... Guztiak dira [-biziduna] tasunaren jabeak.

* Susmoa egin dugu *-kil-kin* atzizki izen-sortzaileen nahasteaz.

* Egia da, ahorik zabaldu ez banu ere, delako *unificación* goitar hori azaldu [sic] daitekeela euskaraz. Aski genuke, adibidez, *batze* edota nik neronek usatu izan dudan *bateratze*. Honek ere badu, ordea, bere koska: norbaitek esan omen du hizkuntza landuetan (barka, *kulto/kultuetan*) *-te, -tze* bezalako gramatika-atzizki arrunt batek hoberik eta berezitik izan ohi duela.

---

[447] *HLEH*: **idazti** (1904); **iruzkin** (1905); **olerkari** (*1916,1918); **olerki** (*1916,1919).

> Tira, ingelesa aski landua eta ikasia da eta *-ing* ez dabil hain urruti gure atzizkitik. (1964b:45).

Azpimarratu nahi dugu Mitxelenak ez diola muzin egiten *-t(z)e* atzizki izen-sortzailearen erabiltzeari. Hona zenbait adigarri:

"Aditzoinari erantsiz 'ekintza/ondorioa' adierako izenen sortzaileak" bataiatu saileko atzizkiei begira, egiazta daiteke atzizkirik erabiliena hauxe dela[448] hirurogeita bat hitz eratorri desberdinetan, *-zio* berrogeita hamahirutan, *-men/-pen*... berrogeita zortzitan, *-(k)eta* hogeita hamaseitan, *-(k)era* hogeita hamabostetan, *-dura*... hogeitan, *-kuntza* hamabitan, *-antza, -antzia*... bederatzitan, *-tza* seitan, *-kunde* lautan, *-ti* bitan, *-ada* bitan.

¡Beraz, badirudi dioena berak mamilanean betetzen duela.

* *-era$_2$/-kera* bikoteari dagokionez, ikusi da Azkuek proposatu bereizkuntza ez dela beti betetzen.

* *-men/-pen* atzizkien adiera-banaketa ere ez da erabatekoa; alegia, aztergaian ikuslaren arabera, ezin esan daiteke ahoa bete, lehenak 'ahalmena' eta bigarrenak 'ondorioa', 'ekintza' adierazten dituenik.

* Ez dugu aditz-izenkietan goitik beherako eta erabateko adieraren esparru-bereizkuntzarik aurkitu ahal izan.

* *-t(z)e* atzizkiari Mitxelenak muzin egiten ez diola esan dugun bezala esan behar ere dugu erreparorik ez duela *-zio* atzizkia erabiltzeko (berrogeita hamahirutan). Arestian adierazi legez, gehientsuenak mailegu-etorki garbiko hitzak dira (bi ez beste guztiak).

* Halaber, Mitxelenaren hizkeran ikusi da zero morfema deitua usatzen dituen baliabideetarikoa dela.

* Era berean gogoan izan behar da Mitxelenak debekurik ez duela *-ko* atzizkia erabiltzeko izenak eratu behar direnean (*izen-ondoko, izen aldameneko*...).

* Hizkeren deizioen inguruan.

Aztergaian agerian utzi da Mitxelenak maizago darabiltzala *-era$_3$* gabeko hizkeren moldeak *-era$_3$*dunak baino.

* Ikusi da *-(t)ar* atzizkiak ez duela adiera bakarra, hizkuntzen izenak, gizabanako edo teoria baten jarraileak adierazteko baitarabiltza.

* *-garri* izenondo-sortzailean ikusi da bitan besterik ez darabilela Mitxelenak 'jasailea' adiera duela, beste guztietan (lau dira), 'merezi duena', '-teko balio duena' edo da adiera.

Aztergaian erakutsi bezala, 'daitekeena' adiera beste baliabideez gatzatzen du bereziki Mitxelenak[449].

---

[448] Ez ditugu testu-agerraldi guztiak kontutan hartuko, hitz eratorri desberdinak baizik.

[449] Oroi lehen aldatzen genuen Mitxelanaren berariazko ordainez (*kontagai*, "konta daitekeena, alegia"), esate baterako.

* Jabegoa adierazten duten *-dun/-ko* atzizki gisakoek ez dute hertsiki betetzen oinarriak izan ohi omen duen [-abstraktua]/[+abstraktua] bereizkuntza.

Halaber, *-ko/-tako* bikotearen artean ez dago erabateko banakuntzaz hitzegiterik.

* Aditz eratorrietan ez dugu *espezialdu, formaldu* eta antzekoek islatzen duten jokamolderik aurkitu.

Sail honetan nabarmentzekoak dira, apika, maileguen egokitzapen soilez esplika daitezkeenek osatzen duten multzoa: *aplikatu, imitatu, konparatu, postulatu...*

* Oro har, aditzondo eta atzizki txikigile eta handigile gutxi aurkitu ditugu, hiztegi berezituan espero izatekoa dena betez.

* Euskal aurrizkidun formarik ere apenas atzeman dugu aztergaian, euskarak honetan duen urriak aurretiaz pentsarazten duen bezala.

* Mitxelenak darabiltzan hitz eratorrien artean, ikusi dugu zenbaitetan berez [+abstraktua] ezaugarria berea ohi duten zenbait hitz eratorrik, [-abstraktua] bilakaera nozitu dutela. Esate baterako, *argitasun, xehetasun* hitz eratorrietan suma daitekeena.

* Tasun-aldakuntza antzekoa gertatu da [+gizakia] eskakizun duten (zuten?) azpikategori matrizetako tasunean, [-gizakia] nahitaez alboratu behar baitzaie aztergaiko bati baino gehiagori.

Gertakizun hau inon baino nabariagoa da oinarriari 'Egilea' adiera eransten dioten atzizkietan, *-gile, -le, -tzaile* (*-taile*) atzizkietan batipat: *silabagile, galdegile, galdatzaile, eragile, mugatzaile, erakusle...* hitz eratorriek, besteak beste, erakutsi duten bezala.

Halaz ere, ez dugu behin ere gertakari hau atzeman *-ari* eta bere aldagaiez eratorririkoen artean. Hauek beti [+gizakia] tasuna dute eratorriaren azpikategorizazioan.

* Azterbide hautesiari (Morfologia Sortzaileari) eragozpenbideak sortaraz diezaizkioketen gertariak ere azpimarratu ditugu: *-kizun*$_2$ eta aditz-esapideak oinarri hartu behar izatea: *dardarkari, hizketa, hizkuntza, ahalmen, aurrerakada...*

Ondorio gisako hauekin bukatzeko, zalantzan utzi ditugun puntuen arteko zenbait (garrantzizkoenak edo) gogorarteari egoki deritzagu:

. Ez dugu zehazki jakin *-aira* atzizki osotzat, *-aire*ren aldaeratzat hala zertzat hartu behar ote den.

. Halaber, *-era*$_3$ bataiatu duguna.

. Eta antzeko gauza *-kun* eskuztaturiko bibliografian sostengurik ez duena.

III. ATALA

14. Kapitulua: ZENBAIT ERDAL AURRIZKIREN ZENBAIT EUSKAL ORDAIN

14.1. ATARIKOA

Badu euskarak[1] hitz-sorbide ugari, baina batta ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan. Ez dugu (*des-* eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz) aurrizkirik, latinezko *ad-*, *ab-*, *co(n)-*, *de-*, *dis-*, *ex-* eta gainerakoen indarra bihur dezakeenik. Erremedio bat baino gehiago izan dezake huts horrek, baina ongi pentsatu behar litzateke[2] gerora gabe nola joka[3]. (1968d:148).

Hutsak betetzeko erremedioez kezkatu denik bada euskalaritzan[4], aurrizkien premia, edo hobeto esan, erdal aurrizkien[5] ordezko egokiak bilatzea (dela atzizki bidez, dela elkarketara joz, nahiz bestela) aspaldi ikusia baitute euskalariek[6].

Ez da hemen gaiazko bibliografiaren inolako miatze edo alderatze kritikorik egingo; aurrizkiaren ordainak hizpidea ematen duenean, euskalarien iritzi-proposamenak aipatuko dira, beste gabe.

Ez da auzi honen azken hondarretaraino iristeko asmorik ere. Lasterrean bada ere, Mitxelenak mamituriko zenbait *erremedio*ren erakuskaria da aurkeztu gogo dena; bestela esan, zenbait erdal aurrizkiren euskal ordaina aldatzeko momentuan Mitxelenak gatzaturiko zenbait baliabiderena.

Kontutan hartu behar da oraingoa ez dihoakiela euskal aurrizkitzat joei –ez bederen,

---

[1] Jat. *euskerak*.

[2] Jat. *litzake*.

[3] Halaber:

"Lo que silencié fue la falta o escasez extrema de lo que técnicamente se conocen por preverbios, los que en latín, por ejemplo, permiten derivar de *capio* 'tomar, coger', *-cipio* en composición, compuestos de sentido tan diverso como *ac-cipio, con-cipio, de-cipio, ex-cipio, in-cipio, per-cipio, prae-cipio, re-cipio, sus-cipio* (...). Hasta se podría decir, exagerando algo, que los preverbios son un elemento constitutivo de nuestra civilización, al serlo de casi todas las lenguas, grandes y pequeñas, que le sirven de vehículo. Y esa civilización solamente es nuestra porque nosotros, al menos en los niveles más altos, hemos sido y somos receptores, no creadores. Así pues, como receptores, estamos condenados a recibir, junto con ideas y productos, las formas lingüísticas a que van unidos (...). Desde hace unos años, y cada vez de forma más patente, se están multiplicando compuestos destinados, más o menos sistemáticamente, a llenar ese vacío. Son hoy corrientes en la lengua escrita y hasta en ciertos niveles de la hablada, formas como *aurreiritzi* 'pre-juicio', *azpimarkatu (-marratu)* 'subrayado', *kontraesan* 'contra-dicción' (*cf. maisu : kontramaisu* «maestro» / «contramaestre», etc., en el léxico tradicional), *metahizkuntza* 'metalenguaje', *telegidatu* 'tele-dirigido', etc., etc.". (1977b:76).

[4] Amuriza (1974), Mujika (1978), Irigoien (1979, 1989), Irazola (1985), Azkarate (1991).

[5] "aurrizki" eta "aurrizkitzako" darabiltzagu etorkiak aurrizki-izaera egiaztatzen ez duenik ere badelako hemen artean. Erdarez hitz-atal hauek (zabal esan) izan dezaketen izaera-maila eta antzekoetan ez gara sartuko, tarteka, argigarri iritzi diogun aipuren bat edo bestez gure saikapena hornituko badugu ere. Egungo ikuspegiaren arabera aurrizkiarena egiten dutela iruditu zaizkigunak sartu ditugu:

"Molt sovint es barregen consideracions descriptives amb qüestions històriques. Així doncs *in* era una preposició en llatí, però es un prefix en català actual (*imperdonable, impertinent, inmoral*, etc.)". (Cabré-Rigau 1987_2:113).

[6] Larramendik hiztegian aldatuak seinale, Azkarateren (1992) lanean egiazta daitekeen legez.

bere soil eta bakarrean , hauek, erdal aurrizkien ordezkoen artekoak, ez horratik bakarrak, izan daitezkeelako.

Hobetsi den sailkapena[7], erdal aurrizkien alfabeto-ordenan sustraitua da, aurrizkitzakoen adierazko ñabardurez zertzeladak emanez[8].

Azterketa etimologikorik ez da egingo eta, labain[9] izanik ere, egun emankor diruditen[10] erdal aurrizkiei erreparatuko zaie, aurrizkiari beste osagai(eta)tik bereizteko[11] moduko izaera iritzi zaionean, alegia:

> Only such particles as are prefixed to full English words of general, learned, scientific or technical character can be termed prefixes. Hyper- in *hypersensitive* is a prefix, but *hyper-* in *hypertrophy* is not, as *-trophy* is not a word. (Marchand 1969_2:132).

Honek dakarrena da etorkiz erdarazko hitza eratorria izanik ere, egun bakuntzat daukatenetakoa bada, bakun bailitzan hartu eta, iragaitzaz aipamen bat edo beste egin

---

[7]Irazolaren eta Amurizaren sailkapenak nahasixe gertatzen bide dira, erdal aurrizkiaren esanahian oinarriuz gero, informazioa barreiatzen bata.

[8]Aurrizki bakoitzari, buruko oin-oharrean Moliner-ek (*DUE* 1987_2) ematen duen informazioa erantsiko zaio, adieren zehaztapenean eta aurrizkitzat zer jo erabakitzeko momentuan **lagungarri** izan daitekeelakoan. Erdal hiztegi hau eta ez besteren bat (Akademia Espainolarena edo Corominas-en hiztegi etimologikoa, esate baterako) aukeratzea, arau-emaile ez izanik, egungo erdal hiztunaren erabilera usutik gertuago egon zitekeala pentsatzean eta hemengo premietarako beharrezko diren etimologi oharrak egon badauden arren hiztegi-sarreren antolamendu-azalpenak baldintzatzen ez zituela ikustean datza batetik. Aldi berean, hiztegigintzaren araberako antolamendu gaurkotuagoak erdal lexikografian ekarri dion izena ere gogoan izan da (Haensch 1982a:155, 1982b:430). Edozein kasutan, iruzkin gisa ekartzen dira oharrok, ez lege bailran.

Ingelesezko edo frantsesezko argibiderik ez da eskuarki emango. Hizkuntza horietako ordainak ikustatzeko, geure hiztegira igortzen dugu.

[9]Labain izatea ondoren ahotan dugun "iruditu"-ri dagokio. Geure iritzi hutsa baino euskarri irmoagoak lortzen saiatu gara bibliografiaren bitartez.

[10]"La prefijación está, (...) a caballo entre la derivación y la composición, sobre todo porque son muchas las unidades derivadas en las que reconocemos un morfema con valor léxico (*pentacampeón, polideportivo, multinacional, pseudointelectual*). Por un lado, la posición anterior al lexema no es criterio suficiente para excluir un morfema del grupo de los derivativos (...) por otro, no diríamos que unidades como *bimotor, desenredar* o *repoblado* son palabras compuestas por el hecho de que contienen prefijos. Si el problema existe, se debe a que muchos prefijos eran originariamente lexemas, incluso lexemas no ligados. Nuestra capacidad para reconocer o no este hecho en un análisis sincrónico puede influir sobre nuestra decisión". (Bosque 1983:139).

[11]Hitz konplexuko beste osagaitik bereiztea, sailkalanaren ondorio litzatekeena (*resultado de una operación de segmentación* (Scalise 1987:88). Halarik ere, ez da mota hau bakan daitezkeenetatik (*extraíbles* Scalise 1987:90) erabat berazi; honek esan nahi du ez zaiola Siegel-en (1974) irizpideari jarraitu (ez zaiola, bestela esan, hizkien arteko zedarri-motaren araberako sailkapenari lotu) eta *mono y bisilábicas, extraíbles* direlakoen motaren adibidetzat ematen duenaren parekoak ere hemen daudela bilduak.

ezean, eskuarki bederen, multzo honetan ez dugula kokatuko[12].

Bi motatako berriak alboratuko zaizkio azterkizunari.

Batetik, euskal bideetan dabilen hitzak inolako euskal egokitzerik izan ote duen begiratuko da eta honen arabera, lau mota nagusiren gainean egingo da aurrizkiz aurrizkiko barne-sailkapena:

A izendatuko den sailak, erdal molde aurrizkiduna bere horretan, inolako egokitzapenik gabe erabili dela adieraziko du. Adibidez: *analfabeto* edo *innatismo*.

B deituko zaio gordetzen den erdal aurrizkiaren nolabaiteko egokitzapenari (hots-grafiaren aldetikakoa zehazki): *arkifonema*...

C izendatuak, berriz, erdal aurrizkiaren nolabaiteko aztersaio eta egokitze- edo ordezkatze-asmoaren izpiak aurki daitezkeela adieraziko du. *Ordezkapena, ordezkatua* deiturak erabiliko ditugu honetarako. Esate baterako: *azentu gabeko, ulertezin*.

D sailean berriz, izter-ahaideak dei genitzakeenak kokatuko ditugu. Hau eta arestiko sailekoen arteko desberdintasuna, azken honetan hitz osoa (eratua nahiz eragabea) erdal aurrizkidunen baten bitartez irauli ahal izatean datza, ikusi ahal gabe, ordea, aurrizki-itzultze saio berariazkorik.

Bestela esanda, ez dagoela euskal hitza hizkietan partitu eta horietako bat erdal aurrizkiaren baliokidetzat jotzerik: *oreka, trukatu*...

Sail berean izango dute kokalekua hitz bakarrek nahiz hortik gorako egiturek (*elkarren itxuraldatze, paperera aldatu*...).

C motakoetan bereziki[13], gramatika-kategoriari bi aldetarik erreparatuko zaio: era egokitu osoarenari, sorkariarenari, batetik eta –eratzerik edo beste baliabiderik tartean izan bada– oinarriarenari; hau da, erdal aurrizkiaren egokitzea, ordain-bilatzea gorpuzten duen baino lehenagoko perpaus-zatiari.

Garrantzizko deritzagu bi era hauetako informazioa emateari.

Lehenaren kasuan, ondokoa agerian uzteko modu egokia izan daitekeelakoan gaudelako: betibateko mailegutzaz beste aukerarik egon daiteke, areago, ez dago beti zer pentsatu erdal egituraren molde berean adigaia euskaraz eman behar denean.

Eta ordezkatzea mamitu gogo denean hagitz funtsezko den gramatika-kategoriekiko atxikimendua nola bete daitekeen ikusteko modua ere azalera eraman behar dela irizten diogulako. Askotxotan, horretantxe topatzen baititu debekuak euskarak[14].

Hauezaz gain, esanahiaren eta bestelakoen gaineko iruzkinak ere erantsiko dira, tesigilearen begietan aipagarririk dagoenean.

---

[12]Hala nola, *analisi(s)* ez da eratorritzat hartuko, etorkiak besterik erakusten badu ere:

"**análisis.** (Del gr. <análysis>, de <analÝo>, desatar, procedente de <lÝo>, soltar, de donde, también, <catálisis, diálisis>".

Jokabide orotariko hau hautetsiagatik, aurrizkien ordainen baliabideren bat aurkezteko egokiera eskainiko balu, haatik, ez da hain zorrozki beteko.

[13]A sailekoetan ez da halako auzirik sortzen, mailegua, kategoria eta guzti hartu ohi baita.

[14]Kasu batzuetan, bestetan baino areago. Esate baterako, *gabe*, izenondoak eratzeko baliagarri zaigun bitartean, ez dirudi izenak egokitu nahi ditugunean hain aproposa denik.

14.2. SAILKAPENA

A-[15]

A. Erdal aurrizkia gordez

analfabeto, analfabetismo

Jasorikoek erdaraz nahikoa ihartuak daudela diruditela eta, osorik hartuak.

akulturatze[16]

Hitz honek, berriz, aurrizkiari dagokionez arestikoak bezalakoa izanagatik (**A** sailekoa, alegia), egokitzapen-maila bestelakoa erakusten du, euskal eratorpeneko atzizki izen-sortzailea egokitu baitzaio[17].

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. ***des-***

desegoki ('agramatical'[18], 'Incorrecto')

Oinarriaren esanahiaren kontrakoa adierazten du eratorriak.

---

[15] **a-**. Prefijo. [1] Indica negación o falta de aquello que expresa la palabra a la cual se une. Para unirse a palabras que empiezan por vocal, se transforma en <an->".

[16] Baina *deskulturizatu*.

[17] Hau dela eta, hitz eratorrien artean ikusi da.

[18] agramatical' diogu, egun hizkuntzalaritzan erabili ohi den terminologiari jarraiki. Termino honen zuzentasuna kolokan jarri duenik badago, hastik:

[ez *gramatikal* du ahotan] "Europako kulturaren bidetik komtzen duten hitzen arauera *agramatikala* erabili izan balitz ez zen gauza bera izanen, ikus grekoz αΥραμματία, letren ez ezagutzea'. Baina nola N. Chomsky bide horretarik ibili izan ez den ez da gure artera halakorik iragan, eta posibilitate hori lege zaharreko izanarren existitzen ez baitz bezala jokatzen da". (Irigoien 1989:244).

Egia dena da Mitxelenak behin ere ez darabilela *agramatikalik* aztertu dugun espamuan.

. **ez-**

ez silabagile ('asilábico', 'no silábico')

Honetan, berriz, halakoaren ukaziotzat har daiteke molde osoaren adiera.

Egitura: euskal aurrizkia (**des-, ez-**) + Izond --> Izond.

. ***gabe(ko)***

azentu gabeko ('átono', 'inacentuado'[19]), moldegabe ('amorfo', 'informe')

Bietan adjektiboa (izenlaguna eta izenóndoa, hurrenez hurren) da sorkaria.

Egitura: I + **gabe(ko)**

Adieraren aldetik, izenak adierazten duenaren falta, eza da eraikuntza osoaren mamia.

Ikus daitekeen bezala, euskal formak izan ditzake hurbileko erdal aurrizki bat baino gehiagoz osaturiko ordainak.

Errepara dakioke euskal aurrizkia duen *desegoki*ri, euskal aurrizkiak ez baitu kasu honetan erdal *des-* aurrizkia ordain zuzena, erdal *a-* edo *i(n)-* baino.

D. Izter-ahaideak

teorizeken

Egitura: I + Izond

"Bahuvrîhi" hitz elkartu honen eskuineko osagaiaren esanahia dela medio lortu dela kasu honetan ukazio-ñabardura[20] pentsa daiteke.

Zalantzaz bada ere, egokiago ikusi dugu D motan sartzea C motan sartu ordez, *zeken* nekez izan baitaiteke emankor erdal *a-* aurrizkia beste gabe ordezkatzeko.

---

[19]Gaztelaniazko ordainak ematen dira, euskal hitzak, gaztelaniaz aldaki aurrizkidun bat baino gehiago izan dezakeen seinale.

[20]Ikus hitz elkartuei buruzko atala.

Euskal moldeetara ordezkatu eta uztarturiko kasu guztiak, ikusi bezala, adjektiboak dira.

gabe(ko) izenari alboratuz erdiesten da kategoria berria; halaber, *zeken* izenondoaren bitartez "bahuvrîhia" eratuz.

des- eta *ez-* aurrizkien kasuan, berriz, eratorri aurreko perpaus-zatia da izenondoa eta, ohi legez, erator-hizkiak ez dio kategoria aldarazten.

ALO-[21]

Egungo ohiko hizkeran oso emankor ez izanagatik terminologian duen lekukotasuna dela medio dakargu hona.

D. Izter-ahaideak

elkarren ituraldatze ('alomorfo', 'variante')

Ikus daitekeen bezala, kasu honetan ez dago gramatika-kategoria bakunean pentsatzerik, egitura osoa[22] hartu behar baita erdal izena eta adigaia atzemateko.

Ez da erdal aurrizkidun formarik kausitu.

ANTE-[23]

Beherago ikusiko den PRE- aurrizkiaren kide edo kidetzakoa. Han ikusiko dira beraz, moldabideak.

---

[21] **alo- (al-).** Forma del prefijo griego <allos>, otro".

[22] Ik. sintaxi-baliabideak.

[23] **ante-.** Forma prefijada de la preposición <ante>, que se emplea para significar precedencia en el tiempo o en el espacio".

ANTI-[24]

A. Bere horretan hartua:

antinomia, antinomiko

Zalantzazko gerta daitekeena da hitzoi izaera konplexua egun noraino antzematen zaien.

Izenak

D. Bestetik leudeke adieraz gertu ikusten diren:

binako[25], bitasun[26]

Kasu honetan, beharbada, ez legoke ahoa bete esaterik ANTI- aurrizkiaren ordain zuzenak direla, 'dualidad' edo antzeko adigaia gertuago litzatekeela baitirudi, baina delako *antinomia*[27] bi elementuk osatzen dutenez gero, hitz osoaren esanahia, ez aurrizkiarena justu, zenbatzaile zehaztuaren gainean eratuz gatzatu da.

Adjektiboak

D. Izter-ahaideak

. ***etsai***

garaunen etsai?[28]

---

[24] "**anti-**. Prefijo que expresa oposición o contrariedad".

[25] [Saussure-k] "Oinarri tinkoa nahi du bideari ekiteko, eta bere pentsatzeko modua antinomikoa denez gero binakoen bitartez hasten da". (1972b3:52).
Azergaian bada beste *binako*rik ('parea'; 'binario'). Hura izenlaguna da, ordea. Beherago ikusiko da.

[26] Hauen egiturak eratorbidean ikusi dira.
"Nahiz eta Saussurek hitz hauexekin adierazi ez, badugu hemen bere jarraitzaileek honela izendatu zuten beste bitasun bat: SINTAGMATIKOA eta PARADIGMATIKOA". (1972b3:53).

[27] "**antinomia.** (Del lat. «antinomia», gr. «antinomía», der. de «nomos», ley.) Contradicción entre dos cosas tales como dos leyes o dos principios".

[28] Portaeraz baizik (*behavior* delakoaz) kezkatzen ez denak ez du gogorik behar deusetarako. Gogoa ez balta inondik arima, baizik eta ingelesez *mind* deritzana, eta *Language and mind* liburu baten azalean ipini zuena mentalista da, nolapait ere. Ameriketan, ez zuten aurrekoek Bloomfieldez gero hitz hori gogoko ezta nabari denez

Dudazkotzat daukagu baina itzulinguru honen bitartez 'antimentalista' ez ote den aditzera eman nahi dena susma daiteke.

ARCHI-[29]

Izenak

B. Egokituz

arkifonema

Egitura: aurrizkia (*arki-*) + I

Forma bakarra.

Hots-grafien aldetikako egokitzapena.

Errepara dakioke grekozko etorkiari eutsi nahiari, latin-gaztelanien bitartekotzarik gabe.

AUTO-[30]

A. Bere horretan gordeak:

automata, automatiko, autonomia

Bungek ere, garaunen etsai ager daitekeelakoan edo'. (1985a:117).

[29]-**archi-**. Del bajo latín <archi->, derivado del griego <arkhoi>, yo mando. (...). En palabras científicas o cultas equivale a <primero> o <primitivo>".

Etorkiz ez dirudi, beda, aurrizkia zenik baina egungo erabilerak aurrizki bailitzan hartzea zilegiztatzen bide du.

[30]-**auto-**. Raíz del griego <autós>, mismo, que significa <a sí mismo> o <por sí mismo>". Hau ere ez bide da aurrizkia etorkiz.

Izenak

C. Ordezkatuz

. buru

burujabetasun, burujabetza ('autonomía', 'independencia')

Egitura: $_{\text{izond}}$[buru + l]$_{\text{izond}}$ + *-tasun*

$_{\text{izond}}$[buru + l]$_{\text{izond}}$ + *-tza*

. ber(e)[31]

berjabetasun (arestikoek bezalako itzulpena)

Egitura: $_{\text{izond}}$[bere + l]$_{\text{izond}}$ + *-tasun*

Ordezkatu bietan, *buru* (izena) eta *ber(e)* (izenordaina) hitzaren lehenburuan paratuz egin da. Badirudi, beraz, erdal AUTO- aurrizkiaren ordezkotzat erabiltzeko joera nabari dela.

Zeinahi gisaz, komeni da azpimarratzea erdal eta euskal hitz eratuak elkarren parean jarriz eta aurrizkia (eta honen euskal ordaintzakoa) soilduz gelditzen den arrastoa ezin pareka daitezkeela. Hau da, *jabetasun, jabetza* euskaraz zerbait badiren bitartean, **nomia* edo antzekorik ez dagoela aurkitzerik erdaraz[32].

CON-[33]

A. Bere horretan hartuz[34]

---

[31] *neure, bere... buruaz* osa daitezkeen egiturak ere gogoan hartzekoak dira.

Multzo honetako hitz guztiezko gorabeherak hitz eratorretan ikusi dira eta hitz elkartuen atalean berriz ikusiko.

[32] Latinez, jadanik *autonomia* eratua baitzen grekozko bi osagaietako hitza.

[33] "con-. Prefijo que expresa participación o cooperación".

[34] Erdal aurrizki soilari begira.

komunztadura, konberjentzia, konbinatoria, konbinazio, kondizio, konjugazio, konjunzio, konkordantzia, konkreto, konkretu, konparaketa, konparatismo, konparatista, konparatu, konparatzaile, konparazio, konpetentzia, konplemento, konponente, konposatu, konposizio, konprenitu, kontserbadore, kontserbazale, kontsonante, kontzientzia, konzepto, konzeptu, korrespondentzia, kostituzio

Aurrizkidun hitzak bere horretan hartu dira kasurik gehientsuenetan. Askok, seguruenik, erdal aurrizkiaren aztarna galdu xamarra ere badute.

Zenbait kasutan euskal hitz-sorbidean sartu dira, grafi egokitzapenetik hasi eta eratorbidearen oinarri izateraino.

Irenste-mailarik gorena adieraziko luke erdal usaina (ia) erabat galdua lukeen komunztadurak[35].

***Izenak*

B. Egokituz

gonparatista

Aurrizkiaren hots-grafien aldetikako egokitzapena.

C. Ordezkatuz

. *(k)ide*[36]

partaide ('copartícipe')

Egitura: I + **-ide**

hoskide(tasun) ('consonancia fónica')

Egitura: $_{Izond}$[I + **kide**]$_{Izond}$ + *-tasun*[37]

---

[35]Hitz eratorrien atalean jaso bezala, Etxeberri Sarakoaren sorkaria.

[36]Azkaratek (1992:212), Larramendik ohartuki eginiko hautaeraren berri ematen du:

"... erdal con- itzultzeko bi bide erabili zituen: *-kide* eta *-kidatu*, izenak sortzeko lehena, aditzak itzultzeko bigarrena; aditz-izenak, berriz, *-kida* atzizkiaz ematen ditu (hots, aditzetik izena zero atzizkiaz sortzen duela esango genuke)".

[37][I] + [I] ere ez zaigu ezinezkoa egiten, esana doan bezala.

ofizialkide(tasun) ('cooficialidad')[38]

Egitura: $_{Izond}$[Izond + **kide**]$_{Izond}$ + *-tasun*

Bitxi deritzagu azken molda-modu honi. Izan ere, izenei lotu gabeko *(k)ide*dun bakarra da, izenondoaren eskuinean doan hau.

Galdetzekoa litzateke "Izond + *(k)ide*" egitura noraino uztartzen zaion euskararen ohiko bideari.

Gure ustez, *cooficial(idad)* erdal terminoak bere errainua utzi du honetan[39].

Adjektiboak

B. Egokituz

gonparatu

Lehengo *gonparatista* bezalaxe.

Aditzak

D. Izter-ahaideak

eratu, itxuratu, moldatu, taxutu

Aldatuok euskal aditz (kasu honetan eratorri) izanik, erdal ordain aurrizkiduna izan dezakete: 'conformar'. Honek agerian jartzen du, euskarak erdal aurrizkien ordaina beti erdararen gisako bideetatik moldatu behar ez izatea.

---

[38]Lan hauetan irakur daiteke: (1978a:26,45), (1978c:163).

Testuko azken biok, Azkaratek (1992:212) zehazten duen *kide*ren ezkerretako osagaiak [+gizakia] tasunaren jabea izan beharra kolokan jarriko lukete, antza.

[39]Eta honako beste egiturak ere, ez du gure hamidura emetzen: [Izond] + *kidetasun*.

CUASI-[40]

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. -tsu

zentzu berdintsuko

Egitura: $_{IM}[I + [Izond + \text{-}\mathbf{tsu}]]_{IM}$ + *-ko*

. modu(ko)

zientzi-moduko

Egitura: $_{Posp}[I + modu]_{Posp}$ + -ko

-tsu atzizkia eta *modu(ko)*ren bitartezko posposizioak baliatu dira 'gutxi gora beherako' adierari hizkuntz gorputza emateko.

Erator-atzizki bera ere (*-tsu*, alegia) usatu du CUASI- aurrizkiaz erdarara itzuliko ez litzatekeen beste egitura bateko hitzean: itxuren berdintsutasun, 'homomorfismo'-ren ordain. Hasiera batean harrigarri xamar gerta daitekeena, baina bere arrazoia baduena, ikusiko den bezala.

DES-[41]

Euskal aurrizkien artean kokatuak ez du agortzen erdal DES- aurrizkiaren ordaintasunazkoa, ez baitago bana-banako egokitasunik bi aurrizkien (euskal *des-* eta itxura

---

[40] **cuasi** (ant. y popular en algunos sitios). *Casi*. ⊙ Se emplea en forma prefija para significar que el nombre es aplicado a la cosa de que se trata por aproximación: 'cuasicontrato, cuasidelito'".

[41] "**des-**. Prefijo. Su sentido fundamental es de inversión del significado de la palabra primitiva (...) Expresa también carencia o negación (...) También eliminación o privación (...) A veces, por semejanza con estas palabras, en que tiene sentido negativo forma otras con sentido negativo de otra especie 'despesar' (...) Sirve con el mismo significado que <in> para formar los adjetivos contrarios de algunos que no lo tienen autónomo (...) También hay casos en que <des-> equivale a <mal>".

bereko erdal aurrizkien, alegia) artean.

Izenak

C. Ordezkatuz

. des-

desegokitasun ('agramaticalidad', 'inadecuación'), destokitze[42]

D. Izter-ahaldeak

erdalduntze ('desvasquización')

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. des-

desegoki ('agramatical', 'inadecuado')

Aditzak

C. Ordezkatuz

. des-

desagertu, deskulturizatu[43]

Egitura: Euskal aurrizkia (des-) + Ad

---

[42] Aurrizkien egungo euskal moldamoduak hizpide, ezin muzin egin diogu komunikabide batean irakurririko "perla-sorta" hau paperera aldatzeari:

"DESARAITOKETA, DESINFEKTAKETA, DESINMOMORROKETA. Tratamendu Egiaztatuak. SADM. Ezarrerak eta zerbitzu. Gaitzaketak Araketa Ofiziala". (*DV* 1992-VIII-13).

Har bedi hasieratik bukaera arteko [SIC] handien artean.

[43] Oroi *akulturatze* lehen aldatuaz.

Aditzaren kontrako ekintza adieraziko lukete aditz eratorriok.

. X gabetu, X gaiztotu, X txartu

Itxuragabetu, itxuragaiztotu, itxuratxartu ('deformar' 'malformar')

Egitura: I + **gabetu/gaiztotu/txartu**

Hauek, berriz, izenak adierazten duenaren 'eza' lehen kasuan eta horixe bera 'txartzea', 'okertzea' beste biek.

D. Izter-ahaideak

letreiatu ('**de**letrear'), aienatu ('**des**aparecer'), erdaldundu ('**des**vasquizar')

DIA- [44]

A. Bere horretan hartua

diakronia, diakroniko, diakronista, dialekto, dialektologia, dialektu, diasistema

Erants daiteke diakroniaren eta hemendik eratorrien ondoan *historia* (eta eratorriak) badarabiltzala.

DIS- [45]

A. Bere horretan

diferente, diferentzia, diferentzial

---

[44] "**dia-**. Prefijo griego que significa separación, interposición o posición atravesada".

[45] "**dis-**. [1] Prefijo que transforma la idea de la palabra a que se une en la opuesta (...) [2] Otras veces introduce la idea de separación".

Izenak

C. Ordezkatuz

. des-

desberdintasun

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. des-

desberdin

. ez-[46]

ezberdin, ez bezalako

Aurrizkien itxuran alderik badagoen arren, adieraren mailan bereizkuntzarik sumatzen ez dugu desberdin eta ezberdinen artean. Biek, eta DES- aurrizkipean bilduriko beste guztiek, izenondoaren adieraren kontrakoa adierazten dutela esango genuke.

Alde honetatik, beraz, badirudi, nahasian dabiltzala kasu honetan, *des-* euskal aurrizkiari legokiokeen 'kontrakoa' adiera eta, 'ukazioa' adierazteko erabili ohi den *ez-* aurrizkia.

Aditzak

C. Ordezkatuz

. des-

desberdindu

DES- eta DIS- erdal aurrizkiek osatzen duten sail ugariari begiratuz honakoak, ikus

---

[46] "Desde que hay textos vascos, el preverbio *des-*, sustituido alguna vez (o disimulado en) *ez-*, es de uso general: *des-egin* 'des-hacer', etc. Fue aceptado sin reparos por Larramendi, sus contemporáneos y sucesores, que ampliaron mucho su campo de empleo: *des-agertu* 'des-aparecer', *des-lotu* 'des-atar', etc. Pero las aguas cambiaron de curso hacia 1900 y todo esto, incluso en lo que tenía de más tradicional, fue condenado sin apelación. Otros preverbios como *mez-* (correspondiente en la forma y sentido al francés *mé-*), cuyo uso fue siempre dialectal, no mejoraron de estado". (1977b:76).

daitezke:

Aditzak eratzeko usatuak *des-* eta 'falta', 'gabezia', 'gaiztotzea', 'txartzea' adierazten duten aditzez eraturiko aditz elkartuak dira. Ez dugu *ez-* aurrizkiaz eraturiko aditzen arrastorik aurkitu.

Muzin egitekoa ez da, bestalde, **D** sailaren ugaria.

Adjektiboei dagokienez, *des-* eta *ez-* aurrizkiak dira nagusi.

Izenetan, bi molde kausitu dira: *des-* janztearen ondoriozkoa eta aurrizki horren bitartez erdarara itzul daitekeen izterreko ahaideek osatua.

EQUI-[47]

A. Bere horretan

ekilibrio[48]

Izenak

C. Ordezkatuz

. ***(k)ide***

kide, kideko, baliokide(tasun)

Azkenon egiturak:

kide + *-ko* (--> Izlag --> I)

$_{Izond}[I+$ **kide**$]_{Izond}$ + *-tasun*

D. Izter-ahaideak

ordain ('equivalente'), ordain(tasun) ('equivalencia'), oreka ('equilibrio'), pare ('par', 'equivalente')

---

[47] **equi-**. Raiz del latín «aequus», igual". Berriz ere erdal hizki honen aurrizki-izatea zalantzazkoa da.

[48] Grafi egokitzea aipa daiteke, zorrotz jokatuz.

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. (k)lde

baliokide, elkarren kide(ko)[49]

Lehen *kide* hona aldatu da, erdal CON- aurrizkiaren egokitzapenerako lanabesa zen aldetik, hau, beste erabilera bat da: guztiak 'equivalente' ('equivalencia') adieraz.

Berriz ere ikus daiteke D moduaren emankortasuna.

EXTRA-[50]

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. -z kanpo(ko)

hizkuntzaz kanpo(ko)

Egitura: $_{Posp}[I + \text{-z kanpo}]_{Posp} + \text{-}ko$

Ez da erdal aurrizkidunik kausitu.

Prozedura berbera ere darabil ukaziozko ñabarduraz:

erregelaz kanpo(ko) ('irregular')

---

[49] Lehenaren egitura zehaztu da. Bigarrenarena, sintaxi-baliabideez artzean ikusiko da.

[50] **extra-**. (De la prep. lat. <extra>, fuera de, deriv. de <exter>, extranjero, y éste de la prep. <ex>, fuera de (...)). Prefijo que significa <fuera de>".

HOMO-[51]

A. Bere horretan hartua

homomorfismo

Izenak

D. Izter-ahaldeak

antz, egite, itxuraren berdintsutasun

Maizago darabiltza azalpen-parafrasi moduko hauek arestiko aurrizkidun hitza baino.

Lehen azaltzeke utziriko *-tsu* atzizkiaren erabilera argitzen da *homomorfismo* delakoaren ulermodua dela medio.

ISO- aurrizkiko oin-oharrean jasoak erakutsiko duen legez, Mitxelenarentzat, hizkuntzez ari garelarik, ez dago erabateko berdintasunaz hitzegiterik (ez dago isomorfismoaz hitzegiterik) homomorfismoaz baizik, hortik 'ia', 'gutxi gora behera' ñabardura azpimarratu nahi izana kutsu hori ezartzen dion atzizkiaren bitartez.

Arrazoi berberak zuritzen du hona aldaturiko ordainen izaera, baina beti ere gogoan izanik, esparru murritz bateko hitz jakin horren ordaintzat emanak direla, eta ez zeinahi HOMO- gisa horretan bihur daitekeela.

Bestelako ordaina litzateke, apika, berdin, 'homogéneo' iraulordain hartuz gero.

IN-[52]

A. Bere horretan hartuak

innatismo, intransitibo, irreal

---

[51] "homo-. Prefijo griego que significa <igual>".

[52] "In-. Prefijo. Significa falta o negación de la cosa expresada por la palabra primitiva (...) Se usa como <en-> para incorporar la idea de encierro, inclusión o introducción (...) Y también, aunque más raramente, como prefijo formativo de verbos o derivados verbales".

Izenak

C. Ordezkatuz

. des-

desegokitasun

D. Izter-ahaideak

artizki ('infijo')

Ukazioa edó gabea ez baina Moliner-ek (*DUE*) jasotzen duen beste adiera da hemengoa, 'txertatzea', 'sartzea'rena, alegia.

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. des-

desegoki

Eta hemendik eratorririko desegokitasun.

DES- erdal aurrizkiari eskainian esan bezala, euskal *des-* aurrizkiak erdal aurrizki bat baino gehiago izan dezake parean.

. gabe(ko)

argitaragabe ('inédito', 'impublicado', 'no publicado'), azentu gabe(ko) ('inacentuado', 'átono'), azken gabe ('infinito'), baztergabe ('ilimitado'), bizigabe ('inanimado'), garraisia gabeko ('inexpresivo'), kolore gabeko ('incoloro'), landugabe ('inculto'), moldegabe ('informe', 'amorfo'), muga gabe(ko) ('ilimitado', 'indeterminado'), neurrigabe ('ilimitado', 'inconmensurable')

Egitura: I/partizipioa + gabe(ko).

Esan daiteke, erdal "*in-* + adjektiboa" egituraren baliokide gisakoa dela.

Adieran izenak/aditzoinak adierazten duenaren falta da nagusiki landatzen dena. Ajabaina, argitaragaberen kasuan, 'ukazioa' ere ez ote den tarteko susmoa egin daiteke.

. *ezin*

ezin adierazizko, ezin entzunezko, ezin esanezko, ezin mugatuzko, ezin konta ahal(a)(eko)

Egitura: **ezin** + partizipioa + *-(z)ko*

ezin konta daitekeen

Egitura: erlatibozko perpausa

ezinbesteko

Egitura: adberbio-esapidea + *-ko*

Puntu honetan bilduak, erdal "*in-* + $_{Izond}$[aditzoina+ *-ble*]$_{Izond}$" egituraren ordainik gertukoenak direla suma daiteke.

. *gaitz, ezin*

iragangaitz, ulergaitz, ulertezin

Egitura: aditzoina + **gaitz/ezin**

Adierari dagokionez, nagusiki 'ukazioa' dela esango genuke.

. *-z kanpoko, -z kontrako*

erregelaz kanpoko[53], legez kontrako

Bion adieren artean alderik gabe, biek, izenak adierazten duenaz saihesten dena

---

[53] *-z kanpoko* erdal EXTRA- aurrizkiaren ordain moduan ere ikusi da.

adierazten dute[54], honenbestez, 'kontrakoa' dela alboratuko genioke.

D. Izter-ahaideak

norabezeko, nahita(nahi)ezko

Egitura: adberbio-esapidea + *-ko*

esaldi-hitza + *-ko*

baztertik ez duen, mugatutik ez den

Egitura: Erlatibozko ezezko perpausak

Ikusi da, beraz, ez dagoela 'ukazioa' edo 'eskazia' adierako izenik euskal moldeetara egokiturik (desegokitasun ezik), ia guztiak adjektiboak (edo adjektibo-baliokoak) dira.

INTER- (entre-), INTRA-, INTRO[55]

INTRO-

A. Bere horretan

introspekzio

---

[54] "Lehen silaban datzanean, hitza laburtu izan delako gertatzen da, batez ere: *átia (<aarea)*, egaztia, eta *atía* 'borta'. Badira gainera beste zenbait, erdaratikakoak eta, legez kontrakoak. Horien artean, hemen ere *málko*". (1958h:104).

Ez bide du aditzera eman nahi hitzak azentua gaizki ipinia duela, erregela erabiltekoan kabi ezin daitekeela baizik.

[55] "Inter-. Forma prefija de la preposición latina <ínter>, entre. Ya en latín toma otras formas, <intest-, intim-, intr-, intra-, intro->, como prefijo, como raíz o como adverbio, con el significado de <dentro> o <interior>; todas ellas existen también como prefijos y, en algún caso, como raíz, en español, con el mismo significado; y, además, existe <entre>, también derivado de <ínter>, como preposición y como prefijo".

"Intro. Adverbio latino, derivado de <ínter>, que se usa como prefijo con el significado de <hacia dentro>: 'introducir'".

INTRA-

Izenak

C. Ordezkatuz

. ***barne, barru***

hitz-barne, hizkuntza barne, hitz-barru, hizkuntza barru

Egitura: I + barne/barru

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. ***barne(ko), barren(go), barru(ko)***

barneko/barrengo/barruko, hizkuntza barneko, hitz-barrengo

Egitura: barne/barren/barru + *-ko*

I + barne/barren + *-ko*

INTER- (entre-)

Izenak

C. Ordezkatuz

. ***arte(ko), bitarte(ko)***

artekotasun, bitarteko, bitartekotasun

Egitura: arte/bitarte + *-ko* + *-tasun*

D. Izter-ahaideak

eten, elkarrizketari ('interlocutor'), hizketalagun, zubigintza ('intermediación')

Lehenaren esanahiak berak darama itsatsirik erdal aurrizkiaren balioa.

Hurrengo hiruren egiturei begira ikus daiteke hitz elkartuak direla eta, bigarrena, eratorpenezko atzizki-metaketaren abiapuntua dela.

zubigintza ('intermediación') azkenari dagokionez, berriz, artekotasun eta bitartekotasunen parean jar daitekeen hitz honetan, *zubi* osagaiaren esanahiak berarekin dakar 'arteko' izatea.

hizkuntzen elkarrekiko borroka[56]

Egitura konplexuago honetako *elkar* osagaiak dakar erdal aurrizkiaren balioaren errainua.

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. arte(ko)

bokal-arteko, gramatika arteko[57], hizkuntz(a) arteko, hitzarteko, nazio-arteko, sujetoarteko

Egitura: I + arte + *-ko*

Beheko hau berriz, ez da egitura horretan sartzekoa[58]

hizkuntzen arteko

Aditzak

D. Izter-ahaideak

eten ('interrumpir'[59]), sartu, tartekatu, trukatu, (t)xertatu

Azken aditzok aipatzen dira, etorkiz aurrizkidun den erdal formak, maiz, bestelako (aditz eratorria nahiz hitz soila) euskal hitz-moduak izan ditzakeen seinale.

---

[56]Osorik eman dugu *hizkuntz(a) arteko*ren ondoan 'interlingüístico'-ren ordainen erakusgarri.

[57]*gramatika guztiekiko* ere badarabil 'intergramatical', 'pangramatical', 'universal' adiera beraz.

[58]Ik. sintaxi-baliabideak.

[59]'**interrumpir.** (Del lat. «interrúmpere»; comp. de «inter» y «rúmpere»)'.

ISO-[60]

A. Bere horretan

Isomorfismo, isomorfo

Ez du oso maiz erabiltzen, hizkuntz harremanaz duen iritziak termino honek dakarrena ('erabateko berdintasuna', 'bera izatea', alegia) arbuiatzera daramalako[61]. Honen ordez, egokiago ikusten du *homomorfismo* terminoa, lehen aldatu bezala.

Terminoaren azalpentzat, *bana-banako atxikidura* ematen du[62].

D. Izter-ahaideak

bana-banako[63]

Egitura: [**bana** + **bana**] + *-ko*

Pentsa daiteke, *bat* zenbatzaile zehaztuaren adigaiak ikuskizun handia duela erdal aurrizkiaren ordainetan erabiltzeko[64].

---

[60] **Iso-**. Prefijo griego (<isos->) que forma palabras cultas significando <igual>".

[61] "Horretaxekoa duzue Kopenhagetarrek (eta Kurylowicz-ek, eta balta ere, hizkuntz tipologiari buruz, Jakobson-ek) maiz ahotan hartu duten delako «isomorfismoa». Sustraietaraino begoaz, ez du hitz honek besterik esan nahi, hizkuntzaren alde batek bestearekin, hizkuntza batek beste batzuekin, halako antz eta egitea baduela baizik. Gehienez ere, hain harroa ez den «homomorfismo» hitza aukera zezaketen itxuren berdintsutasun hori adierazteko (gainera, orain ikusten denez, maizago topatzen dugu homomorfismoa hizkuntzetan eta hizkuntzen inguruan isomorfismoa baino), baina ez bide zuten ezagutzen". (1968c:93).

[62] "Axaleko egitura azpian datzanari lotzen dion atxikidura ez da bana-banakoa beti, ez da isomorfismoa. Homomorfismoa da areago, bi nahiz gehiago egitura sakonek axaleko irudi berbera izan dezaketelako". (1972b4:92) (M).

[63] Beherago berriz ere ikusiko da molde hau, beste erdal aurrizki baten ordainen artean. Azpeitian eta Azkoitian, berriz, 'excepcional, singular' dela jasotzen du P. Mujikak.

[64] Ik. sintaxi-baliabideezko atala.

META-[65]

A. Bere honetan hartua

meta-hizkuntza

Erdal aurrizkiaren balioak berean dirau euskal moldean, euskal izenari aurretik itsatsi besterik ez baitzaio egin. Bestetik, berriz, gaztelaniaz ere ihartutzat jo daitezkeenok irakur daitezke Mitxelenaren lanetan:

metafora, metaforiko

MONO-/UNI-; BI-/DI-; TRI-; CUATRI-/TETRA-[66]

Erdarezkoen aurrizki-izaerazkoak txuliatuko dira.

MONO-/UNI-[67]

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

---

[65] **meta-**. Prefijo griego que significa «además, más allá, después».

[66] Zenbatzaile-balioa duten guztiak batean bildu dira, gertakari beraren aldagaiak besterik ez direlakoan. Elementu hauen aurrizki izaerazko zalantzen semale izan daiteke Moliner-ek multzo honetan bilduak aurkezteko modu anitza: *prefijo, forma afijada, raíz*.

Mascaró-k (1986:70) *bidimensional, compostos prefixats* direlakoen artean kokatzen du. Bestalde, sail berean kokatze ditu guk aurrizkitzakotzat jo ditugun zenbaiten azpian jasoen antzekoak ere; hala nola, *semipositiv* eta *antiadrenèrgic*. Bizpahiru lerro beherago, *sobrealimentació, superhome, extraterrestre (...), semi-sec* eta *pseudo-científic*, "compostos amb un primer element de tipus prefixal" moduan aurkezten ditu.

[67] **mono-**. Raíz del griego «monos», uno".
Oroi lehen jasoriko Siegel-en iritziaz.
uni-k ez du sarrerarik *DUE*-en baina **tri-**, **cuatri-**, bakoitza, dagokion zenbatzaile zehaztuaren barneko *Formas afijas* direlakotzat dauzkanez gero, pentsatzekoa da multzo berean koka daitekeela.

. ***bat(eko), bakar(eko)***

adiera bakarreko[68] ('monosémico', 'unívoco'), erro bateko, hizkuntza bakarreko ('monolingüe'), letra bakarreko

Egitura: I + **bakar** + *-ko*

I + **bat** + *-ko*

Bakarrekoz eta *batekoz* osatzen da egitura egokitua.

BI-/DI-[69]

A. Bere horretan

Latin-jatorriko BI- hizkiaren ordain zuzen den grekerazko DI-z osaturiko besteok, berriz, bere horretan hartu dira:

diglosia, digrama]][70], diptongo

***Izenak**

C. Ordezkatuz

elebitasun, bitasun ('antinomia', 'polaridad', 'dualidad')

Egitura: (I) + **bi** *-tasun*

---

[68] *-ko/-dun* lehiaz mintzatu gara.

[69] 'bi-. Prefijo derivado del latín <bis>, dos veces, que significa <dos>'.
'di-. Prefijo griego empleado en palabras científicas, que significa <doble>'.

[70] Gogora lehen argitaraldian *diagrama* paratua zegoela.

*Adjektiboak

C. Ordezkatuz

bana-banako ('biunívoco'), bat-banako, bi arpegitako, binakako ('bimembre'), binako ('binario')[71], bisilabadun ('bisílabo', 'disílabo'), erregela biko

Egitura: **bi** + I + *-dun*

[**bi** + *-na*] + *-ka* + *-ko*

(I) + (**bi**)[72] + *-(ta)ko*

bat + [**bat** + *-na*] + *-ko*

[**bat** + *-na*] + [**bat** + *-na*] + *-ko*

Oro har, *bi* euskal zenbatzailea baliatzen du.

Bitxiena, apika, *bi* erabili ez baina *bat* zenbatzaile zehaztuaren (edo honetatik eratorri(?)aren) errepikapenarena dateke; hau da, bat-banako eta bana-banako bikotean, adieretako batean, gertatzen dena.

Multzoen elementuen arteko harremana adierazkizun izanik, aipatuek 'unívoco' adiera ere izan zezaketen arren eta, honenbestez, berriz ere beteko litzateke beste zenbatzaileaz esana (*bat-/bana* = 'uni'), testuinguruak bultzatzen gaitu 'unívoco' ez baina 'biunívoco', beste harreman-motaren ordaintzat ematera[73], delako egokitasuna aldebikoa bailitzateke eta ez norabide bakarrekoa.

Aipa daiteke *elebitasun, erregelea biko* egituretan *bik* besteetan ez bezalako kokalekua duela, izenaren eskuinean, bizkaieraren moduan.

---

[71] Lehen egitura eta guzti aldatua.

[72] Bietara, ordenari dagokionez.

[73] "Ahoz eta izkribuz darabilgun hizkuntza bizi baten idazkera ezin izan daiteke [Jat. *diteke*] hots eta letren arteko bana-banako egokitasunaren gainean eraikia: linguistika lanetan usatu ohi diren transkripzioak, fonetikoak nahiz fonologikoak, gehienez ere, hel daitezke horretaraino". (1968d:137).

"...harako zenbaitek Ebanjelioetarik hartua balute bezalaxe errepikatu ohi duten esan hura: 'idazkera zuzen batean, hots bakoitzari (soinu bakoitzari, fonema bakoitzari) letra bana dagokio'. Esaera polita da eta badu gainera bere egia pixka eta puxka, ezin uka baitaiteke ez liokeela alde askotarik kalterik egingo ez idazleari ez irakurleari gisa horretako bat-banako egokierak". (1983e:126).

correspondencia biunívoca darabil errenteriarrak gaztelaniaz ondoko lanean: (1974a, *SHLV*:388).

TRI-

Izenak

C. Ordezkatuz

hirutasun ('tricotomía')

Egitura: **hiru** + *-tasun*

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

hiru silabako, hirunakako

Egitura: **hiru** + l + *-ko*

hiru + *-na* + *-ka* + *-ko*

CUATRI-/TETRA-[74]

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

lau silabako

Egitura: **lau** + l + *-ko*

Zenbatzailedun izen sintagma + *-ko*, nahiz zenbatzailetik abiatuz eskuraturiko forma + *-ko* egiturez osaturikoak dira erdal adjektiboak egokitzeko erabiliak. Izen-bilakatzea, berriz, zenbatzaileari izen abstraktuen sortzaile den *-tasun* erantsiz mamitu da.

---

[74] "**cuatro** (...) Formas afijas, <cuadr-, cuatri->". Ber gauza **tri-** formarentzat.
"**tetra-**. Raiz del griego <tétares>, cuatro, usada como prefijo en palabras científicas".

MULTI-, PLURI- [75]

***Adjektiboak**

C. Ordezkatuz

. askotako

hizkuntza askotako

Egitura: I + **asko** + *-ta* + *-ko*

NON- [76]

Frantsesez eta ingelesez[77] bereziki[78] eta terminologiaren alorrean nabarmenago,

---

[75]"**multi-**. Raíz del lat. «multus», mucho, empleada en compuestos".

"**pluri-**. Forma prefija de «plural». No es un prefijo enteramente de uso acomodaticio, pero sí se presta con naturalidad a la formación de palabras cultas".

Gure kokaleku honi dagokionez, beharbada, beste zenbatzaileekin batean hobeto legokeela esan behar dugu.

Pottier-ek (1970:29), *multi-, super-, mini-, bi-, vice-* elementuei, *morfemas gramaticales semiautónomos* deritze.

[76]Adierazgarria da euskaraz ez eze erdaraz ere elementu honen izaerak ez dituela ikertzaileen adostasunak biltzen. Honela, esate baterako, Bosque-rentzat (1983:142) adberbio den bitartean:

"No tiene sentido decir *la no mesa* pero sí *la no utilidad*. El hecho de que sea *utilidad* un sustantivo deadjetival es el causante de la extraña presencia de dicho **adverbio**". (Beltz. gurea).

Cabré-Rigau egileek (1987_2:120), kataluniarraren *no-* aurrizkitzat daukate, debekurik gabe:

"N'hi ha que aporten negació (*no, a*) o «la noció/posició contrària» (*des, dis, in, a; contra, anti*), o repetició (...)".

Erakusgarri honi eranstsi behar zaio *DUE*-n aurrizkitzako erabileraren arrastorik ez dela jasotzen.

[77]Ikus gure hiztegiko irautpenak honen erakusgarri: *non publié; non écrit/non-written; non-comptable/non-count; non-défini; non-syllabic*... esate baterako.

[78]Gazielanlak ere, ukaziozko aurrizkiarekin duen hutsunea dela eta, ezin uxatu du, nonbait, beste erdara horien eragina:

"The case of the derivational negative prefix is particularly thorny. Spanish is in fact rather weak on the negative of certain adjectives like «importante», «práctico», and many others. Traditionally, Spanish has used the cumbersome «poco» construction, / This is inadequate from another point of view too: nouns cannot be easily formed from the adjective, the traditional solution being «lo» plus adjective./ yet one hears and reads more and more forms such as «inimportante», «impuntual», «inusual», «impráctico», which I have no hesitation in classifying as Anglicisms.

Although it coul be argued (and often is) that these are standard derivations from pre-existing Spanish words, the case remains that all of the negative derivations existed in English and/or French long before they did

usu erabiltzen den egitura da *no(n)-* lehen osagaia duena.

Euskarari dagokionez, daitezkeen egitura ordainetarik euskal aurrizkitzat jo den ez- gramatika-zeraz osatua da hemen jaso den bat[79].

Sorkariaren gramatika-kategoriak baliabide honetan ere ardurazko dirudi.

Izenak

C. Ordezkatuz

. ez

ez pertsona

Egitura: **ez + I**

Azken hau, tasunaren ezeztapena adierazteko erabilia, *(minus*en parekoa, alegia) garbi, *pertsona/ez pertsona* bikoteko partaidea denez gero[80].

D. Izter-ahaideak

Euskaraz ezezko adierarik ez duen baina erdaretara iraultzean mintzagai den egitura-motara aldatzen den honakoa ere azpimarkatzekoa da:

erdaldun[81]

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. ez

---

[79]Egitura-mota honen kontra: Irigoien (1989).

[80]Gai honi zuzen-zuzen lotzen zaiolako eta prozedura bat baino gehiagoren isla delako dakargu pasarte luzeskoa:

"Ezin-ukatuzko ezberdintasuna badute, haatik, behar bezala ulertzen badugu: ***bizidun/bizigabe***-en artekoa. Lehia horretan *-ren* da biziduna, ***markagabea*** halere, eta *-ko* bizigabe bezain ***markaduna***. Gauza bera gertatzen da, ***pertsona/ez pertsona***-ri buruz, *haur* eta *ume*-rekin: *ume*, markarik gabea, izan daiteke gizakia eta gizakien haurra; *haurra*, berriz, gizatasun horri lotua agertzen da". (1986c:174). (Beltz. gurea).

Lehen ere esan den puntuaren (erdal-euskal ordain erabateko ezaren, alegia) sendogarri ekar daiteke Leizarragak *ezagungabe* bai 'desconocido', bai 'incógnito' aditzera emateko darabilela.

[81]Hiztegiko irautpenak lekuko: *non vascófono/non bascophone/non-Basque-speaking*.

ez idatzi, ez mugatu ('no definido','indefinido'), ez silabagile[82] ('no silábico', 'asilábico')

Egitura: **ez** + Izond

Izenondoak adierazten duenaren ukazioa adierazteko erabiliak.

. *gabe*

argiaragabe, landugabe, markagabe

Egitura: aditza (aditzoina/partizipioa) / i[83] + **gabe**

. *ezin*

ezin konta daitekeen ('no contable' adieran)

Egitura: erlatibozko perpausa

D. Izter-ahaideak

azkenurren

Adjektiboa hau ere eta bitxiena, ohiko ez den baliabidea baita usatu.

Hitzeko bigarren osagaia *hurren* ('gertu', 'ia') dela pentsatzera makurtzen gaitu, *-urren*, denbora adierazten duten hitzei (eta bereziki zenbatzaileei) lotzen zaien atzizkiari hemen toki egokirik ikuste-ezak.

---

[82]Hemengo kokapena bat al letorke Scalise-ren (1987:135) iritzi honekin?

"Existen otros casos que parecen ser contraejemplos, como los de (50) [Hau bezalako adibideak dira: *non [class-conscious] (...) non [home-made]*, itzultzaileak gaztelaniazko beste honakoa eransten du, gaztelaniaz ere antzera gertatzen delakoan: *no [auto-regulable]*], pero que se pueden explicar si no consideramos como afijo al elemento que aparece en el margen del compuesto y lo tratamos, en cambio, como un elemento añadido mediante un proceso de composición. Como muestran los ejemplos de (50), en inglés es posible encontrar *non* ante adjetivos compuestos pero, según Allen, esto ocurre porque no se adjuntan mediante reglas de derivación, sino mediante reglas equivalentes a las de composición / Otros elementos <que también pueden añadirse a palabras por medio de la composición y no por un verdadero poceso de afijación, son ing. *extra, super, over* "sobre", *all-* "todo"> (Allen 1978:228).*I'*. Azken oin-oharra, SUB- en errepikapenarekin zerikusia izan dezakeelakoan jaso dugu.

Edozein kasutan, *ez silabagile*ren izenondo-izaera zalantzazkoa da.

[83]*markagabe*, egia esan, "aditzoin + *gabe*" moduan ere uler zitekeen. Lehen osagaia izentzat jotzera aurkaz aurk duen *markadunek* bultzatu gaitu.

Bestetik, berriz, harrigarri xamar gerta daiteke aditzari uztarturik ez egotea[84].

Nolanahi den, *(h)urren* –berez ukaziozkoa ez dena–, adiera hau duen erdal ordaintzakotzat eman du Mitxelenak berak[85].

Ez dago, ordea, zokoratzerik, hizkuntzalaritza-hiztegietan *cadena pre-terminal* erabiltzen dela[86].

Erabilerok –eta ikusi A-, ANTI-, DES-, DIS-, IN- erdal aurrizkien ingurukoak– aurrean izanik, bidezkoa dirudi gertarioi pittin bat erreparatzeak.

Esango genuke, ukazioarekin ikuskizuna duten hiru adiera nagusi direla tartean: 'falta', 'eza' batetik, 'kontrakoa' bigarren eta 'ukapen' bera, azkenekoz.

Lehen adiera, *gaberen* bitartez ordaintzen da maizenik, adjektiboak direnean[87].

'kontrakoa' adierazteko, badirudi, *des-* euskal aurrizkia baliatzen duela, bai aditzei, bai adjektiboei uztartuz. Ikusi da ANTI- erdal aurrizkiaz eratuak (izenak) edo bere horretan hartu dituela edo *-z kanpoko, -z kontrako* (adjektiboaren barrutiko) moldea baliatu duela nagusiki (D. motan ere jaso dugu bat edo beste). Baina zeinahi gisaz, ez du *anti-* gehi euskal hitzik erabili, hau da, ez du aurrizki hori euskal erabidean sarrarazi.

'ukapena' adierazteko erabiliak ere, adjektiboen esparrukoak dira gailen modu nabarmenean. *gabe* eta *ezin, gaitz* baliabideaz atonduak errepikaturik ikusi dira.

Aldatu berri dugun NON- honek beste gisako gertakaria aurkez dezakeela iruditzen zaigu.

Batetik izango genuke 'ukapena' besterik gabe adierazi beharra. Kasu honetan eta adjektiboak direnean tarteko, badirudi halako debeku larririk ez dagoela, lehen aipatu *gabe(ko)*z baliatzeko (hala nola, *mugatuk*, aldamenan duen *mugagabek* edo oin-oharrean aldaturiko *bizidun/bizigabe* pareek erakusten duten bezala, edo jaso den *ez idatzi*ren ordez, litekeena den *idatzi gabek* erakutsiko lukeen bezala).

Alabaina erabilera berezi eta markatu batean erabili gogo edo behar denean –hots, modu metalinguistikoan (edo jasorik doan *autonyme* delakoan)–, badirudi gauzak aldatzen direla.

Honela, batetik izena dago: *ez pertsona*. Hau nekez alda daiteke *pertsona gabe(ko)* edo antzekoren bitartez[88].

Bestetik, berriz, adjektiboak direnean ere, badirudi, tasun horren ukazioa dela aditzera eman beharra eta horretarako, egokiago edo begitantzen zaiola, *ez-* aurrizkiaz baliatzea,

---

[84] Azkuek hiztegian *erori-urren* eta *hil hurren* dakartza soilik adibide moduan.

[85] "Bestela esan, bi alfabeto edo bi hiztegi ditu makinak: azkena eta **azkenurrena** *(terminal/no terminal)*, eta atergabe ariko da idazten duena azken hiztegiko hitzez oso osorik idatzi duen arte". (1972b4:78) (M). (Beltz. gurea).

[86] Ikus aurrerago PRE- aurrizkiari eskainia.

[87] Ik. lehen aldatzen genuen *markadun / markagabe* bikotea.

[88] Eta gauza bera esan beharko genuke izenen eta izenondoen arteko mugan kokaturiko *ez silabagilez*. Gauzak honela, ausartuko ginateke esatera, adiera honi dagokionez egungo euskarak aurpegi eman behar dion erronka izenen esparruan duela batipat.

gabez egin baino. Nolanahi dela ere, litekeena da erabilera hau hizkera-mota berriak hortara bultatua izana[89].

POST-[90]

***Adjektiboak**

C. Ordezkatuz

. *gibel(eko), ondo(ko)*

Izenaren eskuinean paratuz eskuratuko da erdal aurrizkidun adjektiboaren ordaina.

bokal-gibeleko, kontsonante ondoko

Egitura: I + **gibel/ondo** + *-ko*

. *atzeko*

Bere bakarrean 'posterior' adierazteko erabili da:

(bokale) atzeko[91]

PRE-[92]

A. Bere horretan hartua

---

[89] Ik. lehen aldatu Leizarragaren *azagungabea*.

Bestetik, berriz, gertakari hauek ikuskizunik ote lukete lehen Scalise-ren ahotik (1987:135) paperera den irtzlarekin? Hau da, hauek ere, eratorbidetik aterazi eta elkartuen eremura hurbildu beharko al lirateke?

[90] **post-**. Forma prefija de «después», que es la preposición latina «post»".

[91] "«Iruñe li» delakoa hots aldaketa baten sorkaria genuke: hainbeste lekutan, eta ez nafar lurretan bakarrik, hurrengo silabako *a* zaharra jaso eta aurreratu duenarena, lehenagokoan bokale gora (atze nahiz aurrealdekoa) doanean". (1983d:121).

[92] **pre-**. Prefijo que expresa anterioridad en el tiempo o en el espacio".

prehistoria, preposizio

Izenak

C. Ordezkatuz

. *aurre/aitzin*

aurre-historia, aurrizki, aitzin solas, aitzin gidari

Egitura: **aurre/aitzin** + I

atalaurre, hitzaurre, historia aurreko (histori aurreko])

Egitura: I + **aurre** + (*-ko*)[93]

D. Izter-ahaideak

aitzindari

Izter-ahaideen artean sartzea (eta ez ordezkoen barrutian), euskal hitz eratorria osotasunean erdal hitz aurrizkidunaren ordaintzat ikusteari zor zaio. Alabaina, ez da zokoratzekoa, *aitzin* aurreko sailean ikusia ere hor dagoela.

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

logika-aurreko, bokal-aitzineko ('prevocálico', 'ante vocálico')

Egitura: I + **aurre/aitzin** + *-ko*

aurre-sabaikari]] (aurre-sapaikari])

Egitura: **aurre** + I (--> I --> Adj)[94]

---

[93] Ik. hitz elkartuen atala.

[94] Ik. hitz eratorriezko atala.

D. Izter-ahaideak

azkenurren[95]

Espezifikatuei begira, azpimarratzekoa da, izenen sailean *aurre*, izenaren aurretik nahiz gibelean erabili duela.

Galde daitekeena da ea inolako esanahiaren aldetikako bereizkuntzarik suma ote daitekeen posizio-hautaera honen atzean; bestela esan, ea ba ote dagoen honako ekuazio modukoa paratzerik: *aurre* + I = 'aurrean doana/dagoena' // I + *aurre* = 'oinarriak adierazten duenaren aurreko garaia/egoera'.

Ez dugu uste banaketa erabatekoa egin daitekeenik. Honela, zenbait kasutan, lehen egiturarentzat paraturiko irakurmoduak egokia dirudien bitartean (aurrizki, esate baterako, aitzin gidari, seguraski), beste batzuetan ez dugu garbi ikusten: aitzin solasa, bera al da aurrean doan solasa ala gero datorren solasaren aurreko beste zera?

aurre-historia[96], berriz, bigarren motaren irakurrerari lotzenago zaiola esango genuke, hau da, 'historiaren aurreko garaia'. Nolanahi dela ere, gogoan izan behar da hortxe dagoela –*prehistoria*z atzenduz–, historia aurreko[97] (histori aurreko]) ere.

Bigarren egitura-irakurmoduetan erosoen kabitzen dena, aipatu berria da, hain justu. Izan ere, beste biek, gure ustez, ez dute aditzeko modu bakar eta erabatekorik: *atalaurrea*, 'ataiaren aurreko zera' da ala bera ere bada nolabaiteko atari?, eta *hitzaurrea* bera ere ez ote da hitza (hitz-mordoa)?

Azken honek garamatza, hain zuzen ere, begiak iraultzera eta honako egoera aurkeztera: hau da, egituraz bestelakoak izaki, esanahiaren aldetik bederen, hagitz urruti ikusten ez ditugun aitzin solas eta hitzaurre aurkez aurk paratzera.

Adjektiboei dagokienez, azpimarka daiteke, hauek moldatzeko apenas baliatzen duela *aurre* adjektiboaren aitzinetik. Itxura guztiz, nahiago bide du izen elkartua izenlagun bilakatu.

Aurre/aitzin hitzez osatuak, hitz elkartuen sailean ere ikusiko dira.

---

[95] Ikus NON- saila.

[96] (1985d:86).

[97] (1972b1:29) honetan, *histori aurreko*, lehen argitaraldian, jaso bezala, (1972b5:118).

(P)SEUDO-[98]

**Izenak*

C. Ordezkatuz

. *sasi-*

sasi-erdara, sasi-euskara, sasi-galdera, sasi-hizkera

Egitura: **sasi-** + I

D. Izter-ahaideak

gaitz-izen

**Adjektiboak*

D. Izter-ahaideak

garbitzako

Ez dakigu azken bi hitzok ere hemen kokatzekoak ote diren.

Honela eginez gero, lehen kasuan elkartuaren lehen osagaiaren adierak eta bigarrenean atzizki gisakoarenak emango lioke erdal aurrizkiaren adiera euskal hitz eratuari.

PROTO-[99]

A. Bere horretan hartuz

protogreko, protoeuskara

---

[98] **-seudo-**. (Del gr. <pseudo->, sacado del adj. <pseudés>, falso). <Pseudo->. Se emplea como prefijo de nombres, equivaliendo a <falso>, para designar cosas a las que el nombre en cuestión se ha aplicado o se aplica sin propiedad, por su semejanza con la cosa que lo lleva propiamente".

[99] **-proto-**. Raíz del griego <protos>, que significa "primero" o principal".

Bi hitzok erabili dira hasierako erro landu eta guzti.

Azpimarka daiteke, aurrizkiaren oinarria euskal hitza dela kasu honetan, lehengo *meta-* rekin gertatu bezalaxe.

Alabaina, badu batek ordainik, Mitxelenak alboraturik, gainera.

Izenak

D. Izter-ahaideak

euskara bakar

Hau da Mitxelenak bigarrenaren ordaintzat ematen duena.

Egitura: I + Izond.

RE-[100]

Euskal *ber-/bir-* aurrizkiak ordezkatzen du maizenik 'errepikatzea' ñabardura duen RE- erdal aurrizkia.

Izenak

C. Ordezkatuz

. ber-/bir-

berridazte, berreraiketa, berrerantzun[101], birraigitalpen].]][102]

Egitura: **ber-/bir-** + I

---

[100]re-. Prefijo. Expresa fundamentalmente repetición. Puede expresar también otras circunstancias. Retroceso o vuelta atrás. Inversión del significado del verbo primitivo. Intensificación de la acción. Reunión o contracción'.

[101]Ikus honezaz euskal aurrizkien saila, *berrerantzun*ez esanak batipat.
Scalise-ren (1987:136) ustea euskarari dagokionez lasaixeago hartu beharko al litzateke?:
"... ya que los prefijos *re-* y *pre-* se adjuntan a verbos, no a nombres".
Egia da erabilera bitxi askia dela, esana doan bezala.

[102]Hauen osamoldeaz eta inguruko auziez euskal aurrizkiak azterkatzean aritu gara.

Aditzak

C. Ordezkatuz

. ber-/bir-

ber-eraiki, berresan, berridatzi

Egitura: **ber-** + Ad

D. Izter-ahaideak

berritu euskal aditzean oinarrituriko eraberritu[103] aditz elkartua eta hemendik eratorririko eraberritze izena ere RE- erdal aurrizkiaz osatuen ordain dira.

Ber gauza esan daiteke *@berrizkatu*, Mitxelenak ez darabilen baina oinarritzat eman[104] behar den, aditzetik eratorririko berrizkatzailez.

SEMI-[105]

Izenak

C. Ordezkatuz

. erdi

erdi hizkuntza

Egitura: **erdi** + I

Eratorbidetik sorturik, Mitxelenak berak kidekotzat ematen duen hikuntzaxko jarri behar zaio aldamenean. Bi balibide, beraz.

---

[103] "... eta orobat, *re-* guztiak *ber-* edo *bir-*en bidez, bide jatorragoak eta egokiagoak egon daitezkeela burutik pasatzen ere ez zaigularik. Esaterako, duela gutxi Euskaltzaindiaren sari bat irabazi duen lan baten izenburuko *bergaitzen* hori. Kontua ez da hitza, baizik eta sortu duenari ez zaiola burutik pasa ere egin beste bideren bat, *gaibertitzen* adibidez, egokiago eta ulerterrazago izan daitekeenik". (Sarasola 1989:417).

[104] "Eman behar" horrek Morfologia Sortzailean auzi ugari sorrarazi du hitz-eraketarako oinarria zedarritzetik hasita *morfologia sobregeneradora* delakoa proposatu beharreraino, dagoeneko esana doan bezala.

[105] "**semi-**. (Del lat. <semi->; v. <sesqui->). Prefijo que significa <medio> y, a veces, <casi, algo> o <no del todo>".

SOBRE-/SUPER-/SUPRA- [106]

***Izenak**

D. Izter-ahaideak

izengoiti ('sobrenombre')

***Adjektiboak**

D. Izter-ahaideak

axaleko, gaineko ('superficial')

Ez dugu erdal aurrizki hutsaren ordain erabatekotzat har daitekeenik aurkitu.

Azpimarra daiteke ez dela adibide bat bera ere jaso terminoen artean "*gain* + –" eglitura duenik eta aztergaitik kanpo ere, *gainbegiratu* besterik ez.

SUB-, SU- [107]

A. Bere horretan

subjetibo, subjuntibo, subklase, subsubklase[108], sujeto, sustantibo, sustrato

---

[106] **super-**. El adverbio latino <súper>, sobre, usado en la formación de derivados cultos, y como prefijo; expresa situación superior en sentido material o figurado, o exceso; (...) véase <supra->".

[107] **sub-**. Prefijo: Expresa en primer lugar inferioridad de situación, categoría, etc... También puede expresar posterioridad".

[108] Hitz hau dela eta, aipa daiteke eskuztaturiko katalanazko lanetan modu diferentetara ikusten dituztela gisa honetako sorkariak. Honela, Mascaró-k (1986:17):

"El caràcter recursiu del procés morfològic és molt limitat. En la flexió és del tot inexistent, com és lògic. En la derivació, en general, no es pot repetir un mateix afix si no ha actuat un procés de lexicalització entre els dos processos: (...) En la composició és més freqüent, però limitada (*neo-neo... neoclasicisme*, ***subsub... subíndex***, *contra-contra... contrargument...*)". (Beltz. gurea).

Honenbestez, badirudi, erstorpenaren indar berrizkatzailea zedarritzen duten hesiez kanpo geldituko litzatekeela, elkarketaren barnean kokatzen du eta. Aurrerago, ordea, ez du garbi uzten justu elkartutzat ala aurrizkiduntzat jo behar den:

**Izenak*

C. Ordezkatuz

. ***azpi***

azpiegitura, azpiko egitura, azpian datzan egitura

Adigai berarentzako hiru egitura-mota erakusten dituzte azken adibideek: elkarketa (I + I), "izenlaguna + izena" eta erlatibozko perpausa.

. ***zati***

zati-euskalki, zati-galdera, zati-hizkuntza, zati-multzo

Egitura: **zati** + I

Arestiko SUB-"x"-en ordain zuzenak liratekeela dirudi. Nabarmen daiteke, egun sumatu uste den joera ez bezalakoa: *azpi* lehen osagaiaz oraturiko hitz elkartuen urria *zatiz* osatuei aurkajarriz.

. ***atze***

atzizki

Egitura: **atze** + I

Adieraren aldetik, *DUE*-ek aipatzen duen 'posterioridad' egoki al dakioke[109]? Adierak, bestalde, POST- erdal aurrizkia dutenekin lotuko lukeela ematen du.

"Els processos de formació de mots són moltes vegades recursius, especialment en el cas de la prefixació i de la composició: *índex - subíndex - subsubíndex-...*, *nord - nord-est* - nor-nord-est...". (1986:39).

Cabré-Rigau-k (1987$_2$:112-125) berriz, aurrizkitzat jotzeaz gain, indar berrizkatzaile horren barnekotzat dituzte autu dugunaren gisako eraikuntzak:

"Algunes regles del lèxic són també recursives i, per tant, el nombre possible de paraules formades a partir de regles morfològiques és infinit, com ho mostrem els exemples de (51): (51) a. sou, sobresou, sobresobresou....(...) c. sotsdirector, sots-sotsdirector, sots...director...".

[109]-**sufijo**. (...) (T., <postfijo>.)".

Adjektiboak

C. Ordezkatuz

. pe(ko)

lurpeko

Egitura: l + **pe** + *-ko*

"x" peko usatu da arestikoak ez bezalako adiera duen honetan, 'lurraren azpiko'.

. men(d)(p)eko[110]

mendeko, menpeko

Hitz-oinarrlaren esanahiari berari dagokio 'azpikotasuna', nolabait esan.

Aditzak

C. Ordezkatuz

. azpi

azpimarratu[111], azpimarkatu

Egitura: **azpi** + Ad[112]

---

[110]Izena ere bada, hizteglan eta azterlanean erakutsi den bezala.

[111]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan bezala.

[112]Ez zaigu, halaz ere ezinezkoa iruditzen izen elkartutik abiatzea: *azpimar(r)(k)a + -tu*. Nolanahi dela ere, erdal aurrizkiaren ordezkoari begira ez dirudi ardura handikoa denik.

TRANS- [113]

A. Aurrizkia gordez

Izenak

tra(n)sformazio, tra(n)skri(p)zio, transformazionalista

Adjektiboak

tra(n)sformatibo

Aditzak

transkribatu

*Izenak

C. Ordezkatuz

antzaldatze, formaldatze, itxuraldaketa, itxuraldatze, tokialdatze

Guztiak, aditz elkartuan oinarrituriko izen eratorriak.

*Adjektiboak

C. Ordezkatuz

erdibideko ('de transición', 'transitorio')

*Aditzak

C. Ordezkatuz

formaldatu, itxuraldatu, lekualdatu, letraldatu, tokialdatu

---

[113] trans-. El significado fundamental de este prefijo es el de «paso al lado opuesto» o «situación en el lado opuesto». Se puede descomponer en los siguientes matices: 1º A través de (...) 2º Pasar de un lado a otro (...) 3º Situado del otro lado (...) 4º Situado detrás, en el espacio, o a continuación, por ello (...) 5º Cambio o trastorno".

Egitura: I + **aldatu**

Arestiko egiturapekoa ez den ondoko hau ere hemen sartzekoa litzateke:

paperera aldatu

D. Izter-ahaideak

letreiatu ('transliterar'), papereratu

Euskal bideetara jotzean, usuena *aldatu* eta (maila apalagoan) *bihurtu* aditzetan oinarrituz sortzea da.

Erdal aurrizkiaren ordezkotzat erabiltzeko erabakia ohartuki hartua duela erakusten duen pasarte aski argigarria ekar daiteke, delako *atzizkia*rena gora-behera:

> Formaldatze bideek (*tokialdatu, itxuraldatu* eta abar esan daitekeenez zilegi zaigu *formaldatu* esatea, nahiz erdal aurrizkia atzizki baten bitartez irauli) ez dute auzia osotoro garbitzen (1986c:175).

letreiatu[114], papereratu aditzak izenetik abiatuta sortuak dira, lehena tarteko urratsik gabe eta bigarrena berriz, adizlagunetik igaroz. Adierari dihoakionez esan daiteke, *aldatu* aditza ez erabiliagatik, 'letrara aldatu', 'paperera aldatu' (hau ere jasoa) perifrasiak egoki dakizkiekeela eta honenbestez itxurak ez baina mamiak arestikoekin uztartuko lituzkeela.

U-

A. Bere horretan

ukroniko, utopiko[115]

Erdaraz emankor ez dirudien arren, ukaziozko erdal aurrizki honen ordain zuzenak hitzon aldamenean ematen dituenez gero, jaso da: inoizko (ez), inongo (ez), hurrenez hurren, hots, **D.** deitu dugun moldez.

---

[114] Bi adieraz darabil, lehenago jaso den 'deletrear'-en parekoa eta hemengo 'transliterar' hau.

[115] *DUE*-en (1966), *U-* aurrizkiaren arrastorik kausitu ez denez gero, *utopía* hitzera jo da eta bertan honakoa irakur daiteke:

"Palabra creada por Tomás Moro con la raíz del gr. <topos> (...) y el prefijo negativo <u->". (Beltz. gurea).

14.3. LABURBILDUZ

Zenbait puntu nabarmen aldatu nahi genituzke alkabaera moduan:

. Mitxelenak debekurik ez du erdal aurrizkiduna bere euskal testuetan erabiltzeko.

. Hauen artean, halaz ere, ikusi da horietako franko hizkuntzalaritzan aski erroztaturiko termino usuak edo aurrizki-izaera galdua edo galtzear dutenak direla.

. Aurrizkidunak erabiliagatik, ez du erdal aurrizkia euskal eratorbidean saiatzen, kasu gutxi batzuetan izan ezik: *meta-hizkuntza*, *protoeuskara*, esate baterako.

. Bitan baizik ez dugu atzeman erdal aurrizki hots-grafiez egokitua: *arki-*, *gon-*.

. Darabiltzan erdal aurrizkidunak, maiz, beste bideetarik eraturiko ordainez hornitzen ditu.

. Oso gutitan makurtzen da erdal aurrizkidun egiturara, euskal egitura ispilu horretan eman gogoz. Honetan, bereziki, egungo *aurre-*, *azpi-*, *gain-* eta abarren urria (areago ia eza) nabarmenduko genuke.

. Erdal aurrizki bat baino gehiago ordain izan ditzakeen molde berak darabiltza adigai desberdinen hizkuntz gorpuztean.

. Amaitzeko, D "Izter-ahaideak" bataiatu dugun sailaren joria azpimarkatuko genuke. Aurreko puntuan adierazia eta hemen azpimarratua, behin eta birritan adierazi dugun uste baten irozgarri egokiak direla uste dugu: Mitxelenaren hizkerak erakusten digu euskal egiturak ez duela noraezean erdal egiturara makurtu beharrik; hau da, "erdal X" eta "euskal Y" beti eta erabat bana-banako harremanean ez dutela zer egon.

III. ATALA

15. Kapitulua: ERATORBIDEAREN ETA ELKARKETAREN ARTEKOAK

15.1. ATARIKOA

Sail berezi honen arrazoia[1] eskuinean doan osagaia beregaina izanik, aldi berean, atzizki bilakatzeko bidean egoteari zor zaio.

Hitz eratuok, oro har, Morfologia Sortzailean ezarri den "Eskubiko Ardatzaren Erregela"[2] gordetzen dutela esan daiteke; hau da, eskuineko elementuak, mugakizunak, ezartzen dizkiola bere ezaugarriak hitz konplexuari, mugakizun denak inolako aldaketarik nozitzen ez duen bitartean.

Horregatik, ikusiko den bezala, hitz eratuen multzorik ugariena izenek osatuko dute[3].

Haatik, ez da esan berria beti betetzen. Honela, esaterako *gai* [+izena] izanik, kontagai sorkaria [+izenondoa] kategoriakoa da[4], edo beste gisa bateko adigarria ekartzearren, *zain* berez [+biziduna] denik esateko bide erosoa ematen ez duenak[5] [+biziduna] tasuna dutenak sorraraz ditzake.

Azkaratek[6] zehaztu bezala, era honetakoek debeku larriak ezartzen dizkiete, erregelok hizkuntza guztiekiko izan litezen nahi lituzteketenei.

---

[1] Azkarate (1990b:380-392, 1991:104-107).

[2] Azkarategandik (1990b) hartu dugu euskal deizioa.

[3] Honek ez du esan nahi, noski, izenondo gisa ere erabili ez direnik, kasu batzuetan bestetan baino nabarmenago: *kide* edo *zale* hitzez osatuek, esate baterako, sarritan erakusten dute betekizun bikoitz hori.

[4] Eta morfologi izaerari ez baina perpausean duen betekizunari begiratuz gero, ikus daiteke, maizkara, predikatuarena eginez erabili direla bilduriko asko.
Ik. hiztegiaren sarrera eta hiztegia.

[5] "Ez dirudi *zain* bera bakarrik $_{Iz}$[+biziduna]$_{Iz}$ bezala erabiltzen denik, *zain egon* aditz esapidean baizik. Baina, *zain* bigarren osagai dela sortzen diren hitzak [+biziduna] erako izenak dira...". (Azkarate 1990b:391).

[6] (1990b:388-389).

15.2. SAILKAPENA

1. ALDE

a. Izena + *alde* --> Izena

eskualde, lurralde

Lekua adieraziko lukete hitz elkartuok.
Bestetik alpatu beharko lirateke, posposiziotzat[7] joko genituzkeen:

tenika-alde(ko), teoria alde(tiikako), sintasi alde(tik)

2. ALDI[8]

a. Izena + *aldi* --> Izena

aditz-aldi, ahapaldi[9], belaunaldi, berriketaldi, hitzaldi, iraganaldi[10], lehenaldi, orainaldi[11]

c. Aditzoina + *aldi* --> Izena

egerraldi, ekitaldi[12], erakusaldi, esaldi[13], harraldi, mintzaldi[14]

---

[7]Azkaratek (1990b:392-401) proposaturiko posposizioen eta hitz elkartuen arteko bereizkuntzari jarraikiz.

[8]*LEF-4* (1992:74,79).

[9]Ihartua.
OEH: **ahapaldi** (...)
= *Etim.* De *ahape (aho + -pe) + -aldi*: el sentido peyorativo, bien explicado por el origen, es anterior al general, en buena parte técnico (*ahapaldi = bertso, pertsu; berset*). De ser así *ahapal* no sería más que una abreviación artificial".

[10]Egia esan, beheko multzoan ere sailka zitekeen.

[11]Azken honen atzean, izen bilakaturiko aditzondoa legoke.

[12]*t* hori, epentetikotzat nahiz *FHV*-ren bidetik (1985$_3$:249-250) *-te* aditz-izenen sortzaileoren arrastotzat jo daiteke.

[13]Ihartua.
Euskaltzaindiaren (1975) zerrendan, *esaldi, frase*.

3. BIDE[15]

a. Izena + *bide* --> Izena

eragozpenbide, erdibide, formaldatze bide, gramatikabide, hizketa-bide, hizpide[16]

b. Aditza + *bide* --> Izena

adibide[17], adierazpide, agerbide[18], agerpide[19], atzerapide, aurrerabide, azterbide[20], azterpide[21], behaztopabide[22], bilakabide, deklinabide, erabilbide, erakarbide[23], erakusbide, eratorbide[24], ezaupide, frogabide, galbide, hautabide, hazibide, ihardunbide, jakinbide, jokabide, komunikabide, mintzabide, sarbide

Errepara dakioke "aditza + bide" motaren ugariari, "izena + bide"-rekin berdinduz.

Azken mota honetan, aditzetik izen bilakaturiko lehen osagaia duen adibide bat ere bada: *formaldatze*.

Bestetik azpimarra daiteke, hazibide[25] dela partizipioa baliatzen duen kasu bakarra beste guztiek aditzoina baitute lehen osagaia.

Esanahiari dagokionez, *bide*k 'modu', 'bitarteko', 'prozedura'... ñabardurak hartzen ditu.

---

[14]Arestiko sailean ere joan zitekeen. Azkaratek (1990b:384) izentzat hartzen du lehen osagaia. Ber gauza hurrengo saileko *mintzabide*ri dagokionez.

[15]"Mende honetan zehar, **Lizardi** nabarmentzen da, *bide* mugakizun duten hirurogei izen desberdin inguru emanaz". (Azkarate 1990b:387). (Beltz. gurea).
LEF-4 (1992:74).

[16]Ihartuxea?

[17]Ihartua.

[18](1972b1:30).

[19](1972b1:32), (1972b5:111 bitan,118,119 bitan).

[20](1972b4:88) (M), (1985a:110,116), (1985d:80).

[21](1972b1:30), (1972b2:41), (1972b3:56,57,59).

[22]Hemen ala arestiko sailean? *HLEH*-k: "**behaztopa.** iz.". Ber gauza *frogabide*ri dagokionez.

[23](1983d:122), (1986c:173).

[24](1986c:169,173,174).

[25]Eratorpenean ere jaso da gertakizun beraren erakusgarria: *haziera, heziera, heziketa*.

4. ERA

Osatu gabe utziko den arren, eratorpenari eskaini zaion azterketan aipatu eta elkartuetan aipatuko den bezala, hemen ere koka zitezkeen hangoak.

5. GAI[26]

a. Izena + *gai* --> Izena

hizkuntza gai, hiztegi gai, jakite gai, jakiunde gai, linguistika gai

b. Aditzoina + *gai* --> Izena

agerkai, galdegai[27], irakurgai, landugai, mintzagai, osagai

c. Aditzoina + *gai* --> Izenondoa

kontagai

Lehen multzokoak, Azkaratek (1991) gai_1 izendapenean sartzen dituenen modukoak lirateke; bigarrenean berezia (kontagai), berriz, gai_2 motakoa litzateke.

Azkenari dagokionez, esan daiteke, kategoria hutsezkoa dela "Eskubiko Ardatzaren erregela"-rentzako behaztopa, [-biziduna] tasunaren jabeak baitira, eskuineko elementua eta sorkaria, sail honetan bildurikoak oro bezalaxe.

Aditzoina ez baina partizipioa lehen osagaia duen kasu bakarra jaso da: landugai.

6. GAITZ

a. Aditzoina + *gaitz* --> Izenondoa

iragangaitz, zatigaitz

---

[26] *LEF-4* (1992:74).

[27] Arestiko multzoan ere sar zitekeen, *galde* (iz.) ere badagoenez gero.

7. KIDE[28]

a. Izena + *kide/lide* –> Izena

ahaide[29], baliokide[30], bidaide, euskaltzainkide, haurride, hoskide(tasun), partaide, senide[31], uztarkide, zentzu eta baliokide

b. Izenondoa + *kide/lide*

ofizialkide(tasun)[32]

Sail honek, eratorpena aztertzean ere gogoan izan den bereizkuntza bat argiagotzeko egokiera ematen du.

Ez dirudi zaku berean sar daitezkeenik, "Eskubiko Ardatzaren Erregela"-ren araberako gordetze-urratze kontua –hitz konplexuaren osagaiei eta hauen batzearen ondoriozko sorkariei hertsiki dagokiena–, eta hitza eratu ondoko geroztikako erabilera.

Honela, esate baterako, hemen bilduriko ahaide, bidaide, haurride edo senide (eta neurri batean uztarkide ere bai), nahiz jatorriz [+biziduna] tasunaren jabe liratekeenekin izaten duten ohiko erabilera, hemen, hizkuntz mailako auziak mintzagai direla eta, [-biziduna][33] dutenei lotu zaie.

Bestelakoak lirateke, berriz, baliokide, hoskide(tasun) edo ofizialkide, etorkitik bertarik, [-biziduna] adierazteko sorturikotzat joko genituzkeenak eta, beraz, arestian aipatzen zen debekua plazaratzen dutenak. Izan ere, eskuineko elementuaren azpikategorizazioko tasunari ez zaio eusten, ez dio hitz eratuari ezartzen.

Garapena nozitu duten adibideak: baliokidetasun, hoskidetasun, ofizialkidetasun[34].

---

[28]Hasierako leherkari gabeko hitz eratuak hona aldatu ditugun arren, pentsatzekoa da, honela eratuek eratorbidetik gertuago egoteko aukera handiagoa dutela –aldrebes esan, *kide*dunak, elkarketatik gertuago suma daitezkeela– elkarketatik baino.

[29]Ihartua.

[30]Izena ez baina kasu honetan izenondoa. Ik. *-tasun* atzizkian honezaz eta beheragoko *hoskidetasunez* dioguna.

[31]Hemen kokatzen dugu ihartu-itxura hartuagatik, *ahaide* eta abarren bidetik. *FHV* (1985$_3$:245).

[32]Erdal aurrizkien ordainak ikustean artu gara hitz honezaz.

[33]Ez da baztertzekoa, beharbada, garai bateko hizkuntzezko ikuspegi "biologizaleak" terminologia honetan izan dezakeen oihartzuna.

[34]Ikusi eta ikusten den bezala, arrazoi bat baino gehiagogatik dira bereziak hirurok.

8. ZAIN

Ez dira hemen jasotzen aditzondo baliozkoak.

a. Izena + *zain* --> Izena

euskaltzain, euskaltzainkide

Lehen esan bezala, hitz eratua [+biziduna] dena.
Berrelkarketa gertatu da bigarrenean.

9. ZALE[35]

a. Izena + *zale*

garbizale, indoeuropartzale[36], liburuzale

b. Izen berezia + *zale*

chomskizale, Chomsky-zale[37], Leizarraga-zale

c. Aditzoina + *zale*[38]

kontserbazale

Izena ezkerretara ez duen bakarra, ezin baitaiteke esan, euskaraz (adiera honetan bederen) *kontserba* izena denik.

Honenbestez, *kontserbatu* era burututik abiatu beharra dagoela dirudi.

Kategoriari dagokionez, izena nahiz izenondoa izateko duten erraztasuna azpimarkatu beharko litzateke.

---

[35] Ikus hitz elkartuen kapitulua.

[36] *indoeuropeista* ere badarabil (1972b4:96) (M).

[37] Ikus *-(t)ar* atzizkia.

[38] "Lehen osagaia izena izan ohi da, biziduna edo bizigabea, arrunta zein berezia (mende honetako erabileran, bederen). Izenondo kategoriako mugatzaileek ere izen balioa hartzen dutela dirudi". (Azkarate 1990b:391).

III. ATALA

16. Kapitulua: HITZ ELKARTUAK

16.A. IZEN ELKARTUAK

Sarreran adieraziaren ildotik, bi azpisail nagusi bereziko dira osagaien arteko harremanaren arabera. Bi osagaiak maila berekoak badira, *Kopulatiboak* deiturapean bilduko dira; osagaietako bat nagusi eta bestea menpeko bada, berriz, bestela esan, mugakizuna eta mugatzailea[1] badituzte hitz elkartuek, *Menpekotasunezkoak* izendatuko dira.

16.A.1. KOPULATIBOAK

16.A.1.A. DVANDVAK[2]

Maila bereko bi osagaien elkarketa honetan izena izatea sorkaria izango dute batean (zehaztuko den kasu batean ez beste guztietan). Hemen bilduen[3] sailak osagaien gramatika-kategoriaren arabera antolatuko dira.

16.A.1.A.1. Izena + izena

ar-emetasun[4], azentu-doinu, entzule-irakurle, goibe, gramatika-hiztegi, hiztari-entzule, idazte-irakurtze, ipui-eleberri

Osagaien taxukerari erreparatuz gero, ikus daiteke ia guztietan badagoela osagairen bat gutxienez eratua dena; hau da, erator-atzizkiaz nahiz elkarketaz baliatuz sortua:

ipui-eleberri: I + I elk.

entzule-irakurle: $_{izena}[A + \text{-}le]_{izena} + {}_{izena}[A + \text{-}le]_{izena}$

---

[1] Azkaratearen (1990b:200) termino-berezkuntzari eutsiz, *determinatzaile* / *determinatu* bikotea menpekotasunezko ez diren hitz elkartuen osagaientzat eta *mugatzaile* / *mugakizun* menpekotasunezkoen osagaientzat erabiliko ditugu.

[2] Mota honezazkoak: *LEF-1* (1987:93-97, 149-174), Azkarate (1990b:163hh, 1991:116), *LEF-4* (1992:53-55).

[3] Ikus izenondo elkartuen sailean mota berberekoak.

[4] "Begien bistan dago, beraz, ez direla berdinak hizkuntza horietan ar-emetasuna, sexua, eta gramatikazko jeneroa". (1972b5:120) (M).

"Erronkariarrak, noski, erdara zeukan gogoan *tabdtera, iñurria* eta beste zenbait "ematzen" dituenean. Inguruko erdaretan izenen gramatika sailak eratzen baitu izakien "har-emetasuna" [sic] [Jat. *ar-emetasuna*], bestera baino gehiago, orainengo A. García Calvok erakutsi duen bezala". (1964g:181).

Grafi kontuez, ikus argitaraldiezko itsaskina.

hiztari-entzule: $_{izena}[I + \textit{-lari}]_{izena} + {}_{izena}[A + \textit{-le}]_{izena}$

gramatika-hiztegi: $I + {}_{izena}[I + \textit{-tegi}]_{izena}$

idazle-irakurle: $_{izena}[A + \textit{-le}]_{izena} + {}_{izena}[A + \textit{-le}]_{izena}$

Erator-atzizkiak baliatzen dituzten guztietan osagai bakoitza hitz eratorri osoa da; hau da, berari bakarrik dagokion atzizkia darama.

Bestelakoa da, ordea, ar-emetasun. Hitz honen egituraren zehaztapena "[I + I] + *-tasun*" ulertu beharra baitago, hots, erator-atzizkia elkartu osoari dagokiola[5], ikusiko den bezala.

bizidun/bizigabe[6], competence/performance", langue/parole"[7], *mintzagai/galdegai*[8], *mugatu/ez mugatu*[9], pidgin/créole[10], thema/rhema, topic/comment[11]

Bikoteok ere, hitz elkartu kopulatiboen mota honetan kokatu dira, samalda honetan sartzeko partaideei eragozpen larririk ikusten ez zaielako: osagai biok gramatika-kategoria berekoak dira eta ez dago menpekotasunezko harremanik bere artean.

bizidun/bizigabe eta *mugatu/ez mugatu* pareek izenondo elkartuen artean egon beharko balute ere, azalpenerako hemen kokatzea erabaki da, multzo honetan bilduriko besteekin eta ondoren aipatuko diren beste batzuekin lotzen dituzten ezaugarriak dituztelako.

Azpimarragarriena, osagaien esanahien arteko harremanari dagokiona da, guztietan, "aurkakotasun semantikoa" deitu duguna gertatzen da eta.

bizidun/bizigabe, *mugatu/ez mugatu* eta behean aldatuko den *pertsona/ez pertsona* kasuotan gehixeago zehatz daiteke: osagai baten baieztapenak ezinbestean bestearen ukazioa dakar;

---

[5] "atzizki bakar batez biren lana egitea ere ikusten da inoiz edo behin, horrela: *senar-emaztegaiak* zineten". (*LEF-1* 1987:164).

[6] "Ezin-ukaituzko ezberdintasuna badute, haatik, behar bezala ulertzen badugu: *bizidun / bizigabe*-en artekoa". (1986c:174).

[7] "Chomskyren *competence/performance* ez dira egian, Saussureren *langue/parole*-ren haurride jator, bai bederen, ordea, ahaide hurbil". (1972b4:95) (M).

[8] "Esan bezala, ebakidura ala lotura da *mintzagai/galdegai* arteko bereizkuntzaren ezaugarria adiza perifrastikoa]], konposatua, denean". (1981c:156).

[9] "... forma pareen lekukotasunak garbiro erakusten du *mugatu / ez mugatu*en arteko bereizkuntza". (1983d:123).

[10] "*Pidgin/créole*i buruzko ezaguera bazuen Molièrek, baita XVII. mendean euskaldunekin honela mintzatzen ziren islandiarrek ere". (1985a:113).

[11] "Nik entzuna nuen, sinista zazue, *topic / comment (thema / rhema)* eta gisa horretakoen izena". (1981c:152).

honenbestez, "osagarritasunaz"[12], hitzegin daitekeela dirudi eta, ez da harritzekoa, tasun edo ezaugarrien deizioak izanik, horrexetarako erabiltzen direlako, hain justu.

pertsona/ez pertsona[13], sinkronia/diakronia[14]

Beste blok lotzen dituena, testuan berariaz agertzen den singularrezko erabilera da[15].

Nabarmendu behar da, hemen ere "osagarritasunezko" harremana garbi ikusten dela. Lehen kasuan (pertsona/ez pertsona bikotean), arestiko *ez mugatu* kide guztizko duelako[16], eta bigarrenean, berriz, Saussure-ren antinomia sonatuetarikoa izaki, guztiz kontrako moduan ulertu behar deiako[17].

erdal-euskal (hiztegi), erdal-euskal (gehigarri), latin-euskara (hiztegi)

Egitura osoa paratzen da, bi osagai baino gehiagoko hitz elkartuetakoak direla adierazi nahirik[18] eta, batez ere, erdal-euskal bere hutsean nekez ulertuko litzatekeelako, hitzon amaierako hots-aldaketa dela kausa.

Alde horretatik, bitxia dirudi hots-aldaketa jasandako bi osagaiak elkarren ondoan paratzeak eta hirugarren kasuan ez bezala, hitzak osorik gordez, alegia, jokatzeak.

"Dvandva" motakoen hurrenkera aipatzen denean[19], erritmoarekin zerikusia duten alderdien ondoan, semantikoak ere gogoan hartzekoak direla esaten den arren, ez da hemengo gertakizunaren berri ematen.

---

[12]Coseriuk (1975) fonologiatik harturiko terminoez baliatuz, *oposición privativa* deituko lukeenaz. Ikus hitz bakunen atala.

[13]"Gauza bera gertatzen da, *pertsona/ez pertsona*-ri buruz, *haur* eta *ume*-rekin:...". (1986c:175).

[14]"Saussure-gandik datorkigu, Larresororen iritziz, *sinkronia/diakronia* delako bereizkuntza". (1972b4:98) (M).

[15]Hitz soilen atalean aztertuko *langue/parole* eta abarrez esanak berresan beharko liratekeela eta, hara igortzen dugu.

[16]Erdal aurrizkien ordainak ikustean argitu gura honezaz.

[17]Saussure-ren irakatsiek nolako aldakuntzak nozitu zituzten ikasleek papereratzean eta gerora estrukturalismoan aipaturiko dikotomia honi (eta besteri) eginiko ukituak albo batera utziko ditugu, Mitxelenaren testuaren mintzagaia baino geroagoko auziak dira eta.

[18]Han aztertuko da egitura osoa.
LEF-4 (1992:55) lanean, adibide hauxe (*erdal-euskal hiztegi*) irakur daiteke, hain zuzen ere, elkartu-mota honen hedabide urriaren salbuespenen artean.

[19]Jacobsen (1982).

Hiru kasuotan hurrenkera guztiz garrantzizkoa[20], erabakigarria da, hiztegiaren izaera definitzeraino, ezkerreko osagaia hizkuntza itzulgaia, eta bestea itzulia direnez gero.

. ar-emetasun

Bikote honek, hitz elkartuaren osagaien gramatika-kategoriari dagokion zerbait argitzea eskatzen du.

ar eta *eme* izenondo nahiz izen izan daitezke batetik[21], *-tasun* atzizkiak ez du debekurik izenari nahiz izenondoari lotzeko (eratorbidean erakutsi den bezala); honenbestez, zer dela eta izentzat jo?

Azkaratek, kolore-izenez gaineko "Dvandva" motako izenondo elkartu kopulatiboen izaera, gutxieneko kontuan, dudazkotzat jotzen duelarik, honako argudioa ematen du:

> Bada, azkenik, beste datu bat ere bi izenondo (edo gehiago) izenondo elkartua sortzeko elkartzen ote diren zalantzan jar erazten duena: izen elkartu kopulatiboez ari ginela esan dugu izen horiek, beste edozein izen bezala, eratorketan oinarri izan daitezkeela, *altamatu* edo *ama semegoa* bezalako adibideek erakusten duten bezala. Bi izenondo baino gehiagoko egitura hauek egiaz izenondo elkartu balira, beste edozein izenondok hartzen dituen atzizkiak onartu beharko lituzkete; hots, eratorketan oinarri izango lirateke. Baina esan al daiteke *eder-garbitasun*, edo *aundi-itsusikeria*? Ezetz esango genuke. (Azkarate 1990b:167).

Izen elkartuen osagaien arteko harremanez, berriz, esan daiteke azken kasu honetan ez beste guztietan *eta* juntagailua dela parafrasi bidez eman behar izanez gero erabili beharra. Aitzitik, ar-emetasun elkartua, badirudi egokiago dela *ala* juntagailuaz aldatzea[22].

Bereziki aipatu beharra dago sail honetan egoteko eskubiderik ba ote duen erabakitzeko orduan zalantza sortzen duen beste hitz elkartu bat:

. latin-erromaniko[23]

Izan ere, hitz elkartu osoaren erabilera bitxi xamarra da, singularrean erabili baitu,

---

[20] Hau dela eta, "Dvandvek" azaugarri duten truka-erraztasunaren kontrakoak al lirateke? Bestetik, ordena finko horrek berak ez al ditu "Bilbo-Donostia autobidea" eta antzekoekin lotzen?

[21] *HLEH*: "ar. izond. eta iz."; "eme. izond. eta iz."

[22] "Eta ez dirudi, gainera, "galdu" beharreko juntagailua eta denik beti: askotan hurbilago sentitzen da, oinarriko perpaus-eskeman edo (agian ala) juntagailua". (*LEF-1* 1987:157).

[23] "Ez ditugu bi iturburu baizik, "euskal hitz garbiak" –hots, bestetariko etorkia inork oraindik igerri ez dienak– kenduz geroz: erdaretatikoak (latin-erromanikoaren bitartez azal daitezkeenak, batipat) eta euskal hitz moldatuak, Etxeberri Sarakoak zioenez". (1964c:94).

"Dvandva" motako hitz elkartuen arrunteko moduan ez bezala, alegia:

> izen sintagma mugatu bateko ardatza izen elkartu kopulatiboa denean, izen sintagmak plurala izan beharko du, *ama-semeak* (...) Ezin da esan **soro-baratza landu du* edo **ama-semea etorri da* bezalakorik. Kontrako ekintzak jasotzen dituzten partizipioak, likidoa adierazten duten izenak edota metalak bezalako sustantziak adierazten dituztenak elkartzen direnean, ordea, W. Jacobsen-ek (1982:384) dioenez ez du izen sintagmak plurala izan beharrik: *joan-etorria zaldiz egin du* esaten bait da. (Azkarate 1990b:172).

Jacobson-ek aipatzen dituen kasuetarikoa ere ez denez gero, argi eske, beste norabait begiak irauli behar direla dirudi.

Bi azalpen-modu aurkez daitezke: edo Mitxelenari oraingo honetan singularra oharkabean itzuri zaio, *lapsus* bat alegia, edo bihurri xamarra dirudien arren, beste honakoa.

Mitxelenak idatzia du hizkuntzen bilakaera gizakionarekin berdindu dutenen iritzien kontra[24]. Oin-oharrean jasoriko iritzietan sostengatuz, ba al du bururik singularra nahita erabili duela pentsatzeak, latina eta ondorenak azken buruan gauza bera zirela argiago gera zedin?

Azalpen honen onespenak dakarren ondorioa da orduan sail honetatik atera eta:

- edo Gehiketa motara eraman, ezaugarri duen erreferente bakarraren bi alderdiak bilduak dituela pentsatzen duelako.
- edo tautologikotzat jo *latin* eta *erromaniko* izaki beraren bi deizio gisa hartuz.

---

[24] Luze joko duten adibide bi azalpenaren irozgarri:

"Jendeak, behintzat, iritzi okerra izaten du honetaz. Neronek ere izana dut, baina neure iritzi aldaketa jakinarazten dizuet, eta ez neronek asmatua delako, beste zenbaitek esan duelako baizik. Ama eta haurraren artean momentu batean etendura fisikoa gertatzen da bien artean. Zerbait ebakitzen dela edo uste dut eta berezketa osoa izaten da. Bi izaki bizi dira. Ama ez da hiltzen umea bizi dadin, biek jarraitzen dute bizirik.

Hizkuntzarekin, latinarekin eta hizkuntza erromanikoekin, berriz, ez dugu honelakorik. Egin dezagun kontu esate baterako lehenbiziko mendean Avilako eskualdean latinez baizik ez zela egiten (...) Eta, Avilakoek, goiko edo beheko arrotzekin nahasten ez ziren heinean, beti, hizkuntza berean mintzatzen zirela uste zuten, ondorengoei erakusten zieten hizkera berek erabiltzen zuten berbera zelakoan, gurasoengandik ikasi zuten bera, alegia. Baina gurasoen eta ondorengoen hizkera sekula ez bata berdin izaten, berezkuntza horiek denboraren buruan pilatzen direnean handiak gertatzen dira". (1972b2:43,44).

"No es que las lenguas románicas, empezando por el portugués a occidente y acabando por el rumano a oriente, si se prescinde de la expansión colonial, sean hijas, nietas o descendientes más remotas del latín: son, desde el punto de vista de la continuidad histórica, latín puro y simple, hablado hoy en este o en el otro país. Nunca, y no hablo de gentes aculturadas, han pensado que enseñaban a sus hijos una lengua distinta de la que ellos hablaban; tampoco han creído jamás los hijos que la lengua que ellos usaban era diferente (salvo en algún que otro detalle «carrocil») de la que habían aprendido de sus padres. La lengua, esa «lengua histórica» para emplear el término de Coseriu, ha cambiado (...).

Lo único que puedo decir a estos agoreros (...) es que en este momento estoy hablando, aunque acaso no debiera, latín: un latín un tanto peculiar desde el punto de vista ciceroniano, hablado en 1981 y aquí, en este país que sigue, hasta ahora romanizándose, aunque el proceso empezado hace más de dos mil años no acabe de cerrarse". (1981i, *LH*.89,90).

16.A.1.A.2. Izenondoa + Izenondoa

bizidun/bizigabe, mugatu/ez mugatu

Azalpena arestian emana doa.

16.A.1.A.3. Aditzoina/partizipioa + Partizipioa

harreman, hartu-eman

16.A.1.A.4. Adizlaguna + Adizlaguna[25]

gora-behera

Mota honetan sartzekoa bide litzatekeen gainbeherak ez du hemen toki erosorik. Izan ere, eskuinaldeko osagaia adizlaguna bada ere, ez da itxura horretan ageri lehen osagaia, ez du eta inolako markarik azalean. Alabaina, badirudi dagokion irakurmodua 'gainetik behera' edo antzeko zerbait dela.

Ez dugu asmatzen zein ote daitekeen kokalekurik egokiena honentzat, ez hemen, ez *Bilbo-Donostia autobidea* gisako aposizio berriek bildu ohi dituzten elkartuetan ez baitiogu paralekurik ikusten.

16.A.1.A.5. Galdetzailea + Galdetzailea

zer nolako[26]

16.A.1.A.6. Aditzondo elkartuak[27]

bai-ez(ko)

---

[25]Hemen 4. eta 5. motetan bereziak Azkaratek (1990b:166) batean biltzen ditu:

"Elkarketaren kategoria gramatikala kontutan harturik esplikatzen zailagoak diren *gora berak, horrat-hunatcac, zer-nolak* (...) hots, azken batean, adizlagunez edota bi galdetzailez osatutako izen elkartuak".

LEF-1-ek (1987:171,172) "Adizlagun- eta aditzondo-dvandvak" izendapenean biltzen ditu era honetakoak.

[26]"Galdekari-dvandvak" sailean:

"Aspaldidanik erabiltzen diren *noiz-nongo, zer-nola(ko)*,... modukoetan ohargarria da gehxenak *-ko* morfemaz hornidurik agertu ohi direla". (*LEF-1* 1987:175).

[27]Azkarateren (1990b:168) terminologiari jarraikiz.

Sail honetako izen ez den hitz elkartu bakarra.

Izenlaguna izanagatik, azterlanaren atal honetan ere kokatu da, hitz-elkarketa mota hau errainurik gabe gera ez zedin.

Adierari dagokionez, "bai ala ezko" parafrasia egoki dakiokeela dirudi[28], osorik emanda, "baiezko ala ezezko".

Bitxi xamar gertatzen da elkarketa, isilpean geratzen diren elementuei begira. Izan ere, elkartuak osorik *-ko* izenlagun-sortzailea azken muturrean bakarrik hartzea usu duen arren, hemen "baiko + ezko" egitura batean ez ote den pentsatu behar edo susma daiteke, eta ez ohikoagoa bide den "baiezko ala ezezko" lehen paratuan.

Hor dago, bestetik, erabili duen *bai-ala-ezko*[29] ere.

Ez dugu uste gertakizun beraren erakusgarria denik, azken kasu honetan "bai ala ez" egiturari esaldi-taxua[30] antzeman dakioke eta, ez dirudi juntagailuaren aurreko *bai* horrek onartuko lukeenik[31] *-(ez)ko*-rik esanahian ondoriorik ekarri gabe. Hau da, lehengo kasuan perpausak "baiezkoak ala ezezkoak" baina ez aldi berean biak, aditzen den bitartean, beste honetan, aldiz, galdera osoa da "bai ala ez"-ko motakoa, galdetzaileez osatuei kontrajarriz.

16.A.1.B. KOORDINAZIOZKOAK (GEHIKETA)[32]

galiziar-portuges (Iz.), idazle-hizlari, indi(-)europar[33]

Elkarte-mota honen berezitasuna gizaki nahiz gauzaki berazko bi alderdi adieraztean datza. Hortaz, bi izaki beregainen elkarketa ez baina izaki bakar baten bi alderdien batuketatzat joak dira arestian zehaztuak.

Azkaratek[34] ikusia hau da, bai osagaien bai elkartu osoaren kategoria sarrienik

---

[28] "Esaldiaren bai-ezko nolakotasuna edo modalitatea, R. de Rijk-ek esaten duen bezala, aditzera emanaren egibalioari hurbiltzen zaion zer hori. Ezezkoa adierazteko, *ez (ezin)* darabilgu; *be-*, berriz, 1. kasuan ez bezala, aditza bakuna denean". (1981c:147).

Testuinguru zabal xamarra jaso dugu susma zitekeen *baiezkoren* grafi errakuntzaren arrastorik ez dagoela argi gera dadin.

[29] "Badira hor, guztira edo guztiara, ehunka galdera (500-en bat, begiz jota) eta, nahiz horien artean galdera osoak (bai-ala-ezkoak) gutxienak diren, ehunen bat inguru bilduko genituzke". (1981c:163).

[30] *nor gehiagoka* eta antzekoen moduan?

[31] Hau dela eta, Azkarateren (1990b:373hh) "esaldi-hitzen" artekotzat joko genuke.

[32] *LEF-1* (1987:77), Azkarate (1990b:174-178, 1991:117), *LEF-4* (1992:848-6).

[33] Honen moldeez, ikus argitaraldiezko itsaskina.

[34] "1. Hitz elkartuaren kategoria gramatikalari dagokionez, adibide guztiak izenak dira, nahiz espreski esan ez, beste hizkuntzetako adibideetan ere garbi ikusi ahal izan denez. 2. Osagaien kategoria gramatikala ere izena da". (Azkarate 1990b:177).

izena izatea–, osoki beteko luke hemengo batek (idazle-hiztarik, alegia); *-le* eta *-lari* 'Egilea' adierako atzizki izen-sortzaileak agertzea, lekuko.

Harrigarri xamar gerta daitezkeenak galiziar-portuges eta indi(-)europar dira, *-(t)ar* atzizkiak, izenondoak sortu ohi baititu. Bestetan ere aipatu den izen eta izenondoaren arteko muga labainaren[35] auziaz gain, kontutan hartu beharrekoa litzateke hizkuntzen izenak –eratorbideazko atalean ikusi bezala–, maiz aski bat datozela itxuran hizkuntza horien hiztunen deiziorako izenondo (eta izen)ekin.

Elkartuen adiera-balioari dagokionez honakoa zehatz daiteke:

. idazle-hiziari[36]

Elkarketa-mota honek ezaugarri duen moduan, lagun berak bil ditzake *idazle* eta *hizlari* izatea; bakartasun hori mugatzaileak eta deklinabide-atzizkiak (*-(a)ri*-k) eta komunztaturik doan aditzak (*zaio*-k) garbi erakusten dute; "Dvandva" motakoa balitz gaitzago lukeena, bestalde[37].

Pertsona adierazten duten izenak izaki, gizabanako horrek bete ditzakeen zereginak direla esan daiteke. Ez zaio inolako menpekotasunik antzematen osagaien arteko harremanari, ez aldiaren ardatzari, ez lehentasunari dagokionez.

Bestalde, esaterik ez dagoela dirudi idazle-hiztarik sintetikoki adieraziriko lanbide edo antzeko ezer berri aditzera ematen duenik[38].

. galiziar-portuges

Esana doan bezala, hizkuntza baten deizioa adierazten duen izena da.

Hitz elkartu honek alderdi bat baino gehiago du aipagarri.

Batetik, arestikoak bezala, erreferente bakarra du baina lehengoak ez bezalako adiera duela pentsa daiteke. Izan ere, hizkuntza horren izaera dela eta, irakurrera sintetikotik gertuago ikus daiteke honako hau: 'galiziarretik zerbait eta portugesetik beste zerbait baina bete-betean bien batuketa hutsa ez den hirugarren zera' adieraziko lukeena, alegia.

Bestetik, hemen axaletik besterik aipatuko ez den kontua litzateke, erator-atzizkiaren

---

[35] Oroi puntu honezaz behin eta birritan esanak, bereziki eratorbidean atzizki honi eskainian.

[36] "Horrelakoak gertatu ohi ziren, besteak beste, ez entzuleen laguntza eta mesedetan, idazle-hizlariari erdara politago, jantziago, dotoreago iruditzen zitzaiolako baizik". (1984b:42).

[37] Jacobsen (1982:384) eta Azkarate (1990b:172).

[38] Alde honetatik, beraz, Azkaratek (1990b:176) jasotzen dituen *singer-actress, pianist-composer* edo *producer-director*-en gisakoa litzateke.

hautaera, eratorpena jorratzean ikusi bezala[39]: *galiziar* ("galaico", "gallego") baina *portuges* ("portugués").

Azken puntu honetan sustraituz, erka daiteke mota berekotzat hartu den indi(-)europar[40] hitz elkartuarekin.

Atzizki bera baliatuagatik, atzizkiaren kokalekua bestelakoa dute biok: batean elkarketaren lehen osagaiari lotu zaion bitartean (*galiziar*), bestean, bigarrenari uztartu zaiola (*indi(a) + europar*) ala elkartu osoari jantzi zaiola (*indieuropa + -(t)ar*) pentsa daiteke.

Zer ikusirik ote erdal atzizkien kokalekuak eta euskarari erdal *-aico* atzizkia *-es*[41] atzizkia baino gordinskoago gertatzeak?

Azken aldiotako seinaletzat daukaten elkarketa-mota honen ugariaren Mitxelenaganako oihartzun urria nabarmendu behar litzateke, hiru adibide besterik ez baititugu aurkitu.

16.A.1.C. ATRIBUTU ELKARTEAK[42]

Elkarte-mota honen berezitasuna, bi osagaiok gramatika-kategoria berekoak izan arren, bata determinatzailetzat eta bestea determinatutzat jo beharrean datza.

Gehiketa (edo Koordinazio) eta Atributu elkarketa moten artean erabakitzeak dakartzan zailtasunei[43], zenbaitetan, hitz batzuek balizko kokagunea, Aposizio[44] eta "Subsumptive" sailetan, izan ote dezaketen ezpaia erantsi behar zaie.

. A den B

aita-hizkuntza, ama-hizkuntza[45], giltzarri, mallegu-hitz, mugarri, muin-esaldi(?), oinarri, zedarri

---

[39]Ikus bereziki, hizkuntzen deizioez esanak.

[40]Ondo-ondoan duen *indo(-)europar* eratorpenean besterik ez da kokatu, lehen osagaiak jasan duen hitz ikasien bidetikako aldakuntza ez baita euskal eraketaren harikotzat jo, hitz bakunen atalean esanaren ildotik.

[41]Ikus besteak beste Mitxelenaren: *albaries, aragones, gales, holandes, irlandes, japones, leones, neerlandes...*

[42]*LEF-1* (1987:77), Azkarate (1990b:178, 1991:117), *LEF-3* (1991:75hh). *LEF-4*-k, mota hau eta ikusi berri den koordinatuena atal berean kokatzen ditu, bi azpisail eginez, halaz ere.

[43]Azkarate (1990b:186), *LEF-3* (1991:75hh), *LEF-4* (1992:84).

[44]*LEF-3* (1991:78).

[45]Hitz honen mamia arbuiatzen duelarik ere. Ik. hitz bakunen atala.

Honetan eta aurrekoan (*aita-hizkuntzan*, alegia), Mitxelenaren aipuan esana dagoen bezala ("metafora ez da batere egokia". (1972b4:43)), harreman metaforikoa legoke, Azkarate (1990b:181hh).

georgiar eta armeniar hizkuntza, giputz hizkera, indoeuropar hizkuntza, nafar-hizkera[46]

Sail honetakoen osagaietan antzeman daiteke determinatzailearen eginkizuna ezkerraldeko izenak beteko lukeela (izenondo bailitzan), eta determinatuarena, berriz, eskuin aldekoak.

. (georgiar eta) armeniar hizkuntza[47], indoeuropar hizkuntza[48], nafar hizkera

Zalantza egitekoa da *-(t)ar* atzizkidun izenondoak bete dezakeen izenaren ezkerreko tokian egote soila den hemen gertatzen dena ala hizkuntzaren deizioa den izenaren aitzinean adierazia.

Indoeuropar hizkuntzari begiratuz, ikus daiteke, bestetan ere, *indoeuropar* izen gisa badarabilela –*germaniar, georgiar, lapurtar* eta abar bezala[49]– batetik, eta erabiltzen ere duela (sarriago gainera) *hizkuntza indoeuropar*, bestetik.

Edozein kasutan, nabari daitekeena da, hemen jaso den erabilera honetan, erreferente bakarra duen hizkuntza baten deizioa den bitartean (horrexek makurtu gaitu sail honetan sartzera), *hizkuntza indoeuropar* darabilenean, oro har (behin bai baitarabil beste hurrenkera adiera honezaz), hizkuntz familia bateko hizkuntzen izendapenari lotzenago zaiola, pluralezko erabilerak erakusten duen bezala.

. *B den A*

aditz erazle(?), artikulu mugatzaile(?), erro konsonante, hitz-estalki, hizkuntza gidari, izen sustantibo, kasu gehigarri, lumero pare

Determinatua, hemen, lehen osagaia da, determinatzailea, bigarrena.

Azkarateren[50] arabera, bigarren mota hau litzateke euskaraz ohikoena. LEF batzordearen irizpideek ere, bestalde, hemen euskarria luketela dirudi:

---

[46] Hauek beherago ere, zalantzaz beterik, kokatuko dira. Hemengo kokalekua: 'armeniarra den hizkuntza' eta abar aditzean sustraitzen da.

[47] "Inork Europako hizkuntzen antzinako arrastoak bilatu nahi baldin baditu laster ikusiko du georgiar eta armeniar hizkuntzez oso aspaldikoak direla Biblia itzulpenak, eta denak, noski, ekialdekoak". (1972b1:34).
Bi osagai baino gehiagoko hitz elkartuen sailean berez ikusiko da.

[48] "Erromantikoen ustetan antzinako indoeuropar hizkuntza hondatzetik eta galtzetik sortu dira egungo eguneko familia horretako hizkuntzak". (1972b5:114).

[49] Ikus erator-atzizkien atalean honezaz esana.

[50] (1990b:186).

bereziki 'B den A' motako Atributu elkarteak aski ugariak dira. Hizkuntza teknikoan ere aurkitzen ditugu halako sorketak. (*LEF-3* 1991:81).

. muin-esaldi hitz elkartuari galdera-ikurra alboratzea jaso ditzakeen irakurreren baitakoa da.

'muin den esaldi' irakurrerak atribuziozko "A den B" motan sartzera badarama ere, daitezkeen esaldi-moten artekotzat *muin*-mota eta ez *baldintza* edo *errelatibo* edo dena delakoa bada aditzera eman nahi dena, beharbada, "Subsumptive" elkartetzat jotzera makurtuko luke[51] bigarren irakurrera honek.

adit eraz!e, artikulu mugatzaile[52] hitzen eskuineko osagaiak – determinatzaileak, alegia –, sorrarazten du zalantza; izan ere, *-le, -tzaile* (eta 'Egilea' adierazteko *-ari, -gile*...) atzizkidunak izen- eta izenondo-izaeraren arteko muga lausotuxe du, esana doan bezala.

16.A.1.D. APOSIZIOAK[53]

abc-ordena(?), behaviorism teoria(?), deletion itxuraldatze(?), genitibo izengoiti, guaraní hizkuntza(?), hopi hizkuntza(?), IS Nor, NEG sinbolo[54], nork-kasu, silaba muta cum liquida, worora hizkuntza(?)

Mota honen eta inguruan dituen "Subsumptive" eta Atributuen arteko muga garbi eza azpimarratu behar da berriz ere (paraturiko galdera-markak seinale). Euskal eta erdal bibliografietan irakur daitezkeenek sarritan uzten dituzte debekuak azalean.

Aposizioa eta "Subsumptive" mota bereizteko erreferente bakarra ala sail osoa izatean kokatzen bada ere[55], ez dugu sailkatzean beti argi ikusi kasuotan zeinen alde erabaki behar den.

Oro har, hemen kokatu dira determinatzailearen izena izen arruntetik baino berezitik gertuago sumatu uste direnak.

. silaba muta cum liquida[56]

---

[51] "Zenbait kasutan, bigarren osagai atributuak espezies adierazten duela dirudi, normalean aurkitzen dugun 'Species-Genus' hurrenkera hautsiz". (Azkarate 1990b:190).
Mota honetakotzat joz gero, hemengoa 'Species-Genus' hurrenkerari jarraikiko litzaioke.

[52] "Artikulu mugatzailea, beraz, ez da <axaleko> egituran ageri (*tácito* dago)". (1971e:107).

[53] *EGLU-I* (1985:306), *LEF-1* (1987:79), Azkarate (1990b:190, 1991:119), *LEF-3* (1991:97), *LEF-4* (1992:89-96).

[54] Hau, *LEF-4*-ren arabera (1992:94), "B eredua" motako aposizio-klase berezia.

[55] "Aposizio elkarteak, beraz, zerbait 'bakarra' adierazten du; hori du berezitasun". (*LEF-3* 1991:91).

[56] "Horrela etxeko zitezkeen silaba *muta cum liquida* direlakoekin hasten zenean latinez, hots, *pluma*-tik *lume* edo **cleta*-tik *gereta* sortu zenean..". (1979g:180).

Seguruenik ohikoago bide den hurrenkera apurturik dago honetan. *LEF-3*-n esaten denarekin zerikusia ote?

> Hizkuntza teknikoetako adibide ugariek erakusten duten erabateko emankortasunaz gain, hurrenkera dela eta sortzen diren auziak dira hemen aipatzekoak. Euskaraz erdal terminoak egokitzean ez bait dugu jakiten askotan zein hizkunza hartu behar dugun eredu, 'mugatzailea + mugakizuna' hurrenkera duena (ingelesa edo alemana) ala 'mugakizuna + mugatzailea' hurrenkerakoa (frantsesa edo espainiera). (*LEF-3* 1991:98).

Ala batzordeak lan horretan bertan testuratzen duen Axularren jokabidetik jo du Mitxelenak?

Gisa berekotzat eduki daiteke IS *nor*, determinatzailea eskuinean daramana. Kasu honetan, *IS* laburdura izateak izan dezake hurrenkeran eragina, erdaretan ere modu honetan adierazteak areagotua, beharbada.

16.A.1.E. TAUTOLOGIAK[57]

xede-helburu, latin-erromaniko(?)

A. Tovar-ek (1959) *geminados semánticos*[58] deiturikoen ordezkariak.

Eskuztaturiko euskal hiztegiek eskaini hitz horien azalpen-itzulpenek ez dute Tovar-ek ahotan duen euskalki-ugaritasunean sustraituriko arrazoia egiaztatzeko bide argiegirik ematen[59]. Litekeena da idaztankerari atxikiago egotea errepikapenaren eragilea.

---

[57] Azkarate (1990b:195, 1991:119), *LEF-4* (1992:87,88).

[58] Azkarategandik (1990b:195) hartua.

[59] Hiru hiztegirenak jasoko ditugu:
. **helburu**: *DVEF*: "(BN) fin, objeto final"
DBF: "c. fin, terme auquel on tend"
HLEH: "ik. xede, jomuga"
. **xede**: *DVEF*: "1º (BN) raya 2º (BN, S) límite, linde. 3º (BN, L, S) objeto material o moral, designio, miras, fin, intención"
DBF: "c. 1º borne, limite, terme. 2º but, terme recherché. 3º objet, chose qui s'offre au regard, à l'esprit. 4º sujet. 5º résolution, détermination. 6º intention, dessein, but, fin. 7º motif. 8º règlement, règle, statut. 9º *N.* (A.)raie que le jouer de quilles ne doit pas dépasser. 10º *S. N.* (A.) limite, démarcation. 11º *S., N.* (H.) bouchon, au jeu de bouchons. [Cf. lat. *sedem*.]"

16.A.1.F. SUBSUMPTIVE[60]

aginte modu(?), aho-hizkera, aho-mintzaera, bailara eta auzo hizkera[61], baldintz perpaus, errelatibo itxuraldatze(?), galtzizen(?), giputz hizkera(?)[62], herri(-)hizkera, herri hizkuntza, herri mintzaira, humanista hazibide, informazio teoria, iraniar hizkuntza(?), jakite (eta teknika) hizkuntza[63], kriolo hizkuntza(?), latin-kume, leku izen(?)[64], lirika hizkuntza, literatur hizkera, matematika hizkuntza, mozarabe dialektu(?)[65], multzo-teoria(?), nafar hizkera[66](?), pertsona izen(?), polizi-novela, sortze lan, tresna-fonetika, zabalkunde lan, zenbaki sistema(?), zenbaki teoria(?)

Sailaren osaketazko zalantzak ez dira berriz azalerako baina bai erantsiko kopulatiboen arteko mota zehatza erabakitzeak sortzen dituen ezpaien ondoan, arestian bilduotan, menpekotasunezkotzat jo daitekeenik ere badela, seguruenik.

Honela, multzo-teoria, daitezkeen teorietariko bat izanagatik, ez bide du ezerk eragozten menpekotasunezko hitz elkartutzat jo eta 'multzoez teoria zertu' bezalako irakurrera ematea.

hizkera, hizkuntza, itxuraldatze, lan, mintzaera, mintzaira, modu, perpaus... hizkuntzalaritzako terminologian 'Genero'-tzat jo ahal izatean datza kokatuak sail honetan sartzea, bakoitzak aurretik daraman izenak determinatuko lukeen 'Espeziea' zehaztuz.

Ez zaigu, ordea, ezinezko begitantzen, 'nafarrek, giputzek... egiten duten hizkera' ulermodua eta, hartara, hauek ere menpekotasunezkoen artean balukete kokalekua[67].

. aginte modu

Hiztegian *modu*ren azpian jasotzen den beste *aginte modu* ez bezalakoa da. Bien arteko aldea, hau koordinaziozkoa '"aginte" motatako modua', nolabait esan, eta bestea

---

[60] *LEF-1* (1987:68), Azkarate (1990b:196, 1991:119).

[61] Bi osagaitik gorako hitz elkartuak aztertzean berriz hartuko dena.

[62] Lehen atributuzkoen artean sartua, beheragoko *nafar-hizkera*rekin batean.

[63] Aditz-izena lehen osagaia (mugatzailea) dutenekin batean ikusiko da, beheraxeagoko egoera berekoak legez.

[64] *izen* mugakizuna duten hemengo biek "izena + izena" menpekotasunezko elkartuen artean ere kokatuko dira, bi irakurrerak onar ditzaketelakoan: hemengoa, *izen* dentura orotarikoa eta *leku* edo *pertsona* orobatasun horren barneko mota bat, nahiz, 'Jabetza' harremanaren araberako 'lekuak izena du', 'pertsonak izena du'. Aukeran, lehen irakurrera gogobeteago egiten zaigu.

[65] "Dakizuenez, IX eta X mendeetan Espainiako zenbait lekutan, arabea zen hizkuntza nagusia, baina ez bakarra mozarabe dialektuak ere bai baitziren, eta hauek erromanikoak izanagatik, ipar aldekoengandik arras bereziak ziren". (1972b2:47).

[66] (1968e:104).

[67] "Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Iturbura'" ala 'Jabetza' motan?

menpekotasunezkoa, *modu* mugakizuna eta *aginte* mugatzaileak osatua izatean datza[68].

. gaitzizen

Hemen sartu beharko al litzateke? ala "Adizlagun-Subjektu" motako "Absolutua - Aditzondoa - zertu 'Modua' ", *zehar* lehen osagaia duen *zehar esakuntza*-ekin batean?

. giputz hizkera, natar hizkera

Kasu biok, gertakari beraren adierazgarriak dira: lehen osagaia izenondoa ala izena al litzateke? Aurrerago aipatuko diren humanista hazibide eta mozarabe dialektuekin batzen dituen gertakizun berbera, alegia[69].

Bestetik, azpimarkatzekoa da, euskalkien izendapenotan begiz jotako eraikuntza (egun, apika, usuago den) *-era* gabea[70].

. iraniar hizkuntza, kriollo hizkuntza

Ez dagokiolako hizkuntza bakar eta zehatz bati, mota baten izendapen orotarikoari baizik kokatu da hemen eta ez Atributuzkoen artean[71].

. latin kume

Azkarateren[72] sailkapenaren arabera hemen kokatua.

. mozarabe dialektu

Hurrenkera dela eta, bi aukera daudela pentsa daiteke, determinatzailea izena ala izenondoa izatea, alegia.

mozarabe izenondoa dela pentsatuz gero, euskal ohiko hurrenkera apurtzen duela

---

[68]"Badu horrek axola, historiaren ur lasterrak daraman zotza baita hizkuntza, giza ohiturak, legeak, pentsa moldeak, aginte moduak eta gainerakoak bezala". (1972b4:98) (M).

[69]Eta *-(t)ar* atzizkidunekin ere bai, esana doan bezala. *EGLU-I* (1985:243,244).

[70]*Euskal Herria*-ren bidetik?

[71]"Aldaz aurretik, gutxitan izan ohi den gertakari bakan eta jakingarri bat aipatuko dugu: kriollo hizkuntzena. Hizkuntza hauek oso giro berezian sortu dira". (1972b2:45).
"Hona beda kriollo hizkuntzen sorrera". (1972b2:46).
"Noiz edo noiz zerbait bildu zuten noraezean, hala nola Benvenistek iraniar hizkuntzetan edo Martinet-ek bere jaioterrian". (1985a:111).

[72](1990b:197).

esan daiteke. Halarik ere, ez zaio muzin egin behar ezkerraldeko osagaiaren izaerari, izan ere, erdal izenondoa da eta kasu honetan zilegi bide da izen-sintagmaren hurrenkera usua apurtzea[73]. Honelakotzat hartuz, bada, "Subsumptive" motak onartzen duen "izenondo + izena" eraikuntzaren aurrean gaudela esan eta beste gabe hemen luke kokalekua.

Izentzat joz gero, berriz, sail honezaz gain, beste bi aukera ere egon daitezkeela dirudi, aposiziotzat jo, beste gabe, eta orduan mozarabe dialektuen izena zehaztuko luke ala atribuziozkotzat jo eta "A den B" motakoen artean kokatu?

Azalmodu bera proposatuko genuke humanista hazibide hitz elkartuarentzat eta lehen aipaturiko euskalkien deizioentzat.

. sortze lan, zabalkunde lan

Hemengo *lan* honek[74] 'idazlan', 'obra' esan nahi du, ez 'iharduna' edo 'ariketa'. Osagai determinatuaren mota zehaztuko lukete *sortze*k eta *zabalkunde*k, hurrenez hurren.

16.A.2. MENPEKOTASUNEZKOAK

16.A.2.A. IZENA + IZENA

Aztergaian bildu diren menpekotasunezko hitz elkartuen barrutian sailik joriena osatzen dute era honetako izen elkartuok.

Azpisailetara biltzeko hemen erabiliko diren irizpideak, Azkaratek (1990b) argudiatu eta jorratuei jarraiki nahiko zaizkie, hiru motatako zehaztasunal eskainiz: osagaien arteko sintaxi-harremanak, semantikaren araberakoak eta topikalizatzearen (bestela esan, mintzagaiaren ingurukoen) ildokoak.

Bihoa aurretik, halaz ere, hemen aurkeztua ulerkera baten, ez daitekeen bakarraren (ezta, apika, zuzenenaren) araberakoa dela.

1. Subjektu-Objektu mota

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Egilea'

. izen biziduna + izen bizigabea

giza hizkuntza, giza lengoaia, giza mintza(-)bide, giza mintzaia, giza mintzamen, giza mintzo

---

[73] *EGLU-I* (1985:244).

[74] *lan* mugakizuntzat duten beste elkartuak menpekotasunezkoen artean aztertuko ditugu. Bereizkuntza bera egiten du *LEF-4*-k (1992:78,79).

'Egilea' zabal hartuz, *atsotz*[75] ere hemen koka daiteke, 'Iturburua'-ren azpian ere joan daitekeen arren.

giza lehen osagaia dutenak hemen biltzeko arrazoia, bestalde, *gizona* egiletzat[76] jotzean datza, egia den arren ondoren ikusiko den 'Jabetza' motan ere egon zitezkeela[77].

Osagai mugakizuna eratorria izan daiteke, ikusten den bezala.

- Hots-aldaketak

- *gizon* --> *giza*[78], zahar-itxurako elkartuen aldakuntza.
- *-o* + bokala --> *-o-t-*bokala, kontsonante epentetikoa txertatua: atsotitz.

. izen bizigabea + izen bizigabea

doinu-higidura, oinatz

Mugakizun eratorria: *-dura*.

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Jabetza'

. izen bizigabea + izen bizigabea

aditz-aldi[79], aditz forma, aditz lagun[80], aditz morfologia, aho-itxitura, deklinabide atzizki, dialektu forma, fonema egitura, fonetika idazkera, fonologia egitura, galde-ezaugarri, gramatika-atzizki, gramatika egitura, gramatika-forma, gramatika kategoria, hizkuntz ahaidetasun, hizkuntz egitura, hizkuntz-elementu, hizkuntz-muga, hizkuntza ahaikoa, hizkuntza zedarri, izen-atzizki, izen lagun[81].

---

[75]-Badakigu, esanez gainera, *atsotitza* XVII. mendeko hitz "berria" dela (harako Santillana-ren ***refranes que dicen las viejas*** *tras el fuego*-ren, eta honen gisakoen oihartzuna dakarkiguna, halaz ere". (1985b:186). (Beltz. gurea).

Euskaltzaindiaren (1976) zerrendan, *errefrau* eta *esaera* zaharren ondoan landatua.

[76]Hizkuntzaren 'Egilea' gizakiari atortzeak dakartzakeen inplikazio filosofikoei eta besteri muzin eginez, noski.

[77]Azkaratek (1990b:215) *giza hizkera* eta *giza hizkuntza* kokatu moduan.

[78]Ikus *gizaki* eratorpenazko atalean.

[79]Eratorpenaren eta elkarketaren artekotzat hartua.

[80]Goenagak (1991:552), Orixeren gramatika-lanetan nabarmentzen dituen hitz berezituen artekoa:
"Garbi dagoena, hori bai, da Orixek erabili zituen hainbat gramatika-hitz oso egokiak direla. Hor ditugu, adibidez, bere "izenlagun", "izen-ondo" ('epitheton'), "aditzondo", "aditzlagun", "aditzjabe" (='sujeto'); "laguntzaile"; "mugagabe" (=infinitivo)...".
Euskaltzaindiak (1975) *aditzlagun* ezarria zuen.

[81]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoa.

izenordain, izenorde[82], izkribu-aldaera, leku izen(?)[83], liburu izen, testuinguru

. izen biziduna + izen bizigabea

pertsona izen(?)

Mugakizuna eratorria (*-garri, -ko(a), -men, -tasun, -tura*;...) nahiz elkartua (*zedarri*) izan daiteke; halaber mugatzailea (*-kuntza, deklinabide*).

- Hots-aldaketak

. *-a* berezkoa duten lehen osagaietan bi joerak atzi daitezke:

-a --> Ø: *hizkuntz-*;
-a --> *-a: fonema, fonetika, fonologia, gramatika, hizkuntza, pertsona.*

-a gal ez zezakeen *fonema* alde batera utzirik, alderaketak erakusten du, *hizkuntz-* lau hitz elkartuen lehen osagaia den bitartean *hizkuntza* osorik, bitan erabili dela.

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Iturburua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

adimen gaitasun, arnas indar, gramatika tresna, gramatika zer, herri hitz(?), hitz kontu, hizkuntza auzi, hizkuntza kontu, hizkuntza problema, hiztegi kontu, kultur hitz(?), sudur-hots

Arestiko beste sail batean adierazi bezala, hitz elkartuek aldamenean galdera-ikurra eramateak irakurrera bat baino gehiago suma dakielakoan du iturburua. "Subsumptive" mota da, berriz ere, ezpaiaren sortzailea. Hemengo kokapena 'herriarengandik, herriak/kulturak hitza sortu' irakurrerari zor zaio.

---

[82] Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoa.
Bikotearen iturburuak:
izen(-)ordain: (1971e:108), (1981c:140,160,164).
izen(-)orde: (1968d:136,150).

[83] *izen* mugakizuna duten *leku* eta *pertsona* hitz elkartuak hemen aipatu arren, esana dagoen bezala, "Subsumptive" motan egokiago ikusten ditugu hemen baino. Ez horrela *liburu izen*, izen mota bat baino areago 'liburuak izena du' irakurrerari zuzenago irizten baitiogu.

. sudur-hots[84]

Ez dirudi txit bidezkoa denik lehen osagaiaren bigarrenarekiko semantika-lotura adierazteko 'Egilea' dutenen artean kokatzeak, honek 'sudurrak hotsa egin' adimodua eskatuko bailuke, hemen gertuago ikusten zaion 'sudurra sorburu duen hotsa'-ren ordez.

. gramatika tresna

Beste aditzeko modu hoberik ezean, tresnaren sorburutzat jo da gramatika[85].

- Hots-aldaketak

- *-a > Ø : arnas, kultur*
- *-a > -a: hizkuntza, gramatika*

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Eduk!a'

. izen bizigabea + izen bizigabea

bokal sinkopa, denbora sistema, dialektu ugaritasun, euskalki ugaritasun, fonetika bilakaera(?)[86], gramatika aldaketa(?)[87], gramatika barruti, gramatika tradizio, hitz pare, hizkuntz(a)(-)batasun, hizkuntz eredu, hizkuntz-eskualde, hizkuntz tipologia, hizkuntza barruti, hizkuntza sail[88], hots-

---

[84] "Ez erregelen eremua ez da berdina euskalki bateko eta bereko hizkeran ere. Zenbaitek erabat balio duela dirudi, hala nola gure artean sudur-hotsa darraionari berdintzen dionak". (1979g:175).

[85] "Artikulua, -a erakuslea artikulu bihurtua, ez da euskaraz <jatorrizko> gertaria: gehienen ustez, inguruko hizkuntzen paretsuan sortua, hazia eta hedatua izan da gurean gramatika tresna hori". (1983d:122).

[86] Estu hartuta, *fonetika* ez litzateke aldatzen den 'Edukia'? ('Gaia' egokiago?) *soinua* baizik, hau da, 'soinu bilakaera'-ri zuzen-zuzenean lotuko litzaiokeena. Nolanahi dela ere, testuinguruak eskaintzen duen irakurrera zabalago batek, beharbada, ez luke halako behaztoparik jarriko.

"Eraginok, jakina, ez zuten beti nondik norako berdina izango: babesle gotorrak dituen entzi zabalak dioenez, euskarak bere kutsua utzi du gaztelaniaren eta gaskoinaren fonetika bilakaeran, hizkunza erromanikoen familian duten berezitasunean". (1978a:29).

Jakitearen izena eta jakingaia beti zorrozki bereizten ez diren susmoa dugu. Ikus, aurrerago *linguistika fosil*ez dioguna edo aztertanaren sarreran *terminologia*ren erabilerei zegozkienak.

[87] Zalantzaz bada ere, arestiko hitz elkartuaren antzeko irakurrerak bultatu gaitu hemen kokatzera:

"Dena den, bietara hitz berriak gehitu beharra legoke, halaz ere hiztegia bakarrik ukitzen delarik, eta beraren zati bat bakarrik. Agian, gramatika aldaketa batzu ere behar lirateke [Jat. *lirake*], baina hauek ere axalekoak". (1972b5:114).

Uiertzen baitugu 'gramatika aldatzen da', 'gramatikak aldaketa zertu', lehenxeago aipatzen duen hiztegiaren aldakuntzaren parean. Guztiarekin ere, ez dugu ukatzen 'gramatikan aldaketa gertatu' bezalako irakurrera ere onar dezakeela.

[88] *sail*ek hemen 'barruti, eremu, esparru' esanahia luke. Mugatzaile beraz baino balio diferentez ('multzoa') moldaturiko beste hitz elkartuak beherago ikusiko dira.

korrespondentzia, linguistika eremu, paradigma aberastasun, teatro saio, zentzu eremu[89]

Mugatzaile eratorriak (*-ki, -kuntza*) eta mugakizun eratorri (*-tasun, -ti*) eta elkartuak (*eskualde*).

- Hots-aldaketak

. *-a* --> Ø: *hizkuntz-*

. *-a* --> *-a*: *gramatika, hizkuntza*

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Erkaketa'

ahuntz-erdara[90], asta-euskara, egiantz[91], xixtu hots

Lehen hirurak 'Jabetza' eta laugarrena 'Iturburua' azpisailetan koka ote daitezkeen susmoa izan daiteke[92].

. xixtu hotsek, lehengo *sudur hots*ek ez bezalako harreman semantikoak adierazten dituela pentsa daiteke. Ez dago 'Egilea' erlaziorik proposatzerik, hemen duen esanahia ('txistukari', 'sibilante') urratu gabe, ez baita 'xixtuak hotsa zertu', ezta 'xixtuz hotsa zertu' –"Adizlagun-Subjektu 'Gaia' " egiturapean bilduko litzatekeena–, 'xixtuaren bezalako hotsa zertu' baizik.

Mugakizun eratorria (*-(k)ara*[93]).

- Hots-aldaketak

. *-o* --> *-a: asto* --> *asta*[94]

---

[89]Geure egiten ditugu hitzok:
"Guztiak interpreta daitezke 'Adizlagun-Sujetu', 'Absolutua- -z -zertu', 'Gaia' bezala". (Azkarate 1990b:220).

[90]*LEF*-3-k (1991:80) atribuziozkoen sailean kokatzen du.

[91]Azkaratek (1990b:80) atribuziozkoen sailean kokatzen du.

[92]'Erkaketa' erlazioaren barneko sailkapenaz: Azkarate (1990b:223,224).

[93]Oroi eratorpenean honezaz esanak.

[94]Oroi lehengo *gizo(n)* --> *gizaj*.

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Zatia'

. izen bizidun + izen bizigabea

lagun-arte(ko)

. izen bizigabea + izen bizigabea

aditzerro, aho-sapai(ko)[95], atalaurre, [atalburuko][96], azentu gailur, bokal-aitzin(eko), bikal-gibel(eko), burmuin[97], burumuin[98], esaldi-azken, [(histori aurreko]) historia aurreko], hitzaurre, hitz azken, hitz-barne, hitz-barru, hitz bukaera, hitz-buru, hitz hasiera, hitz-haste, hitz oinarri, hizkuntza barne(ko), kurburu, izenburu, [izen aldameneko], izen-oin, izen-ondo, [izen-ondoko][99], kontsonante ondo(ko), logika aurre(ko), mihi-mutur, (mihingain-mutur]]), mingain-mutur[100], silaba bukaera, silaba-haste

Azpisail honetan kokatuko lirateke mugakizunek osotasun baten zatia adierazten dutenez gain (*azken, buru, erro, gailur, sapai...)*, leku-denbora balioak dituzten eta zenbait ikertzailek posposizioen artekotzat jo dituzten: *aitzin, arte, aurre, barne, gain, gibel* eta antzekoen erabilera batzuez eratuak[101].

Azkaratek[102] posposizioak eta benetako hitz elkartuak bereizteko proposatzen dituen baldintzak, aipaturiko leku-denborazko mugakizunez osatuek betetzen dituztela esan badaiteke ere, eta halaxe jaso hemen, *arte* elementuaz osatuek ez dugu horren garbi ikusten hitz elkartuen artean kokatzeko aski arrazoi ote duten. Ez dugu eta, izen-sintagmaren ardatza noraino den delako *arte* hori ikusten, ez mugatu/mugagabeak edo singular/pluralak (?"hainbat nazioarteren", ?"bokal arteek") hartzeko ahalmenaren aldetik, ezta izen-sintagmaren gune direnek eskuinera (?"gramatika arte ugariak") nahiz ezkerretara har ditzaketen heda-elementuen aldetik ere.

Gainera, adierazgarria ere bada, izenen artean kokatuagatik, guztiek *-ko* izenlagun-

---

[95]Parentesi artean *-ko* zehazteak, izenlagun moduan erabili dela adierazten du. Atal horretan soilik jasotzeak, ordea, ez luke izenlagun-sortzailea jantzi aurreko egitura islatuko eta, horregatik jaso dira hemen. Bestalde, jatorrizko artikuluan, *aho-sapaieko* irakurtzen zen.

[96]Honela habartuek, berriz, izen gisa erabili direla adierazten dute, eratorpenean erakutsi den bezala.

[97](1972b4:101) (M).

[98](1958h:100).

[99]Gogora daiteke *izen-ondo* ez darabdela 'adjektibo' adierazteko, 'izenaren oin edo lema' adierazteko baizik. *Izen-ondoko* da 'adjektibo'-ren ordaina.

[100]Ik. argitaraldiazko itsaskina.

[101]Ez da adituen artean nahi beti hitzok menpekotasunezko hitz elkartuen osagaiak direnik. *LEF-4* (1992:80) lanean, dekatxotzat hartzen dituzte halakoak.

[102](1990h:392-401).

sortzaile den atzizkiaz hornituak agertzea:

bokal-arte(ko), gramatika arte(ko), hitzarte(ko), nazioarte(ko), sujetoarte(ko)

Honengatik guztiagatik, leku-denborazkoen saila zehazkizun ez ote dagoen pentsa daiteke[103].

Bestela ikusten ditugu, aitzitik,

komila[104] tartean, lagunarte (lagunarteko), pasarte

Kasuotarik lehenean, egungo erabileran *arte*ren aldagai beregain ia erabateko eta bakar bilakaturiko[105] *tarte* elementuak hitz elkartutzat jotzeko horrenbesteko oztopo aurkezten duenik ematen ez duen arren ("hamalka komila (t)artetako hitz", "liburuetako komila (t)arte guztietako hitzak azpimarratu"), egia ere da, bestetik, *komila (t)artean* forma nahiko esapide bilakatua edo badela eta beraz, gutxitan topatuko dela egitura horretan ez besteren batean.

lagunarte eta pasarte hitzei dagokienez, aski lexikalizatutzat (bigarrena erabat ihartutzat) joko genituzke.

Mugakizun eratorria (*-(k)era, -te*) eta elkartua (*oinarri*).

Mugatzaile elkartua (mihin gain] *min gain*). Honezaz baliatuz, gainera, berrelkarketa ere gertatu da (mihi mutur, (mihingain-mutur] mingain-mutur).

- Hots-aldaketak

. *-a --> Ø: histori*
. *-a --> -a: historia, hizkuntza*
. *-i --> Ø: (*atar), itur*
. *-r --> -l-: (*atar) --> atal*
. *-u --> Ø: burmuin*

---

[103] *LEF-4* (1992:81) lanean, "Izen-elkarketazko pospozioak" batzalatzen ditu *nazioarte*koren gisakoak.

[104] Hitz honen grafiaren gainekoak, argitaraldiezko eraskinean paratu dira.

[105] *FHV* (1985_3:242).

2. Objektu-Subjektu mota

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Helburua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

aldi-hitz, azentu marka, denbora-neurri, foku-marka, galdera marka[106], hizkuntz batzorde, kasu marka, kategori sinbolo, leku kasu

'hitzak aldia adierazten du', 'markak azentua adierazten du'... ulertu dira hemen.
Erlazio semantikoari dagokionez, 'aldia adierazteko hitz', 'kategoria adierazteko sinbolo'... moduan hartzearen ondorioa da 'Helburua'-n biltzea mugatzaileak mugakizunari zehazten dion harremana.

- Hots-aldaketak

-a –> Ø: *kategori*

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Edukia'

. izen bizigabea + izen biziduna(?)

hizkuntza-gizarte

'gizarteak hizkuntza du' irakurrerak bultzaturiko sailkalekua.
Mugatzaile eratorria (*-kuntza*) eta mugakizuna elkartua (*gizarte*).

- Hots-aldaketak

. *-a* –> *-a: hizkuntza*

. *gizon* –> *giza*

Ergatiboak - Absolutua - zertu 'Ondorioa, emaitza'

. izen bizigabea + izen bizigabea

galde-partikula

'partikulak galdea zertu' parafrasiaz iraul daitekeena.

---

[106] Euskaltzaindiak (1975) *galdeikur*, *galdemarka* paratu zituen.

Erlazio semantikoa zalantzaz beterik ematen da, uler baitaiteke 'galdeak egiteko partikula' eta horrenbestez, 'Helburua' motan bilduekin batean joan beharko luke.

Hango *galdera marka* ('galde-ikurra') eta hemengo galde-partikularen (*al*)[107] hitz elkartuen artean sumatu uste den aldea bigarrenaren ondorioa 'galdea' izatean datza, bestearengatik esan ez daitekeena, gure ustez.

3. Objektu-Adiziagun mota

Erg.-Abs. - leku kasua - zertu 'Edukia'

. izen bizigabea + izen bizigabea

atsotitz bilduma, errefrau bilduma, hitz altxor, hitz-zorro, ikur bilduma, gai-bilduma, maiztasun lista

Mugatzaile eratorria (*-tasun*) eta elkartua (*atsotitz*). Mugakizun eratorria? (*bilduma*?).

Erg. - Abs. - -z(zertaz) - zertu 'Helburua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

galbahe, tupust-harri(?), behaztopa-harri(?)

Azkenen galde-markak *tupust* eta *behaztopa* elementuen "izentasunean" du oinarria. Seguruenik, *tupust* hots-uztarduran etorkia bide duen[108] aditz-esapidearen elementutzat jotzea egokiago litzateke eta *behaztopa*, bestalde, aditzoin ere izan daitekeela ezin bazter.

Mugatzaile elkartua (*behaztopa*), ihartu etsiko bagenuke ere.

- Hots-aldaketak

. *-i --> Ø*
. *-r --> l (gari --> gal, atari --> atal, euskal* eta abarren bidetik[109]).

---

[107]"Galderetan, gure artean (giputzen artean diot, berezikl) ez da pentsatzen ere gerta daitekeen gauza dela guk maizenik galdera osoetan sartzen dugun galde-partikula ez noiz eta non-nahikoa izatea". (1981c:161).

[108]*DVEF*: "TUPUST (L-ain, R-uzt), onomat. del encuentro y choque inesperado de dos personas, de dos carros".

[109]Ikus eratorpenean.

4. Adizlagun-Subjektu mota

Erg./abs. - leku kasua - zertu 'Lekua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

erdibide[110], ingurune(?)

- Hots-aldaketak

Bokalen bakuntzea: *-u + u- --> u*: *ingurune*.

Erg. - Abs. - zerekin -zertu - '-en gainean, -i buruz'

. izen bizigabea + izen bizigabea

gramatika-azterketa(?)[111], hizkuntz-atlas, hizkuntz egitamu(?), hizkuntz-intuizio, hizkuntz jakintza, hizkuntz jakite, hizkuntz kondaira, hizkuntza kontu, jakite-gauza, jakite(-)lan, lexikografia eraskin, literatur mugimendu, mailebu lan, mundu ikuskera, zientzia lan

. gramatika-azterketa, hizkuntz jakite

Mugakizuna 'Ekintza' adierazten duen aditz-izena izateak, elkartu sintetiko baten aurrean egon gintezkeela pentsatzeko bidea eman bazezakeen ere, ez dira hauek halakotzat jo iruditu baitzaigu ez zegoela 'gramatika aztertu' irakurrera proposatzerik, bestela esan, ez zegoela hitz elkartu sintetiko moduan aditzerik, *gramatika* ez baina *hizkuntza* litzatekeelako aztergaia. 'gramatikaren araberako hizkuntz azterketa' edo antzeko zerbait da hobetsi dugun irakurrera.

Eta beste horrenbeste bigarrenean; *hizkuntza* ez da *jakite*aren objektua, 'hizkuntzari buruzko jakitea' baizik, ordain duen *linguistika* dela medio[112].

Mugatzaile eratorriak (*-kuntza, -kunde, -te*) eta mugakizun eratorriak *(-(k)era, -keta, -kin, -te, -tza...*). Mugakizun elkartu ihartua (*egitamu)*[113].

---

[110] *erdi* mugatzaile-motez, *LEF-3* (1991:161-169).

[111] "Hauxe da zuek behin baino gehiagotan egin beharrean aurkitu zareten azterketa moldea, gramatika-azterketa deritzana, analisia. Lehen, marra bat eginda, ezker aldean hitzak jartzen ziren eta eskuin aldean singularra ala plurala zen, eta abar". (1972b1:30).

Bestetik, *azterketa moldea* aipatzen delarik eta moldeetariko bat *gramatika*ri dagokiona izaki, "Subsumptive" motan ere koka ote zitekeen?

[112] Ik. hitz bakunen atalean Mitxelenaren aukera honezaz (1968c:90) genioena.

[113] Hitz honen jatorriaz, ikus hitz bakunen atala.

- Hots-aldaketak

. *-a --> Ø*: *hizkuntz, literatur*
. *-a --> a*: *fonetika, gramatika, hizkuntza, lexikografia, zientzia.*

Lehian dauden *hizkuntza/hizkuntz* bikotearen osagaien erabileran, *-a*-rik gabea ateratzen da abantailatunik: sei hitz elkarturen osagaia da; *-a*-duna bitan erabili da.

Absolutua - Adlitzondoa - zertu 'Modua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

egiantz-kalkulo(?)[114], gaitzizen(?)[115], indar azentu, zehar esakuntza

Osagai mugakizuna, eratorria (*-kuntza*) eta mugatzaile elkartua (*egiantz*).
egiantz-kalkuloren egitura osoaren zehapena, bi osagai baino gehiagoko hitz elkartuetan emango da.

Erg./abs. - leku kasua - zertu 'Iturbura'

. izen bizigabea + izen bizigabea

egibalio[116]

'balioa egian oinarritu' ulertuz.

Ez dugu, bestalde, uste, Azkaratek[117] nabarmentzen dituen *isil, gezur* mugatzaile

---

[114]Hemen ala *isil, gezur* mugatzaile bereziak dituzten elkartuekin batean?
"Estatistikak [Jat. *estadistikak*], egiantz-kalkuloa lagun zutela –nahiz sarritan sukalde zokoko estatistikak [Jat. *estadistikak*] izan–, aspaldi agertu ziren linguisten lanetan ez ezik, baita, eta batez ere gainera, filologoenetan ere". (1968c:91).
estatistikaren inguruko grafi moldeez ikus argitaraldiezko itsaskina.

[115]Oroi, "Subsumptive" sailean ere galdera-ikurraz horniturik aipatu dela.

[116]Baztertzeko oharra. Ez dugu uste darabilgun argitaraldia atondu duena guztiz zuzen ibili denik *egibalio* hitzaren adigaia azaltzeko oin-oharrean testuko hitza jaso beharrean honakoa paratu duenean; "*egibalore*: predikatu logikaren arabera, baiezkoa (1) edo ezezkoa (0)". (1981c:147).
Logika-mota horren nondik-norakoetan sartu gabe, euskarari dagokionari bakarrari helduz, esango genuke *balore* ('adore', 'azal' –"balorea behar da" eta antzekoetan–) eta *balio*, euskaraz, guk ezagutu dugun betiko erabileran behintzat, ez direla gauza bera, gaztelaniaz biak *valor* diren arren.
OEH-k **balio** honi hurbilen lot dakiokeen **balorea**, Txillardegiган kokatzen du lehen aldiz.

[117](1990b:317).

bereziak dituztenen parekotzat jo daitekeenik honakoa, ez baitago 'egiazko balioa', bestela esan, 'benetako balioa' ulertzerik logikan sustraiak dituen termino honetan.

- Hots-aldaketak

. *-a --> Ø: egi*

Absolutua - zertako - zertu 'Helburua'

. izen bizigabea + izen biziduna

hizketalagun

- Mugatzaile eratorria (*-keta*).

5. Adizlagun -Objektu mota

Erg. - Abs.- leku kasua - zertu 'Edukia'

. izen bizigabea + izen bizigabea[118]

(azentoera)) azentuera[119], azentu modu, azentu molde, baliokide klase, batu era, doinu era, egitura modu, esaldi mota, fonetika maila, fonologia maila, gramatika klase, hitz klase, hiztegi maila(ko), hizkera modu, hizkuntza maila, hizkuntza-molde

. batu era[120]

Zalantzazko izan daiteke *batuk* izenondoarena ala izenarena egiten ote duen. Izenondotzat joz geroz Azkaratek[121] aipatzen duen "Izenondo + Izen" ohiko hurrenkeraren puskatzearen adibide litzateke, "Subsumptive" motan gertatzen dena, alegia (*zabaltoki, zabalune* edo *zuzutz-eguzki* hitzen bidetik).

---

[118] *LEF-4* (1992:79).

[119] Lehen adierazi bezala, era mugakizun dutenak eratorrien eta elkartuen artekotzat jo daitezkeelakoan gaude.

Lehiakideen kokapenak hitz bakunen atalean emanik daude.

[120] "Tartekoa naizenez, ofiziala edo, nolabait esan, den batu era (*baturako* hobe oraingoz *batua* baino) harrera txarrik izan ez duena bestalde, alde batera utzita, harrigarria da, kazetaritzan adibidez, gero eta nabariago den batasuna, are elkarren kontrako diren aldizkarietan era". (1978a:42).

[121] (1990b:198).

Hemen, izen-izaera antzeman zaio.

Mugatzaile eratorriak (*-(k)era, -kuntza, -tegi, -tura...*) eta elkartuak (*baliokide, esaldi*).

- Hots-aldaketak

. *-a --> -a*: *egitura, gramatika, hizkuntza*

Erg. - Abs. - leku kasua - zertu 'Zatia'

. izen bizigabea + izen bizigabea

hitz-atal, hitz-zati, perpaus zati

Erg. -Abs. -leku kasua - zertu 'Lekua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

bailara eta auzo hizkera[122], mugarri, oinarri, zedarri

Lehen bi hitz elkartuen osagai mugatzailea, [+biziduna] tasunaren jabetzat jo daiteke. Bestetik, bi hitz elkartuok "Subsumptive" motakoak ere izan daitezke, lehen landatu bezala.

mugarri, oinarri, zedarri, atribuziozkoen sailean ere kokatu dira, LEF batzordeari jarraiki, bi irakurrerak onar ditzaketelakoan: 'oin den harria' nahiz 'oinean harria zertu'.

Mugakizun eratorria (*-(k)era*).

- Hots-aldaketak
. *-a + a- --> a*: mugarri
. *-e + a- --> -a + a- --> a*: zedarri[123]

Erg. - Abs. - -z(zertaz) - zertu 'Edukia'[124]

. izen bizigabea + izen bizigabea

---

[122]Bi osagai baino gehiagoko elkartuetan berriz ikusiko dena.

[123]Hitz honen osamoduaz: (1979g:177), *FHV* (1985_3:584).

[124]"Adizlagun-Subjektu" motan ere izan zezaketen kokagunea. Azkarate (1990b:218). *LEF-4* (1992:76).

aditz esaldi, aditz sintagma, adizki sail, aldaera sail, bereizgarri mordo, bereizgarri multzo, erregela multzo, erregela sorta, ezaugarri multzo, fonema-andana, gramatika-sail, hitz andana, hitz mordo, hitz-sail, hizkuntz-familia, hots-bilkura, izen multzo, izen perpaus, izen sail, izen sintagma, kontsonante bilkura, kontsonante multzo, kontsonante talde, korapilo[125], obra-zerrenda, orapilo[126], preposizio sintagma, sinbolo andana

. kontsonante taldek azalpen berezia eskatzen du. Izan ere, badirudi *talde* mugakizuna bizidunekin erabiltzen dela bereziki[127]; hemen, ostera, bizigabearekin erabili da, kontsonante multzoren adiera berarekin[128].

. (k)orapilo. Ihartutzat jo daitezke.

Azpisail honetako: aditz esaldi, aditz sintagma, izen multzo, izen perpaus, izen sintagma, preposizio sintagma hemen kokatzearen arrazoia 'aditzaz esaldia zertu' moduko irakurreran datza, onar zezakeen 'aditzak esaldia zertu' ulertu ordez, [+biziduna] tasuna ez dutenekin, bai baitirudi nekezago eman daitekeela ontzat 'Egilea' erlazio semantikoa eskatuko lukeen "Subjektu-Objektu" "Ergatiboak Absolutua zertu" sailkatzea[129]:

Mugatzailea, aldiz, izen bizigabea denean, Aditzlagun-Objetu sailean 'egurrez zertu pila' erako parafrasiak emanez, beti ere erlazio semantikoa 'Edukia' delarik, sartu ditugu. Bereizketaren arrazoia, mugatzailearen [±biziduna] tasunean dago, [-biziduna] denak ezin duela *ezer zertu (osatu)* interpretatu dugulako. (Azkarate 1990b:218).

Badute, bestetik, aipatuok bestelako ñabardurarik azpisail berean bildurikoetarik

---

[125](1968c:93), (1972b5:117).
Eta *korapilatu*, hirutan.

[126](1979g:181), (1983a:50).
Eta *orapilatsu*, behin.

[127]"*Oste*, *talde* edo *aldra*en definizioaren bila hiztegira jotzen badugu, 'izaki bizidunez osaturiko taldea' adierazten dutela aurkituko dugu. Beraz, mugatzaileak ere [+biziduna] tasuna eraman beharko du. Ez dugu **liburu talde*, **egur aldra* edo **belar oste* bezalako izen elkarturik sortuko. Alde honetatik, benetan sail berezia osatzen dute tasun jakin bat duten mugatzaileekin bakarrik elkar daitezkeen mugakizun hauek. Arestian esandakoa zehaztuz, ordea, gure bilketan *talde* mugakizun izanik, adibide bi aurkitu ditugu mugatzaile bizigabea daramatenak: *denporatalde (10), eta izartalde (24)*". (Azkarate 1990b:219)
Mitxelenaren hau Barandiaranen (10) eta Orixeren (24) beste bi horiei metatu beharrekoa, beraz.

[128][euskal silabaren antzinako egitura da gaia] "Ez naiz eskema hau dela eta luzatuko, bestetan ere emana eta agertua baitut. Bokala, eta bokala huts-hutsik, zuen nahi eta azko, gainerako hots guztiak azpiko zituelarik. Bokal horren aurretik kontsonante bakarra joan zitekeen, inolaz ere kontsonante taldea". (1979g:179).
"Nik bidezkotzat aitortuko nuke erdaratikako [Jat. *erderatikako*] hitz berrietan *r* gordetzea eta kontsonante multzoak aldatu gabe uztea, nahiz ez zorrozki agindu". (1968d:149).
"Kontsonante multzoak berez soilduko lirateke, euskaltasunak (gorde ez duen) lehengo indarra gorde balu. Neure aldetik, badira batzuek besteak baino errazagoak eta atseginagoak: cf. *primu (...) atriaka, dulabre, duple (-ti-*bakan azalduko da...)". (1985c:193).

[129]Halaz ere, [-biziduna] tasuna dutenei ez diegu sistematikoki "egiletza" ukatu, ikusi den bezala.

bereizten dituenik. Beste elkartuetan, mugatzailean, mugakizun den multzoaren osagai bakarra adierazten bada, hala nola kontsonante multzoa, kontsonanteek soilik (bokalik ez honenbestez) osaturiko multzoa bada, aditz esaldia ez da 'aditzak bakarrik osatzen duen – edo aditz soilez osatzen den – esaldia' eta ber gauza gertatzen da honen ondoan bilduekin, zeinetan mugatzaileak gunearena edo elementu definitzailearena egiten duen.

Hau ikusirik, pentsa al daiteke "Subsumptive" motatik gertuago gaudela azpisail honetatik baino, ezkerreko osagaiak "Espeziea" eta eskuinekoak "Generoa" adieraziz?

Mugatzaile eratorriak (*-garri, -(k)era, -ki, -kuntza...*); elkartua + eratorria (*adizki*); elkartua (*aditz*). Mugakizun eratorria (*-kura*); elkartua (*esaldi*).

- Hots-aldaketak

. *-a* --> *Ø: hizkuntz*
. *-a* --> *a: gramatika*

Erg. - Abs. - -z(zertaz) - zertu 'Baliabidea'

. izen bizigabea + izen bizigabea

aho-hizkera, aho-mintzaera, eskuizkribu, neurtitz

Bestetan zehaztu bezala, *hizkera, mintzaera* mugakizun duten elkartuok "Subsumptive" sailean sartzeko eskubidea bide dute.

Mugakizun eratorria *(-(k)era).*

- Hots-aldaketak

. *-i* --> *Ø* eta *-t-* kontsonante epentetikoa: neurtitz[130]

Erg. - Abs. - -z(zeri buruz) - zertu 'Helburua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

burujabetasun, burujabetza

Mugakizun eratorriaz (*-tasun, -tza*)[131] ala, hitz elkartu osoaren eratorpenaz hitzegin

---

[130] Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoa.

[131] "mugakizun eratorria: *buru-jabetza, buru-jaubetasuna*". (Azkarate 1990b:258).
"izen elkartua gehi atzizkiak" sailean: *buru-jaubetu, etše/auntza.* (Azkarate 1990b:295).

behar al da?[132]

Bestalde, azpimarra daiteke, hitz-eratorbidean dudako etsi dela oinarriaren gramatika-kategoria, *jabe* izena izanik ere, izenondoekiko mugan ikusten baita.

Erg. - Abs. - -z(zertaz) - zertu 'Gaia'

. izen bizigabea + izen bizigabea

aditz joko, frogakatea, hitz ordena, hitzurren[133], hizkuntz gertakari, izen joko[134], linguistika fosil(?)[135], sintagma joko

Hemen bilduriko batzuek bestelako irakurrera onartzen dutelarik ere ('frogak katea zertu' "Subjektu-Objektu" "Ergatiboak Absolutua zertu" 'Edukia', esate baterako[136]), egokiago ikusi da, eskuarki bezala, egiletza osagaietatik kanpo kokatu eta osagai mugatzailea, mugakizunaren 'Gaia'tzat jo, 'frogaz katea osatu' moduko interpretazioari atxikiz.

. linguistika fosil

'hizkuntzaz fosila zertu' irakurrerak, linguistika fosil sail honetan kokatzea zilegiztatzen duela dirudi, *linguistika/hizkuntza* hitzen arteko aukerak iluntzen duen arren.

Mugatzaile eratorria (*-kuntza*), elkartua (*aditz*). Mugakizun eratorria *(-kari*).

- Hots-aldaketak

. *-a --> Ø: hizkuntz*
. *-a --> -a: linguistika*

---

[132] Ikus hitz eratorren atala. Halaber, erdal aurrizkien ordainei eskainia.

[133] "Baiña lenik itzez mugatu dezagun zer dan syntaxi ori. Guk itz-urrena edo izen segida esango diogu, orain arte ioskera esten diotenari; au da, prantsesen *ordre des mots* orri. Ioskera esten diotenari, berriz, itz-alkarkera deritzokegu. Adibidez, *zeren, ezen baizen, non* eta abar, itzak itzekin edo esaerak esaerekin elkartzen dituzte. Itz-kondots, lokarri edo elkargarn orien erabilkerari bakarrari deritzogu ioskera". (O ta O 1958:17).

[134] "Iru emetan berdin ematen dute izendatzeko maillean edo nominatiboan; baiña gaiñerako izen-ioku edo deklinazioan bziko edo diferente". (Orixe 1958:32).

[135] "Halaz ere, zergatik gertatzen den eskualde horretan kultura aldatze hau eta zergatik aste izenetan hain zuzen ere, gauza iluna da histori agerpiderik ez baitugu; linguistika fosilak baizik ez ditugu. Izan ere kultura gaietan hizkuntza dateke, behar bada, zekenena. Aspaldiko arrastoak, fosilak, eta arkaismoak hizkuntzan gordetzen dira eskierki beste edozein kultur barrutitan baino areago". (1972b5:119).

[136] 'Edukia' eta 'Gaia'-ren arteko mugen lausoaz, Azkarate (1990b:245).

Erg./abs. - -z(zertaz) - zertu 'Iturburua'

. izen bizigabea + izen bizigabea

bertso lege, fonologi lege, gramatika lege(zko), hizkuntz lege, hots lege

'legea bertsoz zertu' moduan ulertuz, lehen osagaia, mugakizunaren iturburu edo jatorritzat hartu delako, 'bertsoak legea zertu' "Subjektu-Objektu" motan koka baziteken ere.

Ez da egoki etsi ez 'Gaia' erlazio semantikoa, ez delako ikusi *bertsoa, fonologia... legearen* gai osagarri moduan, ezta '-en gainean, -i buruz' ere, azken irakurrera honek, apika, ekar lezakeen mugatzailearekiko urruntasuna zela medio, biotatik ('Gaia' izatetik eta aldi berean 'legeztagai' izatetik, alegia) zerbait izan dezakeen arren.

Mugatzaile eratorria (*-kuntza*).

- Hots-aldaketak

.. *-a --> Ø: fonologi, hizkuntz*
. *-a --> a: gramatika*

16.A.2.B. ADITZOINA + IZENA[137]

Azkaratek[138] osagaien betekizuna eta elkarren arteko semantika-harremanak jotzen ditu begiz azpisailak egiteko, LEF batzordeak, berriz[139], mugakizunaren araberako antolamendua nahiago bide du. Hemen erdibidetik joko da, Azkarateren azpisail nagusien barruan, mugakizunaren arabera hitz elkartuak bilduz eta osagaien arteko semantikazko lotura-moduak zehaztuz.

1. Aditz-Adizlagun mota

aldi, bide, gai mugakizunak[140]

adibide, adierazpide, agerbide, agerpide[141], argibide, atzerapide, aurrerabide, azterbide,

---

[137] *LEF-1* (1987:83,4) 'Jarleku elkarte-mota', Azkarate (1990b:263-266, 1991:121), Azkarate-Olarte (1991), *LEF-3* (1991:61-73), *LEF-4* (1992:74-76) '*Jarleku* moduko hitz elkartuak'.

[138] (1990b).

[139] (1987) eta (1991) lanetan.

[140] Eratorrien eta elkartuen artekotzat jo direnak.
LEF-4 (1992:74).

[141] Bikoteen kokalekuak, eratorbidearen eta elkarketaren artekotzat joetan eman dira.

azterpide, behaztopabide[142], bilakabide, deklinabide, erabilbide, erakarbide, erakusbide, eratorbide, ezaupide, frogabide[143], galbide, hautabide, hazibide[144], ihardunbide, jakinbide, komunikabide, kontabide, mintzabide, sarbide

agerraldi, ahapaldi, ekitaldi, erakusaldi, esaldi, harraldi, mintzaldi[145]

agerkai, galdegai[146], irakurgai, kontagai, landugai, mintzagai, osagai

LEF-3-n[147] adieraziriko ezpaiaren erraínua hemen ere agerian dago: aditzointzat ala izentzat jo behar ote dira horko askoren oinarriak?

Hitz elkartuen osagaien arteko semantika-izaera 'Helburua' dela esan daiteke.

modu, tankera, molde[148] mugakizunak

adieraz-modu, idaztankera, ikusmolde, mintzamolde

Hemen ere, 'Helburua'[149] da aditzoina eta izenaren artean zertzen den semantikazko harremana[150].

buru, gune, leku, muga, puntu, une mugakizunak[151]

helburu[152], sorburu

---

[142]Izena ere jo daiteke lehen osagaitzat.

[143]Izena izan dezake lehen osagaia.

[144]Nahiz "aditzoina + izena" izendapenean jaso, aditz-partizipioa du lehen osagaia. Besteekiko aldenk ez duelakoan sartu da hemen. *LEF-3* (1991:63).

[145]Azkaratek (1990b:384) 'izena + aldi' sailean kokatzen du.

[146]Lehen osagaia izena?

[147](1991:64).

[148]"aditz-izena + izena" azpisaila ikustean gisa honetako mugakizunez hitzegingo da. Azkarate-Olarte (1991:763), *LEF-4* (1992:74).

[149]Azkarate-Olarte (1991:759) egileek *esan modu, ikas molde, idaz-tankera* 'Helburua'zkoetan kokatzen badituzte ere 'izenki [aditz-izen] + izen', "erlazio semantiko eta parafrasien aldetik alde handiegirik" (1991:763) ez duten mugakizun berberentzat 'Edukia' erlazioa proposatzen dute.

[150]Azkarate-Olartek (1991:758,759) *modu, tankera, molde* mugakizunek *leku, toki, muga* eta besterekin batean 'Lekua' zehazten dutela diote.

[151]*LEF-4* (1992:74).

[152]"Suj.-Obj." barneko "Ergatiboak Abs. zertu" 'Zatia' notan kokatzen du Azkaratek (1990b).

orekagune[153]

ablaleku, elkarleku, kokaleku

jomuga

ablapuntu, ikuspuntu

egiune[154], geldiune[155], isiune[156]

Azpisail honetan bilduok amankomunean dutena mugakizunaren 'Lekua' adiera da, zabal hartuta.

Elkartu osoari dagokionez, berriz ere 'Helburua' da erlazio semantiko nagusia.

Ian mugakizuna[157]

azterlan, idazlan[158], ikerlan[159], prestalan

besteak

aditz(?)[160], behaztopa-harri[161], erator-atzizki[162], idaz sistema, sor indar[163], sor iturri

Mugakizunen sailkapen zehatzik egiten ez bada ere, nolabaiteko antolamendua

---

[153]Ala "izena + izena"?
Azkaratek (1990b:229) *bilgune* "Suj.-Aditzlagun" motaren barneko "Erg./abs. leku kasua-zertu" 'Helburua'-n kokatzen du.

[154]*FHV* (1985$_3$:489).

[155]*geldiune* Azkaratek (1990b:263) "aditzoina + izena" sailean kokatzen du.

[156]Ala "aditzondoa/izenondoa + izena" eran hartu behar dira azken biok?
Zenbait mugatzaile berezi dituzten izen elkartuetan zehazkiago ikusiko dira.

[157]*LEF-4* (1992:74).

[158]Azkaratek (1990b:254) "izena + izena. Aditzlagun-Objetu. Erg.-Abs.-z(zertaz)-zertu 'Gaia'" idatziez zertu lana" moduan hartzen du.

[159]Azkaratek (1990b:265) ez du garbi ikusten *gertu-lanak* eta *erne indarra* sailkaturik dauden sailari 'Helburua' ala 'Ekintza' erlazioa dagokion.

[160]Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoa.

[161]"izena + izena" egituratzat ere har daitekeena.

[162]Honezaz bereziki, Azkarate-Olano (1991).

[163]Azkarate-Olanek (1991:760) *erne indarraz*, mugakizunak 'Baliabidea' adierazten duela diote.

proposatzen da hemen kideak kidekoekin bilduz, sumatu uste den hurbiltasun semantikoaren arabera, subjektibitatearen arriskuari muzin ezin eginik, noski[164].

Azpisail honetan bilduak ere, 'Helburua' erlazioan kokatuko lirateke.

2. Aditz-Objektu mota

Zalantza handiz hemen kokatuko genituzke Mitxelenak hitza besteren ahotan paratzen duen *erran aire*[165] eta bere baitako *mintza doinu*, era honetara ulertuz: 'erranak (errateak) duen airea', 'mintzoak (mintzatzeak) duen doinua', nekez alda baitaitezke "Aditz-Adizlagun" motak eskatuko lukeen 'aireaz erran' edo 'doinua(z)(n) mintzatu', hitz elkartu osoaren esanahiari iruzur egin gabe.

Zalantzaz kokatzeak honako hitzotan du iturria:

> *Ezagu-gauza, siniest-egia, iku-gauza*. Orixek *Jainkoaren billa* liburuan erabiltzen dituen hiru izen hauentzat sail egokiagorik ez dugu aurkitu. Badirudi mugakizuna, aditzoinaren objetua dela (...) Baina hiru adibide hauek dagoklen lekuan sailkatuta baleude ere (...) sail honen emankortasuna urria litzateke. (Azkarate 1990b:266).

Semantikari dagokionez, ez dirudi hitz elkartuen osagaien arteko lotura 'Helburua'-zkoa denik, "izena + izena" motan berezi den "Erg - Abs" 'Egilea' (ala 'Jabetza'?)-n, beharbada hobeto kokatua legoke, nahiz mugatzaileak 'Garaia' ere adieraz dezakeen: 'erratean, mintzatzean zertzen den doinua'.

esanahi[166], mintza-behar

Aditzoinek osatzen dituztenen artean sartua badago ere aditz-partizipiotzat jotzen dute LEF batzordekoek[167] hitz elkartu honen mugatzailea, beste osagaia izena izanik[168].

'Helburua'-zkoa litzatekeela dirudi, jatorriz bederen, osagaien arteko harremana, egun

---

[164]Esan gabe doa, noski, erlazio semantikoa nahikoa subjektiboa dela. Hau da, hztun bati halako erlazio semantikoa dagoela hitz elkartu bateko bi osagaien arten iruditu arren, beste batek, bete erlazio semantiko bat, arras diferentea, ikus dezake". (Azkarate-Olarte 1991:760).
Urrezko lege bilakatu zaizkigu hatzok ikerlanean zehar, ikusi eta ikusiko den bezala.

[165]Ala eratorpen eta elkarketaren arteko *mintzaire* eta besterekin batean joan behar luke?

[166]*LEF-1* (1987:53-55) "Asmo-elkarteak", Azkarate (1990b:258,415-418), *LEF-3* (1991:101-117), *LEF-4* (1992:70) "Asmo-elkarteak". Azken lan honetan, hemen kokatzen dituzte eskuineko osagaia *zale* dutenak.

[167]*LEF3* (1991:106).

[168]*nahiren* izentasunaz: Azkarate (1990b:258).

aski lexikalizaturik izanagatik. Halarik ere:

> *Nahi/behar* mugakizun dutenetan, 'Helburua' eriazio semantikoa bezain egokia, edo agian egokiagoa izan daiteke 'Edukia' ere. (Azkarate 1990b:258).

16.A.2.C. ADITZ-IZENA[169] + IZENA[170]

> alfabetatze kanpaina, banaketa lege, berridazte erregela, berridazte sistema, deribazio atzizki, formaldatze bide, jakite (eta teknika) hizkuntza, klasifikatze lan, neutralizazio leku, sailkatze lan, sortze lan, zabalkunde lan[171]

Sail honetan bilduen mugatzaileak aditzetik eratorririko izenak dira, baina eratorpenean ikusi den legez, aditzetik eratorriek hemen jasoriko multzoa baino askoz ere zabalagoa osatzen dute. Behin eratorri direlarik, beste izenak bezalaxeko joko-aukerak dituztenez gero, elkarketaren azterketan zehar barreiaturik aurkitu ahal izango dira eta oraingoan 'Ekintza'[172] adierazten dutenak soilik jo dira begiz.

Azkarate-Olartek (1991) paraturiko galdearen ildotik, elkarketa-mota honen eta kide duen "aditzoina + izena" motaren arteko alderaketa egiteak bidezkoa dirudi.

Gogoan hartu beharreko lehen puntua da kopuruz askozaz ere urriagoa dela oraingo hau konparagai duen bestea baino[173]. Alde honetatik, beraz, euskal literaturaren ohiko bideari[174] jarraikitzen zaio Mitxelenaren erabilera.

Bestetik, merezi bide du hemen eratorririk erabili diren aditzek "aditzoina + izena" sailean ordezkorik ba ote duten ikusteak:

jakin eta *sor(tu)* dira bi motetan erabiliriko bakarrak[175], *alfabeta(tu), bana(tu), berrida(t)z(i)* edo *deriba(tu)* modukorik ez da beste sailean aurkitu.

Kontutan izanik Azkarate-Olartek finkaturiko irizpideak:

- *Izenkia + izena* egiturak ia ia beharrezkoa dirudi:
  a. Zenbait mugakizun jakinekin, hala nola, *klase, suerte, mota, kontu*, eta abarrekin.
  b. Aditza aldi berean eratorria denean (*euskalduntze-erakunde/euskaldun-erakunde, argitze-*

---

[169] *Aditz-izen*: Azkarate (1991) eta (1992) legez erabilia, Azkarateren (1990b) eta Azkarate-Olarte (1991) *izenkiren* parekoa litzatekeena, alegia.

[170] Egitura honezaz, Azkarate-Olarte (1991) berezikl.

[171] Bi azkenok ez ditugu multzoko besteak bezala aditu, esana doan bezala.

[172] 'Ekintza' adierazten duten atzizkiei buruzkoak, berariaz, hiz elkartu sintetikoetan jasoko dira.

[173] 12 batetik eta 65 inguru, bestetik. Azkenaren "gutxi gora beheratasuna", osagai mugatzailea aditzoin ala izentzat jotzearen baitakoa da.

[174] Azkarate-Olarte (1991:763).

[175] *jakinbide, sorburu, sor indar, sor iturri.*

> *zeinu/argi-zeinu*...), *-tze* atzizkia edo besteren bat azaltzen ez bada, mugatzailea izentzat hartuko bait genuke. (Azkarate-Olarte 1991:763).

Arestiko eskakizunak beteko lituzkeen bakarra formaldatze bide litzateke, mugakizunak hemen, 'modu, era, prozedura' edo antzeko esanahia duelako. Nolanahi delarik ere, aztergaian[176] oro har ez direla betetzen esan daiteke. Areago, "aditzoina + izena" motan ikusi den legez, *modu* (adieraz modu), *molde* (ikusmolde, mintzamolde), *tankera* (idaztankera) daude bilduak, mugakizun hauek aditz-izenen ondoan erabili ez diren bitartean.

> Bestelakoetan, aukerakoa dirudi aditzoina nahiz izenkia erabiltzeak, erlazio semantiko eta parafrasien aldetik behintzat alde handiegirik ez dago eta. (Azkarate-Olarte 1991:763).

Aukeraren arrazoia beste nonbait bilatu beharra dago, beraz, eta inolako asmo erabateko edo agortzailerik gabe zenbait gogangarri adieraz daitezke.

. alfabetatze kanpaina, beharbada, nahikoa harritu edo finko etsi daiteke eta egungo euskaldunari "alfabeta-kanpaina" edo baino ulerterrazago gerta dakiokeena. Bestalde, *euskalduntze*, *alfabetatze* eta gisa bereko hitzak txit ugari erabiltzen ziren garai[177] baten zantzu ere badirela pentsa daiteke.

. deribazio atzizki (*erator-atzizki* parean duena) eta neutralizazio lekurekin batean, erdal jatorri gardenena luketenen multzoa sortzeak izan dezake zerikusia, halakoetan aditzoin soila, apika, arrotzago suma daitekeelako (?*deriba-atzizki*, ?*neutraliza-leku*).

. jakite (eta teknika) hizkuntza. Elkarketa honetan, aditz-izenak 'Ekintza' ñabardura noraino gordetzen duen galda daiteke eta noraino ez ote duen 'Emaitza'[178] kutsua erabat bereganatu. Iritzi honen irozgarria koordinaturik daraman *teknik*ak eskainiko luke, agian.

. zabalkunde lan[179], banaketa lege elkarketa aukeratzeko arrazoia, beharbada, lehen osagaiak beste gramatika-kategoriekin nahasteko arriskuari itzuri nahian ikusi behar da.

Alde honetatik:

> Mugatzailetzat izenkia aukeratzen dutenen bidetik aurrera eginaz, aditzoina aldi berean izenetik edo

---

[176] Oroi berezitutzat joen gaineko azterketa dela eta, ez Mitxelenaren hitz-aitzor osoaren gainekoa.

[177] Mitxelenak "Euskararen bide luze bezain malkarrak" 1978ko artikuluan darabil.

[178] Hau dela eta, jatorriz aditzetik eratorririko izenaz osaturiko *adimen gaitasun* eta *egitura modu* ez ditugu hemen paratu. Gogoan izan, halaber, menpekotasunezko izen elkartuen artean kokatu dugula hizpidea ematen diguna.
Kezka hauxe azaleratzen dute Azkarate-Olarte (1991:762) aztertzaileek.

[179] Oroi ez dugula sail honetan kokatu. Hona dakargu osamodua dela medio.

> Izenondotik eratorria denean ere, izenkia azaltzen zaiguia esan dezakegu eta ez adizoina. (Azkarate-Olarte 1991:763). (Beltz. gurea).

zabalkunde lan-ek aipuan jasoa beteko luke.

Azken gertariok nahikoak ote dira Azkarate-Olarteren "b" baldintza nolabait hedatzeko?

> b. Aditza aldi berean eratorria denean, -tze atzizkia edo besteren bat azaltzen ez bada, mugatzailea beste gramatika-kategoriakotzat hartuko baikenuke. (Azkarte-Olarte 1991:763).

Azalpen honek berak balioko al luke sailkatze lan argitzeko?[180]

Ez da aparteko arrazoirik ikusten "berrida(t)z erregela / sistema" (*idaz-sistema*ren ildotik), "formalda bide" (*komunikabide, bilakabide, deklinabide*ren ondoan) edo "sor lan" (*sorburu, sor indar, sor iturri*) ez erabiltzeko.

Osagaien arteko erlazio semantikoei dagokienez,

- 'Helburua' adieraziko lukete elkartuok,
  . mugakizunak 'Lekua' adieraziz: neutralizazio-leku.
  . mugakizunak 'Baliabidea' adieraziz: alfabetatze kanpaina, banaketa lege, berridazte erregela/sistema, deribazio atzizki, klasifikatze lan, sailkatze lan.
- 'Iturbura' harremana adieraziko luke, apika, sortze lan hitz elkartuak. Arestiko sailean *lan* mugakizuna dutenek ez bezala, ez baitu 'lanaz (lan eginez) klasifikatu' edo 'sailkatu' parafrasiaren ordea litzatekeen 'lan eginez sortu'-k balio sortze lanen esanahia aldatzeko. *Sortzeak* hemen iturburua adierazten du, sormenetikakoa dela eta ez itzulia, alegia. Hau dela eta, lehen "Subsumptive"-en artean kokatu dugu.

16.A.2.D. IZENA + ADITZ-IZENA ('SINTETIKOAK')[181]

Azkaratek[182] "Mugakizuntzat izenkia duten menpetasunezko izen elkartuak" edo "hitz elkartu sintetiko" deitzen duen sailean bi[183] multzo nagusi berezi dira hemen: 'Egile-elkarte

---

[180] Aieruz baizik egiten ez dugun eta, sakontzear uzten dugun buruzpidea besterik ez da.

[181] *LEF-1* (1987:43hh), Azkarate (1990b:267hh, 1991:121), *LEF-3* (1991:25hh), Azkarate-Olarte (1991), *LEF-4* (1992:64-69).

[182] (1990b:207).

[183] Bitan bereiztea, *LEF-3 eta LEF-4* lanetan bereizten den "Jardun-elkarte sintetikoak" hirugarren mota gure aztergaian ez aurkitzeari zor zaio.

sintetikoak'[184], edo "sujetua biltzen duen mota"[185] eta 'Ekintza-egile sintetikoak'[186], "ekintza biltzen duena"[187].

Bakoitzaren barneko azpisailak osatzeko menpekotasunezko hitz elkartu mota honetan gehien sakondu dutenek irizpide desberdinak erabiltzen dituztenez gero[188], B. sailean bezalaxe, erdibidetik joko da hemen, bien arteko uztartze gisakoa aurkeztuz. Honela, azpisailaren izendapena Azkarateren gandik (1990b) hartuko da eta bakoitzaren barnean, morfologi eraketari begiratuko zaio.

Egile-elkarte sintetikoak

1. Objektu-Aditz-Subjektu mota

a. A-x/-(tzai)le

argi emaile, berri-emaile[189], bide-erakusle, liburu moldatzaile, orden-erakustaile, testu-argitaratzaile

Azkarateren[190] sailkapenaren arabera, "Izen bizigabea + izenkia" motakoak[191]. Sail honetan koka daitezke, halaber, eratorpenean ere aipatu diren:

b. Errokariak[192]

. gile

galdegile, historigile, hiztegigile, inkestagile, kondairagile, silabagile

---

[184] *LEF-3* (1991:32), *LEF-4* (1992:64-65).

[185] Azkarate (1990b:267).

[186] *LEF-3* (1991:46), *LEF-4* (1992:64).

[187] Azkarate (1990b:267)

[188] Honela, esate baterako, Azkaratek (1990b), Marchand-en (1965) bidetik, sintaxiaren ildoko osagaien funtzioari eusten dio azpisailak osatzeko, *LEF-3*-n (1991), berriz, osagaien betekizunari ez baina -ohiko morfologiatik gertuago-, fixurei erreparatzen diete.

[189] Euskaltzaindiak (1975) *berriemale, emailelemale* bikoteaz, halaz ere, gogoan izan behar da Akademiaren arau-gomendioen bilduma (1992b).

[190] (1990b:275).

[191] *LEF-1* (1987:46), *LEF-3* (1991:39), *LEF-4* (1992:65) "Egile-elkarte osatuak".

[192] *LEF-1* (1987:44), *LEF-3* (1991:33), *LEF-4* (1992:64,65). Multzo honetan *LEF-1*-en arabera, zaledunak ere sartu beharko lirateke.

. zain

euskaltzain

. dun

Eratorpenean bilduetatik, batipat izenaren betekizunaz erabiliak ekarriko dira hona:

bizidun, erdaldun, euskaldun, hartzekodun, hiztun, zordun

Ekintza-elkarte sintetikoak

1. Objektu-Aditz mota

a. A-x/-t(z)e[193]

dato metatze, hautemate[194], hitz-elkartze, hizkuntz-jakite, hizkuntza zatikatze, iturri-bilatze

. hitz-elkartze, hizkuntza zatikatze

Hemen sartzea eztabaidagai izan daiteke, aditz-erregimena dela medio "Subj-Aditz" motan koka baitaitezke. Hemen hobetsi den irakurrera 'x-ek hitzak elkartu' eta 'x-ek hizkuntza zatikatu' izan da; hots, elkartzearen edo zatikatzearen egiletza kanpoko "x" bati egotziz.

. hizkuntz-jakiteren hemengo kokapena osagaien itxura hutsezkoa da; hau da, bigarren osagaia aditz-izena izatearen ondoriozkoa. Bi arrazoik, haatik, pisu handia dute sail honetatik atera eta "Izena + Izena" motakoen artean aztertzeko:

1- Ez da inolako 'Ekintza'rik adierazten, *jakiteren* izen bilakatzea erabatekoa izateraren kariaz.

2- Ez dago lehen osagaiaz *jakitek* eskatuko lukeen objektua denik ahoa bete esaterik, jakite-mota edo jakitearen gaia baita adierazia. Horregatik kokatu da menpekotasunezko izen elkartuen artean ere.

b. A-x-keta

gai-bilketa, hitz konposaketa, hitz-sorketa[195], hizkuntz berreraiketa, testu azterketa[196]

---

[193] *LEF-3* (1991:49), *LEF-4* (1992:65) "Osatuak".

[194] Aditz-esapideren izen-bilakatze soil moduan harturik, eratorpenean ikusi da.

[195] "izena + izena" motakoen artean kokatuko den *hitz-sorbidek* ere ba al dezake hemen tokirik?

[196] Gogoan izan *gramatika-azterketa* menpekotasunezko izen elkartuen artean kokatu dela han eman diren arrazoiek bultzaturik.

c. A-x-pen

hitz erakarpen

d. A-x-zio

egitura deskripzio, hizkuntz konparazio(?)[197]

e. A-x-(k)era

bertso-neurkera

f. A-x-kuntza[198]

hizkuntza integrakuntza

g. Errokariak[199]

. gintza

hiztegigintza, inkestagintza, zubigintza

2. Subjektu-Aditz mota

Mugatzailea kontutan harturik, gehienetan instrumental gisa har daitekeela esan daiteke 'odolez hustu', 'eskuz eten', 'iduriz aldatu', 'itxuraz aldatu' (ala 'iduria aldatu', 'itxura aldatu'?) (...) Modu batera zein bestera beti nor motako aditza dugulako (ez nor-nork motakoa): 'itxuraz aldatu da' edo 'itxura aldatu zaio' (bigarrena jatorragotzat joko genuke euskaraz) (...) *Eraberritu, pozberritu, indarberritu* (...) Aurrekoak bezala har daitezkeenak direla uste dugu, 'era berritu zaio'... (Azkarate 1990b:301,302).

Argudio honek bultzatu gaitu sail hau sortzera.

Aldatu, berritu eta *bere(i)zi* dira sail honetako aditzak. Hirugarrenak *HLEH*-n aldatu bezalako erregimena du[200].

---

[197]"Nola nahi den, 1800ean Rask-ek eta Bopp-ek /Hizkuntz-konparazio (*Lingüística comparada*)/ delakoaren zimendarria jartzen dute". (1972b2:39). /Mixelenak emendatua/.

[198]LEF batzordeak ez du atzizki hau aipatzen baina iruditu zaigu multzo berean koka zitekeela.

[199]*LEF-1* (1987:47), *LEF-3* (1991:46), *LEF-4* (1992:65).

[200]**berezi**. da-du'.

Dena den, euskaraz oraindik lan handia dago aditzen barne-argumentuak, aditzak nahi eta ez eskatzen dituenak zeintzu diren zehazten. (Azkarate-Olarte 1991:758).

a. A-x-t(z)e

antzaldatze, eraberritze, formaldatze, itxuraldatze

b. A-x-keta

hots aldaketa, itxuraldaketa

c. A-x-kuntza

hots-bereizkuntza, hots-berezkuntza, soinu-bereizkuntza

d. soila[201]

behaztopa

3. Adizlagun-Aditz mota

lekualdatze, toklaldatze

'lekuz aldatu', 'tokiz aldatu' ulertu direlako.

Izen elkartu sintetikoen "bizidun/bizigabe" izateari dagokionez esan behar dugu, 'Egilea' adierazten dutenek, oro har, izen biziduna baldin badute elkarketaren ondoriozko tasuna (osagaietako bat bizigabea izan daitekeen arren), bi salbuespen atzeman daitezkeela:
galdegile, silabagile

'Ekintza' adierazten duten oro, berriz, bai osagaiak bai elkartuak bizigabetasuna dutenak dira.

16.A.2.E. ZENBAIT MUGATZAILE BEREZI DITUZTEN IZEN ELKARTUAK[202]

Zatisail hau bereziki paratu nahi izatearen arrazoia ez zaio osagaien izaerari zor, hauek ere izen elkartu menpekotasunezkoak baitira, erdal aurrizkien ordaintzat usu erabiliak izateari baizik, gai hau aztertu denean erakutsi den legez.

---

[201] *LEF-1* (1987:48), *LEF-3* (1991:49), *LEF-4* (1992:65).

[202] *LEF-1* (1987:68-70), Azkarate (1990b:311-318).

16.A.2.E.1. Leku-denborazko mugatzailedunak

. aitzin, arte, aurre, azpi, barne, bazter...[203]

"Adizlagun-Subjektu" "Erg/abs.- leku kasua - zertu"

. 'Lekua'

aitzin gidari, aitzin lan, artizki, atzizki, aurre-sabaikari]] (aurre-sapaikari]), aurrizki, azpiegitura, azpimarka(tu), azpimarra(tu)[204], barne egitura, barne muin, barren egitura, bazter euskalki, ingurune(?)

.'Garaia'

aurre historia

"Adizlagun-Objektu' 'Erg./abs. - leku kasua - zertu"

aitzinsolas

16.A.2.E.2. *SASI* mugatzailea dutenak

sasi-erdara, sasi-euskara, sasi-galdera, sasi-hitzera

Hauek ere erdal aurrizkien euskal ordainak aztertu direnean aipatu dira.

Azpimarra daiteke *sasi* elementu beregainaren esanahiarekiko urruntasuna elkarketan erabiltzen denean.

16.A.2.E.3. *ISIL, GELDI* mugatzailea dutenak

Azkaratek[205] azpisail honetan biltzen ditu izenburuan aipatuok *gezur*ekin batean.

Bi hitz elkartu ekarriko dira hona –zalantzaz ekarriko badira ere–, mugatzailearen berezitasunean oinarrituz.

isilune, geldiune

---

[203] *LEF-4-k* (1992:80) "deiktiko" deritzo.

[204] *azpimarkatu, azpimarratu* adibideak ere testura dira, izen gisa ez erabiliagatik, eratorriko aditzaren oinarritzat proposa daitezkeenak izan daitezkeelakoan.

[205] (1990b:316).

Ez *isil*, ez *geldi* erabilera arruntean izen ez direnez gero, *isildu* etz *gelditu* aditzen aditzointzat har daitezkeela dirudi batetik. Honela hartuta, ordea, ez dago esaterik "aditzoina + izena" sailaren erlazio semantiko nagusia –'Helburua'-zkoa, alegia–, adierazten dutenik, ez baitugu uste 'isiltzeko unea' edo 'gelditzeko unea' aditzera ematen denik.

Alde honetatik, beraz, beharbada gertuago leudeke Azkarate-Olartek[206] Lizardiren *ari-otsa* eta *bizi-otsan* ikusten duten 'Egilea' erlaziotik bestetik baino (eta 'Iturburua' mugatzaileak zehazturikoa?[207]). Honek esan nahi luke hitz elkartuok honela ulertuko liratekeela: 'isil(-tzeak, -tasunak) sortzen duen unea', 'geldi(-tzeak, -tasunak) sortzen duen unea'.

Beste bidetik joaz, berriz, "Izenondoa + Izena" egituraduna ere izan daiteke, Azkaratek[208] aipatzen duen *gorriuneren* parekoa, hain zuzen.

Edota, azkenik, mugatzailean aditzondo balioa ikusiz, 'isilik unea zertu', 'geldirik unea zertu'.

Mugatzailearen gramatika-kategoria zehaztu ezinak sortzen dituen aukera hauen azalpen hutsean utziko da kontua.

16.A.2.E.4. *ZATI* mugatzailea dutenak

Eskuztaturiko bibliografian honen berririk kausitu ez delarik ere, arestian aipaturikoekin lotzen duen erabilera berezia –elkartu izan arren, erdal aurrizkiaren ordaintzat erabili ahal izatea, alegia– sumatu uste zaiolako erabaki da hemen ere kokatzea.

zati-euskalki, zati-galdera, zati-hizkuntza (artifizial), zati-multzo

Bereziki nabarmenduagatik, menpekotasunezko hitz elkartuen artean ere balukete kokalekua, guztiek, osagaien arteko harreman berberak ez dituztela mamitzen uste dugula aurrean izanik, halaz ere.

Honela, parafrasi sintaktikoari dagokionez, "Objektu-Subjektu" motan, gure ustez, guztiak debekurik gabe kabituko liratekeen bitartean, hau da, 'euskalkiak / galderak / hizkuntzak / multzoak zatia zertu' adierazpena egokituz, osagaion arteko harreman semantikoek ezpaia sorrarazten digute.

Honela, zati-euskalki, zati-hizkuntza, zati-multzo elkartuetan, hitz eratuaren adimoduak bigarren osagaiaren 'Zatia' edo, hobeto esan, 'Atala'[209] dela pentsa daiteke batetik, baina

---

[206](1991:760).

[207]'Egilea'-'Iturburu' erlazioen artekoez, Azkarate (1990b:137).

[208](1990b:317).
Azkaratek (1990b:229) *bolgune* "Subjektu-Adizlagun" "Erg./abs. - leku kasua - zertu" 'Edukia' motan eta *geldi-otoitz* "Adizlagun-Objektu" "Erg.-Abs. - leku kasua - zertu" 'Modua'-n kokatzen ditu.

[209]'Atala'. - "Zatia' erlazio semantikoaren aurkakoa, lehen osagaia denean bigarrenaren zati'. (Azkarate 1990b:136).

bestalde, delako *zati* hori ere bada osagai mugakizunaren 'Edukia'.

Beste kasuan, berriz, arestiko ulerkera ezin egoki dakiokeen susmoa dugu. Izan ere, zati-galdera ez da 'galderak zertzen duen zatia', galdera-mota bat baizik[210], hots, 'galderak zatia galdatu', 'galderak osoa galdatu' irakurrerari kontrajarriz aditzen dena, hain justu.

Hau dela eta, azken hau, apika, 'Ondorioa, emaitza' sailean koka ote daiteke?

Erantzun erabatekorik gabe uzten dugu multzo hau.

Sorkaria izena duen hitz-eraketazko atalarekin amaitzeko, hitz elkartu bete-betean etsi ez daitezkeen egiturak ekarriko dira. Sorkaria izena ez baina beste kategoriatakoa denean eta erabiliriko prozedura sintaxizkoa denean beste atal batean ikusiko da.

16.A.3. JUSTAPOSIZIOAK (Izena + Izenondoa)

aleman garai, axal ageri, elaberri, eleberri, euskal gaizto, euskaldun berri[211], gizpuzkera osotu*, gramatiko berri edo gazte, greko klasiko, griego klasiko, hitz bakan, hitz berri, hitz laino]], hitz lau, hitz neurtu[212], izengoiti, kaxa beltz, lapurtar klasiko, latin gaizto[213], latin klasiko

Batek baino gehiagok, apika, galdera-marka eraman beharko luke alboan.
Mota hau ezarri zuen Darmesteter-en iritziaren funtsa:

les difficultés qu'offre la détermination exacte et complète de tous les juxtaposés de la langue. (1874:21)[214].

mota honetan sartu beharrekoak erabakitzeko momentuan argi begitantzen da. Izan ere, ohiko hurrenkera euskaraz[215] justaposizioarena bera denez gero, ez da erraz jakiten aurrean dagoena noiz den izen-multzo soila eta noiz justaposiziotzat jo beharra.

---

[210] Hau dela eta, "Species-Genus" harremanean pentsa zitekeen, baina Azkaratek (1990b:232) *igali-zugatz* elkartuan ikusi bezala, guk ere ez genuke *zatia* galdera klasetzat joko.
Bestalde, "Subsumptive" motan ere koka zitekeela dirudi.

[211] *euskaldun* jatorriz izenondoa izanik ere, izen bilakatutzat jotzeko debeku larregirik ez dugu ikusten.

[212] Euskaltzaindiaren (1975) zerrendakoa.

[213] Ezaguna da gainera, XVI mendean Francisco Sánchezek "el Brocense" delakoak, sartu zuen ziri hura: "Qui latinae garriunt, corrumpunt ipsam latinitatem". Hots, latin gaiztoz ari direnak hitza eta posa daniotela direla, hain zuzen latina bera lardaskatzen eta itxuragabetzen dutenak". (1972b1:33) (M).
Histori tastuinguruari begira, 'latin arrunta', 'latin bulgarra', 'herri-latina' –nahiago bada– ulertu dugu.

[214] Azkaratetegandik (1990b:375) hartua.

[215] *EGLU-I* (1985:243-5).

Irizpide, esanahiaren aldetik nolabaiteko bakartasuna aditzera ematea hartu da, elaberri/eleberri bikotearen[216] kasuan lehenaren soinu-aldaketa ere lagungarri izanik.

16.A.4. IZENA + *-ko/-en* + IZENA[217]

a. *-ko* bigarren osagai dutenak

alaldeko[218], atalburuko, izen(-)ondoko, izen aldameneko, (histori aurreko]) historia aurreko, ohordeko

Azkaratek[219] sail honetan zehazturiko bi moten artean bigarrenekoa dela iruditzen zaigu. Hau da, *-ko* daraman osagaia aldakaitza denekoa eta honenbestez, "Izena + atzizkia" motakoa (hortik izenburua), *beharrondoko, amordekoren* parekoa, alegia.

Honek esan nahi du, bilduak ez ditugula 'buruko atal', 'aldameneko izen', 'aurreko historia' edo gisa horretan ulertzen eta *-ko* elkartu osoari lotzen zaiola pentsatzen dugula.

Gisa honetakoek, *-ko* gabeko kidea izan ohi dute[220].

Izen-sintagmaren egitura izanik, hitz elkartutzat jotzeko irizpidea esanahiaren zehaztasunean sustraitu da, honela, izen(-)ondoko, izen aldameneko ez dira 'izenaren ondoan' edo 'izenaren aldamenean ager daitekeen edozer', gramatika-kategoria zehatz baten deizioak baizik.

Bestalde, dudakotzat joa (alaldeko) ez beste guztiak, *-ko* atzizkia duten *atariko* eta sailekoekin ere kokatu dira eratorpenean landu den puntuan.

---

[216]Bikote honezaz:

"Horregatik nahiago dut nik *eleberri, elaberri* baino, hura izan baitzen aurreko belaunaldiak erabili zuen forma bakarra. Gero, bat baino gehiago, "jatorragoa" zelakoan eta Axularren lekukotasuna aipatuz *elaberri* erabiltzen hasi zen, batasunari arazo bat gehiago sortuz. Euskal literatur tradizioa gidaritzat hartuz ezin daiteke baiezta *ela- ele-* baino jatorragoa denik. Toponimia hartuz ez dakit, baina literatur tradizioa hartuz ez. Pouvreauk *eleberri* erabiltzen du -hiru aldiz gutxienez-, eta bestetan gogoko dugun Leizarragak *elhe zar* (*ez zahar!*). Hitz baten forma-batasuna hautsi baino lehen kontuzago ibili beharko genukeela uste dut". (Sarasola 1989:413).

Mitxelenaren erabilera honakoa da:

eleberri (1968c:152)

elaberri (1984b:42), (1985d:87).

Euskaltzaindiak (1975), *nobela, elaberri* landatu zuen zerrendan.

[217]Azkarate (1990b:319hh, 1991:123), *LEI-3* (1991:123).

[218]Hitz elkartua beda azpian datzana, hemen. Halakorik ezean, aurkitu ez dugun **alaide + -ko* ala **alaide + -go(a), ahaikoaren* bidetik proposatu beharko ote litzateke eta eratorpenera igorri?

[219](1990b:320).

[220]*Izen(-)ondokoren* egungo ordain den *izen(-)ondorik* ez dugu, ordea, aztergaian aurkitu, esana doan bezala.

b. *-ko* lehen osagaian daramatenak

kontrako eztarri (zulo)[221]

Ihartutzat jo daitekeen hitz honen elkartu-izaera erabakitzeko irizpideari herstuki heltzen zaiola esan daiteke, ideia bakarra adierazten duenez gero eta 'kontran dagoen eztarria', egun, bederen, ulertuko ez litzatekeenez gero.

16.A.5. HOTS-UZTARDURAK (ONOMATOPEIAK)[222]

Zerrenda soila eskainiko da:

duda-muda(ko), duda-muda(zko), marmar, tupust-harri, surmur

Elkartuaren kategoria izena izanik, eta bi kasuetan parentesi artean aditzera ematen den bezala, izenlaguna eratuz.

16.A.6. BIKOIZTAPENAK[223]

Bi agerpen soilek osatzen dute atal hau. Bikoiztapenen izaera –hots, elkarketaren barneko gertariak diren ala ez–, ez da hemen aztertuko LEF batzordearen lanean honen berri luze askoa eman denez gero.

bat-bunako, bana-banako

Aipaturiko batzordearen[224] sailkapenean *banan-banan*, *sasi-ámredita* direlakoen artean kokatzen du eta *bat-bat*, berriz, "zenbatzaile zehaztuen bikoiztapen indargarri"-an[225].

Bikoiztapena osatzen duten osagaien gramatika-izaera mintzagai duelarik, arau orotarikotik aldentzen direnen artekotzat jotzen ditu batzordeak *banan-banaka* eta *bat-banaka*,

---

[221] Bi osagai baino gehiagoz osatu hitz elkartuetan berriz aipatuko da.

[222] *LEF-1* (1987:177-197), Azkarate (1990b:379, 1991:23).

[223] *EGLU-I* (1987:215hh), bereziki *LEF-1* (1987:115hh), Azkarate (1990b:420), *LEF-4* (1992:48-52).

[224] *LEF-1* (1967:120).

[225] *LEF-1* (1987:137).

lehen osagaia "jantzirik" ageri eta bigarrenaren "jantzia" ez bezalakoa delako lehenean eta, zenbatzaile bera errepikatzen ez delako bigarrenean:

> Badago, azkenik, bikoiztapen hauen semantikazko zertzeladak azaltzerakoan aipatzea komeni den beste muga-arazo bat ere: bikoiztapen indargarrien eta sasi-âmrediten artekoa. Gorago esan denez, âmrediten eta indargarrien artean, erdibidean edo, daude hainbat komutan sasi-âmreditak. (...). Zaitasunak zaitasun, bidezkoa dirudi oro har indargarrien semantikazko giltzarria intentsitatean eta âmreditena behin eta berriro-tasunean dagoela esatea. (*LEF-1* 1987:141-2).

Aztergaiko bat-banako eta bana-banako, esanahiaren aldetik, baliokide direnak, indargarrien artekotzat ezin jo daitezkeela dirudi. Honenbestez, arestiko aipamenaren arabera, âmrediten ezaugarri den 'behin eta berriro-tasuna' adierazi nahi dela esan beharra al dago?

Ez dirudi bigarren irtenbide hau ere gogoasegarri denik. Hemen adierazten dena, multzoen elementuen arteko harremana denez gero ('biunibokoa', alegia), 'batetik baterako', 'bakoitz bati bakar bat eta alderantziz' moduan edo azal daiteke indar berezirik edo errepikapen-kutsurik gabe.

Honela hartuz, orduan, "Bilbo-Donostia autobidea"-ren edo "euskal-erdal hiztegi"-ren parekotzat jo al daiteke?

16.A.7. NEURRI-SINTAGMAK[226]

Hitz-elkarketaren barrutitik at gelditzen den sail honetako adibide bakarra:

eskutada bat bereizgarri

16.A.8. IZEN SINTAGMAREN EGITURA DUTEN ELKARTUAK[227]

Aurren, azken, lehen... dute hemen bilduek lehen osagaia, euskal egituran ohi den bezala.

Azkaratek[228] adierazi bezala, oso duda-mudakoa da era honetako eraikuntzek elkartuen artean sartu behar ote diren. Hizkuntzalaritza-filologien arloan usu erabiltzea eta esanahia finkatuxe izatea izan daitezke hemen bereizteko irizpideak, egia bada ere, beste atal batean ikusiko diren sintaxi-baliabideen ondoriozko ezkerreranzko hedatuen artean ere koka

---

[226] Azkarate (1990b:419).

[227] Azkarate (1990b:420).

[228] (1990b:421).

zitezkeela.

aurrenesku, azken alfabeto, azken elementu, azken hiztegi, azken zerrenda, azkenurren[229], bigarren hizkuntza, bigarren pertsona, hirugarren pertsona, lehen-hizkuntza, lehen pertsona, lehenbiziko hizkuntza, lehenengo pertsona

ELKAR[230]

Azkenik, 'elkar + izena' egiturak ditugu, berriak hauek ere, Lizardiren eta Orixeren lanean bakarrik aurkitu ditugunak: *elkar-idazki, elkar-antzeko, elkar-onginez*. (Azkarate 1990b:422).

Azkarateren iritziz berria den "elkar + izena" egiturakoa da aztergaiko forma bakarra: elkarrizketa[231], hemendik eratorriaren ondoan: elkarrizketari.

ERDI[232]

Mugatzaile hau, adberbio baliodun *erdi*, 'erdi + X (=erdizka)'[233] motakoa da, ez *erdi* mugatzailea eta menpekotasunezko hitz elkartuko osagaia.

. *Erdi* + izena

erdi hizkuntza

Inguruko erdaretan, *semi-*, *mi-* aurrizkitzakoak eta *medio/a-*, *half-*, *halb-*[234] ditu ordain.

Aztergaian, atzizki txikigileaz eratorririko *hizkuntzaxko* du baliokide[235].

---

[229]Hemen bilduriko zenbait eta hitz hau bereziki, polikiago aztertu dira erdal aurrizkien euskal ordainak autu izan direnean.

[230]*LEF-1* (1987:70), Azkarate (1990b:421), *LEF-4* (1992:81).

[231]Euskaltzaindiak (1975) jasoa.

[232]Azkarate (1990b:422).

[233]*LEF-1* (1991:166).

[234]*LEF-1* (1991:168).

[235]Ikus 14. kapitulua.

BERE

Bibliografian aipaturik ikusi ez dugun hitz baten kontu eman behar dugu orain.

berjabetasun*

***nor-egiria, nora-egiria*, salbuespentzat hartu behar dena, izenordainak eta galdetzaileak ez bait dira izen elkartuetan azaltzen. (Azkarate 1990b:239).**

Hitz mintzagaiaren eraketa: "[bere + jabe] + *-tasun*[236] moduan ulertzen dugula eta[237], *berjabe*ren[238] osaketan *hura* izenordainaren genitibozko forma[239] partaide delakoan gaude.

Ulermoduak aipamenotan ditu zainak:

En cuanto a b.-nav. *norhabe*[240] 'niño, niña' 'muchacho, muchacha, servidor': a.-nav. b.-nav. sal. nerabe (...) la alternancia recuerda curiosamente la que se observa en el posesivo intensivo de 1ª persona: *neure, nere*, sul. *nore*, ronc. *ñore*, etc. Tal vez no sea descabellado pensar que ese posesivo es efectivamente su primer miembro; el segundo sería acaso *(h)abe* 'columna' y 'sostén, protección', como en *haurhabe*[241] 'tutor' (Pouv.). (*FHV* 1985_3:82).

Lan berean, 1977ko adabakietan berrartzen du gaia,

Cabría también otra explicación para *nerabe*, etc.: *neure* + *jabe* 'mi dueño', con paralelos románicos en cuanto a la forma, *FLV* 1 (1969), 50, pero difícil por el sentido, ya que exigiría una violenta inversión de valor, más que un cambio. La que se propone en el texto [arestiko

---

[236] Atzizki-hornitzearen hurrenkeraz, ikus aurrizkien puntuan esanak.

[237] Honela azaltzen dute Agud-ek eta Tovar-ek (1989:932) ere.
Ikus, halaz ere, gure hitz eratormen atala.

[238] Honen ondoan aipa daitezke *beregain* edo eratorbideko *berekoi* esate baterako.

[239] *HLEH*: "**bere**. (XV h.). *Haren*-ek –hots, *hura* izenordainaren genitiboak–, perpauseko NOR, NORK edo NORI osagaitzat aipatua den pertsona edo zera berari dagokionean hartzen duen era".

[240] Noraino esan daiteke izenordainak ez direla elkargai? Ala izen bilakatu behar dute aurretik elkarbidean sartzeko? Baina hona, berriz ere, *bardin* mintzagai duelarik zer dioen Mitxelenak:
"... a pesar de lo cual *berdin* es probablemente más fiel a la etimología, ya que el primer elemento puede identificarse con *ber-* 'él mismo': cf. vizc. (Mogue!) *neurdin* 'ya que' de *neur-* 'yo mismo', que coincide en el significado con *berdin* en a.-nav. y guip". (*FHV* 1985_3:61).
Eta 1977ko adabakietan:
"A propósito de *berdin, neurdin*, puede verse ahora «Nombre y verbo en la etimología vasca», *FLV* 2 (1970), 67-93. El sufijo *-din*, al igual que *-dun* 'haft, -tu' de *duen* 'que lo tiene', no es otra cosa que una forma verbal nominalizada: el «subjuntivo» *dadi(e)n, dedin, didin, din..*". (*FHV* 1985_3:475).

[241] Bidenabar, hona irakaskuntzan eta abarretan berreskura daitekeen hitza.

aipamenean jasoa, alegia], podría apoyarse en el lab. (Ax.) *noharroin* 'necesitado, mendigo', ya que *habe* = *harroin* 'columna, sostén'. (*FHV* 1985_3:482).

Ikuraren aldetikako eragozpenik ez bide dio ikusten Mitxelenak osaketari eta hemengoa gisa bereko osaketa dela esateak ez dirudi burugabekeria.

Aipameneko hitzaren azalpena mintzagai dugunari egokituz gero, ikus dezakegu, *jabe* osagaia salhestera eraman duela Mitxelena *nerabe* hitzaren esanahiak ('eskalari', 'behar') sortzen zuen arazoa dela medio eta *habe* bigarren osagaitzat hartzera, honela, *nerabe* 'nere sostengu', honenbestez, 'ni besteren eskeko, besteren mendeko', debekurik gabe ulertuko litzateke.

Esanahi-kontuari jira emanez, beraz, eta adimodua aurrean izanik, *berjabek*, 'bere jabe', (hemen *habe* bigarren osagaia denik esango ez genukeelako) hots, 'besteren mendeko ez dena' ulertzeko eragozpenik ez luke.

Edozein kasutan, ezin bazter daiteke Mitxelenak "beste"-ren ahotan jartzen duela (hobeto esan, dituela, *burujabetza* ere ondoan aipatzen baitu) hitza[242].

---

[242]. Zenbait hizkuntzalarik, gramatika sortzaileari alde batetik edo bestetik atxikiak egeri direnetakoak, aipatu berri dudan bigarren maila fonologiko honen autonomia (**burujabetza** eta **berjabetasuna** ere irakurtzen dira hauen eta horien izkribuetan) ukatu egin zuten erabat, hasiera hartan (Postalek eta) behintzat". (1983e:132). (Beltz. gurea).

Ez gaude seguru nabarmenduriko hitzak metalinguistikoki darabiltzan, hau da, hitzekiko atxikimendu-eza adieraziz berak darabilen *autonomia*ren ordain ez oso bere gogobetekotzat dauzkalakoan ala '*autonomia* ez ezik independentzia ere bai' edo era honetara ulertu beharko litzatekeen pasartea. Grafi ñabarduraik ez eramateak bigarrenaren alde makurtuko ote luke adimodua? Arazo hau, iragaitzaz bazen ere, hitz soilen atalean eta hizlegiaren sarreran aipatu dugu.

Hitz biok hor bakarrik erabili ditu, bestetan *burujabetasun* erabili du.

16.B. IZENONDO ELKARTUAK[243]

16.B.1. KOPULATIBOAK

16.B.1.A. DVANDVAK

logiko-formal, logiko-matematiko

Bi[244] adibideok [+izenondoa] + [+izenondoa] --> [+izenondoa] egitura-motakoak dira, hots, osagaien eta elkartuaren gramatika-kategoria bera dutenak.

> multzorik esanguratsuena, dena dela, mailegu bidez geroz eta etxekotuago dauzkagun adjetibo erreferentzialezko bikoteek osatzen dute: egoera politiko-soziala, alderdi sozialdemokrata, adierazpide teoriko-praktikoa... (*LEF-1* 1987:169)[245].

Batzordeak idatziak bete-betean dagozkie hemen bilduei.

Berez, hitz bakunen atalean emaniko irizpideei jarraiki, haien artean paralekua balute ere, hemen berariaz jaso dira izaera bereziko adibide urrien erakusgarri.

Aldatu berriei erantsi behar zaizkie izen kopulatiboen artean testura jaulkiriko bizidun/bizigabe eta mugatu/ez mugatu

---

[243] Azkarate (1990b:299).

[244] Hitz bakunen atalean kokatu diren *sozio-linguistiko* edo *morfofonologiko* bezalakoek ez lukete hemen kokalekurik, lehen osagaiaren izenondo ez izatea dela medio.

[245] Halaber, *LEF-4* (1992:55).

16.B.2. MENPEKOTASUNEZKOAK

16.B.2.A. ADITZOINA + IZENONDOA[246]

LEF Batzordeak (1991), (1992) "Izaera-Elkarteak" deituriko saila da, hemengoa[247]. Multzo honetan bilduak uztartzen dituena mugatzailearen gramatika-kategoria da, aditzoina, eta *erraz*, *gaitz* eta *ezin* mugakizunak dituzte.

adi-erraz, batu-erraz, ulerterraz

Azken hitz honen eta ondoren aipatuko den ulertezinen barneko -*r*[248]- kontsonante epentetikoa azpimarratzekoa da.
Adierari dagokionez, 'Helburua' litzateke lotuko litzaiokeena.

iragangaitz, zatigaitz

ulertezin[249]

16.B.2.B. IZENA/IZENONDOA + *zale*[250]

chomskizale, Chomsky-zale, garbizale, indoeuropartzale, Leizarragazale, kontserbazale, liburuzale[251]

LEF-3-k (1991:127) dioen bezala, *zale*k ezkerrean daraman gramatika-kategoria ikusi berriena ez bezalakoa da; hemengo gehienena, izena eta/edo izenondoa da eta.
Orotariko sailetatik kanpo gelditzen den bakarra bitxi irizten diogun horko kontserbazale da.

---

[246] Azkarate (1990b:299), *LEF-3* (1991:119), *LEF-4* (1992:58,59).

[247] Ez dator guztiz bat batzorde berak 1987an plazaratuarekin. Aldakuntzen berri, *LEF-3* (1991:121).

[248] *LEF-3* (1991:65). Halaz ere, gogora, aditz-izenaren arrastoaz esana.

[249] *ezin* lehen elementua duten "ezin + partizipioa + *-zko*" gisakoak, sintaxi-eguturen berri emango den atalean kokatuko dira.

[250] Batzorde beraren *LEF-4* (1992:58,59) lanean, ez da, hastik zalerik bitzen, bai ordea, *LEF-3*-n (1991:121) sail honetatik ateraraziriko *minbera*.
*zale*dunak, "Asmo-elkarte" sailean kokatu dituzte, jaso bezala.

[251] Hauek guztiak eratorpenaren eta elkarketaren artekoen sailean ikusi ditugu. Han ere agertu dugu gure *kontserbazale*zko harridura.

16.B.2.C. *GABE* bigarren osagaia[252]

gabe posposizioetako osagaitzat jo bada ere[253] eta halaxe gertatu adberbio moduko erabileran, bada *gaberen* beste erabilera[254] bat elkarketan kokatu ahal izatea zilegiztatzen duena, izenondoak sortzeko baliabide izatearena, hain zuzen ere.

gaberen beregaintasunean oinarrituriko bereizkuntza[255] honen aldeko irozgarria, *LEF-3*-k[256] Azkueren hiztegiko testigutza dakar. Mitxelenak mamituak ere, delako bereizkuntza sendotzen duela ikusteak makurtu galtu bigarren erabilera horretakoak elkartuen artean kokatzera:

> Euskara aski eskasa eta gabea da fonema kontuan. (1983e:134).

. izena + *gabe*

apaindura gabe, azken gabe, baztergabe, bizigabe, markagabe(?)[257], moldegabe, mugagabe(?), neurrigabe

. izena + *gabeko*

azentu gabeko, garraisia gabeko, kolore gabeko

. aditzoina + *gabe*

argitaragabe

---

[252] *LEF-1* (1987:63-64) "Lotsa-gabe, lo-falta" mota; *LEF-3* (1991:131-138), *LEF-4* (1992:60,61).

[253] Villasante (1978:78-80), *EGLU-I* (1985:441).

[254] Ikusi bezala, ez da elementu bera betekizunen arabera egitura bateko nahiz besteko osagarri gertatzen den kasu bakarra: *alde, antz, buru, pare...*

[255] Azkaratek (1990b:400) adieraziak zituen bereizkuntza ezarekiko zalantzak:
"Izan ere, postposizioen artean sartu dugu *gabe*, izenondoak sortzen zituenean, hots, *hondargabe, cenzugabea, sartugabeac, arduragabeac, menderagabe*... etabar. Zalantzak izan ditugu egitura hauek kokatzerakoan, izenondo elkartuen artean ere lekua izan zezaketelako. Azkenean, *gabe*, L. Villasantek (1978:78) eta P. Lafittek (1944:168) 'postposizio' kategoriaren azpian eman izanak bultzatu gaitu hemen kokatzera".

[256] (1991:133).

[257] Galdera-ikurra aditzointzat hartu ahal izateari zor zaio. Ik. 14. kapitulua.

. atzizkidun gabe[258]

Bibi xamar irizten diogulako bakandurik paperera duguna.

. partizipioa + *gabe*

landugabe

Diskuti daiteke azken hau posposizioen artean kokatu beharko ote litzatekeen. Egituraren osamoduari begira, posposizioa dela esango genuke; esanahiak, haatik, kontua iluntzen duelakoan gaude, adberbio-baliotik baino adjektibotik gertuago sumatzen baitugu[259].

Aipatuei erantsi beharko litzaizkieke, aditz elkartutzat jo diren: indargabetu, ikuragabetu, aditz bilakagai lituzketen oinarriak.

16.B.2.D. ELKARTU SINTETIKOAK[260]

16.B.2.D.1. A + *dun*

. izena + *dun*

araudun, argumentudun, arimadun, artikuludun, atzizkidun, azentudun, azkendun, gangardun, markadun

LEF Batzordearen lanetan "Errokari"en artean kokatzen duten azpisail hau da nagusiena izenondo elkartu sintetikoetan.

Elkartuen egiturari begiratuz, esan daiteke, erlatibozko aditzean jatorria duen *dun*, oro har, izenei lotzen bazaie ere, ez duela hau ezinbesteko eta honenbestez, hor daude ondoren

---

[258] "Kasu baten ezaugarria daraman izena ezin truka daiteke, salbuespen edo beste salbu, atzizkidun gabearekin". (1986c:173).

Bestetik, berriz:

"Gainera, *izen ez-propiodunek*, ergatibo plurala, egiteraino heltzen da, eta hori euskaraz absolutuki ezinezkoa da, *-dun* berrekaitua beti baiezko zentzuzkoa baita. Izan ere, ezezkorako *gabe/gabeko, bega/ba(ga)ko*, eta abar, hartzen da. Hau da: *izen propioduna* alderdi batetik, 'izen propioa duena', eta *izen propio bakoa* bestetik 'izen propiorik ez duena'". (Irigoien 1989:245).

Hizkuntzen erabilera usua eta metalinguistikoaren (edo diskurtso errepikatuaren) arteko aldeek zenkusirik ote?

[259] Nolanahi dela ere, kiekeena da horren "atze" gertatzen ez zai(zki)gun hizkuntz(ar)en irauipena(k) izatea kausa.

[260] *LEF-1* (1987:43-52), Azkarate (1990b:296-300), (1991:124), *LEF-3* (1991:25-58), *LEF-4* (1992:64-69). Eratorpenean aipatu dira.

aipatuko direnok.

. izen-multzoa + *dun*

azentu 'luze'-dun

. zenbatzailedun izen-sintagma + *dun*

bisilabadun

Hemen jaso dira izenondo moduan erabiliak, batipat, izenaren (soilik nahiz nagusiki) eginez erabili direnean, izen elkartu sintetikoen artean paratu baitira.

16.B.2.D.2. Izena + aditz-izena

Aztergaiko adibide bakarra, 'A + x*/-(tzai)le*' moldekoa.

formaldatzaile

Izenondo elkartu sintetikotzat jorikoak 'Egile-elkartu'en sailean kokatu beharko lirateke, *LEF-3* eta *LEF-4* lanen sailkapenaren arabera.

16.B.3. EXOZENTRIKOAK (BAHUVRîHIAK)[261]

teorizeken, etimologibera(tasun)

Zalantzazko izanik ere, hauek lirateke exozentrikoen motako ordezkari bakarrak, Marchand-en ustea[262] kolokan jartzen dutenak, baina Mascaró-rena[263] egiaztatzen dutenak, bestalde. Sailaren ordezkarien urria, Azkaratek erreparaturiko honi lot dakioke, apika:

---

[261] *LEF-1* (1987:59,99-101,199-206), Azkarate (1990b:321hh, 1991:125), *LEF-3* (1991:147), *LEF-4* (1992:56,57).

[262] Azkaratek (1990b:323) jasotzen duena:
"Gaurko zientzia eta teknika terminologian 'bahuvrihi' asko agertzen omen da".

[263] [barba-*roig* motaz ari delarik]:
"Una altra propietat d'aquest grup és el fet que queda reduït al vocabulari més popular, i el lèxic tècnic no utilitza aquest procés de formació de mots per crear nous adjectius". (1986:65).

Alpagarria da herri hizkeran egitura hauek izan duten eta duten indarra (goitizenak ere hala osatuz askotan) eta horren ondoan hizkera estandarrean duten leku txikia. (Azkarate 1990b:125).

Hitz elkartu exozentrikotzat jotzeko arrazoia, elkarketaz kanpoko izen baten izenondoarena egitean datza.

$*_{izenondoa}$[izena + izenondoa]$_{izenondoa}$ egitura lukete, Azkarateren[264] *Posesiboen* artekoa.

Azpimarra dalteke *zeken* izenondoak elkarketa honetan izan dezakeen erdal aurrizki ukatzailearen balioa[265], halakoak aztertu direnean erakutsi den bezala.

Bestetik zehaztu behar dugu, etimologiberatasun osorik hartuta, erabilia dagoen moduan, ez litzatekeela sail honetakoa, baina erator-atzizkiaz soilduz gero gelditzen den oinarriari begiratu zaio hemen aipatzeko.

Honek esan nahi du, hobetsi den irakurrera "izenondoa + *-tasun*" dela[266], Morfologia Sortzailearen eratorpen eta elkarketaren arteko harremanezko irizpideak irizpide.

Halarik ere, *LEF-3*-ri jarraiki[267], badirudi bigarren osagai *bera*, 'biguin' adiera galdua eta 'joera' edo adierazten duen neurrian, hemendik aterarazi eta eratorbidera igorri beharko litzatekeela. Atal biotan sartu dugu guk, ikusi bezala.

---

[264](1990b:227).

[265]"Bonapartek berak ere, zein ere teorizekena zen, ezinitzurizko zorra kitatu zuen, noiz edo noiz". (1965d:80).

Testu-moldatzaileak honela dio: "*teorizeken*: ateoriko, eskasa teori kontutan".

[266]Azkarate (1990b:299).

[267](1991:121).

16.C. ADITZ ELKARTUAK[268]

Sail honetan bi multzo nagusiri erreparatuko zaie. Benetako aditz elkartuei batetik, eta aditz-esapideei bestetik, aditzarekin zerikusia duten beste egitura-motek beste kokapena baitute.

16.C.1. ADITZ ELKARTUAK[269]

16.C.1.1. Izena + aditza

azpimarkatu[270], azpimarratu[271], eraberritu, formaldatu, itxuraldatu, lekualdatu, letraldatu[272], tokialdatu

Elkartuok oro izen bizigabea eta aditza lotuz sortuak dira.

Adierari dagokionez esan behar dugu, bai multzo aipatu berrikoen, bai ondoren jasoko direnen mugatzaileen artean, nagusi direla *era, forma, itxura*, esanahi-eremu bereko izenak, *azpi, leku, toki* nahikoa kidekoak bigarren, eta *letra* eta *indar* agerraldi bakarrekoak, azkenik.

Aditzen multzoan, berriz, *aldatu* izanik maizenik baliaturiko aditza, beste aditzok (*berritu, gaiztotu, txartu*) ere egoeraren aldakuntza bere semen artekoa dutela esan daiteke.

Bi lerro nagusiotarik at gelditzen dira *marratu/markatu* aditzak.

. eraberritu, Azkaratek[273] nabarmentzen du Lizardi eta Orixeren testuetan batipat jasotzen den aditza dela eta RE- erdal aurrizkiaren ordezkotzat sortua den iritzia agertu. Irizpide hau azpimarratu nahi da, hemen ikusi den legez, erdal aurrizkien euskal ordainek arreta berezia izan dutelako, eta Lizardik eta Orixek erabilia izanak bestelako ondorioak ere izan ditzakeelako.

---

[268] Azkarate (1990b:300hh, 1991:126), *LEF-3* (1991:3hh), *LEF-4* (1992:62,63).

[269] "Egiazko aditz elkartuak" (*LEF-3* 1991).

[270] (1981c:147,161).

[271] *(1978a:27), (1983a:48), (1985b:190).*

[272] Aztergaiaz lekorako testigutza hau ekar daiteke, Mitxelenak hitz-eratze jakinaren gainekoaren berri ematen duenez gero:

"Zenbaitetan, ederki xamar molda gaitezke, behar litezkeen letra-aldatzeak (zilegi izan bekit adierazi nahi dudana horrela adieraztea, *itxuraldatu, tokialdatu* eta antzekoak onartuak daudenez gero) eragozpenik (eragozpen larririk, behinik behin) ez dakarrelako". (1981m:33).

[273] (1990b:302).

indargabetu, ituragabetu, ituragaiztotu]][274], ituratxartu

Bigarren multzo honetakoak berariaz bildu dira, ez delako garbi ikusten "Izenondoa + *-tu*", hots, izenondoari erantsi ote zaion aditzak sortzeko atzizkia, ala aditz elkartutzat jo behar ote diren[275], nahiz erdal aurrizkien ordainen atalean, "I + *gabetu...*" egitura hobetsi eta paratu den.

Eta gauza bera esan daiteke azpimarkatu/azpimarratu bikoteaz: *azpimarra/azpimarka + -tu* ala *azpi + markatu/marratu*?

16.C.1.2. Izena[276]/Izenondoa + etsi

begietsi, onetsi

Mugakizun den *etsi* aditzaz zerbait zehaztu beharra dago. Azkarateren[277] eta LEF batzordearen[278] ianetan, *etsi* beregainaren[279] '*-tzat* jo', 'iritzi' balioen galera aipatzen da. Haatik:

> Hona beste bat, ikaragarria, Azkuek zorionez baztertua: "Inexcusable, *ma-emana (sic)*". Adizkia baita Larramendik izen-ondoko etsi duen hitz hori *RS*-ko 307 garrenean. (1961a:56).

---

[274] Ik. argitaraldiezko itsaskina

[275] "Izen elkartua + atzizkiak" sailean, morfologia sortzaileen 'Antolakuntza Hipotesia' dela eta esanak gogoratu beharko genituzke. Sail honetan sartu ditugun (...) *gogo-iturri, gogoberotu* (...) izenondoari atzizki bat edo bestea erantsirik lortu direla iruditu zaigunak. Badira zenbaitzuk beste azterketa bat ere onartzen dutenak, hala nola *gogo-urritu, gogoberotu*... 'gogo-urri', 'gogobero' (...) izenondoari *-tu* aditz atzizkia erantsiz sortuak bezala ikusi ordez, 'gogoz berotu', 'gogoz urritu'... aditz elkartu bezala ere har daitezkeenak". (Azkarate 1990b:299).

[276] Azkaratek (1990b:) ez du oinarri honen berririk ematen.
Izena oinarri izateak eta aditzaren objektua ez baina subjektua izateak sendotuko al luke benetako aditz elkartutzat hartu ahal izatea, Marchand-en iritzian oin hartuz "izenondoa + adiza" egiturak elkartu-izaeraz sorrarazten dituen zalantzak uxatuz?

[277] (1990b:303,409, 1991:126).

[278] *LEF-3* (1991:5hh).

[279] Orol, halaber, *eraginen* erabileraz esanak.

16.C.2. ADITZ-ESAPIDEAK

Multzo batean ekarriko dira Azkaratek[280] eta *LEF-3*-k[281] proposaturiko bide-terminologiei jarraiki, "izen mugatzaile gabea + *eman, egin, hartu*" egiturakoak. Lan horietan zehazten diren baldintzak[282] betetzea dute lege.

antzeman, galde egin, galdegin, hauteman, hitz egin, onartu

Hauetako batzuk (ia) ihartutzat jo daitezke.

---

[280](1990b:407-415).

[281](1991:8-13).

[282]Baldintza horien funtsa Michelenaren (1977b) lanean kausitzen da.

16.D. BI OSAGAI BAINO GEHIAGOKO ELKARTEAK

Era honetako elkartuen izaerazko eztabaidan sartu gabe[283] puntu batean eman nahi dugu aztergaian zehar atzemaniko gisa honetakoen bilduma.

Juntagailuez lotuei ez zaie azken hondarretarainoko azterketarik egokituko, binakako azterlanean egina doanez gero, baina osagaien arteko harremanetan sustraituriko nolabaiteko sailkapena egingo da.

. Kopulatiboak

georgiar eta armeniar hizkuntza

. Menpekotasunezkoak

. mugakizun bera, mugatzaileak *etaz* loturik

bailara eta auzo hizkera, egile eta eragile itxura, ikas- eta irakasbide, ikas- eta irakas-liburu, izen eta aditz sintagma, jakite- eta teknika-hizkuntza, leku eta pertsona izen, linguistika eta matematika ikasle, mintza eta adierazpide, tupust- eta behaztopa-harri, zentzu- eta baliokide

. mugakizun bera, mugatzaileak *edoz* loturik

erakar edo eratorbide

Ikusten den bezala, elkarketa-mota bat baino gehiagokoak bildu dira, eratorpen eta elkarketaren artekotzat jo direnak barne.

. mugatzaile bera, mugakizunak *etaz* loturik

alfabetatze liburu eta aldizkari, hitzarte eta azkeneko, linguistika-liburu eta aldizkari

. juntagailurik gabeko elkarketak

berridazte erregela andana, denbora-neurri izen, egiantz-kalkulo, kontrako eztarri zulo

---

[283] P. Urkizuk (1989:124), honakoak aipatzen ditu P. D'Urteren hitz-aitzorretik hartuak: *tintaplumatoki, iguzkilkialde, adinferoehaste, ostoluzabelar, ikuserakustegi, kukushilbasabelar, salerosbilatze, diruemanhartzaile.*

Azkenotan, gure irakurrerak mugakizuna elementu bakarrekoa eta mugatzaile elkartua zehatzera makurtuko gintuzke, hots: "$_{izena}$[izena + izena]$_{izena}$ + izena", bigarrenak duen lotura-marratxoa eta hirugarrenaren erabateko batzea, gainera, uste honen indargarri litzatekeela dirudi.

Osagaien arteko harremanei dagokienez,

. berridazte erregela andana: "Adizlagun-Objektu mota, Erg.- Abs.- z(zertaz) - zertu" 'Edukia'[284] (aditz-izena - izena 'Helburua').

. denbora-neurri izen: "Subsumptive" ("Objektu-Subjektu mota, Ergatiboak - Absolutua - zertu" 'Edukia' ("Dvandva") deskripzioa legokieke hirurei, 'Edukia' erlazio semantikoa zabal xamar harturik.

. egiantz-kalkulo: "Adizlagun-Subjektu mota, Absolutua - Aditzondoa - zertu" 'Modua' ("Subjektu-Objektu mota, Ergatiboak - Absolutua - zertu" 'Erkaketa').

. kontrako eztarri zulo: "$_{izena}$[izena + *-ko* + izena]$_{izena}$ +izena"

Hitz berezituak osagai dituzten elkartu hauezaz gain, hiztegian bestelakorik ere badu islarik. Hona batzuk hornidura moduan: *bake eta lasaitasun giro, eguzki- eta iparraldeko, ihes-edo intenbide.*

---

[284] "Adizlagun-Subjektu" motan ere izan zezaketen kokagunea. Azkarate (1990b:218).

16.E. ONDORIO GISAKOAK

Kapituluan zehar ikusiriko gertakaririk nabarmengarrienen kontu emango dugu.

* Hots-aldaketetatik hasiz, honako egoera aurkitu dugu:

. gizon --> giza, asto --> asta
Sistematikoki aldatu dira hitz elkartuaren ezkerraldeko osagaiak direnean.

. iturri --> itur, neurri --> neur
Aldakuntza hau, berriz, ez dago esaterik betibatekoa denik: *iturburu, iturri-bilatze* adibide banatan eta antzeko gauza beste bikotean: *neurtitz* baina *denbora-neurri izen, neurrigabe.*

Gibeleko bokala galdua duten bi hitz elkartuak aski ihartutzat jo daitezkeela iruditzen zaigu.

. atari --> atal, gari --> gal, euskara --> euskal, erdara --> erdal
Ez dugu *atari* osoa ezkerraldean daraman hitz elkarturik aurkitu; guztiek *atal* dute: *atalaurre, atalburuko...*
Bistakoa denez –hizkuntzalaritza-filologia inguruko hitz berezituen azterkatzea denez– ez dugu *gari* lehen osagaia duen elkarturik atzeman. Areago, *galbahe* lexikalizatua besterik ez dago aztergaian.
euskara, erdara ere beti itxuraldaturik darabiltza.

Hauek guztiek, gure ustez, molde ihartuan dute lokarria: *atal* eta *galbahe* halaxe dira eta beste biak ere (*euskal, erdal*) aldakuntza-legearen indarraren azken arrastotzat joko genituzke.

. -a berezkoaren inguruan

Azterlanean zehar berariaz egin ez badugu ere, uste dugu komeni dela *-ia* amaia dutenei bereziki erreparatzea.

-a --> -a: fonetika, gramatika, hizkuntza, pertsona, egitura, linguistika
-a --> Ø: hizkuntz, arnas, kultur, literatur
-ia --> -ia: fonologia, lexikografia, historia, zientzia
-ia --> -i: egi, fonologi, etimologi, kategori

Aztergaiko molde hauetan oin hartuz ikus daiteke zenbait hitzek *-a* beti gordetzen dutela (*fonetika, gramatika, pertsona, egitura, linguistika; lexikografia, zientzia*); beste batzuek, berriz, beti galtzen dute (*arnas, kultur, literatur*), eta azkenik beste bietan ez dago erabateko jokamolderik *(hizkuntza/hizkuntz, fonologia/fonologi).*
Nolanahi dela ere, badirudi Mitxelenaren isuria, azken buruan *-r* soilean gelditzera

daraman bitartean, ez duela *-k* molde berean ikusten.

* Izen elkartu kopulatiboen sailean ikusi ahal izan da pareak osatzeko Mitxelenak euskal osagaiak ez ezik erdal osagaiak ere badarabiltzala: *pidgin/créole*...

. Bestetik ikusi da badirela "Dvandva" motan ohiko lege orotarikoa duen pluralez erabiltzea urratzen dutenak (*pertsona/ez pertsona*), gure adimoduak aposizio izkutu baten argitan hartzera bultatu gaituena.

Gertakizun hau are eta zalantzazkoagoa begitandu zaigu *latin-erromanikoren* kasuan; hain zalantzazko, ezen gehiketa edo tautologia motara pasa behar ez ote den susmoa eginaraztera behartu baikaitu.

. Zenbait izen elkartu "Dvandva"-tan osagaien hurrenkera txit funtsezkoa dela ikusi dugu: *erdal-euskal (hiztegi, gehigarri), latin-euskara (hiztegi)* eta ez dagoela gogoak eman bezala eratzerik hitz elkartuaren izaerari berari iruzur egin gabe.

. Ez gara gauza izan *gainbehera* ezarririko sail jakin batean sartzeko, osagaien gramatika-kategoria eta osaera direla medio.

. Atribuziozkoen sailean eglaztatu ahal izan dugu Mitxelenak aukeran dituen bi ordenak ("A den B" eta "B den A") neurri beretsuan baliatzen dituela.

. Aposizioetan, gatzaturiko arrunteko hurrenkera "Determinatzailea + Determinatua" biltzen duena da (ingelesaren bidaidea); bi salbuespen besterik ez ditugu atzeman: *IS nor, silaba muta cum liquida*, atzekoz aurrerako ordena (espainol-frantsesena) gatzatzen dutenak.

. Subsumptive motaren ugaria azpimarratzekoa da, aztergaiaren izaerak horretaratua, gure ustez.

* Menpekotasunezkoen multzoan azpimarratzekoa da "Izena + Izena" osamoduaren oparoa eta nagusitasuna.

. Hauetako askok, maizkara, erdal "Izena + Adjektibo erreferentziala" egitura dute pare-parean.

. "Aditz-izena + izena" eta "Aditzoina + Izena" egiturak berdinduz, ikusi ahal izan dugu askoz ere ugariagoa dela bigarrena lehena baino (hirurogeita bost / hamabi).

. Eramolde erabilien honetan azpimarratzekoa da eskuin aldeko osagaia *bide* dutenek osatua (hogeita zazpi), gure ustez ulertzekoa aztergaiaren izaeraren kariaz.

. Hitz elkartu sintetikoek ere badute bere oihartzuna bai "Egile-elkarte" motan baita "Ekintza-elkarte" motan ere. Lehenetan nabarmentzekoa da gehienek [+biziduna] (areago, [+gizakia]) erreferente bati atxikitzen zaizkion bitartean, badirela [-biziduna] tasunaren jabeak ere: *orden-erakustaile, galdegile*, esate baterako.

Gertakizun honek ikuskizuna badu eratorbidean antzemandako beste batekin; 'Egilea' adiera ez dagokio beti animadun izakiari.

* Hots-uztardura guti aurkitu ditugu: *duda-muda, marmar, tupust-harri, surmur*

. Halaber, bikoiztapenak ere urri (*bat-banako, bana-banako*).

. Gauza bera esan daiteke neurri-sintagmez (*eskutada bat bereizgarri*).

Hiruron urriak aztergaiaren izaerak uztartzen eta argitzen ditu, gure iritziz.

* "*elkar* + Izena" mota –Azkarateren (1990b:422) ustez berria dena eta Orixe-Lizardik sortu edo indartua dena, hain zuzen ere– bitan besterik ez dugu atzeman: *elkarrizketa*[285], *elkarrizketari*.

* Izenondo kopulatiborik apenas antzeman dugun: *logiko-matematiko, logiko-formal* (erdal ituri garbikoak) eta *bizidun/bizigabe, mugatu/ez mugatu* izatez berezi samarrak direnak, emandako arrazoiek argitu uste duten bezala.

* Menpekotasunezko izenondoen egiturarik emankorrena "Aditzoina + *erraz, gaitz, ezin*" osatua dela ikusi ahal izan dugu.

. Puntu honetan azpimarkatu gogo dugu hirurak izan daitezkeela erdal *-bleren* ('daitekeena' adiera duen *-ble* baten, hobeto esan) ordain egokiak eta eratorbidean zehaztuekin batean gogoan izan beharrak.

. Gure harridura plazara dugu eskuinaldeko osagaia *zale* duen hitz baten aurrean: *kontserbazale*, salbuespenek ez bezalako oinarria izatearen kariaz, beste guztiek izena edo izenondoa baitute.

. Aztergaian mintzatu gara *gabe* izenondo izatearen alde, Mitxelenaren erabilera zehatzean oin hartuz, hain zuzen ere.

. *gabe(ko)* eskuinean daramaten izenondo elkartuen oinarri-ugariaren kontu eman dugu.

Ezin begi aurretik ken daiteke, gure ustez, moldamodu honek euskarari eskueran jartzen dion irtenbidea 'eza', 'falta' adierako erdal aurrizkidunak aldatzeko.

* Bahuvrihi garbi bakarra besterik ez dugu atzeman. Azterlanean genioen bezala, Marchand-en sail honezazko emankortasunaren ustea kolokan uzten du Mitxelenaren erabilerak.

* Aditz elkartuek ere badute bere lekua aztergaian. "Izena + aditza" egiturapean bilduetan azpimarratu dugu aditzak oso eremu semantiko zehatzekoak direla, oro har.

"Izenondo + *etsi*" sailaren elkartu-izaera aldeztu dugu Mitxelenaren erabileran oin hartuz, eta "Izena + *etsi*" egituraren berri eman. Gure ustez, azterkizun interesgarria luke argumentu-ezartzearen teoriak *hobetsik* eta *begietsik* mamitzen dituztenak argitzen.

Azkarateren eta *LEF* batzordearen lanetan irakur daitezkeen sail honen antzuazko aburuen aurrean, gure zalantza adieraziko genuke.

* Bi osagai baino gehiagoko elkarteak ere aurkitu ditugu aztergaian.

Joera orotarikoa mugakizun bera eta mugatzaileak *etaz* edo *edoz* lotzearen aldekoa da garbi (hamaikatan).

Bitan, mugatzaile bera eta mugakizunak *etaz* loturik dituen eramoldea atzeman dugu.

Juntagailurik gabeko elkarketak bakanagoak dira baina ulermoduaren aldetik inongo oztopabiderik ez dutenak.

---

[285] *HLEH*: 1946. Ez dakar *elkarrizketarirk*; ezin jakin beraz, noizkoa duen lehen testigutza ezta Mitxelenari bizkarrera beher ote zaion ere.

Honek guztiak erakusten digu Mitxelenaren hizkerak hitz elkartuen sailean baliabide emankorra duela eta gainera aberastasunez mamitzen dituela elkartuok, landaturiko sailek eta zatisailek agerian utzi duten bezala.

Zeinahi gisaz azter-ihardunean zehar paperera jaulkia berriz adierazi behar dugu. Ezin uxatu izan dugu deslo genuen guztietan zalantzaren lainoa eta behin baino gehiagotan bai sailkalanean bai irakurmodua emetean noraezean ibili gara. Hau dela eta, hemen aurkeztua adimodu baten (gure adimoduaren) araberakoa dela berriz ere aitortu behar dugu.

III. ATALA

17. Kapitulua: SINTAXI-BALIABIDEAK

17.1. ATARIKOA

Eratorbidean eta hitz-elkarketan tokirik ez duten bestelako egiturak[1] bildu dira hemen, azterketa azken muturreraino eramateko eta gaia agortzeko xederik gabe, halaz ere.

Atal honen karla, euskal hitz-sorbidean, hitz-eraketa gorpuzten duten ohiko eratorbidearen eta elkarketaren ondoan ballatu den eta baliatzen ere den beste bide baten kontu ematea da.

Hagitz garrantzizkoa dirudi, batipat erdal adjektibo erreferentzial direlakoen ordainak euskaraz[2] nola eman daitezkeen zehazteak[3] – berezituen barrutiari bereziki begiak irauliz–, zein joskera-egitura dauden eskueran ikusteak, halakoen premian izanez gero.

Hemen emango dena ez da baina erdal adjektibo erreferentzialen bana-banako ordainen zerrenda, euskal erator-atzizkiak batzuetan eta hitz elkartuak maiz, gisa horretako erdal adjektiboetara –hobeto esan, adjektibo-mota hori duen izen-sintagmetara– alda baitaitezke. Bestetik, ezin esan daiteke hemen bilduak oro ezinbestean erdal adjektibo erreferentziala duenik parean, hainbetariko asko erdarez ere izenaz goitiko egitura osatuz erabiltzen baitira.

Labur esan, hemengo multzoetakoak batzen dituena lexiko-kategoria ez izatea da, kasurik gehienetan, izena muin duten sintaxi-mailako egiturak izanik[4].

Bi multzo nagusi bereziko dira izena gune dutenen artean.

Lehenean, egitura hedatua izanagatik, berezia delako[5], izenlagunen sorbidea izango da aztergai. Bigarrenean, egitura hedatuak edo "hedadurazko egiturak" izendatu ditugunak jorratuko dira.

Bestetik aldatuko dira perpaus osoak (erlatibozkoak batipat), eta azkenik, aditza gune duten zenbait egitura, ingelesez *LSP-Phraseology* deiziopean biltzen dituztenen parekotasunean oinarrituz[6].

---

[1] Hiztegian eskaini zaien sarrera-mailaz ohar bat egin behar dugu. atal honetan bilduetan badira sarrera osoaren jabe direnak, azpisarrera gisa emanak eta adibide soiltzat joak. Banaketa-mailaketen arrazoiak hiztegiaren sarreran eskaini ditugu.

[2] Bereziki Ensunza (1989).

[3] Egun, maizegi bere horretan hartzen diren *-al, -ico* eta kideko atzizkiez erdarez sorturiko adjektiboen harraldi horri nolabaiteko iragazia ezarrizrik ba ote dagoen ikusi ahal izateko, besteak beste.

[4] Hitz-elkarketa eta sintaxi-multzoen arteko bereizkuntzaz, Azkarate (1990b:23-49).

[5] Ikus "Azterbideak" atala, azterlanaren sarreran.

[6] Azterlanaren sarreran arrazoitu da hau guztia.

17.2. SAILKAPENA

17.2.1. *-KO* IZENLAGUN-SORTZAILEA

Atzizki honek plama ugari betearazi dizkie euskalariei[7], batzuetan, izenlagun-sortzaile ere den *-ren*-en eta bestetan 'Jabegoa' edo 'Eutezkoa' adierak direla medio–, lehiakide duen *-dun*-en parean ipiniz.

Hemen aipaturiko bibliografia balialuagatik, aztergaiaren sarreran zehazturiko irizpideei eta bereziki Azkarate (1990c) eta Altuna-Azkarate (1992) lanei jarraikiko zaie, erator-atzizkitzat zer jo erabakitzerakoan:

> Azkenik, nolakoa da izen-sintagma mugagabeari eransten zaion *-ko* horri? Izan ere, hiru *-ko* bereizi ditugu:
>
> 1. Adizlaguna + *-ko*, zeharo emankorra delako eta oinarrian sintaxi-kategoria duelako ohizko erator-atzizkitzat hartu ez duguna.
> 2. Izena + *-ko*, kategoria lexikal bati erantsiz beronen azpikategorizazioa aldatzen duena eta beste erator-atzizki batzurekin jarraian erabil daitekeena.
> 3. (Zenbatzailea) + izena + (izenondoa) + *-ko*, izenaren projekzio gorenaren bi azpimultzori eransten zaiona. (Altuna-Azkarate 1992:104)

Bigarren eta hirugarren motak eratorpenean[8], atzizki izen-sortzaileen arteko 'Egilea' eta 'Lekua' adierazten zutenen artean bata eta, izenondoen[9] sortzaileen 'Jabegoa' edo 'Eutezkoa' adiera zutenen artean bestea, kokatu dira. Orain lehen multzokoak ikusiko dira, hau da izenlagunak sortzen dituen *-ko* hartuko da aztergai.

Azpisailkapenerako, *EGLU-I(Er.)*-k (1987) paratuari eutsiko diogu[10].

---

[7] Batzuk aipatzearren: Azkue (1923-25), Altube (1929), Michelena (1972c, 1976e), Mitxelena (1972b, 1986c), Goenaga (1980$_2$), *EGLU-I* (1985), *EGLU-I(Er.)* (1987), Trask (1985), Rijk (1988), Azkarate (1990c), *LEF-3* (1991), Altuna-Azkarate (1992).

[8] Gogoan izan, halaz ere, erator-atzizkitzat jotzeko aipatzen ziren debekuak.

[9] Honela du sail osoak deitzea, berez, zentzu hertsian, multzo honetakoak benetako izenondotzat jo ez badaitezke ere. *EGLU-I* (1985:241-2).

[10] Adberbioa + *-ko* --> izenlaguna" mota emankorrean bil zitezkeen behekoak, paperera aldatu iritzian oin hartuz, ibuiraz adberbiorik –hots, aditzondo nahiz adizlagunik– ez egon arren, izenlagunaren azpia inesiboaren bitartez azal daitekeena izatea dela medio.
FHV (1985$_3$:505), Michelena (1972c), Mitxelena (1972b), Goenaga (1980), Trask (1985), Rijk (1988).

17.2.1.1. Izena[11] + *-ko* --> izenlaguna

agerlko[12], agiriko[13], aho-sapaiko, aitzineko, antzinateko, atzeko, aurkako[14], aurrealdeko, aurreko, axaleko, azaleko[15], azpiko, barneko, barrengo, barruko, bazterreko, bitarteko, bokal-aitzineko, bokal-gibeleko, erdibideko, erdiko, etxaldeko, gaineko, gibeleko, hasierako, historiako, hizketako, hizkuntza barneko, hiztegi maitako, irakurgaiko, kanpoko, kontsonante ondoko, lagunarteko, logika-aurreko, mendeko, menpeko, noraezeko, oinarriko, ondoko, sapaiko, zeharbideko, zientziako

Bestetik aipa daiteke oinarrian izen-sintagma lukeen:

bere eskuko.

17.2.1.2. Leku-aditzondoa + *-ko* --> izenlaguna

bertako

Bi multzootako izenlagunek, beste adjektiboek bezala, izenarena egin dezaketenez gero[16], denboraren etorrian lexikalizazioa dela bide, erabateko izen beregain bilaka daitezke, egun halakotzat jotzen diren *bitarteko, buruko, lekuko*... eta enparatuen antzera[17], beste batzuk bidean egon daitezkeen bitartean.

Bikoiztasun honek sortzen du sarri asko hiztegigilearengan zalantza gorria[18], hiztegian noraino eman behar zaien sarrera osoa erabakitzeko momentuan.

Bihoaz, adibide gisa, ondokoak:

---

[11] Izena elkartua nahiz eratorria izan daiteke.

[12] (1972b3:53,57 hirutan,60), (1983e:125).

[13] (1981c:145 bitan).

[14] Bakun erabiliak -hots, posposizioko osagai ez denak- hemen al luke kokalekua?

[15] Bikote honen kokalekuak beherago emango ditugu.

[16] "... the syntactic behavior of *-ko* phrases clearly indicates their adjectival status. Like other adjectives they can be used independently, that is, with a zero pronoun as head, and then take the full determiner system". (Rijk 1988:78).

[17] *DVEF*-en, *OEH*-n (lehen biak) eta *HLEH*-n hizteçi-sarrera osoak direnak, esate baterako.

[18] Puntu honezaz, berariaz aipatu behar da Azkaratearen (1990c). Izenburua baino oparoagoa da mamia, G. Aulestiaren (1989): *Basque-English Dictionary* lanekoak ere sartzen baititu adibideetegian aztergai.

. *barrukori* sarrera osoa ematen diote R.M. Azkuek, P. Mugicak, G. Aulestiak, P. Lhandek eta Retanak. Mitxelena-Sarasolak (*OEH*)[19] eta Saraeolak (*HLEH*), aitzitik, ez diote honelako mailarik eskaintzen.

. *baserrikori*, aipaturikoetatik Aulestiak eta Retanak soilik ematen diote hiztegi-sarrera osoa.

. *aurkakok HLEH*-n hiztegi-sarrera duen bitartean, *kontrako*, *kontra* izenaren azpisarreren artean kokaturik dago[20]; Lhandek lehena, aipatu ere ez du egiten eta *kontrako*rekiko jokaera, Sarasolarena bera du.

Gure hiztegian bertan, seguruenik, ezpai honen zantzuak sumatu ahal izango dira, batzuk ohartuki modu batera zein bestera paratuak eta besteak oharkabean itzuriak[21].

Aztergai honetan bertan, urrutirago gabe, izenlagunarena eta izenarena egiten zuten formak atzeman dira, azterlanean zehar aipatuz joan den bezala.

17.2.1.3. Adberbio konposatua + *-ko* --> izenlaguna

badaezpadako, nahi eta ezko, nahi eta nahiezko, nahitaezko (nahi-ta-ezko, nahita-ezko)

17.2.1.4. Posposizio-sintagma + *-ko* --> izenlaguna

(-(r)en) aurkako, bokal-arteko[22], elkarrizketaz kanpoko, erregelaz kanpoko, ez bezalako, gramatika arteko, hitzarteko, hizkuntza arteko, hizkuntzaz kanpoko, legez kontrako, nazioarteko, (-(r)en) ordezko, (-(r)en) pareko, sujeto arteko, teknika-aldeko, zientzi-moduko

17.2.1.5. Partizipio adberbiala + *-ko* --> izenlaguna

ezin konta ahaleko

Dudako izanagatik, sail hau ikusi da kokalekurik egokiena.

ahal, jatorriz izen dena, Altuna-Azkarate ikertzaileek (1992) *-ko* har dezaketen "adizlagunen pareko funtzioa betetzen duten aditzondoen" artekotzat jotzen dute. Halaz ere, *ahal izan* parafrasiko[23] osagaia den aldetik, 'ezin konta ahal den' perpausaren laburduratzat

---

[19] Beste barruko bati bai, 'ikuilua' adiera duenari, alegia.

[20] *OEH*-k *aurkakori* ematen dion kokamendu bera.

[21] Ik. hiztegiaren sarrera.

[22] *arte* bigarren osagaia dutenok hemen, eta ez izen elkartuen artean, aipatzearen arrazoiaz ikus hitz-elkarketari eskainiriko atala. Gure buruzpidea zuzen ez balego, "izena --> izenlaguna" sailera pasa beharko lirateke.

[23] *EGLU-II* (1987:455hh).

ere eduki ahal izateak, *EGLU-I(Er.)*-ko[24] *erositako, entzuniko* eta abarren sailkide dela ere pentsa daiteke.

Azalpen honek berak balioko luke, beharbada, bereziki beste puntu batean jasoko diren "ezin + [partizipioa + *-zko*]" egitura dutenentzat.

17.2.1.6. Aditz jokatua + *-ko* --> izenlaguna

balizkako[25], balizko[26]

Sail hoberik ezean kokatu da lehena ere hemen, bestearekiko alderik antzematen ez zaio eta.

Hobetsi den adimodua honakoa da: *balitz* adizkitik eratorriko *balizkatu*[27] aditz-partizipioa legoke *balizkako*ren gibelean eta ez (17.2.1.9.) multzoan bilduriko) *-ka* aditzondo-sortzaile atzizkiduna, ez baitzaio atzizki honek oinarriari eransten dion adiera-ñabardurarik ikusten. Dena den, ikuspegi hau balizkoa da.

17.2.1.7. Moduzko aditzondoa + *-ko* --> izenlaguna

alderantzizko[28], benetako, berezko, bestelako, erabateko[29], letraz-letrako, zinetako

17.2.1.8. Denborazko aditzondoa + *-ko* --> izenlaguna

aintzinako[30], aitzinako[31], antzinako[32], aspaldiko, egungo eguneko[33], eguneroko[34],

---

[24](1987:50).

[25](1961a:50), (1981c:150).

[26](1968c:89), (1971e:105), (1978a:31).

[27]"622. Suponer, *balizcatu*.
No sé de dónde ha podido salir, a no ser del extraordinario *balizco* (suf. nominal agregado directamente a una forma verbal de supositivo) de RS.15: *Balizco oleac burdinic ez*, <la errería de si fuesse no aze fierro> Cf. el comentario de Urquijo, 1964, I, pág. 34 s. Naturalmente el testimonio de Harriet nada añade al de Larramendi y es aventurado deducir de él, con Azkue, que el término sea bajo-nav. de Mixe". (1984a:73).

[28]*alderantziz* eta *berez* aditzondotzat jo dira, etorkia etorki. *EGLU-I* (1985:493).

[29]Zehazkiago esan, maila-aditzondoa: *EGLU-I* (1985:493).

[30](1964c:73), (1968d:135), (1971e:103).

[31](1978a:28,29,33).
*antzina*ren ballokidetzat erabilia. Ber gauza *aintzina*n dagokionez.

egunoroko[35], inoizko (ez), inongo (ez), oraingo, oraintsuko

17.2.1.9. *-ka* modala + *-ko* --> izenlaguna[36]

bakarkako, binakako, hirunakako, zeharkako

Hauen ondoan aipatu beharko lirateke, beharbada, zenbatzaileei *-na* distribuzio-atzizkiaz jantzirikoak:

bana(-)banako, bat-banako, binako

17.2.1.10. Kasu gramatikalak + *-ko* --> izenlaguna

aurrerako, betidaniko, bitariko, elkarrekiko, gramatika aldetikako, gurasoengandikako, hizkuntzarekiko, jaiotzetiko, latinetikako, munduarekiko, norberekiko[37], orotariko, ortografiarekiko, paradigmarekiko, sintagmarekiko, teoria aldetikako

Puntu berezi batean ("Eratorpenaren ingurukoak" deituan) jaso den

garbitzako

eta sintagma orokorra[38] oinarrian lukeen:

gramatika guztiekiko

ere hemen kokatzekoak lirateke.

---

[32]Berrogeita setan. Izen moduan ere erabilia.

[33]*EGLU-I*-en (1985:474) arabera, denborazko adizondoen barneko esaera litzatekeena.

[34](1972b0:27), (1972b5:123,128).

[35]Hemezortzitan, (1972b5 lanean barne).

[36]Egitura honen araberako izenlagunen ezintasunaz: Trask (1985:170), aurreraxeago, hala ere: "zenbait kasutan, ordea, horrelako konstrukzioak posibleak dira: (...) *esku-huts-kako pilota partida; presakako* (...) Forma hauek, beraz, ez dira zeharo ezinak: noizbeinka behintzat entzuten dira, hemen ematen dudan proposamenduak behartzen duen legez". Puntu beraz, Rijk (1988:79).

[37]Kontutan izanik *norbere* esapidea (*EGLU-I* 1985:100) dagoela oinarrian.

[38]*EGLU-I* (1985:159).

EGLU-I(Er.) (1987) lanak -z kasu-marka instrumentalaz osaturiko adizlaguna ez aipatuagatik, hemen bide lukete kokagunea ondokook:

aginduzko, ahozko, alegiazko, arauezko, axalezko, azalezko[39], baiezko, baldintzazko, derrigorrezko[40], dudazko[41], duda-mudazko, egiazko, egiunezko, elebitasunezko, etorkizko, eutezko, ezezko, fisikazko, fisiologiazko, fonetikazko, funtsezko, galderazko, galdezko, gramatika legezko[42], gramatikazko, gutxienezko, harremanezko, hatsezko, historiazko, hitzez-hitzezko[43], infinitibozko, irudipenezko, izatezko, izkribuzko, jakiundezko, jatorrizko, konzeptuzko, legezko, linguistikazko, literaturazko, matematikazko, metodozko, ohiturazko[44], oinarrizko, pasibazko, semantikazko, sustratozko, teknikazko, teoriazko, zalantzazko, zentzuzko[45], zerbitzuzko, zientziazko, zinezko

17.2.1.11. Izenondoa + *-ko* --> izenlaguna

EGLU-I(Er.)-k (1987) ez du sail honen berri ematen baina bidezko dirudi honelako zerbait proposatzeak.

Izkutuko

azentu gabeko, garraisia gabeko, kolore gabeko

Bigarren multzo honen berri ez ematearen atzean, apika, *gabe* elementuazko (guretzat erabilera honetan, izenondoazko) ikuspegia egon daiteke, lan horretan testuratzen den *gabe* bakarra posposizioetakoa baita; ez dago han, bestela esan, *gabe* izenondoaren arrastorik.

---

[39] Lehakide bien kokalekuak, beheraxeago.

[40] Aditzondo erabatekoa bilakatzeko bidean ikusiagatik hemen sartua. *derrigor* aditzondo beregainarekiko hurbiltasun-mendekotasunak direla medio.

[41] *dudazko* eta *duda-mudazko* itxurari begiratuz hemen kokatu beharrekoak dirudielarik ere, *dudako* eta *duda-mudako* eratorpenean (*-ko* izenondo-sortzaileen sailean) kokatzeko arrazoi berak ote leudeke hauek ere hara igorizeko? Eta beste horrenbeste *zalantzazkori* dagokionez?

[42] Hitz elkartua du oinarrian, ez baita 'gramatika bezalako'-ren baliokidea, hitz-elkarketan eman zaion paralekuak azalera duen bezala.

[43] Hemen kokatua kasu-atzizkia dela medio. *letraz-letrako*, ordea, *EGLU-I(Er.)*-ren (1987:51) bidetik, 1.6. puntuan, moduzko adlzondoen artean, kokatu da.

[44] Saiheetsean erantsi gogo dugu egun, maizago entzun uste den *ohizkoren* aztarnarik ez dugula jaso; *ohiko* da *corpusean* irakur daitekeen bakarra.

[45] Hemen eta ez *-ko* eratorpenean sailkatuan, 'Eutzkoa' edo 'Jabegoa' adiera-eza dela medio, *zentzuzko adlz* egiturako osagaia baita.

17.2.1.12. Adizlaguna + *-ko* --> izenlaguna

Bereziko dugun sail hau ere ez dago berariaz jasoa gidari hautetsi den lanean, hau dela eta, zalantzak izan ditugu sortzerakoan baina izenlagun-gaiak arestiko adizlagunak ez bezalakoak izateak makurtu gaitu azkenean honetara.

bai-eta-ezko, bai-ezko[46]

Bestelakotasun horren lekukotzat har daiteke, *EGLU-I*-ek[47] adberbioei buruzko ataleko "Aditzaren ondoko bestelako hitzak" deitzen duen sailean adberbioen artean "leku erosoa ez duten hitzen" samaldan sartuz aipatzea eta aurrerago, *partikula* eta *perpaus ordain* hitzak ere erabiltzea izendatzeko[48].

Eramoldeari dagokionez, azpimarra daiteke kasu batean, juntagailuz loturiko bi perpaus-ordainek osaturiko egitura osoak hartu duela *-ko* izenlagunak sortzeko atzizkia.

Hau dela eta, apika, "esaldi-hitz" direlakoen artean kokatzea zuzenago litzateke.

17.2.2. *-KO/-ZKO* BIKOTEAK

17.2.2.1. Bilduma

Bilduma soil moduan – honenbestez, azter eta sakontzeke –, eskainiko dira *-ko* eta *-zko* morfemen erabilerek sortu dituzten bikoteak[49], lehiakideen aurkitokia zehaztuz[50], argikizun dagoen bion arteko alde ilunskoaren erakusgarri:

axaleko:(1968d:135,153),(1972b4:68(M),85(M),92hirutan(M),102(M),105(M)),(1972b5:109(M),114), (1978a:29,39,50,51), (1981c:164), (1983e:127,128), (1984b:38).

---

[46]Ikus hitz elkartu kopulatiboetan "Dvandva" mota.

[47](1985:499).

[48]*HLEH*-k **bai eta ez** sarreretan *Adlag.* kategoria ezartzen du lehen buruan, alabaina, hiztegigile beraren (*AU*:27)-n, honakoa irakur daiteke:

"Inguruko hizkuntzen gramatiketan ez dira jadanik *si, oui, yes*... adberbiotzat hartzen. *Oxford* hiztegiak, adibidez, "particle equivalent to affirmative sentence" dela dio *yes* sarreran. Guk, gure aldetik, B. Pottierrek eratu duen "proenunciado"tzat hartu dugu".

[49]Rijk-en (1988:82) aburua oker ulertu ez badugu, izanondo batzuek kide ohi dituzten *-ko/-zko* bikoteetan (*harrigarri --> harrigarriko/harrigarrizko*), instrumental-marka bakoa markadunaren ondorea da.

[50]Erreferentziak oro emango ditugu, terminologikoki (zentzu hertsian) erabili diren ala ez irizpide hartu gabe.

axalezko: (1972b2:41), (1972b4:70).

axaleko egitura: (1971e:107), (1972b4:92) (M), (1972b5:109) (M).
axalezko egitura: (1972b4:82).

azaleko: (1968d:136), (1961c:143).
azalezko: (1972b0:24).

derrigorreko: (1964c:72).
derrigorrezko: (1978a:44).

dudako: (1968d:138,139,150), (1985c:193)[51].
dudazko: (1971e:105).

duda-mudako: (1968d:142,149), (1972b4:92) (M), (1978a:31), (1984b:37).
duda-mudazko: (1981c:164).

historiako: (1972b2:49).
historiazko: (1972b0:17), (1972b2:47).

oinarriko: (1978a:27,36).
oinarrizko: (1968c:91,93), (1968d:135), (1972b2:42 lautan,43), (1978a:29,36), (1979d:122), (1981c:138,165), (1983a:50), (1983e:127 bitan), (1984b:37), (1985b:190), (1985d:80).

zientziako: (1972b5:128).
zientziazko: (1972b2:49), (1972b5:128).

17.2.2.2 *-zko* izenlagun kalifikatzailea

Puntu berezi batean dakartzagu "*ezin* + partizipio burutua + *-zko*" egitura dutenak, aukeran "*ezin* + partizipio burutua (+ determinatzailea)" dutenez gero, izenlagun hauen sorrera "*-z* kasu-markadun adizlaguna + *-ko*" egiturak ez bailuke, beharbada, zuzen jasoko.

ezin adierazizko, ezin entzunezko, ezin esanezko, ezin mugaluzko

Ikus daitekeen bezala, izenlagun bilakagaia ez da gramatika-kategoria bakarrekoa[52] (izena, adberbioa..) ez eta morfologi itxura berekoa, izen elkartuak (*etxalde, gramatika lege, lagunarte...*) edo eratorriak (*antzinate, hasiera...*) ere aurki daitezkeela seinale. Hauezaz gain, *-z kanpo, -z kontra* posposizio-egiturak ere aipa daitezke, izenlagunak sortzeko lehengai, honela: *elkarrizketaz kanpoko, erregelaz kanpoko, hizkuntzaz kanpoko, legez kontrako*, esate baterako.

Ikusiagatik esan daiteke izenlagunak sortzeko baliabidea hizkuntzaren erabilera berezituan indar handiko lanabesa dela eta Mitxelenak ez diola muzin egiten.

---

[51] Hau eta hurrengo *duda-mudako*, eratorpenean (*-ko* izenondo-sortzaileen atalean kokatuan) jasoak.

[52] Oinarriaren kategori izaerazko ikuspegi bat: Rijk (1968:78).

17.2.3. HEDADURAZKO EGITURAK[53]

Ensunzak[54] "hedapen sintagmatikoa"-ren bidetik sorturiko "unitate lexikal konplexuak" deriztenak dira ondokoak.

Egitura hauen osagai gehienek kokaleku diferenteak izan dituzte aztergaian zehar, helburu zen partitzea, zehetzea eta sailkatzea zela medio. Orain berriz, aldrebesko bideari ekingo zaio, osagai horiek bere ingurune zabalagoan kokatuz.

Honek esan nahi du beregain hartuta berezitu izateko eskakizunak betetzen ez dituzten (eta honenbestez, oro har, azterlanik egokitu ez zaien) zenbait hitz ere aurkitu ahal izango direla berezituen mundukotzat jo den egitura zabalago bateko partaide diren neurrian.

Unitateen sailkapenerako begiz jo den irizpidea, hondarrean Ensunzak (1987) proposatuarekin bat dator[55], muina izena izaki, hedatzea ezkerretara ala eskuinera gertatua izango da sail nagusiak bereiztera eramango duena.

17.2.3.1. Eskuineranzko hedapena[56]

17.2.3.1.1. Izena + Adjektiboa[57]

17.2.3.1.1.a. Izena[58] + izenondoa(k)

adiera berezi, adierazpen (fonetiko, semantiko)[59], aditz (bakun, batu, erazle?, iragangaitz, iragankor, konposatu, modal, laguntzaile, perifrastiko, pertsonal, sintetiko, soil, transitibo), adizki (bakun, sintetiko, trinko), ahalmen (sortzaile, kreatzaile), aho-hizkera landu, aho-ituitura oso, aldi joan, alfabeto semantiko, alienazio linguistiko, analisis sintaktiko, arlo semantiko, arrazoi (linguistiko, sozio-linguistiko), asmakari teoriko, axal ageri, azentu labur, azentu modu markagabe, bahe fonetiko, bakartasun genetiko, bereizkuntza (bereizgarri, fonetiko), bokal (bikoitz, mehar), deklinabide mugagabe, deskripzio estruktural, dialekto (greko, sabeliko), dialektu kontserbazale, egitura (abstrakto, foniko, izkutu, sakon), ekuazio diferentzial xinple, epistemologia genetiko, eratorbide atzizkidun, eremu foniko, erregela (formal, mugatu, ordenatu, zehatz, zorrotz), erregela multzo

---

[53] Odriozola (1967), Ensunza (1989).

[54] (1987:87).

[55] Hondarrean diogu, elkarketa eta zenbait erator-atzizki baliabideen orotariko eskeman kokatzen dituelako berak. Guk berezita ikusi ditugunez ez ditugu berriz aipatuko eta sorbide lexiko hutsa ez denari erreparatuko diogu.

[56] Ensunzaren (1987:88) *Eskuin hedapena*.

[57] Etengabe errepikatzen ari garen kontua berriz ere, maiz askitan (egitura predikatibo eta zenbait atributibotan) ez dugu bat ere seguru eskuineko elementua izenondotzat hartu behar den ala izena den. Beste horrenbeste gertatzen zaigu *-(t)ar* atzizkiaz eratuekin, kokalekuari begira duen askotasuna dela medio, aposiziozko (are "Subsumptive") egitura duten ala "izenondoa + izena" den dagokiena erabakitzean, eta justaposiziotzat joekin ere, beste horrenbeste. (*EGLU-I* 1985:243,244).

[58] Eratuak barne.

[59] Izan bera errepikatzen denean, behin adieraziko da, daramatzan izenondoak parentesi artean zehaztuz.

mugatu, esaera zahar, esaldi (bakar, baztergabe, egoki, nagusi, neurrigabe, soil, zuzen), esaldi kopuru neurrigabe, estilo indirekto, euskaiki (ez idatzi, idatzi), euskara (bakar, batu), fonetika funtzional, forma (soil, trinko), formazio literario, futuro perfekto, galdera oso, garaun elektroniko, gertakari estokastiko, gramatika (berezi, estruktural, formal eta zehatz, jeneral, jeneratibo eta transformatibo, sortzaile, sortzaile eta aldatzaile, sortzaile eta birhurtzaile, tradizional), greko berri, hezketa literario, historia natural, hitz (adierazkor, bikoitz, elkartu, erakarri, eratorri, fonologiko, herrikol, ikasi, konposatu, mailebatu, moldatu*, mugatu, nagusi, sartu, soil, sortu, zahar, zaharkitu), hizkera (araudun, arrunt, berezi, idatzi, ikasi, tekniko, erromaniko), hizketa normal, hizkuntza (arrunt, artifizial, batu, bizi, erromaniko, idatzi, ikasi, indi(-)europar, indo(-)europar, kartveliko, klasiko, komun, laburtu eta zehatz, laguntzaile, landu, landugabe, mintzatu, natural, normal, ofizial, semitiko, standard), hizkuntzalaritza (historiko, orokor, sortzaile eta formaldatzaile), hizlari-entzule ideal eta abstrakto, hiztegi (aukeratzaile, berezi, berezitu, etimologiko, hautatzaile, laguntzaile, ortografiko, oso bete, usu), hots (bereizgarri, busti, irristari), indar berrizkatzaile, indoeuropar hizkuntza[60], indoeuropartzale ikasi, indukzio matematiko, informazio berri, iraniar hizkuntza[61], itzulpen automatiko, izen (abstrakto, berezi, elkartu, mugagabe, mugatu, nagusi, propio, kontagai), izenordain erakusle, jakite (enpiriko, formal, huts), joera (batzaile, berezle), koma goratu, konponente (fonologiko, semantiko), kontsonante (bikoitz, txistukari), lege (diakroniko, sinkroniko), letra (berezi, larri), lexiko berezi eta espezializatu, linguistika (berri, gonparatu, historiko, jeneral, konparatzaile, sinkroniko, tradizional), literatur eder, literatura eder, lumero natural oso, maila (fonetiko, fonologiko), mintzaira (indoeuropear, poetiko), multzo (itxi, mugagabe, mugatu), novela[62] (historiko, klasiko), ondade komun, osagarri zuzen, partikela (gramatiko, metriko), perpaus (bakun, erdibitu, nagusi), prosa (apaindura gabe, arrunt, landu), sasi-galdera erretoriko, sasi-hizkera mordoilo, sintagma determinatu, sudurkari busti, sustantzia (foniko, semantiko), teoria (formal, jeneral, orokor, zehatz), zeinu (idatzi, logiko-formal)

e (itxi, mehar, zabal), ñ (biguin, busti), r (bakar, biguin, bigun, gangardun, gogor, samur, soil)

17.2.3.1.1.b. Izena + izenlaguna

bokale (atzeko, aurrealdeko, gorako), gramatika guztiekiko

a berezko

17.2.3.2. Ezkerreranzko hedapena[63]

17.2.3.2.1. Izenlaguna + izena

Egitura osoa mamitua dutenak jasoko dira. Honek esan nahi du litekeena dela izenlagunak eskuinean duen izenak testuetan hizkuntz gorpuzterik ez izaki (mugatzaileak ordezkatzen zuelako edo) eta hemen islarik ere ez izatea. Halakoetan, izenlagunen osamoduetako batean soilik kokaturik aurkeztuko da.

Bi multzo nagusi bereziko dira izenlagunaren itxuraren baitan, *-ko* hartzen duen

---

[60]Ikus hitz elkartuen atalean honezaz esanak.

[61]Ikus hitz elkartuen atala.

[62]Ikus argitaraldiezko itsaskina.

[63]Ensunzaren (1987:88) *Ezker-hedapena*.

elementuak erasketa aurretik kasu-markaren bat hartzearen ala ez hartzearen arabera. Aitzitik, arestiko puntuan bananduriko izenlagunen beste moldadurei ez zaie jaramonik egingo.

17.2.3.2.1.a. Izenlaguna [*-ko*] + izena + (izenondoa(k))[64]

17.2.3.2.1.a.1. *-ko* + izena

ageriko adierazle, antzinako (bizkaiera, gramatika, griego, indoeuropar hizkuntza, latin), antzinateko linguistika, aspaldiko arrasto, axaleko (egitura, forma, itxura), azpiko egitura, badaezpadako *ba-*, bana banako egokitasun, bana-banako atxikidura, bat-banako egokiera, eguneroko (hizketa, hizkuntza), egungo eguneko linguistika, egunoroko (elkarrizketa, hizkera, hizkuntza arrunt, hizkuntza idatzi arrunt, hiztegi, lagunarteko hizkera arrunt[65]), elkarrizketaz kanpoko zertzelada, erabateko (erregela, hiztegi, kondaira), erdibideko hots, erdiko euskalki, etxaldeko mintzamolde, etxeko hizkuntza, gaineko egitura, hasierako (kontsonante bilkura, kontsonante asibilatu), hitz-barrengo silaba-haste, hizketako ihardun, hizkuntz-arteko batasun, hizkuntza arteko alfabeto, hizkuntzaz kanpoko sustantzia, irakurgaiko hizkuntza, legez kontrako adibide, letraz-letrako hizkera, logika-aurreko pentsamendu, lurpeko gramatika, mendeko perpaus, menpeko perpaus, nahi-ta-ezko transformazio, nazioarteko prosa, noraezeko transformazio, ofizioko[66] sasi-erdara, sasi-euskara), ohiko hizkera, oraintsuko linguistika, sapaiko ebakidura, zeharbideko (esaldi, osagarri), zeharkako osagarri, zientziako lengoaia

17.2.3.2.1.a.2. Kasu-marka + *-ko* (*-zko, -rekiko, -tikako/-gandikako...*) + izena

aginduzko kutsu, ahozko (adierazpide, hizkera, hizketa, hizkuntza, literatura)[67], arauezko kutsu, axalezko egitura, baiezko (esaldi, perpaus), baldintzazko perpaus, bai-ala-ezko galdera, betidaniko hitz, egiazko (esaldi, proposizio), elebitasunezko denboraldi, etorkizko hizkuntza, ezezko perpaus, fonetikazko (aldaera, interpretazio, konponente, korrespondentzia, lege), funtsezko hiztegi, galderazko perpaus, gutxienezko kontu, gramatikazko (harreman, jenero, zer), harremanezko deitura, hatsezko *th*, hitzez-hitzezko erantzun zuzen, infinitibozko esaldi, jakiundezko balderna, jatorrizko (hizkuntza, testu), konzeptuzko sailketa, linguistikazko (estruturalismo, fenomenu, klasifikazio, teoria jeneral, teoria orokor), literaturazko kritika, metodozko (bakantze, xinpletze), nahi-ta-ezko transformazio, ohiturazko (azentu-molde, azentu modu), oinarrizko (erregela, ezaugarri multzo, hitz, hizkuntza, hiztegi), pasibazko (joskera, itxuraldatze), semantikazko konponente, sustratozko hitz,

---

[64] "Izen-sintagmaren egitura duten elkartuak" izeneko saileko *lehenbiziko hizkuntza, lehenengo pertsona* ere hemen koka daitezke.

[65] *-ren* atzizkiaz osatuetan izenlagun metatuei sail berezi bat eskaini diegun arren, hemen ez dugu halakorik egin adibide hau besterik ez aurkitu eta sail oso bat ez sortzearren. Bihoa halaz ere, egitura horren atorra.

[66] Nahiz eta *ofizioko* eta *ohiko* bereçainak *-ko* izenondo-sortzaileen sailekoan kokatu ditugun, ez diegu egitura hauei azalmodu bera antzematen, oraingoan ez baitago, gure ustez, 'hizkuntzak ofizioa du', hau da, "ofiziodun hizkuntza"/"ofizioko hizkuntza" kontrajarriko lituzkeen irakurrerarik proposatzerik, 'ofizioan erabiltzen den hizkuntza' baizik, "ofizioaren" jabe edo egilea kanpoko erreferente bat izanik. Bestela esan, 'etxeko'rekin ondoko bikotean gertatzen denaren pare: "etxeko andre/etxeko alaba", lehenari 'Eutszkoa' edo 'Jabegoa' adiera antzematen zaion bitartean, bigarrenean ez dago halakoren usainik.

Eta gauza bera esan daiteke besteaz, *ohikoz*, alegia. Honetan ere, aztergaiko egiturako beste osagaia ez litzateke (auzi hauetako sintaktikoak baino egokiago diruditen harreman semantiko edo logikoak adierazteko terminologiaz baliatuz) baizko jabego edo eutearen 'jabea', jabegoaren 'zera', 'edukia' baizik, *hizkera* kasu honetan, nolazpait esan.

[67] Lehen egin moduan, oraingoan izenlaguna bada errepikatzen dena ez da berpapererako.

teknikazko hitz, zentzuzko aditz, zerbitzuzko prosa, zientziazko (bide, hizkuntza)

[68]elkarrekiko harreman, gramatika aldetikako partiketa, gurasoengandikako hizkuntza, hizkuntzarekiko gertakari, latinetikako izen propio, munduarekiko ikuspen, ortografiarekiko hiztegi, paradigmarekiko harreman, sintagmarekiko harreman

Beste multzo batean koka daitezke *gabez* elkarturiko izenondotzat joak:

azentu gabeko hizkuntza, garraisia gabeko prosa, kolore gabeko prosa

Aztergaian jaso den *-dun* atzizkiaz osaturiko *azentudun*ek hemen luke kontrako adierakoa, halakoetan ohi denez[69], [-abstraktua] tasuna dagokiola.

17.2.3.2.2. (Zenbatzailea) + Izena + (Izenondoa) + *-ko* + (Izena)

behe mailako hizkera, bigarren graduko bihurgune, bi arpegitako batasun, erregela biko gramatika, erro bateko hitz, erromantze etorkiko leku izen, hiru silabako izen, hizkuntza bakarreko gizarte, lehen mailako ekuazio

17.2.3.2.3. Izenlaguna (*-ren*) + (izenlaguna) + izena + (izenondoa)

17.2.3.2.3.a. izena + *-ren*

aditz esaldiaren osagarri, aditzaren (osagarri, osagarri zuzen), aldiaren (adierazgarri, ardatz), amaren hizkuntza, analitikaren hizkuntza, azentuaren (doinu-higidura, iraupen, leku), baldintzaren protasis, bokalen eremu foniko[70], bozaren (beherako, gorako eta beherako), erregelaren indar, esaeraren prestasun, esaldiaren (adierazpen semantiko, axal, egitura sakon, sorketa, ukamen), frasearen (antolamendu, egitura), galdegaiaren (aurreratze, teoria), garaunen etsai, giza mintzoaren ahalmen (kreatzaile, sortzaile), gramatikaren arau, hitzaren (euskal bihurrera, indar, iralgi, sorkunde, sortze), hizketaren (gate, ihardun, linealtasun), hizkuntzaren (aldarkotasun, axal, azal, barren, barrunbe, batasun, eboluzio, egitura, egoera, filogenia, gramatika, historia, iraupen, itxura, kondaira, konpetentzia, linguistika, ofizialtasun, ontogenia, sinkronia, sistema, unibertsalak), hizkuntzen (berezitasun, bestelakotasun, ugaritasun), hiztunaren galtasun, hots aldaketaren sorkari, hotsaren (gora-behera, iraupen), indar-azentuaren zauri, itxuren berdintsutasun, izenaren (deklinabide, gramatika), kontaketaren hari, kontakizunaren (gitza, hari), linguistikaren historia, mugatuaren marka,

---

[68]Atzizki-metaketa honezaz: Rijk (1968:81).

[69]"Dena den, abstraktu/konkretu bereizketaz gain, kontuan hartzekoa da *-dun* atzizkiaren 'eute'-, posesio-adiera, *-ko* atzizkiaren kasuan hain indartsua ez dena. Horrela ulertu beharko genituzke oinarrian izen abstraktua duten *arimadun*, *fededun* bezalakoak (espezie batek *duen* ezaugarriaren adierazle direnak Altubek dioenez eta horrexegatik gabezia adierazten duten *arimagabe(ko)*, *fedegabe(ko)*-ren aurkako direnak)". (Altuna-Azkarate 1992:99).

[70]Multzo honetako bat baino gehiago pluralez eman da, singularrean emanez gero egitura osoaren esanahia desitxuratuko litzatekeelakoan batzuetan eta are eznezko gertatzen dela dirudielako bestetan, *hizkuntzen ugaritasun*, kasurako.

nongotasunaren marka, pentsamenduaren kategoria, silabaren pisu, sinboloaren (antzaldatze, deuseztatze, urratze), zentzuen oharmen

s, x eta z-ren kide gogor

17.2.3.2.3.b. Izenlaguna + izenlaguna + izena

aditzaren zeharkako osagarri, artikulazioaren fisologiazko mekanika, baldintzazko perpausaren egitura, esaldiaren bai-ezko modalitate, esaldiaren bai-ezko nolakotasun, fonazioaren fisiologiazko mekanika, hizkuntzaren mailako bereizkuntza, hizkuntzen arteko (alde, antz, berezitasun, elkarbizitza, harreman, kidetasun), hotsen aldetikako[71], metoduaren mailako bereizkuntza, osagaien arteko (eten, joskura, juntura, muga), perpausaren binakako edo hirunakako partiketa

17.2.3.2.4. Izen-multzoa + *-ren* + izena

aditz laguntzailearen mugida, ahaiko genetikoaren teoria, hitz berrien eraketa, hitz elkartuen (elkarleku, juntura), perpaus bakunaren transformazio

17.2.3.2.5. Izenordaina + *-ren* + izena

elkarren (kide, itxuraldatze)

17.2.4. IZEN BEREZIAK

Hauek ere ezkerreranzko hedaduraz baliatuagatik, berariaz jasoko dira, osagaietako baten izaera berezia dela bide.

17.2.4.1. Izen berezia + *-ren* + izena

Altuberen legeak, Aristotelesen kategoriak, Fortunatov eta Saussure-ren legeak, Grassmann-en legea, Hockettten kutxa, Lees eta Swadesh-en glotokronologia, Markov-en gatea, Mandelbrot-en makrolinguistika, Swadeshen formula, (Swadeshen legea[72]), Zipf-en legea

17.2.4.2. Izen berezia + *-ko* + izena

Botorritako hizkuntzea, Kaukasoko hizkuntza, Port-Royaleko gramatika, Pragako eskola

---

[71] Eskuinean izenik ez daraman arren hemen sartu dugu berezitutzat jo dugulako, *foniko* izenondoaren edo *hots* hitza baliaturiko elkarturen baten kide datekeelakoan.

[72] Mitxelenak halakorik ez dela dioen arren, hizkuntz gaia da hemen dihoana.

Azpimarka daiteke ezkerreranzko hedapena eskuineranzkoarekin konbina daitekeela. Gertakizun honen lekuko, izenondoz hornitutikoak dira, izenondo bakarra are izenondo-segida ere hauteman daitezke: egunoroko hizkuntza idatzi arrunt edo egunoroko lagunarteko kizkera arrunt, adibidez.

17.2.5. NOMINALIZAZIOAK

.perpaus zatia aitzinatze, perpaus zatia aurreratze[73]

.galdegaiaren aurreratze[74]

Baliokidetzat har daitezkeela dirudi[75].

Nahikoa gertu lituzketen[76] hitz elkartu sintetikoetan erabiliriko sailkamodua egokituz gero, "Ekintza elkartu sintetikoen" arteko 'Objektu-Aditz-Ekintza' motan kokatuko liratekeela esango genuke.

.ezker aldera destokitze

Adizlaguna aditz-izenaren ezkerrean.

Nabarmen daiteke bi azkenok testuetan dituzten erdal ordainak[77], euskarara moldatzean bietan nominalizaziora jo bada ere ez dela ber moduan irauli. Nabarmen daiteke, halaber, ez dela elkarketara jo.

Gure ingelesezko ezaupidea dela medio, balizko, guztiz balizko, hipotesia funtsatuko genuke ingeles egiturek izan ditzaketen irakurrerek euskal iraulpen-moduetan zerikusia izan ote dezaketen gertaeran.

Ingelesean bertan bi modutara ulertu ahal izateak, hitz elkartu sintetiko deitzen dugun

---

[73] Goenaga (1980$_2$:355hh).

[74] Genitiboen bikoiztasunaz, Goenaga (1985:559hh).
Bikoiztasunaren antzinaz:
"Honek beti uste izan baitu *amor Dei* bakarrean bi mami berez izkakeela: *genitivus subiectivus* ('Jainkoaren gureganako amodioa') eta *obiectivus* ('gure Jainkoaganakoa') direlakoak. Eta arrazoia honexegatik: *amor Dei* bakarrean bi esaldi berezi biltzen direlako, *Deum amamus* eta *Deus nos amat*, alegia". (1972b4:67) (M).

[75] Goenaga (1985:551).

[76] Mugatzaileik gabeko egiturek ingelesazko azterketetan batipat izan dituzten uiermoduez: Azkarate (1990b:267-273).

[77] "De Rijk-ek abisu ematen digu galdegaiaren aurreratzea ez dezagun «ezker aldera destokitze» (*Left Dislocation*) moduko zerbait bezala har". (1981c:160).
"Galdegaiaren aurreratzea, *topic fronting* delakoa, Axular eta Tartasengan aurkitu du de Rijk-ek". (1981c:161).

moduan ala behin *deverbal*[78], aditz-izen, delarik beste izen batekin elkartua, egon al daiteke, iraulpenean elkarketara ez jotzearen atzean?[79]

adierazteko modu ('adierazpide'), esateko modu (*'lokuzio'*), esaldiak sortzeko gaitasun, mintzatzeko gaitasun, hizketarako gaitasun, pairatzeko ituraldatze, behin eta berriro bere buruari itsasteko kemen, bere burua hurrenez hurren errepikatzeko [ahalmen]

Hauek ere, nominalizaziotzat eduki daitezke[80].

Balizko lehiakide al litzakete goiko zenbaitek "aditzoina + izena" erako izen elkartuak, batipat 'Helburua' semantika-harremana delako tartean, hitz elkartuen artean ikusi diren: *adieraz-modu, sor indar...* esate baterako, erakusgarri izanik?

Honainokoan, esan legez, izenaren ingurukoak osatu du. Ondoren, kopuruz urriago diren arren, eta kontu-emate huts gisa, bestelako egituren berri emango da.

17.2.6. PERPAUSAK

. Erlatibozko perpausak dira bilduak.

Batzuetan hitz soilak, elkartuak edo izen-multzoak izan ditzakete zuzeneko ordain[81]. Halakorik dagoenean, ondoan zehaztuko zaie, terminologiaren eremuan, esana doan bezala, behin baino gehiagotan hartu beharreko irizpidetzat aipatzen den ordaintasunari begira.

azkenduna den erregela sorta ('erregela multzo mugatu'), azpian datzan egitura ('azpiegitura', 'egitura sakon'), bazterrik ez duen esaldi multzo ('esaldi kopuru neurrigabe'), berdin dena ('guztiekiko', 'unibertsal'), bereizgarri den bereizkuntza ('bereizkuntza bereizgarri'), daitezkeen soinuen lohi moldegabe, egoera jakinak dituen automata, ezin konta daitekeen izen, gezurra eta egia besterik ametitzen ez duen logika, ituitura osoa duen konsonante, konta daitekeen izen

[78]Eskuineko osagaiak halakotzat dauzka Marchand-ek (1969$_2$:75,78), *house-keeping, self-determination* hitzetan. *fronting, dislocation* hitzetan atzizki berak erabili direnez gero, besteak bezalakotzat jotzeak ez dirudi desegoki.

[79]"Baina gerta daiteke *-ing* atzizkiaren bidez izena sortu, eta ondoren, izen hori beste izen bati elkartzea. Argumentu-lotze Printzipioa aplikatuko ez litzatekeelarik". (Azkarate 1990b:272).

[80]Goenaga (1985:555).

[81]"Autrement dit, en vocabulaire technique, et surtout là, il existerait de véritables synonymes de dénomination, sans variation de connotation". (Corbeil 1974:58).

('kontagai')[82], modua adierazten duen hitz, mugaturik ez den hitz ('mugagabe'??)

. Kantitatezko konparazioa[83]

bat baino gehiago ('plural')

Funtsean perpausa dagoela esan al daiteke?

17.2.7. ADITZAREN INGURUKO EGITURAK

Ondoan bilduek aditza gune duten egiturak osatzen dituzte. Egiturok ezaugarri dute, aditz elkartutzat jotzeko ez aditz-esapidetzat[84] jotzeko baldintzak ez betetzea baina aldi berean, nolabaiteko maiztasun-egonkortasunez kausitzea azterlanean zehar.

Birresana doan legez, azken urteotako EBH-k aztertzen dihardutenek errepikatzen dutena da hizkuntzaren erabilera berezitu horretan, izena eta izenaren inguruko egituren ondoan, bestelako egituren kontu ere eman beharra dagoela, egiturok oro, delako EBH-ren osagaiak baitira.

Burubide horren oihartzuna da hona dakarguna, hizkuntzalaritza-filologiezko auzietan, azterlanean zehar erakutsi diren beste prozedurez gain, erabiltzen diren beste honakoek ere tokia behar dutelakoan.

aditzera eman ('adierazi','agertu'), argitara (agertu, atera, eman, irten) ('argitara(tu)'), jendartera atera ('kaleratu', 'plazara(tu)'), letraz-letra irakurri, mailebutan hartu ('mailebatu'), mailegua hartu? ('mailegatu'), ontzat eman ('onartu'), paperera (aldatu, jaulki) ('paperera(tu)', 'letreiatu', 'transkribatu'), parean jarri ('parekatu', 'alderatu', 'berdindu', 'erkatu'), prentsa bidez bota ('inprentatu','inprimatu')

Egiturari dagokionez, ikusten da ia papereraturiko denak "adizlaguna + aditza" eskeman bil daitezkeela. Lehen osagaia dute, hain justu, aditz-esapidetzat hartzeko debekuetarikoa.

---

[82]Txunditurik geldtu naiz Labaien zaharraren liburu berria nonbaitetik zabaldu bezain aguro: *daitekeen batasuna* ikusi dut kapitulu baten izenburuan. Ni ere zaharra naiz, ez haatik euskara bezain zaharra, eta horrek gogorazi dizkit oriotzapen aski ugariak. Ez ote genuen guk, bestek eta nik, *daitekeen, zitekeen* eta *litekeen*, hotsak pixkaren bat aldaturik, behin eta berriro esaten eta entzuten? Ez ote, gainera *dezakeen, zezakeen* eta *lezakeen*? Guretzat, *daitekeen* (eta besteak) non eta noiznahi aurkitzen dugun *posible*-ren kide ziren; *dezakeena*-k, berriz, eta orobat aldamenekoak, "ahal izatea" adierazten zuten, diruz batez ere: *dezakeen jendea da, dezakeena*, etc. Galdu ote dira edota erdararen pisuak ito ote ditu? Jakina, ez da erdaraz ohiturazko adizkiak, atzizki eta guzti, horrelako zerbait adierazi nahi denean erabiltzea". (1984b:43).

[83]Goenaga (1980$_2$:308-320).

[84]Ikus hitz elkartuen atalean honezaz esanak eta han bilduak.

Eskema horretan kabitzen ez den eta galdera-markaz hornitu den bakarra ere jaso nahi izan da, berez aditz-sintagma arrunta delarik ere, aditz-esapideen artean kokalekurik ez eta (mugatzailea dela medio) hau ikusi delako sailik hurbilena.

Errepara dakioke aditzaren izaerari, *hartu, eman, atera, irten, jaulki, bota, aldatu...* egoeraren aldakuntza, nolazpait esan, aditzera ematen dutenak.

Bestetik azpimarra daiteke, bilduek aditz beregain osoak izan ditzaketela ordain, parentesi artean zehaztuek erakusten duten bezala.

17.3. ONDORIO GISAKOAK

Ezinbestekoa begitandu zaigu atal hau ere azterkizun hartzea, bestela, Mitxelenak baliatzen dituen lexiko-lanabesez gainekoak kanpoan geldituko liratekeelako.

* Azterketak erakutsi du zenbateraino usatzen duen Mitxelenak izenlagunak eratzea.
* Bereziki azpimarratu nahi dugu "*ezin* + partizipio burutua + *-zko*" egitura, erdal "*in* + aditza + *-ble*" adjektiboen ordain baliagarria den aldetik.
* Ikusi dugu hedadurazko egiturak oso baliabide garrantzizkoak direla. Bai ezkerreranzkoak (Izenlaguna + Izena nagusiki) bai eskuineranzkoak (Izena + Izenondoa egitura batez ere).

Honek erakusten digu sarritan, elkarketara jo gabe ora daitezkeela euskaraz adigaien hizkuntz moldeak, batez ere hitz elkartuak bi osagai baino gehiago beharko lituzkeenean.

* Perpausen nominalizazioak eta perpaus osoak ere (erlatibozkoak batipat) mintzabide egokiak izan daitezkeela ikusi dugu.
* Aditzaren inguruko moldamoldeak gogoan hartu beharrak direla agerian gelditu da.

Azkenik esan behar dugu, argikizun utzi dugun puntu batek mereziko lukeela, gure ustez inork begietsi eta emeki miratzea: *-ko* eta *-zko* bikoteena, alegia.

18.1. ONDORE OROTARIKOETARANTZ

Tesiaren atarikoan esan bezala, ondorio orotariko hauen zeregina, gure tesiaren zioa azterlanak erakutsi digunaren baitan argitzean funtsatzeari zuzenago iritzi diogu, kapituluz kapitulu ondorioztatuak errepikatzen ibiltzeari baino. Hau dela eta, han paperera jaulkiriko zenbait galderari erantzuten saiatuko gara orain hemen.

Lehenik eta behin, gure abiapuntuari begiak irauli eta aldeztu nahi dugun tesia errepikatuko dugu: gure ustez, hizkuntzalaritza-filologiezkoetan, Mitxelenak euskara noranahiko-hiritarra mamitu du. Hau erakutsi gogoz, hain zuzen ere, arakatu dugu horretara bulkatu duten arrazoietan, nekez uler baitaiteke Mitxelenak egina zergatik egin duen aurrean izateke. Horren beraren kariaz ikertu ditugu Mitxelenarenak, gure hipotesia egiaztatzen ala gezurtatzen duten frogatzeko asmoz.

Mitxelenak ezinbesteko deritza euskara gaitze eta eguneratzeari, gizarte-aztura berrietara egokitzeari, hizkuntzak bizirik iraungo badu.

Alabaina, errenteriarrarentzat ezin euskara hegaldaraz daiteke hutsetik hasita, "atzea dantzan jarriz aurreak erakutsia" gogoan izan gabe[1]:

> Horrexegatik jokatu behar genuke, nik uste, inoiz baino bortitzago, tradizio-haria ez dadin gure artean eten; ur-haizeen joera lagun ez dugunez gero, ez dezagun orain sekula baino galera galgarriagorik izan. Nik ere, Xabier Letek *Zeruko Argian* idatzi duenari nagokiola, ez diot inori hautatzeko --hartzeko nahiz arbuiatzeko- eskubiderik kentzen, baina ez dut aukera neure eskuko, inoiz izan baldin badut, eta loturik naukan hari horri eutsi beharrean suertatzen naiz, beharrik ala damurik, nahi badut eta nahi ez badut (...)
>
> Bestela badirudi ere, inoiz baino begirago egon beharko genuke orainaldi igaroari, etorkizunaz atzendu gabe noski eta etorkizunaren zai gaudelako, hain justu. Besteak beste, lehen egin izan dena egina dago, nahiz galzki egina idurritu guri; lehen esana esana dago, oker esana dagoela baderitzagu ere. Ez gaitezen beti, hainbeste aldiz egin dugunez --eta lehengora nator berriz, predikari gogalkarriaren antzera--, huts-hutsetik abia: lur landuan, nahiz eta erdizka eta exkax landuan, aisago ereingo dugu erein behar dugun hazi berria. Etxeparek bere liburuaren azken lerroan ipini zuen besteren hura, *debile principium melior fortuna sequatur*, entzun izan bagenu, beste oilar batek joko liguke orain kukurruku. (1978b:27,30).

Hemen dator tesiaren lehen zati nagusia bete duen ikerlana. Gibelera begiratzen du Mitxelenak gogaide zein dituen ikusteko eta hor aurkitzen Larramendi, Orixe eta Lizardi buruen-buruenik, azkenaren neurtitz-ikurritzek uztarturik: "euskara larrekoa, noranahiko nahi izatea".

---

[1] Mitxelenaren historiarekiko atxikidura hagitz nabarmena da, batek baino gehiagok esan duen bezala (Gorrotxategi (1987), Lakarra (1987), Salaburu (1987), Urgell (1987), esate baterako).

Egingo genuke beragandikako isuri-apetetatik harantzago doala: herriaren eta hizkuntzaren sena eta euskarria hortxe bilatu eta aurkitu bide ditu.

18. Kapitulua: ONDORE OROTARIKOAK

18.1. ONDORE OROTARIKOETARANTZ

Tesiaren atarikoan esan bezala, ondorio orotariko hauen zeregina, gure tesiaren zioa azterlanak erakutsi digunaren baitan argitzean funtsatzeari zuzenago iritzi diogu, kapituluz kapitulu ondorioztatuak errepikatzen ibiltzeari baino. Hau dela eta, han paperera jaulkiriko zenbait galderari erantzuten saiatuko gara orain hemen.

Lehenik eta behin, gure abiapuntuari begiak irauli eta aldeztu nahi dugun tesia errepikatuko dugu: gure ustez, hizkuntzalaritza-filologiezkoetan, Mitxelenak euskara noranahiko-hiritarra mamitu du. Hau erakutsi gogoz, hain zuzen ere, arakatu dugu horretara bultkatu duten arrazoietan, nekez uler baitaiteke Mitxelenak egina zergatik egin duen aurrean izateke. Horren beraren kariaz ikertu ditugu Mitxelenarenak, gure hipotesia egiaztatzen ala gezurtatzen duten frogatzeko asmoz.

Mitxelenak ezinbesteko deritza euskara gaitze eta eguneratzeari, gizarte-aztura berrietara egokitzeari, hizkuntzak bizirik iraungo badu.

Alabaina, errenteriarrarentzat ezin euskara hegaldaraz daiteke hutsetik hasita, "atzea dantzan jarriz aurreak erakutsia" gogoan izan gabe[1]:

> Horrexegatik jokatu behar genuke, nik uste, inoiz baino bortitzago, tradizio-haria ez dadin gure artean eten; ur-haizeen joera lagun ez dugunez gero, ez dezagun orain sekula baino galera galgarriagorik izan. Nik ere, Xabier Letek *Zeruko Argian* idatzi duenari nagokiola, ez diot inori hautatzeko –hartzeko nahiz arbuiatzeko– eskubiderik kentzen, baina ez dut aukera neure eskuko, inoiz izan baldin badut, eta loturik naukan hari horri eutsi beharrean suertatzen naiz, beharrik ala damurik, nahi badut eta nahi ez badut (...)
>
> Bestela badirudi ere, inoiz baino begirago egon beharko genuke orainaldi igaroari, etorkizunaz atzendu gabe noski eta etorkizunaren zai gaudelako, hain justu. Besteak beste, lehen egin izan dena egina dago, nahiz gaizki egina idurritu guri; lehen esana esana dago, oker esana dagoela baderitzagu ere. Ez garezen beti, hainbeste aldiz egin dugunez –eta lehengora nator berriz, predikari gogaikarriaren antzera–, huts-hutsetik abia: lur landuan, nahiz eta erdizka eta exkax landuan, aisago ereingo dugu erein behar dugun hazi berria. Etxeparek bere liburuaren azken lerroan ipini zuen besteren hura, *debile principium melior fortuna sequatur*, entzun izan bagenu, beste ollar batek joko liguke orain kukurruku. (1978b:27,30).

Hemen dator tesiaren lehen zati nagusia bete duen ikerlana. Gibelera begiratzen du Mitxelenak gogaide zein dituen ikusteko eta hor aurkitzen Larramendi, Orixe eta Lizardi buruen-buruenik, azkenaren neurtitz-ikurritzek uztarturik: "euskara larrekoa, noranahiko nahi izatea".

---

[1] Mitxelenaren historiarekiko atxikidura hagitz nabarmena da, batek baino gehiagok esan duen bezala (Gorrotxategi (1987), Lakarra (1987), Salaburu (1987), Urgell (1987), esate baterako).

Egingo genuke beragandikako isuri-apetetatik harantzago doala: hemaren eta hizkuntzaren sena eta euskarria horixe bilatu eta aurkitu bide ditu.

Bakoitzari zegokion kapituluan erakutsi uste dugu zerk lotzen duen eta zerk bereizten horiengandik, zer goraipatzeko eta zer bezteko aurkitzen dien, eta ikusi dugu guztiaren gainetik asmoa dutela lokarri etengaitza[2].

Hauengan ikusi du Mitxelenak bera ere lanera akuilatzen duen asmo bera eta nahikunde hori berori du iparrorratz bere ihardunean.

Alabaina, puntu honetan gertatzen da, gure ustez, aitzindari hautetsiekiko "nolakotasunean jauzirik" larriena. Izan ere, beste hirurek kanpoko etsaien oldarrei aurre eginez irten dute plazara (garaian garaikoak eta hurrenez hurren izendatuz Mayans eta, Unamuno...).

> Ez digute, erabat esanik, euskaraz idaztea debekatu, are gutxiago irakurtzea: badakit ez dutela esana ontzat hartuko euskaltzale askok, beharbada gehienok. Gogo onez, are onegiz, mintzatzen dira modu honetan, geure gaitzak besteri egotzi nahian, baina eskaini dituztenak baino arrazoi bortitzagoak eskaini beharko dituzte honako sinesgogor hau beren bidera eraman nahi baldin badute. (1986a:125).

Mitxelenak, aldiz –eta euskal lanak ditugu batipat aurrean– kanpora eta erdarara gabe, bertan, euskaldunengan ikusten du arrisku mota batekoa bederen[3].

Arriskuaren alderdirik bortitzena, euskaldunen (iparraldekoen eta hegoaldekoen) arteko osina handiagotzean datza, euskara ordurarteko era- eta moldabideetarik atzenduz abiaraziz, nahiz erdararen neurrigabeko aginteari atea zabalik utziz. Honela, gure ustez, euskararen batasun-apurtzailea, euskara noranahikoaren oztoparri bilakatzen da, lehena bigarrenarentzat ezinbesteko igarobidea baita.

Garaikide horiei borrokatzen zaie batipat Mitxelena, aldian aldikoak beztuz: garbizale muturrekoen kontra sasoi batean, narras- eta mordoilozaleen kontra urteek aurrera egin ahala.

Mitxelenaren kritikagintza eta onartu-arbuiatuak direla eta, gure ikerketan zehar topaturiko zenbait gertakizun deigarrik begietan eman gaituzte.

Hona laburbilduz harridura-bizgarrietariko zenbait, tesiaren lehen zatian gaindi ikerkizun hartuen arteko berdintzeak azalean jarri dituenak:

- Larramendik zuzen jokatu omen du euskaldun aldikideez gain, begiak gorago eta urrutiago hedatu dituelako.

Aldiz Olabide eta oker aritu dira bere lanak zertzean "amets-euskaldunak" izan dituztelako gogoan eta ez garaikoak.

- Larramendik itxura gaiztoko hitzak sortu baditu ere, ez bide du beti eta erabat horren trakets jokatu. Larramendiren berrikuntzak, hein batean bederen, ez dira gaitzestekoak.

---

[2]Han eta hemen, tarteka, halako Mitxelenak darabilen hitzari moldezko sorturtea alboratu badiogu ere, ikusi den bezala, gure tesiaren atal hau ez dugu hiztegi edo hizkera aldetikako eraginean funtsatu, asmoen mailan baizik.

[3]Esango genuke, inoiz eskatu duen "arrazoi-adinera" iristeak dakarrena bizkarrera duela Mitxelenak.

Ez du Mitxelenak, halaz ere, Larramendiren hitz-sorbideen azterlan zorrotz-zehatzik egiten.

Orixe eta garbizaleak deituak, berriz, alderdi honetatik -besteak beste- behin eta birritan jipoitzen ditu.

- Azkuek (garai bateko Azkuek, hobeto esan), Aranak (dituzten merituak ukatzen ez dizkiela), hauen jarraiietzakoek, Orixek... ez dute berrilana hiztegi soilera mugatu, morfologia eta sintaxiraino zabaldu dute ariketa, Mitxelenaren gaitzespena irabaziz.

Aitzitik Oihenart[4] ez du bezten Mitxelenak, nahiz eta hiztegi-hornitzean eta, batez ere, adizkien sailean erne-indarra dantzatu duen.

- Larramendik zuzen jokatu omen du euskalki guztiak aurrean izan behar direla esan duelako.

Sarritan hartuko du kritikakizun zenbait garbizaleren "euskalki-nahastea".

- Larramendik eta bere garaikoek lasai erabil omen ditzakete *amatu* bezalako hitzak, adiera-esparrua ederki finkatua dutelako.

Egungo euskaldun zabar-traketsek, berriz, ez dute burua nekatu gogo eta prest daude ERDARAtik heldu den edozer besoak zabalik hartzeko.

- Orixeren "noiznahikotasuna" ez zaio Mitxelenari kritikatik itzuri.

Haatik, alderdi hauxe goraipatzen du Lizardigan.

- Eta buruen-buruenik: oso harrigarria (adierazgarria?) egiten zaigu Lizardiren hizkeraren aurrean Mitxelenak duen jokamoldea. Ez du juzkupean hartzen, modu oso zabalean baizik; ez du haren erabilera zehatzen berri ematen; ez du kritikarik egiten.

Esan dugun bezala, xeheki eskuztaturiko euskal idazleen artean, literatur kritikari gehien atxikia eta hizkuntz azterketatik urrutiena Lizardiri egiten diona dela iruditzen zaigu.

- Batzuetan, norbaiten lanazko aburua eman duenean arriskatu edo egiten dela dirudi. Geroagoko lanetan behin baino gehiagotan zuzendu, zehaztu... behar izan baitu lehen esana: Olabideren *izorratu*, Hiribarrenenganako Larramendiren eragina, Azkueren *Bein da betiko* irakurri gabea zuelako aitorra, *Gavon-sariacen* aitatasuna zela eta Larramendi eta Peñafloridaren arteko auzian Kontearen gainean esanak...[5]

Bestetan, berriz, pentsa daiteke, apika, beste helburu batzuk nagusitzen zaizkiola edo kritika egiten duenean; esan nahi da, mintza eta azterkizun duenaz bakarraz baino harantzago begiratzen duela, bai bezterakoan bai goraipatzean, eta horien baitan epaitzen.

Honek guztiak ematen al du bide pentsatzeko Mitxelenak ere (Orixek -eta nork ez- bezala?) aurkaesanak edo aurkaesan itxurakoak bizi dituela? filia-fobiek eragiten diotela?

---

[4]Eta iruditzen zaigu L. Eleizaldez antzeko gauza esan daiekeela.

[5]Gehi, Mendibururen edo Tartasen hizkerari buruzko lehen juzkuak. Jakina, duela gutxi arteko aspaldiko euskal testuen ezaupidea eta zabalgoa ez zen oraingoa. Hala ere, gogoan izan beharra da.

18.2. MITXELENAK GAITZETSIA

Zer egin du, bada, Mitxelenak egokierak horretara duenean? Aurkitu al dugu koherentzi ezik besteri eskatu eta berak mamituaren artean?

Kritikatuen jokamoldeen lerro nagusienen arabera antolatuz, honakoak bereziko ditugu, gero Mitxelenak egin duenarekin erkatu asmoz.

18.2.1. HIZKUNTZ IDEIETAN, EUSKALARITZAN

Gai honek biziki kezkatzen duela Mitxelena ikusi ahal izan dugu tesian zehar, gogoratu besterik ez dago puntu hau dela eta hainbati egotzia (Azkue, Arana, Orixe, garbizaleak oro har...).

Mitxelenak euskararentzat eta euskalaritzarentzat kaltegarri izan diren jokamoldeen atzean hizkuntz ideiez, hizkuntzalaritza-filologiez dituzten irizpide okerrak ikusten ditu. Hor datza gaitz ugariren sustraia.

Ez da tradizioa – euskal ahozko eta moldezko tradizioa– behar bezala hartzen eta ikertzen. Egundoko garrantzia du zeinahi hizkuntzarentzat bere historiaz sakonki jabetzea, etorkizunak hortxe baititu zainak. Areago euskararentzat, hantxe baitatza euskararen batasuna[6].

Amesten den iraganaldi lekukorik gabea nahiago bide dute, aitzitik, gorde ahal izan diren testuek erakusten dutena baino. Alde honetatik, beraz, ez diete inolako begirunerik berez argibide behar luketenei.

Ez du hizkuntzalaritza-filologiek emeki-emeki erdietsi duten ezaupidearen islarik ikusten askoren euskal azterlanetan.

Nahiago bide dute, antza, ametsezko zutabe atseginagoetan funtsatu, beharbada, nekezago eta ez hain atsegin diren egiazkoetan baino.

Honela nekez egingo da aurrera; euskalaritzak eta euskarak ez dute eta zimentarri sendorik.

Beraz, zer dakar berri Mitxelenak honetan?

18.2.2. HIZKERA-MOLDEAK

Ikusi berri puntuarekin guztiz iotuta daude Mitxelenak bere "bazter-garbitzean" kritikatzen dituen hizkera-moldeak. Izan ere, okerreko abiapuntua dutenez gero, emaitza ere horren araberakoa da.

---

[6] Eta Euskal Herriarena, esan dugun arren berresango genuke; hizkuntza baino uztarri sendoagorik nekez atzemango da eta.

18.2.2.1. Garbizaleak

Garai bateko garbizaleen kontra mintzatzen da Mitxelena han eta hemen.

Hauek erdal usaineko oro baztertu eta, eskumikatuen ordez inolako zainik gabeko hitzak asmatu dituzte.

Hitz-eraketari ekiten diotenean ez dabiltza hagitz zuzen.

Adizkietan ere ez dute kupidarik paradigmak bere "logikak" agindu bezala asmatu eta erabiltzeko.

Deklinabide-atzizkiak ere gogoak eman bezala darabiltzate, berez duten balioa aldaraziz.

Nahastea, anabasa da gailen idazlanetan (itzul nahiz sortzekoetan): ortografian, hitz-aukeran –euskalkietatik irizpiderik gabe hartu eta nahasten dute–.

Ahozkotasuna testura daramate, ebakerazko txokokeriei moldezko izaera emanez.

Euskal idazle zaharrei begiramenik ez diete.

Honek guztiak dakarrena da euskararen atzoaz ahanztea eta euskarak –bizirik iraungo badu eta noranahiko bilakatuko bada– hain premiazkoa duen izkribuzko molde finkorik gabe uztea[7].

Hortaz, Mitxelena narras- eta mordoilozalea al da?

18.2.2.2. Narras-zaleak

Hauek berriz, nagikeria dute gidari.

Euskal erabideek eskain diezaieketenari etekina ateratzen bururik nekatu nahi ez eta, beste gabe errazenera jotzen dute: mailegutza neurrigabera, maizkara, nazioartekotasunaren aitzakiatan.

Hori bakarrik ez; ustez euskal moldeak eratzen dituztenean ere, euskal gaiztoz ari dira, eredu betibateko eta erabateko bakarra gaztelania dutelako.

Ez dute gainera gogo iraganean murgildu eta jakingarririk ba ote dagoen ikastea. Aurrekoek bezalaxe, irizpide okerrekoetan oinak finkatu dituztenez gero, beste gabe

---

[7] Egia osoa zor badugu, ezin isilpean utz dezakegu Mitxelenaren testuek behin baino gehiagotan harrigarri samarrak ere badituztela.

Esate baterako, honakoak irakur daitezke lehen argitaraldietan:

Ortografiazkoak (*paper zar* (1972a), *ar* ('izizare'), *ori* (erak), *aize, auteman, arrezkero* (hauek guztiak (1963a) lanean), *haintzakotzat* (1983c), *aize berriz* ere (1984b), *auteman berriz* ere (1985a), *saiestu, orratik* (1985d)...

-a berezkoa duten hitzak halakoa gabe: *jakinduri* (1958i), *kate* (1961a), *jakituri* (1962a), *egizko* (1983a), *aitzaki* (1984b), *emaitz* (1985b)...

Erakusleak: *hontan* (1977a), *hortaz* (1982a), *honuntza, hontan, honera, harek* (1983a), *honeraino, horreraino* (1985c)...

1930tik (1958i), *edozein nabarmenkeriatik* (1961e), *bestetaz* (1982a)...

NORK pluralezko marka behar duenean, *-ak*: *estuegiak* (1956a), *agintariak* (1978a), *basabenak* (1985a), *modu berriak* (1986a), eta alderantziz: *gainerakoek* (1984b)...

Aditz-oina beharrean, aditz-partizipioa: *aurreratu daiteke* (1953e), *mugatu daiteke* (1968c), *azaldu daiteke* (1984b); aldrebesko *har behar litzatekeenik* [Jat, *litzakeenik*] (1972e:158)...

Halaz ere, Mitxelenak kritikatuen ondoan, hauek txikikeriak direla esango genuke.

Ikus hauen ingurukoak xeheki argitaraldiezko itsaskinean.

arbuiatzekotzat dauzkate aurreko belaunaldiengandikakoak.

Ondorea: mendekotasuna aldeka guztietarik, bai hizkuntzaren itxurari dagozkion alderdietan, baina baita adigaien mailan ere.

Zer dakar, orduan, jokamolde honek hondarrik hondarrenean?

Euskararen atzoaz ahanztea, berriz ere, eta euskaldunen arteko osina larriagotzea.

Hortaz, Mitxelena garbizalea al da?

Uste dugu egokiena dela paraturiko galde hauei guk Mitxelenaren hizkeran atzemanen bitartez erantzutea.

18.3. MITXELENAK GATZATUA[8]

18.3.1. MITXELENAREN ASMO-IDEIAK

18.3.1.1. Mitxelenak egina ulertu ahal izateko, ideietatik abiatzeari deritzagu egokiena.

Mitxelenak, esan bezala, hasiera-hasieratik garbi du euskarak eta euskaldunak aurrera egingo badute, iraganean bilatu behar dituztela oinak. Desio duen "euskara hiritar-noranahikoa" ezin gatza daitekeela hutsetik hasita, nondik heldu den erdeinatuz. Atzoak, historiak, beraz, berebiziko garrantzia du Mitxelenarentzat.

Kondairazko ikuspegia, haatik, ez da besteri kritikatu bezalakoa. Mitxelenak bere burua prest agertzen du iragana bere hartan onartzeko, on eta makur, hitz jatorrizko eta etorkin, gezur barren-lasaigarria baino nahiago baitu egia, denik mingarriena eta uste eder ukatzaileena denik ere.

Historia garrantzitsu horren berri ikasteko, euskalaria ezin atzen daiteke mundu zabaleko jakiteen aurrerakuntzez. Ezinbestekoa da, beraz, jakiteek eskaintzen dituztenez baliatzea, oinarri sendorik ezarriko bada. Era honetan, gainera, anitz euskal gertakari ilun argi daitezke. Beraz, mundu zabaleko jakintza eta euskal barrutia uztartzen ditu Mitxelenak.

Puntu honetan azpimarkatuko genuke Urkixok[9] Mitxelenagan izan bide zuen eragina, batzuetan errenteriarrak berariaz aitortua:

> Idazlan labur, apainen bidez euskal kulturaren historiari, literaturari buruz, batez ere oinarri sendoak ematen inork ez bezala lagundu du. Hamaika argitasun ez ezik besterik ere utzi digu: jakite-bide horietan barrena ibili nahi luketen ondorengoei ikasbide ederra. Gogor hartzen zuen bere burua eta bai besteak ere. Bai baitzekien jakintza gaietan borondate eta asmo onak, onenak direla ere, ez direla aski, eta ez zitzaion iruditzen elkar zurikatuz ezer aurreratu [sic] daitekeenik. Zehatz eta zorrotz neurtzen zuen beraz zer zen egia, zer egi-antzekoa, zer uste hutsa; zer gertatua eta zer asmatua. Hauxe gogoratzi nahi zigun nonbait: hemen ere bide estu eta nekagarriak, zabal-atseginak alde batera utzirik, hautetsi behar direla, oingi ibili nahi badugu.
>
> Hortik zuen noski arrotz-zale zelako izena. Ez zen gauzak dauden-daudenean hartzen dituztenetakoa. Beretarrenak, etxekoenak, baldin baziren batez ere. Arrotzengandik zer ikasia ugari bageneukalakoan zegoen. Zuzen, noski. Euskal-herria da, jakina, euskal-kultura galak lantzeko lantegirik egokiena, sortze eta izatez horretarako aukeratua. Baina ez da berez, besterik gabe, halabehar hutsez, ikas-leku nagusi bihurtuko. Hori jakinik sortu zuen bere aldizkaria, lurbira osoan euskal-jakingaien berria zabaldu ziuen RIEV hura. Eta hortara zuzendu zituen gero ere bere ahaleginak. (1953e:69,70).
>
> ... Ez zituen nonbait begi onez ikusten delako adiskide horrek Urkixoren ahaleginak euskal gauzen jakiteari oinarri sendoak emateko, euskaldunon zenbait uste kultun urratu behar bazituen ere horretarako (...) Egia zor diogu euskaldunok geure buruari aurrenik eta besteri gero. Egiaren

---

[8] Mitxelenaren "eredua" (Mitxelena "patroia") hitzegitea zilegi al litzateke?

[9] Honen 1918ko lana dugu batez ere gogoan.

gainean landatua izan den jakitea, harri-gainean eraiki zuten etxearen antzera, iraunkorragoa[10] izango da urteen buruan. Baita probetxuzkoagoa ere guretzat, besterik uste izan arren norbaitek (...) Eta Urkixo azkenik, euskal filologiari zimendu sendoak eman zizkiona Euskal herrian. Ez zuten hura salhestu bidetik ez urre-kolorezko harri-koskorrek ez perlarri-itxurako kristal-puskek. Ez zuen, ordea, behinere utzi jaso gabe gurasoen eta geuron zabarkeriak sakabanatu duen ondasunik. Larramendik zioen[11] bezala: "Nere min garratzena da, are eztacuscula onetatic darraizcun calteac eta galtzac eta, dirudienez, ezagutuco ere eztitugula, ditugun on piscac galdu ditzagun artean". Ez dakigula behintzat horrelakorik berriz gerta. (1961a:47,48,61).

Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, «Urkixotarrak» direlakoak ere: badirudi gainera, eta ez ninduke horrexek minduko, neure buru tristea ez dabilela horiengandik urruti. Hizkuntzaren gorputz ustelkorrari, usteiduari ez bada, lotuak daudelako, hura pizten duen izpiritu biziari jaramonik egin gabe.

Aldez arrazoi du horretan Oteizak, nik uste, eta aldez ez. Jakintza ez da gizon osoa, gorputz eta arima, bere ahalmen guziekin, ase dezakeen gauza. Jakintzaz gorago, behar du beste hazkurririk. Ametsa, mitoak, bizi du egiak adina.

Halaz guztiz, beharrezko du jakintza ere, eta jakintza ezin daiteke bestetan bihurtu [sic], jakintza izango baldin bada. Jakintzarentzat, esate baterako, hizkuntza bat besterik ez da euskara, bere nortasun eta historia bereziaren jabea, noski, baina beste edozein hizkuntzaren kidea, halaz ere, funtsez eta muinez.

Gu, gainera, jakintza hutsaren eta soilaren premia larrian gara, haren fruituak ezagutzen baititugu hura bera baino areago. Eta jakintzak darama batipat mundua dabilen bideetatik. Onak nahiz kaltegarriak izan, nekez aldatuko ditu inork egungo egunean.

Mitoek berek, zein eta beharrezkoak zaizkigun, gehiago iraungo dute arkaitz gogor horren gainean eraikiak izan badira, hondar higikorretatik urruti. Baina, nolanahi ere, artortu behar da ez duela jakintzak aginte zorrotzik irudimenaren ere.nu lainotsuan. (1963g:119).

Iruditzen zaigu aldatu hiru pasarteok aski adierazgarriak direla Urkixoren urratsetan Mitxelenak bere buruari ezarririko buruzpidea aditzeko[12].

Ingurumari honetan, guk uste, ederki ulertzen da bestegan hainbestetan beztekorik aurkitzea: ez da euskara hiritar eta noranahikorik erdietsiko, sostengu behar duen euskalaritza gotorrik oratu ezean.

Beraz, garbi dago zer duen eskakizun Mitxelenak euskalaritzak (beste jakiteek beste) aurrera egin dezan.

18.3.1.2. Alabaina, aski al du Mitxelenak **euskarari buruz** besterik gabe aritzea? Eta bestetik, egia al da berak inoiz esan izan duen bezala, erdaraz ere euskarari mesede egin dakiokeela?

Gure ustez, euskarari buruz bakarrik ez, mugen eta hizkuntzen banaketarik gabe, jakiteetan jakingarriak direnak ere –hots, zeinahi hizkuntzalari-filologoren ardurazkoak direnak– euskaraz bakarrik ez, baina **euskaraz ere** adierazi ditu; hau batetik.

---

[10] Jat. *iraukorragoa*.

[11] Jat. *zion*.
Larramendi hor euskaldunen ezin elkartuaz ari da, halaz ere.

[12] Esan beharrik ez, bete ere bete duela euskaraz zein erdaraz mundura lanek erakusten duten bezala.

Bestetik –eta gure tesia honen erakusgarria dela deritzagu– Mitxelenak **erdaraz ere** euskarari mesede egin dakiokeelakoan dago; ez erdaraz bakarrik.

Aldezten ari garenaren irozgarritzat dauzkagu ondokoak. Nabarmenenak ekartzearren[13], honakoetara murriztuko dugu gure aukera:

1968an, **euskaraz**, txit artikulu garrantzizkoa idazten du Mitxelenak; "Linguistika berriaren berri onak" deritza. Bestek ere azpimarkatu duen bezala[14], garai hartan ez zen oso samurra lan horretan errenteriar hizkuntzalariak jorratzen dituenak beste hizkuntzetan (gaztelaniaz, urrutirago gabe) aurkitzerik. Nork zuen garai horretan Chomskyren Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailearen aditzerik? Nor zen gauza estrukturalismoaz eta Ameriketatik heldu zen linguistika berri horrezaz taxuzko kritikarik egiteko? Eta, berriz esan, **euskaraz** idatzi zuen Mitxelenak.

Puntu beraren bigarren eta azken adigarritzat, Mitxelenak erdaraz egin bai baina euskaraz argia ikusi zuen[15] *Zenbait hitzaldi* ekarriko genuke.

Gure ustez, bost mintzaldi horiek –Gramatika Sortzailea eta Bihurtzailearen gainekoak batipat– argi asko erakusten dute Mitxelena euskararen inguruko gauzez ez ezik, bestelako jakingarri berezituez ere euskaraz aritu dela.

Honenbestez, Mitxelena euskaraz aritu denean, euskalaritzari bete-betean dagozkionez mintzatu da, bai, baina baita eremu horretatik kanpokoez ere.

Eta hain justu hementxe kokatuko genuke agerian utzi nahi dugun gure tesiaren zioa: Mitxelenak, azterkizun hartu dugun azterresparruan, euskara hiritar eta noranahikoa gatzatu du[16].

18.3.1.3. Arestian jasoaren bitartez erakutsi uste dugu Mitxelenak zutabe sendoak ezarri eta mundu zabaleko jakiteak euskal barrutira hurbildu gogo dituela.

Beste urrats bat emanez, aldezten duguna da Mitxelenak euskara noranahiko eta hiritarra desiatu ez ezik, gatzatu ere egiten duela: hizkuntzalaritza-filologiez euskaraz ari

---

[13] Nabarmenenak diogu baina ez gara ahanzten, lanik aspaldikoenetara begiratuz eta gure aztergaiaren zedarrietarik inen gabe, 1958an, esate baterako, Orixeri erantzunez egiten duen mintzaldian Fonologia/Fonetikaz, azentuaz eta abarrez **euskaraz** adieraziez.

[14] Lakarra (1988:19).

[15] Gure ustez, Satrustegi (1987:18) ez dabil zuzen honeko bi puntuetan:

. Ez omen du Mitxelenak "hizkuntzalaritzazko gauza teknikorik" euskaraz idatzi, horren premiarik ez ikusten eta.

. *Zenbait hitzaldi* [ez al da *tekniko*?] osatzen duten mintzaldiak **euskaraz** egin omen zituen Mitxelenak.

Letamendia itzultzaile-paratzaileak argi eta garbi dio hitzaurrean (11. or.) mintzaldiak erdaraz izan zirela, batetik, baina baita erantsi ere, *Zenbait hitzaldi*, hein handi batean, euzolana dela.

Honen gainean esan ditugunak errepikatzen ez gara ariko.

[16] Ez dugu esan nahi arlo honetan bakarrik halakorik egin duenik. Aipatzekoak dira, zine-kritikak (Mujikak (1987) lehen euskal zine-kritikari bataiatzen du), liburuezkoak eta, oro har, *Egan*en eta argitara emandako hizkuntzalaritza-filologiez kanpoko lanak.

denean, hain zuzen ere.

Mitxelenak, arlo honetakoek euskal mintzabidea izan dezaten nahi du. Alabaina, gure ustez, ez dira atzentzekoak bidera ateratzen zaizkion oztopoak; zenbait arlotan ia hutsetik hasi behar du terminologia eratzen, eta bide-urratzailearen arrisku eta zalantzabideei aurre egin behar die[17]:

> Abiatu baino lehen, horratik, gaiari zuzen-zuzen dagokion oharren bat edo beste egin beharrean naiz. Aurkitzen[18] naizen egoerak badu antz pixkaren bat Alta Adani inoiz gertatuarekin. Badakizue Genesis 2,19ko hura: Jainkoak, alegia, lurreko animaliak eta zeruko hegaztiak sortu ondoren, harengana eraman zituela, «nola deituko zituen ikus zezan». Ez dago, noski, ilunegi adierazi nahi dudana. Erabili asmo dudan saila ez da maizegi jorratua izan euskaraz (Txillardegi dugu, nik dakidanez, linguistika «berriaz» gure hizkuntzan mintzatu den idazle bakarra), eta noraezekoa dut hitzen aukeramena neure gain hartzea. Batzuetan, beraz, ez da erraz izango euskal ordaina asmatzea; beste zenbaitetan, berriz, hitz ugariegi izango ditut irispidean («aukeraren maukera, azkenean okerra», esaera zaharrak zioen[19] bezala) eta bata jo beharko dut begiz, besterik ezinean, gainerakoak baztertuaz, gogoak eta oldeak hala ematen didalako, zentzu berdintsukoen artean hautatuaz[20]. (1968c:90).

Mitxelena ongi ohartua da bere buruari agindutako eginkizuna erronka duela, hizkuntza bide berrietarik abiarazi behar duela, eta gainera, jakiteek berea duten zehaztasunari ere ezin muzin egingo diola. Dudarik ez dago, guretzat, "euskara hiritar eta noranahikoa" iristea hortxe duela akuilari.

Hemendik beherakoan paperera aldatuko dugu gure ikerlanak agerian utzi digun Mitxelenaren hizkera noranahikoaren osagai den hitz-altxorraren nondik-norakoa, orain arte erantzunkizun utzi ditugun galderei erantzun asmoz[21].

---

[17] Puntu honi gagozkiolarik, uste dugu baduela antz pixkaren bat Azkuek atortuarekin, batak eta besteak hautetsiriko irtenbideak hari berekoak ez badira ere.

Azkuek, bere 1891ko gaztaroko *Izkindea* egiten duenean, terminologiaren premia sumatzen du eta irakurlean barkamena eskatu beharra:

"En primer lugar, era necesario crear toda una terminología gramatical, nunca desarrollada en vascuence [hau euskaraz idatziriko lehen gramatika bata]. Azkue se disculpa por entrar en el campo peligroso de los neologismos, pero aunque halla que el lector puede quejarse de oscuridades y de sentir cierta dificultad para acostumbrarse a ellas, y cierta insatisfacción por la novedad, confiesa que no tiene más remedio que acuñar los nuevos términos, ya que –dice p. VIII– «no siendo en eúskara, no habría de escribir gramática alguna»". (Tovar 1966:60).

[18] Jat. *arkitzen*.

[19] Jat. *zion*.

[20] Hurrengo beste hau ere, zalantzabidearen lekuko egokia da, gure aburuz:

"Badakit euskarazko *esaera* lasaiegi datorkigula, noiznahiko esanak «esaerak» direlako ezinbestean: dena den, nik *esaera zaharrak* direla entzun dut hauntandik hemen ahotan hartzera noanak. Ultzaman Izagirrek jaso zuenez *erran-aireak* omen direnak. Badakigu, esanez gainera, *atsotitza* XVII. mendeko hitz «berria» dela (...) *Errefrau*, berriz, mugatuegia iruditzen zait alde batetik eta zabalegia bestetik: nahasgarria beraz..." (1985b:186,187).

[21] Tesi-lanean zehar papereratuak eta ondorioztatuak ez ditugu, beraz, premiazkotzat ikusi ezean, errepikatuko, lehen esan bezala.

18.3.2. MITXELENAREN HIZTEGI BEREZITUAREN EZAUGARRI OROTARIKOAK

18.3.2.1. Mitxelena izen-emailea

Lehenik eta behin izen-emailearen kezkabideetatik hasiko gara.

Aldatu ditugun Mitxelenaren hitzak, noraezean[22] ibiltze horren lekuko argiak dira[23] eta Mitxelenaren aitorrak badu, gure ustez, ondorerik berak gatzatu eta mamitu hitz-altxor berezituan.

Hitz bakunen atalean ikusi dugu Mitxelenak maileguak egokitu behar dituenean ez duela beti jokamolde erabatekorik (*dialekto/dialektu, hipotesi/hipotesis*...), baina halako saiorik egin behar ez duenean ere, molde bat baino gehiago usatu duela (*ageri/agiri, galde/galdera, mailegu/mailebu*...) are lan garaikideetan ere.

Hitz eratorrietan ere antzekoarekin egin dugu topo: *gramatikalari/gramatikari, kontalari/kontari, histori(a)(o)lari, gertari/gertakari, ebakera/ebakiera, adimen/adimendu, hondamen/hondamendi, ukamen/ukapen, esakuntza/esaldi/perpaus/orazio*[24]...

Hitz elkartuetan, beste horrenbeste: *agerbide/agerpide, azterbide/azterpide, hitz-sorketa/hitz-sorbide, lekualdatze/tokialdatze, burmuin/burumuin, izenaldameneko/izen-ondoko, harreman/hartu-eman, izen(-)ordain/izenorde, erakar edo eratorbide, kontsonante multzo/kontsonante talde*...

Batzuetan, aukera-aniztasun honen atzean, mailegu-itxura garbiagokoa eta euskal moldera eratua elkarganatzea egon daiteke: *kualitate/nolakotasun, trinko/sintetiko/bakun, bakarkako/indibidual, orazio/esaldi, historia aurreko/prehistoria, izen-ondo/izen-oin/tema, hitz-elkarketa/hitz-konposaketa, atsotiz bilduma/errefrau bilduma, fosil/aspaldiko arrasto, hots-bereizkuntza/soinu-bereizkuntza*...

---

[22] Zabuka ibiltze hau ez dagokio soilik euskarari. Dubois-ek (1966) azpimarkatuaren arabera, tradizio handiko hizkuntza estandarizatuetan ere terminologia oratzen ari denean, sarritan polimorfismoa, polisemia eta (arlo honetan berez hagitz desiragarri ez diren) antzeko gertakariei aurre egin behar izaten zaie.

[23] Gure hiztegira igortzen dugu pare elkartuak xeheki ikusteko.

[24] Hona guztiz egoki datorren Sarasolaren hau:

"Badaude aztarnak, Hegoaldean eta Larramendiren garaian, hitz eratorri asko -are arruntenak- «herrikoiak» ez zirela ikuserazten dutenak. Esaterako *asiera* «betidanikoa» bazen, zertara zetozen Mendiburu baten zalantzak *asiera* eta *askuntza* baliokideen artean? Honelako duda-mudak -egile beraren *aitatasun/aitanza*, Cardaberazen *erraztasun/erraztura* eta abarrek bezala-, eratzen, sortzen ari den hitzberri-sistema batean hatsbeharrez gertatzen diren zalantzen adierazgarri dira. Hitzberriak sortzen ari zirela eta hitzok ez zirela «herrikoiak» ikusteko, cf. «Gure gizon ta andra baserrietacoac chit ederqui, ta bear bada inoc ez becela, itzegiten dute berai dagozquien gauza ascotan. Ordea ez luquee jaquingo nola zucendu itzac gauza goratu ta beren gañeticoetan» (J. A. Mogel *Eracasteak* vii)". (Sarasola 1986:207).

Euskalki desberdinetarik hartzen du: *hitz andana*[25]*/hitz mordo*[26], *erregela multzo*[27]*/erregela sorta*[28], *barne*[29] *egitura/barren*[30] *egitura*...

Adigaia gorpuzteko hizkuntz molde desberdinen aukera erakusten dutenak ere ez dira falta: *azpian datzan egitura/azpiegitura/egitura sakon, berdin dena/guztiekiko(a)/unibertsal(a), konta daitekeen izen/kontagai, bazterrik ez duen esaldi multzo/esaldi kopuru neurrigabe, eskutada bat bereizgarri/bereizgarri mordo/bereizgarri multzo*...

Bikote-hirukoteok (eta laukote bakanok) frankotan Mitxelenak berariaz osatuak dira, parentesiez[31], koma tartean paratuz[32] orobat esan, aposizio-iraulpenez , argibideez[33]

---

[25]*OEH*: "Documentado a partir de mediados del s. XIX en Larramendi y en autores septentrionales, sobre todo bajo-navarros, entre los meridionales, se encuentra, en la primera mitad de este siglo en Goñi, Ayerbe, Lauaxeta y Orixe".

[26]Mitxelenak darabilen adieran, *DVEF*: B-l-m, Gc.

[27]Mitxelenak darabilen adieran, *DVEF*: BNc, L.

[28]*DVEF*: AN, B-a-el-m-mond-o, Mitxelenak darabilen adierari dagokionez.

[29]*OEH*: "Documentado en la tradición septentrional, aunque en algunos autores labortanos del s. XVII y principios del XVIII (Materre, Etcheberri de Ziburu, Axular, Etcheberri de Sara) sólo se encuentra *barren*. Se documenta así mismo en textos alto-navarros, baztaneses, salacencos y roncaleses. A partir de principios del s. XX se extiende a la literatura occidental".

[30]*OEH*: "documentado en autores guipuzcoanos, alto-navarros y labortanos. Entre éstos últimos es general en el s. XVII y, aunque se encuentran ejemplos de todas las épocas, su empleo se reduce significativamente -sustituido por *barne*- a partir de principios del s. XVIII. Hay tbn. algún ejemplo vizcaíno del presente siglo".

[31]Hemendik behera oin-oharretara ekarriko ditugunek, erakusgarri xume bat besterik ez dute osatzen.

"Euskaraz maiz erabili behar diren di[a]gramak (bi letra berdin nahiz ezberdinen elkarteak hots bakarra edo adierazteko) hauek dira". (1968d:137).

"... behar-beharrezkoa dugu erabateko hiztegia («general» esan nahi dut)". (1968e:75).

"... genitibo [Jat. *genitivo*] direlako *-(r)en* eta *-(e)ko* atzizkiak formaldatze [Jat. *antzaldatze*] (*transformation*) bidez sortzen direla esan zuketen". (1971e:106).

"... bai halere azpian datzan (*underlying*) egituran". (1971e:107).

"Eta bereziki hemen, osagaien arteko etena (*break*) edo ebakidura (*caesura*) adierazi nahi du...". (1981c:142).

"Perpaus zatiak aurreratzea edo atzinatzea (*fronting* delakoa, erabateko izenez) ez da euskaraz bakarrik gertatzen den gauza". (1981c:159).

"Portaeraz baizik (*behavior* delakoaz) kezkatzen ez denak...". (1985a:117).

[32]"Xixtu-hotsekin, sibilanteekin, ere bada horrelakorik...". (1968d:138).

"... izen-jokoa, dekinazioa, batetik, eta aditz-jokoa, konjugazioa, bestetik". (1968d:149).

"... kualitate bat, /nolakotasun bat/, kolorea esate baterako...". (1972b0:26). /Mitxelenak erantsia/.

"Hori da berrizkatzailea, *recursive element* deritzana, ...". (1972b4:78). (Mitxelenaren irakaspaperetakoa).

"... egoera jakinak (mugatuak, beraz) dituen automata batetan, ingelesez *finite state automaton* deritzanean, ...". (1972b4:83). (Mitxelenaren irakaspaperetakoa).

"trasformazio bati *salua veritate* izan dadin [Jat. *dedin*] eskatzen bazaio, egia salbu euskaraz, aurkitu du..." (1972b4:91). (Mitxelenaren irakaspaperetakoa).

"Badugu, beraz, mintzoa, hotsen ebakera, alde batetik...". (1979g:175).

"Aditza bakuna denean, sintetikoa, ezin ager daitezke...". (1981c:147).

"Galdegaiaren aurreratzea, *topic fronting* delakoa, Axular eta Tartasengan aurkitu du de Rijk-ek".

(*hau da, hots, bestela esan, alegia*... eta antzeko lokalluez zein gabe), *edoz* uztartuz[34] eta bestelakoez baliatuz azaltzeko, zehazteko, hizkuntzarteko ordainak agerian uzteko[35]... Baita tarteka ere berak berariaz proposatzen duen moldea dela aitortuz[36], osamodua agertzeko[37].

Uste dugu zokoratzekoa ez dela Mitxelenak oso gogoan duela irakurlea; izan ere, balizko euskal irakurle hori ere, bide horretan barrena saiatu gabea da, Mitxelenaren lan aspaldikoenen garaian batez ere. Alde honetatik, egingo genuke, Mitxelena bereziki saiatzen dela euskara-erdarak uztartzen, zeini beste hizkuntzan (hizkuntzetan) dagokiona azalera

---

(1981c:161).

"Hor ere erdibidetik, «zubigintzan», ingelesen *compromise*-ean, ibili zen Moret". (1983d:119).

"Gure erazle delakoak adizki trinkoak, sintetikoak, ditu formaren aldetik...". (1985b:190).

33. "... maiz ahotan hartu duten delako «isomorfismoa». Sustraietaraino bagoaz, ez du hitz honek besterik esan nahi, hizkuntzaren alde batek bestearekin, hizkuntza batek beste batzuekin, haiako antz eta egitea baduela baizik. Genienez ere, hain harroa ez den «homomorfismo» hitza aukera zezaketen itxuren berdintsutasun hori adierazteko...". (1968c:93).

"Sintagma hitzak /konponketa, elkartea edo konposizioa/ esan nahi du". (1972b3:53). /Mitxelenak erantsia/.

"Antzinako definizioak dioenez *aliquid stat pro aliquo* ageriko adierazleak agertzen ez den adierazia aipatzen du". (1972b3:57). (Osorik Mitxelenak erantsia).

"Aipatu dugun hipotesis hau, matematikoa delako huts-hutsik, egizta daiteke (hau da, egia dela froga daiteke), bai baita matematiketan bide ezaguna horretarako". (1972b5:71). (Hau ere osorik Mitxelenarena).

"*Competence* hiztunaren gaitasunari deritza". (1972b5:74).

"Aurrera gabe eta bada ezpada ere, ez da alferrik esana izango nik hemen «azentu» izendatzen dudana, beste zertzeladarik aipatzen ez den bitartean, ingelesezko *stress* nahiz *pitch*-en ordain bezala (*intonation*-ena baino areago, inondik ere) erabiliko dudala". (1981c:137).

